

**SANTA TERESA JESUS HAURRARENA
ETA AURPEGI SANTUARENA**

IDAZLAN GUZTIAK

KARMEL SORTA

Zuzendari: Julen Urkiza

Jatorrizko Titulua:

SAINTE THÉRÈSE DE L'ENFANT-JÉSUS
ET DE LA SAINTE-FACE
Œuvres complètes (Textes et Dernières Paroles),
Paris, Éd. du Cerf - Desclée de Brouwer, 1992

Liburuki bakarrean egiten den Santa Teresa Jesus Haurrena eta Aurpegi Santuarenaren frantsesezko «*Œuvres complètes (Textes et Dernières paroles)*» en lehenengo argitalpen hau Jacques Lonchamp-en zuzendaritzapean egina izan da.

“Mendeurreneko argitaraldirako” (1971-1992) egindako lanen emaitza da; mendeurreneko argitaraldi hau ondorengo lagunen artean osatutako taldeak burututako edizio kritikoa da: ahizpa Zezilia Lisieux-ko Karmelgoa, Mons. Guy Gaucher, o.c.d., Bayeux eta Lisieux-ko apezpiku laguntzailea, ahizpa Jenofa o.p., Clairefontaine-ko monastegikoa (1981ean hila) eta Jacques Lonchamp, Bernard Bro o.p. eta Joana Lonchamp-en laguntzarekin.

Teresaren testuak ahizpa Zeziliak finkatu ditu eskuizkribu originalen arabera (*Bestelako Idazkiak* izan ezik).

Itzultzaileak:

Luis Baraiazarra - Ana Urkiza
Patxi Uribarren - Luis Arostegi - Anjel Lobera
Pierre Charriton - Michel Itzaina - Jean Challet
Jeanne Marie Malharin - Angèle Teillierie - Marie Jeanne Minaberry

Zuzendari eta prestatzaileak:

Julen Urkiza - Andoni Olea

© Ediciones El Carmen (KARMEL)
I.S.B.N.: 84-7305-080-0
Legezko Gordailua: S.S.: 1.299/96


Fotokonposizioa: Itzaropena, S.A. - Araba kalea, 45 - Zarautz

**SANTA TERESA JESUS HAURRARENA
ETA AURPEGI SANTUARENA**

IDAZLAN GUZTIAK

(Testuak eta Azken Elkarrizketak)

**Markina-Xemein
1996**




KARMEL SORTA - 8



AURKIBIDEA

<i>Aitzinsolasa, Roger Etchegaray Kardinala</i>	9
<i>Aurkezpena, Guy Gaucher apezpikua</i>	11
<i>Hitzaurrea</i>	15
<i>Teresaren kronologia</i>	19
Eskuizkribu autobiografikoak	47
Gutunak	235
Olerkiak	531
Deboziazko solas-antzerkiak	675
Otoitzak	845
Azken Elkarrizketak	879
Bestelako idazkiak	1.067
Gehigarriak	1.113



AITZINSOLASA

Bozkarioz onartu dut liburu huni hasiera emateko egin dautaten gomita. Mende berrietako saindu gazte hunen, Teresa Jesus Haurrenaren idazlanak ene ama-hizkuntzan agertzeak atsegin handia egiten daut.

Lisieux-eko Teresa, mundu guzian ezagutua eta maitatua dena, Elizan estimu handitan izan da mende huntan guzian gaindi. Asko dira idazle eta teologoaren artean, misionest, artista, kirolari eta politika-jendeen artean, karmeldar gazte hunen grazia berezia goraiatu dutenak. Eta haren erakapen hain lañoak Ebanjelioan baiditu bere erroak, fruitu ederrenak ekartzen ditu.

Euskal Herria ere ez da estimu hortarik kanpo gelditu. Hain xuxen ere kanonizazioko agerian irakur dezakegu, hemen, Uztaritzen, Baionako diosesan, agertu nahi izan zuela Jainkoak Karmeldar gaztearen alde, Teresa dohatsu aitortzeko baitezpadako lehen urrats gisa mirakuilua eginez.

Bai, zinez goraiagarria da Euskal Herriko eskualde desberdinetako talde batek burutu izatea Teresaren idazki guzien itzulpen-lan baliosa, frantseseko argitalpen hunen arabera; *Oeuvres complètes (Textes et Dernières Paroles)* (Cerf. DDB 1992, 1600 or). Euskaldunek irakurri ahalko dituzte horrela haren idazki guziak beren mintzairan eta oso-osorik baliatu haren amodiozko mezua.

Bertzalde, Teresa Eliza katolikoaren Misionen zaindari edo patroin denaz geroz, on da Euskal Herriak, hainbeste misionest, Jainkoaren amodioari emanik bizi izan diren hainbeste gizon eta emazte eman dituen lur hunek, (horien artean Xabierreko Frantses saildua, misionen zaindari dena Teresarekin batean) haren idazkiak bere hizkuntzan izatea.

Teresa Jesus Hauraren eta Aurpegi Sainduarenaren erakaspén xume eta aldi berean sakonak euskal arima aberats dezala eta beti emankorrago egin, Eliza guzieren onerako! Horra zer nahi nukeen, eta zer itzaroten dutan lan eder hunen fruitu bezala.

+ Roger card. Etchegaray

Roger Etchegaray Kardinala
"Justizia eta bakea" Aita Sainduaren
kontseiluko lehendakaria.

AURKEZPENA

Esku artean duzun liburu hau luzaro itxarondako liburua da. Orain dela berrogeita bost urte André Combes jaunak hasiera eman, Aita Frantzisko Santa Mariarena karmeldarrak jarraitu, eta Lisieux-eko karmeldarrek, lekaime, lekaide eta laikoek osaturiko talde batek burutua izan da. Lisieux-ko Karmeli, bere artxibo aberastak zabalduz, Elizarentzat eta munduarentzat hain garrantzi handikoa den lan hau ongi burutzeko bideak ematea eskertu beharra dugu¹.

Ezin dugu ezkutatu argitalpen honek eman digun poztasuna: lehen aldiz santa Teresa Jesus Haurrarenaren obra idatzia, liburuki batean, oso eskuragarri gertatzen da, era berean irakurgai, langai eta otoizbide izan daitekeelarik.

Egiatan, argitalpen honek ez dakar gauza berririk, 1956ko *Manuscrits autobiographiques-en* argitalpenaren eta Mendeurrenako Argitalpenaren (1971-1988) -bertan benetakotasunaren ziurtasun osoz Teresaren obra idatzia oso-osorik eskaintzen zelarik- eta Teresaren ahizpek haren bizitzaren azken egunetan jasotako "Derniers Entretiens" hitzen emaitza delako.

Egia esan, logika zorrotz batek bi liburukitan -batean Idazkiak eta bestean Esanak dituela- aurkeztea eskatuko zuen; baina azkenei ("logia" deritzanei) buruz kritika-lana ez da bukatu² oraindik eta, bizitzak aurea hartu dio logikari: tamalgarrria izango zen, santutasunaren gailurrean, birikeriak agortzen duen bitartean eta barruko proba benetako oinaze bihurtu zitzaion bitartean, hain zintzo, hain berezko zen Teresa gaixoaren hitzak biltzen dituen *Azken Elkarrizketak* hemen ez jartzea. "Totum" horrek, "Edition du Centenaire³ - Mendeurrenako Argitalpena" zaharkitua utzi gabe, bertara eramaten ditu Teresaren aberastasunak sakonkiro aztertu nahi

¹ Artxibo hauek ikonografia ugaria ere agertu digute, "Totum" honen irudiztapen bikaina delarik: *Thérèse de Lisieux*, de Pierre Descouvemont eta Helmuth Nils Loose, 336 orr., 600 argazki-agirirekin, Ed. du Cerf, 1991.

² *Vie thérésienne*-n gauza ugari agertu dira jadanik.

³ Argitalpen honek Frantziako Akademiaren sari nagusia, Grente Kardinalaren saria (Broquette-Gonin Fundazioa) jaso du, 1989ko ekainean. Berraztertua, zuzendua eta osatua izanik (*Eskuizkribu autobiografikoak* agertzean eta 1898ko *Histoire d'une Ame - Arima baten historia* berreskuratzean), berriro argitaratzen da "Nouvelle Edition du Centenaire" izenburuz (Cerf/DBB, 1992).

dituztenak, bertan aurkituko baititugu sarrerak, oharrak, eranskinak, testu-kritika atalak, agiri osagarriak, etab. Argitalpen hau ezinbesteko urratsa izango da sakoneko lanak -ugalduko direla uste dugularik- begirada belaunaldi berrietan jarrita egin jarraitzeko.

Izan ere, Teresaren lanak ez ditu barruko ezkutuko zer guztiak argitara ekarri. Eta, esan ere, "Teresaren lana" diogu. Hain zuzen ere, kontraesan antzeko bat dugu hemen: Lisieux-ko Teresa mundu zabalean ezaguna den arren, askorentzat oraindik ezezaguna izaten jarraitzen du: haren bizitza hain labur eta tolesgabeak, munduaren gainera zabaltzen dituen bere arrosa hostokatuek benetakoa ez dena sinestera eraman ditzakete.

Egia da, kontaezin ahalako "*arima txiki*"ek -Yabe-ren txiroek, Ebanjelioko txikiak- misterio hori somatu ahal izan dutela, eta baita -harrigarriagoa dena- hainbat jakintsuk ere, Emmanuel Mounier-ek bezala honako hau zioelarik: "Teresa Espiritu Santuaren bitxi-lana da⁴".

XX. mendean, ezaugarritzat munduaren aldakuntza harrigarria duen garaian, bederati urte Karmel ezezagun bateko klaustroan bizi izan zen gazte bat Pio XI.ak 1928.ean, Xabierko Frantzizko josulagun santua bezala misio guztien Zaindari izendatu zuen. Haren aurreko batek, San Pio X.ak "garai modernoetako santarik handiena" deitu zuen, hark gizakion eta aingeruen Erregina izan zen Nazaretoko Mariaren antzera, guztien artean txikiena izatea nahi izan ondoren.

Liburu hau ez da helmuga bat soilik. Era berean garai bat markatzen du, haren lan guztia liburuki bakar batean bildu izanak ikuspegi berri bat ematen baitio osotasunari.

Teresaren doktrina eta bizitza guztiz banatu ezinekoak dira. Hain zuzen ere, haren "*doktrinaxoa*" (B Esk. 1^a) beraren bizitzako gertaeretatik sortua da. Karmeldar gazteak ez zuen tratatu sistematikorik idatzi. Haren idatzien "puzzle" osoa goitik behera irakurri behar da osotasunezko ikuspegia lortzeko; hortik dator haurtasun izpiritualaren bidean, hau da, haren oinarritzko gidaliburu izan zen Ebanjelioan sustatutako bota dituen Teresaren mezuaren bihotzean, definizio ugariren artean zenbait aldaera izatea. Jesus du "*Zuzendari*" bakarra (A Esk. 71^a, 74^a; etab.), Gurutzeko Joan santua arimako guraso eta Avilako *Ama* erreformatzaileak eskaintzen dio bere karmeldar bizimodurako eredu. Baina, Teresa Jesus Haurrenaren bidea, bakarreko bidea izan zen. Espiritu Santuak gidatu zuen urrats sendo eta azkarrez oso laburra izango zen haren "*erraldoi-lasterketa*" (A Esk. 44^a). Historiak ematen duen ikuspegiz, gaur egun argi ikus dezakegu nola gidatu zuen haren bizitza probidentziazko Maitasun-asmoak, geroago eta sakonago eginez eta, era berean, unibertsoaren dimentsioak hartzeraino eramanez.

Liburu honek duen alde on bat, egin-eginean ere, Olerki batetik Otoitz batera edota Gutun batetik Eskuizkribuetako pasarte batera oso erraz igaro ahal izatea dugu. Sakoneko kronologia, lehen-lehenik, "Arima baten Historia" da. Datak zehaztea hain gogoko zuen Teresak, urteak aurrera egin ahala, halako batean, bere

⁴ Ik. B.Bro, *La Gloire et le Mendiant*, 16-17. or.

izatean santutasun-historia bat agertuko zen ezaguera izan zuen. Harentzat Santuen elkartasuna berak bizi zuen errealtate bat zen: haren erlijio-bizitza osoa elkartasun horretan sustraiturik zegoen eta Teresak ez zuen Jainko ezkutuagan gorderiko bere bizitzatik sortuko zen emankortasunari buruzko zalantzarik.

Historia honek, XIX. mendeko kristau-familia baten kronika hutsera mugatu beharrean sakontasun maila batetik begiratzuz duen zer harrigarria, Martintar bakoitzak bere barnean leku berezia eta, era berean, besteenarekin lotura izatean datza. Eta historia honek jarraitu egiten du⁵.

Beste gogoeta-gai bat: munduan benetako "best-seller" izan diren orri hauek ez dute egiletzat idazle bat izan: "...ez dut idazten lan literarioa egitearren, esana egitearren baizik..." (C Esk. 6^a) Izan ere, Eskuizkribu autobiografikoak "obedienciaz eginiko eskuliburu batzuk" baizik ez dira. Olerkiak, gehienetan, karmeldarrek eskatuak dira eta "Antzerkiak" komunitateko jaien inguruan lekaimen jolas eta jarraibiderako eginak. Teresak bere gutunak askotan presaka idatzi zituen, asti gutxi baitzeukan. Eta hala ere, argitaratzeko asmoz idatziak ez zeuden duda-mudako ortografiatzeko zirriborro horietatik, teologoek azterketari erronkabide gertatzen zaion koherentziatzeko eta erraztasun gardeneko doktrina sortzen da.

Espierientziak, Teresaren mezuari sakoneko arretarik eman gabe, XIX. mendeko azkenaldiko erlijio-munduko hizkera gainditu gabe gera daitekeela erakusten du. Baina benetakotasunaren egarri diren belaunaldi berriei ez die huts eragiten hizkera horrek. Zer axola zaie haren hizkeragatik, Teresak, fedearen eta itxaropenaren probaren sutan garbitu ondoren, maitasunik bereziena, Jesusena, eta guztiz arruntak diren beraien eguneroko bizitzan eragin erabakigarria sortzen duena eskaintzen badie?

Agortezina dugun Teresak ez ditu oraindik bere ezkutuko guztiak agertu. 1965.ean, Daniel Rops-ek bere *Histoire de l'Eglise du Christ* liburuan berrogeita hamar orrialde eskaini zizkion eta mundu osoko sinbolotzat jotzen zuen⁶. Vatikanoko II. Kontzilioaren ondoren, Teresaren bihozkadak, hainbat urte lehenago, Kontzilioko gai nagusien haritik oso hurbil zeudela konturatu gara⁷. Hain zuzen ere, bera mende honetako eskola izpiritual nagusietan bizirik ageri da eta garai modernoetako hainbat santu eta dohatsuren inspirazio-iturri izan da⁸. Benedikto XV.etik Joan Paulo II. eraino, Aita Santu guztiak, asko edo gutxi, Teresazaleak izan dira; beraien adierazpen multzoa harrobi emankorra dugu⁹.

⁵ Martin senar-emazteak dohatsu aitortzeko kausak prestaera-faseak gainditu ditu jadanik.

⁶ *Un combat pour Dieu*, XII.t.; "La meilleure Bibliothèque", 1962-1965. 341-373.or.

⁷ Ik. Etienne Michelin, "Thérèse de l'Enfant Jésus au coeur de Vatican II", en *Thérèse de l'Enfant Jésus, Docteur de l'Amour*, Ed. du Carmel, 1990/1991, 73-110.or.

⁸ Aipa ditzagun, adibidez, Rafael Kalinowski, karmeldar poloniarra (1835-1907), eta Maximiliano Kolbe (1894-1941) santuak; Daniel Brottier dohatsua (1876-1936); Benedikta Gurutzekoa, karmeldarra (Edith Stein: 1891-1942), Isabel Hirutasunarena, karmeldarra (1880-1906), Andesko Teresa, karmeldar txiletarra (1900-1920) dohatsuak... Eta beste asko, dohatsu aitortzeko kausa honezkerok irekirik dutenak: Aita M.-J. Lagrange, d.o. (1876-1936); Marta Robin (1902-1981); aita J.M. Poppe, apaiz belgiarra (1890-1924); Aita Maria Eujen Jesus Haurrarena, k.t. (1894-1967)...

⁹ Testu hauek guztiak VT-n bildurik daude, 1983.eko urriko 92.zk., eta 1984.eko urtarrileko 93.zk.

Gogora ekar dezagun 1980.eko ekainaren 2an Lisieux-era lehenengo joandako Aita Santu erromesaren homiliako oinarrizko atala: "Teresari buruz, ziurtasun osoz esan dezakegu, Jainkoaren Izpirituak, haren bihotzari Ebanjelioaren *oinarrizko misterioa*, oinarrizko izaera gaur egungo gizakioi zuzen-zuzenean bihotzetara agertzen utzi ziola: "Abba! Aita esatera garamatzen seme-alabatzako izpiritua" hartu dugula benetan. *Bidetxoa* "haurtasun santua"ren bidea da"¹⁰.

Frantziako mendebaleko apezpikuek 1992ko otsailaren 14an *ad limina apostolorum* eginiko ikustaldian, Joan Paulo II.a honala mintzatu zitzaien: "Misioen zaindaria den santa zuen eskualdekoa da. Teresa Jesus Haurraren eta Aurpegi Santuarenak Lisieux-etik mundu zabalera zabaldu du bere misio-zaletasuna. Haren irakatsi izpiritualak edozein mailatako eta kultura guztietako sinestedunen bihotzetara heltzen jarraitzen du. Bidezko da, beraz, guk hari eskatzea, lagun diezaiela Frantziako katolikoei euren santutasun-bidean aurrera egiten eta, Europa, Afrika eta munduko beste alde batzuetako senideekin solidaritza izaten, horrela gure salbamen¹¹ den Kristorengandik hartu dituzten dohainak haiekin banatuz".

Honela hobeki ulertzen da, zergatik Herri Ekintzako Aita Desbusquois josulagunak 1932an irekitako "dossier" hura berriro hartuz, Frantziako apezpikuek, Batzar Orokorrean Lourdes-en bildurik, bozketa bidez 1991ko urrian Joan Paulo II.ari Teresa Jesus Haurraren eta Aurpegi Santuarena Elizako Doktore izendatua izateko eskatzea¹².

Ez al zuen idatzi berak 1896an: "*Neure txikitasuna gorabehera, arimak argitu nahi nituzke Profetak bezala, Doktoreak bezala...*" (B Esk. 3^a); "*...beste bokazio batzuk somatzen ditut neure baitan: (...) Doktore (...) izatekoa...*" (2^a)? Hara, bada, argi ikus dezakegu nola bete dituen Jainkoak haren gurariak: "*... beti eman dit nahi izan dudana, edota hobeki, Berak eman nahi zidana irrikarazi dit beti*" (C Esk. 31^a).

Izan bedi, Jainkoa lagun, liburu hau nahiera hori egia bihurtzeko bide, horrela Elizarentzat eta munduarentzat "ebanjelizazio berriaren" une honetan grazia-iturri eginik. Uste honetan iraungo dugu lasai-lasai, Espiritu Santuak argiturik Elizak har dezan erabakiaren zain.

Guy Gaucher
Bayeux eta Lisieux-ko
Apezpiku laguntzailea

¹⁰ "Le Livre de poche", 5478.zk., 176.or.

¹¹ *La documentation catholique*, 2047.zk., 1992ko apirilak 5, 305.or.

¹² *Idem*, 1991ko abenduaren 15eko 2040.zk., 1087.or.

HITZAURREA

Lisieux-ko santa Teresaren testuak eta azken hitzak jasotzen dituen liburuki hau, karmeldar gaztearen jaiotzaren (1873) eta heriotzaren (1897) mendeurrenen artean eginiko "Mendeurreneko Argitalpen Berria" izena daraman argitalpen kritikoa berrikusi eta burutu zen une berean egina da.

Beraz, hemen argitalpen kritikoa (5.000 orrialderaino heltzen dena) osatzen duten zortzi liburukietako sarreraren eta oharren mamia bilduko da, nahiz eta oharrak laburtzean, hainbateko aldeak sortu liburu desberdinen arabera -laburragoak Gutunetan eta Azken Elkarrizketetan, luzeagoak Eskuizkribu Autobiografiko, Olerki eta Otoitzetan- ohar eta sarreretan egin ditugun ebakinen artean alde handiak daudelako liburu batetik bestera. Liburukian zehar testuaren behealdean eskaintzen diren oinarrizko oharrek -gutxienez garrantzitsuenak- Teresaren irakatsien gai nagusiak zabaltasun osoan ikertzeko bidea emango digute.

Teresaz gainera, idazle desberdinen aipamenei dagokienean, laburbildurik edota aipaturik soilik ageri diren argitalpen honetako oharretatik "Nouvelle Edition du Centenaire" deituriko liburukietan gehiago azaldurik luze aipatzen diren testuetara jo ahal izango da. Hau, batez ere, Teresak adierazitako pentsamenduen iturri zurrak direnei edo izan litezkeenei dagokienean.

Testuak Lisieux-ko Karmeleko Zelina ahizpak jatorrizko eskuizkribuen arabera finkatutakoak izan dira. Ez ditugu hemen lan honen zuri-bideak jaso, argitalpen kritikoa jasotzen baitira eta nahi izanez gero bertara jo dezakegulako.

Irakurlea zuzen-zuzenean Teresarekin harremanetan jartzeko, testurik ulergarria egiten saiatu gara ohar guztiak atal berezi batean, behealdean, egokiro bereiztuz jarririk. Bestalde, berritasun bat sartu nahi izan dugu: hots, pasarte batzuetan hain ugariak izan eta Teresaren gogoetaren atal diren Bibliako aipamenak alboetan jartzea. Oharretan, irakurlea beste ohar garrantzitsu batzuetara bidaltzen dugunean, + zeinua ezarri adirazten dugu.

Argibide azkar bat eskaintzeko asmoz, irakurleari bi erregistro biografiko eskaintzen dizkiogu: lehenengoa, kronologia laburra, baina zehatza Eranskinetan; [eta, gero, "Teresaren historiagune garrantzitsuenak"] Teresaren idazki jakin bakoitzaren ingurune historiko-psikologikoan kokatzen lagunduko digutelako.

J.L.

EUSKARAZKO ITZULPENARI DAGOZKION OHARPENAK

Euskarazko liburu hau ondoren aipatzen dugun frantsesezko obra honen itzulpena da:

SAINTE THÉRÈSE DE L'ENFANT-JÉSUS ET DE LA SAINTE-FACE, *Oeuvres complètes (Textes et Dernières Paroles)*. Paris, Éditions du Cerf - Desclée de Brouwer, 1992, 1600 or.

Euskarako liburu honetan Lisieux-ko Teresaren lan guztiak aurkezten dira. Hala ere, aldaketa txiki batzuk egin ditugu garrantzi txikiko alderdi batzuetan:

1. Ez dugu jaso Felipe Sáinz de Baranda, Karmel Teresiarraren Aita Generalaren gutuna. Horren ordez Roger Etchegaray kardinalak, bere ama-hizkuntzan, euskaraz eginiko aitzinsolasa dakargu.

2. J.L. sinaduraz izenpetutako frantsesezko argitalpeneko ohar laburraren ondoren, euskarazko argitalpenean beharrezkotzat jo diren azalpenok ezarri ditugu. Beste horrenbeste egin dugu Santaren idazki desberdinei eginiko sarreretan.

3. Kanpo utzitako atalik handiena, "Points de repère thérésiens" sarrera luzeko 35 orrialdeei dagokiena izan da. Horren ordez, frantsesezko argitalpenean eranskinetan datorren Teresaren bizitzako kronologia jarri dugu.

4. "Azken Elkarrizketak" deituen leerroaldean hasieratan aurkitzen diren aipamen edo zenbakiei dagokienean, behar bada hobe izango baten ere euskarazko aipatzeko estilora egokitzea, frantsesezko testuaren estiloa gorde dugula ohartarazi beharra dago, frantsesak lehenengo eguna eta gero hilabetea jartzen baitu eta euskarak alderantziz; baina, jarraian leerroaldeari dagokion zenbakia datorrenez gero, nahasterik gerta ez dadin frantsesezko jatorriko zenbaketa gorde nahi izan dugu, baina argitasunaren mesedetan hilabetea zenbaki erromatarrez idatzi dugu.

5. Zenbait aldaketa eta hobekuntza txiki:

-Lehenengo eta behin, euskarazko argitalpeneko *Gutunetan* eta *Otoitzetan...* ez dugu orrialdearen azalpenik (v.g. 2^a, 3ⁱ) jartzen.

-Hobekuntza gutxi eta txiki batzuk ere egin ditugu, hots, frantsesezko argitalpeneko akats batzuk, batez ere eranskinetan, zuzentzea.

-Oharra, irakurleak errazago eta erosoago erabil ditzan, orrialdearen behealdean jarri ditugu eta ez liburuaren amaieran frantsesezko argitalpenean bezala.

-Izenen aurkibidea, euskarako testuari dagokiona egitean, frantsesezko argitalpenekoa baino osoagoa egin dugu.

-Eta gehitutako ataltxoeren artean "Teresaren gutunen hartzaileak" eta "Euskarari dagokion hiztegitxoa" ditugu.

Ikus daitekeenez, aldaketak gutxi dira eta ez garrantzi handikoak.

Itzulpen eta zuzendaritza lanak

Liburu honen itzulpen lanek urtebeteko iraupena izan dute eta talde-lanean eginak izan dira. Ondorengo lerroetan zehazten da taldekide bakoitzak egin duena:

Itzultzaileak:

-Luis Baraiazarra: *Eskuizkribu autobiografikoak* eta *Olerkiak* (63 olerki).

-Ana Urkiza: *Gutunak* (266 gutun) eta dagozkien oharra.

-Pierre Charriton: *Deboziazko solas-antzerkiak* (8 pieza) izeneko atalaren buru izan da, pieza haiei dagozkien sarrera txikiak eta oharren itzulpena egin duenari. Ondorengo hauek dira atal honetako testuen itzultzaileak: Jean Challet (*Joana Ark-ekoaren misioa*), Angèle Teillier (*Aingeruak Jesusen sehaska*), Joana Ark-ekoak bere misioa betetzen eta *Jesus Betanian*), Marie Jeanne Minaberry (*Eguberriko Jainko-Haur tipik eskalaria karmelitan eske*), Jeanne Marie Malharin: *Egiptorat ihes*, *Apaltasuna garaile* eta *Stanislas Kostka saindua*.

-Luis Arostegi: *Otoitzak* eta Santaren obra desberdinetarako eginiko sarrerak.

-Patxi Uribarren: *Azken Elkarrizketak*, (eta gainera *Aurkezpena* eta *Hitzaurrea*).

-Michel Itzaina: *Bestelako idazkiak*.

-Anjel Lobera: Liburuko ohar gehienak, gorago beren-beregi adierazitakoak izan ezik. Era berean alde tekniko-informatikoa bere gain izan du.

Bateratzailea: Luis Baraiazarrak, gorago aipaturiko itzulpen ugariez gainera, lanaren euskarazko itzulpenen hizkuntza alorra berrikusi du, askoren artean eginiko itzulpenei nolabaiteko batasuna ematearren. Alabaina, Iparraldekoek itzulitako testuak, *Deboziazko solas-antzerkiak* eta *Bestelako idazkiak*, hain dira bereziak bai joserara, bai forma nahiz lexiko aldetik, non ez baitzaie egin, Hegoaldeko irakurleei begira, behar-beharrezkotzat jo diren ukituak baizik. Xabier Kaltzakortak egin ditu Iparraldekoen testu hauen orrazketa eta bateratzeko ukitu txikiak.

Zuzendariak: Azkenik, esan beharra dago Julen Urkiza eta Antonio Olea Karmeldarrek izan dutela lanaren zuzendaritza-ardura: lanak ordenatzeaz gainera, biek

goitik behera irakurri eta zuzendu dituzte oso-osoan, frantsesezko testuari jarraituz itzulpenen egokitasuna zainduz. Era berean, hainbatetan berregin behar izan dute eranskinen atala, hala nola, *Izenen Aurkibidea*, *Teresaren gutunen hartzaileak*, *Euskarari dagokion hiztegitxo*a (hau L. Baraiazarrak egin), etab.

Eskerrak eman behar dizkiogu, era berean, zerbaitetan laguntza eman digun Bego Montoriori.

Zuzendaritza
Markina-Xemein, 1996-IX-30

TERESAREN KRONOLOGIA

ALENÇON 1873-1877

1873

- Og. I/2 **23 h 30, Maria-Frantziska-Teresaren jaiotza;** Saint-Blaise, 36 (gaur egun, 42. zk.).
- Lr. I/4 Bataioa Andre Maria elizan; bataio-emailea: Luzien Dumaine. Amabitxi: Maria, beraren ahizpa nagusia (hamahiru urte); aitabitxi: Paul-Albert Boul (hamahiru urte).
- As. I/14 Lehenengo irria bere amari.
- Or. I/17 Enteritis-zantzuak.
- Lr. III/1 Teresa «oso gaixo» dago.
- As. III/11 Rosalia Taillé inudeak salbatu zuen.
- Lr. III/15 edo 16 Semallé-ra daramate haztera, “Rose-txo” Taillé-ren etxera.
- Ig. IV/20 Teresa “ongi sendaturik eta indarberriturik” dago.
- Og. V/22 “Hamalau liberako pisua du”.
- As. VII/1 “Laster ikasiko du oinez”.
- Ig. VII/20 “Eguzkiak belzutako ume sendoa”.
- Al. X/27 Teresa oso sendo eta handia, osasuntsu hazten da.

1874 - URTEBETE

- Og. I/8 “Bakarrik ibiltzen daki... gozo eta liluragarria da”.
- Og. IV/2 Semallé-tik behin-betiko dator Alençon-era.
- Al. VI/1 “Inoiz ez dut hain ume sendorik izan, lehenengoa izan ezik... Oso buru argikoa dirudi... Polita izango da”.
- As. VI/24 Ia guztia esaten hasita dago.
- Ig. VIII/9 Hagineko mina, astebetez.
- Al. XI/8 “Aingerutxo baten antzera otoitz egiten du... Kantutxoak kantatzen ditu”.

1875 - BI URTE

- Ig. II/- Ihes egiten du mezatarra joateko.
 Al. III/29 Trenez doa Mans-era bere amarekin. Gararrasi eta malkoak Bisi-tazioko mintzatokian; baina "oso ona eta gutxi diren bezain esa-nekoa" da ahizpa Maria-Dositearen aurrean.
- Az. V/19 "Luzaroko eztula sukarrarekin... maiz izaten ditu marrantak".
 X/8-22 Berriro gaixorik.
 Ig. X/24 "Sendaturik...ohi duen baino jateko gogo handiago du... dea-brutxoa... atsegina, argia eta liluragarria".
- Or. XI/5 Ez du lorik egin nahi bere otoitzak egin gabe.
 Ig. XII/5 "Txikitxo gaixo hau... beldurra emateko eran jartzen baita.... lur-rean iraulka hasten da ero baten antzera... oso ume urduria da... oso argia... guztiaz oroitzen da".
- As. XII/28 "Ia letra guztiak dakizki".
 "Bi urte dituela", Teresak pentsamendu hau darabil buruan: "*Neu ere lekai-me izango naiz*" (A Esk., 6^a).

1876 - HIRU URTE

- Ig. III/5 Irakurtzen aurrerakada handiak egiten ditu, Mariari esker.
 Ig. III/12 Lorezainaren antzera egiten du: "Pena ematen didazu, ene andre ona".
- Ig. III/26 "*Ama, min egin dut*". "*Oso argia*" da.
 Ig. V/14 "Setatia da ia gehiago ezinekkoa... urrezko bihotza du, oso irekia da".
- Ig. V/21 Teresa txikiaren hunkiberatasun eta zintzotasuna (horma paperez-tatua urratzen du).
- VII/16 inguruan Lehenengo argazkia (VLT, 1. zk.). Negar egiteko zorian dago argazkilariaren etxean.
- Ig. X/29 Amaren besoetan dagoen artean ezin zaio okerrik gertatu
 Az. XI/8 "Praktikak (deboziozkoak) egiteari ekin nahi dio".
 Azaroa Elgorriaren zantzua. Gaixorik, lau egunetan.
 Ig. XII/24 Martin andreak Notta doktoreari galdetzen dio bularrean duen handituari buruz; beranduegi, ebakuntza egiteko.
- 1876an zehar: «*Hiru urte nituenetik hasi nintzen Jainko onari berak eskatzen zidan ezer ere ez ukatzen*» (DE, 717. or.).

1877 - LAU URTE

- As. II/13 Teresa aspertu egiten da sermoi bitartean.
 Lr. II/24 Ahizpa Maria-Dositea, Mans-eko Bisitaziokoa, hil zen.
 Ig. III/4 Teresak "zer egunetan bizi den jakin nahi du... Bere praktiketako errosarioa ez du minutu batean ere uzten".

- Og. III/22 "Txikia munduko urre guztiagatik ere ez litzateke gezurra esateko gai izango".
- As. IV/3 «Ni lekaike izango naiz».
- Az. IV/4 Teresaren lehenengo «gutun»a (Luisa Madalenari, Paulinaren lagunari).
- Al. IV/9 Ibilaldia, familiarteán, Semallé-ra.
- Og. V/10 Jainkoa "ahalguztiduna" dela azaltzen dio Zelinari.
- Maiatza "Pozez saltoka egiten ditu bere otoitzak... Okertxoá bai, baina inola ere ez inozoa".
- VI/18-23 Martin andrea, Maria, Paulina eta Leonia Lourdesera doaz erro-mes.
- Abuztuaren has. Zelina eta Teresari sariak banatu zaizkie.
- As. VIII/28 **Martin andrea hiltzen da 00,30ean.**
- Az. VIII/29 Martin andrearen hileta-elizkizunak. Teresak Paulina (hamasei urtekoa) aukeratu zuen bere bigarren amatzat.
- Ig. IX/9 Guérin jaunak Lisieux-en aurkitzen die etxea Martindarrei: Buissonnets.

LISIEUX

Buissonnets (1877-1888)

- Og. XI/15 Teresa eta honen ahizpak Lisieux-era iritsi dira, Guérin jauna lagun dutela.
- Or. XI/16 Buissonnets-en jarri dira bizitzen.
- Or. XI/30 Martin jauna iritsi da.

1878 - BOST URTE

- Apirila Teresak lehen aldiz ulertu du hitzaldi bat (Ducellier jaunak Nekaldiari buruz egindakoa).
- VI/17tik VII/2ra Martin jauna, Maria eta Paulina Parisera doaz, Eraskusketa bisitatzeko. Teresa bere izeba Guérinen ardurapean geldituko da.
- Og. VIII/8 Lehen aldiz ikusten du itsasoa Trouvillen.

1879 - SEI URTE

- Urtean zehar, lehenengo aldiz bisitatuko du Karmelgo kapera (A, 14^a).
- Uda (edo 1880) Martin jaunaren gaixotasunaren ikuspen profetikoa.
- 79aren amaiera Lehenengo aitortza Ducellier apaizarekin, Jondone Petriren (edo 1880aren has.) katedralean.

1880 - ZAZPI URTE

- Urtearen hasieran berak bakarrik idazten du.
 Og. V/13 Zelinaren lehenengo Jaunartzea, Teresaren bizitzako egunik politenetarikoak.
 Or. VI/4 Zelinaren sendotza.
 Al. VIII/9 Ségur-ko Kondesaren *La sœur de Gribouille* irakurtzen du.
 Az. XII/1 Berak bakarrik idatziriko lehenengo gutuna (gordetzen dena) (Paulinari egina).

1881 - ZORTZI URTE

- Argazia Zelinarekin, jolaseko soka duelarik (VTL, 2. zk.).
 Og. VI/2 Maria Guérinek Abadian egindako lehenengo jaunartzea.
 Ig. VII/10 Martin jaunak papagaitxo bat ematen dio Teresari, beronen ugazneba Eugène Taillé-ren partez.
 Al. X/3 Lisieux-ko abadia beneditarrean (Notre-Dame-du-Pré) sartzen da mantenuerdiko legez (mota berdekoa).

1882 - BEDERATZI URTE

- Og. I/12 Haur Misiolarien ekintzan ematen du izena.
 Al. II/16 Paulinak Karmelen sartzea erabakitzen du.
 Al. IV/17 Mariak Aita Pichon, josulaguna, hartu du bere zuzendari izpiritualtzat.
 Az. V/31 Teresa "Aingeru Santuen Alabatza" hartua da.
 Uda Teresak ustekabea jakin du Paulina lekaiame doala. Berak ere Karmelera deitua dela somatzen du, eta ama Maria Gonzagarena-rekin hitz egiten du horretaz.
 Al. X/2 Paulina Karmelen sartzen da (ahizpa Aines Jesusena). Teresa ikastetxera itzultzen da (3. mota morea). Zelinak marrazki-eskolak hartuko ditu; Teresak ez du horrelakorik eskatuko beretzat, nahiz eta "inbidiaz erretzen egon".
 Urria Ama Maria Gonzagarenak Teresa "Jesus Haurarena" proposatzen dio, Teresak ametsetan erabilitako izena.
 Ig. X/15 Santa Teresa Jesusenaren heriotzako hirugarren mendeurreneko jaia.
 Abendua Buruko minak, lorik egin ezina, "negalak, kataplastak, zurbildura".
 As. XII/12 Zelina Mariaren Alabatza hartua da.

1883 - HAMAR URTE

- Az. I/31 Ama Jenofa Santa Teresarena, Karmelgo priore hautatu dute.
 Ig. II/18 Paul-Albert Boul, Teresaren aitabitxi, hil da.

- Ig. III/25 Bazkoa. Martin jauna Parisen den bitartean, Teresari buru-gaixotasuna sortzen zaio Guérindarren etxean.
- Or. IV/6 Ahizpa Aines Jesusenak abitua hartzen du. Teresak mintzatokian besarkatu ahal izan du bere ahizpa.
- Lr. IV/7 Buissonnets-en berriro jotzen du gaixotasunak.
Martindarren bederatziurrena Garaipenen Andre Mariari.
- Ig. IV/8 Martin amonaren heriotza Valframbert-en (Orne).
- Ig. V/13 **Mendekoste jaia. Bat-batean sendatzen da, Andre Mariaren irribarreari esker.**
- Maiatza Karmeldarren mintzatokira doa, eta hortik sortuko zaio bere "arimako sufrimendua" bere gaixotasuna dela-eta (1888ko maiatzera arte) eta Andre Mariaren irribarrea dela-eta (1887ko azarora arte).
- VIII/20-IX/30 Oporrak Alençonen. Teresak otoitz egiten du bere amaren hilio-biaren gainean.
- Az. VIII/22 Lehenengo aldiz topo egiten du aita Pichon-ekin, Alençonen.
- Al. X/1 Abadiara itzultzen da, 3. mota (morea), bigarren maila. Lehenengo jaunartzerako prestatzeko izango da urte hau.

1884 - HAMAIKA URTE

- Urtarrila Henri Chéron sartzen da Guérindarren etxean laguntzaile.
- Otsaila-maiatza Ahizpa Aines eta honen "*liburutxo zoragarria*" lagun dituela, gartsu prestatzen da lehenengo jaunartzerako.
- Az. IV/2 Dotrinako azterketa egiteko onartua da.
- Ig. V/4 Barnetegian dago lau egunez (bakarraldia).
- V/5-8 Domin apaiz jaunaren hitzaldiak.
- Az. V/7 Aitortza orokorra.
- Og. V/8 **Lehenengo jaunartzea abadian;** egun berean, ahizpa Ainesen profesa Karmelen. Barne-bakea urtebetez.
- Og. V/22 Igokundea. Bigarren aldiz jaunartzen du (hogeita bi jaunartze 1884/5/8tik 1885/8/25era).
- Lr. VI/14 Bayeux-ko apezpiku **Hugonin jaunaren eskutik sendotza,** abadian. Leonia da amabixi.
- Og. VI/26 Tom, Teresaren txakurtxo zuria, Buissonnets-era dator.
- Uztaila-abuztua Kukurruku-eztula.
- Az. VII/16 Ahizpa Aines Jesusenak belo beltza hartzen du.
- Abuztua Oporrak Saint-Ouen-le-Pin-en, Guérindarren etxean.
- Or. VIII/8 Teresak Saint-Ouen-go abeletxea marrazten du.
- Og. IX/25 Errosario Santuaren Kofradian sartzen da.
- Lr. X/4 Maria Havre-ra doa, bere aitarekin, Kanadara joateko untziratuko den aita Pichon-i agur egiteko.
- Al. X/6 Abadiara itzultzen da, 2. mailara (laranja).
- Ig. XII/14 Teresa Aingeru Santuen Elkarteko aholkulari izendatzen dute Abadian.

1885 - HAMABI URTE

- Ig. IV/26 Tours-ko Aurpegi Santuaren Kofradian sartzen da.
 Az. IV/29-VI/5 Guérindarren egotaldia Deauville-n, Colombe etxean.
 Ig. V/3-V/10 Teresak, oporretan Deauville-n dagoela, "Arrosazko Etxea" marrazten du. Buruko mina: «*Ongi ulertu nuen 'Astoaren eta txakurtxoaren' alegia*».
- V/17-21 Jaunartzearen berrikuntza prestatzeko bakarraldia. Domin apaiz jaunaren hitzaldiak. Eskrupuluen krisia sortuko zaio, 1886ko udazkenera arte iraunik.
- Og. V/21 Bigarren jaunartze nagusia.
 Uztaila Txoka bat ematen diote oparizat Teresari.
 Oporrak Saint-Ouen-le-Pin-en; "benetan zoriontsu da".
- Az. VIII/4 Zelinak (hamasei urte) bere eskolaldia amaitu zuen abadian.
 Lr. VIII/22 Martin jauna Konstantinoplara irten zen (zazpi asteko bidaia), Lisieux-ko aita Mariorekin.
- IX/20-30 (?) Zelina eta Teresa oporretan daude Trouville-ko Rose Guérindarren etxean.
- Urriaren hasiera Teresa bakarrik itzultzen da Abadiara, eskolara, Zelina gabe.
 X/10 edo 17 Martin jauna Lisieux-era itzultzen da.
 Og. X/15 Oitoiz Apostolutzan ematen du Teresak izena.

1886 - HAMAHIRU URTE

- As. II/2 Mariaren Alabagai izateko onartua da.
 Buruko minak. Eskolara sarritan egiten du huts. VTL argazkia, 3. zk.
- Az. II/3 Maria Gonzagarena Lisieux-ko priore hautatzen dute; prioreorde, berriz, ahizpa Febronia; nobiziagaien maistra, azkenik, ahizpa Maria Aingeruena.
- Otsaila - Martxoan Martin jaunak behin eta betiko atera zuen Teresa Abadiatik beronen osasun-arazoak zirela-eta. Eskola partikularrak andereño Papinau-ren etxean. Teresak ikasgela bat atondu zuen teilatondo batean.
- As. VI/15 - Guérindarren oporrak Trouville-n, Lilas etxean.
 Lr. VII/31
- Az. VI/30 (?) Teresa Trouville-ra doa. Hirugarren egunerako, Buissonnets-en mina du.
- Abuztua Maria laster Karmelera joango zela jakiten du.
 As. IX/21 Eskolak hartzen ditu andereño Papinau-ren etxean.
 Az. IX/29 Martin jauna eta Maria Calais, Douvres eta Parisera doaz, Kanadatik etorria den aita Pichon ikustera. Bost eguneko bidaia afferrikakoa, gaizki-ulertuz betekoa.
- X/5 (?) Martin jauna eta honen alabak Alençon-era doaz egun batzue-tarako.
- Og. X/7 Leonia Alençon-go klaratarretan sartzen da ustekabeen.

- Or. X/15 Maria (Maria Bihotz Sakratuarena) Lisieux-ko Karmelen sartzen da.
- Urriaren amaiera Teresa bere eskrupuluetatik askatzen da.
- Az. XII/1 Leonia bere etxeoengana itzultzen da berriro.
- Lr. XII/25 **Gauerdiko mezatik itzultzean, «konbertsio» grazia Buissonnets-en. «erraldoi baten lasterketa»ren hasiera (A, 44ⁱ).**

1887 - HAMALAU URTE

- Teresa eta Zelinarentzat Buissonnets-eko bizimodua, urte hone-tan, "izan daitekeenik zoriontsuena" da.
- Urtar. - Maiatza Zelinak marrazki-eskolak ematen dizkio Teresari.
- Lr. III/19 Maria Bihotz Sakratuarenak abitua hartzen du; aita Pichon-en hitzaldia.
- III/19-20ko gaua Henri Pranzinik bi emakume eta neska bat hil zituen Parisen. Teresa bi arratsaldetan joaten da astero Abadiara, Mariaren Alaba bihurtzeko.
- As. IV/12 Lisieux-tik hurbil dagoen OUILLY-le-Vicomte-ko eliza marraztu zuen.
- Ig. V/1 Martin jauna paraliak jotzen du lehenengo aldiz: erdi elbarriturik gelditu zen.
- Maiatza Arminjon kalonjearen hitzaldiak irakurri zituen. Astero lau aldiz jaunartzen du.
- Ig. V/29 Mendekoste jai. Teresari baimena ematen dio bere aitak Karmelera hamabost urterekin sartzeko.
- As. V/31 Abadian Mariaren Alaba izateko onartzen dute.
- Og. VI/16 Ibilaldia Touques-era; Teresa loreak hartzen diharduela marrazten dute.
- Ekaina Honfleur-era erromes; Havre-ko erakusketara ikusteko bidaia. Teresak txori urdin bi erosi zituten Zelinarentzat.
- As. VI/21 Ahizpa Ainesek prestakuntza garaia bete zuen nobiziatuan.
- VI/20-26 Teresa oporretan dago Trouville-n, Guérindarren etxean (Chalet des Lilas, 19, rue de la Cavée).
- Al. VI/27 TG 24; bertan Joana Guérin-i zortzi zetar hil direla jakinarazten dio...
- Uztaila Jesus gurutziltzatuaren estanpa baten aurrean bere misiolari-bokazioa erretzen zaio.
- Az. VII/13 Pranzinik heriotz zigorra jaso zuen. Teresak otoitz egiten du, eta bere burua eskaini hura Jaunaganatzeko.
- Uda Elkarriketa izpiritualak Zelinarekin, Buissonnets-eko begiratorian.
- Lr. VII/16 Leonia Caen-go Bisitazioan sartzen da.
- Og. IX/1 Teresak *La Croix*-en Pranzini nola urkatua izan zen (abuztuaren 31) eta nola gurutzeari mun egitea eskatu zuen irakurtzen du.
- Og. X/6 Leonia bisitatzen du Caen-en.

- X/6-15 Aita Pichon-ek gogo-jardunak ematen ditu Karmelen.
Lr. X/8 Teresak bere osaba Guérin-i Karmelen Gabonetan sartzeko bai-
mena eskatzen dio (TG 27).
- Az. X/12 Zelinak aita Pichon hartu zuen bere arima-zuzendari.
X/18-21 Hiru eguneko "*martiritza oso mingarria*" Teresarentzat, bere
bokazioa dela-eta.
- Lr. X/22 Ahizpa Ainesen eraginpean (X/21eko gutuna), Guérin jaunak
bere baietza ematen du Teresa Karmelen sartzeko.
- Al. X/24 (?) Alferrikako ahaleginak Karmelgo nagusi zen Delatroëtte jaunaren
aurrean, hau Teresa Karmelen sartzearen aurkakoa baita.
- As. X/25 Ahizpa Aines bisitatzen du mintzatokian. Teresak Delatroëtte
jauna aurka zegoela jakin zuen.
- Al. X/31 Teresa eta honen aitak Hugonin apezpikua bisitatzen dute
Bayeux-en: ez da berehalako erantzunik.
- Or. XI/4 Goizaldeko 3etan, Martin jaunak, Zelinak eta Teresak Erromara
egin zuten bidaiaren hasiera; Leon XIII.aren apaizgintzako urrez-
ko etzeiak zirela eta, Coutances eta Bayeux-ko elizbarrutietatik
egin zen erromes-taldearekin.
- XI/4-6 Parisen, Garaipenen Andre Mariaren grazia (A, 56^b). Champs-
Elysées, Tuileries, Étoile, Bastille, Palais-Royal, Louvre. Igande-
an, Bihotz Sakratuaren kriptan (eraikitzen), Elbarriak, Champs-
Elysées-eko Txotxongiloa...
- XI/7-13 Suitza, Milan, Venezia, Bologna.
Ig. XI/13 Loreton, Zelina eta Teresak Etxe Santuan jaunartu zuten. Erroma-
ra iritsi ziren.
- Al. XI/14 Koliseoa ikustera.
Otoitza San Kalixtoren katakunbetan, eta egotaldia harrsiz kan-
poko Santa Aines-en.
- Ig. XI/20 Leon XIII.arekin audientzia. Teresak hitz egiten dio Aita San-
tuari.**
- XI/21-22 Napoli eta Ponpeiara ibilaldia, Martin jauna gabe.
Az. XI/23 Martin jaunak Teresaren kausaren alde egiten du Révérony jauna-
ren aurrean.
- XI/24-XII/2 Itzulerako bidaia: Asis, Florentzia, Pisa, Genoa, Niza, Marseilla,
Lyon (Fourvières), Paris.
- Or. XII/2 Arratsaldeko lau eta erdietan iristen dira Lisieux-era.
Or. XII/16 Gutunak Mgr Hugonin (TG 38) eta Révérony jaunari (TG 39),
Gabonetan sartzera eskatzeko.
- Ig. XII/25 Bere «*konbertsioa*»ren lehenengo urteurrena. Teresak, bihotza
"urraturik" gauerdiko mezara joan arren, argi eta poztasunak
hartu zituen (Zelinarengandik eta Karmeldik).
- Az. XII/28 Hugonin apezpikuaren erantzuna ama Maria Gonzagarenari:
honek har dezake Teresa bere komunitatean.

1888 - HAMABOST URTE

- Ig. I/1 Baiezko erantzuna, baina Karmelek hirü hilabetez atzeratuko du Teresaren sarrera, Garizuma osterarte.
- Or. I/6 Leonia irten egiten da Caengo Bisitaziotik.
- Az. II/15 Hausterre eguna. Martin jaunak Teresari axuri bat [bildots jaiotzerria] ematen dio, egun berean hilko zena (TG 42).
“Neure bizitzako hilabeterik ederrenetarikoa”.
- Martxoaren III/27 TG 45 ahizpa Ainesi («*hondar-alea*»).
- Apirilaren has. Teresaren argazkia mototsarekin (VTL, 4. zk.).
- Al. IV/9 **Teresa Karmelen sartzen da.** Egun berean Zelinari ezkontzeko eskabidea egiten diote.

Karmelen (1888-1897)

Nobiziagai: 1888ko apirilaren 9tik 1889ko urtarrilaren 10era

- Apirila *“Arantzak arrosak baino gehiago... bost urtetan zehar”*
 Arropategiaren ardura eman diote; klaustro bat ere garbitu behar du.
- V/12-20 TG 49 Maria Bihotz Sakratuarenari, Karmelen zuen bere “angerru”ari (*“arranoa eta kanabera”*).
- As. V/22 Maria Bihotz Sakratuarenaren profesua. Teresak arrosaz koroatzen du.
- Az. V/23 Mariak beloa hartzen du; aita Pichonen hitzaldia. Lisieux-ko Karmelen fundazioaren berrogeita hamargarren urteurreneko ospakizuna.
- V/24-28 Aita Pichon-en predikua; egun bakoitzeko bi hitzaldi.
- Al. V/28 Aitortza orokorra aita Pichon-ekin; bere arima-zuzendari izan dadila eskatzen dio. Bere *“arimako [bigarren] sufrimendutik”* askatua.
- Or. VI/15 Zelinak Karmelerako bere bokazioa jakinarazi zion bere aitari.
- Og. VI/21 Ama Maria Gozangarena priorearen santu-eguna; Teresak santa Ainesena egiten du (ahizpa Aines Jesusenaren «antzeppen» bastean).
- Lr. VI/23 Martin jaunaren ihesa.
- As. VI/26 Sutea Buissonnets-en ondoko etxean; Martin jaunak erosi egingo du etxe hori uztailean, bere jabetza handitzeko.
- Az. VI/27 Martin jauna Havre-n aurkitzen dute Guérin jaunak eta Zelinak.
- Uztailaren has. Martin jaunaren, Leoniaren eta Zelinaren egonaldia Auteuil-en.
- Al. VII/23 Gutuna Zelinari (TG 57): *“Bi liliak... Jesusek den-dena eskatzen dizu”.*
- Al. VIII/6 Martindarrak Alençon-era doaz.

- Ig. VIII/12 Martin jauna berriro gaixotzen da Buissonnets-en.
Az. VIII/22 Dabid jaunaren, Guérin andrearen lehengusuaren, heriotza; onda-
sun handiak uzten ditu, bereziki La Musse gaztelua.
- X/8-15 Gogo-jardunak, beharbada, A. Blino josulagunak emanda.
Urriaren amaiera Komunitateko batzarrak Teresa abitua hartzeko onartzen du.
X/31tik XI/2ra Martin jauna eta Zelina Havre-ra doaz, Kanadarantz irtengo den
aita Pichon-i agur egitera. Honfleur-en, Martin jauna larriki gai-
xotzen da berriro. Parisera itzultzen da.
- Azaroa Martin jaunaren osasun-egoeragatik, Teresaren abitu-hartzea atze-
ratu egiten da.
- Lr. XII/8 Guérindarren botika Lahaye jaunari saldua da.
Abendua (?) Martin jaunak 10.000 libera eman zituen Jondone Petriren kate-
draleko aldare berrirako.

1889 - HAMASEI URTE

- I/5-10 Abitua hartzeko gogo-jardunak; bitarte horretan Teresak sei txar-
tel edo gutun idatzi zituen (TG 74.etik 79.era; TG 77 bere aitari,
gordetzen direnetatik azkena da: ondorengo guztiak suntsitu egin
ziren).
- Og. I/10 **Abitu-hartzea** (elur eta guzti), Martin jauna aurrean dagoelarik.
Teresak bere izenari "*Aurpegi Santuarena*" erantsi zion (ik.
TG 80).

Nobiziatua: 1889ko urtarrilaren 10etik 1890eko irailaren 24ra

- Urtarrila Teresaren ofizio berria: jantokia (ahizpa Aines Jesusenakin) eta
erratzez garbitzea. Bi argazki nobizia dela: VTL, 5 eta 6. zk.ak.
- Urtarrilaren Martin jaunaren osasun-egoera kezagarria da: neurritz gaineko
amaiera urduritasuna eta logura. "Hamar bat egun hala-hola igarotzen
ditu" eta ondoren oheratu beharra du.
- As. II/12 Haluzinazio-krisi baten ondoren, Martin jauna Caengo Bon
Saveur-eko ospitalean sartzen dute, hiru urtean han iraungo due-
larik.
- Az. II/13 Ama Maria Gonzagarena berriro hautatzen dute priore hiru urte-
rako.
- As. II/19 Leonia eta Zelinak ostatua hartzen dute Bon Saveur-etik hurbil,
Caen-en, eta Teresak gutun zirraragarriak idazten dizkio Zelinari
sufrimenduari buruz: TG 82 ("*Jesus odolezko senarra da*"), 83,
85 ("*Maitasun-zauriak*"), 86, 87 ("*Baketan sufri dezagun...*"), 89
("*Sufri dezagun mingostasunez, hau da, adorerik gabe*").
- III/25-VI/7 Guérindarrak, behin-behinekoz, Sauvage-n jartzen dira bizitzen
(16, rue Condorcet), geroago Buissonnets-era aldatuko dira.
- Lr. IV/20 Etxe bat erosi zuten: 19, rue de la Chaussée (gaur egun, Paul-
Banaston).

- Og. V/2
Maiatza Ahizpa Marta Jesusenaren abitu-hartzea.
Karmelgo tornu-leihoak dagoen etxean obratan dihardute. Aitorle-
kua mintzatoki gisa erabiltzen da. Leonia eta Zelina euren ahizpa
karmeldarrak *ikus*i gabe egongo dira urtebetean.
- Ig. V/5 Estatu orokorren deialdiaren mendeurrena (1789). Erakusketa
unibertsala. Eiffel dorrearen inaugurazioa.
- As. V/14
V/25-31 Zelina eta Leonia Buissonnets-era datoz berriro.
Parisko erakusketa bisitatzen dute Guérindarrekin.
- Og. V/30
Or. VI/7 TG 92 Maria Guérin-i, sarritan jaunartzeari buruz.
Guérindarrak aste batzuetarako Buissonnets-en jartzen dira.
- As. VI/18 Lisieux-ko auzitegiak administratzaile bat izendatu zuen Martin
jaunaren ondasunetarako; Teresarentzat probarik zailenetarikoak.
Guérindarren egotaldia La Musse-n, Leonia eta Zelinarekin.
- VII/6-20
Uztaila Teresak Andre Mariaren grazia bat jaso zuen santa Maria Mada-
lena ermitan: "*soseguzko astea*" (KH 11. VII. 2).
- Or. VII/12 Marzelina Husé, Guérindarren neskamea, Bayeux-ko beneditar-
retan sartzen da.
- Lr. VII/20 La Musse-tik itzultzean, Leonia eta Zelina Guérindarren etxera
doaz bizi izatera, Buissonnets utzi ondoren.
- As. VIII/27 Karmelgo sakristaua hiltzen da. Teresari hainbat astetan kanpoko
kapera garbitzeko zeregina emango diote.
- X/15
Urria TG 96 Zelinari: "*Jesus arima eske datorkigu*".
Obrak direla-eta, ez da izango gogo-jardunik hitzaldiekin. Buis-
sonnets-eko hainbat altzari Karmeli eman zitzaizkion.
Tom txakurra klausuran sartzen da, baratzen, eta ezagutu egiten
du Teresa.
- As. X/22 TG 98 Zelinari, Aurpegi Santuaren estanparekin.
- Ig. XII/8 Zelinak bere baitan garbitasun-botoa egiten du.
- Az. XII/25 Buissonnets-eko errenta baliorik gabe uzten da. Karmelen, Tere-
sak Andre Mariarena egiten du, ahizpa Ainesek idatzitako *Le pre-
mier rêve de l'Enfant-Jésus* (Jesus Hauraren lehenengo ametsa)
izeneko antzerkitxoan.
- As. XII/31 Martin jaunaren erlojua karmeldarren koruan jartzen dute.

1890 - HAMAZAZPI URTE

- Urtarrila Urtean zehar, Teresak Joan Gurutzekoa irakurtzen du, eta "sufri-
kariozko Zerbitzaria"ri buruzko Isaiasen testuak aurkitzen ditu.
Teresaren profesa atzeratu egingo da. Aita Surin-en *Les fonde-
ments de la vie spirituelle* irakurtzen du.
- Or. IV/4
V/6-17 Ostiral Santua. Ama Jenofa fudantzaileak oliadura hartzen du.
Guérindarrak erromes doaz, Leonia eta Zelinarekin, Tours eta
Lourdes-era, Bon Saveur-era egindako bisita triste baten ondoren.
- Maiatza (?) Teresa eta aita Blino josulagunaren arteko elkarrizketa; honek
haren santutasun gogo biziak baretu nahi ditu.

- Uztaila Tornuko lanen amaiera. Bisitak ohi bezala izaten hasten dira. Bi tornuzain jarriko dituzte (ahizpa Maria-Elisabeth eta ahizpa Maria Antonieta). Nobiziatua lehenengo solairuan eratuko da.
- VII/10-31 Guérindarren egotaldia La Musse-n, Leonia eta Zelinarekin.
- Ig. VI/8 Joana Guérin-i ezkontzeko eskabidea egiten dio Frantzisko La Néele doktoreak.
- Or. VII/18 TG 108 Zelinari: "*Jesusen ezkutuko edertasunak*", Isaias 53 eta 63, Kantarik Ederrena, Joan Gurutzekoa.
- VII/27-29 TG 109 Maria Guérin-i, bokazio eta tentaldiei buruz.
- Og. VIII/28 Teresak gogo-jardunak hasten ditu profesarako.
- VIII/30-31 Arimako idortasun handia (ik. TG 110 ahizpa Ainesi: "*Nire Senargaiak ez diost ezer...*", eta TG 111).
- As. IX/2 Azterketa kanonikoa kaperan. «*Arimak salbatzera etorri naiz, eta, batez ere, apaizen alde otoiz egitera*». Leon XIII.aren bedeinkazioa heldu zen Teresa eta honen aitarentzat.
- Or. IX/5 Zelinak, Caengo Bon Saveur-en, Teresaren koroa eta gurutzea bedeinkarazten dizkio Martin jaunari.
- Ig. IX/7 Otoitz-gaubeilan, Teresak bere bokazioaz zalantzak ditu.
- Al. IX/8 **Terisaren profesia**, "*bakezko poz-uholdez gainezka*". Haren ari-maren egoera Otoi. 2an daude laburturik. Aita Roulland-en bokazioa bide onean da (ik. TG 201).
- As. IX/23 Ahizpa Marta Jesusenaren profesia. Teresa, bere aitari dagokio-nez, etsita dago, honek ez baitu izango haren "*ezteitan*" egoterik (TG 120 Zelinari); izan ere, eztei horiek aurretiaz ospaturik zeuden haren "*Eztei-egunerako gonbidapen*" ean (TG 118).
- Az. IX/24 Teresak beloa hartzen du. Maria Guérin ziur da bere karmeldar bokazioaz.
- Az. X/1 Joana Guérin eta Frantzisko La Néele-ren ezkontza.
- Urria Aita Godefroid Madelaine premontretarrak emandako gogo-jardunak.
- Zelinaren osasun-arazoak (bihotz-arazoak).
- X/8-16 (?) Leonia eta Zelina erroimes doaz Paray-le-Monial-era.
- As. X/14 TG 122 Zelinari (birjinitatearen laudorioa).
- Al. X/20 TG 124 Zelinari, aster bikoitza duelarik.
- Abendua Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenak aita Pichon-ek Karmelen emandako gogo-jardunetako oharrak bidaltzen dizkio Zelinari (1887-1888), garbira pasa ditzan.
- Ig. XII/28 Leon XIII.aren dekretua, erlijiosoen sarri jaunartzeari buruz. Aita Lagrangek Bibli Eskola zabaltzen du Jerusalem.

1891 - HEMEZORTZI URTE

- Negu gogorra.
- II/10 inguruan Elizain-laguntzaile ahizpa San Stanislas-ekin.

- Apirila - Uztaila Otoitza karmeldar probintzial ohia zen Hyacinthe Loyson-en alde, Eliza katolikoa utzi du eta Normandian barrena hitzaldiak ematen ari baita (ik. TG 127 eta 129 Zelinari).
- Lr. VI/27 Leonia eta Zelina Caen-en.
- VI/29 - VIII/13 Guérindarrek egun hauek La Musse-n igarotzen dituzte Leonia eta Zelinarekin.
- Ig. VII/5 Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenak nobiziatua uzten du, ahizpa Marta eta Teresa han gelditzen direlarik.
- Az. VII/22 Ama Jenofaren diamantezko ezteiak; Zelinak Jesus hil-aginean dagoela pintatzen du gaixotegirako.
- Og. VII/23 TG 130 Zelinari, lehenxeago Henry Maudelonde-ren ezkontza-eskariari uko egina zen Zelinari.
- Or. IX/11 Guérindarren zilarrezko ezteiak. Teresa gogo-jardunetan da.
- X/7-15 Aita Alexis Prou-k emandako gogo-jardunak; Teresa "*Konfiantzaren eta maitasunaren olatuetan zehar*" (A, 80^o) murgildurik dago.
- Lr. X/10 Bikario nagusia zen Révérony apaiz jaunaren heriotza.
- As. X/20 TG 132 Zelinari ("*negua eta lore irekia*").
- As. XI/3 "Argitu beharreko bi arazo": Guérin jaunaren editoriala, beraren antzinako ikasle antiklerikal Henri Chéron-en aurka, *Le Normand* egunkarian, urriaz gero bertan idazten duelarik.
- As. XI/24 Joan Gurutzeko Santuaren heriotzaren hirugarren mendeurrena; aita Déodat de Basly-k egin zuen hitzaldia. Mgr Hugonin klausuran sartzen da, eta aita on bezala agertzen da "bere alabaxoa"rekin. Txartel bat idazten du: Joan Gurutzekoaren testamentua.
- Og. XI/26 Frantzisko La Néele-k Caen-go botika saltzen du, mediku-lana egiteko eskubidea izateko asmoz.
- Lr. XII/5 Lisieux-ko Karmelgo fundatzailea izan zen Ama Jenofaren heriotza.
- Az. XII/23 Kaperan ehortziko dute; Teresak amets egiten du Ama onaren bihotza jasotzen duela.
- Al. XII/28 Gripe-izurritearen hasiera; Teresak sakristiako ardura du, eta egu-nero jaunartzen du.

1892 - HEMERETZI URTE

Urte honetatik aurrera, haren otoitza mantentzen dutenak "*batez ere Ebanjelioa*" eta san Joan Gurutzekoa dira.

- Lr. I/2 Teresaren urtebetetzea; ahizpa San-Jose-ren heriotza.
- Al. I/4 Ahizpa Febronia prioreordearen heriotza.
- Og. I/7 Ahizpa Madalena Sakramentu Santuarenaren heriotza.
- Urtarrila Baillon apaiz jauna aitor-entzule berezi izendatzen dute.
- Otsaila Gripea dela-eta urtebete atzeratzen dira hauteskundeak. Ama Maria Gonzagarena geldituko da priore.

- Az. IV/20 Henry Maudelonde-ren ezkontza. Zelinak bertan behera utziko du dantzaldia (ik. CSG, 136 eta ondorengo orrialdea), Teresak mintzatokian aholkuak eman ondoren.
- As. IV/26 TG 134 Zelinari ("*bitxilore bikoitza*").
- As. V/10 Guérin jaunak gaixorik dagoen Martin jauna Lisieux-era dakar.
- Og. V/12 Martin jaunak Karmelera egindako azken bisita; haren hitz baka-
rrak hauek dira: "Zerura".
- Uztaila Zelina eta Leonia Labbey kalean jartzen dira bizitzen beraien aita eta zerbitzariekin.
- Or. VII/22 Ahizpa Maria-Madalena Sakramentu Santuarenaren sarrera (Gué-
rindarren "besoetakoa").
- Az. VIII/3 A. Pichon-ek Kanadan fundazio bat egiteko asmoa agertzen dio
ezkutuan Zelinari.
- VIII/11-23 Zelinaren oporrak La Musse-n (Leoniak bere aita zaintzen du
Lisieux-en).
- Al. VIII/15 TG 135 Zelinari ("*otoitz-apostolutza*").
- Urria Teresak gogo-jardunak egiten ditu bakarrean.
- Az. X/19 TG 137 Zelinari ("*Ene Ama Birjina ona, ni zu baino zoriontsua-
go naizela iruditzen zait...*").
- Azaroa Aita Déodat frantziskotarrak emandako gogojardunak.
- XII/8 inguruan Teresak argitasuna eskaintzen dio ahizpa Martari priorearekiko
bere harremani buruz.

1893 - HOGEI URTE

- Or. I/20 Aita Pichon-en gutuna (LC 151), grazia-egoera dela-eta lasai
uzten duelarik.
- Og. II/2 Teresaren lehenengo olerkia, ahizpa Teresa San-Augustinenari
eskainia, *Jainkozko ihintza* (TO 1).
- Al. II/20 Ama Aines Jesusena hautatzen dute priore (ik. TG 140). Teresak
sakristia uzten du; pintura-lana ematen diote; Ama Maria Gonzaga-
garenaren laguntzailea izango da nobiziatuan.
- As. IV/25 TG 141 Zelinari (ihintz tanta).
- Apirila - Maiatza Teresaren eta komunitate osoaren «erretatuak», ahizpa Maria
Aingeruenak eginak (CG, 1171 eta ondorengo orrialdeak).
- Ekaina Teresak otoiztegirako hormirudia pintatzen du; ofizio berria: hor-
niztailearen hirugarrena.
- Lr. VI/24 Leonia Caen-go Bisitazioan sartzen da berriro (lekaime izateko
hirugarren ahalegina).
- VI/27 - VIII/18 Guérindarren egotaldia La Musse-n, Martin jauna, Zelina eta
Tom-ekin.
- Og. VII/6 TG 142 Zelinari ("*maitasunaren banketxea*").
- Uztaila (?) *Maitasuneko begiradak Jesusi* (Otoi. 3). Teresak eta ahizpa Mar-
tak beraien bertutezko ekintzen kontua daramate.
- As. VII/18 TG 143 Zelinari ("*maitasun-garra, mantentzeko*").

- Ig. VII/23 TG 144 Zelinari ("*itsasoan bakarrik dagoen haurra*").
 Az. VIII/2 TG 145 Zelinari ("*Jesus ezkutuko altxorra da*").
 Ig. VIII/13 TG 147 Zelinari ("*mertxika eta hezurra*") eta TG 148 Leoniari, Bisitazioan.
- Og. IX/7 Ahizpa Maria-Madalenak abitua hartzen du. Urtebetez ama Aine-
 sek Teresarengana joatera behartzen du.
- Or. IX/15 Zelinak eskolak hartzen ditu Krug pintorearengandik.
 Iraila Teresak nobiziatua utzi beharko luke, baina bertan gelditzea
 eskatzen du. Bigarren atezain jarri dute.
- X/7-15 Aita Lemonnier-ek emandako gogo-jardunak.
 X/20 (?) TG 149 Zelinari ("*gure arimengatik Jesus jeloskor dago*").
 Ig. XI/5 TG 151 Leoniari ("*oihanetako haritzak*").
 Abendua Jantokian Chantal-go Joana Santuaren bizitza irakurtzen da.
 Teresak "bertutezko ekintzak" egiten ditu ahizpa Maria-Madale-
 narekin (baita urtarrilean, otsailean eta martxoan ere).
- Al. XII/25 Eguberria. Berriro antzezten dute ama Ainesen *Les Vertus au ber-
 ceau de Jésus* antzerkia (1884an antzeztua).

1894 - HOGEITA BAT URTE

- Urtarrila «*Joana Ark*»ekoaren urtea. Teresak barau egiteari ekiten dio.
 Adinez nagusia denez gero, Teresak idazkera zuzena hartzen du.
Jesus Haurraren Ametsa pintatzen du eta *Joana Ark*-ekoaren
misionea, bere *Deboziozko solas-antzerki*aketatik lehenengoa
 konposatzen du I/21erako, ama Aines bere ahizpa eta priorearen
 santu-egunerako.
- Ig. I/21 TG 156 ama Ainesi ("*Jesus Haurraren Ametsa*").
 Lr. I/27 Leon XIII.ak Joana Ark-ekoa "gurgarri" izendatzen du.
 As. II/20 TO 2 Maria Gonzagarenari, honen hirurogeigarren urterako.
 Otsaila Otoi. 4 («*Hirutasun Guztiz Santuari omena*»).
- Udaberria Gaixotasunaren hasiera. Teresak eztarriko lehenengo minak ditu.
 Or. IV/6 Leoniak abitua hartzen du Caen-go Bisitazioan (ahizpa Teresa-
 Dositea).
- Og. IV/26 TG 161 Zelinari, TO 3rekin (*Zeilia Santua*) batera, bere ahizpa-
 ren hogeita bost urteetarako (IV/28).
- As. V/8 Jai handiak Lisieux-en, Joana Ark-ekoaren ohoretan; Guérinda-
 rrek eta Martindarrek apaingarriak eskitzen dituzte leihoetan;
 TO 4 (*Joana Ark-eko agurgarria aldaretara goratzea lortzeko
 kantika*).
- Ig. V/27 Martin jauna elbarri gelditzen da; oliadura ematen diote.
 Or. VI/1 Jesusen Bihotz Sakratuaren jaia. TO 5 (*Nire Gaurko Kanta*) eta
 TO 6 (*Maite dudan Arima baten Argazkia*) Maria Bihotz Sakra-
 tuarenarentzat.
- As. VI/5 Martin jauna bihotzekoak emanda oso larri.

- Or. VI/8 Guérindarrek Martin jauna eta Zelina euren etxean hartuko dituzte, Paul-Banaston kalean.
- Lr. VI/16 Ahizpa Maria Hirutasunarena Lisieux-en sartzen da, Parisko Mes-sine-ko Karmeldik etorririk. Teresaren ardurapean utziko dute.
- Al. VI/18 Teresari eztarria sendatzen diote.
- Az. VI/20 Aita Pichon-ek Kanadako «Béthanie»rako dituen asmoak azal-tzen dizkio Zelinari gutun batean.
- Ig. VII/1 La Néel doktoreari kontsultak, Teresaren marfundi eta bularreko minak direla-eta.
- Az. VII/4 Guérindarrak La Musse-n, Martin jauna eta Zelinarekin.
- Lr. VII/7 TG 165 Zelinari ("*Hirutasun osoak begiratzten digu*").
- As. VII/17 Compiègne-ko karmeldarren martiritzaren mendeurrena, hori ospatzeko Teresak zutoihalak egin zituen.
- Az. VII/18 TG 167 Zelinari ("*sekula ere ez gaitu Jesusek banatuko... Ni ehiza-txakurtzoxa naiz*").
- Ig. VII/29 Martin jauna La Musse-n hiltzen da, goizeko zortzi eta laurdene-tan.
- Og. VIII/2 Martin jauna Lisieux-en lurperatzen dute. Geroxeago, Zelinak bere ahizpei jakinarazi zien zeintzuk ziren aita Pichon-en asmoak. Guztiak haserre.
- Abuztua TO 8 (*Santu baten alabaren otoitza*).
- VIII/7 edo 8 Zelinak nagusiari (Delatroëtte jauna) eskatu zion Karmel onar zezaten. Teresa pozez zorutzen dago (TG 168); gelaz aldatzen da.
- Ig. VIII/19 TG 169 Zelinari ("*haien bokazioen zorakeria*").
- Al. VIII/20 Aita Pichon-en gutuna: "Nik Karmeli eskaintzen diot neure Zelina".
- Or. IX/14 Zelina Karmelen sartzen da (ahizpa Maria Aurpegi Santuarena); Teresaren ardurapean jarriko dute.
- X/7-15 Aita Lemonnier-ek emandako gogo-jardunak.
- Og. X/11 Alençon-dik Lisieux-era ekartzen dituzte Martin andrearen eta honen lau seme-alaben gorpuak, baita haren aitarena eta amaginarrebarena ere.
- Lr. X/20 Teresaren marrantak okerrera egin zuen; La Néele doktorearen aholkuak.
- As. XI/20 Ahizpa Maria Madalenaren profesia, TO 10 (*Erregina bihurtu zen neska artzain baten istorioa*) jasotzen duelarik. Argazkia Lour-des-ko patioan (VTL, 9. zk.).
- Udazkena Teresak Zelinaren koadernoak aztertzen ditu; hauetan bere "*bidetxo*"rako erabakigarriak izango ziren idazteun-testuak aurkitu zituen.
- As. XII/18 Ahizpa Maria Hirutasunarenak abitua hartzen du; berarentzat idazten ditu Teresak TO 11 eta 12.
- As. XII/25 DSA 2ren antzezpena (*Aingeruak Jesusen sehaskan*). TO 13 Zeli-narentzat (*Zeruko Erreginak bere alaba maiteari*).
- Abendua Ama Ainesek haurtzaroko bere oroitzapenak idazteko agintzen dio Teresari.

1895 - HOGEITA BI URTE

A eskuizkribua idatzi zuen urtea.

- Og. I/17 Félix Faure Errepublikako presidente hautatzen dute.
- Al. I/21 DSA 3ren antzezpena (*Joana Ark-ekoa bere misionea betetzen*). Joanarena egiten duen Teresa erretzeko zorian egon zen. Argazkiak: VTL, 11. zk.tik 15.era (ziur asko, geroxeagokoak).
- Urt.ren amaiera Izen berria Zelinarentzat: ahizpa Jenofa Santa Teresarena.
- Urtarrila - Apirila Hiru gutun Leoniari zuzenduak (TG 173, 175 eta 176), guztiak Bisitaziora.
- As. II/5 Ahizpa Jenofak abitua hartzen du; Teresak hitzaldirako laburpena eskuratzen dio Ducellier apaiz jaunari; Teresak TO 16 ematen dio Zelinari (*Jesusen Maitearen Eskerroneko Kantua*).
- Al. II/25 Aita Pichon-ek Teresari bidalitako azken gutuna.
- As. II/26 (Ihauterietako astearte). TO 17 (*Maitasunez bizi*) bat-batean idatzia.
- Apirila Honako hau diotso ahizpa Teresa San-Augustinenari: "*Ni laster hilko naiz*".
- Al. IV/15 Bazko astelehena: VTL argazkiak: 18, 19 eta 20. zk.ak.
- Or. IV/19 VTL: 24 eta 25. zk.ak (komunitatea bokata egiten).
- Lr. IV/20 VTL: 16 eta 17. zk.ak (atsedena gaztaintondoen azpian).
- Ig. IV/28 TO 18 idazten du Zelinarentzat (*Maite nuena*). VTL argazkiak: 21, 22 eta 23. zk.ak.
- Ig. VI/9 Bat-bateko eskaintza Maitasun errukitsuari**, meza bitartean.
- As. VI/11 Ahizpa Jenofarekin batera Eskaintzaren Ekintza esaten du (Otoi. 6) Irriaren Andre Mariaren aurrean.
- Og. VI/13 "Diana Vaughan"en gezurrezko "konbertsioa".
- Or. VI/14 (?) Maitasun-zauria Gurutzetakoak egiterakoan (KH 7. VII. 2).
- Or. VI/21 TO 23 (*Jesusen Bihotz Sakratuari*) egun honetan idatz zitekeen; Maria Bihotz Sakratuarenak eskaturik idatzi zuen.
- Ekaina - Uztaila Teresak bere Maitasunari Eskaintza jartzen dio aurrean Maria Bihotz Sakratuarenari; honek onartzen dio, duda-muda batzuen ondoren.
- As. VII/16 Otoi. 7 (*Sagrarioko Jesusi otoitza*) ahizpa Martarentzat.
- Lr. VII/20 Leonia irten egiten da Bisitaziotik (lekaiame izateko hirugarren ahaleginean huts egiten du; ik. TG 178, Guérin andreari).
- Al. VII/29 Ahizpa Ana Bihotz Sakratuarena Saingoneratz, bere jatorrizko Karmelerantz, irteten da. Ahizpa ez-korukoen jairako (Santa Marta), DSA 4 antzetzten da (*Jesus Betanian*).
- Al. VIII/12 TO 20 (*Nire Zerua hemen behean, kantua Aurpegi Santuari*) Maria Hirutasunarenaren hogeita bost urteak zirela-eta.
- Og. VIII/15 Maria Guérin Karmelen sartzen da (ahizpa Maria Eukaristiarena), Teresak TO 21 eskaintzen diolarik.
- Og. IX/7 TO 22, ama Ainesen hogeita hamalau urteak direla-eta (*Nire Ama maiteari haurtzaroko Aingeru Eder izan nuenari*).

- X/7-15 Aita Lemonnier-ek emandako gogo-jardunak.
As. X/8 Karmelgo nagusi zen Delatroëtte jaunaren heriotza.
Og. X/17 Ama Ainesek Teresaren ardurapean jarri zuen honen lehen neba izpirituala, Maurice Bellière apaizgaia. TG 180 Joana La Néeleri, hau bere ahizpa Karmelen sartu ondoren kontsolatzearren.
- X/17-21 Otoi. 8 (otoitza Bellière apaizgaiarentzat).
Al. X/21 TO 24 Zelinarentzat (*Jesus, ene Maitea, oroi zaitez*).
Ig. XI/10 Ahizpa San-Pedroren heriotza.
Lr. XI/30 Maria Hirutasunarenak Maitasunari Eskaintza esaten du.
Az. XII/25 *Eguberriko Jainko-Haur tipi eskelariaren* liturgia (DSA 5). Otoi. 9 (*Zelina eta Teresaren otoitza*).

1896 - HOGETA HIRU URTE

- Negu gogorra.
Urtarrila (?) Teresak bere armarriak pintatzen ditu (A, 86^a).
Maupas jauna izango da Karmelgo nagusi berria. Gorabeherak laster izatekoa den ahizpa Jenofaren profesa dela-eta (ik. CG, 1191 eta ondorengo orrialdeak).
- Al. I/20 Teresak ama Ainesen eskuetan jartzen du A eskuizkribua; honek gorde egiten du irakurri gabe.
- As. I/21 Ama Aines priorearen jaia: TO 26 eta *Egiptorat ihesen antzezpe-*na (DSA 6), omenduak etenarazi zuelarik.
- Ig. II/23 TG 182, ahizpa Jenofari «*zeruko jaiak*» azaltzeko (haren profesaren inguruan dauden arazoengatik kontsolatzeko).
- Al. II/24 Ahizpa Jenofaren profesa; "*Jesus eta Zelinaren elkartasun-hitzarmena*" (TG 183) eta TO 27 jasotzen ditu Teresarengandik.
- Ig. III/1 TO 28 gaixorik den lekaime batentzat (Maria San-Joserena).
Lr. III/14 Ahizpa Margarita-Maria Bihotz Sakratuarena Caengo Bon Saveur-en ospitaleratzen dute.
- As. III/17 Ahizpa Jenofaren belo-hartzea. Maria Eukaristiarenaren abitu-hartzea. VTL argazkiak: 26, 27, 28, 30 eta 31. zk.ak.
- Lr. III/21 Ama Maria Gonzagarenaren hautespen zaila (zazpi bozketaldi). Teresa bere nobizien maistra-laguntzaile karguan birretsia; beste ofizio batzuk: sakristia, pintura, arropategia (Maria San Joserena-kin batera).
- Or. IV/3 **Ostiral Santua. 2tik 3rako gaua: gaueko lehenengo hemoptisia**, hurrengo gauean berriro errepikatzen dena.
(Bazkoa). Teresa "ilunperik itsuenean" sartzen da, fedearen **proba, bera hil arte iraungo duena**.
- Ig. IV/5 Ahizpa Maria Hirutasunarenaren profesa, Teresarengandik TO 29
inguruan eta 30 hartzen dituelarik.
Og. IV/30
- Og. V/7 Maria Hirutasunarenak beloa hartzen du. VTL argazkia: 32. zk.
Ig. V/10 Teresak Ana Jesusena ama Gurgarria ikusten du ametsetan (B. 2^a/).

- Lr. V/30 Ama Maria Gonzagarenak bigarren neba izpirituala jartzen du Teresaren ardurapean: aita Roulland.
- Ig. V/31 TO 31 Maria Hirutasunarenaren jairako («*Maitasun egarri naiz*»).
- VI/10 - VII/26 Guérindarren egotaldia La Musse-n Leoniarekin.
- Ig. VI/7 TO 32 ahizpa San-Bizente Paulekoarenarentzat (*Nire zerua nire-tzat*).
- Or. VI/12 TO 33 ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenarentzat (*Nik laster lehenengo aldiz ikusiko dudana*).
- Ig. VI/21 Ama Maria Gonzagarenaren jai, oso goretsia. *Apaltasuna garai-le* antzezten da (DSA 7).
- As. VI/23 Teresak aita Roulland-i idatziko dizkion zapi gutunetarik lehen-go.
- VI/22-24 Godefroid Madelaine-k zuzenduriko hirurrena.
- Ig. VI/28 TO 34 (*Loreak bota*). Aita Roulland-en apaiztea.
- Al. VI/29 TG 190 ama Maria Gonzagarenari ("*Bildots txikitxo baten kondaira*")
- Or. VII/3 Aita Roulland-ek lehenengo meza ematen du Karmelen; Teresa-ekin hitz egiten du mintzatokian.
- Uztailaren has. VTL argazkien zk.ak: 29, 35 (belar sikua biltzea), 36, 37 eta 38 (Teresa zitori horiekin).
- Ig. VII/12 Hainbat astetan zehar sendabide gogogarri bat egin ondoren, Teresak ez du eztulik egiten dagoeneko. TG 191 Leoniori (Jesus bihotzez hartzea).
- Az. VII/15 Teresa Cornière doktoreari «*aurkeztua*» da.
- Og. VII/16 TO 35 (*Garaipenen Andre Mariari*).
- Uztaila - Abuzt. Gurarizko martiritza; Isaias eta Paulo Santuaren irakurgaiak.
- Og. VII/30 TG 193 aita Roulland-i ("*ehun halako lurrean eta datorren mendean betiko bizitza*"; Isaiasen iruzkina).
- Ig. VIII/2 Aita Roulland Txinarantz irteten da; ama Ainesen izena ere entzuten da Saigonerako.
- Og. VIII/6 Otoi. 12 (*Aurpegi Santuari konsagratzea*) ahizpa Jenofa, Maria Hirutasunarena eta beretzat.
- Lr. VIII/15 TO 36 (*Jesus bakarrik*) Maria Eukaristiarenarentzat.
- Or. VIII/21 TO 37, 38 eta 39 Joana eta Frantzisko La Néele-rentzat.
- Iraila Mgr de Teil-en hitzaldia Lisieux-en, Compiègne-ko karmeldarrei buruz.
- IX/7-18 Teresaren bakarreko gogo-jardunak.
- As. IX/8 **B eskuizkribuaren bigarren zatiaren idazketa, «Jesusi».**
- IX/13 **B eskuizkribua, lehenengo zatia (= TG 196 Maria Bihotz Sakratuarenari).**
- Og. IX/17 TG 197, berberari, B eskuizkribuaren osagarri.
- X/8-15 Aita Godefroid Madelaine-k emandako gogo-jardunak; harekin hitz egin ondoren (edota ekainean ote zen?), Teresak *Kredoa* idatzi zuen bere odolaz.

- Og. X/15 Teresa Santuaren txartela kopiatzen du. (*"Arima bat salbatzearen mila bizitza emango nituzke nik"*).
- Az. X/21 TG 198, lehenengo gutuna Bellière apaizgaiari.
- Ig. XI/1 TG 201 aita Roulland-i (*"Zuk lautadan egiten duzu borroka; neu naiz zure Moises txikia"*).
- Az. XI/4 Ahizpa Maria Antonieta tornuzainaren heriotza, birikeriak jota.
- Azaroa TO 40 Karmelgo elizaintzat (Maria Filomena Jesusenak eskaturik). Teofan Vénard-en bizitzaren irakurketa.
- Lr. XI/21 Teofan Vénard-en gutunetako pasarte batzuk kopiatzen ditu; martiri honi bederatzieurrena egin zitzaion Teresa sendatzeko, eta, beharbada, Indotxinara joateko... Gaixotasunak jotzen du behinbetiko.
- Abendua TO 41 eta 42.
- XII/3 (?) Enplastua.
- Og. XII/24 TG 211 (*"Maria, aingeruen Erregina"* ren gutuna ahizpa Jenofari) eta TG 212, *"Jesus Nebatxo"* arena, Mari Hirutasunarenari (*boloak eta ziba*).
- Or. XII/25 Eguberrietan antzezteko, TO 43, *Jesus Haurraren Txoritegia*.
- Lr. XII/26 TG 213 Bellière apaizgaiari (*"Jesussek hain gogo biziz edan nahi zuen kalizaren aurean dardar egin zuen"*).
- Al. XII/28 TO 44 *Nire Zeruko Neba-Ahizpei* (eskainia). Abitu berria Teresarentzat.

1897 - HOGEITA LAU URTE

- "Aurten"* elkar maitasunaren aurkikuntza.
- Lr. I/9 TG 216 ama Ainesi; lehenengo aldiz aipatzen du argi eta garbi laster izango den bere heriotza.
- Og. I/21 TO 45 (*Nire poztasuna!*), ama Ainesen jairako.
- Urtarrila TO 46 (*Nire Aingeru Zaintzaileari*), ahizpa Maria Filomenari eskainia.
- As. II/2 TO 47, Teofan Vénard Tonkingo martiri gazteari lepoa moztu zioteneko hogeita hamasei urteurrenerako.
- Al. II/8 DSA 8ren antzeztepena (*Stanislas Kostka saindua*), ahizpa San-Stanislas Bihotz Sakratuenaren urrezko ezteietarako.
- Az. II/24 TG 220 Bellière apaizgaiari; olerki batzuk bidaliko zizkiola hitz ematen dio, eta zeruan bera haren apostolutzatik hurbil izango dela ziurtatu.
- Az. III/3 Garizumaren hasiera; Teresak ahaleginak egiten ditu baraua egiteko.
- III/4-12 Xabierko Frantzisko santuari bakarreko bederatzieurrena egiten dio, hil eta gero on egitea lortzeko.

- Or. III/19 Eskari berbera Jose santuari. TG 221 aita Roulland-i (*otorrainaren borroka; Tonkin-erako asmoa; "Ez naiz bat ere arduratzen etorkizunaz"*).
- Og. III/25 Ahizpa Maria Eukaristiarenaren profesa; TO 48 hartzen du (*Nire armak*).
- Apirilaren has. Garizumaren amaiera. Teresa oso gaixorik jarriko da.
As. IV/6 «Azken Elkarrizketen» hasiera.
- Al. IV/19 Leo Taxil-ek berak agertzen du bere iruzurra Parisen, bereziki, Diana Vaughan-i dagokiona.
- Ig. IV/25 TG 224 Bellière apaizgaiari (*"arima txiki-txikitxo bat, distirarik gabeko lore gaixoa"*).
- Maiatza Ofizio guztietatik eta koruko errezuetatik aske uzten dute. TO 50 (*Joana Ark-ekoari*); zirriborro hau prozesuetan ere ez dute agertuko; maiatzaren azken aldera, TO 53 (*Lili bat arantza artean*) Maria Hirutasunarenak eskaturik, eta TO 54 (*Zergaitik maite zaitudan, oi Maria*).
- Ig. V/9 TG 226 aita Roulland-i (*"Nire bidea dena konfiantza eta maitasunezkoa da"*).
- Az. V/19 TO 51 (*Arrosa hostokatua*).
- Maiatzaren amai. Teresa askatu egingo dute nobizien arduratik .
- Ig. V/23 TG 229 ama Ainesi (*igongailua*).
- Or. V/28 TG 230 ama Ainesi (ahizpa San Joan Bautistarekin gertatu zitzaiona).
- Ig. V/30 Teresak 1896.eko apirileko hemoptisiaren berri eman zion ama Ainesi odol-txistuen berri, eta egun berean bi txartel eskurazten dizkio: TG 231 (*"kartazala eta gutuna"*) eta 232.
- Al. V/31 TO 52 Teresa San Augustinenarentzat (*Burua-uztea maitasunaren fruitu gozoa da*).
- Az. VI/2 Maria Eukaristiarenak beloa hartzen du, eta TG 234 eskuratzen.
- Og. VI/3 Ama Ainesen aholkuz, bere bizitzaren kontaketa jarraitzeko eskatzen dio ama Maria Gonzagarenak Teresari (**C eskuizkribua**).
- Lr. VI/5 Gaixotasunak bizkor egiten du aurrera; bederatziiurrena egingo diote Garaipenen Andre Mariari.
- Ig. VI/6 TG 242 Maria Hirutasunarenari: *"ezin dut gaixotasunaz kontatu, gidari oso geldia baita. Maitasunaz baizik ez dut kontatzen"*.
- Al. VI/7 Argazki-saio nekagarria (VTL zk.ak: 41, 42, 43) eragingo dio ahizpa Jenofak; Teresak arratsean TG 243 idazten dio (*"azkenengo lekua, arima txikiak"*).
- Az. VI/9 Teresak bere fede-proba gogoratzen du C eskuizkribuan (7¹). Bellière apaizgaiari agur egiteko oharra idazten dio (TG 244: *"Ni ez naiz hiltzen, bizitzan sartzera noa"*), baina osasunez hoberantz eginez, ez zaio bidaliko. Asteaz zehar, esneki-dietari ekiten dio.
- Or. VI/11 Baratzan, loreak botatzen dizkio san Joseren irudiari.

- Ig. VI/13 Hirutasunaren jaia: bederatziruurenaren amaiera. Teresa askoz ere hobeki dago.
- Al. VI/21 TOE 6 ama Maria Gonzagarenarentzat, eta TG 247 Bellière apaizgaiarentzat ("*bere hutsak maitasunarenugar irenslera jaurti*").
- Or. VI/25 Alboko min handia.
- Az. VI/30 Azken solasa osaba Guérinekin mintzatokian.
- Or. VII/2 Teresa bere indarren azkenetan.
- As. VII/6 Hemoptisiak okerrera egiten du, ia-ia egunero ditu abuztuaren 5era arte.
- Az. VII/7 Arnasestuak; Teresak hil-aginean dagoela dirudi.
- Og. VII/8 Gaixotegira jaisten dute; ahizpa Jenofa alboko gelan jarri zen; C eskuizkribua amaitu gabe geldituko da.
- As. VII/13 TG 253 Bellière apaizgaiari ("*zein pozik nagoen hiltzeaz!*").
- Az. VII/14 TG 254, azken gutuna aita Roulland-i. Teresak Erromatik bedeinkazioa jasotzen du *in articulo mortis*.
- Or. VII/16 Karmel Mendiko Andre Mariaren jaia. Troude apaizaren meza berria, Teresari Gure-Jauna ematen diolarik. Maria Eukaristiaren *Nire txikitasun aparta ezagutzen duzuna* (TOE 8, Teresak hiru egun aurretik egindakoa) eta *Maitasunez hil, Maitasunez biziren* hamalagarren ahapaldia kantatu zituen. Egundonetakoa da Otoi. 20 ere (*Apaltasuna lortzeko otoitza*), ahizpa Martari eskainia.
- Lr. VII/17 «*Nire Zerua lurrean on egiten iragan nahi dut*» (KH 17. VII). TG 257, azken gutuna Leonari.
- Ig. VII/18 TG 258 Bellière apaizgaiari ("*bi seme bihurri eta bidetxo*").
- As. VII/20 Eskuineko birikia hondaturik dago, eta hainbat zulo ditu.
- VII/24-25 Azken oharra Guérindarrei (TG 260).
- Ig. VII/25 Teresa oraindik bi orduz jaikitzen da egunero.
- Al. VII/26 TG 261 Bellière apaizgaiari ("*Haren oinetara gehiago ez makurtzeko erregutzen dizut, jarrai iezaiozu haren besoetara zaramatan lehen eragin horri*").
- Az. VII/28 «*oinaze oso handi*» en hasiera (KH 3. VIII. 8).
- Or. VII/30 Hemoptisia-erasoak etengabe, arnasestuak; antza denez, Teresak ez du gaua gaindituko. Arratsaldeko seietan aita Maupas-ek oliadura ematen dio eta Gure-Jauna bidari gisa.
- Lr. VII/31 Teresak txantxetan ari da bere hileta-prestakuntzekin.
- As. VIII/3 Sufrimendu handiak bai fisikoak eta bai psikikoak.
- Az. VIII/4 Amets gaiztoak eta izerdialdiak gauez, alboko min negargarriak.
- Og. VIII/5 Hemoptisien amaiera. Gaixotegian ezartzen dute Koruko Aurpegi Santua.
- Or. VIII/6 Antzaldatze jaia. Teresa heriotzaren zain dago gau osoan. Fedearen aurkako tentaldia.
- Ig. VIII/8 Egoera iraunkorra. De Cornière medikua oporretan doa.
- As. VIII/10 TG 263, azken gutuna Bellière apaizgaiari; bere sinipartea.

- Ig. VIII/15 Andre Mari jaia. Larriagotzea, gaixotasunak okerrera egin du betiko.
- As. VIII/17 La Néele doktoarearen ikustaldia: eskuineko birikia galduta dago, eta ezkerrekoaren heren bat jota.
- Og. VIII/19 Azken jaunartzea, Hyacinthe Loyson-en alde eskainia; Teresa ondoezak emateko zorian dago meza bitartean.
- Ig. VIII/22 Hesteetako minak hasten zaizkio. Egun horretan etengabeko minak ditu; pasmoaren beldur dira. Maria Eukaristiarenak zioenez, Teresak hitz egiteko minutu bateko etenuneak egin beharra du hitz batetik bestera.
- Al. VIII/23 "*Orain arteko gaurik txarrena*"; Teresak ulertzen du norbere burua hiltzearen tentaldia.
- As. VIII/24 Hesteetako minak, aieneka hasteko adinakoak.
- Lr. VIII/28 Minak arindu egin dira. Teresaren ohea gaixotegiaren erdian jartzen dute.
- Al. VIII/30 Gau lasaia. Teresaren azken argazkia, etzanda, klaustroan (VTL, 45. zk.).
- As. VIII/31 Honezkero ez du aitaren egiteko indarririk.
- Ig. IX/5 La Néele doktoarearen laugarren eta azken ikustaldia.
- Al. IX/6 Teresak negar egiten du, Teofan Vénard-en erlikia ekartzen diotenean.
- As. IX/8 Azken autografoa Andre Mariaren gainean (Otoi. 21).
- Lr. IX/11 Nabar-lorezko bi koroa txirikordatzen ditu Andre Mariaren irudiarentzat.
- Ig. IX/12 Oinak handitzen zaizkio.
- As. IX/14 Teresak arrosa bat hostokatzen du gurutzearen gainean.
- Lr. IX/18 Goizean hilko dela uste da.
- Ig. IX/19 Denis apaizaren meza berria Karmelen (KH 19. IX).
- Al. IX/27 Sufrimendu lazgarriak.
- Az. IX/29 Hil-aginean. Aitortza Faucon apaizarekin.
- Og. IX/30 Egunean zehar, esan ezin ahalako larrialdiak; baina, baita hau ere: *«Oi! Hala ere oso egiazkoa da, sufritzeko izan ditudan gogoei buruz idatzi dudan guztia! ...Eta ez dut nire burua Maitasunari eman izatearen damurik. Oi, ez»*. **Arratsaldeko zazpiak eta hogei inguruan hiltzen da Teresa**, komunitatea aurrean bildurik dela.
- Or. X/1 Teresaren azken argazkia, hilda (VTL, 46. zk.).
- Al. X/4 Lisieux-ko hilerrian lurperatzen dute.

TERESAREN HERIOTZAREN ONDOKO KRONOLOGIA LABURRA

- 1898**
III/7 Mgr Hugonin Bayeux-ko gotzainak baimena ematen du **Histoire d'une Ame** inprimatzeko. Maiatzaren 2an hil zen.
- IX/30 2.000 ale atera ziren Saint-Paul à Bar-le-Duc moldiztegiako prentsetatik.
- 1899**
I/28 Leonia behin eta betiko sartzen da Caen-go Bisitazioan.
Bazkoa *Histoire d'une Ameren* lehenengo argitaraldia agortua da; bigarre-na prestatzen dihardute (4.000 ale).
- Urria Bigarren argitaraldiaren erdia saldurik dago.
1899-1901 Lehenengo mesede eta sendatzeak. Bi erromes otoitz egitera datoz Teresaren hilobira.
Histoire d'une Ame ingelesera itzultzen da.
- 1901** Ama Aines priore hautatzen dute berriro. Kargu horretan jarraitu-ko du -hamazortzi hilabeteko etenaldia (1908-1909) alde batera utzita- hil arte (1951), Pio XI.ak halaxe nahi izan zuelako (1923).
1902 HA polonierara itzultzen da.
- 1904**
XII/17 Ama Maria Gonzagarena hil zen.
- 1905**
IV/14 Ahizpa Maria Eukaristiarena hil zen, birikeriak jota. HA neder-landerara itzultzen da.
- 1906**
VII/9 Louis Veuillot-ek, Karmel Teresaren kausa Erromako kurian sar-tzeko lanetan ari dela adierazten du *L'Univers*-en. HA italierara eta portugesez itzultzen da.
- 1907**
X/15 Mgr Lemonnier Bayeux-ko apezpiku berriak ahizpa Teresaren oroigarriak gordailuan jartzeko agintzen die karmeldarrei.
- 1908**
V/26 Lau urteko neskatxo itsua, Reine Fauquet, Teresaren hilobi gaine-an sendatzen da.
- 1909**
Urtarrila Aita Rodrigo, karmeldarra (Erroman), eta Mgr de Teil (Parisen) izendatzen dituzte Kausaren postulatzaile eta postulatzaileorde, hurrenez hurren.
- 1910**
Uztaila Urtebete igaro ondoren, Karmelek bederatzi mila zazpiehun eta berrogeita bat gutun jaso ditu Frantziatik eta atzerritik.
VIII/3 Elizbarrutiko auzitegia ezartzen da, Ohizko Prozesurako.
VIII/12 Karmelen, Prozesuaren lehenengo ekitaldia.

- IX/6 Hilerrian, ahizpa Teresaren gorpua lurpetik ateratzea; panteoi berri batera aldatzea.
- 1911** HA espainierara eta japonierara itzultzen da.
- 1912** Ahizpa Jenofak "Teresa arrosekin" pintatzen du ikatz-ziriz.
- 1913** HA zingalierara itzultzen da.
- Abuztua Lehenengo erromesaldia trenez Lisieux-era.
- 1914** HA alemanierara itzultzen da.
- VI/10 Pio X.ak Kausa sartzeko dekretua sinatzen du.
- Uztaila Karnelek batez beste berrehun bat gutun jasotzen ditu egunero.
- XII/10 Erromaren onespena jasotzen dute ahizpa Teresaren idazkiek .
- 1915**
- III/17 Bayeux-en, Prozesu Apostolikoaren irekiera.
- 1917**
- VIII/9-10 Ahizpa Teresaren gorpua lurpetik bigarrenez ateratzea eta ofizialki aztertzea.
- 1918**
- II/9 Karmelen bostehun eta hamabi gutun jasotzen dira egunero.
- 1921**
- VIII/14 Benedikto XV.ak «Jainkoaren Zerbitzari Gurgarriaren bertuteen urentasunari buruzko dekretua» sinatzen du, eta hitzaldi bat egi-ten du hautasunaren izpiritualari buruz.
- 1923**
- IV/29** **Ahizpa Teresa Jesus Haurrarena dohatsu aitortzen du Pio XI.ak.** "Bere aitasantutza garaiko izar" bihurtzen du. Karmelen zortziehun gutunetik milara jasotzen dira egunero.
- 1925**
- V/17 **Santu aitortzea Erromako San Pedro basilikan.** Pio XI.aren homilia hirurogei mila lagunengana. Arratsaldean, bostehun mila erromes daude San Pedro plazan.
- 1927**
- Urtarrila *Novissima Verba (Derniers Entretiens)* argitaratzen da.
- VII/13 Santa Teresa Jesus Haurrarenaren liturgi jaia Eliza unibertsalera zabaltzen da.
- XII/14 Pio XI.ak Teresa Santua misiolari guztien, bai gizonezkoen eta bai andrazkoen, eta mundu osoan dauden misio guztien zaindari nagusi izendatzen du, Xabierko Frantzisko santuarekin batera.
- 1928** Aita Martinek Plaine-ko misiolariak fundatzen ditu, Teresa Santuaren zaindaritzapean.
- 1929** Pio XI.ak Teresa "Russicum"en, Errusia ebanjelizatze-ko seminarioaren, zaindari aldarrikatzen du.
- IX/30 Lehenengo harria ezartzen da Lisieux-ko basilikan.
- 1932** Kongresu Teresiarra Lisieux-en. Teresa "Elizako doktore" izendatua izan dadin eskabidea.
- 1933** Aita Martinek Teresa Santuaren Oblatuak fundatzen ditu.

- 1937**
VII/11 Lisieuxko basilika zabaltzen eta bedeinkatzen du Aita Santuaren legatu Pacelli kardinalak, geroago Pio XII.a izango denak. Pio XI.ak mezua ematen du irratiz.
- 1940**
I/19 Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarena hiltzen da, lauogei urte dituela.
- 1941**
VI/16 Leoniaren heriotza (hirurogeita hamazortzi urte dituela) Caen-go Bisitazioan.
- VII/24 Frantziako Misioren fundazioa. Haren seminarioa Lisieux-en ezarriko da.
- 1944**
I/16 Ahizpa Maria Hirutasunarena eta Aurpegi Santuarena hiltzen da.
V/3 Pio XII.ak Teresa, Joana Ark-ekoaren ondoan, Frantziaren bigarren zaindari izendatzen du.
- Ekaina Lisieux-ko zati bat aliatuen bonbardaketek suntsiturik uzten dute. Karmelek oso-osorik dirau. Abadia (Teresaren eskola) desegina da.
- 1947** Teresaren heriotzaren berrogeita hamargarren urteurrena. Kongresu Teresiarra. Haren gorpuzkin-kutxa Frantziako elizbarruti gehienetan barrena eramango dute.
- 1948** Aita Martinek Teresa Santuaren Anaia Misiolariak fundatu zituen.
- Iraila *Lettres de sainte Thérèse de l'Enfant-Jésus* lehenengo argitaraldia, André Combes apaizak egina.
- 1951**
VII/28 Ama Aines Jesusena hiltzen da, lauogeita hamar urte dituela.
- 1954**
VII/11 Lisieux-ko basilikaren sagarapena.
- 1956** *Manuscrits autobiographiques* fakzimilez argitaratzen da.
- 1957** *Manuscrits autobiographiques*en argitaraldi arrunta (*Histoire d'une Ame*-ren berrezartzea jatorrizkoaren arabera); hori guztia aita Frantzisko Santa Mariarena karmeldarrak egiten du.
- 1959**
II/25 Ahizpa Jenofa (Zelina) hitzen da, lauogeita hamar urte dituela. *Visage de Thérèse de Lisieux* argitaratu zen (berrogeita zazpi argazki).
- 1971**
Uztaila Mendeurreneko argitaraldiaren hasiera: *Derniers Entretiens* argitaratzen da, eta segidan ondorengo hauek: *Correspondance générale* (1972/1974), *Poésies* (1979), *Récréations pieuses (Théâtre au Carmel)*, 1958) eta *Prières (L'Offrande à l'Amour miséricordieux)*, 1988).
- 1973** Teresa Martinen jaiotzaren ospakizuna.

1980

VI/2

1989

Aita Santu Joan Paulo II.a erromes doa Lisieux-era.

Mendeurreneko Argitaraldiari saria ematen dio Frantziako Akademiak (Kardinal-Grente sari nagusia).

1991


Thérèse de Lisieux, seihun irudi dituen bilduma-liburua, argitaratzen da.

1992


Teresa Lisieux-koaren *Œuvres complètes* argitaratzen da liburuki batean («Totum») eta «Nouvelle Edition du Centenaire» (osorik).

1996

Teresa Lisieux-koaren *Œuvres complètes* euskaraz argitaratzen dira: "Idazlan guztiak".



**ESKUIZKRIBU
AUTOBIOGRAFIKOAK**



ESKUIZKRIBU AUTOBIOGRAFIKOEI SARRERA

Teresa Jesus Hauraren eta Aurpegi Santuaren *Histoire d'une Ame - Arima baten historiak*, edo *Eskuizkribu autobiografikoek* izandako gorabeherak oso eza-gunak dira gaur egun, Frantzisko Santa Mariarenak eginiko faksimil argitalpenari esker (sarreraren, testu eta kritika-oharren, taula eta konkordantzien hiru ale lagun zituela - Lisieux-ko Karmel 1956), eta hartatik hurrengo urtean irtendako argitalpen arruntari esker. Hemen oinarritzko agiriak bakarrik hartuko ditugu aintzat, osagarri ugari oharretan aurkituko dira eta.

1. ZERTZELADAK

Teresaren ahizpa zaharrenari, Maria Bihotz Sakratuarenari, zor zaizkio hiru testu baliozgainekootarik bi (eta zeharka, ondorioz, hirugarrena). Beronek kontatu du Gotzain aurreko Prozesuan, galdera honi erantzunez: “Zer dakizu eskuizkribu honen sorreraz (*Arima baten historia*) eta beronen osotasunaz?”

“Neguko gau baten, maitinen ondoren, berotzen ari ginen, ahizpa Teresarekin batera, ahizpa Jenofa eta gure Ama nagusi Agurgarria, Aines Jesusena eta hirurok. Ahizpa Teresak bere haurtzaroko bizpahiru jazoera kontatu zizkigun. Orduan, esan nion gure ama nagusiari, Aines Jesusenari: ‘Nola izan liteke zuk hari olerkitxoak egiten uztea, honi ta hari atsegin ematearren, eta hark bere haurtzaroko oroipen guztiotatik ezer ere guretzat ez idaztea? Ikusiko duzu, lurrean luzaro geratuko ez den aingerua da, guretzat hain interesgarri diren zehaztasun guztiok galdu izango ditugu’. Lehenengotan gure ama nagusia zalantzan egon zen, gero, gure ekitez, esan zion Jainkoaren Zerbitzariari atsegin emango liokeela beraren egunerako haurtzaroko kontaketa ekarriko balio (*A Esk.*).

(...) Geroago ama Aines Jesusenak, ahizpa Teresa oso gaixorik ikusiz, Maria Gonzagarena Ama Agurgarriari, orduko nagusiari, eragin zion honek ahizpa Teresari beronen lekaime bizitzaren historia idatzarazi ziezaion, eskuizkribuaren bigarren parte dena (*C Esk.*). Azkenez, neuk eskatu nion, haren azken gogo-jardunal-

dian (1896), haren dotrinatxoa deitzen nuena idazteko. Egin zuen, eta orriok erantsiak izan ziran, hirugarren partea bezala, "Haren bizitzaren historia" argitaratu zenean (*B Esk.*)" (PO, 237 or.).

Ama Ainesek honela zehazten du: "1895.eko urtearen hasieran, ahizpa Teresa hil baino bi urte ta erdi lehenago", eta Maria Bihotz Sakratuarenaren kontaketaekin bat dator (hala ere ahizpa Jenofa han izan zenik aipatu gabe). Teresak "barre egiten zuela, iseka egin balitzaio bezala" dio, eta honela jarraitzen du:

"Jainkoaren Zerbitzaria obedientziagatik jarri zen lanean, orduan haren ama nagusia nintzen eta. Bere astialdietan idatzi zuen bakarrik eta 1896.eko urtarilaren 20an eman zidan bere koaderno neure egunerako. Gaueko otoitzean nengo. Bere aulkira joateko igarotzean, Teresa Jesus Haurrarena belaunikatu egin zen eta altxor hau eman zidan. Buru-keinu batez erantzun nion eta gure aulki gainean utzi nuen eskuizkribua, ireki gabe. Ez nuen irakurtzeko astirik hartu udaberriaren izan ziren urte honetako hauteskundeen ondorenera arte. Jainkoaren Zerbitzariaren birtuteaz ohartu nintzen; izan ere, bere obedientzi-egintzaren ondoren, ez zen hartaz ezer ere arduratu, ez bere koaderno irakurri nuen, ez zer neritzon inoiz ere niri galdetu gabe. Egun batean, ez nuela astirik izan hartatik ezer irakurtzeko esan nion; ez zirudien batere naigabetuta.

Osatu gabe aurkitu nituen haren kontaketak. Ahizpa Teresa Jesus Haurrarenak bere haurtzaro eta lehenengo gaztaroa kontatzeari ekin zion berariaz; bere lekai-me-bizitza zirriborroan baizik ez zegoen (...).

Karmelgo bere bizitzari zegokiona garapen berberaz idatzi ez izateari penagarri neritzon, baina bitarte honetan nik nagusi izatea utzi nuen eta ama Maria Gonzagarena sartu zen kargu honetan. Idatzi hau hark nik bezain arretatsu hartuko ez zuen beldur nintzen, eta ez nintzen hari ezer esaten ausartzen. Baina azkenez, ahizpa Teresa Jesus Haurrarena oso gaixorik ikusita, ezinezkoan saiatzea nahi izan nuen. 1897.eko ekainaren 2ko gauean, Teresa hil baino lau hilabete lehenago, gauerdi inguruan, gure ama nagusiagana joan nintzen: 'Nire ama, esan nion, ezin dut lorik egin zuri isilpeko bat esan barik. Nagusi nintzela, ahizpa Teresak, niri atsegin ematearren eta obedientziaz, bere haurtzaroko gomutapen batzuk idatzi zizkidan. Lehengo egunean irakurri nuen berriro; polita da, baina ezin izango duzu gauza handirik atera haren heriotz ondorengo eskutitza egiten laguntzeko, bere lekai-me-bizitzaz ia ez dago ezer eta. Aginduko bazenio, garrantzizkoago den zerbait idatz dezake, eta ez dut zalantzarik nik daukadana baino askozaz ere hobea izango litzatekeela zuk lortuko zenukeena'. Jaungoiko onak bedeinkatu egin zuen nire ahalegina, eta biharamun goizean gure amak kontaketa jarraitzeko agindu zion ahizpa Teresa Jesus Haurrarenari" (PO, 146-147.or.; ik. PA, 201.or.).

Zelina haren aizpak (ahizpa Jenofa Santa Teresarenak), A Eskuizkribuaren koadernotxoan berri idatzi ahala hartzen zuela, zehaztasun interesgarriak ematen ditu Teresaren lan egiteko eraz: "Ez zeukan egitamurik, bere eskuizkribua hasi zuzenean. Esana egitearren idatzi zuen bakarrik, hala ere jazoera batzuk, bere familiako bakoitzarentzat bereziak, kontatzen saiatu zen, guztiei atsegin ematearren bere gaztaroko oroipenen kontaketa honekin. Haren eskuizkribua, izan ere, 'familiako oroigarria' zen, bere ahizpentzat bakarrik egina. Hona zergatik idatzi zen etxekotasun

giroko berez-berezko eran; hortik haur-xehetasun batzuk: berauen aurrean haren lumak atzera egingo zukeen idazki hau ahizpa-girotik iretekoa zela jakin izan balu. Tarteka-marteka idazten zuen, Erregelak eta nobiziekiko bere eginbeharrek uzten zizkioten asti bitarte bakanetan. Ez zuen inolako zirriborro-paperik erabili, lumari eraginez idazten zuen, eta hala ere bere eskuizkribuak ez du marradurarik” (PO, 274).

Zelinarek deskripzioak ondo agertarazten du Eskuizkribuek antz handiagoa dutela eskutitz-motarena barne-oharrena baino, “tratatu izpiritualez” ezer ez aipatzeko. Irakurbide oso garrantzitsua hau, Teresaren estiloaren xarma eta berezkotasuna adierazi ezeze, Jainkoaren maitasun eta graziarentzat irekia den izaera baten distira kutsakorra adierazten duelako (ik. Jean Guitton Teresaren berbei buruz, DE, 119.or., 26.zk.).

Eskuizkribu autobiografikoen Sarrera orokorrean (“Nouvelle Édition du Centenaire”) aurkituko da Teresaren eskuizkribuen deskripzio zehatza, Aita Frantzisko Santa Mariaren arabera.

2. TERESA ETA BERE “LANA”REN ARGITALPENA.

Teresak bere nagusiekin esaneko izatearren idatzi zituen A eta C eskuizkribuak, eta bere ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenak eskatuz, B Esk. Ez zuen izan bere oroipen eta gogamenen oinatz idatzirik uzteko asmorik. Hala ere, haren eskutitzak eta olerkiak era berean adierazpide eta Kristoganako bere maitasuna zabalteko bide gertatu ziren harentzat. Eta hasieratik jakin zuen, nolabait, bere C Esk. argitaratzeko zena, ama Ainesek ama Maria Gonzagarenari, “aginduaren” arrazoitzat, honen hil-eskutitza idatzi beharra eman baitzion...

Teresak bene-benetan hartu zuen argitaratze asmo hau (ik. *Poésies*, II, 25.or.etab.), eta ugaritu egiten ditu aipamenak *Azken Elkarrizketetan*, alde batez bere ahizpen kemenari eusteko hurrean (ik. KH 27.V.1.).

Denpora aurrera joan ahala arreta handiagoa jartzen du hil-ondoko obra honean (ik. KH 25.VI.2; 10.VII.2; 11.VII.3; 20.VII.3; 29.VII.7; 1.VIII.2 eta NV 1.VIII.2 azkenean, in DE II (DP), 229; KH 25.IX.2): “Bere hil-ohean, garrantzi handia ematen zion argitalpen honi eta apostoladutza-bide bat ikusten zuen horretan. Egun batean hau esan zidan ziurtasunez: ‘Ni hil ondoren harean ere atzeratu gabe beharko da argitaratu eskuizkribua. Atzeratuko bazina, gure ama ez den beste norbaiti ezer esateko zuhurtasun-eza izango bazenu, deabruak mila amarru ipiniko dizkizu argitalpen hau, bestalde oso garrantzitsua, eragozteko. Baina inork oztoporik jar ez diezaion zeure esku dagoen guztia egiten baduzu, ez izan aurkituko dituzun eragozpenen beldurrik. Nire eginkizunaz, Joana Ark-koaz bezala, beteko da Jaungoikoaren borondatea gizonek bekaitza gorabehera’. - Uste duzu, beraz, eskuizkribu honen bidez on egingo diezula arimei? - Bai, bide honetaz baliatuko da Jaingo ona niri entzuteko. Era guztietako arimei egingo die on, aparteko bideetatik doazenei izan ezik” (Ama Aines, PA, 202.or., Teresaren zenbait esan ezberdinez osatua; ik. PO 147, 176, 200-201; KH 27.VII.6; 9.VIII.2).

Ukaezina da Teresak Ama Aines bere “argitaratzaile” jarri zuena. Honek bere ahizpak honela esan ziola aitortu zuen zin-hitzez: “*Nire Ama, kendu nahiz gehitu beharreko deritozun guztia, neuk kentzen nahiz gehitzen dut. Gogoratu hau geroago, eta ez izan kezkarik honetaz*” (PO, 147.or.; ik., PA, 101-202.or.; CV eta NV, in DE II (DP), 164-165.or.); eta beste behin, C Esk. zela eta: “*Ez dut nahi nuena idatzi, esan zidan triste, bakartade gehiago beharko nukeen. Hala ere, nire pentsamendua hor dago, sailkatu baino ez duzu egin beharko*” (PA, 173.or.). Aita Frantzisko Santa Mariarenak iruzkin hau egiten du arrazoiz: “Kendu, gehitu, sailkatu: eskuizkribuen egileak alde zuzenetik ikusten eta ontzat ematen zituen hiru egintzak haren argitaratzaileak oparo gauzatu zituen geroago. Eztabaida daiteke, noski, aldakuntza kopuruaz eta egokitasunaz. Baina eskubideaz ez dago zalantzarik: zuripeko sinadura emana zen” (Mss I, 72.or., hemen aukituko dira Prozesuetako aipamenak arazo honetaz).

3. “HISTOIRE D’UNE AME - ARIMA BATEN HISTORIA”

Gotzain-aurreko Prozesuan Aines amak aitortzen hau egin zuen: “Neurea izan zen argitalpen hau (*Arima baten historia*) egiteko eragina haren heriotzaren ondoren. Esku artean neuzkan eskuizkribuak irakurtzean, arimek on handia egin liezaiekeen altxorra neukala somatu nuen”.

Galdera honi: “Liburu irarria bat dator guztiz Jainkoaren Zerbitzariaren eskuidatziarekin, bata bestearen ordez ziurtasunez irakur daitekeelarik?”, honela erantzuten dio ama Ainesek: (1910/8/17): “Aldakuntza batzuk badaude, baina garrantzi txikikoak eta kontaktaren zentzu orokor eta funtsezkoa aldatzen ez dutenak. Aldakuntzok hauek dira: 1.a Zenbait pasarte oso labor kentzea, haurtzaroko famili bizi-tzako barne-zehaztasunei buruzkoak; 2.a orri bat edo bi kentzea, hauen edukia Karmelgoak ez ziren irakurleentzat interes handirik ez zuela neritzolako; 3.a azkenez, eskuz idatziriko historiak hiru parte zeuzkanez gero, bata niri zuzendua (Paulina bere ahizpa), bestea ahizpa Mariari eta datan azkenengoa ama Maria Gonzagarenari, orduko nagusiari, honek, eskuidatziaren argitalpenaren buru izanez, ikutu txiki batzuk exigitu zituen Teresak bere ahizpei zuzenduriko zatietan, batasunaren guztia berari zuzendurikotzat agertu zedin” (149.or.).

Aitortzen honen ondoren, auzi-mahaiak oso egoki erabaki zuen Eskuizkribuaren ale jator bat berrezartzea, gai honetako eskubide-arauei jarraituz, eta Prozesuko agirien artean sartzea” (PO, 150.or.), 1911ko abuztuaren 29an egin zena (PO, 599-720.or.).

Ama Maria Gonzagarenaren jokabideari buruz, bekaitz gaizkorraren zantzutzat hartzeari buruz alegia, Ama Aines baino begiratuago izatea komeni da beharbada. Honek “aitzakia” aipatzen du 1907.eko azaroaren 22ko bere oharrean (A Eskuizkribuaren lehengo orrian; ik. *infra*). Gotzain-aurreko Prozesuan, 1910ean, aski du “*Arima baten historiari*” (*gorago*) “batasun handiagoa” ziurtatzeko ardurara jotzea. Zalantzarik gabe aldiko giroan jarri behar da inizatiba bakan hau epaitzeko.

1898an, Ama Maria Gonzagarena nagusia zen, eta haren itzala sendoa komunitatean. Ez al zen zuhurtasun-egintza, lekaimeen aurrean (Ama bien partez, batera), Maria Gonzagarenari leporatzea ez bakarrik *argitalpenaren* erantzukizuna,

baita Teresari beronen “oroipenak” idazteko ezarri zitzaion *obedientzi-eginbeharrena* ere (bai 1895ean, edo 1896an, A Eskuizkribuan aldatu zenez, bai 1897an C Eskuizkribuari dagokionez)?

Izan ere, agindu hau ez zitzaion beste inori eman izan ordura arte. Komunitateak “famiako historia” bat zela, bere etxekoei atsegin ematearren Ama Ainesek bere ahizpa txikiari emaniko “agindu” bat zela jakin izan balu,... ez ote zukeen galduko A Eskuizkribuak bere itzalaren, bere balio izpiritualaren parte bat, “Martindarren klana”ren garrantzia hainbeste onesten ez zuten lekaimeen begietan? Pentsa daiteke, beraz, “agindua” Ama Maria Gonzagarenarengandik etorritz, Teresa bederatzirteatik ezagutzen zuelarik, *Arima baten historiak* guztiz balio “erlijioso” bat hartzen zuela bat-batean. Honela, 1907an nahiz 1910ean, Teresaren aintza komentutik kanpora zabal irten izanik (eta ama Maria Gonzagarena 1904an hila zelarik), ez zegoen komunitatearen aurrean honenbesteko burubiderik hartu beharrik; beste aldetik, bazegoen bai eliz-epaileei argibide bat eman beharra.”Aitzakiaren” interpretazio hau, hala ere, ustezkoa dugu.

4. AMA AINESEN LANA

“Nouvelle Édition du Centenaire” delakoarekin argitaratu zen 1898ko *Lehenengo Arima baten historiari* esker, eratu daiteke iritzia, ama Ainesek “*garrantzi txikiko zenbait aldakuntza*” deitzen dien eta berak garai hartan eginak direnei buruz... Aita Frantzisko Santa Mariarenak bete-betean egin du Ama Ainesen lanaren “prozesua”, bai salaketa eta bai defentsa txandaka aurkeztuz:

“Ezinezkoa zatekeen, egiaz, Teresaren koadernoak hitzez hitz argitaratzea. (...) Estilo zeharo zuzenari eta literatura-ohiturak zehatz betetzeari halako garrantzia ematen zitzaien garaian, nola irarri zitezkeen lekaike gazte ezezagun baten saio-paperak guztiz barregarri bihurtu eta berberari ere iruzur egin gabe? Idatziaren gaiak, formak berak bezainbat, ikutu batzuk behar zituen. (...)”

Baina aitortu beharrekoa da *Arima baten historiaren* argitaratzailea oso emanor agertu zela orrazketa arloan. (...) Ama Aines Jesusenak Buissonnets-en Teresa txikiaren idazlan kolokakoak zuzentzen zituen bezala zuzendu ditu orrialde hauek. (...) Bere psikologiak, bere izaera biziak aurrean ezartzen zitzaizkion idazkietan bere zigilu berezia jartzera eramaten zuen, ia berez-berez zuzentzera. Beretzat, bestalde, muina arimak lortzea zen, haiei on egitea, oraindik inguru erlijiosoetan somatzen ziren jansenismoaren azken kutsuen aurka borrokatuz. Teresa - honela somatzen zuen hark - bide miresgarria zen bere eskuetan, eginkizun hau burutzeko. Azken baten, pentsatzen zuen berak, haren idazkien hitzez-hitzezko era garrantzi txikiagokoa zen. Egoki ere bazen irakurlea aldendu edo gogait zezakeen gutzia albora uztea.

Egitez, Ama Aines Jesusenak *berridatzi* egin du Teresaren autobiografia. (...) Noski, idatziaren edukia berdina da, oinarrian, irakatsiaren muina ere bai, baina forma ezberdina da, Ama Ainesen tenperamentua Teresarena bezalakoa ez den heinean. (...) Aldakuntzok ez dute egiaz eragotzi arimak Teresagana benetan heltzea eta haren irakatsia barnertzea. Baina maila zientifikoan, alferriko da gaurko kritikaren eskakizunak eta testu jatorrari egindako orrazketa-era elkar-lotzen saiatzea.

(...) Sinopsis batean, testo biak begi aurrean direla eta haien ezberdintasunak oharrazten direla, txikienetatik garrantzitsuenetara, 7.000 aldaera baino gehiago aurkitzen ditugu” (Mss I, 78.or.).

Ama Ainesen aukeraketarik eztabaidagarrienetakoen artean kronologiari egin dako faltsuketa dago, eta, beraz, ikuspegi aldakuntza, nabarituko da: Maria Bihotz Sakratuarenari zuzenduriko eskutitza (B Esk.) *Arima baten historia* guztia amaitzeko erabiltzea; C Eskuizkribua, hil baino apur bat lehenago idatzia, da, ordea, Teresaren azken aurpegia ispilatzen duena. Eskuidatzi bakoitzaren benetako hartzaileak ezarri ondoren ere (1914.ean) jarraituko du anomalia honek, 1955era arte; Aita Frantzisko Santa Mariarenaren argitalpenak emango dio bakarrik amaia.

5. “ARIMA BATEN HISTORIA”REN ALDAKUNTZAK

Ama Ainesek bere orrazketa behingoan buruturik, *Arima baten historiaren* lehenengo argitalpena Saint-Paul Inprimategian, Bar-le-Duc-en, irten zen, 1898ko irailaren 30ean, hau da, Teresaren heriotz urteurrenaren egun berean. Honi Maria Bihotz Sakratuarenak esan zion apur bat lehenago: “Nahiko zeregin izango dut Ama Aines poztutzen, (zure) heriotzak horretaraino atsekabetuko du eta”, eta Teresak erantzun zuen: “*Ez izan horren ardurarik. Ama Aines Jesusenak ez du bere atseka-bean pentsatzeko astirik izango, bere bizitzaren azkenerrate nitaz hain arazotuta ibiliko denez gero, ez baitu denera heltzeko erarik izango*” (PO, 255.or.; ik. PA, 245.or.; DE, 659-660.or.). Berrito ere igarle ona izango da: 2.000 alekin, ez beldurrik gabe, atara zen liburu hau, geroago eta arinago zabalduko da, mirariak erakarrit, “arrosa-euriak” eta eskutitz-euriak (berrogeitahamar egunero, 1911ean, bostehun 1915ean), otoitzen eskariak, irudiak, oroigarriak, liburuak (*Arima baten historiaren* zenbait berrargitalpen, berariaz, eta itzulpenak 1901etik aurrera), azkenez beatifikatze Prozesua; hau guztiau gehien baten Ama Ainesen lepora erorriko da.

Prozesuak hurbiltzeak funtsezko arazoa jarriko du. Testiguak eskuidatzi jatorren eta *Arima baten historiaren* testuaren arteko ezberdintasunak gutxiesten ahalegindu arren, hauek garrantzizkoegiak dira konturatzeko igarotzeko. 1907eko argitalpenean, irakurleari eskuidatzi jatorra ataletan banandua izan dela jakinarazten zaio bakarrik. Gero 1914koan, hiru eskuizkribuen berezitasuna berrezartzen da (PA, 202.or.), Maria Bihotz Sakratuarenak “eskuizkribu jatorra lehenengo egoeran” berriro ezarri zuenez gero; honen “kopia egiaztatua Erromara bidalia izan da” (*ibid.*). Baina Lemonnier Jaunak, Bayeux eta Lisieux-ko gotzainak hau dio bere eskutitz-hitzaurrean: “Aldakuntza honek ez du ia ezer aldatzen orain arte argitaraturiko testuan”... Gehiago esango du 1924ko martxoaren 6an irakurleari egindako Oharrean (ik. MS/NEC, Sarrera orokorra, eta Aita Frantzisko Santa Mariarenak egindako ohar honen azalpena, Mss I, 86-87.or.).

6. ESKUIZKRIBUEN ZUZENKETAK

Asmo ofizial baretzaile hauek gorabehera, Ama Ainesek eta honen ahizpek izan zuten ardurarik Teresaren eskuizkribuei buruz. Liburuak ez du beste aldakun-

tzarik jasan goian esanikoak baizik: beste edozein funtsezko aldakuntza arriskutsu izan zitekeen haren jatortasun-osperako. Baina Teresaren eskuidatziak haren hilon-doko aintzaren gertakari eta abagunei egokitu beharra izan zen... eta lehenengo ta behin Ama Maria Gonzagarenaren eskakizunen ondorioei (ik. *gorago*). Hona hemen Ama Ainesek honetaz idazten duena, 1907ko azaroaren 22an, Teresaren koadernoan bertan, A Eskuizkribuaren *lehenengo orrialdean*:

“Ahizpa Teresa Jesus Haurarenaren eskuizkribuak bi parte ditu, hau da, bi koaderno ezberdin. Lehenengoa Paulina haren ahizpak, Aines Jesusenak, eskatuz idatzi zen, hau 1893ean nagusi aukeratu zelarik. Bigarren koadernoia Maria Gonzagarena Ama Agurgarriak eskatuz idatzi zen, 1896ean nagusi aukeratua izanik. Ama Agurgarri honek ez zuen Eskuizkribua “*Arima baten historia*” izenburuz argitaratzerik onartzen, dena berari eskainikotzat agertu ezik. Idazlana argitaratu eta aldi gutxira, komunitateko lekaiame batek eskuidatzi jatorra erakuts ziezaiola eskatu zion Ama Maria Gonzagarenari. Honek, lehenengo partea ez zela berari zuzendua inork jakiterik, ez orduan ez gero, inola ere nahi ez eta, Eskuizkribua erretzea erabaki zuen (eman zitzaion aholku baten arabera). Erraustetik salbatzearen, Ama Aines Jesusenak bere izena ezabatu eta ordeztu Maria Gonzagarena ezartzea proposatu zuen. Batera, arraska baten laguntzaz guztiz beretzat ziren eta Ama Maria Gonzagari ezin egokituzko pasarte batzuk ere kendu zituen. Hau da koaderno honen marradura ugarien arrazoia, eta ihespide honetatik sortzen diren zentzugabekeria.

Eskuizkribu honen egilea den Jainko-Zerbitzari Teresa Jesus Hauraren eta Aurpegi Santuarenaren Auzibidea hasiko den une honetan, Ama Aines Jesusenak kontzientziko eginbeharra dela ikusi du egia jakinaraztea akta honen bidez eta hau berak izenpetzea, testigutzat bere kontseilua eratzen duten hiru lekaiameak hartuz.

Ahizpa Aines Jesusena, Nagusia
 Ahizpa Maria Aingeruena, Nagusiordea
 Ahizpa Madalena Jesusena, diruzaina
 Ahizpa Teresa San Augustinena, Aholkularia”

A Eskuizkribuaren lehenengo orriaren beste aldean Aines Jesusenaren beste ohar bat ageri da, 1910eko maiatzaren 28koa:

“1910eko apirilean, ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenak (Mariak), Jainkoaren Zerbitzariaren ahizpa zaharrenak, lehenoratu egin zituen, datu ziurren gain, ezabatuak izan ziren eskuizkribu honen pasarteak”.

Marraduren beste iturri bat, beraz: testu jatorra lehengoan ezartzea (batez era atribuzio- zuzenketa), Mariak egina, kritika-eskakizunez ideia handirik ez duela... Zuzenketa batzuk ahaztu egiten ditu eta, abaguneaz baliatuz, beste xehetasun-aldakuntza batzuk sartzen ditu. Eta Ama Ainesek berak ere (beti perfektionista), bere eskuizkribua urteetan zehar irakurri eta irakurri, beste ikutu batzuk egingo ditu, estilo, ortografia, puntuazio ikutuak, noizbait zentzua ikutzen dutenak (ik. Mss I, 91-94.or.).

7. ARGITALPEN KRITIKORANTZ

Teresaren *Gutunen* 1948ko argitalpenak, Combes apaizaren ekinak eta ahizpa Jenofaren erresistentziak, aldi berean erdiragarri eta tematsuak, utzi zuten bezain zehatz eta osoak ireki zuen bidea *Arima baten historiaren* argitalpen jatorrerako, batez ere 1924ko Lemonnier Jaunaren “erdi-aitormenen” ondoren. Combes apaizaren arrazoibideak, 1947/9/11 ahizpa Jenofari egindako gutunekoak, (ik. geroago, Gutunei Sarrera), ez dira noski ahaztuak izango.

Aldi berean, bestalde, Aita Maria Eujen Jesus Haurrenak, Karmengo Ordenaren Aholkulari Orokorrak, idazten dio Ama Ainesi: “Eliza mintzatu da. Santa Teresa Jesus Haurrenaren santutasuna eta misioa mundu guztiak aitortzen ditu. Egite honen ondorioz hura honez gero Elizarena eta historiarena da. Adierazpen erratuak edo ez-osoak gezurtatu eta baztertzeko, Santatxoaren irakatsian eta ariman geroago eta gehiago sakontzeko, hain bihotz-zabal ematen zaizkigun agiri eta testuak ez dira nahiko, testu jatorrek eurek bakarrik aurkiaraz diezagukete pentsamenduaren mugiera, biziaren erritmoa nolabait eta gehienetan hain zehatzak eta sendoak diren esaeren argi guztia” (1947/9/3 eskutitza; Mss I, 87-88.or.).

Larogeita sei urteko Ama Ainesek ez zeukan agitalpen hau bere gain hartzeko indarririk; bere biziko lana ikutzen zuen zati batean, eta *Arima baten historiaren* zale gartsuak biziki nahastatzeko arriskua zen. Baina ez zegoen kontra eta ahizpa Jenofari honela esan zion, 1950eko azaroaren 2an: “Ni hil ondoren, nire izenean egiteko gomendio ematen dizut” (Mss I, 88.or.). Lisieux-ko Karmel sartua zen, beraz, atzeazinezko eraz, Teresaren idatzien argitalpen kritiko eta osoan.

8. IA BEHIN-BETIKO TESTUA

Combes apaizak 1950ean Teresaren idazkien ardura utzi zuenez gero, Frantzisko Santa Mariarena (Frantzisko Liffort de Duffévent, 1910-1961), karmeldarra, izendatzen dute lanaren zuzendari. 1956an egiten duen faksimil argitalpenaz, Montrouge-ko Draeger Inprimategiaren lan bikainari esker, aurrerakuntza nabaria, ia behin-betikoa, burutu da Teresaren eskuizkribuen argitalpenean, batera argitaratu ziren A. Frantziskoren histori oharrei esker, eta batez ere Raymond Trillat eta Felix Michaud-ek *Eskuizkribu autobiografikoetako* (Teresaren obrari emaniko izen berria, aurreko testutik urruntzea adierazteko) gehitze, kentze eta marradurei buruz lerroz lerro egindako ikerlan zehatzei esker. Aurrerakuntza eta urruntzea irakurlego zabalarri dagokionez 1957ko *Eskuizkribuen* argitalpen irrarrian gauzatzen da (ik. lan honetan A. Frantziskoren arrazoibideak, IX-XV.or.)¹.

Azken argitalpen hau izan da 1992an “Nouvelle Édition du Centenaire” delakoan argitaratu zen argitalpen kritikoaren, eta eskuarteko ale honen, oinarria, urretatze kritiko berriek (ezinbestekoak hauek hain zakar erabilitako testua hogeita

¹ Lisieux-ko Karmelgo 1957eko argitalpena Cerf eta Desclée De Brouwer Argitalpenek hartu zuten 1927etik aurrera, izen bikoitzaz *Arima baten historia - Eskuizkribu autobiografikoak*, espezialistak ez ziren irakurleak ez nahastatzearren, liburu-dendan argitalpen arrunteko *Arima baten historia* eskatzen jarraitzen zutenaz gero.

hamabost urtetan ikertu ondoren) eskatzen duten aldakuntzekin; eskuizkribuen testu jatorrera itzultzen dela zehatz-mehatz eta hitzez hitz azpimarratu behar da; Aita Frantzisko Santa Mariarenak Teresaren pentsamenduaren eta idazkeraren berezkotasuna aditzera emateko egoki zeritzon testuaren ulerkuntza zabala egiteari (ibid., XII.or.). Zehaztasun guztietarako, ikus *Eskuizkribu autobiografikoetan* (MS/NEC) testua ezartzeari buruzko Oharrak eta kritika testualeko Oharrak.

EUSKARAZKO ITZULPENAK ETA ARGITALPENAK

Euskarazko itzulpenaren historia nahiko gorabeheratsua izan da; euskarara itzultzeko eta argitaratzeko hainbat saio egin izan dira.

1. Gutxi gorabehera 1928-1931 urteetan Lino Akesolo eta Santi Onaindia karmeldar ikasle gazteek itzuli zuten lan hori "Arima baten kondaira" izenburuz, baina eskuizkribua galdu egin zen.

2. KARMEL aldizkariak (1957, 2. zk., 7-8. or.) Teresaren autobiografia argitaratzen hasi besterik ez zuen egin.

3. Bada 32 folio txikiko koaderno bat ere, *Arima baten historia* izenez ezagutzen den argitaraldien lehenengo bi kapituluaren itzulpenarekin. Bizkaieraz egina da.

4. A. Honorio Gerenabarrenak (1912-1992), Markinako komentuan bizi izan zen urte luzeetan, obra osoa itzuli zuen eta "Teresatxo deunaren bizitza" jarri zion izenburuztat. Inprimategirako prest-prest zegoen, baina ez zen argitaratu. Eskuizkribuak (28,5 x 20,5 cm) IV + 175 orr. ditu eta Markinako Karmeldarren Artxiboan gordetzen da.

5. A. Sebastian Atutxak (1909-1964), Altzon eman zituen bere bizitzako azken urteetan, Teresaren idazki autobiografikoen sail handi bat itzuli zuen.

6. Obra hau argitaratzeko ahalegin serio bat A. Nartziso Garatek (1900-1974) burututakoa da. Bere bizitzaren azkenerantz, Altzon, oso arretaz egindako euskal itzulpena gauzatu zuen, inprimategirako ongi orrazturik, baina ez zen argitara eman. Itzulpena A. Frantzisko Santa Mariarenaren frantsesezko testu original berrezarritakoari dagokiona da: JESUS AURRAREN TERESA DONEA, *Eskuidatzi autobiografikoak (Arima baten Kondaira)*. (Eskuizkribuak 197 orrialde ditu: 31'5 x 21,5 cm).

7. Azken urteotan A. Santi Onaindia izan da ez bakarrik itzulpena, baita lanaren argitalpena ere burutzea lortu duena: LISIEUX-KO TERESE, *Arima baten istoria*, Larrea (Amorebieta) 1991, 318 or.

8. Baina testurik landuena, zehatzena, euskara batuan eta idazki frantsesetatik itzulia, Teresa Lisieux-koaren idazlan guztietako liburu honetan argitaratzen duguna da.


9. Eskuizkribu autobiografikoen Argitalpen honetan *puntu eta bereiz* bi erataro dator: tarterik gabe eta tarte txikiarekin. Puntu eta bereiz tarterik gabe datorrenean, argitaratzailearena da; tarte txikiarekin datorrenean, berriz, Teresa berarena.



AMA AGURGARRI AINES JESUSENARI

ESKAINITAKO ESKUIZKRIBUA

“A” Eskuizkribua



Jesus †

Loretxo zuri² baten udaberriko historia,
berberak idatzia eta Ama agurgarri Aines Jesusenari eskainia.

Zuri, ene Ama maite, bi aldiz ama zaitudan horri, eskaintzen dizut neure ari-
maren historia... Hau egiteko eskatu zenidan egunean, bihotza, neure buruari begira
jardunik, barreiatu egingo zitzaidala uste nuen, baina gero, Jesusek sentiarazi dit
soil-soilik esana eginez, atsegin izango nintzaiola; gainera beti-beti errepikatuko
dudana kantatzen hasi besterik ez dut egingo: “Jaunaren Errukiak³!!!”...

Sal 88,2

Luma hartu orduko, Mariaren⁴ irudi aurrean belaunikatu naiz (gure familiaren
alde zeruko Erreginaren begikotasun amatiarraren hainbat erakuspen eman dizki-
gun irudi horren aurrean), nire eskua gidatzeko erregutu diot, bere gogoko ez den
marratxo bat ere egin ez dezadan. Jarraian, Ebanjelio Santua zabaldurik, nire
begiak hitz hauen gainean kokatu dira: – “Mendi batera igorik Jesusek *nahi zituenei*
dei egin zien beregana; eta haiek hurbildu egin zitzaizkion.” (S. Mark. III. kap.
13.). Hona hemen, zinez, nire goi-deiaren misterioa, nire bizitza osoarena, eta batez
ere Jesusen nire arimarekiko pribilegioen misterioa... Hark ez die dei egiten duin
direnei, *gogoko dituenen*⁵ baizik, edo San Paulok dioenez –: “Jainkoa erruki izaten
da berak nahi duenaz eta gupidatu egiten da berak nahi duenaz. Ez da, beraz, nahi

Mk 3,13

¹ Jesus, Maria, Jose eta Teresa Avilakoaren hasierako letrak. Karmelen erabili ohi den idazpurua
eta Teresarengan ia alde guztietan aurkitzen duguna.

² «Jesusek bildu duen loretxoaren historia » (3^a) A Esk. osoan kontatzen da armarriraino (85^a).
«Loretxo zuria» Martin jaunak Teresari, honek bere bokazioaren berri eman zionean, eskaini zion
harrautsi edo saxifraga da (50^a). Ik. A Esk., 17^a, 31^a, 81^a; B Esk., 4^a/⁶; TO 34; 51, etab.

³ A Esk.aren gai nagusia. *Errukia* hitza, orrialde berean San Pauloren aipamenarekin baitator,
hogeita bederatzi aldiz ageri da eskuizkribu autobiografikoetan, otoitz nagusiaren ondoan: *Maitasun*
Errukitsuari Eskaintza (Otoi. 6).

⁴ «Irribarrearen Ama Birjina», gaur egun santuaren erlikarioaren buruan dagoena. Hura nagusi
azaltzen da Teresaren bizitzan, bai gaixorik dagoela, bai umetan burutik gaixorik dagoela (29^a/31^a); eta
lagun du eritegian, hil-aginean dagoelarik.

⁵ Teresak hain berea duen ideiaz jarraitzen du: Jainkoaren *gogoko* izate hori hamalau aldiz ageri da
eskuizkribuetan. Jainkoaren maitasunaren *dohainekotasuna* da beraren mezuaren mamia. Ik. C Esk.,
2^a, 20.

Erm 9, 15-16

duenaren edo saiatzen denaren egintza, erruki izaten den Jainkoarena baizik.” (Errom. IX. kap. 15-16.).

Luzaro galdetu izan diot neure buruari zergatik dituen Jainko onak batzuk besteak baino maiteago, arima guztiek zergatik ez dituzten hartzen neurri berean graziak; harritu egin naiz bera iraindu zuten santuei [2^a] mesede bereziak egiten ikusiz, esaterako, San Paulori, San Augustini eta, nolabait esateko, bere graziak hartzera behartu egiten zituela ikusiz; edota santuen bizitzak irakurtzean, Gure Jaunak sehaskatik hilobiraino laztanki hartu dituenak, haien bidean beragana igotzea eragotz dezakeen ezer utzi gabe, mesede horiekin aurre harturik beren bataio-jantziaren distira aratza orbandu ez dezaten; neure buruari galdetzen nion zergatik basati gaixoak, adibidez, hiltzen ziren asko eta asko Jainkoaren izena esaten entzun ere egin gabe... Jesusek misterio honetaz niri argi egitea nahi izan du. Izadiaren liburua jarri du nire begien aurrean eta berak egindako lore guztiak ederrak direla ulertu dut, arrosaren distirak, zitoriaren zuritasunak ez diotela bere usain gozoa eragozten bioleta txikiari, ezta bitxiloreari ere bere xumetasun xarmangarria... Ulertu dut lore txiki guztiek arrosa izatea nahi balute, izadiak bere udaberri-apaintasuna galduko lukeela, zelaia ez liratekeela loretxoz jantziak egongo...

Gauza bera gertatzen da Jesusen lorategi den arimen munduan. Berak santu handiak sortu nahi izan ditu, zitori eta arrosaren antzekoak liratekeenak; baina txikiagoak ere sortu ditu eta hauek pozik egon behar dute bitxilore edo bioleta izateaz, Jainko onaren begirada alaitzeko hark bere oinetan makurrarazten dituenean. Perfekzioa haren borondatea egitea da, hark gu izatea nahi duena izan gaitzela...

Nik ulertu dut Gure Jaunaren maitasuna arimarik gurenean bezain ongi agertzen dela haren graziari ezertan kontra egiten ez dion arimarik xumeenean. Izan ere, maitasunari dagokiona beharrezkoa izanik⁶, beren irakatsiaren distiraz Elizari argi egiten dioten[3^a] Santu Irakasleen antzekoak balira arima guztiak, haien bihotzetaraino datorrenean ez dirudi nahiko beharrezko denik Jainko ona. Baina berak sortu du ezer ez dakien eta intziri motel batzuk baizik egiten ez dituen haurtxoa; berak sortu du basati gaixoa, gidarizat berezko legea besterik ez duena, eta hauen bihotzetaraino nahi izan du jaitea! Hauek dira haren zelaietako loreak, beren xumetasunagatik hain liluragarri zaizkionak... Horrela jaitsiz, Jainko onak bere handitasun azkengabea erakusten du. Eguzkiak era batera zedroak eta lore txikietariko bakoitzatza, lurtean bera bakarrik bailitz bezala, argitzen dituenek, era berean Gure Jauna ere bakarrik arduratzen da arima bakoitzaz, besterik ez balego bezala; eta izadian, urtaroak bitxilorerik xumeenari markaturiko egunean irekiarazteko ezarriak daudenez, era berean arima bakoitzaren onari begira dago gutzia.

Zalantzarik gabe, ene Ama maite, galdetuko diozu harriturik zeure buruari nora etorri nahi dudan, orain arte ez baitut ezer esan nire bizitzaren historiaren antzekorik ere. Baina eragozpenik gabe, *gogora* datorkidana idazteko agindu didazu. Ez da, ba, egiaz nire bizitza nik idatziko dudana, Jainko onak niri egin nahi izan dizkidan graziei buruz ditudan *pentsamenduak* baizik.

⁶ Jainkoaren maitasunaren, graziaren «keinu»etariko bat, funtsezko irudietariko bat da Teresaren-tzat, eta hogeita lau aldiz ageri da Idatzietan (ik., batez ere, B Esk.. 3^a, amaieran).

Iraganari begirada bat egin diezaiokedan bizitzako une batean nago; nire arima heldu egin da kanpoko eta barruko proben arragoan. Orain, ekaitz artean sendotutako lorearen antzera, burua jaso eta XXII. salmoko hitzak nigan betetzen direla ikusten dut (Jauna dut Artzain, ez zait ezer faltako. Larre atsegin eta gurietan etzanarazten nau. Eztiki narama ur ertzetan zehar. Nekatu gabe darama nire arima... Baina heriotzaren ilunpetako ibarrera[3¹] jaitsi banadi ere, ez dut inolako gaitzen beldurrik, zu nirekin izango zarelako, Jauna...). Jauna beti izan da niretzat errukiorra eta gozotasunez bete... Zigorretan urri eta errukitan ugari... (CII. Sal. 8. b.)

Sal 22. 1-4

Sal 102.8

Sal 88-2

Horregatik, ene Ama, gogotsu nator zure ondoan Jaunaren errukiak kantatzena... *Zeuretzat soilik* idatziko dut Jesusek bildu duen *loretxoaren* historia. Horrela lasai-lasai hitz egingo dut, idazkerari eta egingo ditudan bazter-solasei begiratu gabe. Amaren bihotzak beti ulertzen dio bere alabari, honek hitz-erdiak besterik esaten ez badaki ere; horrela, ziur naiz zuk ulertuko eta igarriko didazula, nire bihotza moldatu eta Jesusi eskaini diozun horrek!...

Loretxo batek hitz egiterik balu, uste dut lau-lau esango lukeela Jainko onak berregatik egin duena, haren mesedeak ezkututzen saiatu gabe; ez luke esango, gezurrezko apaltasun baten aitzakiaz, dohakabea eta usaingabea denik, eguzkiak bere distira ostu dionik, zurtoina ekaitzak zartatu dionik, bere baitan bestera dela eta dagoenean. Bere historia kontatzera doan loreak poz hartzen du dohain-dohaineko Jesusen gozotasunak aldarrikatzean. Beragan ez zegoela ezer, aitortzen du, haren jainko-begiradak beragana erakar zitzakeenik, eta haren errukia izan dela soilik beragan dagoen on guztia egin duena... Berak ernearazi du lur santu eta *birjin-lurrinez* bustian. Berak nahi izan du zortzi zitori, zuriaren zuriz distiratsu, aurretik izatea. Berak nahi izan du, bere maitasunez, munduaren hats pozoitsutik bere loretxo gordetzea; lore-ninia ertirekitzen hasi zeneko, Jainko Salbatzaileak Karmel mendira aldatu du; ordurako han ziren usain gozoa zeriela [4^a] bere bizitzako udaberrian zaindu eta eztiki kulunkatu zuten bi zitotriak...

Zazpi urte igaro dira loretxoak birjinen Senarraren lorategian sustraiak⁷ bota zituenetik, eta orain *hiru* zitorik kulunkatzen dituzte beren lore-nini usaintsuak haren ondoan; pixka bat urrunago beste zitori bat irekitzen da Jesusen begiradapean. Eta lore hauek ekarri dituzten zurtoin bedeinkatuak elkartu dira honezkero betiko zeruko aberrian... Han aurkitu dituzte lurak lore-kuskuak zabaltzen ikusi ez dituen gainerako lau zitotriak... Oi! Jesusek ez al ditu atzerriko erriberan utziko luzaro erbestean gelditutako loreak! Zitori-sorta osatua izan dadila laster Zeruan⁸!

Hitz gutxitan laburtua dut, ene Ama, Jainko onak nigatik egin duena. Orain haur-bizitzako xehetasunetan sartuko naiz. Badakit *zure ama-bihotzak* liluragarri aurkituko duena beste edonorentzat aspegarri litzatekeen kontaketa... Gainera, gogoraziko ditudan oroitzapenak zeureak ere badira, zure ondoan iragana izan baita nire haurtzaroa eta ardura eta maite-erakutsi berberaz inguratu gaituzten guraso berdigabeenak izateko zoriona dut.

⁷ Ik. 50ⁱ.

⁸ Teresaren familia osoa: une horretan, «*hiru zitori hori*» Karmelen; «*beste Zitori hori bat*» (Leonia) Bisitazioan; «*sustrai bedeinkatu biak*» (gurasoak), «*lau Zitori horiak*», umetan hildako neba-ahizpak, aurkitu dituztenak.

Sal 88,2 Oi! bedeinka dezatela beren alabetariko lorerik txikiena eta lagun diezaiotela jainko-errukiak kantatzen!...

Neure arimaren historian, Karmelen sartu nintzen arte, hiru aldi oso zehatz⁹ bereizten ditut. Lehenengoa, laburra bada ere, ez da oroitzapenetan urriena. Ezagueradun egin nintzenetik gure ama maitea zeruetako aberrira joan zen arte luzatzen da.

[4¹] Jainko onak nire adimena oso goiz zabaltzeko eta haurtzaroko oroitzapenak hain sakon gogoan irartzeko grazia eman dit, non kontatzera noan gauzak atzo gertatu zirela iruditzen baitzait. Zalantzarik gabe Jesusek, bere maitasunean, eman zidan ama berdingabea niri ezagutaraztea nahi zuen, baina bere jainko-eskuak presa zuela zeruan koroatzeko...

Jainko onak atsegin izan du neure bizitza osoan ni *maitasunez* inguratzea. Nire lehen oroitzapenak irribarre eta txera samurren azterna gordetzen dute... Baina Hark nire inguruan *maitasun* ugari jarri bazuen, nire bihoztxoan ere izaera amoltsu eta sentibera jarri zuen. Nik ere maite-maite nituen aita eta ama, eta era askotara agertzen nien, oso irekia bainintzen. Horretarako erabiltzen nituen bideak, baina, bitxiak ziren batzuetan, amaren gutun baten pasarte honek frogatzen duenez:

– “Haurra antzekorik ez duen deabrutxo bat da; txerak egitera datorkit heriotza opa didala: - “Oi, bai nahi nukeela nik zu hiltzea, ene amatxo gaixoa!...”; haserre egin, eta honela erantzuten du: - “Baina zerura joan zaitezene da, hara joateko hil egin behar dela esaten duzu zuk eta.” Era berean aitari ere heriotza opa dio maitasunaren ganezkaldietan¹⁰.”

[5^a] Hona hemen amak nitaz zioena 1874ko ekainaren 25ean, nik 18 hilabete besterik ez nituenean:

“Zuen aitak jarri berri du ziburu bat. Zelina poz-eztitan dago, baina ikusteko da txikia zabuka! Barregarria benetan. Neskatila gaztetxo baten antzera eusten dio, ez dago soka eskutik utziko duen arriskurik, eta gero ziburua hain indartsu ez bada-bil garrasi egiten du. Aurretik beste lokarri batez eutsita egon ohi da, baina hala ere, ez nago lasai han goian jarrita ikusten dudanean.

“Azkenaldian gauzatxo barregarri bat gertatu zait txikiarekin. Bost eta erdieta-ko mezatara joateko ohitura dut. Lehenengo egunetan bakarrik uzten ez nintzen ausartzen; baina inoiz ez zela itzartzen eta, azkenean uztea erabaki dut. Neure ohean jartzen dut, eta sehaska ondo-ondoan, bertatik inola ere ez erortzeko eran. Egun batean sehaska hurbiltzeaz ahaztu nintzen. Banator, eta txikia ohean ez datza-

⁹ Seinzaroa Alençon-en (harik eta Teresaren ama hil arte); umezaroa Buissonnets-en (harik eta «Gabonak» arte, 1886), 1886. urteaz gero A Esk. idatzi zuen arte (1895). Epealdi horien mugak ez daude zehatz-mehatz zedarrituta, Teresak «bere bizitzaren» hiru epealdiz hitz egiten baitu 13^a.an eta 45^a.an.

¹⁰ Martin andreak bere alaba Paulinari bidalitako gutuna (1875/12/5). Honi dagokiola, Teresak orri bat erantsi zuen (5^a), Martin andreaken gutunen pasarte batzuk aldatzeko; Ama Ainesek jarri zizkion gutun hauek bere esku.

la ohartzen naiz. Une hartan garrasi bat entzuten dut; begiratu eta nire oheburuaren aurrean zegoen aulki batean eserita aurkitzen dut, burutxoa burko handiaren gainean etzanda zuela eta, hor, logaitza zuen, bekoskoaz zen eta. Ezin ulertu izan dut nola erori zen eserita aulki hartara, etzanda baitzegoen. Jainko onari eskerrak eman dizkiot ez zaiolako ezer gertatu; egiaz probidentziala izan zen; bilinbolaka erori behar zuen lurrera. Bere aingeru jagoleak zaindu du eta garbitokiko arimek babestu dute, egunero haien zainpean jartzen baitut txikia. Nik neuk horrela ulertzen dut gertaturikoa... Ulertu zuok nahi duzuen eran!...”

Gutunaren amaieran amak hau gehitzen zuen: “Une honetan haurra bere eskutxoa aurpegitik pasatu eta musu ematera datorkit. Txikitxo gaixo honek ez nau uzten izpi batean ere, hura nirekin dago beti-beti. Oso gogoko du lorategira joatea; [5ⁱ] baina ni han ez banago, ez du gelditu nahi eta negar egiten du, neugana ekartzten duten arte¹¹...”

(Hona hemen beste gutun baten pasarte bat:) “Teresatxo bera zerura joango ote zen galdetzen zidan lehengo egunean. Baietz esan diot, ona izaten bada. Hark erantzun: ‘Bai, baina nahiko ona ez banintz, infernura joango nintzateke... Baina ongi dakit zer egingo nukeen orduan: zeruan egongo zinatekeen zugana egingo nuke hegan. Nola konponduko litzateke Jainko ona ni hartzeko?... Zuk ongi heldurik edukiko nindukezu zeure besoetan’. Haren begietan ikusi dut bene-benetan sinesten zuela Jainko onak ezin ziola ezer amaren besoetan egonez gero¹²..

Mariak maite-maite du bere ahizpatxoa; oso polita aurkitzen du. Oso zaila litzateke [hala ez aurkitzea], txikitxo gaixo honek hari nahigabea emateko beldur handia baitu. Atzo arrosa bat eman nahi izan nion, horrek zorionsu egiten duela jakinik; baina ez ebakitzeko eskatzen hasi zait, Mariak debekatua duela eta. Hunkipenez gorri-gorri zegoen. Hala ere bi eman dizkiot. Ez da ausartzen etxean agertzen. Nik arrosak nireak zirela esaten nion eztiki: ‘ezetz, ihardesten zuen berak, Mariarenak direla...’ Oso erraz hunkitzen den haurra da. Zoritxarreko gauzatxoren bat egiten duenean, mundu guztiak jakin behar du. Atzo, nahi gabe, paperezaturiko ertz bat urratu zuela eta, gupida emateko moduan zen. Gero, albait lasterren aitari esan behar zitzaiola; hau lau ordu geroago iritsi zen, eta inork ez zuen gertatutakorik buruan. Baina hura arin-arin etorri da Mariagana esatera: ‘esaiozu berehala aitari papera urratu dudala.’ Han zegoen gaizkile bat bere zigorraren zain egon ohi den bezala. Baina hark, bere burutxoan errezago barkatuko diotela uste du bere burua salatuz gero¹³.”

[4ⁱ] Bihotz-bihotzez maite nuen neure *amabitxi* laztana¹⁴. Igarri gabe, neure inguruan egiten eta esaten zenari adi-adi egon ohi nintzen. Gauzak oraintxe bezala epaitzen nituela uste dut. Arretaz entzuten nuen Mariak Zelinari irakasten ziona, neuk ere haren antzera jokatzeko. [6^a] Bisitaziotik irten ondoren, Zelinari irakasten zion bitartean bere gelan onartua izateko mesedea lortzearren, oso zintzo portatzen

¹¹ Martin andreak Maria eta Paulinari, 1874/6/25ean.

¹² Martinek andreak Paulinari, 1876/10/29an.

¹³ *Idem*, 1876/5/21ean.

¹⁴ Beraren ahizpa Maria. Bera barnetegitik irten berri zen (Mans-eko Bisitaziotik) 1875/8/2an.

nintzen eta hark gogoko zuen guztia egiten nuen. Horregatik erregaluz betetzen ninduen, balio txikikoak izan arren, poz-pozik jartzen nindutenak.

Ni oso harro nengoen neure bi ahizpa nagusiekin, baina nire haurtzaroko eredu Paulina zen... Hitz egiten hasita nengoenean eta amak galdetzen zidanean: –“Zertan pentsatzen duzu?”, erantzuna beti berbera izan ohi zen: –“Paulinaren gan!...” Beste behin axuleiuen gainean neure hatz txikitxo irristatzen uzten nuen eta esan: –“Ni *Paulina* idazten ari naiz!...”

Sarri entzuten nuen nik Paulina, ziur aski, *lekai*me izango zela. Orduan, hura zer izan zitekeen ongi ulertu gabe, pentsatzen nuen: “*Neu ere lekai*me izango naiz”. Hauxe da [nire] lehenengoetariko oroitzapena, eta gero ez naiz erabakiz sekula aldatu!... Zu izan zinen, ene Ama maitea, ni berarekin ezkontarazteko Jesusek erabili zuen bitartekoa; ez zinen une hartan nire ondoan, baina ordurako gauzaturik zen lokarri sendo bat gure arimen artean... Nire *eredu* zinen, eta zure antzeko izan nahi nuen, eta zure jarraibideak erakarri ninduen bi urte nituenetik birjinen Senarraren ganantz... Oi, zein autu-mautu gozoak esan nahi nizkizukeen isilean! –Baina loretxoaren historiaz aurrera egin behar dut, haren historia oso eta orokorraz, zeren Paulinarekiko harremanez xeheki hitz egin nahi banu, gainerako guztia albora utzi beharra izango bainuke!...

Leoniato maiteak ere leku aparta zuen nire bihotzean. Asko maite ninduen. Arratsalde, familia osoa ibilalditxo bat egitera joaten zenean, berak zaintzen ninduen... Oraindik entzuten ari naizela dirudi lo eragiteko kantatzen zizkidan lelo politikak... Gauza guztietan ari zen niri nola atsegin emango; nik ere asko sentituko nuen hura nahigabetzea. [6ⁱ] Oso ongi oroitzen naiz haren lehen jaunartzeaz¹⁵, batez ere berarekin batera presbiterioan sartzeko besoetan hartu ninduen uneaz. Hain polita neritzonean nire antzera dena zuriz jantziriko ahizpa nagusi batek besoetan eramateari!... Gauez goiz oheratu ninduen, afari handian esku hartzeko oso txikia bainintzen. Baina oraindik ikusten nago aita bere erreginatxoari ekartzen, azkenburukoetan, pastel-kopautxoak...

Biharamunean, edota egun gutxi geroago, Leoniaren¹⁶ jaunartzeko laguntxoarenera joan ginen amarekin. Egundorretan zela, uste dut, amatxo on honek horma baten atzera eramane gintuztela jatordu ondoren ardo xorta bat (Dagorau andre gaixoa atera ziguna) edanarazteko; bada, ez zuen nahi andre gaixoa nahigabetzerik, baina ezta guri ezer faltatzerik ere... Ai, zein gozoa den ama baten bihotza! Nola erakusten duen bere samurtasuna inork pentsatuko ez litzukeen hainbeste arduretan aurre hartuz!

Orain neure Zelina maiteaz, haurtzaroko neure laguntxoaz hitz egitea dagokit, baina oroitzapenak hain ugariak izanik, ez dakit zeintzuk hautatu. Amak Bisitaziora idazten zizkizuen gutunetako pasarte batzuk aipatuko ditut, baina ez dut osorik

¹⁵ 1875/5/23; Teresak artean bi urte eta erdi zituen.

¹⁶ Armandine Dagorau, lehenengo jaunartzeko laguna; izan ere, andre Martinek «jantzi zuen, Alençon-go sendi aberatsek ohi zuten bezala. Ume horrek ez zuen Leonia une baten ere egun ospetsu hartan utzi; eta iluntzean, afari bitartean, mahaiburuan jarri zuten» (HA).

kopiatuko, luzeegi joko bailuke... 1873ko uztailearen 10ean¹⁷ (nire jaiotzako urtean), hona hemen zer esaten zizuen:

–“Inudeak¹⁸ ostegunean ekarri du Teresatxo. Haurrak ez du barre baino besterik egin. Zelina txikia zen batez ere atsegin zuena, honekin barre-algaraka ari zen. Honezkerio jolasteko gogoia esan daiteke, laster etorriko da hori. Bere zango-txoan gainean egoten da, hesola txiki bat bezala tinko. Oinez ibiltzen laster hasiko dela uste dut eta izaera onekoa izango dela. Oso argia dirudi, eta hautatua izango den antza du...”

[7^a] Baina inudearen zainpetik irten ondoren izan zen batez ere neure Zelina maitetxoaganako onginahia erakutsi nuena. Oso ongi hartzen genuen elkar; bakarrik ni askoz ere biziagoa nintzela eta ez hura bezain oso-osokoa. Nik hiru urte eta erdi gutxiago izan arren, adin berekoak ginela iruditzen zitzaidan.

Horra hor amaren gutun baten pasarte bat, zein samurra zen Zelina eta zein bihurria ni ikusaraziko dizuena: “Nire Zelinatxo bertuteari erabat emana ikusten dut. Bere izaeraren sentimendu barnekoa du hori. Arima tolesgabea du eta gaitzari beldur dio. Hudotxoari dagokionez, oraindik ez dakigu zer izango den, hain txikia, hain nahasitxoa da! Zelinak baino buru argiagoa du, baina ez da hura bezain gozoa, eta, batez ere setatia da ia gehiago ezinekkoa. ‘Ez’ esaten duenean, ez dago ezer hari amore emanaraztekorik; egun osoan sotoan sartuko balute ere, hantxe lo egitea nahiago izango luke ‘bai’ esan baino...”

Hala ere, urrezko bihotza du, oso xteratsua eta irekia da. Polita da nire atzetik lasterka ikustea bere aitortza egiteko: - ‘Ama, Zelinari saka egin diot, baina behin bakarrik. Jo egin dut behin, baina ez dut gehiago egingo.’ –(Horrelakoa da egiten duen guztian.). Ostegun arratsaldean geltokian zehar ibili gara paseatzen, eta itxarongelara sartu behar izan du Paulinaren bila; aurretik zihoan alai-alai, poza ematen zuen ikusteak. Baina Paulinaren bila joateko trenera igo gabe itzuli behar genuela ohartu denean, negar egin du bide osoan zehar¹⁹.”

Gutunaren azken zati honek Bisitaziotik itzultzen ikusten zintudanean izan ohi nuen poza oroitarazten dit. Zuk, ene Ama, zeure besoetan hartzen ninduzun, eta Mariak Zelina hartzen zuen. Orduan nik hainbeste xera egiten nizkizun, eta atzerantz egiten nuen [7ⁱ] zure ilemotots luzea mirestekoa... Gero, hiru hilabete aurretik gorderik izan zenuen txokolate tableta bat ematen zenidan. Konturatzen zara nolako erlikia zen nirentzat!...

Le Mans-era²⁰ egindako bidaiaz ere oroitzen naiz. Lehen aldiz nenbilen trenez. Hura poza bidaia egiten amarekin bakarrik neure burua ikustean!... Hala ere gehiago ez dakit ezer, negarrari eman nion, eta gure amatxo gaixoak Le Mans-ko gure izebari ezin izan zion agertu bidean negar eta negar eginez aurpegia gorrituta-ko *umekondo* itsusi bat baizik...

¹⁷ Egiatan, 1873/7/1ean.

¹⁸ Rose Taillé, Semallé-n bizi zena, Alençon-dik bi ordura oinez. Teresa haren babespean izan zen 1873/3/16tik 1874/4/2ra bitartean.

¹⁹ Martin andreak Paulinari, 1876/5/14an.

²⁰ 1875/3/29an, Martin andrearen ahizpa, ahizpa Maria Dositea, bisitatu zuen Bisitazioan.

Mintzatokiko oroitzapenik ez dut, baina gure izebak eskuratu zizkidan sagutxo zuri eta oñoñez beteriko otarretxoaz oroitzen naiz soilik; hauen gainean azukrezko bi eraztun polit nabari ziren, doi-doi neure hatzaren lodierakoak. Bat-batean esan nuen: –“Hau poza! Zelinarentzat eraztun bat dago!” Baina, bai tamalgarria! Hartu otarretxoa heldulekutik, amari beste eskua eman, eta bagoaz. Pausu batzuk eman orduko begiraten dut nire otarretxoa eta ia nire oñoñ guztiak kalean barreiatu-rik ikusten ditut, Erpurutxoren harrikoskorak bezala... Arreta handiagorik begiratu eta nire eraztun preziatuetariko batek ere oñoñen zoritxar berbera izan duela ohartzen naiz... Jadanik ez neukan ezer Zelinari emateko!... Nire minak gainez egin zuen orduan. Atzerantz egitea eskatzen dut, baina amak ez dirudi jaramonik egiten dida-nik. Hura gehiegizkoa zen: nire *malkoen* ondoren, nire *garrasiak* etorri ziren... Nik ezin nuen ulertu amak nire nahigabearen esku ez hartzea, eta gehitu egiten zuen horrek nire mina...

Orain amak Zelinaz eta nitaz hitz egiten dizun gutunetara itzultzen naiz; hauxe da nire izaera ezagutarazteko biderik onena. Hona hemen nire akatsak distira biziz nabarmentzen diren pasarte bat: “Hona [8^a] Zelina txikiarekin kuboetara jolasten; noizbehinka eztabaidak dituzte; Zelinak amore ematen du bere koroari bitxi bat gehitzeko. Txikitxo gaixo honi haserre egin behar izaten diot, sumindurik eta bel-durra emateko eran jartzen baita, gauzak berak uste bezala ez doazenean; lurrean iraulka hasten da ero baten antzera, guztia galdurik delakoan; une batzuetan, hori harentzakoa baino gogorrago da, ito beharrean egoten da. Oso ume urduria da. Hala ere polit-polita eta oso argia da. Guztiaz oroitzen da²¹.”

Ikusten duzu, ene Ama, zein urruti nengoen ni akats gabeko ume izatetik! “Lo nengoela ere ona nintzenik” ezin esan zitekeen nitaz, gauez egunez baino ere bihur-riagoa bainintzen. Burusi guztiak aidean botatzen nituen, eta, gainera (lotan nengo-ela ere) neure ohetxoaren buruaren kontra kolpeak hartzen nituen; minak iratzarri egiten ninduen, eta orduan esaten nuen nik: –“Ama, *min egin dut!*...” Ama gaixo honek jaiki beharra izaten zuen, eta, benetan, bekokian koskortxo batzuk nituela ikusten zuen, *min egin nuela*. Ongi estaltzen ninduen eta gero berriro oheratzen zen. Baina handik pixka batera nik berriro *egiten nuen min*; hala ni oheari lotu beharrean izan ziren. Arrats guztietan etorri ohi zen Zelinatxo hainbat lokarri lotze-ra, deabrutxoak minik ez egiteko eta ama ez iratzartzeko. Neurri honek ondorio ona izan zuen, eta aurrerantzean *otzana* izan nintzen *lo nengoela*...

Banuen beste akats bat ere (itzarrik nengoela), amak bere gutunetan aipatzen ez duena: buru-estimua handi-handia. Neure kontaketa gehiegi ez luzatzearen, bi adibide emango dizkizut soilik. Bein batean amak esan zidan: –“Ene Teresatxo, lurrari mun egiten badiozu, bost zentimo emango dizkizut.” Bost zentimo niretzat dirutza handia zen. Hura irabazteko ez nuen neure handitasuna beheratu beharrik, nire altuera txikiak ez baitzuen tarte handirik uzten nigandik lurrera. Baina, nire harrokeria [8ⁱ] *lurrari mun egitearen* kontra nabarmendu zen; esan nion amari, gor-putza tente-tente nuela: –“Oi, ez ene amatxo, nahiago dut bost zentimokorik gabe gelditu!...”

²¹ Martin andreak Paulinari, 1875/12/Sean. Teresaren oroimenaren gainean, ik. A Esk., 4ⁱ, 13ⁱ; KH 5. VIII. 7.

Beste behin Grogny-ra joan behar genuen, Monnier andrearen etxera. Amak neure soineko urdin txanbelina, farfailez apaindutakoa niri janzteko agindu zion Mariari, baina besotxoak agerian ez uzteko, eguzkiak belztu ez diezaizkidan. Utzi nion janzten neure adineko haurren axolagabetasunez, baina besotxoak agerian nituela askoz ere politago egongo nintzela pentsatzen nuen neure baitan.

Nik nuen izaeraz, guraso bertutegabe batzuek hezi banindute, edota Luisak²² mainak egin balizkit ere Zelinari bezala, ni oso gaiztoa irtengo nintzen eta, agian, galdu ere egingo nintzen... Baina Jesusek bere emaztegai txikiaren ardura izan du, eta guztia haren onerako izatea nahi izan du, baita akatsak ere, garaiz zuzendurik, perfektioan hazteko baliagarri izan baitzaizkio... Nik *buru-estimua* nuenez gero eta baita *onaren maitasuna* ere, serio pentsatzen hasi nintzeneko (eta txiki-txikitarik hasi nintzen), nahikoa zen zerbait ez zegoela *ongi* niri esatea, bi aldiz esanarazteko gogorik ez izateko...

Atseginaz ikusten dut amaren gutunetan, hazi ahala, pozaldi gehiago ematen nizkiola. Berezkoa zen, inguruan ikasbide onak soilik ikusirik, haiek imitatzeke joera izatea. Hona hemen amak 1876an idazten zuena: –“Teresak ere batzuetan ekintzak²³ egin nahi ditu... Ume zoragarria da, itzala bezain fina²⁴, bizi-bizia, baina haren bihotza sentibera da. Zelinak eta honek elkar maite-maite dute, jolasteko aski dira biak. Egunero, bazkaldu eta berehala Zelina oilaskoa hartzera doa, bat-batean harrapatzen du Teresaren oiloa. Nik ezin dut egin, baina hura hain bizia izanik lehengo tartadan eskuratzen du; gero biak doaz beren hegaztiekin sutondoan [9^a] esertzera, eta horrela luzaro jostatzen dira. (Errosatxok oparitu zizkidan niri oiloa eta oilarra, eta nik Zelinari eman nion oilarra.). Lehengo egunean, Zelinak nirekin egin zuen lo, eta Teresak Zelinaren ohean, bigarren solairuan. Hark behera jaitsi zezala eskatu zion Luisari janztera. Luisa igotzen da gora haren bila, eta ohea hutsik aurkitzen du. Teresak hitz egiten entzun zion Zelinari, eta jaitsia zen jadanik harekin egotera. Luisak diotso: ‘Ez duzu nahi, ba, janzteko behera etortzea?’ –‘Oi, ez, ene Luisa gaixoa! Gurekin bi oilotxoekin bezala gertatzen da, ezin direla banatu!’ Eta hau esatean, elkarri musu eta besarkada ematen diote... Gero, arratsean, Luisa, Zelina eta Leonia biltoki katolikora²⁵ joan dira, eta Teresa gaixo hau etxean utzi dute; ulertzen zuen honek ongi harako txikiegia dela eta esaten zuen: –‘Zelinaren ohean ni etzanaraztea nahi balute behintzat!...’ Baina ezta, ez dute nahi izan... Berak ez du ezer esan, eta bakarrik gelditu da argitxoarekin. Ordu laurden geroago lo sakonean zen²⁶...”

Beste egun batean amak honela idazten zuen gainera: “Zelina eta Teresa ezin banatuzkoak dira, elkar maiteago duten neskatorik ez dago. Maria eskola emateko Zelinaren bila doanean, Teresa gaixo hau negarrez urtu beharrean izaten da. Ai! Zer izango ote da hartaz, bere laguntxoak alde egiten badio!... Mariak erruki hartzen dio, eta berarekin eramaten du, eta gaixo hau aulki batean eserita egoten da bi ordu

²² Luisa Marais, Martin familiaren neskamea Alençon-en.

²³ «Sakrifizio» batzuk. Ikus zertzelada gehiago HAn.

²⁴ «Korala bezain fina»ren ordez.

²⁵ Arte eta josteta biltokiak, Albert de Mun-en ekimenaz sortuak; Alençon-goia 1875ekoa zen.

²⁶ Martin andreak Paulinari, 1876/11/8an.

edo hirutan. Bitxi batzuk ematen dizkiote txirikordatzeko edo oihalen bat josteko; ez da ausartzen mugitzen, eta hasperen sakonak egiten ditu sarri-sarri. Orratzari haria irteten zaionean, berriro sartzen saiatzen da; ikustekoa da ezinean eta Mariari eskatzen ausartzen ez dela. Laster bi malko handi ikusten dira haren masailetan limurtzen... Mariak [9ⁱ] poztu egiten du berehala, orratzari haria sartu eta aingerutxo gaixoak irribarre egiten du malko artetik²⁷...”

Oroitzen naiz, egiaz, Zelina gabe ezin nuela gelditu. Nahiago nuen nik azkenburukoa jan gabe mahaitik jaikitzea, hura jaikitzen zenean haren atzetik joan gabe gelditzea baino; neure aulki garaian biraka hasten nintzen, jaisteko eskatuz, eta biok joan ohi ginen gero jolastera. Batzuetan prefekta txikiagana²⁸ joaten ginen, nik gogoko nuen parkeagatik eta hark erakusten zizkigun jostailu politengatik. Baina ni, beste ezergatik baino gehiago, Zelinari poz ematearren joan ohi nintzen, nik neuk nahiago bainuen baratzan gelditu eta hango *hormak arraspatzen aritzea*; hango harritxo distiratsu guztiak askatu eta gero aitari saltzera joan ohi ginen, hark seriotasun handiz *erosten* zizkigularik.

Igandean, elizkizunetara joateko ni txikiegia nintzenez gero, ama ni zaintzen gelditzen zen. Mezak irauten zuen bitartean oso zintzo portatzen nintzen eta behatzpuntan ibiltzen nintzen. Baina atea irekitzen ikusten nueneko, berdingabeko alaitasun-lehertzea izan ohi zen; neure ahizpatxo *txanbelinaren* bila abiatzen nintzen arrapaladan, orduan “*kapera bat baino apainago*”²⁹ zegoenaren bila..., eta esaten nion: “Oi, ene Zelinatxo, emaidazu berehala ogi bedeinkatua!” Batzuetan ez zuen izaten, beranduegi iristeagatik... Zer egin orduan? Ni ezin nintzen hori gabe gelditu, horixe zen “*nire meza*”... Laster aurkitu nuen irtenbidea. –“Ez daukazu ogi bedeinkaturik? Ba, egin ezazu!” Esan eta egin: Zelinak hartzen du aulki bat, zabaldu arasa, hartu ogia, ebaki ahokada bat, eta *seriotasun* handiz *agur Mari* bat errezaturik, eskaintzen dit, eta nik ogiaz zeinadura eginik, debozio handiz jaten dut, *ogi bedeinkatuaren zapore* [10^a] berbereko aurkiturik... Sarri-sarri izaten genituen *solas izpiritualak*. Hona hemen amaren gutunetatik ateratako adibide bat: “Gure txiki maite biak, Zelina eta Teresa, bi aingeru bedeinkatu dira, bi izaki txiki aingerutiari. Teresa Mariaren poztasun, zorion eta aintza da. Sinestezina da zein harro dagoen hartaz. Egia esan, irteera oso bitxiak ditu bere adinerako; Zelina baino gehiago da, honek urtez halako bi izan arren. Lehengo egunean hau zioen Zelinak: –‘Nola egon daiteke Jainko ona hain ostia txikian?’ Txikiak erantzun zion: ‘Ez da hain harrigarria, Jainkoa ahalguztiduna baita.’ –‘Zer esan nahi du ahalguztidunak?’ –Ba, nahi duen guztia egiten duela³⁰!’...”

Behin Leonia, andrakiletara jolasteko handiegia zelakoan, gu bion bila etorri zen otarre bete jantzitxo eta berriak egiteko hainbeste oihal-puska zekarrela; guztia-
ren gainean bere andrakila zegoen etzanda. –“Hartu, ene ahizpatxook, esan zigun, *hautatu*, dena ematen dizuet”. Zelinak eskua luzatu eta bere gogoko zerrendatxo

²⁷ *Idem*, 1877/3/4an.

²⁸ Prefektura Saint-Blaisen kalean dago, Martindarren etxearen aurrean.

²⁹ Martin jaunaren esaera.

³⁰ Martin andreak Paulinari, 1877/5/10ean.

multzo bat hartu zuen. Unetxo bat pentsatu ondoren, luzatu nuen nik ere eskua esanez: “*Nik dena hautatzen dur*³¹!” eta beste koplarik egin gabe, otarrea hartu nuen. Gertakariaren lekukoek bidezkozat jo zuten gauza hori. Zelinak berak ere ez zuen kexatzeko zerik erakutsi (beste aldetik hari ez zitzaion jostailurik falta, aitabitxi³² opariz betetzen zuen, eta Luisak harentzat nahi zuen guztia lortzeko modua egiten zuen).

Haurtzaroko gertakari hau nire bizitza osoaren laburpena da. Geroago, perfekzioa agertu zaidanean, *santu* izatera iristeko nahigabe handiak eraman beharra, beti hoberena bilatu beharra eta norbere buruaz ahaztu beharra dagoela ulertu nuen; perfekzioan maila asko daudela ulertu nuen, eta arima bakoitza [10¹] aske dela Jaunaren keinuei erantzuteko, haregatik gutxi nahiz asko egiteko, hitz batez, hark eskatzen dituen sakrifizioen artean *aukera egiteko*. Une hartan, neure lehen haurtzaroko egunetan bezala, esan dut: “Ene Jainko, *`nik dena hautatzen dut`*. Ez dut *erdizka santu* izaterik nahi, ez naiz zugatik nahiagabeak eramateko beldur; gauza batek bakarrik beldurtzen nau: nik neure *nahia* gordetzeak. Har ezazu, ba; zuk nahi duzun *‘dena hautatzen dut nik’ ...*”

Gelditu beharra dut, oraindik ez dizut neure gaztaroaz hitz egin behar, lau urteko deabruptxoaz baizik. Adin honetan-edo izan dudan amets bat dut gogoan, irudimenean zeharo josirik gelditu zaidana. Gau batez amets egin nuen baratzara irte-ten nintzela neu bakarrik ibilalditxo bat egitera; hara iristeko igo behar nituen mailen behealdera etorri nintzenez, gelditu egin nintzen izuaren izuz. Nire aurrean, pendizetik hurbil, kare-barrika bat zegoen, eta barrika haren gainean dantzan egiten zuten bi *deabruptxo beldurgarrik*³³ bizkortasun harrigarritz, oinetatik tatarrez plantxak izan arren. Bat-batean nigan josi zituzten beren suzko begiak, eta gero, une hartan bertan, ni baino askoz ere izuago agertzen zirela, barrikatik salto egin eta aurrez aurre zegoen arropategian ezkutatzeraz joan ziren. Hain adore gutxiko ikusirik, zer egitekotan ziren jakin nahi nuen, eta leihora hurbildu nintzen. Deabru gai-xoak han zeuden, mahaien gainetan zehar lasterka, nire begiradari nola ihes egingo. Batzuetan leihora hurbiltzen ziren, ni oraindik han ote nintzen artega antzean begira; eta ni ikusirik etsi-etsita korrika hasten ziren berriro. Amets honek, zalantzarik gabe, ez du ezer harrigarrik. Hala ere uste dut Jainko onak nahi izan duela nik gogoratzea, grazian dagoen arimak ez duela zertan deabruen beldur izan adierazteko, haiek koldar hutsak baitira, haur baten begiradaren aurrean ihes egiteko gai...

³¹ Hiztegi Teresiarraren funtsezko hitzetariko bat (laurogeita hamabost aldiz erabiltzen du idatzietan). Teresak berehala ematen dio hemen alegia baten indarra («*nire bizitzaren laburpena*») haur-keinu honi, oso interpretazio psikologiko egokiaren bitartez, nahiz eta paradoxikoa izan: guztiarekin gelditu beharrean, harentzat gakoa hau da: sufrimenduen artean aukerarik ez egitea eta bere nahia ezeztatzea; berak bat-batean azpimarratzen du sufrimendua zertarako den, eta gai horixe da eskuizkribuen gidale-rrotariko bat (ik. A Esk., 73^a, 81^a etab.). Aita Piat-ek Teresari aurrepikira bota dakiokoen “gutizia” hori ez du ia antzakotzat hartzen, Leoniaren eskuerakutsiaren ezereztasunagatik, “oihaltxo batzuk” baizik ez ziren-eta...

³² Vital Romet, Martin jaunaren laguna.

³³ Haurtzaroko amets honek argi erakusten du nola jokutzen duen Teresak etengabe deabruarekin buruz buru dagoenean (ik. DSA 7, 2^a/; B Esk., 5; TG 92; 200 eta KH *hainbat pasartetan*).

[11^a] Hona hemen gainera amaren gutunetan aurkitzen dudan pasarte bat. Amatxo gaixo honek barrundatzen zuen jadanik bere erbestealdiaren amaia³⁴: “Bi txikiak kezkarik ez dut, biak oso ongi daude. Izaki hautatuak dira; onak izango dira ezbairik gabe. Mariak eta zuk ezin hobeki hazi eta hezi ahal izango dituzue. Zelinak ez du okerrik txikienik egiten nahi duela. Txikia ere ona izango da; munduko urre guztiagatik ere ez litzateke gezurra esateko gai izango; zuetariko inorengan³⁵ sekula ikusi ez dudana bezalako izpiritua du.

Lehengo egunean dendan zegoen Zelina eta Luisarekin; bere ‘ekintzaz’ hitz egiten zuen eta biziki eztabaidatzen zuen Zelinarekin. Andreak diotso Luisari: –‘Zer esan nahi du? Baratzan jostatzen ari dela *ekintzaz* hitz egiten besterik ez zaio entzuten’. Gaucherin andrea leihora agertzen da *ekintzei* buruzko eztabaida horrek zer esan nahi duen ulertzeko ahaleginetan... Txikitxo gaixo hau gure zoriona da; ona izango da, honezkero ikusten da ernamuina. Jainko onaz baizik ez du hitz egiten. Bere otoitzak egiteari ez lioke munduko ezergatik utziko. Eder litzaidake alegitxoak errezitatzen zuk ikustea, ez dut sekula gauza xarmantagorik ikusi; berak bakarrik aurkitzen ditu egoki diren adierazpide eta airea, baina batez ere hau dioenean: –‘Haurtxo ilehori, Jainko ona non bizi dela uste duzu zuk?’ –‘zeru urdineko goietan’ bertsoa iristen denean, gora begiratzen du aingeru baten antzera. Ez gara aspertzen errepikarazten hain gauza ederra! Haren begiradan hain zerutiarra den zerbait dago, liluragarria³⁶!...”

Oi, ene Ama! Adin hartan bai nintzela ni zorionsua! Bizitzaren gozoa dastatzen hasia negoen; eder zitzaidan niri bertutea, eta uste dut oraintxe nagoen egoera berean nengoela, neure egiteen jaun eta jabe nintzela [11^a]. –Ai! Zein arin iragan diren nire lehen haurtzaroko urte eguzkitsu haiek! Baina era berean zein lorraz gozoa utzi duten nire ariman! Atseginez oroitzen naiz aitak *Pabilioira* eramaten gintuzten egunetaz³⁷; zertzeladarik txikienak ere bihotzean irarrik daude...

Gogoan ditut batez ere igandeetako ibilalditxoak, ama beti lagun izaten genuelarik... Sentitzen ditut oraindik *nabar-lorez* eta *landa-lorez* zipistinduriko garitzak ikustean nire ariman sortu ohi ziren zirrara sakon eta *poetikoak*. Ordurako eder zitzazkidan *urruntasunak*... Espazioak eta izei erraldoiek, beraien adarrak lurra ukitzeen zutelak, gaur egunean ere oraindik izadia ikustean izaten dudana antzeko zirrara uzten zuten nire bihotzean... Ibilaldi luze haietan maiz aurkitzen genituen eskaleak, eta Teresatxo zen beti limosna eramateko ardura zuena, poz-pozik egiten zuelarik. Baina batzuetan aitak, bere erreginatxoarentzat ibilaldia luzeegia izango zela eta, besteak baino lehenago eraman ohi zuen etxera (haren nahigabe handiz). Orduan, hura poztearren, Zelinak bere otarretxo polita bitxilorez betetzen zuen eta, itzultzean hari ematen zion. Baina, ai! amonaxo gaixoak³⁸, bere bilobak gehigi zuela-eta,

³⁴ Minbizi motako gaixotasuna, 1865ean lehenengo zantzuak agertu ondoren, guztiz zabaldu zen 1876ko urrian. Ik. Cadéot medikuaren azalpen zehatza, *Zélie Martinen*, 173-194. orr.

³⁵ Martin andreak Paulinari, 1877/3/22an.

³⁶ *Idem*, 1877/3/4an.

³⁷ Jabetza txikia, Martin jaunak ezkondu baino lehen erositakoa (gaur egun, Pavillon Sainte-Thérèse kalea).

³⁸ Martin jaunaren ama.

horrela haietariko parte handi bat hartzen zuen bere Birjina donearentzat... Hau ez zuen gogoko Teresatxok, baina kontu handia izaten zuen ezer ez esateko; sekula ez kexatzeko ohitura ona zuen, ezta berea zuena kentzen ziotenean edota zuzengabeki salatua zenean ere; berak nahiago zuen isilik egotea eta bere burua ez zuritzea; hau ez zuen bere meritua, berezko bertutea baizik... Tamalgarri da joera on hau galdu izana!...

[12^a] Oi! Benetan begi eder egiten zidan guztiak lurrean. Nik urrats bat eman orduko loreak aurkitzen nituen eta neure izaera bikainak laguntzen zidan bizitza atsegingarri egiten. Baina nire arimarentzat aro berria hasiko zen. Nik probaren arragoetik pasatu beharra nuen eta haurtzarotik sufritu beharra, albait lasterren Jesusi eskainia izan ahal izateko. Udaberriko loreak elurpean ninikatzen eta eguzkiaren lehen printzatan zabaltzen direnez, era berean haren oroitzapenak idazten ditudan loretxoak ere probaren negua igaro beharra izan du...

Oraindik nire bihotzean daude gure ama maitearen gaixotasunaren xehetasun guztiak; lurrean igaro zituen azken asteetaz oroitzen naiz bereziki. Bi erbestetu gaixo bezala geunden Zelina eta biok. Goizero etorri ohi zen Leriche andrea³⁹ gure bila, eta eguna haren etxean ematen genuen. Behin ez genuen geure otoitzak egiteko astirik izan irten orduko, eta bidean Zelinak esan zidan isil-misilka: “geure otoitzak ez ditugula egin esan beharko diogu?...” –“Ai, bai!” erantzun nion nik. Orduan hark lotsaz-lotsaz esan zion Leriche andreari, eta honek erantzun: –“Bai, ene alaba-txoak, oraintxe egingo dituzue.” Eta gero biok areto handi batean sarturik, joan zen... Orduan Zelinak begiratu zidan, eta esan genion elkarri: “Ai! Ez da ama beza-lakoa... Hark beti eginarazten zigun geure otoitza!...”

Neskatxoekin jolastean, geure ama maitearen pentsamendua lagun genuen beti. Behin, Zelinak albarikoke eder bat jaso zuen; hark makurturik esan zidan isilean: “Ez dugu jango, amari emango diot nik”. Baina, ai! amatxo gaixo hau gaizkiegi zen lurreko fruituak jateko; hark ez zuen ase behar zeruan Jainkoaren *aintzaz* izan ezik, eta Jesusekin *ardo misteriotsua*, bere azken afarian bere Aitaren erreinuan gurekin banatuko zuela esanez aipatu zuena *edanez* izan ezik.

Mt 26,26

Azken oliaduraren ohikune hunkigarria ere nire ariman irrarririk gelditu zen. Oraindik ikusten nago neu egon nintzen tokia, Zelinaren ondoan. Guztiok [bostok] adinaren arabera geunden jarririk [12]; eta gure aitaxo gizagaixoa ere han zegoen negar-zotinka...

Amaren heriotza egunean edo biharamunean⁴⁰, hark besoetan hartu ninduen, esanez: –“Zatoz zeure amatxo gaixoari azkenengoz musu ematera”. Eta nik, ezer esan gabe, hurbildu nituen neure ezpainak neure ama maitearen bekokira... Ez naiz gogoratzen negar asko egin nuenik; inori ez nion hitz egiten nituen sentimendu sakonei buruz... Isilik begiratu eta entzuten nuen... Inork ez zuen nitaz arduratzeko astirik, eta horrela, gauza asko ikusten nituen, ezkutatu nahi izango zizkidatenak.

³⁹ Martin jaunaren loba baten emaztea, bere bisuteri denda 1870ean utzi ziona.

⁴⁰ 1877ko abuztuaren 28an; berak berrogeita bost urte zituen.

Une batean hilkutxaren estalkiaren aurrez aurre gertatu nintzen...; luzaro egon nintzen begira. Ez nuen sekula ikusi besterik, baina ulertzen nuen... Hain nintzen txikia, non ama batere handia izan ez arren, burua *jaso* beharra bainuen osorik ikusteko, eta oso *handia*..., oso *tristea*... iruditu zitzaidan. Hamabost urte geroago⁴¹ beste hilkutxa baten, Ama Jenofarenaren⁴² aurrez aurre gertatu nintzen. Amarenaren tamainu berekoa zen, eta oraindik haurtzaroko egunetan nintzela neritzon!... Oroitzapen guztiak multzoka etorri zitzaizkidan. Teresatxo bera zen begira zegoena; baina *hazi* egin zen, eta hilkutxari *txiki* zeritzon: honezkero ez zuen burua *jaso* beharrik ikusteko; hark ez zuen *jasotzen* oso *alaia* iruditzen zitzaion *zerua* begiratzeko baizik; proba guztiak amaitu baitziren, eta haren arimaren negua iragana baitzen betiko...

Kt 2.10-11

Elizak gure Zeruko Amatearen hil-gorpuzkinak bedeinkatu zituen egunean, Jainko onak lurrean beste ama bat niri ematea nahi izan zuen eta askatasunez nik neuk hautatzea. Bostok geunden elkarturik, tristuraz elkarri begira; Luisa ere han zen; eta Zelina eta ni ikusirik, esan zuen: "Gaixook, ez duzue orain amarik!..." Orduan Zelinak Mariaren besoetan utzi zuen bere burua, esanez: "Ba, zu izango zara amatxo!" Ni gauza guztietan hura imitatzen ohitua nengoen [13^a]; hala ere, zugana itzuli nintzen, ene Ama, eta geroak oraintxedanik oihala urratua balu bezala, zure besoetan egotzi nuen neure burua, oihu eginez: "Ba, niretzat Paulina izango da nire amatxo⁴³!".....

Lehen esan dudanez, neure bizitzako garai honetatik aurrera, neure izatearen bigarren aroan sartu behar nuen, hiruretatik samingarrienean, batez ere nik neure bigarren "amatzat" hautatu nuena Karmelen sartu zenez gero. Aro hau lau urte eta erdiko adinetik nire hamalau arte⁴⁴ luzatzen da; neure *haur*-izaera berraurkitu nuen aroa izan zen, bizitzaren seriotasunean bete-betean sartzen nintzela.

Esan behar dizut, ene Ama, amatxo hil zenetik nire izaera bikainak goitik beherako aldaketa izan zuela. Ni hain bizia, hain irekia nintzena, beldurti eta gozo bihurtu nintzen, guztiz minbera. Begirada bat nahikoa zen negarrez urtzeko. Ni pozik egoteko, nitaz inor ez arduratzea zen beharrezko; ezin nuen jasan ezezagunik neure ondoan. Familiartean soilik aurkitzen nuen berriro neure alaitasuna... Hala ere *samurtasunik* leunenaz inguraturik nengoen. Aitaren bihotz *txeratsuak* lehendik zuen maitasunari benetako ama batena gehitu zion!⁴⁵... Zu, ene Ama, eta Maria ez ote zineten, ba, niretzat amarik *samurrenak*, desinteresatuena?... Ai! Jainkoak bere *izpi* onuragarriak oparo bidali ez balizkio bere loretxoari⁴⁶, hau ez zen sekula ere lurrera egingo; hura oraindik mengelegi zegoen euri eta ekaitzak jasateko; beroa,

⁴¹ Benetan, hamalau urte.

⁴² Ama Jenofa Santa Teresarena, Lisieux-ko Karmelen fundatzaileetarikoa; ik. *infra*, A Esk., 69^a eta 78^a/79^a.

⁴³ Zelinaren esanetan, Teresak «geroago esan zion horrela jardun zuela Paulinak penarik har ez zezan eta bere burua bertan behera utzita ikus ez zezan» (PA, 287 eta ondoko orrialdea, eta Haren eraskina).

⁴⁴ 1886ko Gabonak; laster hamalau urte beteko ditu (ik. A Esk., 45^a/f).

⁴⁵ Ik. Jesusi ezarritako antzeko adierazpena (TO 36, 2, *Jesus bakarrik*).

⁴⁶ Berriro dator eguzki eta lorearen gaira (ik. *supra*, 3^a, 3ⁱ, 12^a).

ihintz biguna eta udaberriko haize leuna behar zituen. Ez zaizkio inoiz falta izan on hauek [13ⁱ]; Jesusek aurkiarazi dizkio baita proben elurpean ere!

Nik ez nuen inolako nahigaberik izan Alençon uztean; haurrek gogoko dute aldatzea, eta pozik etorri nintzen Lisieux-era⁴⁷. Gogoan dut bidaia, gure izebaren etxera iristea ilunabarrean. Oraindik ikusten nagoela dirudi Joana eta Maria atean gure zain... Zoriontsu nintzen hain lehengusinatxo atseginak izateaz. Nik maite-maite nituen, berdin neure izeba ere eta batez ere neure osaba; zer bakarra, honek pixka bat beldurtu egiten ninduela, eta ez nuen honen etxean ikusten neure burua Buissonnets-en bezain nasai⁴⁸; han nire bizitza zoriontsua zen benetan... Goizetik etorri ohi zinen nire ondora Jainko onari neure bihotza eskaini ote nion galdezka; gero janzten ninduzun, hartaz hitz eginez, eta segidan zure ondoan egiten nuen neure otoitza. Gero irakurtze-ikastaldia zetorren; bakarrik irakurri ahal izan nuen lehen hitza hau izan zen: “zeruak”. Nire amabitxi maitea arduratu zen idazten irakasteaz, eta zu, ene Ama, gainerako guztiaz. Ez nuen erraztasun handirik ikasteko, baina bai oroimen ona. Dotrina eta batez ere kondaira santua nituen gogokoen; pozik ikasten nituen, baina gramatikak maiz isurarazi zizkidan malkoak⁴⁹... Oroitzen zara “maskulinoaz” eta “femeninoaz”!

Eskola amaitu orduko, begiralekura⁵⁰ igotzen nintzen, neure apaingailua eta neure nota aitari eramanez. Zein zoriontsu nintzen esan ahal nionean: “5 daukat hutsik gabe, Paulina izan da lehenengo esan duena!...” Ba, ea hutsik gabe 5 neukan neuk galdetu eta zuk baietz erantzuten zenidanean, mailatxo bat gutxiago zen nire iritzian. Puntuak ere ematen zenizkidan; halako kopuru bat pilatzen nuenean, saria ematen zitzaidan eta opor-egun bat. Egun horiek besteak baino luzeago egiten [14^a] zitzaizkidalda oroitzen naiz; zuretzat hori pozgarria zen, ezer egin gabe egotea ez zela nire gogoko esan nahi baitzuen horrek. Arratsaldero joaten nintzen aitarekin ibilalditxo bat egitera. Sakramentu Santuari ikustaldia egiten genion biok batera, egun bakoitzean eliza desberdina bisitatuz; horrela sartu nintzen ni lehen aldiz Karmelgo elizan. Aitak koruko burdinsarea erakutsi zidan, bestaldean erlijiosak zeudela esanez. Ez nuen nik asko pentsatzen bederatzit urte geroago haien artean izango nintzenik!...

⁴⁷ 1877/11/15. Martin jaunak Lisieux-en bizi izatea erabaki zuen, bere alabak euren amaren familjara hurreratzeko: Guérin jaun-andreak, beraien bi alabak, Joana eta Maria. Isidor Guérinek botika zuen Saint-Pierre plazan. Bera etorri zen loben bila.

⁴⁸ HAK honela zehazten du: «Biharamunean, gure egoitza berrira eraman gintuen, Buissonnets-era alegia, “Jardin de l’Etoile” deritzon ibiltoki ederraren ondoan dagoen auzo bakarrera. Etxeari eder neritzon: begiratokia, bertatik ikuspegia urrutiraino heltzen zela, lorategi ingelesa etxaurrean, baratza handia etxearen atzean; hori guztia nire irudimenerako berritasun zoriontsua izan zen. Izan ere, etxebizitza alai hori josteta gozo askoren gertaleku bihurtu zen, senitartekoen arteko pasarte ahaztu ezinekoen gertagune». Auzoak «Bissonnets» zuen izena, baina Martindarren alabek izen hori «Buissonnets» bihurtu zuten euren egoitza berrirako; izan ere, auzoaren aurrerengo izena omen zen.

⁴⁹ Ortografia erants daiteke (ik. 37ⁱ), nahiz eta Teresak geroago Leonari ortografi eskolak eman, leuntasun handiz (ik. PO, 346. or.). Ortografia, puntuazio, letra larrii buruz, azpimarren gainean, Teresaren idazkeraren inguruan, ik. CG, 62-67. orr.

⁵⁰ Bigarren solairua, goitegian, Buissonnets-eko fatxadaren gainean.

Ibilaldia amaiturik (bitartean aitak bost edo hamar zentimoko erregalutxo bat erosten zidan beti), etxera itzultzen nintzen ni. Une hartan etxeko lanak egiten nituen. Gero, gainerako astia aitaren inguruan jostatzen ematen nuen, *ez bainekien* andrakiletara jostatzen. Nire zoramena hazi txikiekin eta lurrean aurkitzen nituen zuhaitz-azalekin edariak prestatzea zen; ondoren katilutxo polit batean aitari eramaten nion. Aitaxo gizagaixo honek bere lana uzten zuen eta, irribarrez, edaten zuelakoa egiten zuen. Katilutxoa itzultzerakoan, barrukoa isuri behar ote zen galdetzen zidan (erdi ezkutuan); batzuetan baietz esaten nion nik, baina gehienetan eraman egiten nuen neure edari preziatua, behin eta berriro erabiltzeko...

Eder zitzaidan neure loretxoak zaintzea aitak eman zidan lorategian. Ongi pasatzen nuen hormaren erdian zen hutsunean aldaretxoak eraikitzen. Burutuak nituenean, aitarengana joaten nintzen lasterka eta tiratuz, begiak ongi ixteko esaten nion eta ez irekitzeko neuk agindu arte. Hark nik nahi nuen guztia egiten zuen, eta nire lorategitxora eramaten uzten zuen bere burua; orduan nik oihu egiten nuen: –“Aita, ireki begiak!” Hark irekitzen zituen [14¹] eta, niri poz ematearren, ahozabali gelditzen zen, niretzat artelan bikaina zena miresten!... Nire oroimenean pilatzen diren honelako milaka gertakari kontatu nahi banitu, ez luke azkenik izango... Ai! Nola adieraz nitzake “aitak” bere erreginatxoari gainezka egiten zizkion maite-erakutsiak? Bihotzak sentitzen dituen gauza batzuk ezin dira hitzez adierazi, ez eta pentsamenduz ere...

Nire errege maiteak berekin arrantzatxera eramaten niduen egunak bai ederrak niretzat! Hain gogoko nituen landa, loreak eta txoriak! Batzuetan neure kanabera txikiaz arrantzatxeari nekion. Baina belar loretsuaren gainean *bakarrik* esertzea nuen nahiago. Nire pentsamenduak, orduan, sakon-sakonak ohi ziren, eta gogoeta egitea zer zen jakin gabe, nire arima benetako otoitzean murgiltzen zen... Urrutiko hotsak entzuten nituen... Haizearen zurrumurruak eta soldaduen zehazgabeko soinuak berak ere, nireganaino iritsirik, goibeltasun gozoz betetzen zuten nire bihotza... Lurra erbeste-toki iruditzen zitzaidan, eta zeruaz egiten nuen amets⁵¹... Arratsaldea laster batean joaten zen. Berehala Buissonnets-era itzuli behar zen. Baina irten orduko, neure otarretxoan eraman nuen askaria hartzen nuen. Zuk prestaturiko ogi-erregutada *ederra* gozokiekin itxuraz aldatua zen: haren kolore biziaren ordez zuri-gorri motela baizik ez nuen ikusten, guztiz mingostua eta maskaldua... Orduan oraindik tristeago neritzon lurrari, eta hodeirik gabeko zoriona zeruan baizik ez zela izango ulertzen nuen...

Hodeiak direla-eta, oroitzen naiz nola landa zabaleko zeru urdin ederra ilundu zen, eta nola ekaitza lehertu zen; tximistek hodei ilun artetik ildoak urratzen zituzten, eta tarte txikira oinaztarrria erortzen ikusi nuen. Ez nintzen izutu ez, poz-eztitan nengo. Jainko ona [15^a] niregandik hurbil zela neritzon!... Aita ez zegoen bere erreginatxoa bezain pozik; ez ekaitzaren beldur zelako, belarra eta bitxilore erraldoiak (neu baino handiago zirenak) harribitxiz diz-diz egiten zutelako, eta bidea

⁵¹ Zeruak, adiera bietan, leku garrantzitsua hartzen du Teresaren pentsamenduan eta irudimenean (681 erabilera, gutxienez, haren idatzietan). Ik. A Esk., 35ⁱ, 44^a, 80ⁱ; B Esk., 2ⁱ; C Esk., 1^a, 9^a; TO 22, 1 etab.).

aurkitzerako, zelai batzuk zeharkatu beharra genuelako baizik; eta nire aitatzeko mai-teak, diamanteek⁵² bere alabatxo bustiko zuten beldurrez, bere arrantza-tresnak zituen arren, jaso zuen eta bizkarrean eraman zuen.

Aitarekin egiten nituen ibilaldietan, bidean aurkitzen genituen eskaleei⁵³ limosna ematera ni bidaltzea nahi izaten zuen. Behin ikusi genuen bat makulu gainean ozta-ozta arrastaka. Bost zentimo ematera hurbildu nintzaion; baina limosna hartzeko bezain behartsu ez zelakoan, irribarre tristez begiratu zidan, eta ez zuen nahi izan eskaintzen niona hartzerik. Ezin dut esan nire bihotzean gertatu zena. Nik poztea, laguntzea nahi nuen, eta horren ordeztu min eman niola uste nuen. Zalantzarik gabe, gaixo errukarriak igarri zuen nire asmoa, urrunetik atzera begiratu eta irribarre egiten zidala ikusi bainuen. Aitak une hartantxe erosi zidan gozoki bat; nik hari emateko gogoa nuen, baina ez nintzen ausartu. Hala ere, ezetsiko ez zidan zer bait eman nahi nion, oso begiko egin baitzitzaidan. Orduan gogoratu nintzen behin entzun nuela lehen jaunartzean eskatzen den guztia lortzen dela. Pentsamendu hark poztu ninduen, eta une hartan sei urte besterik ez banituen ere, esan nuen neure baitan: “*Neure behartsuaren alde erregutuko dut neure lehen jaunartze egunean*”. Bost urte geroago eutsi egin nion neure agintzariari, eta Jainko onak entzungo duen itxaropena dut, bere gorputz-atal minduetariko baten alde, berak argi emanik egindako otoitza...

[15ⁱ] Jainko ona maite-maite nuen nik, eta sarri egiten nion neure bihotzaren eskaintza, amak irakatsi zidan era laburra erabiliz⁵⁴. Hala ere egun batean, edo hobeki, maiatzeko hil ederreko gau batean, oker bat egin nuen, esatea merezi duena. Apaltasunerako bide izan zait hori, eta hartaz damu osoa izan dudala uste dut. —Mariaren hilera joateko txikiegia nintzela eta, Biktorekin⁵⁵ gelditzen nintzen, eta harekin egiten nituen neure debozioak, nik neure erara apaintzen nuen “*neure Mariaren hil txikiaren*” aurrean. Guztia hain txikia izanik -argimutilak, lore-ontziak-, bi *poxpolutxo* aski ziren ongi argitzeko. Noizbehinka Biktoria ezustekoa ematen zidan bi kandela-kondo eskainiz, baina gutxitan. Gau batean, gure otoitzak hasteko guztia prest egonik, esan nion: “Biktoria, nahi duzu *Oroi zaitetz* otoitza hastea? Isiotzera noa”. Hasteko keinua egin zuen, baina ez zuen ezer esan, eta barreka begiratu zidan. Nik, neure *poxpolu preziatuak* arin-arin erretzen zirela ikusirik, arren bai arren eskatu nion otoitza egin zezala. Hark isilik jarraitzen zuen. Orduan, jaikirik, gaiztoa zela esaten hasi nintzaion deiadarka, eta neure ohiko gozotasuna galdurik, ostikoaz jo nuen lurra neure indar guztiaz... Biktoria gaixoak ez zuen harrezkero barre egiteko gogorik, harri eta zur begiratu zidan, eta ekarri zizkidan kandela-kondoak erakutsi... Haserre-malkoak isuri ondoren, benetako damu-malkoak isuri nituen, gehiago horrelakorik ez egiteko erabaki tinkoa izanez...

⁵² Euri tantak edo Teresaren malkoak (ik. *infra*, 54^a/_f, 63ⁱ, 78ⁱ).

⁵³ Ahizpa Maria Bihotz Sakratuararenak honakoa diosku: «Orduan, haren aurpegian eite samur eta begirunetsua ageri zen; ezagun zen Gure Jauna ikusten zuela soin-atal minberatueta. Hamar urte zituela, berak eskatu zuen andre behartsu bat zaintzera joatea; izan ere, andre hura hil-aginean zegoen eta ez zuen norik zaindurik; etab.» (PO, 247. or.).

⁵⁴ Teresak sarritan esaten zuen eskaintza hau egunean zehar: «*Nire Jauna, nire bihotza zuretzat da: har ezazu, horrela nahi baduzu, inongo sorkarrik beregana ez dezan, zuk zerorrek bakarrik baizik, ene Jesus ona*» (S. Piaten aipamena, *Histoire d'une famille*, LIBZ, 1965, 189. or.).

⁵⁵ Biktoria Pasquer, Martin familiaren neska.

Beste behin, beste gorabehera bat izan nuen Biktoriarekin, baina honetaz ez dut inolako damurik, ongi irauin bainuen neure senean: –Sukaldeko tximinia gainean zegoen tintaontzia nahi nuen nik. Hura hartzeko txikiegia izanik, *adeltasunez* eskatu nion Biktoriari eskura ziezadala [16^a], baina hark ez zuen nahi izan, aulki batera igotzeko esanez. Aulki bat hartu nuen ezer esan gabe, baina ez zela batere atsegina pentsatuz; jakinarazi nahirik, ni gehien mintzen ninduen bilatu nuen neure burutxoan. Hark, nirekin haserretzen zenean, sarri esaten zidan “umemoko hori”, eta horrek asko lotsarazten ninduen. Orduan *neure aulkitik jaitsi baino lehen*, harengana *duintasunez* bihurtu eta esan nion: “Biktoria, *umemoko* bat zara!” Gero ihes egin nuen, bota nion ahokada sakona pentsatzen utziz... Luzaro gabe etorri zen ondorioa, laster oihuz egiten entzun bainion: “Andereño Maria, Teresak esan berri dit *umemokoa* naitzela!” Etorri zen Maria, eta barka eskarazi zidan, baina damurik gabe egin nuen, Biktoriak niri *laguntzatxo* bat emateko bere *beso luzea* mugitzerik nahi izan ez zuenez gero, *umemoko* izena ongi merezia zuela uste nuelako... Hala ere hark asko maite ninduen, baita nik ere hura. Behin, neure erruz erori nintzen *arriku handi* batetik atera ninduen. Biktoria lisatzen ari zen, bere ondoan suilbete ur zuela. Ni hari begira nengoen eserlekuaren gainean (ohitura nuenez) balantzaka. Bat-batean eserlekuak irrist egin eta hor erortzen naiz, ez lurrera, *suil barrura* baizik!... Oinak buruari ukitzen neuzkan eta nik suil barrua bete-bete egiten nuen, txitatxoak arrautza betetzen duen bezala!... Biktoria gaixoak harri eta zur begiratzen zidan; sekula ez zuen horrelakorik ikusi. Ni neure suiletik al bait lasterren irten nahirik ari nintzen, baina ezin; neure presondegia hain neurriko zetorkidan, non ezin bainuen zirkinik ere egin. Hainbat lan eginda lortu zuen hark ni *arriku handitik* salbatzea; baina salbatzea lortu ez zuena nire jantzia eta gainerako guztia izan zen, aldatu behar izan zidalarik, blai-blai baitzegoen.

Beste behin tximiniara erori nintzen; eskerrak sua [16ⁱ] isioturik ez zegoen, Biktoriak ez zuen beste zereginik izan ni jaso eta gainean nuen errautsa astintzea baizik. Gauza hauek asteazkenetan gertatzen zitzaizkidan, zu eta Maria kantu-ikastaldian zinetenean. Asteazkena zen Ducellier jauna⁵⁶ bisita bat egitera etorri zenekoa ere. Biktoriak etxean ez zegoela inor Teresatxo bakarrik baizik esan ziolarik, *sukalderaino* sartu zen neu ikusteko, eta nire etxeko lanei begiratu zien. Harro nengoen *neure aitor-entzuleari* harrera egiteaz, denbora asko ez zela harekin egin bainuen neure lehen aitortza⁵⁷. Oi, hau bai oroitzapen gozoa niretzat!...

Bai ardura handiz prestatu ninduzula, ene Ama maite, esanez, ez zela gizon bat nik neure bekatuak esango nizkiona, Jainko ona baizik! Horretaz hain jabeturik nengoen, non fede bizi-biziz aitortu bainintzen, eta galdetu ere egin nizun, ea Ducellier jaunari ez nion esango bihotz-bihotzez maite nuela, Jainko ona baitzen haren pertsonaren bidez hitz egingo niona...

Esan eta egin behar nuen guztiaz ongi irakatsia, sartu nintzen aitorlekuan eta belauniko jarri nintzen; baina Ducellier jaunak leihatila irekitzean, ez zuen inor ikusi; hain txikia izanik, nire burua eskuak ipintzeko zen oholtzoxa baino beherago

⁵⁶ Saint-Pierre katedraleko bikarioa.

⁵⁷ 1879aren amaiera edo 1880aren hasiera. Ik. *infra*, 34ⁱ.

gelditzen zen. Hark orduan zutik jartzeko agindu zidan; berehala esana eginez, jaiki nintzen, eta neure aurpegia harenaren parera ongi ikusteko jasoz, *neskatila* baten antzera aitortu nintzen, eta haren bedeinkazioa hartu nuen *debozio handiz*, une hartan *Jesus Haurraren malkoek* nire arima garbituko zutela esan baitzenidan. Gogoan dut niri zuzenduriko lehen aholkualdian, batez ere, Ama Birjinaren deboziorako gogoia berotu zidala, eta nik harekiko neure maitasuna areagotzea hitz eman nuen. Aitorlekutik irteetan, hain pozik eta arin nengoen, non ez bainuen somatu sekula halako alaitasunik neure ariman [17^a]. Harrezkero festaburu guztietan aitortzen nintzen, eta nindoan bakoitzean egiazko *jaia* zen niretzat.

Jaiak!... Ai! zenbat oroitzapen dakarzkidan hitz honek!... Zein gogoko nituen *jaiak!*... Bakoitzak gordetzen zituen misterio guztiak hain ongi azaltzen zenekien zuk, ene Ama maite, non benetako zeru-egun baitziren niretzat. Eder zitzaizkidan batez ere Sakramentu Santuaren prozesioak. Hura poza Jainko onaren ibilbidean loreak ereitea!... Baina erortzen utzi beharrean, ahalik eta goren jaurtitzen nituen, eta nire arrosa hostokatuek⁵⁸ ekisaindua *ikutzen zutenean* baino zoriontsuago ez nintzen ni sekula.

Jaiak! Ai! Festaburuak urri baziren ere, aste bakoitzak zekarren bat nire bihoztarentzat oso atsegina: "Igandea!" Igandea, hau bai eguna!... Jainko onaren *jaia* zen, *atsedeneko* *jaia*. Lehenengo, gainerako egunetan baino denbora luzeagoa ematen nuen *ohean*, eta gero Paulina amak maitekiro tratatzen zuen bere alabatxo *ohera* txokolatea eramanez, berehala erreginatxo bat bezala janzen zuen... Amabixi etortzen zen bere *besoetakoa* orraztera; hau ez zen beti gozo agertzen ileetatik tira egiten ziotenean, baina gero poz-eztitan joaten zen bere *erregearen* eskua hartzera, honek gainerako egunetan baino oraindik maitekiago musu ematen ziolarik. Jarraian, familia osoa mezatara joaten zen. Bide guztian zehar, eta baita elizan ere, aitaren erreginatxoaren haren eskutik zihoan, haren ondoan esertzen zen; eta hitzaldia entzuteko jaitsi behar genuenean, bi aulki aurkitu behar ziren bata bestearen ondoan. Hau ez zen gertatzen oso zaila; hain gogoko zuen, antza, jende guztiak agure hain *beneragarria*⁵⁹ *alabatxo* hain txikiarekin ikustea, non guztiak lehiatzen baitziren aulkiak⁶⁰ guri ematera. Eliz arduradunentzat ziren eserlekuetan zen nire osaba poz-pezik zegoen gu hurbiltzen ikustean; ni bere eguzki-izpitxo [17'] nintzela esaten zuen... Begiratuaz izateak ez ninduen batere larritzen; hitzaldiak adi-adi entzunez, hala ere hauetatik ez nuen nik gauza handirik ulertzen. *Ulertu nuen* lehenengo, eta *zirrara sakona egin zidana* Nekaldiari buruzko hitzaldi bat izan zen, Duce'llier jaunak egin zuena; eta harrezkero gainerako hitzaldi guztiak ulertu nituen. Hizlaria Teresa santuaz mintzatzen zenean, aita makurtzen zen eta esaten zidan isil-isilik: "-entzun ongi, ene erreginatxo, zeure zaïndariari buruz hitz egiten ari da". Nik, egia esan, arretaz entzuten nuen, baina sarriago begiratzen nion aitari hizlariari baino. Hainbeste gauza esaten zizkidan haren aurpegi ederrak!... Batzuetan haren begiak *malkoz* betetzen ziren, haiei eusten alferrik saiatu arren; jadanik ez zuen

⁵⁸ Ik. TG 7; B Esk., 4^a/; TO 34 eta 51.

⁵⁹ Martin jaunak berrogeita hamazazpi urte zituen 1880an.

⁶⁰ Parrokiaren, kasu honetan katedralaren, ondasunak administratu behar zituzten parrokiako laiko-elkartea.

mundu honetakoa zenik ematen, hain eder zitzaien betiko egietan murgiltzea!... Hala ere bere ibilaldia amaitzetik oso urruti zen: urte luzeak igaro beharko ziren haren begi birloratuen aurrean zeru ederra agertu arte eta Jaunak bere zerbitzari on eta zintzoaren *malkoak* xukatu arte!...

Ap 21,4
Mt 25,21

Baina neure igandeko egunera nator berriro. Hain arin igarotzen zen egun *pozgarri* honek bazuen bere *goibeltasun*-ñabardura markatua ere. Oroitzen naiz arratseko otoitzera arte nire zoriona bete-betekoa zela⁶¹. Otoitzaldi honetan nik pentsatzen nuen *atseden*-eguna azkenetan zela..., biharamunean bizitza berriro hasi behar zela, lan egin, ikasgaiak ikasi, eta nire bihotzak lurreko *erbestea* sentitzen zuen..., zeruko betiko atsedena irrikatzen nuen, *aberriko* iluntzerik gabeko *igandea*⁶²!... Buissonnets-era itzuli orduko egiten genituen ibilaldiek eurek ere tristura-sentipena uzten zuten nire ariman; ordurako familia ez zen osorik, aitak, nire osabari eder egitearren, Maria nahiz *Paulina* [18^a] igandeetan arratsaldea igarotzera haren etxera joatea onartzen baitzuen. Neu ere gelditzen nintzenean egoten nintzen bakarrik pozik; nahiago nuen hori, neu bakarrik gonbidatua izatea baino, jaramon gutxiago egiten baitzidaten niri. Nire atseginik handiena nire osabak esaten zuen guztia entzutea zen, baina neuri galderak egitea ez nuen gogoko, eta beldur handia izaten nuen bere belaunetarik *baten gainean soilik* jartzen ninduenean, ahots ikaragarritz "bizar urdin" kantatuz... Pozik ikusten nuen aita gure bila zetorrela. Etxera itzultzean, leunki ñir-ñirka zeuden *izarrei*⁶³ begiraten nien, eta ikuskizun hau liluragarri zitzaidan... Nik *urre-bitxizko* andana bat nabarmentzen nuen batez ere *poz*-pozik, *T* baten forma zuela aurkituz (honelako forma, gutxi gorabehera ***). Nik aitari erakusten nion, nire izena zeruan idatzirik zela esanez, eta gero, lur ziztrinekorik ikusi nahi ez eta, gida nintzala eskatzen nion; orduan, oinak non jartzen nituen begiratu gabe, burutxoa gora nuela ibiltzen nintzen, urdin izarratua begiratzen aspertu gabe!...

Lk 10,20

Zer esan nezake neguko gau-jaialdiez, batez ere igandetakoez? Ai! Zein gogoko zen niretzat, *dama-jokoa* amaitu ondoren, Zelinarekin aitaren belaunen gainean esertzea⁶⁴!... Bere ahots ederrez melodiak kantatzen zituen, pentsamendu sakonez arima betetzen zutenak... edota poliki-poliki kulunkatzen gintuela, hark betiko egietan argia harturiko olerkiak errezitatzen zituen... Gero otoitza elkarrekin egitera igotzen ginen, eta erreginatxoa zen bere erregearen ondo-ondoan jartzen zen bakarra, santuek nola errezatzen duten jakiteko, hari begiratze hutsa nahiko zelarik... Azkenez, guztiok etorri ohi ginen, zaharrenetatik hasita, aitari gau onak ematera eta musua jasotzera; jakina, *erregina* izango zen azkena. *Erregeak* hura laztantzeko [18ⁱ] *ukondotik* hartzen zuen, eta hark ahots zoliz esaten zion: "Gabon, aita, ongi lo egin dezazula". Gauero gauza berbera... Ondoren nire amatxok bere besoe-

⁶¹ Garai honetako bezperak amaitu eta berehala egindakoak, arratsaldearen hasieran.

⁶² Betikotasunaren irudia, Teresak maite zuena; ik. TO 54, 16; A Esk., 36^a; TG 137, amaiera; TO 5, 14; Otoi. 7.

⁶³ Teresa, eguzkiaren alabari gutxi axola zaio ilargia, baina asko maite ditu izarrak (ik. *infra*, 18ⁱ, 48^a; TO 18, 27).

⁶⁴ HAK hauxe erantsi zuen: «Mariak edo Paulinak *L'Année liturgique* (Dom Guéranger-ena) irakurtzen zuen; eta gero, liburu jakingarri eta,aldi berean, irakasgarriren baten orrialde batzuk».

tan hartzen ninduen eta Zelinaren ohera eramaten ninduen. Orduan nik esaten nuen: “Paulina, ona izan naiz gaur?... *hegaka ibiliko ote dira aingerutxoak nire inguruan?*” Erantzuna beti izaten zen *bai*; bestela gau osoa igaroko nuen negarrez... Niri musu eman ondoren, nire amabitxi maitea bezala, *Paulina* berriro jaisten zen, eta Teresatxo gaixoa bakar-bakarrik gelditzen zen ilunpean. Eder zitzaion *aingerutxoak bere inguruan hegaka* iruditzea; baina izuak gehiago egiten zion laster; ilunpeak beldurra ematen zion, bere ohetik ezin baitzituen ikusi eztiki ñir-ñir egiten zuten izarrak...

Grazia benetakotzat dut zuk, ene Ama maite, neure beldurak gaintzen ohitu izana. Batzuetan bakarrik bidaltzen ninduzun gauetz edozein gauzaren bila urrutiko gela batera. Ongi hezia izan ez banintz, oso beldurti bihurtuko nintzen; orain, ordea, oso nekez beldurtzen naiz... Batzuetan neure buruari galdetzen diot nola jakin duzun ni hain *maitasun* handiz, hain samurtasun handiz hezitzen, egi-egia baita ez zenidala pasatzen uzten akats bat bera ere. Ez zenidan sekula ere haserre egiten arrazoi gabe, baina erabaki bat hartzen zenuenean ez zenuen *sekula ere* atzera egiten. Nik ongi nenkien eta ez nuen ahal izango ez eta nahi ere urratsik ematerik zuk debekatuz gero. Aitak berak ere zure esanera makurtu behar izaten zuen. *Paulinaren* baimenik gabe ni ez nintzen ibilaldia egitera irtetzen; eta aitak horretara gonbidatzen ninduenean, nik erantzuten nion: “*Paulinak ez du nahi*”. [19^a] Orduan hura niretzat mesedea eskatzera etorri ohi zen. Noizbehinka, hari poz ematearren, *Paulinak* baietz esaten zuen; baina Teresatxok ongi ikusten zuen haren aurregikeran ez zuela baimena gogo onez ematen, eta negarrari ematen zion, kontsolagarrik onartu gabe harik eta *Paulinak baietz* esan eta *bihotz onez musu ematen* zion arte.

Teresatxo gaixotzen zenean, eta neguoro gertatzen zitzaion hori⁶⁵, ez dago esaterik nolako samurtasun amatiarrez zaindua zen. *Paulinak* bere ohean etzaten zuen (mesede berdingabea!), eta gero nahi zuen guztia ematen zion. Behin, *Paulinak bere aitzotxo polit bat* atera zuen burukoaren azpitik, eta bere alabatxoari opari eginenez, esanezinek liluraldi batean murgildurik utzi zuen hau. “Oi, *Paulina!* oihu egin zuen: Hain maite nauzularik, *nakarezko izar* bat duen zeure aitzotxo politik gabe gelditzen zara?... Hain maite nauzunez gero, egingo al zenuke zeure *erlajuaren* sakrifizioa ni *hil ez nadin?*...” –“Neure erlojua emango nuke ez hil ez zaitezen soilik, baina zu berehala sendaturik ikustearren oraintxe bertan egingo nuke sakrifizioa”. *Paulinaren* hitz haiek entzutean, nire harridura eta eskerrona hain handia zen, non ezin baitut adierazi...

Noizbehinka, udaldian zehar, zorabioak izaten nituen. *Paulinak* samurki zaintzen ninduen orduan ere; niri jostarazteko, sendabiderik onena baitzen, eskorgan erabiltzen ninduen baratzan zehar hara eta hona; gero, jaitsiaraziz, nire ordezt bitxilore-landare txiki eta polit bat jartzen zuen, *arreta* handiz *eramaten zuena* nire lorategiraino, han handikiro landatuz...

Paulina zen nire isileko kontu guztiak hartzen zituena eta nire zalantza guztiak erabakitzen zituena... Behin harriturik nengoen Jainko onak [19ⁱ] hautatu guztiei ez

⁶⁵ «Katarroak bronkitis bihurtzen ziren, baina geroago hau guztiz sentatu zitzaion. Karmelen, oso gutxitan harrapatzen zuen katarrorik» (Ama Ainesen oharra).

zielako zeruan aintza berdina ematen, eta guztiak zoriontsu izango ez ziren beldur nintzen. Orduan Paulinak aitaren edontzi handiaren bila bidali ninduen, eta nire titare txiki-txikiaren ondoan jarriz, urez bete ondoren, bietarik zein zegoen beteago galdetu zidan berehala. Nik erantzun nion bata bestea bezain beterik zela, eta ez zegoela ur gehiago botatzerik; haiek ezin zutela gehiago hartu. Nire Ama maiteak ulertarazi zidan orduan, zeruan Jainko onak hartu ahal zuten adina aintza⁶⁶ emango ziela hautatuei, eta horrela, azkenak ez zuela zertan bekaitzik izan lehenengoari. Honela misteriorik gorenak neugana hurbilduz, jakiten zenuen, ene Ama, nire ari-mari behar zuen janaria ematen.

Bai pozik ikusten nuela nik urtero sari-banatzea etortzen!... Beti bezala, orduan ere *zuzentasun* zorrotza gordetzen zen, eta nik ez nuen merezitakoa baizik jasotzen. *Bakarrik*, zutik *batzar agurgarriaren* erdian, "Frantzia eta Nafarroako Erregeak" irakurritako epaia entzuten nuen. Sariak eta koroa jasotzean bihotza tupa-biziz izaten nuen... Niretzat hura azken epaikundearen irudi zen!... Sari-banatzee ondoren erreginatxoak berehala erantzten zuen bere jantzi zuria, gero hura mozorrotzen lehiatzen ziren *antzerki handian* esku hartzeko!...

Ai! zein alaiak ziren familiako jai hauek!... Lekutan nengoen ni orduan, une hartan hain dohatsu ikusirik, neure errege maiteari etorriko zitzaizkion probak susmatzetik!...

Behin, hala ere, Jainko onak erakutsi zidan benetan berezi-berezia⁶⁷ zen ikuskari batean, berak aurretiaz guretzat prestatzea nahi zuen probaren irudi *bizia*, bere kaliza beteaz zihoala⁶⁸.

Egun batzuk ziren aita bidaian zela, eta oraindik bi egun falta ziren [20^a] hura itzultzeko. Arratsaldeko ordu biak edo hirurak izango ziren; eguzkiak diz-diz egiten zuen argi biziz eta izadi osoak jai-itxura zuen. Ni bakarrik nengoen baratzara ematen zuen teilatondoño leihotik begira; aurrera begiratzen nuen, neure gogoa pentsamendu alaitsuetan nuela. Honetan, aurrez aurre zen ikuzlekuaren aurrean, gizon bat ikusi nuen aita bezala berdin-berdin jantzirik, haren altuera berbera izanez, eta haren ibilkune berberarekin, *askoz ere konkortuago* zebilen, ordea... Haren *burua* kolore zehatzik gabeko mantal antzeko batez estalirik zegoen⁶⁹, horrela ezin ikusi izan nion aurpegia. Aitak erabili ohi dituen antzeko kapela bat zeraman. Pausu berdintsuz aurreratzen ikusi nuen, neure lorategi txikiaren ingurutik... Bat-batean natu-

⁶⁶ Aukeratuen gloria-mailaren arazoak kezkatu egiten du Teresa; ik. DSA 7, 3ⁱ.

⁶⁷ Egun argiz eta ez loaldian izan zen *ikuskari* hori udan gertatu zen, Martin jauna negozio-bidaia zela-eta Alençon-en zelarik. Urtea ez dakigu zehatz zein den: 1880 ziurrago (ik. 20^a, 20ⁱ) 1879 (21^a) baino. Teresak aitortu zuenez, berak ere ezin zuen zein urte zen gogoratu: «*sei edo zazpi urte nituela*» (20ⁱ).

⁶⁸ Orain dela gutxi berriro ezarritako esaera (ik. MS/NEC). Ideia oso Teresiarra: Jainkoak aurrez ikusten du, bat-batean prestatzen du betiereko oraina. Esakune oso antzekoa aurkitzen da Martin jaunaren sufrimenduari buruz, *infra*, 73ⁱ.an. Baliteke Teresarentzat, beraren aitaren sufrimenduaren ostean, Olibondoan zelaiko sufrimenduaren irudia beti gelditzea.

⁶⁹ Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenak baieztatu zuen xehetasun horren alderdi profetikoa, haren gaixotasun lazgarriaren hasieran «(Martin jauna) sarri askotan azaltzen zela burua estalita» dioenean (PA, 244-245. orr.).

raz gairako izuikarak hartu zuen nire arima; baina berehala pentsatu nuen, ziurra-ki, aita itzuli izango zela eta ezkutatu egingo zela niri ezustekoa emateko. Orduan oihuka deiar egin nion, zirrarazko ahots dardartiz: —“Aita, aita!...” Baina pertsona misteriotsuak ez zidan entzuten dirudenez, eta bere pausuan aurrera egin zuen atzerantz begiratu ere egin gabe. Begiradaz jarraituz, etorbide nagusia bitan banatzen duen basotxorantz zihoala ikusi nuen. Zuhaitz garaien bestaldean berriro agertzen ikusiko nuen ustetan nengoen, baina ikuskari profetikoa aienatua zen!... Honek guztiak une bat baizik ez zuen iraun, baina oraindik gaur, hamabost urte geroago, oroitzapena gogo-gogoan dut, ikuskaria neure begien aurrean banu bezala, hain sakon grabatu zitzaidan neure bihotzean!...

Maria zurekin zen, ene Ama, ni nengoenerako bidea zuen gela batean. Aitari dei egiten entzutean izuikarak hartu zuen, geroago esan zidanez, gauza miresgarriren bat gertatu behar zuela somatuz. Bere zirrarazko ezkutatu, nire ondora etorri zen korrika zergatik ari nintzen aitari deika galdetuz, hura Alençon-en baitzen. Nik [20ⁱ] kontatu nion orduan ikusi berri nuena. Ni lasaitzearen, Mariak esan zidan, ziurrenik, Biktorria izango zela, eta niri ikaraldia ematearren, mantalez estaliko zuela burua. Baina Biktorriari galdeturik, sukaldetik ez zela irten ziurtatu zuen. Gainera, ni ziur nengoen gizon bat ikusi nuela eta gizon hau aitaren antz-antzekoa zela. Orduan zuhaitziaren bestaldera joan ginen hirurok, baina inor handik igaro zen arrastorik ikusi ez eta, horretaz gehiago ez pentsatzeko esan zenidaten...

Horretaz gehiago ez pentsatzea ez zegoen nire esku. Nire irudimenak sarri berregin zuen ikusitako eszena misteriotsua..., sarri saiatu izan naiz haren esanahia gorderik duen estalkia jasotzen, neure bihotzaren barru-barruan komentzimendu finkoa bainuen, ikuskari hark *esanahi* bat zuela, egunen batean argitua izango zitzaidana... Luzaro itxaron behar egun hori heldu orduko. Baina hamalau urteren buruan, Jainko onak berak urratu zuen estalki misteriotsua.

Maria Bihotz Sakratuarena eta biok baimendutako solasaldian ginela, ohi genuenez, beste bizitzako gauzei buruz eta haurtzaroko geure oroitzapenei buruz hitz egiten geunden. Nik sei urtetik zazpita bitartean izan nuen ikuskaria gogorazi nionean, bat-batean, eszena haren zertzeladak kontatzen, biok batera ulertu genuen ikuskariaren esanahia... *Aita* zen nik ibiltzen ikusi nuena, adinagatik konkortua... Bera zen, bere aurpegi agurgarrian, bere buru urdinaren gainean proba *aintzatsua-aren* ezaugarria eramanez⁷⁰... Jesusen Aurpegi gurgarria beraren nekaldian estalirik egon zenez, era berean estalirik egon behar zuen atsekabezko egunetan haren zerbitzari zintzoaren aurpegiak ere, zeruko aberrian bere Jaunaren, betiko Hitzaren, ondoan distiratsu agertu ahal izateko!...

Lk 22,64

Mt 25,21

Jn 1,1

Esanezinezko aintzaren altzotik, bera zeruan errege zela, gure aita maiteak lortu zigun bere erreginatxoak, begitazioaren beldur izan behar ez den adinean, izandako ikuskaria ulertzeko grazia [21^a]. Aintzaren altzotik lortu zigun, jadanik gure proba handia baino hamar urte lehenago Jainko onak haren berri ematen zigula ulertzeko poztasun gozo hau; aita batek bere seme-alabei hauentzat prestatzen ari

⁷⁰ Buru-paralisiak Martin jaunari buru-argitasuna ilundu zion bere bizitzaren amaieran, eta egonaldia egin beharko du ospitale psikiatrikoan. Ik. *infra*, 71ⁱ.tik 75ⁱ.ra.

den etorkizun aintzatsua begiztatzan uzten dien era berean eta haien herentzia izango diren ondasun paregabeak alde aurretik goraiapatzea gogoko duen era berean...

Ai! Zergatik izan ote naiz ni Jainko onak argi hau eman diona? Zergatik ageritu ote dio neskatoxoa hain txikiari honek ulertu ezin duen gauza bat, ulertu izan balu minaren minez heriotza ekarriko zion gauza bat? Zergatik?... Hau da, ezbairik gabe, zeruan ulertuko dugun misterioetariko bat eta gure betiko mirespena izango dena!...

Jainko ona bai dela ona!... Nola egokitzen dituen probak berak ematen dizki-gun indarretara! Esan berri dudanez, sekula ere ez nuen nik eraman ahal izango, geroak niretzat gordetzen zituen atsekabeen pentsamendua bera ere... Ikaraz dardar egin gabe ez nintzen gauza aita *hil zitekeela* pentsatzeko ere!... Behin, hura eskaile-ra baten goi-goian zen; eta ni azpi-azpian gertatzen nintzen zera, "alde egizu, *gaixo hori*, esan zidan, eroriko banintz birrinduko baitzintuzket". Hura entzunez, barrua jarki zitzaidan, eta alde egin beharrean gehiago hurbildu nintzen eskailerara, pentsatuz: "Aita erortzen bada, behintzat hura hiltzen ikusteko atsekaberik ez dut izango, neu ere berarekin batera hilko naiz-eta!".

Ezinezkoa zait aita zein maite dudana adieraztea. Harengan guztia zitzaidan miresgarri. Bere ideiak (neskatila bat banintz bezala) azaltzen zizkidanean, nik xalotasunez esaten nion, gauza haiek [21ⁱ] gorbarnuetako handi-mandiei esanez gero, *errege* izateko hautatuko zuketela, eta orduan Frantzia sekula izan ez zen bezain zoriontsu izango zela... Baina barru-barruan ni pozik nengoen aita neuk bakarrik *ongi ezagutzeaz* (eta hau norberekeriazko sentimendutzat egozten nion neure buruari); hura *Frantzia* eta *Nafarroako errege* izatera iritsiko balitz, zoritxarrekoa izango litzateke, errege guztien zoria horixe baita; eta, batez ere orduan ez litzateke nire erregea, nirea bakarrik izango!...

Sei-zazpi urte nituen nik aitak Trouville-ra eraman gintuztenean⁷¹. Sekula ez naiz ahaztuko itsasoak egin zidan zirrarez. Ezin nion neure buruari eragotzi etengabe begira eta begira egotea. Haren gurentasuna, olatuen orroa, Jainko onaren handitasunaz eta ahalmenaz hitz egiten zion guztiak nire arimari. Gogoan dut hondartzan zehar egiten genuen ibilaldi bitartean, gizon eta emakume batek ikusi nindutela aitaren inguruan pozaren pozez korrika, eta hurbilduz *berea ote nintzen* galdetu zioten, eta neskatoxo oso liraina nintzela esan zuten. Aitak baietz erantzun zien, baina ni ohartu nintzen nola aitak keinu egin zien niri kunplimendurik ez egiteko... Lehen aldiz entzuten nuen neuri liraina deitzen, eta benetan atsegin izan zitzaidan, ez bainuen halakoa nintzenik uste. Zuk, ene Ama maite, kontu handia izaten zenuen nire errugabetasuna lauso zezakeen guztia nigandik baztertzeko, eta batez ere nire bihotzean harrokeria irazi dezakeen hitzik entzuten niri ez uzteko. Nik zure hitzak eta Mariarenak soilik aintzakotzat hartzen nituenez gero (eta sekula ez zenidaten xurikeriarik esan), ez nien garrantzirik eman emakumearen mirespenezko hitz eta begiradei.

[22^a] Ilunabarrean eguzkia, ildo argitsu bat ondoren utziz, olatuen handitasunean bainatzen zela zirudienean, *Paulinarekin* bakarrik joan nintzen harkaitz baten

⁷¹ 1878/8/8; Teresak orduan bost urte eta zortzi hilabete zituen. Guérin familiari egindako bisita laburrean zen.

gainean esertzera... Orduan “*Urrezko ildo*”⁷² deritzon ipuin hungigarriaz oroitu nintzen!... Luzaro egon nintzen ildo argitsu hura behatzen; bela zuridun untzitxo txairoak ibili behar duen bidea argitzen duen graziaren irudia... Paulinaren ondoan, Jesusen begiradatik neure arima sekula ere ez urruntzeko erabakia hartu nuen, zeruetako aberrirantz bakean nabiga dezan!...

Nire bizitza bare eta zoriontsu zihoan. *Buissonnets*-en neure burua maitasunez inguratua ikusteak haziarazten ninduen, nolabait esateko. Baina, zalantzarik gabe, ni nahiko kozkortua nengoen borrokari ekiteko, mundua eta bera betetzen duten mixeriak ezagutzen hasteko...

Zortzi urte eta erdi nituen nik Leonia barnetegitik irten zenean eta nik Abadian haren lekua hartu nuenean⁷³. Maiz entzun izan dut esaten ikastetxean igarotako denbora dela onena eta bizitzako zorionsuena; baina niretzat ez zen hala izan. Han eman nituen bost urteak nire bizitzako tristeenak izan ziren. Zelina maitea lagun izan ezik, ezin izango nuen iraun han hilabete ere, gaixotu gabe... *Lur hautatuan*, berarentzat beren-beregi egindakoan erro hauskorrak sartzen ohitu zuten loretxo gaixoa. Horregatik oso gogor egin zitzaion bere burua ikustea era guztitako loreen artean, askotan batere sustrai samurrik ez zutenen artean, eta *guztientzako zen lurrean* bizi izateko beharrezko zukua⁷⁴ aurkitu beharrez!...

Zuk ongi irakatsi zenidan, ene Ama maite, eta ikastetxera heldu nintzenean, neu nintzen nire adineko haurren artean aurreratuen. Ikasle guztiak ni baino handiagoak ziren ikasgela batean [22ⁱ] jarri ninduten. Haietariko bat hamahirutik hamalau urte artekoa zen, ez zen buru argikoa, baina hala ere bazekien ikasleen gain jartzen, baita irakasleen gain ere. Hain gazte ikusirik, ia beti neure eskolan aurrenengoa⁷⁵ eta moja guztiek maite nindutela, barruko ikasle batengan harritzekoa ez den bekaitzak jo zuen, antza, eta hainbat eratarata ordainarazi zizkidan neure garaipen txikiok...

Neure izaera beldurti eta ahulaz ez nekien neure buruaren alde egiten, eta isilean negar egiteaz asaskatzen nintzen, sufritzen nuenez kexatu gabe *ezta* zure aurrean ere. Baina nik ez nuen bertuterik nahiko bizitzako mixeria hauei gaina hartzeko eta nire bihoztxo gaixoak asko sufritzen zuen... Zorionez, arratsaldero itzultzen nintzen aitaren etxera, eta orduantxe zabaltzen zen nire bihotza⁷⁶; neure erregearen

⁷² Louise S. W. Belloc-en *La Tirelire aux histoires* irakurgaien bilduman («Le sentier d'or» izen-burupean); neskak gazte baten amets simbolikoa da; neskak badoa etzaten ari den eguzkiaren urrezko ildotik; izan ere, horixe da graziaren irudia (testua eta iruzkina VTn, 61. zk., 74-80. orr.). Beti ere, pasarte beste urte batekoa da zalantza barik, 1879koa edo 1881koa.

⁷³ Beneditarren barnetegia, Lisieux-ko Notre-Dame-du-Pré-tik hurbil ezarria. Teresak bertan aurkitu zituen Guérin lehengusinak, bai eta bere ahizpa Zelina ere, bera bezala pentsio erdiz zegoena.

⁷⁴ Teresaren antzinako ikaskideak dioenez, egiatan egundoko aldea zen haren familiaren giroaren «gizabide samurra»ren eta beste ikaskide askoren «hezkontza zakarra»ren artean (PO, 555. or.).

⁷⁵ Teresak, apal-apal, «*presque*» erantsi du lerroen artean. Haren eskolako maistraren ustez, bera «ahul samarra zen kalkulu eta ortografiarako», gauza guztietan gogor ekiten zion, eta beti izan zen lehengoa erlijio-hezkuntzan. «Adimenaren ikuspegitik, benetan ondo jantzita zegoen, nahiz eta berak ikasgelan bere parera heltzen ziren lagunak izan» (PA, 390-391. orr.).

⁷⁶ «Oso alai eta irekia zen familian eta gure artean. Ezagun zen barnetegiko giroak ezarriko zion tentsiotik asaskatzen zela» (lekukotasun hau PON dago, 266. or.an, Guérindarren lehenagoko neskaemarena).

belaunetara salto egiten nuen, eman zizkidaten notak esanez, eta haren musuak nahigabe guztiak ahanzarazten zizkidan. Bai pozik iragarri nuela neure *lehen idazketaren* emaitza (*kondaira santuari* buruzko idazketa)! Goren-goreneko notara iristeko *puntu bat soilik* falta izan zitzaidan, ez bainuen jakin Moisesen aitaren izenik⁷⁷. Beraz, ni aurrenengoa nintzen, eta zilarrezko apaingailu polit bat neraman etxera. Ni saritzearren, aitak hogezi zentimoko *txanpon polit* bat eman zidan, nik itsulapiko batera bota nuen, ia ostegun guztietan beste txanpon bat, *balio* berekoa hartzeko erabiliko zena... (itsulapiko honetan sartuz nindoan, festaburu batzuetan nik neure poltsikotik eman nahi nuenean Fedearen Zabalkundearen diru-bilketarako edo antzeko beste ekintzetarako). *Paulinak*, poz-etzitan bere ikasle txikiaren garai-penagatik, uztai polit bat eman zion oparizat, [23^a] oso ikastuna izateko gogoa berotuz. Bazuen gaixoak familiako poztasun gozo hauen beharra; hauek gabe bar-netegiko bizitza latzegia gertatuko zitzaion.

Ostegun arratsaldeetan oporra ematen ziguten; baina opor hau ez zen niretzat *Paulinak* ematen zizkidan *oporak* bezalakoa. Ez nintzen aitarekin begiralekuan egoten... Jolas egin behar nuen, baina ez neure *Zelinarekin*, hain gogoko nuena biok bakarrik geundenean, neure lehengusinatxoekin eta Maudelonde txikiarekin baizik⁷⁸. Niretzat benetan nekagarri zen, gainerako haurrek bezala jostatzen ez jakinik⁷⁹, ez nintzen ni lagun atsegina. Hala ere saiatzen nintzen besteen antzera egiten, baina alferrik, eta zeharo aspertzen nintzen, batez ere arratsalde osoa *neska-dantzetan* igaro behar nuenean. *Izar-lorategira*⁸⁰ joatea zen bakarrik nire gogokoa. Orduan guztian nintzen aurrenengo: loreak oparo bilduz eta politenak aurkitzen jakinez, nik neure laguntxoek bekaizta piztuzten nuen...

Maria txikiarekin bakarrik egotea ere gogoko nuen, suertez aukera genuenean. Bere ondoan *jolas arruntetara* eramaten zuen Zelina Maudelonde ez zuenean, hark niri uzten zidan aukeratzeko, eta nik jolas berri-berria aukeratzeko nuen. Maria eta Teresa bi *ermitau* bilakatzen ziren, etxola zahartxo bat, garisoro txiki bat eta lantzeko lekari urri batzuk besterik ez zutela. Haien bizitza etengabeko kontenplazioan zihoan, hau da, ermitauetariko batek otoitzean txanda hartzen zion besteari, honek bizitza aktiboko zereginetan jardun behar zuenean. Guztia hainbesteko harmoniaz, isiltasunez, hain era erlijiosoz egiten zenez gero, egoki-egoki irteten zen. Nire izeba paseatzera eramateko gure bila zetorrenean, kalean bertan ere geure jolasari ekiten genion. Bi ermitauak errosarioa [23¹] errezatzen zuten elkarrekin, atzamarrak erabiliz, zuhurtziarik gabeko jendearengana ez agertzeko gure debozioa. Hala ere behin ermitaurik txikienari ahaztu; eta gosaltzeko pastel bat jasorik, jan orduko gurutzearen seinale handi bat egin zion, kanpoko munduzaleei barre eraginez...

Maria eta biok iritzi bereko ginen beti, hain gustu bereko ginen, non behin marra guztiak gainditu baitzituen gure *gogoen batasunak*... Arratsalde batean Aba-

⁷⁷ Amram (Ir, 6, 20).

⁷⁸ Guérindar alaben lehengusina odolekoak.

⁷⁹ Teresak ez zuen gogoko bere adineko umeen gizarte jolasetan aritzea (ik. PA, 391. or., eta *infra*, 37^a).

⁸⁰ Izar itxurako parkea, Pont-l'Évêque-ko bidean, Buissonnets-etik urruti gabe, geroago zatikatua.

diatik itzultzerakoan, Mariari esan nion: “Gida nazazu, begiak ixtera noa”. –“Neuk ere itxi nahi dut”, erantzun zidan berak. Esan eta egin: *eztabaidatu* gabe, bakoitzak *bere nahia* egin zuen... Espaloitik gindoazen; ez zegoen automobilen beldurrik. Minutu batzuetako ibilaldi atsegina egin ondoren, ezer ikusi gabe ibiltzearen gozoa dastatuz, bi txiki durdurikatuak denda baten ate aurrean zeuden kaja batzuen gainera erori ziren *biak batera*, edo hobeki esan, beraiek *eroriarazi* zituzten *azken* hauek. Dendaria haserre bizitan irten zen bere merkantzia jasotzera. Borondatezko bi itsuak bakarrik ere ongi jaikita zeuden eta *erpajorran* ihes egin zuten begiak *ongi irekita*, dendaria bezain haserre zen Joanaren arrazoizko agirikak entzunez... Gu zigortzearren, Joanak elkarrengandik banatzea erabaki zuen, eta egun hartatik aurrera Maria eta Zelina elkarrekin zihoazen, nik bidelagun Joana nuelarik. Neurri honek gure *gogoen batasun* estuegiari azkena eman zion, eta nagusientzat ez zen gaizki etorri, hauek, ordea, ez baitziren sekula bat etortzen eta bide osoan zehar eztabaidan baitzetozen. Honela bake osoa izan genuen.

Ez dut oraindik ezer esan Zelinarekin nituen harreman min-minei buruz. Ai! [24^a] Guztia esatera joko banu, ez nuke amaituko...

Lisieux-en paperak aldatu ziren: Zelina deabrutxo bihurri bat bihurtu zen eta Teresa ez zen haurtxo gozo-gozo bat baizik, baina *negartiegia*... Hau ez zen eragozpen Zelinak eta Teresak elkar geroago eta maiteago izateko. Noizbehinka sortzen ziren eztabaida txikiren batzuk beraien artean, baina sekula ez ziren larriak izaten, eta barru-barruan haiek erabat akort izaten ziren beti. Nire ahizpatxo maiteak *sekula* ez zidala *nahigaberik* eman⁸¹ esan dezaket nik, bestela baizik, niretzat eguzki-izpi bat zen, beti ni alaituz eta poztuz... Nork adieraz dezake nolako ausardiaz egiten zuen nire alde abadian salatzen nindutenean?... Nire osasunaz hainbeste arduratzen zen, non aspergarri baitzitzaidan batzuetan. Aspertzen ez ninduen *hura jolasten ikustea* zen. Gure andrakila txikien multzoa ordenan jartzen zuen, eta eskola ematen zien, urteak hartan eman dituen maistra baten antzera; bakarrik kontu handia izaten zuela bere alabak beti onak izan zitezen, nireak, ordea, atetik kanpo jarriak izaten ziren sarri euren portaera txarragatik...

Bere ikasgelan ikasten zituen gauza berri guztiak kontatzen zizkidan; poz handia ematen zidan horrek, eta jakitate handikotzat nuen. Nik “Zelinaren alaba” titulua jaso nuen. Honela, nirekin haserretzen zenean, bere deskontentuaren seinalerik argiena niri hau esatea zen: “Honezkero ez zara nire alabatxoa, amaitu da, *beti izango dut gogoan!*...” Orduan ez zitzaidan niri beste irtenbiderik gelditzen Madalena bezala negarrari ematea baizik, arren bai arren eskatuz begira diezadala oraindik bere alabatxoari bezala. Hark berehala musu ematen zidan eta hitz eman gehiago *ezer ez zuela gogoan izango*... Ni poztutzearren, bere andrakiletariko bat eskuetan hartu [24ⁱ] eta esaten zion: “Ene maite, musu eman iezaiozu zeure izebari”. Behin andrakila niri samurki musua ematen itsumustuan ari zela, bere bi besotxoak sartu zizkidan *sudurretik*... Zelinak, ez zuen egin nahi zuela eta, txunditurik begiratzen zidan, andrakila nire sudurretik zintzilik. *Izebak* laster uko egin

⁸¹ Ez dugu ahaztu behar, 1895ean ahizpa Jenofa (Zelina) dela, Teresak idatzi ahala, A Esk.ko koa-demotxoan lehenengo irakurlea.

zien bere *ilobaren* besarkada samurregiei, eta gorabehera berezi hori zela-eta gogotik barre egin zuen.

Jostagarriena gu biok dendan elkarrekin gabonsariak erosten ikustea zen. Kontu handiz ezkututzen ginen bata besteagandik. Berrogeita hamar zentimo soilik gastatzeko izanik, gutxienez bospasei gauza ezberdin erosi behar genituen. Nork erosten zituen *gauzarik politenak* ikustea zen kontua. Geure erosketez liluraturik, urduri geunden urteberri eguna noiz iritsiko geure *opari bikainak* elkarri eskaini ahal izateko. Lehenen itzartzen zena lehiatzen zen besteari urteberriko zorion-agurra egiten; gero *gabonsariak* ematea egiten zen, eta bakoitza txunditurik agertzen zen berrogeita hamar zentimorekin emandako *altxorren* aurrean!...

Oparitxo haiek nire *osabaren gabonsariak* adinako atsegina sortzen ziguten. Gainera, hau ez zen poztasunen hasiera baizik. Egun hartan arin-arin janzen ginen, eta bakoitza zelatan zegoen aitaren lepora salto egiteko. Hau bere gelatik irteten zeneko, etxe guztia bozkariozko oihuz betetzen zen, eta aitaxo gaixo hau zoriontsu ageri zen gu hain pozik ikusirik... Maria eta Paulinaren gabonsariak ez ziren balio handikoak, baina hauek ere *poz handia* ematen zieten... Ai! Adin hartan ez geunden gogait eginik; gure arima, bere guritasun osoz, irekitzen zen lore bat bezala goizeko ihintza hartzeaz alaitsu... Haize-eragin berak zabunkatzen zituen gure korolak⁸², eta batarentzat pozgarri nahiz mingarri zena [25^a] bestearentzat ere halaxe zen. Bai, gure poztasunak bionak ziren. Ongi frogatu nuen hori nire Zelina maitearen⁸³ lehen jaunartzeko egun zoragarrian. Ni oraindik ez nembilen Abadiara, zazpi urte besterik ez baintuen; baina neure bihotzean gorde dut beti, zuk, ene Ama maite, eginarazi zenion prestaeraren oroitzapen gozo-goza. Arratsaldero hartzen zenuen zeure belauan ganean eta egingo zuen ekintza bikainari buruz hitz egiten zenion. Ni entzuten egoten nintzen, neu ere prestatzeko irrikaz; baina askotan, txikiegia nintzelako, handik irteteko agintzen zenidan. Orduan nire bihotza tristurak hartzen zuen eta lau urte baizik ez zirela pentsatzen nuen Jainko ona hartzeko prestatzeko...

Behin entzun nizun esaten lehen jaunartzeaz gero, bizitza berri bat hasi behar zela. Bat-batean hartu nuen, egun horri itxaroten egon gabe, Zelinarekin batera has-teko erabakia... Sekula ez dut hain biziki somatu maite nuela haren hiru eguneko bakarraldian baino. Neure bizitzan lehen aldiz egon nintzen harengandik aparte, haren ohean etzan gabe... Lehenengo egunean hura ez zela itzuliko ahazturik, aitak erosi zizkidan geresi-eskutadatxo bat nuen nik gordeta harekin batera jateko; etortzen ez nuen ikusten eta nahigabe handia izan nuen. Aitak poztu ninduen esanez Abadiara eramango ninduela neure Zelina ikustera eta beste geresi-eskutada bat emango niola!... Zelinaren lehen jaunartze egunak, neureak eragin zidan antzeko zirrara eragin zidan. Goizean ohe zabalean neu bakarrik esnatu nintzenean, *pozez gainezka* ikusi nuen neure burua. "Gaur da!... Iritsi da egun handia!..." Ez nintzen aspertzen [25ⁱ] hitz hauek esan eta esan. Neu nintzela lehen jaunartzea egingo zuena iruditzen zitzaidan. Egun horretan grazia handiak jaso ditudala uste dut, eta neure bizitzako *ederrenetarikotzat* daukat...

⁸² Ahizpa bien batasun barru-barrukoari buruz, ik. TG 134; A Esk., 62^a; Otoi. 9.

⁸³ Ostegunean, 1880/5/13an. Teresa, kontaketa-harian, atzera dator (bera 1881eko urrian sartu zen Abadiari buruz mintzo da 22^a-tik hasita).

Pixka bat atzerantz egin behar izan dut oroitzapen pozgarri eta gozo hau gogorarazteko. Orain, Teresatxoren bihotza hautsi zuen proba samingarriaz hitz egin behar dut, Jesusek bere *amatxo* maitea, bere *Paulina*, hain samurki maite zuena kendu zionekoaz...

Nik behin esan nion Paulinari ermitau izan nahiko nuela eta berarekin batera urrutiko basamortu batera joan. Paulinak erantzun zidan nire guraria berea ere bazela eta *itxaron* egingo zuela ni handi egin arte, biok joateko. Argi dago hark ez zidala esan hori benetan, baina Teresatxok benetan hartu zuen. Horregatik, bai samingarri izan zela harentzat egun batean bere Paulina maitea laster Karmelen sartuko zela-eta Mariarekin hitz egiten entzutea!... Nik ez nekien zer zen Karmel, baina ulertzen nuen Paulinak utzi egingo ninduela komentu batean sartzeko. Uler-tzen nuen ez zela nire *zain egongo*, eta neure bigarren *ama* galduko nuela... Ai! Nola adieraz nezake nik neure bihotzaren larritasuna?... Bizitza zer den ohartu nintzen bat-batean. Artean sekula ere ez nuen hain triste ikusi, baina hura bere izaera benetakoa agertu zitzaidan: nahigabea eta etengabea banatzea⁸⁴ besterik ez zela ikusi nuen. Malko garratzak isuri nituen, ez bainuen ulertzen oraindik sakrifizioaren *poza*. *Ahula* nintzen, hain *ahula*, non grazia handitzat baitaukat nire indarren oso gaintekoa zirudien proba jasan ahal izatea... Neure Paulina maitearen joatea apurka-apurka jakin izan banu, agian, ez nuen hainbesteko sufrimendurik izango; [26^a] baina bat-batean jakinez, hori ezpata bat nire bihotzean jostea bezala izan zen...

Lk 2,35

Beti izango dut gogoan, ene Ama maite, zein samurki poztu ninduzun... Gero Karmelgo bizitza nolakoa den azaldu zenidan, nik eder-ederra iritzi niolarik. Zuk esandako guztia neure baitan aztertuz, sentitu nuen Jainko onak neu ere gordetzera joatea nahi zuen *basamortua* zela Karmel... Ulertu ere ezin hobeki ulertu nuen, neure bihotzean duda-izpirik ere ez izateraino. Ez zen liluraeraza den haur baten ametsa, jainko-deiaren ziurtasuna baizik. Nik Karmelera joan nahi nuen, ez *Pauli-nagatik*, *Jesusegatik bakarrik* baizik... Gauza asko pentsatu nituen, hitzez adierazi ezinekoak, baina nire ariman bake handia utzi zutenak.

Biharamunean Paulinari esan nion neure isilpekoa; hark, nire gurarietan Jainkoaren nahia ikusirik, laster Karmelgo Ama nagusia ikustera joango nintzela berarekin esan zidan, eta Jainko onak sentiarazten zidana esan behar zitzaiola... Igande bat hautatu genuen bisita garrantzitsu honetarako. Handia izan zen nire larritasuna, karmeldarrak ikusteko⁸⁵ ni txikiegia izanik, Maria G.-k⁸⁶ nirekin gelditu behar zuela jakin nuenean. Hala ere bakarrik gelditzeko modua aurkitu behar nuen, eta hona hemen zer otu zitzaidan: Mariari esan nion Ama nagusiarekin⁸⁷ egoteko pribilegioa lortu genuenez gero, harekin maitagarri eta adeitsu izan behar genuela, eta horretarako, geure *isilpekoak* esan beharko genizkiola berari; beraz, unetxo batean

⁸⁴ Banatzea Teresaren sentimendu finkoetarako bat da, eta bera ez da sekula sentimendu horretatik erabat askatuko (ik. A Esk., 9^a, 41^a, 43^a, 62^a, 68^a; TG 21, 134, 167, besteak beste). C Esk. ko 9^a an, oste-ra, ikusiko da zein urentasunez onartuko duen bere ahizpak Indotxinan erbesteratzea.

⁸⁵ Senideek eta neska gazteek bakarrik «*ikusitako ahal izaten zituzten karmeldarrak*» garai hartan.

⁸⁶ Maria Guérin, ahizpa Maria Eukaristiarena izango dena.

⁸⁷ Ama Maria Gonzagarena.

bakoitzak mintzalekutik txandaka irten beharko zuen, bestea bakarrik uzteko. Mariak onartu zuen nik esana eta, *isilekoak* kontatzeko gogorik izan ez arren, ez baitzuen zer-kontaturik, bata bestearen ondoren bakar-bakarrik gelditu ginen Ama M.G.-rekin [26^l]. Nire *isilmandatu garrantzitsuak* entzunik, Ama on honek nire bokazioa benetakotzat jo zuen, baina *bederatzi urteko* nobiziagairik ez dela onartzen esan zidan eta hamasei arte itxaron beharra zegoela. Ni haren esanera jarri nintzen, albait lasterren sartzeko eta neure lehen jaunartzea Paulinak abitua hartzen zuen egun berean egiteko irrika bizia izan arren... Egun hartan bigarren aldiz entzun nituen xurikeriak. Teresa San Augustinena ni ikustera etorritz, xarmanta nintzela esan eta esan ari zen... Nik ez nuen itxaroten Karmelera joan eta goraipamenak entzuterik; horregatik, hizketaldiaren ondoren, Jainko onari behin eta berriro esan nion *beragatik soilik* nahi nuela nik karmeldar izatea.

Neure Paulina maiteaz ongi aprobetxatzen saiatu nintzen oraindik munduan iraun zuen aste batzuetan. Egutero Zelinak eta biok pastel bat eta oñoñak erosten genizkion, laster ez zuela gehiago jango uste izanik. Haren ondoan geunden aldioro, minutu bateko atsedenik ere utzi gabe. Azkenez iritsi zen *urriaren 2a*⁸⁸, malko eta bedeinkazio-eguna, Jesusek bere lehenengo lorea, urte gutxi geroago berarekin elkartzera joango ziren gainerakoen *ama* izango zena, bildu zuen eguna.

Oraindik ikusten nago *Paulinaren* azken musua hartu nuen lekua. Gero nire izebak mezatara eraman gintuzten guztiok, aita bere *lehen sakrifizioa* eskaintzera Karmel mendira zihoan bitartean... Familia osoa malkotan urtua zen; jendeak harriturik begiratzen zigun elizan sartzan ikustean; baina hori niri berdin zitzaidan eta ez nion negarrari utzi. Nik uste dut nire ondoan guztia behera etorri balitz ere, ez nintzela ohartuko. Zeru urdin ederra begiratzen nuen, eta harriturik nengoen eguzkiak [27^a] hain distiratsu argi egiteaz, nire arima tristuraz hautsirik zegoen bitartean!...

Beharbada, ene Ama maite, neure nahigabea handiturik esaten dudala aurkitzen ote duzu?... Ulertzen dut ez lukeela izan behar hain handia, Karmelen berriro zu aurkitzeko itxaropena bainuen. Baina nire arima *urrun* zegoen *heldutasunetik*, hain gogoko nuen helburua lortu orduko arrago askotatik igaro beharra nuen...

Urriaren 2a zen Abadiara itzultzeko jarrita nuen eguna, eta neure tristura gorabehera, joatea beste biderik ez nuen... Arratsaldean nire izeba bila etorri zitzaigun Karmelera joateko, eta *burdinsarearen* beste aldean ikusi nuen neure *Paulina maitea*... Ai, zenbat sufritu dudan Karmelgo *mintzaleku* honetan! Neure arimaren historia idazten ari naizenez gero, guztia esan behar diot neure Ama maiteari, eta hauxe aitortzen dut, sarrera aurretik izandako nahigabeak ez zirela ezer sarrera ostekoan ondoan... Ostegunero joan ohi ginen *familia osoa* Karmelera, eta nik, *Paulinarekin* bihotzez bihotz hitz egiten ohituta nengoen honek, bizpahiru minutu besterik ez nituen lortzen bisitaren amaieran; egia esan, negar eta negar egoten nintzen, eta bihotza urratuak irtetzen nintzen handik... Ez nuen ulertzen zuk zeure alabatxoei hitz egin beharrean, bereziki Joana eta Mariari hitz egitea nire izebarekiko adeitasunagatik zenik... Nik ez nuen ulertzen eta bihotz barru-barruan pentsatzen nuen:

⁸⁸ 1882ko urriaren 2a.

“galdu dut Paulina!” Harrigarria da nola hazi zen nire izpiritua sufrimenduaren erdian; hainbateraino hazi ere, non gaixotu egin bainintzen laster.

Eraso ninduen gaixotasuna deabruagandikoa zen, egiaz; zu Karmelen sartu zine-lako amorruaren amorruz, nitaz mendeku hartu nahi izan zuen gure familiak etorkizun-ean eragingo zion kalteagatik. Baina hark ez zekien [27^a] zeruko Erregina eztiak zaintzen zuela bere loretxo samurra, bere aulkiaren goi-goitik *irribarre* egiten ziola eta bere lorea ezinbestean galduko zen unean bertan maniatzen zela ekaitza baretzera...

Urtearen bukaerarantz etengabeko burukominak jo ninduen, baina ia ez zidan batere oinazerik eman; nik jarraitu ahal izan nituen neure ikasketak eta inor ez zen nitaz kezkatu. Honek 1883ko Bazko⁸⁹ jairarte iraun zuen. Aita, Maria eta Leoniarekin Parisera joanik, nire izebak jaso ninduen bere etxean Zelinarekin batera. Arratsalde batean, nire osabak berekin eramanez, neure amari buruz hitz egin zidan, lehengo oroitzapenei buruz, hain maiteki hitz egin ere, non barru-barrutik hunkitu baininduen negar eragiteraino. Bihotz sentikorregia nuela esan zidan orduan eta jostatu beharra nuela, eta Bazko oporraldian jostatzeko bide batzuk guri eskaintzea erabaki zuen izebarekin batera. Arratsalde hartan katolikoen batzarlekura joan behar genuen; baina ni gehiegi nekaturik nengoelakoan, izebak ohera eramanez ninduen. Biluzterakoan, dardara berezi batek hartu ninduen. Hotz nintzela uste izanik, nire izebak burusi artean bildu ninduen botila beroak barruan zirela, baina nire dardara ezin izan zuen ezerk gutxitu eta ia gau osoan iraun zuen. Nire osaba nire lehengusina eta Zelinarekin katolikoen batzarlekutik itzuli zenean, harriturik gelditu zen ni egoera hartan aurkiturik, egoera larria zela uste baitzuen, baina ez zuen ezer esaterik nahi izan, nire izeba ez beldurtzearren.

Biharamunean Notta⁹⁰ doktorearen bila joan zen; honek, nire osabak bezala, gaixotasun larria nuela uste zuen eta hain neska txikiak ez zuela sekula izan halakorik. Guztiak zeuden izaturik. Nire izebak ni bere etxean eduki behar izan ninduen, eta benetan ardura *amatiarrez* zaindu ninduen. Aita nire ahizpa nagusiekin Paristik etorri zenean, Aimée-k⁹¹ hain aurpegi tristez hartu zituen, non Mariak [28^a] hila nintzela pentsatu baitzuen... Baina gaixotasun hura ez zen ni hil nendin, Lazarorena bezala, Jainkoa goretsia izan dadin baizik... Hala izan zen, egiaz, nire *aita* gizagaxoaren eroapen harrigarriagatik, “*bere alabatxoa zoratu edo hil egingo zela*” uste zuelarik. Hala izan zen *Mariaren* eroapenagatik ere!... Ai, zenbat sufritu zuen hark nigatik!... Bai eskertzen dizkiodala nirekin huts-hutsean hartu dituen ardura ugarriak!... Bere bihotzak esaten zion zer nuen beharrezko, eta benetan, *ama* baten *bihotzak* askoz ere gehiago *daki* mediku batek baino: bere umearen gaixotasunarentzat zer komeni den *antzematen* daki...

Jn 11,4

Maria gaixo honek nire osabaren etxean egokitu behar izan zuen, orduan Buissonnets-era aldatzea ezinezko baitzitzaidan niri. Bien bitartean, Paulinaren abitua

⁸⁹ Martxoaren 25ean; Teresak hamar urte zituen.

⁹⁰ Andre Martinek azken gaixoaldian zehar iritzia eskatu zion mediku horrek zainduko du Martin jauna 1887tik 1889ra; badirudi ez duela inolara ere Teresaren gaixotasuna ulertu.

⁹¹ Aimée Roger, Guérindarren sukaldaria.

hartzea egunean baino egunean hurbilago zen. Ez zuten nahi izaten horretaz nire aurrean hitz egiterik, hara joan ezinez nahigabe handia izango nuela jakinik. Baina nik bai hitz egiten nuen sarri, ordurako neure Paulina maitea ikustera joateko nahiko ongi izango nintzela esanez.

Hain zuzen ere, Jainko onak ez zuen nahi izan poztasun hau niri ukatzerik, edota hobeki esateko, bere alabatxoaren gaixotasuna zela eta hainbeste sufritu zuen bere *emaztegai* maitea poztu nahi izan zuen... Azpimarraturik daukat Jesusek ez dituela bere alabak nahigabetu nahi haien ezkontitzetako egunean⁹²; egun hark hodeirik gabeko jai izan behar du, paradisuko bozkarioen aurrerakina. Ez al du, ba, honezkero erakutsi bost aldiz⁹³?... Beraz, neure ama maitea *besarkatu* ahal izan nuen, haren *belaun* gainetan *eseri* eta laztanez bete... Liluragarri ikusi ahal izan nuen emaztegaiaren apaingarri zuriak... Ai, neure proba ilunaren erdian *egun eder* bat izan zen! Baina egun hura berehala igaro zen... Laster igo behar izan nuen Paulinagandik oso urrun... neure Karmel maitetik oso urrun eramango ninduen ibilgailura. Buissonnets-era iristerakoan gogoz kontra oheratu ninduten, [28ⁱ] nik zeharo sendaturik nengoela eta harrezkero laguntza beharrik ez nuela ziurtatzen bainuen. Ai! Neure sufrikarioen hasieratan nengoen oraindik!... Biharamunean berriro erori nintzen, eta gaixotasuna hain larria izan zen, non giza kontuen arabera ez bainintzen sendatuko... Ez dakit nola adierazi gaixotasun hain bitxia. Orain deabruaren lana⁹⁴ izan zela buruan sarturik daukat; baina sendatu ondoren, denbora luzez gaixo-itxurak egin nituela pentsatu izan dut, eta hau nire arimarentzat *benetako martiritza* izan da...

Mariari agertu nion, honek lasaitu ninduen al bait ondoen bere ohiko *ontasunez*. Aitortzan ere esan nuen, eta nire aitor-entzulea era berean lasaitzen ahalgindu zen esanez, ez dagoela gaixo-itxurak egiterik benetan gaixo egoteraino. Ezbairik gabe, garbitu nahi ninduen eta batez ere *apaldu nahi ninduen*⁹⁵. Jainkoak *barruko martiritza* hau gerta dadila utzi du ni Karmelen sartu baino lehen, han gure arimen *Aitak*⁹⁶, eskuaz bezala, nire zalantza guztiak kendu dituelarik. Harrezkero lasai-lasai nago.

Ez da harritzekoa nik gaixoarena egin nuela pentsatzea benetan hala egon gabe, neuk pentsatzen ez nituen gauzak esan eta egiten baintuen; ia beti eldarnioan nengoela zirudien, zentzurik ez zuten hitzak esanez; eta hala ere *ziur* nago *une batez ere* ez naizela egon *ezaguerarik gabe*... Maiz ematen nuen nik zorabioak harturik nengoela, zirkin txikienik ere egin gabe; orduan nahi zutena egiten utzikoen, baita hiltzen ere. Hala eta guztiz ere nik neure inguruan esaten zen guzti-guz-

⁹² Ik. Joan Gurutzekoa, CS, XIV eta XV. ahapaldiak, 230. or., Teresak zeukan argitaraldikoa.

⁹³ Martindar bost ahizpen abitua hartzea (Leonia barru dela).

⁹⁴ Guérindarren iritzia zen, Joana La Néelek POn esan zuen legez (240-241. orr.). Gayral doktorearen ustez neurosia zen, sei hilabeteen laztura jasan ondoren: «Beraren bigarren amak bertan behera utzia zegoela iritzirik, joera umekoia hartzen du, haurtxo bati bezala xerak egin diezaizkioten» (*Carmel aldizkaria*, 1959/2, 81-96. orr.).

⁹⁵ Teresarentzat, Jainkoagatik hartzen den apalkuntza maitasunaren ezaugarria da (ik., bereziki, C Esk., 27^a).

⁹⁶ Aita Almir Pichon, josulaguna. Ik. *infra*, 311. oharra, bai eta «Izen berezien hiztegiñoa» ere.

tia entzuten nuen, eta oraindik guztiaz oroitzen naiz... Behin gertatu zitzaidan luza-ro begiak ireki ezinik egotea, eta une batez irekitzea bakarrik nengoenean...

Deabruak nire gain *kanpotikako* ahalmena hartu zuela uste dut, baina [29^a] ezin zuela hurbildu ez nire arimara, ezta nire izpiritura ere, zenbait gauzatarako *beldur-ikara*⁹⁷ handiak ematea izan ezik, alferrik harrarazi nahi zizkidaten botika simple-simpletea adibidez. Baina Jainko onak niregana hurbiltzen deabruari uzten bazion, aingeru ikuskorrek ere bidaltzen zizkidan... Maria nire ohe ondoan zen beti, ama baten antzeko samurtasunez ni zaintzen eta pozten. Sekula ez zidan agertu haserrerik txikienik, eta hala ere nik neke handia ematen nion, nire ondotik alde egiten ez bainion uzten. Hala ere nahitanahiez aitarekin jatera joan behar izaten zuen; baina ni deika eta deika aritzen nintzen handik kanpora zen denbora guztian. Biktoriak ere zaintzen ninduen eta maiz joan behar izaten zuen, nik esaten nionez, nire "ama" maitearen bila... Mariak etxetik irtetea nahi zuenean, mezarara joateko edo *Paulina* ikusteko izan behar zuen; orduan nik ez nuen ezer esaten...

Nire osaba-izebak ere on-onak ziren nirekin. Nire izeba maitea *egunero* zetorkidan ikustera, eta hainbeste gozoki ekartzen zizkidan. Etxeko adiskide ziren beste pertsona batzuk ere etorri zitzaizkidan ikustera, baina nik Mariari eskatu nion esan diezaiela ez nuela bisitarik nahi. Gogaikarri zitzaidan "*jendea* tipula-txirikorda bezala nire *ohearen inguruan eserita ikustea, mamorro bitxi antzera begiratzen zidatelarik*". Gogoko nuen bisita bakarra⁹⁸ neure osaba-izebena zen.

Nik ez nuke jakingo esaten gaixotasun hau dela eta zenbateraino bitzitu zen haiekiko nire maitasuna. Inoiz baino hobeki ulertu nuen guretzat ez zirela senide arruntak. Ai, bai zuzen zebilela gure aita gaixoa idatzi berri ditudan hitzak behin eta berriro esaten zizkigunean! Geroago bere esperientziaz ikusita jakin zuen ez zebilela oker; eta orain zerutik zainduko ditu eta bedeinkatu, bihotz zabalez halako arduraz zaindu zutenak... Niri dagokidanez, oraindik erbestean nago; eta neure eskerro-na nola agertu ez dakidala, bide bakarra dut neure bihotza husteko: Otoitz egin maite ditudan senideen alde, nirekin hain onak izan ziren eta oraindik direnen alde.

Leonia ere oso ongi portatzen zen nirekin, niri jostarazten ahaleginduz; bakarrik nik nahigabetu egiten nuela, Maria nire ondoan ordezkazezina zela ohartzen baitzen...

Eta nire Zelina maitea? Zer ez ote zuen egin bere Teresagatik?... Igandez, ibilaldia egitera joan beharrean, inozoa zirudien umetxo gaixo batekin itxita orduak eta orduak ematera etortzen zen. Benetan [29ⁱ] beharrezko zen maitasuna nire ondotik alde ez egiteko... Ai, ene ahizpatxo maiteak, zenbat sufriarazi dizuedan!... Inork ez zaituzte nik adina *nahigabetu*, eta inork ez du hartu zuek gainez emandakoa baino *maitasun* handiagorik... Zorionez, zerua izango dut mendekatzeke. Nire Senarra guztiz aberatsa da: haren *maitasun*-ondaretik hartuko dut nigatik sufritu duzen guztiaren orde zuei bateko ehun ordaintzeke...

⁹⁷ *Kanpotikako* eta *beldur-ikara* azpimarraturik daudenek aipamena dela esan nahi dute; izan ere, beraiek Joan Gurutzekoaren pasarte baten daude (CS, XX-XXI. ahapaldiak, 307-308. orr.).

⁹⁸ Es. Ildiaren gainerako zatia eta hurrengo pasartea ("nire ohearen..." arte) nahiko berandu erantsi zizkion Teresak eskuizkribuari.

Nire poztasunik handiena *Paulinaren* gutun bat hartzea izan ohi zen gaixo nengoen bitartean... Irakurri eta irakurri egiten nuen buruz ikasi arte... Behin, ene Ama maite, hondarrezko erloju bat eta nire andrakiletariko bat igorri zenizkidan karmeldar jantzita; nire poza adieraztea ezinezko gauza da... Ez zen nire osabaren gogoko izan, hark esaten zuen Karmelen pentsamendua niri burura ekarri beharrean, nire izpiritutik urrundu egin behar zela. Baina nik, ordea, egunen batean karmeldar izateko itxaropena bizigarri zitzaidala sentitzen nuen. Niri atsegingarri zitzaidan Paulinarentzat lan egitea; eskulantxoak egiten nizkion kartoi mehez, eta nire jarduera nagusia Ama Birjinarentzat bitxilore eta oroilorezko koroeak egitea zen. Maiatzeko hil ederrean geunden. Izadi osoa lorez apaintzen zen, alaitasuna zeriola. "Loretxo" bakarrik zihoan mengelduz, eta betiko ihartu zela zirudien... Hala ere, eguzki bat zuen beragandik hurbil. Eguzki hori Ama Birjinaren *irudi mirarigilea* zen, amari⁹⁹ birritan hitz egin ziona, eta sarri, oso sarri loretxoak bihurtu ohi zuen bere lore-ninia izar bedeinkatu honengana...

Behin, ni etzanda nengoen Mariaren gelan sartzen ikusi nuen aita; aurpegikera tristeaz urrezko txanpon batzuk eman ez esan zion Parisera idazteko Garaipenen Andre Mariari¹⁰⁰ mezak ateratzeko bere alabatxo gaixoa senda diezaion. Ai, zein zirrara handia izan nuen neure errege maitearen [30^a] fede eta maitasuna ikustean! Sendaturik nengoela esan ahal izatea nahi izango nuen; baina ordurako gezurrezko hainbat poztasun eman nizkion! Ez ziren nire gurariak izango *miraria* eragin zezaketenak, mirari bat beharrezko baitzen ni sendatzeko... *Mirari* bat behar zen, eta Garaipenen Andre Maria izan zen egin zuena.

Igande batean¹⁰¹ (mezen bederatzirenean), Maria baratzara irten zen, ni bakarrik utzirik leiho ondoan irakurtzen zegoen Leoniarekin. Minutu batzuk barru, ahots isil-isilez deika hasi nintzen: "Amatxo!... Amatxo!". Leoniak, horrelako deiak niri entzuten ohiturik zegoenez gero, ez zidan jaramonik egin. Hark luze iraun zuen. Orduan ozenago dei egin nuen, eta, azkenez, itzuli zen Maria. Oso ongi ikusi nuen sartzen. Baina nik ezin nuen esan ezagutzen nuenik, eta deika jarraitu nuen geroago eta ozenago: "Amatxo!..." Nik *asko sufritzen nuen* borroka behartu eta adierazgaitz honengatik, eta Mariak, agian, nik baino ere gehiago sufritzen zuen. Bera nire ondoan zegoela niri frogatzeko alferrikako ahaleginak egin ondoren, nire ohe ondoan belaunikatu zen Leonia eta Zelinarekin. Gero, Andre Mariagana bihurturik eta bere alaba bizi dadin eskatzen duen *ama* baten berotasunez erregutuz, *Mariak* lortu zuen nahi zuena¹⁰²...

Lurrean inolako laguntzarik aurkitu ez eta, Teresatxo gaixoa ere zeruko Amagana bihurtu zen, bihotz-bihotzez erregutzen zion berarekin erruki zedila azkenez... Bat-batean Andre Maria *ederra* iruditu zitzaidan, sekula santan inor ikusi ez dudana bezain *ederra*. Haren aurpegiak esanezineko ontasun eta samurtasuna agertzen zituen. Baina bihotzaren barru-barrua ukitu zidana "Ama Birjinaren irribarre liluragarria" izan zen. Une hartan nire min guziak aienatu ziren; nire begietatik bi malko lodi

⁹⁹ Behin bakarrik, Elena txikia hil eta gero, Ama Ainesen ohar baten arabera.

¹⁰⁰ Martindarrek maite zituzten jaurespen eta santutegi paristarra; ik. *infra*, 30ⁱ, 56ⁱ / 57^a; C Esk., 8^a; PO, 366. or.; TO 35.

¹⁰¹ Mendekoste egunean, 1883/5/13an; Teresak berrogeita bederatzi egun zeramatzan gaixorik.

¹⁰² Azalpen zehatzagoak HAn daude; eta Mariarentzat, PON, 241. or.an; eta PAn, 228. or.an.

jalgi ziren eta isil-isilean limurtu ziren nire masailetan behera, baina poz hutsezko malkoak ziren... Ai, pentsatu nuen, Ama Birjinak irribarre egin dit, zein zoriontsu naitzen!...[30¹] Bai, baina ez diot inori esango, orduan *nire zoriona zapuzturik geldituko bailitzateke*. Batere nekerik gabe jaitsi nituen begiak, eta Maria [ikusitako] maiteki begiratzen zidala. Hunkiturik zirudien, eta Ama Birjinak egin zidan mesedearen susmoa bazuela ematen zuen... Ai, berari, haren otoitz gartsuari zor nion nik zeruetako Erreginarean *irribarrearen grazia!* Ama Birjinarengan begirada nuela adi-adi ikusirik, hark esan zuen: “Teresa sendaturik dago!”. Bai, loretxoa bizitzara emeko zen berriro. Berotu zuen *izpi* argitsuak ez zion utzi behar mesedeak egiteari. Ez zuen kolpera egin bere lana, baizik eta eztiki, emeki jaso zuen bere lorea, eta hainbestearino indartu zuen¹⁰³, non Karmelgo mendi emankorrean ireki baitzen lorea bost urte geroago.

Esan dizudanez, Mariak igarri egin zuen Ama Birjinak ezkutuko mesederen bat egin zidala. Horregatik, harekin bakarrik gelditu nintzenean, zer ikusi nuen galdetzerakoan, ezin izan nien entzungor egin haren galdera samur eta berantezinei. Neure isilpekoa nik agertu gabe agerian zelako harriturik, guzti-guztia adierazi nion neure Maria maiteari... Ai ene! aurrez uste nuenez, *nire zoriona zapuztu egingo zen eta samintasun*¹⁰⁴ bihurtu. Lau urtean zehar esanezineko grazia honen oroitzapena *arimako* benetako *nahigabe* izan zitzaidan. Ez nuen berriro poztasunik erdietsiko Garaipenen Andre Mariaren oinetan izan ezik, baina han bere *betetasun osoan* erdietsi nuen... Geroago hitz egingo dut berriro Ama Birjinaren bigarren grazia honetaz. Orain, ene Ama maite, nire poza nola tristura bihurtu zen adierazi behar dizut. Mariak, “nire graziaren” kontaketa xalo eta egiazkoa entzun ondoren, Karmelen kontatzeko baimena eskatu zidan; nik ezin nion ezetzik esan... Karmel maite honetara egin nuen lehenengo bisitan pozaren pozez gainez eginda gelditu nintzen neure *Paulina* Ama Birjinaren abituaz ikusirik [31^a]. Une gozo-gozoa izan zen biontzat. Hainbeste gauza esateko, eta nik ezin nuen ezer esan, nire bihotza beteegi zegoen... Ama on M. Gonzagarena ere bertan zen, niri hainbat maite-erakutsi eginik. Beste ahizpa batzuk ere ikusi nituen, eta haien aurrean hartu nuen graziak itandu zidaten, ea Ama Birjinak Jesus Haurra zeukan, ea argitasun handia zegoen eta abar galde eginez. Galdera hauek guztiak nahasi egin ninduten eta sufriarazi. Nik ezin nuen gauza bat baizik esan: “Ama Birjina *oso ederra* iruditu zitzaidan..., *irribarre egiten* ikusi nuen”. Haren *aurpegiak soilik* egin zidan zirrara. Horregatik, oharturik karmeldarrek beste gauza bat oso ezberdina zutela irudimenean, (nire arimako sufrimenduak, neure gaixotasunari buruzkotik hasita) *gezurra esan nuela* begitandu zitzaidan... Zalantzarik gabe, neure isilpekoa gorde izan banu, neure zoriona ere gordeko nuen. Baina Ama Birjinak oinaze hau izan dadin utzi du nire arimaren onerako. Hori gabe, agian, harropuzkeriazko pentsamenduren bat izango nuen; *apalkuntza*¹⁰⁵ egokitu zaidanez, ordea, ezin nion neure buruari begiratu senti-

¹⁰³ Nerbio-gaixotasun larri horrek ez zion aztarrenik utziko, Leoniak aipaturiko bi alarma txiki izan ezik (PO, 344. or.).

¹⁰⁴ Hitz hau hogeita hamabi aldiz erabilia da eskuizkribuetan eta TGetan; berak aditzera ematen du, gardentasunaren antzera, Jesusen *kalizaren mingostasuna* (TG 100 eta 213). Ik., adibidez, A Esk., 36ⁱ; B Esk., 4ⁱ; TG 81, etab.).

¹⁰⁵ Adierazpenak, oso gogorra baita, apalkuntza ordainsaririk gabe bizia duela adierazten du, Tere-saren bizitzako beste garai batzuetan baino askoz biziago beharbada.

menu *lazgarri sakon* batez baizik... Ai! Zeruan bakarrik adierazi ahal izango dut sufritu dudana!...

Kt 3,1-4

Karmeldarrei egindako bisitei dagokienez, gogoan dut lehenengoa, *Paulina* sartu eta laster izan zena. Gorago honetaz hitz egitea ahaztu egin zait, baina xehetasun hau ez dut alde batera utzi behar. Mintzalekura joan behar nuen egun berean, neure *ohean* neuk bakar-bakarrik gogoeta eginez (huraxe baitzen nik gogoetarik sakonenak izan ohi nituen, eta Kantarik Ederreneko emaztearen alderantziz, beti neure Maitea aurkitzen nuen lekua), Karmelen zer izen izango nuen galdetu nion neure buruari. Nik banekien han bazela ahizpa Teresa Jesusena izeneko bat, hala ere Teresa, neure izen polita ezin izango zidaten kendu. Bat-batean [31ⁱ] neuk hainbeste maite nuen Jesus txikia etorri zitzaidan burura, eta esan nuen neure baitan: “Oi, bai dohatsu nintzatekeela ni Teresa Jesus Haurrena deitzeaz!”. Mintzalekuan *ez nuen ezer esan* guztiz esnaturik izan nuen *ametsaz*. Baina *M. Gonzagarena* ama on honek ahizpei zer izen¹⁰⁶ emango zidaten galdetuz, neuk *amets egin* nuen izen berberaz deitzea otu zitzaion... Handia izan zen nire poza, eta pentsamenduen bat etortze zorieko hori neure Jesus Haur guztiz maitearen fintasuna iruditu zitzaidan.

Neure haurtzaroko xehetasun batzuk, zu Karmelen sartu aurrekoak, kontatzea ere ahaztu zait. Ez dizut hitz egin estanpetara eta irakurtzera nuen neure zaletasunaz... Eta hala ere, ene Ama maite, saritzat erakusten zenizkidan estanpa politei¹⁰⁷ zor diet poztasunik gozonenarikoa eta bertuteetara eragin didan zirrara sakonenarikoa bat... Orduak ahaztu egiten zitzaizkidan begira eta begira. Esaterako, “Jainko Katibuaren *loretxoaz*”¹⁰⁸ barne-lituraz gelditzen nintzen, hainbeste gauza esaten zidan!¹⁰⁹ Lorearen beheko aldean *Paulinaren* izena ikusiz, Teresarena ere han egoitea nahiko nuen, eta Jesusi eskaintzen nintzaion bere *loretxo*a izateko...

Jolasten ez banekien ere, oso gogoko nuen irakurtzea eta horretan emango nukeen bizitza¹¹⁰. Zorionez, nik lurreko *aingeruak* nituen, denbora emanez nire bihotza eta izpiritua janarituko zuten liburuak hautatzen zizkidenak. Nik, gainera, halako denbora baizik ez nuen eman behar irakurtzen; hori sakrifizio handiak egiteko bide zitzaidan, sarritan neure irakurketa pasarterik interesgarriaren erdian eten behar izaten nuelarik... Irakurtzeko zaletasun honek ni Karmelen sartu arte iraun zuen. Ezingo nuke esan nire eskuetatik igaro diren liburuen kopurua; baina Jainko onak ez du utzi kalterik egiteko moduko liburu bat bera ere irakur nezan. Egia da zaldun-kontakizun batzuk irakurtzean lehenengo batean ez nuela nik *bizitzako errealitatea* beti sentitzen; baina Jainko onak laster ematen zidan aditzera [32^a] benetako aintza beti iraungo duena dela, eta hori erdiesteko ez dagoela gauza distiratsuak egin beharrik, ezkutatu eta bertuteak praktikatzea baizik, eskuinak egiten duena ezkerrek ez jakiteraino...

Mt 6,3

¹⁰⁶ Teresa aurrerengoa da Lisieux-ko Karmelen «*Jesus Haurrena*» deitura hartzen.

¹⁰⁷ Ikus H. N. Loose eta P. Descouvemont-en *Teresa et Lisieux* bilduma-liburua (DLTH), 336 orr.

¹⁰⁸ Zelinak 1884/5/8an emandako irudia; testua CGn dago, 1165 eta ondorengo orrialdea.

¹⁰⁹ «Sakonki barnean bildurik», Lisieux-ko Karmelen erabilitako adierazpena; ik. TG 54^a.

¹¹⁰ Zaletasun horrek iraun egingo du, baina Eskritura Santura, Joan Gurutzekora, Kristoren Antz-Bidera (berak ia-ia buruz jakingo duena) eta beste autore izpiritual batzuetara, esaterako, Arminjon-era mugatuko da ia guztiz; ik. A Esk., 83ⁱ; B Esk., 1ⁱ; C Esk., 25^a.

Horregatik, Frantziako emakume heroien balentriak irakurriz, bereziki JOANA ARK-eko *agurgarriarenak*¹¹¹, haiek imitatzeko irrikitan nengoen. Neure baitan haiek izan zuten gar bera, zerutar arnasa bera somatzen nuela iruditzen zitzaidan. Garai hartan neure bizitzan izan dudarik eta handienetakotzat beti izan dudan grazia bat jaso nuen, adin hartan ez bainuen izaten *goi-argitasunik* orain bezala, orain haiek gainez eginik ikusten dudalarik neure burua¹¹². Nik uste nuen *aintzarako* jai nintzela, eta harako bide bila nenbilela, Jainko onak idatzi berri ditudan sentipenak jarri zizkidan gogoan. Nire aintza ez dela agertuko izaki hilkorren begietan ere ulertarazi zidan, *santa* handi bat izatean datzala aintza hori!!!!... Gurari honek ausartegi denaren itxura izan dezake, ni hain ahul eta hutsegitez betea nintzela, eta oraindik ere ordena barruan zazpi urte igaro ondoren halaxe naizela kontuan izanik. Hala ere, *santa* handi bat izateko erabateko konfiantza berbera somatzen dut, ez bainaiz neure merezimenduetan oinarritzen, ez dut *batere* eta, Bertutea, Santutasuna bera den harengan baizik. Hura da, nire ahalegin ahulekin konformaturik, beraganaino jasoko nauena¹¹³, eta bere merezimendu mugagabeekin jantzirik, *santa* egingo nauena. Orduan ez nuen nik uste santutasunera iristeko hainbeste sufritu behar zenik. Jainko onak laster erakutsiko zidan hori, goian kontatu ditudan probak bidaliz...

Orain berriro ekin behar diot kontaktari, utzi nuen lekutik. – Ni sendatu eta hiru hilabetera, aitzak Alençon-era¹¹⁴ bidaia eginarazi zigun. Lehen aldiz itzultzen nintzen hara, eta poz handia izan nuen, neure haurtzaroan ezagututako lekuak berriro ikustean, [32¹] batez ere amaren hilobian¹¹⁵ otoitz egin ahal izatean eta babes nazala beti eskatzean...

Jainko onak mundua gutxietsi eta bertatik urruntzeko beste baizik ez ezagutzeko mesedea egin dit. Esan nezake Alençon-en egon nintzen bitartean egin nuela nik *gizartean neure buruaren aurkezpena*. Guztia zen alaitasuna, zoriona nire inguruan. Goretsia, maitasunez hartua, miretsia ikusten nuen neure burua. Hitz batez esateko, nire bizitza, hamabost egunez, lorez jantzia zen... Aitortu behar dut bizitza honek bazuela niretzat lilurarik. Jakinduria zuzen dabil hau dioenean: “Munduko huskerien xarmantasunak gaitzetik urrutien dagoen izpiritua ere liluratu egin ohi du”. Hamar urtekin bihotza lilurarazten erraza da. Horregatik grazia handi-handitzat daukat Alençon-en gelditu ez izana. Han genituen adiskideak munduzaleegiak ziren, ongi asko zekiten lurreko poztasunak Jainko onaren zerbitzuarekin bat egiten. Ez zuten heriotzaz¹¹⁶ nahiko pentsatzen; eta hala ere, *heriotzak* nik ezagutu ditudan pertsona askori, gazteei, aberatsei, zorionsuei egin die ikustaldia!!!

Jkd 4,12

¹¹¹ Joana Ark-ekoa geroxeago arte (1894/1/27arte) ez zen izango Gurgarria.

¹¹² 1895. urtea izango da guztietan argitsuena Teresarentzat; bera ez da jasotzen dituen argiak isilean gordetzekoa; ik. A Esk., 44^a, 74^a, 83^a/; hala ere, bada salbuespen bat C Esk.an, 19^a.an, fedearen «gauari» kontrajarria?

¹¹³ *Igogailuaren* lehenengo intuizioa edo aurrerapena (C Esk., 2/3^a), nahiz eta Teresak artean Jainkoaren antz hegan egiteko itxaropena izan (TO 22).

¹¹⁴ 1883ko abuztuaren.

¹¹⁵ Martin andrearen gorpua Lisieux-era ekarriko dute, haren senarra hil eta gero.

¹¹⁶ Zalantzarik gabe, Teresak bere buruari gogor egiten dio hemen: Alençon-en lausengaturik daku-sa bere burua, zorionsu da miresten dutelako... 1895eko karmeldarrak epaitzen du, nahiko gogor, hamar urteko gaztetxoa.

Koh
Mt 5,3 Eder zait pertsona haiek bizi izan diren leku *zoragarrietara* pentsamenduaren bidez itzuli eta galdetzea non dauden, zer onura ateratzen dieten bizitzako erosotasunez gozatzen ikusi nituen parke eta gazteluei... Eta eguzkiaren azpian guztia dela huskeria eta izpirituaren nahigabea konturatzen naiz... *Gauza on bakarra* Jainkoa bihotz-bihotzez maitatzean datzala eta hemen behean izpirituz *behartsu* izatean...

Beharbada, Jesusek *lehenengo bisitaren* aurretik erakutsi nahi izan dit munda, jarraitzea hitz eman behar nuen bidea askatasun handiagoz aukera nezan. Nire lehen jaunartzeko garaia hodeirik gabeko oroitzapen antzera gelditu da nire bihotzean josirik. Ez dut uste nengoen baino hobeki prestatu egon nintkeenik; gainera ia urtebetean bakean utzi ninduten arimako nahigabeek. Jesusek negar-herri honetan izan daitekeen poztasunik beteena goza nezala nahi zuen...

Sal 83,7

[33^a] Gogoratzen al zara, ene Ama maite, nire lehenengo jaunartzea baino hiru hilabete lehenago¹¹⁷ niretzat egin zenuen liburutxo zoragarriaz?... Hura izan zen neure bihotza etenik gabe eta azkar prestatzen lagundu zidana; ba, prestatzen hainbat denbora ari nintzen arren¹¹⁸, beste bultzada bat eman beharra zegoen, *lore berriz* jantzi, Jesusek bertan gogara atsedean har zezan... Egunero hainbat eta hainbat egintza burutzen nituen, beste hainbeste *lore* zirenak. Oraindik gehiago ziren bihotz-goraldiak, zuk egun bakoitzerako nire liburutxoan idatzi zenituenak; eta maitasun-egintza hauek loreen *kapuluak* ziren¹¹⁹...

Astero gutuntxo polit bat¹²⁰ idazten zenidan, arima pentsamendu sakonez bete eta bertuteetara eragiten zidana. Zure alabatxo gaixoarentzat kontsolagarri zen, arratsaldero zure belauin gaintan, bere *Zelina* maitea bezala, *prestatua* ez izatea onez eramanik, hain *sakrifizio handia* egiten baitzuen... Maria zen niretzat Paulinaren lekua hartu zuena; ni haren belauinetan esertzen nintzen, eta *irrikaz* entzuten nion esaten zidana. Haren bihotz osoa, hain *handia*, hain *zabala*, nirean iraultzen zela uste dut. Gerrari ospetsuek beren semeak armak erabiltzen trebatzen dituztenez, era berean hark bizitzako *borroka*z hitz egiten zidan, garailei ematen zaien palma-adarraz. Mariak hitz egiten zidan baita egunero erraz pila daitezkeen betiko ondasunez ere; haiek atxikitzeko eskua luzatzeko nekerik hartu nahi ez eta pasatzearen zoritxarraz. Gero *santa* izatera iristeko bidea erakusten zidan, gauzarik txikienetan zintzoa izanez. Orritxo bat eman zidan: "Buru-ukatzea"¹²¹, nik atsegin ez meditatzeko nuena.

Ai nire amabitxik bai bazuela *etorria*! Haren irakaspen sakonak entzuten neu bakarrik ez izatea nahi izango nuen. Ni hain *hunkiturik* nengoen, non neure simpletasunean uste bainueñ bekatarririk handienak ere¹²² nire antzera hunkituko zirela, eta

¹¹⁷ Metodo batek egun guztietarako sakrifizioak eta otoitz laburrak proposatzen zituen, beraien ikurak loreak eta lurrikak direlarik (ik. VT, 76. zk., 310 eta ondorengo orrialdeak; eta DLTH, 55. or.).

¹¹⁸ Ik. *supra*, 25^a; sartzeko gutxieneko adina hamar urte izatea zen, baina urtarillaren 1a baino lehen beteta eduki behar ziren; hori dela eta, Teresa nahigabeturik zegoen urtarillaren 2an jaio zelako, eta han ari zen nola saihestuko arau hori (ik. VT, 123. zk., 154. or.; eta PO, 241. or.).

¹¹⁹ Benetan, Teresarentzat, *lurrikak*. Ik. *Prières*, 72. or.

¹²⁰ LC 24tik 31ra, CGn.

¹²¹ Ik. CG, 1166 eta ondorengo orrialdeak.

¹²² Antzeko pentsaera C Esk.an, 5ⁱ.

ondasun galkorrak¹²³ bertan behera utziz, zerukoak irabaztea [33ⁱ] besterik ez zutela nahi izango...

Garai honetan inork ez zidan irakatsi otoitz egiteko bidea, hala ere nik biziki irrikatzen nuen. Baina Mariak, nahiko jainkotiar nintzela eta, neure errezuak egiten uzten zidan soilik. Behin Abadiako irakasle batek oporretako egunetan bakarrik nengoenean zer egiten nuen galdetu zidan. Neure ohearen atzean zen txoko batera, errezel batez erraz ixten zenera, joan ohi nintzela eta han “*pentsatu egiten nuela*” erantzun nion. –Baina zertaz pentsatzen duzu?, esan zidan hark. –Jainko onaz pentsatzen dut, bizitzaz, BETIKOTASUNAZ, hitz batez *pentsatu egiten dut*¹²⁴!... Moja onak ez zuen barre gutxi egin nire lepotik. Geroago gogoko zitzaion niri *pentsatzen ari- tzen nintzen* garaia oroitaraztea, oraindik *pentsatzen ari ote nintzen* galdetuz... Orain ulertzen dut, jakin gabe, otoitz egiten nuela eta Jainko onak isilean irakasten zidala¹²⁵.

Prestaerako hiru hilabeteak berehala joan ziren, laster bakarraldian sartu behar izan nuen¹²⁶, eta horretarako, barne-ikasle pentsio-ordaintzaile egin behar izan nuen eta Abadian lo egin. Ezin nezake esan zein oroitzapen gozoa utzi didan bakarraldi hark. Egia esan, barnetegian asko sufritu badut ere, Jesusen zain igarotako egun haien pozak ederki ordaindu dit... Ez dut uste komunitate erlijiosoetatik at honelako pozik dasta daitekeenik. Neskato gutxi izanik, errazago zen bakoitzaz bana-banaka arduratzea, eta egia esan, gure irakasleak une honetan amak bezain arduratsu ziren gurekin. Nirekin oraindik gehiago arduratzen ziren besteekin baino. Gauero etorri ohi zitzaidan irakasle nagusia kriseiluarekin neure ohean musu ematera, maitasun handia erakutsiz. Gau batean, haren ontasunak erakarririk, *isilpeko* bat esango niola adierazi nion; eta burukopetik misterioitsu neure *liburutxo preziatua* aterata, begiak pozez diz-diz nituela erakutsi egin nion... Goizetan jostagarri zitzaidan ikasle guz- tiak, esnatu orduko, jaikitzen ikustea [34^a] eta gainerako guztiek egiten zutena egi- tea. Baina ez nengoen neu bakarrik orrazten ohituta. *Maria* ez zegoen han ilea *kiri- biltzeko*; horregatik apaingelaren ardura zuen irakaslearengana joan behar izaten nuen lotsati neure orraziarekin; hark barre egiten zuen, hamaika urteko gaztetxo bat bere buruz baliatzen ez zena ikusirik; hala ere orrazten ninduen, baina ez Mariak bezain leunki; dena dela, ez nintzen ausartzen garrasi egiten, egunero neure *amabi- txiren* esku *leunpean* egin ohi nuenez... Neure bakarraldian ohartu nintzen maiteki- ro eta, batez ere amaren aldetik umezurtz zirenen artean, munduan gutxi bezala tra- tatua nintzela... Maria eta Leonia egunero zetozkidan ikustera aitarekin, honek xeraz betetzen ninduelarik. Horregatik, ez nuen familiaren falta edo urruntzerik jasan, eta ez zen ezer etorri nire bakarraldiko zeru ederra iluntzera.

¹²³ Ik. *Kristoren Antz-Bidea*, 1, 1, 4. lerroaldea; eta *Récréations*, 371. or. (5ⁱ, 2).

¹²⁴ Ik. PO, 548, 554 eta ondorengo orrialdea. Eta Zelinaren lehenagoko oroitzapena: «Berak amets egiten zuen padar-bizierarekin eta lantzean behin gordetzen zen (...) ohearen errezelan ostean Jaungoi- koarekin hitz egiteko. Orduan zazpi edo zortzi urte zituen» (PO, 269. or.).

¹²⁵ Ik. *infra*, 49^a. Txikitxoie agertutako isilpekoei buruz: TG 127; 190; 247; A Esk., 71^a; B Esk., 5ⁱ; C Esk., 4^a; DSA 6, 8ⁱ, 11^a; 2. IB (ik. BT, 212-213. orr.).

¹²⁶ 1884/5/4tik 8ra.

Nik adi-adi entzuten nituen Domin¹²⁷ apaiz jaunak egiten zizkigun hitzaldiak, eta laburpena idatzi ere bai. Nire *pentsamenduei* dagokienez, bat bera ere ez nuen idatzi nahi izan, haietaz ongi gogoratuko nintzela esanez, eta hala izan zen... Zorion handia zen niretzat lekaiameekin ofizio guztietara joatea. Lagun guztien artean nabarmentzen nintzen Leoniak oparizat eman zidan *gurutze handi* bategatik eta nik misiolariak bezala gerrikoan neramanagatik. Gurutze honek lekaiameen bekaitza piztu ohi zuen, hura eramatean neure *ahizpa karmeldarra* imitatu nahi nuela uste zutelarik... Ai! Nire pentsamenduak, egia esan, harengana zihoazen hegan. Bane-kien nik *nire Paulina* bakarraldian zela ni bezala¹²⁸, ez Jesus berari eskain dakion, bera Jesusi eskaintzeko baizik¹²⁹. Horregatik, itxaroten igarotako bakarraldi hau bi aldiz pozgarri gertatu zitzaidan...

Gogoan dut goiz batean gaixotegira joatera behartu nindutela, eztl handia nuelako (gaixo egon nintzenez gero, nire irakasleek ardura handia zuten nire osasunaz: buruko min arin bategatik, edo bestetan baino pixka bat zurbilago nengoela ikusiz gero, [34¹] haizea hartzera bidaltzen ninduten edo gaixotegian atsedean hartzera). Han nengoela, neure *Zelina maitea* ikusi nuen sartzen; bakarraldian nengoen arren, baimena lortu zuen ni ikustera etortzeko, oso gogoko izan nuen estampa bat emateko; "Jainko Katibuaren loretxoa" zen. Bai atsegin izan dudala oroigarri hau *Zelinaren* eskutik hartzea!... Maitasunezko zenbat pentsamendu izan ditudan hark eraginda!...

Egun handiaren bezperan bigarren aldiz hartu nuen barkamena¹³⁰. Neure aitortza orokorrak bake osoa utzi zidan ariman, eta Jainko onak ez zuen utzi hura nahasi lezakeen hodeirik arinenik ere etortzen. Arratsaldean barka eskatu nion ni ikustera etorri zen *familia osoari*. Baina ezin izan nuen hitz egin malkozko hizkuntzaz izan ezik; gehiegi hunkiturik nengoen... Paulina ez zen han, hala ere bihotzez nigandik hurbil zela somatzen nuen. Mariaren bidez *estampa polit* bat bidali zidan; ni ez nintzen aspertzen hura ederresten eta mundu guztiari ederresteko erakusten!... Aita Pichon-i idatzi nion bere otoitzetan gogoan har nazala eskatzeko, laster karmeldar izango nintzela ere esanez, eta orduan bera izango zela nire zuzendari. (Halaxe gertatu zen, izan ere, lau urte geroago, Karmelen izan baitzen nik osooan neure arima zabaldu nion lekua...) Mariak *haren gutun* bat eman zidan¹³¹. Bai zoriontsu nintzela... poztasun guztiak batera iristen zitzaizkidan! Haren gutunetik pozik handiena eman zidana esaldi hau izan zen: "Bihar zure alde eta zure Paulinaren alde emango dut meza". Paulina eta Teresa inoiz baino elkartuago bihurtu

¹²⁷ Beneditarren kapilau eta Teresaren aitor-entzulea izan zen Abadian. Teresaren bakarraldiari buruzko oharrak liburuki honen «Bestelako idazkiak»en daude argitaraturik. Hasierako *jarraibide* horiek dira, zalantza barik, haren «*eskrupulu-gaixotasun lazgarria*»ren jatorriak.

¹²⁸ Egun berean (maiatzaren 8an) egiteko zen bere profesarako.

¹²⁹ Antzekotasun ederra Eukaristia eta profesaren artean; hala ere, haren lehenengo jaunartzearen ostean, Teresak «*betiko eskainiko du bere burua*» (35^a).

¹³⁰ Haurrei aitortzen ziren bakoitzean absolutzioa emateko ohiturarik ez zegoen. Domin apaiz jaunak dioenez, Teresak hau galdetu omen zion: «Zure ustez, *Jesus ona nirekin pozik ote dago?*» (PA, 395. or.; ik. A Esk., 64^a, 80^a/^b; B Esk., 2^o).

¹³¹ Ik. LC 32, CG, 172. or.

ziren maiatzaren 8an, Jesusek bere graziak gainezka eman ez gitezen egiten zituela baitzirudien...

Azkenez iritsi zen egun guztien artean ederra zena. Zer oroitzapen esanezinekoak utzi dituzten nire ariman zeruko egun honetako *zertzeladarik txikienek!*... Egunsentiko esnatze zoriontsua, irakasleen eta ikaskide nagusien [35^a] musu *adeitsu* eta samurrak... Areto nasaia *elur malutaz* beterik, neskatxo bakoitza txandaka janzteko... Batez ere kaperan sartzea eta abesti ederraren *goizeko* kantua: "oi aldare santua, aingeruz inguratua".

Baina ez dut xehetasunetan sartu nahi. Gauza batzuek, haizetara ateratzean, beren usain ona galdu ohi dute. *Arimaren pentsamendu* batzuk ezin daitezke lurreko hizkuntzez adieraz, beren barne eta zerutiar esanahia galdu gabe; "garaileari emango zaion Harri zuri hau bezala da, bertan, hartzen duen *hark* izan ezik beste inork *ezagutzen* ez duen izen bat idatzirik dagoelarik". Ai, bai gozoa izan zela Jesusen lehenengo musua¹³² nire arimari!...

Ap 2,17

Maitasunezko musua izan zen, *maitatua ikusten nuen* neure burua, eta neuk ere esaten nuen: "Maite zaitut, zuri eskaintzen dizut neure burua betiko". Ez zen ez eskabiderik, ez borrokarik, ez sakrifiziorik izan. Jesusek eta Teresa gaixoak antzinarik *begiratu zioten* elkarri eta ulertu zuten elkar... Egund hartakoa ez zen *begirada* bat, biek *bat egitea* baizik. Honezkero ez ziren *bi*. Teresa galdua zen, ur-tanta bat itsaso handiaren golkoan galtzen den bezala¹³³. Jesus bakarrik gelditzen zen, hura zen maisua, Erregea. Ez al zion Teresak eskatu bere *askatasuna* kentzeko¹³⁴, *bere askatasunaren* beldur zelako? Hark hain ahul, hain hauskor ikusirik bere burua, Jainko-Indarrarekin bat egin nahi zuen betiko¹³⁵!...

Handiegia, sakonegia zen haren poza barnean eutsi ahal izateko. Gainez egin zioten laster bozkariozko malkoek, haren lagunak harriturik uzteraino, geroago elkarri esanez: "Zergatik egin du negar? Ez ote da izan nahigabea ematen zion zer-bait?... Ez ote da, beharbada, bere ondoan ikusten ez duelako bere ama, edo hain maite duen bere ahizpa karmeldarra?" Ez zuten ulertzen nire bihotzera zeruko poz guztia etorriarik, bihotz *erbestetu* honek¹³⁶ ezin izan ziola eutsi malkorik isuri gabe... Oi, ez! Ama han ez izateak ez zidan nahigaberik ematen neure lehen jaunartze egunean. Ez ote zegoen zerua [35ⁱ] nire ariman, eta nire amak ez ote zuen aspaldidanik han bizilekua hartu? Beraz, Jesusen bisita hartuz, neure ama maitearena ere hartzen nuen, pozik bedeinkatu eta nire zorionaz alaitzen zelarik... Ez nuen negar egiten Paulina han ez zelako. Egia esan, zoriontsu izango nintzen neure ondoan izateaz, baina aspaldidanik onartua nuen neure sakrifizioa. Egund honetan pozak soilik bete-

¹³² Ik. A Esk., 48^a; TG 182; 187; TO 18, 51; 20, 6; 24, 9; 26, 6; DSA 1, 10ⁱ; 3, 23^{bis}; Otoi. 3 eta 16.

¹³³ Teresaren eskaintza-jarrera, izan ere, jarrera hori oso-osokoa izan zen haren bizitzaren azkenean (ik. TO 51).

¹³⁴ Teresak Jesusekin bat egitea haren askatasunaren eskaintza da (ik. C Esk., 10ⁱ; TG 36; 103; Otoi. 6, 35-36).

¹³⁵ Ik. Joan Gurutzekoa, CS, XXII. ahapaldia, 328. or.

¹³⁶ Teresarentzat, lurreko bizitza zeruaren *erbestea* da (ik. 14ⁱ, 17ⁱ, 41^a etab.), eta hori, gainera, Jesusentzat da (TO 13, 9 eta 12, 2).

tzen zuen nire bihotza. Bat egiten nuen harekin, maitekiro bere burua niri eskaintzen zidanari behin eta betiko bere burua eskaintzen zion harekin!

Arratsaldean neu izan nintzen Ama Birjinari geure buruak eskaintzeko otoitza aldarrikatu zuena. Bidezko zen neuk *hitz egitea* zeruko neure Amari neure lagunenezenean, lurreko ama gabe hain gazterik gelditu nintzen honek... Bihotz osoa jarri nuen hitz egitean, neure burua hari eskaintzean, amaren besoetan murgildu eta gorde dezala eskatzen dion alaba baten antzera. Ama Birjinak bere loretxoari begiratu eta *irribarre* egin ziola dirudi. Ez al zen izan bera *ageriko irribarre* batez sendatu zuena?... Ez al zuen berak jarri bere loretxoaren ninika gainean bere Jesus, zelaietako Lorea, Ibarretako Lilia?...

Kt 2.1

Egun zoragarri honetako arratsean lurreko neure familiarekin elkartu nintzen berriro. Goizean jadanik, meza ondoren, musu eman nien aitari eta neure senitarteko maite guztiei. Baina orduan iritsi zen familiarteko benetako bilera. Aita, bere erreginatxo eskutik harturik, *Karmelera* abiatu zen... Orduantxe ikusi nuen neure *Paulina* Jesusen emazte bihurturik. Bere beloarekin ikusi nuen, neurea bezalako belo zuriarekin, eta bere arrosazko koroarekin... Ai, nirea saminik gabeko poza zen; harekin laster elkartzekotan eta harekin batera *Zerua* itxarotekotan nintzen ni!¹³⁷

Nire lehen jaunartze eguneko arratsean izan zen familiarteko jaiak ez ninduen hotz-hotzik utzi. Neure erregeak eman zidan erloju polita oso gogoko izan nuen. Baina nire poztasuna bare-barea zen, eta ezerk ez zuen nire barruko bakea nahasi.

Mariak bere ohean etzanarazi ninduen egun eder honen ondorengo gauean, egunik argitsuenen ondoren etortzen baitira ilunpeak. Zeruko lehen jaunartze, Jaunartze bakar [36^a] betikoaren egun hura izango da bakarrik iluntzerik gabea!...

Nire lehen jaunartzearen biharamuna ere egun ederra izan zen, baina kadentasunez bustia. Ez Mariak erosi zidan jantzi apainak, ezta jasotako opari guztiek ere ez zidaten bihotza betetzen. Jesus besterik ez zen ni ase nintzakeenik. Bigarren aldiz hura hartu ahal izango nuen unearen zain nengoen. Nire lehen jaunartzetik hilabetera, gutxi gorabehera¹³⁸, Igokunde egunez, aitortzera joan nintzen, eta jaunartzeko baimena eskatzera ausartu nintzen. Ustearen kontra, apaiz jaunak baimena eman zidan, eta Mahai Santuan aita eta Mariaren erdian belaunikatzeko zoriona izan nuen. Zein oroitzapen gozoa gorde dudan Jesusen bigarren bisita honetaz! Nire negar-malkoak esanezineko gozotasunez isuri ziren berriro ere; etengabe errepikatzen nizkion neure buruari San Pauloren hitz hauek: "Honezkero ez naiz ni bizi, Jesus da niregan bizi dena!..."

Ga 2.20

Jaunartze honen ondoren, Jainko ona hartzeko nire irrika geroago eta biziago egin zen. Festaburu guztietan jaunartzeko baimena lortu nuen¹³⁹. Egun zoriontsu hauen bezperan, Mariak bere belaun gainetan hartu eta prestatu ohi ninduen, nire lehen jaunartzerako egin zuen bezala. Gogoan dut nola behin hitz egin zidan sufri-

¹³⁷ Ik. TO 21, 3; 22, 11; 24, 32.

¹³⁸ Benetan hamabost egun, Igokunde maiatzaren 22an izan zen eta.

¹³⁹ Hogeita bi jaunartze 1884/5/8tik 1885/9/8ra (ik. beraren haurtzaroko oharra, «Bestelako idazkiak» en).

menuduaz, ziur aski ni ez nintzela bide horretatik joango esanez, baizik eta Jainko onak haurtxo bat bezala eramango ninduela...

Biharamunean, jaunartze ondoren, Mariaren hitzak gogora etorri zitzaizkidan; neure bihotzean *sufritzeko irrika bizia* sortzen zela ohartu nintzen¹⁴⁰ eta,aldi berean, Jesusek gurutze ugari niretzat gordeta izango dituen barru-barruko ustea. Hain kontsolamendu *handiz* gainezka somatu nuen neure burua, non neure bizitzako graziarik *handienetarikotzat* baititut. Sufrimendua niretzat erakargarri bihurtu zen. Gogoia bero-bero jartzen zidaten lilurak zituen; oraindik ongi ezagutu gabe, biziki erakartzen ninduen. Ordurarte sufrimendua *maitatu* gabe sufritu nuen; egun honetatik aurrera hartaz [36ⁱ] benetako maitasuna somatu nuen neure baitan. Jainko ona baizik ez maitatzeko guraria ere izan nuen, harengan baizik poztasunik ez aurkitzeko guraria. Neure jaunartzeetan maiz errepikatzen nituen Kristoren Antz-Bideko hitz hauek: “Oi, Jesus, *gozotasun* adierazezina, *atsekabe* bihur iezaizkidazu lurreko poztasun guztiak¹⁴¹!...” Otoitz hau berez-berez, indarrrik egin gabe sortzen zen nire ezpainetatik; uste nuen ez nuela hori errepikatzen neure borondatez, pertsona maite batek gogora ekarritakoa haur batek errepikatzen duen antzera baizik...

Geroago adieraziko dizut, ene Ama maite, Jesusek nola bete nahi izan duen nire gogoia eta nola izan zen beti bera bakarrik nire *gozotasun* esanezinekoa. Hone-taz zuri hitz egiten jarraituko banu, gaztetako bizitzako garaia aurreratu beharko nuke, eta oraindik neure haurtzaroko bizitzaz zertzelada ugari gelditzen zaizkit zuri kontatzeko.

Neure lehen jaunartzea egin eta laster, bakarraldian sartu nintzen berriro ere neure Sendotzarako¹⁴². Ahalegin handiz prestatu nintzen Espiritu Santuaren bisita hartzeko. Ez nuen ulertzen *maitasun* sakramentu hau hartzeko ardura handirik ez izatea. Gehienetan, egun bateko bakarraldia egin ohi zen soilik Sendotzarako; baina izendaturiko egunean Apezpikuak etortzerik izan ez zuenez gero, bi egun bakarraldian igarotzeko poza izan nuen. Jostarazteko, gure irakasleak Mont Cassin-era¹⁴³ eraman gintuen, eta han eskubeteka bildu nituen *bitxilore nagusiak* Gorpuzti eguneko jairako. Ai, zein zoriontsu zen nire arima! Apostoluen antzera, poz-pozik itxaroten nuen Espiritu Santuaren bisita... Zoriontsu egiten ninduen laster kristau oso-osoan izango nintzela pentsatzeak, eta batez ere, apezpikuak sakramentua ematean markatzen duen gurutze misterioitsua neure bekokian betikotasun osoan izateak...

Azkenez iritsi zen une zoriontsua; nik ez nuen somatu haize indartsurik Espiritu Santua pausatzen zen unean, bere zurrumurrua Elias profetaz Horeb mendian entzun zuen *haizetxo leun* hau baizik¹⁴⁴... Egun honetan *sufritzeko* sendotasuna

Eg J,14

Eg 2,1-4

¹⁴⁰ Teresaren erreakzioa harrigarria da: berak «*sufrimendua nahi du*», «*lurreko gozamen guztiak samin bihurtzea*» eskatzen du. Hitz baten, «*egun horren ondorik*», berak «*guztia aukeratzen du*» (ik. A Esk., 10^a, 30ⁱ; KH 25. VII. 1.; eta DE, 485. or.).

¹⁴¹ *Kristoren Antz-Bidea*, III, 26, 3.

¹⁴² Larunbatean, 1884/6/14an, Hugonin apezpikuak zuzenduak. Zelina da Teresaren aparteko sagarren lekuko (PO, 266-267. orr.).

¹⁴³ Beneditarren lorategiaren ostean dagoen mendixka; Gorpuzti eguna sendotza hartu zuen eguna- ren biharamuna izan zen.

¹⁴⁴ Ik. *infra*, 76ⁱ.

I Erg 19,
11-13 hartu nuen, laster nire arimaren martiritza [37^a] hasiko baitzen... Nire Leoniatxo maiteak egin zuen nire amabixirena; hain hunkiturik zegoen, non ezin izan baitzion malko-jarioari eutsi elizkizun osoan. Nirekin batera hartu zuen Gure Jauna, egun zoriotsu honetan oraindik Jesusekin bat egiteko zoriona izan bainuen.

Jai atsegin eta ahaztezin hauek igaro ondoren, nire bizitza *egunerokora* itzuli zen; hau da, hain nekagarri zitzaidan barruko ikasle-bizitzari ekin behar izan nion berriro. Lehen jaunartzeko garaian eder zitzaidan neure adineko neskatoekin bizi izatea; guztiak gogo onez beterik, nik bezala, bene-benetan bertuteei ekiteko erabakia hartu zutelarik. Baina orain oso bestelako ikasleekin jarri behar nuen harremanetan, nabarmenekin, araudia bete nahi ez zutenekin, eta horrek oso zorigaitzeko egiten ninduen.

Ni izaera alaikoa nintzen, baina neure adinari zegozkion jolasetan esku hartzeko moldakaitza¹⁴⁵. Sarritan, jolasaldietan, zuhaitz baten kontra jarri eta *ikuskitzuna* begiratzen nuen, gogoeta serioetan murgildurik. Nik neure gogoko jolas bat asmatu nuen; zuhaizpeetan hilik aurkitzen genituen txoritxo errukarriei lur ematea zen. Ikasle askok lagundu nahi izan zidaten, eta horrela gure hilerria polit-polita izan zen, zuhaitz eta lorez jantzia, gure hegaztien tamainaren arabera. Eder zitzaidan burura etorri ahala nik neuk asmatzen nituen istorioak kontatzea ere. Orduan nire lagunak inguruan biltzen zitzaizkidan adi-adi, eta batzuetan zenbait ikasle nagusik ere bat egiten zuten entzule-taldearekin. Istorio berak egun batzuetako iraupena izaten zuen, gogoko bainuen, geroago eta interesgarriago egitea, sortzen zituzten zirrarak eta nire lagunen aurpegietan ageri zirenak ikusi ahala. Baina laster nire irakasleak debekatu egin zidan neure *hizlari-lanari* ekitea, jolasten eta *arineketan* ikusi nahi baigintuen, eta ez *pentsatzen*...

Nik erraz hartzen nuen gogoan ikasten genituen gauzen esanahia, baina zail egiten zitzaidan hitzez hitz buruz ikastea. Horregatik kristau-ikasbiderako, neure lehen jaunartzearen aurreko urteko ia egun guztietan [37^a] eskatu nuen jolasaldian ikasteko baimena. Nire ahaleginek ondorio ona izan zuten, eta beti izan nintzen lehenengoa. Menturaz, *hitz bat bakarra ahazteagatik* galtzen banuen neure lekua, nire nahigabea malko saminetan adierazi ohi zen, Domin apaiz jaunak nola konpondu ez jakiteraino... Hura oso pozik zegoen nirekin (ez negar egiten nuenean) eta bere *doktoretxo*a deitzen zidan Teresa neure izenagatik. Behin, eskolan nire ondoren zen ikasleak ez zuen jakin bere lagunari kristau-ikasbideko galdera egiten¹⁴⁶. Apaiz jaunak alferrik bira osoa egin ondoren, guztiei galdetuz, nigana itzuli zen, eta ea neure lehenengo tokia merezi nuen ikusiko zuela esan zuen. Neure *apaltasun handian*¹⁴⁷ ez nuen besterik nahi. Ziurtasunez jaikiz, galdetu zidatenari erantzun nion huts bat bera ere egin gabe, guztiak harriturik utziz. Nire lehen jaunartzearen ondoren, kristau-ikasbiderako nire interesak barnetegitik irten nintzen arte irau zuen. Neure ikasketetan oso ongi nenbilen, ia beti lehenengoa nintzen. Neure garai-zenik handienak historian eta idazketan erdietsi ohi nintuen. Neure irakasle guztiek ikasle oso argizat ninduten. Ez zen gauza bera gertatzen nire osabarenean; han

¹⁴⁵ Zelinak dioenez, «Teresatxok ezin zuen arineketan egin, arnasestuka jartzen zen eta».

¹⁴⁶ Galde-erantzunak buruz ikasi behar izaten ziren, eta elkarri eginez, zehatz-mehatz esan.

¹⁴⁷ Azpimarratuak (*etzanak*) Teresak bere buruarekiko duen ironia adierazten du.

ezjakin txikitzat ninduten, on eta gozoa, adimen zuzeneko nintzen haientzat, baina gauzaez eta trebetasunik gabea... Ez naiz harritzen nire osaba-izebek nitaz iritzi hau izateaz eta orain ere, ziur aski, horretan irauteaz. Nik, hain lotsati izanik, ez nuen ia batere hitzik egiten; idazten nuenean, nire *katu-letra* eta nire ortografia hain arrunta ez ziren inor *liluratzekoak*...

Egia da josteko lantxoak, bordaketak eta beste batzuk ongi eta nire irakasleen gustura irteten zitzaizkidala; baina neure *orratz-lana* eskuetan hartzeko era *desego-ki* eta baldarrak zuzen antza ematen zion nire aldekoa ez zen iritzi horri. Hau guztia graziatzen dut. Jainko onak, nire bihotza beretzat soilik nahi izanik [38^a], aintzat hartua zuen nire eskaria, “lurreko poztasun guztiak samintasunez trukaturik¹⁴⁸”. Horren beharizan handia nuen nik, izan ere, ez bainintzen hotz-hotzik geldituko laudorioen aurrean¹⁴⁹. Sarri goraiatzen zen nire aurrean beste batzuen buru argia, baina sekula ere ez nirea. Honela, nik ez nuela buru argia atera nuen, eta ez izateaz konformatu nintzen.

Nire bihotz sentibera eta amoltsua, erraz jarriko zen norbaiten eskuetan bera ulertzeko gai zen bihotz bat aurkituz gero¹⁵⁰. Neure adineko neskatila batzuekin adiskide-harremanak hasi nahi nituen, batez ere haietariko birekin. Nik maite nituen eta, beraien aldetik, haiek ere bai ni, horretarako gai ziren heinean. Baina, ai! zein *estu* eta *aldakor* den sorkarien bihotza!!!... Laster ohartu nintzen nire maitasuna ez zela aintzat hartua. Nire adiskideetarikoa bat etxera joan beharrean izan zen, hilabete batzuk geroago itzuliz. Kanpotik zen bitartean, *hartaz sarri gogoratzen nintzen*, hark emandako eratzun bat ardura handiz gorderik. Neure laguna berriro ikustean handia izan zen nire poza; baina, ai! begirada hotz bat baizik ez nuen jaso... Nire maitasuna ez zela aintzat hartua ohartu nintzen, eta ez nuen jardun ukatzen zitzaidan maitasunaren *eske*. Baina Jainko onak hain bihotz leiala eman dit eta behin garbiro maite izan duena beti maitatzen du. Horregatik, neure lagunaren alde otoi egiten jarraitu nuen, eta gaur egun ere maite dut...

Zelina gure irakasleetarikoa batekin *zaletu* zela ikusirik, neuk ere beste horrenbeste egin nahi izan nuen; baina sorkarien ederra irabazten ez jakinik, ezin izan nuen eta utzi egin nuen. Oi, zorioneko ez jakitea, zein gaitz handitatik aldendu nauen! Zenbat eskertzen diodan Jesusi “lurreko adiskidetasunetan samintasuna besterik ez aurkitzea”!; nirea bezalako bihotzarekin, erraz utziko nuen neure burua harrapatzen eta hegoak ebakitzen; orduan nola ahal izango nuen *hegan egin* eta *atseden hartu*? Nola elkartu bihotz-bihotzez Jainkoarekin sorkariei emana¹⁵¹ den bihotz bat?... Hau ezin daitekeela somatzen dut. Sorkarien maitasun gartsuegiaren kaliza pozoitua [38ⁱ] edan gabe ere, ezin dudala hutsik egin konturatzen naiz. Hamaika arima ikusi ditut *gezurrezko argi* horrek liluraturik, tximeleta errukarriak bezala hegan eta hegoak erretzen, eta gero benetakora, *maitasunaren argi gozora*

Sal 54,7

¹⁴⁸ Berrero Kristoren *Antz-Bidea*, III, 26, 3.

¹⁴⁹ Teresa bekatu honen aurka zaintzen da; ik. A Esk., 26ⁱ, 32ⁱ, 40^a, 56^a; C Esk., 2^a; KH 14. VII. 6.

¹⁵⁰ TO 36.aren lehenengo olerkietako joera berbera eta ia hitz berberak.

¹⁵¹ Ik. Joan Gurutzekoa: «Arimak, bere gurariak sorkariaren aldera jartzen baditu (...), orduan arima horrek ezin izango du inola ere Jainkoaren izaki betierekoarekin bat egin» (*Subida del Monte Carmelo*, 1, 4, 4).

Ir 3.2 itzultzen direla, hark hego berriak, distiratsuagoak eta arinagoak emanik, Jesusenganantz, "suntsitu gabe erretzen duen" jainkozko Sugar horrenganatz¹⁵² hegan egin ahal dezaten!"

Ai, badakit! Jesusek tentaldian uzteko ahulegi ikusten ninduen. Neure begien aurrean diz-diz egiten ikusi banu, agian, *argi engainagarriak* oso-osorik kiskaltzen utziko nuen neure burua... Ez zen horrela izan. Beste arima indartsuago batzuek poza aurkitzen duten tokian eta zintzotasunagatik alde batera uzten duten tokian, nik samintasuna besterik ez nuen aurkitu. Ez dut, beraz, inolako meriturik sorkarien maitasunari atxiki ez natzaiolako, Jainkoaren erruki handiak baizik ez baininduen hortik zaindu!... Jaunak huts egin balit, hura gabe, santa Madalena bezain behera eror nintekeen, eta gure Jaunak Simoni esandako hitz sakonak hots gozoa du nire ariman... Badakit: "gutxiago barkatzen zaionak, gutxiago maite du"¹⁵³ Baina bada-
Lk 7,40-47 kit Jesusek *Santa Madalenari* baino *gehiago barkatu didala niri, prebentzioz barkatu didalako, erortzea eragotziz*. Ai, nik bai nahi nukeela somatzen dudana azaldu ahal izatea!... Hona hemen nire pentsamendua pixka bat adierazten duen adibide bat. -Egin dezagun doktore jakintsu baten semeak¹⁵⁴ bidean erorarazten dion harri bat aurkitzen duela, eta erortze honetan gorputz-adar bat hausten duela. Berehala hurbiltzen zaio bere aita, maiteki lurretik jaso, bere jakinduriaren baliabide guztiak hartan erabiliz zauriak sendatzen dizkio; laster haren semeak, guztiz sendaturik, bere eskerrona agertzen dio. Ezbairik gabe seme honek badu motiborik bere aita maitatzeko! Baina oraindik beste hipotesi bat jarriko dut. -Aitak, bere semearen bidean harri bat zegoela jakinik, aurreratu egiten zaio arin-arin eta, inork ikusi gabe, baztertu egiten du. Egiaz, seme honek, [39^a] bere samurtasunez aurre harturik nolako ezbeharretik babestu duen aitak JAKIN GABE, ez dio honi bere eskerronik agertuko, eta hark sendatu izan balu baino *gutxiago maitatuko du...* Baina zein arriskutatik irten berri den jakingo balu, ez ote du *gehiago maite izango?* Hara ba, Mt 9,13 neu naiz alaba hau, *zuzenak* berrerosterera barik bekatariaik berrerosterera bere Hitza bidali zuen *Aitak prebentziozko maitasunez* gorde nauena. Nik *maitatzea* nahi du
Lk 7,47 hark, *barkatu* didalako, ez asko, *guztia* baizik. Ez da zain egon santa Madalenak bezain gartsu nik noiz maitatuko; esanezinezko maitasunez aurre harturik maitatu nauela nik jakitea nahi izan du, orain nik *zoramenex* maite izan bezadan¹⁵⁵!... Entzuna dut ez dela aurkitu izan arima garbirik arima damutuak bezain gartsu maitatzen duenik¹⁵⁶. Ai, nik bai nahi nukeela hitz hau gezurtatzea!...

¹⁵² Hemen Sua ez da Izpiritua, Jesus baizik: harengan egiten du dirdira Suak Teresarentzat; eta haren Bihotzean bilatuko du berak *Maitasun Errukiak*, 1895eko ekainaren 9an idatzi zuen bezala (Otoi. 6). Harentzat ez dago Izpiriturik Jainkoarengan izan ezik.

¹⁵³ *Maite izan*, letra handiz idatzia izanik, orrialdean gainez egin behar duela dirudi.

¹⁵⁴ Teresaren alegiak Samariar Onaren eta Seme Galduaren gauza batzuk hartzen ditu, baina behar bada Augustin Deunaren *Aitorkizunetatik* ere bai (II. liburua, 7, Sagnier-Bray argitaletxea, 1854, 59-60. orr.).

¹⁵⁵ Horixe da Teresak Jesusi dion maitasunaren ezaugarria; ik. A Esk., 5², 82¹, 83¹; B Esk., 3^a, 4^a, 5¹; TO 17, 13; 24, 26, eta zazpi aldiz TGn. - Lerroalde osoaren idazkerak eta azpimarrek erakusten dute Teresa oso hunkiturik dagoela, berak darabilen gaiak jota, eta berak bertan bere buruarentzat funtsezko diren gauzetarik hainbat azaleratzen ditu.

¹⁵⁶ Zati baten, *Jesus Betanian* antzerkiko eztabaida da (1895/7/29koa): DSA 4, 27, 3-4 eta 29, 1-2; ik. TG 130.

Neure helburutik oso urruti nagoela ohartzen naiz; beraz, arin-arin itzultzen naiz bertara. – Nire lehen jaunartzearen ondorengo urtea, ia osorik, nire arimarentzat barne-nahigaberik gabe igaro zen. Neure bigarren jaunartzearen¹⁵⁷ bakarraldian izan zen eskrupuluen gaixotasun ikaragarriak jota neure burua ikusi nuena... Martiritza honetatik igaro beharra dago ongi ulertzeko. Ezin esan daiteke nik zer sufritu dudan *urtebete t'erdian*... Neure pentsamendu eta ekintzarik xumeenak kezka bide bihurtzen zitzaizkidan. Guztia Mariari esanez baizik¹⁵⁸ ez nuen izaten lasaitasunik; hori asko kostatzen zitzaidan, berari buruz izaten nituen pentsamendu ganoragabeak ere adierazi beharra izaten nuelako. Neure zama irauli orduko, une bateko bakea izaten nuen, baina bake hau oinaztargia bezala igarotzen zen, eta berehala hasten zen berriro nire martiritza. Nire Maria maiteak bai izan duela eraman ona, nekezatarnarik gabe [39^a] niri entzuteko!... Abadiatik iristen nintzeneko, ilea kiribiltzen hasten zitzaidan biharamunerako (egunero, aitari eder egitearren, erreginatxoak ileak kiribildurik eramaten zituen bere lagunuen mirespenerako, eta batez ere irakasleen mirespenerako, gurasoek hainbesteko arretaz zaindutako neskatorik ez baitzuten ikusten). Ekitaldi horrek zirauen bitartean, ni negar eta negar egon ohi nintzen, neure eskrupulu guztiak kontatuz.

Urtearen azkenean, Zelina, bere ikasketak amaiturik, etxera itzuli zen, eta Teresa gaixoa, bakarrik itzuli beharra izanik, laster gaixotu zen. Barnetegian eusten zion erakargarri bakarra bere Zelina ezin banatuzkoarekin bizi izatea zen. Hura gabe “haren alabatxoa” ezin zitekeen gelditu... Irten nintzen, bada, Abadiatik hamahiru urte nituela eta neure heziera jarraitzeko “Papinau andrea”¹⁵⁹ etxean hartzen nituen astean eskola batzuk. Hau pertsona ona zen, *oso ikasia*, baina pixka bat neskazahar-areira zuena. Bere amarekin bizi zen, eta jostagarria zen *hirurek* elkarrekin osatzen zuten familia ikustea (*katemea* ere etxeko baitzen, eta nik neure koadernoan gainean hura urrumaka aritzea jasan behar izaten nuen, eta baita haren taxu txanbelina miretsi ere). Famili barnean bizi izatearen alde ona nuen. Buissonnets urrutiegi zegoen nire irakaslearen zango zahar samarrentzat; hark eskolak hartzera ni bere etxera joan nadila eskatu zuen. Ni iristen nintzenez, gehienetan, Cochain andre adintsua baizik ez nuen aurkitzen; hark “bere begi urdin handiekin” begiratzen zidan, eta gero ahots lodi eta itzaltsuz deitzen zuen: “*Papinau andrea...*, Te...resa an...dereñoa hemen da!...” Bat-batean erantzuten zion bere alabak *haur-ahotsez*: “Banoa, *ama*”. Eta berehala hasten zen ikastaldia.

Ikastaldi hauek (bertan jasotzen nuen eskolaz gainera) mundua ezagutarazteko alde ona ere bazuten... Nork sinets zezakeen!... Antzinako erara jantzia zen gela hartan, liburuz eta koadernoz inguratutik, ni era guztiak bisiten lekuko izaten nintzen sarritan [40^a]: apaizak, andreak, andereñoak, etab. Elkarriketan ahal zue-

¹⁵⁷ 1885/5/17-20.

¹⁵⁸ Mariak dio: «Aitortzen aurreko egunetan batez ere eskrupuluek gero eta gehiago erasotzen zuten. Bera bere uesteko bekatuak esatera etortzen zitzaidan. Ahaleginak egiten nituen bera sendatzen, bere bekatuak neuk hartzen nituela neure gain esanez, horiek huts txikiak izatera ere ez zirela iristen; eta ez nion baimenik ematen neronek adierazten nizkion bi edo hiru baino aitortzeko (ik. 41^a). (...) Berehalaxe etorri zen bakea haren arimaz jabetzera» (PO, 241-242. orr.). Martiritza horrek urte eta erdi iraun zuen gutxienez...

¹⁵⁹ Berrogeita hamaika urteko andrea da; ikasgaien erritmoak malgu eta zabala dirudi.

nean Cochain andrea gailentzen zen, bere alabari niri eskolak ematen libre uztearren. Baina egun hauetan ez nuen gauza handirik ikasten, sudurra liburuan sarturik, esaten zen guztia entzuten nuen, baita ez entzutea hobe izango nukeena ere; harropuzkeria hain erraz sartzen da bihotzean¹⁶⁰!... Andre batek ile oso polita nuela zioen... Beste batek, agur egitean, nik ez nuelakoan entzuten, neskatila hain pinpirin hura nor zen galdetzen zuen; eta hitz hauek, nire aurrean esaten ez zirelako oraindik lausengagarriagoak, atseginezko zirrara uzten zuten nire ariman, nire buru-estimua zein handia zen erakutsiz.

Oi, bai erruki ditudala galtzen diren arimak!... Hain erraza da, izan ere, munduko bide loretsuetan galtzea!... Egia da, jaso samarrak diren arimentzat, hark eskaintzen duen gozotasuna samintasunez nahasia dela, eta gurariene hutsune *azkengabea*¹⁶¹ ezin izango dela bete une bateko laudorioekin... Baina nire bihotza *bere esnatze unetik Jainkoaganantz bideratua* izan ez balitz, munduak neure bizitzan sartzeaz gero, irribarre egin balit, zer izango ote zen nitaz?... Oi, ene Ama maite, bai eskerronez kantatzen ditudala Jaunaren errukiak!... Jakinduriaren hitzei jarraituz, ez ote nau “hark mundutik atera, haren gaiztakeriak nire izpiritua galdu orduko eta haren itxura engainagarriak nire arima liluratu orduko?”...

Sal 88,2

Jkd 4,11

Ama Birjinak ere begiratzen zuen bere loretxoa, eta lurreko gauzen ukituak zapuztea nahi ez zuenez gero, *bere mendira*¹⁶² eramane zuen zabaldu baino lehen... Zorioneko une hau itxaroten, Teresatxo zeruko bere Amaren maitasunean haziz zihotan. Bere maitasun hau erakustearren, hark *asko kosta zitzaion* ekintza bat burutu zuen, *luzea* izan arren, hitz gutxitan kontatuko dudana...

[40ⁱ] Abadian sartu eta ia berehala, Aingeru Santuen elkartean hartua izan nintzen; oso gogoko nituen elkarteak ezartzen zizkidan deboziozko ekintzak, zeruko izpiritu dohatsuei dei egiteko joera berezia izanik, batez ere Jainkoak neure erbesteko laguntzat eman didanari¹⁶³. Neure lehen jaunartzetik denbora pixka batera, Mariaren Alabagaien zintak hartu zuen Aingeru Santuenaren lekua, baina Ama Birjinaren kongregazioan hartua izan baino lehen alde egin nuen Abadiatik. Neure ikasketak bukatu gabe irtenik, antzinako ikasle gisa sartzerik ez nuen. Pribilegio honek ez zuela niregan irrika handirik sortzen aitortzen dut; baina nire ahizpa guztiak “Mariaren alaba” izan zirela gogoratuz, beldur nintzen haiek bezain neure zeruko Amaren alaba ez ote nintzen izango, eta horrela apaltasun handiz (asko kostatzen zitzaidan arren), Abadian, Ama Birjinaren kongregazioan hartua izateko bai-mena eskatzera joan nintzen.

Irakasle nagusiak ez zidan ukatu nahi izan; baina onartua izateko gai nintzela frogatzeko, astean bi egunez, arratsaldetan, han izateko baldintza jarri zidan. Ez zi-

¹⁶⁰ Ik. *supra*, 116 eta 149. oharra. Teresak uneoro zigortu eta esesten du «norbere buruarenganako maitasuna» (41^a), berea batez ere (ik. A Esk., 8^a, 40^a, 73^a, 74^a, 75^a), harik eta *Apaltasunaren* garaipenarekin Luzbel hautsi arte (DSA 7, 3ⁱ). Ik. baita C Esk., 28^a ere.

¹⁶¹ TG 93an antzeko adierazpena dago (Maria Guérinen tentaldiak direla-eta): «*Sorkariak txiki-giak dira Jesusek zure baitan zabaldu duen bizi mugagabea betetzeko*».

¹⁶² «*Ama Birjina... haren loretxoa... haren mendia*»: ik. Armarrak 85ⁱ/86^a.an.

¹⁶³ Aingeru Guardakoak garrantzi handi-handia du Teresarengan; ik. TO 46; TO 3, 41-48; DSA 1, 5^aⁱ, 6ⁱ; DSA 2, 2ⁱ; DSA 8, 5ⁱ; TG 140; 161.

tzaidan atsegin izan baimen hau, oso nekagarri baizik. Ez nuen nik, ikasle ohiak bezala, *irakasle adiskide* bat harekin ordu batzuk emateko. Beraz, irakaslea agurtzeaz konformatzen nintzen eta gero lan egiten nuen isilik lan-ikastaldia amaitu arte. Inor ez zen nitaz arduratzen. Horregatik, kaperako goiko otoizlekura igotzen nintzen, eta han Sakramentu Santuaren aurrean egon, aita nire bila etorri arte. Hau zen nire poztasun bakarra. Ez ote zen Jesus nire *adiskide bakarra*¹⁶⁴?... Nik ez nekien harekin baizik hitz egiten. Sorkariekin nituen solasaldiak, baita solasaldi izpiritualak ere, nekatu egiten zidaten arima... Jainkoarekin hitz egitea hobe zela somatzen nuen Jainkoari buruz [41^a] hitz egitea baino, norbere estima handia nahastzen baita solas izpiritualetan!...

Ai, Ama Birjinagatik soilik joaten nintzen ni Abadiara!... Batzuetan *bakarrik* ikusten nuen neure burua, oso bakarrik. Barne-ikasle nintzanean bezala, triste eta gaixorik patio nagusitik paseatzen nuenean, nik hitz hauek errepikatzen nituen, nire bihotzean beti bakea eta kemena berriro sortarazten zizkidaten hitz hauek: "Bizitza zeure itsasuntzi duzu eta ez zeure etxe¹⁶⁵!..." Txikitxo nintzela hitz hauek kemena ematen zidaten. Oraintxe ere, urteek haurtzaroko deboziozko zirrara asko ezabatu arren, untiaren irudiak lilura aurkitzen du nire ariman eta erbestealdia eramateko laguntza ematen dio... Ez ote du esaten Jakinduriak hau ere: "bizitza itsasoko uhin irabiatuak zeharkatzen dituen unti bat bezala da, bere igarotze azkarraren arrastorik ez du uzten bere ondoren?..." Gauza hauetaz pentsatzen dudanean, nire arima mugarik gabean murgiltzen da, jadanik betikotasunaren erribera ikutzen dudala iruditzen zait... Jesusen besarkadak hartzen nagoela iruditzen zait... Neure Zeruko Ama aitarekin..., amarekin..., lau aingerutxoekin bidera datorkidala begitandu ohi zait... Azkenez familiako egiazko, betiko bizitzaz jadanik gozatzen nagoela deritzot!...

Jkd 5,10

Zeruetako *Aitaren etxean* familia bildurik ikusi baino lehen, oraindik banakuntza asko jasan beharko nituen. Ama Birjinaren alabatza hartua izan nintzen urtean, hark neure Maria maitea kendu zidan¹⁶⁶, nire arimaren euskarri bakarra zena... Maria zen ni gidatzen, pozten ninduena, bertuteetan aurrera egiten laguntzen zidana; nire aholku-emaile bakarra. Egia esan, Paulina lehenago gelditu zitzaidan bihotzean, baina Paulina urrun zen, oso urrun nigandik!... Martiritza jasan behar izan nuen hura gabe bizitzen ohitzeko, haren eta nire artean horma zeharkaezinak [41ⁱ] ikusteko, baina azkenez egia latza onartzea lortu nuen: Paulina niretzat galdurik zegoen, ia hil izan balitz bezala. Hark beti maite izan ninduen, otoitz egiten zuen nire alde, baina nire begietarako *nire Paulina* maitea lurreko gauzetan zerikusirik izan behar ez zuen santa bat bihurtu zen; eta bere Teresa gaixoaren mixeriak, ezagutu izan balitu, harriturik utziko zuten eta hain maite izateko oztopo gertatuko zitzaizkion... Gainera, Buissonnets-en bezala, bere pentsamentuak hari azaltzea nahi izanda ere, ezin izan-go zuen, bisitak Mariarentzat baitziren soilik. Zelinak eta nik *azken-azkenean* lortzen genuen sartzeko baimena, bihotza nahigabetzeko adina denbora besterik ez...

¹⁶⁴ Adierazpen berbera TO 15, 9an eta TG 141, 1^a.an. Ik. B Esk., 2ⁱ; TO 45, 3; DSA 8, 6^a, 6ⁱ: «*nire Maitasun bakarra*»; TG 98ⁱ; 109^a: «*Maite Kuttun bakarra*», TG 261, 1ⁱ: «*Altxor bakarra*».

¹⁶⁵ Teresak *Réflexion*-en olerki bat aipatzen du, huts bat sartzen duelarik; izan ere, olerki hori Lamartine-rena da eta Martin jaunari eder zitzaion errezitatzea: «Denbora zure untzia da eta ez zure egoitza» (ik. baita CG, 273. or. ere).

¹⁶⁶ 1886/10/15.

Horregatik, egiaz Maria baizik ez nuen nik; hura, nolabait esateko, ezinbestekoa zen niretzat. Nik ez nizkion hari baizik beste inori esaten neure eskrupuluak; eta hain esanekoa nintzen, non nire aitor-entzuleak ez baitzuen sekula jakin nire gaixotasun itsusiaren berri. Nik Mariak aitortzen uzten zidan bekatu-kopurua agertzen nion zehazki, bat ere ez gehiago; horrela, guztiz eskrupulutsua nintzen arren, munduan denik eta arimarik lasaiantzat pasa nintekeen... Mariak, bada, bazekien nire ariman zer gertatzen zen, ezagun zitzaion Karmelen sartzeko nire guraria ere, eta hain maite nuen, non ezin bainuen hura gabe bizi. Nire izebak urtero gonbidatzen gintuzten, txandaka, Trouville-ko bere etxera etortzera. Nik oso gogoko izango nuen joatea, baina Mariarekin! Hura ez neukanean, zeharo aspertzen nintzen.

Behin, hala ere, gustura ibili nintzen Trouville-n¹⁶⁷; aitak Konstantinoplarako bidaiara egin zuen urtean izan zen. Pixka bat poztearren (aita hain urrun zela jakiteak nahigabe handia ematen baitzigun), Mariak kostaldean hamabost egun pasatzera bidali gintuzten Zelina eta biok. Ederki jostatu nintzen, neure Zelina lagun nuelako. Nire izebak era guztitako dibertimenduak eskeintzen zizkigun: ibilaldiak asto gainean, akula-arrantza, etab... Oraindik oso ume nintzen, [42^a] hamabi urte eta erdi banituen ere. Gogoan dut zein pozik egoten nintzen neure izebak ileetarako eman zizkidan zeru koloreko zinta urdin politak ipintzean; gogoratzen naiz aitortu ere egin nuela Trouville-n bekatutzat neukan haur-atsegin hau...

Arratsalde batean harriturik utzi ninduen esperientzia bat izan nuen. –Maria (Guérin), ia beti minez egoten zena, *zotinka aritzen zen* sarri; orduan nire izebak xerak egiten zizkion, hitzik samurrenak esanez, eta nire lehengusinatxo maiteak, hala ere, negarmuxin artean, burukomina zuela eta kexaz jarraitzen zuen. Nik, ia egunero neuk ere burukomina izan eta kexatzen ez nintzen honek, Mariaren antzera egin nahi izan nuen arratsalde batean. Negarmuxinka hasi beharra izan nuen besaulki baten gainean, areto-bazter batean. Berehala hurbildu zitzaizkidan arretaz Joana eta nire izeba, zer nuen galdetuz. Nik Mariak bezala erantzun nuen: “Burukomina dut”. Dirudienez, kexatzea ez zen nire zera, inola ere ez bainuen lortu burukomina eragiten zidala negarra haiei sinestarazterik. Xerak egin beharrean, pertsona heldu bati bezala hitz egin zidaten, eta Joanak izebarekiko konfiantzarik eza bota zidan aurpegira, hark kontzientziako kez karen bat nuela uste baitzuen... Azken batez, neure gastuekin libre irten nintzen, inor imitatzen ez aritzeko asmo etsi-etsia harturik, eta ongi ulertu nuen “Astoaren eta txakurtxoaren” alegia¹⁶⁸. Ni *astoa nintzen*, eta *txakurtxoari* egiten zizkioten xerak ikusirik, bere zango baldarra mahai gainean ezartzera zihoan, bere laztanen partea hartzeko. Baina, ai! abere errukarriak bezala makilakadarik jaso ez badut ere, jaso dut benetan merezi nuen txanpona, eta txanpon honek sendatu ninduen betiko, besteen arreta erakarri nahi izatetik. Horretan egin nuen saio bakarra garestiegi irten zitzaidan!...

Hurrengo urtean, nire amabitxi maitea joan zen urtean, nire izebak berriro deitu ninduen, baina oraingoan bakarrik; neure burua hain galdua [42¹] ikusirik, gaixotu egin nintzen bizpahiru egun barru, eta Lisieux-era eraman behar izan nin-

¹⁶⁷ 1885eko irailaren amaiera, Martin jauna Konstantinoplarako bidaiara dagoelarik (ik. Cadéot sendagilea, *Louis Martin*, 78 eta ondorengo orrialdeak).

¹⁶⁸ La Fontaine-ren alegia (IV. liburua, 5).

duiten¹⁶⁹. Nire gaixotasuna, larria izango ote zen beldur ziren, baina Buissonnets-eko etxemina baizik ez zen; oinak han jarri nitueneko sendatu nintzen... Eta haur honi kenduko zion Jainko onak bizitzari atxikitzen zion euskarri bakarra!...

Mariaren asmoaren berri jakin orduko, lurrean¹⁷⁰ gehiago atseginik ez edukitzea erabaki nuen... Ikastetxetik irten ondoren, *Paulinaren* antzinako pintura-gelan egokitu nintzen, eta neure gustura apaindu nuen. Benetako bazar bat zen, deboziozko gauzak eta bitxiak, lorategi eta txoritokia... Horrela, atzeko horman zurezko *gurutze handi* bat eta gogoko nituen marrazki batzuk nabari ziren. Beste horma batean, muselinaz eta arrosa koloreko zintaz apainduriko saskitxo bat, belar fin eta lorez beterik. Azkenik, azkenengo horman *Paulinaren* erretratua hamar urte zituela, bakar-bakarrik. Erretratu honen azpian mahai bat nuen nik eta haren gainean txori *ugari* barruan zituen *kaiola handi* bat. Hauen txorrotxio melodiatsuak durditurik uzten zien burua bisitariei, ez, ordea, hain maite zituen haien jabetxoari... “Altzari-txo zuria” ere han zegoen, eskola-liburuz, koadernoz eta abarrez beterik... Altzari honen gainean Ama Birjinaren irudi bat zegoen beti lore naturalak zituen lorontzi eta kandlekin; inguru osoan zehar santu eta santen iruditxo asko, maskorrez egingako saskitxoak, kartoi mehezko kutxatxoak, etab.!...

Azkenik, nire zintzilikako lorategia zegoen leiho aurrean; bertan zaintzen nituen lorontziak (inon direnik eta lorerik bitxienekin); loretoki bat ere banuen “neure museoaren” barnealdean, bertan nire lorerik gogokoena jartzen nuelarik... Leihoaren aurrez aurre [43^a] jarririk nire mahaia zegoen, oihal berde batez estalia, eta oihal honen gainean, erdian *hondarrezko erlojua*, san Joseren iruditxo, erloju-kutxa, lore-saskitxoak, tintontzi bat etab... Aulki *herren* batzuek eta *Paulinaren* andrakilen ohe zoragarriak osatzen zuten nire tresneria. Egia esan, teilatondo hau niretzat mundu bat zen, eta Maistre jaunak bezala, liburu bat idatz nezakeen izenburu honekin: “Ibilaldia neure gelaren inguruan”. Gogoko nuen ordu luzeak gela honetan bakarrik ematea, ikasteko eta nire begien aurrean agertzen zen ikuspegi zoragarriaz gogoetak egiteko...

Mariaren joatearen berri jakitean, nire *gelak* bere xarma guztia galdu zuen niretzat. Ez nuen aldendu nahi unetxo batez ere laster hegan egin behar zuen ahizpa maitearengandik... Zenbat pazientzi ekintza eragin ote nizkion! Haren gelako ate aurretik igarotzen nintzen *guztian*, hots egiten nion irekitzen zidan arte, eta orduan bihotz-bihotzez besarkatzen nuen. Musu-bilketa egin nahi nuen, haiek gabe egon behar nuen denbora guztirako.

Hura Karmelen sartu baino hilabete lehenago, aitak Alençon-era¹⁷¹ eraman gintuen, baina bidaia honek ez zuen lehenengoaren antzik izan, ezta hurrik eman ere. Niretzat guztia izan zen tristura eta samintasuna. Ezingo nuke esan zenbat negar egin nuen amaren hilobi gainean, berarentzat bilduak nituen nabar-loreen sorta eramatea ahaztu zitzaidalako. Benetan *guzti-guztian* aurkitzen nuen nahigabebidea! Oraingoaren alderantzizkoa zen, Jainko onak iragankor den ezergatik nahi-

¹⁶⁹ 1886ko uztailean.

¹⁷⁰ Erabaki gogoangarria, Teresaren nortasunaren erakoa (ik. TG 78ⁱ).

¹⁷¹ Egiatan, Maria irten baino egun batzuk lehenago.

gaberik ez hartzeko grazia egin baitit. Igaro den denboraz gogoratzen naizenean, eskerronez gainez egiten dit neure arimak, zeruak egin dizkidan mesedeak ikusiz. Hain aldakuntza handia gertatu da nigan, non ezagutezina bainaiz...

Egia da “neure egintzen gain nagusitasun oso-osoa izateko, haien jaun eta jabe eta ez haien menpeko¹⁷² izateko” grazia lortzeko gogoa nuela. [43ⁱ] Kristoren Antz-Bideko hitz hauek zirrara sakona egin zidaten, baina nik, nolabait esateko, erosi egin behar nuen neure gogo biziarekin grazia eskergaitz hau. Ni inoren borondatea besterik ez nuen haur bat baizik ez nintzen, horrek Alençon-eko jendeari nor-tasan ahulekoa nintzela esanarazten ziolarik... Bidaia honetan izan zen Leoniak klaratarretan¹⁷³ bere saioa egin zueneko. Ni nahigabeturik nengoen haren *ustekabeko* sartzeaz, maite-maite bainuen eta irten aurretik ez bainuen hura besarkatzerik izan.

Ez dut sekula ahaztuko aitaxo gizagaixo honen ontasun eta larritasuna, Leoniak klaratarren abitua jantzi zuela jakinarazi zigunean... Hari, guri bezala, oso harrigarri iruditu zitzaion hura, baina ez zuen ezer esaterik nahi, Maria hain nahigabetua ikusiz. Komentura eraman gintuen, eta han komentu batean sekula izan ez dudun bezalako *bihotz-larritasuna* izan nuen; hark Karmelek egiten zidanaz bestelako eragina egin zidan, hemen guztiak arima zabaltzen baitzidan... Mojak ikustea ez zitzaidan atseginago izan, eta inola ere ez nuen izan haiekin gelditzeko tentaldirik. Dena dela, Leonia gaixo hau oso eder zegoen bere jantzi berriarekin. Begietara ongi begiratzeko esan zigon, sekula gehiago ez genizkiola ikusiko eta (klaratarrek beharantz begira agertzen dira beti). Baina Jainkoa bi hilabeteko sakrifizioaz konformatu da, eta Leoniak *bere begi* urdinak, sarritan malkoz bustiak, erakutsi zizkigun berriro... Alençon-dik alde egitean, hura klaratarrekin geldituko zela uste nuen nik; horregatik, urrundu nintzen bihotza samindurik *Ilargi Erdiko* kale *tristetik*. Harrezkero hiru besterik ez ginen, eta laster utziko gintuen gure Maria maiteak ere...

Urriaren 15a izan zen banatze-eguna! Buissonnets-eko familia alai eta ugaritik azken bi alabak besterik ez ziren gelditzen... Usoek hegan egin zuten aitaren etxetik; gelditzen zirenak haien ondoren hegaldatzea nahi izango zuten, baina haien hegadak [44^a] ahulegiak ziren oraindik aireratu ahal izateko... Jainko onak, guztiatarik txikien eta ahulena beretzat nahi izanik, presa hartu zuen hari hegadak haziarazteko. Bere ontasun eta ahalmena, bitartekorik eskasena erabiliz, erakustea gogoko duen hark, Zelinari baino lehenago deitu zidan niri, ziur aski mesede hau hark nik baino gehiago merezi izan arren. Baina Jesusek bazekien zein ahula nintzen, eta horregatik gorde ninduen lehenen haitzuloan¹⁷⁴.

Maria Karmelen sartu zenean, ni oraindik oso eskrupulutsua nintzen. Haren esku neure burua uzterik gehiago ez nuenez gero, zerura jo nuen. Han goian aurrea hartu zidaten lau aingerutxoengana¹⁷⁵, arima errugabe hauek, sekula nahasmendurik

¹⁷² *Kristoren Antz-Bidea*, III, 38, 1.

¹⁷³ Kasketaldi bat izan zela-eta sartu zen Alençon-go klaratarretan 1886/10/7an; klaratarrek haren amaren lagunak ziren. Leonia abenduaren lehen irten zen.

¹⁷⁴ Teresak maite duen irudia, Kantarik ederrenak gogora ekarria, adierazpenik ederrena TO 3, 53an dagoelarik (ik. DSA 2, 5^a).

¹⁷⁵ Neba eta ahizpa txikitxoak, haurtzaroen hilak.

ez beldurrik ezagutu ez zutenez gero, lurrean sufritzen zegoen bere arrebatxo gairaz erruki izango zirela uste bainuen. Haur baten xalotasunez hitz egin nien, aditzera emanez ni etxeko seina izanik, beti izan nintzela kutunena, neure ahizpen aldetik samurtasunik handienaz hartua, eta beraiek lurrean geratu izan balira ere, emango zidatela, ezbairik gabe, maitasun-erakutsirik... Beraiek zerura joan izana ez zitzaidala funtsezko arrazoi iruditzen nitaz ahazteko; bestera baizik: jainko-ondasunak erabiltzeko aukera izanik, handik hartu behar luketela niretzako *bakea*, eta horrela erakutsi niri zeruan ere badakitela maitatzen¹⁷⁶!... Erantzuna luzagabe etorri zen. Laster bakeak bere uhin gozoz gainezkatu zuen nire arima, eta lurrean maitatua banintzen zeruan ere banintzela ulertu nuen... Une hartatik, nire nebatxo eta ahizpatxoenganako debozioa gehituz joan zen, eta gaur egun eder zait haiekin solasean maiz gortzea, erbesteko tristuz... aberrian beraiekin elkartzera laster¹⁷⁷ joateko dudan gogoaz hitz egin...!

Zeruak graziaz betetzen baninduen, ez zen merezi nuelako, oraindik inperfektuegia nintzen. Egia esan, bertuteetan aurrera egiteko [44ⁱ] gogo bizia nuen, baina horretarako era bitxia erabiltzen nuen. Hona hemen adibide bat. Ni azkena izanik, ez nengoen neure buruz baliatzen ohituta. Zelinak atontzen zuen biok batera lo egiten genueneko gela, eta nik ez nuen etxeko lanik egiten. Maria Karmelen sartu ondoren, Jainko onari poz ematearren, ohea egiten saiatzen nintzen; edota, Zelina ez zegoenean, gauz haren lorontziak sartzeko lana hartzen nuen. Esan dudanez, nik gauza hauek *Jainkoogatik* egiten nituen *soilik*, beraz, ez nuen zertan itxaron sorkarien eskerronik. Baina, ai! Oso bestera gertatzen zen. Zoritxarrez, Zelina nire zerbitzu txikiengatik alai eta harriturik agertzen ez bazen, ez nuen izaten pozik, eta neure malkoekin jakinarazten nion...

Benetan, jasezineko egiten ninduen neure sentiberatasun gehiegizkoak. Honela, nahi ez dudala, maite nuen pertsonaren bati nahigabe txikiren bat ematen banion, neure buruari kontra egin eta *negarrari* eutsi beharrean, negar batean hasten nintzen Madalena bat bezala, horrek nire akatsa txikitu ordeztu egiten zuelarik, eta gertatutakoaz asaskatzen hasten nintzenez, *negar egin nuelako* egiten nuen negar... Alferrik ziren argudio guztiak, eta ez nuen akats itsusi hau gainditzea lortzen. Ez dakit nola merezi nezakeen Karmelen sartzeko pentsamendua, oraindik *hautzaroko oihaletan* egonik¹⁷⁸!... Beharrezko zen Jainko onak mirari txiki bat egin zezan ni une batean *haziarazteko*; eta mirari hau Gabon egun¹⁷⁹ ahaztezinokoa egin zuen. Hirutasun Santuaren¹⁸⁰ poza argitzen den *gau* dirdiratsu honetan,

¹⁷⁶ Teresaren itxaropena eta fedea; hortxe oinarritzen da «(bere) zerua lurrean on egiten igarotzeko zuen gogoa» (KH 17. VII). lk. B Esk., 2^o.

¹⁷⁷ Teresak gogokoaren dituen hitzetariko bat (218 aldiz Idatzietan). Zerura joateko egonezinarren *bientôt* hau garai guztietan aurkitzen da gutunetan bezala olerkietan (TG 71; 72; 82; 85; 94; 95; 101; TO 22, 13; A Esk., 4^a, 50^a, 73^a, 77^a; B Esk., 2^a; C Esk., 4^a; etab.).

¹⁷⁸ Joan Gurutzekoaren esaera, *Gau ilunaren* I.lib., 12. kapituluaren.

¹⁷⁹ 1886/12/24tik (ostiraletik) 25era (launbatera) bitarteko gaua, Paul Claudel «Jaunagana bihurtu» zen eguna, eta Charles de Foucauld-en «lehenengo Gabon kristauak».

¹⁸⁰ TG 201, 2^a.an, Teresa are garbiagoa da, A Esk.aren hitz batzuk zehatz-mehatz jasotzen baditu ere.

- Sal 138,12 Jesusek, ordubeteko haurtxo *eztiak*, nire arimako gaua argi-uholde bihurtu zuen... Nireganako maitasunez hura *ahul* eta jasankor egin zen *gau* honetan, ni *sendo* eta Ef 6,11 kementsu bihurtu ninduen. Bere armaz¹⁸¹ jantzi ninduen, eta gau bedeinkatu hone-
tik aurrera ez nintzen sekula menderatua izan inolako borrokatan, bestera baizik: garaipenik garaipen¹⁸² joan nintzen, eta, nolabait esateko, "erraldoi baten lasterke-
ta¹⁸³ hasi nuen!..." [45^a] Nire negar-iturria agortua zen, eta aurrerantzean ez zen Sal 18,6 ireki gutxitan eta nekez baizik, behin esan zizkidaten hitz hauek zuzenak direla erakutsiz: "Zeure haurtzaroan hainbeste negar egiten duzu eta, geroago malkorik ere ez duzu izango isurtzeko!..."

Sal 23,8 1886ko abenduaren 25a izan zen haurtzarotik irteteko grazia jaso nuen eguna; hitz batean, neure konbertsio osoaren eguna. Gauerdiko mezatik gentozen, bertan Jainko *indartsu* eta *ahaltsua* hartzeko zoriona izan nuelarik. Buissonnets-era iristen, neure zapatak jasotzera tximiniara joateko poza dastatzen hasi nintzen. Ohitura zahar honek haurtzaroan eman ohi zigun poza hain handia izanik, Zelinak ni haur bat bezala tratatzen jarraitzea nahi zuen, etxeko txikiena bainintzen... Aita zoriontsu zen nire poza ikustean, ezusteko bakoitza neure *zapata sorginduetatik* ateraz nire pozezko oihuak entzutean, eta nire errege maitearen pozak askoz handiago egiten zuen nire zoriona.

Baina Jesusek, haurtzaroko akatsetatik aske gelditu behar nuela adierazi nahirik, poztasun kaltegabeak ere kendu zizkidan. Hark nahi izan zuen aitak, gauerdiko meزاز nekaturik, tximinian jarritako nire zapatak ikustean gogait egitea eta bihotza erdibitu zidaten hitz hauek esatea: "tira, zorionez, azkenengo urtea da!..." Ni une hartantxe nindoan eskaileratan gora neure kapela uztera. Zelinak, nire sentikortasuna ezagutuz eta nire begietan malkoak diz-diz ikusiz, berak ere negar egiteko gogoia izan zuen, oso maita ninduelako eta nire penaz ohartzen zelako: "Oi, Teresa, esan zidan, ez zaitez jaitsi, nahigabe handia emango dizu berehala zeure zapatak begiratz-
tzeak!" Baina Teresa ez zen lehengoa; Jesusek aldatu egin zuen haren bihotza! Neure malkoak ezkutatzuz, eta neure bihotz-taupadak baretuz, jaso nituen zapatak eta aitaren aurrean jarriz, *pozarren* gauza guztiak ateraz joan nintzen erreginaren taxu zoriontsuaz. Aitak barre egiten zuen, umore onera etorri zen berriro, eta Zeli-
nak *ametsetan ari zela*¹⁸⁴ uste zuen!... Zorionez, egia gozua zen: Teresatxok lau urte eta erdi zituela galdu zuen bere arimako kemena berriro aurkitu zuen, eta honezke-
ro ez zuen gehiago galduko!...

- Lk 5,4-10 [45ⁱ] *Gau argitsu* honetan hasi zen nire bizitzako hirugarren aroa¹⁸⁵, guztieta-
rik ederrena, zeruko graziaz beteena... Nik hamar urtean egitea lortu ez nuena, Jesu-
sek bat-batean egin du, sekula falta izan ez zaidan neure *borondate onarekin* kon-
formatuz. Nik haren apostoluek bezala esan niezaiokeen: "Jauna, gau osoan jardun
dut arrantzan ezer harrapatu gabe". Nirekin bere ikasleekin baino ere errukitsuago

¹⁸¹ Ik. TO 18, 19 eta TO 48, 1.

¹⁸² Ik. KH 8. VIII. 3.; hemen Teresak «*Gabon-gau hartan egin nuen balio handiko egintza*» gogo-
ratzen du.

¹⁸³ Eguzkiaren irudi hau dagoeneko Teresak erabilia du, baina Jesusi ezarrita, TG 141, 2^a.an.

¹⁸⁴ Ik. Zelinaren lekukotasunak (PO, 269. or.; PA, 258. or.).

¹⁸⁵ Ik. *supra*, 9. oharra.

izanez, Jesusek *berak hartu zuen* sarea, bota, eta arrainez beterik atera zuen... *Arimen* arrantzale egin ninduen. Bekatarien konbertsioan lan egiteko gogo bizia izan nuen, hain biziki inoiz izan ez dudana bezalako gogoa... Hitz batean, neure bihotzean *karitatea* somatu nuen, neure buruaz ahaztu beharra besteei poza ematearren¹⁸⁶. Harrezkero zoriontsu izan nintzen!...

Igande batean¹⁸⁷, gure Jauna gurutzean agertzen zuen estanpa bat begiratu, hunkiturik gelditu nintzen jainkozko esku batetik zerion odolagatik. Pena ikaragarria hartu nuen, hura jasotzen inor lehiatu gabe lurrera isuriko zela pentsatuz; eta bihotzez gurutzearen oinetan irauteko erabakia hartu nuen, hari tantaka zerion jainko-ihintza¹⁸⁸ jasotzeko, gero arimen gainera isuri beharko nuelakoan. Jesusen gurutzeko oihuak ere etengabeko oihartzuna zuen nire bihotzean: "*Egarri naiz*¹⁸⁹!" Hitz hauek gar ezezagun eta bizi-bizia pizten zuten niregan... Neure Maiteari edaten eman nahi nion, eta nik neuk ere *arimen egarriz* kiskalia somatzen nuen neure burua... Oraindik ez ziren apaizen arimak¹⁹⁰ ni erakartzen nindutenak, *bekatari handienak* baizik; betiko sugarretatik haiek ateratzeko irrikaz kiskaltzen nengoen...

Jn 19,28

Nire garra indartzeko, Jainko onak nire gurariak atsegin zitzaizkiola erakutsi zidan. – Bere krimen ikaragarriengatik¹⁹¹ heriotzara kondenatu berria zen gaizkile handi batez hitz egiten entzun nuen. Damugabe hilko zela zirudien itxura guztien arabera. Nik, kosta ahala kosta, hura infernuan¹⁹² erortzea eragotzi nahi nuen. Hori lortzeko pentsa daitezkeen bitarteko guztiak erabili nituen: neurez ezin izango nuela ezer konturaturik, gure Jaunaren merezimendu neurrigabeak¹⁹³, Eliza santuaren ondasunak eskaini nizkion [46^a] Jainko onari; azkenik, meza bat nire asmoetarako emanarazteko eskatu nion Zelinari, ez bainintzen ausartzen neuk zuzenki agintzen, Pranzini gaizkile handiagatik zela agertu beharra izango ote nuen beldurrez. Zelinari ere ez nion esan nahi; baina hark hain galdera samur eta estuak egin zizkidan eta agertu egin nion neure isilpekoa. Ez zuen nire lepotik barrerik egin,

¹⁸⁶ Gai Teresiar nagusienetarikoa; ik. C Esk., 3^a, 26. oharra.

¹⁸⁷ 1887ko uztailean, *Azken elkarrizketak* arabera. Müller-en Jesus gurutziltzatuaren irudia (ik. DLTH, 77. or.; DE, 511. or.; VT, 77. zk.).

¹⁸⁸ Teresaren luman berrogeita hamar aldiz azaltzen da *ihintza* berba; eta elkarrekin lotzen ditu zalantzarik gabe *ihintzaren*, *arrosaren* (haren lorea) eta *odolaren* ideiak, *malkoak* ahaztu gabe (ik. A Esk., 71^a).

¹⁸⁹ Jesusen egarriak eta isuria izan den haren odolak "*arima-egarría*", "*haien mantxak garbitzeko*" gogoa piztuko dute Teresarengan, ekintzarik ausartenei eta ondorengo orrialdeetan kontaktzen dituen pentsamendurik gartsuenei bide ematen dielarik (ik. *infra*, 46^a).

¹⁹⁰ Ik. *infra*, 56^a, 69^a.

¹⁹¹ Henri Pranzinik, hogeita hamaika urtekoa zenak, bi andrazkori eta neskatila gazte bati lepoa moztu zien lapurtzeko, 1887/3/17an, Parisen. Beraren auzibidea 1887/7/13an amaitu zen, eta hiltzeko kondenatua izan zen, eta 8/31n moztu zioten lepoa. - Ageri denez, Teresak, A Esk.an ez dio beti segitzen kronologiari; Pranziniren alde burutu zuen ekintza Teresak bere aitari Karmelen sartzeko baimena eskatu eta bi hilabetera gertatu zen (50^a/).

¹⁹² Teresak oso nekez aipatzen du infernua, ondoko hauetan izan ezik: DSA 7. Ik. A Esk., 5^a, 45^a (hemen), 52^a; TG 43A^a; 43B, 2^a; 245^a; TO 48, 4; DSA 1, 6^a; DSA 7; KH 14. VII. 2.

¹⁹³ Mugimendu izugarria da hamalau urteko gaztetxo honena, «*gure Jaunaren merezimendu neurrigabeak*» eskaintzen baititu (ik. TG 129^a; Otoi. 6, 16). Teresak gogoko du Jesusen merezimenduen *mugagabetasuna* azpimarratzea. Ik. baita Otoi. 7, 10, 13; A Esk., 32^a.

ezta hurrik eman ere, bestera baizik: erregu egin zidan *neure bekatariaren* konbertsioan laguntzen utz niezaiola. Eskerronez onartu nuen, errudunaren grazia eskatze-ko sorkari guztiak nirekin elkartzea nahi bainuen. Nik *neure barne-barnean* gure gurariak beteak izango ziren *ziurtasuna* nuen. Baina bekatarien alde otoitz egiten jarraitzeko adorea eman diezadan, Jainko onari esan nion ni ziur nengoela Pranzini gizagaixo eta zorigaitzekoari barkatuko ziola; hala sinestuko nuela *aitortuko ez balitz eta inolako damu-agerpenik* emango ez balu ere; hainbestekoa zen, izan ere, Jesusen erruki neurrigabea nuen konfiantza! Baina, *neure pozerako soilik*, damutasunezko “*seinale bat*” eskatzen niola...

Nire otoitza hitzez hitz onartua izan zen. Aitak egunkariak irakurtzea debekatu zigun arren, ez nuen uste agindua hausten nuenik Pranzini-ri buruz hitz egiten zuten pasarteak irakurtzeaz. Haren hiltzearen biharamunean “*La Croix*”¹⁹⁴ egunkaria izan nuen esku artean. Lehiatsu zabaldu nuen, eta zer ikusten dudana!... Ai! Malkoek salatzen zuten nire zirrara, eta ezkutatu egin nintzen... Pranzini ez zen aitortu. Urkaberera igo eta zulo negargarrian burua noiz sartuko zegoela, bat-batean, ezusteko goiargi batek eraginda, itzuli zen, apaizak eskaintzen zion *gurutzea* hartu¹⁹⁵, eta *hiru aldiz mun egin zien haren zauri sakratuei!*... Gero, haren arimak hegan egin zuen, zeruan poz handiagoa izango zela damutzen den bekatari bakar bategatik, damu beharrik ez duten 99gatik baino, esan zuen haren epai errukitsua¹⁹⁶ hartzera!...

Lk 15,7

Lortua nuen eskatutako “*seinalea*”, eta *seinale* hau Jesusek bekatarien alde erregutzera eragiteko egin zizkidan grazien berregintza [46¹] garbia zen. Ez ote zen sortu nire bihotzean arimen egarria *Jesusen zaurien* aurrean, haren jainkozko *odola* isurtzen ikusiz? Nik euren lohietatik garbitu behar zituen *odol orbangabe* hau eman nahi nien edaten, eta “*nire lehenengo semearen*” ezpaineak bat egin zuten zauri sakratuekin!!!... Hau erantzun gozo adierazgaitza!... Ai! Grazia berdingabe hau hartu nuenez gero, arimak salbatzeko nire irrika egunetik egunera bizituz zihoan. Iruditzen zitzaidan Samaritar emakumeari bezala esaten entzuten niola Jesusi: “*Emaidazu edaten!*” Benetako maitasun-trukea zen: Arimei nik ematen nien Jesusen *odola*, eta Jesusi arima hauexek eskaintzen nizkion *jainko-ihintzez* hezeturik, eta honela egarria kentzen niola neritzon. Eta nik zenbat eta gehiago eman *edaten*, hainbat biziagoa egiten zen nire arimatxo gaixoaren egarria; eta hark bere maitasunaren edaririk atsegingarriena bezala ematen zidan egarri gartsu hau...

Jn 4,6-15

Denbora gutxian jakin zuen Jainko onak ni ateratzen, nola irten ez nekiela, bira eta bira nenbilen biribil estu hartatik. Eginarazi zidan bidea ikusita, handia da nire eskerrona. Baina aitortu beharra dut urratsik nagusiena emanik bazegoen ere, oraindik gauza asko neuzkala uzteko. Eskrupuluetatik eta gehiegizko sentiberatasu-

¹⁹⁴ 1886ko apirilaz gero, goizero iristen da *La Croix* Lisieux-era.

¹⁹⁵ Eskuak lotuta dituela, Pranzinik gurutzeari mun egitea bakarrik eskatu zuen. Ik. *La Croix*-en testuak eta espetxeko kapilauaren kontaketa, MS/NECen; PO, 387 eta ondorengo orrialdea; VT, 48. zk., 275 eta ondorengo orrialdea.

¹⁹⁶ Teresak ez zuen Pranzini ahaztu eta geroago, Karmelen, berak eskuarte batzuk zituenean Mezak ateratzen zizkion bere *seme*ari (PO, 283. or., eta CSG, 84. or.).

netik askaturik, nire izpiritua asko garatu zen¹⁹⁷. Beti izan naiz handiaren, ederraren maitale; baina garai honetan *jakin-nahi* gartsuak hartu ninduen. Nire irakasleak ematen zizkidan eskolak eta eginkizunak nahiko ez nituela, neure kontura *historia* eta *zientzietako* ikasketa bereziei ekin nien. Gainerako ikasketek ez zidaten gogoia berotzen; baina bi arlo hauek biziki erakartzen ninduten. Horrela, hilabete gutxitan aurreko ikasturteetan baino gehiago ikasi nuen. Ai, baina hau ez zen huskeria eta izpirituaren atsekabea baizik!... Maiz zetorkidan gogora *zientziei* buruz hitz egiten den Kristoren Antz-Bideko kapitulua; baina nik aurkitzen nuen aurrera egiteko bidea, ikasteko adinean izanik, ez zegoela horretan ezer txarrik [47^a] neure buruari esanez. Ez dut uste Jainko ona iraindu dudarik (astia alferrik eman izana aitortzen badut ere), ikasteko ordu jakin batzuk baizik ez baintuen hartzen; handik gora, neure jakiteko gogo biziegiari uko egitearren, ez nuen nahi izaten.

Koh 2,11

Neskatala gazteentzat adinik arriskutsuenean nengoan. Baina Jainko onak Ezechielek¹⁹⁸ bere profezietan dioena egin zuen niretzat: "Nire ondotik pasatuz, Jesusek niretzat *maitatua* izateko garaia iritsi dela ikusi du. Ezkon-hitzarmena egin zuen nirekin, eta ni *harena* egin nintzen... Nire gain zabaldu zuen bere mantua, lurrin preziatuz garbitu nau, jantzi bordatuz apaindu, lepokoak eta apaingarri estimagaitzak emanaz... Irinik garbienaz, eztiz eta olio *ugariz* elikatu nau... Orduan eder bihurtu naiz haren begietan, eta hark erregina boteretsu egin nau!..."

Ez 16,8-13

Bai, Jesusek hau guztia egin du niretzat. Nik errepika nezake idatzi berri ditudan hitzetariko bakoitza eta nire alde egin dela egiaztatu. Baina goian aipatu ditudan graziak nahiko egiaztapen dira. "*Eskubeteka*" eman didan janariaz hitz egingo dut soilik. Kristoren Antz-Bidean dagoen "irin garbiaz" elikatzen nintzen aspaldidanik. Hau izan zen on egin zidan liburu bakarra, Ebanjelioan¹⁹⁹ gorderik dauden altxorrak ez baintuen oraindik aurkitu. Buruz nekizkien neure Kristoren Antz-Bide²⁰⁰ maiteko ia kapitulu guztiak, sekula ere ez nintzen banatzen liburuxto honetatik; udan neure poltsan eraman ohi nuen, eta nere neuran neure mahukerdian; ohituratzat hartu nuen hori. Nire izebarenean gauza txantxetan hartzen zuten; batzuetan, liburu nonahi zabalduarik, aurrean agertzen zen kapitulua buruz esanarazten zidaten.

Is 45,3

Hamalau urte nituela, nire jakiteko gogoarekin, "*irin garbiari*" "*eztia eta olio franko*" gehitu beharra zegoela aurkitu zuen Jainko onak. Ezti hau eta olio hau Arminjon apaiz jaunak mundu honen azkenaz eta geroko bizitzaren misterio-

¹⁹⁷ Teresak xehetasun handiarekin azaltzen du bere izpirituaren zabaldua, Pranzini kasuak bizkortua, bat-batean heldutasuna lortuarazi baitzion, eta era berean oraindik utzi behar zuen guztiaren kontzientzia. Zuhurtasun handiz, berak ez du damurik *historia* eta *zientzia* ikasten eman duen denboragatik, *Kristoren Antz-Bidearen* oharrak gorabehera (III, 43, «Munduko zientzia hutsalaren aurka», sakrifizioa egitearren berak murrizten baitzituena ikasketarako zituen orduak (47^a). Garapenaren eta buru-uztearen mugimendu bikoitz eta azpimarragarria hamalau urteko neska batengan.

¹⁹⁸ Teresak Ezezielen aipamena hartzen du Joan Gurutzekoarengandik (CS, XXIII. ahapaldia), 334 eta ondorengo orrialdeak; ik. TO 26). Ageri denez, Teresak, bere lotsa gorabehera, ez du sekula ere agertu gabe uzten bere indar guztiaz maitasun-sentimentua, bai gizatiarra bai Jainkotiarra.

¹⁹⁹ Ik. *infra*, 83^a/.

²⁰⁰ «Berak hitzez hitz zekien Kristoren Antz-Bidea» (ahizpa Jenofa, PO, 269. or.).

ez²⁰¹ egindako hitzaldietan eman zidan. Liburu hau nire karmeldar maiteek nire aitari utzia zen; horregatik, [47¹] neure ohituraren aurka (ez bainuen aitaren liburu-rik irakurtzen), irakurtzeko baimena eskatu nuen.

Irakurtze hau ere neure bizitzan hartu dudan grazia handietariko bat izan da. Liburua neure ikasteko gelako leiho ondoan irakurri nuen, eta izan dudan barne-zirrara gozoegia da nik adierazi ahal izateko...

1 Ko 2,9 Erlijioko egia handi guztiek, betikotasuneko misterioek lur honetakoa ez den zorion batean murgildurik uzten zuten nire arima... Susmatzen nuen jadanik Jainko-ak bera maite dutenentzat gordetzen duena (ez gero giza begiz, bihotzekoaz baizik).
2 Ko 4,17 Eta ohartzuz betiko sariak bizitzako sakrifizio txikiekin ez duela zerikusirik, *maitatu* nahi nuen, Jesus *maitatu gartsu*, mila maite-erakutsi eginez, oraindik ahal nuen bitartean... Pasarte batzuk kopiatu nituen maitasun osoari buruz eta Jainko onak bere hautatuei egin behar dien harrerari buruz, *Berbera* haien sari bikain eta betikoa izango den unean²⁰². Etengabe errepikatzen nituen nik neure bihotza kiskali zuten maitasun-hitzak...

Zelina nire pentsamenduen isilmandatari kutun bihurtu zen. Gabon-gauetz geroztik elkar uler genezakeen; adinaren alderik ez zegoen jadanik, ni gorputzez²⁰³ eta, batez ere, graziaz hazi bainintzen... Garai honen aurretik Zelinaren isilpekoak ez nituela ezagutzen eta maiz kexatzen nintzen; txikiegi nintzela esaten zuen hark, bere konfiantza nigan ezartzeko "aulki bete" hazi behar nuela... Gogoko izaten nuen haren ondoan nengonean aulki eder honetara igotzea, eta bihotz-bihotzez hitz egiteko eskatzen nion; baina trikimailua alferrik zen; oraindik lehengo tarte berak banatzen gintuen.

Guk biok batera aurrera egitea nahi zuen Jesusek, gure bihotzetan odolezkoak baino lotura sendoagoak sortu zituen. *Arimaz ahizpa* egin gintuen. Guban egia bihurtu ziren San Joan Gurutzekoren²⁰⁴ kantuko hitz hauek (Senarrari hitz eginez, honela dio emazteak):

“Neska gazteak badoaz
zure atzean antxintxikari,
txinparten [48^a] ikututxoaz,
ardo gozoa edari,
jainkozko urrin onez igari”.

²⁰¹ Charles Arminjon apaiz jaunaren hitzaldiak, Chambéry-ko katedralean predikatuak, 1881. urtean, eta Teresak dioen izenburupean argitaratuak; izan ere, haren irakurgai oinarritzkoenatarikoa izan zen 1887. urteaz gero (ik. VT, 79. zk., 219 eta ondorengo orrialdea; eta 110. zk., 105 eta ondorengo orrialdeak, eta 114 eta ondorengoak). Berak hainbat pasarteri egindako aldakiak liburuki honetan daude («Bestelako idazkiak»).

²⁰² Hasiera liburuko atala, Teresak eta, gainera, Martin jaunak oso maite dutena (ik. *infra*, TG 182, 15. oharra).

²⁰³ Metro eta 62 zentimetroko garaiera izango du, eta Martindar ahizpetan garaiena izango da (ik. CSG, 39. or.).

²⁰⁴ *Kantu izpirituala*, XXV. ahapaldia; testu hau dagoeneko TG 137, 1^a.an aipaturik dago.

Bai, oso *bizkor* jarraitzen genituen Jesusen oinatzak; hark gure arimetan esku-beteka ereiten zituen maitasun-txingarrek, edatera ematen zigun ardo gozo eta sendoak gure begien aurretik gauza iheskorrek ezabarazten zituzten, eta gure ezpainetatik berak iradokitako maitasun-hasperenak sortzen ziren. Bai gozoak zirela begiralekuan²⁰⁵ izaten genituen solasaldiak! Begirada urrutian galdurik, ilargi zuria zuhaitzen atzetik emeki jaikiz ikusten genuen..., lotan zen izadiaren gainean isurtzen zituen zilarrezko printzak..., izar distiratsuak urdin sakonean ñirñirka..., arratseko haizetxoaren bafada arina elur-hodeei kulunka eraginez. Guztiak goratzen zituen gure arimak zerura, oraindik “*alderantzi garbia*”²⁰⁶ baizik ikusten ez genion zeru ederrera...

Ez dakit oker nagoen, baina gure arimen asaskaldia Santa Monikak bere seme-arekin²⁰⁷ zuenaren antzekoa zen, Ostiako portuan biak Kreatzailearen gauza miresgarrien aurrean liluraturik gelditzen zirenean... Uste dut santu handiei ematen zitzaizkien bezalako grazia gorenak hartzen genituela. Kristoren Antz-Bideak dioenez, Jainko ona batzuetan argitasun bizia lagun duela agertzen da, edota “itzal eta irudipean leunki estalia”²⁰⁸. Gure arimetara era honetara agertzea nahi izaten zuen, baina bai *garden* eta *arina* zela Jesus gure begiradetatik gordetzen zuen estalkia!²⁰⁹... Ez dago zalantzarik izaterik. Sinesmena eta itxaropena honezkero ez ziren beharrezko²¹⁰. *Maitasunak* aurkiarazten zigun lurrean bilatzen genuen Hura. “Bakarrik aurkiturik, musua eman digu, aurrerantzean inork arbuia ez gaitzan”.

Kt 8,1

Hain grazia handiek ez zuten fruiturik gabe gelditu behar, eta ugariak izan ziren hauek. Bertuteen praktika gozo eta berezko egin zitzaigun. Hasieran, nire aurpegiak salatzen zuen maiz borroka; baina apurka-apurka inpresio hori ezabatu zen, eta erraz egin zitzaidan, lehenengo unetik ere, neure buruari uko egitea. Jesusek esan zuen: “Duenari [48ⁱ] gehiago emango zaio, eta gainezka izango du”. Leialki hartutako grazia bategatik, Hark grazia berri ugari ematen zizkidan... Hark bere burua eskeintzen zidan komunio santuan ni neu itxaroten ausartzen nintzen baino sarriago. Jokaera-arautzat hartua nuen, behin ere hutsik egin gabe, aitor-entzuleak uzten zidan guztian Jaunartzea, zenbat aldiz hartuko nuen haren esku utziz, neuk behin ere eskatu gabe. Ez nuen orduan orain dudan *ausardiarik*; beste era batera jokatuko nuen bestela, guztiz jabeturik bainago pertsonak agertu egin behar diola bere aitor-entzuleari bere Jainkoa hartzeko duen gogoia. Jesus ez da *egunero* jaisten zerutik²¹¹ urrezko kopoian gelditzeko, lehengoa baino askoz ere maiteago duen

Mt 13,13;
25,29

Has 1,26-27

²⁰⁵ Begiratokiko elkarrizketa izpiritualei buruz, ik. Zelinaren kontaketa: PO, 269. or.; bai eta CSG, 18. or. ere; A Esk., 73ⁱ.

²⁰⁶ Alfred Besse de Larzes-en olerki baten aipamena, *L'envers du ciel*-ena; olerki hori Teresak kopiatua zuen artean eskola-umea zelarik.

²⁰⁷ Konparazio ausarta, jatorria *Fabiolan* duena; hori Wiseman kardinalaren eleberria izan zen (ik. VT, 71. zk., 230-240. orr.).

²⁰⁸ *Kristoren Antz-Bidea*, III, 43, 4.

²⁰⁹ Erkatu C Esk.aren 7ⁱ.arekin.

²¹⁰ Zalantzarik gabe, 1 Ko-ren 13aren oihartzuna.

²¹¹ Teresak Jauna sarritan hartzeko nahiarekin jarraitzen du (ik. 36^a), ahal balitz egunean-egunean; heriotz ondoren berak lortuko die grazia hori bere ahizpei (ik. PO, 249. or.; PA, 156 eta 232. orr.; eta *Prièresen*, 95 eta ondorengo orrialdean Otoi. 6, 31-34aren gainean dagoen ohar garrantzitsua.

1 Ko 3,16 beste zeru bat aurkitzeko baizik: gure arimako zerua, bere irudira egina, Hirutasun gurgarriaren eliza bizia!...

Nire gogoia eta nire bihotzaren asmo ona ikusten zuen Jesusek ontzat eman zuen nire aitor-entzuleak maiatzeko hilean astero lau aldiz niri jaunartzeko agintzea; eta hilabete eder hau igaro ondoren, oraindik bostera gehitu zuen, hau da, jaiaren bat egokitzen zen gutzian. Aitorlekutik alde egitean, malko oso gozoak zerizkien nire begiei. Jesus bera zela neritzon niregana etortzea nahi zuena, aitortzen oso denbora gutxi ematen bainuen, neure barruko sentimenduez hitzik ere esan gabe. Ni nindoan bidea hain zen zuzen eta argitsua, non ez bainuen beste gidaririk behar Jesus izan ezik... Zuzendariak Jesus arimetan agertzen zuten ispilu ziurrekin konparatzen nituen nik, eta esaten nuen niretzat Jainko onak ez zuela bitartekorik erabiltzen, berak zuzen-zuzenean jokatu baizik!

Lk 10,21 Baratzain batek bere sasoia baino lehenago zoritzea nahi duen fruta arretaz zaintzen duenean, ez du hori egiten arbolan zintzilik uzteko, oso apain zerbitzaturik mahai batean agertzeko baizik. Horren antzeko asmoekin [49^a] betetzen zuen Jesusek graziaz bere loretxoa... Bere bizitza hilkorreko egunetan, pozez beterik, "Gores-ten zaitut, ene Aita, gauza hauek jakintsu eta ikasiei ezkutatu dizkiezulako eta jende xumeari agertu" esan zuenak nigan bere errukia distiratsu ager zedila nahi zuen. Ni txikia eta ahula nintzelako, hura nireganaino jaisten zen, ezkutuan bere *maitasunaren gauzetan* eskolatzen ninduen. Ai! Jakintsuak, euren bizitza ikasten eman ondoren, niri galdetzera etorri balira²¹², benetan txunditurik geldituko ziratekeen hamalau urteko haur batek nola ulertzen dituen perfekzioaren ezkutua ikusirik, beraiei zientziak agertu ezin dizkien ezkutua, horren jabe izateko gogoz behartsu izan behar baita!...

Mt 5,3

San Joan Gurutzekok bere kantuan dioenez:

"Ez argi ez gidari
bihotza sutan zeukana baizik.
Gau honek gida nindun
eguerdi-argiak baino hobeki,
jakin ere nik ongi
nekien Harengana"²¹³.

Toki hau Karmel zen. "Maite nuen haren itzalpean atsedean hartu orduko", nik proba ugari igaro behar nituen; baina Jainkoaren deia hain berantezina izanik, *sugar*²¹⁴ *artetik igaro* behar banu ere, hala egingo nukeen Jesusekin leial izatearren... *Arima bat baizik* ez nuen aurkitu neure bokazioan adore emango zidanik, eta hau neure *Paulina maitearena* izan zen... Nire bihotzak oihartzun leiala aurkitu zuen harenean; hura gabe ni ez nintzen iritsiko, ziur aski, bost urte lehenago ihintz zerutiarrez bustitako lurtean hura hartu zuen erribera bedeinkatura...

²¹² Lk 2, 46-47ren kutsua?

²¹³ Joan Gurutzekoa, *Gau iluna*, 3 eta 4. ahapaldiak; ik. CT, VTn, 78. zk., 152. or.

²¹⁴ Ik. Arminjon, «Du Purgatoire» kapitulua. *Garrak* Teresarentzat fede eta maitasuna labor biltzen ditu (hogeita lau aldiz erabiltzen da haren olerkietan, hamahiru DSA; ik. C Esk., 36^a).

Bai, bost urte zuregandik urrundurik egon ondoren, *ene Ama maite*, galdu zintudala uste nuen nik, baina probaren uanean zure eskua izan zen jarraitu behar nuen bidea erakutsi zidana... Behar-behar nuen nik poztasun hau, Karmelera egiten nituen bisitaldiak geroago eta nekagarriago gertatzen zitzaizkidan eta; ezin nuen neure sartzeko gogoaz hitz egin, ukapena jaso gabe. Mariak, gazteegi aurkiturik, ekinahalak egin zituen sartzea niri eragozteko. Zuk zeuk ere, ene Ama, ni probatzearren, nire garra [49ⁱ] moteltzen saiatzen zinen batzuetan. Beraz, nik benetan bokaziorik izan ez banu, lehen-lehenik atzeratuko nintzatekeen, Jesusen deiari erantzuten hasi nintzeneko oztopoak aurkitu bainituen.

Ez nion Zelinari agertu Karmelen hain gazterik sartzeko nuen gogoia, eta honek gehiago sufriarazi zidan, oso zail gertatzen baitzitzaidan hari esan gabe ezer uztea... Sufrimendu honek ez zuen asko iraun. Laster jakin zuen nire ahizpatxo maiteak nire erabakia²¹⁵, eta asmoa burutik kenarazi beharrean, ausardia harrigarri onartu zuen Jainko onak eskatzen zion sakrifizioa. Sakrifizio hau zein handia zen ulertzeko, zenbateraino geunden gu biok bat eginik jakin behar zen... Arima bera zen, nolabait esateko, biziarazten gintuena. Elkarrekin gozatzen genuen, hilabete batzuetatik honantz, neskaitila batzuek amets egin dezaketen bizitarik gozoena. Gure inguruan guztia zetorkigun geure gogoen arabera. Askatasunik handiena eman ziguten. Hitz batez, gure bizitza lurreko *zorionaren eredu*²¹⁶ zela esaten nuen nik... *Zorionaren eredu* hau gozatzen hasteko astirik ez genuen izan, bertatik askatasunez alde egin beharra izan zenean, eta unetxo batez ere ez zen asaldatu nire Zelina maitea. Hala ere, ez zen izan bera Jesusek lehenen deitu zuena; bazuen, beraz, zertaz kexatu...: Hark nire bokazio bera izanik, berari zegokion aurretik!... Baina martirien garaian kartzelan gelditzen zirenak hondarreen borroka egitera abiatzen ziren neba-arrebei poz-pezik bakezko laztana eman eta beraiek, agian, borroka latzagoetarako izango zirela pentsatuz asaskatzen ziren bezala, *Zelinak* ere bere Teresa urruntzen ikusi zuen, eta bakarrik gelditu zen, Jesusek, bere *maite kutun* gisa, harentzat zeukan borroka aintzatsu eta odoltsurako.

Zelina, ba, nire borroka eta sufrimenduen isilmandatari bihurtu zen. Hark bere bokazioa izan balitz bezala hartu zuen parte haietan. Haren aldetik ez nuen inolako eragozpenen beldurrik izan behar. Baina nik ez nekien ze bitarteko erabili aitari jakinarazteko... Nola hitz egin bere erreginaregandik banatzeaz, bere hiru alaba nagusien²¹⁷ sakrifizioa egina zuen hari?... Ai! Zenbat barne-borroka jasan ditudan, [50^a] hitz egiteko ausardiaz neure burua ikusi arte!... Hala ere, erabakia hartu behar nuen. Hamalau urte t'erdi beteko nituen laster. Bakarrik... sei hilabete falta ziren

²¹⁵ Zelinak oso azalpen jakingarriak erantsi zituen Teresaren arrazoen gainean, batez ere haren misio-bokazio goiztiararen gainean (ik. PO, 269 eta ondorengo orrialdea, eta PA, 263. or.).

²¹⁶ Ik. 48^a, 82^a.

²¹⁷ Maria, Paulina eta Leonia; izan ere, azken horrek Caen-go Bisitazioan sartzeko zuen nahia azaldu berri zuen, eta horixe egingo zuen 1887/7/16an; maiatzaren 29an (Mendekoste egunean) hitz egin zion Teresak bere aitari.

oraindik *Gabon-gau* ederra²¹⁸ iristeko; hura zen nik sartzea erabaki nuen unea, aurreko urtean "neure grazia" hartu nuen ordu berberean.

Mendekoste eguna hautatu nuen aitari neure isileko handia agertzeko. Egun osoan zehar erregutu nien apostolu santuei nire alde otoitz egiteko, esango nizkion hitzak burura ekartzeko... Eurak ez ote ziren, izan ere, haur beldurtiari, Jainkoak otoitz eta sakrifizioaren bidez apostoluen apostulu²¹⁹ izateko izendaturik zuenari lagundu behar ziotenak?... Arratsaldean aurkitu nuen, bezperetatik itzultzean, neure aitaxo maiteari hitz egiteko abagunea. Hura patin ertzean esertzera joan zen, eta han, eskuak bildurik, izadiko gauza harrigarriei begira zegoen; bere izpien indarra galdua zuen eguzkiak zuhaitz-tantaien goiak urrez janzen zituen, txoritxoek haietan alaiki arratsaldeko otoitza kantatuz. Aitaren irudi ederrak jas zerutiarra zuen. Nik haren bihotza bakez beterik somatzen nuen. Hitzik esan gabe, haren ondoan eseri nintzen, begiak malkoz bustirik. Samurki begiratu zidan, eta nire burua hartuz, bere bihotzean etzan zuen esanez: "Zer duzu, ene erreginatxo horrek?... Esaidazu..." Gero, jaikiz bere zirrara ezkutatu nahirik-edo, ibiltzen hasi zen astiro-astiro, nire burua beti ere bere bihotz ondoan zuela. Neure negar-malkoen bidez Karmelen sartzeko neure gogoia adierazi nion. Orduan haren malkoak nireekin nahasi ziren; baina ez zuen esan niri neure bokazioan atzera eragiteko hitzik; halako erabaki larria hartzeko ni gazteegia nintzela oharrarazi zidan soilik. Baina nik hain gartsu eutsi nion neureari, non aita bere izaera lau eta zuzenarekin, laster jabetu baitzen²²⁰ nire gogoia Jainko onarena ere bazela; eta bere fede sakonean leial, Jainko onak bere alabak honela eskatzean ohore handia egiten ziola esan zuen. Luzaro jarraitu genuen ibiltzen. Nire bihotza, aita berdingabeak haren isilmandatua [50'] onez hartu zuelako asaskaturik, ezтики isuri zen harenean. Aitak gozatu egiten zuela zirudien sakrifizio bete-beteak ematen duen poztasun nareaz. Santu batek bezala²²¹ hitz egin zidan, eta haren hitzak gogoratzea nahi nuke nik, hementxe idazteko, baina haietatik gogoan dudan oroitzapena usain onez beteegia²²² da adierazi ahal izateko.

Gogoan ongi gordetzen dudana berak jakin gabe nire errege maiteak egin zuen ekintza *sinbolikoa* da. Goratasun handirik gabeko horma batera hurbilduz, *loretxo zuri* batzuk erakutsi zizkidan, lirioen antzekoak txikian²²³; eta lore haietariko bat hartuz, eman egin zidan, Jainko onak zein arreta handiz ernearazi zuen eta egun hartara arte iraurarazi zion azalduz. Hari hitz egiten entzunez, neure historia entzuten ari nintzela neritzon, hain antz handia zuen, izan ere, Jesusek *loretxoarekin* egin zuenak *Teresatxorekin* egin zuenarekin²²⁴... Haren eskuetatik erlikia bat bezala jaso

²¹⁸ Gabonak, haren *Jaunagana bihurtzearen* urteurrena zelako. Daten sinbolismora hain sentibera zen, Teresak erabaki honetan nolabaiteko burugogorkeria azaldu zuen, hau da, «*gauza guztietan bereaz irteteko gogoia*» (68') beharbada, nahiz eta erabakia «*Jesus Haurragandik*» datorkiola uste izan (TG 38C). - «*Haur lotsorra*»: ik. B Esk., 3ⁱ, azken lerroaldea.

²¹⁹ Ik. *infra*, 56^a.

²²⁰ Martin jaunak bere alaba gazteenaren joatea itzaroten zuen (PO, 515. or.; LD 596, CGn, 227. or.), baina kolpea gogorra izan zen, maiatzaren lein zati baten hemiplegiakin batera paralisia jo zuen gizon horrentzat.

²²¹ Ik. *Santu baten alabaren otoitza* (TO 8).

²²² Teresak maite duen adjektiboa (TG 49^a; 172, 1^a), sarritan zitori horiarekin lotzen dena (TO 3, 98; TO 24, 30; DSA 45, 1ⁱ, 2^a; DSA 5, 1ⁱ).

²²³ Saxifragak.

²²⁴ Ohiko sinbolismoa Martinen etxean; ik. LC 48, CGn, 225. or.; VT, 58. zk., 152 eta 154. orr.).

nuen loretxo hau, eta hartu nahirik, hautsi gabe, bere *sustrai* guztiakin atera zuela aitak ohartu nintzen; bere lehen goizak igaro zituen goroldio tarte biguna baino lur emankorragoan bizi izateko zela zirudien hark... Aitak lehenxeago nirekin egin zuena gauza berbera zen, Karmel mendira igotzeko eta nire bizitzako lehen urratsen lekuko izan zen ibar gozoa uzteko baimena emanez.

Neure Kristoren Antz-Bidean ezarri nuen loretxo zuria, honako izenburu hau zuen kapituluari: "Jesus gauza guztien gainetikmaite izan behar dela"²²⁵. Oraindik hantxe dago; bakarrik zurtoina eten zaiola sustraiaren ondo-ondotik, eta horrekin Jainko onak bere loretxoaren loturak laster urratuko dituela esan nahi didala dirudi, eta lurrean ihartzen ez duela utziko.

Sal 115,16

Aitaren baimena lortu ondoren, Karmelera beldur gabe hegan egin ahal izango nuela uste nuen nik. Baina ezbehar nahiko mingarriek jarriko zuten oraindik aproban nire bokazioa. Osabari adierazi nion, beldurrez dardar joan banintzen ere, hartu nuen erabakia²²⁶. Hark ahal zituen samurtasun-erakutsi guztiak egin zizkidana, hala ere ez zidan joateko baimenik eman. Bestera, debekatu egin zidan [51^a] neure bokazioaz hitz egitea hamazazpi urte bete arte. Giza zuhurtasunaren aurkakoa zela, zioen, hamabost urteko haur bati Karmelen sartzen uztea. Karmel-dar bizitza munduaren begietan filosofo-bizitza izanik, erlijioarentzat gaitz larria litzateke esperientziarik gabeko haur bati hori hartzen uztea... Zeresana sortuko lukeela jende guztiaren artean, etab.... etab... Joaten uztera jartzeko *mirari* bat beharko litzatekeela ere esan zuen. Arrazoi guztiak alfer-alferrik izango zirela konturatu nintzen; horregatik atsekabearen atsekabez bihotza hautsita alde egin nuen. Nire poztasun bakarra otoitza zen. Eskatutako *miraria* egin zezala erregutzen nion Jesusi, horrela soilik erantzungo bainion nik haren deiari. Neure osabari berriro hitz egiten ausartu orduko, hainbat denbora²²⁷ igaro zen; oso gogor egiten zitzaidan haren txera joatea. Hark berak ez zirudien nire bokazioaz gehiago pentsatzen zuenik; baina geroago jakin dut nire tristura handiak asko eragin ziola nire alderantz.

Itxaropen-izpi batek nire ariman diz-diz egin baino lehen, Jainko onak *hiru egun*²²⁸ iraun zuen sufrimendu-latza niri ematea nahi izan zuen. Oi! Sekula ez dut ulertu atsekabe hartan baino hobeki Ama Birjina eta San Joseren sufrimendua Jesus Haurraren bila zebiltzala... Basamortu triste batean nengoen, edo hobeki esan: nire arimak, lemazainik gabe olatu zakarren jostailu bertan behera utzia zen txalupa hauskor bat zirudien... Badakit Jesus han zegoela nire untzitxoan lo; baina ezinezkoa zitzaidan ikustea, hain beltza zen gaua! Ezerk ere ez ninduen argitzen; oinaztargirik ere ez zetorren hodei itzaltsuak urratuak... Zalantzarik gabe oso tristea da oinaztargiaren argitasun hau; baina gutxienez ekaitza bete-betean lehertu balitz,

Lk 2,41-50

Mk 4,37-39

²²⁵ *Kristoren Antz-Bidea*, II, 7. Berak lorea Garaipenen Andre Mariaren irudi baten gainean itsatsi zuen, eta haren atzean Teresak azken lerroak idatzi bide zituen (Otoi. 21).

²²⁶ 1887/10/8 (ik. TG 27), hortaz, berak aitarekin hitz egin zuenetik lau hilabetera. Guérinen baimena, beraren loben zaintzailea zenez gero, ezinbestekoa zen.

²²⁷ Egian, hamabost egun.

²²⁸ Proba latza izan behar Teresak irudiak horrela ugaritzeko: *gau beltza oinaztargirik* gabe, azken urteetako fedearen probaren susmo antzera (ik. TO 54, 15).

Lk 22,39-46

unetxo batez ikusi ahal izango nuen Jesus... *Gaua* zen, arimaren gau sakona... Baratzan hilaginean zegoen Jesusen antzera, nik *bakarrik* ikusten nuen neure burua, ez lurrean eta ez zeru aldean inolako pozik aurkitu gabe. Jainko onak bertan behera utzi ninduela zirudien!!!... Izadiak ere nire tristura saminarekin bat egiten zuela ematen zuen. Hiru egun hauetan eguzkiak [51¹] ez zuen piztu bere izpietariko bat ere, eta bota ahala egin zuen euria. (Nire bizitzako une larri guztietan, izadia nire arimaren irudi²²⁹ izan dela ohartu naiz. Negar-egunetan, zeruak negar zegien nirekin batera; egun pozgarrietan, eguzkiak bere izpi alaiak eurrez igortzen zituen eta urdina ez zuen hodei batek ere iluntzen...).

Azkenik, laugarren egunean, larunbata²³⁰, zeruetako Erregina eztiari eskainitako eguna egokiturik, neure osaba ikustera joan nintzen. Hura ezustekoa nirea, neuri begira eta nik inolako nahirik adierazi gabe, bere bulegoan sarrarazten ninduela ikusiz!... Itxura batean ni beraren beldur nintzela bigunki aurpegira egotziz hasi zitzaidan, eta gero *miraririk* eskatu beharrik ez zegoela esan zidan: berak "bihotz-joera xumea" eskatu ziola soilik Jainko onari, eta entzuna izan zela... Ai! Ez ninduten miraririk eskatzera zirikatu, nire iritiz *miraria* *eginik zegoen eta*²³¹; nire osaba ez zen lehengo. "Giza zuhurtasuna" ezertarako aipatu gabe, ni Jainko onak ebaki nahi zuen loretxo bat nintzela esan zidan, eta berak ez zuela gehiago eragozpenik jarriko!...

Behin-betiko erantzun hau²³² haren betekoa zen, izan ere. Hirugarrenez uzten zion beste garai bateko kristau honek bere bihotzeko alabatzako bati mundutik urrun ezkutatzera joaten. Nire izeba ere harrigarria izan zen bere samurtasun eta zuhurtasunagatik. Nire atsekabealdian ez naiz gogoratzen atsekabe hura gehitzeko hitzik bat bera ere esan zuenik; bere Teresatxo gaixoaren erruki handia zuela ikusten nuen. Horregatik, neure osabaren baimena lortu nuenean, hark berea eman zidan, baina ez nire joateak pena emango ziola mila eratarako erakutsi gabe... Ai! Gure senitartekoek ez zuten orduan susmatzen, ezta hurrik eman ere,[52^a] oraindik birritan berriztatu beharko zutela sakrifizio bera!... Baina Jainko onak eskatzen jarraitzeko *eskua* luzaturik, ez du agertzen *hutsik*; haren adiskiderik kutunenek, hain beharrezko zitzaizkien indarra eta kemena oparo aurkitu ahal izan zuten bertan...

Baina neure bihotzak kontaketa-haritik oso urruti narama eta bertara itzultzen naiz ia gogoz kontra: – Nire osabaren erantzunaren ondoren, ulertuko duzu, ene Ama, [51¹, jarraian] zein pozik hartu nuen Buissonnets-erako bidea, "*zeru ederpean*, bertako hodeiak zeharo aienatuak zirelarik"!... Nire ariman ere gaua amaitu zen. Jesusek, esnaturik, poztasuna itzuli zidan, olatuen burrunbada baretua zen. Atsekabearen haizearen ordez haize kirri leun batek harrotzen zuen nire belauntzia, eta ordurako neugandik hurbil begizatzen nuen *erribera* bedeinkatura

Mk 4,39

²²⁹ Teresaren teoria meteorologikoa, 26¹.an ezeztatua, baina berberton eta *infra* baieztatua, hala nola, 52^a, 53ⁱ, 64^a.an.

²³⁰ Larunbata, 1887/10/22. Baina Teresa ostiral goizean dator Karmelgo mintzatokira, eta gauean, ahizpa Ainesek Guérin jaunari idatzi zion (ik. CG, 251-253. orr.). Kronologia II. eskk.ko 34. or.aren arabera zuzendua.

²³¹ Teresari jarraituz, Guérin jaunaren aldaketa mirarizkoa zela pentsatu izan da; horrela Ahizpa Ainesen gutuna Teresak bere osabari bisita egin ostekoa zela uste izan da.

²³² Geroago erantsitako pasarte, 51¹ eta 52^a.aren barrenean («*ene Ama*»raino).

laster batean iritsiko nintzela uste nuen. Egon ere, nire untzitxotik oso hurbil zegoen erribera; baina oraindik *ekaitz bat baino gehiago* sortuko ziren, eta bere itsasargi distiratsua bistatik ezkutatuz, hain gartsu irrikatzen zuen hondartzatik behin-betiko aldendua ote zegoen beldurrez jarriko zuten...

Neure osabaren baimena lortu eta laster²³³, zu ikustera joan nintzen, ene Ama maite, eta nire nahigabe guztiak igaro zirelako poza adierazi nizun. Baina hura nire ezustekoa eta nire samintasuna, [52^a] Nagusiak²³⁴ ez zuela ni sartzeko baimenik ematen hogeita bat urte bete arte esaten entzun nizunean!...

Inork ez zuen pentsatu guztietan gaindiezinena izango zen era honetako eragozpenean. Hala ere, adorea galdu gabe, ni neu joan nintzen aita eta Zelinarekin gure Aitarekin egotea, nik Karmelerako benetako bokazioa nuela frogatuz hari barrua biguntzen ekinahalak ergiteko. Hotz-hotz hartu gintuen. Nire aita *berdingabeak* ederki bat egin zituen bere erreaguak nireekin; ezerk ezin izan zuen haren jarre-ara aldarazi. Luzatzeak ez zuela inolako arriskurik esan zidan, nik neure etxean bertan egin nezakeela karmeldar-bizitza, disziplinarik hartzen ez banuen ere, ez zegoe-la horratik guztia galdurik... etab..., etab... Zera gehitu zuen, azkenik: bera *Apezpikuaren ordezkoa* baizik ez zela, eta hark Karmelen sartzeko baimena eman nahi bazuen, berak ez zuela ezer esatekorik... Erretore-etxetik *malkotan* urturik irten nintzen. Zorionez, aurpegia aterkipean estalirik nuen, *euria* bota ahala baitzen. Aitak ez zekien ni nola poztu... Neure gogoia agertu orduko, Bayeux-era eramango ninduela hitz eman zidan, *neure helburuak lortzeko* asmotan tinko bainengoen. *Aita Santuarengana*²³⁵ joango nintzela esateraino ere iritsi nintzen, Apezpikuak Karmelen hamabost urtekin sartzeko baimenik eman nahi ez bazidan...

Bayeux-ko nire bidaiaren aurretik gauza asko gertatu ziren²³⁶. Azalez nire bizitzak lehengoa zirudien. Ikasten jardun nuen, marrazki-eskolak hartzen nituen Zelinarengandik²³⁷, eta nire irakasle adituak bere arterako gaitasun handia aurkitzen zuen niregan. Batez ere Jainko onaganako maitasunez haziz nindoan. Ordurarte ezezagunak zitzaizkidan eraginak somatzen nituen neure bihotzean. Batzuetan maitasunez benetan sorgorturik egoten nintzen. Gau batean, Jesusi nola adierazi ez nekien maite nuela eta bera alde guztietan maitatua eta goretzia izatea biziki nahi nuela, eta saminez pentsatzen nuen infernutik ez zuela hark sekula hartuko maitasun-egintza bat bera ere. Orduan, Jainko ona poztarren esan nion, gogoia onez utzi-ko nuela neure burua han hondoratzen, birao-toki honetan²³⁸ betiko *maitatua* izan

²³³ Benetan, biharamunean, igandean (ik. TG 28).

²³⁴ Saint-Jacques parrokiako apaiza, Joan Bautista Delatroëtte, Karmelgo bikarioa, karmeldarrek ohituraren arabera "gure aita" deitzen ziotelarik. Haren jarrera eta kontra egite luzearen arrazoiei buruz, ik. CG, 315, 318, 322, 328, 649. orr.

²³⁵ Erromarako bidaia ez zen erabaki Delatroëtte jaunaren eta Mgr Hugonin-en ezetzaren ostean (10/31), aurretik baizik (ik. CG, 251 eta 253. orr.).

²³⁶ Egun gutxi egiaz. Literatur askatasun hutsa, eta horrek bide emango dio Teresari bere bizitzaren hainbat xehetasun adierazteko, berak ez zituelako horiek baztertu nahi, Erromako bidaia egin ondorenerako.

²³⁷ Azkenean gauzatu zen lau urte zituenetik izan zuen nahia (ik. PO, 250 eta 295. orr.; VT, 123. zk., 155. orr.). Eskola horien lekuko dira hainbat saio hamabi langai eta OUILLY-le-Vicomteko elizaren zirriborroa.

²³⁸ «Maitasunaldi» horien eta «hamaika erotasun»en adibidea da; izan ere, horiek guztiak Teresak Jesusi dion maite-garraren ezaugarri dira, *arrosa hostokatura* joko duen eskaintza oso-osoan.

zedin... Nik banekien honek ez zuela goretsi ahal izango, gure zoriona baizik ez baitu nahi, [52ⁱ] baina norbait maite dugunean makina bat zorakeria esan beharra izaten dugu. Honela hitz egiten banuen, ez zen zerua eder ez zitzaidalako; orduan nire zerua, niretzat²³⁹, maitasuna besterik ez zelako baizik. Eta San Paulok bezala sentitzen nuen ezerk ezingo zuela ni liluratu ninduen jainko-helburutik aldendu!...

Erm 8,35-39

Mundutik alde egin baino lehen, *haurren arimak* hurretik ikusteko poza eman zidan Jainko onak²⁴⁰. Etxeko txikiena izanik, ez nuen sekula zorion hori izan. Hona hemen egokitu zitzaizkidan zertzelada tristeak: Emakume gaixo bat, gure neskamearen lehengusina, sasoi betean hil zen hiru haur txiki utzirik. Haren gaixoaldian geure etxean jaso genituen bi neskatotxoak, haietarik nagusienak ez zituen oraindik sei urte. Haien ardura nuen nik egun osoan, eta benetako poza zen niretzat esaten nien gutzia zein xaloki sinesten zuten ikustea. Bataio santuak bertute teologalen ernamuin sakona utzi behar du gorderik arimetan, haurtzarotik jadanik agertzen baitira, eta nahikoa dute geroko ondasunen itxaropena sakrifizioak onartzeko. Neure bi alabatxoak elkarrekiko onbera ikusi nahi nituenean, bere ahizparen aurrean amore ematen zuenari jostailu eta gozokiak agindu ordez, ume onei Jesus haurrak zeruan emango dizkien betiko sariei buruz hitz egiten nien. Nagusitxoenak, beraren adimena garatzen hasia zen eta, pozarren begiak diz-diz zituela begiratzen zidan. Hainbeste galdera zoragarri egiten zizkidan Jesus Haurrari buruz eta haren zeru ederrari buruz, eta gogotsu hitz ematen zidan bere ahizparen aurrean beti amore emango zuela; eta ez zuela ahaztuko, esaten zuen, “andereño nagusiak”, halaxe deitzen zidan, esan ziona... Errugabeko arima hauek hurbiletik ikusiz, ulertu nuen zein zorigaitz handia den arimak esnatzen direnetik ongi ez hezitzea, bertutearen nahiz bekatuaren inpresioa bertan utz daitekeen argizari bigunaren antzekoak direnean... Jesusek ebanjelioan esan zuenaz jabetu nintzen: Txiki hauetarikoren bat

Mt 18,6

galbidean jartzen duenak hobe luke itsas hondora amilduko balute. [53^a] Ai! Zenbat arima iritsiko liratekeen santutasunera, ongi zuzenduak balira!...

Badakit Jainko onak inor ez duena behar bere obra burutzeko. Baina, emarazteko ardura beretzat gordez, baratzain trebeari landare bitxi eta finak lantzen uzten dionez eta horretarako beharrezko duen jakinduriaz jantzen duenez, era berean nahi du Jesusek lagun diezaiotela arimak zaintzeko jainko-lanean.

Zer gertatuko ote litzateke baratzain moldakaitzak bere zuhaixkak ongi txertatuko ez balitu? Bakoitzaren izaera ezagutu ez eta, mertxikondotik²⁴¹ arrosak ateratzea nahi balu?... Hiltzera eramango luke arbola, bestalde, ona eta fruitu emateko gai zen arbola.

Horrelaxe jakin behar da ezagutzen haurtzarotik Jainko onak zer eskatzen dien arimek eta haren graziari lagundu, sekula azkartu ez atzeratu gabe.

Txoritxoek beren gurasoei entzunez *kantatzen* ikasten duten bezala, halaxe bizitzan hezitzeko ardura duten arimengandik ikasten dute haurrek bertuteen zientzia, jainko-maitasunaren *kantu* gorenara.

²³⁹ TO 32ren izenburua. Ik. KH 13. VII. 17; DE, 721. or., 786 or.ko azken lerroa.

²⁴⁰ Hemen Teresa nobizien maistraren zertxobait agertzen zaigu jadanik, gerorago lorezainaren eta txokaren alegian bezala.

Gogoratzen naiz neure txoritxoaren artean zoragarri kantatzen zuen kanario bat nuela; *ama* bezalako arduraz zaintzen nuen txoka txiki bat ere banuen, bere askatasunaren alaitasuna dastatu ahal izan baino lehen hartu nuelarik. Giltzapeko txiki dohakabe honek ez zuen kantatzen irakasteko gurasorik. Baina bere lagunari, kanarioari, goizetik gauera txorrotxio alaiak egiten entzunik, haren antzera egin nahi izan zuen... *Txoka* batentzat lan zaila, horrela asko kosta zitzaion bere hots leuna bere musikako maisuaren hots zoliaren tonura egokitzea. Polita zen gaixoa ahaleginak egiten ikustea. Baina azkenean lortu zuen ondorio ona, haren kantua leunago mantendurik ere, kanarioaren berdin-berdina izatera etorri zen.

[53ⁱ] Oi, ene Ama maite, zuk irakatsi zenidan kantatzen!... Zurea izan zen haurtzarotik liluratu ninduen ahotsa, eta orain zure antzekoa naizela esaten entzuteko poza dut!!! Badakit oraindik ez dizudala hurrik ere ematen; baina neure ahultasuna gorabehera, beti-beti zure kantu berbera errepikatzeke itxaropena dut!...

Karmelen sartu orduko, beste esperientzia batzuk ere izan nituen bizitzari eta munduko miseriei buruz²⁴². Baina xehetasun hauek urrutiegi eramango nindukete. Neure bokazioaren kontaktari ekingo diot berriro. –Urriaren 31 izan zen Bayeux-ko nire bidaiarako izendaturiko eguna. Neu bakarrik irten nintzen aitarekin, bihotza itxaropenez beterik nuela, baina baita oso hunkiturik ere apezpikuaren aurrean agertu behar nuela pentsatuz. Neure bizitzan lehen aldiz joango nintzen bisita bat egitera neure ahizpek lagun izan gabe, eta hau *Apezpiku*²⁴³ bati egindako bisita zen! Nik, egiten zizkidaten galderei erantzuteko izan ezik hitz egin beharrik izan ez dudana honek, neure kabuz azaldu behar nuen neure bisitaren zergatia, Karmelen sartzera eragiten zidaten arrazoiak agertu; hitz batez, neure bokazioaren sendotasuna erakutsi behar nuen. Ai, bai ondo kostata egin nuela bidaiaria hau! Jainko onak grazia berezi-berezia eman behar izan zidan nik neure lotsa handia gaindi nezan... Egi-egia da baita “maitasunak ez duela sekula izaten ezinik, egingarri eta zilegibaiteritzo guztiari”²⁴⁴. Jesusenganako maitasuna izan zen soilik zailtasun hauek eta gero etorriko zirenak gainditzeko ahalbidea emango zidana, Hark nahi izan baitzuen bokazioa proba oso gogorren bidez niri erosaraztea...

Gaur egun Karmeleko bakardadean gozatzen nagoela (hain biziki irrikatu dudana haren itzalpean atsedena hartuz), neure zoriona oso merke erosi dudalakoan nago, eta hura lortzeko, oraindik hartaz jabetu gabe banengo, prest egongo nintzateke askoz ere nahigabe latzagoak eramateko.

Kt 2,3

Bayeux-era iritsi ginenean *euria* bota ahala zen. Aitak ez zuen ikusi nahi bere erreginatxoa jantzi dotorea blai-blai eginda gotzaindegian sartzen, eta omnibus batera igoarazi eta katedralera eraman zuen. Han hasi ziren nire zorigaitzak. Apezpikua, bere elizgizon guztiekin batera, hileta garrantzitsu batean esku hartzen ari zen. Eliza beltzez jantzitako andrez beterik zegoen, eta neure jantzi argi eta kapela

²⁴¹ Teresak nahien dituen lore eta fruituak.

²⁴² Prozesuetan zehar ugariak dira Teresak behartsuei dien maitasunaren lekukotasunak (esaterako, PO, 161, 283. orr.; PA, 284. orr.).

²⁴³ Mgr Hugonin Bayeux-ko apezpikua, orain dela hogeit urterik hona.

²⁴⁴ *Kristoren Antz-Bidea*, III, 5, 4.

zuriaz, [54^a] begirada guztiak erakarri nituen. Pozik irtingo nintzen elizatik, baina euriagatik ez zegoen horretaz pentsatzerik. Ni oraindik gehiago lotsarazteko, aitak, patriarka baten tolegabetasunez, katedralaren aurre-aurreaino eraman nintzala nahi izan zuen Jainko onak. Hari nahigaberik ez ematearren, gogo onez onartu nuen, eta ikuskizun hau eskaini nien Bayeux-eko bizilagunei, sekula ezagutu ez banitu nahia-go nukkeen haiei... Azkenik zabal arnasa hartu nuen aldare nagusiaren atzean zegoen kapera batean, eta han egon nintzen luzaro gartsu otoitz eginez, kanpora irten ahal izateko euria noiz atertuko. Beheranzkoan aitak eraikinaren edertasuna miretsarazi zidan, hutsik zegoela handiago ematen zuelarik. Baina pentsamendu bakar batek harturik nengoen eta ezin nuen ezertan pozik izan. Révérony jauna²⁴⁵ ikustera joan ginen zuzen-zuzenean; hau gure etorreraz jakitun zegoen, bidaia egiteko eguna berak ezarri zigularik. Baina ez zegoen etxean. Beraz, kaleetan zehar ibili behar izan genuen hara eta hona; *oso tristeak* iruditu zitzaizkidan. Azkenik, gotzaindegia- ren ingurura hurbildu ginen, eta aitak ostatu eder batera sarrarazi ninduen; han ez nion ohorerik egin sukaldari trebeari. Aitaxo gaixo honek ia sinestezineko gozotasuna zuen nirekin. Adore ematen zidan esanez, ez kezkatzeko apezpikuak onartuko zuela nire eskaria eta.

Atseden hartu ondoren, Révérony jaunarengana itzuli ginen. Gurekin batera iritsi zen gizon bat, baina bikario nagusiak itxaroteko eskatu zion adeitasunez, eta bere bulegoan lehenen sarrarazi gintuen. (Gizon gizagaixo hark aspertzeko adina denbora izan zuen, bisita luzea izan baitzen). Révérony jauna oso atsegin agertu zitzaigun, baina gure bisitaren arrazoia oso harrigarri gertatu zitzaiola uste dut. Niri irribarrez begiratu eta galdera batzuk egin ondoren, esan zigun: “Apezpikuarengana eramango zaituztet, zatozte nirekin, arren”. Nire begietan malkoak dirdirka ikusiz, gehitu zuen: “Ai, diamanteak ikusten ditut!... Ez erakutsi, gero, Apezpikuari!...” Areto batzuk pasarazi zizkigun, oso nasaiak, [54ⁱ] apezpikuen argazkiekin apainduak. Areto handi haietan neure burua ikustean, inurritxo gaixo bat nintzela iruditzen zitzaidan, eta neure buruari galdetzen nion ezer esaten ausartuko ote nintzen Apezpikuari.

Hura, bi apaizen erdian paseatzen ari zen galerian zehar. Révérony jauna zerbait esaten eta berarekin etortzen ikusi nuen. Guk bere bulegoan itxaroten genion; hiru besaulki handi-handi zeuden han, txinpartak ateraz sua gori-gori zegoen tximini aurrean jarririk. Apezpiku jauna sartzerakoan, aita belauniko jarri zen nire ondoran haren bedeinkazioa hartzeko. Gero Apezpikuak besaulkietariko batean eseriarazi zuen aita, bera haren aurrez aurre eseririk; Révérony jaunak erdikoan ni esertzea nahi izan zuen. Adeitasunez ezetz esan nuen, baina berak baietz eta baietz, esana egiteko gai nintzela erakutsi behar nuela. Berehala eseri nintzen pentsatu gabe, eta hura eserleku bat hartzen ikusteko lotsaria izan nuen, ni besaulki batean hondoraturik nengoen bitartean; nire tamainako lau lasai-lasai sartzen ziren besaulkian, (ni baino lasaiago, noski, ni ez bainengoen batera lasai!...). Aitak hitz egingo zuela uste nuen, baina nik neuk azaltzeko esan zidan Apezpikuari gure bisitaren zergatia. Ahalik eta hitz-jariorik onenaz egin nuen. Apezpiku jauna, hitz-jariora ohitua nonbait, ez zuten asko hunkitu nire arrazoiek. Nagusiaren berbatxo bat baliotsuago ger-

²⁴⁵ Bikario nagusia.

tatuko zitzaidan haiek guztiak baino. Zoritxarrez ez nuen, eta haren ezezkoak ez zuen nire alde egiten...

Karmelen sartzeko gogoia aspaldidanik ote nuen galdetu zidan Apezpikuak²⁴⁶. –“Oi, bai, Jauna, aspaldidanik!...” –“Ea, ikus dezagun, ihardetsi zuen barrez Révérony jaunak, ez duzu esango orain dela hamabost urterik duzula gurari hori ez da?” –“Ez, noski, erantzun nuen nik ere irribarrez, baina ez da urte askorik kendu behar, ezaguerara esnatu nintzen lehen unetik izan baitut moja sartzeko gogoia, eta Karmelen sartzeko gogoia izan dut ezagutu nuenez gero, nire arimaren nahi guztiak Ordena honetan beteko zirela uste bainuen”. [55^a] Ez dakit, ene Ama, zehatz-mehatz hitz hauek izan ziren; oraindik desegokiago esanak, beharbada; baina esanahia, behintzat, horixe zen.

[54ⁱ jarraian] Apezpikua, aitari poz emango ziolakoan, urte batzuk oraindik haren ondoan niri igaroarazten saiatu zen. Horregatik ez zen gutxi *harritu* eta *hunkitu* nire alde egiten ikusi zuenean, hamabost urtekin hegan egiteko baimena lor nezan bitarteko eginez. Hala ere, alferrik izan zen guztia. Erabakirik hartu orduko, *Karmeleko nagusiarekin* egon behar zuela esan zuen. Ezin nezakeen entzun nik nahigabe handiagoa emango zidanik, gure Aita nagusiaren ezezko zehatza banekien-eta. Beraz, Révérony jaunaren aholkua aintzat hartu gabe, *diamanteak* apezpikuari *erakustea* baino zerbait gehiago egin nuen, *eman* ere egin nizkion!... Nik argi ikusi nuen hura hunkiturik zegoela. Lepotik eskua pasatuz burua bere sorbaldan etzanarazi zidan, eta laztandu egin ninduen, ziur aski, sekula inor [55^a] egin ez zuen bezala. Ez zegoela guztia galdurik esan zidan; pozik zegoela neure bokazioa sendotzeko nik Erromarako bidaia egiteaz, eta negar egin beharrean poztu egin beharke nukeela. Hurrengo astean Lisieux-era joan beharra izanik, Santiagoko erretore jaunarekin nitaz hitz egingo zuela gehitu zuen, eta ziur aski Italian jasoko nuela bere erantzuna. Ohartu nintzen alferrik zela luzaroago ekitea. Gainera, neure *hitz-jarioaren* baliabide guztiak agorturik, ez nuen ezer esatekorik.

Baratzaraino lagundu zigun apezpikuak. Aitak *grazia handia egin zion* esanez nik ileak motots antzera bilduarazi nituela zaharrago ematearren. (Apezpikuak ez du ahaztu xehetasun hau; ez du sekula “bere alabatxoaz” hitz egiten, mototsaren kontu hori aipatu gabe...). R. jaunak aintzat izan zuen guri baratzako ateraino laguntzea. Horrelakorik ez zuela sekula ikusi esan zion aitari: “Aita bat bere alaba Jainko onari eskaintzeko bezain larri hau ere bere burua eskaintzeko!”

Aitak argibide batzuk eskatu zizkion erromesaldiei buruz; beste gauza batzuen artean, Aita Santuaren aurrean agertzeko nola jantzi behar zen galdetu zion. Oraindik ikusten ari naizela dirudi Révérony jaunaren aurrean bira egin eta galdetzen: “Ongi al nago honela?...” Aitak beste hau ere esan zion Apezpikuari: berak Karmelen sartzeko baimenik ematen ez bazion, nik Aita Santuari eskatuko niola mesede hau. Tolesgabea zen nire errege maitea bere hitzetan eta jardueretan, baina hain zen *ederra!*... Berezko jasa zuen, eta oso atsegin gertatu behar zitzaion Apezpikuari, aretoetako etiketen arau guztiak ezagutzen zituzten pertsonak inguruan izaten ohi-

²⁴⁶ Lerroalde osoa 54ⁱ eta 55^a orrien azpialdean.

tua, baina ez *Frantzia* eta *Nafarroako Errege berbera* beronen *erreginatxoarekin*²⁴⁷...

Kalean nintzenean, negar-malkoak irten zitzaizkidan berriro, ez hainbeste neure nahigabeagatik, gure aitaxo maiteak alferreko ostera egin berri zuela ikustea-gatik baizik... Apezpikuaren baiezko erantzuna iragarritz, Karmelera telegrama bat igortzeko poza dastatzen zegoenean, inolako erantzunik gabe [55¹] itzuli beharra izan zuen... Ai, bai atsekabe handia nirea!... Nire etorkizuna betiko hautsia iruditzen zitzaidan. Zenbat eta gehiago hurbildu helburura, hainbat gehiago korapilatzen ikusten nituen neure arazoak. Nire arima samintasunean hondoraturik zegoen; baina aldi berean baita bakean ere, Jainkoaren borondatea besterik ez bainuen bilatzen.

Lisieux-era iritsi eta berehala Karmelera joan nintzen poztasun bila; eta baita aurkitu ere zure ondoan, ene Ama maite. Oi, ez! Ez dut sekula ahaztuko nigatik sufritu duzuna. Haietaz baliatuz zikinduko ditudan beldur ez banintz, Jesusek bere nekaldiko gauean bere apostoluei esan zizkien hitzak errepikatuko nituzke: "Zuek zarete nire probaldi guztietan nire ondoan sendo iraun duzuenak". Nire ahizpa *maite-maiteek ere poztasun handiak eman dizkirate*...

Lk 22,28

Bayeux-erako ostera eginda hiru egunera, beste bat askoz ere luzeagoa hasi behar nuen: Erromarako oster²⁴⁸... Ai, hura zen bidaia hura!... Berak bakarrik ikasketa-urte luzeek baino gehiago irakatsi zidan. Iheskor den oro huskeria dela erakutsi zidan, eta eguzpian gutzia dela bihotz-nahigabea... Hala ere, gauza oso ederrak ikusi nituen. Artearen eta erlijioaren gauza miresgarri guztiak begietsi. Batez ere apostolu santuek zapaldu zuten lur berbera zapaldu nuen, martirien odolak bustitako lurra. Eta nire arima hazi egin zen gauza santuen ukituaz.

Koh 2,11

Oso pozik nago Erromara joan izanaz; baina ulertzen ditut baita aitak moja sartzeko asmoa niri burutik kentzearren eginarazi zidala bidaia hau pentsatu zuten munduko pertsonak ere. Izan ere, han bazen sendoa ez zen bokazioa hauts zezakeen gauzarik.

Mundu haundian sekula bizi gabe, handi-mandien²⁴⁹ artean ikusi genuen geure burua Zelina eta biok, erromes-taldea ia soilik horrelako jendez osatua baitzen. Ai! Liluratu beharrean, titulu haiek guztiak eta koplak haiek ke-laino iruditzen zitzaizkigun... Urrunetik, hark noizbait begiak itsutuko zizkigun pixka bat, baina hurbiletik "distira duen gutzia ez dela urrea" ikusi nuen, eta Kristoren Antz-Bideko hitz hauek

²⁴⁷ Munduaren ulertezintasunaren aurrez aurre, Martindarren etxean konfiantzaz ematen diren tituluak jasotzen ditu Teresak.

²⁴⁸ Coutances-ko elizbarrutiak antolaturiko beila edo erromesaldia (1887/11/7tik 12/2ra), Leon XIII.aren apaizgintzako urrezko ezteiak direla-eta, «fedearen lekukotasun» legez «Elizaren aurkako arplaketa»-ren aurrean (Italian). Bayeux-ko elizbarrutiak bat egin zuen erromesaldi honekin; Révérony jauna Hugonin apezpikuaren ordezkaria zen. Ik. TG 30etik 37ra eta beraietako oharra; Kronologia orokorra, *infra*; CG, 259-324. orr.; 590-593. orr.; eta VTko azterlanak, 60. zk., 81, 83, 84.

²⁴⁹ Ehun eta laurogeita hamabost erromes, eta horietarik hirurogeita hamahiru elizjendeak ziren eta beste asko Normandiako familia gurenetako ordezkariak.

[56^a] ulertu nituen: “Ez jarraitu izen handia deritzon itzal honi; ez ezazue nahi izan harreman ugari izaterik, ezta inongo gizonen adiskidetasun berezirik ere”²⁵⁰.

Benetako handitasuna *ariman* datzala ulertu nuen eta ez *izenean*, Isaiasek honako hau esaten baitu: “Jaunak *beste izen* bat emango die bere hautatuei”. Eta San Joanek ere honela dio: “Garaileak harri zuri bat jasoko du, eta harrian *izen berri* bat idatzia, hartzen duenak soilik ezagutuko duena”. Zeruan jakingo dugu, ba, zeintzuk diren gure handiki-tituluak. Orduan bakoitzak merezi duen goraldia jasoko du Jainkoagandik; eta lurrean Jesusen maitasunagatik pobreena, ahaztuena izan nahi dezana, hura izango da lehenengoa, *nobleena* eta aberatsena!...

Is 65,15

Ap 2,17

1 Ko 4,5

Izan dudan bigarren esperientzia apaizei dagokie. Haiekin barrukotasunean sekula bizi gabe, ezin nuen ulertu Karmelgo erreformaren helburu nagusia. Bekatarrien alde otoiitz egiteak liluratzen ninduen; baina kristala baino gardenagotzat²⁵¹ nituen apaizen arimen alde otoiitz egitea harrigarri iruditzen zitzaidan!...

Ai! *Italian* ulertu nuen *neure bokazioa*. Ez zen urrutiegi joatea, hain ezagutza mesedegarria izanik...

Hilabeteen apaiz santu askorekin bizi izan nintzen eta ikusi izan dut haien duintasun gorenak ingeruen gainetik jasotzen baditu ere, gizon ahul eta erorkorrak baizik ez direla... Jesusek Ebanjelioan “lurreko gatza” deitzen dien *apaiz santuek* otoiitz premia larria agertzen badute, zer esan beharko litzateke epelengatik? Ez ote zuen Jesusek hau ere esan: “Gatza gezatzen bada, nola gazitu berriro?”

Mt 5,13

Oi, Ama maite, zein ederra den arimentzako gatza *kontserbatzea* helburutzat duen bokazioa! Hauxe da Karmelgo bokazioa, gure otoiitz eta sakrifizioen helburu bakarra *apostoluen apostolu* izatea baita, haien alde otoiitz eginez, haiek euren hitzez eta batez ere egite onez arimak ebanjelizatzen dituzten bitartean... [56ⁱ] Gelditu beharra daukat, honetaz hitz egiten jarrai baneza, ez bainuke sekula amaituko!...

Zertzelada batzuekin kontatuko dizut neure bidaia, ene Ama maite; barkatu gehiegi ematen badituz; nik ia ez dut pentsatzen idatzi aurretik, eta asti gutxi dudalako hain tarte desberdinetan eginik, nire kontaketa aspergarri gertatuko zaizu, agian... Zeruan, berriro ere, hartu ditudan graziez mintzatuko natzaizula, eta orduan era atsegingarri eta liluragarrian egingo dudala pentsatzeak pozten nau... Orduan gure barru-barruko asaskaldiak ezerk ere ez ditu etengo, eta begirada bakar batez guztia ulertuko duzu... Ai ene! Oraindik lur triste honetako hizkuntzaz baliatu behar dudanez gero, bere amaren maitasuna ezagutzen duen haurtxo baten xalotasunez egiten ahaleginduko naiz!

Erromesaldia azaroaren 7an irten zen Paristik, baina aitak egun batzuk lehena go eraman gintuen hiri honetara ikus genezan.

²⁵⁰ *Kristoren Antz-Bidea*, III, 24, 2.

²⁵¹ Ik. TG 94. Pasarte hau P. de Chérancé-k Asisko Frantzisko Santuaz egindako liburuak inspiratua da.

Goiz batean²⁵², hiruretan, Lisieux hiria zeharkatu nuen, oraindik lotan. Une hartan zarrasta ugari izan nituen ariman. Ezezagunerantz nindoala ohartzten nintzen eta gauza handiak nituela zain han behean... Aita pozik zegoen; trena abiatu zenean, kanta zahar honi ekin zion: "Ekin, ekin, ene zalgurdi, biraka, / jadanik bidean gara eta". Goizean Parisera iritsirik, hura ikusten hasi ginen berehala. Aitatxo gaixo hau asko nekatu zen guri poz ematearren, eta horrela, denbora laburrean hiriko gauza harrigarri guztiak [ikus] genituen²⁵³. Nik neuk benetan liluratu ninduen *gauza bat* aurkitu nuen soilik; gauza miresgarri hau "Garaipenen Andre Maria" izan zen. Ai, haren oinetan nik sentitu nuena ezingo nuke esan!... Hark egin zizkidan mesedeek hain biziki hunkitu ninduten, non nire malkoek soilik adierazi baitzuten nire zoriona, nire lehen jaunartze egunean bezala... Ama Birjinak sentiarazi dit *bera izan zela egiaz irribarre egin zidana eta sendatu ninduen*²⁵⁴. Hark zaintzen ninduela ulertu nuen, ni *haren* alaba nintzela, eta horrela, nik ezin eman beste izenik [57^a] "*Amatxo*" baizik, Ama-izena baino ere samurragotzat nuen eta... Zein gartsu eskatu nion gorde nintzala beti eta laster egia bihur zezala nire ametsa, bere *birjin-mantuaren itzalpean ezkutatu!*... Ai! Hau zen nire haurtzaroko lehenengotariko guraria... Hazi ahala, ulertu nuen Karmelen aurkitu ahal izango nuela, egiaz, Ama Birjinaren mantua, eta mendi emankor honetarantz zihoazen nire gurari guztiak...

Garaipenen Andre Mariari eskatu nion, gainera, nigandik urrun zezala nire garbitasuna orban zezakeen guztia. Ni ez nengoen ezjakinean Italiakoa bezalako bidaia batean kezka nazakeen gauzarik asko izango zela; batez ere gaiztakeria ezagutzen ez nuelarik, aurkituko ote nuen beldur nintzen, ez bainuen oraindik ikasi garbientzat guztia zela garbi eta arima tolesgabe eta zuzenak ez duela bekatu-rik ezertan aurkitzen, izan ere, bekatua bihotz lizunetan soilik baitago eta ez gauza bizigabeetan... San Joseri ere eskatu nion zain nazala. Neure haurtzarotik izan nuen nik harenganako debozioa, Ama Birjinari nion maitasunarekin nahasten zena. Otoitz hau esan ohi nuen egunero: "Oi, Jose, birjinen aita eta zaintzailea!" Honela, beldur gabe hasi nuen neure bidaia luzea. Hain ongi zaindua egonik, ezin nezakeela beldurrik izan iruditzen zitzaidan.

Montmartre-ko²⁵⁵ basilikan Bihotz Sakratuari geure burua eskaini ondoren, astelehen goizean, 7an, abiatu ginen Paristik. Laster egin genuen ezagupidea gainerrako erromesen artean. Ni hain lotsorra, ia hitz egiten ere ausartzen ez nintzena, akats nekagarri honetatik erabat askaturik aurkitu nintzen. Neuk ere uste ez nuela, zabal-zabal hitz egiten nuen andre handikiekin, apaizekin, eta baita Coutances-ko²⁵⁶ apezpikuarekin ere. Beti ingurumari hartan bizi izan nintzela neritzon. Guztien artean maitatuak ginela [57ⁱ] uste dut, eta aita harro agertzen zen bere bi alabekin. Baina hura gurekin harro bazegoen, gu ez gutxiago berarekin, erromes-talde osoan

²⁵² Ostirala, 1887/11/4.

²⁵³ Ikus Zelinak bere ahizpei bidalitako gutuna (CG, 261-262. orr.).

²⁵⁴ Andre Mariaren «*birjin mantua*», bere garbitasunaren babesa bidaia luzeari ekin aurretik, baina baita bere bizitza osorako ere (ik. *infra*). Babes horretarako Teresak Jose santua ere elkartzen du.

²⁵⁵ Igande, 11/6, kriptan, goiko basilika artean ez zegoelako burututa.

²⁵⁶ Mgr Germain, erromesaldiko burua.

ez baitzegoen nire errege maitea bezain jaun dotore eta adeitsurik. Zelina eta ni lagun zituela ibili nahi izaten zuen. Askotan, ibilgailuan ez gindoazenean eta ni haren ondotik aldentzen nintzenean, dei egiten zidan, Lisieux-en bezala besoa eman niezaion...

Révéröny apaiz jaunak arduraz begiratzen zituen gure egintza guztiak; ezustean maiz hartzen nuen nik urrunetik geuri begira. Mahaian, ni beraren aurrez aurre ez nengoenean, nola edo hala aurkitzen zuen modua makurtu eta ni ikusteko eta esaten nuena entzuteko. Zalantzarik gabe, ongi ezagutu nahi ninduen, karmeldar izateko gai nintzen jakiteko. Bere azterketa ondoren pozik gelditu zela uste dut, *bidaiaren azkenean* nire aldeko iritziz zegoela baitzirudien; baina Erroman, geroago esango dudanez, ez zuen ez nire alde egin, ezta gutxiagorik ere.

Gure erromesaldiaren jomuga zen Erromako hirira iritsi orduko, gauza harri-garri asko ikusteko era izan genuen. Lehenengo Suitza izan zen, bere mendiekin, haien gailurra hodei artean galtzen zela, ura mila erataria turrustatzen duten bere urjauzi irrisuekin, iratze erraldoi eta txilar arrosa kolorekoz beteriko bere haran sakonekin. Ai, ene Ama maite! Zenbat on egin zuten nire ariman *joritasunez*²⁵⁷ isuritako izadiaren edertasun haiek! Haiek bai jaso zutela, egun bat baizik iraungo ez duen erbesteko lurrian, halako gauza bikainak ereitea aintzat izan zuen Harenagana!... Ez nuen nik begirik aski begiratzeko. Zutik, leihatilari josita, ia arnasa gabe nengoen. Bagoiaren bi aldeetan egon nahiko nukeen, beste aldera begiratzuz, aurrean nituenen ondoan guztiz desberdinak ziren ikuspegi sorginduak ikusten baintuen.

Batzuetan mendi baten gailurrean aurkitzen ginen; geure oinpean, [58^a] begiek haztatu ezineko sakonera zuten amildegia, gu irensteko prest zeudela zirudielarrik... Edota herrixka zoragarri bat zen, bere etxetxo txanbelin eta bere kanpandorrearekin, haren gainean hodeiak zuriaren zuriz diz-dizka leunki higitzen zirelarrik... Urrutiago, eguzkiaren azken izpiek urrez jantzitako aintzira zabal bat ageri zen. Haren ur bare eta gardenek, ilunabarreko su-erlantzetan nahastan zen zeruaren margo urdina ispilatuz, inork pentsa dezakeen ikuskizunik poetiko eta liluragarriena agertzen zuten gure begi zurtz eginen aurrera. Ortzemuga zabalaren artzean mendiak ageri ziren; haien inguru zehazgabeak bistatik galdu egingo zitzaizkigun, beraien gailur elurtsuek, eguzkiak distiratsu bihurtzen zituenak, oraindik edertasun berri bat gehitu ez baliote liluratzen gintuen aintzira ederrari...

Edertasun hauek guztiak ikusiz, nire ariman gogoeta oso sakonak sortzen ziren. Jainkoaren handitasuna eta zeruaren gauza miresgarriak jadanik ulertzen nituela iruditzen zitzaidan... Erlijosobizitza *den bezalakoa* agiri zitzaidan, bere *loturekin*, isilean egindako bere sakrifizio txikiekin. Ohartzen nintzen zein erraz den norbere baitan kiribiltzea, norbere bokazioaren helburu gorenaz ahaztea, eta pentsatzen nuen: Geroago, proba orduan, Karmelen preso, izarrez beteriko zeru zatitxo bat baizik ikusi ezingo dudanean, gaur ikusten dudana oroituko naiz. Pentsamendu honek adore emango dit; erraz ahaztuko ditut neure interes hutsal txikiak, Jainkoaren handitasun eta ahal izatea ikusiz, hura bakarrik baita nik maite nahi

²⁵⁷ Ondorengo gogoetan, Teresak bere burua «*Karmelen atxilotuta*» dakusala, ez ditu «*Jainkoaren handitasun*»aren frogak ezerezean uzten.

dudana. Ez naiz eroriko txikikeriara zaletzeko zoritxarrean, "bera maite dutenentzat Jesusek zer duen gordeta nire *bihotzak susmatu duen*" une honetan!...

Jainko onaren ahal izatea miretsi ondoren, bere sorkariei eman diena ere miretsi ahal izan nuen. Bisitatu genuen Italiako lehen hiria Milan izan zen. Bertako katedrala ikusi genuen xehetasun guztiekin; guztia marmol zurizkoa, bere irudi ia kontaezinekin, [58^a] herri handi bat osatzeko adina. Zelina eta ni ausartak ginen; beti gindoazen aurreaurrean eta apezpikuari hurbiletik jarraituz, santuen erlikiei zegokion guztia ikusteko eta azalpenak ongi entzuteko. Horrela, hark san Karlosen hilobi gainean meza ematen zuen bitartean, gu aitarekin aldarearen ostean geunden, geure buruak santuaren gorpua, bere apezpiku-jantziz gordetzen zen kutxaren gainean genituela. Honela zen toki guztietan... Apezpiku baten duintasunak eragozten zuen tokiren batera igo behar zenean izan ezik; orduan bagenekien ongi apezpikuaren ondotik alde egiten... Katedralari gaina hartzen dioten kanpandorreetatik lehenengoa igo eta gero, andre beldurtiak eskuekin aurpegia estalita utziz, guk erromesik ausartenei jarraitu genien eta marmolezko *azken* kanpandorrearen goren-gorenera iritsi ginen, eta geure oinetan Milan hiria ikusteko poza izan genuen, hango bizilagun ugariak *inurritegi txiki* bat osatzen zutela zirudielarik... Goialde hartatik jaitsita, hilabete inguru iraun behar zuten eta etengabe ibiltzeko gogoa betiko aseko zidaten zalgurdi-ibilaldiak hasi genituen!

Hilerria katedrala baino ere gehiago gustatu zitzaigun. Zintzelariaren eskuak bizia eman diela dirudien marmol zurizko irudi guztiak, hilen toki nasaian axolagabe bezala jarririk daude, nire iritziz, liluragarriago bihurtuz... Inguruan genituen pertsonaia alegorikoak kontsolatzeko gogoa izan dezake batek. Hain da benetakoa haien taxua, hain baretsu eta etsia haien nahigabea, non ez baita aitortu gabe uzterik, artelan bikain hauek egitean, artisten bihotzek hilezkortasun-pentsamenduz beterik izan behar zutela. Hemen neskato bat dago bere gurasoen hilobi gainera loreak egotziz; marmolak bere astuntasuna galdu duela dirudi eta lore-hosto guriek neskatxoaren hatzen artean labain egiten duten antza du; haizeak barreiatzen dituela esan daiteke; alargunen belo arinak eta [59^a] neskatilen ilea apaintzen dauden zintak ere airean kulunkarazten zituela dirudi.

Aita gu bezain pozik zegoen. Suitzan nekaturik egon zen; baina orain bere aldar-te ona berreskuraturik, aurrean genuen ikuskizun ederraz gozatzen zuen. Bere artista-arima fede eta mirespen-keinueta azaleratzen zitzaion bere aurpegi ederrean. Jaun adintsu batek (frantziarra bera), ez zuen nonbait halako artista-arimarik eta, zeharka begiratzen zigun eta umore txarrez zioen, gure mirespenekin bat ez zetorrelako haserre-aurpegiak: "Ai, frantsesak bai direla buruberoak!" Uste dut jaun gizagaixo hark hobe izango zuela bere etxean gelditu balitz, ez baitzuen ematen pozik zegoenik bere bidaiak; maiz jartzen zitzaigun ondoan, eta haren ahotik kexak iriteten ziren beti; zalguengatik, ostatuengatik, pertsonengatik, hiriengatik, azkenik guztiagatik zen kexu... Aitak bere betiko bihotz handiz poztu nahi zuen, bere lekua uzten zion eta abar... hitz batez, toki guztietan eta beti zegoen ongi, izaeraz bere aldameneko adeigabearen guztiz kontrakoa izanik... Ai, bai pertsona desberdinak ikusi ditugula; zein interesgarri den mundu hau aztertzea, bera laster uzteko gaudenean!...

Venezian gauzak goitik behera aldatu ziren. Han, hiri handietako zarataren orde, isiltasunaren erdian gondolarien oihiak eta arraunek eragingandako uhinen

zarrastada baizik ez dira entzuten. Venezia ez da lilurarik gabea, baina hiri tristea deritzot. Dukearen jauregia bikaina da, hala ere tristea da hau ere, urrea, zura, marmolik preziatuenak, maisu ospetsuenen pinturak erakusten diren bere areto zabalekin. Aspaldidanik haren soinudun gangetan ez da entzuten, guk zeharkatu genituen aretoetan biziaren eta heriotzaren dekretuak aldarrikatzen zituzten gobernarien ahotsik... Dukeak ziegetan eta lurpeko kartzeletan [59¹] sartutako preso errukarriek jadanik ez dute sufritzen... Presondegi beldurgarri hauek ikustean, martirien garaian nengoela pentsatzen nuen, bertan gelditzea nahiko nukeen beraien antzeko izatearren!... Baina irten beharra izan genuen laster eta "hasperenen" zubia pasatu; horrela deitua, kondentatuek lurpeko izuikaratik euren buruak aske ikustean, egiten zituzten poztasun-hasperenengatik, ziega haiek baino heriotza bera nahiago baitzuten...

Veneziatik Paduara joan ginen eta hemen San Antonioren mihia beneratu genuen. Gero Bolognara, Santa Katalinaren gorputza ikusiz; honek Jesus Haurraren musuaren aztarna du. Xehetasun interesgarri asko dira hiri bakoitzari buruz nik eman nitzakeenak, eta gure bidaiako hamaikatxo gorabehera txiki, baina ez nuke amaituko; horregatik zertzelada nagusiak baizik ez ditut idatziko.

Pozik alde egin nuen Bolognatik. Hiri hau jasanezina egin zitzaidan, guztia betetzen zuten eta, oinez irteteko zoritxarra genuenean gure inguruan hesia egiten zuten ikasleengatik; eta batez ere, haietariko batekin²⁵⁸ izan nuen gorabehera txiki bategatik. Poztu nintzen Loretorako bidea hartu genuenean. Ez naiz harritzen Ama Birjinak bere etxe bedeinkatua²⁵⁹ hara aldatzeko leku hura hautatu izanaz. Hango bakea, alaitasuna, pobretasuna berebizikoak dira. Guztia da xumea eta jatorrizkoa. Emakumeek italiar janzkera polita gorde dute eta ez dute hartu, beste hiri batzuetan bezala, *Parisko moda*. Hitz batez, Loreto liluragarri gertatu zitzaidan. Zer esango dut Etxe Santuaz? Ai! Nire zirrara sakona izan zen Familia Santua hartu zuen aterpe berean neure burua ikusiz, Jesusek bere jainko-begiak ezarri zituen hormak begiratzuz, San Josek bere izerdiz busti zuen lur berbera zapalduz, Mariak, lehenago bere sabel garbian eraman ondoren, bere besoetan Jesus eraman zuen tokia... Aingerua Ama Birjinagana jaitzi zen gelatxoa ikusi nuen... Neure errosarioa Jesus Haurraren katilu txikian jarri nuen... Oroitzapen hauek bai direla zoragarriak!...

[60^a] Baina gure poztasunik handiena *Jesus berbera* bere etxean hartzea izan zen eta hark bere presentziaz ohoratu zuen etxean bertan haren tenplo bizi izatea. Italiako ohiturari jarraituz, kopoi sakratua eliza bakoitzeko aldare batean baizik ez da gordetzen, eta hantxe har daiteke soilik Gure Jauna; aldare hau Etxe Santua dagoen basilika berean aurkitzen da, marmol zurizko kutxa batean diamante preziatu baten antzera gorderik. Hau ez zen gure gogoko izan, ez baikenuen Gure Jauna hartu nahi *kutxa* barruan, *Diamante* barruan baizik... Aitak, bere ohiko otzantasunez, gainerakoek egin zutena egin zuen. Baina Zelina eta ni alde guztietan lagunduko zigun apaiz baten bila joan ginen, eta hain zuzen ere, pribilegio bereziz, Etxe

1 Ko 33,16

²⁵⁸ Trenetik jaitsieran ikasle bat harenganaino joaten da eta bere besoen artean Teresa hartuta hitz goxoak esaten dizkio. Teresak berehalaxe askatzen du bere burua harengandik, eta begirakune beltza bota (ik. VT, 81. zk., 38. or.).

²⁵⁹ Garaiko katoliko gehienek moduan, Teresak ez du inoiz ere zalantzatan jartzen kontaera hura; izan ere, kontaera horretan, Jose eta Mariaren etxea aingeruek eraman zuten mirariz Loretora.

Santuan meza ematera zihoan orduantxe. *Bi ostia txiki* eskatu zituen, ostia handiaren ondoan bere patenan jarriz. Ulertuko duzu nolakoa izango zen gure liluramendua, ene Ama maite, etxe bedeinkatu honetan *biok batera* Gure Jauna hartzean!... Hitzek adierazi ezin duten zerutiar poza izan zen bete-betean. Zer izango ote da, ba, zeruetako Erregearen betiko bizilekuan har dezagunean?... Orduan ez dugu ikusiko jadanik gure poza amaitzen, ezta banatzearen tristura ere; eta oroigarri bat eramateko, ez dugu izango jainko-presentziak santututako hormak *ezkutuka arraspatu* beharrik, haren *etxea* geurea izango baita betikotasun osoan... Ez digu eman nahi bere lureko etxea; pobretasuna eta bizitza ezkutua maitarazteko, erakustez nahiko du. Guretzat gordetzen duena bere aintzazko jauretzea da; han ez dugu ikusiko haurtxo baten edota ostia zuri baten irudipean, bera den bezala baizik: bere muga-gabeko ospearen distiran!!!...

1 Jn 3,2

Orain Erromaz hitz egitea falta zait. Gure bidaiaren [60¹] jomuga zen Erromaz; poza aurkituko nuelakoan, gurutzea aurkitu nuenaz!... Iritsi ginenean gaua zen eta lo geundela, geltokiko langileek iratzarri gintuzten, oihuka: "Erroma! Erroma!" Ez zen amets bat. Erroman nengoen²⁶⁰!...

Lehenengo eguna harresiz kanpo eman genuen, eta beharbada atsegingarriena izan zen, monumentu guztiek antzinatasun-kutsua gorde baitute, Erromako erdigunean, berriz, Parisen gaudela ematen du, hotelen eta denden handitasuna ikusiz. Erromako zelaiguneetan zehar egindako ibilaldi honek oroitzapen gozo-gozo utzi du nigan. Ez dut ikusi genituen tokiez hitz egingo; hainbat liburutan dator horien azalpen luzea. Baina izan nituen bihotz-zirrara *nagusienak* adieraziko ditut.

Gozoenetakoa, *Koliseoa* ikustean zeharo txunditurik utzi ninduen izan zen. Azkenik, bada, hainbeste martirik Jesusegatik odola isuri zuten hondar hura ikusi nuen. Orduantxe haiek santutu zuten lurrari mun egitekotan nintzela, hura etsipena! Erdigunea hondakin multzo bat baizik ez zen, eta erromesek begiratu egin behar soil-soilik, hesi batek eragozten baitzuen harako sarrera. Gainera inori ez zitzaion burura etorri ere egingo halako hondakin artean sartzerik... Erromara etortzeaz ba ote da konturik *Koliseora* ez jaistekotan?... Horri ezinezkoa neritzon. Harrezkero ez nuen gidariaren azalpenik aditzen, pentsamendu bakar batek gogo harturik nukan: hondarrera jaitea... Eskailera batekin zihoan langile bat ikusiz, ia eskatzekotan nengoen; zorionez, ez nuen neure asmoa aurrera eraman, zorotzat hartuko ninduen eta... Ebanjelioak dio Madalenak, hilobiaren ondoan iraunik eta barrurantz begiratzeko *behin eta berriro* makurturik²⁶¹, bi aingeru ikusi zituela azkenean. Haren antzera, neure gogo beteta ikustea ezinezkoa zela aitortu arren, [61^a] jaitsi nahi nuen hondakin gainealdean makurtzen jarraitu nuen. Azkenik, ikustea lortu nuen, ez aingeru batzuk, neuk *bilatzen nuena* baizik. Poztasun-irrintzi bat egin nuen, Zelinari esanez: "Zatoz azkar, pasa gaitezke!..." Berehala zeharkatu genuen hesia; hondakinak lekune hartan bertaraino zeuden, eta han ginen gure oinen azpian hondoratzen ziren hondakinetan zehar gora igotzen.

Jn 20,11-12

²⁶⁰ Igandetik (11/13) ostegunera arte (11/24); ik. Kronologia.

²⁶¹ Ik. TO 23, 1 eta B Esk., 3^a.

Aitak gure ausardiaz oso zurtz eginik begiratzen zigun, eta laster agindu zigun itzultzeko. Baina bi iheslariek harrezkero ez zuten ezer entzuten. Arrisku artean adorez betetzen diren gerrarien antzera, horrela, gure gogoko helburua lortzeko egin behar izan genuen ahaleginaren neurrian, gure poza handituz zihoan. Zelinak, ni baino zuhurrago izanik, gidariari entzun zion, eta gogoan hartu zuen honek gurutze batez markatutako lauzadura txiki bat seinalatu berri zuela, martiriek borrokatzen zuten lekutzat. Bila eta bila hasi zen. Laster, aurkitu ondoren eta lur sakratu honen gainean belauniko geundela, gure arimak otoitz berean elkartu ziren. Bihotza taupada bizitan nuen, nire ezpainak lehenengo kristauen odolaz gorrituriko hautsera hurbildu ahala. Neu ere Jesusegatik martiri izateko grazia eskatu nuen²⁶², eta nire otoitza entzuna izan zelako sentimendua izan nuen bihotz barruan!... Hau guztiau denbora laburrean gertatu zen. Harri batzuk hartu ondoren²⁶³, erorita zeuden horma zaharren ingurura itzuli ginen, geure ekintza arriskutsuari berritoki ekiteko. Aitak, gu hain zoriontsu ikusirik, ezin izan zigun agirikarik egin; eta ni ongi ohartu nintzen harro zegoela gure ausardiagatik... Jainko onak ageri-agerian babestu gintuen, erromesak ez baitziren ohartu gure ibileraz, gu baino urruntxoago egonik, ziur aski arku zoragarriek begira, gidariak “*erlaitz txikiak eta haien gainean jarriak zeuden kupidoak*²⁶⁴” azpimarratzen zituelarik. Ez zuten gure bihotzak betetzen zituen pozaren berri ez hark eta ez “apaiz jaunek”...

Katakunbek²⁶⁵ ere zirrara oso gozoa utzi zidaten: [61ⁱ] Martirien bizitzan²⁶⁶ haren deskripzioa irakurriz iruditzen nituen bezalakoak ziren. Arratsaldearen zati bat han igarorik, unetxo batzuk baizik ez nituela igaro iruditzen zitzaidan, izan ere, lurrinkatua zirudien han hartzen zen aireak... Katakunbetatik oroigarriren bat eramane behar zen. Horregatik, erromes-taldeari pixka bat urruntzen utzirik, *Zelina* eta *Teresa* biak batera zirristatu ziren Zezilia santuaren hilobi zaharraren barruraino, eta haren presentziak santututako lurretik pitin bat hartu zuten.

Erromako neure bidaiaren aurretik ez nion berarizko deboziorik santa honi. Baina eliza bihurturik²⁶⁷ den haren etxea, haren martiritza lekua bisitatuz, harmoniaren erregina izendatua izan zela jakinik, ez, ordea, bere ahots ederragatik ezta bere musikarako gaitasunagatik ere, bere bihotz barruan ezkutaturik zuen bere Senar zerutiarrari entzunarazi zion *birjin-kantuaren* oroimenez baizik, harenganako debozioa baino zerbait gehiago zena somatu nuen: benetako *adiskide-samurtasuna* somatu nuen... Nire santa kutun egin zen, nire isilmandatari min-mina... Harengan guztia zitzaidan liluragarri, batez ere haren *buru-uztea* eta *konfiantza* azkengabea,

²⁶² «Martiritza, hona hemen neure gaztaroko ametsa» (B Esk., 3^a; ik. Otoi. 2).

²⁶³ Teresak eta Zelinak erlikiak biltzen dituzte (61ⁱ, 62^a).

²⁶⁴ Teresak barre egiten du Koliseoko gidariaren lepotik: «erlaitzak eta Cupido txikiak».

²⁶⁵ San Kalixto, Apia bidekoa.

²⁶⁶ Teresaren diktatuen koaderno baten Chateaubriand-en Martyrs-en pasarte luzea dago (1887ko otsailean).

²⁶⁷ Zezilia santua Transteveren. Teresaren adierazpen gartsuek, Aita Santuari hitz egiteko orduan «*buru-uztea*»ren santuak ematen dion adorea erakusten dute; egin-eginean ere, santa hori egoera etsipengarrian zegoen, bera baino areago. Ik. TO 3 eta oharra; *Nire armak - Zezilia Santua* liburuxka, 61-68. orr.; TG 149; 161; eta *Poésies*, II, 56-58. orr.

bizitza honetako poztasunak baino besterik nahi izan ez zituzten arimak²⁶⁸ birjina bihurtzeko gai egin zuena...

Kt 7.1 Zezilia santuak Kantarik Ederreneko emaztea zirudien. Harengan “gudulekua-
ren erdian *koru* bat” ikusten dut!... Haren bizitza kanta harmoniatsua baizik ez da izan, probarik gogorrenen artean ere. Eta ez naiz horrekin harritzen, “Ebanjelio santua *haren bihotz gainean zetzalako*²⁶⁹!” eta birjinen senarra *haren bihotz barruan!*...

Aines²⁷⁰ santuaren elizara egindako bisita ere oso pozgarria izan zen niretzat. Bere etxean bisitatzen nuen *haurtzaroko lagun* bat bezala zen. Duintasunez beraren izena daramanaz asko hitz egin nion, eta neure ahalegin guztiak egin nituen nire Ama maitearen zaindari aingerutiarraren erlikia bat lortzearren, berari ekartzeko; [62^a] baina ezinezkoa gertatu zitzaigun, mosaiko eder batetik askatu zen harritxo gorri bat izan ezik; jatorria Aines santuaren garaian zuen, hark maiz begiratuko zuelarik. Ez ote da liluragarria santa maitagarriak berak ematea guri geuk bilatzen genuena eta hartzea debekaturik genuena?... Beti izan dut samurtasuntzat eta Aines santuak nire Ama maitea begiratzen eta zaintzen duen maitasun-ezaugarritzat!...

Sei egun igaro ziren Erromako gauzarik miragarrienak ikusten, eta *zazpigarrenean*, guztietarik miragarriena ikusi nuen: “Leon XIII.a”²⁷¹... Egun hau noiz iritsiko irrikaz nengoen, baina aldi berean haren beldur nintzen. Hortik zintzilik zen nire bokazioa, apezpikuagandik jaso behar nuen erantzuna ez baitzen iritsi, eta zure gutun baten bidez jakin nuen nik²⁷², *ene Ama*, hura ez zela nire alderantz jarria. Horrela, nire salbabide bakarra Aita Santuaren baimena zen... Baina lortzeko, eskatu egin behar; jende guztiaren aurrean “*Aita Santuari*” hitz egiten *ausartu* beharra zegoen. Pentsamendu honek dardar eragiten zidan. Jainko onak eta nire *Zelina maiteak* dakite soilik audientziaren aurretik nik sufritu dudana. Ez naiz ahaztuko sekula hark nire nahigabe guztietan izan duen parte-hartzeaz; nire bokazioa berea zela zirudien.

(Erromes-taldeko apaizak gure arteko maitasunaz konturaturik zeuden. Arratsalde batean, jendez beteko bileran egonik aulkiak falta izan ziren, eta Zelinak bere belaun gainetan eseriarazi ninduen; eta elkarri hain maiteki begiratzen geniola ikusirik, apaiz batek esan zuen: “Hauek bai maite dutela elkar! Ai! Bi ahizpa horiek ezin izango dira sekula elkarrengandik banatu!” Bai, maite genuen elkar, baina maitasuna hain zen *garbia* eta sendoa, non ez baikintuen larritzen banakuntzaren pentsamenduak, bagenekielako ezerk ezingo zuela gu bata besteagandik urrundu, ezta ozeanoak berak ere... Zelinak baketsu ikusten zuen [62ⁱ] nire txalupatxoa Kar-meleko erriberara iristen, eta Jainko onak nahi izan zezan arte munduko itsaso ekaiztsuan irauteko etsita zegoen, bere garaian gure gurarien jomuga zen erriberara joko zuen ziurtasunez...)

²⁶⁸ Ik. TG 105, 2^a.

²⁶⁹ Lerroalde honetan, Teresak bere buruaren aipamena egiten du: «*bihotz bat gudu zelaian*» (TG 149, 1^a; 165, 2^a; geroago TO 48); «*zure bihotz gainean datza Ebanjelio sakratua...*» (TO 3, 56; ik. DE, 573-574. orr.).

²⁷⁰ Santa Ainesen harresiz kanpoko basilika «*Haurtzaroko laguna*»: ik. VT, 71. zk., 230-240. orr.

²⁷¹ 77 urte zituela, Leon XIII.a Aita Santu izango da 1878az gero.

²⁷² Ik. LC 57, ahizpa Ainesena, 11/12an Loreton jasoa, CGn, 267. or.

Igandean, azaroaren 20an²⁷³, Vatikanoko etiketaz jantzi ondoren (hau da, bel-tzez, eta buruan farfailezko mantelina) eta zinta urdin eta zuri batetik zintzilik Leon XIII.aren domina handi bat apaingarrizat jarritz, Vatikanon sartu ginen, Aita Santuaren kaperan. Zortzietan, gure zirrara bizia zen meza santua emateko sartzen ikusiz... Bere inguruan bildutako erromes ugariak bedeinkatu ondoren, aldare santuko mailetan gora igo zen, eta Jesusen Ordezkoari dagokion bere jaieraz, bera benetan "Aita Santu" dela erakutsi zigun. Taupada biziz nuen bihotza eta nire otoitzak oso gartsuak ziren Jesus bere Ordezkoaren esku artera jaisten zen unean. Hala ere, uste onez betea neukan bihotza. Egun honetako Ebanjelioak hitz pozgarri hauek zituen: "Ez izan beldurrik, artaldetxo hori, atsegin izan baitu nire Aitak zuei bere erreinua ematea". Ez, ni ez nintzen beldur. Laster Karmelgo erreinua nirea izango zela itxaroten nuen. Ez nuen orduan Jesusen hitz hauetaz pentsatzen: "Nik neure erreinua prest jartzen dizuet, neure Aitak niri prestatu zidan bezala". Hau da, gurutze eta probak ditut zuretzat; horrela, irrikatzen duzun erreinu honetaz jabetzeko duin izan-
 go zara. Kristori sufritzea beharrezko izan zaionez gero eta hortik bere aintzan sar-
 tzea, haren ondoan toki bat izatea nahi baduzue, edan ezazue hark edan zuen kaliza beretik!... Kaliza hau Aita Santuak eskaini zidan, eta nire negar-malkoak eskaintzen zidaten edari garratzarekin nahasi ziren.

Lk 12

Lk 22,29

Lk 24,26

Mt 20,21-23

Aita Santuarenaren ostean izan zen eskerrak emateko mezaren ondoren, hasi zen audientzia. Leon XIII.a besaulki handi batean eserita zegoen. Soilki jantzi zen: [63^a] sotana zuriaz eta kolore bereko muzetaz. Solideo txiki bat zeraman buruan. Haren inguruan kardinalak, artzapezpikuak eta apezpikuak zeuden, baina nik, neure gogoa Aita Santuarekin nuen eta, ez nituen handi-handika baizik ikusi. Iltaran gindoazen haren aurretik; erromes bakoitza, zegokionean, belaunikatu, Leon XIII.aren oinari eta eskuari mun egin, haren bedeinkazioa hartu, eta bi guardia handikik, zeremonia gisa, ukitu bat egiten zioten, jaiki egin behar zuela aditzera emanaz (erromesari aditzera eman; bada, gauzak hain gaizki azaltzen ditudanez gero, norbaitek Aita Santuari dela uler dezake).

Aita Santuaren egonlekuan sartu aurretik, etsi-etsian *hitz egitera* nengoen ni; baina nire adorea moteldu egin zen Aita Santuaren eskuinaldean "Révéröny jauna!" ikusi nuenean... Ia une hartantxe esan ziguten, haren aginduz, Leon XIII.ari *hitz egitea debekaturik* zela²⁷⁴, audientziak luzeegi jotzen zuelako... Ni neure Zelina maitearengana itzuli nintzen haren iritzia jakiteko: "Hitz egin!", esan zidan hark²⁷⁵. Unetxo bat geroago Aita Santuaren oinetan nengoen. Haren oinetakoari mun egin ondoren bere eskua luzatu zidan; baina mun egin beharrean, neure eskuak bildu, eta malkoz bustitako neure begiak haren aurpegirantz jasoz, esan nion: – "Aita txit santu hori, grazia handi bat eskatu behar dizut!..." Orduan, Aita Santuak²⁷⁶ nigantantz makurtu zuen burua, ia haren aurpegiak nirea ukitzen zuela, eta haren *begi beltz* eta *sakonak* niregan jartzen zituela ikusi nuen eta arimaren barneraino sartzen

²⁷³ Aita Santuak emaniko audientziari buruz, ik. LD 642, Zelinarena (1887/11/20, CGn, 300-302. orr.), eta TG 36.

²⁷⁴ Zalantzarik gabe, Aita Santua ez nekatzearren.

²⁷⁵ Teresak ez zuen hain bidaia luzea egin, azkenean atzera egiteko (ik. TG 32), batik bat Karmel osoak berari adore ematen ziolarik (LC 59, CGn, 269. or.).

²⁷⁶ Pasartearen amaiera orrialdearen barrenean idatzirik dago (63^a).

zitzaizkidala zirudien. – “Aita txit santu hori, esan nion, berorren jubileuagatik eman biezat hamabost urterekin Karmelen sartzeko baimena!...”

Bihotz-zirrarak, ziur aski, dardar eragin zion nire ahotsari; horregatik, harriduraz eta haserrez begiratzen zidan Révérony jaunarengana itzuliz, esan zuen Aita Santuak: –“Ez dut ongi ulertzen”. Jainko onak utzi izan balu, erraz izango zen Révérony jaunak nik nahi nuena erdieste. Baina gurutzea zen, eta ez poza, Jainkoak eman nahi zidana. – “Aita txit santua, (erantzun zuen bikario nagusiak) Karmelen hamabost urterekin sartu nahi duen *neskatila bat* da; baina nagusiak une hone-tan arazoa aztertzen ari dira”. – “Ea ba, ene alaba, erantzun zuen Aita Santuak niri maiteki begiratzuz, egin zure nagusiek esango dizuena”. Orduan, nire eskuak haren belaunetan jarritz, [63¹] azken ahalegina egin nahi izan nuen, eta erregu-ahotsez esan nion: – “Oi, Aita txit santu hori, berorrek baietz esango balu, guztiek onartuko lukete!...” Adi-adi begiratu zidan, eta hitz hauek esan zituen, silaba bakoitz markatuz: – “Tira!... Tira!... *Sartuko zara, Jainko onak nahi badu!*²⁷⁷...” (Haren hitz-doinua hain zen sarkor eta barrukoa, non orain ere entzuten nagoela iruditzen baitzait). Aita Santuaren ontasunak beroturik, hitz egiten jarraitu nahi nuen, baina bi guardiek *fantasunez ukitu ninduten*, jaiki nendin. Ez zela nahiko ikusirik, besoetatik heldu zidaten, eta Révérony jaunak lagundu zien niri jaikiarazten, eskuak bildurik, Leon XIII.aren belaun gainean ezarri jarraitzen bainuen, eta *indarrez* kendu behar izan ninduten haren oinetatik...

Erditik *jaso ninduten* uanean, Aita Santuak nire ezpain gainean ezarri zuen bere eskua; gero ni bedeinkatzeko jaso zuen. Orduan nire begiak negar-malkoz bete ziren, eta Révérony jaunak Bayeux-en adina *diamante* gutxienez ikusi ahal izan zituen... Bi guardia handiek ateraino eraman ninduten, nolabait esateko, eta han hirugarren batek Leon XIII.aren domina bat eman zidan. Nire ondoren zetorren Zelina izan zen gertatu berri zenaren lekuko. Ia ni bezain hunkitua, hala ere, Aita Santuari Karmelerako bedeinkazioa eskatzeko adorea izan zuen. Ahots zakarrez erantzun zuen Révérony jaunak: “Karmel lehendik ere bedeinkaturik dago²⁷⁸”. Aita Santu onak maiteki gaineratu zuen: – “Oi, bai, bedeinkaturik dago”.

Aita gu baino lehenago jarri zen Leon XIII.aren oinetan (gizonekin)²⁷⁹. Révérony jaunak txeratsu jardun zuen harekin, *bi karmeldarren aita* bezala aurkeztuz. Aita Santuak, bere onginahia bereziaren ezaugarri, nire errege maitearen burutik pasatu zuen eskua, benetako ordezkari zen haren izenean *zigilu misteriosuz*²⁸⁰ markatzen zuela zirudielarik. Ai! *lau karmeldarren aita* hori zeruan dagoen une hone-tan, ez da Aita Santuaren eskua aurretiaz martiritza iragarriz [64³] haren buru gainean ezarria dena... birjinen senarraren eskua, zeruetako Erregearena da bere zerbitzari leialaren buruari distira ematen diona. Eta harrezkero esku gurgarri hori beti izango da berak goretsi duen buruaren gainean ezarria!...

Mt 25,21

²⁷⁷ Erkatu TG 36rekin, hori egun berean idatzia baita. Kontaketa hariak biguna dirudi, ondoko kontaketaekin alderatuz gero.

²⁷⁸ Révérony jaunak erromesak Aita Santuaren aurretik igaro baino lehen, erlijiosoen komunitateak bedeinkatzeko esan zion.

²⁷⁹ Egiaitan, gizonezkoak andrazkoen eta abadeen ondoren azaldu zituzten.

²⁸⁰ Hemen hautatze-ezaugarri eta probarako babes-seinaletzat hartzen den bedeinkazio-keina. Ik. *infra*, 64^a, eta TO 8 (azken ahapaldia).

Nire aita maitea oso nahigabeturik gelditu zen audientziatik irteterakoan eta ni negar-malkotan urtua ikustean. Ahal zuen guztia egin zuen ni poztearren, baina alferrik... Neure bihotz barruan bake handia sentitzen nuen, Jainko onak eskatzen zidanari erantzutearren neure esku zegoen guzti-guztia egin bainuen. Baina *bake* hau *barru-barruan* zen, eta samintasunak *betetzen zuen* nire arima, Jesus isilik zegoen eta²⁸¹. Ez zela bertan zirudien; ezerk ez zidan erakusten han zegoenik... Areago oraindik, egun hartan eguzkia distira egiten ez zen ausarti, eta Italiako zero urdin ederra, hodei beltze bete, nirekin batera negar eta negar ari zen... Ai, nire bidaia amaitua zen jadanik; ez zuen inolako erakargarritasunik nire begietan, haren helburu nagusiak huts egin baitzuen! Hala ere, Aita Santuaren azken hitzak pozgari izan zitzaizkidan. Ez ote ziren, izan ere, benetako profetia? Eragozpen guztiak gorabehera, *Jainkoak nahi izan duena* gertatu da. Ez die *utzi* sorkariei eurek nahi zutena egiten, *berak nahi zuena* baizik... Orain dela denbora pixka batez gero, Jesus Haurrari eskaini nion neure burua haren *jostailutxoa* izateko²⁸². Haurrek, ukitzen ausartu gabe, begiratu besterik egiten ez dioten jostailu garestizat ez nintzala har esan nion, batere baliorik ez duen pilotatxotzat baizik; lurrera bota, ostikoaz jo, *zulatu*, bazter batean utzi, nahiz, hala nahi izanez gero, bihotzaren kontra estutzen den pilotatxotzat. Hitz batez, nik Jesustxok *ongi pasatzea* nahi nuen, hari poz ematea, haren *haur-maintetarako* eskaini neure burua... Entzun zuen hark nire otoitza...

Erroman Jesusek *zulatu egin zuen* bere jostailutxoa. Barruan zer zeukan ikusi nahi zuen; eta barrua ikusi ondoren, bere aurkikuntzarekin pozik, lurrera erortzen utzi zuen bere pilotatxoa,[64ⁱ] eta loak hartu... Zer egin zuen bere lo gozo bitartean, eta zer gertatu zen bertan behera utzitako pilotatxoarekin?... Jesusek ametsetan egin zuen oraindik bere jostailuarekin *jolasten* ari zela, aldizka utzi eta hartu eginez. Eta gero biraka urrutira jaurti ondoren, bere bihotzaren kontra estutzen zuela, harrezkero sekula bere eskutxotik aldentzen utzi gabe...

Ulertuko duzu, ene Ama maite, zein triste egongo zen pilotatxoa bere burua *lurrean* ikusteaz... Hala ere, ustearen kontra uste izanez irauten nuen. Aita Santuaren audientziatik egun batzuetara, aita Simeon Anaia²⁸³ bisitatzera joanik, Révérony jauna²⁸⁴ aurkitu zuen han, oso atsegin agertu zitzaionlarik. Aitak alaiki aurpegi-
 ra bota zion niri neure *arazo larrian* lagundu ez izana. Gero bere *erreginaren* historia kontatu zion anaia Simeoni; agure beneragarriak arretaz entzun zuen haren kontaketa, zenbait ohar ere hartuz, eta esan zion zirraraz: "Italian ez da honelakorik ikusten". Uste dut hizketaldi honek iritzi oso ona utzi ziola Révérony jaunari. Harrezkero, *azkenik*, nire bokazioaz sinesturik zegoela erakusten zidan etengabe.

Erm 4,18

²⁸¹ Jesusen isiltasuna: Teresaren laztura. Ik. C Esk., 9ⁱ eta A Esk., 51^a. Baina bera gartsu iharduki zen (TG 111); haren bizitza osoa fedearen probarako pretaera zen (ik. *Poésies*, II, 92. or., 13. ahapaldia).

²⁸² Teresak darabiltzan sinboloen artean gai garrantzitsua («*pilotatxoa*»ren inguruan josia), hemen lau aldiz azaltzen dena. Ik. TG 34; 36; 74; 78; 79; 176; eta LD 624 1887/11/8az gero, CG, 264. or.; LC 66; 67; CG, 287 + b orr., 1169 eta ondorengo orrialdea; *Otoi.ères*, 128, 3. or.

²⁸³ Kristau-eskoletako anaia, Erroman zegoen frantses koloniakoen artean izen ona zeukana, orduko Martin jaunaren ezaguna zelarik. Berak bidaliko zion Teresari Aita Santuaren bedeinkazioa 1890/8/31n, bere profesarako, eta bere azken gaixoaldian (1897/7/12an).

²⁸⁴ Ik. Zelinaren eskutitz zehatza (CG, 304 eta ondorengo orrialdeak).

Egun gogoangarriaren biharamunean, goizean goiz irten behar izan genuen Napoli eta Ponpeia-rako ibilaldira. Vesuvio-k, gure omenez, egun osoan jardun zuen burrunbaka, bere *kanoi-danbatekoekin* ke-adar lodia irteten utziz. Ponpeia-ko hondakinen artean utzi dituen markak ikaragarriak dira; “lurrari begiratu eta ikara eragiten dion, mendiak ukitu eta ke bihurtzen dituen” Jainkoaren ahalmena erakusten dute... Pozik ibiliko nintzateke neu bakarrik hondakinen artean, giza gauzen suntsikortasunaz gogoeta eginez; baina bidaiari multzo handiak kentzen zion hiri suntsituari bere tristurazko lilura, neurri handi batean...

Napoli-n oso bestera gertatu zen. Bi zaldik eramanda zebiltzan *hainbeste* zalgurdik ikusgarria egiten zuen, hiri osoa mende hartzen zuela muino bizkarrean zegoen [65^a] San Martin monastegirako gure ibilaldia. Zoritzarrez, eramaten gintuzten zaldiak txitean-pitean erotzen ziren, eta behin baino gehiagotan nire azkena iritsia zela uste izan nuen. Zalditzainak behin eta berriro errepikatzen zuen gidari italiarren hitz sorgindua: “Appipau, appipau!...” Zaldi gaixoek ez zuten onik zalgurdia irauli arte. Azkenik, geure aingeru jagoleei esker iritsi ginen geure hotel bikainera. Bidaia osoan zehar printze-hoteletan izan genuen ostatu. Sekula ez nuen neure burua ikusi hainbesteko luxuz inguraturik. Aberastasunak ez dakarrela zoriona esateko unea da benetan hau, askoz ere pozago egongo bainintzen lastozko aterpe batean Karmelerako itxaropenez, urrezko moldura, marmol zurizko eskailera, zetazko tapiz artean bihotzean samintasuna dudala baino... Ai! Ongi ulertu dut: zoriona ez datza inguruan ditugun gauzetan; hura arimaren muin-muinean datza; berdin izan gintezke haren jabe kartzelan nahiz jauregian. Horren argigarri hauxe da: ni Karmelen askoz ere zoriontsuago naizela gaur egun barruko eta kanpoko sufrimenduen artean ere, munduan bizitzako erosotasun guztiez inguraturik eta, *batez ere*, aitaren etxeko gozotasunez inguraturik baino!...

Nik arima tristuraz beterik nuen. Hala ere itxura batean lehengoa nintzen, Aita santuari egindako eskabidearen berri inork ez zekiela uste bainuen. Laster jabetu ahal izan nintzen bestera zela. Zelinarekin bagoian bakarrik gelditurik (gainerako erromesak jatetxera jaitsi ziren, geldiuoneko minutu urri batzuetan), ikusi nuen Legoux jaunak, Coutances-ko bikario nagusiak, atetxoa ireki, eta niri irribarrez begiraturik esaten zuela: “Ene, ba! Nola dabil gure karmeldar txikia?...” Orduan konturatu nintzen erromes-talde osoak zekiela nire isilpekoa²⁸⁵. Zorionez, inork ez zidan aipatu; baina begiratzeko era atseginagatik, ikusi nuen nire eskabidea ez zutela gaizki hartu, [65ⁱ] bestera baizik... Asisko hiri txikian Révérony jaunaren zalgurdia igotzeko aukera izan nuen, bidaia osoan *inongo andreri* egin ez zitzaion mese-dea. Hona hemen nola lortu nuen pribilegio hau.

San Frantzisko eta Santa Klararen bertutez lurrindutako lekuak gurtu ondoren, Santa Klararen ahizpa zen Santa Ainesen monastegiarekin amaitu genuen. Nik lasai-lasai ikusi nuen santaren burua; handik alde egiten azkenetarikoa nintzela, gerrikoa galdu nuela ohartu nintzen. Jendetzaren artean *bila* aritu nintzen. Apaiz bat errukitu egin zen nitaz eta lagundu egin zidan. Aurkitu nuenean, urruntzen ikusi nuen, eta ni bakarrik gelditu nintzen oraindik *bila*, gerrikoa eskuratua nuen arren,

²⁸⁵ Erroman *L'Univers*-eko kazetari zen batek zabaldua zuen albiste (1887/11/24).

ezin bainuen jarri; belarria falta zitzaidan... Azkenik, diz-diz egiten ikusi nuen bazter batean; hartu eta zintari lotzea ez zen lan luzea izan; baina aurrekoa luzeegia izan zen. Horregatik, handia izan zen nire harridura elizatik hurbil neure burua bakarrik ikusi nuenean. Zalgurdi guztiak joanak ziren Révérony jaunarena izan ezik. Zer egin? Jadanik ikusten ez nituen zalgurdien atzetik korrika hasi, trena galtzeko arriskuan jarritz eta neure aita maitea arduratan jarritz, ala Révérony jaunaren zalgurdian toki bat eskatu²⁸⁶?... Azken hau hautatu nuen. Ahalik eta erarik atseginean eta *esturarik* txikienaz, ikaragarritzko lotsa banuen ere, neure egoera larria azaldu nion, eta bera ere *estuasun* batean sartu nuen, haren zalgurdia erromes-taldeko *gizon* agurgarriekin bete-beterik baitzihoan. Ezinezkoa zen toki bat gehiago aurkitzea. Baina gizonetariko bat, jendetasunez, arin-arin jaitsi zen, niri bere eserlekura igoarazi zidan, eta bera gurdizainaren ondoan eseri zen apalki. Nik artean harrapatutako urtxintxa bat ematen nuen, eta ez nengoen ez batere lasai, handiki haietaz, eta, batez ere, neure aurrez aurre eseria nuen *beldurgarrienez* inguraturik... Hala ere, hura oso atsegin [66^a] izan zen nirekin, noizean behin jaun haiekin zuen solasaldia etenik, niri *Karmel*-eri buruz hitz egiteko. Geltokira iritsi orduko, *handiki* haiek euren txanpon-poltsa *handiak* atera zituzten (ordaindua zen) gurdizainari eskupekoa emateko. Nik haiek bezala egin nuen, eta neure txanpon-poltsa *txiki-txikia* hartu nuen, baina Révérony jaunak ez zidan utzi handik neure *txanpontxo* politak ateratzen, eta bion partez *handi* bat ematea nahiago izan zuen.

Beste behin omnibusean aurkitu nintzen haren ondoan²⁸⁷, eta oraindik atseginago agertu zen, eta Karmelen sar nendin bere esku zegoen guztia egingo zuela hitz eman zidan... Nire zaurietan gantzu pixka ezarri arren, elkar-ikuste labor hauek ez zuten eragotzi itzulera joatea baino tristeagoa izatea, ez bainuen "Aita Santuaren" itxaropenik honezkeroko. Basamortu idor eta urgabea iruditzen zitzaidan lurrean ez nuen aurkitzen inolako laguntzarik. Jainko onarengan *soilik* zen nire itxaropen guztia... Ikusi berri nuen haren santuengana baino hobe zela berarengana jotzea...

Sal 62.2

Nire arimako nahigabea ez zitzaidan eragozpen izan bisitatzen genituen toki santuetan arreta handia jartzeko. Florentzia-n, karmeldarren koruaren erdian, Pazziko Santa Madalena²⁸⁸ ikusteko zoriona izan nuen, haiek burdinsarea ireki zigutelarrik. Pribilegio hori²⁸⁹ izango genuenik ez genekienez gero, eta pertsona asko zirenez gero euren errosarioekin santaren hilobia ukitzea nahi zutenak, inork ezin zuen eskurik sartu nik izan ezik banatzen gintuen burdinsarearen zirrikitutik. Horregatik, jende guztiak ekartzen zizkidan errosarioak, eta ni pozik nengoen neure ofizioaz... Beti aurkitu ohi nuen *guztia ukitzeko* modua²⁹⁰. Horrela, Jerusalemgo Gurutze Santuaren elizan (Erroman) benetako Gurutzearen zatitxo batzuk, bi arantza eta iltze

²⁸⁶ Erkatu TG 37rekin eta Zelinak bere ahizpei bidalitako LD 652rekin (CG, 320 eta ondorengo orrialdea); horietan Martin ahizpen zalantza azaltzen da, bikario nagusiaren sentimenduen aurrean.

²⁸⁷ 11/29an Nizan; Zelinaren kontaketa zehatza (ik. CG, 323-324. orr.).

²⁸⁸ Florentzian, Pazziko Maria Madalena santuaren gorpu hango monasterioko kaperan gordetzen da.

²⁸⁹ Teresaren esaera "comme nous en savions pas jouir de ce privilège"... ilun geratzen da, baina goiko testuan argi jarri dugu (Itzultzailearen oharra).

²⁹⁰ Teresaren jarrera saiaturia, fedearen errerealismoarengatik. Ik. *toucher* A Esk.an, 17^a, 79ⁱ; TG 101, 2ⁱ; 147, 2^a; 247, 2^a; TO 26, 6 etab.

sakratuetariko bat gurtu ahal izan genituen, guztia urrez landutako erliki kutxa dotore batean gorderik, baina *kristalik gabe*; beraz, erlikia preziatua gurtzean, nik aurkitu nuen neure hatz txikia [66ⁱ] erliki kutxaren zirrikitu batetik sartzeko modua, eta ukitu ahal izan nuen Jesusen odolaz bustia izan zen iltzea... Egia esan, ausartegia nintzen!... Eskerrak bihotz barruak ikusten dituen Jainko onak badakien nire asmoa ona zela eta munduko ezerगतik ere ez nukeela nahi hari nahigaberik ematerik. *Haur* baten antzera portatzen nintzen harekin, guztia zilegi dela eta bere aitaren altxorrek bereak bezala ikusten dituenaren antzera.

Lk 15,31

Oraindik ezin dut buruan sartu Italian zer dela eta eskumikatzen dituzten hain erraz emakumeak. Txitean-pitean esaten ziguten: "Ez sartu hemen..., ez sartu han, eskumikatuak izango zarete!..." Ai, emakume gaixoak! Zein mesprezatuak diren!... Hala ere haietatik Jainkoa askoz ere gehiagok maite dute gizonen artetik baino, eta gure Jaunaren nekaldian emakumeek adore handiagoa izan zuten apostoluek baino, soldaduen irainei aurre eginik, Jesusen Aurpegi gurgarria txukatzeraz ausartu baitziren... Ziur aski Jaunak nahi izan du lurrean mesprezua haien ondare²⁹¹ izan dadin, bere buruarentzat horixe hautatu zuelako... Zeruan jakingo du erakusten argi eta garbi bere pentsamenduak ez direla gizonenak bezalakoak, orduan *azkenak lehenen* izango baitira...

Lk 23,27

Is 55,8-9

Mt 20,16

Bidaia honetan zehar, behin baino sarriago, zerukoari itxaroteko pazientziarik ez dut izan lehenengo izateko... Karmeldar fraideen komentu bat bisitatzen genuen batean, erromesei *kanpoko* galerietatik jarraitzeaz nahiko ez eta, aurrera jo nuen *barruko* klaustroetan zehar... Bat-batean karmeldar zahartxo bat ikusi nuen, urrutitik aldentzeko zeinuak eginez. Baina ni, urrundu beharrean, gehiago hurbildu nintzen berarengana, eta klaustroko koadroak erakutsiz, politak zirela aditzera eman nion. Erlijiosoa jabetu zen, ziur aski, bizkarrean behera solte nuen ile-adatsagatik eta nire gazte-itxuragatik, haur bat nintzela; irribarre egin zidan maiteki, eta urrundu zen, bere aurrean areriorik ez zuela ikusirik. Italieraz hitz egiten jakin banu, geroago karmeldar izatekoa nintzela esango nion; baina Babelgo dorrearen eraikitzaileen erruz, hori ezinezkoa gertatu zitzaidan.

Has 11,1-9

– Oraindik Pisa eta Genoa ikusi ondoren, Frantziara itzuli ginen. Bidean zehar, [67^a] ikuspegi zoragarria zen²⁹². Batean itsasertzetik gindoazen, eta trena handik hain hurbil igarotzen zelako, olatuak gureganaino iritsiko zirela iruditzen zitzaidan (ikuskitzun hau ekaitz batek sortua zen; ilunabarra zen, honek ikusmira oraindik izugarriago bihurtuz); bestean lautadak, fruitu umotuz beteriko laranjondo, hosto finezko olibondo, palmera txanbelinez jantziak... Arrats apalean, itsas portu ugari eta txikiak hainbeste argiz diz-diz ikusten genituen, zeruan lehen *izarrak* pizten ziren bitartean...

Ai, zenbat poesiak betetzen zuen nire arima neure bizitzan²⁹³ lehenengoz eta azkenengoz begiratzen nituen gauza haien guztien aurrean!... Penarik gabe aiena-

²⁹¹ Teresak ozen ematen du aditzera hemen bere emakumetasuna (beste adibide batzuk ere ikusiko ditugu, ik. *Poésies*, I, 190. or.). Haren argudiobidea sendoa da, eta haren emakumetasuna Jesusen antzeko izateko pribilegio antzeko zerbait bihurtzen da.

²⁹² Trena Italiako urertzetik doa, eta inguru-minguru dabil Nizako Itsasertz Urdinetik Toulonerako bidean.

²⁹³ Azken txangoak: Guardako Andre Mari-ra, Marseillan (11/29) eta Fourvières-en (30ean). Eskerrak emateko Meza, eta erromesaldia Parisen amaitzen da (12/2).

tzen ikusten nituen. Nire bihotza beste gauza miresgarri batzuen irrikaz zen. *Lurreko edertasunik* nahiko begiratu zituen hark; *zerukoak* zituen bere gurarien jomuga. Eta *arimei* haiek ematearren, neure burua *preso*²⁹⁴ bilakatu nahi nuen!... Irrikatzen nengoen presondegiko atea niretzat ireki orduko, borrokatu eta sufritu beharra zegoen oraindik; eta somatzen nuen hori Frantziara itzultzean. Hala ere, nire konfiantza handia zen eta, ez nuen etsitzen abenduaren 25ean sartzeko baimena eman-go zidaten ustean...

Lisieux-era iritsi gineneko, gure lehenengo bisita Karmelera izan zen. Hura bai ikustaldia! Hilabeteko banakuntza ondoren, hainbeste gauza genituen elkarri esateko! Hilabete hau luzeago egin zitzaidan eta urte askotan baino gehiago ikasi nuen...

Oi, ene Ama maitea! Bai gozoa izan zela niretzat zu berriro ikustea, zuri nire arima gaixoa, arima zauritua agertzea! Ni ulertzen hain ongi zenekien horri, guztiaz konturatzeko hitz bakar batez, begirada batez nahiko zenuen horri! Oso-osoan utzi nuen neure burua; neure esku zen guztia egin nuen; guztia, Aita Santuari hitz egite-raino. Horrela, nik ez nekien zer egin behar nuen oraindik. Apezpikuari idatzi eta emandako hitza gogorarazteko esan zenidan. Hala egin nuen berehala, ahal izan nuenik ondoen, baina erabili nituen hitzak pixka bat sinpleak [67ⁱ] iruditu zitzaizkion nire osabari; berak berridatzi zuen nire gutuna. Postetxera eramateko nintzen unean, zurea jaso nuen, ez idazteko eta egun batzuetan itxaroteko esanez. Itsu-itsuan egin nuen esana, okerrik ez egiteko biderik onena zela ziur bainengoen. Azkenik, Gabonak baino hamar egun lehenago joan zen nire gutuna²⁹⁵! Erantzuna ez zela luzatuko oso-osoan sinesturik, meza ondoren, goizero joan ohi nintzen postetxera aitarekin, hegan egiteko baimena han aurkituko nuelakoan, baina goiz bakoitzak beste etsipen bat zekarkidan, eta hala ere ez zuen nire itxaropena hausten... Nire loturak eteteko eskatzen nion Jesusi; eta eten zituen, baina ez nik uste nuen moduan, guztiz bestera baizik... Iritsi zen Gabon egun zoragarria, eta Jesus ez zen itzartu... Lurrean utzi zuen bere pilotatxoa hari begiratu ere egin gabe...

Sal 115,16

Gauerdiko mezatara joan nintzenean nire bihotza hausturik zen. Izan ere, hain itxaropentsu nengoen Karmengo burdinsarearen atzealdetik izango nintzela!... Proba hau latza izan zen nire fedearentzat. Baina lotan den bitartean ere bihotza erne duen hark ulertarazi zidan, *ziape-alea* adinako fedea dutenei berak *mirariak* egitea eta mendiak lekuz aldatzea ematen diela, hain *txikia* den fede hori sendotzearen; baina bere *bihotz-bihotzekoekin*, bere *Amarekin*, ez du miraririk egiten *haien fedea azertu baino lehen*. Ez ote zuen Lazaro hiltzen utzi, Martak eta Mariak gai-xorik zela jakinarazi arren?... Kanako ezteietan Ama Birjinak bere ostalariet lagun diezaiela eskaturik, ez ote zion erantzun bere ordua ez zela iritsi oraindik?... Baina probaren ondoren, bai sari ederra! Ura ardo bihurtu zen!... Lazaro berpiztu!... Horrela jokatu zuen Jesusek Teresatxorekin. *Denbora luzez* azertu ondoren, haren bihotzeko gurari guztiak bete zizkion...

Kt 5,2

Mt 17, 19

Jn 2,1-11

Jn 11,1-4

²⁹⁴ Bi esalditan, Teresak gauza asko eta ia bere bizitza osoa ere laburtzen du. Preso (bere gogoz): ik. A Esk., 58^a, 81ⁱ; TG, 106^a; 201, 2^a; TO 18, 32; Otoi. 17, 11, eta *Prières*, 136. or.

²⁹⁵ Gorabehera horiei buruz, ik. TG 38, TG 39 eta CG, 324-333. orr.en hiru idazkerak.

Nik negar-malko artean igarotako jai pozgarri hartako arratsaldean, karmeldar mojak ikustera joan nintzen. Handia izan zen nire poza, burdinsarea ireki zenean, [68^a] Jesus Haur zoragarri bat, eskuan nire izena idatzirik zegoen pilotatxo bat zeukala ikustean. Karmeldarrek, Jesusen orde, hura hitz egiteko txikiegia zen eta, nire Ama maiteak asmatutako kantu bat kantatu zidaten. Hitz bakoitzak kontsolazio ezta isurtzen zuen nire ariman. Ez zait sekula ahaztuko beti samurtasun gozoenez bete ninduen ama-bihotzaren maite-erakutsi hura... Pozezko malko-jarioz eskerrak eman ondoren, gauerdiko mezaatik itzultzean neure Zelina maiteak eman zidan uste-kabea kontatu nien. Nik konketa polit bat aurkitu nuen neure gelan, bertan Jesustxo, pilotatxo bat alboan zuela, lotan zeraman belauntzitxo bat. Bela zurian Zelinak hitz

Kt 5,2 hauek idatzi zituen: “Lo nago, baina nire bihotza itzarrik”. Untzitxoan hitz bakar bat: “Buru-uztea!” Ai! Jesus oraindik mintzo ez bazitzaion ere bere emaztegai txikiari, haren jainko-begieki beti itxirik bazirauten ere, behinik behin, bere bihotzaren gozotasunak eta maitasuna ulertzen zituzten arimen bidez agertzen zitzaidan...

1888ko urtearen lehenengo egunean, Jesusek oraindik bere gurutzaren erre-galua egin zidan. Baina oraingoan neuk bakarrik eraman nuen, zenbat eta gutxiago ulertzen nuen, hainbat mingarriago gertatzen zitzaidan eta. Apezpikuaren erantzuna 28an, Hautxo Errugabe santuen jaian, iritsi zela iragartzen zuen *Paulinaren gutun* batek²⁹⁶; baina ez zidala ezer esan, nire sarrera *garizuma oster*a arte ez zela izango erabaki baitzuten. Ezin izan nion negarrari eutsi hain atzeratze luzeaz penitentsatzean.

Sal 115 Proba honek izaera berezia izan zuen niretzat. Munduarekiko nire *loturak hautsirik* ikusten nituen; eta oraingoan kutxa santua zen uso gaixoari sarrera ukatzen ziona... Aitortzen dut erbesteko neure hiru hilabeteak pozik ez onartzeaz ez nintzela zentzuzko agertu. Baina uste dut, ez delakoan ere, proba hura *oso gogorra* izan zela, eta *aurrerakada* handia eragin zidala buru-uztean²⁹⁷ eta gainerako bertuteetan.

Has 7,13-16

[68ⁱ] Nola joan ziren nire arimarentzako graziaz hain oparoak izan ziren *hiru hilabete* hauek?... Lehenengotan, ohi nuen bezain bizitza zehatza zertan eginik ez nuela etorri zitzaidan burura. Baina laster ohartu nintzen eskaintzen zitzaidan denboraren balioaz, eta inoiz baino gehiago bizitza *serio eta mortifikatuari* eman behar niola erabaki nuen. Mortifikatua diodanean, ez da penitentziak egiten nituela sinestazteko. Ai, *sekula ez nuen horrelakorik egin*²⁹⁸! Txiki-txikitarik era guztitako mortifikazioak egin ohi zituzten arima eder haien antzeko izatetik urrun, nik ez nuen haien erakarpenik sentitzen. Beharbada, nire moteltasunagatik izango zen, Zelinak bezala nik ere hainbeste asmakizun bila nitzakeelako neure buruari sufriarazteko. Hori egin beharrean, bigunegi tratatzen utzi nuen neure burua eta penitentzia egin beharrik ez duen txoritxo bat bezala gizentzen... Nire sakrifizioa beti gaina hartzera zegoen nire borondatea haustea zen; erantzun gabe isiltzea; dohainik zerbitzu txikiak egitea; eserita nengoela bizkarra atzealdearen gainean ez ezartzea, etab., etab... *Gauzatxo ezerez* hauek eginez prestatu nintzen Jesusen emaztegai izateko, eta ezin neza-

²⁹⁶ Eskuizkribua, gaur egun, zuzenketa eta karrakaduraz beterik dago. Testua berrezartzeari buruzko justifikazio guztiak MS/NEC (Cerf, 1992) testu-kritikaren oharretan ikus daitezke.

²⁹⁷ *Buru-uztea* da, izatez, aldi honetako hitz-ardatza (ik. 61ⁱ, 67^a, eta hemen).

²⁹⁸ Teresak gorputz-penitentziari buruz hitz egiten du, eta badakigu Karmelen izango duela horretarako aukera.

ke esan zenbat oroitzapen gozo²⁹⁹ utzi zizkidan itxarote honek... Hiru hilabete laster joaten dira. Azkenik iritsi zen hain gogo biziz itxaron nuen ueña.

Astelahenean, apirilaren 9an, Karmelek, garizuma zelako aldaturik, Jaunaren Gizakundeko Adierazpena ospatzen zuen eguna izan zen nire sarrerarako hautatua. Bezperan familia osoa zegoen nik azken aldiz eseri behar nuen mahaiaren inguruan bildurik. Ai, bai erdiragarriak direla barru-barruko bilera hauek!... Batek oharkabean joan nahi duenean, txera eta hitzik gozoenak zuzentzen zaizkio oparotasunez eta banatzearen sakrifizioa sentiarazten dute... Nire Errege maiteak ez zuen ia hitzik egiten, baina maitasunez jartzen zuen niregan bere begirada... Nire izebak negar egiten zuen noizbehinka, eta nire osabak hamaikatzko maite-erakutsi egiten zizkidan. Joana eta Maria ere nirekiko samurtasunez beterik zeuden. Maria, batez ere; [69^a] honek, bakarrean harturik, berak eman zizkidala uste zuen nahigabeengatik barka eskatu zidan. Azkenik, nire Leonia maiteak, hilabete batzuk lehenago³⁰⁰ Bisitazioetik itzuli zenak, beste inork baino areago, musuz eta xeraz betetzen ninduen. Zelina utzi dut soilik aipatu gabe; baina zuk igartzen duzu, ene Ama maite, nola igaro zen elkarrekin lo egin genuen azkenengo gaua...

Egun handiko goizean, Buissonnets-era, berriro ikusiko ez nuen neure haurtzaroko habia xarmantera, azken begirada egin ondoren, Karmelgo mendia igotzeko abiatu nintzen neure errege maitearekin besoz beso... Bezperan bezala, familia osoa bildu zen meza santua entzuteko eta bertan jaunartzeko. Jesus nire senide maiteen bihotzetara jaitsi zeneko, nik negar-zotinak baizik ez nituen entzun neure inguruan. Malkorik isuri ez zuen bakarra neu nintzen, baina bihotzaren taupadak *hain biziki* sentitu nituen, non, komentuko aterantz hurbiltzeko esan zigutenean ezinezkoa iruditzen baitzitzaidan pausurik ematea. Harantz nindoan, nire bihotzaren taupada gogorregatik hilko ez ote nintzen neure buruari galdetuz... Ai, hura bai trantzea! Hortik pasatu beharra dago zer den jakiteko...

Nire bihotz-zirrara ez zen kanporantz agertu. Neure familia maiteko pertsona guztiak besarkatu ondoren, neure aita berdingabearen aurrean belauniko jarri nintzen, bere bedeinkazioa eskatuz. Bedeinkazioa emateko *bera ere* belauniko jarri zen, eta negar artean bedeinkatu ninduen... Aingeruei irribarrea sortu behar zien ikuskizuna zen: gizon zahar hura, oraindik bizitzako udaberrian zen bere alaba Jaunari eskaintzen!... Une batzuk geroago, itxi egin ziren kutxa santuko ateak nire ondoren³⁰¹, eta nik barruan neure ahizpa *maiteen* besarkadak hartu nituen, *amaren*

Has 7.16

²⁹⁹ Erromara egindako bidaiaren aurreko tonu berbera da (53ⁱ): Teresa lehenengoz mintzo da, «gurutze» minberaz, «*proba gogorra*»z (68^a), eta ondorik «*graziaz*» beteriko *hiru hilabete*»ez eta «*oroitzapen gozo*»ez (68ⁱ).

³⁰⁰ 1888/1/6an, osasuna dela-eta; berak Teresaren erretratu hunkigarria utzi du, Karmelen sartu zen eguneko (PO, 348. or.).

³⁰¹ Ez dago aipamenik Delatroëtte-k komunitateari, Martin jauna aurrean dela, egindako erasiaren gainean, klausurako atea zabalik dagoela: "Ondo da!, ene ama agurgarriok, *Te Deum!* kanta dezakezue. Apezpiku jaunaren ordezkoi naizen honek, hamabost urteko ume hau aurkeztuko dizuet, bera sartzeko eskatu duzuen bezala. Zuen itxaropenak zapuztuko ez dituelakoan nago, baina gogorazazi nahi dizuet bestela gertatuko balitz, zeuek bakarrik hartuko duzuela horren erantzukizuna". Komunitate osoa zur eta lur gelditu zen hitz horiek entzunda» (Ama Aines, PA, 141. or.).

ordezko egin zidatenen eta aurrerantzean neure egintzen eredu hartuko nituen haienak... Azkenik, nire gurariak beteak ziren. Nire arimak hain BAKE³⁰² gozo eta sakona sentitzen zuen, non ezinezkoa izango bainuke [69ⁱ] hura deskribatzea. Eta badira zazpi urte eta erdi barru-barruko bake hau nire ondare dela; probarik gogorrenen artean ere ez nau utzi.

Nobiziagai guztiak bezala, neure sarrera ondoren, korura eramán ninduten. Hau erdi itzalean zen, Gure Jauna agerian jarrita zegoelako, eta lehenen nire begirada erakarri zuena niri begira jarritako gure Ama Jenofa³⁰³ santuaren begiak izan ziren. Haren oinetan belauniko egon nintzen une batez, Jainko onari santa bat eza-gutzeko mesedea egin zidalako eskerrak emanaz, eta gero Ama Maria Gonzagarenari³⁰⁴ jarraitu nion komentuko beste tokietan zehar. Guztiari neritzon zoragarri. Basamortu batera aldatua izan nintzela iruditzen zitzaidan. Nire³⁰⁵ gelatxoak, batez ere, liluraturik utzi ninduen. Baina sentitzen nuen poza narea zen. Haizetxorik leunenak ere ez zuen kiskurtzen nire untzitxoak zebilen ur barea; hodei batek ere ez zuen iluntzen nire zeru urdina... Ai, neure atsekabe guztiengatik ongi ere ongi ordaindua nengoen ni!... Bai poztasun sakonez errepikatzen nituela hitz hauek: "Betiko, betiko nago ni hemen!"

Zorion hura ez zen galkorra; ez zen urtuko lehenengo egunetako ametsekin. *Ametsak!* Karmelen sartzean BATERE ez izateko grazia egin zidan Jainko onak. Erlijioso-bizitza neuk uste nuen *bezalakoa* aurkitu nuen³⁰⁶. Sakrifizio bat ere ez zitzaidan harrigarri gertatu. Eta hala ere, zuk badakizu, ene Ama maite, nire lehen urratsetan arantzak arrosak baino gehiago izan direna!... Bai, sufrimenduak bere besoak zabaldu zizkidan eta nik haietara bota nuen neure burua maitasunez... Karmelera zertara nentorren Jesus Ostiaren oinetan, neure profesia aurreko azterketan³⁰⁷ aitortu nuen nik: "Arimak salbatzera etorri naiz, eta, batez ere, apaizen alde otoitz egitera"³⁰⁸. Helburu bat lortu nahi denean, behar diren bitartekoak erabili behar dira. Jesusek jakinarazi zidan gurutzearen bitartez eman nahi zizkidala arimak. Eta sufritzeko nuen gogoak gora egin zuen, sufrimendua bera gehitu ahala. Bost urtetan zehar³⁰⁹ hau izan zen nire

³⁰² Teresak argi dauka bake hori (bi bider azpimarratuta) Jainkoaren dohaina dela (ik. TO 24, 2), «ez baitu bertan behera utziko hainbeste probaren artean»; haietaz hitz egingo du berak zehaztu gabe, *infra*, 69ⁱ/70^a (ik. PO, 151. or.).

³⁰³ Ama Jenofa Santa Teresarena, artean laurogeita hamabi urte dituen, Lisieux-ko fundatzaileetarik bat. Ik. *infra*, 78^a/79^a.

³⁰⁴ Karmelgo Priorea, Teresaren erlijioso-bizitzaren bi herenetan zehar. Asko estimatzen du Teresa, baina milikeriarik edo koplarik gabe (ik. CG, 580-581. orr.; PA, 118 eta 358. orr.; PO, 521. or.). Berari zuzendua da C Esk.

³⁰⁵ "Nire", originalean "gure": gauza guztiak, bereizketarik gabe, komunitate osoari ezartzen zaizkiolako.

³⁰⁶ Teresa egizaleegia da, horregatik gehitzen du berehala: «hala ere (...) ene lehen urratsetan arantzak arrosak baino gehiago izan dira». Ik. beraren ahizpen lekukotasuna (PO, orr. : 251, 272, 294; KH 24. VII. 2.). Baina Teresak bere burua lehendik garaiezina zela adierazita zuen (ik. TG 43B).

³⁰⁷ Azterketa kanonikoa, 1890/9/2an.

³⁰⁸ Ik. *supra*, 45ⁱ, 56^a. TG 135ean Teresak ausardiaz komentatzen du soroko-langileei buruzko Jesusen parabola.

³⁰⁹ Bost urte horiek bat datoz Ama Maria Gonzagarena nagusi izan zen garaiarekin eta baita Teresa Maria Aingeruenaren menpean nobizia izan zen garaiarekin ere, nahiz eta berak bere nagusiei ez ezarri hau.

bidea; baina [70^a] kanporantz ez zuen ezerk agertzen nire sufrimendua, neuk bakarrik ezagutzen nuela, hainbat samingarriago izanik³¹⁰. Ai, bai ezustekoak izango ditugula munduaren azkenean arimen historia irakurtzean!... Zenbat pertsona geldituko diren harriturik nirea nondik nora bideratua izan zen ikusirik!...

Hau hain egia da, non, ni sartu eta bi hilabetera, ahizpa Maria Bihotz Sakra-tuarenari³¹¹ profesa ematera Aita Pichon etorririk, miretsirik gelditu baitzen Jainko onak nire ariman egindakoa ikusiz, eta esan zidan bezperan, koruan ni otoitz egiten ikustean, pentsatu zuela nire debozioa haur batena zela bete-betean eta nire bidea oso gozoa. Nire solasaldia Aita onarekin oso pozgarria izan zen niretzat, neure arima irekitzeko nuen zailtasunagatik malkoz lausotua izan bazen ere. Hala eta guztiz ere, sekula egin ez nuen bezalako aitortza orokorra egin nuen. Azkenean, Aitak hitz hauek esan zizkidan, nire arimak inoiz entzun dituenik eta pozgarrienak: “Jainkoaren, Ama Birjinaren eta Santu guztien aurrean deklaritzen dut ez duzula sekula bekatu astunik egin³¹²”. Gero hau gehitu zuen: Eman eskerrak Jainko onari zure alde egiten duenagatik, hark utziko bazintu, aingerutxo bat izan beharrean, deabrutxo bat izatera iritsiko baitzinateke. Ai, ez zitzaidan asko kostatu sinestea! Soma-tzen nuen zein argal eta ezereza nintzen. Baina eskerronez beterik zegoen nire arima. Nik bataioko jantzia zikintzeko hainbesteko beldurra izanik, gure Ama Teresa santuak nahi zuen bezalako zuzendari baten ahotik, hots, *zientzia* eta *bertutea* aldi berean³¹³ zituenaren ahotik, halako ziurtasuna Jesus berberaren ahotik irtena iruditzen zitzaidan... Aita onak hitz hauek ere esan zizkidan, nire bihotzean gozoki grabatuak daudenak: “Ene alaba hori, Gure Jauna izan dadila beti zure nagusi eta zure nobiziatuko maisu”. Izan ere, halaxe izan zen, eta baita “nire zuzendari” ere. Honekin ez dut esan nahi nire arima nire nagusientzat itxita zegoenik. Ez horixe, bestera baizik! Haientzat *liburu ireki* bat [70^a] izan zedin ahalegindu nintzen beti.

Baina gure Ama maiz zegoen gaixorik eta ez zuen nitaz arduratzeko astirik³¹⁴. Badakit oso maite ninduen eta nitaz ahal zuenik ongien hitz egiten zuena. Hala ere Jainko onak nahi izan zuen, *oharkabean*, hura OSO GOGORRA izatea. Ezin nuen aurkitu hura lurrari mun egin gabe³¹⁵. Gauza bera gertatzen zen harekin nituen solasal-

³¹⁰ Ik. Aita Pichonen lekukotasunak (PO, 381. or.), bai eta ahizpa askorenak ere.

³¹¹ 1888/5/23an. Bere ahizpak imitatzearren, Teresa (1884tik aurrera) bere arima-zuzendaritzat hartuko zuela hitz eman zion Aita Pichoni. Baina euren arteko solasa oso lasaia izan zen, hainbat arrazoi bitarteko zirela (adibidez, aita Kanadara joatea). Ik. LKD, *Le Père Pichon et la famille Martin*, VT, 1967/10, 1968/1 eta 4, liburuak batean bildutako artikuluak.

³¹² 1888/5/28an. Aita Pichonek asko laguntzen dio Teresari, hainbat sufriarazi zion eskrupulu- en gaixotasunaren azken aztarrenak ezabatzen (ik. 39^a); hala ere, 1889ko urrian berriro ekin beharko dio horri (LC 117, CG, 502. or.), bai eta 1893an ere (LC 151, CG, 677. or.).

³¹³ *Onbidea*, VI.

³¹⁴ Zail da zehatz-mehatz neurtzea zeintzuk izan ziren Teresa eta ama Maria Gonzagarenaren arteko harremanak, ama Aines eta beste hainbat ahizpak ama zaharraren aurka Prozesuetan zuzendu zituzten salaketa sinesgarri batzuk direla medio (ik. batez ere PA, 142-148. orr.). Teresaren beraren testuek lilura handia aditzera ematen dute, zelanbaiteko konfiantza, baita gehiegizko afectuaren aurrean tentu ona ere (C Esk., 22^a), azken batez, iritzi oso zorrotza, karitateak bigunduta.

³¹⁵ Hiru bider azpimarratuta. Modu gogorra garai hari dagokiona da: beste karmeldar komentu batzuetako gutunetan, berriz, harritu egiten da bat «nobiziatuko probekin», ia iraingarri iruditzen zaiolarik (ik. baita C Esk., 23^a ere).

-Lurrari mun ematea apaltasun-keinua zen, eta hainbat komunitatetan egiten zen.

di izpiritual bakanetan ere... Hau bai grazia ordaingaitza!... Jainko onak nola jokatzen zuen *ageri-agerian* bere ordezeko zenarengan!... Zer izango zen nitaz, munduko pertsonak uste zutenek, ni komunitatearen "jostailu" izan banintz?... Neure nagusiengan gure Jauna ikusi beharrean, beharbada, haren pertsonengan jarriko nuen arreta; eta nire bihotza, munduan hain *ongi zaindua*, klaustroan gizalegez zaletu zitekeen... Zorionez, gaitz honetatik zaindua ikusi nuen neure burua. Nik *asko maite nuen*, zalantzarik gabe, gure Ama, baina neure arimaren senarrarengana jasotzen ninduen maitasun *garbiz*...

Gure maistra³¹⁶ *benetako santa* bat zen, antzinako karmeldar peto-peto haietarikoa. Nik egun osoa igarotzen nuen haren ondoan, lanean irakasten baitzidan. Nirekiko haren ontasunak ez zuen neurrik, eta hala ere nire arima ez zen zabalitzen... Askok kostatzen zitzaidan arimako komunikazioa berarekin³¹⁷. Ez nengoen neure arimaz hitz egitera ohituta; nik ez nekien nola adierazi han gertatzen zena. Ama on zahartxo batek³¹⁸ igarri zuen behin gertatzen zitzaidana, eta esan zidan irribarrezka jolasaldian: –"Ene alabatxo, zeure nagusiei esateko gauza handirik ez duzula iruditzen zait". –"Zergatik diostazu hori, ene Ama?..." –"Zure arima guztiz *tolesgabea*³¹⁹ delako; baina on-ona izatera iritsi zaitezenean, *oraindik tolesgabeago* izango zara. Zenbat eta gehiago hurbildu Jainko onarengana, hainbat tolesgabeago izaten da." Zuzen zebilen Ama on hura. Hala ere, neure arima zabaltzeko nik nuen zailtasuna, nire izaera tolesgabetik bazetorren ere, niretzat benetako proba zen. Orain ulertzen dut, tolesgabe izateari utzi gabe, [71^a] neure pentsamenduak erraztasun handiz adierazten baititut.

Jesus izan zela "nire zuzendari" esan dut. Karmelen sartzean ezagutu nuen zeregin hori izan behar zuena. Baina bere alaben artean hartu nindueneko, erbesterrantz irten zen... Berehala galtzeko ezagutu nuen... Urtean haren gutun bat baizik jasotzen ez nuela, nik hari idazten nizkion hamabien³²⁰ ordezkari, nire bihotzak laster jo zuen zuzendarien zuzendariarengana, eta hura izan zen jakintsu eta zuhurrentzat ezkutuan dagoen eta *txikienei* agertzea nahi izan zuen zientzia horretan eskolatu ninduen...

Karmel mendira aldatutako loretxoak gurutzearen gerizpean zabaldu behar zuen; Jesusen malkoak eta odola haren ihintza izatera etorriko ziren, eta negarrak itzaldutako Aurpegi gurgarria izan zen haren Eguzkia... Orduarte ez nuen barnera-

Lk 10,21

³¹⁶ Nobizien maistra, ahizpa Maria Aingeruenak lekukotasun ederrak eman ditu Teresari buruz (PA, 347-348. orr.). Beste hiru ahizpa ere bazeuden nobiziatuan: Maria Bihotz Sakratuarena, Maria-Filomena eta Marta.

³¹⁷ Maria Aingeruenak sufriarazi egin zion Teresari konturatu gabe (ik. KH 2. IX. 2; DE, 472 + a or.; PO, 465. or.).

³¹⁸ Ahizpa Febronia.

³¹⁹ Teresaren santutasunaren giltzarrietariko bat, beraren nahi handienetarikoa; ik. A Esk., 2ⁱ, 51ⁱ, 57^a; C Esk., 33ⁱ etab.; PO, 172. or.; PA, 167-168. orr.

³²⁰ Teresak apur bat gehitu egiten du: aita Pichonek Teresari bidalitako gutunetarik hamabost gorde dira, eta beraietarik hamabi Kanadara 1888/11/3an irten eta gero egindakoak dira. Aitak Teresaren gutun guztiak suntsitu ditu (TG 28 haren zirriborroari esker ezagutzen da soilik), bai eta berak "zuzendutako" besteak ere. Ik. *supra*, 311. oharra.

tu nik Aurpegi Santuan³²¹ gorderik zeuden ondasunen sakontasuna. Zu izan zinen, Is 45,3
 ene Ama maite, haiek ezagutzen irakatsi zidana. Lehenago Karmelen guztioi aurrea
 hartu zenigunez, era berean lehenen izan zinen gure Senarraren Aurpegian gorderik
 zeuden maitasun-misterioak barneratzen ere. Orduan zuk dei egin zenidan, eta nik
 ulertu... *Benetako aintza*³²² zer den ulertu nuen. Bere erreinua mundu honetako ez
 duen hark erakutsi zidan benetakoa jakinduria “ezezaguntzat eta ezereztzat hartua
 izan nahi izatean datzala, bere burua³²³ gutxiestean bere poza jartzean”... Ai! “nire
 aurpegia”, Jesusena bezala, “ezkutaturik egotea nahi nuen, inork ez nintzala ezagu-
 tu lurrean”. Sufritzeko eta ahaztua izateko egarria nuen... Is 53,3

Bai errukitsua Jainko ona beti eraman nauen bidetik eramatean! Ez dit sekula
 sortu, gero eman ez didan ezeren irrikarik. Horrela, haren kaliza garratza³²⁴ gozoa
 irudituz zitzaidan...

Maiatzeko jai distiratsuen ondoren, gure Maria maitearen, *txikienak* haren
 ezteietan koroatzeko zoriona izan zuen, etxeko *nagusienaren* profesia eta belo-har-
 tzeke [71ⁱ] jaien ondoren, atsekabea bisitatzeraz etortzea komeni zen... Aurreko urte-
 an, maiatzeko hilean, aitak hanketako elbarritasun-erasoa³²⁵ izan zuen. Benetan
 handia izan zen orduan gure kezka. Baina nire errege maitearen izaera sendoak las-
 ter gainditu zuen, eta uxatu ziren gure beldurrak. Hala ere, Erromako bidaian erraz
 nekutzen zela konturatu ginen eta ohiko umorerik ez zuela agertzen... Nik batez ere
 harengan somatzen nuena, onbidean egiten zituen aurrekadak ziren. Salesko Fran-
 tzisko santuaren antzera, berezko bizitasuna gainditzera iritsi zen, munduko izaera-
 rik otzanena zuelako itxura emateraino... Lurreko gauzak ukitu baizik ez ziotela
 egiten zirudien; bizitza honetako zoritxarrei erraz hartzen zien gaina. Hitz batez,
 Jainko onak *kontsolamenduz betetzen zuen*. Gure Jaunari egunero egin ohi zizkion
 bisitetan maiz betetzen zitzaizkion begiak malkoz eta haren aurpegiak zeruko
 zoriona adierazten zuen... Leonia Bisitaziotik irten zenean, hark ez zuen penarik
 izan, eta ez zion Jainko onari kexurik agertu, bere alaba maitearen bokazioa lortze-
 ko egindako erregruak entzun ez zituelako; areago oraindik, pozik antzean joan zen
 haren bila...

Hona hemen nolako fedez onartu zuen aitak bere erreginatxoaren banakuntza.
 Alençon-go bere adiskideei hitz hauekin jakinarazi zien: – “Adiskide maiteok, Tere-

³²¹ Martin familiaren baitan zegoen eraspina; izan ere, Gure Jainko Jaunak Tours-ko Karmelgo
 ahizpa Maria San Pedrorenari XIX. gizaldian egindako goi argien ondorioa zen eraspen hori. Teresak
 oso modu berezian egin zuen gogoeta, Isaiasen laguntzarekin, bere aitaren gaixoardian zehar batez ere.
 Abitua hartzen duen egunean (1889/1/10ean), lehenengo aldiz sinatu zuen honela: «*Ahizpa Teresa
 Jesus Haurarena eta Aurpegi Sakratuarena*» (TG 80); Lisieux-ko Karmelen bera da izen hori aukeratu
 zuen aurrenekoa. Ik. II. Esk., 49. or.; CG, 488 eta ondorengo or.; TO 20 eta oharrak; *Poésies*, II, 134-
 137. orr.; Otoi. 12 eta oharrak; *Prières*, 118-125. orr.; KH 5. VIII. 7 eta 5. VIII. 9; DE, 516 eta ondoren-
 go orr.; PO, 158. or.; PA, 152. or.; DLTH, 136-141. orr.

³²² Haren haurtzaroko nahiari erantzuna (32^a). Ik. MAE, 16. 7; DE, 164-167. orr.; TG 103ⁱ.

³²³ *Kristoren Antz-Bidea* liburuko aipamenak, 1, 2, 3 eta III, 49, 7. Ik. A Esk., 47^a; TO 31, 4.

³²⁴ Ik. A Esk., 19ⁱ; C Esk., 8ⁱ; TG 87, 100, 149, 213.

³²⁵ 1887/5/1ean, Erromarako bidaia egin baino sei hilabete lehenago. Ik. Dr. Cadéot, *Louis Martin*,
 92. or.

sa, nire erreginatxoa, Karmelen sartu zen atzo!... Jainkoak bakarrik eska dezake honelako sakrifizioa... Ez nitaz erruki izan, nire bihotza pozez gainezka baitago”.

Mt 25,21

Ordua zen, ba, hain zerbitzari zintzoak bere lanen saria har zezan. Bidezko zen haren lan-saria Jainkoak zeruko Erregeari, bere Seme bakarrari, eman zionaren antzekoa izatea... Aitak Jainkoari *aldare* bat³²⁶ eskaintzen dio; berbera izan zen orban-gabeko Bildotsarekin [72^a] inmolatzeko oparigaia. Ezagunak zaizkizu, ene Ama maite, *ekaineko hileko* gure samintasunak, eta batez ere, 1888. urteko 24koak³²⁷. Oroitzapen horiek ongiegi josiak daude gure bihotzetan idatzi beharrik izateko... Oi, ene Ama, zenbat sufritu genuen!... Eta hura ez zen gure atsekabearen *hasiera* baizik!...

Bien bitartean nire abitua hartzeko eguna iritsi zen³²⁸; kapituluak ontzat eman ninduen. Baina nola amets egin zeremoniaz? Niri irtenarazi gabe³²⁹ abitu santua emateaz hitz egiten zen, itxaroteko erabakia hartu zenean. Uste guztien kontra, gure aita maiteak gainditu egin zuen bere bigarren eraso³³⁰, eta Apezpikuak urtarilaren 10ean jarri zuen zeremonia. Itxaronaldia luzea izan zen, baina era berean bai jai ederra!... Ez zen ezertxo ere falta izan, ezta *elurra* ere. Ez dakit hitz egin dizudan jadanik neure elurzaletasunaz... Txiki-txikia nintzela, zoragarri iruditzen zitzaidan haren zuritasuna; nire atseginik handienetarikoa elur-matazapean ibiltzea izan ohi zen. Nondik ote zetorkidan niri elurzaletasun hau?... Behar bada, ni *neguko loretxo* bat izanik, nire begiek ikusi zuten izadiaren lehenengo apaingarria haren mantu zuria izango zen... Dena dela, beti nahi izan nuen neure abitua hartzeko egunean, izadia, nire antzera, zuriz jantzirik egotea. Egun eder honen bezperan, tristuraz begiratzen nuen zeru grisa, bertatik noizbehinka euri zirina erortzen zelarik; eta tenperatura hain leuna zenez gero, ez nuen harrezkero elurrraren itxaropenik. Biharamunean, zerualdean ez zen aldaketarik. Hala ere, liluragarria gertatu zen jai. Eta lorerik eder eta zoragarriena nire errege maitea izan zen. Ez zen sekula agertu hain eder eta hain *duin*. Jende guztiak miretsi zuen; egun hau haren *garaipena* izan zen, haren azken jai hemenean. Bere alaba *guztiak* eman zizkion Jainko onari, Zelinak bere bokazioaren berri eman zionean, *pozez negar egin baitzuen* eta harekin batera joan baitzen “bere alaba guztiak hartzeko ohorea egin zion hari” eskerrak ematera.

[72^a] Zeremoniaren azkenean, Apezpikuak Te Deum hasi zuen. Apaiz batek adierazi nahi izan zion kantu hura profesa egitean kantatzen zela soilik, baina hasiera emana zen, eta *eskerrak emateko* kantua osorik kantatuko zen. Ez ote zen

³²⁶ Berak bakarrik ordaindu zuen katedraleko aldare nagusia (10. 000 bat libera). 50. 000 bat libera galdu zituen Panamako mailegua zela eta. 1889/6/18an, agiri bat sinatu zuen bere ondasunak kudeatzeari uko egiteko, eta bere koinatuak eragin zuen hori egitera (ik. Dr. Cadéot, *op. cit.*, 122-123. orr.).

³²⁷ 6/23an, Martin jaunak ihes egin zuen eta 27an agertu zen Havre-n (1888ko gaixotasunaren gainean, ik. CG, 373 + c, 375 eta ondorengo, 383 eta ondorengo, 394 + c).

³²⁸ Sei hilabete irauten zuen gutxi gorabehera nobiziagai zireneko denborak. Nagusiak urriaren amaierako jasoak zituen eliz agintarien baimenak.

³²⁹ Nobiziagaia ezkongai-soinekoaz iriteten zen klausuratik eta kanpoaldeko zeremoniara joaten zen, familia inguruan zuelarik.

³³⁰ Honfleur-en, 10/31n (ik. VT, 94. zk.; eta CG, 407-408. orr.). Martin jauna zuzpertz doa, Dr. Notta eta Guérin jaunaren arreta kementsuei esker.

oso-osoia izango jaia, gainerako guztiak berarengan biltzen baitzituen?... Azkenen-
goz neure errege maitea besarkatu ondoren, klausuran sartu nintzen berriro. Klaus-
troan sartzean ikusi nuen lehenengo gauza "arrosa koloreko neure Jesus Haurra"³³¹
izan zen lore eta argien artetik irribarre egiten zidala, eta berehalaxe *elur-malutetan*
ezarri nuen neure begirada... Patioa zuri zegoen, ni bezala! Hau samurtasuna Jesu-
sena! Bere emaztegai txikiaren gurariak betez, elurra ematen zion... Elurra, giza-
kien arteko norik egin lezake, denik eta ahaltuena izanda ere, zerutik elurra eror-
tzea bere maiteari poz ematearren?... Agian munduko pertsonak galdera hau egingo
zieten beren buruei. Egia hauxe da, nire abitu-hartze eguneko elurra mirari txiki bat
iruditu zitzaizela, eta hiri osoa harriturik gelditu zela. Nik elurzaletasun bitxia nuela
uste zuten... Hainbat hobeki! Horrek berak ageriago jarri zuen birjinen Senarraren
bihozberatasun ulertezina... ELURRA bezain lili zuriak maite dituen harena!...

Elizkizunaren ondoren sartu zen Apezpikua, eta aita baten ontasunez hartu
ninduen. Uste dut harro zegoela nik neurea lortu nuela ikusirik. Guztiei esaten zuten
ni "bere alabatxoa" nintzela. Jai eder honen ondoren etorri izan zen guztian, hira
oso ona izan zen beti nirekin. Gogoan dut, batez ere, G.A. San Joan Gurutzekoaren
mendeurrena zela eta egin zigun bisita³³². Hark burua bere esku artean hartu eta era
guztitarik xerak egin zizkidan. Sekula ez nuen neure burua hain ohoratua ikusi! Une
hartan Jainko onak egunen batean aingeru eta santuen aurrean egin nahi izango diz-
kidan xerak [73^a] burura ekarri zizkidan, haien irudi motel bat jadanik mundu hone-
tan ematen zidalarik. Horregatik handia izan zen sentitu nuen poza...

Esan berri dudanez, urtarrilaren 10eko eguna nire erregearen garaipena izan
zen. Nik Jesusek Jerusalem-en erramu-egunean egin zuen sarrerarekin konparatzen
dut. Gure Jainko-Maisuaren sarreraren bezala, *egun bateko* haren aintzak nekaldi
samingarria³³³ ekarri zuen ondoren, eta nekaldi hau ez zen izan berarentzat baka-
rrik. Jesusen oinazeek, ezpata baten antzera, bere jainkozko Amaren bihotza zulatu
zutenez, era berean sentitu zituzten gure bihotzek lurrean inor baino maiteago
genuen haren oinazeak... Gogoan dut 1888ko ekaineko hilean, geure lehenengo
atsekabeetan, nola esan nuen nik: "Asko sufritzen dut, baina oraindik sufrimendu
handiagoak jasan ditzakeedala uste dut"³³⁴. Ez nuen orduan susmorik niretzat gor-
derik zeudenaz... Ez nekien otsailaren 12an, nire abitu-hartzetik hilabetera, gure
aita maiteak kalizarik *garratzena*, guztietarik *lotsarizkoena* edan beharko zue-
nik³³⁵ ...

Mt 21, 1-10

Lk 2,35

Ai! Egun hartan ez nuen esan ez oraindik gehiago sufri nezakeenik!!!!... Hitzek
ezin dituzte gure nahigabeak adierazi, horregatik ez naiz saiatuko haiek deskriba-
tzen. Egunen batean, zeruan, gogoko izango dugu geure proba *aintzatsuei*³³⁶ buruz

³³¹ Arrosaz margotutako Jesus Haurraren irudia, apaintzeak ardura izan zuen Teresak bere herio-
tzara arte (DLTH, 132-133. orr.).

³³² 1891/11/24an.

³³³ Jesukristoren Nekaldiarekin konparatze hori apurka-apurka Teresak 1890ean ezagutu zuen
Isaiasen otsein sufritzailearekin bat egitera etorriko da.

³³⁴ Ik. DE, 483. or., eta PO, 411. or.

³³⁵ Martin jauna Caen-go sendaetxe batera aldatu zuten, haren amets gaiztoek ingurukoentzat itxura
kezkgarria hartu eta gero. Ik. CG, 451-488. orr., bereziki 451, eta 456 eta ondorengoak.

³³⁶ Teresak *aintzatsuak* azpimarratu zuen; ik. KH 27. V. 6; 7. VII. 6; 23. VII. 5; 23. VII. 6.

hitz egitea. Honezkero ere ez ote gara pozten sufritu ditugulako?... Bai, aitaren martiritzako hiru urteak³³⁷ maitagarrienak, geure bizitza osoko emankorrenak iruditzen zaizkit. Ez nituzke trukatuko santuen estasi eta errebelazio guztiengatik ere. Nire bihotza eskerronez gainezka dago, zeruko gorteko aingeruen inbidia santua eragingo duen *ondasun* estimagaitz honetaz pentsatzean...

Nire sufrimendu-egarria guztiz asean izan zen. Hartara nuen zaletasuna, ordea, ez zen gutxitu. Horregatik, nire arimak laster parte hartuko zuen nire bihotzaren [73^a] atsekabeetan. Idortasuna neure eguneroko ogi izan nuen. Inolako kontsolamendurik gabe, hala ere, munduko izakirik³³⁸ zoriontsuena nintzen ni, nire gurari guztiak beteak baitziren...

Oi, ene Ama maite! Bai gozoa izan zela gure proba handia, gu guztion bihotzetatik maitasun eta eskerroneko hasperenak baizik ez baitziren irten!... Ez gindoazen santutasun-zidorretik ibiliz, hegan gindoazen bostok. Caen-go³³⁹ bi erbesteratu gaixoak, oraindik munduan bazeuden ere, ez ziren mundukoak... Ai, bai harrigarriak egin zituela sufrimenduak Zelinaren ariman!... Garai hartan hark idazten zituen gutunak konformitate eta maitasunez beterik daude... Eta nor izango ote liteke gai mintzalekuan elkarrekin izaten genituen elkarrizketak azaltzeko?... Ai, Karmelgo burdinesiek gu elkarrengandik banatu barik, gure arimak sendoago bat egiten zituzten! Biok genituen pentsamendu berdinak, gurari berdinak, *maitasun* berdina *Jesusi* eta *arimei*... Zelinak eta Teresak hitz egiten zutenean, guztiz zerukoak ziren elkarrizketetan, ez zen lurreko gauzei buruzko hitz bat bera ere nahasten. Behin batean *begiratokian* bezala, haiek *betikotasuneko* gauzetaz egiten zuten amets; eta azkengabeko zorionaz albait lasterren gozatzeko, hemen behean ondare bakartzat "sufrimendua eta erbestea"³⁴⁰ hautatzen zituzten.

Honela igaro zen nire emaztegitako denbora... Teresa gaixoari luze-luze egin zitzaion! Nire nobiziatuko urtea amaitzean, profesia eskatzerik ez pentsatzeko esan zidan gure Amak, nagusiak ziur-ziur ez zuela nire eskabidea onartuko-eta. Oraindik beste zortzi hilabete itxaron beharra izan nuen... Lehenengotan oso zail egin zitzaidan sakrifizio handi hau onartzea; baina laster egin zen argia nire ariman. Nikaldi hartan Aita Surin-en³⁴¹ "Bizitza izpiritualaren oinarriak" nerabilen neure gogoetetan. Behin, otoitzaldian, profesia egiteko irrika hain bizia neurekoitasun handi batekin nahasirik zegoela ohartu nintzen. Jesusi, hura pozteko eta kontsolatzeko, [74^a]

³³⁷ Teresak Caen-go Salvatore-n Martin jaunak egindako «*hiru urteko*» erbeste apalgarria baizik ez du aintzat hartzen hemen (ik. PO, 167-168. orr.); geroago Guérindarrenan biziko da oraindik bi urte gehiago.

³³⁸ Beste toki askotan bezala, Teresak hemen inpresiorik kontraesankorrenak josten ditu, bere bihotza asetzen duen maitasun gurena aditzera emateko. «*Sufrimendu-nahia*»ri buruz, ik. A Esk., 36^a, 69^a; B Esk., 5^a; C Esk., 7^a, 10^a etab. *Kontsolamendu* ezari buruz, berriz, ik. A Esk., 36^a, 79^a; B Esk., 1^a. Teresaren gogo-jardunak abitua hartu aurretik oso mingarriak izan ziren.

³³⁹ Leonia eta Zelinak ostatua hartua zuten Bon Saveur-en inguruetan (1889ko otsailaren 19tik maiatzaren 14ra).

³⁴⁰ Joan Gurutzekoaren aipamena, *Maximes et avis spirituels*, 216. or., 1895eko argitaraldia. Ik. MS/NEC, 48^a, 6 +.

³⁴¹ Aita Surin josulagunaren *Fondements de la vie spirituelle, tirés du livre de l'Imitation de Jésus-Christen* oso argitaraldi zaharra (1732).

neure burua *eskaini* nionez gero, ez nuen behartu behar berea egin ordez *nire borondatea* egitera. Baita ohartu nintzen emaztegai batek bere ezteietarako prestatu egon behar duela ere, eta nik ez nuela horretarako ezer egin... Orduan esan nion Jesusi: "Oi, ene Jainko hori! Ez dizut eskatzen neure boto santuak egiteko; *nahi duzun beste denbora itxarongo dut*. Nik nahi ez dudana da ni zurekin elkartzea neure erruz atzeratua izatea. Beraz, neure ahalegin guztia egingo dut jantzi dotore bat, harribitxiz³⁴² apaindua egiten. Nahiko aberats apaindua ikus dezazunean, ziur nago sorkari guztiek ere ezin galarazi izango dizutela niregana jaistea, behin-betiko zurekin elkartzeko, ene Maite hori!..."

Neure abitu-hartzeaz gero, argitasunik asko hartu nuen nik erlijioso-perfekzioari buruz, pobretasun-botoari buruz³⁴³ bereziki. Nobiziagai nintzela, neuk erabiltzeko gauza politak edukitzea eta behar nuena esku-eskura aurkitzea nuen gogoko. "Nire *Zuzendariak*" egonarriz eramaten zuen hura, guztia era batera irakatsiz arimak zuzentzea ez baitu gogoko. Gehienetan apurka-apurka ematen du bere argia. (Nire bizitza izpiritualaren hasieran, hamahiru edo hamalau urte nituela, neure buruari galdetzen nion gerora zer ote nuen irabazteko, perfekzioa hobeki ezagutzetik ez zegoela uste bainuen orduan. Laster ohartu nintzen bide honetan zenbat eta gehiago aurreratu, hainbat urrunago ikusten dela amaiera. Horregatik, orain neure burua osagabe ikustera etsita nago, eta horretan aurkitzen dut neure poza...)

"*Neure Zuzendariak*" eman zizkidan irakatsietara nator berriro. Gau batean, arratseko otoitzaren ondoren, alferrik jardun nuen neure kriseilu txikiaren bila horretarako ziren apaletan. Isiltasun gogorreko ordua zen; ez nuen eskatzerik... Ahizparen batek berea zelakoan nirea hartuko zuela ohartu nintzen; hura gabe egoteaz nahigabetu ordez, oso pozik nengoan, pentsatuz pobretasuna ez datzala soilik gauza atsegingarriak falta izatean, baizik eta [74ⁱ] baita behar-beharrezkoak falta izatean ere. Horrela, *kanpoko ilunpe artean*, barruz argitua izan nintzen... Garai hartan gauza itsusi eta deserosoetara benetako zaletasuna sartu zitzaidan. Horrela, pozik ikusi nuen nire gelako *suiltxo* polita kendu, eta haren ordez suil *handi* bat, *gutziz markestua* eman izana... Ahalegin handiak egiten nituen neure burua ez zuritzeko ere, eta hau oso zail egiten zitzaidan, batez ere gure maistraren aurrean, honi ez bainion ezertxo ere ezkutatu nahi.

Hona hemen nire lehenengo garaipena; ez zen handia izan, baina ongi kostata lortua. – Ontzitxo bat hautsirik aurkitu zen leiho baten atzean jarrita. Gure maistrak, erortzen utzi zuena ni izan nintzelakoan, erakutsi egin zidan hurrengoan kontu izateko esanez. Ezer esan gabe, mun egin nion lurrari, aurrerantzean arduratsua izango nintzela berehala hitz emanez. – Neure bertute urriagatik, gauza txikiok asko kostatzen zitzaizkidan, eta lagundu egin behar izaten nion neure buruari, azken juizioan guztia jakingo zela pentsatuz. Gogoeta hauxe egiten nuen: norbere eginbearra betetzen denean desenkusatu gabe, inork ere ez du jakiten. Hutsegiteak, ordea, berehala ikusten dira...

Mt 25,31-40

³⁴² Ezekielen testuaren aipamena (*supra*; 47^a). Berriro erabiliko du irudi hau 75^a.an. Ik. TG 120^a; 176, 1ⁱ; TO 26, 2-3; Otoi. 4 eta *Prières*, 71. or.

³⁴³ Zelina ez zen aspertzen gai honetaz hitz egiten; ik. CSG, 122-127. orr.; bai eta PO, 170. or.; PA, 360. or. ere.

Bertute txikietan³⁴⁴ ahalegintzen nintzen batez ere, handiak egiteko ez bainuen erraztasunik. Honela, esaterako, gogoko nuen ahizpek ahazturik utzitako kapak tolestea, eta haiei ahal nituen zerbitzu txiki guztiak egitea.

Mortifikaziorako gogo bizia ere eman izan zait. Eta gogo hau hainbat biziagoa zen, berau asetzeko ezertxo ere egiten uzten ez zidaten neurrian... Nik munduan nengoela egin ohi nuen mortifikazio txiki bakarra, eserita egonik bizkarra atzealdearen kontra ez ipintzea, debekatu egin zidaten konkortzeko joera nuelako. Ai! Penitentzia ugari egiteko baimena lortu izan banu, ziur aski nire garrak ez zuen luzaro iraungo... Neuk eskatu gabe ontzat ematen zizkidaten penitentzia bakarrak neure buru-estimua ukatzekoak ziren, hauek gorputzekopenitentziek baino askoz ere on handiagoa egiten zidatelarik³⁴⁵...

[75^a] Abitua hartu berri nintzela jantokian izan nuen neure lehenengo ofizioak aukera bat baino gehiago eman zizkidan neure buru-estimua bere lekuan jartzeko, hau da, hankapean... Egia da, ene Ama maite, zurekin batera zeregin berean egotearen eta zure bertuteak hurbiletik ikusi ahal izatearen poz handia nuela. Baina hurbiltasun hau atsekabe-bide³⁴⁶ zitzaidan; nik ez nuen ikusten neure burua libre, *beste garai batean bezala*, guztia zuri esateko. Erregela bat bete behar zen; ezin nizun neure arima agertu. Hitz batez: ni *Karmelen* nengoen eta ez *Buissonnets-en*³⁴⁷ *aitaren etxeko aterpean!*...

Bien bitartean, Ama Birjinak neure arimako jantzia prestatzen laguntzen zidan; eta amaitua zegoenean, oztopoak berez-berez aienatu ziren. Apezpikuak nik eskatu nion baimena igorri zidan, komunitateak ontzat eman ninduen, eta nire profesa *irailaren 8rako* jarri zen...

Hitz gutxitan idatzi berri dudan guztiak, xehetasunez beteriko orrialde asko beharko litzuzke; baina orrialde hauek ez lirateke sekula irakurriko lurrean. Laster, ene Ama maite, gauza hauei guztiei buruz hitz egingo dizut *gure Aitaren etxean*, gure bihotzen hasperenak hegan doazen zeru ederrean!...

Nire eztei-jantzia prest zegoen. Nire Senargaiak eman zizkidan *antzinako* bitxiz edertua zegoen; baina haren eskuzabaltasuna asetzeko hauek ez ziren nahiko. Konta ahala distira zituen diamante *berri* bat eman nahi zidan. *Antzinako* bitxiak aitaren sufrimendua ziren. Diamante *berria* itxura batean nahigabe txiki-txiki bat zen, baina asko sufriarazi zidana.

³⁴⁴ Ik. San Frantzisko Saleskoa, *Introduction à la vie dévote* ("Deboziozko bizitzaren sarrera"): «Lagun-hurkoaren aldarte txarrak aurpegi alaiz eramatea... begirakune beltza maitasunez jasatea (...) Zoritxarrez pinpirindutako bertuteak ditugu soilik gogoko!». Ama Ainesek, Bisitazioaren eragin handia zuen eta, laster ulertuko zuen aipamena.

³⁴⁵ Badirudi Teresak bere *hildurak* gutxizat dituela (ik. PO, 168, 295, 463. orr.; KH 27. VII. 16; DE, 497 eta ondorengo orrialdeak; CSG, 144. or.; GO 4, 19-20; DLTH, 246. or.). Karmelen diziplina hiru aldiz hartzen zen astean, hango Konstituzioek hala agindurik; ahizpek penitentzi tresna ere eramanez ahal izaten zuten hiru aldiz, bi edo hiru ordutan zehar, baina baimena bakoitzak eskatu behar izaten zuen.

³⁴⁶ Ik. MAE 11. 8, eta PO, 252 eta ondorengo orrialdea.

³⁴⁷ Teresa oso zorrotza zen Karmelen barruan familiareteko harremanei dagokienez; ik. CSG, 133. or.; KH 3. VIII. 6.; DE, 617, 15. or.; PO, 296. or.; C Esk., 8ⁱ.

Denboralditxo batetik honantz, gure aita gizagaixoa, pixka bat hobeki zegoe-
nez gero, kotxean ateratzen zuten paseatzera. Gu ikustera etortzeko trenea harraraz-
tea ere erabili izan zen buruan. Jakina, *Zelinak* nire belo-hartze eguna hautatu behar
zela pentsatu zuen berehala. “Ez nekatzearren, zioen hark, ez diot zeremonia [75’]
osoan parte hartzen utziko; haren azkenean soilik joango naiz bila, eta poliki-poliki
eramango dut burdinsarearen aurrera Teresak haren bedeinkazioa har dezan”. Ai,
bai ongi ezagutzen nuela nik horretan neure Zelina maitearen bihotza!... Egia da
“maitasunak ez duela izaten sekula ezinaren aitzakiarik, guztia dezakeela eta zilegi
zaiola uste baitu”³⁴⁸... *Giza zuhurtasunak*, ordea, pausu bakoitzean dardar egiten du,
eta, nolabait esateko, ez da ausartzen oina jartzen. Honela Jainko ona, ni probatu
nahirik, *hartaz* baliatu zen tresna malgu bezala³⁴⁹, eta neure eztei-egunean benetan
umezurtz aurkitu nintzen, lurtean aitarik ez nuela, baina zerurantz konfiantzaz begi-
ratu eta egi-egiaz esan nezakeela: “Gure *Aita*, zeruetan zaudena”.

Mt 6,9

Nahigabe honetaz zuri hitz egin baino lehen, ene Ama maite, nire profesia³⁵⁰
aurreko bakarraldiaz hitz egin behar nizun. Ez zidan kontsolamendurik ekarri, ez
horixe; idortasunik handiena, eta ia bertan behera uzte osoa izan ziren nire ondarea.
Nire untzitxoan Jesus lo zegoen, ohi zuenez. Ai! Badakit ongi arimek gutxitan
uzten diotela eurengan lasai lo egiten. Jesus gastu guztia beregain hartzen eta aurre-
tiaz ematen hain nekaturik dago, non nik eskaintzen diodan atsedenez gozatzera
baitator lehiaz. Ziur aski ez da esnatuko betikotasuneko nire bakarraldi handira
arte; baina honek tristatu beharrean, atsegin ezin handiagoa ematen dit...

Mk 4,37-39

Benetan urrun nago santa izatetik, eta honek baino hobeki ez du ezerk frogat-
zen. Neure idortasunaz poztu beharrean, hori neure berotasunik eta zintzotasunik
ezari egotzi beharko nioke. Tristatu egin beharko ninduke (zazpi urte igaro ondoren)
neure otoitzaldietan eta neure *eskerrak emateko* uneetan³⁵¹ lo egiteak. Ba, ez; ez naiz
tristatzen... *Haurtxoak* gurasoentzat berdin-berdin direla atsegingarri, pentsatzen dut,
lo daudenean nahiz itzarrik daudenean. Euren ebakuntzak egiteko, pentsatzen dut,
medikuek [76^a] lo eragiten dietela euren gaixoei. Hitz batez, pentsatzen dut, “Jaunak
ikusten duela gure ahulezia, gogoan duela hautsa besterik ez gabela”.

Sal 102,14

Nire profesarako bakarraldia, beraz, ondorengo guztiak bezala, idortasun han-
diko bakarraldia izan zen. Hala ere, Jainko onak argi eta garbi agertzen zidan, ni
konturatu gabe, berari atsegin emateko eta bertuterik gorenak praktikatzeko era.
Sarri ohartu naiz Jesusek ez duela niri *janari-hornidurarik* ematerik nahi. Unean-

³⁴⁸ *Kristoren Antz-Bidea*, III, 5, 4.

³⁴⁹ Guérin jauna Zelinaren asmoarren aurka jarri zen, haren ustez oso arriskutsua baitzen Martin
jaunaren osasunerako (ik. TG 120, CG, 584 eta ondorengo orrialdeak). Teresak berehala esango due-
nez, kontaktetan aurreratu egin da “*beloa hartzea*”z mintzatzean (9/24an), bere profesia (9/8an) kontatu
baino lehen.

³⁵⁰ Hamar eguneko gogo-jardunen lekukotasun zuzenak aurki daitezke TG 110.etik 116.era bitarte-
an. «*Idortasunik erabatekoena eta ia bertan behera uztea*” izango dira berriro ere Teresaren ondare (ik.
37^a, 76^a). «*Ni tunel oso ilunean nago*».

³⁵¹ Jesusekin dituen ametsak oso gai ederrak dira Teresarentzat (TO 13, 14; 17, 9; 24, 32; B Esk.,
5^a).

unean mantentzen nau janari guztiz berriaz³⁵²; neugan aurkitzen dut, nola datorren jakin gabe... Argi eta garbi uste dut Jesus bera dela, nire bihoztxoaren barne-barnean ezkutaturik, niregan lan egiteko grazia ematen didana, eta une honetan nik egitea nahi duen guztia pentsarazten didana.

Neure profesa baino egun batzuk lehenago, Aita Santuaren bedeinkazioa hartzeko zoriona izan nuen. Simeon anaia onaren bitartez eskatua nuen nik *aitarentzat* eta biontzat, eta poz handia izan zen niretzat, gure aitaxo maiteari hark Erromara eramanez egin zidan mesedea honela ordaindu ahal izatea.

Azkenik iritsi zen nire eztei-egun *zoragarria*³⁵³. Hodeirik gabeko eguna izan zen. Baina bezperan, sekula ikusi dudak ekaitzik handiena jaiki zen nire ariman... Artean ez zitzaidan sekula burura etorri neure bokazioaz zalantza bat bera ere. Beharrezko zen proba honetatik igarotzea. Arratsean, maitinen³⁵⁴ ondoren gurutzebidea eginez, nire bokazioa *ametsa*, txakurrametsa iruditu zitzaidan... Karmelgo bizitzari eder-ederra neritzon; baina deabruak zekarkidan burura niretzat egina ez zelako *ziurtasuna*; nagusiei iruzur egingo niela harako izan gabe, bide hartatik aurtera egiten lehiatzen banintzen... Nire iluntasuna hain handia izanik, gauza bat baizik ez nuen ikusten eta [76ⁱ] ulertzen: Nik ez nuen *bokaziorik!*... Ai! Nola adierazi neure arimaren larridura?... Uste nuen (pentsamendu aldrebesa hauxe, tentaldi hau deabruarena zela frogatzen zuena) neure maistrari jakinarazten banizkion neure beldurrak, hark ez zidala utziko neure boto santuak egiten. Hala ere Jainko onaren borondatea bete eta mundura itzultzea nahiago nuen neure borondatea eginez Karmelen gelditzea baino. Irtenarazi nion, ba, neure maistrari³⁵⁵ eta *artegatasunez beterik*, neure arimaren egoera agertu nion... Zorionez, hark nik baino argiago ikusi zuen, eta guztiz lasaitu ninduen. Gainerakoan, egin nuen apaltasun-ekintzak ihes eragin berri zion deabruari, hark uste baitzuen agian ez nintzela neure tentaldia aitortzen ausartuko. Hitz egitea amaitu nueneko, aienatu ziren nire zalantzak. Dena dela, neure apaltasun-ekintza osatzeko, neure tentaldi bitxia ere agertu nahi izan nion gure Amari, eta hark nire lepotik barre egitea nahiko izan zuen.

Is 66,12

Flp 4,7

I Erg
19,11-13

Irailaren 8ko goizean *bakezko* poz-uholdez *gainezka*³⁵⁶ ikusi nuen neure burua. Eta "sentimendu oro gaintzen duen"³⁵⁷ *bake* honekin egin nituen neure boto santuak... Nire Jesusekin elkartzea ez zen gauzatu tximista eta oinaztargi artean, hau da, ohi ez bezalako grazien artean, gure Aita San Eliasek mendian entzun zuenaren antzeko *haizetxo leun* baten eraginpean baizik... Zenbat grazia eskatu

³⁵² Ez ote da Jainkoak, egunean-egunean, basamortuan mana bidaltzearen pentsamendua (Ex 16, 4)?

³⁵³ Astelehenean, 1890eko irailaren 8an.

³⁵⁴ Profesa bezperan nobizia otoitzean gelditzen zen koruan gauerdira arte.

³⁵⁵ Ik. Maria Aingeruena, PO, 411. or. Deabruak "*gogo-jardunetatik irteten*" diren arimei ezartzen dizkien tentaldiei buruz Teresak jakinean jartzen du Maria Hirutasunarena (PO, 460. or.; VT, 75. zk., 216 eta ondorengo orrialdea).

³⁵⁶ Hitz hau Teresaren nahien, sentimenduen eta maitasunaren neurrigabetasunari dagokio (ik. 25^a, 27^a, 32^a, 34ⁱ, 35^a, 84^a, etab.; eta Joan Gurutzekoa, CS, XIV eta XV. ahapaldiak, 236. or.).

³⁵⁷ Joan Gurutzekoaren aipamena, CS, XX eta XXI. ahapaldiak, 315 eta ondorengo orrialdea.

nituen egun hartan³⁵⁸!... Benetako erregina egina aurkitzen nintzen. Horrela, neure tituluaz baliatu nintzen gatibuak askatzeko eta *Erregerengandik* bere menpeko dohakabeentzat mesedea lortzeko; hitz batez,* garbitokiko³⁵⁹ arima guztiak askatu nahi nituen eta bekatariak bide onera ekarri... Askok eskatu nuen neure *Amaren* alde, neure ahizpa maiteen alde... familia osoaren alde, baina batez ere hain probatua eta santua³⁶⁰ zen gure aita txoren alde... Jesusi eskaini diot neure burua niregan bere *borondatea* oso-osorik bete dezan, sorkariek horretan oztoporik jarri gabe...

Mt 6,10

[77^a] Egun eder hau igaro zen, tristenak igarotzen diren bezala, egun argitsueneke ere biharamun bat izaten baitute. Baina tristurarik gabe jarri nuen neure koroa Ama Birjinaren oinetan. Ohartzen nintzen denborak ez zidala harrapatuko neure zoriona... Bai jai ederra dela *Mariaren* jaiotza ni Jesusen emazte bihurtzeko! Egun bateko Birjina *txikia* izan zen Jesus *txikiari* bere lore *txikia* aurkeztu ziona... Egun hartan guztia zen *txikia*, hartu nituen graziak eta bakea izan ezik; gauez ortzian *ñirñirka* izarrak begiratzean izan nuen poztasun *narea* izan ezik, pentsatuz zeru ederra *laster* zabalduko zela nire begi liluratuaren aurrean eta neure Senarrarekin elkartu ahal izango nintzela betiko pozaren altzoan...

Hilaren 24an izan zen nire *beloa*³⁶¹ hartzearen zeremonia. Malkoz *lausotutako* eguna izan zen... Aita ez zegoen han bere erregina bedeinkatzeko... Aita [Pichon] Kanadan zegoen... Apezpikua ere, etortzekoa zena eta gure osabarenean bazkaldu behar zuena, gaixotu egin zen eta ez zen etorri. Beraz, guztia zen tristura eta samintasuna... Hala eta guztiz ere, *bakea*, beti *bakea* kalizaren hondoan³⁶²... Egun hartan nahi izan zuen Jesusek ni negar-malkoei eusteko gai ez izatea, eta ez ziren ulertuak izan³⁶³ nire malkoak... Egia esateko, proba askoz gogorragoei aurre egina nintzen negarrik egin gabe, baina orduan grazia indartsua neukan euskarri. Hilaren 24an, ordea, Jesusek neure indarretara utzi ninduen, eta hauek zein txikiak ziren erakutsi nuen.

Neure belo-hartzetik zortzi egunera, Joanaren³⁶⁴ ezkontza egin zen. Ezingo nizuke esan, ene Ama maite, zenbat irakatsi zidan haren jokaerak emazte batek bere senarrarekin erabili behar dituen leuntasunei buruz. Lehiatsu entzuten nuen ikas nezakeen guztia, ez bainuen nik gutxiago egiterik nahi neure Jesus maiteagatik³⁶⁵ Joanak Frantzisko-egatik baino; sorkari oso-oso hau ez bairik gabe, baina azken batez *sorkaria!*...

³⁵⁸ Ik. Otoi. 2; TG 201, 1^a; DLTH, 169. or.

³⁵⁹ Zelinak idazkera biziago batez honetara aldatuko du: «Bere profesa egunean, Jainko onari eskatu zion garbitokiko gartzelak husteko» (PA, 287. or.; ik. *Prières*, 64, 22. or.).

³⁶⁰ Ik. KH 23. VII. 6; eta PA (Leonia), 377. or.

³⁶¹ Profesa (irailaren 8an), klausuran egiten den zeremonia barnekoia, belo beltza hartzea (24an) jendaurrean egiten den zeremoniarekin osatu zen. - «*Aita*»: Pichon, Kanadan.

³⁶² Ik. 64^a, 69ⁱ.

³⁶³ Ik. CG, 584. or., laburpena; 586 + d; LC, 142; CGn, 587. or.

³⁶⁴ Joana Guérin eta Frantzisko La Néele doktorearen arteko ezkontza, 1890/10/1ean.

³⁶⁵ Hala ere, Teresak, bere «*tunel*»-ean (TG 115), ez dio Jesusi aurpegira botatzen beraren alde «*lurreko ezkongaiak*» egiten duten beste egin ez izana...

[77ⁱ] Gonbidapen-gutun³⁶⁶ bat egiten ere jardun nuen, hark egindakoarekin konparatzeko. Hona hemen nola zegoen egina:

AIZPA TERESA JESUS HAURRAREN ETA AURPEGI SANTUARENAREN EZTEIETARAKO GONBIDAPEN-GUTUNA

Jainko Aita Ahalguztidunak, zeru-lurren egile eta Munduko Jaun eta Jabe denak, eta Maria Birjina dohatsuak, Zeruetako Erreginak, aintzat dute zuri jakinaraztea beren Seme Ohoragarri Jesus, Erregeen Erregea eta jaunen Jauna denaren Ezkontza Teresa Martin Andereñoarekin, orain bere Jainko-Senarrak ezkonsariz emandako erreinuetako Andre eta Printzesa denarekin; erreinu hauek Jesusen Haurtzaroa eta haren Nekaldia, eta dituen handiki-tituluak, Jesus Haurrarena eta Aurpegi Santuarena izanik.

Luis Martin jaunak, Sufrimendu eta Apalduraren Jaurerrietako Jabe eta Jaun denak, eta Martin Andreak, Zeruetako Gorteko Ohorezko Damak, aintzat dute zuri jakinaraztea beren Alaba Teresaren Ezkontza Jesusekin, Jainkoaren Hitz, Hirutasun Gurgarriaren bigarren Pertsona, Espiritu Santuaren egitez Gizon eta Maria Zeruetako Erreginaren Seme egin zenarekin.

Jn 1,1

Karmel mendian, 1890ko irailaren 8an eman zitzaizen ezkon-bedeinkaziora ezin gonbidatu izan zaitugunez gero (zeruko gortea izan da soilik onartua), ezteiondora, halere, etor zaitezela eskatzen zaizu, bihar izango da eta, betikotasuneko egunean, Jesus, Jainkoaren Semea bere Handitasunaren distiran Zeruko Hodeien gainean Biziak eta Hilak epaitzera etor dadinean.

Mt 25,31-40

Ordua oraindik ezezaguna denez gero, gertu eta erne egoteko eskatzen zaizue.

Mt 24,42-44

[78^a] Orain, ene Ama maite, zer gelditzen zait zuri esateko? Ai! Bukatu nuela uste nuen, baina oraindik ez dizut ezer esan Jenofa³⁶⁷ gure Ama santua ezagutzeaz izan nuen pozaz... Grazia ezin eskertuzkoa da hau. Bada, hainbeste mesede egin didan Jainko onak ni *santa* batekin bizi izatea nahi izan du, ez imitaezineko batekin, ezkutuko eta eguneroko bertuteekin santututako *santa* batekin baizik... Behin baino sarriago jaso ditut poztasun handiak harengandik, batez ere igande batean.—Beti bezala, neure bisitatxoa hari egitera joanik, beste bi ahizpa aurkitu nituen Ama Jenofaren ondoan. Irribarrez begiratu nion, eta alde egitera nindoan orduantxe, ez baita zilegi gaixo batekin hiru lagun egotea, baina hark, goi-argizko aurpegieraz begiraturik, esan zidan: “Itxaron, ene alabatxo, hitz gutxi batzuk esan behar dizkizut. Bisitatzen nauzun bakoitzean lore-sorta izpirituala eskatzen didazu zeuretzat. Ea ba, gaur haxe emango dizut: Zerbitza ezazu Jainkoa bakez eta alaitasunez. Oroi zaitez, ene alaba, gure Jainkoa bakezko Jainkoa dela”. Xumeki eskerrak eman ondoren, irten nintzen malkoak isurtzeraino hunkiturik eta Jainko onak nire arima-

1 Ko 14,33


³⁶⁶ Ik. CG, 581 eta ondorengo orrialdeak.

³⁶⁷ Ik. 69ⁱ eta DLTH, 184 eta ondorengo orrialdea.



1. Zelina eta Teresa 1881ean.- 2. Iribarrearen Ama Birjina.- 3. Otoitz-liburuko estampa, Teresak ahizpa Jenofarentzat egina (ik. A Esk. 45^a).- 4. Martin jauna, Zelinak marraztua.





ren egoera agertu ziola sinesturik. Egun hartan ni oso probatua aurkitzen nintzen, ia triste, gau³⁶⁸ ilunean, Jainko onak maite ninduenik ere ez nekiela. Baina antzematen dituzu, ene Ama maite hori, nire bozkario eta kontsolamendua!...

Hurrengo igandean zer errebelazio izan zuen Ama Jenofak jakin nahi izan nuen. Berak esan zidan ez zuela *bat ere* izan. Orduan nire mirespina oraindik handiagoa izan zen, zein goren graduan bizi zen Jesus harengan, eta nola jokarazten eta mintzarazten zion ikusirik. Ai! *Santutasun* honi *benetakoena* neritzon, *santuena* eta hauxe da nik nahi nukeena, hor ez baitago inolako ameskeriarik³⁶⁹...

[78ⁱ] Neure profesia egunean ere asko poztu nintzen, Ama Jenofaren ahotik jakin nuenean berak ere nik botoak egin aurretik izan nuen proba³⁷⁰ bera izan zuela... Oroitzen zara, ene Ama maite hori, geure saminaldi *larrietan* haren ondoan aurkitzen genituen kontsolamenduez? Hitz batez, Ama Jenofak nire bihotzean utzi duen oroitzapena usain gozozko oroitzapena da... Zerura³⁷¹ joan zen egunean bereziki hunkiturik aurkitu nintzen. Lehen aldiz ikusten nuen heriotza bat. Egiaz ikuskitun hau liluragarria zen... Ni hilaginean³⁷² zen santaren ohearen oinetan nengoan, hain zuzen ere; haren zirkinik txikienak ere ikusten nituen. Honela igaro nituen bi orduetan zehar, nire arimak garrez beterik egon beharko zukeela iruditzen zait; sorgortasun bat jabetu zen, ordea, nitaz. Baina zerurako jaiotzen zen *une berberean*, nire barruko egoera aldatu egin zen; begien itxi-ireki batean esanezineko pozez eta berotasunez beterik aurkitu nintzen. Ama Jenofak berak zuen zorionetik pixka bat ematen zidala zirudien, oso-osoan sinesturik bainago zuzen-zuzen joan zela zerura...

Bizi zela, honela esan nion behin: –“Oi, ene Ama hori, zu ez zara garbitokira³⁷³ joango!...” –“*Hala uste dut*”, erantzun zuen samurki... Ai, ziur aski Jainko onak ezin izango zion huts eman halako apaltasunez beteriko itxaropenari! Jaso ditugun mesede guztiek hori erakusten dute... Ahizpa bakoitza erlikiaren bat eskatzera lehiatu zen. Badakizu, ene Ama maite, nik zer edukitzeko zoriona dudan... Ama Jenofa hilaginean zen bitartean, diamante bat bezala, *malko* bat ikusi nuen haren betazaletan diz-diz egiten. *Malko* hau, isuri zuen *guztietarik azkena*, ez zen erori. *Dirdirka* ikusi nuen oraindik koruan, hura jasotzea inori burura etorri gabe. Orduan, zapitxo fin bat harturik, gauez, inork ikusi gabe, hurbiltzera ausartu nintzen, eta *erlikiatzat* jaso santa baten *azkenengo malkoa*... Harrezkero aldean eraman dut beti, neure botoak gorderik ditudan [79^a] zorrotxoan³⁷⁴.

³⁶⁸ Teresarengan, *gau bedeinkatu* (TG 201, 2^a), *argitsuen* ondoan (A Esk., 44ⁱ, 45ⁱ), sarri askotan, gau latzak ere badaude, *arimaren gaua* (44ⁱ, 51^a), *gau iluna* (51^a), «*bizitza honetako gaua*» (B Esk., 1ⁱ; TG 96, 2ⁱ; 141, 1ⁱ eta 2^a; 147, 2^a; 156^a), baita «*are sakonagoa den gaua, ezerezaren gaua*» ere (C Esk., 6ⁱ).

³⁶⁹ Teresak ihes egiten du ameskeriatik, izurria bailitzan, horrek fedearen proba oraindik bortitzago eta larriago bihurtu ziolarik (ik. A Esk., 69ⁱ; C Esk., 35^a; eta TG 226).

³⁷⁰ Bokaziorik ez izatearen sentimendua, zalantzarik gabe. Ik. MS/NEC, 78ⁱ, 2 +.

³⁷¹ Larunbatean, 1891/12/Sean.

³⁷² Ik. A Esk., 12ⁱ.

³⁷³ Teresaren gogo eta antisia iraunkorra, haren garaiko karmeldarren literatura-joeraren aurkakoa; ik. *Prières*, 102, 63. or.; Otoi, 2; A Esk., 76ⁱ, 84ⁱ; TO, 23, 8. Ikusi baita ere, *infra*, TO 17, 8. oharra; VT, 99. zk., 185 eta ondorengo orrialdeak.

³⁷⁴ Ik. DLTH, 169. or. Teresak erlikia hori Zelinari emango zion bere profesarako.

Nik ez diet garrantzirik ematen neure ametsei³⁷⁵. Gainera, nekez izan ohi ditut sinbolikoak, eta neure buruari galdetu ere egiten diot nola izan daitekeen egun osoan Jainko onarengan pentsatzen egonik, hartaz gehiago ez arduratzea lotan nagoen bitartean... Gehienetan basoekin, loreekin, errekekin, itsasoarekin egiten dut amets... Ia beti haurtxo politak ikusten ditut, sekula ikusi ez ditudan pinpilinpauxak eta txoriak harrapatzen ditut. Ikusten duzenez, ene Ama maite, nire ametsetak, itxura poetikoa izan arren, mistikoak izatetik oso urrun daude...

Gau batean, Ama Jenofa hil ondoren, amets pozgarri bat izan nuen. Hark bere testamentua egiten zuela egin nuen amets, ahizpa bakoitzari berea izan zuen gauza bat emanaz. Txanda iritsi zitzaidanean, ez nuen uste ezer hartuko nuenik, ez baitzitziaion ezer gelditzen, baina agondurik, ahots sarkorrez hiru bider esan zidan: "Zuri neure *bihotza* uzten dizut³⁷⁶".

Gure Ama santua joanda hilabetera, gripea sortu zen komunitatean³⁷⁷. Bi ahizpa eta ni gelditu ginen soilik tente. Sekula ez dut kontatu ahal izango ikusi nuen guztia, bizitza zer iruditu zitzaidan eta gertatzen den guztia...

Nire hemeretzigarren urteurrena heriotza batekin ospatu zen, laster beste bi³⁷⁸ ondoren etorri zirelarik. Garai honetan ni sakristian nengoen, nire ofizioko lehenengo gaixorik larri zegoelako. Nire kontura izaten ziren hiletak prestatzea, mezatarako koruko burdinsarea zabaltzea etab. Jainko onak sendotasun-grazia ugari eman zizkidan egoera hartan. Orain galdetzen diot neure buruari nola egin ahal izan nuen egin nuena, beldurrik izan gabe. Alde guztietan heriotza zen nagusi. Gaizkien zeudenei arrastaka nekez ibiltzen zirenek laguntzen zieten. Ahizpa batek bere azken amasa eman orduko, bakarrik utzi beharra zegoen.

Goiz batean, jaikitzean, ahizpa Madalena hilik zegoelako susmoa nuen. Logela ilunpean zegoen. Inor ez zen gelatik irteten. Azkenez, [79ⁱ] atea zabalik zuen ahizpa Madalenaren gelan sartzeraz ausartu nintzen. Izan ere, jantzirik eta bere lastairan etzanik ikusi nuen. Ez nuen inolako beldurrik izan. Kandelarik ez zuela ikusirik, haren bila joan nintzen eta baita arrosazko koroa baten bila ere.

Ama nagusiordea hil zen gauean, neu bakarrik nengoen gaixozainarekin³⁷⁹. Ezinezkoa da pentsatzea zein negargarria zen komunitatearen egoera une honetan. Zutik zeudenek soilik antzeman diezaiokete nolabait. Baina bertan behera uzte haren erdian, Jainko ona gutaz arduratzen zela ohartzen nintzen. Hilzorian zeude-

³⁷⁵ Hala ere, ama Jenofarenaz gainera, B Esk. ko 2^a. an dagoen ametsak, oinarritzko lekua du Teresaren ibilbidean. Ik. baita A Esk., 10^a eta TG 86. - Teresak, ondoren, bere berezko ametsen laburpen ederra eskainiko du: *basoak, loreak, errekatxoak, itsasoa, haurtxoak, pinpilinpauxak eta txoriak* (ikus haren pinturak, garai honetakoak, DLTH-n, 198, 199 eta 207. orr.).

³⁷⁶ De Cornière sendagileak ama Jenofaren bihotza atera berri zuen, karmeldarrek erlikia bat izan zezaten (ik. DLTH, 184. or.). Bihotza oso hunkiturik, Teresak harekin amets egiten du (ik. baita KH 2. VIII. 1).

³⁷⁷ 1891ko abenduan eta 1892ko urtarrilean (ik. CG, 649. or.). 1889aren azkenerako jadanik hitz egiten zen hartaz. Izurriak Frantzian, 1889-1890eko neguan 70. 000 lagun hil zituen. Teresaren eginkizunari buruz, ik. PA, 355. or.

³⁷⁸ Ahizpa San Jose Jesusena, lekaimerik zaharrena, 1892/1/2an, Teresaren urtebetetze egunean; 4an, ahizpa Febronia, prioreordea (ik. 70^a); 7an, ahizpa Madalena Sakramentu Santuarena (ikus *infra*).

³⁷⁹ Ahizpa Aimée Jesusena (ik. DLTH, 208. or.; A Esk., 82^a; KH 18. IX. 3).

nak bizitza hobera aldatzen ziren nekerik gabe. Hil eta berehala, alaitasun eta bake airea nabari ziren haien aurpegietan; lo gozo bat zirudien. Halaxe zen, izan ere, mundu honetako irudia igaro dadinean, hautatuentzat gorderik dauden atseginak beti-betiko gozatzeko esnatuko baitira...

I Ko 7,31

Komunitatea honela nahigabeturik egon zen denbora guztian, nik *egunero* Gure Jauna hartzearen esan ezin ahalako poza izan nuen... Ai, zein gozoa izan zen!... Jesusek luzaro gozarazi zidan, bere emazte leialei baino luzarago, aintzat izan baitzuen bere burua niri *ematea*, besteek hura hartzeko zorionik izan gabe. Ontzi sakratuak ukitzeaz ere zorioneko nintzen, Jesus hartzeko *korporalak* prestatzeaz. Konturatzan nintzen oso gartsua izan behar nuela, eta maiz gogoratzen nituen diakono santu bati esandako hitz hauek: “santu izan zaitez, Jaunaren ontziak ukitzen dituzun hori”.

Is 52,11

Ezin dezaket esan kontsolamendurik sarri hartu dudarik neure eskerrak emate uneetan; beharbada, gutxien izan ditudan unea da... Eta berezkoa deritzot, Jesusi eskaini bainion neure burua ez neure pozerako haren bisita hartzeko, niri bere burua ematen zidana pozteko baizik. – Nire arima lur *libre* bezala ikusten dut, eta Ama Birjinari eskatzen diot kentzeko handik *libre* izateko [80^a] eragozpen izan daitezkeen *hondakinak*. Gero eskatzen diot berberak eraiki dezala *zeruaren* duin izango den denda zabal bat, jantzi dezala *bere-bereak* diren apaingarriz. Horren ondoren, santu guztiei eta aingeruei dei egiten diet kontzertu bikain bat ematera etor daitezzen³⁸⁰. Jesus nire bihotzera jaisten denean, pozik dagoela uste dut hain ongi hartua dela ikustean, eta neu ere pozik nago... Honek guztiak ez du eragozten, ordea, distrakzioak eta logura bisitan etortzea. Baina eskerrak ematetik irteetan, hain gaizki egin dudala konturaturik, eguneko gainerako zatia eskerrak ematen irauteko erabakia hartzen dut...

Ikusten duzu, ene Ama maite, ez naramatela ez beldurraren bidetik³⁸¹. Badakit beti alai egoteko era aurkitzen eta neure ezereztasun³⁸² guztietatik probetxu ateratzen... Ezbairik gabe, ez zaio hau ezatsegin Jesusi, bide honetatik ibiltzeko berak berotzen nauela baitirudi. – Behin, bestetan ez bezala, pixka bat kezkatuik nengoen jaunartzera joaterakoan; Jainko ona ez zegoela nirekin pozik iruditzen zitaidan, eta neure baitan hauxe nioen: “Ai! Ostia baten erdia besterik hartzen ez badut gaur, honek pena handia emango dit, Jesus gogo txarrez datorrela nire bihotzera pentsatuko baitut”. Hurbiltzen naiz, eta... hau zoriona! Neure bizitzan lehenengoz ikusten dut nola apaizak hartzen dituen *bi ostia*, ongi banatuak, eta nola neuri ematen dizkidan!... Ulertzen dituzu zuk nire poza eta hain erruki handiaren aurrean isuri nituen malko gozoak...

³⁸⁰ Ik. TG 165, 2^aª.

³⁸¹ Pasarte oso honetan zehar, Teresak oso azterketa zorrotza egiten du «arimaren egoera»ren inguruan, jaunartu aurretik eta jaunartu ondoren, baita «*eskerrak ematen igarotako bere egunari buruz*» ere. - *Zoriontsua*: Teresarentzat, Jainkoak «*ez du nahi gure zoriona besterik*» (52ª), eta beraren Eskaintzaren Ekintzaren esangura Jaungoikoa «*zoriontsu*» egitea baino ez da (84ª). Ik. KH 15. V. 2; 5.VII.2 etab., eta DE, 459 + a or.

³⁸² Joan Gurutzekoaren aipamena dirudi, *Jainkozkoari buruzko glosa*; ik. *Poésies*, II, 196. or., eta TO 30.

Nire profesaren ondoren etorri zen urtean, hau da, Ama Jenofaren heriotza baino bi hilabete lehenago, bakarraldian³⁸³ grazia handiak jaso nituen.

Gehienetan, hitzaldiekin egiten ziren bakarraldiak nekagarriago zitzaizkidan neuk bakarrik egiten nituenak baino. Baina urte hartan bestera izan zen. Gartsuki egin nuen prestaerako bederatzietan bat, kontrako barne-sentimendua izan arren, hizlariak ezin izango zidala ulertu uste bainuen³⁸⁴, erlijiosoan arime baino [80¹] gehiago bekatarri handiei on egitera ohitua egonik. Jainko ona, nire arimaren zuzendari bakarra bera zela niri erakutsi nahirik, neuk izan ezik³⁸⁵ beste inork auzentat hartu ez zuen Aita honetaz baliatu zen. Garai hartan era guztitako barne-kezka handiak izan ohi nituen (noizbait zerurik³⁸⁶ ba ote zen galdetzeraino). Ni neure barruko egoeraz ezer ez esatekotan nengoen, ez bainekien nola adierazi, baina aitortzeko sartu nintzeneko, neure arima zabaltzen somatu nuen. Hitz gutxi batzuk esan ondoren, era harrigarri ulertu zidan guztia, baita *igarri* ere... Nire arima liburu bat bezala zen, Aita hark nik neuk baino hobeki irakurtzen zuena... Belak zabalik abiarazi ninduen *konfiantzaren* eta *maitasunaren*³⁸⁷ olatueta zehar, biziki erakartzen ninduten, baina aurrera egiten³⁸⁸ ausartzen ez nintzen haietan zehar... *Nire hutsegiteek ez ziotela* Jainko onari³⁸⁹ nahigaberik ematen esan zidan; *haren lekuan egonik, haren izenean* esaten zidala hura oso pozik zegoela nirekin³⁹⁰...

Oi, bai zoriontsu izan nintzela hitz pozgarri hauek entzutean!... Artean ez nuen sekula entzun hutsegiteek *Jainkoa ez nahigabetzea* izan daitekeenik. Ziurtasun honek pozez gainezka utzi ninduen; bizitzako erbestea egonarriz jasaten lagundu zidan... Nik neure bihotz barruan hau egia zela nabaritzen nuen, Jainko ona ama bat baino samurragoa baita. Bada, ez ote zaude zu, ene Ama maite hori, beti prest nik nahi gabe zurekin izaten ditudan fintasun-faltak barkatzeko?... Zenbat aldiz ez ote dut izan nik esperientzia gozo hau!... Abertimendu batek ere ez ninduen bigunduko zure laztan bakar batek adina. Izan ere, halakoxea naiz ni: beldurrak atzera eragiten dit; *maitasunarekin*, ez aurrera egin bakarrik, *hegan egiten dut*³⁹¹...

³⁸³ 1891/10/8tik 15era, aita Alexis Prou, Caen-go frantziskotarrak zuzendurik. Ik. CG, 1198. or.; DLTH, 182 eta ondorengo or.; VT, 18. zk., 108. or.

³⁸⁴ Zenbaitek ez zuten Teresak itxaroten zuena bete, besteak beste, aita Blino-k (ik. CG, 533-534 + h orr.; PA, 159. or.). «Jainkoaren Zerbitzariak, erantsi du ama Ainesek, etengabe bilatzen zuten: "aurrera itsasoan barrena eta jaurti sareak" esango zion aginpidedun pertsona bat. Eta Jainkoak bidalia aita Alexisengan aurkitu zuen».

³⁸⁵ Ama Maria Gonzagarenak galarazi zion Teresari sermoilaria berriro ikustea. Eta Teresak bitartean, elizaina zen eta, kanpoko sakristian hara eta hona ibiltzen entzuten zuen aitortzera norbait noiz joango zain (cf PA, 361. or.)... Hala ere gogo-jardunen amaieran nahiko luze aitortzeko aukera izan zuen, bere nagusiaren nahigabe handiaz (ik. DLTH. 182. or.).

³⁸⁶ Galdera urragarria da Teresarentzat (B Esk., 2^o; C Esk., 5^o, 7^o, 7^o; ik. *infra*, TO, 1. oharra).

³⁸⁷ «Gogo-jardun hauen ondoren Jainkoari konfiantza osoz eman zitzaion; eta Liburu Santuetan bilatu zuen bere ausardiaren onspena. Teresak behin eta berriro errepikatzen du Joan Gurutzekoaren hitza: "Jainkoarengandik itxaroten den guztia lortzen da" (ama Aines, PO, 155. or.; ik. *Gau iluna*, II, 21 - eta *Maxima* 46; VT, 78. zk., 151. or.).

³⁸⁸ Ikusi behar ote da, zeharrargitan bezala, irudi horren ostean: Kristo uhinen gainean dabilela, eta Pedrori berarengana joateko esaten diola? (Mt 14, 25-31).

³⁸⁹ Ik. PO, 157. or.; Otoi. 2; *Prières*, 62. or., 1-2; TG 114¹.

³⁹⁰ Teresak umetatik etengabe izango zuen ardura; ik. A Esk., 34¹; LC 120, CGn, 512. or.; B Esk., 2¹.

³⁹¹ «*Maitasunak hegoak ematen ditu*» A Esk.aren garaiko olerki baten muina da (TO 22, oharren gaineko sarrera; ik. *Poésies*, I, 125. or.; eta DSA 5, 4^a).

Oi, ene Ama! hegan egin nuen maitasun-bidetik, batez ere zu hautatua³⁹² izan zinen egun bedeinkatuaz gero... Egun horretan Paulina neure Jesus bizi bihurtu zen... Hura bigarren aldiz "Ama" izatera iritsi zen³⁹³!...

[81^a] Hiru urte igarota gero, Jesusek nire Ama maitearen bitartez egiten dituen gauza harrigarriak ikuskatzeko zoriona izan dut laster... Nik ikusten dut *sufrimendua* dela soilik Arimak sortzeko gai, eta inoiz baino areago agertzen didate Jesusen hitz goren hauek beren sakontasuna: "Bene-benetan diotsuet, gari-alea lurtean eroriz hiltzen ez bada, bera bakarrik gelditzen da; hiltzen bada, ordea, fruitu asko ematen du". Bai uzta ugaria jaso duzula!... Malko artean erein zenuen, baina laster ikusiko duzu zeure lanen fruitua; pozez beterik itzuliko zara, azaoak zeure eskuetan ekarriz... Oi ene *Ama! Loretxo zuriak* orain azao garatu horien artean gorderik irauten du; baina zeruan hark izango du ahotsik zure *gozotasuna* eta erbeste-bizitzako itzalpean eta isiltasunean egunero praktikatzen ikusi zaituen *bertuteak* kantatzeko...

Jn 12,24-25

Sal 125,5-6

Bai, hiru urteren buruan, orain arte niretzat ezkutuan zeuden misterio asko ulertu izan ditut. Jainko onak Salomon erregeari agertu zion erruki berbera agertu dit. Ez du nahi izan beteko ez den gurari bat ere izan dezadan; eta ez nire santutasun-gurarietan soilik, baita probatu gabe, nik huskeriatzat *nituenetan* ere.

Beti neure *eredutzat* izanik, ene Ama maite hori, zure antzeko izan nahi nuen gauza guztietan. Pintura politak eta olerki liluragarriak egiten zu ikusirik, honela nioen neure baitan: "zein zoriontsu nintzatekeen ni pintatu ahal banu, neure pentsamenduak bertsoan adierazten jakingo banu, horrela arimei on egin ahal izateko!..." Nik sekula ez nukeen nahi berezko dohain hauek *eskaterik*, eta nire gurariak ezkutataturik jarraitzen zuten nire *bihotz* barnean. *Jesusek*, hura ere *ezkutataturik* nire *bihotz* gaixo honetan, atsegin izan zuen hari erakustea eguzkiaren azpian guztia dela huskeria eta izpirituaren nahigabea... Ahizpen harridura handiz *pintatzen* jarri ninduten³⁹⁴, eta Jainko onak nahi izan zuen neure Ama maiteak eman zizkidan irakatsietatik nik probetxu ona ateratzea... Berak nahi izan zuen gainera [81^a], haren antzera, nik olerkiak egin ahal izatea, politzat hartuak ziren lantxoak burutu ahal izatea... Salomonek, *bere eskuetatik irtendako lanak kontuan hartuz, haietan alfer-alferrik saiatu ondoren, guztia huskeria³⁹⁵ eta izpirituaren nahigabea zela ikusi zuenez*, nik ere halaxe jakin izan dut ESPERIENTZIAZ, zoriona ezkutatzean eta sorkarientzat ezezagun izatean datzala. *Maitasunik* gabe guztia dela ezereza ohartu nintzen, baita gauzarik distiratsuenak ere, esaterako, hilak berpiztea edo herriak konbertitzea...

Koh 2,11

Koh 2,11

1 Ko 13

³⁹² 1893/2/20an. Ahizparen prioretza-garaia Teresarentzat benetako heldutasuna lortzeko garaia izango da, baina ez du horregatik bere burua odolak eramaten utziko, ezta bi prioreen artean izan ziren gatazken, batzuetan gogorren, erdian ere (ik. CG, 745 + g or.).

³⁹³ Esaldiaren azken atalari buruz, ik. MS/NEC, testuaren kritikaren oharra.

³⁹⁴ Bere ahizpa prioretzarako hautatu zutenean, Teresak sakristia utzi zuen eta pintura-ofizioa eman zitzaion. Beste gauza batzuen artean, otoiztegiko hormairudia pintatu zuen 1893ko ekainean (ik. DLTH, 201. or.; CG, 685 eta 725. orr.).

³⁹⁵ Teresak berriz ekin dio gogokoan dituen aipamenetari bati (ik. A Esk., 32^a, 46^a, 81^a; TG 58; 243; Otoi. 8; KH 22. VI. 1), pintura eta olerkigintzarako dituen dohainei buruz, hau harrigarri gerta daiteke, 1 Ko 13 Kohelet zuzentzera badator ere... Adierazpena Maria Hirutasunarena da (cf BT, 99. or.).

Jainko onak (nik eskatu gabe) eman dizkidan dohainek, harrokeriara eramanez kalte egin beharrean, *berarengana* eramaten naute. Bera bakarrik dela *aldaezina* ikusten dut, hark bakarrik ase ditzakeela nire gurari neurrigabeak...

Badira baita beste era bateko gurari batzuk ere, Jesusek bete nahi izan ditue-nak; haur-gurariak, nire abitu-hartzeko elurarenaren antzekoak.

Badakizu, ene Ama maite hori, zein gogoko ditudan loreak. Hamabost urtere-kin neure burua preso eginik, udaberriko altxorrez jantzitako zelaietan zehar ibiltze-ari uko egin nion betiko. Bada, Karmelen³⁹⁶ sartu nintzenez gero baino lore gehiago ez dut sekula izan... Ohitura da ezkongaiak beren emaztegaiei maiz lore-sortak eskaintzea. Jesusek ez zuen hori ahaztu; mordoka igorri zizkidan nabar-loreen aza-oak, bitxilore erraldoiak, mitxoletak etab. gogokoen ditudan lore guztiak. Bazen beltzata izeneko lore txikitxo bat ere, Lisieux-en egon ginenez gero gehiago ikusi ez nuena. Gogo bizia nuen *neure haurtzaroko* lore hau, Alençon-go zelaietan nik bildua, berriro ikusteko. Hain zuzen ere Karmelen etorri zitzaidan loretxoa irribarre egitera, eta erakutsi zidan, gauza txikitxoetan nahiz handietan, Jainko onak bateko ehun ematen diela bizitza honetan bere maitasunagatik guztia utzi duten arimei.

Mt 19,29

Baina nire guraririk barrukoena, guztietarik handiena, inoiz beteta [82^a] ikusi-ko nuenik uste ez nuena, gu geunden Karmel berean nire Zelina maitea³⁹⁷ sartzea izan zen... *Amets* sinesgaitza³⁹⁸ neritzon aterpe berean bizitzeari, neure haurtzaroko lagunaren poz eta atsekabeetan parte hartzeari. Horregatik, nik osorik burutua nuen neure oparia. Gure ahizpa maitearen etorkizuna Jesusen eskuetan utzia nuen, hala behar izanez gero, munduaren azkeneraino joaten ikusteko gertu nengoelarik. Onar-tu ezin nuena³⁹⁹ hura Jesusen emazte ez izatea zen, neure burua bezala maite izanik, ezin bainuen ikusi bere bihotza izaki hilkor bati ematen. Nik asko sufritu nuen munduan nik ezagutu⁴⁰⁰ ez nituen arriskueta sartua zela jakinik. Esan nezake Kar-melen sartu nintzenez gero, Zelinaganako nire maitasuna ahizparen maitasuna adina amaren maitasuna zela...

Gau-jai⁴⁰¹ batera joan behar zuen batean, honek halako nahigabea eman zidan, non Jainko onari eskatu bainion *ez ziezaiola utz dantzarik egiten*; eta (neure ohitu-raz kontra) malkoak ere uholdeka isuri nituen. Jesusek aintzat izan zuen niri entzu-tea. Ez zuen onartu bere emaztegai txikiak gau hartan *dantza egin zezan* (behar

³⁹⁶ «Kanpoan gauza jakina zelako bera zela klaustroko Ume Jesusen irudia apaintzeko ardura zuena» (ama Ainesen oharra).

³⁹⁷ Ik. KH 16. VII. 2; DE II (DP), 453. or.

³⁹⁸ Delatroëtte jaunak kontra egingo zuelakoan.

³⁹⁹ Zelinaren birjintasunaren eta Kristori kotsakratzearen gaian Teresa tinko agertzen da; eta horretatik uler daiteke 1891-1894. urteetan bere ahizpari bidali zizkion gutunei darien jite zorrotz eta,aldi berean, otoizgilea, batez ere, 1893ko udan (ik. TG 130; CG, 465 + b or.; *Nire armak - Zezilia San-tua*, 72-75. orr.).

⁴⁰⁰ Teresak ez daki guztiz zuzen dagoen hau idaztean (1895ean), oraindik ez daki zer sufritu duen bere ahizpak. Zelinak bi urtetan zehar (1889-1891) krisi larria jasan zuen, «sugar artean», berak dioe-naz, bere barruko borroken berri izpirik ere inori esan gabe.

⁴⁰¹ 1892/4/20an, Henry Maudelonde-ren eztaietan. Ik. CSG, 136-137. orr., eta PA, 301. Teresak esaten ez duena hau da: bere ahizpari erretolika gogorra egin ziola aurretik mintzatokian, labe bizian sartuak izan ziren hebraitar gazteak eredutzat jarritz! Sei egun geroago, Zelinari eskutitz bigunagoa ida-tzi zion (TG 134).

zenezan grazia handiz egiten bazekien ere). Berak uko egiterik ez zuela hartara gonbidatua izanik, bere lagunak inondik inora ere ezin izan zion *dantzarik* eragin. Lotsa handiz, beraren lekura berriro eramateko, haren ondoan soilki *ibiltzera* behartua izan zen; gero handik ezkutatu zen, eta ez zen gehiago agertu gau-jaian. Hone-lako gertakarietan berezia izan zen honek, sendotu egin zituen, nire bekokian *bere ikurra* ezarri nahirik aldi berean nire Zelina maitearen bekokian ezarri zuen, haren-ganako konfiantza eta maitasuna...

Iazko uztailaren 29an, Jainko onak bere zerbitzari⁴⁰² berdingabearen loturak hautsiz, eta betiko saria hartzera dei eginez, aldi berean hautsi zituen bere emazte-gai maitea munduari loturik zeukatenak ere; hark bete zuen bere lehenengo egite-koa. Hain samurki maitatua zen gure aitaren ondoan, *gu guztion ordezko* izatea zegokiolarik, hark aingeru batek bezala bete zuen egiteko hau... Eta aingeruak ez dira [82¹] lurlean gelditzen. Jainkoaren borondatea bete dutenean, harengana itzultzen dira berehala; horretarako dituzte hegoak... Gure aingeruak ere eragin zien bere hego zuriei. Jesus aurkitzearen *oso urrun* hegan egiteko prest zegoen, baina Jesusek *oso hurbil* hegan eragin zion... Teresaxorentzat *oso samingarri* izan zen sakrifizio handiaz aski izan zuen... *Bi urtez* ezkutatu zion Zelinak isilpekoa⁴⁰³... Ai, zenbat sufritu zuen berak ere!... Azkenez, zeru goi-goitik, nire errege maiteak, lurlean atzerapenik gogoko izaten ez zuenak, laster ekin zion bere Zelinaren arazo korapilatsuak konpontzeari, eta irailaren 14an hau gurekin elkartu zen!...

Sal 115,16

Oztopoak ezin gaintuzkoak ziruditen batean, eskerrak emateko unean esan nion Jesusi: "Badakizu, ene Jainko hori, aita *zerura zuzen joan* den jakiteko gogo biziz nagoela. Ez dizut eskatzen niri hitz egiteko; emaidazu soil-soilik ezaugarri bat. Ahizpa A. J.k⁴⁰⁴. Zelinaren sarrera onartzen badu, edota behintzat eragozpenik jartzen ez badu, horixe izango da erantzuna aita *zuzen joan dela zurekin*". Ahizpa honek, dakizunez, ene Ama maite, hiru ere gehiegi ginelako iritzia zuen, eta, beraz, ez zuen beste bat onartu nahi. Baina Jainko onak, sorkarien bihotza bere esku duen eta nahi duenez erabiltzen duenak, aldatu egin zituen ahizparen asmoak. Eskerrak ematetik irteterakoan aurkitu nuen lehenengo pertsona hura izan zen; keinu maite-korrez dei egin zidan, zurekin egotera igotzeko esanez, eta begiak malkoz beterik, *Zelinari* buruz hitz egin zidan...

Es 21,1

⁴⁰² Igandean, 1894/7/29an. Ik. CG, 780 eta ondorengo orrialdea, eta VT, 120. zk., 221-238. orr. Teresarengan poztasuna laster nagusitzen zaio minari: berak, azkenean, aita «*aurkitzen du berriro*», «*sei urtean ikusi barik egon ondoren*» (TG 169, 170; TO 8).

⁴⁰³ Aita Pichon-ek Zelina zuen gogoan Kanadako misio-fundazio baterako, baina galarazi egin zion horretaz hitz egitea (ik. *infra*, TG 167, 1. oharra). Berak asmoa Karmelen azaltzen duenean, abuztuan, aho batezko deiadara dago (TG 168), kontraeraso berehalakoa; Teresak negar egiten du gaixotu arte, aita Pichon-ek, berriz, atzera egiten du («Bai, bai, Karmeli, Santa Teresari eta Andre Mariari ematen diet neure Zelina»); Delatroëtte jaunak erraztasun harrigarriaz onartu zuen Zelina Lisieux-en sartzea, eta «*irailaren 14an, hura gurekin bildu zen*», Martin jaunaren bitartekotasunari esker (ik. LKD, *Le P. Pichon et la famille Martin*, op. cit.; CG, batez ere, 665, 772, 774 + e, 784 + a, c orr.; TG 167; 168; 169; VT, 120. zk.).

⁴⁰⁴ «Komunitatean artista beharrik ez zela» uste zuen ahizpa Aimée Jesusenak. Baina berak gogoz estimatzen zuen Teresa (PO, 572-575. orr.; eta PA, 407. or.).

Ai, badut bai Jesusi zergaitik eskerrak emanik, nire gurari guztiak bete baitizkit!...

Orain jadanik ez dut inolako guraririk⁴⁰⁵, zoratzeraino Jesus *maitatzea* izan ezik... Nire haur-gurariak aienatu ziren. Oraindik gogoko dut, noski, Jesus Haurra-
ren aldarea lorez apaintzea. Baina berberak *nik maiteen nuen lorea*, neure *Zelina maitea* eman zidanez gero, besterik ez dut desiratzen: hura da [83^a] nik eskaintzen diodan lore-sortarik zoragarriena...

Ez dut desiratzen ez sufrimendua eta ez heriotza⁴⁰⁶, eta hala ere biak maite ditut; alabaina *maitasuna* da erakartzen nauen bakarra⁴⁰⁷... Luzaro nahi izan ditut. Sufrimendua neurekin izan dut, eta zeruko erribera eskura neukala uste nuen, loretxoa bere udaberrian ebakia izango zela uste nuen... Orain buru-uztea da soilik nire gidari, ez dut beste iparrorratzik!... Honezkero ezin dut irrikaz ezer eskatu, nire ariman oso-osorik Jainko onaren borondatea, sorkariek eragozpenik jarri gabe, betetzea izan ezik. Gure Aita San Joan Gurutzekoaren kantu izpiritualeko hitz hauek esan ditzaket:

“Barren-barrengo ardandegian
Maiteagandik edan nuen:
ta inguru zehar handik atera nintzenean,
lehengorik ezer ez nekian,
ta neuzkan ardiak ere galdu nituen...

Nire gogoa ditudanekin oso-osorik
Haren omenez zerbitzari:
ez dut orain zaintzen artalderik,
gaurtik ez daukat beste lanik
maitatu eta *maitatzea* baizik!”⁴⁰⁸ ...

Edo areago oraindik:

“Halakoa da maitasun-egintza,
ezen ezagutu nuenez gero,
nigan baldin bada ona nahiz gaitza
zapore bereko bihurtzen baitu oro,
eta arima bere izatera io”⁴⁰⁹.

Oi, ene Ama maite, bai gozoa dela *maitasunaren* bidea! ezbairik gabe, baliteke erortzea, baliteke desleialtasunak izatea, baina maitasunak *guztia zapore bereko eginik*, laster ezereztuko du Jesusi gaitzi izan dakiokkeen guztia, bihotz barruan bake apal eta sakon bat besterik uzten ez duela...

⁴⁰⁵ Ik. 39^a, 52^a, 83^a. Teresa, beraren nahiak beteak izanik, gailur antzeko batera iritsi da (azken kenosiaren aurretik).

⁴⁰⁶ Ez beldurrik, ez nahirik: maitasunak nahi oro gaintitzen du. Teresak ez dio gaixotasunaren lehen erasoak sentitzen dituenik (CG, 774 + h, 778 + f, 796. orr.; TG 173; PO, 399. or.).

⁴⁰⁷ Ik. KH 13. VII. 17.

⁴⁰⁸ CSko (*Kantu izpiritual-eko*) hitzez-hitzezko aipamenak, XXVI eta XXVIII. ahapaldiak. - «... artaldea... zaintzeko artarik ez dut hartzen »: ik. TO 18, 35 eta DSA 5, 26.

⁴⁰⁹ Joan Gurutzekoa, *Jainkozkoari buruzko glosa*; ik. TO 30, *Poésies*, II, 196. or.

Ai, zenbat argi egin didaten Gure Aita San Joan Gurutzekoaren⁴¹⁰ lanek!... Hamazazpi edo hamazortzi urte nituenean ez neukan beste janari izpiritualik. Gero-ago, ordea, idortasunean utzi ninduten liburu guztiek, eta oraindik egoera horretan irauten dut. Autore izpiritual batek egindako liburu bat zabaltzen badut (denik eta ederrena, hunkigarriena izanda ere), bihotza estutzen zaidala somatzen dut berehala, eta irakurtzen dut, baina nolabait esateko, ulertu gabe; edota ulertzen badut ere, nire izpiritua gelditu egiten da, gogoeta egiteko gai ez dela... Neure ezin honetan, Eskritura Santua eta Kristoren Antz-Bidea [83¹] datozkit laguntzera; haietan janari sendo eta guztiz *garbia* aurkitzen dut. Baina otoitzaldian eusten didana, gauza guztien gainetik, *Ebanjelioa*⁴¹¹ da; hor aurkitzen dut nire arimatxo gaixo honek behar duen guztia. Beti agertzen zaizkit argi berriak, esanahi ezkutuak eta misterioitsuak...

Ulertzen dut eta esperientziaz dakit "Jainkoaren erreinua gure barnean dela⁴¹²". Jesusek ez du libururik ez doktorerik behar arimek irakasteko; berak, doktoreen Doktoreak, irakasten du hitz-zaratarik gabe⁴¹³... Sekula ez diot entzun hitz egiten, baina badakit nire barruan dela. Hark gidatzen nau eta irakasten dit unean-unean esan eta egin behar dudana. Ordurarte ikusi gabeko argiak aurkitzen ditut, behar ditudan unean aurkitu ere. Eta gehienetan argitasun hauek ez dira, hain zuzen ere, ugariago izaten otoitzaldian, eguneko zereginen tartean baizik...

Oi, ene Ama maite! Hainbeste grazia jaso ondoren, ez ote dezaket nik ere kantatu salmogilearekin: "Jauna *ona* da, haren *errukia* betikoa da"? Uste dut izaki guztiek nire grazia berberak izan balituzte, inor ez litzatekeela Jainko onaren beldur izango, bestera baizik, maite izango luketela zoratzerraino; eta maitasunagatik eta ez dardarka, arima batek ere ez lukeela sekula onartuko hari atsekaberik ematea... Badakit, hala ere, arima guztiek ez dutena antzekoak izaterik; familia desberdinak izatea beharrezkoa da, Jainko onaren atributuatariko bakoitza ohoratzeko. Niri bere *erruki azkengabea* eman dit, eta *honen argitan* ikusten eta gurtzen ditut Jainkoaren gainerako bikaintasunak!... Horrela, guztiak agertzen zaizkit *maitasunez* argitsu. Justizia bera ere (eta, agian, beste edozein baino areago) *maitasunez* jantzia iruditzen zait...

Zer poztasun gozoa Jainko ona *zuzena* dela pentsatzea; hau da, ezagutzen dituela gure ahultasunak, ongi ezagutzen duela gure izaeraren argaltasuna! Zeren beldur izan naiteke, ba, ni? Ai! Seme galduaren bekatuak halako ontasunez barkatzea aintzat izan zuen [84^a] Jainko mugagabeki zuzenak, ez ote du, ba, *zuzena* izan behar "beti berarekin nagoen honekin"?...

⁴¹⁰ Teresaren irakurraie buruz, Joan Gurutzekoaren eraginari buruz eta haren testuak zipizintzen dituzten aipamenen inguruan, ik. MS/NEC, 83^a, 21 +. Berak, batez ere, *Kantu izpirituala*, *Maitasun-gar bizia* eta *Maximak* ezagutu ditu. Ik., batez ere, KH 27. VII. 5; 31. VIII. 9; *Poésies*, I, 162 eta ondorengo orrialdea, eta II, 195-197 eta 201 eta ondorengo orrialdea; VT, 77. zk., 47-52. orr.; 78, 146.etik 160.erako orr.; 121, 29-51. orr.; DE, 491-495. orr.

⁴¹¹ Ik. *La Bible avec Teresa de Lisieux* lanaren sarrera, 9-41. orr.

⁴¹² Ik. Joan Gurutzekoak, CS, I. ahapaldia, 114. or.

⁴¹³ *Kristoren Antz-Bidea*, III, 43, 3, edo hobeto esan III, 2, Lamennais-en itzulpena, honako azpitu-tulua duena: «La Vérité parle au-dedans de nous sans aucun bruit de paroles (Egia barru-barruan mintzo da, hitzen zaratarik gabe)».

Lk 17,21

Sal 117,1

Lk 15,21-24

Lk 15,31

Urte honetan, ekainaren 9an, Hirutasun Santuaren jaiari, Jesusek nola maitatua⁴¹⁴ izan nahi duen inoiz baino hobeki ulertzeko grazia hartu nuen.

Gogoan nituen nik beren burua Jainkoaren justiziari oparigaitzat eskaintzen zioten arimak, errudunentzat ziren zigorrak haiengandik aldentu eta berengana erakartzeko. Eskaintza hau handia eta eskuzabala iruditzen zitzaidan, baina hori egiteko joera izatetik oso urrun nengoen ni. "Oi, ene Jainko!, oihu egin nuen neure bihotz barnetik, zure justiziak hartuko ote ditu soilik oparigaitzat eskaintako arimak?... Ez al du zure *maitasun* errukitsuak ere beraien beharrik?... Alde guztietan ezezaguna eta baztertua da. Zuk maitasuna oparo eman nahi diezun arimak, sorkarietara bihurtzen dira, beren joran ziztrinarekin zorion eske jardunez, zure besoetan murgildu eta zure *maitasun* mugagabea onartu beharrean... Oi, ene Jainko! Zure maitasun arbuaiatua zeure bihotzean geldituko ote da? Zure maitasunari erreoparitzat eskaintako arimak aurkituko bazenitu, uste dut, laster batean kiskaliko zenituzkeela. Uste dut zoriontsu zinatekeela, zugar dauden mugagabeko samurtasun-olatupei eutsi beharrean izango ez bazina... Zure justiziari, lurrean soilik isurtzen denari, hustutzea eder bazaio, zenbat ederrago ez ote zaio izango zure maitasun errukitsuari arimak *kiskaltzea*, zure errukia zeruetaraino altxatzen bada? Oi, ene Jesus! *Neu* izan nadila oparigai dohatsu hori; kiskali zeure erreoparia zeure jainko-maitasunaren suaz!..."

Ene Ama maite, Jainko onari ni horrela eskaintzea onartu duzun horrek, ezagun zaizkizu nire arima gainezkatzera⁴¹⁵ etorri diren graziazko errekak, edo hobeki esateko, ozeanoak... Ai! Egun zoriontsu hartatik uste dut *maitasuna* barnera sartzen zaidala eta inguratu egiten nauela, uste dut *maitasun errukitsu* honek uneoro berriztatzen nauela, garbitzen duela nire arima, eta ez duela bekatuaren lorratzik uzten bertan; horregatik [84ⁱ] ezin dezaket garbitokiaren beldurrik izan... Badakit neurez ez nukeela ordain-leku horretara joaterik ere merezi izango, arima santuek soilik baitute harako sarrera. Baina badakit maitasun-sua garbitokikoa baino santutzailea-go dela ere... Badakit Jesusek ezin digula opa guri alferriko sufrimendurik, eta ez lizkidakeela sentitzen ditudan guraririk sortaraziko haiek betetzekotan izan ezik...

Oi, zein gozoa den maitasun-bidea!... Nik bai nahi nukeela buru-uzterik osoenaz Jainko onaren borondatea betetzen saiatzea!...

Hona hemen, ene Ama maite hori, zeure Teresatxoren bizitzaz esan diezazukedan guztia. Zuk zeurez askoz ere hobeki ezagutzen duzu bera zer den eta Jesusek

⁴¹⁴ Egun honetan, Teresak «*Maitasun Errukitsuari Eskaintza*» egin zion (Otoi. 6); azterketa eta iruzkina, *infra*, Otoi. 6, oharrak, eta *Prières*, 39-41, eta 77-102. orr.

⁴¹⁵ Ik. *Maitasun-gar bizia*, I, 6, 152 eta ondorengo orrialdea (DE, 492. or.) eta III, 2, 218. or. - Teresarentzat eta Joan Gurutzekoarentzat, sua Izpirituaren ur bizia da (*Maitasun-gar bizia*, III, 208 eta ondorengo orrialdea). A Esk.ko pasarte osoak ur eta suaren irudiak txandakatzen ditu; pasarte hau ere «maitasuneko zauri»ari egin ahal izan zaion aipamen legez ulertu izan da; zauri hori Teresak jasan zuen 1895eko ekainean gurutz-bidea hasterakoan (KH 7. VII. 2; PO, 175. or.; PA, 264. or.). Teresak ez du maitasuneko zauri hori A Esk.ari aipatzen, beharbada, ahozko tradizio baten arabera, ama Aines kezkatuturik gelditu zelako Teresak 1895eko ekainean egindako konfidentziagatik (ik. DE, 456. or., bai eta LC 162 + b, CG, 809-810. orr.).

zer egin duen beraren alde. Horregatik, barkatuko didazu haren erlijioso-bizitzaren historia asko laburtu izana...


Nola amaituko da “loretxo zuri baten historia” hau? Beharbada, loretxoa bere guritasunean dela ebakia izango da, edota beste erribera batzuetara aldatua izango da⁴¹⁶... Ez dakit. Baina ziur dakidana Jainko onaren errukiak beti lagunduko diola; Jesusen eskuetan utzi zuen Ama maitea bedeinkatzeari ez diola sekula utziko. Hura betikotasun osoan poztuko da haren koroaren loretariko bat izateaz... Betikotasun osoan kantatuko du Ama maite honekin Maitasun-kanta beti berria...

Sal 22.6

Ap 14.3

⁴¹⁶ Indotxinako Karmeldarren komenturen batera (ik. C Esk., 9^a; MS/NEC, 84ⁱ, 14 +; TG 207; TG 221, 2/3^a; DE, 211 eta 353. orr.).

Je chanterai éternellement les Miséricordes du Seigneur !...




Jours de Grâces, accordés par le Seigneur à sa petite épouse

Naissance 2 Janvier 1873 — Baptême 4 Janvier 1873 — Sourire de la Sainte Vierge Mai 1873
Première Communion 8 Mai 1884 — Confirmation 14 Juin 1884 — Conversion 25
Décembre 1896 — Audience de Léon XIII 20 Novembre 1897 — Entrée au Carmel 2 Avril 1898
Prise d'habit 10 Janvier 1899 — Robe grande richesse 12 Février 1899 — Examen canonique
Bénédiction de Léon XIII — Septembre 1890 — Profession 8 Septembre 1890 — Prise de voile 24
Septembre 1890 — Offrande de moi-même à l'Amour 9 Juin 1895.

Nik beti-beti Jaunaren Errukia kantatuko dut...

Jesus eta Teresaren Armarriak



Jaunak bere emazte txikiarentzat erabakitako Graziaren Egunak

Jaiotza 1873ko urtarrilaren 2a. - Bateoa 1873ko urtarrilaren 4a. - Andre Mariaren irribarrea 1883ko maiatza - Lehenengo Jaunartzea 1884ko maiatzaren 8a. - Sendotza 1884ko ekainaren 14a. - "Konbertsioa" 1896ko abenduaren 25a. - Aita Santu Leon XIII. arekin audientzia 1887ko azaroaren 20a. - Karmelen sartzea 1888ko apirilaren 9a. - Abitua hartzea 1889ko urtarrilaren 10a. - Gure ondasun handia 1889ko otsailaren 12a. - Azterketa kanonikoa, Leon XIII.aren bedeinkapena 1890ko iraila - Profesa 1890ko irailaren 8a. - Belo hartzea 1890ko irailaren 24a. - Neure Burua Maitasunari eskaintzea 1895ko ekainaren 9a.

[85ⁱ]

Armarriaren azalpena

JHS enblema Jesusek bere emaztetxo gaixoaren ezkonsarira ekartzea nahi izan duena da. Beresina-ko umezurtza¹ Teresa JESUS HAURRARENA eta AURPEGI SANTUARENA bihurtu da. Hauek dira haren handiki-tituluak, haren ondarea eta haren itxaropena. – Armarrria bitan banatzen duen mahatsondoa, berriz, honako hau esan zuenaren irudi da: “Ni naiz mahatsondoa eta zuek aihenak; fruitu ugari eman diezadazuen nahi dut”. Bi abarrak, bata Aurpegi Santua inguratzen eta bestea Jesus Haurra inguratzen, Teresaren irudi dira, ez baitu beste guraririk hemen behean mahatsmordoa² izatea baizik, Jesus Haurra freskatzeko, hari ongi pasarazteko, hari bere gogara zukua ateratzen uzteko, eta horrela nekaldian³ izan zuen egarri itogarria ase ahal izateko. – Harpa⁴ ere Teresaren irudi da, eten gabe maitasun-doinuak⁵ kantatu nahi dituen haren irudi.

FMT enblema Maria Frantziska Teresarena da, Ama Birjinaren loretxoarena. Horregatik, loretxo hau goizekoIzar gozoaren izpi onurakorrak hartzen agertzen da⁶. Lur berdea, loretxoa hazi zen familia dohatsuaren irudi da. Urrutiago mendi bat ikusten da Karmel esan nahi duena. Teresak leku bedeinkatu hau hautatu du bere armarrrian bere maitasun-gezi gartsua⁷ ezartzeko, martiritzaren⁸ palma-adarra merezi izango diona, egunen batean maite duen haregatik benetan odola emango duen itxaropenez. Haren maitasunari erantzuteko, berak egin nahi baitzuen hark beragatik egin zuen guztia... Baina Teresak ez du ahazten *kanabera*⁹ ahul bat baizik ez dela; horregatik bere armarrrian ezarri du.

Triangelu argitsuak Teresaren arima gaixora eten gabe bere grazia estimagaitzak¹⁰ isurtzen dituen Hirutasun gurgarria adierazten du; horregatik berak eskerronez, ez du sekula ahaztuko esaera hau: “Maitasuna maitasunez ordaintzen da soilik”¹¹.

¹ Martin jaunak Teresari emandako goitizena, eleberrri honetatik ekarritakoa: *L'Orpheline de Moscou ou la jeune institutrice (Moskuko Umezurtza edo etxe-irakasle gaztea)*, Woilliez andrearena. Bost bider azaltzen da TGn, bai eta TO 8ko sinaduran ere.

² Irudia ez da azaltzen eskuizkribuetako beste inon, ez eta TGetan ere, baina bai eta oso ondo dator Olerkietan (TO 5, 9; 5, 10; 18, 43; 25, 7) eta Antzerkietan (DSA 2, 7ⁱ), bereziki Teresak 1895eko gabonetan egin zuen DSA 5eko ahapaldi osoan zehar, eta horrek frogatzen duela dirudi armarrria data horren ondoren egina dela (ik. KH 25. VII. 10 eta 12; 27. VII. 10).

³ Ik. 45ⁱ; eta BTko testuetan, 257 eta ondorengo orrialdea.

⁴ Geroago gehitutako esaldia.

⁵ Ik. *Poésies*, I, 33-34. orr.; DE, 703. or.; TG 140ⁱ; 145^a; 149, 22^a/2ⁱ; A Esk., 61ⁱ.

⁶ Haurtzaroan sendatu zuen Andre Maria (ik. 30ⁱ).

⁷ Idazkietan erabiltzen den une bakarra. Baina Teresak zenbait «gezi gartsu» pintatu zituen hainbat pintura-lanetan. Litekeena da 1895eko ekaineko «maitasunezko zauri»en aipamena izatea (415. oharra). Ik. DLTH, 240. or., eta *Maitasun-gar bizia*, II. ahapaldia, 2, 170 eta ondorengo orrialdea.

⁸ Ik. 61^a.


⁹ Teresak kanabera jaso zuen ikur legez (jantzitarako etab.), abitua hartu zuen egunean. Baina berak jadanik erabilia zuen ikur hori 1888an: TG 49; 54 (3. oharra) eta 55.

¹⁰ Joan Gurutzekoa, CS, XXVII. ahapaldia, 382. or.

¹¹ Joan Gurutzekoa, CS, IX. ahapaldia, 179. or.

AHIZPA MARIA BIHOTZ SAKRATUARENARI
GUTUNA

“B” Eskuizkribua



Jesus †

Oi, ene ahizpa maite! Zuk eskatzen didazu¹ eman diezazudala neure bakarraldiaren², agian azkenenegoa izango den bakarraldiaren, oroitzapena... Gure Amak³ baimena ematen duenez gero, niretzat pozgarria da zurekin solasean jardutea, bi aldiz ahizpa zaitudan horrekin, hitz egiteko ni gauza ez nintzela, Jesus besterik ez nuela zerbitzatuko nire izenean hitz emanez zeure ahotsa utzi zenidan horrekin...

Amabixitxo maite, Jaunari eskaini zenion haur berbera da arrats⁴ honetan hitz egiten dizuna, alaba batek bere ama⁵ maitatzen dakien bezala maite zaituena... Zeruian jakingo duzu soilik nire bihotzean gainezka dagoen eskerron⁶ guztia... Oi, ene ahizpa maite! Jesusek zure alabatxoari agertzen dizkion isilpekoak jakin nahi zenituzke. Isilpeko horiek zeuri ere agertzen dizkizu, badakit, zeu izan zinen jainko-irakaspenak jasotzen irakatsi zenidana-eta. Hala ere, hitz batzuk zizakatzan⁷ saiatuko naiz, giza bihotzak ozta-ozta soma ditzakeen gauzak agertzea giza hitzari ezinezkoa zaiola konturatzen banaiz ere...

1 Ko 2,9

Ez uste izan poz-eztitan⁸ nabilenik. Ez horixe! Nire poza lurrean pozik ez izatea da⁹. Bere burua agertu gabe, bere ahotsa entzunarazi gabe, Jesusek isilean irakasten dit; ez liburuen bitartez, ez baitut ulertzen irakurtzen dudanik. Baina batzuetan, esaldi bat otoitzaldiaren azkenean aurkitu dudan bezalakoa (isilik eta idortasue-

¹ Lehenengo zati hau gutuna da (TG 196), eta hemen Teresak erantzuna eman zion bere ahizparen eskari idatziari, 1896/9/13an (LC 169, *infra* TG 196, 2.an aipatua). Beraz, orrialde biok, 1^a/1^a, irailaren 8koa den bigarren zatia ostean idatzita daude.

² Eskariaren gaia testuen arabera aldatzen da: «Jesusek Teresari esandako isilpekoak» (LC 169), «haren konfiantza eta maitasuneko bidetxoa» (PO, 245. or.), beraren «*ametsa*» eta beraren «*dotrina txikia*» (*infra*, 1^a), Mariak ahoz egindako eskariaren arabera. - *Azken bakarraldia*: Teresak bere ahizparen hitzak errepikatzen ditu; urte horretako ostiral santuan izan zuen lehenengo hemoptisia.

³ Ama Maria Gonzagarena.

⁴ Zalantzarik ez, 9/13an; Teresaren izaera ingurumari aberatskoa da, misterio moduko batek jantzita bailegoan.

⁵ Maria haren amabixi eta haren hirugarren Ama izan da (Paulina Karmelera sartu ondoren).

⁶ Oso hitz trinkoa Teresaren luman, sarrerako bi orrialdeotan hiru aldiz datorrena (ik. B.Esk., 5^a; C Esk., 25^a). Teresaren bihotzak gainez du beti *eskerrona* (A Esk., 43^a, 73^a; TG 138; 139, 1^a; 229, etab.), «*guztia baita grazia*» (KH 5. VI. 4).

⁷ Ik. Joan Gurutzekoa, CS, VII. ahapaldia, 168. or.

⁸ Teresak gauzak gertatu egiten ditu, baina ez dio esaten bere ahizpa Mariari Bazkoaren ondorik fedearen gauean sartuta dagoenik (ik. *infra*, 2^a).

⁹ Hemen *Kristoren Antz-Bidetik* hartuta, A Esk.an Teresak esaten zuen zerbait aurkitzen dugu berriro: III, 26, 3 (36^a, 38^a; B Esk., 4^a).

nean iraun ondoren) datorkit poza ematera: "Hona hemen ematen dizudan maisua; berak irakatsiko dizu egin behar duzun guztia. Bizitza-liburuan irakurrarazi nahi dizut, hortxe baitago maitasun-jakintza"¹⁰. Maitasun-jakintza! Ai, bai! Hitz honek oihartzun gozoa du nire arimaren entzumenean. Nik ez dut nahi jakintza hau izan ezik. Haregatik neure aberastasun guztiak emanik, kantu sakratuetako emazteak bezala, ezer eman ez dudalakoan nago¹¹. Hain ongi dakit maitasunak izan ezik ezerk ez gaituela Jainko onarentzat atsegingarri egingo, non maitasun hau baita nik nahi dudan ondasun bakarra.

Jesusek gogoko du jainko-sugar¹² honetara daraman bide bakarra niri erakustea. Bide hau, beldur gabe bere aitaren besoetan loak hartzen duen haurtxoaren buru-uztea¹³ da... "Norbait *txikitxo*¹⁴ bada, betor niregana", esan zuen Espiritu Santuak Salomonen ahoz. Eta maitasun Espiritu honek berak esan zuen gainera, "errukia txikiei ematen zaiela". Haren izenean, Isaias profetak agertzen digu azken egunean "Jaunak larretara eramango duela bere artaldea, hark *bildostxoak* bilduko dituela eta bere bihotz ondoan estutu". Eta agintzari guztiok gutxi bailiran, profeta berberak, jadanik goi-argiz bere begirada betikotasunaren sakonean barneratzen zuelarik, oihi egin zuen Jaunaren izenean: "Amak bere haurra laztantzen duen bezala, halaxe kontsolatuko zaituztet nik zuok. Altzoan eramango zaituztet eta neure belau-naginetan gozatuko"¹⁵.

Oi, amabixki maite! Honelako hizkuntza entzun ondoren, isilik egotea, eskeronez [1¹] eta maitasunez negar egitea besterik ez dugu... Ai! Arima ahul eta akastun guztiok, arima guztietarik txikienak, zure Teresaxoren arimak, sentitzen duena sentituko balute, batek ere ez luke galduko maitasun-mendiaren gailurrera¹⁶ iristeko itxaropena, Jesusek ez baitu egintza harrigarririk eskatzen, buru-uztea eta eskerrona¹⁷ baizik, XLIX. salmoan dioenez: "Ez dut zuen abere-taldeetako akerrik behar, neureak baititut basoetako piztiak eta muinoetan larratzen diren milaka abere. Mendietako hegazti guztiak ezagutzen ditut... Gose banintz, ez nizueke zuei esango, neurea baitut mundu osoa eta bertako guztia. Zekorren okela jaten dudala uste al duzue, edota akarren odola edaten?... *Eskaini Jainkoari gorespen eta eskeroneko opariak*".

¹⁰ Jesusek Margarita Maria Alacoque-ri esandako hitza (*Pétit bréviaire du Sacré-Cœur de Jésus*, 58. or.; ik. KH 6. VIII. 3).

¹¹ Munduko urre guztiak ez du maitasunak beste balio, horixe da Kantarik Ederreneko txatalaren esangura. Teresarentzat, «*maitasuna maitasunaz bakarrik ordaintzen da*» (TG 85; A Esk.ko armariak; B Esk., 4^a, Joan Gurutzekoaren adierazpena jasoz, CS, IX. ahapaldia, 179. or.).

¹² Adierazpen honek Hiru hebraitar gazteen kantua gogorarazten digu (DN 3), baina Margarita-Maria Alacoque-rengandik hartuta dago (ik. TG 224, 1^a), eta Jainkoaren bihotza bera izendatzen du; ik. TO 17, 6; 28, 5; Otoi. 10 eta *Prières*, 115. or.

¹³ Teresaren oinarritzko gaietarikoa bat (A Esk., 68^a; TO 3; 32; 38; 42; 44; 52; TG 258, 1¹; KH 7. VII. 3). Berau da Mariak bere ahizpa gazteari irakasteko eskatu dion «dotrina txikia».

¹⁴ Hemen bata bestearen ondoan azaltzen diren lau aipamenek (Esaera Zaharrak, Jakinduria eta Isaias 40 eta 66), Zelinaren liburuxkatik aterata, «haurtasun bide izpirituala»ren oinarri biblikoa osatzen dute. Ik. CG, 801 + f; 892 + f, g, h, i orr.; VT, 79. zk., 228 eta ondorengo orrialdea; eta C. De Meester, *Dynamique de la confiance*, batez ere 62-65 eta 74-85. orr.

¹⁵ Ik. C Esk., 3^a eta Joan Gurutzekoa, CS, XXVII. ahapaldia, 382. or.

¹⁶ Teresak buruan bide du Joan Gurutzekoaren *Karmel mendira igoerako* «Perfekziozko Mendia-ren grafikoa». Ik. TG 105; 110; 112 eta C Esk., 28^a.

¹⁷ Bibliako aipamenekin jarraitzen duen "bidetxo"aren laburpena.

Hona hemen Jesusek guri eskatzen digun guztia. Ez du gure egintzen inolako beharrik, maitasunarena bakarrik baizik. Gose balitz guri esan beharrik ez lukeela adierazten duen Jainko hori bera ez da zalantzan egoten samariar emakumeari ur xorta baten *eske hasteko*. Egarri zen... Baina “emaidazu edaten” esatean, bere sorkari gaixoaren *maitasuna* da unibertsoaren Kreatzaileak eskatzen duena. Maitasun-egarri zen¹⁸... Ai! Sekula baino gehiago somatzen dut Jesus *egarriz* dagoela. Munduko ikasleen artean eskergaiztokoak¹⁹ eta axolagabeak aurkitzen ditu soilik, eta *bere ikasleen* artean, ai ene!, bihotz gutxi aurkitzen ditu berari oso-osoan²⁰ ematen zaizkionak, haren maitasun neurrigabearen samurtasunaz jabetzen direnak.

Jn 4,6-15

Ahizpa maite, dohatsuak gu, geure Senarraren isilpeko barru-barrukoak ulertzen ditugunok. Ai! Dakizun guztia idatzi nahi bazenu, orrialde zoragarriak izango genituzke irakurtzeko. Baina badakit, nahiago duzu “Erregearen isilpekoak” zeure bihotz barnean gordetzea; niri esaten didazu “txalogarri dela Goi-goikoaren egintzak aldarrikatzea”. Isilean gordetzeaz zuzen zaudela uste dut, eta zuri poz ematearren²¹ idazten ditut soilik lerro hauek, jabetzen bainaiz lurreko hitzez zeruko isilpekoak azaltzeko²² neure ezinaz. Eta gainera, orrialdeak eta orrialdeak idatzi ondoren, oraindik hasi ere ez naizela egin pentsatuko nuke... Hainbeste ikuspegi desberdin daude, ñabardura hain anitzak, non Pintore zerutiarrak soilik eman baitiezazkidake kolore egokiak, bizitza honetako gauaren ondoren, nire arimako begien aurrean Jaunak agertzen dituen gauza miresgarriak pintatzeko.

Tb 12,7

Ene ahizpa maite, neure ametsa idazteko eskatu didazu eta “neure irakatsi txikia”, zuk deitzen diozunez... ondorengo orrialdeetan egin dut hori; baina hain desegoki, non ezinezkoa baiteritzot zuk ulertzea. Beharbada nire adierazpenak gehiegizkotzat joko dituzu... Ai, barka iezadazu! Hori nire idazteko era ezatseginagatik da. Ziur diotsut ez dagoela gehiegizkorik ezer nire *arima txikian*; guztia da han barea eta lasaia²³...

(Idazterakoan Jesusi hitz egiten diot; horrela errazago egiten zait neure pentsamenduak adieraztea... Horrek ez du eragozten, ai ene!, oso gaizki adieraziak izatea!)

¹⁸ Gai Teresiar nagusienetarikoa bat (TG 141, 2^a; A Esk., 45^a, 46^a, 85^a; TO 24, 25; Otoi. 12). Baina hemen, TO 31n bezala, Jesusen *egarria kentzeko*, arimak salbatu nahia ilaundu egiten da, emazteak eta Kristok aurrez aurre elkar aurkitu ostean. Ik. ziur aski 1896ko udakoa den 1. irudia ere, DLTHko 77. or. an berreginda (handiagoturik) dagoena.

¹⁹ Ik. A Esk., 84^a. Teresaren mugimendua Eskaintzaren ekingintzan egindakoa bezalakoa da (Otoi. 6). Hala ere, hemen indarra «holokaustoaren biktima»tik (bitartekotasunetik) «bokazio guztiak barruan hartzen dituen» maitasun osora (3^a) igarotzen da, maitasun hori Teresak bere baitan sortzen sentitzen duelarik (ik. 2^a). «Maitasuna maitasunaz ordaintzea» da (4^a). Teresak, beraz, kristau txepelen nahiz sinesgabeen ardura du. Ik. *Prières*, 71, 9. or.

²⁰ Ik. Joan Gurutzekoa, CS, XXVII. ahapaldia, 385. or.

²¹ Eragingarria Mariaren eskaria izan bada ere, Teresak idatzi duena Jesusi egindako «maitasunezko gutuna» da (ik. amaiera).

²² Ik. Joan Gurutzekoa, CS, XXXIII. ahapaldia, 41. or.

²³ Baretasuna ekaitzaren ostean... Ez da zaila alaitasun ezaugarriak aurkitzea lehenengo adierazpen ugaritan, eta gero Teresaren idazkeran ere bai (ik. DLTH, 273. or.).

[2^a]

J.M.J.T.

1896ko irailaren 8a

(Nire Ahizpa maite Maria Bihotz Sakratuarenari)

Oi, Jesus, ene Maitea! Nork esan dezake zein samurki, zein eztiki daramazun²⁴ nire *arimatxo*²⁵, zein gogoko duzun zeure grazi izpiari diz-diz eragitea ekaitzik²⁶ beltzenen artean ere?... Jesus, ekaitzak orro egiten zuen indartsu nire ariman zure garaipen-jai ederraz gero, Bazko-jai argitsuaz gero; maiatzeko²⁷ larunbat batez, arima batzuei emandako amets misterioitsuak gogoan erabiliz, neure buruari esaten nion nik, honek kontsolamendu gozoa izan behar zuela; hala ere ez nuen eskatzen. Gauez, bere zerua estaltzen zuten hodeiak kontuan izanik, nire *arimatxoak* esaten zuen gainera bere baitan, amets ederrak ez zirela beretzat, eta ekaizpean loak hartu zuen... Biharamuna maiatzaren 10a zen, Mariaren hilaren bigarren *Igan-dea*; agian, Ama Birjinak bere loretxoari *irribarre* egitea nahi izan zuen egunaren urteurrena²⁸...

Goizaldeko lehen argiak urratzean, solairu antzeko zer batean aurkitu nintzen (ametsetan). Beste pertsona batzuk ere baziren bertan, baina urruti. Nire ondoan gure Ama besterik ez zegoen. Honetan, haiek nola sartu ziren ikusi gabe, hiru karmeldar erreparatu nituen neure aurrean, euren kapa eta belo handiz jantzirik. Gure Amaren bila zetozela iruditu zitzaian, baina argi eta garbi ulertu nuena zen zerutik zetozela. Neure bihotz barrutik esan nuen: ai, nik bai nahi nukeela karmeldar horietariko baten aurpegia ikustea! Orduan, nire otoi-tza entzuna izan bailitz bezala, santarik altuena nireganantz aurreratu zen. Bat-batean belauniko jarri nintzen. Hau zoriona! Karmeldarrak beloa jaso zuen, edo hobeki esan, pixka bat altxatu zuen, eta berarekin estali ninduen²⁹... Inolako zalantzarik gabe, Ama agurgarri Ana Jesuse-na³⁰, Frantziako Karmeldarren fundatzailea, ezagutu nuen. Haren aurpegia ederra zen, edertasun ez-materialekoa. Ez zuen inolako distirarik botatzen, eta, hala ere, biok estaltzen gintuzten belo eta guzti ere, nik ikusten nuen haren aurpegi zerutiarra, argi leun esanezinaz argizatua; argi hori ez zen hark hartua, berberak sortua baizik...

²⁴ Teresa Jesusengana pluraleko bigarren pertsonan zuzentzen da, baina bigarrenz dei egiten diorean (2ⁱ), hika egiten dio, bihozberatasun barrukoi guztietan bezalaxe, *Poésiesen* bereziki (ik. CSG, 82. oharra); «jendaurreko» testuetan ez, ordea, C Esk. bereziki, honek bere «hil-agiria» egiteko balioko duela badakielako.

²⁵ Adierazpena zazpi aldiz azaltzen da, eta zazpitan *azpimarraturik* dago. *Txiki* adjektiboa hogeita hamazortzi aldiz erabilia dago hamar orrialdetan.

²⁶ Zehatz-mehatz adierazita dago fedearen proba, ezkutupean bada ere.

²⁷ Pasarte hau hiru lerro erabat aztaparkatutan dago idatzita, eta lerrook Diana Vaughan mitikoaren ametsaren aipamena egiten dute (ik. TrH, 99 eta ondorengo orrialdeak).

²⁸ 1883an, maiatzeko bigarren igandea 13a izan zen, ez 10a.

²⁹ Babes eta bedeinkazioko keinua, *Olerkietan* eta *deboziozko solas-antzerkietan* sarritan azaltzen zena, aingeruen hegoei eta, batzuetan Mariaren mantuari esker. *Estali edo gorde* aditzaren esangura ere bada (ik. MS/NEC, 2^a, 24 +). Bi egun lehenago, Teresak asko estimatzen zuen nobizia batek, Maria Hirutasunarenak, belo beltza hartua zuen.

³⁰ Ana Lobera, Avilako Teresaren aholkularia, Joan Gurutzekoak *Kantu izpirituala* eskaini ziona, bera izan zen Teresiar erreforma Frantzian sartu zuena (1604an). Ik. KH 26. 5; 11. IX. 5; 30. 9 (DE, 392. or.); eta DLTH, 272. or.

Nik ez nuke jakingo esaten nire arimaren pòztasuna; gauza hauek sentitu egi-ten dira eta ezin daitezke adierazi... Hilabete batzuk igaro dira amets hau izan nue-
nez gero; baina nire ariman utzi duen oroitzapenak ez du ezertxo ere galdu bere
freskotasun eta bere lilura zerutiarretik... Oraindik ikusten ari naizela dirudi Ama
agurgarriaren begirada eta irribarre *maitasun beteak*. Oraindik sentitzen ditudala
dirudi hark egin zizkidan xerak³¹...

Neure burua hain samurki maitatua ikusirik, hitz hauek esatera ausartu nin-
tzen: "Oi, ene Ama! Jainko onak lurtean luzaro utziko ote nauen esan diezadazula
eskaten dizut... Laster etorriko ote da nire bila?..." Samurki irribarre eginez, santa
hark xuxurlatu zuen: "Bai, laster, laster... Hitz ematen dizut". – "Ene Ama, gehitu
nuen nik, esaidazu baita ea Jainko onak nire egintza txiki ezerezak eta nire gurariak
baino zerbait gehiago [2ⁱ] eskaten ote didan ere. Pozik al dago hura nirekin?"³².
Santaren aurpegiak lehen aldiz hitz egin zidanean baino askoz ere aire samurragoa
hartu zuen. Haren begirada eta haren xerak jadanik erantzunik gozoena ziren. Hala
ere, hau esan zidan: "Jainko onak ez dizu besterik eskaten. Pozik dago, oso
pozik!..." Amarik samurrenak bere umea laztantzean sekula izan duen baino maita-
sun handiagoz ni laztandurik, urruntzen ikusi nuen... Nire bihotza pozez bete-bete-
rik zegoen; baina neure ahizpez gogoratu nintzen, eta haientzat graziaren bat eskatu
nahi nuen, baina, ai!..., esnatu egin nintzen...

Oi, Jesus! Harrezkero ekaitzak ez zuen orro egiten; zerua bare eta garbi zego-
en... Nik *sinesten nuen, sentitzen nuen*³³ bazela zeru bat, eta zeru hau ni maite nindu-
ten³⁴ eta beraien alabatzen ninduten arimaz beterik dagoela... Inpresio honek are fin-
koago irauten du niregan, Ama agurgarri Ana Jesusenari ordurarte *hotz-hotzik* begi-
ratzen bainion; ez nion sekula erregurik egin, eta haren oroipena ez zitzaidan inoiz
burura etortzen, hartaz hitz egiten zenean izan ezik, eta hau gutxitan gertatzen zen.
Horregatik, hark zenbateraino *maite ninduen* jabetu nintzenean, eta ez nintzaiola
inola ere *arrotz* gertatzen, nire bihotza maitasunez eta eskerronez urtu zen, ez bisita
egin zidan santarekiko soilik, baita zeruko biztanle zoriontsu guztiekiko ere...

Oi, ene Maite hori! Grazia hau zuk eman nahi zenizkidan grazia handiagoen
hasiera baizik ez zen. Utz iezadazu, ene maitasun bakar hori³⁵, zuri gogora ekartzen
gaur... *gure bat-egitearen* seigarren urteurrena den egun honetan... Ai, barka iezada-

³¹ Kontsolamendu sentikor horiek Teresak behar zituen; hala eta guztiz ere, ez zen haiek eskatzen
ausartzen.

³² *Bizkor... bera nirekin pozik al dago?* Galdera garrantzitsuak ziren Teresarentzat, berak bere
buruari pozez nahiz antsiatz denbora luzez egin izan dizkionak. Ik. A Esk., 44^a; TO 33; TG 190; eta A
Esk., 34ⁱ, 37ⁱ, 80^a, 80ⁱ.

³³ Nik sentitzen nuen ("je sentais" dio Teresak), *jakin* esanahiaz, baina jakin norbere esperientziatz
bizi izan delako; hau Teresarengan sarri agertzen den esamoldea da: hemeretzi aldiz B Esk.an; zortzi
bider DSA 6an; ik. C Esk., 5ⁱ, 6ⁱ.

³⁴ Amets honek lasaitu egiten du Teresa, zerua badagoelako ziurtasuna emanez, azken hamazortzi
hilabeteetan horixe baitzen haren zalantzagai lazgarria: "*oraindik maitatzen jakingo deneko zerua*" (A
Esk., 44^a), oraindik ezagutzen ez dituzun dohatsuek "*euren alaba bezala*" maite zaituenekoa.

³⁵ Ik. *Poesies*, II, 214, 1, 1. or. Teresak bere gelako ateburuan (garai honetan, beharbada?) ondokoa
irarri zuen: «*Jesus da nire maitasun bakarra*» (ik. DLTH, 261. or.).

zu, Jesus, eldarniatzen banaiz mugarik gabekoa ukitzen duten neure gurariak, neure itxaropenak azaldu nahian! Barka iezadazu eta senda ezazu nire arima, itxaroten duen³⁶ guztia eman ez!!!...

Zure *emazte* izatea, oi Jesus, *karmeldar* izatea, zurekin bat eginik nagoelako arimen *ama* izatea³⁷ aski izan behar nuke... Ez da horrela... Ezbairik gabe, hiru pribilegio hauetan datza nire bokazioa: Karmeldar, Emazte eta Ama izatean. Hala ere beste bokazio batzuk³⁸ somatzen ditut neure baitan: gerrari izateko bokazioa sentitzen dut, Apaiz, Apostolu, Doktore³⁹, Martiri izatekoa. Hitz batez, Jesus, zure alde egintzarik heroikoenak zertzeko beharra, irrika somatzen dut.... Neure ariman Gurutzatu baten, Aita Santuaren zuabo⁴⁰ baten adorea somatzen dut. Nik gerrazelaian hil nahi nuke Elizaren aldeko borrokan...

Apaiz-bokazioa⁴¹ somatzen dut neure baitan. Nolako maitasunez, oi Jesus, eramango zintuzkedan neure eskuetan nire esanera zerutik jaisterakoan!... Nolako maitasunez emango zintuzkedan arime!... Baina, ai! *Apaiz* izateko gogoa izan arren, Frantzisko Asiskoaren apaltasuna miresten eta irrikatzen dut, eta *apaizgoaren* duintasun gorenari uko eginik, hura imitatzeko bokazioa somatzen dut.

Oi, Jesus, ene maitasuna, ene bizitza!... [3^a] Nola bat egin gauza hain desberdin hauek? Nola gauzatu nire *arimatxo gaixo* honen gurariak?...

Ai! Neure txikitasuna gorabehera, arimak argitu nahi nituzke Profetak bezala, Doktoreak bezala. Apostolu izateko bokazioa dut... Munduan zehar nahi nuke ibili, zure izena iragarri, eta fedegabeko lurraldeetan zure Gurutze aintzatsua ezarri. Baina oi ene *Maite hori!*, misio bakar bat nahikoa izango nuke. Aldi berean munduko bost zatietan iragarri nahi nuke Ebanjelioa, eta baita uharterik urrundenetan ere... Misiolari⁴² izan nahi nuke, ez urte batzuetan soilik; munduaren sorreratik hasita izan nahiko nukeen eta hala irauan mendeen azken era arte... Baina, batez ere, ohi ene *Salbatzaile maite-maite hori!* zuregatik isuri nahi nuke neure odola azken tantaraino...

1s 66,19

³⁶ Zalantzarik ez dago, *Kantu izpiritualaren* XI. ahapaldiaren oihartzuna da (ik. VT, 78. zk., 154. or.).

³⁷ Teresak sarritan gogorarazten du Jesusekin bat egiten duen birjina sonsagratuaren amatasun izpirituala; ik. TO 24, 21-22, eta *Poésies*, II, 163. or.; *Nire armak*, 78 eta ondorengo orrialdea.

³⁸ «*Haren* arimatxo gaixoaren nahi» en sua da, bokazio-zerrenda hori sortarazi duena.

³⁹ Ik. TG 182, 1^a; TO 39 (Avilako Teresari): A Esk., 2^a, baina 83^a etabarretan ere.

⁴⁰ Teresak, Zelinaren antzera, jenio guduzale eta zaldunzalea du; berak nahita darabil gudu-hizkera (TO 36; TO 48, batez ere; DSA 1 eta 3; TO 4 eta 50; KH 4. VIII. 6; NV 3. 8. 2b; *Nire armak*, 118-119. orr.). - Aita Santuaren Estatuetakoko *zuaboak* fedearen soldaduak ziren; Piamontetarrek Erroma harrapatu ostean, beraiek Frantziara itzuliko ziren euren aberria defendatzera. Bihotz Sakratuaren banderapean, eta Loigny-n porrokatuak izan ziren 1870/12/2an, eta toki horretan, berrehun eta zazpi beraien artetik (guztira 300 exkax zirelarik) lurrean gorpu gelditu ziren; Sonis jeneralaren agindupean zeuden, eta berari hartu zion Teresak *hondar alearen* irudia (ik. C Esk., 2^a, 16. oharra, eta CG, 1170. or.).

⁴¹ Ik. *infra*, TO 40, oharren gaineko sarrera, eta TG 201, 1^a, aita Roulland-ena, 1896/11/Ilean. Ik. *Récréations*, 39, 407. orr.; CSG, 86. or.; DE, 619. or.; CG, 849 eta ondorengo orrialdea.

⁴² Bera misio eta misiolarien zaindari aldarrikatuko du Pio XI.ak, 1927/12/14an. Ik. TO 35, 1896/7/16koa.

Martiritza⁴³! Hona hemen nire gaztetako ametsa. Amets hau haziz joan da nirekin batera Karmelgo klaustro artean... Baina jabetzen naiz baita ere nire amets hau zorakeria dela, martiritza-modu *bat* nahi izatera ezingo bainuke etsi... Neure burua asetzeko *guztiak* beharko nituzke... Zu izan zinen bezala, ene Senar gurgarri hori, zigorkatua eta gurutziltzatua izan nahi nuke... San Bartolome bezala larrutua izan nahi nuke... San Joan bezala olio irakinetan murgildua izan nahi nuke. Martiriei eman zizkieten oinaze guztiak sufritu nahi nituzke... Santa Aines eta santa Zeziliak bezala, neure lepoa ezpatapean jarri nahi nuke, eta nire ahizpa maite Santa Joana Ark-ekoarekin batera, sugarretan zure izena aitortu, oi Jesus!... Antikristoaren garaian kristauek sufrituko dituzten oinazeak amestean, nire bihotzak dar-dar egiten duela somatzen dut, eta oinaze hauek neuretzat gordeak izatea nahi izango nuke... Jesus, Jesus! Neure gurari guztiak idatzi nahi banitu, *zeure bizitza-liburua* utzi beharko zenidake; hantxe kontatzen dira santu guztien egintzak, eta egintza horiek dira nik zuregatik egin izan nahi nituzkeenak...

Ap 20,12

Oi, ene Jesus! Zer erantzungo diezu nire zorakeria guztiei?... Ba ote da, beharbada, nirea baino arima *txikiagorik*, ezinduagorik⁴⁴?... Hala ere, nire ahultasun honegatik hain zuzen ere, gogoko izan duzu, Jauna, nire *haur-gurari txikiak* asetzea, eta unibertsoa baino *handiagoak* diren beste *gurari* batzuk ase nahi dituzu gaur...

Gurari hauek otoitzaldian benetako martiritza sufriarazirik, behin San Pauloren epistolak zabaldu nituen, haietan erantzuna aurkitzeko asmoz. Nire begiak Korintiarrei egindako lehen epistolaren XII eta XIII. kapituluetan ezarri ziren... Lehenengoan irakurri nuen *guztiak* ezin daitezkeela izan apostolu, profeta, doktore etab...; Eliza atal ezberdinez dagoela osatua, eta begiak ez zukeela jakingoaldi berean eskua izaten...

1 Ko 12,
29.12.21

Erantzuna argia zen, baina ez zituen nire gurariak asetzen; ez zidan bakerik ematen... Madalenak, beti hilobi hutserantz makurtuz, bila zebilena aurkitzea [3ⁱ] lortu zuenez, halaxe nik ere, neure ezerezaren hondo-hondoraino makurtuz hain gora altxatu nintzen⁴⁵, non neure helburua iritsi ahal izan bainuen... Ustea galdu gabe, aurrera egin nuen neure irakurketan, eta esaldi honek indarberritu ninduen: "Bila itzazue gartsuki *dohainik onenak*; baina oraindik bide bikainagoa erakutsiko

Jn 20,11-18

1 Ko 12,31

⁴³ Bokazio guztien gainetik, Teresak martiritza eskatzen du, martiritza guztiak, horixe baita maitasunaren gailurra, «*bokazio guztiak beregan hartzen dituen*» (3ⁱ). Profesako txartelean (1890/9/8an), Teresak hau idatzi zuen: «*Jesus, zure alde martiri hilgo al naiz, bihotzeko martiritzaz nahiz gorputzekoaz, edo hobeto bietaz*» (Otoi. 2 eta *infra* oharrak). Joana Ark-ekoa ez ezik, Teresak Italian zehar egin zuen bidaian aipaturiko martirio guztiak aurkitu ditu; Erroma, batez ere, «*martirién odolaz bustiriko lurra*» da (A Esk., 55^o). Gutunek haren nahiaren bilakaera ikustarazten dute: TG 96, 2^o; 132ⁱ; 167, 1ⁱ; 192, 1ⁱ; 197^o; 213, 1ⁱ; 224, 2^o; hor honakoa esan zien Bellière apaizgaiari: «*Jainkoak maitasunaren martiritza besterik emango bide ez didanez, gero guk erdietsi nahi dugun beste palma-adarra hartzen utzi ko didalakoan nago*». Ik. I. eskk., 124. or.; CG, 1373. or.; *Poésies*, II, 337. or.; DSA, 430. or.

⁴⁴ «*Haur-gurari*» horiek edo «*unibertsoa baino handiagoak direnek*» Teresari «*benetako martiritza sufriarazten diote*», eta berak jauzi egiten du Jainkoarenganantz barre egiten dion ezereztasunetik ihes egiteko (C Esk., 6^o); ik. *Poésies*, I, 232. or. Bera garaile irten da fedearen (eta itxaropenaren) probatik, Jesusi dion maitasunagatik bakarrik; ik. C Esk., 7^o, eta 17. Salmoaren aipamenak (BT, 94. or.).

⁴⁵ Ik. A Esk., 60^o, eta Joan Gurutzekoaren *Dans un élan brûlant d'amour* (VT, 73. zk., 65. or.; 77. zk., 50. or.; 78. zk., 149 eta ondorengo orrialdea).

dizuet". Eta Apostoluak azaltzen du nola *dohain bikain* guztiak ez diren ezer maitasunik gabe... Karitatea dela ziurtasunez Jainkoagana eramaten duen *bide bikaina*. Aurkitu nuen azkenez atsedena... Elizaren gorputz mistikoa⁴⁶ gogoan nerabilela, San Paulok aipatzen dituenetariko atal batean ere ez nuen neure burua ikusten; edota, hobeki esan, *guztietan* ikusi nahi nuen...

1 Ko 13 Karitateak neure *bokazioaren* giltza eman zidan. Jabetu nintzen Eliza atal ezberdinez osatua bazegoen, guztietarik beharrezkoena, bikainena ez zitzaizola falta. Elizak Bihotz bat zuela jabetu nintzen, eta Bihotz hau Maitasunez gartsu zegoe-la. Jabetu nintzen Maitasunak soilik higiarazten zituela Elizaren atalak; Maitasuna itzaliko balitz, Apostoluek ez luketela gehiago Ebanjelioa iragarriko, Martiriek uko egingo lioketela odola isurtzeari... *Maitasunak* bokazio guztiak hartzen zituela kon-turatu nintzen, Maitasuna guztia zela, aldi eta toki guztiak hartzen zituela... hitz batez, Betikoa dela!...

Orduan, neure poztasun eldarniagarriaren gainezkaldian deiadar egin nuen: Oi, Jesus, ene maitea!... Azkenez aurkitu dut neure bokazioa: Maitasuna da!...

Bai, aurkitu dut neure tokia Elizan, eta toki hori, oi ene Jainko!, zuk zeuk eman didazu⁴⁷...: neure Ama den Elizaren bihotzean, ni Maitasuna izango naiz!... Horrela guztia izango naiz..., horrela nire ametsa bete izango da!!!...

Zergatik hitz egin poztasun eldarniagarriaz? Ez, ez da zuzena esaera hau. Atzitik, portura zuzenduko duen itsasargia begien bistan duen nabigatzailearen bake lasai eta narea da... Oi, maitasun-itsasargi distiratsua⁴⁸! Nik badakit nola iritsi zure-gana. Zure sugarra neureganatzeko sekretua aurkitu dut.

Ume bat besterik ez naiz, ezindu eta ahula. Hala ere, nire ahultasun hauxe da zure maitasunari oparizat⁴⁹ neure burua eskaintzeko ausardia ematen didana, oi Jesus! Beste garai batzuetan, ostia garbi eta akatsgabeak soilik zituen atsegin Jainko indartsu eta boteretsuak. Jainko-*justiziar*i ordaintzeko opari ezin hobeak behar ziren. Baina beldurraren legeari Maitasunaren legeak hartu dio lekua, eta Maitasunak erreoparizat neu hautatu nau, sorkari ahul eta akastuna naizen hau... Ez al da, izan ere, Maitasunaren betekoa hautatze hau?... Bai, Maitasuna ase izan dadin, beharrezko da ezerezeraino beheratzea eta ezerez hau *sugar* bihurtzea...

[4^a] Oi, Jesus! Nik badakit maitasuna maitasunez baizik ez dela ordaintzen⁵⁰. Horregatik bilatu dut, aurkitu dut neure bihotza asaskatzeko era, Maitasunaren

⁴⁶ Teresaren idazkietan hementxe bakarrik erabilia da esaera hori. Izan ere, beharrezkoa zen intuitziozko arrazonamendurako: Elizak gorputza badu, orduan gorputz horrek bihotza izan behar du biziarazteko...

⁴⁷ «*Nahi nuke*» guztiak (hamasei bider 2¹/3¹.an) aditzera ematen dituzte Teresaren nahiak; hemen, Jainkoa bera da «*leku hori*» ematen diona. - *Eliza, nire ama*: adierazpena lehenengoz TO 32, 2an azaltzen da. B Esk. Teresak Elizari buruz (hamabost aldiz aipatua) egiten duen idazki handia da.

⁴⁸ Faroa bizi da, bere *garrak* ematen dio bizia, gizakiaren gorputzari, beraren *bihotzak* ematen dienez, eta «*gorputz mistikoa*»-ri *maitasunak*.

⁴⁹ Ik. Eskaintzaren Ekintza (Otoi. 6, eta *Prières*, 88 eta ondorengo orrialdea batik bat): segurtasuna berdina da, baina hemen *ahultasunean*, *haurtasunean*, *txikitasunean* (ik. 1^a, 2^a), *inperfekzioan* jartzen da indarra.

⁵⁰ CS (*Kantu izpirituala*), IX. ahapaldia, 179. or. Armariaren ezaugarriaren eduz, Teresak du «*Maitasuna Maitasunaren truk*» emateko era bilatzen eta aurkitzen du. Ik. Joan Gurutzekoa, CS, XXXVIII. ahapaldia, 83-84. orr.

ordain Maitasuna itzuliz zuri. — “Erabil itzazue okerrerako diren aberastasunak betiko bizilekueetan hartuko zaituzten adiskideak lortzeko”. Hona hemen, Jauna, zeure ikasleei ematen diezuen aholkua, “ilunpetako umeak beren arteko arazoetan zuhurrago direla argitakoak baino” esan ondoren. Ni, argitako ume hau, jabetu nintzen *guztia izateko* nire gurariak, bokazio guztiak hartzekoak, bidegabeko bihur nintzaketen aberastasuna zirela. Horregatik adiskideak irabazteko baliatu naiz haietaz... Eliseok⁵¹ bere Aita Eliasi egin zion erreguaz gogoraturik, haren izpiritu bikoitza eskatzera ausartu zenean, Aingeru eta Santuen aurrean agertu naiz eta esan diet: “Sorkarietarik txikiena naiz. Ezagutzen ditut neure ezereza eta neure ahultasuna. Baina badakit baita ere zein eder zaien on egitea bihotz zintzo eta emankorrei. Beraz, eskatzen dizuet, oi zeruko biztanle dohatsuok, *alabatzakotzat har nazazuela. Zeuona izango da soilik lortarazten didazuen aintza*, baina, arren, entzun ezazue nire eskaria. Ausarkeria da, badakit; hala ere, *zeuon Maitasun bikoitza*”⁵² lor diezadazuela eskatzera menturatzen naiz”.

Jesus, ezin dut sakonago jo neure eskarian; neure gurari ausarten zamapean nekaturik aurkitzearen beldur izango nintzateke... *Haur bat* izatea dut aitzakia; haurrek ez dute beren hitzen joan-etorriaz pentsatzen. Hala ere, haien gurasoek, aginte-aulkian daudenean eta ondasun neurrigabeen jabe direnean, ez dira ezmezean egoten euren burua bezala maite dituzten euren *txikitxo*en gurariak betetzeko; haiek kontentatzeko zorakeriak egiten dituzte, *ahultasuneraino* ere iristen dira... Hortaz, *Elizaren* ALABA naiz ni, eta Eliza Erregina da, zure Emaztea baita, oi jainkozko erregeen Errege hori!... Ez dira aberastasunak eta aintza⁵³ (ezta zeruko aintza ere) haurtxoaren bihotzak eskatzen dituenak... Badaki aintza bere Senide, Aingeru eta Santuena⁵⁴ dela eskubidez... Bere aintza bere Amaren aurpegiak dirdiratzten duen errainua izango da. Maitasuna da eskatzen duena... Gauza bat besterik ez daki: zu maitatzen, oi Jesus!... Egintza distiratsuak galaraziak ditu; ezin du Ebanjelioa aldarrikatu, ezin du isuri bere odola... Baina zer axola dio horregatik? Haren anaiek egiten dute lan haren ordeztu, eta hura, *haur txikia*, Errege eta Erreginaren *tronuaren* ondo-ondoan geratzen da; maitatu egiten du borrokan diharduten bere anaien ordeztu... Baina nola frogatuko du hark bere maitasuna, maitasuna egintza bidez frogatzen baita⁵⁵? Hara! haurtxoak *loreak botako ditu*⁵⁶; haien *usain gozoz*⁵⁷ lurrindatuko du errege-tronua, bere ahots zoliz Maitasunaren kanta abestuko du...

⁵¹ San Eliasen “klastroan” Teresak San Eliasen gela dauka.

⁵² Ik. 2. Erregeen 9 (BT, 62. or.) eta II. eskk., 64. or.

⁵³ Ik. 1. Erregeen 7 eta 13 (Glaire-ren itzulpena): «Mais mois je suis un petit *enfant*... même ce que tu n’as pas demandé, je te l’ai donné; *les richesses eta la gloire*»; eta Joan Gurutzekoa, CS, XLIII. ahalpaldia, 87. or.

⁵⁴ Ik. TO 35, 11-12, 6. oharra: «Berari ohorea... niri, berriz, haren Aintzaren isladapena».

⁵⁵ Avilako Teresa, *Barne gaztelua*, III. Egoitzak, I. kap. (Bouix-en argitaraldia, 1884, III. liburukia, 406. or.).

⁵⁶ Ik. A Esk., 17^a; TO 34, 51; DE, 439, 486, 543 eta ondorengo orrialdea, 559 eta ondorengo orrialdea etab.

⁵⁷ Ik. Apokalipsia 8, 3-4, eta *Prières*, 72. or.; *Poésies*, II, 114, 136, 215. orr.; C Esk., 6ⁱ; 34^a.

Oi, ene Maitea, hona hemen nola iraungiko⁵⁸ den nire bizitza!... Nik ez dut neure maitasuna erakusteko beste erarik loreak botatzen izan ezik; hau da, sakrifizio txiki bat, begirada bat, [4ⁱ] hitz bat ere alferrik galtzen utzi gabe, gauzarik txikiak ere aprobetxatuz eta maitasunez eginez... Nik maitasunarren nahi dut sufritu, eta baita gozatu ere maitasunarren; horrela botako ditut loreak zure tronuren aurrean. Ez dut bidean lore bat ere aurkituko zuretzat *hostokatu* gabe... Gainera, kantatu egingo dut loreak botatzerakoan (egin ote daiteke negarrik hain egintza pozgarria eginez?), kantatu egingo dut, neure loreak arantza artean bildu beharra balego ere; eta zenbat eta luzeago eta zorrotzagoak izan arantzak, hainbat eztsuago izango da nire kantua.

Zertarako litzaizkizuke, Jesus, nire lore eta kantak?... Ai! Ongi dakit nik, euri lurrindu hau, petalo hauskor eta inolako baliorik ez duten hauek, bihotzik txikiaren maitasun-kanta hauek liluragarri gertatuko zaizkizula. Bai, huskeria horiek atsegin emango dizue, irribarre eragingo diote zeruko Elizari, berak bilduko ditu *maitasunarren* hostokaturiko nire loreak eta zure jainko-eskuetatik pasaraziz, oi Jesus!, zeruko Eliza honek, bere haurtoarekin *jostatu* nahirik, berak ere bota egingo ditu lore hauek zure jainko-ukituz⁵⁹ neurrigabeko balioa hartu ondoren; hark sufrikariozko Elizaren gainera botako ditu honen sugarrak itzaltzeko; honek lurreko Elizaren gainera botako ditu garaipena lor dezan⁶⁰!...

Oi, ene Jesus, maite zaitut! Maite dut Eliza, neure Ama. Gogoan dut "*maitasun garbizo* zirkinik txikienek balio handiagoa dutela harentzat gainerako egintza guztiak batera baino"⁶¹. Baina ba ote da *maitasun garbirik* nire bihotzean? Nire gurari neurrigabeak ez ote dira amets bat, zorakeria bat?... Ai! Horrela balitz, Jesus, argi iezadazu. Zuk badakizu ni egiaren bila ari naizela⁶²... Nire gurariak ausartegiak badira, ezaba itzazu, gurari hauek martiritzarik handiena baitira niretzat... Hala ere, nik sentitzen dut, oi Jesus, maitasunaren goren-gorena irrikatu ondoren, egunen batean hori lortzerik ez banu, *neure martiritzaren, neure zorakeriaren erdian gozotasun* handiagoa izango nukeela *aberriko poztasunen* altzoan bertan izango dudana baino, zuk mirari batez lurreko itxaropenen oroitzapena kentzen ez badidazu behintzat. Utz iezadazu, orduan, neure erbeste bitartean maitasunaren atseginak gozatzen... Utz iezadazu neure martiritzaren mingostasun gozoak dastatzen...

⁵⁸ Ik. A Esk., 83^a, 84^a; C Esk., 16^a; Otoi. 6 (eta *Prières*, 98. or.), 16; TG 89; 182; 197; 226; 242. Hitz hau eta Teresaren itxaropena berriro aurkituko ditugu olerki ugaritan 1894. urteaz gero: TO 15, 4; 17, 14; 19, 6; 21, 3; 25, 2; 26, 9; 27, r. 2; 28, 4; 29, 11; 30, 3; 41, 2; Teresak gaixotegian errepikatu egingo ditu *Nire poztasuna!* izeneko bertsoaren leiro biok (TO 45, 7): «*Maitasunak, Aberriaren gar honek, / kiskali eta kiskali egiten nau*» (KH 2. VIII.4).

⁵⁹ Hitz Joan Gurutzekoaren itzulpenetik dator (*Maitasun-gar bizia*, 4. bertsoa, 181-182. orr.).

⁶⁰ Santuen Elkartasunaren azalpen oso irudimentsua.

⁶¹ Joan Gurutzekoa, CS, XXIX. ahapaldia, 400. or.; ik. Otoi. 12; TG 221; 245; VT, 77. zk., 77. or.

⁶² Behin eta berriz azaltzen da Teresarengan; ik. KH 21. VII. 4.; DE, 482. or. Bera ez da *liluramendu*ekin fidatzen (A Esk., 78^a), baina jaso dituen argi ilaunen jakitun da (A Esk., 32^a). Berak lokarri estua ezarri du *egiatasunaren* eta *apaltasunaren* artean (CSG, 19. or.; DSA 4, 31-32; DSA 8. 2^a; *Récréations*, 350 eta 402. orr.), heriotzako oheraino: «*Bai, badirudi egia baino ez dudala bilatu; bai, ulertu dut bihotzaren apaltasuna*» (KH 1897/9/30).

Jesus, Jesus, *zu maitatzeko irrika* hain atsegina bada, zer izango ote da hura edukitzea, Maitasunaz gozatzea?...

Nola irrika dezake nirea bezalako arima hain inperfektu batek Maitasunaren bete-betea edukitzea?... Oi, Jesus! Nire *lehenengo, nire Adiskide bakar hori! Nik maite dudan BAKARRA* zaren horrek, esaidazu, zer misterio da hau? Zergatik ez dituzu gordetzen irrika amaigabe horiek arima handientzat, goi-goietan hegan dabiltzan Arranoentzat⁶³?... Nik lumatxa⁶⁴ leun batez soilik jantzitako txoritxo ahul baten antzera ikusten dut neure burua. Ez naiz arranoa; *begiak* eta *bihotza* ditut soilik harenak, ezin txikiagoa naizen arren, tinko begiratzera ausartzen naiz Jainko-Eguzkiari, Maitasun-Eguzkiari, eta nire bihotzak [5^a] Arranoaren gurari guztiak⁶⁵ sentitzen ditu bere baitan... Txoritxoak *hegan egin* nahi luke bere begiak liluratzen dituen Eguzki distiratsu horrenganantz; bere anaia arranoak imitatu nahi lituzke, Hirutasun Santuaren jainko-sugarreiraino igotzen ikusten baititu... Ai! Bere hego *txikiak* astintzea da hark egin dezakeen guztia, baina hegan egitea ez dago haren ahal izate *txikiaren* mende⁶⁶.

Dt 32,11

Zertan amaituko ote da? Penaz hilko ote da bere burua hain ezindua ikusirik?... Ez horixe! Txoritxoa ez da nahigabetu ere egingo. Buru-uzte ausartaz bere Jainko-Eguzkiari begira gelditu nahi du; ez luke jakingo ezerk ere hura beldurtzen, ez haizeak eta ezta euriak ere. Eta hodei ilunak Maitasun-Astroa estaltzera etorriko balira, txoritxoa ez litzateke lekuz aldatuko; badaki hodeietatik harantz, bere Eguzkiak argi egiten duela beti; haren argitasuna ez litzatekeela unetxo batean ere ilunduko. Batzuetan⁶⁷, egia da, txoritxoa ekaitzak erasotua aurkitzen da; inguratzen duten hodeiak besterik ez dagoela sinistu uste du. Orduantxe da *izaki gaixo* eta ahularentzat *poztasun oso-osoaren*⁶⁸ unea. Bai zoriona harentzat hala ere han gelditzea, bere fedeari ezkututzen zaion argi ikusezinean begiak finkatzea!!!... Jesus, orain arte, ulertzen dut txoritxoari diozun maitasuna, ez baitu zure ondotik alde egiten...

⁶³ B Esk.aren amaiera ia guztiak ondoko alegiaz dihardu: «*arima handiak, Arranoak*» eta «*txori txikiak*» ordezkatzan dituen «*arima txikiak*» (5^a) elkarren aurrean jartzen ditu. Esan dezagun Teresak lehenengoz *arranoaren* erkaketa darabilenean Maria Bihotz Sakratuari zuzendua dago (TG 49). Arranoa eta txori txikia, zalantzarik ez, batez ere Avilako Teresaren *Bizitzatik* datoz (XX. kap.). Baina *arranoak* (santuak, hain zuzen) Mgr. Landriot-en sermoi baten ere azaltzen dira (*Maitasun-gar biziaren* amaieran, Teresaren argitaraldian, 356. or.; ikus baita 332-333. orr. ere) eta Dom Guéranger-en *L'Année liturgique* (Alexander donearen jaia, IV, 145. or.). Badira, oraindik ere, «*arranoaren* otoiiza, usoen otoiiza eta *txitoen* otoiiza» Lisieux-ko Karmelgo aita Armand Lemonier-en erretratuan, 1894an. Ez dezagun ahaztu arrano horrek jatorria Biblian izan dezakeela: Dt 32, 11; Jr 19, 4; Is 40, 29-31. Ik., gainera, Joan Gurutzekoa, CS (*Kantu izpirituala*), XXXI. ahapaldian, 22. or., eta TrH, 103-106. orr. Diana Vaughan-en «Arrano zuria»ri buruz, *Récréations pieuses - Prières*en (NEC) ostera ere hartuta.

⁶⁴ Ik. Avilako Teresa, *Bizitza*, XIII, XIX, XX. kap.ak; eta *infra*, TO 43, oharren gaineko sarrera.

⁶⁵ Oraindik ez dagokio Jesusi (5^a.tik bezala); baina berau da «*Eguzkia*» (hamar bider 5^a.raino).

⁶⁶ Ik. *Poésies*, I, 124 eta ondorengo orrialdea; hor ageri da Teresaren pentsamenduaren bilakaera 1895etik 1896ra, igokundetik jasokundera... Joan Gurutzekoagana hurbiltzen da berrero, bere koadernoan aipaturik aurkitzen dugun olerki batean (VT, 78. zk., 149. or.): «Et pourtant ce travail était si grand/ que mon vol manqua de puissance;/ Mais l'amour fit un tel effort/ Que je pus atteindre mon but».

⁶⁷ 1896ko apiriletik irailera bitartean, beraz, proba oraindik aldizkakoa da. Hurrengo neguan etorriko da benetakoa gaua.

⁶⁸ Frantzisko Asiskoarena beraren miseria gorriean; ik. CG. 936 + h or.

Baina nik badakit, eta zuk ere badakizu, batzuetan sorkari txiki inperfektua, bere lekuan gelditu arren (hau da, Eguzkiaren izpien mende), bere zeregin bakarretik aldendu egiten da pixka bat, garautxo bat hartzen du ezker eta eskuinean, har txiki baten atzetik joaten da... Gero, ur-potxingotxo bat aurkiturik, bertan *bustitzen ditu* bere luma doi-doi eratuak. Gogoko duen lore bat ikusten du, eta haren izpiritu nimiñoa lorearekin jostatzen da... Hitz batez, arranoak bezala hegan egin ezinik, txoritxo gaixoa lurreko huskerietan aritzen da oraindik. Hala ere, bere okerkeria guztien ondoren, bere mixerienatik negar egiteko eta damuz hiltzeko bazter⁶⁹ batean ezkutatu beharrean, txoritxo bere Eguzki maitearengana itzultzen da, bere hegotxo *bustiak* haren izpi ongileetara jarri, eta intziri egiten du enarak bezala. Eta bere kantu gozoan zehatz-mehatz esaten, kontatzen ditu bere desleialtasunak, bere buru-uzte ausartegian pentsatuz, honela eskumen handiagoa bereganatuko zuela, hobeki erakarriko zuela zintzoei ez baina bekatariei dei egitera etorri zen Haren maitasuna... Astro Gurgarriak bere sorkarixoaren txorrotxio negartiei entzungor eginez jarraitzen badu, *ezkutaturik* jarraitzen badu... ba, orduan sorkarixoa bustirik geratzen da, ontzat dauka hotzak harturik egotea, eta areago oraindik, poztu egiten da berak, dena dela, merezia duen sufrimendu honegatik⁷⁰...

Oi, Jesus, bai zoriontsu dela zure *txoritxoahul* eta *txiki* izanik! Zer gertatuko ote litzaioke handia balitz?... Ez luke sekula ere zure aurrean agertzeko, zure aurrean *erdi lo egoteko* ausardiarik izango⁷¹... Bai, hau ere txoritxoaren ahultasun bat da, Jainko-Eguzkiari tinko begiratu nahi dionean, eta hodeiek izpi bat bera ere ikusten uzten ez diotenean; bere gogoz kontra, itxi egiten dira haren begitxoak, haren burutxo hegapean gorde, eta gaixoa loak hartzen du, beti ere bere Astro maiteari tinko begira dagoelakoan. Esnatzean ez da deskontsolatzen; haren bihoztxo bakean geratzen da. Bere *maitasun-ofizioari*⁷² ekiten dio berriro. Aingeru eta Santuei dei egiten die, arranoak bezala, bere gurarien jomuga [5ⁱ] den Sugar kiskalgarriarengana hegaldatzen diren haiei. Eta arranoek, euren anaiatxoaz errukiturik, babestu, zaindu egiten dute, eta ihes eragiten diete irentsi nahi luketen saiei. Txoritxo ez da deabruen irudi diren saien beldur⁷³. Ez da haien *harrapakin* izatekoa, Maitasun-Eguzkiaren erdian ikusten duen *Arranoarena*⁷⁴ izatekoa baizik.

Oi Jainko-Hitz hori! Zu zara nik maite dudan Arrano gurgarria, ni *erakartzen nauena*! Zu zara erbesteko lurrera amilduz, sufritu eta hiltzea nahi izan duena, arimak Hirutasun Dohatsuaren betiko Sutearen altzoraino *erakartzeko*. Zu zara, zeure betiko bizileku izango den ezin iritsizko Argirantz igorik, oraindik negarrezko haranean,

⁶⁹ Horixe egin zuen Adanek, huts egin eta gero (Has 3, 10); Teresak Leoniari jarrera hori ez hartzeko aholku eman zion modu berean (TG 191, 1^o).

⁷⁰ Ik. KH 3. VII. 2; TO 30, 3. San Augustinen baieztapenarekin bat dator: «etiam peccata» (Erm 8, 28 ototuz). Hauxe da «*Bidetxo*»ren oinarrizko nerbioetariko bat.

⁷¹ Teresak bere burua agertzen du, 1893an otoiztegirako pintatu duen hormairudian, lore-sorta eta lira bat esku artean dituela aingeru bat lotan dagoelarik (DLTH, 201. or.); baina une hartan hura bertan behera utzia izatearen sinboloa da (CG, 685. or.).

⁷² Ik. A Esk., 83^a; eta Joan Gurutzekoa, CS, XXVIII. ahapaldia eta haren azalpena, 394-396. orr.

⁷³ Ik. TO 43, 7, 1896ko Gabonetarako.

⁷⁴ Idazkietan hirurogeita bost aldiz erabilia *attirer-erakarri* aditzak maitasun-ekimena esan nahi izaten du gehienetan A Esk.an (46ⁱ, 80ⁱ, 83^a), baina, batez ere, C Esk. bere mintzaldi handiarekin, 34^a/36^a. Ik. TG 141, 2^a; 147, 2ⁱ; TO 17, 2; 18, 53; 32, 2; 54, 2 eta 4; Otoi. 3; DSA 1, 3ⁱ, 10ⁱ, 12^a; DSA 2, 3^e, 7ⁱ, 8^a; DSA 8, 6ⁱ etab.

Lk 10,41-42

Is 38,14

Mt 9,13

Jn 1,1

Mk 16,19

Sal 83,7

ostia zuri baten irudipean gorderik jarraitzen duena... Arrano Betiereko hori, zeure jainko-sustantziak janaritu nahi nauzu ni, izaki gaixo hau, zure jainko-begiradak unero bizia emango ez balit, ezerezera itzuliko nintzatekeen hau... Oi, Jesus, utz iezadazu esaten neure eskerronaren gainezkaldian zure maitasuna zorotasuneraino iristen dela!⁷⁵... Nola nahi duzu, bada, zorotasun hau ikusirik, nire bihotza zureganantz ez abiatzea? Nola ezarri mugak nire konfiantzari?... Ai! Badakit santuek ere zuregatik *zorakeriak* egin zituztela; gauza handiak egin zituzten, *arranoak* ziren-eta...

Jesus, ni txikiegia naiz gauza handirik egiteko..., eta nire *zorakeria* zure maitasunak oparizat har nazan itxarotean datza... Nire *zorakeria* neure anaia arranoei, Maitasun-Eguzkirantz Jainko-Arrano berberaren hegoekin hegan egitea eskatzean datza...

Di.32.11

Zeuk nahi duzun arte⁷⁶, oi ene Maitea!, zure txoritxo indarririk eta hegorik gabe geldituko da. Begiak zuregan josirik dituela jarraituko du beti; zure jainko-begiradaz *liluratua* izan nahi luke; zure Maitasunaren *harrapakin* bihurtu nahi luke... Egunen batean, hala itxaroten dut, Arrano Gurgari hori, etorriko zara zeure txoritxoaren bila; eta harekin Maitasunaren Sugareraino hegaldatuz, beti-betiko hondoratuko duzu bera opari gisa eskaini den Maitasun horren leize gorian

Oi, Jesus! ezin diedala esan nik *arima txiki*⁷⁷ guztiei zein adierazgaitza den zure onberatasuna!⁷⁸... Nik sentiitzen dut, ezinezko batez, nirea baino ahulagoa, txikiagoa den arima bat aurkituko bazenu, atsegin izango zenukeela hura oraindik grazia handiagoz betetzea, hark zure amaigabeko erukian uste osoz bere burua utziko balu. Baina zergatik, oi Jesus, zure maitasun-sekretuak besteengana zabaltzeko gogo? Zeu bakarrik ez ote zinen izan niri horiek erakutsi zizkidana? Eta ezin diezaizkiezu erakutsi besteei ere?... Bai, nik badakit, eta arrenka eskatzen dizut egin dezazula. Zeure jainko-begirada *arima txiki* askoren gain jaitsi dezazula eskatzen dizut... Zeure MAITASUNAREN duin izango diren opari *txikien* multzo bat hauta dezazula eskatzen dizut!...

Ahizpa txiki-txiki Teresa Jesus Haurarena eta Aurpegi Santuarena,

Lek. karm. ap.


⁷⁵ Bere maitasunean zorotasun apur bat bazela aitortu ondoren (3ⁱ, 4ⁱ eta, geroago, 5ⁱ), Teresak bere burua zuritzeko Jesusi itzultzen dio laudorioa: nola ez dio, ba, berak erantzungo Gurutzearen *zorotasunari*? Bera sarritan mintzo da zorotasunaz, Jainkoaren maitasuna dela-eta (A Esk., 52ⁱ, 82ⁱ, 83ⁱ; TG 85ⁱ; 93ⁱ; 96, 1ⁱ; 169, 1ⁱ, 2^a; 225, 1ⁱ; TO 17, 13; 24, 26).

⁷⁶ Maitasunagatik, Teresak ez du aurreratu nahi Jesusek elkarrekin bat egiteko finkaturiko epea (Ik. TG 103; KH 9. VI. 5; 7. VII. 8; 1. VIII. 5 etab.).

⁷⁷ Orain arte bere izenean soilik hitz egin duen Teresak, bere mezua orokortu egiten du. «*Maitasunezko isilpekook*», Jesusek beste batzuei ere agertuko dizkie, eta Teresak hala egin dezan eskatzen du, Luziferren «*lejio indartsuei*» gogor egiteko «*zure Maitasunaren duin izango diren arima txikien lejioa*» izan dadin (ik. DSA 7, 4ⁱ).


Jarraian, Teresak B Esk.ko lehenengo zatian dioena irakurri beharko litzateke (1ⁱ), eta ondoren, Mariak jarritako kontrako arrazoiak (LC 170; ik. *infra*, TG 197, 1. oharra) - bere ahizpa miresten baitu - eta Teresaren erantzun osagarria, «*arima txikien*» benetako urrezko doktrina (TG 197).

⁷⁸ Hitz arraroa Teresarengan, baina erabiltzen duen guztian maitasuneko urruntasun eta hurbiltasuna ematen du aditzera aldi berean (A Esk., 72ⁱ; TG 224, 2^a).



**AMA MARIA GONZAGARENARI
ESKAINITAKO ESKUIZKRIBUA**

“C” Eskuizkribua



Ene Ama maite-maite hori, Jaunaren¹ Errukiak Kantatzea zurekin batera amaitzea nahi duzula adierazi didazu. Kantu gozo hau zure alaba maite Aines Jesusenarekin hasia zen, hura baitzen nire haurtzaroko urteetan ni gidatzeko ardura Jainko onarengandik hartu zuena. Bidezko zen nik harekin kantatzea, Ama Birjinaren loretxoari bere bizitzaren udaberrian eman zitzaizkion graziak. Baina zurekin kantatu behar dut loretxo honen zoriona, egunsentiko izpi ikaratiek eguerdiko gargoriei² leku egin dietenean. Bai, zurekin, Ama maite-maitea, eta zure gogoari erantzuteko, neure arimaren sentimenduak, Jainkoaganako, zureganako, agerian haren ordezkio zaren horrenganako neure eskerrona adierazten ahaleginduko naiz. Ez ote nion zure ama-eskuetan oso-osoa eskaini Hari neure burua? Oi, ene Ama! Oroitzen al zara egun hartaz³?... Bai, badakit zure bihotza ezin izango dela hartaz ahaztu... Niri dagokidanez, zeru ederrari itxaron behar diot, egun bedeinkatu hartan nire bihotzean gertatu zena itzultzeko⁴ hitz egokirik aurkitzen ez baitut.

Ama maite-maite hori! Bada beste egun bat nire arima zurearekin oraindik gehiago, hori ahal balitz, bat egin zenekoa. Jesusek nagusitzaren zama berriro jarri zizun hura izan zen⁵. Egun horretan, ene Ama maite, negarrez erein zenuen, baina zeruan pozez [1ⁱ] gainezka egongo zara, zeure burua azao ederrez beterik ikustean. Oi ene Ama, barka nire haur-xalotasuna⁶! Badakit itzulinguru gabe esaten uzten didazula erlijiosa gazte batek bere nagusiari esan diezaiokeena. Beharbada ez naiz beti behekoiei dagokien muga barruan egongo, baina, ene Ama, ausartu egingo naiz esatera, zure errua da: alaba legez hitz egiten dizut⁷, zuk ez didazulako nagusi legez hitz egiten, ama legez baizik...

¹ Teresak lotura zuzena ezartzen du honen eta bere lehenengo eskuizkribuaren artean (ik. *supra*, A Esk., 2^a, 3. oharra). Berak etengabe dihardu kantari: Eskuizkribuak, Olerkiak bezala, «maitasun kantuak» dira, «zeruko abestiak» (18ⁱ; ik. A Esk., 85ⁱ).

² *Brûler (garretan erre, kiskali...)* berrogeita zortzi aldiz azaltzen da Idazkietan.

³ 1890/9/8a, beraren profesia eguna. Ik. Maria Gonzagarenaren gutuna, LD 840, in CG, 580 eta ondorengo orrialdea.

⁴ Teresak beti izan du hitzez ezin adierazi izanaren eta ezin esanaren sentimendua (A Esk., 14ⁱ, 26^a; B Esk., 1^a/1ⁱ). Ik. *Carmel*, 1957, 253-265. orr.

⁵ Ama Maria Gonzagarenaren hautapen gaitza prioretzarako 1896/3/21ean. Ama Aines berriro aukeratua izan ez bazen ere, Teresak hautsi ezineko leialtasuna erakutsi zion nagusi berri (eta zaharri).

⁶ Usoaren *bakuntasunak* ez du sugaren zuhurtasuna baztertzen... oztopoen artean ibiltzeko, bere Ama bien artean (ik. TG 190).

⁷ Teresak hitz gutxitan zehaztu ditu Ama Maria Gonzagarenarekin dituen harremanak; izan ere, bera bederlatzi urteak betez geroztik ezagutzen du, eta berak sinetsi du Teresaren bokazioa (A Esk., 26ⁱ); prioreak bere alaba legez erabiltzen du (CG, 135 eta 145-146. orr.), nahiz eta berak gogor jokatu Teresarekin Karmelgo lehenengo denboretan (ik. A Esk., 70ⁱ).

Has 7,13 Ai! Ongi dakit, Ama maite, Jainko ona dela zure ahoz beti hitz egiten didana. Ahizpa askok uste dute zuk bigunegi hartu izan nauzula, kutxa santuan sartu nintze-
nez gero, zuregandik xerak eta hitz goxoak baizik ez ditudala jaso. Baina ez da horrela. Nire haurtzaroko oroitzapenak dakartzan koadernoan ikusiko duzu⁸, ene Ama, zuregandik jaso dudan heziketa *sendo* eta amatiarraz zer iritzi dudan. Neure bihotzaren barru-barrutik eskerrak ematen dizkizut begirapenik gabe erabili nauzu-
lako. Ongi zekien Jesusek apalkuntzaren ur bizigarria⁹ behar zuela bere loretxoak; ahulegia zen laguntza hau gabe sustraiak botatzeko, eta Jaunak zure bitartez, ene Ama, eman zion mesede hau.

Orain dela urte t'erdirz gero, Jesusek aldatzea nahi izan du bere loretxoari haziera emateko era; ezbairik gabe, nahiko *ureztaturik* aurkitzen zuen, orain *eguzkia* baita haziarazten duena. Jesusek ez du jadanik nahi harentzat bere irribarrea besterik, eta hori ere, ene Ama maite-maitea, zure bitartez ematen zaio. Eguzki gozo honek loretxoa [2^a] zimeldu gabe, harrigarriro haziarazten du. Kalizaren hon-
doan berak hartu dituen ihintz-txiztil preziatuak gordetzen ditu hark, eta txiztil hauek txikia eta ahula dela gogorarazten diote beti... Sorkari guztiak makur daitez-
ke haren gain, miretsi eta laudorioz bete dezakete. Ez dakit zergatik, baina ezerk ez luke lortuko poztasun-tanta faltsu bat bera ere eranstea loretxoak bere bihotzean dastatzen duen poztasun benetakoari, Jainko onaren begietan zer den¹⁰ ikusiz: gauza urritxo ezereza, besterik ez... Ez dudala ulertzen zergatik den diot; baina ez ote da bere kaliza txikia apalkuntzaren ihintzez nahiko bete eta ez zegoen denbora guztian, laudorioen uretatik babesturik egon zelako? Orain¹¹ ez dago arriskurik honezkerok, bestera baizik; loretxoak hain atsegin du betetzen duen ihintza, non ez bailuke inola ere trukatu laudorioen ur hain gezagatik.

Ez dut hitz egin nahi, ene Ama maite hori, ematen dizkidazun maitasun eta konfiantzaz¹². Ez uste izan zure alabaren bihotza sentipenik gabea denik. Bakarrik ongi jabeturik nago orain jadanik ez dudala ezereen beldur izan beharrik, bestera bai-
zik: haietan goza ninteke, niregan jarri nahi izan duen ona Jainko onari ezarriz. Berak nahi badu niri naizen baino itxura hobea ematea, hori ez da nire kontua, bere eskuko¹³ da nahi duen bezala jokatzeko... Oi ene Ama, bai ezberdinak direla Jaunak arimak eramateko darabiltzan bideak! Santuen bizitzan ikusten dugu badirela asko heriotz ondoren eurenetik [2ⁱ] ezer utzi nahi izan ez dutenak, ezta oroigarri txikienik

⁸ Nagusi berriak ez du oraindik A Esk. irakurri; ik. *supra*, 69^a eta 70ⁱ; 314. oharra.

⁹ Ik. A Esk., 28ⁱ eta 31^a. Ausardia handia behar da gero nagusiari esan ahal izateko Jainkoak *mesede hau* ("apalkuntzaren ur bizigarria") eman nahi izan ziola "zure bitartez".

¹⁰ Testu berdintsua in KH 21. VII. 4; ik. DE, 382. or.

¹¹ Adberbio hori behin eta berriz erabiltzeak (hamahiru aldiz C Esk.an, ik. DE, 43. or.) argi-argi erakusten du Teresak ondotoxo zekiela atzerarik gabeko gunera iritsi dela eta nolako askatasun-maila lortu duen.

¹² Teresari nobizien ardura emandakoan (maistra titulurik gabe bada ere), eta bere pentsamenduak idatz ditzan eskatu ondoren (Maria Gonzagarenaren konfiantzaren gainean, ik. Maria Hirutasunarena, PA, 494 eta ondorengo orrialdea, eta PO, 471. or.).

¹³ Teresak hiru aldiz aipatzen du Jainkoaren *askatasuna* C Esk.an (ik. 10ⁱ eta 19ⁱ). Teresak *askatasun* horren iritzi orekatua du; han ez dago ezer arbitrarioik eta "predestinazioa" inoren eskubiderik hautsi gabe burutzen du, santuen elkartasuna dagoelako eta horri esker guztiak aberasten dira bakoitzaren predestinazio *librearekin* (ik. TG 36, 2ⁱ; 57, 1ⁱ; 103; A Esk., 2^af).

ere, ezta idazki txikienik ere. Badira beste batzuk, ordea, gure Ama Teresa santua bezala, euren agerkari gorenez Eliza aberastu dutenak, Erregearen sekretuak agertze-ko beldurrik izan gabe, hura arimentzat ezagutuago eta maitatuago izan dadin. Bi santu mota hauetatik zein zaio atseginen Jainkoari? Biak berdin-berdin zaizkiola atsegin uste dut, ene Ama, guztiek men egin baitzioten Espiritu Santuaren eraginari, eta Jaunak hau esan baitzuen: Esan Zintzoari ongi dago *Guztia*. Bai ongi dago guztia, Jesusen nahia besterik bilatzen ez denean. Horregatik nik, loretxo gaixo honek, Jesusen esana egiten dut neure Ama txit maiteari atsegin ematen ahaleginduz.

Tb 12,7

Is 3,10

Zuk badakizu, ene Ama, beti nahi izan dut santa izatea¹⁴. Baina ai! Santuekin parez pare jarri naizenean, haien eta nire artean, bere tontorra zeruan galtzen zaion mendi baten eta ibiltarien oinek zapaltzen duten hondar-ale¹⁵ ilun baten artean dagoen alde berbera dagoela egiaztatu dut. Ustea galdu beharrean, esan nuen neure baitan: Jainko onak ezin dezake eman bete ezineko guraririk¹⁶; beraz, neure txikitasuna gorabehera, izan nezake jomuga santutasuna. Haztea ezinezkoa zait. Den bezalakoa onartu behar dut neure burua, bere akats guztiekin. Baina bidetxo oso zuzenetik, oso laburretik zerura joateko era aurkitu nahi dut; bidetxo¹⁷ berri-berri batetik. Asmakuntzen mendean gaude. Orain ez da eskailera baten mailak [3^a] igotzeko nekerik hartu behar; aberatsen etxeetan igogailuak ordezkatzan du hori, alde ederraz gainera. Horrela, nik igogailu¹⁸ bat aurkitu nahi nuke Jesusenganaino igotzeko, txikiegia bainaiz santutasunaren¹⁹ eskailera latza igotzeko. Orduan Liburu Santuetan, neure gogoaren helburua den igogailuaren seinale bila aritu naiz, eta betiko Jakinduriaren ahotik irtendako hitz hauek irakurri ditut: Inor *txiki-txikia*²⁰ bada, betor niregana. Beraz, neuk bilatzen²¹ nuena aurkitu dudalakoan etorri naiz; eta zeure deiarri erantzuten dion txikitxoarekin zer egingo zenukeen jakin nahirik, oi ene Jainko!, neure bilaketetan aurrera egin dut, eta hona hemen aurkitu dudana: —Ama batek bere umeari erak egiten dizkionez, nik ere kontsolatuko zaituztet, neure altzoan eramango zaituztet eta neure belauan gainetan kulunkatuko!

Es 9,4

Is 66,13.12

Ai, nire arima poztera sekula ez da hitz samurragorik, gozoagorik etorri! Zerura jaso behar nauen igogailua zure besoak dira²², oi Jesus! Horregatik ez dut hazi

¹⁴ Ik. A Esk., 32^a, 33^a; TG 45, 1ⁱ; 52, 1ⁱ, 80; Otoi. 6, 11; TO 20, 5; DSA 8, 3ⁱ, 4^a; LC 77, in CG, 346. or.; eta CG, 533 eta ondorengo orrialdea, *Prières*, 92. or.

¹⁵ Teresak 1888ko martxoaz gero hain gustura erabiltzen duen sinbolo hori haren profesia ondoren galdu egiten da, eta hementxe agertzen da berriro (ik. *infra*, TG 45, 4. oharra; TG 104; 2. oharra; CG, 349 + d eta 1170. orr.).

¹⁶ Teresaren pentsamenduaren eta bizitzaren bultzagarrietarik handienetarikoa (A Esk., 71^a; C Esk., 22ⁱ, 31^a; ik. LD 620 1887/10/21ekoa, CG, 251. or.).

¹⁷ Idazkietatik hementxe bakarrik mintzo da Teresa «*bidetxo*» bati buruz; “haurtasun izpirtuala” ren izen ospetsua inon ere ez du erabiltzen.

¹⁸ Teresa eta Zelina asko dibertitzen ziren igogailuetan, Erromara egindako bidaietan. Baina hitz hau lehenengo aldiz 1897/5/23an azaltzen da (TG 229; ik. CG, 989 + c or.).

¹⁹ Ik. TG 258, 2^a.

²⁰ Ik. B Esk., 1^a.

²¹ *Chercher-bilatu* aditza ehun eta hogeita bi aldiz azaltzen da Idazkietan; nekaezintasun hori Teresarentzat perfekzioaren giltzarrietariko bat da, pasarte honek bereziki erakusten duen bezala (2ⁱ/3^a). Ik. A Esk., 20ⁱ, 32^a, 48^a, 55ⁱ, 61^a; B Esk., 3^a, 3ⁱ, 4^a, 4ⁱ; TG 104; 167; TO 23, 1; DSA 6, 5ⁱ; DSA 8, 5^a; Otoi. 2 etab.

²² Ik. Maria Hirutasunarenaren lekukotasuna (PA, 488. or.; ik. VT, 73. zk., 64. or.).

beharririk; alderantziz, txiki gelditu beharra dut²³; geroago eta txikiago egitea. Oi ene Jainko!, gainditu duzu nire itxaropena, eta nik zure maitasun-egintzak kanta nahi ditut: “Gaztetarik irakatsi didazu, eta zure egintza miragarriak iragarri ditut gaur arte. Adin handienera iritsi arte haiek aldarrikatzeari ekingo diot. Sal. LXX”. Noiz izango ote da niretzat adin handien hori? Oraintxe izan daitekeela uste dut, Jaunaren begietan bi mila urte ez baitira hogeitau baina..., egun bat baino gehiago... Ai, ez uste izan, Ama maite-maite hori, zure alabak utzi nahi zaituenik..., ez uste izan hark grazia handiagotzat [3¹] duenik egunsentian hiltzea ilunabarrean hiltzea baino. Hark aintzat hartzen duena, hark nahi duena da soilik Jesusi *poz ematea*²⁴... Bere aintzazko etxera eramateko hurbiltzen zaiola dirudien honetan, zure alaba poztu egiten da. Aspaldidanik jabetu da Jainko onak ez duela inoren beharririk (oraindik gutxiago berarena besteena baino) lurrean on egiteko²⁵.

Barka iezadazu, ene Ama, nahigabetzen bazaitut... Ai, nik bai nahi nukeela zu pozte!... Baina zure otoitzak entzunak ez badira lurrean, Jesusek *egun batzuetarako* alaba amarengandik banatzen badu, uste al duzu otoitz hauek ez direla entzunak izango Zeruan?...

Zure gogo, badakit nik, zure ondoan eginkizun²⁶ gozo-gozo eta erraz-erraz bat bete dezadala da. Eginkizun hau ez ote dut nik burutu ahal izango Zeru-goietan?... Jesusek behin San Pedrori esan zionez, zuk zeure alabari esan zenion: “Larra itzazu nire bildotsak”, eta ni txunditurik gelditu nintzen. “*Txikiegia* nintzela” erantzun nizun... Zuk zeuk larra ditzazula zeure bildostxoak eskatu nizun eta neu ere zain nazazula, haiekin batera larratzeko mesedea eginez. Eta zuk, ene Ama maite-maite hori, *pixka bat* nire gogo zuzenari erantzunez, bildostxoak zaindu dituzu ardiekin²⁷, baina nire ardurapean utziz lehenengoak *abaroan* larratzera sarri joatea, belarririk hoberenak eta elikagarrienak haiei erakustea, oinpean zapaltzeko izan ezik ukitu behar ez diren lore distiratsuak seinalatzea...

Zu, ene Ama maite hori, ez zara nik zure bildostxoak galduko ditudan beldur. Nire esperientziarik ezak, nire [4^a] gaztetasunak ez zaituzte ikaratu. Beharbada, gogoan izan zenuen Jaunak maiz izaten duela aintzat txikiei jakinduria ematea, eta behin pozez gainezka, bere Aita bedeinkatu zuela bere isilpekoak zuhurrei ezkutatu eta txikienei agertu zizkielako. Badakizu, ene Ama, gutxi direla Jainkoaren ahalmena euren pentsamendu laburren arabera neurtzen ez duten arimak. Lurrean gauza

²³ Adierazpena ondoko idazkiotan aurkitzen da, hona denboraren arabera emanda: TG 141, 1ⁱ (ik. 2. oharra); 154ⁱ; DSA 1, 12ⁱ; TO 11, 3; 13, 5; 31, 4; 45, 4; 54, 6; TG 242; eta hemen. Ik. KH 18. IV. 1; 6. VIII. 8; 7. VIII. 4; 25. IX. 1; PO, 467 eta ondorengo orrialdea.

²⁴ *Jesusi poz ematea*: ik. *supra*, B Esk., 2ⁱ, 32. oharra; eta A Esk., 44ⁱ, 64^a, 73ⁱ; B Esk., 4^a; C Esk., 8^a, 14^a; TG 78ⁱ; 93ⁱ; 143ⁱ; 149, 2ⁱ; 160, 2ⁱ; 161ⁱ; 165, 2ⁱ; 241; 257ⁱ; Otoi. 6; KH 9. V. 3 (eta DE, 418. or.); 15. V. 2; 30. VII. 3; 4. VIII. 8.

²⁵ «*Esku huts*»en doktrinaren beste aldea, Teresarengan *heriotz ondoren lurrean on egiteko* nahi eta ziurtasunarekin batera leku hartzen duena (KH 13. VII. 17; 17. VII). Ik. TG 221, 3^a; Otoi. 17, 18.

²⁶ Nobizien ondoan, ofizialki, 1896/3/2 letuk aurrera. Baina dirudienez Teresak uko egin zion nobizien maistra titulari, nagusiaren eta komunitatearen aurrean zuhurtasunagatik. 1893ko irailean, berak eskatua zuen bere nobiziatuko denbora luzatzea (ik. CG, 725 eta 728 + h. orr.), eta hortxe geldituko da hil arte.

²⁷ Nobiziak eta botudunak.

Sal 88,2

Sal 70,17-18

Sal 89,4

Jn 21,15

Lk 10,21

guztietan salbuespenak izatea nahi dute; dirudienez, Jainko onak soilik ez du hori egiteko eskubiderik! Badakit nik esperientzia urteen arabera [neurtzeko] era hau gizakien artean oso aspaldidanik betetzen dela, bere gaztaroan Dabid errege santuak Jaunari kantatzen baitzion: – “gaztea naiz eta mesprezatur”. Hala ere, 118. salmo berean ez da honako hau esateko beldur: “Zaharrak baino zuhurrago bihurtu naiz, zure nahia bilatu dudalako... Zure hitza nire pausuak argitzen dituen kriseilua da... Gertu nago zure aginduak betetzeko, eta *ezerk ez nau ikarutzen*²⁸...”

Sal 118,141

Sal 118,
100.105.60

Ama maite-maitea, ez zinen behin beldur izan nire arima Jainko onak argitzen zuela, berak ematen zidala *urteetako* esperientzia niri esateko... Oi ene Ama, *txiki-egia* naiz orain harrotzeko! *Txiki-egia* naiz era berean, apaltasun handia dudala zuri sinestaraztearren, esaldi politak moldatzeko. Nahiago dut lau-lau aitortzea Ahalguztidunak gauza handiak egin dituela bere Jainko-Amaren alabaren ariman; eta guztietatik handiena bere *txikitasuna*, bere ezintasuna ezagutaraztea izan da, hain zuzen ere. [4ⁱ] Ama maitea, ongi dakizu Jainko onak aintzat izan duela nire arima proba mota askotatik pasaraztea; lurtean nagoenez gero asko sufritu dut. Baina neure haurtzaroan tristuraz sufritu badut ere, orain jadanik ez dut horrela sufritzen; pozez eta bakez da, benetan zoriontsu naiz sufritzeaz²⁹. Oi ene Ama! lerro hauek irakurtzean barre egin ez dezazun beharrezko da nire arimaren sekretu guztiak zuk jakitea; izan ere, azaletik begiratuta, ba ote da ni baino gutxiago probatua den arimarik? Ai! Urtebetez gero jasaten dudan proba begien bistan agertuko balitz, hura harridura!...

Lk 1,49

Ama maite-maitea, ezagutzen duzu jadanik proba hau³⁰; hala ere, hitz egingo dizut oraindik, zure nagusitza bedeinkatuan jaso dudan grazia handitzat baitut.

Iaz³¹ Jainko onak garizumako baraualdia bere laztasun osoan bete ahal izateko poza eman zidan³²; sekula ez dut ikusi neure burua hain sendo, eta sendotasun honek Bazkora arte iraun zuen. Hala ere, Ostiral Santuz³³ Jesusek bera ikustera Zerura laster joateko itxaropena niri ematea nahi izan zuen... Oi, zein gozo zaidan oroitzapen hau!... Gauerdirarte Monumentu³⁴ aurrean egon ondoren, neure gelara itzuli nintzen. Baina burkoaren gainean burua etzan orduko, jario antzeko bat sentitu nuen borborka nire ezpaineraraino igotzen zena. Ez nekien zer zen, baina agian hil egingo nintzela uste nuen, eta nire arima pozez [5^a] gainezka zen... Haatik kriseilua itzalita zegoenez gero, neure baitan esan nuen goizerarte itxaron behar nuela

²⁸ Azken hitzak azpimarraturik daude, gero datorrenaren aurretik irakurleari adierazteko-edo, hori gorabehera (gaixotasuna eta fedearen proba gorabehera) «*ez duela ezerk ikarutzen*» Jainkoaren “*hitza-ri*” esker.

²⁹ Ik. TO 54, 16; TG 253; 254; DE, 485 eta 500 orr. (29. 7. 2).

³⁰ Ama Maria Gonzagarenak bazuen orduko 1896ko apirillean hasi zen fedearen aurkako tentaldi horren berri, baina Ama Ainesek ez zuen 1897ra arte jakingo.

³¹ Bere kontaktak, batez ere Ama Ainesengan, sor dezakeen zartada gogorra biguntzearen (ik. *infra*, TG 231, 232, 233ko oharra), Teresak bere odol-goitikari buruz *poztasun* haizez hitz egiten du. Ez du, horratik, egia ezkututzen, kontaketa “errealitatea baino ederragoa” bada ere.”

³² Ik. *infra*, «Lisieux-ko Karmelen Araubidea 1897an».

³³ Lehenengo odol-goitika (hemoptisia) 1896ko apirilaren 2tik 3ra bitarteko gauean jasan zuen; bigarrena, berriz, 3ko, ostiraleko, arratsaldean.

³⁴ Ostegun Santuko Monumentua.

neure zoriona ziurtatzeko, odol-botaka egin nuen ustea bainuen. Goiza asko luzatu gabe iritsi zen³⁵. Esnatzean gauza atsegingarriren bat aurkituko nuela pentsatu nuen berehala, eta leihora hurbilduz ez nenbilela oker egiaztatu ahal izan nuen... Ai, poz handi batez asean zen nire arima! Neure barru-barruan sinetsirik nengoen Jesusek, bere heriotz urteurrenean, lehen deia egin nahi izan zidala. Senarraren etorrera iragartzen zuen zurrumurru gozo eta urruna bezalakoa zen³⁶...

Mt 25,6

Gar handiz izan nintzen "prima"n eta barkamen-kapituluan³⁷. Ni larri nengoen neure txanda noiz etorriko zain, zuri barka eskatzean, ene Ama txit maite horri, neure itxaropena eta neure zoriona kontatzeko. Baina ezertxo ere ez nuela sufritzen erantsi nuen (egi-egia zena), eta inolako kontsolagarri berezirik ez emateko niri eskatu nizun, ene Ama. Izan ere, Ostiral Santua neuk nahi nuen bezala igarotzeko poza izan nuen³⁸. Sekula ez zitzaizkidan hain atsegingarri gertatu Karmelgo laztasunak; Zerura joateko itxaropenak pozez zorutzen nindukan. Egundorion honen gaua iristean, lotara joan behar zen, baina, aurreko gauean bezala, Jesus Onak seinale berbera eman zidan, nire betiko bizitarako³⁹ sarrera ez zegoela urrun... Garai horretan hain fede bizi, hain argia nuen, non Zeruaren pentsamenduak egiten baitzuen nire zorion gutzia. Nik ezin nuen sinetsi [5¹] federik ez duen erlijio gaberik izan daitekeenik⁴⁰. Uste nuen⁴¹ haiek pentsatzen zutenaren aurkakoa esaten zutela Zeruaren izatea ukatzen zutenean, Jainkoak han beraien betiko sari izan nahi lukeen Zeru ederraren izatea ukatzean. Bazko aldiko egundorietan, Jesusek sentiarazi zidan⁴² badirela benetan federik ez duten arimak, badirela poztasun garbi eta benetakoen iturri den altxor preziatu hau graziak gaizki erabiltzeagatik galtzen dutenak. Berak nahi izan zuen ilunpe guttiz zarratu batek nire arima hartzea⁴³, eta Zeruaren pentsamendua, hain atsegina niretzat, borrokabide, oinazebide besterik ez izatea... Proba honek ez zuen egundorietan, aste batzuetan soilik iraun behar, Jainkoak markatutako ordura arte luzatu baizik, eta... ordu hau ez da oraindik iritsi. Sentitzen dudana adierazi nahi nuke nik, baina ai! ezinezkoa dela uste dut. Tunel itu honetatik ibili beharra dago horren iluntasunaz jabetzeko. Hala ere irudi baten bidez azaltzen saiatuko naiz.

Has 15,1

Gandu trinko batez estalirik dagoen lurralde batean jaio naizela pentsatuko dut. Izadiaren itxura irritsua, eguzki distiratsua gainezkatua, eraldatua ikusteko aukerarik ez dut sekula izan. Egia da haur nintzenetik entzuten dudala gauza harri-

³⁵ Jaikitzeako ordua Bazkora arte: seiak laurden gutxiagotan.

³⁶ *Kristoren Antz-Bidea*, III, 47, *Gogoetak*.

³⁷ Ostiral Santuan, prioreak, batzar gelan, errukiari buruz hitz egiten zuen, eta ahizpek elkarri barkamena eskatzen zioten, eta elkar besarkatu.

³⁸ Ama Maria Gonzagarenaren aurka POn (462. or.an) gogorki hitz egiten duen Maria Hirutasunarenak ematen du Teresak egundorietan zuen egoeraren lekukotasuna (ik. PA, 484. or.).

³⁹ Ik. TG 244; 258, 1^a; batik bat, DSA 3, 23^a eta *Récreations*, 339. or.

⁴⁰ Adibidez, Tostain jauna, Margarita Maria Maudelonde-ren senarra (ik. TG 126, CG, 635 + a or.; DE, 551. or.). Ohar gaitetzen Leo Taxil hamar hilabete lehenago nabarmendu zela (ik. TrH, 114. or.).

⁴¹ Ik. A Esk., 33^a.

⁴² *Sentir* (= esperientziak jakin), *Je croyais* (= niri iruditzen zitzaidan) kontrajarriak daude. Teresak sarritan erabiltzen du aditz hura, batez ere, C Esk.an.

⁴³ Hitz honek, Teresarentzat, indar joandar osoa zuen (Jn 1, 5) profesioa egin zuen garaian (A Esk., 76^a), eta batik bat zortzi bider C Esk.an.

garri hauetaz hitz egiten. Badakit jakin, orain nagoen lurraldea ez dela nire aberria; beste bat dagoela eta harantz jo behar dudala eten gabe. Hau ez da ni aurkitzen naitzen lurralde triste honetako biztanle batek asmatutako istorioa; egi-egia da, eguzki distiratsua dagoen aberriko Erregea etorri baitzen ilunpeetako lurraldean [6^a] 33 urtean bizi izatera. Ai!, ilunpeak ez ziren ohartu Jainko-Errege hau munduaren argi zela...

Heb 11,
13-16

Jn 1,5,9-10

Baina, Jauna, zure alaba ohartu da zure jainko-argiaz. Hark barka eskatzen dizu bere senideentzat⁴⁴. Onartzen du atsekabe-ogia jatea zuk nahi dezazun denbora guztian, eta ez du nahi bekatarri gaixoe⁴⁵ jaten duten samintasun-mahai honetatik jaikitzerik zuk izendatutako eguna iritsi arte... Baina era berean ez ote dauka bere izenean, bere senideen izenean esaterik: Erruki zaitetz gutzaz, Jauna, bekatarri gaixoak gara-eta?... Oi, Jauna, bidal gaitzazu zintzoturik!... Fedearen zuziaz argiturik⁴⁶ ez dauden horiek guztiek ikus dezatela, azkenez, diz-diz egiten... Oi Jesus! Haiek zikindutako mahaia maite zaituen arima batek garbitzea beharrezko bada, bakarrik jan nahi dut nik bertan atsekabe-ogia, zeure erreinu argitsuan sarrarazi nahi nazazun arte. Eskatzen dizudan grazia bakarra sekula ere zu ez iraintzea da!...

Sal 126,2

Mt 9,10-11

Lk 18,13

Ene Ama maite-maitea, ongi jabetzen naiz idazten dudanak ez duela loturarik. Maitagarrien ipuina zirudien nire historia txikia otoi⁴⁷z bihurtu da bat-batean. Ez dakit nola izan dezakezun gogoa pentsamendu nahasi eta gaizki adierazitako hauek guztiak irakurtzeko. Dena dela, ene Ama, ez dut idazten lan literarioa egitearren, esana egitearren baizik. Aspergarri banatzaizu, behintzat, zure alabak borondate ona erakutsi duela ikusiko duzu. Beraz, [6ⁱ] etsi gabe⁴⁷, jarraitu egingo dut neure konparazio txikia eten dudan lekutik aurrera.

Esaten nuen txikitatik eman izan zaidala egunen batean lurralde triste eta ilunbetsutik joateko ziurtasuna. Hala sinesten nuen, ez ni baino jakintsuagoak ziren pertsoneri esaten entzun nielako soilik, neure bihotz barruan eskualde ederrago baterako joera bizia somatzen nuelako ere bai. Kristobal Kolon-i bere senak mundu berri bat bazela susmarazi zionez, oraindik halakorik inork amesten ez zuenean, horrelaxe niri ere senak eman zidan bazela nire betiko bizileku izango zen beste lurralde bat. Baina bat-batean inguratzen nauten ganduak itsuago⁴⁸ bihurtzen dira, nire ariman sartu eta hainbestearaino biltzen dute, non jadanik ezinezkoa baitzait neure aberriaren irudi hain gozoa han aurkitzea. Guztia aienatu da! Neure bihotzari, inguratzen duten ilunpeek nekaturik, irrikatzen duen herrialde argitsuaren oroipe-nez atsedena eman nahi diodanean, nire nahigabea areagotu egiten da. Ilunpeek,

⁴⁴ Ik. TO 46, 4; TO 54, 4. Pranziniri buruz (A Esk., 46ⁱ) «Nire lehenengo semea», *dioenetik aldake-ta antzematen da*: harremanak sakondu egin dira.

⁴⁵ 1887an antzemandako bokazioaren erabateko onarpena da (A Esk., 45ⁱ), Pranzini prozesuarekin sendotu zena. Jesusek *bekatarien mahaian* jenez erakutsi zuen jarraibidea.

⁴⁶ Harentzat «*fedearen zuzi argitsua*» iluntzen den unean, beste argi bat eraikiko da bere bihotzean, «*maitasunaren zuzia*» (12^a; ik. CG, 885. or., eta CSG, 93-96. or.).

⁴⁷ Teresak ez du sekula etsitzen; ik. B Esk., 3ⁱ; C Esk., 2ⁱ, 6ⁱ, 17ⁱ, 31^a; TG 26, 2^a; 143ⁱ; 150, 2^a; 202, 2^a; Otoi. 7; 20; eta, batez ere, KH 6. IV. 2; 20. VII. 1; 4. VIII. 4; 6. VIII. 8.

⁴⁸ Bizipenik gogorrena azaltzera doanean, Teresak mintzaera poetikoa hartzen du, eta irakurleari frogara horren zorroztasuna sentiarazten dio, gillotinatiko marrauza antzo jausten den amaiera dramatikoarekin.

bekatarien ahotsa hartuz, nire lepotik barreka hau esaten didatela iruditzen zait: “Argiaz egiten duzu amets, usainik gozoenaz⁴⁹ lurrindaturiko aberriaz. Gauza harrigarri hauen guztien Egilea *betiko* zeureganatzeaz egiten duzu amets. Egunen batean inguratzen zaituzten gandu artetik irten ahal izango duzula uste duzu. Aurrera! Aurrera! Goza zaitetz heriotzaz, hark emango baitizu ez zuk itxaroten duzuna, oraindik gaua ilunagoa baizik, ezerezaren gaua”.

[7^a] Ama maite-maite hori, nire arima iluntzen duten ilunpeaz eman nahi izan dizudana irudia zirriborro bat bezain eskasa da modeloarekin konparatuz. Hala ere ez dut luzeago idatzi nahi; birao egingo dudana beldur nintzateke. Beldur naiz gehiegi esan ote dudana ere...

Ai, Jesusek barka diezadala, nahigabetu badut! Baina hark ongi daki fedearen poztasunik ez badut ere, egintzak egiten behintzat saiatzeko naizela. Urtebetean neure bizitza osoan baino fede-aitormen gehiago egin dudala uste dut⁵⁰. Borrokaldi berri bakoitzean, neure etsaiak zirikatzen datozkidanean, ausarki portatzen naiz; aurrez aurre borroka egitea koldarkeria dela jakinik, bizkar ematen diet neure etsaiei⁵¹, aurpegira begiratu ere egin gabe. Baina Jesusengana joan ohi naiz lasterka; gertu nagoela diotsat neure odola⁵² azken tantaraino ere isurtzeko Zeru bat dagoela aitortzearen. Zoriontsu naizela diotsat Zeru eder honetaz lurrean ez gozatzear, berak betekotasunean fedegabeko errukarriei zabal diezaien. Beraz, *atsegin guztia* kentzen didan proba hau gorabehera, hala ere oihu egin dezaket: – “Jauna, *pozez* beterik naukazu⁵³ egiten duzun *guztiagatik*”. (Sal. XCI). Ba al da, izan ere, zure maitasunaren sufritzea baino poz handiagorik?... Zenbat eta barrukoago izan sufrimendua, hainbat gutxiago agertzen da sorkarien begietan, eta hainbat gehiago poztzen zaitu zu, oi ene Jainko! Baina, ezinezko batez, zuk zeuk nire sufrimenduaren berri jakingo ez bazenu, orduan ere zoriontsu nintzateke ni hura edukitzeaz, horren bidez fedearen aurkako bekatu bat bakarra eragotz ahal baneza...

[7ⁱ] Ene Ama maite-maitea, neure proba den baino handiago egiten dudala irudituko zaizu, agian. Izan ere, aurten moldatu ditudan olerki txikietan adierazitako sentimenduak gogoan badituzu, kontsolamenduz beteriko arima bat irudituko naitzaizu, ia fedearen oihala urratu izan zaiona. Eta hala ere, hau honezkero ez da niretzat oihala, zeruraino altxatzen den eta izarratuz den ortzia estaltzen duen horma bat da... Zeruko zoriona, Jainkoa betiko neureganatzea kantatzen ditudanean, ez dut inolako zorionik somatzen, *neuk sinetsi nahi dudana* kantatzen baitut soilik. Batzuetan, egia da, eguzki-izpi txiki-txiki bat etorri ohi da nire iluna argitzera; orduan proba eten egiten da *une batez*. Baina gero, argi-izpi honen oroipenak poza eman beharrean, nire ilunpea itsuago bihurtzen du.

⁴⁹ Teresarengan *usain gozoa* bere sentimen-balioa baino askoz harantzago doa, eskuizkribu honen ondorio handiak, heriotzak hautsita, erakutsiko duen moduan (berezik, 36^f). Ik. *Poésies*, II, 215 eta 337. orr.; *Prières*, 72. or.

⁵⁰ Ik. *infra*, Otoi. 19, oharren gaineko sarrera; KH 10. VIII. 7, 35. oharra.

⁵¹ Ik. DSA 7, 3. agerraldia; *Récreations*, 252. or. C Esk.an, 14ⁱ/15^a, ahizpa Martarekin eztabaidan jardun beharrean, berak *ihes egitea, alde egitea* nahiago du.

⁵² Ik. Otoi. 19, eta oharra.

⁵³ Teresak 1897ko ekainean ere (BT, 82. or.) txatal hau idatzi zuen berak beti aldean eramaten duen ebanjelioaren amaieran; ik. KH 13. VII. 6. Ik. *infra*, TO 45, oharren gaineko sarrera.

Sekula ez dut hain argi ikusi, oi ene Ama!, zein gozo eta errukitsu den Jauna. Ez dit bidali proba hau, hura jasateko indarra izan dudan unean baizik; lehenago, etsipenean hondoratuko nindukeela uste dut... Orain hark kendu egiten dit Zeruaz nuen gurarian berezko gozamenetik egon daitekeen guztia... Ama maite-maitea, orain uste dut ez didala ezerk eragozten hegan egitea, honezkero ez baitut gurari bizirik, maitasunez hiltzeraino maitatzea izan ezik... (ekainaren 9a⁵⁴)

Sal 102,8

[8^a] Ene Ama maite hori, txunditurik nago atzo idatzi nizuna ikusita. Haiek bai zirrimarrak!... Nire eskuak hain dardara handia zuen, non ez baitut izan aurrea jarraitzerik, eta orain idazten ahalegindu izanaz ere damu dut. Gaur argiago egingo dudalakoan nago, ez bainago jadanik ohetxoan, besaulki polit eta zuri-zurrian baizik.

Oi ene Ama! Idazten dizudan hau guztia ez datorrela harira ohartzen naiz; baina iraganekoez baino lehenago oraingo neure sentimenduez zuri hitz egin beharra ere somatzen dut; geroago, agian, galdu egingo nuke oroipena. Lehenengo adierazi nahi dizut zein hunkitua nagoen zure maite-erakutsi amatiarreatatik. Ai, sinets ezazu, ene Ama maite-maitea, zure alabaren bihotza eskerronez gainezka dago; ez du sekula ahaztuko zor dizun guztia!...

Ene Ama, Garaipenetako Andre Mariari egin diozun bederatziruena da batez ere hunkitzen nauena; nire sendakuntza lortzeko agindu dituzun mezak. Nik somatzen dut ondasun izpiritual horiek guztiek on handia egiten diotela nire arimari. Bederatziurrenaren hasieran esaten nizun nik, ene Ama, beharrezko zela Andre Mariari senda nazan edota Zerura eraman nazan, zuretzat eta komunitatearentzat gauza tristetzat bainuen gaixorik zen moja gazte baten zama. Orain nahi dut bizitza osoan gaixo egotea, Jainko onari horrek poz ematen badio; eta nire bizitza oso luzea izatea ere onartzen dut. Irrikatzen dudan grazia bakarra [8ⁱ] maitasunez hautsia izan dadila da⁵⁵.

Oi ez! Ez naiz bizitza luze baten beldur, ez dut arbuiatzen borroka, Jauna baita ni igorik nagoen harkaitza, nire eskuak gudurako eta nire hatzak borrokarako trebatzen dizkidana. Hura da nire babeski, harengan dut itxaropena -Sal. CXLIII. Horregatik, sekula ez diot eskatu Jainkoari gazterik hiltzea⁵⁶; egia da beti uste izan dudala hori dela haren nahia. Askotan beraren aintzarako lan egiteko gurariak soilik kontentatzen da Jauna⁵⁷, eta badakizu, ene Ama, nire gurariak bizi-biziki direla. Badakizu baita Jesusek kaliza garratz bat baino gehiago eskaini dizkidala ere, nik edan baino lehen nire ezpainetatik kendu dituenak, baina ez haien garratzasuna niri

Lk 22,42

⁵⁴ *Maitasun Errukitsuari Eskaintza* egin zueneko bigarren urteurrena. Teresak arkatzez idatzitako data horrek berandukoa dirudi. Ik. KH 9. VI. 2 ere bai.

⁵⁵ Ik. KH 27. VII. 5, Joan Gurutzekoa aipatzen duelarik (*Maitasun-gar bizia*, 1, 6 eta 157. or.); DE, 492-495. orr.

⁵⁶ Ik. KH 13. VII. 13; 27. VII. 14; TG 258, 1^a. Teresak betidanik maitatzen izan ditu santu eta martiri gazteak: Zezilia, Aines, Joana Ark-ekoa, Teofan Vénard, Tarcisius, Stanislas Kostka eta Haurtxo Errugabeak.

⁵⁷ Ik. TG 213, 2^a; 218, 1^a; 220, 1^a, 2^a. Ik. DSA 8, *infra*, 20. oharra.; VT, 99. zk., 147. or. *Lan egitea* otoiitz egitea da, baita nork bere burua opari ematea ere.

Sal 132,1

dastarazi baino lehenago⁵⁸. Ama maite-maitea, zuzen zebilen Dabid erregea honako hau kantatzen zuenean: Bai gozo eta on dela senideak batera elkartasun osoan bizi-tzea! Egia da, nik maiz nabaritu izan dut. Baina batasun honek sakrifizio artean gauzatu behar du lurrian. Ez naiz Karmelera etorri neure ahizpekin bizi izatearren⁵⁹; Jesusen deiari erantzutearren izan da soilik. Ai! Ongi susmatzen nuen nik eten gabeko sufrimendu-iturri izan behar zuela norbere ahizpekin bizi izatea, naturaren esanetara makurtu nahi ez denean.

Nola esan daiteke etxekoengandik urruntzea hobe dela?... Inoiz bota ote zaie aurpegira anaei, gudutoki berberean elkarrekin borrokatu izana? Bota ote zaie aurpegira martiritzaren palma-adarra hartzera elkarrekin hegan egin izana?... Ezbairik gabe pentsatu izan da, zuzen [9^a] pentsatu ere, haiek gogoa berotzen ziotela elkarri, baina baita bakoitzaren martirioa guztien martirio bihurtzen zela ere. Horrelaxe da teologoek martiritza deitzen dioten erlijioso-bizitzan. -Jainkoari norbere burua eskaintzean, bihotzak ez du berezko samurtasuna galtzen, samurtasun hau, oster, areagotu egiten da, garbiago eta jainkozkoago bilakatuz.

Ama maite-maitea, samurtasun horrekin maite zaitut zu, maite ditut neure ahizpak. Pozik nago *familian*⁶⁰ borrokatzeaz Zeruetako Erregearen aintzarako. Baina gertu egongo nintzateke era berean beste gudutoki batera hegan egiteko ere, Jainko-Jeneralak gogo hori agertuko balit. Ez zen behar izango agindurik ematea, begirada bat, seinale soil bat baizik.

Has 8,11-12

Kutxa bedeinkatua sartu nintzenez gero⁶¹, beti pentsatu izan dut Jesusek ez baniduen laster batean Zerura eramaten, Noeren usotxoak izan zuen zoria izango zela nirea; egunen batean Jaunak irekiko zuela kutxaren leihoa eta hegan egitera bidaliko ninduela oso urrutira, oso urrutira, fedegabeen erriberarantz, olibo-abartxo bat neurekin neramala. Ene Ama, pentsamendu honek hazi egin du nire arima, sorkari guztien gaintetik erakan egonazari nau. Jabetu naiz Karmelen bertan ere izan daitezkeela oraindik banakuntzak, Zeruan izango dela soilik elkartasun oso eta betikoa. Horregatik nahi izan dut nire arima Zeruetan bizi dadila⁶²; urrunetik baizik ez ditzala lurreko gauzak begiratu. Onartu dut ez herri ezezagun baten erdian neu erbesteratzea soilik, baizik-eta *samingarriago* zitzaidana, [9^a] nire ahizpen erbestea ere onartu dut.

Ez naiz sekula ahaztuko 1896ko abuztuaren 2az. Egun horretan, hain zuzen ere misiolarien joatea⁶³ gertatu zen egunean, bene-benetan hitz egin zen Ama Aines

⁵⁸ Teresaren guraria, *Kristoren Antz-Bideko* hitzak errepikatzen dituenean (A Esk., 36^a), asea izan da (A Esk., 30^a).

⁵⁹ Ik. A Esk., 26^a. Teresa behartuta dago isiltasun handia zaintzen bere Karmelgo ahizpekin aurrez aurre dagoenean. Ik. KH 3. VIII. 6; PA, 189. or.; PO, 417. or.

⁶⁰ *Familian* adierazpen hau azpimarraturik egoteak frogatzen du Teresak behin eta berriro aipatu nahi duela bere familia ez dela ahizpa Martindarrek osatzen dutena, komentuko ahizpa guztiek osatzen dutena baizik.

⁶¹ Teresak, beraz, antzinatik darabil buruan misioetara joateko asmoa (CG, 634 + g; 728 + d orr.), profesia 1890ean egin zuenetik bai behintzat. Bestalde, hori gaztaroko nahia zen (PA, 231. or.).

⁶² Ik. *Kristoren Antz-Bidea*, II, 1, 4.

⁶³ Aita Roulland Marseillan untziratu zen, Txinara bidean (ik. CG, 855 eta ondorengo orrialdeak, 872-880. orr.).

Jesusenaren joateaz ere. Ai! Ez nuen zirkinik ere egin nahi izango joatea eragozteko. Hala ere neure bihotzean tristura handia sentitzen nuen. Uste nuen haren arima, hain sentibera eta fina, ez zegoela ulertu ezingo zuten arimen artean bizitzeko egina. Beste hamaikaxto pentsamendu pilatzen zitzaizkidan neure gogoan, eta Jesus isilik zegoen⁶⁴, ez zuen mende hartzen ekaitza... Eta nik esaten nion: Ene Jainko, zure maitasunagatik guztia onartzen dut; zuk nahi baduzu, ontzat ematen dut nahigabearen nahigabeaz hiltzea ere. Jesus onartzeaz kontentatu zen. Baina hilabete batzuk geroago, ahizpa Jenofa eta ahizpa Maria Hirutasun Santuarena joango ote ziren zabaldu zen. Orduan beste sufrimendu mota bat izan zen, barru-barrukoa, sakon-sakona. Lan guztiak igarotzen zitzaizkidan irudimenetik, jasan beharko zituzten etsipenak. Hitz batez, nire zerua hodeiz estalia zegoen... Nire bihotz-hondua zegoen soilik bare eta baketsu.

Ene Ama maite-maitea, zure zuhurtasunak Jainko onaren nahia aurkitzen jakin zuen, eta zeure aldetik debekatu egin zenien zeure nobiziei, oraingoz, euren haurtzaro erlijiosoko sehaskatik alde egiteaz pentsatzea. Baina ulertzen zenituen haien gurariak, zuk zeuk ere, ene Ama, Saigon-era joateko eskatu baitzenuen gaztetan⁶⁵. Horrela, sarritan, amen gurariak euren alaben ariman [10^a] izaten dute oihartzuna. Oi ene Ama maitea, zure apostolutza-gogoak nire ariman oihartzun fin-fina duela badakizu! Utz iezadazu esaten zergatik nahi izan dudan trukatu, eta oraindik ere nahi dudan, Ama Birjinak sendatzen banau, zure ama-begiradapean hain zoriontsu bizi naizen oasi atsegingarria atzerriko lurralde batekin.

Atzerrietako karmeldegietan bizitzeko, ene Ama, (zeuk esan didazu) bokazio berezia behar da. Arima askok harako deituak direla uste dute, benetan hala izan gabe. Nik banuela bokazio hau ere esan didazu, eta eragozpen bakarra nire osasunik eza dela. Ongi dakit eragozpen hau desagertuko litzatekeela Jainko onak urrutira dei egingo balit; horregatik kezka txikienik gabe bizi naiz. Egunen batean neure Karmel maitea utzi behar banu, ez litzateke zauririk gabe izango. Jesusek ez dit sentimendu gabeko bihotzik eman. Eta hain zuzen ere, sufritzeko gai delako nahi dut eman diezaiola Jesusi eman dezakeen guztia. *Hemen*, Ama maite-maitea, lur kaskar honetako gauzen inolako kezkarik gabe bizi naiz. Zuk eman didazun egiteko gozo eta erraza betetzea baizik ez dut. *Hemen* zure maite-erakutsi amatiarrez betarik ikusten dut neure burua; ez dut pobretasunik nabaritzen, ez baitzait sekula ezer falta izan. Baina batez ere *hemen* zuk eta ahizpa guztiek maite nauzuela ikusten dut, eta maitasun hau oso gozoa zait. Hona zergatik egiten dudan amets ezezagun nintzatekeen komentu batekin⁶⁶, pobretasuna, maitasunik eza, hitz batez, izpirituzko erbestea sufritu beharko nukeen toki batekin.

Ai! Ez nuke utziko maite dudan hau guztia ni hartu nahi nindukeen [10ⁱ] Karmelari zerbitzuak eskaintzeko asmoz. Zalantzarik gabe egingo nuke nire esku lego-

⁶⁴ Ik. BT, 187-190. orr.

⁶⁵ 1861ean edo 1862an. Ik. TG 221, 2ⁱ eta AL, 641. zk.

⁶⁶ Teresak amets egiten du izan litekeenik eta egoerarik gogorrenarekin («*txirotasuna, maitasunik eza, bihotzezko erbestea*»), Zelinari antzinatik hitz egiten zion ia eremutar bizitzarekin (ik. CG, 728 + d or.). Ik. *Kristoren Antz-Bidea*, II, 9, eta PO, 467. or.

keen guztia; baina ezagutzen dut neure gaitasunik eza⁶⁷, eta badakit ahalegin guztia eginda ere, ez nukeela lortuko probetxuzkorik ezer egiterik, lehenxeago esaten nuen ez, ez baitut lurreko gauzei buruz inolako ezagupenik. Nire helburu bakarra Jainko onaren nahia egitea izango litzateke, harengatik uko egin neure buruari hari atsegin zaion eran.

Mt 6, 10

Ziur nago ez nukeela inolako etsipenik izango, sufrimendu garbi eta nahasgabeaz itxaroten denean poztasunik txikiena ere ezustekoa izaten baita. Gainera, zuk badakizu, ene Ama, sufrimendua bera poztasunik handien bihurtzen da altxor guztietatik preziatuena bezala bilatzen denean.

Oi, ez nuke joan nahi neure lanen emaitzaz gozatzeko asmoz. Nire helburua hau balitz, gainezka dudan bake gozo hau ez nuke izango, eta areago, sufritu ere egingo nuke neure bokazioa urrutiko misioetan gauzatu ezin izatean. Aspaldidanik ni ez naiz neurea; oso-osoan Jesusi eskainirik nago⁶⁸; beraz, hark bere esku du nitaz nahi dezana egitea. Erbeste oso baterako joera eman dit, han aurkituko nituzkeen

Mt 20,21-23

sufrimendu guztiak ulertarazi dizkit, kaliza hau azken tantaraino edan nahi nuen galdetuz. Nik berehala hartu nahi izan dut Jesusek aurkezten zidan kopa hau, baina hark, bere eskua baztertuz, onartzeaz aski zuela adierazi dit.

[11^a] Oi ene Ama, zenbat kezkatatik askatzen den bat obedientzi botoaz! Bai zoriontsu direla moja soilak! Nagusiaren borondatea euren iparrorratz bakartzat dutela, ziur daude beti bide zuzenean daudela. Ez dute huts egiteko beldurrik, nagusiak oker dabiltzalako uste ziurra badute ere⁶⁹. Baina iparrorratz hutsezinari begiratzeari uzten dionean, hark seinalatzen duen bidetik arima irteten denean, Jainkoaren nahia egiteko aitzakiaz, ez dituelako ongi argitzen, ordea, haren lekuan daudena, orduan berehala galtzen da arima bide idorretan barrena, graziaren ura laster faltatzen zaiolarik.

Ama maite-maitea, zu zara ni betiko erriberara ziurtasunez eramateko Jesusek eman didan iparrorratza. Bai gozo dela niretzat zugar neure begirada ezartzea eta berehala Jaunaren nahia betetzea! Fedearen aurkako tentaldiak jasan ditzadala nahi izan duenetik, hark asko gehitu du nire bihotzean fede-izpiritua, zuregan ikusarazten didana ez maite nauen eta maite dudana ama soilik, batez ere Jesus baizik, zure ariman biziz eta zure bitartez bere nahia agertzen didana. Ongi dakit, ene Ama, arima ahul bezala, bigunki hazitako ume bezala narabilzula; horregatik ez zait astun egiten menpetasunaren uztarria. Baina neure bihotz barnean somatzen dudanez, uste dut ez nukeela jokaeraz aldatuko eta nire zureganako maitasunak ez lukeela ezer galduko [11ⁱ] ni laztasunez hartzea nahi izango bazenu, orduan ere ikusiko bainuke Jesusen nahia dela zuk nire arimaren mesede handiagotarako horrela jokatzea.

⁶⁷ Teresa geldi eta moldakaiztzat hartua zen; ik., esaterako, KH 15. V. 6 eta 13. VII. 18. Joan nahi badu, ez da predikatzearen edo *zerbitzuak egitearren*; misioetan karmeldar helburua berbera da: maitatzea, *sakrifizioak* egitea..

⁶⁸ Teresarentzat bi orrialde hauek, 10^af, betetzen dituen *buru-uzte* oso-osoaren azken aldia da.

⁶⁹ Teresak ez zuen onartzen nobiziek nagusia kritikatzetik (ik. PO, 453. or.; VT, 101. zk., 45. or.).

Aurten, ene Ama maitea, maitasuna⁷⁰ zer den ulertzeko grazia eman dit Jainko onak. Egia esan, lehen ere ulertzen nuen, baina ez hain ongi. Ez nituen sakonki aztertu Jesusen hitz hauek: “Bigarren agindua lehenengoaren *antzekoa* da: Maitatu lagun hurkoa⁷¹ zeure burua bezala”. Bereziki Jainkoa maitatzeari emana nengoen. Eta hura maitatuz ulertu dut ez duela nire maitasunak hitzetan soilik agertu behar: “ez baitira izango Jauna, Jauna esan dezatenak Zeruetako erreinuan sartuko direnak, Jainkoaren nahia egin dezatenak baizik”. Nahi hau Jesusek hainbat aldiz eman du ezagutzera; ia bere Ebanjelioko orrialde bakoitzean esan beharko nuke. Baina azken afarian, bere Eukaristiako misterio esanezinean haiei eman berri zela, bere ikasleen bihotza beraganako maitasunez gar biziagoz zegoela dakienean, Salbatzaille samur honek agindu berri bat eman nahi die. Samurtasun adierazgaitz batez dio: Agindu berri bat ematen dizuet: elkar maite dezazuela; eta *nik maitatu zaituztedan bezala, maitatu zuek ere elkar*⁷². Mundu guztiak nire ikasle zaretela ezagutuko duen seinalea, zuek elkar maite izatea da.

Mt 22,39

Mt 7,21

Jn 13,34-35

[12^a] Nola maite ditu Jesusek bere ikasleak eta zergatik maite ditu? Ai, ez ziren ez haien berezko alde onak hari erakargarri gerta dakizkionak! Haien eta beraren artean mugagabeko aldea zegoen. Hura Zientzia, betiko Jakinduria zen; haiek arrantzale gaixo batzuk, ezjakinak eta pentsamendu lurtarrez beteak. Hala ere Jesusek bere adiskide, bere anaia deitzen die⁷³. Errege izaten ikusi nahi ditu berarekin batera bere Aitaren erreinuan; eta erreinu hori haiei zabaltzeko, gurutze batean hil nahi du, berberak esan baitzuen: Ez dago maitasun handiagorik nork bere bizia maite dituen haien alde ematea baino!...

Kol 2,3

Jn 15,15

Lk 22,30

Jn 15,13

Ama maite-maitea, Jesusen hitz hauetaz gogoeta eginez, ulertu dut zein inperfektua den neure ahizpei diedan maitasuna. Jainkoak maite dituen bezala ez ditudala maite ikusi dut. Ai! Orain ulertzen dut maitasun osoa besteen hutsak⁷⁴ onez eramatean datzala, haien argalkeriaz gaizpiderik ez hartzean, haiek egiten ikusten diren bertutezko egintza txikienetik ere on ateratzean. Baina honetaz ohartu naiz batez ere, maitasunak ez duela bihotz-hondoan gorderik gelditu behar⁷⁵. Inork ez du bizten, dio Jesusek, kriseilua ontzipean ipintzeko, argimutilaren gainean baizik, etxean diren *guztiei* argi egin diezaien. Kriseilu honi maitasunaren irudi deritzot,

Mt 5,15

⁷⁰ Pentsa liteke nobizien maistraren kargu ia ofizialak (1896ko martxoan), Maurice Bellière-ren benetako adopzioak (lehenengo gutuna urrian) eta Maria San Joserenari eskaini zion laguntzak (1896ko martxoan) asko irakatsi diotela Teresari neba-ahizpen arteko giroan (ik. *Récreations*, 404. or., 4^a, 9-13). Ama Ainesek dioenez, karitateari buruz hitz egitea zen Teresaren lehenengo asmoa bere eskuizkribua idazteari ekin zionean (PA, 173. or.). Maria Hirutasunarenak dioenez, berriz, lehenengo Kanta Ederrena komentatzeko guraria izan zuen (CRM).

⁷¹ *Lagun hurkoa* ez da Teresaren hiztegiko berba; behin eta hementxe bakarrik, KH 9. V. 2an.

⁷² Jesusen hitz hauek, idazkera etzan eta azpimarratuan, (eta batez ere *comme* hitza “bezala”) maitasunaren exegesi handiaren ardatz dira (ik. BT, 245 eta ondorengo orrialdea, eta GO 7). Esaera hori atsedeen-tokiko hormetariko baten dago idatzirik, eta bertan Teresak bi bider irakurri ahal izan zuen egunean-egunean, bederatzi urtetan zehar.

⁷³ Bi antitesi oso Teresiarrak: «*Zientzia, Betiereko jakintza*», «*arrantzale ezjakinak*» haren lagun, haren anaia egiten dituen.

⁷⁴ Teresak komunitate-bizitzaz azalduko dituen pentsamenduen laburpen antzekoa eskaintzen du.

⁷⁵ Ik. Maria Hirutasunarenak esandako hitzak VTn, 77. zk., 53 eta ondorengo orrialdea.

eta hark argitu, alaitu behar ditu ez maitagarri zaizkigunak soilik, etxean dauden *guztiak*⁷⁶ baizik, inor alde batera utzi gabe.

Lb 19,18 Jaunak lagun hurkoa [12ⁱ] bere burua bezala maitatzeko bere herriari agindu zionean, bera oraindik lurrera etorri gabe zegoen. Horregatik, bakoitzak bere burua zein maite duen jakinik, ezin ziezaikeen bere sorkariei eskatu lagun hurkoarentzat maitasun handiagorik. Baina Jesusek bere apostoluei agindu berri bat ezartzen die-nean, *bere agindua*, geroago berak deitzen dionez, ez du hitz egiten nork bere burua bezala lagun hurkoa maitatzeaz, berak, *Jesusek, maite duen* eta mendeen azkenera arte maitatuko duen bezala maitatzeko baizik...

Ai, Jauna! Badakit ezinezkorik ez duzula sekula eskatzen⁷⁷. Nik neuk baino hobeki dakizu nire ahultasunaren, nire inperfekzioaren berri. Badakizu sekula ere ezingo nituzkeela maitatu neure ahizpak zuk maite dituzun bezala, *zuk zeuk*, oi ene Jesus, *niregan maitatzen* ez badituzu. Grazia hau eman nahi zenidalako jarri duzu agindu *berri* hau. – Oi, zein maite dudan agindu hau, zuk maitatzeko agintzen dizkidazun *guztiak niregan maitatu* nahi dituzun ziurtasuna ematen baitit!...

Jn 13,34-35

Bai, maitasunez jokatzeko dudanean, Jesus bakarrik dela, nabaritzen dut, *niregan lan dagiena*. Zenbat eta elkartuago harekin, hainbat gehiago maite ditut neure ahizpa *guztiak*. Maitasun hau neuregan areagotu nahi dudanean, batez ere deabruak hain begiko ez zaidan ahizpa honen nahiz haren akatsak nire arimaren begien aurrean jarri nahi dizkidanean, haren bertuteen, haren asmo onen bila lehiatzen naiz. Nik pentsatzen dut behin erortzen ikusi badut, balitekeela [13^a] garaipen ugari lortu izatea, berak apaltasunagatik ezkutuan dituenak; eta niri hutsegitea iruditzen zaidana bera ere izan daitekeela bertutezko egintza, izan duen asmoa dela-eta. Ez zait asko kosta hau buruan sartzea, behin esperientzia txiki bat egin bainuen neuk⁷⁸, sekula ez dela juzkurik egin behar erakutsi didana. – Jolasaldi batean izan zen⁷⁹. Atezainak bi kanpai-danbada jo zituen; klausurako atea ireki behar zitzairen langile batzuei, jaiotzarako ziren zuhaitz batzuk sartzeko. Jolasaldia ez zen alaia, zu, ene Ama maite, falta zinen-eta; horregatik hirugarrenarena egitera bidalia izango banintz, oso pozik egongo nintzatekeela pentsatu nuen. Eta halaxe, Ama nagusiordeak esan zidan neu joan nendila edota nire ondoan zegoen ahizpa. Berehala hasi nintzen mantala askatzen, baina poliki-poliki, nire lagunak nik baino lehenago berea ken zezan, hirugarrenarena egiten utziz poz emango niola uste bainuen. Hornitzailearen ordezkotzat zegoen ahizpak barrezka begiratzen zigun, eta jaikitzen azkena nintzela

⁷⁶ Berriz ere, Teresak *tous* ("guztiak") azpimarratu du, indarra emateko. Ohar hori bi adierazpen simetrikok zedarritzen dute: «*hemen zuk eta ahizpa guztiek maite nauzuela*» (10^a) eta «*hainbat gehiago maite ditut neure ahizpa guztiak*» (12^a).

⁷⁷ Teresak Bibliako aipamen horiek guztiak jauzi¹ egiteko tranpolin gisa erabiltzen ditu: berak ezin du Jesusen moduan maitatu, Jesusek haren baitan maitatzen ez badu; eta orduan Jesusek bezala maite du: «*Nik maitasunez jokatzeko dudanean, Jesus bakarrik da nire baitan diharduena*» (*infra*). Teresa Ga 2, 20ko bide beretik dabil (ik. BT, 274. or.). Cf A Esk., 76^a, 78^a; B Esk., 3^a; C Esk., 12^a, 36^a; Otoi. 7.

⁷⁸ Antzeko kontaketa KH 6. IV. 3an, gainera, pertsonaien izenak ematen dizkiguna. Pasarteia 1896ko abenduan gertatzen da.

⁷⁹ Ikus zer esaten dion Teresak Maria Hirutasunarenari jolasaldiak karitatea egiteko erabiltzeari buruz (VT, 73. zk., 66. or.); izan ere, gauza bera esaten dio Maria Eukaristiarenari (VT, 99. zk., 146).

ikusirik, esan zidan: Ai, pentsatzen nuen nik, bai, zu ez zinela izango zeure koroa-rako harribitxia irabaziko zenuena; astiroegi mugitzen zinen!...

Ziur aski komunitate osoak uste izango zuen nik berez jokatu nuela horrela. Eta ez nuke jakingo esaten zenbat on egin zion nire arimari hain gauzatxo txikiak eta zein barkabera bihurtu ninduen inoren ahultasunekiko. Honek, nitaz ongi hitz egiten denean ere, ez dit uzten harrotzen, neure baitan esaten baitut: nire bertutezko egintza txikiak inperfekziotzat hartzen badituzte, [13ⁱ] era berean erra daitezke inperfekzio dena bertutetzat hartuz. Orduan San Paulok bezala esaten dut: Niri gutxi axola zait giza auzitegi epaitua izatea. Nik ez dut epaitzen neure burua; Jauna da epaitzen nauena. Horregatik, auzi hau nire aldekoa izan dadin, edo hobeki, batere epaitua izan ez nadin, maitasun-pentsamenduak izan nahi ditut beti, Jesusek esan baitzuen: Ez epaitu eta ez zarete epaituak izango.

1 Ko 4,3-4

Lk 6,37

Ene Ama, idatzi berri dudana irakurtzean, maitasun-bizitza ez zaidala zail egiten uste izan zenezake, beharbada. Egia da hilabete batzuetatik honantz ez dudala borroka egin beharrik bertute eder hau praktikatzeko. Honekin ez dut esan nahi hutsegiterik ez dudarik. Ai, inperfektuegia naiz horretarako! Baina ez zait asko kostatzen erortzen naizenean jaikitzea, halako borrokaldi batean garaipena lortu nuelako; horregatik milizia zerutarrak datoz orain niri laguntzera, galtzaile ezin ikusi nautelarik, deskribatzen saiatuko naizen gerra aintzatsuan garaile irten ondoren.

Bada komunitatean gauza guztietan niri gogaikarri gertatzeko talentua duen ahizpa bat⁸⁰: haren jokamoldea, haren hitzak, haren izaera *oso desatsegin* egiten zitzaizkidan. Hala ere moja santu bat da, Jainko onari *oso atsegin* izan behar zaiona. Horregatik sentitzen nuen berezko antipatiari leku eman nahi ez eta, maitasunak ez duela sentimendu-kontua izan behar esan nuen neure baitan, egintzena baizik. [14^h] Orduan, maiteen nuen pertsonagatik egingo nukeena, ahizpa horren alde egiteari ekin nion. Hura aurkitzen nuen guztian haren alde eskatzen nion Jainkoari, haren bertute guztiak eta merezimenduak eskainiz. Hau Jesusi atsegin zitzaiola sentitzen nuen, ez baita bere obregatik goretsia izatea gogoko ez duen artistarik; eta Jesus, arimen Artista, pozik dago azalekoan gelditu gabe, hark bere bizilekutzat hautatu duen barneko santutegiraino sartuz, haren edertasuna miresten denean. Nik ez nuen nahikoa hainbat borroka eragiten zizkidan ahizparen alde asko erregutzeaz, eta ahal nituen zerbitzu guztiak hari eskaintzen saiatzen nintzen; eta zakarki erantzuteko tentaldia nuenean, neure irribarrerik liluragarriena zuzentzeaz kontentatzen nintzen, eta elkarrizketa-gaia aldatzen saiatzen nintzen, Kristoren Antz-Bidean honako hau esaten baita: Hobe da bakoitza berearekin uztea, erantzuna ematen gelditzea baino⁸¹.

Sarritan jolasaldian ez nengoenean ere, lan-orduetan esan nahi dut, ofizioagatik ahizpa honekin harremanen batzuk izatean⁸², nire borrokak zakarregiak zirene-

⁸⁰ Ahizpa Teresa San Augustinenak ez du, erretratu horretan bere burua ikusten, eta PAn (333. or.an) horretaz hitz egiten du tolesgabeki. Ik. *infra*, Izen berezien hiztegiñoa; CG, 1175. or.; VT, 100. zk., ahizpa honen *Souvenirs d'une sainte amitié* argitaratu zuena; TO 1 eta *Poésies*, II, 45-49. orr.

⁸¹ Kristoren Antz-Bidea, III, 44, 1.

⁸² Sakristian.

an, ihes egiten nuen desertore baten antzera. Nik hari buruz sentitzen nuenaz hark ezer ez zekinez gero, sekula ez du susmatu nire portaeraren zergatia, eta bere izaera niri atsegin zitzaidala sinetsirik dago. Behin, jolasaldian, poz-pez hitz hauek-edo esan zizkidan: "Esango zenidake, ahizpa Teresa Jesus Haurrarena, zer den niregan hainbesté erakartzen zaituena⁸³? Begirutzen didazun bakoitzean irribarre egiten duzula ohartzen naiz" Ai! Erakartzen ninduena Jesus zen, haren arima barnean ezkutaturik zegoena..., denik eta mingotsena⁸⁴ gozo bihurtzen duen Jesus... Ikustiaz pozten nintzelako egiten nuela irribarre erantzun nion (ez nuen erantsi, jakina, ikuspegi izpiritualek zela).

[14ⁱ] Ene Ama maite-maitea, esan dizut borrokaldietan galtzaile ez irteteko azken baliakizuna ihes egitea dela. Baliakizun hau jadanik erabiltzen nuen nobiziatuan⁸⁵, eta beti irten zait ongi. Adibide bat aipatu nahi dizut, ene Ama, irribarre eragingo dizula uste dudana. Zure bronkitis-gaioxaldietariko batean poliki-poliki etorri nintzen goiz batez jaunartzeko mahaiko sarearen giltza zure gelan uztera, elizaina nintzen eta. Barru-barruan ez zitzaidan nekagarri zu ikusteko aukera hau; oso pozik nengoen horretaz, baina ongi arduratzen nintzen kanpotik ez agertzeko. Ahizpa batek, gar santuak eraginik, eta beste aldetik asko maite ninduena, ni zure gelan sartzen ikusirik, ene Ama, esnatu egingo zintudala uste zuen; giltzak hartu nahi izan zizkidan, baina ni argiegia nintzen haiek hari eman eta *neure eskubideak* uzteko. Ahalik eta leunen esan nion, nire asmoa berarena bezain ona zela zu ez esnatzeko, eta *neuri* zegokidala giltzak entregatzea... Orain ikusten dut askoz ere hobeki izango zela ahizpa honen aurrean amore ematea; gaztea da, egia, baina ni baino lehenagokoa⁸⁶. Orduan ez nuen ikusten; horregatik, sartzea eragozteko hura ateari sakaka egon arren, kosta ahala kosta zure gelan sartu nahirik, uste genuen zoritxarra iritsi zen: egin genuen zaratak begiak irekiarazi zizkizun... Orduan, ene Ama, erru guztia niregan etorri zen. Nik kontra egin nion ahizpa gaixoak erretolika luze bati ekin zion, funtsean hau esanez: Ahizpa Teresa Jesus Haurrarena izan da zarata egin duena... Ene Jainko, hau ahizpa gogaikarria!... etab. [15^o] Nik alderantziz uste nuen eta *neure* buruaren alde irteteko gogoia izan nuen; zorionez, ideia argitsu bat etorri zitzaidan. *Neure* baitan esan nuen, izan ere, *neure* burua zuritzen hasiz gero, ezin izango nuela arimako bakerik izan. Jabetzen nintzen nik ez nuela bertuterik nahikoa ezer erantzun gabe salatzen uzteko. Nire azken salbaidia, bada, ihes egitea zen. Pentsatu eta egin: danbor eta turutotsik gabe joan nintzen, ahizpa bere erretolika jarraitzen utzita, Kamiloren Erromaren⁸⁷ aurkako araoen antz handia zuena. Bihotza hain taupada biziz⁸⁸ edukiz, ezin joan izan nintzen urruti, eta eskaileran eseri nintzen *neure* garaipenaren fruitua bakez gozatzeko. Hura ez zen ausardia, ez da egia, Ama maite? Baina uste dut, horratik, hobe dela borrokan ez arriskatzea galtzaile irteeta gauza ziurra denean.

⁸³ Azkenez Teresa bere ahizpak ere uste okerrean zituen bere maitasunaren lakioan harrapatua da. (VT, 100. zk., 252. or., 19. oharra).

⁸⁴ *Kristoren Antz-Bidea*, III, 5, 3.

⁸⁵ Protagonizatzen ahizpa Marta izan zuen eta ziur aski 1891n gertatu zen pasadizu barregarriagoa.

⁸⁶ Ahizpa Martak zazpi urte eta erdi gehiago zituen Teresak baino, eta bera baino lau hilabete lehenago sartua zen Karmelen.

⁸⁷ *Corneiller-en Horaceko* pasartea, Teresak 1888an kopiatu zuena.

⁸⁸ Teresaren hunkiberatasun handia; ik. A Esk., 45^a; 61^a, 62^a, 69^a; C Esk., 33^a etab.

Ai! Nobiziatuko garaiaz oroitzen naizenean, ikusten dut zein kaskarra nintzen... Hain gauza ezerezak samintzen ninduen, non orain barre egiten baitut. Ai, bai ona dela Jauna nire arima haziarazi duelako, hari hegoak eman dizkiolako!... Orain ehiztarien sare guztiek ere ez nindukete izutuko: "Alferrik botatzen baita sarea hegoak dituztenen begien aurrera" (Es). Geroago, noski, bizi naizen oraingo aldia ere inperfekzioz betea irudituko zait. Baina orain ez naiz ezertaz harritzen. Ez dut inolako nahigaberik *ahultasuna* bera naizela ikusirik, bestera baizik: hartaz atsegin hartzen dut, eta egunetik egunera neugan inperfekzio berriak aurkitzea uste dut. Maitasunak bekatu ugari [15ⁱ] estaltzen duela gogora ekarriz, Jesusek nire aurrean ezarri duen meatze oparo hau uztiatzen dut. Jaunak azaltzen du Ebanjelioan zertan datzan bere agindu berria. San Mateorengan honela dio: "Entzun duzue esàn dela: Maitatu zeure lagun hurkoa eta gorrotatu zeure etsaia. Nik, berriz, hau diot: Maitatu zeuen etsaiak, egin otoitz pertsegitzen zaituztenen alde".

Es 1,17

2 Ko 12,5

1 P 4,8

Mt 5,43-44

Karmelen, noski, ez da etsairik, baina bai begikotasunak. Ahizpa batek erakari egingo zaitu, beste batek, ordea, itzulinguru luzea egitera behartuko zaitu berarekin topo ez egitearren, horrela, berak jakin gabe, pertsekuzio-bide bihurtzen da. Hara bada, Jesusek ahizpa hau maitatu egin behar dela esaten dit, haren alde otoitz egin behar dela, haren portaerak ez nauela hark maite sinestarazten badit ere⁸⁹: "Maite zaituztenak maite badituzue, zer merituz izango duzue? Bekatariek ere maite baitituzte beraiek maite dituztenak" (San Lukas VI). Eta ez da aski maitatzea; erakutsi egin behar da hori. Atsegin da berez adiskide bati erregalu bat egitea, batez ere ezustekoa ematea. Hori ez da, ordea, inola ere maitasuna, bekatariek ere jokatzen baitute horrela. Hona hemen, gainera, Jesusek irakasten didana: "Eskatzen dizun edonori, eman; eta zeurea *kentzen* dizunari, ez bihurtarazi". *Eskatzen duen* edonori ematea ez da bere bihotzaren eraginez norbere burua ematea bezain gozoa. Dena dela, samurki eskatzen denean, ez da kostatzen ematea; baina, zoritxarrez, hain hitz leunak erabiltzen ez badira, arima asaldatu egiten da berehala, maitasunean oinarritua ez bada. Milaka arrazoi aurkitzen ditu [16^a] eskatzen zaiona ukatzeko; eta bakarrik eskatzaileari bere zakarkeriaz jabearazi ondoren ematen dio azkenik, *mesede eginez*, ahizpak eskatzen duena, edota egiten dio zerbitzu txiki bat⁹⁰, hura egiteko ustezko eskubideak aipatzen ematen dena baino hoge aldiz denbora gutxiago beharko zuena.

Lk 6,32

Lk 6,30

Zaila bada eskatzen duen edonori ematea, oraindik zailago da norberarena hartzen uztea bihurtarazi gabe. Oi ene Ama! Zaila dela diot, baina zaila *dirudiela* esan behar nuke hobeki, Jaunaren uztarria leun eta arina baita. Onartzen denean, berehala somatzen da haren gozotasuna, eta salmogilearekin oihu egiten da: "Zure aginduen bidetik *lehiatu* naiz, nire bihotza lasaitu didazunez gero". Maitasuna da soilik nire bihotza lasai dezakeena. Oi Jesus, gar ezti honek erretzen nauenez gero, pozik lehiatzen naiz zure agindu *berriaren* bidetik... Hortik joan nahi dut, birjinen

Mt 11,30

Sal 118,32

Jn 13,34-35

⁸⁹ Teresaren jarrerari buruz ez dago lekukotasun hoberik beste nobizia batek, ahizpa Maria Madalena Sakramentu Santuarenak, ematen duena baino (PO, 479. or.; ik. TO 10, eta *infra*, oharren gaineko sarrera; *Poesies*, II, 80-81. orr.). Ikus baita ahizpa Martak dioena ere (VT, 101. zk., 47, 11 eta 49, 16. orr.).

⁹⁰ «*Zerbitzuak egite*»ko modua, komunitateko bizitzan hain garrantzitsua izanik, C Esk.ko orrialde ugaritan barrera azaltzen da (14^a, 17^a, 18^a, 28^a, 29^a, 29ⁱ).

Ap 14,3-4 taldearekin elkaturik, zure kanta *berria*, maitasunarena, kantatuz mugagabeko zabal dietan zehar jarraitu ahal izango dizudan egun zoriontsura arte.

Nik esaten nuen: Jesusek ez du nahi neurea dudana bihurtzarterik. Hau erraz eta berezkotzat izan behar nuke, neurerik ez baitut ezer. Pobretasun-botoaren bidez lurreko ondasunei uko egin diet. Ez dut, bada, kexatzeko eskubiderik nirea ez den zerbait kentzen didatenean; aitzitik poztu egin beharko nuke pobretasuna somatzeko abagunea dudanean. Lehenago uste nuen ni ez nengoela ezeri loturik; baina Jesusen hitzak ulertu ditudanez gero, batzuetan [16ⁱ] oso inperfektua naizela jabetzen naiz. Esaterako, pintura-lanean⁹¹ ez dago ezer ninerik; ongi dakit hori. Baina lanari ekiterakoan, pintzelak eta margoak nahaspilaturik aurkitzen baditut, erregela nahiz labana galdu badira, pazientzia galtzeko zorian izaten naiz eta kemenez jantzi behar izaten dut falta zaizkidan gauzak zakarki ez eskatzeko. Batzuetan ezinbestekoak diren gauzak eskatu beharra izaten da; baina apaltasunez eginik, ez da Jesusen aginduaren aurka huts egiten, bestera baizik: beharrezko dutena jasotzeko eskua luzaten duten pobreek bezala jokatzan da⁹², eta arbuiauak badira, ez dira harritzen, inork ez baitie ezer zor.

Ai, hura bai bakea arima betetzen duena berezko sentimenduen gainetik goratzen denean!... Ez dago pozik benetan bihotzez behartu denak gozatzen duenarekin konparatzekorik. Beharrezko zerbait atxikimendurik gabe eskatuko balu, eta ez bakarrik gauza hori ukatu, baina daukana ere kendu nahi baliote, Jesusen aholkua beteko luke: Soinekoa kentzeko auzitara eraman nahi zaituenari eman soingainekoa ere...

Soingainekoa uztea azken eskubideei uko egitea dela deritzot, bere burua bes-teen zerbitzaritzat, mirabetzat hartzea. Soingainekoa utzi denean, errazago da ibiltzea, korrika egitea. Horregatik gehitzen du Jesusek: Norbaitek mila pausu egitera behartzen bazaitu, egin bi mila berarekin. Horrela, [17^a] ez da aski eskatzen duen edonori ematea; gurariei aurrea hartu beharra dago, eskerroneko agertu eta oso oho-ratua izan zerbitzua egiteaz. Eta norberak erabiltzeko den zerbait hartuko balute, ez dut nahigabe-airerik izan behar, bestera baizik: poza erakutsi hartaz *libratzean*.

Ene Ama maitea, oso urruti nago neuk ulertzen dudana egitez betetzetik; eta hala ere, gurari hutsak bakea ematen dit.

Konturatzen naiz oso gaizki azaldu dudala, gainerako egunetan baino ere gaizki-kiago. Irakurtzea nekagarri izan behar zaizun hitzaldi antzeko bat moldatu dut maitasunari buruz. Barka ieza dazu, ene Ama maite-maitea, eta pentsatu gaixozainek⁹³ nirekin betetzen ari direla une honetan idatzi berri dudana; ez dira aiko-maikoetan ibiltzen bi mila pausu egiteko, hogeitaz ere aski lirakeenean. Horrela, maitasuna

⁹¹ 1893ko otsailan eman zioten. *Pintzelak, margoak, erregelak eta labanak* haren gela aurreko lekuan gordetzen dira, ama Aines eta Zelinak behar dituztenean.

⁹² Teresa, Jainkoaren Hitzari buruz dituen intuizioetan, hondoraino doa: «*utzi hartzen, ez harritu arbuiatua izateaz, utzi*»; gelditzen zaizuna; hitz batez, «*norbere burua besten zerbitzari egin*». «*Hitzaldi antzeko batean*» Santutasunaren kiribil zorabiagarria eskaintzen du, haren alderdi guztiz zorrotza bere buruarengan sentituko duelarik.

⁹³ Ahizpa San-Estaniolas eta ahizpa Jenofa.

egintzetan ikusi ahal izan dut⁹⁴! Nire arimak, nonbait, usain gozoz lurrindurik egon behar du. Nire izpirituari dagokionez, aitortzen dut gelditu egin dela pixka bat hainbeste sakrifizioaren aurrean, eta nire lumak bizkortasuna galdu duela. Neure pentsamenduak itzuli ahal izateko beharrezko da ni txori⁹⁵ bakarti bezala izatea, eta hori nekez gertatzen zait. Luma hartzera noanean, hona non pasatzen den, sarda bizkarrean, nire ondotik ahizpa on bat⁹⁶. Dibertitu egingo nauela uste du pixka batean hizpidea emanez: belar sikua, ahateak, oiloak, medikuaren bisitak, guztia da berriketagai. Egia esan ez da hau luzaroko izaten; baina *ahizpa onbera bat baino gehiago* izaten da, eta bat-batean beste belar-biltzaile batek loreak jartzen ditu nire belauen gainean, agian, olerki-sena piztuko didatelakoan. Nik, une horretan haien bila ez nembilelarik, [17ⁱ] nahiago nukeen loreak euren zurtoinen gainean balantzaka gelditu izan balira.

Azkenik, hainbeste aldiz koaderno ospetsu hau zabaltzen eta ixten nekaturik, liburu bat (zabalik irau nahi ez duena) zabaltzen dut eta aho betean esaten dut salmoen eta Ebanjelioaren pentsamenduak kopiatzen ditudala gure Amaren⁹⁷ jairako. Eta egi-egia da, aipamenetan ez bainaiz urri ibiltzen... Ama maitea, poztuko zinatekeela uste dut Karmelgo basotoetako neure pasadizu guztiak kontatzeaz. Ez dakit hamar lerro idatzi ahal izan ditudan eten beharra izan gabe, eta horrek ez lidake barre eragin behar, ezta poz eman ere. Hala ere, Jainko onari eta neure ahizpei (nirekin hain bihotz onekoak direnei) diedan maitasunarren, pozik agertzen eta, batez ere, benetan *hala egoten* saiatzen naiz... Hara: hor doa nire ondotik aldeniduz belar-biltzaile bat, niri erruki harturik bezala esan ondoren: –“Ene ahizpa gaixoa, egun osoa horrela idazten jarduteak nekatu behar zaitu”. –Egon lasai, erantzun diot, asko idazten dudala dirudi, baina benetan ez dut ia ezer idazten”. –“Askoz hobeto!”, esan dit berak lasaiago. “Baina berdin da; pozten naiz belar sikua biltzen ari garelako, beti ere honek entretenitu egingo zaitu pixka bat eta”. Halaxe da, niretzat hain entretenimendu handia da (gaixozainen bisitak kontatu gabe), non ez baitut gezurrik esaten ez dudala ia ezer idazten diodanean.

Zorionez, ez naiz adorea erraz galtzen duena. Hori zuri erakusteko, ene Ama, Jesusek maitasunari buruz ulertarazi didana azaltzea bukatzera noakizu. Oraindik ez dizut hitz egin kanpokoaz baizik. Orain, maitasun izpirituak hutsa nik nola ulertzen dudana [18^a] adierazi nahi nizuke. Ziur naiz laster nahastatuko ditudala bata eta bestea. Baina zuri hitz egiten dizudanez gero, ene Ama, ez zaizu zail gertatuko, noski, nire pentsamendua jaso eta zeure alabaren mataza askatzea.

Karmelen ez dago beti hitzez hitz betetzerik Ebanjelioak dioena. Batzuetan, ofizioa dela eta, mesederen bat ukatu beharrean izaten da bat. Baina maitasunak ariman sustrai sakonak bota dituenean, agertu egiten da kanporantz. Eman ezin dena ukatzeko bada modu leunik, horrela ezetza dohaina bezain atsegin gertatzen delarik. Egia da beti poz emateko prest dagoen ahizpari mesedea eskatzen gutxiago

⁹⁴ Teresak berak gaixo-aulkitik gartzainondoan kalean ikusten duena kontatzen dihardu.

⁹⁵ Joan Gurutzekoari egindako aipamena, CS, XIV-XV. ahapaldiak, 252 eta ondorengo orrialdea.

⁹⁶ Ahizpa ez-koruko bat oso-osoa bere saltsan: Maria Gizakundearena (ik. CG, 1177. or.).

⁹⁷ San Luis Gonzagaren jaia, ekainaren 21ean.

Mt 5,42 kostatzen dela. Hala ere, Jesusek esan du: “Ez bizkar eman eskatu nahi dizunari”. Horregatik, ez da ihes egin behar eten gabe mesedeak eskatu eta eskatu aritzeko joera duten ahizpengandik, ukatu beharra izango den aitzakiaz. Eskuzabal ere ez da izan behar, halako *itxura* agertzearren, edota orain eskatzen duen ahizpak halako batean mesedea mesedearen truk itzuliko dizulakoan, gure Jaunak hau ere esan baitu: “Haiengandik zerbait hartzeko ustez ematen baduzue maileguz, zer eskerron zor zaizue? Bekatariek ere ematen diete maileguz bekatariei, haiengandik mesede berdina jasotzekotan. Baina zuek egin on, *aurreratu ezer itxaron gabe*, eta zuen saria handia izango da”. Oi, bai! Saria handia da lurreen bertonek!... Bide honetan lehen urratsa da bakarrik zaila. *Ezer itxaron gabe aurreratzea* gogorra dirudi naturarentzat; nahiago izan dezake batek *ematea*, emandakoa [18ⁱ] ez baita jadanik norberarena. Bene-benetako airez esatera datorzkigunean: “Ene ahizpa, zure laguntza behar dut ordu batzuetan; baina egon lasai, badut gure Amaren baimena, eta beste batean *itzuliko* dizut nik orain aurreratzen didazun astia, zein lanpetua zauden baitakit...”, *aurreratzen* den astia ez dela sekula ere itzulia izango ongi dakigunean, nahiago izan dezakegu esatea: “eman egiten dizut”. Honek norbere buru-estimua-arentzat gozoago dirudi, *ematea* aurreratzea baino egintza nobleagoa baita; eta gainera aditzera ematen zaio ahizpari haren zerbitzurik ez dugula itxaroten... Ai, bai elkarren aurka daudela naturaren sentimenduak eta Jesusen irakatsiak! Haren graziaz gabe ezinezkoa litzateke haiek betetzea ezezik, ulertzea ere.

Ene Ama, Jesusek maitasunaren sakontasun misteriotsuetara sartzeko grazia hau eman dio zure alabari. Ulertzen duen guztia adierazi ahal balu, zeruko melodiak entzungo zenituzke. Baina ai! Haur-zizakadurak baizik ez ditut zuri entzunarazteko... Jesusen hitzak eurak euskarrizat izango ez banitu, luma bertan behera uzteko baimena eskatzekotan egongo nintzateke... Baina ez, esana egitearren jarraituko dut esana egitearren hasi dudana.

Ama maite-maitea, atzo idazten nuen hemen beheko ondasunak nireak ez direnez gero, ez nukeela zail aurkitu behar haiek sekula ere berriro ez eskatzea, norbaitek hartuko balizkit. Zeruko ondasunak ere ez dira nireagoak; Jainko onak aurreratuak dira, eta hark ken diezaizkit, [19^a] nik kexatzeko eskubiderik izan gabe.

Hala ere, Jainko onagandik zuzenki datozen ondasunak, adimenaren eta bihotzaren bultzadak, pentsamendu sakonak⁹⁸, hauek guztiak, geure ondasun bezala beraiekin lotu ohi gaituen aberastasunak dira, inork ukitzeko eskubiderik ez duelarik... Esaterako: baimendutako solasaldian ahizpa bati otoitzean jasotako argitasunen bat kontatzen zaionean, eta geroxeago ahizpa honek beste batekin hitz egitean bere barrutik irtendakotzat esaten badio kontatu zitzaiona, berea ez den zerbaitetaz jabetzen dela dirudi. Edota jolasaldian esaldi gatzdun eta egoki bat lagun bati isilean esaten zaionean, eta hark iturria zein den jakinarazi gabe goraki errepikatzen badu, jabeari egindako lapurreta dela dirudi; honek kexarik sartu ez arren, horretarako gogo handia izango du eta lehenengo aukera aprobeatxatuko du bere pentsamenduez jabetu direla fintasunez jakinarazteko.

⁹⁸ Teresak hain gomendatuak dituen atxikimendurik ez eta desjabetzea ondasun izpiritualei ezarri-rik. Ik. *Kristoren Antz-Bidea*, I, 3, *Réflexions (Gogoetak)*.

Ene Ama, ez nituzke berezko sentimendu triste hauek hain ongi azaldu ahal izango, neure bihotzean neuk esperimentatu ez banitu. Eta neurea soilik bisitatu dutelako amets ez tigan kulunkatzea nahi nuke, zuk zeure nobizia maiteen tentaldiak entzuteko agindu ez bazenida. Zeuk nire esku utzi zenuen eginkizuna betetzeari asko ikasi dut. Batez ere besteei irakasten niena nik neuk praktikatu beharrean izan naiz. Eta horrela, orain esan dezaket lurrekoetara baino izpirituko eta bihotzeko ondasunetara lotuago ez egoteko grazia eman didala Jesusek. Noizbait nire ahizpen gogoko den zerbait [19¹] pentsatzea eta esatea gertatzen bazait, zeharo bidezko deritzot haiek euren ondasuna bailitzan hartaz jabetzea. Pentsamendu hori Izpiritu Santuarena da eta ez nirea, San Paulok esaten baitu Maitasun-Izpiritu hori gabe ezin diogula Zeruetan dagoen gure Aitari "Aita" izena eman. Oso libre da, beraz, arima bati pentsamendu on bat emateko nitaz baliatzeko. Pentsamendu hori nirea dela uste izango banu, "erlikiak zeramatzen astoaren"⁹⁹ antzekoa nintzateke, santuei egindako omenaldiak berari zuzenduak zirela uste baitzuen.

Erm 8,15

Ez ditut gutxiesten arima elikatu eta Jainkoarekin bat egiten duten pentsamendu sakonak. Baina aspaldidanik jabetu nintzen arimak ez duela haietan oinarritu behar¹⁰⁰, ezta perfekzioa argitasun ugari hartzean bermarazi ere. Pentsamendurik ederrenak ez dira ezer egiterik gabe¹⁰¹. Egia da besteei onik asko atera dezaketela, apaltzen badira eta euren eskerrona agertzen badiote Jainko onari, bere graziez aberastea aintzat izan duen arima baten otorduan erdikide izaten utzi diolako. Baina arima honek bere *pentsamendu ederretan* hartzen badu atsegin eta fariseoaren otoi-tza egiten badu, orduan ongi hornituriko mahai baten aurrean goseak hilik dagoen pertsona baten antza izango du, gonbidatu guztiek bertan janari ugariak gozatzen duten bitartean eta noizbehinka hainbesteko ondasunen jabeari inbidiazko begirada botatzen dioten bitartean.

Ai! Bai dela egia Jainko onak soilik ezagutzen duela bihotzen barrua!... Sorkariak bai direla pentsamendu laburrekoak!... Gainerakoak baino argitsuago den arima bat ikusten dutenean, berehala ateratzen dute [20^a] Jesusek ez dituela arima hau bezain maite eta [beraiek] ezin direla izan santutasun berberera deituak. – Noizdanik ez du Jaunak *eskubiderik* berak maite dituen arimek beharrezko duten elikagaia emateko bere sorkarietariko batez baliatzeko? Faraonen egunetan ere Jaunak bazuen *eskubide hau*, Eskritura Santuan esaten baitio errege honi: "Hain zuzen ere *nire ahalmenak* zuregan dizdiz egin dezan eta nire izena lur osoan iragarria izan dadin goratu zaitut". Mendeak eta mendeak igaro dira Goi-Goikoak hitz hauek esan zituzenez gero eta harrezkero haren jokaera ez da aldatu; beti baliatu izan da bitarteko gisa bere sorkariez arimetan bere lana egiteko.

Erm 9,17
Ir 9,16

⁹⁹ La Fontaineren alegia; honi buruz Teresak idazlan bat egin zuen 1887ko irailean.

¹⁰⁰ Ik. TG 197, hasieran; CSG, 29. or.; TO 30.

¹⁰¹ Pentsamendu Teresiarraren paradoxari buruz (ekintzak ez dira beharrezkoak - maitasuna ekin-tzez frogatzen da), ik. C. De Meester, *Dynamique de la confiance*, 333-342. orr., eta CSG, 50. or. Teresa beti dabil labanaren ahogainean: haren paradoxa, bai protestantismoaren ideiarekin (fedea ekintzarik gabe), bai fariseismoaren (fedea ekintzetan *euretan*) sendagarria da.

Artista batek pintatutako mihiseak pentsatu eta hitz egin ahal balu, ez litzateke, noski, kexatuko *pintzel* batek eten gabe ukitzeaz eta berrukitzeaz¹⁰²; eta ez luke tresna horren zoriaren inbidiarik ere izango, badakielako bera janzen duen edertasuna ez diola pintzelari zor, hura erabiltzen duen artistari baizik. Pintzela, bere aldetik, ezin izango da harropuztu berak egin duen obra bikainagatik. Badaki artistek ez dutela oztoporik aurkitzen, barre egiten diela zailtasunei, atsegin zaiela bazuetan tresna ahul eta akastunak aukeratzea...

Ene Ama maite-maitea, ni pintzeltxo bat naiz, zuk nire esku utzitako arimetan bere irudia pintatzeko Jesusek hautatua. Artista bat ez da baliatzen *pintzel* bakar batez; gutxienez bi ditu beharrezko. Lehenengoa da erabilgarriena; honekin ematen ditu tonu orokorrak, [20ⁱ] oso denbora txikian mihisea zeharo estaltzen duelarik; bestea, txikiagoa, xehetasunetarako erabiltzen du.

Ene Ama, zure alaben ariman *lan eder* bat egin nahi duenean Jesusen eskuak maitasunez hartzen duen *pintzel* preziatuaren irudi zara zu, eta ni naiz gero xehetasun txikietarako hark erabili nahi izan duen *txiki-txikia*. Bere *pintzeltxoaz* Jesus lehen aldiz baliatu zena 1892ko abenduaren 8 inguruan¹⁰³ izan zen. Beti izango dut gogoan garai hau grazien garai bezala. Oroitzapen gozo hauek, ene Ama maitea, zuri adieraztea nahi dut.

Hamabost urterekin Karmelen sartzeko zoriona izan nuenean, ni baino hilabete batzuk lehenago sartutako nobiziatuko lagun batekin aurkitu nintzen. Ni baino zortzi urte zaharrago zen, baina haren ume antzeko izaerak urteetan genuen aldea ahaztu eragiten zuen, eta horrela laster izan zenuen, ene Ama, bi nobiziagaitxoak elkar ezin hobeki aitzen zirela eta elkarrengandik ezin banatuak bihurtzen zirela ikusteko poza. Fruitu onak eman behar zituela uste zenuen adiskidetasun jaioberriari laguntzearren, zuk solasaldi izpiritualak elkarrekin izaten utzi zenigun noizean behin. Nire laguntxo maitea liluragarri zitzaidan bere xalotasunagatik eta bere izaera irekiagatik, baina beste aldetik harritzen nintzen hark zuri zizun atxikimendua eta nik nizuna ezberdinak zirela ikustean. Beste gauza batzuk ere baziren ahizpeki-koren haren portaeran hark aldatzea nahi nituenak... Jainko onak ulertarazi zidan garai honetan [21^a] bere errukiak aspertu gabe itxaroten dien arimak badirela, bere argia urratsez urrats baizik ematen ez dien arimak. Horregatik kontu handia izan nuen haren orduari aurrea ez hartzeko eta pazientziaz itxaroten nuen Jesusek iritsiaraztea nahi izan arte.

Behin, elkarrekin hitz egiteko zuk eman zenigun baimenari buruz gogoeta eginik, gure konstituzio santuetan esaten denez, "gure Senarrarenganako maitasunean gehiago iziotzeko", gure solasaldiek ez zutela nahi izan zen helburua lortzen pentsatu nuen tristuraz. Orduan Jainko onak aditzera eman zidan iritsi zela ordua eta

¹⁰² Ospearen egarriz den fariseoarenaren ondoren, hona beste parabola bat: obraren ohorea artistari dagokio, ez pintzelari. Ama Maria Gonzagarena da *pintzel* nagusia (prieora eta nobizien maestra); Teresa da *pintzel* txikia, xehetasunen ardura duena, esaterako ahizpa Martarekin elkarrizketa (horri buruz, ik. CG, 712 + j or.; TO 7 eta *Poesies*, I, 61. or.; Otoi. 3; 4; 7; 20; DLTH, 117. or.; PO, 424-435. orr.; PA, 411-420. orr.).

¹⁰³ 1892ko abenduaren 4an edo, ziurrago, 11n.

harrezkero ez zela hitz egiteko beldurrik izan behar, edota bestela utzi egin behar nituela munduko bi adiskiderenak ziruditen solasaldiak. Egun hau larunbata zen; biharamunean eskerrak emateko unean eskatu nion Jainko onari hitz gozo eta konbentzigarriak jar zitzala nire ahoan, edota hobeki Berberak hitz egin zezala nire bitartez. Jesusek entzun zuen nire eskaria; ondorioak nire itxaropena oso-osoan betetzea nahi izan zuen, hari begiratzen diotenak argi-argi egongo baitira (XXXIII. Sal) eta Argia ilunpean gainetik altxatzen baita bihotz zuzenekoentzat. Lehenengo hitza niri zuzendua zen eta bigarrena benetan bihotz zuzena zuen nire lagunari...

Sal 33,6
Sal 111,4

Elkarrekin egoteko berbatu ginen ordua iritsi zenean¹⁰⁴, ahizpatxo gaixoak niregan begiak jartzean, berehalaxe ikusi zuen ni ez nintzela jadanik lehengo berbera; nire ondoan eseri zen gorri-gorri eta nik haren burua neure bihotz gainean etzani, negar-ahotsez [21¹] esan nion *nik berari buruz pentsatzen nuen guztia*, baina halako esaldi samurrez eta era berean hain maitasun handia agertuz, non laster haren malkoak nireekin nahasi baitziren. Apaltasun handiz onartu zuen nik esaten nion guztia egia zela; bizitza berri bati ekingo ziola hitz eman zidan, eta mesede bat bezala eskatu bere hutsegiteak beti adierazteko. Azkenean, elkarrengandik banatzerakoan, gure adiskidetasuna guztiz izpiritual bihurtu zen; jadanik ez zegoen hartan ezer gizatiarrik¹⁰⁵. Guregan egia bihurtu zen Eskritura Santuko pasarte hau: "Bere anaia lagundua den anaia harresiz inguratutako hiria bezala da".

Jesusek bere pintzeltoaz egin zuena laster izango zen ezereztua, hark zuregana, ene Ama, jo ez balu oso-osorik beretzat nahi zuen ariman bere lana burutzeko. Oso garratz egin zitzaion esperientzia nire lagun gaixoari, baina zure sendotasuna garaile gertatu zen, eta orduantxe, guztien artean ahizpa berezitzat eman zenidana kontsolatzeko ahaleginetan, azaldu ahal izan nion benetako maitasuna zertan datzan¹⁰⁶. *Bere burua* maite zuela erakutsi nion eta ez zu. Nik nola maite zintudan esan nion, eta neure bizitza erlijiosoaren hasieran egin behar izan nituen sakrifizioak zuregana materialki ez zaletzeko, txakurra bere ugazabarengana zaletzen den bezala. Maitasuna sakrifizioz janaritzen da. Berezko atseginak arimak bere buruari zenbat eta gehiago ukatu, hainbat sendoago eta desinteresatuago bihurtzen da haren maitasuna.

Gogoan dut nobiziagai nintzela neure buruari atsegin ematearren, poztasuntanta batzuk aurkitzearren, zure gelan [22^a] sartzeko hain tentaldi latzak izaten nituela batzuetan, non administrazio-gela¹⁰⁷ aurretik arin-arin joan beharra izaten

¹⁰⁴ Ikus Martak POn, 430. or.an, egindako antzeko kontaketa.

¹⁰⁵ Teresak, jakina, ez du hemen erantsi berak lagunari esan ziona: «*Baldin eta gure ama konturatzzen bada zuk negar egin duzula, eta galdetzen badizu zerk nahigabetu zaituen, zuk, horretara nahi baduzu, esan diezaiokezu esatera natorkizun guztia: nik nahiago dut berak ni txarto ikustea eta, berak horretara uste badu, ni komentutik bidaltzea, neure eginbeharrari huts egitea baino*» (PO, 430. or.). Kontuan izan, ama Ainesek, priore berria zelarik, 1893ko otsailera arte ez zuela jarri Teresa ama Maria Gonzagarena, nobizien maistraren laguntzaile; Teresaren egoera ahizpa Martaren aurrean nahiko zaila zen, beraz (ik. VT, 101. zk., 58. or., 39. oharra).

¹⁰⁶ Ik. Maria Hirutasunarenak PAn (475-476. orr.etan) eta POn (452. or.an) egiten dituen ohar burutsuak; ik. VT, 74. zk., 145. or.; eta TG 188.

¹⁰⁷ Nagusiaren (izatez, nagusiordearen) bulegoa; ik. DLTH, 113. or.

bainuen eta eskailerako eskudelari heldu beharra. Eskatzeko baimen multzoa zetozkidan gogora; hitz batez, ene Ama maite-maitea, mila arrazoi aurkitzen nituen nik neure izaerari poz emateko... Zein pozik nagoen orain neure bizitza erlijiosoaren hasieratik haiek gabe egoteaz! Oraindanik gozaten dut adoretu borrokatzen dutenei agindutako saria¹⁰⁸. Honezkero bihotzaren kontsolamendu guztiei uko egin beharrik ez dudala somatzen dut, nire arima neuk maite nahi nuen Bakarrarengan finkatua baitago. Pozez ikusten dut hura maitatzean bihotza zabaldu egiten dela eta maite dituen askozaz ere samurtasun handiagoa eman diezaiekeela maitasun berekoi eta antzuan kiribildua izanda baino.

Ene Ama maite, Jesusek eta zuk nire bitartez burutu nahi izan duzuen lehenengo zeregina ekarri dizut gogora; hau ez da emango zitzaizkidanen hasiera baizik. Arimen santutegian barneratzea eman zitzaidanean¹⁰⁹, berehala jabetu nintzen eginkizuna nire indarren gaintekoa zela. Orduan Jainko onaren besoetan jarri nintzen¹¹⁰, haurtxo bat bezala, eta neure aurpegia haren adats artean gorderik, esan nion: Jauna, ni txikiegia naiz zure umeak mantentzeko. Zuk haiei eman nahi badiezu nire bitartez bakoitzak behar duena, bete ezazu nire eskutxoia eta zure besoetatik alde egin gabe, burua itzuli gabe, [22ⁱ] emango dizkiot zure ondasunak bere janari eske niregana datorren arimari. Hark bere gustuko aurkitzen badu, jakingo dut nik ez didala hori niri zor, zuri baizik; bestalde, kexatzen bada eta nik aurkezten diodana mingots aurkitzen badu, ez naiz asaldatuko, janari hori zuregandik datorrela hari buruan sartzen ahaleginduko naiz eta ez dut besterik bilatuko harentzat, ez horixe.

Ene Ama, neurez ezin nuela ezer egin ulertu nuenez gero, zuk eman zenidan egitekoa ez zitzaidan zail begitandu. Gauza beharrezko bakarra Jesusekin geroago eta gehiago bat egitea zela ikusi nuen eta gainerakoa gehigarri emango zitzaidala. Egia esan, nire itxaropena ez da sekula hutsean gelditu¹¹¹. Jainko onak aintzat izan du behar zen guztian nire eskutxoia betetzea, nik neure ahizpen arima janaritu ahal izateko¹¹². Aitortzen dizut, ene Ama maitea, txikien-txikienean ere neure indarretan oinarritu banintz, laster errendatuko nizkizukeela armak...

¹⁰⁸ Ik. BT, 64 eta ondorengo orrialdea, VT, 101, zk., 54. or. (33. zk.). Teresa C Esk.an askatuta azaltzen da, lasaiturik (fedearen proba izugarriaren konfidentzia alde batera utziz gero), eta bera den gisa azalduko da Azken Elkarrizketetan, izan ere, hori paradoxa bizia eta oso Teresiarra da, sufrimendurik txarrenean artean gaixorik txarto zegoen batengan (horiei buruz, hemen, zuzenki behin bakarrik egingo du aipamena).

¹⁰⁹ Ik. TG 140ⁱ, hemen bere etorkizuna aurretik igartzen duela dirudi. 1893tik 1896ra, Teresak nobiziatuko bere lagunak jagon zituen, lehenengo ahizpa Marta eta ahizpa Maria-Madalena, geroago ahizpa Maria Hirutasunarena eta ahizpa Jenofa (1894an sartuak), eta ahizpa Maria Eukaristiarena (1895eko abuztuan). Hasieran, 1893an, ama Maria Gonzagarenaren laguntzaile izan zen nolabait; 1896ko martxotik aurrera, berriz, nobizien maistra izango da, nahiz eta titulurik ez eduki.

¹¹⁰ Berriz ere, Jainkoa (Jesus) da guztia egiten duena: Nahikoa da «beraren besoetan» jartzea...

¹¹¹ Teresak titulurik ez badu ere, benetako nobizien maistrari dagokion maila lortu ahal izan du, «Jesusen besoetan» erabat jarri izanari esker; honek bere bizitza osorako ere berdin balio du. «Haren itxaropena ez da sekula hutsean gelditu», «(Jainko onak) ez baitit sekula sortu, gero eman ez didan ezere irrikarik» (A Esk., 71^o); ik. Otoi. 6 eta *Prières*, 94. or.; TG 197ⁱ; 201, 1ⁱ; C Esk., 2ⁱ, 31ⁱ, 33ⁱ; KH 13. VII. 15; 16. VII. 2; 18. VII. 1; 31. VIII. 9; eta ziurtasun hori etorkizun zerutarrera zabaltzen da (TG 230^o).

¹¹² Ik. KH 15. V. 5.

Urrunetik arrosa kolorekoa dirudi arimei on egitea, haiei Jainkoa gehiago maitaraztea, hitz batez, haiei norbere ikuspegi eta irizpideen arabera taxua ematea. *Hurbiletik* alderantziz da: arrosa kolorea aienatu egiten da..., ikusten da Jainko onaren laguntza gabe on egitea, eguzkiari gauean distiraraztea bezain ezinezkoa dela... Ikusten da zeharo ahaztu behar dela norbere gustuez, norbere ideiaz eta Jesusek haientzat ebaki duen bidetik eraman arimak, euren bidetik joanarazi gabe [23^a]. Baina ez da hau zailena. Guztietatik gogorren egiten zaidana hutsak, akatsik arinenak ikusi eta haiei erruki gabe gerra egitea da. Neure zoritxarrerako, esatera nindoan, (baina ez, hori koldarkeria litzateke); beraz, nire ahizpen zorioneko, esango dut. Jesusen besoetan jarri nintzenez gero, gazteluko dorrerik gorenetik etsaiak zelatatzen dituen zaintzailea bezala naiz¹¹³ Ezerk ez dio ihes egiten nire begiradari. Batzuetan hain argi ikusteaz harritu egiten naiz¹¹⁴, eta oso barkagarri aurkitzen dut Jonas profetak Niniberen hondamendia iragartzera joan beharrean ihes egin izana. Mila aldiz nahiago nuke besteengandik lotsak hartzea, neuk besteei ematea baino. Hala ere ulertzen dut behar-beharrezko dela hori niretzat samingarri izatea, berezko joeraz jokatzenean, ezinezkoa baita bere hutsak agertu nahi zaizkion arimak bere okerrak ulertzea; hark gauza bat besterik ez du ikusten: ni zuzentzeko ardura duen ahizpa haserre dago eta guztia dator nire gainera, asmorik onenez betea nagoen arren.

Jon 1,2-3

Ongi dakit zure bildostxoek zorrotz aurkitzen nautela¹¹⁵. Lerro hauek irakurriko balituzte, esango lukete ez dirudiela ezertxo ere kostatzen zaidanik beraien atzetik korritzea, tonu gogorrean hitz egitea beraien ile eder zikindua erakutsiz, edota bideko laharrei urratzen utzi dieten ile-txima arinen bat itzultzea. Bildostxoek nahi duten guztia esan dezakete; barru-barruan badakite benetako maitasunaz maite ditudala, nik sekula ez dudala morroiarena egingo: otsoa etortzen ikustean artaldea bertan behera utzi eta [23ⁱ] ihes egin. Ni prest nago neure bizia haien alde emateko; baina hain garbia da nire maitasuna, non ez baitut nahi haiek jakin dezaten. Jesusen graziari esker, sekula ez naiz saiatu haien bihotzak neuregana erakartzen¹¹⁶. Nik ulertu dut nire egitekoa Jainkoagana eramatea dela eta haiei ulertaraztea hemen behean zu zarela, ene Ama, beraiek maitatu eta errespetatu behar duten ageriko Jesus.

Jn 10,10-15

Esan dizut, Ama maitea, besteei irakasten asko ikasi dudala. Lehenengo ikusi dudana arima guztiek [gutxi gorabehera] borroka berdina dituztela, baina beste aldetik haiek hain desberdinak dira, non ez baitzait zail gertatzen Aita Pichon-en hitzak ulertzea: "Askoz ere alde handiagoa dago arimen artean aurpegiaren artean baino". Horregatik ezinezkoa da guztiekin era berdinez jokatzeko. Arima batzuekin neure burua txiki egin behar dudala ohartzen naiz, ez dudala beldur izan behar burua makurtzeko neure borroka eta porrotaldiak aitortuz. Nik beraien makaltasun

¹¹³ Ik. Avilako Teresa, *Bizitza*, XX. kapitulua, 1884, I, 229 eta ondorengo orrialdea.

¹¹⁴ Ahizpa Maria-Madalena Teresaren buruko argitasunaz txunditurik zegoen: «Beldur nintzen igeriko ote zidan» (PO, 481. or.).

¹¹⁵ Teresari ere ama Maria Gonzagarena gogorra iruditzen zitzaion (A Esk., 70^a) eta berak esan berri zuen zenbat kostatzen zitzaion «hil arteko gudari ekitea» «hutsik arinenen» aurka.

¹¹⁶ Teresak bereiztu egiten ditu maitasuna, xera edo samurtasuna. Karmelen sekula ere ez da fidatu afektu naturalez (ik. A Esk., 70^a; C Esk., 21^a; CSG, 13. or.; PO, 431 eta 432. orr.).

berberak ditudala ikusirik, nire ahizpek euren buruari ezartzen dizkieten hutsak aitortzen dizkidate, eta poztu egiten dira nik *esperientziaz* ulertzean. Beste batzuekin konturatu naiz, ordea, haiei on egiteko sendotasun handia behar dela eta sekula ere ez atzera egin esandakoan. Burua makurtzea orduan ez litzateke apaltasuna, makaltasuna baizik.

Jainko onak borrokaren beldur ez izateko *grazia eman dit*¹¹⁷. Neure egitekoa bete behar dut kosta ahala kosta. Behin baino gehiagotan entzun dut hau: – “Nire-gandik zerbait lortu nahi baduzu, bigunki hartu beharko nauzu; [24^a] gogorki ez duzu ezer lortuko”. Ongi dakit nik inor ez dela epaile ona norbere auzian, eta medikuak ebakuntza mingarri bat egiten dion haurra ez dela garrasi gogorak egin gabe eta sendabidea gaixotasuna baino txarragoa dela esan gabe geldituko. Hala ere, egun batzuk barru bere burua sendaturik ikus dezanean, zoriontsu da jolas eta korrika egin ahal izateaz. Arimekin gauza bera gertatzen da. Laster konturatzen dira batzuetan samintasun pixka bat azukrea baino hobea dela eta ez dute aitortzeko engararik.

Batzuetan ezin dut eragotzi neure barruan irribarre egitea egun batetik bestera nolako aldakuntzak gertatzen diren ikusiz. Harrigarria da!... Zera esatera datozkit: – “Atzo zuzen zenbiltzan zorrotz agertzean. Hasieran horrek asaldatu egin ninduen, baina gero guztiaz gogoratu naiz eta oso zuzena izan zarela konturatu naiz... Hara: alde egiterakoan amaitu dela pentsatu nuen, eta neure baitan esaten nuen: ‘Gure Amaren bila joango naiz eta neure ahizpa Teresa Jesus Haurrarenarekin gehiago ez naizela joango esango diot’. Baina ohartu naiz deabrua zela hori bururatsen zidana. Eta gainera, nire alde otoitz egiten ari zinela begitandu zait. Orduan lasai gelditu naiz, eta argia distira egiten hasi da. Baina orain oso-osoan argitu behar nauzu, eta horretarako natorkizu”. Berehala hasten da elkarrizketa. Ni zoriontsu naiz plater garratzik zerbitzatu gabe neure bihotzaren joera jarraitzeaz. Bai, baina...¹¹⁸ laster konturatu nintzen ez zela aurreragi jo behar; *hitz* batek suntsi dezakeela malko artean eraikitako etxe ederra. Bezperan esandakoa moteltzen duela dirudien hitz bat esateko zorigaitza izanez gero, neure ahizpatxo [24ⁱ] adarrei heltzeko ahaleginetan ikusten dut. Orduan neure barruan otoitz txiki bat egiten dut eta egia beti irteten da garaile¹¹⁹. Ai! Otoitza, sakrifizioa dira nire indar guztia; hauek dira Jesusek niri eman dizkidan arma gaindiezinak¹²⁰. Haiek hitzek baino askoz hobeki bigun ditza-kete arimak. Sarri izan dut horren esperientzia. Guztien artean bada bat zirrara gozo eta sakona egin didana.

Garizuman izan zen. Nik hemen zegoen nobizia¹²¹ bakarraren ardura nuen orduan, haren aingerua bainintzen. Poz-pozik etorri zen goiz batean ni ikustera:

¹¹⁷ Nekea gorabehera, Teresak tinko dirau bere eginbeharrari dagokionez. Ik. KH 18. IV. 1; DE, 639, 656. orr., etab. Eta, batez ere, TO 48, *Nire armak*.

¹¹⁸ Teresaren baliabide dialektiko bikaina. Ik. DE, 412 eta ondorengo orrialdea.

¹¹⁹ «Egia diotsut, esaten zidan, *gorrota nazazu, horretara nahi baduzu, baina nik hil arte esango dizut*» (Maria Hirutasunarena, PA, 475. or.).

¹²⁰ Ik. DSA 8, 4ⁱ; TG 220, 2ⁱ.

¹²¹ Ahizpa Maria Hirutasunarena zen; Teresak honen ardura berezia hartu zuen 1895ean (ama Ainesek dioenez) beste Karmel batetik etorria zelako. Teresaren ikasle handi honen gainean, ik. *infra*, «Hitzegiñoa»; CG, 1399. or. (Aurkibidea, 1098. or. erantsi behar zaiolarik); TO 11; 12; 20; 29; 30; 31; 49; 53, eta VTko agiri guztiak, 72. zk.tik 78.era, 87.etik 89.era; izan ere, horiek oinarritzat hartuta, Pierre Descouvemont-ek *Une novice de sainte Teresa* argitaratu du (Cerf, 1985).

“Ai! Bazeneki, esan zidan, bart izan dudan ametsa... Neure ahizparekin nintzen eta hain itsatsia dagoen huskeria guztietatik askatzen saiatzen nintzen. Horretarako, *Maitasunez bizi*-ren ahapaldi hau azaltzen nion: Bai galera emankorra, Jesus, Zu maitatzea! / Nire usain gozo guztiak zuretzat dira beti¹²². Nire hitzak haren ariman barneratzen zirela ikusten nuen, eta pozez zorutzen nengoen. Gaur goizean esnatzean, pentsatu nuen Jainko onak, agian, arima hau berari eskain diezaiodala nahi izango zuela. Garizuma ondoren hari neure ametsa kontatzeko eta Jesusek osorik bereztat nahi duela esateko idatziko banio zer?”

Nik, gehiago pentsatu gabe, saia zitekeela esan nion, baina aurretik baimena eskatu behar ziola Gure Amari¹²³. Garizumaren amaiera oraindik urrun zegoenez gero, zu, Ama maite-maite hori, oso harriturik gelditu zinen goizegikoa iruditu zitzaizun eskaeragatik. Eta, egiaz Jainko onak argiturik, karmeldarrek ez dituztela arimak [25^a] eskutitzez salbatu behar, erantzun zenion, otoitzez baizik.

Zure erabakia ezagutzean, berehalaxe ulertu nuen Jesusena zela, eta esan nion ahizpa Maria Hirutasunarenari: “Lanari ekin beharra dago; egin dezagun otoitz gogotik. Hura poza, *garizumaren amaieran* gure otoitzak onartuak badira!...” Oi! Bere umeen erreguak entzutea nahi duen Jaunaren erruki azkengabea!... *Garizumaren amaieran* beste arima bat gehiago eskaintzen zaio Jesusi. Graziaren benetako miraria zen¹²⁴, nobizia apal baten garrak lortutako miraria!

Zein handia den Otoitzaren ahalmena¹²⁵! Erregina¹²⁶ bat dirudi une bakoitzean erregearen ondora sarrera libredu edukiz eta eska dezan guztia lortu ahal izanez. Entzunak izateko ez dago hartarako egindako formula ederrak liburu batean irakurri beharrik. Horrela balitz... ai, ni bai nintzatekeela errukarri!... Errezatzeko *duin ez naizen orduen liturgia* izan ezik, ez dut adorerik liburuetan otoitz *ederrak* bilatzeari lotzeko; horrek buruko mina egiten dit. Hainbeste daude, egon ere!... eta gainera guztiak dira zein baino zein *ederragoak*... Ezingo nituzke guztiak errezatu, eta zein hautatu jakin ez eta, irakurtzen ez dakiten haurrek bezala egiten dut: xalotasunez esaten diot Jainko onari esan nahi diodana, esaldi ederrik egin gabe, eta hark beti ulertzen dit... Niretzat otoitza bihotz-eragin bat da, zerurantz zuzendutako begirada soil bat, eskerroneko eta maitasunezko oihu¹²⁷ bat da atsekabe artean nahiz poztasun¹²⁸ artean. Hitz batez, handia den zerbait da [25ⁱ], arima zabaldu eta Jesusekin bat egiten nauen naturaz gaindiko zerbait.

¹²² *Maitasunez bizi* (TO 17, 13, 1895/2/26koa).

¹²³ Ama Maria Gonzagarena, nobizien maistra. *Ametsa* ez zitzaion iruditu arrazoi oso serioa, eta zuzen zebilen gainera, oso ameslaria baitzen (ik. VT, 78. zk., 141-145. orr.). Berak, hortaz, *otoitza* gomendatzen dio.

¹²⁴ Teresak ezin zuen aurrez jakin, bera hil ondoren Ana Castel komentutik irten eta ezkondu egingo zela.

¹²⁵ Ik. *Prièreseko* sarrera orokorra, 7-29. orr.

¹²⁶ Ik. A Esk., 35^a, 76ⁱ.

¹²⁷ Teresa ez da «*otoitz ederrekin*» fidatzen («*pentsamendu ederrekin*» fidatzen ez den bezala, *supra*, 19ⁱ); hark «*xalotasun osoz hitz egiten dio Jainko onari*» (ik. *infra*, 32ⁱ).

¹²⁸ Dei isila, izan ere, hiru hilabeteren buruan, karmeldar gazte hain bare hau hilik egongo da: ekainaren 22an, bera artean lorategian zegoen gaixo-aulkian; uztailaren 2an, ia gehiago ezin du, otoitzegira azkenengoz joaten da; uztailaren 6an, hemoptisiak erasotzen dio berriro; 8an, gaixotegira eraman zuten; egun honen inguruan amaitu gabe utziko du C Eskuizkribua.

Ez nuke nahi, hala ere, ene Ama maite-maite hori, elkarrekin koruan nahiz ermitetan¹²⁹ egindako otoitzak deboziorik gabe erreztatzen ditudala zuk pentsatzea. Bestera da, oso gogoko ditut elkarrekin egindako otoitzak, Jesusek hitz eman baitzuen bere izenean elkartzten direnen erdian izango zela bera. Orduan nire ahizpen berotasunak egiten duela nirearen ordeztako somatzen dut. Baina errosarioa neuk bakarrik erreztatzea (lotsa naiz aitortzen) penitentziako tresna bat jartzea baino gehiago kostatzen zait¹³⁰... Hain gaizki erreztatzen dudala ikusten dut! Errosarioaren misterioetan gogoeta egiten saiatu arren, ez naiz iristen neure gogoeta hartan ezartze-ra... Luzaroan egon izan naiz harrিতua nindukan deboziorik ezagatik nahigabeturik, *nik Ama Birjina hain maite nuen ez gero*, erraz gertatu behar baitzitzaidan beraren omenez hari atsegin zaizkion otoitzak egitea. Orain gutxiago nahigabetzen naiz; nik pentsatzen dut Zeruetako Erregina *nire Ama* izanik, ikusiko duela nire borondate ona eta horrekin poztuko dela.

Batueta, nire izpiritua hain lehortasun handian dagoenean, Jainko onarekin bat egiteko pentsamendu bat moldatzea ere ezinezko zaidala, "Aita Gure" bat erreztatzen dut *astiro-astiro*, eta gero aingeruaren agurra. Orduan otoitz hauek liluratu egiten naute eta nire arima askoz gehiago elikatzen dute arin-arinka ehundaka aldiz erreztatuta baino...

Ama Birjinak ez dagoela nirekin haserre erakusten dit [26^a]; nik dei egin orduko sekula ez nau babestu gabe uzten. Kezkaren bat, larrialdiren bat datorkidanean, berehala jotzen dut harengana, eta beti hartzen ditu bere gain nire ardurak, Amarik samurrenak bezala. Zenbat aldiz gertatu zaidan, nobiziei hitz eginez, hari dei egitea eta haren ama-babesaren onurak sentiaraztea!...

Sarri esaten didate nobiziek: "Baina zuk gauza guztientzat duzu erantzuna! Oraingoan estu hartuko zintudalakoan nengoen... Non bilatzen dituzu esaten dituzun gauzak?" Badira euren ariman irakurtzen dudala sinesterainoko xumeak ere, noizbait pentsatzen zutena esanez aurre hartu diedalako. Gau batean, nire lagunetarikoa batek¹³¹ asko sufriarazten zion nahigabe bat niri ezkutatzea erabaki zuen. Biharamunean berarekin aurkitzen naiz. Aurpegi irribarretsuz hitz egiten dit eta nik, hark esaten zidanari erantzun gabe, badiotsat ziurtasun-aireaz: Zu nahigabez zaude. Ilargia bere oinetara eroriarazi banu, ez dut uste harrituago begiratuko zidanik. Haren txundidura hain handia zen, non nitaz ere jabetu baitzen; une batez naturaz gaineko ikara batek hartua izan nintzen. Ni ziur-ziur nengoen arimetan irakurtzeko dohainik ez nuena; eta honek hainbat gehiago harritzen ninduen, bete-betean asmatu nuen-eta. Jainko ona hurbil zegoela somatzen nuen; haietaz ni konturatu gabe, haur baten antzera, niregandik ez baina harengandik zetozen hitzak esan nintuela.

Ene Ama maite-maite, zuk badakizu nobiziei guztia zaiela zilegi; [26ⁱ] beharrezko da haiek pentsatzen dutena esan ahal izatea inolako eragozpenik gabe, ona

¹²⁹ Santuei eskainitako otoitzegiak.

¹³⁰ Ik. KH 20. VIII. 16 eta DE, 535. or. Haren alderdi errepikakorra da Teresaren izaerarekin bat ez datorrena, batik bat, errosarioa taldean arin baten esaten denean.

¹³¹ Ahizpa Marta; ik. VT, 101. zk., 59. or. (44. zk.).

nahiz txarra. Hori nirekin errazago zaie, maistra bati dioten begirunerik ez baitadate niri zor. Nik ezin nezake esan, *kanpotik begiratuta*, Jesusek apaldura-bidetik naramanik. Neure arimaren *barruan* apalarazteaz kontentatzen da¹³². Sorkarien begietan guztia irteten zait ongi; ohore-bidetik noa, bizitza erlijiosoan ahal den neurrian. Nik ulertzen dut arriskutsu dirudien bide honetatik joan beharra dudala, ez nigatik besteengatik baizik. Izan ere, komunitatearen begietan inperfekzioz beteriko, gauzaeza, bururik ez zuhurtasunik gabeko moja bezala agertuko banintz, ezinezko gertatuko litzaizuke, ene Ama, nire laguntzaz baliatzea. Horra hor zergatik Jainko onak ezarri duen oihal bat nire barruko eta kanpoko akats guztien ganean. Oihal honek nobizien hitz goxo batzuk erakarri ditu, batzuetan, niregana. Ziur nago haiek ez dizkidatela esaten zurikeriaz, beraien sentimendu xaloen adierazpen garbia delako baizik. Egia esateko, honek ez dit harrokeriarik sortuko, eten gabe gogora ekartzen baitut neu naizenaren oroipena.

Hala ere, batzuetan, gorespenak ez diren beste zerbait entzuteko gurari bizi bat etortzen zait. Zuk badakizu, ene Ama maite-maitea, ozpina nahiago dudala azukrea baino. Horregatik, nire arima aspertzen hasia da janari azukretsuegiarekin, eta orduan Jesusek entsaladatxo on bat [27^a] ongi ozpindua¹³³ eta espezia ugarirekin zerbitza dakion uzten du; ez da han ezer falta *olioa* baizik, horrek beste zapore bat ematen diolarik... Entsaladatxo on hau nobiziek zerbitzatzen didate gutxien uste dudan uanean. Jainko onak nire inperfekzioak estaltzen dituen oihala jasotzen du, eta orduan nire ahizpatxo maiteek, naizen bezala ikusirik, ez naute jadanik guztiz euren gustuko aurkitzen. Zoragarri iruditzen zaidan xalotasunez, euren arimetan sortarazten ditudan borroka guztiak kontatzen dizkidate, niregan desatsegin zaien guztia. Hitz batez, ez dute mihia bridatzen beste batez ari balira baino gehiago, horrela jokatzu atsegin handia egiten didatela jakinik. Ai! egiaz hau atsegin bat baino gehiago da, hau nire arima pozez betetzen duen jatordu gozoa da¹³⁴! Ezin dut ulertu naturari hain desatsegin zaionak nola eman dezakeen hain zorion handia; neuk probatu ez banu, ezingo nuke sinetsi... Bereziki apalarazia izan nahi nuen egun batean, nobizia bat¹³⁵ hain ongi arduratu zen ni asetzeko, non berehala etorri baitzitzaidan gogora Semei Dabid madarikatzen, eta banioen neure baitan: Bai, Jauna da gauza hauek guztiak niri esateko agintzen diona... Eta nire arimak atseginaz dastatzen zuen hain oparo zerbitzatu zitzaion janari mingotsa.

2 Sm 16,10

Honela hartzen du Jainko onak nire ardura. Ezin dit beti ageriko apaldurazko ogi bizigarria eman, baina noizbehinka uzten dit *bere umeen* mahaitik erortzen diren ogi-birrinez janaritzen¹³⁶. Ai! bai dela handia haren errukia! Nik ezin [27ⁱ] kantatu izango dut hura *Zeruan* izan ezik

Mk 7,28

Sal 88,2

¹³² Kanpotik begiratuta, berak «*ohoreen bidea*» jarraitzen du (ik. *supra*, 2^a), baina barrualdetik bere apaltasuna edo Jesusek bidaltzen dion apalaraztea biziki sufritzen du (bi hitzak sarri jartzen dira elkarren gain). Teresak «*apalkuntzaren ur bizigarria*» behar izan du beti (C Esk., 1^a); ik. A Esk., 28^a, 31^a; KH 12. VIII. 3; 22. 9. 1.

¹³³ Ik. KH 8. VII. 9.

¹³⁴ «Altxor bat balitz bezala bilatzen zuen apalkuntza» dio Maria Hirutasunarenak (ik. VT, 75. zk., 225-226. orr.).

¹³⁵ Beraren ahizpa Zelina (ik. BT, 59-60. orr.).

¹³⁶ Oso gogoko gertatu zitzaion, dirudinez, Markosen ebanjelioko pasarte hau «*bidetxo*»ren asmatzaileari.

Ama maite-maitea, zurekin batera lurrean erruki azkengabe hau kantatzen has-tekotan ari naizenez gero, zuk eman didazun egitekotik atera dudan onura handi bat esan behar dizut oraindik¹³⁷. Lehenago, ahizpa bat gogoko ez zitzaidan gauzaren bat eta anormaltzat nuena egiten ikusten nuenean, esaten nuen neure baitan: Ai! Pentsatzen dudana esan ahal baniezaio, oker dagoela adierazi, bai on egingo lidate-keela! Neure egitekoan pixka bat jardun dudanez gero, ziur diotsut, ene Ama, pent-saeraz erabat aldatu naizela. Orain ahizparen bat hain ongi ez deritzodan zerbait egiten ikustea gertatzen zaidanean, lasaitasun-hasperen bat egiten dut, eta neure buruari esaten diot: Hau zoriona!, ez da nobizia bat, ez nago hura zentzaraztera beharturik! Eta gero, berehala, ahizpa zuritzen saiatzen naiz, hari asmo onak egot-ziz, ziur aski izango baititu. Ai, ene Ama! Gaixo nagoenez gero, zuk oparotasunez eman dizkidazun laguntzek asko irakatsi didate maitasunari buruz. Sendagai bati ere ez deritzozu garestiegia; eta batek onik egiten ez badu, zuk nekatu gabe beste gauza bat probatzen duzu. Jolastokira joaten nintzenean, nolako ardura izaten zenuen ongi kokatua egon nendin, haize-korronteetatik gorderik, hitz batez, guztia kontatu nahi banu, ez nuke amaituko.

Gauza hauetan guztietan pentsatzean, esan nion neure buruari, zu, Ama maite, halako maitasunez zaintzen nirekin zaren bezain errukitsu izan beharko nukeela nik neure ahizpen gaixotasun izpiritualekin.

Konturatu naiz (eta oso normala da) ahizparik santuenak [28^a] direla maitatue-nak¹³⁸; haiekin hitz egitea nahi izaten da, zerbitzuak eskaintzen zaizkie beraiek eskatu gabe. Hitz batez, begiramen eta fintasun faltak eramateko gai diren arima hauek, guztien maitasunez inguratuar aurkitzen dira. Haiei ezar dakieke gure Aita San Joan Gurutzekoren hitz hau: “Ondasun guztiak eman zaizkit, neure buruaren-ganako maitasunez haiek bilatu ez ditudanean”¹³⁹.

Arima inperfektuei, ordea, ez zaie jaramonik egiten. Gizabide erlijiosoaren barruan jokatzeko da, noski, haiekin; baina hain leuna izango ez den hitzen bat esate-ko beldurrez, haien ondotik alde egin ohi da. – Arima inperfektuak esatean ez ditut gogoan inperfekzio izpiritualak soilik, santuenak ere ez baitira perfektuak izango Zerura arte. Zuhurtasun falta, gizabide falta, izaera batzuen sentikortasuna esan nahi dut, gauza hauek guztiak bizitza oso atsegin egiten ez dutenak direlarik. Nik ongi dakit gogoaren gaixotasun hauek¹⁴⁰ kronikoak izaten direla; ez dago sendatze-

¹³⁷ Iragapeneko pasarte honek hartu behar duen bideari buruz zertara ezean dagoela ematen du (Teresak, oso gaixorik, koadernoan idazten du zuzenean, zikinean egin gabe). Arrazonamenduaren haria, gutxi gorabehera, hau da: Teresak, nobizien arduraduna zelarik, ez du besteen hutsak argitara ateratzeko gogorik; bera poztu egiten da, priorea bere osasunaz arduratzen delako, eta horrek eragiten dio maitasunera “bere ahizpen gaixotasun izpiritualekin” errukitsu izatera.

¹³⁸ «Arima inperfektuen» gaiari ekiterakoan, «inperfekzio izpiritualak» bakarrik ez dituela gogoan garbi uzten duelarik, Teresak kontuz jokatzeko du.

¹³⁹ Joan Gurutzekoaren testua, «Monte de perfección»en marrazkiarekin batera datorrena; izan ere, bera Teresak *Karmel Mendira Igoerearen* II. liburuko lehenengo orrialdean ikusi zuen, Parisko karmel-darrek egindako itzulpenean. Ik. B Esk., 1^a, 16. oharra.

¹⁴⁰ Teresak “onirizte” eta “maite-erakutsiak” egin nahi izaten zizkien ahizpa ezatseginen artean hauek aipa genitzake: Maria San Joserena, Aimée Jesusena, Marta, Maria Madalena, ahizpa San Bizente Paule-koarena, ahizpa San Joan Bautista. «Santuenen artean», berriz, Maria Filomena, Maria Aingeruena, Maria Jesusena, ahizpa San Stanislas... Ikus bedi 1893ko maiatzean «Lisieux-en zeuden karmeldarren

ko itxaropenik. Baina badakit baita ere neure bizitza osoan gaixo geldituko banintz, nire Amak ez lukeela etsiko ni zaintzen, ni arintzeko ahaleginean. Hona hemen atezaten dudan ondorioa: nik jolasaldian, baimendutako solasaldian gutxien atsegin zaizkidan ahizpekin ibiltzea bilatu behar dut, samaritar onarena egin arima mindu horiekin. Hitz bat, irribarre gozo bat nahiko dira batzuetan arima triste bati poz emateko.

Baina inola ere ez ditut bete nahi maitasun-egintzak helburu honekin, ongi baitakit laster batean ustea galduta etsiko nukeela: asmorik onenaz esandako hitz bat zeharo bestera uler daiteke. Horregatik, denbora alferrik ez emateko, guztiakin izan nahi dut maitagarria [28ⁱ] (eta batez ere hain maitagarri ez diren ahizpekin) Jesusi poz ematearren eta berak Ebanjelioan, gutxi gorabehera hitz hauekin, ematen duen aholkuari erantzutearren: "Otordu bat egin dezazunean, ez gonbidatu zeure sendeak eta adiskideak, beraiek ere gonbidatu egingo baitzintzuket, eta horrela, ordaina hartuko zenuke; aitzitik, gonbidatu behartsu, herren, elbarriak, eta poztuko zarete haiek ordainik eman ezin izateaz, isilean ikusten duen zuen Aitak emango baitizue ordaina".

Lk 14,12-14

Mt 6,4

Zer otordu eskain diezaike karmeldar batek bere ahizpei maitasun gozo eta pozgarri batez osatutako otordu izpirituala izan ezik? Nik neuk ez dut besterik eza gutzen, eta pozik aurkitzen zituenekin poztzen zen San Pauloren antzera jokatu nahi dut. Egia da atsekabetuekin negar ere egiten zuela, eta malkoek ere agertu behar dutela, batzuetan, nik zerbitzatu nahi dudan otorduan; baina beti saiaturko naiz malko horiek azkenean poz bihur daitezen, Jaunak poztasunez ematen dutenak maite baititu.

Erm 12,15

Jn 16,20

2 Ko 9,7

Oroitzen naiz Jainko onak oraindik nobizia nintzela bururatu zidan maitasun-egintza batez¹⁴¹. Ez zen gauza handirik, baina isilean ikusten duen, egintzaren handitasuna baino gehiago asmoa begiraten duen gure Aitak¹⁴², eman dit honezkero ordaina¹⁴³ beste bizitzari itxaron gabe. Ahizpa San Pedro oraindik korura eta jantokira joaten zen garaia zen. Arratseko otoitzaldian nire aurrean jarri ohi zen. Seiak baino hamar minutu lehenago, hura jantokira eramateko lana bere gain hartu beharra izaten zuen ahizpa batek, gaixozainek haren bila etortzeko [29^a] gaixo asko baitzituzten orduan. Niri asko kostatzen zitzaidan zerbitzu txiki hau egiteko neure burua eskaintzea, ahizpa San Pedro gaixoa pozik edukitzea ez zela erraza bainekien, eta hainbeste sufrimendu zuenez gero, ez zuen gogoko gidaria aldatzea. Hala ere, nik ez nuen nahi karitatea praktikatzeko aukera ederra galtzerik, Jesusek esandakoaz gogoratuz: Niretariko txikienei egin diezazuena neuri egingo didazue.

Mt 6,3

Mt 25,40

orria» (CG, 1171-1179. orr.), ikus bitez Teresaren garaikide batzuek eman baina oso gutxi ezagutzen diren lekukotasunak (VT, 73, 88, 99, 101. orr.), baita *Annales de Lisieux*-en, 1981eko azarotik 1985eko apirilera argitaraturiko hainbat albiste ere.

¹⁴¹ Ahizpa San Pedrori buruz ari da; hau goiz elbarritu zen, eta 1895ean hil, hirurogeita bost urte zituelarik. «Ahizpa gaixo honek izaera takarra eta ezatsegina zuen. Egonezinez jartzen zen, inork ikutu orduko» (PO, 248. or.). Ik. baita VT, 99. zk., 174. or., eta ahizparen erretratu bat ere ALn, 601. zk., 1982ko apirilean.

¹⁴² Ik. Avilako Teresa, *Egoitzak*, VII, 4. kapitulua, 638-639. orr.; ik. TG 65.

¹⁴³ Ziur aski, ahizpa San Pedoren esker onagatik (ik. PO, 281 eta ondorengo orrialdea) eta hari laguntzen berak jaso duen graziagatik (*infra*, 29ⁱ/30^a).

Apaltasun handiz eskaini nuen, bada, neure burua hura eramateko, eta nekez bada ere lortu nuen nire zerbitzuak onar zitzala! Azkenez, lanari ekin nion eta hain zen handia nire gogoan, non bete-betean lortu bainuen.

Arratsaldero, ahizpa San-Pedro bere hondarrezko erlojuari eragiten ikusten nuenean, banekien hark hau esan nahi zuela: Goazen! Sinestezina da zein gogor egiten zitzaidan, batez ere hasieran, neke hura hartzea. Berehala egiten nuen, ordea, eta gero zeremonia osoa hasten zen. Aulkitxoa halako erara mugitu eta eraman behar zen; batez ere presa gabe. Ibilaldia zetorren gero. Elbarri gaixoari jarraitu behar nion gerritik eutsiz. Nik ahal nuenik eta leunen egiten nuen; baina, zoritxarez, okerreko pausuren bat ematen bazuen, ez niola ongi eusten iruditzen zitzaien bat-batean eta erori egingo zela. – “Ai, ene Jainko, bizkorregi zoaz, lehertuko naiz”. Orduan ni astiroago joaten saiatzen banintzen: “baina jarrai iezadazu; ez dut sentitzen zure eskua; utzi egin nauzu, erori egingo naiz; ai! nik esaten nuen zu gazteegia zinela ni eramateko”. Halako batean iristen ginen okerrik gabe jantokira. Han beste arazo batzuk sortzen ziren. Esertzen lagundu behar zitzaien ahizpa San-Pedrori, eta trebetasunez jokatu [29ⁱ] hari minik ez emateko. Ondoren mahukak jaso behar zitzaizkion (halako erara, jaso ere), gero libre nengoen, joan nintkeen. Bere esku eskas hondatuekin ahal zuen moduan botatzen zuen ogia katilura. Ni laster konturatu nintzen eta ez nuen uzten arrats bakoitzean zerbitzu txiki hau ere egin arte. Berak ez zidan eskatu eta oso hunkitua gelditu zen nire begiramenagatik, eta nik berenberegiz bilatu ez nuen begiramen honen bidez irabazi nuen oso-osoan haren begikotasuna, eta batez ere (geroago jakin nuen) ogia ebaki ondoren, alde egin orduko, neure irribarrerik politena egiten niolako.

Sal 88,2

Ene Ama maite-maitea, beharbada, harritu egingo zara maitasun-egintza txiki hau, orain dela hainbeste denbora gertatua, idatzi dizudalako. Ai! hori egiten badut, hori dela eta, Jaunaren errukiak¹⁴⁴ kantatu behar ditudala uste dudalako da. Hark horren oroipena, maitasun-egintzetara eragiten didan usain gozo bezala, gorde dezadala nahi izan du. Batzuetan niretzat udaberriko haize leuna bezala diren zertzeladak gogoratzen ditut. Hona hemen gogora datorkidan bat: Neguko arrats batean, ohi nuenez, neure zeregintxoia betetzen ari nintzen; hotz zegoen, gaua zetorkigun... bat-batean, urrunera, musika-tresna baten soinu harmoniatsua entzun nuen. Orduan ongi argitutako areto bat etorri zitzaidan irudimenera, guztia urre-distiraz beterik, dotore jantzitako neskakilak elkarri kunplimenduak eta mundutar milikeriak egiten. Gero, neuk eusten nion gaixo errukariarengan ezarri nituen begiak. Melodia baten ordez, noizbehinka negar-intzirriak entzuten nituen; urreztatuen ordez [30^a] gure klaustro serioaren adreiluak ikusten nituen argi motel batez argiturik. Ezin dut adierazi zer gertatu zen nire ariman; nik dakidana da Jaunak argitu zuela egiaren izpiz; hauek lurreko jaien distira ilunbetsua hainbesteraino gainditzen zuten, non ezin bainuen sinetsi neure zoriona... Ai! mundutar jaietan mila urte gozatzearen truke ez nituzke emango neure karitatezko ofizioa betetzen erabilitako hamar minutuak... Sufrimenduan bertan eta borroka artean ere lurreko poztasun

¹⁴⁴ Teresak hemen A Esk. eta C Esk.aren gai handira jotzen du berritua, beharbada, bere «udaberriko historia» amaitu-aginean dagoelako. Orrialde hau maitasunaren lehenetsunari indar aparta ematen dion poztasun zerutarraren lehen hurbiltzean amaituko da.

guztiak baino handiagoa den une bat gozatu ahal bada, Jainkoak mundutik atera gaituela pentsatuz besterik gabe, zer izango ote da Zeruan, betiko poz eta atsedena-
ren erdian, bere etxean, Zeruetako benetako atarian, bizi izateko hautatzean egin
digun grazia berdingabea ikus dezagunean?...

Has 28,17
Sal 26,4

Beti ez dut karitatea praktikatu honelako poz-eragin artean, baina neure bizitza erlijiosoaren hasieran niri sentiaraztea nahi izan zuen Jesusek zein gozoa den bera ikustea bere emazteen arimetan¹⁴⁵. Honela, ahizpa San-Pedro eramaten nuenean, hain maitasun handiz egiten nuen, non ezin izango bainuen hobeki egin Jesus berbera eraman behar banu. Karitate-praktika ez zait beti hain gozo gertatu, esan berri dizut, ene Ama maitea. Hori frogatzeko egiaz irribarre eragingo dizuten borroka txiki batzuk kontatuko dizkizut. Luzaro, arratseko otoitzaldian, ahizpa baten aurrean kokatua nengoen, keria bitxi bat zuena¹⁴⁶ eta, uste dut..., barruko argi handiak ere bai, nekez erabailtzen baitzuen libururik. Hona nola [30ⁱ] konturatu nintzen. Ahizpa hau iristen zeneko, bi maskor bata bestearen aurka marruskatzean egin ohi denaren antzeko zaratatxo bitxi bat egiteari ekiten zion. Inor ez zen hartaz konturatu ni izan ezik, entzumen fin-fina bainuen (batzuetan, finegia). Ezinezkoa zait, ene Ama, zein gogaikarri zitzaidan zaratatxo hura esatea. Burua bihurtu eta errudunari begiratzeko irrika bizia nuen, ziur aski ez baitzen konturatzeko berekeria horretaz; hau zitekeen koturarazteko era bakarra. Baina bihotz barruan ulertzen nuen hobe zela hura sufritzea Jainko onaren maitasunaren eta ahizpari nahigaberik ez ematearren. Beraz, lasai gelditzen nintzen, eta Jainko onarekin bat egiten eta zaratatxo ahazten saiatzen nintzen... Baina guztia zen alferrik; izerdiak gainez egiten zidala somatzen nuen eta sufrimenduzko otoitza egin beharrean izaten nintzen soilik. Baina sufritzen nuen aldi berean, suminduraz ez egiteko era bilatzen nuen, pozez eta bakez baizik, arimaren barru-barruan behintzat. Orduan zaratatxo hain gogaikarri hura gustuko egiten saiatzen nintzen; hura ez entzuten saiatu beharrean (ezinezko gauza), neure arreta osoa ongi entzuten jartzen nuen, kontzertu zoragarria bailitzan, eta nire otoitzaldi osoa (inondik inora ere soseguzko otoitza ez zena) Jesusi kontzertu hura eskaintzen joaten zitzaidan.

Beste behin arropak garbitzen nengoen ni, oholaren gainean sudurzapiak josten zituen bakoitzean aurpegia ur zikinez zipriztintzen zidan ahizpa¹⁴⁷ baten aurrez aurre. Nire lehen bihozkada aurpegia xukatuz [31^a] atzerantz egitea izan zen, zirtatzen ninduen ahizpari leunago jokatzu mesede handia egingo lidakeela erakutsiz. Baina berehala pentsatu nuen ni oso burugabea nintzela hain eskuzabal ematen zitzaizkidan ondasun batzuk gutxiestean eta kontuz ibiltzen nintzen neure borroka ez agertzeko. Neure ahalegin guztiak egin nituen ur zikin ugari nahi izateko, azkenean zirtaketako era berri honi gustua harturik, eta neure buruari hainbeste ondasun jasotzen ziren zorioneko toki hartara berriro ere itzultzea agindu nion.

Ikusten duzu, ene Ama maite-maitea, *arima txiki-txikia* naizela, Jainko onari *gauza txiki-txikiak* soilik eskaini diezaizkiona. Gainera, arimari hainbesteko bakea

¹⁴⁵ Ik. TO 17, 8.

¹⁴⁶ Ahizpa Maria Jesusena (DE, 861. or. eta VT, 99. zk. 173-177. orr.), bere atzazkala hortzen gainean karraskatzen zuena.

¹⁴⁷ Ahizpa Maria San Joserena (ik. TO 28, eta *Poesies*, I, 156 eta 195. orr.; DLTH, 281. or.).

ematen dioten sakrifizio txiki hauetariko batzuk ere eskapatzen uztea gertatzen zait batzuetan. Ez nau horrek kikiltzen; bake gutxitxoago izatera jartzen naiz¹⁴⁸ eta hurrengoan arreta handiagoz egoten saiatzen naiz.

Ai, ezinezkoa zait Jaunari beldur izatea¹⁴⁹, hain da ona nirekin! Beti eman dit nahi izan dudana, edota hobeki, berak eman nahi zidana irrikarazi dit beti¹⁵⁰. Honela, fedearen aurkako nire proba hasi baino lehenxeago, nik honela pentsatzen nuen neure golkorako: Egia esan, ageriko proba handirik ez dut, eta barrukoak izateko Jainko onak aldatu egin beharko luke nire bidea. Ez dut uste egingo duenik. Hala ere ezin naiz beti honela bizi, baretasunean¹⁵¹... Nola konponduko ote da, bada, Jesus ni probatzeko? Erantzuna laster etorri zen, eta nik maite nuena ez zela baliabide gutxikoa erakutsi zidan. Nire bidea aldatu gabe, nire poztasun guztietan samintasun onuragarri bat nahastatuko zuen proba bat bidali zidan.

Baina Jesusek ez du aski ni probatzeko nahi duena [31¹] susmarazi eta irrikarazteaz soilik. Aspaldidanik nuen nik erabat ezinezkoa neritzon irrika bat: *neba apaiz ba* izatea¹⁵². Nik sarri pentsatzen nuen nire nebatxoek Zerura hegan egin ez balute, aldarera igotzen ikusteko zoriona izango nukeela. Baina Jainko onak aingerutxo bihurtzeko hautatu dituenetz gero, honezkero neure ametsa egia bihurtzerik ezingo nuen itxaron. Eta hona hemen nola Jesusek ez bakarrik irrikatzen nuen grazia eman didan, baita elkartu ere arimako lokarritz nire neba bihurtu diren bere *bi* apostolurekin... Zehatz-mehatz kontatu nahi dizut, ene Ama maite-maitea, nola Jesusek bete duen guztiz nire guraria, gainditzeraingo bete ere, nik aldre santuan egunero nitaz gogoratuko zen neba apaiz *bat* nahi bainuen.

Gure Ama Teresa santua izan zen, 1895ean, jaiko lore-sorta antzera, neure lehenengo nebatxo¹⁵³ bidali zidana. Ni arropak garbitzen ari nintzen, neure zereginen sartu-sartua, Ama Aines Jesusenak bakarrean harturik jaso berri zuen gutun bat irakurri zidanean. Apaizgai gazte bat zen, Teresa santuak argiturik, zioen berak, arreba bat eskatzen zuena; haren arimaren salbazioaz bereziki arduratuko zena, eta, misiolari izan zedinean, arima asko salbatu ahal izateko bere otoiitz eta sakrifizioz lagunduko ziona. Bere arreba izango zenarentzat beti oroipen bat izango zuela hitz ematen zuen opari santua eskaini ahal zuenean. Ama Aines Jesusenak esan zidan, berak ni izatea nahi zuela geroko misiolari honen arreba bihurtuko zena.

¹⁴⁸ Ik. KH 3. VII. 2.

¹⁴⁹ Ik. TG 266^a.

¹⁵⁰ Esaera bera agertuko da egun batzuk geroago TG 253, 2^on. Ik. Joan Gurutzekoa: «Berak zenbat eta gehiago eman nahi, orduan eta gehiago nahi eragin» (1589/7/8ko XI. gutuna), Eskaintzaren Ekin-tzan ere aurkitzen dugu. Ik. TG 197^b; CG, 897 + 1 or.; TG 201, 1^a; KH 13. VII. 15; DE, 471. or.; *Prières*, 94. or.; KH 16. VII. 2; 18. VII. 1. Ikus baita, *supra*, 111. oharra ere.

¹⁵¹ Jainkoak berak eman zion gurariaren erantzun gisa aurkezten du Teresak bere "*fedearen aurkako proba*". Ik. *Poésies*, II, 139 eta ondorengo orrialdea.

¹⁵² Ik. TG 201, 1^a.

¹⁵³ Maurice Barthélemy-Bellièrre apaizgaia (1874-1907); "Teresa santuaren izenean eta haren jaian" 1895/10/15ean idatzi zion ama Ainesi (VT, 66. zk., 139. or.). Amaren aldetik umezurtza zen, apaizgaia Bayeux-en eta misiolari izan nahi zuena, Teresaren heriotzaren egunaren bezperan untziratu egin zen Alger-en Aita Zurien nobiziatuan sartzeko. Nyassaland-en (Malawin) ibili zen misiolari, Frantziara itzuli zen eta Caen-go Bon Saveur-en hil zen. Ikus biografia in *Prières*en, 107. or., eta bereziki, VTn, 66. zk.tik 69.era.

[32^a] Ene Ama, ezinezkoa litzateke neure zoriona zuri adieraztea; nire guraria ustekabeen asean izateak nire bihotzean halako poz bat sortarazi zuen, haur-poza deituko niokena, neure haurtzaroko egunetara itzuli beharko bainuke poz hauen oroitzapena aurkitzeko; hain poz biziak, non arima txikiegia baita haiek hartzeko. Sekula, urteetan, ez dut berriro gozatu zorion mota hau. Nik, alde honetatik, nire arima berri zegoela sentitzen nuen; ordurarte ahazturik zeuden musika-haria lehena aldiz jo balira bezala zen.

Ohartzen nintzen neure buruari ezartzen nizkion eginbeharrez. Beraz, lanari ekin nion¹⁵⁴, garra gehitzen saiatuz. Hasieran aitortzen dut ez nuela kontsolamendurik izan neure garra bizteko. Nire nebatxoak, afektu eta sentimendu onez beteriko gutun liluragarri bat Ama Aines Jesusenari eskerrak emateko idatzi ondoren, bizi zenik ere ez zuen erakutsi hurrengo uztailearte, azaroko hilean soldadu zihotala guri esateko igorri zigun bere txartela izan ezik. Jainko onak zuzetzat gordetzen zuen, ene Ama maite-maitea, hasitako lanari amaiera ematea¹⁵⁵. Ezbairik gabe, misiolariari otoitzaren eta sakrifizioaren bidez lagun dakieke. Baina batzuetan, Jesusek hala nahi dezanean, haren aintzarako bi arima lotzeak haiek noizbehinka euren pentsamenduak elkarrekin komunikatzea eta Jainkoa gehiago maitatzeko elkar zirikatzea dakar. Baina horretarako agintedunaren¹⁵⁶ *berarizko oniritzia* behar da, bestela uste baitut postazko harreman honek mesede baino kalte gehiago egingo lukeela¹⁵⁷, misiolariari ez bada bai behintzat karmeldarrari, bere bizieragatik [32ⁱ] bere baitan biltzera eten gabe deitua egonik. Orduan, hark eskatutako posta-truke honek (noizbehinkakoa izan arren) Jainko onarekin bat egin beharrean, izpiritua beteko dio; eta gauza harrigarriak egiten ari delakoan, gar izpiritualaren itxuran, alferriko entretenimendu bat beretzat bilatu besterik ez luke egingo.

Niri dagokidanez, honetan beste gauza guztietan bezala, uste dut nire gutunek on egin dezaten nagusiek aginduta idatziak izan behar dutela eta haiek idaztean atseginez¹⁵⁸ egitea baino gehiago gogoz kontra egitea senti dezadala. Horrela, nobizia batekin hitz egiten dudanean, hilduratuz egiten saiatzen naiz; neure jakinmina aseko luketen galderarik ez diot egiten. Hura gauza interesgarri bat esaten hasi eta gero lehenengoa amaitu gabe aspergarri zaidan beste batera joango balitz, kontu handia izaten dut alde batera utzi duen haria ez gogorarazteko, uste baitut ezin daikeela inolako onik egin nork bere burua bilatzen duenean.

Ene Ama maite-maitea, ohartzen naiz inoiz ere ez naizela zuzenduko; hona hemen berriro ere neure esan beharraren esan beharrez gaitik aldundua. Barka ieza-

¹⁵⁴ «*Otoitz eta buru-ukatzeaz*», ama Ainesek ez baitzion gutunik idazteko eskatu. Baina berak otoitz bat idatzi du (Otoi. 8), nagusiak bere erantzunari erantsi ziona.

¹⁵⁵ Ama Maria Gonzagarena da Teresari idaztarazi ziona (CG, 884. or.). Nagusi bien izaeren eta jobjideen arteko aldeari buruz, ik. CG, 845 eta ondorengo orrialdea.

¹⁵⁶ Teresak arauak zehatz-mehatz betetzen ditu, «*hutsik egiten ez duen iparrorratza*»ri (11^a), hau da, «*nagusien borondatea*»ri begiraturaz.

¹⁵⁷ Ik. KH 8. VII. 16.

¹⁵⁸ Teresak Bellière apaizgaiarekin trukutzen dituen gutunetan higuinik azaltzen ez bada ere, horretan buru eta bihotz jarriko da: bere familiarik eta kanpoko beste Karmeldik inori ez dio hain luze ez eta hain denbora luzean idatziko (egiazko azkeneko gutuna, TG 263, 1897/8/10ekoa da; eskainitako azken irudia, berriz, 8/25ekoa).

dazu, arren, eta utzi niri berriro hasten hurrengo batean, bestera ezin baitut egin!... Zuk Jainko onak bezala egiten duzu, entzuten ez baita nekutzen¹⁵⁹, berak jakingo ez balitu bezala, neure nahigabe eta pozak xalotasun osoz kontatzen dizkiodanean... Zuk ere, ene Ama, aspaldi-aspalditik dakizkizu pentsatzen dudana eta pixka bat gogoangarri diren nire bizitzako gorabehera guztiak; ezin izango nizuke, bada, ezer berririk kontatu. Neuk bezain ongi dakizkizun hainbat gauza [33^a] zehazki idazten ari natzaizula pentsatzean, ezin diot eutsi barreari. Dena dela, Ama maitea, nik esana egiten dizut eta orain orrialde hauek irakurtzea atsegingarri aurkitzen ez baduzu, beharbada, zeure zahartzaroko egunetan dibertituko zaituzte eta gero sua pizteko balioko dizue, horrela ez dut denbora alferrik eman izango... Baina haur baten antzera hitz egiten jostatzen naiz... Ez uste izan, ene Ama, nik neure lan eze- rez honek izan dezakeen probetxua bilatzen dudanik; agindua betetzearren egiten dut, horrekin nahikoa da. Ez nuke inolako nahigaberik izango irakurri baino lehen neure begien aurrean erreko bazenu.

Ordua da nire bizitzan orain hain toki garrantzitsua duten nire neben kontakti- zunari berrekiteko. – Iaz, maiatzaren azkenerantz¹⁶⁰, oroitzen naiz zeure gelara dei- tzeko agindu zenidala jantokira joan aurretik. Bihotza taupada bizian neukan sartu nintzenean, ene Ama maitea; niri esateko zer izan ote zenezakeen galdetzen nion neure buruari, lehenengo aldia baitzen era hartan deitzen zenidala. Esertzeko niri esan ondoren, hona hemen egin zenidan proposamena: - “Nahi al duzu apaiz egingo den misiolari baten¹⁶¹ eta laster joatekoa denaren arazo izpiritualak zeure gain har- tzea?” Eta gero, ene Ama, apaiz gazte haren gutuna irakurri zenidan, zehatz-mehatz jakin nezan zer eskatzen zuen. Nire lehenengo sentimendua pozezkoa izan zen, gero segidan beldurrezkoari leku eman zion. Nik azaldu nizun, ene Ama maite-mai- tea, neure meritu ezerezak jadanik geroko apostolu baten alde eskainiak nituenez gero, beste baten asmoetarako ere eskaintzerik ez nuela izango uste nuela, eta gai- nera, bazirela beste ahizpa asko ni baino hobeak, haren gogoari erantzun diezaioke- tenak. Alferrik izan ziren nire argudio guztiak; neba bat baino gehiago izan ezinik ez dagoela [33ⁱ] erantzun zenidan. Orduan obedientziak merituak bikoiztu ditzake- en galdetu nizun¹⁶². Baietz erantzun zenidan, kezka gabe onartu behar nuela beste neba bat ikusarazten zidaten beste arrazoi batzuk esanez.

Barru-barruan, ene Ama, nik zuk bezala pentsatzen nuen. Areago oraindik: “karmeldar baten garrak mundu osoa hartu behar duenez gero”¹⁶³, Jainko onari

¹⁵⁹ Otoitzaren modurik errazena (ik. *Prières*, 8. or., 4. oharra).

¹⁶⁰ Larunbatean, 1896/5/30ean.

¹⁶¹ Aita Adolphe Roulland (1870-1934), Parisko Atzerriko Misioetako apaizgaia. Karmelen eman zituen mezetarik lehenengoetarikoa 1896/7/3an izan zen, eta geroago Txinara bidean untziratu zen. Ik. beraren lekukotasunak POn, 370 eta ondorengo orrialdeetan, eta PAn, 524 eta ondorengo orrialdeetan. Ama Maria Gonzagarenak galarazi egingo dio Teresari «aitapontekotza» berri honi buruz ama Ainesis hitz egitea 1897ko maiatzera arte (KH I. V. 2 eta DE, 417 + e or.).

¹⁶² Teresa zalantza artean dabil, Bellière apaizgaiaren alde eskaini baitzituen “*berak eskaini zitza- ken otoitz eta buru-ukatzeko guztiak*” (Otoi. 8). Aita Roulland onartzeko, beraz, «*bere merezimenduak bikoiztu*» behar ditu. Erantzuna baiezkotza delarik, Teresak misio horri zabaldua osoa ematen dio, *nobi- ziak* “*apaiz soilak*” eta “*Aita Santua*” bera ere horretan sartuz.

¹⁶³ Teresak *embraser* idatzi zuen [“erre”, “kiskali”]; ama Ainesek s bat erantsi zion [“hartu”, “besarkatu”, “barru hartu”]. Ik. MS/NEC, 33ⁱ, 3 +. Avilako Teresaren aipamena, *Fragment du livre sur*

esker, bi misiolari baina gehiagori ere lagungarri izango natzaien itxaropena dut, eta ezin naiz ahaztu guztien alde otoiitz egiteaz, apaiz soilak utzi gabe, hauen egitekoa, batzuetan, fedegabeei predikatzen dieten apostoluena bezain zaila baita betetzen.

Hitz batez, Elizaren alaba¹⁶⁴ izan nahi dut gure Ama Teresa santua izan zenez, eta gure Aita Santuaren asmoetarako otoiitz egin, haren asmoek mundu osoa hartzen dutela jakinik. Horra hor nire bizitzaren helburu orokorra. Baina hau ez zen eragozpen izango, apaiz izan balira, otoiitz egin eta era berezi batez nire aingerutxo maiteen ekintzekin bat egiteko. Bada, hona hemen nola elkartu naizen izpiritualki Jesusek nebatzat eman dizkidan apostoluekin: nirea den guztia haietariko bakoitzarena da¹⁶⁵. Ongi dakit Jainkoa *ona onegia* dena banaketetan aritzeko. Neurrigabe ematen dit eskatzen diodan guztia, hain da aberatsa... Baina ez uste izan, ene Ama, kontaketa luzeetan galtzen naizenik.

Lk 15,31

Bi neba hauek eta neure ahizpatxoak, nobiziak, ditudanez gero, arima bakoitzarentzat hark behar duena eskatu nahi banu eta guztia ongi zehaztu, egunak laburregiak izango lirateke eta gauza garrantzitsuren bat ahazteko beldur handia izango nuke. Arima tolesgabeek ez dute bitarteko korapilatsuak erabili beharrik. Ni haietariko bat naizenez gero, goiz batez, eskerrak ematean, Jesusek neure egitekoa betetzeko era *erraz* bat ekarri zidan burura. Kantarik Ederrenaren [34^a] hitz hauek ulertarazi zizkidan: "*Erakar nazazu, goazen korrika zure lurrinaren*¹⁶⁶ usainera".

Kt 1,3

Oi, Jesus! Ez dago esan beharrik ere: Ni erakartzean, erakar itzazu nik maite ditudan arimak ere. Nahikoa da hitz soil hau "Erakar nazazu". Ulertzen dut nik, Jauna: arima bat zure lurrinen usain hordigarriaz liluratua izan denean, ezin da bakarrik joan; maiteak dituen arima guztiak bere ondoren eramana dira. Hau indarrik gabe, behartu gabe egiten da, zureganantz duten berezko erakarpeneren ondorioz. Urjauzi bat itsasora indartsu oldartuz, bere bidean hartzen duen guztia bere ondorik eramaten duenez, era berean, oi ene Jesus!, zure maitasunaren mugagabeko itsasoan murgiltzen den arimak ere bere ondorik daramatza dituen altxor guztiak...

Jauna, badakizu nik ez daukadala beste altxorrik zuk nirearekin elkartu nahi izan dituzun arimak ezin ezik. Altxor hauek zeuk eman dizkizidazu. Horregatik azken arratsean, oraindik lurlean erromes eta hilkor ikusi zintuenekoan, Zeruko Aitari zuzendu zenizkion hitzak neure egitera ausartzen naiz. Jesus, ene Maitea, ez dakit noiz amaituko den nire erbestealdia... Oraindik gau batek baino gehiagok ikusi behar nau erbestean zure errukiak kantatzen. Baina, halako batean, iritsiko da niretzat ere azken arratsa¹⁶⁷. Orduan, oi ene Jainko, zuri hau esan ahal izatea nahi

Sal 88,2

le Cantique des cantiques (II. kapitulua, amaiera; Bouix, III, 318. or.), non «embrasser» irakur zitekeen; baina lerro batzuk beherago, hau irakur liteke: «Ce zèle apostolique qui les *embrase*». Eskuizkribuetan, *embraser* beste bost aldiz ikusten da (A Esk., 47ⁱ, 84^a; C Esk., 36^a, bi bider, 36ⁱ); *embrasser*, esangura honetan, hiru aldiz (B Esk., 3ⁱ, 4^a; C Esk., 33ⁱ).

¹⁶⁴ Avilako Teresak behin eta berriz esaten zuen hil-ohean zegoelarik: «Ni Elizaren alaba naiz» (ik. DSA 3, 15ⁱ eta *Récréations*, 331. or.).

¹⁶⁵ Ik. Lk 15, 31 (seme galduaren aita) eta *infra*, 34ⁱ.

¹⁶⁶ Ik. TG 137, 1^a; 259ⁱ; TO 18, 37.

¹⁶⁷ Hauxe da Teresari Azken Afariko hitzaldiaren parafrasia egiteko *ausardia* (edo *ausarkeria*, 34ⁱ) ematen diona, Jesusen otoiitza femininora egokituz errepikatzen duelarik (*envoyée* eta *aimée*) (Jn 17, 4, 6-9, 11, 13, 15-16, 20, 24, 23). Ik. TG 258, 1ⁱ.

Jn 17,4-24

izango nuke: “Goretsi zaitut nik munduan. Zuk eman didazun egitekoa bete dut. Eman diet zure izenaren berri zuk eman dizkidazunei. Zureak ziren, eta zuk neuri eman zenizkidan. Badakite orain zuk eman didazun guztia zuregandik datorrena; niri jakinarazi dizkidazun hitzak jakinarazi baitizkiet nik; haiek onartu dituzte, baita sinetsi ere zuk bidali nauzula. Zuk eman dizkidazunen alde erregutzen dizut, zureak direlako. [34ⁱ] Ni ez naiz aurrerantzean munduan egongo; haiek, ordea, bertan gelditzen dira, eta ni zuregana noa. Aita santu horrek, zaindu zeure izenagatik zuk eman dizkidazunak. Orain ni zuregana noa, eta oraindik munduan nagoela esaten dut hau, zuregandik datorren poza haiengan bete-betea izan dadin. Ez dizut eskatzen mundutik ateratzeko, gaitzetik babesteko baizik. Haiek ez dira mundukoak, neu ere mundukoa ez naizen bezala. Ez dut erregutzen haien alde soilik, baita beraien hitzaren bidez zuregan sinetsiko dutenen alde ere.

Ene Aita, zuk eman dizkidazunak ere ni egongo naizen lekuan nirekin egotea nahi dut, eta munduak jakin dezala maite izan dituzula, ni maite izan nauzun bezala”.

Lk 15,31

Bai, Jauna, horra hor zurekin batera errepikatu nahi nukeena, zure besoetara hegan egin orduko. Ausarkeria da, beharbada? Ez horixe. Aspaldidanik zurekin¹⁶⁸ ausarta izaten utzi didazu. Seme galduaren aitak seme nagusiarekin hitz egitean bezala, esan didazu: “Nirea den *guztia* zeurea¹⁶⁹ duzu”. Beraz, oi Jesus, zure hitzak neureak ditut, eta nirekin bat eginik dauden arimengana Zeruko Aitareen graziak erakartzeko erabil nitzake. Baina, Jauna, ni egongo naizen lekuan zuk eman dizkidazunak ere egotea nahi dudala esaten dudanean, eta hala izan bedi, ez dut inola ere egindakotzat eman nahi, niri ematea nahi duzun baino askozaz aintza handiagora haiek iristerik ez dutenik. Egunen batean guztiok zure Zeru ederrean bilduak egon gaitzela eskatu nahi dut soil-soilik. Zuk badakizu, oi ene Jainko, nik ez dudana sekula nahi izan zu maitatzea baizik; ez dut beste aintzarik irrikatzen. [35^a] Zure maitasunak aurrea hartu dit haurtzarotik, nirekin batera hazi da, eta orain haren sakona neurtu ezin dudana hondalea da. Maitasunak maitasuna erakartzen du; horregatik, ene Jesus, nire maitasuna zureganantz amiltzen da; erakartzen duen hondalea bete nahi luke, baina ai!, ez da itsasoan galdutako ihintz-tanta bat bera ere... Zuk maitatzen nauzun bezala maitatzeko, zeure maitasuna¹⁷⁰ bera eskatu beharko nizuke maileguz. Orduantxe soilik gelditzen naiz lasai.

Jn 17,23

Oi, ene Jesus! Beharbada, begitazioa izango da, baina uste dut ezin duzula maitasunez gehiago bete arima bat nirea bete duzuna baino. Horregatik, niri eman dizkidazunak ni maitatu nauzun bezala maita ditzazula eskatzera ausartzen naiz. Egunen batean, Zeruan, ni baino gehiago maitatu dituzula ikusiko banu, poztu egin-

¹⁶⁸ Ausardia: Teresak Jainkoarekin, Jesusekin, dituen harremanetako berezitasunetarikoa bat; hala ere, Teresa oso zorrotza da bere *nagusiei dien obedientzian*... Oso indar handiz erabiltzen du adierazpen hau bederatzia aldiz: A Esk., 48^a; B Esk., 3ⁱ, 5^a; C Esk., 36^a; TG 201, 2^a; 247, 2^a; TO 44, 8; 48, 4, hauei *audacieux* adjektiboa, sei aldiz asanahi berean datorrena, gehitu behar zaie.

¹⁶⁹ Teresak beretzat hartzen du bere Senarrari dagokion guztia (ik. *supra*, 34^a); baina bere ausardian Joan Gurutzekoaren laguntza du, testu bera okerbiderik gabeko iruzkin batekin aipatzen baitu (*Maitasun-gar bizia*, III, 6. ahapaldia, 287 eta ondorengo orrialdeak).

¹⁷⁰ Ik. Joan Gurutzekoa, CS, XXXVIII. ahapaldia, 85. or., eta *Maitasun-gar bizia*, III. ahapaldia, 5-6, 291. or.

go nintzateke, oraintxerik aitortuz arima hauek nireak baino askoz gehiago merezi dutela zure maitasuna. Baina hemen behean ezin dut buruan sartu maitasun-neurri-gabetasun handiagorik zuk niri dohainik, nire aldetiko inolako meriturik gabe, ematea nahi izan duzuna baino.

Erm 3,24

Ene Ama maite hori, azkenik zuregana bihurtzen naiz. Zeharo harriturik nago idatzi berri dudana, ez bainuen halako asmorik. Idatzia dagoenez gero, horrela utzi beharko da. Baina nire neben kontaktari berriro ekin orduko, esan nahi dizut, ene Ama, haientzat ez direla, nire ahizpatxoentzat baizik Ebanjeliotik hartutako lehenengo hitzak: Zuk niri jakinarazi dizkidazun hitzak jakinarazi dizkiet nik haiei, etab., ez baitut misiolari batzuei irakasteko gai ikusten neure burua. Zorionez, oraindik ez naiz horretarainoko buruiritzia! Ezta ez nintzen [35¹] neure ahizpei aholku batzuk emateko ere gai izango, zuk, ene Ama, Jainko onaren ordezeko zaitudan horrek, hartarako grazia eman ez bazenida.

Jn 17,8

Nire neba diren zure seme izpiritual maiteengan pentsatzen nuen, ordea, Jesusen hitz hauek eta ondoren datozenak idazterakoan: – “Ez dizut eskatzen mundutik ateratzeko... Hauei esaten entzunez zuregan sinetsiko dutenen alde ere eskatzen dizut”. Izan ere, nola ez egin otoitz misio-lurralde urrunetan haiek sufrimenduz eta predikuz salbatuko dituzten arimen alde?

Jn 17,15,20

Ene Ama, uste dut oraindik azalpen batzuk eman behar dizkizudala Kantarik Ederrenaren pasarteari buruz: – “Erakar nazazu, goazen korrika”, esan nahi dudana ez dela hain ulergarria uste baitut. “Inor ezin daiteke etorri niregana, esan zuen Jesusek, bidali nauen *nire Aitak* erakartzen ez badu”. Gero, parabola bikainen bidez, eta, batzuetan, herriari hain ezagun zitzaion bide hau erabili gabe, irakasten digu nahikoa dela hots egitea irekitzeko, bilatzea aurkitzeko, eta eskua apalki luzatzea eskatzen dena jasotzeko... *Bere Aitari* bere izenean eskatzen zaion guztia eman egiten duela hark ere badio. Zalantzarik gabe horregatik diktatu zuen Espiritu Santuak, Jesusen jaiotza aurretik, esaldi profetiko hau: “Erakar nazazu, goazen korrika”.

Kt 1,3

Jn 6,44

Lk 11,9,13

Jn 16,23

Zer da, bada, *erakarria* izateko eskatzea, bihotza liluratzen duen harekin era estu-estuan¹⁷¹ elkartzeko eskatzea izan ezik? Suak eta burdinak ezaguerarik balute, eta azken honek besteari esango balio: erakar nazazu, ez ote luke erakutsiko hark suarekin bat egitea nahi duela, suak barne-barneraino hartzea, [36⁸] haren substantzia¹⁷² erretzaileak hartzea, harekin gauza bat baizik ez dela egiten emateraino? Ama maite-maite hori, hona nire otoitza. Jesusi eskatzen diot bere maitasunaren garretara erakar nazala; berarekin hain estu bil nazala, non bera izan dadila niregan bizi eta lan dagiena. Badakit maitasunaren suak bihotza zenbat eta gehiago kiskaltzen didan, hainbat bizikiago esango dudala: Erakar nazazu. Eta arimak zenbat eta gehiago hurbildu niregana (burdin zatitxo ezereza, jainko-sutegitik alden-

Ga 2,20

¹⁷¹ Jainkoarekiko harremanak, kontaktua, zerbitzua eta karitatea jorratzen dituen *parabola* errazen ondoren, Teresak ingurune mistikora jotzen du, “*suarekin bat egin nahi duen burdinaren*” konparazioarekin.

¹⁷² Ik. Arminjon, CTn aipaturiko testua, eta VTra aldatua den, 79. zk.ra, 220. or.ra; *Maitasun-gar bizia*, I. kapitulua, 6; 159 eta 161. orr.

duko banintz), hainbat arinago korrituko dute euren Maitearen lurrinen usainaren atzetik.

Maitasunez kiskalia den arima bat ezin daitekeelako geldi egon¹⁷³. Santa Madalenaren antzera, noski, hark Jesusen oinetan irauten du, haren hitz gozo eta gartsua entzuten du. Ez duela ezer ematen dirudien arren, gauza askotan arduratzen zen eta bere ahizpak bera imitatzea nahi lukeen Martak baino askoz ere gehiago ematen du hark. Ez ziren Martaren lanak Jesusek gaitzesten dituenak. Lan hauetan jardun zuen apalki bizitza osoan bere jainko-Amak, Familia Santuaren janaria pres-tatu beharra zuen-eta. Jesusek zuzendu nahi lukeen gauza bakarra bere ostalari sutsuaren¹⁷⁴ ezinegona zen. Santu guztiek ulertu dute eta batez ere, beharbada, Eban-jelioaren doktrinaren argiz unibertsoa bete dutenak. Ez ote zen otoitzean¹⁷⁵ izan santuek Paulok, Augustinek, Joan Gurutzekoak, Tomas Aquinokoak, Frantziskok, Domingok eta beste Jainkoaren adiskide argi askok juniorik handienak liluratzen dituen jainko-zientzia hura edan zutena? Jakintsu batek esan du: "Emaidazue palanka bat, euste-puntu bat, eta mundua jasoko dut". Arkimedes-ek lortu ezin izan zuena, haren eskaria Jainkoari zuzendua ez zelako eta, gainera, ikuspegi materialetik egina zelako, santuek lortu dute [36ⁱ] bete-betean. Ahalguztidunak euste-puntu bat eman die: *Berbera, bera bakarrik*. Jasotzeko, maitasun-suaz erretzen duen otoitza. Eta horrela jaso dute mundua. Eta horrela jasotzen ari dira lurreko santuak eta horrela jasoko dute, munduaren azkenera arte, etorriko diren santuek ere.

Kt 1,3 Ene Ama maitea, orain Maitearen lurrinen usaina nik nola ulertzen dudan esan nahi nizuke. – Jesus Zerura igo denez gero, nik ezin niezaioke hari jarraitu utzi dituen oinatzetatik izan ezik. Baina bai argitsuak, bai lurrintsuak direla oinatz horiek! Ebanjelio santuan begiak ezarri orduko¹⁷⁶, berehala hartzen dut Jesusen bizitzaren usain gozoa eta badakit zein aldetatik korritu... Ez naiz lehiatzen lehen tokia hartzera, azkenengoa hartzera baizik¹⁷⁷. Fariseoarekin batera aurreratu beharrean, uste onez beterik errepikatzen dut zergalariaren otoitz apala. Baina, batez ere, Madalenaren jokaera imitatzen dut; haren ausardia harrigarria, edo hobeki esan, Jesusen bihotza liluratzen duen eta nirea zorutzen duen haren ausardia amoltsua¹⁷⁸. Bai, ni ziur nago egin daitezkeen bekatu guztiak neure kontzientziaren gain banitu ere, bihotza damuaren damuz urraturik joango nintzatekeela Jesusen besoetan neure burua uztera, berarengana¹⁷⁹ itzultzen den seme galdua¹⁸⁰ zein maite duen ongi

¹⁷³ Avilako Teresaren pentsamendu baten aipamena.

¹⁷⁴ Hitz honen ondoren, testua arkatzez idatzita dago. Uztailaren 8an, Teresa gaixotegira eramango zuten. Berak, artean, lerro batzuk idatziko ditu, baina ahuldurak ez dio uzten eskuizkribua amaitzen. Litekeena da aurretiko orrialdeetan arkatzez egindako zuzenketak garai honetakoak izatea (ik. MS/NEC, 36^a, 15 +).

¹⁷⁵ "Otoitza" da Teresaren azken hitza, bera baita Jainkoarekin bat egiteko bidea, eta «mundua eraikitzen duen» palanka.

¹⁷⁶ «Oinatz argitsu, lurrintsuak», «Jesusen bizitzako usain gozoak». Teresak hil arte izango dio Jesusi maitasun sentibera (edo sentimenduz harantzago dagoena) eta miretsia. Honetan, beste gauza askotan bezala, Joan Gurutzekoagana hurbiltzen da (*Maitasun-gar bizia*, III. ahapaldia, 3, 229. or.; ik. A Esk., 47^b; C Esk., 34^a).

¹⁷⁷ Ik. Otoi. 20, 1897/7/16koa; TO 29, 8; TG 243^a/_f; DSA 8, 2ⁱ; eta BT 218. or.).

¹⁷⁸ Ik. TG 247, 2^a, 1897/6/21ekoa.

¹⁷⁹ Ik. Maria Hirutasunaren lekukotasuna (PO, 455. or., eta VT, 73. zk., 67. or.).

dakit-eta. Ez da izan Jainko onak, bere errukiaz *aurre harturik*, nire arima bekatu astunetik¹⁸¹ gorde duelako ni harengana [37^a] igotzea, konfiantza eta maitasunagatik baizik¹⁸².

¹⁸⁰ *L'Histoire d'une Amek* [Arima baten Historiak] hiru pasarte berezko dakartza hemen, jatorria KH 11. VII. 6.-an dutenak. Hortaz, Teresak eskaturik, ama Ainesek «*L'histoire de la pécheresse convertie qui est morte d'amour*» kontatuko du, PO-n eta *Novissima Verban*, ama Ainesen ondoko oharra-ekin datorrelarik: «Hona hemen berak hitzez hitz esan zidan pasartea:

Non, personne ne pourrait m'effrayer; car je sais à quoi m'en tenir sur son amour et sa miséricorde. Je sais que toute cette multitude d'offenses s'abîmerait en un clin d'œil, comme une goutte d'eau dans un brasier ardent.


Il est rapporté dans la Vie des Pères du désert, que l'un d'eux convertit une pécheresse publique dont les désordres scandalisaient une contrée entière. Cette pécheresse, touchée de la grâce, suivait le saint dans le désert por accomplir une rigoureuse pénitence, quand, la première nuit du voyage, avant même d'être rendue au lieu de sa retraite, ses liens mortels furent brisés par l'impétuosité de son repentir plein d'amour: et le solitaire vit au même instant son âme portée par les Anges dans le sein de Dieu. Voilà un exemple bien frappant de ce que je voudrais dire, mais choses en peuvent s'exprimer...» Jatorrizko testua *Gehigarrian* aurkitzen da, *Vies des Pères des déserts d'Oriente*-tik hartua.

¹⁸¹ Teresak hemen, zalantzarik gabe, aita Pichon-en adierazpen solemnari buruz dihardu (A Esk., 70^a), baina bere azken mezua indartzeko, hau da, egin zitezkeen «*bekatu guztiak*» egin dituela baleki ere, bere burua Jesusen besoetara jaurtiko zuela.

¹⁸² Ik. KH 12. VIII. 2, Bellière apaizgaiaren argazki bat dela-eta.



GUTUNAK



GUTUNEI SARRERA

1. BERROGEITA HAMAR URTETAN

Hamabost urtetan ia berrehun mila alera iritsi zen *Arima baten historiak ez bezala* (1898), Teresa Jesus Haurrenaren Gutunek berrogeita hamar urte itxaron behar izan dute (1948) oso-osorik argitaratuak izateko. Ordura arte irakurleek zati hautatuen kopuru mugatua izan zuten bakarrik eskueran:

“Teresaren ahizpek, testu hauek, oinarritzko liburua zen -eta hala izaten jarraitzen duen- *Arima baten historiaren* osagarri egokitzat soilik harturik, ideia eredugarrien sorta bezala erabili zituzten, eta zilegi iruditu zitzairen handik pasarte batzuk ateratzea, Autobiografiak finkaturiko funtsezko jarrerak argitu eta zehazteko onuragarriak. Ikuspuntu honetatik eskutitz bakoitzaren kronologiak, testuaren egoera jatorrak edo osotasun zorrotzak ez zuten garrantzirik. Eskutitz ezberdinetakoa esaldiak, gai bati buruzkoak, batzuetan data bakarraren azpian elkartzea ere ezerk ez zuela eragozten zirudien” (André Combes, *Lettres*, 1948, Hitzaurrea, XXII.or.).

Honela, Zelinari idatziriko eskutitzen hemezortzi zati argitaratu ziren 1898an, bilduma aberastu egin zen hurrengo argitalpenetan, 1907an berrogeita zazpi zati izatera iritsiz, eta berrogeita hamaika izatera 1910ean. Oso gutxi da hau, kanonizazio prozesurako urte honetan bertan egindako Kopia egiaztatuak, eskutitzetan bakarrik, ehun eta laurogeita lau folio baino gutxiago ez dituela kontuan izanik. Hogeita hamar urtetan argitalpen egoera ez da aldatuko.

2. GUTUNEN LEHENENGO ARGITALPENA

1947ko Teresaren heriotzaren berrogeita hamargarren urteurrenak, hura 1944an Frantziako zaindari izendatzeak,ugar berria piztu zuten hari buruz. Historialari bat agertzen da orduan, André Combes¹ apaiza, eraspén honen doktrina-

¹ André Combes (1899-1969), Teologian doktorea eta Letretan doktorea, aszetika eta mistikako irakaslea Parisko Institutu Katolikoan, CNRS-en ikerketako maisu; 1960an Aita Santuaren etxeko prelatu izendatua.

garrantzia argitara ateratzeko arduraz. Baina ez da doktrinarik bizitzatik kanpo, ez da teologiarik historiatik berezita.

Dokumentazio egokia eskatuko dio, beraz, Karmel-i, eta, artxibozainaren bidez, 1946an hirurogeita hamazazpi urte dituen Jenofa ahizparekin elkarrekiko bidean -askotan bide zaillean, baina beti emankorrean- Eskutitzen argitalpenaren etapa garrantzitsua irekiko die ikerketa teresiarrei .

Laster ohartzen da, edozein ibilbide izpiritualen oinarria den kronologia ezartzeko, datuak falta zaizkiola: “Santa Teresaren mireslerik gehienen gogoan zehaztasunik eza da nagusi gertakarien hurrenkerari buruz eta bizitza eta idazkien arteko loturari buruz; testu argitaratuek, ostera, lotura hau uste baino askozaz zehatzago ezartzeko bide ematen dute” (1946/1/25ko eskutitza). Eskutitzen argitalpen osoa, beraz, geroko edozein aurrerakuntzatarako ezinbesteko baldintza bezala ikusten du.

“Lortu nahi dudana -idazten du gainera- Teresaren pentsamenduaren mugimendua bera da haren bizi-erreakzioetan, bai kanpotiko eraginean aurrean, bai bere berezko garapenaren, bere grazia berezien, bere proben barne-bizipenaren aurrean. Hau da bide bakarra, nire ustez, Teresa bera aurkitzeko, Jainkoak betikotasunetik hartaz zeukan ideia nabaratu zehar mamitu duen Teresa aurkitzeko (...). Hori lortzeko era bakarra, horra iristea itxaron daitekeen heinean, agiri guztiak berriro hartzea da ikuspuntu honetatik ikertzeko. Idatzi duen guztia. Hark bere burua ikusi duen bezala ikusi. Bestek ikusi duten bezala ikusi. Bi iturriok bata bestearen osagari egin. Nabardura guztiak aintzat hartu” (1946/10/2ko eskutitza).

Combes apaiza ahizpa Jenofa konbentzitzera iritsiko da, pausukako borrokan, Teresaren eskutitz *guztiak* eman diezaizkion, haurtzaroko txartelak ere bai, argitalpen “zehatz eta osoa” egiteko, egitura kronologikoa zainduz. Aurrerapen erabakigarria izango den liburu hau 1948ko irailaren 30an irtengo da inprimategitik, *Arima baten historia* lehenengoz irten zenetik mende erdi geroago doi-doi.

3. “SINFONIA TERESIARRA”

Jenofa ahizpari egindako funtsezko eskutitz batean (1947/9/11), Combes apaizak Lisieux-ko Teresaren Gutunen (eta orokorki testu guztien) argitalpen osoaren garrantzia erakutsi zuen:

“Hain zuzen ere, Teresa santua delako eta jubileu urte honetatik aurrera izpiritualitatearen historian leku handiagoa hartuko duelako, izaki apartak diren guztiei gertatutakoa gertatzen zaio. Haren bizitza eta lanen alderdi guztiez arduratzen da historia, eta haren lumatik irtendako guztia argitara dezake (...) Hau ezin daiteke baztertu, eta oso ondo ulertzen da. Santua denez gero, haren bizitza osoak du eredutasun-balioa, eta haren bizitza ongi ulertzen dela ziurtatzeko, zehaztasun guztiak jakin behar dira. Hortik idazki *guztien* argitalpen hauek. Hortik nire ekina zure ahizpatxo Santuaren eskutitz guztiak, txartel guztiak ager daitezen. Santurik handienak bezala hartu behar zen. (...)

1. Santu batengan, ez dago ezer ere hutsalik. Liburu Santuetan ere, zenbat zati kenduko genituzkeen Jaunak iritzia eskatu baligu! Eta zein oker jokatuko genukeen! Jainkoaren egintza den bezala hartu behar da, eta gogoan erabili sakonki ulertzeko gai izan arte eta ikasbide egokiak atera.

2. Teresaz, arreta handia izan behar da. Hutsala dirudiena (batez ere dena dakien, idatzita dagoen guztia baino askoz gehiago dakien Zelinaren begitako) historiarako onuraz beterikoa izan daiteke, 'euren mailako' aurkituko dutenaren aurrean sentikorrek izango diren arima xumeen ikasbiderako. Hortik behingoan ikusiko dute Teresa beraiek bezala bizi izan dela, ez zebilela beti hegaz Arranoaren hegotean, eta pixkanaka erakarriak izango dira.

3. Areago oraindik, 'ezer ez diotela eta' nahigabetu egiten zaituzten esku-titz hauek historiak ustekabeko onuraz erabiliko ditu. Berariaz ditut gogoan Italiako nahiz Erromako eskutitz hauek, bidaiari nahiz harremaneko pertsoneri buruz gauza bizirik edo bitxirik ez dakartenak. Penagarri ote da? Guztiz alde-rantziz. Gorengo garrantzia duen agiria dugu, aita Ubald-en aburu zaharra, Van der Meersch-ek² orain berritua, gezurtatzeko. Teresa hor behar ez den guztitik, okertu zezakeen guztitik hain aske agertzen denez gero, hain bildua bere ardu-ra bakarrean, bere bokazioan, eta bere audientzian, nik oso indartsu erantzun ahal izango diet amateur horiei guztiei: 'Holako eskutitzen egilea ez zen noski gaztetxo arina, zuek zalantzarik gabe deskribatzen duzuen pottoka izu ihes joana. Arima barne-bildu eta sakona zen, eta jostaldi batek ere ezin ziezaioke-en benetan haginkarik egin'. *Arima baten historia*-ren kontaketa askoz koloretsuago eta bitxiagoa izanez, oreka ezarri ahal izango da, eta egiari berea emango zaio (...)

Harrigarri ote da haur batek haur-eskutitzak idaztea? Alderantzizkoa izango litzateke arduragarria! (...) Guztia amaitu daitenean, harribitxiak euren distira aurkituko dute. (...) Sinfonia lehenengo konpasetan eteten bada, noraezean gaude, ez da ulertzen egileak nora joan nahi duen... Baina bukatu arte itxaroten bada, musikariari gaiak sartu eta azkenera arte garatzen uzte bazaio, orduan bai ulertzen dugu, lilurata geratzen gara, harriduraz birloraturik.

Sinfonia teresiarraren egilea Teresa da, baina batez ere Jesus bera da. 'Bere liraxoa' gertatzeko denpora utzi behar zaio, bere bihotzaren taupadekin bateratze-ko. Lira gertu dagokeenean, haiek bai doinuak! Baina zer preludeioak baino zirrara-garriagorik, eta zer jainkozkoagorik! Zenbat eta apalago iruditu, hainbat eta *benetakoagoak*.

Azkenez, ez dezagun ahaztu Eskutitzak osotasun baten parte direna. *Arima baten historiarekin* eta *Olerkiekin* osatu behar dira. Orduan, ziur diotsut, dena jar-tzen da bere lekuan, eta ez dago arima paregabe honen dirdiraz huts egiteko arris-kurik"³.

4. "GUTUN-HARREMAN OROKORRA"

Gutunen berrargitalpena beharrezko egin zenean, 1962an -lehenengoa agortua zenez gero- idazki jatorrei buruzko zintzotasun literalaren irizpideak ez zuen honezkero eragozpenik (Aita Frantzisko Santa Mariarenak argitaratuak zituen, 1956an, faksimilez, *Eskuizkribu autobiografiakoak*, hurrengo urtean irakurle-go

² Ik. *La petite Sainte Thérèse* (Paris, 1947).

³ Ik. gutun honen testu osoagoa CG, 46-48. orr.

arrantentzako argitalpenean, eta Teresaren argazki benetakoak *Lisieux-ko Teresaren aurpegia* liburuan, 1961ean).

Lehenengo asmoa apala zen: “argitalpen berrikusia eta orraztua” soilik. Baina iturrien zerrendak arazo kritikoa agertarazi zuen Teresaren eskutitzei buruz, eta ez autobiografiaren testuena baino korapilo gutxiagokoa (ik. gorago *Eskuizkribu autobiografikoei* sarrera).

Bestalde, Ama Aines Jesusenaren heriotzaz (1951) eta Jenofa ahizparenaz (1959) historiak perspektiba irabazi zuen, horrela oparoenetakoa zen sendi-dokumentaziorako atea irekitzen zen, eta honek guztiak zabalera handiko argitalpena prestatzea ahalbideratzen zuen: Teresaren Gutunak, Combes apaizak nekez ikusi zituen originalekin zehazki alderatu eta orraztuak, etaaldi berean haren hartzaileek eta hauen artekoak.

Hau izan zen *Correspondance Générale*, 1972an agertua, Lisieux-ko Teresaren jaiotzaren mendeurrena baino bi urte lehenagokoa. Horrela Santak bere harreman bizien sarea aurkitzen zuen berriro, eta hor haren nortasunak, hurragotik begituz, bere benetako neurria hartzen du. Ale honetako Gutunena atala kritika-lan honen ondorioa da.

5. TERESA ETA HONEN GUTUNEN HARTZAILEAK

Teresaren korrespondentziak 266 eskutitz eta txartel hartzen ditu, hauetarik 227 eskuidatzi gordetzen dira⁴. Hogei urteko aldea ozta-ozta, 1877ko apirilaren 4tik 1897ko abuztuaren 24ra, neskatxo moldakaitz baten lehenengo papera eta bere hil-ohena Santa batek idatzitako azkenengo gutun erdiragarria.

Baliotsua bai baliotsua izan arren, bilduma honek ez du Teresaren eskutitz-ekintza osoa hartzen. Galdu diren eskutitzak heren bat direla jo daiteke: iritzi hau datuetatik, tradizioetik edota hipotesi bidez ateratzen da. Galerarik mingarrienetakoen artean Kanadara, aita Pichon-i bidalitako gutxienez berrogeita hamar eskutitz dira, hilero idazten baitzion.

Famili giro nahiko itxian hezia, “mundutik aldentzea” indartsu markatzen duen Orden erlijioso baten hamabost urtekin sartua, hogeita lau urtekin hila, egunen batez Pio XI.ak “munduaren haur kutuna” deituko dionak, bizi zela harreman-sail nahiko mugatua ezagutu zuen. Haren eskutitzek errealitate hau isladatzen dute. Familiak berak bakarrik %78 hartzen ditu, familia erlijiosoak -haren hiru ahizpa karmeldarrak kenduta- ozta-ozta %10 batzen ditu. Gainerakoak hamabi hartzailearen artean banatzen dira: zazpi elizgizon, hiru lekaime, bi adiskide.

Amaren eta ahizpa zaharrenen jarraibideak, eta baita Zelinarenak ere, -luma errazduak denak- zirikaturik, Teresak oso laster erakusten du idatziz komunikatzeko irrika. Ingurukoak nekaratzen ditu lagun diezaioten (TG 3, 6, 7).

Paulina karmelen sartzeaz, 1882ko urriaren 2an, eta hortik haurraren geratzen den bere baitan biltzeaz, komunikazioa oztopaturik dirudi. Teresak “hautsi egin behar du burua” Guérin andrearen esanetan (LD 524, 1885/5/4, CG, 188.or.),

⁴ Teresaren gutunena historia gorabeheratsurako, haien iturri eta argitalpenetarako *Correspondance générale*-ko sarreran, 20-88. orr. ikus daiteke.

gehienetan zirriborro-papera erabiltzen du, baita Maria lehengusinari idazteko ere (ik. TG 19).

Barne-eragozpena hor dago 1886ko Gaboneko askapen ez-ohizkoaren ondoren ere, bere sakoneko bizitza zabaldu behar duenean (TG 28, 36). Karmelen, 1888-1890, ahizpa Aines Jesusenaren zirriborro-papertxo bat ondo etorria izan daiteke oraindik kasurik zailenetan (TG 70, 112).

Zelinarekiko gutun-harremanetan agertzen da lasterren erraztasuna (ik. TG 96, eta 1891-1892 urteak). Baina 1893ra arte itzaron behar da Teresak heriotzara arte hobetuz joango den adierazpen-dohaina iritsi dezan. Ordurik Karmeleko Legeak et nagusien aginduek ezarritako mugen barruan (ik. C Esk., 32ⁱ, 6) pozik eta luze idazten du.

Ohar gaitzen honetaz: Karmelen hartu eta emaniko txartelak kenduz -eta nagusiaren baimena behar da horretarako- Teresaren eskutitz gutxi izan dira hauen hartzaileek bakarrik irakurriak. Buissonnets-en ez zen bakarreko eskutitzik. Karmelen, kanpotiko mezu guztiak nagusiak irakurtzen ditu, garai hartako ohitura zenez, eta, baten baino gehiagotan, haren ahizpa zaharrenek ere bai. Besteak sartze honek izan ote du eraginik eskutitzen idazkeran? Haren lekaime-bizitzako lehenengo aldietan, izan daiteke baietz: Aines Jesusenari egindako txartel batzuetan hala ageri da (TG 54, 55, 76, 78, 95 etab). Baina laster, noski Jainkoaren aurrean bakarrik bere egian jarri zelako, halako askatasuna lortzen du, eta hirugarren pertsonaren bat sartzeak ez du haren adierazpen-askatasunean inolako eraginik izango.

* * *

Telefonoa erabiltzea (1876an asmatua) oraindik gutxi hedatua zen garaian, eskutitzak garrantzitsuak dira Martin/Guérin bezain ongi elkaturiko familietan. Kanpoko nahiz itsas-ertzeko oporraldi laburrek, areago Italicako bidaldi ez-ohizkoak, 1887, eskutitz-ekintza etengabea sortzen dute. Teresa familiaren jokabideari egokitzen zaio.

Baina batez ere Karmelgo klausurak markatzen du hartzaileen arteko muga, Martin ahizpak eta Maria Guérin elkarren ondoren han sartzeak familiako kideak banatu nahiz elkartu egiten dituzten ariora.

Honela, 1888ko apirilaren 9tik aurrera Teresak ez du bi ahizpa zaharrenei idatzi beharrik, haiekin elkartzen da Karmelen eta. Ama Maria Gonzagarenaren baimena du haiei txartelak zuzentzeko lekaime jantzia hartu aurreko (1889ko urtarilaren 10ean) eta profesarako (1890eko irailaren 8an) gogo-jardunetan, edo haien bakarreko gogo-jardunetan (1888-1890), ondoren ia isiltasun osoan sartzen da 1896aren azkenera arte. Jarraian txartel alaiaren bidez bere osasun-egoera estaltzen ahaleginduko da.

Besterik da *Martin jaunarekin*. Aitari eginiko Teresa karmeldarraren eskutitzak, guztiak nobiziagai zen garaikoak badira, bere "Errege kutunaren" burutiko gaixoak elkarriketa bat-batean eten duelako da. 1888tik aurrera, gainera, bere eskutitzak gizon gutxituari zuzentzen dizkio. 1889ko maiatzean ez al du esaten: "*Aita Jainko onaren haurtxoa da*"? (TG 91ⁱ).

Zelina da Teresaren eskutitz-hartzaile pribilejiatua beraren "erbestaldiko" sei urteetan, Karmelen sartu aurretik. Bere santu-eguna eta urtebetetzeak hurbiltzean utzi egiten du hark asteroko ikustaldia "bere" eskutitzaren eskubidea ziurtatzeko.

1889ko otsaila-maiatza hilabete kritikoez eta 1893ko udak markatzen dituzte aldi indartsuak harreman hauetan.

Bisitazioko lekaimetan izan zen bi urteetara arte (1893-1895), hemen hamaika eskutitz jasotzen dituelarik, Leoniak ahaztuaren antza izan lezake, berak ahizparen eskutitzak apurtu egin zituela jakinarazi ez baligu. Hala ere, egia da Teresak "ez duela astirik" hari idazteko (TG 105, 122) edo "aholkuak" ematen dizkio bitartekoz (LT 85). Baina 1896-1897an Teresak gainerakoekin bezala dihardu ebanjelioko "bidetxoko" bezero ideal honekin.

Guérin familiari eginiko ohizko santu-egun eta urteberriko zorionek ez dute Teresa inspiratzen. Mariaren beharrian izpiritualek, ostera, hiltun bihurtzen dute (1889-1890). Hau Karmelen sartu ondoren (1895/8/15), bakanago idazten die osaba-izebei.

1896-1897an, famili-ingurua bikoiztu egiten da harentzat familia izpiritual batekin: Ama Maria Gonzagarenak bere zainpean jarri dizkion *nobiziak* (sei eskutitz) eta bi *misolariak*, aita Roulland eta Bellière apaizgaia (hamaika eskutitz), priorea ere hauekin eskutitz-harremanetan sartzen delarik. Karmeldar gazteak oso gutun ederrak idazten dizkie, eta batez ere Bellière apaizgaiari buruz, haren eskaintza heroitasunera heltzen da azken asteetan.

6. ESPIRITUAK ERAMANA

Eskutitz hauen gorabeherak edonor harritzeko erakoak dira. Hamasei urteko nobiziak, aldi berean, lerro kolorgeak idatz diezaizkioke Guérin izebari bere santu-egunean zorionak emateko, eta laster Aita Santu Pio X.arentzat miresgarri izango den aholku-eskutitza bidali Maria lehengusinari. Hogeita lau urtekin, gai-xorik, osabaren begietan "neskatxo on bat" da oraindik ere, gora handirik gabeko gutunak idazten dituena; bere nobiziei eta neba izpiritualei, ostera, berak bakarrik, Espirituak gidatuta aurkitu duen "*konfiantza eta maitasun*" bidea irakasten dihardu.

Ezer ere ez engainagarriagorik bizitzako monotonian murgilduz ohartzeko igarotzen den xumetasun hau baino. Santutasuna goren-gorena den zerbait izatea nahiko genuke. Ez da guztia honelakoa, sarritan presaka idatzitako txartel hauetan. Baina ezkutuko bizitza honetan benetan gertatzen dena ulertzen jakin behar da eta gertakaririk kaskarrenetan gordetzen den maitasun-indarra, haiei betikotasun-dimentsioa ematen diena, aurkitzen. *Azken Elkarrizketek* osotasuna lortu duen izakiaren bizia, heriotzaren aurrez aurre, erakusten diguten bitartean, Teresaren Gutunek maitasun neurrigabea bilatzen duen biziaren dinamismoa adierazten dute.

"Bai altxor baliotsua eskutitz hauek, haren historiaren osagarri!!!", idazten zion Bellière apaizgaiak Ama Maria Gonzagarenari 1898ko azaroaren 24an. Ongi ikusi zuen apaizgaiak hainbat eskutitzek *Arima baten historia* osatzen zutela, Teresak bere oroipenetan lasterka igarotzen zituen aldien hutsuneak betez. Gainera, B Eskuizkribua bi eskutitzez osatua da, bata Maria Bihotz Sakratuarenari zuzendua, bestea Jesusi zuzenduaz. Honela Teresaren Gutunek benetako biografia baten gaiak ematen dizkigute, *Eskuizkribu autobiografikoetatik* ezin bereizi daitezkeenak.

“Erraldoi-lasterketa” hor gertatzen da, itxarroteak, irrikak, sufrimentuak baztertzen ez dituen ibilbide bikain-bikaina, baina lehenengo eta behin helburua lortzeko itxaropenez beteriko ausardia tinkoa adierazten du: Maitasun errukitsua; Teresak bizitzako aldi guztietan du Haren bizikizuna eta bere inguruan agertu nahi du.



LEHENENGO AROA

HAURTZAROA

(1877ko apirila - 1886ko azaroa)



TG 1**Luisa Madalenari**

1877-IV-4

Neure Luisatxo maitea¹ :

Ez zaitut ezagutzen baina hala ere asko maite zaitut. Paulinak eskatu dit zuri idazteko eta bere magalean hartu nau, ez dakidalako portalumari neuk bakarrik eusten. Alfertxoa naizela esan diezazudan nahi du baina ez da egia, egun osoa lanean jarduten baitut, neure ahizpatxoei bihurrikeriak egiten; bueno, beti barrezka dagoen deabrutxoa naiz. Agur nire Luisatxo, musu handi bat bidaltzen dizut. Besarkatu nire izenean Bisitazioa, hau da, nire ahizpa Maria Luisa² eta nire ahizpa Luisa Gonzagarena³, beste inor ez baitut ezagutzen.

Teresa

TG 2**Joana eta Maria Guérin-i**

1877-IV-12

Neure lehengusinatxo maiteak:

Zelinak idazten dizuenetz gero, neuk ere idatzi nahi dizuet bihotz-bihotzez maite zaituztedala esateko. Oso gogoko nuke zuek ikustea eta besarkatzea.

Agur nire lehengusinatxo maiteak; Mariak ez du nire eskua zuzendu nahi eta nik ez dakit bakarrik idazten.

Teresa

¹ Luisa Madalena (1860-1939), Mans-eko Bisitazioko Paulinaren barnetegiko laguna.

² Ahizpa Maria Luisa Vallée (1841-1903), Paulinaren andereñorik gogokoenetarikoa. Ik. TG 160.

³ Ahizpa Maria Luisa Gonzagarena Vétillart (1849-1884), barnetegiko zuzendaria.

TG 3

1877-VI-10/17

Mariari¹

Neure Maritxo maitea:

Bihotz-bihotzez besarkatzen zaitut, baita Paulina ere.

Teresa

TG 4

1877-IX-16

Maria Guérin-i

Neure Maritxo maitea¹ :

Bihotz-bihotzez besarkatzen zaitut. Zure eskutitza asko gustatu zait. Benetan pozten nau Lisieux-era joateak.

Zure lehengusinatxo
Teresa

TG 5

1878-VI-26

Paulinari

Lisieux, 1878ko Ekainak 26

Neure Paulina¹ maitea:

Maria Guérin landa aldean² dago astelehenaz gero baina ni oso ongi jostatzen naiz neure izebarekin. Galtzerdi grisak erosten izan nintzen izebarekin eta dendariak bitxi batzuk eman zizkidan. Horiekin eraztuna egin dut.

Agur nire Paulinatxo, patxo bana aita eta Mariari neure partez. Bihotz-bihotzez besarkatzen zaitut

Zure ahizpatxo
Teresa

¹ Mariak ikasle ohien bakarraldian parte hartzen du, Mans-en. Zortzi urteko Zelina da bere ahizparen eskua gidatzen duena.

¹ Paulinak orri ertzean zera idazten du: "Teresa da gutunari hitzak jarri dizkiona, nik eskua gidatuko diot idazteko bakarrik".

¹ Paulina eta Maria Parisen daude beren aitarekin Erakusketa batean. Izeba Guérin dago Teresaren kargu.

² Lisieux-etik hamarren bat kilometrotara aurkitzen den Saint-Ouen-le-Pin-en. Teresak behin baino gehiagotan igaroko ditu bere oporrak landa alde honetan.

TG 6**Paulinari**

1880-XII-1

Neure Paulina maitea:

Oso pozik nago zuri idazteaz¹, izebari baimena eskatu diot. Huts asko egiten ditut baina zuk ongi baino hobeto ezagutzen duzu zeure Teresatxo eta badakizu ez naizela bat ere trebea. Besarkatu aita nire partez. Lehenengo egunean lau puntu eder lortu ditut eta bost bigarrenean.

Besarkatu nire partez Paulina² andereñoa. Oso pozik nago, dakizun bezala, nire izebaren etxean gaudelako. Mariak kontuak ateratzen dituen bitartean, ni izebak emandako irudi polit batzuk margotzen aritzen naiz.

Hurrengorarte, nire Paulinatxo maitea, maite zaituen zure Teresatxok.

TG 7**Paulinari**

1881-VII-4(?)

Neure Paulina¹ maitea:

Asko pozten nau zuri idazteak. Zeure urtebetetze egunean², asteazkenean, ezin zoriondu izan zintudanez gero, bada, oraintxe zoriontzen zaitut.

Houlgate-n ongi ibiliko zarelakoan nago. Ea asto gainean jarri ote zaren jakin nahi nuke.

Benetan eskertzen dizut, zu Houlgat-en zauden bitartean niri oporrak eman izana. Asko gustatuko litzaidake, Mariari idazteñ badiozu, niri ere hitz batzuk eskainiko bazenizkit.

Ez dakizu zer eginda nagoen! Santa Domitia egunean, izebak gerriko arrosa jarri zidan eta nik Santa Domitiari loreak bota nizkion. Ez erakutsi nire gutuna inori.

Hurrengorarte nire Paulinatxo maitea, bihotz-bihotzez besakartzen zaitut. Besarkada handi bana Maria Teresa eta Margaritaxori³ ere.

Maite zaituen zure Teresatxo.

¹ Paulina bidaian dago aitarekin. Gutun haxe da, gordetzen ditugun guztietatik, Teresak bakarrik idatzi zuen lehenengoa; ezagun da haur-ortografian.

² Paulina Romet (1829-1889), familiaren laguna eta Paulinaren amabitxi

¹ Paulina Houlgate-n (Calvados) dago oporretan, Maria Teresa Pallu du Bellay (1862-1951) barne-tegiko lagunaren etxean.

² Ekainak 29 asteazkena, San Pedro eta San Pauloren festa eguna.

³ Aurrekoaren ahizpa.

TG 8

1882-IV-23

Zelinari (zatiak)

1882ko Apirilak 23, Igandea

Neure Zelinatxo maitea:
 Asko maite zaitut, zuk ongi dakizu (...)
 Agur nire Zelinatxo maitea.
 Bihotz-bihotzez maite zaituen zure Teresatxo.

Teresa Martin

TG 9

1882-XI/XII (?)

Ama Maria Gonzagarenari

Neure ama maitea:

Luze da ikusi ez zaitudala eta horrexegaitik, pozik nago zuri idazteaz, horrela, neure kontutxoak jakinaraziko dizkizudalako. Paulinak bakarraldian zaudela esan didanez gero, nire alde Jesustxori erregutzeko eskatzen dizut, akats asko ditut eta neure bizitza zuzentzea nahi bainuke.

Aitorpen bat egin behar dizut: aspaldian, Mariak zertxobait egiteko eskatzen didanean, nik berehala erantzuten diot. Badirudi, Paulina txikia zenean eta Le Mans-eko izebari¹ aitzakiaren bat jartzen zionean, honek hau esan ohi ziola: "Zenbat zulo, hainbat iltze"; baina ni, are txarragoa naiz oraindik. Hori dela eta, neure portaera zuzentzeko, zulo bakoitzean, Jesustxori eskaini diodan loretxo bat sartzea nahi dut, neure lehenengo jaunartzerako presta nadin. Egia da, ene ama maitea, erregutuko duzula, ezta? Ene ba! Une zoragarri hau berehala iritsiko da eta zoriontsua izango naiz benetan, Jesus Haurra nire bihotzera etor dadinean, lore asko eskaini ahal izango dizkiodalako.

Hurrengorarte nire Ama maitea. Maite zaitudan adinako samurtasunez besarkatzen zaitut

Zure alabatxo, Teresita²

¹ Ahizpa Maria Dositea Guérin

² Karmeldarrek Teresari jarririko minutiboa, bederatzi urtekin klaustroan sartu zen Teresatxo Jesuse-na, Avilako Teresa santuaren iloba izan zenaren oroipenez.

TG 10**Zelinari**

1883-IV-29

Neure Zelinatxo maiteari, samurtasun osoz maite duen bere ahizpatxoak,

Teresa
1883ko Apirilak 29, Igandea¹

TG 11**Ahizpa Aines Jesusenari**

1884-III-1/6

Neure Paulinatxo maitea:

Zuri idazteko asmoa nuen bidali zenidan liburutxo¹ zoragarria eskertzeko, baina Garizuman horrelakorik ezin zela egin uste nuen. Orain, ordea, hori egitea zilegi dela badakidanez gero, bihotz osoz eskertzen dizut.

Ez dakizu ongi nolako zoriona sentitu nuen Mariak zure liburutxo polita erakutsi zidanean. Zoragarria iruditu zait. Ez nuen sekula hain gauza ederrik ikusi eta ezin naiz liburuari begira nekatu. Zein politikak diren hasierako otoitzak! Jesustxori bihotz-bihotzez errepikatu dizkiot. Egunero, ahalik eta praktika² gehien egiten ahalegintzen naiz eta nire eskuetan dagoen guztia egiten dut aukera bat bera ere ez galtzeko. Bihotzaren barren-barrenetik esaten ditut eta ahal dudan guztian errepikatzen, arrosen usain gozoa duten errezutxook.

Ai bai irudi ederra dakarrela hasieran! Irudia Jesustxori bihotza eskaintzen dion usotxoa da! Bada, nik ere, aurkitzen ditudan lore eder guztiakin apaindu nahi dut bihotza, nire lehen jaunartze egunean Jesustxori eskaintzeko; eta liburuaren hasierako otoitzxoan azaltzen den bezala, Jesustxok nire bihotzean gozotasun handia senti dezan nahi dut, zerura itzuli beharra ere ahantzaraziko dion adinako gozotasuna.

Mila esker eman nire Ahizpa Teresa San Augustinenari, praktiketarako bidali didan bere arrosario politagatik eta nire liburuaren azal ederra bordatzeagatik. Emaiozu besarkada handi bat nire Ama Maria Gonzagarenari eta esaiozu bere alabatxoak bihotz-bihotzez maite duela.

Besarkada bat zuretzat Leonia eta Zelinaren partez.

Ikusi arte, nire Paulinatxo maitea, bihotz-bihotzez besarkatzen zaitut.

Maite-maite zaituen zure alabatxo

Teresita

¹ Lapitzez idatzirikoa lerroa, Teresak pintaturiko Bihotz Sakratuaren atzealdean. Zelinak hamalau urte bete zituen bezperan

¹ Lehen jaunartzea prestatzeko liburutxoa, bere osotasunean Jesusen Aines ahizpak eskuz idatzia; Ik. A Esk, 33^a

² Bertutezko sakrifizio edo ekintzak. Ik. A Esk, 11^a

TG 12

1884-V-8

Mariari¹

Neure Maritxo maiteari, zure alabatxoaren lehen jaunartze eguneko oroigarri

Zure alabatxo

Teresa

TG 13

1884-V-8

Zelinari¹

Lehenengo jaunartzearen oroigarria nire Zelinatxo maiteari, zure ahizpatxoaren partez

Teresa

TG 14

1883-1885

Maria Guérin-i¹

Nire Maritxo maiteari, bere ahizpatxo² Teresaren partez

TG 15

1883-1885

Zelinari¹

Nire Zelina maiteari, oroigarritxo bat bihotz-bihotzez maite duen bere ahizpatxoaren partez

Teresa

¹ Farfailezko irudi baten itzulian, honako eskaintza: "Neska artzaintxoa".

¹ Jesusen Aines ahizpak pintaturiko irudi baten itzulian eginiko eskaintza.

¹ Koloretako irudi baten itzulian eginiko eskaintza.

² "Ahizpa" deituraren erabilera arrunta da odoleko lehengusinak diren Martin eta Guérindarren artean.

¹ Bihotz-Sakratuaren irudi baten itzulian eginiko eskaintza.

TG 16**Guérin andreari (zatiak)**

1887-V-10/17

Neure izeba maitea:

Idazteko eskatu didazu neure osasunaren berri eman diezazudan. Igandean baino hobeto nago, baina buruko min handiaz jarraitzen dut. Zu ongi egongo zare-lakoan nago eta Maria nahiz Joana laster guztiz sendatuko direlakoan.

Sarritan pentsatzen dut zutaz eta nirekin¹ oso onbera izan zarela gogoratzen dut. Nire lehengusinatxo maiteez ere ez naiz ahazten eta esan Mariari, mesedez, gaur ez diodala idatzi baina hurrengoan idatziko diodala, kontatzeko berri gehiago izan ditzadanean.

Igande arratsaldean² hasiko naiz bakarraldian, nire lehenengo jaunartze eguna 21ean finkatzen delarik; jadanik ziurtasunez esan daiteke, data ez dela aldatuko.

Agur nire izeba maitea, emaezu nire partez besarkada handi bana Joana eta Mariari, eta gorde ezazu musurik handiena zeuretzat.

Teresa

Aingeru Santuen alaba³

TG 17**Mariari¹**

[1885-V-21]

Neure Maritxo maiteari:

Zure alabatxoaren bigarren jaunartzearen oroigarri,

1885ko Maiatzak 21an

Teresa

TG 18**Martin jaunari**

1885-VIII-25

Neure aitaxo maiteari¹:

Lisieux-en bazeunde, gaur zorionduko zintugun; baina hala izan ezin bada ere, eta inoiz baino areago, zure santu-eguna zorionez igaro dezazun eta batez ere

¹ Deauville-ko oporraldian, Maiatzaren 3tik 10era

² "Bigarren jaunartzea" prestatzeko bakarraldia, Teresarentzat.

³ 1882ko maiatzaren 31z gero Teresa partaide den elkarte.

¹ Teresak margoturiko irudi baten itzulian eginiko eskaintza.

¹ Loretxo bat josiz apaindu zuen Teresak gutuna; hitz hauekin inguratuz: "Nire lorategian jasotako herezea".

bidai² atsegin handiz egin dezazun opa nahi dizut. Nire aitatxo maitea, bidaiatzeaz pozik egon eta asko diberti zaitezen nahi nuke. Etengabe pentsatzen dut zutaz; gozamen ugari eman diezazkizun eta laster batean osasunez itzul zaitezen eskatzen diot Jainkoari. Nire aita maitea: Paulinak bertso polit batzuk idatzi zizkidan zure urtebetetze-egunean³ irakurtzeko, baina irakurri ezingo dizkizudanez gero, idatziz bidaltzera noakizu:

*ERREGINATXO BATEN ZORION-AGURRA BERE
AITA ERREGEAREN URTEBETZE- EGUNEAN*

Aitatxo, ni banintz usotxoa
pozik nindoake asko
zure bihotz nire abitxora
han geratzeko betiko.

Enara deituko banindute,
bero lar dagienean
ene hegoek atsedean lukete
aitaren maitasunpean.

Zure lorategia nuke etxe
txantxangorria izanik
zure garau batekin bakarrik
banketea nuke nik.

Urretxindorra banintz oraino
ez nindoake basora
sastraka hauetara etorri baino
ene doinuak kantatzera.

Ni banintz zeruko izar txikia
gauero nintzake aterako
itxaropenaren argi izpia
beti zuri eskaintzeko.

Leihotik ikusiko zenuke
niré milioika distira
zuri zerutik hitz egiteko
joan ez nahi nik inora.

Zeruetako aingerua banintz
duena urrezko hegoa
aita nirea, aingerua banintz,
zugana hegan banoa.

² Sei aste inguruko bidai^a turistikoa Balkanetan zehar.

³ San Luis, abuztuaren 25a.

Neure jaioterriaren berri
diotsut amets baten,
errege-aulkiak espero dizu
bizitza honen ondoren.

Hego zuriak nahi bazenitu
zerutik nekarzkizuke
eta itsasadarrerantz hegatu
nire aitarekin nahi nuke.

Baina ez dut hego distiratsurik
ez bait naiz Serafintxo,
eskutik naramate oraindik,
naizelako neskatoa.

Egunsentia naiz, lotsatia,
lorakusku xumetxo,
ta irekiarazten nauen argia
zure bihotza da, aitatxo.

Badezagut arima zurea
maitasun oroz gainezka,
deliberatu dut segitzea
zuk egindako bidexka.

Lur honetan izan nahi dut, aita,
zure poz ta alaitasuna;
zuri segitu nahi dizut baita
ikasiz zure ontasuna.

Banuke esateko gehiago ere
hau ordea utzi beharra,
egidazu, aitatxo, irribarre
ta eskaini musu ederra.

Agur, nire Aita maitea. Bihotzez maite zaituen zure Erregina

Teresa

TG 19

Maria Guérin-i

1886-VI-26

Buissonnets-en, 1886ko Ekainak 26, larunbata

Neure Maritxo maitea:

Benetan eskertzen dizut hain maitagarri izana eta zuri ez idazteagatik errietan
egin ez izana; horregatik, berehala jarri naiz zure gutuntxo zoragarriari erantzuten.

Ez dakizu ongi nolako atseginez irakurri dudan! Oso pozik nago sendatzen zoazelako eta asko dibertitzen zarelako. Ez daukat Lisieux-eko berri handirik zuri kontatzeko, guzti-guztiok ongi gaudela izan ezik.

Papinot¹ andrearen berri eskatzen zenidan gutunean; ongi dago eta zure osasunaz galdetzen du sarri. Ikasgaiak ere ongi doaz baina denbora batetik hona izugarri gehitu zaizkit² eta horrexegaitik ezin izan nizun igandean idatzi.

Poz-pozik nago biharko elizbira³ egiteko zuriz jantzi behar dudalako; Mariak probatu dizkit jadanik jantziok, eta egoki-egoki dauzkat.

Ene Maritxo maitea, nire Joanita maitea eta osaba onari nire partez besarkada handi bana emateko ardura uzten dizut.

Agur nire lehengusinatxo maitea, barkatu nire gutuna gaizki idatzita badago, bizkor-bizkor idazten aritu naizelako da eta zirriborrorik egiteko astirik ez dudalako izan. Zelinarean partez besarkada bat, baita Joana eta nire izebarentzat ere. Paulinari ez diot oraindik zure mandatua eman, baina gaur arratsaldean jakinaraziko diot. Bihotz-bihotzez maite zaituen zure lehengusinatxo

Teresa

TG 20

1886-VII-15

Maria Guérin-i

Buissonnets-en, 1886ko Uztailak 15, osteguna

Neure Maria maitea:

Oso atsegina zara niri idazteagatik; gustura irakurri dut benetan zure gutuna eta asko poztan naiz kontatzen dizkidazun ibilaldi horiek egiten dituzulako, interesgarriak iruditzen baitzaizkit oso.

Zanbuluan ibiltzetik nator; Maria beldur da konkordun geratuko ote naizen edo, eta aitari zanbulua eta txingetak kentzeko eskatu dio. Egia esan, txingetak ez ditut zanbulua bezain gogoko, esku barruak gorri-gorri uzten dizkit eta.

Atzo Maudelonde andrearen etxera joan ginen arratsaldea pasatzera eta oso ongi ibili nintzen Zelina eta Elenarekin. Papineau andreak biharko eguna libre utzi dit, gure Karmelgo Amaren ohoretan sermoira¹ joan nadin.

¹ Balentina Papineau (1835-1898), Teresaren etxe-irakaslea 1886ko martxotik 1888ko otsaila bitartean. Ik. A Esk, 39ⁱ

² Hau da, gero eta gehiago.

³ Gorpuzti eguna (Ekainak 24), 27ko igandean ospatua.

¹ Karmelgo kaperara.

Ikus dezakezunez, ene Maria, nik ez daukat deus interesgarririk kontatzeko; nik ez dut zure antzeko ibilaldi zoragarririk egin. Baina hala eta guttiz ere, nire gutuntxo hau gustatuko zaizulakoan nago.

Agur Maritxo maitea, besarkatu nire partez nire izeba eta Joana.

Maite-maite zaituen zure ahizpatxo

Teresa

TG 21

1886-X-2

Mariari

Larunbata, Urriak 2, arratsaldeko seirak
Aingeru Santuen jaieguna

Neure Maritxo maitea:

Oraintxe bertan jaso dugu albiste-agiria eta oso pozik nago, horrek, Aita Douvres¹ -en ikusi duzula esan nahi duela uste dudalako. Aitak asteazkenean gutun bat idatzi zizun gaur bere bila joateko eskatuz. Ezin duzu antzeman nolakoa izan zen gure estutasuna, Zelinak gutunak Douvres eta Calais-eko posta-zerrendara bidali zituelako.

Ama Birjinak egunero izan du argizaria pizturik eta hainbeste aldiz eskatu eta erregutu diot, non, ezin bainuela sinetsi aita noiz zetorren ez zenekienik. Pichon² jaunak ere gutun bat idatzi zion aitari eta ez ginen ausartzen irekitzera, harik eta Paulinak, barruan presazko zerbait baletor ere, irekitzea hobe genukeela gomendatu zigun arte. Ez zen premia bizikorik ezer, hala ere. Pichon jaunak ere ez zekiela aita noiz etortzekoa zen eta hori jakiteko nagusiari idaztera zihoala esaten zuen gutunean.

Ai, ene Maritxo! Jakingo bazenu nolako egia ederra diozun Jainkoak bigunki hartzen gaituela esatean! Ez dakizu ongi zer den nik zu maite zaitudan bezala maitatzen duzun pertsonarengandik urrun egotea! Jakingo bazenu zer pentsatzen dudan... Baina ezin dizut esan, beranduegi da eta gutuna oker-okar idatzi dut, ezer ikusten ez dudalako. Nire amabitxi maitea, Paulinari galdetu diot ea urre-brontzezko botelilatxoek akuarelaz margotzeko balio ote duten, baina ezetz erantzun dit; botilatxo horiek santuak eta estatuak brontzeztatzeko omen dira bakarrik. Jakinaren gain jartzen zaitut, oroigarritzat eros ez diezazkidazun. Ezer ez ekartzeko eskatzen

¹ 1882tik Mariaren arima-zuzendaria den Aita Pichon, etxera itzultzen da bi urtez Kanadan egon ondoren. Mariak urriaren 15ean Karmelen sartu aurretik berriro kusi nahi zuen.

² Alphonse Pichon, erlijiosoaren anaia.

dizut, mesedez, bestela nahigabetu egingo nintzateke eta. Leoniak besarkada handi bat bidaltzen dizu eta beste bat aitarentzat.

Agur, nire Maria maitea, besarkada handi bat gure aitatxo maiteari nire partez.
Maitatu ahal den adina maitatzen zaituen
zure benetako alabatxo

Teresita

Ez dezazula, horraitio, gure mandatua ahaztu, ezta nire izebarentzako aulkixoa ere. Felicite-k³ zuri goraintziak emateko eskatu dit; umore zoragarria du zu joan zinenez gero. Gure osaba-izeba, Joana eta Mariaren partez ere goraintziak. Oraindik ez dugu albiste-agiria Karmelera eraman.

³ Bere benetako izena Maria Hubert, Martindarren zerbitzaria.

BIGARREN AROA

GAZTETXOA ZENEKOA

(1886ko Gabonak - 1888ko apirila)



TG 22

1887-IV-31

Zelinari¹

Ez dut neure Diadema bihar goizerarte kenduko,
baina gero zeure burutik pasatuko da nire patua,
apirileko arrain hori!

Bihar, apirileko arrainak emango dizun orrazitxoa izango duzu.

TG 23

1887-VI-27

Maria Guérin-i¹

Buissonnets-en, 87ko Ekainak 27, astelehena

Neure gaixotxo maitea:

Nola zaude gaur goizean? Bart ongi lo egin al duzu? Zure hortz horrek min egiten al dizu oraindik?... Hona hemen, ene Maritxo maitea, gaur goizean neure buruari egiten dizkiodan galderak, baina hau ere bada gero, inork ezin dizkit erantzun! Beraz, galderok nik neronek erantzun behar ditut eta halaxe nahi dudalako edo, sendatuz zoazela uste dut.

Orria zuzendu beharra daukat, oker-okertzen ari naizela konturatu naiz eta; hainbeste denbora da idazluma eskuan hartu ez dudala, non arraro samar egiten baitzait!

¹ Ahizpa Jenofak ohar hau jarri du: "Teresak Buissonnets-en orrazitxoa eskaini dit ilea orrazteko. Apirilaren lehenengoaren bezperan gutunazal bat jaso dut; haren barruan Teresak arrain bat margotu zuen tinta gorri, berde eta morez. Arrain honek diadematzat orrazitxoa zuen!"

Testuak arrainaren gainalde eta azpialdean erantsita daude; paper muturrari kolaturik dagoen zeharretako azken esaldia ezkututzen du.

¹ Trouvilleko oporraldian. Teresa itzuli berri da, Trouvillen egun batzuk igaro ondoren.

Karmeletik nator bueltan eta Maria eta Paulinari zure sufrimenduen berri eman diedanez gero, Jainkoari albait lasterren senda zaitzan eskatuko diote, Trouville-en zaudeneko denbora bozkarioz igaro dezazun...

Gauza gehiago ere kontatu beharko nizkizuke, neure Lulu² (Otsotxo) maitea, baina astirik gabe nabil, Joanari ere bizpahiru hitz idaztea nahi dut eta. Gainera, nire gutuna zirriborro hutsa da eta begietan min egingo ez ote dizun beldur naiz; egia esan, ez dakit nola ausartu ere egiten naizen gutuna horrela idatzita bidaltzen...

Horrela, bada, besarkada batekin uzten zaitut baina hagineta minik egin ez diezazudan, ez dizut musua masailetan emango, zeure bekokitxo horretan baizik.

Teresa
m.a.³

Ene Otsotxo maiteari niri idazten ez nekatzeko gomendatzen diot, horrek ez baitit eragotziko nik berari sarri-sarri gutunak bidal diezazkiodan. Nire Otsotxok bere izenaren duin izan behar du eta benetako Otsotxo baten antzera jan.

TG 24

1887-VI-27

Joana Guérin-i

1887ko ekainak 27

*(Hemen, idazlumaz
pintaturiko bela-untzia)*

Neure Joanatxo maitea:

Neure gutunaren hasieran bateltxo bat marraztu nahi nuen eta barkutxo hori pintatuko lidakeen Darel¹ artista inguruetan ere ez dabilkidanez gero, neronek zirri-marratu behar izan dut hemen bidaltzen dizudana. Minutu batzuek aspertzekotan nabilkizu, ene Joanatxo, eta burukomina guztiz kendu zaizulata nago. Ingles² handia joan denez gero, lasaiago sentituko zara eta gainerakoak ere seguraski, hobeto egongo dira.

Uste dut poz-pez egongo zarela heriotzari buruzko sermoi gehiago entzun behar ez didazulako, benetan liluratzan zaituzten nire begiak ikusi beharrik ez duzulako, eta Pigeon andereñoen etxera ere joan beharrik ez daukazulako³ ...

² Maria Guérin-en goitizenetako bat; bigarren izen gisa Luisa du.

³ "Mariaren alaba"-ren laburdura. Teresa, Elkartearen, iazko maiatzaren 31n onartu zuten.

¹ Seguraski Joana bera.

² Teresa bera, zalantzarik gabe.

³ Josephina eta Clémence Pigeon, Guérindarren lagunak.

Nire har maiteen berri emango dizut: *zortzi* hil zaizkit eta beraz, *lau* besterik ez geratzen. Zelinak hain ongi zaindu zituen, non nahigabeak edo bat-bateko sorminak jota denak heriotzara bideratu baititu; ez dakit geratzen zaizkidan laurak ere beren anaien gaixotasuna harrapatu ez ote duten eta haien antzera satorren erreinura joango ez ote diren.

Arraro samar egiten zait Buissonnets-en egotea; gaur goizean ere harriritua nengoen Zelinaren aldamenean egoteaz. Aitari nire izeba onak egindako proposamen atseginaz hitz egin diogu baina ezinezkoa da, aita asteazkenean doalako, eta oraingo honetan oso denbora txikia egingo duelako Alençon-en.

Agur, nire Joana maitea, bihotzez maite zaitut beti bezala.

Teresa
m.a.

TG 25

Maria Guérin-i

1887-VII-14

Buissonnets-en, 1887ko Uztailak 14

Neure Maritxo polita:

Oraintxe bertan jaso dut zure gutuntxoa eta oraindik barrezka nago kontatzen dizkidazunaz pentsatuta. Ea, ikus dezagun, oker Itsusitxo hori, haserre egiten hasi beharra daukat: zergatik eraman duzu berriro zure aurpegia eskultorearenera¹? Aurreragokoan konpondu zizunagatik...! Benetan atsekabetu naiz, zure masail maltzurrek berriro baloi forma hartu dutela jakin dudanean; esperientziak erakutsiko zizulakoan nengoen, lehenengokoarekin aski zenuela eritiz.

Asko pozten nau nire izebatxoa sendatuz doala jakiteak; benetan larritu nintzen gaixorik zegoela esan zidatenean; egia esan, Jainkoak aurten ezbehar asko bidali dizu.

Aste hau Buissonnets-en ere ez da oso alaia, gure Leonia maiteak gurekin igaroko duen azken astea baita; egunak berehala doaz eta ez zaizkio bi baizik gelditzen gure artean² egoteko.

Baina bueno, zer nahi duzu, nire maitetxoa? Nahigabearekin batera zoriona ere sentitzen dut, pozik bainago nire Leonia maitea azkenik bere lekuan ikusteaz; bai, uste dut hor zorientsu izango dela eta Bisitazioan aurkituko duela munduan falta izan duena.

Zelinak dolu-jantziak hartu ditu bere bi txori urdinengatik³; emea hil eta bihamunean joan zitzaion arra ere, harekin bat egitera. Eta orain, haien gorputz hilak disekatzailearenean daude.

¹ Haginlaria

² Leonia Caen-go Bisitazioan uztailaren 16an sartzen da.

³ Havre-ko Erakusketan aurreko hilabetean Teresak Zelinarentzat erosi zituen irletako txoriak.

Trouvillen geratzen zaizkizun egunak hasierakoak baino pozgarriagoak izan dakizkizun nahi nuke, maitea. Hainbeste aldiz probatu zaituen Jainkoak, orain atsegina emango dizulakoan nago.

Zelina guztiz nahigabeturik dabil Joanari idatzi ezin diolako; baina Leoniaren joateko prestakizunekin hain lanpetua egonik, ezinezkoa zaio inondik inora ere. Esaiozu Joanari, ez dakiela ongi zenbat hunkitu duen Leonia bere gutunak, eta baita zureak ere. Leoniak bihotz-bihotzez besarkatzen zaitu eta baita gure izeba maitea ere.

Besarkada gogor bat Joanari nire partez. Esaiozu nire izebari zenbat maite dudan eta gorde itzazu zeuretzat nire musu gehienak. (Karmelego gutunari buruz zerbait entzutea lortu dut eta oso dibertigarria zela uste dut). Aitak ere gorantziak bidaltzen dizkizue, batez ere bere alababixi⁴ maiteari.

Teresa

TG 26

1887-VIII-18

Maria Guérin-i

Buissonnets-en, 87ko Abuztuak 18

Maritxo maitea:

Gaixorik zaudela esan dit oraintxe bertan osabak, bihurritxo halako hori; apurtxo bat behintzat goza zenezakeen unea heldu zaizunean, osasuna galtzea gogora etortzea ere... Hala ere poztu zaitezke ni zuegandik urrun egoteaz, horixe bai bestela nirekin gogorrak ikusi beharko zenituzke eta...

Eta nola dago nire izeba maitea? Hobeto egongo dela uste dut. Hara ba, batek pentsatzetik izatera aldean izaten den! Urrunetik parkean¹ zehar korrika eta pozarren ikusten zintudan, arraintxoei begira eta Joanarekin ongi-ongi jolasten; hau da, gaztelu-jabe baten antzera bizitzen. Baina gaztelu-jabe bizimodua bizitzetik urrun, osasunik gabe daramatzazu egunak behealde horretan. Ene ba, laztana, bihotzez erruki zaitut, baina ez ezazu adorea galdu, paseatzeko eta atsegini hartzeko denbora izango duzu oraindik eta. Gelatik irteera besterik ez duzu, polita eta urreztatua izan arren, eguzkitan jauzika ibiltzea nahiko lukeen txoriñoaren kaiola baizik ez da eta.

(Gauzak atzekoz-aurrera egiten hasi naizela konturatu naiz; aurreko esaldian jarri ditudan gurutzetxoak uler ditzazun eskatzen dizut).

Bai ba, nire ahizpatxo MAITEA, zuk ere parkeko haizearen beharra duzu, txoriñoen antzera. Gure artera zatozenerako, ireki berri den arrosatxo bezain eder eta osasuntsu egon behar duzu. Ene ba nire laztana, arrosatxo hitz egitean zure masail

⁴ Maria Guérin.

¹ La Musse-en.

politik musukatzeko gogoia datorkit. Zure masailek kolore gorrixka ez badute ere, zera diotsut, arrosa gorriak bezain atsegin ditudala zuriak. Ardura zaitetz zeure masail polit horiek zuriagotuz joan ez daitezten eta eska iezaiozu Joanari nire partez musuka zaitzan. Esaiozu sarritan gogoratzen naizela berarekin eta musu handi bat bidaltzen diodala bihotzez.

Ene Maria maitea, nire lumari ero baten antzera korri egin dezan utzi diot eta irakurgaitzak edo ulergaitzak diren gauzak idatzi ditu; leudekeen hutsegiteak lumari egozteko eskatzen dizut, baina ez nuke nahi pentsa dezazun zeure ahizpatxoak dizun maitasuna ere lumarena denik.

Besarkatu zeure indar guttiz bihotz osoz maite dudan nire izeba.

Agur, ahizpatxo laztana, musu eder bat bidaltzen dizut berehala osatzeko gomendioaz batera, atsegin pixka bat hartzen has zaitezen.

Maite zaituen zure ahizpa

Teresa
m.a.

TG 27

Ahizpa Aines Jesusenari

1887-X-8

87ko Urriak 8, larunbata

Neure ahizpatxo maitea:

Asteazkenetik nenbilen nire osabarekin hitz egiteko une aproposa bilatu nahian eta une hori gaur goizean aurkeztu zait. Oso onbera izan da benetan osaba; larunbatetan oso lanpeturik¹ izaten da eta beldur apurtxo bat ere baneukan, umore txarrez egongo ez ote zen. Baina atsegin agertu zait eta berarekin egoteko gogoia dudala adierazi diodan uanean bertan utzi du irakurketa.

Jadanik ea berari ezer kontatzekorik ez ote nuen susmatzen hasia zela esan dit, eta gero, nik itxaroten² nuen sermoitxo *OSO TXERATSUA* bota. Nire bokazioaz ziur dagoela esan dit eta hori ez litzatekeela nire joatea galeraziko lukeen arrazoia. Nik uste, eragozpen bakar bat egotekotan, hori mundua dela. *Iskanbila izugarria* sortaraziko luke Karmelen neskatala bat sartzan ikusteak; Frantzia guztian ni neu bainintzateke lehenengoa... Hala eta guztiz ere, gure Jainkoak hala nahi baldin badu, emango du aditzera. Dena dela, giza jakituriaren arauen arabera, hamazazpi edo hamazortzi urte betetzen ditudan arte sartzeko asmorik ez izateko eskatu dit osabak, halaxe ere beharbada gogezgi litzatekeela eta.

Tankera honetako beste hainbat gauza kontatu dizkit osabak baina luzeegi litzateke den-dena berresatea. Konturatuko zinenez, nik ez diot inolako dataz hitz egin. Nire Paulinatxo maitea, momentuz oso pozik nago osabak mundua beste tra-

¹ Merkatu eguna Lisieux-en; horixe da Guérindarren farmazian jendetza handia egotearen arrazoia.

² Elkarrizketa honi buruz, Ik. A Esk, 50^l.

barik ikusten ez duelako. Uste dut, Jainkoak hala nahi duenean, neke handirik gabe erakutsiko diola nire osabari, ez dela mundua izango ni Karmelen sartzea eragotziko duena. Nire ahizpatxo laztana, jakin ezazu osabak beste hainbat gauza atseginen berri ere eman didan arren, nik osabak bilatu dituen oztopoez hitz egiten dizudala bakarrik. Zorionez, Jainkoarentzat ez dago eragozpenik!

Ene Paulina laztana, gaur ezin dizut nire bihotza betetzen duten gauza guztiez hitz egin, ez bainaiz barruan ditudan ideia guztiak antolatzeke gauza. Hala ere adoretu nago, badakidalako Jainkoak ez nauela bertan behera utziko. Osabak esaten didan bezala, orain nire burua frogan jartzeko unea dator. Ene ba, erregutu nire alde, egizu otoitz zure Teresatxoren alde! Badakizu Teresak zenbat maite zaituen, zeu baitzara nire konfiantza osokoa. Zu ikusi beharrez ere banago, baina behar hau ere Jesusi eskainiko diodan sakrifizioa da. Ene bada, ez diot *ezertxo* ere ukatu nahi! Mundu honetan goibel eta bakarrik sentitzen naizenean ere, bera hortxe izango dut. Ez zuen, bada, esan Santa Teresak “Jainkoa bakarrik nahikoa da”³?

Barkatu, nire Paulina maitea, loturarik gabeko ideiak idazten dizkizudan gutun edo, hobeki esan, zirriborro hau bidaltzeagatik. Hain gaizki idatzia izanik, ez dakit irakurtzerik ere izango duzun, baina nire bihotzak kontatzeko gauza asko zituenez gero, lumak ezin izan dio jarraitu ere egin. Esaiozu nire amabitxiri bere bakarraldian⁴ asko pentsatzen dudala berataz eta eskaiozu bere alababitxiaz ez ahazteko.

Laster arte, nire ahizpa laztana, ez al didazu berriro ere haserre egingo gutun hau bidaltzeagatik... ez baitaukat berriro hasieratik hasteko kemenik.

Zeure Teresita

Zure portalumatxoa bidaltzen dizut.

Esaiozu nire Ama maiteari⁵ bere Teresatxok bihotzez maite duela.

TG 28

1887-X-23

A. Pichon-i

Neure Aita Agurgarri hori¹:

Nire ahizpez berori arduratzen denez gero, txikiena hartzeko ere arazorik ez duela izango uste dut. Berorri ezagutzera eman nahi nuke neure burua, baina tamalez ez naiz nire ahizpak bezalakoa, ez dakit gutun batean sentitzen dudan guztia agertzen. Hala ere uste dut, ene Aita, nik esan beharrik gabe berorrek antzemango

³ Avilako Santa Teresaren brebiarioaren erregistroko azken esaldia

⁴ Maria Bihotz Sakratuaren arima-zuzendaria den A. Pichon-ek predikaturiko komunitateko bakarraldia.

⁵ Ama Maria Gonzagarena.

¹ Zirriborroa. Gutun hau sekula bidali al zen? Eta erantzuna baiezkoa bada, nola liteke A. Pichon-ek ez erantzutea eta Teresak berak erantzuna ez gordetzea?

duela zer esan nahi dudan. Lisieux-era etortzen denean Karmelen ikusiko dudalakoan nago, berorri neure bihotza ireki ahal izateko.

Ene Aita, Jainko onak grazia handi bat eman berri dit; aspaldidanik nago Karmelen sartzeko irrikaz eta uste dut une hori iritsi dela. Aitatzok ere onartu du ni Gabonetan sartzea.

Oi! Nire Aita, zein ona den Jesus ni hain gazte naizela hartzen nauelako! Ez dakit nola eskertuko diodan.

Nire osabari gazteegia iruditzen nintzaion, baina atzo Jainko onaren nahia betetzeko prest zegoela esan zidan. Nire Aita, berorren azken alabaren alde erregutu dezan eskatzea ongi begitanduko zaiolakoan nago. Karmelik nator eta han nire ahizpek berorri hitz xume batzuk idatz diezazkiokedala esan didate, nire bihotzean gertatzen dena kontatzeko. Nire Aita, ikusten duenez, berorren alabatxotzat hartzea ukatuko ez didalakoaren itxaropenez idatzi diot.

Bedeinka dezala berorren bigarren bildostxo²

Teresa

TG 29

1887-X-23/30(?)

Leoniari

Neure ahizpatxo maitea:

Ez nuke jakingo esaten nolako atseginez jaso dudan zure eskutitza; eskerrik asko urtebetetze-egun on bat opatzearren. Berehala erantzutea zen nire nahia, baina zeharo lanpetuta¹ ibili garenez gero, ezinezkoa egin zait. Zelinak ere ezin dizu idatzi lan gehiegi daukalako; horrek ez dio galerazten, hala ere, hain maite duen bere ahizpatxoaz pentsatzea. Bere partez besarkada handi bat bidaltzeko eskatu dit. Bisi-tazioko santa izatera heltzeko zeure gogo horretan Margarita-Maria zorionekoari erregutzeko eskatzen didazu gutunean; ez dut egun batean ere hutsik egin.

Benetan eskertzen dizut neure Jesustxo politari begiratzeko ohartarazi ninduzulako; ez da hondatu eta utzi zenuenean bezain ongi dago. Bere oin txikian musutxo bat eman diot zure partez eta berak, eskutxoarekin bedeinkatzen zintuela zirudien, urrunetik.

Ahizpa maitea, kontu asko nituzke kontatzeko baina² ...

² Lehenengo bildotsa Ahizpa Aines Jesusena da.

¹ Erromarako bidaiaren prestakizunak direla eta.

² Zirriborro bukatu gabea.

TG 30 Aines Jesusena eta Maria Bihotz Sakratuarena ahizpei

1887-XI-6

Paris. Mulhouse hotela.

Neure ahizpatxo maiteak:

Zelinak ez zuen nahi izan atzo nik zuei idaztea, baina ez dut nahi bere gutunik jaso dezazuen zuen Teresitaren hitzik gabe. Katutxo baten antzera idazten dudala dakusat, baina ez dut uste haserre egingo didazuenik, *zeharo* nekatuta nago eta; dena buelta-bueltaka dabilkit inguruan.

Bihar ez gara jadanik Frantzian izango. Gauza ederrak ikusi ditugu benetan Parisen eta badaukat lanik neure harridura gaintitzen; hala ere, horrek guztiak ez dakar zorionik. Zelinak emango dizue, nahi baldin badu, Paris miragarriaren berri. Niri dagokidanez, hau esango dizuet: *sarritan* pentsatzen dudala zuengan eta Pariseko gauza ederrek ere ez dutela nire bihotza beregandu.

Uneoro nire burua kotxez inguraturik ikusten dudanez gero, baten batek zapalduko¹ ez ote nauen beldur naiz beti; kontu honetan, badaukat nire amabitxi kutunaren antz apur bat. Oi! Nire ahizpatxo maiteak! Ikusten dudanak ez dakarkit zorionik eta ez dut izango zuek orain zaudeten lekura iristen ez naizen bitartean...

Oso pozik egon naiz Garaipenen Andre Mariaren elizan². Asko erregutu dut zuen eta neure *ama maitearen* alde.

Neure lehengusinatxoei idaztea nahi nuke, baina hurrengo batean beharko du, Leonari ere idaztekotan nabil eta. Leonia gaixoa, nola ote dabil?... Beraietaz asko gogoratzen naizela esateko³ eskatzen dizut, mesedez. Montmartre-ko Jesusen Bihotzari Joanarentzat *grazia* eskatu diot; ulertuko duelakoan nago. Ez zaitezte gure *osaba on* eta izeba maiteaz ere ahaztu.

Agur, nire amabitxi maitea eta nire *konfiantzazko laguntxo*⁴ KUTUNA, otoitz egizue zuen Teresitaren alde.

Uste dut kontuan izango duzuela gutuna oso nekatuta nagoela eta gaeuz idazten dizuedala. Bestela, ez nintzateke gutun hau bidaltzera ere ausartuko, egitan.

Besarkada handi bat nire partez Ama maiteari.

TG 31 A**Maria Guérin-i**

1887-XI-10

Venezia, osteguna, 10 (Gauean)

Neure Maritxo maitea:

Azkenik heldu da zuri idazteko tartetxoa hartu ahal izateko unea; gaur iluntzean ez goaz ibilaldira, nahiago izan dut zeure aldamenean atsedean hartzea.

¹ Mariak Parisen igarotako hiru egun laburren aipamena.

² Ik. A Esk. 56ⁱ. Santutegi hau oso maitea zen Guérindarrentzat antzinadanik.

³ Bere Joana eta Maria Guérin lehengusinei.

⁴ Ahizpa Aines Jesusena.

Esaiozu nire izeba *maiteari*, mesedez eskatzen dizut, ez dakiela ongi bere gutunak *zenbaterainoko* ZIRRARA EGIN didan. Gutun baten bidez eskertu nahi nioke nik ere, baina uste dut bere alabatxoari barkatzen eta nire bihotzak esan nahi diona igartzten jakingo duela. Bestalde, denbora handirik ere ez daukat, Zelinak ez baitu nahi luzaro esnaturik egon nadin.

Ezin duzu irudimenean jaso ere, nire ahizpatxo maitea, ikusten duguna zer den: harrigarria benetan! Sekula ez nuen pentsatu hain gauza ederrak ikusiko genituenik. Ezin dut orain gauza horiek guztiak kontatzen hasi, asko dira eta; baina Italiako edertasun guztiek ere ahaztuaraziko ez didaten neure Lisieux maitetik idatziko dizut hobeki.

Ahizpatxo laztana, nola zaude? Ongi al zaudete guztiok? Hala uste dut. Guk alde egin genuenean bezain pozik al zaude?

Oi! Maria, jakingo bazenu zenbat aldiz pentsatzen dudan zuek guztiotaz! Bisitatzen ditugun eliza ederretan ere ez zaituztet ahanzten. Suitzako mendiak zeharkatzerakoan¹, naturaren edertasun paregabearen aurrean ere zuetaz gogoratu naiz. Zein ongi otoitz egiten den han! Jainkoa berta-bertan daukazula somatzen duzu!

Eta zein txiki ikusten duzun zeure burua mendi erraldoi haien aurrean!

Italia lurralde ederra da benetan eta orain haren zeru urdin ederraz gozatzen gaude. Gaur arratsaldean Veneziako monumentuak ikusi ditugu gongilan. Liluragarria da²!

Atsegin dut gure inguruan italieraz hitz egiten entzutea. Hizkuntza eder eta gozoa da. Hotelean "Signorella" deitzen didate; badakit hitz horrek andereño esan nahi duela, baina horixe da ulertzen dudan hitz bakarra.

Maizago idaztea nahi izango nuke, baina gure egunak egitekoz guztiz beteta daude eta ezin da gau beranduan baizik idatzi. Lotsatu ere egiten nau gutun honek, bizkor-bizkor idatzi dut eta ideiak bata bestearekin ez direlako lotzen; ikus dezakedan ez oraindik ez dizut zer nahi dudan esan... Hain daukat gauza asko kontatzeko eta galdetzeko! Nigatik balitz, luze jarraituko nuke idazten, baina Zelinak ez lidake amaitzen utziko. Berehala agurtu eta bukatzeko eskatu dit.

Eskertu iezaiozu nire osabari denok hain atsegin gozoz jaso ditugun hitzengatik eta emaiozu besarkada HANDI-HANDI bat nire partez. Ez dezazula nire Joanatxo ere ahaztu, askotan pentsatzen dut berataz eta.

Agur, ahizpatxo laztana, zutaz hainbeste gogoratzen den zure Teresatxo ez ezazu ahaztu. (Badakizu ez dudala ahaztu igande batez zer egin zenuen nigatik).

Zure Teresatxo

Aita ongi dago eta goraintziak bidaltzen dizkizue denoi.

P.C.T.³ Eskuminak Maria⁴ eta Martzelinari⁵.

¹ Ik. A Esk, 57ⁱ.

² Hona hemen, Zelinaren ondoren Martindarrek bisitaturiko lekuak: San Markos plaza eta eliza, Duke-en jauregia, Chambord jauregia, beireria, 5000 langileko farfailya lantegia, Frantziaskotarren Andre Mari eliza, Canova eta Tiziano-ren mausoleoekin, Domingotarren eliza, geltokitik hurbil dagoen Karmeldarren eliza, etab. -Denbora igaro ahala, badirudi Teresak Veneziatzat inpresio goibela gorde duela; Ik. A Esk, 59^a.

³ Irakurri: P.S. (P.D.), edo bestela: "Zelina eta Terésarentzat!"

⁴ Buissonnets-eko zerbitzaria (deiturarik ez da agertzen).

⁵ Marzelina Husé, Guérindarren neska. Ik. TG 120.

TG 32

1887-XI-14

Guérin Andreari

Astelehen gaua, 14

Neure izebatxo maitea:

Jakingo bazenu zure alabatxoa zein pozik legokeen zeure ondoan egoterik balu, zure santu-egunean¹ zorionak emateko! Baina nahi hau betetzea ezinezkoa zaionez gero, bere ordezkotzat egingo duen hitz gozoren bat hel dakizun nahi du itsasoz² bestaldeko herrialde horretara. Hitz gaixoa! Hitz bakar bat ez da nahikoa izango, nire bihotzeko izeba zenbat maite dudan adierazteko!

Izugarri poztu gara gaur goizean zure eskutitz maitagarriak jaso ditugunean. Ene izeba maitea, zein bihotz oneko iruditzen zataizkidan...

Karmelgo gutun guztiak jaso ditugu, bat bera ere ez da galdu. Paulinak bere gutunean (Milan-eko hotela) esaten didana egitera noa. Oraindik ez dakit nola moldatuko naizen Aita Santuari hitz egiteko. Egia esan, Jainkoa ez balitz guzti honetaz arduratuko, ez dakit nola egingo nukeen. Baina nire uste osoa haren gan jarri dudanez gero, badakit ez nauela bertan behera utziko eta haren esku uzten dut guzti-guztia.

Oraindik ez dakigu audientzia eguna noiz izango den. Dirudienez, guztiei hitz egiteko asmoz Aita Santua fededunen aurretik igaroko da, baina ez dut uste geldituko denik; hala balitz ere, Aita Santuari hitz egiteko asmo sendoa hartua daukat, Paulinak idatzi aurretik erabakita neukan gauza baita. Baina nire baitan zera pentsatzen dut, Jainkoak nik Aita Santuarekin hitz egin dezadan nahi badu, emango didala aditzera...

Nire izeba maitea, nire bihotza irakurtzerik bazenu, han gutunean baino hobeto ulertuko zenuke zer opa dizudan zure santu egunean. Oso urrun nago, zugandik urrun benetan, baina ezin azaldua da gaur gauean zugandik zein hurbil sentitzen naizen. Zenbat maite zaitudan eta zukan zenbat pentsatzen dudana esatea nahi nuke, baina badira hitzez esaten ez diren gauzak eta igarri baizik egin ezin daitezkeenak...

Nire izeba maitea, Mariari bere gutun xeratsu eta xarmangarriagatik eskerrak emateko erregutzen dizut, benetan atsegin handiz irakurri baitut. Eskerrak nire Juanatxo maiteari ere, bere ahizpatxoaz gogoratzeagatik.

Agur, nire izebatxo kutuna, besarkada handi bat mesedez osaba maiteari nire partez. Sekula bidali ez dizudan bezalako zorion-agur beroa opa dizut oraingoan nire izeba maitea, maite zaituztenengandik urrun zaudenean sentitzen baita hauen-ganako benetakoa maitasuna.

Zeure alabatxoa Teresa ~

m.a.

¹ Hungariako Santa Elisabet, Azaroak 19.

² Hutsa: "mendiez bestaldeko" esan beharrean.

TG 31 B**Maria Guérin-i**

1887-XI-14

1887ko Azaroa 14

Astelehena 14. Ahizpatxo maitea, hor duzu nire gutunaren data¹. Zelinak bidali zuelakoan nengoen eta harrezkero, jasota izango zenuela!... Ahazturik zaitudala uste izango duzu, honezkero.

Ene ahizpatxo maitea! Zein atsegin izan zaidan zure gutuna! Bertan nire Maritxo betikoa berraurkitu dut...

ESKERRIK ASKO!... Agur... *Zaharkitutako* gutuna bidaltzen dizut, baina pentsa duela egun bidalitakoa izan behar zuela...

TG 33**Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenari**

1887-XI-14

Neure Amabitxi maitea:

Benetako juzku txarra egin duzu, Paulinaren gutuna zurearen aurretik irakurriko nuela pentsatzean; eta hara non, hain zuzen ere alderantzizkoa egin dudana...

Bai Maria! Gaur gaueko gutunean gauza askotxo esan dizkidazu eta nire bihotzak guzti-guztia ulertu du... Bai atseginez jaso ditudala zure hitz txukunak!

Zure gutunak irakurtzen ditudanean, ezagutzen ez dudana zerbait gozoa zabalitzen da nire bihotzean.

Aita ongi dago eta atsegin osoz irakurtzen ditu zure gutunak.

Galdetu dut monastegian ea Santa Aines-en erlikiarik lortu ahal dudana, baina *ezinezkoa*¹ da.

Zure Teresitak bihotzez maite zaitu.

TG 34**Ahizpa Aines Jesusenari**

1887-XI-14

Paulina maitea:

Ezin dut nigatik egiten duzun guztia eskertu gabe utzi. Ene ba! Erregutu Jainkoari nire alde! Apezpikuak nahi ez¹ duenez gero, Aita Santuari hitz egitea da gel-

¹ Teresak Azaroak 10ean Veneziara hasitako gutuna hartu eta osatzen du; Ik. 31 A.

¹ Teresak poz hori beste era batera lortuko du; Ik. A Esk, 62^a.

¹ Luzatzen ari den Hugonin apezpikuaren erantzunari buruz, Ik. A Esk, 62^a.

ditzen zaidan azken bidea; baina ahal izan behar; Jesustxok prestatu beharko du dena, pilotatxoak² berak nahi duen lekurantz bira egin dezan. Jakingo bazenu Lore-toko gutunean esaten zenidana zein atseginez irakurri nuen eta zenbateraino kontsolatu ninduen! Ene Paulina, ni babesten jarrai ezazu! Hain nago zugandik urrun... Ezin dizut pentsatzen dudan guztia esan! Ezinezkoa da...

Jesusen jostailutxoa

Teresita

TG 35

1887-XI-19

Maria Guérin-i

87ko Azaroak 19, larunbata

Neure Maritxo maitea:

Bihar igandean hitz egingo diot Aita Santuari. Gutun hau jasotzen duzunerako audientzia bukatua izango da. Nik uste postak bizkorrago bidali beharko lituzkeela gutunak, zuk honako hau jasotzen duzunean ez baituzu jakingo zer gertatu den. Gaur gauean ez dut Karmelera idatziko, baina bihar jakinaraziko diet Aita Santuak zer esaten didan.

Ene, nire ahizpatxo kutuna! jakingo bazenu nolako taupada bizkorrak ateratzen zaizkion nire bihotzari biharkoaz pentsatzen dudanean!

Gaur gauean pentsatzen dudan guztiaren berri bazenu! Guzti-guztia kontatu nahi nizuke, baina ez, ezinezkoa da. Zelinaren luma paperean nola mugitzen den ikusten dudan bitartean, nirea gelditu egiten da, gauza gehiegi dauka kontatzeko.

Ene, nire Maritxo! Ez dakit zer pentsatuko duzun zure Teresa gaixoaz, baina gaur gauean ezin dizu bere bidaiak kontatu, hori Zelinaren kontura utziko du.

Ongi zaudela espero dut eta musika ikasten diharduzula. Italian asko entzuten da musika, badakizu hau artisten herrialdea dela. Zuk hobeki ederretsiko zenuke hau guztia, ni ez bainaiz artista. Joanak pintura ederrak ederretsiko lituzke. Ikusten duzunez, nire ahizpatxoa, Erroman ez dago ezer niretzat, dena da artistentzat! Nik Aita Santuarengandik hitz bakartxo bat lortu ahal izango banu, ez nuke ezer gehiago eskatuko...

Gaur nire izeba maitearen santu eguna da; asko pentsatzen dut berataz, gure gutunak jasoko zituelakoan nago.

Ahizpatxo maitea, besarkada handi bat nire partez maite ditudan guztiei. Nire Joanatxo laztanaz sarri-sarritan pentsatzen dut. Eskerrik asko zure gutunagatik, ez dakizu ongi zein atseginez irakurri dudan, alaitasun izpi bat bezalakoa da.

Agur, nire ahizpatxoa, otoitz nire alde

Zure Teresatxo

² Aines ahizpak proposatua; poesiez gain (CG-en argitaratua, 1169.or. h.), pilotatxoaren sinboloa oso garrantzitsua izango da garai honetako Teresaren bizitzan eta idatzietan. Ik. TG 36, 74, 76, 78, 79, 176; A Esk, 64^a; 5. DSA, str. 12. Ikus baita CG, 288.or.

TG 36

1887-XI-20

Ahizpa Aines Jesusenari

Neure Paulinatxo maitea:

Jainkoak proba asko gaindiarazten dizkit Karmelen sartzeko; Aita Santuari eginiko bisitan gertaturikoa kontatuko dizut. Ene Paulina! Nire bihotza irakurtzerik izan bazenu, adorea baizik ez zenukeen aurkituko; uste dut Jainkoak nigandik nahi zuena egin dudala eta orain, otoitz egitea baizik ez zait geratzen.

Apezpikua ez zegoen han¹ eta Révérony apaiz jaunak egin zuen haren ordeko; audientzia nolakoa izan zen jakiteko, bertan egon beharko zenukeen. Aita Santua besaulki handi batean zegoen eserita eta Révérony jauna haren alboan, oinak musukatu ondoren, Aita Santuaren aurretik igarotzen ziren erromesei begira. Gero, Aita Santuari batzuei buruz hitz bat edo beste esaten zion. Asma dezakezunez, nire txanda hurbilduz zihoala ikustean, bihotza taupaka hasi zitzaidan indartsu asko, baina ez nuen handik alde egiterik nahi Aita Santuari hitz egin gabe. Zuk gutunean adierazten zenidana esaten hasi nintzaion, baina ezin izan nuen amaitu, Révérony jaunak ez zidalako utzi. Zera esan zuen berehala: "Aita txit Santua, hamabost urtekin Karmelen sartu nahi duen neskatoa da, baina beraren nagusiak horretaz arduratzen hasiak daude dagoeneko..." (Aita Santuak, zaharraren zaharrez, hilik dagoela dirudi; ez nuen sekula horrela imajinatu. Ia-ia ezin du hitzik ere egin eta Révérony jauna da hitz egiten duena). Nik neuk azaldu nahi nion arazoa, baina ez nuen horretarako biderik izan. Aita Santuak zera esan zidan bakarrik: "Jainkoak nahi baldin badu, sartuko zara". Gero, beste gela² baterantz zuzendu ninduten. Ene Paulina! Ezin dizut esan zer somatu nuen neure baitan; deseginda nengoan, bertan behera utzita bezala, eta gainera hain urruti nago, hain urruti... Geroago negar asko egin dut gutun hau idazterakoan; bihotza hautsita daukat. Dena dela, Jainkoak ezin dit neure ahalmenen gain dagoen probarik eskatu. Proba honi aurre egiteko kemena eman dit; ene ba, handia da benetan! Baina Paulina, Jesus Haurtxoaren pilotatxoa naiz; bere jostailua apurtu nahi baldin badu ere, horretarako eskubide guztia du. Bai, Jesusek nahi duen guztia onartzen dut.

Ez dut nahi nuen guztia idatzi, ezta gutxiagorik ere; ezin dut gauza hauetaz idatzi, hitz egin beharra daukat... gainera, zuk gutun hau ez duzu irakurriko hiru egun barrurarte. Ene Paulina! Jainkoa dut bakarrik lagun, Jainkoa bakar-bakarrik!

Agur, Paulina maitea, ezin dizut gehiago kontatu, beldur naiz aita etorri eta gutuna irakurtzeko eskatuko ez ote didan, hori ezinezkoa³ baita.

Otoitz egizu zeure alabatxoaren alde

Teresita

Gogoko nuke neure Ama kutunari idaztea, baina gaur gauean ezin dut. Eska iezaiozu bere Teresatxo gaixoaren alde otoitz egiteko.

¹ Coutances-eko Germain Monsinorea, elizbarruti bitako erromesaldien buru.

² Ik. A Esk, 63^a.

³ Teresa bere aita nahigabetzearen beldur da.

Besarkada handi bat nire Maria maiteari. Gutun hau harentzat ere bada, baina nahiago izan dut pertsona bakar bati zuzentzea; uste dut Teresita ulertuko duela. Ez daukat gutuna berrirakurtzeko astirik eta seguraski hutsez beterik egongo da; barka nazazu.

TG 37

Maria Guérin-i

1887-XI-25

Florentzia¹, 87ko Azaroak 25, ostirala

Neure Maritxo maitea:

Denbora igaroz doa eta egun batzuk barru elkarrekin izango gara; gaur zortzi zuen artean egotea itxaroten dut.

Ziur diotsut, Italiako edertasun oro gustura utziko ditudala alde batera. Ederra da benetan, baina ezin ditut ahaztu Lisieux-en utzi nituenak. Lisieux-ek imanak bezala erakartzen nau, *poz-pozik* itzuliko naiz.

Ez dakizu ongi nola poztu nauen zure gutun maitagarriak. Asko poztu ninduen nire izeba maitearen festaz hitz egiten zenidalako; nire arima zuen artean zegoenez gero, une hartan ez zen Erroma eta Lisieux-en artean distantzia handirik. Ongi egin didazu izebak zer oparitu dizun esatean, ez nuen egundo igarriko eta; ustekabe ederra benetan!

Aita Santuari eginiko bisitaz ez dizut ezertxo ere esaten, horren berri honezkerro Karmelen izango zenuela uste dudalako. Zoritxar handia izan dut, baina Jainkoaren borondatea bada...

Nire ahizpatxo maitea, nire alde otoitz egiten jarraituko duzula uste dut; uste osoa daukat zure otoitzetan, Jainkoak zuri ezin dizula ezer ere ukatu iruditzen baitzait.

Zure gutuna gaizki idatzirik zegoelako kexu zinen eta hain zorrotza baldin bazara, ez naiz gehiago neure gutunak bidaltzen ausartuko, zirriborro hutsak dira eta. Sarritan pentsatzen dut zutaz, guztiotaz, gaez ere zeuekin amets egiten baitut. Zuen artean egotea nahi nuke dagoeneko.

Denbora luzea da Karmelgo berririk jasotzen ez dugula; gutunak alden du ote diren beldur naiz.

Atzo Asis-en izan ginen. Eliza batetik itzultzerakoan, bakarrik nengoela konaturatu nintzen eta kotxerik gabe. Révérony jaunaren kotxea baizik ez zen gelditzen eta berarekin joanarazi zidan. Maitakor azaldu zen eta ez zidan nire aulkia² ordaintzen utzi. Ez zidan nire arazoaz zer pentsatzen zuen esan eta ez dakit zer uste duen audientziatz.

Hirugarren pertsonan idazten hasi naizela dakusat, eta nire gutunak grasioski bira egin duela.

¹ Florentziarako bisitari buruz, Ik. A Esk, 66^a.

² Ik. A Esk, 65ⁱ.

Eskerrak eman ieazkiozu nire izebari gutunagatik. Ezingo nioke azaldu zein hunkiturik utzi nauen. Besarkatu nire partez maite ditudan guztiak.

Agur ahizpatxo laztana
Laster arte
Teresa

TG 38 B**Hugonin¹ Apezpikuari**

1887-XII-3/8 (?)

Monsinore:

Luzaro irrikatzen dudan erantzuna eman diezadan eskatzen diot Berorren Gorentasun Horri.

Monsinore, nik badut itxaropena berorren aitagisako begirunean. Bai, uste dut Jesusek berorren bitartez bete nahiko duela bere hitza.

Ene Monsinore! Probak bokazioaren ezaugarri direla esaten da; eta halaxe da. Berorrek ongi daki Jainkoak ez didala proba bat bera ere urritu, baina Jesusengatik sufritzen nuela pentsatuz, beti egon naiz itxaropentsu. Jesustxok hain argiro jakinarazi dit Gabonetarako berarekin nahi nauela, non ezin izan baitio grazia horri uko egin. Egia da oso gaztea naizela, baina Monsinore, Jainkoak bere ondora deitzen banau eta Aitak nahi baldin badu...

Révéröny apaiz jaunak nitaz hitz egingo ziolakoan nago Berorren Gorentasun Horri. Erromako bidaian halaxe agindu zidan behintzat. Ez dut sekula ahaztuko bere nireganako begirunea.

Ene Monsinore! Gabonak badatoz eta nik usteonez itxaroten dut berorren erantzuna. Ez dut sekula ahaztuko Jainkoaren borondatea Berorren Gorentasun Horren bidez bete izango dela.

Monsinore, berorren alaba bedeinka beza.

Berorren Gorentasun Horren alaba eskerroneko eta gazteena naiz.

Teresa Martin

TG 39**Révéröny apaizari**

1887-XII-16

Lisieux, 1887ko abenduak 16

Bikario Nagusi jauna:

Monsinoreari idatzi berri diot, aitak eta nire osabak baimena eman ondoren. Egunero nago itxaropentsu Jesus Haurraren baiezkorekin zain. Apaiz jauna, Gabo-

¹ Testu hau, "Procès des Ecrits"-etik (1910) eskuz garbira pasatutako bi zirriborrok osatzen dute (TG 38 A eta 38 B; Ikus CG, 325 orr.). M. Guérin-ek azkenik bertsio definitiboa idatziko du eta Teresak dagoen bezala kopiatuko (TG 38 C, CG-en, 331. orr.) Abenduaren 16an Hugonin Apezpikuari bidaltzeko.

netarako zortzi egun besterik ez dira gelditzen! Eta denborak aurrera egin ahala, are eta itxaropentsuago nago. Gehiegizko ausardia izango da, beharbada, baina hala ere Jesus bera mintzatu zaidala deritzot.

Erromara egindako bidaiako distrazio guztiek ere ez dute lortu nire Jesusi lotzeko irrika sutsua une batez ere ahaztea. Ene, zergatik deitzen nau hain ozenki, gero berarengandik urrun indargabetzen uzteko?

Apaiz jauna, berorrek hitz eman zuenez, Monsinoreari nitaz hitz egingo diola-koan nago. Jesusek neure proba uanean kontsolatu baninduen, berorren bitartekari-tzari esker izan zen; eta Karmelen Gabonetarako sartzen banaiz, badakit hori ere berorri zor izango diodala. Ez naiz bat ere eskertzarrekoa eta neure bizitza osoan izango dut gogoan.

Apalki eskatzen diot Bikario Nagusi jaun horri, bedeinka dezala berorren alaba umil eta eskerronekoa

zerbitzari txiki
Teresa Martin

TG 40

Hugonin Apezpikuari

1888ko Urtarrilaren hasiera

Monsinore:

Asko luzatu naiz Gorentasun Horri bidalitako¹ gabontsari ederra eskertzen. Mundu honetako edertasun guztiek ere ez zidaten atsegin handiagorik emango. Jesus Haurrak ez dit huts egin, beraz! Baietz esan dit bere sehaskatik.

Monsinore, ez dut uste²...

TG 41

Delatroëtte kalonjeari¹

1888-I-13/30

Apaiz jauna:

Santa Aines egunean bidalitako irudi ederra eskertu nahi diot berorri; beti maitagarri izango zaidan lehenengoko oroigarri gisa gordeko dut.

Apaiz jauna, bedeinka beza urrunetik bada ere berorren alaba txikiena; alaba hau, bere arima Karmeleko bizitzarako prestatzen ari da. Badakit grazia oso handia dela hain gazte izanik Jainkoak deitua izatea, baina ez naiz eskertzarrekoa izango

¹ Karmelen sartzeko baimena

² Bukatu gabeko testua.

¹ Teresak birkopiatuko duen Aines ahizpak eskuz idatziriko zirriborroa.

eta uste dut bidea Jainkoak erakutsiko didala, leial eta zintzo izan nakion, bihotz-bihotzez nahi dudan bezalaxe.

Apalki eskatzen diot Apaiz jaun horri, ez dezala berorren otoitzetan ahaztu

Berorren alabatxo

T.

(P.D.) Hona hemen, Zelinari berorri helarazteko eskatu dizkiodan Révérony jaunaren hitzak.

TG 42

Ahizpa Maria Bihotz-Sakratuarenari

1888-II-21

88ko Otsailak 21, asteartea

Neure Amabitxi maitea:

Ez dut ahaztu bihar zure urtebetetze eguna denik, aspaldidanik nago horretaz pentsatzen. Benetan poztuko nintzateke zu ikusterik banu, hogeita zortzigarren urtebetetze egun zorionsua opa ahal izateko. Baina garizuman gaudenez gero, sakrifizioen¹ bat ere egin behar da.

Nire Maritxo maitea, hausterre egunean aitak opari bat egin zidan; galdetuko banizu, ehungarrenean ez, milagarrenean ere ez zenuke igarriko zer den. Imajina ezazu, nire Maria laztana, aitaren zaku handi horren sakonean bildots polit eta ile kizkur bat. Nire aitaxo onbera honek oparia ematerakoan, Karmelen sartu aurretik bildots txiki bat izan nezan nahi zuela esan zidan. Mundu guztia poztu zen eta Zelina zorutzen zegoen egun bateko bildotsa genuelako. Aitaren onberatasuna izan zen, batez ere, hunkitu ninduen. Gainera bildotsa hain da sinbolikoa... Paulinaz pentsarazten zidan.

Orain arte dena doa ongi, dena da maitakor, baina itxaron azkenera heldu arte. Bildotsa zela eta ez zela, guztiok amets bat bestearen atzetik eginez, bi edo hiru egunetan gure inguruan jauzika ibiliko zela uste genuen. Baina horra hor non animaliatxo polita arratsaldean hiltzen zaigun. Dirudienez hotz handiegia izan zuen jaio zen autoan. Koitadua! Jaio bezain laster, sufrimendua jasan eta hil egin zen.

Bildots txikitxo hain polita eta xaloa izanik, Zelinak haren irudia pintatu zuen lientzo batean. Gero aitak hobi bat egin eta hantxe sartu genuen lotan zirudien bildots txikia. Ez nuen lurrez estaltzerik nahi izan eta elur pilo bat metatu genuen bere gorputxoaren gainean. Hantxe bukatu zen dena...

Ez dakizu, nire Amabitxi maitea, animaliatxo horren heriotzak nola pentsarazi didan! Bai! Lurrean ez zatzaizkio ezeri eratxiki behar, ezta gauzarik xumeenei ere, bestela, gutxien uste dugunean utziko zaituzte. Betiko denak egin gaitzake bakarrik

¹ Garizuman mintzatokiak itxita egoten dira.

zoriontsu. Nire Maria maitea, bildotsaz baizik ez dizudala hitz egin konturatzen naiz eta orain Leoniak² gutunean tartetxo bat utz diezaiodan nahi du.

Agur, beraz, nire Amabitxi maitea, zure alabatxoak zuk uste baino gehiago maite zaitu

Teresita

Bihar neure jaunartzea neure Amabitxi maiteari eskainiko diot... Besarkada handi bana nire partez nire Ama kutunari eta baita Paulinari ere. Esaiozu ongi nagoela.

Asko erregutu dut Virville³ jaunaren alde.

TG 43 B

Ahizpa Aines Jesusenari¹

1888-III-(18 ?)

Neure Paulinatxo maitea:

Berehala idaztea nahi izango nizun gutuna eskertzeko, baina ezinezkoa egin zaidanez gero, gaur arte itxaron behar izan dut.

Ene Paulina! Egia da kaliza guztietan nahasten dela behazun tantatxoren bat! Hala ere, larrialdiek mundua alde batera utzi eta munduaz gaindik begiratzera garmatzatela deritzot. Behealde honetan, ezerk ezin gaitu ase eta Jainkoaren borondatea betetzeko prest gaudenean baizik ez gara lasaitzen.

Nire untzitxoa ezin da portura iritsi; bada denbora itsasertza ikusten natorrela, baina hala ere, portutik urrun sentitzen naiz oraindik. Dena dela, Jesustxo da nire unziaren gidari eta ziur nago, berak nahi duenean, berehala portuan sarraraziko duela. Ene Paulina! Jesusek Karneleko itsasertz bedeinkatuan uzten nauenean, ni naizen hau Jesusi eskainiko natzaio, ez baitut berarentzat baizik bizi nahi. Eta ez! Ez naiz bere kolpeen beldur izango, sufrimendurik garratzenetan ere, zigortzen duena haren esku gozoa dela sentitzen baitut. Halaxe sufritu nuen Erroman, lurrak nire oin azpitik alde egin behar zuela uste izan nuenean.

Karmelen izan nadinean ez dut nahi Jesusengatik sufritzea besterik. Bizitza laburra denez gero, hobe da apurtxo bat sufritu arren koroa eder bat lortzea, ezer ez sufritzeagatik erdizpurdizko batekin geratzea baino. Eta pozez jasandako sufrimendu bakoitzagatik, betiereko bizitzan Jainko ona hobeto maitatuko dugula pentsatzen dudanean... Gainera, sufritzuz arimak salba daitezke. Ene Paulina! Nire heriotza egunean arimarik banu Jesusi eskaintzeko, benetan zoriontsu nintzateke! Infernuko

² Leoniak Bisitazioa urtarrilaren 6an utzi zuen.

³ Ama Maria Gonzagarenaren neba.

¹ Behin-betiko idazketa. Zirriborroak (43 A, CG-en, 341.orr.) gutun honetan sartu ez den esaldi hauxe zuen: "Jainkoak ezer irrika ez dezadan, ezta onena eta ederrena dela pentsatzen dudana ere, bidaltzen dizkidala uste dut probak..."

satatik erauzitako arimaren bat legoke gutxienez, Jainkoa betiereko bizitzan bedeinkatuko lukeena...

Nire ahizpatxo maitea, ikusten dudanez oraindik ez dizut zure gutunaz hitz egin, eta atseginez jaso dut benetan. Ene Paulina! Oso pozik nago Jainkoak zu bezalako ahizpa bat eman didalako. Zure alabatxoaren alde otoitz egingo duzulakoa nago, Jesusek eskaintzen dizkion graziei erantzuteko gai izan dadin. Alabatxo honek zure laguntza handia behar du, berak lortu *nahi duen* helburutik URRUN baitago oraindik.

Nire Amabixi maiteari esaiozu askotan pentsatzen dudala berataz. Bere profesia² eguna noiz den jakin nahi genuke, ordea...

Besarkada handi bat Zelinaren partez; ahizpatxo gaixo honek min du hankan eta uste dut ezingo duela Bezperetara joan. Osabaren etxean ia den-denak daude gaixo; egia esan, bizitza ez da oso alai eta zaila zaigu horretara moldatzen.

Agur, neure Paulina, neure *konfiantzazko lagun* laztana. Bazko³ astelehenerarte eta batez ere apirilaren bederatzirarte⁴... Besarkada bat ene Ama MAITEARI⁵ nire partez.

TG 44

Hugonin Apezpikuari

1888-III-27

Monsinore:

Karmelen sartu bezperarako bedeinkapena eskatzera nator. Ez dut behin ere ahaztu Gorentasun Horren¹ alabatxoa naizenik, ezta zenbat zor diodan berorren aita-begiramenari ere. Orain berorren alabatxoa²

TG 45

Ahizpa Aines Jesusenari

1888-III-27

88ko Martxoak 27, asteartea

Neure ahizpatxo maitea:

Oraintxe bertan bidali diot apezpikuari zuk idatzitako gutuna¹, mila esker. Ene! Bidali didazun irudia liluragarria da benetan!

² Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenak kaperan egingo du profesia, maiatzaren 22an.

³ Apirilak 2, hitz egiteko lehenengo eguna, Garizuma ondoren.

⁴ Karmelen sartu zeneko data.

⁵ Ama Maria Gonzagarena.

¹ Ik. A Esk, 72¹.

² Ahizpa Aines Jesusenak luzatutako zirriborro baten amaitu gabeko kopia. Ondoren zetorren testua ez da ezagutzen.

¹ TG 44.

Berehala idatzi nahi izan dizut, ea nire osabaren etxean irudiak zeuk pintatu dituzula eta nik idatzi egin dudala esatea nahi duzun jakiteko. Orain edo geroxeago jakingo dute eta zenbat eta beranduago, are eta okerrago; ez zaie bat ere gustatuko². Horregatik, nik, badaezpada, galdetu egiten dizut. Hilaren bederatzirako dela ere esango diet.

Ostegunean nire osabaren etxera goazenez gero, aitak bihar goizean jasoko dituen hitz batzuk tomu-leihoan³ pasa ditzazun nahi nuke.

Bai Paulina! Nik hondar-ALETXOA⁴ izan nahi nuke beti... Bai atseginez irakurri dudala zure gutuna! Jakingo bazenu nola hunkitu didan bihotza!

Hondar-aleari buruz kontu gehiagoren berri eman nahi nizuke, baina ez daukat astirik... (santa izan nahi dut...)

Duela egun batzuk biziki atsegin dudan esaldi bat idoro nuen, orain ez naiz gogoratzen zein santuk esana. Zera zioen: "ez naiz perfektua, baina izatera heldu nahi dut"⁵.

Zenbat hitz solte! barka nazazu, nire ahizpatxo laztana, presaka nabil. Apirilaren bederatzirarte!

Teresita

² "ez zaie bat ere gustatuko": informatuak ez izateaz, esan nahi du.

³ Karneleko ataria.


⁴ Ezkutatzearen irudi hau (Sonis nagusiaren otoitzetatik hartua, ik. CG, 1170. orr) Jesuñen jolastxoarenarekin tartekatuko da (TG 34) Teresaren gutunetan; ik. TG 49, 54, 74, 82, 86, 95, 103, 114. Berdin, C Esk, 2ⁱ; Otoi. 2; eta CG, 349+d orr.

⁵ San Augustini ezarria.

HIRUGARREN AROA

NOBIZIAGAI ZENEKOA

(1888ko apirilaren 9tik 1889ko urtarrilaren 10era)



TG 46

1888-IV-29

Martin jaunari

J.M.J.T.¹

88ko Apirilak 29, igandea

Neure Aitatxo maitea:

Zein onbera zaren zeure Erreginatxoarekin² ! Ia-ia ez da igarotzen erreginatxoak bere Erregearengandik opariren bat jaso gabeko egunik.

Eskerrik asko, ene aitatxo maitea, gauza guzti-guztiengatik. Jakingo bazenu Beresinako Umezurtxoak zenbat maite zaituen! Ba ez, hori guztia zeruan jakinara-ziko izazu bakarrik. Hantxe ikusi ahal izango ditugu *erlaitz* gainetako *irudi* ederrak eta orduantxe heldu ahal izango gara *extasira*³. Eta gero, bai gidari ona izango dugula zeruko edertasunak erakusteko!... Uste dut santu askok izango duela bere *argi-koroan* gurutze *bizantiarren* bat. Zeruan hilobirik ez da izango eta, han ez dugu sarkofagorik ikusiko.

Neure aitatxo maitea, ordua aurrera doala dakusat eta hementxe utzi behar zaitu, ez ordea urrunetik bada ere besarkada handi bat eman gabe.

Zure perla finak gogotik besarkatzen zaitu. Ene ba Aita! Jakingo bazenu zelako *bitxia* den zure perla fina!

Diamante distiratsuak eta, Bohemiarrek ere besarkada bana eskaintzen dizute bihotzez.

Agur eta mila esker, nire aitatxo. Azkenik burdi⁴ azpitik aterea izan den zure erreginatxo

Teresa Jesus Haurarena

¹ Jesus, Maria, Jose eta (Avilako) Teresaren inizialak.

² Teresak Apirilaren 9an Karmelen sartu zenez gero bere aitari idazten dion lehenengo eskutitz hone-tan, badirudi atsegin duela Martin jaunak bere alabei ezarritako goitizen maitakorrek biltzea: "Erregina-txoa" (nobiziagaiaren gutunetan berrogeita hamar aldiz agertzen da); "Beresinako Umezurtza" (Buisson-nets-en irakurritako elaberri batetik hartua, Ik. TG 63, 66, 72, 116); "perla fina": Paulina (Ik. TG 48, 52, 58, 61, 63); "Diamantea": Maria (Bihotz Sakratuarena; TG 48, 51, 58, 61, 63); "Bohemiarra": Maria baita.

³ "Erlaitz gainetako irudi ederrak... extasira". Teresak Erroman gidariari entzuniko hitz batzuk dakartza hemen; Ik. A Esk, 61^a eta CG, 362+d. orr.

⁴ Honako hau esan nahi duen esaera: "Horra hor non zauden, munduko arrisku guztien babesean" (Ama Ainesen oharra)

TG 47

1888-V-8

Zelinari

1888ko Maiatzak 8

Zelinatxo maitea, bi mahai-oihal bidaltzen dizkizut makinaz josi ditzazun; badakit lanpetuta zabiltzala, baina zeure Teresatxori ez diozu mesede hau ukatuko... Uste dut bi jostura behar dituela; manteltxotariko batek azpildura txikiegia daukanez gero, saia zaitez bigarren jostura apur bat banatuago ematen. Berandu jota bihar arratsalderako itzultzea nahi nuke, ostegunean Igokunde eguna da eta.

Gaur lau urte gure Jauna lehenengoz hartu nuela, gogoratzen al duzu?... Zenbat grazia eskaini dizkidan Jainkoak ordutik hona!

Zelina maitea, batzuetan ea benetan Karmelen ote nagoen galdetzen diot neure buruari, ezin baitut sinetsi! Ene bada, zer egin ote diot nik Jainkoari grazia hau merezi izateko?

Bihar hilabete bat beteko da zugandik urrundu nintzela, baina ez deritzot bananduta gaudenik ere. Zer axola non gauden?... Gure artean itsasoa balego ere, elkarrekin jarraituko genuke, gauza bera nahi dugulako eta gure bihotzek taupadak batera ematen dituztelako... Ziur nago ulertzen didazula. (Zer axola dio bizitza alaia ala tristea den? Dena dela, ez al dugu bidaiaren azkenera behealde honetan iritsi behar?). Karmeldar batentzat sufrimendurik gabe igarotako eguna, egun galdua da¹; eta honek zuretzat ere berdin-berdin balio du, bihotzez Karmeldar zara-ta.

Besarkada handi bat Leoninari nire partez,

Teresatxo Jesus Haurrarena

TG 48

1888-V-8

Martin jaunari

1888ko Maiatzak 8

Neure aitaxo maitea:

Zure kandelatxoak asko gustatu zaizkit eta egin dezakedan gutxiena gutuntxo hau idaztea da, eskerrak emanez.

Jesusen mandatariak¹ ongi egin du bere Erreginatxoari argiztatze² politik egi-teko behar dituen bitartekoak eskaintzeaz.

¹ Seguraski Pazzi-ko Maria Madalena santuaren esaeraren baten zantzua.

¹ Martin jauna bera.

² Jesus Haurraren irudi aurrean, klaustropean. Ik. A Esk, 72ⁱ.

Erregina uneoro dago bere Erregearengan pentsatzen. Gainera, Jesusen mandataria maiz etortzen da mandatuak ekartzera eta, ezinezkoa egiten zaio ahaztea.

Nire aitaxo maitea, diru gabe geldituko zarela uste dut, benetan, eta hau esatean pixka bat harritzen bazaitut ere, horrek ez nau askorik kezkatzen. Baliabide asko duzunez gero, badakit ez zarela sekulan larri ibiliko... goseteak berak ere ez zintuzke beldurtuko. Gogoratzen al duzu "gosetean gauza bat ez bada bestea jango da" esaten zenidanean? Edo "diru gabe gelditzen garenean hau edo bestea egingo dugu" esaten zenuenean? Jarrera hori izanik, ez dago beldurra sartuko dizun ezbeharririk.

Mila esker arrainagatik ere, aitaxo maitea. Eskerrik asko eta eskerrik asko; beti ematen zaudenez gero, gauza ororengatik eskertzen dizut, orokorrean, nahiz eta opari bakoitzak bere atsegina eman.

Agur, nire Errege maitea; zure Diamanteak eta Perlak ere eskerrak ematen dizkizute, zure Erreginak bezala.

Teresa Jesus Haurrarena

TG 49

Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenari

1888-V-12/20

1888ko maiatzak 12-20

Jesusen Bihotzaren Bakartiak bere alabatxoari poz handia eman dio, bihotza irakurri baitio!... Beraz, bakarraldian ere Jesusek arimari hitz egiten dio!... Zure gutunaz eta aurkeztekoera xarmantaz hain nago *liluratua*¹, non gaur arratsean bertan zuri erantzun beharra sentitu baitut. Laster kanpai-hotsa izango da, oraintxe dantzut² ...

Neure gutuntxo hain zuzen ere kontu gehien esan nahi nuen momentuan eten dut...

Bizitza sakrifizioz beteta dago, egia da! Baina ha zelako zoriona! Gure bizitza ostatu³ txar batean igarotako gaua baizik ez denez gero, ez al da hobe, gau hori *erdizpurdizko* hotel batean baino areago, benetan txarra den batean igarotzea?

Ez *dakizu* ongi zenbat MAITE zaitudan! Ikusten zaitudanean aingerua iruditzen zatzaizkit... Zu mendi gailurrean hegaz egiteko eta eguzkiari aurrez aurre begiratze-ko deitua zaren ARRANOA zara; otoitz egizu haranean dagoen eta putz txikienak ere okertzen duen kanbera⁴ ahularen alde. Erregutu kanaberaren alde zeure profesia egunean!

¹ Bioleta batekin aurkeztu zion.

² Esanekoa betetzeko, Teresak idazteari uzten dio kanpaia entzutean, gutuna bukatu gabe izan arren.

³ Avilako Santa Teresa, "*On-Bidea*", XL. kap.

⁴ Sinbolo honi buruz, lk. TG 54, 3. zenb.

Eska ezazu zure alabatxoa beti hondar-ale ilun bat izan eta begirada guztien-gandik ezkutuan egon dadin, Jesusek bakar-bakarrik ikus dezan; gero eta txikiago bihurtu dadila, *ezerez* izatera etorr dadila...

Barkatu eman dizkizudan atsekabe guztiengatik. Ez dakizu ongi nola damutu naizen gehiegi⁵ deitzen zenidala esateagatik...

Ene ba! Profesaren ondoren ez zaitut gehiago atsekabetuko... Agur!... Barka nazazu...

Otoitz egizu ZEURE alabatxoaren alde.

Arreta handiz utzi dut lehortzen zure bioleta.

TG 50

1888-V-13

Maria Guérin-i

88ko Maiatzak 13, igandea

Neure ahizpatxo maitea:

Mihi puntan Pott¹-a badaukazu ere, *izpirituan* eta hatz puntetan ez daukazu horrelakorik behintzat. Ai, zein gutun zoragarria bidali didazun!...

Niri barre eragiteko asmoa izan baduzu, ez duzu denbora alferrik galdu, dea-brutxo hori. Bihurritxo horrek oinean min duzula diozu eta hori oso arraroa da, zure oinak hain txikiak izanik, ez baitago haietan gaixotasunarentzat lekurik.

Zorionez laster da Pentekoste eta Espiritu Santuak zure Sendotza egunean egindako hutsegite larria zuzendu ahal izango du. Bere dohain guztiak eman zizkizun, oso baliagarri gertatuko litzazukeen bat izan ezik. Ba al dakizu zein?...

Bakarraldian² etengabe otoitz egingo dut, Pentekoste egunean Sanson bezain *indartsu* senti zaitezen. Eta hala ere min baduzu, kontuz zure *Lulu*-rekin³.

Bart Joanarekin egin dut amets; Karmelen nagoenez gero sarri-sarri amets egi-ten dut berarekin. Emaiozu besarkada handi bat bere Teresatxoren partez.

Hau egun ederra! Eguzkia benetan distiratsu dago, eskutitzean margotu zenidana baino are distiratsuago. Zure eguzkiak ez zuen lurra argitzen eta gaurkoa zure gutunekoaren antzekoa balitz, zuk oparitutako lanpara⁴ erabili beharko nuke.

Pozik nago orri honetan lanpara hitza aipatzea lortu dudalako; bestela, itxuragabekeria galanta egingo bainizuke, ezer esan gabe agurtzen hasiko banintz.

⁵ Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarena Teresaren "aingerua" zen, Teresari Karmelgo ohiturak erakustez arduratuko zena.

¹ Pott gaixotasuna

² Igokunde eta Pentekoste bitarteko bakarraldi komunitarioa.

³ Maria Guérin-ek Teresari jarritako goitizena.

⁴ Mariak bere lehengusinari emandako gasolina mineralezko lanparatxo xumea.

Laster arte, nire ahizpa maitea; nire partez osaba besarka dezazun espero dut; esaiozu ez dugula bere gomendioa ahaztuko. Mila musu nire izeba maiteari. (Indarra oinetan izan dezazun lortu behar da, eta ez ilean⁵ bakarrik). Bihurritxo maitea, bihotz-bihotzez besarkatzen zaitut.

Zure ahizpatxo
Teresa Jesus Haurarena
nobiziag. karm. apal.⁶

Gure ahizpa nagusia⁷ profesako bakarraldian dago; buruestalki zuriz jantzia, aingerua dirudi. Bere Maritxoren alde asko erregutuko du.

TG 51

Martin jaunari

1888-V (?) -17

J.M.J.T.

Neure errege maitea:

Badakit diamanteak ere idatzi dizula; beraz, nik ez dizut gauza handirik kontatuko, zure Erregina gaixoa diamantearen distiren ondoan estalita gera ez dadin... Zuk oraindik ez dakizun bezala maitatzen zaitudala berriro esatea nahi nuen bakarrik. Erregina batek nola ez du, bada, bere erregea maitatuko, eta are gehiago zu bezalako Errege bat? Hain ona, hain santua,... bai, benetan, San Luis bezain santua zara...

Eskerrik asko, nire aitatxo maitea, oparitu dizkidazun gauza guztiengatik: paleta¹ etab. etab... ondoren datorren guztia...

Gogoratzen al duzu aita, Genoan geundenean nola ibili ginen Benoit² jauna eta besteen atzetik? Haiek bai egun alaiak! Nire aitatxo maitearekin egindako bidaia haren oroitzapena beti izango da nirekin.

Besarkada bat, nire Errege maitea.

Frantzia eta Nafarroako zure Erregina

Teresa Jesus Haurarena
nobiziag. karm. apal.

⁵ Sanson-en aipamena.

⁶ "Nobiziagai karmeldar apala"-ren laburdura.

⁷ Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarena.

¹ Nobiziagaiari baratzako lan pixka bat agindu zitzaion.

² Felix Benoit Jauna, Caen-eko magistratua.

TG 52

1888-V/VI (?)

Martin jaunari

J.M.J.T.

Ona da benetan Jesus Haurren mandataria; nik neure samurtasun eta musu guztiak opa dizkiot. Atseginez hartuko dut bidaltzen didan¹ ardoa, Jesus Haurren upategikoa dela pentsatuz.

Nire Aitatxo maitea, zu zeu zara Jesusen mandatari, ongixto dakit nik hori. Eskerrik asko bihotzez, nirekin hain onbera izateagatik!

Bai, ni beti izango naiz zure erreginatxoa eta zure aintza goersten ahaleginduko naiz, Santa bihurtuz.

Teresa Jesus Haurrenak, Diamante distiratsuak eta Perlatxo finak, hirurek besarkatzen zaituzte.

Oraintxe bertan erakutsi dizkidate txoriak². Ene aitatxo maitea, zein onbera zaren! Hiru txoriño daude, bat Diamantearentzat, bestea Perla finarentzat eta azkena Aitaren erreginatxoarentzat. Erreginatxo honek ahalegin guztiak egingo ditu pixka bat bada ere bere Erregearen antzekoa izaten.

TG 53

1888-VI-17

Zelinari

J.M.J.T.

1888ko ekaina, igandea

Neure Zelina maitea:

Mesede handia egingo zenidake, LEHENBAILEHEN, mantala egiteko erosi zenuen oihala bidaliko bazenit; mozorrotzeko erabili zenuen gerriko eskoziarra ere beharko dut. Bidali baita daukazun zinta zuri erabilgarri guztiak; badago hor bat nik neure lehenengo jaunartze egunean buruan eraman nuena. Buruko kapelari¹ ere har diezaiokezu bat edo beste... Santa Ines² -ena egiteko da hau guztiau...

Ahizpatxo maitea, zein onbera den Jainkoa zurekin! Ez dakizu ongi Ostira-lean³ jaso zenuen grazia zein handia den! Egia esan, itxaroten zenuena dela uste

¹ Ardo indargarria.

² Uroiloak.

¹ Lehenengo jaunartzea egin zueneko kapela

² Ama Maria Gonzagarenaren festa egunerako, ekainaren 21ean; ahizpa Aines Jesusenak egindako eta VT 71. zenbakian argitaratutako sainetea (Ik. Poésies II, 180-183.orr).

³ Ekainaren 15ean, Zelinak Karmelerako bere bokazioaren berri eman zion aitari.

dut. Honako hau esaten zenidan: nik ez dut grazia erabakiorrik⁴ jaso. Ziur nago, grazia hori ostiralekoa duzula. Orain Jesusena zara, bera inoiz ez bezala baita zurea. Ezkon-eraztun⁵ misterioitsua jarri dizu atzamarrean eta zure arimaren jabe bakarria izan nahi du.

Ahizpa maitea, AHIZPAK gara bai, hitzaren esanahi osoan! Agur, urrunetik bada ere, nire bihotzak zurea irakurtzen du.

Teresa Jesus Haurrena
nobiziag. karm. apal.

Eman besarkada bat nire partez nire Errege paregabeari.

TG 54

Ahizpa Aines Jesusenari

1888-VII-4 (?)

J.M.J.T.

Jesusen bildots maitearen beekadak arkumearen¹ belarrietan musika gozoa bailitzan egin du durunda!... Eta non ikasi du, bada, bildotsak Zeziliaren² doinua?

Oi, betiko bizitza! Arkumea betiko bizitza horretan murgilduta dago jadanik! Berak ere bildotsaren atzetik salto egitea nahi du, baina horretarako, bildotsaren musika gozoak ireki behar dio bidea.

Txikia izan arren, hondar-aleak ere betiko bizitza ederra prestatu *nahi du* eta bekatarien arimei ere betiereko bizitza bera antolatu nahi die, hau da hau! Oraindik ez da behar bezain txikia, ezta behar bezain arina.

Bildotsak eta arkumeak Ines-en palma behar dute odolez ez bada maitasunez... Horixe da hondar-alearen ametsa!...

Jesus bakarrik! Ez beste inor! Hondar-alea hain da txikia, non, bere bihotzean besteren bat sartu nahiko balu, ez bailuke Jesusentzat lekurik izango...

Bildots zuriak otoiitz egin dezala hondar-ale beltzaren alde, betiereko bizitza horretan distiratsu eta argitsu bilaka dadin.

Jesusen kanaberatxoa³

⁴ Apirilaren 19an, Teresa Karmelen sartu zen egunean, Zelinak ezkontza-eskaria jaso zuen eta ezbaian egon zen, zein bide hartu erabaki ezinik.

⁵ Ik. 26, 3, 2 TO.

¹ Teresaren goitzenari buruz, Ik. CG, 378+b.orr. "Bildotsa", Aines ahizpa, uztailaren lehenengoaz geroztik hamar eguneko gogo-jardunetan dago.

² Santa Zeziliaren liturgi ofizioari buruzko aipamena: "Zezilia birjinak bere bihotzean Jaun bakarrari kantatzen zion" (maitinetako lehenengo erantzuna). Ik. 3. TO. - Teresaren idazlanetan santa honetaz egiten den lehenengo aipamena da.

³ Sinbolo garrantzitsua Teresarentzat, kanabera bere armarrarian agertzen baita (A Esk, 85'). TG 49 eta 55.ean aurkitu dugu, baita LC 84,85 eta 120; Ik. CG, 379+g. orr. Abitua hartzerakoan, Teresak kanabera jasoko du seinale gisa, jantziak markatzeko.

TG 55

1888-VII-5/9

Ahizpa Aines Jesusenari

Eskerrak bildots maiteari, arkumeari zeruko musika entzunarazteagatik. Haize leunak poliki-poliki kulunkarazi du kanabera...

Bederatziak joak ziren kanaberek orritxo maitea¹ jaso zuenean; ez zuen inolako argirik², baina bihotzak begien laguntzarik gabe dezifratu zion Santa Zeziliaren doinua. Ez zuen hitz bakar bat bera ere galdu!...

Bai, benetan ditut irrikatzen bildotsak azaltzen dituen bihotzeko nahigabe eta zatzadak. Kanaberari ez dio axola makurtzeagatik, urertzean bizi denez ez baita hautsiko den beldur. Makurtzen denean lurra jo beharrean, uhin ongile bat aurkitzen du; uhin ongile honek indartu egiten du eta bere buru ahularen gainean beste ekaitz handi bat sor dadin eskatzen du. Haren ahuldadean datza usteon guztia. Ezin du hautsi, gertatu ahala gertatu, Jesusen eskua nonahi ikusten du-eta... Batzuetan, kanaberari jasangaitzagoa zaio haize-bolada txiki bat haizerauntsi handia baino, azken honek bere erreka maitean bustitzeraino makurtarazten duelako. Haize-boladek, ordea, ez dute uretaraino makurtarazten, zatzada hutsak direlarik...

Baina sufrimendu bat ere ez da handiegia palma-adarra³ irabazteko...

TG 56

1888-VII-11

Ahizpa Aines Jesusenari

Hauxe da zoriona, bihar bildotsaren aurpegia¹ ikusi ahal izatea! Arkumeak bildotsari berehala zerura saltoka ez joateko erregutzen dio. Zeruan lekua dagoeneko prest baldin badauka, pentsa dezala apur bat arkumearengan, itxaron dezala arku-meak ere salto egin ahal dezan arte, eta orduan biak batera joango dira erreinura. Lurrean sekula asebetetzen ez diren haien bihotzak, maitasunaren iturritik edatera joango dira. Hura jaialdi paregabea! Hauxe da poza, Jainkoa² ikusiko dugulako eta gauza ororen gainetik³ maite dugunak epaituko gaituelako! Bildotsak bere erreinura laster alde egingo duela amets egin dut, baina oraindik atzerrian geldituko den itxaropena dut, arkume gaixoa bideratu dezan.

¹ Aines ahizpak Teresaren gelaskako ate azpitik bidalitako txartela.

² Gaueko bederatziak.

³ Aines-en palma-adarra, Ik. TG 54.

¹ Bakarraldian eta bakartadearen ezaugarri, ahizpek aurpegiaren estalkia jartzen zuten, komunitatean zudeanean.

² Maitatzeko irrika baino gutxiagotan baietsia izan arren, "Jainkoa ikusteko" irrika dago beti lehenengo planoan Teresarengan, aipamen hauek sarritan gehiegizkoak direla eritzi izan direlarik: KH 15.V.7. Ik. 5. eta 13. TO; 17, 15; 18, 54; 22, 17; (23, 3); 24, 27; 33, 2; 36, 4; 3. DSA, 12ⁱ (3 f), 19^{ai}, 20ⁱ; C Esk, 4ⁱ; TG 95, 96, 186, 254.

³ Avilako Santa Teresa, "On-Bidea", XL. kap.

TG 57

Zelinari

1888-VII-23

J.M.J.T

Jesus bakarrik †

88ko uztailak 23, astelehena

Ahizpa maitea:

Teresak zure arima ondotxo ulertzen du, azaldu diozunaz gaindi irakurri du-eta. Igandeko tristura ulertzen dut, nik ere neure baitan sentitu izana baita... Zure gutuna irakurtzean, zuri eta niri arima berak biziartzten digula iruditu zait; egia esan, gure arimek badutelako, izan ere, biak parekatzen dituen halako ñabardura berezia. Beti izan gara elkarrekin eta poztasun nahiz atsekabe berak bizi izan ditugu. Ene! Eta Karmelen ere berdin segitzen dugula sentitzen dut; ez gara sekula-sekula ere banatuko! Dakizunez, lili horiak¹ bana gintezke bakarrik. Horrela mintza banatzaizu, zure ondarea Lili zuria dela ziur nagoelako da, zuk halaxe nahi izan duzulako eta lehenagotik berak aukeratu zintuelako... Lilien hizkuntza ulertzen duzu?...

Noizbait neure buruari galdetu izan diot ea zergatik Jesusek aukeratu ninduen ni lehenengo. Orain badakit... Begira, zure arima lili-*betibizi*² da eta Jesusek lili horrekin nahi duena egin dezake. Berdin dio non dagoen, hemen edo han, beti bizirik dagoen lilia izango baita; ekaitzak ere ezin du liliaren usain gozoko lorazil zuri-dun kalizatik kolore horia desagertarazi, Jesusek halaxe egin baitu. Jesus aske da eta inork ezin dio galdetu zergatik eman dion grazia arima bati besteari bano lehenago³. Lili honi Jesusek beste bat jarri zion aldamenean, lagun leial⁴ bat. Elkarrekin hazi ziren, baina bat beti bizirik zen eta bestea ordea, ez. Orduan, Jesusek bere lilia hartu behar izan zuen lorea irekitzen hasi aurretik, lili biak bereak izan zitezten... Bata ahula zen, bestea, ostera, indartsua; Jesusek ahula hartu zuen eta bestea bakarrik utzi, distira berri batez edertu zedin... Jesusek bere lili biei DEN-DENA eskatzen die, ez die soinekoaren zuria baizik utzi nahi. DEN-DENA! "Beti-bizirik"-ek ulertzen al dio bere ahizpatxoari?...

Bizitza astuna da maiz. Zenbat garraztasun... Baina zenbat gozotasun baita! Bai, bizitza gogorra da! Laneguna hastea neketsua da; lorekusku ahulak eta lili ederrak ere ongi ezagutzen dute hori zer den... Gutxienik uneoro Jesus sentitzerik bagenu... Ene ba! Atsegin osoz beteko genuke egin beharreko guztia beragatik! Baina ez, gugandik mila kilometrotara dagoela esan liteke; geure buruarekin bakar-bakarrik gaude! Ene ba! Zein zaila gertatzen den lagunartea Jesus ez dagoenean! Baina holakoetan zer egiten du gure lagun maite honek, gure nahigabea eta zapal-tzen gaituen pisua ikusita? Non dago eta zergatik ez dator gu poztera, beste lagunik ez dugu eta? Hala bada! Jainkoa ez dago urrun, hurbil-hurbil dago, guri begira, eta

¹ "Gure arteko hizkuntzan "lili horiak" ezkontza esan nahi du", idatzi zuen ahizpa Jenofak.

² Beti bizirik: ahizpa Aines Jesusenak Zelinari ezarriko lore-sinboloa. Arrazoi hau dela eta, Teresak "immortelle" genero femeninoan erabiltzen du, liriorearen generoarekin egokitzeaz arduratu gabe.

³ Ik. A Esk, 2^a/3^a.

⁴ Teresa bera.

nahigabe eta tristura hauexen *eske* dabil. Guzti hau arimentzat *behar* du, geure arimentzat. Sari hauxe eman nahi digu, handia baita guretzat nahi duena.

Baina nola esango du "orain nire txanda da"⁵, gurea iritsi ez bada, sekula ezer ez baldin badiogu eman? Hara ba! Lan handia hartzen du gu tristuraz asetzen, baina badaki horixe dela bide bakarra "guk gure burua, *hark berea ezagutzen* duen bezala ezagutu eta gure *burua Jainko* bilaka dezagun". Ene ba! Hauxe da patua! Zein handia gure arima!

Gertakizun guztien gaintetik egon gaitezen, urrundu gaitezen lurretik! Zenbat eta gorago, airea garbiagoa da. Jesus ezkutatu egiten da, baina erraz soma dezakegu non dagoen... Negar-malkoak isuriz gero berak ere begiak xukatzen ditu eta Ama Birjinak barre egiten du. Ama gaixoa! Zenbat sufritu duen gugatik! Bidezko da guk ere berarekin batera sufritudu eta negar apur bat eginez poztu dezagun...

Gaur goizean ebanjelioko pasarte bat irakurri dut eta zera zioen: "ez naiz bakea ekartzera etorri, ezpata ekartzera baizik". Ez daukagu, beraz, borroka egitea besterik. Borrokatzeko indarrik ez dugunean, Jesusek egingo du gugatik... Biok batera jar dezagun aizkora zuhaitzaren⁶ sustraietan...

Teresaren zirriborro pobrea! Hau gutuna! Hau nahaste-borrastea! Ene! Pentsatzen dudan guztia esaterik izan banu, Zelinak gehiegi zukeen irakurtzeko!

Jesus ona da benetan, daukagun⁷ Ama eman digulako. Hau altxorra! Ikusi izan bazenu, ahizpatxo, gaur goizeko⁸ seiretan gutuna ekartzera etorri zaidanean... zeharo hunkitu nau.

Jesusek DEN-DEN-DENA eskatzen dizu, santurik handienei eska diezaiokeen bezala...

Zure ahizpatxo gaixoa
Teresa Jesus Haurrarena
nobiziag. karm.apal.

TG 58

1888-VII-31

Martin jaunari

J.M.J.T.

Karmel, 1888ko Uztailak 31

Neure Errege maitea:

Ez dakizu ongi zein atseginez jaso genuen zure karpa, zure *monstruo*! Afaria ordu erdi berandutu zen; Maria Bihotz Sakratuarenak egin zion saltsa eta gozo-

⁵ Arminjon-en aipamena, "Fin du monde présent...", 290.orr. Zelinari erantzuna: "Orain nire txanda da" (LC 86) esaldia Zelinak Teresaren eskola-koadernoa bilatu zuen, 1887an Arminjon-en laburpenetik kopiatua. Irakurketa honek eragin handia izan zuen Teresaren gaztetxo arloan (Ik. A Esk, 47^{ai}; TG 94, 157, 169, Zelinari zuzenduriko gutun guztiak). San Pauloren aipamena ere Arminjon-en zegoen.

⁶ Ik. *Kristoren Antz Bidea* 1, 11, 4.

⁷ Ama Maria Gonzagarena.

⁸ Goizeko otoitza amaitu ondoren.

gozoa zegoen benetan! Italiako sukaldaritza ospetsu hori baino ederragoa zegoen eta hori asko esatea da, ikustekoak baitira han egiten dituzten janaldiak... Eta nola-ko lagunartea, gogoratzen al duzu nire aitaxo? Hala ere ez da beti hori jateko gogoia ematen duena; niri neuri ez behintzat, ez baitut sekula Karmelen bezainbat jan. Neure lekuan nagoela sentitzen dut eta Paulina andereñoa¹ hemen balego “aurkitu dut nire bidea” esango luke.

Zure Diamanteak ezin dizu idatzi arropa-garbitzen ari delako, baina horrek ez dio galerazten zutaz pentsatzea, nire aitaxo maitea. Bihotz-bihotzez besarkatzen zaitu eta badakizu zure nagusiaren bihotza ez dela bat ere txikia.

Sarritan pentsatzen dut zuk esaten zenigun guztiaz: “Handikeriaren handikeria, dena da hutsal”², ihesi doan bizitzaren huskeria, etab. Zenbat eta gehiago ibili, zenbat eta gehiago ikusi, are eta gehiago ulertzen dut munduan dena huskeria baidetik ez dela.

Koh 1,2

Zutaz pentsatzen dudanean, nire aitaxo maitea, berehala datorkit Jainkoa burura, ez baitut uste lurrean zu baino santuago den bat egon daitekeenik.

Zortzi egun barru Karmelen nagoela lau hilabete beteko direla pentsatzen dudanean harritu egiten naiz. Alde batetik betidanik nagoela hementxe iruditzen zait eta bestetik, ordea, atzo bertan sartu nintzelako irudipena daukat. Nola igaroz doazen gauzak...

Aurrera joan ahala, are eta maiteago zaitut, nire aitaxo maitea. Ez dakit hau nola den hala, baina egia da; nire bizitzaren azkenean nola izango ote den galdetzen diot neure buruari...

Harro nago Frantziako eta Nafarroako erreginaren tituluarekin, aurrerantzean ere merezi izango dudala uste dut. Zeruetako erregea den Jesusek beretzat hartu nauen arren, ez dit lurreko nire Errege santua kendu. Ene ba! Beti-beti, nire aitaxo maiteak hala nahi badu eta duingabetzat ez banauka bederen, Aitaren Erregina izaten jarraituko dut.

Perla finaren partez *besarkada handi bat*.

Agur eta laster arte, nire Errege maitea

Zure Erreginatxoa,
Teresa Jesus Haurrarena
nobiziag. karm. apal.

¹ Paulina Romet.

² *Kristoren Antz-Bidea* I, 1, 3.

TG 59

1888-VIII-22

Guérin jaunari

J.M.J.T.

Jesus †

Karmelen, 1888ko Abuztuak 22

Neure osaba maitea:

Oraintxe bertan jaso dugu izebaren eskutitza eta bertatik jakin dugu zure nahigabearen berri. Urruti egon arren, jakin ezazu zure ilobak ere atsekabe horretan parte hartzen dizula; osabaren aldamenen egotea besterik ez luke nahi, apur bat bada ere alaitzen laguntzeko, baina hau da hau! Zer egin lezake ilobak?... Ez, hobe du Karmelen gelditzea, han poztasuna eskain dezakeen bakarrari otoitz egin baitiezaioke, bere osaba maitearen bihotzera pozbidea isur dezan.

Dabid¹ jaun onbera honen egoerak goibeldu egin gaitu zeharo; ulertzen dut, nire osaba maitea, zure sufrimendua, ez baitago ezer neketsuagorik maite dituzunak sufritzen ikustea baino. Hala ere, bihotzez eskerrak ematen dizkiot Jainkoari arima eder horri eskaini dion dohainagatik. Hura Jainkoaren aurrean aurkezteko jarrera! Miresgarria da benetan! Gure izeba maiteak kontatu digunak bene-benetan hunkitu nau.

Jainkoak ezin dizu pozbide hori ukatu bere aintzaren alde egin duzun guztia-
ren ondoren. A zein ederra iruditzen zaidan zuretzat gordeta dagoen koroa! Ezin da beste inola izan: zure bizitza osoa gurutze bat izan da eta Jainkoak ez du horrelako jokabiderik santu handiekin izan ezik.

A zein zoriona, zeruan sekula gehiago ez banatzeko elkartuko garelako pentsatzea! Itxaropen hau ez bagenu, bizitza jasangaitza litzateke benetan...

Nire osaba maitea, ez dakit zer pentsatuko duzun zeure ilobatxoaz. Zure ilobatxo honek idazlumari bera bakarrik joaten uzten dio, zer esaten duen asko ohartu gabe; bere bihotzak idazterik balu, gauza ezberdinak kontatuko lituzke baina bihotzak sentitzen duena azaltzen ez dakien idazluma hotz honi loturik dago. Nik neure aingeruarengan dut uste osoa eta mezulari zerutiarrak nire mandatua ongi bideratuko duelakoan nago. Nire osaba maitearengana bidali dut, erbeste honetan gure ari-
mak eduki dezakeen adina poztasun isur dezan haren bihotzera...

Agur, nire Osaba ona.

Ez ahaztu Fournet andreari nire partez goraintziak ematea, bihotzez parte hartzen baitut haren doluminean. Zuri, ene osaba maitea, neure bihotzean den samurtasun guztia igortzen dizut eta Dabid jaun onberaren alde erregutzen jarraituko dut.

Zure nahigabea pixkatxo bat behintzat leuntzea nahiko lukeen zure ilobatxoaz,

Teresa Jesus Haurarena
nobiziag. karm. apal.

¹ Dabid jauna, Guérin andrearen ama den Fournet andrearen lehengusu alemaniarra, gero eta gaizkixeko dago.

TG 60

Guérin andreari

1888-VIII-23

J.M.J.T.

Jesus †

Karmel, 88ko abuztuak 23, goizeko 6ak.

Neure izeba maitea:

Atzo jakin genuen Dabid jauna hil zela eta albiste triste horren berri edozein momentutan izango genuela ohartu arren, benetan hala gertatu zela jakitean hunkitu egin nintzen. Dena dela, Jainkoari Dabid-en arima santua bere paradisuan onar dezan erregutu diot; beharbada hantxe dago dagoeneko, hain jarrera onarekin zuzen-zuzenean joan baitaiteke bat zerura.

Jainkoari zure arimara pozbidea isur dezan eskatzen diot, ene izeba maitea, nahiz eta dagoeneko oso eskuzabal agertua zaizun, zure ahaide maitearen arima irabazteko egin zenizkion otoitzak entzunez. Zure alabatxoak ere, bere bakardadetik erregu horietan parte hartzerik balu, zorionsua izango litzateke benetan.

Tristura handiko uneetan, negar egin ordez zerura begiratu behar dela iruditzen zait, izeba maitea; goian guztiak pozik daude, ordea, Jainkoak beste aukeratu bat gehiago duelako; eguzki¹ berri batek argitzen du zeruko ataria, guztiak jainko-extasiaren lilurapean daude eta bizitzaren hasierari nola deitzen diogun heriotza galdetzen dute. Beraientzat gu hilobi estu batean bizi gara, beren arimak amaierarik gabeko² hondartza zerutiarren hegal guztietara mugi daitezkeen bitartean... Nire izeba maitea, beti zuzen jokatu duenaren heriotza gogoratzean, haren zorte onaz poztu baizik ezin gara egin. Harentzat erbesteko denbora joana da; harentzat ez dago Jainkoa, Jainkoa besterik.

Ene izeba maitea! Zenbat gauza esan behar lizkizukeen zure alabatxoak! Hain dira sakonak haren bihotzaren pentsamenduak! Gaur goizean galduta dihardu santuen heriotzaren mugagabetasun eta malenkoniak pentsatzen, baina ez dut astirik neure zirriborroa amaitzeko eta bere horretan utzi beharra daukat, kanpaiak amaitzeko ordua dela iragarri baitit. Sakrifizio txiki hau Jesusi eskaintzen diot, bere esku leunaz alai zaitzan.

Bihotzez zugandik eta zure ahizpatxo kutunengandik³ hurbil dagoen zure alabatxoa,

Teresa Jesus Haurarena
nobiziag. karm. apal.

¹ Ik. Arminjon, op. cit, 312.or.

² Lamennais, "Une voix de prison". Martin andreak gogoko zuen testu hau aipatzea.

³ Joana eta Maria Guérin bere lehengusinak.

TG 61

1888-VIII-25

Martin jaunari

J.M.J.T.

Jesus †

Karmel, 88ko abuztuak 25

Neure aitatxo maitea:

Iritsi da azkenik Erreginak zure urtebetetzean behar den bezala zoriontzen zaituen eguna, Karmelen zeure bitxiekin dago eta: diamantea eta perla finarekin.

Erregina gaixoa! Baztertu egin beharko luke, bere Erregearen bitxi joriei bidea uzteko, baina ezin du benetan horretaratu. Berak ere badu bere titulutxoa, ikusi nahi duen edonori erakus diezaioke, Erregearen eskuz zigilatua dago: Nafarroa eta Frantziako Erregina. Ez du beste ezer, baina uste dut nahikoa duela Erregearen aldamenean onartua izateko; gainera, inor ez da bere eskubidea zalantzan jartzen saiatu eta atzerrian ere ezaguna da: Italian, Erroman, gauza jakina da erregina hantxe dagoela...

Nire Errege maitea, zure Erreginatxoak opari zoragarriak eskaini nahi lizkizuke, baina ezer ez daukanez gero, zail samarra da zerbait eskaintzea. Vatikanoko jauregi guztiak opariz beteta ere ez lituzke nahiko bere Erregearentzat. Aberatsago den zerbaitez egiten du amets, altxor ikaragarriak behar ditu, amairik gabeko hodeiertza¹... Erregeari eskaini nahi liokeena ez dago lurtean, Jesusek dauka bakar-bakarrik. Horregatik, bere Erregea alaitasunez gainezka uzteko erregutuko dio Jesusi. Lurtarra ez den aita, ez luke lurreko ezerk aseko.

Horra hor, aita maitetxo, ezer eskaintzen ez dizudalakoan, nola egundoko oparia egiten dizudan; begiak liluratzen ez badizkizu ere, bihotza behintzat erakarriko dizu, Jainkoak nire erregua entzungo duelako itxaropena baitaukat.

Hala ere, ene aitatxo maitea, bihotza baizik ez dizudala liluratu nahi esan arren, zeure Erreginatxoak pintaturiko irudi bat bidaltzen dizut. Gauza ez banaiz ere, atsegin izango duzulakoan nago. Perla finak bere artista-aholkuak eman zizkidan eta berak egin zuen irudia; ondoren, neuk *bakar-bakarrik* pinta nezala nahi izan zuen. Nire meritua ez da, beraz, handia baina nire ahalmena hain mugatua izanik eta nire Erregea hain bihozbera, irudi hau bidaliz poz emango diodalakoan nago.

Laster arte, nire aitatxo maitea; Erregina gaur zure aldamenean ez badago ere, pentsamentuz eta bihotzez hortxe duzu zeurekin eta bizitzan izan duzun urtebetetze-egunik onena izan dezazun opa dizu eta bihotz bihotzez besarkatzen zaitu.

Zure Erreginatxoa
Teresa Jesus Haurarena
nobiziag. karm. apal.

¹ Ik. TG, 2.

TG 62
1888-IX

Maria Guérin-i

J.M.J.T.

Jesus †

Karmel, osteguna.

Neure ahizpatxo maitea:

Astearte arratsalde idazten hasi nintzaizun gutun hau oraintxe hartu dut berri-
ro eskuetan, baina gaur konta nahi dizudanak eta asteartekoak ez dute elkarrekin
zerikusirik eta, berriro hastea izango dut onena.

Mila esker zure gutun xarmantagatik; Sévigné andreak idatzi balit ere, ez dut
uste zureak adinako poza emango zidakeenik...

Nire lehengusinatxoak nitaz sarritan pentsatuko du, baina ni ere izpirituz beti
nago haren aldamenean. Zure antzera, nik ere neure Maritxoren berri jaso beharra
somatzen dut, edo eta nik neuk hartaz hitz egin beharra. Jainkoari neure ahizpatxo
maiteaz hitz egitea atsegin dut benetan eta sekula ez naiz gehiegi mintzatzen na-
tzaiola irudituko zaion beldur izan, nire Maritxo bere bihotzaren barru-barruan dau-
kala ziur nagoelako.

Nire bihurritxo maitea, gauza asko konta behar nizkizuke, baina denbora irris-
taka doakit, bizkortasun ikaragarri batez ihes egin behar didala somatzen dudalarik.
Berandu da eta zeure lanparatxoaren argipean idazten dizut; ikus dezakezunez, nire
idazkeran presaka ari naizela nabari da. Baina idazkera trakets hau izateagatik po-
zen nauena hau da: zeruan gure pentsamenduak elkarri jakinarazteko, bitarteko hau
ez dugula behar izango pentsatzea. Pozgarria benetan niretzat!

Atzo bisita izan nuen; ezetz ehungarrenean ere nor izan zen asmatu... MUNDUA
ongi ezagutzen duen emakume eder bat, bere senar maitea, hamasei urteko andere-
ño bat eta hamalau urteko mutikoa; orain bai? Berbena-belarrak ereiten zituen ama-
bitxia!¹ Bere iloba Th. Gilbert eta Pierre-kin etorri zen. Ai mundua, ai mundua!
Ikusi izan bazenu mintzatokian... Burdinen atzean ikusi ninduenean "Pena handia
dauka nire bihotzak, nire bihotzak" kantatzeko asko ez zuen behar izan.

Iritsi da nire marmar hauekin amaitzeko unea eta ez diot deus interesgarri-
rik esan neure lehengusinatxo maiteari; baina zer itxaron liteke ni bezalako pertsona
batengandik, orria tontakeriaz betetzen zaidala konturatu gabe idazten dudalarik,
makina bat gauza serio esateko dudanean?... Barka nazazu...

Hementxe amaitzen dut, ene Maria maitetxo, ez aurretik mesede bat eskatu
gabe; benetan atsegina izango zara, zeure parke politera² ibiltzera joaten zarenean
lehortutako goroldioa, zuhaitz azalak etab. batuko bazenu. Askak eta horrelako
lantxoak egiteko da. Lan hau egitea gaizki badatorkizu, ez iezadazu ezer bidali,
zeure ibilian aurkitzen baduzu bakarrik.

¹ Tifenne andrea, Leoniaren amabitxi.

² Dabid jauna hil ondoren Guérin-darrek heredatu berri duten La Musse-ko gazteluan.

Asko sentitzen dut nire izeba maitea gaixorik egotea; askotan pentsatzen dut berataz eta egunero eskatzen dut lehenbailehen senda dadin. Emaiozu musu **HANDI BAT** eta besarka ezazu nire partez baina ez min egiteko eran...

Musu handi bana nire Joanatxo, Zelina eta Helenatxo³ maiteei ere; hiru hauek gaixorik ez daudenez gero, ez diet batere errukirik, eta ahalik eta indartsuen besarka ditzazun eskatzen dizut.

Ikusten dudanez, nire Maritxo laztana, nire musuek ez dute amaierarik, baina ez naiz oraindik bukaerara iritsi, musu guztiak banatzeaz arduratzen zaren horri ez baitizut bat bera eskaini. Hori dela eta, zuk nire musuak banatuko dizkiezun pertsona guztiei eskatzen diet, ahal bezainbat itzul diezazkizutela. Eta nire eskaera beteko delako zalantza dudanez gero, bihotzez besarkatzen zaitut, indartsu-indartsu, hain indartsu, non, Erromara joan aurretik gertatu zen bezala flemoia bazenu, lehertu egingo bailitzaizuke.

Zure ahizpatxo
Teresa Jesus Haurrarena
nobiziag. karm. apal

TG 63

1888-IX-30

Martin Jaunari

J.M.J.T.

Karmel, irailak 30

Neure Errege maitea:

Zure Erreginatxoa guztiz txundituta dago zure oparien¹ handitasunaren aurrean; aski nabari da Erregea dela bere Erreginari opariak egiten dizkiona. Ikusi dudan lehen gauza Alençon-go puntuzko farfilla izan da; bikaina da benetan! Ez dakit opari eder hauek guztiak nola eskertuko dizkizudan... Non dago zure Erreginatxoa **BOST ZENTIMOKO** opari² baten aurrean pozez saltoka hasten zeneko aldi hura? Gaur ere oraindik poztuko litzaioke bihotza, baina Erregeak gehiago eman beharrean ikusten du bere burua eta hórregaitik, **FRANTZIA ETA NAFARROAKO ERREGINARI dagokion** farfilla oparitu dio.

Egia esan, ene aitaxo maitea, zure Erregina aberastasun hauen guztien duin ez bada ere, alaba eskaini diozun jainkozko senar horrentzat ez da sekula gehiegi. Arrazoi horrexegaitik jantziko ditut, horrela ez balitz ez bainintzateke ausartuko,

³ Zelina eta Elena Maudelonde, Joana eta Maria Guérin-en lehengusina alemanak.

¹ Teresaren abitu-hartzea aurretiaz gogoan izanik, Martin jaunak Alençon-go farfilla bidali zuen.

² Ik. A Esk, 14^a.

oraindik “*Beresinako umezurtza*” baizik ez bainaiz eta neure abitua hartzeko egunearte ez baitut Erregina titulua erabiltzerik merezi.

Badaukat oraindik helburu gozo bat betetzeko eta hauxe da: eskerrak ematea neure erregina-izenean, Diamantearen eta perla finaren izenean, tomu-leihotik ugaritasun-adar baten antzera atera ziren madari, tipula, okan eta sagar mordo guztia-rengatik. Nondik atera zenuen hura guztia? Agure batek, Izarraren lorategitik³ hurbil bizi zen gizon batenak zirela esan zuen. Zu baizik beste inor ezin zen izan, beraz. Hori dela eta, nire aitatxo maitea, berehala onartu genuen eta sekulako harre-
ra ona egin genion, erregutu beharrik gabe. Xelebrea benetan! Zure Erreginak baino errazago lortu zuen Karmelen sartzea, Erreginak Erromaraino joan behar izan bait-
zuen atea ireki ziezaioten!...

Tipula handi haiek bihotza alaitu eta Egiptokoetan pentsarazi zidaten; ez ditugu israeldarrek bezainbat gutxietsiko. Lyon⁴ -go 0,50 zentimoko tipula lodiez ere pentsatu nuen.

Bueno, ene Erregea, uste dut zure Erreginak asperrarazi egingo zaituela bere marmarrarekin, baina hain pozik egonik, ezin dizu esan gabe utzi. Gauza *oro* eskertzen dizu eta bihotzez besarkatzen zaitu.

Teresa Jesus Haurrarena
nobiziag. karm. apal.

TG 64

1888-X-8/15 (?)

Martin Jaunari

Neure errege maitea:

Gutun luze-luze bat idatzi nahi nizuke, baina bakarraldian nagoenez gero, ezinezkoa zait. Ez dakizu ongi zure Erreginak zenbat maite zaituen... Erregearen alaba den Leonia printzesari gutuna bidali behar nion eta neure mezuaren berri Erregearen bitartez jakinaraziko niola pentsatu dut eta honexegatik zuzentzen natzaio “Frantzia eta Nafarroako errege den Maiestate horri”. Zure duintasun hori gizonen begietan nabarmentzen ez bada ere, zeruan Jainkoaren begien aurrean ezagutaraziko dela badakit. Han, aukeratuen artean herri handi¹ baten buruzagi bezala izango da; eta ene Errege maitea! A zelako kargua!...

Zure Erreginatxoa
Teresa Jesus Haurrarena.

³ Buissonnets inguruko parke pribatua.

⁴ Teresak Erromarako bidaiatik itzultzean bisitatu zuen Lyon.

¹ Kristoren Antz Bidea III, 58, 9-en aipatua.

TG 65

1888-X-20

Zelinari

J.M.J.T.

Jesus †

Karmel, 88ko urriak 20

Neure Zelina maitea:

Bihar da zure festa¹ eguna, ezta? Ene ba! Ez dakizu ongi zein gogoko nukeen zorionduko zaituen lehena izatea! Baina hau ezin balitz, bihotzez behintzat halaxe egingo dut. Zer nahi duzu eskain diezazudan? Neure buruari entzungo banio, Zelinaren nahigabe, tristura eta neke guztiak neuri bidaltzeko eskatuko nioke Jesusi; baina hara, ez diot neure buruari entzuten, Jesusek neurekoa naizela esango didan beldur naizelako: horrela balitz, duen gauzarik ederrena eskatuko nioke berak hainbeste maite duen andregaiarentzat ezer gutxi utzirik. Andregai honi, bere maitasuna proban jartzeko sentiarazten dio Jesusek *urruntasuna*² eta beraz, hori ezin diot eskatu Jesusi. Gainera, aberats-aberatsa denez gero, biok aberasteko adina du...

Jainkoak unibertso osoa bere altxor eta guzti emango baligu ere, sufrimendurik txikienarekin ere ezingo genukeela konparatu pentsatzen dugunean! Hura grazia, goizean goiz bertutea lantzeko adorerik gabe aurkitzen garenean! Orduantxe da zuhaitzaren sustraiari aizkora³ sartzeko ueña. Urrezko pipitak bilatzen denbora galdu beharrean diamanteak ateratzen ditugu... Hura etekina eguna amaitzean! Egia da, batzuetan egunerokotasunak eskaintzen digun altxorraz ez garela arduratzen; une hori zaila izaten da benetan eta den-dena bertan behera uzteko tentazioa izaten du batek. Baina sentitu ez arren, maitasunetzko ekintza batekin guztia konpontzen da, Jesusek barre egiten du, lagundu egiten digu hala ez badirudi ere, eta gaiztoengatik isurtzen dituen malkoak geure maitasun pobre eta ahulaz gozatzen ditu. Maitasunak den-dena ahal du; gauzarik ezinezkoenak ere ez zaizkio zail⁴. Jesusek ez dio ekintzaren handitasunari begiratzen, ezta zailtasunari ere, ekintza hori eginarazi duen maitasunari baino⁵...

Orain dela hainbat denbora, esaldi eder bat aurkitu nuen. Hona hemen, uste dut gogoko izango zaizula: "Etsipena eta Jainkoaren borondatea gauza bi ezberdinak dira; batasuna eta baterakuntzaren artean dagoen adinakoa da bi termino hauen arteko diferentzia. Batasunean oraindik bi garen bitartean, baterakuntzan ez gara bat bakarra baizik"⁶. Oi! bai, Jesusekin bat bakarra baizik ez gaitezen izan! Gutxiets dezagun gertatzen den oro. Gure pentsamenduak zerurantz zuzendu behar ditugu, hantxe baitago Jesusen egoitza.

¹ Santa Zelina, birjina, Meaux-ko zaindaria eta Santa Jenofaren laguna.

² Teresarengandik banatuta egotea.

³ *Kristoren Antz Bidea* I, 11, 4.

⁴ *Ibid.*, III, 5, 4.

⁵ Santa Teresa Avilakoa, "*Egoitzak*", VII, 4. kap.

⁶ Swetchine anderea. Ik. KH 23.VII.5.

Orain dela egun batzuk, beste leku batean ere bizi gintezkeela eta, inguruan dugunari lotzeko arrazoirik ez dugula pentsatu nuen. Han gure sentipen eta grinak ez lirateke berdinak izango... Ezin dut nire pentsamendua deskribatu, moldagaitza naizelako. Baina elkar ikusten dugunean kontatuko dizut.

Zergatik kontatzen dizkizut nik baino HOBEBI dakizkizun gauza hauek? Barka nazazu, antzina izaten genituen bezalako elkarriketa bat izan nahi nuen zurekin. Denbora hori ez da joan hala ere; ARIMA BERA izanez jarraitzen dugu eta gure pentsamenduek ere begiratokiko⁷ leihoan kontatutakoak izanez jarraitzen dute...

Poztu egiten naiz egunen batean zure festa eguna zeruko herrian ospatuko dugula pentsatzeaz...

Zure ahizpatxo
Teresa Jesus Haurarena

A bai, tristea da Aita⁸ Kanadara doala pentsatzea, baina Jesus geratzen zaigu!...

TG 66

1888-XI-15

Martin Jaunari

J.M.J.T.

88ko azaroak 15

Neure Errege maitea:

Zein ona den Jainkoa sendatu zaituelako!¹ Benetan diotsut, zure Erreginatxo oso kezkatu izan dela eta arrazoiz, oso gaixo egon zara eta. Karmel osoa egon da otoitzean eta azkenean, Jainkoak gure erregeak entzun eta itzuli egin dit neure Erregea. Baina badakizu, ene aitaxo maitea, Jainkoak guk nahi genuena bete duenez gero, orain zuri dagokizula gu zoriotsu egitea. *Berezinako* umezurtzak ongi zain zaitezen eskatzen dizu, behar den bezala eta badakizu 2. *ikaragaitzak*² horretaz badakiela zerbait. Horregatik, bada, (erregeak berak jarritako) *titulu* hori *errespetatzeko* erregutzen dizut, behar den bezala zain zaitezen.

Zure Erreginatxo alboan duzu beti bihotzez. Nola ahaztuko du, bada, hain ona den bere Erregea?... Gainera, uste dut sentipen hau haziz doala, hainbeste sufritzearen ondorioz...

⁷ Ik. A Esk, 48^a.

⁸ Aita Pichon. Azaroaren 3an untziratzen da Havre-en. Teresak ez du gehiago bizirik ikusiko.

¹ Ik. A Esk. 72^a.

² Martin jaunak Zelinari ezarritako goitizena. Lehenengo ikaragaitza Maria zen.

Agur, ene Errege maitea, ongi-ongi zaindu zaitez, zure Erreginaren nahia betetzeko.

Teresa Jesus Haurrena
nobiziag. karm. apal.

TG 67

1888-XI-18

Guérin andreari

J.M.J.T.

Neure izeba maitea:

Onar ezazu zure alabatxoak eskaintzen dizun zorion-agur apala; ez zaizu gauza handia irudituko honezkero jasoko zenituenekin konparatuz, baina ez dio axola, nire bihotzak ezin du bere izeba zenbat maite duen esan gabe utzi.

Gaur goizean jaunartzerakoan, Jainkoari arren bai arren eskatu diot pozez bete zaitzan, ez baita hain zuzen ere poza azken denboraldi honetan bidaltzen diguna! Gurutzea, gurutzea da eman digun gauza bakarra bertan atsedean har dezagun... Ene izeba maitea, sufrimendua jasan behar duen bakarra neu banintz ez lidake axolarik, baina badakit gure larrialdien¹ parte handi bat zeure egiten duzula! Zure festa-egunean behintzat, tristura guztiak kendu eta zure nahigabe guztiak neure gain hartu nahi nituzke. Horixe da, hain zuzen ere, oraintxe bertan nirearekin batera bihotza taupadaka duenari eskatu diodana. Eta eman diezagukeen gauzarik onena sufrimendua dela ulertu dut, horixe baita bere *lagun minei* eskaintzen diena. Erantzun honek frogatu dit, entzuten nauela, Jesusek nire izeba gehiegi maite duela ulertu baitut, gurutzea ken diezaion!...

Nire izeba maitea, benetan hunkitu nauzu bidali diguzun pastel horrekin. Zure santu- egunean guk zu zoriondu beharrean, zeu zara gu zoriontzen gaituena; gehiegizkoa da, benetan! Ez daukat izebari oparitzeko iruditxo bat baizik, baina zeure alabatxoaren asmo ona behintzat begi onez ikusiko duzulakoan nago.

Agur, ene izeba maitea, proba garaian zure alabatxoarengandik are eta hurbilago zaudela iruditzen zait

Teresa Jesus Haurrena
nobiziag. karm. apal.

Jesusen Bihotzaren Maria ahizparen gutuna bukatuta zegoen pastela jaso genuenean eta horregatik, eskerrak emateko eskatu dit.

¹ Martin Jaunaren gaixoaldia.

TG 68

1888-XI-25

Martin Jaunari

J.M.J.T.

Karmel, 88ko azaroak 25

Neure aitatxo maitea:

Zure Erregina egun guztia zutaz pentsatzen dago eta zure alde otoitz dagi. Oso pozik nago Karmelgo abia gozoan eta ez dut lurreko ezer nahi, nire Erregea sendatuta ikustea besterik. Ondotxo dakit zergatik bidaltzen digun Jainkoak proba hau: zerua irabazteko. Ondo baino hobeto daki gure Aita maitea dela munduan gehien maite duguna eta badaki baita, betiereko bizitza irabazteko sufritu egin behar dela eta horrexegaitik frogatzen gaitu gehien maite dugunarekin.

Jainkoak nire Errege maiteari zeruetako erreinuan errege-aulki zoragarri bat eman nahi diola somatzen dut, hain ederra eta giza adimenarengandik hain urruti egongo dena, non san Paulorekin batera zera errepika bailiteke: "Gizakiaren begiak ezin du ikusi, belarriak ezin du entzun eta haren bihotzak ere ezin du ulertu Jainkoak zer gordetzen duen maite dituenentzat". Ba ote da munduan nire aitatxo maitea baino Jainkoak gehiago maite duenik?... Benetan, ezin dut sinetsi!... Gaur gainera, ez nabilela oker jakinarazi digu, Jainkoak beti maite dituenak probatzen baititu. Uste dut Jainkoak lurrean horrenbeste sufriarazten badu, bere hautatuei zerua ederrago irudi dakien dela. Azken egunean malko guztiak xukatuko dituela esaten du eta zalantzarik gabe, zenbat eta malko gehiago duen xukatzeke, are eta poz handiago izango da!...

1 Ko 2,9

Eg 12,6

Ap 21,4

Agur, ene Errege maitea, zure Erregina poztu egiten da ederrena eta bakarra den zeruetako *erreinuan* egunen batean ZUREKIN erregina izango dela pentsatuz.

Teresa Jesus Haurarena
nobiziag. karm. apal.

TG 69

1888-XI (?)

Maria Guérin-i

Jesus M.J.T.

Neure andrakila polita:

Ezin diot gutunagatik eskerrak emateko gogoari eutsi, atsegin osoz irakurri dut eta. Ez dakizu ongi zenbat pentsatzen dudan zutaz! Uneoro dut gogoan neure Maritxo. Gainera, nire lehengusinatxoak ahaztutzea nahi izango banu ere, ezingo nuke, lanparatxo polit honek argi ematen didan bitartean...

Teresak beste mandatu bat ere eskatuko dizu. Ahizpa Ainesek forratutako zapatak behar ditudala esan dit, neguan zuri ikusi nizkizun antzekoak, botin itxurakoak ziren astrakanez bordatuak. Izebak erosi nahiko balizkit pozik nengoke benetan. Joanak probatu litzake, oin berdin-berdina dugu eta.

Gauza asko daukat kontatzeko neure andrakilari, baina mandatu honexen zain daudenez gero, utzi egin behar zaitut. Ostegunean esango dizut gainerakoa eta bitartean besarkada handi bana nire izeba MAITEARI, osaba ONARI eta Joanatxo maiteari.

Nire *Lulu*-ri dagokionez, ezin dizut esan zenbat maite dudan, nire bihotza harenganako maitasunez gainezka dago.

Zapatak gaur arratsalderako izango banitu, asko poztuko nintzateke. Ez dakizu zein ongi zainduta gauden Karmelen; uneoro nago jaten eta oinak berotzen¹ ...

Ostegunerarte, ene laztana, ene andrakila bizia. *Poz-pozik* nago, nire nahi guztiak aseta.

Teresa Jesus Haurrarena

Askotan gogoratzen naiz neure Marzelina maiteaz.

TG 70

1888-abenduaren hasieran

Ama San Plazidori

J.M.J.T.

Jesus †

Karmel, 88ko abendua

Neure irakasle maitea:

Biziki hunkitu nau zure ardurak. Atseginez jaso nuen Mariaren¹ Alaben zirkular maitekorra. Benetan, festa eder horretara ez dut hutsik egingo; bihotzez bada ere hantxe egongo naiz, ez al da, bada, kapela bedeinkatu horixe nire jaunartze egunean Ama Birjinak bere alabatzat hartu eta Mariaren Alaben kongregazioan sartzen utzi zidana?

Ez dut sekula ahaztuko neure Irakasle maitea, zein ona izan zinen nirekin, nire bizitzako egun garrantzitsu haietan; ondotxo dakit, nire bokazio erlijiosoaren grazia aipagarria, neure irakasle onez inguratuta, altarearen aurrean Mariari kotsakratu nintzaion egun zorionsuan² erne zela. Goiz hartantxe hartu nuen neure baitan lehe-

¹ Hogeita bat urte bete arte Teresak ez du baraurik egingo. Lehenengo negu honetan, nobiziagaiari oinak berotzeko berogailuxoren bat eman zioten seguraski.

¹ Beneditar lekaimen pentsiodun ikasle ohia eta Mariaren alaba izanik, Elkartea sortu zeneko 25. urteurrena ospatuko den abenduaren 13rako gonbidapena jasoko du Teresak. Ahozko usadioa zenez gero, Ainesek idatziko zuen eskutitz honen zirriborroa eta Teresak ez zuen kopiatu besterik egingo.

² Ahizpa Ainesek bere kabuz egindako interpretazioa da, hartzaileari atsegin egitearren.

nengoz Jesus eta Maria aukeratu nuen amatzat. Atsegin dut pentsatzea Ama Birjinak orduan ez ziola nire duintasunik ezari begiratu eta bere borondate handi horrekin, bere semea jasotzeko nire bihotza prestatzen arduratu ziren irakasleen bertutea aintzat hartu zuela. Eta atsegin dut pentsatzea baita, arrazoi honexengatik erabaki zuela ni bere alaba hurbilgotik izatea, Karmelen sartzearen grazia eskaini zidalarik.

Uste dut, ene irakasle maitea, honezkero nire aita maitearen gaixotasunaren berri jasotzerik izango zenuela. Egun batzuez, Jainkoak nire samurtasunari erauzi egingo ziola uste izan nuen; baina Jesusek nik abitua hartu behar dudan egunerako senda dadin nahi izan du.

Egunero nengoen noiz idatziko zain, batzarrak³ nola onartu nauen esateko, baina ez nekien ziur apezpikuak zein egunetan ezarriko zuen eta, zai nengoen.

Uste dut, ene irakasle maitea, atzerapen hau ez zenuela axolagabekeriatzat joko. Ez! Nire bihotzak betikoa izanez jarraitzen du eta Karmelen sartu nintzenez gero, are eta samurrago eta maitekorrago bihurtu dela uste dut gainera! Hori dela eta, askotan gogoratzen naiz neure irakasleez eta atsegin zait Jesusi denen izenak aipatzea, bere oinetan igarotzen ditudan ordu bedeinkatueta. Ene irakasle maitea, zera erregutzero ausartzen natzaizu: gainerako irakasleen eta nire artean bitarteko egin dezazula, beren otoitz sutsuei gomendatzen nauzularik, bereziki hainbesteko eskerrona zor diodan Ama prioraren otoitzei. Ez nazazula ahaztu nire lagunkideen artean ere, hauentzat beti beren ahizpatxoak izanez jarraituko baitut.

Agur, ene irakasle maitea; zure otoitz santuetan ez duzula ahaztuko espero dut, beti izan eta izango den zure eskerroneko alaba

Ahizpa Teresa Jesus Haurrena
nobiziag. karm. apal.

TG 71

1888-XII-28

Guérin andreari

J.M.J.T.

Jesus †

88ko abenduak 28

Neure izebatxo maitea:

Atzo arratsaldean nire ahizpak idaztera zihoazkizunik ez nekienez gero penatan nago, alfer handi baten antzera lo egin nuelako¹. Gaur goizean astiz gaizki nabil eta gainera, eskutitza bulegora² eraman behar da oraindik.

Nire izeba maitea, 1889. urte zorionsua opa dizun lehena izatea nahi nuke...

³ Komentuko batzarraren onarpena abitua hartzeko.

¹ Maitinen aurreko ordu librean, arratsaldeko 8etatik 9etara, atsedean hartzea baimenduta dago.

² Garai hartan, nobiziagaiak nahiko erraz gera zitezkeen goizeko 7etan izaten ziren koruko "Ordu Txikiak" ("prima", "tertia", "sexta" eta "nona").izeneko errezura joan gabe.

Sal 89,4 Zure alabatxoa Karmelen dagoenetik laster 9 hilabete beteko direla pentsatzen dudanean harritu egiten naiz; atzo zela iruditzen zait oraindik zure aldamenean nen-goeneko garai hura!... Denbora azkar igarotzen da, jadanik 16 urte mundu honetan nagoela eta ene! laster zeruan elkartuko gara guztiok! Salmoetako honako esaldi
 Jn 9,4 hauxe dut gogoko: "Atzo iragan genuen egun bat bezala dira mila urte Jaunaren begietan". Oi, hura bizkortasuna! Ene, lan egin nahi dut bizitzaren egunek dirauten bitartean, laster iritsiko da gaua eta orduan ezin izango baitut ezer egin³. Egizu otoitz zeure alabatxoaren alde, ene izeba maitea, alabatxo honek Karmelgo haran jorian Jainkoak eskaini dizkion graziak gaizki erabil ez ditzan.

Ezin diot barreari eutsi neure gutuna gainbegiratzean; hau ez da urteberria zoriontzeko gutuna, baina zurekin, zer esan behar duen bilatzen ibili gabe bere bihotzari joaten uzten dion umetxoa naiz...

Jakingo bazenu, ene izeba maitea, urteberri egunean zenbat eskatuko dudan zure alde eta neure *osaba maitearen* alde... Ez, ez dakizu ongi eta ez naiz esaten ere saiatuko, luzeegia litzatekeelako eta aspertu baizik ez zintuzkedalako egingo.

Eta nire lehengusinatxoan (nire *ahizpatxo maitean*) alde ere erregutuko dut!...

Agur, ene izeba maitea, osabari asko maite dudala esateko eskatzen dizut, mesedez. Zuri idazteaz batera idatzi behar nion osabari ere, baina bi lagun batera idazteko baino tentelagoa naiz ni... barkatzeko eskatzen diot eta zuen gaztetxoena-
 ren⁴ musu ederreana bidaltzen dizuet bioi.

Teresa Jesus Haurarena
 nobiziag. karm. apal.

Oraintxe bertan gogoratu naiz neure izeba maiteari ez diodala eskertu abitua⁵ hartu behar dudan egunerako oparitu nahi izan didan koroa. Ene izeba, jakingo bazenu nola eskertzen dizudan eta zein kutuna izango den oroigarri hau zure alaba-
 txoaren bihotzarentzat!

TG 72

1888-XII-30

Martin jaunari

J.M.J.T.

Jesus!...

88ko abenduak 30

Neure Errege maitea:

Hau zoriona! Aurten Karmelgo *erreinutik* opa diezazuket urteberri ona. Zeure Erreginatxoak sekula ez dizu hain poz handiz bere maitasuna eskaini ahal izan;

³ Ik. Im (*Kristoren Antz Bidea*) I, 1, Réflexions.

⁴ Teresaren goitizen honi buruz, ik. CG, 423+e orr.

⁵ Lili artifizialezko koroa. Ik. TG 73.

hain hurbil sentitzen da Erregearengandik, *hain hurbil*, non ezerk ezin izango bailuke harengandik banatu!...

Errege lurtarrak guztiz zoriontsu sentitzen dira beren seme-alabak nobleekin ezkontzea lortzen dutenean; eta seme-alaba hauek beren gurasoenganako izaten duten eskerrona ez da nola-halakoa izaten!... Zure Erreginatxoarekin guztiz alde-rantzizkoa gertatu da, ordea; zuk, *aita* eta benetako Errege bezala, ez diozu zure alaba *zeruko Erregeari*, Jesus berari baizik beste inori eskaini nahi izan. Berezinako umezurtza izatetik karmeldarraren handiki-titulua izatera etorri naiz.

Nola maitatu behar dut hain zorion handiz hornitu nauen nire Aita? Eta nola maite dudan!... Erromako gidaria hemen balego, zera esango luke: "Abate jaunak, sekula ikusi ez duzuen bezalako aita bat aurkeztuko dizuet, *liluragarria*¹ da benetan". Ez al da egia, ene nire aitaxo maitea, ezingo zenukeela zure Erreginatxoaren alde ezer gehiago egin? Santa egiten ez bada bere erruz izango da, zu bezalako Aita batekin, horretarako bitartekorik nahikoa baitu...

Aita maitea, gaua dator eta utzi egin behar zaitut, baina Jesusen aldamenen aurkitzeko, huraxe baita zure benetako lekua.

Laster iritsiko da guretzat ilunik gabeko eguna eta orduan sekula ez dugu gure solasaldia bukatuko!...

Urteberri on, ene Errege maitea, eskerrik asko aste honetan eta *urte* OSOAN zehar gurekin izan duzun fintasunagatik!...

Jesusek bedeinka zaitzala eta hitz eman duen bezala bizitza honetan bateko ehun eta bestean bere zeru EDERRA eman diezazkizula. Hona hemen inongo Erreginak bere Erregea sekula maitatu duen baino gehiago maite zaituen zure Erreginatxoaren zorion-agurra

Mt 19,29

Ahizpa Teresa Jesus Haurarena
nobiziag. karm. apal.

TG 73

Guérin andreari

1889-I-2

J.M.J.T.

Jesus!...

1889ko urtarrilak 2

Neure izeba maitea:

Zure alabatxoa pozez gainezka dago!... Zein onbera zaren zeure alabatxoarekin! Gehiegizkoa da benetan... nola eskertu? Baina Ama batek ez al daki bere alabatxoaren bihotzean irakurtzen? Ez naiz arduratuko, beraz, badakidalako nire eskerrona ulertzen jakingo duzula.

¹ Ik. TG 46, 3. zenb.

Liliak ZORAGARRIAK dira, bildu berriak dirudite! Zein onak diren nire ahizpatxoak lili hauek eskaintzean! Abitua hartu behar dudan egunean pozgarria izango da pentsatzea, ahizpek apaindu nautela neure zeruetako senarrarengana joateko. Loreak mintzatuko zaizkio Jesusi nire ahizpen ordeztatu eta ziur nago, Jesusek graziaz beteko dituela, zure antzera, ene izeba maitea.

Jakingo bazenu nola poztu nintzen gure Amari eskaini beharreko sagar-zukua jaso nuenean! Opari honetan argi ageri da nire izebaren ekintza, beti ari baita bere alabatxoari atsegin zaion zerbait gehiagoren bila... Nire poza ez zen nolana hikoia izan espeziatzko opil- paketea ikusi nuenean. Oso harro sentitu nintzen nire Amak komunitatearen aurrean opari hura nire hamasei urteen ohoretan eskainia zela esan zuenean.

Mila esker, ene izeba maitea, jakingo bazenu zein bihotz oneko iruditzen zaitzaizkidan... Abitua hartzeko egunean neure izebaren alde erregutuko dut eta baita bihotzez eskerrak ematen dizkiodan neure osabaren alde ere, ongi dakit eta gaur arratsaldean jasotako opariak bereak ere badirela.

Gure Amari, komunitate osoari bezala, oso polita iruditu zaio koroa. Sekula ez dut horren gogoko dudan lore-sortarik ikusi, hain dira garbiak liliak! Gogoko nuke neure arima liliz apainduta egotea, buruan liliak eramatearekin ez baita aski, Jesusen begiek beti bihotzera begiratzen dutelako!...

Agur eta mila esker, ene izeba maitea, otoitz egizu zure alabatxoaren alde, kanpotik bezain apain eta gertu egon dadin barruz...

Teresa Jesus Haurrena
nobiziag. karm. apal.

TG 74

1889-I-6

Ahizpa Aines Jesusenari

J.M.J.T.

Jesusen arkumetxo maitea, eskerrik asko!... Ez dakizu ongi zure hitzak zenbat gustatu zaizkidan!...

Eskatu, mesedez, Jesusi neure bakarraldian eskuzabal izan nadin. *Orrazkadaz ZULATU* behar nau eta pilotatxoak ezin du gehiago. Zuloz beterik dago eta zulo handi bakarra izanda baino gehiago sufritzen du pilotatxoak!... Deus ez Jesusen aldamenean, lehortea baizik!... Logura!... Baina gutxienez isiltasuna somatzen da eta isiltasuna ongi datorkio arimari... Baina gizakiak, oi gizakiak!... Pilotatxoa ikaratu egiten da!... Uler ezazu Jesusen jostailua!... Pilota ziztatzen duena lagun kutuna denean, sufrimendua ez da gozotasun baizik bilakatzen, *hain da leuna* haren eskua!... Baina gizakiak!... Nire inguruan daudenak onak dira, baina badago hauen gan zerbait gogait eragiten didana!... Ezin dizut zer den azaldu, ulertu zure arimatxo hau. Oso *dohatsua* sentitzen naiz hala ere, zorionekoa Jesusek nahi adina sufri-

tzen dudalako. Pilota zizatzen duena Jesus bera ez bada ere, bera da azken batean zizatuko duen eskua mugiarazten duena!¹... Jesusek lo egin nahi badu, nor naiz ni horrelakorik ukatzeko? Bai dohatsua ni, nirekin aspertzen ez delako! Horrela tratatuz beretzat ez naizela arrotza erakusten dit. Baina zin dagitzut, ez duela alferriko ahaleginik egiten niri mintzarazteko!...

Jakingo bazenu nola nahi dudan munduko gauzez ez arduratzea! Zer axola niri munduko edertasunak? Zorigaitzekoa izango nintzateke edertasun guzti horiek banitu ere, arima huts-hutsik sentituko nuke eta!¹... Sinestezina da zein handia iruditzen zaidan neure bihotza lurreko altxorrek konparatzen dudanean, munduko aberastasun guztiak batuta ere ez bailukete poztuko. Jesusi begiratzen diodanean, ordea, zein txiki ematen dudan!¹... Hain gartsu nahi nuke maitatu!¹... Sekula maitatua izan ez den bezala maitatu nahi nuke!¹... Nire gurari bakarra beti Jesusen borondatea betetzea da, bekatariek isurarazten dizkioten malkoak xukatzea... Oi, ez NUKE NAHI Jesus goibel egoterik nire ezkontegunean; munduko bekatari guztiak bihurtu nahi nituzke eta garbitokiko arima *guztiak* salbatu²!...

Jesusen Bildotsak barre egingo du hondar-*alearen* nahi honen berri jakitean!¹... Badakit erokeria itzela dela, baina halaxe izan dadin nahi nuke, Jesusek negar gehiago egin ez dezan.

Otoitz egizu hondar-ale hau Jesusen begiek bakarrik ikus dezaketen atomo bilaka dadin!...

Teresa Jesus Haurrarena
nobiziag. karm. apal.

TG 75

Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenari

1889-I-6 edo 7

J.M.J.T.

Jesus †

Jesusen Lehoi¹ maitea, arkumeak adore eta indar pixka bat eskatu behar dizu, Lehoiari gauza guztien gaineratik egoten laguntzen dion adore horixe bera!¹... Arkume gaixoak ezin dio deus esan Jesusi eta Jesusek ere ez diotso ezer. Eska ezazu, beraz, bakarraldia gutxienez gogokoa izan dadin arimaren barrenean irakurtzen dakien bakarrarentzat!¹...

Zertarako ibili zorion bila munduan? Ziur diotsut nire bihotza egarri biziz dagoela; baina bihotz honek argi dakusa, ez dagoela lurrean bere egarria aseko due-

¹ Esku hau, oraingoz, ahizpa San Bizente Paulekoarena da. Ik. TG 76.

² Gurari berberak hurrengo urtean, 1890ko irailaren 8ko profesia-txartelean, Ik. Otoi. 2.

¹ Aita Pichon-ek Maria Bihotz Sakratuarenari ezarritako goitzena.

nik. Gainera, zenbat eta iturri miragarri horretatik gehiago edan, are eta handiagoa bilakatzen da bere egarria² !... Beste iturri bat ere ezagutzen dut, edan ondoren oraindik egarriz gelditzen zarenekoa. Hala ere, egarri horrek ez dizu egonezinik sortarazten, baketsua da, badaukalako zertaz atsegin izan. Iturri hau Jesusek baka-rrik ezagutzen duen sufrimendua da!...

Lehoi maitea, gauza asko daukat oraindik kontatzeko, baina astirik ez dut eta ZEURE *alabatxoaren* bihotzean *irakur* ezazu, zuk hain ongi egiten dakizun bezala!

Teresa Jesus Haurrarena
nobiziag. karm. apal.

TG 76

Ahizpa Aines Jesusenari

1889-I-7

J.M.J.T.

Jesus †

Gaur goizean ahizpa San Bizente Paulekoarenarekin¹ egotean, pena eman dit eta goibel-goibel itzuli naiz...

Zer duzu nire arima horrela erakartzeko? Ezin duzu pentsatu zenbat nahigabetzen nauen zuri ezin hitz egin² izanak...

Ulertzen al duzu Jesusen jokaera?... Haurrek ez dutela jakiten zer nahi duten esaten nizun; bada, Jesusek ere tankera berean jokutzen du bere pilotatxoarekin... Hilaren bederatzia xarmantegia³ iruditu zaido dirudienez eta ez du bere pilotatxoarentzat ezer xarmantik nahi... Ondotxo dakit zergatik den: bera bakarrik delako xarmangarria, hitz horren esanahi benetakoa. Bere pilotatxoari erratu egingo litzatekeela erakutsi nahi dio edertasunaren itzalpe bila beste nonbait hasiko balitz...

Zein onbera den laster neure senargaia izango dudana! Zein onbera eta atsegina den munduko EZERI ni lotzea eragoztean! Ongi daki berak, ZORION-*itzalpetxo* bat emango balit, harixe lotuko nintzaiokeela neure bihotzeko indar guztiz. Ukatu egiten dit, beraz, itzalpe hori! Nahiago du ni ilunpean uztea, *bera* ez den distira faltsua eskaini baino... Mundu honetan poztuko nauen gizakirik aurkitu ezin dudanez gero, den-dena Jesusi eman nahi diot eta gizakiei ez diet nire maitasun-*atomo* bat bera ere eman nahi. Ea Jesusek beti ulertzeraz ematen didan bera dela zorion perfektu bakarra, urrun dagoela iruditzen zaidanean ere...

² Ama Maria Gonzagarenari dion maitasun biziari buruzko aipua; Ik. C Esk, 22^a .

¹ Seguraski oinetakoak probatzera joan zenean (espartuzko zoru eta tela lodizko sandaliak). Ahizpa Sant Bizente Paulekoarenak gogoeta zorrotzak egiten zituen, Teresa irribarre batez erantzutera baizik mugatzen ez zelarik.

² Teresa bakarraldian dago. Bere nagusiarri eta nobizien maistrari hitz egin diezaieke bakarrik.

³ Abitua hartzeko aurrez jarritako eguna. Ik. CG, 433.orr.

Gaur atzo baino areago, hala esaterik badago behintzat, poztasun era guztiak ukatu zaizkit; eta sufrimendu hau nire arimarentzat onuragarria dela uste duen Jesusi eskerrak damaizkiot. Beharbada Jesusek poz apurra emango balit, gozotasun horretan geldituko nintzateke, eta den-dena beretzat nahi du... Hara bada, *den-dena* beretzat izango da, den-dena, ezer eskaintzeko sentitzen ez dudanean baita,... beraz, gaur arratsean ere nik *ezerez* horixe eskainiko diot...

Jesusek kontsolatzen ez banau ere, hobeto sentiarazten nauen barne-bake handia ematen dit!

Eta Aitaren⁴ gutuna?... Zerutiarra deritzot, nire bihotzak oso gauza ederrak aurkitu ditu bertan, baina zoriona?... Hori ez, zorionik ez!... Zoriona sufrimenduan bakarrik aurkitzen da, kontsolamendurik gabeko sufrimenduan!...

Ahizpatxo, ene *Ama*⁵ nirea, zer pentsatuko duzu zure alabatxoaz? Oi, zuri izan ezik, ez nintzateke beste inori *nire arimako* ezkutukoenak diren pentsamendu hauek azaltzen ausartuko! Arren **ESKATZEN** dizut, orri hauek irakurri ondoren apurtzeko!...

Otoitz egizu zure alabatxoak Jesusi ez diezaion uka bere bihotzeko *atomo* bat bera ere.

Teresa Jesus Haurrarena

TG 77

1889-I-8

Martin jaunari¹

J.M.J.T.

Jesus †

1889ko urtarrilak 8

Neure Errege paregabea:

Ez dakizu ongi nola hunkitzen nauen zure ontasanak!... Meloia² !... Txanpainna...! Oi, negarrak irtengo lidake eusterik ez banu! Baina eutsi egiten diot eta poztu egiten naiz osteguneko jai ederraz pentsatzean.

Normalean erreginarene eztei-eguna poz handiz ospatzen da. Horregatik, seguraski, Frantzia eta Nafarroako Erreginak ere su artifizialak eta guzti izango ditu ezkontzen denean... Erregea da Erreginarene gastu guztiez eta Erregina liluratzeaz arduratzen dena. Eta *erlaster hori txikiari*³ ez zaio eskerrak ematea besterik gelditzen!

⁴ Aita Pichon.

⁵ "Ama" deitzeko era honi buruz, ik. A Esk, 14^a eta 80; TG 106, 110, 252; KH 30.VII.12.

¹ Teresak Buissonnets-era bere aitari idatziko dion azken gutuna. Honen ondoren idatzi zizkion guztiak deuseztauk izan dira.

² Fruitu-sorpresa, metxak estanda egitean bonboi-eurijasa jaurtitzen duena.

³ Martin jaunak Teresari ile horia zuelako ezarriko goitizena.

Ostegunean lurrean jai handia ospatuko bada, zeruan are eta handiagoa antolatuko dela uste dut. Aingeruak txundituta geldituko dira Jainkoari hain atsegin zaion aita ikustean eta Jesusek koroa bat prestatuko du, aita paregabe honek dagoeneko irabaziak dituen beste guztien gainetik ezartzeko.

Ez, lurreko festak sekula ez dira zerukoak bezain zoragarriak! Hala ere, uste dut ezin dela prestatzen ari diren baino festa zerutiarragorik itxaron. Gainera, nik ez dut deus egin hain grazia handiaren duin izateko. Baina Jainkoak nire aita maitearen meritua estimatzen jakin du eta horrexegatik eskaintzen dit mesede aipagarri hau.

Orain bakarraldian nago eta bakarraldian debekaturik daukagu idaztea; hala ere, Amak hitz hauek idazten utzi dit, zuri eskerrak emateko. Hain zara ona zure Erreginarekin! Gainera, idaztea debekaturik badago, bakarraldiko isiltasuna ez etetearren da; baina eten al dezake batek bere bakea santu bati idaztean?...

Ostegunerarte, ene aita maitea, zure Erreginatxoak bihotzez besarkatzen zaitu, aurrez aurre besarkatu ahal izango zaituelako itxaropenez⁴.

Frantzia eta Nafarroa osoko Erregina
Teresa Jesus Haurrarena
nobiziag. karm. apal.

TG 78

1889-I-8

Ahizpa Aines Jesusenari

J.M.J.T.

Ez dut bildotsa *egun osoan* ikusi, baina badakit buruko *mina* duela. Honek arkumetxoa goibeldu egiten du, Jesusek bildotsari hegoak jarriko ote dizkion beldur delako... Ai, haiek lerro zoragarriak! Zerutiarrak dira, Erreinu usaina dute!... Bildotsa oker dago Jesusen jolasa ilunpean ez dagoela uste baldin badu, ilunpean murgilduta baitago! Beharbada, eta bildotsa ere ados dago, ilunpe hori distiratsua izan da, baina ilunpea hala ere... Bere kontsolamendu *bakarra* indarra eta bakea oso handia dira eta gainera, Jesusek nahi duen bezalakoa izatea uste du. Hauxe da haren poza, gainerako guztia tristura da eta...

Amarekin izaten dugun bilera izpiritualan uneoro dago eteten¹ nauen zerbait eta gero, unetxo bat dudanean ezin diot esan nire arimak zer sentitzen duen. Eta atseginik gabe itzultzen naiz, pozik gabe sartu ondoren!...

Uste dut Jesusen lana nire bakarraldi honetan, bera ez den beste gauza guztietatik alde eragitea izan dela...

⁴ Abitua hartzeko egunean nobiziagaiak klausura utz zezakeen, zeremoniaren zati batean behintzat.

¹ Prioreari hitz egitera zetozen ahizpek eteten zuten.

Ez dakizu ongi zenbat pozten nauen Jesusi eskaintzeko alaitasunik ez izateak!... Poz bikaina da hau (baina ez sentitua).

Bildots maitea, egun bat baino ez da geratzen Jesusen emaztegai izateko!...

Ez hil hain arin. Itxaron arkumeak zuri segitzeko behar dituen hegoak izan ditzan arte...

Teresa Jesus Haurrarena, Jesusen jostailutxo!
nobiziag. karm. apal.

Mesedez, nahi al duzu: 1. zeure tinta txinatarrak eta urre kolorekoa niri ematea? 2. abitu hartzeko estanpentzat santa Aines-en erantzunak ongi dagozkien ala ez esatea? 3. hor bazaude gure atea irekitzea goizeko seiretan? bestela neu bakarrik esnatuko naiz. Eskatzen dizkizudan gauza hauek gaizki badatorzkizu, utzi, batere gabe ere erraz egon ninteko eta.

TG 79

Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarena

1889-1-8

J.M.J.T.

Jesus †

Lehoi maitea, zure gutunak POZ HANDIA eman dio zure alabatxoaren bihotzari...! Mila esker! Zein ona zaren! Ene! Zure antzerakoa izan nahi nuke! Baina Jesusen jostailua ahuldadea bera da, Jesusek mugitzen edo jaurtitzen ez baldin badu bere pilotatxoa, han geldituko da, bizigabe, geldirik lehengo lekuan...

Egun bat gehiago eta Jesusen emaztegai izango naiz! Hau bai grazia!... Zer egin eskertzeko, mesede handi honentzat duinagoa izateko?

Ene! Zerueta erreinua! Erreinua! !... Jesus inolako baldintzarik gabe maitatuko den Zeruaren egarri naiz!...

Baina derrigorrezkoa da hara iritsi aurretik hemen sufritu eta negar egitea!... Bada, Jesusek nahi adina sufritu nahi dut, bere pilotatxoarekin nahi duena egiten utzi...

Teresa Jesus Haurrarena
nobiziag. karm. apal.

¹ Martin jaunaren ohizko oihua; ik. CG. 441+c orr.

TG 80

1889-I-10

Ahizpa Marta Jesusenari¹

Neure ahizpatxo maiteari eskaintzen diodan neure abitu-hartze eguneko oroigarria.

Laster, Teresa Jesus Haurrenaren senargaia izango da ahizpa Marta Jesusenarena² ere!

Eskatu Jesusi nitaz Santa handi bat egin dezan. Nik grazia bera eskatuko dut nire lagun minarentzat!

Ahizpa Teresa Jesus Haurrena [eta] Aurpegi Santuarena³
nobiz. karm. apal.⁴

¹ Estampa baten itzulian eginiko eskaintza.

² Ahizpa Martak 1889ko maiatzaren 2an hartuko du abitua.

³ Teresaren sinaduran lehenengo aldiz agertzen da "de la Sainte-Face (Aurpegi Santuarena)". Ik. A Esk, 71^a; eta TG 87, 5. zenb.

⁴ "Novice carmélite indigne (Nobizia karmeldar apala)"-ren laburdura.

LAUGARREN AROA

NOBIZIATUA

(1889ko urtarrila - 1890eko iraila)



TG 81

1889-I-23/25 (?)

Zelinari

J.M.J.T.

Jesus eta bere Gurutzea!...

Ahizpa maitea:

Bai, nire bihotzeko *maitea*, hortxe dago Jesus bere gurutzearekin!¹ Bere maitasun hautatua zaren hori, bere itxurakoa egin nahi zaitu; zergatik zaude gurutze hori, ahuleziak jo gabe, eramateko gai izango ez zaren beldur? Jesus Golgota bidean hiru aldiz erori zen eta zuk, umetxo gaixoa, ez al duzu zure *senarraren* antzera ehun aldiz erori behar baldin baduzu ere, erortze bakoitzaren ondoren lehen baino indar handiagoz jaikiz harenganako maitasuna erakutsi behar?

Zelina... Jesusek zukanako maitasun berezia sentitu behar du benetan, horrela frogatzen bazaitu. Badakizu ia-ia jeloskor nagoela? Asko maite dutenei Jesusek *gehiago* ematen die, gutxiago maite dutenei, gutxiago² !...

Baina zuk ez duzu ZEURE SENARRARENGANAKO duzun maitasuna sentitzen; zeure bihotza harenganaino kerik gabe igoko litzatekeenugar arina³ izatea nahi zenuke... Arretaz kontu egizu, inguratzen zaituen kea zeuretzat bakarrik dela, Jesusenganako maitasunaz duzun ikuspegia erabat gal dezazun. Jesusek bakarrik ikusten duugarra, beretzat gordetzen du dena, apurtxo bat erakusten digunerako, geurkoikeria agertu eta zorigaitzeko haizea bezala dena iraungitzen baitu!...

Une honetan, sekulako aberastasunez inguratutako dagoen pertsona zarelako itxura hartzen dizut... aberastasun hau hain da neurrigabea, non ikusmena ere hodeiertzean galtzen baita. Baina pertsona honek aberastasunengandik ihes egin nahi du, lotu egingo luketela esaten baitu, ez luke jakingo zer egin, hobe galtzen uzten baditu, edo beste *norbaitek* har ditzan utzi!... Dena dela, beste hori sekula ez da etorriko, aberastasun horiek guztiak Jesusen emaztegaiarentzat eta beretzat bakarrik prestaturik baitaude... Jesusen emaztegaiarentzat bakar-bakarrik!...

¹ Martin jaunaren gaixotasuna.

² Santa Teresa Avilakoa, "*On-Bidea*", XXXII. kap.

³ Ik. *Kristoren Antz Bidea* III, 49, 2.

Jainkoak mundu guztia itzularaziko luke sufrimendua bilatu eta *maitasun* adierazgaitzez⁴ bere JAINKO-*begiradak* aukeratuko lukeen arima bati emateko...

Zer axola mundu honetako gauzak? Gure erreinua izan al liteke, arima hilez-
kor batentzat duin ez den *limoiondo* hori? Eta zer axola gizon ziztrinek limoiondoari
darion lizuna ebakitzen badute? Zenbat eta gure bihotza zerutik hurbilago dago-
en, orduan eta orratz *zastada*⁵ gutxiago sentitzen dugu...

Baina ez dezazula uste izan orratz *zastada* horiek sentitzea *grazia* handia ez
denik, horrela, gure bizitza *martiritza* hutsa baita eta egunen batez Jesusek aintza
eskainiko baitigu. Sufrimendua jasan eta *gutxietsia*⁶ izan! Hau bai *garraztasuna*,
baina baita aintza ere! Hona hemen "betibizi-lilia"-ren goiburua!... Ez legokioke
hobeki besterik.

Nire bihotza lagun duzu Jesusek bidali dizun *betekizun* horretan. Ez zara sol-
dadua, jenerala baizik... Sufrimendua orain eta beti... Baina dena pasatzen da⁷.

TG 82

1889-II-28

Zelinari

J.M.J.T.

Jesus †

Karmel, 1889ko otsailak 28

Zelina maitea:

Egia al da Caen¹-era idazten nagokizula? Ametsetan ala itzarririk ote nagoen
galdetzen diot neure buruari... Baina ez, egia da... Harritu egingo zaitu, ahizpatxo
maitea, ez dizudala errukirik esaten badizut, baina badakizu, zure zortea inbidiatze-
koa iruditzen zait. Jesusek zuregan neurrigabeko maitasunaren ikuspegia dauka,
"betibizi-lilia" beretzat nahi du. Baina bera da zure lehen nobizialdiaz arduratzen
dena ere, haren eskua da emaztea eztei-egunerako apaintzen duena eta haren esku
maitekorrak ez du apaingailuz huts egiten... Jesus *odol*-senarra da² ... Beretzat nahi
du bihotzeko odol guztia...

Ir 4,25 h.

Ene, zein zaila den Jesusi eskatzen duen guztia ematea!... Eta nolako *zoriona*
emate hori hain zaila izatea!... Poz adieraziezina da gure gurutzeak AHULTASUNEAN

⁴ Aita Pichon-en pentsamendua.

⁵ Aitaren gaixotasunari buruzko gogoeta apalgarriak.

⁶ San Joan Gurutzekoaren hitza. Ik. A Esk, 48^a, 73^a, TG 183, 185 eta 188. Kontuan hartu beharrekoa,
1887ko uda aurretik, Teresak *Kristoren Antz-Bidean* (gazte-gazte zela ia buruz ikasi zuena) zera irakurri
ahal izan zuela: "Jesukristok sufritzea eta gutxietsia izatea nahi izan du" (*Kristoren Antz Bidea* II, 1, 5).

⁷ Ik. Avilako Teresaren brebiarioko erregistroa.

¹ Krisi gogor baten ondoren, Martin jauna Caen-eko Bon Sauveur ospitalera eramango dute otsailaren
12an.

² A. Pichon-en esaera; ik. TG 112 edo 165.

eramatea! “Betibizirik liliak” ulertzen al dio hondar-aleari? Zure nobizialdia minezkoa da; hau ezin azalduzko faborea!

Oi, ahizpatxo maitea, Jesusek bidali digun gurutzeaz kexatetik urrun, ulertezina iruditzen zait gu horrela tratatzera eragin dion mugagabeko maitasuna nolakoa den pentsatzea... Gure aita asko maitatu behar du Jesusek nahitanahiez, horrela sufritzeko! Baina ez al duzu uste zauritzen duen zorigaitz hori, bere bizitza ederraren osagarri dela?... Uste dut, ene “betibizi-lilitxo”, erokeria hutsak esaten dizkizudala, baina ez du axola; Jesusen maitasunari buruz oraindik gauza gehiago pentsatzen dut, beharbada gogorragoak direnak... Bai zorion handia lotsaraziak izatea! Hauxe da santu bihurtzeko bide bakarra!... Zalantzan jar al dezakegu orain gure ari-menganako Jesusen borondatea zein den? Bizitza ez da *amets*³ bat baizik, laster esnatuko gara, eta hura poza! Zenbat eta gure sufrimenduak handiagoak diren, are eta aintza ere mugagabeagoa izango da... Ene ba, ez dezagun Jesusek bidaltzen digun froga galdu, ustiatu gabeko urrezko mehategia baita! Aukera hau galduko al dugu? Hondar-aleak lanean hasi nahi du, *pozik* gabe, *indarrrik* gabe, *adorerik* gabe, eta titulu guzti hauek lana erraztuko diote, maitasunagatik lan egin nahi du.

2 Ko 4,17

Martiritza hementxe hasten da, sar gaitezen batera lehian, “betibizi-liliak” ez badu arbuatzen

Hondar- ale gaixoa.

TG 83

Zelinari

1889-III-5

Jesus †

J.M.J.T.

Neure Zelina maitea:

Ezin nizuke esan zure eskutitzak zenbat poztu nauen!... Orain Jesusen “betibizi-lilia” zara. Ai, zein pozik dagoen Jesus bere liliarekin! Nola begiratzen dion, Jesus *baizik* maite ez duen eta Jesus pozte bestea helbururik ez duen liliari!...

Bihotzak jasaten duen sufrimendu bakoitza, atsekabe bakoitza, Jesusi liliaren usain gozua deramakion haizeñoa bezalakoa da; orduan Jesusek barre egiten du maitekiro eta berehala sufrimendu berri bat asmatzen du, eta kaliza puntaraino betetzen du bere lilia maitasunean hazten doan bitartean, sufrimenduan ere halaxe hazi behar duela pentsatuz...

A zelako pribilejioa eskaintzen digun Jesusek hain *zorigaitz* handia bidaltzean! Oi, BETIKO BIZITZA ere ez da nahikoa izango eskerrak emateko! Santu handienei eman dien dohainez jantzi gaitu gu ere. Zer dela eta begikotasun hau?... Egunen baten geure erreinuan gaudenean eta gure malko guztiak xukatzen dituenean esango digun sekretua da hori...

Ap 21,4

³ Ik. Avilako Santa Teresa, “*Biotz-Oiuk*” 13.

Neure arimari mintzatzen natzaio dirudienez, bestela ez bainintzateke ulertua izango; baina Zelinari zuzentzen natzaionean bera da nire pentsamenduei aurrea hartu diena. Hala ere, beharbada, Zelinak ez dakiena zera da: Jesusek den-dena eskatzen duen maitasunez maite duela. Ez dago Jesusi ezinezko zaion gauzarik eta ez dio bere liliaren SANTUTASUNARI mugarik jarri nahi... haren helburua mugarik ez edukitzea da... Zergatik izan behar luke bada honetan? Unibertso osoa baino handiagoak gara eta egunen batez *guk* ere jainko-izaera erdietsiko dugu...

Ene! Zenbat eskertzen diodan Jesusi gure aita maitearengandik hurbil lili bat jarri duelako, ezeren beldurrik ez duen lilia, Jesusen maitasunak ezarri duen zelai *aintzatsutik* alde egin baino *hiltzea* nahiago duen lilia!...

Orain ez dugu lurrean sufrimendua besterik itxaroten, beti sufrimendua. Amaituko dugunean ere, sufrimendua oraindik hortxe izango dugu esku zabalik. Ai! Hau zorrea, inbidia izateko adinakoa! Zeruko kerubinak ere gure zortearen enbidiaz daude.

Ez natzaio neure Zelina maiteari idazten ari gauza hauetaz hitz egiteko ordea, Paulina andereñoari¹ aitaren gaixotasunak zorigaitza ekarri digula esateko baizik. Egin ezazu barre orain zeure Teresa gaixoaz, eskutitzaren benetako gaia azkenean erabiltzen hasi delako! Leonia gaixoa! Maite dut Leonia ere, baina gu baino zoritxarrekoagoa da, Jesusek gutxiago eman baitio. Dena dela, Jesusek asko eman die-nengandik *gehiago* itxarongo du.

Zure ahizpatxo

Teresa Jesus Haurrarena
nobiziag.² karm. apal.

TG 84

1889-III-12

Guérin andreari

J.M.J.T.

Jesus † ...

Karmel, 1889ko martxoak 12

Neure izebatxo maitea:

Ezinezkoa zait zure esana betetzea, zailegia bailitzaidake “*eskerrik asko*” esan gabe gelditzea!... Zein gauza gutxia diren bost eskutitz hauek zuri neure eskerrona adierazteko! Baina izeba maitea, mesedez, uler ezazu zeure alabatxoak esan ezin dizuna. Ene izeba maitea, zein ona zaren!... Otoitz asko egingo dut zure alde! Egia da benetan, ez naizela gai gauza bat bera ere zuzen egiteko; dirua irabazi beharrean, galdu baizik ez dut egiten. Horrexegatik, biziki hunkitu nau neure izebatxo maitea-

¹ Paulina Romet.

² Irakurri: “nobizia” eta ez “nobiziagaia”.

ren samurtasunak¹. Ezin nuen neure harriduratik irten, dirua irabazteko ezer egin gabe berehala hain aberatsa nintzela ikustean... Irribarre baizik ezin dezaket egin, neure ahaide onei esker ni neu izango naizela komunitate osoari arraina banatuko diona pentsatzean.

Izeba maitea, osabari ere nire izenean eskerrak emango dizkiozulakoan nago.

Nire izeba maitea, Jainkoak oso modu bereziz maitatu behar zaitu horrenbeste sufriarazteko; Jainkoak entzungo banindu, ordea, ez zinateke sekula gehiago gaixorik egongo, zuretzat gordetzen dituen nahigabe guztiak niri bidaltzearekin gozatuko bainuke.

Oi, zein gutxi azalduko dizkizun nire gutunak ene bihotzaren sufrimenduak!... Neure eskerrona azaldu nahi nizuke!...

Zein ona den Jesus, jasaten dugun samina gure ahaideek ulertzen eta hartan parte hartzen dutela ikustearen proba gogorra bidaltzean!...

Joanaxori bihotzez besarkada bat eta baita nire *etxeakoandretxoari*² ere .

Agur, ene izebatxo maitea, eskerrik asko berriro, baita nire osabari ere, eta besarkada samur bana bioi.

Zure alabatxoa eskerronez,

Ahizpa Teresa Jesus Haurarena
nobiz. karm. apal.

TG 85

1889-III-12

Zelinari

J.M.J.T.

Karmel, 1889ko martxoak 12

“Gora Jesus!... A zer gauza ederra norbere burua hari eskaintzea, haren maitasunaren alde sakrifikatzea!¹!...”

Zelina!... Izen maite honek behin eta berriz hots egiten du nire bihotz sakonean!... Ez al datoz, bada, bat gure bihotz biak?...

Gaur arratsean neure Zelinarekin mugagabekoan murgildu beharra daukat... Lurraz ahaztu beharra... Behealde honetan edozerk nekatzen nau, dena dut zama... Poz bakarra daukat, Jesusengatik sufritzearena... baina poz hau, *sentitu ez* arren, poz guztien gaintik dagoena da!...

Joanez doakigu bizitza... eta betiko bizitza oinkada handitan aurreratuz dator kigu... laster Jesusen bizitza berean biziko gara... nahigabe guztien iturrian ase

¹ “Nire izebak Teresak eginiko lan bat ordaindu zuen” idatzi zuen Jenofa ahizpak.

² Maria Guérin egin zen Buissonnets-en arduraz, Zelina eta Leonia Caen-en zeuden bitartean.

¹ Aita Pichon-ek Teresari zuzenduriko eskutitz batetik hartua.

ondoren, poz eta atseginen iturrian jainkotuak izango gara... Laster, ahizpatxo, begirada bakar batekin gure barnean zer gertatzen den ulertzeko gai izango gara!...

1 Ko 7,31

Mundu honen irudia ere BADOAKIGU... Laster zeru berriak ikusiko ditugu, eguzki distiratsuago batek itsaso zerutiarrak eta mugagabeko² hodeiertzak argituko ditu... Neurrigabetasun hauxe izango da gure alorra... ez gara erbesteko lur honetan gehiago preso egongo... *den-dena* IGAROKO da!... Urertzik gabeko lakuetan ibiliko gara geure senar zerutiarrarekin... infinituak ez du mugarik, ez sakonerarik, ez urertzik³ !... “Aurrera, Jesusek gure minaren azken oihartzuna ere entzuten du eta!”⁴. Babiloniako ibaia inguratzen duten sahatsetatik dindilizka daude gure arpak une honetan, baina askatzen garen egunean, haiek bai harmoniak eskainiko dizki-gutenak... Bai pozez joko ditugula geure instrumentuen hariak!...

Sal 136, 1-2

Jesusen Zelinarenganako maitasuna Jesusek berak baizik ez du ulertuko!... Jesusek *harrigarriak* egin ditu Zelinagatik... Zelinak ere berdin egin dezala Jesu-sengatik... Maitasuna maitasunez bakarrik ordaintzen da eta maitasun-*zauriak* maitasunez bakarrik sendatzen⁵.

Eskain diezaiogun geure sufrimendua Jesusi arimak salbatzeko!... Arima gai-xoak!... Arima horiek guk baino zorte txarragoa dute eta hala ere, Jainkoak bere odola eman zuen haiek salbatzearren... Gure bihotzaren hasperen baten menpe utzi nahi du Jesusek bere salbamena... Hau misterioa!... Hasperen batek *arima bat* salba ahal badezake, zer ez ote dute lortuko gure sufrimenduek? Ez diezaiogun Jesusi ezertxo ere uka!...

Kanpaiak jo du eta oraindik ez diot neure Leonia gaixoari idatzi; goraintziak eta besarkada bat eman iezazkiozu nire partez eta esaiozu maite dudala!... Izan dadila bere graziarekiko *zintzo* eta Jesusek bedeinkatuko du. Galde diezaiola Jesusi zer esan nahi diodan, Jesusi uzten baitizkiot mandatu guztiak!...

Laster arte!... Ene, zerua! Zerua! Noiz joango gara zerura?

Jesusen hondar- aletxoak

TG 86

1889-III-15

Zelinari

J.M.J.T.

Jesus †

1889ko martxoak 15

Eskerrik asko zure gutunagatik, *atsegin* osoz jaso du hondar-aletxoak!...

Gutunetariko batean, azkenean, nire itzala zinela esaten zenidan. Ene ba, nahiko tristea izango litzateke hori egia balitz; izan ere, zer da, bada, hondar ale baten itzala?...

² Lamerçais, “Une voix de prison”.

³ Arminjon, op. cit, 300.orr.

⁴ Aita Pichon-ek Maria Bihotz Sakratuarenari zuzenduriko eskutitz batetik hartua.

⁵ San Joan Gurutzekoa, *Kantu izpirituala*, IX. eta XI. ahapaldiak.

Nik zerbait hobeagoa pentsatu dut neure Zelina maitearentzat; itzalaren ideia hori gogoko dut, neure Zelinak zerbaiten itzala izan behar duela uste baitut, baina zeren itzala?... Sortutako ezerengan ezin dut aurkitu nire Zelinak itzala egingo dion ideari erantzungo dion errealitatek... Jesus bera izango da beraz *jainko-errealitate* hori...

Bai, Zelina da Jesusen gerizpetxoa... Hau bai titulu apala eta era berean aintzatsua! Izan ere, zer da gerizpea?... Baina Jesusen itzala... A zelako aintza!... Kol 2,17

Zenbat gauza esan behar nizkiokkeen gai honi buruz Jesusen itzaltxoari! Baina astirik ez dut eta ezinezkoa zait!...

Nire Zelinaren ametsa polita da, beharbada egunen baten egia bilakatuko dena!... baina bitartean ez dezagun geure martiritza, *utz dezagun* Jesusek maiteen duguna ken diezagun eta ez diezaiogun ezer uka. Ezpata-kolpez hil aurretik, hil gai-teen orratz-ziztadaz... Zelinak ulertzen al du?...

Hondar-aletxoak bat egiten du sufrimenduan Jesusen *gerizpetxoarekin*.

Ahizpa Teresa Jesus Haurrarena [eta] Aurpegi Santuarena
nobiz. karm. apal.

TG 87

Zelinari

1889-IV-4

J.M.J.T.

Jesus!...

Karmel, 1889ko apirilak 4

Neure Zelinatxo maitea:

Zure gutunak tristura handia ekarri dio nire bihotzari!... Aitatzxo gaixoa!... Ez, Jesusen pentsamenduak ez dira gure pentsamenduak eta bere bideak ere ez gu-reak... Is 55,8

Gure natura ahulak jasan dezakeen adinako kaliza garratza eskaintzen digu... Ez ditzagun Jesusen eskuak prestaturiko kaliza horretatik gure ezpainak kendu... Mt 20, 22-23

¹ Hona hemen Zelinaren ametsa: "Jakingo bazenu bert zer amets egin dudan! Zu martiri hil berri zinen, gizon batek basora eraman zintuen hiltzeko eta nik martiritzara gogoz joaten ikusi zintudan... Zerurantz ke arin bat igotzen ikusi orduko, banekien zer gertatuko zen; gero txori batek abestu zuen, eta guk zera esan genuen: sakrifizioa bukatu da! Teresa martiri da... Berti honen aurrean nire bihotza asaldatau egin zen. Eta ni zer? Nire Teresa maitearengandik banatua izango al nintzen? Ene ez ba, hori ezinezkoa zen, nik ere zorte bera izango nuela esaten zidan zerbait sentitu nuen. Eta mendian noraezean nenbilela, zapatari ikaskina den mutiltxo batek erasotzen nau eta bere eztena sartzan dit hainbat aldiz eztarrian. Ni hain pozik nengoen, nor ez bainuen ihes egiteaz pentsatzen, baina mutikoa ahula zenez gero, ni ez nintzen hiltzen. Dena dela, bere gorrotoa are eta handiagoa zen, eta azkenik, begiak atera zizkidan (...) gero esnatu egin naiz, eta zeharo penatu naiz, ametsa besterik ez dela izan konturatzean". (Teresari, LC 110, 13/3/1889).

Ikus dezagun bizitza bere egiazko argipean... Bi *betikotasunen* arteko une bat da¹ ... *Baketan* sufri dezagun!²...

Aitortzen dut "bake" hitza gogor samarra iruditzen zitzaidala, baina lehengo egun batean, horretaz pentsatzean, bakean sufritzeko sekretua idoro nuen... "Bakea" diotenak ez dio "poza", *sentituriko* poza behintzat... *Baketan* sufritzeko nahikoa da Jesusek nahi duena nahi izatea... Jesusen emaztea izateko, haren antzekoa izan *behar* da. Jesus odola dariola dago³, arantzas koroatua!...

Mila urte berorren begientzat, Jauna, *atzo* IGARO zen eguna bezalakoa da!...

Babiloniako ibai ertzetan gaudelarik, eseri eta negar egiten dugu Sion-ez oroiturik... Landazabaletako sahatsetatik dindilizka utzi ditugu geure arpak... Eta preso eraman gintuztenek zera eskatu ziguten: "Sion-eko kanturen bat kanta iezaguzue"... Nola kantatuko genituen guk Jaunaren kantak atzerrian? (Dabid-en Salmoa).

Ez, ez ditzagun zeruko kantuak lurreko gizakientzat kantatu... baina Zelinaren antzera, kanta dezagun geure bihotzean kantu ezti bat geure maitearentzat!⁴ ...

Sufrimenduaren kantua aurretiaz dituen sufrimenduei lotzea, horixe da haren bihotza gehien liluratzen duena!...

Jesus sutan dago gureganako maitasunez... Begira iezaiozu haren Aurpegi gurgarriari!... Begira haren begi itzal eta jausiei!... Begira haren zauriak!... Begira iezaiozu Aurpegira⁵ ... Hantxe antzemango duzu zein maite gaituen.

Ahizpa Teresa Jesus Haurrarena [eta] Aurpegi Santuarena
nobiz. karm. apal.

TG 88

1889-IV-24

Maria Guérin-i

J.M.J.T.

Jesus †

89ko apirila, asteazkena

Neure ahizpatxo maitea:

Mesede bat eskatzera noakizu eta zeuri zuzentzen natzaizu, badakidalako orain Buissonnets inor gabe badago ere, lehenago zure mende zegoela.

¹ Ik. P. d'Argentan, "Conférences sur les grandeurs de Dieu", t. II, XI. kap.

² Ik. *Kristoren Antz Bidea* III, 47, Lamennais-en "Réflexions".

³ Apirilaren 4ko ostegun honetan, garizumako laugarren asteko ostiralerako ezarrita zegoen Gure Jaunaren Odol Preziatuaren jaiaren lehenengo bezpera ospatzen da.

⁴ Ik. TG 54, 2. zenb.

⁵ Hainbat dira Kristoren aurpegiak mintzatzeko diren garai honetako gutunak (1889an: TG 87, 95, 98; 1890an: TG 102, 105, 108, 110, 117); normalean, Tours-eko Oratorioak zabalduko Aurpegi Santuaren irudiari erreferentzia egiten zaiolarik; ik. A Esk, 71^a eta CG, 488. orr. h. Teresaren bizitzako azken etapako debozioari buruz, ik. Otoi. 12 (Aurpegi Santuari Konsagratzea) eta "Prières", 118. orr.h.

Gogoratzen al duzu Tifenne andreak neure lehen jaunartze egunean oparitu zidan liburua? "Neskatila gaztearen lore-sorta" zuen izenburu. Aitatxo gaixoaren komodako tiradera batean egon behar du eta al bait arinen bidal diezadazun nahi nuke, bai liburu hori eta bai Primois¹ andereñoek oparitu zidaten beste txikiago bat ere. Liburu marroia da, urrezko irudi batez apaindua, Eukaristiari buruzko gogoetak direla uste dut. Azken hau Zelinaren gelan dagoen armairuko (atearen aldamenekoa) apalen batean dago. Ahizpatxo maitea, barkatu mesede hau eskatu izana!... Beharba da zerbitzariari azal diezaiokezu zer nahi duzun, zu Buissonnets-eraino joan gabe...

Harrigarria da benetan gure arteko harremana nola estutu den ikustea; proba ikaragarri horren ondoren *ahizpa* alkartuagoak garella iruditzen zait!...

Jakingo bazenu zenbat *maite zaitudan!*... zenbat pentsatzen dudan zuengan! Ene! On egiten du benetan, sufritzen zaudenean gure doluari erantzuten dion bihotz lagunengoz izateak!... Zenbat eskertzen diodan Jesusi ahaide hain onak eman dizkigulako... Ahizpa hain maitagarriak... *Behealde hartako*² gure ahizpatxo gaixoa ez ziren nekatzen lehengo egunean eskaini zenizkien ontasunak kontatzen. Nire Maritxoren *bihotzak* Zelinarena biziki hunkitu bide zuela ulertu nuen eta horrek nire *bihotz* gaixoa poztu zuen, asko maite baitut neure Maria!... Mariaz egin litezkeen gorespen guztiak ere ez lirakeke nik Mariaz *pentsatzen* dudanari erantzutera helduko.

Bizkor dihardut idazten, konturatu gabe nire idazluma gaixoa ez dela inondik ere nire bihotzari erantzuteko gai eta zalantzarik gabe, irakurri gabe gelditzearen lotsa jasan beharko dudala pentsatu gabe.

Ahizpatxo maitea, besarkatu nire ordeztu maite ditudan guztiak, eta eman iezaiezu eskerrak Bazkotarako bidalitako txokolate eta arrain ederrarengatik... Ene, ezin dut *arrainaz*³ pentsatu... Egun hartan nire osabak hain zuen AITATASUNEZKO halako zerbait, halako zerbait berezia, non ez baitut sekula bisita hura ahaztuko.

Maite zaituen zure ahizpatxoa,

Ahizpa Teresa Jesus Haurrarena

TG 89

1889-IV-26

Zelinari

J.M.J.T.

Jesus †!...

Karmel, 89ko apirilak 26

Jesus da bere emaztegaiak¹ 20 URTE BETETZEN dituenean "Zorionak" esateaz arduratzen dena!...

¹ Maria eta Joana Primois, Martin familiaren lagunak.

² "Caen-eko atzerriratuak" (A Esk, 73ⁱ) diren Zelina eta Leoniak Bon Sauveur-etik hurbil dagoen pentsioa hartu zuten.

³ Opari honek hunkitu egiten du Teresa, behinola arraina karmeldarrei eskainiz hain pozik egon zen bere aita gogorazten diolako.

¹ I. Zelinak 20 urte beteko ditu apirilaren 28an.

A zelako hogeigarren urtebetetzea! Emankorra guztiz *sufrimendutan* eta auke-ratua izatearen grazian!... Hogei urte! *Ametsez* beteriko adina... esaidazu, zer amets duzu nire Zelinaren bihotzarentzat?...

Zenbat oroitzapen ditugun geure artean!... Mundu oso bat oroitzapenetan... Bai, Jesusek ere bere lehentasunak ditu; lorategian bere maitasunaren eguzkiak begiak kliskatu bezain laster heltzen dituen fruituak dauzka... Zer dela eta gara gu ere sorta horretakoak?... Misterioz betetako galdera... Zer nolako arrazoia eman diezaguke Jesusek?... Haren arrazoia arrazoirik ez izatea da... Zelina!... Aprobetxa dezagun urte gutxitan gauza asko erakutsi digun Jesusen maitasun bizia, ez dezagun ahaztu atsegin duen ezer... Ene! Utz dezagun bere *maitasunaren* eguzkiak, eguzki kiskalgarri horrek beltzaran gaitzan... *Maitasunez* suntsi gaitezen!... Sales-eko San Frantziskok zera dio: "Maitasunaren sua bihotzean dagoenean, altzari guztiak leihotik ateratzen dira"². Oi, ez dezagun ezertxo ere utzi... ez dezagun ezertxo ere utzi gure bihotzean Jesus izan ezik!...

Ez dezagun uste izan sufritu gabe, asko sufritu gabe maitatu daitekeenik... Gure izaera *pobrea* hortxe dago, eta zerbaitetarako dago... Azken batean natura horixe da gure aberastasun bakarra, gure lanbidea... Hain da ederra, non Jesus horretxan bila etorri baitzen hain zuzen ere lurrera.

Sufri dezagun mingostasunez, hau da, adorerik gabe!... "Jesusek *tristuraz* sufritu zuen. Tristurarik gabe, zer sufrituko luke arimak³?" Guk ere galanki eta bihotzandiz sufritu nahi genuke!... Zelina! Hau ameskeria!... Sekula ez erortzea nahi al genuke? Zer axola dio, ene Jesus, ni aldioro erortzen banaiz ere? Erortze horretan neure ahulda-dea *dakusat* eta hori niretzat irabazi handia da... Zuk guzti honetan zer egin dezakedan *ikusiko duzu* eta horrela, errazagoa izango zaizu ni zure besoetan eramateko erabakia hartzea... Horrela egiten ez baduzu, ni *lurrean* ikustea gogoko duzulako izango da... Eta hala bada, ez naiz kezkatuko eta maitasunez beteriko neure besoak luzatuko dizki-zut behin eta berriz, erreguka!... Ez dut uste zuk bertan behera utziko nauzunik!...

"Santuek ere, hain zuzen, gure Jaunaren oinetan zeudenean aurkitzen zuten beren gurutzea"⁴ !...

Zelina maitea, nire arimaren oihartzun gozoa!... Nire zoritxarraren berri bazenu!... Ai, ezagutzerik bazenu!... Santutasuna ez datza gauza handiak esatean, ezta pentsatzean eta sentitzean ere; *sufrimendua* onartzean datza. "Santutasuna! Ezpataz eskuratu behar da! *Sufritu* egin behar da, *hiltzorian* egon⁵ !..."

Kt 4,6

Baina itzalak desagertuko direneko eguna ere iritsiko da eta orduan ez da poz-tasuna eta zoramena baizik geldituko...

Aprobetxa dezagun sufritzeko dugun aukera bakar hau!... ez dezagun une hauxe baizik ikusi!... Unetxo bat altxorra baita... Maitasun ekintza bakar batek Jesus hobeki ezagutzen lagunduko digu, Jesusengana hurbilduko gaitu *betiereko bizitzan!*...

Ahizpa Teresa Jesus Haurrarena [eta] Aurpegi Santuarena
nobiz. karm. apal.

² Ik. Camus, "Esprit de saint François de Sales", III, 27; Aita Pichon-ek 1887ko urriaren 13an emanda-ko ikastaroan aipatutako esaldia.

³ Aita Pichon, bakarraldiko hitzaldia, 1887ko urria.

⁴ Ibid., 1888ko maiatza.

⁵ Ibid., 1888ko maiatza.

TG 90

1889-IV-27(?)

Zelinari

Apirilaren 28rako

J.M.J.T.

Neure Zelinatxo maiteari zorionak eman nahi dizkiot berriro; Jesustxoren¹ partez lore-sorta txiki bat bidaltzen diot; Jesusek eskerrak eman nahi dizkio Zelinari, oparizat eman dizkion lore eder guztiengatik.

Ene bada! Lore hauek ez dira batere distiratsuak! Karmelgo Jesustxo txiroa da; baina zeruan erakutsiko dizkigu aberastasunak eta ziur nago aberastasun horiek gure egingo dituela...

Bihar hartuko dut neure Jesus² ! Eta ene bada, nola hitz egingo ote diot Zelinaz, neure beste ni horri buruz! Gauza asko izango ditut kontatzeko baina ez zait zaila egingo, hasperen bakar batek den-dena esango baitio.

Hau zirriborrotxoa hau! Arineketan idazten dihardudanez, barkatuko nauzu. Nire bihotza eta zukanako sentitzen duen guztia nabarmen izan dakizun nahi nuke; baina badaude idatz ezin daitezkeen eta bihotzak bakarrik ulertzen dituen gauzak.

(Jesusen lore-sortak gurutzearen aurrean hainbat ordu egin ditu, Jesus bera baino txiroagoa den ontzi batean!...)

Zelina maitea, egunen batez betiko joango gara zerura; han ez da lurrean bezala egunik ezta gaurik ere izango... Hura poza! Joan gaitezen baketan geure lanaren helburu BAKARRA den zerurantz begira. Atsedean ordua gero eta hurbilago dugu³.

Ap 21,25

Besarkada handi bat nire partez hain maite dudan neure Leonari. Ez dut haren hogeita bosgarren⁴ urtebetetze-eguna ahaztuko. Karmelen nagoenetik, datak gogoratzeko buru ona dut.

Laster arte, ene Zelina, Jesusen "betibizi"... Azal niezazukeen baino gehiago maite zaitut.

Zure ahizpatxo
Teresa Jesus Haurarena

¹ Klaustroan dagoen Jesus Hauraren irudia.

² Igandeko jaunartzea. Karmelen ez da egunero jaunhartzeko ohiturarik.

³ Ik. *Kristoren Antz-Bidea* III, 47, "Réflexions"; eta TG 173.

⁴ Teresaren hutsa; Leoniak hogeita sei urte egingo ditu ekainaren 3an.

TG 91

Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenari

1889ko maiatzaren azkena

J.M.J.T.

Jesus †

Lehoi maitea, eskerrik asko, eskerrik asko!... Zer nahi duzu zeure arkumetxoak¹ esan diezazun?... Ez al zenuen, bada, zu zeuk eskolatu?... Gogoratu *aulki altuan* eseri eta zure magalean harturik zeruaz hitz egiten zenidaneko garaia²... Oraindik zera esaten zenidala dantzut: “Begira merkatariak nola haserretzen diren dirua irabaztearren; guk, ordea, zerurako sekulako altxorak bil genitzake uneoro, horrenbeste haserretu gabe; ez daukagu ESKUAREAZ diamanteak biltzea baizik”.

Eta nire bihotza pozez beterik gelditzen zen, asmo onez gainezka!... Zuregatik izan ez balitz, beharbada, orain ez nengoke Karmelen...

Jkd 3, 5-6

Gure abia gozo hartako ordu zorionsuez geroztik denbora asko iragan da... Jesus gu bisitatzera etorri da... Sufrimenduaren arragotik igarotzeko duin ikusi gaitu...

Karmelen sartu aurretik, gure aita *paregabeak* zera esaten zuen, nire burua Jainkoari eskeintzen ziolarik: “Zerbait hobeagoa eduki nahi nuke Jainkoari eskaintzeko”. Jesusek haren eskaria entzun zuen... Eta “zerbait hobeago” hori *bera* zen!... Hura poza sufrimendu une bategatik!... *Jauna* da guzti hau egin duena... Eta Jaunak zalantzarik gabe guk baino gehiago maite du aita, aita Jainkoaren semetxoa baita. Eta aitak gehiegi sufri ez dezan, Jainkoak aitaren ordezkariak sufri dezagun nahi du!...

Sal 117, 23

Geuri dagokigu eskerrak ematea ere!..

Lehoi maitea, bizitza laster igaroko da. Zeruan ez digu axolarik izango Buissonnets-eko erlikiak haizetuak³ izan badira ere. Zer axola lurrak?...

Hezi zenuen zure alabatxo

Ahizpa Teresa Jesus Haurrarena [eta] Aurpegi Santuarena
nobiz. karm. apal.

¹ Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenak hau idatzi zion: “Ahizpa M. Aingeruenak gutuntxo hau idazten utzi dit. Kotsola nazazu apurtxo bat, nire bihotza indartsua baita gure aitaxo maiteaz pentsatzen dudanean”. (LC 112).

² Ik. A Esk, 33^a.

³ Balio gabe bihurtu diren Buissonnets-eko altzariak sakabanatzen hasten dira. Ikus CG. 484+d orr.

TG 92
1889-V-30

Maria Guérin-i

J.M.J.T.

Jesus †

1889ko maiatzak 30, osteguna

Neure ahizpatxo maitea:

Ongi egin duzu niri idazteaz; guztia ulertu dut, *guzti-guztia*¹ !...

Ez duzu *bekatu izpirik* egin; ondotxo dakit nik tankera horretako tentaldiak zer diren eta beldurrik gabe ziurta diezazuket ez duzula bekaturik egin. Gainera, Jesus-ek halaxe diosta bihotzaren sakonean... Tentaldi horiek guztiak gutxietsi egin behar dira, kasurik ere ez...

Nahi al duzu benetan zerk *nahigabetu* nauen asko esan diezazudan?...

Zera da, Maritxok Igokunde egunean² jaunartzeari utzi diola... Mariaren hila-betaren azkenengo egunekoak ere utzi egin ditu... Horrek bai sortuko ziola nahiga-bea Jesusi!...

Azkarra izan behar du benetan deabruak arima horrela engainatzeko³... Baina ez al dakizu, ene laztana, horixe dela hain zuzen ere haren nahia? Ondo baino hobeto daki gaizto halakoak ezin duela Jesusena izan nahi duen arima bat bekatu egitera bideratu; horregatik, bekatu egin duela sinestarazten saiatzen da. Arima horretan ezinegona sortzea ere nahikoa izan beharko luke deabruarentzat, baina amorrazioak zerbait gehiago bilatzera bultzatzen du. Ez dio Jesusi tabernakulu maitaturik opa eta santutegi horretan sartu ezin duenez gero, ahal dela *hutsik* eta jaberik gabe gera dadin nahi du... Ene ba! Zer gertatuko ote zaio bihotz gaixo horri?... Deabruak arima jaunartze sakratutik urruntzea lortu duenean, *den-dena irabazi* du... Eta Jesus-ek negar dagi!...

¹ Hona hemen Paris-eko Erakusketan dagoen Mariaren gutunaren zati bat: "Orain ere penatu berri zaitut eta aurretiaz dakit ez zarela nitaz oso harro egongo, baina zer nahi duzu, baina, nire sufrimendua hain handia izanik, lasaitu egiten naiz neure atsekabearen berri zure bihotzari jakitera emanez. Paris ez dago kezkatia sendatzeko egina, ez dakit jadanik neure begiradak nora zuzendu. Ni biluzik baldin banago ere, beti aurkitzen dut nire antzera dagoen besteren bat... atsekabez hil behar dut... Nik uste jakinminagatik dela, toki guztietara begiratu behar izaten dut, gaitzaren bila bainebilen. Ez dakit ulertuko didazun, buruan hain gauza ugari ditut, non ez baitakit den-dena haritzeko gauza izango naizen... Deabrua ere ez da falta, egunean zehar ikusi ditudan gauza txar guztiak gogorarazteko, eta hauxe da tristezia dakarkidan beste arrazoiatariko bat. Nola nahi duzu nik jaunartzea bihar eta ostiralean? Utzi egin behar dut nahitanahiez. Froga gogorra da benetan, orain arte sekula ez nuen jaunartzeagatik orain bezainbat maitasun sentitu. Kongsolamenduz betekoa nauela sentitzen dut, baina askoz ere indartuago sentituko nintzateke Jainkoa neure bihotzean sentitzerik banu; bestela, nire bihotz gaixoa oso hutsik eta tristuraz beterik dago, eta ezerk ezin nau poztu. Oi, a zer hiria Paris, Congircet kaleko etxetxoan askoz ere zoriotuagoa nintzen. Badakizu non izaten naizen zoriontsuen? *Elizan nagoanean; elizan gutxienez neure begiak sagraiorantz zuzen ditzaket, neure lekuan nagoela somatzen dut, gainerako guztia ez dago niretzat egina. Ez dakit nola bizi daitekeen hemen, niretzat benetako infernua da*". (Teresari, LC 113, 1889ko maiatzak 29).

² Maiatzaren 30ean bertan.

³ Ik. deabruari buruzko txostena, TrH, 128.orr. hk.

Ene laztana! Pentsa ezazu, bada, Jesus hantxe daukazula, tabernakuluan, hain zuzen ere zeuretzat, *zeuretzat bakarrik*, zeure bihotzean noiz sartuko zoratzzen... Ez iezaziozu deabruari jaramonik egin, iseka egiozu eta hel zaitetz maitasunaren eta bakearen Jesus hartzera, beldurrik gabe!...

Zera diozula dantzut: "Teresak hori diosta ez dakielako... Teresak ez daki ongi nik hori nahita egiten dudala... horrek dibertitu egiten nau... eta gainera nik ezin dut gure Jauna hartu sakrilejioa egitea litzatekeelako *etab...*". Bai, zure Teresatxo gaxoak ondotxo daki hori guztia; *den-dena* ezagutzen duela esan diezazuket. Eta beldur gabe joan zaitetzkeela diotsu zure benetako lagun bakarra hartzera... Berak ere igaro zuen eskrupuloen *martiritza*⁴, baina *pekatu handienak* egin zituela uste zue-nean ere, Jesusek jaunartzen utzi zion... Hara bada, deabruarengandik askatzeko bide bakarra horixe zela onartu zuen, zin dagizut, deabruak denbora galtzen dagoela ikusten duenean, berehala uzten baitzaitu baketan...

Ez, "sagrario aurrean baizik atsedean hartzen ez duen bihotzak" EZIN DU Jauna ez hartzeraino Jesus iraindu. Jesus mintzen eta benetan iraintzen duena, konfiantzarik eza da!...

Ahizpatxo, gutuna jaso aurretik antzematen nuen zure atsekabea, nire bihotza zureari lotuta baitzegoen. Bart, amets batean, zu poztan saiatu naiz... baina ez dut lortu... Orain ere ez dut zorte handiagorik izango, baldin eta Jesusek eta Ama Birjinak laguntzen ez badidate. Baina uste dut nire nahia beteko dela eta hilabetearen azken egunean Ama Birjinak nire ahizpatxoaren sendatuko duela. Horretarako *otoitz egin behar* da, *otoitz eta otoitz*. Gure Garaipenen Amari kandelatxo bat ipiniko bazenitu!... Nik benetako sinesmena dut Garaipenen Amarengan...

Zure bihotza Jesus maitatzeko egina dago, gar guztiz Jesus maitatzeko. Eskatu iezaziozu *zure bizitzako urterik ederrenak* ez dituzula ametsezko beldur artean igaro nahi.

Ez ditugu geure bizitzako unetxo motz hauexek baizik Jesus maitatzeko; deabruak ondotxo daki hori eta horrexegatik, denbora hori alferriko lanetan gal dezagun saiatzen da...

Ahizpatxo laztana, *jaunartu sarri*, sarri-sarri... Sendatu nahi baldin baduzu, horixe da bide bakarra. Jesusek ez du alferrik zure bihotzean joera hori jarri. (Uste dut Jesus asko poztuko litzatekeela galdu dituzun jaunartze biak berreskuratuko bazenitu, horrela, Jesus zure bihotzetik aldentzea ez duela lortu esan nahiko luke eta, deabruaren garaipena txikiagoa izango bailitzateke). Ama Birjina *gehiegi* maitatzeko beldurrik ez izan, ez baituzu *sekula* aski maitatuko; Jesus, gainera, pozik egongo da, Ama Birjina bere Ama delako.

Agur ahizpatxo, barkatu dena zirriborroan bidaltzen dizudalako, astirik ez dut eta ezin berriro irakurri. Besarkada handi bat niretar guztiei.

Ahizpa Teresa Jesus Haurarena
nobiz. karm. apal.

⁴ Ik. A Esk, 39ⁱ eta 44ⁱ.

TG 93

Maria Guérin-i

1889-VII-14

J.M.J.T.

Jesus †

1889ko uztailak 14, igandea

Neure ahizpatxo maitea:

Zeure Teresaxori iritzia eskatzeko apaltasuna duzenez gero, Teresak ezin dizu ezetzik esan¹. Baina esperientziarik gabeko nobizia gaixo hau ere huts egiteko beldur da eta zuk zeuk ere zalantzak izango zenituzke nobizia honek esaten dizunaz. Baina gaur, ez ezazu beldurrik izan, Jesusena da bidaltzen dizudan erantzuna... Oi, zein zoriontsu naizen Jesusen mezua zuri jakinarazteaz!...

Gaur goizean gure Ama onari galdetu diot ea Zelinari idatzi diozunari buruz zer erantzun behar dizudan. Ama maite honek zuretzat gomendatu didana eginez gero, ez daukazu zertan huts egiteko beldurrik izan, Jesusek bere bihotzean sakonki ezagutzen baititu arimak eta baita arimen premiak ere. Jesusek den-dena daki, ezin zaio ezer ezkutatu, ondo baino hobeto ezagutzen du zure arimatxoa. Hauxe da, beraz, *Jesusen partez* zuri esateko eskatu didana: "*Ongi egin* zenuen dena Zelinari kontatzeaz; dena dela, hobe da gauza hauekin denborarik ez galtzea, kasurik ere ez, gure Ama ziur baidago ez duzula bekaturik egin". Bueno, eta orain lasaigo al zaude?... Uste dut, zure lekuan banengo eta esaldi hauek entzun, berehala sendatuko nintzatekeela eta itsu baten antzera gidatua izan nadin utzi; horixe baita azken batean bakea lortzeko bide bakarra eta batez ere, Jesusi atsegin egitekoarena.

Bekatu egin duzulakoan ziur bazaude ere, ez duzu inolako arriskurik; zuk baino esperientzia gehiago duen (uste dut) *gure Amak* ez duzula bekatu egin esaten baitu...

Ene Maria! Zein zoriontsu zaren horrela *maitatzen* dakien bihotza izateagatik... Emaizkiozu eskerrak Jesusi hain opari bikaina egin dizulako eta eskaini iezaiozu zeure bihotz *oso-osoa*. Munduko gizakiak oro txikiegiak dira Jesusek zuregan ireki *duen hutsune handia* betetzeko, ez iezaiezu zeure ariman lekurik egin...

Jainkoak ez zaitu bere lazo artean hartuko, lazo horietan ongi katigatua zaude eta jadanik...

Bai, egia da gure sentipena ez dela *lurrekoa*, hori baino gogorragoa da, eta heriotzak ere ez luke sentipen hori hausten jakingo...

¹ Mariak zera idatzi zion: "Nire ahizpatxo maitea, benetan gogoko izango duzun gauzatxo bat esan behar dizut: orain ez naiz jadanik hain kezkatia. Badago, hala ere, zeharo kezkatzen nauen gauzatxo bat. Neure jaunartzeetariko baten bezperan izan zen; beldur nintzen, edo hobe esan, bekatu egin nuelako ziurtasuna nuen (ulertzen duzu, ez da?); ez nintzela Jainkoa hartzeko duin sentitzen nuen eta ezin izan nuen ama aurkitu nire kezken berri esateko, beraz, Zelinari kontatu nion. Ongi egin al nuen? Ez dakit ezertxo ere. Nik, betidanik egin dut gogoeta nahikoa gai honi buruz, eta Zelinari zer pentsatua emango nion beldur nintzen. Norbere bekatuak ez zaizkiola mundu guztiari esan behar uste nuen, baina gero, Domin apaiz jaunak Juanari nire kezkei buruz hitz egin izana ontzat eman zuenez gero, oniritzi honek Zelinaren kasuan ere ez al du, bada, berdin-berdin balioko? Ea bada, ene Teresatxo, arazo honi buruzko informazio edo gomendio bazuk eman ahal baldin badizkidazu, nire kontzientzia arintzeko balioko dute" (LC 114, 10/7/1889).

Ez zaitez tristatu jaunartzeetan pozik lortzen ez baldin baduzu. Maitasunez jasan beharreko froga baizik ez da. Ez itzazu galdu egunero idoro dituzun *arantzak*; arantza bakoitzarekin *arima* bat *salba* dezakezu!...

Ene, jakingo bazenu Jainkoa zenbat ofenditzen den! Eta zure arima hain ongi egina dago Jainkoa kontsolatzeko!... Maita ezazu *zoratzerraino*, maite ez duten guztien izenean...

Ahizpatxo, lasterketa ero honen ondoren nire idazlumak gelditu egin behar du. Gaur bost gutun idatzi behar ditu, baina nire Maritxori idatziz hasi naiz... hain maite dut, eta odolez hain gutxi... Besarkada handi bat izebari, osabari eta nire Joana maiteari, eta esaiezu maite ditudala.

Zu, Jesusen begiko txiki hori, otoitz egizu zure ahizpa duingabe honek zure adina maita ahal dezan, hori ahal balitz behintzat.

Ahizpa Teresa Jesus Haurrena [eta] Aurpegi Santuarena
nobiz. karm. apal.

TG 94

1889-VII-14

Zelinari

J.M.J.T.

Jesus †

Karmel, 1889ko uztailak 14.

Neure Zelina maitea:

Nire arimak ez zaitu ahaztu... zeurekin batera sufritzen du erbestea¹ !... Ene! zein latza den bizitzea, garraztasun eta atsekabez beteriko lurralde honetan egotea!... Baina bihar... une batetik bestera kaian izango gara, hura zoriona! Miragarria izango da Jesusen aurpegiari *aurrez-aurre* begiratzea betikotasun *osoan*! Beti, gero eta maitasun handiagoa, beti, gero eta poz zoragarriagoa... hodeirik gabeko zoriona!...

Nola lortu du Jesusek gure arimak gizaki guztiengandik banatzea? Hara bada, zartako ederra eman digu... baina maitasunezko zartakoa da. Jainkoa harrigarria eta batez ere maitagarria da. Maita dezagun, bada, eta maita dezagun berak nahi adina sufritzeko beste: arimaren nahigabeak, garraztasunak, atsekabeak, ustezko zabarke-riak... Bai, amodio handia da Jesus maitatzea, maitasun horren gozotasunik sentitu gabe... horra hor martiritza... Bada, *hil gaitezen martiri*!...

Ene, Zelina nirea!... nire bihotzaren oihartzun gozoa, ulertzen al duzu?... Martiritza ezezaguna da, Jainkoak bakarrik ezagutzen duena, gizakien begiek asmatu ezin dutena, ohorerik gabeko martiritza, garaipenik gabea... Horra hor heroitasun-eraino doan maitasuna... Egunen batez, Jainkoak eskerronez zera esango du: "Orain

¹ Zelina eta Leonia La Musse-en daude.

nire txanda da"². Eta ene! Zer ikusiko dugu orduan? Zer ote da amaierarik gabeko bizitza hori?... Jainkoa izango da gure arimaren arima. Misterio ulertezina! Gizakiaren begiak sekula ez du *sortu gabeko* argia ikusi, haren belarriak ezin du paregabeko harmoniarik entzun ezta bihotzak Jainkoak maite dituenentzat zer gordetzen duen amets egin ere. Hau guztiau laster iritsiko da, *laster-laster*, bai. Josi dezagun laster geure koroa, aintza lortzeko eskua luza dezagun, eta biziki maitatzeko gai bagara, Jesus gartsu maite baldin badugu, Jesus ez da gu erbeste honetan luzaz edukiarazteko bezain bihotz-gogorra...

Zelina, ez dezagun *geratzen zaigun* ALDI LABURRA alferrik gal... arimak salba ditzagun... Arimak elur-malutak³ bezala galtzen dira eta Jesusek negar egiten du, eta gu... gu geure ondoezari begira gaude, geure senargaia kontsolatzen saiatu gabe!... Ene Zelina nirea, arimentzako bizi gaitezen... apostolu izan gaitezen... batez ere apaizen arimak⁴ salba ditzagun! Arima horiek kristala baino gardenagoak izan beharko lukete!... Ene ba, zenbat apaiz txar, santu ez diren zenbat apaiz... Otoitz egin dezagun, sufri dezagun beraiegatik, eta azken egunean Jesusek *esker-tuko* digu. Guk arimak emango dizkiogu!...

Zelina, ulertzen al duzu nire bihotzaren garrasia?... Biok batera... beti elkarrekin...

Zelina eta Teresa Jesus Haurrena [eta] Aurpegi Santuarena
nobiz. karm. apal.

Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenak ezin dizu idatzi, eskutitzak pisu handiegia hartuko lukeelako.

TG 95

Ahizpa Aines Jesusenari

1889-VII/VIII (?)

J.M.J.T.

Jesus †

Bildots maitea, utziozu zure arkumetxo gaixoari bee egiten... Bildotsak benetan on egin zidan igandean!...

Zure eskutitzean niretzat benetan argigarria zen esaldi bat zegoen. Zera zen: "Ez dezagun esan gorets gaitzakeen hitzik". Egia da, *kontu* handiz den-dena Jesusentzat gorde behar dugu... Bildots maitea, zein ederra den Jesusentzat lan egitea, beretzat *bakarrik*!...

² Ik. TG 57, 5. zenb.

³ Ik. P d'Argentan, op. cit., t. II, 83-84. orr; eta CG, 495+c.

⁴ Ik. A Esk, 56a eta 69i. Apaizei buruzko kezka Teresaren eskutitzetan agertzen den lehen aldia da; 1889-1890 bitartean Zelinarekin izandako postazko harremanetan behin eta berriro agertzen da gai bera: "Prions pour les prêtres" (TG 94, 96, 101, 108, 122). Ik. CG, 496+g. orr.

Ene, nola asetzen den bihotza, zein arina sentitzen den!...

Jesusen Belloni¹ txikia, erregutu hondar-ale gaixoaren alde. Hondar-alea beti bere lekuan egon dadila, hau da, guztien oinpean. Inork ez dezala hondar aleaz pentsa, beste hitz batzuetan esanda, haren izatea ahaztua izan dadila... Hondar-aleak ez du *lotsarazia* izan nahi, lotsarazteko norbait hartaz kargutu beharko litzateke eta hori ere aintzagarrigia bailitzateke. Gauzatxo bat nahi du bakarrik: AHAZTUA izatea, beraz, *ezertarako* ez kontatzea²!... *Jesusek ikus* dezan nahi du, ordea. Gizakien begiradak hondar-alearen gain jaisten ez baldin badira ere, Jesusen aurpegi odoleztatua³ gutxienez haren ganantz zuzen dadila!... Ez du begirada bat baizik nahi, begirada bat bakarrik!...

Ahal baldin balitz hondar-ale batek Jesus poztea eta Jesusen malkoak xukatzea⁴, balegoke bat lan hori gustura egingo lukeena!...

Sal 30,21

Har dezala Jesusek hondar-ale gaixoa eta ezkuta dezala bere aurpegi gurgurrian... Han atomo gaixoak ez du deusen beldurrik izango, *gehiago bekatu*rik ez egiteko ziurtasuna izango luke!...

Hondar-aleak, gauza ororen gainetik arimak salbatzea nahi du... Jesusek grazia hau eskaini behar dio; Beronika, eska iezaiozu grazia hau Jesusen aurpegi *argitsuari*!... Bai, Jesusen aurpegia *argitsua* da, baina zauri eta malko artean hain aurpegi ederra baldin badu, zer izango ote da zeruan ikusten dugunean? Oi, zerua... zerua! Bai, egunen batez Jesusen aurpegia ikusi ahal izateko, Jesusen edertasun paregabea betiko bizitzan ikusteko, hondar-ale gaixoak lurtean mespretxatua izatea nahi du...

Bildots maitea, eska iezaiozu Jesusi hondar-aleak denbora gutxian arima asko salba ditzan, *bere aurpegi* maitearengantz lehenago joan dadin!...

Ap 21,25

Sufritzen nago!... Baina erreinuaren itzaropenak adoretu egiten nau, laster zeruan izango gara... Han ez da ez gaurik ez egunik, Jesusen aurpegiak paregabeo argia eskainiko du...

Bildots maitea, uler ezazu hondar-alea; ez daki gaur gaez zer esan duen, seguraski ez zuen zirriboratu duen hitz bat bera ere idazteko asmorik...

TG 96

1889-X-15

Zelinari

J.M.J.T.

Jesus †

1889ko urriak 15

Neure Zelina maitea:

Ez dakizu ondo nola hunkitu duzun zure Teresaren bihotza!...

Zure lorontziak¹ MAITAGARRIAK dira benetan. ASKO GUSTATU zaizkit!... Zelina... zure gutunak atsegin handi-handia egin dit. Gure arimak elkar ulertzeko eta

¹ Ben-Oni-ren deformazioa, ik. Has 35, 18.

² *Kristoren Antz Bidea* 1, 2, 3. Ik. A Esk, 71^a.

³ Ik. Teresak Zelinari bere festa-egunean emango dion estanpa (TG 98).

⁴ Ik. TG 94 eta 98; A Esk, 71^a.

¹ Jesus Haurren irudiarentzako lorontzia.

bide bera jarraitzeko eginak daudela ulertu dut... Bizitza... Egia da, guretzat bizitza ez da jadanik erakargarria!... Baina oker nabil: egia esan, munduaren erakargarritasunak bere horretan aienatu dira eta guzti hori kea da guretzat... baina *errealitatea* geratzen zaigu... Bai, bizitza altxorra da... Une bakoitza *eternitatea* da, gozamenezko *eternitatea* zerurako². Betiko bizitzan... Jainkoa *aurrez-aurre* ikustea³ ... gauza bat bakarria izatea berarekin!... Jesus baizik ez *dago*, *ez dago* beste ezer... Maita dezagun, beraz, zoramenerarte, arimak salba diezazkiogun.

1 Ko 13,12

Ene Zelina! Jesusek arimak eta batez ere apaizen arimak emanek bere egarria asetzeko eskatzen digula somatzen dut. Jesusek hau guztiau zuri esateko eskatzen didala somatzen dut, gure helburua geure burua *ahaztea* eta ezereztatzea baita... Hain gara deusa!... Hala ere, Jesusek *arimen* salbamena geure esku egon dadin nahi du, geure sakrifizio eta maitasunaren menpe. Jesus arima eske datorkigu... Ene ba, uler dezagun bere *begirada*! Hain dira gutxi *begirada* hori ulertzen dakitenak... Jesusek grazia aipagarri bat eskaintzen digu, berak irakatsiko eta azalduko digularik *argi ostendua*.

Zelina... bizitza laburra izango da... betiko bizitza, ostera, amaierarik gabea... Gure bizitza izan dadila sakrifizio etengabe bat, Jesus pozteko maitasunezko martiritza. Jesusek ez du *begirada* edo hasperen bat baizik nahi; baina *beretzat bakarrik* izango den *begirada* eta *hasperena*!... Gure bizitzako une guztiak *beretzat bakarrik* izan daitezela. Gizakiak gure aldamenetik pasatzean, ez diezagutela ikutu baizik egin...

Gauetz, *behin bakarrik* etorriko den gau honetan, gauza bat egin behar da bakarrik: maitatu, gure bihotzeko indar guztiz Jesus maitatu eta arimak salbatu *maitatua* izan dadin... Ene, Jesus maitarazi!

Zelina, zein erraz hitz egiten dudan zurekin!... Neure arimari hitz egitea bezalako da... Zelina, zuri den-dena esan diezazukedala iruditzen zait...

(Eskerrik asko berriro zure lorontzi *politengatik*; Jesustxo alai ikusten da hain ongi apaindua).

Ahizpa Teresa Jesus Haurrena [eta] Aurpegi Santuarena
nobiz. karm. apal.

TG 97

Guérin andreari

1889-X-15

J.M.J.T.

Jesus †

1889ko urriak 15

Neure izeba maitea:

Ez nuke jakingo esaten zenbat hunkitu nauten zure gauza gozoek!... Nire zaindari santuari zera eskatzen diot, zu eta osaba dohainez bete zaitzatela. Eman esker-rrak nire orde zure ahizpatxo Joana eta Maria maiteei, bidali dizkidaten lore-sorta *politengatik* eta mahats gozoengatik.

² P. d'Argentan, op. cit., t. II, 13. orr.

³ Ik. CG I, 505+c. orr.

Gutuna idazten nagoela beste opari bat jaso dut: Jesustxorentzat landare bikain bi... Egia esan, gehiegi ase, gainezkatua sentitzen naiz, zalantzak izango nituzke opari hauek guztiak Jesus Haurraren aldarea apaintzeko ez balira. Jesus da zalantzarik gabe, nire ahaide maiteekin dudan zorra ordaintzeaz arduratzen dena. Ez dakit Teresa Jesusenari opari bitxi hauek egiten dizkionaren izena, eta izeba maitea, zuk ezagutzen baldin baduzu, nire eskerrona helaraz diezaiozun eskatzen dizut.

Ene izeba maitea, ez dakizu nola eskatzen diodan gaur santa Teresari, gugatik egiten duzunaren bateko ehun zuri itzul diezazun! Zelinak bere zorion-gutunean zure Zelinarenganako ontasunaz hitz egiten dit; hunkitu egiten naiz, baina ez naiz harritzen, ondotxo ezagutzen baitut gureganako zure ama-*sentiberatasuna*.

Nire izeba maitea, zuri kontatzea nahi izango nukeen kontu gozoz beteta daukat bihotza, baina hementxe utzi beharrean aurkitzen natzaizu bezperetara joan behar dut eta.

Neure musurik ederrena bidaltzen dizut, baita nire osaba eta lau ahizpatxoei¹ ere.

Zure alabatxoa eskerronez,

Ahizpa Teresa Jesus Haurrarena
nobiz. karm. apal.

TG 98

1889-X-22

Zelinari

J.M.J.T.

Jesus †

Karmelen, 1889ko urriak 22

Neure Zelina maitea:

Ez dakizu ongi nolako tristura sentitzen dudan Zelina bere santu-egunean, 21ean, ez nuela zoriondu pentsatzen dudanean!... Zelinak bere Teresaren bihotzaz zalantza egin ote du?...

Aspalditik zeukan Teresak buruan egun maite hori, baina Karmelgo bizitza hain da eremutarra, non bakarti gaixoak sekula ez baitaki zein egunetan bizi den.

Zelina, ahazte honek bihotza ukitu dit baina begira, uste dut Jesusek urte honetan gure santu-eguna egun berean izan dadin nahi izan duela. Ez al da gaur, bada, santa Teresaren zortziurrena? Bai Zelina, santa Teresa zure zaindaria ere bada, haren alaba maitea baitzara jadanik...

Gaur sentitzen dudan nahigabea Jesusek ezarria bezala ulertzen dut. Jesusek atsegin baitu gure bizitzan nahigabe txikiak ereitea...

¹ Leonia eta Zelina ahizpei eta Guérin lehengusinei.

Gure Amak aspaldidanik oparitu zidan Aurpegi santuaren estanpa ederra bidaltzen dizut. Uste dut Maria Aurpegi santuarenarentzat¹ egokia dela eta ezin dudala neuretzat gorde. Aspaldidanik erabaki nuen neure Zelinari ematea, Zelina neureari... Maria Aurpegi santuarena, bere bihotzeko *bakarra* den Jesusen malkoak eta odola xukatzen dituen beste Beronika bat izan dadila. Arimak, eta batez ere *maite* dituen arimak² irabaz diezazkiola, soldaduei aurre egin diezaiela, hau da, munduari, Jesusenganaino iristeko... Ene! Zein zoriontsu izango den senargai zerutiarraren egarria aseko duen edari *misteriotsua* aintzatan aurkituko duenean eta lehen lehorrak zeuden ezpainak, *maitasunari* bakarrik dagokion hitz *bakar* eta *betierekoa* esateko irekitzen direla ikustean, amaierarik izango ez duen *eskerrik asko* esateko!...

Laster arte, Beronikatxo maitea; bihar gure Maiteak sakrifizio berri bat eskatuko du seguraski, bere egarria arinduko duen zer bait, baina zer axola? Hil gaitezen berarekin!

Jn 11,16

Zorionak, Zelina maitea...

Zure ahizpatxo gaixoa

Teresa Jesus Haurrarena [eta] Aurpegi Santuarena
nobiz. karm. apal.

Ez ahaztu, Zelina³, lore txikitxo bat hartzeaz, neure bihotza baita eskaintzen dizuna...

TG 99

1889-XI-18

Guérin andreari

J.M.J.T.

Jesus!...

Karmelen, 89ko azaroak 18

Neure izebatxo maitea:

Denbora nola pasatzen den... Bi urte dira dagoeneko Erromatik zure festa-eguna¹ zela eta zoriontzen zintudala, eta atzo izan zela iruditzen zait.

Urte bi hauetan gauza asko gertatu dira. Jainkoak grazia handiak eskaini dizkit... Gurutzea zaman duela gu ikustera etorri da eta era berean, gure izeba maitearen bihotzean utzi duen samurtasunaz hitz egin digu...

¹ Teresak Zelinari berez jarririko izena. Ik. TG 149, 174 eta 183; Otoi. 12, infra, 1.zenb.

² Apaizen arimak.

³ Urrian loratzen den izartxoa. Ik. TG 124 eta 132.

¹ TG 32.

Zenbat oroitzapen dakarkizkidan azaroaren 19ko egun honek!... Bai poza sentitzen nuela egun hau hurbilduz zihoan heinean!... Eta betiko alaitasun honekin azalduko diot neure izeba maiteari bere alde egin ditudan egintza guztien berri. Gaizki diot: ez dut denbora alferrik emango egintza horiek bana-banaka kontatzen, liburuki handi bat ere ez litzatekeela nahiko uste baitut...

Jakingo bazenu, ene izebatxo maitea, zure alabak zenbat erregutuko duen bere izebaren alde zure festa-egunean! Ene! Egia esan, nire otoitzek ez dute balio handiegirik, akatsez beterik baitaude; baina eskaleek ere behin eta berriz eskatzearen indarrez nahi dutena lortzen duten era berean, nik ere berdin egingo dut eta Jainkoak ezingo nau esku hutsik agurtu...

Lk 11, 5-8

Laurak dira eta hementxe utzi behar zaitut, izeba maitea, baina benetan diotuz, nire bihotza zurearengandik hurbil-hurbil dagoela.

Fournet² andrea agurtzeko erregutzen dizut, mesedez, ez baituh ahaztu gaur bere santu-eguna dela. Esan beharrik ez dago, bihotzez besarkatzen ditudala nire osaba eta ahizpatxo maiteak.

Zuri, izeba maitea, zeure zazpi *alabetatik txikienaren* musurik ederrena igortzen dizut.

Ahizpa Teresa Jesus Haurrarena
nobiz. karm. apal.

TG 100

1889-XII-30

Guérin jaun-andreei

J.M.J.T.

Jesus †

1889ko abenduak 30

Neure osaba-izeba maiteak:

Zuen seinak urteberri zoriontsua opa dizue. Egunak bere azken ordua duen bezala, urteak ere badauka bere azken gaua. Eta aurtengo urtearen azken gau honetan iraganari eta etorkizunari begirada bat eskaini behar izen diet. Iragan den denborari dagokionez, Jainkoari eskerrak damaizkiot, haren eskuak kaliza mingotsa eskaini badigu ere, bere bihotzak proba horiek jasanarazi eta kaliza mingots horren eduki osoa edateko indarra eman baitigu... Zer gordetzen ote digu urte berrirako? Ez dagokit niri misterio honetaz mintzatzea, baina Jainkoari neure ahaide maiteak ehun aldiz saritzeko erregutzen diot, gureganako duten eskuzabaltasun hunkigarri-gatik!...

Mt 20, 22-23

Urteko lehenengo eguna niretzat oroitzapen mundu bat da... Oraindik aitak nola laztantzen gintuen ikus dezaket... Zein ona zen!... Baina zertarako gogorarazi

² Guérin andrearen ama.

oroitzapen horiek? Aita maite horrek jaso du dagoeneko bere bertuteei zegokien saria. Jainkoak aitaren duintasunari dagokion proba bidali dio.

Bederatziak jo dute, eta eskutitza bukatu beharrean nago, esan behar nuen ezer esan gabe..., baina uste dut nire ahaide maiteek barkatuko diotela beren Teresatxori eta batez ere, irakurtezina den *idazkera* honegatik ere *barkatuko* diotela...

Urteberri on bat nire ahizpatxo maiteei!... Eta Maria ahalbait lasterren senda dadila. Haserretu egingo naiz Mariarekin **GRIPEAK** gu bisitatzera etortzea eragozten badiol!...

Agur, ene osaba-izeba maiteak, zuen alabatxoak *urte berri zorionsua* opa dizue eta bihotz-bihotzez besarkatzen zaituzte.

Ahizpa Teresa Jesus Haurrarena
nobiz. karm. apal.

TG 101

1889-XII-31

Zelinari

J.M.J.T.

Jesus †

89ko abenduak 31

Neure Zelina maitea:

Zeuretzat aurtengo nire azken agurra!... Ordu batzuk barru, urte hau betiko atzean utziko dugu... betiereko bizitzan sartuko da!...

Nire Zelina ohetxoan¹ dagoenez gero, neuri dagokit haren bila joan eta *urteberri zorionsua* opatzea...

Gogoratzen al zara igarotako uneez?... Igaro berri dugun urtea ona izan da; bai, ederra izan da benetan zeruarentzat eta urte berria ere berdintsua izango al da...

Zelina, ez nau batere harritzen urte honen amaieran zu ohean aurkitzeak, horrelako *egun* baten baten ondoren, badago zergatik atsedean hartu!... Ulertzen al duzu?... Beharbada, orain hasiko dugun urte berri hau azkena izango da!... Ene! Aprobetxa dezagun, aprobetxa ditzagun momentu motzenak ere, zekenen antzera joka dezagun... eta geure Maiteari dagokionez, izan gaitezen jeloskor gauzarik txikiengatik bada ere!...

Aurten, urte zahar egun tristea daukagu... Bihotza oroitzapenez beterik, gauerdiaren zain erne egon nahi dut... Orain gogoratzen dut dena... umezurtzak² gara, baina maitasunez zera esan dezakegu: "Gure aita zeruetan zarana"³. Bai, oraindik gure arimen osotasun bakarra geratzen zaigu!...

Mt 6.9

¹ Teresak maitinen ondoren idazten du, gaueko hamaiak eta hamabiak bitartean, urteberri eguneko bezperan karmeldarrek sagrarioaren aurrean zutik igarotzen zuten beilaldiaren aurretik.

² Ez dago ia-ia harremanik Martin jauna eta honen alaben artean, burua gaizki samar duelako.

³ Ik. Th. Durnerin-en "Prière à Jésus Prêtre et Hostie" (CG, 516.orr. h.); ikus baita 2 DSA, 7^a eta Otoi. 8.

Urte bat gehiago igaro da!... Zelina! Igaro da, igaro da, eta ez da berriz itzuli-ko; urte hau igaro den bezalaxe igaroko da gure bizitza ere eta laster zera esango dugu: "Joan da". Ez dezagun denborarik galdu, betiko bizitzak laster dirdir egingo du guretzat... Zelina, nahi baldin baduzu, arimak Jainkoagana bihur ditzagun. Aurren Jesus maitatzen dakiten *apaiz* asko sortu behar ditugu, Mariak Jesus sehaskan zegoenean *ukitzen* zuen *samurtasunez ukituko* dutenak.

Zure ahizpatxo Teresa Jesus Haurrarena [eta] Aurpegi Santuarena
nobiz. karm. apal.

Lolo⁴ -ri ere urteberri zorionsua opa diot, baina uste dut ikusiko dudala... Eskerrik beroenak nire osaba-izebei, esaiezu beren opari guztiek hunkitu nautela. Eskerrik asko Joana eta Mariari ere, maitagarriak dira zinez.

TG 102

1890-IV-27

Zelinari

J.M.J.T.

Jesus †

Neure Zelina maitea:

Zure 21. *urtebetetze* egunean eskutitz luze bat idatziko nizulako poza nuen arren, ez dut unetxo bat besterik!... Zelina, zure Teresak *apirilak 28ko* eguna ahaztuko zuela uste al zenuen?... Zelina, nire bihotza oroitzapenez beterik dago... duela ehundaka urte maitatzen zaitudala iruditzen zait eta hala ere, oraindik ez dira 21 urte besterik... Baina orain, betiko bizitza daukat aurretik...

Zelina, nire bihotzeko lirak zeuretzako abestuko du 28an, eta zure izenak oihartzun egingo du Jesusen belarrietan!... Ai, eta biok bihotz BERA dugunez gero, eman diezaiozun oso-osorik Jesusi! *Batera* joan beharra daukagu, Jesus ezin baita *bihotzaren erdika* batean bizi!... Zeure Teresa atzean ez geratzea eska ezazu...

Aurpegi santua-ren irudia¹ ikustean begiak malkoz bete zitzaizkidan; ez al da bera gure familiaren ikurra? Bai, gure familia *lili-sorta* bat da, eta "*izenik gabeko lilia*"² erdian dago, erregearen antzera, eta bere erregetzaren ohoreen partaide egi-

⁴ Leonia

¹ Zelinaren eskariz ahizpa Ainesek pergaminon irudikatutako miniatura: bederatzi lili dituen adar batek eutsitako Beronika-ren estalkia.

² Jesus.

ten gaitu. Jesusen odolak gure lore-hostoak ihinzatzen ditu eta haren arantzek zauzitzen gaituztenean, gure maitasunaren usain gozoa hartzen uzten du.

Agur Zelina, gure solasalditxo eta etetera datozkit. Uler ezazu *gainerakoa*.

Teresa

TG 103

1890-V-4 (?)

Ahizpa Aines Jesusenari

J.M.J.T.

Jesus †

Bildots maitea, nire bihotza lagun du bakartadean¹; "*hegatxabal* arina", zangotxoan haria loturik duzunez gero, etengabe gorantz eta gorantz egiten baduzu ere, nire bihotzaren zama jasan beharko duzu. Baina hondar-aleak ez du pisurik eta gainera, are eta arinagoa izango da Jesusi hala eskatzen baldin badiozu... Ene ba! Hondar-aleak ezerezero bihurtua izan nahi du, gizakientzat ezezaguna izatea! Gaixoak ez du jadanik ezer nahi, *AHAZTEA*² baizik ez!... Mesprezua ezezik, irainak ere nahi ditu... bestela, aintzatsuegia bailitzateke hondar-alearentzat. Gutxietsia ez balitz, igarri egingo litzateke.

Baina *AHAZTURA!*... Bai, ahaztua izan nahi dut eta ez dut nahi gizakiek bakarrik ni ahaztea, nik neuk ere *neure burua* ahaztea nahi dut. Ezer irrikatu ahal izateko baino ezerezagora bihurtua izan nahi nuke... Neure Jesusen aintza, horra hor dena! Neure aintzari dagokionez, Jesusi eskaintzen diot eta ahaztu egiten nauela badirudi, ongi dago, berak ahantz nazake, ni ez bainaiz neurea, harena baizik... Lehenago nekatuko da bera niri zain egonazaten, ni haren zain³ egoten baino!...

Bildots maitea, ulertzen al duzu?... Ulertu guztia, baita nire bihotzak azaldu ezin duena ere. Zeu zara erbesteko bide ilunetan zehar gidatzeko Jesusek eman didan zuzia. Nire ahuldadearen erruki izan dezazula, ezkuta nazazula zure estalkipean⁴, zure argiaren partaide egin nazazun... Esaiozu Jesusi niri *begiratzeko* eta sar daitezela "*gau-loreak*" beren izpi argiekin hondar-alearen bihotzean; eta gehiegi eskatzea ez baldin bada, eskatu baita "loreen arteko loreak" ireki dezala bere lore-hostoa eta lore-hosto horretatik ateratzen den soinu melodiazkoak dardar eragin dezatela nire bihotzean haren erakutsi misterioitsuak direla medio... Bildots maitea, ez dezazula hondar-alea ahaztu!...

¹ Ahizpa Aines, maiatzaren lehenengoaz geroztik, bakarraldian dago hamar egunez.

² Ik. TG 95 eta Otoi. 2.

³ Teresaren profesaren atzeratzeari buruzko aipamena.

⁴ Ik. TG 56, l.zcnb.

TG 104

Ahizpa Aines Jesusenari (zatiak¹)

1890-V-5/6 (?)

J.M.J.T.

Eskerrik asko eskutitzagatik² ... Bai, eskerrik asko...

Ez nau bat ere harritzen zuk poztasunik ez izateak, Jesusek hain du poztasun gutxi, non poztu egiten baita kunplimendu beharrik gabe atsedean har dezakeen ari-maren bat aurkitzen duenean...

Harro nago zure ahizpa izateaz! Eta baita zure alabatxoa izateaz ere, zeu izan baitzinen Jesus maitatzen eta Jesus baizik beste ezer ez bilatzen irakatsi zidana!...

(...) eta gainerako gizakiak arbuiatzen...

Zelinari buruz, nik ez dakit zuk baino gehiago; gutxiago dakidala esango nuke gainera, ez bainekien sufritzen³ zegoenik ere (...) aspergarria, lehenengo Zelinak bere aitaxo gaixoaz hitz egin zigun eta zera azpimarratu zuen

(...)

Zelinak (...) Joanaz. Leoniaren alde otoitz egiteko ere eskatu zigun bere gaixotasunak⁴ asko sufriarazten diolako; nik uste osabak Leoniaren gaixotasuna arrisku-tsua somatzen duela, inguru guztia handituta baitauka.

Zelinak bere aitaxo maiteari buruz hitz egin zigun, eta zera azpimarratu zuen, larunbata izan zela Gurutze Santua asmatu eta guk ere geure gurutzea aurkitu genueneko eguna! Leonia hantxe zegoen. Aurpegi santuaren⁵ edo Lourdes-en sendatzeko itxaropena du. Igerilekura jaitsiko da. Leonia gaixoa, ona da benetan gero... Zelinari atsegina egitearren mintzatokira etorri gabe geratzeko prest zegoen... Bezperak jo zituztenez gero, alde egin nuen. Ez dakit noiz iritsiko diren Tours-era baina

¹ Gutuntxo honen autografoaren aztarnak baizik ez dira geratzen. Gainerako testua, "Copie du Procès des Ecrits" delakoaren 1948ko argitalpenari esker osatu da; ik. CG, 529. orr., a, d, e eta h notak.

² Hona hemen gutuntxo honen testu osoa: "Nire hondar-aletxo maitea, ez ezazu esan ni zure zuziria naizenik! Ene! Ez duzu ilunbea ongi ezagutzen!... Otoitz egizu nire alde, ez nago kezkatuta baina ilunbean ez dago tximista bat bera ere! Ekaitzik eta oinaztargirik gabeko zerua bezalakoa da, baina hodeiz estalia... Izar bat bera ere ez! Ba al dakizu zer den izarrik gabeko zerua!

Aita Faber-en Gurutzearen oinetan zera irakurri dut: Nekaldi-gaucan Gure Jauna etsaiek oso gaizki erabili zutela, eta jaso behar izan zituen aurpegiendokoak hain bortitzak izanik, egun argiak sortzen zion minez begiak ezin irekita gelditu zela... Hondar-aletxoa, xehetasun garratz honetan nik poz bat aurkitu dut: Jesusi bere begi zaurituan edozer gauza distiragarrik min egingo eta sufriaraziko dionez gero, gehiegi sufritu gabe ibili ahal izango du nire ilunbean... Hondar-aletxo maitea, nigandik oso hurbil zaude, eta oi! gogora dezagun biok lurtean ez dagoela sufrimendua besterik, sufritzen dagoen Jesusen Aurpegi gozoa maitatzen eta bilatzen duguontzat... Ez gaitezen bihotzean hain maitasun ederraz gozatzeko beldur izan!...

Baina, ene Jainkoa! Zein gozoa izango den Erreinua borroka eta negar-malkozko erbeste honen ondoren! Hura zoriona itxaroten duguna! Hau itxarotea! Betiereko bizitza honen Ikuspegia mundu honetako zuzirien bidez baizik, Bildots Zerutiarraren bidez ikustea!

Emaidazu Zelinaren berri. Gure Amak hainbeste sufritzen duela dio! Eta bidaiako ibilbidea. Zein da Lourdes-era iristeko eguna? Aurpegi santua ez al da bihar?" (ahizpa Ainesek, LC 127, 5/5/1890).

³ Zeliñak bihotz-arazoak ditu.

⁴ Leoniak haurtarotik duen ekzema.

⁵ Tours-eko Aurpegi Santuaren Otoitzegian.

datorren astean uste dut Lourdes-en izango direla. Astelehen edo astearte goizez idatzi behar da, gutuna larunbatean irits dakien.

Ene, erbeste hutsa da lurra!... Ez dago inolako euskarririk Jesusengandik at, bera baita *aldatzen ez den* bakarra. Hau zoriona ezin dela aldatu pentsatzea!... Eta hura poza gure bihotz gaixoarentzat gure familiatxoak Jesus samurtasunez maite duela jakitea!... Ideia horixe da nire poza... Gure familia ez al da birjinala, ez al da lili⁶ artekoa?... Eskatu Jesusi, familiako gazteena, azkena, ez dadila izan *azkena* Jesus maitatzen bera maitatzeko ahalmen guztiekin!...

TG 105

1890-V-10

Zelinari

J.M.J.T.

Jesus †

Neure Zelina maitea:

Pozik al zaude zeure bidaiatz?... Ama Birjinak graziaz bete zaitzala itxaroten dut; kontsolamenduzko grazia ez badira, argi-grazia izan daitezela!... Eta Aurpegi santua!¹ ... Zelina, ba al dakizu grazia garrantzitsua dela leku bedeinkatu guztiak bisitatzea?... Nire bihotzak leku guztietan barrena zure atzetik ibili nahi luke, baina ez dut bidaiaren ibilbidea ezagutzen. Lourdesera ere datorren asterarte ez zinetela iristen uste nuen.

Zelina, pozik egon behar duzu izadi ederra, mendiak eta ibai ertz zilarrezta- tuak ikustean... Hori guztiori hain da handia, eta hain ongi egina gure arimak gorat- zeko... Ene, ahizpatxo, utz dezagun lurra eta hegan joan gaitzen maitasunaren mendira, gure arimen Lili ederra aurkitzen den lekura! Aska gaitzen baita Jesusen *kontsolamenduetatik* eta lot gatzazkion *berari*!...

Eta Ama Birjina? Ene Zelina, ezkuta zaitetz bere birjin-mantuaren itzalpean, zu zeu ere birjina bilaka zaitzan... Birjintasuna hain da gauza ederra, hain zuria! Zorione- koak bihotzez garbiak direnak, hauek Jainkoa ezagutuko baitute. Bai, ezer garbirik ez dagoen lurtean bertan ezagutuko dute Jainkoa, han lilirik ederren eta zurienaren aur- pegiaren² bidez aztertuak direnean, sorkari guztiak garbi bilakatzen direlarik!...

Zelina, *bihotz garbiak* arantzaz inguraturik eta askotan ilunpean egon ohi dira; orduan, liliek beren zuritasuna galdu uste dute, inguruan dituzten arantzek lore-hos- toa urratu dietela pentsatzean... Ulertzen duzu, Zelina?... Arantza arteko liliak ditu begikoen Jesussek, arantza artean aurkitzen baitu atsegina...: zorionekoa, tentaldia sufritzeko *duin* izendatua!

Teresa Jesus Haurrarena [eta] Aurpegi Santuarena
nobiz. karm. apal.

⁶ Ik. TG 102, i.zenb; A Esk, 3ⁱ /4^a.

¹ Tours-en.

² Aipatutako estanpari buruz ari da TG 102an

Mt 5,8

Kt 2,16

St 1,12

Neure Leonia maiteari idaztea nahi izango nuen, baina ezinezkoa zait astirik ezagatik. Esaiozu zenbat erregutzen dudan bere alde eta zenbat pentsatzen dudan neure amabitxi maitearengan³. Maritxori ere idazteko asmoa nuen, baina ezin dut. Askotan otoitz egiten diot Ama Birjinari Maritxo *lili txikitxo* bat bihur dezan, Jesusengan pentsa dezan eta bere zorigaitz guztiekin obedientziaren eskuetan *jar dadin*!⁴ Ez dut ahazten Joana...

Ez dugu ezer jaso Kanadatik⁵. Ahizpa Ainesek ezin du idatzi bakarraldian dagoelako. Gure Amarentzat oraindik *ezer ez baduzu erosi*, lau edo bost liberako *pintatu gabeko* Lourdes-eko Ama Birjinaren bat ekar diezaiokezu.

TG 106**Ahizpa Aines Jesusenari**

1890-V-10

J.M.J.T.

Jesus †

Ir 17, 9-13

Bildots maitea, egun bat¹ barru berriro zelaian borroka egingo duzu!... Arkume gaixoak, azkenik, bere *ama* aurkitu ahal izango du... Ai, zein pozik nagoen betiko Karmelen *preso* izateaz²! Ez dut Lourdes-era joateko gogorik, extasia³ bada helburu. Nahiago dut sakrifizioaren monotonia! Ai, zein zoriona hain izkutuan egotea, inork ere niregan ez pentsatzea!... nirekin batera bizi direnentzat ere *ezezaguna* izatea!...

Bildots maitea, bihotzez eskertzen diot Jesusi *zure eskuetan jarri* nauelako, nire arima hain ongi ulertarazi dizulako!... Ezin dizut pentsatzen dudan guztia azaldu... Ene, ZERUA!!!... Han, begirada bakar bat, eta dena egongo da esanda, ulertuta!...

Isiltasuna, hona hemen nire ariman gertatzen den guztia adieraz diezazukeen hizkuntza bakarra!...

TG 107**Zelinari**

1890-V-19/20

J.M.J.T.

Jesus †

90ko maiatza

Neure Zelinatxo maitea:

Honako mandatu hau emateko eskatu didate: Pentekosteko bakarraldian ez etortzeko, arren, aitari buruzko berririk ematera. Oso atsegina litzateke zeure

³ Sendotzako amabitxi.⁴ Esaldi hau Maria Guérin-en eskrupuluei dagokie. Ik. TG 92 eta 93.⁵ Aita Pichon-en berri.-----
¹ Ahizpa Aines maiatzaren 12ko goizean ateratzen da bakarralditik.² Ik. A Esk, 58^a, 67^a, 81ⁱ; 18, 32. TO; TG 201; Otoi. 17.³ Zelinak Lourdes-en jasotako kontsolamenduei egiten zaien aipamena.

aldetik gutuntxo bat idatziko bazenigu eta gero astelehenean¹ etorriko bazina bisitan.

Zelina maitea, asko pozten nau zuri mandatu hau ematea eskatu izanak, horrela, Jainkoak maite zaituela eta hautatu gisa zaintzen zaituela uste dudala esan diezazuket... Bai, ozenki esan dezakezu zeure *zeruetako ordaina handia* izango dela, zera esaten baita: “Zorionekoak *aurrean erabiliak* bazarete eta zuen aurkako era guztitako *gezur beltzak* jasan behar badituzue!”. Beraz, alaitu eta pozez bete zaitetz!...

Mt. 11-12

Zelina, nolako pribilejioa lurrean gutxietsia izatea!... Ene, Jainkoaren pentsamenduak ez dira gure pentsamenduak! Hala balira, gure bizitza eskerroneko gorespen-kanta baizik ez litzateke!...

Is 55,8

Zelina, Santa Teresak zuk baino grazia handiagoak jaso zituela uste al duzu?... Nik ez dizut esango Santa Teresaren santutasun *serafikoari* begiratzeko, perfektiora jotzeko zure zeruetako Aita perfektu denez baizik². Ene Zelina, gure *amaierarik gabeko irrikak*³ ez dira ametsak, ezta irudipenak ere, Jesusek berak ezarri zigun *agindua* baizik!⁴...

Mt 5,48

Zelina, ez al zaizu iruditzen lurrean jadanik ez zaigula *deus* gelditzen? Jesusek bere kaliza amaierararte edanarazi nahi digu, gure aita maitea han *behean* utziz. Ene, ez diezaiogun ezer uka! *Maitasun behar* bizia du, egarri da, eta freskatuko duen ur-tanta guk eskain diezaiogun nahi du!... Ene ba, eman diezaiogun neurririk gabe! Egunen batez zera esango du: “Orain niri dagokit, neure txanda da!”⁵.

Mt 20, 22-23

Eman eskerrak nire Maritxo maiteari bere lore-sorta atseginagatik; esaiozu, haren izenean Jesusi eskaini diodala eta sari gisa, lore-sortan zeuden arrosa adina bertutez haren arima apaintzeko eskatu diodala.

Zure ahizpatxoa, Teresa Jesus Haurrarena [eta] Aurpegi Santuarena
nobiz. karm. apal.

TG 108

Zelinari

1890-VII-18

J.M.J.T.

Jesus!...

Karmelen, 1890ko uztailak 18

Zelina maitea:

Ez dakizu ongi zure gutunak zer esan nahi duen nire arimarentzat!... Ene, pozez blai neukan bihotza, itsaso zabalak harrapatua bezala!... Zelina, esan behar

¹ Maiatzak 26.² Ik. *Kristoren Antz Bidea* I, 17, “Réflexions”.³ Ik. 2. DSA, 6^o; Otoi. 6.⁴ Ik. CG, 533. orr. h.⁵ Ik. TG 57, 5.zenb.

dizudan guztia jadanik ezaguna duzu, ni nerau baitzara zu... Nire arimari sakon-sakon hitz egin dion orria¹ bidaltzen dizut eta uste dut zu ere bertan murgilduko zarela...

Zelina, *zenbat denbora* dagoeneko!... Isaias profetaren arima ere gurearen antzera, Jesusen EZKUTUKO EDERTASUNEAN murgiltzen zen!... Ene, Zelina! Gauza hauek irakurtzen ditudanean denbora zer ote den galdetzen dut... Denbora ez da irudikeria, amets bat baizik... Jainkoak aintzaz beterik *ikusten gaitu* jadanik, eta gure betiko zoriona ATSEGIN DU!... Ene ba, zenbat pozten duen nire arima pentsamendu honek!... Orduan ulertzen dut Jainkoak zergatik ez duen gurekin trataturik egiten... Badaki guk Jainkoa *ulertzen* dugula eta bere lagunak baiginan tratatzen gaitu, bere emazte maiteenak baiginan...

Is 63,3 Zelina, Jesus bakar-bakarrik aritu zen guri eskaintzen digun ardoa zapaltzen eta, guk ez diezaioGUN odolez tindaturiko arropak janzteari muzin egin. Zapal dezagun Jesusen egarria aseko duen eta maitasunaren ordezt maitasuna itzuliko dion ardo berria. Eta ez dezagun gorde eskain ahal diezaiokegun ardoaren ttantta bat bera ere!... Horrela eginez, bere ingurura begiratzen duenean, lagundu nahian goazkiola ulertuko du!... Haren aurpegia ezkutusuan bezala zegoen!... Zelina, eta oraindik halaxe dago... beraz, nork ulertzen ditu Jesusen negar-malkoak?...

Is 63,5 Zelina maitea, bihur dezagun gure bihotza Jesusen babesa har dezakeen sagra-
Is 53,3 rio txiki. Orduan hurra poztu egingo da eta guk ahaztu ezin duguna ahaztuko du: "sagrario² bakarti batean bertan behera uzten duten arimen eskertxarra".

Kt 5,2 "Ireki iezadazu atea, ene ahizpa, ene emazte, nire aurpegia ihintzez eta nire ilea gauaren tantaz bustiak daude eta" (Kantarik Ederrena). Hona hemen zer dioskun Jesusek bertan behera utzia eta bakarrik denean!... *Ahaztea*, Zelina! Uste dut horixe dela gehien nahigabetzen duena!...

Aita!... Ene Zelina! Ezin dizut pentsatzen dudan guztia adierazi, luzeegia litzateke eta; gainera, nola konta niezazuke pentsamenduak berak ere itzuli ezin dituen sentimenduak, arimaren barne-lezeko sakontasunak?...

Jesusek bere neurrigabeko maitasunean hobekien aukera zezakeen gurutzea bidali digu... Nola kexa gintezke, beraz, Jesus bera Jainkoak zauritua eta lotsarazia izan baldin bada?... Jainko-Xarma³ horrek nire arima liluratu eta era zoragarri baten kontsolatzen du egunean zehar, uneoro. Ene! *Jesusen malkoak, a zelako irriñoak!*...

Is 53,4 Besarkada handi bat guztiei nire partez eta *esaiezu bururatzen zaizun guztia*... Askok gogoratzen naiz neure Leonia maiteaz, Bisitazioko⁴ neure maiteaz. Esaiozu

¹ Liburu santutik hartutako zatia, geroago aipatuko dena.

² Zelinak idatzi berri zuen: "Herenegun, elizatzko txiki batera joan ginen. Malkoek nire bihotza salatuko zutela pentsatu nuen, ezin eutsita egon bainintzen. Pentsa: pinturarrik gabeko sagraio bat, benetako zulo beltza, armiarmen habia, beharbada, kobrezkoa zirudien kopoi triste bat, eta zertarako estali? Kopoiaren estalki-forma galdua zuen trapu zikina... Kopoi horretan, ostia bakarra. Horra hor! Parrokia hartan ez zen besterik behar: Bazko egunez gain, jaunartze-egun bakarra urtean. Gero, inguruko mendietan, hainbat eta hainbat apaiz elizak egun osoz itxita izaten dituztenak. Gainerakoak, zaharrak eta baliabidegabeak dira.

"Ene, Teresa! Ikuskizun honen aurrean guztiz ezereztuta geratu nintzen eta nire bihotza zati-zati eginda". (CG 129, 17/7/1890).

³ Zelinak egindako olerkia.

⁴ Leoniak Bisitaziora itzuli nahi zuen, 1888ko urtarrilean utzi zuen sei hilabeteko erlijioso-bizitza egin ondoren.

Maria Sakramentu Santuenari⁵ Jesusek maitasun handia eskatzen diola eta jasotzen dituen hotsasun guztien ordaina nahi duela; eta haren bihotzakugar bat izan behar duela Jesusek bere burua hantxe berotu ahal izateko!... Mariak bere buruaz pentsatzeari utzi behar dio, Jesusengan baizik ez pentsatzeko...

Zelina, otoitz egin dezagun apaizen alde. Ene, erregu dezagun beraien alde! Geure bizitza eman diezaigun, Jesusek egunero sentiarazten baitit, horixe dela berak gutaz itxaroten duena.

Z.T.⁶

J.M.J.T.

Isaias profetarena (53. kap.)⁷

Is 53, 1-5

Nork sinetsi du gure hitzean eta nori agertu zaio Jaunaren besoaren indarra? Kristo Jaunaren aurrean zuhaixka baten antzera eta lurralde lehor bateko adaskaren antzera haziko da: edertasun eta distira gabea da; guk ikusi dugu; ez zuen gure begirada erakarriko zuen ezer eta ez dugu ezagutu. Gutxiesteko gauza iruditu zaigu, gizonetan azkena, mina baizik ez duen eta sufrimendua zer den dakien gizona!... Haren aurpegia ezkutaturik bezala zegoen!... Mesprezagaria zirudien eta ez dugu ezagutu. Gure ahuldurak beregan hartu eta gure atsekabez jabetu da. Legenarduntzat hartu dugu, Jainkoak zigortu eta apalalarazi duen gizon baten antzera!... Eta gure gaiztakeriagatik zauriz josi eta gure bidegabekeriengatik zigortu dute, ordea. Bakea ekarri behar zigun zigorra haren gain erori da eta gu sendatu egin haren bere ubeldurei esker.

53⁸ kap.aren jarraipena

Is 63, 1-3.5

Zein da Edom eta Bosra-tik gorriz tindaturiko soinekoaz datorrena?... Nor da soinekoaren edertasunaren ostetik distiratsu eta indar ahalguztidunez datorrena?... Neu naiz, nire hitza justiziazko hitza da; defendatzera eta salbatzera natorrena. Zergatik dago orduan zure soinekoa gorri-gorri, eta zergatik da dolarean ardoa zapaltzen dabilzanan antzeko? Nirekin batera zeudenek ez zutenez hala egiten, bakar-bakarrik aritu izan naizelako ardoa zapaltzen. Nire inguruan begiratu eta ez nuen lagunduko zidan inor aurkitu; bila ibili nintzen eta ez nuen laguntzarik jaso!...

⁵ Maria Guérin. Ik. TG 109. Egia esan, karmeldar izen hau aldatu eta "Maria Eukaristiarena" izango du gerora.

⁶ Zelina eta Teresaren inizialak.

⁷ Garizuman antolatutako "Gure Jaunaren Bost Zaurien Liturgia" eta "Andre Mariaren Doloretako Ofizioa" irakurgaien ondoko aipamena.

⁸ Is 63, 1-3.5, Bost Zaurien Ofizioko hirugarren ikakurgaitik harturik.

Ap 7, 13-15

Soineko zuriz jantzirik daudenak, nortzuk dira eta nondik datoz? *Atsekabe handitik* etorri eta beren soinekoa Bildotsaren odoletan garbitu dutenak dira. Horregatik daude Jainkoaren errege-aulki aurrean eta gau eta egun zerbitzatzen dute⁹...

Kt 1,12

Kt 5,10

Kt 7,5

Nire benetako maitea mirra sorta bat da eta nire bihotzean hartuko du atsenden!... Nire maiteak bere aurpegiko zuritasun eta distirari esker egiten du argi; haren adatsak errege- purpuraren antzekoak dira. Nire maitea guztiz maitagarria da, haren aurpegierak maitasuna iradokitzen du, eta haren *aurpegi* makurtuak maitasuna Maitasunaren truke¹⁰ ematera behartzen nau.

Han nago neugaz ahaztuta
Maiteagan dut etzan burua;
dena bare geldituta,
neure kezken istilua
lili artean utzita ahaztua.

(Gure Aita San Joan Gurutzekoaren kanta baten zatia¹¹)

TG 109

1890-VII-27/29

Maria Guérin-i

J.M.J.T.

Jesus †

Karmelen, 90ko uztaila

Neure Maritxo maitea:

Eskerrak emaitzuei Jainkoari eskaintzen dizkizun mesede guztiengatik eta ez zaitez mesede horiek ez aitortzeko bezain *eskertzarrekoa* izan. Errege ahaltsu batek ezkontza eskatu dion neskatxa apal baten itxura hartzen dizut. Neskatxa ez da ausartzen baietza ematera, ez dela aberatsa eta gorteko ohiturak ere ez dituela ezagutzen esanez. Neskatxa konturatzen ez dena zera da: bere senargaiak ondo baino hobeto ezagutzen dituela neskatxaren pobretasun eta ahuldadeak, neskatxak berak baino askoz hobeto... Maria, zu deus ez bazara ere, ez ahaztu Jesus *dena* dela; hori dela eta, zure deus izate txiki hori bere *mugagabetasunean* galdu behar-

⁹ Eskerak Odol Preziatuaren Ofizioko lehenengo hiru leloak aipatzen ditu.

¹⁰ Zazpi Oinazeen bezperetako 2. eta 4. leloen aipamena eta ospakizun bereko maitinen lehenengo erantzuna.

¹¹ "Gau iluna"ren 8. kanta. Teresa San Joan Gurutzekoari buruz aritzen den lehenengo aldia da; ik. CG, 543+r.orr.

ko duzu eta bakarrik maitagarria¹ den horretan pentsatu... Ez du zure ahaleginen fruitua ikusi beharrik; Jesusek hainbeste kontsolatzen duten ezerezkeria hauek beretzat bakarrik gordetzea atsegin du... Oker zabilta, ene maitea, zure Teresatxo bertutearen bidetik beti sutsu joan izan dela uste baduzu. Teresa ahula da, oso ahula, egunero izaten du bere ahuldadea frogatzen dion esperientziaren bat; baina Maria, Jesusek san Paulori bezala, gaixotasuna goستن erakusten dizu. Hau grazia oso handia da eta zuri ere erakuts diezazun eskatzen diot Jesusi, hortxe bakarrik aurkitzen baitira bihotzeko bakea eta atsedena. Zeure burua hain ezereza ikusten duzunean, zeure buruaz horrenbeste arduratzeari utzi eta zeure Maiteari bakarrik begiratzen diozu...

2 Ko 12,5

Nire Maritxo maitea, nik neuk ez dut ezagutzen perfekziora iristeko beste biderik, "maitasuna" izan ezik!... Maitatzea!... Zein ongi egina dagoen gure bihotza maitasunerako!... Batzuetan maitasuna adierazteko hitzen bila aritzen naiz, baina lurreko erbeste honetan hitzak indargabeak dira arimaren dardara guztiak adierazteko. Horregatik, hitz bakar honetara mugatu beharra dago: maitatzea!...

Baina nor gaineztatuko du maitasunez, maitasun gosez dagoen gure bihotz gaixoak?... Ene! Nor izango ote da hori egiteko gai?... Izaki bizidunek maitasun hori ulertu eta erantzuten jakingo al dute?... Maria, ez dago "maitatzea" hitzaren sakontasuna ulertzen duen izaki bat besterik... Ez dago Jesusez gain, guk eskaintzen dioguna mugagabe bihurtzen digun beste izakirik...

Maria Sakramentu Santuarena!... zeure izenak diotsu zein den zure eginbeharra: Jesus poztu, arimak *maitaraz* ditzan lortu... Jesus gaixorik² dago eta kontuan izan behar da maitasun-gaixotasuna maitasunez bakarrik sendatzen dela³... Maria, emaiouzu zeure bihotza Jesusi, Jesus egarri eta gose baita. Zure bihotza, horra hor berak nahi duena; zure bihotza lortzearren, gela ilun eta zikin⁴ batean geratzeak ere ez dio axola... Ene! Ez duzu, ba, maitatuko premia horretaraino makurtu den laguna? Nola ausartu berriro norbere pobretasunaz hitz egitera, Jesus bere emaztegaiaren antzeko egiten denean?... Aberatsa izanik txiro bihurtu zen, bere pobretasuna Maria Sakramentu Santuarenaren pobretasunarekin bat egiteko... Maitasunaren misterioa!...

2 Ko 8,9

Goraintziak Kolonia maiteari.

Nire bihotza Maria Sakramentu Santuarenarekin dago beti. Sagrarioa gure arima biak giltzaperatuta daudeneko maitasun-etxea da... Ez ezazu otoitzetan "mesedez" erregutzen dizun zure ahizpatxoahaztu.

Ahizpa Teresa Jesus Haurrena [eta] Aurpegi Santuarena
nobiz. karm. apal.

¹ "Dena... ezer ez": San Joan Gurutzekoak "*Karmel mendiko igoerea*"-n ageri duen dialektika.

² Ahizpa Jenofak zera gaineratu du: "maitasunez".

³ Ik. San Joan Gurutzekoa, *Kantu izpirituala*, XI. ahapaldia.

⁴ Ikus TG 108, 2.zenb.

TG 110

1890-VIII-30/31

Ahizpa Aines Jesusenari

J.M.J.T.

Jesus †

Amatxo nirea, eskerrik asko, eskerrik asko!... Ez dakizu ongi zenbat diotson zure gutunak nire arimari!...

Bakarti txikiak bere bidaiaren ibilbidea kontatu behar dizu. Hona hemen. Irten aurretik, Senargaiak ea zein herrialdetara eta zein bide jarraitu nahi ote zuen galde-tu ziola zirudien... Andregaitxoak zera erantzun zion, ez zuela *maitasunaren mendi*¹ tontorrera iristea beste nahirik. Mendi tontor hartara iristeko bide asko eskaintzen zitzaizkion, ordea, eta bide haien artean ezin hobekak ziruditenak hainbeste ziran-eta ez zekien zein hautatu. Orduan bere jainko-gidariari esan zion: "Berorrek badaki nora iritsi nahi dudan, badaki *norengatik* igo nahi dudan mendi tontorrera, norengatik heldu nahi dudan azkeneraino, badaki nor maite dudan eta nor poztu nahi dudan bakarrik. Beragatik bakarrik noa egitera bidaiaria hau, gida nazala, beraz, Jesusek ibiltzea gogoko duen bide-zidorretan zehar. Jesus poztea lortzen dudan bitartean, zorionez gainezka izango naiz".

Orduan Jesusek eskutik heldu eta ez hotzik eta ez berorik egiten ez zuen lurrazpi batera sartu ninduen, eguzkirik egiten ez zuen eta euririk ez haizerik hel-tzen ez zen tokira. Lurrazpi horretan ez nuen deus ikusten, argitasun erdi estaldu bat baizik, nire senargaiaren aurpegiko begi eroriek isurtzen zuten argitasuna...

Nire Senargaiak ez diosta ezer eta nik ere ez diotsat ezer; *neure burua baino maitaego dudala* bakarrik. Eta nire bihotzaren barrenean hau egia dela somatzen dut, areago bainaiz harena, neurea baino!... Ez dakust mendi tontorrera goazenik, gure bidaiaria lurrazpian egitekoa delako; baina hala ere, mendi tontorrerantz goazela somatzen dut, nola jakin ez arren.

Goazen bidexka ez da batere kontsolagarria niretzat eta hala ere poz guztiak dakarkizkit, Jesus delako bidea hautatu duena eta bera bakarrik kontsolatzea delako nire nahia. Bera bakarrik, bera bakarrik!... Ene! egia da neure bihotzeko mahatsa ematen badiot, B eta A² -ren artekoa dela, nik neuk ez baitut ezer ulertzen!

Lepelletier³ eta Révérony jaunei idatzi behar al zaie profesa egiten dudala esanez?

Ez ahaztu inola ere zeure ardotxo⁴ edatera joatea; eta edatean, zeure alaba-txoaz gogoratuko zara, azken honek ez baitu Engaddi-ko ardo azukretsua dastatze-rik... Eskatu alabatxoak arimak salbatuz bere senarrari ardoa ematen jakin dezan eta horrek kontsolatuko du...

¹ Ik. San Joan Gurutzekoa, "*Karmel mendiko igoerea*". Adierazpide bera aurki daiteke TG 105, 112 eta 196.ean (B Esk, 1^a).

² Guretzat ezin ulertzeko aipamena.

³ Teresaren aitor-entzulea 1886tik 1888ra.

⁴ Ahizpa Ainesi aginduriko ardo kinatua.

TG 111

Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenari

1890-VIII-30/31

Amabitxitxo maitea:

Ez dakizu ongi zure kantu zerutiarrak nola erakarri duen zure alabatxoaren arima!...

Ziur-ziur esan diezazuket, zure alabak ez duela inola ere harmonia zerutiarrak entzuten! Haren eztei-bidaia oso gogorra da. Senargaiak, egia esan, lurralde eman-kor eta zoragarriak ezagutarazten dizkio, baina gauak gauza oro mirestea eragozten dio eta batez ere edertasun horietaz guztietaz gozatzea.

Horrek nahigabetu egiten duela uste al duzu? Ez; guztiz alderantziz, zoriontsua da bere senargaiaren atzetik joateaz, maitasunez jarraitzen diolako eta ez bere dohainengatik. *Bera bakarrik!* Hain da ederra! Hain maitagarria, nahiz eta ixilik egon... *Ezkutatzen* denean ere bai!...

Ulertzen al diozu zeure alabatxoari?

Aspertuta dago lurreko kontsolamenduez, bere Maitea baizik ez du maitatzen, bera bakar-bakarrik...

Ez ahaztu zeuk *hazi zenuen*¹ eta zeurea den alabatxoaren alde otoitz egitea.

TG 112

Ahizpa Aines Jesusenari

1890-IX-1

J.M.J.T.

Jesus †

Astelehena

Aitarentzat idatzi dudan gutuna damaizut; dagoen bezala ezin dudala bidali uste baldin baduzu, zirriborro bat egidazu, baina ulertuko ez duzulakoan nago... Hau misterioa, gure familiarenganako Jesusek duen maitasuna!... Hau misterioa "odoletan dagoen senar"¹ honen malkoak eta maitasuna...

Ir 4,25 h.

Bihar Youf² jaunarekin egongo naiz; laburpentxo³ bat egiteko eskatu dit, Karmelen nagoenez gerokoa kontatuz. Egin otoitz, Jesusek EMAN DIDAN *bakea* utz diezadan. Larunbatean zeharo poztu nintzen barkamena jasotzean... Baina ez dut ulertzen zer motatako bakarraldia den nirea, ez baitut ezertaz pentsatzen. Hitz batean esanda, lurrarapi ilun batean nago!... Ene ba, eskatu Jesusi nire argia zaren horrek, nire kausaz ez diezaietela arimei beharrezkoa duten argia ukatu, nire ilunaldiak argitu ditzala... Eskatu baita nik bakarraldi on bat egin dezadan ere eta ahal den hei-

¹ Ik. KH 23.IX.6.

¹ Ik. TG 82, e.zenb.

² Karmeleko kapilaua.

³ Hau da, aitortza orokorra.

nean Jesus pozik egon dadin; orduan ni ere pozik egongo naiz eta haren borondatea hori bada, zera onartuko dut: nire bizitza osoan orain zeharkatzen ari naizen bide ilunari jarraituko natzaiola, egunen batez maitasunaren mendi tontorrera iritsiko naizen itxaropenez. Baina uste dut, hori ez dela gertatuko behealde honetan.

(Neure ardotxoa hartzera noa; gaur goizean ere nire gustukoa egongo zen baina ezin izan dut gure Ama⁴ aurkitu).

Papinot andreari ere idatzi egin behar al zaio?... Uste dut ez duela idazteak merezi, ez bailuke ezer ulertuko. Hobe litzateke, beharbada, buruestalkia jaso arte itxarotea?...

TG 113

Ahizpa Maria Bihotz Sakratuenari

1890-IX-2/3

J.M.J.T.

Jesus †

Ez dakizu ongi nolako atseginez irakurri ditudan zure gutunak!... Niretzat zueruetako musika da, aingeru baten ahotsa entzuten dudala deritzot...

Baina ez al zara, bada, zu zeu Karmelen sartu arteko erbesteko bidean zuzendu eta gidatu ninduzun aingerua? Oraindik nire hartzaroa alaitu zuen aingerua izaten jarraitzen duzu eta nik zuregan besteek ikusi ezin dituzten gauzak ikusten ditut; hain ederki ezkututzen duzu zeure izaera, non betiereko bizitzan sartzeko egunean bat baino gehiago harrituko baituzu.

Baina zure alabatxoa ez da ezertaz harrituko eta zure errege-aulkia eta diadema paregabeak diren arren, alabatxo hau ez da harrituko maitasunaren Senarrak, birjinen Senarraren bihotzean tankera bereko maitasuna sortarazi zuenari ematen dionaz. Eta alabatxo honek zure koroako lore txikitxo bat izatea itxaroten du, koroa horretatik lurreko aingeruaren aintzari bere distira apala eskaintzeko.

TG 114

Ahizpa Aines Jesusenari

1890-IX-3

J.M.J.T.

Jesus †

Bildots maitea:

Bai, guretzat alaitasuna beti sufrimenduarekin nahastuta joango da. Atzoko graziak¹ koroatzea merezi zuen eta Jesusek lehenengo zeuri eskaini dizu eta gero

⁴ Hau ulertzen da: baimena eskatzeko aurkitu nahi zuela.

¹ Teresak bere profesako anai Simeoni eskatu zion Leon XIII.aren bedeinkazioa. Ik. A Esk, 76^a.

neuri era batera, sufriarazten dizun edozerk zauritzen bainau ni ere!... Gure Amak kontsolatu ote zaituen ala oraindik goibel segitzen duzun jakin nahi nuke... Uste dut "Simeon zahar santuari"² eskerrak eman eta bere gutuna heldu dela esan behar zaiola. Zer uste duzu? Lk 2,25

Ahizpa Teresa³ Jesusenaren gutuntxo batzuk damaizkizut, berak goizean eman baitzikit. Hau guztiau egin behar al zaio?... Nik ez dut inolako eredurik eta gainera, Ama Birjina⁴ eta arropa zuria derrigorrezkoagoak direla iruditzen zait, baina nik zeuk agindutakoa beteko dut.

Benetan Zelina hil egingo⁵ dela uste al duzu?... Atzo, bion partez egingo nuela profesa hitz eman nion, baina ez naiz ausartuko Jesusi lurtean uzteko eskatzen, haren borondatea hori ez baldin bada. Nire eritziz, maitasunak bizitza luze baten ordezeko egin dezake... Jesusek ez dio denborari begiratzen, zeruan denborak ez baita. Maitasunaz baizik ez baita arduratzen. Eska iezaiozu maitasuna eman diezadala. Ez dut sentitzen den maitasunik eskatzen, Jesusek bakarrik ezagutzen duena baizik. Ene! Jesus maitatzea eta Jesusi maitaraztea! Hura gozotasuna!... Jesus iraintzen jarraitzekotan, eskatu profesa-egunean bertan eraman nazala, nire bigarren bataioko estola zurian zikin bat bera gabe⁶ zeruratu nahi dut eta. Baina uste dut, Jesusek bera ez iraintzeko grazia eskainiko didala jadanik, edo IRAINTZEN⁷ duten akatsik gehiago ez egiteko grazia behintzat. Azken hauek lotsarazten dute bakarrik eta maitasuna indartzen.

Ez dakizu ongi zenbat gauza esango nizkizukeen, pentsatzen dudana adierazteko hitzak banitu, edo hobeto esanda, *pentsatu ez* baina sentitzen ditudan gauzak adierazteko!... Bizitza misterio hutsa da!... Basamortua eta erbestea da... Baina ari-maren sakonean zera sentitzen da, amaierarik gabeko URRUNTASUNERAKO egun bat izango dela, basamortuko eta erbesteko tristurak betiko ahantzaraziko dituen URRUNTASUNA.

Hondar-aletxoa.

Domin⁸ apaiz jaunak ez daki profesa egitera noanik. Esan egin behar al zaio? Gure Amak oraindik abadiara idatzi ez baldin badu, emakume horiek Domin jaunari mandatua emateko eska diezaiekeela iruditzen zait.

² Erromako anai Simeon, kristau-eskoletakoa.

³ Ahizpa Teresa Jesusenak Teresari sarritan eskatzen zion pintura-lanen bat egitea, lana zail samarra zenean.

⁴ Arropa zuria konpondu eta Ama Birjinaren irudia apaintzea.

⁵ Ik. TG 104; eta TG 115, 2.zenb.

⁶ Ik. Otoi. 2.

⁷ Ik. A Esk, 80ⁱ.

⁸ Lisieux-eko Beneditarren kapilaua.

TG 115

1890-IX-4

Ahizpa Aines Jesusenari

J.M.J.T.

Erromako gutuna¹ helarazten dizut, ongi iruditzen bazaizu, Zelinari eman diezaiozun. Beharbada une honetan aitak ez du ulertuko, baina ez da zaila izango ulertzen eta noizbait ulertzera helduko balitz, dohatsu izango litzateke!... Nire botoak ere bidali egin behar al zaizkio bedeinka ditzan? Baietz uste baldin baduzu, bihar goizean goiz esango al zenidake, berehala idatz diezaiodan? Koroaren erdian jarriko nizkioke. Baina, ez al da hobe izango beharbada, ezer ere ez egi-tea?

Eskerrik asko zure gutuntxoagatik, ez dakizu ongi eman didan atsegina²!... Nire arimak lurrazpian darrai baina zoriontsua da; bai, *zorionekoa* da inolako kontsolamendurik ez duelako; horrela, zera ikusten du, bere maitasuna ez dela lurreko bikoteek dutena bezalakoa, beti elkarren eskuetara begira, zein opari jasoko zain edo eta beti aurpegira begira, liluratuko duen maitasunezko irribarreraren bat noiz harrapatuko itxaroten...

Jesusen emaztegai gaixoak, ordea, Jesus bera denagatik maite duela somatzen du eta ez dio bere senargaiaren aurpegiari begiratu nahi, *ezkutuko xarmaz* liluratzea lortu duen begietatik erortzen diren malkoak harrapatzeko ez bada!... Berak malko horiexek jaso nahi ditu, malkoekin bere eztei-eguneko apaindura egiteko. Apaindura hori ezkutuan joango da, baina emaztegaiaren Maiteak ikusiko du.

¹ Anai Simeonen bitartez jasoriko bedeinkazio apostolikoa. Zelinak berekin izango du irailaren 5ean aita bisitatzerara joaten denean.

² Ahizpa Ainesek hau zioen: "Hondar-aletxo maitea, nik ez dut uste Zelina berehala hilgo denik, baina hala gertatuko balitz ere ez nintzateke batere harrituko. Ene, zein zoriontsua izango litzatekeen!... Zein zoriona "Aurpegi ezezaguna" ikustera joatea... Aurpegi ezezagun horren lana mintzatu zaigu gaur arratsean... Utz dezagun Jainkoa gure familian egon dadin, ez diezaiozun gogait eragin!... Ez al dago, bada, bere etxean?... Noizbait Jesus kexatu izan da atsedean hartzeko harri koskorrik ere ez izanaz; orain, aldiz, ezingo luke kexu bera bota, gure bihotzak burko gozo eta beroak izateko prest baitaude. (...)

"Hondar-aletxo maitea, ez dut batere penarik atzo gaueko huskeriagatik... Ez da horretaz hitzik egin eta ni ere isilik egon naiz. Jainko nirea! Guztia igarotzen da behealde honetan! Horrek kemena ematen du! Gaur atsekabeturik zaude, biharamunean atsekabea desagertu egiten zaizu eta etzi zerua goibeltzen da. Ene! Mila aldiz zorionekoa, gorabehera hauen guztien gainetik dagoen arima... Zaila da, baina graziak mirariak eragiten ditu leiala den bihotzean...

Ahizpa laztana... eskerrak emazkiozu zeure Senargaiari, haurtzarotik leialtasunaren bidean jarri zaituelako... Senargaiak ez zaitu kontsolatzen, jadanik bere besoetan zaudelako. Ez daukazu oinez egin beharrik, berak eramaten zaituelako... Aitarenean besartean dagoen umeak zer beste kontsolazio behar du, bada?... Jesus bere hondar-aletxoa eta fardel arina bizkarrean dituela imajinatzen dut, arineketa baten, arima bila". (LC 137, 3/9/189).

TG 116

Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenari

1890-IX-7

J.M.J.T.

Jesus Haurraren kandelak biztuta egon daitezzen nahi izango nuke kapitulura¹ joan nadinean. Biztuko al dituzu zeuk mesedez? Ez ahaztu, arren... Ez ditut arrosa koloreko kandelak jarri, besteak ariman gehiago sentitzen ditudalako... Abitua hartu nuen egunean hasi ziren distirazen. Orduan arrosa kolore bizia zuten eta berriberriak zeuden. Aita ere hantxe zegoen, berak oparitu zizkidan, eta orduan dena zen alaitasuna!... Baina orain *arrosa* kolorea aienatu egin da... Gelditzen al da, ba, jadanik Beresinako umezurtz txikiarentzat kolore *arrosako* poztasunik behealde honetan?... Ene! Ez, jadanik ez dago zeruko poztasuna besterik... Zeruko poztasunik, ezer ez den sorturiko guztiak benetakoa den errealitate sortu gabeari leku uzten diolarik!...

Ulertzen al diozu zeure alabatxoari?...

Bihar Jesusen emazte izango da. Bihar, aurpegia ezkutatu eta inork ezagutu ez zuenaren emazte bihurtu da! A zelako ituna eta geroa!... Bai, soma dezaket, nire eztei-eguna aingeruz inguraturik izango da; zerua bakarrik poztuko da, eta baita amazetxoa eta bere ahizpa maiteak ere²!...

Is 53,3

TG 117

Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenari¹

1890-IX-8

1890ko irailak 8ko oroigarria

Beti gogoan izateko zorioneko eguna! Aipaturiko egunean honako hau esan zuenaren emazte bihurtu zen zure alabatxoa: "Nire erregetza ez da mundu honetakoa". Eta beste nonbait hau esan zuen: "Baina laster ikusiko duzue zeruko hodeietatik agertu eta Jainkoaren eskuinaldean jarriko den gizonaren Semea". Guri dago-kigunez, horixe da itxaroten dugun eguna... Betiereko ezteia eguna; egun horretan, Jesusek gure begietako malko guztiak xukatuko ditu eta bere aldamenen jarraziko gaitu, bere errege-aulkian...

Jn 18,36

Mk 14,62

Ap 21,4

Ap 3,21

¹ Kaperan sartzerakoan, Teresak mezetatik irterzerakoan bere nahiak jakinaraziko ditu eta komunitatea klaustro azpiko Jesus Haurraren irudi aurretik igaroko da prozesioan.

² Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenak honela erantzungo dio: "Neure alabatxo maitea, zure gutuntxoa luzaz mintzatu zaio ene arimari... A zein bizkor hezi duen Jesusek "Beresinako umezurtza"! Maitasun bereziz maitatu du eta ile hori luzedun erregina hauxe da aitaxo gaixoak hainbeste maitatu duena. Oraindik alabatxo hauxe du bere zorion, bere aintza, eta bihar Zeruak pozez zorutzen ikusiko du haren bekoki gurgarrian dirdir egingo duen aureola berria.(...)

Otoitz egizu zeure amabixi gaixoaren alde santa bihur dadin eta grazia honi erantzuten jakin dezan. Familia bedeinkatua! Jesusek asetako familia!..." (LC 138, 7/7/1890).

¹ Estampa baten itzulian eginiko eskaintza.

Is 53,3 Orain haren aurpegia ezkutuan bezala dago hilkorren begietara; baina erbesteko lautada honetan malko horiek ulertzen dakigunori, laster agertuko zaigu haren aurpegia distiratsu, eta zeruko erreinua erakutsiko digu. Orduan extasia izango da, geure Senarrarekin izango dugun betiko elkartze aintzatsua...

Erregutu, egun batez bertutearen bidea erakutsi zenion hau, zeruko erreinuan zuregandik hurbil gerta dadin!...

Zure alabatxoa

TG 118 "Ahizpa Teresa Jesus Haurrarena eta
1890-IX-18/20 (?) Aurpegi Santuarenaren eztei-egunerako gonbidapena"¹

J.M.J.T.

Ap 19,16 Jainko ahalguztidunak, zeru eta lurren egileak, Munduko Jaun eta Jabeak eta Maria Birjina Goragarriak, Zeruko gorteko Erreginak, jaun guztien Jaun eta errege-tan Errege den beren seme agurgarria eta orain senargaiak ezkontsarian eskainitako erreinuetako printzesa eta Andere den Teresa Martin andereñoaren arteko ezteiaeren berri ematen dizue. Ezkontsaria hau da: Jesusen Haurtzaroa eta Pasioa. Eta haren tituluak beste hauexek: Jesus Haurraren eta Aurpegi santuarena.

Jn 1,1 Luis Martin jaunak, lotsaren eta sufrimenduaren Jaun eta Jabeak eta Martin andereak, zeruko gorteetako Printzesa eta Ohorezko Andereak, beren alaba Teresa eta Jesus, Jainkoaren Hitzza, Hirutasun gurgarriaren bigarren pertsona, eta Espiritu Santuaren bitartez gizon eta Maria Zeruetako Erreginaren seme egin zen Jesusen arteko ezkontzaren berri damaizue.

Mt 25,31
Mt 24,42 Karmelgo mendian bedeinkatutako ezkontza honetara guztiok gonbidatzea ezinezkoa izanenez gero (zeruko gortea onartu zen bakarrik), bihar eztei osterata etortzea erregutzen zaizue. Bihar, Betiereko Bizitzaren egunean, Jesus, Jainkoaren Semea, Zeruko Hodeien gainean Errege distiraz, hilak eta biziak epaitzera etorriko den egunean (ordua oraindik erabakitze dago eta prest eta erne egotea eskatzen zaizue).

TG 119 Ahizpa Marta Jesusenari¹

1890-IX-23

Neure laguntxoari, zure bizitzako² egunik ederrenaren oroigarri, Jesusi zeure burua sagaratutako egunaren oroigarri!

¹ Gonbidapen sinboliko honen hiru bertsio daude: a) orain agertzen dugun zirriborro hau; b) Aines ahizparen kopia bat, oso antzekoa, Zelinari jakinaraziko ziona (ik. CG, 581.orr. hk.); c) A Esk, 77ⁱ-ko testua, ahizpa Aines kopiaren ia berdina.

¹ Estanpa baten itzulian eginiko eskaintza.

² Teresak hau idatzi du: "zure eguna".

Poztu dezagun biok batera Jesus arimen eskergeizto guztiengandik eta geure maitasunarekin oinazea ahantz dezan lor dezagun.

Zeure ahizpatxo apal
Teresa Jesus Haurrarena eta Aurpegi Santuarena
lek.. karm. apal.³

TG 120

1890-IX-23

Zelinari

J.M.J.T.

Jesus †

Ene Zelina! Nola esan nire ariman gertatzen ari dena?... Nire arima urratuta dago, baina badakit nire zauri hau lagun baten eskuak egina dela, guztiz *jeloskorra* den jainko-eskuak egina!...

Dena zegoen prest nire eztei-egunerako, baina ez al duzu uste jaiari zerbait falta zitzaiola? Jesusek benetan bitxi asko jarri zizkion nire otarrari, baina edertasun paregabeko bat falta zen eta Jesusek gaur eman dit diamante bikain hori... Zelina... opari hori jasotzean negar-malkoak atera zaizkit... eta oraindik nire begiak jarioka daude, eta ia-ia agirika egingo nioke neure buruari "maitasuna badela eta maitasun horren jantzi bakarra malkoak direla"¹ ez baneki. Jesus izan da arazo honetaz guztiaz arduratu dena, berak egin du dena eta nik, haren *maitasun*-ikutua ezagutu dut...

Badakizu irrikitan nengoela gaur goizean gure Aita maitea² ikusteko; bada orain, argi-argi dakust Jainkoaren borondatea ez dela hala izan dadin. Gure maitasuna aztertzearen bakarrik onartu du... Jesusek *umerzurtz* nahi nau, berarekin bakarrik egon nadin nahi du, kuttun-kuttun nirekin elkartzeko; Aberrian, erbestean ukatu dizkidan eta hain *bidezkoak* diren poztasunak itzuli nahi dizkit. Zelina, poztu zaitez, gure Senarra malkoz beteriko senarra da eta ez irribarrez beterikoa. Eman diezazkiogun geure malkoak ere poztu dadin, eta egunen baten malko horiek ezin adierazizko gozotasunezko irribarre bihurtuko dira!

Zelina, ez dakit nire gutuna ulertuko duzun, ozta-ozta eusten baitiot idazluma-ri... beste edozeinek gure osabak mintzatokira egindako bisitari buruzko azalpenak emango lizkizuke, baina zure Teresak ez daki zeruko hizkuntzaz baizik hitz egiten. Zelina, uler iezaiozu zeure Teresari!...

Gaurko proba, ulertzen erraza ez den atsekabea da: poza eskaintzen zaizula ikusten duzu, izan daitekeena da, berezkoa, besoa luzatzen duzu... eta ezin dugu

³ "Religieuse carmélite indigne (lekaime karmeldar apala)"-ren laburdura.

¹ Zelinaren olerki baten aipamena. Ik. TG 108.

² Beloa hartzen duanean. Ik. A Esk, 75^{af}.

hain irrika biziz nahi dugun poza lortu... Baina Zelina, zein misteriotsua den hau guztia!... Lur honetan jadanik ez zaigu aterperik gelditzen, edo gutxienik, Ama Bir-jinaren antzera hau esan dezakezu: "Hau gordelekua!". Bai, "hau gordelekua!"... Ez da giza eskua hau guztia egin duena, Jesus izan da! Haren ezkutuko begirada da guregan ezarri dena!...

Erbestean den Aitaren³ gutuna jaso dut eta hona hemen pasartetxo bat: "Ene! Nire alleluia malkoz bustia dago! Zuen gurasoak ez dira izango zuek Jesusi eskaintzeko. Zuen errukia izan behar al dugu behealde honetan, hor goian aingeruek zoriontzen zaituztenean eta santuek zuen enbidia dutenean? Zuen arantzadun koroa da gutzizatzen dutena. Maitatu, beraz, zatzada horiek, jainko-senarraren maitasunezko beste hainbat ezaugarri bezala".

Zelina, onar dezagun kemenez Jesusek eskaintzen digun arantza. Biharko jaia, malkoak isurtzeko jaia izango da guretzat⁴, baina Jesus guztiz pozik egongo dela somatzen dut!...

Gauza asko esan nahi nizkizuke, baina hitzak falta zaizkit... Zu kontsolatzeko idazteko agindua eman didate, baina seguraski, gaizki bete dut neure ardura!... Ai... adieraz baniezazuke nire malko trinkoenetan nolako bakea erantsi dion Jesusek nire arimari!... Horixe bera eskatzen dut zuretzat, ni nerau zaren horrentzat!...

Zelina!... itzalak aienatu egiten dira eta mundu honen irudia ere badoa... laster, bai, laster ikusiko dugu negar-malkoz liluratzten gaituenaren aurpegi ezezaguna⁵.

Ahizpa Teresa Jesus Haurrarena [eta] Aurpegi Santuarena
lek. karm. apal.

Kr 4,6

1 Ko 7,31

Jb 4,16

³ A. Pichon.


⁴ Ik. A Esk, 77^a.

⁵ Ikus TG 115, 2. zenb.

BOSGARREN AROA

**NOBIZIATUAN
URTE ILUNAK**

(1890eko iraila - 1893ko otsaila)



TG 121

1890-IX-28

Ahizpa Maria Jose Gurutzekoari¹

J.M.J.T.

Jesus †

Karmelgo Monastegia, 90ko irailak 28

Neure ahizpa maitea:

Zure gutunak biziki hunkitu nau eta eskerrak damaizkizut nire alde egindako otoitzengatik. Niri dagokidanez, ez zaitut behin ere ahaztu eta Jainkoaren esku uzten ditut zure asmoak.

Hona hemen ni, azkenik, Jesusena guztiz. Duineza izan arren, bere emazte-txotzat hartzea erabaki du. Orain, neure maitasuna erakutsi behar diot eta horretarako, ene ahizpa maitea, zure laguntasuna itxaroten dut, gure Jaunari eskerrak ematen lagun nazazun.

Biok grazia handiak jaso ditugu, eta laster, halaxe uste dut behintzat, lotura berak lotuko gaitu Jesusekin, betiko.

Aita Santuaren bedeinkazioa jasotzeko zoriona izan nuen neure profesia egunean. Bedeinkazioa eskaini zidan erlijiosoak Erroman elizaren etsai asko dela azaldu zidan. Gure Aita Santuaren aurkako borrorak ez du amaierarik. Penagarria da!...

Zein ederra den lekaime izatea otoitz egin eta Jainkoaren justizia baretzeko! Bai, gure misioa oso ederra da benetan eta betiko bizitza ez da nahikoa izango Jaunari guri egokitu digun lan zatia eskertzeko.

Nire ahizpa maitea, zure otoitzak eskatzen dizkizut gurutzeak hainbat aldiz probatua eta etsi gabe irauteko kemenegatik mirestia den nire aita maitearentzat. Ni neu ere zure komunitate santuaren otoitzetara jartzen natzaizu.

Sinitsi, ene ahizpa maitea, zure ahizpatxo izendatzeak pozten duenaren sentimendu erlijiosoan.

Zure ahizpatxo

Teresa Jesus Haurrarena
lek. karm. apal.

¹ Guérindarren zerbitzaria zen Marzelina Husé, Bayeux-eko Beneditarretan sartu zen 1889ko uztailean.

TG 122

1890-X-14

Zelinari

J.M.J.T.

Jesus †

90ko urriak 14

Neure Zelina maitea:

Ez dut Mariarentzako gutuna bidali nahi zuretzat hitz gutxi batzuk gehitu gabe. Gure Ama maiteak uzten dit zurekin otoitz egiten... Zelina, ez al da horixe *beti* elkarrekin egiten duguna?...

Zelina maitea, esan behar dizudana beti gauza bera da. Ene, otoitz dagigun apaizen alde!¹... Egunero ikusten da Jesusen lagunak zein arraroak diren... Uste dut eskertxarrak izan behar duela gauzarik mingarriena. Eta batez ere, berari eskainitako arimak eta oso-osorik bereak izan behar luketenak bihotza beste batzuei ematen ikustea.

Zelina, gure bihotza Jesusek atsedean har dezakeen gozotasunezko lorategia izan dadila... Liliak bakarrik erein ditzagun geure lorategian. Bai, liliak, eta ez dezagun onartu edonork erein dezakeen beste lorerik... Liliak, birjinek bakarrik eskain diezazkiokete Jesusi...

“Birjintasuna, lurreko kezka guztien isiltasun sakona da”, eta ez arduragabeko kezkena bakarrik, kezka guztiena baizik... Birjina izateko, Senarrarengan bakarrik pentsatu behar da, Senarrak ez baitu bere inguruan Birjina ez denik onartzen. “Ama Birjinarengandik jaio nahi izan zuen, bere aitzindaria birjina izatea nahi izan zuen, zaintzailea birjina, bere lagun kutuna birjina eta azkenez hilobi birjina. Emaztea ere birjina izan dadin nahi du, bere ZELINA!... Esaten denez, “bakoitzak bere sorterrria maite du eta Jesusen sorterrria birjinen birjina denez gero, eta Jesus bere borondatez lili batengandik jaio zenez gero, bihotz birjinetan egotea du gogoko”.

Eta zure bidaia² ? Ia-ia ahaztu dut... Ez, nire bihotza atzetik duzu eta sentitzen duzun guztia ulertzen dut... den-dena ulertzen dut!... Dena pasatzen da; Erromarako bidaia, berak zituen atsekabe sakon guztiekin, *igaro zen... Heriotza* ere igaroko da, eta orduan bizitzaz gozatuko dugu, ez gizaldi eta gizaldietan bakarrik, baizik eta gizaldi hauei guretzat milioika urte gehituko zaizkie, egun bat bailitzan... Eta beste milioika eta milioika urte etorriko dira ondoren, atsedean eta zorionez³ beteak... Zelina!...

Erregutu Jesusen Bihotzari. Ongi dakizu nik ez dudala Bihotz Sakratua besteen antzera ikusten⁴. Nire Senarraren bihotza neurea bakarrik dela uste dut, nirea ere, beretzat bakarrik den era berean. Horregatik hitz egiten diot bakartadean bihotzetik bihotzera, kuttun-kuttun, egunen batez aurrez aurre ikusiko dudan itxaropenez.

Kt 2,16

1 Ko 13,12

¹ Ik. TG 94, 4.zenb.² Margarita Maria dohatsuaren heriotzaren bigarren mendeurrena zela eta, Leoniarekin Paray-le-Monial-era eginiko erromesaldia 1890ko urriaren 17an.³ Ik. Arminjon, op. cit., 316.orr.⁴ Ik. 23. TO, sarrera.

Ez ezazu zeure Teresa ahaztu; ahopean haren izena xuxurlatzen baduzu, isilpean, Jesusek ulertuko du; grazia asko daude elkarri lotuta behealde hartan, batez ere sufritzen duen bihotzarentzat...

Leoniari idaztea nahi nuke, baina ezinezkoa zait; ez daukat ezta idatzi dudana berrirakurtzeko astirik ere. Esaiozu, beraz, pentsatzen dudana... Ziur nago Jesusen Bihotzak grazia ugari eskainiko dizkiola... esaiozu dena, zuk badakizu..

Zure ahizpa Teresa Jesus Haurrarena [eta] Aurpegi Santuarena
lek. karm. apal.

TG 123

Guérin andreari

1890-X-15

J.M.J.T.

Jesus †

1890ko urriak 15

Neure Izeba maitea:

Biziki hunkitu nau nire santu-egunean bidali didazun guztiak; ez dakit nola eskertu, ezta nondik hasi eskertzen ere.

Lehendabizi, ene izeba maitea, maite ditudan guztien izenean zoriondu nauen Maria xarmangarria bidali didazu.

Joana eta Maria ahizpatxo maiteek oparitutako lorontzitxoak oso gogoko izan ditut; Jesustxoren aldamenen kokatu ditut eta orduoro, lore bakoitzak dituen txilar adina aldiz erregutzen dut nire bi ahizpatxoentzako grazia eta bedeinkazioa...

Azkenik, ene izebatxo maitea, zure pastel gozoak izan dira festa burutu dutenak; eta Teresatxoren bihotza, maite-erakutsi hauek guztiak egiten dizkion zureganako eskerronez bete da!

Eta are gehiago hunkitzen nauzu, ene izeba maitea, badakidalako zenbat sufritzen duzun, eta hala ere zeure Teresatxorekin gogoratzen zarela. Baina zeure Teresaz gogoratzen zaren neurrian gogoratzen da Teresa ere zutaz, eta ez dio behin ere Jainkoari otoitz egiteari utzi, gugatik egiten duzun guztia ehun aldiz biderkatu-rik itzul diezazun. Asko erregutzen dut neure Joanatxo maitearen alde ere. Jainkoak zorionsu egin dezala, lurrean hala izan daitekeen neurrian. Ahizpa maite¹ honen joateak zuregan utzi duen hutsune handian poza eman diezazun ere eskatzen diot. Neure osaba maitea ere ez dut ahazten eta nire orde z gogor-gogor besarka dezazun eskatzen dizut.

¹ Joana Guérin urriaren 1ean Dr La Néela-rekin ezkontzen denean, Caen-era joango da bizitzera, Lisieux-etik berrogeita hamar bat kilometrora.

Hementxe uzten zaitut, ene izebatxo maitea, edo hobeki esan, nire bihotzak agintzen diona hain desegoki betetzen duen idazluma uzten dut. Nire bihotzari dagokionez, ez da zuregandik unetxo batez ere urruntzen.

Zure alabatxo

Teresa Jesus Haurarena
lek. karm. apal.

TG 124

1890-X-20

Zelinari

J.M.J.T.

Jesus †

90ko urriak 20

Neure Zelina maitea:

Teresak zeure santu-egunean zoriontzen zaitu!... Egunak daramatza horretan pentsatzen eta aurten ez da azkena izango. Zelina, izan daiteke hau lurrean¹ ospatzen duzun azken festa! Izan daiteke!... Hau itxaropen gozoa!... Lurrean ahaztua izan den “*Zelina loretxoa*” aurten jainko-bildotsaren bihotzean kokatua izango al da? Aingeruen begi liluratuek edertasunik gabeko loretxo bat ikusi beharrean, itsutzeko zurtasuna duen lilia ikusiko dute!...

Zelina, bizitza oso misterioitsua da, ez dakigu ezer... ez dugu deus ikusten... Eta hala ere, Jesusek azaltzen dio gure arimari gizakiaren begiak ikusten ez duena. Bai, gure bihotzak somatu egiten du bihotzak ulertu ezin duena, batzuetan gure ariman sentitzen dugun ez dakit zer bat azaltzeko *pentsamendua* falta baitzaigu...

1 Ko 2,9

Zelina, “*bi Zelinak*”² bidaltzen dizkizut festarako. Hauen hizkuntza berehala ulertuko duzu... Enbor berak mantentzen ditu, eguzki berak berotu, argi-izpi berak irekiarazi ditu eta seguraski, egun berean hiltzen ikusiko ditu!...

Gizakien begiak ez dira *Zelina-loreari* begira gelditzen, haren lore-hosto zuria misterioz beterik egon arren. Bihotzean beste hainbat lore daramatza, seguraski bere arimaren seme-alaba direnak, eta gainera, haren kaliza gorria da barrutik. Bere odolez gorribetua dagoela esan liteke!...

Zelina, eguzkiak eta euriak ez dute loretxo ahaztua hegatu. Inortxok ere ez du lorea biltzeko asmorik, baina ez al da bera ere birjina?... Bai, Jesusek bakarrik ikusi baitu, Jesusek beretzat bakarrik sortu baitzuen... Ene! Horrexegatik da Jesu-sentzat bakarrik ez den arrosa distiratsua baino zoriontsuago!...

¹ Zelinak bihotzeko arazoak ditu. Ik. TG 104.

² Zurtoin bera duten aster-lore arrunt bi (ik. TG 98). Oraindik “Jesus” hitzaren gainaldean daude iltzaturik, autografoaren buruan.

Zelina, esan daitekeenez, zure santu-egunean era berezi batez zorientzen zaitut; badakit zure Teresaren lotura gabeko hitzak ulertuko dituzula...

Zelina, uste dut Jainkoak ez duela *urte asko* behar bere maitasunezko lana ariman burutzeko; haren bihotzeko bat-bateko³ argi-izpi batek lorea betiko irekitzea lor dezake...

Zure Teresa Jesus Haurrarena eta Aurpegi Santuarena
lek. karm. apal.

TG 125

1890-X-17

Guérin andreari

J.M.J.T.

Jesus †

Karmelen, 90ko azaroak 17

Neure Izeba maitea:

Ez dakizu ongi zein atsegin handiz zorientzen zaitudan zeure santu-egunean!... Aspalditik dihardut egun eder honetaz pentsatzen eta atsegin handia sentitzen dut neure izebatxo maitearengana hurbildu eta bere alabetarik azkenak eta txikiak zein maite duen esateaz. Beti azkena eta txikiena izatea gogoko du, baina maitasunari eta samurtasunari dagokionean, ez du sekula bere ahizpa nagusiek aurrea har diezaioten utziko... Gainera, ez al da txikiaren eskubidea, besteek baino gehiago maitatzea?...

Zenbat oroitzapen dakarzkidan 19ko egun honek! Txikitik egunak aurretik egoten nintzen pozik. Lehenengo eta behin, egun hau nire izeba maitearen festa-eguna izaten zelako eta gero, egun horretan gozokiz beterik bukatzen nuelako. Orain, denbora igaro da, txoriñoak ere hazi egin dira, hegalak ireki eta haurtzaroko habia gozoa utzirik, hegan joan dira. Baina, ene izebatxo maitea, haztean, zure alabatxoaren bihotza ere hazi egin da zureganako samurtasunean eta batez ere oraintxe ulertzen du zenbat zor dizun... Nire zorra ordaintzeko bide bakar bat baizik ez daukat: txiro izan arren, Senartzat errege ahaltsu eta aberatsa hartzea. Senarrari eskatuko diot nire izeba maitearengan bere maitasunaren altxorrek barra-barra hustu ditzan eta horrela, nire haurtzaroa inguratzen jakin zuen ontasun guztiak itzul diezaizkion.

Neure izebatxo maitea, ez dizut agurrik esaten, egun guztia zuregandik hurbil egoteko asmoa daukadalako; zure alabatxoaren bihotza somatzen jakingo duzula uste dut.

Teresa Jesus Haurrarena
lek. karm. apal.

³ Ik. TG 114; Otoi. 6; TG 224.

TG 126

1891-IV-3

Zelinari

J.M.J.T.

Jesus †

1891ko apirilak 3

Neure Zelinatxo maitea:

Gaur arratsaldean Marguerite M.¹ ikusi dugu; ez daukat bisita honen berri zehatz-mehatz emateko astirik, baina ez dakizu zenbat on egin dion nire arimari... Ai, zorionekoak gu, birjinen Senarrak aukeratu gaituenok!... Margueritek inori kontatzen ez dizkion barrango sekretuak aitortu dizkigu. Haren alde otoitz egin beharra daukagu, arriskuan baitago... Liburuek ez diotela bat ere onik egiten dio... Uste dut geroko bizitzaren misterioak² liburuak haren fedea indartuko lukeela, dagoen eran, arriskuan baitago... Senarrak jakin gabe liburuak irakur ditzakeela esan digu.

Beharrezkoa litzateke, beraz, liburu hori eman diezaiozun, interesgarri izango zaiola iruditu zaigula esanez. Baina hirugarren kapitulutik aurrera irakurtzen hasi dadila, iruditxoa dagoen lekutik aurrera, lehendabiziko kapituluak ez baitira interesgarriak harentzat. Liburua ezagutzen ez duzulakoa egingo bazenu hobe izango litzatekeela uste dut, zeharo nahigabetuko bailitzateke bere isilpekoen berri eman dizudala baleki. Nahiago genuke Maudelonde andreak eta gure izebak ere ez balekitez Marguerite-ri liburua prestatu diogunik. Dena dela, egizu ahalik eta hobekien eta esaiozu nahi duenerarte eduki dezakeela... Inork ikusi gabe eman ezin bazenio, hobe litzateke, agian, ezer ez egitea. Baina bueno, saiatu gutxienez liburuari buruz hitz egiten. Niri dagokidanez, gogo bizia dut liburu hori irakur dezan, bertan zalantza askoren erantzunak aurkituko baititu... Jainkoaren gogoko izan daitekeen lana deritzot honi. Berak eman dit ideia, baina badakizu Teresak ezin duela ezer egin bere Zelinarik gabe; biak behar dira lan osoa egiteko, horregatik, orain Zelinari dagokio Teresak hasitako lana bukatzea!... Zelina... ez dakizu ongi zenbat maite zaitudan eta zein garbia den nire zukanako maitasuna!...

Zelina maitea, zure Teresatxo beti zure aldamenean dago, haren bihotzean baitzaude, bere bihotzaren erdia baitzara...

Teresa Jesus Haurrarena [eta] Aurpegi Santuarena
lek. karm. apal.

¹ Margarita Maria Maudelonde, Guérin andrearen iloba eta René Tostain magistratu ateoarekin ezkondua; ik. KH 2.IX.7.

² Arminjon-en lana.

TG 127

1891-IV-26

Zelinari

J.M.J.T.

Jesus †

Karmelen, 91ko apirilak 26

Neure Zelina maitea:

Laugarrenez zoriontzen zaitu zure urtebetetze-egunean Teresak Karmelgo bakardadetik... Ene! Zein ezberdinak diren zorion-agur hauek lurrekoekin konparatuz!... Ez da osasuna, zoriona, aberastasuna, aintza etab. Teresak bere Zelinarentzat nahi duena. Ez, ez, ez da horrelako ezer!... Gure pentsamendua ez dago erbesteko lurrean, gure bihotza gure altxorra dagoen lekuan dago. Eta gure altxorra goialde hartan dago, zeruetako erreinuan, non Jesusek lekutxo bat prestatu digun bere aldamenean. *Lekua* diot eta ez lekuak, errege-aulki bera izango dutelako lurrean arima bat bakarra izan direnei... Batera hazi ginen, batera hezi gintuen Jesusek bere sekretuei buruz, ahaltsuei ezkutatu eta txikioki azaltzen dizkigun sekretu gorenak, eta gainera, biok batera sufritu genuen *Erroman*; gure bihotzak bat-bat eginda zeuden orduan eta lurreko bizitza izango zen gure zorion-ametsa, Jesusek gure erlazioak oraindik gehiago estutu ez balitu. Bai, banadu ginenean, nire arimak ordurarte eza-gutzen ez zuen modu batez batu gintuen Jesusek, une hartatik aurrera ez bainuen ezer nahi neuretzat bakarrik, biontzat baizik.

Mt 6,21
Jn 14,2-3

Lk 10,21

Ene Zelina... Duela hiru urte gure arimak oraindik pitzatu gabe zeuden, lurreko zoriona oraindik eskuragarri zen guretzat; baina Jesusek maitasunezko begirada bat eskaini zigun, malko artean ezkutaturiko begirada, eta begirada hori guretzat eskerroneko eta maitasunezko itsaso bihurtu zen. Gure bizitzako lehenengo udaberriari ama kendu zigunean baino era mingarriagoz kendu zigun hain samurtasun handiz maite genuena; baina ez al zen izan hauxe esan genezan: "Gure Aita zeruetan zarana?". Ene! Zein pozgarriak diren hitz hauek! Amairik gabeko itsasertza irekitzen dute gure begien aurrean!... Zelina, atzerriak ez du guretzat basaloreak eta arantzak besterik; baina ez al da horixe lur horrek gure jainko-senarrari eman ziona? Ene, zein ederra den egokitu zaigun partea!... Eta nork esango digu betiko bizitzak zer izango duen guretzat?...

Mt 6,9

Has 3,18

Zelina maitea, txikiak ginenean galdera ugari egiten zenizkidan horrek, zergatik ez zenidan egin honako hau diotsat neure buruari: "Baina zer dela eta ez nau Jainkoak aingeru egin?". Ene Zelina! Pentsatzen dudana esango dizut: Jesusek zeruko aingeru egin ez bazaitu, lurreko aingerua izan zaitezten nahi duelako da. Bai, Jesusek gorte zerutiarra eduki nahi du hemen lurrean ere! Aingeru martiriak nahi ditu, aingeru apostoluak nahi ditu eta loretxo ezezagun bat sortu du, Zelina, asmo horrekin. Loretxoak arimak salba diezazkion nahi du eta horretarako gauza bat bakarra nahi du; loretxoak *begira* diezaion martiritza sufritzen dagoenean... eta Jesus eta loretxoaren arteko begirada misteriotsu horixe da mirariak egingo dituen eta Jesusi milaka lore emango dizkiona (batez ere, damu eta maitasunezko arrosa bihurtu beharko den lili maskal eta zimela¹)...

¹ Aita Hyacinthe Loyson. Ik. TG 129.

Zelina maitea, ez iezadazu haserre egin han goian leku bera izango dugula esateagatik; begira, uste dut bitxilore gaixo bat ere zuritasunez dirdiratsu dagoen liliaren aldamenean jaio daitekeela, edota, perlatxoa ere diamante baten aldamenen kokatu daitekeela eta diamantearen dirdiraz baliatu...

Ene Zelina, maita dezagun Jesus neurrigabe eta gure bihotz biekkin bat bakarra egin dezagun, maitasunean handiagoa izan dadin...

Zelina, zurekin ez nuke sekula bukatuko, ulertu zer esan nahi nizukeen zeure 22. urtebetetze-egunean!...

Zurekin gauza bat baizik ez den zure ahizpatxoa... (Ba al dakizu bion artean 40 urte ditugula? Ez da harritzekoa horrexegatik, gu biok esperientzia askoren berri izatea. Zer iruditzen zaizu?)

Teresa Jesus Haurrarena [eta] Aurpegi Santuarena
nobiz. karm. apal.²

TG 128

1891-VII-5

Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenari¹

Neure ahizpa maiteari, Odol Preziatuaren egunean,
bere nobiziatuatik irteterako eskeinitako oroigarria.

Ahizpa Teresa Jesus Haurrarena [eta] Aurpegi Santuarena
lek. karm. apal.

TG 129

1891-VII-8

Zelinari

J.M.J.T.

Jesus †

1891ko uztailak 8

Neure Zelina maitea:

Zure gutunak maitekiro hitz egin dio nire arimari, nire pentsamendu guztiak errepikatzen dituen oihartzun zehatza izan da niretzat...

² Teresa erratu egin da eta "lekaime" jarri beharrean "nobizia" idazten du.

¹ Estampa baten itzulian egindako eskaintza. Mariak Teresa utzi egiten du hiru urte baino gehiago nobiziatuan elkarrekin izan ondoren.

Gure Ama maitea sufritzen dago oraindik; latza da maite dituzunak horrela sufritzen ikustea. Hala ere, ez zaitez gehiegi goibeldu; Jesusek gure Ama maitea zeruan izateaz gozatu nahi duen arren, ezingo digu ukatu oraindik luzaragoan izatea bizitzaren erbeste honetan hain ongi zuzentzen eta kontsolatzen gaituen amaren eskua...

Ene, hau erbestea, lurrekoa! Eta batez ere, den-denak huts egiten digula dirudien une horietan!... Orduantxe da hala ere zoragarria, orduantxe dagite salbazio egunek dir-dir... Bai, Zelina maitea, sufrimenduak bakarrik sortaraz diezaioke Jesusi arimak... Harrigarria da gu, betiko galdua¹ dirudien arima salbatzea beste nahirik ez dugunok, nola sufrimenduz beterik gauden ikustea! Xehetasunak oso interesgarriak iruditu zitzaizkidan, nire bihotzaren taupadak-biziki bizkortu ziren... Nik, pozgarriagoak ez diren beste hauexek emango dizkizut. Hondatzaile zorigaiztokoa Coutances-era joan eta Caen-en hitzaldietan hasi da berriro. Dirudienez, Frantzia osoa era horretantxe igarotzeko asmoa du... Zelina... gainera, diotenez, erraza omen da *damuak* nola barrenminduta duen ikustea... Elizaz eliza omen doa gurutze handi batekin eta gurtza handiak eginez... Emazteak leku guztietara jarraitzen dio. Zelina maitea, erruduna da, eta baliteke inoiz bihurtu den edozein bekatarari baino errudunago izatea. Baina ez al dezake Jesusek orain arte egin ez duena egin? Jesusek hala nahi ez balu, jarriko al luke bere emaztetxoaren bihotzetan bete ezin daitekeen guraririk?... Ez, guk baino nahiago du hark galdutako ardi hau bere artaldera bideratzea. Egunen batez Jesusek begiak irekiko dizkio, eta orduan, nork daki! Beharbada, berriro Frantzia osoa igaroko du helburu guztiz ezberdin batekin!

2 Ko 6,2

Lk 15,47

Ez diezaiogun otoitzari utzi. Fedeak mirariak egiten ditu eta Jesusek zera esan zion Margarita Maria dohatsuari: "*Arima zintzo hain ahalmen handia du nire bihotzaren gain, non milaka gaizkilerentzat lor baitezake barkamena*"². Inork ez daki zuzena ala bekataria den, baina Zelina, Jesusek gure bihotz sakonean zera sentitze-ko grazia eman digu: nahiago dugula hil, bera iraindu baino. Gainera, ez dira gure merituak, gure Senarrarenak baizik, *geureak* azken batean, zeruan dagoen gure Aitari eskaintzen dizkiogunak, Ama Birjinaren semea den gure neba nekatua, amarrik errukarriaren mantupera etor dadin...

Koh 9,1

Zelina maitea, hementxe utzi beharrean aurkitzen naiz; asmatu gainerakoa, *liburuak eta liburuak* daude asmatzeko!...

Besarkada handi bana nire partez guztiei; nire izenean esan nahi diezun guztia neure egiten dut!...

Teresa Jesus Haurrena [eta] Aurpegi Santuarena
lek. karm. apal.

¹ A. Hyacinthe Loyson, karmeldar ohia; ik. CG, 641.orr. h.

² "Vie et Oeuvres de la Bienheureuse Marguerite-Marie Alacoque", t. I, 159. orr.

TG 130
1891-VII-23

Zelinari

J.M.J.T.

Jesus †

Karmelen, 91ko uztailak 23

Neure Zelina maitea:

Neu naiz berriro zuri erantzuteaz arduratu dena... Ama Jenofa asko hunkitu zen zure gutunarekin eta otoitz ugari egiten du bere Zelinaren alde. Ai, zein grazia handia den hain arima santuaren otoitzen laguntza izatea eta arima santu horrek norbera maitatzea!... Atzoko festa¹ liluragarria izan zen benetan, zeruko preludea... Opari guztiak gogoko izan zitzaizkigun: arraina, gereziak, gozokiak,... Eskerrak eman benetan gure izebari eta esaizkiozu buru datorzkizun hitz maitagarri guztiak...

Zelina maitea, zure bi gutunek gauza asko esan zizkieten nire bihotzari, negar eragin zidaten...

Maitasun-aitorpenak² barregura eman zidan; izan ere, *onartu* beharra dago hura ez zela batere motz gelditu zeruko Erregearen emaztegaiarengana joatean. Gaixoak ez zuen ikusi Senarrak bekokian³ jarri zizun ikurra, Jesusek eta haren errege-gortea osatzen duten aingeruek bakarrik ikusten duten ikurra... Zelina, zer dela eta neurrigabeko pribilejio hau? Zergatik?... Ene! Bai grazia handia birjina izatea, Jesusen emazte izatea! Ederra eta goi-goikoa izan behar du benetan, sorkari guztietan garbi eta argiena zenak birjina izatea nahiago izan baitzuen Jainkoaren Ama izatea baino... Eta hauxe da hain zuzen ere, Jesusek eskaintzen digun grazia; bere emazteak izan gaitezen nahi du eta gero, bere ama eta arrebak izango garelako diosku, ebanjelioan halaxe esan baitzuen: "Nire Aitaren nahia betetzen duena, hura, nire ama, nire anaia, nire arreba izango da". Bai, Jesus maite duena, bere familiaren partaide da. Jesus maite duenak, bakarra den eta PAREKORIK ez duen bihotz horretan nahi duen guztia eta nork bere zerua aurkitzen du!...

Zelina maitea, izan gaitezen beti Jesusen liliak; eskatzen diodan gauza bakarra zera da, liliak albañt lasterrena ezkuta ditzala mundu honetatik, lurreko haize kaltegarriak lorazileko hauts bakar bat beira erauzi aurretik, hauts horrek liliaren zuritasun eta dirdira horitu bailezake. Jesusek, nahi duen guztia aurkitu behar du lilietan, Jesus baizik nahi ez duen eta Jesusengan bakarrik atsedean hartzen duen garbitasuna...

Ene, ez dago lilia zikintzea baino gauza errazagorik!... Bada, nik zera diot: Madalenaz hitz egitean Jesusek barkamena eskaini zuenean, Madalenak gehiago maitatzen zuela esan bazuen, esaldi hori arrazoi handiagoz esan dezakegula uste dut Jesusek *aurretiaz* barkatzen⁴ duen kasuetan... Ulertzen al duzu Zelina?... Gainera, "Jesusen negar-malkoak arima baten irribarrea direnean" zer dela eta beldur izan? Uste dut, arribitxi misteriotsu horiek liliak zuritzeko eta beren dirdira mante-

¹ Ama Jenofaren profesako hirurogei urteak.

² Enrike Maudelonde.

³ Aines santuaren ofizio liturgikoa, maitinen hirugarren leloa. Ik. TO 26, 7.

⁴ Ik. A Esk, 38ⁱ.

narazteko ahalmena dutela... Zelina lastana, mundu honetako irudia badoa, iluntasuna dator, laster gure jaioterrian izango gara, laster gure ahurtzaroko poztasuna, igande arratsaldeak, solasaldi kuttunak... den-dena itzuliko zaigu betiko. Jesusek une batez kendu zizkigun poztasun guztiak itzuliko dizkigu!... Orduan, gure aitaren buru distiratsutik argi-boladak irteten ikusiko ditugu eta haren ile zuri bakoitza, atseginez eta zorionez beteko gaituen eguzkia izango da!... Ametsa al da, ba, bizitza⁵?... Eta amets honekin arimak salba ditzakegula pentsatzea!... Ene Zelina, ez ditzagun arimak ahaztu, ahaztu dezagun geure burua haien alde, eta egunen batez, Jesusek, guri begira esango du: "Zein ederra den arima birjinen belaunaldia!"⁶.

1 Ko 7,31

Kt 4,6

Jkd 4,1

Besarkada handi bat nire Maritxo, Leonia eta guztiei. Zuk, Zelina, badakizu nire bihotzean zein leku duzun!...

Teresa Jesus Haurarena [eta] Aurpegi Santuarena
lek. karm. apal.

TG 131

La Néele andreari (Joana Guérin)

1891-X-17

J.M.J.T.

Jesus †

Karmelen, 91ko urriak 17

Neure Joana maitea:

Ez dakit nola eskertu zure arreta fina.

Asko hunkitu nau Frantziskoren izena Joanarenarekin batera zetorrela ikusteko eta horrexegaitik, bioi eskaintzen dizuet nire eskerron hau.

Nire Jainko-Senar arduratuko da ene zorra ordaintzeaz. Beragatik naiz txiro eta ez dut uste maite ditudanentzako eskatzen dudana ukatuko didanik.

Jakin ezazu, ene Joana maitea, zure ahizpa txikienaz ahaztutzen ez baldin bazara, berak ere zu gogoan zaituela, eta badakizu, karmeldar batentzat gogoratzea eta maitatzea, otoitz egitea dela. Nire otoitz kaxkarrek ez dute balio handirik, baina Jesusek entzungo dituelakoan nago eta otoitz hauek egiten dituenari baino otoitzok zuzentzen dizkiedanei begiratzea itxaroten dut. Horrela eginez gero, nire eskakizun guztiak onartu beharrean aurkituko da. Jainkoak laster bere aita bezain ona den Isidoro txikitxo bat edo amaren antz-antzekoa den Joanatxo bat bidaliko duelakoan nago... Farmazia saldua¹ izan dadin ere eskatzen dut. Nire ahizpatxoaren eta nire lehengusuaren zorientasun osoari ezer ez falta izatea nahi nuke. Lurrean beti izango da hodei txikiren bat, bizitza ezin baita igaro hodeirik gabe eta zoriona zeruan baita

⁵ Avilako Santa Teresa, "Biotz-Oiua", 13.

⁶ Birjinen Ofizioko testua.

¹ Caen-go La Néele medikuaren farmazia.

bakarrik bete-betea. Hala ere, eta ahal den neurrian, Jainkoak maite ditudanei bizi-tzak berez dituen ezin kenduzko nahigabeak gutxitu diezazkien nahi nuke, baita, beharrezkoa balitz, maite ditudan hauentzat dituen zorigaitzak niregana egotzi beharko balitu ere.

Ahizpa Maria Jesusen Bihotzarenak, bitxi-ontzirako bidali zenuenagatik esker-rrak emateko eskatu dit. Egia esan, oso detaile fina izan duzu; izan ere, gure Amak lantxo hori zuri eskaini ahal izateko zoriona izan du. Ez zait neure ahizpen eta neure izenean eskerrak emateko eta zuri eta gure lehengusu maiteari maite zaituzte-dan ziurtasuna bidaltzeko lekua baizik gelditzen: zure azken ahizpak maite zaitue-lakoaren ziurtasuna, azkena baldin bada ere, hark aitortzen dizun samurtasuna txi-kiena ez dela jakinik...

Ahizpa Teresa Jesus Haurrarena
lek. karm. apal.

TG 132

1891-X-20

Zelinari

J.M.J.T.

Jesus †

Karmelen, 1891ko urriak 20

Neure Zelina maitea:

Karmelen sartu nintzenetik laugarren aldiz zoriontzen zaitut zeure santu-egu-nean...

Uste dut lau urte hauetan are eta gehiago estutu direla lehendik elkartzen gin-tuzten harremanak. Bizitzan aurrerantz joan ahala, are eta gehiago maite dugu Jesus eta Jesusengan elkar maite dugunez gero, horra non gure maitasuna indartuz doan; gure arimen artekoa batasuna baino areago, *baterakuntza* delarik!... Zelina, zer esan diezazuket? Ez al dakizu guztia honezkero? Bai, "*Zelinak*" aurten zergatik lehenago loratu diren esango dizut. Zure santu-eguna dela eta bide batez, Jesusek gaur goize-an ulertarazi dit.

Ziur aski konturatuko zinen sekula ez dugula aurtengoa bezain negu gogorrik izan; hori dela eta, loreak berandu ireki dira. Gertaera hau berezkotzat joz, inor ez da harritu. Baina badago loretxo misterioitsu bat, Jesusek gure arimak argitzeko gorde duena eta lore hori, Zelina-lorea da... Gainerako loreak ez bezala, Zelina-lorea loretze-sasoia baino hilabete lehenago ireki da... Ulertzen al duzu, Zelina, nire loretxo maitearen hizkuntza, nire haurtzaroko lorea, oroitzapenen lorea?... Izozteek eta negu gogorrek loretxoaren irekidura atzeratu beharrean, erne eta loratu egin dute... Inor ere ez da gertaera honetaz konturatu, hain txikia eta distiragabea da izan ere loretxoa...! Erleek ezagutzen dute bakarrik loretxo honen kaliza misterioitsuak gordetzen dituen altxorak. Teresak, erleen antzera, misterio hau ulertu du: negua

sufrimendua da, ulertzen ez den eta gutxietsia den sufrimendua, mundukoiek alferrikotzat dutena, baina aingeruen eta Jesusen begientzat emankorra eta ahaltsua dena. Aingeruek eta Jesusek, erle begiraleen antzera, arimen sinbolo edo hobeki esan, birjin-loretxoaren umeen sinbolo diren kaliza misterioitsu eta ugarietan dagoen ezta jasotzen dakite... Zelina, liburuak eta liburuak beharko nituzke loretxo honi buruz pentsatzen dudan guztia idazteko, zure arimaren irudi garbia iruditzen baitzait! Bai, Jesusek bere pozbideko eguzki beroaren ordez, loretxoaren gainera izozteak bideratu ditu, baina Jesusek itxaroten zuen efektua gertatu da: loretxoa hazi egin da eta kolpe batez loratu... Zelina, lorea behin irekitzen denean, ebakitzea besterik ez da gelditzen, baina noiz eta nola ebakiko ote du Jesusek bere loretxoa?... Baliteke lore-hostoaren kolore arrosak martiritzan izango dela adierazi nahi izatea!... Bai, neure gurariak birjaiotzen¹ somatzen ditut; beharbada, Jesusek ontzat hartuko du maitasuna maitasunagatik eskatu digun antzera, nolabait esatearren, odola odolagatik eta bizitza bizitzagatik ere eskatzea... Bien bitartean, utz dezagun erleek kaliza txikietako ezta hurrupa dezaten, ez dezagun ezer gorde, eman diezaiogun den-dena Jesusi eta gero, berehala, lorearen antzera, honela oihukatuko dugu geure bizitzako arratsean: "ilunabarra, heldu da ilunabarra!"². Eta orduan, dena bukatua izango da... eta izozteen ondoren eguzki-izpi gozoak agertuko dira, Jesusen negar-malkoen ondoren, betiereko irribarreak...

Ene! Ez diezaiogun uko egin Jesusekin egun bakar batez negar egiteari, haren aintzaz gozatuko baitugu betiereko bizitzan!...

Loretxo maitea, ulertzen diozu zeure Teresari!...

TG 133

1891-XI-16

Guérin andreari

J.M.J.T.

Jesus †

Karmelen, 91ko azaroak 16

Neure izeba maitea:

Atsegin handiz datorkizu zure alabarik txikiena bere ahizpa nagusiagoekin zure santu- egunean zoriontzera.

Urtero izaten naiz pozez zorutzen azaroaren 19ko egunaren zain. Egund hau, niretzat oroitzapen gozoz jantzia izateaz gain, aberatsa da etorkizunerako itxaropenari dagokionean...

Bizitzan aurrerantz noan heinean, are eta gehiago ohartzen naiz ama baten festa- eguna zein ederra den. Ene, sekula sentitu ez dudan poz hau, Jainkoak betiko erauzi zidala esan daiteke! Baina xerarik eskaini ezin izan zidan hark, zeru goiene-

¹ Ik. Otoi. 2, 5.zenb.

² Zelinarean "La Rosée" poesiaren aipua.

atik, oso maite zuen amaren bihotzari, ama batek bere alabatxoarenganako izan behar duen samurtasuna erakutsi zion; eta harrezkero, nik neuk ere, ama maitea zoriontzan sentitzen den gozotasuna atseginez jaso ahal izan dut...

Nire izebatxo maitea, Karmel mendian dagoenetik, zure Teresa alabatxoak askotzaz argiroago sentitzen du, ahal den neurrian, zuri aitortzen dizun maitasuna. Zenbat eta Jesus maitatzen gehiago ikasi, are eta handiagoa bilakatzen da bere ahai-de maiteekiko duen maitasuna ere.

Gure Ama onak atseginez zure festa egunerako eginarazi dituen oparitxoak¹ nik baino hobeto adieraziko dizute esatera heltzen ez naizena. Nire bihotza zirrarez betetzen da antolatze-lan fina eta polita ezik, beste baliorik ez duten baina Jainkoak eraman² digun hark oso maite zituen iletxo hauek ikustean... Ulertzen al duzu, ene izeba maitea? Pozik nago aitak hain gogotik jaso izango zituen ile-adats horiek, mundu honetan nire aitaz gain gehien maite dudan pertsonari eskaintzen zaizkiola ikustean!

Nire izebatxo maitea, eskutitz hau ez da zorionaz eta bizipozaz bakarrik hitz egin behar den ohiko zorion-eskutitza. Nik ez dakit bihotzaz baizik hitz egiten, bihotza bera da idazluma gidatzen didana, eta ziur nago gainera, eskutitz hau zuzentzen diodan amaren bihotzak, gutuna ulertu ezezik, asmatu ere egingo duela azaltzen ez dakidana...

Nire izeba maitea, eskutitza bere amaierara eraman beharrean aukitzen naiz, baina aurretik nire laztan guztiak bidali nahi dizkizut eta zure alabei zera esateko eskatzen dizut, nire orde zuzen musu handi bana eman diezazutela. Ondo baino hobeto dakit, eskatzen didan mandatu honekin pozik egongo direla eta behar den bezala beteko dutela...

Zure alabatxoak zorionik beroenak bidaltzen dizkizu berriro eta zera eskatzen dizut, ene izebatxo maitea, zure alabaren bihotzeko samurtasunaz ziur egoteko...

Ahizpa Teresa Jesus Haurrena
lek. karm. apal.

TG 134

1892-IV-26

Zelinari

J.M.J.T.

Jesus †

1892ko apirilak 26

Neure Zelina maitea:

Karmelgo belardiak aurtan, zure hogeita hirugarren urtebetetze egunean, pozez eskaintzen dizudan opari sinboliko bat eman dit... Behin, bitxilore apalek

¹ Teresak abitua hartzerakoan ebakitako ile-adatsak marko batean sartuko ditu.

² Martin jauna harro-harro zegoen bere "erlastartxo ile horiaren" adatsaz; ik. TG 77.

zurizatzen zuten belartxo artean, zurtoin lerdeneko bitxilorea ikusi nuen, gainerako guztiak baino ederragoa zena. Harengana hurbiltzean, eta neure harridurarako, baten ordeztu bi bitxilore zeudela konturatu nintzen, gutuz ezberdinak biak. Bitxilore bien zurtoinak lotu-lotu eginda zeudela antzemateak, berehala, *gure arimen* misterioaz pentsarazi zidan... Eta zera ulertu nuen: Jesusek izadian, gure oin artean, hain edertasun zoragarriak ernearazten baditu, misterioak ulertzen laguntzeko baizik ez duela egiten, Jesusek noizbehinka arimetan sortarazten dituen eta goragoko ordena batean ezkutaturik dauden misterioak ulertzeko... Zelina, uste dut honezkero ulertu diozula zeure Teresari. Zure bihotzak berehala igarri du beste honetan gertatzen dena, zeurea baita hain loturik dagokizun hau, bat bera baita bi bihotzok elikatzen dituen kemena!... Dena dela, nire loretxoan ezkututzen diren misterio batzuetaz hitz egingo dizut.

Jesusek, gure ikusmena alaitzeko eta gure arimak argitzeko, milaka bitxilore txiki sortu ditu. Egunak argi egiten duenean, bitxiloreen arrosa-koloreko lore-hostoak egunsentiari begira, eguzkia noiz irtengo zain daudela dakust. Astro distiratsua bere argi- izpi epelak lore-hostoetarantz bidaltzen hasi orduko, loretxo lotsatiek kukuluak irekitzen dituzte, eta beren hosto politek koroa bat eratzen dute, beren bihotz horitxoak erakutsiz. Eta lore hauek, berehala, bere argiaz zauritzen dituenaren itxura hartzen dute. Bitxiloreak eguzkiari begira-begira ematen dute egun osoa eta eguzkiaren antzera egiten dute bira, arratsaldea iritsi arte; gero, eguzkia desagertzen denean lore-hostoak ixten dituzte eta zuri izatetik, berriro kolore arroxak hartzen dator...

Jesus da jainko-eguzkia eta bitxiloreak haren emazteak, birjinak. Jesusek arima bati begiratzen dionean, berehala ematen dio bere jainko-itxura; baina ezinbestekoa da arima horrek ere, *Jesusengan bakarrik* ezar dezan bere begirada.

Bitxiloreen misterioa azaltzeko liburuki oso bat idatzi beharko nuke, baina nire Zelinak den-dena ulertzen du. Horregatik, orain Jesusen gutuziei buruz hitz egin nahi diot...

Jesusek bere belardian bitxilore asko ditu, baina banaturik daude eta bakoitzak bere aldetik jasotzen ditu eguzkiaren izpiak. Egun batez, birjinen Senarra lurrean azaldu zen; irekitzeke zeuden bi lore-kuskutxo bateratu zituen; lore-kuskutxo hauen lore-hostoak bakar batean elkartu ziren eta begirada bakar batek hazi zituen. *Lore bakar* bat bihurtuko ziren loretxo hauek, batera ireki ziren, eta orain bitxilore bikoitz honek, begirada Jainko-Eguzkian duela, helburu bakar bat betetzen du... Zelina, zeuk bakarrik uler dezakezu nire hizkuntza. Sorkarien begietan gure bizi-tzak oso ezberdina dirudi, elkarrengandik banatua; baina nik badakit Jesusek gure bihotzak hain modu zoragarri batu dituela, non bihotz bati taupada eragiten diot, besteari dardar eragiten baitio...

"Altxorra non, bihotza han". Jesus da gure altxorra eta gure bihotzek gauza bakar bat osatzen dute harengana. Negar-malkoz estaliriko begirada berak liluratu ditu gure bihotzak eta bitxilore bikoitzak malko horiek xukatzea erabaki du; bitxilorearen lore-hosto apal zuria izango da harribitxi ederrak bilduko dituen kaliza, gero, halako pribilejiorik izan ez duten beste loreengan isuria izateko, azken hauek ez baitute beren bihotzaren lehen begirada Jesusengan ezarri... Baliteke, arratsalde batez bitxiloreak jainko-senarrari arrosaz¹ tindatutako bere lore-hostoa erakustea...

Mt 6,21

¹ Gerta daitekeen martiritzaz egiten den aipua, ik. TG 132.

Agur, Zelina maitea, bidaltzen dizudan loretxo hau erlikia bat da, Zelina eta Teresa bedeinkatu zituen gure Ama Jenofa² santuaren eskuetan egona baita...

Teresa Jesus Haurrarena [eta] Aurpegi Santuarena
lek. karm. apal.

TG 135

1892-VIII-15

Zelinari

J.M.J.T.

Jesus †

1892ko abuztuak 15

Neure Zelina maitea:

Ezin diot eskutitzari¹ joaten utzi hitz batzuk gaineratu gabe. Horretarako, Jesusi unetxo bat lapurtu beharrean aurkitzen naiz. Jesusek ez dit haserre egiten, berataz hitz egiten dugulako elkarrekin ari garenean, Jesus gabe gure solasaldiak ez baitu xarmarik² ...

Zelina, bakartade zabal horrek, aurrean azaltzen zaizun³ hodeiertz eder horrek, arimara gauza asko esan behar dizute, bada. Nik ez dakit hori guztiori nolakoa den, baina San Joan Gurutzekoarekin batera zera errepikatzen dut:

“Nere Maitea mendi jaikiak,
ibar bakarti tantaiz jantziak”,⁴ ... etab.

Maite hauxe da nire arimari irakasten diona eta isiltasunean nahiz ilunaldian mintzatzen zaiona... Azken honetan kontatu beharrean aurkitzen natzaizun honako pentsakizun hau etorri zait burura. Arimak salbatzeko zer egin nezakeen pentsatzen nengoen behin eta ebanjelioko pasarte batek argitu ninduen. Behin batez, uzta helduari begira, Jesusek honelaxe esan zien bere ikasleei: “Jaso begiak eta begira soroa nola dagoen, segatzeko zuriturik”. Eta handik geroxeago: “Egia esan, uzta handia da baina ez, ordea, langile-kopurua; eskatu, beraz, uzta-jabeari langile gehiago bidal ditzan”.

Hau misterioa!... Ez al da, bada, Jesus ahalguztiduna? Ez al da bera lurtarrak sortu dituen? Zer dela eta esaten du, beraz: “eskatu uzta-jabeari langile gehiago bidal ditzan”?... Zergatik?... Ene ba! Hain da ulertezina Jesusek gugatik sentitzen duen maitasuna, non arimen salbamenean berarekin batera egon gaitezen nahi baitu. Ez du gu gabe deus egin nahi. Unibertsoaren Sortzaile hau, arimatxo gaixo

² Ama Jenofa 1891ko abenduaren Sean hil zen. Bitxiloretxoa 1891ko udaberrian aurkitu zen, beraz.

¹ Ahizpa Aines Jesusenaren gutuna.

² Ik. *Kristoren Antz Bidea* II, 8, 1 eta III, 34, 1.

³ Zelina La Musse-n dago oporretan Guérindarrekin.

⁴ “*Kantu izpirituala*”, XIV. ahapaldia. Ik. 18. TO, 22+.

baten otoitzen zain dago, bere odol guztiaz berrerosiak izan diren gairako arimak salbatzeko.

Gure egitekoa ez da uzta heldua dagoen soroa segatzera joatea; Jesusek ez diosku: “*Jaitsi* begiak, begiratu sorook eta joan segatzera”. Gure helburua hori baino ederragoa da. Hona hemen Jesusen hitzak: “*Jaso* begiak eta ikusi...”. Ikusi nola nire zeruan leku hutsak dauden... Bada, zeuei dagokizue hutsune horiek bete-tzea... Zeuek zarete mendiko nire Moises otoizlariak; eskaiezazkidazue langileak, eta nik bidaliko ditut; ez du otoitz bat besterik, zuen bihotzetik ateratako hasperen bat baizik itxaroten!...

Ir 17, 8-13

Otoitzaren apostolutza, ez al da, nolabait esatearren, hitzarena baino gorago-koa? Gure helburua karmeldar garen aldetik, milioika arima salbatuko dituzten lan-gile ebanjelitzaileak heztea da, beraien amak gu geu izango garelarik...

Zelina, hitz hauek gure Jesusen hitzak ez balira, nor ausartuko litzateke sines-tera?... Hain ederra deritzot gure parte hartzeari!... Zer inbidia izan diezaiekegu apezei?... Bai gogoko nukeela pentsatzen dudan guztia esan ahal izatea! Baina ez dut astirik; ulertu esan ezin diezazukedan gainerako guztia!...

Zorionak eman Joanari lore-sortatxo batekin eta bion izenean bere santu-eguan⁵; araudiak guri ez digu horrelakorik egiten uzten, baina esaiozu, arrazoi horixe bera dela eta, are eta gehiago gogoratuko garela berataz. Besarkada handi bat guz-tiei nire partez eta esan bururatzen zaizkizun gauzarik gozoenak. Txilarra aurkitze-rik bazenu, benetan eskertuko nizuke.

Zure Teresatxo Jesus Haurarena
lik. karm. apal.

TG 136

1892-X-16

Maria Guérin-i

J.M.J.T.

Jesus †

Karmelen, 92ko urriak 16

Neure Maritxo maitea:

Familia osoaren izenean zorionak emateaz arduratu zarenez gero, uste dut zeuri eman behar dizudala eskerrak emateko eta batez ere nire izebari eskerrak emateko mandatua; lehenengo eta behin, gutuntxoogatik eta gure hornitzailea¹ asko poztu duen txokolate pakete handiagatik; gero, kafezko krema goxoogatik eta azke-

⁵ La Néele andrearen festa-eguna, abuztuaren 21ean ospatzen zuten.

¹ Ahizpa Aines Jesusena. “Hornitzailea” janariaz arduratzen zen.

nik, bere gaixozainaren gutuntxo maitagarri eta atseginagatik. Zalantzarik gabe, gaixozain honek berehala itzuliko dio osasuna nire izeba maiteari. Oratorio kaleko mediku txikiari² nire eskerronaren berri Mediku Handiari eta bere Joana maiteari eman diezaien erregutzen diot. Joana, gaixorik egon arren, nire santu-egunaz gogoratu da eta detaile horrek asko hunkitu nau.

Berriro gaixorik erortze txiki honek, zorionez, ez du Joanaren osasunean inolako ondorio txarrik izan, baina neure medikutxoari kontatuko diodan pentsamendu bat gogorazi dit. Uste dut Santa Ana onak ahaztua³ izan delako irudipena duela eta horrexegatik hasi dela beragana arreta erakarri nahirik. Zinez diotsut, harrezkerro hura gogora ekartzeak alde guztietan laguntzen didala. Pentsamenduz bada ere nire Caen-go ahizpatxo maitearekin nagoenean, berehala Santa Ana onbera datorkit burura eta nik maite dudanaren alde erregutzen diot.

Atseginez dakust, ene Maria maitea, Caen-go aireak ez zaituela tristurara eramaten. Ziur nago zure izaera alaiak (mediku-zientziak baino areago) laster sendatuko dituela gure bi gaixo maiteak.

Zu bezalako gozogile nabarmen batek egindako "erreginaren mokaduak", karmeldarrentzako baino jaki finoak iruditzen zaizkit; baina ez al zenezake zeure trebetasuna erabili, Joanak begiz irentsi beharrean, minik sentitu gabe jan ahal litzazkeen gozoki arinak egiteko?

Hementxe bukatuko dut, medikutxo maitea, nire idazkera traketsa barka dezazun eskatuz. Besarkada handi bat nire partez familia osoari eta eskerrik beroenak bidali dizkidaten gozoki guztiengatik, hain ugari ziren, non beldur bainaiz bat edo beste ahaztuko zaidan.

Eska iezaiozu nire izeba maiteari nire orde zure aurpegitxoan musu handi bat utz diezazun eta zure ahizpatxoaren samurtasunean sinets dezazun.

Teresa Jesus Haurarena
lek. karm. apal.

TG 137
1892-X-19

Zelinari

J.M.J.T.

Jesus †

Karmelen, 1892ko urriak 19

Neure Zelina maitea:

Antzina, haurtzaroan, gure-santu eguna noiz etorriko zain egoten ginen elkarri egiten genizkion oparitzoak jasotzeko. Gauzarik txikiak ere izugarritzko balioa

² Maria Guérin. Mediku Handia Frantzisko La Néele zen.

³ La Néele jaun-andreak Sainte-Anne-d'Auray-ra erromesaldia egin zuten, ume bat izateko grazia lortzeko.

zuen orduan guretzat... zeharo aldatu da jadanik garai hura. Txoririk gazteenari hegoak hazi zitzaizkionean, haurtzaroko bere habia gozotik alde egin zuen eta ameskeria guztiak aienatu ziren! Udaberriaren ondoren uda etorri zen eta bizitzako errealtateak gaztaroko ametsak itzali zituen...

Zelina, ez al ziren gure bihotzak lotzen zituzten harremanak une erabakior hortantxe bertan gehiago hestutu? Bai, banaketa hark hitzez adieraz ezin daitekeen era mingarri batez batu gintuen. Gure umetako samurtasuna, sentimenduen batasun eta arima nahiz pentsamenduen batasun bihurtu zen. Nork, bada, egin zezakeen mirari hau?... Ene bada, gure bihotzak elkarrekin lotu zituenak...! "Milakaren artean hautatutako Maite horrek... Bere lurrinen usaina nahiko du bere ondorik erakartzeko. Bere zantzuak jarraituz, neskatala gazteek aisa ekin zioten bideari"¹ (Kant. Ederrena).

Kt 5,10
Kt 1,3-4

Jesusek biok batera erakarri gaitu, bide ezberdinetan barrena izan bada ere. Elkarrekin jarri gaitu munduko gauza hauskor guztien gainetik, haren irudia ahaztu egiten delarik. Nolabait esatearren, *gauza guztiak* geure oinpean jarri ditu. Zakeoren antzera zuhaitz batera igo gara Jesus ikusteko... Beraz, San Joan Gurutzekoarekin batera hau esan genezake: "Den-dena da nirea, den-dena niretzat, lurra nirea da, zerua nirea da, Jainkoa nirea da eta Jainkoaren Ama ere bai"². Sarritan zera esaten harrapatzen dut neure burua: "Baina nire Ama Birjina maitea, zu Amatzat zaitudalako ni zu baino zorionsuago naizela iruditzen zait, zuk ez baituzu *Ama Birjina bat maitatzeko*³ ... egia da zeu zarela Jesusen Ama, baina Jesus hori oso-osorik eskaini diguzu... eta Jesusek gurutzean zegoela, gure amatzat izendatu zintuen. Horregatik gu zu baino aberatsagoak gara, Jesus geurea baita eta zu ere bai. Hasiera batean, apaltasunez, Jainkoaren Ama izatearen ohorea zuen Birjina dohatsuaren zerbitzari-txoa izan nendin nahi zenuen zu, eta hona hemen ni, gaixoa, ez naiz zure zerbitzaria bakarrik, baita zure alaba ere, zeu baitzara Jesusen Ama eta nire Ama!".

1 Ko 7,31

Lk 19,4

Zalantzarik gabe, Ama Birjina santuak irribarre egingo du nire xalokeriaz, baina diodana ez da egia hutsa baizik!...

Zelina, hau miraria Jesusengan dugun handitasuna!... Hona hemen Jesusek erakutsi digun guztia duela gutxi aipatzen nuen zuhaitz sinbolikora igoaraziz! Eta orain, zer zientziã berri erakutsiko digu? Ez al digu, bada, den-dena erakutsi?... Entzun dezagun dioskuna: "Jaitsi bizkor zuhaitzetik, zuenea ostatu hartu beharra dut eta".

Lk 19,5

Nola? Jesusek jaisteko diosku!... Baina noraino jaitsi behar dugu? Zelina, zuk nik baino hobeto dakizu; hala ere, utz iezadazu Jesusi noraino jarraitu behar diogun esan diezadun. Behin batez, juduek zera galdetu zioten gure Jainko-Salbatzaileari: "Maisu, non bizi zara?" eta honek erantzun: "azeriek haitzuloak dituzte, txoriek habiak, baina nik ez dut burua non etzanik". Hona hemen noraino jaitsi behar dugun Jesusi ostatu eman ahal izateko: non etzanik ez izateko eran txiro izateraino.

Jn 1,38

Mt 8,20

Hona hemen, ene Zelina maitea, bakarraldian Jesusek nire ariman erein duena... Ulertuko duzunez, barruaz ari naiz. Kanpoari dagokionez, Caen-eko proba guztiz mingarriaz ez al da guztiz ezerezera etorri?... Gure aita maiteari dagokionez,

¹ San Joan Gurutzekoa, "*Kantu izpirituala*", XXV. ahapaldia; ik. A Esk, 47ⁱ / 48^a.

² "Arima maiteminduen otoi-tza".

³ Ik. KH 11.VIII.4.

Jesusek gure bihotzaren kanpoaldeko gunerik minberenean zauritu gaitu. Orain utz diezaiogun lanean, berak jakingo baitu bere lana gure arimetan bukatzen...

Jesusek, geure bihotzetan har dezagun nahi du. Egia esan, haiek jadanik sorkariz huts-hutsik daude; baina ene bada, nire bihotza ez dagoela guztiz hutsik somatzen dut eta horrexegatik agintzen dit Jesusek jaisteko... Erregeen erregea hainbeste beheratu zen, non haren aurpegia estalia baitzen eta inork ere ez baitzuen ezagutzen... Ni neuk ere aurpegia ezkutatu nahi dut, nire Maiteak bakarrik ikus dezan nahi dut, nire malkoak berak bakarrik konta ditzan... Senti dezala gutxienez, bere buru maitea nire bihotzean makur dezakeela eta jakin dezala, ezagutzen eta ulertzen dugula!...

Zelina, ezin dizut nahi nukeen guztia esan, nire arima ez baita gai... Ene ba, ahal banu!... Baina ez, hau ez dago nire esku... Zer dela eta nahigabetu? Ez al duzu zuk beti nik pentsatzen dudana pentsatzen?... Horrexegatik igartzen duzu esaten ez dizudan guztia, Jesusek jakinarazten baitio zure bihotzari. Gainera, ez al du Jesusek bekatarren gaiztakeriez kontsolatzeko zure bihotza bere etxetaz hartu? Bai, arimaren bakarraldi ezkutuan irakasten digu bioi batera, bertan gehiago ilunabarrik izango ez duen eguna ikusaraziko digularik!...

Zorionak! A, bai atseginez zorionduko zaituela egunen batez Teresak zeruan!...

TG 138

1892-XI-17

Guérin Andreari

J.M.J.T.

Jesus †

Karmelen, 1892ko azaroak 17

Neure izeba maitea:

Zure alabarik gazteenak ez du bere burua gai ikusten zureganako duen samurtasuna eta zuri opa dizuna adierazteko. Baina ama baten bihotzak laster igartzen du bere alabatxoaren ariman gertatzen ari dena; hori dela eta, izebatxo maitea, ez naiz saiatuko zuk aspaldidanik ezagutzen dituzun sentimenduen berri ematen.

Aurten Jainkoak nire bihotza pozez bete du, aitatxo maiteari bere erbestetik itzularaztean¹. Iragandako urte mingarriez gogoratzean, eskerronez gainezka jartzen zait arima. Ezin naiz kexatu honezkero igaro diren sufrimenduengatik; hain leialki zerbitzatu duen eta hainbeste maite izan duenaren bekoki agurgarrian laster Jainkoak jarriko dion koroa burutzen eta edertzen duten nahigabe guztiez...

Nahigabe hauek, gainera, Jainkoak eman zizkidan ahaideen bihotzetan ezkututako samurtasunezko altxorak hobeto ezagutzen irakatsi didate. "Jainkoaren

¹ Martin jauna Lisieux-era ekarri dute berriro 1892ko maiatzaren 10ean.

bihotzaren eginkizunik ederren eta bikainena, Amaren bihotza da"². Pentsamendu hau zein egiazkoa den konturatzen naiz eta eskerrak damaizkiot Jainkoari, sentimendu hau hain goxoki esperimentatzen utzi didalako.

Izebatxo maitea, zure gurekiko bihotza ama batena bada ere, nik zera diotsut, alabatxo honek ere alaba bati dagokiona duela; horregatik, alaba honek Jesusi zera eskatzen dio, dohain eta laguntza guztiak eskain diezazkizun, alaba batek bere ama maitearentzat irrikatzen duen era berean. Askotan, isiltasunak bakarrik azal dezake nire otoitza, baina sagrarioko jainko-ostatuskoak den-dena ulertzen du, baita esker onez gainezka dagoen alabaren arimako isiltasuna ere!...

Nire izeba maitearen festa-egunean joaterik ez badut ere, nire bihotza haren-gandik oso hurbil egongo da eta inork ez dio nik bezainbat samurtasun eskainiko.

Nire osaba onbera eta nire ahizpatxo maiteak besarkatzeko eskatzen dizut, ene izeba maitea.

Hementxe uzten zaitut, ene izeba maitea, alaba bat bere amari lotzen zaion bezala lotzen natzaizularik.

Maite zaituen zure alabatxo

Ahizpa Teresa Jesus Haurarena
lek. karm. apal.

TG 139
1892-XII-30

Guérin jaun-andreei

J.M.J.T.

Jesus †

Karmelen, 92ko abenduak 30

Neure osaba-izeba maiteak:

Oso gozo egiten zaio zuen etxeko gaztetxoeneri hastear dagoen urteberria zoriontzera zeuengana joatea.

Ez noa hemen neure senideei zer opa diedan azaltzen hastera, luzeegia litzateke eta; gainera, bihotzak sarritan hitzez azal ezin daitezkeen gurari esko izaten ditu. Badira Jainkoak bakarrik uler edo antzeman ditzakeen gurariak ere. Berari nahi dizkiot, beraz, esan, nire bihotzak maite dituentzat egiten dituen eskariak.

Sarritan, gure Jaunaren oinpean nagoenean, neure arimaren eskerrona gainezka somatzen dut, Jainkoak hain senide onak ematean zein grazia handia eskaini didan pentsatuz.

Ez daukat ahazturik urtarrilaren bian nire osaba maitearen urtebetetze-eguna dela. Harro nago bere egun berean jaioa naizelako, eta bere Teresatxoren alde otoitz egitea ahaztuko ez zaiolakoan nago, laster hogeituro urteko zahartxoia egingo da eta. Zein bizkor doan denbora!... Atzo zela iruditzen zait, osabak bere belaunetan salta-

² Mgr Dupanloup, *Conférences aux femmes chrétiennes*.

ka eragiten zidanean; ia-ia beldurrez¹ hiltzeko moduko begi izugarriekin Bizar Urdin-en erromantzeak kantatuz. “*Mirlitir-en doinutxo*” nuen gogokoena. Kanta hartaz gogoratze hutsarekin barrezka hasten naiz gaur oraindik.

Ikus dezakezuenez, ene osaba-izeba maiteak, urteen igarotzeak zuen alabatxori ez dio oroimena galdu; alderantziz, gaztaroko oroitzapenek beretzat xarma berezia duteneko adinean dago...

Nire senide maiteak, maite ditudanak nire partez zorion ditzazuen erregutzen dizuet; ez dut inor izendatuko, gelditzen zaidan orri zatian ezingo baintuzke denak aipatu, baina bihotzean denen izenak ditut idatziak, eta den-denek dute bertan leku.

Bihotz-bihotzez maite zaituzten zuen iloba ZAHAR


Ahizpa Teresa Jesus Haurrarena
lek. karm. apal.

¹ Ik. A Esk, 18^a.

SEIGARREN AROA

AMA AINES JESUSENAREN PRIORETZA

(1893ko otsaila - 1896ko martxoa)



TG 140

1893-II-20

Ama Aines Jesusenari

J.M.J.T.

Jesus †

1893ko otsailak 20

Neure Ama maitea:

Bai gozoa dela niretzat zuri Ama deitzea!...Aspaldidanik zinen jadanik nire *Ama*, baina bihotzaren isilpean bakarrik ematen nion nik izen gozo hau nire *aingeru guardakoa* eta nire ahizpa zenari. Gaur Jainkoak *gantzutu* zaitu... Nire Ama zara benetan eta halaxe izango zara betiko bizitzan... Ene, zein ederra den egun hau zure alabarentzat!... Egun honen gainean Jainkoak bota duen estalkiak¹ are eta distiratsua go egiten du nire begien aurrera! Aurpegi agurgarriaren zigilua zuregan inprimatu da eta lore-sorta misteriotsuaren² usaina zuregan isuri da. Inongo zalantzarik gabe, beti halaxe izango da: "Aurpegia ezkutaturik zuen hark", oraindik ostia zuri txikian ezkutaturik dagoen eta *estalirik* baizik arimei mintzatzen ez zaien hark, berorren jainko-aurpegiaren *apostolu* maitearen bizitza osoarengan, berak bakarrik zeharkatu ahal izango duen estalki misteriotsua isuriko du...

Is 53,3

Bai, Ama Jenofaren izpiritua zeure baitan³ bizi da, eta haren hitz iragarlea bete da⁴. Hogeita hamar urtekin bizitza publikoa egiten hasi zara. Ez al zinen zu zeu izan, Karmeldar guztiak eta beste hainbat arima errukarri, gure santa fundatzailearen bizitzako detaile hunkigarri eta *poetikoekin* poztasunez hornitu zuena?... Baina Jesusek nire Ama maiteari jadanik *begiratu estali* bat egina zion eta ez zuen utzi ezagutua izan zedin⁵, "bere aurpegia ezkutaturik zegoelako"!...

Is 53,3

¹ Estalki hau, priore berriaren negar-malkoak dira, bere hunkiberatasunak sortuak, edo eta baliteke, aukeratua izateak eragindakoak izatea.

² 1890ean ahizpa Aines Jesusenak eginiko Aurpegi santuari eginiko otoitz sinbolikoaren aipua.

³ Teresak Delatroëtte kalonjearen aholkuaren zantzua dakarkio priore berriari komunitate guztiaren aurrean, aukeratua izan bezain laster. Ik. *Bestelako idazkiak*.

⁴ Profezia honi buruzko testu idatzirik ez da aurkitu.

⁵ Teresak, Ama Jenofari (1891an hila) eskainiriko Ama Maria Gonzagarena prioreak sinatu eta Ama Aines Jesusenak idatzitako notaren aipua egiten du.

Egun hau lurrean hain ederra baldin bada, zer nolakoa izango ote da zeruan? Gure amatxo maitea zorionez (amak maite zuen eta erabat erakartzen⁶ zuen) Paulinari begira dagoela ikustea iruditzen zait; Ama bihurtzen ikusten du, birjina askoren Ama, hauen artean bere ahizpak daudelarik. Hau misterioa!...

Orain arimen santutegian sartuko zara, eta bertan, Jesusek eskaini dizkizun graziatzko altxorrak isuriko dituzu. Egia esan, sufritu egingo duzu... Edontziak txiki-ekiegiak izango dira bertan utzi nahiko duzun usain ederra uzteko; baina Jesusek ere ez du musika-tresna txiki-txiki batzuk baizik bere maitasun melodia jotzeko eta hala ere, badaki aurkezten zaion guztiaz baliatzen! Zu ere Jesus bezalakoa izango zara!... Ahizpatxoa, Ama maitea, nire bihotza, zure alabaren bihotza lira *txikitxo* bat da; harpa jotzeaz nekatzen zarenean, zeure *liratxoa* hartzera etorriko zara, eta ukitu hutsa eginez, zuk nahi duzun doinua joko du... Zure hatz sagaratuen ikutu hutsarekin berak ULERTUKO du, eta bere melodia ahula zeure bihotzaren kantuarekin nahasiko da...

kt 4,6 Ene Ama nirea, zer nolako gauzak esan nahi nizkizukeen! Baina ez, zuk *den-dena* dakizu... Egunen batez, gerizak iragan daitezenean, nik zure bihotzean hartuko dut atsedean eta izen gozo hauxe errepikatuko dut: *Ama nirea*.

TG 141

1893-IV-25

Zelinari

J.M.J.T.

Jesus †

Karmelen, 1893ko apirilak 25

Neure Zelina maitea:

Gaur goizean izan dudun pentsakizuna kontatzera noakizu, edo hobeki esanda, zure arimarentzat Jesusek duen nahia zein den kontatuko dizut...

kt 2,1 Gure arimen lagun bakarrarekin batera zutaz pentsatzen dudanean, xalotasuna da beti zure bihotzaren ezaugarritzat agertzen zaidana... Zelina!... Zelina-lore xume eta txikia, ez dezazula lorategietako loreen inbidiarik izan... Jesusek ez zigun esan: "Ni naiz *lorategietako lorea*, landatutako arrosa", beste hau baizik: "Ni zelaietako Lorea eta haranetako Lilia naiz"¹. Hara, bada, gaur goizean sagrarioaren aldamenean, Jesusen loretxoa den nire Zelinak zera izan beharko lukeela pentsatu dut: beti *ihintz tantatxoa* izan eta haranetako Lili paregabearen jainkozko lore-hostoan ostenduta gorde beharko litzatekeela.

Ihintz tantatxoa, zer gauza xume eta garbiagorik? Ihintza ez dute *hodeiek* eratu, ihintza loreen gainean pausatzen baita zeruaren urdina izarreztatua dagoene-

⁶ Martin andrearen begiko alaba Paulina zen, aitarena, berriz, Maria.

¹ Bibliako "Zelaietako lorea" adierazpena zortzi aldiz agertzen da eskutitz honetan; "Haranetako lilia", ordea, lau aldiz.

an. Ezin da euriarekin konparatu, azken honi edertasun eta hezetasunean irabazten dionez gero. Ihintza gaeuz baizik ez da izaten; eguzkia bere izpi epelak bidaltzen hasten deneko, zelaiko belarraren ilaun puntetan distiratzten duten perla ponpoxak iragazten ditu, eta ihintza lurrin bilakatzen da. Zelina ez da hodeien bidez eratutako ihintz tantatxoa, zerutik jaitsitakoa baizik, huraxe baita bere erreinua. Bizitzaren *gauean*, haren helburua *zelaietako Lorearen* bihotzean ezkutatzea da; giza begiak ezin du aurkitu eta tantatxoa duen kalizak ezagutuko du bakarrik haren hezetasuna.

Zorionekoa zu, Jesusek baizik ezagutzen ez zaituen ihintz-tantatxoa!..., ez zaitetz gizakien harridura sortzen duten ibai ozenen bidea aztertzen gelditu, eta ez ezazu belardian kizkurtzen den erreka garbia inbiditu. Errekaren marmarra gozoa da benetan, baina gizakiek entzun dezakete eta gainera, zelaietako Lorearen kalizak ezingo luke eduki. Ezin du Jesusena bakarrik izan. Jesusena izateko, txikia izan behar da, ihintz-tantatxoa bezain txikia! Ene, oso arima gutxi daude hain txiki gelditzea baizik itxaroten ez dutenak!²... Baina ibaia eta erreka ihintz-tantatxoa baino onuragarriagoak ez al dira, ba? -esango dute beraiek-. Zertarako balio du ihintz-tantatxoak? Ez du balio gaur zelaian dagoen baina bihar desagertuta egongo den lorea unetxo batez hezetzeko baizik.

Mt 6,30

Zalantzarik gabe pertsona hauek zuzen dabilta, ihintz-tantatxoak ez baitu horretarakoxe baizik balio. Baina beraiek ez dute ezagutzen gure erbesteko lurrean bizi eta bertan bizitako gau motza igarotzea erabaki duen basa Lorea. Ezagutuko balute, Jesusek behin Martari eginiko errieta ulertuko lukete... Gure bihotzeko Maiteak ez du gure pentsamendu handien eta lan paregabeen beharrik; ezta pentsamendu gorenarik ere: ez al ditu horretarako bere aingeruak eta izpiritu zerutiarren taldea, haien zientzia gure lur tristeko genio handiena baino haragokoa delarik?...

Lk 10, 41-42

Jesus ez zen adimen eta dohain handikoen bila etorri lurrera. Xalotasuna maite duela erakusteko bilakatu zen zelaietako Lore. *Haraneko* Liliak ez du ihintz-tantatxoa besterik nahi... Horrexegatik sortu du Zelina izeneko bat...! Bizitzaren gauean giza begiradetatik gordea egon beharko du, baina geriza makurtzen hasten denean, zelaietako Lorea justiziazko Eguzki bilakatzen denean eta bere erraldoi-zeregina burutzeratorrenean, ihintz-tantatxoa ahanzi egingo al du?... Ez horixe! Aintzan ager dadinean, erbesteko bere neska-laguna ere aintzatsu agertuko da. Jainko-Eguzkiak neska-lagunarengan maitasunezko izpi bat geldiaraziko du eta berehala, ihintz-tantatxoa aingeru eta santu txundituen begiraden aurrean agertuko da eta diamante bikain baten antzera egingo du distira; eta justiziazko Eguzkia isladatuz, azken honen pareko egingo da. Hau ez da dena, hala ere. Jainko-Astroak, ihintz-tantatxoari begiratu eta bereganatu egingo du eta ihintza lurrin arina³ bezala igoko da betiko Maitasun sorgabearen altzo sutsuan finkatuz eta hantxe geratuko da Jesusekin bat eginik. Lurrean Jesusen erbesteko eta mesprezuen neska-lagun leiala izan zen bezalaxe, zeruan ere halaxe aginduko du sekula betiko...

Kt 4,6

Mt 4,2

Sal 18,6

Kol 3,4

1 Jn 3,2

² "Rester petite": Teresak adierazpen hau erabiltzen duen lehen aldia da, honek haren izpiritalitatearen bidea markatzen duelarik; ik. C Esk, 3^a, supra, 23.zenb. Teresak ez du bere formula behin betikoa 1895 (TG 178) edo 1896 (TG 182)-rarte asmatuko: "haurra izaten jarraitu, haurtxoa izaten jarraitu".

³ Ik. KH 7.IV.1. San Joan Gurutzekoagan ere ideia bera ageri da, *Kantu izpirituala*, XXXI. ahapaldia.

Jn 4,7

Bai harrituko direla ihintz-tantatxoa mundu honetan alferrikotzat jo zutenak! Beren aitakia zera izango da: *Jainkoaren dohaina* ez zaiela agertu, ez zituztela beren bihotzak *zelaietako Lorearengana* hurbildu eta ez zituztela ezin eutsizko hitz hauek entzun: "Emaidazue edaten". Jesusek ez die arima guztiei dei egiten ihintz-tantatxoak izan daitezen. Gizakiek preziatzen dituzten likore bikainak egon daitezten nahi du, gizakiek dituzten beharrizanetan goza ditzaten. Baina beretzat ihintz-tantatxo bat gordetzen du, horixe da bere nahi guztia.

Zein pribilejio handia hain misio handirako deitua izatea!... Misio hori betetzeko, hala ere, zein *xaloa* izan behar duzun!... Jesusek badaki lurlean garbi irautea oso zaila dela eta horrexegatik nahi du bere ihintz-tantatxoek beren burua ahantz dezaten. Berak bakarrik begiratzen ditu eta ihintz-tantatxoek beren balioa ezagutzen ez dutenez gero, gainerako gizakien azpitik estimatzen dute beren burua... Hona hemen haranetako Liliaren nahia. Ihintz-tantatxoak, Zelinak ulertu du... Helburu honetarakoxe sortu du Jesusek Zelina, baina ez du bere ahizpatxo gaixoaz ahaztu behar; Jesusek ulertarazten diona egiteko graziak eskuratu behar ditu, egunen batez, ihintz-tantatxo biak maitasunezko eguzki-izpi berak lurin ditzan, eta lurlean beti bat izan diren bi ihintz batera, Jainko-Eguzkiaren⁴ altzoan beti-betiko elkarturik egon ahal izan daitezen.

Teresa Jesus Haurrarena [eta] Aurpegi Santuarena
lek. karm. apal.

⁴ Zelinak Caen-dik eskerrak damaizkio bere ahizpari apirilaren 28an. Hona hemen haren erantzunaren zati bat: "Nire Teresa, nire Teresa maitea, ene maitea! ez dakizu ongi zer pentsatzen dudan, zenbat denboraz egoten naizen gogoetak egiten eta zenbat aldiz egunean zehar pentsatzen dudan zure Zelinari bihotzera marmarikatzen diozuna..."

'Ihintza izatea, zelaietako Lorearen ihintz-tantatxoa...' Ene Teresa, ondo baino hobeto ulertu arren, nire arima leizerik sakonenean murgiltzen da... jakingo bazenu! Ez, sekula ezingo nizuke kontaktu gai honi buruz nire baitan gertatzen den guztia. Orain, ez dut ezer behar, eta ezerk ez nau aseko, zelaietako Lorearen kaliza freskatuko duen ihintz-tantatxoa izateak baizik. Zure gutuneko hitz bakoitza mundua da nire bihotzarentzat...

Baina isiltzera noa, nahiago baitut isilean gogoeta egitea, hitzik ez duenari buruz hitz egitea baino. Ihintz-tantatxoa beti, eta gauza guztietan, indargea da, zelaietako Loreari edaten emateko izan ezik... Teresa! Gu biok ez al gara zelaietako Lorearen kalizako bi ihintz-tantatxo? Eta zuk badakizu, bi ihintz-tantatxo elkarren aldamenean daudenean, bata bestearen antzean, ezin dutela elkarrekin nahasi gabe eta ihintz-tantatxo bakar bat eratu gabe iraun. Beraz, 'Teresa-Zelina' ihintz-tantatxo bakarra du, zelaietako Lorearen kaliza pozik dago, beretzat ozeanoa baita!

Paulinak bere gutunean 'Zelinaren maitasuna askoz ere estimatuagoa da Jesusentzat gaizkileen gorrotoa baino. Eta Zelinaren arimaren kezu bakar batek bekatarien birao oro ahantzaztzen dizkio' diosta. Egia da, beraz, ihintz-tantatxo bat nahikoa duela Jesusek, bat bakarra! Horrek Jesus poztu egiten du eta egarria asetzen dio... Teresa, nire Teresa laztana, ezin nizuke sentitzen dudan oro kontatu, gehiegi baita. Ni, oso gaizki azaltzen naiz, baina uler jezadazu!" (Teresari, CG 152).

TG 142

Zelinari

1893-VII-6

J.M.J.T.

Jesus †

Karmelen, 1893ko uztailak 6

Neure Zelina maitea:

Zure bi eskutitzak nire bihotzarentzat doinu gozo izan dira... Zorionekoa sentitzen naiz Jesusen Zelinarengandiko begikotasuna somatzean. Nola maite duen eta *zein samurki begiratzen dion*... Orain bostok gaude geure bidean¹.

Nolako zortea zera esan ahal izatea: "Ziur dakit Jainkoaren nahia betetzen dudala!". Borondate santu hau argi eta garbi dago Zelinari dagokionean. Jesusek guztion artetik Zelina *hautatu* du, aitalehen santuaren koroa eta saria izateko, bere leialtasunez zerua liluratu duelako. Nola ausart zaitezke ahaztua izan zarela eta besteok baino gutxiago maitatua zarela esaten? Nik neuk diotsut bereziki HAUTATUA izan zarela, eta zure helburua bi aldiz da ederra, gure aitaren aingeru ikusgarria izateaz gain, era berean Jesusen emazte zarelako.

"Egia da -esango du beharbada nire Zelinak-, baina dena dela, nik besteek baino gutxiago egiten dut Jesusen alde, pozbide asko daukat eta, beraz, meritu gutxiago". "Nire pentsamenduak ez dira zuen pentsamenduak" dio Jaunak. Meritua ez datza gauza asko egitean edo asko ematean, jasotzean eta asko maitatzean baizik. Beti esan izan da askoz atseginagoa dela ematea jasotzea baino, eta egia da; Jesusek emaztearen *atsegina beretzat* gorde nahi duela jakinik, ez litzateke bat ere fina horri uko egitea. Utz diezaiozun nahi duen adina hartzen eta ematen, perfekzioa haren borondate² betetzean baita, eta arima Jesusen esku jartzen duenari "bere Ama, bere Arreba" eta bere familia deitzen dio. Eta beste nonbait zera dio: "Maite nauenak nire hitza beteko du (hau da, nire borondatea egingo du); nire Aitak maite izango du eta Aitarengana joanik, harengan egingo dugu geure bizilekua". Ene Zelina, zein erraza den Jesusen nahia bete eta haren bihotza liluratzea! Jesus maitatzea besterik ez duzu, zeure buruari eta hutsegiteei gehiegi begiratu gabe...

Zure Teresa une honetan ez da bere unerik onenean aurkitzen baina Jesusek, "bere baitan daukan *on eta txar* guztiak zerbait onuragarria ateratzen erakutsi dio"³. Maitasunaren banku-jolasean jokatzeko erakutsi dio, edo ez, hobeto esanda, Jesus da Teresaren ordezkari jolasteko duena, nola baliatzen den azaldu gabe, hori Jesusen arazoa baita eta ez Teresarena. Teresak egin behar duena utzi eta Jesusen esku jartzea da, beretzat ezer gorde gabe eta bankuak zenbat luzatzen⁴ dion jakiteaz ere poztu gabe. Dena dela, Teresa ez da Jesusen ume galdua; ez du, beraz, merezi Jesusek festarik opa diezaion, "beti bere aldamenean duenez gero".

¹ Leonia berrero Caen-go Bisitazioan sartu da ekainaren 24an.

² Ik. A Esk, 2i.

³ San Joan Gurutzekoa, "Jainkozko murgillaldi baten". Ik. A Esk, 83^a eta 30. TO.

⁴ Ik. CSG, 71.zenb.

Is 55,8

Eg 20,35

Mt 12,50

Jn 14,23

Lk 15,31

Lk 15,4 Gure Jaunak “ardi zintzoak basamortuan” utzi nahi ditu. Zenbat esaten didan esaldi honek...! Jesusek *ziurtasun osoa* dauka nire *ardienagan*; ardiok ezin dira desbideratu, maitasunaren menpe daude eta. Hori dela eta, Jesusek bere ageriko presentzia kentzen die bekatariei pozbideren bat emateko, edo bestela, Tabor-era bideratzen baditu ere, une labur baterako izaten da: haranak, normalki, bere atsedean leku dira, “hantxe hartzen du atsedean eguerdirarte”.

Mk 9,1 Gure bizitzaren goizaldea igaro da eta egunsentiak lurrindutako haize leunaz gozatu gaitu jadanik. Orduan, den-denak egiten zигun irri eta Jesusek bere presentzia gozoa sentiarazi zигun. Baina eguzkia indartu zenean, Maiteak “bere lorategira eraman eta nahigabearen mirra jasoarazi zигun” munduko gauza *guztietatik* eta Kt 5,1 berarengandik banatuz. Mirrazko muinoak gogortu egin gintuen bere usain mingotsarekin, eta horregatik Jesusek berriro jaitsiarazi zигun, eta orain haranean aurkitu-
Kt 4,6 ko gara. Jesusek leunki zuzentzen gaitu uretan zehar...
Sal 22,2

Zelina maitea, ez dakit ongi zer diotsudan, baina uste dut ulertuko didazula, eta asmatuko duzula zer esan nahi dizudan. Ene ba, izan gaitezen betiko Jesusen ihintz- tantatxoa! Hortxe baitago zoriona eta osotasuna...! Zorionez zeuri mintzatzzen natzaizu, gainerakoek ez bailukete gure hizkuntza ulertuko, eta ondotxo dakit, esaten ari naizena arima gutxi batzuentzat bakarrik dela egia. Esan bezala, zuzendariek bertutezko ekintza asko ezarri aurrerazaten dute perfekzioan, eta horretan zuzen daude; baina nire zuzendaria den Jesusek⁵ ez dizkit ekintzak kontarazten. *Den-dena* maitasunagatik egiten, ezer ere ez ukatzen; eta maite dudala erakusteko uzten dizkidan aukerengatik pozik egoten erakusten dit; hau guztiau bakean egiten da, *buru-uztean*⁶. Jesus bera da den-dena egiten duena, nik ez dut deus egiten.

Neure Zelinari lotua ikusten dut neure burua, uste dut ez dela oso ohizkoa Jesusengan bi arima hain ongi uler daitezen eta sekula bata bestearekin desadostasunik izan ez dezaten lortzea. Jesusen esku batek lira jotzerakoan, besteari ere dardar eragiten dio... Ene bada, egon gaitezen gure mendietako Jainko-Lorean ezkutatuturik, itzala heldu arte; utz dezagun gizakiek *likore*-tantatxoak dasta ditzaten. *Gure Liliaren* begiko garen bitartean, jarrai dezagun pozik asko bere tantatxoa izaten, bere ihintz-tantatxo *bakarrak*...!

Kt 2,1 Erbestean pozbide izan duen ihintz-tantatxo honengatik, zer emango ote digu berak erreinuan?... Jesusek zera diosku: “Egarri dena etor dadila *niregana*, eta edan dezala”. Horrela, bada, Jesus gure *itsasoa* da eta izango da... Orein egarrituaren antzera, gu geu ere agindu digun ur horrexen irrikaz gaude; baina gure poza handia da benetan gu geu ere Jesusen itsasoa garelako, haranetako Liliaren itsasoa...!

Kt 7,37 Zure bihotzak irakur dezake bakarrik eskutitz hau, niri neuri ere zail samar egiten baitzait argitzea... ez dut tinta gehiago, tintontzira ttua *bota* beharrean aurkitzen naiz idazten jarraitu ahal izateko... Ez al da hau barregarria?...

Sal 41,2 Besarkada handi bat familia osoarentzat, baina batez ere bere erreginaren partez Zelinarengandik musu handi bat jasoko duen nire Erregearentzat.

Ahizpa Teresa Jesus Haurrena [eta] Aurpegi Santuarena
lek. karm. apal.

⁵ Ik. A Esk, 71^a eta 80ⁱ.

⁶ Idazkietan hitz hau agertzen den lehenengo aldia.

TG 143

Zelinari

1893-VII-18

J.M.J.T.

Jesus †

Karmelen, 1893ko uztailak 18

Neure Zelina maitea:

Ez nuen oraingoan¹ zure gutunari erantzuteko asmorik, baina gure Amak bere eskutizari zenbait hitz gehitzea nahi izan du. Zenbat gauza esan beharko nizkizukeen! Baina minutu batzuk besterik ez ditudanez gero, ezer baino lehen, "ihintzantatxoari" zera esan behar diot, ulertzen dudala... Zure eskutitza irakurri ondoren, otoitz egitera abiatu nintzen. Ebanjelioa harturik, Jesusi zuretzako pasarte bat bilatzeko eskatu nion, eta hona hemen aurkitu nuen: "Begira iezaiozue pikondoa-ri eta beste zuhaitzei; hostoak ateratzen hasten zaizkienean, uda datorrela diozue. Era berean, tankera honetako gauzak gertatzen ari direla ikusten duzue, Jainkoaren erreinua hurbil dela jakin ezazue". Liburua itxi nuen, nahikoa irakurri nuela iruditu baitzitzaidan. Horixe bera: Zelinaren bihotzean gertatzen ari diren "gauza horiek", bere ariman Jesusen erreinua ezartzen ari dela erakusten dute... Orain nire ariman zer gertatzen ari den esango dizut, zera, zeurean gertatzen ari den gauza ber-bera.

Lk 21,29 h

Egia diozu Zelina: goizalde freskoak² igaro ziren guretzat, jadanik ez da gertzen lorerik ebakitzeko, Jesusek beretzat hartu baititu. Beharbada, egunen batean, lore berriak ernearaziko ditu, baina bitartean, zer egin behar dugu? Zelina, Jesusek orain ez dit deus eskatzen... Hasieran, gauza asko eskatzen zidan eta hauxe pentsatu nuen: Jesusek ezer eskatuko ez balit, orain goxo-goxo bakean eta maitasunean

¹ Uztailaren 12koa (CG 154). Zelinak, 142. TG-ari erantzunez, zera zioen: "Zure idazkera ederra oso gogoko izan dut, elikagaia baita nire arimarentzat. (...) Nire baitan, beti ezereza dago, beti gau beltza. Non dago, bada, hain indartsu, hain kementsu, hain beste nonbaiten, San Joan Gurutzekoa irakurri eta arima pozez handiturik, hain goitik hegan egiten nueneko garai hura! 'Goizalde freskoetan aukeratutako esmeralda eta loreekin txirikordak egiteko garaia joan da'..."

Teresa nirea, zuk hain ongi ulertzen didazu eta zure arima hain da nirearen oihartzun fidela! Bai, gure bizitzaren goizalde igaro da; orain, eguerdialde astuna eta neketsua dator...

Hala ere, pentsamendu bat datorkit burura: ez al du, bada, San Joan Gurutzekoa zera esaten: 'arimak goize freskoetan txirikordatzen ditu, baina ongi aukeratutako lorez goize freskoetan'? Oraintxe da, beraz, eguerdi ingurua, arimak aukeratutako loreak txirikordatzen dituen garaia, antzina goizalde freskoetan egiten bazuen ere...

Orain, ez dauka batu berri duen lore-sorta besterik bere Maiteari eskaintzeko, eta jadanik ez daki 'bere ileaz lotzen' besterik...

Nire Teresa maitea, gure maitasunaren ile bakar hori nahikoa izango dela uste al duzu?... Zer uste duzu, gehiago ez didala lore berririk eta esmeralda gehiago eskainiko, ezta bertute gehiago praktikatzeko eskatuko ere? Goizalde freskoetako loreak maitasunez lotzeko eskatuko didala bakarrik uste al duzu?... Beraz, maitasun hutsarekin nahikoa dela uste al duzu? Ene! Pentsamendu honek benetan on egiten dit, idazten nagokizula etorri zait berehala, hitz hauek beste era batera interpretatzen ari bainintzen. (CG 154, 12/7/1893).

² San Joan Gurutzekoa, *Kantu izpirituala*, XXX. ahapaldia.

bide egin beharko genukeela, Jesusek antzina eskatzen zizkidan³ gauzak eginez... baina argitasun bat izan nuen...

Santa Teresak maitasunari eutsi⁴ beharra dagoela dio. *Egurra* ez da gure esku izaten ez ilunpean, ezta lehorraldian gaudenean ere; baina ez al gaude gu ere behartuta, lastotxo batzuk bada ere gehitzera? Jesusek, berak bakarrik sua piztuta mantentzeko adina indar baduen arren, gu sua indartzen ikustea eder zaio, benetan atsegin duen *sentiberatasuna* du, eta orduan, berak botatzen du egurra sutara. Guk ez dugu ikusten, baina maitasunak duen berotasunaren *indarra* somatzen dugu.

Nik neuregan ikusi dut ezer *sentitzen* ez dudanean eta *otoitz egiteko* edo bertuteren bat praktikatzeko GAI EZ naizenean, une horixe da borondate osoz sufritutako martiritzak eta munduko inperio guztiek baino atsegin handiagoa ematen dioten huskeriak bilatzeko aukera. Adibidez, irribarre bat, maitasunezko hitz bat isilik egoteko edota haserre-aurpegia jartzeko gogoia dudanean, eta abar, eta abar...

Nire Zelina maitea, ulertzen al duzu? Ez da nire koroo⁵ osatzeko, ezta merituak irabazteko, Jesusi atsegin egiteko baizik... Aukerarik ez dudanean, gutxienez, sarri-sarri maite dudala esatea eder zait; ez da bat ere zaila eta *sua* mantentzen du. Maitasunezko txingar hau itzalita dagoela usteko *banu ere*, sutara zerbait jaurtitzea nahiko nuke, horrela, Jesusek berpiztarazi egingo bailuke.

Zelina, esan behar ez nuena esan ote dizudan beldur naiz; beharbada, esaten dudan guztia egiten dudala beti usteko duzu. Ez, horixe bai ezetz... ez naiz ni ere beti zintzoa! Baina ez dut sekula adorea galtzen⁶, eta Jesusen besoetara jauzi egiten dut. "Ihintz- tantatxoa" zelaietako Lorearen kalizan hondoratzen da, eta han, galdu zuen guztia eta askoz gehiago aurkitzen du.

Kt 2,1

Zure ahizpatxo, Teresa Jesus Haurrarena [eta] Aurpegi Santuarena
lek. karm. apal.

TG 144

1893-VII-23

Zelinari

J.M.J.T.

Jesus †

Karmelen, 1893ko uztailak 23

Neure Zelina maitea:

Ez nau harritzen ariman gertatzen ari zaizuna ez duzula ulertzen diostazunean. Olatu ekaiztsuen artean galduta dabilen utzian, itsasoan, bakar-bakarrik dagoen

³ Autografoa: "antzina eskatzen zidana"; "Procès (CE II)" eta 1948ko edizioan agertzen den ahizpa Jenofaren gehigarria.

⁴ Avilako Santa Teresa, "*Bizitzea*", XXX. kap.

⁵ Ik. TG 43 eta 94; 13, 17 TO; eskaintza ekintza (Otoi. 6); TG 182; Maria Eukaristiarenak Guérin andreari idatzitako eskutitza 10/7/1897.

⁶ Adorea galtzeari aurre egitea Teresaren ume-umetako ezaugarria da; ik. haren lehen jaunartze eguneko erabakia: "ez naiz kemengabetuko" (VT, 74.zenb, 134.orr) eta supra, C Esk, 50.zenb.

haur TXIKIAK ba al du jakiterik portutik hurbil ala urruti dabilen? Haurren begiek itsasoratu ondoren itsasertza ikusten duten bitartean, badaki zenbat bide egin duen; bere burua lurretik urrunduz ikusi ahala, are eta ezin utsizkoagoa da haren poza! Ene bada, dio, oraintxe ez zait asko falta neure bidaiaren azkenera iristeko!... Baina zenbat eta hondartza gehiago urrundu, are eta handiagoa dirudi itsasoak ere... Orduan, haurren ZIENTZIA ezerezera mugatzen da eta jadanik ez daki bere bateltxo norantz doan. Eta lema gidatzen ez daki eta egin dezakeen gauza bakarria haizeak nahi duen erara oihalaria hegan egiten uztea da...

Zelina nirea, Jesusen *alabatxo*a ere bateltxoan bakar-bakarrik dago, *lurraren* zantzua begietatik aienatu zaio eta ez daki aurrerantz ala atzerantz doan... Teresa-txok *badaki*, ordea, bere Zelina *itsaso erdian* dagoela eta Zelinaren untzitxo oihalak zabaldurik porturantz doala; Zelinak ikusi ere egiten ez duen lema, ez dago gidaririk gabe. Jesus hantxe dago *lotan*, antzina Galileako arrantzaleen itsasontzian egon zen bezala. Jesus lotan dago... eta Zelinak *ez du ikusten*, gauak harrapatu duela untzitxo... Zelinak ez dantzu Jesusen ahotsa... Haizea dabil... Zelinak haizea *dantzu*... *Ilunbea* ikusten du... eta Jesusek lo darrai. Dena dela, unetxo batez bakarrik esnatuko balitz, haizeari eta itsasoari agindu bat ematea luke nahiko, den-dena bare-bare jartzeko; gaua eguna baino argiago egingo litzateke. Zelinak Jesusen *jainko-begirada ikusi ahal izango luke* eta haren arima pozturik geratuko litzateke... Baina horrela Jesusek ez luke lorik egingo eta hain dago NEKATUTA...! Jesusen oinak bekatarien atzetik ibiltzen nekatuta daude eta Zelinaren untzitxoan hain gozo dago lotan...!

Mk 4,38

Mk 4,39

Sal 138,12

Jn 4,6

Apostoluek *burkoa* eskaini zioten, ebanjelioak dioskunez. Baina gure Jaunak bere *emazte* maitearen untzitxoan burko gozoagoa aurkitu du: Zelinaren *bihotza*. Han den-dena ahazten du, bere etxean aurkitzen baita... Ez da harria haren buruari eusten diona: *alabaren* bihotza da, *emaztearena*. Ai, zein pozik dagoen Jesus! Baina nola egon liteke hain pozik, gozo-gozo lo dagoen bitartean *emaztea esnarik* dagoenean? Ez al da konturatzen Zelinak gaua baizik ez duela ikusten eta Jesusen jainko-aurpegia beretzat ikustezin gertatzen dela... eta sarritan, bihotzean somatzen duen pisua ere astunegi egiten zaiola?

Mk 4,38

Mt 8,20

Is 53,3

Mt 11,30

Hau misterioa! Jesus, Mariak "karga ahultxo baten antzera" zeraman Belengo umetxo astun bilakatzen da, hain astun, non san Kristobal ere harritu egiten baita... Kantuetako emazteak ere "bere Maitea mirra xorta bat dela eta bere altoan atsedean hartzen duela" dio. Mirra *sufrimendua* da, eta horrelaxe dago lotan Jesusek Zelinaren bihotzean. Hala eta guztiz ere, Jesus pozik dago sufritzen ikusteaz, zoriontsu da *gauz* Zelinarengandik honek duen guztia hartzeaz... Egunsentia noiz iritsiko zain dago, eta orduan, ene bada orduan,... hura esnaera Jesusena!!!...

Kt 1,12

Egon zaitez ziur, ene Zelina maitea, zure bateltxo itsaso erdian dagoela, beharbada, portutik oso gertu honezkeru. Untzitxo bultzatzen duen atsekabezko haizea, *maitasunaren haizea* da, eta haize hori tximista bera baino azkarragoa da...

Zenbat *hunkitzen* nauen Jesusek sakrifizio txikiak egitearen pentsamendua eman dizulako! Ni neuk ere halaxe eskatu nion, ez bainuen uste zuri hain laster idaztea. Oraindik Jainkoak sekula ez dit ezer ukatu, zuri zerbait esateko edo emateko eskatu!

¹ Ik. TG 137; TG 149; KH 13.VII.9.

izan diodanean. Beti grazia ber-berak eskaintzen dizkigu bioi. Praktika² pilo bat ere egin beharrean naiz. Neure ahizpa³ bati laguntzearren egiten dut, kontatuko dizut zertzelada guztiz, oso dibertigarria baita... Gustatzen ez zaizkidan hari batzuek preso naukate, baina oso baliagarri zaizkit hariok une hauetan dudan adorea rentzat⁴.

TG 145

1893-VIII-2

Zelinari

J.M.J.T.

Jesus †

Karmelen, 93ko abuztuak 2

Neure Zelina maitetxoa:

Zure eskutitzak poztu egin nau, darraizun bidea egiazkoa baita; ez da *bide lar-daskatua*, Jesusek taxututako bidezidorra baizik.

Kantuetako emazteak zera dio, bere Maitea ohean aurkitu ez zuenean, hirira haren bila irten zela, baina alferrikako lanean ihardun zuela; hiritik irten ondoren aurkitu zuen bere arimak maite zuen hura...!

Kt 3,1-4

Jesusek ez du nahi atsedenean aurki dezagun bere pertsona gurgarria, ezkutatu egiten da eta ilunpez inguratzen. Ez zuen era berean jokatzeko judu *taldearekin*; ebanjelioak dioskunez, "herria miretsirik geratzen baitzen Jesusek hitz egiten zuenean". Jesusek arima ahulak bereganatzen zituen bere jainko-hitzarekin. Arimak indartzen saiatzen zen probaren egunerako prest egon zitezela... Baina zein gutxi izan ziren gure Jaunaren lagunak, epaileen aurrean ISILDU zenean...! Ene, bai melodia gozoa dela nire bihotzarentzat Jesusen isiltasuna...! Behartsuarena egiten du eskupekoa eman diezaiozun, *eskaleen* antzera luzatzen digu esku; epaiketako egun handian aintzatan ager daitenean, hitz gozo hauek entzungo dizkiogu: "Zatozte, nire Aitak onetsiak, gose nintzenean jaten eman baitzenidaten, egarri nintzenean edaten; ez nekien non aterpetu eta ostatu eman baitzenidaten, gaixorik eta preso nengoela lagundu egin baitzenidaten". Hitz hauek ahoskatu zituen Jesus bera da gure maitasuna nahi duena eta maitasun horren eske ari dena... Gure esanetara

Sal 17,12

Lk 19,48

Lk 23,9

Mt 25,31

Mt 25, 34-36

² Bola mugikorrek errosarioak sakrafizioak edo bertutezko ekintzak kontatzeko balio zuen. Teresa haurra zenean, baliabide aszetiko honetaz baliatu zen; ik. TG 11.

³ Ahizpa Marta Jesusena. Ik. Otoi. 3.

⁴ Zelinak uztailaren 27an erantzuten du. "Zure gutunak, dio, hain atsegina eman dit, non dagoeneko Gure Jaunari eskertu baitiot. Ez dut deus ere ulertzen, baina zuk beti esan behar zaidana esaten didazu..."

Itsaso erdian dagoen haurraren adibideak zer pentsa handia eman dit, baita beste esaldi honek ere: 'Jesus zoriotsu da *gazez* Zelinarengandik honek duen guztia hartzeaz... Egunsentia noiz iritsiko zain dago, eta orduan, ene bada orduan,... hura esnaera Jesusena!!!...' Esaldi honek, Teresa, beste norabait narama.

Hunkitu egin naiz, benetan hunkitu ere, sakrifizio txikietan bat zatozela ikustean. Bai, Jesusek sakrifizioak eskatzen dizkit eta nik ez dut nardarik sentitzen. 'Jesusek ez dit ezer eskaintzen eta' kontatu gabe ematera hartaratu naiz eta aukerak aprobetxatzen'. (CG 155, 27/7/1893).

makurtzen da. Ez du ezer hartu nahi gu geuk ematen ez badiogu, eta gauzarik eze-
rezena eder eta handi da haren begien aurrean...

Nire Zelina maitea, poztu gaitezen egokitu zaigunagatik. Hain da ederra!
Eman eta eman diezaiogun Jesusi, xuhurrak izan gaitezen gainerakoekin, baina
eskuzabalak Jesusekin!

Jesus *ezkutuko* altxorra da, arima gutxik bilatzen dakien balio estimagaitza; Mt 13,44
ezkutuan dago eta munduan distira egiten duena bakarrik baitu maite. Ene ba, arima
guztien aurrean Jesusek nire dohain adierazgaitzak erakutsi izan balitu, arima bat
ere ez zukeen mesprezatuko! Baina ez du bere dohainengatik maita dezagun nahi,
Jesusek *berak* izan behar du gure *sari*¹. Ezkutuan dagoen zerbait bilatzeko, bila Has 15,1
dabilenak ere izkutatu egin behar du². Gure bizitzak, beraz, *misterio* bat izan behar
du! Jesusen antzera jokatu behar dugu, *aurpegia estalirik* zuen Jesusen antzera... Is 53,3
Ikasi nahi al duzue baliagarria den zerbait? -dio Kristoren Antz-Bideak-. Atsegin
izan dezazuela ezezagunak eta *ezereztat*³ joak izatea... Eta beste leku batean zera
gaineratzen du: "Den-dena utzi ondoren, beharrezkoa da batez ere, norbere burua
uztea⁴". Bata goratu dadila gauza batekin eta bestea bestearekin. Zuei dagokizue-
nez, ez ezazue poza oinarritu zeuen burua gutxiestean baizik⁵."

Zelina nirea, nolako bakea ematen dioten hitz hauek arimari! Zuk ezagutzen
dituzu, baina ba al dakizu esan nahi niezazukeen guztia?... Jesusek hain zaitu maite,
non, ikusterik bazenu, heriotzaraino eramango zintuzkeen zoriontasunezko extasi
baten sartuko baitzinateke; baina ez duzu ikusten eta sufritu egiten duzu.

Laster jaikiko da Jesus, "munduko otzan eta apal guztiak salbatzeko...!"

Sal 75,10

TG 146

1893-VIII-10

Guérin andreari

J.M.J.T.

Jesus †

Karmelen, 93ko abuztuak 10

Neure izeba maitea:

Atseginez dakust zeure alabatxoaren bihotzari antzematen. Ez dut, hala ere,
nire kaligrafia *ederra* La Musse gazteluan miretsia izatearen ohorea galtzerik nahi.
Horrexegatik, asko poztu nintzen gure Amatxo onak zure eskutitzari erantzuteko
agindu zidanean.

Ene izeba maitea! Idatzi duzun lerro bakoitzak zeure bihotza agertarazten dit,
Amarik samurrenaren bihotza. Baina zure Teresatxoren bihotza ere alabaren biho-
tza da, maitasunez eta eskerronez bete.

¹ Ik. TG 182, 15.zenb.

² San Joan Gurutzekoa, *Kantu izpirituala*, lehenengo bertsoaren azalpena.

³ *Kristoren Antz Bidea* I, 2, 3.

⁴ *Kristoren Antz Bidea* II, 11, 4.

⁵ *Kristoren Antz Bidea* III, 49, 7; ik. TG 176 eta A Esk, 71^a.

Jainkoari nire Osaba¹ maitea senda dezan eskatzen diot. Egia esan, uste dut errege hau ezin dela entzungabe gelditu, gure Jauna bera baitago sendatze horrekin interesatuen. Ez al du, bada, nire osabaren besoak Jainkoaren aintzarako, eta inolako nekerik gabe, orrialde miragarriak idazten, arimak salbatu eta deabrueri dardar eragiteko²?

Uste dut Jainkoa entzuten dugula eta gaztelu³ eder horretan geratzen zaizkizuen egonaldiko azken egunak bake-baketan igarotzen zaudetela. Pozik egon behar du nahitanahiez Joanak, Caen⁴ -en hain gutxitan izaten duen Frantziskoren ondoan berak nahi adina gozatu ahal duelako! Asko erregutu dut bihurtura nekagarria guttiz desagertu dadin, nire Joanaren zeru urdinean hodei mototsa izan behar baitzuen.

Ahizpatxo Mariaz ere gogoratzen naiz. Uste dut bere etxetxo *zuhaitz puntan*⁵ jarri zuenetik, oso txiki eta ezereza begitandu behar natzaiola. Zerurantz hurbiltzean, haran apalean idoro ez diren edertasunak aurkitzen dira. "Gaiztoa" naizela esango duzu baina hala ere, zure festa-eguneko jaunartze santua Zure *Goientasun* Horri eskainiko diot.

Ezinezkoa zait azaltzea, izeba maitea, nolako poza sentitzen dudan nire aita maitetxo zuen artean dagoela pentsatzean, samurtasun eta maitasunez gainezka. Jainkoak aitarekin bere zerbitzari Job-ekin egin zuena egin du: apalarazi ondoren graziaz bete du, ondasun eta sentipen horiek guztiak zuen bidez jasotzen dituelarik.

Izeba maitea, oraindik gauza asko daukat kontatzeko, baina ez zait jadanik lekurik gelditzen eta ez da batere itxurazkoa eskutitza horrela bukatzea, saiheska idatziz. Barkatu, mesedez eta ulertu bai zuri bai familiari idatzi nahiko nizkizukezanak.

Ama Maria Gonzagarenak eta gure Amak maitasunez agurtzen zaituzte. Zorionekoak sentitzen dira Virville andrea⁶ aurkeztuko dizutelako.

Bihotzez besarkatzen zaitut, ene izeba maitea, eta betiko zure alabatxo adeitsu izanez jarraitzen dut

Ahizpa Teresa Jesus Haurarena
lek. Karm. apal.

¹ Guérin jaunak erreuma zuen besoan.

² 1891ko urritik aurrera, Guérin jaunak "Le Normand" egunkari kontserbadorea mantentzen zuen bere luma eta diruari esker.

³ La Musse-tik Lisieux-era itzultzea abuztuaren 18rako erabaki da.

⁴ La Néele medikuak, bere lanbidea zela medio, sarritan egon behar izaten zuen kanpoan.

⁵ Maria Guérin-ek parkeko haritz bat zuen maite bereziki.

⁶ Ama Maria Gonzagarenaren koinata.

TG 147

1893-VIII-13

Zelinari

J.M.J.T.

Jesus †

Karmelen, 93ko abuztuak 13

Neure Zelinatxo maitea:

Benetan sentitzen dugu zerbitzariarekin¹ bizi duzun ezbeharra. Gure Amak ez zeukan zuri idazteko asmorik zu etorri aurretik baina hain onbera izanik eta hain maite izanik bere Zelinatxo, triste zegoela jakin duenean, poz txiki bat eman nahi izan dio, zure Teresari hitz batzuk idazten utziz.

Ez dakigu zer egin behar duzun etxeari² dagokionez; osabarekin konpondu beharko duzu, guk ontzat hartuko baitugu haren erabakia. Bestela, arazo honetaz hitzez mintzatuko gatzaitzazu. Oso zoritxarrekoa da zure zerbitzaria hain akats handia izateagatik, eta batez ere gezurtia izateagatik; baina, beharbada, bihurtu egingo duzu haren senarrarekin egin zenuen bezala³? Bekatu orok dauka bere barkamena eta oso ahaltua da Jainkoa, kontzientzia emateko ez dutenei ere. Otoitz asko egingo dut haren alde. Beharbada, haren lekuan banengo, okerragoa izango nintzateke eta baliteke bera ere ordurako santa handi bat izatea, Jainkoak niri adina grazia eskaini balio.

Uste dut Jesus oso bihozbera dela nire eskutitzak zuri onuragarri gerta dakizkizun nahi duelako; baina aitortzen dizut, ez naizela nik horretan parte dudanik pentsatzera ere ausartzen... "Jainkoak ez baldin badu bere etxea jasotzen, alferrikako lanean dabilta eraikitzen ari direnak". Santurik handienek hitzaldirik ederrenak ere ez lirateke gai, Jesusek bereganaturik ez duen bihotzean maitasunezko ekin-tza bat bera ere ernearazteko. Jesusek bakarrik daki bere lira jotzen, beste inork ezin ditu liraren nota harmoniatsuak dardarka jarri. Baina Jesusek bitarteko guztiak darabiltza, gizaki guztiak daude haren esanetara, eta Jesusek atsegin du bizitzaren gauean gizaki hauek erabiltzea bere presentzia gurgarria ezkutatzeko. Hala ere non dagoen igartzeko eran ezkututzen da. Hain zuzen ere, askotan argi egiten didala konturatzen naiz, baina ez niretzako, erbestaratutako bere emazte kutuna den usotoarentzat baizik. Hau guztiz egiazkoa da eta izadian bertan aurkitzen dut honen adibidea.

Hona hemen arrosa koloreko mertxika⁴ eder eta hain goxoa, non gozogile guztiek batera ere ezingo bailukete irudikatu gozotasun honen guritasuna. Esaidazu, Zelina nirea: *mertxikarentzat* sortu al zuen Jainkoak ikusmen eta ukimenerako hain atsegina den belus-itxurako kolore arrosa polit hori? Mertxikarentzat erabili zuen hainbeste azukre?... Ez, geuretzat egin zuen, eta ez harentzat. Bere-berea dena, bere

¹ Mariak, Désiré-ren emazteak, noizbehinka edanari ematen dio.

² Martin jauna Lisieux-era itzuli zenean, 1892an Zelinak errentan hartu zuen Labbey kaleko etxea.

³ Désiré praktika erlijiosoari lotu zitzaion berriro 1893ko martxoan Zelinak san Joseri bederatzizurrena egin ondoren.

⁴ Teresaren fruiturik gogokoenetarikoa; ik. KH 24.VII.1.

bizitzaren *muina* eratzen duena bere *hezurra* da; edertasun guztia ken diezaiokegu *izate* hori kendu gabe.

Horrela, Jesusek atsegin du bere dohaniai erakutsiz, gizaki batzuen aurrean eskuzabal agertzea, baina maiz beste bihotz batzuk erakartzeko izaten da. Behin, bere helburua lortu duenean, azaleko eta itxurazko dohain horiek desagertarazten ditu, eta maiteen dituen arimak dohainik gabe uzten. Beren buruak pobrezia hain handian ikustean, arima horiek beldurtu egiten dira, deusetarako ez dutela balio uste izaten dute, den-dena besteengandik jasotzen baitute beraiek ezer eman ezin dutenean. Eta ez da horrela: beren *izatearen esentziak* isilpean egiten du lan. *Jesusek*, han goiko zeruetako lorategian arima hauengan garatu behar den ernamuina sortzen du. Arima hauen ezereza eta bere ahalmena erakustea gogoko du. Eta arima hauengana iristeko, tresnarik *zirtzilenak* erabiltzen ditu, horrela, berak bakarrik lan egiten duela erakutsiz. Presaka dabil, itzalak desager daitezenean egunerako bere lana hobetu nahian, orduan ez baitu jadanik bitartekorik behar izango, *betiereko aurrez aurreko* bat baizik...!

Kt 4,6

I Ko 13,12

(Gure Amak eta Ama Maria Gonzagarenak eskerrak ematen dizkiote Mariari⁵ bere eskutitzagatik; poz-pozik daude).

Ahizpa Teresa Jesus Haurarena [eta] Aurpegi Santuarena
lek. karm. apal.

TG 148

1893-VIII-13

Leoniari

J.M.J.T.

Jesus †

Karmelen, 93ko abuztuak 13

Neure Leonia maitea:

Zure Teresatxok ahaztu egin zaituela uste al duzu? Ez, bada, gehiegi ezagutzen duzu haren bihotza hori pentsatzen hasteko! Gure Amak eta ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenak idatzi zizutenean, nik ere gutuntxo bat bidaltzea nahi izan nuen, baina gaizki-ulertze bat izan zen eta haien gutuna nik uste baino lehenago irten zen. Ordain gisa, zurekin pentsatuko dut gaur apurtxo bat behintzat.

Jakingo bazenu, ahizpatxo maitea, nola gidatzen dudan neure eskerrona zerurantz Jainkoak eskaini dizun mesedeagatik! Azkenean, zure nahiak bete dira! kuxatik ateratako usoaren antzera, ez zenuen mundu honetako lurtean oina non pautatu aurkitzen. Hegan luzatu zinen harik eta zure bihotzak betiko aukeratutako etxe bedeinkatuan sartu ahal izan zuen arte. Jesusek itxaronarazi egin zizun, baina

Has 8, 8-9

⁵ Karmelen sartu nahi zuen Maria Guérin.

azkenean, usoaren intziriek hunkitu egin zuten eta esku zerutiarra luzatu eta emaztegaia eskuetan hartuz, bere bihotz gainean ezarri zuten, bere maitasunaren tabernakuluan.

Bete da, beraz, gure izeba¹ santuak aurretiaz esana. Margarita Maria² dohatsuaren alaba Bisitazioan dago, eta beti-betiko gure Jaunaren emaztea izango da. Ene, zalantzarik gabe nire poza guztiz izpirituala da, gaurtik aurrera ez baitut hemen behean nire Leonia ikusiko, ez dut gehiago haren ahotsik entzungo, ezta nire bihotza harenean lasaituko! Baina badakit lurra dela gure erbeste-leku, erreinurantz goazen bidaiariak gara. Zer axola dio daramagun bidea ezberdina izatea, bion helmuga bakarra zerua baldin badugu? Hantxe batuko gara sekula gehiago ez banatzeko. Hantxe gozatuko ditugu sekula betiko geure familiaren pozak, gure Aita maitea berriro ikusiko dugu, hura bere leialtasun bikainagatik eta batez ere, jasan zituen apalkuntza guztiengatik ohorez eta aintzaz koroatuta izango delarik; bizitzaren erbesteko gure ondare izan ziren atsekabeak ezagutzeaz poztuko den gure Ama ere ikusiko dugu, bere bost alaba lekaipei begiratzean izango duen zorionaz gozatuko dugu, eta han goian zain dauzkagun lau aingeru-txoekin batera gure guraso maiteen bekokia inguratuko duen koroa bat eratuko dugu.

Ahizpatxo maitea, begira nola zure poza neure egiten dudana, badakit oso handia dela; baina badakit baita pozarekin batera daudela sakrifizioak ere. Sakrifiziorik gabe erlijioso-bizitzak meriturik izango al luke? Ez, ezta? Bestalde, gurutze txikiak dira gure pozbide guztia, handiak baino ugariagoak dira, eta bihotza handiak jasateko prestatzen dute gure Maisuak nahi duenerako.

Mesedez eskatzen dizut, ene Leonia maitea, nire partez begirunez agurtu dezazun zure Ama Agurgarri Hori, ezagutzeko ohorea izan nuen egunetik alaba baten antzera maite dudana³. Ez al naiz, bada, apurtxo bat besterik ez bada ere, haren familiakoa, zu haren alaba zarenez gero eta ni zure ahizpa apala?..

Gure Ama Maria Gonzagarenak eta ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenak ere begirunez agurtzen dute Ama nagusia eta Leoniari zoriontsu izan dadin opa diote.

Ez ahaztu zure otoitzetan, ahizpa maitea, Ama Birjina txit santuaren bihotzean zurekin batera dagoen karmeldarretako txikiena.

Ahizpa Teresa Jesus Haurrena [eta] Aurpegi Santuarena
lek. karm. apal.

¹ Maria Dositea Guérin ahizpak, Mans-eko salesak, 1869ko Apirilaren 28an zera idatzi zuen: "Leoniato honi dagokionez, ezin dut salesatxo bilakatuko dela besterik pentsatu".

² 1865ean Maria Dositea ahizpak Margarita Maria Dohatsuaren izenean ospaturiko bederatziruarenaren ongirenean, Leoniaren sendatzeari buruz eginiko aipua.

³ Sales Lefrançois-ko Ama Maria; Zelina eta Teresak Leoniari Bisitazioan zegoela (1887ko uztaila - 1888ko urtarrila) eginiko bisita batean ezagutuko zuten.

TG 149

1893-X-20 (?)

Zelinari

J.M.J.T.

Jesus †

Neure Zelina maitea:

*Jesusi eman diot nire ahizpatxo Maria Aurpegi santuarena*¹ neure partez zoriontzeko ardura... Jesusek izan behar du bakarrik gure jainko-lotura. Jesusek du bakarrik bere emaztearen bihotzeko santutegian sartzeko eskubidea... Ene ba, bai, *Jesus da entzuten duen bakarra*, ezer erantzuten² ez badu ere... *Bera da bakarrik gure erbesteko bizitza honetako gertakizunak ezagutzen dituena*, bera da batzuetan, kaliza mingotsa eskaintzen diguna. Baina guk ez dugu ikusten, ezkutatu egiten baita, bere esku zerutiarra ezkututzen du eta gizakiak baizik ez ditugu ikusten. Orduan sufritu egiten dugu, gure Maitearen ahotsak ez du entzuna izan dadin nahi eta gizakien ahotsak, ordea, gutxietsi egiten gaituela baitirudi...

Bai, nahigaberik mingotsena ez ulertua izatea da... Baina nahigabe hori sekula ez da Zelina eta Teresarena izango; sekula ere ez, haien begiradak munduaz bestalde eta izadiaz gain goratzen direlako. Zenbat eta Jesus gehiago ezkutatu, Jesus beraiengandik are eta hurbilago dagoela somatzen dute Zelina eta Teresak. *Sentiberatasun eztiz*, Jesusek aurrea hartzen du bidean, harriak alboratuz eta narrastiak uxaraziz. Eta hori ez da guztia: Jesusek ahotsak lagunkoia entzunarazten dizkigu. Ahots horiek bidean ziurregi ez joateko aholkua ematen digute... Eta zergatik? Ez al da, ba, Jesus bera gure bidea taxutu duena? Ez al da ba bera argi ematen diguna eta gure arimei agertarazten zaiena?... Gauza orok Jesusengana garamatza, bideritzean erne diren loreek ez dute gure bihotza³ liluratzen. Begiratu egiten diegu eta maitatu egiten ditugu, Jesusi buruz eta honen ahalmenaz nahiz maitasunaz hitz egiten digutelako, baina gure arimek aske diraute. Zer dela eta, beraz, eten geure barne-bake gozoa? Zer dela eta ekaitzaren beldur izan, zerua oskarbi denean?...

Ene Zelina, ene Zelina maitea!... Ez dago amildegietatik ihes egin beharrik. Jesusen beso artean gaude; eta ahots lagunkoiek beldur izateko aholkua ematen badigute, gure Maiteak halaxe *nahi duelako* da. Zergatik? Ene... Maitasun-bidean, Jesusek beretzat aukeratu zuen bide bera aukeratzen du bere emazteentzat ere... Pozik garbienak sufrimendu bihur daitezen nahi du, arnasa lasai hartzeko era izatean, gure bihotzak, gure eguzki eta poz bakarra denarengana irauli daitezen.

Ir 34,14

Bide ertzeko loreak dira bizitzako atsegin garbienak eta ez dago gaizki haueztaz gozatzea; baina gure arimengatik Jesus *jeloskor* dago. Guretzat atsegin den oro, mingostasunez nahastua egon dadin nahi du... Eta bide ertzeko loreek Maitearengana garamatzaten arren, ez da biderik zuzenena, hauek eskaintzen digutena eguzkia ezezik, eguzkia ispliatzen duten plaka edo isplua baita.

¹ Bere izenari buruz, ik. TG 98, 1.zenb.

² Augustin santua.

³ Ik. *Kantu izpirituala*, 3, 5.

Ez diot esaten neure Zelina maiteari esan nahi niokeena, izan ere, hain gaizki azaltzen naiz...! Beharbada, Zelinak hitzerdika ere ulertuko dit, Jesus ondo baino hobeto arduratzen baita bere Teresa gaixoaren mandatuak betetzeaz!...

Erbesteratutako Zelina gaixoari oso ongi datorkion pasarte bat aurkitu dut Kantarik Ederrenean. Hona hemen: “Zer ikusten du emazteak, gudu-zelaiko musika-koruak baizik?”. Ene, bai, nire Zelinaren bizitza, benetan, guda-zelaia da!... Usotxo gaixoa, Babiloniako ibai ertzean intzirika dago, eta nola abestuko du, bada, Jaunaren kanta atzerriko lurretan?... Eta hala ere, kantatu egin behar du, haren bizitzak *melodia* izan behar du, musika-koru bat. Jesus da preso daukana, bere aldameanean egon arren... Zelina Jesusen⁴ liraxoa da... Kontzertua osoa izaten al da, ba, inork kantatzen ez duenean?... Jesus lira jotzen ari denez gero, Zelinak *kantatu* egin beharko du, ezta?... Doinua tristea denean, Zelinak erbesteko kanta *abestuko* du, eta doinua alaia denean, Zelinaren ahotsak *erreinuko* airez kantatuko du... Gertatuko den guztia, bizitzako gertakizunak oro lira txikia dardarka jartzea lortuko ez duten urrutiko zaratak baizik ez dira. Jesusek dauka bakarrik lira horrengan jainko-eskuak jartzeko eskubidea. Gizakiak, *mailak*, tresnak dira baina Jesusen eskua da *den-dena* zuzentzen duena. Leku eta gauza *guztietan* Jesusen eskua ikusi behar da bakarrik...

Kt 7,1

Sal 136,1.4

Ezin dut *santa Zezilia* maitetxoaz liluratu gabe pentsatu. Hura bai adibide ona Jesusen lira txikiarentzat!... Munduaren erdian eta arrisku guztietan hondoraturik, maitasun mundutarra baizik sentitzen ez duen mutil gazte fedegabeko batekin batzeko unean, uste dut *Zezilia* dardarka eta negarrez hasi behar izan zuela... Baina ez: eztei-eguneko musika-tresnen doinua entzutean, *Zezilia* bere *bihotzean kantatzen du*⁵... Hori buru-uztea!... *Zezilia* zalantzarik gabe, lurrekoak ez diren melodiak *entzuten* ditu, bere Jainko-Senarra ere *kantari* ari da, aingeruek ere *Zeziliaren* bihotzean kontzertu zerutiarren doinua entzunarazten dute,... antzina, Jesusen sehaskaren aldamenean bezala kantatzen dute: “Aintza zeruetan Jainkoari eta *bakea* lurrean borondate oneko arimei”.

Jainkoaren aintza! Ene! *Zezilia* bere Jainko-Senarra arimen egarri dela oharitzen da, eta jadanik lurreko aintzaz baizik amets egiten ez duen erromatar gaztearen irrika duela; laster martiri bihurtuko da eta jendetza haren oinatzen atzetik joango da... *Zezilia* ez da beldur, aingeruek zera kantatu baituzten: “Aintza zeruetan Jainkoari eta *bakea* lurrean haren gogoko arimei”; badaki Jesusek zainduko duela eta birjintasuna gordetzera behartua dagoela. Horregatik hura saria...!

Lk 2,14

Bai, elizak sarritan jakinarazten du ederra dela benetan birjinen belaunaldia, eta hitz hauek *Zezilia* birjinaren garaikoak bezain egiazkoak dira...

Jkd 4,1

Oi, ene Zelina maitea, bai atsegina hartzen duela Jesusek bere lira txikiaz! Hain gutxi daude munduan! Utzizu zure aldemenean atsedean hartzen, ez zaitetz *kantatzen* nekatu, Jesus ez baita inoiz lira jotzeaz nekatzen... Egunen batez, han goian, erreinuan ikusiko dituzu zure lanaren fruituak... Negar-malkoen artetik Jesusi irribarre egin ondoren, haren jainkozko Aurpegiaren distirez gozatuko duzu, eta Jesusek lira txikia jotzen jarraituko du. Eta Zelinak baizik beste *inork* abestu ezingo dituen doinuak joko ditu sekula betiko!...

⁴ Teresa oso atseginez dago hain etxeko egiten zaion tresna “melodiotsu” honekin; ik. TG 102, 140, 142, 147, 161; 3. TO (3 f); 5. TO, 4. 17. TO, 14. 18. TO, 40; 20. TO, 4; 47. TO, 1; 48. TO, 5; 1. DSA, 19^o; 2. DSA (4 f.); 3. DSA, 13^a; 5. DSA, 5. ahap.; 7. DSA, 5^o; Otoi. 4.

⁵ Santa Zeziliaren ofizio liturgikoa; ik. TG 54, 2.zenb.

TG 150

1893-X-22

La Néele andreari

J.M.J.T.

Jesus †

Karmelen, 93ko urriak 22

Neure Joana maitea:

Neuri dagokit parka eskatzea, berandu bainabil zure gozoki eta maite-erakutsi guztiengatik eskerrak ematen¹; baina nire eskerrona aurrez aurre azalduko nizulako itxaropena nuen eta horrexegatik ez dizut lehenago idatzi.

Ene, ez ba! Ez dut nire ahizpatxoak ahaztu egin nauelako pentsamendu itsusirik izan, alderantziz baizik, oso bidezkoa iruditu zait Teresaxoren alde egindako otoitzaz poztea; hori dela eta, zure eskutitza jasotzean, adierazi ahal dudan baino areago hunkitu nintzen. Nire lehengusuaren zorion-agurrak ere zirrara handia egin zidan. Eta azkenik, bidali zenizkidaten gozoki-ontziek niganako duzuen samurtasun guztia gairiditu zuten... Gure Ama santa Teresa eskerronekoa zen oso. Honako hau esaten zuen grazia handiz: "sardina bat nahikoa zela haren bihotza irabazteko"². Zer esango ote zuen Frantzisko eta Joana ezagutu izan balitu?...

Baina zerua ez dago lurretik hain urrun eta Amak ikusi eta bedeinkatu ahal izango ditu. Badakit maite dituela, batez ere Joana.

Gure Ama santuak ere Joana izeneko ahizpa bat zuen eta asko hunkitu nintzen haren bizitza irakurtzean, ilobak zein samurki zaintzen zituen ikusiz. Horregatik, santa Ana onbera alde batera utzi gabe³, santa Teresari zuzentzen natzaio haren bitartez neuk ere izeba izateko grazia jaso dezadan⁴. Badakit jaramon egingo didala, nire Joana maiteñoari, Elizari santu eta santa handiak⁵ emango dizkion familia bedeinkatu bat bidaliz.

Atzerapenak ez nau adorea galtzera eramaten, badakidalako Erromako eliz auzitegian denbora luzea behar izaten dela santuak izendatzeko, eta ezin naiz Jau-narekin haserretu bere ardura eta maitasun guztia nire Joanaren esku jarriko dituen arima txikiak prestatzen ibiltzeagatik.

Arren eskatzen dizut, ene ahizpatxo, deitu santa Teresari; ziur nago santa Ana pozik egongo dela. Batasunak dakar indarra eta biok batera egonik, eskatu genuen grazia eskainiko digu.

Mesedez eskatzen dizut, ene Joana maitea, nire bitarteko izan zaitezten Frantziskori bere zorion-agurratik eskerrak ematerakoan. Ahizpatxo baten samurtasun osoz, bihotz-bihotzez besarkatzen zaitut.

Teresa Jesus Haurrarena
lek. karm. apal.

¹ Urriaren 15eko Teresaren festa-eguna dela eta.

² Maria San Joserenari idatzitako gutuna, 1578ko iraila.

³ Ik. TG 136, 3.zenb.

⁴ Bretainieraz "izeba" esateko era.

⁵ Ik. TG 152.

Gure Amak eta ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenak goraintzi maitekorrak bidaltzen dizkizute eta ez diote behin ere erregutzeari utzi, beren Joana maitearen nahiak guztiz entzunak izan daitezen.

TG 151

1893-XI-5

Leoniari

J.M.J.T.

Jesus †

Karmelen, 93ko azaroak 5

Neure Leonia maitea:

Oso pozik nago zu zoriotsu izateagatik; zure gutuntxo onak benetako poztasuna dira niretzat, zalantzarik gabe, Jainkoak nahi zaituen lekuan zaudela ikusten dudalako. Zein ona izan den Jauna gure familiarekin! Ez du utzi hilkor den inor ere gure senar bihur dadin.

Gure Ama santuaren jaierako prestatzeko bakarraldi ederra egin berri dugu. Aita onak¹ batez ere, Jesusekiko harremanaz eta gure bokazioaren edertasunak hitz egin digu. Erlijioso-bizitzak dituen alde onak ikustarazi dizkigu, eta batez ere, kontenplaziozko bizitzarenak. Benetan liluratu nauen konparazio bat jarri digu: "Begira-zioen- gure landetako haritzak zein okerrak dauden, adarrak ezker-eskuin botatzen dituzte, ezerk ez die eusten, eta horregatik sekula ez dute garaiera handirik lortzen. Alderantziz, begira oihanetako haritzak, zein estu dauden alde guztietatik, *goi-goi-tik* baizik ez dute argirik jasotzen eta horregatik enborrak ez du gorantz hazteko izerdia lapurtuko dion adar okerrik, ez du zerua baizik ikusten; horregatik, gorantz doa haren indar guztia eta garaiera ederra lortzen du laster. Erlijioso-bizitzan ere, arima, haritz gaztearen antzera, arauak inguru guztiak estutzen dizkiola aurkitzen da, bere mugimendu guztiak kikilduta daudelarik, oihaneko zuhaitzek oztopo egiten diotelarik... Baina *argia* ikusten du ZERURA begiratzen duenean, hantxe bakarrik har dezake atseden haren ikusmenak, sekula ez du gorantz hazteko beldur izan behar...".

Ahizpatxo maitea, uste dut gustoko duzula gauza hauek konta diezazkizudan; zorionak, gure arimaren arazoez hitz egitean eta gure bihotzak mugagabeen murgiltzean datza...

Barkamena eskatzen dizut hain *gaizki idatzitako* gutunak bidaltzearen; baina dakizunez, ahizpatxo maitea, nahiago dut bihotzaren taupaden arabera lumari joaten uztea, nire esaldiak biribildu eta *literatur orrialde* bat bidaltzea baino.

Ama nagusia nire partez begirunez agurtu dezazun eskatzen dizut, mesedez.

Ez nazazu zure otoitzetan ahaztu, gogora zaitetz nitaz Jesusen aurrean ni zutaz adina.

¹ Aita Armand Lemonnier, La Délivrande (Calvados)-eko Misiolarietarikoa. 1894 eta 1895ean berriro egingo ditu hitzaldiak eta Eskaintza-ekintza aztertuko du (Otoi. 6).

Hementxe uzten zaitut, ene Leonia maitea, gure Jainko-Senarraren bihotzari loturik zaudela.

Zure ahizpatxo apal

Teresa Jesus Haurrarena [eta] Aurpegi santuaren lek. karm. apal.

TG 152

1893-XI-17

Guérin andreari

J.M.J.T.

Jesus †

Karmelen, 93ko azaroak 17

Neure izeba maitea:

Zer atsegin zaion zure Teresaxori urtero zure festa-eguneko zorion-agurra eskaintzera etortzea!

Ez dut, bestalde, deus esateko, aspaldidanik baitakizu zenbat maite zaitudan.

Izebatxo maitea, berriro errepikatzen baldin badizut ere, ez naiz zu nekaraztearen beldur, eta hona hemen horrela pentsatzeko dudan arrazoiak: sagrario aurrean nagoenean, ez naiz gure Jaunari gauza hauze baizik esateko gauza: "Ene Jainko, badakit zuk maite zaitudala". Badakit nire otoiak Jesus ez duela nekatzen. Eta bere emaztearen ezina ezagutuz, honen borondate onarekin nahiko izaten du. Ziur nago, gainera, Jesusek gainezka duen bihotzeko maitasun apurtxo bat isuri duela amen bihotzetara... Eta une honetan zuzentzen naitaion ama honek hain neurri handitan jaso du ama-maitasuna, non ez baitut ez ulertua izateko beldurrik...

Hala ere, nire ezina ez da betierekoa izango; zeruko erreinuan nire izebatxo maiteari giza hitzez azaldu ezin daitezkeen gauza asko esan ahal izango dizkiot.

Bitartean, bere aintzarako hain ongi lan egiten dakiena *luzaro-luzaroan* lurrean uzteko eskatzen diot Gure Jaunari eta zera ikus dezan nahi dut... "bere *semeen semeak!*"¹. Nire ahizpatxo Joanak barre egingo luke beharbada hitz hauek irakurriko balitu; baina nik berak baino itxaropen handiagoa dut eta "*santu handia*" eta "*Aita santu handia*"² itxaroten ditut, beste hainbeste aingerutxo atzetik dituztela.

Ene izeba maitea, biharko jaunartze santua zure eta Fournet andrearen alde eskainiko dut; asko gogoratzen naiz hartaz, eta Jaunari erregutzen diot zeure aldamenean luzaro³ izan dezazula.

¹ Garai hartan ezkontza-liturgiari gehitutako salmoa.

² Auray-ra eginiko erromesaldiaren ondoren Joanak izandako amets bati buruzko aipua. Joanak amets hau izan zuen: bere erreguak entzunak izan zirela eta ahots misteriotu batek honako hitz hauek esan zituela: "Santu handia eta Pontifize handia izango da". Ik. 38. TO, 6.

³ Fournet andrea, bihotzekoa izan ondoren, sendatzen hasia zen.

Nire osaba onari besarkada bat eman diezaiozun erregutzen dizut eta osabari nahiz nire ahizpatxoei, laztan samurrez bete zaitzatela eskatzen diet.

Bere tituluaz harro dagoen zure *sein txiki*

Ahizpa Teresa Jesus Haurrarena
lek. karm. apal.

TG 153

Guérin jaunari

1893-XII (?)

J.M.J.T.

Neure osaba maitea:

Gure Ama sendatuz¹ doa, baina oso ahul dago, berak besterik esaten badu ere.

Eskerrik asko, eskerrik asko hain ardura handiz zaintzen duzulako. Esanekoa izan dadin itxaroten dut, oso gaizki bailegoke hain osaba *onberaren* hitza ez bete-tzea!... Ama Maria Gonzagarena oso hunkituta dago zure arduragatik; eta Ama Nagusiari eskaintzen diozun arduragatik eskertzen dizu.

Barkatu, ene osaba maitea, hain bizkor idatzirik, ez dakit zer diodan ere, baina gure *eskerrona* irakurtzen jakingo duzulakoan nago. Fournet andrearen alde asko erregutzen dugu.

Besarkada handi bat zure hiru karmeldar txikien partez, eta baita izebari ere.

Ahizpa Teresa Jesus Haurrarena
lek. karm. apal.

TG 154

Leoniari

1893-XII-27

J.M.J.T.

Jesus †

Karmelen, 1893ko abenduak 27

Neure Leonia maitea:

Asko pozten nau 94. urterako zorionak eman ahal izateaz. Jesusen sehaskatxa-roaren aldamenean erregutzen dudana, zu laster Bisitaziotik ateratako santuekin jantzita ikustea da. Ikustea esaten dudan arren, ondotxo dakit poz hori zeruan baizik

¹ Ama Aines Jesusena.

ez dudala izango. Hura poza, munduko erbestearen ondoren zeruan elkar aurkitzen dugunean!...

Zenbat gauza eder izango ditugun elkarri esateko! Behealde honetan hitza indargea da, baina han goian, begirada bakar bat nahikoa izango dugu elkar ulertzeko, eta uste dut gure poza, banatu ez bagina baino handiagoa izango dela.

Zure gutuntxo maiteak atsegin handia eman dit, benetan zoriontsu zarela ikusten baitut eta ez dut zalantzan jartzen Jainkoak arka santuan betiko gelditzen utziko ez dizunik... Santa Chantal-en bizitza irakurtzen gaude jantokian; poz handia da niretzat hura entzutea, horrek hain maite dudan Bisitaziorantz hurbiltzen bainau. Gainera, Bisitazio eta Karmelen artean betidanik izan den harremana ezagutarazten laguntzen dit; eta egite horrek Jainkoa bedeinkatzera narama, gure familiarentzat ordena bi hauek aukeratzeagatik. Ama Birjina benetan da geure Ama, gure monastegiak berari eskainiak baitaude.

Ahizpatxo maitea, ez ahaztu Jesustxoren hilean nire alde otoitz egitea; eska iezaiozu beti *txiki-txikia* izan nadin...!

Nik zuretzat ere gauza bera eskatuko diot, zure nahiak ezagutzen baititut eta badakit apaltasuna dela zure bertuterik gogokoena.

Ez ahaztu, ene Leonia maitea, zure Ama agurgarria nire partez begirunez agurtzea, eta sinets ezazu zure ahizparik *txikiena* eta azkenaren maitasun zintzoan.

Teresa Jesus Haurrarena [eta] Aurpegi Santuarena
lek. karm. apal.

TG 155

1893-XII-29

Guérin jaun-andreei

J.M.J.T.

Jesus †

Karmelen, 1893ko abenduak 29

Neure izeba-osaba maiteak:

Minutu batzuk besterik ez dauzkat zuei urteberriko zorion-agurra eskaintzeko. Gure Amak esan berri dit bere gutuna bihar goizean eramango dizuetela. Baina ez dut denbora luzerik behar neure senide maiteei ene bihotzak haien zoriona zein gogo biziz opa duen adierazteko. Ahal balitz, urte berriak zoriona baizik eman ez diezazuen nahi nuke.

¹ Ik. 2,9 Baina, ene! Bere lagunentzat zer nolako saria gordetzen duen dakien gure Jainkoak, sarritan, altxor horiek sakrifizio bidez irabaz ditzaten atsegin du. Gure Ama Teresa santuak, barrezka, hain egiazkoak diren hitz hauek esaten zizkion gure Jaunari: "Nire Jainkoa, ez nau harritzen zuk hain lagun gutxi izateak, hain gaizki tratatzen dituzu...!"¹

¹ Ik. "Histoire de sainte Thérèse" Caen-go karmeldarren eskutik, Bollandisten ondoren, II.1., 366.orr. Ik. TG 178.

Hala ere, bidaltzen dituen atsekabe guztien artean ere, Jainkoa fintasunez bete dago. Nire aitaxo maitearen gaixotasuna horren froga nabaria da niretzat. Gurutze horixe da nik sekula pentsa nezakeenik handiena; baina haren mingostasuna dastatzera eman ondoren, gure Jauna, gure senide maiteen eskuz aurkeztu zigun eta nik azken hondarreraino edatea uste nuen minezko kaliza gozatzera dator...

Ene, osaba-izebatxo maiteak, ez dakizue ongi zein maitakor eta eskerronekoa den zuen Teresaxoren bihotza!... Ezin dizuet nahi nukeen guztia esan, maitinen ordua baita; barkatu nire gutunaren nahaste-borrastea eta nire *katu-letra*², ez ezazue zeuen alabaren bihotzera baizik begiratu.

Teresa Jesus Haurrarena
lek. karm. apal.

Mesedez, eskatzen dizuet Fournet andreari bere ilobaren onginahirik zintzoe-nak eskaintzeko.

TG 156

Ama Aines Jesusenari

1894-I-21

J.M.J.T.

Jesus Haurraren ametsa¹

Emazte maiteak sehaskara eraman dizkion loreekin jostatzen ari dela, Jesus eskerrak nola emango dizkion pentsatzen ari da... Goyalde hartan, zeruko lorategian, Jainko-Haurraren zerbitzariak diren ainguruak, Jesusen bihotzak bere maitearentzat gordetzen dituen koroak txirikordatzen ari dira.

Bitartean, gaua heldu da. Ilargiak bere zilarrezko izarniadura igortzen du, eta Jesus Haurra loak hartzen... Jesusen eskutxoak ez du eguna alaitu dion lorerik askatzen, eta haren bihotzak bere emazte maitearen zorionaz amets egiten jarraitzen du.

Bat-batean, han urrunean, udaberriko loreekin inongo zerikusirik ez duten gauza bitxiak begiztatzen ditu. Gurutzea...! Gezia...! Arantzazko koroa...! Eta hala ere, Jainko-Haurra ez da beldur. Gauza horiek guztiak, emazteari zenbat maite duen agertzeko aukeratu ditu...! Baina hau guztiau ez da nahiko oraindik. Bere haur-aurpegia hain ederra dena Jesusek desitxuratua ikusten du, odoletan...! ezagutezina...! Jesusek badaki, bere emazteak beti ezagutuko duela, bere aldamenean izango duela den-denek bertan behera uzten dutenean. Horregatik, Jainko-Haurrak ere irribarre egiten du irudi odoloztatu honen aurrean. Birjinei sortarazten dien ardoz beteriko

Mt 27,29

Is 53,3

Za 9,17

² Teresak letra etzanez idazten duen azken eskutitza. Ama Aines Jesusenak, azkenik, zuzen idazten uzten dio.

¹ Teresak, Ama Aines Jesusena priorearen lehen festa-egunerako pintatu duen koadroa komentatuko du.

Kr 4,6 kalizaren aurrean ere irribarre egiten du. Badaki bere eukaristian, eskertzarrekoek bertan behera utziko dutela, baina Jesusek bere emaztearen maitasunean eta bere fintasunean pentsatzen du. Emaztearen bertuteen loreak santutegia gantzutzen ikusten du eta Jesus Haurrak lo darrai gozo-gozo... Itzalak beheratuko diren zain dago... bizitzaren gaua, betiereko bizitzaren egun argiak ordezka dezan...!

Jesusek orduan, emazte maiteari honek emandako loreak itzuliko dizkio, lurrean kontsolatuz... Orduan harengana makurtuko du bere jainko-aurpegia aintzaz guztiz dirdiratsu... eta bere jainko-laztan zerutiarraren adierazezinezko gozotasuna sentiaraziko dio bere emazteari betiko...!

Neure Ama maitea:

Zure alabak festa-egunean agertu nahi zizun ametsa irakurri berri duzu. Baina, ene bada, zure pintzel artistak bakarrik irudika zezakeen hain misterio gozoa!... Zuri atsegin egiteaz zoriontsu izango litzatekeenaren borondate onari baizik begiratuko ez diozulakoan nago.

Zeuren zara, ene Ama, zeuren bertuteak agertu nahi izan ditut Jesusek bere bihotzaren kontra estutzen dituen loreekin. Egia esan, loreak, Jesusentzat dira bakarrik! Bai, nire Ama maitearen bertuteak sehaskako Haurtxoarekin ezkutaturik geratuko dira betiko. Hala ere, apaltasunez loreak ezkutatu nahi baldin badituz ere, loreei darien lurrin misteriotsuak, egunen batez, orain Jesusi eskaintzen dizkiozun samurtasunezko altxorrak ikustea gerta dakidanean, betiko erreinuan ikusiko ditudan edertasunak aurrez sentiarazten dizkit².

Ene Ama maitea! zuk badakizu; ezingo dizut sekula neure eskerrona adierazi, bizitzaren bideetatik zeruko aingeruaren antzera gidatu nauzulako³. Zeu izan zinen Jesus ezagutzen eta maitatzen irakatsi zidana. Orain nire Ama bi aldiz zarenean, nire Maitearengana zuzen nazazu, bertutea praktikatzen irakatsiiezadazu, zeruan zugandik urrun gera ez nadin eta alabatzen nahiz zeuren ahizpatxotzat izan nazazun.

Teresa Jesus Haurrarena [eta] Aurpegi Santuarena
lek. karm. apal.

TG 157

1894ko martxoa edo maiatza

Zelinari

J.M.J.T.

“Codfiche”¹ -ak gure Amak *oso gogoko* ditu; Amak berak idatzi nahiko lioke Zelinari eskerrak emateko, baina ezin du. Mariaren² gutunaz ere oso pozik dago.

² Aipamen hau priore zaharra eta berriaren artean izan ziren tirabirei dagokie, hauek priore berriari apaltasun handia eskatzen diotelarik.

³ Ik. 22. TO, sarrera.

¹ “Cod-fish” (=bakailaua) ingelesetik hartutako izena, Normandian erromesen maskorra deitzeko erabiltzen da.

² Maria Guérin.

Erbesteratu txikia goibel egon dadila *goibel egon gabe*, gizakien *samurtasunak* harengan BILTZEN ez badira ere, Jesusen samurtasun guztiak bete-betea har-
 zten baitu bera. Zelina babeslekurik³ gabe dagoen une honetan, Jesus oso ostatu
 onean da, eta oso pozik dago bere emazte maitea *alderrai* ikusteaz, hori atsegin du.
 Zer dela eta?... Nik ez dakit... Jesusen sekretua da, baina bere etxetxoan gauza eder
 ugari gorde duela uste dut... Hainbeste zeregin izanik, bere Zelina gaixoaz ahaztu
 dela dirudi... Baina ez, Zelina konturatu gabe, Jesusek leihotik begiratzen dio...
 Zelina basamortuan ikustea atsegin du, "maitatzea beste lanik gabe"⁴, sufritzen,
maite duenik ere *somatu* gabe... Jesusek ondotxo daki bizitza amets bat dela, horre-
 xegatik du gogoko, bere emaztea Babilonia ibaiertzean negarrez ikustea! Laster iri-
 tsiko da Jesusek Zelina eskutik hartu eta bere etxetxora zuzenduko duen eguna,
 ordurako betiko jauregi bihurtua izango dena... Orduan zera esango du: "Orain
 neure txanda da". Zuk lurtean, inork uko egin nahi ez dion *babesleku bakarra* eman
 zenidan, hau da, zu zeu eskaini zintzaizkidan, eta orain nik neure betiko izatea⁵
 damaitzut, hau da, neure burua damaitzut, hona hemen zeure etxea betiko. Bizitza-
 ren gauze alderrai eta bakarrik ibili zinen, orain zeure laguna izango duzu, eta lagun
 hori neu izango naiz, Jesus, zeure Senar, zeure Lagun, beragatik den-dena utzi duzu
 eta; nik pozez beteko zaitut, gizaldi eta gizaldietan!...

Kt 2,9

Sal 135,1

TG 158

Leoniari

1894-III(?)

J.M.J.T.

Jesus †

Neure Leonia maitea:

Ezin dizut adierazi izan nuen poza, abitua hartzeko onartua izan zinela jakin
 nuenean... Ulertzen dut zein zoriontsu izan behar duzun eta zure poza neure egiten
 dut.

Ahizpatxo maitea, zein ongi saritu duen Jainkoak zure ahalegina! Ondotxo
 gogoratzen dut arka santuan sartu aurretik mintzatokian esaten zenidana. Ez zizun
 batere axola beti azkena izateak, ezta abitua ospe handiz ez hartzeak ere... Jesus zen
 bila zenbiltzan gauza bakarra, eta harengatik beste pozbide orori uko egin zenion.
 Baina gure aita maiteak sarritan esaten zigunez, Jainkoari inork ez dio bere eskuza-
 baltasunean irabazten; horregatik, ez dizu ageri-agerian bere emaztegai bihurtzea-
 ren poza ukatu nahi izan, bere emazte izateko itxaroten. Uste dut lurtean igaro
 dituzun erbesteko urteek, ezkontza egunean arima jantzi ederrez apaintzeko balio

³ Guérin andreak, iloba eta koinatua bere etxera ekartzera erabakitzen du, Labbey kalean ez daudelako
 batere ziur. Etxe-aldaketa ekainean egitekotan dira.

⁴ Ik. San Joan Gurutzekoa, *Kantu izpirituala*, XXVIII. ahapaldia.

⁵ Ik. Arminjon, op. cit., 290.orr; Teresak 1887ko ekainaren 4an kopiatutako pasarte.

izango dizutela. Neguko egun tristeen ondoren, zuretzat, udaberriko egun distiratsuak etorri dira, eta Jesusek kantuetako emazteari bezala hau diotsu: “Negua joan da, atertu du euria. Jaiki ene maitea, ene usoa, eta zatoz... hona hemen non nagoen atean; ireki iezadazu, ene arreba, ene laguna, nire Aurpegia ihintzez eta ilea gaueko afontuz bete baitago”. Aspaldidanik zeunden Jesusen bisitaren zain eta emazte bezala zera esaten zenion: “Nork emango ote dit, ene Maitea, zu *kanpoan bakarrik* aurkitzeko aukera, inoren mesprezurik irabazi gabe zu *laztantzeko* aukera!”...

Azkenik, heldu da hainbeste irrikatutako eguna... Munduaren begietan oraindik ez zenuen Jesus aurkitu, ahizpatxo laztana; baina arreta handiz bila ibili ondoren, hona hemen non datorkizun bera zeure bila... Zuk nahikoa zenuen *kanpoan bakarrik* aurkituta, baina berak *guztien* aurrean *laztantzoxa* eman nahi zizun, inork ahantz ez dezan bere zigilua bekokian jarri dizunik eta sekula ez duzula beste maitalerik hartuko, bera izan ezik¹.

Ene Leonia maitea, zure eskutitzagatik eskerrak ematea ahaztu behar zait; baina, benetan ulertzen duzu ezta, zugarik sentitzen dudan pozak ahantzarazi didala?

Zure gurariak laster baten bete daitela itxaroten dut, eta baita zuen kapilaua albait arinen senda dadila ere. Ahizpatxo maitea, nire partez zure Ama onbera eta agurgarria begirune osoz agurtzea eskatzen dizut². Benetan pozten naiz, zu bezain pozik nago, bera delako abitu santua eman behar dizuna...

Hementxe uzten zaitut, Jesusen jainko-bihotzaren bidez bat eginik geratzen natzaizularik.

Zure ahizpatxo apal

Teresa Jesus Haurrarena [eta] Aurpegi Santuarena
lek. karm. apal.

TG 159

1894-III-26

Zelina Maudelonde-ri

J.M.J.T.

Karmelen, 1894ko martxoak 26

Neure Zelinatxo maitea:

Hainbeste poztu ninduen zure gutunari lehenago erantzutea nahi izango nuen; garizumak galerazo dit, baina azkenik, Bazko garaia heldu da eta nire lehengusinatxoari¹ bere pozean neu ere tarteko naizela esan diezaioket².

¹ Ik. Aines santuaren ofizio liturgikoa, maitinetako 3. leloa; eta 26. TO.

² Ama Maria Saleskoa; ik. TG 148.

¹ Maitasunezko erabiler. Ez dago inolako senidetanusik Martin eta Maudelonde familien artean, baina seme-alabak txiki-txikitatik elkarri loturik sentitzen dira; ik. A Esk, 23^a.

² Bere hurrengo ezkontza Gaston Pottier jaunarekin.

Orain duzun barne-bakea, niretzat Jesusen borondatearen seinale argia da, Jesusek bakarrik isuri diezazukeelako poz hori zure ariman, eta haren jainko-begiradapean atsegin duzun poz hori, harengandik baizik ezin da etorri. Zelina maite-txoa, ezin dizut nire maitasuna lurrean banengo adieraziko nizukeen bezala agertu, baina egoera hau dela eta, nire maitasuna ez da motelagoa, guztiz bestera baizik; bakartadean zuretzat baliaigarriago izango naizela somatzen dut, zuregandik hurbil egotearen poza izanda baino. Karmelgo burdin-hesiak ez ziren Jesusengan maite diren bihotzak banatzeko egin, bestera baizik, elkar batzen dituztenen harremanak estutzeko balio dute.

Zuk Jainko onak erakutsi dizun bideari jarraitzen diozun bitartean, nik neure Zelina, umetako lagunaren alde erregutuko dut. Zelinaren alde eskatuko dut, haren poztasun guztiak Jainkoaren begikoak izateko bezain garbiak izan daitezen. Eta batez ere zera eskatuko dut, gure Jaunak arima bat eramaten dioguneko poz berdingabea senti dezala, eta arima hori laster berearekin bat egingo duena izan dadila.

Ez dut zalantzan jartzen grazia hau laster eskainiko zaizunik eta oso pozik izango nintzateke nire otoitz gaixoez horretarako ezertan eragini balute.

Nire Elenatxo maitea dagoeneko sendaturik izango dela itxaroten dut, oso une txarra aukeratzea bailitzateke gaixo egoteko!... Nire partez estu-estu besarka dezazun eskatzen dizut eta Elenatxori, nire Zelina maiteari nire musurik samurrenak eman diezazkion eskatzen diot; ziur nago ezin dudala mandatu hau hobeki egingo duen beste inor aukeratu...

Ama Maria Gonzagarenak Karmelgo zure hiru lehengusinekin bat egingo du zure zorionaz poztuz, eta ene Zelinatxo maitea, Maudelonde jaun-andreak agurtu ditzazun eskatzen dizugu.

Hementxe uzten zaitut, ene Zelina maitea, bihotzez zuri lotuta geratzen naizelarik.

Bizitza osoan maitatuko zaituen eta zure zorientasunaren alde eskatzeari utziko ez dion zure lehengusinatxo

Ahizpa Teresa Jesus Haurarena
lek. karm. apal.

(P.D.) Saigon-go Karmelgo Ama prioreak³ gauza txinatar pilo bat bidali digu eta gure Amak gauza hauen artean dagoen egongelarako altzairu bitxi bat zozketa-tzea erabaki du komunitatearen alde. Txartelek 0,50 libera balio dute. Gure Karmelgo lagun guztiei eskaintzen dizkiegu. Txartelik nahi baldin baduzu, atsegin handiz bidaliko dizkizugu.

³ Ama Filomena Sortzez Garbiarena, 1861an Saigonen misioetako karmeldarren lehenengo etxea sortu zuen Lisieux-eko karmeldarra.

TG 160

1894-IV-3

Ahizpa Maria Aloisia Vallée-ri

J.M.J.T.

Jesus †

1894ko apirilak 3

Neure ahizpa maite-maitea:

Ezinezkoa egiten zait zure eskutitzak nola hunkitu nauen esatea. Niretzat nahiko poztasun handia izan zen Jesus txikiaren koadroa gogoko izan duzula jakitea¹, neure itxaropen guztien gaineretik saritua sentitzen nintzen... *Izeba maitea*² -utz ieza-dazu oraindik izeba deitzen-, zurekin gogoratu naiz gure Ama agurgarriari bere priore deneko lehenengo urtebetetzean zer oparituko diodan pentsatzean.

Badakit gure Amak atsegin handiz bidaliko lizukeela oroigarriaren bat, eta hori dela eta, nire ahalegin guztiak jarri nituen "Jesus Haurraren ametsa" egitean. Baina, ene ba, nire pintzela gai ez zela nire arimak *ameturikoa* egitez gauzatzeko, Jesustxoren jantzi zuria *malkoz* busti nuen, eta horrek haren aurpegitxoan zehar izpi zerutiarrak jaitea eragotzi zuen!... Orduan, penatan murgildua, lan honekin hastetakoan zer asmo nuen inori ez esatea hitz eman nion neure buruari. Eta gure Ama onaren barkamena jasotzean bakarrik kontatu nion neure sekretutxoa. Amak bere alabaren bihotzari eta asmoari begiratu zion arteari baino areago, eta nire pozerako, Jesus txikia joan zen *nire orde*, Le Mans-eko *izeba onarekin* ezagupidea egitera. Jainko-Haurra era hartan pintatu banuen, nire begietan Hura zer den agertzeko egin nuen...

Hala da, ia beti *lo dago*... Teresa gaixoaren Jesusek ez du Teresa laztantzen bere Ama Santua³ laztantzen zuen gisa! Eta berezkoa da, alaba Amaren ondoan oso duineza baita!... Hala ere, Jesusen begi itxiek asko esaten diote nire arimari, eta Jesusek laztantzen ez banau ere, ni neu Jesusi poz ematen saiatzen naiz. Ondotxo dakit bere bihotza beti erne dagoela, eta zeruetako erreinuan bere jainko-begiak irekitzea gogoko izango duela. Orduantxe izango da, Jesus ikusten dudana era berean, Bisitazioko nire Ama onei ere begiratu ahal izango diadan unea. Alabatzen hartuko nautela uste dut. Ez al dira, ba, beraiek nire amak, nire egiatzko *amatza*⁴ izan nituen ikus daitezkeen *bi aingeruen* bihotzak osatu zituztenak?...

Oso ongi gogoratzen dut hiru urte⁵ nituela Le Mans-eko Bisitaziora egin nuen bidaia; bidaia hura askotan birbizi izan dut neure bihotzean, eta Karmelgo burdinsareek ez didate galeratzen Teresatxo Jesus Haurrarena maitatzen duten (ezagutu ez arren) Ama agurgarri guztiak eta nire izeba maitea sarritan bisitatzea.

¹ Ik. TG 156. Ahizpa Aines Jesusenak Teresak pintaturiko koadroa eskaini dio Mans-eko Bisitazioko bere irakasle izandakoari.

² Paulinak "izeba" deitzen zion bere irakasle izandakoari, ahizpa Maria Dositea zen, bere Bisitazioko izebaren oroimenez. Paulinaren gurariari dagokionez, Teresak gauza bera egingo du.

³ Ik. TG 162, 1. oharra.

⁴ Maria eta Paulina, Teresaren bi hezitzaileek, Mans-eko Bisitazioko barnetegian eginiko urteen zantzia gorde dute.

⁵ 1875ko martxoak 29; ik. A Esk, 7ⁱ.

Ene *izeba onbera*, zeure *lobatxoaren* eskerroneko zorra zeure Ama agurgarriari eta zeure ahizpa maite guztiei ordaintzea eskatzen dizut, eta batez ere ahizpa Jose Saleskoari⁶ (honen maitasunezko oroigarriak hunkitu egin nauenez gero) nire ordezkerrak emanaz.

Ene IZEBEA MAITE-MAITEA, oraindik gauza asko kontatu nahi nizkizuke, baina orria bukatzen ari zait, eta hementxe utzi beharrean nago, barkamena eskatuz...

Ahizpa Teresa Jesus Haurarena
zure *lobatxo* apala

TG 161
1894-IV-26

Zelinari

J.M.J.T.

Jesus †

1894ko apirilak 26

Jesusen liraxo maitea:

Zure hogeitabostgarren urtebetetzea kanta dezazun, zutaz pentsaturik egin dudan poematxo¹ hau bidaltzen dizut!...

Zelina, badakit nire kantuak esan nahi lizukeen guztia ulertzeko gai izango zarela! Ene ba, erruki nitaz! Beste hizkuntza bat beharko litzateke, lurrekoaz ezberdina, arima batek Jesusen eskuetan bere burua uzten dueneko edertasuna adierazteko... nire bihotzak ezin izan du sentitzen dudana totalka baizik ahoskatu... *Zelina*, *Zeziaren* historia (BURU-UZTEAREN *santa*) zure historia da baita!

Jesusek zugandik hurbil beti eta zu zaintzen dagoen zeruetako aingeru bat jarri du. Aingeru horrek eskutik eramaten zaitu zure oinek harrien kontra tupust egin dezaketelakoaren beldur; zuk ez duzu bera ikusten, eta hala ere, bera da orain dela hogeitabost urtetik hona zure arima zaindu duena eta *birjintasunezko zuritasuna* gorde diona; bera da zuregandik bekatu-biderako aukerak aldendu dituen ere... Bera izan zen umetan izan zenuen amets misterioetsuan agertu zitzaizuna: zuziria zeraman eta gure aitaren aurretik oinez zihoan aingeru bat ikusten zenuen. Seguraski, beranduago bete beharko zenuen helburua jakin arazi nahi izan zizun. Orain zeu zara laster zeruko hiriko aingeruekin biltzera doanaren aingeru ikusgarria! Zelina, ez zaitetz lurreko ekaitzen beldur izan... Aingeru zaintzaileak bere hegoz babesten zaitu, eta zure bihotzean Jesus dago, birjinen garbitasuna. Zuk ez dakuskizu zeure altxorrak, Jesus lo dago, eta aingerua bere isiltasun misterioetsuan datza; hala eta guztiz ere, haiek hortxe daude Mariarekin batera, honek ere bere mantupearan gordezen zaituelarik!...

Sal 90,12

⁶ Luisa Gasse, Paulinaren barnetegiko lagun mina.

¹ *Santa Zezilia*, ik. 3. TO eta *Mes Armes* faxikulua (Cerf-DDB, 1975).

Ez beldur izan, ene Zelina maitea, *zure lirak* Jesusentzat kantatzeari uzten ez dion bitartean, ez da sekula *hautsiko*... Benetan hauskorra da, kristala baino hauskorragoa; trebatu gabeko musikari bati utziko bazenio, laster hautsiko litzateke, baina Jesus da zure bihotzeko lirari dardara daragiona... Jesusek atsegin du zuk zeure ahuldadea senti dezazun, *Jesus* da ariman zeure buruarekiko konfiantzarik eza ezartzen dizuna. Emaizkiozu eskerrak Jesusi. Berak bakarrik *eskaini dizu* zu auke-ratzearen *grazia*. Gauza txikietan hari atsegin ematen zintzo irauten baduzu, hura GAUZA HANDIETAN zuri lagundu BEHARREAN gertatuko zaizu...

Apostoluak Jesusen laguntzarik gabe gau osoan aritu ziren lanean eta ez zuten ezer ere arrantzatu, baina haien lana gogoko izan zuen Jesusek. Jesusek berak bakarrik eman diezagukela zerbait erakutsi nahi izan zien. Apostoluek *apaltasuna* izan zezaten nahi zuen... “Semeok, esan zien, ez al duzue ezer jateko? —Jauna, erantzun zion san Pedrok, gau osoan aritu gara lanean eta ez dugu *ezer harrapatu*”. *Arraintxo batzuk* harrapatu izan balituzte, beharbada, Jesusek ez zuen miraria egingo, baina ez zuten ezer; hori dela eta, Jesusek sarea bete-bete egin zuen, ia-ia sarea urratzeraino. Hona hemen Jesusen *izateko era*². Jainkoaren antzera ematen du, baina *bihotzaren apaltasuna* eskatzen du...

“Lur guztia da itxuraz *hondar-ale* bat, balantzari zirkin txiki bat eragiteko ere indarririk ez duena, edo eta lurraren gainera erortzen den goizeko ihintz-tantatxoaren antzekoa”. (Jkd. 11).

(Zelina maitea, niri ulertzea lortzen baduzu miraria izango da, baina ez dut idazten dizudana berriz begiratzeko astirik...)

Denbora gerizaren antzera igarotzen da eta laster elkartuko gara guztiok goialde hartan. Ez al zuen, bada, Jesusek bere nekaldian esan: “Laster ikusiko duzue gizonaren Semea Jainkoaren eskuinetara jarria eta zeruko hodeitatik etortzen...”?.

Gu hantxe izango gara!...

Teresa Jesus Haurrena

TG 162

Zelinari¹

1894-IV-26

(Estanparen testua)

Jesus, nork edo zerk egin zaitu hain txiki? Maitasunak².

(Gutunazaleko testua)

Zelinatxoren 25. urtebetetze egunerako

Teresatxok margotutako *estanpatxoa*

Amatxo priorearen baimenaz.

² Ik. CSG, 80.orr.

¹ Zelinaren 25. urtebetetze egunerako, Teresak aurreko gutunari tamainu txikiko estampa koloreztatu bat erantsi zion; Jesus Haurrak Avilako Santa Teresa laztantzen duela adierazten duen iruditxoa.

² San Bernardo.

TG 163

Ahizpa Teresa Dositea (Leonia)-ri

1894-V-20

J.M.J.T.

Jesus †

Igandea, 1894ko maiatzak 20

Teresa ahizpatxo maitea:

Bai poza eman didala zure eskutitzak!... Ezin diot Jainkoari eskerrak eman eskaintzen dizkizun grazia guztiengatik. Zelinak apirilaren 6ko¹ festaren berri eman digu, zertzelarik txikiak kontatuz. Hura poza egun horretan gure zeruetako amaxok izango zuena!... Eta Le Mans-eko gure izebak², bai maitasunez jarriko zuela bere begia zuregan!

Oso pozik nago neure Ama Teresa santua zure ama bilakatu delako. Ama bera edukitzea, are eta gehiago elkartzen gaituen lotura izatea dela iruditzen zait.

Ezin dizut esan, ahizpatxo maitea, nahi izango nukeen guztia; ene bihotzak ezin du lurreko hizkuntza hotzaren bidez nire barren-barreneko sentimenduak adierazi... Baina egunen batez, zeruan, gure erreinu ederrean, begiratuko dizut eta nire *begiradan* ulertuko duzu esan nahi izan dizudan guztia, *isiltasuna* baita zeruko biztanle dohatsuen hizkuntza³.

Bitartean, zeruko erreinu hori irabazi beharra dago!... Sufritu egin behar da, borrokatu!... Ene bada, zure Teresaxoren alde erregutzeko eskatzen dizut, arren, zerua irabazteko dituen bitarteko guztiak eta lurreko erbestea aprobetxa ditzan.

Zelinak eman digu zuen hauteskundeen berri. Sufritu egin dut maite zenuen Ama galtzen zenuela ikustean; baina poztu egiten naiz, ordezkoa benetan lehenengoaren⁴ parekoa delako, eta oso ziur nago, orain Jesusengana bideratuko zaituzten ama izena benetan merezi duten *bi Ama* dituzula.

Hementxe uzten zaitut, ahizpatxo maitea, bihotzez zuregandik sekula urrundu gabe, eta begirune osoz, nire ordezkari zure Ama onak agurtzea eskatzen dizut.

Ahizpa Teresa Jesus Haurarena [eta] Aurpegi Santuarena
lek. karm. apal.

¹ Leoniaren abitu-hartzea.

² Ahizpa Maria Dositea, nobiziak izenaren parte bat hartu du.

³ "Isiltasuna da aingeruen hizkuntza!": Ama Ainesek Teresak lo egiten duen gelako sarreran pintaturiko esaldia.

⁴ Ama Maria Saleskoa sei urtez Ama Nagusi izan ondoren, nobizien maistra izandako Ama Joana Frantziskak ordezkatu du.

TG 164

1894-V-22

Ahizpa Teresa-Dositea (Leonia)-ri

J.M.J.T.

Jesus †

1894ko maiatzak 22

Neure ahizpatxo maitea:

Igandeko eskutitzxoa honekin batera helduko zaizu, eta bertan zure zorionaz pozten naizela ikusi ahal izango duzu... Eskerrik asko zure gutunagatik, oso gogoko izan dut...

Ir 34.14

Oso zorte handia izatea da zuretzat, ahizpatxo maitea, Jesus zure bihotzaz hain jeloskor egotea. Kantuetako emazteari bezala haxe diotsu Jesusek: "Zuk zauritu duzu nire bihotza, ene arreba, ene emazte, zure begi bakar batez eta lepoan zehar hegaldatzen zaizun ilekka bakar batez". Jesus oso pozik dago zurekin, badakit; oraindik zure bihotzean desleialtasunen batzuk ikusten utzi badizu, ziur nago berak ereiten dituen maitasunezko ekintzak are eta ugariagoak direla.

Kt 4.9

Teresa bietatik zein da sutsuagoa?... Apalagoa dena, Jesusi lotuago dagoena, gauza guztiak maitasunagatik egiten zintzoena dena!... Ene bada, eska dezagun batak bestearen alde, biak bata bestea bezain zintzo izan daitezen! "Zauritu" dezagun Jesus geure "begiz eta ile bakar batez", hau da, gauzarik handienaz eta txikienaz. Ez diezaiogun sakrifizio txikienik ere uka; hain da handia guztia erlijioan!... Maitasunagatik orratz bat jasotzeak arima bat bihur dezake! A ze misterioa!...

Ene ba, Jesusek bakarrik eman diezaieke gure ekintzei duten balioa; maitatu dezagun, bada, geure indar guztiz!...

Maite zaituen zure ahizpatxo

Teresa Jesus Haurrarena
lek. karm. apal.

TG 165

1894-VII-7

Zelinari

J.M.J.T.

Jesus †

1894ko uztailak 7

Neure Zelina maitea:

Leoniaren gutunak¹ asko kezkatzen gaitu...

¹ Eskutitz honetan, Leonia Bisitazioan geratuko ez den beldurra agertzen da.

Ai, zein zorigaitzeko izango den mundura itzultzen bada! Tentaldi bat besterik ez dela izango itxaroten dudala aitortzen dizut; asko erregutu beharko dugu haren alde. Jainkoak eman diezaioke falta zaiona...

Gure Ama bakarraldian da, horixe dela eta ez dizu idatziko, baina beti dago zutaz eta Mariaz pentsatzen; asko eskatuko du bere bi alabatxoeren alde.

Ez dakit zure izpiritua herenegungo tentu berean den, baina hala ere, Kantarik Ederreneko pasarte bat aipatzera noakizu, inork poztu eta kontsolatu ezin duen eta lehortean murgildurik den arima baten egoera ezin hobeki azaltzen duena: "Intxaurren baratzara jaitsi nintzen ibarreko fruituak ikustera, mahastiak ea loratu diren eta ea mingranondoak erne ote diren ikustera... Ez *nekien* jadanik non *nengoen*... nire arima nahasi egin zen Aminadab-en gurdiengatik". (VI. kap., 10-11.).

Kt 6, 10-11

Hauxe da gure arimen irudia; sarri jaisten gara frutuen ibarrera, gure bihotzak elikatzea gogoko duen lekura; gure alde beren altxor aberatsak isurtzeko begien aurrean hainbeste aldiz ireki diren *Eskrituren eremu zabalean*², eremu zabal hori *basamortu* idorra eta urgabea iruditzen zaigu. Non gauden ere ez dakigu jadanik: bakea eta argiaren orde, nahaspila eta ilunpea aurkitzen ditugu bakarrik...

Sal 62,2

Baina emazte garen aldetik, badakigu zein den gure probaren arrazoa: "gure arima Aminadab-en gurdiengatik nahasi da...". Ez gaude oraindik geure erreinuan eta sufrimenduak garbitu egin behar gaitu, arragoan urrea bezala. Askotan bertan behera utzita ikusten dugu geure burua. Ene ba, gurdiak eta nahigabetzen gaituzten alferrikako zaratak guregan ala gugandik kanpo daude? Ez dakigu, baina Jesusek bai ordea. Jesusek gure tristura ikustean, ahots gozo bat, udaberriko³ haizea baino gozoagoa den ahotsa entzunarazten digu: "Itzul zaitez, itzuli, Xulamita nirea, itzul zaitez, itzuli, *ikus zaitzagun!*" (Kant. Ed. VI., 12.).

Jkd 3,6

Kt 6,12

Hau deia gure Senarrarena! Nola? Ez gara *elkarri begiraten* ere ausartzen, hain distira eta apaindura gabe uste dugu gaudela, eta Jesusek dei egiten digu! Atseginez begiratu nahi digu! Baina ez dago bakarrik, Hirutasun Santuko beste bi pertsonekin dator gure arimaz jabetzera... Beste garai baten, Jesusek bere Aita eta gure Aitagana igotzekotan zenean hitz eman eta adieraziezinezko samurtasunez esan zuen: "*Maite nauenak nire hitza gordeko du*, eta nire Aitak *maite izango*. Orduan, berarengana etorriko gara eta beraren egingo dugu *geure* bizilekua". Jesusen *hitza* gordetzea! Hona hemen gure zorionerako baldintza bakarra, gure harekiko maitasun-froga. Baina zer da hitz hori?... Uste dut Jesusen *hitza* Jesus *bera* dela, Jesus, *Hitza, Jainkoaren Hitza!*... Aurreraxeago zera esaten digu san Joanen ebanjelioan. Ikasleen alde Aitari otoiztzen egiten dionean honelaxe dio: "Santu itzazu zeure *hitzaren* bidez, zure hitza *egia* baita...". Beste lekuren batean Jesusek Bidea bera dela erakusten digu, bera dela Egia eta bera Bizitza. Badakigu, beraz, zein den gorde behar dugun *hitza* eta ez diogu Jesusi Pilatok bezala galdetuko: "Zer da *egia?*" Gu Egiaren jabe gara, Jesus *bihotzean gordetzen* baitugu!...

Jn 20,17

Jn 14,23

Jn 1,1

Jn 17,17

Askotan, emazte garen aldetik, gure Maitea "mirrazko lore-sorta" dela eta Jesus guretzat "odolezko Senarra" dela esan dezakegu; baina bai atsegin emango

Kt 1,12

Ir 4,25 b

² Kristoren Antz-Bidea, III, 51, 2.

³ Ik. Soumet, 3. DSA, 5^a-an aipatua.

digutela hitz gozo hauek egunen batean Jesusen ahotik entzuten ditugunean: “Zuek zarete nire probaldi guztietan nire aldamenen izan zinetenak eta horrexegaitik prestatu dizuet nire erreinua, Aitak niri prestatu zidan era berean!” (Ebanjelioa). Jesusen sufrimenduak, hau misterioa! Berak ere sufrimenduak ditu, beraz! Bai, baditu bai, eta sarritan bakar-bakarrak aurkitzen da dolarean mahatsa zapaltzen. Poz dezakeen norbaiten bila aritzen da, baina ez du inor aurkitzen... Asko eta asko Jesusen zerbitzuan izaten dira hark pozten dituztenean, baina gutxi batzuk prestatzen dira Jesusi laguntzera olatu gainean lo edo hilagineko baratzan nahigabez dagoenean... Nork zerbitzatu nahi du, beraz, Jesus bere hortan? Hara ba, geuk egingo dugu!... Zelina eta Teresa gero eta gehiago elkartuko dira eta beraiengan beteko da Jesusen otoitz hau: “Nire Aita, izan daitezela bat, gu ere bat garen bezala”. Bai, gu probaldian gauden bitartean, Jesus jadanik zeruko erreinua *prestatzen* ari zaigu, Aitak berari prestatu zion bezala. *Gure aurpegia* gizakiek *ikus dezaten* nahi du, baina baita *ezkutaturik* egon dadin ere, berak ezik beste inork ezagut ez gaitzan... Hura poza *Jainkoak*, *Hirutasun* osoak begiratzeko digula pentsatzea, guregan dagoela eta guri begiratzeko atsegin duela *jakitea!* Baina zer nahi ote du gure bihotzean aurkitzea “gudu-zelaiko musika-korua” ez bada? (Kant. Ed., VII., 1.).

“Nola abestu ahal izango ditugu Jaunaren kantak atzerriko lurralde batean? Aspaldidanik daude gure harpak urertzeko sahatsetatik dindilizka”, ez dugu harpa jotzen jakingo... *Gure Jainkoak*, gure bihotzean ostaturik dagoenak badaki eta horrexegaitik dator guregana, bizilekuren bat lurreko borroka-lekuaren erdian *dendatxo* HUTS bat aurkitzeko asmotan. Horixe baizik ez du eskatzen, eta bera da *kontzertuaz* arduratzen den jainko-musikaria. Ene bada, harmonia adierazgaitz hori entzungo bagenu, gure belarrietara helduko balitz!...

“Guk ez dakigu gauzak behar diren bezala eskatzen, baina Espirituak guregan intziri kontagaitzez eskatzen du” (san Paulo). Ez daukagu, beraz, arima geure Jaungoiko handiari eskaini eta haren esku *burua uztea* besterik. Zer axola zaio, beraz, Zelinak kanpoan disdiratzen duen dohainik ez baldin badu, barruan erregeen Erregea bizi baldin badu bere aintza guztiaz? Zein handia izan behar duen arimak barruan Jaungoikoa gordetzeko!... Eta hala ere *egun bateko* ume jaiotze berriaren arima, atsegin-paradisua⁴ da harentzat. Zer ez dira izango, bada, Maitearen bihotza irabazteko ere sufritu eta borroka besterik egin ez duten gure arimak?

Ene Zelina maitea, egia diotsut ez dakidala zer diodan; honek ez dauka loturarik, baina hala ere uste dut ulertuko didazula... Hainbeste gauza kontatu nahi nizkizuke!...

Ez iezadazu eskutitz luze batez erantzun zure arimaren berri emateko, hitz gutxi batzuk nahiko izango ditut eta; nahiago dut eskutitz *dibertigarri* bat idatz dezazun *guztionez*. Jainkoak neure buruaz ahantz nadin nahi du gainerakooi atsegin egin diezazuedan.

Besarkada handi bana gure izeba-osabei, baita nire ahizpatxoari⁵ ere. Gure *aita* maiteari dagokionez, *irribarretsu zaindu* dut bere *aingeru* IKUSGA-

⁴ Ik. 2. DSA, 6^o.

⁵ Maria Guérin.

RRIAREN bitartez⁶, berarekin hain loturik egonik, biok gauza bat bera osatzen dugulako...

Teresa Jesus Haurarena [eta] Aurpegi Santuarena
lek. karm. apal.

TG 166

Pottier andreari (Zelina Maudelonde)

1894-VII-16

J.M.J.T.

Jesus †

Karmelen, 1894ko uztailak 16

Neure Zelinatxo maitea:

Zure gutunak benetan poztu ninduen; harritu egiten nau Birjina Santuak zure gurari guztiak entzun dituela ikusteak. Ezkondu aurretik ere, Ama Birjinak zure arima eta zurekin elkartu behar zuenarena bat izatea nahi zuen, sentimendu berdinak izateagatik. Bai zortea zuretzat ulertua sentitzea eta batez ere, zuen lotura hilez-korra izango dela eta bizitza honen ondoren hainbeste maite duzun senarra maitatzen jarraitu ahal izango duzula jakitea!...

Pasatu ziren gu biontzat haurtzaroko egun bedeinkatuak! Orain bizitzaren une serioan gaude. Darraigun bidea ezberdina da; amaiera, ordea, ber-bera. Guk biok ez dugu helburu bat baizik izan behar: Jainkoak taxutu digun bidean *santutzea*.

Uste dut, ene laguntxo maitea, askatasun osoz mintza natzaizukeela; zuk fedearen hizkuntza mundukoa baino hobeto ulertzen duzu; eta zure lehenengo jaunartzeko Jesus da zure bihotzaren jabe. Maite duzu dagoeneko zurearekin gauza bat baizik osatzen ez duen arima ederra, Jesusengatik da zure maitasuna hain samurra eta indartsua.

Ene, zein ederra den gure erlijioa! Gure bihotzak kikildu beharrean (munduak uste duen bezala), jaso eta zabaldu egiten ditu, eta *maitatzeko* gai egiten, *maitasuna mugagabe* batez maitatzeko gai, zeruko erreinua lortzeko bakarrik eman zaigun bizitza hilkor honen ondoren ere jarraitu egin behar duelako, bertan lurrean maitatu izan ditugun gizakiak berriro ikusiko ditugularik!

Karmel Mendiko Andre Mariari Lourdes-en erdietsi duzun grazia eskatu nion zuretzat, ene Zelina maitea. Zenbat pozten naizen Eskapulario santua ezarri duzulako! Predestinazio-ezaugarri argi-argia da eta gainera, ez al zaude eskapularioari esker zure Karmelgo ahizpengandik hurbilago?...

Nire lehengusinatxo maitea, zure senar maitearen alde erregutzeko gomendatzen didazu; hori egitea ahazterik badudalakoan ala?... Ez, ezingo zintuzteket nire oititz txiroetatik baztertu. Gure Jaunari eskuzabal ager dakizun eskatzen diot, behi-

⁶ Zelina.

Jn 2, 1-10 nola Kana-ko senar-emazteei agertu zitzaien antzera. Jesusek beti bihurtu ahal izango ote du ura ardo, hau da, zuek zoriontsu egiten jarraituko ote du, bizitzan aurkitzen diren nahigabeak leunduz.

Nahigabeak! Nola jarri ahal izan dut hitz hau eskutitzean, zuretzat, dena zoriona denean?...

Barka iezadazu, laguntxo maitea, goza ezazu bakean Jainkoak ematen dizun poza, etorkizunaz arduratu gabe. Etorkizunak, ziur nago, grazia eta pozbide berriak gordetzen dizkizula.

Gure Ama Maria Gonzagarena oso hunkituta dago beretzat gordeta daukazu oroigarri maitagarriagatik; Amari dagokionez, hark ere ez du bere Zelina maitetxo ahazten. Gure Amak eta ahizpa Maria Bihotz Sakratuenak ere zure zorionean bat egiten dute; beren maitasunaren ziurtasuna zuri baieztatzeko eskatzen didate.

Ene *lehengusinatxo*¹ maitea, *lehengusutzat* daukadan Pottier jauna nire partez agurtu dezazun eskatzera ausartzen natzaizu.

Hementxe uzten zaitut, ene Zelina maitea, bihotzez zuri loturik gelditzen natzaizularik; eta beti izango naiz zoriontsu Jesusengan dagoen zure ahizpatxo deitzen naizen bitartean

Jesusengan zure ahizpatxo

Teresa Jesus Haurrarena
lek. karm. apal.

TG 167

1894-VII-18

Zelinari

J.M.J.T.

Jesus †

1894ko uztailak 18

Neure Zelina maitea:

Zure probek ez naute batere harritzen, nik neuk ere *iaz* izan nituen, eta badakit *zer diren!*¹ ... Jainkoak sakrifizioa egin nezan nahi izan zuen eta halaxe egin nuen, eta gero, zuk bezala, sufrimenduaren erdian barealdia somatu nuen.

¹ Ik. TG 159, 1.zenb.

¹ Teresaren esaldiak Saigon-go Karmelera joateko duen guraria aipatzen du: ik. C Esk, 9^a. Teresak Zelinaren konfidentziari erantzuten dio batez ere, honek bere ahizpek jakin gabe Kanadara joateko asmoa baitu. Zelinak Teresari azaltzen dion arazoa ulertu beharra dago: "Nire Teresa maitea, ene! Ezin diezazuket azaldu bizitza hau zein astuna egiten zaidan... Zure gutuna jaso dudanean gozatu eta dastatu egin dut... baina orain baso batean bezala nago, ez dago jadanik nigandik ezer ateratzeko. (...) Nire Teresa!... Ene! Zutaz eta gure arteko maitasunaz gogoeta egin dut!... Iruditzen zait, ez dakit hau ongi esaten jakingo dudan, iruditzen zait zu gehiegi zarela... zu niretzat aukera gehiegi ematen didan euskaria zarela... zuregan gehiegi oinarritzen eta murgiltzen naizela, zu niretzat ezinbesteko bihurtzen hasia zarela... asmatu zeuk gainerako

Baina beste gauza bat ere ikusi ahal izan nuen, eta hauxe da, Jesusek batzuetan *gure borondate* hutsarekin nahiko izaten duela. Den-dena eskatzen du eta zerbaiti uko egiten badiogu, gehiegi maitatzen gaitu hori onartzeko; gure borondatea berarenarekin bat datorrenean, ordea, beraren bila gabiltzala bakarrik ikusten duenean, orduan, garai batean Abraham-ekin jokatu zuen bezala jokatzeko du gurekin ere... Hauxe da Jesusek neure barren-barrenean ulertarazten didana; uste dut proban zaudela eta *oraintxe* utziko diozula laguntza behar duzulako ideia horretan pentsatzeari... (Jesusek *oraintxe hautsiko* du zure *izaera*, gurutzea eta sufrimendua eman-goto dizkizu). Eguketik egunera barrurago somatzen dut egunen batean honaxe etorriko zarelakoaren ziurtasuna. Ama Maria Gonzagarenak zure eskutitza irakurtzeko prest zegoela esateko² eskatu dit. Ikusi izan bazenu, hunkitu egingo zinatekeen!...

Has 22,12

Ez beldurrik izan, hementxe aurkitu baituzu, beste inon baino areago, gurutzea eta *martiritza*!... Batera sufrutuko dugu, garai bateko kristauak elkarki probaldian adorea emateko biltzen ziren bezala³...

Gero, Jesus etorri eta gutariko bat hartuko du, eta gainerakoek erbestean eta malkotan jarraituko dute *pixka bat* gehiago... Esaidazu, Zelina, sufrimendu hau hain handia izango ote litzateke bata Lisieux-en eta bestea Jerusalem-en bageunde?... Hainbeste sufrutuko ote zuen Ama Birjinak, bere Jesusen guruzpean egon izan ez balitz?...

Jn 19,25

Ez zaitudala ulertzen uste al duzu? Ba zure ariman irakurtzen dudala ziurtatzen dizut.. Jesusekin leial zarela irakurtzen dut; haren *borondatea* baizik nahi ez duzularik, haren maitasuna baizik bilatzen ez duzularik, ez beldurrik izan. Oraingo *proba honetan* Jesusek gure maitasunak izan lezakeen alde sentikorregia garbitzen du, baina maitasun horren oinarria garbiegia da Jesusek hautsi dezan... Entzun ongi esatera noakizuna: sekula, inoiz ere ez gaitu Jesusek banatuko. Zu baino lehenago

guztia!... Eta Jainkoarena izateko, utzi egin behar zaitudala uste dut... Etorkizunaz pentsatzean, Zerura heldu arte ez zaitudala gehiago ikusi behar pentsatu dut... ai, ene Teresa maitea, zera, beldur izan naiz, eta sakrifizio guztien gainetik dagoen sakrifizioaren susmoa izan dut... Egunerok, eta bihotza dardarka, graziaz beteriko arima da behar dudana ideia honetara egiteko. Ikusi ez zaitudan aldi honetan, pila bat gairi buruzko gogoeta sakonak egin ditut... Gurutzea guztiz biluzik agertu zait eta gurutzearekin batera beste hainbeste gauza... Jainkoak nire arimari benetan dei bitxiak egiten dizkio. Oi, ene Teresa! Zertaz ez nizuke hitz egingo, bada!... Eta hala ere, ez dizut deus esango, ez baitaukat ezer esateko...

Nire Teresa! Ene! Ulertu zeure Zelinari mintzatzen ez zaizun arren, hitz bat bera esaten ez badizu ere!... Ene bizitza, bizitza! Bizitza hain laburra iruditzen zait eta goialde hartan bat egiten dugunean oso zorionsuak izango garela uste dut... Ametsa iruditzen zait den-dena...

Teresa! Zure gutuna zeruko kantua iruditu zait, melodia gozo bat... Ene! Uler ezazu nik ulertu dudana guztia! Baina gehiegi maite zaitut, badakizu... Oi, ene Teresa, bihotzak min ematen dit eta horrexegatik nago ziur, Jainkoak nire izaeraren gainean errege izan behar badu, nire bihotz hau hautsi egin beharko duela; gurutze eta sufrimendurik mingotsena behar dut... Teresa!...

Azken egun hauetan kanpora irten naiz eta asko sufrutu dut; eten gabeko egonezina da gainera; egunak barrezka lehortu beharrean igarotzen ditugun heinean, are gehiago aurkitzen naiz bakartadeak asaldatau, ezin dut amasarik ere hartu. Oso zoritxarrekoa naiz... Mutilekin bizitzen ohitu gabe, arraro samar egiten zait egun guztian haiekin batera bizitzea; nahi duzun adinako santuak, garbiak eta gozoak izango dira, baina ezin naiz ohitu. Oi, ene Teresa, uler iezadazu zer esan nahi dudana... Gainera, egun hauetan eskrupuluz beterik nabil eta honek guztiak eta neure debozio-ekintzarik gabe egoteak idor eta goibel bihurtzen nau... (CG 159, 17/7/1894).

² Ama Maria Gonzagarenaren urrena komunitatearen eta nagusiagoen aurrean guztiz erabakiorra izan-goto da Zelinarentzat.

³ Ik. C Esk, 8^o/9^o.

hiltzen banaiz, ez pentsa zure *arimarendik* aldenduko naizenik, inoiz ez bezala izango gara elkarrekin orduan... Horixe da, beharbada, Jesusek aditzera eman nahi dizuna banaketaz hitz egiten dizunean?... Dena dela, ez zaitetz nahigabetu, ez nago gaixo, bestera baizik⁴, burdinazko osasuna dut; Jainkoa da bakarrik burdina buztina bezala hauts dezakeena... Hau guztiau umekeria da, ez dezagun etorkizunean pentsatu (nitaz ari naiz, ez baitut umekeriatzat jotzen nire Zelina maitearen bihotza bisitatzen duen proba).

Zer dira kanpoko gurutzeak?... Jesusek gure arimak poztuko balitu, ezer sufritu gabe bana gintezke bata bestearengandik... Benetako gurutzea bihotzaren martiritza da, arimaren sufrimendu barru-barrukoa, eta inork ikusten ez duen gurutze hori, guk eraman ahal izango dugu sekula banatzen ez bagara.

Badakit esaten dizudan guztia eta ezereza gauza bera dela, zure barne-proba ez da bukatuko Jesusek jarritako egunerarte. Eta zure arimari on egiteko Jesusek noizbehinka nitaz baliatu nahi duenez gero, baliteke nire hitzak haren borondatea izatea... Sinestezina da nola biok proba berdinak izan ditugun gainditzeko! Orain edo geroago, biok edontzi beretik edan behar dugu.

Mt 20,23

Lurrean ekaitz gogorra denean, mundu guztiak hau esaten du: "Ez da txalupengatik zertan beldurrik izan, ekaitzak ez baitu orain itsasoan orro egiten"⁵. Honela, bada, nik zera esaten diot Zelinari: ekaitza izan da jadanik nire ariman, orain zeurean dago, baina ez beldurtu, laster etorriko da barealdia (lasaitasun handia etorriko da ekaitzaren ondoren).

Mk 4,39

Nire alabaren⁶ berri jakin nahi al duzu? Ongi da, GERATU egingo dela uste dut, ez da gure antzera hezia izan; heziketa da duen portaera kaxkarraren arrazoia, baina bestela, on-ona da, asko maite nau, baina *zetazko eskularru zuriz* bakarrik ikutzen saiatzen naiz. Kalte handia egiten didan titulua dut⁷, "ehiza-txakurtzoa" bainaiz, neu naiz beti piezaren atzetik korrika dabilena. Ikusten duzunez, ehiztariak (nobizien maistrak eta prioreak) handiegiak dira sasi artean ezkutatzeko, baina txakurtxo bat... *sudur finekoa* da, eta gainera, *leku guztietan* barrena sartzen da... horrexegatik begizatzen dut neure alaba hurbil-hurbiletik, eta *ehiztariak* ez daude deskontentu beren txakurtxoaz... Ez diot neure untxiari gaizki egin nahi; maite dut eta *samurtasunez* esaten diot ilea ez duela oso txukuna, bere *begiradak* mendiko *untxi* batenak diruditela, hitz batez, nire ehiztariak nahi duten bezalakoa izan dadin saiatzen naiz: bazkatu behar duen belartxoaz baizik arduratu behar ez duen untxi apaltxo bat.

Txantxetan ari naiz, baina nire barruan untxiak txakurrak baino gehiago balio duela pentsatzen dut; haren lekuan banengo, munduko oihan handian orain dela aspaldi *galdua* izango nintzen...

Eskerrak ematen dizkizut zure bi argazkiengatik⁸. *Zoragarriak* dira benetan.

⁴ Teresak katarro gogorra du.

⁵ Bertako esaera.

⁶ Ahizpa Maria Hirutasunarena, ekainaren 16an sartua.

⁷ Ama Maria Gonzagarena da izatez nobizien maistra; Teresaren egitekoa ez dago ongi zehazturik eta delikatua da.

⁸ "Argazkiak": Zelinak Maria Guérin-ekin ateratakoak seguraski.

Teresa Jesus Haurrena

Guzti hori bisitatzea hain gogoko duten bisitari guztiak⁹ nire partez agurtzea eskatzen dizut, mesedez. Mutilei buruz diostasuna ulertzen dut... Baina momentuko gauza da, helduko da asko ikusiko ez dituzun eguna, poztu zaitez!...

Neuk egindako bi abesti bidaltzen dizkizut, erakutsiezazkiozu nire Maritxo maiteari, esaiozu maite dudala, bere alde otoitz egiten dudala... Oi! Sufrimenduak nola handitzen eta bukaerara hurbiltzen duen haren arima!...

Gutuna gure izebari zuzendurik dago eta Ama Maria Gonzagarenak ez dio idatzi; hurrengo batean izango da... Eskatu gure izebari "Nire gaurko kanta"¹⁰, ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenak berari dedika diezaiodan nahi izan baitu.

TG 167 bis

Guérin andreari¹

1894-VII-19

J.M.J.T.

Gure Amak ez du bere Joanaxori idazteko astirik. Amak bihotzez eskertzen dizkio gutuna eta eredu *politak*².

Teresatxok bere samurtasun gutzia igortzen die bere *bidaiari* maiteei!...

TG 168

Zelinari

1894-VIII-5/10

J.M.J.T.

Jesus †

Neure Zelina maitea:

Zure gutuna *maitagarria* da benetan¹, malko gozo-gozoak isurarazi dizkigu!...

Ez ezazu beldurrik izan, Jesusek ez dizu iruzurrik egingo; jakingo bazenu nola liluratzen duen zure *otzantasanak*, zure ume-*zintzotasunak*!... Nik bihotza *urraturik*

⁹ Zelina La Musse-en dago Guérindarrekin, Néele jaun-andreekin eta familiaren laguna den Joseph de Cornière-ekin. "Mozorrotu eta irudi biziekin bidaiarien istorioak egiten ditugu" (CG 159, Teresari).

¹⁰ Ik. 5. TO.

¹ Maria Bihotz Sakratuarenak Guérin andreari idatzitako gutun bati eginiko Post-data

² Ama Ainesek eskaturiko lore-ereduak.

¹ Martin Jauna lurperatu (abuztuak 2) ondoren idatzitako gutuna (ez da gordetzen). Zelinak bere ahizpei etorkizunerako dituen asmo eta beldurrez hitz egiten die.

Jkd 3,6
Sal 125,6

dut... Hainbeste sufritu dut zugatik, non zure bokaziorako oztopo ez izatea itxaroten baitut; gure maitasuna ez al dago garbi arragoako errearen antzera?... Negarrez, haziak zabaltzen ditugu, eta orain, laster, elkarrekin itzuliko gara gure eskuetan aza-oak eramanez.

Gaur ez noa Aitari idaztera, uste dut hobe dela bere eskutitzaren zain egotea, berak zer dioen ikusteko². Zu *zuritzeko* idatz diezaiodan nahi baduzu, zatozenezan esaidazu, eta ez dut inongo *aitzakiarik* izango hala egiteko... Bihotza hertsita dut... Baina eskerrak damaizkiot Jainkoari proba hau *ezartzeagatik*, berak halaxe nahi izan baitu, ziur nago, ezinezkoa baita Jesusek *zu bezalako umetxo* bati iruzur egitea.

Hirurok maite-maite zaitugu, lehen baino areago ahal bada, zure *begiradak* hainbeste esan zigun! Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenari entzungo bazenio, harriturik geldituko zinateke benetan... Ez du duda-mudatan jartzen bere Aita maitea erratu egin dela esatean... Baina bera ez da Jesusen tresna xumea baizik izan; hori dela eta, Teresatxo ez dago haserre!...

Eskertu iezaiozu gure izebari bere gutunagatik eta zuri idatzi dizudala *jakiten badu*, benetan hunkituta gaudela esaiozu.

(Ama Maria Gonzagarenak ere negar asko egin du zure gutuna irakurtzean; Ama gaixoak ez daki ezertxo ere³... ikus dezazun zein zentzuzkoak garen).

TG 169

1894-VIII-19

Zelinari

J.M.J.T.

Jesus

1894ko abuztuak 19

Neure ahizpatxo maitea:

Hauxe da mundura idazten dizudan azken aldia!... Ezin nizun egia biribilagorik esan La Musse-ra bidali nizun eskutitzean, laster Karmelen izango zintugula hitz eman nizunean.

Ez nau Caen-go ekaitzak batere harritzen. F eta J.-ak gugandik hain bide ezberdina hartu dute, non ezin baitute gure bokazioaren gorentasuna ulertu!¹...

² Aita Pichon-ek abuztuaren 20an hau erantzuten du: "Bai, bai, neure Zelina Karmeleri, santa Teresari eta Ama Birjinari eskaintzen diet".

³ Parentesi iluna gaur.

¹ La Néele lehengusinekin eta Guérin familiarekin egun batzuk igarotzen dagoen Caen-dik, Zelinak zera idazten dio Teresari:

"Joana eta Frantzisko nire aurka daude, mingotsa baizik ez den hizkuntza darabilte. Hainbeste gauza aurpegiatzen dizkidate, eta Mariak arazo hauen guztion giltza aurkitzen duenean, beste zuloren bat aurkitzen dute. Batetik, bokaziorik ez dudala esaten didate, etxekoandre izatekoa nintzela, erlijioso-bizitza oraintsu egin zaidala erakargarri, ero bat naizela hain bizkor erabakia hartzeagatik, aski ongi dakidala gauza onari kolpe egiten, etsipenagatik sartu naizela komentuan, etab; gero, zutaz mintzatzen dira, dena zeure inguruan biltzekoa zarela, gu biok beren estimua baliogabetzen dugula, etab.: gero, eskertzarrekoa naizela, ea nori

Baina hobeto barre egiten dute azken barre egiten dutenek... Egun bateko Bizitza honen ondoren ulertuko dute, nortzuk izan ziren pribilegiatuagoak, *eurak* ala *gu*...

Zure arrantza mirarizkoak arras gozo hunkitu² gintuen. Nola sentiarazten diguten fintasan txiki hauek gure aita maitea gugandik hurbil dela! Bost urteko "*heriotzaren*" ondoren, nolako poza bera izaten jarraitzen duela egiaztatzeak, antzina bezala, beti gure nahia nola beteko! Ai, nola bihurtuko dio aitak Zelinari honek hari eskainitako arreta!... Aita izan da, hain denbora gutxi honetan, zure bokazioa³ ernearazi duena; izpiritu hutsa den une honetan, oso erraz gertatzen zaio apaiz eta apezpikuekin egotea, eta horrela, ez du bere Zelina maiteagatik bere erreginatxo gaixoagatik bezainbat nekatu behar izan!...

Asko pozten naiz, ene ahizpatxo maitea, Karmelera etortzean erakarpen sentikorrik somatzen ez duzulako; hori, zuek *opariren* bat itxaroten duen Jesusen fintasuna da. Ondotxo daki askoz ederragoa dela ematea, hartzea baino. Bizitzako une laburra baizik ez dugu Jainkoari *emateko*... Eta Jainkoa hauxe esatera prestatzen da jadanik: "Orain nire txanda da"... Hau poza *zorameneraino* maite gaitunarengatik sufritzea eta munduaren begietan erotzat hartuak izatea! Besteak geure buruz epaitzen ditugu, eta mundua zentzugabea denez gero, gu geu garela zentzugabeak uste du!... Baina azken batez, gu ez gara lehenengoak! Herodes-ek Jesusi leporatu zion krimen bakarra *zoraturik* egotearena izan zen⁴... eta nik ere hark bezala pentsatzen dut!... Bai, *zoraturik* zegoen; haren eromena, errege-*aulki* bihurtu nahi zituen hilkorren bihotz gaixoak bilatzean zetzan. Jesus, kerubinen gainean eserita dagoen aintzazko Erregea!... Jesus, beronen presentziari zeruek ezin eutsi diotena! *Eroturik* izan behar zuen gure Maiteak, lurrera bekatarien bila etorri eta bere lagun, bere kutun, bere *pareko* egiteko. Jesus, Hirutasuneko beste bi Pertsona Gurgarriekin hain zorionsua zena!... Guk ezingo dugu sekula hark gugatik egin zuen erokeriak egin, eta gure ekintzek ez dute holako merezimendurik ere, gure ekintzak arrazoizkoak baitira eta ez baitira gure maitasunak egin nahiko lituzkeenetara hurbiltzen. Mundua da, beraz, zentzugabea, ez baitu ezagutzen Jesusek zer egin zuen mundu hori salbatzearen; mundua da arimak *liluratu* eta urik gabeko iturrietara eramaten dituenaa...

Ez gara ez *alferrak* ezta hondatzaileak ere, eta Jesus Madalenaren izenean geure alde agertu zen. Jesus mahaian zegoen, Martak zerbitzatzen zuen; Lazaro,

bururatzen zaion aita hil eta beherala joatea! Beren ustetan, neure dolua kanpoan bukatu behar nuen, neure bokazioa heltzen utzi eta neure eskerrona agertzeko gutxienik urtebete nire osaba-izebekin eman, etab., etab. Guzti honek ez zuen amaierarik... eta ez dakizu ongi nola jarri ziren. Sekula ez nuen esango hainbeste aldiz probatua izan den nire bokazioak horrenbeste samindura sor zezakeenik. 25 urte ditut, badakit zer egiten dudan eta sekula ez dudala ezkontza-biderako joerarik izan adierazi behar dut; aita hil bezain laster, nire lehenengo zeregina neure burua kokatzea zela igarri behar zuten, aurpegira bota beharrean. Dena dela! Horrelaxe izango da... Errukigabeak dira Jainkoari sagaritzen zaizkion arimentzat; badirudi, den-dena mesprezuz aurpegiratu behar zaiela eta samina besterik ez dutela jasan behar. Joanak nahiago izango zuen ni Jerusalem-era joan izan banintz Lisieux-era joan ordez". (CG 160, 19/8/1894).

² Guérindarrek Zelina egunero kostaldera eramaten dute: Luc, Saint-Aubin, Lion, etab. Teresari idazten dion gutun berean zera dio: "Egunero noa itsasora. Atzo itsas karramarroak harrapatu genituen, nik ez nuen bat bera ikusten; aitari erregutu diot eta pilo bat harrapatu ditugu; mirarizko arrantza, 100 baino gehiago". (CG 160)

³ Ik. A Esk, 82¹.

⁴ Ik. "Récitations", 336.or. (21^a,25-27).

Eg 20,35

Lk 23,11

Sal 79,2

1 Erg 8,27

Jr 2,13

Mk 14, 3-6

Jn 12, 1-6

Jesus eta ikasleekin jaten zegoen. Mariak ez zuen jateko asmorik, maite zuenari *atsegin* egitea baizik, eta horregatik, lurrin garesti batez beteriko edontzia hartu eta Jesusen burutik behera isuri zuen, *edontzia apurtuz*; orduan, etxe guztia gantzugai-luaren usainez bete zen eta APOSTOLUEK Madalenagatik *esamesetan* hasi ziren...

Geuretzat idatzita dagoela dirudi: *apaiz* eta *kristau sutsuenek* ere gehiegizkoak gabela diote, Jesusi gure *bizitzako edontziak* haietan gordetzen diren lurrinekin eskaini beharrean, Martarekin batera *zerbitzatu* beharko genukeela diote... Eta hala ere, *zer* axola gure *edontziak* apurtzen badira, horrek Jesus *pozten* badu eta mundua, gogoz kontra bada ere, edontziei darien lurrin gozoa hartu beharrean bada, eta unero *arnasten* duen aire pozoitua garbitzeko balio badu?

Erizainak Caen-en Tisserant-eko botila erdi ur aurki dezazun nahi du -libera bi t'erd-i-. Botila osoak badaude bakarrik, ez erosi, Lisieux-en ere badaude eta.

Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenak zazpi edo zortzi kraskagailu nahi lituzke.

TG 170

1894-VIII-20

Ahizpa Teresa Dositea (Leonia)-ri

J.M.J.T.

Jesus †

1894ko abuztuak 20

Neure ahizpatxo maitea:

Gutun luze-luze bat idatzi nahi nizuke, baina minutu kontatuak dauzkat, nire eskutitzaren zain baitaude postetxera joateko.

Inoiz baino gehiago pentsatzen dut zutaz, gure aita maitea zerura joan zenez gero. Uste dut guk adinako zirrara sentitzen duzula. Aitaren heriotzari ez derizot heriotza, benetako *bizitza* baizik. Sei urtean falta izan ondoren berriro aurkitu dut, *neure* inguruan somatzen dut, neuri begira, neu babesten...

Ahizpatxo maitea, ez al gaude sekula baino elkartuago orain Jesus eskaini ziguten aita eta ama aurkitu ahal izateko Zerueta begiratzen dugunean?... Laster beteko dira haien gurariak eta Jainko onak eman zizkien seme-alaba guztiak joango zaizkie beraiekin betiko egotera...

Oso ongi ulertzen dut Zelinarean joateak nolako hutsunea utziko dizun, baina badakit zein eskuzabala zaren gure Jaunarekiko eta gainera, hain arin igarotzen da *bizitza!*... Gero, sekula ez banatzeko elkartuko gara, eta Jesusengatik sufritu izanaz poztuko gara...

Ahizpatxo maitea, barka iezadazu eskutitz itsusi honengatik, zure Teresaren bihotzari begira iezaiozu bakarrik, hainbeste gauza esan nahi dizkizu eta ezin baitizu adierazi...

Adeitasunez agurtu, mesedez eskatzen dizut, zure maistra maitea eta Ama nagusia.

Zelina zu ikustera joan dadinean, gutuna ahalik eta arinen eman diezaiozuen nahiko nuke¹.

Agur, ene ahizpatxo maitea, ez ezazu ahaztu zure ahizparik *txiki*en eta *apale-naren* alde otoitz egitea.

Teresa Jesus Haurrarena [eta] Aurpegi Santuarena
lek. karm. apal.

TG 171
1894-X-11

Ahizpa Teresa Dositea (Leonia)-ri

J.M.J.T.

Jesus † 1894ko urriak 11

Neure ahizpatxo maitea:

Ez dakizu ongi zenbat pozten nauen zure festa oraingoan nirearekin batera datorrelako!... Ziur nago 15ean santa Teresak graziaz beteko zaituela. Asko erregutuko diot zure alde, baita Margarita Maria dohatsuari ere!...

Jakingo bazenu, ene ahizpatxo maitea, zenbat erregutzen dugun zure alde!... Eta batez ere, jakingo bazenu zer *sakrifizio* eskaintzen ditugun, benetan harrituko zinatekeela uste dut... Zure probak ezagutzen ditugunetik, gure garra oso handia da, egiat diotsut, gure pentsakizun eta otoitz guztiak zeuretzat dira.

Uste handia dut neure Bisitasioko lekaimetxo maitea garaile irtengo dela bere *proba handi* guztietatik, eta egunen batean lekaima ezin hobea izango dela. Dagoeneko Jainkoak hainbeste grazia eskaini dizkio! Orain bertan behera utziko ote du, bada, ia-ia portura heldu dela dirudienean?... Ez, Jesus lo dago bere emazte gaixoa tentaldiaren olatuen kontra borrokan ari den bitartean, baina guk goxo-goxo deituko diogu eta berehala esnatuko da, haizeari eta ekaitzari haserre egingo die eta barealdia berrezarriko da...

Mk 4, 38-39

Ahizpatxo maitea, probaren ondoren poza datorrela ikusiko duzu eta apurtxo bat geroago, bai zoriotsu sentituko zarela sufritu izanagatik. Gainera, Jainko onak, arreta eta kontseilu amatiar eta samurrak eskaintzen nekatzen ez diren zure Ama onen bidez, agiri-agirian eusten dizu.

Arren eskatzen dizut, ene ahizpa *maitea*, beren otoitzetan gomenda nazazun, eta zuk nire *Teresa* maitea, sinets ezazu beti haziz doan zeure ahizparen samurtasunean.

Teresa Jesus Haurrarena
lek. karm. apal.

¹ Aurreko gutuna, TG 169.

TG 172

1894-XI-17

Guérin andreari

J.M.J.T.

Jesus †

1894ko azaroak 17

Neure izeba maitea:

Ahizpa Maria Madalenari¹ osabak bidalitako gutun zoragarriak nire arima oraindik lurrinduta duelarik, zure santu-eguna zoriontzera noakizu.

Oi, ene izebatxo maitea, jakingo bazenu zein harro nagoen zuek bezalako ahaideak izateagatik!... Atsegin handia sentitzen dut nik maite ditudanak Jainkoa ongi zerbitzen dutela ikustean, eta niri hain familia oneko partaide izatearen grazia zer dela eta eskaini ote zaidan galdetzen dut.

Jn 12, 1-2 Jesus zuen etxera atsedean hartzera oso gogoz joaten dela iruditzen zait, behinola Betaniara joan ohi zen bezala. "Maitasunaren Jainko-Eskalea"² da ostatu eskatzen duena eta "eskerrik asko" esaten du, jasotzen dituen esku-erakutsiez gainera, beti ere zertxobait gehiago eskatuz. Jesus zuzentzen zaien bihotzek ondotoxoz egagutzen dute "Jainkoak arima bati egin diezaiokeen ohorerik handiena, ez da asko ematea, asko eskatzea baizik"³.

Tb 13,17 Horregatik, zein gozoa izango den zuretzat, ene izeba maitea, Jesusek egunen batean *ama* izenez deitzen zaituela entzutea!... Bai, benetan zara beraren *ama*, Jesusek honelaxe ziurtatzen dizu ebanjelioko hitz hauetan: "Nire Aitaren borondatea betetzen duena, hura da nire Ama". Eta zuk, haren borondatea betetzeaz gain, zure sei alabak eman dizkiozu bere emazteak izan daitezten!... Beraz, sei aldiz zara beraren ama, eta zeruetako aingeruek hitz eder hauexek zuzen diezazkizute. "Zeure seme-alabekin poztuko zara, *den-denak* bedeinkatuak izango eta Jaunarekin batuko baitira". Bai, *denak* dira bedeinkatuak eta zeruan, ene izeba maitea!, zure koroa arrosez eta liliz osatua izango da.

Erdian dirdir egingo duten arrosa *biak*⁴ ez dira apaingarri txikiak izango. Arroza bi horiek lurrian zure bertuteak kopiatuko dituzte, mundu tristea lurrintzeko eta Jainkoak oraindik behealde honetan gogoko dituen loreren batzuk aurkitu ahal ditzan, gaizkileak zigortzeko prest dagoen besoa geldiaraziko dutenak

Izebatxo maitea, gauza asko esan nahi nizkizun, baina nire gutunaren bila datoz, ez daukat neure samurtasun guztia ziurtatzeko baino denbora gehiagorik. Gure amonaxo⁵ maitearen festa-egunean ere pentsatu dut eta nire ordezkari besarkada handi bat eman diezaiozun eskatzen dizut.

*Zure alabatxo*Teresa Jesus Haurarena
lek. karm. apal.

¹ Ahizpa Maria Madalenaren abitu-hartzeko "aitabitxi" Guérin jauna izan zen eta "amabitxi" Virville andrea, Ama Maria Gonzagarenaren koinata.

² Ik. 5. DSA.

³ Aita Pichon.

⁴ Frantzisko eta Joana.

⁵ Fournet andrea.

TG 173

Ahizpa Teresa Dositea (Leonia)-ri

1895-I

J.M.J.T.

Jesus †

Neure ahizpatxo maitea:

Poz handiz zoriontzen zaitut urte berriaren hasieran. Igaro dena oso emankorra izan da zerurako, gure aita maiteak ikusi baitu dagoeneko "gizakiaren begiak ikusi ezin duena". Aingeruen harmonia ere entzun du... eta haren bihotzak ulertu egiten du, haren arimak Jesusek maite dituenentzat prestatzen dituen" sariez gozatzen du...!

Gure garaia ere helduko da... Baliteke hasi berri dugun urtea amaitzen ez ikustea! Baliteke gutariko batek laster Jesusen deia entzutea!...

Ene, zein goxoa den betiereko ibaiertzerantz goazela arraunean pentsatzea!...

Ahizpatxo maitea, ez al zaizu niri bezala, gure aita maiteak zerura joatean elkarrengana hurbildu gaituela iruditzen? Familia erdiak baino gehiagok gozatzen du dagoeneko Jainkoa ikusteaz, eta lurlean erbesteratuta bostak laster hegaldutako dira erreinurantz. Bizitzaren laburraz pentsatzeak adorea ematen dit, bideko nekea jasaten laguntzen dit. Zer axola (dio Kristoren Antz-Bideak¹) lurlean egin beharreko lan apurrak?... Gu igaroz goaz eta ez dugu bizileku finkorik. Jesus aurretik joana da bere Aitaren etxean guretzako lekua prestatzera, eta gero itzuliko da eta berarekin eramango gaitu, bera dagoen lekuan egon gaitezen gu ere... Itxaron dezagun, baketan sufri dezagun, atsedenerako ordua iristeko zorian dago, bizitza honetako une bateko nahigabe txikienak ere, aintzazko betiko pisua esan nahi du guretzat...

Eg 13,14
Jn 14, 2-3
2 Ko 4,17

Ahizpatxo maitea, zein atsegin ditudan zure gutunak, eta batez ere, zenbat on egin dioten *nire arimari!* Atsegin dut benetan Jainkoak zeen maite zaituen eta nola graziaz betetzen zaituen ikustea... Bere maitasunaren alde sufritzeko gai ikusten zaitu, eta horixe da eman diezazukeen samurtasun-seinalerik handiena, sufrimendua baita haren pareko egiten gaituena!...

Oi, ene ahizpatxo maitea! ez ezazu azkena eta zure ahizpetan *pobreena* dena ahaztu, eska iezaiozu Jesusi *zintzoa* izan dadin, zu bezala, leku guztietan txikiena eta azkena² izateaz pozik egon dadin!...

Zure Ama onak nire partez zorion ditzazun eta Jesusen Bihotzean beraiengandik hurbil nagoela ziurta diezazuezun erregutzen dizut.

Zure ahizpatxo gaixoa

(Teresa Jesus Haurrarena)

lek. karm apal.

¹ Kristoren Antz-Bidea, III, 47, "Réflexions". Aipamena paragrafoaren azkenerarte luzatzen da.

² Ik. CG, 801.orr. s.

TG 174**Ahizpa Jenofa (Zelina)-ri**

1895ko urtarrilaren azkena

Ahizpa Jenofa Santa Teresarena.
Teresatxo da idazten dizun lehenengoa!¹...

TG 175**Ahizpa Teresa Dositea (Leonia)-ri**

1895-II-24

J.M.J.T.

Jesus †

1895ko otsailak 24

Neure Leonia maitea:

Oso zoriontsu sentitu naiz zure berri izan dudanean. Osasunez ongi jarraituko duzulakoan eta zure ahizpak ere sendatze-bidean izatea itxaroten dut¹.

Oso urria da eskaini ahal izango dizudan astia, baina garizuma aurretik zure otoitzetan gomenda nazazun nahi dut, eta neure aldetik zuri hitz eman, ahal den neurrian, zutaz gehiago pentsatuko dudala, eta gero zurekin eta luzaro Alleluia kantatzera joango naizela, gaur egin ez izana ordaintzeko.

Bazko ondoren esan nahi dut, baina hain gaizki azaltzen ditut gauzak eta gari-zuman alleluia kantatzera joango natzaizula uste izango duzu... Ez, ez, nahikoa izango dut Jesusen oinazezko bizitza jarraitzeaz, Babiloniako ibai ertzetan dauden sahatsetatik dindilizka utziko dut neure harpa!²... Baina Berpizkundearen ondoren, neure harpa hartuko dut berriro, unetxo batez erbestean nagoela ahaztuz; eta zurekin Jesus zerbitzatzearen eta haren etxean bizitzearen zoriona kantatuko dut, denboran eta betiko bizitzan haren emaztea izatearen zoriona!²...

Ahizpatxo maitea, zure Ama onak adeitasunez agur ditzazun eta nire maitasun *handian* sinets dezazun eskatzen dizut.

Zure ahizpa *txiki-txiki*
Teresa Jesus Haurarena

(P.D.) Idazten didazunean, esan zeure lehenengo jaunartzeko *urtea*², bai?

¹ 1889az gero (ik. TG 98, 1.zenb.), Teresak Zelinari "Maria Aurpegi Santuarena" deitzen dio. 1895ko urtarrilaren bukaeran, Delatroëtte jaunak Ama Jenofa Santa Teresarenak bere izenarekin jarrai dezan nahi duela azaltzen du (+1891). Arazo hau gau bateko atsedendian baieztatzen da. Batzarretik irteterakoan, Teresak, zeharo atsekabetuta, gutun hauxe idazten dio bere ahizpari kontsola dadin. Zelinak abitua otsailaren Sean hartuko du.

¹ Caen-go Bisitazioan gripea sartu da.

² Leoniak bere lehenengo jaunartzea 1875ko maiatzaren 23an egin zuen. Ik. A Esk, 6'.

TG 176

Ahizpa Teresa Dositea (Leonia)-ri

1895-IV-28

J.M.J.T.

Jesus †

1895ko apirilak 28, igandea

Neure ahizpatxo maitea:

Aurretiaz eskertu nahi izango nizun hain atsegin izan dudan zure gutuna, baina gure Amak berehala erantzun zizun eta ezin izan nizun berarekin batera idatzi.

Ahizpatxo maitea, barren-barrean sentitzen dut zeure bokazioan zaudela eta ez bisitazioko lekaime gisa bakarrik, *Caen*-en dagoen Bisitazioko lekaime gisa ere bai. Jainkoak hain erakutsi ugari emanik, ezin dugu zalantzan jarri... Le Mans-era joatearen ideia tentaldizat jotzen dut eta Jainkoari tentaldi horretatik aska zaitzan eskatzen diot. Oi, ondo baino hobeto ohartzen naiz zure profesaren atzerapenak oso proba gogorra izan behar duela zuretzat! Baina hain grazia handia izanik, zenbat eta grazia horretarako prestatzeko denbora gehiago izan, are eta pozago egon beharko zenuke. Atsegin dut neure profesia aurreko hilabeteetan nire ariman gertaturikoa gogoratzea. Nire nobiziatu-urtea igaro zela ikusten nuen, eta inor ez zen nitaz arduratzen (gure Aita nagusiak gazteegia nintzela uste baitzuen). Oso goibel sentitzen nintzela¹ diotsut, baina egun batez Jainkoak zera ulertarazi zidan, nire boto santuak egiteko gogo bizi hartan neure burua bilatzeko ahalegin neurgaitza zegoela. Orduan hauxe pentsatu nuen: Abitua hartzeko egunean, farfailez eta lorez hornituriko soineko zuri eder batez jantzi ninduten baina inork pentsatu ote du nire ezkon-soinekoaz?... Neuk *bakarrik* prestatu behar dut soineko hori, Jesusek ez baitu nahi *bera* ez den beste inork lagun diezadan; beraz, bere laguntzaz, martxan jarri eta gartsu ekingo diot lanari. Gizakiek ez dituzte nire bihotzean ostenduta geldituko diren ahaleginak ikusiko. *Ahantz* nazaten saiatuz, ez dut Jesusena izan ezik beste begiradarik bilatuko... Zer axola, izpirituz eta talentuz biluzik eta pobre ematen badutt?... Kristoren Antz-Bidearen gomendioa praktikan jarri nahi dut: "Bata gauza honetaz poztu dadila, eta bestea beste hartaz, eta zuri dagokizunez, *zeure burua gutxiestean*, nire borondatean eta nire aintzan baizik ez ezazu gozatu"². Edo beste hau bestela: "Balizkoa izango zaizun zerbait ikastea nahi al duzu? Atsegin izan ezazu ahaztua eta ezereztzat hartua izatea"³!"

Gauza hauetaz guztietaz pentsatzean, bake handia somatu nuen ariman, huraxe zela *bakea* eta *egia* somatu nuen!... Jadanik ez nintzen gehiago nire profesia eguneko dataz arduratu, eztei- *soinekoa* prest egon zen egunean, Jesus bere emazte gaxoaren bila etorriko zela pentsatuz...

Ahizpatxo maitea, ez nembilen gaizki; eta are gehiago, Jesus poztu egin zen nire nahiak eta nire buru-uztea ezagutu zituenean; ni zain egotera ausartuko nintzen

¹ Ik. A Esk, 73ⁱ.

² Kristoren Antz Bidea III, 49, 7.

³ Kristoren Antz Bidea, I, 2, 3.

baino lehenago elkartu zitzaidan... Orain Jainkoak bide beretik zuzentzen nau, ez dut gurari bat baizik, haren borondatea egitea. Beharbada gogoratuko duzu antzina "Jesusen jostailutxo" ⁴ dei nazaten nahi izaten nuela. Oraindik oso pozik nago haren jostailutxoaz izateaz, baina Jainko-Haurrak bertute gorenez beteriko eta bere jostailuak zirela esango zuten beste hainbeste arima izango zituela pentsatu nuen; horregatik konturatu nintzen arima haiexek zirela haren *jostailu ederrak*, eta nire arima gaixoa ez zela baliorik gabeko jostailu *txiki* bat baizik... Pozteko, ordea, zera esan nion nire buruari, sarritan haurrek nahiago izaten dituztela *utzi, hartu, apurtu* edo beraiek nahi bezala *musuka* ditzaketen *jostailuak*, ia-ia ikutzera ere ausartzen ez diren balio handiko beste jostailuak baino. Orduan, poztu egin nintzen txiro izateagatik, are eta *txiroagoa* izateko gogoia nuen, Jesusek nirekin jolastea are eta gogokoago izan zezan.

Ahizpatxo maitea, zure izpirituaren zuzendari egin dudalarik, erregutu nire alde, Jesusek ematen didan argia praktikan jar dezadan.

Agurtu, arren eskatzen dizut, nire partez begirunez zure Ama onak.

Maite zaituen zure ahizpa *txiki-txiki*
Teresa Jesus Haurarena
lek. karm. apal.

TG 177

1895-VII-7 (?)

Maria Guérin-i

Neure ahizpatxo maiteari¹, hartaz *asko gogoratzen* den Teresaxoren partez... eta batez ere Maria maiteak, amaren besoetan umetxo baten gisa lasai-lasai egonez, bere hitza betetzea (dardarka) itxaroten duenaren partez...

Otoitz asko egiten dut zure alde, ene ahizpatxo maitea, eta La Musse-ko biztanle guztien alde ere bai, banatzearen sakrifizioa hain borondate onez onarturik, perfekzio-bidean aurrerakada handiak egiten aritu behar dutelarik!...

Maite ditut... nire *osaba-izeba maiteak*, *gero eta gehiago*, eta *otoitz egiten* dut beraien alde, ez dakit noraino helduko den maitasun hau, nire samurtasuna egunero hazten baita!...

⁴ Ik. TG 34, 2.zenb.

¹ Abuztuaren 15ean Karmelen sartu aurretik, Mariak La Mussen familiarekin igarotzen dituen azken oporrak.

TG 178

Guérin andreari

1895-VII-20/21

J.M.J.T.

Jesus †

1895ko uztaileak 20

Neure izebatxo maitea:

Asko hunkitu nau zeure Teresatxoz gogoratzen zarela ikusteak. Teresa ere asko gogoratzen da zutaz, eta bere izeba maiteari oraintsu arte ez baldin badio idatzi, ez da arduragabekeriagatik izan, bihotza maitasun eta begirunez hain beteta izanik, bere pentsamenduak nola itzuli ez zekielako baizik.

Saiatu beharra dut, beraz, neure izebatxoari atsekabea emango dioten gauzak kontatzeko arriskua izan arren; ez al da egia haurren ahotik irteten? Horrela, bada, barkatuko didazu egia esaten badut, haurra bainaiz eta hala izaten jarraitu nahi baitut...

Nire ikasgai izpiritual txikia ematera eta Jainkoa *ona* nirekin zein *onbera* agertzen den azaltzera noakizu. Atsegin dut santuen bizitza irakurtzea; santuen ekintza heroikoen kontakizunek garrez betetzen dute nire bihotza eta haiek imitatzera bultzatzen naute. Baina noizbait besterik ere gertatu izan zaidala esan behar dut, santu hauen ahaideen zorte zorionsuaren inbidiz izatea, santuekin bizitzeko zortea eta haien hizketa santuez gozatzeko aukera izan zutelako. Orain ez dut zertan inbidirik izan, santuen ekintzak, beren borrokak eta Jainko onaren borondatera zein eskuzabal makurtzen diren hurbil-hurbiletik ezagutzeko aukera dudalako¹.

Ene izebatxo maitea, badakit atsekabetu egingo zinatekeela santa bat zarela esango banizu, eta hala ere, horixe berori esateko gogoz nago... Baina esaten ez baldin badizut, osabak jakin ezin duen (ez bailuke atsegin izango) beste hau esan diezazuket; gauza hori nik baino hobeto ezagutzen duzu eta zera da, nire osaba munduan gutxi dauden bezalako santua dela, eta haren fedea Abraham-enarekin pareka daitekeela... Ai, jakingo bazenu atzo nire arimak zein zirrara gozoa izan zuen nire osaba Maritxo² aingeruarekin ikustean!... Gu, geure Leonia gaixoarengatik nahigabe handi baten sarturik geunden, benetako heriotzaldia zirudien. Gure fedea aztertu nahi zuen Jainkoak, ezin nuen gure Jauna gurutzean zegoeneko otoi-tza baizik egin: “Ene Jainkoa, ene Jainkoa, zergatik utzi gaituzu bertan behera?” Edo bestela, hil agineko baratzen bezala: “Ene Jainkoa, egin dadila zure nahia eta ez gurea”. Azkenean, gu pozteko, Jainko-Salbatzaileak ez zigun Getsemani-n eutsi zion aingerua bidali, oraindik lurtean erromes dabilen eta jainko-indarrez betea den bere *santuetariko* bat baizik... Haren baretasuna eta eroapena ikustean, gure larrialdia aienatu egin zen eta aita-esku baten laguntza somatu genuen: Oi, izebatxo maitea, zein handia den Jainkoak bere alaba gaixoenganako duen errukia!... Jakingo bazenu zenbat negar egin nuen gure osaba santuaren elkarrizketa zerutiarra entzute-

Mt 27,46

Lk 22,42

¹ Guérin jaun-andreak Ama Aines Jesusenari bi gutun miresgarri idatzi dizkiote beren alabaren joatea dela eta.

² Caen-en biltzekotan ziren, berriro Bisitaziotik irteten zen Leoniarekin bat egiteko.

an!... Antzaldatua iruditu zitzaidan, haren hizkera ez zen itxaropenez dagoenaren fedezko hizkera, maitasunak harturik dagoenarena baizik. Hain zuzen ere, probak eta apalkuntzak etorri zitzaizkionean, gauza oro ahazten zuela zirudien, *altxorra* kendu nahi zion esku zerutiarra bedeinkatzeaz baizik ez arduratzeko eta *ordainez*, santua bailitzan probatzen zuen. Santa Teresak arrazoi handia zuen, gure Jaunaren alde lan handiak hartzen zituenean Jaunak gurutzez betetzen zuela esan zionean: “Ene Jauna, ez nau harritzen berorrek hain lagun gutxi izateak, oso gaizki tratatzen baititu!³ ... Beste nonbait zera esaten zuen, Jainkoak maitasun normalez maite dituen arimeñ probaren batzuk bidaltzen dizkiela, baina maiteen zituen arimeñ gurutzeak ematen dizkiela, bere samurtasunaren⁴ seinale gisa.

(Uztailak 21)

Atzo nire gutuna bukatu gabe utzi nuen Maria eta Leonia heldu zirelako; gure zirrara handia izan zen benetan Leonia ikustean, ezin izan genion hitz bat bera ere atera, negar eta negar egiten baitzuen. Baina azkenean, begiratu zigunean, den-dena ongi joan zen. Ez dizut xehetasun gehiago emango, ene izebatxo, oraintsuko egoera mingarri hauetan benetako *emakume sendo* baten antzera portatu den Mariarengandik jakingo duzu dena eta. Horrelaxe esan genion, baina berehala konturatu nintzen konplimendu hau ez zuela atsegin, eta orduan “aingerutxo” deitu nion; bigarren hau “emakume sendoa” baino atseginago zuela esan zidan barrezka. Harriei ere barre eragingo liokeen umorekoa da eta horrek bere laguna dibertitu egin zuen. Bustinezko plateretan zerbitzatu genien janaria, karmeldar antzera, eta hori atsegin izan zuten⁵.

Ai, bai bertute handia duela zure Maritxok!... Miragarria da bere buruaren gain duen nagusitasuna, santa egiteko ez zaio inola ere *kemenik* falta, eta horixe da bertuterik beharrezkoena, kemenarekin perfekzio gailurrera erraz hel daiteke eta...

Apurtxo bat Leoniarri eman ahal balio, zure *aingerutxoari* oraindik nahikoa geldituko litzaioke eta besteari ez letorkioke bat ere gaizki... Ene izebatxo maitea, nire esaldiak ez direla argiak konturatzen hasia naiz, presaka ari naiz neure gutuna Mariari ematearren, ez baitut nahi nire mandatuak emateko Mariak idatz diezazuen, edo seilutarako *hamabost zentimo* eman diezazkidan; baina ez dut luzaroago egon nahi izan neure izeba hain maiteari “*begirada huts*” bat bidaltzeko, denik eta adierazkorrena izanda ere, hain urrutitik izebak ez bailidake begirada ikusiko!

Joana eta Frantziskori buruz hitz egin nahi nizan, baina ez dut astirik; haietaz esan diezazukedan guztia zera da, lurrean hurbiletik ikus ditzakedan *santuen* artean kontatzen ditudala, eta atsegin handia izango dudala laster zeruan *berne seme-alabekin* batera⁶ ikusiko ditudanean, haien koroek beren loria handituko dutelarik...

Ene izebatxo maitea, gutun hau ezin baduzu irakurri, errua Mariarena da. Zigor gisa besarka ezazu nire partez, eta esaiozu berak zu besarka zaitzala nire partez.

Zure alaba *txiki-txikia*
Teresa Jesus Haurarena
lek. karm. apal.

³ Ik. TG 155, 1.zenb.

⁴ Avilako Santa Teresa, “*On-Bidea*”, XXXII. kap.

⁵ Leonia eta Mariak, sekula ez bezala, tornuko ahizpen jantokian jan zuten zuten.

⁶ La Néele jaun-andreak ez dute sekula seme-alabarik izango eta gertaera honek asko sufriaraziko die.

TG 179

Ahizpa Jenofari

1895ko irailak 8aren ongiren

Andereñoa¹ pozik al dago?...Jaun gaixoa, asko lehiatu da hura poztearren².

TG 180

La Néele andreari

1895-X-14/15, 17

J.M.J.T.

Jesus †

1895ko urriak 14, 15 eta 17

Neure Joana maitea:

Zure gutuna irakurtzean, zu ikusten eta entzuten ari nintzela iruditzen zitzaidan; atsegin handia egiten dit gure osaba-izebek Lisieux-era zein gaixotasun maitagarria eraman dizuten egiaztatzean; oraindik zeure umore oneko krisialditik ez sendatzea itxaroten dut... Hala izan liteke, Fakultateko kide ospetsuak¹, nahiz eta zientzia unibertsalaren jakitun izan, ezin baitu bere Joanatxo maitearentzat sendagairik aurkitu... Ustekabean sendagairik aurkituko balu, gure Karmelez ez ahazteko eskatzen diot, nobiziatu osoa gaixotasun berberaz kutsaturik baitago, zure Fifine² maiteari "ileak zuritu eta ximurrak irtenarazi dizkion *iratxoa*" Karmelen sartu zenetik...

Poz handia da nobiziatuko dekanoa zaharra naizen honentzat³, nire azken egunak hain umore onez inguratuta ikustea; horrek gaztetu egiten nau, eta nahiz eta zazpi urte t'erdi egin lekaiame, askotan ezin naiz serio egon, komunitate osoa alaitzen duen deabrutxo xeblearen aurrean. Herenegun ikusi izan bazenu Frantziskoren eta zure argazkiekin, benetan atsegin izango zenukeen!... Gure Amak jolastokira eraman zituen eta ahizpa batengandik bestearengana igarotzen zituen. Ahizpa Maria Eukaristiarenaren txanda iritsi zenean, honek argazki biak hartu zituen eskuan eta lehenengo batari eta gero besteari, *irribarre txikiak* eskainiz zera esaten zien: "Egunon, nire *Fifine*... Egunon, nire *Serafin*". Samurtasunezko esaera hauek karmeldar guztiei barre eragin zien eta karmeldar guztiak oso pozik daude hain nobiziagai maitagarria izateagatik. Haren ahotsa da gure poza eta gure atsedenen

¹ "Mademoiselle Lili" (Zelina) eta "Monsieur Toto" (Teresa). Izengoiti honi buruz, Buissonnets-eko oroimena, ik. CG, 817+a orr.

² Teresak, fundatzailearen marka sinbolikoa zen eta gero Zelinari ezarriko zaion IHS ikurra pintatu zuen.

¹ Frantzisko, medikua.

² "Iratxoa" Maria Guérin da, gerora ahizpa Maria Eukaristiarena izangodena; "Fifine", Joana; eta behe-raxeago, "Séraphin", Frantzisko.

³ Teresak nobiziatua 1893ko irailaren 8an utzi behar zuen.

xarma. Baina nire bihotza pozten duena batez ere zera da, gure aingeru maitearen talentu eta azaleko dohain guztien gaintetik, bertuterako duen jarrera.

Mt 19,29 Oso handia da, ene Joana maitea, Jainkoak eskatu berri dizun sakrifizioa: baina ez al zuen bada "Jainkoagatik bere ama edo bere aita edo bere *ahizpa* uzten duenari bizitza honetakoa ehun aldiz biderkatuta" emango ziola hitz eman? Bada, Jainkoagatik ez zinen duda-mudatan egon esanezineko eran maite zenuen ahizpa uzteko. Beraz, Jesusek bere hitzari eustera beharturik ikusiko du bere burua... Badaikit-normalean hitz hauek erlijiosoei ezartzen zaizkiela; hala ere, nire bihotzaren sakonean, beren burua baino maiteago dituzten ume edo izaki maiteen alde gauza-oro sakrifikatzen duten guraso eta ahaideei egoki datozkiela hitzok uste dut...

Ez al duzu dagoeneko aginduriko ehuneko hori jaso?... Bai, Maritxoren bake gozoak eta pozak klaustroko burdinsareak zeharkatu dituzte zure ariman isurtzeko. Laster, eta horretaz uste osoa daukat, ehungarren parte hori handiturik jasoko duzu: aingerutxo bat etorriko da zure etxea alaitzera eta zure musu maitagarriak jasotzera...

Ene ahizpatxo maitea, nire santu-egunean egin nahi didazun oparia eskertuz hasi behar nuen, guztiz hunkiturik naukazu, egia diotsut. Baina barkatu zintzotasun osoz neure gustuen berri ematen badizut. Atsegin egin nahi didazunez gero, *arrainaren* orde⁴z lore-sorta bat⁴ egingo bazenik nahiago nukeela esango dizut. Neurekoia naizela uste izango duzu, baina begira, nire osabak karmeldarrak ongi zaintzen ditu, karmeldarrak ziur daude gosez ez direla hilgo behintzat... *Jaten den gauza* sekula *atsegin izan*⁵ ez duen Teresatxok, komunitatearentzat probetxugarri diren gauzak ditu, ordea, atsegin, eta badaki lore-ereduekin *arraina* erosteko dirua lor daitekeela. Honek esnesaltzailearen ipuinaren antza du, ezta? Baina bueno, astalarrosa-sorta bat bidaltzen badidazu, oso pozik geldituko naiz; astalarrosarik ez baldin badago, inkonte-belar txikiak edo urrebotoiak, edo beste edozein lore *arrant* bidali, berdin-berdin gustatuko zait.

Fina ez izatearen beldur naiz; hala iruditzen bazaizu, ez jaramonik egin esaten dizudanari eta eskerronez jasoko dut oparitzen didazun arraina, batez ere herenegun aipatu zenizkidan *perlak* gehitzen baldin badizkiozue... Ikusten duzunez, ene Joana maitea, aldatu egin naiz eta isilik egon beharrean, *berritsu* bihurtu; ausartegia naiz neure eskakizunetan, hain zaila da oreka gordetzea!... Eskerrak ahizpa batek dena barkatzen duen, baita sein txikiaren ziriak ere...

Hainbestetan eten dut gutuna, non ez baitu inolako loturarik. Arestian hitz egin dizudan *ehungarren parte* horretaz gauza asko nuen esateko, baina *gauza polit* horiek guztiak neure bihotzaren sakonean gordetzera behartua ikusten dut neure burua eta Jainkoari zure barnean egia bihur ditzala eskatzen diot, ez baitut gauza horiek guztiak izendatzeko astirik. "Garbiketa-lekura" joan behar dut, arropa igurztan dudana bitartean, deabrutxoari entzutera, ziur aski "Garbiketa honek ekaitzik gabeko ibaiertzera eramango gaitu..."⁶ kantatuko duelarik.

Gure Ama on biek eta zure ahizpa guztiek mila goraintzi maitagarri bidaltzen dizkizute, Frantziskori bezala. Gogoan dut bihar san Lukas-en jaia ospatzen dela,

⁴ Komunitatearen onerako salduriko pinturak.

⁵ Ik. KH 31.VIII.5.

⁶ Ahizpa Maria Eukaristiarenak egindako kopia.

zaindariatario bat⁷, beraz, beraren alde eskainiko dut komunio santua eta niretzako sendagaien bila hartu dituen neke guztiengatik saritzeko eskatuko diot Jesusi.

Bihotzez besarkatzen zaitut, ene Joanatxo maitea, ziur egon zaitezke zure ahizpa *txikitxoaren* maitasun eta eskerronaz.

Teresa Jesus Haurrarena
lek. karm. apal.

TG 181
1895-XI-16

Guérin andreari

J.M.J.T.

Jesus †

1895ko azaroak 16

Neure izeba maitea:

Zure alaba txikitxoak, zure festa-egun ederrean bere ahizpa nagusiek kantatuko duten kontzertu ederrari ahotsa erantsi nahi dio.

Zer gelditzen zait zuri opa izateko, ene izeba maitea?... Uste dut, zuzendu dizkizuten zorion-agur guztien ondoren hauxe esatea besterik ez zaidala geratzen: "Hala izan bedi"...

Urtero errepikatzen dizut. Lurrean ez dut neure sentimenduak adierazteko gai diren hitzik, hori dela eta, oso pozik nago nire hiru ahizpa nagusiekin bat egiteaz eta batez ere, gure sein maitearekin¹, nire zorion-agurra eskaintzeko.

Ez dut gutuna gehiago luzatzeko astirik, ene izebatxo maitea, baina ziur nago nire bihotzean gainezka egiten duten samurtasunezko sentimendu guztiak somatuko dituzula.

Zure santu-egunean neure jaunartzea zure eta gure amonatxo maitearen alde eskainiko dut.

Mesedez eskatzen dizut, ene izeba maitea, maite ditudan guztiak musuz bete ditzazula eta batez ere nire osaba maitea; zuen alabatxoaren partez berak ere zuri mila musu emateko eskatzen diot.

Teresa Jesus Haurrarena
lek. karm apal.

⁷ Medikuen zaindaria.

¹ Ahizpa Maria Eukaristiarena.

TG 182

1896-II-23

Ahizpa Jenofari¹

J.M.J.T.

Jesus †

1896ko otsailak 23

Neure ahizpatxo maitea, zure eztei-egunean zeruan zer gertatuko den kontatzeko eskatu didazu; horretan saiatuko naiz, baina aldez aurretik dakit, deskribatu ezin diren festen zirriborro bat baizik ez dizudala egingo, "gizakiaren begiak ez du ikusi, gizakiaren belarriak ez du entzun eta haren bihotzak sekula ezingo luke susmatu, Jainkoak maite dituenentzat zer daukan gordeta!"...

1 Ko 2,9

Otsailaren 24ko gauerdian, san Pedrok zeruko atea irekiko ditu; berehala, aingeruak eta santuak aterako dira poz berdingabeaz, Erregearen eta Emaztegiaren gortea eratu asmoz.

Hirutasun Gurgarriaren ondoren joango den Maria Ama Birjina aurreratu egingo da, bere alaba maitea den Emaztearen errege-apaingarria eramanez. Amari dagokion gozotasunez, lurrera jaitsi aurretik garbitokiko leizea irekiko du. Eta berehalaxe, kontaezineko arima multzoa beren askatzailearengana abiatuko da, eskerrak eman eta ustegabeko askatasunaren arrazoiari berri haren ahotik entzuteko. Erregina gozoak zera erantzungo die: "Gaur nire Semearen ezte-eguna da. Erbesteko lurralde hartan, nire semeak betiereko bizitzatik bere irudira sortu dituen milioika arimen artetik liluratzen duen arima bat aukeratu du. Arima hautatu honek honako eskakizun hau egin dit: 'Neure eztei-egunean, neure Senarraren erreinutik sufri-mendua kendua izan dadin nahi nuke'. Nahi honi erantzunez, zuek askatzeraz etorri natzazue... Jar zaitezte gure jarraigoan eta abestu zorionekoak direnekin batera, Jesus eta Zelinaren graziak".

Has 1, 26 h

Orduan, zeru gutzia lurrera jaitsiko da, eta Emaztegai zorionsua sagrario aurrean belaunikaturik idoroko dute². Emaztegaia zutitu egingo da jarraigoa hurbiltzean, eta aingeruak nahiz santuak gurtuko ditu adeitasunez; gero, Mariarengana joanez, bekokia eskainiko dio, bere musu amatiarrak Senarraren zigilua eta musua jasotzeko presta dezan... Jesusek Zelina maitea eskutik hartu eta san Elias³ iraganbidean dagoen gelatxo apalera zuzenduko du, ordu batzuetako atsedena hartu dezan. Zeruko gorte gutzia moldatuko da esparru estu horretan; aingeruek kontzertuarekin hasi nahiko dute, baina Jesusek isil-isilean zera esango die: "Ez ezazue nire Maitea esnatu, utz nazazue bakarrik berarekin, ezin baitut niregandik banatu unetxo batez ere".

Kt 2,7

Zeruetako Erregina gozoak berehala ulertuko du bere Seme zerutiarraren nahia, eta jarraigo argiztatua eztei-gelara zuzenduko du⁴.

¹ Ahizpa Jenofaren profesa otsailaren 24an ezarri da. Nobiziak bere ahizpari, egun hau dela eta, "Zeruko festak" nolakoak diren azaltzeko eskatu dio. Teresak, Zelinak atsegina zuten bezala azaltzen du festa, apainguruz beteriko festa baten antzera.

² Ohitura zen, profesa bezperan, gau erdirarte denak batera otoitz egitea.

³ Ahizpa Jenofak duen gelatxoa.

⁴ Kapitulu-aretora.

Berehala, festako prestakizunekin hasita, lurrean aurki ezin daitezkeen koroak txirikordatuko dituzte aingeruek; kerubinek diamanteak baino argitsuagoak diren blasoiak prestatuko dituzte eta beren pintzel delikatuek Jesus eta Zelinaren⁵ armari adierazgaitzaren ezaugarriak marraztuko dituzte. Leku orotan ezarriko dituzte: horretan, klaustroetako arkuetan, jantokian, koroan, etab... Hain pintore ugari izanik, hauen lan asko eta asko ezin izango dira ezarri ere egin; orduan, errugabeko ume txo andana bat prestatuko da, artisten lanak egun osoan Emaztea eta Senarraren aurrean edukitzeko. Barrezka, aingeruek ez diete beren blasoirik eman nahi izango, santuek beren buruak *apaintzeko* beharko baitituzte, Jesus eta Zelinaren zerbitzari apalak direla adierazteko. Umetxoak pozteko, aingeruek blaso *txiki* eta maitagarri bana emango die, beraiek ere festan parte har dezaten; gero, arrosak hostokatzera bidaliko dituzte eta prestakizun joriak aurrera jarraituko du...

Pontifize eta doktoreek lan izugarria izango dute burutzeko. Bere eskakizunez, Bildotsak Bizitzaren Liburua irekiko du. Pontifize eta doktoreek liburu horretatik *Zelinaren bizitzari* buruzko dokumentu ederrak aterako dituzte eta bere Senarra ohoratzeko, aukeratuak izatearen grazia guztiak eta aingeruen eskuek urrezko letraz idatziriko *ezkutuko* sakrifizio guztiak idatziko dituzte. Doktoreek era honetan zutoihal guztiak osa ditzatenean, erree-jarraigoaren buruan zutoihalok eramateko ohorea beraientzat gordeko dute...

Ap 20,12

Apostoluek, Zelinak betiko bizitzarako sortu dituen arima guztiak bilduko dituzte; etorkizunean bere Jainko-Senarrari emango dizkion seme izpiritualak ere bildu dituzte.

Santu martiriek ezingo dute lanik egin gabe egon: palma bikainak eta elkarlotutako hostoak ezarriko dira fintasun samurrez jarraigoaren luzera osoan. Horrekin, denbora laburrean Emazte dohatsuaren bizitza burutuko duen *maitasunaren* martiritza⁶ omendu nahi izango dute...

Denbora luzea beharko nuke santu aitoren, eremitauen, emakume santu guztien eta abarren zeregin guztiak adierazteko... Nahikoa da, egun eder hau duintasunez ospatzeko bakoitzak bere zolitasun eta fintasun oro hedatuko duela esateaz... Ezin ditut hala ere *birjinen* abestiak ahantzi, beren ahizpa maitea den Zelinari poz adierazezinez aurkeztuko dizkioten palma eta liliak. Dagoeneko Zezilia, *Jenofa* eta Aines beren lagun Joana artzainarekin ikus ditzaket, gerra-jantziz babesturik. *Zelina* ere ikusten dut, gure emaztegaiaren zaindaria, bere izena⁷ eramango duen lore-sorta honi eskaintzen...

Baina batez ere, Karmelgo ordena osoa dakust, aintza berriaz argitsu: Ordenaren buruan santa Teresa, san Joan Gurutzekoa eta Ama Jenofa izango dira. Eztei eder hau benetan Ama Jenofaren festa da, Zelina haren alaba maitea baita...

Eta haur errugabeen⁸ multzo txanbelinari egun eder honetako aintza ukatu egin behar al zaio?... Ez, *irabazi* ez dituzten *koroekin* jostatzen ikusten ditut; euren antza izan nahi dutenen baina kororik nahi ez dutenen buruan koroak jartzera doaz.

⁵ Ik. TG 183.

⁶ Ik. eskaintza (Otoi. 6).

⁷ Asteriskoak; ik. TG 98.

⁸ Ik. 44. TO.

Erregeak bezain harro daude eta beren ile horia astintzen dute, arrakasta lortu baitute arrebak nagusiak eredutzat hartu dituelako...

Berehala, adierazezineko edertasuna duen *Ama* bat haien artean sartzen da, gelditu eta *lau* kerubin maitagarri eskutik oratuz, eguzkipean ihintzaren antzera distiratsen duten diamante eta liliak baino zuriagoak diren jantziz apaintzen ditu... Ile urdineko agure agurgarri bat ere bertan aurkitzen da, laztanez betetzen; honen aurrean, gainerako umeek ere begikotasun bera eskatzen dute. Haietariko bat Teresaxori⁹ hurbildu zaio herabeti eta dama eder hark ea zergatik hainbesteko arranditasunez apaintzen dituen galdetzen diote.

Teresaxok bere zilar-ahotsez zera erantzuten die: "Jesus Erregearen Emaztegai zorionsuaren anai-arrebak garelako; Elena eta ni ohorezko andereñoak izango gara eskutik oratuko¹⁰ gaituzten bi Jose txikiekin batera. Gugandik hurbil ikusten dituzuen aita eta amak, oraindik lurtean erbesteturik dauden arrebatoengana eramango gaituzte, eta familia osoa bildurik dagoenean, parekorik ez duen zoriontasunez gozatuko dugu".

Pozari ezin eutsirik, zisnearen hegala baino zuriagoa den esku politaz txaloka hasiko da Teresaxo, eta gero aita eta amaren lepora jauzi eginez zera hots egingo du: "Ene, zein ederra den hau, zein ederra den hau guztiau! Gure ahizpa maitareen ezteiak!... Hirugarren aldia da tankera honetako festa bat ospatzera gatozena: Mariarena, Paulinarena eta *Teresarena* (niri izena ostu didan lapurtxoarena). Baina ez dut sekula hainbeste prestakizun ikusi! Erraz igartzen da *Zelina* dela azkena!..."

Elenaxok eta Josetxok ere gogoeta maitagarriak egingo dituzte, hain festa ederra dagokion Erreginarene familiakoa izatea zer nolako zoriona den pentsatuz. Orduan, txikitxoek, burua beren eskutxoetan eutsiz entzuten egon zaizkiolarik, poliki jaiki eta eurak ere *Zelinaren nebak* direla oihukatuko dute. Hori horrela dela frogatzeko, ahaidetza goren hori nondik eta nola datorkien azalduko dute. Ez da poz-garrasia besterik entzungo, eta Ama Birjinak baretu beharko du ume-andana.

Santu guztiak ere joango dira. Aparteko poz honen arrazoiak ezagutzeko, ideia hain maitagarria irudituko zaie, non den-denak *Zelinaren ahaide* direla erakusten duen genealogiaren bat asmatzen saiatuko baitira. Horrela, pontifize guztiak, martiri aintzatsuak, gerrariak (san Sebastian¹¹ buru dutela), hitz batez, zeruko noblezia guztiak Jesusen Emazteari arrebak edo ahizpa deitzeko ohorea izango du, eta ezteia familia handi eta bakar batek osatuko du.

Baina gatozen agure, andre eder eta lau kerubinengana. Apainketa amaitutakoa Kapituluaren sartuko dira; aingeruak makurtu egingo dira Emaztegaia igarotzean eta beraientzat prestatuta dauden eta Amatzok maitarentzat den aulki apalaren ezker eta eskuin aldera dauden egundoko errege-aulkiak zeintzuk diren erakutsiko zaizkie. Ordu batzuk barru, beren eskuetan Jesus *Zelinarekin* batuko duten lotura askaezinak eratuko dira; hori dela eta, gizakien begietan *txikia* baina bere lekua

⁹ Maria Melania Teresa Martin, bi hilabete zituela hila (1870).

¹⁰ Beste hiru umeen aipamena: Elena, Jose Luis eta Jose Joan Batista, hirurak gazte-gazte zirela hilak.

¹¹ "Asko maite nuen san Sebastian", idatzi du Ahizpa Jenofak. Ik. Otoi. 18.

betetzen duenarentzat handia den *Ama* honek¹², bere gurasoengandik bedeinkapen guztiak jasoko ditu, amak bere ahizpa eta hainbeste maite duen alabaren buruan isuri ditzan...

Santu eta aingeru bakoitza patriarka agurgarria eta bere emazte dohatsua zoriontzera joango dira. Aintza guztiz berri batez distiratuco dute eta beren seme-alaba maiteek mirespenez hots egingo dute: "Ene aita! Ene Ama! Zein eder zaudeten! Bai pena handia Zelinak zuek ikusi ezina!... Aldi honetantxe bada ere, zeuen aintza erakutsieziaiozue!...

Ir 33,18

"*Utz iezadazue neuri, ene seme-alaba laztanak, erantzungo du aitak: ez al dakizue gaur ezkututzen baldin banaiz ere, nire ausartak*¹³ erbestean pozik gabe gelditzean irabaziko duena ezagutzen dudalako egiten dudala. Beste aldi batean nik asko sufritu nuen; orduan Zelina zen nire euskarri bakarra, orain nik izan nahi dut haren euskarri, baina ez ezazue pentsa sufrimenduaren meritua kendu nahi diodanik. Oi, ez horixe, aski ongi ezagutzen baitut horren balioa... Jainkoak ez du uzten eskuzabaltasunean¹⁴ irabaz diezaiogun. Bera da dagoeneko nire sari handia¹⁵ eta laster izango da nire Zelina *zintzoarena*".

Has 15,1

"Egia da, esango du amak ere, hobe da Zelinari ez bagatzaizkio agertzen *atzerriko lurraldean*, Zelina une labur baterako baizik¹⁶ ez baitago *erbestetua*, hau da, *borroka egin eta hiltzeko* ... Laster helduko da benetan Jesus Jaun eta nire alabatxoa Andre izango diren eguna, berak ere halaxe esaten zidan txikitxoa¹⁷ zenean eta zuzen zebilela ikusten dute!". Familiarteko elkarrizketa hau aingeruek etengo dute, ospe handiz Emaztegaia Eztei- Mezatara joateko prest dagoela iragarriko dutelarik. Orduan jarraigoa ordena guztiz zehatz batean ezarriko da eta Jesus eta *Zelinaren* atzetik joango da; Zelina bere lurreko eta zeruko ahaidez inguratuta joango da.

Ezin dut adierazi Jesusen Zelinarenganako maitasuna, Zelinaren maitasun distiratsua (*Mariak* eskainitako apainduraz egongo dena). Ez dakit zeruetako biztanleek sekula hain festa ederrik ikusi ote duten, ezetz uste dut. Niri dagokidanez, neure *ahizpatxoari* diotsat sekula ez dudala nire bihotzarentzat hain gozori ezer ikusi...

Ez dut *bat egiteko uneaz* hitz egingo, hitzek ezin baitute zeruan bakarrik jakinaraziko zaigun misterio ulertezin hau adierazi... Une honetan dakidan gauza bakarra zera da, Hirutasuna nire Zelina maitearen arimara jaitsiko dela eta *bere egingo* duela osotara, bataioak baino errugabetasun eta distira *handiagoa* emanez... Badaikit Ama Birjina bere alaba hautatuaren Ama izatera helduko dela era barnekoi batez, iraganean baino *amatiarragoa*...

¹² Ama Maria Gonzagarenaren izaera dela eta Ahizpa Jenofaren profesia aurreko gertaera penagarriaren aipamena. Ik. CG, 1182.orr.

¹³ Zelinaren goitzenetariko bat.

¹⁴ Martin jaunak oso atsegin zuen esaera; ik. TG 158.

¹⁵ Teresak atsegin duen Bibliako pasartea (ik. A Esk, 47i; C Esk, 5i; TG 145i, 183; 17. TO, 15. 4. DSA, 4i; PAKO/AJ eta G; in BT, 52.orr.h.), Martin jaunari jarraituz; honi buruz ahizpa Jenofak zera idazten du: "Sarritan ikusi izan dugu gure aita maitea bere begiratokian, begirada mugagabea murgildua, oso atsegin zuen Liburu Santuko hitz hauek azentu sakonez esaten zituela: "Ego sum merces tua magna nimis" (...) horrexegaitik agertarazi dugu testu hau haren heriotz oroigarri den irudi honetan". (G/NPHF, 214.orr).

¹⁶ Ik. Lamartine, "Réflexion", *Recueils poétiques* delakoan.

¹⁷ Ik. Martin andreak 1873ko uztaillaren 9an idatziriko gutuna.

Badakit Teresatxo gaixoak dagoeneko bere bihotzean oso poz handia sentitzen duela, laster zein egun ederrak argitu behar duen pentsaturik, eta egun hori benetan heltzen denean zer egingo duen galdetzen du!...

Ahizpatxo maitea, nire arimak oso gaizki itzuli du sentitzen duena... hainbeste pentsatu dut zeruetako festei buruz, non gaia zirriborrazeko gai baizik ez bainaiz izan...

Ez daukat eztei-oparirik neure Zelinarentzat, baina bihar arestian aipatu dizkizudan *kerubinak* hartuko ditut besartean eta hauexek eskainiko dizkiot; ume izaten jarraitu nahi dugunez, beharrezkoa da umeekin bat egin dezagun, horrela, ni *Andereñoaren* ohorezko andere¹⁸ izango naiz, eskuetan lili-sorta eder bat eramanez. Den-dena da *geurea*, den-dena da *geuretzat*, Jesusengan den-dena baitaukagu!¹⁹...

Zelinaren ahizpatxoa

Teresa Jesus Haurrarena [eta] Aurpegi Santuarena

Zera esatea ahaztu zait: esnatzerakoan, Zelinak hainbeste maite dituen Jesus, Maria eta *san Jose ona*, Aita, Ama eta aingerutxoak bere aldamenen aurkituko dituela. Hauexek izango dira Zelina apainduko dutenak. Ahaztu egin dut Zelina lehenengo aldiz *Ofizio santuko*²⁰ hitzak ahoskatzen entzuten duenean Jesusek nola-ko poza izango duen esatea ere. Orain *Ofizio santu* hau Zelinaren ofizioa izango baita, zelai erdian Jesusen bihotza liluratzear arduratu behar duen emaztearena!...

TG 183

1896-II-24

Ahizpa Jenofari¹

JESUS ETA ZELINAREN ELKARTASUN-HITZARMENA

Jn 1,1 Ni, JESUS, BETIKO HITZA, BIRJINA MARIA ETA JAINKOAREN SEME BAKARRA, erbestetutako printzesa, txiro eta titulurik gabeko ZELINAREKIN ezkontzen naiz gaur. Emakume honi eskaintzen naitaio MAITASUNAREN, SUFRIMENDUAREN ETA MESPRESUAREN ZALDUNA izenpean².

Is 53,3 Ene asmoa ez da dagoeneko nire Maiteari bere Erreina, Tituluak eta Aberastasanak-itzultzea. Zelinak nik lurrean aukeratzeaz izan nuen atseginarenean zortea izan dezan nahi dut... Hemen behean, nire Aurpegia ezkutaturik dago, baina Zelinak

¹⁸ Ik. TG 179, 1. zenb.

¹⁹ Ik. San Joan Gurutzekoa, "Arima maiteminduaren otoitza".

²⁰ Ohitura zenez, profesia egin behar zuena izan ohi zen kantuzko Ofizioan buru egiten zuena bere profesia egunean.

¹ Profesia bezperan, ahizpa Jenofari bere gelatxoan Aurpegi santuaren zigilu-marka zuen gutuna aurkitu zuen, aurrean azken honen helbidea zuelarik. Gutunazalaren barruan, koloreztatutako pergaminoa. Pergaminoa Zelinaren armarraria eta goiburua agertzen ziren: "Galtzen duenak irabaziko du" eta ondoren datoren testua.

² Ik. A Esk, 73¹ eta TG 185.

badaki ni ezagutzen, gainontzekoek mesprezatu egiten nauten bitartean; sari gisa, osasunaren eta graziaren kasketa³ jartzen diot buruan, bere aurpegia ere nirearen antzera ostendua gera dadin... Nigandik jaso zituen dohainak ezkuta ditzan nahi dut, horrela, nik nahi eta atsegin dudanean ken edo utz diezazkiodan; ez dadila dohain horiei lotua sentitu eta gizakien edo bere begien aurrean handitu dezakeen edozer ahaztu dezala.

Ef 6,17

Nire Maitea hemendik aurrera JENOFA SANTA TERESARENA deituko da (bere titulurik gorena den MARIA AURPEGI SANTUARENA lurrean⁴ ezkutatua geratuko da, zeruan distira berdingabez dirdira dezan). Bere Senar bihurtuko den Bildots⁵ bakarren artzain bilakatuko da. Gure loturak ortziko izarrak baino arima ugariago sortuko ditu, eta Teresa Serafikoaren familiak, eman zaion ospe berriaz gozatuko du.

Jenofak munduko pazientzia osoz jasango du Zaldunaren ausentzia, bakarrik borroka egin dezan utziz, garaipenaren ohorea berak bakarrik izan dezan; Jenofak nahiko izango du poztoko Maitasunaren ezpata⁶ erabiltzea. Melodia gozo baten antzera, borrokaldiaren erdian haren ahotsak zoratu egingo nau. Haren maitasun-hasperen arinenak nire troparik hautatuenak kiskaliko ditu gar berri batez.

Kt 7,1

Nik, ibarretako Lili honek, neure Maiteari eman nahi diodan elikadura hautatuen Garia da, Birjinak ernearazten dituen ardoa... Nire Maiteak bion Ama den Maria Birjinaren esku aintzatsu eta apaletik hartuko du elikagai hau...

Kt 2,1

Za 9,17

Nire Maitearengan bizi nahi dut eta bizitza honen seinale gisa neure Izena⁷ ematen diot; errege-zigilu hau nire Bihotzaren gain duen ahalmen guztiaren seinale izango da.

BIHAR, BETIEREKO EGUNA⁸, nire Kaskoa jasoko dut... Ene Maiteak nire Aurpegi agurgarriaren dirdira ikusiko du... Beretzat gordeta daukadan IZEN BERRIA entzungo du... Eta bere Sari Handitzat HIRUTASUN DOHATSUA jasoko du! Ezkutuko Bizitza berean esku hartu ondoren, Gure Erreinuari AINTZA bera, errege-aulki, palma eta koroa bera izango ditugu... Betiko bat egingo duten gure bihotz biak, BETIKO MAITASUNEZ elkar maitatuko dute!!!.

Ap 2,17

Has 15,1

Ap 3,21

Ene agoniaren⁹ festan, Karmelgo mendian geure sinadura eta zigilupean emana, mila zortzirehun eta larogehita hemeretzigarren urteko otsailaren hogeita lauan.

TERESA JESUS HAURRARENA, JAINKO- ZALDUNAREN ARGITARATZAILEA

³ "Régle du Carmel" itzuli ondokoa.

⁴ Ik. TG 174, 1.zenb. Ahizpa Jenofak 1916tik gerora hartuko du "Aurpegi Santuarena" deitura, "Jenofa Aurpegi Santuarena" bihurtuz.

⁵ Ik. 10. TO, 4, 4+.

⁶ Ik. Otoi. 17.


⁷ IHS monogramari buruzko aipamena; ik. TG 179, 2.zenb.

⁸ Ik. TG 118 eta A Esk. 77*.

⁹ 1896ko otsailaren 24an, San Matias eguna 25era aldatu zen urte bisestua zela eta, G. J.ren Agoniaren Ofizioa ospatu zen.



(Jatorrizko formatoa: 21 x 14,2 cm)



TG 184

1896-II-24

Ahizpa Jenofari

J.M.J.T.

Neure alaba maitea, zeuri ematen dizut eztei-opari gisa, erbesteko lur honetan isuri dudan *azken negar-malkoa*¹. Zeure bihotzean eraman ezazu, eta gogoratu sufrimenduari esker helduko dela ahizpa Jenofa Santa Teresarena santutasunera.

¹ 1891ko abenduaren 5eko gauean, Teresak Ama Jenofaren "azken malkoa" jaso zuen (ik. A Esk, 78^a). Erlikia hauxe da gaur bere ahizpari eskaintzen diona, fundatzailearen izenean.

Gurutzea eta Jesusen negar-malkoak maitatzea ez zaizu neketsu egingo, sarritan hitz hauetan pentsatzen baldin baduzu: "Maitatu egin ninduen eta nigatik eskaini zuen bere burua!". Ga 2,20

Ama Jenofa

TG 185

1896-II-24 / III-17

Ahizpa Jenofari¹

(Gutunaren itzulian, gotikoz:)

POSUIT SIGNUM IN FACIEM MEAM² !

Santa Aines, m. b.

(Aurrealdean:)

Egunik ederrenaren oroimenez... Jesus eta Mariak beren Zelina maiteari eskaini zioten grazia guztiak baieztatzen eta gordetzen dituen eguna...

Maitasunagatik, Zelinak bere bihotzaren kontra sufrimenduaren eta mesprezuaren arantzak estutuko ditu; baina ez da beldur, badakielako Mariak esne bihurtzen duela maitasunagatik egindako zaurietatik isurtzen den odola...

Ekzerreko eskuaz, Zelinak arantzak estutzen ditu, baina eskuinekoaz Jesus besarkatzen jarraitzen du, bere bihotzean atsedean hartzen duen mirrazko sorta zeru-tiarra. Kt 1,12

Jesusentzat bakarrik sortuko ditu Zelinak arimak, bere malkoz ihinztatuko ditu haziak, eta Jesus beti alai egongo da esku artean lili azaoak eramateaz... Sal 125,6

Lau kerubinek, berauen hegoek ia-ia lurra³ ukitzen ez dutelarik, joan eta beren arrebari xarmaz begiratzen diote; arrebarengana hurbilduz, sufrimenduen merituetan parte hartzeko zain daude, eta horren ordeaz, arrebarengan errugabetasunaren eta Jaunak dohainik eskaini zizkien dohain guztien dirdira aratza proiektatzen dute. Em 3,24


1896ko otsailak 24 - martxoak 17

Teresa Jesus Haurrena [eta] Aurpegi Santuarena
lek. karm. apal.

¹ Bere profesia eta belo-hartzearen estampa oroigarria.

² "Bere ikurra ezari du nire aurpegian": Santa Aines-en Ofizioko erantzuna, belo-hartzeko zeremoniarako hartua. Ik. 26. TO, 7.

³ TG 182an aipatzen dituen nebatxo eta ahizpatxoak.



ZAZPIGARREN AROA

**AMA MARIA GONZAGARENAREN
PRIORETZA BERRIA**

(1896ko martxoak 21 - 1897ko irailak 30)



TG 186

1896-IV-11

Leoniari

J.M.J.T.

Neure Leonia maitea:

Zure ahizpa txikitxoak ezin du zenbat maite zaituen eta zutaz zenbat pentsatzen duen esan gabe egon, zure santu-egun honetan batez ere. Ez daukat ezer zuri eskaintzeko, ezta *estanpatxo* bat bera ere; ez, gaizki diot, bihar Jainko-*Errealitatea* eskainiko dizut, Jesus Ostia, ZURE eta nire SENARRA... Ahizpatxo maitea, zein ederra den gu bostontzat Jesusi "geure Maitea" deitu ahal izatea! Baina zer izango ote da zeruan ikusten dugunean eta birjinek bakarrik kanta dezaketen kantiko bera kantatuz leku guztietara haren atzetik joango garenean?...

Kol 2,17

Ap 14, 3-4

Orduantxe ulertuko dugu sufrimenduaren eta probaren balioa; eta Jesusen antzera, zera errepikatuko dugu: "Beharrezkoa zen benetan, sufrimenduak probatu eta aintzara iristea".

Lk 24,26

Neure ahizpatxo maitea, ezin dizkizut idatzi nire bihotzak zuri buruz gordetzen dituen pentsamendu sakon guztiak; errepikatu nahi dizudan gauza bakarra zera da: "ahizpa arruntek elkar maite dutena baino mila aldiz samurrago maite zaitut, gure zeruetako Senarraren bihotzez maita baitzaitzaket".

Gure Senarrarengan ere bititza bera bizi dugu, eta nire Senarrarengan jarraituko dut betiko

zure ahizpa txikitxo
Teresa Jesus Haurrarena
lek. karm. apal.

TG 187**Ahizpa Maria Hirutasunarenari**

1896-IV-30

Neure ahizpatxo *maitea*:

Hiltzen ez diren loreak edukitzea nahi nuke egun eder honen oroigarri¹ zuri eskaintzeko, baina zerua da bakarrik loreak sekula zimelduko ez diren leku bakarra!...

Oroilore hauek gutxienez, zeruan amaitu edo burutu behar den *batasunaren* kt 8.1 musua Jesusek eman zizuneko egunaren oroigarria, zure ahizpatxoaren bihotzean betiko grabatua geldituko dela esango dizute.

Teresa Jesus Haurrena [eta] Aurpegi Santuarena
lek. karm.

TG 188**Ahizpa Maria Hirutasunarenari**

1896-V-7

(*Aurrealdean:*)

Maitasunagatik sufritu eta gutxietsia izan¹

(*Itzulian:*)

Gure Aita San Joan Gurutzekoaren pentsamenduak.

Gizakiari izaten zaion atxikimendua soil-soilik izpirituala denean eta Jainkoaren bakarrik oinarritzen denean, gizakia haziz doan neurrian, Jainkoaren maitasuna ere haziz doa haren ariman; bihotza bestearena bilakatzen doan heinean, are eta gehiago bilakatzen da guraria ere, eta maitasun bi hauek hazi egiten dira bata bestearen lehian.

Jainkoa benetan maite duenak, sari eta irabazitzat du duen gutzia galtzea, baita bere burua galtzea ere, Jainkoagatik baldin bada...

¹ Ahizpa Maria Hirutasunarenaren profesa, 1896ko apirilaren 30ean. Gutuntzua profesa egin berriaren ohean utzia izan zen, miosotekin estalita utzi zuelarik Teresak. Teresak profesa honetaz hau esango du: "Joana Ark-ekoa naizela iruditzen zait Karlos VII.aren koroatzean esku hartzen" (Ahizpa Maria Hirutasunarenaren Zirkularra, 7.orr). Izan ere, karmeldar gaztearen irautea, neurri handi batean, haren lana izan zen.

¹ San Joan Gurutzekoaren hitza (ik. TG 81), Teresaren gehigarriarekin: "Maitasunez". 188. TG-ko testuak santu baten estanpan agertzen dira.

Bizitza honen gauean, zure maitasunean aztertuko zaituzte. Ikasi, beraz Jainkoa maitatzen berak maitatua izan nahi duen bezala eta ahantz zaitez zeure buruaz². 1896³ graziazko urteko maiatzaren 7ko oroigarria.

Maria Hirutasunarena eta Aurpegi Santuarena nire ahizpatxo maiteari eskainia.

Ahizpa Teresa Jesus Haurrarena [eta] Aurpegi Santuarena
lek. karm. apal.

TG 189

Aita Adolfo Roulland-i

1896-VI-23

J.M.J.T.

Jesus †

Lisieux-eko Karmel, 1896ko ekainak 23

Neure Aita Agurgarria:

Ekainaren 21ean berorren santu-eguna izanik, gure Amak asko eskertuko zuela pentsatu nuen korporal bat eta paliadun purifikadore bat eskaintzea, hori guztia berak hilaren *29rako*¹ berorri bidal diezaion. Ama agurgarri honi zor diot, berorrek sakrifizio eta otoitz apostoliko bidez loturik egotearen barruko zoriona; horrexegatik eskatzen diot, en Aita Agurgarri horri, lagun diezadan aldare santuan zor hori eskerronez ordaintzen.

Ez dut duin ikusten neure burua gure Jesus gurgarriaren misiolari batekin elkartua izateko, baina obediencia lan² gozo hau eskatzen dit eta ziur nago neure zeruetako Senarrak nire meritu urriak (haietan ez bainaiz batere oinarritzen) ordezkatu dituela, eta nire arimaren gurariak entzun berorren apostolutza emankor bihurtuz. Benetan zoriontsua izango naiz berorrek lanean arimak salbatzen, horretarako egin bainintzen karmeldar; ekintza bidezko misiolaria ezin izanik, penitentzia eta maitasun bidezkoa izan nahi nuen, neure ama serafikoa den santa Teresa bezala...

Ene Aita Agurgarria, Jesusi nire alde erregutzeko eskatzen diot, berorren aho-tsaren esanera lehen aldiz zeruetatik jaitea (Jesusen) aintzat duen egunean; eska biezaio besarka nazala bere maitasunaren suaz, nik gero berorien bihotzetan pitzen lagun diezaiedan³.

Lk 12,49

² 129, 103 eta 70 esaldiak *Maximes et Avis spirituels de notre Bienheureux Père Saint Jean de la Croix*-tik aterak, Teresak bere erabilpenerako eskumenean izan zituen liburu bakanetariko bat.

³ Ahizpa Maria Hirutasunarenaren belo-hartzea.

¹ Ekainaren 28an apaiz egidako Aita Roulland-en lehenengo mezaren data.

² Ik. C Esk, 33ⁱ, 32^a eta KH 8.VII.16

³ Ik. 17. TO, 10; 24, 17; 35, 5; 47, 5; 4. DSA, 4ⁱ.

Aspaldidanik nuen bere lehen meza egunean aldare santuan nire izena ahoskatzea nahi izango zuen apostolua ezagutzeko gogoa... Nik neuk prestatu nahi nizkion oihal sakratuak eta zeruetako Erregea ezkutatzeke den ostia zuria... Jainko onbera honek egia bihurtu du nire ametsa, eta bera bakarrik maite duten arimen nahiak betetzea zein atsegin duen erakutsi dit.

Zuhurtziarik gabea izateko beldur ez banintz, egunero aldare santuan niretzat oroipen bat izan dezan eskatuko nioke ene Aita Agurgarri horri... Ozeanoak Frantziatik banatzen duenean berori, hain atsegin handiz pintatu dudan palia ikusterakotan, gogora beza Karmelgo mendian arima batek eten gabe maitasunaren Jainko-Presoari berorren konkista aintzatsuen arrakastagatik erregutzen diola.

Gure elkarte apostolikoa Jesusek bakarrik ezagutzea nahi dut, ene Aita Agurgaria⁴, eta berorren lehenengotariko bedeinkapen bat eskatzen dut beti-betirako Jesusen ostian dagoen berorren ahizpatxo apala deitzeaz harro sentituko denarentzat

Teresa Jesus Haurrarena [eta] Aurpegi Santuarena
lek. karm. apal.

TG 190

1896-VI-29

Ama Maria Gonzagarenari

J.M.J.T.

1896ko ekainak 26

Bildots txikitxo baten kondaira¹

Zelai emankor eta alai batean artzain zoriontsu bat bizi zen. Bere artaldea bihotzeko samurtasun osoz maite zuen, eta bildots eta ardiek ere maite zuten beren artzaina² ... Baina negar-malkozko haran honetan ezin da zorion osorik aurkitu. Egun batez, zelaiko zeru urdin ederra lainoz estali eta artzaina goibeldu egin zen; jadanik ez zuen pozten bere artaldea zaintzeak, eta, esan egin behar al da? artaldetik urruntzeko asmoak hartu zuen haren bihotza³ ... Zorionez, bildostxo bat maite zuen oraindik; sarritan besoetan hartu eta laztantzen zuen eta bildotsa bere antzekoa babilitzan, artzainak bere atsekabeak kontatzen zizkion eta batzuetan berarekin batera negar egiten zuen...

⁴ Ama Maria Gonzagarenak posta-harreman honi buruzko sekretuaren berri eskatu zion Teresari. Aita Roulland komunitatearentzat "Gure Amaren misiolaria" da (ik. TG 221).

¹ Martxoaren 21ko erabaki neketsuaren ondoren, Ama Maria Gonzagarenak zenbait ahizpen kontrako jarrera jasan behar izango du. Teresak jasotzen ditu, bere gogoz kontra izan arren, konfidentziak, kexuak eta bere priorearen negarrak. Alegi baten bidez, "bere Gurutzea Zerutik datorkiola eta ez lurretik" ulertarazi nahi izango dio.

² Banatzen errazak diren eginkizunak: artzaina, Ama Maria Gonzagarena; ardiak, profesia egindako ahizpak; bildotsak, nobiziatuko ahizpa gazteak; bildostxoak, Teresa. Ik. C Esk 3¹.

Artzaina negarrez ikustean, bildots gaixoak nahigabetu egiten zen eta *bere burua baino maiteago* zuen haren bihotz txikia pozteko modua bilatzen zuen, alferrik.

Arratsalde batez, bildostxoa loak hartu zuen bere artzainaren hankapean; orduan, zelaia... hodeiak... den-dena aienatu zen haren begietatik. Mila aldiz zabalagoa eta ederragoa zen muino batean aurkitzen zen. Elurra baino zuriagoa zen artalde baten erdian, aintzaz eta handitasun gozoz distiraka zegoen artzain bat ikuskatu zuen... Bildots gaixoa ez zen aurrera egitera ausartzen, baina artzain ona, Jainko-Artzaina harengana hurbilduz, bere magalean hartu eta laztandu egin zuen, bere artzainak egin ohi zuen bezala, eta gero zera esan zion: —"Bildostxoa, zer dela eta negar-malko horiek zure begietan? Zer dela eta, nik hainbeste *maite dudan* zure artzainak egiten du horrenbeste negar? Esaidazu, biok poztu nahi zaituztet eta".

"Negarrez badihardut, erantzun zion bildotsak, nire artzain maitea negarrez ikusten dudalako da. Entzuidazu Jainko-Artzaina, zein den bere negarraren arazoia: beste garai batean, nire artzainak bere artaldeak maite zuela uste zuen eta bere bizia emango zukeen artaldea zoriontsu egitearren; baina zure aginduz, urte batzuek alde egin beharra izan zuen. Itzultzean, bere ardietan hainbeste maitaturiko izpiritua ez zuela ezagutzen iruditu zitzaion. Badakizu, Jauna, artaldeari beren artzaina aukeratzeko eskubide eta askatasuna eman dizkiozu. Beraz, beste askotan bezala ahobatez aukeratua izan dela ikusi beharrean, zazpi hauteskunde egin ondoren jarri zioten makila eskuan⁴ ... Garai batez gure lurrean *negar egin* zenuen horrek, ez al duzu ulertzen zenbat sufritu behar duen nire artzain maitearen bihotzak?..."

(Artzain onak irribarre egin eta bildotsarengana makurtuz:) "Bai, esan zion, ulertzen dut... baina zure artzaina poztu dadila; neu izan naiz, neu hala izan dadin utzi duena, neu hainbeste sufriarazten dion proba hori nahi izan duena". —"Nola liteke, Jesus?" ihardetsi zion bildotsak. "Hain ona eta hain gozoa zinela uste nuen!... *Ezin al zenion* makila besteren bati eman, nire Ama maiteak *nahi* zuen bezala⁵? Edo bestela, nire artzainaren eskuetan jarri nahi baldin bazenuen, zergatik ez zenuen *lehenengo* hauteskundean egin?..."

—"Zergatia galdetzen didazu bildostxoa? Zure artzaina *maite* dudalako! Bizitza guztian oso kontu handiz zaindu izan dut; dagoeneko hark nigatik asko sufritu du bere ariman, *bere bihotzean*, baina *beti-betidanik prestatu* diodan eta bidali berri diodan *proba* berezia falta zitzaion".

"Ene Jauna, orain argi ikusten dut ez dakizula zein den nire artzainaren nahigabe nagusia... edo bestela ez didazu agertu nahi!... Zuk ere gure artaldearen lehen izpiritua galduz doala uste duzu... Ai! Nola ez zuen nire artzaiak horretaz pentsatu, bada? Hainbeste artzain dira artegietan behin eta berriz izandako hondamendi bererengatik negar egiten dutenak!..."

—"Egia da, ihardetsi zion Jesusek, munduko izpiritua zelairik urrutikoenetan ere sartzen da oraindik, baina erraza da huts egitea asmoak bereiztean. Nik, den-dena ikusten dudan honek, pentsamendurik sekretuena ere ezagutzen dudan honek, zera egiaztatzen dizut: zure artzainaren artaldea *maite-maite* dut *guztien artetik*, eta

1 Kro 28,9

³ Ama Maria Gonzagarenak bere kargua utzi eta beste Karmel batera joateko asmoa izan zuen.

⁴ Azkenez botoetan gehiengo lortzeko behar ziren zazpi haustepen-ekintzari buruz ari da.

⁵ Ama Maria Gonzagarenak Ama Aines berriro hautatu izan zedin nahi ote zuen, beharbada?

zure Ama maitearen ariman neure santifikatze-lana bukatzeko *tresna* gisa balio izan dit”.

—“Ene Jauna! nire artzainak ez duela esan didazun hau guztiau ulertzen ziurtatzen dizut... eta nola ulertuko du ,bada, inork ere ez baditu gauzak zuk erakusten didazun bezala ikusten?... *Lurreko* arrazonamenduak⁶ erabiliz nire artzainari atsekabe handia ematen dioten ardiak ezagutzen ditut... Jesus, zergatik ez diezu ardi horiei niri esaten dizkidazun isilpekoak agertzen? Zergatik ez diozu nire artzainaren bihotzari hitz egiten?”

—“Zure artzainaren bihotzari hitz egingo banio, *probarik ez litzateke izango*, eta haren bihotzak hain poz handia hartuko luke, non makila sekula baino arinagoa irudituko bailitzaioke... Ez diot *bere proba kendu* nahi, egia uler dezala nahi dut bakarrik eta *bere gurutzea zerutik* datorkiola eta ez lurretik ezagutzea”.

—“Jauna, hitz egiozu orduan nire artzainari, nola nahi duzu bestela *egia uler dezan*, bere inguruan gezurra baizik entzuten ez baldin badu?...”

—“Bildotstxoa, ez al zara zu artzainaren begikoa?... Hara ba, errepika iezazkiozu zure bihotzari esan dizkiodan hitzak”.

—“Halaxe egingo dut, Jesus, baina nahiago nuke mandatu hau *lurreko* arrazonamenduak erabiltzen dituen ardi bati emango bazenio... Hain txikia naiz... hain ahula da nire ahotsa... nola sinetsiko dit nire artzainak?...”

Lk 10,21 —“Zure artzainak ondotxo daki, jakin ere, neure isilpekoak jakintsu eta zuhurrei ezkututzen dizkiedala eta *txikienei* bakarrik kontatzen dizkiedala, bideko hautsaz artile zuria zikindu ez zaien bildots apalei... Artzainak sinetsiko dizu... eta haren begiek hala ere negar-malkoak isurtzen baldin badituzte, malko horiek jadanik ez dute mingostasun bera izango; malko horiek haren arima eskerronez jasotako eta maitatutako sufrimenduaren argitasun doi batez edertuko dute”.

—“Ulertzen dizut, Jesus, baina badago oraindik sakondu nahiko nukeen beste misterio bat: Esaidazu, mesedez, zergatik aukeratu dituzun hain zuzen ere nire artzainaren *ardi maiteak* artzaina probatzeko?... Ardi ezezagunak hautatu izan bazenitu, proba jasangarriagoa izango zatekeen...” Orduan, bildotsari zauri argitsuz ederturiko hankak, eskuak eta bihotza erakutsiz, zera erantzun zion Artzainak: “Begira zauri hauek, *maite nituenen etxean jaso nituenak dira!*... Horrexegatik dira hain ederrak, hain aintzatsuak, eta zauri hauen dirdirak aingeruak eta santuak pozik asko liluratuko ditu betikotasun osoan...”

Mi 6,3 —“Zure artzainak hau galdetzen du, zer egin ote zuen ardiei bere ondotik alde eragiteko, eta nik, zer egin ote nion nire herriari, zertan nahigabetu ote nuen⁷...”

“Behar-beharrezkoa da, beraz, zure artzain maitea nire oinazeetan parte hartzeaz poztu dadin... Giza laguntza kentzen baldin badiot, haren bihotz *maitalea* neuk bakarrik bete dezadan da!...”

Sal 83,6 —“Zorionsua bere euskarria niregan jartzen duena. Zerura igotzeko bihotzean harmailak jartzea bezalakoa da⁸. Kontura zaitetz ongi bildostxo, ez dut esaten gizekiek elkarrengandik *gutziz* banatu behar dutenik, beren maitasuna eta ardura gu-

⁶ Ez dago argibiderik hemen aipatzen diren lekaimeak zeintzuk diren jakitera eramango gaituztenik.

⁷ Ostiral Santuko Destainetatik hartutako aipamen biblikoa.

⁸ Esaldi hau horman idatzia izan zen, gelara joateko Teresak egunero igotzen zituen eskailararen hasieran. Ik. baita 30. TO.

txietsiz, oso bestera baizik, hau da, niri atsegin emateko *onartu* eta beste *harmailetaz* bezala beraietaz ere baliatzea, gizakiengandik urruntzeak gauza bakar baterako baizik ez bailuke balioko: lurreko bidezidorretan *ibili* eta galtzeko... Gora igotzeko beharrezkoa da *oina* gizakien *harmailetan jartzea*, eta niri izan ezik beste inori eta ezeri ez atxikitzea... Ongi ulertzen al duzu, bildostxo?"

—“Jauna, gauza oren gainetik zure hitzak egia direla *uste* dut, nire bihotz *txikiari* poza eta *bakea* baitakarkiote. Ene bada, sartuko al dira hitz horiek gozokiro nire artzainaren bihotz *handian!*...”

“Jesus, artzainaren ondora itzuli aurretik, zerbait eskatu beharrean aurkitzen natzaizu: ez gaitzazuz erbesteko lurrean luzaroen ahultzen eduki, deiiezaguzu zelai zerutiarretako gozamenetara, han bidezidor loretsuetan zehar gure artalde maitea betiereko bizitzan zuzenduko duzularik”.

“Bildostxo maitea (erantzun zuen Artzain Onak), laster⁹ beteko dut zure eskakizuna; bai, *laster* hartuko dut artzaina eta honen artaldea. Orduan, betiereko bizitza guztian bedeinkatuko duzue, hainbesteko zoriona merezi izan duen zorioneko sufrimendua, eta nik neuk xukatuko ditut zuen begietako malko guztiak!...”

Ap 21,4

TG 191

1896-VII-12

Leoniari

J.M.J.T.

Jesus †

1896ko uztailak 12

Neure Leoniatxo maitea:

Joan zen igandean erantzungo nion zure eskutitz *zoragarriari*, eman izan balidate; baina bost gara eta badakizu ni txikiena naizela¹ ... hori dela eta, beste guztiak irakurri ondoren hartzen ditut gutunak edo batzuetan sekula ikustera ere ez naiz heltzen... Ostiralerarte ez nuen zure gutuna ikusi, beraz, nire ahizpatxo maitea, ez naiz neure erruz atzeratu...

Ez dakizu ongi zenbat pozten nauen zu hain jarrera onean ikusteak²!...

⁹ Ik. B Esk, 2^a: “Esaidazu Jainkoak oraindik luzaro izango ote nauen lurrean... Laster etorriko al zait bila? (...) Bai, laster, laster... Benetan diotsut”.

¹ Ik. KH 2.IX.4.: “Familian azkena!”

² Uztailaren lein Leoniak zera idatzi zuen: “Ez dakizu ongi zenbat pentsatzen dudan egunero zutaz, eta zure oroigarria zein gozoa den niretzat... Oroigarri honek Jainkoarengana hurbiltzen nau eta zure Jainkoarengana joateko lehia somatzen dut, betiko bizitzan harekin galtzeko: nik ere zure gurari bera dut, heriotzaz hitz egiten entzutea maite dut eta ez dut ulertzen etengabeko sufrimendu eta heriotza besterik ez dagoen mundu hau maite duen jendea.

Zuri dagokizunez, ene maitea, Jainkoa ikustera joateko prest zaude, eta seguraski harrera ona egingo lizuke; baina ni... ene bada! esku hutsik iritsiko nintzateke, eta hala ere, beldurrik ez izateko ausardia dut. Ulertzen duzu hau? Sinesgaitza da! Nik badakit eta onartzen dut, baina ezin dut baztertu” (CG 164).

Ez nau batere harritzen heriotzaren ideia zuretzat hain gozoa izateak, lurtean ez baitzaude ezeri loturik... Ziur diotsut Jainkoa zuk uste baino hobea dela. Begirada batez poztzen da, maitasunezko hasperen batez... Niri santutasun-bidea oso erraza iruditzen zait, *Jesus bihotzez irabazi* behar dela uste baitut... Begira iezaiozu bere ama haserrarazi duen umetxoari, ama suminduz edo honen esana ez eginez: bazter batean babestu eta musturrak jarriz, zigortua izateko beldurrez oihu egiten badu, ziur aski amak ez dio barkatuko bere hutsegitea; baina bere besotxoak luzatzen badizkio, irribarre batekin zera esanez: “emaidazu musua, ez dut *berriro egingo*”, ez al du amak samurtasunez bere bihotzaren kontra estutuko egin duen guztia ahaztuz?... Hala ere, amak badaki bere umetxo maitea berehala *berriro* lehengora itzuli-ko dela, baina ez dio axola: umeak berriro *bihotza* irabazten badio, sekula ez da zigortua izango³...

Beldurraren garaian eta gure Jaunaren etorrera aurretik, Isaias profetak zerue-
 Is 49,15 tako Erregearen izenean hitz eginez hau esaten zuen: “Ama batek bere semea
 ahantz al dezake? Hara bada, ama bat bere semea ahanztera helduko balitz ere, nik
 ez zaituztet sekula ahantziko”. Hau bai agintza zoragarria! Ene! Nola ez dugu guk,
 maitasunaren legepean bizi garenok, gure Senarrak ematen dizkigun aurrerapen
 Kt 4,9 maitakorra aprobetxatzen? Nola beldur izan, gure lepoan hegaldatzen diren *ileei*
 oratzen zaionari?

Jakin dezagun, beraz, gure maitasunaren eskale den Jainko hau preso eduki-
 tzen. Mirari hau guztia ile bakar batek egin dezakeela esaten digunean, maitasunez
 egindako *ekintza txikiak* direla bere bihotza liluratzen dutenak adierazten digu...

Ai! Gauza handiak egin behar balira, bai erruki izan beharko litzaigukeela!...
 Baina zein zoriontsu garen, Jesusek *txikienei* uzten dielako bera harrapatzen!...

Ez dira sakrifizio txikiak falta zaizkizunak, ene Leonia maitea, ez al dago,
 bada, zure bizitza horiekin txirikordaturik?... Atsegin handia dut hain altxor handia-
 ren aurrean ikusten zaitudalako, batez ere altxor horretaz baliatzen badakizula pen-
 tsatzean, eta ez zeure buruarentzat bakarrik, baita arimentzat ere. Hain da ederra
Jesusi laguntzea geure sakrifizio txikiz, eta leizezuloan ez erortzeko gure laguntza-
 ren zain dauden eta bere odolaz berrerosi zituen arimak salbatzen laguntzea!...

Gure *sakrifizioak* Jesus liluratzen duten ileak baldin badira, gure *pozak* ere
 halaxe direla iruditzen zait; horretarako nahiko da zorion norberekoiari ez erortzea,
 gure senarrari gure arimak liluratzeko eta beraganaino *jasotzeko* berak bizitzaren
 bidean ereiten dituen *poz txikiak eskaintzea* baizik...

Gaur gure izebari ere idazteko asmoa nuen, baina ez dut astirik, datorren igan-
 derako utziko dut; zenbat maite dudan esan diezaiozun eskatzen dizut, baita gure
 osaba maiteari ere.

Frantzisko eta Joanaz ere asko gogoratzen naiz. Nire osasunaren berri eska-
 tzen didazu⁴. Ongi da, ene ahizpatxo maitea, jadanik ez dut estul bat bera ere egi-
 ten. Pozik al zaude?... Horrek ez dio hala ere Jainkoari eragotziko, nahi dezanean

³ Ik. TG 258, konparazio hau hartu eta garatu egiten du.

⁴ Leoniak zera galdetzen du: “Nola zaude? Ene ahizpatxo maitea, gai honi buruz gauzatxo bat baka-
 rrik: ez naiz zutaz fiatzen, beti ongi zaudela edo sendatze-bidean zaudela esaten didazu eta ez dizut ezertxo
 ere sinesten. Idazten didazunean, esaidazu egia, mesedez” (CG 164).

eraman nazan. Umetxo txiki bat izateko ahal dudan guztia egiten dudanez gero, dagoeneko ez dut beste prestakuntzarik egiteko. Jesusi dagokio bidaiako gastu guztiak eta zerurako sarrera ordaintzea!...

Agur, ene ahizpatxo maitea, egunak joan ahala, gero eta maiteago zaitudala uste dut.

Zure ahizpatxo

Teresa Jesus Haurarena
lek. karm. apal.

Ahizpa Jenofa oso pozik dago zure gutunaz; hurrengo idazten dizugunean erantzungo dizu. Bostok besarkatzen zaitugu...

TG 192

Guérin andreari

1896-VII-16

J.M.J.T.

Jesus †

1896ko uztailak 16

Neure izeba maitea:

Zuregana zuzentzen lehenengo izan nahi nuen, baina orain jaso dudan eskutitz ederra eskertzearen ekintza gozo eta atsegina baizik ez zait geratzen.

Zein onbera zaren, ene izeba maitea, zure Teresatxoz gogoratzean. Ai! ziur diotsut ez zarela eskertzarreko batekin ari!

Berriren bat konta nahi nizuke, baina alferrik burua nekatzen ari naiz, ez baitut neure ahaide maiteenganako maitasuna baizik idoro... eta sentimendu hau berri izatetik urrun dago, *neu bezain zaharra* baita...

Ene izeba maitea, ama bat bazina bezala nire osasunaren berri emateko eskatzen didazu, eta horixe da egingo dudana. Baina sekula baino hobeki nagoela esaten badizut, ez didazu sinetsiko; hori dela eta, atzo mintzatokian Cornière¹ sendagile ospetsuaren aurrean aurkeztua izateko *ohore handia* izan nuen eta berari utziko diot hitza. Pertsona jakintsu honek, begirada batez ondratu ondoren zera adierazi zuen: "Aurpegiera ona dudala!...". *Adierazpen* honek ez dit eragotzi laster aingerutxoekin² zerura joaten utziko didatela pentsatzea eta ez osasun-arazoren bategatik, Lechêne apaiz jaunak gaur Karmelgo kaperan eginiko beste *adierazpen* bategatik baizik... Gure Ordena santuaren sorrera argiak agertu ondoren, Baal-en apaizekin borrokatu zen Elias profetarekin konparatu gaituenean, "Akab-en jazarkundearen antzeko garaiak etorriko direla berriro" *adierazi* du. Jadanik martiritzarantz hegana gindoazela iruditu zaigu...

¹ Erg 18,
20-40

¹ Komunitateko medikua.

² Ik. 34. TO: "Loreak bota!", ekainaren 28ko olerkia.

Bai zoriona, ene izeba maitea, gure familia osoa egun berean sartuko balitz zeruan! Irribarrezka ari zarela iruditzen zait... ez duzulako uste ohore hau, behar bada, guretzat gordeta egon daitekeenik... Egiazkoa dena hau da, guztiok batera, edo bata bestearen ondoren, egunen batez erbestea zeruetako erreinuarekin trukaturiko dugula, eta orduan gauza hauetaz guztietaz poztuko gara, hauen *saria*³ zerua izango da eta... Bai bisita-egunetan edaria *hartu* izanaz, bai maitineetara joanaz gure aurpegiera triste eta guzti, bai untxiak ehizatu izanaz⁴ edo eta oloa bildu izanaz...

Gaur zentzudun ezer ezin dudala esan ikusten dut eta hainbeste maite dudan neure izebatxoari askoz ere gauza gehiago idaztea nahi nuen.

Zorionez, ahizpa Maria Eukaristiarenak ordezkaturiko du nire hutsunea, eta hauxe da neure pobretasunik larrienean gelditzen zaidan kontsolamendu bakarra... Ofizio⁵ berean jarraitzen dugu biok, eta oso ongi konpontzen gara. Ez batak eta ez besteak ez diogula tristurari sartzen uzten ziurtatzen dizuet. Oso kontuz aritu behar izaten dugu alferrikako hitzik ez esateko, *probetxuzko* den esaldi baten ondoren beti etortzen baita atsedenaldirako utzi behar den esaldi xebereren bat.

Ene izeba maitea, La Musse-ko biztanle maite guztiak agurtze eskatzen dizut, batez ere, nire partez estu-estu besarka zaitzan eskatzen diodan neure osaba maitea.

Maite zaituen zure alabatxo

Teresa Jesus Haurrarena
lek. karm. apal.

TG 193

1896-VII-30

Aita Roulland-i

J.M.J.T.

Jesus †

Lisieux-eko Karmel, 1896ko uztailak 30

Ene neba:

Uzten didazu benetan hemendik aurrera zuretzat beste izenik ez erabiltzen, apostolutza-harremenen bidez Jesusek gu lotzea onartu duenez gero?

Oso atsegina da niretzat, gure Jaunak betikotasunetik eratu duela batasun hau arimak salbatzeko eta ni zure arreba izateko sortu nauela pentsatzea...

Atzo jaso genituen zure gutunak eta gure Ama onberak pozez sartu zintuen klausuran. Neure nebaren¹ argazkia gordetzen utzi dit; honako hau mesede *oso*

³ Ahizpa Maria Eukaristiarenak egun batzuk lehenago eginiko umorezko kantikoari buruzko aipamena (ik. "Olerkien eranskina", TOE 4).

⁴ Esaldi hau Frantzisko La Néele-eri doakio, chiztari trebea baita.

⁵ Sakristian.

¹ Teresak argazki hau bere mahaian gordeko du; ik. CG, 877.orr h.+a.

berezia da, karmeldar batek bere hurbileneko ahaideen argazkirik ere ez baitu edukitzen. Baina gure Amak ondotxo daki zure argazkiak mundua gogorarazi eta niregan lurrarekiko atxikimendua sortzeaz urrun, izpirituaren lurraldeetara jasoko duela nire arima eta neure buruaz ahazten lagunduko didala, Jainkoaren aintzarako eta arimen salbamenerako. Hori dela eta, ene neba, nik zurekin batera itsasoa gurutzatzen dudan bitartean, zu nire ondoan izango zara, gure gela txikian ezkutaturik...

Inguratzen nauen gauza orok zure oroimena dakarkit burura. Su-Tchuen-eko mapa lana egiten dudan tokiko horman ezarri dut eta eman zenidan estanpa² nire bihotzean datza eten gabe beti nirekin daramadan ebanjelio-liburuan. Begiratu gabe sartu nuen eta begira zein pasartetan geratu zen: “Niri jarraitzeko guztia uzten duenak, ehun halako lurrean eta datorren mendean betiko bizitza jasoko du”. Jesusen hitzak zuregan egia bihurtu dira, “pozik noa” esaten didazu eta.

Mt 19,29

Poz hori guztiz izpiritualizat dut; ezinezkoa baita, ama, aita eta aberria utzi eta banaketak dakarren urradurarik ez sentitzea... Ai, ene neba, zurekin sufritzen dut, zurekin eskaintzen dut zure sakrifizio handia, eta zeruan elkartzea itxaroten duten zure guraso maiteen gain pozbide ugari isur dezan eskatzen diot Jesusi; zure gurasoak zeruan ikusiko ditugu zure aintzaz gozatuz, horrek beren malkoak betiko xukatuz, zorioneko betikotasun osoan pozez beteko dituelarik...

Gaur gauean otoitz egin bitartean, Isaiasen pasarte batzuei buruz egin dut gogoeta. Eta zuretzat aproposak iruditu zaizkit eta ezin izan dut kopiau gabe utzi:

“Leku zabalago bat bila ezazue zeuen dendak ezartzeko... Heda zaitezte ezker eta eskuinerantz, zuen ondorengoek nazioak izan ditzaten jaraunspen gisa, hiri bakartietan biziko dira... Jaso begiak eta begiratu zuen inguruari, ikusten dituzuen guztiak zeuengana datoz; semeak urrunetik etorriko zaizkizue bila eta alabak, berriz, leku orotik. Orduan mirarizko ugalketa biziko duzue, zuen bihotzak harritu eta handitu egingo dira, nazioetan dauden handitasun oro eta itsas hegietako jendetza guztia zeuengana datorrela ikustean”.

Is 54, 2-3

Is 60, 4-5

Ez da ba haxe Jesusek agindutako bateko ehuna? Eta ezin al duzu zuk ere hau aldarrikatu: “Jaunaren izpiritua nire gain kokatu da eta bere olioduraz bete nau. Bere hitza iragartzera, bihotza hautsirik dutenak sendatzera, burdin artean daudenei askatasuna itzultzera eta negar egiten dutenak poztera bidali nau...? Jaunagan poz-tuko naiz, salbameneko soinekoz jantzi eta justiziaren mantuz bildu nauelako. Lurrak hazia ernearazten duen bezala, halaxe ernaraziko du Jainko Jaunak niregan justizia eta bere aintza nazio artean. Nire herria, bidezkoak direnek osatuko dute, beraiek izango dira nik landatutako adaskak... Jaunari buruz hitz egiten entzun ez duten eta urrunen dauden irletara joango naiz. Jaunaren aintza iragarriko diet nazioei eta nire Jainkoari opari gisa eskainiko diot”.

Is 61, 1-2

Is 61, 10-11

Biziki hunkitu nauten pasarte guztiak kopiau beharko banitu, denbora asko beharko nuke. Hementxe bukatuko dut, baina lehenengo eskari bat egin behar dizut. Une bat libre duzunean, zeure bizitzako data garrantzitsuenak idatz diezazkizadazu nahi nuke, horrela, zurekin lotuago sentitu eta Jainkoari, eskaini dizkizun grazia guztiak eskertu ahal diezazkiodan.

² Bere apaizgintza estanpa-oroigarria.

Agur, ene neba..., distantziak sekula ezingo ditu gure arimak banatu eta heriotzak berak askozaz barrukoago bihurtuko du gure batasuna. Laster zerura joaten banaiz, Su-Tchuen-era zu bisitatzera joateko baimena eskatuko diot Jesusi, eta bate-ra jarraituko dugu geure apostolutza. Bitartean, otoitz bidez beti zeurekin izango nauzu, eta gure Jaunari zu sufritzen zauden bitartean niri gozatzen ez uzteko eskatzen diot. Nire nebak beti pozak eta nik beti probak izan ditzadan nahiko nuke.

Ef 6.17 Norberekoikeria al da hau?... Ez, ez, nire *arma* bakarrak maitasuna eta sufrimendua baitira, eta zure ezpata hitza³ eta apostolu-lanak.

Agur, berriro, Jesusek arrebatzat eman dizuna bedeinkatzea onar ezazu

Teresa Jesus Haurrarena [eta] Aurpegi Santuarena
lek. karm. apal.

TG 194

Ahizpa Maria San Joserenari¹ (zattia)

1896-IX-8/17 (?)

(...) Pozez zorutzen nago haurtxoaz² eta besoetan daraman pertsona are eta gehiago oraïndik... Ai, zein ederra den haurtxoaren bokazioa! Ez da *misio bat* bakarrik ebanjelizatu behar duena, *misio guztiak*³ baizik. Nola egingo ote dut?... *Maitatuz, lo eginez*, Jesusi lo dagoenean LOREAK JAURTIZ. Orduan, Jesusek loreak hartuko ditu eta eskertu ezinezko balioa emanez, berak ere jaurti egingo ditu, eta munduko ibaiertz guztietan zehar hegaldaraziko eta arimak lore bidez salbatuko ditu, ezer ikusiko ez duen baina bere malko artetik irribarrezka jarraituko duen *haurtxoaren maitasunez!*... (zein ederra den ume misiolari eta gerraria!)

TG 195

Ahizpa Maria San Joserenari (zattia)

1896-IX-8/17 (?)

J.M.J.T.

Nebatxoak¹ haurtxoaren antzera pentsatzen du...

Martiritzarik *mingarriena* eta MAITEKORRENA geurea da, Jesusek bakarrik ikusten duelako.

³ Karmelgo Erregelari aipatua.

¹ Teresak ahizpa Maria San Joserenari bidalitako gutunek ez dute datarik. Gutxi gorabeherako data jartzeari buruz, ik. CG, 886.orr.

² Ahizpa Maria San Joserena.

³ Ik. B Esk, 3^a. Kontu izan gutun hau eta B Esk-koa gauza askotan antzekoak direla.

¹ Teresa.

Lurreko gizakiei sekula ez zaie agertuko; baina Bildotsak *bizitzako liburua* irekitzen duenean, hura mirespena zeruko gortean, martirien eta misiolarien izenekin batera, sekula ezer liluragarririk egin ez duten haurtxoen izenak aditzera ematean!...

Ap 20,12

(...)

Buru-estalkiak² zaintzen jarraitzen dut, oso gaixo baitaude.

TG 196

Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenari¹

1896-IX-13 (?)

J.M.J.T.

Jesus †

Oi ene ahizpa maitea! Neure bakarraldiko oroigarriren bat emateko eskatzen didazu, azkena izan daitekeen bakarraldi honetako oroigarria... Nire Amak ontzat ematen du eta poz handia da niretzat bi aldiz nire ahizpa zaren eta ahotsa prestatu didazun horrekin apur bat solastera etortzea. Ahotsa prestatzen didazula diot hitz egin ezin nuenean, Jesus baizik beste inor zerbitzaterik ez dudala nahi esan zenuelako nire izenean... Amabixitxo maitea, Jaunari eskaini diozun umetxoa² da gaur hitz egiten dizuna, ume batek bere Ama bezala maite zaituena... Zeruan bakarrik ezagutuko duzu nire bihotza gainezkatzen duen eskerrona... Oi ene Ahizpa maitea! zure alabatxoari Jesusek esaten dizkion isilpekoak ezagutu nahiko zenituzke; nik badakit Jesusek zeuri ere isilpeko hauek esaten dizkizula, zeu baitzara ezagutza zerutiarrak biltzen erakutsi didazuna. Hala ere, hitz batzuk zizakatzen saiatuko naiz, nahiz eta nik ondotxo jakin gizakiaren bihotzak susma ezin ditzakeen gauzak esatea alferrikakoa dela...

1 Ko 2,9

Ez uste izan pozetan igeri nabilenik, ez horixe! nire poza lurrean pozik ez izatea da. Jesusek sekretuan irakasten dit, bere ahotsa entzuten utzi gabe, bere burua ikusten utzi gabe; ez dit liburuen bidez irakasten, irakurtzen dudana ez baitut ulertzen, baina maiz otoitzetik (lehortean eta isiltasunean egon ondoren) atera berri dudana bezalako hitz batek pozten nau: "Hona hemen nik damaizudan Irakaslea, berak erakutsiko dizu egin behar duzun guztia. Maitasunaren zientzia azaltzen duen bizitzaren liburua irakurtarazi nahi dizut"³.

² Oihal zuriko buru-estalkiak.

¹ Gutun hau B Eskuizkribuko lehenengoa da (1st).

² Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenak honako gutun hau bidali zion: "Neure ahizpatxo maitea, ez dizut idazten esateko gauza handirik dudalako, Jainkoagandik hain hurbil zauden eta sekretu guztiak fidatzen dizkion emazte pribilejiatua zaren horri zertxobait eskatzeko baizik... Gozoak dira benetan Jesusen Teresarekiko sekretuak eta eder litzaidake ulertzea. Idatziezadazu gutuntxo bat; baliteke hauxe izatea zure azkenengo bakarraldia, Jesus bere mahats-sorta urrezkoa batzeko irrikaz izango baita honezkero (...) Gure Amak bere baimena eman du gutun honi erantzun diezaiozun". (CG 169, 13/9/1896). Teresak gau berean erantzun zion.

³ *Petit bréviaire du Sacré-Coeur de Jésus*, 58.or.

Ene bai, Maitasunaren zientzia! hitz honek oihartzun goxo-goxoa du nire ari-
maren entzumenean; nik ez dut zientzia hauxe besterik nahi eta zientzia honen alde
ditudan aberastasun guztiak emanda ere, Kantarik Ederreneko emaztea izateko ezer
Kt 8,7 ez ematea dela deritzot... Nik ongi ulertzen dut hau: gure Jainkoaren begitan maitasunak
bihurtzen bagaitu atsegin, maitasun hauxe dela nik nahi dudana gauza bakarra.
Jesussek atsegin handiz erakusten dit jainko-sugarrera daraman bide bakarra; bide
hau, bere Aitaren besoetan beldurrik gabe loak hartzen duen haurtxoaren *buru-uztea*
Es 9,4 da... “Inor *txikirik* baldin badago, betor nigana” esan zuen Espiritu Santuak Salomon-
en ahoz, eta Maitasunezko Espiritu beronek esan zuen hau ere: “Errukia txikiat
Jkd 6,7 izango da”. Isaias profetak haren izenean diosku azken egunean, “Jaunak bere artal-
dea belardian zehar zuzenduko du eta *ardi txikiak* bilduz, bere bularrean estutuko
ditu”, eta agintza hauek guztiak ere nahiko izango ez balira, profetak berak, goi-
argiz begirada betiko bizitzako sakontasunean murgildua duela, hau idazten du Jaun-
aren izenean: “Ama batek bere umea laztantzen duen bezala, halaxe kontsolatuko
Is 66, 13.12 zaituztet nik ere, nire bularraren kontra estutu eta belaun gainean laztanduko zaituz-
tet”. Ene Amabitxi maitea! Hizkuntza honen ondoren, ez dago isiltzea eta eskerro-
nez eta maitasunez negar egitea besterik... Ene! Arima ahul eta akastun guztiak
somatuko balute arimarik txikiena denak somatzen duena, zure Teresatxoren arimak,
arima bakar batek ere ez luke etsiko maitasunaren mendi gailurrera heldu beharraz,
Jesussek ez baitu hain ekintza handirik eskatzen, *buru-uztea* eta eskerrona bakarrik
baizik, XLIX. salmoan esan zuen bezala: “Nik ez dut zuen artaldeko aharien behar-
rik, oihanetako eta muinoetako animalia guztiak nireak baitira, nik txori guztiak
ezagutzen baitituz... Ni gose banintz, ez nizueke esango, lurra eta lurrean dagoen
guztia nirea baita. Zezenaren haragia jan eta ahariaren odola edan behar al ditut,
Sal 49, 9-14 bada?... *Eskaini Jainkoari sakrifizioak, gorespenak eta graziazko ekintzak*”.

Hona hemen Jesussek eskatzen digun guztia, ez du gure lanen beharrik, gure
maitasunarena bakarrik baizik, gose baldin bada guri esan beharrik ez duela dioen
Jainko honek, ez du beldurrik Samariarrarengana ur pixka baten *eske* joateko. Egarri
Jn 4,7 zenean... Zera zioen: “Emaidazu edaten”. Gizaki gaixoaren maitasuna zen uni-
bertsoaren Sortzaileak eskatzen zuena. *Maitasun* egarri zen... Ene! Inoiz baino
argiago senti dezaket Jesus urduri dagoela, Jesussek ez du eskertzarreko eta axola-
gabeak baizik aurkitzen munduko ikasleen artean, eta *bere ikasleen* artean ere, ai!
bihotz gutxi aurkitzen ditu ezer gorde gabe berari eskaintzen zaizkionak, oso bihotz
gutxi bere Maitasun amaigabearen samurtasuna ulertzen dutenak.

Ahizpa maitea, oso zorionekoak gara geure Senarraren barru-barruko sekre-
tuak ulertzeagatik, ai! ezagutzen duzun guztia idatziko bazenu, oso orrialde ederrak
izango genituzke irakurtzeko, baina nik badakit zuk nahiago duzula “Erregearen
Isilpekoak” zeure bihotzaren sakonean gordetzea, “Goren-gorenaren lanak argita-
Tb 12,7 ratzea ohore bat da” esaten baituzu. Uste dut zuzen zabiltzala isiltasuna gorde nahi
izateaz eta zuri atsegin ematearren bakarrik idazten dizkizut lerro hauek, Zeruko
isilpekoak lurreko hitzez adierazteko neure ezina somatzen baituz; gainera, orriak
eta orriak idatzi ondoren, oraindik ez naizela hasi pentsatuko nuke betiere... Hain-
beste alderdi, hainbeste ñabardura ezberdin daude, non, bizitza honetako gauaren
ondoren Zeruko Pintorearen palatxoak bakarrik hornituko baitizkit nire arimaren
begiak aurkitzen dituen miresgarritasunak pintatzeko gai diren koloreak.

Ene ahizpa maitea, nire ametsa eta zuk “nire doktrina txikia” deitzen duzuna kontatzeko eskatu didazu... Horretan jardun dut ondoko orri hauetan⁴, baina uste dut ez duzula ezer ulertuko. Beharbada, nire adierazteko era gehiegizkoa irudituko zaizu... Ai! Barkatu, nire estilo txarrari egotzi behar zaio horren errua, baina ziur diotsut nire *arimatxoan* ez dagoela ezertxo ere gehiturik, guztia bare eta geldi dagoela...

(Idazterakoan, Jesusi idazten diot, horrela errazagoa egiten zait neure pentsamenduak azaltzea... Hala ere horrek ez du eragozten nire adierazpenok gaizki azalduak izatea!).

TG 197 Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenari

1896-IX-17

J.M.J.T.

Jesus †

1896ko irailak 17

Neure ahizpa maitea:

Ez dut inolako zailtasunik¹ zuri idazteko... Nola galde diezadakezu nik Jainkoa maite dudan bezala zuk ere maita ote dezakezun?...

⁴ “Ondoko orri hauetan”, irailaren 8an idatzitako B Eskuizkribuko lau orriak dira. Gutun honen amaieran erabilitako adierazpideek argi eta garbi uzten dute B Eskuizkribuko “bigarren zatian” idatzitako gutuna dela.

¹ Teresaren “erantzun” hau haren doktrinaren zehazte garrantzitsua da. Ezinbestekoa da, beraz, B Eskuizkribua jaso ondoren, Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenari idatzi zion gutun osoa irakurtzea: “Ahizpatxo maitea, irakurri dut Jesusenganako maitasunez gori-gori zeuden zure orritxoak, zure amabitxoa oso pozik dago altxor hori berekin izateaz eta oso eskerronekoa sentitzen da bere alabatxoak bere bihotzeko sekretuak kontatu dizkiolako. Ai! Zenbat gauza esango nizkizukeen maitasunaren markaz idatzitako lerro hauei buruz! Neuri dagokidan hitz bat bakarrik. Ebanjelioko gizon gaztearen antzera, sentimendu goibel batek harrapatu nau zure martiritza-gogoa jakitean. Hona hemen zure maitasunaren proba, bai, zuk baduzu maitasuna, baina nik! Ez zenidake sekula sinetsiko helburu bera lortzea itxaroten dudala esango banizu. Zuk maite duzunaren beldur bainaiz.

Hona hemen nik Jesus zuk adina ez dudala maite dioskun agerpena. Ai! Zuk ez duzula ezer egiten diozu, txoriño gaixo bat baizik ez zarela diozu, baina zure nahiak ez al dira ezer zuretzat? Jainkoak ekintza handiak bailiran begiratzen ditu.

Ezin dizut gehiago ezer esan, gutun hau goizean hasi arren, ez baitut egun osoan minutu bat gehiago izan bukatzeko; goizeko bostak dira. Idatziz zera esan diezadazun nahiko nuke, ea zure amabitxik zure antzera Jesus maita dezakeen ala ez. Baina hitz bi bakarrik, nahikoa baita daukadana bai nire zorionerako eta bai nire etsipenerako. Nire zorionerako, zu noraino maitatua eta hautatua zaren ikusiko dudalako, eta nire etsipenerako, Jesusek bere loretxo maitea jasotzeko duen irrika aurrez ikusiko dudalako. Ai! Lurrekoak ez baina Jainkoaren bihotzeko oihartzun diren lerro hauek irakurtzean negar egiteko gogoia etorri zait... Nahi al duzu esan diezazudan? Hona, bada, zu Jainkoak harturik zaude, baina oso-osoan Jainkoak harturik... gaizki-leak txerrenak harturik egon ohi diren antzera...

Ni neu ere Jesusek horrelaxe har nazan nahi nuke. Baina hain maite zaitut, non oso pozik bainago ni baino hautatuagoa zarela ikustean.

Hitz bat edo beste zeure amabitxioarentzat” (CG 170, 17/9/1896).

Nire txoritxoaren istorioa ulertu izan bazenu, ez zenidakeen galdera hori egin-go. Nire martiritzarako gogoak *ez dira ezer*, gogo honek ez baitit nire bihotzean sentitzen dudan neurrigabeko konfiantza ematen. Egia esateko, aberastasun izpirituak dira *bidegabeko bihurtzen* gaituztena, *zerbait handi* direla pentsatu² eta atseginez aberastasun hauetan atsedean hartzen denean...

Lk 16,9

Gurari hau Jesusek nirearen antzeko arima ahulei eskaintzen dien poza da (eta tankera honetako arimak asko dira), baina *poz* hau ematen ez duenean, *grazia berezia* da. Aitaren hitz hauek gogoratu³: “Martiriek pozik sufritu zuten eta martiriaren Erregeak, ordea, goibel”.

Lk 22,42

Bai, Jesusek zera esan zuen: “Ene Aita, aldendu kaliza hau niregandik!”. Ahizpa maitea, nola esan dezakezu honen ondoren, nire gurariak nire maitasunaren seinale direla?... Ai, ondotxo dakit nire ariman ez dela horrela inola ere, Jainkoari atsegin egiten diona! Jainkoak atsegin duena nik *neure txikieria eta pobretasuna maite ditudala eta haren errukian itxaropen itsuz sinesten dudala* ikustea da... Hona hemen nire altxor bakarra, amabitxi maitea. Zergatik ezin du altxor honek zurea ere izan?...

Ez al zaude prest Jainkoak nahi duen adina sufritzeko? Ondotxo dakit baietz. Beraz, poza eta sufrimenduaren lilura sentitu nahi baldin baduzu, zeure poz pertsonala da bilatu nahi duzuna, zerbitu maitatzen denean atsekabea desagertu egiten baita⁴. Zin dagizut orain dugun jarrerarekin martiritzara elkarrekin joango bagina, zuk oso meritu handia izango zenukeela eta nik ordea oso gutxi, Jesusek nire jarre-rala aldatzea atsegin ez duen bitartean bederen.

Ene, nire ahizpa maitea, mesedez eskatzen dizut zure alabatxoa ulertzeko! Ulertu, mesedez, Jesus maitatzeko eta haren *maitasunaren opari*⁵ izateko, zenbat eta ahulagoa izan, inolako gurari eta bertuterik gabea, are eta hurbilago zaudela maitasun kiskaltzaile eta eraldatzaile⁶ honen ekintzetatik... Opari *izateko nahi* hutsa nahikoa da, baina beharrezkoa da beti txiro eta indarge izaten jarraitzea onartzea, eta hona hemen zailtasuna, “non bilatu bihotzez benetan txiro dena?”. “Oso urrun bilatu beharra dago” esan zuen salmogileak⁷. Ez zuen esan arima handien artean bilatu behar denik, “oso urrun” baizik, hau da, *apaltasunean, ezerezean*... Ai, iraua dezagun, bada, dir-dir egiten duen *guztitik urrun*, maita dezagun gure txikitasuna, ezer ez sentitzea irrika dezagun; orduan bihotzez txiro izango gara, eta Jesus gu bilatzera joango da gu urruti bagaude ere, eta maitasunezkougar bilakatuko gaitu... Ai, neuk sentitzen dudana ulertarazi nahi nizuke!... Konfiantza eta konfiantza besterik ez da maitasunera zuzenduko gaituena... Beldurrak ez al gaitu justiziara bideratzen? (1). Badakigu *bidea* eta egin dezagun elkarrekin. Bai, Jesusek *grazia* bera eskaini nahi digula somatzen dut, bere zerua eman nahi digu *dohainik*.

Mt 5,3

Em 3,24

² Ik. *Kristoren Antz Bidea* II, 11, 5.

³ Aita Pichon, 1887ko urriko bakarraldia Liseux-eko Karmelen, zazpigarren eguneko hitzaldia.

⁴ Ik. San Augustin, *De bono viduitatis*.

⁵ Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarena izan zen, Teresa eta Zelinaren ondoren, hirugarrena Maitasun Errukitsuari bere buruaren eskaintza egiten, 1895ko udan. Ik. CG, 896. orr + f eta “Prières”, 87. orr. s).

⁶ TG 196 eta 197ko testuinguruari erantsi beharreko baiezpina. Batez ere B Eskuizkribuan erantsi beharrekoa: “Nire ahultasuna da neure burua eskaintzeko ausardia ematen didana” (3’). “Bidetxo”aren mui-nea gaude hemen.

⁷ Egia esan, *Kristoren Antz Bidea* II, 11, 4, Es 31, 10 aipatzean.

Ai, ene ahizpatxo maitea, ulertzen ez baldin badidazu, arima handiegia zarela-ko da!... edo bestela, gaizki azaltzen naizelako, ziur bainago Jainkoak ez lizukeela zu berak eta bere *errukizko maitasunak* HARTUA IZATEAREN nahia emango, grazia hori zuretzat gorderik ez balu... Edo hobeki oraindik, ziur nago honezkero eskaini dizula, Jesusi eskainik zaudenez gero, *Jesusek* kiskail zaitzan nahi duzunez gero, eta Jainkoak sekula ez du ematen egia bihurtu ezin ezin den guraririk...

Bederatziak jotzen ari dira eta hementxe utzi behar zaitut⁸. Ene, zenbat gauza esan nahiko nizkizukeen! Baina Jesusek emango dizu aditzera nik idatzi ezin dudan guztia...

ESKERRONEKO *alabaren nire bihotz txikiko* samurtasun osoz maite zaitut.

Teresa Jesus Haurrena
lek. karm. apal.

(1) *Justizia zorrotzera*, bekatariei aurkezten zaien bezala, bai; baina ez da hau, Jesusek maite dituenekin erabiliko duen *justizia*⁹.

TG 198

1896-X-21

Bellière apaizgaiari

J.M.J.T.

Jesus †

Lisieux-eko Karmel, 1896ko urriak 21

Apaizgai Jauna,

Gure Ama Agurgarria gaixorik dago eta neuri eman dit zure gutunari erantzuteko zeregina. Sentitzen dut Ama onbera honek bidaliko zizkizun hitz santuak jasotzerik ez izatea, baina zorioneko sentitzen naiz haren bitarteko izateagatik eta Jainkoak zure ariman burutu berri duen lana jakiteaz hark izan duen poza zuri adierazteagatik. Amak otoitzean jarraituko du hark bere jainko-lana burutu arte.

Alferrikakoa iruditzen zait esatea, apaizgai jauna, gure Amaren poz honetan esku hartzen dudala. Zure uztailiko gutunak zeharo nahigabetu¹ ninduen, nire garrik ezari egotziz zuk izan zenituen borrokak. Ez nuen etsi gabe jarraitu nuen zuretzat apostoluen Erregina gozoaren ama-laguntza eskatzen. Horregatik, oso poz

⁸ Maitinetako ofiziora joateko.

⁹ Teresak erantsitako nota. (1) testuan "Justiziari" ezabatu du.

¹ 1895ko azaroan Maurice Bellière Caen-go koartelean sartu zenean, 21/7/1896an Karmelgo prioreari mezu larri hau bidali zion: "Egoera negargarria murgildurik nago; beharrezko da nire arreba maitea den Teresa Jesus Haurrenak hemendik atera nazan; beharrezkoa da Zeruari gogor egin diezaion" (CG, 871. orr).

handia izan zen niretzat, neure santu-eguneko opari gisa, nire otoitz gaixoak entzuna izan zirela jakitea²...

Orain, ekaitza igaro denean, eskerrak damaizkiot Jainkoari zuri sufriarazteagatik, Liburu Santuan hitz eder hauexek irakurtzen baititugu: "Zoriontsua tentaldia jasan duen gizakia". Eta beste lekuren batetan: "Zer ote daki tentaldia ezagutu ez duenak?". Egia esan, Jesusek arima bat zuzentzeko deitzen duenean eta beste hainbat arima salbatzeko, guztiz beharrezkoa da bizitzaren tentaldiak eta probak pasaraz diezazkion. Borrokatik garaile irtetea eskaini dizu eta gure Jesus gozoak zure gurari handi guztiak bete dituela itxaroten dut, apaizgai jauna. Misiolari *ona* ezezik, *santua* ere izan zaitezen eskatzen dizut, Jainkoaren eta arimen maitasunez kiskalia. Eta zure apostolutza-lanean lagun zaitzadan, maitasun hori eskura diezadazun eskatzen dizut. Dakizunez, apostolua ez den karmeldarra aldendu egingo litzateke bere bokazioaren³ helburutik, eta santa Teresa serafikoaren alaba izateari utziko lioke, hark arima bakar bat salbatzearen mila bizitza emango baitzituzkeen⁴.

Ez dut zalantzan jartzen, apaizgai jauna, zure otoitzak nireekin bat egitea nahiko duzunik gure Jaunak gure Ama agurgarria senda dezan.

Jesus eta Mariaren bihotz sakratuetan beti zorioneko izango naiz zure ahizpatxo duineza deitzeaz

Teresa Jesus Haurrena [eta] Aurpegi Santuarena
lek. karm. apal.

TG 199

Ahizpa Maria San Joserenari

1896-X-20/30 (?)

J.M.J.T.

Loari orduak kentzea¹, nebatxo zitala²? *Ez, eta mil aldiz ez!*... nire nebatxoaren guduez ez naiz batere harritzen, baina bai bidean aurkitzen duen lehenengo kabuari armak entregatzean bere indar apurrak galtzeaz, eta are gehiago, kabuaren atzetik kuarteleko eskaileretaraino joatea bere armaduraren azkenengo pieza ere hartzera behartzeko.

² Urriaren 14an, Avilako santa Teresaren bezpera, hona hemen Bellière apaizgaiak Ama Maria Gonzagarenari idatzi ziona: "Eskerrik asko, ene Ama onbera, une larri hartan eskaini zenidan laguntzagatik. Ekaitza igaro eta barealdia egin da, eta soldadu gaixoa lehengo apaizgai bihurtu da berriro". Teresari buruz hitz egiterakoan, gutun batean hauxe zioen: "Bihar haren santu-eguna da" (CG, 903. orr).

³ Ik. Avilako santa Teresa, "*On-Bidea*", III.kap.

⁴ Ibid., I.kap. Teresak esaldi hau 1896ko uztaileko argazki-pelikulan kopia zuen (VTL, 29.zenb; ik. CG, 873+e orr.). 35. TO, 4. bertsoaren garaian erabiliko du berriro.

¹ Arropategian lan egiteko, ik. 4. nota.

² Frantsesezko "p.f." delakoak, "petit frère" esan nahi du, hau da, nebatxo. Teresa da beste "nebatxo"; ik. TG 195.

Zer dago, beraz, harritzekorik eguzki-izpi indartsua (ausardia osoz jasoa) *armarik gabeko* soldadutxoaren gain erori eta kiskali eta sukarra sortaraztean?...

Zigor gisa, zure nebatxoak maitasunaren kartzelan sartzera eta dohatsu baten antzera *lo egitera* kondenatzen zaitu; baina horren aurretik *gaur gauean musikazko*³ penitentzi tresna erabili beharko duzu ... eta hala egiten ez baduzu, nebatxoa nahi-gabetu egingo da. ...

(Baina ez, gero, loari ordurik kendu! Bihar gogor lotuko gatzazkio biok lanari⁴!)

TG 200**Ahizpa Maria San Joserenari**

1896-ko urriaren azkena (?)

J.M.J.T.

Dena doa ongi, *urrezko* galtzamarrak ongi mereziak dituen ausarta da haurtxoa. Baina ez dadila gehiago *beheratu* harritxoekin¹ borroka egitera, hori ez da harentzako duin... Haren armak “karitatea” izan behar du.

Gainerako guztia ere ongi doa, haurtxoak Satan jaunari iseka egiten baitio, eta Jeneral Handiaren bihotz gainean lo egiten baitu... Bihotz horren ondoan ikasten da adoretzu izaten, eta batez ere harengan *uste osoa* izaten. Metraila, kainoiaren hotsa, zer da hori guztia Jeneralak gidatzen gaituenean?...

TG 201**Aita Roulland-i**

1896-XI-1

J.M.J.T.

Jesus †

Lisieux-eko Karmel, 1896ko azaroak 1

Ene neba:

Santu guztien babesean heldutako zure mezu interesgarriak asko pozten nau. Eskerrak ematen dizkizut *benetako arreba* bezala tratatzeagatik; Jesusen graziaz, hain maite dudan titulu honen duin izatea itxaroten dut.

“Misiolari baten arima”¹ bidali diguzulako ere eskerrak ematen dizkizut. Guztiz interesgarria iruditu zait liburu hau, zuri jarraitzen lagundu baitit zure bidaia

³ Hau da, kantatu.⁴ Oraindik hezea zegoen arropa lisatzeko, plantxatzea bezala zena.¹ “Koarteleko eskaileretan” izan zen gertakariaren aipamena (TG 199).¹ G. Monteuis (Biktor Retaux eta semea, Paris 1895)-en *Vie du P. Nempon, Missionnaire apostolique du Tonkin occidental*.

luzean. Aita Nempon-en bizitzari ezarritako izenburua egoki-egokia da, benetan “misiolari baten arima” baita, izen hori merezi duen apostoluaren arima.

Gure Jaunari eskatzeko esaten didazu (Marseillan idatzitako gutunean) zure-gandik Frantziara itzultzearen edo seminarioko zuzendari izatearen gurutzeta alendu dezala. Ulertzen dut ikuspegi hau ez zaizula batere atsegin; bihotzez eskatzen diot Jesusi, zure bihotzak beti amets egin zuen bezala apostolutza neketsua betetzen utz diezazun. Hala ere, zurekin batera zera gaineratzen dut: “Jainkoaren borondatea egin dadila”. Borondate horretantxe aurkitzen baita bakarrik atsedena; *borondate* maitagarri horretatik at ez genuke ezertxo ere egingo, ez Jesusentzat eta ez arimentzat.

Ezin dizut esan, ene neba, zure nagusien esku zeure burua guztiz utzita ikusten zaitudanean zein zoriontsu naizen; uste dut hori benetako proba bat dela, egunen batez zure nahiak beteko direla, hau da, santu handi bat izango zarela.

Utz iezazkidazu zure bizitzako data gomutagarriak idatzita daudeneko orriak ezagutarazi didan sekretua konta diezazudan.

1890ko irailaren 8an zure misiolari-bokazioa, martirien eta apostoluen Erregina den Mariak aurrera atera zuen²; egun berean, karmeldartxo bat zeruko Erregearen emazte bihurtzen zen. Munduari betiko agurra eginez, haren helburu bakarra arimak salbatzea zen, batez ere apostoluen arimak. Bereziki Jesusi, bere Jainko-Senarrari apostolu-arima bat eskatu zion; karmeldartxo hau ezin zen bera apaiz izan eta horren ordez bere graziak berak bezalako asmoak eta nahiak zituen apaiz batek jaso zitzaizkan nahi izan zuen...

Ene neba, ongi ezagutzen duzu otoitz hau egin zuen karmeldar apala. Ez al duzu uste nik bezala, zure apaizgintzako egunean berretsitako gure batasuna, irailaren 8an hasi zela?... Uste nuen zeruan bakarrik aurkitu ahal izango nuela apostolua, Jesusi eskatu nion neba; baina nire Salbatzaile maiteak, betikotasuneko isilpekoak ezkututzen dituen beloa pixka bat jaso, dagoeneko erbéстетik, nire arimako neba ezagutzeko eta sinesgabeko gaixoak salbatzeko berarekin lan egiteko poza niri eskaintzea nahi izan du.

Ai! Bai eskertarra nirea, Jesusen fintasunak kontuan hartzen ditudanean!... Zer ote dugu zain zeruan, behealde honetan bere maitasunak hain ezusteko atseginak eskaintzen badizkigu?

Inoiz baino areago ulertzen dut, Jainkoak zuzentzen dituela gure bizitzako gertakizun txikiak ere, bera da gurariak izanarazten diguna eta bera gure gurariak betetzen dituenena... Gure Ama onberak zure laguntzaile izatea aurrean jarri zidanean, benetan diotsut ene neba, zalantzan nengoen³. Ni inguratzen nauten karmeldar santuen bertuteak kontuan hartuz, gure Amak zure interes izpiritualak hobeto zerbitzatuko zituela iruditu zitzaidan zuretzat beste edozein ahizpa aukeratu izan balu, eta ez ni. Jesusek nire lan akastunei ez baina nire borondate onari bakarrik begiratuko ziola pentsatzeak bakarrik onartarazi zidan zure apostolu-lanean esku hartzeko ohorea. Orduan ez nekien gure Jaunak, gauzarik harrigarrienak egiteko

² Aita Roulland-ek zera baieztatuko du geroxeago: “1890ko irailaren 8an zalantza handiak izan nituen Seminario Handian sartzeari buruz. Notre-Dame-de-la-Délivrande kapera otoiitzean ari nintzela, berehala hartu nuen erabakia”. Egun hartan bertan egiten zuen Teresak bere profesia Karmelen.

³ Ik. C Esk, 33^a.

tresnarik ahulenez zerbitzen den Jaun honek aukeratu ninduenik. Ez nekien orain dela sei urtedanik misiolari izateko prestaketetan ari zen *neba* nuenik... Oraintxe ezagutarazten dizkit Jesusek misterioak, neba hau egiaz bere apostolua denean, nire bihotzean bera maitatzeko eta maitarazteko gogo handitu dadin.

1 Ko 1,27

Jakin ezazu, ene neba, Jesusek nire otoitzak entzuten *jarraitzen* badu, zure apaltasunak eskatzea eragozten dizun mesedea jasoko duzula. Mesede berdingabe hau, honezkero igarri duzunez, martiritza da...

Bai, apostolu-lanetan *urte luzeak* igaro ondoren, Jesusi maitasuna maitasunagatik eta bizitza bizitzagatik eman ondoren, odola odolagatik ere emango diozun itxaropena dut...

Lerro hauek idazterakoan, urtarrilean, zorion-gogoak elkartrukatzen diren hilabetean jasoko dituzula konturatzen naiz. Uste dut zure arrebatxoarenak bereziak izango direla horien artean... Egia esan, munduak erotzat joko lituzke era honetako gogoak, baina guretzat munduak ez du axola jadanik, eta "gure solasa honezkero Zeruan dago"⁴; gure gogo bakarra morroi-izaera eta forma hartuz ezereztu zelako munduak aintzat hartu nahi ez zuen gure Maisu adoragarriaren antzekoak izatea da. Oi ene neba, zein zorion handia zuretzat Jesusen bidea hain hurbiletik jarraitu ahal izatea!... Txinatarren janzkera mota hartu duzula pentsatzen, Salbatzaileaz ere gogoratzen naiz normala den moduan, betikotasunerako gure arimak berrerostearren gure giza izaera gaixoaz birjantiz eta gure antzeko eginez.

Flp 3,20

Jn 1,10

Flp 2,7

Umekeria irudituko zaizu, baina ez dio axola, inbidizko bekatua egin dudala diotsut, zeure ilea ebaki eta haren ordez txinatar ilemotots bat jasoko duzula irakurri dudanean. Ez da azken hau nik lortu nahi dudana, ezertarako balio ez duen ile-xerloa baizik. Seguraski, ile-xerlo horrekin zer egingo ote dudana galdetuko didazu. Bada, oso erraza da: adats horiek niretzat *erlikiak* izango dira zeure eskuan martiripalma duzula zeruan aurkitu zaitezenean. Oso aurretiaz nabilela irudituko zaizu, baina badakit nire helburua betetzeko era bakarria dela, zure arrebatxoa (halakotzat Jesusek bakarrik ezagutzen duena⁵) ahaztua izango baita zure *erlikiak* banatzerakoan. Ziur nago nitaz barrezka arituko zarela, baina ez dit axola. "Martiri izango den baten ile-adatsa"rekin nire solasaldi txikia *ordaintzea* onartzen baduzu, ongi saritua izango naiz!

Flp 2,7

Abenduaren 25an neure aingerua bidaliko dizut, zuk sagaratuko duzun ostia-
ren ondoan nire asmoak utzi ditzan⁶. Bihotz barren-barrenetik eskertzen dizut zure egunsentiko meza gure Amaren eta nire alde eskaintzea; aldarean zauden bitartean, guk gauerdiko mezaren ondoren datozen Gabonetako maitinak kantatuko ditugu.

Ene neba, ez zara bat ere gaizki aritu, nire asmoa "Jesusi grazien egun aparta eskertzea" zela esatean. Baina ez zen egun hori izan erlijioso-bokazioa jaso nuene-
koa: gure Jaunak nire lehenengo begirada beretzat bakarrik izan zedin nahi zuela-

⁴ "Réflexions" Im (*Kristoren Antz Bidea*) I, 8-an aipatua.

⁵ Ik. TG 189, 4. oharra.

⁶ Irailaren 26an, Aita Roulland-ek honako hau idazten zion Teresari: "Abenduaren 25an bidal iczaizkidazu zeure asmoak, baina jadanik igartzen ditudala esango nuke; grazia egun berezi horretan eskerrak emaikiozu Jaunari, beharbada, Jainkoak Karmelera deitu zintuen eguna izanik" (CG 171). Gaixotasunak ez dio utziko misiolariari Gabon eguneko meza hau ospatzen; ik. KH 1.VIII.9.

rik, sehaskan nengoela nire bihotza eskatzea nahi izan zuen, horrela hitz egitea zilegi bazait behintzat.

Sai 138,12

1896ko Gabon *gaua*, benetan erabakigarria da nire bokazioarentzat, baina era argiago batez zehaztekotan, *neure Jainkoagana bihurtze-gaua* deitu beharko nioke⁷. Jainko beraren deliziak argitzen dituela esaten den gau bedeinkatu honetan, nigatik haur egiten zen Jesusek, haur-oihaletatik eta haurtzaroko akatsetatik ni ateratzea izan zuen aintzat. Hainbeste aldatu ninduen, non *neure burua* ere ez bainuen eza-gutzen. Aldaketa hori gabe, oraindik munduan urte asko egin behar izango nituen. Santa Teresak zera esaten zien bere alabei: “Ez dut nahi ezertan emakume izan zaitzeten, gauza orotan gizon indartsuen pareko izan zaitzeten baizik”⁸. Santa Teresak ez ninduen bere alabatzen nahi izango, baldin eta Jaunak bere jainko-indarrez bir-jantzi ez banindu, Jaunak berak gerrarako armatu ez banindu.

Hitz ematen dizut, ene neba, era berezi batez gomendatuko diodala Jesusi bere bokazioan aurrera egiteko oztopoak dituela diostasun neskatala gaztea. *Neure egiten dut haren nahigabea*, neuk ikusita dakidalako zein mingotsa den Jainkoaren deiari berehala erantzun ezin izatea. Nik bezala Erromaraino joan beharrik izan ez dezan opa diot... Ez duzu jakingo seguraski zure arrebak Aita Santuari hitz egiteko ausardia izan zuenik!⁹... Baina halaxe da, eta ausardia horixe izan ez banu, beharbada oraindik munduan egongo nintzateke.

Mt 11,12

“Zeruetako erreinua indarrez hartzen da, eta indar egiten dutenak bakarrik eskuratzen dutela” esan zuen Jesusek. Nirekin ere, Karmelgo erreinuari dagokionez, gauza bera gertatu zen. Jesusen preso izan aurretik, lurreko jauregi guztiak baino nahiago nuen presondegiak jabetzeko oso urrun joan behar izan nuen. Horrela izan ezik, nik *neure atseginagatik*, ez bainuen bidaia egiteko batere gogorik; baina nire aita berdingabeak Jerusalem-era eramango ninduela esan zidanean baldin eta nire Karmelerako sarrera bizpahiru hilabetez atzeratzea axola ez bazitzaidan, ez nuen zalantza-izpirik izan hainbeste irrikatu izan nuenaren itzalpera atsedean hartzera joatea erabakitzeke (Salbatzailearen bizitzak santututako lekuak bisitatzearen erakargarritasun naturalak ere bultzatzen baninduen ere). Jaunaren etxean igarotako egun bakar batek, beste edonon egindako milak baino gehiago balio zuela ulertu nuen.

Kt 2,3

Sai 83,11

Beharbada, ene neba maitea, nire bokazioa egia bihurtzeko zein oztopo aurkitzen nuen jakin nahiko duzu. Oztopoa nire adina besterik ez zen. Gure Aita nagusiak¹⁰ ez ninduen inola ere onartu nahi hogeita bat urte bete arte, hamabost urteko neskatala batek ez zekiela zer erantzunkizun hartzen zuen esanez. Haren jokaera zuhurra izan zen eta badakit aproban jarri ninduenean, Jainkoaren borondatea besterik ez zuela betetzen, Karmelgo gotorlekua ezpataz irabaztarazi nahi zidala. Beharbada Jesusek deabruari nire bokazioa zaildu zedin utzi zion, nire ustetan, eta gure Ama santa Teresak¹¹ esaten duen bezala, *maitasunik gabeko* zital haren gogo-

⁷ Ik. A Esk, 44^a/45ⁱ.

⁸ Santa Teresa Avilakoa, “*On-Bidea*”, VII. kap.

⁹ Ik. TG 36 eta A Esk, 63i.

¹⁰ Delatroëtre kalonjea.

¹¹ Esaldi hau ez da Avilako Santa Teresarena, Sales-eko San Frantziskorena baizik. Ik. 7. DSA, 1a eta infra, 6. zenb.

koa ez zelako izango. Zorionez, trikimailu guztiak bere kontra bihurtu zitzaizkion, neskatala baten garaipena argi uzteko baino balio izan ez zuelarik. Jasan behar izan nuen borrokako zertzelada guztiak kontatu beharko banizkizu, denbora, tinta eta paper ugari beharko nuke! Luma trebe batek kontatuz gero, uste dut zertzelada hauek interesgarri irudituko zitzaizkizula, baina nirea ez da gai kontakizun luze bat erakargarri eta xarmanta egiteko; barkamena eskatzen dizut, honezkero beharbada aspertu zaitudalako.

Zuk hitz eman zenidan, ene neba, aldare santuan goizero hitz hauek esaten jarraituko zenuela: “Ene Jainkoa, kixkal ezazu nire arreba zeure maitasunean”. Bihotzez eskertzen dizut, eta ez daukat arazo bat bera ere zure baldintzak onartuak direla eta *beti* onartuak izango direla ziurtatzeko¹². Jesusi neuretzat eskatzen diodan guztia eskatzen diot zuretzat ere; eta Maiteari nire maitasun ahula eskaintzen diodanean, era berean zurea ere eskaintzera ausartzen naiz.

Josuen antzera, zuk ere lautadan egiten duzu borrokan; neu naiz zure Moises txikia eta nire bihotza beti zerura begira dago garaipena jasotzeko. Oi ene neba, zein errukarri zinatekeen “zure Moises”-en eskuak Jesusek eutsiko ez balitu! Baina nire alde “Maitasunaren Jainko-Katibuari” eguneroko laguntza eske egiten diozun otoitzarekin, sekula ez zarela *errukarri izango* itxaroten dut, eta bizitza honen ondoren, zeinetan elkarrekin malkoz ereingo dugun hazia, alai biziko garela, geure eskuetan azaoa eramanez.

Ir 17, 8-13

Oso atsegin izan dut gure Ama onari oraindik lurrean gera dadin aholkatuz zuzendu diozun sermoitxoak; ez da luzea, baina zuk diozun bezala, ez du ihardespennik. Ikus dezakedanez, ez duzu zailtasun handirik izango predikatzen duzunean zeure entzuleei hitza sinestarazteko, eta Jaunari arima-uzta ederra bildu eta eskainiko diozulakoan nago.

Sal 125, 5-6

Papera bukatzen ari zaidala konturatzen naiz, eta horrek nire zirriborroei azke-ria ematera behartzen nau. Hala ere, zure urtebetetze guztiak ospatuko ditudala esan gabe ez zaitut utzi nahi. *Uztailaren hirua* batez ere oso data maitea izango dut, egun horretantxe *jaso* baitzenuen lehenengoz *Jesus*. Data berean *jaso* nuen nik ere *Jesus* zure eskutik eta Karmelgo zeure lehenengo meza jarraitu ahal izan nuen.

Bedeinka ezazu, ene neba, zure arreba apala

Teresa Jesus Haurarena
lek. karm. apal.

(*Misiolari* izan nahiko lukeen apaizgai gazte baten otoitzak eskatzen dizkizut; haren bokazioa aproban jarri berria izan da soldadutzaren bidez¹³).

¹² 1896ko abuztua-iraila bitarteko ibilaldi honetan, A. Roulland-ek Teresak egindako olerki-koadernotxoak irakurri zuen. Gai honi buruz zera idatzi zion: “Ene arreba maitea, mesedez erregutzen dizut, zure nebaren izenean Jesusen oinetan zure bihotza kiskaltzen duten sentimenduren batzuk uzteko; hori egiten baduzu, goizero zera esaten jarraituko dudala hitz ematen dizut: “Jainko nirea, kiskal ezazu nire arreba zeure maitasunez” (CG 171).

¹³ Bellière apaizgaia.

TG 202

1896-XI-16

Guérin andreari

J.M.J.T.

Jesus †

1896ko azaroak 16

Neure izeba maitea:

Oso tristea da zure alabatxoarentzat, bere bihotzaren sentimenduak azaltzeko luma hotza hartu beharra izatea... Beharbada irribarre eginez zera esango didazu: "Baina Teresatxo nirea, hitzez errazago azalduko al zenidake?". Ez, izeba maitea, aitortu beharra dut, egia da; ez dut nire bihotzeko gogoak behar den bezala adierazteko hitzik aurkitzen. Olerkaria hau esatera ausartu zen:

"Ongi sortzen dena argi agertzen da
eta adierazteko hitzak erraz aurkitzen dira"¹.

Olerkari honek ez zuen ziur aski nik neure arimaren sakonean sentitzen dudana sentitzen!... Zorionez, Aita Faber dut pozteko; hark ondotox ulertzen zuen behaldea honetako hitzak eta esaldiak ez direla gai bihotzaren sentimenduak adierazteko, eta *beterik* dauden bihotzak direla beren baitan gehien ixten direnak.

Ene izeba maitea, aspertu egingo zaitut neure aipamenekin, eta are gehiago, nire lau ahizpen² gutunak dituzunean nireak gezurtatzeko. Bada, ene izeba maitea, hitz-etorri ona badute ere, nire ahizpek ez zaituzte nik baino maiteago, hitz hautatuz esaten ez baldin badakit ere... Orain sinesten ez badidazu, egunen batez eta zero ederrean guztiok batera gaudenean, zure alabarik *txikiena* samurtasun eta eskerrorean ez zela txikiena aitortu beharrean izango zara, zure alaba *txikiena* adinean eta jakindurian zela bakarrik txikiena.

Zera eskatzen dizut, ene izeba maitea, Jainko onari otoitz egin diezaiozun jakindurian Jesus Jainko-Haurra bezala hazi nadin; ez da hori nik egiten dudana, ziur diotsut... Galdetu bestela gure Maria Eukaristiarena maitetxoari, berak esango dizu ez naizela gezurretan ari, eta hala ere, laster beteko dira bederatzirte Jesusen etxean nagoela. Honezkero, beraz, santutasun-bidean aurreraturik egon beharko nuke, baina oraindik ez nago eskailearren lehenengo mailan baizik. Horrek ez nau adoregabetzen eta txitxarra bezain alai nago; haren antzera beti kantatzen ari naiz, nire bizitzaren azkenean, inurriak baino eskuzabalagoak diren nire ahizpen aberastanetan parte hartzeko itxaropenez!

Zeruko otorduan ere leku ona izatea uste dut, ene izeba maitea, eta zergatia esango dizut: aingeru eta santuek zure alaba izateko ohorea dudala jakiten dutenean, ez naute zugandik urrun jartzeaz nahigabetu nahi izango. Horrela, zure bertuteei esker, betiko ondasunez gozatuko dut. Ai! benetan izar zorionsu baten babesean jaio nintzen, eta nire bihotza Jainkoaganako eskerronez urtzen da, lurrean berdini-karekorik ez duten ahaideak eman dizkidalako!

¹ Boileau, *Art poétique*.

² Bere hiru ahizpak eta bere lehenusina Maria Guérin.

Nire izebatxo maitea, bere kantua baizik ez duen txitxarra *gaixoa* naizenez gero (eta gainera hots hori ez da melodiatsua³ bere bihotzaren sakonean bakarrik kanta dezakeelarik), zure santu-egunean nire kanturik ederrena kantatuko dut, eta hain aire hunkitzailez kantatzen saiatuko naiz, non santuak nire ezerezaz errukiturik, gero zuri atsegin osoz eskainiko dizkizudan grazi altxorak emango baitizkidate. Santuen aberastasun horiekin neure amonatxo maitearen eguna ospatzeaz ere ez naiz ahaztuko. Santuak hain eskuzabalak izango dira, non nire bihotzak ez baitu beste ezeren guraririk izango eta ziur diotsut, ene izeba, ene gurariak hain handiak izanik, hau esatea ez dela gutxi.

Ene osaba maiteari nire partez samur-samur besarka zaitzan eskatzen diot. Frantziskok, Joanak eta Leoniak ere gauza bera egin nahi baldin badute, abestixoren bat kantatuko dut eskertzeko (ez dut esan beharrik neure kantu alai honetan ez dudala osaba ahaztuko).

Barka nazazu, ene izeba maitea, ganora gabeko gauza hauek guztiak kontatzeagatik eta ziur egon zaitez bihotz-bihotzez maite zaitudala.

Teresa Jesus Haurarena
lek. karm. apal.

TG 203

1896-XII-4

Ama Aines Jesusenari¹

J.M.J.T.

Nire Amatxo guztiz da polita!... Berak *ez badaki zein den*, nik ongi asko dakit, eta MAITE DUT!... Oi bai... eta zein garbia den nire *maitasuna!*... Bere *amaren apaltasuna* miresten duen alabarena da. Munduko liburu guztiak baino gehiago laguntzen didazu!...

TG 204

1896-XII-18

Ama Aines Jesusenari

96ko abenduak 18

Ama Birjina hain pozik dago bere “astotxoaz” eta “zerbitzaritxoaz”, non *bere atseginerako*¹ arineketa eragiten baitie ezker eta eskuin; hori dela eta, ez da harritzekoa Amatxo noizbehinka erortzea...

³ Teresak ez zuela ahots onik atera behar ote da hemendik? Ziur aski bai; ik. CG, 917+e orr.

¹ Koaderno berdeetan aipatzen den besikatorioko arazoari buruzko hitzak direla uste da; ik. DE II (DP), 38.orr.

¹ Teresak ama Ainesentzat diruzain izateak zer nolako zama zekarkion aipatzen du. Gutun honetako esaera asko eta asko ama Ainesek hain maite zuen ahizpa Maria San Pedrorenari, Tours-ekoari, hartuak dira.

Jn 14,2 Bai, baina² ... Jesustxo hazten denean, “dendako ofizio apala”³ ikasi beharrik
 Jn 18,36 izango ez duenean, *Amatxori lekutxoren* bat gordeko dio mundu honetakoa ez den
 Lk 12,37 bere erreinuan, eta gero, Jesus bera izango da “hara eta hona ibiliko dena Ama zer-
 bitzeko”. Batek baino gehiagok ikusiko du bere burua jaiki beharrean, Jesus txikia-
 ren astoa izatea beste irritsik ez zuenari begiratzeko!

TG 205**Ahizpa Maria San Joserenari**

1896-XII (?)

Bai tamalgarri dela norbere denbora gogait eginik igarotzea, Jesusen Bihotza-
 ren gainean lokartu beharrean!...

Gauak haurtxoa beldurtu egiten badu, eramaten duena nor den ez duela ikus-
 ten-eta kexu bada, *begiak itxi* ditzala, bere BORONDATEZ egin dezala eskatzen zaion
 sakrifizioa, eta gero, zain egon dadila logaleak hartu arte... Horrela iraunez gero
 lasai-lasai, haurtxoak dagoeneko begiratzen ez duen gau honek ezin izango du bel-
 durtu, eta laster baretasuna, alaitasuna berpiztuko da haren bihotzean.

Gehiegi al da begiak ixteko eta gaueko ameskerien aurka ez borrokatzeko
 eskatzea? Ez, ez da gehiegi, eta haurtxoak *bere burua utziko du*, Jesusek daramala
 uste izango du, ontzat emango du hura ez ikustea eta oso urrun utziko du zintzoa ez
 izatearen beldur antzua (haur bati ez dagokion beldurra).

(Enbaxadore bat)

TG 206**Ahizpa Maria San Joserenari**

1896-XII (?)

A.¹ txikiak ez du potintxotik jauzi egiteko gogorik, alderantziz, bertan jarrai-
 tzen du haurtxoari zerua erakusteko; bere begirada eta fintasun guztiak Jesusentzat
 izan daitezen nahi du. Hori dela eta, oso pozik jarriko da haurtxoa poztasunik gabe
 geratzen dela ikustean, poztasun hauek misiolari eta gerrari batentzat ezerezak eta
 ume-gauzak direlako... Maite dut benetan nire haurtxoa..., eta Jesusek are eta mai-
 teago du.

² Teresaren azken hilabeteetako esacra berezia; ik. DE, 412 s.orr.

³ Buissonnets-en oso gogotsu kantatzen zuten Auverge-ko gabon-kantari buruzko oroipena.

¹ “Le petit Ambassadeur” (Enbaxadore txikia); ik. TG 205.

TG 207

1896-XII (?)

1896

Ahizpa Jenofari

J.M.J.T.

Gaixo, gaixoa¹, ez dago zertan goibeldu T. Jauna² tranpan erori dela eta!... Hegoak izan ditzanean³, alferrik jarriko dizkiote lakioak, ez baita lakio horietan eroriko, ezta zu ere D⁴. gaixoa. Bera izango da eskua luzatuko dizuna, bi hegotxo zuri itsatsiko dizkizu, eta biok batera urrun-urrunera egingo dugu hegan; Saigon-eraino⁵ iritsiko gara geure hegotxo zilarreztatuei eraginez... Hauxe da Jesusen alde egin dezakegun guztia eta onena, berak bi kerubin izan gaitetzen nahi baitu eta ez bi fundatzaile. Une honetan hori egia da; bera burubidez aldatzen bada, guk ere halaxe egingo dugu, horixe da dena!

TG 208

1896-1897 Negua

Ahizpa Jenofari¹

J.M.J.T.

Apaltasun osoz eskatzen dizut bihar Jaun gaixoari bere berogailutxoa ez erabiltzeko baimena emateko²... baina orduen liturgiarako³ *esna* dadin arduratzeko ere eskatzen dizut. Bere paperak⁴ ez duela ezertarako balio uste du, zaintzailea ohiturik dagoelarik andereñoa goizero Jaunarekin haserretzen, leunki bere ametsetatik ateratzen duelako⁵.

Ez zaitetz, bada, goibeldu andereño gaixoa, *pitxerrak leku batetik bestera*⁶ eraman behar dituzulako; egunen batez Jesus *ere* "zu zerbitzatzeko joan-etorrian ibili-ko baita", eta egun hori laster iritsiko da.

Lk 12,37

¹ Ahizpa Jenofaren goitzenetarikoa bat, Buissonnets-en kantaturiko kopia batetik aterea.

² "Monsieur Toto"; ik. TG 179, 1.oharra.

³ Bere heriotzaren ondoren.

⁴ "Lili andereñoa".

⁵ Saigon-go Karmelek fundatzaileak eskatzen ditu Hanoi-n sortu berri duenerako. Ez asko lehenago, Ahizpa Jenofak bere Asiarako joatea prestatu zuen, beretzat eta Teresarentzat. Ikus, haren argitaratu gabeko gutuna (CG 172bis) "Lettres-Une course de géant" delakoan, 481.orr.

¹ Gutun honetan eta ondoko bietan, "Monsieur Toto" eta "Demoiselle Lili" dira protagonistak.

² Ama Maria Gonzagarenak Teresa behartu egin zuen berogailua erabiltzera 1896-1897ko neguan. Bigarren gaixozain zenez gero, Ahizpa Jenofak bere ahizpa agindu horretatik askatzeko ahalmena zuen.

³ Ofizio txikia, neguan goizeko zazpiretan zen.

⁴ Goizean beranduago jaikitze baimena zuten ahizpek gelako krisketean papertxo bat eransten zuten. Bigarren deialdian, zazpirak hoge gutxiagotan gutxi gora behera, lekaiame batek papera zuten geletako atea jo ohi zuen.

⁵ Ahizpa Jenofak zurdazko gerriko batez igurztzen zuen Teresa. Ik. KH 27.VII.17.

⁶ Gaixorik zeuden ahizpei.

TG 209**Ahizpa Jenofari**

1896-1897 Negua (?)

Ez zaitetz bihar T. Jauna iratzartzeaz ahaztu. L. andereño gaixoa, guztiek¹ gutxiesten dutena, baina Jesusek eta T. Jaunak maite dutena.

TG 210**Ahizpa Jenofari**

1896-1897 Negua (?)

Nahi al duzu jakin bihar goizean ea Toto Jaunak matraka¹ entzungo duen?...

TG 211**Ahizpa Jenofari¹**

1896-XII-24

1896ko Gabonak

Neure alabatxo maitea:

Jakingo bazenu zenbat pozten duzun nire eta Jesustxoren bihotza, bai zoriontsu izango zinatekeela!... Baina ez dakizu, ez duzu ikusten, eta zure arima goibel dago. Poztu nahi zintuzket. Hala egiten ez badut, sufrimenduaren eta bihotzaren larrialdiaren balioa ezagutzen dudalako da, oi, ene alaba laztana! Jakingo bazenu nire arima atsekabea nola murgildu zen nire senar san Jose samurra aterperik ez zuela aurkitu esanez nigana triste itzultzen ikustean!

Lk 2,7

Zeure buruari atseginik ez ematearen proba bakez eramatea onartzen baduzu², babesleku ederra emango didazu. Egia da sufrituko duzula, zeure etxearen ate aurrean egongo zara eta; baina ez beldur izan, zenbat eta txiroago izan, are eta gehiago maitatuko zaitu Jesusek. Jesus urrun, oso urrun joango da zure bila³ egunen batez galduko bazina. Jesusek nahiago du gauez bideko harrien kontra nola behatzopa egiten duzun ikustea, zure ibilaldia geldiaraziko luketen lorez apainduri-

¹ Ahizpa Jenofak idazten du bere akatsek unceoro lotsariz beterik daukatela, bada, honela dio berak: "neure izaera oldartsuarekin sarri izaten nituen ateraldi nabarmenegiak neure ahizpekin. Ateraldi nabarmen hauek nahigabe handia ematen didate, ordea, neure buru-estimua eta".

² Zurezko tresna bat, karraka antzekoa duena eta klaustro eta barne-bideetan lehen txandan jaikitzeko jotzen dena, neguan goizeko seirak laurden gutxiagotan.

³ Gutunazalak honako helbidea dakar: "Amabirjinak atzerriko lurraldean babesik gabe dagoen nire Alaba Maiteari bidalia".

² Ik. TG 109, 1.oharra.

³ Ik. *Kristoren Antz Bidea* II, 11, 4.

ko bidetik egunez joatea baino. Maite zaitut, oi ene Zelina! zuk uler zenezakeen baino areago maite zaitut...

Asko pozten nau gauza handien irrika duzula ikusteak, eta nik are eta handiagoak prestatzen dizkizut gainera... Egunen batez *zure Teresarekin* etorriko zara zeru ederrera, nire Jesus maitearen belaunetan eseriko zara⁴, eta nik ere neure besoetan hartuko zaitut eta xeraz beteko zaitut, zure Ama naizelako, Zure Ama maitea

(Maria, aingerutxoen Erregina⁵).

TG 212

Ahizpa Maria Hirutasunarenari¹

1896-XII-24

1896ko Gabon gaua

Neure Emaztetxo maitea²:

Oi!zein pozik nagoen zutaz!... Urte osoan zehar benetan ongi pasarazi didazu boloetara jokatzeko³. Hainbeste gozatu dut, non aingeruen gordea ere harrituta eta liluratuta baitzen; kerubin batek baino gehiagok galdetu zidan ea zergaitik ez nuen ume egin..., batek baino gehiagok galdetu zidan baita ea bere harparen melodia ez ote zen atseginagoa, zure maitasunaren bolaz txirilo bat erortaraztean irteten zaizun barre atsegina baino. Ume ez izateagatik zertan goibeldu ez zutela erantzun nien kerubinei, egunen batez beraiek ere zeruko zelaietan jokatu ahal izango zutela eta. Zure barrea, benetan, edozein melodia baino gozoagoa zela esan nien, zuk ezin baituzu barre egin eta jolastu *sufrituz* eta zeure buruarekin ahaztuz ez baldin bada.

Ene emaztetxo maitea, badaukat nik zertxobait zuri eskatzeko, ukatu egingo al didazu?... O ez, gehiegi maite nauzu holakorik egiteko! Hara, bada, jokoz aldatu nahiko nukeela aitortu behar dizut; bolotan jolastea oso dut atsegin, baina orain zibaka jolastu nahi nuke, eta nahi baduzu, zu zeu izango zara nire ziba. Ziba bat ematen dizut eredu gisa, ikusten duzun bezala ez da batere polita; hau erabiltzen ez dakienak ostikoz jota botako du, baina haur batek ikustean pozez jauzi egin eta zera

⁴ “*Jesusen magala*” edo “*Jainko onaren magala*”; paradisuan egon daitezenerako Toto eta Lilik irrikatzen duten lekua; ik. DE, 595.orr eta 603.

⁵ Ik. TG 192, eta gutun honen 2.oharra.

¹ Ahizpa Maria Hirutasunarenak honelaxe azaltzen du bere gutuna zertatik datorren: “Jainkoaren Zerbitzaria nire arimaren berezko joeraz baliatzen da Jesusenganaino eramateko”. (...) Garai honetan, oraindik ume-izaera nuen eta, bertutea praktikatzeko nahiko berezia zen metodo bat erabiltzen nuen: Jesus Haurra alaitzea, harekin edozein motatako jolas izpiritualetan jostatuz. Ahizpa Teresa Jesus Hauraren ere gauza bera egiteko esango zidan hurrengo gutunean...”

² Jesus Haurra da hitz egiten duena. Gutunazalak honako helbide hau dakar: “Pertsonala. Nire Emaztetxo Maiteari, Karmel mendiko bolo-jokalaritari”.

³ Bolo hauek, dio ahizpa Maria Hirutasunarenak, “nik guztiak handiak eta kolore guztietakoak irudikatzen nituen, nik neureganatu nahi nituen arimak adierazteko”.

esango du: “Oi, zein jostagarria den, gelditu gabe egun guztia biraka egoteko gaida!”⁴

Nik, Jesus txikiak, maite zaitut, xarmarik ez duzun arren, eta beti ibilian egon zaitezten eskatzen dizut, jira-biraka, ni dibertitzeko... Baina zibari bira eragiteko zartadak behar dira... Hara bada, utzi zure ahizpek zerbitzu hau eman diezazuten, eta eskerroneko ager zaitez zure higidura moteltzen uzten ez dutenekin. Zurekin nahiko jostatu naizela uste dudanean, goialde hartara eramango zaitut eta sufrimendurik gabe jolasten jarraitu ahal izango dugu...

(Zure nebatxoa, Jesus)

TG 213

1896-XII-26

Bellière apaizgaiari

J.M.J.T.

Jesus †

Lisieux-eko Karmelen, 1896ko abenduak 26

Apaizgai jauna:

Aurretik idatzi nahi izango nizun, baina Karmelgo arauak ez didate uzten abendu garaian ez gutunik idazten eta ez jasotzen. Hala ere, gure Ama agurgarriak, salbuespen gisa, zure eskutitza irakurtzen utzi zidan, otoiitzaren bidezko laguntza beharra duzula ulerturik.

Ziur diotsut, apaizgai jauna, behar dituzun graziak jaso ditzazun ahalegin guztiak egiten ditudala; grazia horiek eskainiko zaizkizu, benetan, gure Jaunak sekula ere ez baitigu eskatzen geure indarren gainetik dagoen sakrifiziorik¹. Batzuetan, egia da, Jainko-Salbatzaile honek gure arimari agertzen dion kalizaren mingostasun guztia sentiarazten digula. Mundu honetan maiteen dugun orooren sakrifizioa eskatzen digunean, ezinezkoa da grazia bereziren bati esker izan ezik, agoniaren baratzan berak bezala garrasi hau egitea: “Ene Aita, aldendu dadila kaliza hau niregandik... Hala ere, egun bedi zure borondatea eta ez nirea”.

Lk 22,42

⁴ Teresak bere nobiziaren hitzak hartzen ditu egun batzuk lehenago: “1896ko abenduan nobiziek hainbeste purtzileria jaso zituzten misioen alde Gabonetako zuhaitzean jartzeko. Eta hona hemen non, kutzaren barrenean zer zegoen(...): ziba bat. Nire lagunek zera esan zuten: “Bai itsusia dela! Zertarako balio du horrek?” Baina nik, ziba zertarako den banekien eta, eskuetan hartuz esan nien: “Oso jostagarria da-ta! Egundua eman dezake bira eta bira gelditu gabe, dzartada handiak emanez gero!”. Horrela, bada, zibarekin nola jolasten den erakuspen bat eman behar izan nien eta guztiak harriturik utzi nituen. Ahizpa Teresa Jesus Haurrena niri begira gelditu zen, ezer esan gabe” (Ahizpa Maria Hirutasunarenaren oroigarriak).

¹ 1896ko azaroaren 28an Bellière apaizgaiak honela idatzi zion Teresari: “Maisuak proba latza bidali dit (maite dutenei dagokien bezalakoa, baina ni ahula naiz oso). Egundua gutxi barru ziur aski, Afrikako Misioetako seminario batera bidaliko nau. Azkenean, nire guraria beteko da, baina gogor ekin beharko diot. Maitasun-lotura asko hautsi eta ohitura asko alde batera utzi beharko ditut. Sarritan gogora datorkidan iragan gozo eta alaia ere ahaztu egin beharko dut. Indarra eta kemena behar ditut, ene arrebarekin maitea”. (CG 172). Teresaren erantzunaren laburpena gordetzen da zirriborroan, haren jokaera agertzen duelarik (ik. CG, 934.orr).

Kontsolagarria da pentsatzea Jesusek, Jainko indartsuak², gure ahuldura eza-gutu zuela eta lehenxeago hain gogo biziz edan nahi zuen kaliza mingotsaren aurrean dardar egin zuela...

Is 9,5
Lk 22,15

Apaizgai jauna, zuri egokitu zaizun zatia ederra da benetan, gure Jaunak bereztat aukeratu zuena baita eta bera izan baitzen zuri eskaintzen dizun kopa horretan ezpainak busti zituen lehenengoa.

Mt 20,23

Santu batek zera esan zuen: Jainkoak arima bati eskain diezaiokeen ohorerik handiena ez da asko ematea, asko eskatzea baizik!³. Jesusek, beraz, hautatu antzera tratatzen zaitu. Zeure egitekoa has dezazun nahi du eta sufrimendu bidez arimak salba ditzazun. Ez al zuen, bada, berak sufritudun eta heriotzaz berriro mundua berreskuratu? Badakit Jainko-Maisuaren alde zure burua opari eskaintzearen zoriona nahi duzula, baina odol-isurketa ez da bihotzaren martiritza baino emankorra, eta gaurdanik, hauxe da zure martiritza. Zuzen nago, beraz, Kristoren apostoluaren duin den zure parte hori ederra dela esatean.

Apaizgai jauna, asaskaldi bila zatot Jesusek arrebatzat eman dizun honengana, eta hortarako eskubide osoa duzu. Gure Ama agurgarriak idazten uzten didanez, eskatu zaidan egiteko honi ahalik eta hobekien erantzutea nahi nuke; baina biderik zuzenena otoitza eta sufrimendua direla ulertzen dut...

Elkarrekin lan egin dezagun arimen salbamenean, ez daukagu bizitza honetako egun bakar bat baizik salbatzeko eta horrela Jaunari gure maitasunaren probak emateko. Egun honen bihar delakoa betikotasuna izango da; orduan Jesusek ehun aldiz handituta itzuliko dizkizu zuk gaur uzten dituzun poztasun hain gozo eta bidezkoak. Hark badaki noraino iristen den zure sakrifizioa, eta badaki maite duzunaren sufrimenduak areagotu egiten duela sakrifizio hori. Baina berak ere jasan zuen martiritza hori arimak salbatzearen, bere Ama utzi egin zuen, eta Birjina Garbia gurutzaren ondoan zutik ikusi zuen bihotza saminezko ezpata batez gurutzaturik zuela. Hori dela eta, gure Jainko-Salbatzaileak zure ama ona poztu itxaroten dut, eta zin-zinez eskatzen diot. Ai! Jainko-Maisuak ikusten utziko balie bere maitasunagatik utziko dituzunei zer nolako aintza duzun gordeta, zeruan zure jarraigoa eratu duten arima piloa, utzi dituzunak ordainduak sentituko lirarteke zure alde egiteak ekartzen dien sakrifizioagatik.

Mt 19,29

Jn 19,25
Lk 2,35

Gure Ama oraindik gaixorik dago, egun batzuetatik hona pixka bat hobeki aurkitzen bada ere; Jesus Jainko-Haurrak indarrak itzuliko dizkion itxaropena dut, amak Jesus zerbitzatzen erabiliko dituen indarrak. Ama agurgarri honek Asisko san Frantziskoren estanpa bidaltzen dizu, bizitzako gerra eta proba artean pozbidea aurkitzen lagunduko dizularik.

Nire alde otoitz egiten jarraituko duzulakoan nago, apaizgai jauna, ez bainaiz aingerua zuk uste bezala, akatsez beteriko karmeldar gaixo bat baizik, baina, txiroa izan arren, zure antzera Jainkoaren aintzarako lan egiteko gogoia duena.

Iraun dezagun elkarrekin otoitzean eta sufrimenduan Jesusen sehaska ondoan. Zure arrebatxo duineza

Teresa Jesu Haurrena [eta] Aurpegi Santuarena
lek. karm. apal.

² Gabonetako liturgian maiz datorren bertseta.

³ Aita Pichon; ik. TG 172.

TG 214

1897-I-3 (?)

Ahizpa Jenofari

Urteberri on!...

Toto Jaunak urteberri ona opa dio Lili andereñoari¹.**TG 215**

1897ko hasiera (?)

Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenari

J.M.J.T.

Jesusek bihotz-bihotzez maite zaitu eta nik ere bai, ene amabitxi maitea!!!

Teresa Jesus Haurarena
lek. karm.**TG 216**

1897-I-9

Ama Aines Jesusenari

J.M.J.T.

Jesus †

1897ko urtarrilak 9

Neure Amatxo maitea, ez dakizu ongi zein hunkiturik nagoen hain maite nauzula ikustean! Oi! sekula ezingo dizut aitortu neure eskerrona behealde honetan!... Goyalde horretara¹ laster joatea itxaroten dut, “*Zerurik bada, niretzat izango baita*”², aberatsa izango naiz, Jainko onaren altxor guztiak izango ditut eta Hura bera ere *nire ondasun* izango da; orduan zor dizudan guztia ehun aldiz biderkatuta itzuli ahal izango dizut. Oi! poz-eztitan nago horrekin!... Askok sentitzen dut hainbeste jaso izana sekula ezer eman gabe!...

Nire amatxoren negar-malkoak ez ikustea nahiko nuke, baina malko horiek *ikusteak* ere pozten nau, sortzen duten ondorio onagatik, liluragarria da. Oi! Nik ez

¹ Hona ahizpa Jenofak idazten duena: “txartel hau haurtxo batek eskaini dit, kolore bizitan eta loretxo batekin”.

¹ Teresak idatzitako gutunean bere heriotzari buruz egiten duen lehenengo aipamena.

² Ziur aski Soumet-en bertso honi buruz egiten duen aipamena: “Norentzat lirateke Zeruak zuretzat izan ezik?” (Joana Ark-ekoa martiria). Teresak aldatu egingo du apurtxo bat esaldia: “Zerurik baldin bada” bere fedearen probari buruz egindako aipamen estalia da. Ik. 3. DSA, 22^{af}, erraŕurik d’Avrigny-ri eransten dion bertsoa.

dut inoren aurka ezer nire Amatxo maiteari *gaizki* begiratzen diotenean, oso argi ikusten dudalako ahizpak Jesusek beren-beregi jarritako bitarteko batzuk besterik ez direla, Amatzoren bidea (Teresatxorena bezala) berak erbesteko lurtean bidaiari zela beretzat aukeratu zuenaren antzekoa izan zedin... Orduan haren aurpegia ostenduta bezala zegoen, inork ere ez zuen ezagutzen, arbuia garri zen. Nire Amatxo ez da arbuia garri, baina gutxi ezagutzen du Jesusek haren aurpegia³ ezkutatu zuenez gero!...

Is 53,3

Oi ene Ama, zein ederra den dagokizun zatia!... Benetan *zure* duin da, gure familiako hautatu zaren horren duin; bere laguntaldearen buru ikusten den enara txiki horren antzera eta erreinu berrira gidatu behar dituen bidea airean taxutzen duenaren antzera, bidea erakusten diguzun horren duin.

Oi! uler ezazu hainbat eta *hainbat* gauza esan nahiko lizkizukeen ZURE alaba-
txoaren maitasuna!...

TG 217

Ahizpa Maria San Joserenari

1897-I (?)

J.M.J.T

Koplatxo zoragarriak!¹ ... Hau zekenkeria inoren etxera eskean joatea² norbere poltsa beterik edukita! Baina ez da zikoizkeria lo egitea, atsegina eta alaia izatea; “dendako ofizio apala”³ da; denda honek sekula ezin du itxi, ezta jai egun eta igandean ere, hau da, Jesusek gure arimak aproban jartzeko aukeratu dituen egunetan... Txontaren antzera kanta itzazu zeure koplak politikak⁴; nik, txolarre gaixo baten antzera intziri egingo dut neure txokoan, judu erratuaren antzera kantatuz: heriotzak jadanik ezin du nirekin, ondotoxo dakit!⁵

Sat 101,8

Ez dut jadanik zamauari⁶ buruz ezer entzuten; horretaz oraindik hitz egiten da ala?

³ Hau da, ama Ainesek priore izateari uzten dionetik.

¹ Ahizpa Maria San Joserenak egindako koplak.

² Ahizpa Maria San Joserenak olerki bat idazteko eskatu dion Teresa bera.

³ Ik. TG 204, 3.zenb.

⁴ Ahizpa Maria San Joserenaren ahots melodiatsuak eginiko aipamena.

⁵ Judu erratuaren eresia, 15. estrofa.

⁶ Jostunei agindutako konpontze-lana: ahizpa Maria San Josepena eta Teresa.

TG 218

1897-I-27

Simeon Anaiari

J.M.J.T.

Jesus †

Lisieux-eko Karmelen, 1897ko urtarrilak 27

Zuzendari jauna:

Pozik nago gure Karmelerako lortu duzun graziagatik¹ eskerrak emateko nire ahizpa Jenofarekin bat egiteaz.

Neure eskerrona nola azaldu ez dakit eta gure Jaunaren oinetan egindako nire otoitz gaixoen bidez, erakusten diguzun ontasunak nola hunkitzen nauden adieraziko dizut...

Tristura-sentimendu bat nahasi zaio nire alaitasunari, zure osasuna ez zegoela oso ongi jakin dudanean; hori dela eta, Jesusi bihotz osoz Elizarentzat hain prezia-tua den zure bizitza luza dezan eskatzen diot. Ondotxo dakit Jainko-Maisu honek presa duela zu zeruan koroatzeko, baina oraindik erbestean utziko zaituelakoan nago, gaztetatik egin duzunez, haren aintzarako lan egiten baduzu, zure merituen pisuak Jainkoaren aurrean esku-hutsik ager daitezenen arimena berdindu dezan.

Zure merituetan esku hartuko duten arima sakonen artekoa izatea itxaroten dut, Anai maitea. Ez dut uste behealde honetako nire ibilera oso luzea izango denik... Nire Senar Maitearen aurrean ager nadinean, ez dut neure gurariak besterik hari erakusteko; baina erreinuan nire aurretik izan bazaitetz, nire bila etorriko zarela eta nire orde zure lan hain emankor horiek aurkeztuko dituzulakoan nago... Ikusten duzu zure karmeldartxoek sekula ezingo dizutela idatzi mesederen bat eskatu edo zure eskuzabaltasunari dei egin gabe...

Zuzendari jauna, zu hain *ahaltsua* zara *guretzat* lurrean, Aita Santu Leon XIII. arengandik hainbeste bedeinkazio lortu dizkiguzu honezkero, non ezin baitut besterik itxaron, zeruan Jainkoak oso ahalmen handia emango dizula besterik. Jainkoaren ondoan niretzat leku bat gordetzeaz ez zatezela ahaztu eskatzen dizut, baldin eta ni baino lehenago ikusten baduzu... nire arimarentzat eskatzen dizudan gauza bakarra, Jesus *maitatzeko* grazia eta Jesus nik ahal dudana adina *maitaraztea* da.

Jauna lehenengo nire bila baletor, zure asmo guztien alde eta maite dituzun pertsona guztien alde eskatuko dudala ziurtatzen dizut. Dena dela, ez nago Zerua-
ren zain otoitz hau egiteko, oraintxedanik bainago pozik neure eskerron guztia horrela erakustez.

Zoriontsu izango naiz, Zuzendari jauna, Jesusen Bihotzean beti zure eskerroneko karmeldar txikia deitzeaz

Ahizpa Teresa Jesus Haurarena [eta] Aurpegi Santuarena
lek. karm. apal.

¹ Aita Santuaren bedeinkazioa Karmelerako, ahizpa San-Stanislas karmeldar dekanoren urrezko ezteiak zirela eta.

TG 219

Ama Aines Jesusenari

1897-II-22

Eskerrik asko, Amatxo! Sudurra hautsi zaizu¹, *bai, baina* LUZEA duzu!... Beti geratuko zaizu apurren bat; ni, ordea, neurea hautsiko balitzait, ezer gabe geldituko nintzateke!² ... Ene! Zein zorionekoak garen gauza orotaz barre egiten dakigulako... *Ene, bai!*... ez dago *aitzakiarik* horretarako...

TG 220

Bellière apaizgaiari

1897-II-24

J.M.J.T.

Jesus † (Lisieux-eko Karmel), asteazken gaua, 1897ko otsailak 24

Apaizgai jauna:

Garizuma santuko isilunean¹ sartu baino lehen, gure Ama agurgarriaren gutunari hitz batzuk erantsi nahi dizkiot, aurreko hilean bidali zenidanagatik eskerrak emateko².

Karmelen zure alde etengabe erregutzen duen arreba bat duzula jakiteak pozten bazaitu, gure Jaunarenganako nire eskerrona ez da zurea baino txikiagoa, hark bere apostolu eta apaiz izateko hautatu duen nebatxoa eman didalarik... Egia esan, zeruan bakarrik jakingo duzu zein maite zaitudan. Gure arimak elkar ulertzeko eginak izan zirela somatzen dut. "Zakarra eta txiroa" dela diozun zure prosak, gorengo mailako santutasunera deituak diren arimek bakarrik ematen dizkion gurariak jarri dituela Jainkoak zure bihotzean agertu dit. Eta Jainkoak berak zure arreba izan nadin hautatu nauenez gero, nire ahultasuna ikusiko ez duelakoan zure, edo bestela esanda, ahultasun honetaz baliatu da bere lana betetzeko, Jainko ahaltsoak ezereza denaz baliatuz bere ahalmena adieraztea atsegin duenez gero.

Is 9,5

1 Ko 1,27

¹ Kontraesan honen zergatia ez dakigu.

² Ama Ainesen sudur luzeari buruz, ik. KH 8.VII.5. eta Teresaren "sudur txikia"-ri buruz, ik. 31.7.5.

¹ Garizuma martxoaren 3an hasten da.

² Hona hemen gutun honen zati batzuk: "Neure ahizpa maitea, Jainkoaren niganako ontasuna hunkigarria da benetan eta zuri adierazi dizunak sekulako eragina du nire arimaren sakonean, zure maitasunez guztiz pozturik baitago. Egunetik egunera hobea naizela nabaritzen dut, Karmelen bizi den erukia sentitzen dudana bakoitzean (nik ere behealde honetan zuk Jesus maite duzun bezala maitatzea nahi nuke. Zuk bihotzean duzu, ene ahizpa, niri bidaltzea aintzat izan duzun kanta hau konposatzen duzunean. Indartsu eta garbi egiten gaituen jainko-arnasa hartzen dugu. (...). Zure antzera kantatzea nahi izango nuke, ene ahizpa maitea, zure sentimenduek inspiratzen didatenaren berri Jesusi esan diezaiodan. Baina Jesusek, ongi deritzo nire prosa garratz eta laburrari. Hain samurra den haren bihotzak ez dio jaramon gehiegirik egiten formari eta haren Grazia egunero jaisten da guregana. Oi! bai, ene ahizpa, Maitasunez bizi gaitzen!". (CG 174, 31/1/1897).

Mt 18,19

Jainkoarekin bat eginik, gure arimek beste hainbat salbatu ahal izango dituzte, Jesus gozo honek hau esan baitzuen: “Zuetariko bik elkar hartzen badute, nire Aitari eskatzen dioten guztia emango zaie”. Ai! guk eskatzen dioguna bere aintzarako lan egitea da, maitatu eta maitaraztea!... Nola ez dira bada bedeinkatuak izango gure batasuna eta gure otoitza?

Apaizgai jauna, maitasunari buruzko kantua³ atsegin izan duzunez gero, gure Ama onak beste batzuk zuretzat kopiatzeko eskatu dit; ez dituzu jasoko hemendik aste batzuk barru arte, oso asti gutxi baitut, iganderik ere ez baitut neure elizain-ofizioa dela eta. Olerki apal hauek ez dizute erakutsiko zer naizen, zer izan nahiko nukeen edo zer izan behar nukeen baizik... Olerki horiek idaztean, arreta handiagoa jarri dut edukian forman baino, hori dela eta, ez dira beti ongi zaintzen bertsogintzako legeak. Helburua nire sentimenduak azaltzea zen (edo hobeki esanda, karmeldar baten sentimenduak) nire ahizpen gogoari erantzuteko. Bertso hauek hobeki dagozkio lekaima bati apaizgai bati baino, baina hala ere, atsegin izango dituzulakoan nago. Ez al da, bada, zure arima Jainko-Bildotsaren emaztegia? Eta ez al da bera laster haren emazte bihurtuko, subdiakono egiten zaituzten egun bedeinkatuan?

Eskertzen dizut, apaizgai jauna, bataiatzeko izango duzun lehenengo umearen amabitxi aukeratu nauzulako⁴. Niri dagokit, beraz, nire etorkizuneko besoetakoaren izena aukeratzea. Babesle gisa Ama Birjina, san Jose eta nire nebatxo maitearen zaindaria den san Maurizio eman nahi dizkiot. Egia esan, ume horrek ez du oraindik izaterik Jainkoaren pentsamenduan baizik, baina dagoeneko haren alde erregutzen dut, eta alde zuretik neure amabitxi-ardura betetzen hasiko naiz. Zure ardurapean izango diren arima guztien alde ere erregutzen dut, eta batez ere zure arima bertute oroz eta bereziki bere maitasunez apain dezan eskatzen diot.

Zeure arrebaren alde sarri otoitz egiten duzula diostazu. Mesede hori egiten didazunez gero, nire gurari guztiak hartzen dituen otoitz hauxe egunero egin dezazun nahiko nuke: “Aita errukiorra, gure Ama Birjina, santu eta Jesus onaren izenean, nire arreba zure maitasunaren Espirituz kiskal dezazun eta zu asko maitarazteko grazia eskain diezaiozuen eskatzen dizut”⁵.

Nire alde *bizitza guztian* otoitz egingo duzula hitz eman didazu. Zure bizitza, ziur aski, nirea baino luzeagoa izango da, eta zuk ezin duzu nik bezala kantatu: “Nire erbestealdia laburra izatea itxaroten dut!”⁶, baina emandako zeure hitza ere ezin duzu ahaztu. Jaunak laster eramaten banau ere, egunero otoitz bera egiten jarraituko duzula uste dut, zeruan lurrean dudan gogo bera izango bait dut: Jesus maitatzea eta maitaraztea.

³ *Maitasunez bizi!* bere olerkia, 1895ko otsailaren 26koa.

⁴ Bellière apaigaia ziur dago urrian doala Afrikara: “Datorren urtean, Nobiziatua izango da, hurrengo prestakuntza eta gero = Jainkoa eta Lana. Neure lehenengo beltza bataia dezadanean, zure Ama Agurgarriari, umearean amabitxi zeu izan zaitezzen eskatuko diot. Zeurea izango da, nik baino Jainkoagana gehiago erakarriko baituzu”. (CG 174).

⁵ Ik. Aita Roulland-i antzerako eskaera, TG 189.

⁶ *Maitasunez bizi!* olerkia, 9. ahapaldia.

Apaizgai jauna, bitxi samarra irudituko zataizkit, eta agian damaturik zaude, dirudienez, zu lanean bakarrik utzirik betiko atsedena hartu nahi duen arreba izateaz... Baina lasaitu; nahi dudan gauza bakarra Jainkoaren nahia betetzea da, eta aitortzen dizut zeruan ezin izango banu bere aintzaren alde lanean jarraitu, nahiago nukeela erbestea erreinua baino.

Ez dut etorkizuna ezagutzen, baina Jesusek nire susmoak betetzen baditu, goialde hartan ere zure arreba izaten jarraituko dudala diotsut. Gure batasuna hautsi beharrean, are eta barrukoago bihurtuko da; han ez da klausurarik, ez burdinsararik izango, eta nire arimak urrutiko misioetara hegan egin ahal izango du... Gure egitekoak berdinak izango dira: zuretzat apostolu-armak, eta niretzat, otoitza eta maitasuna.

Apaizgai jauna, haria galtzen ari naizela ohartzen naiz, berandu da, eta laster ofizio santura joko⁷ dute, eta hala ere, beste eskabide bat egin behar dizut. Zeure bizitzako egun gogoangarriak idatz diezazkidazun nahi nuke, era berezi batez zurekin lotu nadin eta gure Salbatzaile onari eskaini dizkizun grazia guztiak esker diezazkiodan.

Laster guk gurtzeko⁸ agirian jarriko diguten Jesus Ostiaren Bihotz Sakratuan, zoriotsu naiz betiko zure arreba txiki eta apalaren izena izateaz

Teresa Jesus Haurrena [eta] Aurpegi Santuaren
lek. karm. apal.

TG 221

1897-III-19

Aita Roulland-i

Jesus †

1897ko martxoak 19

Neba nirea:

Gure Ama onberak zure gutunak eman berri dizkit garizuman egon arren (Karmelen idaztea debekaturik dagoen garaia). Amak ontzat hartu du gaur erantzun diezazudan, gure azaroko gutuna Ibai Urdinaren sakanera joan ote den beldur garelako. Zureak, irailleko data zutenek bidaia alaiak izan zuten eta Santu guztien jaietan iritsi ziren zure Ama eta arrebatxoak pozttera. Urtarrilaren 20koa san Joseren babeseran iritsi zaigu. Zuk, nire antzera, lerro guztietan idazten didazu eta, nik neure idazkera itsusi hau irakurtzeko oraindik zailagoa egiten duen ohitura on hau galtzerik ez dut nahi.

Oi! Noiz iritsiko ote da, elkarri gure pentsamenduak adierazteko paper eta tintarik beharko ez dugun eguna? Ene neba, idatzi gabe eta are gehiago hitz egin gabe ulertu ahal den lurralde lilugarri hori bisitatzerako joateko aukera galdu duzu honez-

⁷ Maitinetako ofizioa, iluntzeko bederatzietan.

⁸ "Berrogehi Orduak" esaten zaion hiru egunetarako.

kero¹; bihotzez eskerrak ematen dizkiot Jainkoari gudu-zelaian utzi zaituelako, bere alde garaipen asko lor ditzazun. Zure sufrimenduek arima asko salbatu dituzte honezkerok. San Joan Gurutzekoak hauxe dio: "Maitasun garbiko zirkin bakar batek gehiago balio du Elizarentzat, gainerako lan guztiek batera baino"². Hori horrela bada, zein onuragarri gerta behar zaizkion Elizari zure atsekabe eta probak, Jesu-senganako maitasunagatik bakarrik sufritzen baituzu *pozez!*

Egia esan, ene neba, ezin dut zure errukirik izan, Kristoren Antz-Bidearen hitzek zuregan hartzen baitute bizia: "Sufrimendua gozoa iruditzen zaizunean eta Jesusen maitasunagatik maitatzen duzunean, lurreko paradisua aurkituko duzu"³. Paradisu hori, misiolari eta karmeldartxoarena da benetan. Mundutarrek atseginean bilatzen duten poza, ez da ihes doan itzal bat baizik; baina lanean eta sufrimenduan bilatzen eta gozaten dugun gure poza, errealitate oso gozoa da, zeruko zorionaren gozate aurreratua.

Zure gutuna, guztia alaitasun santuz betea, oso interesgarri gertatu zait; zure antzera jokatu, gogotik barre egin dut zure sukaldariaren kontura, lapikoari ipurdia hausten ikustean... Zure bisita-txartela⁴ ere oso atsegin izan dut, ez dakit zein alde-tara itzuli behar den ere, liburua atzekoz aurrera jarrita irakurri nahi duen haurtxoaren antza dut.

Baina zure sukaldariaren kontu horretara berriro etorritz, zer uste duzu, Karmelen ere ez dugula noizean behin gorabehera barregarri izaten?

Karmel ere Su-Tchuen-en antzera, munduaren begitara bitxia den herrialdea da, antzinenetariko ohiturak ere ahaztu egiten direlarik; hona hemen adibide bat. Orain dela gutxi pertsona eskuzabal batek *otarrain txiki* bat eman zigun, ongi loturik, otarre batean. Zalantzarik gabe, denbora luzea zen monastegian era hartako edertasunik ikusten ez zela. Hala ere, gure ahizpa sukaldari maiteari animaliatxo egosteko uretan jarri behar zela etorri zitzaion gogora. Halaxe egin zuen, sorkari errugabe hari halako krudelkeria jasanarazi beharraz pena hartuz! Sorkari errugabeak lo zirudien eta norberak nahi bezala erabil zitekeen; baina beroa sentitu zueneko,

¹ Urtarrilaren 20ko gutunean, Aita Roulland-ek honelaxe kontaktzen zuen bere misiora iritsi zeneko eguna: "Zuk idatzi didazunez, hitz horiei buruz erantzungo dizut, eta gure Ama onberaren baimenez, ekialdeko Su-Tchuen-erazko bi hitz esango dizkizut bakarrik. Probintzia honen mugetara iritsi naizeneko, Te Deum-a errezatzen dut. Jainkoari eskaini diot neu naizena, eta daukadana. Eta santa Teresak hau esaten zuela gogoratu dut: "sufritu edo hil". Zer dela eta etorri zaizkit hitz hauek burura? Erantzuna erraza da. Arrazoia zein den esaten badizut, nire antzera pentsatuko duzu. Neure eskaintza bukatu ondoren, lotara joan beharra izan dut; bi egun gehiago eta Kouy-Fou-en dagoen lagunarengana iritsiko gara. Nire ezinegona are eta handiagoa da; mediku txinatarrari deitzen diogu, europarra den bakarra Aita baita hemen; ezin dudala bidaiatzen jarraitu esaten didate; agur, beraz, nire misioko lagunei. Hamar egun geroago, sukarrak harrapatzen nau, sukar handia benetan. Klima-aldaketak berebiziko eragina izan du niregan. Hamar egun luzetan eldarniatzen jardun dut, eta dirudienez, esaten nuen guztia barregarria zen. Hasierako medikuak utzi egiten nau; bigarrena, fedearekin bere gorabeherak zituena bera, kinina sartzerako etorriko zait. Bere horretan jarraituz gero erraz-erraz hilgo nindukeen sukarra, noizbehinka agertu eta desagertu egingo zait eta apurka-apurka, sendatzen hasiko naiz. Gaur, ia-ia sendaturik nago. Hona hemen zergatia; hementxe bukatzen dut: niregan interesa duten pertsonen otoitzei, eta batez ere zurei zor diet nik Nunc Dimitis-a kantatu ez izana misioan sartu naizenean. (...) Gabonetan zure aldeko meza emango nuela esan nizun, eta ni ohean nengoen: neure hitza beteko dut, al bait lasterren" (CG 173).

² *Kantu izpirituala*, XXIX. ahapaldiaren azalpena.

³ *Kristoren Antz Bidea* II, 12, 11; ik. KH 29.V.

⁴ Bisita-txartela txineraz idatzita.

haren gozotasuna haserre bihurtu zen, eta bere errugabetasunaz oharturik, inori bainetik eskatu gabe, jauzi batez sukaldearen erdian jarri zen, bere borrero eskuzabala lapikoari oraindik tapa jarri gabe zela aprobetxatuz. Berehala, ahizpa gaixoa orrikak eskuan zituela jauzi etsiak ematen zituen otarrainaren atzetik abiatu zen. Luzez aritu ziren borrokan, arik eta azkenean, neka-neka eginda, gure sukaldari gaixoa eskuetan oraindik orrikak zituela, gure Amarengana joan eta otarrain hura ziur aski txerrenak hartua zegoela adierazi zion arte. Haren itxurak hitzek baino areago azaltzen zuen gertatua (sorkari gaixoa -esaten zuela zirudien-, hain gozo eta hain errugabe lehenxeago eta orain txerrenak hartua! Benetan ezin da fidatu sorkarien kumplimenduez!). Gure Amak ezin izan zion barreari eutsi justizia eskatzen zuen epailearen adierazpenak entzutean; sukaldera abiatu zen berehala, menpetasun-botorik egin ez zuenez gero, kontra pixka bat egin zuen otarraina harrapatu zuen eta berriro bere kartzelan sartu ondoren, joan egin zen, atea edo hobeki esan lapikoaren tapa ongi itxirik. Gauean eta atsedendaldien borran, komunitate guztiak barre egin zuen txerrenak harturiko otarraintxoaren kontura eta biharamunean guztiok hartu ahal izan genuen *kopau* bat.

Opari hura egin zigun pertsonak ez zuen alferrikorik egin, zorioneko otarrain hura, edo hobeki esan haren istorioa, behin baino gehiagotan festagai izango baitugu, ez jantokian baina bai atsedendaldian. Beharbada nire kontutxo hau ez zaizu oso jostagarria irudituko, baina bertan esku hartu izan bazenu, ziur diotsut ezin izango zinakeela serio egon... Dena dela, ene neba, gogait eragin badizut, barkamena eskatzen dizut.

Orain serio hitz egin nahi dut. Zu irten ondoren, misiolari batzuen bizitza irakurri nuen (beharbada jaso ez duzun nire eskutitzean P. Nempon-en bizitzagatik eskerrak ematen nizkizun). Besteen artean, Teofan Venard⁵ -ena irakurri nuen, nahi baino interesgarriago egin eta hunkitu ninduen. Sentimentu hau dela eta idatzi nituen neure-neureak diren ahapaldiak; hala ere bidali egiten dizkizut⁶, gure Amak Su-Tchuen-go nire nebari oso atsegin izango zaizkiola uste baitu. Azken aurreko ahapaldiak azalpen batzuk eskatzen ditu: gogotsu joango nintzatekeela Tonkin-era diot, Jainko onak niri hara deitzea nahi balu. Beharbada harritu egingo zaitu horrek, ez al da, ba, amets bat karmeldar lekaike batek Tonkin-era joateko asmoa izatea? ... Bada, ez, hori ez da amets bat, eta ziur diotsut Jesus ez badatorkit laster zeruko Karmelerako bila, egunen batean Hanoi-kora joango naizela, hiri horretan ere Saigon-goak fundatutako Karmel berri bat eraiki baita. Zuk bisitatu duzu azkenengo hau eta ondotxo dakizu Kontxintxinan ezin dela gurearen antzeko Ordena bat sortu bokazio frantsesik gabe; baina ene! bokazioak oso bakanak dira eta gehientsuenean nagusiek ez dute nahi izaten beren komunitatean lan egiteko gai ikusten dituzten ahizpak joaten ikustea. Horrela, bere gaztaroan, gure Ama onak, bere nagusiarren borondatea zela eta, ezin izan zen Saigon-era joan. Ez dut zertan kexu izan, bestera baizik, eskerrak damaizkiot Jainkoari bere ordezkaria hain zuzen eta artez argitu zuelako; amen gogoak sarritan umeengan egia bihurtzen⁷ direlako pentsamendua

⁵ *Vie et correspondance de J. Théphane Vénard*. Irakurgai hau Teresaren "lagun" handienetarikoa da. Lasaigarri handia izango da gaixorik eta erdi hilzorian den karmeldararentzat; ik. KH 21/26.V.1.

⁶ *Teofan Vénard-i* olerkia (47.TO, 2/2/1897).

⁷ Ik. C Esk, 9^a/10^a.

datorkit burura, eta ez nintzateke batere harrituko nik sinesgabeen erriberara otoitz egitera eta sufritzera joan beharra izateaz, gure Amak atsegin izango lukeen bezala... Aitortu beharra dago, hala ere, Tonkin-dik datorzkgigun albisteak ez direla batere lasaigarriak. Iazko urteko azken egunetan, lapurrak sartu ziren monastegi gaixoan, priorearen gelan sartu ziren hura esnatu gabe; biharamunean, prioreak ez zuen gurutzea bere ondoan aurkitu (gauez, karmeldar baten gurutzeak beti bere buru gainean atsedean hartzen du, burkoari loturik), altzairu txiki bat hautsirik zegoen, eta komunitatearen altxor materiala zen diru apurra desagertu egin zen. Frantziako Karmel guztiak, Hanoi-koaren miseriaz hunkiturik, elkartu egin ziren, lapurrak monastegian sartzea eragotziko zuen adinako klausurako harresi bat eraikitzeko bitartekoak izan zitzaizten.

Beharbada jakitea nahi izango duzue gure Amak zer pentsatzen duen ni Tonkin-era joatearen asmoaz. Berak sinesten du nire bokazioan (benetan, bokazio berezia behar baita, eta karmeldar guztiak ez dute atzerrirako bokaziorik), baina ez du uste nire nahia sekula egia bihurtuko denik; horretarako, zorroak ezpata bezain sendoa izan beharko luke, eta beharbada (gure amak halaxe uste du), zorroa Tonkin-era iritsi aurretik itsasora jaurtia izango litzateke... Ez da benetan erosoia, gorputz eta arimaz osatua izatea! Asis-ko san Frantziskok deitzen duen bezala, anaia asto dohakabe horrek, askotan egiten dio enbarazu bere arrega leinargiari eta berak nahi duen lekurantz joatea eragozten dio... Dena dela, ez dut hala ere madarikatzerik nahi; bere akats eta guzti, oraindik ongi dago zerbaitetarako, bere arrebari zerua irabazarazten baitio eta berdin egiten baitu beretzat ere.

Ez naiz bat ere arduratzen etorkizunaz, ziur nago Jainkoak bere borondatea egingo duela. Hauxe da nahi dudana grazia bakarra, ez da ahateari igerian irakasten aritu behar... Jesusek ez du inoren beharrik bere lana burutzeko, eta ni onartuko banindu, ontasun hutsagatik izango litzateke. Baina egia esan behar badizut, ene neba, Jesusek alfertxo baten antzera erabiliko nauela uste dut; ez dut horrelakorik nahi, oso zoriontsu bainintzateke haren alde luzaro lan egin eta sufritzeaz. Hori dela eta, bere poztasuna niregan bilatzeko eskatzen diot, hau da, ez diezaiela nire gurariei jaramonik egin, bera maitatuz sufritzea izan nahiz zerura beraz gozatzen joatea izan. Erbestea utz baneza (bizitzakoa), ene neba, nire alde erregutzeko emandako hitza ez duzula ahaztuko itxaroten dut; nire eskariak beti hain gogotsu eta ontasunez onartu dituzu eta beste bat egitera ere ausartzen natzaizu. Ez diot Jainkoari eskatzen garbitokiko sutetik aska nagan. Santa Teresak zera esaten zien bere alabatxoei, hauek haren alde erregutzea nahi zutenean: “Zer axola zait niri munduaren azkenerarte garbitokian egotea, nire otoitzen bidez arima bat bakarra salbatzen badut?”⁸. Hitz hauek oihartzun egiten dute nire bihotzean, arimak salbatzea nahi nuke eta hauengatik neure buruaz ahaztea, nire heriotzaren ondoren ere arima hauek salbatzea nahi nuke. Horregatik, oso zoriontsua izango naiz nire alde egiten duzun eta honezkero betiko egia bihurtu den otoitz txiki horren ordeaz, zera esango bazenu: “Ene Jainkoa, utz iezaiozu nire arrebari zu maitarazten jarrai dezan”. Jesusek entzuten badizu, neure eskerrona zuri agertzen jakingo dut...

⁸ Avilako santa Teresaren “On-Bidea”, III. kap.

Ene neba, Maria eta Teresa izenen artean aukeratzeko eskatzen didazu, bataiatzera zoazen neskatxoren batentzat⁹; txinatarrek ez dute babesle bat baizik nahi izaten eta horretan indartsuena eman beharrean gaude: Ama Birjina da, beraz, komeni zaiena. Beranduago, ume asko bataia ditzazunean, atsegin handia egingo diozu nire ahizpari (ni bezala karmeldarra denari) ahizpa biri Zelina eta Teresa izenak jartzen badizkiezu, hauexek baitira munduan genituen izenak.

Ni baino ia-ia lau urte zaharragoa den Zelina, nirekin batzera etorri da, gure aita onberari begiak itxi ondoren; nire ahizpa maite honek ez du zurekin dudan harremana ezagutzen, baina atsedenaldirian gure Amaren¹⁰ misiolariari buruz (Lisieux-eko Karmelen duzun izena) sarri hitz egiten dugu eta orain dela gutxi, zure bitartez, Zelina eta Teresa Txinara joateko gogoia erakutsi dit.

Barkatu, ene neba, nire hizketaldi luzeegia eta eskariak, eta zure arreatxo apala bedeinka ezazu, arren.

Teresa Jesus Haurrarena [eta] Aurpegi Santuarena
lek. karm. apal.

TG 222

1897-III-19

Ama Aines Jesusenari

J.M.J.T.

Eskerrik asko, ene Amatxo!... Oi! Jesusek maite zaitu eta nik ere bai!... Jesusek egunero ematen dizkizu maitasun horren seinaleak, eta nik ez... Bai, baina goyalde hartan izan nadinean, nire besotxoia luzatu egingo da, eta nire Amatxok maitasun horren berri izango du...

TG 222 bis

1897-IV-3

Guérin andreari¹

Teresa Jesus Haurrarena da txikiena, baina ez gutxien maite duena!!!

⁹ Ik. "Nik bataiatuko dudan neskatxoetariko bati Maria (Ma ly ia) Teresa (Te le sa) izena jar diezaidan nahi duzu. Bietarik edozein aukera ezazu, txinatarrek ez dute izen bat baizik erabiltzen eta". (CG 173). Teresak gurari hau 1896ko uztailaren 27 edo 28ko gutunean azaldu zuen. Gutun hau ez da gordetzen. Ik. CG, 874.orr.

¹⁰ Ik. TG 189, 4.oharra.

¹ Teresak ahizpa Maria Eukaristiarenaren izenean sinatutako gutuna bidaltzen dio bere aitari; ik: LD CGan, 967.orr.

Hori ez da egia, egunero goizeko hiruretan, soldaduen orduan izaten dudana sukarra da.

Teresatxo

Gure Aitak² Teresa Pougheol hementxe sar dadin nahi du, aproba gisa.

TG 223

Ama Aines Jesusenari

1897-IV-4/5

Nire Amatxo nahigabetu ote dudan beldur naiz¹. Hala ere maite dut, bai horixe! Baina ezin diot uste dudan guztia esan, berak igarri behar du.

TG 224

Bellière apaizgaiari

1897-IV-25

J.M.J.T.

Alleluia

1897ko apirilak 25

Neure nebatxo¹ maitea:

Nire idazlumak, edo hobeto esanda, nire bihotzak, gehiago ez dizula “apaizgai Jauna” deituko dio, eta gure Amak, Jesusi zutaz mintzatzen natzaionean erabiltzen

² Maupas kapilau nagusia.

¹ Ez da dakigu horren zergatia.

¹ Bellière apaizgaiak luze idatzi die Bazkoetan Ama Maria Gonzagarenari eta Teresari. Hona hemen Teresari idatzitako gutunaren zatia: “Nire arrebatxo onbera eta maitea (...) Hain borondate onez kopiatu eta bidali dizkidazun poesiek bai atsegin izan ditudala! Lan honek zure jolasaldiko ordu asko eta asko eramango zituen eta ia-ia barkamena eskatu beharrean aurkitzen natzaizu, lan hau eskatzearren; dena dela, ez diot gehiegi ekingo, baina benetan diotsut, atsegin handiz jaso ditudala. Zuk ez duzu itxaroten nik ederretsiko ditudanik, nik ere hori gehiegizkoa litzatekeela uste baitut, poesien balioa ezagutzera ez bainaiz iristen, baina jakin ezazu, benetan poztu eta zoriontsu egin nautela. Ez nabilkizu alferrikako zurikerietan, benetan sentitu dudana azaltzen baizik. Zuk Karmeldarrentzat egin arren, Aingeruek zurekin batera kantatu behar dute, eta ni bezalako gizon arruntek, benetako xarma aurkitzen dute poesia hauek bihotzez irakurri eta kantatzean. Den-dena gustatu zait baina bereziki, honako hauxe: “Nire gaurko kanta”, “T. Vénard-i”, “Oroi zaitetz”, “Nire Aingeru Goardakoari”,... Barkatu, ia-ia denak aipatu ditut eta. Bai, dena zait atsegin eta eder. Eskerrik asko diotsut bakarrik baina zintzotasun osoz, zure borondateagatik. Ñabardura guztiak darabilzki-zu zeure poesietan: bai gozotasuna Karmeleko Elizainetan, bai gerraria den gizonezkoaren hizkera “Nire Armak” izenekoan (atsegin dut zu gezi, kasko, koraza, atleta, eta antzeko hitzak erabiltzen somatzea) eta barrea ateratzen zitzaidan zu arma guzti hauekin nola egongo zinatekeen pentsatzean. Hainbeste maite duzun Joana Ark-ekoari buruz, ordea, kantikoaren amaieran zera eskatzen dut *egunero*: Frantziako Joana santuak, Joana Ark-ekoak ere zuk aipatzen dituzun armak ditu eta haren apaingarrikeri ederrenek dira. Ni, ene arreba maitea, zuk adierazi didazun otoitzxo horri leial izango natzaio (Sakratua da), beti errezatuko

dudan izena erabil dezakedala esan dit zuri idazterakoan ere. Uste dut Jainko-Salbatzaile hau gure arimak bat egitera makurtu dela, bekatarien salbamenerako lan egiteko, lehenago Aita Colombière agurgarriaren eta Margarita Maria dohatsuaren arimak bildu zituen bezala. Santa² honen bizitzan hau irakurri dut oraintsu: “Egun batez, gure Jaunagana hurbildu nintzenez eukaristia santua hartzerakoan, labe sutuaren antzera zegoen bere bihotz Sakratua erakutsi zidan eta elkartzera eta haren-gan murgitzera zihoazen beste bi ere bai (bera eta Aita Colombière-rena), eta esan zidan: “Horrelaxe bat egiten ditu nire maitasun garbiak betiko hiru bihotz hauek”. Batasun hau oso-osoan bere aintzarako zela ere adierazi zidan, eta horrexegatik, neba-arreba izan gintez nahi zuela, ondasun izpiritualetan parte-hartze bera genukeelarik. Eta orduan, nik gure Jaunari neure txirotasuna eta bertute handiko apaiz baten eta ni bezalako bekatari baten artean dauden ezberdintasunak aipatu nizkionean, hauxe esan zidan: “Nire Bihotzeko aberastasun amaigabeak den-dena ordezkaturiko du, eta den-dena berdinduko du”.

Beharbada, ene neba, konparazio hau ez zaizu egokia irudituko?. Egia esan, zu oraindik ez zara Aita Colombière, baina ez dut zalantzarik, egunen batez, haren antzera, Kristoren benetako apostolua izango zarela. Niri dagokidanez, ez zait burura etorri ere egiten Margarita Maria dohatsuarekin nire burua konparatzerik; ni, Jesusek bere apostoluetariko baten arreba izateko aukeratu nauela egiaztatzen mugatzen naiz, eta *egia osoz* haren Bihotzaren maitale zenak *apaltasunez* zuzenduriko hitzak errepikatzea besterik ez dut egiten. Horregatik, haren aberastasun amaigabeek, hark eman didan lana betetzeko falta zaidan guztia ordezkaturiko dutelakoan nago.

Zoriontsu sentitzen naiz guztiz, Jesusek nire bertso pobreak erabili dituelako zuri on pixka bat egiteko. Bertso hauek bidaltzen lotsatu egingo nintzatekeen, arreba batek bere nebari ez diola ezertxo ere ezkutatu behar gogoratu ez banu. Zuk

du, baita... zure erbestaldia laburra bada ere. Maitasunaren kantuan honako bertso hau azpimarratu dizut: “Nire desterrua laburra izango dela sentitzen dut”. Eta beste hau: “Nire desterrua laister bukatuko da, hala-xe sentitzen bait dut”. Ondotxo ulertzen dut zure nahia zein den, zure ezinegona: prest zaude, ene arrebatxo laztana, zeruan sartzeko eta Zeruetako zure Jesus Senarrak edozein unetan luza diezazuke intzazko errege-aulkian eseriaraziko dizun besoa. Kantuetako Emaztearen antzera zaude urduri: “Erakar nazazu zeugana” dio kantuak, irensten duen sugarrak zeharo kiskalirik bere burua Maitearen oinetan utziz. Kantarik Ederrena aztertuz gero, Karmeldarrari eta bere Jesusi ezarriko niok. Eta horrexegatik aipatzen ditut hain zuzen ere, eta “Maitasunez bizi” eta beste hainbat eta hainbat bertso beren kabuz ordenatzen dira bata bestearen ondoren. Zuzen zaude zure antzera kantatzea debekatuta dudala esatean. Ez, egia, nik lehenengo eta behin Jainkoari nire lan latza eta pekatuan bizi izandako iragana ahantzarazi behar dizkiot, eta gero, Jainkoagatik zerbait egin behar dut, bere mahastian lan egin. Joana Ark-ekoak ere ohoreak jaso aurretik, egun latzak igaro zituen, eta beste ezer baino lehen, sufritu egin behar dut. Eta ohorea lortzera sekula ez banaiz iristen, zera esango nizuke: Ene arrebatxoa, esaiozu Jainkoari *atsekabearen aurrean men egin dudala*. Esaiozu, zergatik ez? martiri hilko naizela! Nire betiko ametsa hauxe izan da. Lehen, Frantziaren alde hiltzea amesten nuen, gaur Jainkoagatik hiltzea. Eta zera diotsut: “Norbere Printzeagatik hiltzea helburu gorena bada, Jainkoagatik hiltzea zer nolako heriotza da?” (...)

“Amabitxi izateko dituzun asmoak ere eskertzen dizkizut, baina ez iczaiozu oroigarri gisa zure izena eman, datorren lehenengo beduinotxoari (lehenengoa neska balitz). Borondate on hau izan dezazun eskatzen dizut”. (CG 177, 17-18/4/1897).

² Teresak 1896ko abenduko “Bulletin du Sacré-Coeur”-etik ateratako testua; ik. *Vie et Oeuvres de la Bienheureuse Marguerite-Marie Alacoque. Sa vie inédite par les Contemporaines*, Poussiègüe, 1867, 2. 1. 347.orr.

bertsok jaso eta anai-bihotzez epaitu dituzu. Harritu egingo zinela uste dut “Maitasunez bizi” berriro besteen artean aurkitu duzunean. Ez zen nire asmoa bi aldiz bidaltzea. Kopiatzen hasia nintzen jadanik bazenuela gogoratu nintzenean, baina atzera egiteko beranduegi zen.

Ene neba maitea, zure gutunean zeharo nahigabetu nauen gauzatxo bat dagoela aitortu behar dizut, eta zera da, ez nauzula ni benetan naizen bezala ezagutzen. Egia da arima handiak aurkitzeko Karmelera etorri beharra dagoela: oihan birjinetan bezala, munduan ezagutzen ez diren distira eta usaindun loreak erretzen dira bertan. Jesusek bere errukia dela eta, lore hauen artean beste txikiagoak haz daitezten nahi izan du. Sekula ezingo diot nahikoa eskertu, onberatasun honi esker aurkitzen bainaiz ni, distirarik gabeko lore gaixoa, arrosak edo nire ahizpak dauden lorategi berean. Oi, ene neba! Sinetsiezadazu, arren, Jainko onak ez dizu arrebatzat arima *handi* bat eman, akatsez beteriko *txiki-txiki* bat baizik.

Ez uste izan apaltasunak eragozten didanik Jainkoaren dohainak onartzea; badakit Jainkoak gauza handiak egin dituela nire alde, eta gozamenez³ kantatzen
Lk 1,49
Lk 7,47
eta ez naiz arima *txikia* izateaz kexu, bestera baizik, pozik nago *txikia* izateaz, eta horrexegatik ausartzen naiz “nire erbestealdia oso laburra”⁴ izango dela pentsatzera. Ez da *prest* nagoelako, ez baitut uste sekula *prest* egongo naizenik, Jauna ni eraldatzera makurtzen ez baldin bada behintzat. Bat-batean egin dezake; eskaini dizkidan grazia guztien ondoren, haren amaigabeko errukia itxaroten dut.

Ene neba, zuretzat martiritzaren grazia eska dezadan esaten didazu. Grazia hau sarri eskatu dut neuretzat, baina ez naiz grazia horren duin, eta San Paulorekin batera esan daiteke: Ez da ez nahi duenaren edota korrika egiten duenaren lana, errukitsua den Jainkoarena baizik⁵.
Emm 9,16

Jaunak maitasun-martiritza baizik ez didala eskaini nahi dirudienez, *zure bitartez*, biok hainbeste irrikatzen dugun *palma-adar hori* erdiesten lagunduko didalakoan nago. Atseginez dakust, Jainkoak joera eta gurari berberak eman dizkigula. Barre eragin dizut, ene neba maitea, “Nire armak” kantatzean; bada, berriro barre eragingo dizut, umetan gudu-zelaietan borrokatuko nuela amets egiten nuela esanez. Frantziako historia ikasten hasi nintzenean, Juana de Arco-ren balentriek entusiasmatu egiten ninduten, nire bihotzean Joana Ark-eko imitatzeke nahia eta kemena somatzen nuen, eta Jaunak ni ere gauza handietarako izango ninduela uste nuen⁶. Ez nenbilen oker, baina gudura dei egiten zidan zerutiko ahotsa entzun beharrean, neure arimaren sakonean ahots eztiago bat entzun nuen, beste ekintza gogoagarri batzuetara eta konkista aintzatsuetara dei egiten zidan ahots indartsuagoa, birjinen senarrarena; eta Karmelgo bakartadean ulertu dut nire helburua ez zela errege hilkor bat koroaraztea, zeruko Erregea maitaraztea eta hari bihotzen erreinua menderaraztea baizik.

³ Ik. C Esk, 4^a.

⁴ *Maitasunez bizi!* olerkia (17. TO, 9. bertsoa), 1895ko otsailaren 26koa.

⁵ A Esk, 2^a.

⁶ 6. Ik. A Esk, 32^a.

Amaitzeko ordua da honezkero, eta hala ere, oraindik eskerrak eman behar dizkizut bidali zenizkidan datengatik; urteak ere erants diezazkiozun nahiko nuke, ez baitut zure adina ezagutzen. Nire xalokeria barka dezazun, neure bizitzako data gogoangarriak bidaltzen dizkizut; egun bedeinkatu horietan otoitz eta graziazko ekintzen bidez bereziki bat eginik izango garen asmoaz egiten dut.

Jainkoak alababixi bat ematen badit, zure nahiari erantzutea nahi izango nuke babesle gisa Ama Birjina, san Jose eta neure zaindari santua eskainiz.

Dena dela, ene nebatxo maitea, nire zirriborroa eta eskutitzaren loturarik eza barkatzeko erregutuz amaitzen dut.

Jesusen Bihotzean gaur, eta betiko bizitzarako,
zure arreatxo apal

Teresa Jesus Haurrarena [eta] Aurpegi Santuarena
lek. karm. apal.

(Jakintzat ematen dut, gure arteko harremanak isilpean gordeko ditugula. Zure zuzendariak izan ezik, beste inork ez du ezagutu behar Jesusek gure arimen artean ezarri duen batasuna).

TG 225

Ahizpa Ana Bihotz Sakratuarena

1897-V-2

J.M.J.T.

Jesus †

1897ko maiatzak 2, Artzain Onaren jaia

Neure ahizpa maite-maitea:

Gutziz harrituta geratuko zinen seguraski nire gutuna jasotzean. Zure bakartadea nahasi izana barka diezadazun, zergatik idazten dizudan esango dizut. Gure Amarekin solas izpirituala izan nuen azken aldian, zutaz eta Saigon-go Karmel maiteaz mintzatu ginen. Gure Amak zuri idazteko baimena ematen zidala esan zidan, horretarako gogorik banuen behintzat. Atsegin osoz onartu nuen eskaintza hau eta Artzain Onaren baimenaldiaz¹ baliatzen naiz zurekin unetxo batez hitz egiteko.

Ene ahizpa maitea, nitaz ez zarela ahaztu itxaroten dut; ni neu sarri gogoratzen naiz zutaz, eta pozez gogoratzen ditut zurekin igarotako urteak, eta badakizu, karmeldar batentzat, maite duen pertsona batengan pentsatzeak, haren alde otoitz egitea adierazten duela. Jainkoari bere graziaz bete zaitzan eta zure bihotzean bere maitasun santua handitu dadin eskatzen diot, ez baitut zalantzarik ere maitasun hau maila handi-handian badaukazula honezkero. Saigon-go eguzki sutua ez da ezer

¹ Ahizpek elkarrekin hitz egiteko askatasun edo baimen osoa zuten eguna.

zure arimako suaren ondoan. Oi ene ahizpa! Eska iezaiozu Jesusi nik ere maita dezadan eta maitaraz dezadan. Ez dut Jesus maitasun arrunt batez maitatu nahi, santuen antzera baizik, haiek Jesusen maitasunagatik erokeriak egiten baitituzte. Oi, zein urrun nagoen santu hauen antzekoa izatetik...!

Eskatu Jesusi baita nik haren borondatea beti egin dezadan ere, haren borondatea egitearren mundua zeharkatzeko prest bainago²... baita hiltzeko ere!

Isilunea³ une batetik bestera bukatuko da; gutunari amaiera eman behar diot eta oraindik ez dizudala ezer interesgarririk esan jabetzen naiz; eskerrak gure Amen eskutitzak dihoazkizun, gure Karmelgo berriak jakin ditzazun. Gure baimenaldia oso laburra izan da, baina aspertzen ez bazaitu, hurrengo batean luzatuko naiz gehi-geago.

Eskain iezaizkiozu, ene ahizpa maite-maitea, nire agurrik beroenak zure Ama agurgarriari⁴; ez nau ezagutzen, baina nik sarri entzuten dut gure Ama ona zureari buruz hitz egiten; maite dut, eta Jesusi bere nahigabeetan lagun diezaion eskatzen diot.

Hementxe uzten zaitut, ene ahizpa maitea, Jesusen Bihotzean zuri oso loturik geratzen natzaizularik. Harengan zoriontsu naiz beti zure ahizpatxoia deitzeaz

Teresa Jesus Haurarena [eta] Aurpegi Santuarena
lek. karm. apal.

TG 226

1897-V-9

Aita Roulland-i

J.M.J.T.

Lisieux-eko Karmel, 1897ko maiatzak 9

Neure neba:

Pozez, edo hobeto esan, zirrarez jaso ditut gogo onez bidali dizkidazun erlikiak¹. Zure gutuna ia-ia zerurako agur-gutuna da. Gutuna irakurtzean, apostolutzako zure arbasoen sufrimenduen kontakizunak entzuten nengoela zirudien.

² "Kontxintxinara joateko"; ik. KH 21/26.V.2.

³ Nahi duenak lo-kuluska egiteko ordua, udan hamabietatik ordu batetara.

⁴ Ama Filomena Sortzez Garbiarenaren ondoren etorri zen ama Maria Jesusena, 1861ean Lisieux-etik etorritako fundatzailea.

¹ Otsailaren 24an Aita Roulland-ek honela idatzi zion Teresari: "Ene arreba, ez natzaizu luze mintzatu-ko, Tchoug-Kin-era joatekotan nago eta; hainbeste atsegin egin didan zure gutun luzeari ere ez diot erantzun. Etorbizunean martiri izango denaren erlikiak bidaltzen dizkizut bakarrik; familiari, agurtu nuenean utzi nion bere senipartea. Shang-Hai-tik bidali nizkien. Zer dela eta ez nion, bada, neure arreatxoari ere bidaliko? Oraingoz ez gaude heriotz arriskuan, baina gutxien uste dezagunean, zula gaitzakete aitzoz. Ez ginateke martiri izango hitzaren esanahi hertsian, baina bai gure asmo eta nahiari dagokionean. Hau esate-rakoan, adibidez: "Ene Jainkoa, zure maitasunagatik etorri gara hona, onar ezazu gure bizitzako sakrifizioa

Den-dena aldatzen den lur honetan, gauza bat bakarra da iraunkor, eta zeruetako Erregeak bere lagunekin duen jokabidea da hori; gurutzearen zutohiala jaso zuenez gero, haren itzalpean borrokatu behar dute guztiak eta garaipena lortu. "Edozein misiolariren bizitza gurutzez oso emankorra da" zioen Teofan Vénard-ek, baita hau ere: "Benetako zoriona sufritzean datza, eta bizi izateko hil beharra dago".

Ene neba, zure apostolutzaren hasiera gurutzearen zigiluak markatu du eta Jaunak hautatu gisa tratatzen zaitu: askoz ere nahiago du bere erregetza sufrimenduz eta jazarpenez finkatzea, prediku bikainez baino. Zuk hau diozu: "Oraindik hitz egiten ez dakien hautxoa naiz..."². Zure egun berean apaiz ordenatua izan zen Aita Mazel-ek ere ez zekien hitz egiten, baina hala ere, palma-adarra³ eskuratu zuen...

Oi! gure pentsamenduetatik zein gora dauden Jainkoaren pentsamenduak! Is 55,9
Lehen aldiz izena entzuten nuen misiolari gazte horren heriotzaren berri jakin nuen, berari erregutu beharra somatu nuen, zeruan ikusten nuela iruditu zitzaidan, martirien aintzazko koruan. Badakit gizonaren begitan haren martiritzak ez daramala izen hori, baina Jainkoaren begitan aintzarik gabeko sakrifizio hori ez da balio gutxiagokoa, lehenen kristauak epaileen aurrean beren fedea aitortu zutenekoa baino. Jazarpena formaz aldatu da, Kristoren apostoluek ez dute sentimentuz aldatu; horregatik, Jainko-Maisuak ere ezin zituen bere sariak aldatu, handitzeko edo behalde honetan ukatutako aintza ordaintzeko ez bada.

Ez dut ulertzen, ene neba, nola zalantzan jar dezakezun, sinesgabeek bizia kenduko balizute berehala sartuko zinatekeela zeruan. Badakit oso garbi egon behar dela santutasun osoko Jainkoaren aurrean agertzeko; baina badakit baita Jauna guttiz zuzena dena, eta hainbeste arima beldurtzen dituen zuzentasun horixe da nire konfiantza eta nire pozbidetaren iturri. Zuzena izatea ez da zorroztasunez errudunak zigortzea, asmo onak ezagutu eta bertutea saritzea ere bada. Jainkoaren zuzentasunean haren errukian dudak adinako itxaropena dut. Zuzena delako, hain zuzen ere, "errukiorra eta gozotasunez bete da, zigortzen geldia eta errukiz aberatsa. Gure ahultasuna ezagutzen duelako. Hautsa besterik ez garelako gogoratzen digu. Aita batek bere umeekiko samurtasuna sentitzen duen era berean, Jaunak errukia sentitzen du gurekiko..."⁴ Oi, ene neba! Profeta erregearen hitz eder hauek entzutean, nola zalantzan jarri Jainkoak bere erreinuko ateak irekiko ez ote dizkien, bere alde

Sal 102,4
Sal 102,14
Sal 103,13

eta bihur itzazu zeugana arimak. Ez duzu uste horrela nahiko martiri izango ginatkeela Zerura joateko?... (...) Hitz batez, Jainkoaren esanera gaude, gaizkileek hil banazate eta zeruan berehala sartzeko duin ez banadi, zuk garbitokitik aterako nauzu eta paradisura joango naiz zure zain egotera. (...) Jesusi nire maitasuna zurearekin bat eginik eskaintzen diozula diostazu, ene arreba maitea. Hara bada! Meza santuan nik ere zurea neurearekin bat eginik eskaintzen dut jaunartze ondoren. Eskaintza hau ikustean, nik uste Jesusek barkatuko didala nik hari diodan maitasun urria. Hilan aldeko otoitz uean, zure guraso zenduak ditut gogotan" (LC 175, 24/2/1897).

² Aita Roulland txinera ikasten ari zen; ik. 1897ko urtarrilaren 20an Teresari idatzi zion gutuna: "Noiz egingo ote dut nik neure lehenengo bataioa, neure lehenengo konbertsioa? Hara bada, ez naiz ume handi bat besterik; ez dakit hitz egiten. Hilabete batzuk familia kristau batekin igaroko ditut, hizkuntza, ohiturak, etab. ikasten eta gero apostolutza egitera neure aintzinako lankide batekin". (LC 173)

³ Lisieux-eko Karmelen, maiatzaren 1ean, europarra izateagatik lapurrek hil zuten 26 urteko misiolari honen sarraskiaren berri jakin berri dute; ik. KH 1.V.2.

⁴ Ik. A Esk, 3^a eta 76^a.

Jn 15,13

den-dena utzi eta bera maitatu eta maitaraztearren familia eta aberria ezezik, maite dutenaren alde beren bizia ematea nahi izan duten seme-alabei?... Jesusek egia zioen maitasun hori baino handiagorik ez dela esatean!

Nola utziko zuen, bada, eskuzabaltasunean beste norbaitek irabaz diezaion? Nola araztuko zituen garbitokiko su artean jainko-maitasunaren suak kiskalita zeuzkan arimak? Egia da ez dagoela akatsetatik aske den giza bizitzarik, Birjina Garbia ageri da bakarrik guztiz garbi Jainko-Erregearen aurrean. Bai poza Birjina hori gure Ama dela pentsatzea! Berak ezagutzen gaituenez gero eta gure ahultasuna ezagutzen duenez gero, zeren beldur izan behar dugu?

Hona hemen nire pentsamendua adierazteko esaldi batzuk, edo hobeki esan, nire pentsamendua ez adierazteko; misiolari guztiak, gurari eta borondatea dela eta, *martiriak* direla esan nahi nuen eta, beraz, haietatik inork ere ez lukeela garbitokira joan behar. Jainkoaren aurrera agertzean beren ariman giza ahultasunaren aztarnarik geratzen baldin bada, Ama Birjinak maitasun osoko ekintza bat egiteko grazia eskaintzen die, eta gero hain ongi merezi izan duten palma-adarra eta koroa ematen.

Hona hemen, ene neba, Jainkoaren zuzentasunari buruz pentsatzen dudana, nire bidea dena konfiantza eta maitasunezkoa da, ez ditut hain adiskide samurraren beldur diren arimak ulertzen. Batzuetan, obra izpiritualetan santutasuna mila zailtasun korapilatsuren bidez eta irudipen multzo batez inguratutik aurkezten dela irakurtzen dudanean, nire espiritu gaixoa berehala nekutzen da eta burua hausten eta bihotza lehortzen didan jakinduriazko liburua itxi eta Eskritura Santua hartzen dut eskuetan. Orduan, den-dena argitsua iruditzen zait, hitz bakar batek amaigabeko itsasertza agertzen dio nire arimari, santutasuna, erraza egiten zait; norbere ezereza onartu eta haurtxo baten antzera Jainko onaren besoetan burua uztea nahiko dela ikusten dut.

Mk 10,14

Jn 14,2

Ulertzen eta oraindik gutxiago praktikatu ezin ditudan liburu ederrak arima handientzat eta izpiritu handientzat utzirik, poztu egiten naiz txikia izanez, haurrak eta hauen antza dutenak bakarrik izango baitira onartuak zeruko otorduan. Benetan pozten naiz Jainkoaren erreinuan egonleku ugari delako, ulergaitz egiten zaidan bide eta azalpen horietakoa baizik ez balego, ni ezin izango bainintzateke han sartu. Hala ere, *zure egonlekutik* oso urruti ez egotea nahi nuke; Jainkoak, zure merituak kontuan harturik, zure aintzan parte hartzen utziko didalakoan nago, hemen lurrean konkistatzaile baten arrebak, dohain naturalik izan ez arren eta txiroa izan arren bere nebari eskainitako ohoretan parte hartzen duen bezala.

Zuk Txinako ministeritzan burututako lehenengo ekintza, liluragarria iruditu zait. Zuk gorpuzkinak bedeinkatu dituzun arima txikiak, irribarre egin eta bere babesa aginduko dizu, bai zuri eta bai zuretarrei. Ez dakizu ongi zenbat eskertzen dizudan hauen artean ni ere sartzea! Guztiz hunkiturik eta eskerronez nago mezatan nire guraso maiteez oroitzen zarela ere. Honezkero zeruaz jabetuko zirelakoan nago, zeru horretarantz zuzentzen baitzituzten beren nahi eta ekintza guztiak. Honek ez dit eragozten hain alde erregutzea, zorioneko arimek beren alde egindako otoitzekin aintza handia jasotzen dutela uste dudalako eta gainera, haiek, sufritzen dauden beste arimen onerako erabil ditzakeelako otoitz horiek.

Nik uste dudanez nire aita eta ama zeruan badaude, Jesusek eman didan nebari begiratu eta bedeinkatu egin behar dute. Hain gogo biziz nahi izan zuten seme

misiolari bat! Kontatu izan didatenez, ni jaio aurretik, nire gurasoek beren guraria orduantxe beteko zela uste izan zuten. Baina etorkizuna aurrez ikusi ahal izan balute, azkenean, beren guraria nire bitartez beteko zitzaieela jakingo zuten. Misiolari bat nire neba bihurtu denez gero, misiolari hau beren semea ere bada, eta otoitzetan ezin dute bereizi neba bere arreba duinezarengandik.

Zuk, ene neba, zeruan dauden nire gurasoen alde erregutzen duzu, eta nik askotan erregutzen dut oraindik lurrean dauden zureen alde; egiteko hau oso gozoa da niretzat, eta zintzo betetzea hitz ematen dizut, baita erbestea utz baneza ere, eta kasu horretan gehiago beharbada, orduan gehiago ezagutuko baititut beharrezko zaizkion graziak; eta gero, behealde honetan beren ibilaldia buka dezatenean, zure izenean bila etorriko naitzaie, eta zeruan sartuko ditut. Ai zein gozoa izango den betikotasun osoan biziko dugun famili bizitza!

Denbora gutxi barru guretzat irekiko den zorioneko betikotasun honen zain gauden bitartean, bizitza egun bat baizik ez da eta, elkarrekin lan egin dezagun arimak salbatzeko. Nik gauza askorik ezin dut egin, hobeto esanda, ezer ere ez, baka-rrik banengo. Pozten nauena zure aldamenean zerbaiterako balio dudala jakitea da; egia esan, zeroak berak bakarrik ez du inolako baliorik, baina unitatearen aldame-
nean jarriz gero, indartsu egiten da, *leku egokian* jartzen bada, hau da, unitatearen atzean, eta ez aurrean!... Eta hortxe da, hain zuzen ere, Jesusek kokatu nauen lekua eta betirako hortxe geratzea itxaroten dut, sakrifizioz eta otoitzez, urrunetik bada ere, zuri jarraika.

Bihotzari jaramon egingo banio, gaur ez nuke gutuna bukatuko; baina isilune-
rako txirrina joko⁵ dute eta gutuna gure Ama onari eraman behar diot, zain dago eta. Erregutzen dizut, bada, ene neba, Jainkoak zure aldamenean jarri duen *zero txi-kiari* bedeinkapena bidal diezaiozun.

Ahizpa Teresa Jesus Haurarena [eta] Aurpegi Santuarena
lek. karm. apal.

TG 227

1897-V-13

Ahizpa Jenofari

Jesus pozik dago Zelina txikiaz, berari orain dela hamahiru¹ urte lehenengo aldiz eskaini zitzaiolarik. Zelinaren bihotzeko lanaz, txikitasunaz eta pobretasunaz harroago dago, milioika eguzki eta zeruaren zabaltasuna sortzeaz baino!...

⁵ Ik. TG 225, 3. oharra.

¹ Egia esan, orain dela hamazazpi urte izan zen (13/5/1880); ik. A Esk, 25^a.

TG 228

1897-IV/V (?)

Ahizpa Jenofari

Gure Ama pozik izango ez den beldur naiz, igurtzien beharra somatzen du¹, *batez ere bizkarrekoena*. Clodion jauna² igandean bere adats luzea nire bizkarrean astintzera badator, berak esandakoa zergatik ez dugun egin galdetuko du... Behar-bada hobe litzateke astelehenerarte itxarotea; dena dela, *Gaixoa, Gaixoa*³, egizu zuri ondoen iruditzen zaizuna, bihar den-dena prest izango da eta. Batez ere ez hitz egin Jaun Gaixo honi⁴, zuri egokien iruditzen zaizun eran jokatu eta gogoan izan guk *aberatsak izan behar dugula, oso aberatsak gu biok!*⁵ ...

TG 229

1897-V-23

Ama Aines Jesusenari

J.M.J.T.

Neure Amatrixori min eman diodalakoan nago¹... Ai! bere poz txikia izan nahi nuen honek, atsekabe txikia naizela dakust!...

Bai, baina... loreak zimeldu eta txoriek ihes egiten duteneko lur goibel honetatik urrun egon nadinean, niri bidea, zerura daraman bidexka, maitasunaren mugagabeko herrialdeetaraino nekerik gabe igoko nauen igogailua² prestatzeko Jesusek nire aurretik bidali zuen aingeruaren, nire Amatxo maitearen ondoan izango naiz... Bai, Amarengandik hurbil izango naiz, eta erreinua utzi gabe gainera, ez bait naiz ni izango *jaitsiko* dena, nire Amatxo baizik ni nagoen lekura *igoko* dena. Oi, hark bezala adierazten jakingo banu pentsatzen dudana, jakingo banu nire bihotza eskeronez eta harenganako maitasunez gainezka nola dagoen esaten, uste dut jadanik lur goibel honetatik joan orduko ere haren poza izango nintzatekeela!

Amatxo maitea, nire arimari egin diozun ona, Jesusi egin diozu, hark esan baitzuen honako hau: "Niretariko *txikienari* egiten diozuen, neuri egiten didazue". Eta ni naiz *txikien* hori!³ ...

¹ Ik. TG 208, 5. oharra.

² Cornière medikuaren goitizena; ik. DE, 798.orr.

³ Ik. TG 207, 1. oharra.

⁴ "Monsieur Toto" (Teresa). Ahizpa Jenofak goizean igurtziak egiten zizkion, lehenego ordu-otoitzaren aurretik, isilune handiaren garaian.

⁵ Ik. CSG, 175.orr.

¹ Ez dakigu honen zergatia; osasun-egoeragatik izango zen seguraski.

² Teresaren lumak hitz hau idazten duen lehenengo aldia. C Esk, 3^a -n, igogailuaren gaia garatuko du; ik. CG, 989+c. orr.

³ Hona hemen ama Ainesen erantzuna gutun honi: "Hasperen egiteko neure lumatxoa hartu orduko, zure gutuntxoa jaso nuen. Ene Aingeru maitea! Horrek edontziari gainezka eragin dio; bai, baina eraldatze fisiko baten antzekoa ere eragin du, ur mingotsez beteriko edontziak bat-batean ezin izan baitzuen edari gogo eta ezti bat baizik gainezkatu. Beste aldetik lehenxeago hau esan diot neure buruari: goialde hartatik

TG 230

Ama Aines Jesusenari

1897-V-28

J.M.J.T.

Amatxo maitea:

Zure alabatxoak, orain dela gutxi negar-malko gozoak isuri ditu berriro; damuzko negar-malkoak, baina batez ere eskerron eta maitasunezkoak... Ai! arrats honetan neure bertutea erakutsi dizut, neure *bertutea*, neure *pazientzi* ALTXORRAK! Nork eta besteei hain ongi predikatzen dien honek! Pozten nau nire inperfekzioa¹ antzeman duzulako. Ai! zein ongi aprobetxa dezakedan gaiztoa izana! Ez diozu agirika egin zeure alabatxoari ongi merezi izan arren; baina alabatxoa ohituta dago horretara, hitz zorrotzak baino sakonago mintza baitzaio zure gozotasuna. Harenztat, Jainkoaren *errukiaren* irudia zara.

Bai, baina... ahizpa San Joan Bautistarena Jainkoaren *zorroztasunaren* irudia da. Bada, berarekin topo egin berri dut. Nire aldamenetik hoztasun osoz igaro beharrean, besarkatu egin nau (munduko onena banintz bezala) esanez: "Ahizpatxo gaixoa, errukia eman didazu! Ez zaitut nekarazi nahi, gaizki jokatu baitut, etab... etab...".

Ni, bihotzean maite-damu osoa somatzen nuelarik, guztiz harriturik nengoen, inolako hitz garratzik ez zidala aurpegira jaurtitzen ikustean. Ondotxo dakit, jakin ere, bere barruan akastun irudituko natzaiola; hil egingo naizela uste duelako mintzatu zait horrela. Baina ez dio axolarik, ez baitut haren ahotik hitz gozo eta samurak besterik entzun; horregatik, oso ona zela pentsatu dut, eta ni oso gaiztoa!

Neure gelan sartzean, Jesusek nitaz zer uste ote duen galde egin diot nire buruari. Eta berehala, egun batez emagalduari esan zionaz gogoratu naiz: "Inork gaitzetsi al zaitu?". Eta nik, begietan negarra nuela erantzun nion: "Inork ere ez Jauna,... zure samurtasunaren irudia den nire Amatxok ere ez, ezta zure zuzentasunaren irudia den ahizpak ere,... eta ondotxo dakit bakez joan naitekeela, zuk ere ez nauzulako gaitzetsiko!".

Jn 8, 10.11

Amatxo, zer dela eta da Jesus hain *samur* nirekiko? Zergatik ez dit sekula agirika egiten?.. Ai! benetan, eskerronez eta maitasunez hiltzeko bezalako da!

nire alde zer egingo duen neure aingerutxoak joan baino lehen esan diezadala nahi nuke. Neure pozen artean honen beharra dut, eta hona zure gutunak non diostan, hain zuzen ere, jakin nahi nuen horixe. Beraz! Orain hil zaitzake, nik badakit goialde hartan zeure Amatxoz arduratuko zarela; hil lehenbailehen, nire bihotzak behealde honetan jadanik loturarik izan ez dezan; maite dudan guztia goialde hartan egon dadin. Hona non negar-malko lodiak isurtzeari eman diodan hau idaztean, eta ez dut ezer ikusten... ez dakit zer dudan gaur, sekula ez naiz zure azkenari buruz hain ziur egon. Aingerutxo gaixoa, edo hobeki esan, zorio-neko aingerutxoa, jakingo bazenu han zer izango duzun! Oi! Harrera ona egingo dizue! Hura jaia Santuentzat! Birjina Sortzez Garbiak bere bihotzaren kontra estutuko zaitu samurtasunez. Guztiek kulunkatu eta laztandu nahi duten haurtxoa izango zara; errugabeak ere eskutotik hartzera joango zaizkizu, hegoak erabiltzen eta beren jolasak egiten irakatsiko dizkizute.

Oi! Eska iezaiezu beren eserlekuetan niri ere leku bat egiteko". (LC 179, 23/5/1897).

¹ Ama Ainesek honela agertu zituen gertaerak: "Behin (ordurako gaixorik zen) ahizpa bat etorri zitzaion laguntza eske pintura-lan bat egiteko. Ni hantxe nintzen eta ahizparen sukarra eta neke larri-larria jarri ahal izan nituen eragozpenztat, hala ere ahizpak ekin eta ekin. Orduan, Teresa Jesus Haurrenaren aurpegian barruko emozio aratza agertu zen, eta arratsean, honako lerro hauek idatzi zizkidan".

Askozaz ere gehiago poztan nau akastuna izateak, grazia bati esker gozotasunaren eredu izateak baino... Hain on handia egiten dit Jesus nirekiko beti hain gozoa eta samurra izan dela ikusteak!... Ai!, hemendik aurrera aitortzen dut; bai, nire itxaropen guztiak beteko dira!... Bai, Jaunak gure *neurrigabeko gurariak* mugagabeki gaudituko dituen harrigarriak egingo ditu gure alde!...

Kr 2.9 Amatxo, Jesusek ongi egiten du ezkutatu eta niri noizbehinka bakarrik hitz egiteaz eta gainera, "leihosare tartetik" izaten da (Kantarik Ederrena), ondotoxo baitakit ezin izango nukeela gehiago jasan eta nire bihotza lehertu egingo litzatekeela, hainbesteko zoriona edukitzeko gai ez naizela...Ai! zuk, nire arimaren oihartzun gozoa, ulertuko duzu arrats honetan jainko-errukiaren ontziak gainez egin duela nire gain!... Ulertuko duzu zu izan zarela eta beti izango zarela ni gidatzeko eta Jaunaren errukiak niri iragartzeko zeregina duen aingerua!...

Zure alabatxo *txiki*

Teresa Jesus Haurrena [eta] Aurpegi Santuarena
lek. karm. apal.

TG 231

1897-V-30

Ama Aines Jesusenari

J.M.J.T.

97ko maiatzak 30

Ez zaitez atsekabetu, ene Amatxo maitea, *zure* alabatxoak zerbait ezkutatu dizula *dirudielako*; hala *dirudiela* diot, *gutunaren* ertza ezkutatu baldin badizu ere¹, sekula ez dizulako *gutuneko* lerro bat bera era ezkutatu. Eta zuk baino hobeki nork ezagutzen ote du hainbeste maite duzun gutuntxo hori? Gainerakoei ondo baino hobeto erakuts diezaiokegu gutuna, ez baitute horixe besterik ikusten, baina zuri!!!... Oi! Amatxo, orain badakizu Ostiral Santuan² hasi zela Jesus zure gutuntxoaren kartazala urratzen! Ez al zaitu poztan, duela 24 urtez geroztik idazten ari zaren gutun hori irakurtzera prestatu delako? Ai! jakingo bazenu gutunak nola jakingo duen zure maitasunaz mintzatzen Betikotasun osoan!³

¹ Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenak hau idatzi du: "Garai honetan nagusi ez zen Ama Aines Jesusenari ezkutatu egin zion odol-goitika".

² 1896ko apirilak 3.

³ Teresak irakurri berri dugun gutuna idazten zuen bitartean, Aines Amak honako lerro hauek osatu zituen: "Nire aingerutxo maitea, atsekabetu egin zaitut seguraski, baina hala ere, zer gertatu zaizun jakitea neure Jainkoaren grazia dela esango dizut, bestela, zertzelada hauek zure heriotza ondoren ezagutuko nituen eta hala izanez gero, sekula ez bainukeen pozbidetarik aurkituko. Nire izaera hain berezia izanik, nire borroka direla eta, zu niregandik ezkutatu egin zarela irudituko zitzaidan beti eta, beraz, zure bizitzan zehar nire begietara hain oso eta gozotzat izan dudana gure arteko barne-harremana, ez zela nik uste nuena pentsatuko nuen. Zer nahi duzu, bada? Nik ez ditut mendea nahigabeko sentimendu hauek; hauxe da nire izaeraren alderdi ahula. Oi! Ez dakizu ongi zenbat eskertzen diodan Jainkoari gaur arratseko solasaldia. Bai, maite

TG 232

1897-V-30

Ama Aines Jesusenari

J.M.J.T.

(2. gutuntxoa)

Neure lehenengo gutuntxoa ahizpa Jenofaren¹ esku jarri nuen, Jenofak zurea ematen zidan bitartean; orain sentitzen dut² neure mezua postara bidali izana, frankoia bi aldiz ordaindu behar izango dut zure atsekabea ulertzen dudala esateko. Nik, eta zuk baino gehiago beharbada, ezer ere ez ezkutatzea nahi nuen, baina itxaron beharra zegoela iruditu zitzaidan; gaizki egin baldin badut, barka iezadazu eta sinetsi *sekula* ez dudala zuregan konfiantzarik galdu... Ai! gehiegi maite zaitut horretarako!... Oso pozik nago nirekin batera igarri duzulako. Ez dut gogoratzen *gutunazaleko* beste ezer gorde diodanik nire Amatrixori, eta nire heriotzaren ondoren esan diezaiotena ez sinesteko erregutzen diot. Oi! ene Amatrixo, *gutuna zeurea da*, eta idatzi zenuenetik hainbeste lan eman dizun gutun hori Jesusek zeharo apurtzen duen arte idazten jarrai dezazun eskatzen dizut!³...

nauela eta nire bihotz gaixoaren erruki dela dakust. Onartzen dut edozein borroka jasatea zu bizi zarela, baina gero, oroigarri guztiak niretzat gozoak izatea nahi izango nuke eta ez dezadala beste ezeren berri jaki. Ez zait gaizki iruditzen gauzak uanean bertan niri ez esatea, baina erruki zaitez nire ahultasun amatiarraz eta hurrengoan eska ezazu den-dena esan diezadatelat. Oi! Ene aingerutxoa, zein Amatrixo berezia duzun! Arratsko otoitzean, zure Amaren bihotza benetako mingostasun itsaso bat bezala zegoen; mingostasuna berezia zen, sekula ezagutu ez dudana bezalakoa. Oi! Zein erruki dudana Jainkoa, arimek harengan konfiantzarik ez dutenean! Aitaren samurtasunari egin diezaiokogun irainik handiena da. Zure kasuan, ene aingerutxo maitea, zure arrazoia samurtasun hutsa zen, oi! ez dut inolako zalantzarik, eta gutuna Jesusi hau esanez bukatzen dut: Oi! Eskerrik asko! Nire ahultasunaren erruki izan zara; ez nukeen hau jasan ahal izango nire aingerutxoaren heriotz ondoren... nahigabez hilko nintzatekeen...

"Eta batez ere ez zaitez nahigabetu, guztia igarri dut eta". (LC 180, 30/5/1897).

¹ 231. gutuna, Ahizpa Jenofak erizain zen aldetik bidalia.

² "Je regrette" delakoari buruz: komunitateko aitore berezia zen Aita Baillon-ek "Raigrettez-vous?" esaten zuen eta esaldi honen transkripzio fonetikoa da gutun honetan darabilena.

³ Beste gurutzatze bat: Teresak bere bigarren gutuna idazten duen bitartean, Aines Amak ere berea idazten du: "Beldur naiz oraindik, ene aingerutxo maitea, nire gutuntxoaz nahigabetu ez ote zaitudan. Zurea, ordea, oi! hain da gozoa! Eska eizaiozu Jesusi zure antzekoa egin nazala.

"Laster ihes egingo duzu lurretik urrun, eta nire bihotzak dardar dagi barru-barruan naturaz gaindiko eraz. Nire begiak malkoa dariela dauden bitartean, azaldu ezin den zorion-sentimendu batera eramana somatzen dut neure burua. Oi uso zuri, heldu da usoen maisuak zeure lekura eraman behar zaitueneko ordua! Aingerutxoek ez dute zu lagun izan gabe zertan egonik, ordua da Jainkoak zu zeruetako erreinura joanda, aintza berri bat jaso dezan. Horrela, bada, lurrean Jainkoak nahi duen adina sufritzea nahi dut, behealde honetako haranetan erbestetua den usapal errukariaren antzera intzirri egin eta malkoak nahi ditut. Bai, zoriontsu naiz benetan, azkenean nire aingerutxoa bere herrira itzuliko da, Amatrixori ere lekua hartuko dio, santa bihurtuko du, eta goialde hartatik hain mingarriak diren sentimenduak menderatzen erakutsiko dio, era guztietako ondasunak emango dizkio, bera betiereko oparotasunean dagoelarik!

"Oi ene Jesus, maite zaitut! Ni ere laster izango nauzu zure ondoan eta itxaroten geratzen natzaizun bitarte honetan, maite dudana guztia bidaltzen dizut" (LC 181, 30/5/1897).

TG 233

1897-VI-1

Ama Aines Jesusenari

J.M.J.T.

Hunkigarriegia, melodiatsuegia da benetan!... Nahiago dut isilik egotea, nire arima txikian gertatzen dena alferrik kantatzen saiatzea baino!... Eskerrik asko, Amatxo!¹

TG 234

1897-VI-2

Ahizpa Maria Eukaristiarenari

J.M.J.T.

1897ko ekainak 2

Nire ahizpatxo maiteari¹, egunen batean hautatu guztien aurrean koroatuko duen bekokian², haren arimaren senarrak bere seinalea ezartzea aintzat izan zuen egun ederraren oroigarria...

Egun batez, zeru guztia bildu zen Ekainaren 2an maitasunaren misterio honi begiratzeko: Jesus, Eukaristiako Jesus gozoa, bere burua Mariari eskaintzen³. Zerua gaur ere hortxe dago, zeru ederra, aingeruz eta santuz osatua, hor dago begira liluraturik, munduaren argitan Maria Jesusi nola eskaintzen zaion begira, ulertzen ez duen sakrifizioaz harriturik. Ai! lehenengo bisita-egunean Jesusek Mariari nolako *begirada* bota zion ulertu izan balu, maitasunez zauritu zuenarengandik gaur jaso nahi duen

¹ Hitz hauekin erantzungo zion Teresak Ama Ainesek bidalitako gutun luzeari. Hona hemen zati bat:

"Bart neure errosario guztia errezatu dut belauniko Mariaren hilabeteko Birjinaren aurrean, eta azkenean, Ama Birjinak ezpainetan irri berezi bat taxutu duela iruditu zait. Oi ene aingerutxo maitea, nire alde otoi ez egiten baduzu, benetan bizitza berri bati hasiera emango diodala eta, grazia oso handia jasoko dudala iruditzen zait. Ez dut nahigabetu nahi, ezta Gure Amak arbuiatzen bazaitu ere, Ama Birjinak erakutsi baitit santuen bizitza ederrek ez dutela obedientzia eta buru-ukapen ekingintza batek adina balio. Gure Amak, Hiltzen zarenean, zure bizitzatxoa desegingo balu ere, ni bart bezala banengo, zeruaren erakarpena oraindik biziago baizik ez nukeela sentituko iruditzen zait. Are eta gorago hegaldatuko nintzateke, hara non: Lainoen gainetik Zerua beti da urdin. Jainkoa bizi den erribera ikutzen da!..."

Ez gehiago nitaz nahigabetu, gure lotura ez baita sekula barnekoiagoa izan. Oi! Nik halaxe sentitzen dut. Bart, Ama Birjinaren ondoan, kandela argitsu bat zegoen. Kandela hau urtu egin zen eta argizariak Ama Birjinaren ondoan erreguka dagoen bildostxoaren forma hartu du. Nik argia zu zeu zinela pentsatu dut, eta bildots txikia ni, zure argitasunez baliatuz eta neure begiak Mariari begira, nire erruki izan dadin. Ez dakit zer esaten dizudan, ene aingeru maitea. Nire bihotza eta nire arima, mundu oso bat dira gaur gauean. Ulertuko didazula uste dut eta negar-herri honetatik joan zaitezenean, sarri-sarri itzuliko zarela itxaroten dut mundu hau edertzera, aingeru txikiakin paseatzera eta amasa argitsu baten bidez eguzki txikitxo bihurtzera (...)" (LC 182, 31/5/1897).

¹ Beloa hartzeko egunean.

² Santa Ainesen liturgia ofiziotik hartutako erantzunaren aipamena.

³ Maria Guérin-ek 1881ko ekainaren 2an egin zuen bere lehen jaunartzea.

seinale misteriotsua ere ulertuko zukeen!... Jadanik ez da elurrezko tolesturadun belo polita Maria Eukaristiarena bilduko duena; belo ilunak Jesusen emazteari erbesteturik dagoela eta bere Senarra ez dela festetara eramango duena gogorarazten dio, Golgota mendira eramango duena baizik. Aurrerantzean, Mariak ez du jadanik ezer begiratu behar behealde honetan, *Jainko miserikorditsuari*, EUKARISTIAKO *Jesusi* baizik!

Ahizpatxo Teresa Jesus Haurrarena [eta] Aurpegi Santuarena
lek. karm. apal.

TG 235**Ahizpa Maria Eukaristiarenari¹**

1897-VI-2

Nire ahizpatxo maiteari beloa jarri zioteneko egun ederraren oroigarria:
1897ko ekainaren 2a.

Teresaren Jesustxok laztan dezala beti Maria Eukaristiarena.

TG 236**Ahizpa Maria Hirutasunarenari**

1897-VI-2

Jainkoak zure proba¹ bakar-bakarrik jasan dezazun nahi du. Era askotara erakusten du... Baina... ene p.² txikia, nik zurekin sufritzen dut, eta asko maite zaitut!...

Ez zaitetz nahigabetu, bihar goizean minutu pare batzuetarako zure bila joango naiz, eta garbiketaren biharamunean ere zeurekin joango nahiz formak egitera³ .-

TG 237**Ama Aines Jesusenari**

1897-VI-2

Ez, usotxoak ez du Amatxo utzi nahi¹, bere bihotzeko mundu txiki eta zoragarrian hegan egiten eta atsedean hartzen jarraitu nahi du. Bihar emango dizkiot eske-

Sal 54,7

¹ Aurreko gutunari erantsitako estanpa.

¹ Ahizpa Maria Hirutasunarenak ez du inolako argitasunik utzi proba honi buruz.

² "Panpina" edo "poupée"-ren laburdura ik. TG 249; KH 22.IX.4.

³ Aldareko ostiak egiten zireneko gela.

¹ Ama Ainesek idatzi berri zion ondorengo hau: "Ene aingerutxo maitea! Ez daukat hitzik neure samurtasunaren berri emateko. Ez iezadazu agirika egin, ikusi apostoluak zein goibel zeuden Jesusek laster utziko zituela esan zienean... Bai baina!... Berriro pozez bete ziren kolpea igaro eta gero... halaxe gertatuko da Amatoxorekin ere. (...) Jaiki zaitetz, uso maitea, negua igaro da zuretzat, zure negar-malkoen iturria agortu da, joan zaitetz betiereko maitasunaren udaberriko lilurak dastatzera.

Ez iezadazu erantzun, mesedez, bihotza hautsiko lidake eta". (LC 183, 2(?)/6/1897).

rrak Amatrixori. Gaur gauean ez diot ezer esango, *bihotza leher* ez dakion, eta beranduegi delako. Haurra² ohetxora doa.

TG 238

1897-VI-3

Leoniari¹

Ahizpatxo maitea, zein ederra egiten zaidan egunen batez, biok batera jarraituko gatazkiola Bildotsari pentsatzea eta betiereko bizitzan!...

1897ko ekainaren 3ko oroigarria

Ahizpa Teresa Jesus Haurrena [eta] Aurpegi Santuarena
lek. karm. apal.

TG 239

1897-VI-3 (?)

Ama Aines Jesusenari¹

Azken unerarte ibili behar dut - neure oinazearen amaiera markatuko duenerarte-, judu erratu gaixoaren antzera².

TG 240

1897-VI-3 (?)

Ahizpa Maria Hirutasunarenari

J.M.J.T.

Jesusen loretxo maitea, ondotxo ulertu dut dena. Ez daukazu gehiago ezer kontatu beharrik, zure kalizan dagoen *begitxoak* erakusten dit zer pentsatu behar dudan loretxoaz¹ ... Oso pozik nago, guztiz kontsolaturik, baina jadanik ez da *lurra jateko gogorik* izan behar: beharrezkoa da oroiloreak bere korola ireki edo zuti

² Adierazpide honi buruz, ik. DE, 442-444.orr. Berriro gutun hauetan agertuko da: TG 254, 255, 257.

¹ Estanpa baten itzulian egindako eskaintza.

¹ Teresak Ama Ainesen lerroei erantzuten die: "Ezin dizut adierazi zutaz nire arimak sentitzen duen guztia, esanezinekoea da! "Noraezean egiten dituzun ibilaldiak gorabehera, ordu laurden batez zuri hitz egiterik izango ote dut?" (LC 184, 3(?)/6/1897).

² Judu erratuaren eresia, 22. estrofa; ik. TG 217, 5.oharra.

¹ Gutun honek, ahizpa Maria Hirutasunarenak hain maite duen oroilorearen sinbolismoa garatzen du (ik. TG 187). Hemen argi eta garbi ulertzen da, nobiziaren begirada bat nahiko dela Teresak haren jarreraren berri jakin dezan.

dezan, *aingeruen Ogia* jainko-ihintzaren antzera etor dadin bera indartzera eta falta zaiona ematera²...

Gabon-loretxo gaixoa, zuk uste baino gehiago maite zaitudala sinets ezazu!...

TG 241

1897-VI (?)

Ahizpa Marta Jesusenari

J.M.J.T.

Ahizpatxo maitea, bai, den-dena ulertu dut... Jesusi bere graziaren eguzkiak zure ariman argi egin dezala eskatzen diot. Ai! ez ezazu beldurrik izan *maite duzula* esateko, *sentitzen ez baduzu ere!* Horixe da Jesus zu laguntzera eta oinez egiteko baino ahulagoa den umetxoaren antzera eramatera *behartzeko* era.

Proba handia da dena beltz ikustea, baina hori ez dago zuregan bakarrik. Askatu zure bihotza lurreko *kezketatik*, eta batez ere, gizakiengandik; gero, ziur egon *gainerakoa* Jesusek egingo duela, ez baitu utziko *lupetza* beldurgarrian eror zaitezen. Poztu zaitez, ahizpatxo maitea, zeruan ez bait duzu *dena beltz* ikusiko, *dena zuri* baizik... Bai, dena haranetako Lilia den gure Senarraren jainko-*zuritasunez* jantzirik egongo da. *Elkarrekin* jarraituko diogu noranahi doala ere...Ai! Aprobetxa dezagun bizitzako *une laburra*..., eman diezaiogun atsedena Jesusi, arimak salba diezazkiogun gure sakrifizioekin... izan gaitezen *txikiak*, hain txikiak, ezen mundu guztiak oinekin *zapal* gaitzan¹, horretaz konturatu edo sufritu ere egiten ez dugulako itxura eginez...

Hurrengorarte, ahizpatxo maitea, zu ikusteko itxaropenaz pozten naiz...

Kt 2,1

Ap 14,4

TG 242

1897-VI-6

Ahizpa Maria Hirutasunarenari

J.M.J.T.

Jesus †

1897ko ekainak 6

Neure ahizpatxo maitea:

Zure gutuntxo politak arima poztu zidan; argi eta garbi dakust ez naizela erratu Jainkoak santa handia izatera deitzen zaituela pentsatzean, nahiz eta oraindik *txi-*

² Ahizpa Maria Hirutasunarenak Jauna hartu gabe gelditzea nahi zuen, hutsegite bategatik bere burua zigortzearren.

¹ Ik. *Kristoren Antz Bidea* III, 13, 3 eta 1897ko uztailearen 16ko Otoi.

kia zaren eta egunetik egunera txikiagoa izango zaren. Ulertzen dut zer nolako atsekabea sentitzen duzun ezin didazulako hitz egin, baina ziur egon nik ere sufritzen dudala egoera berean nagoelako eta ziur egon baita, inoiz baino hobeto ulertzen dudala nire *bihotzean neurrigabeko lekua* betetzen duzula!...

Asko pozten nauena tristurak ez dizula umore ona kentzen ikustea da; ezin izan diot barreari eutsi zure gutunaren azkena irakurtzean. Ene! Beraz, horrela trufatzen zara nitaz ezta? Nork hitz egin dizu *nire idazlanei*¹ buruz? Zein paperi buruz ari zara? Gezurretan ari zarela konturatzen naiz egia jakitearren. Bada, ongi da, egunen batez jakingo duzu: lurtean ez bada, zeruan. Ziur nago ez zaituela gehiegi kezkatuko, orduan beste gauza batzuk izango baititugu pentsatzeko...

Paradisura joateaz pozik ote nagoen jakin nahi duzu? Oso pozik egongo nintzateke hara joatekoa banintz, baina... ezin dut gaixotasunaz kontatu, gidari oso geldia baita. *Maitasunaz baizik ez dut kontatzen*. Eskatu Jesusi nire alde egiten diren otoitz guztiak kiskali behar nauen sua biziagotzeko izan daitezela.

Uste dut ezin izango didazula irakurri, *sentitzen dut*², baina minutu batzuetako astia besterik ez dut izan.

TG 243

1897-VI-7

Ahizpa Jenofari¹

J.M.J.T.

1897ko ekainak 7

Ahizpatxo maite-maitea, ez gaitezen beti gizakien begietara handiak diren gauzen bila aritu. Lurtean sekula izan den erregerik jakintsuena zen Salomon-ek, eguzkipean gizonak egin behar dituen lanak kontuan hartuta, pintura, eskultura, arte guztiak *gauza* horiek *guztiak bekaizkeriaren menpe zeudela* ulertu zuen eta huskeria eta izpirituaren atsekabea baizik ez direla aldarrikatu zuen...

Koh 2,11

Koh 4,4

Lk 14,10

Nahi izaten ez den gauza bakarria azkena izatea da; azkena izate hauxe da huskeria eta izpirituaren atsekabea ez den gauza bakarria...

Ir 10,23

Hala ere, ez dago gizonaren esku bere bidea antolatzea, eta batzuetan distira egiten duena nahi dugula konturatzen gara. Jar gaitezen, beraz, apalki akastunen artean, Jainkoak uneoro eutsi behar dien *arima txikien* antzekotzat har dezagun geure burua. Jainkoak geure ezerezez jabeturik gaudela ikusten duenean luzatuko digu eskua; hala ere, zerbait *handia* egiten saiatu nahi badugu, gar izpirituaren aitzakipean bada ere, Jesus onak bakarrik utziko gaitu. "hauxe esatea besterik ez

¹ Teresaren autobiografiaren jarraipena (C Esk). Ama Ainesek Ama Maria Gonzagarenaren baimena jaso zuen horretarako ekainaren 2tik 3rako gauean.

² Ik. TG 232, 2.oharra.

¹ Ahizpa Jenofak Mendekoste astelehenean, ekainaren 7an, bere ahizpari argazkia atera zion. Neka-neka eginda egon arren, Teresak luzaroan egon behar izan zuen geldi Zelinaren esanera. Hau (ahoz aho esatenez), haserretu egin zen. Gutun hau, beraz, nobiziaren kezkei erantzuteko idatzia dela dirudi.

nuen egin: nire oinak behaztopa egin zuenean, zure errukiak eutsi zidan, Jauna” (XCIII. salmoa). Bai, apaltzea eta nork bere hutsak gozotasunez jasatea, horra hor benetako santutasuna². Eman diezaiogun elkarri eskua, ahizpatxo maitea, eta jo dezagun azkenengo lekura, inork ez baitigu hori kendu nahi izango...

Sal 93,18

TG 244

Bellière apaizgaiari¹

1897-VI-9

J.M.J.T.

1897ko ekainak 9

Neure nebatxo maitea:

Gaur goizean² jaso dut zure gutuna eta erizaina ez dagoen unetxo hau aprobetxatu dut azken agurra egiteko zenbait hitz idazteko; hitz hauek jasotzen dituzunera erbestea bukatua izango dut jadanik... Zure arrebatxoa Jesusi lotuta izango da betiko, orduan zuretzat graziak lortu ahal izango ditu eta urrutiko misioetara zurekin hegan joan ahal izango da.

Oi, ene nebatxo maitea, zein pozik nagoen hiltzeaz!... Bai, oso zoriontsu naiz, ez behealde honetako sufrimenduetatik askatzen naizelako (sufrimendua, bestalde, malkoen haranean den gauza desiragarri bakarra iruditzen zait), Jainkoaren borondatea hauxe dela ikusten dudalako baizik.

Gure Ama onberak lurrian atxiki nahi ninduke; une honetan bederatziturten bat esaten ari dira Garaipenen Andre Mariari³. Haurtzaroan⁴ sendatu ninduen behin, baina uste dut orain egingo duen miraria hain samurki maite nauen ama poztea besterik ez dela izango baino.

Nebatxo maitea, Jainkoaren aurrean agertzeko unean, inoiz baino hobekiago ulertzen dut gauza bat bakarra behar dela: *haren alde bakarrik* lan egitea, eta ezertxo ere ez egitea norbere buruaren, ezta gizakien alde ere.

Jesusek zure bihotzaz oso-osorik jabetzea eta santu handi bat izan zaitezen nahi du. Horretarako asko sufritu beharko duzu, baina hura poza zure arimak gainezka izango duena, betiereko bizitzan sartzeko une zorionekora heltzen zarenean!...

Lk 24,26

² Ik. C Esk, 2ⁱ, egun berean idatzia. Ahizpa Mariak honela azaldu zuen TG 243ko esaldia: “Kanonizatuak santuetariko inor ez da sekula honela mintzatu: “Gu, esaten zidan, gu ez gara gure bekatuengatik negar egiten dugun santuak; gure bekatuek Jainkoaren errukia goresteko balio dutelako poztzen gara”. (Ama Ainesi idatzitako gutuna, 8/3/1897).

¹ Gutun hau ez zen bidalia izan, geroago hobeki idatzirik bidaltzeko asmoa izango zuen, seguraski. Teresak TG 253.an garatuko ditu hemengo zenbait ideia.

² Ik. TG 247, 1.n.

³ Martin eta Guerin-darrek maite duten santutegi paristarra: ik. C Esk, 8^a eta DE, 675.orr.

⁴ 1883ko maiatzaren 13a; ik. A Esk, 30^a.

Ene neba, laster joango naiz zeruko zure lagun guztiei zure maitasuna eskaintzera eta babes zaitzaten eskatzera. Orain, betikotasunaren ate aurrean egotean ulertzen ditudan mila gauza esan nahi nizkizuke; baina ez naiz hiltzen, bizitzan sartzera noa, eta behealde honetan esan ezin diezazukedan guztia zeru goietatik ulertarazten ahaleginduko naiz...

Otoitz egiozu *Jainkoari*, *laster arte*, *zeruan elkar ikusi arte* diotsun zeure arre-baren alde!...

Teresa Jesus Haurrena [eta] Aurpegi Santuarena
lek. karm. apal.

TG 245

1897-VI(?)

**Ama Aines Jesusenari, Ahizpa Maria Bihotz
Sakratuarenari eta Ahizpa Jenofari¹**

Aurrealdean

gainaldean:

Ez nigatik negarrik egin, zeruan Bildotsarekin eta birjina sakratuekin² bainago!...

azpian:

Sinetsi nuena ikusten dut.

Itxaron nuena daukat.

Neure maitatzeko ahalmen guztiaz maitatu nuen harekin bat eginik nago³.

alde bietan:

Maitasun garbizko zirkinik txikiena baliagarriago zaio Elizari, gainerako lan guztiak batera baino!⁴ Garrantzitsua da, beraz, arima maitasunean asko aritua izan dadin, eta behealde honetan ia-ia gelditu gabe, bere Jainkoa aurrez-aurre ikustera hel dadin⁵.

(San Joan Gurutzekoa).

atzealdean:

Lurrean ez dut zoriontsu egingo nauen ezer aurkitzen; nire bihotza handiegia da, mundu honetan zoriona deitzen den ezerk ezin du asebete. Nire pentsamendua betiereko bizizarantz hegaldatu da, denbora amaitzeko zorian dago. Nire bihotza

¹ Agurraren oroigarritzat, Teresak estampa batean idatzitako testua.

² Aines santuaren bigarren festa-egunerako (urtarrilaren 28a) egokitutako maitinetako hirugarren irakurgaia.

³ Ofizio bereko "Benedictus" kantikaren leloa.

⁴ San Joan Gurutzekoa; ik. TG 221, 2.n. B Esk, 4ⁱ; Otoi. 12^a.

⁵ Id., *Maitasun-gar bizia*, I ahap. 6. lerroaren azalpena. Esaldi honek Teresak bere gaixoardian gaurmahaitxoan gordetzen zuen liburuan gurutze batez markaturik zuen hirugarren pasartea burutzen du. Ik. DE, 492-495.orr et "Prières", 121.orr.

geldi-geldi dago, aintzira lasai edo zero barearen antzera. Ez dut mundu honetako bizitza irrikatzen; nire bihotza betiereko bizitzako uraren egarri da... Oraindik apurtxo bat, eta nire arimak lurra utziko du, bere erbeste eta gudua bukatuko du... Zerurantz noa!... Erreinuan sartuko naiz, garaipena lortuko dut!... Hautatuen bizilekuan sartuko naiz, gizakiaren begiak sekula ikusi ez dituen edertasunak ikusiko ditut, belarriak sekula entzun gabeko harmoniak entzungo ditut, bihotzak sekula dastatu ez dituen pozak izango ditut... Hona hemen non naukazun gutariko guztiok amets egin dugun ordura iritsirik! Zein egia den Jaunak txikiak aukeratzen dituela mundu honetako handiak lotsarazteko! Ez naiz neure indarrean oinarritzen, gurutzean infernuko ahalmenei irabazi zien haren indarretan baizik. Lorezainak bere gozamenerako ebakitzen duen udaberriko lorea naiz ni. Gu guztiok gara lur honetan ereindako loreak, Jainkoak bere garaian, goizago edo berandago ebakitzen dituen loreak... Ni, melira txiki hau, aurrenengoa naiz joaten. Egunen batez, paradisuaren elkartuko gara eta benetako zoriona izango dugu...

1 Ko 2,9

1 Ko 1,27

Kol 2,14-15

(Teresa Jesus Haurrenak Teofan Vénard⁶ Martiri aingerutarraren pentsamenduak hartu zituen)

TG 246**Ahizpa Maria Hirutasunarenari**

1897-VI-13

Jesus Jainko-Haurrak zure bihotzean aurki dezala, maitasunaren arrosez lurrinduriko bizilekua; eta bizileku horretan aurki dezala anaiarteko maitasunaren¹ lanpara gartsua ere, bere gorputz-ataltxo izoztuak berotuko dizkiona eta bere bihoztxoala ailituko diona, behar den bezala maite ez duten arimen eskergaiztoa ahazten laguntzeko.

Ahizpa Teresa Jesus Haurrena [eta] Aurpegi Santuarena

lek. karm apal.
(1897ko ekainak 13²).

⁶ Martiriak, kartzelan zegoela, atxilotu zutenetik (30/11/1860) lepoa moztu zioten (2/2/1861) arte idatzitako gutunetik hartua. Teresak zati hauek eta beste hainbat koptatu zituen. Bere ahizpentzako kopiak egi-terakoan, zenbait aldaketa erantsi zizkion, kasu bakoitzean erara zetozkionak.

¹ Ik. C Esk, 11ⁱ, ekainaren 12-15 inguruan idatzia; batez ere 12a.

² Hirutasun Txit Santuaren igandea, ahizpa Maria Hirutasunarenaren eguna. Testu hau estanpa baten itzulian idatzirik zegoen.

TG 247

1897-VI-21

Bellière apaizgaiari

J.M.J.T.

Jesus †

Lisieux-eko Karmelen, 1897ko ekainak 21

Neure nebatxo maitea:

Zurekin batera eman nizkion eskerrak gure Jaunari, Mendekoste egunean¹ zuri eskaintzea nahi izan zuen graziagatik; egun eder horretan lortu nuen nik (orain dela

¹ Ekainaren 7an, Mendekoste astelehenean, Bellière apaizgaiak honela idatzi zion Teresari: "Atzo, ene arreatxo maite-maitea, Espiritu Santua bere Argitasunaren Indar guztiz apostoluengana jaitsi zen orduan, honako agindu hau jaso nuen neure Zuzendari Jaunaren ahotik; hau da, beste era batera esanda, nire bokazioari buruzko behin-betiko erabakia jaso nuen eta honako hau entzun nuen: Zure bokazioa oso serioa da, nik bete-betean sinesten dut zure bokazio horretan eta Jainkoak ere bere probidentzia azaltzen du horretan. Mila aldiz galtzeko zorian izan arren, hamar mila aldiz eman zizun salbamen; eta gainera, Jainkoak misiolari nahi zaitu, bidea zabalik duzu, zoaz. Eta banoa, ene arrea maitea; opor hauek familiarekin igaroko ditut eta urriaren Ilean Alger-era iritsiko naiz, Maison-Carrée delakoan nire nobiziatua egiteko, Aita Zuriaren etxean. (...) Beharbada geroago, ahultasun eta kemenik eza sentituko ditut (...) nik beti neure ondoan izango zaitut, ene arrea, nire arimaren euskarrik onena izango baitzara; halaxe hitz emaidazu behintzat, baita erbeste ondoren, zu beti hortxe izango zaitudala eta ni ez naizela beldur izango.

"Gurtu dezagun Jainkoa, ene arrea, emaitzietan eskerrak nirekin batera. Sinetsiezadazu, nik beste inork baino gutxiago merezi nuen dardarka izan ezik pentsatu ere ezin dudan ohore hau, eta Jainkoaren maitasun honek beldurtu egiten nau pixka bat; eta hala ere, konfiantza hori nagusitzea nahi dut eta oso osoan neure burua eskaintzea; horixe da, bestalde, eskatu zaidana. Neure Aitak honela esan zidan: "Dendena eskatzen duen Jainkoari eskaini behar zatzaizkio. Ezin duzu haren zerbitzura erdizka egon; haren apaiza izango zara, edo ezer ere ez. Hauek dira nire sentimenduak ere eta kontuak egiten jardun gabe eman nahi dut neure burua (...).

Duela gutxi ez al zenuen esaten: "Uste dut gure arimak elkar ulertzeko eginak direla"? Niri ere halaxe dela iruditzen zait eta probidentziari buruz pixka bat sinetzeriara emana naiz eta, ez dut onik berdintasun batzuk (baina baita ezberdintasun batzuk ere!) aipatu gabe.

Utziezadazu zenbait konta diezazkizudan: gurari berdinak ditugu (arimak, apostolutza... zu, beste gauza guztien gainetik apostolua zarela iruditzen zait), gauza sakratuei geure burua eskaini beharra (...).

Gazterik gelditu zinen, ene arreatxo maitea, zeure amaren laztanik gabe. Eta begira, nik ez nuen neurea ezagutu; areago oraindik, neugatik hil zen hura. 10 edo 11 urte bete nituenerate ez nuen zorrigaitz honen berririk izan eta izeba batengandik jaso nituen amarenak bezain gozo eta onegileak ziren laztanak. "Ama" deitzen nion neure benetako amaren ahizpa honi eta bihotzak apostolutza egitera joan nadinean, benetako nire ama utziko banu adina sufrirituko du (...).

Ez nau harritzen, ezta, biok debozio berberak izateak ere. Bihotz-Sakratua da Jainkoagana bihurtu nauena, hainbeste lelokeria eta koldarkeriaren ondoren. Urterik ederrenak, Jesusek maiteen dituenak, zeharo alferrik galdu ditut, munduari eta munduko erokeriei emanez Jainkoak prestatu zizkidan talentuak. Baina Ama Birjinak, ezagutzen duzun Délivrande-ko gure Amak, asko lagundu dit. S. Josek bere babesa eskaini dit, eta nik, bestalde, san Paulo, Augustin, Maurice, Gonzagako Louis, Xabierko Frantzisko eta Joana Ark-ekoa, Zelina eta Aines santuen adiskidetasunari dei egiten diot. Jenofa oso ausarta izan da eta zure jaiotza eta bataioaren artean kokatzen da (urtarrilaren 3a); Teresa, nire arreatxo maitearen zaindaria dela dakidantetik, Maria Madalena, Jesusek azkenerako hain maite izan zuen bekataria (...).

Gogaitarazten nagokizu, ene arreatxo maite eta ausarta, edo eta arreta galarazten, dirudienez neure buruaz gehiegi hitz egiten dudan hitzjarior guzti honekin. Barkaidazu, ziur diotsut, errukarria naiz benetan, eta eskerrak zu hor zauden Jainkoak oraindik maite nau. Sarituko zaituela uste dut, eta hala eskatzen diot gartsuki.

Nire arrea maite eta guztiz ona, beti eskerronez dagokizun, zure neba duineza

M. Barthélemy-Bellière

Ez beldurrik izan, ene arrea, zure gutunenean mesedea egiten didan Jainkoaren graziarekiko jeloskorregi nago, kanpoko edonor sekretu horretaz jabetzeko". (LC 186, 7/6/1897).

hamar urte), ez neure zuzendariarengandik neure aitarengandik baizik, Karmelen² apostolu izateko baimena. Hau ere gure arimak elkarrengandik hurbilago izateko beste arrazoi bat da.

Oi, ene neba! Ez uste izan inoiz “aspertu edo nire lanetatik ateratzen nauzu-nik” zutaz luze hitzegiten didazulako. Normala izango ote litzateke, bada, arrebak bere nebari dagokion guztian arretarik ez agertzea? Ez izan arreta galduko dudan beldurrik; zure gutunek are eta gehiago elkartzen naute Jainkoarekin, bere maitasunaren eta errukiaren gauza harrigarriak hurbiletik biziartzten baitzikidate.

Batzuetan Jesusek “bere isilpekoak txikienei agertzen” izaten du atsegin; horren seinale argia hau da, 1895ko urriaren 15ko zure lehen eskutitza irakurri ondoren, zure zuzendariarekin bat etorri nintzela: Zu ezin zara santu erdizka izan, edo oso-osorik izan beharko duzu edo bateretz. Arima ausarta izan behar zenuela ulertu nuen, eta horregatik poztu nintzen zure arrebak izateaz.

Lk 10,21

Ez uste izan beldurtzen naizenik “aferrik galdutako zeure urte ederrez mintzaten zatzaizkidanean”. Eskerrak damaizkiot Jesusi *maitasunez begiratu* dizulako, beste garai batean Ebanjelioko gazteari begiratu zion bezala. Hura baino zoriontsuagoa, zuk zintzotasun osoz erantzun diozu Maisuaren deiari, den-dena utzi duzu Maisuari jarraitzeko, eta bizitzaren *adinik ederrenean* gainera, hemezortzi urterekin... Ai! ene neba, nik bezala kanta ditzakezu Jaunaren errukiak³, zuregan beren argitasun guztiz distiratsen baitute!... San Augustin, santa Madalena eta “asko maitatu dutelako bekatuak barkatu zitzaizkien” arimak maite dituzu. Nik ere maite ditut, haien damua maite dut eta batez ere... haien ausardia maitakorra⁴! Madalena, hainbeste gonbidaturen aurrean, lehenengo aldiz ikutzen dituen Maisu gurgarriaren oinak malkoz bustitzeko aurreratzen dela ikusten dudanean, *haren bihotzak Jesusen Bihotzaren* errukia eta maitasunaren leizea ulertu dituela somatzen dut, eta bekataria den arren, maitasunezko Bihotz hori Madalenari barkatzeko ezezik, bere barruko jainko-ondasunak eskaintzeko eta kontenplazioaren gailurrik handienera igoartzeko prest dago.

Mk 10,21

Sal 88,2

Lk 7,47

Lk 7,36-38

Lk 10,39

Ai! ene nebatxo maitea, Jesusen Bihotza modu honetan ulertzeko abagunea eman zitzaidanetik, Jesusek nire bihotzeko beldur guztia baztertu duela aitortzen dizut! Neure hutsak gogoratzeak apaldu egiten nau, neure indarretan ez oinarritzera narama, ahultasuna baizik ez baita; baina batez ere oroitzapen horrek errukiaz eta maitasunaz hitz egiten dit. Norbaitek bere hutsak seme baten konfiantzaz Maitasunezko sugar irensean jaurtitzen dituenean, nola ez dira, bada, betiko⁵ kiskaliak izango?

Badakit beren bekaturen zorra ordaintzeko bizitza penitentzia miragarriak eginez igaro duten santuak badirela, baina zer nahi duzu? “Zeruko Aitaren etxean bizileku asko dago”. Jesusek halaxe esan zuen, eta horregatik jarraitzen dut hark erakusten didan bidea. Neure buruaz ez kezkatzen saiatzen naiz, eta Jesusek nire ariman egiten duena beraren esku utzia dut, ez bainuen bizitza latz bat neure hutsen zorrak ordaintzeko aukeratu, besteenen zorrak ordaintzeko baizik.

Jn 14,2

² 1887ko maiatzaren 29a; ik. A Esk, 50a.

³ A Esk-ko gai nagusia, C Esk-an berriro agertzen dena.

⁴ Ik. C Esk, 36^l.

⁵ Ik. KH 11.VII.6 eta CG, 1022+g.orr.

Neure gutuntzua berriro irakurri dut eta ulertuko ote duzun galdetzen diot neure buruari, oso gaizki azaldu bainaiz. Ez uste izan zure hutsegiteez duzun damua eta haien zorrak ordaintzeko gogoia txartzat dudanik; ezta hurrik ere, oso urrun nago helburu horretatik! Baina begira, orain *bi* gara, lana askoz arinago egingo da (eta nik, *neure erara*, zuk baino lan gehiago egingo dut); hori dela eta, Jesusek egunen batez nire bide beretik eramango zaituelakoan nago⁶.

Barkatu, ene neba, ez dakit zer gertatzen zaidan gaur, esan nahi ez nukeena esaten baitut, benetan.

Ez zait lekurik gelditzen zure gutunari erantzuteko. Hurrengo baten egingo dut. Eskerrik asko zure datengatik. Ospatu ditut jadanik zure hogeita hiru urteak⁷. Jainkoak mundu honetatik eraman zituen zure guraso maiteen alde erregutzen dut, eta ez dut maite duzun zure ama ahazten⁸.

Zure arreatxo apal

Teresa Jesus Haurrarena [eta] Aurpegi Santuarena
lek. karm. apal.

TG 248

1897ko ekainaren azkena (?)

Leoniari

J.M.J.T.

Neure Leoniartxo maitea:

Ezin dut nagoen baino hunkituagoa egon niri atsegin egiteko duzun gaitasunaz. Bihotz-bihotzez eskertzen dizut, eta oso pozik nago egin didazun estalkitxoaz. Neuk nahi nuen bezalakoa da...

Bihar zure alde eskainiko dut jaunartzea...

Maite zaitut eta besarkatu egiten zaitut.

Zure ahizpatxo

Teresa Jesus Haurrarena
lek. karm. apal.

⁶ Uztailaren 15an Bellière apaizgaiak zera erantzungo zuen kontu honi buruz: "Badakizu bide berriak irekitzen dizkidazula? Zure azken gutunean batez ere, Jesusen errukiari buruz, hark deitzen digun familiar-teari buruz, arimaren eta Jainko handiaren arteko harremanen tolesgabetasunari buruzko zenbait gogoeta aurkitzen ditut; orain arte ez naute hunkitu, ziur aski inork ez didalako aurkeztu zure bihotzak egiten duen bezalako sinpletasun eta berotasunez. Ni bat nator zurekin, baina harrigarria iruditzen zaidan sinpletasun eder honetara ez naiz erdizka baizik iristen; harro errukarri bat naizelako eta oraindik sorkarietan gehiegi oinarritzen naizelako.

Ez, arreatxo maitea, ez zara gaizki mintzatu, zuzen zaude, oso ongi ulertu ditut zure ideiak, eta hain ongi eta zuzen diozunez, praktikan gu *bi* gara eta, Gure Jaunagan eta zuregan uste osoa dut, biderik ziurrena baita. Zuk esaten didazun oro Jesusengandik baletor bezala hartzen dut, konfiantza osoa dut zuregan eta neure egin nahi izango nukeen zure izateko modura moldatzen zaien (LC 188, 15/7/1897).

⁷ Ekainak 10.

⁸ Bere izeba, Barthélemy andrea.



1. Krokot jokoa. Ezkerretik eskuinera: Zelina, Isidor Guérin, honen emaztea, Frantzisko La Néele, Joana eta Maria Guérin.- 2. Teresaren azkenengo gela.- 3. Otoitz-liburuko estampa, Teresak "Mesina"ren Jesus Haurraren kopia batetik egina (ik. Otoi. 13, 14, 15, 16).- Martin ahizpak (Maria eta Zelina, Paulina eta Teresa), Maria Guérin makurturik dela. Argazkien jabetza: Lisieux-ko Karmel. Cerf-Loose.



JE SUIS LE JESUS DE THERESE ...



SI QUELQU'UN
EST TOU'N PECHIEU' OU'IL VIENNE A MOI



TG 249 **Ahizpa Maria Hirutasunarenari¹ (zatiak)**

1897ko uztailearen erdi ingurua (?)

J.M.J.T.

Neure ahizpatxo maitea:

Ez dut goibel egon zaitezen nahi. Badakizu zer nolako santutasunaz amets egi-
ten dudan zure arimarentzat,

(...)

zure ahultasunaren errukia dut (...) zurekin *berehala* esan behar da pentsatzen
dena

(...) maitinen ondoren etortzea askoz ere zailago egingo zaizula esan behar
lizukete erizaindegian

(...)

deabrua urrunduz doa

Orain ez nau

(...)

ulertzen dut zure borrokaldia eta onberatasunez kontsolatuko zintuzkedan,
ahots ozenez esan ez baldin bazenu eta zeure baitan

(...)

Agur, laster neurekin zerura eraman beharko dudan p.² txikitxo gaixoa... Oso-
osorik izatea nahi dut

TG 250 **Ahizpa Maria San Joserenari**

1897ko uztaila (?)

J.M.J.T.

Ahizpa Jenofak poztuko zintuelakoan nago¹. Jadanik nahigaberik ez duzula
pentsatze hutsak, nire nahigabea desagertarazten du...

Ai! zein *zoriontsuak* izango garen zeruan! Han jainko-santutasunean parte
hartu ahal izango dugu eta mundu guztiari eman ahal izango diogu, gure lagun mai-
teenik gabe egon beharrik izan gabe... Jainkoak ongi egin du ahalmen hau lurrean
ez emateaz, beharbada ez genuen bestela lurra utzi nahi izango. Eta gainera, hain

¹ "Behin, dio dagokionak, atzerritarra bailitzan Teresagandik urrundurik nidekarren burruka eta ego-
nezina jasan ezinik, gaixotegira joan eta beraren ahizpetariko baten aurrean neure kexuak kontatuz asaskatu
nintzen (...). Nire kexu mingotsak goibeldu egin zuen Jainkoaren Zerbitzaria, eta zorrozki bertuterik eza
egotziz bidali ninduen. Gauean, gutun hau eskurarazi zidan" (Ik. CG, 1024.orr).

² "Panpina"; ik. TG 236, 2. oharra.

¹ Gaixotegira sartzerik ez zuelako ziur aski; ahizpa Jenofa ote zen zaindaria?

onuragarria da onartzea bera bakarrik dela bikain-bikaina eta bera bakarrik dugula nahikoa, txoriñoari eusten dion adarra kentzen duenean!

Txoriak hegoak ditu, hegan egiteko egina dago²!

TG 251

Ahizpa Marta Jesusenari

1897-VI-VII (?)

J.M.J.T.

Jesusen emaztetxoak ez du triste egon behar, bestela Jesus ere tristatu egingo baita; bere bihotzean beti maitasun-kanta abestu behar du. Beharrezkoa da nahigabe txikiak ahantz ditzan bere Senarraren nahigabe *handiak* arintzeko...

Ahizpatxo maitea, ez zaitetz *umetxo triste bat* bihurtu, ez zarela ulertua, gaizki epaitua eta ahaztua zarela ikustean; egizu barre mundu guztiaz, besteen antzera jokatzeko saiaturuz, edo hobeto, zeure buruarekin besteek zurekin jokatzeko duten bezala jokaturuz, hau da: *ahantz ezazu* Jesus ez den gainerako guztia, *ahantz ezazu* zeure burua haren maitasunagatik!... Ahizpatxo maitea, ez ezazula esan hau zaila denik; horrela mintzatzeko banatzaizu, zeure errua da, Jesus *asko* maite zenuela esan didazu, eta ezer ez baita ezinezkoa maite duen arima batentzat!¹...

Ziur egon zaitetz zure gutuntxo oso atsegin izan dudala²!...

TG 252

Ama Aines Jesusenari

1897-VII-13

Maite-maite zaitut, ene amatxo, laster ikusiko duzu!... Bai horixe!

TG 253

Bellière apaizgaiari¹

1897-VII-13

J.M.J.T.

Jesus †

1897ko uztailak 13

Neure nebatxo maitea:

Beharbada, hitz hauek irakurtzen dituzunean, jadanik ez naiz lurrean izango, betiereko zorion artean baizik! Ez dut etorkizuna ezagutzen, baina ziurtasun osoz

² Adarra Teresa da eta txoria ahizpa Maria San Joserena. Azken honek, gaixotegira egiten dizkioten bisita isil eta noizbehinkakoekin kontentatu beharko du. Ik. DE, 558-559.orr.

¹ Ik. *Kristoren Antz Bidea* III, 5.4.

² Ik. KH 15.VI.2 eta 8.VII.6.

¹ Gutun honek ekainaren 9koaren zenbait ideia biltzen ditu (LC 244). Gutun hori ez zen bidalia izan.

esan diezazuket Jauna atarian dagoela. Mirariren bat beharko litzateke nik erbeste-an irauteko, eta ez dut uste Jesusek alferriko mirari hori egingo duenik.

Oi ene nebatxoa, zein pozik nagoen hiltzeaz! Bai, pozik nago, eta ez behealde honetako sufrimenduetatik askatzen naizelako (sufrimendua, bestalde, maitasunari loturik den sufrimendua, negar-herrian dagoen gauza desiragarri bakarra iruditzen baitzait). Pozik nago hiltzeaz, Jainkoaren borondatea horixe dela ikusten dudalako, eta behealde honetan baino baliagarriago izango natzaielako maite ditudan arimei, batez ere zureari.

Gure Amari eginiko azken gutunean, oporretan maiz idazteko eskatzen zenidan. Jaunak nire erromesaldia oraindik beste zenbait aste luzatu nahi badu eta gure Amak ontzat hartzen badu, oraindik zirriboratu ahal izango ditut zuretzako honen antzeko hitz batzuk; baina seguraski, nire neba maiteari idaztea baino zerbait gehixeago ere egingo dut, lurreko hizkuntza gogaikarriaz mintzatzea baino zerbait gehiago: berarengandik *oso hurbil* izango naiz, behar den guztia ikusiko dut, eta ez diot Jainkoari atsedenek emango nahi dudan guztia eskaintzen didan arte!...

Nire nebatxo maitea Afrikarantz irten dadinean, bere atzetik joango natzaio, eta ez pentsamentuz bakarrik: nire arima beti berarekin izango da otoitzaren bidez, eta haren fedea laster antzemango du, ez bi urtetan ozta-ozta bakarrik, *bere bizitzako azken arratserarte* euskarri izateko Jesusek eman zion arrebatoa bertan duela.

Agintzari hauek guztiak, ene neba, ameskeria irudituko zaizkizu beharbada; hala ere, Jainkoak beti mizke hazitako neskatxa baten antzera erabili izan nauela jakin behar duzu. Egia da bere gurutzeak sehaskan nengoenetik lagundu didala, baina Jesusek gurutze hau gartsu maitatzen erakutsi dit. Berak eman nahi zidana irrikarazi dit beti². Zeruan nire gurariak ez betetzen hasiko ote da? Benetan, ezin dut sinestu, eta badiotsut: "nebatxo, laster izango naiz zugandik hurbil".

Ai! bene-benetan eskatzen dizut, erregutu asko nire alde, une honetan otoitzak behar-beharrezkoak ditut eta. Baina *batez ere*, egin otoitz *gure Amaren* alde. Amak oraindik luzaro izan nahi ninduen behealde honetan. Hori lortzeko, Ama agurgarri honek haurtzaroan behinola sendatu ninduen Garaipenen Andre Mariari bederatzi meza ateratzeko agindu du; baina nik, miraririk ez dela gertatuko jakinik, zera eskatu eta lortu dut: Ama Birjinak nire Amaren bihotza poztu dezan, pixka bat bada ere, edo hobeki esan, Jesusek berarekin zerura eraman nazan baimena ematea.

Agur, nebatxo, laster arte, zeru ederrean ikusi arte!

Teresa Jesus Haurrarena [eta] Aurpegi Santuarena
lek. karm.

² Ik. KH 13.VII.15, esaldi berbera, eta C Esk 31^a; ik. DE, 471.orr.

TG 254

1897-VII-14

A. Roulland-i

J.M.J.T.

Jesus †

Lisieux-eko Karmel, 1897ko uztailak 14

Neure neba:

Zure azken gutunean (atsegin handia egin didan gutunean) hau esaten didazu: "Hitz egiten ikasten ari den *haurtxoa* naiz"¹. Bada, duela bostpasei astedanik ni nire "loloz"² bakarrik bizi den *haurtxoa* naiz, baina laster joango naiz zeruko oturuntzan parte hartzera, betiko bizitzako uretan neure egardia asetzera! Gutun hau jasotzen duzunerako, seguraski, jadanik lurra utzia izango dut. Jaunak, mugagabeko errukiaz, bere erreinua irekiko dit eta haren altxorak erabili ahal izango ditut, maite ditudan arimei emateko. Ziur egon zaitez, ene neba, zure arrebak bere agintzariei eutsiko diela, eta bilduki hilkoraren zamatik aske den haren arima gogoz hegaldatu delako dela zu ebanjelizatzen ari zaren urruneko lurraldeetara. Ai! ene neba, lurrean baino zeruan onuragarriago izango natzaizula susmatzen dut, horrexegatik iragartzen dizut neure zorioneko hirian egin behar dudan sarrera. Ziur nago nire atseginean bat egingo duzula eta Jaunari eskertuko diozula zure lan apostolikoetan egoki lagun diezazudan bitartekoak eman dizkidalako.

Lk 22,30

Ap 7,17

Mt 18,10

Ez dut uste Zeruan ezer egin gabe egongo naizenik. Nire nahia Elizaren eta arimen alde lan egiten jarraitzea da; Jainkoari eskatzen diot eta ziur nago entzungo didala. Ez daude, bada, aingeruak gutaz arduratzearren beti lanpeturik, jainko-aurrepegiari begiratzea sekula utzi gabe eta Maitasunaren itsasertzik gabeko ozeanoan murgilduz³? Zergatik ez dit Jesusek utziko hauen antzera egiten?

Ene neba, ikusten duzunez, gudu-zelaia uzten badut ere, ez da atsedean hartzeko asmo norberekoiatz; betiereko zorionaz pentsatzeak ozta-ozta ikara eragiten dio nire bihotzari. Aspaldidanik, sufrimendua nire zeru bilakatu da behealde honetan, eta zaila egiten zait benetan ulertzea, nola egingo ote naizen tristuraz nahasi gabeko alaitasuna nagusi den herrialde batera. Jesusek nire arima eraldatu eta gozatzeko ahalmena eman beharko dio; bestela, ezingo ditu betiko atseginak jasan.

Zeruko erreinura erakartzen nauena Jaunaren deia da, behin betikoz betidanik nahi izan dudana bezala maitatzeko itxaropena, eta beti bedeinkatuko duten milaka arimaren ordeiz maitaraziko dudala pentsatzea.

Ene neba, orain ez duzu niri zerurako mandaturik emateko astirik, baina igarri egiten dut eta gainera, isil-misilka esatea besterik ez duzu, entzungo dut. Zure mezua Jaunari eramango diot, gure Ama Garbiari, aingeruei eta maite dituzun santuei. Martiritzaren palma-adarra eskatuko dut zuretzat eta zugandik hurbil egongo naiz eskuari eutsiz, aintzazko palma-adar hori ahalegin handirik gabe jaso ahal

¹ "Hona hemen haur txiki bat bezala, hitz egiten ez dakidala eta kristau-familia batekin hizkuntza ikasten" idazten zion A. Roulland-ek Teresari (LC 178, 29/4/1897).

² Mendekoste ondoren Teresa esne hutsez bizi da.

³ Ik. Adminjon, op. cit., 302.orr eta KH 17.VII.

dezazun, eta gero, pozarren eta biok batera zeruko erreinurantz hegaldatuko gara, konkistatu dituzun arima guztiez inguraturik.

Ikusi arte, ene neba, erregutu asko zure arrebaren alde, erregutu *gure Amaren alde*, haren bihotz amatiar eta sentiberari hain gogor egiten baitzaio nire joatea. Zuregan itxaroten dut hura pozteko.

Betikotasun guztirako zure arreatxoa naiz

Teresa Jesus Haurrena [eta] Aurpegi Santuarena
lek. karm. apal.

TG 255

Guérin Jaun-Andreei

1897-VII-16

J.M.J.T.

Jesus

1897ko uztailak 16

Neure osaba-izeba maiteak:

Oso pozik nago zuen Teresaxok oraindik erbestea ez duela utzi erakutsi ahal dizuedalako, eta badakit honek poz handia emango dizuela. Hala ere, nire osaba-izeba maiteak, zuen gozamina are eta handiagoa izango dela uste dut, esku dardartiz idazten ditudan lerro hauek irakurri beharrean, nire arima zeuenaren ondoan senti dezazuenean.

Bai, ziur nago Jainkoak eskubeteko bere graziak zuengan, nire ahizpatxo Joanangan eta bere Frantzisko maitearengan isurtzen utziko didala: haientzak zeruko kerubinek ederrena hautatuko dut, eta Jesus onari Joanari emateko eskatuko diot, "pontifize eta santu handia"¹ izatera iritsi dadin. Ez badit entzuten, nire ahizpatxoak behealde honetan Ama izateko itxaropena bertan behera utzi beharko du, baina zeruan "Jaunak *ume askoren ama* izatearen gozamina emango diola"² pentsatuz poztu beharko du, *Espiritu Santuak zin egin zion bezala*, idatzi berri ditudan hitzok errege profetaren ahotik kantatuz. Seme horiek, bere sakrifizio onartuak graziaren bizitzara jaioraraziko zituen arimak lirateke; baina *neure kerubina* lortuko dudan uste handia dut, hau da, *kopia* zehatza den arima txiki bat; bada, berak ere ez bailuke onartuko kerubin bat zerutik erbesteratzea, ezta ama baten xera gozoak jasotzearen ere!...

Sal 112,9

Gutun honetan, esan nahiko nukeen guztia esateko lekurik ez dudala konturatzzen naiz. Ene osaba-izeba maiteak, zuek hain hunkigarri edo hobeki esan, zeuen lore-sortekin hain arranditsu egin duzuen neure gaur goizeko jaunartzeaz³ hitz egin

¹ Ik. TG 152, 2.oharra.

² Ik. TG 178, 6.oharra.

³ Ik. KH 15.VII.3 eta DE, 702.orr.

nahi nizuen xehetasun guztiz. Nire ahizpa Maria Eukaristiarenak xehetasunak kontatu diezazkizuen utziko dut, eta zera esan nahi dizuet bakarrik, gaur goizerako idatzi ditudan koplaxo batzuk kantatu dituela jaunartze aurretik⁴. Jesus nire bihotzean zenean, berak "Maitasunez bizi"ren ahapaldi hauxe kantatu du: "Maitasunez hiltzea, martiritza ezin gozoagoa!". Ezin dizuet esan zein zoli eta garbia zen haren ahotsa; niri atsegin egitearren, ez zuela negarrik egingo zin egin zuen, nire itxaropena gainditua zegoen. Jesusek ondo baino hobeto *ulertu* behar izan du berarengandik itxaroten dudana, eta horixe da hain zuzen nik nahi nuena!...

Badakit ene ahizpek nire pozaz hitz egiten dizuetela; egia da, txonta baten antzera nago, sukarra dudanean izan ezik. Zorionez, sukarra ez datorkit arratserarte, txontek burua hegapean gorderik lo egiten duten ordurarte. Ez nintzateke hain pozik egongo, Jainkoak ez balit erakutsiko munduko zorion bakarra bere borondatea betetzea dela. Batzuetan, zeruko ate aurrean naizela iruditzen zait Cornière Jau-naren ikara-aurpegia ikustean, eta biharamonean, poz-pozik doala ikusten dut zera esanez: "Tira, sendatze-bidean zoaz". Nik (*bularreko*⁵ umetxo gaixoa) ez deritxot sendatuko naizenik, baina bai tankera honetan luzaro *jarrai* dezakedala oraindik.

Agur, ene osaba-izeba maiteak, zeruan bakarrik adierazi ahal izango dizuet nire maitasun guztia; nik aurrerantz egiten badut ere, nire arkatzak ezingo du.

Zuen alabatxo

Teresa Jesus Haurarena
lek. karm. apal.

TG 256

1897-VII-16(?)

Ahizpa Marta Jesusenari

J.M.J.T.

Neure ahizpatxo maitea:

Une honetan zure urtebetetze egunean¹ ez zintudala zoriondu gogoratu naiz. Ene, sinetsiez ahazte honek *bihotza urratu* didala, hain gogotsu eskainiko nizun egun horretan apaltasunari buruzko otoitza²! Ez dut oraindik kopiatzea bukatu, baina laster izango duzu.

Gutuntxo hau zuri bidali gabe lorik egitea lortuko ez zuen zure bizki³ txikia.

Teresa Jesus Haurarena
lek. karm. apal.

⁴ "Nire txikitasuna ezagutzen duzun horrek" (PS 8); DE, 469.orr.

⁵ TG 254, 2.oharra.

¹ Ahizpa Martak 32 urte betetzen ditu uztailearen 16an.

² "Apaltasunaren aldeko otoitza", Teresak konposatua (Otoi. 20).

³ Teresa eta Marta bizkiak dira ia-ia beren profesari dagokionez, hamabost egunen alde dute: 1890ko irailaren 8tik eta 23ra bitartekoa.

TG 257
1897-VII-17

Leoniari

J.M.J.T.

Jesus †

1897ko uztailak 17

Neure Leonia maitea:

Oso pozik nago oraindik zurekin hitz egin ahal izateaz; duela egun batzuk ez nuen uste tankera honetako pozik izango nuenik jadanik lurrean, baina badirudi Jainkoak oraindik nire erbestealdia luzatu nahi duela. Ez naiz horregatik nahigabetzen, ez bainuke neure borondatea dela eta zeruan minutu bat bera ere aurretik sartzea nahi. Lurrean den zorion bakarra Jesusek ezartzen digun zatia beti zoragarritzat jotzen saiatzea da. Zurea oso ederra da, ene ahizpatxo maitea: santa izatera heldu nahi baduzu, oso erraz lortuko duzu, zure bihotzaren sakonean mundua ez baita ezer zuretzat. Guk bezala, beraz, "beharrezkoa den gauza bakarraz" arduratu ahal izango zara, hau da, kanpoko lanetan gogotsu aritu arren, zure helburu *bakarra* Jesusi atsegin ematea eta Jesusi barru-barrutik lotzea izango da.

Sal 15,6

Lk 10,41

Zeruan Bihotz Sakratuari zure alde erregu diezaiodan nahi duzu; ziur egon zaitezke ez zaidala zure mandatua ematea eta *santa handi* izateko behar duzun gutzia eskatzea ahaztuko.

Agur, ene ahizpa maitea. Nire zeruan sartzeko pentsamenduak poztu zaitzan nahiko nuke, horrela gehiago maitatu ahal izango baitzaitut.

Zure ahizpatxo, Teresa Jesus Haurarena

Hurrengo batean idatziko dizut astiroago, orain ezin dut eta. Umeak lolo¹ egin beharra baitu.

TG 258
1897-VII-18

Bellière apaizgaiari

J.M.J.T.

Jesus †

1897ko uztailak 18

Neure nebatxo maite eta gaixoa:

Zure saminak *sakonki hunkitzen*¹ nau, baina ikustazu zein ona den Jesus. Zu pozten saiatzeko idatz diezazudan uzten du, eta seguraski, ez da azken aldia izango.

¹ Ik. CG, 1038+c.orr.

¹ 253. gutuna jasotzean eta Ama Maria Gonzagarenaren beste gutun "samingarri" bat, Bellière apaizgaiak honela idazten dio azken honi: "Begira, gaitz handi batek jotzen gaituenean bezala negar egiten dut"

Salbatzaile gozo honek zure otoitz eta kexuak entzuten ditu, eta arrazoi horrexegatik uzten nau oraindik lurrean. Ez uste izan horregatik nahigabetzen naizenik. Oi! ez, ene neba, bestela da, Jesusen jokaera honetan ikusten baitut zein maite zaituen!...

Egia esan, oso gaizki azaldu nintzen neure azken gutuntxoan, “*zoriona* hurbiltzean nik sentitzen dudan *poza* sentitzea ez eskatzeko” esaten didazu eta. Ai! unetxo batez bada ere, nire ariman irakurtzerik bazenu, bai harrituko zinatekeela²! Ez da zeruko zorionaz pentsatzeak ez didala gozamenik eskaintzen, beste hau galdearazten didala baizik, ea nola izango ote naizen zoriontzu sufritu gabe. Jesusek, seguraski, nire izaera aldatuko du, bestela, sufrimenduaren eta negar-herriaren falta nabarituko dut. Sekula ez nion Jesusi gazterik hiltzea eskatu, koldarkeria irudituko zitzaidan eta; baina berak haurtzarotik eman dit, nire behealde honetako ibilera laburra izango zelako ustea. Horrela, bada, Jaunaren borondatea betetzen dudala pentsatze hutsa da nire alaitasunaren arrazoi guztia.

Oi, ene nebatxoa, zein gogotsu isuriko nukeen zure bihotzean poztasunaren gantzukia! Ezin dut Jesusen azken afarian erabilitako hitzez jabetzea besterik egin. Ezin du hori gaizki hartu, bere emaztetxoa bainaiz, eta beraz, haren ondasunak nireak dira³. Jesusek bere adiskide minei esaten zien bezala diotsut: “Aitarengana noa... baina era honetan mintzatu natzaizuelako zuen bihotzak goibeldu egin dira. Hala ere, egia diotsuet, ongi datorkizue ni joatea. Orain tristuraz beterik zaudete, baina

Jn 16, 5-7

(17/7/1897). Eta nahigabezko gutun hau zuzentzen dio Teresari: “Oi! Ene arreatxo gaixoa, hau ezbeharraren nire bihotz gaixoarentzat! Ez zegoen nire bihotza honetarako prest! Ez eskatu honi hurbiltzen sentitzen duzun zorion horren alaitasunik. Bere katea astunari loturik eta bere gurutzeari gogor josirik dago. Zu bazoaz, ene arreatxo maitea, eta hura bakarrik gelditzen da berriro ere. Ama eta familiaz gain, nire bihotza bere arreberen bihotzeko maitasunean oinarritzen zen, barne-harremetan santu honetara ohitua zen. Oso pozik zegoen (oi! benetan pozik) kontsolatzen, indartzen edo adorea ematen zion adiskide-esku hau bere ondoan sentitzeaz. Gurutz-bidean irribarretsu zihonan aurrerantz, bere burua ez zuelako bakarrik ikusten. Pozik bizi zen eta basamortura joateko asmo beroz zen, laguntza izango zuen itxaropena zuelako. Lurrean zuten afektu bakarrenekin hausteko asmoa zuen, Jesusek eman zion lurreko aingeru batek haren hutsunea beteko ziolakoan. Eta hona non Jesusek kentzen dion ondasun hau, gehien irrikatzen zuela zirudienean. Oi! Zein gogorra den, zein latza den Jainkoarengan ongi oinarriturik ez dagoen arimarentzat! Hala ere, egin bedi!, egin bedi!, zu, ene arrebak, betiko zoriontsu izango zara eta. Bai, hori bidezko da, eta ni burugin bat naiz. Zoaz, arreatxo, ez ezazu Jesus luzarago itxaroten eduki, zu beregana eramateko irrikatzen dago eta. Utz iezadazu niri borroka egiten, gurutzea eramaten, haren zamapean erortzen eta nahigabez hiltzen. Zu, berriz, han izango zara nire ondoan, halaxe hitz eman didazu eta uste hori dut; hauxe da nire azken itxaropena oraingo eta geroko. Zu nirekin izango zara, niregandik hurbil. Zure arimak zuzenduko du nirea, hark hitz egingo dio eta poztuko du, nire kexuengatik haserre egongo den Jesusek eragozten ez badio behintzat. Baina zu, arreatxo, Jesusen alaba kutuntxoa, haren emazte egina, harekin batera erregina, zeuk irabaziko duzu nire auzia eta Jesusengana erakarriko nauzu azken egunean. Zuk badakizu nola, biderik lasterrenetik, martiritzaren bidetik, hark hala nahi badu. Maisuari eskerrak damaizkiot, ikasgai berri baten bidez, iragankor den oro uzten eta Jainkoari bakarrik begiratzen erakusten didalako.

Joan zaitez, beraz, Jainko onaren arreatxo maitea, nirea ere bazaren arreatxo hori. Esaiozu Jainkoari maitatu nahi dudala, gartsu, bihotz-bihotzez, erakuts iezadazu zeuk egiten duzuna egiten, esaiozu Mariari bihotz-bihotzez maite dudala. Eta ezagutzen dituzun nire santuei hitz egiezu nire maitasunaz, eta Jesusen santa begiko bihurtu behar duzun nire arrebak horrek, bedeinka nazazu, salba nazazu (...). (LC 189, 17/7/1897).

² Teresak orain dela hamabost hilabetez gero jasaten duen fede-proba ez da biguntzen: “Zerura darama dena” (KH 3.VII.3).

³ Ik. C Esk, 34ⁱ.

ikusiko zaituztet berriro, eta zuen bihotzak poztu egingo dira, eta inork ezingo dizue zuen gozamina kendu”.

Bai, ziur nago horretaz: ni bizitzan sartu ondoren, *nire neba maitearen* tristura inortxok ere kendu ahal izango ez dion poztasun barea bihurtuko da. Halaxe uste dut, bide beretik joan behar dugula zerura: maitasunari lotutako sufrimenduarenetik. Portura hel nadinean erakutsiko dizut, ene neba maitea, nola nabigatu behar duzun munduko itsaso ekaiztsuan: ordu arriskutsuan bakarrik ez duela utziko eta bere aitak maite duela dakien haurtxo baten maitasun eta buru-uztean.

Ai! zein atseginez ulertaraziko nizukeen Jesusen Bihotzaren samurtasuna, Jesussek zutaz itxaroten duena! Zure 14⁴ ko eskutitzak gozoki dardar eragin zion nire bihotzari. Inoiz baino areago ulertu nuen, zein punturaino den zure arima nirearen ahizpa, maitasunaren IGOGAILU bidez Jainkoarenganaino igotzera deitua baita, eta ez inola ere, beldurraren *eskailera* latzetik. Ez nau batere harritzen zuri nire Jesusenganako etxekotasuna egia bilakatzea zail samarra iruditzea; etxekotasun horretara ezin da egun baten iritsi, baina ziur dakit askoz gehiago lagunduko dizudala bide gozo honetatik joaten, nire bildukin hilkorretik askatzen naizenean, eta laster zera esango duzu san Augustinen antzera: “Maitasuna da narrasean naraman pisua”⁵.

Konparazio erraz baten bidez⁶, ulertarazi nahi nizuke Jesussek beregan uste osoa duten arimak maite dituela, baita inperfektuak badira ere. Egin dezagun aita batek bi seme esantzarreko eta bihurri dituela, eta hauek zigortzerakoan, seme bat dardarka hasi eta beregandik urruntzen ikusten duela, bihotzaren sakonean benetan zigortua izatea merezi duela agertaraziz; haren anaia, ordea, aitaren besoartera hurbildu eta honi atsekabe emateaz damutzen dela diotso, maite duela eta hori horrela dela agertzeko, aurrerantzean ona izango dela. Seme honek aitari musu bat emanez zigortzeko eskatzen badio, ez dut uste zorioneko aita horren bihotza haren seme-konfiantzaren aurrean bigunduko ez denik, haren zintzotasun eta maitasuna ezagutzen baititu. Ez du ahaztuko, hala ere, bere semeak behin eta berriro huts berberak egingo dituenik, baina beti barkatzeko prest egongo da, semeak bihotza irabazten baldin badio... Lehenengo semeaz ez diotsut ezer, ene neba maitea, ulertuko duzu aitak bigarrena bezain maite izango duela eta erruki berberaz tratatuko duela.

Baina, zergatik hitz egiten dizut konfidantzazko bizitzaz eta maitasunaz? Hain gaizki azaltzen naiz, non zeruaren zain egon beharko baitut zorioneko bizitza honetaz zurekin hitz egin ahal izateko. Gaur egin nahi nuena zu poztea zen. Ai! zein zoriontsu nintzatekeen, nire heriotza Ama Aines Jesusenak bezala onartuko bazenu! Beharbada, ez duzu jakingo Ama Aines bi aldiz dela nire ahizpa eta haurtzaroko ama izan nuela! Gure Ama *ona* beldur zen, haren izaera sentibera eta niri didan maitasuna dela-eta, ez ote zitzaion mingots gertatuko nire joatea. Alderantziz gertatu da, ordea. Nire heriotzaz festa bat izango bailitzan hitz egiten du, eta hori kontsolamendu handia da niretzat.

Zinez eskatzen dizut, ene neba maitea, Ama Ainesen antzera saiatu sinesten, ni galdu ordez, *aurkitu* egingo nauzula, eta jadanik ez zaitudala gehiago utziko.

⁴ Uztailaren 15koa; ikus TG 247, 6.oharra.

⁵ San Augustin, “Aitorkizunak”, 13, 9.

⁶ Ik. TG 191.

Eska ezazu grazia bera hainbeste maite duzun eta zuk baino ere nik maiteago dudan Amarentzat, bera baita nire agiriko Jesus.

Atsegin osoz emango nizuke eskatzen didazuna⁷ pobretasun-botoa egin izan ez banu, baina hala egin dudanez gero, ezin dut iruditxo bat bera ere eduki. Eskari horri erantzun diezaiokeen bakarra gure Ama da, eta badakit berak aseko duela zure nahia. Hain zuzen ere, neure heriotzaren aurrean, ahizpa batek argazkia egin zidan gure Amaren festa egunean. Nobiziek ikusi nindutenean, argazkian jarrera serioa⁸ hartu nuela esan zidaten; dirudienez, normalean irribarretsuago agertzen naizelako; baina sinestazu, ene neba, nire argazkiak ez badizu irribarre eragiten ere, nire *arimak* ez diola *irribarre* egiteari utziko zuregandik hurbil nagoenean.

Agur, *ene neba maite-maitea*, ziur egon betikotasun osoan zure *benetako arrebatxoa* izango naizela.

Teresa Jesus Haurrarena
lek. karm. apal.

TG 259

1897-VII-22

Ahizpa Jenofari

J.M.J.T.

Jesus †

Santa Madalenaren jaia, 1897ko uztailak 22

Sat 140,5

“Zigor nazala zuzenak bekatarienganako errukiz; baina gaiztoaren ukenduak ez dezala nire burua lurrindu”.

Zuzenak direnek bakarrik jo eta proba nazakete, nire ahizpa guztiak dituelako atsegin Jainkoak. Mingostasun gutxiago du bekatari batek jotzeak, zuzena denak jotzeak baino; baina pekatarienganako errukiagatik, hauek konbertitzeagatik eskatzen dizut, oi ene Jainko, inguruan ditudan arima zuzenek zigor nazaten. Eta beste hau ere eskatzen dizut: naturarentzat hain gozoa den laudoriozko ukenduak ez dezala nire burua, hots, nire izpiritua lurrindu, ia-ia sekula praktikatu ez ditudan bertuteak ditudala sinetsaraziz.

Kt 1,2

Oi Jesus, zure izena isuritako ukendu baten antzekoa da; jainko-lurrin hone-tantxe bainatu nahi dut oso-osorik, gizakien begiradetatik urrun...

⁷ Bellière apaizgaiak uztailaren 17an hau idatzi zion Teresari: “Utz iezadazu, mesedez eskatzen dizut, zurea den zertxobait; zeure gurutzea, nahi baduzu” (LC 189).

⁸ *Visage de Thérèse de Lisieux*, 43. zenb., ekainaren 7ko hirugarren argazkia. Teresa zuzen-zuzen jartzen da bere nekea menderatzeko; ik. TG 243, 1.oharra.

TG 260

1897-VII-24/25 (?)

Guérin Jaun-Andreei

J.M.J.T.

Teresa txikiak bihotzez eskertzen dio bere Izeba maiteari honek bidali dion eskutitz polita. Osaba maiteari ere eskerrak damaizkio berari idazteko izan duen gogoagatik; eta bere ahizpatxo Leoniari, liluratzen duen bere buru-uzte eta maitasun sendo-sendoagatik.

Teresa txikiak opariak bidali dizkie beretar guztiei (ene! bera bezain iraungikorrek diren loreak...).

(Loreak banatzeko azalpen oso serioak)

Nire Osabarentzat pentsamendu bat doa eta beste bat nire Izebarentzat (nire bihotzeko lorategitxoan beraientzat ermetzen diren guztiak kontuan hartu gabe).

Bi Arrosa-kapuluak Joana eta Frantziskorentzat dira; bakarrik dagoena, berriz, Leoniarentzat.

Lore hauen bidez Teresatxok Espiritu Santuaren Fruitu guztiak eta batez ere, Zorionarena, bidali nahi lizkieke bere guraso maiteei!

TG 261

1897-VII-26

Bellière apaizari

J.M.J.T.

Jesus †

1897ko uztailak 26

Neure nebatxo maitea:

Zein atsegin izan dudan zure gutuna!¹ Jesusek zure otoitzak entzun baditu eta otoitz horientatik luzatu baldin badu nire erbestealdia, bere maitasunez nireak ere entzun ditu, zuk diozun bezala, "nire presentzia eta nire ageriko ekintza" galtzeko

¹ Hona hemen gutun luzearen zati bat: "Nire arrebatxo on eta maitea. Lortu dut, eta oi! zein erraz izan den... Badaukat zure argazkia (...) Zure hitzetan "itxura serioa hartu" duzula esaten didazun arren, nik aurretiaz ezagutzen zintudan bezain maitakor, onbera eta irribarretsu aurkitu zaitut. Mila esker ia benetan neure ondoan, beti neurekin izateko zoriona opa didazulako. Zer izango ote da zure arimak aurpegikera hori biziartzaz dezanean, nireari irribarre eginez eta haren bizitzaz bizi izanez? Hori jadanik zerua izango da. Eta oraindik zorigaitzekoa izateko aukerarik izango ote dut, bada? Izan ote daiteke sufrimendurik txikiarik, Zeru zati batek bizitza osoa argiztatzen duenean! Baina badakizu, Jesusek nik eman dizkiodan atsekabe guztiak eta nire miseria guztiaren berri emango dizun beldur naiz eta zure samurtasuna ez ote den hoztuko. Ez dakizu ongi zein errukarria naizen! Hau horrela gertatuko balitz, itxi iezaiozu ahoa eta etor zaitez nigana, zu gabe ezin baitut zutik iraun (...). Zu nirekin etorriko zara, beraz, Afrikara, nobiziatuara lehenengo (...). Eta hiru urteren buruan, basamortura joan eta misiolariak izango gara. Han zu aukera-aukeran izango zara. Sufrimendurik ez da faltako, baina ni zure ordezkaria izango naiz eta zuk ez duzu gehiago sufritzerik izango (...).

prest baitzaude. Ai! Utz iezadazu esaten Jainkoak zure arimari ezusteko oso gozoak gorde dizkiola! Arima hori, esaten didazunez, "naturaz gaindiko gauzei asko ohitu gabe dago", eta nik, zerbaiterako naiz zure arreba eta, hitz ematen dizut: betiereko bizitzarantz irten nadinean, norberegandik hurbil beste arima lagun bat sentitzeak zein nolako zoriona ematen duen ezagutaraziko dizudala. Harreman hau ez da beti urrutikoa izango, beti osagabea, eta faltan botako duzula dirudiena, aingeruei atsegin izango zaien anaiarteko elkarriketa, gizakiek zentsurarik ezin jarri izango dioten elkarriketa baizik, haientzat ezkutuan egongo baita.

Ai! zein eder egingo zaidan hondakin hilkor honetatik askatzea, hark nire neba maiteari, gertaeraren bat dela-eta jende askoren artean aurkituko banintz berarekin, arretarik gabe eta erbesteko bati bezala begiratzera behartuko baininduke!... "Egiptoko tipulak" falta zitzaizkiela eta kexu ziren hebreoak ez imitatzeke eskatzen dizut, ene neba. Garai batetik hona egosi gabe begietara hurbiltzean *negar* eragiten duten barazkirik aski zerbitzatu dizkizut.

Orain, nire ametsa Ahalguztidunak "garaileari" ematea promes egin duen "ezkutuko mana" (Apokalipsia) zeurekin batera jatea da. Ezkutaturik dagoelako

Zen 11,5

Ap 2,17

Jesusi eskerrak eman nahi dizkiot, gugatik bizirik iraunarazten dizulako. Bai, egia da, asko maite gaituela! Ozenki otoitz egin diot, eskatu egin diot, garrasika egin diot,... gure negar-malko eta sufrimenduei jaramon egin die... eta hala ere, etsita nengoen. Lehenengo, minaren oldarra izan zen nabarmendu zena, baina gero, berehala, barealdia etorri zen. Azkenik, zure antzera pentsatu dut eta bai, onuragarria da joan zaitezten, eta gainera, horela niregandik hurbilago izango zara. Baina hara: zure presentzia, edo zure ekintza, ez da orain bezala sentigarria izango eta nik, naturaz gaindiko gauzetara hain gutxi egina nagoen honek, ez dakit nola sinetsi nire ekintzetan are eta hurbilago egongo zarela. Ez dio axola, honezkerok ez naiz kexu, prest nago zure agurrerako; beharbada hain berehalakoa ez dela iango dirudielako, oraindik bizirik zaude eta.

Pozik zaude, arreba maitea, konfiantza bidez Maitasunean sartzen ikusten nauzulako. Portura eraman nazakeen bide bakarra dela uste dut, zuk bezala. Gizakiekiko neure harremanetan, ez dut sekula beldurragatik ezer egin. Sekula ezin izan dut beharturik esana egin. Irakasleen zigorrek ere hotz-hotz uzten ninduten; maitasunez eta gozotasunez egiten zizkidaten zentzarazteek, ordea, negar-malkoak ateratzen zizkidaten. Zentzarazpen gozo eta maitasunezko hauek barkamena eskatzera eta asmo onak agertzera eramaten nindut, gehieneta bete egiten nituen asmo onak. Jainkoarekin ere berdintsu gertatzen zait. Haserre agertzen bazait, eskua beti jotzeko prest duela, etsipenak hartzen ninduen eta ezer ere ez nuen egiten. Baina Jesus ni bereganatzen nauena ez da Jesus, ni neu baizik. Lotsatu egiten naiz neure buruaz eta lagun honen besoartera joan beharrean, haren oinetan makurtzen ausartzen naiz ozta-ozta. Sarritan, eragin batek haren besoetara bultzatzen nau baina berehala gelditzen naiz, neure miseria gogoan izanik, ez naiz ausartzen. Gaizki egiten ote dut? esaidazu, ere arreatxoa. Jainko-Bihotza askoz ere tristeago dagoela uste dut bere adiskideen milaka koldarkeria txiki eta leialtasunik ezagatik, naturari ere ihes egiten dioten beste bekatuengatik baino, baita bekatu larriak badira ere. Ulertzen didazu eta zuk eskuzabal egingo nauzu, Jesusesekin zintzo-zintzoa.

(...)

Zuri eta zure familiari esker jakin dut nik Lisieux-eko Karmelen berri. Lisieux-eko nire lagun batzuk, behin, Martin izeneko familia bati buruz mintzatzen ari ziren, Karmeli hiru alaba eta beste hainbat senide eman zizkiola esanez. Alabatariko bat 15 urtekin sartu omen zen, beste bat, aita zorientzua azkenerarte ezin hobeki zaindu ondoren. Ni bertan nintzen eta geroago, Karmeli arreba bat eskatu nahi niolarik, nora jo nezakeen bila aritu ondoren, Lisieux-en bazela Karmel bat gogoratu nintzen. Eta hara nola diren gauzak: zure ahizpak hartu ninduen eta zu zeu, zure entzutea bakarrik nuen nik, izan zinen nire arreba izateko emana. Zure 'datak' jaso nituenean, bat zetozten gauza batzuk zeharo harritu ninduten eta neure ondorioak ateratu nituen. Oker ote nago? Ez al zara zu munduan Jenofa Martin andereñoa deitzen zena? Barka eskatzen dizut neure zuhurtziarik ezagatik, baina zeuk irakatsi didazu ezkutuan ezer ez gordetzen. Hona hemen! Berriro, barkatu". (LC 191, 21/7/1897).

bakarrik, zeruko *mana* hau erakargarriagoa da “Egiptoko tipulak” baino; baina ziur nago, oso-osorik izpirituala den janari bat eskaini ahal dizudan uanean, ez duzula gehiago faltan botako oraindik lurtean geldituz gero emango nizukeen janaririk.

Ai! zure arima handiegia da behealde honetako inolako kontsolamenduri atxikitzeko! Aurretiaz bizi behar duzu zeruan, Jesusek esan baitzigun: “*Zure altxorra non, han bihotza ere*”. Ez al da *Jesus* zure altxor bakarra? *Jesus* zeruan denez gero, hantxe bizi behar du zure bihotzak ere. Eta apaltasun osoz diotsut, ene nebatxo maitea: errazagoa egingo zaizula Jesusekin bizitzea, iruditzen zait, ni betiko harengandik hurbil egon nadinean.

Mt 6,21

Oso gaizki ezagutu behar nauzu, zure falten kontakizun zehatzak, zure arima-gatik sentitzen dudan samurtasuna urritu egingo duen beldur bazara. Oi, ene neba, sinestazu, ez dut “*Jesusi ahoa eskuz itxi beharrik izango*!”. Jesusek zure leialtasunik eza aspaldidanik du ahaztua, zure perfekzio-nahia du gogoan bere bihotza pozteko. Haren *oinetara* gehiago ez *makurtzeko* erregutzen dizut, jarrai iezaiozu “haren besoetara zaramatzen lehen eragin horri”. Horixe da zure lekua, eta gutun honetan besteetan baino argiago ikusi dut, zure arreba gaixoaren bidea ez den beste batetik zerura joatea *debekaturik* duzula.

Zure antzekoa naiz guztiz, “*Jainko-Bihotza tristeago dago bere lagunen fintasun ezagatik, munduko pertsonak egiten dituzten falta larriengatik baino*”. Baina, ene neba maitea, uste dut hori beretarrek, beren fintasun gabeziak konturatu gabe, haietaz ohitura egiten dutenean dela eta barkamenik eskatzen ez dutenean; *orduan* esaten ditu Jesusek Aste Santuan zehar Elizak gure ahotan jartzen dituen hitz hunkigarriak: “Eskueta ikusten dizkidazuen zauri hauek, *maite* nindutenen etxean jaso nituenak dira”.

Za 13,6

Maite dutenei dagokionez, eta faltaren bat egin dezaten bakoitzean barka eske haren besoetan beren burua utz dezatenean, *Jesus* hunkiturik gelditzen da pozez. Aingeruei, seme galduaren aitak bere zerbitzariari esan ziena diotse: “*Jantz iezaiozue bere jantzirik dotoreena, erants iezaiozue hatzean eraztuna eta poztu gaitzen*”. Ai! ene neba, zein gutxi ezagutzen diren *Jesusen ontasuna* eta haren *maitasun errukitsua!*... Egia da altxor hauetaz gozatzeko, apaldu egin behar dela, norbere ezereza aitortu, eta horixe da, hain zuzen ere, arima asko eta askok egin nahi ez dutena; baina, ene nebatxoa, zuk ez duzu horrela jokatzeko. Horregatik, maitasuneko eta konfiantza apalezko bidea zuretzat oso ongi egin dago.

Lk 15,22

Jainkoarekin *apala* izan zaitezen nahi nuke, baina baita... nirekin ere. Harritu egiten al zaitu diotsudanak? Hau diotsut, ene nebatxo maitea, mundu honetan *zure arreba* Jenofa deitzen ote zen jakin nahirik egindako “*zeure arinkeriagatik*” *barka* eskatzen didazulakok?; niri galdera oso arrunta iruditzen zait. Hori horrela dela erakusteko, neure familiari buruzko xehetasun batzuk emango dizkizut, ez baitzaude haien jakitun.

Jainkoak lurrerako baino zerurako duinagoak ziren gurasoak eman zizkidan. Guraso hauek Jaunari seme-alaba ugari izan zitzaizuten eta gero beretzat har zitzaizkaten eskatu zioten. Gurari hau entzuna izan zen. Lau aingerutxok zerurantz hegan egin zuten eta hondarrean gelditu ziren gainerako bost alabek *Jesus* hartu zuten Senartzat. Nire aita, beste Abraham bat bailitzan, *hiru aldiz* igo zen ausardia handiz *Karmel mendira*, maiteen zuena Jainkoari eskaintzeko. Lehenengo haren bi alaba nagu-

Has 22, 2.10

siak izan ziren. Gero, bere hirugarren alabak², zuzendariaren aholkuz eta gure aita paregabeak gidaturik, Bisitazioko komentu batean aproba bat egin zuen. (Jainkoa onarpen honekin kontentatu zen. *Geroago*, mundura itzuli zen, han klaustroan balego bezala bizi izanik). Jainkoak hautatutakoari ez zitzaizkion bi alaba besterik gelditzen, bata hemezortzi urtekoa eta bestea, hamalaukoa. Azken honek, “*Teresa txikiak*”, Karmelera hegan egitea eskatu zion eta bere aitarengandik zailtasun handirik gabe lortu zuen. Aitak lehenengo Bayeux-ra eraman zuen, eta gero Erromara, bere Erregina deitzen zuenaren eskaintza atzera zezaketen oztopoak baztertu ahal izateko. Portura gidatu zuenean, geratzen zitzaion *alaba bakarrari*³ zera esan zion: “Zure ahizpen bidea jarraitu nahi baduzu, onartzen dut, ez zaitez nitaz arduratu”.

Halako santuaren zahartzaroa zaindu behar zuen aingeruak, aita *zerurantz irte-ten zenean*, berak ere klaustorantz hegan egingo zuela erantzun zion eta mezu honek poz handia eman zion Jainkoarekin bakarrik bizi zenari⁴.

Baina bizitza eder honek, hain bertute handiaren duin den proba batez koroatua izan behar zuen. Ni joan eta laster, hain merezimendu handiz maite genuen aita, zangoetako elbarritasunak jo zuen, atake hori hainbat aldiz errepikatu zelarik; baina ez zen guztia hor bukatu, horrela proba oso leuna izango baitzatekeen, eta patriarka ausartak Jainkoari eskaini zion bere burua oparigai gisa. Horregaitik, elbarritasunak bidea aldatu zuen eta Jaunak oparigaitzat onartu zuenaren buruan ezarri zen⁵.

Ez zait jadanik lekurik gelditzen beste zenbait xehetasun hunkigarri kontatze-ko; hau esan nahi dizut bakarrik, kaliza azken hondarrerarte edan behar izan genuela eta gure aita agurgarriarengandik hiru urtez banandu behar izan genuela, esku erlijioso baina ezezagunetan utziz. Aitak onartu egin zuen proba hau, horrek berekin zekarren apalkuntza guztiarekin, eta heroismoak, ez sendatzea eskatzeraino eramanean zuen.

Agur, ene nebatxo maitea, nire eskuko dardara gehitzen ez bada, berriro idatziko dizudala uste dut, gutun hau ere zenbait aldartetan idatzi beharrean izan bai-naiz.

Zure arrebatxo, ez “*Jenofa*”,

“*Teresa*” Jesus Haurrarena [eta] Aurpegi Santuarena baizik.

² Leonia.

³ Zelina.

⁴ Ik. *Histoire d'une Ame* (1989, 347.orr, 23.nota), Ama Ainesek gehitua (1898koa): “Zatoz (dio), goazen batera Sakramentu Santuaren aurrera, Jesusek gure familiari eskaini dizkion graziak eta nire etxean bere emazteak aukeratu izateaz eskaintzen digun ohoreagatik eskerrak ematera. Bai (...) ezer hoberik banu, berehala eskainiko nioke Jesusi. Hobe hau, berbera da! Eta Jaunak erreoparitzat onartu zuen, urrea arragoan bezala probatu zuen eta beretzako duin aurkitu (Jkd 3, 6)”.

⁵ *Ibid.*, 347.orr, 19.oharra. “Oi ene ama, gogoratzen al zara mintzatokira egin zigun bisita hartan nola esan zigun hau: ‘Nire alabak, Alençon-etik nator; han Andre Mariaren elizan grazia handiak jaso ditut eta hain poz handia, non honako otoitz hau egin baitut: Ene Jainkoa! Gehiegizkoa da! Bai, zorionsuegia naiz, ezin da zerura horrela joan, zugaratik zertxobait behintzat sufritu nahi dut! Eta neure burua eskaintzen dut...’ Haren ezpainetan *oparigai* hitza irakur zitekeen; ez zen gure aurrean esaten ere ausartu, baina guk ulertu genuen”.

TG 262

1897-VIII-3

Ahizpa Jenofari

Oi, ene Jainko, zein gozoa zaren zeure maitasun errukitsuaren oparigai txikiarekin! nire arimaren sufrimenduari¹ kanpoko gaineratzen diozun une honetan ere ezin dut esan: "heriotzaren larriak inguratu ninduen", eskerronez oihu hau egin baik: "heriotzaren itzalpeen haranera jaitsiko naiz; hala ere, ez dut inolako gaitzen beldurrik, zu, Jauna, nirekin zaude eta²!"

Sal 17,5

Sal 22,4

(Neure ahizpatxo Jenofa Santa Teresarena maite-maiteari)

-1897ko abuztuak 3 -. XXII,4. salmoa.

TG 263

1897-VIII-10

Bellière apaizgaiari

J.M.J.T.

Jesus †

Lisieux-eko Karmel, 1897ko abuztuak 10

Neure nebatxo maitea:

Oraintxe bertan prest nago joateko. Zerurako neure txartela jaso dut, eta nire aita izan da grazia hau eskaini didana: 29an, laster berarekin elkartzera joango nintzela hitz eman zidan¹. Biharamunean, medikuak, gaixotasunak bi egunetan aurrera egin duelako harriturik, oliadura emanez nire guraria betetzeko garaia heldu zela esan zion gure Ama onari. Horrela, bada, pozbide hori 30an izan nuen, eta nire bidaia *luzean* bidari gisa hartu nuen Jesus Ostiak niregana etortzeko sagnariora uzten zuela ikusi ahal izan nuen. Zeruko Ogi honek indartu egin nau. Ikusten duzu, nire erromesaldiak ez duela amaitu nahi, dirudienez. Kexatzetik urrun, Jainkoak oraindik bere maitasunagatik sufritzen utziko didalakoaz atsegin dut. Ai! zein gozoa den bere besoartean norbere burua uztea, beldurrik eta guraririk gabe!

Ene nebatxoa, aitortzen dizut ez dugula zerua biok berdin ulertzen². Nik Jainkoaren justizian eta haren santutasunean parte harturik, zure erruak lurtean bezala

¹ Ik. KH 3.VIII.8: "uztailaren 28az geroztik helduko dira sufrimenduak".

² Ik. A Esk. 3^{ai}, hemen testua geroaldian idatzirik dago.

¹ Uztailaren 29a, Martin Jaunaren heriotzaren hirugarren urteurrena.

² Abuztuaren 5ean, Bellière apaizgaiak honela idatzi zion: "Arrebatxo maitea, egia esan, Maisuak nitaz nahi duen guztirako prest nago. Areago oraindik zure hitzetan eta beste bizitzarako dituzun asmoetan *bete-bete*an sinetsirik. Dena dela, arrebatxo maitea, zuk esan nahi duzuna, baina 'tipula gordina' ni inoiz asetzen ez ninduen jaki gozoa zen. Jesus da Altxorra, jakina, baina nik zuregan aurkitzen nuen eta horrela eskuragarriago egiten zait. Oraindik hark zure bitartez nigana etortzen jarraituko du, ez da hala? Zuregan itzaroten dudala guztia esan nahi dut, bai Zeruan eta bai lurtean. Eta nire konfiantza nahiko indartsua izango dela Jesusek estu-estu loturik nirearen ahizpa egin zuen adiskide-arimaren eragin zuzen eta agerikoa itzaroteko, behar dudanean.

ezingo ditudala barkatu uste duzu zuk. Ahaztu egiten al duzu Jaunaren *mugagabeko errukian* ere parte hartuko dudala? Uste dut zorionekoak asko errukitzen direla gure mixeriez; gu bezain ahul eta hilkorrak izanik, falta berberak egin eta borroka berberak izan zituztela gogoratzen dute³, eta beren anaiarteko samurtasuna are eta handiagoa bihurtzen da lurrean zena baino; horregaitik, gu babesten eta gugatik erretgutzen jarraitzen dute.

Orain, ene neba, nire heriotzaren ondoren jasoko duzun *seniparteez* mintzatu behar natzaizu. Hona hemen gure Amak emango dizun zatia: 1. Nire abitua hartzeko egunean jaso nuen eta ordutik niregandik aldendu ez den erlikarioa. 2. Gurutze txiki bat, handia baino askoz maiteago dudana, orain daukadana ez baita eman zidaten lehenengoa. Karmelen sarritan deboziozko gauzak aldatu egiten dira, era ezin hobe baiza inor gauza haietara ez zaletzeko.

Gurutze txikira nator berriro. Ez da polita, Kristoren aurpegia ia-ia ezabaturik dago; ez zara honetaz harrutuko, hamairu urte bete nituenean nire ahizpetariko⁴ batek oparizat emandako gurutze honek leku guztietara lagundu didala esaten dizudanean. Batez ere Italiarako bidaiari oso ederra egin zen niretzat. Gurtzeko zoriona izan nuen erlikia entzutetsu guztiak ukitu nituen berarekin eta zenbat izan ziren esatea ezinezkoa egingo litzaidake; gainera, Aita Santuak bedeinkatu zuen. Gaixorik nagoenez gero, ia uneoro eskuartean daukat gurutzea; eta begiratzean, pozez pentsatzen dut nire musuak jaso ondoren, nire nebatxoarenak eskatzera joango dela. Hona hemen, beraz, zein den zure *senipartea*. Gainera, gure Amak pintatu dudana *azken* estanpa emango dizu⁵.

Hasi behar nuen lekuan bukatzera noa, eskerrak emanez zeure argazkia bidaltzeaz eman didazun *poz handiagatik*.

Agur, ene neba, Jainkoak eskain diezagula bera maitatzeko eta arimak salbatzeko grazia; hauxe da zure arreatxo apalaren guraria

Teresa Jesus Haurrena [eta] Aurpegi Santuarena
lek. karm. apal.

Ene arreatxo liztan eta maite-maitea, nahiko ongi ezagutzen zaitut eta badakit nire miseriak ez liritekeela oztopo izango zure maitasunarentzat behealde honetan, baina erduan, Jainkoaren bat eginiak egotean, zuk justizia eta santutasunaren dohainak erdietsiko dituzu... eta orduan edozein orban ikaragarria irudituko zaizu. Horregatik naiz beldur, baina han Jesusen ume kutuntzua izaten jarraituko duzun itxaropena dudanez gero, lurrean niretzat nahi izango zenukeena egingo duzula pentsatzen dut. Hala sinesten dut eta hala itxaroten dut. Zuregandik itxaroten dut oraindik falta dudana eta biziki irrikatzen dudana *konfiantza maitekorra* ere, horrekin behealde honetan guztiz zoriontsu izan daitekeela eta erbestealdia ez dela hain luze egiten uste baitut.

Zein ona zaren, Arreatxo, ni hain liluraturik eta hitzik gabe uzten nauten tolesgabetasun eta irekiera horrekin! Gizakien artean hori hain nekez aurkitzen ohiturik nago, non batzuetan txunditurik geratzen baina, baina era berean pozez beterik. (...) Esango zenidake nola bihurtu zinen nire arreba ere? Zozketa egin-da ala hartarako hautaturik?" (LC 193, 5/8/1897).

³ Arminjon-ek ere ideia berdintsuak zituen, op. cit., 310s.orr.

⁴ Leonia.

⁵ Ikus TG 266.

(Hartarako hautatua izanik bihurtu nintzen zure arreba.)

Zorionak ematen dizkizut zeure duintasun berriagatik; 25ean, nire aita maitearen festa eguna ospatzen dudan egunean, nire Frantziako Luis⁶ nebarena ere ospatzeko zoriona izango dut.

TG 264**Ahizpa Maria Hirutasunarenari¹**

1897-VIII-12

Neure ahizpatxo maiteari,
bere 23. urtebetetzeko oroigarria. 1897ko abuztuak 12.

Zure bizitza oso-osorik apaltasun eta maitasunezkoa izan dadila,
laster ni noan lekura joan zaitezten, Jesusen besoetara!...
Zure ahizpatxo, Teresa Jesus Haurarena [eta] Aurpegi Santuarena

TG 265**Ahizpa Maria Eukaristiarenari¹**

1897-VIII-22

Neure ahizpa maite Maria Eukaristiarenari bere 27. urtebetzeko oroigarria.
- T. Jesus Haurarena

TG 266**Bellière apaizgaiari¹**

1897-VIII-25

Aurrealdean:

Ezin naiz niretzat hain txikia egin den Jainkoaren beldur izan... nik maite dut!... Jainkoa maitasuna eta errukia besterik ez da eta!

Atzealdean:

Zure arimaren ahizpa denaren azken oroigarria


T. J. H.

⁶ Bellière apaizgaiak Frantziskotarren Hirugarren Ordenan oraintsu hartutako izena.


¹ Familia Santuaren estanparen atzealdean lapitzez idatzitako lerroak.

² San Antonio Paduakoaren estanparen atzealdean lapitzez idatzirik lerroak.

¹ Estanpa baten atzealdean lapitzez egindako eskaintza. Estanpa hau izan zen Teresak pintatu zuen azkena, maiatza-ekaina inguruan. Ik. TG 263.



OLERKIAK



OLERKIEI SARRERA

Olerkiak dira, zalantzarik gabe, *Deboziazko solas-antzerkiekin* batera, Lisieux-ko Teresaren idatzirik ezezagunenak. Haiek gauzatzen dute aurreiritzi eta arrunkeariak asko eta bide eman diote oraindik inguratzen duen milikeria-ospeari, nahiz eta haren pentsaeraren adierazleek, André Combes jaunak, aita Frantzisko Santa Mariarenak, Hans Urs von Balthasar-ek, Jean Guilton-ek, Jean François Six-ek, Konrad De Meester-ek, eta, hasieratik aita Godefroid Madelaine-k, haren mezua ezagutu eta ulertzeko olerkiek duten garrantziaz behin eta berriro ekin.

Ezezagunak, eta batez ere gaizki ezagutuak. Hamabost argitaratu gabe gelditu dira 1979ra arte¹, baina hauetarik lau dira benetan interesgarriak (TO 6, 22, 29 eta batez ere 50.). Beste guztiak agertuak ziren *Arima baten historiaren* antzinako argitalpenetan, sarritan Teresaren pentsaera aldatzen zuten Ama Aines Jesusenak orrazturiko bertsioetan. Gainera 1953 eta 1979a bitartean ez ziren berriro argitaratu.

Arreta pixka batez aztertuz gero, lehenengotan baino aberatsago azaltzen dira, izan ere. Hau baita poesia honen arazoa: adierazpidearen itxura xaloa igaro behar da ezkututzen dituen altxorak aurkitzeko.

Poesia ez da Teresarentzat “apaindura artea”. Ez ditu bertsoak bere atseginerako eratzten; eginbeharrez ez bada, gutxienez zerbitzeko, laguntzeko, adoretzeko asmoz egiten ditu (ik. TG 220, adibidez). Tradizioari jarraitzen zaio, Karmelgo tradizioari. Aitortzen zaion dohaintxoak erabili egin behar du eta hau eginkizun garrantzizkoa izango du bere bizitzan, inoiz ere xedea izan gabe.

Haren olerki-lana ondo neurtzeko, ez da ahaztu behar 1893ko otsaila eta 1897ko maiatza bitartean idatzia izan dela, horretan “ofiziorik” arean ere ez zedukan hogeitahogei urteko neska batek alegia. Haren literatura-kultura, izan ere, hala-holakoa da, haren kultura orokorra eta ortografia bezala. Zelina haren ahizpak zehaztasun interesgarriak² eman zituen, ahoz, idazlan hauei buruz:

¹ TO 2, 6, 7, 11, 12, 15, 19, 22, 29, 37, 49, 50; hauei TOE (*Olerkien eranskina*) zortzi olerkiak gehitu behar zaizkie.

² Ahizpa Marie Henriette-k (Enriqueta) 1953 inguruan bilduak.

1. Teresa Jesus Haurarenak ez zituen bertso-arauak inorengandik ikasi. Ikas-keta klasikoek aditzera eman ziotenetik atera zuen onura, bakarrik; buruz zekizkien, esaterako, Boileau-ren *L'Art poétique* lanaren zati batzuk.

2. Ez zuen inoiz "errima-hiztegirik" erabili, Karmel-en ez zegoen eta.

3. Ez zuen lekaime sartu aurretik olerkirik idatzi, eta Karmelen, gehienetan, bere ahizpen gurariei erantzuteko baizik ez zuen egin.

4. Sarritan egunean zehar eratzen zituen, lan bitartean zein barne-biltze une batzuetan; baina, igandea bezalako jaiegunetatik kanpora, arratseko astialdi orduari itxaron behar izaten zion bere lanak *idazteko*. Ez zeukan olerkari apartekorik, baina atsegin izan zitzaizkion zati hautatuen bildumetan irakurritako lan batzuk; pozik irakurten zituen La Fontaine-ren *Alegiak* ere, eta hainbat zekizkien buruz.

5. Gehienetan, lehenengo inspirazioaz zirriborro bat egiten zuen, eta huraxe landu, pozik geratu arte. Baina harentzat, noski, bere gaiaren sakoneko ideiek gehiago balio zuten haiei eman beharreko olerti-azalak baino, eta sarritan honek nekarazi egiten zuela esaten zuen bere pentsamenduaren funtsa zehatz esateko.

Egitez, erromantiku batzuekin batera, Lamartine, Musset, Chateaubriand, Teresaren "olerti-ereduak" Karmelen abesten diren kantikak dira, inguruan dauzkan deboziozko irudiak, bere ahizpen olerkiak (bereziki Aines Jesusenak egindakoa), eta bere erritmoak ateratzeko erabiltzen dituen kantuen testuak, gehiehetan oso eskasak. Honen ondoren, irakur beitez olerki batzuk, *Maitasunez bizi, Jesusen Bihotz Sakratuari, Jesus bakarrik, Nire armak zein Arroza hostokatua.*, eta ikusiko da norainokoa den erakusten duten berezko jenioa: olerti-lehengai izpiritu-indarrez bikaindua izan da. Baina Teresa batez ere bere eguneroko janari diren biblia eta liturgiako testuek, eta era berean Joan Gurutzekoaren idatziek, daramate; haietarik ateratzen du bere inspirazioaren guna.

LITERATURA MOTAK

Teresaren olerki guztiak ez dira balio berekoak, ezta gutxiagorik ere. Komentuko bizitza-harian burututako produkzio ugari honetan berak ere egina zuen hautaketa, batez ere Maurizio Bellière eta Adolfo Roulland bere "neba izpiritualentzat"; eta bizitzaren azkenean onartzen zuen haien argitalpena gogoan hartu zedin.

Olerkiok xede ezberdinetarako eginak dira. Batzuk "agur-hitzak" baizik ez dira, gehiagoko uzirik gabeak; honetan Teresa, zio bategatik edo bestegatik, gutxi azaltzen da; beste batzuk uanean uneko harian nahiz komunitateko gertaeren harian sortuak dira, batzuetan ez lilura gabeak. Askok dira ahizpek *eskatuak*; hauetan, batzuetan, eragilearen esanera taxutzen ditu bertsoak, beste batzuetan, bere barrua irekitzen du zerbait (*Nire Zerua Niretzat, Zuk badakizu nire izena, Buru-uztea maitasunaren fruitu gozoa da, Lili bat arantza artean*) eta beste batzuetan, berriz, gutzit zabaltzen da (*Nire gaurko kanta, Jesusen Bihotz Sakratuari, Jesus ene Maitea, oroi zaitetz!*, *Ahizpa Maria Hirutasunaren eta Aurpegi Santuarenaren Kanta (Maitasun egarri naiz), Nik laster lehenengo aldiz ikusiko dudana!*, *Nola nahi dudan nik maitatu, Nire poztasuna*), hala ere, hartzailea ahaztu gabe (ik. *Jesus bakarrik*).

Oso antzekoak dira ahizpa honen edo haren omenez eginak (*Zezilia santua, Zeruko Erreginak bere alaba maite Maria Aurpegi Santuarenari, Nire Zerua hemen*

behean!, etab.) eta bereiztea zaila da batzuetan. Teresak gertakari batetik hartzen du bide zerbait irakasteko (*Jesus ene Maitea, oroit zaitez!*), adore emateko (*Erregina bihurtu zen neska artzain baten istorioa*), dena leun bai leun, eta olerkiok arretaz ulertu beharrekoak dira, ez baitira adierazi behar egilea bakarrik gogoan izanik (*Nire Zerua niretzat*).

Azkenez, bere espresio askea diren olerkiak daude (nahiz ta eskariren bat aurretik izan edo idazpuruan eskaintzaren bat eraman), mota ezberdinetaoak hauek ere:

- Hautzaroko oroipenak, hauetan bere Martin ahizpak sartzen direla (batez ere *Santu baten Alabaren otoitza*);

- liturgi eragina duten goratzarreak (*Loreak bota*), hurbil somatzen dituen eta eredu dituen santuen goralpena (*Zezilia santua, Aines Santuaren Errepika, Joana Ark-ekoari*), Ama Birjinaren goralpena (*Zergatik maite zaitudan, oi Maria*);

- borroka eta apostolutza olerkiak (*Nire Armak*);

- eta batez ere Jesusen, Aurpegi Santuaren, Bihotz Sakratuaren kontenplazio eta maitasun olerkiak, maitasun eta ezkontitz olerkien mailadi osoa, gero ta argia-goak eta tragikoagoak, fedearen gaua jausiz doan bitartean (*Maitasunez bizi, Jesusen Bihotz Sakratuari, Jesus ene Maitea, oroi zaitez, Aines Santuaren Errepika, Ahizpa Maria Hirutasunaren eta Aurpegi Santuarenaren Kanta (Maitasun egarri naiz), Nik laster lehenengo aldiz ikusiko dudana, Jesus bakarrik, Nola nahi dudan nik maitatu, Nire poztasuna, Arroza hostokatua*).

OLERKARI "OFIZIOA"

Teresak irakaslerik izan ez badu eta bertsoak lehenengo eta behin poesi uzirik gabe egin baditu ere, ohizko arauak betetzen ahalegindu da; bestalde, Aines haren ahizpak ahaztu gabe gogorarazten zizkion, eta honen zuzenketa ugariak ardura txalogarri honetatik sortzen dira (Teresaren testu jatorretan, jakina, prosodia eta joskera huts ugari aurkitzen da).

Azalean baino ideietan arreta handiagoa jarri arren, Teresak bere olerki-trebatasuna malgutzeari ekin dio, esan nahi zuenak adierazpide landuagoz indar biziagoa hartzen zuela ongi jakinez. Haren olerkirik gehienen saio-paperak eta aldakera ugariak hor daude honen lekuko.

DOINUA EUSKARRI

Ahizparen olerkien bilduma bat Erromako Simeon Anaiari bidaltzean, "tipikoenen artekoak", ahizpa Jenofak doinuak aipatzeko ardura du "politago delako abes-tuz", dioenez. Zalantzarik gabe, hau zen Teresaren aburua ere. Gehienetan izendatzen du hautaturiko doinua³.

³ Guztitara, hogeita bederatzi doinu ezberdin dira olerkietarako aurkitu ahal izan ditugunak. *Deboziazko solas-antzerkietan* sartu diren doinu berriek hirurogeita zortziraino igotzen dute kopurua. Ik. *Poésies* I, 31-32.or. eta II, 22-25.or.; *Récréations*, 411... or.

Zaila da gaur guretzat iritzi hau onartzea, hain da handia, izan ere, gure kultura munduaren eta orain dela mende bateko probintzi esparru oso itxiko kulturaren arteko aldea. Doinurik gehienak izugarri zaharkituak dira, famili argazki zaharretako emakumeen kapelen antzera. Baina aurpegia da garrantzizkoa, ez kapela. Honela, Teresaren olerkia jaso ordez, haren "doinuak" barregarri bihurtzeko arriskua du, apaingarri zaharkitu batek bezala.

Haren aukerako ereduak ez ziren, gehienetan, haren gustua hezitzeko egokiak. Ez du erritmoa egokieratzeko ardurarik. Silaba mutuak doinu parte indartsuetan jausten dira, eta alderantziz. Doinua hautatutakoan, Teresak, aurki, silaba kopurua zaintzen du soilik: erritmoak eta doinuak hala-hola jarraitzen dute ondoren.

Haren doinurik begikoenak bilduma honetan daude. Berez aukeratzen ditu bere-bereak diren sorkuntzetarako. Zalantzarik gabe, bere kantuaren zerbait asmatzen du haietan. Erritmo zabala eskaintzen dute, haren sentipenei dagokien adierazpide sutsu edo nostalgikoa. Moldakaizkeria batzuk aparte, orduan hitzak eta doinua bat datoz benetan. Baina hau ez dela sarri gertatzen aitortu behar da. Izatez, haren harmonia lehenengo eta behin izpirituala da, "Zeruko doinua", idatzitako guztia baino haragokoa.

TERESAK ABESTEN DUENA

Izan ere, Teresaren bizitza maitasun-kantua da. *Eskuizkribu Autobiografikoen* lehenengo orrialdetik iragartzen du: "beti-beti errepikatuko dudana kantatzen hasi besterik ez dut egingo: Jaunaren Errukiak" (A Esk., 2^a). 88. salmoaren aipamen hau dago "Jesus eta Teresaren armarren" gainaldean ere, Aurpegi Santuaren ondoan harpa bat ageri dela idazkun honekin: "Harpa ere Teresaren irudi da, Jesusi eten gabe maitasun-doinuak kantatu nahi dizkion haren irudi" (A Esk., 85ⁱ). Horrela gedituko da ahizpen oroipenean, gerora arrosen Teresaren irudia garaile irten zen arte: Ama Ainesek *Arima baten historiaren* lehenengo izenburutzat "Maitasun kantua" aukeratu zuen; Maria Bihotz Sakratuarenak 1897ko uztailaren 14tik hau esaten zuen: "Haren bizitza zeruko doinu bat baino ez da izango" (DE, 703.or.), eta Zelinaeren lehenengo koadroak (1899) honela irudikatzen zuen Teresa: Ebanjelioa haren bihotzaren gainean eta hura harparen hariak jotzen (santa Zezilia karmeldarra).

Kantu hau ezer baino gehiago "kristaua" da: abesten denean, norbaitentzat da, norbaiten *izenean*, norbaiti abesten zaio. Teresaren kantua, inoiz ere ez da norberekeriazkoa, familiarri, ahizpei, neba misiolari, zeruko santuei, Ama Birjinari, Jainkoari zuzentzen zaio; batez ere elkarrizketa izpirituala edo mistikoa da Jesusekin.

Teresak, honela, lurra eta zerua jartzen ditu elkarrizketan eten gabe; haren poesia gehien baten "erbesteko kantua" da, atzerriko ibai ondokoa, *Super flumina Babylonis* 136. salmoa sarri aipatuz⁴, *zerura* zuzentzen den kantua edo Zeruz diharduena. Hortik hain sarri *zeru* eta *lurraren* arteko joan-etorri mugimentua, eta *aingeruen*, hegaz egitearen, *hegoen* eginkizuna.

Jakoben zurubi honek, lurra eta zeruaren artean hark ezartzen duen hegazkin-zubi honek, "Jaunaren errukiak" goraltzen ditu: Teresaren olerkiak amaigabeko

⁴ Ik. *La Bible avec Thérèse de Lisieux*, Cerf-DDB, 1979.

harridura abesten du, gizon egin eta gizatasun apalarekin ezkondu den Ahalguztidunari eskerrak ematea. Hemendik hainbat olerkiri maitasun-pilpira ematen dioten irudi ugari edo hitz-elkarketa bitxi.

Izan ere, Teresarentzat harrigarrik handiena, haren olerkiaren gai agortezina, Jesusen maitasuna da (batzuetan Hirutasun osoaren lekuan dagoela), bere senar-gaia, ezkontidea den munduaren Jaunarena; berak maitasun grinatsuz, gero ta hustuago eta gartsuago, oinazetuago eta borrokariago, *Arrosa hostokatuaren* guztizko opariraino erantzuten dion maitasuna. Maitale handi baten, ia “jabetzaile” baten kantua, eta bereizgarri hau (San Paulogan, Pascalengan hain indartsu ageri dena) beti izango da haren olerkietan, batzuetan bere ahizpei atzera eragiten dien ausardiaz.

“*Poztasun*” nabariak (sentitua izan nahiz ez izan) gardentzen du oraindik gehiago maitatzearen zoriona eta areagotzen poesi-indarra. Gorputzeko nahiz arimako mina, biziera latzaren sakrifizioa, sinismenaren lorraldia bera azken baten ikuspegi baikorretik ikusten dira, haien atzean Teresaren maitasunak erantzun besterik egiten ez dion Jainkoaren Maitasuna dagoelako.

Ikuspegi honetatik, Olerkiak Teresaren *otoitzak* duen mugimentu handiaren agerpideak dira bete-betean. “Zu” (eta alderantziz Jainkoaren “Ni”) hor daude beti. Teresa kontenplariak, “*Jainko onagan*” pentsatu gabe hiru minutu baino gehiago inoiz igarotzen ez dituenak (ik. CSG, 77. or.), egunean zehar olerkiak onduz egiten du otoitz. “Zu” honek harengan zeuden konfiantza-indarrak askatzen ditu. Zelinari berak esan zionez (CSG, 82.or.) otoitzean Jesusi “Hika” egiten badio, mintzatzean nahiz idaztean egiten ausartzen ez dena, Olerkietan egiten du.

Olerkiak bere emakume eta emazte samurtasun guztia azaltzen uzten dio. Zenbat bider ikusten duen bere burua maitearen “besoetan”, honen bihotz gainean atsedean hartzen, begietan irakurten, aurpegia laztantzen, maitasun-musua harengandik jaso nahiean! Bakanak dira hain sakon, hain haragiz, esan liteke, Jainko Semearen Gizakundean sinistu izan dutenak. Oraindik aurkitzen zuen “berezko atsegina” zeharo garbitua izango da sinismenaren lorraldiaz, berak C Eskuizkribuan (7ⁱ) dioen bezala, hain zuzen ere, bere olerkiez hitz egin ondoren. Berpiztuak hezi egiten du Madalena, berri honen berezko samurtasuna (A Esk., 38/39^a) gero ta “*garbiago eta jainkozkoago*” bihurtuz (C Esk., 9^a; ik. *Aines Santuaren Errepika*).

OLERKIEN GARRANTZIA

Olerkiak zenbat eta gehiago irakurri, hainbat argiago ikusiko dugu nahitaezkoak direna Lisieux-ko Teresa ezagutzeko. Izan ere tresna poetikoak doinua, sentibereatasuna, inkontzientea ernaraziz, eta eritmoa, hoskidetasuna bilatzearen zailtasunak berak, gogoetaren gidaritza nolabait motelduz, gauza batzuk esatera behartzen dute, irudi batzuk erabiltzera, bere izaeraren sakona agertzera, prosak, oster, erre-zago alboratu edo estali ohi duena. Hizkuntza horrek berak, ahizpei zuzenduriko olerkietan, zenbait hesi zeharkatzen uzten dio (*Erregina bihurtu zen neska artzain baten istorioa*), hainbat aholku, hainbat egia itzurtzen, eguneroko bizitzan inor zauritu gabe azaltzea zail gertatuko litzaizkiokeenak. Baina, areago oraindik, Olerkiek Teresaren barru-mugimenduaren berri ematen digute, haren garapenaren, dirdira-

ren, maitasunaren berri, eta beharbada denen gainetik sinismen-probako borroka gogorraren berri.

Sarrera hau amaitzean, karmeldar lekaimearen “hala-holako bertsoak” gehiegi goretsi ez ote ditugun pentsa dezake norbaitek, haren irudiak sarritan ohizkoak dira eta. Baina lehenengotan garrantzi gabea dirudienak aberastasun eta indar gordeak erakusten ditu, Teresaren santutasunetik irtenak; era berean zekien eguneroko bizitzako egiterik apalenak maitasun-amets handiz eraldatzen eta bere giza horizonteko mugak⁵ mundu zabalerara hedatzen.

Euskarazko itzulpenak

Lisieux-ko Teresaren olerkiek ez zuten lortu haren Autobiografiak lortuko zuen interes bizirik, eta, beraz, ez da egin izan ahalegin berezirik ere euskarara itzultzeko... Honela, gerra aurretik bi olerki agertu ziren euskarara itzulirik *Karmengo Argia* aldizkarian: lehenengoa, 1934an, A. Bizente Batiz, Hegoamerikan zegoen karmeldar gaztearena zen: *Aingeru zaindariari otoitza* (?); bigarrena, 1936koa, Sabin Gerrikaetxebarria, karmeldar ikasle gazteari dagokio: *Gaurko nire abestia*.

Hala ere, Santaren olerkien interes eta garrantziak azken urteotan egin du gora eta gora, hain zuzen ere, haren doktrina, gurari eta bizipen izpiritualen ikuspegitik... Hau Euskal Herrian ere ageri-agerikoa da, azken aldian euskarazko bi itzulpen oso eta guztiz ezberdinak egin baitira.

a. Santi Onaindiak, “*Arima baten istoria*” itzuli ondoren, karmeldar batzuek gogoia beroturik, Teresaren olerkiak itzultzeari ekin zion. 83 urteko adina berez ere nahiko astun zitzaion, gainera itzulpen horretako zenbait arazori aurre egiteko, eta makinaz idaztea ere geroago eta zailago egiten zitzaion... Hala ere, idazle aspergaitz eta saiatu honek jadanik burutua zuen itzulpena 1993rako; 55 olerki dira; eranskinetako zortzi olerki osagarriak ez zituen itzuli. Itzulpen hau ez da argitaratua izan...

b. Azken itzultzailea Luis Baraiazarra izan da. Hauxe da Lisieux-ko Teresaren Idazlan Guztien argitalpen honetan agertzen duguna. Olerki hauen itzulpena 1995eko udan jadanik amaitua zen. 63 olerki dira, hauetatik sei *Karmel* aldizkariaren azken zenbakietan argitaratuak izan dira.

Itzulpenean beti gogoan izan den arau nagusia testu originalarekiko zehaztasuna izan da, baita estilo artistikoa euskaraz gauzatzea ere; horregatik, hasteko, aha-paldi bakoitzaren silaba-berdintasuna eta errimak edo hoskidetasuna zaindu behar-raren zama alde batera utzi izan da, zehaztasunaren eta estiloaren mesedetan; dena dela, horri loturik egon gabe ere, bi alde estilistiko horietatik al bait hurbilen ibiltzeko ahalegina nabari da itzultzailearengan.

⁵ “Nouvelle Edition du Centenaire”-ko *Poésies*en liburukian behar diren zehaztasun guztiak aurkitu ahal izango dira eskuizkribu, kopia, data, hartzaile, aldaera, olerkari “ofizio”, doinu, ama Ainesen zuzenketa eta ondorengo argitaraldiei buruz.

Jainko Ihintza¹ edo Mariaren Esne² Garbia

EGUNA: 1893ko otsailaren 2a. – OLERKI-HARTZAILEA: ahizpa Teresa San Augustinena, berak eskatuta. – ARGITALPENA: HA 98 (hamaika bertso zuzenduta). – DOINUA: *Minuit, chrétiens*.

Eguzkiaren lehen printzatan dagoen arrosa-kuskua, goizeko ihintzaren eragin-pean: ez dugu zertan harritu horrelako ikur Teresiarra Olerkien sarreran aurkitzeaz.

Haur baten ausardia lasaiaz, misterioan erosotasunez, Teresa «ihintz zerutar» honen bideari jarraitzen zaio. Berak Kalbarioko Lore odolezkoan “goiz lurrina” ezagutzen du; «aingeruen Ogia»n zaporea berraurkitzen du; Jaunaren Gorputz Eukaristikoa, Mariaren bitartez haragi egina izan ondoren, “Hitz hau Ostia egina”. Berezko zaion tonuan, hau da, zizakatuz, Teresak, azkenean, Aquinoko Tomas Santuak kantatu zuen Ave verum bera abestuko du.

Zeregin ausarta zen, ez baitzuen egundaino bertsorik egin, hutsetik horrelako gai gaitzari olerkiak ipintzen hastea. Eskarmenturik ezaren atzetik, batez ere jarraikortasunean eta irudiez jabetzean, “goragoko ordenu batean ezkutaturik dau-den misterioak” olerki giroan bereganatzeko gaitasuna azaleratzen da (TG 134).

Ahizpa Teresa San Augustinenak kontatu zuen nola eskatu zion olerki hau Teresari (Souvenirs d’une sainte amitié, VTko 100. zenbakiko 241-255. orr.etan argitaraturik), haren bizitzaren amaieran karitate gorena eginarazi baino lehen (Ik. C Esk., 14^a).

Jainkoaren Semeari Birjina den Ama batek titia ematea Elizak mendez mende kantatu izan duen Gizakundearen alderdi bat da. Teresak liturgiatic eta idazle izpiritual batzuegandik (bereziki, Dom Guéranger-en L’Année liturgiquetik) jaso du tradizio hau. Ukaezina da Vie de sœur Marie de Saint-Pierreren eragina ere, Teresa San Augustinena horren irakurle gartsua baitzen.

¹ Hitz hauek berrogeita hamar aldiz azaltzen da idazkietan. Teresa normandiar txikiak bere irudiak izadiko aberastasunetan jarri zituen lehenengo (ik. TG 141). *Ihintza* Jesusen odolaren metafora izango da (TO 24; DSA 2, 8^a), bataioarena (TO 44; DSA 2, 6¹) edo Eukaristiarena (TG 240).

² Oso erabilera bakana: hamalau aldiz (zazpi bider hemen); Teresak ez du sekula digeritu esnea...

Ap 22,16

1 Ene Jesus ezia, zeure Amaren altzoan zu agertzen zataizkit, maitasunez txit dirdaitu³. Maitasuna, hona misterio esan ezina zerutar egoitzatik atzerriraten zaituena⁴... A! utz ieza dazu ezkututzen hilkorren begiradatik gordean zeuzkan oihalpean⁵. eta zure ondoan, oi Goizeko Izar! aurkituko dut nik zeruaren aurre-gozamena.

2 Egunsenti berri baten esnatze unetik eguzkiaren lehen izpiak ikusten direnean, zabaltzen hasten den lore samurrak urin preziatua itxaroten du goitik: goizeko ihintz ongilea da, hezetasun gozoz bete-betea, izerdi oparoa sortarazirik kapulu hezetik irekiarazten du lorea.

3 Zu zara, Jesus, Lore zabaldu berria, begira naukazu zeure lehen esnatzean, zu zara, Jesus, Arroza liluragarria, kapulu hezea, polit-polita eta gorria. zure Ama maitearen beso hain garbiak zuretzat sehaska eta errege-aulki dira, zure eguzki gozoa, Mariaren altzoa da eta zure Ihintza, Birjin-esnea.

4 Nire Kutuna, nire Jainko-Nebatxoa, nik zure soan ikusten dut etorkizun osoa laster nigatik utziko duzu zeure Ama jadanik maitasunak eragiten dizu sufritzera, baina gurutze gainean, oi Lore Irekia! nik ezagutzen dut zure goiz lurrina, nik ezagutzen dut Mariaren ihintza. zure jainko-odola, Birjin-esnea da.

Jn 1,29

5 Ihintz hau santutegian da gorderik, Zeruetako aingerua begira dago liluraturik, Jainkoari bere otoitz gorena eskaintzen, Donibanek bezala errepikatuz: "Hona hemen" Bai, hona hemen Hitz hau Ostia egina, betiko Apaiza, apaiz-bildotsa,

³ «Jesus, zerk egin zaitu hain txiki? Maitasunak» (Bernardo deuna, TG 162an aipatua).

⁴ Ik. TO 13, 9, 2 +.

⁵ Ik. TO 13, 4 +.

Jainkoaren Semea, Mariaren Semea da,
Aingeruaren ogia, Birjin-esnea.

- 6 Serafina aintzaz elikatzen da,
Paradisuan haren zoriona oso-oso da.
Nik, ume gaixo honek, ez dut ikusten kopopian
Esnearen kolorea, irudia baizik,
baina Esnea da umeari komeni zaiona
eta Jesusen maitasuna da berdingabea,
Oi maitasun samurra! hondorik gabeko ahalmena,
nire Ostia zuria da Birjin-Esnea!...

TO 2

Gure Maistra eta Ama maiteari bere 60. urtean omentzeko

EGUNA: 1894ko otsailaren 20a. – OLERKI-HARTZAILEA: ama Maria Gonzagarena, «bere 60. urtean omentzeko». – ARGITALPENA: *Poésies*, 1979.

Ama Maria Gonzagarena nobizien maistra izan zen, urtebete lehenago Ama Aines Jesusenak prioretzan haren lekua hartu zuenez gero. Teresak, nobiziatuan, urtebete baino pixka bat lehenagotik, ahizpa Marta Jesusena eta ahizpa Maria Madalena artzen ditu bere ardurapean.

- 1 Oi! hau urteurren zorionsua
egun eder honetan ospatzen duguna!
gure Ama onbera eta samurrari,
kantatzen diogu osoki gure maitasuna.
- 2 Lurrean emanik hirurogei urteak
Jesus Jainko, zuk ikusten duzu
maite-maite duzun lore bat,
zeure graziaz ureztatzen duzu.
- 3 Jesus, zure lore lurrindatuak
zuretzat hainbat bihotz ditu lortuak,
berak bildua du ibarrean
lore-uzta sorta ederrean.
- 4 Jesus Jainko, Aberrian
jakingo duzu hari ordaintzen
hark bildu duen uzta
guk ikusiko zaitugu hura koroatzen.

- 5 Jesus, zure Arrosa da Ama,
gure haur-bihotzak gidatzen dituena;
entzun dezazula haien otoitza:
haiek ospa dezatela haren larogei urteena!

Hiru nobiziatxoak
Jesus Hauraren Teresa ahizpa
Jesusen Marta ahizpa
Maria Madalena ahizpa

1894, grazi urteko otsailaren 20a

TO 3

Zezilia santua

EGUNA: 1894ko apirilaren 28a. – OLERKI-HARTZAILEA: Zelina, hogeita bost urteak egin zituela-eta, eta TG 161 erantsi zitzaion. – ARGITALPENA: HA 98 (hamazazpi bertso zuzenduta). – DOINUA: *Hymne à l'Eucharistie*, "Dieu de paix et d'amour" edo *Prends mon coeur, le voilà, Vierge, ma bonne Mère*.

Teresak bat-batean egindako lehenengo olerkia «Lehenengo Sinfonia» antzekoa ere bada, oso luzea delako, gai asko uztartuz, halako idazkera goi-mailakoa erabiliz, eta ahapaldi handiak ezarriz. Zelinari bidalitako mezua da, ahizpa bakarrik baitago ia konorterik ez duen aita zaharraren ondoan. Nahiz eta boto pribatuz Jainkoari eskainia egon, ezkontzak tentaturik dago. Teresak amets egiten du bera aldamenean edukitzeko Karmelen (A Esk., 82^a). Zelina behartu gabe erakartzeko, olerki-bidera jotzen du: «Zeziliaren historia» ez ote da «Zelinaren historia»ren parabola profetikoa (ik. TG 161)?

Teresak ahaleginak egiten ditu birjinitate, ezkontza eta martiritzaren artean berak somatzen dituen erlazioak "zizakatzen". Berak ez du zapuzten bere ahizpak ezkontzaz duen mirespena; hala ere, ugalkortasun izpiritual bikainagorantz bideratzen du oraindik: birjintasun sagaraturantz, alegia.

Baina bere-berea den kantua ere bada, Teresak Zeziliari dion «maitasun-samurtasuna» azaltzen duena, bere «santu kutuna» (A Esk., 61ⁱ; ik. TG 149), eta beste edozeren gainetik, «buru-uztearen santua» da; buru-uzte hori, Teresak «bide-txo»aren oinarrizko osagai bihurtuko du laster.

Teresak olerkiaren osagai historikoak Erromako otoitz-liburutik (azaroaren 22an) hartzen ditu, bai eta Dom Guéranger-en Sainte Cécile et la société romaine aux deux premiers sièclesetik ere (1875).

Zezenia, musika-tresnen hotsean,
kantari ari zen bere bihotzean...
(Liturgiatic hartuta)

Oi Santa txit maitea, pozez ikusten dut
zeure ondoren uzten duzun ildo argitsua¹,
ustez zure doinu gozoa oraindik badantzut,
bai, zure kanta zerutarra niganaino heldua.
Entzun nire arima erbestetuaren arrena;
utziezadazu pausatzen zeure birjin-bihotzean,
lurgainean diz-diz dagian lili orbangabea
distira miragarri eta ia berdingabea duena.

Oi Uso txit garbi, iraganez bizitzatik
zuk ez zenuen bilatu senartzak Jesus baizik,
zure arima hautaturik, bera harekin zen bildua
hura aurkiturik bertute guztiez lurrindua.
Bitartean gizaki batek, sasoi-betekoak,
zure lurrina hartu zuen, lore zuri eta zerutarra!
beregantzearren zure maitasun samurra,
bihotz osoa zuri ematea nahi zuen Balerianok.
Estei ospetsuak prestatu zituen laster batean,
haren jauregian kanta gozoak ziren entzunak...
Baina zure birjin-bihotzean kanta errepikatzean,
Zeruraino igotzen ziren jainkozko oihartzunak!
Zer kanta zenezakeen zuk, hain urrun Aberritik
eta gizaki ahul hau zugandik hurbil ikusirik?
Ziur aski bizitza hau uztea nahi zenuen zeurekiko
eta Jesusekin Zeruan elkartzea betiko...

Sal 136,4

Baina... entzuten dut bibratzen zure aingeru-lira,
ahaire hain ezitia duen zure maitasun-lira,
zuk Jaunari abesten zenion kanta goitarra:
“gorde garbi nire bihotza, Jesus nire senar samurra!...”
Uzte esanezina! Jainkozko doinu bera!
zeure kanta zerutarrez agertzen duzu zuk maitasuna.
Beldurrik ez duen maitasuna, lo ta ahazturik duzuna
Jainkoaren Bihotz gainean, haurtxo baten antzera²...

Sal 118,80

1 Jn 4,18

Izar zuria agertu zen goi urdinean
ezkonlagunen maitasun garbiak zeruan
erakusten digun oihal gabeko gau oskarbia
bere izpi dardartiz argitzera etorria...

Orduan Baleriano pozaren pozez esnatu zen,
Zezenia, haren gogo guztia zure maitasuna baitzen...

¹ Ik. A Esk., 22^a; TO 18, 47; eta VT 61. zk., 74. or.

² 29-32 lerroak «*bidetxo*»ren hasiera dira.

zure elkartasun leialean aurkitu zuen zorion-giltza, zuk erakutsi zenion amairik izango ez duen bizitza. “Gazte maite, esan zenion, beti dut ondoan jagole Jaunaren aingeru bat nire bihotza garbi gordetzen, hura ez da nigandik aldentzen lo natzanean ere, hark bere hegal urdinez bozkarioz nau estaltzen. Gauetz argitsu ikusten dut haren aurpegi maitagarria goizaldeko izpiak baino argi atseginagoz nonbait, haren aurpegia, Jainko-aurpegiaren irudi garbia, Jainko-aurpegiaren distira garbia iruditzen zait”. Balerianok ihardetsi: “erakutsi aingeru eder hori, sinestea eman diezaiodan zure zin-hitzari. Bestela izan beldur nire maitasuna bilaka daitekeela izugarrizko amorru zure aurka...”

Kt 2,14

Sal 90,3

Oi Uso harri-barrunbean ezkutatua³!
zu ez zinen izan ehiztarien sareen beldur
Jesusen aurpegiak⁴ bere argia erakutsi zizun,
zure bihotz gainean datza Ebanjelio sakratua⁵...
Irribarre leun batekin erantzun zenion berehala:
“Nire jagole zerutarrak zeure nahia beteko dizu,
laster ikusiko duzu, berak adieraziko dizu
zerura hegan egiteko, martiri izan behar duzula.
Baina hura ikusi orduko, ezinbestekoa dela
bataioak zurtasun santua isurtzea zure ariman,
beharrezkoa da benetako Jainkoa bizitzea bertan,
Espiritu Santua zure bihotzaren bizia izan dadila.
Hitza, Jainkoaren Semea eta Mariaren Semea,
maitasunak eraginik, opari egin zen aldarean.
Zuk eseri behar duzu Bizitzako Mahaiean
zeugan hartzeko Jesus, Zeruko Ogia⁶.
Orduan Serafinak bere anaia deituko dizu,
eta zure bihotzean Jainkoaren aulkia ikusirik,
lurreko hondartzak utziaraziko dizkizu
eta suzko izpiritu honen egoitza ikusiko duzu”.
— “Nire bihotza su berri batek erretzen sentitzen dut”
esan zuen pozaren pozez handiki gartsuak.
“Benetako Jainkoa nire ariman bizi dadila nahi dut,
Zezilia, nire maitasuna zurearen duin izango da!...”

Jn 1,1

Jn 6,
32.48.59

Errugabetasunaren ezaugarri den arropaz jantzirik,
Balerianok ikusi ahal izan zuen Zeruko aingeru ederra,

³ Ik. Joan Gurutzekoak *Kantu Izpiritularen XXXV*.ean egindako iruzkina.

⁴ Teresak, 1889tik aurrera, Jesusen alderdi *minbera ez ezik*, alderdi *argitsua* ere idoro du; ik. TG 95. Hogeita bat apamen *Olerkietan*, ik. TO 20 +.

⁵ Ik. A Esk., 61¹. Teresak Ebanjelioa bere bihotz gainean eramanez Zeziliaren ereduari jarraituko dio.

⁶ Zortzi lerrotan (61–68), kristau-hastapen funtsezkoena laburtuko du.

haren ahalmen gurena begiz jo zuen liluraturik,
 ikusi zuen haren bekoki argitsuaren distira leuna.
 Serafin argitsuak arrosa hezeak zituen
 lili eder zuritasunez dirdaitu zirenekin nahastean.
 Zeruko lorategian, lore hauek irekiak zeuden
 Astro kreatzailearen maitasun-izpien babespean.

“Zeruetako ezkonlagun maiteok, martiritza-arrosak
 koroatuko ditu zuen bekokiak, dio Jaunaren aingeruak⁷,
 ez dago ahotsik, ez dago lirarik
 grazia handi hau kanta dezakeenik!

Ni miretsirik nago neure Jainkoagan, haren ederrari so,
 baina ez dut neure burua opari egin eta sufritzerik,
 ez dut haregatik neure odola eta malkoak isurtzerik,
 neure maitasun handiaz ere, ez nuke hiltzen jakingo...
 Garbitasuna da aingeruaren ondare gorena
 haren zorion neurrigabeak ez du izan behar amairik,
 baina zuek baduzue alde on bat serafinaren gainetik:
 zuek baduzue garbiak izateko ta sufritzeko ahalmena!...

.....
 Zuek ikusten duzue birjintasunaren irudia
 Bildotsak igorri dizkizuen lili lurrindu hauetan,
 koroizat emango dizue argi-uztai zuria,
 kanta berri bat kantatuko duzue menderen mendetan.
 Zuen elkartze garbiak erdituko ditu arimak⁸,
 Jesus baino beste senarrik bilatzen ez dutenak,
 zuek dirdirka ikusiko dituzue gar soilen antzean
 Jainko-aulkitik hurbil, hautatuen egoitzean”.

Ap 14,3

Emaidazu, Zezilia, zeure doinu ezitia,
 hainbeste bihotz nahi nituzke Jesusengana bihurtzea!
 nik zuk bezala eman nahi nuke neure bizia,
 nahi nuke neure odola eta malkoak hari eskaintzea...
 Lor iezadazu dastatzea erbesteko erriberan⁹
 uzketa osoa, maitasunaren fruitu gozo dena.
 Laster lurretik urrun, oi nire Santa maitea!
 idazu, zure ondora itzulirik gabe hegan egitea...

1894ko apirilaren 28a.

⁷ Aingeruaren solasaldiak Teresak maite duen ideia garatzen du, hau da, gizakiak aingeruak baino gehiago direlako (TO 10, 9, 1; TO 13, 2, 2; TG 83; DSA 2, amaiera, oharra; DSA 5, 1^a; KH 16. VIII. 4); hortixe dator horien etxean «jeloskortasun» modukoa.

⁸ Ikutu samur eta oso teresiar honek Zezilia eta Balerianoren apostoluzaren tasun berezia behar du: garbitasun osoa aukeraturik, beraiek barnean duten irudiaren arabera, birjinitateaz liluraturik, eraikitzen dute (TO 26; *Poesies*, II, 178. or.).

⁹ Azken lau bertsoak, ziur asko, 1897ko maiatzekoak dira.

TO 4

Joana Ark-eko agurgarria aldaretara goratzea lortzeko kantika

EGUNA: 1894ko maiatzaren 8a. – OLERKI-HARTZAILEA: Teresa bera; eta Zelinari eskainia. – ARGITALPENA: HA 98 (hamabost bertso zuzenduta). – DOINUA: *Pitié, mon Dieu*.

Olerki aberkoi eta erlijiosoa da, eta adierazpenak ia beti hutsalak dira. Teresak, jakina, bere andreunenaren bertute kristau eta sakonak nabarmentzen ditu. Kopla batzuetan Joana Ark-ekoari eskainitako bi piezen gai nagusiak lotzen ditu: bokazioa (3 eta 4. ahapaldiak), DSA 1en gaia (1894ko urtarrilaren 21ekoa); zeregina eta nekaldia (5-6 eta 8-9. ahapaldiak), DSA 3ren gaia (1895eko urtarrilaren 21ekoa, eta hilondoko zeregina (10-11. ahapaldiak). Hirugarren ahapaldiak DSA 1eko 5^a.ko kopla bat hartzen du berriro ere. Olerki hau egitearen inguruko gorabeherak direla eta, ikus Solasaldi bien sarrerak.

Teresaren gogo beroaz, izenburuetan ñabardura ezberdinak aurki litezke; izan ere, beraietan kantuaren jatorrizko aldakia sinatu zuen Teresak: «Elizaren defendatzaile eta Joana Ark-ekoaren miresle zen Soldadu Frantses bat»; bere ahizpari eskainia «C. Martin zaldun ausarta».

¹ Erg
19,10,14

- 1 Armaden Jainko, Eliza guztiak
 nahi luke laster ohoratzea aldaretan
 martiri bat, birjina gerrari bat,
 haren izen ezitia entzuten baita zeruetan.
- Errep. 1* Errepika
 Zeure ahalmenagatik
 oi Zeruko Errege
 eman Frantziako Joanari
 aldaretako ohore!
- 2 Frantzia errudunarentzat konkistatzaile bat,
 ez da ez hau hark nahi lukeena
 Joana da soilik salbatzeko gai dena
 martiri bat baino gutxiago dira heroi guztiak!
- 3 Joana da, Jauna, zure lan bikaina
 suzko bihotza, gerrari-arima
 eman zenion birjina beldurtiari,
 ereinotzez koroatu nahi zenuenari.
- 4 Bere larre apalean Joanak entzun zuen
 zeruko ahotsa, deika zuena borrokarako;
 berak aberria salbatzera jo zuen,
 umetxo samurra armadaren buru izateko!

- 5 Erakarri zituen gerrari gogorren gogoak
Zerutik bidalia den Jainko-distirak
haren begirada garbiak, haren suzko mintzoak
makurrarazi zituen bekoki ausartak...
- 6 Historian behin gertaturiko mirari batez
ikusi izan zen orduan errege dardartia
berreskuratzen bere koroa eta ospe guztia
ume baten beso ahularen bitartez.
- 7 Ez dira ez Joanaren garaipenak
egun honetan goraiatu nahi ditugunak
ezagutzen ditugu haren benetako goragarriak:
ene Jainko, haren bertute eta maitasuna dira.
- 8 Joanak borrokaz salbatu zuen Frantzia
baina haren bertute handiak sufrimenduzko
seinalez markatuak izatea zen beharrezko,
Jesus bere senarraren Jainko-seinalez jantzia!
- 9 Hark surtan opari eman zuen bere bizia
Joanak santuen ahotsa entzun zuen
berak Aberriagatik utzi zuen atzerria
Aingeru Salbatzaileak Zeruetarantz igo zuen!...
- 10 Joana, gure itxaropen bakarra zara zu
zeru goitik gure ahotsak entzun itzazu
jatsi gugarantz, zatoz Frantzia onbideratzera,
zatoz bigarrenez hura salbatzera.

Errep. 2 Errepika
Jainko Garailearen
ahalmena dela bide
salba, salba Frantzia,
Aingeru Askatzaile!...

- 11 Zein pausu ederrak zureak, Jainkoaren alaba,
ingelesak egotzi zenituenean Frantziatik!
Baina gogora ezazu haurtxo zinen egunetan
zuk ez zenituela zaintzen bildotsak baizik...

Kt 7,16

Errep. 3 Errepika
Babes itzazu zuk
ahulak direnak,
zaindu garbi
haurren arimak.

- 12 Zuri gure monastegiak, martiri eztia,
zuk badakizu birjinak zure ahizpak direla
eta haien otoitzen helburua zureena bezala
bihotz guztietan Jainkoa nagusi ikustea dela.

Errep. 4 Arimak salbatzea da
haien gurari gartsua.
Ah! emaezu haien zure
apostolu eta martiri sua!

- 13 Beldurra bihotz guztietatik kendua izango da
Eliza koroia jartzen ikus dezagunean
Joana gure Santaren bekoki hain gardenean;
orduana bai guk kanta ahal izango dugula:

Errep. 5 Zugan datza
gure esperantza;
Frantziako Santa Joana
otoitz, otoitz gure alde!

TO 5

Nire Gaurko Kanta

EGUNA: 1894ko ekainaren 1a. – OLERKI-HARTZAILEA: ahizpa Maria Bihotz Sakratuarena, berak eskatuta, beraren jaia zela-eta. – ARGITALPENA: HA 98 (hogeita bat bertso zuzenduta). – DOINUA: *Hymne à l'Eucharistie*, «*Dieu de paix et d'amour*», edo *Une religieuse à son crucifix*.

Maria Bihotz Sakratuarenarekin 1894ko udaberrian izandako elkarrizketa batetik sortu zen olerki hau. Teresak aditzera ematen ditu elkarrekin, euren ahizpa nagusiaren jaia dela-eta, erabilitako pentsamenduak. Irudia, arimaren jarrera harmoniatsu bilakatzen da, bortxatu gabe, olerki osoan barrena: arima ahul batena, bihar-etziko ezer ezin agindu edo eska dezakeena, baina Jainkoari osorik emana dena, haren graziarekin konfiantza baitu. Olerki oso aberats honek, Teresak maite dituen gai handi batzuen sorta adierazten du.

Idazteko era laua da, Teresaren irudi ezagunak dituen; garra ezarian-ezarian handituz doa, beti apaltasuna zaintzen du «Gaurko besterik ez!» leloari esker. Azken ahapaldia oso Teresiarra da, haren hegaldi indartsu eta betikoarekin.

Ukaezina da kutsu lamartinetarra, Maria Jesusen Bihotzarenaren gogoia adierazten duena. Hala ere, «Ez dudala gaur hau baino besterik!...» (L'Homme) olerkariaren agertarazpen ezezkorrari, Teresak baikortasunez erantzuten dio: «Guretzat hau da balio duena, gaurko eguna»; izan ere, Jainkoaren gaurko eguna da bere

grazia ematen diguna. Olerki hau eta Teresaren bizimodu osoa batera dabiltzala nabarmendu behar da (ik. TG 89, 96, 169, 241 eta KH 19. VIII. 10).

Lamartinenaz gainera, Teresak maiz erabiltzen duen liburuan aurkitutako «Mon aujourd'hui» orrikkarekin ere badu zerikusia. Baina azken testu honek sufrikarioaren eroapena du mugatzat eta Teresaren ikuspegia harantzago doa.

- 1 Nire bizitza une bat¹, ordu iheskor bat besterik ez da, ez da itzurtzen zaidan eta ihes doan egun bat baizik. Zuk badakizu, ene Jainko, lurlean zu maitatzeko ez dudala gaur hau baino besterik!...
- 2 Oi! nik maite zaitut, Jesus! nire arimak zugana du joera Egun baterako soilik nire babes gozo izan zaitez. Emaidazu zeure irribarrea, zatoz nire bihotzean agintzera, gaurko besterik ez!
- 3 Eta niri zer, Jauna, geroa bada ilunpean? Biharko eskatu, hori nik ezin dut, oh ez!... zaindu garbi nire bihotza, estal nazazu zeure itzalpean, gaurko besterik ez! Sal 118,20; 90,4
- 4 Biharkoaz amesten badut, neure iraupen ezak nau kezkatzen², somatzen ditut nire bihotzean tristura eta iluna jaiotzen. Baina onartzen dut, ene Jainko, nahigabea, nekea gaurko besterik ez!
- 5 Nik laster ikusiko zaitut betiko erriberan oi Jainko-lemazain! ni zuzen naramana bere eskuez. Olatu zakarren gainean nire untzitxoia gidatu bakean gaurko besterik ez!
- 6 Utz iezadazu, Jauna, ezkutatzen zeure begitartean³ munduaren soinu hutsalik ez dut gehiago entzungo han; emaidazu zeure maitasuna, gorde nazazu zeure grazian gaurko besterik ez! Sal 30,21
- 7 Zure Jainko-bihotzaren ondoan, guzti-guztia ahazten zait; nik ez dut gau ilunaren beldurrik izango aurrerantzean. Ah! emaidazu, Jesus, lekutxo bat zeure bihotzean gaurko besterik ez! Sal 90,5
- 8 Ogi Bizia, Zeruko Ogia, Eukaristi santua oi Misterio sakratu!, maitasunak sortua... Jn 6, 33.48.59

¹ Teresak bere-berea duen hitza, chun eta hamar aldiz idazkietan datorrena..

² Erabilera bakarra Teresarengan.

³ Bibliako txatal hau (Sal 30, 21) beste lau aldiz azalduko da Olerkietara (TO 11, 3; 12, 8; 16, 1; 20, 5) eta Martin jaunaren oroitzapenerako aukeratuko da.

zatoz, nire Ostia zuri, nire bihotzean bizi izatera
gaurko besterik ez!

- Jn 15,5 9 Zugan bat egin nazazu, mahasti santu eta sakratua
eta nire aihen mengel honek emango dizu fruitua
eta nik eskaini ahal izango dizut mahasmordo heldua⁴,
Jauna, gaur hasita!
- 10 Maitasunezko mahasmordo honek arimak ditu garau;
ihes doan egun hau besterik ez dut gauzatzeko berau.
Ah! emaidazu, Jesus, apostolu baten garra
gaurko besterik ez!
- 11 Oi Birjina Garbia! Zu zara nire izar leuna⁵,
Jesus niri ematen eta harekin bat egiten nauzuna.
Ama! utz iezadazu, pausatzen zure oihalpean
gaurko besterik ez!
- 12 Nire Aingeru jagole santu, zeure hegapean estal nazazu,
nire ibilbidea zeure argitan argi ezazu,
zatoz nire pausuen gidari... lagun nazazu, deika naukazu
gaurko besterik ez!
- Is 53,3 13 Jauna, nik ikusi nahi zaitut oihal eta lainorik gabe,
baina oraindik erbesteratua, zugandik urrun nago indarge,
ez dakidala ezkuta zure aurpegi maitagarria
gaurko besterik ez!
- 14 Zure goratarreak kantatzera joango naiz laster hegan,
iluntzerik gabeko eguna izan dezadanean nire arimarengan,
orduan Aingeruen liraren bitartez dut nik kantatuko
gaurko egun betikoa!...

TO 6

Jesusen Bihotzaren jaia
1894ko 1. ekaina

Maite dudan Arima baten Argazkia

EGUNA: 1894ko ekainaren 1a. - OLERKI-HARTZAILEA: ahizpa Mariá Bihotz Sakratuarena, beraren jaia zela-eta. - ARGITALPENA: *Poesies*, 1979.

⁴ Ik. TO 25, 7 +.

⁵ Maria Izar gisa agertzen duena, ik. DSA 1, 11^a; DSA 3, 12^a; A Esk., 85ⁱ +.

Aurreko olerkiarekin batera, akrostiko honek osatzen du Teresak bere ahizpa nagusiari Bihotz Sakratuaren jairako egindako olerkien sorta. Opari benetan pertsonala da, eta ez da zabalduko beste kantua bezala. Bertan libreki antzematen den handitasun itxurak ondo ematen du aditzera norainokoa zen Mariak bere ahizpa eta neska gazteari, Paulina Karmelera sartu ondoren bere "alabatxo"ri, zion itzala (ik. TG 49, 75, 113 eta 197).

Maria Bihotz Sakratuarena

Ezagutzen dut bihotz bat, arima bat oso amoltsua dena,
 Zerutik sinesmen bikain-bikaina hartu duena,
 ezin du ezerk liluratu hemen behean arima gartsu hau:
 ez dago ezer bere errege izendatzen duen Jesus izan ezik.
 Hitz batez, arima eder hau handia da eta eskuzabala,
 gozo eta bizia era batera, beti bihotzez apala.
 Urrungo ortzemuga, izar argitsua sarritan
 aski dira hark Jaunarekin bat egin dezan.
 Beste batzuetan ikusi dut aske izatea maitatzen,
 zorion hutsa eta benetako askatasuna bilatzen.
 Bere atsegina aurkitzen zuen mesedeak banatzean
 eta bere borondatea bakarrik zena beti ahaztean!...
 Hauxe da arima hau bereganatu zuen Bihotz jainkozkoa
 haren maitasunaren egintza, Kreatzailearentzakoa;
 egunen batean ikusiko dut nik gar garbi baten moduan
 Bihotz Sakratuaren ondoan dir-dir egiten zeruan.

Haur eskerroneko baten bihotzak

TO 7

Eskerroneko kanta Karmel Mendiko Andre Mariari

EGUNA: 1894ko uztailaren 16a. - OLERKI-HARTZAILEA: ahizpa Marta Jesusena, beraren hogeita bederatzigarren urtea zela-eta. - ARGITALPENA: *Poesies*, 1979.

Berto errazak dira, eta haien interesa gehiago da historikoa poetikoa baino. Teresak bere nobiziari dion samurtasuna azalarazten dute (umezurtz zortzi urterekin); horrezaz gainera, argibide gehiago ematen digu haren nortasunaren gainean, egilearen Andre Mariarekiko bizimoduaren gainean baino; nolahi ere, Maria hemen «bere Ama izatean azaltzen da gehiago Erregina izatean baino».

- 1 Nire bizitzako lehenengo uneetan
 hartu ninduzun zeure besoetan;
 Ama maite, aurrerantzean

zeuk zainduko nauzu hemen behean.
 Errugabetasuna zaintzeko nigan
 zuk jarri nauzu habia eztian,
 zuk gorde duzu nire haurtzaroa
 klaustro bedeinkatu baten itzalean.

- 2 Geroago, nire gaztaroko egunetan,
 Jesusen deia entzun nuen neure baitan,
 esan ezinezko samurtasunean zuk
 Karmel erakutsi didazu.
 “Zatoz, nire txikitxo, bihotz-zabal izan”
 gozotasunez esaten zenidan;
 “nire ondoan zoriontsu izango zera,
 zatoz, Salbatzaileagatik zeure burua eskaintzera”.

.....

- 3 Zure ondoan, oi nire Ama leguna!
 aurkitu dut bihotzaren atsedena;
 ez dut nahi lurrean besterik,
 nire zorion osoa Jesus da soilik.
 Inoiz tristurak jo banadi,
 beldurrak eraso banadi,
 beti nire zorionari eusten,
 Ama, zu izaten zaitut onesten.
- 4 Idazu leial izan nadila
 Jesus, neure Jainko-senarrarekin.
 Egunen baten haren ahots gozoak dei nazala
 hegan egitera hautatuekin.
 Orduan ez erbestea, ez sufrimentua;
 zeruan dizut errepikatuko
 eskerroneko neure kantua,
 oi Karmengo Erregina bihotzeko!

1894ko uztailaren 16a

TO 8

Santu baten Alabaren otoitza

1894ko abuztua

GARAIA: 1894ko abuztua. - OLERKI-HARTZAILEA: Teresa bera, bere aitaren gomutaz
 (uztailaren 29an hila). - ARGITALPENEA: HA 98 (hogeita bost bertso zuzenduta). - Doinua:
Rappelle-toi.

Teresaren lehen olerkia, beraren taxuerakoa bakarrik dena. Haren aita hil eta ondoko asteetan zehar, oroitzapenak bake giroan ugarituz doaz (ik. TG 170). Otoi-tzean aurkitzen du, eta berarekin familiaren argazki-bildumaren orriak begiztatzen ditu.

«Oroi zaitez» adierazpen garrantzitsua da haren hiztegian, jite lasterreko adierazpena da, beti modu ukaezinean hartu behar dena.

Olerki hau historiko, biografiko eta apur bat zin-oroigarria da familiaren santutegian; ahapaldi bat Martin gurasoei eskainia da, bana lau alabei, hiru Teresa berari, eta amaierakoa Martin jaunaren nekaldi eta gorespenekoa da. Ez da gertakarien kontatze soila; oroitzapena interpretazio bihurtzen da berehala haren lehenengo eskuizkribuan.

Badago oker bat joskeraren aldetik (se rappeler de); behin eta berriro azalduko da, eta hainbat bertso itxuragabetuko ditu. Hala ere, alferrikakorik gutxi dago gogoeta liriko honetan eta olerkia erraz dabil.

Urtebetean, Teresak doinu berbera hartuko du, bai eta erritmo berberak ere kontenplaziozko olerki bikain bat ontzeko, berak Teresari egin dion guztia Jesusi oroitarazten diolarik (TO 24).

- 1 Oroi zaitez lurrean gu maite izatea
 zela garai batez zure zorion betea
 zure alaben eskaria entzun ezazu:
 babes gaitzazu, orain ere bedeinka gaitzazu.
 Zuk berraurkitu duzu gure Ama maitea zeru-goian¹,
 aurrea hartu zizuna Aberri Santuan
 Orain biok zeruan²
 nagusi zaituztegu;
 begira gaitzazu!...
- 2 Oroi zaitez hain maite zenuen Mariaz³
 zure bihotzekoa zen alaba nagusiaz;
 hark bete zuela zure bizitza oroi zaitez
 maitasunez, liluraz eta zorionez...
 zuk Jainkoagatik haren presentzia gozoa utzi zenuen
 eta nahigabea ematen zizun eskua bedeinkatu zenuen!...
 Oi! zeure diamanteaz⁴
 beti gero eta distiratsuago denaz
 oroi zaitez!...
- 3 Oroi zaitez zeure ikusgarritzko bitxi finaz⁵,
 zuk ahul eta bildots beldurti ezagutu zenuenaz;

¹ Martin andrea orain dela hamazazpi urte hila da, 1877ko abuztuaren 28an.

² Teresak bere aita zeruan dagoela duen ziurtasunari buruz, ik. A Esk., 82^l.

³ Nagusia, Maria, aitaren kutuna dela ahizpa guztiek dakite.

⁴ Martin jaunak Mariari emandako goitizena, Teresak aitari igortzen dizkion gutunetan maiz erabili.

⁵ Martin jaunak Paulinari ezarritako goitizena.

begira Jainko-indarrez betea
eta gidatzen Karmengo taldea⁶.

Bera bihurtu da zure gainerako alaben ama;
oi aitaxo! zatoz gidatzera zuretzat hain maite dana..!

Eta zerua utzi gabe
zeure Karmeltxo
oroï zaitetz!...

- 4 Oroï zaitetz hirugarren alabaren⁷ alde
zuk egin zenuen erregu gartsuaz.
Jainkoak entzun dizu, lili distiratsua
baita hura, bere ahizpak bezala, lurrean;
Bisitazioak du munduaren begietatik gordean,
baina berak maite du Jesus, asebetea da haren bakez.
Haren irrika gartsuez
eta haren intziri guztiez
oroï zaitetz!...

- 5 Oroï zaitetz zeure Zelina laztanaz,
zuretzat Zeruko aingeru antzeko izan zana⁸,
Jainko-aurpegiaren begirada⁹
hautatze bikain¹⁰ batez probatzera etorri zenean...
Zu nagusi zara Zeruan... haren egitekoa bete da,
orain¹¹ Jesusi eskaini dio bere bizitza...
Begira ezazu zeure alaba
behin eta berriro esaten duena:
oroï zaitetz!...

- 6 Oroï zaitetz zeure erreginatxoaz
Beresinako umezurtzaz¹²;
oroï zaitetz haren duda-mudako ibileratan
zure eskua izan zela beti gidatu zuena;
oi, aitaxo! gogora ezazu haren haurtzaroko egunetan
Jainkoarentzat gorde nahi zenuela haren garbitasuna!...
Eta haren adats orailaz,
zure begientzat liluragarri zenaz
oroï zaitetz!...

⁶ Aines lekaimburu izendatzen dute 1894ko otsailaren 20an.

⁷ Leonia, garai hartan Caen-go Bisitazioan.

⁸ Ik. TG 142, 161, 165 eta A Esk., 82^a.

⁹ Teresarentzat, sufrimentua «hautatze aintzatsu»tik sortzen da, Aurpegi Santuak izaki bati egin-dako begiradatik, «begirada ezkutu»tik (TG 120, 127, 134, 140; Otoi. 12), zerbitzari sufriztailearen antza ematen diolarik.

¹⁰ Lau bider ezartzen zaio A esk. an *bikain* edo *aintzatsu* izenondoa Martin jaunaren gaixotasunari (20ⁱ, 21^a, 49ⁱ, 73^a; ik. TG 83 eta KH 27. V. 6).

¹¹ Erabakia, hortaz, hartuta dago: Zelina hilabete barru sartuko da Karmelen, irailaren 14an.

¹² Martin jaunak Teresari ezarritako bi goitizenak; ik. TG 46.

- 7 Oroi zaitetz begiratokian¹³
 beti zeure belaun gainean esertzen zenuela
 eta orduan otoitz bat xuxurlatuz
 zuk errepika gozoz urrumakatzen zenuela;
 hark zerua ikusten zuen zure aurpegian islatuz,
 zure begirada sakona espazioan murgiltzen zenean
 eta betikotasunaren ederra
 kantatzen zenuenean;
 oroi zaitetz!...
- 8 Oroi zaitetz igande argitsuaz,
 zeure aita-bihotzaren kontra estuturik,
 loretxo zuri bat eman zeniola
 Karmelera hegan egiteko baimena emanik.
 Oi, aitatxo! gogoratu haren maitasun leialenaren
 proba handietan zuk agerpenak eman zenizkiola
 Erroman eta Bayeux-en,
 zuk zerua erakutsi zeniola
 oroi zaitetz!...
- 9 Oroi zaitetz Aita Santuaren eskua
 Vatikanoan zure bekokian zela jarri,
 baina zuk ezin zenuen ulertu zugar irarri
 zen misterioaren Jainko-zigilua...
 Orain zure alabek zeuri egiten dizkizute beren otoitzak;
 haiek bedekintzen dituzte zure gurutze eta samin latzak!...
 Zure bekoki aintzatsuaren gain
 dirdira egiten dute Zeruetan
 bederatzi lilik¹⁴ loratan!!!...

Beresinako Umezurtza

TO 9

Ume erbestetu baten otoitza

EGUNA: 1894ko irailaren 11. - OLERKI-HARTZAILEA: Aita Almiré Pichon, beraren jaia zela-eta, Maria Bihotz Sakratuarenak eskaturik. - ARGITALPENA: *Poesies*, 1979.

Aita Pichon Maria Bihotz Sakratuarenaren arima-zuzendaria da 1882az gero; ahizpa Mariak bere burua «erbestetu»tzat du, hura Kanadan bizi baita. Zelinaren

¹³ Buissonnets-eneko begiratokia; ik. A Esk., 18^a eta TO 18, 12 eta 13. ahapaldiak.

¹⁴ Familiako burua zeruan dagoenez gero, etxeko gainerako guztiak ere ahal izatez (itxaropenez) han daude (ik. TG 173).

bokazioa zela-eta harremanak zakartu egin ziren Karmel eta josulagunaren artean 1894ko abuztuan, eta Teresak «bihotza hertsita» du, baina «ez dago haserre» (TG 168). Akrostiko hau egiteak baieztatu egiten du, zalantzarik gabe, ez dagoela sumindurik.

Zure ondoan, ene Jainko, Aita batez oroitzen naiz,
zure Bihotz Sakratuak hain maite duen apostoluaz.
Baina hura erbesteraturik da atzerriko erriberan...
Honezkero ordua da, neure Artzaina itzul iezadazu!
zure seme-alabei beren gidari eta argia itzul iezaeizu,
zeure apostoluaz oroi zaitetz, Jauna, Frantzian.

1894ko irailaren 11

TO 10

1894ko azaroaren 20

Erregina bihurtu zen neska artzain baten istorioa

EGUNA: 1894ko azaroaren 20a. - OLERKI-HARTZAILEA: ahizpa Maria Madalena Sakramentu Santuarena, beraren profesu zela-eta. Azken koplak Ama Aines eta Ama Maria Gonzagarenari eskainia da. - ARGITALPENA: HA 98 (hamabi bertso zuzenduak); azken koplak eta azken atsoititza *Poésiesen* daude, 1979an. - DOINUA: *Tombé du nid*.

Nobizia zela, Teresak «errege ahaltsu batek ezkontza eskatu dion neskatxa apal baten» kondaira gogorarazi zuen (TG 109). «Neska artzaina erregina bihurtua» folklore unibertsaleko gai klasikoetarikoa da, bihotz-eleberrietarikoa alegia. Irudia Teresarentzat erakargarria da, oso sentibera baita txikiaren eta handienaren bategitea, hutsalaren eta betierekoaren elkatasuna. Teresak hari ezartzen dio hemen, Maria Madalena (lehenago Melani) benetan artzaina izan baitzen (ik. DSA 7, 1. agerraldia).

Beharrezkoa zen Teresa izatea, horrelako olerki aske eta dirdiratsua idazteko, lotura handiak dituen nobiziaren asmoaren aurrean, hark bere burua ixten baitio santuaren zorroztasunari. Hala eta guztiz ere, Maria Madalenak maite du Teresa: hark Ordinarioaren Prozesuan Teresaren erretraturik politenetarikoa egiten du.

Teresak, berriz, ez zuen inoiz egonarririk galdu. Hemen ez da isil-keinu izpirik, ez da sumindura azaleratzen uzten duen ezer, ezta ahaleginik agertzen duenik ere. Maitasun-misterioa da: Errege handi batek artzain txiro bati dion maitasun bera da Teresak «Jesusek bera maite duenez» lagun-hurkoari diona.

Baina bera da bere eztaiak kantatzen dituen; berak, «Jaunaren gorespenak beti-beti» kantatzeko hartua du jadanik tonua A Esk.an.

Neure Ahizpa Maria Madalenari,
Jesusen Aines Amaren eskuetan eginiko bere profesia egunean.

- 1 Egun zoragarri honetan, oi Madalena!
zure ondoan biltzen gara kantatzera
zeure Senarrarekin elkartzera
ekarri zaituen kate harrigarri eta leuna.
Entzun neska artzain baten istorio
liluragarria, errege handi batek
behin aintzaz bete nahi izan zuena,
honen deiari hark ongi erantzunik.

Errepika

Kanta diezaigun lurrean
pobre den neska artzainari,
Zeruko Erregeak gaurko egunean
Karmelen bere ezkontide egin duenari.

- 2 Neskaxo artzain batek
iruten zaintzen zituen bere bildotsak,
miresten zuen loretxo bakoitza
entzuten txorien abestia,
ongi ulertuz oihan handien eta ortze
urdin zorgarriaren hizkuntza ezitia;
harentzat Jainko onaren irudia
agertzen ziona zen guztia.
- 3 Berak maite zituen Jesus eta Maria
gar arras bizi batez, maitatu ere,
hauek ere maite zuten Melania
eta bihotzera hitz egitera etorri zitzaizkion.
Erregina leunak, “nahi duzu, esan zion,
nire ondoan, Karmel Mendian,
nahi duzu Madalena bihurtzea
eta Zerua baino besterik ez irabaztea?”
- 4 “Ume, utz ezazu larre hau,
artaldearen penarik ez izan,
han, nire mendi santuaren gainean
Jesus izango da zure bildots bakarra¹”.
“Oi! zatoz, zure arimak liluratu nau”
errepikatzen zuen Jesusek era berean.

Os 2,16

¹ Ik. TO 18, 35–36. ahapaldiak; DSA 5, 26; TG 183. Teresa Joan Gurutzekoaz gogoratzen da: «Nik ez dut aldrarik zaintzen» (*Kantu izpirituala*, XXVIII. ahapaldia), baina «Bildots bakarra»ri bere burua eskaintzea Teresaren azalpen bere-berea da, Apokalipsira igortzen gaituena (14, 3–4).

Os 2,19

“Nire maitetzat zaitut hautatuko,
zu neurea izango zara behin betiko”.

5

“Neska artzain apala, poztasunez
dei gozo honi erantzunez,
Maria bere Amak babesten zuela,
iritsi zen Karmelgo gailurrera”.

.....

Zu zara, oi Maria Madalena!
guk egun honetan omentzen duguna.
Neska artzaina erregina bilakatu da
Errege Jesus, bere maitasunaren ondoan!...

6

Zuk badakizu, ahizpa maite-maitea,
Jainkoa zerbitzea dela erregina izatea².
Salbatzaile leunak bere bizitzan
irakasten zigun etengabe:
“Lehenengo nahi baduzu
izan Zeruko Aberrian,
ezkutatu beharra duzu
bizitza guztian... azkenengo izan”.

Mk 9,34

7

Zorioneko zara, Madalena,
Karmelen Jesusi otoitz eginez
izan ote zenezake zuk ezeren penarik
Zerutik hain hurbil egonez...?
Marta eta Maria³ imitatzen dituzu:
otoitz egin, Salbatzaile leunari zerbitzu;
hona zure bizitzaren helburua,
berak ematen dizu benetako zoriona.

8

Inoiz nahigabe garratzak
bisita baleza zure bihotza,
bilaka ezazu zeure poz oso,
Jainkoagatik sufritzea... bai gozo!...
Orduan Jainko-lastanek
ahaztaraziko dizute berehala
arantza gainetik zabiltzala,
iduriko zaizu, aitzitik, hegan zoazela...

9

Gaur aingerua zure inbidiz da⁴,
hark nahi luke dastatu, oi Maria!

² Augustin deunaren aipamena.

³ Marta eta Maria: Teresa ez da garai hartan hain markatuak ziren “klaseen” bereizketetan gelditzen. «Otoitz egin, zerbitzuan jardun» da karmeldar guztien ezaugarria (ik. DSA 4).

⁴ Teresak oso maite duen pentsamendua (ik. TO 3, 86 +).

zuk duzun zoriona jadanik,
 Jaunaren emazte izanik.
 Bai bizitza honetan zu zara
 hautatuen Erregearen emaztea,
 halako batean Aberri santuan
 erregina izango zara Jesusen onduan.

Azken errepika
 Laster, lurrean behartsu genduan
 neska artzaina,
 hegaldatuz zeru-gaina,
 erregina izango da Betikoaren onduan.

Gure Ama Agurgarriei

- 10 Zuei, Ama on eta maitagarriei,
 zuen ardura eta otoitzei
 zor die gure Ahizpa Madalenak
 bere bakea, bere zoriona;
 jakingo du hark erantzuten eskerronez
 zuen maitasun samur amatiarragatik,
 bere Maisu Onari eskaturik
 bete zaitzatela Zeruko ondasunez.

Errepika
 Eta zuen koroietan,
 oi Ama onak, dizdiz bizitan
 izango da lorea, opari
 eskainiko diozuena Jainko Salbatzaileari.

TO 11

[Maria Aines Aurpegi Santuarenak abitua jantzi zuen egunean]

EGUNA: 1894ko abenduaren 18a. - OLERKI-HARTZAILEA: ahizpa Maria Hirutasunarena (orduan Maria Aines Aurpegi Santuarena), abitua jantzi zuenean. - ARGITALPENA: *Poésies*, 1979. - DOINUA: *Nina la glaneuse*.

Olerki honek eta ondorengoak xede berbera dute: solasaldia, opariaren jasotzaileak abitua jantzi zuen arratsaldean. Nobiziaren kantuen ostean (TO 11), komunitate osoaren erantzuna dator (TO 12), eta komunitateak lehenengoaren gaiak berriro hartu eta adierazpenak ikusten ditu. Asmo handirik ez duen bertso honen interes historikoak haren olerki-ahuldura konpentsatzen du. Arrunkeriak

alde batera uzten ditu, eta nobiziaren bizimoduaren ezaugarri zehatzak oroitzen ditu; izan ere, karmeldarren oihal latza berreskuratu zuen, Parisko karmel baten, Messine etorbidean, osasuna zela-eta 1893an utzi eta gero.

Teresaren eta honen babespekoaren arteko elkar-hartze apala, hura bereziki nobiziatuko arduradun zenean, geroago, gazte-adiskidetasun sakon bilakatuko da, beste sei olerkik adierazten dutenez (TO 20, 29, 30, 31, 49, 53).

- 1 Maria Birjina, nahiz eta neure ezina gogoan hartu,
egun eder honetako arratsean nahi nuke kantatu
eskerroneko gorespena
eta behin-betiko Jainkoarena izateko itxaropena.
Ah! hainbeste denbora kutxa santutik urrun egonik,
nire bihotz gaixoa Karmelen irrikaz zen;
aurkitu dut, orain ez dut beldurrik jadanik,
hemen Zeruko aurrerakinak ari naiz dastatzen!...

Has 8.8-9

Errepika

Joana da, azkenez, negar garaia,
artaldearen artilez naiz jantzia,
urratu da niretzat ortzemuga argitsua;
Jainkoaren Ama, egun liluragarri honetan
oi! gorde ezazu ongi bildots gaixua
zeure mantupear¹.

- 2 Oso gazte naiz ni, eta jadanik neke-mina,
proba latza etorri zaizkio nire bihotzari²;
nire itxaropen bakar, Maria Birjina,
itzul iezaiozu zoriona zeure bildotsari.
Zuk eman didazu Karmel familiatzat bai,
ni ere zure alaben ahizpa naiz,
eta, Ama maite, zure alaba bihurtu naiz,
Jesus neure Salbatzailearen emaztegai.

- 3 Zure Semearen begirada liluragarria
nire arima gaixoraino da beheratu,
nik bilatu dut haren aurpegi³ gurgarria
eta hantxe nahi nuke ezkutatu;
txiki gelditu⁴ beharko dut betiko

Sal 26,8

Sal 30,21

¹ «Ama Birjinaren mantupear gordea», ik. A Esk., 57^a; TG 105, 129; Otoi. 8.

² Teresak, berak nahi gabe, Messineko etorbideko karmeldarren proban izandako jokaeraz, ik. karmeldar horren lekukotasun bitxia (*Poésies*, II, 84. or.).

³ Aurpegi Santuak bere zigituaz markatuko du, Teresa bezala, laster Maria Hirutasunarena eta Aurpegi Santuarena izango dena; ik. beraren ezaugarria Otoi. 12an, eta oroitzapenak eta lekukotasunak, Pirre Descouvemont-ek aurkezturikoak, *Une novice de sainte Teresa* (Cerf, 1985).

⁴ «Txikitxo gelditzea»: hurrenez hurren ondoko idazkietan datorren esaera: TG 141, 154; DSA 1, 12ⁱ; TO 11, 3; 13, 5; 31, 4; DSA 7, 5ⁱ; TO 45, 4; 54, 6; C Esk., 3^a. Ik. TG 141 +.

haren begien soa merezi ahal izateko,
baina laster egingo dut aurrera bertutean
Zeruetako izar honen berotasunpean⁵.

- 4 Maria gozoa, ni ez naiz beldur lanerako,
zuk ezagutzen duzu nire borondate ona,
baditut akatsak, baina adorea ere nahiko,
eta nire ahizpek handia dute maitasuna.
Nire eztei-egun zoragarriaren zain,
imitatuko ditut haien bertute goitarrak,
somatzen baititut damaizkidazun indarrak
Jesusen emazte izatera irits nadin.

Azken errepika
Bedeinka itzazu Ama Agurgarriak,
haien ontasunak bainau ekarri Karmelera
ikus ditzadala, Maria Birjina, ezarriak
zeure ondoan aulki hilezkorrean gora
eta zure ama-bihotzak
zeruan koroa ditzala.

TO 12

J.M.J.T

1894ko abendua 18

[Zure ondora, Maria Birjina]

EGUNA: 1894ko abenduaren 18a. - OLERKI-HARTZAILEA: ahizpa Maria Hirutasunarena (orduana Maria Aines Aurpegi Santuarena), abitua jantzi zuenean; komunitateak erantzuteko kanta. - ARGITALPENA: *Poésies*, 1979. - DOINUA: adierazi barik.

Ikus TO 11ren aurkezpena. 1, 2 eta 7. koplak TO 11, 1-2ren oihartzun dira. 5-6. koplek TO 11, 4 hartzen dute berriro. 8. kopla, berriz, TO 11, 3ren erantzuna da; 9 garrena, aldiz, 1. atsotitzarena; eta 10 garrena, azken atsotitzarena. 3 eta 4. koplek habitu-hartze bikoitza zehazten dute, TO 11, 2an ia azaltzen ez dena.

- 1 Zure ondora, Maria Birjina,
gatoz arrats honetan kantatzera
otoitzean oroituz zure alaba mina,
haren itxaropen bakarra zu baitzera.

⁵ Jesusen Aurpegia eguzkiarekin konparatzen da: gai hori TO 20an azalduko du.

- 2 Zure itxarote-egun bedeinkatuan
eskaintzen duzu haren bihotz dohatsua;
hark Karmelen ezarri du bere kokalekua
eta bere gogoa du soilik profesa santuan.
- 3 Egun eder honetan, oi Maria gozoa,
oroitzapen atseginak betetzen dio gogoa:
bere bizitzako beste egun batean,
zure mantuak estali zueneko.
- 4 Oihal latza, azkenez, izan zaio bihurtua,
zure habitua bi aldiz du hark hartua;
izan dadila jantzia era berean,
Ama, zure izpiritu bikoitzaz.
- 5 Hark kantatu du: “badut nik kemena!...”
— Egia da, esan dugu isil-misilka.
Hark kantatu du: “gogoko dut lana!”
— Hemen lanik ez zaizu falta!...
- 6 Indarra oso gauza ona da
gartsuki lan egingo bada;
haren masailtan ezarri, Ama,
arrosaren kolore distiratsuen!
- 7 Amaitu da harentzat itxarote aldia,
bihotza du Zeruko bakearen pozetan;
Jesusek emaztegai-habituaz jantzia
ikusi nahi luke Eguberrietan.
- 8 Hark bere Aurpegian gorde beza
zure bildots gaixoa, Ama samurra;
hori da eskatzen duen toki bakarra,
beste sehaskarik nahi ez duela.
- 9 Oi Maria, entzun ditzazula
bildots gaixoaren nahiak,
bizitza honetako gaualdian
zure mantupean gorde dezazula.
- 10 Entzun haren erreguak oro
eta zure ama-bihotzak
gorde diezazkiola Amak luzaro,
bere Karmel maitea eman diotenak.

2 Erg 2,9

Sal 30,21

TO 13

J.M.J.T.

Zeruko Erreginak bere alaba maite Maria Aurpegi Santuarenari

EGUNA: 1894ko abenduaren 25a. - OLERKI-HARTZAILEA: Zelina nobiziagaia, ahizpa Maria Aurpegi Santuarena izenarekin; bat-bateko konposizioa. - ARGITALPENA: HA 98 (hamazazpi bertso ikuturik). - DOINUA: *Le petit mousse noir*.

Gabon-kanta baten freskotasuna du, baina olerki egituratua ere bada, zehazta, hitz aukeratuak dituena; haurtzaroaren eta ahalguziaren gaineko tratatu txikia da. Teresak bere ahizpari kontsolamendua emateko egin zuen olerki hau, honen dohainak, dirudienez, ez baitira behar beste aintzat hartzen Karmelen; arrakasta osoa izango da (ik. Zelinaren sei edaspenak, bereziki CSG, 50 eta 151. orr.).

Egia esan, Teresak askoz gorago begiratzen du; Maria Hirutasunaren ondoren, «Maria Aurpegi Santuarena» trebatzen du haurtzaroko bizieran. Gabon-kanta hau Nazareteko kanta ere bada, ezkutuko bizitzarena. Mariaren presentziak berebiziko garrantzia du, tolesgabetasunean, maitasunaren isiltasunean, "bildots bakarra" ren, haur bihurtutako Hitzaren antzera (1, 1) lehen urratsak emateko.

- 1 Jesus nire bildots bakarraren¹ antzeko
hautxo bat non aurkituko
nago, gorde ahal izateko biak batean
sehaskatxo berberean.
- 2 Aberri Santuko Aingerua
zure zorionaren jeloskor izango da²!...
Baina zuri ematen dizut, Maria,
Jainko Haurra zure senar izango da!...
- 3 Zu zara Jesusen arrebatzat
nik hautatu zaitudana.
Nahi al duzu Hura izatea laguntzat...?
Nire bihotzean izango duzu atsedena...
- 4 Gordeko zaitut nik neure mantupean³,
Zeruko Errege babesten duen mantupe berean;

¹ Ik. TO 10, 4 +.

² Ik. TO 3, 86 +.

³ Bera gordetzen den (4,2; 5,1), ezkututzen den Andre Mariaren mantu (TO 1, 1, 5; hemen 4, 1; TG 161; DSA 8, 6^a), atsedean hartzen duen (TO 5, 11, 3), bakezko lokuluxka egiten duen (TO 44,8; 54,12,5) mantu-pea da haurrarentzat ziurtasun osoaren irudi, bere burua uzteko toki ezin hobea. Baina Teresak 1889ko udan horrelako grazia jaso ondoren (ik. KH 11. VII. 2), mantu horrek esanahi mistikoa hartzen du. Soingainekoaren antzera, garbi-garbia da (TG 105) «lurreko arduren isiltasun sakonean» ezartzen du hark izaera. (TG 122). Mantu horren azpian Jesus bakarrik dago, begira dago, berarekin bat egiten du. Teresa Ordenako tradizioarekin: harmonia osoan dago: Karmelgo bizimodu ezkutua Andre Mariaren basamortuaren antzekoa da.

honezkero nire Semea izango da zure begietan
dir-dir egingo duen izar bakarra benetan.

- 5 Baina nik babes zaitzadan beti
neure mantupean Jesusekin batera,
beharrezko duzu gelditzea txiki,
haurren bertutez⁴ jantzia izatea.
- 6 Zure bekokian dir-dirka gozotasuna
eta garbitasuna nahi nituzke,
baina nik ematen dizudan bertute
hori da, batez ere, tolesgabetasuna.
- 7 Jainkoak, hiru pertsonetan bakarra denak,
aingueruek dardarka gurtzen duten hark,
Betikoa denak, nahi luke eman diezaiozula
zelaietako Lorearen izen apala.
- 8 Beti zerurantz begiratzen duen
bitxilore zuria bezala,
Gabonetako haur txikiaren
loretxo apala ere izan zaitezala.
- 9 Munduak ez ditu ezagunak⁵
zerutik erbestetutako Erregeren⁶ edertasunak;
malkoak ikusiko dituzu sarritan
ñir-ñirka haren begi gozo txikietan.
- 10 Zeure nahigabeaz ahaztea izango da beharrezko
Haur Maitagarriari poza emateko,
zuk zeure kate gozoak bedeinkatzea
eta eztiki kantatzea!...
- 11 Orro egiten duten olatuak
geldirazten dituen Jainko ahaltsuak,
haurtzaroko antz-irudiak hartu
eta ahul eta txiki nahi luke bilakatu.

Kt 2,1

Mk 4,37-39

⁴ Seigarren ahapaldiak bertute handiez jardungo du, baina haurtzaroari dagozkionaz. Hiztegiak ez du zertan aldaketarik eman: «*haurren bertute*» horiek norik bere burua erabat uztea eskatzen dute. Ik. Otoi 14, 4 + oharra.

⁵ 9.etik 14.era bitarteko ahapadiek gaien uztartze sotila aurkezten dute, bai eta ideia polifonikoen jarraipena ere, haurtzaroko irudien ostean, Jesusen etorkizun lazgarria iragarri. *Méconnaître*: ik. DSA 2, 3^a eta 7ⁱ; 4, 1ⁱ; 5, 2^a; TG 108 (Is 53, 2).

⁶ TO 24, Sean izan ezik (Egiptoko ihesa), *erbesteak*, Teresaren arabera, Gizakunde esan nahi du (TO 1, 1; 24, 1; 30, 1; TG 141; B Esk., 5ⁱ; DSA 2, 1^a; DSA 5, 1^a; DSA 6, 2ⁱ). Teresak, dirudinez, ez du inoiz pentsatu gizon egiterakoan Jesus *bere etxera* etorria zenik.

- 12 Aitaren Hitz kreatugabekoak,
zugatik hemen behean arrotz egindakoak,
nire Bildots gozoak, zure Neba txikia
denak, ez dizu hitzik egingo, Maria!...
- 13 Isiltasun hau da haren maitasun
adierazgaitzaren lehen seinalea;
ongi ulerturik hitz gabeko elea,
zuk hura imitatuko duzu egunez egun.
- 14 Eta noizbait Jesus lotan badatza,
haren ondoan atsedean hartuko duzu;
beti itzarrik den Jainko-bihotza
euskarri gozo gertatuko zaizu.
- 15 Ez zaitezela kezka,
Maria, eguneroko lanetan,
zure lana bizitza honetan
soil-soilik "Maitasuna" baita.
- 16 Baina inork aurpegira botako balizu
ez direla ikusten zure lanak,
"asko maite dut" esan diezaiokezu;
"hona lurtean ditudan aberastasunak!...
- 17 Haren maitasuna besterik nahi ez baduzu,
zure koroia⁷ Jesusek du ehoko;
zeure bihotza harengan utz badezazu,
Hark erregina egingo zaitu betiko.
- 18 Bizitza honetako gauaren ondorenean,
haren begirada gozoak gonbidaturik,
zure arima liluratuak zerura hegan
egingo du atzerapen barik!...

Mk 4,38-39

Kt 5,2

Jn 13,23

1894ko Gabon gauean

⁷ Ik. TG 143, 5. oharra.

TO 14

Gure Aita San Jose

URTEA: 1894. - OLERKI-HARTZAILEA: ahizpa Maria Gizakundearena (Joséphine Lecourier), berak eskatuta. - ARGITALPENA: HA 98 (bost bertso zuzenduta). - DOINUA: *Nous voulons Dieu*.

Olerki honen gorabeherak ezezagunak dira, baina ziur aski 1894koa da. Jesus eta Mariaren kontenplazioa eta beraien zerbitzua, txirotasun eta bakartasunean; San Joserren bizimodu ezkutu hau eredu ona da karmeldarrentzat (ik. SANTA TERESA, Bizitza, VI. kap.).

- 1 Jose, zure bizitza harrigarria
pobretasunean da iragana,
baina ikusten zenuen Maria
eta Jesusen edertasuna.

Errepika

Jose, oi Aita txeratsua,
babes ezazu Karmengo komentua;
zure alabek lur honetan daudela,
zeruko bakea beti goza dezatela!

Lk 2,51

- 2 Jainkoaren Semea umetan,
zure aginpidupean izanik,
pozez behin baino gehiagotan,
atsedendu zen zure bihotzean etzanik.
- 3 Zure antzera, bakardadetik
Maria eta Jesus zerbitzen ditugu;
ahalegin bakarra haiek poztean dugu,
ez dugu nahi horixe baino besterik...
- 4 Gure Ama Teresa santuak
maiteki otoitz egiten zizun;
bere eskaria, esaten du hark,
beti zeniola zuk entzun.
- 5 Bizitza honetako erbeste ondoren
guk badugu itxaropen
gozoa, geure Ama maitearekin batera
joango garela, Jose santua, zu ikustera.

Azken errepika

Bedeinka ezazu, Aita gozoa,
gure Karmel txikitxoak;
lurreko erbestealdiaren buruan
bil gaitzazu zeruan!

TO 15

[Bihotz Sakratuaren atomoa]

URTEA: 1894. - OLERKI-HARTZAILEA: ahizpa San Bizente Paulekoarena, berak eskatuta.
- ARGITALPENA: *Poésies*, 1979.

Olerki hau hartzailearen debozioaren irudira eginda dago (ik. TO 19): bera «atomoa» da, Eukaristian Bihotz Santua bilatzen duena, bai «ate»an, bai «sagrario»aren barruan, bai eta «kopoi»aren «habia»n (!) ere... Hala ere, Teresak Bihotz Santuan Jesus beraren Pertsona azalarazten du (ik. TO 23), ondoko hitzok azpimarratzen dutenez: irribarre, begirada, ahots, bihotz, esku.

Errepika

Zure atomoak, Jainko-Bihotza,
ematen dizu bere bizitza;
hona haren bakea, haren zoriona:
zuri atsegin ematea, Jauna.

- 1 Zure atean nago ni
 egun eta gau
 zure graziak erakartzen nau;
 zure maitasuna gora beti!
- 2 Oi, zeure aintza ezkuta ezazu,
 habia gozoa egin iezadazu
 gau eta egun ezkutuan
 kopoi santuan.
- 3 Zure hegala, hau miresgarri!
 bihurtu zait neure babesgarri,
 ni iratzartzean, Jesus,
 zuk irribarre egiten didazu.
- 4 Zure begiradak jartzen nau gori,
 nire maitasun bakar hori,
 nire arima kiskal ezazu
 behin eta betiko, Jesus.
- 5 Liluratzen nau zure ahotsak,
 samurtasunez gainezka denak
 eta premiatzen zure bihotzak,
 oi nire adiskide leuna!...
- 6 Zure eskua leungarri
 zait eta euskarri.
 Zuk adore damaiozu intziri
 dagian bihotzari.

- 7 Goza nire bihotza
 nekealdian.
 Eta galduarentzat
 Artzain On izan.
- 8 Oi ikuskizun ezti,
 maitasun-mirari!
 Sagrarioan geldituko
 naiz ni betiko.
- 9 Mundutik aske jarririk
 eta inongo euskarririk
 gabe, zure graziak nakar
 aserik, nire adiskide bakar!...
- 10 Oi, martiritza leun!
 kiskaltzen nago maiteminez,
 zukanantz bihotzak eraginez,
 Jesus, egunez egun!...

TO 16

Jesusen Maitearen Eskerroneko Kantua

EGUNA: 1895eko otsailaren 5a. - OLERKI-HARTZAILEA: ahizpa Jenofa Santa Teresarena (Zelina), abitua jantzi zuenean. - ARGITALPENA: HA 98 (zazpi bertso zuzenduta). - DOINUA: *O Saint Autel*.

Kantu larria, gurutzearen gerizpean egina (1, 2, 3. ahapaldiak); itxaropenak antzaldatua (4, 5, 6. ahapaldiak); Zelinarentzat «ortzemuga berria»ren kantua da, Martin jaunaren ondoan emaniko urte luzeotako proben ostean, baita Teresarentzat ere, berak oroitzapenak idazteari ekin diolarik (ik. A Esk., 3^{ai}): 1894ko zalantzen ostean, «azkenez eguna dator gauaren ordezkotzat».

Sal 30,21

- 1 Zuk zeure aurpegian gorde nauzu betiko!...
 Entzun ezazu nire ahotsa, Jesus Jainko;
 kantatzera nator ni grazia adierazezina:
 sufritu izana... Gurutzea eraman izana...

Mt 20,22-23

- 2 Luzaro edan dut nik malkoen edontzitik,
 zuk eta biok hartu dugu zure samin-ontzitik;
 eta ulertu dut sufrimenduak lilurarik baduela,
 bekatariak gurutzearen bidez salbatzen direla.

- 3 Gurutzeagatik nire arima handi eginak
ikusi du agertzen ortzemuga berri bat.
Zure aurpegi bedeinkatuaren errainutan
nire bihotz ahulak gora egin du benetan.
- 4 Ene Maitea, zure ahots eztiak dei egiten dit:
zatoz, diostazu, urrundu da negua jadanik¹.
urtaro berria hasten da zuretzat,
azkenez eguna dator gauaren ordezkotzat.
- 5 Jaso Aberri Santurantz begiak
eta ikusiko dituzu ohorezko aukietan eseriak
Aita maitagarria... Ama maitea,
haiei zor diezularik zeure zorion betea!...
- 6 Zure bizitza une bat bezala iragango da;
Karmelon zerutik oso hurbil egoten da;
nire maite, zeu hautatu zaitu nire bihotzak,
eserleku aintzatsua daukat nik zuretzat!...

Kt 2,10-11

Sal 120,1

(1895ko otsailaren 5a)

TO 17

Maitasunez bizi!...

EGUNA: 1895eko otsailaren 26a. - BAT-BATEKO KONPOSIZIOA. - ARGITALPENA: HA 98 (hogeita bat bertso zuzenduta). - DOINUA: *Il est à moi*.

Nahitaez zirrara eragiten du maitasunezko olerki aberats, sakon eta luzearen garrean den seriotasun aireak. Benetako «aitorpen» honek maitasun honen izari osoa aztertzen du, erabaki-larria hartu aurretik ekintza horren ondorio guztiak aztertzen dituen moduan. «Maitasunez bizi — Maitasunez hil» (ik. Ama Maria Gonzagarenak Teresari 1890ean bidalitako oharra, LC 144), berau da gogoeta handi honen muina, Teresak laster hilgo dela dakien unean, eta bere biografia idazteari ekiten dionean; eta ikuspegi hori ezin hobea da iragan, orain eta etorki-zunari buruz. Berak bat-batean horrelako olerkia idaztea oso adierazgarria da.

Teresak «alegi gabe» hitz egiten du, gutxienez, hamar bat ahapalditan (hamabostetan). Ez da kontua irudi sinbolikorik bertan ez erabiltzea, hala ere, beste toki batzuetan baino askozaz bakanagoak dira. Ideiek, intuizioek olerkiaren gainetik daramate maiz; bederen, pentsamendu teologikoa hain handia izanik, nekez gau-

¹ Irudi berdinak DSA 3, 23^a.an, hamabost egun lehenago aurkeztuta.

zutzen da forma poetikoan; berak «bortxatu» egiten du olerkiera, edota ez du horren beharrik.

Maitasunez bizi isurialdi bakarrez sortzen da Sakramentu Santuaren aurreko une luzeetan. Gure Jauna berrogei orduz hiru egunetan zehar agirian izaten da (Hausterre aurreko igandean, astelehenean eta asteartean) ihauterietako gehiegi-kerien ordaina emateko, Garizuman sartu orduko.

Binaka, ahizpak ordurik ordu egoten dira Gure Jaunaren aurrean. Kaperako santutegia bakarrik dago argiturik, karmeldarren korua, aldiz, ilunetan dago. Esan liteke ezin irakur litekeela. Barnekoitasun giro gartsu honetan jariatzeko da Teresa-ren ariman Maitasunez bizi kantua: bake ibaia, neurrigabea, lasaia, ahapaldi bakoitzak ibaiadarrak bezala ugaltzen du joana uhertu gabe.

Olerki beronen B eta C aldakiek honako epigrafeak daramate: «Maite nauanak onartuko du nire mezua; nire Aitak maite izango du, eta Aita eta biok berarengana etorriko gara eta berarengan biziko... Neure bakea ematen dizuet... Iraun tinko nire maitasunean... San Joan XIV, 23, 27; XV, 9.»

- | | | |
|---------------------------------|----------|---|
| <p>Jn 16,29
Jn 14,23,27</p> | <p>1</p> | <p>Maitasun-arratsean, alegi gabe mintzo zela, Jesusek zioen: "maitatu nahi banaza inork bizitza osoz, nire Hitza gorde¹ dezala, ikustera etorriko gatzazkio Aita eta biok. Eta geure bizilekua eginik haren bihotzean, harengana etorrita, beti maite izango dugu!... bake-baketan, bizi dadila nahi dugu geure Maitasunean!...</p> |
| <p>Jn 15,9</p> | <p>2</p> | <p>Zu zeu gordetzea da maitasunezko bizitza, Hitz kreatugabea, nire Jainkoaren Hitza, Ah! badakizu, Jesus Jainko, maite zaitut nik, Maitasun-Izpirituak erretzen nau zure sutatik²; maitatuz dut Aita niregana erakartzen, nire bihotz ahulak behin betiko du gordetzen. Oi Hirutasun! nire Maitasunaren katibu³ bizi zara zu!...</p> |
| <p>Jn 1,1
Jn 21,15</p> | <p>3</p> | <p>Maitasunez bizitzea, zure bizitzaz bizitzea da, Errege aintzatsua, hautatuen atsegina. Zu, Ostia batean ezkutaturik, bizi zara niretzat; nik nahi nuke ezkutetzea, oi Jesus, zuretzat! Bakardadea maiteminduentzat⁴ da beharrezkoa, gau eta egun dirauen harreman berez-berezkoa;</p> |
| <p>Ga 2,20</p> | | |

¹ Ik. TG 142 eta, batik bat, TG 165eko adierazpen luzea.

² Olerkiari bizia emango dioten suaren irudietarik lehenengoa (ahapaldiak: 6, 10, 14, 15). Ik. *infra* 8. oharra. Su hitza hamazazpi aldiz azaltzen da Olerkietan.

³ Joan Gurutzekoarena izan litekeen zantzua (*Kantu izpirituala*, XXXII. ahapaldiaz egindako oharra). Ik. TO 32, 5, 2.

⁴ *Kantu izpiritualarena* izan litekeen aipamena, XXXVI. ahapaldiaz egindako oharra.

zorionsu egiten nauzu zeure begirada hutsaz,
ni Maitasunez bizi naz!...

- 4 Maitasunez bizitza ez da lurtean
etxola jartzea Taborreko gailurrean. Mk 9,5
Kalbariora igotea da Jesusekin batera,
Gurutzea begiratzea, altxor baten antzera⁵!...
Ni Zeruan poz-eztitan naiz biziko,
orduana proba iragana izango da betiko,
baina nahi dut erbeste-orduana
Maitasunez bizi sufrimenduan.
- 5 Maitasunez bizitza, nor bere burua neurri gabe⁶
eskaintzea da, saririk hemen behean eskatu gabe.
Ah! kontatu gabe ematen dut nik, ziur izanik
maitatzen denean ez dagoela kontuak egiterik!...
Samurtasunez gainezka den Jainko-Bihotzari
nik dena eman diot... bizkor-bizkor noa ni⁷,
neure aberastasun bakarra dut, besterik ez:
bizitza Maitasunez.
- 6 Maitasunez bizitza, beldur guztiak uxatzea 1 Jn 4,18
da, lehengo huts guztien oroipena ezabatzea.
Ez dut ikusten nire pekatuen inolako aztarnarik,
maitasunak guztia utzi du bat-batean errerik⁸...
Jainkozko Su, oi Sugar txit ezti!
nik neure egoitza zure etxean dut kokatzen,
zure sutondoan gogara dut kantatzen: Dn 3,51
“Maitasunez bizi naiz ni!...”
- 7 Maitasunez bizitza, nor beregan gordetzea da 2 Ko 4,7
ontzi iraungikor batean altxor preziatua;
Ene maitea, nire ahuldadea azken gabea da,
ah, ez naiz ni inola ere zeruko aingerua!...
Baina eror banadi ni orduoro-orduoro,
zu laguntzera zentozkidake, gora jasoz berriro⁹,

⁵ Ik. TO 46, 5 eta 50, 5.

⁶ Dohaineko maitasuna, eskuzabala, Teresarengan sarritan aurkitzen den gaia; cf. adibidez, TG 142; Otoi. 6; CSG, 62. or.; KH 9. V. 3; 6. VIII. 4; 6. VIII. 7, etab.

⁷ Ik. Joan Gurutzekoak, *Kantu izpiritualari XXV*. ahapaldiari, egindako iruzkina: «Neskatilek arin zeharkatzen duten bidea», Teresak (geroxeago) A esk.ko 47ⁱ/48^a.an hartuko zuena. 118. Salmoko 32an ere pentsa liteke (ik. C esk., 16^a). Gogora dezagun, azkenik, *Kristoren Antz Bidea*, III, 5: «Gutxi maitatzen duenak lapurtu egiten du; bera alaitasunean dago, bera askea da... berak dena ematen du» etab.; A Esk.ak, 80ⁱ zuzenki iragartzen duenez.

⁸ *Suaren* ahapaldia; ik. A Esk., 84ⁱ. Ondoko testuek «garbitoki»aren ahapaldia osotu eta argitzen dute: A Esk., 84^a/ⁱ; TO 23, 8; TG 226; KH 8. VII. 15 eta 30. VII. 3; DE, 683. or.; VT 99. zk., 185, 187. orr.

⁹ Ik. TO 45, 4, 3.

une bakoitzean janzten nauzu zeure graziaz
ni Maitasunez bizi naiz.

8 Maitasunez bizitzea da etengabe nabigatzea¹⁰,
bihotz guztietan bake eta alaitasuna ereinik;
Karitateak behartzen nau, lemazain maitea,
nire ahizpen arimetan ikusten baitzaitut nik¹¹;
Karitatea, hona nire izar bakarra,
zeharka ibili gabe urez noa haren argitara
neure goiburua idatzia dut bela gainean:
“Maitasunez bizi.”

2 Co 5,14

9 Maitasunez bizitzea, Jesus lo egon dadinean,
atseden egitea da olatu zakarren gainean;
oi! ez kezka, Jauna, ez baitzaitut irartzartuko,
bake-bakean itxaroten dut¹² zeruetako ur-ertza...
Fedeak bere oihala berehala du urratuko,
egunen batean zu ikustea da nire esperantza;
nire bela Karitateak haizatzen eta bultzatzen du,
ni Maitasunez bizi naiz!...

Mk 4,37-39

10 Maitasunez bizitzea, oi ene Jainko-Maisua,
hau da: zuri eskatzea isur dezazula zeure sua
apaizaren arima santu eta sakratuan¹³;
zeruetako serafina baino garbiago izan dadila!...
Ah! zeure Eliza hilezkorra gorets ezazu,
nire erreguei ez entzungor egin, Jesus,
haren alaba naiz, haren alde opari egin naiz,
ni Maitasunez bizi naiz.

Lk 12,49

11 Maitasunez bizitzea, zure Aurpegia xukatzea¹⁵,
bekatarien¹⁶ barkamena iristea da;
Oi Jainko maite! zure graziara itzul daitezela
eta zure Izena beti-beti bedeinka dezatela...
Nire bihotzeraino dator biraoaren hotsa¹⁷;

¹⁰ Teresak darabilen nabigazio-hiztegiaren katalogoa VTko 61. zk.an dago, 1976ko urtarrila, 80. or.

¹¹ Ik. C Esk., 30ª.

¹² 1895ean zeruaren itxaropen baketsuaz, ik. baita TO 21, 3; 22, 11; 24, 32 ere.

¹³ Ik. TG 94 +.

¹⁴ Ik. Eskaintzaren Ekintza, Otoi. 6.

¹⁵ Beronikaren irudia, Jesusen «*aurpegia lehortzen*»; biraoa «*ezabatzen duen*» maitasunaren ikur delarik, berak mugimendu ederra ematen dio ahapaldiari; ik. DSA 2, 4ª; A Esk., 66ª eta Otoi. 12.

¹⁶ Ik. TO 21, 1. *Bekatarien* lehenengo aipamena Olerkietan.

¹⁷ Ik. DSA 2, 8ª; A Esk., 52ª; TO 24, 29. Umetan, Teresa biraoen eta igandea haustearen aurkako Artxikofradian zegoen, 1885ean izena emanik. Karmeldar zela, *Vie de sœur Marie de Saint-Pierren* berraurkitzen du biraoen aurka egiteko etengabeko deia. Baina haren oihartzuna, idazkietan, hementxe baizik ez da aurkitzen.

hori ezabatzeko etengabe kantatu nahi dut:
 “zure izen sakratua gurtzen dut, maite dut;
 ni Maitasunez bizi naiz!...”

- 12 Maitasunez bizitzea Maria imitatzea da, Lk 7, 37-38
 malkoz, usain gozoz bustiz zure jainkozko oinak,
 hark poz-pozik musukatzen zituenak,
 bere ile-adats luzez xukaturik...
 gero, jaikirik, usain-otzia hausten du,
 era berean zure Arpegi gozoa igurzten du. Mk 14,3
 Nik zure aurpegiari damaiodan usaingarria¹⁸
 neure Maitasuna da!...
- 13 “Maitasunez bizitzea, ah zer zorakeria!”
 esaten dit munduak, “ah! ez jardun kantatzen,
 ez alferrik galdu usain gozoak, zuen bizia,
 jakin ezazue irabazi onez erabiltzen!...”
 Bai galera emankorra, Jesus, Zu maitatzea!...
 Nire usain gozo guztiak zuretzat dira beti,
 mundu honetatik irtetea nahi nuke kantatzea:
 “Maitasunez hiltzen naiz ni!”
- 14 Maitasunez hiltzea¹⁹, martiritza leuna,
 eta horixe da nik nahi nukeena.
 Oi Kerubinak! goza ezazue zeuen lira,
 somatzen dudanez, nire egunak azkenetan baitira!...
 Maitasun-gar²⁰ horrek berehala suntsi nazala.
 Une bateko bizitza, astun zait zure zama!
 Jesus Jainko, egizu ametsa egia bihur dadila:
 Maitasunez hiltzea!...
- 15 Maitasunez hiltzea, hona nire itxaropena;
 askatzen ikustean nire hemengo lotura
 neure Jainkoa izango dut Sari Handiena²¹;
 ez nuke beste ondasunik edukitzea gura.
 Nik nahi dut haren maitasunez kiskalia izatea,
 nahi dut Hura ikustea²², betiko harekin biltzea;
 horra hor nire Zerua... horra hor nire geroa:
 Maitasunez bizitzea!!!...

Sal 115,16
 Has 15,1

¹⁸ Ik. TO 34, r. 1 +.

¹⁹ «Maitasunezko heriotza» ranzko bultzada hau lehenengo aldiz azaltzen da idazkietara. Ondokoetan ere azalduko da geroago: TO 18, 52; Otoi. 6; TO 24, 26; 31, 6; TG 242; C Esk., 7^a eta 8^a; TG 255, eta ondorik *Azken Solasaldietan*. Maria Eukaristiarenak koplara hori gaixotegian kantatuko du 1897. 7. 16an, Teresak Jauna hartu eta gero; ik. TG 255. Maitasunezko *martiritza*, oraindik ere, ondokoetan aipatzen da: Otoi. 6; TO 29, 12; 31, 6; 33, 4; TG 182 eta 224.

²⁰ Joan Gurutzekoak egintza suntsigarri eta eraldatzaile kantatzen duen *Maitasun-gar* biziaren aipamen argia (ik. TG 197).

²¹ Ik. TG 182 +, 15. oharra.

²² Ik. TG 56 +, 2. oharra.

TO 18

Zelinaren Kanta

EGUNA: 1895eko apirilaren 28a. - OLERKI-HARTZAILEA: ahizpa Jenofa, berak eskatuta, beraren urtebetetzerako (hogeita sei urte). - ARGITALPENA: HA 98, berrogeita hamaika ahapaldi, beraietarik bi berrikutuak, eta hogeita hamalau bertso zuzenduta. - DOINUA: *Combien j'ai douce souvenance*.

Zelinaren «Sorkarien Kanta», baina Teresarena areago. Maitasunez bizi ren gailurra igarota, poztasunez zehazten ditu berak bere Maitearengan eraldaturik aurkitzen dituen Kreazioko aberastasunak.

Lore, lurrin, barazki eta txorien sinfonia honek Zelinaren olerki bi orkestratzen ditu. 1895eko martxoko igande baten, ahizpa Jenofa lehenengo negu-txilintxa hartzera doala, haren ahizpak geldiarazten du: «Baimena behar da!». Gelara sartu denean, nobiziak kontsolamendua bilatu nahi du Jesusi deituz, olerki baten, eta olerki hori Berarentzat utzi du. Berba bakar batzuek zulatuko dute goibeltasunaren geruza:

Nik biltzen dudan lorea, oi nire Errege,
Zeu zara!

Teresa Zelinari laguntzera dator eta, arimako maistraren sen ziurrarekin, arreta hartzen du ezer iraganeko alaitasunen itzaletan geldi ez dadin; horrexek eragiten dio bitartean olerkia gehiegi urtzera, izan ere, berau da bildumako luzee-na ahapaldien kopuruari dagokionez (berrogeita hamabost). Haurtzaro eta gaztarotik (A Esk. idazten ari da) biek dituzten oroitzapenak, familiakoak eta batez ere izadikoak dira Teresak maitasunezko olerki honetan azaltzen dituenak; guztia atal handi bitan banaturik: Karmelera sartu arte (1. ahapalditik 31.era) ta «orain» (32. ahapalditik amaitu arte).

Ukaezina da Joan Gurutzekoaren eragina (Kantu izpirituala, XIV-XV. ahapaldiak) eta Teresak berak ematen du hori aditzera 1895eko gutun baten (TG 135). Santu bien senidetasuna biek duten funtsezko senean datza, eta sen hori estetikatik harantz doa: sortu diren aberastasun guztiak Kristorengan biltzen dira.

1 Oi! nire haurtzaroko egun gozo-ederren
 oroitzapena bai dudala nik gogoko...
 nire errugabetasunaren lorea gordetzearren
 Jaunak inguratu ninduen betiko
 maitasunez!¹!...

2 Horregatik, txikia naizen arren izatez,
 gainezka nengoen maitearen maitez,
 eta promes hau irten zait bihotzetik:
 hautatuen Erregerekin, Jesusekin
 ezkontzea.

¹ Ik. A Esk., 4ⁱ.

- 3 Bizitzaren udaberrian maite nituen nik
Jose santua eta Maria Birjina;
nire arima liluraturik murgiltzen² zen jadanik
nire begietan islatzen zenean
Zeruaren imagina!...
- 4 Maite nituen gari-soroak, ordeka,
maite nuen urrutiko mendixka;
oi! pozez ia ez nuen arnasarik hartzen
nire ahizpekin ari nintzela biltzen
loreak.
- 5 Atsegin nuen biltzea belartxoak,
nabar-loreak... guztitariko loretxoak,
nik bilatzen nuen bioleten lurrina
eta batez ere kukuprakena,
hain zen atsegina!...
- 6 Maite nituen bitxilore zuria,
igandeetako joan-etorria,
txoritxoak adarrrik adar kantari
eta zero aldearen urdin beti
argitsua.
- 7 Atsegin nuen urtean-urtean
neure zapata ezartzea kebidetan,
esnatu orduko hara joanik,
Zeruko jaia kantatu ohi nuen nik
Eguberri!...
- 8 Amatzorena irribarrea nuen gogoko;
haren begirada sakonak zioen nire irudiko:
"betikotasunak liluratzen eta erakartzen nau...
banoa ni zero urdinera
Jainkoa ikustera!
- 9 "Aberrian aurkituko ditut nik
neure aingeruak³, Maria Birjina;
bizitzan utzi ditudan alabetatik
Jesusi eskainiko dizkiot malkoen samina...
bihotzak!..."

² *Se plonger* edo *être plongé*, defektibo legez erabilita, osagarririk gabe (TG 54; A Esk., 31¹ edo TO 54, 18, 3an bezala), Martindarren familiaren esaera da, eta txundidura adierazten du, barruraldi harrigarria.

³ Lau haurrak txikitxoak zirela hil ziren.

- 10 Oi! zein maite nuen Jesus Ostiakoa,
nire bizitzaren goizean⁴ etorritakoa
nire arima xoratuarekin ezkontzera;
oi! zein zoriontsu eman nion sarrera
neure bihotzera!...
- 11 Geroago maite izan nuen nik garbia
iruditzen zitzaidan izakia,
han-hemen bila, izadiko Jainkoa non aurkituko
eta beragan aurkitu nuen betiko
bakea!...
- 12 Oi! zein gogoko nuen begiralekuan,
alaitasun eta argitasunez betekoan
aita baten ferekak hartzea,
haren ile zuri elurrezkoak
behatzea...
- 13 Haren belaun gainetan eseririk,
Teresa⁵ esna zegoelarik,
luze urrumakaturia nintzela dut gogoan jaso,
haren kantuaren doinu gozoa
entzuten dut oraindik.
- 14 Oi oroimen! zukan ohi dut goza,
zuk oroitarazten didazu hainbat gauza:
arratseko afariak, arrosen usain gozoak,
alaitasunez beteriko basotxoak,
udaldia!...
- 15 Gogoko nuen ilunabar aldera
nahastatu ahal izatea gogara
neure arima nire Teresarenarekin,
nik ez nuen osatzen nire ahizparekin
bihotz bat baizik...
- 16 Orduan gure ahotsek bat egiten zuten,
gure eskuak bata besteari lotuak
batera kantatuz Eztei Sakratuak,
amets egiten Karmelekin...
Zeruarekin!...
- 17 Liluratu ninduten Zuitzan eta Italian⁶
zeru urdinak, fruitu hori-horiak,

⁴ Zelinaren Lehenengo jaunartzea, 1880ko maiatzaren 13an.

⁵ Teresa bera begiralekuko agertokian sartzen da; ik. TO 8, 7.

⁶ Erromarako bidaia, 1887ko azaroan.

oroz gain atsegin izan zitzaizkidan
Aita Santu-Errege Agurgarriaren begi bizi-biziak
nigan josiak.

- 18 Mun egin dizut nik maiteki,
Koliseoko zoru bedeinkatua!...
Katakunbetako ganga sakratuak
errepika egin dio eztiki
nire kantuari.
- 19 Malkoak etorri ziren pozaren ondoren⁷!...
nire kezkek handiak izan ziren...
neure Senarraren armaz hornitu nintzen
eta haren Gurutzea izango zen nire euskarria,
nire on guztia.
- 20 Ah! luze egon nintzen erbesteratua,
neure familia maitetik aldendua,
eta ez neukan, orein gaixo zauritua,
basarrosa loratua izan ezik
beste gordelekurik!...
- 21 Baina arrats batean nire arima hunkituak
Mariaren irribarrea ikusi zuen⁸
eta haren odolaren tanta bedeinkatu bat
(hau bai mesedea!) esne bihurtu zen
niretzat!...
- 22 Orduan mundutik ihes eginez nahi nuen
urrutiko oihartzunak niri erantzutea!...
ibar⁹ bakan eta jorian biltzen nituen
neure negar-saminen artean
loreak!...
- 23 Atsegin nuen urrutiko eliza,
aditzea kanpaiaren hots ez-zehatza;
haizekirriaren intziriak entzuteko
landetan esertzea izaten nuen gogoko
arratsean.
- 24 Atsegin nuen enaren hegaldia,
usapalen kantu negartia;

⁷ Zelinareen bizitzako pasarte jatorra: Martin jaunaren gaixoaldia (19–20) eta haren heriotza (30–31), bien bitartean, La Mussen igarotako oporren oroitzapen zioriontsuak (22–27), batez ere bere aitarekin (28–29).

⁸ Mariak erbesteratuari egindako mesede bi; ik. *Poésies*, II, 126 eta ondorengo orrialdea.

⁹ Teresaren tokien zerrendan lekurik behinena; ik. TO 54, 3; DSA 3, 14; DSA 5, 7; TG 142, 146, 165; hemen Joan Gurutzekoaren *Kantu izpiritualaren* XIV. ahapaldiaren zantzuak daude.

zomorroen hegal-hotsa aditzen nuen nik,
haien murmuriotik gogoko izanik
kantua.

- 25 Gogoko nuen goizeko ihintza
eta txitxarra graziaz betea;
gogoko nuen esnatuz gero ezta
prestatzen zuen erle garbia
ikustea.
- 26 Gogoko nuen txilarra biltzea,
goroldi leunaren gainean korrika
atzematen nituen tximeletak, hegaka
iratze gainetan, urdinaren irudi
garbi-garbi.
- 27 Gogoko nuen ipurtargia itzalean,
gogoko nituen izar kontaezinak
batez ere gogoko nuen urdin ilunean
ilargiaren¹⁰ distira zilarrezko biribilean
diz-diz eginez.
- 28 Neure aitatzxo bere zahartzaroan
txeraz betetzea gogoko nuen;
hura zitzaidan dena...zoriona...umea...altxorra!...
Ah! nik samurki laztantzen nuen
sarritan.
- 29 Gogoko genuen uhinen hots ezta,
orro egiten zuen ekaitza entzutea,
bere bakardade sakonean arratsaldea,
urretxindorraren abestia
baso barnean!...
- 30 Baina haren aurpegi ederrak goiz batean
Gurutzearen irudia bilatu zuen...
Bere maitasunaren bermea utzi zidan,
bere azken begirada emanez
«niri senipartez!...»
- 31 Eta Jesusen jainkozko eskuak
Zelina kendu zion, altxor bakarra
eta muinotik oso urruti eramanda
han kokatu zuen Betikoaren ondoan
Zeruan!...

Sal 15,6

¹⁰ Izarrei leku handia eman arren, Teresak, eguzkiaren alaba izaki, oso gutxitan hitz egiten du ilar-giaz (A Esk., 48^a; C Esk., 26^a; TO 24, 6 eta 26, 4).

- 32 Orain ni preso aurkitzen naiz¹¹,
lurreko basotxoetatik ihes egin dut,
hango guztia iragankorra dela ikusi dut¹²,
ikusi dut neure zoriona ihartzen,
hiltzen!...
- 33 Nire oinpean lardaskatu egin da belarra!...
lorea nire eskuetan gelditu da iharra!...
Jesus, nik nahi nuke ibili zure zelaitik¹³,
han ez da geldituko nire urratsen
oinatzik...
- 34 Oreinak bere egarri gartsuan
ur bizietara irrika duen moduan,
oi Jesus! lasterka noa zugana nekaturik,
nire sukarra ematzeko beharrezkoak
dira zure malkoak!...
- 35 Zure maitasunak soilik nau erakartzen.
Ibarrean uzten dut neure artaldea¹⁴,
hura zaintzeko artarik ez dut hartzen,
neure bildots berri bakarrari poz ematea
da nire borondatea.
- 36 Jesus, zu zara nire Bildots maiteena,
zurekin aski dut, oi nire ondasun gorena!
zuga ditut nik¹⁵ lurra eta Zerua berbera;
zu zara nik biltzen dudana lorea,
oi nire Erregea!¹⁶...
- 37 Jesus, ibarreko lili paregabea,
zure usain gozoak liluratu gaitu
mirrazko loresorta, oi korola lurrintsu!
neure bihotzean nahi dut nik zu gordetzea,
maitatzea...

Sal 41,2

Ap 14,3-4

Kt 2,1

Kt 1,3

Kt 1,12

¹¹ Karmel «kartzela bedeinkatua» da (A Esk., 67^a); ik. TG 106. Zelina ere, Teresaren antzera, bere borondatez preso sartu zen (A Esk., 58^a, 81^a), baina ez preso girgiluz, Jesusen maitasunez baizik (TO 31, r. 5; TG 201), Jesus gure maitasunez preso dagoen era berean; ik. Otoi. 17.

¹² Ik. A Esk., 69; TG 245 eta 260; TO 18, 32; 45, 1; 47, 2; 50, 2.

¹³ Ik. KH 24. IX. 4ko *Zeruko zelaia*k. Normandiako alaba izanik, ez da harritzekoa zelaiari leku zabala ematea (hogeita hiru aldiz idazkietan); haren iruditeri zerutarrari dagokiona da. Joan Gurutzekoak berak zerua «zelai beti berdetsuekin, lorez zipristinduekin» konparatzen du (*Kantu izpirituala*, IV. ahapaldia).

¹⁴ Ik. TO 10, 4 +.

¹⁵ Ikus Joan Gurutzekoaren *Arima maiteminduaren otoitza*: «Nireak dira zeruak eta nirea lurra; nireak gizakiak (...), Jainkoa bera ere neurea da eta neuretzat, Kristo neurea bait dut eta dena neuretzat!». Ik. *infra* TO 18^{bis}eko izenburua.

¹⁶ Zelinaren bertso biak olerkiaren hasieran; ik. *supra*, sarrera.

- 38 Zure maitasuna beti dut lagun nik,
basoak, landa-zelaiak zugan ditut nik,
kanaberak, belardia, mendi-punta,
Zeruetako euri zaparradak eta
elur-maluta.
- 39 Zugan ditut, Jesus, gauza guztiak,
baditut gariak, lore erdi-irekiak,
oroilore, urrebotoi, arrosa apainak,
lirio zuriaren¹⁷ freskotasuna,
usaina!...
- 40 Nik dauzkat lira¹⁸ melodiatsua,
bakardade harmoniatsua,
ibaiak, haitzak, urjauzi ikusgarriak,
adarzabal arin, gazela, katagorriak,
orkatzak.
- 41 Nik dauzkat ostadarra, elur garbia,
ortzemuga zabala, berde ugaria,
urrutiko ugarteak... uzta horia,
tximeletak, udaberri alaia,
landa-zelaiak.
- 42 Zure maitasunean aurkitzen ditut gainera:
eguzkiak urrez jantziriko palmera,
gaua goiz-urratzearen antz-antzekoa¹⁹,
errekastoaren zurrumurru gozoa,
txoritxoak.
- 43 Nik dauzkat mahats-mordo atseginak,
sorginorratz ñabar txanbelinak,
lore harrigarridun oihan birjinak,
haurtxo horail guztiak dauzkat nik
beren kantuekin.
- 44 Zugan ditut nik iturriak eta mendia,
aihenbelar, uztao, elorri zuria,
igelbelar hezeak, atxaparrak, basarana,
lertxun arinaren dardara
leuna.

¹⁷ Teresarengan haranetako liliaren gainean aurkitzen den aipamen bakarra, eta berari egozten dio Zelinak «maitasun ezkutua»ren esangura.

¹⁸ Zelinak gogoko duen ikurra, ik. TG 149 +.

¹⁹ Ik. *Kantu izpirituala*, XV.

- 45 Nik dauzkat olo zoro eta dardaratsua,
haizearen soinu lodi eta indartsua,
armiarma-sarea, su gori gartsua,
haize mehea, sastraka lorez jantziak,
habiak.
- 46 Badut aintzira eder bat, badut ibar
bakartia eta dena zuhaitzez landatua;
itsasokoetatik, olatu zilarreztatua,
arrain urreztatua, hainbat altxor edar
itsasotik.
- 47 Hondartzatik urruntzen daukat untzia,
urrezko ur-ildo²⁰ daukat eta itsas hegia;
hodei artean zehar-meharka daukat eguzkia,
hau aienatzen denean, zeruetako suak
dauzkat.
- 48 Zugan uso aratza daukat nik.
Zugan, nire jantzi latzaren azpitik
aurkitzen ditut nik eraztuna, lepokoak,
apaindurak, bitxiak, perlak, diamanteak
brillanteak.
- 49 Izar distiratsua zugan dut nik,
zure maitasuna maiz azaldu ohi da,
eta oihalean zehar bezala somatzen dut nik,
eguna gainbehera doalarik,
zure eskua.
- 50 Zu, zeure eskuz munduei eusten diezuna,
oihanitsuak landatzen dituzuna,
begirada soil batez emankor bihurtzen dituzuna²¹;
amodiozko begirada²² batez jarraitzen didazu
beti zuk.
- 51 Zure bihotza daukat, zure aurpegi gurgarria,
zauritu nauen zure begirada ezitia,
zure aho sakratuaren musua daukat nik;
nik maite zaitut eta ez dut nahi besterik,
ene Jesus.

Sal 94,4

Kt 1,1; 8,1

²⁰ Ik. TO 3, 2 +.

²¹ Ik. Lamartine: «Zu, begirada batez sakontasun emankorra ematen duzuna» (*La Prière*).

²² Jainkoaren *begirada*, sorkariaren gainean samurtasunez jarria, bizia eta edertasuna ematen dizkiolarik, Joan Gurutzekoaren gai handienetarikoa da; ik. Otoi. 6, 11. oharra. Urruti dago bekatuak samindutako «jagolea» gendantik. Elkarren arteko maitasun-begirada iraunkor hau Teresaren kontenplazio-bizitzaren bihotzean dago..

- 52 Maitasun sakratuaren gorespenak
kantatzera joango naiz ni aingeruekin,
hegarazi nazazu laster haien taldeekin;
oi Jesus! hil nadila ni egun batez
maitearen maitez!²³...
- 53 Sugar gozoak erakarrita
hegan egin eta erre egiten da tximeleta.
Halaxe erakartzen du zure amodioak nire arima;
hantxe nahi dut nik hegan egitea,
kiskaltzea!²⁴...
- 54 Entzuten dut badoala prestatuz,
zure betiko jaia, ene Jainko...
nire harpa isila sahatsetatik hartuz,
zure belaun gainean²⁵ naiz eseriko
zu ikusteko!...
- 55 Zure ondoan ikusiko dut Maria...
Santuak... neure familia maitea!...
bizitza honetako erbeste ondorenean
nik berraurkituko dut Aitaren etxea²⁶
Zeru gorenean!...

Sal 136,2

TO 18 bis

Jesus duenak Guztia du

Bere olerkietarik hamazazpi Bellière apaizgaiaren omenez kopiatzea amaituta, 1897ko martxoan, Teresak oraindik badu orrialde erdia zuriz, eta horixe erabili-ko du Zelinaren Kantaren hamar ahapaldi gehitzeko. Laburpen ona, oso trinkoa, behar-beharrezkoa eta sarritan onena baizik biltzen ez duelarik, zati hau beste olerki bat bilakatzen da. Ahapaldien aukera horrek emeki-emeki aditzera ematen du zeintzuk diren apaizgaiaren gogo-beharrizanak une honetan.

Izenburuak Teresaren beraren ziurtasuna adierazten du, eta Joan Gurutzeko Santuak Kantu izpiritualean (XIV-XIV. ahapaldietan) kantatu zuen esperientzia mistikoa biltzen du.

²³ Ik. TO 17, 14 +.

²⁴ Ik. A Esk., 38^l; olerki luze honen ahapaldi oso sintetikoa.

²⁵ Ik. TG 211 +.

²⁶ *Toit (Etxeko aterpea)* oso hitz bakana da idazkietan (A Esk., 59^a, 65^a, 75^a, 82^a). Baina zerua *etxe* edo *aitaren etxetzat hartzea* oso ezagun dute ahizpa biek; ik. A Esk., 41^a, ahapaldi honetatik hurbil-hurbilekoa; eta A Esk., 75^a.

Pentsamentu batzuk Joan Gurutzekoaren
kanta izpiritualetik harturik daude

- 1 Lurreko poztasunak gutxietsiz,
preso egotera etorri naiz;
atsegin oro laburra dela ohartu naiz,
nire zorion bakarra zu zara,
Jauna!.
- 2 Nire oinpean lardaskatu egin da belarra!...
lorea nire eskuetan gelditu da iharra!...
Jesus, nik nahi nuke ibili zure zelaitik,
han ez da geldituko nire urratsen
oinatzik...
- 3 Zure maitasunak soilik nau erakartzen.
Ibarrean uzten dut neure artaldea,
hura zaintzeko artarik ez dut hartzen,
neure bildots berri bakarrari poz ematea
da nire borondatea.
- 4 Jesus, zu zara nire Bildots maiteena,
zurekin aski dut, oi nire ondasun gorena!
zuga ditut nik lurra eta Zerua berbera;
zu zara nik biltzen dudana lorea,
oi nire Erregea!...
- 5 Zuga daukat nik izadi zoragarria.
Zuga ostadarra, elur garbia,
urrutiko ugarteak, uzta horia,
tximeletak, udaberri alaia,
zelaiak.
- 6 Hondartzatik urruntzen daukat untzia,
urrezko ur-ildoak daukat eta itsas hegia;
hodei artean zehar-meharka daukat eguzkia,
hau aienatzen denean, zeruetako suak
daukat.
- 7 Zu, zeure eskuz munduei eusten diezuna,
oihanitsuak landatzen dituzuna,
begirada soil batez emankor bihurtzen dituzuna;
amodiozko begirada batez jarraitzen didazu
beti zuk.
- 8 Sugar gozoak erakarrita
hegan egin eta erre egiten da tximeleta.

Ap 14,3-4

Sal 94,4

Halaxe erakartzen du zure amodioak nire arima;
hantxe nahi dut nik hegan egitea,
kiskaltzea!...

Sal 136,2

9 Entzuten dut badoala prestatuz,
zure betiko jaia, ene Jainko...
nire harpa isila sahatsetatik hartuz,
zure belaun gainean naiz eseriko
zu ikusteko!...

10 Zure ondoan ikusiko dut Maria...
Santuak... neure familia maitea!...
bizitza honetako erbeste ondorenean
nik berraurkituko dut Aitaren etxea
Zeru gorenean!...

TO 19

Jesus-Ostiaren atomoa

GARAIA: 1895eko uda (?). - OLERKI-HARTZAILEA: ahizpa San Bizente Paulekoa, berak eskatuta. - ARGITALPENA: Poésies, 1979. - DOINUA: *Par les chants les plus magnifiques*.

Karmelgo koruaren bazter baten, ilun-ilunean, «atomoa»k, jadanik TO 15ean datorrenak, «itzalean ezkutatzea» nahi du. Eukaristiaren maitasuna izango da ahizpa honek eskaturiko lau olerkien gai handienetarikoa (TO 15, 19, 25, 32). Ez da egia Teresa gogotsu dagoenik bere bezeroaren «pentsamentu»etan: atomoa ez da zinez ikur Teresiarra, bai, ostera, hondar alea (ik. TG 45).

(Ahizpa San Bizente Paulekoaren pentsamentuak,
beronen eskariz bertotan jarriak)

Is 45,15

1 Ni ez naiz hauts-aletxo bat baizik,
baina neure egoitza jarri nahi dut nik
santutegiaren itzalpean
amodioz preso¹ dagoenarekin batean.
Ah! nire arimak irrika du ostia santura,
maite dut eta ez dut beste ezer gura.
Jainko ezkutua da erakartzen nauena,
atomotxoa naiz ni, Jesusena.

¹ Ik. TO 25en izenburua.

- 2 Ezjakinean egon nahi dut nik,
sorkari ororen aldetik ahazturik²,
eta poztu neure isiltasunean
ostatuz dagoena kopoi donean.
Oi! arimak salbatu nahi nituzke nik,
pekatariak hautatu bihurturik³...
Eman apostolu baten sugarra
zeure atomoari, Jesus samurra!...
- 3 Munduak oinperatzen banau,
hark hartzen banau ezereztat,
jainkozko bakeak betetzen nau
ostia dudalako neure sostengutzat;
hurbiltzen naizenean ni kopoirra,
nire gurari guztiak entzunak dira...
ezerez izatea, horra nire aintza,
ni naiz Jesusen atomo-hautsa...
- 4 Batzuetan, Zerua iluntzen denean,
atomoak hegan egin ezinik,
arima ezkutaturik itzalean,
urrezko atean geratzen da itsatsirik;
orduana, Jainkozko argitasuna,
hautatu guztiak alaitzen dituen,
beroa ematera dator benetan
Jesusen atomoari lur honetan...
- 5 Graziaren izpi beroen pean
atomoa distiratsu bihurtzen da;
haizetxo leuna igarotzen denean,
hura leunki kulunkatzen da...
Oi, hau atsegin esan ezinekoa!
zer dohain ez ote du jasoa?...
ziri-zara ostiaren ondoraino doa
Jesusen atomo gaixoa....
- 6 Iraungitzen ostiaren ondoan
maitasunaren tabernakuluan;
horrela da nire bizitza urtuko
azken eguna noiz etorriko.
Probak amaiera izan dezanean,
hautatuen etxera eginez hegan,
Eukaristiaren Atomoak
dizdiz egingo du Jesusen alboan!...

² Ik. A Esk., 81¹.

³ Ik. TO 40, 10 eta Otoi. 5, 5. oharra.

TO 20

Nire Zerua hemen behean!...

EGUNA: 1895eko abuztuaren 12a. - OLERKI-HARTZAILEA: ahizpa Maria Hirutasunarena (orduan, Maria Aines Aurpegi Santuarena), beraren hogeita bat urteak zirela-eta. - ARGITAL-PENA: HA 98, bost bertso zuzenduta. - DOINUA: *Les regrets de Mignon*.

Antzaldaketaren biharamunean, hementxe dago, Tabor-eko distiran, Begitarte jainkotiarrak erakarritako izaki baten lasaitasuna. Mendi santuaren gainean bezala, Nekaldiko «oinazeak» gogorarazten dira, baina aldi berean «edertuak» izateko, «samurtasun»ez bustiak izateko. 1895eko udaren baitan, olerki hau Aurpegiz aurpegiren aurrerapena bezalakoa da, Eskaintzaren ekintzan aste batzuk lehenago aipatua.

Hala eta guztiz ere, ezinezko izango zen konposizio honetan gai honek Teresa-ren idazkietan duen aberastasun osoa aurkitzea. Beste idazki batzuek ematen edo emango dituzte elementu osagarriak; horretara, Otoi. 11, 12, 14, 16 edo DSA 2; azken hori Jesusen Aurpegiaren pozezko, nahigabezko eta aintzazko izaeran mamitzen da oso-osorik. Azken solasaldiek ere berebiziko garrantzia duten jakinbi-deak ematen dituzte (adibidez, KH 5. VIII. 9). Ik. Poésies, II, 135. or.

- 1 Jesus, zure irudi esanezina¹ da
nire pausuak gidatzen dituen izarra;
ah! zuk badakizu, zure aurpegi gozoa da
niretzat hemen behean Zerua berbera.
Nire maitasunak zure aurpegiaren grazia²,
negar-malkoz edertua, du agertarazia;
irribarre egiten dut malko artean
zure neke-minak behatzen ditudanean....
- 2 Oi! zu poztearren³ nahi dut nik
ahaztua bizi izatea⁴ lur honetan!....
ezkutatzen dakizun zure edertasunak
bere misterio osoa agertzen dit.
Zuganatz egin nahi nuke nik hegan!....
- 3 Nire Aberri bakarra zure aurpegia da,
nire maitasunezko erreinua⁵ hura da,

¹ Aurpegi Santuaren aldakia, Toursko ereduaren arabera.

² Ik. TO 24, 24, 5-6.

³ *Poztea, kontsolatzea da bekatuaren zorra ordaintzeko Teresa-ren modu berezia. Hori irudi bidez adierazten da batez ere.* (TO 19, 2, 3; 24, 31, 2; 41, 1, 6; 45, 5, 6).

⁴ Ik. *Kristoren Antz-Bidea* I, 2, 3: «Aintzat hartua ez izateko eta gutxietsia izateko nahia», A Esk.ko 71^a.ko aipamena (TO 20 aste batzuk geroago idatzia), TG 145 eta 176an. Maria Hirutasunaren arabera, Teresak etengabe nahi izan zuena zen: «Batzuetan, atsedean tokian edo inguruetan, nik hau itaunduz gero: Zer darabilzu buruan?, berak hau esan: —*Nik buruan darabildana*, hasperen sakon batez erantzuten zuen, *ai ene!*, nik ezezaguna izan nahi nukeela eta aintzat hartua ez izatea!...» (PO, 466).

⁵ Ik. A Esk., 77^a.

hura da nire landa airosoa,
nire eguneroko eguzki gozoa,
hura da nire ibarreko lirioa
bere usain misteriosuz⁶ pozez betea
uzten duena nire arima erbestekoa;
hark gozarazten du zeruetako bakea.

Kt 2,1

4 Hura da nire atsedena, nire gozotasuna
eta nire lira harmoniatsua...
zure Aurpegia da, ene Salbatzaile leuna,
Mirrazko lore-sorta Jainkozkoa,
nik neure bihotzean gorde nahi dudana!⁷...

Kt 1,12

5 Zure Aurpegia da nire ondasun bakar
ez dut nik eskatzen besterik ezer
bertan neure burua etengabe ezkutatzuz⁸
zure antzeko izango naiz, Jesus⁹...
Utz itzazu nigan gozotasunez beteriko
zure aurpegikeraren Jainko-lorrazak
eta laster ni santu naiz bilakatuko,
zugana erakarriko ditut bihotzak.

Sal 30,21

6 Nik bildu ahal izan dezadan
uzta eder urre-kolorekoa,
kiskal nazazu zeure sutan.
Zure aho gurgarritik eman
betiko musua laster batean!...

Kt 1,1

1895ko abuztuaren 12

TO 21

J.M.J.T.

Bere atsedentokia aurkitu duen arimaren kanta

Kt 1,6

EGUNA: 1895eko abuztuaren 15a. - OLERKI-HARTZAILEA: Maria Guérin, Karmelera sartu zela-eta (ahizpa Maria Eukaristiarena). - ARGITALPENA: HA 98, bertso bat zuzenduta. - DOINUA: Mignon-en «*Connais-tu le pays?*».

⁶ Lurrinak dira Teresak *ametsetan darabilen* aberriaren ezaugarriak (C Esk., 6').

⁷ Ik. Otoi. 11, Aurpegi Santuaren aldakia (Toursko ereduaren arabera), laster eta betiko «*bere bihotzean zainduko duena*».

⁸ Ik. TO 11, 3 eta 12, 8, lekaimagaiak berak eginak.

⁹ Jesusen antzekoa izan nahi eta beharraz, batez ere haren apaltasun eta ezereztatzeari dagokienez, ik. TG 87, 145 eta 201; TO 13, 1 eta 31, 2 Err.

Ohitura zen nobiziagaiak komunitateari «zerbait» kantatzea sartzan zen gauean. Maria Guérin-ek soprano ahots ederra zuen: Teresak nolakotasun hori nabarmentzeko du erromantza egokia aukeratuz. Ohikoa ez bada ere, olerkiak hur-hurretik segitzen dio bere ereduari, gutxienez, atsotitzari dagokionez. Teresak giza maitasuna maitasun mistiko bihurtzen du iaioitasunez. Izenburua gorabehera, bultzada sakonak zeharkatzen du «atseden» giroko olerki hau.

Hitz hori bost aldiz azaltzen da olerkietan 1895 eta 1896an (TO 17, 9; 20, 4; hemen; 24, 20 eta 32; 27, 4). Horrek garai honetan Teresak zuen arimako giroa egoki adieraziko du, 1896ko hasieran harridura agertuz: «ezin naiz beti horrela bizi baretasunean» (C Esk., 31a).

Teresak beste olerki batzuk eskainiko dizkio bere lehengusinari: Jesus bakarrik (TO 36, 1896ko abuztuaren 15ean) eta Nire armak (TO 48, beraren profesia zela-eta, 1897ko martxoaren 25ean).

Sal 115,16

- 1 Oi Jesus! egun honetan eten dituzu nire kateak¹...
 Maria Birjinaren Ordena bedeinkatuan
 aurkitu ahal izango dut nik benetako ondasuna.
 Nik neure familia maitea utzi badut, Jauna,
 zuk zerutar mesedez betetzen jakingo duzu,
 niri bekatarien barkamena emango didazu....
- 2 Jesus, Karmelen bizi nahi dut nik,
 zure maitasunak oasi honetara bainau deitu,
 hementxe nahi dizut jarraitu nik,
 maitatu, maitatu eta hil²
 hementxe nahi dizut jarraitu nik,
 hementxe, bai, hementxe!....
- 3 Oi Jesus! betea duzu nire amets osoa egun honetan.
 Aurrerantzean, Euskaristiaren ondoan³, isiltasunean
 neure burua opari egin ahal izango dut, zerua itxaron bakean.
 Neure burua jarririk Jainkozko Ostiaren izpitan,
 maitasun-sutegi honetan naiz ni agortuko
 eta serafin batek bezala zaitut, Jauna, maitatuko.
- 4 Jesus, laster jarraituko dizut nik,
 betiko erriberan⁴, nire egunen buruan,
 beti zeruan bizi behar dut nik,

¹ Salmogileak emandako bertso bat oinarritzat hartuta, Teresak alderdi bitara jokutzen du: goibel-tasuna familiarengandik bereizi beharragatik, baina mundutik askatzea, Jesusentzako askatasuna (ik. A Esk., 67^b).

² Maria Guérin-en funtsezko nahi honetaz, ik. LC 114 (CG, 491. or.), TG 92 eta 190.

³ Kopla honek, Gure Jauna gurtzeari buruzko teologia txikia denak, Euskaristiak Mariarengan zuen erakarpin ezin eutsizkoa aitortzen du; ik. LC 113 eta 130 (CG, 485 eta 546. orr.), TG 109 eta 234.

⁴ *Betiko erribera*, Teresarengan sarritan azaltzen den azalpena (ik. A Esk., 41^a +), garrantzitsua da *atseden-lekua* baino *ibilbidea* gehiago adierazten den olerki honetan.

zu maitatu eta sekula hil gabe...
 beti zeruan bizi behar dut nik,
 beti, bai beti zeruan!⁵...

TO 22

J.M.J.T.

1895eko irailaren 7

Nire Ama maiteari haurtzaroko Aingeru Eder izan nuenari

EGUNA: 1895eko irailaren 7a. - OLERKI-HARTZAILEA: Ama Aines Jesusena, beraren hogeita hamalau urteak zirela-eta. - ARGITALPENA: Ama Ainesen hil-agerbidea (1952) eta *Poésies*, 1979. - DOINUA: adierazi barik.

*Beraren ahizpa Paulinaren urtebetetzerako egindako oparitxo bat; idaztanke-
 ra arestian berak egindako olerkien itxurakoa da. A Eskuizkribuaren orri batzuetan
 hitz lauz esaten dena bertsozko azken hitzak dioela ikus liteke hor: Paulinak jokatu
 izan duen probidentziatzko egitekoa oraindik ere jokutzen du harentzat.*

*Haur tankerako olerki honek, Teresak urteetan zehar nola ikusten duen bere
 zeruranzko irteera aztertzeraz erakar dezake. Garai honetan, «Maitasunak hegoak
 ematen ditu» (13. ahapaldia; eta DSA 5, 4a); B Esk.ak (4ⁱ/5^a) 1896an eta C Esk.ak
 (3^a eta 7ⁱ) 1897an mekanismoak oso gaitzak direla frogatuko dute...*

- 1 Hain urrun neure Aberri den Zeru ederretik¹,
 ni ez nago hemen behean bakarrik,
 Aingeru eder batek² gidatzen dituelako
 nire pausuak bizitza honetako erbestean.
- 2 Aingeru eder honek, oi Ama maitea!
 nire sehaska ondoan ekin dio kantari,
 eta haren doinuaren ahairea
 guztiz berria iruditu zait niri.

⁵ Ik. A Esk., 69ⁱ, garaitsu hartan idatzia.

¹ «Zeru ederra» garai hartako esapide ihartua zen, baina Teresarentzat hain esanguraz beteak egonik (hogeita bat aipamen, eta beraiei «zeru urdin ederra»ren hamabiak erantsi behar zaizkie), behin eta berriro erabiltzen du, fedearen agerpena bailitzan 1896–1897ko forgaren garaian; ik., berbarako, C Esk., 5ⁱ. Olerkietan, «Zeru ederra»ren zortzi erabileretatik, sei 1896ko Bazkoaren ondorengoak dira (TO 33, 40, 43, 46, 47, 54). «Nik kantatzen dut sinestu nahi dudana», idatziko zuen honen inguruan.

² Ez da eskuizkribuetan azaltzen, baina *aingeru* deitura, Ama Ainesi dagokiolarik, ondokoetan azalduko da: TG 140, 160, 230 eta, batez ere, 229.

- 3 Hark Jesusen graziak kantatzen zituen³,
bihotz garbi baten poza kantatzen zuen;
bere hegalez nire malakoak xukatuz,
zeru urdin ederrari ari zen kantuz.
- 4 Hark indar neurrigabea kantatzen zuen,
urrezko astroa eta lorea⁴ egin zituena;
hark haurtzaroko Jainkoa kantatzen zuen,
lirioaren zuritasuna gordetzen duena.
- 5 Hark Maria Birjinari kantatzen zion,
haren mantu zabalaren urdinari.
Muino eta landari, hor baitzitzaizkion
jarraiki birjinak Bildotsari.
- 6 Aingeru eder honek, oi misterio sakona!
bere arrebatxo deitzen zidan....
hark ama baten izaera zeukan,
eta haren bihotzean hartzen nuen atsedena!....
- 7 Haren hego zurien itzalpean
hazten nindoan laster batean;
ordurako betiko hondar-hegiak
liluratuak zituen nire haur-begiak.
- 8 Nik lurra utziz nahi izango nukeen
Aingeruarekin Zerura hegan egitea
eta biok inguratzen gaituen
Jainkozko argia ikusi ahal izatea.
- 9 Baina ai! Aingeru ederrak egun batean,
ni Zerueta era eman beharrean,
Birjinen taldea aurkitu nahian,
Karmelerantz egin zuen hegan!....
- 10 Ah! nik bai gogoko hari jarraitzea,
haien bertuteak hurbiletik mirestea.
Nik nahi nuen haren bizitza bera,
Jesusekin bat egitea haren antzera.
- 11 Oi, nahasterik gabeko zorion!
Jesusek nire nahiak oro entzun zituen

Ap 14,4

³ Teresarengandik hur Paulinak egiten duen *kantuaren* gainean, ik. A Esk., 53^af. TG 140 eta KH 11. IX. 2.

⁴ Eguzkia eta lorea, Teresa beti fidel izango zaio bikote horri. Sekula ez dira harengan ura eta lorea aurkituko: ez dago narkisismo izpirik.

- nire Aingeru ederraren ondoan Karmelen
nik Zerua besterik ez dut itzaroten!...
- 12 Eta orain haren soinua
entzun nezake nik egun bakoitzean
haren hotsera nire arima liluratua
maitasunaren sutan da kiskaltzen.
- 13 Maitasunak hegoak ematen ditu, Ama...
laster egin ahal izango dut hegan
beti-betiko muinoetara
Jesusek dei egiten baitit hara...
- 14 Baina atzerriko hondartza honetara,
gorte zerutarra utzi gabe,
jaitsiko naiz⁵ neure Amaren ondora
haren aingeru izateko neu ere.
- 15 Zeruak ez du izango niretzat lilurarik
baldin zu kontsolatzea ezina bazait,
zure malkoak irriz alda ez baditzaket...
sekretu denak zuri ager ez badiezazuket!....
- 16 Bozkario zerutar eta sakona
zu gabe, ez nuke gozatzen jakingo
mundu honetan zu luzaro uztea
oi! ez nuke nik jasan ahal izango!...
- 17 Guk hegan egingo dugu Aberriara,
Zeru urdinaren beste aldekorra,
batera, oi Ama laztana!
ikusiko dugu beti guk Jainko ona!!!....

TO 23

Jesusen Bihotz Sakratuari

EGUNA: 1895eko ekainaren 21a edo urria. - OLERKI-HARTZAILEA: ahizpa Maria Bihotz Sakratuarena, berak eskatuta. - ARGITALPENA: HA 98, bederatziko bertso zuzenduta. - DOINUA: *Le petit soulier de Noël*.

1975eko Poésiesen zenbaki berriak ez nahastatzearren, Mendeurreneko Argitalpenean 1895eko urriaren ustezko datari eutsi zaio, 1907az gero data horretako-

⁵ KH 13. VII. 3ren lehenengo iragarpena.

tzat jo baita testu hori (HA 07, 388. or.). Beti ere, 1895eko ekainaren 21a omen da ziurragoa (ik. Poésies, II, 147. or.), eta horrek Bihotz Sakratuari delakora eramango gaitu Zelinaren Kantaren ostean.

Arazotxo kronologiko honen giltzarria hau da: Bihotz Sakratuari begiratzeak - Teresak «ikusten» duen moduan - Hirutasunaren igandea prestatu, lagundu eta argituko zuen. Dena dela, antzekotasuna ukaezina da Eskaintzaren ekinga (Otoi. 6), TO 23 eta A esk.ko 84^{ai}.aren artean.

Teresa ez da sinboloan gelditzen, ez eta lantzak zaurituriko Bihotzaren ohoretan izanik ere. Bera zuzen doa errealtatera: Jesus maite duen Pertsona, sentimendu sakonak dituena, beraren Bihotza betetzen duen maitasuna. Maitasun horren agerbide kutunena, berak ez du aurkituko Getsemaniko agerraldian, ez eta Kalbario mendiko Zulatuaren kontenplazioan ere, Berpiztuak Madalenaren bilatze gartsuari emaniko erantzunean baizik: «bere izena xuxurlatze»an.

Erantzun horrekin sendoturik, «Nere senarraren bihotza nerea dela bakarrik uste dut, nerea ere beretzat bakarrik den era berean» (ik. TG 122), emaztearen konfiantzak ez du mugarik ezagutzen. Bera beti joango da urrutiago ausardian, harik eta bere Jainkoaren Bihotzean «behin eta betiko» sartu arte. Aparteko kemen horrek ematen dio batasuna olerkiari. Irudi indartsua da, eta hemen era batera giza izaerazkoa eta giza izaeraz gaindikoa den maitasun gartsuenetarikoa agertzen da.

Jn 20,
1.11-13

- 1 Hilobi santuan, Maria Madalena,
makurtu zen negarrez, bere Jesusen bila;
aingeruek arindu nahi zuten haren pena,
baina ezerk ezin zuen gozatu haren mina.
Ez zineten zuek, goiaingeru argitsuak,
arima gartsu honek bilatzen zituenak;
aingeruen Jauna ikusi nahi zuen hark,
bere besoetan hartu, oso urrun eraman....

Jn 20,15

- 2 Hilobi ondoan, azkenengo gelditu zen
eguna baino hainbat lehenago etorria zen
baita haren Jainkoa ere bere argia estaliz
Mariak ezin zion maitasunean irabazi hari!
Lehenik bere aurpegi bedeinkatua erakutsiz,
laster hitz bakarra sortu zen haren bihotzetik
hain izen gozoa, Maria, xuxurlaturik¹,
Jesusek bakea, zoriona itzuli zizkion.

Jn 20,16

- 3 Egun batean, oi ene Jainko, Madalenaren antzera,
ikusi nahi izan zaitut nik, hurbildu zugana,
lautada azkengabea murgiltzen zen nire begirada,
bertan bilatuz Maisu eta Errege dudana;
eta, uhin garbia, urdin izarratua,

¹ Ik. TO 24, 15, 4 eta 46, 3, 8.

lorea eta txoria ikusiz, esan nuen nik:
 “Jainkoa ikus ez baneza, izadi distiratsua,
 zu ez zara ezer niretzat, hilobi handi bat baizik.

4 “Samurtasunez gartsu den bihotz bat behar dut nik
 behin eta betiko nire euskarri izanez,
 nigan, neure makaltasuna bera ere, maite izanik...
 ni uzten ez nauena ez gauez, ez egunez.”
 Nik ezin aurkitu izan dut inolako izakirik
 sekula hil gabe beti maite izango nauenik
 Jainko bat behar dut, neure izaera hartzen duena,
 neure neba² bihurtzen dena eta sufritzeko gai dena!

5 Zuk entzun didazu, nire maite bakar zarena,
 nire bihotza zeureganatzearen, hilkor eginik,
 zeure odola isuri zenuen, misterio gorena!...
 eta zu aldarean niretzat bizi zara oraindik.
 Zure Aurpegiko distira ikusi ezin badut,
 ezta entzun ere zure ahots gozotasunez betekoa,
 zure graziaz bai bizi ahal dut, oi ene Jainkoa,
 zure Bihotz Sakratuan bai atsedean hartu ahal dut.

6 Oi Jesusen Bihotza, samurtasunezko altxorra,
 zu zara nire zoriona, nire itxaropen bakarra,
 nire gaztaro guria liluratzen jakin zenuen hori
 geldi zaitez nire ondoan azken arratsera arte. Lk 24,29
 Jauna, zuri bakarrik eskaini dizut neure bizitza
 eta nire gurari guztiak zuretzat ezagunak dira; Sal 37,10
 nik galdu nahi dut neure burua, oi Jesusen Bihotza!
 beti azkengabea den zure ontasunaren erdian!

7 Ah! gure zuzentasun guztiak, nik ongi dakit,
 zure begien aurrean ez direla ezertarako;
 nire sakrifizioi balioa eman ahal izateko
 zure Jainko-Bihotzera egotzi nahi ditut nik. Is 64,6
 Zeure aingeruak ez dituzu akats gabe aurkitu,
 tximista artean eman zenuen zeure legea!... Jb 4,18
 zure Bihotz Sakratuan ezkututzen naiz, Jesus,
 ez naiz ni beldur, zu zara nire bertutea!³... Ir 19,16

8 Zure aintzaren ederra ikusi ahal izateko
 badakit nik, sutatik igaro beharra da, I Ko 3,13.15

² Hemen Jesus Neba eta Laguna da, hau da, Kantarik Ederreneko Senarra bezala (Kt 4, 9 edo 5, 2);
 ik., esaterako, TG 158, 164; DSA 3, 23^{abis}; TO 31, 5; Otoi. 12. Baina Jesusekin dugun anaitasunaren
 esangurak, Teresarengan, eztaiak azaleratzen ditu.

³ Ik. A Esk., 32^a eta TG 197.

eta hautatua nuen neure garbitokitzako,
ene Jainko-bihotz, zure maitasun gartsua!⁴
Nire arima erbestetuak, bizitza hau utzirik
maitasun hutsezko egintza egin nahi luke
eta gero Zerura, bere Aberrira, hegan eginik
zure Bihotzean sartu zeharka ibili gabe.

TO 24

Jesus, ene Maitea, oroi zaitez!...

EGUNA: 1895eko urriaren 21a. - OLERKI-HARTZAILEA: ahizpa Jenofa (Zelina), beraren jaija zela-eta, berak eskatuta. - ARGITALPENA: HA 98, berrogeita hiru bertso zuzenduta. - DOI-NUA: *Rappelle-toi*.

Ahizpa Jenofaren nobiziatua 1895eko otsailaren 5etik aurrera izan zen. Hain bihotz-zabala izanik, Teresak bere ahizpari, ekainaren 9an, Maitasunari erabat eskaintzea proposatu zion. Hain neketsua izan denez gero, Zelinak lehengo merezimenduak aipatuz gogo berotu beharra izango du. Eta berak dei egingo dio Teresaren olerkimenari, «Jesusi gogoraz diezaion beragatik egin dituen sakrifizio neurrigabeak». Baina Teresak ikuspegia alderantziz ipiniko du eta zerrenda bat egingo du Jesusek Zelinarentzat egindako sakrifizioekin...

Ez hari kontra egitearren besterik gabe, nobiziari «irakatsi txiki bat» ematearren baizik (CSG, 73. or.). Baina goi-arnasak norabide erabat ezberdinetik darama. Haren biziaren pizgarria Jesusek bere izakiari dion maitasun arretatsu eta dohai-nekoaren sentimendu oso sendoan datza. Hogeita hamahiru ahapalditan (kopuru horrek Jesusen hogeita hamahiru urteak gogoratu nahi ote ditu?), Jesusen bizimodu garatzen du Ebanjeliotik hasirik, «beti argi berriak, sentipen ezkutu eta misteriotsuak aurkitzen dituen» Ebanjeliotik (A Esk., 83ⁱ). TO 54rekin batera, olerki honek leku ezin hobea eskaintzen du Teresaren arabera eskriturak aztertzeko.

Garai hartan, Teresa argitasunean bainatzen da. Haren fedea bizitza eta argia da. Berak azaltzen du hemen nola ulertzen duen fedea, Ebanjelioko gaiak behin eta berriz irakurtzeko duen modu bereziarengatik.

“Ene alaba, bila itzazu maitasuna hobekien adierazten duten nire hitzak; idatz itzazu, eta gero, erlikiak bezala gorde estimu handiz, izan ezazu behin eta berriz irakurtzeko beharra. Adiskide batek bere adiskidearen bihotzean maitasunaren lehen ikutu bizia berriro esnatu nahi duenean, honela esaten dio: gogora ezazu hitz hura esan zenidanean izan zenuen sentipena, edota: gogoan dituzu halako unean, halako egunean eta halako lekuan izan zenituen sentimenduak?... Sinets ezazu, nire

⁴ Arestiko maitasun-zauriaren aipamena ote da (berak bakarrik ulertua) (1895/6/14koa, ik. KH VII. 7. 2)? Ezaguna da Joan Gurutzekoak *Maitasun-gar biziaren* bertute garbitzailea garbitokiaren parean hartzeko zuen joera (II. ahapaldia, 5. lerroaren azalpena, 184. or.). Ik. TO 17, 6 +.

erlikiarik preziatuenak nire maitasunezko hitzak dira, nire bihotz gozotik irtendako hitzak”

(Gure Jaunaren hitzak Gertrudis Santuari¹)

- 1 Oroi zaitetz Aitarene aintzaz,
 oroi zaitetz bekatari gaixo guztiak
 erostearren, lurrean erbestetuaz,
 utzi zenuen Jainkozko distiraz.
 Oi Jesus! beheratuz Maria Birjinagana
 gorde zenituen amaigabeko aintza ta handitasuna.
 Ah! amaren sabelaz,
 zure bigarren zerua zenaz
 oroi zaitetz. Heb 1,3
- 2 Oroi zaitetz zure jaiotza egunez
 Aingeruek Zerua utziz kantatu dutela:
 “aintza, omena eta ahalmena gure Jainkoari
 eta bakea gogo oneko bihotzei.” Lk 2,13-14
 Hemeretzi menderen ondoren, bete duzu zeure esana,
 Jauna, zure seme-alaben bakea da aberastasuna.
 Zure bake esanezinekua
 beti gozatu ahal izateko
 zugana nator ni.
- 3 Zugana nator ni, gorde nazazu zeure oihaletan²
 zure sehaskan nahi nuke nik gelditu beti,
 han ahal izango dut nik, aingeruekin kantetan,
 zure lehen egunetako poza oroitarazi zuri. Lk 2,7
 Oi Jesus! oroi zaitetz pozik beren bihotz eta opariak
 eskaini zizkizuen artzain eta magoez, Lk 2,15-18
 bere odola eman zizun Mt 2,11-12
 errugabeko lagun-taldeaz Mt 2,16-18
 oroi zaitetz.
- 4 Oroi zaitetz Mariaren besoak nahiago
 zenituela zeure errege-aulkia baino;
 Haurtxo txikia, zeure biziari eusteko
 ez zenuen besterik birjin-esnea baino;
 zeure Amak ematen dizun maitasun-otordura
 oi ene nebatxo Jesus, gonbida nazazula.
 Oroi zaitetz zure arreatxoak
 dardar eragin diola
 zure bihotzari!...

¹ Epigrafe (Teresak 1896ko uztailen erantsia) aita Crosen *L'Année de Sainte Gertrudetik* dator (Toulouse, 1871).

² Ik. DSA 1, 12^a; DSA 2, 1^a eta 7ⁱ; DSA 5, 3^a; DSA 6, 2ⁱ; Otoi. 8, 1895eko urrikua; TO 54, 10).

- 5
Mt 2,13-15
Oroi zaitez zuk Jose apalari
aita deitu zeniola, zeruak agindurik,
zeure amaren altzoan esnatu gaberik,
hilkor baten amorrutik atera zintuenari.
Jn 1,1
Jainko Hitza, misterio harrigarri honetaz oroi zaitez;
Zu isilik gelditu zinen, aingeru bati hitz eraginez!
Nilo ibai ertzean igarotako
Zure urrutiko erbestez
oroi zaitez.
- 6
Sal 94,4
Oroi zaitez beste erribera batzuetan
hodeirik gabeko urdinean behatzen ditudan
urrezko izarrek eta zilarrezko ilargiak
poztu, liluratu dituztela zure Haur-begiak.
Mariak laztantzen zuen zure eskutxoaz
munduari eusten zenion zuk, hari bizia emanaz.
Eta nitaz pentsatzen zenuen zuk³,
ene Erregetxo, Jesus,
oroi zaitez...
- 7
Oroi zaitez lan egiten zenuela
zeure Jainkozko eskuekin bakardadean;
ahazturik bizitza zen zure ahaleginik gozoena,
zuk arbuiatu egin zenuen gizakion jakitea.
Oi! hitz bakar batez mundua txundi zenezakeen hori,
jakinduria sakona ezkutatzea eman dizu gogoak zuri.
Zuk ezjakin ematen zenun,
oi Jaun Ahalguztidun!
Oroi zaitez...
- 8
Mt 8,20
Oroi zaitez, hara-honaka bizi zinela
lurrean erbesteko, zu, Betiko Hitza!
ezer ere ez zeneukala, ezta harri bat ere,
zeruko hegaztien gisa, ezta aterpe bat ere...
Oi Jesus! zatoz nigana, zeure burua etzateko,
zatoz, nire arima prest dago zu hartzeko.
Nire Salbatzaile txit maite,
nire bihotzean atsedean zaite;
zeure-zeurea duzu...

³ Teresa ez da Jesusi buruz inoiz mintzo hirugarren pertsonan, singularreko bigarren pertsonan baizik, bere otoitzean egin ohi duen bezala (CSG, 82. or.). Ahapaldi bakoitzean, kasu bakanen baten izan ezik, Zu eta ni formak samurtasunaren elkartasun ez-tian batzen dira. Harrigarria irudiko zaio, agian, norbaiti, hark bere Jauna horretara «bereganatzea». San Pauloren hitzak bereganatu besterik ez du egiten: «Berak maite *nau* eta *niregatik* askatu da» (Ga 2, 20).

- 9 Oroi zaitez zeure jainkozko samurtasunaz,
 zuk umerik txikienak asebetetzeko zenuenaz;
 nik ere nahi ditut hartu zure maite-erakutsiak;
 ah! emaizkidazu zure musu liluragarriak.
 Zeruan zure presentzia gozoaz gozatu ahal izateko
 haurtzaroko bertuteak praktikatzen dut jakingo.
 Ez zenuen zuk esan, bada:
 “Zerua umearena da?...”
 Oroi zaitez.
 Mk 10,13-16
- 10 Oroi zaitez, iturri ondoan,
 harako bidean nekaturiko bidazti hark
 gainez egin zituela⁴ Samaritarrarengan
 barruan zituen maitasun-olatuak.
 Ah! ezaguna nuen nik edateko eskatzen zuena⁵;
 Jainkoaren Dohaia, aintzaren iturria hura da.
 Hura da bor-bor irteten den ura,
 hura da guri esan diguna:
 “Zatozte nigana.”
 Jn 4, 6-10.14
- 11 “Zatozte nigana, arima gaixo abailduak,
 laster arinduko dira zuen zama astunak
 eta zuen egarria asean izanik betiko,
 zuen erraietatik dira iturriak jalgiko”.
 Egarrin naiz, oi ene Jesus! ur hau da eskatzen dudana,
 bere jainkozko uholdeetan bla-blai egizu nire arima.
 Nire bizilekua kokatzeko
 maitasunaren itsasoan
 zugana nator ni.
 Mt 11, 28.30
- 12 Oroi zaitez, argiaren alaba izanik⁶,
 maiz ahazten zaidala ongi zerbitzea neure Erregeri.
 Oi! nire ezerez handiaz erruki zakizkit,
 zeure maitasunean, barka iezadazu niri.
 Zeruko gauzetarako trebe bihur nazazu
 Ebanjelioan gorderiko sekretuak erakus iezazkidazu.
 Ah! urrezko Liburu hau dela
 nire altxorrik maiteena
 oroi zaitez.
 Jn 4,15

⁴ Ik. 18. ahapaldia, 6 eta Otoi. 6.

⁵ 1889–1890ean, Teresak ase nahi duen Jesusen egarria, bereziki, Jesus gurutzeratuarena da (Jn 19, 28; ik. LC 145 eta CG, 631. or.). 1893an, gehiagotan darabil buruan Samariarraren pasadizua (TG 141). 1895ean, berriz, berak gai biak nahasten ditu A Esk.an (45^a eta 46^a) eta hemen (10 eta 25. ahapaldiak). Azkenik, 1896an, Ebanjelioko beste testu batzuen artean sartzen ditu horiek Jesus gurutzeratuaren irudi baten gainean, ageriko aipamenekin (BI 1). Ik. baita TG 196 (= B Esk., 1^a) ere.

⁶ Adierazpen hau hemen eta B Esk.ko 4^a.an bakarrik aurkitzen da.

- Jn 2,1-10 13 Oroi zaitetz zure jainkozko Amak
zure bihotzean ahalmen harrigarria duela
oroi zaitetz, egun batean, haren eskarira,
zuk ura ardo atsegingarri bihurtu zenuela⁷.
Alda itzazu nire egintza akastunak ere,
Mariaren esanera, Jauna, bihur itzazu akasgabe;
haren alaba naizela ni
oi Jesus! sarri-sarri
oroi zaitetz.
- Lk 6,12 14 Oroi zaitetz zu muinoetara maiz
igotzen zinela eguzkia ezkutatzerakoan;
gogora itzazu zure jainkozko otoitz,
zure maitasun-kantak lotaratzetakoan.
Zure otoitza, oi ene Jainko, neure otoitz orduan
pozik eskaintzen dut nik, eta gero ofizio santuan.
Han zure Bihotzetik gertu
kantatzen dut nik gogotsu:
oroi zaitetz!...
- Jn 4,35 15 Oroi zaitetz soroak begiraturik
zure Jainko-Bihotzak uzta aurreratzen zuela,
mendi santurantz begiak jasorik⁸,
zuk hautatuen izenak xuxurlatzen zenituela...
Zure uzta bildua izan dadin laster batean,
bizitza eskaintzen ari naiz otoitzka, ene Jainko, egun bakoitzean;
nire pozak eta negarrak
zure segalarientzat
direla oroi zaitetz...
- Lk 15,10 16 Oroi zaitetz Aingeruen jaiaz,
oroi zaitetz Zeruko harmoniaz
eta gorengo taldeen alaitasunaz
bekatari batek begiak jasotzean zuganantz.
Ah! alaitasun handi hau nahi dut areagotzea,
Jesus, bekatarien alde etengabe nahi dut otoitz egitea.
Ni etorri nintzela Karmelora
zure Zeru ederra betetzera
oroi zaitetz...
- Lk 12,49 17 Oroi zaitetzugar txit eztia
piztu nahi zenuela bihotzetan zuk;

⁷ Ekaitz baretuaren bestela baitako aipamen batekin, olerkiak aipatzen duen mirari bakarra dugu. Teresa oso zuhurra da mirariak aipatzerakoan.

⁸ Teresak berriro ekiten dio hemen, Jesusi ezaririk, 1892an egin zuen "begiak jasotzeko" gonbiteaz bere-berea den azalpena emateari: «*Jaso begiak eta ikusi. Ikusi nola nere zeruan leku hutsak dauden... Bada, zeuei dagokizue hutsune horiek betetzea...*» (TG 135).

su zerutar hau nire ariman ezarri duzu zuk⁹
 nik ere zabaldu nahi ditut haren gar biziak.
 Txinpart ilaun bat, oi bizitzako misterio,
 aski da sutzar neurrigabe¹⁰ bat sortarazteko.
 Oi ene Jainko, nik zure sua¹¹
 urrutira eraman nahi dudala
 oroi zaitetz.

- 18 Oroi zaitetz zeure seme damutuari zuk¹²
 ematen diozun oturantza oparo honetaz,
 oroi zaitetz garbia den arima berariaz
 janaritzen duzula une bakoitzean zuk zeuk.
 Jesus, seme xahutzailea hartzen duzu amodioz beterik,
 baina zure bihotz-isuriek ez dute niretzat dikerik.
 Nire Maitea, nire Erregea,
 zure ondasunak neureak direla
 oroi zaitetz. Lk 15, 23.20
- 19 Oroi zaitetz, ospea arbuiatuz
 zeure jainko-mirariak egiterakoan,
 esaten zenuela: "nola sinets dezakezue
 zuek, gizakien oniritzia bilatzen duzuenok?..."
 Nik egiten ditudan ekintzak harrigarritzat dituzue.
 Nire adiskideek bikainagoak egingo dituzte..."
 Zu apal eta gozoa izan zinela
 Jesus, nire senar bihozbera
 oroi zaitetz. Jn 5,44
- 20 Oroi zaitetz mozkorraldi santu batean
 Apostolu Garbia zure Bihotzera hurbildu zela;
 zure samurtasuna ezagutu zuen bere atsedenean;
 zure sekretu guztiak ulertu zituen, Jauna...
 Zure ikasle kutunaren bekaitzik ez dut nik,
 ezagutzen ditut zure sekretuak, zure emazte izanik.
 Oi ene Jainko-Salbatzailea,
 lo natza ni zure Bihotzean;
 hura neurea da!¹³... Jn 14,12;
15,15
- Mt 11,29
- Jn 13,23

⁹ Hau 1895eko ekaineko Maitasunezko zauriaren aipamena izan liteke (KH 7. VII. 2).

¹⁰ *Suak* Teresaren hiztegiaren garrantzi handia izan arren, erabilera bakarra idazkietan.

¹¹ 7.etik 9.era bitarteko lerroak Ama Ainesek aukeratu zituen Teresaren hilobiko gurutzea apaintze-ko, eta horrela haren hilondoko eginkizuna, apostolu-lan benetakoa izango zena, zehazteko; ik. CSG, 200. or. Ik. baita DSA 4, 4ⁱ eta TO 47, 6 ere.

¹² Seme galduaren aita, Teresarentzat, Jesus bera da, berak aipatzen dituen zortzi pasarteetatik sei-tan (DSA 2, 3^a; TG 142; hemen; C Esk., 34ⁱ eta 36ⁱ; TG 261).

¹³ Ik. TG 122: «*Nere Senarraren bihotza nerea dela bakarrik uste dut, nerea ere bakarrik beretzako den era berean*».

- Lk 22,44,43
- 21 Oroi zaitez hilzoriko arratsean
zure malkoak odolarekin zirela nahasi
maitasun ihintzak, bere balio azkengabea,
lore aratzak ditu emearazi;
Aingeru batek uzta hautatua zuri erakustean,
poza birsortu zuen zure aurpegi bedeinkatuan.
Ikusi ninduzula zuk
zeure lirioen artean, Jesus,
oroi zaitez.
- 22 Oroi zaitez zure ihintz joriak
loreen korolak arazturik,
gai bihurtu dituela mundu honetatik
sortarazteko bihotz kopuru ugariak.
Ni birjina naiz, oi Jesus! baina hau itzela!
zurekin bat eginik, arimen ama naizela¹⁴.
Bekatariak salbatzen
dituen lore aratzez
oroi zaitez.
- Mk 14,62
- Lk 22,67
- Is 9,5
- 23 Oroi zaitez, oinazez unaturik,
gaitzetsi batek zerurantz bihurturik,
esan zuela: "laster neure ahalmenean
ikusiko nauzue agertzen aintzaren betean."
Jainko-semea zenik inork ez zuen sinetsi nahi, ordea,
haren esanezineko aintza baitzen ezkutuan gordea...
Oi Bakearen Printzea,
nik ezagutzen zaitut,
nik zugan sinesten dut!...
- Is 53,3
- 24 Oroi zaitez zure Jainkozko Aurpegia
zeuretarren artean ezezaguna izan zela beti,
baina zuk niretzat utzi zenuen zeure irudi eztea,
eta zuk badakizu, ezagutu egin zaitut nik ongi...
Bai, nik malkoz erabat estalia ezagutu zaitut
etikoaren Aurpegi, nik zure lilurak agerian ditut.
Jesus, zure malkoak hartzen
dituzten bihotz guztiez
oroi zaitez.
- 25 Oroi zaitez negar-intziri maitetsuaz,
gurutzean zure bihotzetik irten zenaz.

¹⁴ Teresaren idazkiek sarri gogorazten dute Jesusekin bat egindako birjina sagaratuen amatasun izpiritualaren "misterioa": ik., adibidez, TG 124 (Zelina lorea); TG 129, 135, 182, 183, 185; A Esk., 81^a eta B Esk., 2^a; TO 45, 6 etab.

Ah! hura josirik da, Jesus, nirean,
 eta parte hartzen dut zure egarriaren¹⁵ errean.
 Zenbat eta zure jainko-garrez kiskaliago izan,
 hainbat irrika handiagoz nahi dizkizut arimak eman.

Jn 19,28

Maitasun-egarri batez
 gau eta egun erretzen naizela
 oroi zaitetz.

26 Oroi zaitetz, Bizitzaren Hitza, Jesus,
 zuk maite izan ninduzula nigatik hiltzeraino;
 nik ere¹⁶ maite nahi zaitut zu zoratzerraino
 nik ere Zugatik bizi eta hil nahi dut.
 Zuk badakizu, oi ene Jainko! nik nahi dudan guztia
 zu maitaraztea da eta egun batean martiri izatea.

1 Jn 1,1

Maitasunez hiltzea nahi dut,
 Jauna, nire irrikaz
 oroi zaitetz...

27 Oroi zaitetz zure garaipen egunean
 esan zenigula: "dohatsua ikusi ez duena
 Jainkoaren Semea aintzaren distira betean,
 baina hori gorabehera sinestu duena!"
 Nik maite zaitut eta gurtzen, fedearen itzalean;
 oi Jesus! zu ikusteko goiztiriaren zain nago bakean.

Jn 20,29

Ez dela nire gogoa
 hemen behean zu ikustekoa¹⁷
 oroi zaitetz...

28 Oroi zaitetz Aitagana igotzean
 zuk umezurtz ezin utz gintuzula
 eta zeure burua preso eginez lurtean
 zeure jainko-izpi guztiak estaltzen jakin zenuela.
 Baina zure oihal-itzala argitsua da eta garbia,
 fedearen Ogi Bizia, Zerutar Janaria.

Jn 14,18

Oi maitasun misterioa!
 nire eguneroko Ogia
 zu zara, Jesus!...

Jn 6,35

Mt 6,11

¹⁵ Jesusek gurutzean esandako zazpi hitzetatik, «Egarri naiz» intziria da Teresak gehienetan aipatzen duena (A Esk., 45ⁱ, 46ⁱ, 85ⁱ; TO 31, 5 eta 6. ahapaldiak). Ik. *supra*, 5. oharra.

¹⁶ «Ere» adberbioak Jesusen heriotza dagoeneko maitasun zoroa dela iradokitzen du, eta horrek Teresaren nahia zurrizten du: «zorotasunez maitatzea». Nahi hori ez da berria: ik. TG 85, 93, 96, 169; A Esk., 39^a, 82^a (1895eko amaiera). Bera ageriago da 1896an; ik. B Esk. (non «folie» hamar aldiz azaltzen baita) eta TG 225.

¹⁷ Bere maitasunaren gogortasuna gorabehera, Teresak nahiago du bere buruarentzat aukeratu duen ereduaren arabera Jesus maitatzea (ik. DSA 7, 1ⁱ). Hil ondoren, berak berriro indartuko du Jainkoa edota santuak hemen behean «ez ikusteko» nahia (ik. KH 4. VI. 1; 5. VIII. 4; 11. VIII. 5; 11. IX. 7).

- 29 Jesus, zu zara, Maitasun
 Sakramentuaren etsaien biraoak gorabehera,
 erakutsi nahi duena zein maite nauzun,
 nire bihotzean ezarri baituzu zeure egoitza.
 Ga 2,20 Oi erbestuaren Ogia! Ostia santu eta Jainkozkoa,
 ez naiz ni bizi dena, baina zure bizitzaz bizi naiz ni.
 Zure kopoi urre-koloreduna¹⁸
 guztietarik kutunena,
 Jesus, neu naiz!
- 30 Jesus, ni naiz zure santutegi bizia,
 gaiztoek profanatu ezin dutena.
 Geldi zaitez nire bihotzean; ez al da
 loreek zugana itzuli nahi duten lorategia?
 Kt 2,1 Baina zu urrun bazintez, oi haranetako lirio zuri hori,
 zuk ongi dakizu, nire loreak laster lirake txit erori.
 Ene Jesus hain maitatua,
 lirio usaintsua,
 nigan beti loratu zaitez!...
- 31 Oroi zaitez lurrean nahi zaitudala zu
 poztu, pekatariak ahaztu zaituztelako;
 ene Maitasun bakar, nire otoitza entzun ezazu:
 Ah! emaikidazu mila bihotz zu maitatzeko.
 Baina hori, Jesus, edertasun goren, oraindik gutxi da;
 zu maitatzeko emaidazu zure jainkozko Bihotz Berbera¹⁹.
 Nire gurari gartsuaz,
 Jauna, uneoro
 oroi zaitez.
- 32 Oroi zaitez zure borondate santua dudala nik
 neure atsedena²⁰, neure zorion bakarra,
 neure burua utzi eta lo egiten dut beldur barik
 zure besoetan, oi ene Jainko-Salbatzailea.
 Mk 4,38 Zu zeu loak hartzen bazaitu, ekaitza orroka bada ere,
 nik bake osoan gelditzea nahi dut beti ere.
 Baina lo zaudela zu,
 itzarrik egoteko, Jesus,
 presta nazazu!...

¹⁸ Ideia berbera A Esk.ko 48¹.an eta TO 25, 6an.

¹⁹ Jainkoa maitatzea, ez «mila bihotz»ekin bakarrik, beraren Maitasunaz baizik, beraren «jainkozko Bihotz berbera»ekin; horixe da Teresarengan hil arte haziko den gogo bizia (ik. B Esk., 3¹ eta C Esk., 35^a; TO 41, 2, 7-8).

²⁰ «Atsedena» Jesusen «borondate»n gozatzen da bakarrik, hura bakarrik betetzeko nahia, gai teresiarra da, eta haren zantzuak idazki guztietan eta goiz aurkitzen dira (ik. *Poesies*, II, 169. or.). Gai-xotegian, Teresak 32. ahapaldia «hots eta soinu zerutarrekin»; ik. KH 14. 7. 3. Esangura berean, ikus, gainera, KH 10. VI; 10. VII. 13; 14. VII. 9; 30. VIII. 2.

33

Oroi zaitetz sarri egoten naizela
 etorrera handiaren eguna noiz iritsiko;
 bidali laster aingerua esaten digula:
 “esnatu, denborarenak egin du betiko!...”
 Orduan eguratsa bizkor-bizkor zeharkaturik,
 Jauna, zure ondoan hartuko dut neure lekua nik.
 Betiko etxean nire zerua
 zuk izan behar duzula
 oroi zaitetz!...

Ap 10,6

1 Ts 4,16

Jn 14,2

TO 25

Nire Nahiak bere Maitasun-Kartzelan¹ gordea den Jesusen ondoan

GARAIA: 1895eko udazkena (?). - OLERKI-HARTZAILEA: ahizpa San Bizente Paulekoa, berak eskatuta. - ARGITALPENA: HA 98 (izenburua: *Mes désirs près du Tabernacle*), zazpi bertso zuzenduta. - DOINUA: *Par les chants les plus magnifiques* edo *Glose de sainte Teresa*, «*Je me meurs de ne point mourir*».

Olerki eukaristiko, liturjiko honetan, Teresak ez dio uzten goi-arnasari hegaz egiten. Hausnartze honen taxuera oso neurritsua da, eta haren ardatza Jainko-gurtzaren gaiak osotzen dute, beti ere, Jainko-gurtzako gaiok Eskriturako hitz edo irudiak bailiran erabiltzen dira. Azken ahapaldian bakarrik uzten die maitasun eta garrari gainez egiten.

Teresaren fedeak eramango du hura bere «nahiak» betetzeko modua aurkitze-ra: «Baina ahal dut nik...». Berak ez du tabernakuluko giltzaren, lanpararen, alda-reko harriaren, edontzi sakratuen «bekaitzik». Berak badu, bera bada askozaz gehiago gauza bizigabe horiek baino. «Emazte»ak sakrifizioan «gainezkaldiz» bere egiten duen eskaingai bezalakoa da, eskaingai hitza aipatzen ez bada ere.

Ahizpa San Bizente Paulekoaren eskariz,
 aurreko olerkiaren doinu berean edota Teresa Santuaren glosarenean egina

1 Giltzatxo, oi, zure inbiditan nago!
 zuk ireki ahal duzulako egunero
 Eukaristiaren kartzela,
 Maitasunaren Jainkoa bizi dena.
 Baina, oi mirari ezti! ahal dut nik
 neure fedearen ahaleginaz bakarrik

¹ Ik. A Esk., 31^h; TO 19, 1; 24, 28; TG 189 eta 201, 2^h; Otoi. 7.

- ireki tabernakulua era berean,
ezkutatu² Jainko-Erregearen aldamenean...
- 2 Nik nahi nuke santutegian,
neure Jainkoaren ondoan akitzen naizela,
diz-diz egin beti era harrigarrian
Toki Santuko lanparak bezela...
Hau zoriona! neugan garra daukat
eta egunero irabaz ditzaket nik
hainbeste arima Jesusentzat
haren maitasunez kiskalirik...
- 3 Goizaldero inbiditan naukazu,
oi Aldareko Harri Sakratu!
ikuilu bedeinkatuan bezala era berean
Betikoak nahi du jaiotzea zugan...
Ah! entzun ezazu nire eskaria:
zatoz nire arimara, Salbatzaile ezti...
Harri hotz izatetik oso bestaldera,
hura zure Bihotzaren intziria da!...
- 4 Oi aingeruz inguraturiko opari-oihala!
zure zoria bai dela nahigarri ta ederra!
Zugan, bere haur-zapi pobreetan bezala,
ikusten dut nik Jesus, neure altxor bakarra.
Alda ezazu nire bihotza, Maria Birjina,
opari-oihal garbi eta eder egina,
zure Bildots Leuna gorderik dan
ostia zuria har dezadan.
- 5 Patena santua, zure inbiditan naukazu
zure gainean pausatzeraz dator Jesus.
Oi! haren handitasun itzela
nireganaino behera dadila...
Nire itxaropena bete-bete eginik,
bizitzaren arratsa itxaron barik,
nigana dator; haren presentziaz
ni ekisaindu bizia naiz egiaz!...
- 6 Oi! bai irrikatzen dudala jainko-odola
gurtzen dudan kaliz zorionekoa!...
Baina nik ahal dut Opari Santu bitartean
odol hura batu goiz bakoitzean.
Jesusentzat nire arima da maiteago

² Ostian, Sagrarioan *gorderik den Jesus* Jainko ezkutuarena da santaren gairik maiteenetarikoak; ik. TG 140; aipamen ugari baita TO eta DSAn ere.

urrezko ontzi baliotsuak baino.
Aldarea Kalbario berri bat da, oraindik
niretzat haren ondola isurtzen delarik...

7 Jesus, mahasti santu eta sakratua,
zuk badakizu, oi nire Errege Jainkozkoa:
ni naiz urrezko mahats-mordoa³,
zugatik izan behar duena ezereztua...
Sufrimentuaren dolarean
neure maitasuna erakutsiko dizut nik,
ez dut nahi nik beste poztasunik
neure burua ematea baizik egun bakoitzean.

Jn 15,5

8 Ah! hau zoriona, ni hautatua naiz
Jesusentzat bizia galtzen duten
Gari-ale garbien artetik...
Nire gainezkaldia handia da baten!...
Ni naiz zure emazte kutuna,
Ene laztana, zatoz nigan bizitzera;
oi! zatoz, zoratu nau zure edertasunak,
arren, alda nazazu zeure izatera!...

Jn 12,24...

TO 26

Aines Santuaren Errepika

EGUNA: 1896ko urtarrilaren 21a. - OLERKI-HARTZAILEA: Ama Aines Jesusena, lekaimburua, beraren jaia zela-eta. - ARGITALPENA: HA 98 (*Cantique de sainte Agnès*): hamaika bertso zuzenduta. - DOINUA: *Le Lac edo Hymne à l'Eucharistie*.

Distiratsu, bere Senarrentzat prestaturik dagoen emaztegai baten antzera, azaltzen zaigu Teresa olerki honetan barrena. Bake, maitasun eta argitasunezko urteari ematen dio buru. 1896ko urtarrilaren 21ean bertan, Ama Ainesi lehen koarderno autobiografikoa bidali zion. A Eskuizkribuak eta olerki honek, estilo ezberdinez Magnificat bera kantatzen dute.

Ezkontitzezko olerkia. Bera irakurri ahala, berahalaxe bururatzen zaigu A Esk.ko orrialde miragarria, Teresak Ezekielen profezia kontatzen duen hura (*testu hori, bestalde, Joan Gurutzekoaren Kantu izpiritualeko XXIII. ahapaldiaren azalpenetik jasotzen du*): «Maitatua izateko garaia iritsi zenean» —1887an—, «Hark elkartasuna egin du nirekin eta ni berarena izatera etorri naiz... Hark bere mantua

³ Teresaren «nekaldia»ren hiru iragarpenetarik lehenengoa, «*erramua*»ren ikurraren azpian; DSA 5, 2ª eta A Esk., 85. l. an (armarriak).

zabaldu du nire gainean... arropa bordatuekin jantzi nau, lepokoak eta apaingarri preziatuenak emanez... Bai, Jesus neurea egin da oso-osorik» (A Esk., 47^a).

1887an, oraïndik ezkontitzetako goizaldea baizik ez zen. Egun, 1896an, aldiz, amaitu berri den ugaritasunezko urtearen ondoren, ezkontitz izpirituala isilean egingo da. Berehalaxe entzungo da «lehenengo deia», lazgarria, egia esan, hemoptisia baten bidez egiten baita, baina alaitsua «Senarraren etorrera iragartzen duen zurrumurru gozo eta urrutikoa bezala» (ik. C Esk., 5^a).

Teresak beren-beregi dio hori izenburuan: berak Aines Santuaren ofizioko Hileta-otoitzak itzuli ditu. Martiri gaztearen liturgia (305. urtearen inguruan hila) oso antzinakoa da: VII-VIII. mendeetako. Teresak bat egiten du testuarekin, barrubarruko sinbolismoa berriz bizitzeraïno, olerkia lerroz lerro bere eredu ezberdinekin erkatzean ageri denez (ik. Poésies, II, 180 eta ondorengo orrialdeak). Teresaren transkripzioa aparteko kalitatekoa da. Ikustekoa izango zen nola antzaldatzen diren berbak eta ereduak olerkiaren arabera; nola egiten duen ezitia, olerki-antolamendu miragarriaz, latinezko testuan sakabanaturik dauden irudi guztiekin, ikuste handi hori mugimendu harmoniatsuekin garatzeko.

- 1 Kristo da nire maitasuna, hura nire bizi osoa,
hura da nire begiak liluratzen dituen maitale bakarra;
halaber entzuten dut jadanik haren harmonia gozoa
duen soinu ederra.
- 2 Hark berdingabeko bitxiz edertu du nire eskua,
hark balio handiko idunekoz edertu du nire lepo-bira,
nire belarrietan ikus daitezkeen diamante preziatuak
Kristoren opari dira.
- 3 Hark harribitxiz edertu nau zeharo,
diz-dizka da ezkon-eraztuna nire erian honezkero.
Hark bitxi distiratsuz utzi du hornitua
nire birjin-mantua.
- 4 Ni, aingeruek betikotasunean dar-darka
zerbitzatuko duten haren emaztegaia naiz.
Ilargia eta eguzkia ditu goratzarreka
bere edertasuna miretsiz.
- 5 Haren aginterria Zerua da, haren izaera jainkozkoa;
amatzat Birjina Sortzez Garbia zuen hautatua,
haren Aita da sorrerarik ez duen benetako Jainkoa,
hura Izpiritu garbia da.
- 6 Kristo maite dudanean eta hari ikutzen diodanean,
nire bihotza garbiago egiten da, aratzago naiz oraïndik.
Haren ahoaren musuak birjinitatearen
altxorra eman dit.

- 7 Hark bere ikurra ezarri du nire aurpegian jadanik,
nigana hurbiltzen ausartu ez dadin beste maitalerik;
neure Errege Maitagarriaren jainko-graziak eutsirik
somatzen dut neure burua nik.
- 8 Nire masailak haren odol preziatuz gorrituak dira;
zeruko atseginak dastatzen ditudala jadanik
uste dut, hartu baititzaket esnea eta eztia
haren ezpain sakratuetatik.
- 9 Horregatik ez nau ezerk beldurtzen, ez burdinak ez suak;
ez, nire bake esanezinekoa ezin hautsi dezake ezerk ere,
eta nire arima kiskaltzen duen maitasun-sua
ez da itzaliko sekula ere!...

TO 27

J.M.J.T.

1896ko otsailaren 24ko oroitzapena

EGUNA: 1896ko otsailaren 24a. - OLERKI-HARTZAILEA: ahizpa Jenofa, beraren profesa zela-eta, berak eskatuta. - ARGITALPENA: HA 98 (izenburua: *Doux souvenir*), bost bertso zuzenduta. - DOINUA: «*Sur terre, tout n'est pas rose*».

Bestelako olerki bat itxaroten zen Teresarentzat hain pozgarri zen Zelinaren profesarako; baina hau ez da komunitatearen kantu izatekoa, eta ezin izan du «txatal» bat baizik egin, ahizpari kuxatxo baten eman ziolarik. Baina hori berori Teresak ugari hornitu du hitz lauuko idazlanetan eta hainbat oroitzapenetan: «Zeruko jaien» deskripzio luzea (TG 182), «Jesus eta Zelinaren elkartasun kontratua»ren armarridun pergaminoa (TG 183), Ama Jenofaren erlikia (TG 184) eta laster, mantua-hartzerako, irudi kaligrafiatua (TG 185). Ugaritasun honen erdian, olerkiak harrizko irudia dirudi.

1. Kant.

Oi egunetan ederra den egunaren
oroitzaipen esanezinekoa!
Zure gozotasun berdingabekoa
nik betiko dut gordeko...

2. Kant.

Jesusekin bat eginik nago ni
maitasunaren lokarriz;
eta haren handitasun azkengabekoak
nigan ezarri du bere bizilekua.

1. Errepika

Ah, zer hordialdi adierazgaitza!
 Taupadaka somatzen dut neugan
 samurtasunez garretan
 nire Senarraren, nire Erregeren bihotza.

3. Kant.

Nekerik gabe daramat erbestealdia,
 neure senarrarekin bizi izanik...
 Jainko *jeloskor*rarekin bat eginik
 naukan katea oso da ezitia!...

Ir 34,14

4. Kant.

Oi jainkozko jeloskortasuna,
 zuk zauritu duzu nire bihotza!...
 nire bizitza osoan zu izango zara
 nire atsedena eta nire poza.

2. Errepika

Akitu ezazu, arren, nire izate osoa
 nigan Jesusek bizi behar du bakarrik
 aurrerantzean ez duk nik izan nahi
 nire Erregeren estalki-oihala baizik!...

Teresa Jesus Haurrarena [eta] Aurpegi Santuarenak
 hain maite duen bere Ahizpatxoari.)

TO 28

J.M.J.T.

1896ko martxoaren 1a

Betiko kantika, atzerrian kantatua

EGUNA: 1896ko martxoaren 1a. - OLERKI-HARTZAILEA: Ahizpa Maria San Joserena (berak eskatuta) beronen egunerako.- Argitalpena: HA 98, zazpi bertso zuzenduta. - DOINUA: *Mignon regrettant sa patrie.*

Bere lagunaren buru-gaixotasunei erreparatu gabe (Jesusek berarekin egiten duen bezala, berak ere ahaztu egiten du ahizpa honen «ezereztasun nabarmena»), borondate oneko ikasle honi Teresa «maitasuna»z baino ez zaio mintzatzeko, izan ere, bera laster «bigarrena» izango da arropa-garbitzeko tokian.

Olerkia urria da, baina jakin behar da Teresak hitzez hitz bizi duela olerki-hartzailearen izenean kantatzen duena.

1 Zure emazte erbestetuak, atzerriko erriberan,
kanta dezake Maitasunaren betiko kantika,
zuk, ene Jesus Eztia, ontzat baituzu lurrean
zeruan bezala, maitasun-suaz hura kiskaltzea.

Sal 136,4

2 Nire maite-maite, Edertasun goren,
zeure burua didazu niri ematen
baina horren ordainez
maite zaitut nik
eta nire bizitza ez da maite-ekintza bat baizik!

3 Ahaztuz nire ezereztasuna,
nire bihotzean bizi izatera zatoz.
Nire Maitasun ahula, hau misterioa!
aski da zu kateatzeko, Jauna.

Nire maite-maite etab...

4 Sutzen nauzun maitasun,
nire ariman sar zaitez
zatoz, eske naukazu,
zatoz, erre nazazu.

5 Zure suak nau premiatzen
eta nahi dut etengabe,
jainkozko labe,
zure baitara barneratzea.

6 Jauna, sufrimentua
alaitasun bihurtzen da
abiatzen denean arima
behin betiko zugana.

7 Aberri Zerutarra,
datorren bizitzako poza,
nire arima liluratuak
zuga ohi du beti goza.

8 Aberri Zerutarra,
datorren bizitzako poza,
nire arima liluratuak
zu maitasuna baizik ez zara!

TO 29

J.M.J.T.

1896ko apirilaren 30eko oroigarria

EGUNA: 1896ko apirilaren 30a. - OLERKI-HARTZAILEA: ahizpa Maria Hirutasunarena, beraren profesa zela-eta; azken koplak biak, baina, Ama Maria Gonzagarentzat dira. - ARGITALPENA: *Poesies*, 1979. - DOINUA: *O Cœur de notre aimable Mère*.

Nobiziaren arrakasta Teresaren lana da, ahizpa Jenofarena adina edo gehiago, berberak aitortzen duenez (ik. TG 187 +; eta Une novice de sainte Thérèse, aita Descouvemont-ena, Cerf, 1985).

Goratasuna eta gartsutasuna aurkitzen ditugu kantu honetan, Jesusen eskaintzari erantzunez «maitasunik handienekoa» — «bizitza bizitzaren ordainez» ematean den kantu honetan. Profesa egin berri duenari «egun bakoitzean erretzea» baino ez zaio gelditzen. Joan Gurutzeko Santua izango da haren maisua.

Era batera irakurri behar dira olerki hau, ondorengoa, TG 187 eta 188 oharrak, eta maiatzaren 31ko olerkia (TO 31): maitasun gar bakarraren adierazpen ezberdinak.

Hirutasunaren eta Aurpegi Santuaren Maria
gure Ahizpatxo laztanari.

- 1 Zein gozo zaigun, oi Ahizpa laztana,
kantatzea egun argitsu honetan
zure bizitzako egun ederrenean,
Zeruko Erregerekin bat egin zarenean!
- 2 Goiz honetan zure arima erbestetua
distiraz izan da edertua,
orbangabeko apaingarriz
Jaunari oparizat eskainiz.
- 3 Lehenago zure arima begiraturik,
Hirutasun Gurenak
utzi zintuen bere suaz markaturik,
zuri agertuz bere edertasunak.
- 4 Jainko-Aurpegia ikusita,
zuk sentitu duzu igarotzen dena,
laster amaitu behar duen dena
gutxiesteko irrika.
- 5 Munduko uholdearen beldurrez¹,
zuk Zeruari dei egin diozu;

¹ «Kutxa»n (Karmelen) sartzen den usoa, handik «irten» eta berriro itzultzen dena: irudi horiek Mariaren ibilbide ekaiztsua gogorarazten dute (ik. TO 11).

hark aterpea aurkiarazi dizu
Karmelgo kutxa bedeinkatuan.

- 6 Baina ai! iheslari gaixo,
kutxatik irten behar izan duzu;
uso negarti antzo,
luzaro intzirika ariko zinen zu. Has 8,8
- 7 Azkenik, oliboaren hosto berdeak
zure begietan diz-diz egin zuen;
Lisieux-ko Karmelgo etxetxoaren
itzalpea erakutsi zizun hark. Has 8,11
- 8 Eguratsa iraganez azkar batean,
azkenengo tokia² gure artean
eskatzera etorri zara zu,
sufritu nahirik, maitatu nahirik. Lk 14,10
- 9 Jesusek bere burua opari ematean,
esan zigun bere azken egunean:
“Maitasun handiagorik ez dago
maite direnengatik bizia ematea baino”. Jn 15,13
- 10 Hitz bedeinkatu hau entzunez,
zure bihotza jarri da gori-gori;
bizitza bizitzaren ordainez
eman diozu zeure Jesus maiteari.
- 11 Orain opari zorionekoa³,
Maitasunari eskainitakoa:
dasta ezazu egun bakoitzean
erretzearen poza, barruko bakea.
- 12 Maitasunaren irrikaz da zure bihotza,
hura da zure izar argitsua,
Maitasuna izango da zure martiritza,
Maitasunak irekiko dizu Zerua.

(Gure Amari)

- 13 Zugatik da, oi Ama laztana,
ostia zuri eta berri hau,

² Lehenengo bertsoaren bultzada, «azkenengo tokia» erdiesteko egiten duen eskaerarekin, oso Teresiarra da; ik. TG 243 eta C Esk., 36^l.

³ Profesan euren burua oparitzat eskaini ondoren, ziur aski, Teresaren eta Maria Hirutasunarenaren barnean, nobiziatua amaitu aurretxoan, Maitasun errukitsuari eskainitza egiteko asmoa antzeman zitekeen (1895/12/1).

goiz honetan guk ikusi duguna
eskaintzen Jainko-Bildotsari.

- 14 Zure aintza izango da ostia hau;
Jesussek distiratsu bihurtuko dau,
zure bihotzak hornitzen jakin duen
misteriozko kopoian⁴.

TO 30

Jainkoari buruzko glosa

EGUNA: 1896ko apirilaren 30a. - OLERKI-HARTZAILEA: ahizpa Maria Hirutasunarena, beraren profesu zela-eta. - ARGITALPENA: HA 98, sei bertso zuzenduta. - DOINUA: adierazi barik.

Inork ez du hitz egin Maria Hirutasunarenak bezala, haren maistrak bere Aita Joan Gurutzekoari zion maitasunaz; Teresak, batzuetan hitzez hitz, aldatuko du hona Jainkozkoari buruzko glosa, Parisko karmeldarren itzulpenaren arabera.

«Maitasunagatik nahi dut bizi ondo», horixe da erantzun urena proba gogorenen aurrean: atzo, familiaren pena handi honetan, («nahikoa da Jesussek nahi duena nahi izatea», TG 87); gaur, bera gauean sartzen delarik, «Argirik gabe eta Ilunez»; laster, azken hilagineko borrokan («Bai, ene Jainko, zeuk nahi duzun guttia», KH 30. IX). Horrenbestera inokoa da Maitasunaren indarra.

Horrelako inguruak olerkiño honi, bestalde ereduaren antzekoa izanik, benetakotasun eta tinkotasun zirraragarriak ematen dizkio. Baina Teresa bakarrik da gaura esanahia ezagutzeko, berak proba «isilik eta itzaropenez» eramaten baitu.

Olerki-hartzaileari bidali zionean, haren profesu egunean, ondokoa bakarrik azpimarratu zion: «hark gogokoen duen pentsamendua (...): Maitasunak denetik daki onura ateratzen: onetik eta gudan aurkitzen duen txarretik» (3. ahapaldia, 1-4; ik. TG 142 eta A Esk., 83a). Ziurtasun hau da «bidetxo»an barrena egiten duen lasterketaren motore indartsua. Oraindik ahula den karmeldar gazte baten hutsak, amaieraranzko bidean dabilen santa baten proba garbigarria, gutzia beregana eta gaindi daiteke «Maitasun kiskalgarri eta eraldagarrian» erabateko konfiantza izanik (TG 197, Joan Gurutzekoaren azken bertsoaren oihartzuna).

Gure Aita Joan Gurutzekoak egina

eta haren alabetarik txikienak bertsoetan jarria,

Ahizpa maite Maria Hirutasunaren eta Aurpegi Santuaren profesu-eguna ospatzeko.

⁴ Lisieuxko Karmel, Ama Maria Gonzagarenak bere prioretzako hogeita bi urteetan, 1874tik 1902ra, hamahiru «ostiaz» (profesiodunetz) aberastu duena.

Euskarririk gabe utsita,
argirik gabe eta ilunez
urtuz noa maitasunez...

- 1 Munduari (hau goi-bozkarioa)
betiko agurra esan diot nik!...
neure buruaren gain jaso,
ez dut Jainkoa beste euskarririk.
Eta orain aldarrikatzen dut nik:
haren ondoan nik estimatzen dudana
da neure arima, euskarririk ez duela,
utsita ikusi eta somatu izana!...
- 2 Argirik gabe banago ere neketan
egun bat baino ez den bizitza honetan,
lurrean badut nik behintzat
Maitasunezko zerutar bizitza...
Ibili beharra dudan bidetan
bada arrisku bat baino gehiago,
baina Maitasunagatik nahi dut bizi ondo
atzerriko ilunpetan.
- 3 Maitasunak, neuk neuretara dakit,
nigan aurkitzen duen on eta txarretik
onura ateratzen daki (a zer ahalmena!)
hark beragan aldatzen du nire arima.
Nire ariman garretan dagoen sua
betiko sartzen da nire bihotzean;
horrela, bere su xarmangarrian,
maitasunez urtuz-urtuz noa!...

1896ko apirilaren 30a. Teresa Jesus Haurrarena eta Aurpegi Santuarena
Karmeldar apala

TO 31

J.M.J.T.

Ahizpa Maria Hirutasunaren eta Aurpegi Santuaren Kanta

EGUNA: 1896ko maiatzaren 31. - OLERKI-HARTZAILEA: ahizpa Maria Hirutasunarena,
beraren jaja zela-eta. - ARGITALPENA: HA 98 (izenburua: *J'ai soif d'amour - Maitasun egarri
naiz*), sei bertso zuzenduta. - DOINUA: adierazi barik.

Taxu gogorreko olerki hau elkarrizketa mistiko baten modukoa da, Jesusen ahotsa eta Teresaren erantzuna argi eta garbi bereizten direlarik, eta inpresio lazgarria uzten duelarik, Arima baten Historia, «maitasun egarri naiz» izenburu berezi horrek ongi adierazten duenez.

Teresak badaki laster hilgo dena, eta gaua beraren arimaren gainera jausiko da. Baina Jesus «berarekin gelditzen da» bide ilunean zehar, Kalbarioko «mendi»ra igotzen. Emausko erromesei bezala, esaten dio: «Ez ote zen beharrezkoa Kristok sufritzea glorian sartzeko?». Eta haren «suzko hitzak argitzen du» Teresaren bihotza. Ez da beste biderik harentzat: maitasuna eta heriotza. Orduan, berak «sufrirentua» eskatu zuen: «gutxiespena» lehenengo, horretan «bidetxo»ak antzekotasuna ziurtatuko duelarik; Gurutzekoaren «egarria», «maitasun egarri» aseezina, hasperen antzera erregutzen duena, eta Teresarengan antzeko egarria esnarazten duena; «maitasuneko martiritza» da azken ahapaldiak etengabeki errepikatzen duena, Teresaren hilzoriaren aurreirudia bezain lazgarria. Hor irakur daiteke aldi berean maitasunik osoena eta bihotz-estura, etsipenetik hurbil dagoen itxaropen gartsua.

Adierazmolde gartsu eta lazgarriaz, ahapaldi grinatsu honek eta beraren atositzak Joan Gurutzekoaren Maitasun-gar bizia gogorarazten dute: «zentzu-leze sakon ilunak (edo itsu-ilun ziran Zentzu-hobiak)» (III. ahapaldiaren 3. bertsoaren azalpena).

Haren ahizpatxo Teresa Jesus Haurrarenak egina

1 Zeure maitasunez lurrean erbesteturik,
Jesus Jaingo, opari egiten zara nigatik!
Ene Maitea, har ezazu nire bizitza osorik;
nik sufritzea, hiltzea nahi dut zugatik...

Jn 15,13

1. Err. Jauna, zuk zeuk esan diguzu:
“ezin da egin ezer gehiago
maite direnengatik hiltzea baino”
Eta nire Maitasunik handiena
.....zu zara, Jesus!...

Lk 24,29

2 Berandu da, eguna badoa beheratzera;
zatoz, Jauna, bidean ni gidatzera.
Menditxora igotzen naiz zure gurutzarekin,
Erromes Zerutar hori, geldi zaitez nirekin...

Mt 27,32...

2. Err. Zure ahotsak nire ariman du oihartzuna,
nik zure antzeko izan nahi dut, Jauna,
sufrirentua eskatzen dut nik.
Zure suzko hitzak
erretzen dit bihotza!...

Lk 24,32

3 Zurea da beti-betiko garaipena,
hura kantatzean da aingeruen zoramena;

baina aintza gorenean sartzeko,
Jauna, zuk sufritzea izan da beharrezko!...

Lk 24,26

3. Err. Zenbat mesprezu ez ote dituzu hartu
nigatik atzerriko ibarrean?...
Nik nahi dut lurrian ezkutatu,
azkenengo izan denean
zugatik, Jesus!...

Lk 14,10

- 4 Zure irakatsiak deitzen dit, ene Maitea,
apaltzera neure burua, gutxiestera aintza.
zu liluratzeko nahi dut nik txiki irautea;
neureaz ahaztuz liluratuko dut zure bihotza.

4. Err. Bakardadean da nire bakea,
besterik ez dut eskatzen...
nire gogo bakarra zuri poz ematea,
eta nire zoriona,
Jesus, zeu zara!...

- 5 Zu Jainko Handia, Zeru osoak gurtzen duena,
preso gau ta egun, nigan zara bizi;
orduero eske eta eske dut zure ahots leuna,
esaten didazu: "egarri naiz, maitasun egarri!..."

Jn 19,28

5. Err. Neu ere banaiz zure preso,
eta nahi dizut nik ere errepika
zure eskari gozo eta jainkozkoa:
"Nire Maitea, nire neba,
maitasun egarri naiz!..."

- 6 Maitasun egarri naiz, ase nire itxaropena,
gehi ezazu nigan, Jauna, zure su Jainkozkoa;
maitasun egarri naiz, oso handia da nire pairamena.
Ah! nik zugana egin nahi nuke hegan, ene Jainkoa!...

6. Err. Zure maitasuna da nire martiritza bakarra,
zenbat eta gehiago somatu nigan haren garra
hainbat gehiago nire arimak irrikatzen zaitu...
Zugatik maitasunez, Jesus,
hil nadila egizu!!!...

TO 32

J.M.J.T.

Sakramentu Santuaren jaia. 1896.VI.7

Nire Zerua Niretzat

EGUNA: 1896ko ekainaren 7a. - OLERKI-HARTZAILEA: ahizpa San Bizente Paulekoa, berak eskatuta. - ARGITALPENA: HA 98, hiru bertso zuzenduta. - DOINUA: *Hymne à l'Eucharistie*.

Olerki hau tristura kutsukoa da, baina irribarre batez argiturik eta konfiantzaz beterik dago, olerki-hartzailearen «pentsamenduei» erantzutearren, ezbairik gabe. Jesusen «maitasunezko behakoa», Elizaren alde eskatzeko egiten den otoitzean Berarekin «bihotzez bihotz» egotea, Eukaristia antzaldatzailean egiten den «maitasunezko bat egitea», seme-«irudia», Aitaren Bihotzean «burua osorik uztea», bihotz maitatzailean «Hirutasun Santua» bizitzea ere txandaka-txandaka kantatzen dira, sarritan molde ederra izaten duten alexandrinoetan.

Nolanahi ere, Teresak hemen, ezkutuan (eta agerian) burutik burura, bere «fedearen proba» ekartzen du gogora (bere idazkietan egiten duen aipamen bakarra). Alderantziz eta guztiaren aurka, ezkututzen den Jainkoari «irribarre egitea» («xerak gehiago eta gehiago egitea», TO 45, 4; «era guztitako maite-erakutsiak» egitea, KH 6. VII. 3), horixe izango da haren erantzuna azken arratsera arte.

Sal 83,7

- 1 Negar-herri honetako erbestea jasateko
nire Jainko-Salbatzailearen behakoa dut beharrezko;
maitasunezko behako honek bere lilurak agertu dizkit,
hark zorion Zerutarra aurrez sentiarazi dit;
Jesusek, antziz noakionean, leunki egiten dit irria.
Orduan fedearen proba ez dut jadanik aintzat:
nire Jainkoaren begirada, haren irri liluragarria,
hona nire Zerua niretzat!...

Lk 12,49

- 2 Nire Zerua arimengana, nire ama den Elizarengana¹
eta nire ahizpa guztiengana Jesusen dohaiak
eta haren Jainkozko garrak erakarri ahal izatea da,
bihotzak kiskaltzen eta alaitzen dakitenak.
Nik guztia lor nezake misterioaren hondoan
neure Jainko-Erregerekin bihotzez bihotz hitz egitean
otoitz gozo hau Santutegiaren ondo-ondoan;
hona nire Zerua niretzat!...

- 3 Nire Zerua Jesus, nire senarra, maitasunez
ezkututzen den Ostia txikian da gorderik;

¹ Adierazpen hau lehenengo aldiz azaldu da; izan ere, bera B Esk.ko 3ⁱ eta 4ⁱ.ak ospetsu bihurtu zuten.

Jainko-Sutondo horretara noa bizia atera nahiez,
han nire Salbatzaile Eztiak gau ta egun entzuten dit.
"Oi! zer zorioneko unea, zu zeure samurtasunean,
ene Maitea, zeure izaerara ni aldatzera zatozenean!
Maitasunezko bat egite hau, zoramen esaezin hau,
hona nire Zerua niretzat!...

4 Nire Zerua Jainkoaren irudia neugan somatzea da,
bere arnasa indartsuz² sortu ninduenarena;
nire Zerua beti haren begiradapean irautea da,
hari Aita deitzea eta ni alaba izatea harena.
Haren Jainko-besoetan ez dut ekaitzaren beldurrik;
neure burua osorik uztea³, hona lege bakarra niretzat.
Haren bihotzean lokuluskan, hur-hur haren aurpegitik,
hona nire Zerua niretzat!...

Has 2,7

5 Nire Zerua, nire bihotzean maitasunez preso
dagoen, Hirutasun Santuan aurkitu dut nik;
hor, esaten diot beldur gabe, nire Jainkoari so,
bera zerbitzea eta maitatzea nahi dudala ordain barik.
Nire Zerua, irribarre egitea da txit maite dudan
Jainko honi, nire fedea aztertzeke ezkuta dadinean,
sufritzea, oraindik hark begiratuko nauen ustetan;
hona nire Zerua niretzat!...

(Ahizpa San Bizente Paulekoarenaren pentsamentuak,
beronen ahizpa txiki Teresa Jesus Haurrarenak bertsoan
jarriak.)

TO 33

J.M.J.T.

Jesusen Bihotz Sakratuaren jai.
1896ko ekainaren 12a

Nik laster lehenengo aldiz ikusiko dudana!...

EGUNA: 1896ko ekainaren 12a. - OLERKI-HARTZAILEA: ahizpa Maria Bihotz Sakratuare-
na, berak eskatuta, beraren jai zela-eta. - ARGITALPENA: HA 98 (izenburua: *Mon espérance*),
sei bertso zuzenduta. - DOINUA: adierazi barik.

² Adierazpen eder hau hemen baino ez da azaltzen, *arnasa*, Teresarentzat, beti udaberriko arintasun
eta hezetasunaren sinonimoa da..

³ Hitz hori ez zen azaltzen olerkietan TO 3ren ondoren (1894ko apirilekoa); gero berriro azalduko
da zazpi aldiz segidan (TO 38; 42; 44; 52).

«Laster, hegan egin, ikusi, maitatu»: horixe da Teresak 1896ko ekainean egin zuen boto gartsua, horixe da haren maitasunak eskatzen duena, horixe «nahi du» berak. Hilabete aurretik, Jesusen Ana ama gurgarriak, ametsetan ikustaldia eginik, honela esan zion: «Bai, laster, laster, nik hitz ematen dizut».

«Graziatzko izpia ekaitzik zakarrenaren erdian». Amets honek oihartzuna aurkitzen du olerki honetan; garrez betea, bizia, gorantz zuzendua den eta bihotz-estura eta malenkonia antzekoa azpian duen olerki honetan.

Teresak pozik errepikatzen duen «laster, laster» horrek belak urratu nahia biziartzten du. «Laster», ez ditu usoaren hegoak eskatuko, salmogileak bezala, «hegan egin eta atsedena hartu», «Jainko-Arranoaren hego berberak» baizik (B esk., 5ⁱ). «Laster», berak ikusi egingo du.

Maitearen «irria», «Bihotza», «Aurpegia» (3. ahapaldia) aldi berean giza maitasuna eta naturaz gaindikoa da hemen adierazten dena. «Martiritza»ren iturburu den maitasuna, eta ezbairik gabe, berez sorturiko hitz honi bere indar osoa eman behar zaio (4. ahapaldia). Emaztegai egonezinenaren antzera, Teresak martiritza jasaten du haren presentzian oraindik zabaldu ezin den Jesusen maitasun honengatik. Hark ez du ezer gartsukiago irrikatzen zeru hau baino, hor «neurri eta lege gabe maitatu» ahal izango baitu: (azpimarratu adierazpenaren indarra).

Sal 136,4

- 1 Ni atzerriko erriberan nago oraindik,
baina betiko zoriona barrundatzen dudala;
Oi! utzi egin nahi nuke lurra jadanik
eta Zeruko miragarriak ikusi berehala...
Beste bizitzako atseginetan amets egitean,
ez dut somatzen erbeste honen pisurik
neure Aberri bakarrerantz laster batean
lehenengo aldiz hegan egingo baitut nik!...

Sal 54,7

- 2 Ah! emazkidazu hegal zuriak, Jesus,
neure hegakada zukanantz har dezadan;
Betiko erriberara egin nahi dut hegan,
oi Jainko-Altxor, nik ikusi nahi zaitut!
Mariaren besoetan hegan egin nahi dut nik,
aulki hautatu honetan hartu atsedena,
eta neure Ama maitearengandik
lehenengo aldiz hartu musu leuna!...

- 3 Ene Maitea, egin iezadazu berehalakoan
zure lehen irriaren gozoa ikus dezadala
eta utz nazazu neure zorabio jainkozkoan¹;
ah! idazu zure Bihotzean ezkuta nadila!...
Oi! hura unea! hura esanezineko zoriona
zure ahots-soinu gozoa entzun dezadanean,

¹ Berba hau bakan-bakana da Teresarengan, eta ahapaldiaren ahaire sutsua baieztatzen du.

zure Aurpegi Gurgarriaren jainko-argitasuna
nik lehenengo aldiz ikus dezadanean!...

- 4 Zuk ongi dakizu², nire martiritza bakarra,
Jesusen Bihotz Sakratu, zure maitasuna da.
Nire arimak biziki nahi du zure Zeru ederra,
zu maitatzeko, zu gero eta gehiago maitatzeko da!...
Zeruan, beti-beti samurtasunez orditurik,
neurri eta lege gabe maitatuko zaitut nik
eta lehenengo aldian bezain berri
egingo zait nire zorientasuna beti!!!...

Jesus Haurraren arrebatxoa

TO 34

Loreak bota

EGUNA: 1896ko ekainaren 28a. - OLERKI-HARTZAILEA: Ama Aines Jesusena, beraren jaia zela-eta (Paulina). - ARGITALPENA: HA 98, hiru bertso zuzenduta. - DOINUA: *Oui, je le crois, elle est immaculée.*

1896ko ekaineko arratsalde guztietan, Teresa eta nobiziatuko bost ahizpa gazteak, arratseko otoitz ostean, patioko haizbikorrezko gurutzearen ingurura biltzen ziren. Haiiek lore-hostoak biltzen zituzten hogei bat arrosa-landareren azpian, eta Gurutzerantz jaurtitzen zituzten. Errito sinboliko horren xedea Ama Aines Jesuse-nari poz ematea zen.

Gauza baliagarri batzuk baditu ere, testuak ez du olerki-uzi handirik. Haren dohain virgiliarrak, adierazmoldearen samurtasunak, irudien xarmak kasu honetan hain aberatsa den sinboloaren benetako indarra pixka bat mozarrotu egiten dute. Baliteke, bestalde, irakurlearen sentiberatasuna asaldatzea Teresaren irudiekin loturiko estereotipoek («loreak bota», «arrosa hostokatua», ezinbestean San Sulpizioaren estatua iradokitzen duena, «aingerutxoek»), Teresaren irudiak olerki honetan leku behinenetarikoa baitu. Penagarria litzateke horrek sorta Teresiarraren funtsezko olerkia ahaztaraztea, batez ere, sinboloak bere sustraiak Teresaren haurtzaroan izanik (A Esk., 17^a).

Haren maitasun biziaren azken garaia Arrosa hostokatuan (TO 51) kantatuko da. Hark hil eta gero bete beharko zuen zereginaren irudizko iragarpenak, «arrosazko euria»k (KH 9. VI. 3) agertzen du —hobeki esanik, ez luke ezkutatu behar— Teresaren nahi bakarra, hala zeruan, nola lurrian: Jesus maitatzea eta hura maitaraztea.

² Jesusi agertutako kexa samurra, hain luzaro «atzerriko erriberan» utzi duelako; horixe da haren martiritza bakarra, horren ondoan hemen beheko nahigabeak Teresarentzat ez direlako ezer: hau zeruan irrika biziz askatua izateko gogoia besterik ez da.

- 1 Jesus, nire Maitasun bakar, zure Kalbario ondoan
zein gogoko dudan arratsero zuri loreak botatzea!...
Udaberriko arrosa¹ zuretzat hostokatzerakoan,
nahi nuke nik zure malkoak txukatzea²...
1. Err. Loreak botatzea, zuri hasikin antzera,
intziri leunenak, samin handienak eskaintzea da.
Nire samin eta pozak, nire sakrifizio xumeak,
hona nire loreak!³...
- 2 Jauna, nire arima zoraturik da zu ederretsita⁴,
neure lurrin eta loreak eman nahi dizkizut ugari
haize leunaren hegoetan zugatik egotzita
bihotzak jartzea nahi nuke gori-gori!...
2. Err. Loreak botatzea, hona hemen nire arma,
pekatariaik salbatzeko nahi dudanean borroka egin⁵;
neurea da garaipena... beti ohi zaitut desarma
neure loreekin!!!...
- 3 Lore-hostoek, zure Aurpegia igurtziz leunki,
esaten dizue behin eta betiko zeurea dela nire bihotza;
ulertzen duzu nire arrosa hostokatuaren hitza
eta irribarre dagiozu nire maitasunari.
3. Err. Loreak botatzea, zure gorespen-errepikaz,
hona negar-herrian nik dudan atsegin bakarra;
laster joango naiz ni Zerura aingerutxoekaz
loreak botatzera!...

Sal 83,7

¹ Teresak 3-4. lerroak aipatzen ditu KH 14. IX. 1ean. «Udaberriko arrosa», hortaz, bera da hil baino hamabost egun lehenago.

² Teresaren antzina-antzinako nahia (ik. TG 74, 95, 115, 134), eta keinu hori Beronikaren honekin lotzen da (ik. TG 98).

³ Ik. B Esk., 4^a eta KH 6. VIII. 8.

⁴ Sal 44,12ak alderatziz agertzen duen Racineren bertso ederra.

⁵ «Borroka egin» Olerkiak eta Deboziozko solas antzerkiak idazlanetan, 1897ko martxora arte agertu zen hamaika aldietatik aurrerengoa; ik. *Poésies*, II, 260. or. Haiek apostolu-ikuspegia izaten dute ia beti. Gerra-histegi hau *Apaltasuna garaile* (DSA 7), egun batzuk lehenago antzeztu zen pieza oso militantearen oihartzun moteldua da (1896/6/21ean).

TO 35

1896ko uztailaren 16a

Garaipenen Andre Mariari¹, Birjinen, Apostoluen eta Martirien Erreginari

EGUNA: 1896ko uztailaren 16a. - OLERKI-HARTZAILEAK: Teresa bera eta Aita Roulland.
- ARGITALPENA: HA 98, hamazortzi bertso zuzenduta. - DOINUA: adierazi barik.

Olerkiaren, prosa errimatuaren aurretik, pasarte honek Teresaren bokazioaren alderdi garrantzitsua erakusten du. Abuztuaren 2an Txinarako ontziratu zen Aita Roullandekin duen anaitasunak honen misio-garrari indartsu eragiten dio, eta aldi baterako ase zituen bere apostolutzako nahi handiak. Bera «apostolu» izango da eta —«hau itxaropena!»— «martiri» ahalordez; hobeto, berarengan geroago eta ageriago azaltzen den «santuen elkartasun» horren bidez.

Horrek guztiak oliao jartzen du suaren gainean. Laster baten, nahi horiek «benetako martiritza»ren zio izango dira (B Esk., 3^a). Segidan irakurri behar dira olerki hau eta 1896ko irailaren 8ko gutun gorria (B Esk.), maitasunezko sute honen bilakaera neurtzeko. Ez da nahikoa Teresarentzat «misiolari baten ekintzekin» bat egitea. «Unibertsoa baino handiagoak diren nahiak» betetzeko, beharrezkoa da «santu guztien ekintza guztiez» jabetzea, «denbora eta toki guztiak hartzea». Irteera bakarra dago: «Maitasun izatea... Elizaren Bihotzean», harik eta erabateko erreoparia egin arte.

«Erraldoi baten ibilbidea» egin zuen benetan 1896ko udako hiru hilabeteotan.

- 1 Nire itxaropena asetzen duzuna,
 Ama! entzun ezazu maitasunezko
 eta eskerroneko kanta leuna
 zure alabaren bihotzetik datorrena...
- 2 Misiolari baten ekintzekin²
 behin betiko nauzu lotu
 otoitz, sufrimentu
 eta maitasun-lokarriekin.
- 3 Lurra zeharkatzea dagokio hari,
 Jesusen izena iragartzea.
 Bertute xumeak praktikatzea
 ezkutuan eta misterioan niri.

¹ Teresak grazia handiak jaso ditu, berak Parisko santutegian bisitatu zuen Garaipenen Andre Mariagandik (ik. A Esk., 29^a; 56^a; ik. baita TG 244 eta KH 7. VIII. 3 ere); orduko misiolari-familia handiek haren babespean jartzen zuten euren apostolutzat. Aita Roulland-ek bere lehenengo mezetariko bat Garaipenen Andre Mariaren elizan eman zuen. Bere kongregazioak (Parisko Atzerriko Misiokoak) honako izenekin deitzen zion: «Birjinen Erregina, Apostoluen Erregina, Martirien Erregina», eta izen hau hartu du hemen Teresak ostera ere.

² Ik. C Esk., 32^a, 33^a; TG 189, 193 etab.

Lk 12,49

- 4 Nik sufrimentua eskatzen dut,
Gurutzea maite eta nahi dut...
Arima bat salbatzen laguntzearen truke
mila aldiz hiltzea nahi nuke!³...
- 5 Ah! arimen Konkistatzaileagatik
Karmelon opari izan nahi dut nik,
eta haren bidez zabaldu suak,
Jesusek Zerutik ekarritakoak.
- 6 Haren bidez, hau misterio harrigarria!
Ekialdeko Su-Tchuen ingururaino
neure Ama samurraren izen garbia
dut maitarazi ahal izango.
- 7 Neure bakardade sakonean naizeino,
Maria... bihotzak nahi ditut neureganatu.
Zure Apostoluaren bidez, munduaren azkeneraino
bekatariak nahi ditut onbideratu.
- 8 Haren bidez, bataioko ur santuak
egun bateko haur txiki-txikia
tenplu bihurtuko du, Jainko berak
bere maitasunean bizi nahi duen tokia.
- 9 Nik bete nahi dut aingeru txikiez⁴
distirazko eta betiko egoitza...
umetxoen taldeek, haren bidez,
hegan egingo dute Zerurantz!...
- 10 Nire arimak irrikatzen duen palma-abarra
haren bidez ahal izango dut jaso
oi hau itxaropena! Ama Laztana,
ni Martiri baten arreba naiz izango⁵!!!
.....
- 11 Bizitza honetako erbeste ondoren
gudu aintzatsuaren ilunabarrian,
geure apostolu-jardueraren
fruituez gozatuko gara Aberrian.

³ Avilako Teresaren pentsamendua, *Onbidea*, I. kapitulua; ik. TG 198.

⁴ Bataiatu barik hiltzen diren umeen zoriak gazte-gaztetandik kezkatzen izan du; ik. DE, 445. or. «*Eman bataioa haurtxoei*», horixe da hil ondoko asmoetariko bat; ik. KH 13. VII. 17; MAE 13. 7. 1; TO 44. 10.

⁵ Lerro honetako idazkera etzan eta lodituak, harridura puntuek eta etadura puntuen lerroak Teresaren gogo beroa adierazten dute ikuspegi horretatik.

- 12 Garaipenaren ohorea Hari,
Dohatsuen gudu-taldearen begietan;
haren Aintzaren islada⁶ niri...
beti-betiko Zeruetan!...

Misiolari baten arreatxoa

TO 36

Jesus Bakarrik

EGUNA: 1896ko abuztuaren 15a. - OLERKI-HARTZAILEA: ahizpa Maria Eukaristiarena, berak eskatuta, Karmelera sartu zen egunaren lehenengo urteurreneko jaia zela-eta. - ARGITALPENA: HA 98, bi bertso zuzenduta. - DOINUA: *Près d'un berceau*.

Teresa besteen lekuan jartzen nabarmentzen da, haien zer guztiak erabat adierazirik. Jesus bakarrik honetan, erraza da, zalantzarik gabe, 1896ko udako Jesusen zale porrokatua ezagutzea; baina hor Maria Eukaristiarenaren biografia izpirituala ere irakur liteke.

Garai honetan, tinkotasun izpiritual handiko asteak bizi ditu Teresak. 1897an bezain iluna izango ez bada ere, bere "gauak" inoiz baino suhartasun handiagoz jaurtitzen du Jesusenganantz. Abuztuaren 6an, Aurpegi Santuari eskaintzen dio bere burua (beste nobizia birekin batera), maitasunez beteriko otoitzaldi baten (Otoi. 12). Txinara joan berri den Aita Roullanden borroka-lagun izanik, Teresak Isaiasengan berraurkitzen ditu, harmoniko berriztatuekin, haurtzaro izpiritualaren testu ederrak (ik. TG 196). Berak "haurtxo baten antzera maitatzeko" geroago eta gogo biziagoa du. Baita berak bokazio bakun eta bakarrera biltzen dituen beste nahi bizi eta agerikoak ere (ik. B Esk.).

Olerkia giza maitasunaren hizkeran mintzo da, Kantarik Ederrenaren antzera. Alderantzeta bat dela bide, Teresak isilekoa gordetzen duelarik, azken ahapaldiak, hasierakoaz konparaturik, jarrera erabat desberdina erakusten du. Hasieran, sorkariak proposatu du bere maitasuna galdera erretorikoa eginez: «Nork dezake?», «Zein bihotzek nahiko du?». Hark orain berea baino oraindik samurragoa den Bihotz bat aurkitu du: txiro bihurtzen den maitasuna, erreguka dena, bere sorkariaren intziri eta malkoak «arren eskatzen» dituen. Ezin dio horrelako maitasunari eutsi, berarengan «guztia uzten du».

«Jesus bakarrik» hori da Teresak Maria Eukaristiarenaren bihotz-zabaltasunari proposaturiko egitekoa; eta hori bere lehengusinarentzako lehen kantuko "atsedena" (TO 21) eta profesako kantuko "borroka" gogorraren artean (TO 48) erdibidean dago. «Haurtxo gerrari» antitesia grafia etzanaz azpimarraturik dago;

⁶ Batak bestearen grazia ispliatzen duen «Santuen Elkartasuna»ren irudia, ik. dagoeneko TG 182 eta 185, eta laster B Esk., 2^a eta 4^a. Ideia hori behin eta berriz hartzen du gaixotegian: KH 13. VII. 12; 15. VII. 5 etab.

izan ere, idazkera hori Teresak hitz garrantzitsuentzat uzten du. B Esk.ko 2ⁱ.ko eta TG 194ko hiztegia da hau.

- 1 Nire bihotz sutsuak etengabe ematea nahi du,
bere samurtasuna probatu beharra du;
Ah! nork uler dezake nire maitasuna?
Zein bihotzek nahiko dit eman ordaina?...
Baina ordain hau alferrik eskatzen dut nik,
nire arima, Jesus, zeuk bete zenezake bakarrik.
Ezerk ez nau hemen behean liluratu ahal izanen,
benetako zoriona ez da aurkitzen hemen...

Nire bake bakarra, nire zoriontasuna,
nire Maitasun bakarra zeu zara, Jauna!...

Jn 1,1

- 2 Zu, amen bihotza sortzen jakin zenuena,
zuga aurkitzen dut nik Aitarik samurrena!
Nire Maitasun bakarra, Jesus, Betiko Hitza,
niretzat amarena baino gehiago da zure bihotza;
uneoro jarraitzen didazu eta zaintzen nauzu,
nik deitzean, ah! ez zara inoiz luzatzen zu
eta agian badirudi ere ezkututzen zarela,
zeu zara zu aurkitzen laguntzera datorrena.
- 3 Zurekin bakarrik nago, Jesus, bat eginda
zure besoetan gordetzera noa arin-aringa;
nik maitatu nahi zaitut haurtxo baten antzera,
borroka egin, gerrari ausart baten antzera.
Samurtasunez beteriko haurtxo baten eduz,
nahi zaitut, Jauna, gainezkatu ereguz
eta neure apostolutzaren sail bakoitzean
borrokara jotzen dut gerrari baten antzean!...
- 4 Errugabetasuna zaintzen eta ematen duen zure bihotzak
ezin zezakeen alferrik galdu nire esperantzak!
Zuga oinarritzen da, Jauna, nire ustea,
erbestearen ondoren Zerura joango naiz zu ikustera...
Nire bihotzean ekaitza zakartzerakoan,
zugana, Jesus, jasotzen dut nik burua,
zure begirada errukizkoan
irakurtzen dut nik: "Alaba, zuretzat egin dut Zerua".
- 5 Nik ongi dakit, nire intziri eta malkoak
zure aurrean dira xarmaz bete-beterikoak.
Serafinek Zeruan osotzen dute zure gorrea

eta zu nire maitasun-eskale zara, ordea!...
 Zuk, Jesus, nire bihotza nahi, eta nik ematen dizut,
 neure gogo guztiak nik zugan uzten ditut;
 eta, ene Senar, ene Errege, maite ditudanak nik
 ez ditut maitatu nahi zugatik izan ezik.

TO 37

J.M.J.T.

1896ko abuztuaren 21a

[Jaietako sorta...]

EGUNA: 1896ko abuztuaren 21a. - OLERKI-HARTZAILEAK: La Néele jaun-andreak, Joanaren jaia zela-eta; TO 37, senar-ernazteak; TO 38, Joana; TO 39, Frantzisko La Néele doktorea, berak eskatuta. - ARGITALPENA: *Poésies*, 1979. - DOINUA: -ez da doinuari buruzko aipamenik ageri-.

Teresari eskaria egin zitzaion, Joana La Néeleren jaia zela-eta olerkiak egin zitzaion: kumplimendu maltzurra (TO 37), konfiantzazko eskaria, haren lehengusinarrentzat kontsolagarria [TO 38], haurrik ezagatik hainbeste sofritzen baitzuen (TG 131, 150, 152, 178, 255 etab.); horrez gainera, akrostiko ongi josia Frantziskorentzat [TO 39], «Doktore jakintsua», mediku kristau, zaldun-izaera duena, eta «Elizaren defendatzailea» denarentzat.

- 1 Jaietako sorta triste bat dira
 laukotxo ezerez hauek...
 Baina ai! nire buru barnean
 alexandrotarrak gelditu dira!...
- 2 Beharrezko zen, gogora datorkit:
 “*Alexandrotarrak Frantziskorentzat.*”
 Isilik egon beharko dut nik
 aurrean izanik agindu hain zehatzak.
- 3 Baina Joanaren eta Doktore jakintsuaren
 bihozberatasuna ongi ezaguturik,
 nire Ahizpa Maitagarria omentzearren,
 alexandrotarrik gabe aurrera egin dut nik.

(Teresa Jesus Haurarena)

TO 38

J.M.J.T.

1896ko abuztuaren 21a.

Jesusen isil-mezua Teresari

- 1 Entzun ezazu nire otoitza, Jesus,
nire gogo gartsua adi ezazu.
lurrera erbestetu ezazu aingeru bat,
Joanari eman iezaiozu haur txiki bat!...
- 2 Luzatu eta luzatu egiten da
Zeruko erbestetu txikiaren etorrera...
baina zuk ulertarazten didazu, Jauna,
zeure misteriozko isiltasuna.
- 3 Bai, zeure isiltasunez hala diostazu niri:
“zure intziriak Zeruraino datoz,
kontra egin behar diot nik neure buruari
zure gurariak ez betetzeko.
- 4 Ez da ohizko aingeruetarikoa
zure ahizpari eman nahi diodana;
haren arima eta bihotza horregatik
misterioan formatzea nahi dut nik.
- 5 Arima hau nik neuk edertzen dut,
neuk opari egiten diot neure altxorretik;
baina ordain antzera... nik eskatzen dut!
eskaintza oso-osoa, Joanagandik...
- 6 Halako samurtasun eztsutsuz
prestatzen dut neure eskuz;
nire Elizari eman behar baitio berak
Pontifize bat, Santu handi bat!”

TO 39

J.M.J.T.

Doktore Santu eta Ospetsua

Frantziskok goiburu hau hartu du beretzat:
 ezerez gizonarentzat, dena nire Jainkoarentzat.
 horregatik, Elizaren alde egiteko
 ez ote du suzko bihotz bat?...
 zientzia makurraren aurka egiteko
 aitorten ozena egin du hark:
 haren aintza Mariaren aintza da!...

Doktore serafikoaren alaba:
 Teresa Santua
 96ko abuztuaren 21a

TO 40

Karmelgo elizainak

GARAIA: 1896ko azaroaren hasiera. - OLERKI-HARTZAILEAK: ahizpa Maria Filomena Jesusena, eta beste elizainak hark eskatuta.-ARGITARAPENA: HA 98 (*Cantique pour les Sacristines du Carmel et pour les Sœurs chargées de l'office des Pains d'autel*), bost bertso zuzenduta. - DOINUA: adierazi barik.

Atseginez oroitaraziko genuke hemen Jakoben eskaileraren antzeko zerbait, zeru eta lurraren arteko truke misterioitsu horretarako; mandatari nekagaitzak dira serorak zeru eta lurraren artean, samurtasunez beteriko ahapaldi bitan adierazten denez.

«Sutondoko emakumea»ren samurtasun zuhurra, eta horrela esatera ausartuz gero: «erregina baino zoriontsuagoa» den emaztea (3. ahapaldia), haren bihotza bere Senarrari so dagoelarik, bere eskuek harentzat arduraz lan egiten dutelarik. Karmeldarrak ere horrelako samurtasun zuhurra du, apostolutzari loturik, berari dagokion lekuan, ezkutuko laguntzaile legez alegia. Edozelan ere, laguntzaile hori berak laguntzen duenaren antzeko bihurtuko da.

Tankera horretakoa da erabat olerkiaren lehenengo hartzailea, ahizpa Maria Filomena; izan ere, berak nobiziatuko antzinako lagunari eskatu dio koplak batzuk idatz diezaizkion, ondoren bakarka kantatzeko.

Tonu guztiz apalean, bigarren zatiak (7-10. ahapaldiak) erantzuna eman dio B Eskuizkribuaren ustezko erronkari: Teresak hor, beste irrika bizi batzuen artean, apaiz izateko gogoak aldarrikatu zuen, ezinezkoa izango zena zertzeladengatik. Hemen kantatuko du «Apaizaren eginkizun goren-gorenean» atzerapenik gabe esku hartzeko bere modu zehatza. Eukaristiaren bidez Jesusengan «aldatuta» dagoelarik, Harengan «trukatua» izanik, apaizaren definizioa emateko esan ohi dugun moduan, ez ote da bera «beste Kristo bat» bihurtuko? Eta berak erakutsiko du zein den berak Misioari, Penitentziari, Eukaristiari hartu dien zatia.

Beraz, ez du gutxiagotasun-konplexurik gizakumeen, apaizen aurrean. Ez du bestelako usterik: Teresarentzat, Jesus bera da gizakumeen eta emakumeen laguntzarekin aritzen dena.

Oso irudi ederra olerki barrukoi honi amaiera emateko: «kopoia» zeruko izari mugaezinetaraino hedatuko da; ez dira zeruko «biztanleak» bakarrik hautatuak (TO 24, 16), baina haiekin «bete-bete» dago. Ez da «leku hutsik» (TG 135). Helburu hori duelarik, Teresa «etengabe borroka egite»ra doa (TO 45, 6). Zeruan bertan ere ez da aisedenik, harik eta «hautatuen kopurua osatua» (izan arte) (ik. KH 17. VII).

- 1 Lurrean gure eginkizun gozoa
munduari Zerua ematen dion opariko
ogia eta ardoa
prestatzea da aldarerako.
- 2 Zerua, oi misteriorik handiena!
ogi xume baten azpian ezkututzen da,
Zerua Jesus berbera baita,
goizero gugana etortzen dena.
- 3 Lurrean ez dago erreginarik
gu baino zorionsuago denik.
Otoitz bat da gure eginkizuna,
geure Senarrakin biltzen gaituna.
- 4 Mundu honetako ohorerik handienak
ezin konpara daitezke
Jesusek dastarazten digun bake
zerutar eta sakon-sakonaz.
- 5 Guk halako inbidia santua diogu
geure eskuz eginiko lanari,
Jainko-Bildotsa gordetzen duen
ostia txiki eta zuriari.
- 6 Baina haren maitasunak gaitu hautatu;
hura da gure Senar, gure Adiskide.
Jesusek bere izatera aldatu
nahi dituen ostiak gara gu ere.
- 7 Apaizaren eginkizun goren-gorena!
hemen behean gurea izatera zatoz zu,
Jainkozko Maisuak baigaitu aldatu;
hura da gure pausuak zuzentzen dituen.
- 8 Guk apostoluei lagundu behar diegu
geure otoitz eta maitasuna dela bide;

haien borrokatokiak geureak ditugu,
egunero borrokatzen dugu haien alde.

- 9 Sagrarioko Jainko gordeak,
gure bihotzetan ere gordetzen denak,
gure esanera, hau gauza miragarria!
barkamena ematen die bekatariel!
- 10 Gure zoriona eta gure ohorea
da Jesusegatik lan egitea.
Haren Zeru ederra, hona kopoia,
bai nahi dugula hautatuz bete-bete egitea!...

Is 45,15

TO 41

J.M.J.T.

Nola nahi dudan nik maitatu

GARAIA: 1896aren amaiera. - OLERKI-HARTZAILEA: ahizpa San Joan Gurutzekoarena, berak eskatuta. - ARGITALPENA: HA 98 (izenburua: *Encore un chant d'amour*), hamalau bertso zuzenduta. - DOINUA: Herkulanoren *sinesten dut*, «*Je crois au Dieu*».

Olerki honek barne-jariozko aberastasunetik bat-batean irtena dirudi, ahizpa nahiko isil batentzat, «emazte leiala» den batentzat (3, 7); eta emazte hori oso zurruna da zalantzarik gabe, baina Teresari gogoz eskatu dio aholkua. Teresak bere atzetik erakarriko du hitz hain teresiar hauekin: alaitu, poza eman, liluratu, gozaraztu; 2. ahapaldia, berriz, sute gartsu eta barea da; 3. ahapaldia, heriotzaren nahiak eta hurbiltasunak, eta benetan «Salbatzaile» den Senarrak bizitua da, amaiera miragarri honetan: «Zatoz, guztia dago barkatuta», eta hori Jesusen bihotzean izango den betiereko atsedenen aurrerakina dugu: «asko maite izan nauzulako».

(Ahizpa San Joan Gurutzekoarenari)

- 1 Jainko-Jesus, nire otoitza entzun ezazu:
neure maitasunaz zu alaitzea nahi dut,
zuri solik poz ematea nahi dut, ongi dakizu zuk;
nire gogorik gartsuena adi ezazu.
Erbeste triste honetako nekeak onartzen ditut
zu liluratzeko eta gozarazteko zure bihotz-barnea,
baina nire egintza guztiak maitasunera itzuli zuk,
oi nire Senar, nire Salbatzaile maite-maitea.
- 2 Zure maitasuna da, Jesus, nik eskatzen dudana,
zure maitasuna da ni eraldatu behar nauena
nire bihotzean zure su erregarria ezar ezazu

eta bedeinkatu eta maitatu ahal izango zaitut;
 Bai, zeruan bezala ahal izango zaitut maitatu
 eta zeruan egiten den bezala bedeinkatu;
 Jesus Betiko Hitza, nik maitatuko zaitut beraz
 zuk ni maite nauzun maitasun berberaz.

Jn 1,1

- 3 Nire bizitzaren azkenean, Jainko Salbatzaile,
 bila etor zakizkit, inongo atzerapenik gabe;
 ah! erakutsiezadazu zure azkengabeko samurtasuna
 eta zure jainkozko begiradaren gozotasuna.
 Maiteki, oi! zure ahotsak dei diezadala
 esanez: Zatoz, guztia dago barkatuta,
 har ezazu atsedean, nire emazte leiala,
 zatoz nire bihotzera, asko maite izan nauzu ta.

Lk 7,47

TO 42

[Zuk badakizu nire izena...]

GARAIA: 1896ko abendua. - OLERKI-HARTZAILEA: ahizpa Maria San Josearena, berak eskatuta. - ARGITALPENA: HA 98 (izenburua: *A l'Enfant Jésus*), hiru bertso zuzenduta. - DOI-NUA: *Où vas-tu quand tout est noir?*

Berriro ere inork agindutako olerkia da, eta Teresa «haurra» eta «ekaitza»ren artean kulunkatzen da, Jesus Haurrak ekaitza baretzen diharduela... Ekaitza den bitartean lo dagoen haurra (edo batez ere lo ez dagoena) da haurtzaroaren arketi-poetarikoa. Jesusek berak lo egin nahi du geroago txalupan egingo duen legez... Jolas sotila.

Liluramendu samur hau hartzailearen neurri-neurrikoa da; umore zakarra du lagun honek, baina Teresak hura baretzeari ekiten dio. Zakarra eta era berean samurra denez gero, bi haur-hitzez askozaz hobeki baketzen dute arrazonamendu batek baino. Itsaso zakarra itsaso bare bihur dezakete honelako koplek... «emeki» kulunkatuz, haren baitan jartzen den Haurraren «burutxo oraila», hari beragan buru-uztera eragiteko.

- 1 Zuk badakizu nire izena, umea,
 eta deika dut zure begirada gozoa,
 berak esaten dit: buru-uzte xumea;
 neuk gidatu nahi dut zure untzitxo.
- 2 Zure haur-eskutxoarekin
 oi hau harrigarri!
 zure haur-ahostxoarekin
 bare-bare dituzu ezarri
 orroka zen uhin eta haizea!...

Mk 4,39

- 3 Ekaitza orroka den bitartean
atseden hartu nahi baduzu,
zeure buru oraila nire bihotzean
ezartzea aintzat har ezazu...
- 4 Zure irria bai liluragarri
lotan zaudenean!...
Nire kantarik gozoenaz beti
nahi zaitut kulunkatu emeki
Haur eder hori!

TO 43

Jesus Hauraren Txoritegia

GARAIA: 1896ko Gabonak. - OLERKI-HARTZAILEA: Gabon gauean komunitatearentzat egindako bat-bateko konposizioa. - ARGITALPENA: HA 98, lau bertso zuzenduta. - DOINUA: *Au Rossignol*.

Irudi eder honek ematen die gainaldea «Txorien Gabon»ei, eta pixka bat luze ehuntzen du txoritegiaren eta Karmelen arteko parekatzea. Baina jai handi hori berrizteko, zilegi dira gehiegizko zer batzuk... Txori bakoitzak hemen bere tonueran abesten du: usoa, hegatzabala, txepetxa, txonta. Ebanjelioko txoriaren antzera, «ez baitu ereiten, ez eta uztak biltzen ere», karmeldarrak Jesusen «eskutik guztia» jasotzen du; hortik haren poztasuna eta haren buru-uztea, eta «beharrezko den gauza bakarrari, maitatzeari» emanda bizitzea. Azkenean, «txori denak» askaturik elkarrekin jasotzen dute «hegazkada zerurantz», eta han jarraitzen dute euren laudorio-kantuan.

Hamar urte geroago txori aldra batek alaituko du Teresaren «ganbara zahar-txo» hori (A Esk., 42ⁱ); Karmelen, txoriek badiraute haren ametsetan bizi izaten (A Esk., 79^a); 1896ko udan zehar, B esk.arekin, txoriaren balio sinboloak izari berria hartuko du, batasun biziaren ikur izatera etorriz, eta era berean «hegan egitea haien ahalmen txikia ez bada ere», hegan egitea adina kantu denez gero txoriaren zera, ekaitzaren bihotzean ere, gorputz eta arimaren frogetan, Teresak ez dio kantatzeari utziko (10. ahapaldia; ik. TO 52, 15; eta B Esk., 5ⁱ).

- 1 Lurreko erbestetuentzat
txoriak sortu zituen Jainko Onak;
txioka aritzen dira otoitzetan
haran eta mendi-maldetan.
- 2 Ume alai eta kaskarinak,
hautaturik gogokoena,
sartzen dituzte kaoletan
hesi txit urreztuak dituztenetan.

- 3 Gure nebatxo, oi Jesus!
gugatik utzi duzu Zeru ederra;
baina Karmel da, Jainko-Haurra,
zure txoritegia, zuk ongi dakizu.
- 4 Gure kaiola ez dago urrezturik,
hala ere guk maite dugu benetan;
baso eta lautada urdinetik
gehiago ez dugu egingo hegan.
- 5 Mundu honetako basotxoek, Jesus,
ez dute gu asebetetzeko ahalmenik
bakardade sakonean guk
zuretzat nahi dugu kantatu bakarrik.
- 6 Erakarri egiten gaitu zure eskutxoak;
Umetxo, bai ederrak zure erakargarriak!
Oi Jainko-Jesus! zure irriak
zorutzen ditu txoritxoak!...
- 7 Arima xume eta tolesgabeak hemen
maite duen hura du aurkitzen;
uso izukor gisa ez da honez gero
saiaren beldur izango¹.
- 8 Otoitzaren hegoetan
arima gartsua badoa igotzera,
gora eta gora kantari doan
hegatxabal arinaren antzera.
- 9 Txepetxaren, txonta alaiaren
txorrotxioa entzuten da hemen;
oi Jesus txiki! beren karioletan
txoriek zeure izena diotsue txioka.
- 10 Txoritxoak beti kantatzen du,
ez da bere bizitzaz kezka izaten,
artatxiki-aletxo bat aski du;
hemen behean ez du sekula ereiten.
- 11 Hark bezala, gure txoritegian
zure eskutik hartzen dugu guztia;
beharrezko den gauza bakarra
zu maitatzea da, Jainko-Haurra.

Mt 6,26

Sal 144,16

Lk 10,42

¹ Ik. B Esk., 5ⁱ eta TO 3, 53-54.

- 12 Guk ere kantatzen ditugu zure gorespenak
Zeruko izpiritu garbiekin bat eginik
eta guk badakigu, aingeru guztiak²
maite dituztela Karmengo txoriak.
- 13 Jesus, bekatariek isuriarazten
dizkizuten malakoak txukatzearren,
zure txoriek zure ona dute esaten;
haien kanta gozoek bihotzak dizkizute irabazten.
- 14 Lur tristetik urrun, egun batean
zure deia entzun dezatenean,
zure txoritegiko txori denak
zerurantz egingo dute hegan.
- 15 Kerubintxo alaien ilera
xarmangarriekin batera,
oi Jainko-Haurra, zure gorespenak
kantatuko ditugu guk zeruetan.

TO 44

Nire Zeruko Neba-Ahizpei

EGUNA: 1896ko abenduaren 28a. - OLERKI-HARTZAILEA: Teresa bera, bat-batean egina.
- ARGITALPENA: HA 98 (izenburua: *A mes petits frères du Ciel, les Saints Innocents*), lau bertso berrikututa. - DOINUA: *La rose mousse* edo *Le fil de la Vierge*.

1896ko uda ondoren, haurtzaroari buruzko testurik ederrenak oroimenera ekarririk, Teresak sarritan izango ditu gogoan Haurtxo Errugabeak. Iraileko bakar-otoitzean, ale bikoitzean margotuko du haurtxo zirela hil ziren bere lau neba-ahizpen irudi oroigarria. Atzealdean, Bibliako bi bertso oso esanguratsuak idatziko ditu (ik. 5 eta 6. BI). Haien argitan, olerki honetako ahapaldiek doihaneko errukia, ia-ia gehiegizkoa ere bai, aldarrikatzen dute euren buruaren jabe sekula izan ez diren haurrentzat eta «Salbatzailea»k bakarrik «garaipena lortu dien» haientzat. Hamar urte dira bere «zeruko neba-ahizpatxo»ek Teresa kontzientziako kezken sufrikariorik askatu zutela (A Esk., 44^a); gaur egun, haien etsenpluak «eskuak hutsik» izatearen estuasunetik jaregiten du (ik. KH 23. VI. 1).

«Gehiegizko maitasunaren» eraginez (A Esk., 4ⁱ), Teresa bataiatutako haurtxoei «heriotza opa izateraino» doa, ez hain zuzen «Zerura joan daitezen», Jesusi berak gogokoen dituen «lore guri zabaldu berri» horiek eskaintzearren baizik.

² Ik. B Esk., 5^a/i.

Ageri denez, Teresa, iruditeria pixka bat luze lantzen badu ere, ez dago bere irudien menpe (ik. KH 21/26. V. 9); unibertso izpiritual bat da, freskotasunez, argiz eta alaitasunez blai dagoena, lore, haurrak eta izar-mundua berriro bidaltzen dizkiguna.

Inor txikia bada,
betor nigana (Esaera Zaharrak)

Mk 10,13-16

1 Txikitxo dohatsuak, zein samurki zintuzten
Zeruko Erregeak
bedeinkatzen antzina, eta maiteki igurzten
zuen bekoki alaiak!
Errugabe guztien irudi zuek zineten
eta ikusten dut ia
erregeen Erregeak zeruan neurri gabe ematen
dizuen saria.

2 Paradisuko aberastasun azkengabeak
begiztatu dituzue zuok
gure tristura mikatzak ezagutu orduko,
lirio txiki maiteok.
Oi kapulu usaintsu! egunsentiaz gero
Jaunak bilduak¹
haren Bihotza, maitasun-eguzki leuna,
izan zen zuek zabaltzen² jakin zuena!...

3 Zenbat ardura esanezineko, zenbat maitasun
eta zein samurtasun gozoa,
Eliza gure Amak ematen dizkizuen poztasunez,
egun beteko haurroi!...
Haren ama-besoetan, hasikin gisa, izan zineten
eskainiak Jainkoari;
Betikotasun osoan zuek izango zarete
zeru urdin ederraren atsegingarri.

Ap. 14,3-4

4 Haurrok, zuek osotzen duzue Bildots leunaren
birjin-taldea
eta errepika dezakezue, pribilegio harrigarria,
kantu berri bat!
Borrokarik gabe iritsi zarete konkistatzaileentzat
den aintzara;
Salbatzaileak lortu du garaipena zuentzat,
garaile zoragarriak!

¹ Olerki honetan ez da haur martirien arazoa erabiltzen; Jesus da, eta ez jazarlea, bere zitori horiak biltzen dituena. HA 98an Haurtxo Errugabeei buruzko aipamena, beraz, ez da zehatza.

² Ik. TG 124.

- 5 Ez da ikusten dirdiraka harribitxirik
zuen adatasetan
zuen zetazko ile-kiskurren irudia soilik
liluragarri da zeruetan...
Hautatuen altxorrek, haien abarrak, haien koroiak
guztia zuentzat da³.
Aberri Santuan, umeok, zuen aulki aberatsak
haien belaunak dira⁴...
- 6 Aldare ondoan aingerutxoak lagun dituzuela
duzue jolasten
eta zuen haur-kantek, talde politok, zerua bera
dute liluratzten.
Jainko onak irakasten dizue nola egiten dituen
arrosak, txoriak, haizeak⁵.
Lurrean ez da inongo jeinurik zuek dakizkizuen
adina dakienik, Umeak!...
- 7 Urdinezko ortzearen oihal misterioso
denak jasoz
zeuon eskutxoetan⁶ hartzen dituzue milaka
argidun izarrak.
Lasterka zoaztela zilar-lorratza arratsean uzten
duzue maiz;
esne-bide zuria zeruan begiratzean, zuek ikusten
zaituztedala iruditzen zait...
- 8 Zuen jolasen ondoren, Mariaren besoetara
ihes egiten duzue;
haren izar-oihalpean gordez zuen buru orailak
lo egiten duzue.
Bihurritxo zoragarriok, zuen haur-ausardia
eder zaio Jaunari;
ausartzen zarete ikutzen⁷ haren Aurpegi Gurgarria...
oi zer mesede handi!...
- 9 Zuek zarete Jaunak niri eredu emandakoak,
Santu Errubakoak,
nik izan nahi dut hemen zuen irudi benetakoa,

Mk 10,13-16

³ Ik. TG 182, Joan Gurutzekoaren *Arima maiteminduaren otoitzara* igortzen duena.

⁴ Teresa eta Zelinaientzat, hobeak izango dira han Hautatuen "belaunak" baino; Jesus berarenak...
Ik. TG 211 +, TO 44ren ohar garaikidea; eta TO 18, 54.

⁵ Asmaketa poetiko xarmangarria ideaia hau, hots, Jainkoaren erreinua txikiei ematen zaiela eta ez jakintsuei, adierazteko...

⁶ Irudi kosmiko horiek haurtxoei dagozkienean oraindik gogorragoak dira.; ik. DSA 2, 7^a.

⁷ Ik. KH 5. VII. 3.

haur txikitxoak.

Ah! lortu iezaizkidazue haurtzaroko bertuteak.

Zuen xalotasunak,
zuen uzte osoak, zuen errugabetasun maitagarriak
lilurutzen dit bihotza.

10 Oi Jauna! ezagutzen dituzu nire arima erbestetuaren
gurari gartsuak.

K1 2,1

Nik bildu nahi nituzke haranetako lirio ederrak,
lirio distiratsuak;
udaberriko kapulu hauek ditut bilatzen eta estimatzen
zuri poz ematearren,
bataioaren ihintza⁸ isur ezazu hauen gainera;
zatoz hauek biltzera...

11 Bai, nik Errugabeen talde zoragarria ugaritu
nahi nuke.

nik neure nahigabeak, neure pozak eskaintzen ditut
haurren arimen truke.

Hautatuen Errege, Errugabe hauen artean nik
leku bat eskatzen dizut⁹.

Haien antzera, zure Aurpegi leuna nahi dut nik
zeruan laztandu, oi ene Jesus!...

TO 45

Nire Poztasuna!

EGUNA: 1897ko urtarrilaren 21a. - OLERKI-HARTZAILEA: Ama Aines Jesusena, beraren jaia zela-eta. - ARGITALPENA: HA 98 (*Ma Paix et ma Joie*), hamalau bertso zuzenduta. - DOI-NUA: *Où vas-tu, petit oiseau?*

«Nire arima osoa hortxe dago», *besterik ez dio Teresak Nire poztasuna! Ama Ainesen esku, haren eguna dela eta, uzten duenean, eta bera fedearen proban unerik latzena, are hiltzorirainokoa igarotzen ari denean. Esamolde eta irudi xume antzekoen ondoren, fede-jarrera eta borroka mistikoa dira jokoan daudenak eta aditzera ematen direnak, ahalegin artistiko handirik egin gabe, baina barne-tinkotasun eta bizi-indar izugarriekin. Hitz bakoitzak bere esperientziaren eta heldutasunaren pisua du, eta ahapaldien etorriak Teresaren «arima» erakusten digu benetan.*

⁸ Ik. DSA 2, 6ⁱ.

⁹ Teresak asko eskatzen du olerkietan (TO 12, 8; 17, 5; 24, 11; 28, 4; 29, 8; 31, 2; 35, 4; 36, 1; 41, 2 eta hemen)...

Olerki honek 1897ko ekaineko pasarte ospetsua iragartzen du: «Jauna, zuk poztasunez betetzen nauzu, egiten duzun guztiagatik» (C Esk., 7a), baina urtarrilean oraindik poztasun hori borondate hutsezko fede-ekintza da.

Teresarentzat ez da aski poztasunean sinestea, sufrimentua onartzea, malkoak ezkutatzea, estaltzen den Jesusi irribarre egitea: haren poztasuna hautatuak erditzearren «etengabe borroka egitea» da. Ohar labur horrek ez du gutxiago apaintzen olerki osoa: *oharkabea*, Teresak itzurtzen uzten du paradoxa eta antitesi guztiak berak «lorenz estaliak ditu»*ela eta bere poztasuna maitasun-suak bizkorturiko borroka etengabea dela* (6, 3; 7, 5-6).

- 1 Bada lurrean zoriona alferrik
bilatzen duen arimarik;
baina niretzat, alderantziz da:
poztasuna nire bihotzean da.
Poztasun hau ez da hutsala;
beti-betiko daukat nik;
udaberriko arrosak bezala
egunero irribarre egiten dit.
- 2 Benetan zorionsuegia naiz ni,
neure gogoan egin ohi dut beti...
Nola liteke pozik ez egotea
eta neure poza ez agertzea?...
Nire poza da nahigabea maitatzea,
irri egiten dut malkoak isurtzen,
eskerronez hartzen ditut aintzat
loretan tarteka dauden arantzak¹.
- 3 Zeru urdina ilun bihurtzen denean
eta utzi egiten nauela dirudienean²,
nire poza da itzalpean gelditzea,
ezkutatzea, neure burua beheratzea.
Nire poztasuna, Jesus nire maite
bakarraren borondate santua da.
Horrela bizi naiz beldurrik gabe;
eguna bezain maite dut nik gaua³.
- 4 Nire poza, txiki irautea da⁴;
bidean erortzerakoan, horregatik,

¹ Bigarren ahapaldiak itxura baten lehenengoaren maitasun-ikuspegitik jarraitzen du, baina 3 eta 4. lerroetako galderak aditzera ematen du alaitasun hori, bortxazkoa ez bada ere, berezkoa ere ez dela. 5. lerroetik 8.era bitartean oihala urratu egiten da (ik. C Esk., 4ⁱ eta B Esk., 4ⁱ).

² Fedearen proba; ik. TO 32, 5-8.

³ Indar handiko lerroa, Teresak bere jokaera osorako sinatuko duena hil arte. «Bizitza honetako gaualdia»ren ostean (TO 12, 9, 3; 13, 18, 1), bera benetan da gau beltzean: «lurreko gauetik» (TO 48, 4, 3), «fede-gauean» (TO 54, 15, 8, bai eta 54, 16, 2 ere).

⁴ Ik. TG 141 + eta TO 11, 3, 5; 13, 5; 31, 4; 54, 6; C Esk., 3^a.

berriro jaiki ninteko berehala
 eta Jesusek hartzen nau eskutik.
 Orduan laztanez betetzen dudalarik,
 niretzat bera dela dena diotsat nik
 eta maite-erakutsiak dizkiot gehitzen
 nire fedeari gordeta denean gelditzen.

- 5 Noizbait malkoak isurtzen badituz,
 nire poza haiek ezkutatzean dago.
 Oi! sufrimentuak bere xarmak ditu,
 lorez ezkutatzen jakinez gero.
 Nik nahi dut isilik nekeak jasan,
 Jesusek kontsolamendua izan dezan;
 nire poza hura irri egiten ikustea,
 nire bihotza erbesteturik denean...
- 6 Nire poza etengabe borroka egitea,
 hautatuak sortu ahal izateko.
 Hau da, Jesusi sarri-sarri esatea
 bihotza samurtasunez bero-bero:
 "Zugatik sufritzeaz pozik nago,
 nire Jainkozko Neba txikitxo,
 nire poztasun bakarra lur honetan
 zu poztu ahal izatea da benetan.
- 7 Oraindik luzaro bizitzea nahi dut nik,
 Jauna, zure borondatea hala balitz;
 Zeruan zuri jarraitzea nahi nuke nik,
 horrek emango balizu zuri atsegin⁵.
 Maitasunak, Aberriaren gar honek,
 kiskali eta kiskali egiten nau.
 Heriotza edo bizitza niri zer?
 Jesus, zu maitatzeak pozten nau!"

⁵ Ik. Joan Gurutzekoa, *Kantu izpirituala*, XX eta XXI. ahapaldien azalpena: «Bizitzari nahiz heriotzari dagokionez, haren borondatea Jainkoaren borondatearen esanera jarria eta utzia da... Jainkoari atsegin ematera burua oso-osoan utziz»; edo *Maitasun-gar bizia*, "halako batean amaitu, hori bada zure borondatea" bertsoaren azalpena. *Azken Solasaldietan* ohar ugari dator bizitzaren nahiz heriotzaren aurrean Teresak zuen buru-uztea dela-eta, "nik maite baitut hark egiten duena» (KH 27. V. 4).

TO 46

Neure Aingeru Zaintzaileari

GARAIA: 1897ko urtarrila. - OLERKI-HARTZAILEA: bat-bateko konposizioa, geroago ahizpa Maria Filomena Jesusenari eskainia. - ARGITALPENA: HA 98, hiru bertso zuzenduta. - DOINUA: *Par les chants les plus magnifiques*.

Olerkiaren gar baretsuaren airean azken garaiko ezaugarria nabari da, ikuskarietara gutxiago emana baita, zentzumenen kontsolamenduz gutxiago jantzia. Zirriborratzen diren gaiak ugariak dira, erdian 3. ahapaldia dagoelarik. Hor Teresak beste mundu batetik iragana dirudi.

Apaltasunez markaturiko ahapaldion ostean, bat-batean aire aintzatsua azaltzen da ia bozkariozko amaiera batean, salmo antzera, bertsoen hasieran honela dioelarik: «Zuretzat... niretzat... niretzat... -kin... -kin...», eta silabak ere aberatsak dira sarritan: «Erreinu, Aintza, Aberastasunak, erregeen Erregea, kopoa, Gurutzea». Bidetxoa hitzak ezkutaturik irauin dezake, «bakea» da Teresak irrikatzen duena, aintzazko litainia hau errepikatuz, bertan bertso batzuen baitara betiereko ondasun asko, «beti-beti iraungo duten poztasunak» bilduko direlarik.

- 1 Nire arimaren jagole aintzagarri,
Betikoaren aulki inguruan
su ezti eta garbi moduan
Zeru ederrean zauden hori:
Zu lurrera jaisten zara nigatik
eta ni zeure distiraz argizaturik,
Aingeru eder hori, nire Neba,
adiskide, pozemaile bihurtzen zara!...
- 2 Nire ahultasun handia ezaguturik,
zuk eramaten nauzu eskutik¹
eta samurtasunez zaitut ikusten
harria bidetik baztertzen².
Zure ahots eztiak zerura izan ezik
ez begiratzeko esaten dit beti;
ni zenbat eta apalago eta txikiago ikusi³,
zure bekokia hainbat argitsuago da ageri.
- 3 Oi zu! tximistek baino arinago
goiak zeharkatzen dituzuna:

¹ Aingeru Jagolea da Teresaren lagun "bidetxo"an. Famili agerraldi hori ezinezkoa izango zen Teresaren haurtzarora, bere aitak eskutik daramanekoa, aintzat hartu barik (ik. A Esk., 18^a; TO 8, 6. ahapaldia).

² Erkatu A Esk., 38ⁱ/39^a.

³ Apaltasunak kera eta garapen berriak hartuko ditu Teresaren idazkeran 1896ko udatik aurrera eta, batez ere, 1897an, «fedearen proba»ren araubidearen menpean.

arren, hegan eginez nire partez jo
 nik maite ditudanengana;
 zeure hegalez haien malkoak txukatu,
 zein ona den Jesus kantatu.
 Sufritzeak duen xarma kanta ezazu
 eta ahopean nire izena aipa ezazu...

- 4 Neure bizitza laburrean nire anaia
 bekatariak⁴ salbatzea da nire nahia
 Oi Aberriko Aingeru eder hori,
 emazkidazu zure gar santuak niri;
 nik ez dut neure sakrifizioak eta
 neure pobretasun latza baino besterik;
 zure zerutar atseginekin bat eginik,
 eskain iezaizkiozu Hirutasunari.
- 5 Zuretzat Erreinu eta Aintza,
 erregeen Erregearen aberastasunak.
 Kopoiko Ostia xumea niretzat,
 niretzat Gurutzearen ogasunak.
 Gurutzearekin, Ostiarekin,
 zure laguntza zerutarrarekin,
 bakez itxaroten ditut betiko eginak
 diren beste bizitzako atseginak.

Nire Ahizpa maite Maria-Filomenari
bere alabatxoaren oroigarri.
 Teresa Jesus Haurraren eta Aurpegi Santuarena
 karm. lek. apal.

TO 47

Teofan Vénard-i

EGUNA: 1897ko otsailaren 2a. - BAT-BATEKO KONPOSIZIOA. - ARGITALPENA: HA 98,
 hamar bertso zuzenduta. - DOINUA: *Les adieux du martyr*.

«Nire arimak harenaren antza du» *esango die Teresak bere ahizpei (DE, 422. or.) eta berak, agur-oroigarritzat (TG 245), Tonkinen misiolari martiri izan zen «santutxo» honen gutun-sorta txikia bidaliko die; izan ere, haren biografia adierazi*

⁴ «Bekatariak» Teresak bere neba legez aipatzen dituen lehengo aldia da; eta bera izango da C Esk.ko 6^a.ko «bekatarien mahaia»ren sarrera.

zion aita Roulland-ek berari. 1896ko azaroaren 21etik aurrera, «idazteun-liburuxka»ra gutun horien laburpenekin hiru orrialde aldatu zituen (ik. «Bestelako idazkiak»).

Bere zorioneko lagunari «kantatzeko», Teresak berriro joko du arestian bere «santa kutunak» Santa Zeziliak iradoki dizkion doinuetara. Olerki honetan berari goi-arnasa ematen dioten gaiak hauek dira: kantuak eta loreak, sufrimentua eta martiritza, apostolutza sutsua, «ezpata eta sua».

Martxoaren 19an, olerkia aita Roulland-i bidaltzerakoan (ik. TG 221), berak azken aurreko ahapaldiari erreparatuko dio. Horrela bere misio-asmoa agertzen du: Hanoi-ko fundazio berrira biltzea, baldin eta bere osasunak eragozten ez badio. Oinarrigabeko itxaropena da, baina misio-gogoa haren bihotzean etengabe bizituz doa eta, asteotan, «lurrera berriro etortzeko» haren konfiantza sendotu egin da han «munduaren azkenera arte» atsedenek gabe lan egiteko (KH 17. 7).

Gaixotegian, Teofan Vénard-en erretratua ez du albotik kenduko, eta berak lagunduko dio froga bitartean (KH 10. VIII. 1; 10. VIII. 3; 19. VIII. 5; 20. VIII. 13; 6. IX).

Atzerriko Misioetako apaiza,
Tonkinen, 31 urte zituela martiri hila.

- 1 Hautatu denak ari dira jai egiten zure ohoretan,
oi Teofan! aingeru-antzeko martiria,
eta nik badakit, talde Santuetan,
serafinak zuri zerbitzatzea nahi duela!...
Neure ahotsa, lurrean erbestetua egonik,
ezin bat egin dudanez gero hautatuenarekin,
atzerriko erriberan, neure lira harturik,
nahi dut zure bertuteak kantatzeari ekin...
- 2 Zure erbeste laburra kantu gozo bat bezala zen,
haren ahaireak jakin zuelarik bihotzak ikutzen;
eta zure olerkari-arimak¹, Jesusentzat,
une bakoitzean loreak sortarazten zituen.
Igo zinenean zu Zeruko biribilera,
udaberrikoa zen oraindik zure agur-kanta;
zuk esaten zenuen: "Ni, txiki ezereza,
lehenen igotzen naiz Zeru ederrera!²...
- 3 Martiri zorionsu, oinaze orduan zuk
sufrimentuaren poza zenuen dastatzen,
Jainkoagatik sufritzeari gozo deritzozu.
Irriz jakin zenuen bizitzen eta hiltzen...
Zeure borreroari esatera lehiatu zinen,
hark oinazea laburtzea eskaini zizunean:

¹ Teresak bezala, Teofan-ek ere olerkiak idazten zituen.

² 1861/1/20ko gutun baten aipamena; ik. TG 245 +.

“nire minezko martiritza zenbat eta luzeago,
gehiago balioko du eta pozago naiz egongo³!!!”

- 4 Zure bizitzaren udaberrian, Birjin-lirioa,
Zeruko Erregeak entzun du zure gogoia;
nik zugaran ikusten dut lore irekia,
Jaunak bere atseginerako ebakia⁴...
Eta orain ez zaude zu erbesteturik,
Dohatsuak zure distiraz daude miretsirik.
Birjina Garbia, oi Maitasunezko arrosa,
zure urrin freskoa arnasteaz da goza.
- 5 Ah! utzi niri zure armak, Kristoren soldadu⁵,
bekatariengatik nahi nuke lurtean borrokatu,
zure palmondoen itzalpean sufritu;
babes nazazu, zatoz nire besoari eustera.
Haiengatik nahi dut nik, etengabe gudukatuz,
Jainkoaren Erreinua oldarrez hartu,
Jaunak ez baitzuen lurrera bakerik
ekarri, Ezpata eta Sua baizik!...
- 6 Maite dut nik ere, zuretzat maitagai
gartsu izan zen sinesgabeen hondartza hau;
pozik egingo nuke bertarantz hegan,
Jainko onak dei egingo balit egunen batean...
Baina haren begietan ez dago distantziarik,
unibertso osoa bere aurrean ez da puntu bat baizik.
Nire maitasun motelak, nire sufrimendutxoek,
hark bedeinkaturik, urrun maitarazten dute!...
- 7 Ah! ni izango banintz, jadanik Jaunak
ebaki nahi duen, udaberriko lore bat!
Nire azken ordurako⁶, erregutzen dizut nik,
oi Martiri Dohatsu! jaitsi zaitezela zerutik.
Zure maitasunaren birjin-garrez kiskaltzera
etor zaitez hilkorren bizileku honetara;
eta hegan egin ahal izango dut nik
zure betiko gorrea osatzen duten arimekin!...

Mt 11,12

Mt 10,34

Lk 12,49

³ Borreroari emandako erantzuna, lotsagabeko konkordun txiki honek gizon gazteari galdetu zionean, “zer emango zion ordainez trebetasunez eta arin hiltzearen”. Hala ere, burua ez zen jausi, bosgarren ezpatakadaren ostean baizik.

⁴ Teofaneren beste aipamen bat.

⁵ Gudu-hiztegiak hurrengo olerkiko *Nire armak* iragartzen ditu.

⁶ Ik. KH 16. VIII. 3.

TO 48

Nire Armak

EGUNA: 1897ko martxoaren 25a. - OLERKI-HARTZAILEA: ahizpa Maria Eukaristiarena, beraren profesa zela-eta. - ARGITALPENA: HA 98, hiru bertso zuzenduta. - DOINUA: *Misiolaren irteerako kantua*: «Partez, *hérauts de la bonne nouvelle*».

Olerki urduria, gerra kutsukoa, teinkatua da, borroka librean bezala paperera jaurtikia. Bere buruagan, Jainkoarengan bezala, ziurtasuna duen Teresa ageri zaigu, probaren arragoan Joana Ark-ekoa sutearen gainean bezala. Badaki erregina dela, borrokan egiten duen Erregina da hura, garaipenerako armak prestatzen dituen, lehen helburutzat eragingarri izatea duelarik.

Idazpuruan (Karmengo erregelatik hartuta) datorren San Pauloren aipamenak "zaldun-armadura" ren gaian sarrarazten du zuzenki; Kantarik ederrenaren bi txatal solte elkarren ondoan ausarki ezartzeak erregina ahalguztidun baten irudi bikaina ematen dio, "izugarri, gudarako lerrokaturiko armadaren antzera, armadaren zelaian musika-talde baten antzekoa". Benetako begirada poetikoa behar da aipamen distiratsu, itxi eta kontrastedun bat ezartzeko, inspirazio egokia baten sorburuan, profesa erlijiosorako gogoia berotzeko eta olerki batean beti ere zaila den botoen alegia oso bat lantzeko.

Olerkia Maria Guérin-i zuzenduta dago, aldi berean «ainguru txiki» eta «emakume sendo» (TG 178), «haur txiki» eta «gerrari ausart» denari (TO 36); baina, garbi esanda, ahizpa Jenofa da, aurreko urtean etsita gelditua (ik. TO 27), eta beti «zaldun kontuetara» oso emana.

Baina Teresarentzat ez da zaldun-eleberri bat, ezta hurrik eman ere, darabilen alegi-hizkerak kutsu hori emateko arriskua badu ere (ik. TG 224); «Bizitzaren benetakoa»n (ik. A Esk., 31i), eta heriotzaren aurrean egiten du hark bere borroka. «Iribarre eginez» (Teofan bere adiskideak legez), «kantari» (emazte maitale baten antzera) indarrak agortu arte borrokatzen, «armak eskuetatik erori arte» (erreparatu amaiera honen indarrari).

(Profesa egun baterako egindako kantua)

«Har itzazue Jainkoaren armak, etsaiaren maltzurkeriei aurre egin ahal diezaiezuen». Ef 6,11 (San Paulo)

«Erregeren Emaztea izugarria da, gudurako lerrokaturiko armadaren antzera, armadaren zelaian musika-talde baten antzekoa da». (Kantarik Ederrena). Kt 6,3 Kt 7,1

1 Ahalguztidunaren armak¹ jantzi ditut nik,
haren jainko-eskuak nahi izan nau apaindu

¹ Olerki honen hiztegi oso paulotarra azpimarratuko da, Efesotarren 6.ak iradokia da, baina alegiak ezberdinak dira: Pauloren arabera, «gerrikotzat Egia, bularrekotzat Zuzentasuna, oinetakotzat Ebanjelioa zabaltzeko garra, Fedearen babeskia, Salbazioaren burutakoa eta Izpirituaren ezpata»; Teresaren edura, berriz, «gudu-jantzia»ren osagaiak honako hauek dira: «boto sakratuak: Txirotasuna, lantza eta burutakoa; Garbitasunaren ezpata; Obedientziaren bularretakoa; nire bihotzaren babeskia».

aurrerantzean ez nuke ezeren kezkarik;
 haren maitasunetik nork ni banandu?
 haren ondoan, hondar-plazara dut joko,
 ez naiz burdinaren ez suaren beldur izango²;
 nire etsaiek jakingo dute erregina naizela,
 Jainko bakarraren emazte naizela!³
 Oi ene Jesus! zure begi gurgarrien aurrean janzten
 dudan armadura gordeko dut nik bizitzaren
 arratsera arte, nire apaingarririk ederrena
 nire boto sakratuak izango dira!

Em 8,35

Ef 6,11

2 Pobretasuna, nire lehen sakrifizioa,
 heriotzara arte zu zarraizkit alde guztietara,
 ba, lehia-tokian korritzeko, badakit lezioa,
 atletak erantzirik egon behar du denetara.
 Dasta, mundutarrok, damua eta penak,
 zuen huskeriaren fruitu mingots direnak.
 Pobretasunaren palmadarrak poz-pozik
 biltzen ditut hondar-plazan nik.

1 Ko 9,24-25

Mt 11,12

Ef 6,17

Jesusek dio: "indarraren bitartez da
 Zeruetako erreinua harrapatzeko era."
 Beraz, Pobretasuna izango dut lantzatat,
 kasko aintzatsutat.

3 Kastitateak bihurtzen nau aingeruen arreba,
 Izpiritu aratz eta garaile hauen arreba.
 noizbait haien taldetan hegan egiteko ustea dut,
 baina erbestean haiek bezala borrokatu behar dut.
 Atsedean eta taigabe dut borrokatu beharra,
 nire Senar den Jaunen Jaunarentzat
 Kastitatea baita ezpata⁴ zerutarra,
 konkista diezaizkiona bihotzak.
 Kastitatea da nire arma garaiezina;
 nire etsaiak garaituak dira beraren bidez,
 Jesusen emazte egiten naiz, oi zorion esanezina!
 beraren bitartez.

Jr 2,20

4 Aingeru harroak argiaren erditik
 esan zuen: "ez dut egingo esanik!⁵"
 Nik oi hu egiten dut lurreko gauetik:

² Ik. TO 26, 9.

³ Ik. DSA 7, 1^a.

⁴ *Ezpata* Teresarentzat Bibliaren bigarren maila da, aldi berean, Mt 10, 34 eta Ef 6, 17; ik. TO 47, 5 eta Pri 17.

⁵ Ik. DSA 7, 3^a.

“hemen behean esana egin nahi dut nik⁶”.
 Ausardia santu bat somatzen dut neugan jaioa,
 infernu osoaren amorruari dagiot erronka;
 obediencia da nire koraza sendoa
 eta nire bihotzaren arroka.

Ef 6,14,16

Gudarosteen Jainko, ez dut nahi beste osperik
 neure borondatea mende edukitzea izan ezik,
 Obedientziak haren garaipenak baititu errepikatuko
 beti-betiko.

1 Erg
19,10,14

Es 21,28

5 Gerrariaren arma indartsuak baditut,
 hura imitatu eta ausarki borrokatzen badut,
 Ama Birjinak bezala, grazia liluragarriei,
 borroka eginez nahi diet nik ere kantatu.
 Zuk dardar eragiten diezu zeure lira-hariei,
 eta lira hau nire bihotza da⁷, oi Jesus!
 Orduan kanta ditzaket nik zure ontasuna,
 kantatu indarra eta gozotasuna,
 irribarrez aurre egingo diot metrailari,
 eta oi ene Jainko-Senarra, zure besoetan
 borroka-zelaian hilko naiz kantari⁸,
 armak eskuetan!...

Sal 88,2

TO 49

J.M.J.T.

Betiko Laguntzaren Amari

GARAIA: 1897ko martxoa. - OLERKI-HARTZAILEA: ahizpa Maria Hirutasunarena, berak eskatuta. - ARGITALPENA: HAN argitaratu barik; lehenengo aldiz erredentziotarren *Le Perpétuel Secours* aldizkarian, Haguenau, 1934ko urtarrila. - DOINUA: adierazi barik.

Oraïndik ume-ume zela, Maria Luisa Castel-ek bere burua Betiko Laguntzaren Amaren irudi bizantziotarrak erakarria ikusten du. Ama Birjinaren begirada misteriotsuan, hark bere haur-kontzientziaren ispilua ikusten du: irribarrea bere jakindu-

⁶ Teresak, une batez (1-4), olerkari erromantikoen ahairea aurkitzen du (Vigny, Lamartine, Hugo), izan ere, beroriek irudizko elkarriketak dituzte gogoko espazio mugagabeetan... «*Argialgaua*» antite-siarekin, fedearen proba bere indar osoarekin azaltzen da; olerkia izanarekin sustraitze horrek benetako zangartasunaren izaera ematen dio olerkiari, literatura eta ahoberokeriaren itxura eman ordez.

⁷ Aurrez aurre ezarri ondoren, atsedena. Emetasunaren samurtasunak bere eskubideak hartu ditu berriro Zezilia santuaren ikurraren menpean («*Birjina*», *liraren* aipamena; ik. TO 3).

⁸ Ohorearen zelaian hiltze hori atsegin zuen Avilako Teresak: «Elizaren defendatzaileak (...) hil litezke; garaituak izan, ostera, sekula ere ez» (*Onbidea*, III. kapitulua).

riagatik, tristura bere gaiztakeriagatik. Lisieuxen sartzeko 1894an Andre Mariaren laguntza izanik, 1897an apaizen alde opari-bizitza eramateko indarra eskatzen dio; koadro miragarriaren esanahiaren arabera, pasioko oinaze-tresnak ikusita izaturik dagoen haurra lasaitu eta indartzen duenari eskatzen dio. Teresak bertso erraz bazuetan biltzen ditu Maria Hirutasunarenaren pentsamentuak bere bakarraldian.

(1. kopla)

Ama maitea, neure gaztaroaren lehen unetik
zure irudi eztiak liluratu du nire arima;
zure soan zure samurtasuna irakurtzen nuen nik
eta zure ondoan aurkitzen nuen nik zoriona.

(Errepika)

Maria Birjina, Zerutar erriberara
joango naiz erbeste ondoren betiko zu ikustera
baina hemen behean zure Irudi gozoa
izango da Laguntza Betikoa!...

(2. kopla)

Ni ona eta esanekoa izaten nintzenean,
irribarre egiten zenidala zirudien;
eta noizbait gaizto samarra banintzan,
nire gain negar egiten zenuela neritzan...

(3. kopla)

Nire otoitz tolesgabera entzunez,
erakusten zenidan zeure ama-maitasuna;
lurrean aurkitu ohi nuen zuri begira egonez,
Zeruko atseginen aurrerakina.

(4. kopla)

Oi Ama maitea, nik borrokatzen dudanean,
sendotu egiten didazu borrokan bihotz-ondoa,
bada zuk badakizu, bizitza honen arratsean
Jaunari apaizak eskaintzea dela nire gogoal!...

(5. kopla)

Beti, beti nire Amaren imajina,
bai, zu izango nire zorion eta ondasuna.
Eta nire azken orduan nahi izango nuke nik
nire begirada zugar ezar dadila oraindik.

(Azken errepika)

Gero hegan eginez Zerutar erriberara,
zure belauetan, Ama, joango naiz esertzera.
Orduan hartu ahalko ditut oso-osoan
zure laztan hain gozoak!...

Bakarraldi zoriontsu baten oroigarri - 1897ko martxoa
(Teresa Jesus Haurrarenak bere Ahizpatxoari)

TO 50

Joana Ark-ekoari

GARAIA: 1897ko maiatza (?). - BAT-BATEKO KONPOSIZIOA. - ARGITALPENA: *Poésies*, 1979. - DOINUA: adierazi barik.

Bere heriotz urtean, Teresa (hautzarotik lagun izan duen) Joana Ark-ekoarengana dator berriro, bere nekaldi aurretxoan harekin bat egiteko asmoz. Gaixotegian maiz aipatuko du andreurena.

Ez du garaipenean eta aintzaldian hartzen Joanak bere lekua, «ziegan» eta «traizioan» baizik, hor berbera Jesusekin bat egiten delarik. Eta hark, bere heriotzaz, «bere lilura» ematen dio edozein sufrimenduri. Era berean Teresak, fedeko proba dela-eta, «ziega beltz baten barruan, kate astunez zamaturik» ikusten du bere burua; bere gaixotasuna dela-eta, bere «Maitearen ontzi garratza» edan beharrean da. Guk ere «dirdaitsuago eta ederrago bere ziega ilunean» deritzogu berari. «Traiziotik» ere ez du urri izan. Joana Ark-ekoa berriro ere iraindua izan da, eta berbera da, Teresa, Leo Taxil-ek apirilaren 19an barregarritzat hartu zuen atxilotuari bere aurpegikera utzi diona (ik. DSA 7 +).

Oinaze batzuen izaera bakarrik bizi izatekoa da: bere xumetasunean bikaina eta trinkoa den olerki hau, lapitzez paper urdin batean idatzia, aintzalditik nahigabe eta heriotzara eta berriro "maitasun" eraldatzaileraino gora eginez mugimendu zabala duena, azken urteotara arte ezezaguna izan da.

- 1 Gudarosteen Jainkoak zuri garaipena emanik,
atzerritarra jaurti eta erregea sagararazi zenuenean,
Joana, zure izena historian gelditu zen ospetsu eginik;
gure konkistarik handienak ezereza dira zure aurrean.
- 2 Baina hau oraindik ospe iragankorra zen,
zure izenak Santuen aureola behar zuen;
horregatik Maiteak eskaini dizu bere ontzi garratza
eta utzi egin zintuzten gizakiek, hura bezala.
- 3 Ziega beltz baten barruan, kate astunez zamaturik,
atzerritar ankerrak utzi zintuen oinazez beterik;
zure adiskide batek ere ez zuen zure minetan esku hartu,
zure malkoak txukatzeraino inortxo ere ez zen hurreratu¹.

Mt 20,22-23

Mt 20,22-23

¹ Baldin eta 3-4. bertsoak Teresari ezartzea gaitza bada (bere gaixotasunera oso bilduta baitago), alde batera, igarriko da berak ez diola jaramonik egin nahi bere bizitzaren «ziega»n (edo tunelean) egoiteari; beste aldetik, KH 11. VII. 1 eta 6. VIII. 1eko aitortza ezkutu hau: «*Ez da inor ezagutzen nauenik*» (Sal 141, 5).

4 Joana, agertzen zintzaizkidan dirdaitsuago eta ederrago zeure ziega ilunean, zeure erregearen sagaratzean baino. Betiko aintzaren zerutar dirdira nork ekarri dizu, bada? traizioa izan da.

Sal 83,7

5 Ah! etorri ez balitz maitasunaren Jainkoa saldukeria eta heriotz bila negar-herrira, lilura gabea litzateke guretzat sufrikarioa; orain maite dugu guk, hura da gure altxorra.

TO 51

J.M.J.T.

1897ko maiatzaren 19a

Arrosa hostokatua

EGUNA: 1897ko maiatzaren 19a. - OLERKI-HARTZAILEA: Ama Henriette, Parisko Karmelgoa, berak eskatuta. - ARGITALPENA: HA 98 (*La rose effeuillée*), bost bertso zuzenduta. - DOINUA: *Le fil de la Vierge* edo *La rose mousse*.

Mistiko gutxi joan dira, zalantzarik gabe, Teresa bezain urrun, gaixoak jota, bere indarrak azkenetan direla, Jesusen urratsen atzetik bere «ezereztasuna» eskaintzen maitasun huts eta osoko ekintzan. Horrelaxe agertzen zaigu hemen: ez du hark ezer eskatzen, bere burua uzten du, hura ia-ia heriotzaz beste aldean da, ia-ia maitasunaz beste aldean.

Maiatzean, Teresa ez dago nobizien lore-liturjian esku hartzeko moduan (ik. TO 34). Banan-banan utzi egingo ditu komunitateko ekintzak. Aurrerantzean egin-kizun gorena gelditzen zaio: «Hil egin behar dut». Hil, egunak igaro ahala agortuz, «hostokatzen» den «arrosa» bezala. Bere buruaren eskaintzarik osoenean: «oso-osorik, berez-berez, neke gabe», ikuskizunik gabe, («arterik gabe»). Haren bihotz zabala da bakarrik bere samurtasunaren pareko: haren bizitza horrela «emana» izan dadila gozotasun hutsa Jesus Haurraren «ointxoan» azpian, oinazezko Giza-kumearen «azken urratsen» azpian. Arrosa hostokatuaren ikurra, gaur egun dirudienez asko erabilia dena, bere edertasunik hunkigarrienean agertzen da hemen, bizi izandakoaren benetakotasunean.

Teresak honezkero ez du amets egiten Jesusi bere burua eskaintzeaz, haren oinazpian hostokatzeaz eta urtuz-urtuz hiltzeaz baizik. 3. eta 4. ahapaldietan gartzen du pentsamendu hau, oraindik bera iritsi gabeko punturaino: «Arrosak bere bikaintasunean zure festa eder dezake, baina arrosa hostokatua jaurti (erreparatu hitz honen indarra lerro honetan) egiten da beste gabe, haizearen jostagarri» (hau da, edonora, ez du axola nora). Arrosa hostokatua «ezerezean galtzera» ematen da, eta hau buru-uztearen azken gailurra da; jadanik ez du inoren arretarik merezi (4, 1), «hondakina» besterik ez da. Teresak «ulertu du»: hark «bere bizitza, bere geroa

galdua du», hura «beti arrosa ihartutakoa» da — «Hil egin behar dut». Horrela, hark bere maitasunaren azken proba ematen du, Jesusek berarekin zer egingo duen jakiteke. Hura arrosa hostokatua besterik ez da, hau da, ezereza.

Teresak Parisko karmeldar bati erantzuten dio; hau antzinako priorea zen, eta haren olerkari-senari buruz gauza harrigarriak entzunik, erronka moduko hau jaurti zion: «ahizpatxo hau harribitxi bat dela egia bada (...) bidal diezadala bere olerkietariko bat, eta nik neuk egiaztatuko dut»; eta hark, Maria Hirutasunarenak dioenez, arrosa hostokatuaren gaia jarri zion.

«Ama Henriette oso pozik jarri zen (...) eta azken bertso bat bakarrik falta zela adierazi zuen honako pentsamendu hau azaltzen: heriotz orduan Jainko Onak bilduko zituela lore-hosto guztiak arrosa eder bat osotzeko, betikotasun osoan dirdirka iraungo zuena”. Guztiz oker zebilen: Teresarentzat «maitatzea norbere burua ematea da» ordainez ezer itxaron gabe, eta ihardetsi zuen: «Ama onak berak egin dezala bertso hau, berak dakien bezala, nik neuk ez dut goi-argitasunik nahikoa izan egiteko. Nire gogoia betiko hostokatua izatea da, Jainko onari poza emateko. Puntu bat da guztia».

- 1 Jesus, zeure Amak utsita ikusten zaitudanean
 haren besoak uzten,
 alderoka saiotxoak eginez gure lur itunean
 zeure lehen pausuak ematen,
 zure aurrean nahi nuke arrosa bat hostokatu
 bere hezetasunean,
 zure ointxoia goxoki dadin pausatu
 lore baten gainean!...

- 2 Arrosa hostokatu hau, zuretzat oso-osorik,
 Jainko-Haurra,
 une bakoitzean opari izan nahi duen bihotzaren
 benetako irudia da.
 Jauna, arrosa heze batek baino gehiagok luke nahi
 zure aldaretan dirdir egitea
 hura zeuri eskaintzen zaizu, baina nik beste zerba-it
 dut amets: *hostokatzea!*...

- 3 Arrosak bere bikaintasunean zure festa eder dezake,
 Haur Maitagarri,
 baina arrosa hostokatua jaurti egiten da beste gabe,
 haizearen jostagarri.
 Arrosa hostokatua berez-berez da eskaintzen
 ezerezean galtzera.
 Neure burua, Jesus Haurra, pozik dut zugan uzten,
 haren antzera.

- 4 *Arrosa-petaloen gainean* neke gabe ibiltzen da
 eta hondakinok
 arterik gabe ezarritako apaindura xume bat dira,
 nik ulertzen dot.
 Jesus, zure maitasunarren neure bizitza, neure geroa
 emana dut;
 hilkorren begietarako beti *arrosa ihartutakoa*,
 hil egin behar dut!...
- 5 *Zugatik hil* behar dut, Haurra, Edertasun¹ Gorena,
 hau bai zoriona!
 hostokatuz nahi dizut erakutsi maite zaitudala,
 oi nire ondasuna!...
- Zure *haur-pausutxo*en azpian nahi dut misterioan
 hemen behean bizitzea
 eta oraindik nahi nituzke nik Kalbarioan
 zure azken pausuak leuntzea!...
-
 (Azpimarraturiko hitzak kurtsibaz idatzi behar dira)

TO 52

J.M.J.T.

1897ko maiatzaren 31a

Buru-uztea maitasunaren fruitu gozoa da

EGUNA: 1897ko maiatzaren 31. - OLERKI-HARTZAILEA: ahizpa Teresa San Augustinena, berak eskatuta. - ARGITALPENA: HA 98 (*L'abandon*), hiru bertso zuzenduta. - DOINUA: *Si j'étais grande dame*.

Kantu bat da, baina bere baitatik harantzago doana, «ekaitza» igarotzeko kantua (2. ahapaldia), eta oso-osorik norbere burua eskaintzeko, baina bare, irmo, «bakean» (hitz hau lau aldiz azaltzen da). Azken lau ahapaldien ziurtasuna ez da itxura hutsezkoa: benetako «buru-uztea» da, zentzumenen kontsolamendutik harantzago doana. Ez da Arrosa hostokatua bezain dardarakorra, isilpeko mezuetan hura baino urriagoa, baina bere-berea da olerki hau ere.

Bertutetsua bezain zurruna izanik, olerki-hartzaileak "Jainko onaren atsegi-nerako bere burua uzteko botoa egin zuen", baina ez "perfekzio-bidean handiuztea" agertu gabe. Teresarentzat buru-uztea ez da «nahi duenaren edota haren atzetik dabilenaren egintza, Jainko errukitsuarena baizik». Heriotzaren aurrean, bere burua erabat uzten duela onarturik, hark bere egile bakarrari omenaldia egingo

¹ Edertasunaren sentimendua oso bizia da Teresarengan (berrogeita hamasei aldiz erabiltzen du berba hori idazkietan; hogeita zortzi bider, berriz, edertasun hori Jesusena da). *Gorengo edertasuna* ondokoetan dago: TO 24, 31; 28, 2; DSA 2, 1^a eta 8^a; DSA 4, 3^a.

dio: «Orain hementxe nago; Jainko onak jarri nau hemen, berak hartu nau besoetan eta hortxe jarri...» (KH 7. VII. 3).

1 Badago lur honetan
 Arbola miragarrizkoa,
 bere sustraiak, hau misterioa!
 dituena Zeruetan¹...

2 Haren itzalpean sekula ere
 ezerk ezingo du egin kalte;
 han ekaitzaren beldur gabe
 atseden har daiteke.

Kt 2,3

3 Maitasuna, hona Arbola
 esanezineko honen izena,
 eta haren fruitu³ gozoari:
 buru-uztea deritzo.

4 Fruitu honek bizitza honetan
 zoriona ematen dit;
 neure arima daukat pozetan
 haren jainko-lurrinagatik.

5 Fruitu hau ikutzen dudanean,
 altxor bat iruditzen zait;
 ahora eramaten dudanean,
 hura gozoago zait oraindik.

Kt 2,3

6 Hark ematen dit bizitza honetan
 bakezko itsaso bat,
 bake hain sakon horretan
 betiko atsedena daukat...

7 Burua uzteak soilik nau eramaten,
 oi Jesus, zure besoetara;
 Hautatuen bizitzaz biziartzten
 nauena huraxe da.

8 Zugan uzten dut neure izatea,
 oi nire Senar Maitea,
 eta ez dut irrikatzen besterik
 zure begirada ezitia izan ezik.

¹ «Sustraiak zeruetan dituen» Chagall-en antzeko zuhaitzaren irudi ederra. Zuhaitzaren ikurra oso bakana da Teresaren idazkietan (hemen, olerkietan egin duen erabilera bakarra, eta TG 137an, Zakeoren zuhaitza).

² Fruitu hori Hasierakoaren antitesia da (3, 6): bera *ikus daiteke* beldur barik (Has, 3, 3), bai eta *jan* ere: berak ematen du, bekatu eta heriotzaren anabasaren ordeaz, «*bake oso-osoa*», bai eta *bizi honetako zoriontasuna* ere.

- 9 Irribarre egin nahi dizut
zure bihotzean lo eginik;
oraindik berriz esan nahi dizut,
Jauna, maite zaitudala nik!³
- 10 Kaliza hori-gorridun
bitxilorearen antzera,
nik, loretxo *txiki* honek,
ireki nahi dut eguzkitara.
- 11 Nire bizi-Eguzki ezitia,
oi nire Errege Maitagarria,
zure Jainkozko Ostia
ni bezala txikia da...
- 12 Bere Zerutar Garraren
errainu argitsuak
nire ariman du ernearazten
buru-uzte oso-osoa.
- 13 Izaki guztiek ni
bazter nazakete;
jakingo dut zugandik hurbil
pasatzen kexa gabe.
- 14 Eta zuk utziko baninduzu ere,
oi nire Jainko-Altzor hori,
zure maite-erakutsi gabe,
irri egin nahi nuke oraindik.
- 15 Itxaron nahi dut bake-bakean
zure itzulera, Jesus ezitia,
eta inoiz eten gabe bitartean
nire maitasunezko abestia.
- 16 Ez, ez nau ezerk kezkatzen,
ezin nazake ezerk azalda ni
hegatxabalak baino goragotik
nire arimak hegan egiten daki.
- 17 Hodeien gainetiko
zerua beti da urdin;
Jainko Ona nagusi deneko
bi erriberak loturik daude elkarrekin.

³ Ahapaldi hauetan, 7-9; TO 3ko taxu eta koloreak aurkitzen dira, *Zezipia Santua* (29-32. bertsoak), «buru-uztearen santua».

- 18 Bake-bakean⁴ itxaroten dut
zerutar etxeke aintzaldia,
zeren kopioian aurkitzen baitut
maitasunaren fruitu ezta!

TO 53

Ahizpa Maria Hirutasunarenari [Lili bat arantza artean]

GARAIA: 1897ko maiatza. - OLERKI-HARTZAILEA: ahizpa Maria Hirutasunarena, berak eskatuta. - ARGITALPENA: HA 98 («*Un lis au milieu des épines*»), hamahiru bertso zuzenduta. - DOINUA: *L'envers du ciel*.

Kutsu lamartinetarra gorabehera, olerki hau, bere grafiak egiaztatzen duen irmotasunez eginā, halako gaixotasunez egon arren ere indar harrigarria agertzen duēna, era klasikoz markatua dago adjetibo oso gutxirekin.

Teresak Maria Hirutasunarenari uzten dion «errukiaren kantua» da. «Ahula eta bertute gabea» dela apalki aitortzen duelarik, berau bihurtzen da «maitasun kontsumitzaile eta eraldatzaileak» bere lana egin ahal izateko hautagai (TG 197). Teresarentzat batez ere, sekula baino gehiago, ez dago maitasuna baino besterik (ik. TG 242, amaiera).

Bihurrikeriazko izpi batek argitzen du 3. ahapaldia, gaztetxo zela Parisko leku erakargarrietara egindako ihesalditxoak gogoraraziz: estanpatxo barregarri eta bitxia, «artegitin jarruten den bildostxo bat» agertzen duena, «arriskua somatu gabe ikotika», Seguin jaunren ahuntzaren moduan..., Andre Maria «artzain»..., «amildegia» eta «Karmelgo tontorra»ren arteko antitesi alpetarra..., azken bi lerroetako «atsegin latzak» aurretiaz guztia leuntzen dutelarik.

1. Jauna, zuk hautatu nauzu ume-umetarik¹
eta zure maitasun-obra dei nazakete...
Oi ene Jainko! eskerronez nahi nuke nik,
oi! ordaina eman ahal izatea nahi nuke!...
Jesus maitea, pribilegio hau zer dela eta?

⁴ Teresa «zain dago bakean», baina zain egote hori ez da inola ere nagia: «hegatxabala»ren bat-bateko ihesak (16. ahapaldian), «gandu itsua» lehertzen duen igoera bertikalean (C Esk., 5^a), nahikoa esaten dio. Berak ezinbestean gogorarazten du Joan Gurutzekoak irakatsitako akta anagogikoa: tentazioaren erasoepen dagoen arimarentzat, hoberena Jainkoarengana jauzi batez hegan egitea da... Teresak berak ere «hegatxabalak baino gorago» egiten du hegan: begiradak jarrai diezaioke txoriari zeruan zehar, baina ezin ikus liteke karmeldarraren arima hegan doalarik Agindutako Lurraren azken mugetaraino, han Biziaren zuhaitzak sustraiak lurrazpian sartzen dituelarik.

¹ Aukera jainkotiarra; ik. A esk.ko hitzaurrea, 2^a; TO 16, 6; 25, 8; 40, 6.

gaixo ezerez honek², zer egin du zure alde?
Zure gorteko birjinen errege-taldean ezarrita
dakusat neure burua, Jainko-Errege maite!

- 2 Ai! ni ez naiz ahultasun berbera baino besterik;
badakizu, oi ene Jainko! nik bertuterik ez dudala...
Baina badakizu baita, maite dudana maitea bakarrik³,
ni liluratu nauena, ene Jesus ezta, zeu zarela!...
Maitasuna deritzon gar hau nire bihotz gaztean
piztu orduko, zu etorri zinen zeuretzat eskatzera...
Eta zuk bakarrik, oi Jesus, ase ahal izan zenuen
azkenik gabeko maitasun beharra izan duen arima.
- 3 Artegitik urruti den bildostxo bat bezala,
arriskua somatu gabe ikotika nenbilen ni alaiki;
baina, oi Zeruetako Erregina! nire Artzain maitea,
zure esku ikusezinak bazekien ni babesten egoki.
Horregatik amildegi-ahoa jolasten egonda ere,
jadanik Karmelgo tontorra erakusten zenidan;
aitzen nuen orduan Zerura hegaldatzeko betiere,
atsegin latzak beharko nituela nik maite izan.
- 4 Aingeruaren garbitasuna maite baduzu, Jauna,
urdinean igeri den suzko izpiritu honena,
nola ez maita halaber lohitik jasoa den lirioa,
zure maitasunak garbi gordetzen jakin duena?
Ene Jainko, zure aurrean garbitasunez diz-dizka
agertzen den hegal gorridun aingerua zoriontsu bada,
nire poza ere hemen behean haren antzekoa da,
nik birjinitatearen altxorra⁴ daukat eta!...

² *Arrosa hostokatuaren* antza. Fedearen probak, eta gaixotasunak eragindako ahuldurak Teresari adimen zorrotzagoa eman diote, bai eta «*bere ahultasuna*»ren esperientzia ere. Ik. B Esk. (lau aldiz) eta TG 197; eta, batik bat, 1897ko udaberrian: TG 226, 243, 261 eta C Esk., 2^a. Berdin gaixotegian: KH 6. VIII. 8; 7. VIII. 4; 8. VIII. 1; 13. VIII. 1.

³ Ik. TO 23, 5. Jesusekin duen *adiskidetasuna*, konfiantza eta samurtasuna maila berean jartzen dituena, goiz-goiz loratu da Teresaren ariman; ik. A esk., 40; TG 57 (bi bider), 74, 92, 109, 141, 157, 158, 169; B Esk., 4^a; eta maiatzeko hilean, TG 226ko «*adiskide samurra*». Olerkietan, berriz: TO 15, 5 eta 9; 23, 5; 40, 6.

⁴ Irudi dirdirtsuek (4. ahapadia, 2, 4, 5, 6 eta 8. bertsoak) «*birjintasuna*» goratzen laguntzen dute; izan ere, *birjintasuna* da olerkiaren azken hitza eta gailurra.

TO 54

J.M.J.T.

1897ko maiatza

Zergatik maite zaitudan, oi Maria!

GARAIA: 1897ko maiatza. - BAT-BATEKO KONPOSIZIOA (hau ere ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenak eskatuta). - ARGITALPENA: HA 98, hogeita hemeretzi bertso zuzenduta. - DOI-NUA: *La plainte du mousse*.

«Nik hil aurretik zerbait egin behar dut oraindak» *diotso Teresak Zelinari*: «Nik beti egin dut amets kantu batean Andre Mariari agertzea hartaz pentsatzen dudana» (PA, *Erroma*, 268. or.). *Maiatzeko hil honetan bere idazkiak zabalduko ote diren susmoa du. Eta Mariari buruzko bere "pentsamenduak", prestatzen ari diren «obra hain garrantzitsuaren» osagaietariko bat direla uste du (ik. KH 1. VIII. 2).*

Sekula baino gehiago, Teresa ezin da «egiaz baino beste ezertaz janaritu» (KH 5. VIII. 4). «Gauzak diren bezala» ikusi beharra du (KH 21. VII. 4). Andre Mariari dagokionez, «haren benetako bizitza da, eta ez ustezkoa» hari benetan axola zaion bakarra (KH 21. VIII. 3). Ebanjeliora joko du intuizioz, aurrerantzean bere inpirazio-iturri bakarra izango dena: «Liburu hau aski dut» (KH 15. V. 3 eta ik. TG 226). Berak ematen digu bere «metodoa»ren berri: «Ebanjelioak irakasten dit... eta bihotzak esaten dit» (15. ahapaldia).*

Eta bihotzak berez-berez «ulertarazten» dio gertakarien ezkutuko esanahia, haiek bere oraingo bizitzarako eta laster betikotasunerako izan dezaketen garrantzia. Bihotzaren adimena haren baitan zorrotz egin da azken hilabeteotan era askotara, baina, bereziki, bi arlotan: sufrimenduaren misterioa, probaren arragoan; karitatearen eskakizunak, argi biziei esker; guztia isiltasunaz bildurik.

Hasierako otoitzera bildu behar da olerki luze hau, berrehun alexandrotar oso erregularrak dituen liturji goratarre antzekoa, egileak bere buruari ezartzen dion «objektibotasuna» oso egoki adierazten dutelarik. Baina zirrara eutsi batek zeharkatzen ditu ahapaldi horiek. Olerkiak une ederrak ditu (8, 16, 22... ahapaldiak); irudi zoragarri aberasturiko olerkia dugu (3, 7-8; 7, 5-6...); harrian grabaturiko esaera antzekoak sortzen dira (10, 4; 16, 4, Teresaren Kredo gisakoa osotuz; eta 22.3 garren esaera ospetsua). Ahapaldi harrigarri batez amaitzen da.

«Teresa txikia»k sinatuko ditu esku hebainguz terro hauek: haren olerki-lan osoarentzat amaiera apal eta hunkigarria.

- 1 Oi! kantatu nahi nuke, zergatik maite zaitudan, Maria, zergatik dardarazten¹ duen nire bihotza zure izen eztiak eta zergatik zure handitasun gorenaren pentsamentuak ezin duen eragin nire ariman izu-ikarazko sentimendua.

¹ Oso hitz indartsua da eta arreta handiagoa merezi du, Teresak, probak jota egonik, «ez daki alaitasun biziak besterik» (KH 13. VII. 17); «Betiereko zorionaz pentsatzeak bakarrik zirgiti eginarazten dio nere biohtari» (TG 254). Berba hamalau aldiz erabiltzen da idazkietan (A Esk., 60; B Esk., 3*; TG 74, 107, 134, 254, 258, 261, bost aldiz DSAetan), bai eta KH 17. VII eta 20. 8. 4an ere erabiltzen da.

Zeure handitasun bikainean ikusiko bazintut nik,
eta zorionsu ooren distira gainditzen duzularik,
ezin izango nuke sinetsi zure alaba naizenik;
oi Maria, zure aurrean, begiak jaitsiko nituzke nik!...

- 2 Haur batek bere ama maita dezan beharrezkoa da
honek harekin negar egitea, haren minetan parte hartzea;
oi nire Ama maitagarria, atzerriko erriberan
ni zeugana erakartzeko, zenbat malxo isuri zenituen!...
Ebanjelioetan zure bizitzari buruz gogoetaka ariz,
zuri begiratzera eta zugana hurbiltzera ausartzen naiz;
ez zait zail egiten sinestea zure alaba naizela,
hilkor ikusten baitzaitut eta sufritzen ni bezala²...

- 3 Betikotasun osoan errege izan behar duen Jainkoaren
Ama izatea, Zeruko aingeru batek eskaintzen dizunean,
Oi Maria, hau misterioa! nik zaitut ikusten
birjinitatearen altxor esanezinekoa hobesten.
Ulertzen dut, oi Birjina Garbia, zure arima maiteago
izatea Jaunarentzat, Jainkoaren egoitza bera baino;
ulertzen dut nik zure arimak, *ibar gozo eta apalak*,
Maitasun-Itsaso³ den Jesus barruan eduki dezakeela!...

Lk 1, 31-33

Mt 11,29

- 4 Oi! maite zaitut, Maria, Jainkoaren mirabe deitzen
zarena, zeure apaltasunez lilurutzen duzularik bera;
ezkutuko bertute honek ahalguztidun zaitu bihurtzen,
berak erakartzen du *Trinitate Santua* zure bihotzera.
Orduan *Maitasun-Izpirituak bere itzalpean gorderik*,
Semea, Aitaren berdina, zuga haragi egiten da...
haren anai-arreba bekatarien kopurua ugaria da,
Jesus, zure lehen seme! izena izan behar duelarik!...

Lk 1,38

Lk 1,35

Jn 1,14

Lk 2,7

- 5 Oi Ama maite-maitea, neure txikitasuna gorabehera,
Ahalguztiduna daukat nik neure baitan, zure antzera⁴,
baina ez dut dardar egiten neure txikitasuna ikusita,
amaren altxorra seme-alaben ondasun baita;

² Teresa ukitzeko dohaina duen ahulduraren antzekotasunaren lekukotasuna; ik., esaterako, TO 52, 11. Mariaren sufrimenduaren esperientziak, ik. KH 20. VIII. 11.

³ «*Ibar gozo eta apala*»-ren irudi ederrak, «*Maitasun-Itsaso*»-an irakurrita, ondo iradokitzen du Jainkoak gizakiari eskatu eta eskaintzen dion atsedenen betetasuna, baldin eta gizakiak Jainkoa bere baitan jasotzen badu.

⁴ *Ahalguztidunaren* misterioa sorkariaren *txikitasunean* burutzen delarik, horixe da Ama eta haurrak batean duten *altxorra*. Batak eta besteak, «*birjinitatearen altxor esanezinekoa*» *jaso dute* (3, 4), «*Jesusen jaioterria*» (TG 122). Beraiek euren baitan «*Semea, Aitaren berdina*» daukate (4, 6); batak, Gizakundearen misterio bakarra dela bide (4. ahapaldia); eta besteak, beragan den bizitza hirukoiztarren bidez (5, 1-2k TO 17, 2ra bidaltzen du) eta, bereziki, Eukaristiako Komunioaz (5, 7-8). Amak eta umeak euren baitan «*Jesus, Bildots Ezitia*» hartzen dute egokiera berdinekin.

eta ni zure alaba naiz, oi nire Ama maitea,
zure bertuteak, zure maitasuna ez ote dira nireak?
Horregatik Jesusek, zure Bildots Eztiak, zukan
dagoela uste du, Osti zuria nire bihotzera jaistean!...

- 6 Ez dela ezinezkoa sentiarazten didazu zuk
zure pausuei jarraitzea, oi hautatuen Erregina,
Zerurako bide estua, zuk ikuskoi bihurtu duzu,
bertuterik apalenetan beti eginez ahalegina. Mt 7,14
Zure ondoan, Maria, txiki gelditzea dut gogoko nik
hemen beheko handikerietan nik hutsala ikusten dut,
Elisabeten etxe santuan, zure bisita harturik,
karitate gartsua praktikan jartzen ikasten dut. Lk 1,39-40
- 7 Poz-pozik entzuten dut, aingeruen Erregina Ezitia,
zure bihotzetik⁵ irten zen kantika sakratua.
Zuk irakasten didazu Jainko-gorespenak abesten, Lk 1,46-55
Jesus neure Salbatzaileagan neure burua goresten.
Zure maitasun-hitzak dira etorkizuneko mendeak
lurrindu⁶ behar dituzten arrosa mistikoak.
Zukan gauza handiak egin ditu Ahalguztidunak,
nik hausnartu nahi ditut haiek, zu gorestekoa.
- 8 Zuk, zeure apaltasunean, gordean eduki nahi zenuen⁷
mirariaren berri Jose Santu onak jakin ez zuenez,
zuk, Salbatzailearen jainko-edertasuna gordetzen duen Mt 1,19
Tabernakuloaren ondo-ondoan utzi zenuen negarrez!...
Oi! zein gogoko dudan *zure isiltasun esanguratsua!*
horixe da niretzat kontzertu gozo eta melodiatsua,
Zeruko laguntza besterik itxaroten ez duen arima
baten handitasun eta ahalmen handia adierazten didana...
- 9 Geroago Belenen, oi Jose eta Maria!
hor ikusten zaituztet alde guztietatik egotzirik;
inork ez du hartu nahi atzerritar behartsurik
bere ostatuan; handientzat dute tokia...
Handientzat da lekua eta ikuilu batean
erditu beharko du Zeruko Erreginak Jainkoa.
Zein maitagarri ikusten zaitudan, Ama bihotzekoa!
zein handi ikusten zaitudan toki pobre batean! Lk 2,7

⁵ TO 24an bezala, «bihotza»k leku zabala du olerki honetan; hamalau aldiz dago aipaturik, eta horietarik hamar Mariari dagozkio.

⁶ Oso irudi teresiarra; hemen Magnificat eta lurrinez betetzen duen arrosa parekatzen dira (*arrosa* eta *lurrinaren* aberastasun osoa, Teresaren arabera...).

⁷ Oso gai zaila, zuhurtasunez erabilia. Teresak irudi ederretan itzultzen du Joserren itxaropen min-garria edo Andre Mariaren «*isiltasun esanguratsua*».

- Lk 2,7
Jn 1,1
- 10 Eternoa oihaletan bildurik ikusten dudanean,
Jainko-Hitzaren intziri leuna entzutean,
oi Ama maite, ezin dezaket aingeru-inbidiarik aipa,
haien Jaun Ahaltsua nire Neba maitea baita!...
Zein maite zaitudan, Maria, gure ibarretan zuk
Jainkozko Lore hau ireki dadila egin baituzu!...
Kt 1,1
Lk 2,19
Zein gogoko zaitudan artzain eta magoei entzuten,
eta gauza guztiak arretaz bihotzean gordetzen!...
- Lk 2,22-35
- 11 Gogoko zaitut, euren urratsak tenplo santura
zuzendu dituzten beste emakumeekin nahastean;
gogoko zaitut, besoetan hartzen duen Agure
Dohatsuari gure arimen Salbatzailea aurkeztean;
Lehenengotan irriz entzuten dut haren kantika,
baina laster haren doinuak negar eragiten dit:
profeta-begirada batez etorkizunean murgidurik,
Simeonek sufrimentuzko ezpata aurkezten dizu.
- Lk 2,35
Mt 2,13-15
- 12 Oi martirien Erregina, zeure bizitzaren arratsa
heldu arte, ezpata honek *zulatuko du zure bihotza*;
zeure aberri-lurraldea utzi behar duzu orain bertan,
errege baten amorru bekaiztiari ihes egitekotan.
Jesus lotan dago zure mantuaren tolesturapean,
Jose erregutzero datorkizu irteteko bat-batean;
eta zure obedientzia berehala agertzen da:
luzatu gabe eta txistik esan gabe abiatzen zara.
- Mt 2,13-15
- 13 Egiptoko lurraldean, pobretasunean, oi Maria,
iruditzen zait zure bihotza zoriontsu dela,
Aberririk ederrena ez al da, ba, Jesus bera?
Zerua bera badaukazu, zer axola zaizu atzerria?
Lk 2,41-50
Baina Jerusalemenean tristura garratz bat, itsaso
zabal baten antzekoa, dator zure bihotza betetzera:
hiru egunez, Jesus zure samurtasunari gordea⁸ dago;
atzerria bere gordintasunean orduantxe bai dela!...
- Lk 2,48-50
- 14 Azkenean aurkitzen duzu eta pozak hartu berehala;
irakasleak liluratu dituen Haur ederrari diotsazu:
"Oi ene Seme, zergatik egin duzu, ba, horrela?
hara, aita eta biok negarrez bila ibili gataizkizu."
Eta Jainko Haurrak erantzuten dio (oi misterio sakona!)
beraganatz besoak luzatzen dituen Ama maiteari:

⁸ «Ezkutaztea» (13, 7; 15, 6; 16, 7), «bilatzea» (14, 4 eta 7; 15, 8): «jauretseko misterioa»z diharduten hogeita lau bertsoek azaltzen duten joko larderiatsua da. Gogoeta sakonduko da, harik eta 16, 5-8ko pazientziatzko kexa miragarriaraino, olerkiaren gailurra, non *Arrosa hostokatuaren* biluzte zirrargarria aurkitzen delarik.

“Zergatik nire bila?... Nire Aitaren arazoei emona bizi beharra daukat nik; ez al dakizue hori?”

- 15 Ebanjelioak irakasten dit jakindurian haziz,
Jesus Jose eta Mariaren esaneko gelditzen dela
eta bihotzak esaten dit samurtasun handi-handiz
bere guraso maiteei beti esana egiten diela.
Orain ulertzen dut nik tenpluko misterioa,
nire Errege Maitagarriaren hitz ezkutukoa.
Ama, zure Seme eztiak zu izatea nahi du
fede-gauean bilatzen duen arimaren eredu. Lk 2,51-52
- 16 Zeruko Erregeak gauean, bihotzeko esturetan⁹
bere Ama sartua izatea nahi izan zuen eta,
ona ote da, ba Maria, sufritzea lur honetan?
Bai, *maitatuz sufritzea zorionik garbiena da!*¹⁰...
Eman didan guztia, Jesusek berriro har dezake;
esaiozu negatik nekerik ez hartzeko inoiz ere...
Hura ezkuta daiteke; onartzen dut itxarotea
iluntzerik gabeko egunean nire fedea¹¹ itzali arte...
- 17 Nazareten, Ama graziaz betea, badakit nik
oso pobre bizi zinela, ez zenuela nahi besterik;
*ez gainezkaldi, ez mirari, ez estasiak edertzen
dute zure bizitza, oi Hautatuen Erregina!*...
Txikien kopurua lurrean handi-handia da,
haiek dardara gabe jaso ditzakete begiak zugana
bide arruntetik ibiltzea duzu zuk gogoko,
Ama berdingabea, zerura haiek gidatzeko. Lk 1,28
- 18 Zerua itxaronez, oi ene Ama maitea,
zurekin nahi dut bizi, zuri jarraitu egun bakoitzean;
Ama, zuri begira, murgiltzen naiz zoramenez betea,
maitasunaren sakona aurkituz zure bihotzean.
Zure ama-begiradak nire beldurrak oro ditu aienatzen;

⁹ Lerro biok (1–2) 15, 7–8an iragarritako begi-zizta garatzen dute: Jesus bera da gehien maitatzen dituenentzat proba *nahi duena* (bi bider). Teresaren baitan dagoen ziurtasun iraunkor hau aldi batzuetan baieztatzen da eskutitzetan; ik., besteak beste, TG 190.

¹⁰ Sufrimenduan duen alaitasun hori oso ondo egiaztaturik dago Teresaren bizitzako garai honetan; ik. C Esk., 7^a; TG 253; TO 47, 3; eta *Azken solasaldian*. Urtariletik aurrera lorturiko aurrerakada neur-tuko da, TO 45 berriro irakurriaz, hor «*Poztasuna*» beraren gogozko fedearen akta da artean, eta esan liteke ez dela batere alaia... Buru-uztearen azken muturraren zain egon ondoren (*Arrosa hostokatua*), bera gaixotegian berez-berezkoa izango da, eta alaitasun handikoa.

¹¹ Ez da «*fedea*» bakarrik «*amatatuko dena*» harentzat eta mundu guztiarentzat azken egunean, baita «*gaua, bihotz-estura*» ere; ik. C Esk., 5^a. Teresak eroapen mugagabea du. Andreurenaren buru-uztea, «*fedea*»ren irudi mirezgarria adierazten duena («*lastargi argitsu*» hori gauaren bihotzean, C Esk., 6^a), amatatzen dena, aurrez aurre ikusteko «*gaurik gabeko eguna*» jaikitzen denean..

hark irakasten dit *negar egiten*, hark *barre egiten*.
Gozamen garbi eta santuak ezetsi beharrean,
haiek elkarrekin banatzea nahi duzu, haiek bedeinkatzea.

Jn 2,1-11

19

Kanako senar-emaiteen kezka ikusirik, haiek ezin gorde zutena, ardo falta baitzitzaien, arduratsu, Salbatzaileari esaten diozu berehala, haren jaïnkó-ahalmenetik laguntza itxaroten duzula. Jesusek, hasieran, uko-dagiola dirudi zure eskariri: "zer axola digu", erantzuten du, "andré, zuri eta niri?" Baina bihotz barru-barruan, bere Ama deitzen dizu hark eta bere lehenengo miraria zugatik egiten du berak...

Mt 12,24-50

20

Behin, bekatariak¹² haren irakatsia entzuten zeudela, -berak Zeruan hartu nahi zituen bekatariak-haiekin muino gainean aurkitzen zaitut, Maria. Norbaitek diotso Jesusi zuk ikusi nahi duzula: Zure Jaïnkó-Semeak, jende guztien aurrean, bada, bere maitasun neurrigabea guri erakutsi nahirik, dio: "Nor da nire anaia, nire arreba eta nire ama, nire borondatea betetzen duen hura izan ezik?"

21

Oi Birjina Sortzez garbia, amarik samurrena, Jesusi entzunez, zu ez zara triste jartzen¹³, poztu bai, hark guri baitigu ulertarazten, lurrean *bere familiako* bihurtzen dela gure arima. Bai, poztu egiten zara zu, hark bere bizia, bere jaïnkó-altxor neurrigabeak guri emateaz. Nola ez maitatu zu, oi nire Ama maitea, hainbeste maitasun eta apaltasun ikusiz?

Jn 13,34

22

Zuk maite gaituzu, Jesusek maite gaituenez, Maria, eta onartzen duzu gugatik, urrutzea harengandik. *Maitatzea guztia ematea da eta nork bere burua ematea*, zuk frogatu nahi zenuen, gure euskarri gelditurik. Salbatzaileak ezagutzen zuen zure samurtasun paregabea, zure ama-bihotzaren sekretuak bazekizkien, *zure zainpean jartzen gaitu, bekatarien estalpea, Zeruan guri itxaroteko Gurutzea uzten duenean*.

Jn 19,27

Jn 19,25

23

Maria, zu agertzen zatzaizkit Kalbario gailurrean gurutzearen ondoan, apaiz bat aldarean bezala

¹² «Bekatariak» biltzen diren "menditsoa": zehaztasun horrek ez du antzekorik beste tokietan, baina C Esk.aren izpiritua biltzen du.

¹³ Mariak ez dio Jesusen «Ama» izateari jeloskortasunez eusten. Berak titulua ken dakion onartzen du, benetako gabetzea heltzen den arte, hau da, Joanez «Jesusen lekuz jabetu behar duenean». (24, 2).

Aitaren justizia baretzeko oparizat eskaintzen
zeure Jesus txit maitea, Emmanuel mazala...
Profeta batek esan du, oi Ama nahigabetua,
"ez dago nahigaberik zurea bezalakorik!",
oi Martirien Erregina, geldituz erbestera,
zeure bihotzeko odol guztia ematen duzu gugatik!

Mt 1,24

Nk 1,12

- 24 Donibaneren etxea zure gordeleku bakar bihurtzen da,
Zebedeoren semeak jabetu behar du Jesusen lekuaz...
Ebanjelioak¹⁴ ematen duen azkenengo zertzelada da;
gehiago ez dit hitz egiten Zerueta Erregina.
Baina, oi ene Ama maitea, haren isiltasun sakonak
ez ote digu adierazten *Betiko Hitzak berak nahiko*
dituela kantatu zure bizitzako sekretu denak,
zure seme-alabak, Zeruko Hautatuak, liluratzeko?

Jn 19,27

Jn 1,1

- 25 Laster entzungo dut nik harmonia gozo hori,
laster joango naiz Zeru ederrera zu ikustera;
nire bizitzako goizean *irriz*¹⁵ etorri zinen hori,
oraindik irriz zatorzkit... Ama...hona arratsa!...
Ez nau beldurtzen zure aintza gorenaren distirak¹⁶
zurekin sufritu dut eta orain nahi dut kantatu
zure belaun gainean, Maria, zergatik maite zaitudan
eta zure alaba naizela beti-beti errepikatu!...


Teresatxo...

(Azpimarraturiko hitzak kurtsibaz idatzi behar dira)

¹⁴ Mantua berriro jausten da Mariaren izaeraren gainean. Teresak ez du gurutzetiko jaitzierarik aipatzen. Berak «*ikusi... begiratu... aditu... entzuten du...*», horixe da ebanjelariak dakarrena, eta irudimenez harantzago doa: hortaz, berak «aintzazko misterioak» isildu egiten ditu; Jesusek beretzat gordeko du zeruko olerkaria izatea (ik. 24. ahapaldia).

¹⁵ Buissonnets-eneko Irriaren Andre Maria, 1883ko maiatzaren 13an, ik. A Esk., 30^a. Uztailearen 8an, gaixotegira jaitzita, bertan Irribarrearen Andre Maria aurkitzen du bera jasotzeko: «*Sekula ez zait bera hain ederra begitandu*» (DE, 455 eta ondorengo orrialdea). Hil baino ordubete lehenago, berak artean luzaro begiratu dio (DE, 383. or.).

¹⁶ Olerkia bere baitara dator, 1. ahapaldiaren erantzuna ematen duen 5. lerroarekin ixten da uztaia.



GEHIGARRIA

olerkien eranskina

Argitalpen osoa egiteko asmoari leial izatearren, Teresaren olerkien artean kalitate txikiagoak ere bildu nahi izan dira (baita Teresaren olerkietatik gelditu diren zatitxoak ere): saiotoxoak, bere eskuz idatziriko irri-kopla amaitu gabeak (guztiak bereak ez badira ere). Eranskinetako zortzi olerki ezberdin (lotugabe) hauetatik, gaixo dagoen Teresaren azkenengo hiru "maitasun-doinu" dira batez ere gogoan izatekoak, heriotzaren isiltasun nagusiak bere baitan hartu orduko haren harparen azken bibrazio izan zirenak.

Esku dardarti batek lapitzez taxaturiko lerro urri batzuez amaitzen da Gutun-bilduma. Ahultasuna nagusitu ahala, Azken Solasaldietako hitzak motelduz doaz. "Sufritzen, irribarre egiten, arnasa galtzen, negar egiten ikustea" baizik ez da gelditzen (DE, 510. or.). Era berean, Zergatik maite zaitudan azken kantu bikainaren ondoren, Teresak hiru olerki txikitxo besterik ez du idazten. Baina hauek maitasunik garbiena, samurtasunik gozoena adierazten dute: bere lekaimeburuari (TOE 6), bere joatea zela eta mindurik zegoen lagun bati (TOE 7), bere "txikitasuneraino" "beheratu" den Jesus-Ostiari (TOE 8).

Gero hura isilik gelditzen da. Baina Jainkoaren isiltasuna hain ongi ulertu eta hain tinko maitatu duenak aurrez esaten digu: hori "haren maitasun adierazgaitzaren seinalea" da (ik. TO 13,13), "iluntzerik gabeko egunean nire fedea itzali arte" (ik. TO 54,16).

TOE 1

[Oi Jainkoa...]

EGUNA: 1895 edo 1896ko urtarrilaren 6a. - OLERKI-HARTZAILEA: komunitatea. - ARGITALPENA: Poésies, 1979. - DOINUA: *Joseph inconnu sur la terre*.

Entseiu amaigabe hau Jaunaren Agerkundearen egunean komunitatearen solasaldirako asmoz egina zen. Hobetu eta osoturik, Teresaren beste olerki batzuen parekoa izan zitekeen. Esaterako, ongi tolesturiko hamar silabako batzuk, irudi iradokitzaile batzuk («zure aureola odolez betea»), neurri bateko trebetasuna erakusten dute. Hori dela eta, TOE 1 eta TOE 2 konposizioen urteak truka daitezke. Nolanahi ere, gaiak eta mugimendu sakona Aingeruak Jesusen sehaskanekin uztartzen dira (DSA 2, Gabonak, 1894).

- 1 Oi Jainkoa, haurtzaro-antziruditan gordea,
 zugan ikusten dut nik Zeruetako erregea;
 igartzen dut zure handitasuna, zure boterea,
 zure begietan dir-dirka den argitasunean.
 Zuk milaka aingeru-talde nahi izanez gero,
 zure gordea osatzera zetozkeen zure esaneko.
 Urrezko izarrez beterik zure oihal apaltxoan,
 kantatuko zuten zure maitasun esanezinekoa.
1. Err. Atzerriko erriberan ikusten dut nik,
 neure Jainko, Salbatzaile eta Neba,
 hitz egiteko gauza ez dela oraindik,
 ez zetrorik, ez altxorrik ez duela.
 Misterio sakon hau gurturik,
 Jainko-Errege, neure urrea eskaintzen dizut nik.
- 2 Oi Zeruko Errege, lur honetara zatoz zu,
 giza jendea, zeure anai-arrebak salbatu nahirik.
 Zure maitasunagatik, oi! sufritzea nahi nuke nik!
 Egunen batean nigatik hiltzea nahi baituzu,
 nik zeure oinazeen sinboloa eskaintzen dizut.
 Zure aureola odolez betea dir-dirka ikusiz,
 ai! nahi nituzke zuretzat bihotz guztiak irabazi,
 Jainko Jesus, zure malkoak xukatxeko.
2. Err. Oi Zeruko Errege, mirra har ezazu,
 zuk hilkor izan nahi baituzu.
 (amaitu gabea)

TOE 2

[Izar bat agertu zen...]

EGUNA: 1896 edo 1895eko urtarrilaren 6a. - OLERKI-HARTZAILEA: komunitatea. - ARGITALPENA: *Poésies*, 1979.

Beste entseiu amaigabe bat, Jaunaren Agerkunderako asmoz egina. Ahapaldi laburrek TO 28ren amaiera ekartzen dute gogora.

- 1 Izar bat agertu zen Ekialdean,
eta guk haren bide misteriotsuari darraiogu;
Izar bedeinkatu, haren argitasunak erakusten digu
Zeruetako Erregea jaio dela lurrean.
- 2 Zeruak babesten gaitu gu
eta gure ibil-talde hau,
euri ta elurrei aurpegi emanik,
badoa izar distiratsuaren atzetik!...
- 3 Bakoitza presta dadila...
Gelditu egiten da izarra!...
Sar gaitezen denok festara,
adora dezagun Haurra!...

TOE 3

[Lurrean eginik...]

EGUNA: 1896ko urtarrilaren 15 (?). - OLERKI-HARTZAILEA: ahizpa San Stanislas. - ARGITALPENA: *Poésies*, 1979.

Bertso hauek ez dute ia TO 2ren maila gainditzen. Karmelgo antzinakoenaren sarrerako urteurrenari dagozkio (1845/4/6) edo, ziurrago dena, hark abitua hartu zuenean egindakoak dira bertsook (1846/1/15); nolana ere, bertsook atzerakada dakarte. Haien alde on bakarra ahizpa San Stanislasen ontasuna aipatzea da (ik. CG, 1172. or.: «ontasun agortezina»), komunitate osoarentzat maitagarri bihurtzen duena. Hil batzuetan, profesioaren jubileua zela-eta (1897/2/8), Teresak gauza hoberik ere lortuko du Stanislas Kostka Santua pieza laburra eginaz (DSA 8).

- 1 Lurrean eginik berrogeita hamar urte,
zuk lurrintzen duzu zeure bertutez
gure lekaimetxe apal eta txikia,
Hautatuen Erregearen jauregia.

Errepika

Kanta bai sarrera zorionekoa,
Karmengo zaharrena denarena,
hura dugu gu denon bihotzekoa,
Zeruko opari gozotzat duguna.

- 2 Zuk gu guztiok gintuzun hartu
etxe honetan ginenean sartu,
ezaguna zaigu zure ontasuna,
orobat zure maitasun samurra.
- 3 Laster festa ederrago bat
gure bihotzak alaitzera da etorriko:
guk zure buru gainean jarriko
ditugu, kantari, lore berriak.

TOE 4

Zerua da ordaina

GARAIA: 1896ko uztaila. - OLERKI-HARTZAILEA: nobiziatua. - ARGITALPENA: *Poésies*, 1979. - DOINUA: *Le ciel en est le prix* abestia.

Teresaren eskuz aldatuak direlarik, koplak umoretsu horiek berak eginak ote dira? Ez da batere ziurra. Berak horietan esku hartu ahal izango zuen jolas antzera, nobiziatuko solasaldi baten zehar. Hala ere, ahizpa Maria Eukaristiarenak jarri bide ditu abian, egile nagusia berau izanik; ez ote zion, bada, honek idatzi bere amari (1896/7/6an edo 7an): «ahal badut neure gutunean sartuko dut karmeldarrei buruzko neure kanta ospetsua?»

Dena dela, Zelina, Maria Hirutasunarena, Maria Guérin hirukote honen alaitasuna bideratzeari ekingo dio Teresak, bihotz-zabaltasunerantz eragiteko.

Ahaleginak egin dira hurrenkera logikoa ezartzen, kronologia ez bada ere, 1896an karmeldar baten eguna nola den erakusten duten bertsozko zati hauetan, eskola-lan antzera idatzirik dauden hauetan. Hona umorez aipaturik: goizean jai-kitzea (1. ahapaldia); gelako txirotasuna (2-4); janzteia, "armadurak" (zilizioak) garrantzi handia duelarik (5-9); janari arina (10-14); solasaldia elkarrekin (15-18); penitentzia egitea (19-20), gazte jende umoretsuak kontabilitate-ariketa egiteko erabiltzen duena; guztia apostolu-borroka bideraturik (21), Avilako Teresa deunak bere alabentzat beren-beregi nahi zuen gisa.

Guk koplak bakoitzaren lehenengo lerroa berriro idatzi dugu; lehenengoa bakarrik jarri da, eskuizkribua oinarritzat hartuta.

- 1 Zerua da ordaina;
karraka¹ ozena,
egunsentiari aurea hartuz
ohetik saltarazten duena.
- 2 Zerua da ordaina;
itzartu orduko
Pariskoak baino
miragarri gehiago ikusten dira.
- 3 Zerua da ordaina;
nire gela apalean
ez da tulezko errezelik
ez eta ispilu eta alfonbrarik².
- 4 Zerua da ordaina;
ez mahai ta ez aulki,
ez norbere gustukorik,
hori da hemen zoriona.
- 5 Zerua da ordaina;
asaldatu gabe somatzen ditut
neure arma distiratsuak,
haien hotsak atsegin ditut.
- 6 Zerua da ordaina;
niretzat sakrifizioa
gurutzea, kateak, zilizioa³;
hona hemen nire armak.
- 7 Zerua da ordaina;
otoitz bat egin eta gero
lurrari mun egin beharra dago,
arauak agintzen du horrela.
- 8 Zerua da ordaina;
nik neure jantzi latzaren
eta neure mantu bedeinkatuaren
azpian gordea dut neure armadura.

¹ Matraka mota bat (metalezko pieza bat egurrezko xafla baten gainean); hauxe jotzen zen klaus-troen behealdean eta logela ondoan jendea iratzartzeko goizeko bostak laurden gutxiagotan, udan.

² Avilako Teresa Deunaren Konstituzioek galarazitako objektuak.

³ Penitentzia egiteko tresnak («Gurutzea, kateak, zilizioa»). Gauza jakina da 1896an, haren hemop-tisia gorabehera, Teresak gogotsu egiten zituen gehigarritzko penitentziak, bere lekaimeburu Ama Maria Gonzagarenak onartzen zizkion neurrian.; ik. DE, 497-499; CG, 883, 1189. orrialdeak. Hala eta guztiz ere, bere olerkietan beste «arma» batzuk ditu kantagai: ik. TO 34 eta TO 48, *Nire armak*, izan ere, Maria Eukaristiarenak berak egindakoa.

- 9 Zerua da ordaina;
 andre Izadiak
 entzunaraz baleza zurrumurru bat,
 nik esaten diot irrika:
- 10 Zerua da ordaina;
 barau egitea⁴ ondasun erraza,
 horrek bihurtzen du arinago;
 gosea balego, oraindik txarrago!
- 11 Zerua da ordaina;
 ez ditugu errespetatzen ia
 arbiak, lursagarra, azak,
 azenarioak, errefauak.
- 12 Zerua da ordaina;
 ez da harritzen sekula
 ogia eta frutak besterik
 arratsean ematen ez direlarik.
- 13 Zerua da ordaina;
 askotan ongi begiraturik
 pasatzen da ogia, eta nik
 platerean uzten ditut frutak.
- 14 Zerua da ordaina;
 platera dut lurrezkoa,
 tenedortzat neure eskua,
 koilara ezpelezkoa.
- 15 Zerua da ordaina;
 azkenez egiten da bilera
 eta hitz egin daiteke batera
 Paradisuko poztasunaz.
- 16 Zerua da ordaina;
 hitz eginez egiten da lana,
 josi batek, ebaki besteak
 eliz jantzi bedeinkatuak.
- 17 Zerua da ordaina;
 poz santu bat da ikusten
 bere lorratzez marrazten
 bekoki zabalengainak.

⁴ Teresaren idazkietan inondik ere agertzen ez den hitza (baina haren erlijio-bizitzan azaltzen da); «baraurik» behin baino ez da agertzen (C Esk., 4¹). Hortaz, irailaren 14an, Bazkoan eta beste askotan egiten da barau (Kuarta-denboretan, Jaien bezperetan etab.).

- 18 Zerua da ordaina;
ordua laster doa;
ni berriro naiz bakarrik,
bekoki iluna jarri barik.
- 19 Zerua da ordaina;
penitentzien zaratak⁵
hausten du isiltasuna;
motelduz-motelduz doa.
- 20 Zerua da ordaina;
nik emandako zartadak,
urtean hirurogeita sei mila⁶,
horixe da kopuru zehatza.
- 21 Zerua da ordaina;
misiolarien alde
borrokatzen dugu
etengabe, esker gabe.

TOE 5

[Santa Martaren egunerako]

EGUNA: 1896ko uztailaren 29a. - OLERKI-HARTZAILEAK: ahizpa ez-korukoak. - ARGITALEPENA: *Poésies*, 1979. - DOINUA: adierazi barik.

Ordenako ekandu zahar baten arabera, Marta santuaren ohoretan jai alaiak egiten zituzten «mantu zuridun ahizpek» (ez-korukoek). Kanta bat ageri da egitarauan, bai eta opari batzuk ere: sukaldeko beharrizantetarako eta beste behar batzuetarako; gauza atsegingarriak, ahizpek gero euren senitartekoei eskaintzen dizkietenak.

⁵ Astelehen, asteazken, ostiraletan, arratsaldeko «isiltasuna»ren amaieran (iluntzeko zortzietatik bederatzietara), ahizpek batera hartzen zuten diziplina korua ilunetan zela; haiek 50. Sal. esaten zuten bitartean. Han izaten zen «zarata»!

⁶ Zehaztasun hori ahizpa Jenofak baieztatu zion umore onez, urte batzuk geroago, bere ahizpa Leonari: «Nik erantsiko dizut zu alaitzeko, behin baten nobiziatuan guk kalkulatu genuela zenbat kolpe hartu genuen diziplinaren aldetik urtebetean, eta nik horren berri emango dizut. Miserere bakoitzeko, 300 kolpe hartuz gero, hau gutxienekoa da (Teresa 370eraino heldu zen, 400 gutxi gorabehera, nire ustez, gehienekoa dena). Miserere bakoitzeko, 300 hartuz gero, urteko, 66. 000 hartzen dira, grazia edo deboziozko diziplinak aintzat hartu barik. Ikusten duzunez, gu ohituta gaude, bigarren izaera bezalakoa dugu, guk ez dugu merezimendu handirik. Zuk gure antzera jokatu nahi baduzu, ikusiko duzu nola egia esaten dudana» (ahizpa Frantziska Teresari 1909/10/1ean). Gai berbera dela eta, CSG, 143 eta 144. orr., eta 58. or. : Teresak *irri egiten* zuen ekintza hau egin bitartean.

1895ean, Teresak Jesus Betanian (DSA 4) egin eta antzestu zuen. Urte hone-tan, 1896an, Guérindarrek ordaintzen dituzte jaiaren gastuak: hainbat eskuerakutsi egin zuten, hori dela-eta eskerrak emateko gutuna eman zitzaien beraiei. Beharba-da, jostailuak beraiek emango zituzten: «itsasuntzia», «xakurra», «txerria», «katua», Teresak koplak irrigarrietan aurkezten dituelarik (bertso oker bat baino gehiago ere badago hauen artean).

Pentsa liteke Teresak eta koruko beste hiru nobiziek emango zizkiela opariak mantu zuridun ahizpei, bakoitzak haietariko bati.

Err.

Mantu zuridun ahizpa txit nobleak,
alai bihurtzen digu bihotza zuek omentzeak.

- 1 Ahizpa Maria Gizakundearenari
itsasoz ibiltzea eskaintzen diogu
eta itsasuntzi polit hau
Henriette andereñoak eder aurkituko dau.
- 2 Ahizpa San Bizenteri eskaintzen diogu
txakurtxo txit txanbelin hau;
lorategiaren ondoan txau-txau eginda,
hura etxe-zaintzaile ona izango da.
- 3 Marthon txit maiteari eskaintzen diogu
txerritxo guri-guri hau
ongi etorriko zaio ibiltzeko gainean,
hura sagutan ari denean.
- 4 Melani Lebon¹ omentzeko
ekimena Baptisteri² dagokio;
katutxo bat aurkezten dio;
balioko dio platera miakatzeko.
- 5 Pitxar hau eskaintzeko nola esan?
Ah! guk ez dakigu hainbeste egia esan.
.....
Nire aita, hona hemen Maisua
ihes egin dezagun, hain du itxura serioa!

¹ Ahizpa Maria Madalenaren izen zibila; ik. TO 10, 3, 3; eta CG II, 1178 eta 1208. orr.

² «Baptiste»: Maria Eukaristiarenak 1896ko ekainaren 20an egin behar zuen antzerki-paperean, «lorazain legez mozorroturik dago brusa eta ileordea dituelarik, inozoarena ezin hobeto eginez» (ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenak Guérin jaun-andreei, 1896/6/21ean). Ik., artean ere, Maria Guérinek bere amari bidalitako gutun hau: «Hemen bidaltzen dizut gure Amaren jaiegunean antzestu den piezatxo barregarria, denbora emateko ongi etorriko zaizu. Nik Baptiste inozoarena egin nuen, nire ahizpa Jenofak aita Jeronimorena, eta nire ahizpa Maria Hirutasunarenak maisuarena. Gu guztiok oso ondo ibiltzen ginen gure antzezgunean, benetan barregarria zen» (Guérin andereari, 1896/8/15ean).

TOE 6

JM.JT.

1897ko ekainaren 21a

[Ama Maria Gonzagarenari]

EGUNA: 1897ko ekainaren 21a. - OLERKI-HARTZAILEAK: Ama Maria Gonzagarena, beraren jaia zela-eta. - ARGITALPENA: *Poésies*, 1979.

Lerro batzuen idazkerak, oraindik ziurra bada ere, Teresaren nekea agertarazten du. Hamabi egunez esneki hutsarekin egon ondoren, bere azken indarrak C Eskuizkribua idazteko, bere «eginbehar txiki»rako gorde nahi ditu (KH 25.VI.2).

Samurtasunez beteriko bertso hauekin, lekaimeburuari, beraren jaia zela-eta, «Maria San Joserenarekin batera prestatu duen argazki eta burukoen bilduma» eskaintzen dio (Ama Aines Jesusenaren oharra).

Nik ere, Ama txit maitea
nahi dut neure berbatxoa esatea;
baina ez da izaten ideia askorik
edaten ez denean [lolo] baino besterik!...
hala ere, nire Ama maitea,
eskaintzen dizkizut pozez betea,
neure argazki-bildumatxoa,
neure buru-zapiak eta neure bihoztxoa.

Teresa Jesus Haurarena
karm. lek. 1901.

TOE 7

[Aingeruen eta hautatu orenen...]

GARAIA: 1897ko ekaina (?). - OLERKI-HARTZAILEA: karmeldar ezezagun bat. - ARGITALPENA: *Poésies*, 1979.

Bi lauko hauek Teresarenak ote diren galdetu ohi da (ik. Mss I., 17. or., oharra). Baietz dirudi. C Eskuizkribuaren gai nagusienetarikoa den karitatez gainezka daude. Estilo aldetik bien arteko antzekotasuna garbia da (2, 1 = C Esk., 8ⁱ).

Honek ahizpa bati, Teresa gaixorik zelako beragandik aparte zegoen bati, fin-tasunez beterik egindako agurra gogora ekartzen digu: beharbada, ahizpa Maria San Joserena ote da (ik. TG 250)?

Olerkien *bilduma itxieran, irakurle bakoitzak bere mezu berezia jaso dezake, Teresaren agurra «Zerura arte»; beti ere azken testamentua ahaztu gabe: «Nik maite izan zaituztedan bezala»...*

Hona nire agindua: elkar maita dezazuela, nik maitatu zaituztedan bezala!... (Joan Santua XVI-12).

- 1 Aingeruen eta hautatu ororen
hizkuntza gozoa isiltasuna da;
Jesusengan elkar maitatzen dutenen
partea ere hori izan beharko da.
- 2 Karmelen sakrifizioen giroan
maitatzen da soil-soilik.
Egun batean pozez zoraturik
maite izango dugu elkar zeruan.

TOE 8

[Nire txikitasun aparta ezagutzen duzuna...]

EGUNA: 1897ko uztailaren 16a. - BAT-BATEKO KONPOSIZIOA; OLERKI-HARTZAILEA: Teresa bera. - ARGITALPENA: HA 98 (bi bertso zuzenduta). - DOINUA: *Il est à moi*.

«*Gauean egin zuen koplak hau Gure Jauna hartzerako:*

Nire txikitasun aparta ezagutzen duzuna, etab.

Hori dela eta, berak hauxe esan zidan:

Oso erraz egin dut, harrigarria da; olerkirik gehiago ezin egin izango nuela uste nuen» (KH 13.VII.4).

Kontuak eginda, «gau» hori uztailaren 12tik 13rako izango da (ik. DE, 469. or.).

Ahots «zoli eta ederraz» kantatu zuen ahizpa Maria Eukaristiarenak ahapaldi hori, Teresak Jauna hartu orduko, gaixotegian, uztailaren 16an (ik. TG 255). Jauna hartu ostean, berak berririo ekingo dio Maitasunez biziren 14. ahapaldiari:

«Maitasunez hiltzea, martiritza leuna»...

Teresak ez du bertso gehiagorik egingo. Haren «martiritza» hamaika aste geroago amaituko da (irailaren 30ean) «maitasunezko heriotzaz», Jesusek gurutzetan izan zuenaren antzera (ik. KH 4.VII.2).

Nire txikitasun aparta ezagutzen duzuna,
ez zara niganaino jaisteko beldur!
Zatoz nire bihotzera, oi Osti zuri kutuna;
zatoz nire bihotzera; zukanako irrika du!
Ah! nahi nuke nik, maitasunez hiltzen
uztea zure maitasunak, mesede honen ondoren.
Jesus! entzun nire samurtasunaren deiera.
Zatoz nire bihotzera!

DEBOZIOZKO SOLAS-ANTZERKIAK



SARRERA

KARMELGO AISIALDIAK

“Aisialdi” hauek zer diren ongi ulertzeko Teresa Avilakoaz (1515-1582) behar da oroitu. Bere zuhurtzia handiarekin bazekien “Ama” hark zer bizimolde gogorra proposatzen zien bere alabei eta ez zuen nahi “melankonian” eror zitezen. Etengabeko otoitzean irauterik ez dago, isiltasunean eta bakartasunean komentu hertsiki batean elkarrekin bizi behar duten hogeit bat emakumerentzat, egiazko bokazionea eta Jainkoaren grazia izanagatik, non ez duten Teresaren Araudiek oreka zuzena jartzen, esperientziak eman neurriak artoski zehaztuz. Horra zergatik “aisialdiek” horrelako garrantzia duten karmeliten bizitzan. Eguneroko eginkizunen gainetik badatoz egunen hari luzea tarteka hausten duten liturgiaren eta komunitatearen ospakizunen saila.

Eguberriko misterioa gain-gainetik aipu da baina sailduen besta egunak ere, bereziki martirenak ospatu behar dira. Horrela sortzen da antzerki berezi bat dena kantu, otoitz eta abusagailu. Karmel-etxe bakoitzak sortzen ditu bere aisialdi ohiturak, eta urteetan zehar asmatu usadio bereziak.

Lisieux-ko karmeldegian, gure Teresaren denboretan Ama priorearen eguna zen etxeko besta nagusia. Bi egun irauten zuen eta karia hortara nobiziek emanaldi berezia prestatzen zuten. Uztailaren 29, santa Martaren besta, laneko seroren besta eguna zen. Hiru egun Eguberriren ondotik, Enuxenteen besta guztiz alai zen: egun bakoitzeko priorea aukeratzen zuten. 1897an karmeldegian ospatu zen ere ahizpa San Stanislas Bihotz Sakratuenaren urrezko jubilaia.

Teresa Martin Karmelen sartu zelarik, besta horien antolatzaile “ofiziala”, haren ahizpa Paulina, Aines Jesusena, hogeita zazpi urtekoa zuten. Eta 1888ko ekainaren 21ean santa Ainesen papera ukaiten du Teresak. 1889ko abenduaren 25ean, berriz, Ama Birjinarena egiten du *Jesus Haurraren Lehen Ametsa* deitu

emanaldian. “Serora guztiak barna hunkiak izan ziren eta begi guztiak busti ziren”, Ama Ainesen ohar baten arabera.

Laster beraz nobiziagaiak eta nobiziak jakin zuen antzerki mota honen berri eta ekintza horietan berak biziki parte hartu zuen. Ez ziren jolas horiek harentzat abusagailu hutsak, baina esperientzia aberats eta kartsuak geroago haren izkribuetan beren hatza utziko dutenak. Zer karrarekin ez du beraz Joana Ark-ekoaren papera berak ondoko urteetan beteko!

1893ko otsailaren 20 ean, Aines Jesusena priore hautatua delarik, aisialdien ardura utzi behar du eta prioreordea ez baita lan horietara ekarria, ahizpa Teresari etortzen zaio ospakizunen ardura.

TERESA, IDAZLE, AURKEZLE, JOKOLARI (1893-1897)

Nabardura batzuekin hartzekoak dira titulu horiek oro, zeren ordurarte olerki bat baizik ez du idatzi Teresak 1893ko hasieran. Bere eginkizunaren estrenatzeko, *Joana Ark-ekoaren Misioea*, idazten du 1894ko urtarrilaren 21ean, ospatzen den Ama priorearen bestako.

Beti bezala, aizina handirik ez du idazlanerako: otoitz, lan, zerbitzu, nobizien bilkura berezi, zeinu-deien artetik ari izan behar du

Gaien Hautua

Besta mailaren eta aldiaren arabera Teresak izanen du asti gehiago edo gutiago bere idazlana ontzeko eta nabari da ez dituela berdin landu ahal izan *Joana Ark-ekoaren* bi antzekiak eta *Eguberriko Jainko Eskale Tipiaren* Hogeita sei koblak.

Nobizioen artean eztabaidatu da gaien hautua. Maria Eukaristiarena serorak adibidez bere gurasoei idazten die: “Diana Vaughan-ek eman digu antzerki horren egiteko ideia”. Eta Maria Bihotz Sakratuarenak berriz: “Gaurko gaia da”. Bero-beroa ere DSA 7 irakurriz ikusten den bezala.

Alta bada ez zuten “gaurkotasunik” eskas Joana Ark-ekoaren bi antzerkiek ere, 1894ean Joana goraipatzen baitzen Frantzia osoan, nahiz 1909 arte ez zuten sartu dohatsuen lerroan.

Gure idazleak ez du halere ahanzten Espainiako karmelen ohitura eta DSA 2, DSA 5 eta DSA 6 Eguberriko sailean sartzen dira. Sainduen bizien sailean daude azkenean *Joana Ark-ekoa* (DSA 1 eta DSA 3), *Jesus Betanian* (DSA 4), *Egiptorat ihes* (DSA 6) eta *Stanislas Kostka Saindua* (DSA 8). Zortzietatik sei antzerkietan prosa eta poesia aldizkatzen ditu autoreak eta poesiari musika eratxikitzen dio mai-zenik, 26 aire desberdin darabiltzala (ik. *Récréations*, 410 h. orr.).

Agertokia, Jantziak eta Pertsonaiak

Antzeztokia ardurenean “berotegia” da, hots, behean klaustroko hegoezkian berotu ohi den barne bakarra. Lau leiho handi eta hiru ate baditu eta horrela oihalaria esker, gibeletik antola daitezke tartekatu beharrezko aldaira guztiak. DSA 5 eta DSA 6 menturaz, lehen solairuan, kapituluaren aretoan, eman izan ziren, han

baitzegoen Eguberriko Sehaska Handia. Eta beraz Eguberriko sailean datozen antzerkientzat antzeztokia hor berean bazuten.

Jantzientzat Karmelgo selauruan bazegoen kutxa handi bat mota guztietako pusketaz bete; jantzi, adatsorde, eta antzerkigai asko. Bestalde adiskideei eta etxe-koei, Guérin-tarrei bereziki dei egiten zitzairen.

Antzezte egunean ustegabeko atsegina zen askorentzat bere laguna "itxuraldaua" ikustea taula gainean. Jokolariek ahal bezainbatean gogoz ikasten zuten beren papera, baina gerta zitekeen ere kopia bat eskuan begiratzea lagungarri; jolaskidearen erantzunaren azken lerroak irakurteraz baitzeuzkan kopiak berekin.

Jokolari gehienak nobiziaz berak ziren, serora bat edo besteren laguntza eskaturik ere, beharrez. Teresak berak 8 antzerkietatik 5etan parte hartzen du, Joana Ark-ekoarena (DSA 1 eta 3), Jesusena (DSA 4), Mariarena (DSA 6), eta Nobizien Maistrarena (DSA 7) egiten duela. Gainera bera da ere Jesus Haurren Aingerua (DSA 2).

Maria Madalena serorak dioenaren arabera "nobizien bestetan Teresak eskatzen zituen beti paper umilenak, bere botz marketsaren aitzakiarekin, baina lan ederrak eginarazten zizkioten lagunek eta hain ederki emaiten zituen"(GAPO, 6/3/1910).

TERESA BERE LAGUNEN AITZINEAN

Antzerki mailan aitortu behar da berehala ez dela Teresa ofizioko antzerkilaria; ez nahi ere. Haren kezka bakarra lagunei atsegin egitea besterik ez da. Baina ez da dudarik bestelako idatziek baino eragin handiagoa izan dutela lagunartean antzerki lan hauek. Bera ere bere olerkietan baino barnago sartzen da lan hauetan eta hor bere nortasunarekin agertzen.

Argi dago ere ez duela Teresak bere antzerkia erabili nahi bere serora lagun "eskolatzeko", bizkitartean hemen hitza hartzen du Teresak eta egia beti erraiten. Bere nobizien arteko lan berari jarraiki nahi zaio antzerki orotan. *Umiltasunaren Garaipena* (DSA 7) hor dugu lekuko, berak egiten baitu nobizien Maistraren papera. Ez da beraz sekulan ariko bere ikuspegi bereziak aitzinatu beharrez, baina Jainkoaren Urrikalmendua ezagutarazteari ere ez du nehoiz uko egitea onartu nahiko.

Hala nola badakigu 1893 eta 1896ko priorearen hauteskundeetan komentuko seroren artean izan ziren tirabirek, Ama Maria Gonzagarenaren aldekoa eta "Martin taldearen" ¹ "artekoek, biziki mindu zutela Teresa, baina ez du tipikeria horietaz deus agertzen. Adierazten du bakarrik Karmeliten eginkizun nagusiak direla Kristoren amodioa, haurrideen arteko atxikimendua, bekatoreen eta apezten aldeko otoi-tza, misionesten gogoia eta umiltasuna. Eta egia handi horiek dira taulen gainean aipatzen, nahiz ez diren onarterrazak.

Bigarren antzerkian ohartzen gara horrela, *Eguberriko Aingeruak Jesus Haurraren* oinetan direlarik, Jainkoaren Justiziaren alde hain ederki gudukatu den Juja-

¹ Ik PA, XXI.or.

menduko Aingeru Mendekatzaila azkenean belaunikatzen dela Jesus Hauraren botz urrikalmendutsuaren aitzinean, Honek bakarrik duelakotz mundua jujaturen

Baldin badira ere isileko liskar zenbait koruko eta ez-koruko seroren artean, beren eginkizun berezien parekatzen hasten direlarik, Teresak Jesus Betanian aurkeztean, adieraziko die etxeko Marta eta Madalena guztiei, Salbatzaileak ez duela bereizkuntzarik egiten, eta biak berdin maite dituela, amodioa baita bakarrik konda.

Karmelitak urduri direlarik, beren izaitea arriskuan ezar dezaketen lege berri gaitzotengatik, eta Diana Vaughan "hargin-beltz" ohiak daraman batailak asaldatzen dituelarik lagun guztiak, Teresak ez du gaia baztertzen, baina Gudu Izpirituala dela garrantzitsua du oroitarazten. Garaipen egiazkoa umiltasunarena da: "*Zaudete beti tipi, Haren maitez*" (DSA 7, 6. Ager.).

Ohartuko gara zortzi antzerkietarik hiruren gaia itzulpen bat dela, hots "beldurretik" "maitasunera" konbertitze bat (Joanarena, DSA 1; Jujamenduko Aingeruarena, DSA 2; Martarena, DSA 4). Jansenismoaren galbidetik itzurtzekotz, Maitasunari buruz hartu behar den bihurgunea aurki dezaten serora lagun batzuek hori izan da beti Teresaren arregura. Baina menturaz ez dute denek haren deia entzun ez sine-tsi.

Ez dute ere nik uste serorek asmatu zer segetu zuen Teresak salatu nahi bere antzerkietako itxuren gibeletik, bere eskuizkribuen, eskutitzen eta olerkien osagarri.

Adibiderik argiena aurki dezakegu bada Joana Ark-ekoaz idatzi bi antzerkietan. Bi lan horiek gabe ez dugu ikusten zer eragina izan zuen Lorrenako saindu gazteak karmelitarengan, ez eta sumatzen zer zukeen honek berak aitzinetik gogoan bere "*ahizpa maitearen*" agonia eta herioa itxuratzean (B Esk., 3^a). Berak ere azken egunetan baizik ez zuen egin konparaketa hori ezen orduan zion erran Ama Aines Jesusenari: "*Berrirakurri dut Joana Ark-ekoaz egin dudana antzerkia. Horikus ditzakezu herioaz ditudan sentimenduak; denak hor erranak dira*"². (KH 5.VI.2.)

Gogoan dugu ere Maria Hirutasunarena serorari aitortu ziola DSA 8 antzerkia: "Antzerki hori idaztean hauxe dut izan atsegin: hil ondoan ere arimen salbatze lanari jarraitzen ahal gatzazkiolako segurtamena adieraztea. Hain gazterik hila baitzen san Stanislaz, ene sinestea eta ene xedea hari esker argitu ahal izan ditut".

Azkenean Teresaren antzerki-lanek erakusten digute zein ongi ezagutzen zituen egileak Liburu Sainduak: 270 aldiz Bibliaren aipamenak eskaintzen dizkigunaz geroz, hiru urte barne ondu dituen zortzi idazlanetan. Eta horrek berak frogatzen dezake ere zer arretaz eta maitasunez egin zituen Teresak lan hauek, bere ahizpen atseginerako eta Jainkoaren osperako. Horra menturaz zergatik pertsonaia bati erranarazten dion: "*Karmelgo bestek badute xarma berezia, etxekoen arteko gogoia da haien marka nagusia eta horrek nau bozkariatzen*". (DSA 7, 1. Ager.)?

² VT, 75.zk., 1979ko uztaila, 229.or. Ik PO, 469 h. orr.

DSA 1
1894-I-21

[1^a]

J.M.J.T.

JOANA ARK-EKOAREN MISIONEA
edo
Domremyko artzaintsak¹, bere botzak entzuten

DOKUMENTUA: autografoa.- EGUNA: 1893ko abendua / 1894ko urtarrila.- KONPOSIZIOA: hitz lau eta hitz neurtuzko elkarrizketak (381), hamar aire ezberdinetan kantatutako olerki-atalak.- ARGITALPENA: HA 98, 161 lerrotako atala, beraietatik 37 zuzenduak direlarik: *Récréations*, 1985, testu osoa.

Joana Ark-ekoa asko aipu da Teresa Lisieux-koak hautatzen duelarik bere lehen antzerkiaren suiet bezala eta Aita Saindu Leon XIII.ak "Agurgarri" iragartzen du Joana, Kar-meleko nobiziek *Joana Ark-ekoaren misioea* antzeztzen duten aste berean, 1894ko urtarrila-ren 27an. Frantzia osoa "Joana Ark-ekoez mintzo da orduan eta maiatzaren 8an hura da ospatzen handienez; erregetiar ala errepublikazale, katoliko ala apaizjale, denek gorai-patzen dute. Lisieux-ko hirian Zelinak, Maria Guérin haren kusunak eta haien adiskideek josi dituzte hamabi oihaladar zuri, bost mila lagun bilduko dituen Jondone Petriren Katedralaren apaintzeko.

Berak jokatu duen pertsonaiaren itxuratzeko Teresak baliatzen ditu legezko dokumentuak, baina bai eta ere haur-haurretik bere baitan zerabiltzan gogoetak eta geroztik izan duen esperientziak finkatu eta argitu dituenak.

8-9 urte zituelarik ikasi zuen artzaintsa umilaren historia, "*haren biziko grazia handi-nerarik bat izan zena*" (A Esk., 32ⁱ eta TG 224). Hamabi urte iragan dira geroztik. 1893ko azkenaldean "*Hura iduriko Saindu Handia bilakatzeko asmo ausarta*" oso dauka bere baitan. (Ibid.) Baina Karmelen 5 urte iragan ondoan onartu behar du Teresak ez duela nehondik ere "*Handi*" izaterik (C Esk., 2ⁱ). Jainkoak ordea ez diezaiokie nehoi ezinezkorik eska. Nola bada elkartu elkartezin biak?

Hona non karmelita gazteari gogoratzen zaion lehengo Joana Ark-ekoaren eredu. Ohargabe bezala - DSA 1-en idazkera hain da lainoa - bere historia propioa sartzten du kondalari herrikoiek helarazi dioten Joana Ark-ekoaren ixtorioaren barnean.

¹ Teresak bezala "*Domremy-ko artzaintsa*", askok deitzen zuena, "laborari alaba" zen izatez.

Hala nola Domremy-ko artzaintsa, "*haur xume eta herabe bat*" besterik ez da lehenbizi, Teresaren arabera: Berak bezala bakardadea maite duena, bai eta bizitze isil eta gordea, otoitzari jarraikia eta Ama Birjinari atxikia. Eta dokumentuek berresten dute zer neska isila zen Joana, hamahiru hamazazpi urte tartean, batere ez ibiltari edo gudari izatera ekarria.

Baina ezin sinetsizko mezu bat etorri zaio zerutik Lorrenako neskatoari, "*Herriaren salbatzeko ezpata har dezan*" eskatzen diona. Hortik jauziko zaion beldur eta ikara. Joana agertzen zaigu, Teresa bera bezala "*beldurrak gibelatzen baina maitasunak ez bakarrik aitzinarazten, airaarazten ere duen*" (A Esk., 80^a) emazte indartsua. Beldurraren eta Maitasunaren arteko eztabaida hori argitzeko datozkigu ospearean eta gerlaren kridaria den Jondone Mikael Arkanjelua batetik eta adinez eta barmedeiez Joanaren "*ahizpa eta laguna*" den Santa Katalina.

"Fidantzia" hitza ez da antzerkian aipatzen, baina hura da gibeletik beti ala dena; beldurretik obedientziarako eta emankortasunerako urratsa egiten laguntzen duena. Orduan Joanaren xede bakarra izanen da "*maitasunez maitasuna ordaintzea*" Jesusentzat; "*munduaren azkenburura joan, eta odola isuri behar balitz ere azken xortaraino*".

Horrela loratzen dira Teresaren asmoak, nahiz antzerkigilearen eta olerkariaren ofizio eskasa nabari den.

Bere hogeita bat urteak betetzera doan karmelita gaztearentzat, Joanaganik beregana daramatzen joan-etorriak maila bat iragaiteko deia dira. Komentuko lagunek oraino "haurtzat" hartzen dute eta lege guzien gainetik, "nobizia" soiltzat, baina Joanaren ereduak adiarazten dio berari ez dela hor deus oztoporik (Ahalguztidunarentzat). Alderantziz baizik; fermuki deliberatuz geroz orde Teresa ere beraz "abiatu" behar da, hurreko eta etxeko mundua "utzi" behar du, nahiz oraino "helburua" ilunpean egon. 1894ko urte guztian zehar, Teresa izatez, itsumandoka bezala dabil, Joanaren itxura beti gogoan daramala, olerki bat ontzen baitu maiatzaren 8an (TO 4) haren ohoretan eta uda guztian barna DSA 3 zohiarazten.

Lehen antzerki-lan honek beraz, bere merezi propioaz gain, eskaintzen dizkigu zenbait pertsonaia egiazko, eta oroz gainetik egileari berari aro berri bat irekitzen dio, bere biziaren irakurketa berri bat egin duela idazlan honi esker, nabari baita lehen kaier autobiografikoan (A Esk.).

Joana Ark-ekoaren gaia

Hurreko kaierez bestalde Joana Ark-ekoari buruz Teresak egin lehen idazlana antzerki hau da. Haren bizian eta obran gaiaren neurria hartzeko hona hemen kronologikoki idazlanen erreferentziak:

* 1874: DSA I (urtarrilaren 21^a); TO 4 (maiatzaren 8^a).

* 1895: DSA 3 (urtarrilaren 21^a); A Esk., 31ⁱ/32^a).

* 1896: TG 182; DSA 7 (ekainaren 21^a); Breviarioaren irudia; B Esk., 3^a; Otoi. 17.

* 1897: TG 224; TO 50; solasak KH 5.VI.2.; 20.VII.6.; 27.VII.6; 10.VIII.4.

Bestalde baditugu Teresaren bost argazki Joana Ark-ekoaren itxuran 1895eko urtarril hondarrekoak (VTL,11-15.zk.)

JOKOLARIAK²

Joana Ark-ekoa - Mikael Arkanjelua - Santa Katalina - Santa Margarita - Kattalin
Ark-ekoa Joanaren ahizpa - Germena Domremyko artzaintsa:

[I. AGERRALDIA]

Joana bakarrik bere pentzean, artzain dago, lore flokak moldatuz, kantuz ari da. Ondoan dauzka kiloa eta gaintxo.

(Airea: "C'est moi que l'on appelle Iétala" edo: "Un jour une bergère appelée Isabeau").

- 1 Ni naiz Joana artzaintsa
maite dut ene artaldea
gaintxoarekin dut zaintzen
ta ni ari naiz iruten.
- [1ⁱ] 2 Nago bakartasunean
oihantto pollit honetan,
honat banator frangotan,
hatsa hartzeko bakean.
- 3 Ta moldatzen dut korona³
pentzeko lorez egina
eskaintzeko gure amari
Andre dena Mariari.
- 4 Maite ditut bazterrak,
loreak eta xoriak
laster doan ur-xirripa,
iduri baitu zilarra.
- 5 Haranek eta patarrek
begiak dizkidate bozten,
mendi goretako gainek
aldiz naute zeruratzen.

² "Jokolari" horietan ongi badakigu Teresa bera zela Joana, eta Maria Bihotz Sakratuarena aldiz santa Katalina.

³ "Mariari koroak moldatzea" Joana Ark-ekoaren denborako ohitura izan zen Teresa haurrean eri egon zelarik, 1883 an, haren "eginkizun nagusia" (A Esk., 29^a), bai eta haren lehen egitekoetarik bat erizaindegian sartu zenean (KH 11.IX.3). Bere botu eguneko arratsaldean (1890/09/08) ere bere "koroa eman omen zuen Ama Birjinaren oinetan" (A Esk., 77^a).

- 6 Usu, nonbaiteko bozak
bet-betan ditut aditzen,
idurita aingeruak
niri direla mintzatzen.
- 7 Orduan dut dei egiten
gain hortako indarrerri,
[2^a] nehon ez dut deus entzuten,
nehon ez da deus ageri.
- 8 Ene dei egileak
gorderik daude gain hortan,
nahiko nituzke hegalak
haiek kausitzeko zeruan.

[II. AGERRALDIA]

Joanaren kantuaren ondotik, Kattalin emeki-emeki hurbiltzen zaio, eta Joanak harrituarena egiten du.

JOANA

Kattalin ahizpañoa, zertarat heldu zara honaino? Zertako ez zaude zure artaldearen zain?

KATTALIN

Artaldea arditegirat sartua dut Joana! ahantzia ote duzu egun besta dugula? Lagunak gure beha daude zuhaitz handiaren inguruan dantzatzeko⁴.

JOANA

Loreak moldatuak ditut; ez dut segur besta ahantzia baina oraino goizegi da bildotx ttikien⁵ sartzeko. Oren baten buruan jinen naiz zuhaitz ondora.

[2¹]

KATTALIN (*herabe bezala*)

Joana! zerbait behar dizut galdegin, baina ez samur, ez erasia: oixtian entzun zaitut kantatzen; zuhaitz giblean gorderik nengoan... Erraiten zenuen aingeruak heldu zirela zurekin mintzatzeko.

⁴ "Andereen Zuhaitza" edo "Laminen Zuhaitza" deitzen zuten haritzen oihanean edo "Harizte-gian".

⁵ "Bildots ttipi" horiek gogoratzean Teresa oroitu da menturaz 1888ko bildotsaz (TG 42) edo beharbada, nork daki, Isaiasen errnaz (Is 40, 11) eta ere horrela deitzen zituzten nobizien artean zegoe-la bera, 1893-1894 urteetan.

JOANA (*Hunkia*)

Entzun nauzu... Kattalin maitea! ez sala sekulan entzun duzuna. Ez egin galderik. Ez dezaket ihardets!

KATTALIN

(*Joana perekatuz eta haren ondoan jarriz*)

Joana, zure ahizpa ttipia naiz; zure segetua ez diezadazula gorde; hitz emaiten dizut, nik ez dudala sekulan salatuko.

JOANA

Zuri bakarrik beraz, Kattalin, ene segetua salatzen dizut. Maite nauzu eta badakit ez diozula nehorri erranen. Egia da ene hamahiru urtez geroz, ezagutzen ez ditudan botz batzuk entzuten ditudala; denak goxoak ta ederrak. Errexinoleten kanta ezta baino eztiagoak.

KATTALIN

Joana, aingeruak dira kantari horiek. [3^a] Hain zara ona non ez bainaiz batere harritzen, Jainko onak eta Andredena Mariak zaituztela graziaz betetzen.

JOANA

Ez dakit aingeruak direnez hola niri mintzo; sekulan ez dut bihi bat ikusi. Ez nauzu ona, xuk pensatzen duxun bezala. Ene botzek hitz emaiten didate Jesus onak beti begiratuko nauela, bihotza harendako bakarrik atxikitzen badut.

KATTALIN

Joana, zer da hori? Jainkoarentzat bakarrik bihotza begiratzea? Hura bakarrik maitatzea? Zaila da! Erran dezakedan baino areago maite zaitut, zuretzat⁶ dudan atxikimendua, Jainko onak hastio ote du?

JOANA

Ez, Kattalin, ez dut uste. Nik ere maite zaitut amultsuki, eta gure atxikimendua Jainkoak ere maite du. Bihotza, Jainkoarentzat bakarrik atxikitzea, Jesus senartzat hartzea bezala da. Aspaldidanik nere botzek kontseilatuz zidaten ene birjintasuna⁷ Jesusi kontsekratzea, [3ⁱ] Andredena Mariaren laguntzarekin. O Kattalin, bazeneki zoin amultsuki Jesusek hartzen dituen beretzat hautatu esposak!

⁶ "Zaila da" eta badaki Teresak ez dela beti erraz Jainkoaren maitasuna eta beste maitasunak "elkartzea", baina 1894ko urtarrilean ikasia du ere ez dituela maitasun horiek Jainkoak "hastio".

⁷ "Birjintasuna kontsekratzea": Auzietako datuen arabera badakigu bere "botzak" entzun zituenetik urrats hori egin zuela Joanak. Teresak aldiz egundainotik bere emaitza egina zion Jesusi ezen honek berak "bihotza eskatu ziola sehaskatik beretik" salatu digu (TG 201).

KATTALIN (*xutitzean*)

Nik ere nahi nuke neure burua Jesusi kontsekratu. Otoi, Joana, gida nazazu, Andredena Mariaren aldarera. Nahi nuke zure idurirat ona bilakatu.

JOANA (*irriño batekin*)

Oraino gazteegi⁸ zara; doi bat igurika ezazu eta egin otoitz Jesus onak har zaitzan espostzat. Nik ere galde bera eginen diot. Egon prestu eta obedient: hori da hoberena Jainkoaren amodioa gureganatzeko.

[III. AGERRALDIA]

GERMANA (*dena lore eta grazia*)

Zer ari zarete? Oren erdi baten buruan besta hasiko da eta Joana ez da oraino apaindua. (Loreak eskuan hartuz) Zure lore girgila ederxkoa da, baina, dudarik gabe. Andredena Mariaren kaperarentzat moldatua dukezu, ez zaitut behin ere holakorik zuretzat egiten. Kattalinek, bederen, maite du bere burua apaintzea!

JOANA

Egia, ene lore guztiak [4^a] Mariarentzat ditut! Baina, bestan ere parte hartu nahi dut. Laster prest naiz. Zuek bezain fite han izanen naiz! Germana, zuekin Kattalin eraman ezazu... eta berehala hor naiz.

GERMANA

Otoi, Joana, ez huts egin, zu gabe ez liteke bestarik!

KATTALIN (*Joanari*)

Zu gabe ez dut, joan nahi; goait egonen naiz.

JOANA

Obedi Kattalin! Oroit gure hitzaz! Ixtaño bat, bakarrik, behar dut egon.

GERMANA

Zertako nahi zara beti bakarrik egon? Enoatuko zara berririk gabe. Nik bada-kizkit berriak... zombait harrigarriak Badakizu zer berri den Orleans-en?

⁸ "Gazteegi zara": hitz horiek berak entzun omen zituen Teresak 1882an komenturat sartu nahi izan zuelarik ahizpa Paulinarekin batean (A Esk., 26^o) eta gero ere, 1887an, bere deiari ihardetsi nahi izan zioelarik.

JOANA

Ez, ez dakit. Jakes eta Joanes anaia zaharrenak, armadarat joanak dira; egun guztiez haiendako otoiz egiten dut baina, [4ⁱ] Orleans-en edo bertzetan zer iragaiten den ez naiz jakingose⁹.

GERMANA (*kurios*)

Frantzia ez duzu bada maite Joana?

JOANA

Segur, maite baitut! Baina ni artzaintsa tipi bat baizik ez naiz; eta badakit umil eta gorderik egonez, gure gaixo herriari zerbitzu gehiago eginen diodala ezen ez eta ene egiteko ez diren ondotik ibiliz.

KATTALIN (*xutitzen da*)

Beraz, ez bazara heldu, ni, bestara banoa. Eta Germana hasten bada dakizkien guzien kondatzen, besta iragan-eta oraino hemen izanen gara tente! Bizkitartean besta ez nuke huts egin nahi! Ez dea hain ederra izanen?

(*Germanak eta Kattalinek Joana besarkatzen dute eta bestara badoaz*).

[IV. AGERRALDIA]

JOANA

Eguna badoa; ene bozak ez ditut oraino entzun. Alta bestarat joan behar dut (*belaunikatzen da*) O Maria Ama Ona, begira nazazu, zure neskatto xumea naiz. [5^a] Grazia otoi emadazu, zuri laket ez zaizunik ez obratzeko.

MIKEL SANTUA, *gorderik*,
 “*Partez hérauts*” *airean kantatuz*:

Hona heldu irabaz eguna,
 erresuma salbatuko duena,
 baina Jainkoari bakarrik dago loria.
 Haur bat gudari egiten du. Horra froga bizia.
 Ez da errege aberats indartsu batenganik etorria,
 artzaintsa xume behartsu bat besterik ez da.
 Jainkoa deitzen da Guztiz Ahaltsua,
 eta emaiten dio neska apalari

⁹ Teresaren hautua da hemen nabari: kanpoko *berriak* urrun uzten ditu (TG 135, *Otoitzeko apostolutzaz*) (TG 146) eta ahizpa Jenofa lege berri gaiztoek kexatzen dutelarik, berak erranen dio: “*Jainko onarekin bategitea da gure egitekoa*” (CSG, 73. or.).

suzko bihotz bat, gudari gogoia.
Gero koronatuko du erramuz eta errege lorez
haren belar argi eta garbia.

JOANA (*izitua*)

Jainko ona... ez dut konprenitzen! Usaian hoin goxoa zen entzuten nuen boza. Ez zen niretzat egungoa! Nor daiteke holako miragarriak obratu behar dituen haur hori? Menturaz ni izanen naiz Jainkoaren nahi hori ezagutarazi behar dudana. Baina ez naute sinetsiko. O Maria ama ona, o ene aingeru begiralea, erradazue otoi, zer egin!

[5¹] SANTA KATALINA ETA SANTA MARGARITA *gorderik*.
"L'ange et l'âme" n airean kantatuz

Haur maitea, lagun eztia
zeruraino heldu izan da zure boz garbia
zure aingeru begiraleak
Jaungoikoari eskaini ditu zure desirak.

Zerugain hortarik heldu gara,
erregina garen erreinutik,
zuri helarazteko Jainkoaren ganik,
haren nahia !

Behar zara jalgi herriaren salbatzeko,
ezpata hartuz haren ohorea beiratzeko.
Zeruko erregea eta Andredena Maria
hor izanen dira zure laguntzeko .

JOANA (*beti ta gehiago izitua*)

Herria salba... armak har... eta ni landetako haur txar bat! baina ametsetarik ari naiz! (*xutitzen da eta behatzen du*) Alta iratzarria naiz. O ene Jesus! zatoz ene laguntzera... lotsatua... izutua naiz! (*Burua eskuetan gordez nigarrez ari da*).

SANTA KATALINA ETA SANTA MARGARITA, *gorderik*:

[6^a] Kontsola zaitetz, Joana, ez egin negarrik!
Altxa belarria, zeruari so egin!
Ikusiko duzu pairamenaren xarma
kantu gozoen grazia.
Haiek zaituzte indartuko,
laster datorren gudurako.
Amodio gartsua beharko duzu
datozenak pairatzeko.
Arima desherritu garbiaren

ospe soila duzu jasaitea kurutzea:
Zigor latza baita errege-makila
bilakatzen gero zeruan.

MIKAEL, *oraino gordea*

Zendako negar eta minak aipa?
Kanta izaitekotz gerlaren indarra,
kanta, kanta Frantziaren ederra
eta garailearen beso azkarra.
Gerlako Jainkoak bideraturik
Joanak laster beste balentriarik du eginen:
Aitzindari handienak baino lehen
mitrailaren erditik iragaiten, dute ikusiren.
Bihotz handiko birjina
ez da gorteko ohoreen ondotik ibiliko.
Bihotza garbi, fedea nasai eta gora,
iraunen baitu azkeneraino.

*Joanak kantuen artetik¹⁰ burua altxatzen du mintzo zaizkion aingeru gordeak
ikusi nahiz, gero xoraturik bezala dago! [6ⁱ] Mikaelen botza entzuten duelarik,
Joana izutzen da eta berriz negarrez ari. Isiltzen delarik Aingerua, bera mintzo da:*

JOANA

Nor zara zu, hola niri mintzatzeko? Otoi, ager zaitte! Zure botza hoin bozgarria
eta izugarria baldin bada, zein ederra daitekeen zure aurpegia!

[V. AGERRALDIA]

*Lano argitsu baten barnean agertzen da Mikael Arkanjelua. Joana harritzen
da.*

MIKAEL

Ni naiz Mikael, Frantziaren begiralea,
zeruetako armaden buruzagi handia.
Ifernuetara heltzen da ene besoa.
Eta Satan bekaiztiz ezin egona,
lehen hain argi izana,
Erreinu Sainduaz jabetu nahi zen.
Baina nik ortzantzen erditik

Is 14, 12-15

¹⁰ Begitarteen aldaketak ondotik bederen markatuak dira: hots Katalinaren eta Margaritaren botzek zoratzen dute, Mikaelenak aldiz izutzen.

Ap 12, 7-9
(Dn 10,13)

erran nion: “nork dezake garait Jaungoikoa?”.
Ordu berean Jainkoaren mendekuak,
leizea ireki zuen eta Luzifer han sartu.
Aingeru harroarentzat ez da urrikalmendurik
ifernua du hartze.

Flp 2,7

[7^a]

Bai harrotasunak du aingerua galdu
eta Luzifer kondenatu.
Gizonak ere geroago lohia bilatu,
baina Jainkoak haren urgulua ordaindu.
Aitaren beteko Berbo Eternalak zuen
gizatasun apalaren jantzia jantzi
bere lan osoa berrosatzeko
bere apaltasun handiari esker.
Jainko berak Frantzia nahi du salbatu,
ez ordea garaile handi baten eskutik.
Urgulua baitu baztertzen eta haur baten beso ahula
hobesten¹¹.

Zu zara Joana, Jainkoak hautatua.
Zoaz! Haren deiak erran bezala.
Utz itzazu zure bildotsak, zure soroak
utz zure haran goxoa, bazterrak eta oihanak!
Arma ezazu besoa! Hegalda zaitetz, salba Frantzia!
Zoaz! Ez lotsa! Ez beldur izan!
Jainkoak sarizatuko du zure kemena,
eta ohilduko duzu arrotza...

JOANA, *ikaratua*

Jainkoak niri horrelako harrigarriak eska diezadakeela! Erraiten duzun kemen hori ez dut ene baitan sendi. Haur bat baizik ez naiz, ahula eta herabea. Maite dudan baserri hau, ene haurreko xoko goxo hau behar ote dut utzi?

[7ⁱ]

MIKAEL

Haur xumea, utz hor zure etxola!
Ori Jainkoak emaiten dizun ezpata hau!
Banderatzat har ezazu ikurrina xuria,
eta zoaz Erregearen ganat!

¹¹ Jondone Mikaelen lehen bi koblek iragartzen dituzte DSA 7 eta TO 48ko idazkiak: Jainkoaren Arkanjeluak etsai bat baizik ez du: “*urgulua*” (6ⁱ 25 eta 26; 7^a 7; 13ⁱ 11) eta garaipen soil bat, hura da “*umiltasuna*” (12^{ai}) eta garaipen hori “*haur baten beso ahula*” (7^a 8), “*lanabes txar*” bat (16ⁱ 10-11) besterik ez da.

Mikaelek Joanaren eskuetan¹² ezpata nahi du eman. Joana aldiz gibelka ari da harritua.

JOANA, *dardaran*

Ez, ez! ez oraino... Jondone Mikael, atxikazu ezpata...! ikus otoi... haur bat naizela... nola naiteke guduka?

Mikael itzaltzen da eta Joana arkaitz baten gainean jartzen.

[VI. AGERRALDIA]

JOANA, *bakarrik*

Jainkoak manatzen badit nonbait bakarrik gordetzea, aitama maiteak utz nitzake hari obeditzeko. Baina gerlarat joaitea; armada baten buru jartzea! Ah, ez daiteke!

[VII. AGERRALDIA]

Joana negarra begian, aurpegia eskuetan gordez. [8^a] Denak isilik egonik Santa Katalina artzaintsa ttipiaren ondorat heldu da; amultsuki so egiten dio; eskua perekatzen dio eta polliki, ahapetik dio:

“Joana!”

Joanak, burua altxatuz Katalinari so egiten dio eta belaunikatuz oihu egiten:

Andre ona, zoin ederra zaren. Zure ikusteak berak kontsolatzen nau. Baina nor zara? Sekulan ez dut ikusi horrelako distira argirik.

SANTA KATALINA,
Kantuz, “Tombé du nid...” airean

Ni naiz Katalina
zure soleitzeko,
zerutik jauntsia
Jainkoaren manuz,
zure benedikatzeko
eta begiratzeko.
Zu bezala, lurrean bizi nintzen,

¹² Ezpataren eskaintza, behin baztertua (“*ez oraino*”), gero onartua (“*belauniko eta maitasunez*”) (Ager. 14. zk.), eztabaida luze baten ondotik, antzerkiaren giltza nagusietarik bat da; eta argazki batzuetan ezpata horrekin agertzen da Teresa (VTL 11, 12).

Jainkoak maitatua,
hoin goxoki,
hoin ezteki,
Eman bainion bihotza
eta isuri ene odola
biziaren primaderan,
18 urtetan¹³.

[8¹]

JOANA

Zer aldaketa ni baitan! Birjina ezta, zure botzak, ene beldur guztiak haizatu ditu. Eta orain, ez naiz beldur! Mikael arkanjelua jin zait, hura ere, bisitatzeraz; izuarazi nau, baina zure botz eztiak alegeratzen nau eta beldurrik gabe Jainkoaren nahiari obedituko diot orain!

[VIII. AGERRALDIA]

SANTA MARGARITA AGERTZEN DA,
agurtzen du Santa Katalina "Seigneur quand de ma froide couche" n airean

Santa Katalina, birjina aipatua,
ez zaitut kausitu zeruetan.
Alta ez nintzen urrun,
mendi sainduaren gainean¹⁴,
ari otoizean Jainkoari
igor zezan aingeru eder, argi bat,
gure lagun maiteari.

Ap 14,1

[9^a]

"Artzaintsa umil harengana"
- dit Errege handiak ihardetsi -
"Hegalda zaitez, zeruko mezulari,
bai fida naiz zuri,
eta Katalina Birjinari,
ene bihotzeko maiteari
Jainkoaren xedea beteko duzue¹⁵,
ene lore umila altxatzekoa".

¹³ "18 urte" zituela santa Katalina Alexandriako martir jakintsuak, dio azaroaren 25 ean, haren bestakari, Teresak irakurtzen zuen otoitz-liburuak. Orduan omen zien buru egin filosofo paganoei eta martirien koroa irabazi. Adin bera emaiten zion Teresak Joana Ark-ekoari (17^a), eta bazekien ere adin berean hila zela san Stanislaz DSA 8ko pertsonaia. "18 urteetan, adinik ederreanean" Bellière apezgaiari idazten dion bezala (TG 247). Zinez saindu gazteak hobesten zituen Teresak.

¹⁴ Apokalipsiako mendian, hantik baita otoitza entzuna, bere gudarientzat Moisek mendi gainetik egin zuen hura bezala (ik. 10 ager.).

¹⁵ Sainduak hil ondoan bidaliak dira beraz "mezulari". Grazia bera eskatuko du Teresak beretzat san Stanislaz-en bitartez (DSA 8).

SANTA KATALINA *Santa Margaritari,*
"Tombé du nid" airean:

Agur Erregina ederra,
 Errege handiak, guztiz maitatua,
 zatoz Andere maitagarria
 eta jar ene ondoan.
 Erakutsiezaiozu artzaintsa umilari
 sekulakotz erregina izaiteko bidea.
 Hain maite dugun gaixo haur horrek
 hartze ditu gure mainak, hartze gure amodioa.
 Bere pairamen orduan
 gure irriñoak dio
 zerua erakutsiko
 eta guk dugu hara helaraziko.

*Bi sainduak jartzen dira arkaitzaren gainean, Joana belauniko dagoelarik
 haien aitzinean.*

SANTA MARGARITA *Joanari kantuz,*
"Seigneur quand de ma froide couche" airean:

Zerua hurbil da lurretik,
 Jainkoak badakizki zure ametsak.
 Sainduak entzuten dituzte zure otoitzak,
 eta biltzen zure dei guztiak.
 Dohatsuek eta Aingeru Sainduak
 zaintzen zaituzte denetan¹⁶;
 zeruko indar guztien partez
 behar dizut jakinarazi.

[9ⁱ]

JOANA

Sobera kontsolamendu egun batentzat (*eskuak juntatuz*). Ez dakit ongi nola zu
 eskertu, baina Andre ona, otoi erradazu zure izena!

SANTA MARGARITA *kantuz,*
"Seigneur..." airean:

Ni naiz Margarita erregina¹⁷,
 zeru urdin ederra da ene erreinua.
 Sekulako da ni gerizatzen nauen
 Jaungoikoaren jauregi handia;

¹⁶ Baieztapen bera TG 263an eta ere B Esk., 5^aan. "Sainduen partaliertasuna" deitu Credo-aren artikulu berezia, Teresak biziki maite duena, agertzen da hemen.

¹⁷ "Margarita Eskoziako erregina" (†1093), ekainaren 10ean ospatzen zuten orduan Erromako otoitz-liburuan; gaur aldiz azaroaren 16an. Dena dela, ongi zetorkion Teresari "*Margarita erregina*", haren kontrajartzeko "*Joana artzaintsari*"; berriz TG 10ean eginen duen bezala.

lurreko handitasunek sekulan
ez naute liluratu, ez sekula santan!
Horko atseginak kirats zitzaizkidan
zeruetara begiak altxatzean

[10^a]

Ospe ta ohoreak Joana,
laster dira etorriko,
garaipena baituzu irabaziko
eta nik bezala erreinatuko.
Ez har goresmenik zuretako,
Jesus maiteari eman oro!
Irriño bat aingeruarendako
zure irabaziak baititu bilduko.

Horra nola, artzaintsaño ezitia,
duzun betierean erreinatuko
eta lurreko ospea gutietsiz,
zure bihotz guztia emanen Jesusi.

JOANA

Egia da, Erregina ederra! Jesus Jaunaren ohorea baizik ez dut desiratzen!
Lurreko ohorerik ez dut nahi: Jainkoaren erreinua bakarrik! Eta ez zait deus ere
gostako. Munduaren azken mugetaraino¹⁸ joan behar banu ere eta ene odol guztia
isuri, esperantza dut, Jainkoaren laguntzarekin, ez dudala den-mendreneko dudarik
izanen.

SANTA KATALINA,
kantuz "Tombé du nid" airean

Ni bezala martir hilen zarelarik
Jesusek indar emanen dizu
eta mirra xorta bezala
zure bihotz gainean pausatuko
eta desherri honen ondotik
berak zaitu soleituko.
Begitarte saildua makurtuz
zaitu besarkatuko.
Joana haur saildua,
zure amets eroa
beteko da zeruetan
kantari izanen zara lorietan.

Kt 1,12

[10ⁱ]

¹⁸ Maitasunak sortzen dituen asmo handiak dira horiek (B Esk 2ⁱ).

JOANA

Jesusek begitartea niri buruz makur dezan, badakit anitz pairatu behar dudala, baina haren espos maitea naiz eta nahi nioke, amodio sari, amodio eman¹⁹. Errada-zu arren, Gure Jaunaren begitartea erakartzeko zer egin behar dudan.

SANTA MARGARITA,
kantuz "*L'ange a fini sa mélodie*" airean:

Behar duzu zure etxea utzi
eta zure errege maiteari jarraiki.
Baina, ez lotsa, bera hor dago
zure lagun beti bidean.

JOANA

Eta neure gurasoak! Dударik gabe, haietaz Jainko maiteak arta hartuko du. Badakit, neure joaiteaz anitz sofrituko dutela!

[11^a]

SANTA KATALINA,
Santa Teresaren Glosaren airean

Ikusiz zure ama negarrez,
zure bihotzak jasanen du minez
eta behatuz aita xaharrari penetan²⁰,
zu ere izanen zara dolutan.
Baina, Jaungoikoa ona baita,
zure aitama maiteen lagun
izanen da Zeruetan.

JOANA

Enetako Jainkoa hoin ona baita, ni ere Harendako, berdina izango naiz. (*Fermuki*) Bai, joanen naiz hemendik, arrotzak Frantziatik haizatzeko. Gauza bat bakarrik dut behar: Jesus Kristo Jaunaren benedizioea eta Andredena Mariaren laguntza!

SANTA KATALINA

Goizeko izarra, Maria,
izanen da zure gidaria,
laster zure garaipen handien
indar eta argia.

Ap 22,16

¹⁹ "Amodio sari, amodio eman", ikus aita Pichon-ek Teresari idatzia (LC 82 eta 87) eta berak 1890ean kopiatu Bibliako pasartea: "*Ene maite-maitea guztiz maitagarria da, haren begitarre eroriak behartzen nau amodio sari amodio emaitera*" (TG 108).

²⁰ "Aita xaharra penetan": nola ez oroit Martin jauna, Teresaren aitaz?

[11ⁱ]

Bere distira agertuko duelarik,
argituko zaitu bere ospeaz,
bere ezin erranezko argiaz.
Itzalik gabe duzu ikusiko
izar ezti hura
zure begien aitzinean distiratzten
betierean Zeruetan.

JOANA, *zerura begiak altxatuz*

Noiz bada izar argi ezti hori dut ikusiko, zeruko saindu maiteak? Zuek baituzue ikusi zoin eder, zoin distirant den Maria, hari buruz gida nazazue laster. (*Apur baten buruan*).

Eta erradazue otoi, nola zerutik jautsi den Ama Birjina, Erregina eder hori, artzaintsa umil gaixo baten soleitzera eta Parabisuko bozkarioa hari somaraztera!

SANTA MARGARITA,
kantuz bururaino, "Seigneur, quand de ma froide couche" airean:

Ez harri, erregina bat jautsi delako
zurekin hemen solastatzeko.
Jaungoiko handia
zure arimari zaio ohartu.
Mariaren apaltasunak zuen lehen²¹
Jainko Erregea bere aldera deitu.
Zure bizi umilak du ere
zure aldera makurtu²².

Lk 1,48 [12^a]

JOANA

Gordea eta ezdeusa da ene bizia, ez nuen uste deus onik egiten nuela Jainko Onarentzat. Orain badakit zendako Jesus Jaunak nahi izan duen gabezian sortu, hain baitu apaltasuna maite.

SANTA MARGARITA

Sortu zen Jesus aberetegian,
Jainko Biziaren seme zen bizkitartean.
Bere ospe misterioa gordez
haur ttipiaren itxura hartu zuen.
Otalakoa zuen tronua;
urrezko zigorrik ez zuen
ez eta koronarik
ez kanpoko distirarik

Lk 2,7

Mt 16,16

²¹ Apaltasuna da Teresaren gai nagusietarik bat.

²² Teresak berak bere nerabezaroaz ari zela, 1895ean idatzi zuen honela: "*tipia eta ahula nintzelako apaldu zen bera niregana*" (A Esk., 49^a).

[12ⁱ]

Ezin zuten Serafinek sinetsi
 jautsi zela Jainkoa hain beheiti;
 ospez nahi zuten koroatu
 galdua zuten Errege handia,
 baina Jesus Haurrak xatarretan,
 argi ederrena baino,
 aingeruen garra baino,
 apaltasuna du nahiago.

Lk 2,7

JOANA

Nik ere nahi dut beti apal eta beti tipi egon²³, Jesusen eite izateko eta Hura ni baitan egoitea ardiesteko. O Saindu ederrak, zuen ahizpa deitu nauzuenak, zaint nazazue beti! Ez duket zuekin sekulan deusen beldurrik. Baina zuek gabe, ahul eta herabe ninteko, lehen bezala!

SANTA KATALINA

hurbiltzen zaio eta musu emanez kopetan kántuz hasten da

Zure ahizpa naiz eta laguna,
 begiratuko zaitut beti.
 Nire ondoan izanen zara
 betiereko Aberrian.
 Laster birjina taldeak
 ala diren goiko muinoek
 irekiko dizkizute beren iturri dibinoak
 kristala bezain garbiak
 eta bazter zabaletan
 zure lagunekin betan
 bildotsari jarraikiko zara
 kantu berri bat abestuz.

Ap 7,17

Ap 4,6

Ap 14, 3-4

[13^a]

SANTA MARGARITA:

Ordua joan zaigu
 zerurat itzuli behar gara.
 Ez lotsa haur maitea!
 Berriz etorriko gara
 Mikael Arkanjelu handiarekin
 etorriko gara zure benedikatzeko
 eta entzunen duzu aingeru ederra
 zuri joaiteko mezua ekartzen.

Sainduak urruntzen dira ; Joana so dago, beti belauniko.

²³ Jesusen eite izateko *umiltasuna*: beti gai bera da, TG 141ean (1893/04/25) eta TG 154an (1893/12/27) berdin emana.

[IX. AGERRALDIA]

JOANA *bakarrik*:

Jainko Jauna, zein zaren boteretsua! Herriaren salbatzera, igorri nauzu; haren-tzat amodio kartsu bat eman didazu. Orain ene bihotza bertzelakatu zait; suzko bilakatu.

Zure nahia, Jauna, badakit zer den eta hura nahi dut bete; baina xehetasunak ez dakizkit. Oi Mikael saildua, entzunaraz iezadazu berriz zure botza ! Orain ez dut ez ezpataren, ez gerlaren beldurrik. Zure suzko aurpegiaren distira jasan dezaket.

Erradazu arren nori behar naizen mintzatu gerla egiten ikasteko!

[X. AGERRALDIA]

[13ⁱ] *Mikael Arkanjelua agertzen da, lehen aldian bezala, eta Joana loriatzen da hura ikustean:*

MIKAEL ARKANJELUA:
 “Partez *hérauts*” airean

Behar diozu gure aldea gomendatu
 Baudricourt jaun bihozdnari,
 baina ustez ametsetarik zaren ari,
 ez zaitu behin entzun nahiko.
 Gero ordea Jaungoiko boteretsuak
 jaun handi horren gogo harroa du aldatuko
 eta zure menpera erakarriko
 zerbitzari umil batek bezala,
 Baudricourt-ek zaitu gerlako armatuko,
 eta ohorezko saldo batekin lagunduko:
 “Vaucouleurs” etik aterako dena,
 botzik eta harro zure zaintzeko

JOANA

Baina, Erregea, non kausituko dut? Ez dut ezagutzen, eta ez dakit zein hiritan bizi den!

MIKAEL ARKANJELUA

“Chinon”en ikusiko duzu
 gorte-gizonen erdian Errege premu.
 Jainkoak ezagutaraziko dizu:
 Nahiz den arrunt jantzia,

[14^a]

erranen diozu: " Aitonen seme Printzea,
handiki guztiak lekuko: Ori nere fedea!
Zure izenari dagokio boterea,
zu zara egiazko erregea!²⁴
San Luis eta Xarles Handia ez ote dira
Frantzia beren aberriaren alde
mendi gainean otoitzean ari?
Zurekilako denak gudari !

Ex 17, 9-13

JOANA

Sinetsi nahiko ote nau Erregek? Nola artzaintsa xume baten eskuetan ezar
armada osoa?

MIKAEL ARKANJELUA

Jainkoaren neskato bihotz handikoa,
Xarles VII.ak dizu ihardetsiko;
eta zure armada da handituko
errege handiena baino gehiago.
Joana, behar duzu laster
Orleans libratu,
agertu bezain sarri
Angelesa haizatu,
eta Reims hirian garaile sartu.
Ikurrina gora zure aitzinean,
ospatuko duzu handienean
zure erregeren sagaratzea.

[14ⁱ]

Orduan duzu, gerlari bihozduna,
beteko zure eginkizuna.
Ostearen artetik Aita zaizu hurbilduko
eta zaitu benedikatuko;
besarkatuz etxeokak gogoratuko.
Urrats guztien ondotik, hatsaren hartzeko,
aitzineko xokora biltzea duzu amestuko.

JOANA

Bai, Domremy ene herria beti maitatuko zaitut; zureganat itzuliko naiz Jainko-
aren nahia osoki beteko dudalarik. Orduan nahikunde bat baizik ez dut izanen gor-
derik egoitea eta Jainkoari bakarrik ohoreak uztea. Baina beldur naiz, Erregeak ez
nuenentz armadan atxikiko, erradazu otoi, Mikael Arkanjelua, zer behar nukeen
egin!

²⁴ Karlos VII. en zalantza gogorri ihardespina da. (DSA 3).

MIKAEL ARKANJELUA

Xarles-ek ez badu nahi
plazer egin zuri,
Joana, otoitz ezazu Jainko Ona
hari gomendatzeko geroa.

[XI. AGERRALDIA]

Mikael lekutu da. Joana geldi-geldia dago, miretsia. Artzaintsa ttipi batzuk heldu zaizkio ondora, arreguratuak:

[15^a]

GERMANA

O Joana, kasik bururatua da besta, uste genuen jinen zinela... baina azkenean, beldurtu gara ez zaizunez zerbait makur gertatu... Zertako holako kezka eman diguzu? Ez ote dakizu zonbat maite zaitugun?

KATTALIN

Joana, beraz ez zara jin! Bazeneki zer beldurra ukan dugun Hitz emana zenigun jinen zinela! Lehen aldia da hitza jaten duzula.

JOANA

Besterik ez nezakeen egin, baina nitaz ez izan kexurik; zoazte gostuan berriz bestara!

KATTALIN, *ahapetik*

Joana ez! ez naiteke berriz joan! Ikusten dut, ezohiko zerbait entzun duzula, zurekin egon nahi dut! (eta nigarrez hasten zaio).

JOANA

Germana, zoaz berriz bestara!; ohartzen ahal litezke ez zarela han. Ni egonen naiz Kattalinen aldean, ez baitaiteke ni gabe egon.

[15ⁱ]

GERMANA

Segeteru bat baduzula ikusten dut. Agian, egun batez, salatuko didazu. Ikus arte, Joana! Bihar artino!

JOANA

Laster arte, Germana!

[XII. AGERRALDIA]

JOANA

*Germana joan eta arkaitzaren gainean jartzen da,
bere ahizparekin eta erraiten dio:*

Kattalin ahizpa maitea, alegera zaitetz, Jainkoak, Franziaren salbatzeko, hautatu nau Jondone Mikael agertu zait, manatu nau Orleans hiriarren salbatzera joaiteko eta Reims hirian erregea sagarazteko.

KATTALIN, *harritua*

Beraz, joanen zara, Joana. Ez dakit non diren Orléans eta Reims... baina orain badakit joan behar duzula! Eta ni, eraman nazazu zurekin!

JOANA

Ez Kattalin, ez nauzu gerlara segitzen ahal, baina kotsola zaitetz, Jainkoaren nahia bete ondoan, berriz hor izanen naiz!

KATTALIN *nigarretan:*

[16^a]Joan nahi duzu! Ez nauzu beraz maite; bihozminez hilen naiz! Eta gaixo aitamak! Holako nahigabea ez dute sekulan jasanen!

JOANA *ilun:*

Dolu dut zuri ene segetua salaturik, eta negarrez arrarazirik. Ni ere negarrez ari izan naiz, Arkanjeluak joaiteko manatu didalarik. Beharrik Santa Katalina eta Santa Margarita ene soleitzera jin zitzaizkidan! Hitz eman didate begiratuko naute-la eta erran bertzalde. Jainko onak ene aitama maiteak ederki fagoratuko dituela, Jainkoaren hitzari osoki fidatzen naiz.

KATTALIN

Pena egiten dizut... beraz negar egitetik gelditzen naiz, orain badakit Jainko onak bisitatu zaituela, zure aurpegian ageri da.

JOANA

Orain, Kattalin etxera behar duzu bildu, amarengana, baina ez deus ere sala nehorri! Nihaurek erranen dizkiot behar direnak ene botzek didatelarik [16ⁱ] manatuko.

KATTALIN

Joana, berriz jinen ote zaizkizu zure botzak? Nik ere nahiko nituzke entzun, hain ongi kantatzen duten sainduen ikusteko!

JOANA

Zure aitzinean ez dute kantatuko. Ez dira ere enetako kantuz ariko, baina Frantziaren salbatzeko. Ni ez naiz tresna txar bat baizik, Jainkoak hautatua eta Hark gidatua haren lanaren egiteko.

1 Ko 1,26-29
Jn 4,34

KATTALIN

Joana, behar zaitut beraz utzi. Eta ez dezaket asmo hori irents. Ez joan bizki-tartean eni erran gabe!

JOANA

Ez Kattalin, hitz emaiten dizut; eta laster agian, Domremy herri maitera itzuliko naiz!

KATTALIN

Alta, Erregek ez zaituela utziko beldur naiz.

[17^a]

JOANA

Ahizpa maitea, geroa Jainkoaren eskuetan ezar dezagun. Lur honetan ez badugu elkar berriz ikusten, bederen bestean zeruko Aitak elkarretaratuko gaitu... eta sekulan gehiago ez gara berexiko eta biak betan loriatuko gara ene misione ederra bururaturik, fedea Frantzian begiraturik²⁵ eta denen buru, zerua hoinbertze hautetsiz beterik!

KATTALIN *Joana besarkatuz*

Dohatsu zara, Jainkoak baitzaitu hautatu... eta ni harro naiz zure ahizpañoa izaiteaz, nik ere nahi nuke ahal dudana Jainkoarentzat egin.

JOANA

Egon zaitetz beti garbi; bat egin Jainkoarekin, gisa hortan miragarriak, harentzat eginen dituzu. Gaixtaginak eta heretikoak garaituko dituzu eta zeruetan, nik bezala saria ukanen duzu; bide bertzelakoek helburu bererat helaraziko gaituzte. [17ⁱ] (*Ahizpa besarkatzen du*) Ikus arte, Kattalin! Neuretzat otoitz egin, eta Frantziarentzat! Harentzat jarriko naizelarik gudari.

²⁵ Teresaren ustez, Joanaren egitekoaren helburu berezia hau da (ik. DSA 3 ere). Behin eta berriz ekite hau ez da ulertzen, bere barruan, Ingelesa heretikoia zela pentsatuz baizik. Anakronismo honek luzaro iraun zuen uste batean izan zezakeen oinarria; horren arabera, Joana Ark-ekoari "atzerritarren haiztzera" eraginik, begiratu zuen alde zurretik Frantzia protestantismotik.

[XIII. AGERRALDIA]

Kattalin urruntzen da nigarretan eta Joana belauniko kantuz hasten "Pour-quoi m'avoir livré?" airean:

JOANA

Zuretako Jauna utziko dut aita
utziko gurasoak, herriko ezkila
zuretako, joanen naiz gerlara.
Zuretako utziko mendiak, ardiak,
bildotxak; kausitzeko gudariak.
Ori, ene bihotza ene 18 urteak,
zuretako Jauna hartuko dut ezpata
utziz pentze eta soro maiteak.

Nire boza, orai arte, haizearekin bazihoan eztiki,
orain, gudarien erdian, beharko da atera fierki;
iduri baitzuen lehen ametsetako zeinua,
orain armen arrabotsean jauziko da ene irrintzina.
Gurutzea dut desiratzen; maite sakrifizioa.
zatoz Jauna, prest naiz sofritzeko,
o Jesus Maitea, zuretzat bizia eskaintzeko.

[18^a]

[XIV. AGERRALDIA]

Mikael Arkanjelua agertzen da, bi saildurekin, berak ekartzen du ezpata, Santa Katalinak palma, Santa Margaritak korona. "Les Rameaux" airean:

MIKAEL ARKANJELUA

Joana, behar duzu abiatu,
Jainkoak zaitu armatu gerlarako²⁶
Jainkoaren Haurra, ez beldurrik izan hiltzeaz,
laster izanen duzu, igurikitzen duzun bizia.

SANTA MARGARITA

Haur maitea, Erregina izanen zara!

²⁶ Horrelatsu zuen Teresak aipu 1895 eta 1896an, 1886ko eguberrietan berari gertatu zitzaiona: "bere armez jantzi ninduen" (A Esk. 44^a) edo "berak ez banindu gerlako armatu" (TG 201). 1894an Teresak egin duen Joanaren historiaren hausnarketak, eragin du jakina bere bizitza propioaz eskaintzen duen berrirakurketa (A Esk.).

SANTA KATALINA

Ap 14,4

Jarraikiz Bildotsari, artalde sainduarekin

BI SAINDUEK, *elkarrekin* :Gu bezala kantuz ariz,
Jainkoaren goresteari![18ⁱ]

MIKAEL ARKANJELUA

Lk 10,20

Joana, zure izena zeruan da izkiriataua,
Frantziako salbatzaile guztien artean;
aulki bat Jainkoak begiratzen dizu,
saindu handienen erdian.BI SAINDUEK, *elkarrekin*Zaude zoriontsu,
zerutik, ekartzen dizugu

SANTA KATALINA

Ap 7,9

Martiren palma

SANTA MARGARITA

eta korona

Sainduak aitzinatzen dira Joanari, Palma et Korona emaiteko, baina Jondone Mikaelek ez ditu hurbiltzera uzten eta ezpata erakusten du, kantatuz:

MIKAEL ARKANJELUA

[19^a]Garaitu aitzin, behar duzu gudukatu,
ez har koronarik, ez palmarik!
Arma zaitetz Joana, bihotz handiko neskatxa,
har ezpata zuretako, Jainkoak emana.*Belaunikaturik Joanak ukaiten du ezpata. Eta xutitzen da, loriaturik hari so eginez eta bihotz gainean tinkatuz²⁷.*BI SAINDUEK, *elgarrekin*:Zurekin izanen gara Joana, batailetan;
gurekin beti irabaziko duzu,
eta gero guk zaitugu koroatuko.

²⁷ "Ezpata bihotz gainean tinkatuz": Itxura hori zuen Joanaren irudia bazeukan Teresak bere otoitz-liburuan eta hiltzeko bezperan ferekatu omen zuen amultsuki; (ik. DE, 824. or.). Jondone Mikaelen besta bezpera zen eta berak nahi zuela "armak eskuetan" hil, badakigu (TG 48, 5).

JOANA,
“Mignon sur la rive étrangère” airean

Zuekin, Saindu maitagarriak.
 Ez nau izutzen lanjerak;
 utziko ditut haranak,
 haizatzeko arrotzak.
 Maite dut Frantzia ene Herria,
 nahi diot fedea begiratu,
 bizia eskaini eta Errege salbatu!

[19^a]

Herioaren asmoak ez nau izutu.
 Betiereko biziaren nago aiduru,
 orain behar naiz abiatu,
 zuk Mikael kontsola ezadazu Ama,
 eta ni nezazula benedikatu!

Joana belaunikatzen da, benedizioea ukaiteko. Gero itzaltzen da.

[AZKEN HITZAK]

Mikael Arkanjelua, zeruari so eta kantuz, “Les Rameaux” airean:

MIKAEL ARKANJELUA

Ikusten ditut dohatsuak
 zeruan loriatuak!
 Eta Erroman Leon XIII. Aita Saindua,
 saindu berriaren ohoratzeraz deliberatua.
 Ikusten dut mundu osoak goraki aitortzen
 zoin Haur umil eta kartsua izan zen,
 Jainkoak berak Joanaren izena goresen!²⁸
 Egun horietan Frantzia izanen da penetan,
 fedegabeengatik nahigabetan.
 Baina Joana zeruetako izarra,
 izanen dute ararteko azkarra,
 lurrekoek otoiztuko dute
 eta hartan fede, amodio kausituko dute.

[20^a]

²⁸ 1909ko apirilaren 18an Pio X.ak zuen Joana Ark-ekoa dohatsuen lerroan jarri. Eta urte bereko urtarrilean Teresaren saindu onartze lehen urratsak emanak izan ziren.

HIRUEK elgarrekin

Joana, Joana, entzun gaitzazu!
Eta berriz Frantzia salba ezazu!

1894ko urtarrilaren 21ean.

DSA 2

1894-XII-25

[1^a]

J.M. J.T.

1894ko Abenduaren 25a

AIINGERUAK JESUSEN SEHASKAN

DOKUMENTUA: autografoa.- EGUNA: 1894ko urriaren lehen hamabostaldia, abenduaren 25erako.- KONPOSIZIOA: hitz lau eta hitz neurtuzko elkarrizketa (296) bederatzi airetan.- ARGITALPENA: HA 98, olerkiatalak, 261 lerro, beraietatik 69 zuzenduak; *Récréations*, 1985, testu osoa.

Aingeruak Jesusen sehaskan da Teresak Eguberriri buruz egin zuen lehen idazlana. Inkarnazioko misterioari eskaintzen zaion meditazioe bat bezala ikus daiteke: Maitasunak asmatu apaltasunezko miragarri bat besterik ez baita misterioa.

Aingeruei dagokiek gizonak *ulert* ez zezakeen ezin erranezko misterioa argitzea. Aingeruek digute beraz, beste nehon aurkitzen ez den karrarekin adierazten Jaunaren "*edertasuna*", "Jainkoaren ospea", "*Berboaren grazia gordea*", orai *haur* xume baten itxuran sartua, bihar "nigar eta odoletan nahasia", eta azkenean "*Eukaristian itzalia*" bezala.

Nola ez aipa ordea horrelako eskaintzari gizakiek eman erantzuna? Haien "eskergabeheria"? Eta hona non lau Aingeru kantariei jazartzen zaien Judizioko "Aingeru Mendekatzaillea". Honi doakio beste hots baten adieraztea. *Dies Irae* lazarri baten doinuarekin bezala, honela da mintzo: Gaurregun "*haur baten itxuran*" agertzen zaigu "*Jainko Maitea*", baina kasu! "*Azken egunean*" agertuko baita "*Jainko Mendekatzaillea*".

Beste lau "Aingeru fidelek" badakite "*lurreko bere haurrideen erosteko*" etorri dela Jesus mundura eta Jesus Haurrari berari dei egiten diote beren Aingerukide "*haserrekorra-*
ren" kontra, ezen aingeru on horiek "*beti gutaz arregura dira, sekula Jainkoaren begitar-*
tea ahantzi gabe", Teresak idatziko duen bezala (TG 254).

Orduan Jesus Haurrak berak, isilik zegoenak, botza altxatzen du jakinarazteko haren xedea dela gizaki guztiei, haur tipi hobengabeei, apezeei, (berdin ez hain kartsuei), justuei eta bekatoreei, nehor baztertu gabe, bere "*Amodio Handia*" eskaintzea. Horrelako eskaintza batek areagotzen du ordea Judizioko Aingeruaren haserre. Honi baitagokio "*gazitgatzea*", "*mendekatzea*", "*suntsitzea*" eta bere lanerako ezpata altxatua baitu jadaneko. Kontrako arma soila, Jesusek agertzen duena, bere maitasun asmoa besterik ez da. Eta haren asmoa ez

da bakarrik gizonen “*berrerostea*”, baina haien beren “*Jainko egitea*”, “*haiei eman ez bere bizia*”.

Hitz horiek entzutean Judizioko Aingerua bera “*harriturik*”, belaunikatzen da, eta bere Aingerukideek bezala, ez du bakarrik Jesusentzat amodioz “*hil nahi*”, baina Jainko Haurrak ireki duen haurraren apaltasunaren bidetik abiatzen da. Hari jarraikiz “*Serafinak*” ere lehia-tzen dira maila apalenera jaustera eta “*kreatura umilenak iduri haur bilakatzera*”.

Aitaren Berboa eraman du beraz bere bihotz onak haur bilakatzera Inkarnazioneko misterioa, eta Aingeruak ere antzerki honetan bide bera hartzera.

Bidexkanoaren atalatzean

Horretan dago Teresa 1894.eko urte amaieran, berak aitzineko udan ezagutu baitu zein den handia “*Jainkoaren maitasuna*” harentzat (KH 16.VII.2). Batetik bere aita maitea galdu duelarik, uztailearen 29an, adierazi dio, “*zuzen-zuzena zeruan sartu dela*” (A Esk., 82). Bestetik haren ahizpa maitea, Zelina, Karmelen sartu ahal izan delarik irailaren 14an, Teresaren bihotza atseginez gaingitu du Jainkoaren Urrikalmenduak.

Zelinenaren kaieran zegoen Bibliako bertsoa (Otoi. 9,4) eta DSA 2 antzerki-lana, biak batean gertatu zirela, hots 1894eko udazkenean, uste izateko da. Eta beraz Teresaren arimako bilakaeraren maila garrantzitsu baten lekuko izan dela *Aingeruak Sehaskan* antzerkia haurreko bidexkan sartzean (C Esk., 3^a).

Sei botzetan abesten den abesti honetan, Teresak bere serora lagunei parte emaiten die, bera hazten duten hazkurrien: Jesusen edertasun gordea miretsiaz, egunerotako jaunartzea amestuz, Jainkoa maite duen “*arima tipierna*” preztatuaz. Ez da oraino espreski aipu ez “*hautasun izpiritualik*” ez “*urrikalmenduzko maitasunik*”, baina bata ala bestea hurbil dira sendi antzerti baino teologia gehiago daukaten agerraldi ezberdinetan. “*Bidexka*” berezi hura sortzera doan unean, laster agertuko diren gai nagusien lekuko ditugu *Aingeruak Jesusen sehaskan*: urrikalmendua, gabezia, haurtzarora. Hauek dute eta berrituko Teresaren Karmelgo bizia 1895ean barna.

JOKALARIAK

Jesus Haurra¹ - Jesus Haurraren Aingerua - Aurpegi Sainduaren Aingerua -
Berpiztearen Aingerua - Eukaristiaren Aingerua - Jujamenduko Aingerua.

[I. AGERRALDIA]²

JESUS HAURRAREN AINGERUA
Intsentsua eta loreak eskutan,
Kantuz ari da "La blonde enfant de la colline" airean.

O Berbo Dibinoa, Aitaren ospea³,
miresten zintudan⁴ zeruan,
orain zaitut ikusten lurrean,
Goi-Goikoa hilkor bilakatzen
haur batek argiz betetzen
aingeruen egoitza ederra.
Jesus heldu munduaren salbatzeko,
nork du zure amodioa ulertuko?

Jn 1,1
Jn 1,14

Errepika

O Jainkoa, zu troxetan,
aingeruak dira bozkariotan
eman zara haurraren itxuretan
ahozpez jartzen naiz ikaretan

Lk 2,7
Jn 1,1

Nork konpreni misterio hori?
Jainkoa haur bat iduri?
Desterruz heldu lur hontara
hura Betierekoa den Puxanta!
Jesus Jauna, edertasuna⁵ bera

¹ *Jesus Haurra* 60 zentimetro dituen igeltsuzko irudi bat da, bere igeltsuzko sehaskan etzana. Hainbat serio emaiten du. HA 1912ko ohar baten arabera, Teresak berak bete zuen "*Jesus Haurraren Aingeruaren*" papera.

² Eskuizkribuan ez da markatzen ez zatirik ez agerraldirik, baina egoki dirudi 5 agerraldi bereiztea, argitalpenean egin den bezala.

³ Teresak ez du galtzen Jesusi zor dion begirunea eta DSA 2 honetan sei aldiz "*Berboaz*" hitz egiten badu ere, hemen du bakarrik behin "*Aitaren Ospea*" aipatzen.

⁴ "*Mirestea*": Aingeruen eginkizun nagusia eta beraz hitz garrantzitsua, DSA 2 honetan.

⁵ "Edertasuna", maiz aipatzen du Teresak eta bereziki DSA 2an. Bere "*edertasuna*" itzaliz baitu Jainkoak agertzen gizonarentzat duen amodioa.

zure amodioari ihardestera,
 zonbat zaitudan maite erakustera.
 Lehiatzen naiz beti zuri segitzera
 zure troxen distirak
 liluratzten aingeruak.
 Berboa Haur egina,
 ikaraz heldu naiz zugana,
 nigarretako mendiarteak
 hartuz geroz gure erregea,
 ez du grazia bera enetzat zeruak,
 hegaldatu naiz Jesus, zugana,
 nahi zaitut nere hegalez estali,
 beti zuri nahi dut jarraiki,
 eta lore⁶ ederren ederrenak
 zure bidean ditut ereinak.

Jn 1,1
 Sal 83,7

[1ⁱ]

Sal 90,4

Nahi dut izar distirant batekin
 ohako bat zuretzat egin
 eta elur xuri garbiz
 mantalina pollit bat josi.
 Nahi ditut urruneko mendiak
 zure heinerat apaldu.
 Nahi ditut bazter guziak
 zeruko lorez bete.

Is 40,4

Lorea da Jainkoaren irria,
 zeruko oihartzun berezia,
 liraren oihartzun iheskorra,
 Jainkoak eskutan atxikia,
 Kreatzailearen soinu goxoak,
 eta haren boz misteriozkoak,
 nahi ditu zuretzat eman kantuak,
 o Salbatzailea!
 Kanturik eztiene,
 soinu goxoena,
 loreen isiltasuna,
 Jainkoaren handitasuna.

[2^a]

Badakit zoin diren zure lagunak,
 Jesus, lore maitagarrienak:
 Heldu zara Zeruko pentzetarik
 zure arriben arimez urrikaldurik.

⁶ DSA 2an hamabost aldiz aipatzen ditu Teresak hain maite dituen "Loreak". TG 51, 1en mintzo zen jadanik "Arrosa hostokatuz".

Arima bakotxa da usain gozozko lorea⁷,
 haurño bat dator zu bildu nahiz,
 Jesus, mendiarteko lore berezia
 zu bezalako loreentzat emaitera bizia!

Kt 2,1

Ezin erranezko Misterioa!
 Berbo adoragarria!
 Nigarretan da hartzekoa
 biltzean bere uzta lorezkoa...

Jn 1,1

*Aingerua gelditzen da ixtant bat
 eta Jesusi buruz ukurtuz erraiten dio.*

O Jesus Maitea! Zertako irri xoragarri hori, ihardesteko neure kantuari, negar solas mintzo naizelarik? O haur ezta!.. Konprenitzen dut zure behakoa⁸. Nahi zenuke jadanik zure ohakoa utzi, loriatu zaituzten loreen biltzen hasteko... Damurik! laster beharko duzu urrundu zure heia xuhur hortarik, lur honek eskaini dizun egoitza bakar hortarik. Utziko duzu, zure erregetasunak bere tronuan ikaran ezartzen duen printze hilkor batengatik. Baina Egiptorat itzultzean bilduko duzu primaderako lore uzta nasaia. Zure adineko haur uros guztiek errezebituko dituzte bere korona xuriak zure hemengo itzuli laburrarengatik merexituak. Bildots inozent horiek beren egun bakarretako bizia sakrifikatuko dute zuretzat, Jesus, Zu biziaren sorgia. Baina ordainez haien eskuetan ezarriko duzu garaitzaleen palma eta eternitate guztian, oste grazios hori da zure oinetan jostatuko, o Jainkoaren Bildotxa!

Mt 2, 13-15

Mt 2, 16-18

Ap 7,9

Hola Herodesen basakeria trufatua izanen da. Zure erresuma suntsitu nahiz, zuri dizu aitzinerat igorriko martir saldo hori zure gordea eginen duena.

O Jesus! zoin goxo izanen zaidan zure garaipenaren mirestea! Zoin laster dudan abisatuko Jose zintzoa, jinen delarik zure berriz zerurat itzultzeko denbora. Eta nik dut zure Ama soleituko, bidaiako akiduretan.

Mt 2, 19-21

Palmondoen itzalean, arratsetan, sehaskatuko zaituelarik loakarazteko, hor izanen naiz zuen begirale, urrunduz gauezko beldur eta lanjerrak... Goxoki kantatuko ditut zeruko kantikak eta loan sartzen ikusiko zaituztedalarik, Berbo Eternoa eta bere Ama agurgarria, neure hegalez inguratuko zaituztet, desertuko freskuratik begiratzeko.

Sal 90,5

Jn 1,1

Aingerua gelditzen da apur bat, eta honela segitzen du.

[2ⁱ] O Jesus ezta! zertako geroaz mintza jadanik? Egund batetako haurño bat zara oraino... Ah! utz nazazu zure goxotasun eta grazien kantatzerat.

⁷ Baratzako loreetarik iragan gara "arimako" loreetara: Ikus laster hasiko duen Eskuizkribuaren sarreran idatziko duena: "Jesusen baratza da arimen mundua" (A Esk., 2ⁱ).

⁸ "Behakoa", haur sortu berriarentzat ez da besterik, baina Teresarentzat anitz erran nahi du behakoa batek (TG 85, 96, 106, 154, 163, 235; A Esk., 56ⁱ, 67^a; DSA 3, 11^a 21...).

Aingeruak kantatzen du "L'encens divin" en airean:

Jesus Haurra zoin da zure soinua
erakutsiko duena zure edertasun goxoa?
Lore xarmanta doi-doia idekia
nork du kantatuko zure usain goxo eta kolore xuria?
Ez da lirarik
aski ezirik
erran dironik
zure grazia.

Kt 2,1

[II. AGERRALDIA]

Aingeru bat hurbiltzen da Pasioneko tresnekin. Erakusten dio Aingeru Zaintzaileari⁹ oihal bat markatua Jesusen aurpegiarekin. Honek loriaturik behatzen dio itxurari.

JESUS HAURRAREN AINGERUA

Oi! neure anaia! Zer da itxura eder hori? Jesus haurraren paregabeko begitar-tea ikusi ondoan, ez nuen uste gehiago deus hoin ederrik ikustea lurrian, baina oihal horren misteriozko distirak erakusten dit Jesusen edertasun berri bat.

AURPEGI SAINDUAREN AINGERUA
(Kantatuz "L'encens divin" airean)

Zeruetako aingerua, lira dugu itxuretan
Jesusen xoramenak badakizki emaiten kantuetan.
Musika goxo bakarra erraiten ahal duena
zerurat deituen lorearen edertasuna

Kt 2,1

Jainkozko aurpegiak,
ezeztatzen du argia,
zure edertasunak
xoratzen aingeruak.

*Aingerua belauniko emaiten da Jesusen aitzinean
eta hari buruz ahozpezt jartzen.*

Jesus Jauna zure biziko goizean
zure begitarte ederra nigarrez beterik,

⁹ "Aingeru Zaintzailea" ezarria zuen behin ustegabetarik Teresak "Jesus Haurraren Aingerua"ren orde.

amodiozko nigarrak zure aurpegiak,
doloretako gaueraino isuriko dira.

Jainko aurpegiak
ezeztatzen du argia
zure edertasunak
Xoratzten aingeruak.

[3^a]

Jesus, ezagutzen dut itxura hortan
zure haur-aurpegi garbi eta saindua
ezagutzen dut zure begitarte hortan
odolezko mantalinen asmua

Jainko aurpegiak
ezeztatzen du argia
zure edertasunak
xoratzten aingeruak.

Azken Kopla

Jesus ona min duzu bihotzean
zure behako eztiak geroa du sendi¹⁰
nahi duzu jadanik edan kopa kiratsean
zure amodio betean hiltzea duzu amesten

Lk 22,42

Amets ezin erranezkoa,
egun bakarreko haurra,
aurpegi adoratzekoa,
zuk didazu pizten amodio sugarra.

JESUS HAURRAREN AINGERUA

O Jesus! Bai zure aurpegiaren argiak¹¹ histen du zeruetako distira. O gizonen miretsiko dutelarik zure edertasuna, segidan emanen dizkizute beren bihotzak eta zuretzat dira bakarrik biziko.

AURPEGI SANTUAREN AINGERUA

Damurik ene anaia! Ez duzu ezagutzen gizonen eskergabekeria? Ez dakizue zer errana duen Isaias profetak¹², haren begi sarkorrak jadanik ikusten baitzituen Jesusen dohain gordeak. Erraiten zuen: "Ez du deus edertasun berezirik; distirarik gabe ikusi dugu. Ez zuen deus gure behakoa tiratzen zuenik eta ez dugu ezagutu

Is 53, 2-4

¹⁰ "Geroa du sendi" Teresaren arabera, Jesusek sortzetik *denak badakizki* (DSA 6, 4. Ager.).

¹¹ Jesus Haurraren aurpegian nabari da Berboaren Ospea, eta Teresaren arabera, "Zeruen distirak" ez du nehoiz itzaltzen Jesusen "edertasun miragarria" (TG 95).

¹² Isaias-en pasarte honetaz ikus TG 108 eta KH 5,8, 9.

ere. Iduritu zaigu mesprezagarri zela, gizonetan azkena, doloretako gizon bat, pairatzea zer den dakiena. Haren begitarrea zen gordea bezala. Mesprezagarria zen eta ez dugu ezagutu. Lepradun bat bezala estimatu dugu. Jainkoak gaztigatu gizon bat bezala”¹³...

[3bis^a]

Is 63, 1-3.5

Hau zoin da Edom eta Bosratik heldu dena, bere jantzi gorrailarekin? Zoin da hau bere arropa ederretan aitzinatzen dena, indar berezi batean?

Ni naiz, Hitz xuxena duena, heldu naizena zaintzeko eta salbatzeko. Zertako bada zure arropa da gorri-gorria eta zertako dira zure jantziak arnoa egiten duten heinak bezalakoak? Bakarra izan naiz arnoaren egiten, bertze gizon bihirik populu guztietarik ez da etorri nire lagun. So egin dut neure itzulian eta nehor ez zen ene laguntzeko. Bilatu dut eta ez dut sokoririk kausitu!

[3^a jarraian]

JESUS HAURAREN AINGERUA

O Jesus holako amodioa ez ote da ezagutua izanen¹⁴? (*Ukurtzen da Jesus Haurraren gainerat. Isiltasun luze baten ondotik, berriz hasten da Pasionekeo tresnak ikusirik. Hauek Aurpegi Sainduaren aingeruak ditu atxikitzen:*). O Haur Dibinoa zertako zure behako ezta pausatzen da kurutze horren gainean? Zertako irri egin korona bortitz horri? Ah! otoi utz nazazu zure zerura eramaiterat, lur honek ez dizu dolorerik baizik eskaintzen...

Mt 27,29

Baina ez! Ikusten dut zure haur behakoan, kurutzeak baduela zuretzat balio gehiago zeruko tronu eternalak baino. O Jesus, ez nezake konpreni zer amodio iza-ri gabekoak zaituen jautsarazi lurrerat¹⁵. (Aingeruak negar egiten du¹⁶).

[3¹]

AURPEGI SAINDUAREN AINGERUA
Pasionearen airean kantatzen du.

Serafin, negar egizu isiltasunean
ikusten duzu haur ttipi hori
kurutze lantza eta elorri pean
amodioak dio emaiten poz hori.

Jn 19,34

¹³ Isaias 63ko pasarte hau beste parper mutur batean zegoena (ik. 24. oharra) hemen sartu dugu, ez jakinik ere ea egiazki antzerkian emana izan zen.

¹⁴ Amodioaren ez ezagutze horretatik sortuko zaigu zenbait hilabeteren buruko Amodio Urrikal-mendutsuari Eskaintza (A Esk., 84^a).

¹⁵ 1894. urte horretan Teresari maiz gogoratzen zaio Elizaren Gurasoek grekeraz “Kenosis” edo “Hustuketa” deitzen zuten misterioa (ik. DSA 1, 7^a 1-4 eta 12^a eta oharra). Baina DSA lean “apaltasuna” delarik aipatzen, DSA 2an “neurri gabeko maitasuna” da azpimarratzen. Zenbait astean buruan A Esk. an aurkitzen dugu aldiz honela: “maitasunari baitagokio bere burua apaltzea” (2^a). Ikus DSA 4, 25. berts.

¹⁶ “Nigar” horiek ez dira alegiazkoak (ik. *Récréations*, 293. or., 5ⁱ 22ko oharra), aingeruak (hots Teresak) nigar egiten duenean “maitasun ez ikusia” gogoratzean. Mari Madalena Teresaren serora lagunak, hura hil ondoan egin zen “auzian” salatu zuen “halakoaldi batez, haren gelan zegoelarik, Teresak erran ziola, ezinerranezko doinu batekin “Jainko ona ez dugu aski maite! Hain da ona bizkitartean! A! hila banintz!” eta nigarrez marrumaz hasi zen. Harriturik so egon nindakion, horrelakorik izan zitekeenentz, ez bainuen uste bazegoela Jainkoaren amodio hain bortitzik” (PO, 478 h. orr.).

Jesus Haurrari buruz itzuliz:

Damurik, zertako naiz aingeru ezin duket sofritu¹⁷.

Jesus zurekin nahi dut trukatu; zuretzat nahi dut bizia galdu

JESUS HAURRAREN AINGERUA

O Jesus! Hiltzen beharko zaitut bada ikusi? Zure haur denboran hola zaindu ondoan, kenduz Herodesen basakeriari, ez ote zaitut orai kentzen ahal herioari? (*Ukurtzen da Jesusi buruz*): Haur Dibinoa, banekike neure hegalez zure ontsa estaltzen. Banekike zure arrosazko korona bat egiten, gaixtoek aldiz nahiko dute zure kopeta elorritz inguratu (*Aingeruak musu egiten du Jesusen kopetan*).

Mt 2, 14-16

Sal 90,4

AURPEGI SAINDUAREN AINGERUA

Beronikaren oihala erakutsiz.

Neure anaia, so egizu hoin eder iduritu zaizun itxura huni. Onets ezazu ez diotela arrosek eman Jesusi holako edertasuna. Ez dakizu zeruetako erregeak badituela milaka aingeru osteak zaintzen ahal luketenak eta bere hegalez estaltzen. Baina Jesusek nahi du sofritu, nigar egin bere lurreko anaien salbatzeko!!!

Mt 26,53

Sal 90,4

JESUS HAURRAREN AINGERUA, *trixteziarekin:*

Damurik! Beharko du beraz Jesusek, mendiarteko lore ederrak [4^a] xixtapean xehaturik erori? Beharko ote da ene usain gozozko lorea gaixtoen eskuetarat utzi? (*eta negar egiten du*).

Kt 2,1

Mt 27,29

AURPEGI SAINDUAREN AINGERUA, *ixtant baten buruan.*

Kontsola zaitetz Aingeru Ederra, gure lore ederraren usaina ez da debaldetan hedatua izanen, arima on andana bat ernatuko da horren biltzerat. Beren Maitearekin Mirraren mendia iraganen dute, Harekin sofrituko dute, Haren aurpegia xukatu-ko dute eta Haren negar preziatuak ikusiz oihu egingen dute:

Kt 4,66

“O Jesus! zoin ederrak diren perla horiek zure aurpegian!”

Zure begi estalietan dirdiratzten dute,
zeruko izar pindarrak iduri,
bozkarioa sorrarazten dute,
negar batek zerua ere histu du...”

JESUS HAURRAREN AINGERUA

Bai, Jesusen negarrak dira zerua baino distirantago eta izar ihintza baino ederrago... Baina, ere dolorea handitzen duena, da, pentsatzea, egun batez Haur aurpe-

¹⁷ “Damurik” horrekin bere denborako idazle zenbait bezala mintzo zaigu Teresa. Ikus DSA 5, 1^a 30; TG 3, 96; KH 16, VIII, 4.

Mt 27,60 gi goxo hori, gordea izanen dela hobi batean... Orduan, nor ikusiko du?... Nor kausituko da hor horren negarren xukatzeke? Mariak berak ere ez du gehiago miresten ahalko bere Haur maitearen begitarte pollita (*Aingeruak berriz negar egiten du*).

[III. AGERRALDIA]

AINGERU BAT *heldu da Piztearen banderarekin,*
"Je suis du Ciel le joyeux messenger" kantuaren airean:

Ez gehiago negar egin, Jainkoaren Aingerua
 zerutik naiz heldu zure bihotza dadin goxa;
 haur ahul hori izanen da
 egun batez guztiz puxanta,
 berriz piztuko baita¹⁸
 eta denen errege bilakatuko.

Mt 28
 Lk 1,33

[4¹]

Jesusi. (Errepika).

O Jainkoa haur baten itxuran gordea¹⁹,
 ikusten zaitut bozkarioz betea,
 eta jadanik zu zarela garaitzalea,
 altxatuko dut hil hobiko harria,
 eta berriz miretsiz zure aurpegia,
 kantuz ariko naiz,
 bozkariotan sartuko naiz
 nire begiek ikustean
 zu lorian berriz piztean.

Is 45,15

Errepika

O Jainkoa haur baten itxuran gordea
 ikusten zaitut bozkarioz betea
 eta jadanik zu garaitzalea.
 Ikusten ditut Jainkoaren ospeak distiran:
 Zure haur begiak bustiak negarretan,
 Jainkoaren Berboia,
 zure hitz suzkoa
 egun batez altxatzekoa,
 amodioz erretzekoa.

Jn 1,1
 Lk 12,49

¹⁸ Ez da maiz mintzo hemen bezain argi Jaunaren Berpizteaz. Ikus haren "Bazkoko bat etortzea" (BT, 183 hk. orr.).

¹⁹ "Jainko gordea" ren misterioa da DSA 2 honen gai nagusietarik bat.

Errepika

O Jainko gordea,
zerurat altxatua
ene begiek zaituzte ikusten
loriazko zerutik manatzen.

Mk 16,19

[IV. AGERRALDIA]

EUKARISTIAREN AINGERUA *aitzinatzen da*
Kalitza bat eskuan, Ostia dirdiratsu batekin. Kantuz ari da.,
“Sur terre tout n’ est pas rose” airean.

[5^a] 1

Mirets ezazu ene anaia Aingerua,
Jesus altxatzen zeruetara
ni heldu naiz lurrera
aldarean adoratzer
Eukaristian estalia²⁰
ikusten dut Jainko bizia
biziaren sorgia
haur bat baizen ttipia.

Mk 16,19

Errepika

Oraindanik aldare aitzinean
nahi dut egin ene egoitza
eta Jainkoari otoitzean
erakutsi ene amodioa.

2

Ene liran nahi dut kantatu,
Jainko gordea benedikatu,
haren edertasunak nau xoratu,
amets saindu batean sartu.
Ah! Tabernakle hortan
amodiozko Jainkoa banu hazkurri!
Mirakuilu goxo bat dadin gerta,
egun oroz nadin Harekin bat egin²¹!

Is 45,15

²⁰ Jesus “Guzizahaltsua” “Eukaristian gorde” daitekeela aipatu zuen Teresak bere ahizpa Zelinarekin 1877an, beren arteko lehen teologiazko eztabaidak izan zituztelarik (A Esk., 10^a) Gai bera hartuko du bere azken iduria margotuko duelarik 1897an, “Eguberriko Ostia”. (CG 1281. or.); ik. *Poésies* II, 174. or.

²¹ “Egun oroz nadin Harekin bat egin!” Aingeruaren amets hori ez zuen Teresak asmatu; aski ezaguna zen orduan; baina horrela berak salatzen digu eguneroko jaunartzea zuela berak amesten. Ikus A Esk., 48ⁱ eta Eskaintzaren Ekintza, Otoi. 6.

Errepika.

Edo bederen arima sainduari
nahi dut eman ene kar hori
ez dezan izan beldurrik
Salbatzaileari hurbiltzetik.

[5]

AURPEGI SAINDUAREN AINGERUA

Jesus Jauna horra beraz zure amodioaren azken muga. Kreatura ahulei erakutsirik zure Itxura adoragarria, aingeruek doi-doia miresten ahal dutena, orain gorde nahi duzu, oihal lodi batekin, gizon izaita baino gehiago. Baina Jesus Ostia Sainduan ikusten dut zure aurpegi miresgarria! (belauniko emaiten da Ostiaren aitzinean). Enetzat ez dira gordeak zure itxura xarmagarriak. Ikusten dut zure behako sarkorra arima garbietan sartzen eta gomitatzen gaituzu zure errezibitzera. Harri xilotan, urtxoa gordetzen den bezala zaituzte zure espos lagunek xerkatuko. Ikusten ditut haien bihotzak zuri buruz itzultzen eta zure tabernakle sainduaren geriza bilatzen.

Kt 2,14

Sal 26,8

JESUS HAURRAREN AINGERUA

O Haur Dibinoa! Behere hontan nahi duzu bada zure egoitza segurtatu?... (Behatzen dio Berpiztearen Aingeruari). Duela ixtant bat aingeru batek kantatzen zuen fitexko berriz altxatuko zinela zure Aitaren eskuinerat, behin betikotz zeruko erresumaren gobernatzeko... Noiz bada ikusiko zaitut zure tronuaren gainean?

Mk 16,19

Mt 25,31

Mt 6,10

1 Ts 4,17

Ap 10,6

Jesus nahi nuke zure erreinua etor dadin, hautetsi guztiak ager daitezen fitexko airean, zure aitzinean hegaldatzen direla, aingeru batek errana baitu "Ez da gehiago denborarik"...

[V. AGERRALDIA]

AZKEN JUJAMENDUKO *Aingerua aitzinatzen da ezpata eta piztuak eskuetan, kantatzen du "Minuit, chrétiens - Gauerditan Aingeruek" airean.*

Is 63,4

1

Jinen da mendekioaren eguna
mundua suan pasatuko duena.

2 P 3,7

[6^a]

Hilkor guztiek entzunen jujamendua
Jainkoaren ahotik ateratua;
orduan dugu ikusiko haren ospea,
ez haur baten itxuran gordea,
hor izanen gara kantatzeko bitoria,
goraki erraiteko nor den Guztiz Ahaltsua.

Mt 25,31

2

(Jujamenduko Aingeruaren bigarren kopia)

Aurpegi Sainduaren Aingeruaren irudiari buruz itzulirik emana:

Negar eta odolez bete diren begiak
 hartuko ditu ezin erranezko dirdirak:
 Ikusiko dugu, Aurpegi adoratua
 bere ospe guztiak hartua
 lanopetik zaigu agertuko
 Jesus kurutzeak markatua
 orduan dugu ezagutuko
 bere mintzotik... Juje eta Errege Hura.

Mt 24,30

3

Lur hontako jendeak ikaratuko zarete
 zuen hondar egunean daldaran ariko zarete.
 Nola atxik orduan hasarrea,
 amodiozko Jainko den Haur harena?
 Zuentzat, hilkorak, hautatu du sofritzea;
 galdegiten zuen bakarrik zuen bihotza;
 jujamenduan ikusiko duzue haren puxantzia;
 Jainkoaren aintzinean zer den ikaratzea.

AINGERU GUZIAK *belauniko*, *Jujamendukoa salbu*,
 kantuz ari "O Cœur de notre aimable Mère" airean:

Oh! Jesus Jauna,
 entzun otoitza
 zure Aingeruena,
 zu gure erospena,
 har hautetsien aldea

Errepika

Zure eskuz hauts ezazu ezpata,
 ezti ezazu aingeru horren haserrea!
 O! Haurra! zure boza altxa dadila,
 salbatzeko bihotz ezti eta umila.

Mt 11,29
Sal 75,10[6ⁱ]

JESUS HAURRAREN *botza*
entzuten da orai eta Jujamenduko Aingerua belaunikatzen da;
"Rêve, parfum" airean kantatzen da.

1

Kontsola zaitezte zuek, aingeru leialak,
 zuek izan zarete lehenbizikoak,
 ene gainerat hedatzeko zuen hegalak,
 orain entzunen dituzue ene xaramelak

Sal 90,4

Lk 2, 13-14

- 2 hautasunean gordea
ezagaturik zuen erregea
kantatu duzue ene sortzea
hegaldatuz ene aitzinerat.
- 3 Maite zaituztet zuek, sugar garbiak,
zeruko egoitzako aingeruak,
baina zuek bezala maite ditut arimak,
haientzat amodio handia badaukat.
- 4 Nihaurentzat ditut eginak,
ezin aseak egin haien gose guztiak²²
ni maite nauen arima ttipiena
ene parabisu da bilakatzen.

JESUS HAURRAREN AINGERUA

Jesus Jauna, zoin goxo eta loriagarria den zure haur boz hori Zeruko soinu guztiak ez daitezke konpara zure hitz bakar bati! O, haur ederra! entzun neure otoitza²³, ken ezazu desterrutik arima inozent andana bat zure eite duena. Bil itzazu lore horiek, ideki aitzin, han egonez histuko baitira. Bataioko izar ihintzak haien bihotza garbitu orduko, Jesus zure esku ttipia erna dadila haien landatzeko zeruetako baratzean.

JESUS

- 5 O! ene hurreko aingeru ederra,
beteko dut zure desira,
jakinen dut zaintzen garbi
haur ttipien arima.
- 6 Bilduko ditut argi hastean
direlarik oraino pottoinean,
zabalduko dira zeruan
ene bihotzaren argi azpian
- [7^a] 7 Oraino izar ihintzez beterik,
mila argiz dirdiraturik,
horiek eginen dute zeru zolan
izarrarteko bide xuria.

²² *Eskaintzaren ekintzan* Teresak erranen du laster "Ene bihotzean sendi ditut lehia mugagabeak" eta zuzenduko dizkio zentsoreak emanez: "lehia handiak" (ik. Otoi. 6, 37. oharra).

²³ Teresaren otoitza du bai erraiten Aingeruak: ikus Otoi. 13: "Otoi deit itzazu zeruko bozkariora haur-tipi saldo handiak!". Otoitz hori ulertzeko, irakurri behar da DSA 6, 8/9^a eta ere gogoan hartu lehenik etxeko kasu berezia, ahizpa Zelinak eskainiak baitzizkion bere bestakari tipi-tipitan galdu lau haurrideen argazkiak; gero oroitzeko da XIX. mendean hiltzen ziren hainbeste haur sortu berriez, Teresak ez baitzuen nahi bihi bat bataiorik gabe geldi zedin; eta orozgainetik, "obrarik gabe" salbatzen diren haur tipi horiek adierazten diote fededunari zein indartsua den grazia.

7 [bis]

Nahi ditut ene koronarentzat loreak,
ni Jesus, zeruko soroetako lirio ederra,
nik nahi ditut lirio distiratsuak
moldatzeko ene tronua.

Kt 2,1

AURPEGI SAINDUAREN AINGERUA

[3 bis^a] Haur Dibinoa entzun ere ene otoitza. Ikusten ditut gero zernahi arima zuri konsekratuak, ezin erranezko lokarri batzuez bilakatuko direnak zure espos maiteak. Baina lurreko aingeru horiek gorputz hilkor batean izanen dira eta bultaka zureganako oldarra eztituko zaie. Maiz haien jantzien xuria lurreko errautsek histuko dute.

Jesus, ikusten ditut oraino arima gehiago, zutarik urrunduko direnak. Haur prodigioa bezala, beren zorionaren bila joanen dira beren Aitaganik urrun. Zure gerizapean, o ene Artzain ona, egoiteko orde, ardi gaixo horiek galduko dira laparretan. Baina, zorigaitzak zuri hurbilduko dizkizu berriz; oroituko dira Jainko Semea ez dela bakarrik xuxenen deitzeko jina baina ere bekatorosendako. Zoriona handiago da zeruan, konbertitzen den bekatoros bakar batentzat ezen ez eta laurogeita eta hemeretzi penitentzia beharrik ez dutenentzat. Madalenak bezala bekatoros izan ondoan, ainitz maitatuko zaituzte. Arima horiek zure aurpegia bilatuko dutelarik, zure segetuan gordetzerat jinen direlarik, zure izen dohatsua aipatuz, otoi, Jesus, zure behako batez ezar itzazu zeruetako izarrak baino distirantago²⁴.

Lk 15,13

Lk 15,4

Mt 9,13

Lk 15,7

Lk 7,47

Sal 26,8

Sal 30,21

Eg 2,21

[7^a jarraian]

JESUS

8

Zuk ene aurpegia miresten duzunean
amodiozko zoramen batean
ene itxura begiratzekotan
zeruko egoitza utzi dudanean.

9

Zure otoitza nahi dut onartu;
arima guztiei nahi diet barkatu:
Argiz ezarriko ditut beterik,
neure izena deituko dutelarik!

Eg 2,21

10

O! Zu, lurrean nahi zenuena
ene dolore eta kurutzean parte hartu,
aingeru ederra, entzun misterioa,
zure arreba da pairatzen duen oro.

11

Zeruan haren sofrikario miresgarria
zure kopetan izanen da ageria
eta zure garbitasun altxagarria
izanen da martiraren argia

²⁴ Pasarte hau, paper bereizi (3 bis^a) batetik dator: Aigeruaren otoitzak lehenbizian "arima sagaratuak" zituen bakarrik aipu, baina "lurreko aingeruen" artetik sartzen ditu gero Teresak "bekatoreak"; denek "Jesusen behako soil bat" aski baitute "Zeruko izarrak baino argiago" bilakatzeko (ik. *Eskaintza-ren Ekintza*). Paper osagarri honen data ezartzeko, ik. *Récréations*, 302 eta 314. orr.

[7ⁱ]

EUKARISTIAREN AINGERUA

Jn 6,51 Ogi bizi, zerutik jautsia! Urrezko mulkoa! Birjinen hazgarria, entzunaraz ieza-
 Za 9,17 dazu otoi, zure boz ezitia, niri menderen mende aldarean adoratuko zaitudanari. O
 Jn 1,1 Berbo Dibinoa, amodioak isilik egoitera ekarria, aldaretako ministroek behar lukete
 Lk 2,7 samurtasunik aski zure hunkitzeko²⁵, Mariak zu troxatzean bezala. Baina damurik
 Is 45,15 biziki usu zure amodioa ez da ontsa ezagutua izanen eta zure apezak ez dira gai izan-
 nen. O Jainko gordea! Erradazu zer egiten ahal dudan zure soleitzeko.

JESUS

- 12 O Eukaristiaren aingerua,
 zuk duzu ene bihotza berotua
 bai zure eztitasunezko kantua
 aski zait izaiteko kontsolatua.
- 13 Arimei emaitiaz naiz egarri,
 baina asko dira emanak lasaikeriari,
 Serafin! emozue zure kar hori,
 zure kantu goxoa izan dezaten gidari.
- 14 Nahi nuke Apezaren arima²⁶
 balitz zurearen idurikoa
 nahi nuke berriz sortzen ahal balitz
 aldarerat igan aintzin!...
- 15 Mirakuilu hori erdiesteko
 behar litezke betiereko
 arimak Tabernakle aintzinean
 otoitzean eman daitezen egunero

BERPIZTEAREN AINGERUA

Mk 16,19 Laster haur Dibinoa, ikusiko zaitut loriosik zure Aitaren eskuinerat iragaiten.
 Sal 23,7 Orduan aingeru guztiak izanen dira alegantzietan; ernatuko dira Eternitateko ateen
 idekitzera zure errezipitzeko, o zu errege boteretsua.

Jn 14,18 Baina zer bilakatuko dira lurreko desterratuak? Beti umezurtz egonen ote
 dira?

[8^a]

JESUS

Jn 20,17 16 Aitarenganat naiz iraganen
 Jn 12,32 harat tiratzeko ene hautetsien,
 lurreko desterrua akabaturik
 ene bihotzean izanen dira errezipiturik.

²⁵ Ikus TG 101; Otoi. 8; Th. Dumerin (1848-1905), "Société des Amis des Pauvres" delakoaren sortzaileak egin otoiiza gogoan du hemen Teresak (CG. 516 h. orr.).

²⁶ Apezen aldeko otoiiza da Teresiar Karmeldegien eta bereziki Teresa Jesus Haurarenaren xede nagusietarik bat (A Esk., 69^a eta TG 17, 10).

- 17 Joko duelarik azken orenak
 elkarretaratuko dut ene tropa: Ez 34,13
 Ezagutuko dutelarik zeruko erresuma,
 haientzat izanen naiz su argia. Ap 21,23

JUJAMENDUKO AINGERUA *xutitzen da*
eta kantatzen du "Minuit, chrétiens - Gauerditan Aingeruek" airean.

Ahanzten ote duzu Jesus, Jainko ederrena,
 bekatorosak behar duela azkenean gaztigua?
 Ahanzten ote duzu, zu amodio izarigabekoa,
 fedegabeen taldea dela ezin kondatuzkoa?
 Jujamenduan gaztigituko dut sarraskia,
 suntsituko eskergaiztokoa
 prest da ene ezpata, Jesus biktima gozoa!...
 Prest da ene ezpata, zure mendekatzekoa!...

JESUS HAURRA

- 18 Oi aingeru ederra! bego zure ezpata!
 Jujatzea ez da zure lana;
 nik altxatu dut naturaleza,
 nahi diot merezitu barkamena.
- 19 Mundua jujatuko duena Jn 5,22
 ni naiz, Jesus deitzen naizena,
 ene odolez busti ihintzak
 garbituko ditu ene maite guztiak
- 20 Badakizu arima zintzoak
 betikotz direla ene kontsolatzaileak,
 fedegabeen blasfemioak
 haien amodiozko soak ditu ezeztatzen.
- 21 Beraz beren Herri Sainduan
 ene hautetsiak izanen dira lorian
 ene bizia haiei emaiten
 eginen ditut *jainko* idurian²⁷.

²⁷ "Gizona Jainkoztatzearen" gaia, ez zen teologia gai berria. Aspaldiko Gurasoen lekukotasunak ezagutzen zituen Teresak *ofizio*ko *otoitzen* bitartez. Joan Gurutzekoaren *Kantu Izpiritualaren* orrialde sakonak ere luzaz hausnartuak zituen: (Ikus bere liburu propioan, XXXIX. bertsoari jarri oharrak, II. liburukian, 100 h. orr.).

JUJAMENDUKO AINGERUA *belaunikatzen da*
eta kantuz ari "Dieu de Paix et d'Amour" airean:

[8ⁱ]

Zure aitzinean, Haur eztea, kerubina ahozpez dago
zure izarigabeko amodioaz miretsia:
Ikusi du hobe dela zu bezala
mendixka ilun baten gainean hiltzea geroxago!

AINGERU GUZTIAK *kantuz errepikan.*

Zoin den handi kreatura umilaren zoriona!
Serafinek nahi lukete utzi beren aingeru natura,
o Jesus! eta hartu haur soil baten itxura!...

AZKENA

DSA 3

1895-I-21

[1^a]

J.M.J.T.

JOANA ARK-EKOA BERE MISIONEA BETETZEN
edo
Frantziako Joana Agurgarriaren
Garaipenak, Gatibugoa, Martirioa eta Zeruko Ospea¹

DOKUMENTUA: autografoa.- EGUNA: 1895eko urtarrilaren 21erako, Ama Aines Jesusenaren priore-festarako.- KONPOSIZIOA: hitz lau eta hitz neurtuzko elkarrizketak (301), 14 airetan.- ARGITALPENA: HA 98, 171 lerroko bertso-atala, beraietatik 37 zuzenduak: AL, 1929ko maiatza, hainbat kenduak eta ukituak: *Récréations*, 1985, testu osoa.

Ez du nehon Teresak *Joana Ark-ekoaren* bigarren parte honen apailuetan bezainbat arta hartu. Bere antzerkietarik luzeena den lan honek eskatzen zuen historiaren ezagutza zehatza, bai eta ere, jantzi edo apaindura asko eta errepikapen anitz. Ez da horrelakorik uste-kabean aurkezten, bereziki Karmeldegi batean bezala tinko ordenatua den bizimolde baten barnean. Baina hastetik Teresak erabakia zuen *Joana Ark-ekoaren* gaia bi antzetzalditan zatikatzea. 1894eko urte osoa hartu zuen beraz Teresak bere asmoa zohiarazteko eta bere iturburuak aztertzeke (oroz gainerik Henri Wallon-en lanak; ordu berean Charles Péguy-k ere ikertzen zituenak: DSA 1 eta 3, ik. *Récréations*, 289 h. eta 319 h. orr.).

"*Joana Ark-ekoa bere misioa betetzen*", titulu horrek, bere arruntean, adierazten du ez idurika, mende eta eremuetan zehar gaur arte dirauen egitekoaren batasuna. Atzo Chinon, Orléans, Reims, Rouen. Gaurregun Frantzia soil-soila. Epopeia bakarra da gure begien aitzien iragaiten. Eta Teresaren sinestearen arabera, atzo bezala gaur ere zeruetan da jokatzen aberriaren zortea. Haren ustez beraz III. parteko ateraldia -lehen irakurketan nahiko ahula

¹ "*Joana Ark-ekoa bere misioa betetzen*" tituluaren azpтитuluek: "*Garaipenak*", "*Gatibugoa*", "*Martirioa eta Ospea*", adierazten dute zein diren antzerkiaren 3 edo 4 zati nagusiak. Nahiz bere eskuizkribuan autoreak bi zati baizik ez dituen bereizten: "*Garaipenak*" deitzen du lehena, lau agerralditan zatitzen duena eta "*Gatibugoa eta Martirioa*" bigarrena, agerraldi bihirik bereizi gabe. Hirugarren zatirik ez da aipu ere.

Gure argitalpen honetan ordea, beste antzerkietan bezala egin dugu: 6 agerralditan aurkezten da Lehen Zatia; 11 agerralditan Bigarrena eta 2tan Hirugarrena, "*Zeruko Garaipenak*" deritzana.

iduri duena- ez da hor emana historiaren haria mozteko, baina bai ekintza berrabiatzeko. Joanak alabaina, teleskopio baten bitartez bezala, irensten ditu mendeak 1895eko urtarrilaren 21erarte heltzen zaigu. Atzo bezain ziur Frantziaren Askatzailearen lurreko garaipenak, beren segetuan, haren zeruko garaipenen ifrentzua besterik ez dira.

“*Jainkozkoa*” da Joanaren misionea bai bere sorburuan, bai bere azkenean, eta hori da DSA 3ren argudio nagusia. Hastetik bururaino fedearen gudu handi bera da. Kristau Erospe-naren legearen arabera munduaren salbamera bezala, aberriarena ere, “pasionearen” sari da ardiesten. Eta horrela, dokumenturik zehatzenak begiratuagatik Teresaren fedezko asmoa urrunago hel daiteke Historia Handiaren eremuraino.

Teresaren aburuz, Joanaren garaipen egiazkoa ez da ez Orléans-en, ez Reims-en gertatzen, baina bai Rouen-eko egurraren gainean. Historialariek eskaini dizkiote *gertakariak*, baina Jainkoaren Hitzak adierazi dio gizonek ezin ulert dezaketen bizitza horren helburua. Hor sartzen da Gabriel Arkanjelua eta presoaren arteko elkarrizketa. Getsemaniko aingertzat daukagun aingeruak, martiren mailara altxatzen du pertsonaia, adierazten diolarik berari nola Jesusen Pasionea ari duen errepikatzen. Ondotik dator Zuhurtzia liburuko meditazione luzea, hain gazterik hil beharraren misterioa argitzen diona.

Apailuetan bezain garrantzitsua izan zen ondorioetan lan hau Teresaren bizitzan.

Behin Teresa bera izan zen goraiapatua bere lagunartean. “Denak miretsiak” omen zeuden. 1895eko urtarrilaren 21eko arratseko isilune handian, karmelita gazteak sendi zuen bere “goiena jo zuela”. Orduan “ezin erranezko argi batek argitzen dio lur honetako guztien ezdeusa”, biharamunean Maria Hirutasunarena serorari (BT, 99. or.) eta urtearen azkenaldian bere oroit-idaztiari (A Esk., 81^a) salatuko dien bezala.

Gutik egin zuen antzezteko artetik ez baitzen egurretik denari sua lotu eta ez baitziren egiazki denak erre. Gertakari hori Teresak ez zuen ahanztekoa. Gar horiek ohargabea itzuliko dute ondoko ekainaren 9an berak Amodio Urrikalmendutsuari eginen dion “*suzko*” eskaintzari buruz. Suaren gaia ere gero eta maizago nabari da haren idazkietan. Bereziki “*Azken elkarrizketetan*” (1897ko maiatz-uztail artean), ikusten da garbiki nola *Joana Ark-ekoaren* bigarren parte honek iragartzen duen Teresaren beraren zortea. Eria bera ohar-tua da: “*Idatzia dudan Joana Ark-ekoaren antzerkia berrirakurri dut. Ikusiko duzue hor sendi dudan heriotzeaz; denak erranak dira*” (KH 5.VI.2). Ikus ere Joana Ark-ekoez KH 20.VII.6; KH 17. VII eta 27.VII. 6; KH 10.VIII.4.

Orobat antzerki hau beste bi aitzinekoak baino hobeki idatzia da tinkoago, ez hain “gaixo”. Hizkuntza bakuna eta bildua da, urratsak ongi josiak elkarri, hasieran bederen. Antzerkigilea ausartagotuz doa eta Teresak ofizioa ikasten ari du.

Azkenekotz oroitu behar da Teresa Jesus Haurrena sailduen lerroan ezarri zuelarik, 1925eko maiatzaren 18an “Joana Ark-eko berria” bezala ospatu zuela Pio XI.ak Frantziako beilarrien aitzinean eta ere Bigarren Mundu Gerlako egun ilunetan Pio XII.ak Joana Ark-ekoaren maila berean jarri zuela “Frantzia guztiaren bigarren zaindari” bezala (1944ko maiatzaren 3an).

JOKOLARIAK²

Joana Ark-ekoa — Jondone Gabriel — Jondone Mikael —
Santa Katalina — Santa Margarita.

Errege Xarles VII.a — Erregeren hautetsi Tremouille Sully-ko baroina —
Regnault Chartres-koa, Reims-eko artzapezpiku eta Frantziako kantzalaria —
Robert Hargina, Trèves eta Anjou eskualdetako Jauna — Raoul de Gaucourt Orlé-
ans-eko bailea — Alençon-eko dukea, Erregeren kusia — Jean D'Aulon, Joana-ren
ezkutaria — Jean Massieu, Beauvais-ko apezpikuaren apez zerbitzaria — Martin
fraidea, Joana Ark-ekoaren kofesora — Frantzia.

[2^a]

I. ZATIA:

GARAIPENAK³

[I. AGERRALDIA]

*Agerraldi hau iragaiten da Chinon hirian, Xarles VII.aren errege-egoitzan.
Bere maiteñoek inguratua da eta bertzeak bezala bezti, errege-koronarik gabe. La
Tremouille printzearen eskuinetarik jarria.*

LA TREMOUILLE

Jauna, zure manuak puntuz puntu bete dira, Domremy-ko artzaintsak jasan
ditu anitz galdeketa.

ERREGEREN PREMUA

Eta beraz, La Tremouille, zer da zure ikusmoldea? Behar ote dut onartu ene
aitzinean?

LA TREMOUILLE

Errege Jaunaren baimenarekin menturatzen naiz erraiterat ene iduriko, Joana
hori, ergela dela, ameslari bat, Armanakiarrak irringarri bilakaraziko dituen. Haren
hitzari fidatzen bagara, beharko dugu armada haren gomendio ezarri. Ah! Zer ikus-
garria, egiaz, artzaintsa bat Frantziako Marexal handi! ... Hobe liteke berehala gure
buruak errendatzea ezen ez eta nexka gazte baten ondotik ibilirik garaituak izai-
tea!...

² "Pertsonaiak", hor dira izendatuak, 15ak; bakoitzaren taularatze ordena kontutan hartu gabe.
"Gabriel Aingerua" halere deitzen da Joana-ren ondotik lehena. Jokolari eskasez, serora zenbaitek bi
pertsonaiaren lana egin behar izan zuten. Joanarena, buruan buru irauten duena, Teresak berak hartu
zuen beregain.

³ Joanaren "Garaipenak" (18 aipamen DSA 3an) ez dira denak militarrik, Orléans-ekoa (3. Ager.)
edo Reims-ekoa (4. Ager.) bezala. Hala nola lehena, Chinon-ekoa (1. Ager.), Erregeren zalantzak eta
gorte-gizonen aurreiritziak garaitzen dituen Joanaren fedearen garaipena besterik ez da.

XARLES VII.a
(*Chartres-ko Regnault-ren alderat itzulirik*)

Laket nuke ere zure iritzia jakitea. Ez daiteke arbuia kontseilu bihirik erresumaren salbatzeaz doalarik [2¹] eta zure ikusmoldeak premiatsuak dauzkat, Artzapezpiku izanez, zuk baitiozu aisenik nolazpait argi denak kezkatzen gaituen puntu hau: Sinesten ote duzu egiazki, Joana deitu Neskatxuna horrek ukaiten duela zerutikako argi zerbait⁴ ?...

REGNAULT CHARTRES-KOA

Errege Jauna segur izan bedi Tremouillek erran dituen hitzak egiak direla: Niretako, arrunt harek bezala pentsatzen dut eta ez naiz beldur erraiteko, bere buruaz hola mintzarazten duen nexka bat ameslari bat baizik ez dela, preso izan behar lukeena edo bederen bere sorterrirat igorria sekulan gehiago handik ez jalgitzeko manuairekin.

ROBERT HARGINA

Errege Jaunak uzten ahal nau nire hitzaren erraiterat?

XARLES VII.a

Mintza zaitetz!

ROBERT HARGINA

Errege Jauna, iduritzen zait gure jaun horiek sobera bortizki jukatzen dutela Domremy-ko artzaintsa. Robert Baudricourt-ekoak utzi du (izanik ere bera umore oihesekoa) Vaucouleurs-etik joaiterat [3^a] nexka hori, hautuko segida batekin. Ez ote liteke bederen, nexka horri hoinbertze nahi duen entzunaldia emaiten ahal? Errege Jauna ez zaitu horrek deusetara behartuko, eta Joana ez bada deus funtsekorik⁵, aisez izanen da gero ere kanporatzea.

LA TREMOUILLE, *hotz-hotza*

Robert Hargina aditzean, nork ezagut lezake Treves eta Anjou-ko Jauna? Ez ote du iduri prest dela bera Joana ardi zaintzalearen jarraikitzeke?

RAOUIL DE GAUCOURT, *Tremouille-ri buruz:*

Treves-eko Jaunaren ikusmoldea ez da baztertzekeoa. Ez dut ulertzen zuen gogorkeria, ez eta ere Frantziako Kantzelari Jaunarena. Utz ezazue sartzerat ar-

⁴ Zerutikako argirik ba ote den, "horretan da arazo guztia" Henri Wallon-ek dioen bezala; ez du besterik bilatzen Teresak bere idazlan guztian.

⁵ Horra zer erran omen zuen gora-gora eskolan "Andere erakasle ingeles" batek, Zelina Martin-en aitzinean. Hau haserre gorrian joan zen berehala Zuzendariari erraitera: "Anderea, ez banauzu uzten gure Erakasleari hitz bat erraitera, egin duen hutsa ordain dezan, nik dena salatzen diot Aitari". (Oroi-tzapen autobiografikoak).

tzaintsa, gure libertitzeko baliatzen ahalko dugu, bertze deusetako ez bada gai agertzen.

ALENÇON-EKO DUKEA⁶ *aitzinatzen da,*
beztimen ederretan eta agurtzen du Premua

Jauna, entzun dut berri harrigarri bat. Lorraine eskualdeko artzaintsa bat ba omen da zombait egun honetan Chinon-en. Dio zerutik igorria dela Orleans-en salbatzeko, eta Frantziako erresuma berriz plantatzeko. Aiherr ninteke haren ikusteari, entzutun ditudan guztiek emaiten didate sinesterat baduela egiazki [3¹] zerbait mezu ukana gure salbatzeko. Nexka hortaz mintzatzen aditu dudaneko utzi dut ene eper ihizia, ontsa maite dudana, eta etorri naiz Errege Jaunarenganat, gazte horrentzat entzunaldi baten erdiesteko xedetan.

XARLES VII.a

Nire kusia, zure ikusgurari atsegin ekartzen ahal diot. Joana, goizez geroz goaitan dago palazioko barne batean, ene aitzinerat agertzeko fagorearen aiduru. Emanen dut manua hona ekarrarazteko, baina damu dut hoin xoilki beztu bainaiz. Ene errege-beztimenak gehixeago lotsaraziko zuen segur gure artzaintsa xumea.

ALENÇON-EKO DUKEA

Errege Jauna, segur baliteke frogabide erraza, ikusteko ea Joana egiazki zeruko indar baten jabe den. Jauts zaitez zure tronutik, ni iganen naiz zure orde. Nexka horrek eni egiten badizkit erregeri zor zaizkion agurrak eta ez bazaitu bereizten jende xoilan artean, ageriko da ez duela deus Jainkoaren izpiritutik eta ez du mesprezua baizik mereziko.

LA TREMOUILLE

Alençon-eko Dukea, zure ideia osoki ona da; eta otoizten dut Errege Jauna sarraraz diezaiodan [4^a] artzaintsa.

PREMUA

Bai, nahi dut, sarraraz ezazu orain berean!

LA TREMOUILLE, *ahapetik, Regnault-ri buruz*

Fitexko poxelutik kenduko dugu neskatzar hori. Asea naiz beti horretaz mintzo entzuteaz.

(Ateratzen da eta sartzen berehala bere manua emanik. Errege jausten da bere tronutik, Alençon-eko dukea igaiten haren lekurat).

⁶ Badakigu egiaz Alençon-eko duke gaztea (1409an jaioa), izan zela Joanaren laguntzaile hautuzkoa. Eta berdín DSA 3aren lehen zatian. Hogei urteko jaun gazte hori, Alençon-eko hirian sortua, Teresa bera bezala, gogotik argitan eman zukeen autoreak.

LA TREMOUILLE *Alençon-eko dukeari:*

Eman dut manua uzteko bera sartzerat uzteko eta ez irakasteko deus manera berezirik usaian egiten denik Erregeen gortean. Nola atzemaña izanen ahal den, uestzko erregeren aitzinean!

(Joana Ark-ekoa bera presentatzen da ezpata duela saihetsean eta ikurrina duela airean. Gostuan aitzinatzen da, egiten ditu behar diren agur guztiak. Egundaino ikusia ez zuen erregea ezagutzen du).

XARLES VII.a

Ez naiz ni erregea. Zertako agurtzen nauzu hola?

ALENÇON-EKO DUKEA

Ni naiz erregea, eni behar dizkidazu egin ohoreak, eta lehenbizikorik, zer da zure izena?

JOANA, *batere durduzatu gabe:*

Alençon-eko Dukea, ez zara batere zu Errege, eta bertze honi dut mintzatzeko manua *(itzuliz Xarles VII.aren ganat)*. [4ⁱ] Ene Jainkoaz⁷ Printze gaixoa, zure eta ez bertze baten laguntzerat naiz etorria. Deitzen naiz Joana Neskatzuna; segurtatzen zaitut, Zeruetako Erregeren partez Reims-en sagaratu eta koronatu izanen zarela eta Zeruetako Erregearen ordaria izanen zarela, Hura baita Frantziako Erregea!...

XARLES VII.a

Ez dezaket eman fidantziarik zure hitzetan: Jainkoak nahi izan balu salbatu gure erresuma, ez zuen utziko hoinbertzetaraino errekarat joaiterat.

JOANA

Gaixo Erregea, zertako ez nauzu sinesten? Erraiten dizut Jainkoa zutaz urrikaldu dela, bai eta zure erresumaz eta zure jendeaz, zeren eta San Luis eta Xarlemagna Haren aitzinean belauniko baitaude zuretzat otoitzean.

XARLES VII.a

Baina nondik dakizkizu gauza horiek; norik erranak dizkizu?

JOANA

Ene mintzoek.

⁷ "En mon Dieu", "En nom Dieu"en ordeaz, huts bat zen eskola liburuetan zebilena orduan, gure "Jainkoaz!" adierazteko.

LA TREMOUILLE

Ez zenuke erran nahi hemen, Erregeren aitzinean, nola aditzen dituzun delako zure mintzoak?

JOANA *Xarles-i*:

Printze maitea, nahi baduzu, prest naiz mintzatzeko.

[5^a]

XARLES VII.a

Bai, nahi dut: erraniezaguzu xeheki, nola delako mintzoak jin diren zure argitzerat, Domremy-n zeundelarik.

JOANA, *goitiko aire batekin*
(*Alexandre Soumet-en olerkia*⁸, 1846):

Hamahiru urtetako Eliza aldetik,
bakarretan badauzkat entzunik
boz sailduak erramu artetik.
Ai zer oroitzapen baliosak!
Badakit haiek erranik,
bakea atxikitzeko osorik,
eduki behar nuela bihotza garbirik.
Argi ederrak heldu ziren orduan orotarik.
Goaitatzen nuen ordua hain zen loriagarria!
Hain zen goxo ikustea Jainkoak igorria!
Zenbait aldiz mintzo heiek nintzen lotsatua;
baina heien zuhurtziak beti naute zuzen bidatua.
Egun batez... daldaran nago oraino ere... xoratua!...
Frantziarentzat eta Erregerentzat nuen Jainkoa otoiztua;
erramu freskoz herriko eliza nuen apaindua
sinetsiko nauzue?... Ikusi nuen hostopea argitua,
eta airean heldu eni buruz, harresia iraganez,
Jondone Mikael bera, kapa urdin batez beztitua,
suzko ezpata eskutan altxatua,
bere hegala xuri zabala urrez azpildua
[5ⁱ] hedatzen zuela itzulian, eta haren kopeta sailduan
ageri zen ezin neurtuzko zorionaren distira.
Haren hegalkada argia aldean bertze agertu zitzaudan,
pizten zituela iragaitean izarrezko hodeiak.
Ene begiak zauden xoraturikan
iduri eta urdin harri bat zitzailea jautsi zerutikan.
Salomonek miresten zituen lore xuriak,
haren jantzia baino ziren hitsagoak;

Mt 6,29

⁸ Henri Wallon-en historia liburuan irakurri zituen Teresak "*Alexandre Soumet poetaren olerkieren*" 35. lerroak.

haren biloak aldiz, haizea baino arinagoak
 udaberriko hatsa iduri zuen haren bozak,
 iragaiten baita goizez zuhaizpetan,
 eta soro loreztatuen erdian.
 Miresten nuen luzaz eta zorionez isildurik,
 arkanjelua heldu Jaunaren partetik
 eta ikusi nuelarik airatzen eternitateari buruz
 negarrez erran nion: "Eraman nazazu, zurekin, hegalpean altxatuz!"

XARLES VII.a

Hori duzu zerutik ukan bisita bakarra? Ez dut hor ikusten erresumaren salbatzeko zure mezurik.

JOANA

Ene Jainkoaz, Printze maitea, segurtatzen dizut geroztik bisita horren ondotik, egun guztitez ukan ditudala bertze batzuk. Santa Katalina eta Santa Margarita agertu zaizkit eta kontsolatu naute, zeren usu negar egiten bainuen [6^a] Jondone Mikaelek manatzen ninduelarik joan nendin eta armadaren buru jar.

ALENÇON-EKO DUKEA

Zure boz hark, diozunaz, ezagutarazi dizu Jainkoak nahi duela Frantziako populua atera, eroria den zorigaitzetik. Baina hortako Jainko boteretsuak ez du gerlari beharrik.

JOANA

Ene Jainkoaz, gerlariak gudukatuko dira eta Jainkoak emanen die garaipena.

ALENÇON-EKO DUKEA

Baina zerk emaiten dizu segurtamen hori? Hoinbertze uko baduzu jasanik?

JOANA

Zerbaitek kezkatzen nauelarik, konparazione, ez nautelarik sinetsi nahi, baztertzen naiz eta otoitzean hasten. Otoitz egin dudalarik boz bat entzuten dut; erraiten dit: - "Jainkoaren neskatoa, zoaz! Zoaz... zure lagun izanen naiz... zoaz!..." , eta boz hura jiten zaidalarik, hainbertze naiz soleitua eta loriatua! Miresgarria da!

(Joana, begiak zerurat itzulirik xoratua bezala da⁹).

⁹ Hirugarren eta azken aldiko ikusten dugu hemen Joana "extasiak" hartua (DSA 1, 6^a eta 14^b). "Extasi" kasu bakarrak dira Teresaren antzerkietan; beretzat Teresak nahiago zuen Nazareteko Mariaren bide isila (TG 106 eta TG 54, 17), eta bere nobiziei irakasten zien Joan Gurutzekoaren bidetik "extasiak eskatzea" gaizki dela (DSA 7, 1^a).

ALENÇON-EKO DUKEA, *Premuari:*

Nexka gazte horrek inarosten nau arima zolaraino. Egiaz sinesten dut horren mezuan. Zer barnetikako karrarekin mintzo den, [6ⁱ] boz haietaz ari delarik! Iduri du orai ere entzuten dituela. Eta horren behakoaren sarkorra!... Doi-doia jasan dezaket.

XARLES VII.a

Ez naiz ni hain sineskorra; dudatan naiz¹⁰ oraino. Bertzenaz ere bada gauza bat nehork ezagutzen ez duena. Eta ikaretan nago... (*Ixtant baten buruan*) ez, sekulan duda hori ez da ene baitarik ezeztatuko..

JOANA (*Erregeren botzak bere baitarazi duela*):

Premu gaixoa, bakarrik banintz zurekin, erran niezazuke nehork ezagutzen ez duen segetua, eta zure dudak ezezta litezke.

XARLES VII.a *biziki hunkitua:*

Eta zer, bazeneki?... Baina ez, hori ez daiteke... Salbu, nahi dut ene ingurukoak urrunxeago joan daitezen ixtant bat.

(*Keinu bat egiten du eskuz, bertzeak joaiten dira gelaren zolaraino, urrunetik segituz mugimendua*).

ALENÇON-EKO DUKEA, *bertze jauneri*

Zer ikusgarria! Errege bat ikaretan bere korona gal beldurrez eta artzaintsa bat horri eskaintzerat heldu, segurantzarekin, korona buruan ezartzea eta boterea berreskuratzea!...

JOANA,

hurbiltzen da Printzeari eta ahapetik erraiten dio:

[7^a] Ene Jainkoaz, Printze ona, ezagutzen dut goiz hontan komunietik landa egin duzun otoi¹¹: Jainkoa zegoela bakarrik lekuko erraiten zenuen: "Jauna, ni baldin banaiz Frantziako etxe nagusiaren egiazko ondokoa eta erresuma hau zuzenez nirea izan behar bada, otoi zinez galdegiten dizut, egizu atxik ahal dezadan eta Anglesen erasoen kontra begira! Bertzenaz, kontrakoa balitz, galdegiten dizut grazia heriotzetik salba nadin edo preso izaitetik eta aurki dezadan gerizalekua Eskozian edo Espainian. (*Erregek iduri du biziki hunkitua, negarra xukatzen du. Joanak ordea botza finkatuz:*) Eta nik erraiten dizut Jainkoaren partez, zu zarela Frantziako erresumaren egiazko ondokoa eta Erregeren semea. Igorria naiz zure helarazteko Reims-eraino han ukan dezazun korona eta sagaraztea.

¹⁰ Ez daki xuxen Xarles VII.ak, Joanaren mezua zerutik ote datorren ala ez; ez bera ere egiazko erregea den, ala sasi-printze bat.

¹¹ Teresak berak asmatzen ditu otoi¹¹zaren aldiak: "goiz honetan, jaunartu ondoan", ez ordea otoi¹¹zaren funtsa.

ERREGA,

Joanaren eskua hartuz eta apalik mintzo:

O Joana! egiazki zerutik igorria zara: oraindanik aski duzu mintzatzea zure manu guziak betearaziko ditut. (*Boza altxatuz erraiten die bere ingurukoei*) “Hurbiltzen ahal zarete!...” (*Haiek hurbiltzen dira isiltasunean eta beren lekuak hartzen dituzte*).

ERREGE

Badut orain gaitzeko fidantzia nexka gazte hontan, zeren errañ baitizkit segetuko gaztazak, [7¹] Jainkoak baizik erraiten ahal ez zizkionak.

LA TREMOUILLE,

bere nahigabea nekez atxikiz:

Jauna, zer egin behar duzu horren sariztatzeko? Nahi duzu ohorez estali?...

XARLES VII.a

Desiratzen dut obeditua izan dadin... Joana mintza zaitetz! Zer nahi duzu?

JOANA

Gaixo Premua nahi nuke...

REGNAULT, *artetik:*

Zertako bada deitzen duzu erregea “Premu” eta ez “Errege”?

JOANA

Errege deituko dut bakarrik sagaratu eta koronatu izanen delarik Reims-eko hirian, harat heltzeko mezua baitut. Lehenik behar du armadak prest egon, egin ahala laster Orleans alderat gida dezadan, zeren Anglesak behar du Frantziatik kanpo haizatu izan.

ALENÇON-EKO DUKEA

Joana, nahi dituzu armak, eta zaldiak?... Eskaintzen dizkitzut muntatzeko behar dituzun guztiak.

JOANA

Duke gaixoa, bortxatua naiz, onartzen dut zaldi xuri bat, baina harmatzat Santa Katalinaren ezpata¹² aski zait. Bertzenaz ere ez dut haren baliatzeko xederik; ene ikurrinarekin behar dut garaitu.

¹² Santa Katalinaren kaperan eta lurpean aurkitu omen zuen bere ezpata Joanak, bainan honen auziko epaileek sorginkeria kutsu bat sumatu zioten mirariari.

REGNAULT, *irri murrika batekin:*

[8^a] Zertako bada ez zara bakarrik ari gudukan? Segur bazira garaipenaz, ez du balio armada osoa altxatzea eta zuretzat izanen da ohore guzia.

JOANA

Ez dut ene ohorea bilatzen, baina Jainkoarena. Bertzenaz ere emadazue bakarrik gerlari ahurtara bat eta armada handi batekin bezain ongi kausituko dut; baina ez ni gabe has guduka.

XARLES VII.a

Joana, nahi dut armada guziak obedi zaitzan eta hitz emaiten dizut guduka ez dela hasiko zure manuarekin baizik. Orai erretira gaitezen: nahi dut zuk hauta ditzaun zure inguramena eginen duten jendeak: emaiten dizkizut konde baten eskubideak, armadako jeneral baten eskipaia guztiarekin.

JOANA (*erregea agurtuz*)

Premu gaixoa, Jainkoak berak sariztatuko zaitu. Laster ikusiko duzu zure erreinua lorios eta zure erresuma libratua arrotzen aztaparretarik.

(Denak ateratzen dira)

II. AGERRALDIA

JOANA¹³ ETA JEAN D'AULON *bere ezkutaria*[8ⁱ]

JEAN D'AULON

Joana, garaipena iduritzen zait segurtatua. Egun bakar batzuek jakin duzu armadaren aldatzen. La Hire zaharrerainoko guztiak kofesatu eta komuniatu dira guduka hasi aintzin.

JOANA

Ez ditut nik egin holako miresgarriak. Jainkoak bakarrik ditu hola kanbierazi gerlari on horien bihotzak eta ene laguntzaile agurgarriak, Jean Pasquerel fraideak egin du bere lana horien konbertitzeko. Orai ez dut deusen beldurrik, gizon bihoztunik baizik ez dut manatzeko, Jainkoa bera haien baitan denaz geroz egoki.

¹³ Hemendik haste, eta bururaino, Teresak ile urdin ilunezko zaia liriok apaindua eta paper zilarrezko "armadura" gainetik, jantzia du.

JEAN D'AULON

Behar duzu baitezpada pazientzia handia zeren gorteko jaun handi askok errespetatzen bazaituzte ere, bada bertze andana bat barneko jelosiak janak daudenak. Ukan dituzu jadanik frogak, aski lotsagarriak. Hain zaie gogor nexka gazte bati sinestea!...

JOANA

Egia da, Dunois Kondeak enganatu nauela bere armadarekin Sologne-tik iraganetz eta ez zuzenki Angelesak ziren lekutik, nik manatu bezala. Baina ez naiz izutzen ene Jainkoaren kontseilua segurago da lur hontako handi-mandiena baino. Badu liburu bat, zeinetan nehorak ez baitu irakurtzen, [9^a] daitekeen jakintsunena izanik ere eta Zeruko Erregeren nahia beteko da gizonen jelosiarengatik¹⁴. Denak bortxatuak izanen dira aitortzera armaden Jainkoarena dela bakarrik garaipena.

1 Erg 19,10

JEAN D'AULON

Bihotz zabaleko Andere Zalduna, ez ote duzu zure pausua hartuko gau hontan, guduka bihar baizik ez badugu hasi behar?

JOANA

Bai, baina behar dugu hatsartu gure muntadura utzi gabe, beldur bainaiz etsaiaren joko zerbaiten. Partikulazki ez ahantz ene abisatzea demendreneko seinalea agertzen bada.

JEAN D'AULON

Ene gainean kondatzen ahal duzu, baina segur naiz deus ez dela jinen gure loaren nahastera. (*Urruntzen da*).

JOANAK,

belauniko otoitz hau egiten du:

Sal 67,29 “Jauna, armaden Jainkoa, benedika ezazu zure zerbitzariaren pausua. Ez deza zula utz Angelesak Orleans-eko hiriaren hartzerat gure loaren artetik. Segi ezazu Jauna, hasia duzun lan miresgarria, zure populuaren alde eta lehen suntsitu baitzenituen Filistinoak zure zerbitzariari esker, Dabid ttipiak hil baitzuen Goliat zigan-tea, egun ere zure boterea ager ezazu Joana zure zerbitzariaren bitartez: artzaintsa herabe honek [9ⁱ] zure izenean Angelesak haizatuko ditu Frantziako erresumatik, eta Satanen boterea suntsituko du, bertze Goliat batek nahi bailuke Elizaren alaba gehienaren Fedea errautsi”.

1 Sm 17, 40-54

(*Joanak ezpata pausatzen du, eta lurrean jarriz bere muntadura utzi gabe, bere pausua hartzen du besoa eta burua finkatuz. Ixtant baten buruan, bere “boz” hauek entzuten ditu. Xutitzen da*).

¹⁴ Hitz horiek bere kondu hartuko ditu erizaindegian Teresak hiltzeko bezperan (KH 27.VII.6) eta nolazpait beteko dira haren eskuizkribuak argitaratuko direlarik.

MINTZOAK,

“Viens avec moi pour aimer le printemps” airean:

Iratzar zaitex Joana, Jainkoaren alaba,
har zurekin bandera, lantza eta ezpata
hantxet isurtzen ari da Frantsesaren odola,
Su emaiten hasia da oraingotz Anglesa

JOANA, *bere indar guztiaz:*

Jean d’Aulon! Jean d’Aulon.

EZKUTARIA, *berehala heldu da, begiak torratuz:*

Zer da?... zer nahi duzu?...

JOANA, *bizi-bizia*

Ah ! neure bozek abertitu naute, odola isurtzen ari dela Frantzian eta ez didazu erran !... Fite, ene armak, ene zaldia! (*Hartzen du bere ezpata*).

JEAN D’AULON

Banoa zure zaldiaren xerka (*aditzen da zaldi baten trosta*).

JOANA

Ez, ez du balio luzeegi liteke... entzuten dut [10^a] zaldizko baten harrabotsa, jautsaraziko dut eta iganen naiz haren orde.

JEAN D’AULON, *geldiarazi nahi du erranez:*

Joana ahanzten duzu zure bandera.

JOANA: *jadanik abiatua da, oihu egiten dio:*

Eman iezadazu leihotik!...

(Jean d’Aulon ateratzen da).

III. AGERRALDIA

Ilunbean da iragaiten: Bulta baten buruan entzuten da arma harrabots bat, tiro batzuk eta JOANAREN BOZA oihuka.

Alençon-eko dukea ene banderaren buztanak hunkiko duelarik hiriko harresia, erradazu! Are orduan egin oldar! Lagunak, lagunak, gure Jaunak kondenatu ditu Angelesak. Oraingoan gure esku dira.

ALENÇON-EKO DUKEA

Joana! Bandera buztanak hunki du harresia!

JOANA

Jesus, Maria! Aintzina! Denak zuen dira! Sar zaitetze! (*ozen dira Angelesen garrasiak; Joanaren bozak estaltzen ditu oihuka*) - "Garaipena! Garaipena!" (FRANTSESEK *errepikatzen*:) - "Garaipena, Garaipena! Gora JOANA ARK-EKOA! Gora Orleans-en libratzailea! Gora Kristo! Gora Xarles VII.a! dio Joanak... (FRANTSES *guztiek elkarrekin oihu egiten dute*:) "Gora Kristo"! Gora Joana Neskatxuna! Gora Errege eta Frankoen Erresuma!

[10¹]

IV. AGERRALDIA

ERREGA, *Reims-eko sagaratzearen ondotik.*

Errege aintzinatzen da, aberaski beztitua, errege korona buruan, Joana haren eskuinean dago, bere bandera airean eta bere gurlari muntaduraz beztitua. Ingurumeneko jaun handiak heldu dira ondotik. Errege igaiten da bere tronuaren gainerat. Joana haren ondoan emaiten da¹⁵.

ERREGA

Joana zu izan zara behar den bezalako arartekoa, Jainkoak nahi zuena Frantziako erresumaren salbatzeko: nahi ditut sariztatu zure zerbitzuak. Mintza zaitetz, zer litzateke zure gutizia? Prest naiz zuk nahi dituzun guztien egiterat...

JOANA, *ahozpez Erregeren oinetan:*

Errege gaixoa, orain Jainkoari plazer zaiona betea da; nahi zuen Orleans libratzea, eta zu eremaita Reims-eko hiri hontarat, sagaratua izan zintezan eta koronatu eta hola erakuts zenezan zu zarela egiazko erregea, erresumaren jabe izan behar dena. Orain ene mezua konplitu baita, otoizten zaitut utz nazazun Domremy-rat itzultzerat, ene aitamen ondorat.

ERREGA, *biziki hunkitua:*

Ez dut sekulan onartuko, zu ene ondotik urruntzea. Erresumak ez lekike oraindanik bere salbatzailea [11^a] gabe egoiten. Behar da bururatu hondar Angeles horien haizatzea eta zu zara bakarrik gai haien izuarazteko.

¹⁵ 1896ko apirilaren 30ean, serora Maria Hirutasunarenaren boto-egunean, Teresak aitortu zuen: "Iduritzen zait, Joana Ark-ekoa naizela, Charles VII. a errege sagaratzearen lekuko" (CG 852. or.).

ALENÇON-EKO DUKEA

Bai, Joana, lehenago Judit-i erran zizkioten hitz berak erraiten ahal dizkizugu egiazki: "Zu zara Orleans-eko loria, Frantsesen bozkarioa, populu guztiaren ohorea. Kuraia handi batekin egin dituzu denak eta zure bihotza azkartu da. Garbitasuna maitatu duzulakotz, Jainkoaren eskuak zaitu indartu eta behin betikotz izanen zara benedikatua".

Jdt 15, 10-11

LA TREMOUILLE,
nahiz solasa desbideratu:

Joana, nor zen gizon zahar hura, laborari triste bat bezala beztitua, goizean, Reims-eko katedralean; bortxatu gaitu eta bertze Jauneria guztia ere, hari bide egi-terat zuregana jiteko? Iduritu zait besarkatu zaituela.

JOANA,
mintzoa ahuldua:

O! gizon zahar hura, ene aita da¹⁶ !... Ene aita bere adin handiarengatik nahi izan du bere alabaren ospearen ikusterat jin. Ez zait mintzatu ahal izan¹⁷, baina benedikatu nau eta ulertu dut haren behakoan gomitatzen ninduela berriz itzultzera sortzen ikusia ninduen herri goxorat. Ikusi dut ene mezua betea nuela eta orain behar nuela ene bildotxak zaintzean, otoitz egin ene erregerentzat, harentzat gudukatu ondoan, [11¹] armadaren buru bezala.

ERREGIA

Ez, Joana, ez da hori Jainkoaren nahia: Nahi dut Jainkoaren manuei jarraiki, baina sendi dut zure mezua ez dela oraino bururatua. Ez diozu Jainkoari bizia eman nahi azken egunerarte? Eta nik haren partez erraiten dizut, nik goizean ene kopetan Krisma Saindua isuria izan zidanak, behar duzula hemen egon, eta ez gehiago amestu zure herrirat itzultzea. Hitz emaiten dizut zure guraso onak ohoratuak izanen direla. Emanen dizkiet noblezia tituluak, deusen eskasik ez dute izanen eta zutaz lorian izanen dira, zuk hoinbertze ontasun mereziturik.

Tb 13,17

JOANA, *begiak xukatuz:*

Errege maitea, zure zerbitzariak, behar du umilki obeditu. Eskertzen zaitut ene gurasoei eman nahi dizkiezun sari guztiez, baina menturatzen naiz erraiteratu munduko ontasun guztiek ez dituztela kontsolatuko beren alabaren urruntzetik. Hargatik, segurtatzen zaitut beti zure zerbitzari leial eta osoki zure menpeko egon-nen direla.

¹⁶ 1890eko otsailean, Martin ahizpek egina zuten jadaneko beren aitaren eta Joanaren aitaren arteko konparaketa (CG, 1145. or.).

¹⁷ Pasarte guztia irakur daiteke Martin aitaren eritasuna gogoratuz (TG 115) eta 1892ko maiatzaren 12an Karmeleko mintzatokian aita-alabek izan zuten ikustaldi isila (CG 662. or.). 1894ko uztailaren 29an hura zenduz Teresak dio: "aita sendi duela berari so" (TG 170).

ERREGA,
Tremouille-ri buruz itzuliz.

Ekar iezaizkidazue paperak eta erredola!

(La Tremouille-k keinu bat egiten dio Jean d'Aulon-i. Hau ateratzen da eta berriz itzultzen erredola ekarriz eta idazteko behar diren guztiekin. Ahozpekatze handi bat egiten dio erregeri haiek eskaintzean).

[12^a] ERREGA, *paperak hartuz:*

Neskatxa noblea, titulu hauek zuri eta zure gurasoei baliatuko zaizkizue. Lege berezi batez nahi dut iragan daitezen zuen ondokoei bai gizonen bai emazteen bitartez.

(Erregek bere sinadura ezartzen du eta luma emaiten La Tremouille-ri. Hark ere izenpetzen du).

Gehiago dena nihaurek eginarazia dut erredola hau, ondoko gizarteari erakutsiko dio zer dizun zor erresumak. Zure ezpatak baitu salbatu korona, nahi izan dut juntatu Frantziako erredolari eta zuri egin omenaldi. Nahi dut zure guduketan zurekin erabil dezazun.

JOANA,
Erregeren opariak eskuratuz:

Errege gaixoa, ene ikustatea zuretzat ez da sekulan suntsituko; obedituko zaitut, erredola hau preziatuki atxikiz. Hargatik egidazu grazia ez sekulan uzteko ene bandera hau, eta beti neurekin eramaiteko gudukarat, zeren horrek baitizkit irabazten ene garaipenak, hortan idataraziak ditudan izen preziatuengatik.

ERREGA

Iduritzen zaizun bezala eginen duzu eta nahi dut izan zaitezen beti entzuna. Orai, itzultzen naiz ene goitzarat: bihar emanen dituzu zure manuak.

[V. AGERRALDIA]

Erregea jausten da bere tronutik, ateratzen da, bere inguruko guztiek segitzen dute; bai eta JOANAK ere, baina berehala itzultzen da eta belauniko emanik, "Mignon sur la rive étrangère" airean kantatzen otoitz hau:

[12ⁱ] Zuri laudorio eta ohore!
Ene Jainko puxanta baitzare!
Eman didazu garaipena,
niri haur ahul xume bat naizena...
Eta zu ene Ama hoberena,

Maria, zeruko izar ederrena,
 ene argitzaile izan zarena,
 zerutik sokorria igorri didazuna.
 Noiz ikusiko ote dut zure distira?
 Oi Izar goxo eta argia,
 zure xuriaren mina?
 Noiz izanen ote naiz zure hegalpean,
 hatsartzeko zure bihotz gainean?

Ene arima arrotza lur hontan,
 betiereko zorionaren gutizian,
 deusek ez dezake ezar bakean,
 neure Jainkoa ikusiz baizik zeruan,
 baina itzalik gabe ikusi aintzin,
 Jesusentzat nahi dut gudu egin.
 Arimak hura gero maiteago,
 eguna bezala bizia badoako;
 laster ez duke ez lanbro ez lano;
 Jesus, ene amodioa dut ikusiko,
 hantxet... zeru baztererraino
 orduan besarkatuko nau betiko!

Isiltasun luze baten ondotik MINTZOAK entzuten ahal dira
“Fil de la Vierge” airean:

“Akabo dira zuretzat, garaipen egunak
 eta ohorea.
 Jadanik zure loriak gorde nahi ditu etsaiak,
 halakoa baitu haserrea,
 Laster hartuko zaituzte, preso sartuko
 eta gela beltz-beltza
 izanen duzu aterbe,
 argirik ez duzu ikusiko,
 baina gau bakotxean,
 Joana Martira ezitia,
 maite baitzaitugu,
 zure xarmatzeko,
 lira eskuan kantatuko dugu.
 Gaixo haurra, ez izu,
 kontsolatuko zaitugu
 zure zorigaitzean;
 hitz emaiten dizugu:
 Jinen da zure libratzera¹⁸,
 Jainko Jauna bera.

[13']

¹⁸ “Jinen da zure libratzera” promesa horren bikoiztasunean datza dramaren garratzasuna, iraunen duena Joanaren gogo-bihotzetan pairamenaren iragarpena izan arte.

Joana belauniko dago mintzo horien entzuten. Haren aurpegia izugarriko beldur batek iluntzen du aditzean preso joan beharko duela. Bi eskuz estaltzen du bere begitartea. Alençon-eko dukea sartzen da eta Joana ikusten du itxura hortan. Joanak ez du iduri ohartzen dela ere norbait sartu dela.

[VI. AGERRALDIA]

ALENÇON-EKO DUKEA, *bere buruari mintzo.*

Zer gertatzen da?... Bere mintzo haiek jakinarazi ote diote zerbait gaizto? Ez da horren usaia hola errezibitzea zeruko bisitak... (*hurbiltzen zaio eta hunkituz erraiten dio*) "Joana zer duzu?... Ez duzu iduri eni ohartzen zarela?"

JOANA, *xutitzen da:*

Ez dut deus. Ene mintzo haiek zaizkidan solasean ari...

DUKEA

Zerbait berri txar ote dizute ekarri?... Ni sartu naizelarik hain zenuen itxura desegina!

JOANA

Ez, Duke maitea, berria ez da txarra Jainkoaren nahia denaz geroz. Salbu, ene loriako denbora pasatua da eta fitexko Angelesek hartuko naute.

DUKEA, *bizi-bizi:*

[13ⁱ] Zer diozu Joana? Ezin da! Zure kontseiluak ez dizu bada segurtatu, erresuma zuk salbatuko duzula Angelesen aztaparretarik? Tronpatu ote zira¹⁹?

JOANA

Ez, ene Bozek ez naute enganatu, eta ene mezua Jainkozkoa da. Salbu behar dut pairatu bulta batez, gero libratua izanen naiz, loria eta ohore handitan, ene Bozek hitz eman didate eta beti hitza atxiki dute.

DUKEA

Segituko duzu gudukatzen? Beharbada hobe zenuke bulta bat gorderik egotea?

¹⁹ "Gatibutasuna" izanen da Joanaren fedearen frogantza eta berehala nabari da nola ihardokiko duen: "Bozek ez naute enganatu, ene mezua Jainkozkoa da" (7-8). Hau da lehen zatiaren azken garai-pena.

JOANA

Ez, ene Jainkoaren kontseiluak behar du bururatu... Parisera buruz gidatuko ditut tropak, zeren garrantzia badu hiri hori erregearen esku izateak.

DUKEA

Parisen zara hartua izan behar?

JOANA

Ez dakit. Baneki zein hiritan behar naizen preso hartua izan, ez ninteke hara joan, baina ez dakit...

DUKEA

Parisek ez badu onartzen amore emaita, norat eramanen duzu armada?

JOANA

[14^a] Uste dut Parisek onartuko duela. Baina ukatzen badu, armada eramanen dut Compiègne-ko harresietaraino. Zutan fidatzen naiz, Alençon-eko dukea; beti eni fidel egon baitzira pentsatzen dut lagunduko nauzula oraino ere berriz hasiko ditudan obretan. (*Pausu baten ondotik*) Zuri segetuan erraiten dizut gauza baten beldurra dut bakarrik: saldukeriarena.

DUKEA

O Joana! Nor liteke aski aberriaren etsai zure saltzeko? Zu hain garbia eta beldurgabea zarena? Ene laguntza izanen duzu, leialki egonen naiz zurekin, ene bizia arriskatuz beharrez.

JOANA

La Tremouille-k badaki zonbat zaren eni atxikia. Beraz ez naiteke harri ikus baneza bere indar guztien emaiten gure berexteko. Baina ez da deus gertatuko, Jainkoak erabakia ez duenik eternitate guztitik. Pentsamolde horrek emaiten dit kuraia handi bat geroa gogoan dudalarik.

DUKEA

Berant da, akitua zaitezke, zoaz zure pausuaren hartzerat. Bihar Erregek erran bezala emanen dituzu zure manuak.

(*Ateratzen dira*).

[14ⁱ]

II. ZATIA:

GATIBUGOA, MARTIRIOA

[I. AGERRALDIA]

Hemen ageri da presondegia. Joana katez kargatua bakarrik da, harri baten gainean jarririk. Lurrean ageri da lasto puska bat, pegar bat, eta ogi beltz poxi bat²⁰.

JOANA,

kantuz "Pourquoi m'avoir livré?" airean:

Ene Bozek erran bezala, hona non naizen preso,
zutarik goaitatzen dut sokorri, o Jainkoa egizu so,
zure amodioarengatik utzi ditut gurasoak
eta baserri loretsua, eta zero urdina, betiko
zure amodioarengatik utzi dut ene zelaia,
gerlariei erakutsiz kurutzearen bandera xoila,
Jauna zure izenean, armada dut gidatu hola;
jeneral haundienek entzun dute ene boz ahula.
Presondegi ilun bat, horra ene saria,
ene lan, odol eta negarren ordaina.

Agur ene haur denborako xokoa,
ene pentze pollit dena loreztatua!
Agur ene urruneko mendi ederra,
iduri zero zolak hunkitzen duela elurra,
agur betikotz ene ezkila segura,
zure ametsetako soinu goxo ohitua,
ene zilo ilunean bilatzen dut izarra,
gauean zero gainean egiten zuen distira.
Non da itzala zeukan hostope firfira?
Neure tropa zaintzean egiten nuen lo kuluxka.
Hemen lo nagoelarik negarren artetik,
amesten²¹ ditut goizeko usain gozo eta ihintza.
Amesten ene mendixka eta oihanaren xarma,
baina burdin harrabotsak iratzartzen nau kolpez.

²⁰ Lehen agerraldi hau argitzeko, VTLan (13.zk.) argazkia ikus daiteke.

²¹ Joanaren ametsa konpara daiteke Teresa karmelitarenekin (A Esk., 79^a) eta ere C Esk., 6ⁱ en idazten duenarekin: "Argiaz egiten duzu amets, usainik gozoenaz lurrindaturiko aberriaz". Ikus ere Teresak eskolan idatzi "Joana Ark-ekoaren ametsa" (eta "Bestelako idazkiak").

[II. AGERRALDIA]

*Santa Margarita agertzen da.
Hura ikustean JOANA oihuz:*

[15^a] Oi Santa Margarita! zoin berant jin zaren. Santa Katalinak errana zidan ene preso egoiteak ez zuela hiru hilabete baizik iraunen; eta haiek iraganak dira. Ah! orain heldu zara ene libratzerat. Hauts itzazu ene kateak, eta utz nazazu Domremy ene herri maiterat itzultzerat!

SANTA MARGARITA,
“Masque de fer” airean kantuz:

Ez, ez ditzaket oraino, Joana, hauts zure kateak,
ez zuri itzul zure mendixkak eta pentzetako lore finak,
baina heldu naiz zerutik, arintzeko zure penak,
heldu naiz xukatzerat zure begi negarrez beteak.

*Hurbiltzen zaio Joanari, perekatzen du eta bere mantalin urrezko izarrez bete-
az begiak xukatzen dizkio.*

JOANA

Ez zara beraz ene libratzerat heldu. Beharko dut bada hil, Frantziaren garai-
pen osoa ikusi gabe? Alta bada hitzemana zenidan San Luis-ren erresumak Fedea
begiratuko zuela, segurtatua ninduzun ene libratzeaz eta ikus ezazu burdinetan
nago... deus ez dezaket gehiago ene aberriaren salbatzeko!

SANTA MARGARITA, *aire berean:*

Bai hitzemana dizut, garaipena segura da;
frankoen Fedea zaindua izanen da;
Joana, zure presondegian, kate pisu horienpean,
Jainkoarentzat duzu sofritzen, zure Errege salbatzearren.

JOANA

Zoin mixteriozkoak zure hitzak! Ez dut horien zentzua osoki ulertzen. Santa
Katalinak ere gisa hortakoak zizkidan erran, ene hutsaren ondotik, neure burua bota
nuelarik [15ⁱ] Beaufort-eko harresien gainetik²², nahi bainuen Compiègne-ko
jende onen salbatzerat joan. Beauvais-ko apezpikuak bere galdeketetan egin dizkit
bakarren erasiak, ez jarraikirik orduan ene Bozei, baina kofesatu naiz eta santa
Katalinak errana dit Jainkoak barkatu nauela. Hitz eman zidan ere berriz jinen zela,
baina ni honat jinez geroz ez dut berriz ikusi. Alta bada ez zait iduritzen desobeditu
diodala. Oh! otoizten zaitut, galde iezaiozu jin dadin ene libratzerat.

²² “Beaufort”-eko jauregian 1430eko abuztutik azarora preso zegoelarik saiatu zen Joana ihes egiten.

SANTA MARGARITA
 “*Dieu de paix et d’amour*” airean:

Martira jinen da zure garaipenaren ohoratzer
 emanen du palma bat zure eskuetan,
 erakutsiko dizu eternitateko loriaren bide argia

[III. AGERRALDIA]

Santa Margarita itzali da.

Jean Massieu sartzen da. Baditu eskuan paper batzuk ingurutuak. Hura ikusiz
 JOANA *altxatzen da eta kasik ahapetik erraiten du:*

Ah! horra Jean Massieu²³.

JEAN MASSIEU

Joana zer egiten zenuen ni sartzean?

JOANA

Santa Margaritaren bozaren entzuten nengo.

JEAN MASSIEU

Zure boz horiek nola deitzen zaituzte? “Jainkoaren alaba?” “Bihotz handiko neska?” “Elizaren alaba?”²⁴ ... ez ote?

JOANA

Bai egun guztiz mintzo zaizkidalarik, deitzen naute “Jainkoaren alaba”, “Elizaren alaba!”.

JEAN MASSIEU

Beraz Elizaren neskatoa bazara, zertako ez duzu onartzen [16^a] “*Pater Noster*” erraitea?

JOANA

Erran nezake gogotik, eta joan den egunean ukatu baldin badut Beauvais-ko apezpikuak entzun nindezan kofesioan izan da.

²³ “Jean Massieu”, Beauvais-ko “*apezpikuaren zerbitzuko apez bat*” da. Ez da erraiten uxera dela. Paper garrantzitsua emaiten dio Teresak. Horrek adierazten dizkio Joanari aski poliki bere jujeen arren-gurak: “*Elizaren alderako bihurrikeria*”, “*militarraren mirariak*”, “*gizonezko jantziak*”, “*missionearen etorkia eta izatea*”.

²⁴ “Jainkoaren alaba”: Jean de La Fontaine deitu lekuko batek dio Joanaren auzian (1431-03-12) aipatu zela izen hori. Ez da harritzeko Teresa atxikia izaitea izen horri: Teresa Avila-koak hiltzerakoan aipatu zuena bera, baitzen hain zuzen (ik. C Esk 33ⁱ).

JEAN MASSIEU

Zertako bada, Erregeren sagaratzearen ondotik maite zenuen hainbertze bataioko amatxi izaitea, eta zertako uzten zenituen zure beztimendak eta eskuak populuak besarkatzerat? Erran ere duzu zure botereaz, bizia emana izan zaiola haur hil bati.

JOANA

Egin ahala guti dut utzi ene eskuak eta beztimendak besarkatzerat baina egia da maite nuela amatxi izaitea eta mutikoak deitzea: Xarles eta nexkak: Joana. Aldiz haurraren berriz pizteaz ez nekien ene gain emana zutela hori eta segur naiz Jainkoak bakarrik duela egin mirakuilu handi hori.

JEAN MASSIEU

[16 bis^a] Ez duzuia bada onartzen ardurua Jainkoak gauza miresgarriak egin dituela zure alde?... Jean d'Aulon zure ezkutariak erran zuen alta bada, Saint-Pierre-le-Moutier aldean berrogeita hamar mila jende bazenituela zuekin erraiten zenuela, ez zenituelarik bizkitartean lau edo bortz mila baizik. Egun hartan zuk irabazi bitoria iduritzen zait bada miresgarria.

JOANA

Bai Jainkoak bere miresgarrien erakusteko hautatu nauela ardurua egia da, baina hori egiten zuen Frantziaren salbatzeko, ene gostuko. Nahi izan du anitz sofri dezadan: zonbat negar ez dut isuri ikusiz gorteko jaun handiek egiten zizkidaten jukutria guztiengatik? Ene odolak ere behar zuen ene negarrekin nahastekatu... Tournelles-eko oldar hartan lantza batek kausitu ninduen; erori nintzen eta ene Sainduak ez banindute salbatu, orduan preso hartuko ninduten, zeren Angelesak baziren ene inguru guztian. Baina Jainkoak hautatu orena ez zen oraino etorria. Ez nekien orduan zer ateka gaixtoen goaitan nengoen. Angelese, ene gutunetan beti bakeaz nintzairen mintzo, eta banuen amets bat, nahi bazuten gurekin baketu, elkarrekin kurutzada baten egitea. Erantzun ukan dut mehatxu eta larderia. Beraz merezi zuten bezala erabili ditut... Orain haien meneko naiz baina ene mintzoek hitz eman bezala libratzea uste dut. [16 bis^a] Kontzientzia garbi baten lekukotasuna badaukat eta Elizari²⁵ jarraikia naizen girixtino on bat naiz, ene etsaiek nahi dutena erranik ere.

JEAN MASSIEU

Beauvais-ko Apezpikua Elizaren ordezkaria da, hitz emana zenion gehiago ez zenuela ezarriko gizon beztimendarik²⁶; zertako berriz hartu dituzu?

²⁵ "Elizaren alaba" bai ala ez? - Horretan datza Rouen-eko auziaren funts guztia. "Elizak" toki handia hartzen du DSA 3an; "apezpiku" batek eta "apezek" kondenatua izatea da Joanaren "bihozmin handiena".

²⁶ Puntu horri neurrigabeko garrantzia eman zitzaion auzian.

JOANA

Nahi nuen segurki ene hitza atxiki, baina atzo presoainak kendu dizkit ene emazte-arropak, eta deus gisaz ene negar eta eskabideengatik ez dizkit berriz eman. Beraz bortxatua izan naiz ene gerlari soinekoa berriz janztera. Ez dut uste ene zina hola hautsi dudan. Bertzenaz ere Beauvais-eko apezpikua ere ez da bereari leial izan. Ez ote zidan hitz emana gehiago ez nintzela Angelesak zaindua izanen, baina bai Eliza-gizonek. Hark hitz emanak bakarrik zidan erranarazi ez nuela gehiago gizon-jantzirik erabiliko, zeren segur naiz, naizen kartzela hontan ez dudala gizon-jantzirik baizik ezarri behar, ene Mintzoek didate errana, eta ene mezuan sinesten duten guztiek onartzen dute ene egitatea.

[16^a jarraian]

JEAN MASSIEU

Jainkoaren partez heldu zarela sinesten dutenek, ilusitzen ote dira?

JOANA

Ez, ez dira ilusitzen eta Jainkoa ofentsatu dut²⁷ erranez populu guztiaren aintzinean, ene Mintzo haiek ez zirela zerutikakoak. Elizaren izenean zebilen predikari faltsu hura ni baino hobendunago da. Hargatik, prest naiz denen aintzinean aitortzeko [16ⁱ] ene mezua Jainkoarenganik daukadala; hola ene bekatua ordainduko dut. Suko egurra hor berean izanik ere eta sugarra senditurik ere, ez dut sekulan bertzerik erranen.

JEAN MASSIEU, *hunkitua*

Damurik! Laster beharbada dudan izanen zara zure mezuaz. Bazeneki zer berri dizudan ekartzen!...

JOANA

Erregeren armadak galtze zerbait ukan ote du? Hori balitz ere, ez nuke zalan-tzarik, eta berdin segur ninteke zazpi urte gabe Angelesak Frantziatik haizatuak izanen direla.

JEAN DE MASSIEU

Ez da frantses armadarendako berria, baina zuretzat, Joana. Nola gusta zidan zuri berri izugarri horren jakinaraztea! Ni zuri beti hoin atxikia izana! Alta bada behar dut, ene biziaren arriskuan... Bertzenaz ere, nik gordetzen badizut egia, bertze batek erranen dizu. (*bulta baten buruan, Jean Massieu-k, gero eta ilunago, paper bat idekiz erraiten du*) Joana, zure jujamendua egina da. Egun berean, denen bixtan erretzerat kondenatua zara²⁸.

²⁷ Saint-Ouen-eko hilerrietan gertatu zen "arnegatze" hori.

²⁸ 1431eko maiatzaren 30ean gertatua.

JOANA

Erretzerat! O ene Jainkoa, izan daitekea holakorik?... nahiago nuke zazpi aldiz burua moztua izan. Baina, zer krima ote dut egin?

[17^a] JEAN MASSIEU, (*paperean irakurtuz*)

Akusatua zara anitz itsuskeriaz: heretikoa zarela, arnegatua, jainko aizunzalea, sorgina, eta bertze.

JOANA

Damurik! Erromarat eraman banindute²⁹ nik hainbertze aldiz galdegin bezala, Aita Sainduak ezagutuko zukeen hobengabea nintzela. O! dei egiten diot Jainkoari, mundu guztiaren Jueari, ene etsaiek jasanaraziko didaten heriotze zuzengabeaz! (*Aurpegia eskuekin gordez negar egiten du*).

JEAN MASSIEU

Joana, ez duzu kuraiarik? Ez duzu uste salbatua izaitea?

JOANA,
burua altxatuz fierki:

Sinesten dut finki, ene Bozek erran bezala, salbatua izanen naizela. Sinesten dut han banintz bezain segur.

JEAN MASSIEU

Bakarrik utziko zaitut, Jainkoaren aitzinean agertzeko presta zaitezen lañoki (*xutitzen da, atean iragaitean itzultzen da erranez dolurekin:*) Joana, zeruan izanen zarelarik otoiz egizu enetzat!

[IV. AGERRALDIA]

JOANA, *bakarrik.*

Egia ote da errea izanen naizela? Oh! Ez! Oraino esperantza dut libratzea, ene Bozek hitz eman bezala. Jondone Mikael zutan dut emaiten ene fidantzia! [17ⁱ] Sal 115,16

²⁹ Zuzena da Joanak Erromara ereman zezaten eskatu zuela anitz aldiz.

[V. AGERRALDIA]

GABRIEL ARKANJELUA³⁰ *agertzen da*
 eta "Adieux du martyr" *airean kantatzen du.*

Ez naiz loriazko Arkanjelu hura
 zu lagundu zintuena irabazten gudua.
 Baina utzia dut orain goiko zerua,
 behere hontan izan zaitezen kontsolatua.
 Ni, Gabriel lurrerat hegaldatua
 Salbatzailearen negar xortak biltzeko,
 haren barneko ilunbetaz urrikaltzeko,
 zerutik jautsi naiz Haren soleitzeko.

Mt 26,38

Baratza hartan, agoniako gauean,
 Jesus Jauna dut lagundu, bere ezinbertzean:
 Ikusi ditut negarrak haren aurpegi sainduan!
 Ikusi ere haren odola isurtzen zurrutzan!
 Baina bekatorosen soak dizkiot urrundu,
 Jainko Salbatzaileari hautetsiak hurbildu
 ordukotzat Jauna zuk duzu soleitu;
 ordukotzat, Joana, irriño bat egiozu!...

Lk 22, 43-44

JOANA

Oi Aingeru ederra! zoin ezitia den zure boza! senditzen dut esperantza ene bihotzean berriz sortzen Jesusen sofrikarioak aipatzen dizkidazularik... Damurik! kasik oldartu naiz ene saltzaleei pentsatuz, zeren badakit Angelese saldua naizela eta orai Frantses guztiek bazterrerat uzten nautela, ene Erregek berak ere ez du iduri axolarik baduela ene hiltzeaz.

GABRIEL ARKANJELUA, *aire berean kantatuz:*

Mt 26,
47-50.56[18^a]

Jesusek ere ikusi du bere apostolua
 haren emaiten etsaien eskuetera;
 gertatu zaio memento izugarri hura;
 bere lagun hoberenek utzia berbera.
 Zure Jainkoak bezala bezala
 ez duzu ez lagunik ez eta erregerik,

³⁰ 1430eko maiatzaren 3an, "Kurutze Sainduaren" besta egunean, etorri zitzaion Jondone Gabriel Joanari soleitzera, eta "itxaropen" emaitera, lehen Jesusi berari bere Pasionean hark berak egin ziokeen bezala. "Agonia" hau da Teresak asmatu duen pasarte nagusietarik bat. Kontsolamendua eta itxaropena ematen dituen aingeruak bete-betean markatzen du Jesusen Pasionearen eta Rouen-go martiriaren artean den parekotasuna; Ebanjelioak ez du aipatzen Getsemani-ko aingeru kontsolatzailearen izenik, baina tradizio luze batek Gabriel izena ematen dio.

zure laguntzera heldu denik.
Baina zerua da jausten zure bihotzera:
Zure ondoan dago Jesus jauna bera

JOANA

Jesus ene ondoan dela! Zertako bada utzi ditu apezak berak ene kondenatze-
rat? Angelesez izan banintz jujatua, ez nuen hainbertze sofrituko ene gaztiguaz.
Baina ene aberriko apezpiku batek nau hiltzerat kondenatua!

ARKANJELUA

Berbo Dibinoa, Munduaren Kreatzailea,
bere populuz izan zen kondenatua
haren amodioak gainditu mundu honek
harentzat zeukan kurutzeko gaztigua!
Leku Sainduetan Kaifas Apez Nagusiak
Salbatzailearen hiltzea baitzuen erabakia,
hori zen izan oinazerik dorpeena,
Gure Jaun Salbatzailearena!

Jn 1,1

Mt 26, 57-68

JOANA

Oi! nola soleitzen nauen jakiteak ene agonia dela gure Jaunarena iduria... Har-
gatik, ez dut oraino arras Bera neure ondoan sendi eta heriotzak nau oraino izutzen!

ARKAJELUA

Salbatzailea, Kalbarioan hiltzean
Aitak ahantzia zuela zegoen dudatan
oinazearen erditik egin zion oihu:
"Ene Jainkoa, zer nauzu abandonatu?
Zuk ez duzu ikusten Jesus zure baitan;
haren miresgarriak daude gordagian;
Joana zure bihotza dago ikaran;
heriotzea ikusten duzu hogoi urtetan!
Jainkoaren Haurra izan zara bizi guztian,
zure espos Jesus iduri zeundelarik,
eta orain ikusten zaitu zure agonian;
zure hasperenak ozen ditu bere baitan.
Bihotz handiko Birjina, Jesus dago zurekin,
soleitzen zaitu bere beso azkarrarekin,
laster bizi iragankorraren ondotik,
sartuko zara betiereko bizian!

Mt 27,46

[18']

[VI. AGERRALDIA]

Arkanjelua itzaltzen da. Joana bakarrik gelditua, burua esku artean harturik dago. Horren itxurak agertzen du gaitzeko oinazea jasaiten duela. Bulta baten buruan Jean Massieu sartzen da.

JEAN MASSIEU

Gaixo Joana! denak prest dira; oren erdi baten buruan hemendik aterako zara, heriotzerat joateko edo bederen zure oinazeen bururatzeko. Baina, menturaz baduzu hondar gutizia bat? Mintza zaitetz beldurrik gabe, hitz emaiten dizut egin ahalak egitea zuretako.

JOANA

Bai! badut gutizia bat eta ardiesten ahal bazenu nik galdegiten dutana betiereko ezagutza banuke zuretzat. Nahi nuke hil aintzin errezibitu hondar aldikotz Gorputz Saindua. Ostia xuriaren itxuran gordea dagoen Jesusek dit bakarrik emanen heriotzari buruz joateko indarra. Haren bihotz Sakratua sendituko dudalarik neurearen ondoan, iduritzen zait haren Amodioaren suak kuraia emanen didala, egur su haren beroaren jasaiteko.

[19^a]

JEAN MASSIEU

Nahiz eta beldur naizen ez dudala hori ardietsiko, segidan banoa grazia horren galdegiterat Beauvais-ko Apezpikuari. Eskomikatua deklaratu baitzaitu, ez zait iduritzen komuniatzerat utziko zaituela. Hargatik otoitz egizu... Jainko onak zuretzat egin dezake mirakuilu hori!

JOANA

Oi! Milesker! Jainkoak ordainduko dizu ekartzen didazun soleimendua.

[VII. AGERRALDIA]

Jean Massieu ateratzen da. Joana belauniko emaiten da.

JOANA

O! ene Jainkoa! orain dut ulertzen ene Boz haiek aipatzen zidaten librantza. Ez zen nik amesten nuen hura! Baina heriotza! Heriotza hogeitertan! O gizonaren loria zoin gauza hutsa den!. Neuretzat iragan da, kea suntsitzen den bezala! Ene hobia dute zilatu ene etsaiek, ene loren erdian! Hilena naiz! Hemendik oren baten buruan nitarik ez da geldituko hauts porroxka bat baizik! Baina ez, ez da hori horrela! Oi ene Jainkoa! Ene arima zuri buruz hegaldatuko da; biziko naiz sekulan ez

gehiago hiltzeko. Egun batez ene gorputza aterako da errauspetik, juntatuko da ene arimari, ikusiko zaitu eta neurea izanen zara Jauna! Zertako naiz bada oraino ere hoin triste³¹? Zertako suak izutzen nau?

Jb 19, 25-26

Sal 41,6

[VIII. AGERRALDIA]

[19ⁱ] *Santa Katalina agertzen da*³², *xuriz beztu, arrosaz koronatu eta martiren palma eskuetan. Heldu da Joanaren ondorat jartzerat. Honek irriño bat egiten dio.*

SANTA KATALINA,

Joana-ren esku estekatuak hartzen ditu eta tinkatzen bere bihotz gainean.

Heldu naiz zugarat, o ene ahizpa maitea! Heldu naiz zure kontsolatzerat eta zuri erakusterat nolako loria gure Jaunak begiratzen duen bere hautetsientzat. Entzun betiereko Zuhurtziaren³³ hitzak, eta ulertuko duzu zertako Jainko maiteak nahi izan duen behere hontako zure iraganaldia izan zedin urtxo xuriarena bezain laburra. Entzun ezazu... eta zure bihotza pozez jauz dadila!... “Jende zuzenen arimak Jainkoaren eskuetan daude eta heriotzaren tormentak ez ditu hunkiko. Zentzugabeen begietan iduri dute hilak, haien mundutik joaiteak iduri du ezin gehiagoko atsekabea, eta bizkitartean bakean daude!... Jasan badituzte ere pairamen izugarriak gizonen aintzinean, haien esperantza osoki bete da hitz emana izan zaien betikotasunaz. Haien atsekabea arina da eta handia haien saria, zeren Jaunak baititu probatu eta beretzat on kausitu. Probatu ditu urrea labe gorrian bezala. Hartu ditu sakrifizio-ko ostia³⁴ bezala. Jende zuzenek argituko dute, distiratuko soroetan dabilzan su pindarrak bezala. Haiek dituzte herrialdeak jukatuko eta populu guztiak gaintutuko eta heien Jaunaren erregetzak iraunen du sekulako”.

JOANA

O! zer bakea dakarten betiereko Zuhurtziaren hitz horiek neure arimara! Zinez egia ote da Jainkoaren ikusteko eta Sainduen goxotasunean parte hartzeko zoriona izanen dudala? Baina, ez naiz oraino neure biziko primaderan baizik. Zer sari ukan dezake lurtean holako egonaldi laburraren ondotik?

SANTA KATALINA

Joana, entzun ezazu oraino Jainko Zuhurtziaren hitza: hark zaitu argituko jakin nahi dituzun guziez. [20^a] Hark dio: “Jende zuzena hiltzen delarik doi bat goi-

Jkd 4, 7-17

³¹ Salmoetako bertsu hau Teresak idatzi zuen 1896an bera Joanaren itxuran agertzen zen argazkian.

³² Santa Katalinaren pertsonaia, Jenofa serorak, Zelina Teresaren ahizpak jokatu zuen. Gero VTL, argazkian 14. zk. agertzen da; ik. *Récréations*, 334. or., 8, (eta DSA 7).

³³ Bibliako “Zuhurtzia Liburua”-tik (3-5. kap.) eta Lemaistre de Saci-ren itzulpenetik, bereizi ditu Teresak Santa Katalinari erranarazten dizkion ondoko solasaldi guztiak.

³⁴ “Sakrifizioko ostia” berriz aipu da *Eskaintza-Ekintzaren* otoiitzean, 1895eko ekainean.

zegi, pausuan dago, zeren xahartasuna ez du ez bizi luzeak, ez eta urte andanak baliosten, baina bizi zuzenaren zuhurtziak ditu bilo xuriak agurrarazten eta bizi garbi bat da xahartasunaren zoriona. Zuzena baitu Jainkoak laket, hartakoz da Hartaz maitatua; eta Jaunak du eraman bekatorosen artetik, haien artean biziz haren izpiritua munduko makurbideetan gal ez zedin haren arima, haiek lilluraturik. Laburra izan da haren bizia, baina luzea izan balitz bezain baliosa; zeren haren arima gustatu baitzaio Jainkoari. Hartako da ernatu haren ateratzerat lohizko ingurumenetik. Populuek ez dute egiteko manera hori ongi ulertzen; eta ez zaie bururat heldu ere Jainkoaren grazia eta miserikordia sainduentzat direla eta Haren behakoa osoki ona dela bere hautetsientzat. Baina gaztetasun hoin goizik itzalia bekatorosen bizi luzearen kondenamendua da. Ikusiko dute jende zuzenaren heriotza eta deus ez dute ulertuko Jainkoak harentzat duen xedeaz, ez eta zertako duen Jainkoak segurean ezarri...”

JOANA

Jkd 5,2 Ez dute hori lur hontan ulertuko, bakarrik azken egunean: haien auhenak zoin handiak izanen diren ikusiz jende zuzenak loriatuak . Damurik ! zer erranen dute oraiko nere traidoreek ikusiko dituztelarik betetzen niri egin agintza miragarri horiek?

SANTA KATALINA,

Zuhurtzia Liburuaren arabera beti:

Jkd 5, 1-5 “Azken egunean jende zuzenak altxatuko dira atsekabez bete zituztenen kontra. Gaixtoak dira orduan harrituko eta izugarriko beldurrak ditu hartuko. Beren baitan erranen dute “Horiek ziren lehenago guk trufatu ditugunak eta zernahi gaizkirako etsenpluzat emanak! Zer zentzugabeak izan garen! Horien bizia iduri zitzaigun arras zoroa eta horien heriotza ahalgegarria. Hargatik horra non diren Jainkoaren Haurren lerrorat altxatuak eta Sainduen partean hartze duten! Zertan zaigu baliatu gure urgulua? Zer dugu ateratu gure aberastasunetarik? Itzal bat bezala iragan dira horiek guziak eta itsasuntzia uhainak urratuz doalarik deus herrestorik utzi gabe berdin-berdina da. Horra beraz, doi-doi sortuak baizik ez eta deus ez gara jadanik, eta ez dugu gutan erakutsi bertute hatz izpi bat ere.” Horra zer erranen duten gaixtoek: haien esperantza, haizeak daraman kea bezala baita, edo aldi bakar bat ikusi den arrotz bat bezala. Baina jende zuzenak dira biziko eternitatean. Jainkoak begiraten du haien saria. Hortakotz dute haren eskutik errezibituko miresgarritzko erresuma eta korona [20ⁱ] distiranta. Bere eskuineko eskuaz ditu estaliko, eta bere beso sainduaz zainduko!...”

JOANA,

ezin erranezko zorion aire batekin:

Ap 14, 3-4 O! Zoin zorionsu naizen! Orain heriotzak ez nau gehiago izutzen. Igurikatzen dut ene betiereko zorionaren goizargia bezala, Martira Saindua. Gaur, zure ahizpa izanen naiz, zurekin segitzen ahalko dut Jainkoaren Bildotsa, kantatuz birjinek baizik errepikatzea haizu ez duten kantua!

SANTA KATALINA, *xutitzen da*:

Laster arte, ene ahizpa maitea, fite utziko duzu desterruko leku hau. Ark-etik ateratu urtxo xuriak non pausa ez dakien bezala airatuko zara Arka Sainduari buruz eta zeruko atea zabalduko dira zu sartzerat uzteko! Has 8, 8-9

JOANA

O! Birjina ezta! Ez dezazula ahantz hitz eman duzuna: zatoz neureganat! Finka ezazu ene bihotza martirioa jasanen dudanean!

SANTA KATALINA

Bai, lagunduko zaitut eta zeruko edertasuna zure begietarat kantuz ekarriko. Kantatuko ere zeruko aingeruek zuri eskaintzeko prest dauzkaten palma eta korona betierekoak. (*Musu bat emaiten dio kopetan Joanari eta itzaltzen da*).

[IX. AGERRALDIA]

JOANA,

bakarrik, kantatzen du koplak hau "Pourquoi m'avoir livré" airean:

Jauna, onartzen dut martirioa zure amodioagatik.
 Ez dut gehiago herioaren ez suaren beldurrik
 zuri buruz dago, o Jesus, ene arima loriaturik
 gutizia bakar bat dut: Zu ikustea bakarrik.
 Nahi dut hartu kurutzea, zure segitzeagatik.
 Deus gehiago ez dut nahi zure amodioz hiltzea baizik.
 Hil nahi dut bizitzen hasteko oraindanik.
 Hil nahi dut, Jesusi osoki juntaturik.

[21^a]

Mt 16,24

[X. AGERRALDIA]

JEAN MASSIEU, *sartzen da*:

Joana, hona sakrifizioaren orena! Baina presondegia utzi aintzin Eukaristia Sainduaren errezibitzeko gozoa izanen duzu: Beauvais-ko apezpikuak erran dit zuri deus ez errefusatzeko.

JOANA

Eskertzen zaitut holako fagore ezin prezatuzkoa erdietsirik. Jesus bihotzean, joanen naiz beldurrik gabe heriotzari buruz. (*Begiak altxatuz zerurat*). O nere Jain-

I Ko 13,12 koa! Ene presondegian zaitut beraz errezibituko, ogi poxi baten itxuran gordea, eta ene esker onezko otoitza zeruan da bururatuko, han baitzaitut bekoz beko miretsiko eternitatean.

JEAN MASSIEU

Ez duzu ez zoko hontan errezibituko Komunione Saindua baina ondoko presondegian. Nahi duzu, joan aintzin, heriotzarat joaiteko galdegin zenuen arropa xuri hura jauntzi? (*Zabaltzen du besazpian zeukan arropa bat*).

JOANA

Lk 23,11 Mt 25,6 Bai, segurki nahi dut. Iduritzen zait hola ene Salbatzaile maitearen iduri gehiago izanen dudala, hari ere Herodes-en gazteluan eman zioten arropa xuria. Ez dut gerlari gisa joan nahi martiriorat zeren bakea segurtatua dut eternitateko. [21¹] Birjina bat bere esposaren aintzinerat joaki den bezala nahi dut nik ere apaindua izan.

Jean Massieu-k kentzen dizkio bere kateak arropa ezar ahal dezan. Orduan urrunetik entzuten dira boz batzuk Ama Birjinaren litaniak kantatzen.

JEAN MASSIEU

Entzuten dituzu Sakramendu Saindua segitzen duten fededunen bozak? Jadanik profesioea presondegiko harrisien bazterrean da baina badugu oraino denbora, honaino heltzeko bada anitz maila iragaiteko.

Entzuten dira garbiki litaniak: "Regina Martyrum ora pro ea — Regina Virginum"... gero iduri dute bozak galtzen direla presondegiko itzulgune ilunetan. Joanak ezarria du arropa xuria. Jean Massieuk berriz ezartzen dizkio kateak eta ateratzen dira.

[XI. AGERRALDIA]

BOZAK kantuz:

Aira zaitetz martiriorat... aira!
Zuretzat da askatzea, orain!
Frantziako Joana, aira, aira!
Aira, zaitetz martiriorat... aira!
Zure esposa da, zure erregea,
Jainkoarentzat izan da zure garaipena.

Jupeak ez dira ageri. Joana bakarrik dago su egurraren gainean berekin duela apez bat: azpia estal daiteke zerbait oihalekin edo argi batzuekin edo zerbait alegiazko su itxuratzeke.

BEAUVAIS-KO APEZPIKUAREN *boza entzuten da*

Joana badakizkizu zure kondenaren arrazoinak: Heretiko, arnegatu, Jainkoai-zunzale izan zara eta zure sorginkeriaz duzu koronarazi errege heretiko bat, haren buru gainean zure bandera xarmatua zenuela itzulikarazten haren sagaratzean... orain joaiten ahal zara bakean, Elizari obeditzea ez baitzenuen onartu orain harek ez zaitu gehiago zaintzen ahal... Abar eihar guziak, mahats ondotik behar dira bereizi eta surat botatu³⁵.

Jn 15,6

[22^a]

JOANA

Apezpikua, zuregatik naiz hiltzen! Ez naiz heretikoa Elizaren haurra naiz eta salbatu nahi izan dudan erregea biziki errege girixtino ona da... Aldiz ene bandera hura, ez ote zen xuxen gudian izan ondoan, izan zedin ere garaipen ospean? Erromarat eraman baninduzue, Aita Sainduak ezagutuko zukeen hobengabea nintzela, baina uros naiz ene aberriarentzat hiltzeaz eta Jainkoa otoizten dut ez ditzan ene etsaiak gaztiga. Barkamendu galdegiten diet jakingabea laidostatu ditudan jende guztiei eta nihaurek barkatzen diet ene hiltzea bilatu duten guztiei. Trinitate Saindua urrikal zaitetz nitaz! Jondone Mikael, Jondone Gabriel... Santa Katalina eta Santa Margarita otoitz egizue enetzat!

BEAUVAIS-KO APEZPIKUA, *haserre:*

Ez da ba amaituko?... Pitz bedi sua!

JOANA

O! otoi! ez nazazula utz hiltzerat azken musu bat eman gabe ene Jainkoaren kurutzeari! (*Martin Fraideak presentatzen dio zurezko kurutze ttipi bat. Joanak tinkatzen du bere bihotz gainean. Baina oraino erraiten du.*) "Nahi nuke ene aintzinean Elizako kurutzea".

MARTIN FRAIDEA

Joanen naiz bila. (*Ixtant baten buruan heldu da Elizako kurutzearekin.*)

JOANA

Oi, milesker! atxik ezazu goraxko ni hil arte. Orain joaiten ahal naiz zerurat, bai segur, gaur berean han izanen naiz.

MARTIN FRAIDEA, "Avrigny"-ren olerkia³⁶ erraiten du.[22ⁱ]

Norentzat liteke zerua, ez balitz zuretzat!
Zure Printzeak bazuen zerbaiten eskasa
eskaini zara, erregeak egiten dituen Jainkoarentzat

³⁵ "Abar eiharrak behar direla sura bota" erran zitzaion Joanari Saint-Ouen-eko hilerrietan, 1430eko maiatzaren 24ean.

³⁶ Ez Avrigny-rena, baina Soumet-ena da olerkia.

eta onartu zaitu eta egun deitzen zaitu beretzat
harentzat on baitzara, onartu du eskaintza.
Martiren distirak argitzen dizu burua;
egur meta da itzaltzen eta agertzen aldarea;
zerurat hegaldaz zaituzte Aingeru libratzailea!

Sua pizten dute³⁷, JOANAK ikusten du eta oihu egiten:

A! sua! Martin Anaia, laster jauts zaituzte hemendik!

Martin jausten da. Ez da gehiago ageri kurutzearen burua baizik. Joana begiak hari itzulita dago.

BOZAK *entzuten dira kantuz*
"Au sein de l'heureuse patrie!" airean:

Eternitate bazterretik jausten gara,
zuri irriño bat egiteko eta zure eramateko zerura,
betiereko korona gure eskuetan daukazu begira,
zure belar loriosean eginen du distira

Errepika

Zatoz gurekin Birjina Maitea,
bai zatoz! goaiten dago zerua,
zatoz aberrirat, utzirik desterrua!
Jainkoaren alaba, biziko zara gozaro

JOANA, *zeruari so erraiten du:*

Entzuten ditut ene Bozak gomitatzen naute zerurat hegaldatzerat. Ez egundaino ez naute ene Bozek enganatu eta ene mezua Jainkoarengatik heldu zen (*suak eta keak gero eta gehiago ari dute estaltzen eta oihu egiten du*) O! sua goiti ari da.... erretzen ari naiz....! ura!...ur benedikatua!... Jesus zatoz ene salbatzerat!!!

BOZAK

[23^a]

Egurtegi hontako sua piztu da
baina Jainkoaren amodioa beroago da,
laster zuretzat betiereko ihintzak
estaliko ditu suaren oinazeak

³⁷ Orduan gertatu zen nahigabea, Maria Aingeruena serorak kondatu duena, Joana, hots Teresa bera, hor erretzer zutela egiazki. Beharrik Ama Prioreari esker sua berehala itzali zuten. Teresak bizkitartean uste izan omen zuen erre behar zuela eta bere biziaren eskaintza egin ere zion Jainko Jaunari, batere duruzatu gabe (PA 299. or.). Teresak jantzia zuen "zaia xuriak" ez du batere suaren herrestorik, eta ongi bururatu zen antzerkia. Ik. CGS 157. or.

Errepika:

Azkenean, hona askatasuna
 beha ezazu, hor da aingerua;
 jadanik palma da agertua,
 zuri buruz Jesus aintzinatua,
 nexkatxa bihotz handikoa

Zure oinazeak, Oi Birjina eta Martira!
 Zaitu helduko betiereko zorionera,
 bizia duzu eman Frantziaren salbatzeko
 haren haurrentzat zeruaren idekitzeko.

JOANA kantuz:

Sartzen naiz betiereko bizian³⁸ ;
 aingeruak ikusten ditut eta hautetsiak
 hiltzen naiz ene herriaren salbatzeko
 Birjina Maria zatoz!
 Jesus Jesus³⁹ zatoz!

Joanak burua apaltzen du eta iduri du erortzen dela egur metaren gainera. Orduan kentzen du bere arropa xuria eta [23 bis^a]⁴⁰ ezartzen bertze bat dena urrezko izarrez betea. GURE JAUNAREN mintzoa entzuten da. Eta” Votre Ciel est d’azur” kantuaren airean Aingeruak dio.

Oi ene ahizpa maitea, deitzen nau zure boz eztiak,
 eta nik hausten esteka zeunzkaten lokarriak.
 Oi urzo xuri ederra, hegaldia zaitetz neuregana!
 Zatoz zeruetara, zatoz, negua da iragana!
 Joana, zure Aingeruak deitzen zaitu,
 eta ni zure arimaren jujea nauzu,
 zutan dut beti senditu, diot goraki,
 amodioaren sua piztua zegoela beti.

Sal 115,6

Kt 2,
10-11.14

O! zatoz nahi zaitut koronatu,
 zure negarrak xukatu,
 zatoz ene espos maitea,
 nahi dut musu emaitea.

Ap 21,4

Kt 1,1

³⁸ “*Bizian sartu naiz*” perpaus ezaguna, 1897ko ekainean idatzi zion Santa Teresak, Bellière apezgaiari, bere antzerki hau berrirakurri ondoan.

³⁹ “Jesus!” hori izan zen egiazki, Joanak erran zuen azken hitza, bere *ahizpa maite-maiteak* bezala Teresak hiltzerakoan *xuxurlatu* nahiko zuena (B Esk., 3^a).

⁴⁰ Sutegititik zeruko tronura egiten den leku aldaketarekin batean gertatzen den Joanaren jantzi aldaketarentzat, Teresak eratziki dio testuari hemen ohar hau.

Berriz kantatzen da errepika: "Joana zure Aingeruak..." etab.

[23bis']

Ap 14,4

Zure lagunen artean,
zaude mendi gainean,
eta pentzeen erdian,
bildotsa segitzean.

Oi neure maite-maitea,
kanta mendi artean
kantu sakratua,
kantu berritua!

Aingeru saindu guziak
oste handi xuritan,
kantuz zure laudoriotan,
Jainko Handiaren aurrean.

Artzaintsa herabea,
gerlari bihozduna,
lurrean zure izena
betikotz ezaguna
artzaintsa herabea,
gerlari bihozduna,
zerua da zurea!

[III. ZATIA]

ZERUKO OSPEA

[I. AGERRALDIA]

*Oihalak kendurik ageri da tronu eder bat. Santa Katalinak eta Santa Margari-
tak atxikitzen dute Joana eta Jondone Mikael ere haren ondoan da. Kantatzen dute
"Oui je le crois, elle est immaculée" airean.*

[23^a jarraian]

SANTA MARGARITA,
arrosazko korona bat eman ez Joanari:

Zurea da, zurea da,
betiereko korona.

SANTA KATALINA, *palma eskuan emaiten dio Joanari.*

Ap 7,9

Jaunaren Martira, palma hau zurea da

JONDONE MIKAEL, *tronuan jarrarazten du:*

Eta armadetako Jainkoak tronua hau dizu antolatu. Zurea da.

1 Erg
19, 10.14

SAINDUAK *elgarrekin:*

O! zaude zeruan, Joana, urzo garbia,
betikotz ihiztarien saretarik ateraia,
hemen kausituko duzu ur erreka garbia,
bazter guztietan pentzea lorez estalia.

Sal 123.7

[23ⁱ]

Errepika

Har ezazu haizea, zabal zure hegala xuriak,
bat banazka ikusiko dituzu izar guztiak,
miresten ahalko eternitateko bazter nasaiak
har ezazu haizea!

Joana, ez da orai presondegirik eta etsairik
aingeru ederrenak izanen dira zure ahizpak
Jesus bera da zure espos laguna,
zuretza dauka bere bihotza.

JOANAK *kantatzen du* SAINDUEKIN:

JOANAK

Nerea da⁴¹

SAINDUAK:

Zurea da.

JOANAK

Oi zer zoriona!
Zeru guztia neurea da.

SAINDUAK

Zeru guztia zurea da.

JOANAK

Aingeruak eta Sainduak! Maria! Ene Jainkoa bera,

⁴¹ Bihotz maiteminduaren otoitza, Joan Gurutzekoaren otoitza da (ik. TG 137).

SAINDUAK

Zure Jainkoa bera,

JOANAK

Neureak dira,

SAINDUAK

Zureak dira.

SAINDUAK *bakarrik*.

Ehun urteak iragan dira urruneko lurretan⁴²
zu sartuz geroz egun eder batez zeruan
mila urte egun baten pare baita gure etxean.
Baina egun harek irauten betierean.

Sal 89,4

JOANA *eta* SAINDUAK

Betiereko eguna, itzalik gabea, lanorik gabea
nehork ez dit kenduko zure distira paregabea.

SAINDUAK

Nehork ez dizute kenduko haren distira paregabea
iragana baita munduaren itxura ezdeusa.

1 Ko 7,31

JOANAK

Niri zerua,

SAINDUAK

Zuri zerua.

Urrunean ageria da FRANTZIAREN boza kantuz.

Oroit zaitetz Joana, zure aberriaz!
Oroit zaitetz zure mendixka loreztatuez!
Oroit zaitetz soro loriagarriez
utzi baitzenituen ene negarren xukatzeko!
O Joana, ez ahantz Frantzia duzula salbatu!

[24^a]

⁴² "urrundik" etorri gara 1895eko urtarrilaren 21era. Oroitu behar da indarrean zegoela orduan Frantzian eliztarren kontrako eraso gogorrena (TG 192; PO 401. or.). Horrela ikusten da zer garrantzia zuen Teresarentzat eta haren serora laguntzat azken zatiko Frantziaren Askatzailearen itzultze horrek. Gaurkotasun harrigarria kausitzen zioten, guri ez bezala, orduan denek.

Zeruko aingeruak bezala ene oinazea sendatu!
 Gauean entzun ezazu
 Frantziaren negarra!
 Oroit zaitez!

Oroit zaitez Joana zure garaipenez,
 oroit zaitez Reims eta Orleans-eko hiriez,
 oroit zaitez bete zenuela zure ospez
 Frantziako erresuma, Jainkoaren izenez.
 Oinaze gogorretan nago zutarik urrundua,
 otoi salba nazazu oraino, Joana Martir dohatsua!
 Zatoz ene kateen haustera!
 Ene oinazea da ezin gauditua,
 oroit zaitez ! oroit zaitez!

JOANA,

"C' était dans un bois solitaire" airean, kantuz:

Oi Frantzia ! ene aberri ederra,
 altxatu behar zara zeruetara
 zure biziaren berriz kausitzera
 eta zure izena berriz ospatzera.
 Frankoen Jainkoak bere urrikalpenean
 zure salbatzea baizik ez du gogoan
 Joana Frantziakoa naizen honen arartez
 zaitu oraino salbaturen,
 zatoz eneganat zatoz eneganat!
 Aberri ederrena,
 otoitzean nago zuretzat
 entzun ezazu ene deia,
 zatoz ene ganat!

[II. AGERRALDIA]

FRANTZIA *aintzinatzen da emeki,*
kateez inguratua da eta korona eskuan.

Zureganat naiz heldu⁴³ kateez kargatua
 kopeta ilun, begiak negarrez beteak.
 Ez naiz gehiago erreginen lerroan sartzen,

[24ⁱ]

⁴³ Maria Bihotz Sakratuaren serorak, Frantziaren itxura egiten zuenak oroitarazi digu nola, "Teresari buruz zoala: 'Zureganat heldu naiz, kateez kargaturik' erranez, kate horiek ziezazkion, egiazko Joana Ark-ekoaren itxura ikusi zion, bere aurpegi argi eta indartsuarekin. Bai zinez Joana Ark-ekoa bera zen!" (Ama Aines Jesusenari, oroitzapen autobiografikoak, 1909/06/29).

eta ene hurrek naute oinazez lehertzen:
 Jainkoa dute ahantzi; beren ama baztertu.
 O Joana urrikal zaitetz! Hain naiz etsitua!
 Zatoz ene bihotzaren kontsolatzera!
 Aingeru libratzailea, zutan dut esperantza.

Ikus ene eskuetan erregina korona,
 zure buruan heldu naiz pausatzer
 Joana, zu zara ene Erregina
 Jainkoaren Haurra, zatoz Frankoen gobernatzera!
 Zatoz Frantziaren kateen puskatzera!
 Elizaren izan bedi berriz Alaba gehiena!
 Joana entzun ene deia!
 Bigarren aldikotzat
 Jauts zaitetz eneganat!

BOZAK,

“Volez au Marture” airean kantuz.

Jainkoaren Haur, Alaba bihozduna,
 zoaz hegalez Frantziaren laguntzerat!
 Esperantza dut zutan bakarrik emana
 aira zaitetz Aingeru libratzailea,
 Jainkoaren Haur, Alaba bihozduna,
 aira zaitetz Jainkoaren izenean!

Joana jausten da tronutik, Frantziari buruz abiatzen, hausten ditu haren kateak, korona buruan finkatzen dio, eta bera bihotz gainean tinkatzen du:

JOANA

Oi, ene Frantzia maitea! Zorionekin dut ene Botzer ihardesten zure salbatzerat etortzeko. Oraindanik ez zara gehiago kateez kargatua izanen, zeren zure bihotza itzuli baita zerurat buruz. Lehenago dei egin bazenit, aspaldian jinen nintzen zureganat.

[25^a] *Frantziak, eskuak libro izanez, nahi du bere korona pausatu Joanaren buru gainean, baina honek hartzen du eta erraiten:*

Ez, ez dut nehola ere nahi Frantziako korona ene buruan. Utz nazazu, zurean ezartzerat, zeren oraindik merezitua duzu!

Birjinen korona aski zait eta ez dut ene palmaz bertzerik nahi, zeren hainbertze banaiz ohoratua zeruan, ez gurlari ona izan naizelakotz baina martir eta birjina naizelakotz. Orain nahi dut ene bandera izan dadin zurea. (*Jondone Mikael-ek presentatzen dio Joanari eta honek emaiten Frantziari*).

Ez ote zaituzte Jesusek eta Mariak salbatu? Zerueta Erregina dohatsua ez ote da hiru aldiz jautsi⁴⁴ bere tronutik galdeginez egin zenezan penitentzia? Eta ez

⁴⁴ Ama Birjina-ren agerpen horiek daitezke “Parise rue du Bac”ekoa (1830), La Salette-koa (1846), Lourdes-ekoa (1858) edo Pontmain-eko (1871)?

ote duzu mendixka baten kaskoan, Bihotz Sakratuaren ohoretan altxatua den eliza eder⁴⁵ haren medioz merezitua egun ardiesten duzun grazia hau ?

FRANTZIA, *xutitzen da eta kantatzen du:*

Bai zuregatik Aingeru dohatsua,
ohoratuko dut Mariaren izen Saindua,
beti Jesusenari osoki juntatua
haiek baitidate bizia salbatua.

JOANAK *eta AINGERUEK kantuz errepikan.*

Bai iragan dira negarren egunak:
Oi Frantzia! Elizak hain maite zaituena,
oraindanik zure maitasunak
egin zaitu haren alabetan gehiena.

[25ⁱ]

Joana, igaiten da bere tronura, FRANTZIA besarkaturik.
Frantzia juntatzen da haren BOZERI kantatzeko.

Igan da lorioski zerurat.
Petriren ondokoa mintzatu
eta engoitik betikotz argitu
Joanaren izen argia.

Errepika

Laster ageriko da aldarean
Frantziaren zaindari berria
eta zeru-lurrek elgarrekin
esker onezko kantua kantaturen.

1895eko urtarrilaren 21a⁴⁶

⁴⁵ Montmartreko Bihotz Sakratuaren basilika da, 1887ko azaroaren 6an Teresak ikuskatu zuena, apiriko-azpia soilik eraikia zutelarik.

⁴⁶ Ez da hemen sartu "*Joana Ark-ekoaren saildu izendatzeko Kantika*" (TO 4), 1894ko maiatzaren 8an osatua, baina geroxeago Teresak sartuko duena DSA 3 en azkenaldean.



DSA 4

1895-VII-29

[1^a]

JESUS BETANIAN

DOKUMENTUA: Ahizpa Maria Hirutasunarenaren kopia.- EGUNA: 1895eko uztailaren 29rako, ahizpa ez-korukoan festa (Santa Marta).- KONPOSIZIOA: 41 ahapaldi (204 lerro) bi airetan.- ARGITALPENA: HA 98, 5 ahapaldi kenduak, 3 gehituak, 58 lerro ukituak; *Récréations*, 1985, testu osoa.

Uztailaren 29an ospatu ohi zen santa Martaren besta, egun hori baitzen ere orduan Karmelen "ez-koruko" seroren besta. Egun horretan "koruko" serorek zerbitzatzen dituzte "ez-korukoak" eta "nobizien" gain daude ere sukaldekoak. "Oihal xuridun" serorek ukaiten dituzte ikustate porroxka zenbait, kantuño bat eta komedia edo antzerkixka bat.

1895ean Teresa Jesus Haurrenaren gain izan zen bost serora "Marta" horien ohoretan zerbait egitea eta horrela berak ondu zuen 204 lerroko olerki hau, bi airetan emaitekoa. Maria Hirutasunarena nobiziagaia eta Jenofa (Zelina) nobiziagaia, bi nobiziarekin batean Teresak berak aurkeztu zuen bere obra.

Gaia, san Luk-en ebanjeliotik hartua da: 10. kapituluaren (38-42). Hor ikusten baitugu nola Jesus hartzen zuten Betanian Martak eta Mariak, bi ahizpek. Formaren aldetik, elkarrizketa huts bat besterik ez da. Jaunak aldizka bi ahizpei mintzo zaiela, 41 kobla kantuz ontzen ditu.

Orduan egin ohi zen bezala autoreak Ebanjelioko bi Mariak bat egiten ditu: Maria Madalena (Lk 8,2) ustez Lk 7 36,50eko bekatorea bera dena eta Betaniako Maria, Lazaro eta Martaren arreba (Jn 11, 1-44) Simon Lepradunaren etxen gertatu zena (Mk 14, 3-9). Antzeko parekatze honek pertsonaia bakar honi izaera izpiritual oso markatua ematen dio. Teresak Betaniako gertakariaren giroa dakar hona ere. Ohiko problematika alde batera utzi gabe: kontenplazioa/ekintza, hark bere barnean duen gaiaren alderantz egiten du: amodioaren lehian "amodio garbia" eta "arima garbatua"; honi gagozkiola, "Maria" izena ezkutuan gelditzen da, "Madalenak" estalirik.

Jesusek hitz egiten du beraz bi ahizpekin: Maria Madalenari, herabe dagoenari bere bizitze iraganagatik, oroitarazten dio osoki berritua duela bere barkamenduak. Martari aldiz,

bere ahizparen gelditasunaz arregura denari, Jesusek gogoratzen dio maitasun garbiaren beharra lan guztien erdian eta oroz gainetik bere garbitasuna aipatzen badio besteak, hark erakusten apaltasunaren garrantzia hobetik gabe denaren baitan. Bi ahizpei erraiten die, bai bere maitasuna bai beren misio - eginkizunaren edertasuna.

Jesusen hitz bat bada halere agertzen ez dena: baizik eta "Mariaren partea dela hobere-na" (Lk 10, 42). Isildu duke Teresak menturaz ez dakien erran hori "ez-korukoei" gaitzi. Berriz ere antzerkian aipatzen du Teresak eguneroko bizian berak bizi duena: Une hartan bera "Salbatzailearen" urrikalmenduak gozoz ito bezala omen zuen, A Esk., 38^l/39^a eko pasartearen idatzi duenez, eta geroago DSA 4 ean agertzen denez.

Karmeliten artean bada ez dute funts handirik ez "kategoria" ezberdinek ez orobat "lan mota" bereiziek, "maitasuna da soilik konda". Beti erakaspén hori gogoratzen die nobiziei, bai Jenofa koruko serorari (TO 13, 15; CSG 77.), bai Marta laneko serorari: "zure lanen artetik ere Jesus har ezazu gero gehiago gogoan!" (PA, 413.)

Gaia minbera da, hain zuzen ekainaren 2an, Ama Aines prioreak proposatu baitio Jenofa nobiziagariari "ez-korukoén" sailean gelditzea eta Zelina ahizpak onartu baitu. Solasak eka-ri du gai bera seroren artean, baina Ama Maria Gonzagarena ez da batere aburu bereko.

Antzerki honetan ez du beraz Teresak nahi itxindi hori berriz piztu, eta sua itzaltzera lehiatzen da aitzitik. Jesusen itxura berak hartuz, Maria Hirutasunarena (Madalena) eta Jenofa serora (Marta) lagun dituela ezti-eztia emaiten du bere erakaspéna. Bere bakegile lanean ohartzen gara 1895eko uztail horretan, Eskaintza Otoitza egin ondoan, bere maitasun betera heldua dela.

Lk 10,39 *Santa Madalena jarririk dago Jesusen oinetan¹. Amodioz behatzen dio. Sala zolan ageri da Santa Marta Nausiarendako lanean ari, mahainaren muntatzen.*

Lk 10,40 *Jesus Jauna eta Santa Madalena kantuz ari dira, "l'Ange et l'aveugle — Ain-gerua eta Itsua" airean.*

MADALENAK

Lk 10,39 1 Ene Jainkoa ene Nausia,
Jesus ene amodio bakarra,
zure oinetan beti izan nadila!
Hor ene egoitza finka dadila!
Lurrean bilatu dut debaldetan zoriona
baina tristezia bat samina
sartu da ene bihotzean barna.

JESUSEK

2 Ene oinetan Madalena,
kausituko duzu atsegina,
soleitzeko zure pena
amodiozko behako eztiéna.

¹ "Kokorika jarririk" zeuden karmelitak otoitzean; horrela maite zuen Teresak egoita (ik. TG 139). Horrela ikusten du ere Madalena C Esk., 36^{en}.

O Maria, hemendik aitzina
 bizia enetzat emaiten duzula.
 Nik hautatzen dut pairatzea
 zuretzat bizi guztia².

MADALENAK

- 3 Sobera da hori, Nausi Ona!
 Sendi dut flakatzen naizela
 egun enetzat izan dadila
 berriz sortzea edo hiltzea!
 Adi ezazu ene oihu samina,
 Jesus ene Salbatzailea zarena
 isurarazi dizut negarra
 oi! ene izugarriko pena!

JESUSEK

- 4 Egia da! Zure arimak
 senditu ditu ene negarrak
 baina ene pindar bakarrak³
 kanbiatzen ahal ditu bihotzak.
 Zure arima gaztetuak
 ene Jainko behakoaz,
 eskerrak bihurtuko dizkit
 betiereko bizian.

MADALENAK

- [1ⁱ] 5 Jesus, zure amodio hori bera
 aski da jauzarazteko ene bihotza;
 zure onezia izari gabekoak
 emendatzen ditu ene doloreak:
 Zu orain arte ez ezagaturik,
 nago osoki urrikiturik,
 eta ez dut deus eskaintzekorik
 zuri, ene negarrak baizik.

JESUSEK

- 6 Zeru zolako bide argiak
 baino distirantago
 dira zure negarrak;
 ene begien xoratzeko

² "Zuretzat" ikus nola pertsonifikatzen den Erospeneko misterioa (A Esk., 3^a).

³ Ekainaren 9ko Eskaintzaren ondotik izan "amodiozko zauria" gogoan ote? (Ik. KH 7.VII. 2.).

bihotz urrikalduak⁴
ditut nahiago
zeruko izar puxantak baino.

MADALENAK

7 Zer misterio espantagarria
o nire Salbatzaile Handia,
ez ote da deus lur hontan bertzerik
zure bihotza xoratzen duenik?
Urruneko mendiak
bildots xuri eztiak
bazterretako liliak
ez baitira osoki ederrak?

JESUSEK

8 Zuk ikusten duzu lorea
eta primaderako haizea.
Nik ikusten dut arrosa
eta zure amodio baliosa.
Arrosa gorri samin hori⁵
da ene bihotz altxagarri,
lore guztiak baino hobeki
da niretzat maitagarri.

MADALENAK

9 Xoriaren boz ederrenak
du kantatzen zure handitasuna,
ur errekarren murmurikak
emaiten zure freskotasuna,
mendi arteko lore ederrak
zuri ekartzen zoriona,
haren lore hegal pollitik
eskaintzen bere usain ona

JESUSEK

Mt 6, 28-29 [2^a] 10

Salomon bere loria guztian
bere bolizko tronuan
gutiago zen apaindua
ezinez eta lirio usainduna.

⁴ "Bihotz urrikalduak", Maria Madalenaren kasua gogoratuz eta santa Aines-en liturgiari orotuz (ik. TG 158 eta TG 17, 3).

⁵ "Arrosa gorri samina", urriki gozoenaren itxura da. Ikus ere DSA 5, 6. berts. (eta bere 7. oharra).

Bazko lore xeheenek
erregea dute garaitzen;
lore ttipi-ttipi horiek
zuretzat dute distirutzen

MADALENAK

- 11 Birjinen laguntaldeak, Ap 14,4
zuri eskainiz amodioa,
haien elurrezko kapa xuriak⁶
izanen du distira betikoa.
Nik bada ene bizi tristetik
ez dizut eskaintzen hondarra baizik
histua dut!... Damurik!
Jadanik... gazterik!

JESUSEK

- 12 Maite baditut ere
goiz argiaren distirak
o Maria! maite dut ere
arratsaren argi ederra.
Ene maitasun izarigabeak
nahi luke bekatorosak
eta hobengabeko arimak
ene bihotzean daitezen goza⁷. Jn 13,23

MADALENAK

- 13 Ez dituzu ba zure aingeruak
eta haien gar sainduak?
Isur itzazu zure fagoreak
betetzeko haien talde xuriak
ni gaixo bekatuz higatua
ez dut batere merezitua
zure ezin erranezko maitasuna,
bihotz barnean daukazuna.

JESUSEK

- 14 Aingeruak baino gorago
joanen zara oraino.
Kantatuko dute zure laudorioa,
ikusiz zure amodioa.

⁶ "Kapa xuriak" dira Karmeldarren jantziak (ik. KH 26. V).

⁷ Jesusek eskaintzen dio Madalenari azken apairuan Jondone Joaniri eman zion bezainbat bihotz gozo, beren *hurbiltasunaren* seinale (TO 24, 20).

Baina beharko duzu lurrean
 bizi bakartasunean⁸,
 otoitzean bekatorosentzat,
 bihotzak kanbia daitezen enetzat

MADALENAK

- 15 Oh! ezin gehiagoko amodio batek
 sendi dut ene bihotza erretzen.
 [2ⁱ] Eta hoin maite dudan zure boz horrek
 ene garra du berretzen.
 Baina zure jarraitzale izaiteko
 ene bihotza da ahulxko
 zure hori ez didazu prestatuko,
 Jesus? Zu iduri izaiteko...

Orduan, Santa Marta, aitzinatzen da . Aire presatu batekin⁹ behatzen dio bere ahizpari, harritua bezala hauxe kantatzen "Moine et Bandit - Fraidea ta Gaiztagina" airean.

MARTAK

- Lk 10,40 16 Urrikal zaitetz ene ahizpaz, o Nausi ona!
 Ahantzia egoki da, ez da ohartzen ene lana
 erraiozu bada segidan, otoi, Jauna!
 Bazkariaren zerbitzatzerat jin dadin enegana!

JESUSEK

- 17 Marta, ene ostalari ona,
 iduri luke ahanzten duzula
 zure ahaizpa beti prest dagoela
 joaiteko maite duenarengana.

MARTAK

- 18 Baina, Salbatzaile dibinoa,
 hona ni harritzen nauena:
 Ez ote luke utzi behar emaiten ari zaiona
 eta pentsatu berak ere zer bait zor duela¹⁰?

⁸ "Bakartasuna": "Sainte Baume" deitu Probenzako "Bakartegira" santa Madalena ihesi etorri zelako leienda bazezilen orduan orotan Ikus ere Joan Gurutzekoaren "Kantu Izpirituala". Gainera Lisieux-ko Karmeldegian "Sainte Baume" deitzen zuten aisialdietako aretoari zetxekion barne tipia.

⁹ Martaren "presa" horrek (ik. Lk 10, 40) ez du uzten Jesus ihardestera eta "Aingerua eta Itsua" ren doinua airean gelditzen da.

¹⁰ "Zorraren" kalkulu hori berez ez izanagatik gutiestekoa, Teresak baztertu zuen bere Eskaintza Otoitzean: "Eskuak hutsik agertuko naiz zure aitzinean". Jesusék bada ez du gutiesten Martaren emaitza, baina "urririkako maitasuna" hobesten dio, Joan Gurutzekoak eta Teresak haren ondotik egin bezala (ik. GT 221).

JESUSEK

- 19 Behar dizut erran segetua:
Zure amodioa da bihotz handikoa,
[3^a] baina Mariaren hori da
noski, ene gogokoa.

MARTAK

- 20 Zure hitz horiek enetzat badute misterio:
Ez nagoke pentsatu gabe oraino
lanean hartzea hobe dela, otoitzean baino;
amodioz lan egitea dut nahiago.

JESUSEK

- 21 Arrunt beharrezkoa da lana
eta emaiten diot benedizioa,
baina ez ahantzz otoitz ongi egina
dela lanaren lagun hoberena.

MARTAK

- 22 Banekien, Jauna, egonez alferrik,
ez nuela zure begientzat baliorik;
ez naiz geldituko zure zerbitzazetik,
zuretzat jateko hoberenak badauzkat eginik.

JESUSEK

(*Martari behatzen dio amodiorekin*)

- 23 O Marta! zure arima da arrunt garbia
eta zure bihotzak maite du emaita
baina badakizu nolako jatekoa
litekeen ene amodioaren asetzekoa?

MARTA (*belauniko emaiten da*)

- [3ⁱ] 24 O Jesus edertasuna bera, konprenitzen dut
zure behakoak, ene bihotza du zilatu;
ene emaitzak deus ez dira, orain naiz ohartu
ene arima osoa behar dut zuri ofreitu¹¹.

¹¹ "Ofrenda" bera egin du Teresak ekainaren 9an; eta ofrenda bera du eskatzen *Eskale Tipiak* DSA Sean, eta bereziki 15. bertsoan.

JESUSEK

- 25 Bai zure bihotzaren dut gutizia
ez zait sobera hari apaltzia¹² ;
zerua eta haren puxantzia
zuretzat baititut utziak

MARTA (*Madalenari behatuz*)

- Mk 14,3
Lk 7, 44-47 26 Zertako beraz, ene Jainko Sabatzaile ona,
egin duzu, Mariaz, Simoni, holako aipamena¹³?
Iduritzen zait alta horren bizi guzian
egun hitsak ikusi dituzula behin baino gehiagotan

JESUSEK

- Sal 50,19
Lk 7,47 27 Konprenitu dut haren gutizia,
bihotz erdiratu baten urrikia:
Norbaiti barkatu gehiago
eta harek zu maiteago!...

MARTAK

- 28 Harritzen naiz oraino, hola izan dadin
Jauna, zuk beiratu nauzu eror ez nadin
haste hastetik duzu ene bizia gerizatu
holako ongi handiengatik, nik ez dezaket maitatu?

JESUSEK

- [4^a] 29 Bai, egiazki, arima garbiak,
ene amodioaren lan nagusiak,
behar ninduke neurrik gabe
ni maitatu eta laudatu betierean

MARTAK

- 30 Ah! badakizu arras ongi, haurretik
beiratu naizela nahaskeriatik,
gogoeta hori Jauna, enetzat da atsegin¹⁴ ;
ene bihotza ikaratzen du eta alegeratzen.

¹² "Apaltzea dela maitasunaren berezitasuna" (A Esk., 2ⁱ) idatzi berri du Teresak 1895eko hasieran.

¹³ Ebangelioko hiru emazteak batean ezartzeak bide ematen du beraien iragan «ekaiztsuaren» aipamena egiteko.

¹⁴ "Atsegin" arriskutsua ordea (TG 81) Teresaren arabera. Apaltasunak laguntzen ez duen "garbitasunaren atsegina", altxor bat da gaiztatzen gaituena, gozoan gozatzen baldin badugu (TG 197). Teresaren ustez hura da "infidelitate" handia (KH 7. VIII. 4.). DSA 7ak gogoratuko du umiltasunik gabeko birjintasuna lanjer iturri dela.

JESUSEK

- 31 Haurretik nauzu zuk bozkariotu
hain zen haundi zure garbitasuna.
Inozentzia duzu ere beti begiratu.
Madalenak aldiz badauka apaltasuna.

MARTAK

- 32 O neure Nausi maitea, orain ikusten dut egia
beti goxotasunekin badakizu ene ontsa argitzen
ez dut gehiago nahi ene buruaz estimua;
apaltasuna zaizu laket. Hasten naiz haren obratzen.

JESUSEK

- 33 Ikusten duzu zer misterio handiak
nauen leku hauetara jautsarazia
nahiago ditut bai bizi gordeak
ezen ez eta Zeruetako loria guztia.

MARTAK

- 34 Jesus, zuretzat nahi ditut ene bizi guztian
baztertu ohoreak eta jendeen ospeak,
Maria iduri jarriz, zuretzat ariko naiz lanean,
bertzerik bilatu gabe, baizik zure behakoak.

JESUSEK

- 35 Hola dituzu arimak salbatuko,
eta enegangat erakarriko¹⁵,
ene sugarra duzu hedatuko
eta Fedearen zuzia ere altxatuko.

Lk 12,49

MARTAK

- 36 Zure boza, Jesus ezta, da soinu goxo bat
amodioz betetzen gaitu sustatuz gure bihotzak
o ene Salbatzailea hona egun ene otoitzak
gurekin zaude otoi! gurekin egon betikotz!

Lk 24,29

JESUSEK

- 37 Uros naiz ni Betanian
hemen pausatuko naiz ardurenean

¹⁵ "Erakarriko": Erakarpen hori (ik. ere 14, 6) izan bedi Karmeliten xede nagusia, Teresak errepi-
katzen duen bezala C Esk., 35/36^aan, Marta eta Madalena gogoratuz, hain zuzen.

[4ⁱ]

eta Jainkoa bere Aberrian
eskerdun izanen da zuekilan.

MARTAK

Has 15,1 38 Zer ote da bada, Jainkoa, saria¹⁶
ene lan guztien ondotik, igurika dezakedana?
Ez dut deus ere hartze, bizkitartean iduritzen zaidana
zure ongi berrien ukaiteko izanen dudala atsegina

JESUSEK

Lk 15,31 39 Zeruan ene loria izanen da zurea;
izanen zara ene ontasun guztien jabea
eta ohore bat ezin konparatua
“zure espos” izanen nauzu deitua.

MARTAK

Mt 25,31 40 Bizi honen ondotik zu bazara ene ontasuna
ene garbitasunaren ohorezko korona,
jadanik nahi nuke airatu zeru bazterrerat,
zure ospearen handik begiratzerat.

JESUSEK

Ap 14, 3-4 41 Hemendik laster betiereko hegian
kantatuz xaramela berria
ikusiko duzu ene betiereko loria,
orotan segituko Bildots ezitia.

¹⁶ Teresaren aitak maite omen zuen Bibliako lehen pasarte horren gogoratzea (Has 15, 1), Teresak berdin (BT 52. hk. orr.).

DSA 5

1895-XII-25

[1^a]

1895eko abenduaren 25ean

EGUBERRIKO JAINKO-HAUR TIPI ESKELARIA

Karmelitetan eske

DOKUMENTUA: autografoa.- EGUNA: 1895eko Eguberrian komunitatearen arratseko solasaldirako.- KONPOSIZIOA: 384 lerro hitz neurtuz eta zenbait argibide hitz lauz, bost airetan.- ARGITALPENA: HA 98, 45 ahapaldi ukituak; *Récréations*, 1985, testu osoa.

Beste Teresa Jesus Haurrenaren antzerkietarik bereiz aurkitzen da bosgarren lan hau. Bere sarrera irteera eta tarteko 26 koplekin olerki baten antza gehiago badu, antzerki batena baino.

Gaurregun menturaz Teresak berak zehaztasun guztiak eman dizkigun "paraliturgia" batez hitz egin genezake: Eguberri arratsean, afalondoan, serora guztiak elkarretaratzen dira eta "aitzinetik apaindu sehaskara" hurbiltzen. Lerroz lerro datoz bakoitza bere "serorago mailan" Ama Priorea lehen. Honek Jesus Haurren aitzinean belauniko zaretto batetik hartzen du paper bat eta emaiten eskura "Aingeru" bati kanta dezan barnean daukan kopla. Serora bakoitzak izaiten du horrela denen aitzinean hitz bereizi bat bakoitzaren bide berezia argi dezakeena eta lagunt haren otoitza. Teresari 9. kopla tokatu zitzaion, "mahats molkoarena". Ez zitzaion sekula "zortearen" adierazpena sekula ahantzi.

Ez da lan hau beraz joko hutsa, baina bai barne-ospakizun kartsua, 1895eko 25. hone-tan, aitzineko urteetako antzerkiñoa, bai eta urteko "eginkizunak" sehaskan hautatzeko ohitura ordezkatzan dituen. Aitortu behar dugu halere lan honen prestatzeko ez zuela asti handirik izan Teresak. Egia da abenduaren 28rako nobiziek prestatu behar dutela san Frantses Asiskoaren eta Gubbioko Otsoaren emankizuna, "Bisitazioko" batek idatzia, eta gainera, Ama Aines Jesusenaren bestarako *Egiptorat Ihes* (DSA 6), olerki bat, *Santa Aines-en Erantzunak* (TO 26) eta bere lehen eskuizkribua ontzen diharduela Teresak. Lan berri honi emaiten dio halere bere marka propioa.

Probentzako "pastoralen" antza badu "paraliturgia" honek eta beraz ez dira sehaskarat datozen ikusliarrak oparien ekarle, baina alderantziz "*Zeruetako Erregea*" bera da eskale heldu "*Karmelitei amoina eskatzerat*" (titulua):

*“Oi misterio hunkigarria!
Eske datorkiguna
Berbo Betierekoa Bera dugula!”* (Sarrera)

Jesusek bada zer die Karmelitei eskatzen? - Ez obrak baitezpada ez merezimenduak, baina bai haien bihotzak, haien maitasuna, *haiek berak*. Bere zigorraz gizona zematzen duen Jainko lazgarriaren orde Teresak berraurkitzen du “gure arimen gauean sartzeko bere burua osoki biluzi duen Berboaren apaltasuna eta Historiaren ilunbeetara jausteko esklaboaren jantzia jantzi duen Hura Bera” (Marcel Moré). Horra Teresa Jesus Haurren eta Aurpegi Sainduarenarentzat Eguberriren adierazpen egiazkoa.

Zorigaitzez, bere 26 kpletan zehar (26 ziren karmelitak), hatsa laburtu bezala zaio Teresari eta ez du zaindu bururaino “Gizakundearen Teologia” sakontzearekin aurkitua zuen maila (10. eta 16. kpletan).

Irakurle ez-adituari gogoia ken diezaiokeen olerki eskas baten irudipean, karmelita guztiek, bakoitzari bidaltzen zitzaion mezu berezia kartsuki entzun izatea ulertzen da.

Arratseko lanartean¹, serorak elkarretaratuak direlarik, aingeru bat² agertzen da Jesus Haurra troxatua besoetan dakarrela. — “Sancta Maria, j’ ai vu les séraphins en songe” airean kantatzen du honela.

Adoratzen dudanaren izenean,
ahizpak, zabaltzen dizuet eskua.
Oraino mintzatzen ez dakien Haur dibinoari
kantuz ari naiz.

Lur hontan desterruan dagoen
Jesusen alderat ez dut ikusi
bihotz idorrik baizik.
Hortakotz heldu naiz zuenganat, karmelera.
Zuek, aingeruen ahizpak,
zuen maitasuna,
zuen fereka goxoak,
zuen laudorioak,
izan daitezen Haur honentzat.
Zuek arima zoriontsuak,
Amodio-suak erre zaitzatela.
Zuentzat Jainkoa bera hilkor egin da.
Misterio hunkigarria:

¹ “Arratseko lanartea”, arratsaldeko 7ak laurden gutitan, berotegi salan egin ohi zen. 1895eko abenduaren 25ean Kapituluaaren aretoan egin zitekeen.

² “Aingerua” Maria Eukaristiarena (Maria Guérin delakoa), abuztuaren 15ean seroragai etorria, izan omen zen, bere soprano boz ederrarekin.

zueri eske³ heldu dena,
Berbo dibinoa da.

Ahizpak, zatozte beldurrik gabe,
zatozte, bakotxa zuen aldian,
zuen amodioa Jesusi eskaintzerat.
Haren nahi saildua ezagutuko duzue.

Xatarretan gorderik dagoen
haurraren nahia erranen dizuet,
zuei, aingeruen ahizpei
sofritzea zer den baitakizue.
Zuen bizia -hain ontsa bete-
zuen zorigaitzak, zuen bozkarioak,
Haurrarentzat izan daitezela.

Zuek, arima zoriontsuak,
Amodio-suak erre zaitzatela.
Zuentzat Jainkoa bera hilkor egin da.
Misterio hunkigarria:
Zuei eske heldu dena,
Berbo dibinoa da.

Ama Prioreak hartzen du gero ikusi gabe zare batean paperño bat eta eskaintzen dio aingeruari: Jesus Haurraren eske kantua da, aingeruak kantatzen duena. - Ama Priorearen ondotik beste serorak aldizka heldu dira Haurrari musu emaitera eta ferekatzera.

[1ⁱ] *“Trois anges sont venus ce soir...” Holmes-en Eguberriko kantuaren airean kantatzen dira koplak hauek.*

URREZKO TRONUA

- [1] Entzun Jesus zuen altxor bakarraren nahia.
Urrezko tronu bat eskatzen dizue.
Behitegian ez du aurkitzen.
Behitegia, bekatorearen idurikoa da:
Jesusek ez du hor deus ikusten
bihotzaren goxagarririk,
ez buruaren pausalekurik.
Bekatorearen arima
salba ezazu, ene ahizpa.
Tronu horren eske ari da Jesus.
Oroz gainetik

³ “Jainko eskelari”aren ideari ohar-tua zitzaion Teresa, Karmelen sartu orduko (ik. TG 57, 96, 145 eta ere 172, 191). Eta zenbait hilabeten buruko DSA 5, ik. TG 36, 5.

bere urrezko tronutzat
zure bihotza du nahi.

ESNEA

- 2 Saindu eta Esentzia⁴ dibinoa den
hautetsien hazkurria
Jesus zuentzat Haur egin da.
Zuen beharra badu:
Zeruan, zorion osoan badu.
Lurrean, behardun bat da.
Eman, ahizpa, esne xorta bat
Jesus zure haurride ttipiari.
Irriño batekin
ahapetik salatzen dizu :
“Iañoatasuna dut maite.
Eguberri, Eguberri,
zerutik jautsi naiz,
ene esne maitea, zu zara”.

XORI TTIPIAK

- 3 Ahizpa, nahi duzu jakin
Jesus Haurrak zer nahi duen?
Gaur salatuko dizut
irriño bat nola eginarazi.
Xoriño batzuk⁵ atzeman eta
hegalda itzazu behitegian.
Berbo dibinoak maite dituen
haurren iduriak dira.

Haien kantu eztiak,
xixtu xaramelek
Haurraren begitartea
argitzen dute.
Otoitz egin haientzat
egun batez zeruan
zuen korona egingen baitute.

IZARRA

- 4 Arratsetan, hedoi ilun batek
zeru beltza estaltzen duenean,

⁴ “Esentzia” edo “zer dena” bakan aipatzen du Teresak (DSA 2, 7^a eta TG 147). Jesusen Jainkota-suna da jakina, Teresak beti ikusten duena Jesus Haurra baitan.

⁵ 1896an ere, bere Eguberriko azken lana Teresak idatzi zuen “Jesus Haurraren txoritegia” (TO 43).

Jesus tristerik dago,
 argirik gabe, ilunbean.
 Izar distirant baten pare,
 bertute guztiez dirdiran,
 Jesus Haurraren zorioneko
 izan zaitezte argi bizi.
 Zuen suak,
 zeruko bidea argituz,
 bekatorosak argia ikus beza.
 Goizalbako argizagia den
 Haur dibinoak
 bere izar ezti hautatu zaituzte.

Mt 2,2

Mt 2,9

Ap 22,16

XIRRIBIKA

5 Entzun, entzun, ahizpa
 zer nahi duen Jesus Haurrak.
 Zure bihotza du nahi
 xirribika soinulari.
 Bere zeru ederrean bazuen bai,
 aingeru guzien abesbatza,
 baina haien pare nahi du
 Karmelen zaitezten
 haren goresten kantari.
 Entzun, entzun, ahizpa,
 zure bihotzaren kantua
 du nahi Jesusek.
 Gauez, egunez,
 amodioz kantari
 zure bizia erre bedi⁶ !

ARROSAK

6 Zure arima, usain onezko lirioa,
 xarmagarri Jesus eta bere Amari.
 Entzun, zure Bihotzekoak,
 zer erraiten dizun ahapetik:
 "Maite dut lirioen xuria,
 bihotz xahutasunaren iduria.
 Maite ere penitentziaren arrosek⁷
 duten odol bizia.

[2^a]

⁶ "Amodioz kantari", horrek gogoratzen digu zenbat maite zuen Teresak kantua. Ikus B Esk., 4^a: "*hona hemen nola nola iraungiko den nire bizitza*".

⁷ "Penitentziaren arrosak": DSA 4, 8. koplari bezala, arrosen odol gorriak (*kolore aberatsa*) penitentziaren, hots, urrikiaren eta maitasunaren grazia du itxuratzen. "*Xuritasunaren itxura den lirioari*" eskaini sei lerroek adierazten dute *arrosa* gorrien garestia. Ik. TG 127, Hyacinthe Loyson Karmeldar ohiaren elizatik ateratzea eta ezkontzea gogoratu.

Zure negarrek
garbitzen dutelarik bihotza
lorietan ezartzen naute.
Zeren, esku beteka,
nahi bezanbat arrosa
biltzen ahalko baitut”.

Lk 15,7

HARANA

7

Iguzkiaren distirak
kanpoa edertzen du.
Urrezta dezala bere su biziaz
sakon eta loretan den harana⁸ .
Jesus, Eguzki Dibinoak, hunki orduko,
denak urreztatzen⁹ .
Goizetik distiratzen
goizalbak baino argiago.
Iguzki Dibinoak,
iratzar orduko
bere arrai beroenak
bere dohainekin
zuri ixurtzen dizkizu,
arima desterratua.
Izan zaitetz haren Haran arraia.

UZTA BILTZAILEAK

8

Han urrunean¹⁰,
izotz elurrengatik
uztak jada zohitzen ari,
Haur dibinoak zaintzen dituela.
Uzta biltzeko ordea,
arima suharrak behar,
pairatzen dakiten Uzta-biltzaileak,
su eta burdinaren lotsa ez direnak.
Eguberri, Eguberri,
Karmelera naiz heldu,
zuen lehiak neureak direla jakinez,
Salbatzaile ona!
Sor itzazu, ene ahizpa,
apostolu-arimen kopuru handi bat

Jn 4,35

Mt 9,38

⁸ Teresaren topografiako toki prezatu horrek piztu ohi ditu irudi poetikoak (TO 18, 22 eta TO 32, 1). Harana ezkont gozoaren itxura.

⁹ Ikus Maria Bihotz Sakratuarenari Teresak eritegian egin zion oharra (DE/MSc, 25, 7).

¹⁰ Bi hilabete lehenago (1895eko urriaren 17an) Teresak ikusi du “lehen anaia tipia”, Bellière misionesta-gaia (C Esk., 32^a) eta urrungo misionetako haren karra berritu da.

MAHATS MOLKOA

- 9 Nahi nuke fruitu gozo bat¹¹,
mahats molko urrea,
Zeruko Erregearen
aho ttipiaren goxatzeko.
Ahizpa, zure zoria, zoin eztia!
Jesusek bere esku ttipian
tinki daukan mahats molkoa
zu zara, ahizpa neurea.
Bera nimiñoegi da,
Haur maitea,
molko osoa jateko.
Berak urreztatu mahatsaren
edari ezta da
Berak nahi duena.

OSTIA TTIPIA

- 10 Zuei bere bizia emaitako
Jesus, Haur Dibino Ederrak
goiz guztiez bere gorputz egiten du
ostia ttipi xuri bat.
Amodio gehiagorekin
nahi zaituzte zuek ere
bere gorputz egin,
Zuen bihotza da haren altxor maitea,
haren zorion eta bozkario handiena.
Eguberri, Eguberri,
zerutik heldu naiz,
zuen arimari lorietan erraiteko:
Bildots guztiz ezta
zuenganat heldu da.
Izan zaitezte haren Ostia garbi xuria.

Aharpaldi hauek "Au Rossignol..." kantuaren airean kantatzen dira.

IRRINO BAT

- 11 Munduak ez ditu ezagutzen
Jesus, zuen biziko lagunaren xoramenak;
eta ikusten ditut haren begi eztiatan
negar malkoak daldaran.

¹¹ 1895eko Eguberri gau hartan Teresari tokatu zitzaiola kopla hau gogoan hartzeko da. 1896ko urtarrilean, bere harmarrietan "mahats mordo" bat bezala ikusten du bere burua. (A Esk., 85^a). 1897 ko uztailean, eritegian berriz hauxe dio: "Mahats mordo txiki bat nauzu eta, esaten dutenez, oso heldurik nauzu". (KH 25. VII. 12; 27. VII. 10).

Ene ahizpa maitea, otoi kontsola ezazu,
besoak zabalik heldu zaizun Haurra.
Otoi, horren zureganatzeko,
irriño bat izan bedi beti zure ezpainetan.

Beha, zer dioten horren begiek:
zure lagunei bazaude irriño batekin,
ene biziko laguna, zure irriñoa¹²,
ene negarren agortzeko aski da.

Zure irriñoa ene negarren agortzeko aski da.

JOSTAGAILUA

12 Haur Dibinoaren jostagailua¹³
lur hontan nahi duzu izan?
Ahizpa, nahi duzu haren bihotzekoa izan?
Egon zaitez haren ahurrean.

Haur maitagarraia, dena balaku
zure bihotzari heldu bazaio,
baina ere bazterturik uzten bazaitu,
denak zure zorion izan daitezala.

Haren begi Dibinoen xarmagarri nahi baduzu izan¹⁴,
haren nahia bila dezazula.
Haur nimiño baten desira guztiak
zure bihotz gozagarri gertatuko dira.

Haren haur-desirak zure gozagarri gertatuko dira!

BUHURDIA

13 Jesus lo dagoelarik majaderan
maiz ikusten dut iratzartzen.
Nahi duzu jakin zertako?
Bururdirik ez duelako.

Ezagutzen dut zure arimaren nahi bizia:
Gau eta egun haren kontsolatzea.
Amodioz sutan dagoen zure bihotza,
nahi duen bururdia¹⁵ da.

¹² "Irrinoa" k adierazten duen haurriden arteko maitasuna bizi zuen Teresak gostarik gosta (C Esk., 14^a, 28^a, 29^a). Kanonizatzeko-auzian serora lagunek maiz aipu zuten Teresaren irrinoa.

¹³ "Jostailua" da, "Harana" bezala, Teresak asko maite duen haurraren "fidantzia" goxoaren adierazgarria (TG 34 eta CG, 287. h. orr.); bi aldiz aipatu du 1895ean (TG 176 eta A Esk., 64^a).

¹⁴ Jesus Haurraz hitz egiten da jakina (A Esk., 64^a eta 85^a). Otoi. 14an ere "buru-uzte"aren ideia nabari da: "*Hire Jainko fantesien esku uzten dut ene burua*".

¹⁵ Jesusen bururdia, hemen "*Zelinaren bihotza*" da (ik. TG 144).

Izan zaitez beti umil eta ezti
 Altxor Dibinoak erran diezazun:
 “Ene bihotzeko lagun maitea
 zu baitan naiz goxoki loakartzen”.

Ene bihotzeko lagun maitea, zu baitan naiz goxoki loakartzen.

LOREA

14 Lurra elurpean dago.
 Denetan hotz eta izotz.
 Neguak bere neke guztiakin
 lurreko loreak ditu ximelduak.

Baina zuretako ideki da,
 betiko primadera den
 Erresumatik jina,
 pentzetako Lore Xoragarria.

Ki 2,1

Ahizpa, Eguberriko arrosaren ondoan
 gorde zaitez soropilan.
 Izan zaitez zure espos lagun
 zeruko Erregearen loretxoa.

Izan zaitez zure espos lagun Zeruko Erregearen loretxoa

OGIA

15 Ontasun guztien jabeari
 egun guztietako otoitzean
 erraiten diozu: “Otoi, Aita !
 emaguzu egun gure eguneko ogia”.

Mt 6,11

Zure anaia egin da Jainkoa.
 zu bezala goseak dago¹⁶.
 Entzun haren otoitz umila:
 ogi poxi bat dizu galdatzen.

Ahizpa, segurtamena baduzu,
 Jesusek zure amodio xoilu nahi du.
 Haren egun guztietako ogia,
 arima garbi baten eskaintza.

Haren egun guztietako ogia, arima garbi baten eskaintza.

¹⁶ “Gosea” antzerkietan, hemen baizik ez da aipu (TG 145, 180, 196 eta C Esk., 19ⁱ etan badator halere). Gehiago aipu du Teresak *egarria*, ik. CG 1351. or.

MIRAILA

16 Haur guztiek maite dute
miraila bati so egitea.
Ustez bertze haur bat ikusten duen,
irri pollit bat egiten dio.

Zatoz, otoi, behitegi pobrerat.
Zure arima kristail argia¹⁷ da.
Zutan Berbo Maitagarriak
Jainko Haurraren itxura ikus beza!

Jn 1,1

[3^a] Izan zaitez zure espos lagunaren
miraila maitagarria.
Bere aurpegiaren Jainko-distira
zutan ikusi nahi du.

Bere begitartearen Jainko-distira Zutan ikusi nahi du.

JAUREGIA

17 Haundi-maundiak, aitonen-semeak
bizi dira jauregi ospetsuetan.
Behartsuak, erromes dohakabeak
bizi dira borda txar miserabletan.

Lk 2,7

Flp 2,7

Gisa berean, ikus establia batean
Eguberriko Erromes Tipiak,
zeruko Jauregitik jaustean,
gordetzen du bere ospea.

Zure bihotzak maite du pobrezia,
hartan aurkitzen du bakea.
Ahizpa maitea, Jesusek,
zu nahi zaitu Jauregi.

Ahizpa maitea, Jesusek zu nahi zaitu Jauregi.

LIRIO KORONA

18 Jesusen buru maitea
arantzez koronatzan bekatorosek.
Zuek mirets, lurrak ezagutzen
ez dituen grazia Dibinoak.

¹⁷ "Kristail argia": Teresa Avilakoaren idazkietan ere aurkitzen dugu irudi bera: "Gure arima ikusten dut gaztelu bat bezala diamante soil batez egina edo kristail garbi batez" (*Barne Gaztelua*, Lehen Egoitzak, I. kap.; Bouix, III. tom, 364. or.).

Zure arima garbiak
 ezezta ditzala haren oinazeak.
 Haren errege koronarentzat
 eskaint zure ahizpa birjinak.

Zatoz haren tronu ondorat
 haren begien xoratzerat.
 Korona egiozu xirikordatuz
 lirio eder distirantak.

Korona egiozu xirikordatuz lirio eder distirantak.

Ondorengo ahapaldi hauek "Mignone, voice l'Avril" kantuaren airean kantatzen dira.

GOZOKIAK

19 Ahizpa, hautxoek
 anitz maite dituzte oñoñiak.
 Haietaz bete, otoi, laster
 Jesus Haur Dibinoaren eskua.
 Haren soak galdatzen dizu.

Zeruko erregea loriatzen duten
 Karmeleko goxoak
 zuen sakrifizioak dira.
 Ahizpa, zure ezinbertzeak,
 zure gabezia handiek,
 Jesus loriatzen dute.

FEREKA

20 Jesus Haurrak, zuri,
 ez dizu galdatzen
 fereka ezti bat baizik.
 Emozu zure amodio guztia.
 Ordainez ezagutuko duzu
 bihotza gainditzen dion karitatea.

2 Ko 5,14

Zure ahizpetarik bat
 negarrez ari bada
 Haur Dibinoari, otoi,
 amultsuki galda iezaiozu
 bere esku ttipiaz
 eztiki karesa dezan.

OHAKOA

21

Sal 23, 7,9

Ba ote da lur hontan nehor
ez dituenik onartzen
Jesus Errege Ospetsuaren faboreak?
Baina loakartzen bada
ez dute nahi Haren zerbitzari izan,
ez dute gehiago Hartan sinesterik

[3^a]

Bazenekite
iratzar beldur gabe lo egitez,
irriño bat ezpainetan,
Haurrak duen plazera,
Jesus Bildots eztia
lo dagoelarik
haren ohako jar zintezke.

XATARRAK

22

Lk 2,7

Ikus, Haur Amultsuak
bere eri ttipiaz
erakusten dizun lasto idorra.
Haren amodioaz jakintsu,
Haren etzangi xumea
horni ezazu xatarrez.

Zure ahizpen hutsak barkatuz,
Jesus, aingeruen Erregearen
gustukoa izanen zira.
Karitate suharra,
apaltasun amultsua,
nahi ditu xatar.

SUA

23

Sal 103,4

Jn 1,1

Ahizpa, Jesus Haurra,
hautetsien Supazter goxoa,
hotzak dardaran dago bere Heian.
Zeru urdin ederrean zelarik
aingeru sugar eginak¹⁸
Berbo Dibinoaren zerbitzuko ziren

Baina lur gainean zu zara
zure Esposaren supazterra.
Zure suaren garrak nahi ditu.

¹⁸ "Sua"ren irudia maiz erabiltzen du Teresak, bere *Joana Ark* bigarrena (DSA 3), eta 1895.eko ekaineko bere Eskaintza eginez geroz bereziki (ik. A Esk., 84^a).

Zuk behar dituzu, ahizpa,
Salbatzailearen berotzeko
denen arimak suhartu.

Lk 12,49

BIXKOTXA

24

Badakizu haur guztiek
enperadorearen ospea baino
nahiago dutela bixkotxa.
Eskaint beraz Zeruko Erregeari
bixkotxa bat ahotik ezin utzia.
Irriño bat eginen dizu.

Ezagutzen ote duzu zoin den
Erregeen Erregeari gustatzen zaion bixkotxa?
Berehala obeditzea.
Obeditzen duzularik
harek haurrean bezala
loriatzen da zure Jauna.

Ap 19,16

Lk 2,5j

EZTIA

25

Goizeko eguzki-arraietan
ikusten da erle xumea
bere opilaren egiten.
Lorez lore dabila,
“Egun on!” erranez, zoriontsu,
iratzartzen dituen lore ezpainei.

Gisa berean zuk ere
xurga ezazu amodioa
egun guztiez jiteko
sehaska ondorat,
Salbatzaileari eskaintzerat
zure suharraren Eztia,
zaren bezalako erle urrea!

BILDOTSA

26

Bildots eztiaren xoratzeko,
Ez gehiago izan ardi saldorik¹⁹.

¹⁹ Ikus Joan Gurutzekoaren *Kantu Izpirituala*, XXVIII. berts.

Denak bazter utzirik,
gogoan izan bakarrik
haren loriatzea,
beti ontsa zerbitzatzea,
lotan dagoeno.

Ahizpa, egundanik
haren gain utz zure burua.
Elkarrekin lokartuko zarete²⁰.
Mariak, ohakora hurbiltzean,
ikusiko du bere Bildotsaren ondoan
haren iduriko bertze Bildots bat.

[4^a] *Serora guztiak itzultzen dira beren lekura eta aingeruak Jesus Haurra hartzen du bere besoetan eta kantuz emaiten "Ainsi soit-il. —Chaque matin" airean koplata hauek.*

Haur dibinoak dizuete eskermila,
zuen dohainek loriaturik daukate,
zuen izenez osaturik,
bere biziko liburuan ezarriko ditu.

Ap 20,12

Jesusek Karmel hontan
kausitu du bere atsegina.
Zuen eskaintzen sariztatze
badu bere Zeru ederra.
Beti leial bazarete
Bildots Eztiaren atseginerako
amodioak emanik hegalak
gora hegaldatuko zarete.
Lurrean, desherrian egon ondoan,
egun batez Herri Sainduan
ikusiko dituzue Jesus eta Maria.

²⁰ "Lokartuko zarete": Zergatik ez zuen hemen gogoratuko autoreak berari gertatzen zitzaiona, meditazioaren edo eskerronen artean lokartzea (A Esk., 75)? Ik. ere "Teresaren Beste Hitzak", AE/J, uztaila.

DSA 6

1896-I-21

[1^a]

J.M.J.T

1896ko urtarrilaren 21ean

EGIPTORAT IHES

DOK.: autografoa.- EGUNA: Ama Aines Jesusenaren priore-festarako, 1896ko urtarrilaren 21erako.- KONPOSIZIOA: hitz lau eta hitz neurtuzko elkarrizketak (133) sei airetan.- ARGITALPENA: HA 98, olerki-atalak: 100 lerro, beraietatik 26 ukituak; *Récréations*, 1985, testu osoa.

Ama Aines Jesusenaren bestakari, hirugarren aldikotz Teresa Jesus Haurrenaren gain izan zen aisialdi baten prestatzea 1896eko urtarrilaren 21ean. Idazlan luzea prestatu zuen horrela, "Egiptorat ihesi", *Joana Ark-ekoaren misioniaz* idatziaren ondotik idatzi lanik luze-ena. Zorigaitzez ez zuen asko prezatu lana Ama Ainesek. Gehiago oraino, aurkezpena bururaten ez zuen utzi. Beharrik Teresa Jesusentzat baizik ez baitzen lanean ari! Ez zuen beste saririk eskatzen. "Bake, maitasun eta argi" izan den urtea bururatu berri du, 1887az geroz izan duen ederrena menturaz. "*Deusek ez dezake nahas ene bake paregabea*" idatzi zuen Ama Ainesen besta egun hartan berean (TO 29, 9).

Zergatik hautatu ote zuen gai hau bere seigarren ikusgarriko Teresak? Aspalditik bazuen bai idazleak Ebanjelioko pasarte horren berri¹, zer interes berezi zuen ordea Egipto-ko ihesaldiak Lisieux-ko karmelitentzat? -Non ez garen ohartzen 1896ko politikak berri deza-keela haren gaurkotasuna. Herodes-en haserreari ihes egin zion bezala Familia Sainduak, Karmelitek ere atzerriko bidea hartu beharko dute menturaz. Errepublikaren lege gaiztoek hunki dituzte jadaneko beste serora batzuk. Mehatxu hori du gogoratzen DSA 6 eko azken kantuak. Zer gerta ere karmelitek ez dute izutu behar: Deusek ez die eragotziko Jesusen maitatzea eta maitaraztea; Amodio Urrikalmendutsuaren indarrak aldatzen du ezen atzerriko bizia misio-lanera eta Pairamena Erospenera. Horra Egiptoko Ihesaldia-ren aldaki arraro honen mezu nagusia (ez bakarra) orain aipatuko ditugun historiaren iturburuen gainetik.

¹ DSA 2, 2^a; TO 24 (1895/10/21); TO 54, 12-13. berts.

Aldi honetan alabaina Teresak ez du bakarrik Ebanjelioaren lekukotasuna bilatzen, baina aita Faber-ek egin zuen bezala². Apokrifoen berri zenbait ere sartzen ditu hemen. Hala nola Familia Sainduak bere ihes-bidean aurkitu zukeela “ohoin on” batzuen harpea. Ohoinak ez dira hor, baina haien buruzagiaren emazteak hartzen ditu bidaiariak. Mariak eskatzen dio ur xorta bat Jesusen ikuzteko. Emazteak badu seme bat leprak joa, Dimas izenekoa. Eta Jesus ikuzi duen urean sartzen baitu bere semea, urak sendatzen du haurra. Gero erranen dute haur hura bilakatu zela Kurutze gaineko “Lapur on” aipatua.

Teresak gainera, bere baitarik eratzikitzen dio historiari, harpera itzuli direneko lapurren elkarriketa bipila eta horrela umore apur bat kontrajar diezaioke Suzana emaztearen eta Jose eta Mariaren arteko elkarriketari.

Joana Ark-ekoaren bi ikusgarri arrakastatsuen ondotik, *Egiptorako Ihesaldiak* opor egin zuen, Ama Aines Jesusenak moztu zuenaz geroz emanaldia. Honek geroago damuturik aitortu zuen: “Besta arrats batez min eman nion, berak gu bozkariatu nahiz ahalak oro eginak zituelarik, garbiki erran bainion “luzeegiak” zirela haren lanak eta aspertzen zirela entzuleak” (PAKO/ Force).

Teresak dena den leku asko emana zion honetan umoreari eta alaitasunari. Ama Aines Jesusenak aldiz ez zuen jasan ez boteila kolpeka lapurrek zeramaten guduka, ez haien solas gordinak, ez zegozkionak batere haren ahizpari, ez eta honek asmatua zuen kantu “moderno” (*Estudiantina*), Pasarte horiek oro begikoak eta bizi-biziak izanagatik, Ama Prioreak ezabatu zituen gehienak, eskuizkribuan berean (*Récréations*, 364, 370 h. orr.).

Ez dakigu zuzen noiz eta non moztu zuen emanaldia Ama Ainesek. Jenofa seroraren arabera, Aingeruaren azken kantua zuen bakarrik kendu (CSG, 19. orr.) Hala ere damugarri izan zen, azken zortzi bertsoek baitzuten bideratu eta gaurkotu behar historiaren mezua.

Egilea mindua izan zen eta Jenofa serorak kondatu zuen nola “taulagain bazterrean ikusi zuen Teresa, negar malko batzuen ebaska xukatzen ari eta berehala, burua altxaturik, baketsu eta ezti gelditzen laidopean”. Geroztik ez zituen beste bi idazki labor baizik eman.

Bizkitartean beste nehon agertzen ez den puntu interesgarri asko badauka lan berri honek: Aberatsen eta behardunen ezberdintasunaz gogoeta biren abiadura; “*Bideratzeko natura legea baizik ez duten*” borondate oneko fedegabeen arazoa (A Esk., 3^a); gizon arrunt eta basa batzuen erdian elkar ongi aditzen duten bi ama haien elkarriketa.

Mariaren ohoretan egin lana da gainera. Josek asko aipu ditu Izkribu Sainduak, baina beti emazteari uzten dio leku. Maria dugu lehen. Hark ditu fedegabeak Jesusenganat erakartzen. Baina nola ez da aldatu “*Zergaitik maite zaitudan, oi Maria!* eta *Azken Elkarrizketak* emanaz geroz! Zer zaio bada gertatu? Denak aitzinetik badakizkien Maria honek urrun dirudi “*bide arruntetik*” doan (TO 54, 17) eta “*bere semea gauaren ilunean bilatzen duen*” ama hartarik (TO 54, 15). 1896ko Bazko garaian Teresak pairatu duen fedezko proba hark ote du aldatu haren mariologia, ala izaitekotz teatro-jokoari egokitu nahi izan dio soil-soilik historia, aita Faber bezala apokrifoei jarraikiz.

Dena dela, urrikalmenduzko ikusgarria dugu hemen; ohiltzen dutelarik ere Jainkoak zaintzen ditu tipiak, behardunak eta lapur urrikituak: “*Jesusek ez du nahi bekatorearen herioa baina haren itzulpena eta betiereko bizia*” (10^a). Mariak badaki bai ongi Abraminek eta Dimas haren semeak minduko dutela oraino “*ongiegin ez gaintu dituen Jainkoa*” (10a), baina badaki ere Ama Urrikaltsu horrek gizonen bihotzen berri. Suzanari erran diezaioke: “*Sinets ezazu Jainko Onaren urrikalmendu neurrigabea baitan! Krime izugarrienak ezabatzeko doia bada, bere fidantzia osoa Hura baitan ezartzen duen Ama bihotz bat aurkitu orduko*” (10^a, 18-21)

² *Le pied de la Croix ou les douleurs de Marie*, Paris 1877.

Azkenekotz, Egiptorat Ihesi, bere Hirurogeita hamar Bibliaren aipamenekin Bibliazko ikusgarria da, batere zalantzarik gabe. Gaia hala da jakina, baina bestalde erakusten digu ere Teresaren trebetasuna Bibliako pasarte batzuen erranak elkarrekin "kurutzatzeko".

Horra zergatik lan hau, lehenbizian dirudien baino askoz aberatsago daukagun.

[I. AKTA]¹

[I. AGERRALDIA]

Nazareteko² etxe tipian Mariak altzoan dauka Jesus Haurra, bakarrik da San Joseren lantokian. Saihetsean ditu zare bat oihal, xotxa eta kiloa.

AMA BIRJINAK

Ene Haur Jainkoa: zein goxo zaidan zure urrumakatzea Nazareteko etxeño maite honetan³! Belenen bezain beharrak gara, baina hango behitegi hark baino gehiago molde badu zuretzat. (*Itzulian behatzen du amultsuki*). Toki maiteak, zenbat oroitzapen daukazuen! Hemen, Jaunaren aingeruak agurtu du emazteetan apa-lena, azkena, Jainkoaren Ama⁴ izanen zenaren sehi izaitea baizik nahi ez zuena! Hemen Jainkoaren Hitzza, Trinitate sailduko bigarren pertsona gizon egin da, Izpiritu Sailduaren bitartez, eta bederatzi hilabetez gorderik egon. (*Jesusi behatuz*). Nehork ez zekien hor zinela, ene Jainko Salbatzailea! Orain besotan zaitut arin-arina eta zure kreatura horiek ez zaituzte oraino ezagutzen. Artzain eta Magoak joanez geroz nehoi ez zaio gogoratzen zure agurtzera etortzea. Laster udaberriak⁵ ekarriko ditu milaka loreak, baina bat ez da izanen Nazareteko lore gorde hau bezain ederrik! Eta zer usainon Jainokozkoa! Nola ez zaituzte hortarik bederen eza-gutzen?

Lk 2,7

Lk 1, 26-38

Jn 1,14

Is 53,3

Lk 2, 15-18

Mt 2, 11-12

Kt 2,1

¹ Teresak ez ditu markatu ez agerraldiak ez aktak. Hemen bereizi dira 5 agerraldi *Lehen Aktaren*tzat eta 7 agerraldi *Bigarren Aktaren*tzat.

² Aita Faber-ek bezala Nazaretetik abiarazten du Teresak Familia Saindua (Kanonizatze auzian zentsoreak "hutsa" altxatuko du). Menturaz Lk 2, 39 hitzez hitz hartu zuen, pasarte horrek, Egiptorakorik aipatu gabe, Tenpluan Aurkeztearen ondotik Nazareten jartzen baitu Jesusen egoitza. dena dela ikusgari honetan Lur Sailduko topografia ez da gehiegi zehazten.

³ Oroitzeko da 1887ko azaroaren 13an, Teresak ikuskatu ahal izan zuela Loreto-ko "etxe benedikatu". (A Esk., 59/60^a). Bestalde 1894-1895. urtean ospatu dute Etxe Sailduaren aldairaren seigarren mendeurrena (1294/12/10).

⁴ Ideia bera dator TG 137an.

⁵ Egileak asmatzen du udaberrian, otsail-martxoan, jartzea bere historia, Haurrak bi hilabete dituela.

[II. AGERRALDIA]

Jose heldu da bere laneko tresnekin.

AMA BIRJINAK (*eztiki erasiatuz*)

Beranta duzu Jose! Zertako luzatzen dituzu hola zure lanaldiak?

SAN JOSEK

Maria! utz nazazu ene indarren higitzerat Jesusen zerbitzuan. Horrentzat eta zuretzat naiz lanean ari. Hori gogoan, badut indar, aiseago jasaiten dut unadura eta arratsean, [1¹] etxerat heltzean, Jesusen fereka batek, zure behako batek, ahantzazten dizkidate eguneko neke guztiak!

Eskuz kopetako izerdia xukatuz jartzen da Mariaren ondoan, Jesusi beha. Mariak haurra altzoan emaiten dio. Orduan, begitartea lorietan Jesus tinkatzen du, musu emaiten, erranez:

Haur maitea, zein goxoa den zure irriñoa! Egia ote da Jose zurgin gaixoak besoetan daukala zeruko Erregea⁶, gizakien Salbatzailea? Egia ote nik dudala hazi behar zeruko Aingeruen besta dena, eta Kreatura guztiak hazten dituena? Egia bestalde Jainkoaren Amaren laguna naizela eta haren garbitasunaren begiralea?

Sal 144,
15-16

Maria maitea, erradazu misterio horren berri! Mendeek betidanik igurikatua, Emmanuel: Jainkoa gurekin, hain aspaldian patriarka guztiak amestua hemen dagoela ene altzoan? Eni so dago hemen; bere zerbitzari herresta honi beha?

Has 49,26
Mt 1,23

AMA BIRJINAK

Zuri bezala, Jose, handi zait niri ere, ama naizen Haur Jainko hori ene besoe-tan tinkatzea; eta nago nola esne xorta bat behartzen zaion, mundu guztia hazten duenari! (*Isilik luzaz Haurrari behatu eta*). Laster Jesus handituko da eta beharko diozu lanean irakatsi mundua egin duen Kreatzaileari! Zurekin, bere izerdiaren gos-tuz irabaziko du bere ogia.

Lk 2, 51-52
Has 3,19

SAN JOSEK

Zer diozu Maria? Uste duzu ni bezalako langile xume bat behar duela bilakatu? Ez nuke nehola ere ikusi nahi nik ukaiten ditudan esker gaiztoen jasaiten⁷!

Egun azkenik Jaun aberats batek⁸ igorri nau etxetik; ez zuela ene lana gustukoa! Urratsa frango eginik, azkenean, atzeman dut hilabete baten lana. Ene etxean egiten ahal dudana, ez baita guti! Zure aldean eta Jesusen ondoan egoitea, zer fabo-

⁶ "Erregea", hamar alditaraino agertzen da izen hori Jesusentzat DSA 6. antzerki honetan eta maiz ere aipu da "Erreinua". Ebanjelioko bi pasarte kurutzatzen dira horrela: Jesus da ezen "Juduen Errege berria" Herodesek hil nahi duena eta Hark berak irekiko dio Dimas lapur onari bere "Erreinu" atea, nahiz "Erreinu hori mundu honetakoa ez izan".

⁷ Josek gogoratzen du esker gaiztoen erdian eta segurantzarik gabe bizi behar duen langilearen egoer-a latza. Teresak berriz aipu du behardunaren bizimolde lehortua eta urrikalgarria, KH 20. VIII. 14an.

⁸ DSA 6. eko anakronismo guztietarik lehena.

rea! (*Haurra loakartu dela oharturik... ahapetik:*) - Jainko Haurra loakartu da...
etzateko ordu da. (*Musu bat emanez kopetan, Haurra Mariari emaiten dio.*)

[2^a] AMA BIRJINA (*ahapetik*):

Jose, Jainkoak benedikatu beza zure loa! Pausa zaitetz, bihotza beti atzarririk
duenaren aitzinean! Mt 5,2

[III. AGERRALDIA]

*Maria joan eta, Jose loakartzen da. Isiltasun apur baten ondotik Jaunaren ain-
gerua agertzen zaio ametsetarik. Eta "La folle de la plage" airean, kantuz dio:* Mt 2,13

Egiptoko lurretarat
Joan behar zarete laster.
Gaur berean, Jose,
Zoazte isilean.

Herodesek bere hisian,
Zure altxorra hartu nahi du;
Eta herioaren garaileari
Kendu berak bizia.

Ama eta Haurra har eta
Zoaz gaiztaginari ihesi!

[IV. AGERRALDIA]

San Josek Maria lo dagoen gelako atea jo eta eztiki:

Mt 2,14

SAN JOSEK

Iratzar zaitetz Maria, Jesusen bizia lanjerean da.

AMA BIRJINAK (*Jesus besoetan duela*):

Pausa zaitetz Jose! Haur Jainkoa ez da lanjerean ! Beha zein goxoki lo dagoen
ene besoetan!

SAN JOSEK

Bai, bere lo goxoan lasaiki ez dakiela bere Aingeruak eni errana Zeruetako
Erregek du iduri. Baina denak badakizki! O Maria, zertako ez zaizu Jesus bera
mintzatu? Zertako nik ditut erran behar zerutikako manuak gure Jainkoaren Amari?

AMA BIRJINAK

Mintza zaitetz, zu zara Jainkoaren ordaria, etxeko nausia. Erradazu zer dion Aingeruak, eta nik eginen ditut behar direnak!

[2ⁱ]

SAN JOSEK

Mt 2,13 Manatzen digu Egiptorat ihes egitea, Herodesek haurra hilarazi gogo baitu. Orain berean joan behar dugu. Bihar berdin berantegi liteke. (*Amari behako hits-hits bat emaiten dio*).

AMA BIRJINAK

Lk 2, 22-35 Ez lotsa Jose! Jesus tenpluan eskainiz geroz⁹ beti prest nago berri txar baten entzuteko. Simeon sailduaren hitzek ene arima zaurtu dute. Haren erranak argitzen hasi dira! Jesus gaizki erabilia da indarrak jin aitzin! Badakit horren hitz bakar bat aski litekeela, nahi balu, bere etsaien garbitzeko. Baina nahiago du gizon hilkor baten aitzinean ihes egin, bakearen Printzea delakotz. Haur egin den Hitzak ez du kanabera eroria hautsiko, ketan den itxindia ez du iraungiko. Bere ontasunetarik gabetua izanagatik, bere bizia emanen du ezagutzen ere ez duten bekatoreentzat¹⁰. Goazen lasai, berak ezagutzen ez duen Salbatzailearen egonaldiaz, herrialde baten saildu egitera.

Is 9,5
Jn 1,1
Mt 12,20
Mt 21, 38-39
Jn 10,18
Lk 19,44

SAN JOSEK

Zenbat gusta zaidan zuen eramaitea horrelako bide luze eta aspergarrietan barna! Ahal banu dena nihauren gain hartu? Baina behartua naiz zuen ikustera laster gabezia gorrian: hemen baditugu beharrenak baina Egipton lazeria gorrian izanen gara!

AMA BIRJINAK

Mt 6,26 Desherriko gabeziak ez nau lotsatzen, gurekin ukanen dugulakotz zeruko ontasunik handiena! Gure Jainko Onak xoriak hazten ditu xori tipiak, bat ere ahan-tzi gabe! Guri ere emanen digu eguneko ogia!

Mt 6,11

[V. AGERRALDIA]

Jose, laneko tresnak harturik badoa Maria eta Jesusekin. Aingeruek "Venezia-ko Gondolarien" airean kantuz diote:

Hau ezin erranezko misterioa,
Jesus zeruko Erregea,

⁹ Aita Faber-en idazkiari (non Mariak aitzinetik ikusten baititu zehazki Jesusen pairamen guztiak: *op. cit.*, 88. or.) jarraitzen zaio honetan Teresa. "*Azken Elkarrizketak*" delakoan aldiz alderantziz mintzo da (KH 21. VIII. 3*), lehen erran bezala.

¹⁰ Poliki biltzen eta kurutzatzen dira Bibliako pasarte zenbait, gero haien hariak bereizteko gisan.

lurrean arrotz egina,
gizon hilkor batengatik ihesi joana.

Mt 2, 13-14

Xatarretan dagoen Jainko honi
eman diezaiogun bihotza.
Gure oste xuriak
jin bekizkio gorte egitera!

Lk 2,7

[3^a]

Gure hegalean geriza dezagun
gure lore ederrenekin;
gure kantu alaienekin
zeruetako Erregea kulunka.

Haren Ama soleitzeko
kanta dezagun misterioa,
salbatzailearen lilura,
haren grazia eta goxoa.

Bai goazen hemendik,
urrun ekaitzetik!
Goazen ihes ilunetik,
urrun azantz orotarik!

Gure Izar argia,
itzalpean estalia,
hautetsien poza dugu,
gure Jesus Haurra.

Zeruko Errege
gizon hilkor baten ganik ihesi.

Mt 2, 13-14

[II. AKTA]

Lapur Ziloa

[I. AGERRALDIA]¹¹

Harpe baten paretan, dilindan daude arma eta abere basa larruak. Lurrean zernahi bitxi eder, ganderailu eta puska tzar, nahas-mahas. SUZANA emazte gazte batek kulunkatzen du Dimas, bere semea, kantuz ari dela "Trobadorea" airean:

Penarik gabe nintzen lehen,
Erregina baino atseginago
eta alegera bizi nintzen
semea izanez bozten.

Ene semea jaioa zen
arrosa bezain arrai,
baina laster histu zait
eta ene lorea
hiltzera doa.

Ai, sekula lur honetan,
Ama baten mina
Ez da izan nirea bezain samina.

Nk 1,12

[II. AGERRALDIA]

Xixtu bat ozen da : Suzanak badaki lapurrak hor direla. Haurra lo dago; amak polliki emaiten du sehaskan eta atea idekitzen. ABRAMIN nausia lehenik sartzen da; gero lagunak, TORKOL zaharra eta IZARN gaztea Hiruak kantuz, "Estudiantina" ren airean.

[3¹]

Harpeko lapurrak gara,
gaiztagin aberats ezagunak,
aiton aberatsen urrea duten jauntxoak
izutzen ditugunak

Badakigu zuhur eta bipil
harrabotsik gabe
ezpata eta lantza erabiltzen
gauerdi heldu denean.

¹¹ "Agerraldi" honetatik aitzina aita Faber-i jarraitzen zaio guti gorabehera Teresa, baina bere gisara garatzen du historia eta bere nobiziak sustaturik menturaz ezohiko hiztegi bat ere hartzen du, anakronismo zenbaitekin batean.

(*Berriz:*) Harpeko lapurrak gara...

(*Kopla amaitzean:*)

Hona non garen!

Gaua iluna baliatuz

borroka gaitezen, lagunak! (*1. bozak*)

Bihar itzalean hatsartzeko

dugu egun osoa lo egingo (*2. bozak*)

Gaztaroa ez galtzeko

altxorra bil dezagun,

zahartzen gareneko

Urrean igeri dagigun! (*2 bozak*)

Harpeko lapurrak gara...

ABRAMINEK

*botatzen du Suzanaren oinetara gauza eder frango eta bereziki haur soineko,
jostagailu; haren saihetsean jarri-eta erraiten dio:*

Horra Suzana! Eder zaizu? Errege seme bezala behti izanen da Dimas eta izanen du non zer josta. (*Suzanak behatzen dio bere begitarte hitsarekin*). Ez zara pozik? Jakitera ez nituen opari horiek oro ekarriko!

SUZANAK

Nola nahi duzu alai izan nadin? Dimas eri denaz geroz? Senda iezadazu eta irria jinen zait berriz!

ABRAMINEK

Egin ahalak egin ditugu: zenbat aldiz ez dut Dimas Jerusalemenerat eraman mediku hobereenen eskuetarat? Sendagailu guziak debalde izan dira. Bakea emadazu beraz! Ez eni aipa zuk bezain higuin dudan eritasun hori! (*Xutiturik sehaskari buruz doa*). Eta nik haur lepraduna behar nuela! Nik hainbertze itxaroten nuelarik horrenganik!

TORKOLEK (*trufan*)

Ez duzu lotsatzekorik! Ba al gaituzu lagun onak, Izmari eta ni! Eskukaldi bat emaiten badakigu zure semearen beharrik gabe. Ez badituzu gure ohoin laguntzak prezatzen, esker gabea zara!

IZARNEK (*Torkol-i bihurtuz*)

Lagun, ez zaitezela kexa! Nagusiak ez gaitu apaltzen! [4^a] Nik ere damu dut Dimas negeldun izatea, mutil ederra baita! Segur naiz nehor ez zaiola nagusituko

paretari gora harresien iragaiten, zerrapoen jauzarazten, eta guztiz ezpata eskuan, buru bihurrien zentzarazten!

ABRAMINEK

Zaudete isilik, mutilak! Ez duzue deus ikustekorik ene semearekin. Ez dezazuela gehiago hori aipa, amaren bihozmina berritzen duzue!

SUZANAK

Abramin, zuk ene mina ikusten duzu. Nola beraz hainbertze ama penetan eman dituzu? Eni ekarri puska eder horiek odolaren gostuz dituzu ebatsi. Lehenago irri eginen nuen zure balentriez, baina penetan nagoenaz geroztik ez zait bertzeren mina atsegin!

ABRAMIN

Beharrik egun ez zinen Belenen. Zure bihotzak bazukeen lan han ikusia jasaiten. Gogorra naizelarik, harritu nau hango basakeriak. Nik ez dut odolik isurtzen, ene biziaren zaintzeko baizik! Uzten banaute nahi ditudanen hartzerat, geldi-geldia egonez, ez dute nire beldur izaiterik! Bake-gizona naiz, ene ezpatak ez ohi du hobengaberik zaurtu!

TORKOLEK (*bixi-bixia*)

Eta bertzorduz sorbaldan jo ninduzularik ez nintzelakotz aski laster aldaratzen, hondarkin batzuen biltzen ari nintzelarik? Zu bai bakezko gizona, ontsa dolu dut ene ile zuriak zure meneko ezarririk! Ez dituzu biziki ohoratzen!

ABRAMINEK

Ezpata-ukaldia ontsa hartze zenuen! Berriz ere ukanen duzu ez banauzu hitz erdika sinesten! Zure ilen koloreaz ez dut axolarik eta ez nekien ere ene eskuko zela! Atxikazu zuretzat! Ene ile beltz ederrak aski ditut, Olinpoko Jainkoak iduri egiten naute! Zure ixtupa zuri hori sutarako baizik ez da!

TORKOLEK (*kexu*)

Baia? Ikusiko duzu, mendekatuko natzaizu!

(*Boteila huts bat hartuz metatik botatu nahi dio nagusiari. Izarn heldu da Abraminen lagun.*).

ABRAMINEK (*besoa hartuz Torkol-i*)

[4ⁱ] Hea zer eginen duan?

Torkolek oihu eta zalaparta, Izarnekin kentzen diolarik boteila eskutik.

SUZANAK (*sehaskara doala*)

Zaudete isilik otoi! Dimas iratzarrarazi duzue! (besoetan hartzen du).

IZARNEK (*Torkol-i*)

Nagusiari jazartzeko ez duzu arrazoinik! Gizon ona da, nasaiki pagatzen gaitu. Beha! Horri esker ditugu soineko eder hauek, iduri baitugu Salomon erregearen semeen semeak garela! Eta hainbertze boteila balios husten baitugu eta zuk, esker-gabea, berari botatu nahi!

TORKOLEK

Ez dut zure prediku beharrik! Badakit zer egin. Ez naiz beraz, mendekatuko, baina ona naizelakotz eta ez zuk bortxaturik!

(*Biak jartzen dira eta pipan hasten*).

ABRAMINEK (*Suzanarengana hurbilduz*)

Ez dakizu ene semearen loakarrarazten. Emadazu, eginen diot kantu.

(*Haurra besoetan badabila urrats bizian kantatuz*).

Gure arbasoen
loria sekulakoa
egon zaitez gurekin!
Haiek iduri bizi gaitezen,
Suak har bitza bihotzak!

ABRAMINEK (*haurra amari emanaz*)

Beha! lo dago! ene semea dela ezagun du! Zer makurra negela tzar hori! (*Ukabilaz joiten du bere burua*).

SUZANAK

Ken ezazu hori burutik! Oixtion zuk zenion ez aipatzeko. [5^a] Erradazu zer gertatu den gaur Belenen.

ABRAMINEK

Herodes higuintzekoa gertatu da gaur Belenen. Haren manuz bi urteko haurrak oro xehatu dituzte beren amen begietan edo besoetan!

Mt 2, 16-18

SUZANAK (*haurra tinkatuz*)

Horrelakorik ba ote? Ez dezaket sinets horrelako basakeriarik! Gaixo amak, hilen dira penaz! Ene haurra hartu balute, jadanik hila izanen nintzen!

ABRAMINEK

Nik errana egia da. Ikus nik ekarri puska horiek! errexki bildu ditut; nehork ez zidan eni kasurik egiten!

SUZANAK

Zergatik Erregek egin du horrelako itsuskeria? Zergatik hil ditu hobengabe horiek?

ABRAMINEK

Nehork ez daki. Jendea mintzo da, bakotxa bere molde. Batzuek diote Errege kanpotiar batzuek galdegin diotela Herodesi non den Juduen errege sortu berria. Haren ondotik dabiltzala, haren izarra ikusi dutelakotz. Herodes izutu da, ordaina bazuela entzunik, eta bortz egin ahalak egin hura harrapatu beharrez. Azkenean, deliberatu du haur guztien garbitzea, Dabiden ondoko hori haiatarik zitekeelakotz.

Mt 2, 1-4
Mt 2, 16-18

SUZANAK (*gogoetaturik*)

Istorio hori harritzekoa da! Errege arrotzek adoratzten duten haur hori, Herodes ikarazi duena, ez ote da Juduek goaitatzten duten Mesias¹²?

Mt 2, 1-4
Jn 1, 41

ABRAMINEK

Ez dakit. Hasteko ez da errege izanen, hil baitute! Merkurio¹³ da ene Jainko Begiralea! Ez dut besterik ezagutzen eta banoa ene bidean. (*Xutituz lagunei erraiten die:*) Goazen lagunak! (*eta badoaz*).

[III. AGERRALDIA]

[5ⁱ] SUZANAK (*lurrean diren gauzei beha*)

Zenbat aberastasan! Zein irus naizen! (*Bitxi ederrak janzten ditu, baina haurrari behatu eta denak kentzen, eta kexu, oihu egiten*): - Ez, ez naiz irusa! Edergailu horiek zoratzten naute, baina ez didate haurra sendatzen. Zer egin diot Jainkoari horrelako dolamenetan izaiteko? Ala Abraminen lan tzarrek digute ekartzen Jainkoaren mendekioa? Baneki non dagoen Jainkoa joan nindakioke itsasoan barna, haren oinetarat. Galda niezaioke haurraren bizia, aitaren hutsen barkamena, eta Jainkoak ez lezake bazter utz Hari fida den Amaren otoitza¹⁴ !

¹² "Mesias" hitza agertzen da (hemen eta 8^{ian}) soil-soilik, Suzana ama maitagarriaren gogo-bihotzetan pizten baita emeki-emeki, antzerkian barna, fedearen argia; berak senarra ere argitzeraino azkenean.

¹³ Merkurio da saleroslen eta lapurren jainkokoizuna: Jainko bakarra ezagutzen duen Suzana ez bezala, jainkokoizunen zalea dugu alabaina haren senarra.

¹⁴ Teresa baikorra da fedegabeen zortearentzat ("*basati gaixoa*" A Esk., 2/3^a). Zinezko sinestunaren otoitza jartzten du Suzanaren aho-mihitan. Ama gaixo horrenganik zein hurbil dagoen Teresa nabari da.

Sendi dut¹⁵ ona dela neurritz kanpo. Ni egin nauen Izaite hura nahi nuke ezagutu. Eman niezaioke Dimas, egin dezan bere erresumako zaintzale indartsu. Ene semea norbait izaitea da ene lehia bakarra. Eman nezake horrentzat mila aldiz ene bizia!

Baina, zer naiz zorutzen hasia? Sekulan ez naiz bortuko harpe hontarik aterako! Sekula Jainkoak ez du ene otoitza entzunen! Nola jauts daiteke ene zilo hontarat? Ama batek ez dezake horrelako ametsik egin! Baina zertako ezin da hori gerta? (*negar egiten du*).

[IV. AGERRALDIA]

Atean joiten dute;
SUZANAK *burua altxatzen du eta finki dio:*

Nor da hor?

SAN JOSEK

Bidekari batzuk ontsa akituak, gauezko aterbe galdez.

SUZANAK

Harpe hau ez da ostatua. Zoazte aitzina! Ez dugu hartzen bidekaririk!

AMA BIRJINAK

Haurraren izenean, Ama bazara, emaguzu aterbe!

SUZANAK (*atea apur bat irekiz*)

Ene semearen izenean ez zaituztet kanpoan uzten ahal. Ama zarela ezagun da: Badakizu ama-bihotzaren berri.

[6^a] (*Familia saildua sartzen da*).

SUZANAK

Beharrik, bakarrik nago. Ene gizona, bere lagunekin hemen izan balitz, gaizki ateratzeko arriskuan zineten. Baina, goizalderat baizik ez dira sartzen: ordurarte lasai zarete.

¹⁵ 8 aldiz badarabila Suzanak aditz hori, Teresak berak egin ohi duen bezala bere fedea aipatzeko. Baina ez da "senditze" sentimental batez mintzo, Blaise Pascal-ek gogoan zeukan "bihotz begiaz" bai-zik, hau baitoa arrazoi hutsezko arrazoia baino urrunago.

SAN JOSEK

Esker mila! Ona zara. Jainkoak sariztatuko zaitu.

SUZANAK

Nor da zuk aipatzen duzun Jainkoa? Aspaldian ezagutu nahia ez nago.

SAN JOSEK

Jn 4,10 Emaztekoa, bazeneki zure harpean sartu denaren izena? Ezagutzen bazenu Mariaren besotan dagoen Haurra?

SUZANAK (*Mariarengana hurbilduz*)

Zein ederra den zure Haurra! Zertako bada, badarabilazu bortuan gaindi, aro gaizto honekin?

AMA BIRJINAK

Halabeharrak eramaiten gaitu Nazaretetik Egiptorat. Sendi duzu zenbat gosta zaidan ene semea aterberik gabe ikustea, batean hotzez haizean eta errauspean, bestean eguzkitan errerik, itzalik batere gabe!

SUZANAK

Egiaz, ezinbertze handia duzue holako bideari lotzeko. Egipton aberastu nahiz baldin bazoazte, otoi bara zaitezte. Jende beharrak hemen baino gaizkiago dira han. Bestenaz ere, miserian sortu denak berekilan miseria eramaiten du, doan leku guztietarat. Aterabiderik, bat baizik ez duzu: Aberatsei jazar, eta haiei ken, bortxaz ontasun puska bat¹⁶.

SAN JOSEK

Ez goaz gabeziari ihes. Zoriona ez da aberastasuna, baina Jainkoari lañoki menperatzea: Hark emaiten dio bakoitzari arimaren salbatzeko doia.

AMA BIRJINAK

Lk 16,9 [6¹] Gaixo emaztea! Nola zure arima lotua dagoen gaizki bildu aberastasun horiei! Nola ez zara lehiatzen Jainkoak eman haur eder horren bihotza moldatzen?.

SUZANAK (*hits-hitsa*)

Haur hori, ez da ene zoriona, baina ene bihozmina. Horrengatik ditut ontasun hauek ezin goza! Denak emanen dizkizuet gogotik, ene semearen bizia salbatzen ahal baduzue.

¹⁶ Lerro hauek erakusten dute Teresak ezagutzen zituela bere garaiko gizarte-arazoak.

SAN JOSEK (*haurraren gana hurbilduz*)

Zer du bada? Aingeru bat bezain ederra da eta goxoan lo dago, iduriz.

SUZANAK

Bai Dimas ederra da, baina ez duzu ikusten belarrean duen larru zuri hori negela dela.

AMA BIRJINAK (*Suzanak begitartean duen eskua baztertuz*)

Ez egin negarrik gaixoa!. Jainkoak badu zure semearen sendatzeko ahala! Gure gaurko aterbearen saria izanen duzu.

SUZANAK

Ona delako Jainko hori, ez dakit non dagoen! Zuek ezagutzen baituzue, otoi galde egiozue ene haurra senda dezan, eta nahi dituzuenak oro emanen dizkizuet!

AMA BIRJINAK

Otoitz eginen dut bai zure haurrarentzat. Ordainez emaidazu otoi ur xorta bat, Jesusen ikuzteko. Ikus ezazu begitartea zein zikina duen, izerdiz eta errautsez estalita.

SUZANAK

Eta ni ez oroitu ere (*badoa xoko batetara eta erakusten aska bat arkaitzean urez bete*). Beha! Horra Dimasen mainuntzia. Zure haurra ikuzten ahal duzu, non ez zaren kutsuaren beldur?

AMA BIRJINAK

Ez lotsa! Badakit Jesus mundurat etorria [7^a] dela zure semearen sendatzeko, bere gain hartuz horren minak. Orain, iheslari da deusik gabe, Juduek ez baitute beren erregea ezagutzen. Lepradun batentzat hartuko dute: Begitartea gordea izanen du haientzat. (*Mariak, burua gora erran ditu horiek deblauki haurrari beha, eta gero Suzanari:*) Baina zure haurra edertuko da, ene semeak eman indarrarekin, eta betiereko erresuman izanen da harekin!

Is 53,4

Mt 8,30

Is 53,3,4

Mt 8,11

SUZANAK (*arras hunkitua*)

Ez ditut hitz horiek ontsa zilatzen: nola Dimas senda dezake, bera bezain ahul den haur horrek?

Zuen begiak hain argiak dira, baina zer egin dezakezue enetzat ohoinzilo batean gordetzera jin zaretan bidekariok?

Ala misteriozko jendaki zenbaitekoak zarete? Bai zuen itxurak zinez etorki handiko zaretela emaiten du. Ez ote zarete errege odolekoak? Oixtian aipatu duzu erresuma batean gure semeak elkarrekin izanen zirela.

AMA BIRJINAK

In 18,36 Jesusen erresuma ez da mundu honetakoa. Hala balitz, balituzke errege jauregiak eta gudari frango bere alde gudukatzeko. Ez baduzue orain ulertzen zer dudan
 Jn 13,7 erran nahi, gero noizbait jakinen duzue.

Mariak ura ixurtzen du askaren barnera eta Jesus Haurra han ikuzten.

SAN JOSEK (*Suzanari*)

Ongi beha iezaiozu Mariari. Sinets Jainkoak zure haurra sendatzen ahal duela eta Jainkoak sariztatuko zaitu.

SUZANAK

Bai sinesten dut Jainko egiazkoak enegangat igorri zaituztela ene kontsolatzerat. Ez dezaket erran zer sendi dudan ene baitan. Baina ur xorta batek nola senda dezake ene semea?

[7ⁱ]

SAN JOSEK

2 Ereg 5, Liburu sainduetan emana da Nahaman lepraduna Jordaneko ibaian zazpi aldiz
 1.10-14 ikuzi eta garbitu zela, Eliseo profeta sinetsirik. Jordan ibaian zazpi aldiz ikuzi bai-
 Jn 1,14 tzen. Han ez zen bada hemen dagoen Hitza gizon egina.

SUZANAK

Nik ez dakit zuen Liburu Sainduen berririk, baina ene ama-bihotzak akulatzen nau zure erranen sinestera. (*Bere haurra sartzen du askan Jesusen ondotik, eta ateratzen oihuka dioela lorietan:*) - Ene haurra, Dimas, sendo da! Egia ote da? Bai, ezpainak gorri-gorriak, begia argi, eni irriz beha dago! Jainkoak baizik ez dezake egin horrelakorik! (*Mariari buruz itzulirik*). Orain sinesten dut zure besotan duzun haur hori Jainkoa Bera dela enegana etorria! Ez dakit nola, baina sinesten sendi baitut egia dela.

[V. AGERRALDIA]

Xixtu bat ozen da eta ohoinak sartzen dira.

ABRAMIN

(kexu eta ezpata alxatzen duela Jose eta Maria ikustean)

Nor dira ene eremuetan sartu diren ausart hauek? Gosta behar zaie!

SUZANAK (*aitzinean jarriz, eta Dimas erakutsiz*)

Abramin ez hunki! Gure bihozmina kendu digute: Dimas sendo da!

ABRAMINEK (*ezpata lurrerat utziz*)

Zer dela? Dimas sendo? (*haurrari beha eta beha, negarra heldu zaio*). Ez nuen uste negarrik egin nezakeela... baina hau ezin asmatua da! Nor dira jende arrotz horiek, hain denbora gutiz negel izigarri hori sendatzen dakitenak?

SUZANAK

Ez dakit izenik, baina segur naiz Jainko egiazkoa dela, Haur horren baitan gordea.

[8^a]

ABRAMINEK

Jainkoa Haur idurian! Baina Suzana zoratua zaude zure lorian. (*San Joseri*) Erradazu otoi zure izena eta zer hartze duzuen sendatze honen sari.

SAN JOSEK

Ni zurgin bat naiz, Jose deitzen naizena. Ez dut ez nik sendatu zure semea, baina Mariak besotan daukan Haur horrek.

TORKOLEK

Bertze mundu batean gaude egiazki! Bihotza dena inarrosia dut. Aspaldian lur borobil honetan naizelakotz gizonak ezagutzen ditut, gutiaski, baina arrotz hauek egiaz ez dira normahi!

IZARNEK

Nik ez dut sekulan hainbertzekorik ikusi, eta gure bizimoldea ez zait baitetzpada aitzinean bezain eder iduri.

ABRAMINEK (*manatzen die*)

Jar zaitetze eta isil! (*San Joseri*). Erraguzu otoi, nola zuen haurrak gurea sendatu duen.

SUZANAK (*bero-beroa*)

Beha zer gertatu den. Emazte eder goxo horrek galdatu dit ur xorta bat bere haurraren ikuzteko. Eman diot Dimasen askakotik, erranez ez zukeela eritasuna bildu behar. Ez zela beldur erran dit, bertze nik ulertu ez ditudan ele batzuekin. Gero, haurra uretik ateratu duelarik, nik Dimas ur berean sartu dut, Josek erranik. Eta ikusten duzu zer gertatu den? Ageri da hortik Jesus Haurra Jainko dela. Amak erran ere dit Dimasek Jesusekin izanen duela bere lekua haren erreinuan.

Mt 8,11

ABRAMINEK

[8ⁱ] Erreinua diozu? Beraz hori da Herodesek garbitu nahi zuena? Juduen erregea da beraz, hain aspaldian igurikatzen duten hura bera!

Mt 2,16
Jn 19,22
Jn 1,41

AMA BIRJINAK

Lk 10,21 Jaunaren bihotza! Jakintsunei eta Zuhurtziadunei gordetzen zaiena eta xehe,
Lk 15,4 apal, ardi galdu eta fedegabeei agertzen zaiena?

ABRAMINEK

Ez ote dut egia erran? Nor zareten aitor ezazue!. Ez izu! Ez zaituztet salduko, baina etsaien aurka lagunduko eta zainduko. Ene gizonak hor dauzkat prest-presta!

BI LAPURREK

Bai hemen gaude, xut!

TORKOLEK

Sekulan ez dukegu lan hoberik egin!

SAN JOSEK

Is 9,5 Eskerrak zuei adiskideak!. Ez da guduka ordu! Jesus, Bakezko Jainkoa da!
Is 63,1 Gizonen zaintzerat eta salbatzerat etortzen da.

ABRAMINEK

Zure semea Jainko bada zertako ez du bere indarra frogatu, horrengatik xehatuak izan diren haur gaixo haiek zainduz? Gure Dimas-entzat egin duen mirakuilua Belengo haurren faboretan egitea errezago baizik ez zen izanen! Aski zuen Herodes gaiztoa hilaraztea.

SAN JOSEK

Is 55,8-9 Jainkoaren asmoak ez dira gizonenak iduriak¹⁷. Bestela zuk erran bezala jokatuko zen. Baina haren bideak gizonenak baino goragokoak dira; zerua lurra baino gorago den bezala. Ez ditzakegu Jainkoaren xedeak zila, baina bakarrik onar. Maria ni baino argituago baita Izpiritu Sainduaren bide horietan, erranen dizu menturaz nola haren Seme Jainkoak utzi dituen hobengabe haiek galtzera, Herodes bera hilarazteko orde.

AMA BIRJINAK

Jn 5,21 Jainko Semea ez da lurrerat etorri biziaren [9^a] kentzeko baina emaiteko.
Jn 18,36 Erran dizuet ez dela mundu honetako errege. Ez du zeruko jauregi ederra utzi lurreko eremuen jabe izaiteko! Lur honetan adiskideak, haurrideak nahi ditu bildu, haien Berekin eramaiteko zeruetako erreinuraino. Bere adineko haurrak utzi baditu biltzera, bere gortearen osatzeko izan da, haien begiratzeko seguruan.

¹⁷ Ik. DSA 2. 23. oharra. TO 44an, Haur Sainduen bestako berak ondu olerkia badago, baina ondo urtean Teresa sakonago sartuko da oraino Herodesek hilarazi Haur gaixoen zortearen misterioan.

Bizi luzeena ere amets bat besterik ez da. Askotan, gizonek zorigaitzez, hemengo ergelkeriek zoraturik, ahanzten dute Jainkoaren idurira egin arima bat badaukatela. Horrengatik, Jesusek oneziaz ditu haur oste horiek eraman lurretik orai gozutzen duten betiko bakeraino.

Jkd 4, 7-14
Has 1, 26-27

ABRAMINEK *pentsakor*

Arima Jainkoaren idurirat egina? Haur hilak betiko bakean? Horrelakorik ez nekien. Bizi hau ez da beraz dena hemen berean bururatzen¹⁸? Harriturik nago, ametsetan naski!.

SAN JOSEK

Ez zara ez ametsetarik ari! Mariak erranak egia huts-hutsak dira! Horiek gogoa har bazenitza, bertzeri hartu ontasun horiek baino gehiago estima zenezake gabezia! Arimaren edertzeari ari zintezke, Jainkoa gogoan.

ABRAMINEK

Zertako nahi duzu Jainkoari eman diezaiodan ene arima? Nola jakinen du? Ontasunak baino hobe gabezia? Bai ote? Erradazu nola.

SAN JOSEK

Beti hemen bizitzekotan ontasun biltzeak balio luke. Baina, ximixta bezala badoa bizi hau eta betiereko zoriona ukanen dute Jainkoaren adixkide jarraikiek.

Jainkoa guztiz ona da eta saristatuko ditu obra handiak ala ttipiak, haren zerbitzatzeko eta maitatzeko lehiak berdin. Denak ikusten ditu, gure xoko gordeenak ere! Isaias profetak errana du: "Jainkoak ez du gizona jukatuko itxurala, ez kondernatuko [9] bertzeen erranetik. Pobreak zuzenki ibiliko ditu. Lurrean lehertuak izan diren tipien mendekatzaila agertuko da. Jainkoa Bera etorriko da eta salbatuko ditu".

1 Kro 28,9

Is 11, 3-4

ABRAMINEK (*xutituz*)

Gehiegi da! Ez nagoke! Goazen hemendik, ez gara horrelako jendartean egoitekoko on!

SUZANAK

Abramin, argia ikusten duzu! Ez ihes egin! Otoi, Dimas sendatu duen Salbatailearengatik, ez berriz itzul zure lan tzarretara! Erakuts zure ikustatea jende haueti! Eraman itzazu bortuan barna Egiptora buruz, bihar beretik.

¹⁸ Jose eta Mariak errazki ihardesten diete Abraminen arazoei, Teresak bezala, memento horretan, "haren fedea hain da bizia eta hain argia non Zerua gogoratzeak zorionez betetzen baitu" eta "ez baitezake asma ere fedegabeek ez dutela sinesten" (C Esk., 5^a). Baina hiru hilabeteen buruan, besterik "sendituko" du berak, orduan sartzen baita gau ilunean (1896ko apirilaren hatsarrean).

ABRAMINEK

Ez naiz ohointzarat joaiten! Gaueko hats bizia hartu nahi dut, hemengo eguratsa gordinegi da enetzat. Baina zaude lasai, argitzen hasi orduko erakutsiko diet jende hauei, goxoki heltzeko hartu behar duten bide segurua.

Badoa atera eta bertze biak xutitzen dira..

TORKOLEK (*Mariari*)

Mintza zakizkio artetan nitaz zure Haurrari, oroit dadin Torkol zaharraz, bere erreinuan izanen den egunean!

AMA BIRJINAK

Ene semearen erresuman nahi baduzu sartu, ez ahantz gau batez Jainkoa zuen etxean pausatu dela. Orduan ikusiko duzue ez Haur tipi baten itxuran, baina bere loria betean !

Mt 25,31

IZARNEK (*belaunikatuz*)

Benedika gaitzala betiko zoriona emanen digun Haur horrek!

Hiru lapurrak belaunikatzen dira et burua apaltzen dute. San Jose eta Suzana ere belaunikatzen dira.

AMA BIRJINAK (*Jesus Haurrarekin benedikatzuz*)

[10^a] Jesusek benedikatzen zaituzte eta eskertzen. Zuen etxean hartu duzelakotz Parabisuan sarraraziko zaituzte ordainez.

Lk 23,43

ABRAMINEK (*Xutitzen da begiak xukatuz*)

Nork erranen zuen Abramini ohoin nagusia, Haur baten aitzinean belaunikatuko zela? Horrelakorik gertatzeko, Haur hau Jainkoa izan behar da.

Lapurrak badoaz, Jesusi azken behako bat eman ondoan.

[VI. AGERRALDIA]

SUZANAK (*belauniko, Maria otoiztuz negarretan*)

Zein ona zaren Maria, ene senarrari betiko erresuma hitz emaiteko! Baina ohoingoa barna sartua du, eta ikaran nago, berriz hasiko dela. Eta Dimas, aitari segitzen bada, orduan zer bilakatuko dira?

AMA BIRJINAK

Seguraz ere, zure etxekoek Jainkoa laidostatuko dute beren urratsetan. Baina Jainkoa guztiz ona da. Hobenik handienak ezezta ditzake, ama baten bihotzak fidantzia osoz galdeginez geroz.

Jesusek ez du nahi bekatorea hil dadin, baina itzul dadin betiko bizira. Zure semea hoin errexki sendatu duen Haur honek, egun batez sendatuko du bekatuaren negel gaiztoagotik. Baina ez da urean sar-atera bat aski izanen! Dimasek beharko du ikuzi Eroslearen odolean: Jesus hilen da biziaren emaiteko Dimasi eta Dimas Jainko Semearekin batean sartuko da Zeruko erresuman.

Ez 33,11

Lk 23,43

SUZANAK

Zer hitz goxoak! Ez dut sekulan horrelako bakerik gozatu! Ez ditut denak ulertzen, baina ene semea lorian izanen dela! Erranen diot ardura zer zor dion zure Semeari, eta erakutsiko diot Haren ezagutzen eta maitatzen. Errege handi horren begiraleen saldoan behar duela egun batez sartu, erranen diot.

Zuen Jesusek balu bederen norbait, noizetik noizerat guri berrien emaiteko, eta Dimasi irakasteko zer behar duen egin, zure Semearen zerbitzuko gai izaiteko!

[10¹]

AMA BIRJINAK

Jesus ez da noizetik noizerat jinen zure semearen ondotik. Sortzetik Dimasek badu zerutiar lagun bat betikotz. Ez du hark ahantziko. Eta zuk ere baduzu aingeru bat gau eta egun, begirale hark dizkizu gogoeta onak sorrarazten, eta urrats baliosak eginarazten.

Sal 90,11

SUZANAK

Aitortzen dizut nehork ez didala, zuk bezain gogoeta onik eman, eta ez dudala behinere ikusi delako begirale hura!

AMA BIRJINAK

Ez duzu ikusi. Badakit: aingeruak ez baitu gorputzik. Baina hor da, ni bezain segur! Hark dizu eman Jainkoaren ezagutzeko lehia. Lur honetan zaren gauza horiek misteriozkoak izanen dira, baina denbora bururatuko delarik, ikusiko duzu Jainko Semea heldu zeruko hedoietan, bere aingeru andana guztiakin!

Mt 25,31

SUZANAK

Ez badezaket ikus Aingerua, nahi nuke bederen haren boza aditu.

AMA BIRJINAK (*beha dagoela*)

Beha! Aingeru batek zure otoitza entzun duke, hegal farrasta bat sendi dut.

[VII. AGERRALDIA]

AINGERUAK

kantatzen du "Herculanum-eko Credo" aren airean, gorderik egonez¹⁹

Familia Sainduaren ospea kantatzera noa,
mortuaren gozoa agurtzera,
zeruetako ospea baino laketago baitzait.
Nork du misterio hau ulertuko?
Jesus bere herritarrek arbuiatua,
desherrian ibiltari,
nehork haren edertasuna ikusi gabe.

[11^a]

Eta zure erreinua Handiek gutiesten badute,
oi, Zeruko Erregea, Misteriozko Izarra,
aspaldi du askok ikusi nahi zaituela!
Zu zara dohakabeen itxaropena,
Jainko Izarra, Zuhurtzia garbia,
zure dohain paregabeak eskaintzen dituzu
lurreko ttipi eta behardunei,
haien izenak zeruetan idazten.

Lk 10,21

Lk 10,20

Zuhurtzia emaiten badiozu
ezjakinari, bihotz apalari,
arimak oro zure iduriak direlako da,
eta bekatoreen salbatzera heldu baitzara.
Etorriko da eguna soro berean
alatuko baitira lehoina eta bildotsa
eta zure Aberria den mortuak
zure izena ospatuko baitu.

Has 1, 26-28

I Tm 1,15

Is 11,6

Is 45,15

Oi Jainko gordea! Arima garbiak,
amodioaren garrek suhartuak,
zure erregebidetan abiatuko dira
eta desertuak²⁰ populatuko dituzte.
Bihotz kartsu horiek, aingeru-arimek
poztuko dituzte Zeruetako egoiliarrak,
baina ikaratuko Ilunbetako leizeak.

¹⁹ Aingeruaren kantuak gogoratzen die serorei antzerkiaren irakaspena: politika-arazoengatik gerta balekie ere Egiptoko desherrira joan behar izaita, Jainkoak beti lagunduko baititu. Bertso hauek ordea aitzinekoak baino barnago doaz eta antzerkia badaramate azkenburuetaraino.

²⁰ Karmeldegia bera da egiazko "mortua" (A Esk., 26^a) Elias profetaren ohituren arabera, Teresa Avilakoak azpimarratu zuen bezala. Karmelitei dagokie Jesusen "Errege hatzei" jarraikitzea.

Bere hasarrean, bere bekaizgoan
 satanek nahiko ditu mortuak larrutu,
 baina ez daki Haur tipiaren indar harrigarria
 munduak ezagutzen ez duena.
 Ez ez daki Birjina kartsuak
 bakartasuna duela bere bihotzean bizi.
 Ez ez daki zer indarra duen horrelakoak
 Salbatzaile Dibinoarekin bat egitean.

Menturaz noizbait zuen lagun maiteek
 zure desherrian parte hartuko dute, ene Jainkoa!
 Baina ohilduko dituzten bekatoreak
 ez dute haien karra iraungiko.
 Munduaren herra gaiztoak
 ez du zikinduko Jaunaren Birjinen
 elurrezko jantzia
 ez belztuko haien zeru xahar xuria.

[11ⁱ]

Oi eskergaiztoko mundua!
 Zure erreinua galtzera doa.
 Ez duzu bada ikusten Haur ttipi honek
 eskutan daukala martirioaren abarraz
 eta bildua duela lirio lorea,
 bere lagun fidelei emaiteko,
 haien esku-argiak argi egin dezan?
 Ez duzu bada ikusten Zeruetako ateak zabalduko direla
 sailduak gero hortik sar daitezzen?

Ap 7,9

Mt 25,4

Sal 23,7

Oi, zer zorion garbia!
 Hautetsiek beren lorian
 amodioaren sari
 duketenean Zeruetan maitatzeko betiere.
 Desterruaren ondotik minik ez gehiago,
 zeruko egoitzaren atsedena²¹ soilik;
 Desherriaren ondotik ez Federik ez Esperantzarik
 bozkarioa bakarrik eta Maitasunaren²² zoramena.

1 Ko
15, 13.8

²¹ Hiltzerakoan Teresak ez du zeruko "pausua" eskatuko, baina bai mundu berriko lan beroa (TG 220 eta 254; KH 17. VII.).

²² A, B eta C eskuizkribuak bezala, DSA 6. amaitzen da "Maitasun" hitzarekin.



DSA 7

1896-VI-21

[1^a]

J.M.J.T.

1896ko ekainaren 21

APALTASUNA GARAILE

DOK.: autografoa (narriatua), Prozesuko lehen kopiarekin osatua 3¹ eta Bellière apaizgaiak bidalitako kopiarekin azken ahapaldia.- EGUNA: Ama Maria Gonzagarenaren priore-festarako, 1896ko ekainaren 21ean.- KONPOSIZIOA: hitz lau eta hitz neurtuzko elkarriketak (50) hiru airetan.- ARGITALPENA: HA 98, 16 lerro; *Le Triomphe de l'Humilité* (TrH), testu osoa (Cerf/DDB, 1975).

1896eko ekainaren 21ean Ama Maria Gonzagarena priore "berria" ospatzen dute karmelitek. Ez da lehen aldia kargua hartzen duela: hamasei urtez jadaneko betea du. Baina oraingoan karga astuna zaio: Hirurogei urte baditu, osasuna txarra du eta oroz gainetik mar-txoaren 21ean zazpigarren itzulian baizik ez da izan hautatua. "*Bere artalde maiteak horren-beste maite zuela uste zuenarentzat*" kiratsa izan da (TG 190). "Saldukeria" nonbaitik sumatu du. Ongi dator beraz Luis Gonzagakoaren besta aspaldiko lainoen urruntzeko eta "*bihotzen batasuna*" berritzeko (DSA 7, 1^a) nahiko nahasia zegoen elkartearen.

Ahalak oro eginen dira bi eguneko besta ongi antolatzeko: anitz opari tipi, apairu apai-nak, bi antzerkiño: bat larunbatean, ekainaren 20an, ezezagun baten komediañoa, eta igandean, *Apaltasunaren Garaipena*.

Garaiko antzerkia

Andere Diana Vaughan pertsonaia mitikoaren historia irakurria du Teresak bere an-zerkia ontzen duenean. Satanen menpe zegoen Amerikar baten eta emazte Frantses baten alaba omen zen Diana delakoa. Bera 20 urtetan, Palladismoa deitu espiritismo luzifertiar mazonikoan sartua omen zen, 1884an. Luzifer-en "*alaba kutuna*" zelarrik, Asmodeo izeneko debruarekin ezkondu zen 1889an. 1893ez geroz Paris aldean bazebilen Diana. Orduan zituen ezagutzak egin Bataille jaun mirikuarekin eta Leo Taxil kazetariarekin eta haien adiskide bilakatzen nahiz jaun horiek "mazon" arnegatuak ziren. Katolikoak otoitzean hasten dira Vaughan anderea bide onera itzul dadin. *La Croix* egunkariak bere irakurleak gomitatzen ditu Joana Ark-eko Agurgarriari hel egitera xede horretara (1895eko maiatzaren 8an). Eta

hona non ustegabetarik ekainaren 6an Joanak ardiesten duen Diana debruaren aztaparretarik ateratzea. “*Miragarria*” berresten dute ekainaren 13an.

Diana Vaughan hasten da orduan “mazoneriaren” aurka gudukatzen: “*Palladista ohi baten Memoria*” idazten ditu. Osaba Guérin-en *Le Normand* egunkariak emaiten die denen berri bere irakurleei 1895eko uztaillean. Baina arrakasta handiena 1896ko udaberrian gertatzen da, *L'Univers* egunkariaren artikulua argi batek uzkur zeuden irakurleak biltzen dituenen.

Orduan zituen nik uste Karmeldegira helarazi Guérin jaunak “*Memoria*” haien lehen kapituluak. “Diana Vaughan-ek eman digu antzerki hau osatzeko gogo” idatzi zion 1896ko ekainaren 17an Maria Eukaristiarenak Guérin Andreari. Teresa ere bide beretik garaiko gertakari horien muineraino sartzten da, Genesiatik Apokalipsiaraino heltzen den argiaren eta ilunaren arteko gudu izugarriaren erdi-erdian. Gerla horren pasarte bat bizitzea tokatzen zaiola orduko elizari, karmelita bakoitzari eta Teresari berari, ikusten du honek.

Gudu Izpirituala

1896ko apirilean hain zuzen Teresa bera sartu da ilunbe horien erdian. “*Horma*” bat jo duela iduritzen zaio. *Apaltasunaren Garaipena* idatziko duenak gudu izpiritual gogorra eraman behar du. Alde batetik alabaina, komentuko giroa ez da baitezpada bakezkoa eta Ama Maria Gonzagarenaren aitormen kiratsak entzuten ditu martxoaren 21eko zaflakoa ez baitu ahanzti. Irakur bedi 1896ko ekainaren 29an Teresak soleitzeko bidaltzen dion gutuna (TG 190).

Bestetik nobizien ardura berriz hartu behar du. Nahiz ez dioten nobizien buru izena eman, bera da gazteen “*begiralea*” bezala, haien “*hutsak eta itzalik xeheenak ikertzen eta gogorki kontrestatzen*” dituen (C Esk., 23^a). Apaltasunak bakarrik ditu gaudituko Satanen jukutriak, ene ni-aren maltzurkeriak ahultzen baitu bihotzetan maitasunaren indarra. Orduan “*beti tipi egoitea*” edo berriz tipi bilakatzea izanen da aterabidea.

Jostatzeko balitz bezala antzerkiak beraz gogoratzen ditu egia handiak. Gudu Izpirituala Elizaren gudua da beti eta Elizaren aldekoa. Etsaia aldiz Ilunbetako Printzea. Lisieux-ko Karmeldegiaeren barne hertsian hura garaituz, parte hartzen du mundu zabalean daraman gerla izugarrian. Eta Karmeldegi horrek, Mariaren ordena denaz geroz, bere Erreginari, “*Maria Birjina umilari*” jarraikiz baizik ez dezake partida irabaz.

Baina taulagainekei pareten gibelean beren kateak irriz inarosten zituzten debruek abusaturik, ikusliarrek ez zuketan ongi entzun beren ahizpa Teresak, lasaiki jarririk lehen lerroan, adierazi nahi zieten irakaspén gogorra. «Munduan abusatzeko edozein gauza baino atseginago zuketan zernahi ikusgari baino gehiago prezatu omen zuten antzerkia», Maria Bihotz Sakratuarena seroraren arabera. Idazleak ordea ez zuen ikusi zenbatetaraino *Apaltasunaren Garaipen* horrek erraiten zuen baino asko gehiago iragartzen zuen.

Guduak jarraitzen

Diana Vaughan-en *misionea* ez omen da bada bururatua. Ama Aines Jesusenak gogorazten dio Teresari “zenbait bertso ontzea eta bidaltzea” andere Dianari. Baina hona non lehen aldikotz Teresak ezin duen bertso zotzik asma eta ezinbestez prosazko gutuna igortzen dio andere aipatuari, berak itxuratzen duen santa Katalinak soleitu Joana presoaren argazkiarekin (VTL, 14.zk.). Andere Vaughan-ek eskerrak bihurtzen dizki karmelitari bere oparierengatik.

1896ko uda berean Teresak ukaiten du Dianak idatzi duen “*Eukaristiaren Bedertziurrena*”, Leon XIII.ak berak “atsegin handiarekin” irakurri omen duena. Pasarte luze ba-

tzuk kopiatzen ditu karmelita kartsuak eta bestalde, irakurri dituen "Memoria" haien aztar-nak ere nabari dira irailleko B Eskuizkribuan (TrH, 103. h. orr.).

Abenduan osaba Guérin-i Ama Aines-ek galdetzen dio "ba ote duenentz dokumentu berririk Diana Vaughan-i buruz". Katolikoen artean ezen susmo zenbait sortzen ari dira eta azterketa bat eginen dutela badator Erromatik berria. Baina Dianari gaitzitzen zaio eta hasarre gorrian oldartzen zaio batzordearen buruari Nerejaun Lazzareschi-ri. Haserre hori ordea gaizki hartzen du Teresak, ez baitu uste "*Jainkoarengatik datorkeela horrelako gogorik*" (PO, 166). Diana Vaughan-enganik urruntzen da beraz.

Azkenean jakiten da, 1897ko apirilaren 19an, Bazko biharamunean, prentsaurreko erabakior bat eginen dela Parisen. Diana bera agertuko omen da. Laurehun lagun biltzen dira bazter guztietarik, hitzartu bezala Dianaren ikusteko, baina Dianaren orde aurkezten zaie Joana Arkekoa preso itxuratzen duen argazkia (Teresak iragan udan igorri argazki hura bera, hain zuzen) eta hizlariaren orde berriz agertzen gizon karsoil lodi bizar zuri bat, Leo Taxil kazetaria. Honek azkenean denen aitzinean aitortzen du deplauki bera izan dela, 1885eko apirilean Diana asmatu duen gizona. Berak ditu ere asmatu bai Palladismoa, bai *Memoriak* Eta *Euskaristiaren Bederatziurrena*. Eta ixtorio horrekin 12 urtez mundu guztia engainatu du. Xixtukatzen duten kazetarien aitzinean Leo Taxil badoa orduan ihesi, eta kazetariak okaztaturik, gaitzesten dute zeinek gogorkiango horrelako jukutria. Leo Taxil-ek ez zuen halere asmatu egun hartan aurkeztu zuela "mende hartako saindu handienaren argazkia" eta honek harentzat otoitz egin zukeela hil arteraino.

Ez dugu erraite beharrik zenbat mindu zituen Guérin-tarrak eta Karmeleko serora guztiak historia horren berri irakurtzeak apirilaren 24ko *Le Normand* egunkarian.

Teresak bereziki zuzenean jasan zuen ukaldia. Diana-Taxil-enganik ukan gutuna surat eman zuen. Maiatz ekainetan eri zelarik, berrikusi zituen bere izkribuak, eta *Apaltasunaren Garaipenatik* edo B Eskuizkribuatik ezabatu Diana Vaughan aipu zuten pasarte guztiak.

Ekainaren 9an idazten du bere autobiografiako orrialde hunkigarrietarik bat, "*grazia xahuturik*" fedea galdu duten "*soraioak*" dituela gogoan (C Esk., 5i). Nola ahantz alabaina bere jukutria itsusia aitor berri duen engainatzalea? Haren alde eskaintzen du beraz bere mina.

Apaltzerik gabeko apaltasunik ez dela, erran izan ohi baita; horrela gertatu zen Diana Vaughan-en kasuan. Eta hiltzeko mementuan, "*Betiereco Garaipena*" zukeen gogoan Teresak, bere Prioreari aitortzen ziolarik: "*Bai uste dut ez dudala sekula egia baizik bilatu, bai bihotzeko apaltasuna ulertu dut.... Uste dut apala izan naizela*" (KH, 30.IX) Bai Apaltasunaren azken garaipena zen.

[I. AGERRALDIA]¹

Jostaleku² baten hiru nobiziagai³ isil-isilik.- Teresa Jesus Haurrarena da gehiena - Maria Madalena koruko nobiziagaia⁴ - Maria Izpiritu Sainduarena serora gaia.

TERESA JESUS HAURRARENA

Zoin goxoki garen elkarrekin! Errazu Maria Izpiritu Sainduarena, zer diozu gure Ama Buruaren bestaz? Komenturat jin aintzin ikusi duzu holako bihotzen batasunik, holako goxotasunik?

MARIA IZPIRITU SAINDUARENA

Ez dut deus hoin gustukorik ikusi. Karmeleko bestak, bereziak dira, egiaz familiako batasunean garelakotz, loriatzen naute. Zoin ontsa naizen hemen, zeruari hurbil eta ene gutizia bakarra da Jesusen esposagai onartua izaitea.

MARIA MADALENA

Jainkoak hautatuak izaitea, zer zoriona! Zuentzat ontsa zait hain zarete onak! Baina ni, artzaintsa ttipi bat naiz, nola nigana apaldu da? Bazekien ez dudala ez jakitaterik ez bertuterik!

TERESA JESUS HAURRARENA

Ez zara zu gu baino gutiago! Jesus Jaunarentzat aitzitik, tipiena da handiena. Haren amodioak nau hunkitzen: gogoan erabiltzen ditut Ama Jenofak⁵ zoramen batean aditu hitz hauek: "Jainkoaren esposa izaitea: zer faborea!". Jesus Jauna bera da gure arimaren esposa, ez arkanjelu bat, ez bere gorteko printze bat! Ez da hura bezala ari Satan, ("Amodio gabea"⁶ Ama Teresak deitzen zuen bezala). Hark beretzen dituen arimak emaiten ditu bere debru batzuen esku. Hori ikasi dut irakurri dudalarik nola Diana Vaughan⁷ Jainkoari buruz itzuli den. Zein ede-

¹ Antzerki honi ere Teresak berak ez dio jarri ez aktarik ez agerraldirik. Guk orain arte egin bezala, 6 agerralditan aurkezten dugu.

² Gertaldia "aisia aretoan" iragaiten da, aurkezpena emana den toki berean.

³ "Jokolariek" edo "personaiek" beren izen egiazkoak dituzte, ez ordea hirugarrenak. Hau seroragai bat beharra zen, azkenean etorri ez zena. Marta Jesusena serora, Asmodeoren pertsonaia behar zena, ari izan zen haren orde.

⁴ Maria Madalena serora, artzain izana zen haurtzaroan; ik. TO 10, *Histoire d'une Bergère devenue Reine*.

⁵ Ama Aines Jesusenak 1892an idatzi Ama Jenofaren gutun hori serora bakoitzari eman zitzaion, 1896ko ekainaren 21ean. Ama Ainesek argitaratu nahi zituen orduan Ama haren biziko gertakari miragarriak. Ikus Bestelako Idazkietan Teresari nobizia zelarik Ama Jenofak erranak. Eta zer zioen Teresak Ama Jenofaren saindutasunaz, ik. A Esk., 78^a.

⁶ Ez da erran hau Teresa Avilakoarena hemen eta TG 201ean hala esaten bada ere baina san Franses Salesekoarena (*Traité de l'Amour de Dieu*, I.VI, c.14).

⁷ 1896ko maiatz hatsarrean irakurri zuen pasarte hau "Memoria" haien 2. 3. 4. zerbakietan (1895eko abuztu, irail urrietan). 1895eko ekainaren 13an emana zen "gertakaria". Teresak ez du Diana Vaughan-en aurkezte beharrik, jadaneko ezaguna baita komentuan.

rra⁸ [1ⁱ] eta Joana Ark-eko berria bilakatu⁹ . Orain nahi nuke hura
bera gure Karmeldegi hontan sartzen ikusi!

MARIA MADALENA

Hark lituzke behar agertze eta mintzo bereziak, debruak egiten zizkion bezala!
zer faboreak zituen!

TERESA JESUS HAURRARENA *irriz*:

Zer dituzu Mari Madalen, ezohiko fabore eta argi horiek gutiziatzen¹⁰? Uste
nuen aitzinatuago zinela!.

MARIA MADALENA

Ene otoitzak baratza idor batean bezala dira! Bertze munduko berri zerbait
jakitea ez daukat gaizki.

TERESA JESUS HAURRARENA

Ez duzu entzun Joan Gurutzekoak zioena: bekatu arin bat dela argi eta fabore
eskatzea.

MARIA IZPIRITU SAINDUARENA (*harriturik*):

Bekatu ote? Ez nekien! Alta nik ere gutiziatzen ditut! Zer egin beraz?

MARIA MADALENA

Zer egin bada, ene ahizpa? - Nik bezala: gabe egon ez direlarik etortzen!

TERESA JESUS HAURRARENA

Edo hobeki oraino: oroitu Jesusen hitz hauez: "Dohatsu ikusi gabe
sinesten dutenak". On eginen dizuete.

⁸ Teresaren eskuizkribuan dauden zirrimarra batzuegatik ezin irakurria da testua. 1. eta 3. folioak zilatua ere dira eta beraz huts batzuk uzten dira diren bezala eta kakotz artean jartzen asmatu direnak, ik. xehetasunentzat *Récréations*, 379-382.

⁹ Leo Taxil Dianaren "aitak" bazuen Joana Ark-ekoaren berri, berak baitzuen itzuli haren *Auzia* 1890ean. Horren bitartez zuen errazkiago andere Vaughan onartarazi katoliko jendartean, beti aberriaren historiako gorabeherak gogoratzen baitzituen. *Memoriek* asmatzen duten mazoneriaren kontrako gerlan Orleans-eko askatzailearen lan bera eginarazten zaio "konbertitu" berriari.

¹⁰ Ik. San Joan Gurutzekoaren *Maximes* («Avisos»): "agerkariak izan nahi dituen arimak bekatu egiten du, arinki bada ere" (34. zk., 15. or.). Teresaren doktrina "kontsolamendu eta grazia bereziei buruz" San Joan Gurutzekoarena bezain zorrotza da; ik. *Karmel Mendiral Igoerea*, II, 2 eta III, 30, baita B Esk. 2.^a, 6-8 eta CSG. 154. or.

MARIA MADALENA

Jn 20,29

Beha, argitzen nauzu. Jainkoak erran du “Dohatsu ikusi gabe sinetsi dutenak”, baina ez du erran “Dohatsu entzun ez dutenak”. Eni aski lekidake entzutea, ikusi gabe. Eta zuri?

MARIA IZPIRITU SAINDUARENA

Zu bezala naiz. Baina nola goaita zeruko berri zerbait gutaraino heltzea?

MARIA MADALENA

Entzun genezake ifernukoak: zerukoak bezain goxoak ez izanagatik, gabea baino hobe! Entzun nahi nuke han zer dioten. Iduritzen zait hobia nintekeela, jaki-nez zer dioen gutaz debruak.

TERESA JESUS HAURRARENA

Nik badakit: dio haren etsai handienak garela, Jesus anitz maite dugularik. Ez du balio debruak entzunaraz diezagan bere boz itsusia.

MARIA MADALENA

Hori segur baina nahi nuke halere atean barrandatu, hasteko bizpahiru izanez, eta zuk Maria Izpituarena?

MARIA IZPIRITU SAINDUARENA

Ba, baina! Iduri zait beldur nintekeela

TERESA JESUS HAURRARENA

Beldur izaiteak ez du balio! Gure Amak erraiten digu debruak euliak bezain errecki garait daitezkeela¹¹.

MARIA MADALENA

Horra beraz: ene erranera hurbiltzen zara.

TERESA JESUS HAURRARENA

Zure erranera jinik ere, ez dugu adituko debruaren elerik... (*Irriz*). Zer eleak darabiltzagun! Beharrik nehor ez baitago barrandan!

¹¹ Ama Avilakoak bere *Autobiografia*-n idatzi zuen: “Jainko Handiari esker hain ongi menderatzen ditut non ez baitiet uliei baino gehiago kasu egiten” (XXV. kap.).

MARIA IZPIRITU SAINDUARENA

Zuk irri egiten duzu, baina egiaz gerta baledi ?

TERESA JESUS HAURRARENA

Jainkoari laket zaio arima laño eta garbien galdeak entzutea. Nik ere ene fedea azkar nezake holako batean. Ez nezake Luis errege sainduak bezala erran: "Badakit Jesus ostia sainduan dela! Ez dit balio ikusterat joaitea!" Baina ez dut galde [2ⁱ] ausartegi bat egin nahi¹²!

MARIA MADALENA

Jainkoa zu baino goxoago da: erranen du beharbada, Mikael Arkanjeluari ifernuko atea arteka batekin eman dezan, guk zerbait aditzeko.

MARIA IZPIRITU SAINDUARENA

Beha! kantuak aditzen ditut! entzunak izan gara!

[II. AGERRALDIA]

Jondone Mikael kantuz ari aditzen da; "Menaces maternelles" airean

Fedearen bela altxatzen da
zuek Maite duzuenaren izenean,
zuek egin ametsa,
betetzera natorkizue

Arteka idekiko dizuet
betiereko oinazeen tokikoa;
ikus ditzazuen eta entzun
Luzifer eta bere kidekoen garrasia beltzak.

Ni naiz Mikael,
zerutik etorria.

Arreba maiteak,
irri egizue ifernuko haserreaz,
eta ez beldur izan!
Jesus zuen alde gudukatzen baita.

¹² Joan Gurutzekoaren ideiak eta hitzak berak dira, *Karmel Mendira Igoerea*-n diren bezala (II, 21. kap.; 267. or. Teresak zeukan edizioan).

[III. AGERRALDIA]

*Oihalaren gibelean*¹³ aditzen da tiro zenbait, kadena harrabots eta debruen oihu-garrasiak. Agertzen dira ere debruen sarde batzuk, seroren gibeletik. Baina nobiziek, bizkarrez oihala jarriak izanez, ez dute deus ikusten.

Is 14,12

LUZIFER (*oihuka*):

Isilik! ez naiz zuen oihu eta harrabotsen gose! Gauza larriak behar dizkizuet erran¹⁴.

Mt 10,25

BAAL ZEBUB

Mintza Luzifer, baina laster. Ni ez naiz hemen laket : nahiago dut lurtean jasan ifernua¹⁵. Hola bederen ene amorrua baliatzen dut Adonai¹⁶ salbatu arimen galtzeko.

LUZIFER

Baal Zebub, zuetako samur naiz. Zure lana gaizki darabilazu. Mikael utzi duzu gure lagun on batzuen biltzerat. Zertako zuhauren mendekio batzuen ondotik zoaz, ene erreinuaren finkatzea ahantzirik?

[3^a]BAAL ZEBUB, *trufan*:

Jr 2,20

“Non serviam”¹⁷ zuk didazu erakatsia hitz hori! uste duzu zuri plegatuko nai-zela. Jainkoaren aitzinean ez apaldu eta? Ez eta ez! Hemen bakotxa nagusi da! Hortakotz gara denak elkarri lotuak eta gure adoratzaileak beti gatazkan ari dira. Bada-kizu normahik baino hobeki, suge zaharra, zure erregetasunaren marka, kasaila dela. Gure lokarri bakarra jendarteko herra da! “Adiskide” deitzen ditugu, baina herra gorria barnean! Zenbaitzuek, bertzeak baino abilagoek, gure saretarik ihes egiten badute ere, biltzen dituzu halere multzo pollitak! Gutik dute segitzen Kristok dioe-larik “Ene ondotik ibili nahi duenak uko egin diezaiola bere buruari, eta har beza bere kurutzea!” Ah! kurutze hitz hori zoin nekez erraiten dudan!

Mt 16,24

¹³ Debrua gorderik daude ate gibeletan. Asma daiteke zein gogotik harrotzen ziren han hiru nobizia gazteak. Hamabost egun berantago ageri dira beren sardeekin belarretako argazkian hartuak (VTL, 35. zk.).

¹⁴ Kontuz hartzekoak dira Luzifer-en solasak. Ez du irrik eta DSA 7 honetan Teresaren ordezkoetarik bat bezala da mintzo. Hamar gezurren artetik bizpalau egia handia adierazten dizkie Teresaren komentuko lagunei. Haren mendekoe “Palladiar” jolasak (Andere Vaughan-en erakaspenetarik) darabiltzalarik, Luzifer-ek Bibliako solasak ditu oinarri hartzen, haien aldea irauliz, Tentamendu Mendian egin zuen bezala.

¹⁵ Justuen ikuspegia bihurtzen du Teresak, bere “zerua lurtean iraganez, arimak salbatzeko izanen direno” (KH 17. VII).

¹⁶ Adonai, Biblia Hebrearrean Jainkoaren izena, Asmodeo eta gero Molok, Astaroth eta beste debru izen guztiek zaharkitu kutsu arraro bat emaiten diote pasarte honi. Baina erakusten dute ere Teresak ongi irakurriak zituela bere “lekukoak”, hots, Léo Taxil-en idazkiak.

¹⁷ Erran nahi da: “Ez zaitut sinetsiko” *Jesu Kristoren Imitazione*-ren arabera, III, 13. Ikus Lamennis-ren *Réflexions* deitu liburua. Ik. TO 48, 4.

Baina Luzifer, norbaiti nahi baduzu mendekatu, ikus Asmodeo! Horrek gaitu desohoratu, Diana Vaughan galdu berri baitu, bere andregaiak zeukana.

ASMODEO

Ai Baal Zebub! Min emaiten didak izen hori¹⁸ aipatzean. Nondik nola zait itzuri hain tinki neukana!... Kristau gezurretarik urrun neukan bada.... Nola galdu ote dut ene eskua?... Hau amorrua!... Mendekaturen naiz bai!... Haren iheslekua aurki badezaket.... ikusiko du. Beste gaztigu garratz zerbait asma baneza!... Mazoneria debru....

BAAL ZEBUB

Banuen beldurra horiek oro gaizki aterako zirela. Ez nintzen batere fida. Diana horren istorioan Joanaren izena aipatu zenetik ez nuen ikusten deus onik..... Joana etsai gaiztoa dugu, haren izenak berak ikaratzen nau...

LUZIFER

[3ⁱ] Ez trufa Asmodeoz! Haren andregaiak luzaz ene alaba maitea izana da! Birjina guztiak ez dira gure etsaiak¹⁹! Anitzek ustegabeen laguntzen gaituzte. Zoazte beraz komentuetarat, han duzue gudukatu behar.

Bai Jainkotiar, Adonaitar, on batek anitz arima kentzen dizkigu. Baina eginalak egin itzazue, munduaren harrabotsak barraia ditzan, beren buruaz gehiago ardura daitezen, beren burua lehen eman dezaten. Bada horrelakorik mundu osoan, baina komentuetan ere bai. Salatuko dizuet ez dela halakorik Adonairenganik seroren urruntzeko! Zenbat jasanarazten didaten beren Jainkoa maite dutelarik! Ene mutilik indartsuenak igortzen dizkiet, apur bat bederen hozteko; gureganat ez eroririk ere²⁰, ospe gutiago ukan dezatela bederen zeruan! (*amorraturik*) Eta enetzat, ez dela sekulan izanen ez amodiorik, ez errege-aulkirik, ez osperik, sekula santan!

ASMODEO

Nahi baduzu komentuek garait ditzagun, behar duzu armada bat muntatu, aitzindari hoberenak hautatuz: Luzifer burulehen, gero ni, Molok, Aztarot, Hermäs, Ariel, Aztarte, Baal Zebub, etabar...

¹⁸ Ez zen irakur-terrazza pasarte hau, dena ziloz eta zirimarrak estalia baitzen. Orohar solasaren haria hatzeman da halere: Asmodeok ez du Diana zaindu ahal izan "*Kristauen ameskerietarik*". "*Haren iheslekua*" aurki badezake, gogorki mendekatuko zaio eta "*zigor berriez*" gaztigatuko du. *Memoriak* mintzo ziren horrela jakina.

¹⁹ Luzifer-en bitartez, bere ahizpak argitzen ditu Teresak, erakutsiz nola "*Munduko hotsak*" eta "*Ni Lehen beharrak*" debruaren esku jartzen dituzten karmelitak berak, eta Jainkoaren maitasunari hesten haien bihotzak.

²⁰ "*Jainkoak hartuak*" Teresa bezala: "Jainkoak hartua zara, bai zinez hartua; debru itsusiak gaiztoak hartzen dituen bezala-bezala" (Maria Bihotz Sakratuarenak, LC 170, 17/9/1896) Hori bera zuen eskatua bere Eskaintza Otoitzean ("*Har zezan haren arima*").

BAAL ZEBUB

Ni ez naiz joanen! Azkenik aipatu nauzu: gaitzi zait! Eta ez ditut birjinak maite. Bederazka ez naute izutzen, baina Jainkoari loturik hura bezain izugarriak dira²¹. Badituzte jokamolde bereziak eta nahi ala ez emazte soil batek garaitzen zaitu ur benedikatu xorta batekin²². (Ai! zenbat erretzen duen ur horrek!) edo kurutzea hartzearekin (Tresna horren aipatzeak berak lotsatzen nau suzko lantza batek zaurtzen banindu bezala). Zer ahalgea guretzat! Mundua hasiz geroz gizonek bildu jakitateak baino miletan gorago direlarik gure argiak! Zoazte birjinen garaitzera!: ikusiko duzue zer galduko duzuen! Adonairen erreinua tipitzeko orde, emendatuko baizik ez duzue eginen, gure etsaien martirak altxatuz aldare gainetan!

Zoazte! Zoazte! Ni segurik ez naute garaituko, ni gelditzen naiz ene adiskide "Hargin beltzekin".

[4^a]

LUZIFER

Ez baduzu gure guduan parte hartzen ez duzu parterik ukanen gure garaipenean. Ni naiz mundu hontako printzea, behar naiz denetan nagusi izan! Kristok erran du ifernuko indarrak ez direla sekulan Elizari nagusituko. Baina jadanik ene indarrak preso dauka bere Erromako egoitzan Petriren ondokoa²³. Ez zait aski! Arras nagusitu behar dut! Hortarat helduko naiz komentu guztiak barraiatuz! Aitzi-na, adiskideak! Aufa mutilak!

Jn 14,30
1 Ko 15,25
Mt 16,18

ASMODEO

Nondik hasi behar dugu?

LUZIFER

Lilith²⁴, Adonairen ama dut etsairik handiena. Mendeka gakizkion maiteenik duen komentuari, Karmel²⁵ delakoari oldartzuz; Eliza guztiko hoberena daukate gure etsai "maleak"²⁶ (Aingeruek).

Has 3,15

²¹ "Jainkoari loturik Hura bezain beldurgarriak dira arimak debruarentzat": Joan Gurutzekoaren errana da (*Maximes*, 99. zk.).

²² Debruaren aurka Elizak erabili ohi duen "arma". Ik. KH 11. IX. 5.

²³ "Petri-ren ondoko" aita saildua, preso bezala zegoen Erroman, 1870eko irailaren 20an hiri horretaz Italiako erregea jabetu zenetik eta horrek iraun zuen, 1929an Pio XI.ak Latran-go hitzarmena Italiarekin sinatu arte.

²⁴ "Lilith", Léo Taxil kazetariak Ama Birjinarentzat asmatu izena da.

²⁵ "Ordена hautatua" ... "Elizako lehena" horiek ez dira aurkitzen Dianaren idazkietan eta Tere-sak bere baitarik atera dituzke, adierazteko Karmeldegia dela Satanen jomuga berezia. 1897ko apirillean ez ote du hori bera errepikatzen Guérin jaunak?: "Haiek, Karmelitak ditu orozgainetik Satanek partida. "Errana du bere "palladikerietan", eta oraintxe irakurtzen nuen Mazoneriak erabaki duela gobernuari eskatzea kalostradun komentuak hets ditzan". (Maria Eukaristiarenari, 1897/04/04).

²⁶ Maleak (*Mal'ak* hebrearez) deitzen ohi dira aingeruak ("onak" Biblian). Teresak hitz hori Dianari jesan dio eta horrela darabil.

DEBRUAK ORO, *oihuka eta trufan*:

Jo aitzina! jo aitzina! Suntsi dezagun Adonairen Eliza!

NOBIZIAK, *izutuak, belauniko*:

Jondone Mikael! Jondone Mikael, zaint gaitzazu! Eliza xehatuko, Karmeletik ohildu nahi gaituzten debruak preso lot itzazu!

[IV. AGERRALDIA]

Jondone Mikael agertzen da hodei batean. Debruak garrasiaz daude errabian eta lotsatuak:

LUZIFER

Gureak egin du! Akabo! Zertarat etorria zara Mikael? Zaude zure "Maleak" lagunekin. Ifernua ez da zure erreinua! Enea da; ni naiz horko printzea; eta mundukoa ere! Hemen zuk ez duzu eskurik! Jn 14,30

MIKAELEK,

*leizean sartzen du bere lantza. Luzifer orroaz garrasika
Mikael kantuz hasten da, "Quand l'étranger"
Bihotz Sakratuaren kantikaren airean.:*

Munduko printzea zarela,
Jainkoa bezainbat bazarela,
egonen zara gau ilunean,
egonen suzko leizean.

Is 14, 14-15

[4ⁱ]

Ap 20,10

Ez uste izan zure erokeria gaiztoan,
sainduak gibel eginen dutela zure aintzinean.
Suge madarikatua, Eliza ezin da hil.
Eliza ikusiko duzu garaile!...

Has 3,14

LUZIFER

Ez, Eliza ez zait nagusituko. Badakit Adonai ni baino gehiago dela eta horrek amorratzen nau sekulako. Baina, beha zenbat axola guti duen bere ospeaz: Uzten ditu bere adiskideak apalduak eta doloretan. Konda itzazu; ikusiko duzu zein guti diren! Beraz ene oste puxantekin, laster errautsiko ditut! Orduan, ene adiskide guztiek hain maite dituzten tzarkeriak eta odol-isurtzeak izanen dira munduko lege bakarrak. Orduan ni nagusi, eta zu eta zure Maleak ahalez ihesi!

MIKAEL

Tzarkeria nagusi eman badute ere gaiztoek,
bada oraino bihotz garbi asko!
Bere burua guretzat eman duenari
gorte egiteko eta Haren maitatzeko!
Jaunaren oste hautuzkoak badu indar!
Ikara zaitetz Satan, deus ez dezakezu!
Joan hortik! Kristo garaile da beti!

LUZIFER

Zure birjinen osteaz ez dut axolarik! Badut esku haien gainean ere! Urgulua-
ren printzea naiz! Birjinak izanik ere xahu eta pobre, zer dute nik baino gehiago?
Ni ere Birjina naiz²⁷! Eta gizonei zernahi ontasun emanik ere, nihaurrentzat deus ez
dira, kea baino gehiago! Eta obedientzia? didazu ihardesten. Ai, Mikael, zuk
bezainbat badakit: Ez dut ez obeditzen, baina bortxaz betetzen ditut Jainkoaren
aginduak. Birjinek ere ez ote dute obeditzen batzuetan, beren nahi propioa eta agin-
du lehia gordez bihotzean²⁸. Zer egiten dute beraz nik baino gehiago? Urgulua non
nahi sarrarazten badakit! Ez banauzu sinesten, ikus [5^a] zure birjinen bertutea baino
ez denentz pisuago! (*garaile begiarekin*) Ikus! Ikus!

*Luzifer-ek sardearen puntan agertzen du pisu bat: alde batean paper zuri ba-
tzuetan idatzirik honela: "pobrezia - obedientzia - garbitasuna" ; bertzean suzko hi-
tzez idatzirik: "urgulua - independentzia -nahi propioa". Alde hau nagusi.*

MIKAEL, pisua hartuz:

Ikus ezak heure erokeria,
ahantzi ahal duk, suge gaiztoa,
hi lehertu hauen Maria Birjinen
oin garbiaren umiltasuna!

Haren bertutea bizirik zegok lurrean,
haren distirak errausten dik hire erregetza!
Haizen urgulu untzia, hoa buruz behera!
Gibel hadi, apaltasunak garaiturik!

*Mikaelek pisuaren alde batean emaiten du paperño bat idatzirik: "apaltasu-
na" eta beste aldean goiti doa berehala!*

DEBRUAK, etsiturik, orroaz:

Uko! uko! Aski, aski, Mikael! Utz nazazu! Nagusi zara!

²⁷ Gogorra da eraso. Jadanik DSA 4ko 26-31. bertsoetan, birjina izatea Jaunaren emaitza bezala
prezatuagatik, neurrian neurtzen du. Beste adibide askoren artean, ik. TO 3.

²⁸ Komentuaren garai hartako egoera dukete xede, "obedientziaz"ko gogoeta zorrotz horiek.
1896ko martxoaren 21ean egin diren hauteskundeen ondorioek badiraute oraino.

DEBRU GUZTIEK, OIHUKA :

Garaituak gara!

Ortzi harrabots bat ozen da; Jondone Mikael desagertzen da eta denak isiltasunean sartzen dira.

[V. AGERRALDIA]

TERESA JESUS HAURRARENA

Lagunak, zer grazia eman digun Jainkoak! Behar gara joan berehala gure Amari kondatzerat zer entzun dugun. Behar diogu erran orai badakigula nola garaizen ahal dugun debrua, eta engoitik nahi dugula apalki bizi. Indar horrekin, Joana Ark-ekoak bezala, etsaiak erreinutik kanpo ezarriko ditugu, Satan urguluntzi hori komentuan sartzeraz ez utziko.

MARIA MADALENA

Bai, goazen Amarenganat. Baina zu zara mintzatuko [5] Teresa, zeren ikaran nago oraino eta beldur naiz ez gaituela sinetsiko. Amets egin dugula erranen du.

MARIA IZPIRITU SAINDUARENA

Ontsa harrapatuak gintezke, gutaz irri egin baleza !

TERESA JESUS HAURRARENA

Horrela balitz, bozkaria gintezke: apaltasunean sar baigintezke! Baina sinetsiko gaitu bai.

Horrelako faborea izanik, Aingeruei galdatzen diet gurekin etor daitezen gure Amari kantatzeko beren zeruko kantu bat.

Zuek oixtion, entzun duzue nahi zenutena. Orai ene aldi!

Aingeru sailduak, zatqzte arren, eta mintza zaitezte, agertu gabetarik, fedea baitugu!

Nobiziak xutitzen dira eta Ama Buruarengana doaz.

[VI. AGERRALDIA]

AINGERUAK

“La Patrie des hirondelles - Hirondelles légères” airean: kantatzen dute

ERREPIKA

Zuek zarete, Aingeruen ahizpak
Karmeleko birjinak,
goresten zaituztegu
gure Zeruko lira guztiekin.

Zuek dezakezue, Hau ospea!
Zuen apaltasunari esker
garaipena eraman
betiereko!

KOPLA:

Nahi dituzue Karmelita kartsuak
bihotzak bildu, Jesus, zuen Maitearengana,
egon beraz beti apal eta tipi,
apaltasunak haserretzen baitu ifernua!

*Berriz errepika*²⁹.

²⁹ 1897ko martxoan Teresak igorri zizkion Bellière jaun apezgaiari beste olerki batzuekin, Mikael Arkanjeluak Satani bota dizkion hiru koplak eta Aingeruen azken kantua, honi eratzikiz bertso hau:

Nola aspaldi Maria Birjina umilak
garaitu baitzuen Santan harroa
hala zure bizi laburraren apaltasunak
leherturen du sugearen burua.

GEHIGARRIA

"*Karmelitei Deia*" eratzikitzen diogu DSA 7ri. DSA 7an aroko zirriborro baten aurkian lapitzez idatzia zen. *Apaltasuna Garaile* - ren barnean sartu behar ote zen azken kantu bezala, nork jakin? Egileak baztertu zuen beharbada, aldaketa zerbait egin nahiz. Dena dela 1896koa da.

J.M.J.T.

Airea: Estudiantina

Karmelitei Deia

*Gure Ama Elizaren alde
laster xuti gaitezen Ahizpak,
zeruak ongiesten du
bekatoreak salbatzeko xedea".*

*Gure indarrak badakigu,
garaile izanen dira noizbait
zeren da beldur Ifernua?
Gure maitasunaren orozelehen".*

*Gure Amaren.... etabar.
Azkenean*

*Ahizpak, otoitz egin dezagun!
edo
Ahizpak, guduka gaitezen!*

*Gudukaren erdiraino
dezagun denok egin laster!
Ez izan mitrailaren beldur!
Odola isur Jainkoaren!*

*Betiereko Aberria
dugu hautetsiz beteko;
ene Ahizpak bizi guzian
Jesusekin gara gudukatuko.*

DSA 8

1897-II-8

[1ª]

J.M.J.T.

[STANISLAS KOSTKA SAINDUA]

DOK.: autografoa.- EGUNA: ahizpa San Stanislasen urrezko ezteietarako, 1897ko otsailaren 8an.- KON-POSIZIOA: hitz lau eta hitz neurtuzko elkarrizketak (36), bi airetan.- ARGITALPENA: HA 98, 36 lerro, beraietatik bost ukituak; *Récréations*, 1986, testu osoa.

1897ko otsailaren 8 an ospatu ziren, ezohiko ospakizuna, Lisieux-ko Karmelen, San Stanislas seroraren urrezko ezteiak, ezen Lisieux-ko hirian jaiorik 1824ko maiatzaren 4an, 1845eko apirilaren 6an sartua zen delako serora Karmeldegian, eta 1847ko otsailaren 8an botoak eginak zituen. "Arratsean -dio komentuko kronikak- san Stanislas-en biziko pasarte bat, Teresa beren maistra gazteak idatzirik aurkeztu zuten nobiziek".

Komentuko "oinarrietarik bat" zuten nahi ospatu: San Stanislas serora emazte erne tipi zerbitzu-egilea zen, sankristau, ekonomo, erizain eta zenbait aldiz priorearen hirugarren aholkulari izana. Haren laguntzailea zen sakristian, Teresa 1891ko otsailaren 10etik 1893ko otsailaren 20ra arte. Serora gazteenaren eta 1897an 73 urte bete zituen zaharrenaren arteko atxikimendua beti itzalik gabea egona zen. Ama Maria Gonzagarena prioreak eskaturik lotu zen Teresa idazlanari.

Seroraren izenak berak bideratu zuen Stanislas Kostka Poloniar saindu gaztearen bizi-ko pasarte bat hautatzera gai bezala: 1567an sartua zen bada Jesusen Lagundiko nobiziatuan.

Karia horretara Teresa Jesus Haurrenak idatzi eta bere nobizioekin aurkeztu zuen lantxo hau, berak egin azkena izan zen. Nork asma zezakeen 1897ko otsailaren 8 hartan, bi hilabetein buruko San Stanislas serora, bere 73 urteekin, 24 urteko Teresa serora maitagarriaren azken erizaina izanen zela?

Tesari eman zioten lehen gela, eta bost urtez erabili zuena, San Stanislas Kostka-ren izenekoa zen. Saindu gazte horrek Luis Gonzagakoarekin eta Joan Berchmans-ekin osatzen zuen jesuita saindu gazte hirukotearentzat debozio berezirik bazeukanentz ez dakigu.

Dena den Teresak, A. de Blanche-n "*Vie de Saint Stanislas Kotska*" liburuan hartu zuen gaia.

1550ean, Rostkow hirian, Poloniako etxe handi, aberats batean jaio zen Stanislas eta gogor gudukatu bere bokazionea begiratzeko. Vienna-ko hirira bidali zuten etxeok eskolatza bere anaia Paul-ekin. Baina han Luther-zale baten etxean gertaturik, anitz pairatu zuten, bere sinestearengatik eritzerainokoa. Beharrik ezohiko grazia bereziak etorri zitzaizkion zerutik: Santa Barbara lekuko Aingeru batek eman zion bere gelan komunioa. Ama Birjina agertu zitzaion eta Jesus Haurra ekarri. Azkenean arlote jantzitan Vienna-tik ihesi Erromara jo zuten Frantses Borgiakoa, Jesuiten buruzagiaren aitzinera. Honek nobiziotzat hartu zuen. Baina Bederatzi hilabeteen buruko, 1568ko abuztuaren 15ean, hil zen Stanislas, "Jesus! Maria!" errepikatuz. 18 urte besterik ez zituen, eta 1726an sailduen lerroan sartu zuten.

Saindu gazte umil horren historia asko maitatu zuela, 24 urte bete berri zituen Teresa Jesus Haurrarenak, ez da dudarik. Hain gazterik, oraino nobizio zelarik eta deus ohargarririk egin gabetarik hila zen saildua! Ama Birjina Amatzat hartu duen, hark berak sendatu duen eta harengatik Jesus Haurra eskuratu duen mutil gazte umila! Birjina baten eskutik¹ jaunartu duena! adiskide handiak izan dituen gazte alai, maitagarria! Horrelako saildu berezia nola ez zuen Teresak maitatuko?

Aitor dezagun bizkitartean ahulezia zenbait baduela dena elkarrizketaz josia den ikusgarri honek. Ez dugu errazki onartuko jesuitaia probatzeko Jesuiten Buruzagiari gogoratzen zaion jukutria bihurria. Halere antzerki honek emaiten dio parada egileari guri adierazteko zein ziren Teresaren bihotzeko kezka nagusiak eritasuna hartaz jabetzera doalarik. San Stanislas Kostka antzerkiak eskaintzen dizkigu zenbait zehaztasun errepikatuko direnak bai C Eskuizkribuan, bai *Azken Elkarrizketetan*: gaztaro zohitua; nobizien arteko solasak; haurrideen-arte atxikimendua; otoieta eta sakrifizioak apostoluen armak; Ama Birjina Gure Amaren Maitasuna; eta oroz gainetik Hil ondoan ongiaren egiteko itzaropena. Gai honetaz bereziki, Maria Hirutasunarena serora lagunari salatu zion: "*Antzerki hori idaztean atsegin izan dut bereziki ziurtatzea hil ondoan oraino lan egin dezakegula lurrean utzi ditugun arimen alde. Gai horretaz ene gogoeten eta asmoen adierazteko ederki zetorkidan hain gazterik hil zen San Stanislas-en adibidea*" (PO, 469. or.). Teresak hain maite zituen gazterik hil saildu gazteen, bereziki martiren sailean sartzen zen alabaina Stanislas. Hala nola, Saindu Inuxentak, Zezilia, Aines, Joana Ark-ekoa, Teofan Vénard.... eta Stanislas.

Beste behin ere, une bateko pieza batean, Teresak bere barne-barneko sentimenduak agertzen ditu. Denboraren iraganaz, haren garaikoak baino hobeki gaude horri antzemateko.

¹ Bere iturrien arabera horrela uste zuen Teresak.

JOKOLARIAK

Andre dena Maria eta Jesus Haurra - San Stanislas Kostka - San Frantses Borgia Gandiako dukea¹, Karlos V.aren gorteko jaun eta Jesuiten jenerala - Etienne Augusti, nobizio gaztea

[I. AGERRALDIA]

Erroman, Frantses Borgia-aren gelan. Bakarrik dago, eskutitz bat irakurtzen ari. Norbaitek atean joiten du.

SAN FRANTSES

Aitzina! (*nobizio bat ikusi-eta*). Egun On, Augusti, zure goait nengoen! (*gaztea belaunikatzen da*² *Frantsesen oinetan. Honek jargia eskainiz*) Jar zaitez! Ez dizut ikasle bezala mintzatu nahi egun, baina adiskide eta lagun fidagarri³ bezala.

AUGUSTI ANAIA, *belauniko*:

Aita, sobera zait zure onezia; nola deitzen ahal nauzu zure adiskidea, zu konpainiako jenerala, Espainiak eta Italia guztiak saildu deitzen duena! Utz nazazu zure oinetan; ez natzaizu bertzela mintzatzeko ahal! Zure apaltasunak ez dit ahanztaraziko Gandiako duke zinelarik utzi dituzula enperadorearen gorteko ohoreak...

SAN FRANTSES, *ahots latzez hitza moztuz*:

Zaude isilik, eta ez gehiago holakorik aipa! zure lañotasuna ez banu ezagutzen eman niezazuke gaztigu bat! Baina badakit haur bat bezala mintzo zarela. Oraindik, ez gehiago kasu eman gizonen begietan eder direnei. Jainkoak gaitu neurtuko. Haren aintzinean, artzaina errege bezainbat da. Egiazko handitasuna bertutean da, eta ez sortzeak emana. Jakin ezazu Frantses Borgia ez dela saildu bat, baina bekatu handi bat, Inazioaren jarraitzaile izatea merezi ez duena. Galda otoi Jainkoari nitaz urrikal dadin eta hobeago egin nazan, hark galdatzen didan sail berriari buruz.

[1⁴]

AUGUSTI ANAIA

Sail berria? O Aita⁴, Erromatik joan behar ote duzu?

¹ Frantses Borgia (1510-1572) Gandiako dukea, eta Espainiako jaun handienetarik zena, denak utzirik, Jesusen Konpainian sartu zen, eta gero Lagundiaren buruzagi bilakatu.

² Horrela belaunikatzen ziren serorak orduan priorearen aitzinean hari hitz egiteko eta berdin egiten zuten nobiziek beren maistraren aitzinean.

³ 1896ko martxoko hauteskunderaz geroz horrela egiten zuen Teresarekin Ama Maria Gonzagarenak; ik. C Esk., 1^a eta TG 190).

⁴ Teresa Avilakoak horrela nahi zuen bere Ordena berriaren buruzagi nagusiak horrela deitzea (XVI. mendeko Espainian egin ohi zen bezala). XIX. mendean, Frantziako karmeldegietan ez ziren denetan ohitura berdinak eta Lisieux-koan ez zen horrelakorik.

SAN FRANTSSES

Ez dut Erromatik joaiterik baina komentuan hartu behar dut fraide gazte bat, gure konpainia ohoratuko duena. Horren ezagutarazteko irakurtuko dizkizut Alemania Garaiko Probintziaburuak⁵ igorri zenbait lerro.

AUGUSTI ANAIA

Baina, Aita, zer didazu frogatu nahi? Ez dezaket ulert nola ni bezalako fraidegai gazte bati fidatzen zaren!

SAN FRANTSSES (*irriñoz*)

Ez haurra, ez dizut frogatu nahi! Badakit ene fidantziak ez zaituela urgulutan sarraraziko. Hona ene helburua: zu zaitut hautatzen Stanislas anaiaren begirale, hori baita Aita Canisius-ek igortzen digun nobizioa.

(*Eta eskutitza⁶ irakurtzen du*).

“Igortzen dizudan haur aingeru hau, Joan Kostka, Poloniako erreinuan, Rostkoweko Jaunaren semea da. Erresumako familia ezagunenatarik ateratzen da Stanislas gaztea eta sortzez bezain gomendagarria da kartsutasunez. Baina Joaneke, nahi bezain etsenplu ona emanagatik bere haurrei, ez ditu batere ulertzen ebanjelioko aholkuak eta neholaz ere ez dio eman nahi Stanislas-i Jesusen Lagundian sartzeko baimenik. Urrun izateagatik onartu dut beraz gure Dillingen-eko nobiziatuan. Haur hori bideratzen zuen Aita Antonio baten eskutitzek aipatzen zidaten jadaneko horren saindutasuna; baina oroz gainetik xoratu nauena, Stanislas gaztearen begitarteak argitan emaiten duen otoitzeko karra izan da; arima horren heldutasuna adierazten duena. Ohartu naiz ez dela biloaren kolore zuri edo gorriaren arabera neurtu behar! Hala ere, nahi izan dut fraidetzeko lehia horren froga egin: Nahiz bazituen haur zotz guri horrek, berrehun legoa eginik oinez, ez zitzaidan aski! Nobizio gaztea etxeko lan arruntenetan ezarri dut, mahainaren zerbitzuan, bidean higatu soineko larri berekin (Bere jauntto jantzi apainak aldatuak zituen alabaina eta erromes soinekoak hartuak nehork ez zezan ezagut). Baina nobizio kartsuari ez zitzaion deus gaitzitzen eta igorrikerik ere behin eskuin eta gero ezker, agindu guztiak onartzen zituen eta berehala betetzen, lagunek “Guztiahalduna” izengaraitiko [2^a] xarmagarriaz deitzerainokoa!”

Ez dut oraino nehor ezagutu hoin plaxentik! Haren sorburu ospetsua edo haren bertute miragarriak aipatzen badira haren aitzinean, ez du deus ukatzen, hala denik, gezurrezko apaltasun zerbaiten aitzakiagatik, baina irriño batekin isilik dago, beste

⁵ Petri Canisius (1521-1597) hastapenetik, Jesusen Lagundiko kide ezagunetarik izan zen: Alemania Garaiko buruzagi egon zen, 1556tik 1569raino. 1864an dohatsuen lerroan sartu zuten eta sainduenean berriz santa Teresa Jesus Haurrarenarekin bateantsu, 1925eko maiatzaren 21ean. Elizako doktor ere da.

⁶ Eskutitz bat badago Jesusen Lagundiko artxiboetan, aita Canisius-ek 1567ko irailaren 25ean latinez idatzia, aita Frantses Borgiakoari Stanislas gaztea eta beste bi lagun gazte gomendatzeko. Hamabost bat lerrotan aipu ditu Stanislas-en bertuteak. Nahiz A. de Blanche-k ez duen seinatlatzen delako gutuna, Teresak ezagutu duke, eta guti gorabehera hemen errana iduria da.

norbait aipa baledi bezala, kasurik egin gabe. Gure Aita batzuei iduritzen zaie umiltasun eskasa badela hor, baina nik aitortuko dizut Stanislas tipi horren lañotasunetik antz gehiago ikasi dudala umiltasunaz mintzo diren asko liburutarik baino. Zer da alabaina umiltasuna, egiari⁷ bidea uzten diona baizik. Eta uste dut gure nobizio gazteak hori egiten duela osoki. Bere burua handizki gutiesten du eta maiz errepikatu dit bere lagunak bera baino hobeak zaizkiola denak, eta bere burua ez duela gai sendi horien erdian bizitzeko. Nahi nioke Jesuita soinekoa eman haur saindu horri. Baina zureganat Erromarat igortzea hobe nuela iduritu zait, zure eskuetarik har zezan gure abitu saindua". (*Eskutitza mahain gainean emanez...*) Gaineratikoak, gure arteko berriak dira; ez duzu horietaz jakiterik. Orain beraz zoaz gure anaia berriaren biderat. Egun heldu beharra da : Gure elizan daiteke engoitik.

AUGUSTI ANAIA

O Aita! nola behar nattaio mintzatu? Zein leku emanen diozu gure etxean? Ez diezaiokegu sekulan ohore gehiegi egin!

SAN FRANTSES

Jainkoak begira gaitzala ohore emaitetik! Haren saindutasun guztia barreia genezake ! Behar dut nik ere horren bertutea frogatu: debekatzen dizut, anaia Augusti, erakastera emaita nehoi, zer jakin duzun horren sortzeaz edo bertuteaz !

AUGUSTI ANAIA, *xutituz*:

Obedituko zaitut Aita! Banoa orain berean Stanislasen bila.

SAN FRANTSES

Hona sarraraz ezazu! Saihetseko gelatik segituko ditut zuen ele eta moldeak. Gero zerbait estakuruz aterako zara eta ni orduan sartuko.

[II. AGERRALDIA]

San Frantses Borgia eta Augusti ateratzen dira. Augusti berriz heldu da. Stanislas, bideko erromes jantzitan sartzen da, [2¹] atean jo-eta zenbait aldiz.

AUGUSTI ANAIA

Gure Aita Jenerala ez da hemen. Baina errana zidan zu hona sarrarazteko. Aspaldian goait ote zinen elizan?

⁷ "Umiltasuna Egia da" zioen Teresa Avilakoak, (*Barne-Gaztelua*, VI. Egoitzak, X. k. ; Bouix-en itzulpenean, III. t. 566 orr.). Teresa Lisieux-koak errepikatzen du solasa (CSG, 19. or.), hil-oherraino (KH 30. IX).

SAN STANISLAS

Ez, Anaia, ez du bospasei oren baizik. Eta uzten banauzu, berriz hara itzuliko naiz, Aita Jenerala hor ez bada!

AUGUSTI ANAIA

Ez du beranduko. Hobe dugu hemen berean egonik. Baina Erromara helduz geroz, ez dukezu deus harturik. Atezainari erran behar zenion hor zinela!

SAN STANISLAS

Gure buruzagiak, Aita Canisius-ek errana zidan elizan egon nindadin Aita Frantses Borgiai norbait bila igorri arte. Haren errana ez nuen hautsi nahi, atezaina deituz.

AUGUSTI ANAIA

Ontsa egin duzu, baina banoa laster zuretzat ahamen baten galdegitera. (badoa Stanislas entzun ere gabe).

SAN STANISLAS

Ez joan, otoi; ez dut deusen beharrik!

[III. AGERRALDIA]⁸

San Frantses Borgia sartzen da. Eta Augusti atera-eta, Stanislas belauniko atzemaiten du. Alegia eskale batentzat hartzen duela, gogorki erraiten dio:

Nola sartu zara honaino? Zerbait behar bazenuen, atezainari galdatu behar zenion. Baina zure adinean ahalge behar zintezke eske ibiltzeko: ez da lanik eskas Erromako lantegietan.

SAN STANISLAS

Lk 14,10

Barkatu, Aita. Nik eskatzen dudana ez iezadazula uka; hura baita zuen lagundian azken tokia.

SAN FRANTSES

Ez zara lehena asmatzen duzuna! Uste ote duzu ez dudala horrelako jukutria-rik behin ere ikusi? (Atea erakutsiz). Atera zaitetz hemendik orain berean: ez da zu bezalakorik sartzen Jesusen Konpainian.

⁸ Agerraldi honetatik aitzina, Teresa baztertzen da bere idazlanaren iturrietarik: Umiltasunaz, urrikalmenaz, eta haurridetasunaz berak dituen ideien agertzeko asmatzen du galdeketa.

[3ª] SAN STANISLAS, *negarra begian*:

Aita, urrikal zaitetz...! Hitz emaiten dizut...

[IV. AGERRALDIA]

SAN FRANTSES,
Augusti sartzten delarik atea jo-eta, hari mintzo:

Eskale hau ezin haizatua dut! Har ezazu eta kanpoan eman!

AUGUSTI ANAIA, *harriturik*:

Baina Aita, gizon gazte hau ez da eskale bat : Aita Canisiusek igorri fraidegai hura da!

SAN FRANTSES, *Stanislas-i*:

Komentuan ote duzu ikasi nagusiaren gelan sartzten, hura han ez delarik?

AUGUSTI ANAIA

Nik dut hemen sarrarazi; gero atera naiz galde baten egiteko. Ez dezazula otoi gaztiga!

SAN STANISLAS

Aita Agurgarria, gaztigua merezi dut, eta emaidazu! (*Eskuak juntatuz*) Baina otoi, ez gai izanagatik, zure etxean atxik nazazu!

SAN FRANTSES

Aita Canisius-ek igorria zarenaz geroz, hartzen zaitut gure ikastetxean. Baina jakinak ditut zure berriak. Viennako gure ikastetxean zinelarik bakan zinen ikasten ari. Zure erakasleei funski behatzeko orde, otoitzaren estakuruan, liburu sainduetan omen zeunden. Hemen ez duzu horrela egin beharko. Hemen Erroman egoitekotz zintzoki lan egin beharko duzu. Otoitzak bertzeekin batean, eta neurri beretan.

SAN STANISLAS

Aita, zein ona zaren ni hemen hartzeko! Denetan sinetsiko zaitut, ikasten ariko zuk nahi bezainbat. Vienna-ko Jesuitetan egia da ez nintzela aski finkatzen eta ez nuela erraztasunik. Baina bururat heltzean bertzeak aitzinduak nituen, nik ez dakit nola; nihauren baitarik hain gibela naizelarik!

SAN FRANTSES

Ez du balio espanturik egitea. Erradazu zertako nahi duzun Jesusen Konpaignian sartu.

[3ⁱ]

SAN STANISLAS

Saindutu nahi dudalakotz, Aita Agurgarria!

SAN FRANTSES

Ez ote dakizu, ene haurra, nonahi saindutzen ahal dela?

SAN STANISLAS

Baina nola bada, Jesuita guztiak saindu dira⁹?

SAN FRANTSES

Ez denak ez! Hala nola ni, heien jenerala bekatore bat baizik ez naiz.

SAN STANISLAS

Nola erran dezakezu horrelakorik gezurrik egin gabe? Denek diote mirakui-luegile saindu bat zarela!

SAN FRANTSES

Jendea makur dabila, haurra! Ez kasurik egin haren erranari! Horrelako lausengurik nehork erran baleza zure beharri xilorat, apal zaitetz eta ikus zer zaren egiazki Jainkoaren aitzinean!

SAN STANISLAS

Aita, mirakuiluak eginik ere, iduritzen zait ez dudala urgulutan sartzerik. Ene bizi iragana ez dezaket ken gogotik. Jainkoaren graziak ez ditut merezi! (*negarrez*)

SAN FRANTSES

Jaunak huts handienak barkatzen ditu. Baina ez nuen uste itsuskeriarik egin zenuela. Zure bekatuez ahalgetzeko nahi badizkidazu orain aitortu, anai Augusti aterako da.

SAN STANISLAS, *Augusti atxikiz:*

Ez joan, Anaia, zaude hemen. Zurekin bizi behar dudanaz geroz, behar duzu jakin ene dolumina eta zer dudana merezi! (*belaunikatuz San Frantses-en oinetan*):

⁹ Egia da Jesuiten Inazio lehen jeneralaz bestalde, haren lagun asko, hala nola Frantses Xabier, Pierre Favre, Frantses Borgia eta Petri Canisius sainduen lerroan sartu zituztela. Martin familiak eta Karmelitek aita Pichon jesuita ere saindutzat zeukaten.

Ene Aita! Jainko Urrikaltsuak haur-haurretik deitu nau beregana. Eta nik apezari dei hori agertzeko orde, hemezortzi hilabetez gogor egin diot dei horri ! (*burua Frantses-en belaunetan emanaz, negar egiten du*).

SAN FRANTSES, *hunkitua*:

Gaixo haurra! Lasai zaitez!: zure hutsa ordaindua da, horrelako urrikia duzunaz geroz. Oroitzapen hori on da [4^a] zure arima apaltasunean atxikitzeke! Jainkoak bihotz apala eta urrikitua maite du oroz gainetik.

Sal 50,19

SAN STANISLAS

Ene Aita! zenbat gozaten didazun gogo! Otoi erakatsiezadazu saildu bilakatzen, eta galdu dudan denbora ordaintzen.

SAN FRANTSES

Ene iduriko, behar duzu zure burua zinez gutietsi, bertzeak handietsi, eta ahal bezain ongi erakutsi zenbat maite dituzun. Zure maitasuna obedientziak neurtzen eta zaintzen badu, denbora gutiz aitz ongi egiten ahal duzu.

(*Atean joiten dute. Augusti ateratzen da eta berriz itzultzen, eskutiz bat emaiteko belauniko San Frantsesi ahapetik zerbait erranez*).

SAN FRANTSES, *papera irekiz*:

Anai Stanislas, Poloniako berriak dira. Zure aitak igortzen dizkizu. (*Gutuna emaiten dio*) Irakur ezazu berehala!

San Stanislas-ek irakurzen du, eta negar egiten.

SAN FRANTSES

Zer duzu ene haurra? Jesusen Konpainian sarturik dolu duzu?

SAN STANISLAS

Ez ez, ene Aita! Negarra heldu zait ene gurasoek ez baitute onartzen Jainkoaren Emaitza. Diote ez naizela arbasoen gai eta etxeok desohoratzen ditudala. Aldiz ohore eta ospe gehiago du gure etxeak ni hemen Jaunaren zerbitzari handien azken lerroan izanez, munduko edozein arbaso argienaren urratsetan ibiliz baino!

Jn 4,10

SAN FRANTSES

Zuzen zara, Seme! Zure gurasoek onartuko dute noizbait zure urratsa. Bestenaz ere Jesus Jaunak errana digu: Ez dizuet bakea ekartzen, baina bai ezpata. Aita edo semea ni baino gehiago maite duena, ez da on enetzat!

Mt 10, 34-37

SAN STANISLAS, *begiak goiti itzuliz:*

Sal 26,10

Sal 83,11

Orai erran dezaket salmoa: "Aitak eta amak bazter utzi naute, baina Jaunak arta hartu du nitaz. Handikien aterbean bizi baino nahiago dut, ene Jainkoaren etxean azkena izan".

[4ⁱ]

SAN FRANTSES

Sal 26,4

Ikusten dut, Haur maitea, Jainkoak berak zaituela hona ekarri eta hemen ikusi nahi. Zenbait egunen buruko emanen dizut gure soineko saindua¹⁰. Egon ordu arte otoitzean eta bildutasunean; eskerrak eman Jainkoari bere etxean hartzen zaituelakotz. (*Eskua emanez Augustiren buru gainean*) Anai Augusti emaiten dizut aingerutzat: erranen dizu zer egin. Baduzue biek arima eite handia: batek bertzeari erraiten ahal dizkiozue Jaunak emaiten dizkizuen gogoetak eta graziak. (*Xutituz*) Banoa ene bertze eginbideetara.

AUGUSTI ANAIA, *belaunikatuz Stanislas-en ondoan:*

Aita, benedika gaitzatu, otoi!

SAN FRANTSES

Trinitate sainduak benedika zaitzatela, Haur maiteak, nik benedikatzen zaituztedan bezala, ene bihotz guztiaz! (*badoa*)

[V. AGERRALDIA]

AUGUSTI ANAIA

jartzen da eta eserlekua eskaintzen dio Stanislas-i

Anaia, eramanen zaitut zure gelara, eta gure erakasleak emanen dizu zure lana. Baina Aita Jeneralak erranaz baliatuz behar ditugu ezagutzak egin: Estebe Augusti deitzen naiz. Ez dut talendu berezirik ez bertute handirik, baina lagunak maite naute, hain dira onak, ene hutsak ez dituzte ikusten! Haiek bezala anai Stanislas, maita nazazu otoi! Baina ene hutsak erranen dizkidazu otoi! Zenbat ez da baliatzen makur eginak agertzen dizkizun laguna!

SAN STANISLAS

Zuk nauzu argitu behar ene hutsez! Ikusten dut elkarrekilakoak garela! Zure maitatzea erraz izanen zait: jadanik maite zaitut.

¹⁰ 1567ko urriaren 28an, 17 urteak bete zituen egun berean jantzi zuen Stanislas-ek nobizio-jantzia.

AUGUSTI ANAIA

Atsegin dut eta lorietan nago, zu ene anaia izanik? Baina gurasoen oroitzape-
nak histen bide zaitu?

SAN STANISLAS

Ez, anaia! Mundu honetako deusek ez dit kentzen zoriona. Ene gurasoei ene
hona jitea handiago zaie ene hiltzea baino. Baina bihozmin hori kentzen ahal diet,
otoitzak eta sakrifizioak¹¹ eginez. [5^a] Gazte izanagatik, askotan Jainkoak irakatsi
dit, Hura baizik bilatzen ez duena, ez duela Hark sekulan bazter uzten.

Sal 9,11

AUGUSTI ANAIA

Anai Stanislas, nahi didazu salatu nola hori ikasi duzun? Nehori ez diot aipa-
tuko!

SAN STANISLAS

Denak ez ditzaket konda! luzeegi liteke. Baina aldi batekoa erranen dizut.
Duela bi urte, konpainiako aiten ikastetxean nengoen, Paulo ene anaiarekin. Hark
hautatu zuen gure egoitza heretiko baten etxean, hiriko ederrena zelakotz. Paulo
gaixoak ez zuen goiko argirik ukan! Zaharrena baitzen, behar nituen halere haren
nahiak ontsa hartu. Bertzalde gure gidaria, Joan Bilinski deitua, hari eta gogo bere-
koa zen! Ikus ezazu zenbat gaitzi zitzaidan! Laster eri handi jarri nintzen. Paulok ez
zuen apezik deitzen, nagusiaren beldurrez! Nehor ez alde ukanez¹² lur gainean,
itzuli nintzen zerurat buruz. Haurretik maite dudan Santa Barbarari¹³ galdatu nion
ez nindezan hiltzerat utz, Bideko janari saindurik gabe¹⁴.

AUGUSTI ANAIA

Ikusten dut! heretiko haren bihotza itzuli zitekeen?

SAN STANISLAS

Ez, ez zorigaitzez, baina zeruko egoiliarrek ez dute heretikoen baimen beha-
rrik, nahi duten tokian sartzeko! Ikusten dut Santa Barbara argitan, bi aingeru eder
lagun, ene gelan sartzen: Bere esku garbietan zeukan Sakramendu Saindua eta
berak¹⁵ eman zidan Eukaristiako Jainkoa, Jesu Kristo gure Jaun Maitea.

¹¹ Teresaren armak dira; ik. C Esk., 24ⁱ, 32^a.

¹² Hemen Teresari gogoratu zaio 1883ko maiatzaren 13ko bere eritasunaren oroitzapena (ik. A Esk., 3^a).

¹³ Vienna-ko ikastetxean Santa Barbararen lagundiko arduraduna zen Stanislas. Alemanian guztiz ezaguna zen birjina, martir horren leienda ez hain argia.

¹⁴ Ostia bat ziborioaren gainean eskutan agertzen ohi zen Santa Barbararen itxura, zeren eta azken sakramentuak hil aitzin hartzeko grazia eskatzen baitzitzaien saindu horri. "Jesukristoren Gorputzaren eta Odolaren sakramenduaz" mintzo da bereziki haren besta eguneko otoitza (Abenduaren 4an).

¹⁵ A. de Blanche-n liburutik mintzo da Teresa, Santa Barbararen eskutikako Stanislas-en jaunartzea aipatzean. Baina 1726ko San Stanislas-en saindutzeko gutunak zehazten du "Aingeruen eskutik jaunartu zuela Santa Barbararen aitzinean". Bizkitartean Teresak ezagutzen ez zuen A. de Blanche-n huts horrek oihartzun sakona izan zuen haren bihotz - gogoetan; ik. PO, 305. h. eta *Récollections*, 406 h. orr.

[5ⁱ]

AUGUSTI ANAIA

Emazte saindu batek Ostia Saindua bere eskuetan? Zer misterioa! zertako ez ote dizute izaitekotz aingeruek eman?

SAN STANISLAS

Erromako bidean, aingeru batek eman dit komunione saindua; Santa Barbara ez baitzen han. Jainkoaren erresuman haren ospea aingeruena baino handiagoa da. Hortako dit hark eman aingeruen ogia. Apezen lana berak egin nahi izan du eta Jau-nak onartu du.

AUGUSTI ANAIA

Aingeru bat bezala mintzo zara: zuri beha ez naiz aspertzen ahal.

SAN STANISLAS

Ni ere laket naiz zurekin. Baina ni naiz mintzo beti. Nik ere zerbait ikasi nahi dut zureganik. Nahiz luzexko den gure solasaldia! Ez ote genuke hobe horretan uztea. Nahi baduzu egonen naiz apur bat bakarrik, Andredena Mariari eskerren bihurtzeko, haren Seme Jesusen Konpainian sartu naizelakotz.

AUGUSTI ANAIA

Maria anitz maite duzu beraz? Erradazu zerbait hartaz.

SAN STANISLAS, *lorietan*:

Ama Birjina! Zer erran dezaket? Ene ama¹⁶ da!

(Belauniko emaiten da bildutasunean. Augustik behatzen dio eta isil-isila badoa).

[VI. AGERRALDIA]

SAN STANISLAS,

eskuak junt-junta, zerurat beha:

Oi Maria, ene Ama ezitia, urrikal zaitez zure haur honetaz; Jainkoak lagundurik honainoko trabak gainditu ditu; denak utzi dituenaz geroz zure Seme Jesusengatik, ez zazula gehiago utz lur honetan!

¹⁶ Stanislas-en oihua, beretzen du Teresak, baina ikusi behar da eskuizkribuan zer karrarekin. Hiru hitzak "zapartatzen" bezala dira hiru harridura markak eta hamabi puntuk apaindurik.

Ene Aingeru Begirale saindua, eta zu Santa Barbara ene Zaintzale maitea, galde egiozue ene Ama maiteari, Zeruko Erreginari, etor dadin ene bila, bere gorte argian sarrarazteko. Ap 14,4

[VII. AGERRALDIA]

Aingeru kantu batzuk entzuten dira "l'Ange et l'âme" airean.

AINGERUA

Zeruko Erregina, entzun ene otoitza!
Stanislas-en Aingeru Begiralea naiz.
Haur maitagarriak nahi luke lurretik urrundu
Jesus, Jainko Bildotsari laster jarraikitzeke!

Ap 14,4

SANTA BARBARA

Ni naiz, behere horietan aspertua dagoen
lore umilak hain maite duena.
Nahi nuke zeruetan distiratzten ikusi
horren lore begi usain ona.

ELKARREKIN

Jauts zaitetz bazter arrotz hauetara
zeruko hautetsiak zoratzten dituen haur honen ondora!
Maria Birjina ez ote zara,
Jesusen anaiaren, Stanislas-en ama?

[6^a]

[VIII. AGERRALDIA]

AMA BIRJINA

*agertzen da Jesus Haurra¹⁷ besoetan.
"Le Soir" airean, kantuz dio:*

Bai, Haurra, zure ama naiz.
Eta zuretzat jausten naiz zerutik.
Ekartzen dizut Emmanuel
ene Jesus maitea, zure Anaia ttipia.

Mt 1,23

San Stanislas-en besoetan emaiten du Jesus eta Stanislas lorietan dago erranez:

¹⁷ Hemen sartzen den agerraldia, izaitetz Viennan gertatu zitzaion Stanislas-i, han eri zen egunetan (1567), eta ez hemen orai Erroman.

SAN STANISLAS

O Jesus! ene Amodio bakarra¹⁸! Egiaz zu zara ene bihotzari hoin hurbil!
 Maria, altxa ezazu ene ahulezia! Emadazu zure indarra! Horrelako altxorra besoe-
 tan jasaiteko gai izan nadin!

AMA BIRJINAK

bere mantalinaz estaltzen du, kantatuz:

Hautetsien altxorrarekin
 nahi zaitut gorde¹⁹.
 Izar batek bezala
 argituko duzu Jesusen konpainian.

SAN STANISLAS

O Ama! uste nuen zerurat eremanen ninduzula eta erraiten didazu beharko
 dudala argitu Jesusen Konpainian!

AMA BIRJINA

Stanislas, zu lore garbia,
 zure usain onak, aingeruak loriatzen ditu.
 Laster haien multzoa etorriko da
 zure biltzerat Jaunarentzat.

SAN STANISLAS

Mt 25,31 O zoin dohatsu naizen! Laster Jesus ikusiko dut, ez haur ttipi baten itxuran,
 baina ospe betean! Eta zu Ama maitea, ikusiko zaitut zure betiko aulki ederrean!
 (*apur baten buruan*). Ez dut deusen dolurik lur honetan. Haatik nahi²⁰ nuke gauza
 bat segurtatu; hori gabe ez ninteke dohatsu zeruan! Erradazu, Ama ona, zerutiarrak
 arimen salbatzen ari daitezkeela oraino! Hori ez badezaket egin, nahiago dut aitzina
 desterruan egon eta Jesusentzat gudukatu.

[6ⁱ]

AMA BIRJINA

Nahi zenuke zure Jesus Maitearen
 ospea emendatu!
 Harentzat zeruko gortean ere
 batailak irabaziko dituzu.

¹⁸ "Bakarra" hitza erantsi zion Teresak lehen zirriborroari, bere ohiko esaldiaren arabera (ik. B Esk., 2; TO 15, 4; 45, 3). "Jesus, ene *Amodio* bakarra da", idatzia zuen ere bere azken gelaren ategainean (ik. DLTH, 261. or.).

¹⁹ 1889ko udan egin esperientzia mistikoaren oihartzuna, menturaz (KH 11. VII. 2.).

²⁰ "Nahi" hori Teresaren lehia nagusia izanen da hemendik aitzina eta azkeneraino (TG 220, TG 254 eta KH 17. VII.). Ondoko hilabetean adibidez bederatzireuren bat eskainiko dio san Frantses Xabierkoari grazia beraren ardiesteko.

Bai²¹, ene Haurra, dohatsuek ere
 arimak salba ditzakete oraino;
 haien amodioaren karrak
 bihotzak altxa ditzake zeruraino.

SAN STANISLAS

O zein dohatsu naizen! Otoi, Zeruko Erregina zure ondoan izanen naizelarik goiko Aberrian, utz nazazu lurrera itzultzen²² arima sailduen zaintzeko. Horien bizi luzeak ene bide laburra luzatuko baitu. Eta horrelaxe, Jaunari eskainiko diot uzta nasaia!

AMA BIRJINAK

Bai, Haur maitea begiratuko dituzu
 mundu honetan batailatzen diren arimak:
 Haien uzta ederrago,
 eta zuk zeruan distira gehiago!

²¹ Stanislas-i ihardetsiz horrela, Ama Birjina bera jartzen da Teresaren "doktrinaren" berme, karmelita guztien aitzinean.

²² Ikus Zelinaren lekukotasuna: AE/J, uztaila (4), eta DE, 722. or.: "Bere biziko azken hilabetetan *lurrera itzultzeko* lehiak gogoa hartua zeukan". Ikus ere KH 9.VII. 2. eta 2.VIII. 5.; AE/J, 12.VII.1.; etab.



OTOITZAK



OTOITZEI SARRERA

Teresak hemen bildu diren hogeita bat otoitzak egin dituen arren, ez du inoiz arlo honetan bere garaian zen sorketa biziarekin lehiatzeko asmorik izan. Berak aitortu du ez zuela berariaz aintzakotzat hartzen ugaritasun hura: *“Errezatzeko duin ez naizen orduen liturgia izan ezik, ez dut adorerik liburuetan otoitz ederrak bila-tzeari lotzeko; horrek buruko mina egiten dit. Hainbeste daude, egon ere!... eta gai-nera guztiak dira zein baino zein ederragoak!* (C Esk., 25^a).

1897.ean idatziriko lerro hauek zelanbaiteko umorea erakusten dute, hala ere oso gaixorik dago azkenengo eskuidatzia ontzen duenean. Ez, ez du inoiz otoitz *“ederrak”* eraterik nahi izan. Bakunegia da, haurregia, *“txikiegia”*, konfiantza eta maitasun bidea jarraitzen duenez gero. Haren begietan egiak balio du bakarrik. Kontuz *“sasi-diruarekin”* espiritu-gaietan (KH 8.VII.16). Beti buru-argi, karmeldar gaztea hitz-anturaren beldur da: *“Ez ditut gutxiesten arima elikatu eta Jainkoarekin bat egiten duten pentsamendu sakonak. Baina aspaldidanik jabetu nintzen arimak ez duela haietan oinarritu behar, ezta perfekzioa argitasun ugari hartzean bermarazi ere. Pentsamendurik ederrenak ez dira ezer egiterik gabe”* (C Esk., 19ⁱ).

Berak erarik xaloenean egiten du otoitz: *“Jaingo ona ez da nekatzen niri entzuten, berak jakingo ez balitu bezala, neure nahigabe eta pozak xalotasun osoz kontatzen dizkiodanean...”* (C Esk., 32ⁱ).

Teresa Jesus Haurrenaren bihotz eta lumatik irteten den guztiak barne-jator-tasun berdina du. Berak emaniko definizio bakarrak berezkotasun hau du erakusten: *“Niretzat otoitza bihotz-eragin bat da, zerurantz zuzendutako begirada soil bat, eskerroneko eta maitasunezko oihu bat da atsekabe artean nahiz poztasun artean. Hitz batez, handia den zerbait da”* (C Esk., 25^a).

Hogeita bat otoitz hauek ez dituzte ahantzarazi behar haren beste idazkietan aurkitzen direnak. Honela, *Eskuizkribu autobiografikoetan*, sarritan gertatzen da kontaketa ezarian otoitz bihurtzea¹. Idazkera mailan soilik, Teresak gailurrak lortzen ditu zuzenean Jesusekin hitz dagienean. Honela B Eskuizkribuan: *“Idazterakoan Jesusi hitz egiten diot; horrela errazago egiten zait neure pentsamenduak adieraztea”* (1ⁱ). Barne-bultzadak eramanik, hizkuntzaren mugetan jotzen du eta sarritan dio tamal dela asmatzen duena ezin azaltzea: *“Ai, nik bai nahi nukeela somatzen dudana azaldu ahal izatea!”* (A Esk., 38ⁱ). *“Ezinezkoa zaio giza hitzari giza*

¹ C Esk., 6^a. Ik. A Esk., 84^a; C Esk., 3^a, 9ⁱ, 16^a, 34^{a/i}, 35^a.

bihotzak ozta-ozta asmatzen duena esatea" (B Esk., 1^a)... Ezin esanaren mugetara helduz, Teresa orduan hitzik ez duen otoitz isilean sartzen da: "*Sarritan isiltasuna da bakarrik gai nire otoitza azaltzeko, baina sagrarioko jainkozko arrotzak dena ulertzen du, baita eskerronez beterik dagoen haur-arima baten isiltasuna ere!*" (TG 138, TG 106).

Antzematen da hemen ahizpa Teresaren karmeldar bizitzako bi otoitz orduen garrantzia. Nahiko izango dugu "*txoritxoaren*" parabola irakurtzea (B Esk., 4ⁱ/5^a) karmeldarraren barne-jarrera zehatz aditzeko: "*Jainkozko Eguzkiari begiratzen*" jarraitzen du, direnak direla hodei eta ekaitzak.

Bestalde, ez ote da oso esanguratsua berrogeita hamalau olerkietatik hogeita hamahiru otoitzak izatea? Deboziozko solas-antzerkietan ere badaude han hor hemen barreiatuak. Gutunek ere badituzte Jesusi zuzendurikoak eta biblia aipamenik asko.

TERESAREN OTOITZAK

Teresak hogeita bat otoitz utzi ditu idatzita, luzera oso ezberdinetakoak, izan ere batzuk lerro bat baizik ez dute eta luzeenak hirurogeita hamabost ditu.

Gehiegi behartu gabe, irizpide nahiko errazez sailkatu daitezke:

- berezko otoitzak, atsekabeen nahiz pozaldian idatziak (Otoi. 1, 14, 15, 16, 17, 19, 21);

- otoitz "pedagogikoak", nobizientzat (Otoi. 3, 4, 5, 7, 18, 20) eta laiko batenzat (Otoi. 10) eratuak;

- otoitz nagusiak, Teresaren bizitzako une erabakigarriren batekoak (profesa, Otoi. 2; Eskaintza, Otoi. 6; neba izpiritual batenzat, Otoi. 8; Aurpegi Santuari kon-sagrata, Otoi. 12).

Euren erara, otoitzek Teresaren norabidea markatzen dute eta haren "*erraldoi lasterketa*"² neurtzen.

Haien garrantzia ez du luzerak erabakitzen. Zer ziztagarriagorik "otoitz-oihu" hauek baino (Otoi. 1, 11, 19), jakulatoria-otoitzak esaten zitzaiealdi hartan, zerura jaurtiriko geziak, basamortuko gurasoei jarrai. Bihotz atsekabetuaren sakonenetik irten behar dute Teresak idatzi nahi izateko, berriro irakurri eta esateko asmoz.

Maria Birjinari deia (Otoi. 1), "*bizitza-goizean*", 1883eko maiatzaren 13an, irribarre egin zionari, sendakuntzaren ondoren oindik luzaro nahigabetzen duten "*arimako bi samin*" hauen oihartzuna da noski (A Esk., 30ⁱ).

Hamahiru urte geroago, kezkatuago, 19. otoitzak (1897) C Eskuizkribuaren pasarte bat argitzen du: "*urtebetean neure bizitza osoan baino fede-aitormen gehiago egin dudala uste dut*"³. Zirriborro-paper txatxar bateko bi lerro hauek, barne-burruka gogor-larriaren lekuko, hitzaldi luzea baino adierazgarriagoak dira.

² A Esk., 44ⁱ, 18,5 salmoa aipatuz.

³ Proba honek zirauen bitartean Teresak egin zituen fede-ekintza zirrargarrien artean, bere odolaz idatzitako Kredoan izan behar da gogoan (AJ/PA, 151.or.) eta bere azkenengo gelan irarririk izan zuen esaldia: "Jesus da nire maitasun bakarra".

Laburragoa dela oraindik, 11. otoitzak, Tours-ko Aurpegi Santuaren irudi txiki baten gainen idatziak, Isaiasek 53. atalean iragarririko Maitearen antzeko izateko gurari bizia azaltzen du. Teresa eta Jesusen aurpegiz aurpegi honetan, karmeldarrak Haren antzeko izateko grazia eskatzen du, Gurutzeko Joan bere irakaslearen gurariari jarraituz: *Kanturik Ederreneko* senarraren antzeko izatea⁴. 16. otoitzean berriro agertzen den guraria: *“Irar ezazu arren niregan zure Jainkozko Antzera”*.

Kezka eta maitasun oldartsuzko grina gutxiagoz agertzen dira 1893-1894.eko otoitzak. “Pedagogikotzat” jo daitezke, baina Teresak besteek bakarrik erabiltzeko idatzi dituenik ez ulertzekotan. Egia esan, bere esku utzi zaizkion nobiziei lagundu nahi die, baina berak “*gu*” dioenean, benetan eta guztiz sartzen da barruan. Artalde txikiaren buru eginez, espazio- ahalegin azetikora darama (Otoi. 9), batez ere biraoaren kontra (Otoi. 4)., jantokian begiak behera begira edukitzeko (Otoi. 3), otoitzean eta sakrifizioetan trebatzeko (Otoi. 5), “*arratseko azterketa egiteko*” (Otoi. 7), apaltasuna lortzeko (Otoi. 20).

Ez da noski ustegabea 11-16. otoitzak (1896koak eta 1897aren hasierakoak) Aurpegi Santuaren kontenplazioan biltzea. 1889ko urtarrilaren 10etik aurrera (karmeldar jantzi zenetik) ahizpa Teresak “(eta) *Aurpegi Santuaren*” abizenaz osatu du bere lekaiame-izena. Oso sarritan Bigarren Isaiasen Zerbitzari ezkutuzkoari buruz egin du gogoeta. “*Jesusen Aurpegi gurgarriaganako*” liluramen hau ez da inoiz moteldu. 1895ko abuztuaren 12ko kantika da kontenplazio honen iraupenaren ezaugarri:

*Nire Aberri bakara zure aurpegia da...
bertan neure burua etengabe ezkatatuz
zure antzeko izango naiz, Jesus⁵...*

Gauean sartze zakarrak, 1897ko Bazkoan, “*Aurpegi kutun*” eta “*estali*” honen erakarpena bizkortu egin du. Ondorioz, urte honetako abuztuaren 6an, Antz-aldatzearen jaietan, Aurpegi Santuari sagaratzea egiten du (Otoi. 12). Honen garrantzia, beharbada, ez da nahiko azpimarratua izan Teresaren adierazleen artean. Paper originala bera ikustea baino ez dago Teresak zelako arretaz ospatu nahi izan duen konturatzeko. Gogoan hartuko da apostoladutza-gar indartsua (“*arimak behar ditugu...*”), aldi honetako bere misiolari irrikaren zabalpenari dagokiona.

Hau, sakon eragin dion gertakari ustekabe batek zuzpertia izan da hilabete batzuk lehenago: Ama Aines Jesusenak Bellière apaizgaia eman dio, honi izpiritualki lagun diezaion (C Esk., 32^a). Berriro ere haren guraririk minenatariko bat-neba bat apaiz izatea- bete da ustekabez. Oso azkar, apostolutza-otoitz bat onden du honentzat, nolabait eskaintza den otoitza. Izan ere, misiolari-gai honen alde “*pozik eskaintzen ditu*” bere esku dauden “otoitz eta sakrifizio guztiak” (Otoi. 8).

1897ko otsailaren 24an “*egunero*” bere alde otoitz hau egiteko eskatzen dio: “*Aita errukitsu, gure Jesus Gozoaren izenean, Maria Birjina eta Santuen izenean, nire arreba zure Maitasun Espirituaz sutu dezazula eskatzen dizut eta eman diezaizula zu asko maitarazteko grazia*”⁶.

⁴ *Kantu izpirituala*, 36. bertsoa.

⁵ TO 20, 3.5.

⁶ TG 220. Aita Roulland-ek ere otoitz horixe egiteko eskatu zion (TG 189, LC 166, 171, 175 eta TG 201). TG 221ean (1897-III-19) aldatu egiten du formula.

Bere liturgi-ordu libururako Teresak eginiko Aurpegi Santuaren irudiak (Otoi. 15 eta 16), Jesus Haurraren parekoak (Otoi. 13 eta 14), Kristo Haurraren eta pairatzailearen antzeko eta berdina izateko irrika indartua erakusten du. Zelinaren argazki-tresnaren aurrean jarriko da, akiturik egon arren, 1897ko ekainaren 7an⁷, bi argazkitan ikusizko hilburukoa uzteko, bere izenak bere bokazioa, eta bere "misioa" laburbiltzen duela (TG 109): "*Teresaren Jesus naiz*", dio Jesus Haurrak hatz bat zerurantz jasoz. - "*Jesus Haurraren eta Aurpegi Santuaren Teresa naiz*", erantzuten du Jetsemaniko Jesusi jarraituz laster nekaldian sartuko denak.

Joana Ark-ekoak -oindik kanonizatu gabeak- iradokiriko otoitzak (Otoi. 17), Sebastian Santuak eta Errugabe Santuak iradokitakoek (Otoi. 13 eta 14), aldi gorrian sartu den Teresaren borroka adierazten dute, 1896an eta 1897aren hasieran: gaixoaren aurkako borroka, honen zantzu batzuk azkena hurbil dela iragar dezaketela. "*Bihotzeko odola*" isuriz Zelina bere ahizpa adoretu nahi du, honek, nobizia denez, karmeldar deiari jarraitzeko borroka gogorra darama eta (Otoi. 17).

Gaixotegian, Teresak, indarren azkenetan, oraindik otoitz pedagogiko bat erazten du "*apaltasuna lortzeko*", Marta ahizparentzat, Karmelgo Andre Mariaren egunean hogeita hamabi urte beteko dituenarentzat (Otoi. 20). Jesusen "*ezerez bihurtzeen*", eta bere makaltasunaren gaineko gogoeta hau, Errukiari eginiko deia, gaixoak berak bizitzen dituen errealitateak dira. Oso laster, heriotz ordu erdian, berba azarri hau esaten ausartuko da: "*Bai, ulertu dut bihotzeko apaltasuna... apala naizela uste dut*" (KH 30.IX).

Hiru aste lehenago, Natibitate egunean, bere profesako zazpigarren urteurrenean, nekez idatzi zuen azken eskuizkribua, Mariari zuzenduriko otoitza⁸.

Ibilbide hau markatzen bi berezko otoitz dira gailen, handitasun ezberdineko bi mendi bailiran lautada eta muinoak nausituz: 1890.eko irailaren 8ko profesatxartela eta 1895.eko ekainaren 9ko Eskaintza.

Lehenengoak, oinaze-grafiaz, "haurraren izua eta gudariaren erabakia"⁹ "ageritzen ditu batera. Jesusen izena -Teresak frantsesez "tu" darabil- zortzi bider azaltzen da hogeita hiru lerrotan. Hura izan dadila bakarrik dena beretzat egiten du arren, maitasuna eskatzen du, "*ni ez, zeu, ene Jesus, zaren maitasuna*". Egun honetan "*arima asko*" salbatu nahi ditu.

Bigarren testua beste otoitz guztien gaineratik dago: otoitz ospetsu hura dugu "*Neure buruaren eskaintza osozko erreoparizat Jainko Onaren maitasun Errukitsuari*". André Combes-en ondoren badira izpiritualitate-norabide berri honetan "Espiritu Santuak gizadiaren izpiritu-eboluzioan askatu duen iraultzarik zirrargarri eta handienetako bat"¹⁰ "ikusten dutenak. Ale honetan ematen diren ingurune historikoez sendotu egiten dute iritzi hau. Ama Aines Jesusenak Elizaren onespina nahi izan zuen testuarentzat karmeldar lekaimeei eskaini aurretik. Teresak berez-berez eskaini zien Zelinari eta beste ahizpa batzuei. Ordurik Eskaintza munduan zehar zabalduta, hizkuntza guztietan, ehundaka mila ihekitan.

⁷ VTL, 41, 42, 43. zkk.

⁸ 1890/IX/8, Otoi. 2 egin zuen data.

⁹ Mss II, 53.or.

¹⁰ *Introduction à la spiritualité de Sainte Thérèse de l'Enfant-Jésus*, Vrin, 1948, 2. argitalp., 184.or.

Balio osoa norbereganatzeko, otoitz bakoitza bere leku kronologikoan kokatu behar da. Bere beste idazki guztietan bezala, Teresak sakonki eman du bere barrua testu desberdin hauetan; hauen hizkera batzuetan ohizkoak ezin dezake sustraiko doitasuna estali. Haren otoitzak beharrizanetik jalgi dira: barruko beharrizana berezko hamaika testuentzat, karitate beharrizana bere ahizpei, apaizgai bati, emakume ezkondu bati laguntzeko. Bakoitzean Teresa egia osoz azaltzen da.

Hona hemen, beraz, karmeldar gazteak ematen digun altxorra, bere azken eskuizkribuan honela idatzi zuenak: *“Otoitza, sakrifizioa dira nire indar guztia; hauek dira Jesusek niri eman dizkidan arma gaindiezinak. Haiek hitzek baino askoz hobeki bigun ditzakete arimak. Sarri izan dut horren esperientzia”* (C Esk., 24^a).



1. Otoitza

[Neure Ama Birjina ona]

AGIRIA: eskuizkribua. - GARAIA: 1894ko ekaina (?). - ARGITALPENA: *Prières* (1988).

Tintaz idatziriko bi lerro daude, Teresaren eskuz egindakoak, ahizpa Aines Jesusenak ekainaren 21ean, ama Maria Gonzagarenaren jaiarako, kopiatutako olerki baten jarraian; Teresaren lehenengo jaunartzearen ondoren egin ziren (1884ko maiatzaren 8an, horren aipamena egiten delarik). Ekainaren 21aren inguruan idatziko zuen, bada, Teresak (hamaika urte zituela) otoitz hau. Idazkera 1884koa da.

Zer nahigabek "harturik ote zen" Teresa haurra, egun hauetan, Mariari zuzenduriko garrasi hau egiteko? Lehen eskuizkribuak eman diezaguke erantzuna: "... baina Ama Birjinak oinaze hau izan dadin utzi du nire arimaren onerako" (A Esk., 31^a). Gogora ditzagun gertakariak: 1883ko maiatzaren 13an, Teresa nerbioetako gaixotasun batetik sendatu zen, Andre Mariaren irribarreari esker. Hasieran gorde egin nahi du isilpekoa. Baina Maria, haren ahizpa nagusia hartaz konturatu eta karmeldarrei jakinarazten die. Neska duda-mudatan hasten da eta «gezurra esan duela» uste du. «Bere zoriona» kendu diote. "Apalkuntza" eta "izuikara sakon" bat baizik ez du jadanik sentitzen (ibid). Sufrimendu horrek urtebete iraungo du, Teresak handik aska dezala Andre Mariari erregutu arte. Eta, izan ere, "ia urtebetean" barealdia izango du, 1884-1885 (ik. A Esk., 32ⁱ). Dena dela, behin eta betiko askapenik ez du izango, Garaipenen Andre Mariaren elizan, 1887ko azaroaren 4ra arte; egun horretan, "Ama Birjinak sentiarazi dit bera izan zela egiaz irribarre egin zidana" (A Esk., 56ⁱ). "Neure Ama Birjina ona": Teresak garrasi bera egingo du hil-ohetan dagoela (KH 30.IX.6).

Neure Ama Birjina ona, egizu zeure Teresatxo ez dadila gehiago inoiz ere atsekabetu.

2. Otoitza

[Profesako txartela]

AGIRIA: eskuizkribua. - GARAIA: 1890eko irailaren 8rako. - ARGITALPENA: HA 98, 127. orrialdea eta ondorengo (berrikutua); 1956ko fakzibil eskuizkribuak eta 1957ko *Manuscripts autobiographiques*.

Teresak bere profesia egitean izan zituen barne-jarrereri buruz, ik. A Esk., 75^a/77ⁱ, baita haren aurretik egin zituen hamar eguneko gogo-jardun bitartean idatzi zituen gutunak ere (TG 110.etik 117.era). Txartel hau idazterakoan, Teresak bere egiten du Karmelgo ohitura bat. Garai hartan ohikoa zen nobiziak abitu-hartzean nahiz botodunak profesia egunean bere bihotzaren gainean txartel bat eramatea, hark bere buruarentzat eta bere lagunentzat erdietsi nahi dituen graziak eskatzen dituelarik. Tradizioak dioenez, oihal latzeko tapizaren gainean besoak gurtzean direla lurrean ahozpezturik egindako eskabide guztiak entzunak izan ohi dira.

1890ko irailak 8

Oi Jesus, nire jainkozko senarra¹, inoiz ere ez dezadala neure bataioko bigarren jantzia galdu². Eraman nazazu neuk nahi dudala hutsik txikiena egin baino lehenago. Ez dezadala inoiz ez bilatu ez aurkitu zeu baino besterik; izakiak ez daitezela niretzat ezer izan eta ni ez nadila haientzat ezer izan, zeu, Jesus, izan zaitezela *dena*³ !... Lurreko gauzak ez daitezela inoiz nire arima artegatzeko gai izan, ezerk ez dezala nire bakea nahasi; Jesus ez dizut bakea baizik eskatzen, eta maitasuna ere bai, zeu baino beste mugarik ez duen maitasun azkengabea, ni barik zeu⁴, nire Jesus, zaren maitasuna. Jesus, zugatik martiri hil nadila⁵, bihotzeko zein gorputzeko martiritzarekin, edota hobeki biekin... Emaidazu botoak oso-osorik betetzea eta ulertaraziezadazu zelakoa izan behar duen zure emazte batek. Egizu ez nadila inoiz komunitatearentzat zama izan, eta inor ez dadila nitzaz arduratu, oinekin zapaldua bezala izan nadila, ahaztua⁶ zure hondar-aletxo⁷ bat bezala, Jesus.

¹ Profesak Teresa Jesusen «emazte» sagaratzen du. Gai hau sarritan azaltzen da haren lumatik, batik bat, Zelinarekin dituen gutun-harremanetan.

² Tradizio izpiritual luze batek erlijio-profesia "bigarren bataiotzat" hartzen du, arimari "errugabetasun-jantzia" ematen diona (Otoi. 5); ik. TG 114 eta A Esk., 70^a.

³ Zalantzarik ez, hemen *Kristoren Antz-Bidearen* oihartzuna dago, baita Joan Gurutzekoarena ere, 1890eko urteaz gero honen doktrinaz aseturik baitzegoen Teresa (ik. A Esk., 83^a).

⁴ Hitz oso errazaren azpian, Teresak, «maitasuneko eraldaketa» eskatzen du, horren bitartez Maitteak eta arimak "bata bestearen jabetza hartzen dute eta bata bestearengan trukutzen da" (Joan Gurutzekoaren *Kantu izpirituala*, XII. ahapaldia, 209 eta ondorengo orrialdea).

⁵ Teresak haurtzaroz gero, izandako nahirik sakonenetarikoa; ik. B Esk., 3^a. 1896an, "martiritzarako zituen gurariak ez direla ezer" baieztatu du (TG 197). Hala ere, gaixotasunak eragindako "gorputzeko martiritza" probatu du berak, baita "bihotzeko martiritza" ere hainbat erataria (ik. TG 167 eta 213).

⁶ Teresak beti erdietsi nahi duena; ik. TG 95, 103, 176; A Esk., 71^a; TO 24, 7; etab.

⁷ 1888ko maiatzaz gero, Teresaren ikur maiteenetariko bat; ik. TG 45 eta TG 114. Hala ere, profesia egin ondoren, ez da 1897ko ekainean baizik azalduko (C Esk., 2^a).

Zure nahia egin dadila nigan oso-osorik, hel nadila niretzat gertatzen lehenago zu izan zaren lekura...

Mt 6,10
Jn 14, 2-3

Jesus, egizu arima asko salba ditzadala, gaur bat bera ere ez dadila gal eta garbitokiko arima guztiak salba daitezela⁸... Jesus, barka iezadazu esan behar ez diren gauzak esaten badituz, zu poztu⁹ eta kontsolatzea baizik ez dut nahi.

3. Otoitza.

Maitasunezko begiradak Jesusi

AGIRIA: CE II, 181 ^a/_f. - GARAIA: 1893ko uztaila (?). - OTOITZ-HARTZAILAK: bera eta ahizpa Marta Jesusena. - ARGITALPENEA: HA 14, 267. or. (berrikutua); HA 53, 256. or.

Teresak otoitz hau 1893ko uztailan egingo zuen ziur aski, ahizpa Marta Jesusenarentzat eta beretzat. 1890eko irailean egin zuten profesia eta nobiziatuan jarraitzen zuten ama Maria Gonzagaren zuzendaritzapean. Karmelen, bakarzale-izpiritua zaintzeko karmeldarrei, baita komunitateko otorduetan ere, begiak behe-rantz bildurik izatea gomendatzen zitzaion. Teresa ekintza aszetiko honetara makurtuko da: bera Pertsona baten aurrean bizi da, Jesusen aurrean; honengana-ko maitasunagatik ez du alferrik galduko "begirada bat bera ere" (ik. B Esk., 4^a). Horrela uler daiteke zein eskakizun zorrotzak dituen puntu honetan, ez ahizpa Mar-tari dagokionez soilik, baita nobizia guztiei dagokienez ere.

Jesus, zure emaztetxoek jatorduan begiak beherantz izatea erabakitzen dute, zuk Herodesen aurrean eman diezun ikasbidea ohoretu eta jarraitzeko¹. Printze gaizto honek iseka egiten zizunean, oi mugagabeko Edertasun, atsekabe hitz bat ere ez zen zure jainkozko ezpainetatik irteten. Ez zenuen haintzat hartu harengan zeure begi gurgarriak jartzea ere. Oi! duda gabe, Jesus Jainko, Herodesek ez zuen zuk begiratzerik merezi, baina guk zure emazte garenok geugana erakarri nahi ditugu zure jainkozko begiak; maitasunezko *begirada*² batez saritu gaitzazula eskatzen

Lk 23, 9,11

⁸ Abitua hartzean Teresak gurari berbera adierazi zuen (TG 74). 1890eko irailaren 2an, azterketa kanonikoa egin zuenean, bere bokazioaren apostolutza-helburua azpimarratzen du: «*arimak salbatzea*» (A Esk., 69^a). Gaixotegian bertan ere, Teresak «*garbitokiko arimen*» ardura izaten jarraituko du; KH 18. V. 2; 6. VIII. 4; 11. IX. 5 etab. Noiz ez dakigula, "egintza urena" (hau da, bere merezimenduak arima horien alde uztea) egin zuen (ik. PA, 178, eta 286 eta ondorengo orrialdea).

⁹ Jesusen poza izatea, hari atsegin ematea, hura zoriontsu egitea, hura poztea, horixe da Teresaren izate osoaren jomuga nagusia.

¹ Lukasek Jesusen isiltasunaz hitz egiten du soilik; baina, Teresarentzat, Kristo bere Nekaldian Aurpegi Santuarekin identifikatzen da: «*begi makurtuekin*» (TG 110, TG 87; KH 5. VIII. 7).

² «*Maitasunezko begirada*»-ren gaia Teresak benetan bere-berea du; ziur aski Joan Gurutzekoaren-gandik hartuko zuen. Jesussek eta arimak «*emaztea*»-k elkarri egiten dioten begirada, Teresarentzat, kontenplazio-bizitzaren irudi da.

dizugu begiak jaso gabe uzten ditugun bakoitzean, baita eskatzen dizugu eror gaitenezenean ere ez diezaguzula *begirada* gozo hau uka, gure hutsak³ zenbatu⁴ egingo ditugu eta. Lore-sorta bilduko dugu eta zuk ez diozu ez-hartu egingo, ziur gaude. Lore horietan Zu maitatzeko, zure antzeko izateko gure gogoa ikusiko duzu eta zure haur gaixoak bedeinkatuko dituzu.

Oi Jesus! *begitu* iezaguzu maitasunez eta emaguzu zure musu gozoa.

Hala izan bedi.

4. Otoitza

Hirutasun Guztiz Santuari omena

AGIRIA: CE II, 180/181^a. - GARAIA: 1894ko otsaila. - OTOITZ-HARTZAILEAK: bera eta ahizpa Marta Jesusena. - ARGITALPENA: HA 53, 255. orrialdea eta ondorengoa.

Espiazio-otoitza hau kokatzeko, egoki da XIX. mendean zehar garatu zen espiazio-joera handiaren baitan sartzea; izan ere, garai hartan 1789ko Iraultzaren ondorioz erlijioaren aurka egindako bortxakerien mendean zeuden. Esan dezagun, ezer baino lehen, Hirutasun Santuari egindako eskaintzatik at, testu honek ez duela zerikusirik garai hartan zabal zebiltzan formulekin. 1885ean, Teresa gaztetxoak Saint-Dizier-eko Espiazio Artxikofradian eman zuen izena (1847), baita Tours-ko Aurpegi Santuaren kofradian ere (1876). Ezaguna da Dupont jaunak, «Tours-ko gizon santuak», eta ahizpa Maria San Pedrorenak, Tours-koa bera ere, espiazio mugimendua garatzeko egin zuten lan garrantzitsua. Salette (1846ko irailaren 19an) agertzeak ekimen hura bultzatu baizik ez zuen egin. Teresak ondoko liburuxka ezagutu bide zuen: Association de prières contre le blasphème, les imprécations et la profanation des jours de dimanche et de fête. Sarritan, eduki apokaliptikoa zuten deboziozko joera hauek zuhurtasunik gabe erabiltzeak, ekarri du "Jainkoaren justiziaren biktimak" ugaritza.

Oi nire Jaungoiko, hona hemen gu zure aurrean ahozpezturik. Zure aintzarako lan egiteko grazia eskatzen dizugu.

Bekatarien biraoak samingarri heldu dira gure belarrietara; Zu kontsolatzeko eta Zeuk erositako arimek egiten dizkizuten irainak ordaintzeko, oi Hirutasun gurgarri!, *erestaldi* bat eratu nahi dizugu zure maitasunez egingo ditugun sakrifiziotxo-

³ Kontuak eramatea gogoz kontrako egiten zaio Teresari bere izaeragatik. 1893ko uztailean bere *ekintzen errosarioa*» erabiltzen badu, ahizpa Martari dion "maitasunagatik" da (TG 144); Teresa bat dator garai honetan aszesi hori «oso baliagarria» zaiola esatean.

⁴ «Gure hutsak zenbatu egingo ditugu eta»: hain apala dirudien otoitza honen ñabardura bikaina, eta hor da jadanik "bidetxoa" biziki indartuko duen alderantzaketa Teresiarren gakoa. Ik. *Prières*, 66. orrialdea.

ekin. Hamabost egunez, eten gabe goersten zaituzten eta gizakiei hauen esker txarra aurpegira egotziko dieten Zeruko txoritxoek kantua¹ eskainiko dizugu. Baita musika-tresnen doinua ere eskaintzen dizugu, oi nire Jainko! eta uste on dugu gure arimak mereziko duela zuk dardaraziko duzun lira harmoniatsu izatea, gogoan ez zaituzten hainbeste arimaren oztasunean Zeu kontsolatzeko. Era berean, *diamanteak* eta harribitxiak pilatu nahi ditugu zortzi egunez, betikoen ardura gabe aberastasun galkorren atzetik dabilten hilkor gaixoen lehiaren orde. Oi nire Jainko! iguzu grazia hau: maite ez zaituzten arimak lurreko ondasunen atzetik² baino zoliago ibili gaitezela gu sakrifizioen bila.

Azkenez, zortzi egunez, loren urrina bilduko dute zure haurrek, horrela apaiz eta erlijioso-arimek³ zuri jasanarazitako adei-etak ordaindu nahi dizkizute. Oi Hirutasun dohatsu, emaguzu leialak izatea eta iguzu bizitza honetako erbestaldien ondoren zutzaz gozatzeko grazia...

Hala izan bedi

5. Otoitza

“Lore mistikoak”

AGIRIA: eskuizkribua. - GARAIA: 1894ko azaroaren 20aren inguruan. - OTOITZ-HARTZAILEA: ahizpa Maria-Madalena. - ARGITALPENA: *Prières* (1988).

Koadernoaren gainean (10 x 8, 3 cm), estalki batean gordeta, ama Ainesek hau idatzi zuen: «Ahizpa Teresa Jesus Haurrarenak idatziriko koadernotxoa, ahizpa Maria Madalena profesarako prestatzeko». Ama Ainesekin profesia egingo duen lehenengoa izanik eta hari atxikimendu handia ziona, Teresari ihes egiten dio, hau zorrotz agertzen baita harekin. Hain mesfidakor zen lagun batekin zuhurtasun osoz jokatu behar eta, Teresak otoitz-sorta apal-apala eskaintzen dio. Sorta horretan ahizpa Ainesek 1884an Teresaren lehenengo jaunartzerako prestatu zuen eskema jarraituko da zehatz-mehatz; izan ere, eskema hori Teresaren lehenengo Jaunartzerako atondu zuen. Azkenik, esan dezagun 1910ean oraindik ahizpa Maria Madalenak «koadernotxo hori bere gelan» zuela (PA, 591. or.).

¹ Aste bitan, «txoriek kantaturiko soinu guztien kopurua» (hau da, Teresa eta Martaren sakrifizioak, orrialde baten idatzita) 208koa da; kopuru berbera da «musika-tresnentzat», «harribitxientzat» eta «loreen urrinentzat».

² Antza denez, igandeko lanari buruzko aipamena da, Salette-ko Andre Mariak tamalgarrizat jo zuen profanazioa.

³ Ik. TG 261, “adeitasunik ezak” dira Jesusen “adiskideen” jokera agertzen direnak; “apaiz eta erlijiosoen arimak” dira Teresaren otoitzaren ardurarik bizienetarikoa; ik. A Esk., 69^l.

Azala

Kt 2,16 Madalena! Nire emazte maite-maitea!
Zurea naiz guztiz eta zu nirea zara betiko.

Izenburu-orrialdea

Mt 25,6 1^a Nire eztei-otzaratxoa eratzeko lore mistikoak¹
Ahots bat entzun da: "Hemen da senarra, irten bidera..." (Ebanjelioa).

.. Nahikundeak²

(Orrialde bakoitzaren idazpen osorako, ik. *Prières* 73.or. Utzi egiten da hemen eguna eta ez da aipatzen "Nahikundeak", sei bider errepikatua).

- Mt 12,29 2^a Arrosa Zuriak.
Oi Jesus! garbitu nire arima zure emazte izateko duin bihur dadin!
- 3ⁱ Bitxiloreak.
Oi Jesus! idazu nire egite guztiak zure atseginagatik bakarrik egiteko grazia.
- 3^a Bioleta Zuriak.
Jesus, bihotzez gozo eta apala, egin nire biotza zurearen antzeko!...
- 3ⁱ Mugeta.
Santa Teresa, nire ama, irakats eizadazu arimak salbatzen benetako karmeldar izan nadin³.
- 4^a Basalarrosak.
Oi Jesus! Zuri bakarrik zerbitzatzen dizut⁴ nire Ahizpei zerbitzatzean.
- 4ⁱ Te-arrosak.
Jesus, Maria, Jose, idazue gogo-jardun ona egiteko grazia eta gertatu nire arima profesa egun ederrera.
- 5^a Negu-xilintxak.
Oi Madalena santua! loriezaidazu nire bizitza maitasun-egintza izan dadila.
- 5ⁱ Ama Birjinaren atzamarrak.
O Jesus! Irakatsiezaidazu nire burua ukatzen nire ahizpei atsegin emateko.

¹ Oso adjektibo bakana Teresaren idazkietan; A Esk., 79^a; TO 54, 7; eta hemen.

² Batzuek Teresaren marka daramate, baina bere osotasunean konbentzionalak dira.

³ Ik. «*Une carmélite qui ne serait pas apôtre cesserait d'être fille de la Séraphique Sainte Thérèse*» (TG 198).

⁴ Maria Madalena ahizpa ez-korukoari buruzko aipamen samurra.

- 6^a Amitz Zuriak.
Nire Jaungoikoa, bihotz guztiz maite zaitut.
- 6ⁱ Asto-lili Zuriak.
O nire Jaungoiko, begitu Jesusen aurpegiari, eta bekatari gaixoetatik egizkizu hainbeste hautatu⁵.
- 7^a Jasmína.
O Jesus, zuregan baino ez dut poztasunik gozatu nahi.
- 7ⁱ Oroilore Zuriak.
Oi nire Aingeru Jagole Santua! estal nazazu beti zure hegoez Jesus iraintzeko zoritxarra inoiz ere izan ez dezadan. Sal 90,4
- 8^a Nasailora.
Oi Maria! nire Ama ona, idazu nire profesia egunean emango didazun garbitasun-jantzia inoiz ere ez zikintzeko grazia.
- 8ⁱ Berbena-belar Zuriak
Nire Jaungoikoa, zugar sinisten dut, zugar dut itxaropena, bihotz guztiz maite zaitut.
- 9^a Lili Zuriak.
Nire Jaungoikoa, eskerrak ematen dizkizut gogo-jardun aldi egin dizkidazun grazia guztiengatik.
- 9ⁱ Egun Handia heldu da⁶. Kt 2,16
Lili horia.
Nire Jesus maite-maitea, nirea zara orain guztiz eta ni zure emaztetxoa naiz betiko!!!...

⁵ Ahizpa Jenofak adierazitako ahozko ekandu baten arabera, mezerdikoan Gure Jauna jasotzean Teresak honako hau esaten zuen eta nobiziei esanarazi: «*Aita Santu, begira izeaiozu zeure Jesusen Aurpegiari, eta bekatari guztiak hautatu bihur itzazu*». Badakigu kaliza jasotzean ere hau esaten zuela Teresak: «*Oi, Jesusen jainko-odola, busti ezazu gure lurra eta egizu erne daitezela hautatuak!*», horretarako ahizpa Maria San Pedrorenaren bidea jarraituaz.

⁶ Adierazpen berbera dago A Esk.an, 25^a.an, Zelinaren lehenengo jaunartzerako.

6. Otoitza.

Jkd 3,6

J.M.J.T.
Neure buruaren eskaintza
erreoparizat
Jainko Onaren Maitasun Errukitsuari¹

AGIRIA: eskuizkribua, C f. - EGUNA: 1895eko ekainaren 9a. - ARGITALPENA: HA 98, 257-259. orr.

Lisieux-ko Karmelgo artxiboetan Eskaintzaren ekinza honen lehenengo aldaera dago, Teresaren eskuz idatzirikoa, 1895eko ekainaren 9tik 11ra. Testu hori fakzimilez berregin da Manuscripts autobiographiquesen argitaraldi fotokopiatuaren «Pièces jointes»en, 1956an. Hemen eskaintzen dugun behin-betiko testuarekin alderatuz gero, aldaketa txiki batzuk ditu hark. Hau ama Ainesentzat idatzi zuen Teresak 1896aren amaieran edo 1897aren hasieran; ondoren asko zabaldu zen eta Elizak onartu egin zuen. Agiriok zehatz-mehatz aztertzeo, ikus Prières 1988, 77 eta ondorengo orrialdea.

Funtsean, Teresaren eskaintza inolako formularik jarraitu gabe, hitz gutxitan idatzia da, 1895eko ekainaren 9ko meza bitartean, Hirutasun Santuaren jaietan. Baina hasiera-hasieratik eskaintza honen berri emateko asmoa izan zuen Teresak, eta beste inori baino lehen bere ahizpa Zelinari. Hortik dator testu idatzi bat egin beharra; testu hori, gainera, haren agintarien onarpenaren menpean jar daiteke. Entzun dezagun ahizpa Jenofarenn lekukotasuna: «Meza horretatik irtendakoan, bere ondoren eraman ninduen, gure Amaren bila; bere senetik irtenda zegoela zirudien, eta ez zidan hitzik egiten. Azkenez aurkitu genuen gure Ama [Aines Jesusena], eta baimena eskatu zion bere burua nirekin batera Maitasun errukitsuaren biktima legez eskaintzeko. Azalpen laburra eman zion. Gure Ama presaka zebilen, ez zirudien zertaz ari zen ongi ulertu zuenik eta eman zuen baimena guztirako; hainbeste-ko konfidantza zuen ahizpa Teresa Jesus Haurrarenen zuhurtasunean» (PO, 281. or.). Ahizpa biek elkar aurkitu zuten asteartean, ekainaren 11n, Irribarrearen Andre Mariaren irudi aurean belauniko, euren burua «elkarrekin» eskaintzeko.

1895aren amaieran, Teresak berrito hitz egiten du, A eskuizkribuan (84^a), ekainaren 9ko argialdiari buruz: «Gogoan nituen nik, idazten du berak, beren burua Jainkoaren justiziarri oparigaitzat eskaintzen zioten arimak, errudunentzat ziren zigorrak haiengandik alden du eta berengana ekartzeko» (84^a). Galde liteke ea 1895eko ekainaren 9an Teresak ez ote duen gogoan ahizpa Maria Jesusena,

¹ Teresaren izenburu hau dela eta, hiru ohar egingo ditugu: - «eskaintza» hitz hau Teresaren egun gogoangarrietan agertzen da: «Neure burua Maitasunari eskaintzea» (A Esk., 86^o); gaixotegian: «neure eskaintza Maitasunari» (KH 29. VII.), «neure eskaintza» (8. 8. 2). - «Erreopari» hitzak «suak guztiz kiskalita» esan nahi du. Testamentu Zaharrean, sakrifizioan eskainitako erreoparia erabat erre ohi zen Jainkoaren ohorez. Ik. Ir 29. - Eta azkenean, «Maitasun Errukitsu» adierazpena hementxe agertzen da lehenengo aldiz, esanahi horrekin, Idazkietan.

Luçon-go karmeldarra, haren berripapera ekainaren 8an Lisieux-era iritsi zelarik. Ahizpa horrek, zioen berripaperak, «sarri eskaini zion bere burua Jainkoaren justiziari oparigaitzat». Haren hil-agineko unea, 1895eko Ostiral Santuan, izugarria izan zen. Hilzorian zegoenari larritasun-garrasi hau itzuri zitzaion: «Nik Jainkoaren justiziaren laztasunak daramatzat... Jainkoaren justizia!... Jainkoaren justizia!... » Eta beste hau ere bai: «Nik ez dut nahikoa merezimendurik eta haiek irabazi beharra dut». Kontaketa zirrargarria da, eta entzuleak hunkiturik utz zitzaizkeen (ik. Prières, 84. or.).

Oi nire Jaungoikoa! Hirutasun Dohatsua, zu Maitatu nahi zaitut eta Maitarazi², Eliza Santuaren aintzarako lan egin, lurtean diren arimak salbatuz eta garbitokian sufrizten dutenak askatuz. Zeharo bete nahi dut zure borondatea eta zure erreinuan gertatu didazun aintzazko mailara heldu, hitz batez batez, Santa izan nahi dut, baina neure ezina somatzen dut, eta, nire Jaungoiko! zeu izan zaitezela nire santutasuna eskatzen dizut³.

Jn 14,2

Nire Salbatzaile eta nire Senartzat zeure Semea emateraino maite izan nauzunez gero⁴, Haren merituen altxor azkengabeak neureak ditut, pozik eskaintzen dizkizut, Jesusen aurpegian zehar eta beronen Maitasunugarrezko Bihotzean⁵ baino ez nazazula begira eskatzen dizudala.

Jn 3,16

Santuen meritu guztiak ere eskaintzen dizkizut (zeruan eta lurtean direnenak), haien maitasuna eta Aingeru Santuena; azkenez, oi Hirutasun dohatsu! Maria Birjina, nire Ama kutunaren Maitasuna eta merituak eskaintzen dizkizut, Harengan uzten dut neure eskaintza⁶, zuri aurkezteko eskatuz. Haren jainkozko Semeak, nire Senar maite-maiteak, gure arteko bizitzako egunetan, hau esan zigun: "Nire Aitari nire izenean eskatuko diozuen guztia emango dizue!" Ziur nago beraz nire gurariak beteko dituzula; badakit, oi nire Jaungoiko! (zenbat eta gehiago eman nahi duzun⁷, hainbat gehiago irrikarazten duzu). Nahikunde mugagabeak⁸ somatzen ditut biho-

Eg 5,7

Jn 16,23

² Esaera hori sarritan agertzen da gutunetan. Esaterako, 1897ko otsailean, Teresak honetara idatzi zuen: «Nik Zeruan nahiko nuke lurraren gainean nahi dudan gauza bera: Jesus maitatu eta bera maitarazi» (TG 220).

³ "Bidetxoja"ren oinarritzko mugimenduan aurkitzen gara hemen: gurari ezin eutsizkoa, ezinaz konaturatzea, itxaropenaren piztea; erkatu A Esk., 32^a eta C Esk., 2^a arekin.

⁴ Hirutasunari deitu ondoren, Teresak Aitarengana jotzen du; geroago, Jesusi hitz egingo dio («Jaunartze Santua, Gurutzearen aginte-makila»).

⁵ «eta beronen Maitasunugarrezko Bihotzean»: hitz hauek lehenengo idazkeran ez dira agertzen, eta ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenaren eskariz gehitu ziren (baita geroago «zure Bihotz Sakratua poztu» esaldia ere). Izan ere, ekainaren 9an, Teresak Jesusen «bihotzean» ezarrita ditu begiak: «Oi, ene Jainko! Zure maitasun arbuaiatua zeure bihotzean geldituko ote da?» (A Esk., 84^a).

⁶ Eskaintza Mariaren irudiaren oinetan irakurriko da; eta keinu honek Teresaren bizitzan behin eta berriaz azaltzen dena adierazten du, hau da, Teresak Mariaren eskutik eskaintzen diola guztia Jainkoari.

⁷ Joan Gurutzeakoaren aipamen honetaz, ikus C Esk., 31^a, 59. oharra.

⁸ Teresaren nahia aintzat hartuz, ama Ainesek Eskaintzaren Ekintzaren testua teologo bati eman zion aztertzeko jadanik 1895ean. Aztertu ondoren, aita Armand Lemmonier-ek (izen berekoa zen) bere nagusiari eman zion hobeki ikus zezan, eta honek «*désirs infinis*» adierazpenaren ordez, «*désirs immenses*» esaera ezarrazten zuen. Teresak esana bete zuen, nahiz eta ordurako berak TG 107 eta DSA 2n «*désirs infinis*»i buruz hitz egin; ikus «*maitasun mugagabea*»ren eskaria ere Otoi. 2n. Teologiari dago-kionez, Teresa zuzen zegoen: berak ez du Jainkoa gizakiaren neurriaren arabera murrizten (ez honen bekatuaren arabera, eta ez honen gurariaren arabera), baina gizakia Jainkoaren neurriaren arabera lotzen du, mugagaberantz zabalduz (ik. Tomas Aquinokoa eta Katalina Siенокoa).

tzean eta uste onez eskatzen dizut etor zaitezela nire arimaren jabe izatera. Ai! ezin dezaket nahi bezain sarri jaunartu, baina, Jauna, ez zara zeu ahalguztiduna?... Geldi zaitez niregan, sagrarioan bezala, ez zaitez inoiz ere aldendu zure ostitxotik⁹...

Gaiztoen esker txarragatik poztu nahi zintuket eta zu nahigabetzeko askatasuna ken diezadazula arren eskatzen dizut¹⁰, makaltasunez inoiz eror banadi zure jainkozko begiradak behingoan garbi dezala¹¹ nire arima, nire akats guztiak suntsituz, gauza guztiak beragan eraldatzen dituen suak bezala...

Jkd 3, 5-6
Mt 24, 30
Jn 20, 27
Ga 6, 17

Eskerrak ematen dizkizut, oi ene Jaungoiko! eman dizkidazun grazia guztien-gatik, batez ere saminaren arragotik igaroarazi didazulako¹². Pozez ikusiko zaitut azkenengo egunean Gurutzearen errege-makila daramazula; Gurutze hain baliotsu honen partaide ni egitea aintzat izan duzunez gero, uste on dut Zeruan zure antzeko izango naizela eta nire gorputz aintzatuan zure Nekaldiko zauri sakratuen dizdiza ikusiko dudala...

Lurreko erbestaldiaren ondoren, uste on dut Aberrian zutaz gozatzeraz joango naizela, baina ez dut Zerurako meriturik¹³ pilatu nahi, zure Maitasunagatik bakarrik lan egin nahi dut, zuri atsegin eman, zure Bihotz Sakratua poztu eta betiko maitatu-zo zaituzten arimak salbatzeko asmo bakarraz.

Is 64, 6

Bizitza honen arratsean¹⁴, esku utsik agertuko naiz zure aurrean¹⁵, ez baitzuit, Jauna, eskatzen nire egintzak zenbatzeko. Gure zuzentasun guztiek akatsak dituzte¹⁶ zure begietan. Zeure Zuzentasunaz, beraz, nahi dut jantzi eta zeure Maitasunagandik hartu Zutaz betiko jabetzea. Ez dut, ez, nahi beste errege-aulki eta beste koroirik Zeu baizik, oi ene Maite-Maitea!....

⁹ Ama Aines Jesusenak eta ahizpa Maria Hirutasunarenak esaera horretan mirari- eskaria egiten dela uste badute ere (Teresarengan espezie santuen forman benetan irautea), badirudi Teresaren ikuspedia beste bat dela. Izan ere, Honek "har" dezala bera eskatzen du, ogia bere Gorputz bihurtzen badu, jaunartzen duena beregan eraldatzeko egiten baitu. Ik. *Prières*, 95 eta ondorengo orrialdea.

¹⁰ Parekatu lehenengo jaunartzearen kontaketaekin (A Esk., 35^a).

¹¹ Teresak ideia hau *Kantu izpirituaren* hainbat tokitan irakur zezakeen, esaterako: «Jainkoari dagokionean, begiratzea maitatzea da» (XXXII. ahapaldiaren azalpena, II. liburukia, 28. or.; ikus baita Joan Gurutzekoarengandik *Jainkozkoari buruzko glosa*).

¹² Igarotako bizi osoagatik eskerrak ematea ere A Esk. osoan darabilen hariaren ardatza da. 1895eko udaberrian, Teresak, «*bereziki*», eskerrak ematen ditu "*sufritu izanaren / grazia adierazezinagatik*" (TO 16, 1). Ez du berriro sufritzerik eskatzen, baina ezta horretarako ezetzik eman ere. Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenak eta ahizpa Jenofak izan zituzten erreakzioei buruz, ik. *Prières*, 99. orrialdea.

¹³ Oraingo unearen eta gogo-txirotasunaren Santua delarik, Teresak ez du geroko konturik egiten: ez garbitokian ordaintzeko zorrenik, ez ordaina hartzeko egiten diren irabazienik. Teresak ez du ukatzen berak merezimenduak izaterik (C Esk., 33^a), baina ez ditu pilatu nahi. Eta, batez ere, hemen arazoa, eskaintza oso baten bezala, jasotzea baino gehiago dohainik ematea da.

¹⁴ Ik. Joan Gurutzekoaren aholkua (*Maximes [Avisos]*, 70. zk.), Teresak TG 188an aipatua: «Bizi honen ilunabarrean, maitasunean aztertuko zaituzte».

¹⁵ Teresa, beraz, urrundu egiten da Avilako Teresa Santuaren bidetik ere, honek hau idatzi baitzuen: «Kosta ahala kosta, ez iezadazu utz, Jauna, zure aurrean esku hutsik agertzen, saria egintzen araberá emango baita» (*Vie par elle-même*, XXI. kapitulua, 239 eta ondorengo orrialdea). Ik. Conrad de Meester, *Les mains vides. Le message de Thérèse de Lisieux*, argitalpen berria, Cerf, 1988.

¹⁶ Garai honetan karmeldarren idazki askori amaiera emateko erabiltzen ziren esaldi ihartuetariko bat dugu hau.

Zure begietan denbora ez da ezer, egun bat mila urte bezala da, une baten nezakezu, beraz, zure aurrean agertzeko prestatu... Sal 89,4

Maitasun betearen egintza¹⁷ batean bizi nadin¹⁸, erreparitatzat eskaintzen naitzaio zure Maitasun errukitsuari, eten gabe erre nazazula arren eskatuz¹⁹, zuregan daukazun samurtasun mugagabearen uhinak nire arimara gainez jausten utzirik eta honela zure Maitasunaren Martiri izan nadila, oi ene Jaungoiko!... Jn 7,38

Martiritza honek zure aurrean agertzeko prestatu ondoren, azkenez hil nazala²⁰ eta nire arimak luzapen gabe²¹ jo dezala Zure Maitasun Errukitsuaren betiko besarkadara²²...

Bihotzaren taupada bakoitzean, oi ene Maite-Maitea, berritzi nahi dizut aleun aldiz eskaintza hau²³, itzalak behin aldendurik, Betiko Aurpegiz Aurpegi neure Maitasuna berriro esan ahal izango dizudan arte!... Kt 4,6
1 Ko 3,12

Maria Frantziska Teresa Jesus Haurrarena
eta Aurpegi Santuarena
erl. karm. ezd.

Hirutasun Guztiz Santuaren jaia
1895. graziako urteko ekainaren 9.

7. Otoitza

[Sagrarioko Jesusi otoitza]

AGIRIA: CE II, 180^a/f. - EGUNA: 1895eko uztailaren 16a. - OTOITZ-HARTZAILEA: ahizpa Marta. - ARGITALPENA: HA 53, 261. or.

Otoitz hau ahizpa Marta Jesusenarentzat egin zuen, hark eskatuta, haren hogeita hamargarren urtebetetzea zela-eta (PA, 590. or.). Hura ahizpa ez-korukoa

¹⁷ 1923tik aurrera, Elizak barkamenak ezarri ditu Eskaintzaren azken zatia esateagatik, eliztarrak hura egitera bultzetzeko.

¹⁸ Gaixotegian, Teresak bere eskaintzak duen eragina nabarmenduko du, baita bere egintzarik apaletan ere: «*Egiten dudan oro,keinuak, begiradak, neure eskaintzaz gero, maitasunagatik da*» (KH 8. VIII. 2).

¹⁹ Bere erlijio-bizitzan gazte-gazte zenetik Teresak izan zuen guraririk iraunkorrenetarikoa dugu hau; hogeita bost aldiz azaltzen da idazkietan; ik. *Prière*sen, 101. or.

²⁰ Ik. TO 17, 14 eta 15. Joan Gurutzekoa maiz mintzatzen da «maitasun-heriotza»z, eta ideia hori Teresak bere-berea egina du. Ik. KH 27. VII. 5 eta 31. VIII. 9.

²¹ Itxura denez, garbitokiaren aipua da. Ik. A Esk., 84^l.

²² Teresak maiz aurkitu izan du «besarkada» ezkon-berba *Kantu izpiritualean*, arima eta Jainkoaren arteko ezkontza izpiritualari dagokionean.

²³ Ik. KH 29. VII. 9.

denez gero, Erregelak agintzen duen gaueko isiltasunean Sakramentu Santuari egindako bisitarekin amaitzen zen haren eguna. Bisita horretan kontzientzi azterketa egiten du ahizpa Martak; jarduera hori ez zen atsegina, batik bat, erraz «goibel-du» eta «nahigabetzen» zen izaera duen batentzat (Otoi.7 eta 20).

Jesus †

1895ko uztailak 16

Oi Jaungoiko sagrarioko presondegian ezkutua! pozez nator iluntzero zure ondora, zuk emaniko graziak eskertzeko eta amets bat bezala igaro den egunean zehar egin ditudan hutsengatik barkamena eskatzeko...

Sal 89,5

Oi Jesus! bai zorientsu izango nintzatekeela leiala izan banintz, baina ai! triste nago sarritan gauean, hobeki erantzun niezaiekeela zure graziei somatzen dut eta... Zurekin elkartuago izango banintz, maitetsuago nire ahizpekin, apalago eta buru-ukatuago, lan gutxiago izango nuke otoitzean¹ zurekin jarduteko. Hala ere, oi ene Jaungoiko!, nire ezereztasuna ikusiz adorea galdu ordez, konfiantzaz nator zugana, hura gogoan dudala: "Ez dira osasuntsuak sendagilea behar dutenak, gaixoak baidiz". Senda nazazula, beraz, eskatzen dizut, barka diezadazula, eta nik, Jauna, gogoratuko dut "geiago barkatu zaion arimak besteek baino gehiago maitatu behar zaituela!..." Nire bihotzaren taupada gauztiak eskaintzen dizkizut maitasun eta ordain egitetzat eta zure meritu mugagabeekin elkartzen ditut. Arren eskatzen dizut, oi ene Jainko-Senar, zeu izan zaitezela nire arimaren Ordaingarria², jardun dezazula nigan nire mukertasunak haintzat hartu gabe, azkenez ez dut zurea baino beste borondaterik nahi; eta bihar zure graziaren laguntzaz bizi berria hasiko dut eta une bakoitza maitasun eta buru-ukapen³ egintza izango da.

Mt 9,12

Lk 7, 42-43

Gauero zure aldare-oinera honela etorri ondoren, azkenez helduko naiz nire bizitzako azken gauera, orduan hasiko da niretzat betikotasunaren sartzetik gabeko eguna eta han izango dut zure Jainkozko Bihotzaren gainean erbestaldiko burruken atsedena⁴ !...

Hala izan bedi.

¹ Teresaren idazkietan ez dago otoitz-metodirik, esangura hertsian behintzat. Lerro hauek benetan zoragarriak dira, otoitzalditik kanpo zaindu behar den jarrera zehazten baitute: Jainkoarekin bat egitea egunean zehar, elkar maitasuna, eguneroko buru-ukapena.

² Hitz hau behin bakarrik erabili da. Jesus gizakiaren «Ordaingarri» bakartzat hartzea Eliz Gurasoen eta monastegien tradizioirik zaharrenean erroak dituena da.

³ Oso hitz bakana Teresaren idazkietan (A Esk., 33^a eta 48^a), errealitate hori berak etengabe bizi izan badu ere.

⁴ Amaiera osoa, eta otoitz honen hainbat pasarte *Bihotz sakratuari* (TO 23) olerkiarekin konparatzeoak dira; hain zuzen ere olerki hori, ziur aski 1895eko ekainekoa da.

8. Otoitza

[Otoitza Bellière elizgizonaren alde]

AGIRIA: eskuizkribua. - GARAIA: 1895eko urriaren 17tik 21era bitartean. - OTOITZ-HAR-TZAILEAK: Maurice Bellière, apaizgaia. - ARGITALPENA: HA 53, 262. orrialdea eta ondorengo.

Teresak otoitz hau bat-batean egin zuen, eta hartzailea haren neba izpiritual berria izan zen, ama Ainesek 1895eko urrian haren babespean jarritakoa (ik. C Esk., 31¹). Hark Teresaren otoitza erantsi dio honek apaizgaiari emandako baitetzari.

J.M.J.T.

Oi ene Jesus! eskerrak ematen dizkizut nire guraririk handienetako bat, neba apaiz eta apostolu bat izatea, betetzeagatik...

Ez naiz, ezta hurrik eman ere, mesede honen duin, hala ere apaizgorako aukeraturiko arima bat santu izan dadin berariaz lan egiteko grazia zure emaztetxo gaxoari ematea ontzat daukazunetz gero, pozik eskaintzen dizkizut haren alde nire esku izan daitezkeeen *otoitz* eta *sakrifizio guztiak*¹; oi ene Jainko, nolakoa naizen ez begiratzeko eskatzen dizut, nolakoa izan behar nukeen eta nahi nukeen baizik, hau da, zure maitasunean guztiz suturiko lekaimea².

Badakizu, Jauna, nire irrika bakarra zu ezagutu eta maitaraztea dela, orain nire guraria bete izango da; nik otoitz egin eta sufritu egin dezaket soilik, baina karitatearen lotura gozoez nirekin elkartzea ontzat daukazun arima joango da lautadan borrokatzera zuretzat bihotzak irabazteko, eta nik Karmel mendi gainean arren eskatuko dizut eman diezaiozula garaipena.

Ir 17, 9-13

Jesus Jainko, entzun zure Misiolari izan nahi duenaren alde zuzentzen dizudan otoitza, zaindu ezazu munduko arrisku artean³, sentiaraz iezaiozu geroago eta gehiago gauza igarokorren ezereza eta hutsa eta haiek zure maitasunagatik gutxies-ten jakitearen poza. Haren apostolutza gurena oraindik burutu dadila ingurukoan artean, apostolua izan dadila, zure Bihotz Sakratuaren duin⁴...

Jn 17,15

O Maria! Karmelgo Erregina gozo, zuri uzten dizut apaizgaiaren arima, nik haren arrebato ezduinak. Irakats iezaiozu oraindik zelako maitasunez ikutzen zenuen zuk Jesus Haurra Jainkoa eta oihaletan batu⁵, egunen batez Aldare Santura igo eta bere eskuetan Zeruetako Erregea eraman ahal izan dezan.

¹ Berba hau, «*toutes*», azpimarratuta egoteak aditzera ematen du apaizgaiaren eskaria. Eskaintza bakar honen esangura ondo ulertzeko, ikus Teresaren edeskizuna, C Esk., 33¹.

² Otoitz hau Teresak bere nebari eskatuko dio beraren alde egiteko, ik. TG 220.

³ Koarteleko arrisku artean batez ere, berak idatzi duenez, «hala-holako bizitzaren lortzatzak» oraindik gaztearen gogotik ezabatu gabe daudenean.

⁴ Bellière jaunaren debozio maiteetarikoa, bere sinadurari erasten diona: «Bihotz Sakratuaren Oho-rezko guardia».

⁵ Teresa Dumerin-en otoitzaren zantzua, ik. TG 101 eta DSA 2, 25. oharra.

Sal 83,7 Zure soingaineko aratzaren itzalpean beti zaindu dezazula eskatzen dizut, negar-herri hau⁶ utzirik, zure distira ikusi eta betikotasun osoan bere apostolutza aintzatsuaren fruituak gozatu ahal izango dituen une zorionsura arte...

Teresa Jesus Haurarena
Karm. erli. ap.

9. Otoitza

[Zelina eta Teresaren otoitza]

AGIRIA: eskuizkribua. - GARAIA: 1895eko Gabonak. - OTOITZ-HARTZAILEA: ahizpa Jenofa. - ARGITALPENA: *Lettres 1948*, 305. or.

Testu hau farfailezko ertza duen eta Jesus Haurra liliak erauzten ageri duen estanpa baten atzealdean dago; grabatuaren azpian, testu hau dago irarririk: «Zorionsua sega garaira arte orbainik gabe irauten duen lilia, haren zurtasunak betiko egingo du dizdiz paradisu». Erauzitako bi lilien azpian, «Teresa» eta «Zelina» irakur litezke, ahizpa Jenofak idatzita (1897/9/30etik atzera). Irudi hori nobiziaren oskian jarriko da Gabon gauean. Keinu bakun horrek hau nabarmendu-ko du: Teresa bertan dago, ahizpa-maitasuna zaintzen, ahizpa Jenofak profesiorako onartua izateko topatzen dituen zailtasunen erdian; ik. Prières, 110-111. orr.

Mt 18, 19-20

Benetan diotsuet, zuetako bik mundu honetan elkar hartzen badute, edozer gauza eskatzen dutela, lortuko dute Zeruetan dagoan nire Aitagandik. Izan ere, nire izenean bi elkartuta dauden lekuan, beraien artean nago ni.

St. Mat. 18, 19-20

Sal 83,7

Oi ene Jainkoa! zure lili biak ez daitezela inoiz ere munduan banatu eskatzen dizugu¹. Elkarrekin² poztu zaitzate la negar-herri honetan aurkitzen duzun maitasun gutxiaren ordain eta betikotasunean beraien lorabegiekin dirdai berberaz dizdiz egin eta usain berbera isur dezatela zугanantz makurtuko direnean!...

Zelina eta Teresa
1895eko Gabon-gauaren oroigarria

⁶ Agur Erreginaren zantzua.

¹ Gogora dezagun Teresaren pentsaera gai honen inguruan: A Esk., 82^a, eta KH 16. VII. 2.

² Hitz hau otoitzaren giltzarria da, ahizpa bien artean, bereziki azken zortzi urteetan, izan ziren harreman min-minak adierazten baititu; ik. CG, 223 eta 1364. orrialdeak; A Esk., 47ⁱ eta C Esk., 8ⁱ. Lorearen sinboloari dagokionez, ik. TG 134.

10. Otoitza

[Egunaren eskaintza]

AGIRIA: MSC aldakia. - GARAIA: 1895 (?). - OTOITZ-HARTZAILEA: Edith de Mesmay. - ARGITALPENA: NV 1927, 212. orrialdea eta ondorengoa.

Otoitz hau «munduko pertsona batentzat» egin zen: Edith de Mesmay (1860-1927), La Porte de Sainte Gemme-n jaioa, Maria Martinek Mans-ko Bisitazioko ostatuan izan zuen lagun mina. Ziurtzat jo daiteke Maria Bihotz Sakratuarenek eskatu ziola otoitz hau Teresari bere lagun Edithentzat. Bisitazioko lehengo ikasle-ek, talde gisa, jaiera handia diote Bihotz Sakratuari.

Ene Jainko, gaur egingo ditudan egintza guztiak eskaintzen dizkizut, Jesusen Bihotz Sakratuaren asmoetan¹ eta aintzarako; nire bihotzaren taupadak santutu nahi ditut, nire gogoetak eta nire egintzarik xumeenak Haren meritu mugagabeekin elkartuz, eta nire hutsak ordaindu beraren maitasun errukitsuaren labera jaurtiz².

Oi ene Jainko! neuretzat eta maite ditudanentzat zure borondate santua zeharo betetzeko grazia eskatzen dizut, zure maitasunagatik bizitza igarokor honetako pozak eta saminak onartzeko grazia, egunen baten elkar gaitezen Zeruetan betikotasun guztian.

Hala izan bedi.

11. Otoitza

[Zure Antzeko izan nadila]

AGIRIA: eskuizkribua. - GARAIA: 1896 (?). - ARGITALPENA: DE, 517. or.

Erditik tolesturiko pergaminoa (7 x 4, 2 cm). Barrualdean, ezker aldean, Tours-ko Aurpegi Santuaren marrazkia dago. Testua: marrazkiaren gainean, «Egizu ni zure antzeko izan nadila»; haren azpian, berriz, «Jesus!...». Pergaminoa

¹ Horrek ez du bazterten Teresak bereizketa txiki bat egitea "norbaiten alde", hau da, pertsona horren alde otoitz egitearen (TG 226) eta pertsona horren «asmoetarako» otoitz egitearen artean; azkenengoan, pertsona harekin batera, haren ardura eta asmoekin bat eginik egiten du otoitz, oraingo honetan bezala. Garai horretako otoitz-liburuek Bihotz Sakratuari eguneko eskaintza egiteko formula ugari biltzen dituzte.

² Eskaintza-Ekintzaren oihartzuna (Otoi. 6). Testu honekin adierazmoldeetan dituen antzekotasunek bide ematen dute, Otoi. 10 honentzat 1895eko bigarren seihileko data proposatzeko.

gordeta dagoen estalki gainean, ahizpa Jenofak geroago hau idatzi zuen arkatzez: «Santa Teresa Jesus Haurrarenak beste otoitz batzuekin batera poltsatxo batean paparrean itsatsita eraman ohi zuen pergaminoa». - Aurpegi Santuak iradokitzen zizkion nahiak sarritan adierazi izan ditu Teresak (ik. KH 5.VIII.9). Berak olerki baten kantatu zuen: «Nire Zerua hemen behean!...» (TO 20). Otoitz sutsuenen artean sartu du (Otoi.12 eta 16). Berak hori guztia maitasun-garrasi batera laburtuko du: bere Maiteagan guztiz eraldatzeko irrika, Jesusen irudiko egitea bere Nekaldian. «Teresa Aurpegi Santuarenaren otoitz denboragabe eta funtsezkoa izan daitekeena dugu hemen («antzekotasuna»ri dagokionez, ik. Prières, 117. or.).

Egizu z A i n

(Tours-ko
Aurpegi
Santuaren
zigilua)

Jesus!...

(esan nahi du)

Egizu zure Antzeko izan nadila, Jesus!....

12. Otoitza

Aurpegi Santuari Kontsokratzea

AGIRIA: eskuizkribua. - EGUNA: 1896ko abuztuaren 6a. - OTOITZ-HARTZAILEAK: bera, ahizpa Jenofa eta ahizpa Maria Hirutasunarena. - ARGITALPENA: HA 98, 260-262. orr., azkenarako, I. eskk., 20. orrialdea eta ondorengoa. - Letra *etzanak* Teresak idatziak dira tinta gorriz.

Otoitz hau 1896ko abuztuaren 6rako egin zen, Antzaldatzearen jairako. Teresak data hori aukeratu zuen, handikiro Jesusen Aurpegi Gurgarriari bera eta Aurpegi Santuaren izena zuten nobiziatuko lagunak kontsakratzeko. Lehenengo bertsioa, aldagai garrantzitsuak dituena, Prièresera aldatua agertzen da, 124 eta ondorengo orrialdean. - Otoitza 13 x 9 cm-ko marrazki-paper txiki baten atzealdean dago idatzita. Aurrealdean, berriz, Tours-ko Aurpegi Santua irudia du; irudi

hori hiru domina obalatuk inguraturik agertzen da, erdi-koroan jarririk daudela; hauen barruan, sinatzaileen argazkiak datoz, beraien izenak errepikatzen direlarik.

Jauna, estal gaitzazu zeure Aurpegiaren ezkutuan!...

Sal 30,21

Ahizpa Jenofa Santa Teresarena - Maria Aurpegi Santuarena

Ahizpa L.J.Maria Hirutasunarena eta Aurpegi Santuarena

Ahizpa Maria F. Teresa Jesus Haurarena eta Aurpegi Santuarena¹

Maitasun hutsezko mugimenturik txikiena ongariago zaio Elizari beste egin-tza guztiak batera baino²... Garrantzirik handiena du, beraz, gure arimak *Maitasun*ean aritzeak, behingoan heldurik hemen behean geldi ez daitezen eta berehala iri-tsi daitezen *Jesus Aurpegiz Aurpegi* ikustera³...

Aurpegi Santuari Kongsakratzea

Oi Jesusen Aurpegi Gurgarria! gure arimak, zeu berauei emateko, berariaz aukeratzea aintzat izan duzunez gero, zuri kongsakratzera gatoz... *O Jesus*, hau entzuten dizugula iruditzen zaigu: "Ireki, arrebok, ene emazte maite-maiteok, *nire Aurpegia* ihintzez beterik dago eta nire ileak gaueko tantaz". Gure arimek ulertzen dute zure *maitasun*-hizkera, zure Aurpegi gozoa txukatu nahi dizugu eta gaiztoek ahazten zaituztelako poztarazi, haien begietan oraindik estalia bezala zara, arbuia-garrizat zauzkate...

Kt 5,2

Is 53,3

Oi Aurpegi udaberriko lili eta arrosak baino ederragoa⁴! gure begientzat ez zaude estalirik... zure *jainkozko begirada* estaltzen duten *Malakoak Diamante balio*-tsu bezala ageri zaizkigu, guk bildu nahi ditugunak haien balio mugagabeaz gure neba-ahizpen arimak erosteko.

Is 53,3

Zure *Aho Gurgarritik kexa maitetsua* entzun dugu; akitzen zaituen *egarria*⁵ *Maitasun egarria* dela ulerturik, *Maitasun mugagabea* eduki nahi genuke zu ase-tzeko... Gure arimen Senar *Maite-Maitea*, bihotz guztien maitasuna bagenu, *maita*-

Jn 19,28

¹ Teresak bakoitzaren bataio-izenak laburdurretan ezartzen ditu: «Z», ahizpa Jenofa (Zelina); «L. J.» (Luisa Josefina), Maria Hirutasunarena; «Maria F.» (Maria Frantziska), Teresa bera. Ahizpa Jenofa Santa Teresarenaren lehenengo izena «Maria Aurpegi Santuarena» zen (ik. TG 174); eta ahizpa Maria Hirutasunarenarena, «Maria Aines Aurpegi Santuarena» (ik. TO 11 eta 12). Azken honek jaiera handia zion haurtzarotik Aurpegi Santuari. Teresa izan zen Liseux-ko karmeldarren artean «*Aurpegi Santuaren*» «*leinargi- titulua*» eraman zuen lehenengoa (ik. TG 118), baita «*Jesus Haurarena*» eraman zuena ere.

² Joan Gurutzekoa, *Kantu izpirituala*, XXIX. ahapaldiaren gaineko oharra. Lehenengo aldiz azaldu da aipamen hau Idazkietan. Berriro agertuko da ondorengo hauetan: B Esk., 4; TG 221 eta 245.

³ Id. *Maitasun-gar bizia*, I. ahapaldia, 6. bertsoaren azalpena (pasarte hori Teresak lapitzez eginda-ko gurutze batekin markatuko du, gaixotegian 1897an, ik. DE, 493. or.). Zera gogoratu behar da: santuaren hitz hauek Teresak 1896 eta 1897ra arte aipatzen ez baditu ere, bizi izan ditu urteetan; ik. KH 27. VII. 5.

⁴ Teresak hemen hartzen du argia Aurpegi Santuaren letanietarako: «Oi Aurpegi udaberriko lili eta arrosak baino ederragoa!».

⁵ Txatal hau (Jn 19, 28) Teresaren apostolu-garraren sortzailea da: ik. A Esk., 45¹, 46¹. Aste batzuk geroago, B eskuizkribuan (96/9/8), arima-egarri hori maila unibertsalean adieraziko da. Ik. baita TO 31 + ere.

sun guzti hau zuretzat izango litzateke... Honela, ba! emauguzu *maitasun* hau eta etor zaitez zeure egarria asetzera zeure emaztetxo gaixoengan...

Arimak, Jauna, *arimak* behar ditugu⁶... batez ere apostulu eta martirien arimak, haien bidez bekatari gaixoen jendetza zure *maitasunaz* *sutu dezagun*. *Oi Aurpegi Gurgarria*, jakingo dugu zugandik grazia hau lortzen!... Babiloniako ibaien urondo-ko gure erbestaldia ahazturik, doinurik gozoenak abestuko ditugu zure *Belarrietan*; gure bihotzen benetako Aberri bakarra zu zarenez gero gure kantikak ez dira atzerrian abestuak izango.

Oi Jesusen Aurpegi laztana! zure Aintza mugagabea ikusiko dugun betiko egunaren zain, gure gurari bakarra zure *Jainkozko Begiak* liluratzea da geure aurpegia ere ezkutatuz, hemen behean inork ere ezagutu ez gaitzan... zure *Begirada estalia*, hori da gure *Zerua*⁷, *o Jesus!*...

Izenpetua:

Teresa Jesus Haurarena eta Aurpegi Santuarena
Maria Hirutasunarena eta Aurpegi Santuarena
G. Santa Teresarena. Maria Aurpegi Santuarena

13. Otoitza

“Betiko Aita, zure Seme bakarra”

(*Otoi. 13-16:*)

AGIRIAK: eskuizkribuak. - GARAIA: 1896ko uda (?). - ARGITALPENA: HA 07, 305. or. (13. otoitzetik 15.era); HA 98, 260. or. (14 eta 16. otoitzak).

Aztertze beharrak eskaturik, *Teresak bere otoitz-liburuko estampa bakarrean bildurik zeuzkan lau otoitzak (13.etik 16.era) guk banakatu egin ditugu*. Harentzat nortasun-agiri bat bezala da, beraren lekaime-izena laburtzen duena. Beretzat egin zuen, ziurrenik, 1896ko udan zehar. *Marrazki-paperaren aurrealdean (8, 6 x 12, 8 cm), Jesus gaztetxoaren irudia dago erantsita (4, 9 x 6, 5); goiko angelu bietan Otoi. 13ren testua dator; behean, Otoi. 14ren testua. Atzealdean, berriz, Aurpegi Santuaren irudia (3, 1 x 4, 4), Otoi. 12rena bezalakoa. Goian eta alboetan, Otoi. 15en testua dago; eta behean, azkenik, Otoi. 16ren testua.*

⁶ Tours-ko otoitz-liburu gehienek ondorengo hau irakur litekeen «Maitasun-garrasia» dakarte: «Arimak, arimak behar ditugu».

⁷ Amaiera hau TO 20ren oihartzuna da: *Nire Zerua hemen behean!* (1895eko abuztuaren 12an) eta TO 32an; *Nire Zerua Niretzat* (1896ko ekainaren 7an); olerki bion artean kokatu behar da Teresaren fedearen gausean sartzea.

Nire Aitari nire Izenean eskatuko diozuen guztia emango dizue...

Jn 16,23

Betiko¹ Aita, zure Seme bakarra, Jesus Haur gozoa neurea dut, zuk eman dida-du eta². Beraren jainkozko Haurtzaroko meritu mugagabeak eskaintzen dizkuzut eta beraren Izenean eskatzen dizut Jainkozko Bildotzari betikotasunean jarraituko dioten haurren konta ezin ahala aldra Zeruko pozetara deitzeko.

Jn 3,16

Ap 14,4

14. Otoitza

[Jesus Haurrari]

Ni Teresaren Jesus naiz¹

Oi Haurtxo² ! nire Altxor bakarra, zure gutizien menpe uzten dut neure burua, ez dut beste pozik nahi zuri irribarre eragitea baizik. Irar itzazu nigan zure graziak³ eta zure haur bertuteak⁴, nire Zerurako jaiotza egunean⁵, aingeruek eta santuek eza-gut dezaten nigan zure emaztetxoa.

Teresa Jesus Haurrena

¹ Adjektibo hau oso bakana da Teresarengan (hemen eta Otoi. 15ean); berak gehiagotan idazten ditu «zeruko Aita» (TG 107 eta 247; C Esk., 34^a), «Aita Santua» (C Esk., 34ⁱ) eta «Aita errukitsua» (TG 220).

² Honek Joan Gurutzekoa eta haren «Bihotz maiteminduren otoitza» ekar dezake gogora: «Nireak dira zeruak eta nirea lurra (...) Kristo neurea baitu eta dena neuretzat». Teresak "sarri" errepikatzen duen Eskaintza-Ekintzaren oihartzuna ere entzun daiteke hemen. Ik. baita TG 137 ere.

³ Avilako Teresak behin klaustroan aurkitu zuen «haurraren» erantzuna da; ik. *Les fioretti de sainte Thérèse d'Avila*, J. Gicquel, o.c.d. (Cerf, 1977, 14. or.).

⁴ Teresak hamabi bat urteko Jesus Haur bat du begien aurrean. Ezkerreko hatz erakusleaz bere bihotza erakusten du, eta eskuinekoaz zerua seinalatzen du; zertzelada horrek fedearen probaren erdian aurkitzen den Teresa hunkiturik uzten du. Gaixotegian ere begien aurrean izango du; ik. KH. 25. VII. 4.

⁵ *Kantu izpiritualetik hartutako adierazmoldea*: «Begira zintudala,/zureen itzalak ninduen jantzi...». Jakina da Teresak maita-maite zituela ahapaldi horiek (XXXII, XXXIII, XXXVI. ahapaldiak). Behin eta berriro adierazi behar da zein toki garrantzitsu duen Joan Gurutzekoak Teresaren gogo-ibilbidean 1896ko uda honetan. Izan ere, laugarren aldiz hartzen du argia Santuaren pentsamenduetan otoitz-libururako estapak moldatzeko: *Jainkozkoari buruzko glosa* (TO 30); TG 188, Santuaren irudia dakarren estampa eta haren pentsamendu batzuk atzealdean; *Aurpegi Santuari Kotsakratzea* (Otoi. 12); eta erregistro hau.

⁶ Kontuan izan behar da ez dela hemen ari inolako itxurakeriaz, «bertute apalez» baizik (TO 35, 3), Luziferrek lehenxego aldarrikatutako bertute harroen alderantzizkoez (DSA 7, *Apaltasuna garaille*). Testu honek (Otoi. 14), *Prièresen*, «haurtxo»ak edo «txoritxo»ak B eskuizkribuan duten lekua betetzen du, hau haren garai berdintsukoa baita. Ik. TO 13, 4. oharra.

⁷ Teresak gauero frantsesez jantokian entzuten duen Martirologioaren «dies natalis» da. Hauxe da bere heriotzaz honela mintzo den une bakarra.

15. Otoitza

**“Betiko Aita,
eman didazunez gero”**

“Erreinu batean, printzearen irudiaz nahi den guztia eskuratzen den bezala, era berean nire Gizatasun Santuaren txanpon baliotsuaz, hau da, nire Aurpegi Gurgarriaz, nahi duzun guztia lortuko duzu¹”.

(G:J.k Ahizpa M. San Pedorenari)

Aita Betikoa, ondareztat zeure Jainko-Semearen Aurpegi Gurgarria eman didazunez gero, Berau eskaintzen dizut eta eskatzen txanpon azkengabe baliotsu honen ordeztu, ahaztu ditzazula zuri eskainiak zaizkizun arimen esker txarrak, eta barka diezaiezula pekatari gaixoei.

16. Otoitza

[Aurpegi Santuari]

Ni Teresaren Jesus naiz¹

Oi Jesusen Aurpegi Gurgarria, nire bihotzari zorarazten dion Edertasun bakarra, irarri, arren, nigan zure Jainkozko Antza, ezin dezazun zure emaztetxoaren arima begiratu Zeure Burua ikusi gabe².

Kt 1.1 Oi ene Maite-Maitea, zure maitasunagatik onartzen dut hemen behean zure Begiradaren gozoa ez ikustea, zure Ahoaren ezinesanezko musua ez sentitzea³, baina zure maitasunaz sutu nazazula eskatzen dizut, laster akitu nazan⁴ eta behingotan zure aurrean agerraraz diezadan:

Teresa Aurpegi Santuarena

¹ Ahizpa Maria San Pedorenak (1845/10/28an) bere barruan entzun zituen hitzen transkripzio laburtua; hitzok *Vien daude* aipaturik, 234. or.an, eta Aurpegi Santua gurtzen dutenei egindako «Gure Jaunaren Agintzetarik» zazpigarrena osatuko dute. Teresak bere otoitz-liburuko erregistroan erabiltzen dituen esamoldeetariko batzuk iturri horretatik datoz («*Père éternel*», «*imprimer... sa divine ressemblance*»).

¹ Ausarki bereganatuko ditu Teresak Jesus Haurren hitzak eta haiekin hitz-jokoa egin. Pasadizutik izenaren misteriora igaroko da, bere deitura osatzen duten bi adierazpenak parez pare jarritz: *Teresa Jesus Haurrarena eta Aurpegi Santuarena*.

² Berrito aurkitzen dugu hemen *Kantu izpirituala*, XXXVI. ahapaldia, 2. bertsoaren azalpena: «Zure edertasunera hain eraldatua izan nadila ni, ezen, edertasunez antzeko izanik, biok ikus ditzagula geure buruak zure edertasunean, honezkeru zure edertasuna izanik».

³ «*Ez ikusi... ez sentitu*»: oinarritzko jarrera da Teresarengan, 1896ko Bazkoko probarekin oraindik gehiago markatzen dena. «*Maitasunagatik*», onartzen du berak maitasunaren sentimendurik gabe egoitea.

⁴ Joan Gurutzeko Santuak iradokitako adierazpena; hala ere, honek «brehala agorturik» dio (ik. Otoi. 12).

17. Otoitza

“Jauna, gudari-taldeen Jainkoa”

AGIRIA: CE II, 175^a/i. - GARAIA: 1896-1897. - ARGITALPENA: HA 07, 306-307. orr. (berrikutua); *Prières* 1988, 50. orrialdea eta ondorengoa.

Barne- kritikak bide eman digu otoitz honen data 1896-1897ko neguan zehar jartzeko (ik. Prières, 133 eta ondorengo orrialdea). Negu horretan, birikeriak aurrera egin eta Teresaren indarrak janez doa, berak heriotza hurbil antzematen duelarik. Areago, fedearen kontrako tentaldiek erasotzen diote. Bakarkako borroka horretan, Joana Ark-ekoari begiratzen dio. Joana Ark-ekoaren zein estanpaz ari da izenburua (ez baita Teresak jarritakoa, Prozesuetako kopiakoa baizik)? «Gatibu» eta «katea» hitzek (Otoitzean) VTL 13. zenbakikoa dela pentsaraz diezagukete, hau da, Joana (=Teresa) presondegian.

Joana Ark-eko Gurgarriaren
estampa batek eragindako otoitza

Jauna, gudari-taldeen Jaungoikoa, hau esan diguzu zure Ebanjelioan: “Ez naiz etorri bakea ekartzera ezpata baizik¹”, arma nazazu borrokarako, sutan nago zure aintzarako borrokaren irrikaz, baina arren eskatzen dizut, senda ezazu nire kema... Orduan Dabid errege Santuarekin oihu egin ahal izango dut: “Zeu zara baka- rrik nire babeskia, Zeuk gertatzen dituzu, Jauna, nire eskuak gudurako...”

Oi ene Maite-Maitea! ulertzen dut zelako borrokarako nahi nauzun, ez da gudu-zelaietan² izango nire borroka.....

Zure Maitasunaren gatibu naiz, neure borondatez tinkatu dut Zuri lotzen eta zuk madarikaturiko³ mundutik betiko banatzen nauen katea... Nire ezpata Maitasu- na baizik ez da, honekin botako dut arrotza erreinutik, Errege aldarrikaraziko zaitut⁴ zure Jainko-Ahalmenaren menpera etorri nahi ez duten arimetan.

Inola ere, Jauna, ez duzu ni bezalako tresna hain makalaren beharrik, baina Joana zure emazte birjina eta adoretzuak esana da: “Borroka egin behar da Jainkoak garaipena eman dezan⁵”. Oi ene Jesus, borroka egingo dut, beraz, zure Maitasuna- gatik nire bizitzaren arratsera arte⁶. Lurrean atsedetik gozatu nahi izan ez duzenez gero, zure jarraibideari segitu nahi diot eta uste on dut honela zure ezpainetatik

1 Erg 19,
10.14
Mt 10,34
Jdt 13,7
Sal 143, 1-2

1 Ko 1,27

¹ Ik. BT, 164 eta ondorengo orrialdea. Testuan berriro agertuko da geroago «Nire ezpata». Irudi honetaz, ik. *Nire armak* liburuxka (1975), 102, 121 eta ondorengo orrialdea.

² Ik. B Esk., 2^a eta TG 224. 13 bider dago erabilia Idazkietan «borroka» hitza, eta 1896 eta 1897. urteetan batez ere behin eta berriro agertzen da (bederatzia aldiz).

³ Adierazpen hau Teresaren luman agertzen den une bakarra. «Mundua»z ari da, esangura joanda- rrean (ik. Jn 17).

⁴ Ideia bera dago TG 224an, Teresak Joanaren egitekoaren azalpen ageria ematen duelarik.

⁵ Joanak bere epailei auzibidean zehar emaniko erantzun gogoangarria.

⁶ Ik. Teresak KH 9. VIII. 1.ean egindako baieztapen gogorra.

Jn 12,26 irtendako agintzari hau beteko dela nigan: "Norbaitek jarraitzen badit, ni nagoen tokian han izango da hura ere, eta nire Aitak goratu egingo du".

I Ko 13,12 Zurekin egon, zuregan egon, hau da nire gurari bakarra... beteko dela ziurtzen didazu: honek jasanarazten dit erbestaldia betiko Aurpegiz Aurpegiko egun dirdaitsuaren zain!...

18. Otoitza

[Oi Errugabe Santuak!]

AGIRIA: eskuizkribua. - GARAIA: 1896ko amaiera. - 1897ko hasiera (?). - OTOITZ-HARTZAILEA: ahizpa Jenofa. - ARGITALPENA: NV 1927, 213. orrialdea eta ondorengoa; eta HA 53, 258. orrialdea eta ondorengoa.

Farfailezko ertza duen estampa (11, 9 x 8, 2 cm), gudari bat («San Sebastian») irudikatzen duena, Tarzisioren laguntza ematen, eta bi aingerutxo («Haurtxo Errugabeak»), palma-adarra eta koroa aurkezten dituztelarik. Goian kopoi bat ikus liteke, ostia dirdaitu batekin eta bi bertso-lerro grabaturik: «Beraren bihotza ezagutzen duen gudari ausart honi / Haurrak bere isilpekoa agertzen dio: "Jauna daramat nik». Otoitz hori ahizpa Jenofarentzat egin zuen (beharbada, haren profesaren lehenengo urteurrena zela-eta, 1897ko otsailaren 24an).

Ap 7,9 Oi Errugabe Santuak¹ ! nire Palma-adarra eta nire Koroa zuenen antzekoak izan daitezela!

Oi Sebastian Santua² ! lor iezadazu zure maitasuna eta zure adorea zuk bezala borrokatu ahal dezadan Jaungoikoaren aintzarako!...

I Erg 19, 10,14 Oi Kristoren Gudari Aintzatsua³ ! zuk gudari-taldeen Jainkoaren ohoreagatik garaile borrokatu duzun eta Martiri palma-adarra ta koroa irabazi dituzun horrek, entzun nire isilpekoa⁴ : "Tarzasio⁵ aingeruzkoak bezala Jauna daramat". Haur bat

¹ Gai honen inguruan, ik. DSA 2, 2^a; DSA 6, 5^a eta 9^a; TG 182; TO 44 (1896/12/28).

² Hain ezaguna den santu hau Buissonnets-en oso irakurria zen Fabiola obrako heroietariko bat da. 1893tik aurrera, ama Ainesek Sebastianekin konparatzen du Zelina (honek debozio berezia diolarik). Teresak gerrari hori Zelinaren Profesako ohorezko laguntaldean sartzen du (TG 182). Bere heriotz ohean, ahizpa Jenofak, 1959ko urtarrilaren 20an (santuaren jaiegunean) hau kantatuko du: «Oi San Sebastian handia, Jainkoak ezer ukatzen ez diona!».

³ Ik. TO 47, 5, 1897ko urtarrilean egina.

⁴ Teresak estanparen atzealdean inprimaturiko testua berriro hartuko du bere erara.

⁵ Erromako Elizako gaztetxoa, atxiloturik zeuden kristauei ezkutupean Eukaristia eramaten ari zela martiri hila (255. urte inguruan): sinesgabe batzuekin aurkitu zen bidean eta haiei ezkutuan zeramana emateari uko egin zion, eta hil egin zuten.

baizik ez naiz eta hala ere borroka egin behar dut egunero, nire ariman estalirik dagoen baliozgaineko Altxorra gordetzeko..... Sarritan gorritu behar dut neure bihotzeko odolaz⁶ borroka-tokia...

Oi Gudari Ahaltsua! Izan zaitetz nire zaindari, eutsi iezadazu zure beso garai-
lez eta ez naiz etsai-indarren beldur izango. Zure laguntzaz borrokari ekingo diot
bitzaren arratsera arte, orduan Jesusengana eramango nauzu eta beronen eskutik
zuk lortzen lagundu izango didazun palma-adarra hartuko dut!...

19. Otoitza

[Sinismen egintza]

AGIRIA: eskuizkribua. - GARAIA: 1897ko ekaina - uztaila (?). - ARGITALPENA: *Le Triomphe de l'Humilité*, 114. or.

Data hori proposatu dugu, idazkera eta edukia aztertu eta gero. Otoitz horren jatorrizkoa, arkatzez idatzitakoa, gutun baten ertz baten zati baten gainean dago (2 x 9 cm inguru); zati hori edozelan dago ebakita.

1896ko Bazkoaren ostean, Teresak betiereko bizian duen fedeak proba gogorra jasan beharko du. 1896ko urriko bakarraldian zehar, isilpekoak aita Godefroid Madelaineri esan zizkion, eta beronek aholku legez Sinesten dut idatzi eta bihotzaren gainean eroateko esan zion. Berak orduan Apostoluen Ikurra bere odolaz idatzi zuen, eta bere ebanjelioaren amaieran erantsi.

1897an, ilunbeak usuagotzen dira. Ekainaren 9an, berau idatzi zuen: «Urtebetean neure bizitza osoan baino fede-aitormen gehiago egin dudala uste dut. Borrokaldi berri bakoitzean (...) Jesusengana joan ohi naiz lasterka; gertu nagoela diotsat neure odola azken tantaraino ere isurtzeko Zeru bat dagoela aitortzearren». (C Esk., 7^a). Ik. baita KH 7.VIII.4 eta DE, 526. or. ere. Ik. Prières, 142. or.

Ama Ainesek ahizpa Luisa Jesusenari (Lisieux-ko karmeldarra 1919tik 1982ra) esan zion Teresa batzuetan gogo itzelak harrapatzen zuela biraoak jaurtitzeko; horrelakoetan, Teresak ezpainei gogor egiten zien haginka, bere gogoz kontra etortzen zitzaizkion hitz zatarrak ez oguzteko (ahotik belarrirako ekandua, DCL).

Ene Jainkoa, zure graziaren laguntzaz gertu nago nire odol guztia isurtzeko neure sinismena aitortzearren.

(*Beste irakurkera bat: Kredoko sinisgai bakoitzagatik*)

⁶ Ik. TO 54, 23. Teresak modeluan zegoena baino «odol» gehiagoz margotu du estampa. Esaldi osoan zehar kutsu autobiografikoa nabari da: Teresak «odola eman arte» borrokatzen du tentaldien aurka; ik. Otoi. 19.

20. Otoitza

Apaltasuna lortzeko otoitza

AGIRIA: CE II, 181¹/183^a. - GARAIA: 1897ko uztailaren 16a. - OTOITZ-HARTZAILEA: ahizpa Marta. - ARGITALPENA: HA 07, 307-308. orr (berrikutua); *Prières* 1988, 53. or.

Otoitz hau Marta Jesusenarentzat egin zuen, honen hogeita hamabi urteak zirela-eta, 1897ko uztailaren 16an (TG 256k baieztatu duenez). Azken hau ez-korukoa denez gero, edozein ahizpak hau edo bestea agintzeko egoeran dago, eta aurka egiteko zuen joeragatik gogor egiten zaio esanak egitea. Horregatik Teresak «Jesus gozo eta bihotz-apala»ri begiratzeko eskatzen dio. Garai horretan, Teresak ez du beste hizkerarik erabiltzen nobiziekkin, Maria Hirutasunarena (TG 264), Maria Eukaristiarena (DE, 778. or.) eta batez ere ahizpa Jenofarekin (TG 243).

Jesus!

1897ko uztailak 16

Apaltasuna lortzeko otoitza

Mt 11,29 Oi Jesus! lurrean Bidazti zinenean esan zenuen: “Ikasi nigandik gozoa eta bihotz-apala¹ bainaiz eta zeuen arimen atsedena aurkituko duzue”. Oi Zeruetako Errege Ahaltsua, bai, nire arimak zu, esklabu eraz eta izatez jantzirik, apostoluen oinak garbitzeraino jaisten ikustean aurkitzen du atsedena. Orduan, apaltasunez ibiltzen niri irakasteko esan zenituen hitz hauetaz oroitzen naiz: “Jarraibidea eman dizuet, nik egin dudana zuek ere egin dezazuen, ikaslea ez da Irakaslea baino gehiago... Hau ulertzen baduzue zorionekoak izango zarete betez”. Ulertzen ditut, Jauna, zure Bihotz gozo eta apaletik irtendako hitz hauek, bete egin nahi ditut zure graziaren laguntzaz.

Jaitsi egin nahi dut apal eta neure borondatea neure ahizpenaren menpe jarri, ezertan ere aurka egin gabe eta niri agintzeko eskubiderik duten² ala ez azertu gabe. Inork ez zeukan, oi ene Maite-Maitea, eskubide hau zutzaz eta hala ere obeditu egin zenien ez Maria Birjinari eta S. Joseri bakarrik, baita zeure borraroei ere. Orain Ostian ikusten zaitut zeure burua ezereztatze³ gaina ematen. Norainokoa den zure apaltasuna, oi Aintzaren Jainko-Errege, zure apaiz guztien mende jartzean, ezetarik bereizkuntzarik egin gabe maite zaituenen eta zure zerbitzuan, ai! epel edo hotz diranen artean... Haiek deituz jaisten zara zerutik, haiek aurreratu nahiz atzeratu dezakete Sakrifizio Santuaren ordua, zu beti zaude prest....

Mt 11,29 Oi ene Maite-Maitea, Osti zuriaren estalkipean bai gozo eta bihotz-apal agertzen zatzaizkidala! Niri apaltasuna irakasteko ezin zaitezke gehiago jaitsi, nik ere,

¹ Otoitzean hiru bider errepikatzen den esaldi hau bizigarri zaio Teresari, batez ere bere azken asteetan (ik. KH 15. V. 3).

² Ik. *Kristoren Antz-Bidea*, III, 49, 7 eta CSG, 118. or.

³ Hitz honen («anéantissement») erabilera bakarra Idazkietan.

zure maitasunari erantzuteko, nire ahizpek azkenengo tokian ipini nazatela gure izatea nahi dut eta toki hau neurea dela ongi sartu buruan. Lk 14,10

Arren eskatzen dizut, ene Jesus Jainko, apalkuntza bat bidal diezadazula bes-teen gainetik jaikitzen saia nadin bakoitzean.

Badakit, oi ene Jainko, zuk beheratu egiten duzu arima harroa, baina apaltzen denari aintzazko betikotasuna ematen diozu, azkenengo mailan, beraz, jarri nahi dut, zure apalkuntzetan parte hartu, Zeruetako erreinuan "zurekin parte izan dezadan". Lk 14,11
Lk 14,10
Jn 13,8

Baina, Jauna, ezaguna zaizu nire makaltasuna; goizero hartzen dut apaltasunez ibiltzeko erabakia eta gauean oraindik harrokeria-huts asko egin ditudala aitortzen dut, hau ikusiz adorea galtzeko zorian egoten naiz, baina, badakit, adorea galtzea ere harrokeriatik datorrena. *Zugan bakarrik*, beraz, nahi dut, oi ene Jainko, neure itxaropena jarri; dena dezakezunez gero, egizu, arren, sor dadila nire ariman nahi dudan birtutea⁴. Zure mugagabeko errukiagandik grazia hau lortzeko oso sarritan esango dizut: "Oi Jesus, gozo eta bihotz-apal, bihur ezazu nire bihotza zeurearen antzeko!". Mt 11,29

21. Otoitza

"Zeruko Erregina banintz"

AGIRIA: eskuizkribua. - EGUNA: 1897ko irailaren 8a. - ARGITALPENA: HA 07ren testutik kanpora, 48-49. orr. (fakzimil berrikutua); *Lettres 1948*, 438. orrialdea eta ondorengoa.

1897ko irailaren 8an, beraren profesioaren zazpigarren urteurrena delarik, baretasun eta samurtasuneko eguna da gaixorik den Teresarentzat; ik. KH 8.IX. «Garaipenen Andre Mariaren estampa berriro ikustea eskatzen du; Karmelen sartzen utzi zionean (bere) aitak emandako loretxoa bertan itsatsi zuen estampa, hain zuzen ere» (ahizpa *Jenofa*, PO, 309. or.). Orduantxe idatzi zuen berak atzealdean, esku dardartiz, azken Otoitza hau. «lurrean idatzi zituen azken lerroak izan ziren».

21. otoitza hau, lehen begiradan korapilatsua, eta, beraz, harrigarria Teresarengan, San Augustinen hitz hauetan argia harturik egindakotzat hartu da: «Jauna, nire ama biziki poztan da, zu Jainkoa zarela pentsatzen duenean; baina ezinezko batez, Augustin Jainkoa izatea eta Jainkoa Augustin izatea gerta baledi, nik nahia-go nuke zu Jainkoa izan zintezan eta ez Augustin». Pasarte hori aita Ribadeneira agurgarriaren *Vie des saints et fêtes de toute l'année* dago. *Vie des saints* hau jantokian irakurri ohi zen, Teresaren garaian. Baliteke ama Ainesek gaixotegian zerbait berriro irakurtzea, san Augustinen egunerako, abuztuaren 28erako. Beste aldetik, 21. otoitza honek Teresak maite duen ideia bat ekartzen du gogora: «Nire Ama

⁴ Ik. KH 6. VII. 8. eta 7. VIII. 4.

Birjina maitea, zu Amatzat zaitudalako ni zu baino Zoriontsuago naizela iruditzen zait, zuk ez baituzu Ama Birjina bat maitatzeko» (TG 137, 1892ko urriaren 19koa; *idea hori beste era batera KH 11.VIII.4n ere hartuta dago*). Hemen maitasun-garrasi baten adierazten den nortasun-aldaketa modukoren bat nabari da.

Oi Maria, Zeruko Erregina banintz eta zu Teresa, Teresa izan nahiko nuke, zu Zeruko Erregina izan zaitezten!!!.....

1897ko irailak 8

AZKEN ELKARRIZKETAK



AZKEN ELKARRIZKETEI SARRERA

Arima baten historiaren lehenengo argitalpenetik, 1898.ekotik, Ama Ainesek XII. kapituluan, “Nobizien aitormenen” ondoren, Teresaren esaldi asko sartu zituen “Azken elkarrizketak” izenpean. Izen hau tradizionala izango da, *Novissima Verba* argitalpenean azpi-izenburutzat geldituko da, eta Mendeurreneko argitalpen kritikopak izenburutzat hartuko du berriro. Testu hauek Ama Aines Jesusenak jasoriko oharrei dizkiegu zor gehien bat. Bere ahizparen zazpirehun eta hogeita bost esaldi bildu zituen honen azken gaixoaldian (beste lekuko batzuk ziurtaturiko esaldiekin, zortzirehun eta berrogeita hamar inguru dira).

1. TERESAREN OHEBURUAN. AMA AINES JESUSENA

1897ko udaberrian, Teresaren osasuna behingoan galdu da. Maiatzaren 30ean Ama Aines zirrarak jota gelditu da aurreko urteko bi hemoptisien berriaz (1896ko ostegun eta ostiral santuan, ik. C Eskuizkribua, 4ⁱ/5^a). Horregatik ekainaren 2an Ama Ainesek oroipenak idazten jarraitzeko agindua eman diezaiola ahizpa Teresari iradokitzen dio Ama Maria Gonzagarenari (ik. *Eskuizkribu autobiografikoei* sarre-ra).

Bere aldetik, ahizparen hitzak idatzi egingo ditu. Eskatu ote du baimena, gero “hil-gutuna” idazteko haietaz baliatzeko? Hori baieztan du ahizpa Jenofak beranduko ohar eskuz idatzi baten. Dena dela, Ama Ainesek, 1896ko martxotik aurrera nagusi-ardurarik ez zuela, ez zuen ekainera arte itxaron horretan hasteko. Zergatik?

Arrazoi bat baino gehiago aurkez daitezke. Ama Ainesek, ekainaren hirua aurretik, bere pozbiderako Teresaren irakatsi batzuk gorde nahi izan dituela, ez dago zalantzarik. Ez zituen ahizpa Jenofak, bere aldetik, “Nobizia baten oroipenak” bildu, Teresaren baimenaz? Baina ekainaren 4az gero, Ama Ainesek eginkizun ofiziala sentitzen du bere gain. Noski, ezin zezakeen somatu egun batez Lisieux gainera zirimolatuko den “aintzazko haizerauntsia” (Pio XI.aren esanetan), baina bai ikusten du ahizpa gazte honen heldutasun guztiz aparta. Famili-arteak arrazoiak ere aipatu behar dira. Leoniak, Teresa ikusterik ez duela, honela idazten dio Zelinari: “Bai lurrindu behar zaituela bere bertuteekin! Guzti hau idatzi ahal bazenu, bai pozgarri izango litzatekeela niretzat hau guztiau edukitzea, nik ez baitut, zuek bezala, ahizpatxo maiteok, gure ahizpa kutunaren ondoan egoteko zorionik!” (1897/7/18).

Bi egun lehenago, Ama Ainesek Teresaren esaldi batzuk bidali zizkion Guérin Familiari, gaixotegian entzunak (7/16). Ahizpa Maria Eukaristiarenak berdin egiten du. Denak ohartzen dira ez dela ezer galdu behar.

Ama Ainesek, beraz, 1897ko ekainaren 5ean hasten du bere gaixozain eginkizuna, komunitateak Mendekosteko maitinak abesten dituen bitartean. Teresa gaixotegira eraman zutenetik, uztailaren 8tik, haren oheburuan jartzen da liturgi ordu aldietan, komunitateko solasaldietan, eta gaixozainak (ahizpa San Stanislas eta ahizpa Jenofa) beste zerbitzu batzuetarako behar diren bakoitzean.

Harreman min sakona berpiztuko da gaixoarene eta "*amaren*" artean ohizko ikustaldi hauetan zehar. Bere makaltasuna handia izan arren, Teresa ez da jausten haurtzaro-regresioan: "*Orain*" (ik. DE 43.or., 113.oharra), hain lotura gabe bizi denez gero, mamitasun hau argi-argi bizi dezake. Ikustaldi hauek indargarri zaizkio bere egoeran. Ama Ainesentzat ere lagungarri dira, oso sentibera baita eta ahizpa gaztearen heriotza gerta beharrez jota bizi baita. Atzera egin gabe, galderak egiten dizkio, orduz eta orduz kanpo. Galderak eta erantzunak sortzeko ekin honek -bazueta gogaikarri izan arren- alde ona dauka: behartu egiten du gaixoa pentsakizuna zehaztera, erabakia hartzera. Benetako ikerketa, Teresak bere ahizpa kutun Joana Ark-ekoak jasandako galdeketekin konparatzen duena (KH 20.VII.6). Ama Ainesek honela paregabeko informazioa biltzen du; orduan ezin zezakeen haren garrantzi historikoa somatu.

2. AHIZPA JENOFA ETA GAINERAKO AHIZPAK

Ama Aines Jesusenaren ondoren, sarrien ahizpa Jenofa dago gaixotegian. Adeitasunagatik eta nagusiaren oniritziz, ahizpa San Stanislasak, lehenengo gaixozainak, hari uzten dizkio bere eskubideak. Gaixotegian, gaixoak ahizparen hezkuntza-eginkizuna ez dela amaitu uste du, eta gaixozainak bilduriko azken elkarrizketak ekin honen lekuko dira. Hau ez da eragozpen, Ama Ainesekin gertatzen den bezala, bere barrua aske asaskatzeko eta hari bere onginahia agertzeko. Ama Ainesek Teresak esandako asko jasotzen dituela jakinik, ahizpa Jenofak berariaz berari dagozkionak eta bere nobizia-oroi penak osatzen dituztenak idazteaz du nahiko (ik. CSG 180-200.or.).

Ahizpa Maria Bihotz Sakratuaren eginkizuna, bere besoetakoaren ondoan, beste bi ahizpena baino xumeagoa da. Bere eginkizunek asti txikia uzten diote. Ama Maria Gonzagarenaren baimenari esker, behinik behin solasaldiak igaro ditza ke gaixotegian eta Teresaren hitz batzuk jaso. Ahizpa Maria Eukaristiarenak ere (Teresaren lehengusinak, botikariaren alabak) oharren batzuk hartuko ditu, baina batez ere benetako "osasun-berriak" bidaliko dizkie gurasoei, lehenengo mailako informazio saila emanetz¹. Maria Hirutasunarenari, gaixozain laguntzaileari, dago-kionez, kendu egiten zaio eginkizun hau, Teresa gaixotegira jaisten den unean. Kexua agertzen du garrazki. Hezitzaileak agirika egiten dio eta era berean poztu egiten du.

¹ "Lettres de témoins" DE-n, (666-774.orr.) argitaratua, eta JEVan, 241-262.or. laburbildua.

Jakina, testigantza guztiok kritikaren bahean irazi behar dira, idatziak barik berbak dira eta.

3. AMA AINESEN BEHIN ETA BERRIZKO IDAZKETAK.

Ama Ainesek idatziriko bertsioren historia hemen kontatzea gogaikarri litzateke, hain da korapilatsua historia hau (ik. *Derniers Entretiens* Mendeurreneko argitalpen kritikoa, 1971-1992). Nahiko izango da hemen etaparik nagusien laburpena.

1910ean, Ama Ainesek aitorten hau egin zuen Gotzai-aurreko Prozesuan: "Ahizpa Teresa Jesus Haurrenaren azken gaixoz eta heriotzaz orain esan dudana nire oroipenen oso laburpen eskasa baino ez da. Haren bizitzako azken hilabeteetan idatzi egin nituen, egunero, lekuko nintzen heinean, haren eguneko zehaztasunak eta batez ere esaten zituen hitzak. Ezin izango nuke aitorten hau hobeki osatu Auzi-mahairi ohar hauen aldaki bat utzita izan ezik". Hauek jarraian agiri dira Gotzai-aurreko Auzibidean (PO)².

Ahizpa Jenofak zentzu berean egin du aitorten: "Ama Aines Jesusenak une berean idazten zuen Teresa Jesus Haurrenak ohe ondora hurbiltzen zirenei esaten ziena; hitzez hitz idazten zuen, gaixo maiteak esaten zuen legez" (PO, 305. or.). Hura ere koaderno batez mintzo da, baina berrogei urte geroago, *Conseils et souvenirs* liburuan (171. or.) "orriak" zirela zehazten du. Orriotatik bat bakarrik, agenda batetik kendua, gorde izan da, Ama Ainesen idazkera daramala (ik. DE argitalpenen testotik at haren argazkia). Baina, lehenxeago edo geroxeago, hark garbian jarri behar izan ditu bere oharrak koaderno batean.

Behin eta berriro erabiliko ditu: *Arima baten historia*-ren XII. kapitulurako, gero bost "koaderno berdetan", Teresaren Prozesuaren bigarren postulatore zen Teil jaunarentzat, 1909ko otsailean, gero Gotzain-aurreko Auzibideko bere aitorpenerako (ik. *gorago*), 275 esaldi biltzen dituelarik. Bertsi hau, koaderno berdeetatik hurrekoa, hieratikoena da; Teresaren hitzetatik eredugarrienak baizik ez ditu gordetzen, santutasun-arauen erakoenak. Azken Elkarrizketak, beraz, -zati baten behinik behin- Beatifikazio Auzibideari loturik daude, are gehiago Ama Ainesek 1915eko Auzibide Apostolikuan bertsi berdina emango duenez gero.

Behin-betiko eraz oroipen baliotsuok gordetzeko, Ama Ainesek hiru koaderno berdin aukeratu zituen. Lehenengora Azken Elkarrizketak aldatu zituen; beste bietara bere ahizparen Eskuizkribu autobiografikoak. Larruzko azalagatik, lehenengorari "Koaderno horia" izena eman zaio. Izenburuaren gainean "oso barnekoa" aipamena datza. Koaderno hau Ama Ainesen esku geratu zen heriotzara arte. Batzue-

² 181-220. orr., izenburu honekin: "Physionomie morale de soeur Thérèse de l'Enfant Jésus et de la Sainte Face pendant sa dernière maladie d'après ses *paroles textuelles* recueillies par moi (Soeur Agnès de Jésus) de la propre bouche de la Servante de Dieu et consignées au fur et à mesure sur un carnet, ce qui paraissait lui être une fatigue et paralysait ses épanchements, mais qu'elle me laissait faire avec simplicité craignant de me causer de la peine" (azpimarratua gurea da). Adierazpen hau ikus daiteke *Derniers Entretiens, Annexesen* (1971); "Nouvelle Edition du Centenaire" (1992) *Dernières Paroles* izenburupean berrargitaratutakoan, Ama Ainesen beste hiru bertsi dituen sinopsi batean (koaderno horia, koaderno berdea eta *Novissima Verba*).

tan, bere mahaiko kutxatik atera eta pasarte bat irakurtzen zien ikustera zetorzkion lekameei. Santa hil eta hogeita bost urte geroago eratu izan arren, gertakarietatik hurbilen izatea du bere alde, gaur egun desagerturiko baina 1904-1905 inguruan finkatutako lehenengo koaderno bat aldatzen duelako funtsean.

1927an, zerbait beharturik (ik. DE, 89.or.) Ama Ainesek *Novissima Verba*, ahizpa Teresa Jesus Haurrenaren *Azken Elkarrizketak*, 1897ko *Maiatza-Iraila*, argitaratu zuen, 1960an agortu zen arte arrakasta handia izan zuen liburutxo (107.000 ale, eta hamaika hizkuntzetara itzulia).

Combes apaizaren *Eskutitzei* buruzko lanen ondoren (1948) eta Aita Frantzisko Santa Mariarenaren *Eskuizkribu autobiografikoei* buruzko lanen ondoren (1956), *Azken Elkarrizketentzat* ere somatu zen argitalpen berri eta kritikaren beharrezana. Hau izan zen "Mendeurrenekoa" izeneko argitalpenaren lehenengo lana. "Koaderno horiaren" bertsioa hobetsi zen osoena zela eta: 714 esaldi, hauetatik 327 bereziak; *Novissima Verba* argitalpenak, oster, 362 zeuzkan guztitara, "koaderno berdeek" 306, eta Gotzain-aurreko Prozesuak 275. Ikerketa sakon batek hura zela, zalantzarik gabe, jatorrena erakusten zuen (ik. DE, 103-113. orr.). Baina argitalpen honek, bigarren alean, Ama Ainesek eta Lisieux-ko karmeldarrek jasoriko testigantzen bilduma osoa biltzen zuen³.

4. AMA AINESEN TESTIGANTZA KRITIKAREN AURREAN

Argi dago Ama Ainesek ezin izan duela dena jaso. Koaderno Horiak zatiak hartu ditu. Eta ahizpa-izate horrek ez ote du okertu haren testigantza, aukeratzean besterik ez bada ere? Hari zuzenduriko hitzik asko "pozbidetxoak" izan dira haren-tzat, onbiderako, hasieran batez ere. Oso zorionez, helburu historikoa etorri da laster hasierako asmoa aldatzera, guztiz alboratu gabe. Ekainaren 4an hau idazten dio Ama Ainesek Teresari: "Zure aldarrikari apala izango naiz..." Eginkizun honek harturik, "gertatu ahala" jasoz joango da, ez komeni zaiona bakarrik, baita gainditzen duena ere, ez atsegin zaiona bakarrik, baita harritu eta buruhaustetan jartzen duena ere.

Teresaren begi aurrean oharrak hartzea ere gertatu zaio, edo une batzuk geroago. Testiguak bazekien zer zen hitzez-hitzezko jatorrasuna eta zer zentzuzkoa. Lan kritikoa laguntzeko, hurrengo "lege" hau jar daiteke: zenbat eta laburragoa, originalagoa, bitxiagoa, nabarmenagoa esaldia, aukera gehiago du jatorra izateko. Alderantziz, zenbat eta luzeago eta politagoa esaldia, arrisku gehiago berriz idatzia izateko; honek ez du nahitanaiez jatorrasuna eragozten.

Bestalde, egin daiteke barne-kritika, esaldiak Teresaren idazkiekin konparatuz, batez ere aldi berekoekin (C Eskuizkribua, sei Olerki, berrogei txartel eta gutun); baita oso interesgarria da, jakina, lekuko ezberdinek jasoriko esaldiak konparatzea ere.

³ *Derniers Entretiens avec ses soeurs et témoignage divers*. "Edition critique d'après tous les documents originaux des derniers entretiens de la sainte: versions inédites, notes et correspondances des témoins, procès, témoignage oraux, éditions antérieures, etc.", I.t., 922 orr.; II.t. (Eranskina, 504 orr., Cerf/DDB, 1971).- Ama Ainesen lau bertsioren sinopsi bat duen liburuki hau 1992 berrargitaratua izan da "Nouvelle Edition du Centenaire"n, *Dernières paroles* izenburupean.

Kronologiari dagokionez, zuhurtasunez hartu behar da, Ama Ainesek ez du ezkutatu esaldiak batzuetan bere kabuz banatu dituenik. Hala ere, arlo honetan zehaztasun-ardura handirik ez zen garai hartarako, Koaderno horiak egitura konologiko nahiko sendoa aurkezten duela atera ahal izan da.

Esaldi hauen balio berebizikoak ez ditu haien mugak ahaztuarazi behar. Bide okerra litzateke Teresaren testuak eta Azken Elkarrizketak maila berean jartzea. Testiguaren izaera ere kontuan izan behar da. Zirenak zirela Ama Ainesen giza eta izpiritu dohainak, bere ahizparen heldutasun guztiz apartak, santitateak, gainditu egin behar zuen. Hala ere bai zorte ona gerokoentzat testigu aparta emakumea, karmeldarra eta Teresaren "amatxo" izatea! Komunitateko lekaiume guztietatik bera zen ahizparen arima ulertzeko ondoen jarria.

5. LISIEUX-KO TERESAREN NEKALDIA

Ingurune medikoa ezagutzeak garamatza bakarrik Teresaren esaldiak, egiteak eta joerak berauen benetako balioan neurtzera. Noski, jakina zen sufritu zuena. Baina sufrimenduak erlantz erromantiku antzekoan gelditzen ziren: "neska bularretiko" irribarretsu bat gurutzearen gain arrosak hostokatuz hiltzen da. Errealitatea guztiz bestelakoa izan zen eta Azken Elkarrizketek argi erakusten dute: Teresa Jesus Haurarenak eta Aurpegi Santuarenak benetako gurutz-bidea igaro du. Ito-larriaz hilko da, birika erdiaz baizik amasa hartzen ez duela, egarria, sukarra, izerdi ugaritsuak, hesteetako gangrena ezagutu ditu.

Hilabete bakoitzeko sarreterara bidaltzen dugu irakurlea (dagozkien oharren aurrean datoz). Ekainaren 9az gero Teresak badaki hil behar duena. Uztailaren hasieran oraindik zutik dago, baina indarren azkenetan. 6an hasten da odol-isuriaren aldia, eta abuztuaren 5era arte jarraituko du. Uztailaren 8an, arratsean, gaixotegira daramate. Burnizko ohea inguratzen duten kortina altu marroietan irudirik kutunak ezarri ditu, eta handik ikusten du Irribarrearen Birjina, leku honetara berarekin jaitsi dena.

Gaixotasunaren aldaketa ezberdinek nahastu egiten dute Cornière jauna, berrogeita hamasei urtekoa, Karmelgo medikua. Hain gorputz gazte honek gorabehera harrigarriak ezagutzen ditu. Uztailaren 27an hasten dira min handiak eta 30 goizean heltzen dira gorrienera. Azken oliadura ematen zaio. "Oihu egiteko" erako minen eta ustezko barealdien artean, gaixotasunak txarrera joko du eten gabe hilzorrira eta heriotzarara arte, irailaren 30eko arratsera arte.

6. BIZITZA BATEN TESTAMENTUA

Azken Elkarrizketak jarraian irakurtzen direnean, Teresarekin batera honen gaixotasun-kalbarioa bizi dugula dirudi: harrigarriro hurbil eta bizi ageri da. Ez ahal da hau Ama Ainesen oharren egiazkotasunaren azken proba? Ez ahal da miragarri esaldi labur, itxura baten elkarri lotu gabeek persona baten misterioa sortaraztea, haren lilura mugaezina orrialde guztiotan zehar dizdiz dagiela? Zenbat kontraste haren izaeran!

Txikitasunaren erakarpena handitasun zentzuarekin batera, haurraren xalotasuna eta emakumearen esperientzia (“*zahar bat den seina*”), izadi-maitasuna zeruaren irrikarekin batera, “aingeru” itxura eta Normandiako lurtean sustraituriko zentzu sendoa, itxaropen ausarditsua oso gizakor diren estutasunekin nahasia, eguneroko bizitzako heroitasuna... kontraste hauek guztiak elkartzen dira Teresagan. Heriotz aurrean, haren izaeraren funtsezko alderdiak garatu egiten dira graziak harturiko berezkotasunez.

Gorputz eta arimako oinazez aserik -sinismen eta itxaropenaren aurkako lorraldiak hor jarraitzen du beti ere⁴ - gaixoak alaitasun eta umore (batzuetan hau beltza) txundigarriak erakusten ditu, txantxak, hitz-jokoak eta zinuak ugarituz; hitz eta keinuen bidez bere gain-gaineko heriotza deitoratzen dutenak jolastu eta haiei barre eragitera iristen da. Bere “*izaera zoriontsuaren*” barrera berpizten da hemen askatasun guztiz, betidanik bere nortasunaren parte den izadi-maitasun honekin batera (loreak, fruituak, izarrak, abereak).

Beraganaino jaitsi den *Maitasun Errukitsuaganako* (Otoi. 6) leialtasunak garbitu eta askaturik, orain Teresak bere gizatasun bikainaren dohain guztiei utzi diezaieke azaltzen. Bere bihotzak familia eta erlijio harremanen barruti estuegia gainditu egiten du: munduaren zabaletara hedatzen da. “*Elizaren alaba*”, Teresak “*arimen*” alde eskaintzen ditu bere sufrimendu guztiak, batez ere bekatari eta jainkoga-been arimen alde; hauekin jarraitzen du “*samin ogia*” jaten, beti ere borondatez haiekin “mingostasun mahaian” eserita (C Esk., 6^a).

Guztien ahizpa eta arreba, mundu osoan Ebanjelioa iragartzeak kezkatzen du eten gabe. Era ezkutuan, bere hilondoko eginkizuna mundu zabalera honetan izango dela somatzen du, zerua ezin baitaiteke harentzat atsedeen-golkoa izan, salbamen-ekintza indartsuaren lekua baizik, azkenez denboraren eta espazioaren mugak ahazteraino: “*Jainko onak nire gurariak onartzen baditu, nire zerua lurtean igaroko da munduaren azkenera arte. Bai, lurtean on egiten igaro nahi dut neure Zerua*” (KH 17.VII).

Azkenez, Teresa heriotzaren aurrez aurre erakusten dute Azken Elkarrizketek. “*Maitasunez hiltzea ez da birloratuta hiltzea*” (KH 4.VII.2), ezta Joan Gurutzekoaren ikasle batentzat ere. Euren lehortasun objetiboan, lekukoaren oharrek “*bidetxoak*” garaile gainditu duela azken oztoppoa erakusten dute. Ez estoikoen erara, buru-uztean, konfiantzan eta Jesus oinazeetako Zerbitzariaren maitasunean baizik.

Heriotzaldia igarotzea besterik ez zitzaion gelditzen. Ikaragarria izan zen, bertan izan zirenen esanetan. Baina, bat-bateko bake-erlantzak, azken unean, sutsu irrikaturiko Kristorena bezalako maitasun-heriotza hau benetakotzen zuelarik, azken hitz batek bildu zuen Teresaren bizitza: “*Ene Jainkoa... maite zaitut!*”.

⁴ Ik. B Esk., 4^a; 5^a; C Esk., 4^a; TO 45; 48; 52; 54, eta dagozkien oharra.

TESTUA FINKATZEAZ OHARRA

Argitalpen honetako testuak argitalpen kritikoak dira. Hona (siglak: DE) joan behar da dokumentu bakoitzari dagozkion jakingarri eta justifikazioetarako. Ama Ainesen Koaderno horiaren ondoan, ahizpa Jenofaren eta ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenaren testigantzak, garrantzi txikiagokoak, mantentzeari on iritzi diogu: beraietan ageri dira bakarrik ospetsu bihurtu diren esaldi batzuk.

Sarritan Teresaren gaixotasunari eta jarduerari buruzko zehaztasun garrantzi-suak dakartzaten lekukoan Gutunei dago kienez, DE argitalpenera bidaltzen dugu irakurlea (ik. *gorago*, 1.oharra).

Aurpezipen-erak argitalpen kritikoarenari jarraitzen dio; Ama Ainesek egun bereko esaldiak bereizteko hartu zituen banakuntza marrak ez dira mantendu. Esaldiak egunez egun zenbatzen dira.

AIPAMEN-BIDEA

Egun bereko esaldi bakoitza honela zenbatzen da: 1, 2 etab., esaldiaren testua-
ren aurretik. Ez dago zenbakirik, egun berean esaldi bat baizik ez dagoenean. Adi-
bidez (Koaderno horian):

KH 12.VII.3, uztailaren 12ko hirugarren hitza esan nahi du.

KH 10.VI, ekainaren 10eko esaldi bakarra esan nahi du.

Euskarazko itzulpenak

Idazki hau “*Novissima Verba*” izenez ezagutzen da tradizioz. 1898ko *Histoire d'une Ameren* lehen argitaraldian, XII. kapituluan, idazki honen atal batzuk ager-
tzen ziren, Aines Jesusenarenak gehien bat. Baina 1927an argitaratu zuen Ama
Ainesek osorik liburutxo batean: “*Novissima Verba, Derniers Entretiens de Sr
Thérèse de l'Enfant-Jésus, Mai-Septembre 1897*”, arrakasta handia izanik.

Alde guztietan nabari zen gogo horren eraginez, A. Sebastianek euskarara
itzultzeari ekin zion. Altzon bizi zela idatzi zuen (1954-1964), ziur aski bere bizi-
tzako azken urtean. Behintzat koaderno batzuk utzi zizkigun: Zirriborro gisa eskuz
idatzitako hiru koaderno dira (32'5 x 22 cm) guztitara 75 orrialde idatzirik dituzte-
nak eta Ama Ainesen idazkiari dagozkionak.

Bada beste koaderno bat ere Gasteizko Karmeldarren probintziako artxiboan:
Azken Elkarrizketak idazkia da, Teresaren ahizpa Zelinarena. Koadernoak (19'5 x
13'5 cm) 60 orrialde txiki ditu idatzirik.

Beste koaderno bat ere badugu (35'5 x 26'5 cm), 13 orrialde idatzirik dituena.

Itzulpen-lan eskerga hauek gorabehera, lana argitaratu gabe geratu zen artxi-
boetan bazterturik...



**AMA AINESEN
KOADERNO HORIA**

Barru-barrukoa

**Gure Teresatxo santuaren
azken hilebeteetan bildutako berbak**

Ahizpa Aines Jesusena
I.k.a.



1897.eko apirilak 6*

1

Ez-ulertuak eta txartzat hartuak garenean, zertarako defendatu gure burua, zertarako eman azalpenak? Utz dezagun igarotzen, ez dezagun ezer esan. Bai dela atsegingarria ezer ez esatea, edozein eratan hartuak izaten uztea! Ebanjelioan, ahizpak Jesusen oinetan jarrita ezer egin gabe zegoelako agirika egitean, ez zaigu Magdalena santaren azalpenik ageri. Ez zuen esan: “Ene, Marta, ikusiko bazenu barruan dudan poza, entzungo bazenu nik entzuten ditudan hitzak! Jesus da, gainera, hemen egoteko agindu didana!”. Ez, nahiago izan zuen isilik egotea! Bai zorionekoa, arimari hainbesteko bakea dakarkion isiltasuna!¹

Lk 10, 39-40

2

“Izpirituaren ezpata den Jainko onaren hitza, bego beti zuen ezpainen eta bihotzetan” Arima desatsegin batekin harremanetan jardun behar dugunean, ez dezagun adorea galdu, ez dezagun bertan behera utzi. Eduki dezagun “izpirituaren ezpata” ezpainen, beraren hutsegiteen aurka agirika egiteko: ez gaitezen isilik geratu gure bakea gordetzearen. Egin dezagun etengabe borroka irabazteko itxaropenik ez badugu ere. Zer balio du irabazle ateratzeak? Jainko onak, borrokako nekaldietan, “hainbat txarrago, ez da ezer lortzen, utzi egin behar da...” esanez atzerantz ez egiteko edota adorerik ez galtzeko eskatzen digu. Hau koldarkeria da; egin-kizuna azkeneraino bete behar da².

Ef 6,17

* 1897ko apirileko data duten zortzi esaldiak Teresak nobizien hezkuntzan lortutako esperentziaren agergarri dira batez ere. Hitz hauek *Histoire d'une Amen* argitaratutako «Conseils et Souvenirs» en antz-antzekoak dira.

Senitartekoei bidalitako gutun banakek (DE, 670-673. orr.) behin eta berriro ezartzen zitzaizkion enplastuen berri ematen dute; baina hala ere ez tula sendatzerik ez dute lortzen. Hilaren amaierarantz, goizez, hemoptisi batzuk izan zituen. Haren egoera orokorra oso larria da.

¹ Ik. C Esk., 36^a eta DSA 4.

² Eginbeharren sen berbera C Esk.an, 23ⁱ; KH 18. IV. 1 eta 18. IV. 4.

3*

A! Zein garrantzitsua den lurrean ezertaz juzkurik ez egitea! Begira zer gertatu zitzaidan orain dela hilabete batzuk jolasaldian³. Ez du garrantzirik, baina hala ere ikasbide ederra izan nuen:

Bi kanpai-danbada jo zituzten, eta hornitzailea⁴ ez zegoenez gero, ahizpa Teresa San Augustinenak hirugarren⁵ bat behar zuen. Gehienetan nekagarri izaten da hirugarrenarena egitea, baina egun hartan zirrara edo nuen barruan, Gabon-zuhaixkak hartzeko atea zabaltzea zelako.

Ahizpa Maria San Joserena nire ondoan zen eta hark ere nire antzeko haur-gogoa zuela antzeman nuen. Ahizpa Teresa San Augustinenak esan zuen: -“Nork lagunduko dit hirugarren atezain gisa?” Berehala hasi nintzen mantala askatzen, baina astiro-astiro, ahizpa Maria San Joserena lekua betetzeko ni baino lehenago presta zedin, gertatu zen bezala. Orduan, ahizpa Teresa San Augustinenak irribarrez niri begira esan zuen: “Ai! ziur aski ahizpa Maria San Joserena izango da bere koroari harribitxi hau erantsiko diona! Astiroegi zenbiltzan!”. Irribarre eginez ez nion ezer erantzun eta neure lanera itzuli nintzen, neure artean pentsatuz: “Ene, Jainkoa, bai direla gizakionak ez bezalakoak zure abazpenak! Honela huts egiten dugu sarritan lurrean, gure ahizpengan zure begien aurrean merezimendua dena akats gisa hartuz!”

Apirilak 7

Nire barneko kezka aditzera emanez, nola hilko naizen galdetzen nion. Irribarre samur-samurrez erantzun zidan:

“Jainko onak ihintz-ttanta bat bezala xurgatuko zaitu”⁶.

Apirilak 18

1

Ahizpa batzuen aldetik jasotako apalkuntza oso mingarri batzuen berri eman ondoren:

“Jainko onak oso txikia izaten irauteko bide guztiak ematen dizkit; hori da behar dudana. Beti pozik nabil. Ekaitz artean ere, barnean bakealdi handian irauten saiatzen naiz. Ahizpen arteko gatazkei buruz hitz egiten didatenean, niri dagokidanean, honen edo haren aurka ez jartzen ahalegintzen naiz. Entzutea baztertu gabe,

³ 1896ko abenduan; Ik. C Esk., 13^a.

⁴ Ahizpa hornitzailea, garai hartan ama Aines Jesusena.

⁵ Lekaime honek hornitzaileari lagundu behar izaten zion hark klausura barruan langileak sarrazten zituenean. Teresa «hornitzailearen hirugarrena» izan zen (13. VII. 18) 1893ko ekainean eta uztailean (CG, 728 + g or.).

⁶ Ik. TG 141, 2^a. Ama Aines 1951ko uztailearen 28an hilko da, hainbat egunetan koman egon ondoren.

esaterako, leihotik zehar begiratu eta zerua, zuhaitzak,... ikusi beharra izaten dut. Ulertzen duzu? Oraintsu, X Ahizparekin izan dudaneure barruko borrokaldian atsegin handiz begiratu diet belardian jauzika zebiltzan mika politei eta otoitzean bezala baketan sentitu dut barrua... Eztabaida luzea izan dut berarekin; oso nekaturik nago, baina ez diot beldurrik gerrari; Jainko onak heriotz uneraino borroka dezadala nahi du. Ene, Amatxo, erregutu nire alde!

2

... Zure alde otoitz egiten dudanean ez dut Gure Aita ez eta Agur Maria erretzatzen; bihotz-taupada artean, besterik gabe, honako hau esaten dut: "Ene Jainko ona, bete ezazu ondasunez nire Amatxo; maite ezazu, ahal baduzu, oraindik gehiago".

3

Ni oso txikia nintzela, gure izebak, harridura handia sortu zidan ipuin bat eman zidan. Bertan, hain zuzen ere, nesken babesetxe bateko zuzendaria, iskanbiletan inori minik eman gabe zuhurtziaz ihes egiten zekiela, goratzen zela ikusi nuen. Batez ere honako hitzok geratu zitzaizkidan barru-barruan sarturik: Honi, "ez duzu errurik", hangoari "zuzen zabilta" esaten zien. Eta neure artean -hori ez da jokabide zuzena!- pentsatzen nuen. Zuzendari hark ez zuen ezereen beldurrik izan behar eta bere neskatoei, hala izanez gero, gaizki jardun zutela esan behar zien.

Eta, oraindik lehengo iritzi berean nago. Egia esan, hau askoz ere zailagoa da, errazagoa izaten baita errua ez daudenei egozte, eta horrela kexu dena berehala baretzen da. Bai, baina⁷... nik guztiz bestera egiten dut. Maite ez banaute, hainbat txarrago beraiantzat! Egia osoa esaten dut beti; jakin nahi ez badute ez daitezela nire bila etorri.

4

Ez zaio bihozberatasunari ahultasun izatera etortzen utzi behar. Zuzentasunez agirika egiten denean, sendo iraun behar da, emaniko nahigabea dela eta norbait penatan eta negarrez ikusteagatik barruak larritu gabe. Kontsolamendua emateko nahigabetuaren bila joateak, on baino kalte handiagoa egiten du. Bere baitan uzteak, oster, hutsegiteak aitortzeko Jainko onarengana jotzera behartzea eta bere burua makurraraztea ekartzen du⁸. Bestela eginez, merezitako erretolika bakoitzaren ostean kontsolamendua hartzen ohitzen baldin bada, beti, antzerako egoeretan, malkoak xukatzen ama hurbildu arte ostikoka eta txilioka jarduten duen neskato mainatiak bezala jokatu du.

⁷ Ik. TG 204, 2. oharra.

⁸ Jarrera bera C Esk.an, 24^a.

Maiatzak 1*

1

Bila etorriko zaidana ez da “heriotza” izango, Jainko ona baizik. Heriotza ez da, estanpetan margozten den bezalako mamu edo ikuskizun beldurgarria. Dotrinak “heriotza arima eta gorputza banatzea da” diosku; horixe besterik ez da¹.

2

Gaur bake zerutar batek oso-osorik beteta sentitu dut bihotza. Hain gogotsu egin diot otoitz Ama Birjinari, bere hilabete ederra hasteko dela pentsatuz!

Gaur gauean ez zara izan jolasaldian. Gure Amak, misiolari bat², Aita Roulland-ekin³ itsasoratutakoa, misio-lurraltera iritsi aurretik hil dela esan digu. Misiolari gazte honek Aita Roulland-i eman genizkion Karmelgo formak hartuz jaunartu zuen itsasuntzian... Eta orain apostolutzarik egin gabe hil da, inolako nekerik, esaterako, txinera ikasteko egin beharko zuenik gabe Jainko onak haren gogoak bete ditu; ikusten duzu, bada, hark ez duela inoren beharrik.

Nik ez nekien, orduan, Ama Maria Gonzagarenak izpirituzko bigarren nebatzat Aita Roulland eman zionik. Esan dizudan berri hau Aita Roulland-ek berari idatziz jakinarazi zion, baina, gure Amak niri jakinaraztea debekatu zionez gero, ez zidan jolasaldian entzundakoaz aparte hitz egiten.

* 1897ko maiatzeko eskutitzek ez diote ezer Teresaren osasun-egoerari buruz. Koaderno horiak ematen dituen noizbehinkako albisteetan arabera, eztlak lehenean dirua, eta gauean batez ere itogarri bihurtzen da. Enplastuez gainera, su-txaplaten ekinaldiak egiten dizkiote. Gaixoaren indarrak ahulduz doaz. Bigarren hamabostalditik aurrera, Teresak komunitateko bizitza apurka-apurka utzi beharra izango du.

Hala ere, sendatzeko itxaropen guztiak ez dira galdu. Zalantza horren erdian, santaren buru-uzteak bere benetako neurria erakutsiko du:: horixe da maiatzeko hil honen ezaugarri behinenetarikoa. *Arrosa hostokatuaren olerkia* (TO 51) horren seinale zirrargarria da.

Hil honetan, Teresak zortzi gutun edo txartel idatziko ditu (TG 225.etik 232.era) eta bost olerki (TO 50.etik 54.era), horien guztien gailur haren testamentu mariarra *Zergatik maite zaitudan, oi Maria!* delarik

¹ Ama Ainesek antzeko gaia azaldu zuen uztailearen 16ko gutun baten (DE, 708. or.); eta ik. 11. IX. 4.

² Aita Mazel; ik. TG 226, 3. oharra.

³ Teresaren neba izpiritual honi buruz, ik. C Esk., 33^a.

Berarentzat sakrifizio handia izan zen bi urtetan Misiolari honekin zituen harremanak isilean edukitze hau⁴.

Gure Amak, berarentzat estanpa bat pergaminoan pintatzeko agindu zion. Pintura-ofizioan bere lehenengoa ni ninduenez gero, egoera hori erabil zezakeen niri aholkua eskatzeko eta horrela guztiaren susmoa hartzeko bidean ni ipintzeko. Bestetara jokatzuz, nigandik aldenduz ahalik eta ondoen gordetzen zuen eta ezkutuka joaten zen -geroago jakin nuen-urreari distira ateratzeko nik neure mahaian gordetzen nuen leungailuaren bila. Ni ez nengoanean itzultzen zuen.

Heriotza baino hiru hilabete lehenago, gure Amak, bere kasa, nirekin horretaz eta beste edozertaz askatasun osoz hitz egiteko baimena zuela esan zion.

Maiatzak 7

1

Goizeko zazpiak

Gaur baimendutako solaslaldia⁵ dugun eguna da; janzterakoan "nire poza"⁶ abestu dut.

2

Gure familiak ez du luzaro lurrean iraungo... Ni zeruratu nadinean, laster eramango zaituztet... Oi, bai zoriontsu izango garela! Gu guztiok koroez jantziak jαιο gara...

3

Estulka! Estulka! Geltokira iristean lokomotoreak bezala dihardut. Ni ere geltokira iristen ari naiz: Zeruko geltokira eta iragarri egiten dut!

Maiatzak 9

1

Harrokeriarik gabe grazia eta argitasun oso bereziak jaso ditugula esan deza-kegu. Egian gaude; gauzak egiazko argiz ikusten ditugu.

2

Zerbitzuren bat eskaini eta ordainez eskerronik jasotzen ez denean, inoizka uxatu ezin-izaten ditugun sentimenduei buruz.

Nik ere, ziurtatzen dizut, aipatzen dizkidazun sentimenduak izaten ditut; baina, ez diet nire buruaz jabetzen uzten, lurrean ez dudalako inolako ordainik itxa-

⁴ Izatez, urtebete.

⁵ Jolasaldi berezia; ahizpek elkarrekin askatasun osoz hitz egin zezaketean, baita une batzuetan euren geletan kantatu ere; ik. A Esk., 20^a; C Esk., 19^a eta 28^a; TG 225.

⁶ TO 45.

roten. Egiten dudan guztia Jainko onagatik egiten dut; horrela galtzekorik ezer ez dudanez gero, hurkoa zerbitzaten eginiko lanen artean oso ongi ordaindua ikusten dut neure burua.

3

Ezinezkoa batez Jainko onak berak ere ikusiko ez balitu nire egintza onak, ez nintzateke inola ere nahigabetuko. Hainbeste maite dudanez gero, ni naizela konturatzten ez dela ere, atsegin eman nahi diot⁷. Ikusiz eta jakinez “ordaintzera” behartuta edo izango nuke; ez nioke lan hori eman nahi...

Maiatzak 15

1

Ap 22,12

Pozez beterik nago laster Zerura joateaz; baina Jainko onaren hitzok gogoratzean “Hara laster nator eta neurekin dakart saria, bakoitzari bere egintzen arabera ordaintzeko”, neure buruari esaten diot Jainko ona estu eta larri izango dela nire kasuan. Nik ez dut egintzarik! Beraz, ezin izango dit “nire egintzen arabera” eman. Horrela, bada, “bere egintzen arabera...” emango dit.

2

Zeruari buruz hain ideia zoragarria egin dudanez, sarritan neure buruari galdetzen diot nola konponduko den Jainko ona nire heriotz ondoren, niri ezustekoren bat emateko. Nire itxaropena hain handia da, hain atsegin bizia ematen didana, ez sentimenduz fedez baizik, non edozein burutazio baino goragoko zerbait beharko baitut atsegin osoa lortzeko. Usteak huts emanda neure burua ikusi baino nahiago nuke betiko itxaropenean bizitzea.

Hitz batez, oraindik bertatik uste dut, nahikoa harridura sortzen ez badit, Jainko onari poz emateko, harrituarena egingo dudala. Ez dago nire etsipena aditzera emateko arriskurik; konponduko naiz hura honetaz ohar ez dadin. Konponduko naiz, era berean, beti zoriontsu sentitzeko. Horretarako, baditut zuk ongi ezagutzen dituzun eta inoiz huts egiten ez duten trikimailu txikitxo batzuk. Nahikoa izango dut, gainera, Jainko ona zoriontsu ikustea neu ere guztiz zoriontsu izateko.

3

Santuek gomendatzen dituzten eta ni gogorik gabe uzten ninduten debozio eta onbide egintza batzuei buruz mintzatu nintzaion.

Niri dagokidanez, nik ez dut ezer aurkitzen liburuetan, Ebanjelioan izan ezik⁸. Nahikoa dut liburu hau. Atseginenez entzuten ditut egin behar dudan guztia esaten didaten Jesusen hitzok: “Ikasi nigandik, gozoa eta bihotz-apala bainaiz ni”; eta

Mt 11,29

⁷ Joan Gurutzekoak ahizpa Madalena Espiritu Santuarenari zuzentzen dion pentsamenduaren antzekoa; ik. *Jean de la Croix, sa vie*, aita Crisogonorena (Cerf, 1982), 173. or. (*Vida de san Juan de la Cruz*, 11. arg., Madrid, BAC, 1982, 193. or.)

⁸ Ik. A Esk., 83ⁱ; C Esk., 36ⁱ; eta BT.

orduan bere agintzari gozoen arabera bakea aurkitzen dut: “eta aurkituko duzue ari-mentzako atsedena”.

Azken esaldi hau, begirada jaso eta aurpegi zerutiarra zuela esan zidan; gure Jaunen esakuneari, oraindik ere xarma handiagoa emanez “txikiak” hitza gehitu zion:

“...eta aurkituko duzue zuen arima txikientzako atsedena”.

4

Abitu berri bat (oraindik kontserbatzen dena) eman zioten. Lehen aldiz 1896ko Eguberrietan jantzi zuen. Bere abitu-hartze ondoren egindako bigarren abitu hau oso gaizki zetorkion. Horrek atsekaberik ematen zion galdetu nion:

Bai zera! Gugandik 2.000 legoatara han bizi den txinatar batena balitz baino gehiago ez.

5

Ezker-eskuin botatzen dizkiet neure txoritxoei⁹, Jainko onak nire eskuetan jartzen dituen aleak. Eta gero, hor konpon! Ez dut berriro ardurarik hartzen! Batzuetan ez dudala ezer botatzen ematen du; beste batzuetan aleak fruituak sortzen ditu. Baina Jainko onak “eman, eman beti, emaitzari begiratu gabe” esaten dit.

6

Jainko onaren alde asko sufritzeko Hanoi-ra¹⁰ joan nahi nuke. Hara joan nahi nuke, lur gainean, bakar-bakarrik, inolako kontsolamendurik gabe egoteko. Han zerbaitetarako balio izatea ez zait burura etorri ere egiten; ziur nago ez nukeela ezertxo ere egingo.

7

Dena dela, berdin zait bizitzea zein hiltzea. Ez argi ikusten, bizitza honetan eduki ez dudarik ezer heriotz ondoren edukiko dudan. Egia da, Jainko ona ikusiko dudala; Harekin egoteari dagokionez, jadanik oso-osorik nago bat eginda lurrean¹¹.

Maiatzak 18

1

Zereginik gabe aske utzi naute. Nire heriotzak ez duela komunitatean inolako arazorik sortuko pentsatu dut.

Min ematen dizu ahizpen artean ezertarako balio ez duen kide bezala hartua izateak?

Oi! hori nire kezkarik txikiena da; ez dit ardurarik sortzen!

⁹ Nobiziak.

¹⁰ Saigongo Karmelek 1895ean fundatutako komentura; ik. A Esk., 84ⁱ; C Esk., 9^a; TG 221; TO 47, 6.

¹¹ Ik. TG 56, 2. oharra.

2

Hain gaixo ikusirik, gure Amak hilen aldeko ofizioa errezzatetik aske utz zezan ahaleginak egin nituen¹²

Arren, ez iezadazu eragotzi nire Hilan ofizio "txikiak" errezzatzea. Garbitokian aurkitzen diren ahizpen alde egin dezakedan zer bakarra da eta ez nau batere nekatzen. Batzuetan, isilaldiaren ostean¹³ astitxoak edukitzen dut; nekearen ordeztatseden ematen dit.

3

Beti zereginen bat izan behar izaten dut; horrela ez naiz arduraz egoten eta ez dut inoiz astirik alferrik galtzen.

4

Jainko onari heriotzararte komunitateko egintzak egin ahal izatea eskatu nion; baina hark ez du nahi. Eliz otoitz guztietan parte har nezake; ziur nago, ez nintzatekeela horregatik minutu erdi lehenago hilko. Sarritan, nik neuk esan ez banu, ez ninduketela gaixotzat joko iruditzen zait.

Maiatzak 19

Zer dela eta zaude gaur hain pozik?

Gaur goizean atsekabe "txiki" bi izan ditudalako. Oi! oso mingarriak!... Atsekabe "txiki" horiek sortzen dizkidaten adina atsegin "txiki" ezerk ere ez dit sortzen...

Maiatzak 20

1

Heriotzaren beldur izango naizela dioste. Baliteke. Inork ez du nik neuk baino mesfidantza handiagorik neure sentimenduetan. Ez naiz neure iritzietan inoiz oinarritzen, ongi baitakit zein ahula naizen. Baina, Jainko onak une honetan ematen didan sentimendua gozatu nahi dut. Izango da bestetara sufritzeko unerik ere¹⁴.

2

Bere argazki bat erakusten niharduen:

Bai, baina... azala besterik ez da! Noiz agertuko da barruko gutuna? Oi! nola-ko poza emango lidakeen gutuna ikusteak!¹⁵...

¹² Karmeldar bat hiltzen zenean bakarrean errezzatzen zen ofizioa (Frantzian bostehunen bat hil ziren, Teresa lekaike zen bitartean). Ik. 27. V. 1; 6. VIII. 4.

¹³ Astialdia, isiltasun handian, eguerdiko hamabietatik ordubatera arte udan, eta iluntzeko 8etatik 9ak arte urte osoan zehar; ik. DE, 813. or.

¹⁴ Ik. 9. VII. 6.

Maiatzaren 21etik 26ra

1

Luis Gonzaga santua baino gogokoago dut Teofan Vénard¹⁶, Luis Gonzaga santuaren bizitza ikusgarria delako eta bestearena guztiz arrunta. Bestalde, azkenak berak hitz egiten du eta santuaren kasuan beste batek kontaktzen du hari hitz eginaraziz; horregatik ezer gutxi dakigu haren arima “txikiari” buruz!

Teofan Vénard-ek asko maite zuen familia; nik ere asko maite dut neure familia “txikia”. Ez ditut ulertzen familia maite ez duten santuak... Oi, asko maite dut familia, hemen lurrean bertan! Asko maite dut, asko maite dut neure Amatxo!

2

Laster hilko naiz, baina, noiz? Oi! Noiz? Ez da iristen unea. Egunero gozoki bat agintzen dioten haur txikiaren antzekoa naiz; urrutitik erakusten diote; gero hartzera hurbiltzen denean, ezkutatu egiten dute eskua... Gehiago, oraindik, sakonean, Jainko onak nahi badu, gertu nago hiltzeko, bizitzeko, osasuna berreskuratzeko nahiz Kotxintxinara joateko¹⁷.

3

Nire heriotzaren ondoren ez nazazue Ama Jenofa¹⁸ bezala lorez inguratu. Eskaini nahi dituzten pertsoneri, nahiago dudala horretarako dirua beltzen bat askatzeko erabiltzea esango diezue. Hori bai izango dudala gogoko!

4

Aldi batean, atsekabe handia ematen zidan etxeko sendagaiak hartzeak; orain, oster, bestetara, ez dit bat ere axola. Hala gertatzen zait, Gertrudis santuaren bizitzan honako hau irakurri nuenetik: poztu egiten zela bere barruan den-dena on egiten ziotenen mesederako izango zela bere buruari esanez. Berak gure Jaunaren hitzok zituen abiaburutzat: “Nire senderik txikien hauetako edozeini egin zeniotena, neurei egin zenidaten”.

Mt 25,40

5

Sendagaiak alferrik ditudala sendatzeko uste dut; hala ere Jainko onarekin konpontzen naiz beraien onura, sendatzeko inolako astirik eta baliabiderik ez duten misiolari txiro gaixoeak jaso dezaten. Hartzera behartzen nauten sendagai eta atsedenaaldien bidez ni sendatu beharrean haiek sendatzeko eskatzen diot.

6

Hainbeste aldiz esan didate adoretu naizela eta horrek hain gutxi du egiazkorik, non honako hau esan baitiot neure buruari: Tira, ezin da mundu osoa gezurtitzat jo.

¹⁵ Ik. 30. V. 1.

¹⁶ Martiri gazte honi buruz, ik. TG 221 eta 245; TO 47; hamazazpi aldiz aipatua KHn, 27. V. 10ean.

¹⁷ Saigongo Karmelen; ik. 2. IX. 5.

¹⁸ Lisieux-ko fundatzailea; ik. A Esk., 78^a/79^a.

Horrela, lanari ekin diot, grazia lagun dudala, adore horren bila. Bere ausardiagatik zorionak entzutean, benetan koldarra baizik ez dela jakinik, laudorioak entzutean lotsa hartu eta halakoak merezi izaten ahalegintzen den gerrilariaren antzera jokatu izan dut.

7

Ene, zenbat dohain eskatuko dudan zuretzat Zerura irits nadinean! Oi! Hasieran eskatzen diodana ukatzen badit ere, Jainko onari gogait eragin arte ekingo diot, behin eta berriro, nire gogoak betetzera eramanez. Gertaera hau Ebangelioan ageri da...

Lk, 11, 5-8

8

... Santuek nire ahizpatxoek baino maitasun txikiagoa erakusten badidate, oso zer gogorra izango dut... eta txoko txiki batera joango naiz negar egitera.

9

Haur errugabe santuak ez dira haurtxoak izango Zeruan; bakarrik haurtzaroko xarma adieraztezinak izango dituzte¹⁹. "Haur" gisa margozten dituzte, baina hori izpirituzko gauzak ulertzeko irudiak behar ditugulako da.

... Bai, beraiekin elkartzea itxaroten dut. Nahi badute, ni beraien txoritxoak izango naiz; beraien jantzien atzeko barrenak eramango ditut...

10

Ulertezina gertatzen zaidan barruko proba hau²⁰ eramango ez banu, lurra laster utziko dudala pentsatzean pozez hilko nintzatekeela iruditzen zait.

Maitzaren 21etik 26ra (1)

11*

Triste samar nengoen arraltsalde hartan neure buruari ea Jainkoa nirekin benetan pozik ote zen galdezka. Ahizpetako bakoitzak, galdetuz gero, nitaz zer esango zukeen pentsatzen ari nintzen. Halakoak esango luke "Arima on bat da, santu bilaka daiteke". Beste batek: "Eztia da oso, jainkozalea, baina hau eta beste..." Beste batzuek bestelako zerbait pentsatuko zuten; hainbategi akastuna naizela uste izango dute, eta egia da... Nire Amatrixori dagokionez, hain sakonki maite nauenez, itsutu egiten da eta, beraz, ezin diot sinetsi. Oi! Nork esango dit Jainko onak uste duena? Horrelako gogoetatan ari nintzela heldu zitzaidan zure gutuna. Bertan esaten zenidan: dena duzula gogoko niregan, Jainko onak era bereziz maite nauela, ez nauelarik, besteekin egin ohi duenez, onbiderako eskailara zakarretik gora eramanez, Berenganaino arinago heltzeko igogailu batean jarrita baizik²¹. Ordurako oso hunkiturik nengoen, baina zure maitasunak benetan ez dena ikustarazten ote zizun pentsatzeak erabateko poza izatea eragozten zidan; orduan Ebanjelioa hartu nuen, Jainkoari, kontsolamendua emateko, Berak erantzuteko eskatuz... Eta hara non inoiz erre-

¹⁹ Ik. TO 44 eta Otoi. 18.

²⁰ Tentaldia zeruaren izateaz zen (3. VII. 3); ik. C Esk., 5/7^a.

paratu gabeko pasarte honekin egin nuen topo: "Jainkoak bidaliak hitz egitean, Jainkoak berak hitz egiten du, neurririk gabe ematen baitio bere Izpiritua". Oi! Pozezko malkoak isuri nituen orduan, eta gaur goizean, esnatzerakoan, guztiz harrapatua nengoen oraindik. Zeu zara, nire Amatxo, Jainkoak niretzat bidalia, zeuk hezi nauzu, zeuk sarrarazi Karmelera; neure bizitzako grazia handi guztiak zure bidez jaso ditut. Gainera, Jainkoak dioen berbera diozu zuk eta orain uste dut Jainkoa oso pozik dagoela nirekin, zuk esaten baitidazu.

Jn 3,34

(¹) *Ez dut data zehatza gogoratzen.*

Maiatzak 26

- *Igokunde-bezperan* -

Gaur goizean, elizbiran²², ni San Joseren ermitatxoan nengoen eta urrutira Komunitatea ikusten nuen leihotik baratzen. Eder-ederra zen kapa zuriak jantzita eginiko lekaimeen elizbira hura; birjinen taldeak Zeruan egiten duenean pentsatzera eraman nau. Gaztainondoen etorbidean bira egitean, zuek guztiok landako belar handiek eta urrezko kapuluek erdi estalita ikusten zintuztedan. Geroago eta atseginagoa zen. Baina, bat-batean, lekaieme haietako batek, ederrenetariko batek niri begiratu eta burua irribarretsu makurtuz adiskidetasunezko keinua egiten zidala ikusi dut. Nire Amatxo zen! Berehala etorri zait ametsa gogora: Ama Ana Jesusenaren²³ irribarrea, laztanak, eta orduan izandako gozotasunezko bihotz-zirrara berberak betetzen ninduela sentitu dut. Neure artean pentsatu dut: Santuek, bada, ezagutzen eta maitatzen naute, goitik irribarre egin eta beraiekin elkartzera gonbidatzen naute!

Orduan, negar-malkoak etorri zaizkit... Aspaldi ez dut hainbesteko negar-ituririk izan. Ai! negar gozoak ziren!

Maiatzak 27

- *Igokundea* -

1

"Zirkular"²⁴ bat nahi dut, beti uste izan dudalako karmeldar bakoitzak nire alde erreztatuko duen hilen ofizioa ordaindu behar dudala. Ez dut ulertzen nola batzuk ez duten nahi zirkularrik. Benetan atsegingarria da elkar ezagutzea, betiko bizilagun izango direnen berri gehiago izatea!

²¹ Ik. TG 229; C Esk., 3^a; TG 258.

²² Errogatibetako elizbira.

²³ Ik. B Esk., 2^a/_i.

²⁴ Ahizpa bakoitzaren heriotz ondoren Ordenako komentu guztietara bidalitako albiste biografi-koa. Teresaren kasuan, *Histoire d'une Amek* egin zuen haren ordezkari (1898ko irailaren 30ean).

2

Ez diet inolako beldurrik gaixotasunaren azken borrokaldiei ezta atsekabeei ere, handiak baldin badira ere. Jainko onak beti eman dit laguntza; txiki-txikitatik lagundu eta bere eskutik eraman nau...; nirekin izango dut. Ziur dakit azkeneraino laguntza ematen izango dudala. Gehiago ezinean izan naiteke, baina, ziur nago ez dudala inoiz gehiegirik izango.

3

Ez dakit noiz hilko naizen, baina uste dut laster izango dela; hala izango dela aditzera ematen didaten hainbat zio dut.

4

Ez dut bizitzea baino nahiago hiltzea. Hau da, aukeran izanez gero, nahiago nuke hiltzea; baina, nire partez Jainko onak aukeratzen du eta, berak nahi duena nahi dut. Berak egiten duena maite dut²⁵.

5

Ez uste izan gero, osasuna berreskuratzek nahasi egingo nauenik edota nire plan txikiak desegingo dituenik. Inola ere ez! Adinak ez du Jainko onaren aurrean garrantzirik eta nik aurkituko dut, luzaroan bizi izan arren haur "txiki" izaten jarraitzeko erarik²⁶.

6

Beti gauzen alderdi onari begiratzen diot. Badira gehien sufriarazten dieten aldetik hartzen dituztenak. Niri bestetara gertatzen zait. Hara, bada, oinaze hutsa heltzen zaidanean, zerua argitasunik ez ikusteko eran beltz-beltz ikusten dudanean, hori berori egiten dut pozbide...! Poztu egiten naiz²⁷ !... Aitatxoren oinazealdian²⁸ bezala; edozein erregina baino harroago sentiarazten naute.

7

Konturatu zara jantokiko irakurketan, Luis Gonzaga santuak amari zuzendutako gutunean, esaten denaz, hau da, Noeren²⁹ adinera heldu arren ere ez zuela gehiago ikasiko ezta santutasun handiagoa lortuko ere dioenean?

8

Heriotzari buruz.

Loteri txartela daukan pertsonaren antzekoa naiz; ez daukanak baino ziurrago izango du saria jasotea. Hala ere, ez du saria eskuratzeko ziurtasunik. Hara, bada, nik txartel bat daukat, nire gaixotasuna eta honek itxaropena ematen dit.

²⁵ Ik. 2. VIII. 4; 30. VIII. 2; 4. IX. 7; 5. IX. 2.

²⁶ Ik. 25. IX. 1.

²⁷ «Faire jabot: norbere burua harro-harro erakusteko alkandoraren iduna kanporantz atera esan nahi du lagunarteko adierazpen honek.

²⁸ Martin jaunaren buru-gaixotasuna.

²⁹ *Histoire de saint Louis de Gonzague*, J.-M. Daurignac (Douniol, Paris, 1864), 346. or.

9

Gogoan dut Buissonnets-en auzoko hiru urteko neskatxo batek, beste neskatxoek dei egiten ziotenean, "Amatxo, hor behar naute, utz ieza dazdu joaten, erregutzen dizut... behar naute..." esaten ziola bere amari.

Hara, bada, gaur aingerutxoak deika ditudala iruditzen zait eta nik neskatxo hark bezala esaten dizuet: "Utz ieza dazue joaten, han behar naute".

Ez ditut entzuten baina sentitzen ditut.

10

Azaro inguruan³⁰ Tonkinera joateko bidaia jadanik asmotan zenean, gogoratzten duzu Teofan Vénard-i bederatziurren bat egiten hasi ginela Jainkoaren nahia-
ren berri emateko seinale bat eskatuz? Orduan, nik Komunitateko jarduera guztie-
tan, Maitinetan ere bai, parte hartzen nuen. Hara, bada, bederatziurrenean berriro
hasi nintzen ez tulka eta ordutik aurrera geroago eta txarrago ari naiz. Hura da dei-
tzen nauena. Oi! zein pozik hartuko nukeen haren erretratu bat! Gogoko dudan
arima bat da. Luis Gonzaga santua jolasaldian ere formal ibili ohi zen, Teofan
Vénard, aldiz, beti alaitsu.

Egun haietan jantokian Luis Gonzagaren bizitza irakurtzen ari ginen

Maiatzak 29

*Bigarren aldiz suzko botoiak. Gauez triste nengoen eta haren aurrean Ebanjelioa ireki
nuen kontsolamendu bila. Irakurri nizkion hitz hauekin egin nuen topo: "Biztua da, ez dago
hemen. Ikusi jarri zuteneko tokia".*

Mk 16,6

Bai, hori ongi dago. Dagoeneko ez naiz gaztaroan bezala edozein minen men-
peko: berpizturik edo nago, dagoeneko ez nago uste duten tokian... Oi! ez penarik
hartu nigatik! Ezin sufritu adineko egoerara heldu naiz, edozein oinaze ez tigarri
zait eta.

Maitzak 30

1

*Egun horretan, 1896ko Ostiral Santuan izan zuen odol-goitikaren berri emateko bai-
mena izan zuen. Berehala jakinarazi ez zidalako nik atsekabe handia agertu nionez gero,
ahalik eta ondoen kontsolatu ninduen eta gauean ohar-papertxo hau idatzi zidan:*

"Ez ezazu atsekaberik hartu, ene Amatxo kutuna, zure alabatxoak zerbait
ezkutatu dizula pentsatuz; "gutunazaleko" baztertxoren bat ezkutatu badizu ere,
ondotxo dakizu ez dizula gutuneko lerrorik ezkutatu. Ezagutu ere, beste nork eza-

³⁰ 1896an.

gutzen ote du zuk baino hobeki hainbeste maite duzun gutuntxo hau? Gainerakoei, egia esan, azala erakutsi ahal zaie alderik alde, hori baino ez dutelako ikusten; zuri, baina!!! Oi! ene Amatxo, zuk badakizu jadanik Ostiral Santuz eman ziola hasiera Jesusek ZURE gutunaren azala urratzeari. Ez dizu poza ematen, hura, duela 24 urte hasita idazten ari izan zaren gutun hau irakurtzen hasteak? Ai! jakingo bezenu nola emango dion zure maitasunaren berri betikotasun amaigabean zehar³¹ !”

2

Behar bada min handiak izango dituzu hil aurretik!...

Oi! ez hartu hori dela eta atsekaberik, horren gogo bizia baitut!

3

Ez dakit nola konponduko naizen Zeruan zu gabe bizitzeko!

³¹ Ik. testu zehatza TG 231n.

Ekainak 4*

1

Bilera-areto aldetik terrazara jotzen zuen ahizpa Jenofa Aurpegi Santuarenaren gelan agurtu gintuen. Ahizpa Jenofaren ohe gainean etzanda zegoen. Egun horretan ez zuela minik zirudien eta aurpegia eraldaturik edo zuen. Berari begira-begira eta beraren hitz gozoak entzuten egon ginen batere aspertu gabe.

Ama Birjinari berriro ez egoteko azken egun hauetan egon naizen bezala erdi lokartuta eta senetik irtenda eskatu nion. Entzun egin dit gaur gauean.

Oi! ahizpatxoak, zein zoriontsu naizen! Laster hilko naizela ikusten dut; orain ziurtasun osoa dut.

Ez zaitezte harritu hil ondoren zuei agertzen ez banatzaizue edota nire zoriontasunaren aparteko ezaugarririk ikusten ez baduzue. Gogora ekarri orduan, nire "bidetxo" ezer ikusterik nahi ez izatea dela¹. Ondotxo dakizue hainbat eta hainbat aldiz esan diedala Jainko onari, Aingeruei eta Santuei:

Ez ditudala hemen behean ikusi nahi...²

Aingeruak zure bila etorriko dira esan zuen ahizpa Jenofak. Hura poza ikusi ahal izango bagenitu!

Ez dut uste ikusiko dituzuenik, baina, hala ere han izango dira...

Jn 20,29

* Ekaineko lehenengo egunen ezaugarria gaixoaren gainbehera bizkorra da. 5ean, Mendekoste bezperan. urduritasun handia dago. Komunitatea lur jota dago, eta ama prioreak Garaipenen Andre Mariari bederatziruren bat hasten du.

Ia ez du jatekorik batere hartzen eta, sendagileak esnekiak aginduko dizkio. Ekainaren 15era arte, Teresak hogeit bat aldiz hitz egingo du hurbil somatzen duen heriotzari buruz. Geroago, egoerak egonkor bihurtzen da: ekaina itxaroaldi minberatsuen hilabetea da.

Ama Aines Jesusenak ama Maria Gonzagarenagandik, Teresak bere autobiografia buka dezala lortzen du. Ekainaren 4tik aurrera, berriz, gaixoak bere indarren hondarrak C eskuizkribua idazten erabiliko ditu. Haren ingurukoek ez dute inola ere susmatuko Teresa, idazluma eskuan, hurrengo urtean mundua konkistatuko duen bere testamentu izpirituala idazten ari denik.

Mendekoste astelehenean, ekainak 7, ama Maria Gonzagarenaren jairako, eta «nire heriotza laster izan litekeela kontuan izanik» (TG 258), ahizpa Jenofak argazkiak egin zizkion bere ahizpari hiru modu ezberdinetan; izan ere, argazkiok historiarako agiri berdingabeak izango dira (ik. VTL 41, 42, 43. zk.ak). Teresaren gutun edota txarteletatik hamaseik ekaineko hilabete honetako data dute (TG 233.etik 248.era).

¹ Ik. abuztuko 37. txartela.

² TO 24, 27.

Dena den, zuei poza ematearren heriotza ederra eduki nahi nuke. Ama Birjinari eskatu diot. Ez diot Jainko onari eskatu, nahi duena egiten baketan utzi nahi dut eta. Ama Birjinari eskatzea ez da berdin. Berak oso ongi daki zer egin behar duen nire gurari txikien aurrean, agertu behar dituen ala ez... Azken batez, berak ikusi behar du, Jainko ona nire nahia egitera ez behartzeko, guztian hari bere borondatea egiten uzteko.

Bart zuek zertxobait kontsolatzeko eta zuekin oso atsegin izateko grazia lortu dut, baina, ez duzue itxaron behar ni horrela agertzea heriotzako unean... Ez dakit! Behar bada, Ama Birjinak besterik gabe, Jainko onari esan gabe, bere kontura egin izango du; baina honek ez du esan nahi gerora horrela izango denik.

Ez dakit garbitokira joango naizen; horrek ez dit ardurarik ematen³; baina joaten banaiz ere, ez dut ez joateko ezer ez eginaren damurik izango. Ez dut inoiz arimak salbatzea baino beste ardurarik ez izatearen damurik izango. Izugarrizko poza ematen dit gure Ama Teresa santuak ere berdin pentsatzen zuela jakiteak⁴!

Ene Amatxo, ez arduratu beste inoiz priore izaten bazara⁵, ikusiko duzu nola ez zaizun beste garai batean bezain gogor egingo. Guztiaren gain izango zara. Nahi dutena esaten eta pentsatzen utziko duzu; zuk zeure egitekoa bakez beteko duzu...etab...etab...

Sekula ere ez ezazu ezer egin priore izateko eta ezta ez izateko ere... Edonola ere, ez dizut kargua eskuratzen utziko, zure arimaren kalterako baldin bada.

Besarkatu nuenean:

Esana dut dena! Batez ere neure Amatxori, geroago...

Ez zaitezte atsekabetu, ene ahizpatxoak, min handiak izan eta, esan dizuedan bezala, heriotzako unean niregan zorientasunaren izpirik ikusten ez baduzue. Gure Jauna Maitasun-Opari eginda hil zen eta, badakizue nolakoa izan zen haren herioztaldia⁶... Horrek ez du ezer adierazi nahi.

2

Zertxobait geroago, ni berarekin bakarrik nengoela, eta berriro oinaze handietan ikustean esan nion: "Hara, bada, oinazeak nahi zenituen, ezta? Ba, Jainko onak ez du ahaztu"

Oinazeak nahi nituen eta entzun egin dit. Oinaze handiak ditut azken egun hauetan. Goiz batean, jaunartu ondoren eskerrak ematen ari nintzela, heriotzako larriduran nengoela uste izan nuen... eta inolako kontsolamendurik gabe!

3

Guztiak Jainko onaren maitasunagatik onartzen ditut; burura etortzen zaizkidan pentsamendu aldrebes ugari horiek ere bai.

³ Garbitokiari buruz, ik. 8. VII. 15; 30. VII. 3; A Esk., 84^a/₇; TG 226; TO 17, 6; 23, 8; DE, 683. or.; Prozesuetan egindako adierazpenak.

⁴ Ik. Avilako Teresa Deuna, *Onbidea*, III. kapitulua.

⁵ Ama Aines priore izan zen, 1902tik hil arte (1951), baina hamazortzi hilabeteko etenaldia izan zen 1908 eta 1909. urteetan zehar.

⁶ Ik. 4. 7. 2. - Eta maitasunezko heriotzari buruz: C Esk., 7ⁱ/₈^a; TG 242 eta 255; TO 17, 14; 18, 52; 24, 26; 31, 6; Otoi. 6; KH 27. VII. 5; 15. VIII. 1; 30. 9 (Eranskina).

Ekainak 5

1

(Maitinak erreztatzean)

Ene Amatxo, inolako interesik gabeko maitasunaz maite nauzula ikusi dut. Hara, bada! Nik ongi baldin badakit nire amatxo zarela, zuk ere egun batez jakingo duzu zure alabatxoa naizela. Ene, zein maite zaitudan!

2

Berriro irakurri dut Joana Ark-ekoari buruz egin nuen idazlana⁷. Bertan ikusiko dituzu heriotzari buruz ditudan iritziak; denak adierazita aurkitzen dira bertan; atsegin izango duzu. Baina ez uste, une batez beldurra izan zuelako Joana Ark-ekoaren antzekoa naizenik... Hark ileei tira egiten zien⁸ !... Nik ez diet tira egiten neure ile "txikiei".

3

Ene Amatxo, zuk prestatu ninduzun lehen jaurnartzea egiteko⁹ ; presta nazazu orain ongi hiltzeko...

4

Goiz batean hilda aurkitzen banauzu ez hartu atsekaberik; Jainko Aita ona nire bila etorri delako izango da. Zer esanik ez, grazia handia da sakramentuak hartzea; baina, Jainko onak baimentzen ez duenean ere ongi dago; den-dena da grazia.

Ekainak 6

1

Es Kerrak ematen dizkizut niri Ostia sakratuaren ataltxo bat emateko eskatu duzulako. Horrela ere gaizki ibili naiz irentsi ezinik. Baina, bai zorionsu izan naizela Jainko ona nire bihotzean edukitzean! Negar egin dut nire lehen jaunartze egunean bezala¹⁰.

2

Youf jaunak¹¹ nire fedearen aurkako tentaldiei dagokienez honako hau esan dit: "Ez ibili horiek buruan dituzula bira eta bira, arriskutsua baita". Ez da pozgarria hori entzutea, baina, zorionez, ez dit izurik sortzen. Egon lasai, ez ditut nire buru txikiko garunak jo eta ke atsekabetuz hautsiko.

⁷ DSA 3.

⁸ Teresak xehetasun hori H. Wallonen *Jeanne d'Arcen*, 343. or.an, irakurri ahal izan zuen. - Joanak heriotzaren aurrean duen beldurrari buruz, ik. DSA 3, 16ⁱ/19^a. Teresak bere heroia honakoetan gogoraziko du: 20. VII. 6; 27. VII. 6; 10. VIII. 4.

⁹ Ik. A Esk., 33^a.

¹⁰ Ik. A Esk., 35^a/_f.

¹¹ Karmelgo kapilaua.

Youf jaunak beste hau ere esan dit: "Onartzen duzu heriotza? Eta nik erantzun: "A! nire Aita, onartzea bizitzeko bakarrik behar da! Heriotzari dagokionez poza sentitzen dut".

3

Hiltzeko nola jokatu beharko dudan galdetzen diot neure buruari. Hala ere, "ohorez" irten nahi nuke kinka horretatik! Dena dela, hori ez dagoela norberaren esku uste dut.

(Guregan pentsatzen zuen)

4

Hautzaroan nire bizitzako gertakari handiak igoezinezko mendi-gailurrak iruditzen zitzaizkidan. Neskatxoak lehen jaunartzea egiten ikustean, neure artean esaten nuen: nola egingo ote dut nik neure lehen jaunartzea?... Geroago: nola konponduko naiz Karmelera sartzeko?... Eta gero: abitua hartzeko? profesia egiteko? Une honetan hiltzeko¹²!

5

"Argazki bat egiteko aginduko dut, gure Amari poz emateko¹³". Berak iribarre maltzurrez:

"Esan, zeure buruari atsegin emateko... "Iparraizetxo, hago geldirik. Ez da nigatik, soingainekorik ez duen nire lagunagatik da..."

Aitak kontatzen zigun Auvernetarren ipuntxo bat gogorarazten zidan. Tonuera ematen zion eta hari-harira zetorren, itxura batean hain bihotz handiko zen lagunak benetan bere alde egiten zuelako.

6

Ez genion esan nahi, goragalerik ez sortzeko, hartzen zuen xarabea barraskiloz eginkoa zenik, baina konturatu zen eta barre egin zuen gure kezken kontura.

Nola da hori, adartxoak ezkutaturik barraskiloen xarabea edanarazte hori! Orain ahatxoez izaten duten bezala barraskiloak jaten ditut. Atzo, ostrukek bezala arrautza gordinak!

7

Bihotzez maite zaitut, bihotzez!

8

Esan nion: "Aingeruak besoetan eramango zaituzte, zure oinek harririk jo ez dezaten". Berak erantzun:

Ai! hori oso ona da une honetan, geroago, nire heriotzaren ondoren ez baitut oztoporik izango!!!

¹² Ik. 6. VI. 3; 31. VII. 4; 29. IX. 2; 30. IX (Eranskina).

¹³ Ama Maria Gonzagarena, priorea.

9

Cornière jaunak¹⁴ ikustaldia egin eta hobeki zegoela jakitean esan nion: "Atsekabeturik zaude?"

Bai zera! Nondik jakin gabe Ebanjelioa ireki eta honako hau aurkitu dut: "*Laster ikusiko duzue Gizonaren Semea zeruko hodeitan eserita*".

Mk 14,62

Nik erantzun nion: Noiz, baina, Jauna? Eta aurrez aurreko orrialdean honako hau irakurri nuen: "*Gaur bertan*".

Mk 14,30

Baina hau guztiau,... ezergatik urduri jarri ez gaitezen da, ez bizi nahi izateagatik ezta hil nahi izateagatik ere...

Unetxo bat geroago:

Hala ere, joateko gogo bizia dut. Ama Birjinari nahi duena egiteko esaten diot.

Ekainak 7

1

- *Igandea¹⁵* -

Une batean nire ondoan aulkian kanposantu barrenean egon zen. Azkenean leun-leun burua nire bular gainean jarri eta ahots bigunez abestu zuen:

Nik zu, Amatxo maitea, ahaztu?

Ez, ez, inoiz ere ez¹⁶ !

.....

Eskaileratik jaistean, eskuinera, mizpirondo azpian txitatxo guztiak hegapean bildurik zituen oilo txiki zuri bat ikusi zuen. Batzuk burutxoak erakusten zuten bakarrik. Bera pentsakor begira geratu zen. Tarte bat iraganda, keinu egin nion berriro sartzeko ordua zela adieraziz. Begiak negarrez gorrituta zituen. "Negarrez?" esan nion. Orduan begiak eskuarekin estali zituen, ugariago negar eginez eta erantzun zidan:

Ezin dizut esan une honetan zer dela eta egiten dudan negar; guztiz hunkiturik nauzu...

Gaezan, bere gelan, aurpegi zerutiarrez esan zidan:

Jainko onak konparazio hori aukeratu duela guri digun maitasuna adierazteko pentsatuz egiten nuen negar. Horixe da hark nire bizitza osoan nirekin izan duen portaera. Oso-osoan bere hegapean gorde nau! Lehenxeago, elkarrengandik banatu garenean, negar egiten nuen eskaillerak igotzean; ezin nion negargurari eutsi eta gelara iristeko presa nuen; nire bihotza maitasunez eta eskerronez gainezka zegoen.

Mt 23,37

¹⁴ Medikua.

¹⁵ Mendekoste igandea, ekainaren 6an.

¹⁶ Garai hartako kantu baten pasarte, honako izenburua zuena: «Nous t'oublier, Mère chérie?».

2

Gaurko egunez eman zidan, orain dela hamar urte, aitak loretxo zuri bat nire bokazioa lehen aldiz aipatu nionean¹⁷.

(Lorettoa erakutsi zidan)

3

Ongi hezi ez baninduzue gauza tristeak¹⁸ ikusiko zenituzkeen... Nik ez nuke gaur negarrik egingo oilo txiki zuria ikustean...

Ekainak 8

1

Laster guztiok nirekin joango zarete! Tira, honek ez du luzaro iraungo!

Zeruan gogoan izateko eskatzen zion ahizpa Maria Hirutasunarenari:

Oraindik ez duzu eskola besterik ikusi; laster ikusiko duzu txitatxoa.

2

Lurrean ez nuela inolako euskarririk esaten nion.

Bai, baduzu euskarri bat, neu naukazu.

3*

Erizaintzat maiz nekagarri izan ohi diren gaixoaldi luzei buruz hitz egin genuen, horretaz oharturik, gaixoei horrek nahigabe handia sortzen dielarik.

Nik onartzen dut orain nagoen bezala bizitza luze-luze baten azkeneraino jarraitzea. Eta Jainko onak hori gogoko badu, onartzen dut "begitan har nazatela" ere.

Ekainak 9

1

Ebanjelioak Jainko ona lapur baten antzera etorriko dela dio. Fintasun handiz etorriko zait lapurtzera. Oi! bai gogoko izango nukeela Lapurrari laguntzea!

Mt 24, 43-44

2

Gaur benetan pozez beterik nago!

- *Zure proba*¹⁹ *amaitu da ala?*

¹⁷ 1887ko maiatzaren 29an, Mendekoste eguna; ik. A Esk., 50 ^a/_i.

¹⁸ Eskuizkribuak "tistes" jartzen du «tristes»en ordeaz.

¹⁹ Ik. maiatzeko 20. oharra.

Ez, baina, geldialdiaren antzekoa da. Dagoeneko ez dut entzuten belarrietan suge gaiztoen txistu-hotsik.

3

Lasaitasun handiz uzten diet ingurukoei hobetze-bidean naizela esaten. Joan zen asteen jaikita nembilen eta oso gaixo nengoela uste zuten. Aste honetan ezin naiz zutik egon, jota nago eta hona nondik salbaturik nagoela uste dute. Baina, zer ardura dio horrek!

-Hala bada, laster hilko zarela uste duzu?

Bai, laster joango naizen ustea dut. Egia esan, ez nago hobeki; min handia dut saihetsean. Baina, beti esango dut: Jainko onak sendatzen banau ez naiz lur jota geratuko.

"Bai atsekabe handia izango dugula zu joatean!" esaten zion ahizpa Maria Biotz Sakratuarenari

Bai zera! inola ere ez; ikusiko duzue! Arrosa-euriaren antzera izango da²⁰ !

4

Ez diot Lapurrari beldurik... Urruti ikusten dut eta ez dut "lapurra!" deiar egiten, ez horixe. Horren ordez dei egiten diot esanez: "hemendik, hemendik!".

5

Trenbideko geltokian trenera igotzeko aitatxo-amatxoren zain dagoen haurtxoaren antzerakoa naiz. Hara, bada, ez dira etortzen eta trenak aurrera egiten du! Baina, badira beste tren batzuk ere; ez ditut guztiak galduko...

Ekainak 10

Onera egin zuen eta harriturik zegoen.

Ahaleginak egin behar zituen ez atsekabetzeko.

... Ama Birjinak ondo betetzen ditu nire mandatuak, beste behin emango dizkiot.

Oso sarritan esaten diot:

"Esaiozu ez dezala nire ardurarik izan"²¹.

Berak ulertu du eta hori egiten dihardu. Ez dut batere ulertzen neure gaixotasuna. Begira, non eta orain geroago eta hobeki! Hala ere konfiantza jarri eta neurri berean zoriontsu naiz. Zer izango ote litzateke nik laster hiltzeko itxaropena izango banu? Zenbat ustekabeko! Baina ez dut ustekabekorik hartzen, poza Jainko onak egiten duenean jarri dudalako; haren borondatea egitea besterik ez dut nahi.

²⁰ *Histoire de saint Louis de Gonzaguetik* jasotako konparazioa (jantokian irakurtzen zena), 411. or.

²¹ TO 54, 16.

Ekainak 11

1

Loreak bota zizkion, lorategiko (gaztainondoan etorbide barrenean) San Joseri, haur baten jasez eta graziaz "Hartu" esanez.

Zer dela eta jaurkitzen dizkiozu loreak San Joseri? Graziaren bat lortzeko ahal da?

Ai! bai zera! Atsegin emateko da... Ez dut nahi ordaina hartzeko asmoz ematerik.

2

Ez ditut buruko garunak nekatu nahi neure bizitza "txikia"²² idazten; amuz arrantzan egitea bezala da: berez datorkidana idazten dut.

Ekainak 12

1

Ez naute, benetan nagoen bezain gaixotzat jotzen. Hori dela eta, penagarriagoa egiten da, jaunartzerik gabe, eliz otoitzik gabe izatea. Baina, askoz hobe, dagoeneko inork pena izaten ez badu. Horrek atsekabe handia ematen zidan eta Ama Birjinari arazoak, ardura guztiak ezkutatzeko eran, konpontzeko eskatzen nion. Hark entzun ditu nire eskariak.

Niri dagokidanez, zer axola du besteek nitaz hau edo hori pentsatu eta esateak? Ez dut atsekabetzeko zerik.

2

Bihar ez dut jaunartuko! Eta hainbeste neskato txikik hartuko dute Jainko ona²³!

(Santiago parrokiaren lehen jaunartzeak egiten zirenean)

Ekainak 13

(Baratzan)

Neure burua, bordatzeko bastidorean tinko jarritako ehuna izan dela eta ez datorrela inor bordatzera iruditzen zait! Itxaron eta itxaron! baina guztia alferrik! Tira ba, ez dago zertan harriturik, haur txikiek ez baitute zer nahi duten jakiten!

²² C eskuizkribua.

²³ Pixka bat jaikitzen bada ere, Teresa ez da ia mezarara eta orduen liturgiara joaten (12. VI. 1). Dena dela, haren egoera ez da, apaiza Eukaristia ematera klausuran sartzeko bezain larritzat jotzen.

Hau guztia Jesus txikiagan pentsatzen dudalako diot; berak jarri nau tinko atsekabeen bastidorean bordatzeko asmoz, lasaitu ostean, egindako lan ederra han goian erakustera joateko.

Lapurri buruz mintzatzean ez naiz Jesus txikiar ari, Jainko on "handiaz" baik.

Ekainak 14

Bederatziurrenako azken eguna²⁴. Askoz ere hobeki aurkitzen zen; etsipen berria berarentzat; hala ere irribarrez esan zidan:

Neskatxo sendatu bat naiz!
Atsekabea ematen dizu horrek?

Oi! ez... Unerik une atsekabe handiak jasan daitezke.

Ekainak 15

1

9an, urrutitik argi-argi ikusten nuen Zeruko portua iragartzen zidan itsasargia; baina orain ez dut ezer ikusten, begiak bendaz estaliak edo ditut. Egun horretan Lapurra ikusten nuen; une honetan ez dut ezertxo ere ikusten. Heriotzari buruz esaten didana ez zait barrura sartzen; labain egiten du baldosa baten gainean bezala. Amaitu zen! Agortuta dago heriotzaren itzaropena! Zer esanik ez, Jainko onak ez du, gaixotu aurretik bezala, horretaz arduratzen hartzeirik nahi. Orduan beharrezkoa eta oso onuragarria nuen pentsamendu hori; seguru sentitzen nintzen. Baina orain alde-rantziz da. Jainko onak, berarekin zer egingo duten pentsatzen ez duen haur txikiaren antzera, Beragan konfiantza jartzea nahi du.

2

Nekaturik zaude zure egoera luzatzen ari delako? Sufrimendu handiak izango dituzu, ezta?

Bai, baina "ontzat jotzen ditut".

Zergatik?

Jainko onak "ontzat ematen" dituelako

(Hitz egiteko bere ohizko era apalarekin bat ez zetozen hitzak eta antzerako beste batzuk erabiltzen zituen, bere pentsamendua guretzat atsegingarri egin nahi zuenean.

Adiskide-giroan erabiltzen zituen esamolde tolesgabe batzuk ere hartu zituen, haren ahoan doinu oso berezia zutenak).

²⁴ Benetan, igandean, hilaren 13an, amaitu zen.

3

Ez dakit noiz hilko naizen; orain ez dut gaixotasunean konfiantzarik; elizakok ematen badizkidate ere, oraindik atzerantz egin nezake berriro. Ez dut nire heriotzaren benetako ziurtasunik izango, une hori iragan eta Jainko onaren besoetan aurkitzen ez naizen arte.

4

(Arratsean)

Bai nahiko nukeela zuri gauza atseginen bat esatea!

“Esaidazu, bakarrik, Zerura joan zaitezenean ahaztuko nauzun ala ez.

Ai! ahaztuko bazintut, santu guztiek hontz itsusi baten antzera paradisuetik bidaliko ninduketela uste dut. Ene amatxo maitea, hara gora joandakoan “zure bila etorriko naiz, zu ere ni nagoen lekuan izan zaitezen”.

Jn 14,3

5

Pozik nago, neure gaixoaldian ez diodalako Jainko onari ezertan minik ematen. Unetxo bat lehenago maitasunari buruz idazten ari nintzen (*Bizitzako koadernoan*²⁵) eta oso sarri etorri zaizkit eten egitera; orduan, urduri ez jartzen eta idazten nuena betetzen saiatu naiz.

Ekainak 19*

Gure lehengusina ama Margaritak (Bihotz Guztiz Garbiaren Laguntzaileen, erizainen, nagusi jenerala Parisen) otarre zoragarri bat bidali zidan lili artifizialez beterik hil honen 21erako, ama Maria Gonzagarenaren jairako. Otarretxo eraman nion oso alai esaten niola: “Laguntzaileen Nagusi Jeneralak bidali dit!”

Hitzetik hortzera erantzun zidan, biziki eta maiteki:

Nire bihotzeko Nagusi Jenerala zeu zara!

Ekainak 20

*Gure Amaren jaiegunerako*²⁶ *pintatu nituen Ama Birjinaren argazki txikiak erakusten ari nintzaion. Bere begi aurrean jarritako miniaturren gainean eskuak jarri eta hatzak zabalduz Jesus Haurraren buru txiki guztiak batera ukitzea lortu zuen. Orduan esan zidan.*

Guztiak neure menpe ditut.

²⁵ Ik. C Esk., 17^a.

²⁶ Luis Gonzaga Santuaren jaia, ekainaren 21ean. Egun honetarako Teresak oraindik ere bertso batzuk egin zituen: GO 6.

Ekainak 22

Lorategian bere burditxoan²⁷ zegoen. Arratsaldean beragana hurbiltzean esan zidan:

Zein ederki ulertzen ditudan Jaunak gure Ama Teresari esandako hitzok: “Ba al dakizu, ene alabatxo, nortzuk maite nauten benetan? Helmugatzat ni ez naukaten gauzak gezur hutsak direla aitortzen dutenak”²⁸.

Ene, Amatxo laztana, hauxe bai iruditzen zaidala egia! Bai, Jaingoagandik kanpoko guztia huskeria hutsa da. Koh 1,2

Ekainak 23

Nik esaten nion: Hau zoritxarra! nire heriotz unean ez dut ezer izango Jainko onari emateko, eskuak hutsik ditut eta! Horrek tristura handia sortzen dit.

Hara, bada, ez zara egoera bereborean aurkitzen den “haurtxoa”²⁹ (batzuetan bere buruari izen hori ezartzen zion) bezalakoa... San Pauloren egintza guztiak egin banitu ere, “zerbitzari ezereza” naizela uste izaten jarraituko nuke; baina, hori da, hain zuzen ere, nire poz-iturria; ezer eduki ezik, guztia Jainko onarengandik hartuko dut. Lk 17,10

Ekainak 25

1

Jesusen Bihotzaren jaieguna.

Haren gelan eguzkiak biziki jotzen zuelako liburutegian jarri zuten. Sermoi bitartean Fedearen zabalkunderako liburu bat hartu zuen. Geroago, haur bataiatu baten ondoan zuri z jantzitako Andere apain baten agerkundea aipatzen zuen pasarte bat erakutsi eta honako hau esan zidan:

Geroago ni neu ere horrela joango naiz haur bataitu txikien ondoan...

2

Sermoi bitartean jai hartu dut; neure burua jaietan sentitu dut. Ezingo nuke halakorik egunero egin. Nire koaderno (bere bizitza) neure eskola-lan txikitat dut.

²⁷ Martin jaunak erabilitako gaixo-gurditxo, jarraian Karmeli emanikoa.

²⁸ Avilako Teresa Deuna, *Vie par elle-même*, XI. kapituluua.

²⁹ Ik. TG 237, 254, 255, 257; KH 7. VII. 1; 29. VII. 8; 31. VII. 4; 2. VIII. 5; 18. VIII. 2; 19. VIII. 4; 20. VIII. 1; 21. VIII. 2; 30. 9. - Baina ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenari honako hau esan zion: «Zaharra den haurtxoa» (PA, 231). Esangura berean agertuko da «haur-erako» KH 11. VI. 1; 10. VII. 3; 25. VIII. 3; 5. IX. 1; 29. IX. 3an. Baina (*Prières*, 129. or.) adierazi denez, jarrerak horretan ez da inolako faza edo itxurakeriarik.

Ekainak 26

Atzo min handiak izan nituen saihetsean, gero... gaur goizean amaitu egin da mina! Ai! noiz joango naiz Jainko onarengana? Bai atsegín nukeela Zerura joatea!

Ekainak 27

Zerura joan ondoren, santu guztiei nire Amatrixori buruzko hain gauza politik esango dizkiedanez gero, beraiengana eramateko gogo bizia sortuko diet. Beti nire Amatrixorekin izango naiz; santuei berau babestera nirekin soto ilunetara etortzeko eskatuko diet eta nahi ez badute neu bakarrik etorriko naiz.

Honetan sakristiako sotoan egun hartan gertatu zitzaidan gertakari bati egiten dio aipamen.

Ekainak 29

1

... Begira zer gertatu den: Ni hiltzeko nintzanez gero, aingerutxoak harrera egiteko prestakizun ederrak egiten hasi ziren; baina nekatu eta loak hartu zituen. Zoritxarrez, haurtxoek luzaroan diraute lotan; ez dakit noiz esnatuko diren!...

(Sarritan kontatzen zizkigun honelako istoriotxoak, guri bere arima eta gorputzeko atsekabeak ahantzarazteko³⁰)

2

Oso dohakabea izango naiz Zeruan, maite ditudanei lurtean atsegín txikiak emateko erarik izaten ez badut!

3

Arratsaldean areagotu egin zen haren barruko proba eta esames batzuk asko sufriarazi zioten. Honako hau esan zidan:

Nire arima atzerrian dago: itxita ditut Zeruko ateak eta hemen lurtean, bestalde, probak.

... Ikusten dut ez nautela gaixotzat jotzen, baina Jainko ona da hori hala izaten uzten duena.

4

Oso pozik izango naiz Zeruan, niretzat bertso politik egiten badituzu; uste dut horrek poza emango diela santuei.

³⁰ Ik. 9. VII. 9.

Ekainak 30

1

San Simeon Estilitak³¹ bezala harrigarritzko bizimodua egin zuten santu batzuk aipatu nizkion. Hau esan zidan:

Nik, maiteago ditut ezeren beldurrik ez duten santuak, Santa Zeziliaren antzera, ezeren beldur gabe ezkontzen dena...

2

Gure osabak, gurekin batera mintzalekura jaisteko eskatu zuen eta, ohitura zuenez, ez zuen ia hitzik egin.

Benetan kikilduta sentitzen nitzen gure osabarekin mintzalekuan! Itzultzean, oso gogor egin nion agirika nobizia bati; ez nuen neure burua ezagutzen. Ai! nik bai ditudala gorabeherak neure izaeran! Nire lotsati-izate honek nitaz arduratzen direla ikustean sortzen zaidan larridura handian du iturburua³².

³¹ Ekialdeko Santua, zutabe baten urte luzeetan zehar bizi izan zena; hortik datorkio izena.

³² Ik. A Esk., 13^a/i.

Uztailak 2*

Arratsalde zean azkenengoz otoiztegiko Sakramentu Txit Santuaren aurrean otoitz egitera; baina bere indarren azkenetan zen. Ostiari begira-begira ikusi nuen luzaroan eta inolako kontsolamendurik gabe, baina bihotzaren sakonean bakez beterik zegoela somatu nuen.

Gogoan dut goizean, meza ostean, Komunitatea eskerrak ematera otoiztegitara joatean, inork ez zuela hari laguntza ematerik pentsatu. Oso astiro zihohan, hormaren kontratik zehar. Ez nuen besoa eskaintzeko ausardiarik izan.

Uztailak 3

1

Hil berri zen gure adiskide bat¹, eta Cornière doktoreak beraren aurrean hildakoaren gaixotasunari, tumoreari buruz hitz egin zuen, ez zuela zehazki definitzerik lortu esanez. Kasu hark interes handia zuela berarentzat mediku-ikuspuntutik begiraturik. "Benetan penagarria nik autopsia egiteko aukerarik ez izatea"!

Berak geroago esan zidan:

* Iturri bi dira uztail honetako dokumentazio aberatsa ematen dutenak: 238 esaldiak, koaderno horiaren herena-edo osatzen dutenak, eta Teresari buruz diharduten 34 gutunak, gehienak Guérin familiari, La Musse-n oporretan zegoela, zuzenduak (ik. DE, 678 eta ondorengo orrialdea). Haiek emango digute birikeria nola doan urratsez urrats jarraitzeko aukera.

Ekainaren amaierantz izandako ustezko hobekuntzaren ondoren, bi hemoptisi eraso gogor eta segidako izan zituen uztailaren 6 eta 7an.. Ezertarako ere mugitu gabe, egoteak, izotzak eta beste ardurabatuek arriskuari pixka batean aurre egitea lortuko zuten. Uztailaren 8ko arratsean, gaixoa behe solairuko gaixotegira eramango dute.

Laster izango ditu beste hemoptisi eraso batzuk. Cornièrek medikuak ez du sendatuko denik uste. Uztailaren 29an, gaixorik gaizki jartzen da, eta biharamunean oliadura emango diote hilaginean dagoenari: gaua ez duela gaindituko uste da.

Hilaren hasieran, Teresak utzi egin behar izan dio eskuizkribua idazteari. Haren egitekoa burutua da eta Ama Aines Jesusenarena hasten da. Bere alabatxoaren oheburuan, geroko «historiagilea»k (KH 29.VII.7) argibideak eskatu eta jasoko ditu. Gaixoak gogorazitako hautzaroko oroitzapenak, bere erlijio-esperientziak bat-batean egindako hausnarketak, gorputz eta arimaren sufrimenduen aurrean dituen jarrerak. Haren "bidetxoa" ahalik eta arima gehienengana zabaldu behar da. Uztaila, hil ondoren izango duen eginkizunaz, profezi zantzuak agertuko dituen hilabetea izango da.

Teresak hamahiru gutun eta txartel idatzi zituen (arkatzez) hil honetan zehar (TG 249.etik 261.era).

¹ Joana Maria Primois, uztailaren 1ean hila, 43 urte zituela.

Ai! horixe da lurrean batzuek besteenganako sentitzen dugun hoztasuna! Berdin esango ote litzateke norberaren ama nahiz arreba izanez gero? Oi! bai dela handia mundu triste honetatik joateko dudan gogoa!

2

Akatsen bat egiterakoan izaten nuen tristurazko eta etsipenezko sentimenduak ematen nizkion aditzera.

... Ez duzu nik bezala jokutzen. Triste jartzen nauen akatsik egiten dudanean, ondotoxo dakit tristura hori nire leialtasunik ezaren ondorio dela. Baina, horrek jota uzten nauela uste ahal duzu? Ez horixe; ez naiz hain lela! Berehala esaten diot Jainko onari: Nire Jainko maitea, badakit ondo merezia dudala tristura hau, baina, hala ere, utziezaidazu zuk maitasunez bidalitako proba gisa zuri eskaintzen. Damu dut bekatu egina, baina poz ematen dit oinaze hau zuri eskaini ahal izateak.

3

Nola nahi izan dezakezu hiltzea, amaitzen ez den fedearen aurkako proba hori izanik?

A!, baina, konfiantza oso-osoa dut Lapurrearengan! Zalantza guztiak Zeruari buruz dira. Hau bai dela harrigarria eta zentzugabea!

4

Esneak gaitz egiten zion eta aldi hartan besterik hartu ezin zuenez gero, C. jaunak² farmazietan bakarrik saltzen zen "ama-esnea" deituriko esne-kondentsatu mota bat hatzeko agindu zion. Haugatik edo horigatik atsekabea sortu zion agindu horrek eta botilak ekartzen zituztela ikustean negarrari eman zion malko-iturri egirik.

Arrasaldean, barruko kezka hustu beharra sentitu zuen eta aurpegiera triste eta ezituz esan zigun:

Nire arimarentzako janaria behar dut. Irakuriezadazu santu baten bizitza.

Nahi duzu Asisko Frantzisko santuaren bizitza? Gogoa lasaituko dizu txoriei buruz aritzean.

Ez, ez da gogoa lasaitzeko, apaltasun-jarraibideak ikusteko baizik.

5

Hil zaitezenean, palma-adarra jarriko dizute eskuan³.

Bai, baina nahi dudanean askatu eta nire Amatxori graziak eskubeteka eman ahal izateko eran izan beharko du. Gogoko dudan guztia egiteko bidea izan beharko dut.

6

(Arratsean)

Santuek ere bertan behera bakarrik uzten naute! Maitinetan San Antoniori galdutako mukizapia aurkitzen laguntzeko eskatu diot. Entzun nauela uste duzu? Bai

² De Cornière sendagilea.

³ VTL 46. argazkian ageri da palma-adarra, eta oso-osorik aurkitu zen 1910/9/6an hilobitik atera zutenean.

zera, kontu izan du⁴ halakorik ez egiteko! Baina, ez dio axola; hala eta guztiz ere, berdin-berdin maite dudala esan diot.

7

Maitinetan izarrak diz-diz ikusten nituen; bestalde, liturgi otoitza entzuten nuen eta horrek guztiak atsegina sortzen zidan.

(Haren gelako leihoa irekita zegoen)

Uztailak 4

1

Jainko onak laguntza eman dit eta gainditua dut “ama-esnea” hartu-beharrak sortutako atsekabea.

2

(Arratsean)

Gure Jauna Gurutzean hil zen larrialdi artean eta, hala ere, haren heriotza maitasunezko heriotzarik ederrena izan zen. Ikusi den bakarra da; Ama Birjinarena ez zen ikusi. Maitasunez hiltzea⁵ ez da gauza harrigarri artean hiltzea. Argi eta garbi aitortzen dizuet, horixe dela nik neugan somatzen dudana.

3

“Oi! oinazeak jasan behar dituzula pentsatzen dudanean!”

Eta horrek zer? Oinazea azken mugaraino heldu ahal izango da, baina, ziur nago Jainko onak ez nauela inoiz bertan behera utziko.

4

Aita Alexisenganako⁶ barru-barruko esker ona sentitzen dut; on ugari egin zidan. Aita Pichon-ek⁷ umetxo gisa tratatzen ninduen maiz; hala ere, on egin zidan nik ez nuela inoiz bekatu astunik egin esan zidanean.

Uztailak 5

1

Neure akatsei buruz mintzaten nintzaion. Honako hau esan zidan:

Nik ere badituz akatsak, baina poz ematen didate. Ez dituz beti lurreko huskeriak gaintitzen; esaterako, ernegua sortzen dit esandako edo egindako edozein hus-

⁴ “Bien guetté”, Normandiako esaera, «bien gardé»ren ordez.

⁵ Ikus ekaineko 6. oharra.

⁶ Ik. A Esk., 80^a/7; eta 25. 7. 7.

⁷ Ik. A Esk., 70^a eta LC 151; Teresari zuzendutako beste hamabost gutunei buruz, ikus CG, 1438. or.

keriak. Halakoetan, neure barnera etorri eta esaten dut: Ene, bada! oraindik hasiera-ko eskailera-maila berean aurkitzen naiz! Baina, hau samur-samur eta tristurarik gabe esaten dut neure kautan. Hain da eztigarria norbere burua makal eta txiki ikus-tea!

2

Ez atsekaberik hartu, ene Amatxo, ongi baituzu ikusten nolako poztasunez betetzen nauen Jainko onak. Beti alai eta pozik nago⁸.

3

Bi haurtxo, bata belaun gainen eserita eta bestea oinetan eskuan mun egiten zeuzkan gure Jaun onaren irudi bat zekarren estanpa batera begiratu ondoren:

Ni Jesusen belaun gainean, hanka hain txukunkiro luzatu, burutxoia jaso eta beldurrik gabe xerak egiten dizkion haurra naiz. Beste txikia ez dut hain gogoko. Pertsona nagusi baten antza du; zerbait esan diote... Jesus begirunez tratatzekoa dela daki...

Uztailak 6

1

Odola oka egin berri zuen. Esan nion: Utzi egingo gaituzu, beraz?

Ez, horixe! Apaiz jaunak⁹ esan dit: "zuretzat nahigabe handia izango da ahiz-pak utzi beharra". Nik erantzun diot: "Baina, ene Aita, ez dut uste utziko ditudanik; alderantziz, nire heriotz ondoren inoiz baino hurbilako izango naiz haiengandik"¹⁰.

2

Neure heriotzaren aurrean, neure bizitzako gertakari nagusien aurrean izanda-ko pazientzia berbera izan behar dudala uste dut. Hara: gazte sartu nintzen Karmen-len, eta hala ere, erabakia sendo hartuta gero ere, hiru hilabete itxaron beharra izan nuen. Abitua hartzeko ere berdintsu. Profesa egin nuenean ere beste horrenbeste¹¹. Hara, bada, nire heriotzan ere beste horrenbeste izango da: laster etorriko da, baina itxaron egin behar oraindik.

3

Behin, zeruan, Jainko onarenganaino hurbilduko naiz, Isabel ahizparen¹² lobatxoak mintzalekuko burdin-sarearen aurrean egiten zuen bezala. - Badakizu, bere agurrak eskaini eta besoak jasoz makurdura egin eta "zorionak maite zaituzte-dan guztientzat" esanez egiten zuen bezala.

⁸ Teresak, gaixorik dagoela, duen poztasunari buruz, ik. 19. V; 6. VII. 3; 9. VII. 1; 13. VII. 7; 10. VIII. 3; 20. VIII. 4; 5. IX. 3; 6. IX. 2; TG 255; DE, 688-690. orr., 732.

⁹ Youf apaiza.

¹⁰ Ik. 27. 8. 6; TG 229 eta 253; DE, 740. or.

¹¹ Berandutze horien inguruan, ik. A Esk., 68^a, 72^a eta 73ⁱ.

¹² Karmelgo tornuzaina.

Jainko onak esango dit: “Zer nahi duzu nire alabatxo horrek?”. Nik erantzungo diot: “Zoriona maite dudan guztientzat”. Berdin egingo dut santu guztien aurrean.

Gaur oso alai zaude; Lapurra ikusten duzula dirudi.

Bai, gaizkiago jartzen naizen bakoitzean, ikusi egiten dut. Baina, ikusi ez arren, hain maite dudanez gero, beti nago pozik hark egiten duenaz. Ez nuke guxtiago maitatuko, lapurtzera ez baletor, alderantziz baizik... Ziria sartzen didanean era guztietako konplimenduak egiten dizkiot; jadanik ez daki nirekin nola jokatu.

4

Kristoren Antz-Bidearen iruzkinetan¹³ pasarte eder bat irakurri dut. De Lamennais jaunaren pentsamendua da - zoritxarra! - hala ere oso ederra da (*Berak, eta guk ere bai, Lamennais apaiza damutu gabe hil zela uste zuen*).

Gure Jaunak, Olibadiko baratzean Hirutasunaren atsegin guztiak gozatzen zituen; baina, hala ere, ez zen horregatik samurragoa izan haren heriotzaldia. Misterio bat da, baina, niri gertatzen zaidana ikusirik, uste dut ulertzen dudala orduan gertatu zitzaiona.

5

Odol-okadak izatea utz zezan Iribarrearen Ama Birjinari¹⁴ argi-kriseilua jartzen ari nintzen.

Ez duzu pozik ikusten, beraz, ni hiltzea! Ai! Ni pozteko odola oka egiten jarraitzea beharko zen. Baina, gaurkoz bukatu da!

6

Goizeko zortziak eta laurdenak. Ahazturik utzi zuten bere kriseilua eraman nion. Zerbitzu txiki batzuk egin nizkion. Hunkiturik jarri zen eta esan zidan:

Beti horrela jokatu duzu nirekin... Ez dakit nik neure eskerrona agertzen.

Negar-zotinak xukatuz:

Bihotza samurturik, negarrez nauzu, nire gaztarotik orain arte egin dizkidazun guztiengatik. Oi! zenbat zor dizudan! Baina zerura nadinean egia esango dut; santuei, nire Amatok eman didala niregan atsegingarri aurkitzen dutenen hau guztia esango diet.

7

Noiz iritsiko naiz azken epai-unera? Oi! bai izango nukeela gogoko une hori iritsia izatea! Eta zer izango da ondoren?...

8

Sakrifizio txiki asko egiten ditut...

¹³ Ik. Im. II, 9, *Réflexions*.

¹⁴ Teresak, haurra zela eta gaixorik oso gaizki zegoela, 1883ko maiatzaren 13an irri egiten ikusi zuena irudia; ik. A Esk., 30^a.

Uztailak 7

1

Berriro ere odola oka egin ondoren:

Haurtxoa laster joango da Jainko ona ikustera...

Badiozu beldurrik orain hain hurbil ikusten duzun heriotzari?

Ai! geroago eta gutxiago!

Badiozu beldurrik Lapurrari? Oraingoan ate-joka duzu!

Ez, ez dago atean, barrura sartu da. Baina, zer diozu, ene Amatxo? Lapurrari beldurrik diodan? Nola izango diot beldur hain maite dudanari? Mt 24, 43.44

2

Maitasunari bere buruaren eskaintza¹⁵ egin ondoren gertatutakoa berriro kontatzeko eskatu nion. Honela hasi zitzaidan:

Nire Amatxo, egun berean esan nizun, baina ez zenidan jaramonik egin.

(Egia esan, une hartan garrantzirik ez niola ematen adierazi nuen).

Hara, bada, neure Gurutz-bidea hasi nuen; bat-batean, oso-osorik surtan sartuta nengoela iruditu zitzaidalda esan ezik azaldu ezin dudan Jainko onarenganako maitasun hain izugarria somatu nuen erraietan. Oi! hura sua eta, era berean, hura samurtasuna! Maitasunaren surtan gori-gori nengoen, eta minutu bat, segundu bat luzatuz gero ezingo nuela hil gabe berotasun hura jasan iruditzen zitzaidan. Orduan ulertu nituen santuek hain sarri izaten zituzten egoera bereziei buruz esaten dituztenak. Nik behin bakarrik eta une labur batean gozatu nuen: jarraian berehala nire ohizko lehortasuna etorri zitzaidan.

Zerbait geroxeago:

Hamalau urte nituenean ere maitasun-zaztadak sentitzen nituen. Ai! zenbateraino maite nuen Jainko ona¹⁶! Baina ez zen, inola ere, Maitasunari neure burua eskaini ondoren bezala; ez zen egiatan erre egiten ninduen sugarra.

3

Gazte-gaztetarik gogoko izan ditut Job-en hitz hauek: "Jainkoak Berak hilko banindu ere, harengan itxaropena izaten jarraituko nuke"¹⁷. Baina urteak eta urteak behar izan ditut buru-uzte honetara heltzeko. Orain bertan nauzu; Jainko onak bertara helarazi nau; besoetan hartu eta bertan jarri nau... Jb 13,15

4

Cornière jaunari ikasbidea emateko hitz atsegin batzuk esateko eskatzen nion:

¹⁵ 1895eko ekainaren 9ko eskaintza, ik. A Esk., 84^a eta Otoi. 6; ondorengo honetan ere aipatua: 29. VII. 9; 8. VIII. 2 eta 30. IXan.

¹⁶ Ik. A Esk., 52^a.

¹⁷ Bulgataren itzulpena.

Ai! ene Amatxo, hori ez da nire joera!... Cornière jaunak pentsa dezala nahi duena. Xalotasuna maite dut eta "iturakeria"¹⁸ gorrotatzen. Benetan diotsut, nireztat ez legoke ongi eskatzen didazuna egitea.

5

Ea bada, azkenean oso gaixo nagoela sinestera iritsi naiz. Ez dut inoiz ahaztuko gaur goizean odola okatzen nuenean gertatua; Cornière jaunak lur jota zirudien.

6

Begira, Jainko onak zu tarteko zarela samur-samur narabil. Ez enplasturik eta horrelakorik, sendagai "gozoak" besterik ez. Oinazeak ditut, bai, baina ez garrasi egiteko adinakoak.

Unetxo bat igaro ostean, aurpegikera bihurria jarriz:

Dena dela, Jainko onak "garrasi" egiteko adinako probak bidali dizkigu... hala ere ez dugu "garrasirik egin"...

(Familiako gure nahigabe handia gogoratzen zuen¹⁹).

Haren "sendagai gozoak" ez ziren beti hain gozoak izan eta haren oinazeak izugarriak izan ziren.

7

Gogo biziz oihanera itzuli nahi eta etxe barruan bizitzera behartzen duten "otsotxo gris" gaixoaren antzekoa naiz.

(Gure aitak Buissonnets-en noizbehinka "nire otsotxo grisa" deitzen zion).

8

Horma gainean, noizbehinka txio-txio eginez gurasoei jaten ematera etortzeko deika itxaroten zegoen txolarrekume txiki bat ikusi dut. Haren antzekoa naizela iruditu zait.

9

Gogoko nituela kunplimenduak esaten nion:

Gogoan izango dut hori zeruan...

Uztailak 8

1

Hain gaixorik zegoenez gero, Oleazioa ematea pentsatu zen. Egun hartan gelatik eritigira jaitsi zuten. Ezin zen zutik egon eta eraman egin zuten. Oraindik gelan zelarrik eta oleazioa emateko zirela ikusiz, harridura atseginez esan zuen:

¹⁸ Ik. 13. VII. 7; 11. VIII. 6; 15. VIII. 7.

¹⁹ Martin jaunaren gaixotasuna.

Ametsetan naizela iruditzen zait!...Tira, hauek ez daude ero... (*Youf apaiz jauna eta Cornière jauna*).

Kezka bakar bat dut: egoera honek aldakuntza izatea.

2

Nirekin zentsumen bidez eginiko bekatuen berri jakin nahi izan zuen, oleazioa hartu aurretik aitortzeko. Usaimenari buruz ari ginen eta honako hau esan zidan:

Gogoan dut Alençon-dik Lisieux-era azken bidaia²⁰ egin nuenean, atseginez erabili nuela Tifenne (1) andereak eman zidan kolonia-flasko bat.

(¹) *familiako adiskide bat.*

3

Guztiok batera hitz egin nahi genion.

Esateko zerbait duen jende-piloa!

4

Pozez gainezka zegoen eta aditzera ematen ahalegintzen zen.

Zerura nadinean zuri "txantxa" txiki batzuk egitera lurrera jaisterik izaten ez badut, "baztertxo"²¹ batera joango naiz negar egitera.

5

Niri:

Sudur luzea duzu; horri esker geroago usaimen ona izango duzu²².

6

Esku ihartuei begiraturuz:

Hau, dagoeneko eskeleto bilakatzen ari da, eta "ongi dago"²³.

7

Badakizu? laster "hiltzorian" izango naiz.

... Honi Donibane-zuhaitzaren antza hartzen diot; labainkada bat baino gehiago izan dut, baina, bat-batean hona hemen gailurreraino iritsirik!

8

Nahiago dut hauts bihurtzea, Bolognako Santa Katalina²⁴ bezala usteldu gabe gelditzea baino. Hilobitik ohorez atera dituztenen artean, bakarrik San Krispin dut ezaguna.

²⁰ 1886ko urrian; ik. A Esk., 43^a.

²¹ "Toin" idazten du «Coin»en ordez.

²² «Noizean behin aitak esan ohi zuen hau; ezaguna zen esaldi hau», azpimarratu du ama Ainesek. Honen sudurra dela eta, ik. TG 219.

²³ Ik. 15. VI. 2; eta gaixoaren ahuldurari buruz, 14. VII. 10; 20. IX. 2; 24. IX. 3.

²⁴ Ik. A Esk., 59ⁱ.

Santa honen gorputza oso harrigarriro kontserbatuta dago Erromako frantziskotarren komentuan.

9

Bere buruari hitz eginez:

Beste zerbait da hor hiltorian izatea! Baina, zer nolako garrantzia du, egiatan, horrek? Inoiz neure burua ezerezkeriengatik destainaz betea ikusi izan dut²⁵.

10

Aldi berean aurpegi ilun eta atseginez, ez dut gogoratzen zergatik, baina badakit gaizki ulertua izan zena:

Lk 2, 19,51

Ama Birjinak ongi egin zuen gertakari guztiak bere bihotz "txiki" barruan gordez... Ezin didate leporatu hark bezala egiterik...

11

Aingerutxoak pozik ibili dira nire lepotik jolasean etengabe... Nire hurbileko azken uea seinalatzen zuen argia ezkututzen aritu zaizkit...

Ama Birjina ere ezkutatu egin dizute?

Ez, Ama Birjina ez dut inoiz ezkutuan izango, gehiegi maite dut eta.

12

Bene-benetan nahi dut Oleazioa; gero nire lepotik barre egiten badute, sentitzen dut!

(Osasuna berreskuratzen bazuen edo, bazekien ahizpa batzuek ez zutela hiltzeko arriskuan zegoenik sinesten-eta)

13

Oi! benetan negar egingo dut Jainko ona ikustean!... Baina ez, Zeruan ezin baita negarrik egin... Edo bai?, hark honakoa esan baitzuen: "zuen begitako malkoak xukatuko ditut".

Ap 21,4

14

Nire pozaren emaitza txikiak eskaintzen dizkizut, Jainko onak ematen didan eran²⁶.

Zeruan grazia ugari lortuko ditut on egin didaten guztientzat. Amatzorentzat guztiak. Gauza guztiak baliagarri ez bazaizkizu ere, izango duzu zertan "poza hartu"²⁷ ugari.

15

Jainko ona zein bihozbera izango dudan jakingo bazenu!... Baina hain bihozbera ez bada ere, nik bihozbera aurkituko dut... Garbitokira joaten banaiz, oso pozik

²⁵ Ik. C Esk., 27^a.

²⁶ Ik. TG 260.

²⁷ "éjouir" idazten du «Réjouir»en ordeaz.

izango naiz; hiru ebetarrek labean bezala egingo dut: gar artean ibiliko naiz Maitasunaren kantua kantatuz. Oi! bai izango naizela zorionsu, garbitokira joan eta arima batzuk, beraien orde zoinazeak hartuz, askatu ahal izanez gero; orduan on egingo nuke, gatibuak askatuko nituzke!

16

Bi misiolariren²⁸ arreba izpiritualtzat emana izatearen ondorioz, geroago apaiz gazte talde handi bat hemengoei mesede bera eskatzera etor daitekeela eta arretaz jokatzeko zioen. Horrek arrisku handia ekar dezakeela oharrarazi zidan:

Nornahik idatz dezake nik idazten dudana eta nik jasotzen dudana eskerrona, konfiantza berdina jasoko luke. Otoitz eta sakrifizioarekin bakarrik eman diezaiokegu laguntza Elizari. Gutun bidezko harremanek guztiz mugatuak izan behar dute eta ez zaie halakorik utzi behar ahizpa batzuei, arduetan ibiliko lirateke eta; mirariak egiten dituztelakoan, egiatan, beren arimek kalte egitea besterik ez lukete lortuko eta, behar bada, deabruaren sare meheetan erortzea²⁹.

Honetaz gehiago.

Ene amatxo, oso garrantzi handikoa da esan berri dizudana; geroago ez ahazteko eskatzen dizut. Karmelen ez da arimak erosteko gezurrezko txanponik egin behar... Eta sarritan idazten diren hitz dotoreak eta jasotzen diren hitz dotoreak diru faltsuak izaten dira.

17

Guri barre eragiteko:

Hilkutxan jarri beharrean Gennin kutxatxo batean jar nazaten nahiko nuke.

“Bière” (hilkutxa) hitzarekin jolas egiten zuen. Hain zuzen ere, bidali berri zituzten Karmelera Pariseko Gennin Etxetik zurezko kutxatxo luzanga eta ongi egokitueta lore artifizial oso politak.

18

... Oinazeak on ugari ekarri ohi du aldean, betetzaila eta onbera izatera bultzatzen du!

Uztailak 9

1

“Ez zuen aurpegi tristerik ikusi nahi izaten inguruan, ezta osabaren etxean ere...”

Musse-n guztiak “eztei” jaietan izatea nahi dut. Ni izpirituzko ezteietan nauzue egun osoan.

Baina hau ez da hain eztei alaitsua gero.

²⁸ Bellière apaizgaia (ik. 30. VII. 4; 12. VIII. 2; 4. IX. 4; 21. IX. 3) eta Roulland apaiza (ik. 1. V. 2; 30. VII. 4; 4. IX. 4).

²⁹ Ik. C Esk., 32^a/_i.

Nik oso alaitsu aurkitzen dut

2

Ahizpa Jenofak nire beharra du... Dena dela, berriro etorriko naiz.

3

Gure Aitak³⁰ ikustaldia egin ondoren, ez zuela agudeziarik azaldu elizakoak ematea lortzeko jakinarazi nion; bisitarien aurrean ez zuela larriki gaixorik zegoenik agertzen.

Ez dut ofizio hori ezagutzen³¹ !

4

... Joan nahi nuke honezkero!

5

Beharbada uztailaren 16an, Karmengo gure Amaren jaian edo eta abuztuaren 6an Aurpegi Santuaren egunean hilko zara³².

Jan nahi dituzun adina "datil", nik ez ditut jan nahi eta... gehiegi nahasi izan naiz *data* kontu horiekin.

6

... Zer dela eta eduki behar diot beste inork baino beldur gutxiago heriotzari?

Mt 26,35

Nik ez dut San Pedroren antzera "ez zaitut inola ere ukatuko" esan.

7

Txirotasun santuaz ari ginen hizketan

Txirotasun santua! Bai, harrigarria, Zerura joango ez den santua!

8

Ni atsekabeturik egon ondoren:

Nire maitasunak kontsolamendua eman beharko lizuke.

Han aurkitzen zirenei:

Ados jarriko naiz neure Amatxorekin.

Gauean niri bakarrean:

... Oi!, tira, ez dut hutsik egin; ondo baino hobeto dakit nire alde egiten duzun guztia maitasun hutsez egiten duzuna...

9

Sagutxo bat harrapatu zuten eritegian; berak kontakizun osoa asmatu zuen, sagutxo zauritua eramateko eskatuz, bere ondoan etzan eta doktoreak auskultatuko zuela esanez. Gogotik barre egiten genuen eta pozik agertzen zen gu dibertitzeaz.

³⁰ Maupas kalonjea.

³¹ «Maltzurra izatearen ofizioa», zehaztu du, gainera, ama Ainesek.

³² Ik. Otoi. 12. - Eta heriotzaren datari buruzko iragarpenak direla eta, ik. 15. VII. 1; 31. VII. 1; 25. VIII. 1; 2. IX. 1; 23. IX. 2.

Uztailak 10

1

... Haurtxoak ez dira infemura joaten.

2

Idatzi duzuna³³, baliteke noizbait Aita Santuaren eskuetara iristea.

Barrez:

Et nunc et semper!

3

Haur baten keinuz Ama Birjina Jesus Haurrari titia ematen zekarren estanpa seinaltuz³⁴.

Ez dago hori bezalako esne onik; Cornière jaunari esan behar zaio³⁵.

4

Larunbata zen eta gauerdian odol-okada izan zuen:

Lapurrak bere ama lapur bihurtu du... Hori dela eta berau etorri da gauerdian, Lapurra ardura hartzera behartzeko; edota bakar-bakarrik etorri da, Lapurrak ez duelako etorri nahi izan.

5

Ez didate bizitza Lapurrak nahi duen baino minutu bat ere gehiago luzatuko.

Mt 24, 43-44

6

Niri bakarrean:

Gehiegi arduratzen zara merezi ez duten arazoez.

7

Irribarrez:

... Zerbait hala-hola egin duzunean, oraindik txarrago da ondorioei beldur gehiegi izatea...

8

Inoiz gizaki artean bizi izan ez den txoritxoaren antzekoa zara, beti beldur diozu harrapatua izateari... Nik ez diot inoiz inori beldurrik izan; beti nahi izan dudan lekura joan naiz... Nik, egia esan, irrist egingo nukeen haien hanka artetik.

9

Gurutzea esku artean zuela, eta hiruretan hari mun eman ondoren³⁶, koroa eta iltzeak kentzeko keinua egin zuen.

³³ Beraren autobiografia.

³⁴ Zelinak margoturiko koadro baten kopia (1894); ik. 10. VII. 10.

³⁵ Ik. 3. VII. 4 eta 20. VIII. 6.

³⁶ Arratsaldeko hiruretan, Jesusen heriotza gogoratzeko, kanpaiak jotzeko ohitura zen Karmelen. Orduan, lekaiame guztiek euren gurutzeari mun ematen zioten.

10

Aurreko gaueko gertakarira³⁷ itzuliz, bere ohe sakonean, kortina batetik zintzilik jarritako zegoen Ama Birjinaren estanpara poliki begiratzuz esan zuen:

Ama Birjina ez da berez lapurra..., baina Semea izan zuenetik, honek lanbidea irakatsi zion...

Atsedenditxoa hartu ondoren:

Hala ere, Jesus Haurtxoa oraindik txikiegia da horrelako asmoak izateko... Mariaren altoan ez du lapurretan aritzeko asmorik... Baina bai, dagoeneko asmo hori darabil; oso ongi daki ni lapurtzera etorriko dena!

Zenbat urte dituzula?

24 urte

11

Heriotzaz eta une horretan sarritan aurpegian sortzen diren uzkurdurez ari ginen hizketan. Hark erantzun zuen.

Hori gertatzen baldin bazait, ez zaitez atsekabetu; unetxo bat geroago irribareak izango ditut, besterik ez.

Ahizpa Jenofa bataioko opari-kutxatxo batera begira zegoen, han ageri ziren burumarra politik aingeru baten burua egiteko erabiliko zituela esanez. Gure Teresatxok ikusteko gogoa izan zuen, baina ez zitzaion inori erakusterik gogoratu eta ez zuen ezer eskatu. Hori geroago jakin nuen.

12

Zuk lurra utzi ondoren, zer pentsatu beharko ote dut zure gelako leihoa ikustean? Bihotza guztiz hautsirik izango dut.

Ai! oso zoriontsu naizela pentsatuko duzu; bertan gogor borrokatu eta sufritu dudala... Oso gogoko izango nuen hantxe hiltzea!

13

(Maitinetako otoitz orduan)

Ez dagoela larriki gaixorik, medikuak huts egin duela bere osasun-egoeraz pentsatzea gogoratu zaio. Bere barneko proben berri ematen dit eta eransten du:

Nire arima aldeztu aurretik Jainko onaren nahian oso-osorik jarrita egongo ez balitz, lurtean hain laster elkarren jarraian txandatzen diren poztasun eta tristezia sentimenduetan murgildu beharra izango banu, min-iturri oso garratza litzateke eta ezingo nuke eraman. Baina gorabehera hauek arimako azala ukitu baizik ez dute egiten... Ai! hala ere proba handiak dira!

14

... Ez dut uste trikimailu hauek egiten dizkidana Ama Birjina denik... Jainko onak behartzen du horretara. Beraz... hark proba nazala esaten dio buru-uzte eta maitasun froga handiagoa eman diezaiodan.

³⁷ Hemoptisia.

15

Niri bakarrean

... Beti hor zaitut ni kontsolatzen... Eztitasunez betetzen dituzu nire azken egunak.

Uztailak 11

1

Ahapaldi osoa errexitatu du:

“Zeruko Erregeak gauean, bihotzeko esturetan
bere Ama sartua izatea nahi izan zuen eta,
ona ote da, ba Maria, sufritzea lur honetan?”³⁸

etab.....

Beraz, ez duzu “Emakume Lapurra” ikusten?

Bai, bai, ikusten dut. Ez duzu ulertzen! Ni ez lapurtzeko askatasun osoa du...
Ai! “Begira ingurura eta ikus: ez nau inork aintzat hartzen”... Jainko onak bakarrik
ulertzen nau.

Sal 141,5

2

Maitinetan:

Gauez, udako isilunean, beste garai batzuetan egiten zituen otoitzei buruz mintzatu zitzaizkidan eta orduan ikusia zuela esperientziaz zer den “izpirituaren hegaldia”³⁹. 1889.eko uztaillean, Madalena santuaren⁴⁰ haitezuloan jaso zuen era honetako grazia aipatu zidan, zenbait egunetako “sosegua”⁴¹ sortu ziolarik.

... Lurreko gauza guztien gainean estalki bat jartzea edo izan zen... Ama Birjinen mantu azpian guztiz ezkutaturik nengo. Garai hartan, jantokiko ardura nuen eta zereginak egingo ez banitu bezala egiten nituen, ordeko gorputz batekin bezala; horrela iraun nuen astebete osoan zehar.

3

Bere Bizitzako eskuizkribuaren bidez arimek egingo zien onaz mintzatzeko nitzaion.

... Baina, guztia Jainko onagandik datorrela ikusiko da, eta hortik niri etorriko zaidan aintza, nirea ez den dohaineko grazia izango da; mundu guztiak ikusiko du...

4

Santuen elkertasunaz mintzatu zitzaizkidan eta batzuen ontasunak besteen ontasun izango direla azaldu⁴².

³⁸ Ik. jatorrizko testua TO 54, 16an.

³⁹ Ik. Avilako Teresa Deuna, *Barne Gaztelua*, VI. Egoitzak, V. kapitulua.

⁴⁰ Karmelgo baratzako barruko ermita.

⁴¹ Ik. Avilako Teresa Deuna, *Onbidea*, XXXII. kapitulua.

⁴² Ik. 13. VII. 12; 15. VII. 5; TG 185.

... Amak bere harrotasuna seme-alabengan duen bezala, horrela izango dugu guk ere elkarrengan, inolako bekaizkeriarik gabe.

5

Ai, ene! zein labur bizi izan naizen! Beti iruditu zait bizitza laburra dela. Nire haurtzaroko egunak atzo izan zirela iruditzen zait⁴³.

6

Norbaitek, nik Jainko onarengan hain konfiantza handia izatea, bekatu-rik ez dudalako egin⁴⁴ dela uste izan lezake. Esan argi eta garbi, ene Amatxo, egin daitezkeen bidegabekeriarik handienak egin banitu ere, beti konfiantza berbera izango nukeela: gaiztakeria multzo izugarri hori sugarretan eroritako ur tanta bat baizik ez litzateke izango. Jarraian, damutu ondoren maitasunez hil zen andre bekatariaren bizitza kontatuko duzu. Arimek berehala ulertuko dute esan nahi dudana, adierazteko adibide ezin hobea baita, baina horrelako zerak ezin dira azaldu (a).

7

Gaueko solasaldian, nire ustetan "bularretiko gaztearenak" diren bertso hauek erre-pikatu zizkidan⁴⁵; aurpegiara hain samurrez egin ere!:

... Nire egunak zenbatuak dira,
 lurra uztera noa,
 agur egin behar dizuet
 itzultzerik inola ez dudala.
 Maite izan nauzun eta nire
 Aingeru zaintzaile izan zaren horrek,
 utzi zure maitasunezko
 begirada samur horiek
 niregain pausatzen.
 Orriak hilik erortzen,
 erortzen ikus ditzazunean
 maite izan banauzu,
 Jainko onari nire alde
 otoitz egiozu".

a) *Novissima Verba*-k gehitzen du:

Hona hemen hark hitzez hitz esandakoa:

"Basamortuko Gurasoen bizitzan kontatzen da haietako batek bide onera ekarri zuela eskualde osoa galbidera zeraman ageriko emakume bekatari bat. Bekatari hau, graziak ukitu-rik, basamortura joan zen Santuarekin bertan penitentzia gogorra egiteko asmoz eta, bidaiaren lehen gauean bertan, artean bere erretiro-tokira iritsi gabe, maitasunez beteriko damutze-aren indarrak hautsi egin zituen haren lotura hilkorrak eta bakarzaleak, une berean, ainge-ruek haren arima Jainkoarengana zeramatela ikusi zuen. Hona hemen nik esan nahiko nuke-enaren adibide oso deigarria, baina gauza hauek ezin daitezke azaldu..."

⁴³ Ik. A Esk., 11ⁱ.

⁴⁴ Ik. A Esk., 70^a; C Esk., 36ⁱ; eta 20. 7. 3; bai eta *Prières*, 62 eta 66. orr.

⁴⁵ Benetan, L. Abadieren «*Les feuilles mortes*».

8

... Bake oso sakona dut ariman... Nire txalupatxoa ur gainean jarri dute... Badakit ez naizela sendatuko, baina gertu nago hilabete batzuetan zehar, Jainko onak nahi duen arte, gaixorik jarraitzeko.

9

Bai lagundu dizula Jainko onak! Zer diozu agertu dizun maitasun horretaz?

Jainko onaren Izpirituak nahi duen lekuan ematen duela arnasa uste dut.

Jn 3,8

Uztailak 12

1

Behin batean, ustekabeen, tornuko ahizpentzako etxean lo egitera etorri zen Ama Maria Gonzaganaren familiakoentzat kriseilutxoa gertatzea zela eta, barnean izandako borroka gogorra kontatu zidan. Hain zuzen ere, borroka hain handia izan eta agintarien aurkako⁴⁶ hain gogo biziak sortzen zitzaizkionez gero, halakorik ez onartzeko aparteko indarrez Jainko onari laguntza eskatu behar izan ziola. Era berean, agindu ziotena ahalik eta ondoen betetzen ahalegindu zela. Gaueko isilaldi gogorrean izan zen. Bera zen atezaina eta ahizpa San Rafael bere lehen laguntzailea.

Neure burua garaitzeko kriseilutxoa Ama Birjina eta Jesus Hurtxoarentzat prestatzen ari nintzela pentsatu nuen; hori zela eta era sinestezinez egin nuen, bertan hauts-fitsik utzi gabe eta pixkanaka-pixkanaka bakealdi handia eta eztitasun berezia sentitu nituen. Maitinetarako deia jo zuten eta ezin izan nuen berehala joan, baina hain osoa zen nire barruko jarrera, hain handia zen hartu nuen grazia, non ahizpa San Rafaelek, esaterako, krisailua aukeratzean huts egin nuela eta beste bat prestatu behar nuela esan balit, oso pozik egingo bainion esana. Aurrerantzean, agintzen zizkidaten gauzak onuragarriak ziren ala ez inoiz ez pentsatzeko erabakia hartu nuen.

2

Ahizpa Maria Eukaristiarenak⁴⁷ ni miresgarria nintzela esan zuen...

... Ama miresgarria! Oi! ez, hobeki, ama maitagarria⁴⁸, maitasunak miresmenak baino gehiago balio baitu.

3

Ama Maria Gonzagarenari:

Ez dit ezerk esku artean irauten. Dudan guztia, irabazten dudan guztia Elizarentzat eta arimentzat da. Laurogei urte biziko banintz ere era berean txiro jarraituko nuke.

⁴⁶ Hau ama Ainesen prioretaldian gertatu zen (1893-1896).

⁴⁷ Maria Guérin.

⁴⁸ Andre Mariaren letaniei buruzko aipua.

Uztailak 13

1

Zeruan frutak zaindu beharko ditudala ikusten dut; baina ez dituzue txoritxoak hil behar, bestela ez baituzue erremusinarik jasoko.

Jesus Hautxoaren estanparantz eskuak poliki mugituz:

Bai, bai!...

2

Jainko onak nire nahiera guztiak egin beharko ditu zeruan, nik ez baitut inoiz neure nahia egin lurrean.

3

Zeru gainetik begiratuko gaituzu, ezta?

Ez, jaitsi egingo naiz!

4

Gauean zehar jaunartzerako koplak egin zuen⁴⁹:

“Nire txikitasun aparta” *etab* (e)

Horretaz honako hau esan zidan:

Oso erraz egin dut, oso ederra da; ezingo nuela gehiago bertsorik egin uste nuen.

5

Nik ez dut esaten: “Karmelen bizitza gogorra bada ere, oso atsegina da bertan hiltzea”, bestelako hau baizik: “Oso atsegina bada Karmelen bizitza, atsegina da bertan hiltzea”.

6

Medikuak bestetan baino hobekiago aurkitu zuen.

Gero min handia zuen saiheitsaldea ukituz:

Bai, bai, hau bestetan baino hobekiago doa!...

a) Ohiko Prozesuak honako hau gehitzen du:

12ko gauean koplak hau sortu zuen jaunartzerako prestatzeko:

Nire txikitasun aparta ezagutzen duzuna,
ez zara niganaino jaisteko beldur!

Zatoz nire bihotzera, oi Osti zuri kutuna;
zatoz nire bihotzera; zukanako irrika du!

Ai! nahi nuke nik, maitasunez hiltzen
uztea zure maitasunak, mesede honen ondoren.

Jesus! entzun nire samurtasunaren deiera.

Zatoz nire bihotzera!

⁴⁹ Ik. TOE 8.

7

*Nahiz eta itxura alaia eta alegera izan, barruz hausturik zegoela irudituz esan nion:
Aurpegi hori jarri eta barregarriak esaten dituzu guri atsekaberik ez emateko,
ezta?*

... Beti, "itxurakeriarik" gabe jokutzen dut.

8

*Baudon-go ardoa*⁵⁰ eskaintzen zioten.

Ez dut lurreko ardo gehiagorik nahi... Ardo berria edan nahi dut nire Aitaren erreinuan Mt 26,29

9

... Ahizpa Jenofa mintzatokira etortzen zenean, ezin izaten nion ordu erdian gogoan nuen guztia esan. Hori zela eta, aste barruan, zerbait gogora etortzen zitzaidanean edo zerbait esatea ahazteak atsekabea sortzen zidanean, nik pentsatzen nuena hari jakinarazi eta ulertarazteko eskatzen nion Jainko onari eta hurrengo ikustaldian hain zuzen ere hark nik Jainko onari jakinarazteko eskatua esaten zidan⁵¹.

... Hasiera batean, hura atsekabeturik izan eta nik kontsolatzerik lorten ez nuenean, bihotza nahigabeturik izaten nuen, baina, laster konturatu nintzen ez nintzela ni haren arima kotsola zezakeena; eta aurrerantzean ez nuen atsekaberik hartzen, hura oso triste joaten zenean. Jainko onari nire ezintasuna betetzeko eskatzen nion eta banekien jaramon egiten zidana; hurrengo ikustaldian ikusten nuen... Ordutik aurrera, nahi gabe norbaiti atsekaberik ematen diodanean, Jainko onari konpontzeko esaten diot eta ez dut ardurarik hartzen.

10

Jainko onari maitasunezko egintza bat egiteko eta santu guztiei otoitz egiteko erregutzen dizut; han, goian, guztiak ditut senide "txiki".

11

... Niretzat hiru haur basati eros ditzaten nahi dut: Maria Luis Martin txiki bat, Maria Teofan txiki bat eta, bien artean, Maria Zezilia deituriko neskatotxo bat.

Une baten ondoren:

Horietaz gainera, Maria Teresa txiki bat.

(Heriotz ondoren koroak erosten dirua gastatzen utzi ordez)

12

Santuen Elkartasunaz mintzatu zitzaidan berriro:

... Birjinekin birjina izango gara; doktoreekin doktore; martiriekin martiri, Santu guztiak gure senideak baitira. Haurtasun izpiritualaren bidea jarraitu dutenek beti haur izatearen xarma izango dute.

(Bere pentsamenduak azaldu zizkidan)

⁵⁰ Ardo bizigarria.

⁵¹ Ik. TG 144; TG 149.

13

... Haurtzaroan hasita Jainko onak gazte hilko nintzelako susmo sakona eman zidan⁵².

14

... *Samurkiro begiratzen zidala:*

Ene, nolako aurpegia duzun!... "gero"⁵³... betiko izango duzu... Hau da, oso ongi ezagutuko zaitut!

15

Jainko onak berak eman nahi zidana irrikarazi dit beti⁵⁴.

16

Guri hiruroi.

Ez uste izan gero, Zerura joan nadinean zuen ahoetara hegaxabal erreak eroraraziko ditudanik... Ez da hori nik izan dudana edota izatea amets egin dudana. Behar bada, neke handiak izango dituzue, baina, nik nahi izaten eta maitatzen irakatsiko dizueten argitasunak bidaliko dizkizuet. Nik bezala esan beharko duzue: "Pozarren nauka, Jauna, zure ekintzak, poz-oihuka zuk egindakoak".

Sal 91,5

17

Ez uste izan, gero, hiltzeak, esate baterako, beste garai batean Trouville edo Alençon-era hilabete igarotzera joaten nintzanean bezala poztasun bizia ematen didanik; dagoeneko ez dakit zer diren poztasun biziak. Dena den, ez dut jai pozgarri egiten heriotza; ez nau horrek erakartzen. Ezin dut luzaro gogoan erabili Zeruan izango dudana poza. Itxaropen bakar batek jartzen du pil-pil nire bihotza: jasoko dudana eta eman ahal izango dudana maitasunak. Bestalde, heriotzaren ondoren egin nahi nukeen ona dut gogoan: haurtxoak bataiaraztea, apaizei, misiolariei, eliza osoari... laguntzea.

... Baina lehenengo eta behin nire ahizpatxoak kontsolatzea...

... Bart musika entzun dut urrutira eta laster melodia berdingabeak entzungo ditudala etorri zait burura; baina pozezko sentimendu hori unetxo batekoa izan da.

18

Karmelen izandako lanbideak zehazteko eskatu nion:

Karmelera sartu nintzanean, arropategiko lanetan jarri ninduten Ama Prioreordearekin (*Maria Aingeruenarekin*); horretaz gainera, eskailarak eta jantokia erratzez garbitu behar izaten nituen.

... Gogoan dut oso nekagarri gertatzen zitzaidala Gure Maistrari jantokian egiteko mortifikazioak eskatzea, baina ez nuen inoiz atzera egin higuigarri izaten

⁵² Ik. TG 258; KH 27. VII. 14.

⁵³ "pis" idazten du «puis»en ordez.

⁵⁴ Ik. TG 253, egun berean; eta ikus A Esk., 71^a eta 84^a; C Esk., 31^a; TG 201; Otoi. 6; KH 16. VII. 2; 18. VII. 1; etab. - Bestalde, baieztapen honen oinarri joandarra adierazita dago.

nituenetan; arropategiko leihotik ikusten zen patrioko Gurutzeak niregana begiratu eta sakrifizio hura eskatzen zidala iruditzen zitzaidan.

Garai hartan belarra moztera joaten nintzen lau t'erdietan, horrek atsekabea sortzen ziolarik Gure Amari.

Abitua hartu ondoren, jantokiko lanetan jarri ninduten 18 urte egin arte: errataz garbitu eta ura eta garagardoa jartzen. 1891.eko Berrogei Orduetan⁵⁵, sakristian jarri ninduten ahizpa San Stanislasekin. Hurrengo urteko ekainetik aurrera⁵⁶, bi hilabete lanik gabe geratu nintzen, hau da,aldi horretan otoiztegiko aingeruak pintatu nituen eta hirugarren giltzaina⁵⁷ izan nintzen. Bi hilabete horiek iragan ondoren, pintura utzi gabe, ahizpa San Rafaelekin tornuan jarri ninduten. Bi lanbideok 1896.eko hauteskundeak izan ziren arte izan nintuen, data horretan, ezagutzen dituzun egoeretan ahizpa Maria San Joserenari arropategian laguntzea eskatu nuelarik.

Geroago, lanetarako sor eta ardurara gutxikotzat hartzen zutela, nik neuk ere sinetsi egin nuelarik, kontatu zidan; eta, hain zuzen ere, biok batera gogoratu genuen nola egin nion haserre konpondu gabe otzaran gordeta eduki zuen jantokiko zamau bat zela eta. Arduragabe izatea leporatu nion, eta erratuta nengoen, ez baitzuen astirik izan. Egun horretan, barkamenik eskatu gabe, negar eta negar egin zuen, ni hain triste eta atsekabeturik ikustean... Halakorik, gero!!!

Era berean, esan zidan, nirekin asko sufritu zuela jantokian (ni orduan ofizio horretan haren nagusi nintzen), beste garai batean bezala, bere barneko zerak jakinarazi ezina, ez baitzuen horretarako baimenik, eta beste gauza batzuk zirela tarteko.

“Hainbesteraino, non ni ez ezagutzeraino iritsi baitzinen” gaineratu zuen berak.

Eskailera azpiko San Alejoren gela iluneko amaraunak kentzeko (armiarnei beldur izaugarria zien⁵⁸) egin behar izaten zuen indarrak mintzatu zitzaidan; eta horrela zenbateraino izan zen leiala eta zenbat oinaze eraman zuen inor ohartu gabe aditzera ematen zuten beste hainbat eta hainbat xehetasun.

Uztailak 14

1

Behin batean, Israeldarrek Jerusalem esku batekin lan eginez eta bestean ezpata erabiliz eraiki zutela irakurri nuen. Hori da, hain zuzen ere, guk egin behar duguna: ez jarri gogo osoa lanean... etab.

Ne 4,17

2

Aberatsa izan banitz ezin izango nituen txiroak goserik ikusi berehala ondasunak banatu gabe. Horrela izpirituzko altxorrik eskuratzean, une berean arimak

⁵⁵ Hau da, Hausterre aurreko hiru egunetan, alegia, 1891n, otsailaren 8tik 11ra bitartean.

⁵⁶ Izan ere, 1893ko udaberrian; ik. CG, 1172. or.

⁵⁷ Ik. apirileko 5. oharra.

⁵⁸ Ik. 18. VIII. 7.

galdu eta infernura erorteko arriskuan daudela jakinik, dudan guztia ematen diet, eta oraindik ez dut "orain neuretzat lan egin behar dut" esateko astirik izan.

3

Jarraiko hitz hauetan hasten den "Gogora ezazu" ahapaldia aurpegiera eta doinu zerutarrez errepikatzen hasi zen:

Oroi zaitetz zure borondate santua dudala nik neure atsedena, neure zorion bakarra⁵⁹.

4

Ez du balio halako itxura izateak (*maitasunez hiltzea*) egiatan hala izateak baino!

5

Beti gogoko izan dut Jainko onak eman didana; eta hori, berak aukeratzeko eman balit ere, nik egin-eginean ere hura aukeratuko nuen; baita, besteek zituztenak baino ontasun eta edertasun txikiagokoak zirela iruditzen zitzaikidanak ere.

6

Oi! bai goraipamen pozoitsuak egiten dizkiotela Ama Prioreari! Bai dela beharrezko arima lokarrik gabe eta norberaren buruaren gainetik izatea, halakoe-kin kalteturik ez geratzeko!

7

Ikustaldian, doktoreak, berriro itxaropen pixka bat eman zuen, baina bera ez zen atsekabetu eta esan zigun:

Dagoeneko hartara eginda nauzue! Zer axola dio ni luzaro gaixorik izateak? Arazoa laster konpontzea nahi izango nuke, batez ere zuei nekea kentzeko.

8

Oi! bihotz-bihotzez maite zaitut, ene Amatxo!

9

Nire bihotza Jainko onaren nahiak beteta dago; horrela, zerbait gainera botatzere ez da barnera sartzen; olioaren antzera urarekin nahastu ezinik labain egiten duen ezereza da. Beti, barrenean, inork urduri jarri ezinezko bake sakona nuela geratu izan naiz.

10

*Bere esku iharrei begira*⁶⁰ :

Oi! hau poza desegiten ari naizela ikustean!

⁵⁹ TO 24, 32.

⁶⁰ Ik. 8. VII. 6.

Uztailak 15

1

Behar bada bihar (Karmengo Gure Amaren jaia) goizean, jaunartu ondoren hilko zara.

Oi! hori ez letorkio ongi nire bidetxoari! Irten egingo ote naiz bertatik, hiltzeko? Jaunartu ondoren maitasunez hiltzea gehiegi da niretzat; arima txikiek ezingo lidakete horretan jarraitu.

Ongi legoke bihar goizean niri ezer ez gertatzea⁶¹ ! Begira zer gerta dakidakeen: Jauna ezin hartu izatea, Jainko ona itzultzera beharturik izatea; zer deritzozu?

2

Heriotza unean jaunartu ezin izan zuen Teofan Vénard dontsuaz mintzatu zitzaidan eta hasperen sakon bat egin zuen...

3

Hurrengo egunean jaunar zezan prestaketak egin genituen. Ahizpa Maria Filomenaren loba⁶², bere meza berria Karmelen eskaini ondoren, Jauna ematera sartuko zen. Baina gaizki ikusiz, beldurra genion gau erdi ostean odola oka egin eta asmoak oztopatu izateari; ezer kaltegarririk gerta ez zedin otoitz egiteko erregutzen genion. Berak erantzun zuen:

Ongi dakizu nik ezin dudana hori eskatu... baina eska ezazue zuek nire ordeztu... Tira, nolana ere, bart eskatu egin diot Jainko onari neure ahizpei atsegin ematearren, Komunitatea atsekabeturik gera ez dadin, baina, sakonean, alderantzizkoa esan diot, hau da, nahi duena egiteko eskatu diot...

4

Gu eritegia apaintzen ikustean:

Ene! zenbat lan hartzen duzuen behar dena prestatzeko! Argi dago lurreko jaiak direla! Lehen aldiz jaunartuko duten neskatxoei goizean eramaten zaizkie jantzi zuriak; beraiek ez dute janzte bestea egitekorik izaten⁶³; ez dakite beraiengatik besteek izan dituzten lanen berri, ez dute poza besterik sentitzen. Ez da berdin izaten nagusi egindakoan...

5

Haren oroitzapena grazia gisa gordetzen zuen gertaera hau kontatu zidan:

Ahizpa Maria Eukaristiarenak kandelak piztu nahi zituen elizbira baterako; ez zeukan poxpolorik, baina erlikien aurrean piztuta zegoen lanparatxo ikusiz, bertara hurbildu zen. Ene, baina! ia-ia itzalita aurkitu zuen; ez zen mitxa ikaztatuaren gainean printz leuntxo bat baizik geratzen. Hala ere, bere kandela piztea lortu zuen eta berearekin Komunitateko gainerakoen guztiak. Erdi itzalita zegoen lanparatxo hura izan zen sugar eder haien guztien sorburu, horrela beste hainbat eta hainbat pizteko

⁶¹ Hemoptisia.

⁶² Troude apaiza.

⁶³ Ik. A Esk., 35^a.

izan zitekeelarik, lur osoari su emateraino. Hala ere, beti, lanparatxo hura izango zen sutearen sorburu nagusi. Nola jar zitezkeen hori jakinik harako sutea sortu zute-la eta harro sugar eder haiek, zuten argia lanparatxotik hartu ondoren?...

Gauza bera gertatzen da Santuen Elkartasunean. Sarritan, guk jakin gabe hartzen ditugun grazia eta argiak ezkutuko arima bati zor zaizkio, Jainko onak santuek beraien artean otoitzaren bidez grazia elkarren artean banatzea nahi duelako, Zeruan, maitasun handiz, familiarik ederrena izan arren, familiako maitasuna baino oraindik maitasun handiagoz elkar maite ditzaten. Zenbat aldiz gogoratu dudan hartu ditudan graziak, beharbada, Jainko onari erregu egin dion arima bati zor dizkiodala eta ez dudala zerurarte ezagutuko.

Bai, printz txiki batek Eliza osoan zehar, Zeruan bera baino gorago izango diren doktoreak eta martiriak bezalako argitzarrak sor ditzake. Baina nork baieztatu dezake haien aintza ez dela beraren aintza ere bilakatuko?

... Zeruan ez da ardurarik gabeko begiradarik izango, aukeratu guztiek koroa lortzeko behar izan dituzten graziak elkarri zor dizkiotela aitortuko dutelako.

(Elkarrizketa luzeegia izan zen; ezin izan nuen guztia hitzez hitz jaso).

Uztailak 16

1

- *Beldurra diot hiltzerakoan zuk min handiak izateari...*

- Zer dela eta beldurrik izan aurretiaz? Itxaron atsekabeak heldu arte, gutxienez. Uste ahal duzu, nik oinazeak jasaten ditudala, esaten duten bezala jazarraldiak eta hilketak etorritz gero, behar bada begiak aterako dizkizutela pentsatzen?

2

Nik egina nuen ahizpa Jenofaren eskaintza osoa⁶⁴, baina, ezin dut esan gehiago nahi ez nuenik. Sarritan, udan, maitinen aurreko isilaldian, terrazan eserita neure buruari esaten nion: Ai! nire Zelina, hemen, nire ondoan balego! Baina, ez! hori lurrean poztasun handiegia litzateke!

... Eta hura, ezin gauzatuzko ametsa iruditzen zitzaidan. Hala ere, poztasun hori ez nuen nahi naturako sentimenduak eraginda, haren arimaren onerako baizik, berak ere gure bidea jarrai zezan... Eta hona sartzen ikusi nuenean, eta sartzen bakarrik ez, gorabehera guztietan bidea irakatsi niezaion neure esku uzten zidatela ikustean... Jainko onak, nire nahiera guztiak gaingituz hori egiten zuela ikustean, zenbateraino maite ninduen ulertu nuen...

... Hara, bada, ene Amatxo, ia aditzera eman gabeko nahiera hain osokiro bete bazuen, ezinezkoa izango da hain sarri Jainko onari aipatzen dizkiodan nire nahiera handi horiek oso-osorik ez entzutea.

⁶⁴ Ik. A Esk., 82^a.

3

Aurpegiaraz oso-osoan sinesten zuela aditzera emanaz Bourb apaizaren⁶⁵ "Loretxo-ak" liburuan irakurritako esaldi hau errepikatu zidan:

Azkenaldiko santuak lehenagokoak baino ugariagoak izango dira, zedroak gainerako zuhaitzak baino ugariagoak diren antzera.

4

Zuk nire arima txikiko tolestura guztiak ezagutzen dituzu, zeuk bakarrik (a)...

5

Buruan dantzan bihurrikeria bat darabilen haurtxo baten aurpegiara jarriz:

Inork inoiz eman ez dizun bezalako maitasun agergarri bat eman nahi dizut...

Nik, neure buruari zer egingo ote zuen galdetzen nion... Eta ikusi zer⁶⁶...

6*

Jainkoak esango balit: "orain hiltzen bazara aintza handia izango duzu; laurogei urterekin hilez gero, aintza txikiagoa izango duzu, baina poz handiagoa emango didazu. "Oi! Hala izanik, ez nuke erantzuteko zalantzarik izango: "Ene, Jainkoa, laurogei urte izanez hil nahi dut, ez baitut neure aintza bilatzen zuri atsegina ematea baizik"

Santu handiek Jainkoaren aintzaren alde egin zuten lan, baina, nik, arima txiki bat besterik ez naizen honek hari poz emateko baizik ez dut egiten lan, eta atsegina sortuko lidake, haren ezpainetan irribarra sortzearen, behin batean izan da ere oinazetik handienak jasateak

a) 1940ko abuztuaren 28an Koaderno horiaren azkenean ama Aines Jesusenak honako testua eransten du:

Ohar garrantzitsua

1897ko uztailaren 16an nire Teresatxo santuak: "Zuk zeuk bakarrik, ezagutzen dituzu nire arima txikiko tolestura guztiak..." esan zidanean, ziur nago bere gogoan ez zituela bazterten bere maitasunaren ezagupen osoa izatetik ahizpa Maria Bihotz Sakratuarena eta ahizpa Jenofa Aurpegi Santuarena. Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenari zor dio Ama Birjinnaren irribarra eta lehen jaunartzerako prestatu izana; era berean hari zor diogu, 1896.eko irailaren 17ko bere alababixiren (B eskuizkribua) erantzun zoragarria. Ahizpa Jenofa Aurpegi Santuarena, bere Zelina, berak oso leunkiro: "nire arimaren oihartzun leuna" deitzen zuena.

Baina, Jainko onak goi-argia eman zion era bereziz niri esateko, geroago, izango nuen aginpideagatik berari buruz esan eta idatziko nuenaz oso-osoan fidatu ahal zuelako.

Ahizpa Aines Jesusena,

l.k.a.

1940ko abuztuak 28

⁶⁵ Bourbonne apaiza.

⁶⁶ Ondoren hiru lerro marrakatu daude, ezin irakur litezkeenak.

• les yeux !

J'avais fait le complet sacrifice de
 J. Genesio, mais je ne puis pas dire
 que je me la désirais plus. Bien souvent
 l'été, pendant l'heure du silence avant
 Matines, étant assise sur la terrasse,
 je me disais : Ah ! si ma Céline était là
 près de moi ! Mais non ! Ce serait
 un trop grand bonheur pour la terre ;
 Et cela me semblait un rêve
 réalisable. Pourtant ce n'était point
 par nature que je désirais ce bonheur
 c'était pour son amie, pour qu'elle
 marche par notre voie Et quand
 je l'ai vue entrer ici, et non sui-
 lement entrée, mais donnée à tous
 complètement pour l'instruction de
 toutes choses ; quand j'ai vu que
 son Dieu faisait cela ; dépassant
 ainsi mes désirs, j'ai compris quelle
 immensité d'amour il a pour nous...
 Oh bien, ma petite sœur, si
 un désir à peine exprimé est ainsi
 comblé, il est donc impossible que
 tous mes grands désirs dont je parle
 lui survient au bon Dieu ne soient pas
 complètement exaucés.

Elle me répéta d'un air convaincu
 cette parole qu'elle avait bien dans

Les "Petites fleurs", livre de l'Abbé Bourel.

Les saints - des derniers temps - passeront avant ceux des premiers, que les cèdres suspassent. Les autres arbres.

- (1) Vous connaissez sûrement les reptiles de ma petite âme, vous seule...

D'un air d'enfant - qui a une gentille malice en tête - :

Je voudrais vous donner un témoignage d'amour que personne ne vous ait jamais donné...
Je me demandais ce qu'elle allait faire... Et voilà que

voir page 213

M. J. Millet

Samedi - à 2 heures du matin elle avait craché le sang.

Je sens que je vais entrer dans le repos... Mais je sens surtout que ma mission va commencer, ma mission de faire aimer le bon Dieu comme je l'aime, de donner ma petite voie aux âmes. Si le bon Dieu exauce mes

(1) Voir page 263.

Uztailak 17

Larunbata.- Goizeko ordu bietan odola bota zuen okadaka.

Atsedeen hartzera noala eta nago... Baina, batez ere, aurretiaz ikusten dut hastera doala nire eginkizuna, Jainko ona nik maite dudana bezala maitearaztean datzan eginkizuna, nire bidetxoa arimek ematea. Jainko onak nire nahiak entzuten baditu, neure Zerua lurtean emango dut munduaren azken egunerarte. Bai, nire Zerua, lurtean on egiten iragan nahi dut. Hori ez da ezinezkoa, aingeruek ere, ikuspen doatsuan murgilduta bizi izan arren, zaindu egiten baikaituzte⁶⁷.

Ap 10,6 Ez dut jai alaitzurik egin nahi, ez dut atsedeen hartu nahi arimarik salbatzeko den artean... Baina Aingeruak "amaitu zen garaia" esan dezanean, orduan hartuko ditut atsedena eta gozamina, osatua izango delako aukeratuen kopurua eta guztiak pozetan eta asedenean bilduak izango direlako. Neure bihotza pozez jauzika dut hori gogoratzean...

Uztailak 18

1

... Jainko onak ez lidake nire heriotzaren ondoan lurtean on egiteko gogo hau emango, hala bete dezadala nahi izango ez balu; horren orde berarekin atsedeen hartzeko gogo emango lidake.

2

Ez dut oinazetik jasaten; eragozpenak baizik ez dira.

Uztailak 19

1

- "Gau honetan ureztatzen noa." (*Jolasaldiaren hasiera zen*)

... Ba... neu ere ureztatu beharko nindukezu!

- Zer zara zu?

- Ale txikitxo bat naiz, ez dago oraindik garbi gerora zer aterako den hortik...

2

Lehentxoago, mintzatokian Youf Jaunarekin egon eta ikustaldiaren ondoren itzuli den ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenari hark nire osasun-egoerari buruz esandakoa galdetzeko gogo izan dut. Neure artean nioen: jakiteak, beharbada, on egin eta kontsolamendua emango dit. Baina, gogoeta eginez, esan dut neure baitan: hau,

⁶⁷ Ik. TG 254.

jakinmina da, ez dut jakiteko ezer egin nahi. Hark bere kabuz esaterik nahi ez duenez gero, Jainko onak nik jakiterik nahi ez duenaren seinale da. Eta aldendu egin nuen elkarriketa hari hartatik zehar eginez ahizpa Maria: Biotz Sakratuarenak uneren batean bere burua esatera behartuta ikus ez zezan; hala gertatuz gero, ez nintzatekeen pozik sentituko...

3

Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarena, izerdi patsetan zegoela kontura zedin, aurpegia aldi batez behar zuen baino gehiago xukatuz bere norkeriari jaramon egin ziola esan zidan.

Uztailak 20

1

(Goizeko hiruretan odol-okada izan zuen)

Zer egingo zenuke, zure ordeztutako gutariko norbait balezago gaixorik? Eritegira etorriko zinateke jolasaldietan?

- Ni zuzen-zuzen jolaslekura joango nintzateke zutaz galdetu gabe: baina, aparteko zerik gabe, nire sakrifizioaz inor ez konturatzen. Eritegira etortzea, poza ematearren egingo nuke eta sekula ere ez poza hartzearren...

... hori guztia neure betebeharra egiteko eta, neure nahiera bilatuz lortuko ez nituzkeen graziak zuretzak lortzeko. Eta neuk ere indar handia lortuko nuke sakrifizio horiek eginez. Inoiz, ahultasunak hartara eraginez alderantzizkoa egingo banu, ez nuke horregatik adorerik galduko: nire akatsak konpontzen saiatuko nintzateke ezer aditzera eman gabe neure buruari oraindik gehiago uko eginez.

2

Jainkoa nahi duenaren bidez ordezkatuta agertu ohi da, baina, horrela, ez du garrantzirik... Zurekin giza sentimendua izan nekaze; ez dut nahi jainkozko sentimendua baino besterik izatea. Bai, bihotz-bihotzez diot, oso pozik nago gure Amareskuetan hiltzeagatik Jainkoaren ordezkaria baita.

3

... Bekatu astunak ez lidake konfiantza kenduko⁶⁸.

... Batez ere, ez ahaztu emakume bekatariaren historia kontatzea. Horrek ez dudala honetan huts egiten frogatuko du.

4

Beldur handia niela heriotza orduan izango zituen larrialdiei esaten nion.

Heriotza orduko larrialdizat, ingurukoei izua sortzen dieten seinaleak dituela azken unean agertzen diren oinaze handiak jotzen badituzu, ez dut halakorik inoiz ikusi hemen nire aurrean hil direnen artean. Ama Jenofak ariman izan zituen baina ez gorputzean.

⁶⁸ Ik. 11. VII. 6.

5

Ez dakizu zenbateraino maite zaitudan eta erakutsiko dizut...

6

Galdetu eta galdetu ari zarete; honek Ark-eko Joana auzitegian gogorarazten dit. Zintzotasun berbera erabiliz erantzuten dudala uste dut.

Uztailak 21

1

Poz handia ematen dit zu ikusteak, ene Amatxo; ez nauzu nekatzen, bestetara baizik. Oraintsu esaten nizunez, neure burua zerbait ematera beharturik ikusten dudan guztian, eta asko dira, zuk zeuk ematen didazu...

2

Jainko onak haserre egiten badit, gutxi bada ere, ez dut xamurtuta negar egingo...; baina ez badit batere egiten, irribarreka hartzen banau, negar egingo dut...

3

Oi! Zeruan santu guztien historia ezagutu nahi izango dut; ez da beharrezkoa izango kontatzea, hori luzeegia izango litzateke eta. Beharrezkoa, santu batekin topo egitean bere izena eta bizitza osoa bat-batean, begirada batez ezagutzea izango da⁶⁹.

4

Jn 18,38 Ez dut inoiz egia entzuteari uko egin zion Pilatoren antzera jokatu. Beti esan diot Jainko onari: Oi! nire Jainko on hori, entzun nahi zaitut; erantzun iezadazula, arren, -zer da egia- apaltasunez galdetzen dizudanean, eskatzen dizut. Egizu diren bezala ikus ditzadala gauza guztiak, ezerk ez nazala itsutu⁷⁰.

5

Jainko onak arimek konfiantzazko bidea irakasteko aukeratua izateak pozez bete behar zuela esaten genion. Berak erantzun zigun:

Zer axola zait niri, bide hori arimek irakatsiko diena ni neu edo beste norbait izatea? Irakastea da kontua, edozein delarik baliabidea!

Uztailak 22

1

Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenak esaten zion: "Hara, maitasun handiz zaindua zara...!"

⁶⁹ Ik. TG 106 eta 163.

⁷⁰ Teresak egiarekiko eskakizunei buruz, ik., adibidez, 9. V. 1; 4. VIII. 3; 5. VIII. 4; 3. IX. 1; 30. IX.

Bai, ikusten dut... Jainko onak didan maitasunaren irudiko da. Ez nion inoiz maitasuna baino eman; honegatik maitasuna itzultzen dit; eta ez da bukatu berau, hark laster oraindik ere maitasun handiagoa itzuliko dit eta...

Hunkituta nago; tximista bat bezalakoa da, edo hobeki esanda, nire ilunpetan oinaztargia bezalakoa... baina oinaztargia bezalakoa bakarrik!

2

Aitortza egin ondoren Youf jaunak esan zizkion hitz hauek errepikatu zizkidan irribarrezka:

Aingeruek Zerua erratzez garbituko balute, hautsa diamantezkoa izango litzateke.

Uztailak 23

1

Elkarteei buruz mintzatzen zitzaizkion⁷¹.

Zerutik hain hurbil nagoenez gero, oso tristea iruditzen zait hori guztia...

2

Gutariko norbaitek honako hau esan edo idatzi zion eta horrela bere barneko proban kontsolamendua eta poza eman ziola pentsatu.

-Ez ahal da egia, zure proba unetxo batean leundu egin dela?

-Ez! Zuk abestea edo halako zerbait izan da!

3

Nik, behin eta berriro, inoiz ez nuela neure gainetik uxatu ahal izan bera geroago eta gehiago sufritzen ikusteko beldurra ematen nion aditzera.

Maitasunaren bidetik goazenok ez dugu pentsatu behar zer-nolako atsekabeak ekarriko dizkigun etorkizunak, hori konfiantzan huts egin eta sortzailearen zereginetan sartzea baita.

4

... Aitaxoren probetan, nik sufritzeko gogo bizi-bizia nuen... Gau batean, oso gaixo zela nenkiela⁷², Ahizpa Maria Aingeruenak⁷³, oso goibel ikusirik, ahal zuen erarik onenean kontsolatu ninduen; baina nik esan nion: "Oi! ahizpa Maria Aingeruena, ziur nago oraindik gehiago sufritu ahal dudana!" Miretsirik begiratu zidan eta hainbat aldiz gogoratu geroago.

Egia esan, ahizpa Maria Aingeruenak ez zuen inoiz gaualdi hura ahaztu. Gure santaxtoa, oraindik nobiziagai, oheratzeko prest zegoen ohe gainean, azpikogona jantzita, bere

⁷¹ Deboziozko elkarteak.

⁷² 1888ko ekainean; ik. A Esk., 73^a.

⁷³ Beraren maistra nobiziatuan.

ile dotoreak bizkar gainean zituela. "Haren begiradak eta pertsona osoak hain zuen zer sotila, zer ederra, non Zeruko birjina bat ikusten ari nintzela iruditu baitzitzaidan".

5

Gogoratzen dut behin batean, gure atsekabealdiko unerik garratzenean logelako (*arropategi aldekoa*) eskailerak garbitu ondoren, ahizpa Maria Bihotz Sakratua-renarekin egin nuela topo. Hitz egiteko baimena genuen eta geratu egin ninduen. Orduan indar handiak nituela eta une hartan, barne-barneraino sartu eta gori-gori jartzen ninduten Madame Swetchine-ren hitz hauek nituela gogoan esan nion: "Konformitatea ez da, oraindik, Jainko onaren nahiaren parekoa; bien artean elkartasunaren eta batasunaren artean dagoen antzeko aldea dago. Elkartasunean, oraindik bi daude, batasunean bat besterik ez dago"⁷⁴.

(Ez dakit, hitzez hitz honela izan zen)

6

Neure profesia egunean⁷⁵ aitaren sendaketa eskatzera behartu ninduten, baina ezin izan nuen hau besterik esan: "Ene Jainko ona, arren bai arren, izan bedi zure nahia nire aitatzat sendatzea!"

7

Gure atsekabe handietan, zein gogoko izaten nuen bertso-atal hau koruan esatea: "... In te, Domine, speravi"⁷⁶ !"

Sal 30,2

Uztailak 24

1

Fruta eder batzuk bidali zizkioten baina ezin zituen jan. Banan-banan hartu zituen norbaiti eskaintzeko keinua eginez, eta esan zuen:

Familia Santua ongi zerbitzaturik dago: Jose eta Jesus Haurrari muxika bat eta bi aran egokitu zaizkie.

Eta isil antzean galdetuz:

Beharbada ez dago ongi, baina atseginez ukitu ditut. Oso gogoko izaten dut fruta, batez ere muxikak⁷⁷ ukitzea eta hurbiletik ikustea.

Nik lasaitu egin nuen eta berak jarraitu:

Ama Birjinak ere izan du bere zatia. Ron-esnea ematen didanean San Joseri eskaintzen diot neure artean: "oi! hau bai etorriko zaiola ongi san Joseri!" pentsatuz

⁷⁴ Aipu berbera TG 65ean.

⁷⁵ 1890eko irailaren 8an; ik. A Esk., 76^o.

⁷⁶ «Zugan, Jauna, jarri dut neure itxaropena».

⁷⁷ Ik. TG 147; Teresak nahien duen fruitua.

Jantokian, beti banaketa nola egin pentsatzen nuen: janari gozoak Jesus Haurarentzat izaten ziren; janari indartsuak San Joserentzat; Ama Birjinak ere izaten zuen bere zatia. Baina zerbait falta izaten nuenean, esaterako, albokoak saltsa edo entsalada eskaintzen ez zidanean, orduan hainbat pozago izaten nintzen, eskaintzerik gabe izatean, halakoak bene-benetan Familia Santuari ematen nizkiola iruditzen zitzaidala.

2

... Jainko onak norbaiti zerbait faltatzea nahi duenean, ez dago ezer egiterik, jasan baino beste biderik. Batzuetan ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenak nire entsalada-platera ahizpa Maria Gizakundearenaren ondo-ondoan jartzen zuenez gero, ez nuen niretzat zela uste izaten eta ez nuen ukitzen.

Ai! ene Amatxo, eta zer-nolako tortilak, zapata-zorua baino gogorragoak zerbitzatu didaten bizitzan zehar! Horrela, lehor-lehor gustatzen zitzaizkidala uste zuten. Nire heriotza ostean txerrikeria horiek ahizpa gaixoei ez ematea erabaki beharko da⁷⁸.

Uztailak 25

1

Hainbeste sufritzen ez ikustearren, bere heriotza nahi izatera iritsiko nintzela esaten nion:

... Bai, baina hori ez da esan behar, ene Amatxo, hain zuzen ere, bizitzan dudan gogokoena sufritzea delako⁷⁹.

2

Benetan, muxiken garaian gaude ala? Aranak kalean iragartzen dira ala? Dagoeneko ez dakit zer gertatzen den.

“Bizitzaren arratsera iristean galdu egiten dira oroimena eta burua”.

3

Gure osabak mahatsak bidali zizkion. Banaka batzuk jan eta esan zuen:

Bai direla gozoak mahats hauek! Baina ez dut gogoko neure familiak bidaltzen didana... Beste aldi batean, nire Jesus txikiarentzat⁸⁰ lore-sortak bidaltzen zizkidanean, ez nituen inoiz hartu nahi izaten alde zurretik Gure Amak aginduak zirela argi eta garbi jakin gabe.

⁷⁸ Ik. baita 20. VIII. 18 ere.

⁷⁹ Sufrimenduari zion atxikimenduari buruz, ik. A Esk., 36^a eta 69^a; C Esk., 7^a, 10^a; TG 253, 254, 258; TO 10, 8; 50, 5; 54, 16; KH 23. VII. 4; 31. VII. 13; 24. IX. 1; 25. IX. 2; 30. IX; etab.

⁸⁰ Klaustroko irudia; hauxe apaindu zuen bere lekaike-bizitza osoan; ik. A Esk., 72^a.

4

*Berak eskatuz, Gurutzea eman nion mun egiteko eta ohizko eran aurkeztu nion*⁸¹.

... Ai! baina nik aurpegian egiten diot mun!

*Gero Jesus Haurraren estanpara begiratzuz (ahizpa Maria Hirutasunarenak Messineko Karmeletik ekarri zuena)*⁸².

Jesus Haurtxo horrek "Zerura joango zara, nik neuk diotsut" esaten didala iruditzen zait.

5

Non dago, bada, orain Lapurra? Honezkero ez da aipatzen. Eta eskua bihotzaren gainean jarritz erantzun zuen:

Hemen dago! Nire bihotzean dago!

6

Heriotza, itxura batean, oso tristea dela eta atsekabea hartuko duela hilik ikustean esaten nion. Ahots xamurrez erantzun zidan:

Ama Birjinak Jesus hila, itxura galduta eta odoletan eduki zuen belaun artean! Bestelako zerbait izango da zuk ikusiko duzuna! Ai! nik ez dakit zer egin zuen hark!... Halako egoera batean naramatela zure eskuetara pentsatzen dut; zer egingo zenuke? Responde mihi⁸³ ?...

Mi 6,3

7

Bere buruari leporatzen zizkion gauzatxo batzuk niri jakinarazi ondoren, Jainko onari minik eman zion ala ez galdetu zidan. Lau-lau erantzun nion, harako bekatu haiek guztiak ez zirela benetakoak eta oso ongi egin zuela niri kontatzeaz. Oso hunkituta zirudien eta geroxe-ago esan zidan:

Hori entzutean Aita Alexis etorri zait gogora: zure hitzak ere sakon sartu dira nire bihotzean.

8

Negarrari eman zion; nik bere negar-arpuloak jaso nituen, oihal leun batekin xukatuz (ahizpa Jenofak gordetzen du erlikia hau).

Ahizpa Jenofak aspaldi mahi gainean zegoen geranio txiki bat eskaini zion sabaiko kortinan buruorratzetik zintzilik zegoen estanpa bati jaurtitzeko:

... Ez jaurti inoiz loretxo lehorturik, loretxo "ireki berri" mardulak izan ezik.

9

Zarata handiegia ateratzen zuen jolasbidea proposatu zioten. Irribarrez erantzun zuen:

... Mutikoen jolasik ez!... Ezta neskato txikienik ere; aingerutxoek jolasak bakarrik.

⁸¹ Oinak aurkeztu dira mun egiteko; ik. 2. VIII. 5; 19. VIII. 3.

⁸² Ik. Otoi. 13, agiriaren azalpena.

⁸³ «Erantzun iezadazu».

10

... Mahatsei begiratu eta neure kautan zera diot: Ale hori polita da, eta beste honek itxura ederra du. Gero bat jaten dut: hau ez diot nik Jesus Haurtxoari ematen, berak ematen baitit.

11

Nire gaixoaldian benetako haurtxo baten antzekoa naiz: ez dut ezertan pentsatzen. Pozik nauzu Zerura noalako, horixe da zer guztia!

12

... Eritegian lehen aldiz mahatsak eman zizkidanean honako hau esan nion Jesus Haurrari: Bai ederrak mahats hauek! Ez dakit zer dela eta itxaroten duzun hainbeste ni hartzeko, mahats mordo txiki bat⁸⁴ nauzu eta, esaten dutenez, oso heldurik nauzu!

13

Izpirituaren gidaritzari buruz:

... Ardura handia hartu behar da norbere buruaren bila ez ibiltzeko, hala egin ez bihotza zauritu eta benetan honako hau esan ahal izango litzatekeelako: "Zaindareiek mantua kendu eta zauriz bete ninduten... Haiek atzean utzi eta berehala aurkitu nuen neure Maitea".

Kt 5,7; 3,4

Arimak apaltasunez non zegoen bere Maitea itandu balie haiek non zegoen jakinaraziko ziotela uste dut, baina miresmena lortu nahi izateagatik, urduritasunean erori da, bihotzeko xalotasuna galdu du.

14

... Zu, zu zara nire argia.

15

Entzun oso barregarria den istorio txiki hau: Behin batean, abitua hartu ondoren⁸⁵, ahizpa San Bizente Paulekoarenak gure Amaren gelan ikusi ninduen eta "Zuk bai duzula ongi dagoenaren aurpegia! Neska hau, bai dagoela indartsu! Lodi dago!" esan zuen. Goraipamenagatik nahasmenduz beterik joan nintzen eta hara non gelditzen nauen ahizpa Madalenak sukalde aurrean eta honako hau esan: "Baina, Teresa Jesus Haurrarena gaxoa, zer gertatzen zaizu? Begi bistan argaltzen ari zara! Dardara sortzen duen aurpegiera horrekin jarraitzen baduzu, ezingo duzu luzaro errege-la bete!" Harridurak jota nengoen bata bestearen ondoren hain iritzi kontrajarriak entzutean. Ordutik aurrera ez diot garrantzirik eman gizakien irizpideei, eta niregan gogo-egoera hau hainbestearino indartua da, gaur egun, non destainek zein goraipamenek labain egiten baitute nire barnean inolako urrats izpirik utzi gabe.

⁸⁴ Ik. DSA 5, 9; A Esk., 85^a; TO 5, 9 eta 10; TO 25, 7; KH 27. VII. 10.

⁸⁵ Ostegunean, 1889ko urtarrilaren 10ean; ik. A Esk., 72^a.

Uztailak 26

1

Bart, aitatxorekin bazare batean nengoela egin dut amets eta, han, liluragarriak iruditzen zitzaizkidan pilotatxo zuri polit batzuk ikusten nituen neure buruorratzak sartzeko; baina, azkenean, Karmelen antzerakoak egiten direla esan diot neure buruari eta musikatxoa eskatu dut.

2

1892ko abenduaren 8 inguruan ahizpa Martaren ardura hartu zuela esan zidan; 1893an Ama Maria Gonzagarenari lagundu ziola nobizatuan eta 1896ko azken hauteskundeetan, argi esateko, oso-osoan nobizien arduradun egina izan zela⁸⁶.

3

... Bertuteak berez egiten du distira; ez dagoenean, berehala ezagutzen dut.

Uztailak 27

1

Ez zuen nahi nik hartzeko agindu zidaten sendagai baten tantak ahazterik.

... Oi! indartu beharra duzu, ez ahaztu 30 tantak gau honetan!

2

Nekatu egiten zaitugu?

Ez, jende oso atsegina zarete eta.

3

Irribarrezka, Gure Aitaren jaietan⁸⁷ piztutako bi zirio artean berotegira⁸⁸ zeramatela egin zuela amets kontatu zigun.

4

Komunitatea bokata egiten ari zen.

... Arratsaldeko ordu bata inguruan: bai nekatuak izango direla bokatan! esan diot neure buruari. Eta Jaingo onari guztiei atsedean emateko, lana bakean eta elkartasunean egina izatea eskatu diot. Hain gaixorik izanik, poza hartu dut zuek bezala sufritzeko aukera izateagatik.

5

Gauean Gurutzeko Jon santuaren hitzak gogoratu zizkidan:

⁸⁶ Egun horien gainean, ik. C Esk., 20^a, 3ⁱ, 22^a.

⁸⁷ Maupais kalonjea.

⁸⁸ Jolas-gela.

“Hautsi elkartze gozo honetako ehuna”⁸⁹. Hitz hauek nahi dudan maitasunezko heriotzari ezarri dizkiot beti. Maitasunak ez du nire bizitzako ehuna gatatuko, bat-batean hutsi baizik.

Bai gogo biziz eta atseginez errepikatu izan ditudala neure lekaime-bizitzari hasiera eman nionez gero Gurutzeko gure Aita Jon santuaren hitzok: “Garrantzi handi-handiko zera da arimak maitasunean jardutea, arin eta laster iraungiz, ez dadin hemen beheko zereginetan geratu, laster batean bere Jainko ona aurrez aurre ikustera iritsi baizik”⁹⁰.

Azken hitzok esatean, hatza jaso eta aurpegiera zerutiarra jarri zuen.

6

Haren bizitza argitaratzeko nik ikusten nituen eragozpenak zirela eta.

... Hara, bada, nik Ark-eko Joanak bezala esaten dut: “Eta Jainko onaren nahia egingo da, direnak direla gizakien bekaizkeriak”⁹¹.

7

- Laster ez dut ikusiko zure aurpegitxo maite hori! Aurrerantzean ez dut zure arima maitetxo hori besterik ikusiko!

- Hura askozaz ere ederregoa da!

8

- Galdu egingo zaitugula gogoratzea!

- Ez nauzue galduko, baina!... Ez zarete batere buruz zorrotzak, gero⁹² !...

9

Negar egiten zuen ahizpa Jenofari:

- Argi dago, hori dela (heriotza) sudur puntatik zintzilik duzuna! Hor duzue, orain, bildurrez dardarka!

10

Mahats mordo bat Jesus Haurrari eskaini ondoren:

Mahats mordo hau eskaini diot beragan ni hartzeko gogoa sortu nahiez, mota honetakoa naizela uste baitut...

Azala ez zegoen gogor, oso gorria baizik. - Ale bat dastatuz:

Bai, mota honetakoa naiz...

⁸⁹ *Maitasun-gar bizia*, 1. ahapaldia, 6. bertsoa.

⁹⁰ *Ibid.*, Azalpena; ik. TG 245; Otoi. 12^a (eta *Prières*, 121 eta ondorengo orrialdea); Otoi. 16; eta 31. VIII.

⁹¹ Teresak Joana Ark-ekoaren ahotan jartzen dituen hitzak, DSA 3, 9^a.an.

⁹² “point fines” idazten du «vous n’êtes point fines»en ordez.

11

Amatxo nire telefonoa da; datorrenean nire belarritxoa ezartzea besterik ez dut edozertaz jakinean jartzeko.

12

... Ez naiz neurekoia; Jainko ona maite dut eta ez neure burua.

13

Naturaren sentimenduari jarraituz nahiago dut hiltzea, baina, hiltzea, Jainko onak niretzat nahi duena delako hartzen dut pozik.

14

Ez nion inoiz eskatu Jainko onari gazte hiltzerik; une honetan, bada, argi ikusten dut bere nahia baino ez duela betetzen⁹³.

15

Ito beharrean zegoen⁹⁴ eta nik neure gupida eta neure atsekabea adierazten nizkion.

Ez zaitetz atsekabetu; tira, itotzen banaiz Jainko onak indarrak emango dizkit. Maite dut. Ez nau inoiz bertan behera utziko.

16

Luzaro bere burdinazko gurutzetxoa eraman zuela, eta horregatik erori zela gaixorik kontatu zidan. Jainko onak ez zuela ez bera ez gu mortifikazio handietan aritzerik nahi, eta hori frogatu ziola esan zidan⁹⁵.

17

Medikuak agindutako igurzetak zirela eta:

Ai! igurtziz garbitua izatea beste ezer baino txarrago da⁹⁶ !

18

... Ekainaren 9tik ziurtasunez jakin izan dut laster hilko nahizela⁹⁷.

Uztailak 29

1

... Joatea nahi dut!

⁹³ Ik. 13. VII. 13; 27. VII. 13; C Esk., 8ⁱ; TG 253 eta 258.

⁹⁴ Ito beharraren larridurari buruz, ik. 20. VIII. 10; 21. VIII. 2; 25. VIII. 9; 26. VIII. 5; 29. IX. 5; 30. IX.

⁹⁵ Ik. 3. VIII. 5. - Burdinazko gurutzeari buruz (1896ko udazkena), ik. CG, 1189. or.

⁹⁶ Ik. TG 208 eta CG, 1189. or., + d.

⁹⁷ Ik. 15. VI. 1.

- Nora?

“Hara gora, Zeru urdinera⁹⁸ !”

2

Ahizpa batek jolasaldian eginiko gogoeta hau esan zion: “Zer dela eta mintzatu Teresa Jesus Haurarenari buruz santa izango balitz bezala? Bertuteak bizi izan ditu, egia da; baina ez dira, mesprezuetan eta, batez ere, oinazeetan lortutako bertuteak”. Berak geroago esan zidan:

... Eta, nik txiki-txikitatik hainbeste oinaze jasan ondoren⁹⁹! Ai! bai on egiten didala heriotza uanean gizakien iritzia jakiteak!

3

Poz emateko asmoz zerbait eraman zioten¹⁰⁰, baina alderantziz gertatu zen. Gogoeza agertu zuen, hura zela eta beste norbaiti zerbait kendu ziotelakotan, baina berehala damutu zen eta begietan malkoak zituela barkamena eskatu zuen.

Oi! barkamena eskatzen dizut, berezko joerak bultzatuta jardun dut. Erregutu nire alde.

Eta zerbait geroxeago:

Oi! bai zorionsu egiten nauela heriotza uanean, neure burua akas dun eta oso-osoan Jainko onaren errukiaren beharrean ikusteak!

4

Odola okatu zuen goizean eta arratsaldeko hiruretan.

Ez naiz gauean hilko, egon lasai. Gaez ez hiltzea nahi izan dut.

6

... Ahizpa Maria Hirutasunarena¹⁰¹ sartu eta egun batzuetara eztarria garbitu zidaten... Jainko onak nobiziek ni nekaraz nazatela nahi izan zuen. Ahizpa Maria Eukaristiarenak, predikariei bezala gertatzen zitzaidala esan zidan.

7

... Nire historiagile izateko, prestatu egin beharko zaitut.

8

Hara, bada! hiltzera doa “haurtxoa”! Egia esan, azken hiru egunotan oinaze handiak izan ditut; gau honetan garbitokian bezala nauzu.

⁹⁸ Haurtzaroan ikasitako olerkia; ik. A Esk., 11^a.

⁹⁹ Ik. 30. VII. 9; 31. VII. 13; TG 253.

¹⁰⁰ Musika-kutxa izan daiteke.

¹⁰¹ Ahizpa Maria Hirutasunarena 1894ko ekainaren 16an sartu zen Karmelen.

9

Oso sarri, ahal dudan guztietan, neure eskaintza errepikatzen diot berriro Maitasunari¹⁰².

10

Nik barruko larridura bat adierazten nion.

... Zuk zeuk erein zenuen nire arima txikian konfiantzaren hazia. Ez ahal duzu gogoratzen, ala?

11

Burkoak konpontzen zizkioten bitartean eusten nion.

Neure burua neure Amatxoren bihotz gainean jartzen dut¹⁰³.

12

Ez zuen erremedio bat eskatu eta bertuteagatik egin zuela uste zen, baina ez zuen horretan sakrifiziorik egiteko asmorik. Bere egintza miresten genuen eta:

Nazkatuta nauka lurrak! Goraipamenak egiten dira merezi ez direnean eta baita destainak ere merezi gabe. Horrela da..., horrela da!...

13

Une batean gure apaldura dena, berehala gure aintza egin ohi da, baita bizitza honetan ere.

14

Ez dut atseginak hartzeko gaitasunik; horrelakoa izan naiz beti; handia dut, ordea, minak eramateko. Beste garai batean, oso atsekabeturik aurkitzen nintzenean, jateko gogoa izaten nuen jantokian, baina alai nintzenean alderantziz izaten zen; ezin inola ere jan.

Uztailak 30

1

... Beti izan dut aspergarri gorputza; ez nuen neure burua gustora aurkitzen bertan... Txikia nintzanean ere, lotsa ematen zidan.

2

Zerbitzu txiki bat emateagatik

Eskerrik asko, amatxo¹⁰⁴ !

¹⁰² Ik. Otoi. 6.

¹⁰³ Ik. 10. 9. 2.

¹⁰⁴ Ik. A Esk., 13^a eta 80ⁱ; TG 76, 106, 110, 252; KH 30. VII. 12; 18. VIII. 3; 23. VIII. 7; 23. VIII. 10; 4. IX. 4; 28. IX. 1.

3

Ez nuen buruorraz bat ere jasoko garbitokitik ihes egitearren. Egin dudan guztia Jainko onari atsegin ematearren, arimak salbatzearren izan da.

4

Bellière eta Roulland apaizen argazkira begiratu:

Ni haiek baino askoz politagoa naiz!

5

Txinatar txiki batzuk askatzeko hitza ematen zioten.

Nik ez ditut txinatarrak nahi, beltzak baizik¹⁰⁵ !

6

Samindura sentitzen dut begiratzen ez nauzunean

7

Euliek gogaikarri gertatzen zitzaizkion baina ez zituen hil nahi.

Beti barkatzen diet. Hala ere, gaixoaldian, aspergarri gertatu zaizkidan bakar-rak dira. Beraiek dira nire etsai bakarrak, eta Jainko onak etsaiei barkatzeko agin-du zigunez gero, zorionekoa naiz horretarako aukera txiki hau dudalako.

Mt 5,44

8

Oso gogorra da hainbeste sufritzea, ezertan pentsatzea oztopatzen dizu, ezta?

Ez, oraindik maite dudala esan diezaioket Jainko onari, nahikoa dela iruditzen zait.

9

Andere-mahatsaren likore oso gozoaren itxura izanik osagai oso ezatsegina zeukan edontzira begiratzeko keinuz.

Edontzi hori nire bizitzaren irudia da. Atzo ahizpa Teresa San Augustinenak esaten zidan: "likore oso gozoak edango dituzula uste dut". Nik erantzun nion: "Oi! ahizpa Teresa San Augustinena, edaten dudan guztia oso ezatsegina da!"

Hara bada, ene Amatxo, hauxe da gizakien begiek ikusi dutena! Beti likore oso gozoak edaten nituela iruditu zaie eta samindura zen. Samindura diot, baina ez! nire bizitza ez da samina izan, samindura guztiak poztasun eta gozotasun bihurtzen jakin dudalako.

10

Cornièr jaunari nire oroigarririk eman nahi badiozu, egiozu hitz hauek dituen estampa bat: "Nire seniderik txikien hauetariko edozeini egin zeniotena, neuri egin zenidaten".

Mt 25,40

¹⁰⁵ Ik. 21/26. V. 3.

11

Saigon-go Karmeletik ekarritako haizemaile bat eman zioten; euliak uxatzeko erabil-tzen zuen¹⁰⁶. Oso bero handia egiten zuenez gero, sabaiko kortinatik buruorrazetik zintzilik zeuden estanpetara begira jarri eta haizea ematen hasi zen eta gero guri ere berdin.

Neure buruari eman beharrean santuei ematen diet haizea; zuei ematen dizuet mesede egiteko eta zuek ere santuak zaretelako.

12

Cornière jaunak Tisserand-eko 5 edo 6 koilarakada-ur emateko agindu zuen. Berak ahizpa Jenofari bakarrik 5 emateko erregutu zion; gero niregana begiratzuz:

Beti gutxien, ezta, amatxo?

13

Ez esan Ducellier jaunari¹⁰⁷ egun gutxi batzuetarako bakarrik dudarik; ez nago hiltzeko adina ahuldurik, eta gainera, bizitzak irauten duen bitartean “nahasia”¹⁰⁸ aurkitzen da bat.

14

(Arratsaldeko laurak) Ahizpa batek gelatik irtetean irribarre egin zidan. Nik esan nion: hartu atsedean orain, itxi begiak.

... Ez, hain gogoko dut zuri begiratzea!

15

Aspergarri gertatzen zizaion euli bat harrapatu nahi nuen.

Zer egin behar diozu?

Hil egingo dut.

- Oi! ez holakorik, arren eskatzen dizut.

16

Gertatu nahi nauzu Oleazioa hartzeko?

Irribarrezka begiratzuz:

Ez dut ezertan pentsatzen!

Erregutu Jainko onari, ahalik eta ondoen har dezadan.

17

Gure Aitak, zeremonia aurrean esan ziona kontatu zidan:

... “Bateoa hartu berri duen hautxoaren antzera geratuko zara”. Gero maitasu-nari buruz bakarrik hitz egin zidan. Oi! bai hunkiturik nengoela!

¹⁰⁶ Ik. 20. VIII. 10.

¹⁰⁷ Apaiz honek Teresaren lehenengo aitortza entzun zuen; ik. A Esk., 16^l.

¹⁰⁸ “Capot” «Lagunartean: nahasia, ezindua, larritua».

18

Oleazioa hartu ondoren, begirunez erakusten zizkigun eskuak.

Nik haren ezpain lehortuetako azaltxo zatiak biltzeko ohitura nuen; baina egun hartan esan zidan:

Gaur irentsi egingo ditut azaltxoak Oleazioa eta Elizakoak hartu baititut.

Arratsaldea zen. Une labur batean eskerrak eman ondoren, ahizpa batzuk hitz egitera joan zitzaizkion. Arratsean esan zidan:

Bai nekarazi nautela jaunartu ondoren etortzean! Hurbiletik begiratu didate, beraien sudurrak ia nire aurpegia ukitzen zutela... baina, ez haserretzeko, bakartadera joan arren jendea atzetik ibiltzea eragotzi ezin izaten zuen Jauna ekarri dut gogora. Eta hark ez zituen bidaltzen. Jarraibidetzat hartu nahi izan dut ahizpak ongi hartuz.

Mk 6, 32-34

Uztailak 31

1

Jaiegun batean, esaterako, abuztuaren 6an, Jaunaren Antzaldaketa egunean edo eta 15ean, Jasokunde egunean, hilko zelako ustean jarraitzen zen.

Ez zaitez data zehatzez mintzatu; beti izango da jaiegunen bat!

2

La Fontaine-ren (1) "Errotaria eta beraren hiru semeak" elezaharra kontatu ondoren:

... Bi botak jantzita ditut baina oraindik zorroa falta zait. Honek oraindik ez nagoela hiltzeko prest esan nahi du.

(1) "Botadun katua" ipuina da eta ez La Fontaine-ren elezaharra.

3

Jaitsi egin zuten haren lastaira, heriotzaren ondoren jendaurrean jartzeko. Ikusi egin zuen eritegi ondoko gelara daraman atea zabaltzean eta pozik hots egin zuen:

Ai! begira, gure lastaira! Gertu egongo da nire gorpua bertan jartzeko.

... Nire sudurtxoak beti izan du zortea!

4

Zer egin beharko ote du haurtxoak hiltzeko? Zerk, eramango nau, baina, heriotzara?

5

... Bai, lapurretan egingo dut... Zeruan nik ekarriko dizkizudan hainbat gauza desagertuko dira... Lapurtxo bat izango naiz, nahi dudan guztia hartuko dut...

6

Ama Birjinaren irudirantz begiratu eta hatzarekin platertxo seinalatuz¹⁰⁹ :

Gauean hau etorri zaidanean (*odol okada handi bat*) eraman egingo ninduzula uste izan dut.

7

Zaintzen geundela loak hartu gintuen:

... Pedro, Santiago eta Joan!

8

... Ama Birjinak parte hartzen ez badu, oraindik luzaroko dudala ziurtatzen dizut.

9

Begikotasun handiz

... Ez dezagun hitz egin, nahikoa da elkarri tarteka begiratzea¹¹⁰.

10

Lapurra etorriko da
eta eraman egingo nau
aleluia!

11

Egun gutxitako bizitza zuela eztabaidatzen zen.

Gaixoak ezagutzen du hobekien eta oraindik luzeroko dudala susmatzen dut.

12

On-ona agertu eta Lapurraren zain guttiz apaindurik egon behar dudala pentsatu dut.

13

Lurrean zoriona eta poza aurkitu ditut, baina, oinaze artean izan da, hemen behean oinaze handiak izan baititut. Arimei jakinarazi beharko zaie...


Lehen jaunartzea egin nuenetik, Jesusi lurreko kontsolamendu guztiak¹¹¹ samindura izatera aldatzeko eskatu nionez gero, sufritzeko gogo bizia izan dut. Ez nuen pentsatzen, hala ere, orduan, nire poza oinazetan jartzerik! Grazia hau ez zitzaidan geroago arte eman. Ordurarte hautsek estalitako txingarra baizik ez nintzen; noizbait fruitua emateko diren zuhaitzeko loreen antzekoa. Baina, nire loreak behin eta berriro erörtzen zirela ikusirik, sufritzen nuen bakoitzean negarrari emanez neure artean nioen harriduraz eta tristuraz: Ez naiz inoiz nahiera hutsetatik irtengo!

¹⁰⁹ Azpil txikia, lurrean jarrita Teresak txistu-ontzi gisa erabiltzen zuena.

¹¹⁰ *S'entreguigner* dator eskuizkribuan ("Guigner: fermer à demi les yeux en regardant du coin de l'œil".- Begiak erdi irekirik, hau da, betertzez begiratzen")

¹¹¹ Ik. A Esk., 36^l, Im III, 36, 3 aipatuaz.









1. Teresa, 1896ko uztailearen hasieran komentuko patioan. Eskuan paketetxo bat du eta bertan Avilako Teresa santuaren hitzak daude idatzirik: "Mila bizitza emango nituzke arima bakar bat salbatzearren".- 2 eta 3. Lisieux-ko Komunitatea 1895eko apirilaren 15ean (lau ahizpa falta dira, horien artean ahizpa San Pedro). Ezkerretik eskuinera eta goitik behera: 3. iladan, ahizpa Maria San Joserena, ama Maria Gonzagarena, Maria Manuela, Ana Bihotz Sakratuarena, Teresa Jesusena, Teresa San Augustinena eta San Joan Bautista ahizpak, ama Hermance Bihotz Sakratuarena, Marta Jesusena, Maria Filomena eta Maria Madalena ahizpak; 2. iladan: ama Aines Jesusena; Teresa Jesus Haurarena, Maria Aingeruena, San Stanislas, San Bizente Paulekoarena eta Margarita Maria ahizpak; lehen iladan: Jenofa (Zelina), Maria Hirutasunarena, Maria Bihotz Sakratuarena, Maria Gizakundearena eta Maria Jesusena ahizpak.- 4. Teresa hilik, eritegian, 1897ko urriaren 1ean.

(Argazkiaren jabea: Lisieux-ko Karmel. Cerf-Loose).

14

Bart, Cornière jaunak nik oraindik hilabeterako edo gehiagorako dudala uste duela esan didazunean, zeharo harriturik geratu naiz: hain alde handia zegoen atzokoarekin, Oleazioak ematea komeni zela esan baitzuen! Horregatik baretasun sakon batean murgildurik utzi nau. Baina niri zer, oraindik luzaro lurrean egon beharra izan arren! Nahiz eta oinaze handiak, eta egunerik egunera ugariagoak izan, ez dut beldurrik; Jainko onak indarrak emango dizkit, ez nau bertan behera utziko.

15

Oraindik luzaro bizitzen bazara, inork ez du ezer ulertuko.

Eta zer? Guztiek niri destaina egin ahal izango didate, horixe da beti nahi izan dudana¹¹²; neure bizitzaren amaieran lortuko dut!

16

... Jainko onak nahi duena egin duenean, guztiak atzipetu dituenean... lapur baten antzera, gutxien uste dudanean etorriko da: hona hemen nire burutapen txikia.

Mt 24, 43-44

¹¹² Joan Gurutzekoak bezala; ik. A Esk., 73ⁱ; TG 81; TG 188.

Abuztuak 1*

1

Lehengo batean, bere meza-liburua, Gurutzean josiriko gure Jaunaren estanparen gainean, agerian esku bat bakarrik uzten zuela itxi zenean hartuiko aipaturiko grazia¹ zela eta. Une hartan bere buruari esan ziona errepikatu zidan:

Oi! ez dut nahi odol baliotsu hori gal dadin. Bizitza osoa arimentzat jasotzen egingo dut.

2

Maitinetan, bere bizitzari buruzko eskuizkribuari buruz:

Nire heriotzaren ondoren, komenigarri izango da argitara eman aurretik inori ezer ez esatea; horretaz gure Amari baino beste inori ez esan ezer. Bestetara egiten

* Eguneroko odol-okadak abuztuaren 5ean etengo dira. Egoera egonkor bihurtuko da orduan, baina amasestua da ezaugarri nagusia. Igandean, 15ean, gaixotasunaren aldi berria hasiko da. Ezkerraldea min zorrotzaren gune bilakatuko da. Etxeko medikua kanpotik zen eta, La Néele medikuari dei egin zioten abuztuaren 17an. Berak egiaztatuko duenez, «gaixotasuna bere azken mailaraino iritsi da» (DE, 745. or.). Abuztuaren 22an, berriro egingo du txarrera.

Hil honetako osasun-kurba Koaderno horiko aldi berberean agertzen da. Lehenengo hamabostaldia uztailaren jarraipen antzera ageri da: eskuizkribuari buruzko aipamenak eta karmeldarrak etorkizunean izango duen zereginari buruzkoak; oroitzapen biografikoak, doktrina mailako hausnarketak, «*bidetxoa*» azaltzen dutenak. Geroago, 15etik aurrera, Teresaren indarrak asko ahulduko dira. Aurrerantzean, batez ere, *Azken Elkarrizketak* gaixo agurgarri bat agertuko digute, gaixo heroiko bat.

Sufritzen, irribarre egiten, itotzen, negar egiten ikusi beharra dago. Keinu bakoitzean, hitz bakoitzean bere maitasunaren neurri bete ematen ikusten dugu Teresa. Hil honen azken egunak gehiago ezineko sufrimendua erakusten duten larridura fisikoaren aitorten markatu artean igarotzen dira. Garai horretan bertan, arimako proba aurrera doa.

Ingurugune honetan, hobeki antzematen da lapitzez idatzitako bost autografo utzi zizkigun Teresaren barruko kemen edo indarra; bost haietatik azkenengoa Bellière apaizgaiari egindako azken gutun luzea, abuztuaren 10ean idatzitakoa (TG 262.etik 266.era).

¹ Saint-Pierre katedralean; ik. A Esk., 45^l. - NV 1. 8. 1ean, ama Ainesek grazia hau 1887ko uztailean jarri zuen.

baduzu, deabruak trikimailu bat baino gehiago jarriko ditu Jainko onaren lana alferrik galtzeko... oso lan garrantzitsua! (a)

3

... Aurrerantzean ez dut beste ezer idatziko².

4

Oi! zein gaixo nagoen! Ikusten duzu, bada,... zurekin!

Harrezkero ezin zidan hitzik egin.

5

... Guztiz bere eskuetan nauka, nahi duen arte itxarongo dut.

6

... Bai ongi egin zuela Jainko onak "nire Aitarenean toki asko dago" esatean!

Jn 14,2

(Oso mortifikatua izanik jasanezinezko hazkurak leuntzea ere nahi ez duen apaiz bat zela eta).

... Nik nahiago dut morfifikazioa beste modu batera egitea eta ez hain nekagarri diren gauzetan; ezin izango nuen halakorik horrela jasan.

7

Izotza zela eta³ nahigabea sortu zen eta nik negar egin nuen. Ea gaizki jokatu nuen galdetu nion eta kontsolatzeko zera esan zidan:

Zu beti zara zoragarria!

8

Gogoan dituzu zeure neba misiolariak?

Oso sarri izaten nituen gogoan; baina gaixorik nagoenez gero ez dut gauza handietan pentsatzen.

a) *Novissima Verba*-k zera gehitzen du (testu honen benetakotasuna zalantzazkoa da):

Egun batzuk geroago, osotu gabea iruditzen zitzaidan bere eskuizkribuko pasarte bat berriro irakurtzeko eskatu nion; begiak malkoz beterik aurkitu nuen: Nik zergatik zen galde-tu nion eta berak aingeru-lañotasunez erantzun zidan:

"Neure koaderno honetan berriro irakurri dudana, nire arima da!... Ene Ama, orrialde hauek on handia egingo dute. Aurrerantzean hobeki ezagutuko da Jainko onaren gozotasuna..."

Berak erantsi zuen inspiraziozko doinuz:"

"A! oso ongi dakit, guztiek maitatuko naute..."

² Amaitu gabe utzitako bere C eskuizkribuan.

³ Uztailearen 7tik aurrera odol-okaden aurka erabilia.

9

Halako misiolari batek⁴ 1890eko Eguberri egunean meza bere alde eskainiko zuela eman zion hitza. Ezin izan zuela eskaini egun hartan jakitean izandako etsipena kontatzen zidan:

... Eta ni pozaren pozez ordu berean berarekin elkartu nintzelakoan! Ai! lur honetan ez dago ezer ziurrik!

Abuztuak 2

1

Zure bihotza, ama Jenofarena bezala kontserbatzeko gogo bizia dut.

Egin nahi duzuna!

Nik iritzia aldatu nuen, hark nazka handiegia sortzen zidalako eta esan egin nion. Hainbatetan atsekabetu egin zen. Antza eman nion pentsatzen zuenari: ez zela usteldu gabe kontserbatua izango jakinik, berak ez zigun mirari bidez halakorik emango eta, kontsolamendurik gabe geratuko ginen. Noiz edo noiz esan zidan:

Ene amatxo, errazegi aldatzen duzu iritzia; askotan ikusi izan dut neure bizi-tzan zehar...

2

Elkarren artean mintzatuak ginen bihotzetik bihotzera zein jaramon gutxi egiten zaion askotan ezkutuko bertuteari gogora ekarriz.

... Horrexek harritu nau Gurutzeko gure Aita Joan santuaren bizitzan, berari buruz honako hau esaten baitzen: "Gurutzeko Joan fraidea! Baina erdizkako erlijio-so bat besterik ez da eta⁵!"

3

Ez dut Zerurako gogo handirik; hori bai, oso pozik izango naiz hara joatean, besterik ez!

4

Ezin izango da nitaz "hil egiten ez delako hil egiten da"⁶ esan. Honezkero esana dizut: berezko sentimenduz, bai, Zerua. Baina graziak niregan naturaren gaineko indar handia hartu du, eta honako hau bakarrik errepika diezaioket Jainko onari:

Oraindik luzaro bizitzea nahi dut nik,
Jauna, zure borondatea hala balitz;
Zeruan zuri jarraitzea nahi nuke nik,

⁴ Aita Roulland; ik. TG 221, 1. oharra.

⁵ Biografia eta aipamena identifikatu gabe daude.

⁶ Avilako Teresa Santua, *Olerkia*; ik. 4. IX. 7.

horrek emango balizu zuri atsegin.
Maitasunak, Aberriaren gar honek,
kiskali eta kiskali egiten nau.
heriotza edo bizitza niri zer?
Jesus, zu maitatzeak pozten nau⁷.

5

Ahizpa Jenofari:

Mundu galkor honetan⁸ zer guztiak iragaten dira, “haurtxoa” ere bai, baina hura itzuli egingo da...

Ahizpa Jenofak, Gurutzearen oinak laztantzen zituen:

Ez diozu “haurtxoaren” bideari jarraitzen. Laztandu ezazu, baina, bi masailatan eta hartu laztanak.

6

Poz handia hartzen dut akastuntzat hartzen nautenean eta, batez ere, neure kautan egiatan hala dela sentitzen dudanean. Horrek, atsekabea sortzen didaten kunplimendu guztiak gaingitzen ditu.

Abuztuak 3

1

Nola iritsi zara lortu duzun aldaezinezko bake horretara?

Neure burua ahaztu eta gogoia ezertan ez jartzen saiatu naiz.

2

Santa izatera iristeko gogor borroka egin behar izan zuela esaten nion.

Oi! ez da hori! (a)...

3

Ahizpa batekin nahigabea izan zuen eta aldi berean aurpegiera serio eta gozoaz esan zidan:

Egiatan diotsut: alboan behar zaitut neure bizitzako azken egunetan.

a) *Novissima Verba*-k zera gehitzen du (testu honen benetakotasuna zalantzazkoa da):
Eta pixka bat geroago:

“Santutasuna ez datza halako edo holako praktikan, bihotzaren jarrera bat da gure ahu-leziaren jakitun eta Aita den aldetik duen ontasunean ausartasuneraino fidakor eginez, Jainkoaren besoetan otzan eta txiki bilakatzen gaituena.

⁷ Ik. jatorrizko testua: TO 45, 7an.

⁸ Jose santuaren kantu baten zantzua: «La gloire humaine es passagère. Tout passe en ce monde mortel - Giza aintza igarokorra da. Mundu galkor honetan guztia igarotzen da»; ik. DE, 599. or.

4

Ene ahizpatxoak, erregutu hiltzorian dauden gizagaixoen alde. Jakingo bazenu-te nolako oinazeak izaten diren! Bai gutxi behar dela pazientzia galtzeko! Guztiekin bihotz onekoa izan behar da... Lehenago ez nuen halakorik uste izango.

5

Penitentzia-tresna bidezko morfikazioei buruz mintzatzen nitzaion.

... Honetaz gehiegikeriarik gabe jokatu behar da, halakoetan sarritan beste ezer baino gehiago naturaren nahikeria nahasten da eta ^(b).

6

Guri hiruroi:

Arreta handia jarri behar da betebeharreran. Mintzatokian ikustaldia izan ondoren, ez ibili zeuen artean entzundakoei buruz mintzatzen, hori, buruei ezertan ukorik egin gabe, norbere etxean egotea adina bailitzateke.

Niregana begiratzuz:

Hori, ene Amatxo, zerik onena da.

7

Oi! zein minduta dudan bizkarra, jakingo bazenute!

Guata jarriko dizute.

Jn 19,17

Ez, ez diezadatela nire gurutzetxoak kendu.

8

Aspaldidanik ditut minak, baina min txikiak ziren. Uztailaren 28tik oinaze oso handiak dira.

9

Bere gaixotasunaren gorabeherak nahasturik gintuen eta gutariko batek esan zion: Zerk eramango zaitu, bada, heriotzara?

Has 2,17

Ni, berriz, heriotzak hilko nau! Ez ahal zion esan Jainko onak Adani hil egingo zela, "heriotzak hilko zaitu" esan zionean? Besterik gabe, halaxe.

b) *Novissima Verba*-k zera gehitzen du:

Beste une batean honetaz hitz egin zidan:

"Gorputzaren penitentzietzuei dagokienez pasarte batek hunkitu ninduen Henri Suso dohatsuaren bizitzan. Haren osasuna hondatu zuten halako zer izugarriak eginak zituelarik, aingeru bat azaldu zitzaion bertan behera uzteko esanez eta hau erantsiz: "Orain arte soldadu hutsa izan zara borrokan, orain zaldun armatuko zaitut". Eta borroka izpirituala haragiaren mortifikazioak baino goragoko zera zela ulertarazi zion santuari.

"Hara, bada, ene Amatxo, Jainko onak ez du ni soldadu hutsa izaterik nahi izan, berehala armatu ninduen zaldun eta buru-ukapenaren eta ezkutuko sakrifizio txikien bitartez neure buruaren kontra borrokatzera abiatu nintzen izpituaren esparruan; bakea eta umiltasuna aurkitu ditut naturaren menpe ez dagoen borroka ilun honetan".

Abuztuak 4

1

Bart amesgaiztoak, oso amesgaizto izugarriak izan ditut; baina unerik larrienean zu zentozkidan eta aurrerantzean ez nuen beldurrik izan.

2

... Ez, ez dut uste santa handi bat naizenik! Santa txikitxo bat naizelakoan nago; baina, Jainko onak, niregan, neure buruari nahiz besteei on egiteko zerak jarri dituela uste dut⁹.

3

Galburu-sorta bat eraman zioten; ederrena bereizi eta esan zidan:

Ene Amatxo, galburu hau nire arimaren irudia da. Jainko onak dohainez bete nau neure eta beste hainbaten onerako...

Gero, harrokeriazko pentsamendua izan zuela uste izanik¹⁰ :

Oi! bai nahi dudala iraindua eta gaizki erabilia izatea, benetan bihotzeko apaltasunik dudan ikusteko!... Beste garai batzuetan apaltzen nindutenean, behintzat, zorionsu ikusten nuen barrua... Bai, apala naizela uste dut... Jainko onak egia irakasten dit; oso ongi ikusten dut dena Harengandik datorkidala.

4

Bai erraz galtzen dela adorea oso gaixorik izatean!...

Oi! oso ongi ikusten dut zenbateraino galduko nukeen adorea, sinesmenik ez banu, edo hobeki esanda, Jainko ona maiteko ez banu.

5

Zeruan bakarrik ikusiko dugu gizaki guztiei dagokien egia. Ezinezkoa da lurrian. Esaterako, ez ahal da tristea Liburu Santuen hainbeste itzulpen desberdin ikustea? Apaiza izan banitz, hebraiera eta grekoa ikasiko nituen, ez nitzen latinarekin konforme geratuko; horrela Espiritu Santuak hitzez hitz esandako benetako testua ezagutuko nuen.

6

Unetxo batean otoitzaldian lo geratu nintzen. Gerra baterako soldaduak behar zirela egin nuen amets.

Zuk esan zenuen: Teresa Jesus Haurrarena bidali behar da. Nik erantzun nizun nahiago izango nukeela gerra santu bat izan balitz. Azkenean, hala ere, joan egin nintzen.

Oi! ez, ez nuke gerrara joateko beldurrik izango. Oso zorionsu izango nintzatekeen, esaterako, gurutzaden garaian! Herexen aurka borrokatzera joango nintzatekeen. Ez nukeen bala bat hartzearen beldurrik izango!

⁹ Ik. 9. VIII. 4; 3. IX. 2.

¹⁰ Ik. 12. VIII. 3.

7

Nola liteke, martiritza nahi izan ondoren¹¹, ni ohe batean hiltzea?

8

Nola daramazu, orain, zure bizimodu txikia?

Nire bizimodu txikia, oinazeak eramatea besterik ezer ez da! Ezingo nuke esan: Nire Jainkoa, hau Elizaren alde, ene Jainkoa, hau Frantziaren alde eta abar... Jainko onak ongi daki nire merezimenduekin zer egin; guztia atsegin emateko eskaini diot. Bestalde, gehiegi nekatuko nintzateke: Eman hau Pedrori, eman hau Paulori esaten. Dena dela, halaxe egiten dut, berehala, ahizpa batek eskatzen didanean eta gero ez naiz gehiago horretaz arduratzen. Nire neba misiolarien alde erretgutzen dudanean ez ditut nire oinazeak eskaintzen, besterik gabe haxe esan baizik: Ene Jainko ona, eman iezaiezu niretzat nahi nukeen guztia.

Abuztuak 5

1

Bero handia egiten zuen eta sakristauak erruki gintuen abitu lodiak genituelako.

Ai! Zeruan Jainko onak ordainduko digu lurrean bere maitasunez abitu lodiak eramán izana!

2

Dagoeneko ezin zuela mugimendurik egin ikusirik:

Sal 108,23 Dabidek salmoetan honako hau zioen: "unerik unera tokiz aldatzen diren matxinsaltoaen antzekoa naiz". Hara, bada, nik ezin esan halakorik! Nahiko nuke ibiltzea baina hari batekin loturik dut hanka.

3

... Santuek nire atzetik Zeruko atea itxi dezatenean honela abestuko dute:
 Azkenean, gure artean zaitugu,
 sagu txiki grisa,
 azkenean gure artean zaitugu,
 eta guk gordeko zaitugu!

(Burura etorri zaitzaion kantatxoa)

4

Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenak esan zion bere heriotza orduan aingeruak gure Jaunari lagun egiten etorriko zirela eta argiz eta edertasunez distiraka ikusiko zituela¹².

¹¹ Gurari honi buruz, ik., besteak beste, A Esk., 61ª; B Esk., 3ª; TG 132, 192, 197, 224; TO 35, 10; DSA 6, 11ª; Otoi. 2; etab.

¹² Ik. 4. VI. 1; eta uztaileko 70. oharra.

Irudikapen horiek ez didate laguntzarik ematen, ezin dut egia ez den beste inon janaririk hartu. Horregatik ez dut inoiz ikuskaririk nahi izan. Lurrean ezin da zerurik ikusi, ezta aingerurik ere behar bezala. Nahiago dut heriotza osterarte itxarotea.

5

Bezperetan, ene Amatxo, zu zarela nire eguzkia pentsatu dut.

6

Loak hartu nau eta nire gainean laztantzera makurtzen zinela egin dut amets. Laztana itzuli nahi izan dizut, baina, esnatu egin naiz bat-batean, nire laztana hutsean geratu delako harriturik.

7

Haren ohea oraindik ez zegoen eritegi erdian jarrita, barreneko angeluan baizik. Hurrengo egunean, abuztuaren 6an, gure Jaunaren Antzaldaketa ospatzeko, berak hain gogoko zuen koruko Aurpegi Santua hartu eta lore eta argi artean haren eskuinean, horman jarri genuen. Irudira begiratu ezan zidan:

Zein ongi egin zuen Gure Jaunak bere argazkia ematerakoan begiak jaitsiz. Begiak arimaren ispilu izanik, haren arimari antzemanenez gero, pozaren pozez hil egingo ginатеke.

Oi! bai on ugari egin didala Aurpegi Santu horrek bizitzan zehar! "Maitasunez hil" nire kantika egiten ari nintzenean, laguntza eman zidan erraztasun handiz egiteko. Buruz idatzi nituen, gaueko isilaldian, egunean zehar zirriborro gisa konposatutako hamabost ahapaldiak. Egun hartan, kontzientziako azterketa ondoren jantokira joaterakoan, egin berri nuen honako ahapaldi hau:

Maitasunez bizitzea, zure Aurpegia txukatzea,
bekatarien barkamena iristea da¹³.

Albotik igarotzean errepikatu egin nion maitasun handiz. Begiratzean, negar egin nuen maitasunez.

8

Nik Job-en antzera errepikatzen dut: "Goizean ez dut arratsaldera iristeko itxaropenik, eta arratsaldean ez dut goiza berriro ikusteko usterik". Jb 7,4

9

... Isaiasen hitz hauek: "Nork sinetsi du gure mezua?...Ez zuen duintasunik, edertasunik, ez gure begientzat itxura erakargaririk...etab.¹⁴ " nik Aurpegi Santuari diodan debozioaren sakoneko euskarria izan dira edo eta, hobeki esanda, nire erlijiotasun osoaren euskarria. Nik ere edertasunik gabe izatea, bakarrean dolareko ardoa zoapaltzea, gizakientzat ezezaguna izatea nahi nuen. Is 53, 1-2

Is 63,3

¹³ Ik. TO 17, 11.

¹⁴ Ik. TG 108.

10

Nik esandako isilpeko zerbait zela eta, esan zidan:

Ama priore batek, ez duela atsekaberik adierazi beharko luke beti. Hainbeste on egiten du eta hainbesterainoko indarra ematen bere penak ez agertarazteak! Esa-terako, honelako esaerak baztertu egin beharko lituzke: “eragozpenak eta nahigabe-ak dituzula? ba, nik ere neureak eta askozaz ere ugariagoak ditut, etab.”

Abuztuak 6

1

Gauean hilko zela itxaron nuen eta goizean esan zidan:

Gau osoa, neskatxoak Gabonetako zapatatxoaren abestian bezala zelatan egin dut¹⁵...

Ez dut Aurpegi Santuarengandik begirada aldendu... Hainbat tentaldi uxatu ditut... Ai! sinesmen-egintza ugari egin ditut!...

Sal 141,5 Nik ere esan dezaket: “Eskuinera begiratu nuen, begirada zuzendu eta ez zegoen ezagutzen ninduen inor...” Nire heriotzako ordua ezagutuko duen inor... esan nahi dut. Eskuina, nik begi aldetik begiratuta zu zaudeneko aldea dela irudiz-zen zait.

Gero Ama Birjinaren irudira begiratu eta leunkiro abestu zuen:

Oi! Noiz etorriko ote da nire Ama maitea,
Oi! Noiz iritsiko ote da egun zoragarria;
Lurreko erbestetik, betiko egonlekura
hegaldia egingo dudan eguna?¹⁶

2

Bere alboko min bizia kendu egin zitzaion gauean. Cornière jaunak, hala ere, auskul-tatzean oso gaixo aurkitu zuen, baina berak ez zuen argi ikusten heriotza hurbil zuenik.

Bere irlan bizi den Robinson txiki baten antzekoa naiz. Ezer prometatut zidaten arte, erbestean nengoan, baina, egia esan, ez nuen irla uzteko asmorik. Baina, hara non jakinarazten didaten laster iritsiko dela neure Aberrira eramango nauen unzia. Hori entzutean hondartzan gelditzen naiz, urrutira begiratzen dut, begira jarraitzen dut... eta hodeiertzean ezer ez dela ageri ikustean, neure kautan diot: iruzur egin didate! Ez ez naiz joango!

3

Jesusen Bihotzaren orduen liburutxoan, gure Jaunak Margarita Maria dohatsuari esandako hitzak erakutsi zizkidan, hain zuzen ere, Igokunde egunean zortean ireki eta libu-rutxo hartatik atera zituen hitzok:

“Gurutzea da nire emazteen etzalekua; bertan agortaraziko dizkizut neure mai-tasunaren gozotasunak”.

¹⁵ O. Pradère-ren kantua, TO 23rako erabilitako doinua.

¹⁶ «Erbesteratu baten intziriak» izenburua duen kantua.

Eta kontatu zidan, behin batean, ahizpa batek liburu berbera ireki eta zortean pasarte oso latza tokatu zitzaionean, beste hainbeste egiteko eskatu ziola berari ere. Orduan honako hitzok egokitu zitzaizkiola:

“Jarri nigan zeure konfiantza...”¹⁷

4

... Konfiantza izateko ezin dut ezertan, nire egite batean ere oinarria jarri. Esaterako, neure buruari “hildakoen aldeko ofizio guztien zorra ordaindu dut” esan nahi nioke. Baina, txirotasun hau, niretzat benetako argia, egiazko grazia izan da. Nire bizitza osoan, inoiz ezingo nuela Jainko onarekin izandako zorretarik bat ere ordaindu gogoratze hori, niretzat, nahi izanez gero, benetako aberastasun eta indar izan zitekeela pentsatu nuen. Orduan, honako otoitz hau egin nuen: Oi! nire Jainkoa! Arren garbitokiko arimekin dudan zorra zeuk ordaintzeko eskatzen dizut; baina egin ezazu Jainko onari dagokionez, horrela, nik hildakoen aldeko ofizio guztiak egin banitu baino mila aldiz hobeki izan dadin. Eta samurtasunez Gurutzeko Joan santuaren kantikako hitz hauek gogoratu nituen: “Eta zor guztiak ordaintzen ditu”¹⁸. Beti maitasunaz esandakotzat hartu nituen... Badakit hau ordaindu ezin den grazia dena... Eztiutsuegia da! Izan ere, norbere burua oso-osorik txiro ikustean eta Jainko onarekin bakarrik laguntza izatean hain bake handia sentitzen da!

5

Oi! bai gutxi direla lekaime guztiz onak, “ez nago horretara beharturik, dena dela ere... ez dakar gaitz handirik hemen hitz egiteak, honetan neure buruari atsegin emateak...” esanez, gauzak hala-hola, gutxi gorabehera egiten ez dituztenak! Bai direla gutxi egiteko guztiak ahalik ondoen egiten dituztenak! Eta hala ere zoriontsuenak dira! Adibidez, isiltasunak zer-nolako ongia dakarkion arimari, maitasunaren aurkako zenbat falta eta era guztietako zenbat atsekabe aldentzen dituen! Batez ere, isiltasunaz ari naiz, akatsik gehien eragiten duena delako.

6

Bai harro izaten nintzela koruko Ofizioan asteko otoitz-gidari¹⁹ izan eta otoitzak oso ozenki koru erdian esaten nituenean! Apaizak Mezan otoitz berdina erabiltzen zituela, eta hark bezala nik ere Sakramentu Txit Santuaren aurrean ahots ozenez otoitz egiteko, bedeinkapenak eta barkazioak emateko nahiz, lehen kantore nintzanean, Ebanjelioa irakurtzeko eskubidea nuela pentsatu nuen.

... Baina esan dezaket koruko Ofizioa izan dela,aldi berean, nire poz-iturri eta martiritza-bide, oso ongi inolako akatsik gabe esateko nahiera handia izaten nuelako. Eta batzuetan gertatu izan zait, minutu bat lehenago zer esan behar nuen aurrez prestatu ondoren, nahigabeko lekorapen bat zela tarteko, ahoa zabaldu gabe iragaten uztea. Hala ere, uste dut, ezinezkoa dela koruko Ofizioa nik nahi izan dudain baino hobeki esatea edo eta nik baino gogo biziagoz esatera korura joatea.

... Bihotz zabalez barkatzen diet ahaztu edota huts egiten duten ahizpei.

¹⁷ Hitz horiek TG 196an adierazitako liburuxkako 39 eta 7. orr.etan daude, 3. oharra.

¹⁸ *Maitasun-gar bizia*, II. ahapaldia, 6. bertsoa.

¹⁹ Asteko otoitz-gidaria: astean zehar koruko otoitzaldiaren buru zen lekaimea.

7

Ahizpa San Stanislas-ek, izan zuen lehen erizainak, bakarrik utzi zuen bezpera bitartean eritegiko atea eta leihoa zabalik zeudela; aire korronte oso handia zegoen. Gure Amak egoera horretan aurkiturik bere haserrea agertu eta kontuak eskatu zizkion (20). Berak esan zidan:

Egia esan nion gure Amari, baina, hitz egiten ari nintzela, mihian esateko nuen hitza baino karitate handiagoko bat etorri zitzaidan burura eta, bestalde, ziur aski gaizki ez zegoena. Neure iradokimenari jarraitu nion eta Jainko onak barru-barruko bake handi bat emanez eskertu zidan.

8

Gauean, maitinak esaten ziren bitartean, "Jaingoaren aurrean haurtxoa²⁰ izateaz" zer ulertzen zuen galdetu nion eta azaltzeko eskatu. Berak esan zidan:

Norbere huskeria aitortzea, haurtxo batek aitagandik bezala dena Jainko onarengandik itxarotea; ezertaz ez arduratzea, altxorrik ez irabaztea. Txiroen etxeetan ere haurrari behar duena ematen zaio, baina handi egiten denean, aita ez dio jaten eman nahi izaten eta esaten dio: Orain egin lan, zeure buruaren ardura har dezakezu.

Hain zuzen ere hori ez entzutearren, nik ez dut hazterik nahi izan, ez dudalako neure burua ikusten neure bizitza, Zeruko betiko bizitza irabazteko gai. Beti, bada, txiki irauin dut, loreak, maitasunezko eta sakrifiziozko loreak bildu²¹ eta Jainko onari jolas egin dezan eskaintzeko eginkizun bakarra hartuz.

Txikia izateak, bestalde, zerbaiterako gai²² garela uste izanik praktikatzen diren bertuteak norberaren zertzat ez hartzea eta altxor hori Jainko onak, behar duenean erabil dezan, haurtxoaren eskuetan jartzen duela sinestea esan nahi du; beti Jainko onaren altxor izaten jarraitzen du. Azkenik, norbere hutsak direla eta kementik ez galtzea²³, haurtxoak sarri erortzen baitira, baina txikiegiak dira min handirik egiteko.

a) Koaderno berdeek zehazten dute:

Bezpera bitartean erizain batek aire korrontearen erdian utzi zuen. Ahizpa Teresa Jesus Haurrarenak atea itxeko keinua egin zion. Hori ulertu ordez, erizainak tapaki bat eskatzen ari zela pentsatu zuen eta oinetan jarri zion. Teresa zerbait esaten saiatu zen, baina hain zegoen unatua, non ezin izan baitzuen adierazi zer nahi zuen eta mojatxoak beste tapaki bat, buruko bat, etab. eraman zizkion, hotzez zelakoan. Gaixoa itolarrian zegoen, baina ez zen gehiago saiatu ezer azaltzen.

Bezeretatik itzultzean, XXX ahizpa aire korrontean konturaturik eta gaixo ezti hura hainbeste tapakiren azpian itotzen ari zela ikusirik, ahots ozenez agertu zuen bere haserrea. Gure Ama etorri eta azalpena eskatu zion ahizpa Teresa Jesus Haurrarenari eta honek eropena adinako karitatea agertu zuen.

²⁰ Ik. B Esk., 3^a/4^a; C Esk., 3^a; TG 178, 226, 261; TO 11, 3; 13, 5; 24, 9; 31, 4; 36, 3; 45, 4; 54, 6; DSA 7, amaierako ahapaldia; Otoi. 14; KH 27. V. 5.

²¹ Ik. B Esk., 4^a; TG 194; TO 34.

²² Ik. 7. 8. 4; TG 259; eta Avilako Teresa Deuna, *Onbidea*, XL. kapitulua.

²³ Ik. B Esk., 5^a; C Esk., 31^a; TG 143, 202; Otoi. 7 eta 20; KH 5. VII. 1; 7. VIII. 4; etab.

Abuztuak 7

1

Irten berri den X... ahizpak²⁴ bere barruko gauzatxoren bat esan nahi zidan, orduan ni priore ez banintzen ere.

... Ez iezaziozu inoiz entzun, aingeru bat bezalakoa balitz ere; zorigabea izango zinateke, ez baitzenuke zure eginkizuna beteko. Benetan Jainko onak gogoko izango ez lukeen akatsa egingo zenuke.

2

Oi!, bai gutxi maite dutela Jainko ona lurrean!... baita apaizek eta erlijiosoek ere!... Ez, Jainko ona ez da oso maitatua...

3

Berak bokazioaren berri eman zion²⁵ egunean Buissonnets-en aitatzok eman zion loretxoa itsasia zuen Garaipenen Andre Mariaren argazia erakutsi zidan. Sustraira askatuta dago eta badirudi Jesus Haurrak bere eskuan duela eta, Ama Birjinak bezala, begiratzerakoan irribarre egiten duela.

... Loretxoak sustraira askatua izateak Zeruan nagoela adieraziko dizu... Horregatik narabilte hain maitekiro... (*Ama Birjinak eta Jesus Haurrak*)

4

Oi! desleial izango banitz, desleialtasunik txikiena egingo banu, badakit ordaintzat tentaldirik handienak izango nituzkeela eta horrela ezingo nukeela heriotza onartu. Hori dela eta etengabe esaten diot Jainko onari: "Oi, ene Jainko, gorde nazazula desleial izatearen zorigaitzetik erregutzen dizut".

Zein desleialtasunaz ari zara?

Harrokeriazko pentsamenduan nahita gozatzeaz. Nik neure buruari esango banio, esaterako, harako bertutea lortu dut, ziur nago praktikatzeko gai naizela. Hori neure indarretan oinarritzea izango litzateke eta horretara iritsiz gero leizera erortzeko arriskua izaten da. Bestetara aldiz, apala izanik, txikia izaten jarraituz, Jainko onari min eman gabe neure heriotza unerarte okerkeria txikiak egiteko eskubidea izango dut. Begiratu haur txikiei: gauzak apurto eta urratu egiten dituzte eta erori egiten dira gurasoak bihotz-bihotzez maitatu arren. Horrela erortzen naizenean, nire ezereza ikusten dut eta neure artean pentsatsen dut: zer egingo ote nuke nik, zein izango ote litzateke nire izaera neure indarretan oinarrituko banintz?

Ongi ulertzen dut San Pedro erori izana. Pedro gizagaixoak, bere ustea, Jainko onaren indarrean jarria izan beharrean, bere indarretan zuen jarria. Hortik, "Ene Jainko ona, ongi dakizu gehiegi maite zaitudala, nire gogoa sinemenaren aurkako pentsamendu batean jartzeko" esango banu, nire tentaldiak handiagoak izango lirakeela eta egiatan labain egingo nukeela beraietan ateratzen dut.

Mt 26, 69-75

²⁴ Ahizpa Maria San Joserena, 1909an joana.

²⁵ Ik. 7. 6. 2; A Esk., 50; Otoi. 21, agiria.

Ziurkiro uste dut San Pedrok apaltasunez Jesusi esan bazion: “Emaizkidazu, arren, indarrak zuri heriotzaraino jarraitzeko” berehala lortuko zituela.

Era berean, oso-osoan uste dut gure Jaunak ez ziela apostoluei bere argibidez eta bere gorputzeko presentziaz, guri bere graziaren argitasunez baino gehiago irakasten. Zer esanik ez, Pedrori esan ziezaiokeen: eska iezadazu nahi duzuna betetzeko indarra. Baina ez, barneko ahulezia erakutsi nahi ziolako eta bekatariz betea dagoen Eliza osoa gidatzera deitua izanik, gizakiak Jainko onaren indarrak gabe zer egin dezakeen bere larruan sentitzea komeni zitzaioelako.

Lk 22,32 ... Erori aurretik Gure Jaunak esan zion: “Eta zuk, Niregana bihurtzean, sendo itzazu senideak”. Erakutsi iezaiezu zeure esperientziaz gizakion indarren ahulezia, esan nahi zuen.

5

Beti nire ondoan izan zaitezzen nahi dut; nire eguzkia zara²⁶.

Abuztuak 8

1

Bere bertuteak neuk aldarrikatuko nituela geroago esaten nion:

Jainko ona bakarrik aldarrikatu behar da, nire ezerezean ez baitago aldarrikatzea merezi duen ezertxo²⁷.

2

Eritegiko leihotik zerura begira zegoen, eta ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenak esan zion: “Bai maitasunez begiratzen duzula Zerurantz! Une hartan nekatuago zegoen eta irribarre eginez erantzun zion. Geroago buruan izan zuen pentsamendua esan zidan.

Ai! hark uste du benetako Zerua gogoratzu begiratzen dudala ortzera. Baina, ez, besterik gabe ikusten den materiazko zerua miresten dut; bestea geroago eta itxiagoa egiten zait. Berehala neure barnean esan nuen eztitasun handiz: Oi! bai, egia da maitasunez begiratzen dudala zerura; bai, Jainko onarenganako maitasunez da egiten dudana guztia, mugimenduak, begiradak, den-dena neure eskaintzaren ondoren maitasunak eraginik egiten baitut²⁸.

3

Jdt 15,11 Gaur nire iragandako bizitzan, Eguberri eguneko gau hartan²⁹ egin nuen adozko egintzan pentsatu dut, eta Juditi egiten zaion aintza etorri zait gogora: “Gizonezkoen adorez jardun izan duzu eta indartu egin da zure bihotza”. Arima ugarik esaten dute: Ez dut halako sakrifizioa egiteko kemenik. Egin dezatela, bada, nik egin nuena: ahalegin handi bat. Jainko onak ez dio inori ukatzen zerbait egiteko indar-iturri den lehen grazia hau; gero indartu egiten da bihotza eta garaipenik garaipen egiten da aurrera.

²⁶ Ik. 5. VIII. 5.

²⁷ Ik. 6. VIII. 8; 7. VIII. 4; 13. VIII. 1; C Esk., 2^a; TG 197; TO 53, 1.

²⁸ Ik. Otoi. 6.

²⁹ 1886an; ik. A Esk., 45^a; TG 201.

4

Gure Jauna eta Ama Birjina inoiz pertsonalki otorduetara joan gabe izan balira, ez zuketean jakingo adizkideei jatera gonbitea egiteko ohitura. Jateko, nork bere burua ezkutatu edo eta, gutxienez, familian iraun behar zuela iruditzen zitzaidan. Gonbitea elkarri egin bai, baina bakarrik solasean aritzeko, bidaiak eta oroitzapenak kontatzeko, hau da, izpirituzko gauzak dastatzeko.

Beti tamal handia eman izan didate oturantz handietan zerbitzatzen aritzen diren pertsonak. Zoritxarrez tantaren bat zamau gainean edo eta mahaikideren baten gainera eroriz gero, etxeoandrea begirada zorrotzez begira ikusten zuten gizagai-xoek, lotsaren lotzaz gorri-gorri jartzen zirelarik; eta neure barnean oso haserre esaten nuen: Oi! hemen behean jabeen eta menpekoen artean izaten den alde honek zein garbi frogatzen duen badela, bakoitza bere barneko merezimenduen arabera kokaturik, guztiak Aita familiaburuaren oturantz eserita izango direneko Zerua. Baina, orduan, nor izango dugu zerbitzari Jesusek "bera joan eta zerbitzatzera etorriko dela" esan baitzuen? Hori izango da txiroek eta, batez ere, txikiek izaten dituzten apaldurak bete-betean ordainduak izango dituzten uea.

Lk 12,37

Abuztuak 9

1

Nik "gure gerraria lurrera erorita dago!" esaten nion

Ni ez naiz lurreko armaz, "Jainko onaren hitza den izpirituzko espataz" borrotatu duen gerraria baizik. Hori dela eta gaixoaldiak ezin izan nau lurrera bota, eta, urrutira begira egon gabe, atzo bertan neure ezpata erabili nuen nobizia batekin. Esana dut armak eskuetan ditudala hilko naizela!³⁰

Ef 6,17

2

Bere eskuizkribua zela eta:

Han izaera guztietakoentzat dago zerbait, bide harrigarrietatik doazenentzat izan ezik.

3

Niretzat nire haurtzaroan izandakoa izatera itzuli zara... Ezinezko egiten zait zer zaren niretzat esatea!

4

Santa zela esaten zioten:

Ez, ez naiz santa; ez dut inoiz santuen egintzarik egin. Jainko onak dohainez bete duen arima txikitxo bat naiz, horixe besterik ez. Esaten dudadana egia hutsa da; ikusiko duzue Zeruan.

³⁰ Ik. TO 48, 5, amaia.

Abuztuak 10

1

Sabaiko kortinatik zintzilik zegoen Teofan Vénard-en estanpara begira zegoen. Estanpa honek misiolaria hatzarekin Zerua seinalatuz adierazten du.

Ezagutzen nauela uste duzu? Begiratu zer erakusten didan!... Zer esanik ez, horren orde bestea jarrera bat har zezakeen!...

2

Bere antzera maitasunaren osotasunera heldutako arimek, barnean duten edertasuna ikusi ahal dutela³¹ eta bera halakoetarikoa zela esaten zioten.

Zein edertasun? Ez dut, inondik inora neure edertasunik ikusten; Jainko onak eman dizkidan dohainak baizik ez ditut ikusten. Beti huts egiten duzue, ni hezurtxo bat, piqueta txiki bat³² besterik ez naizela ahazten duzue.

(Zerbait esatera etorri zitzaizkidan eta ezin izan nuen jarraian emaniko azalpena entzun)

3

Aurpegiara alai eta oso adeitsua zuela, Teofan Vénard-en argazkira begiratu:
... A!, baina!

Zer dela eta diozu: "A!, baina!" galdetu zuen Jenofak.

Begiratzen dudak bakoitzean, berak ere begiratu egiten didalako; eta, honetaz gainera, begi ertzetik maltzurkeriaz zelatan dudala iruditzen zait.

4

Ark-eko Joana espetxean zegoela agertzen zuen argazkia erakusten zioten³³.

Santuek niri ere adorea ematen didate neure espetxean. Honako hau esaten didate: burdina artean egonik ezin duzu bete zeure eginkizuna: baina, geroago, zure heriotzaren ondoren, zure lanen eta zure konkisten eguna iritsiko da.

5

Antiokiako Inazio santuaren hitzok gogoratzen ditut: "beharrezkoa da ni ere oinazez birrindua izatea Jainko onaren gari egin nadin"³⁴.

6

Maitinen garaian:

Zer zaren niretzat jakingo bazenu! Baina, beti gaiza bere esaten dizut.

³¹ Ik. *Maitasun-gar bizia*, I. ahapaldia, 6. bertsoa.

³² Ik. TG 147, 2^al.

³³ Teresaren argazkia, Joana Ark-ekoarena egiten diharduela, Katalina santuak kontsolatzen duela-rik (VTL, 14. zk.); ik. DSA 3, 19^o; eta *Récréations*, 334. or.

³⁴ Erromatarrei gutuna, 4. 1.

7

Ni Zeruaz, bertan gorputz eta arimaz dauden gure Jaunaz eta Ama Birjinaz mintzatzen nintzaion.

Berak hasperen sakon bat egin zuen honako hau esanez:

A!...

*Esaldi horren bidez zure barruko probak samin handia sortzen dizula aditzera eman nahi didazu?*³⁵

Bai!... Bihotzez maitatu behar dira Jainko ona eta Ama Birjina eta horrelako pentsamenduak izan... Baina nik ez dut gogoia horietan geldiarazten.

Abuztuak 11

1

... Beti iruditu zait, nire Amatxo, arreta gehiegi jartzen duzula zeure lanean.
- (*Garbiketa zela eta*)

2

Bere heriotzaren ondoren onak izango ginela eta Komunitatea zeharo berriztatuko zela esaten nion:

... "Bene-benetan diotsuet: Gari-alea lurrean sartu eta hiltzen ez bada, bera Jn 12, 24-25
bakarrik gelditzen da; hiltzen bada, ordea, fruitu asko ematen du".

3

Ez nuen uste honela sufrutuko nuenik: haurtxo baten antzera sufrutzen dut.

... Ez nioke inoiz Jainko onari oinaze handiagorik eskatu nahi. Berak handitzen baditu, gogoz eta pozik eramango ditut, berarengandik etorriko baitira. Baina txikiegia naiz neure kabuz indarrak edukitzeko. Oinazeak neuk eskatuz gero, baka-

³⁵ Ama Ainesek, gainera, honako hau (PAKO) idatzi du: «Arratsalde batean, eritegian, hura ohi zuen baino irekiago zen bere arrangurak niri esateko. Ordura arte ez zen asaskatu nirekin gai horren inguruan. Berak proba azaletik baizik ez nuen ezagutzen.

Jakingo bazenu -esan zidan- zein pentsamentu izugarrik hartuta nagoen! Erregutu asko nire alde, hainbeste gezur buruan sartu nahirik ari zaidan deabruari jaramonik egin ez diezaiodan. Materialistearik okerrenen arrazoibide honek hartzen dit neure izpiritua: egunen batean, zientziak, etengabe aurterapen berriak eginez, guztia azalduko du naturalki, eta gaur egun oraindik ilunpean dauden gauza guztien arrazoi nagusia ezagutu ahal izango dugu, oraindik gauza asko eta asko agertzeko baitaude..., etab. etab..

Nik on egin nahi dut neure heriotzaren ondoren, baina ezin izango dut! Ama Jenofarekin gertatu zena gertatuko zait:: mirariak egiten ikusteko ustea genuen, eta isiltasun osoa egin zen haren hilobi inguruan...

Oi, ene Amatxo!, Nola izan daitezke honelako pentsamenduak Jainkoa hain maite denean?"

Azken batez....., hain sufrimendu handi hauek fedegabe gaixoek fedearen argia lor dezaten eskaintzen ditut eta Elizaren fedetik aldendurik dauden guztien onerako".

Eta pentsamendu beldurgarri horiekin sekula ere ez dela eztabaidan sartzen gaineratu zuen:

"Ezinbestean jasaten ditut- esan zidan- baina jasaten ditudan bitartean etengabe aritzen naiz sinesmen-egintzak egiten".

rik eraman beharko nituzkeen neure oinazeak izango lirateke eta nik ezin izan dut inoiz bakar-bakarrik ezer egin.

4

... Ama Birjinak ez du maitatzeko beste Ama Birjinarik; guk baino zoriontasun txikiagoa du³⁶.

(Beste behin jolasaldian gauza bera esan zidan)

5

Sarritan otoitz egiten diet santuei entzuna izan gabe; baina nire erreguei entzungorrago eta hainbat gehiago maite ditut.

Zer dela eta?

Jn 20,29 Beste batzuk ikusi eta ulertu nahi duten bitartean, nik Jainko ona eta santuak ikusi gabe sinesmenaren gau ilunean izatea nahi izan dudalako³⁷.

6

Gripea izan zen garaiko³⁸ gauza asko eta asko kontatu zizkigun. Azkenean esan nion: "Bai neke handia hartu duzula! Eta bai gizabidetsua eta atsegina izan zarela! Ziur aski, alaitsu agertze hori ez da benetakoa, gehiegi sufritzen baituzu gorputzean eta ariman".

Irribarrez:

I Erg 14 Nik ez dut inoiz itxurakeriarik erabiltzen, ez naiz Jeroboan-en emaztea bezalako³⁹.

Abuztuak 12

1

(Jaunartu zuen)

... "Agur, ene ahizpok, bidaia luze bat egitera noa".

(Nire profesarako gogarte-egunetara "joateari" aipamen eginez).

2

Aita Bellière soldadu jantzirik agertzen zuen argazkiari begiratu:

... Harako gerrazale itxura duen horri aholkuak ematen dizkiot, neskaxo balitz bezala!

Maitasunaren eta konfiantzaren bidea irakasten diot⁴⁰.

³⁶ Ik. 21. VIII. 3* amaia; eta TG 137.

³⁷ Ik. 4. 6. 1; 5. 8. 4; 11. 8. 5; 11. 9. 7; DSA 7, 1^o; Otoi. 16; baina horren aurrean, TG 56, 2. oharra.

³⁸ 1891-1892ko negua; ik. A Esk., 79^a.

³⁹ Jeroboan-en emaztea mozorrotu egin zen, Ahias profetari kontsulta egitera joateko.

⁴⁰ Ik. C Esk.aren amaia.

3

Galburuarena gertatu ondoren, neure buruarengan sentimendu apalagoak nabaritzen ditut. Baina, bai izan dela handia gaur goizean, jaunartu aurrean, apaizak hasiera eman eta ahizpa guztiek jarraitu duten "Confiteor" esatean hartu dudana grazia berria! Jesus niregana etortzeko gertu ikusi dut eta oso beharrezko apaldura iruditu zait harako aitortpena. "Nik aitortzen diot Jainko onari, Ama Birjina beti Birjinari, santu guztiei pekatu ugari egin dudala... Zergabiltzailearen antzera bekatari oso handizat jo izan dut neure burua. Hain errukitsua iruditu zait Jainko ona! Bihotzaren erdian zirrara sortu dit Jainko onaren barkamena lortzeko Zeruko koru osoari bere aurrean nire bitarteko izateko erregu egiteak. Ai! negar egiteko zorian izan naiz. Ostia Santua ahoan izan dudanean zeharo hunkiturik nuen barrua.

... Bai dela miresgarria "Confiteor" esatean hori sentitzea. Neure une honetako egoerari dagokiola uste dut: hain errukarri ikusten dut neure burua! Hala ere ez da gutxitu nire konfiantza eta "errukarri" ez da hitz egokia, oso aberatsa bainaiz, jainkozko altxor guztiak baititut; baina, hain zuzen ere, hori dela eta gehiago apaltzen naiz. Jainko onak eman dizkidan dohain guztiak gogoratzean, indar egin behar izaten dut etengabeko aitormenezko negarrak ez isurtzeko.

... Gaur goizean izan ditudan negar-malkoak damu osoarenak izan direla uste dut. Ai! zein zaila den nork bere buruari halako sentimenduak sortaraztea! "Nahi duen tokian arnas egiten duen" Espiritu Santuak ematen ditu.

Jn 3,8

4

Beste garai batean, bere burua zaintzera, Komunitatearekin batera ez jaikitzen, mintetara ez joatera behartzen genuenean agertzen zuen erresistentziaz mintzatzen gintzaizkion. Berak esan zigun:

Ez ninduzuen ulertzen, nik behin eta berriro bestetara egitean, baina, hura guttia gure Amari eragina egitearren zela ikusten nuelako zen. Gure Amari egia osoa esan nahi nion, gero hark bere kabuz erabaki zezan. Zinez diotsuet, hark bere kabuz mezatara edota jaunartzera edota eliz otoitzera ez joateko agindu balit oso-osoa egingo nion jaramon.

5

Ez sinestekoa da: orain jaterik ez dudanean, era guztietako jakiak, hala nola, oilaskoa, txuletak, matxingarratzekin nahasturiko igandeetako arroz-entsalada, atuna... jateko gogoia etortzen zait⁴¹.

6

... Nitaz honako hau esan dezakezu: "Ez zen mundu honetan bizi, bere altxorra zegoen Zeruan baizik".

Mt 6,21

Abuztuak 13

Nik Zeruari buruz arratseko otoitzean izandako pentsamendu bat adierazi nion.

... Nik, bada, ez dut neure ezereza ikusteko baino bestelako argirik. Horrek sinesmenari buruzko argiek baino mesede handiagoa egiten dit.

⁴¹ Gaixo-gutizia horiei buruz, ik. 26. VIII. 4; 31. VIII. 5; 4. IX. 5; DE, 766. or.

Abuztuak 14

(Jaunartzea)

... Egunean zehar atsekabe txiki ugari... Ai!, zenbat neke sortzen dizuedan!

Maitinen garaian esan nion: gaur pena ugari izan duzu.

Bai, baina, gogoko izaten ditudan bezala... Jainko onak ematen didan guztia dut gogoko.

Abuztuak 15

1

(Jaunartzea)

Maitasunak agorturiko arimen heriotzari buruz Gurutzeko Joan santuak dioena gogoratzen nion⁴². Hasperen egin eta esan zidan:

Nire arimaren barrenean “pøza eta oldarra” daudela esan beharko da... Baina horrek ez lieke adore handirik emango arimei, nik ez dudala asko sufritu sinetsiko balitz.

Ikusi ere larri baino larriago zaudela ikusten dut!: Hala ere orain dela hilabete gauza ederrak esaten zenizkidan heriotzari eta maitasunari buruz.

Esaten nizuna, beste behin ere esango nizuke.

2

Bularreko estutasunaren ondorioz oinaze handia zuen eta gaitza handituz zihoakion eta esan zidan:

Ez dakit zer gertatuko zaidan!

Kezka sortzen al dizu zeure etorkizunak?

Adieraezineko ahotsez eta irribarre eginez:

Oi! ez

3

Isilaldian⁴³, “Komunitatea etorri, ahizpak bisitatua izan eta zu zerbait esatera behartua izatean oso nekatuta egongo zara” esaten zenidala egin dut amets. Nik erantzun dizut: Bai, baina han goian egotean atsedean betea hartuko dut.

4

Atzo gauean Ama Birjinari estulik egin gabe egotea eskatzen nion ahizpa Jenofak lo egin zezan⁴⁴; baina honako hau gaineratu nuen: ematen badidazu oraindik gehiago maiteko zaitut.

⁴² Ik. *Maitasun-gar bizia*, I. ahapaldia, 6. bertsoa, *Azalpena*; pasarte hau Teresak eritegian zuen alean lapitzez egindako egindako gurutzetxo batzuekin markaturik zuen (DE, 492).

⁴³ Egurdiko hamabietatik arratsaldeko ordu batera arte.

⁴⁴ Ahizpa Jenofa etzanik zegoen eritegi ondoko gela batean.

5

Gure kanpai berriek bezperatarako deia jotzen zuten; leihoa ireki nuen berak hobeki entzun zitzan eta esan nion: entzun nola jotzen duten kanpai ederrek. Entzun ondoren:

... Ez ederregiak, oraindik⁴⁵ !

6

Jainko onak nire oinazeen neurrian ematen dit adorea. Badakit une honetan ezingo nukeela gehiago jasan baina ez dut beldurrik, oinazeak handitzean une berean handitu egingo baita nire adorea ere.

7

Jainko onak zergatik naukan hain luzaro hartu gabe galdetzen diot neure buruari...

... Badirudi, gainera, Zerurik ez dagoela sinestarazi nahi didala!...

... Eta hainbeste maite ditudan santu guztiak, non daude, bada, "nitxoetan"?

... Ai! ez dut "itxurakeriarik" egiten! Egia osoa da ez dudala honetaz guztiaz ezertxo ere ulertzen. Hala ere, oso indartsu kantatu beharko dut neure bihotzean:

"Heriotzaren ondoren hilezkorra da bizitza⁴⁶ "

hala izan ezik, honek ez du ez bururik ez hankarik...

8

Maitinen ondoren, guztiz jota zegoen, eta burkoak astintzera gindoazen unean esan zigun:

Orain, egin nirekin nahi duzuen..

Abuztuak 16

1

Hain ahul eta nekatuta zegoen eta ezin zuen hitz egin ere.

... Ezin...honezker...zuri ere... hitzik egin!... Oi! jakingo balukete!... Jainko ona maiteko ez banu!... Bai, baina...

2

Mintzatokian ez da edozertaz, esaterako, jantziei buruz hitz egin behar.

3

"Zuk ez duzu bila etorriko zaizun "Teresatxorik" izango.

Iribarre egin zuen Ama Birjinaren eta Teofan VERNAD-en estanpei begiratzuz, eta hartzaz bata zein bestea seinlatu zizkidan.

⁴⁵ Normandiako hizkeraz "pas cor" idazten du «pas encore»ren ordez.

⁴⁶ F. Daviden *Herculanum* operako «Credo»ren laburpena.

4

Aingeruek ezin dute oinazerik izan, ez dira ni bezain zoriontsuak! Bai miretsirik geratuko lirakeela nik sufritzen eta sentitzen dudana sentituz!... Bai, oso miretsirik geratuko lirakeke, neu ere hala nago eta.

5

Maitinetan, bat-batean esnatu eta irribarre leunez begiratur:

Nire Amatxo pollit hori!

Abuztuak 17

1

(Jaunartzea)

Bene-benetan, Jainko onak nik oinazeak jasatea nahi duela uste dut. On egin beharrean kalte egiten didate bestelako gaixoei mesede egiten dieten sendagaiek.

2

Altxatu berri zuten, eta ohea konpontzean min eman eta laguntza batzuk ezartzean ere oinazeak jasanarazi zizkiotenez gero, zapitxo bat eskatu zuen. Zapitxoa zertarako eskatzen zuen antzik eman ezin eta zalantzan ziren. Orduan leunkiro esan zuen:

Sinetsi behar lidakezue zerbait eskatzen dudanean, "neskato txiki" on-ona naiz eta:

(Hau da, beharrezkoa besterik ez zuela eskatzen)

Ohera itzuli eta bere burua zeharo indargetuta ikusirik:

"Neskato txiki" oso gaixoa, bai, oso gaixoa naiz!

3

Teofan VERNAD-en estanpan inkonte-belar txiki bat jarri zuen; nik gorde egin nuen inkonte-belar txiki hura.

4

Ama Birjinari zure larrialdia baretzeko eskatuko diot.

Ez, utz diezaiegun hango goikoei jarduten.

5

Maitinetan Teofan VERNARD-en estanpara begiratur:

Ez dakit zer gertatzen zaidan, ezin diot dagoeneko negar egin gabe begiratu.

6

Maitinen ostein ez zegoen hain larri eta ahizpa Jenofari ni seinalatuz esan zion:

Ama Birjinari erregutu dio eta ordutik ez dut zotirik egin.

(Hitz hau erabiltzen zuen barre eragiteko eta ahoskera oso bitxia emanez, ito beharrean estulka egitea adierazteko.)

Abuztuak 18

1

Asko sufritzen dut, baina, ongi sufritzen ote dut? Hori da kontua!

2

“Haurtxoa” akiturik dago...

Eguerdiko isilaldian ni ohearen atzealdean ezkutatu nintzen pixka bat idazteko.

Jar zaitetz zeharka ikus zaitzadan.

3

Amatxo, niretzat hartu duzun gutuna irakurri behar didazu⁴⁷. Ez dizut eskatu otoitzaldian, biharko neure jaunartzerako prestatzeagatik eta baimenduta ez egoteagatik.

(Jolasaldia izan zen)

Nik honako hau idazteko lapitza hartzen nuela ikustean:

Merezimendua galduko ahal dut zuri esan eta zuk idazteagatik?

Merezimenduak eskuratu nahi dituzu, bada?

Bai, baina ez niretzat; bekatari gaixoentzat, Eliza osoaren beharrianetarako, hau da, munduko guztiei, zintzoei nahiz bekatariei loreak jaurtitzeko.

4

Oso pazientziatsu zela esan nion.

Oraindik ez dut pazientzia-minuturik ere. Ikusten duzun nire pazientzia hau ez da nirea... Beti erratzen zara!

5

Heriotz unean arima guztiek deabruaren tentaldiak izaten dituztela esan ohi denez gero, nik ere izan beharko ditut. Baina, ez, ni txikiegia naiz. Txikiekin ezin da ezer egin⁴⁸...

6

Bai harrigarri gertatuko zitzaizula zuk berriro osasuna eskuratzea! esan nion:

Hori balitz Jainko onaren nahia, oso zoriontsu izango nintzateke sakrifizio hori eginez. Baina, hain urruti joan eta gero itzultzea oso zaila izango litzatekeela ziurtatzen dizut... Tira!

⁴⁷ Zalantzarik gabe, Bellière apaizgaiaren gutuna, abuztuaren 17koa (LC 194, CGn, 1603 eta ondorengo orrialdea).

⁴⁸ Ik. 25. VIII. 6; 29. IX. 3; A Esk., 10^o; eta deabruari buruzko txostena TrHn, 128-135. orr.etan.

7

Hain ahul egonik zer gertatuko litzaidakeen nire ohe gainean armiarma handi bat ikusiko banu galdetzen diot neure buruari. Dena den, beldur hori ere Jainko onagatik onartu nahi dut.

... Baina, Ama Birjinari halakorik ez gertatzea eskatuko banio?

Abuztuak 19

1

Jaunartu aurrean ia-ia konortea galdu du, isil antzean izan bada ere, "Miserere" salmoa entzutean. Gero, malco lodiak isuriz esan dit:

Uste dut konortea galdu behar dudala. Oi! jakingo balute zein ahul aurkitzen naizen!⁴⁹

Bart ezin izan dut gehiago; Ama Birjinari, nire buruari eusteko bere esku artean hartzeko eskatu diot.

2

Gera zaitetz nirekin, ene Amatxo; zu ikustea euskarri bat edo dut.

3

Ahizpa Jenofak gurutzea eman zion. Berak samurkiro mun egin zion aurpegian. Une hartan aingeru bat bezain eder zegoen. Gurutzeak aupegi eroria zuen; begira-begira esan zuen:

Hilik dago! Hura nahiago izaten dut hilik aurkeztua izatea, horrela ez duela gehiago oinazerik izango pentsatzen dudalako.

4

Nahiz eta oso nekagarriak izan, doktoreak eta gure Amak gomendatutako sendabide batzuk eskatu zituen. Jenofa ahizpak haurtxo bati bezala esan zion: nork eskatu dio hori "haurtzainari?"⁵⁰ ?

"Haurtxoak", leialtasunagatik.

5

Xerak egiten zizkion Teofan Vénard-i masailetan. (Estanpa kortinan zintzilik, beragan-dik pixka bat urruti zegoen)

Zergatik egiten dizkiozu xerak horrela?

Ezin diodalako laztanik eman.

6

Ahizpa Maria Eukaristiarenari:

Aulkian ez da horrela zeharka jarri behar; debekaturik dago.

⁴⁹ Ahuldura hori dela eta, Teresak ez du gehiago jaunartuko hil arte; ik. 20. VIII. 10 eta beraren a oharra, amaia.

⁵⁰ Teresak, azken hilabeteetan, bere ahizpa Zelinari emaniko goitizena; ik. 22. IX. 4; 23. IX. 3.

7

Burkoak kortinako estanpak kontutan hartu gabe konpontzen zituen ahizpa Jenofari:
Kontuz, Teofan txikiarekin!

8

Gehiegi mintzatzen ginen hirurok batera haren ondoan izaten ginenean; honek nekatu egiten zuen, batera galdera gehiegi egiten geniolako.

"Guk zer esatea nahi duzu gaur?"

... Hobe izango da ezertxo ere ez esatea, egiatan ez baitago esateko ezer.

"Guztia esanda dago, ezta?"

Burua mugituz zeinu sotil txiki bat eginez:

Bai!

9

Ez dio axola zer esaten didazun, oso zer txikia baldin bada ere; bere kontaktunak abesti berriak erabiliz kantatzen dituen koblakari bihurri baten antza hartzen dizut.

Eta zurrutada txikiak hartzekoarena egiten zuen, nire hitzak edaten zituela aditzera emateko.

10

... Egon nagoeneko uea sufritzen dut bakarrik. Gogoia lehenean eta etorkizunean jartzeak adorea galtzea eta etsipenean erortzea ekarri ohi ditu.

Abuztuak 20

1

Ahizpa Jenofari haur-doinua erabiliz:

Ongi dakizu hiltzeko dagoen "haurtxo" bat zaintzen ari zarela.

Bada (*edontzia erakutsiz*) zerbait ona isuri behar da ontzi handira, "haurtxoak" zapore oso txarra baitauka ahoan.

2

Musu gutxiago emateko eskatu zuen, hain ahul egonik arnasak nekarazten zuelako.

Egin ahal dizugu, gutxienez, xera txik bat?

Bai, eskuek ez dute arnasa hartzen eta.

3

Ama Jesusen Bihotzarena gaixoak erizainei ematen zizkien eragozpenez mintzatu zitzaizkion⁵¹.

⁵¹ Ik. 3. IX. 3.

Mt 25,36

Oi!, bai nahi izango nuela erizain izatea, ez berezko sentimenduz, “graziak erakarrita” baino. Eta uste dut zoriontsu egingo nuela Ama Jesusen Bihotzarena. Bai, gogoko izango nuela guzti hori... Horretan maitasun handia jarriko nuen Jainko onaren hitz hauek gogora ekarriz: “Gaixo nintzen eta ikustera etorri zineten”. Karmelen bertan ere ez da eguneroko ogia halako aukera ederrik aurkitzea.

4

Doinu alai eta bihurria erabiliz:

Sal 50,10

Laster hilobi beldurgarri baten barruan izango naiz. Eta zu ere, ene Amatxo, halako batean han izango zara... Eta nire ondora etortzen ikustean, “nire hezur apalduak alaitasunez jauzika egingo dute”.

5

... Edateko zerbait ikusten dudan guztian gertatzen zait hau. (*Estula egin eta Bottot-eko ur ontziari esaten dio*): Hau edatekorik ez dago! (*aparte*): Ez duzu ulertzen! (*ahotsa jasoz*): Ez dagoela hau edatekorik diotsut!

6

Ezin zuen ikusi ere esnerik; bestalde sekula ere ez zuen gogoko izan, eta une hartan izugarritzko nazka ematen zion. Nik esan nion: “Edango zenuke katilukada hau niri bizitza salbatzeagatik?”

Oi! bai!... Hara, bada, ez ote nuke edango Jainko onaren maitasunez?

Eta dzangada baten edan zuen katilukada.

7

Eritegiko kapan jarritako markari buruz iruzkinak egiten genituen: “+ F.”.

Ez, horrek ez du esan nahi zuek diozuen. Gurutzea (+) eraman behar dela, gero firmamentua (F.) baino urrutiago heltzeko esan nahi du.

8

Oinaze handiak ditudanean, pozik izaten naiz nik neuk jasaten ditudalako; pozik nago zuetariko inork ez dituelako izaten.

9

“Zurekin aurkitzen naiz ondoen, nire Klaratxo on hori”.

(Ama Jenofari⁵², nebatxoak esandako hitzak).

10

Aurrerantzean jaunartu ezinak ematen zion samin handiagatik eta, gainera, honetaz entzun zituen hainbeste esamesen ondorioz, egun hau, nik antzematen nion bezala, larrialdi

⁵² Haren bataio-izena, Claire Bertrand. Esaldi honetaz, ik. *Bestelako Idazkiak*.

eta tentaldi beldurgarritz beteak izan zen (a). Arratsaldean pixka batean isilik egoteko, eta berari begira ere ez egoteko eskatu zidan. Oso isilean esan zidan:

Gehiegi negar egingo nuke orain nire atsekabeak esango banizkizu eta hain agorturik nago, non ziurrenik ito egingo bainintzateke.

Gutxienez ordubete isilik igaro ondoren, hitz egin zidan, baina euliak uxatzeko eman zioten haizemailea begien aurrean zuela, oso hunkiturik baitzegoen.

11

Ama Birjinak ez zituela esperientziaz gorputzeko oinazeak ezagutu zioen apaiz baten gutun bati buruz mintzatu zitzaidan.

Bart Ama Birjinari begiratzean, hori ez dela egia jakin dut: berak ariman ez ezik gorputzean ere oinazeak izan zituela ulertu dut. Asko sufritu zuen bidaietan, hotzez, beroz, nekez. Oso sarri egin zuen barau.

... Bai, berak ongiegi daki zer den oinazeak izatea.

... Baina, gaizki al dago, nik, hainbestearino maite dudan honek, Ama Birjina oinazeak edukitakoa dela nahi izatea?

12

Estualdi handia sentitzen zuen.

Azken aldian nolabaiteko hobekuntza izan zuen hain samingarriak zituen estualdietan, honako txiliotxo leun hauek⁵³ : "Oi! là, là!" edota "Agne! Agne!" eginez

Estualdia sakonetik datorrenean "Agne! Agne!" esaten dut, baina, hori ez da fina, ez dut gogoko; orain "Anne! Anne!" esango dut.

a) Koaderno berdeek zehazten dute:

Estutasun larriak izan zituen egun hartan. Hona hemen zergatia:

Lehenago berak hainbeste irrikatzen zuen jaunartzea oinaze-iturri bihurtu zitzaion gaixoaldian. Okada, larridura eta makaltasunen ondorioz istripuren bat gertatuko ote zitzaion beldur zen eta guk ez jaunartzeko esatea nahi zuen. Berak ez zuen erantzunkizun hori bere kabuz hartu nahi, eta ezer esaten ez zuenez gero, guk bere gogoia egiten genuela uste genuen jaunartzeko esan eta esan egiten genionean. Berak ezer esan gabe segitzen zuen, baina, egun hartan ezin izan zuen gehiago eta malkotan urtu zen.

Guk ez genekien zein izan zitekeen haren malkoen arrazoia eta azaltzeko eskatzen genion. Baina malkoek sortutako larridura hain zen gogorra, non ez bakarrik ezin erantzun izan zigun, baina keinua egin baitzigun gehiago hitzik ez egiteko eta begiratu ere ez egiteko berari eskatuz.

Handik ordu batzuetara, haren ondoan bakarrik nengoela, hurbiltzera ausartu nintzen eta ulertzen nuela bere negarraren arrazoia esan nion. Ahal izan nuen bezala kontsolatu nuen eta berak minez hiltzeko puntuan zegoela zirudien. Inoiz ikusi gabe nuen horrelako estualdian.

Hil arte ez zuen inoiz berriro jaunartu. Abuztuaren 19an, S. Jazinto egunean, hartu zuen azken aldiz Jauna, eta Aita Hyacinthe zoritxarrekoaren konbertsioaren alde eskaini zuen. Konbertsio hori bere bizitza osoko lana izan zen.

⁵³ Intziri horiei buruz, ik. DE, 755. or.

Hori zuri buruzko zirkularrean jarriko dute.

Sukaldeko errezata antza izango du!

13

Zuk zeuk eman zenidan Teofan Vénard-en argazkia edukitzeko poza; oso poz handia da. Eta gerta zitekeen hori, nire gogoko ez izatea!... Baina “oso atsegina” da, “oso maitagarria” (1) da.

(1) Berak entzun eta jolasean erabiltzen zituen hitzak.

14

Bai izango dela polita, Zeruan, Familia Santuaren barruko bizitzan gertatutako zer guztiak ezagutzea! Jesus txikia handi egiten hasi eta Ama Birjina barau egiten ikustean, beharbada, esango zion: “Nik ere barau egin nahi dut”. Eta Ama Birjinak erantzungo zion: “Ez, ene Jesus txikia, oraindik txikiegia zara, ez duzu nahikoa indarrik”. Edota, ez zen ukatzera ausartuko.

Eta Jose santu gizagaixoa! Oi! zein maite dudan! Hark ezin izango zuen, beharbada, bere lanak zirela eta, baraurik egin.

Zura marruskatzen ikusten dut; gero, noizbehinka, buruko izerdia xukatzen. Oi! bai errukia ematen didala! Hiruren bizimoduak egiatan apala izan behar zuela iruditzen zait!

Auzoko emakumeak adiskidetasunean Ama Birjinarekin hitz egitera etorriko ziren. Noizbehinka Jesus haurrari beraien hurrekin jolas egitera joaten uzteko eskatuko zioten. Eta Jesus haurrak Ama Birjinari begiratuko zion joan behar zuen ala ez jakiteko. Beste batzuetan emakume on haiek Jesus Haurrarengana joko zuten zuzen-zuzenean eta besterik gabe esango zioten: “etor zaitez nire txikitxoarekin jolastera” etab.

... Familia Santua irudimenean bizimodu guztiz arrunta egiten gogora ekarzteak on handia egiten dit. Inola ere ez, kontaktzen edota pentsatzen den bestelako hori guztia. Esaterako, Jesus Haurrak buztinezko txoritxoak egin eta gero arnasa eginez bizitza ematen ziela. Ai! bai zera, Jesus Haurrak ez zuen horiek bezalako alferrikako miraririk egiten, bere Amari poza ematearren ere. Bestela, zer dela eta ez ziren mirari bidez Egiptora eramanak izan, berau, bestalde, beharrezkoagoa eta Jainko onarentzat hain erraza izan arren? Bat-batean han izango ziren Egipton. Baina ez, haien bizitzan gorabehera guztiak gurean diren antzekoak izan ziren.

Eta zenbat atsekabe, zenbat etsipen! Zenbat erantzuki ez ote zioten egin Jose Santu dontsuari! Zenbat aldiz ez ote zioten eginiko lanaren ordainketa ukatu! Oi! bai miretsirik izango ginatkeela sufritu zuten guztiaren berri, etab., etab. jakinez gero.

Luzaro hitz egin zidan honetaz eta ezin izan nuen esandako guztia idatzi⁵⁴.

⁵⁴ Teresak Familia Santuaren bizitzaz hitz egiten du A Esk.ko 59^a.an, eta DSA 6, I. Ekintzan ere.

15

... Ama Birjinak maite nauela zihurtasunez jakin nahi nuke.

16

... Arrosarioa erreztatzea hain gogor egin zaidala bizitza osoan zehar pentsatzen dudanean⁵⁵ !

17

Barkamena hartu dudanean, Jainko onari eskerrak emateko otoitzak eta otoitzak esaten aritu beharrean, besterik gabe, esker onez, jantzitxo oso zuria jarri eta mantala aldatu didala pentsatzen dut. Ez hura ez hau, ez zeuden oso zikindurik baina berdin zaiot!: nire jantzitxoak distiratsugoak dira eta Zeru osoan hobeki begiratua naiz.

18

Egia-egia da ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenak, hornitzaile zenean, mortifikazio ugari eman zidala. Hainbeste maite nauenez gero, nik maina artean nengoela ematen nuen. Baina honelakoetan oraindik handiagoa izaten da mortifikazioa.

... Hark bere gogoen arabera zaintzen ninduen, eta nire gogoak eta harenak guztiz aurkakoak ziren.

Abuztuak 21

1

Oinaze handiak zituen eta ni belauniko begira nengoen bihotza nahigabez beterik.

Zer dela eta begitxo triste horiek?

- *Oinaze handiak dituzulako*

- Bai, baina, baita bakea ere, bakea!...

2

... Dagoeneko ez dago inolako sehaskarik "haurtxoarentzat"... edozerk, edozerk sortzen dit oinazea.

Berehala eztulka hasi zen eta ezin izan zuen lorik egin.

Dagoeneko sehaskarik ere ez haurrarentzat! Bukatu da! Edozein gautan itoko naizelako susmoa dut.

3*

Apaz izan nahi nukeen Ama Birjinari buruz sermoia egin ahal izateko! Aldi bakarrarekin nahikoa izango nukeen honi buruz uste dudana guztia esateko.

⁵⁵ Ik. C Esk., 25ⁱ.

Hasteko zein gutxi ezagutzen den haren bizitza agertaraziko nukeen.

Ez litzateke hari buruz gauza sinestezinik edota ezagutzen ez denik esan behar; esaterako, txiki-txikitan, hiru urte zituela, Ama Birjina maitasunez beteriko aparteko sentimenduz joan zela tenplura bere burua Jainkoari eskaintzera; behar bada gurasoei men egiteko baizik ez zen joan.

Lk 2,35 Zergatik esan behar da, Simeon zaharraren hitz profetikoak direla eta, handik aurrera Ama Birjinak Jesusen nekaldia begi aurrean eduki zuela? “*Saminezko ezpatak zulatuko dizu bihotza*” esan zion agureak. Beraz, ene Amatxo, ez zen orainaldi-rako kontua, ongi ikus dezakezunez; etorkizunerako aurrikuspen orokorra zen⁵⁶.

Lk 2,50 Ama Birjinari buruzko sermoi bat niretzat atsegingarri eta onuragarri izan dadin, haren benetako bizimodua ikusi behar dut, ez haren uestezko bizimodua; eta ziur nauzu, haren benetako bizimoduak oso sinplea izan behar zuela. Iritsi ezinezko tokian aurkezten digute, imitagarri aurkeztu beharko genuke, haren bertuteak agertaraziz; fedea guk bezala bizi izan zuela esan, horretarako “*baina haiek ez zuten ulertu zer esan nahi zuen*” esaten duen Ebanjeliaren frogak hartuz. Eta hain misteriotsua den beste pasarte hau ere bai: “*Aita-amak miretsirik zeuden Simeonek haurraz esaten zuenarengatik*”. Miresmen honek nolabaiteko harridura esan nahi du, ez duzu uste, Amatxo?

Lk 2,33 Badakigu, Ama Birjina Zeruko eta lurreko erregina dena, baina, Ama da erregina baino gehiago eta ez da esan behar bere dohainen bidez, eguzkiak, ateratzean, izarrak desagertarazten dituen bezalaxe santu guztien aintza iluntzen duenik. Jainko maitea! Hori bai bitxia! Bere umeen aintza desagertarazten duen ama! Guztiz kontrakoa uste dut nik; nire iritzitan handitu egingo du, hainbatetan, aukeratuen distira.

Ongi dago haren dohainei buruz hitz egitea, baina ez da hori esan beharreko bakarra, eta sermoi batean, hasieratik bukaeraraino harridurazko a! eta a! esaten aritu behar bada, gehiegizkoa dugu! Beharbada, arimaren batek hain gizaki gorenaren aurrean aldendua ikusiko du bere burua eta ondoko hau esango: “Horrelakoa baldin bada, nahiko dut ahal den moduan dirdir egitera baztertxo batera joatea”.

Ama Birjinak gure gainetik zeukan zer bakarra, bekaturik egin ezina zen, jatorrizko bekaturik gabea izatea, baina, bestetik, guk baino zorte txarragoa izan zuen hark, ez baitzuen izan maitatu ahal izateko Ama Birjinarik; hau, egiatan, guretzat pozbide bat gehiago eta harentzat pozbide handi bat gutxiago da!

Dena den, “Zergatik maite zaitudan, oi Maria!”⁵⁷ nire kantikan esana dut berrari buruz sermoi batean agertuko nukeen guztia.

Abuztuak 22

1

Gaur aitonaren jaia da.

(*Joakin santuarena*).

⁵⁶ Ik., hala ere, DSA 6, 2^o.

⁵⁷ Ik. TO 54.

2

Oi! ene Amatxo, zer gertatuko ote litzaidake Jainko onak indarrak emango ez balizkit? Eskuak baino ez ditut!⁵⁸... Inork ez daki zer den honela sufritzea. Ez, sentitu egin behar dira.

3

... Santutzat hartu zintuzten harako aldian...

Atseginez:

Oi! hainbat hobe!

4

Hesteetan eta...beste alde batzuetan bat-bateko min handiak izaten zituen; beldur ginen pasmoa ez ote zen (⁹).

... Hara, bada, egia esanda, hobe da oinaze handiak eta gorputz osoan izatea eta gaixotasun bat baino gehiago batera izatea. Laster amaituko direla eta, helmugara iritsi ondoren atsegin handia izango dela jakinik, era guztitako eragozpenak izaten dituen bidaia baten antzekoa da.

5

Egiten zioten iruzkin bat zela eta (ez dut gogoratzen zer zela eta)

Ama Birjinak, santa Maria Madalenak⁵⁹ bezala bihurkadak izan zituela uste duzue? Oi! ez, ez zen zer fina izango! Niri, ostera, ongi datorkit, bai, zotin egitea!

6

Ezkilore-ura erori zitzaion ohe gainera; kontsolatzeko ez zuela garrantzirik esaten zioten.

Edonola ere beharrezkoa zela sufritzea aditzera eman nahirik edo:

Ai! ez du garrantzirik, ez!

a) *Koaderno berdeek* zehazten dute (CV, I, 8-9. orr.)

(...) *ikaragarritzko minak ditu hesteetan, sabela harri bat bezain gogorra du, funtzioak oinaze handiz baizik ezin ditu bete. Eztulaldi luzeetan itolarria`arintzeko esertzen denean, "burdina zorrotzen" gainean egiten dela uste du. Bere alde otoitz egiteko eskatzen du, berak dioenez "burua galtzeko modukoa" delako. Botika pozoigarriak bere eskura ez uzteko eskatzen digu eta tortura berdinak jasaten dituzten gaixoen eskura inoiz ez uzteko gomen-datzen, beti arrazoi berberagatik, hau da, "burua galtzeko modukoa" delako, eta norberak zer egiten duen ez dakienean, egiatan nork bere buruaz beste egitea gerta daitekeelako. Eta, horretaz gainera, federik izango ez balu ez lukeela une batez ere dudarik egingo bere burua hiltzeko.*

⁵⁸ «Libre», zehazten du ama Ainesek.

⁵⁹ Ikonografiak santa horri sarritan eman izan dion itxura lazgarriari egindako aipamena.

7

Otoitzaldian begiratu ninduen eta gero Teofan VERNARD-en estanpara begirada guztiz xamur eta oso sakonez begiratu zuen:

Geroxeago, hitz egin nahi izan zidan atsegin ematearren, arnasarik ere hartu ezinda baitzegoen. Isilik egoteko esan nion.

Ez, ez dut hitz egin behar?... Baina... nik uste nuen... Hain maite zaitut!... Oso ona izango naiz... Oi! ene Amatxo!

8

Gu poztearren nekatzea eragotzi nahi zioten:

Neure "keinu txikiak" egiten utzi behar didazue.

9

Poza hartu dut nire alde otoitz egiten dutela pentsatuz eta Jainko onari otoitz horiek bekatarien alde erabiltzeko eskatu diot.

- *Orduan ez duzu zeure hobekuntzarako izaterik nahi?*

- Ez!

10

Oinaze handiak zituen eta kexatu egiten zen.

Ene Amatxo!... Bai!... Nahi dut.

... Ez dut gehiago kexatu behar, ez du ezertarako balio. Egin otoitz nire alde, ene ahizpatxook, baina ez belauniko eserita baizik.

(Belauniko geunden)

Abuztuak 23

1

Inoiz ez dut gaurkoa bezalako gau txarrik izan. Oi! zein ona izan behar duen Jainko onak, nik sufritzen dudan guztia eramán dezadan! Ez dut inoiz uste izan hainbeste sufritu ahal izango nuenik. Eta, hala ere, ez dut uste honezkero nire oina-zeen gailurrera iritsi naizenik. Baina hark ez nau bertan behera utziko.

2

Zuk Ama Birjinari kantatu zenion:

*"Eman didan guztia, Jesusek berriro har dezake;
esaiozu nigatik nekerik ez hartzeko inoiz ere"⁶⁰.*

Ama Birjinak esan egin dio eta Jesusek hitza hartu dizu.

Pozik nago eta ez dut horren damurik.

⁶⁰ TO 54, 16; ik. KH 10. VI.

3

... Ez, Jainko onak ez dit laster hilko naizen susmorik ematen, oinaze askozaz ere handiagoena baizik... Hala ere, ez naiz kezkatzen, ez dut oraingo une honetan baino pentsatu nahi.

4

Negurako ohe-gaineko handi bat eman zidatela eta, egiatan, handiegia zela esaten nion.

Oi! ez, inoiz ez da bero gehiegi izaten neguan

... Hotz izango zara nik hotzik izango ez dudanean! Hau tamala!

5

Musu emaidazu bekokian.

Ahizpa Jenofari:

Egin etengabeki erregu nire alde Ama Birjinari, nire erizain zaren horrek; zu gaixorik izango bazina nik biziki erregutuko bainuke zure alde. Ez naiz neure alde egiten ausartzen.

6

Orduan apaizgai zelarik tentaldi handietan aurkitzen zen Cornière apaiz jaunaren alde eskaini zituen bere oinazeak⁶¹. Hark jakin zuen eta apaltasunez eta hunkiberatasunez beteriko gutun bat idatzi zion.

Oi! nolako kontsolamendua ekarri didan gutun horrek! Nire oinaze txikiek emaitzak sortzen dituztela ikusi dut. Konturatu zara zer nolako apaltasun-sentimenduak adierazten dituen?

Horixe da, egin-eginean ere, nik nahi nuena.

... Eta bai egiten didala on ugari, hain epe laburrean, norbaitek ordurarte ezezaguna izan eta on egin dion arimaganako hainbesteko maitasun eta eskerrona senti dezakeela ikusteak! Zer izango ote da, bada, Zeruan, arimek salbatu dituztenak eza gutzen dituztenean?

7

Oinaze handien artean:

Nire Amatxo!... Nire Amatxo!... Oi!... Oi!... Bai!... Amatxo! Amatxo! Amatxo!...

8

... Zerbait Ama Birjinari eskatu eta hark entzuten ez gaituenean, ez duela gogoko esan nahi du. Halakoetan nahi duen eran egiten utzi behar zaio eta ez atsekabetu.

9

Ama Birjinari buruz hitzaldietan entzundako gauza guztiek ez ziotela sentimendurik sortu esaten zidan.

⁶¹ Ik. TG 167, P.D. § 1; eta 1 eta 9. oharra.

Apaizek, bada, imitagarri dituen bertuteak irakats diezazkigutela! Ongi dago, bai, dituen eskubideak aipatzea, baina, beharrezkoena guretzat jarraibide izatea da. Guk mirestea baino nahiago du guk berari jarraitzea eta oso apala izan zen haren bizimodua. Ama Birjinari buruzko hitzaldia oso ederra izan arren, uneoro, A!... A!... esatera beharturik aurkitzen bagara, gehiegikeria da.

Oso gogoko izaten dut hari honako hau kantatzea:

Mt 7,14

“Zerurako bide estua, zuk ikuskoi bihurtu duzu, (*Berak erraza esaten zuen*) bertuterik apalenetan beti ginez ahalegina”⁶².

10

... Amatxo!... Ai! beti kexatzen ari naiz!... Baina, ikus dezagun!... Hala ere, nik gaixo egotea nahi dut..., baina etengabeki ez tul egin eta ezin dudanean...

(*Gaur bukatu da esnea hartzeko aldia*)

Bekokia igurtzi diot leunkiro maitinen ondoren:

Oi! zein atsegina den!

Abuztuak 24

1

Etsita sentitzen zara?

Ez!... hala ere, geroago eta gaizkiago! Arnasa hartzen dudak bakoitzean oina-ze handia izaten dut. Tira, oraindik ez da garrasika egiteko adinakoa.

(*Goiz hartan aurpegiera oso atsegin eta baketsua zuen*).

2

... Bai nahi nukeela zuri hitz egitea!... Hau sakrifizioa!... Baina, gogor egiten zait!

3

... Ene Amatxo, hala eta guztiz ere hitz egin diezazudan nahi duzu?

(*Ni luzaroan isilean begira-begira egon nintzaion*).

Ordu erdi geroago, jolasaldian:

Ene Amatxo!... A! hain maite zaitut!

Maitinetan esnatuz:

... Hau zoritxarra! hain luzaro zuri hitz egiten! Eta ez zarela ezertaz ohartu ikusten dut!

(*Amesgaizto batean bere samintasunaren berri eman omen zidan*).

⁶² Ik. TO 54, 6.

... Eta orain eztula datorkidala somatzen dut! Zer egingo diot, bada!...

Guztia gaizkiago, ezta?

- Ez, hobeki.

4

Nik errukia agertu nion, eta ahizpa Jenofak horrek ez zuela zer handirik balio esatean: Alderantziz! Horixe da, hain zuzen ere, gaixoak kontsolatzen dituen.

Abuztuak 25

1

Nik bere heriotzako eguna ezagutzeko gogoia agertu nion:

Ai! honezkero ez dut nahi! Hau bai bakea! Horrek ez dit ardura handirik ematen.

Isilaldian eritegiko atea irekita egon ohi zen eta ahizpa Gurutzeko Joanena sartzen zen gauero eta ohearen oinaldean jarririk, luzaro begira barreka egoten zen⁶³.

- Bai ikustaldi zentzugabea eta zuretzat hainbatetan nekagarria!

-Egia da, bai, oinazetan egonik nekagarri gertatzen da barre egiten duen pertsona baten begirada. Baina Gure Jauna gurutzean bere oinaze artean halaxe begiratu izan zela pentsatzen dut. Hura oraindik gaizkiago izan zen, benetan iseka egiten zioten eta; ez ahal da esaten Ebanjelioan buruari eraginez begiratzen ziotela? Pentsamendu honek laguntza ematen dit sakrifizio hau berari bihotzez eskaintzeko.

Mt 15,29

2

Nola sufritzen duzun! Oi! bai dela gogorra! Triste al zaude?

- Oi! ez, ez dut neure burua guztiz zoritzarreko ikusten! Jainko onak egin-eginan ere eraman ahal dudana ematen dit⁶⁴.

3

Gure izebaren partez oroilore artifizialez eginiko sorta bat eraman zioten. Bere estampak apaintzeko erabili zituzten.

Isilaldian haur-aurpegi oso bihurria jarriz:

Opariren bat jasotzeko gogoia nuen; ez nuen gehiegi pentsatua nolakoa ezta zergatik ere, baina gogoko nuen; eta orain hau oparitu didate.

4

Ai, ene alabatxo hori! Ondotxo esan dezakezu: "Bai dela luzea nire erbestealdia!"

- Baina ez dut luze jotzen. Nik oinazeak izate honek ez du luzeago egiten.

Sal 119,5

⁶³ «Asmo onez egiten zuen», zehaztu du ama Ainesek.

⁶⁴ Ik. 14. VI; 11. VIII. 3; 15. VIII. 6; 23. VIII. 1; 25. VIII. 8; 29. IX. 11.

5

Intziri egiten zuen leunki:

... Oi! nola kexatzen naizen! Hala ere ez nuke gutxiago sufritu nahi⁶⁵.

6

Bere alde otoitz egiteko eta otoitzak eskatzeko esaten zigun:

... Oi! jendeak jakingo balu zenbateraino egin behar den otoitz hilzorian daudenen alde!

Uste dut deabruak, oinazerik handienak erabiliz, tentatzeko baimena eskatu diola Jainko onari, pazientzian eta sinesmenean huts egin dezadan.

Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenari ilunpeko izpiritua eta gaueko mamuen tentaldiak zirrela eta arratseko otoitzeko goratzarreez mintzatu zitzaion⁶⁶.

7

Luis santuaren jaieguna zen eta entzuna izan gabe otoitz bero bat egin zion aitaxori.

... Lehen unean ernegua sentitu badut ere, Jainko onari gehiago maite dudala eta santu guztiei ere beste hainbeste esan diet.

8

Oraindik sufritu beharko zuena gogora ekartzeak ematen zidan nahigabea jakinarazi nion:

Edozertarako nago gertu... Ikusten duzu, orain arte ez dudala nire indarrak baino handiagoa den ezer izan.

... Nork bere burua Jainko onaren eskutan utzi behar da. Zu pozik izatea nahi nuke.

9

... Oi! bai, nahi dut! Bai! Baina ongi dago hori!...

Zer?

-Ito egingo naiz!

Abuztuak 26

1

Gau osoan kandela bedeinkatua pizturik utzi zioten.

Kandela bedeinkatuari esker ez dut gau txarregia izan.

⁶⁵ «Kexa» hauei eta onarpen honi buruz, ik. 22. VIII. 10; 23. VIII. 10; 28. VIII. 4; 5. IX. 3; 20. IX. 1; 30. IX.

⁶⁶ Erkatu ahizpa Jenofak abuztuaren 16an kokatzen duen agerraldia (*infra*).

2

Gure Amari otoitzaldian:

Oso pozik nago Jainko onari ezer ez eskatzeagatik; horrela, behartuta dago niri adore ematera⁶⁷.

3

Oinaze handiak jasateko egina zela, bere arimak horretarako izaera zuela esaten nion:

Ai! arimako oinazeetarako, bai, ahalmen handia dut... baina gorputzeko oinazeetarako, haur txikitxo baten antzeko txiki-txikia naiz. Ez naiz konturatzen, minuturik minutura sufritzen dut⁶⁸.

4

Aitortu beharra zuen:

Ene Amatxo, hitz egin beharko nizuke, ahal izanez gero. Ez dakit Youf jaunari jateko gozamenari buruzko pentsamenduak izan ditudala esan behar diodan, gogoko ditudan gauzak erabili baitituz gogoan, baina Jainko onari eskaintzen dizkiot.

5

Ito beharrean zegoen.

... Ai! ito egingo naiz!... Bai!...

(Negar zotin leunez esanik, "bai" intziri txiki baten antzekoa zen).

6

Maitinen bitartean, lasaitasun pixka bat hartzeko gogara higitzeko esaten nion.

... Bai dela zaila daukadan honekin lasaitasunik hartzea!

7

Bere tunika ertzean puntu bat egin zitzaion eta nik josi nahi nuen, baina zaila zen eta gaizki nembilen, neke handia sortzen niola; ezin gehiago jasan eta jarraian esan zidan:

Oi! ene Amatxo, ez da batera harritzekoa inoizka erizain gaixoa bere gaixoe-kin artega jartzea! Ikusten duzu zein tratu zailekoa naizen! Zein maite zaitudan!... Oso eztsua zara... Bihotz-bihotzez eskertzen dizut, oso gogotsu egingo nuke negar!

8

Bai dela luzea zure gaixoaldia, ene kutuntxo!

Oi! ez, niri ez zait luzea iruditzen. Hau amaitzen denean ikusiko duzu nola ez zaizun luze irudituko.

⁶⁷ Hitz berbera dago ahizpa Maria Eukaristiarenak bere aitari abuztuaren 27an bidalitako gutunean (DE, 759. or.).

⁶⁸ Sufritzeko gaitasun honi buruz, ik. C Esk., 10^a; 29. VII. 14.

9

Oi! ene Amatxo, zein beharrezkoa den hainbeste sufritzen denean Jainko onak laguntza ematea!

Abuztuak 27

1

Oi! bai garela zorigaiztoak gaixotzen garenean!

- Ba, ez, ez da zorigaiztokoa izaten hiltzeko zorian egotean. Zoritxarra! bai dela arraroa hiltzeko beldurra izatea!

... Tira, norbait ezkontuta dagoenean, senarra eta seme-alabak dituenen, ulertzekoa da; baina nik, inor ez dudan honek!...

2

... Bai izango nukeela atsegina Monsignore ikustera etorriko ez balitzait!... Tira, azken batean, dohain bat da apezpikuaren bedeinkazioa!...

Barreka:

Hiru haurtxo berpiztu zituen Nikolas santua izango balitz, behintzat!

(Hugonin apezpikua Lisieux-en zen).

3

Ez zara harritzen, ene Amatxo, nola eramaten ditudan oinazeak ikustean?

... Tira, bada, bake handia somatzen dut sakonean.

4

Gaur goizetik ez duzu ezer hartu.

- Ez dudala ezer hartu? Bi katilu bete esne hartu ditut, bete-beterik nago. Egur-sorta bat naiz⁶⁹, eta jadanik ez dago erosi beharrik.

5

Gauak esnaturik iraganarazten dizkiot ahizpa Jenofa gaixo honi!

6

- Eguerdiko jolasaldian:

Goizean inortxo ez daukazula esan didazu eta badituzu, ahizpatxoak, Amatxo bat.

- Ez, uzteko ez dut inortxo ere, horiek ez baititut utziko!

Eta aurpegiera bihurritz:

Tira! Uzten ditudala pentsatuko banu!...

⁶⁹ "Bourrée": egurrik meheen eta txarrenaz egindako sorta. [Teresak hitz-jokoa darabil hemen: "Je suis bourrée" "bete-bete eginda nago" eta bestetik "Je suis une bourrée" "egur-sorta bat naiz"].

7

Ai! datorren udaberrirarte gaixorik egon beharko bazenu!, beldur naiz, eta zer esango zenuke orduan?

- Bueno, bada, askoz hobe! esango nuke.

8

Arratsaldean lasaialdi handiko une bat izan zuen eta adeitsuki tratatu gintuen.

9

Etengabe egarri izaten zen (9). Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenak esan zion: Nahi duzu ur izoztua?

- Oi! edangura handia dut!

- Gure Amak behar duzun guztia eskatzeko agindu dizu.

-Hala da, hain zuzen ere, behar dudan guztia eskatzen dut.

- Ez duzu beharrezkoa baizik eskatzen? Inoiz ez atsegin-bide den ezer?

- Ez, bakarrik beharrezkoa. Horregatik mahatsik ez dudanean, ez ditut eskatzen.

Edan eta geroago ur izoztuaren ontzira begira jarraitzen zuen:

- Edan beste pixka bat, esan zioten.

- Ez, ez daukat mihia lehorregi.

Abuztuak 28

1

Ohea leihorantz jarri diote.

Oi! zein pozik nagoen!

Jar zaitetz aurrez aurre, ene Amatxo, hobeki ikus zaitzadan.

2

Gure Amak eta beste ahizpa batzuek ederra zela zioten; kontatu zioten.

Ai! eta horrek niri zer! Ezer baino gutxiago axola zait; atsekabea ematen dit. Heriotzaren atean izatean, ezin duzu horrelakoekin pozik hartu.

3

Eguerdiko isilaldian:

Begira: ikusten al duzu, han behean (*gaztaiondoen azpian, hilerri ondoan*) ia ezertxo bereizten ez den zulo beltz hura? Arimari nahiz gorputzari dagokienez horrelako zulo batean aurkitzen naiz. Ai! bai, nolako ilunbea! Baina bakea dut bertan.

a) *Koaderno berdeek* zehazten dute (CV, I, 7. or.)

Ikaragarri sufritzen du oraindik egarriaren egarriz. "Ez dut inoiz egarria asetzen, zioen berak. Edaten badut egarria handitu egiten da. Badirudi sua botatzen dudala barrura". Goizerako mingaina guztiz lehor izaten zuen, arraspa baten edo egur zati baten modura.

4

Gehiago ezin eta aieneka.

Uste dut Jainko ona pozago izango litzatekeela nik ezer esango ez banu.

5

Ene Amatxo, har ezazu gauza zuri polit hori.

*- Zer da hori?**- Joan egin da! Udan etorri ohi den gauza polit bat da.**(Grana)*

6

Kortinako zirrikitu txiki batetik aurrez aurre zuen Ama Birjinaren irudira begiratzuz⁷⁰.

Begira, zelatan dut!

7

Oso gogoko ditut loreak, arrosak, lore gorriak eta bitxilore polit zurigorriak!

8

Eztula egiten zuenean edo ohean mugimendurik egiten zuenean, oroilore-sortak mugitu egiten ziren estampa artean.

Loretxoek dar-dar egiten dute nirekin, gogoko dut hori.

9

... Nire Andre Mari on horrek, ikus ezazu zerk ematen didan joateko gogo: neure ahizpak nekatzen ditut eta, gainera, atsekabea ematen diet gaixorik egonez... Bai, joan nahi nuke!

10

Maitinen ondoren:

Oi! ene Andre Mari on hori, erruki zaitetz nitaz... "oraingoan"!

Abuztuak 29

1

Igandeko ebanjelioa irakurtzen ari nintzaion: samariar onaren parabola.

... Ni bidaiari gizagaixo horren antzera "erdi-bizirik" nago, erdi-bizirik, erdi-hilik.

2

Oso latza da barruko kontsolamendurik gabe oinazeak izatea.

-Bai, baina larridurarik gabeko oinazea da. Pozik nago oinaze artean, Jainko onak hala nahi duelako.

⁷⁰ Irribarrearen Ama Birjina.

3

Amatxo?

*(Dei egiten zidan)**Zer nahi duzu?*

Leiho ondoko madariondoan 9 madari zenbatu ditut. Gehiago egon behar dute. Poztu egiten naiz, jango dituzuelako. Hain onak dira frutak!

4

Gau hartan laztantxo bana eman zigun.

Abuztuak 30

1

Gaua oso lasai iragan du, abuztuaren 6ko gaua bezala; oso pozik, beharbada hil egingo zela pentsatuz.

... Eskuak poliki elkartzen zituen, heriotzari itxaronez.

2

Pozik izango zinateke, gehien jota egun batzuk barru hilko zarela esango balizute? Nahiago izango zenuke hori, hilabeteetan eta, beharbada, urteetan zehar geroago eta oina-ze handiagotan jarraituko duzula entzutea baino?

Oi! ez, ez nuke poz handiagorik izango. Pozik jartzen nauen zer bakarra Jainko onaren nahia egitea da.

3

Tolesteko ohean jarri eta klaustrora ematen duen koruko ateraino eraman dute. Han bakar-bakarrrik utzi dute luzaro. Otoitzean izan da, begirada sakona burdinsarerantz duela. Gero arrosa-petaloak bota ditu harantz.

Berriro sartu aurretik argazkia egin diote⁷¹.

La Néele doktorea etorri eta esan dio: "Gutxirako da, ahizpatxo, ziur nago". Une hartan berak zorion- irribarrez begiratu dio.

Youf jauna ere etorri da eta berak aipatu dizkidan hitzok esan dizkio:

"Honezkero jasan dezakezun baino gehiago sufritu duzu.

... Une berean bukatuko dugu geure ministeritza: zuk karmeldar gisa eta nik apaiz gisa".

Abuztuak 31

1

Berriro La Néele doktorearen ikustaldia.

⁷¹ VTL argazkia, 45. zk.

2

Bihar hilko bazina, ez zenuke beldur pixka bat izango, horrela bat-batean izatean?

- Ai! gaur gauean bertan izango balitz ere ez nuke beldurrik izango; poz handia izango litzateke!

3

Bai egiten zaidala nekagarri gurutzearen seinalea egitea!

... Ai! ene ahizpatxook! Ai! ene Jainkoa! ene Jainkoa!... Ene Jainkoa, erruki zakizkit!... Honezkero ez dakit beste ezer esaten.

4

Laster, ikusten zaitugun ohe hau hutsik egongo da, hura samina guretzat!

- Ai! ni zure lekuan, oso pozik izango nintzateke!

5

... Bizitza osoan baino jateko gogo handiago dut. Beti txoritxo baten antzera jan izan dut eta orain guztia irentsiko nuke. Gosez hiltzera noala iruditzen zait.

... Bai oinaze handiak izan behar zituela santa Beronikak!

(Santa hau gosez hil zela irakurri zuen)

6

Gutariko batek zioen: "Zein larri dagoen! Gaur bertan hil daiteke!"

Bai pozgarria!

7

Arratsaldean, lotan zegoela esaten zidaten; berak begiak ireki eta esan zidan:

Ez, hurbil zaitez, hain dut gogoko zu ikustea!

8

Zeruko harrigarriak ikusteko gogo bizia sentitzen dut! ez dit ezerk zirrarak eragiten lurrean.

9

Maitinetan

Ai! Sinestezina da nola bete diren nire itxaropen guztiak ikustea. Gurutzeko Joan santua irakurtzean⁷², Jainko onari, niregan, zahartzarora iritsiko banintz bezala, hark zioena egiteko eskatzen nion; hau da, ahalik lasterren maitasunez ahitzea, eta entzun egin dit!

10

Luzaro Ama Birjinaren irudira begira egon ondoren:

... Nork asmatu ahal izango ote zuen Ama Birjina?

⁷² Ik. A Esk., 83^a; *Maitasun-gar bizia*, I. ahapaldia, 6. bertsoaren azalpena; eta uztaileko 90. oharra.

11

Niri:

... Ai! maite zaitudan adina maitatuko baninduzu!

12

Antzinako garai batean, penitentzia egitearren, jaten zuen bitartean gauza higuingarrietan pentsatzen zuela esan zidan.

... Baina geroago, errazagoa iruditu zitzaidan gogoko izaten nuena Jainko onari eskaintzea.

13

... Oraintsu otordu eder bat egiteko gogoia izan dut; mahats-ale bat, ardorzurrutadaxo bat hartu eta Ama Birjinari eskaini dizkiot. Gero, beste hainbeste egin dut Jesus Haurrarekin eta horrela bukatu da nire otordu txikia.

Irailak 2*

1

Ziur aski jaiegun batean hilko zara.

- Egun horretan jai ederra izango da! Inoiz ez dut jaiegunean hiltzeko gogorik izan¹.

2

... Badira, agian, bi urte ni hemen nintzela; Jainko onak ahizpa Maria Ainge-ruenari² zegokionez, nire barruko proba amai zedila nahi izan zuen eta neure arima ireki ahal izan nion... Azkenean bene-benetako kontsolamendua eman ahal izan zidan.

3

... Gogor egiten zitzaidan jantokiko laztasunak eskatzea, oso lotsatia bainin-zen; lotsatu egiten nintzen, baina, nire asteko bi aldiak leialtasunez betetzen nituen. Lotsaren proba hau iragan zenean, ardura gutxiago jartzen nuen eta behin baino sarriago ahaztu egin nituen nire bi laztasunak.

* Hil honen hasierak jarraipena eman nahi dio abuztuaren 22tik 27ra bitarteko epealdiko sufrimendu izugarrien ondorien datorren barealdi ez-osoari. Teresak apur bat jaten du eta Guérin familiak aha-lerinak egiten ditu gaixoaren gutziak betetzen. Hala ere, zantzuek ez dute itxaropenik ematen: geroago eta argalago dago, ezin ahulago. Oza-ozta mugitzen ditu eskuak, eta sufrimendu izugarria du. Honez-kerok ezin dute ukitu. Irailaren 12an, oinak puzten hasten dira. 14an, berriz, Cornière medikuak ez dio hamabost eguneko bizia besterik ematen. 21etik aurrera, Teresak denbora osoan hilaginean dagoela aitortuko du. Benetan hilaginean 29an izango da, bere heriotzaren bezperan.

Koaderno horiaren edukiak, hil honi dagokionez, deskribatzen dituen keinuen eta kontatzen dituen hitzen balio bikoitza du. Orain, sekula baino gehiago, Teresa esperientziaz irakasten duen maistra da. Haren esaldi laburrek benetakotasunaren, eta are gehiago, hitzez-hizkoaren marka daramate. Gai nagusiak hauek dira: gaixotasuna, sufrimendua heriotza. Fedearen proba beti azaltzen da hor. Gaixoaren otoitzaren oinarriak hura inguratzen duten estanpak eta irudia dira. Teresak izadiari atseginez begiratzen dio, eta batzuetan txantxetan jarduten du. Oraindik bi urteurren ospatu ahal izango ditu: 8an, bere profesarena (egun horretan azken autografoa idatziko du, Otoi. 21), eta 24an, beloa hartu zuen ekoa (ik. A Esk., 77^a).

Irailaren 30ari buruz dauden lekukotasun ugariak Teresaren heriotzaldia ia orduz ordu berregiteko aukera ematen digute.

¹ Ikus uztaileko 32. oharra.

² Bere maistra nobiziatuan, ik. A Esk., 70ⁱ.

4

Bera zela etsai guztiak menperatu zituen taldeburua eta guk berari jarraitzea besterik ez genuela egin esaten genion. Hark, orduan, guk oso ezaguna genuen keinua egin zuen, hau da, bere eskuak bata bestearen gainean distantzia txikira jarri zituen esanez:

“Hain goian nauzue familian!”

Gero zerbait ereiteko keinua eginez:

Erpurutxo txikia!

5

Ahizpa Jenofak esaten zion: “Eta oraindik zain dituzula Saigon-en pentsatzea gero!”

- Laster joango naiz, laster; jakingo bazenute zein azkar egingo dudan bidai!

6

... Gaiztoa izatearen nahigabea onartzen denean, berehala itzultzen da Jainko ona!

7

Sinesmenaren aurkako barruko nire probak, sinesmenik ez duen gure familiar-teko pertsona baten alde eskaini ditut bereziki³.

(Tostain jauna)

8

... Oi! bai, Zerua nahi dut! Ene, Jainko ona, “hauts ezazu elkartze ez-titsu honen ehuna”⁴.

Irailak 3

1

Errusiako Tsarari Frantzia eskainitako ohoreei buruz esan zidatena kontatzen nion.

Ai! ez nau horrelako ezerk lilurutzen! Hitz egidazu Jainko onaz, santuen jarraibideaz, egia den edozertaz...

2

Eta santatxo bat zaintzen ari garela pentsatzea gero!

Hara, bada, askozaz hobe! Baina nahiago nuke hori Jainko onak esango balu.

3

Ama J. B.rena gaixoa⁵ geroago eta asekaizago bihurtzen ari zen eta erizainak kexu izaten ziren haren apetak bete behar zirela eta.

... Ai! zein atsegingarri izango nukeen hori gutzia!

³ Ik. TG 126, 1. oharra.

⁴ Joan Gurutzekoa, *Maitasun-gar bizia*, I. ahapaldia, 6. bertsoa.

⁵ Ama Hermance Jesusen Bihotzarena; ik. 20. VIII. 3.

Irailak 4

1

Ahizpa San Stanislasek, emaniko zerbitzurik txikienaren ordainez berak eskaintzen zizkion irribarre eta xerengatik⁶ aingeru bat zela zioela esaten zuten.

... Horrela nereganatu dut Jainko ona eta horregatik ongi hartuko nau nire heriotza orduan.

2

Pozten naiz okelak higuin emateaz, horrela, gutxienez, ez dut horretan atseginik aurkitzen.

(Okela pixka ematen zitzaion).

3

Jantokira joateko eritegitik irtetera nindoala:

Maite zaitut!

4

"Angelus" jotzen ari ziren.

Beharrezkoa al da nire eskutxoak agerira ateratzea?

Ez, oraindik ahulegi zaude "Angelus" errezatzeko. Nahikoa duzu Ama Birjinari honako hau esatea: "Ama Birjina!" Berak jarritu zuen:

Ama Birjina, bihotz-bihotzez maite zaitut.

Ahizpa Jenofak esan zion: "Esaiozu nire partez ere maite duzula". Orduan berak ahots mehearekin esan zuen:

"Lili andereñoaren" partez, Amaren partez, Amabitxiren partez, Leoniaren partez, Maritxo, nire osaba, nire izeba, Joana, Frantzizko, Maurizio, "Roulland txiki" eta maite ditudan guztien partez⁷.

5

Halako janari bat nahi zuen, nahiko erraza bestalde, eta gutariko batek geure osabari jakinarazi genion:

... Mundukoei hau jakinaraztea ere bada, ba! Tira, Jainko onari eskaini diot.

Nik, ez zela nire errua, hain zuzen ere, debekatu egin nuela esan nion. Berak platertxoa hartuz, erantzun zuen:

A!, Jainko onari eskainita dago. Honezkero ez zait axola. Pentsa dezatela nahi dutena!

⁶ Ahizpa San Stanislaz gorra zen. Teresak eskua ukituz agurtzen zuen.

⁷ Erraz asko ezagutzen dira zerrenda honetako pertsonak: ahizpa Jenofa, ama Aines Jesusena, ahizpa Maria Bihotz Sakratuarena, Leonia Martin, ahizpa Maria Eukaristiarena, Guérin jaun-andreak, Néele andrea eta doktorea, Bellière apaizgaia eta aita Roulland.

6

Maitinetan:

Ene Amatxo, zein maite zaitudan!

Irribarre pollit bat zuela hitz egiten ahaleginduz:

Esan dezagun, dena dela, zerbait, esan dezagun...

... Jakingo bazenu zein lasai uzten nauen laster Zerura joango naizela pentsatzeak! Beraz, oso zoriontsu sentitzen naiz, baina ezin dut esan gogo bizia edo poztasunezko egonezina bizi dudanik, ez!

7

Dena dela, nahiago duzu hiltzea, bizirik irautea baino, ezta?

Ai, ene Amatxo, ez dut bata bestea baino gehiago nahi. Nik ezingo nuke esan Gure Ama Teresa santuak bezala: "Hiltzeaz nago hiltzen ez naizelako"⁸. Gogokoen Jainko onak maiteen izan eta niretzat aukeratua duena dut.

Irailak 5

1

*Ez dizu atsekaberik ematen, "amatxo" uzteak?**(haur-doinutxo erabiliz):*

Ez!... Betiko bizitzarik ez balego, oi! bai!... baina bada, beharbada... ziur bada-goela!

2

Bat-batean, une honetan bertan hilko zarela esango balizute, izango zenuke beldurrik?

... Ai! nolako poza! Joatea nahiko nuke!

Beraz, bizitzen jarraitzea baino nahiago duzu hiltzea?

Ez, inolaz ere ez. Osasuna berreskuratuko banu, medikuek harriturik begiratu-ko nindukete eta nik esango nieke: "Jaunak, oso pozik nago Jainko onari lurrean zerbitzen jarraitzeko osasuna berreskuratuko dudalako, hori baita haren nahia. Hiltze-ara doanaren antzera sufritu izan dut; hara, bada, berriro hasiko naiz!"

3

Ardo beltz pixka batez kolorea emaniko ur basoa hatzarekin seinalatuz, aurpegiera alai eta bihurria jarritz:

Emaidazu edaten, mesedez, ene Amatxo. Izotza dauka, ona dago!

Edan ondoren:

Egarririk gabe edan dut! "Egarririk gabeko haur" txiki bat naiz.

⁸ Avilako Teresa Deuna, ik. *Obras completas*, Madrid (BAC) 1982, 502-503 ("Muero porque no muero").

Isilaldian gutxiago sufritu zuela esaten nion:

Oi! berdintsu! Asko, asko sufritu dut! Baina Ama Birjinari bakarrik kexatu natzaio.

4

La Néele medikuaren ikustaldia; honek aurreko bisitaldian heriotzaren atean zegoela, ohean alde batera bira egitean bat-batean hil zitekeela baieztatu ondoren, esan zion:

“Ez aurrera ez atzera egiten duen untziaeren antzekoa zara”.

Bera une hartan harriturik geratu zen.

Entzun diozu, *esan zidan*, ikusten duzu nolako aldaketa! Baina nik ez dut aldatu nahi, oso-osoan Jainko onaren eskutan jarririk iraun nahi dut.

Irailak 6

1

... Esan iezazkidazu hitz gozotxoak, atzo gertatu zitzaidanaren ondoren⁹.

Ai! Zer egin zu kontsolatzeko, ene umetxo? Guztiz ezinean nauzu.

... aurpegiara baketsuz:

Ez dut kontsolatua izan beharrik somatzen...

2

Pozaren pozez negar egin zuen arratsaldean Teofan Vérnad agurgarriaren erlikia eraman ziotenean.

Nire urtebetetze egunean samurkiro bitxiloretxo txiki bat eskaini zidan.

Arratsalde osoan zehar oso maitagarri eta xarmagarri izan genuen. Esan nion:

Ahal duzunean, betikoa izaten jarraitzen duzula ikusi dut.

... Ai! egia da! Bai, ahal dudanean, ahal dudan guztia egiten dut alaitsu agertzen, atsegin ematen.

3

Aitortzeko Youf jaunaren zain zegoen; honek ezin izan zuen etorri eta berak etsipen handia izan zuen. Baina berehala hartu zuen bake-itxura aurpegian.

4

Janari pixka bat eraman zioten; hobeki zeukan urdaila.

Ai! Non da nire gaixotasuna? Ikusten duzue nola jaten dudan orain!

Irailak 7

Egun osoan ez zidan hitzik esan eta nik arratsaldez neure artean nioen: gaur ez dut idazteko ezer izango.

⁹ Zalantzarik ez, La Néele doktoarearen diagnostikoak sortarazitako etsipena.

Baina, ia berehala esan zidan:

Ai! ez dago inor zu bezalakorik!...

Gero malko handiak isurtzen hasi zen, ni konturatu ere egin ez nintzen zerbaitetan nahigabea eman zidala pentsatuz.

Irailak 8

Txantxangorri txiki bat sartu zen eta haren ohe gainean jauzitxoak egiten hasi zen.

Leoniak, kontserbatu egin den musika-kutxa bat eta melodiak bidali zizkion eta hauek profanoak izan arren poz handiz entzun zituen, hain dira gozoak!

Azkenik, bere Profesaren urteguna ospatzeko landa-lorez eginiko sorta bat bidali zioten. Hainbeste ardura ikustean negar egin zuen eskerronez eta esan zigun:

Jainko onak ematen dizkidan xamurtasunengatik egiten dut negar. Kanpotik halakoez beterik nauzue eta, hala ere, barrutik etengabeki proban jarraitzen dut..., baina, edonola ere, bakean.

Irailak 9

1

Musika-kutxari gehiegi estutu zioten haria eta hondaturik zirudien. Augustok¹⁰ konpondu zuen, baina gero notarik politenean (Melodia batean) huts egiten zuen. Ni atsekabeturik nengoen eta ea bera ere hala zegoen galdetu nion:

Oi! inola ere ez, zu horrela zaudelako bakarrik nauzu atsekabeturik.

2

... Ai! ondo baino hobeto dakit zer den oinazea!

Irailak 10

1

Ikustaldian, egoera ikusiz, Cornière jauna. lur jota geratu zen.

Ea bada, pozik? esan nion medikua joan zenean.

Bai, baina nahiko ohituta nauzu, baieztatu eta ezeztatu ari dira eta!

2

Gauean, burkoak konpontzen zizkioten bitartean, bere burua nire gainean jarri zuen xamurkiro begiratzuz. Honek, Ama Birjina aipatzean "Paulinaren irudi ideala da" esan ohi

¹⁰ Auguste Acard.

zuen estapan Jesus Haurrak, aingeruaren musika entzuten zuen artean, Ama Birjinari zuzentzen zion begirada ekarri zidan gogora¹¹.

Irailak 11

1

Amatxo hilko da azkenengo; nire ordezko lana buka dezanean Teofan Vénard eta biok bila etorriko gatzaizkio...

... arima txikiak behar ez badute, behintzat.

2

Asko maite zaitut, benetan asko!

Atea irekitzen entzuten dudanean, beti zeu zarala uste izaten dut; eta etortzen ez zaranean, nahigabeturik geratzen naiz.

Emaidazu laztan bat, zarata egiten duen laztan bat; hau da, ezpainek "pit" egin dezatela!

Zeruan bakarrik jakingo duzu zer zaren niretzat... Niretzat lira bat, kantu bat zara..., musika-kutxa bat baino askozaz gehiago; tira! hori ezer esaten ez didazun uneetan ere bai.

3

Berak Ama Birjinarentzat bi koroa egin zituen nabar-lorez, eta hark bata oinetan eta bestea eskuan zituen. Esan nion:

Zer esanik ez, eskuan daukana zuri emateko dela pentsatzen duzu.

Oi! ez, nahi duenerako erabiliko du, nik ematen diodana bere jolaserako da.

4

... Heriotzari beldur izan ote diodan beldur naiz... baina ez dut, egiatan, gero izango denaren beldurrik! Ez dut bizitzaren penarik. Oi! ez, neure buruari galdetu diot: zer ote da arima eta gorputzaren banaketa misteriotsu hori? Lehen aldiz gertatu zait honako hau, baina berehala Jainko onaren eskuetan jarri naiz.

5

Emaidazu, mesedez, neure Gurutzea, damu-egintza ostean laztandu eta Garbitokiko arimen alde osozko indulgentzia lor dezadan. Ez diet hori baino besterik ematen!

Emaidazu, orain ur bedeinkatua. Hurbil iezazkidazu Ama Ana Jesusenaren eta Teofan Vénard-en erlikiak, mun eman nahi diet.

Gero xera txiki bat egin zion Ama Birjinaren estanpari, lehenengo Jesus Haurrari eta gero Ama Birjinari.

Ezin zuen lorik egin eta esan zidan:

¹¹ Müller-en «Familia Santua» da; ik. TG 264.

Badakit zer gertatzen den, deabruaren gaiztakeria da; haserre bizitan dabil ez ditudalako neure debozio txikiak ahaztu. Hau dela edo hori dela egiten ez ditudanean, loak hartzen nau eta gauerdia iragan eta minutu batzuetara esnatzen naiz. Osozko indulgentzia irabazi gabe geratu naizelako nire lepotik irri egiteko edo izaten da.

6

Beldurra izan behar ote diot deabruari? Ezezkotan nago, guztia obendentziak aginduta egiten baitut.

7

Oi! ez dut Jainko ona lurlean ikusi nahi! Eta hala ere maite dut! Era berean, bihotz-bihotzez maite ditut Ama Birjina eta santuak eta hauek ere ez ditut ikusi nahi¹². Jn 20,29

Irailak 12

Mariaren Izen Santuaren jaieguna zen. Igandeko ebanjelioa irakurtzeko eskatu zidan. Ez nuen hurbilean meza-liburua eta sinpleki esan nion: gure Jaunak "ezin da bi jaunen zerbitzari izan" oharra egiten digun Ebanjelioa da. Berak, orduan, ikasgaia erreztatzen duen haurtxoaren ahots txikia imitatuz hitzez hitz, oso-osoan erreztatatu zidan. Mt 6, 24-33

Irailak 13

1

Askoz ere gaizkiago zegoen eta aurreko egunetik oinak handiturik zeuzkan. Hain ahul zegoenez gero, ezin zen haren inguruan mugimendurik txikiena ere egin, esaterako, ohea pixka bat konpondu edota, gutxiago oraindik, bera ukitu, oinaze handia eman gabe. Guk ez genuen uste hain gaizki zegoenik eta ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenak nik egin ondoren luzaroan hartu zion pultsua. Berak hasieran ez zuen neke-seinalerik egin gu ez atsekabete-agatik, baina, azkenean, gehiago ezin jasan eta negarrez hasi zen. Eta gero, burkoak eta burko handia konpondu zizkiotenean, samurkiro zotin eginez esan zuen:

Oi! nahi nuke..., nahi nuke...

-Zer?

- Neure ahizpei atsekabe gehiagorik ez ematea eta horregatik laster joatea.

Une hartan ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenari begiratu zion eta irribarre zoragarria luzatu, nahigaberik handiena hartu zuena hura zela uste baitzuen.

Mugitzera ez ginelako ausartzen, burko handia ongi jartzetik lortzen ez genuenez gero, eskuen gainean euskarrria hartu eta bera konpontzen saiatuz maitagarriro esan zuen:

Itxaron, ohearen sakoneraino hurbilduko naiz matxinsalto txikiaren mugimenduak imitatuz.

¹² Ik. abuztuko 37. oharra.

2

Ahizpa batek¹³ bioleta bat hartu zuen lorategian berarentzat; eskaini eta erretiratu egin zen. Orduan gure Teresatxok loreari begira esan zidan:

Ai! bioleten usain gozoa!

Gero keinu bat egin zidan, mortifikazioaren aurka joan gabe usaina har zezakeen jakiteko.

Irailak 14

1

Arrosa bat eraman zioten; debozio eta maitasun handiz Gurutzearen gainean hostokatu zuen, petaloak banan-banan gure Jaunaren zauriei xerak egiteko hartuz.

Iraillean -esan zuen- Teresatxok oraindik "udaberriko arrosak" hostokatzen jarraitzen du:

*Udaberriko arrosa zuretzat hostokatzerakoan,
nahi nuke nik zure malkoak txukatzea¹⁴.*

Petaloak labain egin eta beraren ohe gainetik eritegiko lur gainera erortzen zirenez gero, seriotasun handiz esan zuen:

Bildu kontuz petalo horiek, ene ahizpatxook; noizbait opariak egiteko izango dituzue... Ez ezazue bat ere galdu.

2

... Ai! Orain...

"Nire erbestealdia, nire ustetan, laburra izango da!"¹⁵.

3

La Néele doktoreak ez zuela hiltamurik izango esan zion, eta unerik unera min handiagoak zituenez:

... Dena den, ez nuela hiltamurik izango esan zidaten!...

... Tira, nolana ere, onartu egiten dut.

Izatea edo ez zure esku utziko balute?

Ez nuke ezer aukeratuko.

Irailak 15

1

Zerura iristean zure oraingo oinaze handiak ezer gutxi direla irudiko zaizu!

- Oi! lurlean bertan ere ezer gutxi direla iruditzen zait.

¹³ Ahizpa Maria San Joserena.

¹⁴ TO 34, 1.

¹⁵ TO 17, 9, lehen bertsiorearen arabera (*Poésies*, II, 102 eta ondorengo orrialdea); ik. TG 220.

2

Gauean, jolasaldian:

Oraintsu nitaz galdetu duen ahizpa Martari ahizpa Jenofak "Oso nekatua dago" esan dionean, neure kautan pentsatu izan dut: Bai dela egia galanta, zuzen dabil! Bai, bidai mugara iristean indarrrik gabe jota erortzen den bidaiari nekatu, oso akitu baten antzekoa naiz.

... Bai, baina Jainko onaren eskuetara erortzen naiz!

3

Gure Amak esan dit ez dudala heriotzarako gertatzeko ezer egin behar, aurretiaz gertaturik nagoelako¹⁶.

Irailak 16

Neuri bakarrik, egiten nizkion galderei erantzunez:

Arimak gidatu eta kontsolatzeko Jainko onaren argiak eta laguntza geureganatzeko bidea, kontsolamendu bila geure nahigabe pertsonalak ez kontatzea izaten da. Bestalde, hori ez da benetako kontsolamendua izaten; lasaitasuna sortu beharrean urduritasuna ekartzen du.

Irailak 17

Gaixoen ondoan alai egon behar da:

(Geure nahigabea ematen genion aditzera).

Ikus dezagun, ez da hileta jotzen ibili behar itxaropenik ez dutenen antzera.

I Ts 4,13

Aurpegiera bihurri antzekoa jarritz:

Bizitza gutxiestera eramango nauzue.

- *Oi! barru-barruan sentituko genuke!*

- Egia da! Beldurra sartzeko esan dut.

2

Bere haurtzaroaz hitz egitean behin batean otarretxo bat oparitu ziotela eta pozaren pozez honako deiadar hau egin zuela kontatu zidan:

Orain ez dut beste ezer nahi lurrean!

Eta gero, berehala, iritzia aldatu zuela esanez:

Bai, oraindik zerbait nahi dut, Zerua!

¹⁶ Ik. 30. IX.

Irailak 18

1

Hitz eginez, berari nekea sortzeko beldur nintzela esaten nion:

Ene Amatxo, atsegin dut zure hizketa! Oi! ez, ez nau nekatzen. Musikaren antzekoa egiten zait... Ez dago zu bezalako besterik lurrean. Oi! zein maite zaitudan!

2

Leihotik Aurpegi Santuaren ermitaren gainaldean gorri-gorri zegoen basamahatsera begiratur.

Aurpegi Santua edertasun bete-betean dago. Begira, bertako basamahatsaren adarrak gaztainonondoan gainetik gorantz doaz.

3

Arratsalde honetan hobeki nago.

Hain zuzen ere, edozertaz interesatzen zen. Atsegintsu begiraten zituen ahizpa Jenofa otoiztokiko aldarerako egiten hari zen zamaua, eta gero baita Denis apaiz jaunarentzako¹⁷ ornamenduak ere.

Baina, goizez, ahizpa Aimée Jesusenak ohea pixka bat konpontzeko besoetan hartu zuenean, hiltzera zihoala uste izan nuen.

Irailak 19

Kanpotik dalia-sorta bat ekarri zuten. Berak atseginez begiratu eta hatzak oso leunki-oro petalo artean erabili zituen.

Denis abate jaunaren meza berriaren ondoren, haren kaliza erakusteko eskatu zuen. Luzaroan kopa barrenera begira egotean honako hau galdetu zioten: zer dela eta zaude kalizaren barrenera adi-adi begira?

Bertan ispilatzen naizelako. Sakristian oso gogoko izaten nuen honela egitea. Oso zoriontsu izaten nintzen honako hau pentsatuz: Nire aurpegiera Jesusen Odola egon den eta berriro egongo den lekuan isladatu da.

Zenbat aldiz pentsatu izan dudan, era berean, Erroman nire aurpegia Aita Santuaren begietan ispilatu zela!¹⁸

Irailak 20

1

Cornière doktorearen ikustaldia, benetako martiritza jasaten ari dela esaten digularik. Irteterakoan haren eroapen heroikoa goraiatzaren zuten. Nik halako zer batzuk errepikatu nizkion berari.

¹⁷ Denis apaiz jauna irailaren 18an apaiz egin zen eta biharamunean eman zuen meza berria Lisieux-ko Karmelen.

¹⁸ 1887ko azaroaren 20ko audientzian; ik. A Esk., 63^l.

Nola esan lezake eroapena dudala? Hori gezurra esatea da! Beti kexaz, zinkuri amaigabea, etengabeki, "A! Ai" eta, baita ere, "ene Jainkoa, ezin dut gehiago! Errukitu nitaz! Izan iezadazu erruki!" deiadarka ari naiz eta.

2

Arratsalde z tunika aldatu zioten eta zurt eginda geratu ziren hain argal ikustean, aurpegia betikoa baitzuen. Gure Amari bizkarra ikustera joateko eskatu nion. Tarte luzea izan zen joan orduko eta nik gure gaixotxoak itxaroten zuen bitartean izan zuen aurpegiera bigun eta pairakorra miretsi nuen. Gure Ama atsekabez harrituta geratu zen eta onberata-sunez esan zuen: Zer da hain argal dagoen neskatxo hau?

Eskeleto bat!

Irailak 21

1

Ni, ezer esan gabe, bere txuontzia husten aritu nintzen eta gero haren alboan utzi nuen, neure artean pentsatuz: Bai zoriontsu sentituko nintzatekeela Zeruan ordainduko didala esaten badit. Eta berehala nigana begiratzuz esan zidan:

Zeruan ordainduko dizut.

2

Hiltzera doala pentsatzen dudanean!... esan zuen ahizpa Jenofak.

Ai! jakina! Bat-batean, sinetsi egiten dut!

3

Eta berak ez duela maite dezakeen Teresatxorik pentsatzea, gero!

... Bere Teresatxo deitzen nau!

Nork?

Ba, Aita Bellièrek!

Idatzi berri zion Aitak gutuna¹⁹ eta berriro irakurri nahi izan nion hitz horiek errepikatuz atsegin ematen niolakoan, baina nekatuegia zegoen eta esan zidan:

Oi! ez, nahikoa da! "nekatuik"²⁰ nauka Teresatxok!

Gero niregana begiratzuz, ahots eztsuz:

Baina ez nauka "nekatuik" Paulinatxok! Oi! ez!

4

Platerak garbitzera noa; bi txanda egin behar ditut²¹.

¹⁹ Maria Gonzagarenari bidalitako gutuna, irailaren 19koa; laburpena CGn dago, 1163. or.an.

²⁰ Eskuizkribuak "fûtée" dakar, "nekatuik" tokiko hizkeran.

²¹ Ama Ainesek astean bi egunetan ontziak garbitu beharra zuen, eta horrek eragozten zion ahizparekin egotea.

Oso gogorra niretzat! Oi! bai!

5

Ahizpa Jenofak lapitza eskatzen zidan; nik neuk ere behar nuen baina eman egin nion neurea. Orduan, berak tonuera oso zehatzez esan zidan:

Adeitasun handikoa izan da hori.

6

Ai! Zer ote da hiltamua? Etengabeki bertan nagoela iruditzen zait!!...

7

Begiak bustitzean betazaletatik betile batzuk askatu zitzaizkion:

Bildu betile horiek, Jenofa ene ahizpa txikia, lurrari ahalik eta gutxien eman behar zaio.

Ahizpa San Bizente Paulekoarenaren neba zen Aita Alaterre-ren (langile bat) izenaz hitz-jokoa egiten zuen.

Hala ere, bai gizagaixoa gizon hori, horrek atsegin ematen badio!...

Horrela egoten zen beti alai, arimako eta gorputzeko oinaze handien artean izan arren.

Irailak 22

1

Nik, apalarazia izan zeneko bere lekaime-bizitzako zenbait gorabehera gogoratu ondoren, erantsi nuen: Oi! zenbat aldiz sentitu nuen zutaz gupida!

Ez zen beharrezkoa izango nitaz hainbesteko gupida sentitzea. Jakin bazenu nola bizi nintzen horien guztien gainean! Apalkuntzetatik indarturik ateratzen nintzen; ez zegoen borrokaldian ni baino ausartagorik.

2

Hitz egin nahi zidan eta ezin zuen.

... Ai! bai dela gogorra hainbestearainoko ezinean burua ikustea!

... Eta zurekin! Hain eztigarri zitzaidan zuri hitz egin ahal izatea! Hauxe dut zerik gogorrena!

3

Nik Teofan Vénard-en estampa begiratzuz esaten nion: Hor dago bere kapela eskuan duela eta, gainera, zure bila etorri gabe!

Irribarrezka:

Oi! nik ez dut santuen lepotik barre egiten!... Asko maite ditut... Haiek... ikusi nahi dute.

Zer? Eroapena galtzen duzun?

Era berean irritsua eta sakona zen doinua erabiliz:

Bai!... Batez ere, ea konfiantza galtzeko nagoen... noraino eramango dudan neure konfiantza... ikusi nahi dute.

4

Ahizpa Jenofari "haurtzaina" deitzen zion eta ahizpa Maria Hirutasunarenari "panpina", panpina baten aurpegia zuela iruditzen zitzaiolako. Gu dibertitzearren egiten zuen eta sekula ere ez nabarkeriaz edo haurkeriaz. Baina gehiekeriaz erabiltzen genituen harako deiturak eta esan zuen:

Ez da edonola deitu behar. Ez da erlijioari dagokiona²².

5

Denbora luze egiten zaizu, ezta?

Ez, ez zait luze egiten denbora; Komunitateko egintzetan parte hartzen nuen unea, liburua (*bere bizitza*) idazten nuenekoa atzo bertan izan zela iruditzen zait.

6

Bai gaixotasun gogorra eta oinaze handiak izan dituzula!

Bai! bai dela dohain handia fedea izatea! Federik izan ez banu, neure buruaz beste egingo nukeen inolako zalantzarik izan gabe²³.

Irailak 23

1

... Oi! zenbat zor dizudan!... Horregatik maite zaitut hainbeste!... Baina ez dizut honetaz gehiagorik hitz egin nahi negarrari emango diot eta...

(Negar egiteak kalte handia egiten zion).

2

Bihar Beloa hartu zenuen urteurrena da eta ziur aski zure heriotza eguna.

Ez dakit noiz izango den; beti zain nago, baina ongi dakit ezin dela luzaro atzeratu.

3

Sarri egiten zigun irribarre, nahiz batari nahiz besteari, baina ez ginen beti konturatzen.

... Sarri irribarre ederrak egiten dizkiet "Haurtzainari" eta besteei, baina galdu egiten dira...

²² Ahizpa Maria Hirutasunarenari emandako «panpina» ezizena dela eta, ik. TG 236 eta 249; eta CSM 56. zk., VTko 77. zk.an, 66 eta ondorengo orrialdea.

²³ Ik. CG, 1192. or.

4

Gauean txori baten urruma antzeko zerbait entzun zen leiho itxian. Zer izan zitekeen hura galdezka genbiltzan. Batek zioen: usapala da. Beste batek: beharbada hegazti harrapari bat izango da.

Ba, ongi dago, hegazti harrapari bat bada, berarentzat txarrago!... Hegazti harrapariak martiriak jatera etortzen ziren.

5

Isilpean gordetzeko eskatuz ahizpa batek egin zion garrantzi txikiko isilmandatua zela eta:

Ahizpek hala eskatzen dutenean sakratua da isilpekoa... Nahiz eta huskeriarik handiena izan ez litzateke esan behar.

6

Luzaroan isilik egon ondoren, une hartan berarekin bakarrik geunden ahizpa Maria Bihotz Sakratuarena eta bioi begiratuz:

Nire ahizpatxook, zuek hezi ninduzuen!...

Eta begiak malkoz bete zitzaizkion.

Irailak 24

1

Beloa hartu zuen egunaren urtemugan, nik meza bere alde esateko agindu nuen.

Mila esker mezagatik!

Oinaze hain handietan ikusiz erantzun nion atsekabez: Ai! ikusten duzu, ez zaude horregatik oinaze txikiagoekin!

Hara, bada, meza hori nire oinazeak leuntzeko esanarazteko baimena lortu duzu?

- Zure onerako.

- Nire ona dudarik gabe sufritzean datza²⁴...

2

Gaztainondoak beranduegi inausiak izan ziren batean sentitu zuen nahigabea kontatu zidan.

Hasieran nahigabe garratza eta, une berean, barruko tentaldi handiak izan ziren. Hain gogoko izaten nituen ilunbeak! eta urte hartan ez zen halakorik izango. Adarrak, ordurako berdeak, pilaturik zeuden lurrean, enborrak biluzik geratzen ziren! Bat-batean garaitu nuen arazoa honako hau pentsatuz: Beste Karmel batean egongo banintz, garrantzirik izango ote luke niretzat Lisieux-ko Karmel-eko gaz-

²⁴ Ik. TO 54, 16; eta uztailako 79. oharra.

taionondoak guztiz ebakita ere? Eta bake handia eta poztasun zerutiarra sentitu nituen barnean.

3

Geroago eta mirestsiago zegoen Cornière jaunaren ikustaldia. Gure Amari esan zion: "aingeru bat da! aingeru baten begitarte du; ez du bere aurpegia batere aldatu, oinaze handiak jasan arren. Inoiz ez dut halakorik ikusi. Hain argal dagoenez gero, naturaz gaindiko zerbait da".

4

... Zeruko belardietan zehar korrika ibili nahi nuke...

... Belarrak zapaldu gabe, tximurtzen ez diren lore ederrak izan eta haurtxoak aingeru direla dabiltzan belardietan zehar egin nahi nuke korrika²⁵.

Ez duzu inoiz oinazeek nekatuaren itxurarik. Nekaturik zaude, bai ala ez?

Bai zera! Gehiago ezin dudanean ezin dut gehiago, besterik ez!

5

Cornière jaunari honako hau esateko gogoia etorri zait: barre egiten dut, ahalegin guztiak ahalegin, ez didazulako Zerura joatea eragotzi. Baina, hara hel nadinean, zigor gisa, ez dizut laster joaten utziko²⁶.

6

Laster aingeruen mintzairan baizik ez naiz mintzatuko.

7

Zeruan serafinen artean jarriko zaituzte.

Ai! baina serafinen artean jartzen banaute nik ez dut haiek egiten dutena egingo! Guztiak beraien hegoekin aurpegia estaltzen dute Jainko onaren aurrean. Nik inola ere ez dut aurpegirik estaliko hegoekin.

Is 6,2

8

Ene Jainkoa!... Erruki zaitez haur...haur...txoaz!

(Ahalegin handiz bira eginez)

9

- Hark bere "Teofan" laztantzen duenean, hura ohoretan sentitzen da!

- Ez dira ohorezko laztanak...

- Zer dira, bada?

- Besterik gabe, laztanak!

(Teofan Vénard-en argazkia laztantzen ari zen)

²⁵ Ik. haren ametsen gaia A Esk.an, 79^a; eta TO 18, 33. ahapaldia.

²⁶ Cornière doktorea 80 urterekin hil zen (1922).

10

... *Ez diozu, bada, zure heriotza egunari antzematen?*

- Ai!, ene Ama! bihozkadak! Jakingo bazenu zein txiro aurkitzen naizen! Ez dakit zuk dakizun baino ezer gehiago; ez diot ikusten eta sentitzen dudanari baino beste ezeri antzematen. Baina nire arima, ilunaldiak ilunaldi, bake zoragarrian mantentzen da.

11

Nork maite zaitu gehiago lurrean?...

Irailak 25

1

Heriotzari beldur handia zion Youf jaunari buruz jolasaldian esandakoa kontatzen nion. Ahizpek, arimen ardura izanik luzaro bizi izandakoen erantzunkizunaz hitz egiten eman zuten solasaldia.

Jkd 6,7

... Txikiek leuntasun handienarekin epaituak izango dira. Eta txiki iraun daiteke kargurik handienetan eta luzaro bizi izanik ere. Ni Txinan edota beste edonon bizi eta laurogei urterekin hilko banitz, gaur egun bezain txiki izanez hilko nintzatekeela uste dut. Idatzirik dago "munduaren amaieran Jaun ona lurreko otzan eta apalak salbatzera jaikiko dela". Ez dio *epaitzera, salbatzera* baizik.

Sal 75

2

Oinaze beldurgarriak izan zituen azken egun batean honakoa esan zidan:

Oi! ene Ama, bai dela erraza oinazei buruz hitz ederrak idaztea! baina idazteak ez du ezer esan nahi, ezer ere ez! Jasan egin behar dira zer diren jakiteko!

Hitz horiek zirela eta atsekabez beterik nintzen, eta egun berean, esandakoa gogoratuko balu bezala, era bereziz begiratu ninduen eta garrantzia emanez honako hitzok esan zizkidan:

Orain ulertzen dut esan eta idatzi dudan guztia egia dela... Egia da Jainko onagatik oinazeak nahi nituela eta egia da oraindik nahi ditudala.

3

A! beldurgarriak dira zure oinazeak! esaten zioten.

Ez, ez dira beldurgarriak. Maitasunaren biktima txiki batek ezin du beldurgarritzat jo bere Senarrak maitasunez bidaltzen dionik.

Irailak 26

Ez zuen dagoeneko ezertarako indarrik.

Oi! guztiz akiturik nago!

*Zuhaitzetik askatu eta airean hari batetik zintzilik zegoen orri hil bati leihotik begiratzuz:
Begira, nire irudia da; nire bizitza hari mehe batetik zintzilik dago.*

Bere heriotzearen ondoren, irailaren 30ean bertan, ordurarte haritxo batetik zintzilik mugitzen zen orria erori egin zen eta neuk jaso nuen oraindik itsatsia zuen armiarmaren haritxo eta guzti.

Irailak 27

Arratsaldeko ordu biak edo hirurak aldera edaria eskaini genion. Berak Lourdeseko ura eskatu zuen esanez:

Hirurak arte nahiago dut Lourdeseko ura, elizkoiagoa baita.

Irailak 28

1
... Amatxo²⁷ !... Lurreko airea falta zait; noiz emango dit Jainko onak Zeruko airea?...

... Ai! inoiz ez da hain urria izan! (*Haren arnasketa*)

2
-Nire kutuntxo hori, martiriak anfiteatroan bezala zaude; dagoeneko ezin dugu ezer egin zure alde!

Oi! bai, zu ikusteak bakarrik on ugari egiten dit.

Arratsalde osoan zehar irribarreak eskaini zizkigun.

Arreta handiz entzuten egon zen Mikel deunaren Ofizioko pasarte hauek irakurri nizekionean:

"Etorri zen Mikel Arkanjelua aingeru talde handi batekin. Bere esku jarri ditu Jainko onak santuen arimak, paradisiko zorionera iritsiaraz ditzan".

"Mikel Arkanjelua, hartzekoak diren arima guztien printzea egina izan zara".

Keinu egin zidan bere eskua niregana luzatu, eta jarraian gero bere bihotzaren gainean jarriz, ni bere bihotzean aurkitzen nintzela aditzera emateko.

Irailak 29

1
Goizaldetik hilzorian zegoela zirudien. Korroka oso nekagarria pairatzen zuen eta ezin zuen arnasarik hartu. Komunitateari dei egin zitzaion haren ohe ondoan erritualeko otoitzak egiteko. Handik ordubete ingurura gure Amak bidali egin zituen ahizpak.

²⁷ Ama Aines; ik. uztailako 104. oharra.

2

Eguerdiari honako hau esan zion gure Amari:

Nire Ama, hiltamua al da?...Zer egin behar dut hiltzeko? Ez dut inoiz hiltzen ikasiko!...

3

Berrito irakurri nizkion Mikel Santuaren Ofizioko pasarte batzuk eta hiltzorian daudenentzako frantseseko otoitzak²⁸. Deabruai aipamena egiterakoan, haur-keinu bat egin zuen meatxu egiten ziela eta irribarrez esanez:

Oi! Oi!

"Ez diet beldurrik" esan nahi zuen ahots-doinua erabiliz

4

Doktoarearen ikustaldiaren ondoren hau esan zion gure Amari:

Gaur izango da, ene Ama?

- Bai, ene alabatxo.

Gutariko batek esan zuen orduan:

- Gaur oso pozik izango da Jainko ona.

Ni ere bai!

Bai zoriona, oraintxe bertan hilko banintz!

5

... Noiz itoko ote naiz osorik?... Ezin dut gehiago! Ai! egin dezatela erregu nire alde!... Jesus! Maria!

... Bai! Nahi dut, onartzen dut...

6

Ahizpa Maria Hirutasunarena etorri zen eta berak handik laster adeitsuki joan zedila jakinarazi zion. Joan zenean nik esan nion: Gaixoa, hainbeste maite zintuen!

Gaizki egin al dut joateko esanez?

Eta bere aurpegian tristura agertu zitzaion eta nik berehala lasaitu nuen.

7

(Seietan). Intsektu antzekoren bat sartu zitzaion mahukan; kentzean nekarazi egiten zuten.

Utz ezazue, ez dio axola.

- Bai, baina, ziztada egingo dizu!

- Ez, utz ezazue, utz ezazue, ongi ezagutzen ditut animalia txikitxo hauek.

²⁸ Komunitateak goiz berean latinez esan zituen otoitzen itzulpena, *Prières de la Recommandation de l'âme* (L.-J. Biton, 1894).

8

Nik burukomin handia neukan eta ahaleginak egin arren, gogoz kontra begiak ixten nituen hari begiratzerakoan.

Egin lo... eta nik ere bai!

Baina berak ezin zuen lo egin eta esan zidan:

Ai, ene Ama, bai mina ematen dutela nerbioek!

9

Arratseko jolasaldian

... Ai! jakingo bazenu!

(Jakingo bazenu zenbat sufritzen dudan)

10

Uneoro zuri irribarre egitea nahi nuke eta, hala ere, bizkarra ematen dizut. Horrek atsekabea ematen ahal dizu?

(Isilaldian zen)

11

Maitinen ondoren gure Ama ikustera joan zitzaionean, eskuak elkarturik zituen eta ahots ezititsu eta etsiz esan zuen:

Bai, ene Jainko ona, bai ene Jainko ona, guztia onartzen dut!...

- *Eramanezinak al dira dituzun oinazeak? galdetu zion gure Amak.*

- *Ez, ene Ama, ez dira eramanezinak baina handiak, handiak... hain zuzen ere jasan ditzakedan neurrikoak.*

Gauean bakarrik uzteko eskatu zuen, baina gure Amak ez zuen onartu. Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenak eta ahizpa Jenofak izan zuten haren ondoan egoteko kontsolamendu handia (9). Ni klaustrora ematen duen eritegi ondoko gelan geratu nintzen.

a) *Koaderno berdeek gehitzen dute:*

Gaixorik egon zen bitartean ez zuen onartu guk gauak bere ondoan pasatzerik. Irailaren 29tik 30era bitarteko gauean, bere bizitzako azkena, bakarrik uzteko eskatzen zuen oraindik. Azkenik ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenak eta ahizpa Jenofak lortu zuten haren kontsolamenduan partaide izatea... eta haren kezka bakarra zaintzen zegoenaren atsedena ez eragozteka zela ikusi zuten. Egundokoak sufritu behar izan zituen berak ordea!

Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarena lotan geratu zen hari edateko bat eman ondoren, eta zein ez zen izango bere hunkidura esnatzerakoan, gaixoa, sukarrak dardarka zuela, eskuez, ahizpa esnatu eta mahai gainean berriro jar zezan zain, edontziari eusten ikusi zue-nean.



Irailak 30

*Osteguna,
haren heriotza ederraren eguna*

Goizean meza denboran zaintzen egon nintzen. Ez zidan hitzik esaten. Akiturik, arnastuka zegoen; zituen oinazeak ezin handiagoak zirela ikusten nuen. Une batean eskuak elkartu eta Ama Birjinaren irudira begiratu:

Oi! zein gogotsu egin diodan erregu! Baina, hau hiltamu hutsa, inolako kontsolamendurik gabea da.

Maitasunezko eta errukizko hitz batzuk esan nizkion eta bere gaixoaldian on handia egin zidala gaineratu nion.

- Eta zuk, zenbateko kontsolamenduak eman dizkidazun! Oi! oso handiak izan dira!

Gehiegikeriarik esan gabe, egun osoa benetako oinaze artean inolako atsedetik gabe iragan zuela esan daiteke.

Indarrrik gabe guztiz agorturik zegoela zirudien eta, hala ere, gure harridura handirako, mugitu eta ohean eseri zitekeen.

Ikusten duzue *-esaten zigun-* nolako indarrak ditudan gaur! Ez, ez nago hiltzeko zorian!... Oraindik hilabeteetarako eta, behar bada, urteetarako daukat!

-Eta Jainko onak hala nahi izango balu, onartuko zenuke? esan zion gure Amak. Estutasun handi artean erantzuten hasi zen:

Ez legoke beste erremediorik...

Baina berehala indarrak hartuz, konformitate oso handiko tonueran, berriro burkoen gainera eroriz esan zuen:

Onartzen dut!

Hurrengo hotsoak jaso nituen baina ezinezkoa egiten zait esaterakoan erabili zuen airea aditzera ematea:

Honezkero ez dut nire heriotzan sinesten... Honezkero oinazetan baizik ez dut sinesten... Hara, bada, hainbat hobeki!

Ai, ene Jainkoa!...

Maite dut Jainko ona!

Ene Andre Mari ona, zatozkit laguntzera!

Hau hiltamua baldin bada, zer ote da heriotza?...

Ai! ene Jainko *ona!*... Bai, hura oso ona da, oso ona dela iruditzen zait.

Ama Birjinarengana begiratzuz:

Oi! badakizu itobeharrean naizela!

Niri:

Jakingo bazenu zer den itotzea!

-Jainko onak lagundu dizu eta laster amaituko da hau guztiau.

- Bai, baina, noiz?

... Ene Jainko ona, erruki zaitetz zure alabatxo gaixo honetaz! Erruki zakizkit!

Gure Amari:

Ai, ene Ama, kaliza goiko muturreraino beterik dagoela ziurtatzen dizut!...

... Baina Jainko onak ez nau bertan behera utziko, ziur nago...

... Ez nau inoiz utzi.

... Bai, ene Jainko ona, nahi duzun guztia baina erruki zaitetz nitaz!

... Nire ahizpatxook! nire ahizpatxook, egin otoitz nire alde!

... Nire Jainko ona! Nire Jainko ona! Hain ona zaren hori!!!

... Oi! bai, ona zara! badakit...

Bezpera ostean gure Amak bere belaun gainean gure Karmengo Amaren estampa bat jarri zuen.

Begiratu eta gure Amak estampa hartan Jesus Haurrak egiten zuen bezala berak ere laster Ama Birjina laztanduko zuela ziurtatu zionean:

Ai, ene Ama, aurkeziezadazu lehenbailehen Ama Birjina, gehiago ezin duen haurtxo bat naiz eta!... Presta nazazu ongi hiltzeko.

Gure Amak, berak beti apaltasuna ulertu eta bizi izan zuenez prestakuntza ongi egina zegoela erantzun zion. Unexxo batean hausnartu eta apalki hitz hauek esan zituen:

Bai, uste dut inoiz ez dudala egia baino besterik bilatu; bai, bihotzeko apaltasuna ikasi dut... apala naizela uste dut.

Berriro errepikatu zuen:

Oi! Hala ere oso egiazkoa da, sufritzeko izan ditudan gogoei buruz idatzi dudan guztia!

... Eta ez dut neure burua Maitasunari eman izatearen damurik.

Berriro ere:

Oi! ez, ez naiz damutzen, alderantziz baizik!

Geroxeago:

Inoiz ez nuen sinetsiko hain oinaze handiak jasan daitezkeenik! ⁽¹⁾ inoiz ere ez! inoiz ere ez! Ezin dut honako hau ulertu, arimak salbatzeko izan ditudan gogo bizien ondorioz ez baldin bada.

(1) Ez zitzaion ezarri morfina injekziorik

*Bostak aldera, ni bakarrik nengoen haren alboan. Bat-batean aldatu zitzaion aurpegi-
giera. Azken heriotzaldia zela ikusi nuen.*

*Komunitatea eritegira sartu zenean, irribarre ezitsuz hartu zituen ahizpa guztiak.
Gurutzea esku artean eta begiak bertara begira zituen.*

*Bi ordu luzetan zehar arnasestu larriak estutu zuen haren bularra. Aupergia kongestio-
naturik, eskuak ubeldurik, oinak izozturik eta gorputzadar guztiak dardarka zituen. Izerdi uga-
ria tanta bihurtuz, perla handi gisa bekokitik masailetan zehar erortzen zitzaion. Handituz
zihoan estutasunak noizbehinka arnasa hartzeko nahi gabeko intziri txikiak eragiten zizkion.*

*Gureztat hain larrialdi handia zen denbora honetan guztian, -atsekabe handia sortzen
zidala- leihotik txantxangorriaren eta beste txoritxo batzuen kantu hotsak sartzen ziren;
baina, hain gogor, hain hurbil eta hain luze! Nik Jainko onari isilarazteko eskatzen nion,
kontzertu hark bihotza ziztatzen zidan eta beldur nintzen Teresatxo gaixoa ez ote zuten neka-
raziko.*

*Une batean, ahoa hainbestearaino lehortua zuelako ahizpa Jenofak, laguntza emateko
asmoz, izotz zaitxo bat jarri zion ezpainetan. Onartu egin zuen, inoiz ahaztuko ez dudan
irribarrea egin ziolarik. Azken agurra edo zen.*

Seietan, "Angelus" jotzean, luzaroen Ama Birjinaren irudiari begira egon zen.

*Azkenean, zazpiak eta minutu batzuk zirela, gure Amak Komunitatea kanpora bidali
zuenen, berak hasperen egin zuen:*

Ene Ama! Ez al da hau oraindik heriotzaldia?... Ez al naiz hilko?...

*- Bai, nire kutun hori, heriotzaldia da; baina Jainko onak, agian, ordu batzuetan luza-
tu nahi du.*

Berak adoretzu erantzun zuen:

Hara, bada!... Aurrera!... Aurrera!

Oi! ez nuke denbora laburragoan sufritu nahi!...

Eta bere Gurutzer a begiratu:

Oi! maite dut!.....

Ene Jainko ona... maite zaitut!

*Hitz hauek esan eta berehala leunki erori zen atzerantz, burua eskuinerantz zuela.
Gure Amak, berehala Komunitateari dei egiteko eritegiko kanpaia joarazi zuen.*

*- "Ireki ate guztiak" esaten zuen une berean. Hitz hauek doinu berezia zuten eta
Zeruan Jainko onak aingeruei errepikatzen ziela etorri zitzaidan burura.*

*Ahizpatxoek haren ohe inguruan belauniko jartzeko astia izan zuten eta hilzorian
zegoen santatxoaren estasiaren lekuko izan ziren. Haren aurpegiak osasun betearen zegoene-
an izan ohi zuen lili kolorea hartu zuen, begiak goian tinko jarriak zituen, bake eta zorienta-*

sunez beterik. Buruarekin mugimentutxoak egiten zituen, Norbaitek maitasun-geziz zauri jainkotiarra egin eta gero berriro zauritzeko gezia aterako balio bezala...

Ahizpa Maria Eukaristiarena kandela batekin hurbildu zitzaion zeukan begirada Zerutiarrak ondotik ikusteko. Kandela haren argitasunean ez zen mugimendurik nabaritzen haren betseinetan. Estasi honek, gutxi gora-behera, "Sinesten dut" esateko behar den unebete iraun zuen eta gero azken arnasa eman zuen.

Heriotzearen ondoren irribarre zerutiarrak izaten jarraitu zuen. Edertasun liluragarria zeukan. Gurutzea hain estu helduta zeukanez eskuetatik gogor atera beharra izan zen beztitzeko.

Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenak eta biok ahizpa Aimée Jesusenarekin batera bete genuen egiteko hori eta ez zituela 12 edo 13 urte baino gehiago ematen uste dugu.

Haren gorputzadarrek malgu iraun zuten, 1897.eko urriaren 4an, astelehenez, hilobiratu izan zen arte.

Ahizpa Aines Jesusena.
I.k.a.

ERANSKINA

Irailak 30

... Nire nahiera txiki guztiak bete dira... Beraz, nire nahiera handi hau (maitasunez hiltzea) ere gauzatu beharko da.

Arratsaldez:

Ai! nolako indarrak ditudan gaur!... Hilabeteetarako daukat! Eta bihar, egunero, oraindik txarrago izango da!...

... Hara, bada, askoz hobeki!

.....

Ezin dut arnasa hartu, ezin naiz hil!... ⁽¹⁾

Ez dut inoiz hiltzen jakingo!

.....

Bai, ene Jainko!... Bai!...

.....

... Sufritzen jarraitu nahi dut

.....

Bostak aldera Ama Maria Gonzagarenak jatsiarazi egin zituen beraren eskuinera kortinan jostorrazteaz inkatuta zintzilika zeuden Teofano Vénard dontsuaren eta Ama Ana Jesusenaren erlikiak. Jaso zituzten, eta berak fereka txiki bat egin zien.

(1) Ez zuen oxigeno bidezko amasarik hartu.- Uste dut oraindik ez zela era hau ezagutzen.

**Teresak Zelinari esandako
azken hitzak**

1897ko Uztaila-Iraila



Uztailak 12

1

Elkarrizketa baten erdian, nire Teresatxok bat-batean etendura egin eta erruki eta samurtasun handiz esan zuen:

“Ai!... Jenofa nire ahizpa txikia izango da ni joatea gehien sentituko duena. Egin-eginean ere, bera dela errukigarriena uste dut, atsekaberik duenean berehala nire bila etortzen baita eta aurrerantzean ez du inor izango....

... Bai, baina Jainkoak indarrak emango dizkio..., eta ni, gainera, berriro etorriko naiz!”¹

Eta nigana begiratuz:

“Albait lasterren etorriko natzaizu bila eta aitak ere nirekin bat egitea lortuko dut; badakizu beti presaka ibiltzen zena...”⁽¹⁾

(1) (Honekin ez zuen esan nahi arrapaladan jokatzeko zuenik; bezperan egin behar zuena bihar-munerako ez uztera eragiten zion haren izaera aipatu nahi zuen. Inoiz ez zuen geroko uzten hartutako erabakirik)

2

Geroago, herizain lana haren inguruan egiten ari nintzela, bere hurbileko joateari buruz mintzatzean, bera nire lekuan jarriz, kantatu ahala sortzen zuen koplaxo hau kantatu zuen (“Il est à moi” [“Nirea da”] aberstiaren leloa:

“Nirea da, zeruak berak, zeru osoak
eraman nahi izan zidan hura.
Nirea da eta maite dut, oi!, bai, maite dut!,
ezingoa gaitu inoiz ezerk elkarrengandik banatu”.

3

Nik esaten nion: -“Jainkoak ezingo nau zure heriotzaren ondoren berehala eraman, ez baitut astirik izango ona izateko”. Berak erantzun:

-“Horrek ez du garrantzirik; gogoratu Jose Kupertino santua; buru kaxkarreko pertsona ezjakina zen eta ebanjeliotik *Beatus venter qui te portavit* baizik ez zuen

Lk 11,27

¹ Ik. KH 9. VII. 2.

ezagutzen. Hain zuzen ere, gai honetaz itandu ziotelarik hain egoki erantzun zuen, non guztiek harriturik geratu baitziren, eta, bestelako azterketarik gabe, bere hiru lagunekin batera ohore handiz apaiz izateko onartua izan zen. -Hain erantzun ederrak ematerakoan, bere lagunak ere beste hainbeste jakin behar zutela pentsatu zutelako-.

Beraz, nik zure ordeztu erantzungo dut eta Jainko onak dohainik emango dizu niri emango didan guztia”

4

Egun berean, ni eritegitik joan eta etorri nabilela, esan zidan neuri begiratu:

“Nire Baleriano txikia...”

(Inoizka gure elkartasuna santa Zezilia eta Balerianoren artean izandakoarekin partekatzen zuen²).

Uztaila

1

Honelako gogoetak berez irteten zitzaizkion begiraten ninduean:

“Bi txoritxo bezalakoak izango gara, badakizu nola ibiltzen diren elkarren atzetik!”

“Bai izango dudala atsekabea Jainkoaren belaun gainean beste norbait ikusten badut! Egun osoa negarrez emango dut!...”

Nire Teresatxori harridura handia sortu zion Jesusek Zebedeoren semei zeruan bere eskuinaldean eta ezker aldean egotea ukatzen dien Ebanjelioko pasarteak eta esaten zuen: “*Bi leku horiek Jainkoak bi ‘haurtxorentzat’ gorde dituela iruditzen zait...*” *Bi haurtxo pribilegiatu horiek bera eta ni izatea itxaroten zuen... (Hortik dator nik, ez nintzela inoiz duin izango halako mesedea lortzeko eta, behin eta berriro neure beldurra, ai, ongi finkatuta! agertuz, gaiari buruz itaunak egitea. - Bera hil eta hiru astebetara gutxi gora-behera, terziako ordu-otoitzean izandako “Haec facta est mihi” dohaina izan zen, bat-batean neure buruari eman nion barne-barneko galdera honen erantzuna: -“neure Teresatxok ez al dit esan lortua duela itxaroten zuen lekua: Jainkoaren belaun gainean egotea?...” Une horretan koruak salmoan honako hau esaten zuen: “Haec facta est mihi” ... Nik ez nituen ulertzen hitzok, itzulpena eliz otoitza bukatutakoan bilatu nuelarik: “Haec facta est mihi” ...=“Hori izan da nire zoria...”*

Mt 20,23

Sal 118,56

2

Nik, hura joaterakoan zoratu egingo nintzela esan nuen. Berak erantzun zidan:

“Zoratu egiten bazara, haurtzaina, “Bon-Sauveur”³ [Salbatzaile ona] bila etorriko zaizu!...”

² Ik. A Esk., 61⁴; TO 3; TG 149 eta 161.

³ «Bon Saveur»ri buruzko hitz-jokoa; horixe da Martin jauna ospitaleraturik egon zen osasun-etxearen izena.

(“Haurtzaina” [“Bobonne”] gure Amaren baimenez, niri deitzeko familia arteko izena zen, zerbitzatzen nuelako eta etengabeki deitu beharra izanik, nire benetako izena esatea baino neke txikiagoa ematen ziolako).

3

Ama Aines Jesusenak gure Aingeruaren hitz eder guztiak idazten zituela eta nik, ordea, presaka neuri pertsonalki zegozkidanak bakarrik idazten nituela ikustean, zer guztiak ezin idatzi izanak ematen zidan nahigabea agertu nion honela:

- “Nik ez dut besteak bezala egiten, ez dut esaten duzunaren berririk jasoten”. Berehala erantzun zidan:

-”Zuk ez duzu beharko; bila etorriko natzaizu...”

Eritegira jaitsi baino lehenago, ekaina zen, hura laster joango zela eta, egun batez lur jota ikusi ninduean, Jesus Haurrari begiratu zion eta keinu xarmagarria eginez, hatza niri begira jarritz hitz egin zion kontuak eskatuko balizkio bezala:

“Ene Jesustxo, ni eramaten banauzu, “Lili andereñoa”⁽¹⁾ ere eraman beharko duzu. Hauxe da jartzen dizudan baldintza; begiratu, bada, ongi zer egiten duzun... Ez dago erdiperdizkorik, edo hartu edo utzi!”

(1) Haurtzaro garaietako gure familiako izengoitia, bakarrean esaten zidana. “Totó jauna eta Lili andereñoa” haur ipuin batetik atera zituen; bera Totó jauna zen eta ni Lili andereñoa.

4

Uztailaren 22an neure izeba Guérin andreari idazten nion:

... Joan zen egunean, nire gaixotxoari zeruko zorionbideei⁽²⁾ buruzko pasarte bat irakurtzen ari nintzaion. Hark eten egin ninduen esanez:

“Ez nau, hain zuzen ere, horrek erakartzen...”

- Zerk, bada? erantzun nion:

- “Oi! Maitasunak! Maitatu, maitatua izan eta [Maitasuna maitaraztera*]⁴ lurrera itzultzeak...”

(* hau ez dago haren autografoan)

(2) Ni leiho ondoan eserita nengoan.

5

Gauean odol-okadak izan zituen. Guztiz pozik haurtxo baten eran noiz behinka platera⁵ erakusten zidan. Sarritan, atsekabezko keinu bitxia eginez, ertzak seinalatzen zituen niri honakoren bat edo aditzera eman nahirik: “nik honaino beterik nahi izango nuke!”

Nik ere tristerik erantzun nion:

- “Oi! Ez dio axola asko edo gutxi izateak; hala gertatzea zure heriotzaren seinale da...”

⁴ «Maitasuna maitaraztera». Ahizpa Jenofak hitzok ezabatu eta ondoko testua erantsiko du: «(hau ez dago haren autografoan). Guérin andreari uztailaren 22an bidalitako gutuna esan nahi du autografoa esatean. Arazo horretaz, ik. *Derniers Entretiens*en argitaraldi kritikoa, DE, 721-723. orr.etan.

⁵ Azpil txikia, txuontzi gisa erabiltzen zena; ik. KH 31. VII. 6.

Gero gaineratu nuen: -"Ai! Ni baino zorionsuagoa zara, nik ez dut nirearen seinale-rik eta".

Berak berehala erantzun zuen:

- "Oi! bai, seinale bat duzu! Nire heriotza zurearen seinale da!..."

Uztailak 21

Eritegian, gela egoki antolatuz, neure betebeharrak egiten nituen bitartean, bera begira-begira izan nuen eta bat-batean, inork eta ezerk horretarako biderik eman gabe esaldi honekin hautsi zuen isilaldia:

"Zeruan nire ondoan izango duzu eserlekua!"

Eta geroago, Luis XVII.ari buruzko olerki eder bateko pasartea aipatuz⁶.

"Laster etorriko zara nirekin
... Negarrez den haurra kulunkatzera,
eta haren egonleku distiratsuan,
arnasa argitsuz eguzkiak berriztatzera...";

gero, kerubin gorrizko kolore urdin-iluneko hegoak jarriko dizkizut... Nik neuk lotuko dizkizut, zuk ez baituzu jakingo egiten: goregi edo beheregi jarriko zenituzke!"

Uztailak 24

1

Hainbat pasadizu ezagutzen zituen eta gertakari multzo handia zuen gogamenean, une egokia iristean erabiltzen zituelarik; horrela hizketa irudiz jantzia eta betea izaten zen.

"Borondate oneko arima bat zara -esan zidan- ez izan beldurrik; arrisku guztietatik aterako zaituen "txakurtxo" daukazu..."

(Konjurio batean deabruak Surin Aitari eginiko aitorten hura aipatzen zuen: "Guztiak hartuz ateratzen naiz; borondate oneko txakur hori besterik ez da geratzen, horren aurka ezin baitut ezer egin".

2

Nik esaten nion: "Zu zara nire eredia eta eredu hori niretzat ezin gauzatzukoa da. Oi! zein mingarria den hau! Uste dut ez dudala horretarako behar dena, ni distantzien ezagupe-nik ez duen haurtxoaren antzekoa naiz: amaren besoetan eskutxo luza duen du kortina edo beste edozein gauza hartzeko..., oso urruti dagoela koniuratu gabe!"

- "Bai, azken unean Jainkoak Zelinatxo gogoan izan dituen gauza guztietara hurbilduko du eta orduan zer guztiak hartuko ditu".

⁶ Biktor Hugoren olerkia.

Abuztuak 3

"Oso txikia zara, gogora ezazu norbait oso txikia denean ez dituela pentsamendu handiak izaten..."⁷

Abuztuak 4

1

Nire lekaime-bizitzako lehen urteetan neure izaera berezkoaren erabateko deusestapena izan nuen; neure inguruan hondarrak baino ez nituen ikusten eta horrek sarritan kexatzera eramaten ninduen. - Haietariko batean kantatzen entzun nion (doinua) ⁽¹⁾ :

*"Lurreko hartzain akastuna,
zeruan izango zara bikaina!" (ter)*

(1) *Azken bi lerro hauetarako ahairea, San Joseri eginiko kantu batetik:*

*"Jose, lurrean gutxietsia,
Bai handia zarela zeruan!" (ter)*

(Kantika honen lehen koplak honela hasten zen:

"Handikien odola zenuen zainetan..."

eta leloaren lehen lerroa:

"Iragankorra da gizakien aintza")

2

Nire ahizpatxoak bizkarrean eta eskuineko besoan zituen min handiak leuntzeko, besoari airean zintzilik eusteko oihal tolestatuz eginiko tira luze bat ohe-zeruan jartzea otu zitzaidan. Honek ez zion luzaroko balio izan; hala ere bihotzez eskertu zidan eta samur-samur esan:

"Jainkoak ere esekitokiak egingo ditu hartzainarentzat!"

3

Elkarrizketa bat etenik, nahigabez esan nuen haren heriotz gogora ekarriz:

- "Nik ezin izango dut hura gabe bizi!

- "Egia diozu, erantzun zuen biziki, horregatik bi ekarriko dizkizut..." (hegoalak)

4

Neure Teresatxoarekin bakarrik aurkitu nintzenean esan nion: -"Txolarren baten arrautzatik zu bezalako txoritxo zoragarri bat irtetea nahi al duzu? Ezinezkoa da!"

"Bai, baina, nik fisikako saiaketa bat egingo dut santuak alaitzeko. Arrautzatxoa hartu eta santuei esango diet: Adi-adi egon, esku-jokoa egingo dut eta:

Hemen daukazu txolarre-arrautza bat: Hara, bada! Neu bezalako txori polit bat ateratzera noa hemendik!

⁷ «Pentsamendu bikain»ei buruz, ik. C Esk., 119^a/an; TG 89 eta 141 Zelinari.

Orduan, isilka-misilka esango diot Jainkoari neure arrautzatxoa aurkeztuz, baina isilka, oso isilka: "Alda ezazu txoriotxoaren izaera beragan arnasa eginez..." Gero itzultzen didanean Andre Mariari emango diot laztantzeko eskatuz... Jarraian Jose doneari emango diot leunki igurzteko eskatuz... Azkenik ozenki esango diet santu guztiei:

- Egin promes, arrautzatxotik ateratzen den txoritxoa neu bezala maitatuko duzuela!

Orduan, garaipen-keinua eginez, arrautzatxoa puxkatuko dut eta txoritxo polit bat Jainkoaren belaun gainera nire ondora etorriko da, eta santu guztiek kontaezinezko poz zoragarria izango dute bi txoritxo batera kantatzen ikustean..."

Abuztuak 5

1

Mt 24,41 *"Bi emakume arituko dira ehotzen, bata eramango dute eta beste utziko" Ebanjelioko pasarteari buruz:*

- "Guk elkarrekin geure negozio txikia daukagu. Ezin duzula bakarrik eho alea ikusiko dut eta bila etorriko natzaizu... Egon erne, bada, ez baitakizue zein ordutan etorriko den zuen Jainkoa".

Mt 24,42

Sarritan gogoratzen zidan bi bazkideren antzekoak ginela. Zer garrantzi du bataak besteak baino baliabide gutxiago izateak? Banatzen ez diren artean, etekin berdinak jasoko dituzte.

Nire Teresatxok beti esaten zidan, Jainko-Arranoar⁸ habiaren ahoan itxaroten zion txoritxoaren metaforan eta etengabe begiratzen zion hartan, ez zitzaiola burura etortzen bakarrik egoterik, han bi txoritxo zeudela baizik...

2

Behin eta berriro izpirituko eta bihotzeko txirotasuna gogora ekartzen saiatzen zen honelakoak esanez:

- "Beharrezkoa da haurtzaintxoak bere izaeran irautea, inoiz etxekoandre handia izateko ahaleginetan aritu gabe!".

Eta eliz otoitzeko ordu bat errezatu gabe nuenez gero, haurtxo baten tonuera erabiliz esan zidan:

- "Joan zaitez nona errezatzera. Eta gogoan izan lekaiame oso txikia, lekaimeen artean azkenengoa zarela!"

3

- *Bakarrik utziko nauzu, ala?*

- "Oi! ezta ezergatik ere!"

⁸ Ik. B Esk., 4/5^a.

Eta neure gogoko gaira itzuliz:

- "Zurekin zeruan izatea itxaron dezakedala uste duzu? Hori ezinezkoa iruditzen zait: besobakar bat donibanezuhaitzeko goiko puntan jarritakoa hartzeko lehiaketara aurkeztea bezelako zerbait litzateke..."⁹

- "Bai, baina!, eskubakarra besoetan hartu, goi-gora jaso eta hartu nahi duena emango dion erraldoi bat egongo balitz bertan?"

... Horrela egingo du Jainkoak zurekin, baina ez duzu horretaz kezkatu behar. Jainkoari honako hau esan behar diozu: "Badakit ez naizela itxaroten dudana lortzeko nor, baina nire eskua luzatzen dizut txiro baten antzera eta ziur nauzu osoosoan entzungo nauzula, hain ona baitzera!..."

Abuztuak 8

- "Zu joan ondoren zure bizitza txikia idazten bada¹⁰, nik aurretik joan nahi nuke... Uste duzu?"

- "Bai, hala uste dut, baina ez da pazientziarik galdu behar... Begira iezadazu, zein txintxoan naizen; berdintsu jokatu beharko zenuke".

Abuztua

[Irudia]

1

Nire ahizpa maiteak ahaleginak egiten zituen ni neure buruarekiko loturetatik askatzen eta gure ibilera estampa honetan pintaturik agertzen ziren bi haurren ibilerarekin konparatzen zuen. Bera, gauza guztiak erantzita, tunika bat bakarrik jantzita, esku artean ezer txo ere eraman gabe, narras zeraman bere ahizpatxoaren eskua izan ezik. -Honek eragozpenak jartzen dizkio: loreak bildu behar ditu, bi eskuak betetzen dizkion lore-sorta handiaren zama hartuz.

2

Behin baten honako alegiazko istorio hau kontatu zidan¹¹ :

"Behin batean bazen aberastasun ugari, gizakia bidegabeko bihurtzen duten horietakoak, zituen "andereño" bat, eta haiei garrantzi handia ematen ziena.

Bazuen ezer ez zeukan neba bat, baina hala eta guztiz ere ugaritasunez gainezka bizi zena. Haurtxo hau gaixotu egin zen eta arrebatoari esan zion: -'Andereño', ardurak besterik ekartzen ez dizkizuten zure aberastasun guztiak surtara jaurti eta zure "andereño" deitura utziz nire haurtzain bihurtuko bazina, ni, laster joango nai-

⁹ Ik. KH 8. VII. 7.

¹⁰ *Histoire d'une Ame* argitaratuz.

¹¹ Zelinarekin bizi izandako haurtzaroaren oroitzapena eta AE/J osoan zehar aurkitu ahal izango dugun bien etorkizun amankomunaren baieztapena (-.VII. 1; 12. VII. 4; 5. VIII. 1; -.VIII. 1; -.VII. 3.) Ik. A Esk.ko 9^a.ko «bi oilotxoak».

zen herrialde xarmangarrian izatean, zure bila etorriko natzaizu, ni bezala txiro, etorkizuneko ardurarik gabe bizi izango zarelako.

‘Andereñoak’ bere neba zuzen zebilela ulertu zuen; hura bezain txiro egin zen, haren haurtzain izatera aldatu eta aurrerantzean inoiz ez zioten zurtara bota zituen aberastan ustelkorrek inolako buruhausterik eman...

Haren nebatxoak bete zuen bere hitza: Jainkoa Errege eta Andre Maria Erregina diren herrialde xarmangarrira iritsi zenean bila etorri zitzaion eta biak mendez mende Jainkoaren belaun gainean biziko dira, horixe izan baitzen biek aukeratu zuten tokia, txiroak izanik ez baitzuten errege-aulkirik merezi izan...”

3

Beste behin, haur biak zituen estanpari eta, era berean, armairuetan ezeren faltarik ez duen etxekoandreari aipamen eginik esan zuen:

“Andereño aberatsegia: zenbait arrosa-kapulu ⁽¹⁾, belarrira kantatzen duten txoritxo ugari, hainbat azpikogona, sukaldeko tresnak, paketetxoak...”

(1) *Autoreak bere heroia zen Teofan Vénard goraiatzten zuen pasarte honetatik hartuta dago: “Ezpainetan arrosa kapulu bat eta belarrira kantatzen zion txoritxo bat zituen”.*

4

Gau batean jantziak erantzten ikusi ninduelarik, gure jantzien txirotasunak errukia eman zion eta entzuna zuen umorezko esaera bat erabiliz esan zuen:

- “Gaixo-Gaixoa!⁽²⁾ zarpailaz ⁽³⁾ bildurik zaude! Baina ez zara beti horrela izango, neuk esaten dizut!

(2) *Sarri ematen zidan goitizena*

(3) *“Torée” -latinezko torus-: soka (zarpail)*

5

“Zerura nadinean, Jainkoaren altxorretik ateratzera joango naiz eta esango dut: “Hau Mariarentzat, hau Paulinarentzat, hau Leoniantzat, hau *Zelina txikitxoarentzat*... Eta, aitaxori keinu eginez: -”Orain *txikitxoena* da, berehala bila joan bear da!”

6

Gaixotu baino pixka bat lehenago izan zuen amets hau kontatu zidan:

“Itsas bazterrean nik ezagutzen ez nituen bi pertsonakin zeunden. Haietako batek ibilaldi bat egitea proposatu zuen, baina bai hura bai haren laguna oso zikoitzak ziren eta hirurek gainean batera joateko astoa alokatu beharrean bildots bat hartu behar zela esan zuten. Baina bi pertsona gainean zituela ikusi zenuenean, zu oinez joango zinela esan zenuen.

Ardi gaixoak gehiago ezin zuen eta, hesi ondora gero eta gehiago hurbilduz zihuan, eta laster erori zen zamaren pisuak akiturik.

Orduan bideko bihurtune batean bildots zuri xarmagari bat aurkeztu zitzaizun bere burua eskainiz. Une hartan ulertu zenuen hark eramango zintuela bizitza-

ko ibilaldian zehar. Gero bildotsak esan zizun: “Badakizu, zuregan ere taupadak eman nahi ditut...”

- Gero argi ulertu nuen, harako hura, kexatu gabe, eroapenez bi pertsonari erakutsitako karitatearen ordaina zela. Horregatik Jesus berbera etorri zitzaizun bere burua zuri ematera”.

Abuztuak 16

Goizean goiz jaiki ondoren, neure ahizpatxoak oinazeek eta larridurek zurituta eta itxura aldatuta aurkitu nuen. Esan zidan:

“Deabrua inguruan dabilkit, ez dut ikusten baina somatzen dut... Oinazetu egi-ten nau, burdinazko esku batez eusten dit atsedean txikienik ere har ez dezadan, nire minak handitu egiten ditu etsipenean eror nadin...Eta ezin dut otoitz egin! Andre Mariari begiratu eta Jesus! esan baino besterik ezin dut... Bai dela beharrezkoa arratseko otoitza: “Procul recedant omnia et noctium phantasmata!” Aska gaitzazu gaueko mamuetatik¹².

Zer misteriotsua somatzen dut... Orain arte, batez ere, eskuineko saihtesean nuen min, baina Jainkoak ea zure alde oinazetik hartu nahi nuen galdetu zidan eta berehala baietz erantzun nion... Une hartan izugarriko mina sortu zitzaidan ezkerreko saihtesean... Zure alde sufritzen dut eta deabruak ez du nahi!”

Bizikiro hunkiturik kandela bedeinkatu bat piztu nuen eta pixkanaka-pixkanaka bakea zituzi zitzaien, gorputzeko oinaze berriak iraun bazion ere.

Ordutik aurrera bere eskuineko saihtesari “Teresaren saihtesa” eta ezkerreko saihtesari “Zelinaren saihtesa” deitu zien.

Abuztuak 20

“Oi! bai, bila etorriko natzaizu, hain ona zarenez gero, zure begiak ez daude lurreko gauzei begiratzeko eginak”.

Abuztuak 21

“Nik “minak ditut” esatean zuk *pozten naiz!* erantzungo duzu!” -Nik ez dut horretarako kemenik, baina horrela zuk bukatuko duzu nik esan nahi dudana”.

Une hartan estura handia zuen eta arnasa hartzeari laguntza emateko arrosario-aleak banan-banan pasatuko balitu bezala “sufritzen dut, sufritzen dut...” esaten zuen; baina berehala, kexu izan zela pentsatuz gaizki egindakotzat jo eta idatzi berri dudana esan zidan.

¹² Ik. KH 25. VIII. 6.

Abuztuak 22

“Ene andereñotxo, bihotzez maite zaitut, eta oso atsegingarri zait zuk zaindua izatea”.

Hau esateko deitu ninduen.

Abuztuak 24

Bion artean hitz egiterakoan besteek ulertu ezin zuten gaztetako mordoilo mota bat erabiltzen genuen. Ahizpa San Stanislasek, lehen erizainak, harriduraz esan zuen: “bai direla barregarriak bi gaztetxo hauek ezin ulertuzko mordoilo horrekin!”

Geroxeago esan nion neure Teresari: -“ Bai garela barregarriak biok elkartuta! Baina zu bakarrik ere barregarria zara, ni, ordea, zurekin soilik naiz barregarria!”

Berak bizi-bizi erantzun zuen:

- “Horrexegatik etorriko natzaizu bila¹³ !”

Abuztuak 31

- “Hurtzaintxo, bihotzez maite zaitut!”

Irailak 3

1

Ni eritegiko tximinia ondoan nengoen, hara eta hona gela konpontzen eta asalaturik nengoen zerbait nik nahi bezala ez zegoelako. Berak esan zidan:

“Hurtzaintxo, izpirituzko egoezinik ez!”

2

Egun berean, baina ez egoera berean, honelako esames hau egin nion: -“ Gizakiek ez dute sekula jakingo guk elkar hain maite izan dugunik...” Berak erantzun zuen:

“Ez du ezer balio gizakiek jakiteak; garrantzitsuena hala izatea da...”

Eta ziurtasun osoa zuen aireaz:

“Bai baina gu biok Jainkoaren belauan gainean eserita egongo garelako!”

(Bere-berea zuen “bai baina!” esakunea esateko era polit-polita zuen).

¹³ «vous quérir»en ordez “vous cri” dio.

Irailak 5

1

“Nik babestuko zaitut!”...

2

Ni zuhur izaten nintzen igandeetan, paper solteetan arrapaladan jasotako oharrak garbira pasatzeko neure astia erabiliz. Esan nion: -“Gaur igande alferra izan dut, ez dut ezer idatzi gelan”¹⁴.

Berak erantzun zuen:

- “Hori Lili-ren neurria da, baina ez Jesusena”.

Irailak 11

1

“Haurtzaina, honezkero ez zara nire haurtzaina, nire inudea zara..., eta hilzorian dagoen haurtxo bat zaintzen ari zara”.

Bere bihotzeko Teofanoren irudia zuen estanpara begiratzuz, hitz eginez esan zuen:

“Haurtzainak oso ongi zaintzen nau; horregatik ni han goian izatean biok etorriko gatazka bila, ezta?”

2

“Bihotzez maite dut neure haurtzaina, bihotz-bihotzez... Horregatik joan ondoren, hain ongi zaindu nauelako eskerrak emateko etorriko natzaio bila”.

3

Samurki begiratzuz zidala:

“... Baina ni ikustera etorriko natzaizu eta poztu egingo zaizu bihotza eta ez dizu inork kenduko zeure poza!”

Jn 16,22

Irailak 16

1

Nik inperfekzio bat egin berri nuen eta begiak zabal-zabal esan zidan:

“Hala ere, nire ondoan egongo zara¹⁵ !”

¹⁴ «Koadernoan» idazten du beste toki batean ahizpa Jenofak.

¹⁵ «Jainkoaren altzoan» ulertu behar da, jakina!.

2

Nik eskaintzen nizkion ardurak negar-zotinetaraino samurturik esan zuen ozenki:

“Oi! bai eskertzen dizudala, ene hartzain gaixoa!... Ikusiko duzu egingo dizudan guztia!”

3

Hotz izango zuen beldur nintzen eta esan nion:

- “Gozagarri” (1) txiki baten bila noa. Baina hark biziki erantzun zidan:

- “Ez, nire gozagarria zeu zara...”

(1) (“Gozagarriak” arropategiko arduradunak neguko jantziekin batera lekaimeei banatzen dizkien artilezko puska batzuk dira).

Irailak 19

“Hain atsegina da nire hartzaina, hain ongi zaintzen nau!... Hau guztiau ordainduko diot!”

Irailak 21

“Maitatzeko, neu nauzu..., eta ez maitatzeko, ez duzu Jainko ona, deabrua baizik!”

Irailak 23

“Ez duzu ulertu beharrik, txikiegia zara...”

(Jainko onak niregan egiten duena ulertzeko)

Irailak 25

“Hiltzera noa, egiatan... Ez dakit noiz, baina gauza ziurra da!”

Iraila

1

Egun batean esan nion: -“Zeru goitik begiratuko diguzu, ezta?” -Orduan berez-berez erantzun zuen:

- “Ez, jaitsi egingo naiz¹⁶ !”

¹⁶ Ik. KH 13. VII. 3.

2

Gauean hainbat aldiz jaikitzen nintzen, hark ez jaikitzeo esan eta esan egin arren. Harako bisitaldi batean nire ahizpatxo maitea eskuak baturik eta begiak zerura begira aurkitu nuen:

“Zer egiten duzu horrela?, esan nion, lo egiten saiatu behar zenuke”.

- *“Ezin dut, oinaze handiegiak ditut; beraz, otoitz egiten dut...”*

- *“Eta zer esaten diozu Jesusi?”*

- *“Ez diot ezer esaten, maitatu egiten dut¹⁷ !”*

3

Bere bizitzako azkenaldiko egun batean, oinaze handien artean honela egin zidan erregu:

“Ai, ene ahizpatxo Jenofa, egin erregu nire alde Andre Mariari! Nik etengabe erregutuko nioke zu gaixorik izango bazina! Ni neu ez naiz ausartzen eskatzen...”

(“Ez naiz neuretzat eskatzen ausartzen”..., hau da esanahia).

Eta niregana zuzenduz erreguka jarraitzen zuen:

“Oi! bai otoitz egin behar dela hiltzorian direnen alde! Jendeak jakingo balu¹⁸ !”

(Esakun hau eta Ama Aines Jesusenak idatzitako gehienak Teresak esan ahala entzuen nituen nik eta ez nituen idatzi kopiatuak zirela ikusten nuelako. Ni haien guztien lekuko izan naiz Orduen Liturgia bitartean esaten zituenak izan ezik, une horietan Ama Aines Jesusena gelditzen baitzen bakarrik harekin).

Zehaztasun handiagorako, ikus, era berean, neure eskuz idatzitako Aitorpena¹⁹.

Irailak 27

“Oi! haurtzaintxo! Nire bihotzak zureganako samurtasun handia sentitzen du!...”

Irailak 30

Nire Teresatxo maitearen erbeste honetako azken eguna...

Heriotza-egunean, arratsalde, Ama Aines Jesusena eta biok haren ondoan geundela, gure Santatxo maiteak, dardarka eta akiturik laguntza eskatu zigun... Giharre guztietan oinaze izugarriak zituen eta bere beso bata Ama Aines Jesusenaren sorbaldan eta bestea nirean jarritz, horrela geratu zen besoak gurutz-eran zituela. Une hartan jo zituen hirurak eta Jesusen gurutzeko pentsamendua etorri zitzaigun gogora: ez ahal da gure martiri gaixo eta txikia haren irudi bizia?

¹⁷ Esaera hau ahizpa Jenofak bakarrik jasotzen du, eta HA 98tik argitaratua (243. or.).

¹⁸ Ik. KH 25. VIII. 6.

¹⁹ Prozesu Apostolikoa prestatzeko oharrak (PAKO).

Guk "norentzat izango zen beraren azken begirada..." galdetzean, hark hil aurreko egun batean honela erantzun zuen: -"Jainkoak aukeratzen uzten badit, nire azken begirada gure amarentzat izango da" (Ama Maria Gonzagarenarentzat)

Hala ere, hiltorian zegoela, azken arnasa eman baino minutu batzuk lehenago, nik sutan zituen ezpainetatik izotz zati bat pasatu nion; berak, une hartan, begiak nireganantz jaso eta profetikoki begira-begira jarri zizkidan.

.....

Haren begirada samurtasunez beterik zegoen, une berean, arnasaz eta promesaz beteriko naturaz gaingindiko airea zuen, honako hau edo esan nahi balit bezala:

"Ea bada, ene Zelina, zurekin izango naiz!..."

(Une hartan, Jainko onak, haregatik hemen behean egin beharko nuen ibilaldi luze eta neketsua aditzera eman eta nire desterrurako kontsolamendua eman nahi izan ote zidan? Egin-eginean ere, guztiek nahi zuten arren, niretzat izan zen azken begirada haren oroitzapenak eusten dit eta esanezinezko indar-iturri bilakatu zait).

Han zegoen Komunitatea zurt eginda zegoen harako gertakari handiaren aurrean. Baina, bat-batean, gure Santatxo maiteak begiak jaitsi zituen bere ondoan belauniko zegoen gure Amaren bila, haren begirada estaliak lehen zuen oinazezko era hartuz.

Gure Teresatxo maitearen Azken Hitzak

1987ko irailak 30

Oi! Oinaze gordin-gordina da, ez dago bertan batere kontsolamendurik, batere ez!

Ai, ene Jainkoa!!! Hala ere, maite dut Jainkoa!... Ai! ene Andre Maria maitea, zatozkit laguntzera!

Hau bada hiltamua, zer izango ote heriotza?...

Ai, ene Ama, ontzia goraino beterik dagoela ziurtatzen dizut!

Bai, ene Jainkoa, nahi duzun guztia..., baina erruki zakizkit! Nire ahizpatxo-ok... nire ahizpatxo-ok... Ene Jainkoa, ene Jainkoa, erruki zakizkit!

Ezin dut gehiago... ezin dut gehiago! Eta hala ere beharrezkoa da bizitzen jarraitzea...

Jota..., jota nago... Ez, inoiz ez nuen uste izango hainbeste sufri zitekeenik... Inoiz ez, inoiz ez!

Ai, ene Ama, honezkero ez dut niretzako heriotzan sinesten!... Honezkero oinazean baizik ez dut sinesten!

Bihar oraindik txarrago izango da! Tira, bada, askozaz hobeki!

Iluntzean

(Gure Amak bidali berri zuen Komunitatea, hiltamuak oraindik iraun egingo zuela esanez, eta gure santatxo gaixoak erantzun zuen:)

Hara, bada!... Aurrera... aurrera! Oi! ez nuke gutxiago sufritzerik na hi!.....

Bai, maite dut!

“Ene Jainko ona... maite zaitut!”

**Teresa Jesus Haurarenaren
Azken Hitzak**

Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenak bilduak

Uztailak 8

1

Oso nekagarri gertatzen zitzaion nobizia bat zela eta esan nion: "Zuretzat borroka handi bat da! Beldurra duzu?"

- Soldadu batek ez dio beldurrik borrokari, eta ni soldadu bat naiz.

(Nobizia berari haserre egin ondoren)

Ez ahal dut esan armak eskuetan ditudala hilko naizela¹ ?

2

"Lapurra²" oso urruti dago, beste haur batzuk lapurtzera joan da!

3

Uztailaren 8a dugu eta ekainaren 9an jadanik ikusten nuen Lapurra. Horrela jokatzekoa bada, ez dagoela lapurtzeko unean esan nahi du.

4

"Zorte txarreko ohean", trena galtzea dakarren ohean jarri naute.

Ohe berebetean oleazioak hiru aldiz hartu zituen Ama Jenofa du gogoan hori esatean.

Uztailak 9

Hobeki aurkitu zuen medikuaren ikustaldi ondoren.

"Lapurra" joan egin da berriro! Hara, bada, egin bedi Jainkoak nahi duena!

Uztailak 12

- Zeure bizitzari hasiera eman beharko bazenio, nola jokatuko zenuke?

- Egin dudak bizitza bera egingo nuke³.

¹ TO 48, 5, 11-12.

² Ik. KH 9, VI. 1.

³ HA 98, 227. or. an eta NVko 12. 7. 3. ean datorren esatera.

Uztailak 13

1

- Jakingo bazenute zenbat egitasmo egin ditudan, zenbat gauza egingo ditudan zeruan!... Neure eginkizuna betetzen hasiko naiz⁴...

- *Nolako egitasmoak dituzu, bada?*

- Neure ahizpen albora etortzekoa, hara behera misiolariei laguntzera joatekoa eta, horretaz gainera, basati txikitxoak bataiatu aurretik hiltzea eragoztekoa.

2

Bera joan ondoren zeharo lur jota geratuko nintzela eta ez nuela inori hitzik zuzentzeko adoretik izango iruditzen zitzaidala esan nion.

1 Ko 9,22

- Hori ez dator bat Ebanjelioaren legez. Oso-osorik besteena izaten jakin behar da.

3

- *Poztu zaitez, bizitza honetako atsekabeetatik laster askatuko zara eta.*

- Ni, soldadu hain ausarta naizen hau?

4

- *Eta zer egin beharko luke zure amabitxik?*

- Ahizpek esaten duten guztiaren, egiten duten guztiaren gaintetik ibili. Zeure monasterioan egongo ez bazina bezala, hemen bi egun baizik igaro beharko ez bazenitu bezala bizi behar duzu. Hala izanik, kontu handia izango zenuke zer gogo duzun ez esateko, utzi egin beharko baituzu.

(Ni Salberako jotzen zuten bitartean hitz hauek idazten ari nintzenez gero).

- Hobe litzateke, askozaz hobe hori galtzea eta erregelako egintza betetzea. Jakingo balu jendeak zer nolako garrantzia duen horrek!

Uztailak 16

- Jainkoak esango balit: "Orain hilko bazina, aintza oso handia izango zenuke. Laurogei urtez hilko bazina, zure aintza txikiagoa izango litzateke, baina horrek poz handiagoa emango lidake", erantzuna ematerakoan ez nuke inolako zalantzarik izango: -Ene Jainkoa, laurogei urtez hil nahi dut, ez baitut neure aintza bilatzen, soil-soilik zuri atsegin ematea baizik.

Santu handiek Jainkoaren aintzaren alde egiten zuten lan, baina nik, hain arima txikia naizenez gero, bakarrik hari atsegina emateko, haren gutuziak betetzeko egiten dut lan; eta oinazetik handienak eramatea nahiko nuke, Jainkoak berak

⁴ Ik. KH 13. VII. 17.

jakin gabe ere, halakorik ahal izango balitz, ez une bateko aintza ematearren horrekin haren ezpainetan irribarre bat sortu daitekeela jakitearren baizik⁵.

Uztailak 25

“Pixka bat makurtuz, leihotik eguzkiaren sarrera ikusten nuen azken izpiak izadiaren gainera zabaltzen eta zuhaitzen gainak gorri-gorri ageri ziren. Nik neure artean pentsatzen nuen: Bai dagoela aldea itzalpean izatetik maitasunaren eguzkiaren argipean izatera!... Kasu honetan gauza guztiek urrezkoak dirudite. Horregatik ageri naiz ni gorri-gorri. Egiatan ez naiz halakoa, eta berehala utziko nuke itxura hori, maitasunetik aldentuko banitz”.

Uztailak 28

1

Gure artean esaten ari ginen nekez utziko genituela geure jolasaldiak bera ez zen beste inorengatik. Eta hark berehala erantzun zuen:

- Nik, ostera, atsegin oso handia izango nuke hala eginez! Lurrean sufritzeko bagaude, zenbat eta gehiago sufritu hainbat eta zoriontsuago izan ohi da... Maitasuna askozaz hobeki bizitzen da hain atsegin ez zaigun pertsonari opari eginez⁶.

Oi! bai gaizki dakigula lurrean gure arazo txikiak eramaten!

2

Nik esaten nion: bai dela zoriontsua bizitza maitasunean bizi ondoren hiltzea!

- Bai, baina ezinbestekoa da, era berean, lagun hurkoganako maitasunean hutsik ez egitea.

Uztailak 29

Nik, Marta santuaren musikatxo bat, merezimenduak egiteko bide izan zuela esaten nion. Berehala erantzun zidan:

- Ez merezimenduak egiteko! Jainkoari atsegin emateko... Merezimenduak pilatu banitu, berehala eroriko nintzateke etsipenean!

Abuztuak 1

Ez dakit nola konponduko naizen hiltzeko⁷... Ai! baina neure burua utzirik dut erabat!... Jainko onak nahi duena gerta bedi!

⁵ Ik. KH 16. VII. 6*.

⁶ Ik. C Esk., 13^o/14^a.

⁷ Ik. KH 6. VI. 4; 31. VII. 4; 1. VIII. 5; 29. IX. 2; 30. IX.

Abuztuak 10

- *Ez dezazula oinaze handirik izan eskatu dut eta begira zenbat sufritzen duzun!- esan nion.*

Erantzun zidan:

- Jainkoari ez diezaiela jaramonik egin niregan bere nahia betetzea eragotz dezaten otoitzei eta ken ditzala horren aurkako oztopo guztiak eskatu diot.

Abuztuak 11

- *Ezingo dut, beraz, Ama Aines Jesusenarekin asaskatu barrua? -esaten nion*

- Ez legoke horretarako arrazoirik hark kontsolamendu beharra izan ezik. Zuk ez diozu zeure kontsolamendurako inoiz hitz egin behar, priore ez den artean. Egia diotsut, hala egin nuen nik beti. Gure Amak niri hitz egiteko baimena eman zion, baina nik ez nuen eta horregatik ez nion neure arimaren berri ematen. Uste dut honek egiten duela lekai-me-bizitza martiritza-bide. Hau gabe, bizimodu eroso eta merezimendurik gabea litzateke.

Abuztuak 15

1

Hamairuan⁸, jaunartu aurrean, Komunitateak "Confiteor" esaterakoan era bereziz hunkiturik sentitu zen. Eta esan zidan:

Ahizpa guztiek nire ordeztu "Aitortzen diot Jainko Aita Ahalguztidunari, Andre Maria guztiz zoriotsuari, santu guztiei" esaten entzutean, neure artean pentsatzen nuen: Oi!, bai, ona dela santu guztiei barkamena eskatzea!... Ezin ditut neure sentimenduak azaldu. Horrela sentiarazi nahi dit Jainkoak zein txikia naizen. Horrek zoriontsu egiten nau!

2

Oraindik oinaze handiak eraman beharko dituzula pentsatzeak atsekabetu egiten nau- esan nion.

- Ni ez naiz atsekabetzen, Jainkoak behar dudana ematen dit eta.

3

Geure artean esaten genuen: Jainkoak gaur gabean eramango balu, inor konturatu gabe joango litzateke... Bai pena izango genukeela!

- Ai! Niri polita irudituko litzaidake; neu lapurtzea bezala litzateke!

⁸ Benetan, abuztuaren 12an.

Abuztuak 20

Ni ez naiz iraganagatik edota etorkizunagatik sufritzen duten pertsona horietakoa. Nik oraingo unean sufritzen dut. Horrela, ez da zer handia izaten.

Abuztuak 22

Inork ez daki zer den honela sufritzea. Ez! jasan egin behar da...

(Etenik gabeko oinazezko egun beraren amaieran).

Ikusten duzu zein ona den Jainkoa. Gaur ez nuen indarrik eztula egiteko ere, ia-ia ez dut eztulik egin. Orain zerbait hobeki nagoenez gero, berriro hasiko zait estula.

Abuztuak 27

- Nahi duzu ur izozturik? esan nion

- Oi! bene-benetan nahi nuke!...

- Gure Amak, behar duzun guztia eskatzeko agindu dizu, egin ezazu esaneko izateko.

- Behar dudan guztia eskatzen dut.

- Eta atsegin duzunik ez?

- Ez, bakarrik behar dudana. Horrela, mahatsik ez baneuka ez nuke eskatuko.

Edan ondoren oraindik bere ur-edontzira begira jarraitzen zuen. Esan nion: -Edan ezazu pixka bat.

- Ez, ez dut mihia lehorturik⁹.

(Zauden moduan gaixorik egonda ere oraindik mortifikazio bila zabiltzala pentsatzen dudanean!)

- Zer nahi duzu? Neure buruari jaramon egingo banio, sarriegi edango nuke.

Irailak 1

(Zerbitzu txiki ugari behar izaten zituen Ama Hermance Jesusen Bihotzarena zela eta)

Bai izango nukeela gogoko haren erizain izatea! Beharbada, naturari dagokionean nekagarri izango nukeen, baina, uste dut maitasun handiz zainduko nukeela, gure Jaunak esandako "gaixorik nintzen eta lagundu ninduzuen" hitzak gogoan ditudalako.

Mt 25,36

⁹ Ik. KH 27. VIII. 9.

Irailak 8

Ai! Andre Maria! Ez zait bila etorri!

Irailak 17

(Hilerria zela eta)

Ulertzen dut zuei hainbateko zirrara egitea. Baina niri! Zer zirrara egitea nahi duzue¹⁰ ?... Lurrean hilda dagoena sartuko dute; ez da egoera letargikoan egotea-
edo, orduan oso gorra litzateke.

Irailak 21

Hitz bat entzun nahi nion, iragana gogoratu eta nik gaztaroan eskaini nizkion maitasuneko ardurei buruz zerbait esatea edo nahi nuen. Pentsamendu hori nire burutik iragan bezain laster, Ama Aines Jesusena eta ni begiratu gintuen, begiak negar-malkoz beterik zituela esanez:

“Ahizpatxook..., zuek zarete hezi nindutenak!...

Irailak 25

Ni samurkiro begira nengokion.

Amabitxi, zein ederra zaren zure aurpegia maitasun-izpiak argitzen duenean!...Hain da garbia!”

Irailak 30

“Oi! Oinaze gordina da, ez dago han inolako kontsolamendurik, batere ez!
Ai, ene Jainkoa!!! Hala ere maite dut Jainkoa!... Oi! ene Andre Mari on hori, zatozkit laguntzera!

Hau hiltamua baldin bada, zer ote da heriotza?...

Oi! ene Amatxo maitea, ontzia goraino beterik dagoela ziurtatzen dizut!

Bai, ene Jainkoa, nahi duzun guztia..., baina erruki zakizkit!

Nire ahizpatxook... nire ahizpatxook... Ene Jainkoa... ene Jainkoa, erruki zakizkit! Ezin dut gehiago... ezin dut gehiago! Hala ere, beharrezkoa da bizitzen

¹⁰ Ik. DE, 17. 9 + a, 660 eta ondorengo orrialdea.

jarraitzea... Akituta... akituta nago... Ez, ez nuen inoiz uste izango hainbeste sufri zitékeenik... Inoiz ere ez, inoiz ere ez!

Oi, ene Ama, honezkero ez dut niretzako heriotzan sinesten!...Oinazean sinesten dut!

Bihar oraindik txarrago izango da! Hara, bada, hainbat hobeki!

Bere Gurutzeari begira esandako azken hitzak:

“Oi! maite dut!...”

“Ene Jainkoa... maite zaitut!”

Teresaren Beste Hitzak

AMA AINES JESUSENA

Maiatza

Mezatarra joan eta jaunartu zuen egun batean, enplastua kendu berri zioten arren, nik negarrari eman nion eta ezin izan nuen Orduak errezatzera joan. Gelara lagun egin nion eta han, bere aulkian, bizkarra oholezko hormaren kontra zuela gogoratu ohi dut beti. Zeharo ahuldurik zegoen eta begirada tristez, baina, era berean, leunez begiratzen zidan. Ugari-tu egin ziren nire malkoak eta zenbateraino nahigabetzen nuen antzemanez, barkamena eskatu nion belauniko. Berak besterik gabe honako hau erantzun zidan:

“Ez da jaunartze baten trukean gehiegi sufritzea!...”

Esaldia errepikatzea ez da ezer; entzun egin behar zen zer-nolako ahotsez esan zuen!¹

*

Egun haietan ez-tul gogorra izaten zuen, batez ere gauetan. Eta orduan, estualdia arindu eta berriro arnasa hartu ahal izateko lastamarraga gainean eseri beharra izaten zuen. Nik nahiago nuen eritegira jaistea, han lastaira bat eman ahal izateko, baina hark behin eta berriro bere gelan egotea nahi zuela esaten zuen eta bertan utzi zuten, ezer egiterik izan ez zen arte:

“Hemen ez naute ez-tulka entzuten, ez dut inor molestutzen -esaten zuen- eta, gainera, gehiegi zaintzen banaute ez dut gozamenik hartzen”.

*

*Enplastu berri bat jartzeko, zahar agurgarri, oso bihotz oneko eta eraman handikoa zen erizainak, oraingoan besaulki bat jarri zion eritegian. Baina erosoago egon zedin eser-leku haren bizkarraldean kuxinak eta kuxinak jartzean, gaixo koitadua berehala besaulkia-
ren muturrean eserita, edozein unetan erotzeko arriskuan aurkitu zen. Kexatu beharrean, biziki eskerrak eman zizkion ahaizpa onari eta horrela egon zen egun osoan zehar ikustera zetozenen gorai-pamen hauek entzunez: “Tira, ikusten dut eroso zaudela! zenbat kuxin dituzun! Argi dago benetako ama batek zaintzen zaituela, etab...”*

¹ Testu hau eta ondorengo biak Koaderno berdeetan daude, maiatzaren 21etik 26ra.; ik. DE II (DP), 38 eta 40. orr.

Ni ere erratu nintzen, nik ongi ezagutzen nuen haren irrifarreak aditzera eman zidan arte... baina ordurako berandu zen konpondu ahal izateko.

Ekaina

189ko ekainaren 9an, ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenak, haren heriotzaren ostean oso goibel geratuko ginela ziotsan. Berak erantzun zuen:

“Oi! Ez, ez, ikusiko duzue... arrosazko euri-zaparrada baten antzekoa izango da.

Eta gaineratu zuen:

“Nire heriotzaren ondoren, gutunontzira joango zarete eta hantxe aurkituko duzue kontsolamendua”².

*

(Ama Aines Jesusenak esne-botilei zegokien 1897.eko ekaineko datako oroitzapen hau jaso zuen:)

Ustekabean aurkitutako egunkariko orri batetik ebakitako marrazki hau (hemen behean deskribatua) ekarri zidan irribarre maltzurrez ahizpa Teresa Jesus Haurrarenak, oso gaixo zegoela esnea besterik hartzen ez zuelako oso nahigabaturik nengoen une batean.

Niri barre eragiteko modu bat zen. Esan zidan:

“Begira! nire esne botilak, agerian makila-muturra besterik ez duen mozkor horri bereak jarraitzen dion bezain zintzo jarraitzen dit!”

Horrelakoxe alaia zen gure santatxo maitea.

(Eskuz idatzitako orri soltea, aipaturiko marrazkia duena; botila ahoan zuen jabe ikusiezinaren makilak izuturik, lasterka zetorren txakur baten irudia zekarren^{2b}.)

Uztaila

Zerua harentzat Jainkoa ikusi eta oso-osoan berarekin bat eginda izatea zen. Hainbat santuri, batez ere Akinoko Tomas santuari jarraituz, ez zuen saritzat jainkoa bera baino besterik itxaroten.

Gure Jaunaren hitzok zituen gogoan: “Betiko bizitza zu ezagutzean datza...” eta harentzat Jainkoa ezagutzea maitatzea zenez gero, honako hau esan zezakeen:

“Itxaropen batek jartzen du pil-pil nire bihotza: hartuko dudan maitasunak eta nik eman ahal izango dudanak.”³

*

² PA, 199. or. (DE, 438. or.).

^{2b} DE, 451. or.

³ PAKO, Zeruko itxaropena [DE II (DP), 448. or.].

Nik, bere hitzetan heriotza ostean arimei irakatsi nahi zien bideari buruzko azalpenak eskatzen nizkion.

“Ene Ama, haurtasun izpiritualaren bidea konfiantzaren eta buru-uzte osoaren bidea da. Niri fruitu hain onak eman dizkidaten baliabide erraz horiek irakatsi nahi dizkiet; hemen lurrean zer bakar bat egin behar dela esan, hau da, sakrifizio txikiz eginiko loreak Jesusi bota, laztanekin bihotza irabazi. Horrela irabazi diot nik eta horregatik izango naiz hain ongi hartua.”⁴

Abuztua

Gau batean, eritegian gogo handiz aurkitzen zelarik, bestetan baino irekitasun handiagoz barneko atsekabeen berri ematen hasi zitzaidan. Ez zuen inoiz gai honetaz hain gogo handiz barrua hustu. Ordurarte nik azal-azaletik baizik ez nuen ezagutzen haren proba.

«Jakingo bazenu *-esan zidan-* zein pentsamentu izugarrik hartuta nagoen! Erregutu asko nire alde, hainbeste gezur buruan sartu nahirik ari zaidan deabruari jaramonik egin ez diezaiodan. Materialisterik okerrenen arrazoibide honek hartzen dit neure izpiritua: egunen batean, zientziak, etengabe aurrerapen berriak eginez, guztia azalduko du naturalki, eta gaur egun oraindik ilunpean dauden gauza guztien arrazoi nagusia ezagutu ahal izango dugu, oraindik gauza asko eta asko agertzeko baitaude..., etab. etab.

Nik on egin nahi dut neure heriotzaren ondoren, baina ezin izango dut! Ama Jenofarekin gertatu zena gertatuko zait: mirariak egiten ikusteko ustea genuen, eta isiltasun osoa egin zen haren hilobi inguruan...

Oi, ene Amatxo!, Nola izan daitezke honelako pentsamenduak Jainkoa hain maite denean?

Azken batez..., hain sufrimendu handi hauek fedegabe gaixoek fedearen argia lor dezaten eskaintzen ditut eta Elizaren fedetik aldendurik dauden guztien onerako”.

Eta pentsamendu beldurgarri horiekin sekula ere ez dela eztabaidan sartzen gaineratu zuen:

“Ezinbestean jasaten ditut- esan zuen- baina jasaten ditudan bitartean etengabe aritzen naiz sinesmen-egintzak egiten”.

*

“Karmelen hiltzerainoko hotzak jasan ditut.”

*Harridura sortu zidan hala hitz egiten entzuteak, neguan haren itxurak ez zuelako inola ere oinaze hori aditzera ematen. Ez nuen inoiz, hotzik handienez ere, hotz izaten denean berez egiten den bezala, eskuak igurzten edo lasterrago edo ohi baino makurtuago ibiltzen ikusi.*⁶

*

⁴ *Novissima Verba*, uztailaren 17an [DE II (DP); 169. or. J].

⁵ PAKO, haren proba fedearen aurka (DE, 525. or.).

⁶ PAKO, Neurritasuna (DE, 537. or.).

Gaixoaldi honetan zenbat aldiz eragin ote zion irribarrea Jainko onari bere eraman onaren bidez! Nolako oinazeak jasan ote zituen! Batzuetan hiltzen ari ziren bildots txikiaren antzera kexatzen zen:

“Ene ama, *-esan zidan-* min hain biziak dituen gaixorik duzunean, kontu handia izan pozorik duen sendabiderik halakoen ondoan ez uzteko. Honelako oinaze mailara heltzen denean, nahikoa izaten dela unetxo bat burua galtzeko diotsut. Eta orduan erraz har daiteke pozoia.”⁷

Iraila

Behin batean, ama priorea, beraren aurrean, hiriko hilerrian lur sail berria erosi genuela esaten ari zitzaion medikuari, zaharrean lekurik ez zelako. Aurrerantzean, gehitu zuen, hilobiak hiru hilkutxa elkarren gainean jartzeko adina sakon zulatuko zirela hobian.

Teresa Jesus Haurrarenak irribarrez esan zuen:

“Beraz, neu izango naiz hilerri berri horretako lehena?”

Medikuak, harriturik, oraindik ez zuela haren hilobiratzean pentsatzen esan zion:

“Hala ere gogoeta oso alaia da *-erantzun zuen berak-* Baina kezkatzen nau zuloa hain sakona izateak, jaitsi behar nautenek ezbeharren bat izan dezakete eta.”

Eta txantxa eginez jarraitu zuen:

“Lurremaileak elkarri, batak *-ez tiratu hemendik hainbeste lokarria!*- eta besteak *-tiratu handik!* Eh, kontuz! Bueno, ongi dago!- esaten ari direla, eta nire hilkutxaren gainera lurra bota ondoren joan egiten direla guztiak iruditzen zait.”

Cornière jauna joan zenean, nik ea benetan ez zion egiten zerik lurtean hain sakonean sartuko zutela jakiteak galdetu nion. Harridurazko arpegia jarriz erantzun zidan:

“Ez zaitut ulertzen! Zer dela eta sortu behar dit zerik! Ez lidake inolako nazkari emango hobi amankomun batera botako nautela jakiteak ere”⁸.

⁷ Koaderno berdeak, abuztuaren 30ean [DE II (DP), 348. or.].

⁸ PAKO, Apaltasuna. Bere buruarekiko zuen gutxiespenaren adibidea (DE, 661. or.).

AHIZPA JENOFA

Ekaina

Gaixoaldian, neke handiz lagun egin zion komunitateari Jesusen Bihotzaren ermitara eta eseri egin zen kantu bati hasiera ematen genion bitartean. Ahizpa batek taldean parte hartzeko keinua egin zion. Jota zegoen eta ia ezin zen zutik jarri. Hala ere, berehala zutitu zen eta nik bilera ostean, horregatik haserre egin nionez, besterik gabe esan zidan:

“Guztiei, Jainkoak horrela bere nahia adieraziko balit bezala, obeditzeko ohitura hartu dut.”⁹

*

1897ko urtean zehar ahizpa Teresa Jesus Haurrarenak, gaixorik erori baino hainbat lehenago, urte horretan hiltzea itxaroten zuela esan zidan. Hona hemen, ekainean, birikeriak jota sentitu zenean emaniko arrazoiak.

“Ikusten duzu, Jainkoak apaiz izateko adinera iritsi orduko eramango nauela... Apaiz izaterik banu, ekain honetan ordenazio hauetan Ordena santuak hartuko nituen. Hara, bada, inolako atsekaberik izan ez dezadan, Jainkoak ni gaixorik izatea nahi izan du; beraz, ezin izango nintzen ordenaziora joan eta ministeritza hasi baino lehenago hilko nintzen.”¹⁰

Uztaila

Ahizpa batek, bere bekatuak garbitzeko ordubeteko beldurra izan zezakeela hil aurretik esan zion:

“Neure bekatuak garbitzeko heriotzaren beldurra...? Horrek ez luke basaz beteriko urak baino eraginkortasun handiagorik izango. Horregatik beldur horiek izaten badituz Jainkoari eskainiko dizkiot bekatarien alde eta maitasuneko egintza izango denez gero, oinaze hori besteentzat ura baino askoz eraginkorragoa izango da. Ni garbitzen nauen zer bakarria Jainkoaren maitasun-sua da.”¹¹

*

(Beste behin, jaunartu ostean)

“Bi haur elkarren ondoan jarri eta bata besteari ezer esango ez balio bezala zen. Hala ere, nik zertxo batzuk esan nizkion baina ez zidan erantzun; ziurrenik lotan egongo zen.”

*

⁹ PA, 306. or.

¹⁰ PO, 305. or. (DE, 619. or., 4. aldaera).

¹¹ Testu honen eta ondorengo seien iturri gisa, ik. DE, 588. or., 3 eta 5. aldaerak (testua, 616 eta ondorengo orrialdea).

“Hil ondoren ez dut ezer esango, ez dut aholkurik emango. Nahiz ezkerretara nahiz eskuinetara jarri, ez dut laguntzarik emango. Hobeki dago alde honetik, esango dute; sua bera ere jarri ahal izango dute nire ondoan, eta nik ez dut ezer esango.”

*

(Liburutegi aurrean aurkitzen zen egun batean)

- Oi! Bai damu izango nukeela liburu horiek guztiak irakurri izana!

- *Zer dela eta? Horiek irakurri izatea aberastasuna eskuratzea litzateke zuretzat. Ulerzen dut irakurtzea astun gertatzea, baina ez irakurri izatea.*

- Irakurri izan banitu burua nahastuko nukeen eta, horrela, Jainkoa maitatzen erabiltzeko nuen asti baliotsua alferrik galduko.

*

Pentsatzen ere ez dakidala iruditzen zaidan barne-egoera batean aurkitzen naiz.

- Ez dio axola, Jainkoak zure asmoak ezagutzen ditu eta. Zenbat eta apalagoa zaren hainbat eta zoriontsuagoa izango zara.

*

Erlojuak jo ondoren handik hain arin mugitzen ez nintzen batean esan zidan:

“Zoaz zeure betebeharrera”

Eta bere esana zuzenduz:

“Ez, zeure maitasunera”

Beste behin nik esaten nion: lan egin behar dut, bestela Jesus goibel jarriko baita. Eta berak erantzun zidan:

“Bai zera, zeu jarriko zinateke goibel. Hura ezin da goibel jarri gure txikimainak direla eta. *Baina, bai dela penagarria gure zer hau, ahal dugun guztia ezin eman ahal izate hau!*”

*

Odol-jarioak izaten zituenean, poztu egiten zen bere odola Jainkoagatik isurtzen ari zela pentsatuz:

“Ezin zitekeen bestetara izan -*esaten zuen*- nik banekien nire odola isuria ikusteko kontsolamendua izango nuela, maitasunaren martiri hiltzen ari bainaiz.”

*

Beste behin esaten nion: Saigon-era joan nahi izan zenuenez gero, beharbada, zeruan egon zaitezenean zure orde zenuen joango naiz zure lana osotzera; orduan bion artean lan oso-oso egingo dugu.

“Ai! inoiz hara joango bazina, ez pentsa, gero, ezer osotzera zoazenik. Ez dago horren beharrik. Guztia dago ongi, guztia bikain, guztia dago eginda, maitasu-

nak balio du bakarrik... Hara joatekotan, Jesusen *gutziagatik* joango zara, besterik ez. Ez pentsa lan *onuragarria* izango denik; Jesusen *gutizia* izango da..."¹².

AHIZPA MARIA BIHOTZ SAKRATUARENA

Maiatza

Erizainak, egunero ordu laurdeneko ibilalditxo egiteko lorategitik gomendatu zion. Oso nekez eta ia guttiz akiturik zebilela aurkitu nuen eta esan nion: "Hobeki egingo zenuke atseden hartuko bazenu, esan nion, zure egoeran ibilaldi horrek dizu mesederik egin; akitu egiten zara, besterik ez".

- "Egia da -erantzun zidan- baina, ba al dakizu zerk ematen dizkidan indarrak? Hara, bada, misiolari baten ordeztu nabil. Han urrutian, oso urrutian, beharbada, haie-tarikoren bat apostolutzako ibilaldietan akiturik egongo da eta haren nekeak arin-tzeko nik neureak eskaintzen dizkiok Jainkoari"¹³.

Uztaila

Karmelen izan zuen oinazea egunero jaunartu ezina izan zen. Hil baino pixka bat lehe-nago, egunero jaunartzearen bildur zen Ama Maria Gonzagarenari esan zion:

"Ene Ama, zerura nadinean, iritzia aldaraziko dizut."

*Eta horrela gertatu zen. Jainkoaren Mirabearen heriotza ondoren, kapilau jaunak egunero ematen zigun Gure Jauna eta ama Maria Gonzagarena, lehenago bezala asaldatu beharrean, oso zoriontsu zen.*¹⁴

*

Behin batean esan nion: zu joatea dela eta, neu bakarrik atsekabetuko banintz...! Baina nola kontsolatu ahal izango dut hain maite zaituen ama Aines Jesusena?

"Ez zaitez arduratu -esan zidan- ez du bere atsekabeen pentsatzeko astirik izango, bizitzaren azken ordurarte nirekin okupaturik eta arazoei aurre eman ezinik izango baita."¹⁵

*

¹² CMG II, 73. or. [DE II (DP), 482. or.].

¹³ Ik. DE, 635. or., 2. aldaera (testua, 649. or.).

¹⁴ PO, 249. or (DE, 440. or.).

¹⁵ GAPO 1908, 14. or. (DE, 659. or.).

1897ko abuztu inguruan, hil baino sei haste lehenago, ni haren ohe ondoan nengoan ama Aines Jesusenarekin eta ahizpa Jenofarekin. Bat-batean, elkarrizketak honetarako biderik eman gabe, aurpegi zerutiarra jarriz begiratu eta argi-argi esan zigun:

“Ongi dakizue santatxo bat zaintzen ari zaretela...”

Interrogata a R.D. Judice Vicario Generali an Serva Dei aliquam hujusce sermonis explicationem vel correctionem addiderik? - Respondit: [Epaile Bikario Nagusi jaunak galdetu zionean ea azalpenen bat edo zuzenketaren bat gehitu zion esaldi honi, honela erantzun zuen:]

Hitz horiek entzutean oso hunkiturik geratu nintzen, santu bati heriotzaren ostean gertatuko zitzaiona alde zurretik esaten entzun banio bezala. Hunkipen horrek zeharo harturik, eritegitik pixka bat aldendu egin nintzen eta besterik entzun nuenik ez naiz gogoratzen.¹⁶

AHIZPA MARIA EUKARISTIARENA

Uztailak 11

Maitasunaren aurkako tentaldiak izan ditzazunean, Kristoren Antz-Bideko kapitulu hau irakurtzea gomendatzen dizut: “Nola eraman behar diren besteen akatsak”. Ikusiko duzu nola desegiten diren zure tentaldiak. Beti egin izan dit on ugari. Oso ona eta egiazkoa da”¹⁷.

Uztailak 18

Zeruan izatean niretzat grazia handiak lortzeko eskatzen nion eta erantzun zidan:

“O! zeruan izatean hainbat gauza, gauza handiak egingo ditut!... Ezinezkoa da gogo hau ematen didana Jainkoa bera ez izatea, ziur nago hark jaramon egingo didala! -Eta, bestalde, han goian izatean hurbiletik jarraituko dizut!...”

Eta nik, beharbada, beldurra sortuko didala esatean:

“Beldurra ematen ahal dizu zeure aingeru zaintzaileak?... Hala ere, jarraitu egiten dizu. Hara, bada, nik ere jarraituko dizut eta hurbiletik. Ez dizut ezer igarozten utziko”.

Uztaila

“Jainkoari beti ematen zaio atsekabe pixka bat Ama prioreak dioena buruan pixka bat zalantzan jartzen denean. Eta atsekabe handia ematen zaio, barruan izanda ere, zalantza handitan jartzen denean”

¹⁶ PA, 245. or. (DE, 651. or., 3. aldaera).

¹⁷ Ik. DE, 777 eta ondorengo orrialdea.

Abuztuak 2

“Ez dut maitatua eta bigunki hartua izatean inolako berezko atseginik aurkitzen; baina oso handia aurkitzen dut apalarazia izatean. Apaltzen nauen eta nolakoa naizen ikusten uzten didan tontakeriaren bat egiten dudanean, oi! orduan bai hartzen dudala berezko atsegina, benetako poztasuna! Zuk maitatua izatean sentituko zenukeen bezalakoa”.

Irailak 11

“Oso bihozbera bihurtu beharko zenuke; inoiz ere ez hitz gogorrik, tonuera garratzik. Ez izan inoiz joera gogorrik, izan zaitez beti bihozbera.

Esaterako, atzo X ahizpa nahigabetu zenuen; unetxo bat geroago beste horrenbeste egin zuen beste ahizpa batek. Zer gertatu zen?... Hark negar egin zuela!... Hara, bada, gogortasunez hitz egin ez bazenio, hark hobeki hartuko zuen bigarren atsekabea, inor konturatu gabe iraganez. Baina elkarren jarraian bi atsekabe izatean, atsekabe-egoera handira eramán zuen; zu bihozbera izan bazina, ez zen hori gertatuko”.

*

Egun batean santa izango nintzala hitz emanarazi zidan; ea aurrerakuntzarik egiten nuen galdetu zidan eta nik erantzun: “zu zerura joandakoan santa izango naizela hitz ematen dizut; une horretan bihotz eta buru ekingo diot lanari.

-Oi! ez itxaron ordurarte, *erantzun zidan*. Has zaitez oraintxe. Ni Karmelera sartu aurreko hilabetea oroitzapen gozoz beterik dut barruan. Hasieran zure antzera esaten nion neure buruari: “Karmelera heltzean egingo naiz santa; ez dut ordurarte ahaleginik egiteko asmorik...” Baina Jainkoak denboraren balioa ulertarazi zidan; gogoan nuenaren kontrakoa egin nuen. Oso leiala izanik gertatu nahi izan nuen sarrera eta hura nire bizitzako hilerik ederrenetarikoa izan zen.

“Sinets nazazu, ez utzi geroko santa izaten hastea”.

AHIZPA MARIA HIRUTASUNARENA

Apirila

Bere heriotza baino bost hilabete lehenago gertaturiko pasadizu hau kontatu zidan:

“Arratsalde batean, erizaina oinetan ur berodun botila eta bularrean iodozko tintura jartzera etorri zen. Nik sukar handia nuen eta egarriaren egarriz ito beharrean negoen. Halako erremedioak ezartzean kexu agertu nintzen gure Jaunaren aurrean: “Ene, Jesus, esan nion, ongi dakizu zuk sutan nagoela eta oraindik bero eta su gehiago dakarkidate!... Ai! honen ordezt botila erdi ur izango banu!... Ene Jesus,

zure alabtxoa oso egarri da! Hala ere, zorionsua da beharrezkoa duen zerbait falta izan eta zure antz handiagoa izateko eta arimak salbatzeko aukera duelako". Handik gutxira, erizainak utzi egin ninduen, eta ez nuen hurrengo goizerarte ikusteko itxaropenik, unetxo bat geroago nire harridura handiz edari freskagarri bat zekarrela agertu zen... Oi! zein ona den gure Jesus! Zein gozoa harengan fidatzea!"¹⁸.

Maiatza

Atzo, "Arrosa hostokatuaren" kantak gogorapen atsegina ekarri zidan burura. Messine etorbideko Pariseko Karmeleko Ama Maria Enriketak, santa Teresa Jesus Haurrarenari gai honi buruz olerki bat egiteko eska niezaiola erregutu zidan. Gaia gure santa maitearen sentimenduen haritik bat zetorrenez gero, gogo osoa jarri zuen horretan. Ama Enriketa oso pozik geratu zen; heriotza unean, Jainkoak, kendutako petalo guztiak bildu eta betikotasun osoan diz-diz egongo den arrosa eder bat egingo zuela azalduz eginiko azken ahapaldia falta zela esanez idatzi zidan. Orduan Teresa Jesus Haurrarenak esan zidan:

"Ama on horrek egin dezala berak nahi duen eran ahapaldi hori, nik ez baitut horretarako inolako inspiraziorik sentitzen. Nire nahia, Jainkoari poz ematearren betiko hostokatua izatea da. Eta kito...!"¹⁹

Ekaina

Beti gogoan ditut gure Aingeruak heriotzaldiko hiru hilabete luzeak (...). Debekatua nuen harekin hitz egitea, gaztea izanik, haren gaixotasunaz kutsatua izan ninteeen aitzakiaz. (Nik, baina, oso-osoan bestetara uste nuen, Teresa Jesus Haurrarenak Jainkoari inork ez zezala harako gaixotasuna hartu eskatu ziola esan zidalako). Haren osasunari buruzko berriak egunerik egunera tristeagoak ziren; ni atsekabez ito beharrean nintzen... Behin batean haize pixka bat hartzera lorategira joan nintzen eta gaixoen burditxoan gaztainondoan azpian ikusi nuen; bakarrik zegoen eta hurbiltzeko keinuak egin zizkidan. "Oi! ez, esan nion, ikusi egingo gaituzte eta ez dut baimenik". Aurpegi Santuaren ermitara sartu nintzen eta negarrari eman nion. Burua jasotzean, harriduraz Teresa Jesus Haurrarena nire ahizpatxoa, nire ondoan zuhaitz baten enbor gainean eserita ikusi nuen. Esan zidan:

"Nik ez dut debekaturik zugana hurbiltzea, eta horregatik hilko banintz ere, kontsolatu nahi zaitut".

Nire negarrak xukatu zituen nire burua bere bular gainean jarriz. Bere burditxora itzultzeko erregutu nion, sukarrez dar-dar zegoen eta.

"Bai, baina ez zure irribarrea jaso gabe".

*Berehala egin nion, gaizkiago jarriko zela beldur bainintzen eta lagundu egin nion burditxoraino joaten*²⁰.

*

¹⁸ PAKO (Koaderno gorria, 21-22. orr.; ik. DE, 785. or.).

¹⁹ Ahizpa Maria Hirutasunarenak ama Aines Jesusenari bidalitako oharra, 1935eko urtarilaren 17an.

Atsekabe handia sortzen zidan gaixorik ikusteak eta sarritan esaten nion: "Oi! bai dela tristea bizitza! Baina berak berehala zuzentzen zuen esanez:

"Bizitza ez da tristea! Alderantziz, oso alaia da. "Erbestea tristea da" esango bazenu, ulertuko nizuke. Oker egiten da amaitzen denari bizitza izena ematean. Zeruko gauzei, inoiz hilko ez denari eman behar zaio, egiatan, izen hori; horregatik, bizitza ez da tristea, alaia, oso alaia baizik²¹ !..."

Uztaila-abuztua

Jaiegun batean jantokian ahaztu egin zitzaizen niri azkenburukoa jartzea. Bazkal ondoren eritegira joan nintzen ahizpa Teresa Jesus Haurrarena ikustera; eta han nire mahaiki-dea aurkitzean nahiko argiro adierazi nion nitaz ahaztu izana. Entzun zidan ahizpa Teresa Jesus Haurrarenak eta zerbitzuaren erantzukina zuen ahizparengana joateko agindu zidan; eta nik ez jartzeko halako lotsabiderik erregutzean:

"Ez, esan zidan, hori izango da zure penitentzia; ez zara duin Jainkoak eskatzen dizkizun sakrifioetarako. Hark azkenburukorik gabe geratzeko eskatzen zizun, hura izan baitzen zutaz ahazten utzi ziena. Sakrifizio hori egiteko nahikoa eskuza-bala zinela uste zuen eta zuk huts egin diozu zuregan jarria zeukan usteari kontuak eskatzera joatean!"

Eman zidan ikasbidea oso onuragarria izan zela eta hartan berriro erortzeko betiko eskarmentua hartu nuela ziurta dezaket²².

Abuztua

Honek nire ahizpatxo Teresa Jesus Haurrarenarekin izandako barneko oroitzapen bat dakarkit burura. Gutxi gorabehera, hil baino hilabete lehenago izan zen. Komunitate osoa triste zegoen eta ni ez nengibilen inoren atzetik atsekabe horretan. Eritegira ikustera joatean, bere ohe barrenean entretentzeko eman zioten baloi gorri bat ikusi nuen. Baloi hark nire nahiera sortu zuen eta "bai nahi nukeela horrekin jolastea" esatera bultzatu ninduen. Berak irribarre egin zuen, baina hain ahul zegoenez zaratarik ezin zuen jasan, eta esan zidan:

"Jar zaitez nire atzean inor ez dagoen bitartean artean eta egin jolas; begiak itxiko ditut zaratak zorabia ez nazan".

Poz-pozik hartu nuen baloia eta jolasean hain gozamen handia hartzen nuen, non Teresatxok ñir-ñir egiten baitzuen sarritan niri begiratzeko, begira zegoenik agertu gabe eta ezin zion barreari eutsi. Orduan esan nion: "Gehiegizkoa da niretzat hain luzaro triste egotea! Ezin dut gehiago! Eguberrian eman zenidan zibatxoarekin jolas egiteko tentaldiak ditut; baina inork ikusten banau, beharbada, gaizpidea hartuko du eta bihotzik ez dudala esango du".

²⁰ Ama Aines Jesusenari 1934ko azaroaren 27an egindako gutuna (DE, 780. or.).

²¹ *Histoire d'une Ame*, 1907, 296. or. (DE, 781. or.).

²² PAKO (Koaderno gorria, 48. or.); DE, 781. or.

“Ez, ez *-erantzun zidan-* neuk agintzen dizut ziba hartu eta ordubetea nobi-ziatuko ganbarara jolas egitera joateko. Han inork ez dizu ezer entzungo eta inorkonturatuko balitz, neuk agindu dizudala esango diozu. Joan zaitez, ba, atsegin handia ematen dit jolastera zoazela pentsatzeak”²³.

*

“Ni Zerura nadinean *-esan zidan-* sarri bete beharko dituzu nire eskuak sakrifizio eta otoitzez, arimen gainera arrosazko euri-zaparrada gisa botatzeko atsegina eman diezadazun”²⁴.

Irailak

Hil baino zortzi egun lehenago, gaueko jolasaldi osoa negarrez eman nuen laster joango zitzaigula gogoratuz. Konturatu egin zen eta esan zidan:

“Negar egin duzu.- Maskor barrura izan da²⁵ ?

Nik ezin nion gezurrik esan..., eta pena eman zion nire aitorenak. Berak jarraitu zuen:

“Hilzorian nauzu, eta ez naiz zuri dagokizunez lasai izango, nire gomendioa zehatz-mehatz beteko duzula hitz ematen ez badidazu. Zure arimarentzat hil edo biziko garrantzia du.

Etsi beharra izan nuen eta hitz eman nion, hala ere, grazia berezi gisa, bere heriotzan askatasun osoz negar egiteko baimena eskatu²⁶.

*

Haren heriotza egunean, Bezperak errezatu ostean, eritegira joan nintzen; han aurkitu nuen Jainkoaren Mirabea, adore gaundiezinez heriotzaldi gogorreneko azken borroketan. Eskuak guztiz ubeldurik zituen eta estu eta larri lotuz, oinaze bizi-biziaren saminaren eraginak argi eta indartsu egiten zuen ahotsez esan zuen:

“Ene Jainkoa!... erruki zakizkit...! Maria, zatoz nire bila...! Ene Jainkoa, nola-ko saminak ditudan...! Kaliza gainezka dago...! Goraino bete-bete eginda...! Ez dut inoiz jakingo hiltzen...!”

- Izan adore! esan zion gure Amak; azkenera iristen ari zara. Pixka bat gehiago eta dena bukatuko da.

“Ez, Ama, oraindik ez da bukatu...! Ziur nago honela, saminetan izango naizela hainbat hilabetetan...”

- “Eta Jainkoaren nahia zu horrela gurutzean luzaro izatea izango balitz, onartuko zenuke?”. Heroitasun handiko ahotsez erantzun zuen:

“Onartzen dut”.

²³ Ama Aines Jesusenari egindako gutuna, 1906ko Ostiral Santuan (DE, 782. or.).

²⁴ PAKO (Koaderno gorria, 102. or.); DE, 582. or.

*Eta bere burua berriro erori zen burukoaren gainera eite lasai eta eramankorra zuela; guk ezin izan genion negarrari eutsi. Oinaze berrien zain dagoen martiria zirudien. Ni, ego-
era larri hura luzaro ezin jasan eta aldendu egin nintzen eritegitik. Gero, komunitatearekin
bakarrik itzuli nintzen azken uneetarako eta 1897ko irailaren 30ean, ostegunez, arratsalde-
ko 7etan hil zen unean agertu zuen begirada zerutiar luze eta zoragarriaren lekuko izan
nintzen.²⁷*

AHIZPA TERESA SAN AUGUSTINENA

Uztaila

“Esaidazu ea barruko tentaldirik izan duzun”

- Oi! bai, izan ditut. Nik batere erraza ez zen izaera nuen; ez zuen hala ematen,
baina ondotxo nenkien. Ez dudala sufritu gabe egun bat ere iragan egiazta niezake-
zue.

- Bada, uste dute ez dituzula izan.

- Ai! gizakien irizpideak! Ikusten ez badute, ez dute sinesten²⁸ “.

*

Ahizpa batzuek heriotzaren beldur-ikararak izango dituzula uste dute.

*“Oraindik ez dira iritsi. Iristen badira eramango ditut: baina jasaten baditut, ez
ditut garbitzeko izango, lexiba besterik ez dira izango... behar dudana maitasunaren
sua da.”²⁹*

AHIZPA MARIA AINGERUENA

*Behin batean, Komunitatea haren ohe inguruan bildurik aurkitzen zen unean Ama
Ainesek esan zion: “Komunitatearen gainera loreak bota nahi izango bazenitu!”*

- Oi!, ez, ene amatxo, ez iezadazu hori eskatu, erregu egiten dizut; ez dut lore-
rik gizakiei botatzerik nahi. Bota nahi dizkiet, bai, Ama Birjinari eta San Joseri,
baina ez gainerako gizakiei³⁰ “.

²⁵ Muskuiluaren maskorra, Teresak margo lanak egiteko erabiltzen zuena. Bere nobizia ahizpa
Maria Hirutasunarenari agindu zion negar egiteko gogoa zuen guztian malkoak maskor horretan
jasotzeko.

²⁶ «Conseils et souvenirs», *Histoire d'une Ame*, 1899, 280-281. orr. (DE, 783. or.).

²⁷ PO, 472. or. [DE II (DP), 486. or.].

²⁸ *Souvenirs d'une sainte amitié*, 12. or.; DE, 788. or.

²⁹ *Ibid.* (DE, 421. or.).

³⁰ PO, 415. or. (DE, 791. or.).

Jainkoaren mirabearen heriotza baino egun batzuk lehenago, gurpilak zituen ohea eraman zuten klaustrora.

Alboan zeukan Bihotz Sakratuarenaren Maria ahizpa, patioko lorazainak esan zion: begira hiltzorian den errodo dendro muskil hori; aiera egingo dut:

“Oi, ahizpa Maria Bihotz Sakratuarena -erantzun zion, ahots errukarri eta arrenkaria zuela- ez zaitut ulertzen... Hil egingo naizen honegatik errodedentro errukarri horri bizia barkatzeko erregutzen dizut.”

Ekin eta ekin behar izan zuen, eta errespetatua izan zen bere nahia.³¹

AHIZPA AIMÉE JESUSENA

Gure santa maitea hainbesteraino ahulduta zegoenez higitu ere ezin zueneko 1897.eko irailaren azken egunetan bere ohea konpondu ahal izateko, une batean, aldi baterako ohean jarri behar izaten genuen. Min emateko beldurrez erizainek izaten zuten larritasuna ikusiz esan zuen:

“Ahizpa Aimée Jesusenak oso erraz har nazakeela besoetan uste dut. Oso garaia eta indartsua eta, era berean, oso samurra da gaixoentzat.”

Ahizpa deitu genuen, bada, inolako dardararik gabe zama arin bat balitz bezala jaso zuela santa gaixotxo. Une hartan besoak bere sama inguruan zituela, gure aingeruak irribarre txeratsu batez eman zizkion eskerrak; ahizpa hark ez zuen inoiz harako irribarre zerutar hura ahaztu. Eta kontsolamendu-bide ere izan zuen, Lisieux-eko Karmelen inoiz ikusi zen heriotzarik ederrenaren azken unean ahizpei eritegirako deia egin zien kanpaiaren hotsa entzun ez zuen bakarra izateak eman zion atsekabea.³²

IZENGABEA

Zeruratzen zenean zein izen erabiliz egin behar zitzaion erregu galdetzen zioten.

“Teresatxo deituko nauzue” -erantzun zuen apaltasunez³³.

³¹ Orri solteak, PAKOri erantsita (DE, 545. or.).

³² Ahizpa Aimée Jesusenaren agerkaria, 1930eko urtarrilaren 17koa; ik. PO, 573. or.; eta PA, 408. or. (DE, 561. or.).

³³ «Conseils et souvenirs», *Histoire d'une me*, 1953, 248. or.

BESTELAKO IDAZKIAK



BESTELAKO IDAZKIAK

Aitzin solas

“Bestelako idazkiak” dioen bezala, hemen biltzen dira, mota askotako eta balio desberdineko idazki zenbait, Teresaren bizi guztian barna, haurtzarotik heriotzeraino doazenak, eta berak Karmelen begiratzen zituenak.

Horrelako porroskentzat erran daiteke, Ebanjelioak zioena: “Gelditzen diren hondarkinak bil itzazue, deus ez dadin gal!” (Jn 6, 12; ik. KH 14.IX.1). Teresaz ari garenez, aita Combes-k idatzi zion Jenofa, haren ahizpari: “Haren biziko gertakari eta ekintza guztiak historiarentzat interesgarria dira et haren lumak idatzi guziak argitaragai dira (...); haren eskutik atera hitz bakoitza erlikia bat da” (ik. *Gutunei sarrera*, eta CG, 46 eta 49.or.

Ez dira jakina argitaratzen ahal Teresaren eskola liburu guztiak¹. Haren biziaren xehetasunak hunkitzen dituztenak dira hautatu eta urtez urte sailkatu bi sail nagusitan:

1. 1880 - 1888 TARTEAN “BUISSONNETS”EN IDATZIAK

1-ik, bere haur kaieretan aurkitu dira hiru erretretako oharra. Erakusten dute zer erakaspen eman zioten Teresa ttipiari orduko apez batzuek eta nola eritzeraino inarrosi zuten ttipitan Teresa, bereziki 1885 ean.

2-ik, kronologia ohar zenbait haurraren kaieretik hartuak.

3-ik, eskolako lan zenbait eskolako kaieretarik hartuak eta bereziki diktatu argi bat.

4-ik, Charles Arminjon apezak idatzi “Fin du monde présent et Mystères de la vie future” (Munduaren akabantza eta Geroko biziaren misterioak) liburutik

¹ Mss I eta IIan A. Frantzisko Santa Mariarenak haurtzaroko kaieretako testuak, kontakizunak, testuen kopiak argitaratu ditu (I. liburukia, 22-24. orr.; II. liburukia, 22., 24., 26., 27. orr.), baita *Vie thérésienne* ere (74. zenb., 1979ko apirila). Ikus daitezke Teresaren hogeita sei idazlanak ere: “Thérèse écolière. Devoirs de style et narrations de Thérèse Martin (1885-1887)” *Carmel* aldizkarian, 1957/II, 81-107. orr.

1887eko maiatz-ekainetan Teresak kopiatu pasarte batzuk; haren bihotzean barna sartu baitziren.

2. 1888-1897 TARTEAN KARMELEN IDATZIAK

1-ik, *Irudi biblikoak*. 1896-1897 urteetan Bibliatik hautatu zituen Teresak berak perpaus zenbait, bere ahizpa Jenofak hartu argazki batzuen apaintzeko; bere otoitz liburuan zeuzkan 9 iduri horiek.

2-ik, *Ama Jenofa Santa Teresarenaz oroitzapenak*. Igandetean erizaindegian Ama Jenofa, komentuarien sortzailearekin Teresa Jesus Haurrenak zerabiltzan solasaldiekin antolatu zuen serora gazteak idazki berezi bat (ik. A Esk. 78^a).

3-ik, idazki berezi zenbait Teresak begiratzten zituenak bere gelako izkribute-gian edo bere eskuliburuetan, hala nola,

- San Joan Gurutzekoaren eta San Joseren "Ordenuak", haien besta egunetan bereziak;

- Aita Pichon-en erretretako Oharrak, aita Delatroette-n hitzaldia, Teofan Vénard-en Eskutitzak;

- Esaldi baliagarri batzuk eta aita Baillon-en kontseilu bat, etab.

4-ik. Bibliatik ateratako atal hautatuak:

- Bazkoko komunztadura (1896 edo 1897);

- Martin jauna zenaren oroit irudia (1894);

- Ama Maria Gonzagarenaren argazki albuma (1897/06 / 21).

Idazki horiek, diren bezala adierazten digute zer ziren Teresaren arrangura handiak bere bizi guztian barna. Merezi zuten beraz argitaratzea.

Idazkiak etor arau ematen ditugu behar diren beste oharrak.

I - "Buissonnets"en (1880-1884)

1. ERRETRETAKO OHARRAK

1884ko maiatzaren 5tik 7ra

Kaier urdina. Lapitez idatzitako testua. Lisieux-ko beneditarren kapilaua zen Domin apezak emandako erretretaz, ik. Esk. A, 33ⁱ. "Priore anderea" Ama San Exuperio da (Modeste Enguchard, 1816 - 1884-V-4). (Mss II, 22. or. eta VT-n 74. zk. 1979ko apirilean 132-133. orr. argitaratutako testua).

Nere lehen komunionekeo erretreta

Maiatzaren 5a, goizeko meditazioa

Jaun apezak erran digu ebanjelioaren zerbitzariak bezala ginela eta gure bizia bururatzean Jainko onak konduak galdatuko dizkigula eman dizkigun graziez eta ukanaren arabera beharko diogula eskaini. Pentsatu dut ainitz kondu ukanen dudala Jainko onari emaitako, hain baita ona izan neurekin eta hainbertze grazia ardietsi baitit. Hitzeman dut indar egitea, ona izaiteko eta ukaiteko ainitz obra on Jainko maiteari eskaintzeko.

2. Mintzaldia

Jaun apezak herioaz ari izan zaigu eta erran (hitz hau falta da) digu ez zuela balio ilusiotan sartzea, segur zela hilen ginela eta behar bada bat izanen zela bere erretreta finituko ez zuena.

Kondatu digu nola gaztea zelarik aita misionest batek erretreta predikatzen zuela eta erraiten ziela beharbada biharamunean bat faltako zela. Eta hala gertatu, biharamunean bat bazen hila. Biziki ona nahi dut izan neure heriotz orenean ez nadin atxemana izan.

3. Mintzaldia

Gaur arratsean erakaspena ifernuaz zen. Jaun apezak ifernuan sofritzen diren tormentak erakutsi dizkigu eta erran digu gure lehen komunioneak eginen zuela ea zerurat edo ifernurat joanen ginen. Ni ontsa prestatzen ari naiz eta zerurat joaitea esperantza dut.

maiatzaren 7a - Lehen mintzaldia

Jaun apezak lehen komunione sakrileioaz hitz egin digu. Gauza batzuk erran dizkigu ontsa izutu nautenak.

Gure erretreta denboran ainitz erakaspen faltatu zaizkigu ama priorea hil baita eta jaun apezaz ez baita gutaz ainitz okupatu ahal izan.

1885ko maiatzaren 17tik 20ra. Erretretako oharrak

Kaier urdinean. Domin apezak zuen predikatzen. "Izugarriko eskrupulu krisia" (Esk. A, 39^a) sortu zuen bigarren komunionezko erretreta horrek. (Mss II. 26. or. eta VT-n, 74. zk. 133. or. argitaratutako testua).

2. Erretreta

Igande arratsean

Gaur jaun apezak erran digu arima bat konbertitu nahi zuelarik bakartasunerat eremaiten zuela eta erretreta bat eginarazten.

Meditazioea astelehen goiza

Gauza bat da bakarrik inportanta: salbamendua. Gainerateko guztia deusetako ez da.

2. Mintzaldia

Jaun apezak erran diguna biziki izugarria zen. Bekatu mortalaz ari izan zaigu eta erran digu nolakoa den bekatu mortalean den arimaren estatua eta Jainkoak zoin astiro duen. Lohian trenpatzen den eta hortakotz aira ez daitekeen urzo ttipi bati konparatu du. Bekatu mortal estatuan garelarik eta gure arima Jainkoari buruz altxa ez dezakegularik gauza bera gira.

3. Mintzaldia

Herioa.

Asteartea - meditazioea

Jujamendu partikularra.

2. Mintzaldia

Kofesioaren gainean, kofesio on baten egiteko beharraz.

3. Mintzaldia

Jaun apezak erran digu Jesus onari etxe eder bat apailatzeko eta pausaleku eder bat gure bihotzean egiteko. Hau behar dela lehenik garbitu, erran nahi baita hortik kendu Jesus ttipiari gustatzen ez zaizkion guztiak eta gero ahal ditugu lore guztiak bildu; erran nahi baita obra onak gure bihotzaren apaintzeko eta pausaleku eder bat ongi lorestatua egiteko lore gehiago; eta hobeki izanen zela.

Azteazken goiza - meditazioea

Jesusen agonia Olibetako baratzean.

2. Mintzaldia

Birjina saindua gure ama da. Eta edozoin estatutan izan gaitzen ez gaitu sekulan abandonatuko. Deskurariatzea hari itzal egitea liteke. Alabaina ez bada ahanzten salbatzea segura da. Jaun apezak xede batzu harrarazi dizkigu. Nik neure lehen komunioekoak atxiki ditut. Hauexek dira: 1) ez naiz deskurariatuko. 2) egun oroz oroit zaitez bat erranen dut Birjiniari Sainduari. 3) neure urguluaren zapaltzerat entseatuko naiz.

1885eko urria. Erretretako oharrak

Karnet urdinean, lapitzez idatzi hosto berex batzuetan dira 1885eko urrian egin erretretan hartu oharrak. Batzu beharbada astearte arrats 6etik eta larunbat goiz 10a artekoak. Domin apezak ez du lehen mintzaldia baizik egin. Ez dakigu haren ondotikako predikaria nor izan zen. (VT-n, 74. zk. 134-135. orr. argitaratutako testua).

1885eko erretreta

Lehen mintzaldia Domin apezak egin digu. Erretreta hortaz ez ditut gauzarik printzipalenak baizik emanen. Senditu dudana ontsa oroituko naiz.

Asteazken goiza

Artzain onaren gainean. Artzain onak bere bizia bere ardientzat emaiten du. Bat galdua duelarik haren bila badoa eta ez da gibelerat heldu, atxeman arte.

11 orenak

Jesusen Bihotz Sakratuaren gainean. Bihotz Sakratuaren haur baten nahikundeak bere Jesusen bihotza joitea izan behar du.

2 orenak

Nexkato gazte baten hutsik haundienak arinkeria eta aldakortasuna.

6 orenak

Bekatuaren gainean. Bekatuak Jainkoaren begietan hastiagarriak emaiten gaitu baina barkatu nahi digu.

Osteguna

Nola meditatu.

11 orenak

Purgatorioko arimen gainean. Purgatorioko arimak libratzen ahal ditugu eta ez ditugu egiten. Hilobi baten gainean bazen emana "egun niri, bihar zuri". Solas horrek nola gogoetazten duen.

2 orenak

Jujamenduaren gainean: Hil orduko Jainkoaren aintzinean agertuko gara eta igorriko gaitu edo zerurat edo ifernurat edo purgatorioetarat.

Arratsean, 6 orenak

Herioaren gainean. Hil gaitzke minuta baten buruko, zegunda baten buruko.

Ortzirale goiza

Ifernuaren gainean.

11 ornak

Jesusen Bihotz Sakratuarentzat obra batekoak izanen gira.

2 ornak

Jesusen Bihotzaren apostolu batzu gira. Goiz oroz gure ekintza guztiak eskainiko ditugu. Hori lehen gradua da. Egun oroz arrosorioko hamarreko bat edo bi erraitea misterioekin; hori bigarren gradua da, eta gero komunione bat hilabetean.

6 ornak

Gure Jaunak gure bekatuak erosteko odolezko bataio bat nahi ukan du errezibitu.

Larunbata

Gure bekatuen urrikia. Gure Jaunak nahi izan ditu hartu guretzat gure bekatu guziak.

2. GERTAKARI OHARGARRIAK (1884-1886)

Kaier arreko testuak (1884-1886), VT-n, 74. zk. 131. or. eta hurrengoan argitaratua. Lapitez egindako oharrak. Tom Teresaren txakur xuria da (ik. CG, 202. or. d oharra).—Glos: Lisieux-etik 5 kilometrora den herrixka bat.—Martin jaunaren bidaiak sei-zazpi asteo iraupena izanen du; ik. Kronologia.—Txoka: ik. Esk. A, 53ⁱ.

Kaier arre honen amaieran, Teresak 1884-1885eko bere komunioneen zerrenda dakar. Garai hartan ez zen egun oroz jaunartzerik; kofesoraren baimena behar zen... Gako artean beharrezko datak gehitu dira.—Hogeita bat eta hogeita bigarren komunioneen orde-na alderantziz da. "Amatxok" bere amaren heriotz urteurrena oroitarazten du.

Ekainaren 26an Tom gure etxerat jin da. 1884. urtea.

1884ko urriaren lehenean neure hezurrezko ditarea ukan dut.

1884ko urriaren bian, Glos-en izan gara trein bidez.

1885eko agorrilaren 22an, aita Konstantinoplatat joan da.

1885eko uztailean, ene papogorria ukan dut.

1886ko maiatzaren 25an, asteartean, neure zapeta berriak estreinatuta ditut. 20 libera ukaiten ditut.

1884ko irailaren 18an, ene arrain ttipien sortzea.

Komunioneak

1) 1884ko maiatzaren 8an, komunioea.

2) Salbatorez

(1884ko maiatzaren 22an)

3) Konfirmazionea

(1884ko ekainaren 14ean)

4) Amaren urteburua

(1877ko agorrilaren 28an zendua)

5) Solbezioko hiru otoitz egunak

(1884ko irailaren 8an)

6) Erretreta

(1884ko urrian)

- 7) Omiasaindu
- 8) Hilan eguna
- 9) Bekaturik gabe kontzebitua
- 10) 1885eko urtats
- 11) Trufania
- 12) Kanderailu
- 13) Anontziazioea
- 14) Erramu (1885eko martxoaren 29a)
- 15) Bazko (apirilaren 5a)
- 16) Salvatore (maiatzaren 14a)
- 17) Bigarren komunioea (maiatzaren 21a)
- 18) Trinitate (maiatzaren 31a)
- 19) Besta Berri (igandea ekainaren 7a)
- 20) Andre Dena Mari
- 21) Solbezio (irailaren 8a)
- 22) Ama (agorrilaren 28a)

3. DIKTATUA ETA ESKOLA LANAK

1880ko ekainaren 5ean diktatua

Teresak zazpi urte eta erdi ditu. Pixka bat loturarik eza ageri duen diktatu argitaragabe honen interesa, haren etxekoen berri eta Teresa beraren berri ematean datza, haren gustuak, haren beldurrak, jolasak, joera erlijiosoak agertzen baitira. Agian, berak osorik bat-batean sartutako testua izan liteke... Armiarmen beldurra Azken Elkarriketetan berriz ageri da (ik. KH 13.VII.18 eta 18. VIII.7).- Teresa ez du sendatuko Ama Birjinak (azken pasarte) hiru urte geroagorarte.

Zelina atzo konfirmatua izan da. Egun irakurri ditut Lazaroren piztearen eta ehuntaria-ren sendatzearen itxorioak. Pazko lili haundiak nabar loreak eta mikeletak maite ditut. Lupu haundiek biziki izutzen naute.

Egun euri ainitz ari du, denbora txarra ez dut maite. Denbora edertzen duelarik baserri-rat joanen gira. Baratzean bada papogorri kafira ttipi xarmant bat. Zelina eta Leonia-k ortzi-ralean ez dute lanik ukanen eta nik ere ez, prestua balin banaiz.

Baratzean badira bi gereziondo. Leonia bristol papera pikatzen ari da. Tapiza perdea da, gaua iluna. Enkrea beltza da. Paulinen lepoko xingola gorria da eta haren lepoa xuria.

Ama Birjina tenplorat joan zen hiru urte zituelarik. Bere kartsutasunaz, bere aingeru eztitasunaz bere lagunen artean nabarmendu zen. Denek maite zuten, miresten zuten, eta denek baino gehiago beren ahizpa ttipia bezala zeukaten aingeruek.

Zeruak Jainkoaren ospea kondatzen du. Atzo, aitarekin, baserrian izan naiz. Ainitz jos-tatu naiz. Korona bat niharentzat egiteko bazko liliakin bildu dut. Eta neure zare ttipian ekarri ditut beste lore pollit batzu Zelinarentzat. Laster bakantza handiak dira. Marrubiak, masusta gorriak, gereziak, andere mahatsak gorriak eta beltzak, udareak, sagarrak, aranak, mertxikak, abrikotak, mahatsa, pikoak eta abar maite ditut.

Panpina handi bat, biziki pollita, badut. Baina nahiago dut neure izebak oparizat eman ninia. Ainitz jostatzen nauten mota guztietako pupetak ere baditut.

Nexka ttipi on bat nahi dut izan. Ama Birjina ene ama guziz maitatua da eta normalean haur ttipiak beren amaren idurikoak dira. Aita Trouvillen da. Beharbada karramarroak ekarriko ditu. Bozkariatzen naiz, hain da jostagarri, ikustea, egosten direlarik, arrain beltz horiek, gorri bilakatzen.

1885eko urtarrila. Eskola lana

Carmel aldizkarian argitaratua, 1957/III, 89-90. orr. datan huts bat duela (1886 dator 1885aren ordez).

Gauerdiko meza

Adiskide maitea,

Zure letran erraiten didazu ez zaituztela utzi gauerdiko mezarat joaiterat. Ordainez huna hemen besta eder horren kariatarat zer izan diren neure sendimenduak. Arratsean, bozkarioz gañdika, gelditu gabe biharamunaz mintzo nintzan eta nahiko nuen han izan; anartean Maria-k nahi izan du etzan nadin, nahiz segurtatua nion ez nintzela lokartzen ahaliko. Eta ez naiz aise lokartu. Baina 11ak eta erdietan Maria iratzarrarazterat jin zaidalarik ez du nere otoizterik izan. Laster jeiki naiz eta joan gara. Bidean artzainei pentsatzen nuen. Heiek ere orain dela mila zortzi ehun eta lauetan hogei eta bortz urte bideari lotu ziren oren hontan sortu berria zen Jainko Jesus ttipiaren adoratzeko. Baina ez nintzen, haiek bezala, joanki gorputzeko begiekin ikusterat. Oh! zer gauza eztiak erran dizkidan komunione ondoan. Neure lehen komunioneaz geroz, nehoiz ez nuen, hoin ontsa, neure bihotzari mintzatzen entzuna. Hortakotz uste dut behar zela zinez Eguberri eguna izan zadin eta haur ttipi ttipi jin zadin neure bihotzerat holako hitz eztiak niri erraiteko. Ikusten duzu beraz, Jenofa maitea, zoin ezti den Eguberri egunean Jesus errezebitzea eta oroz gainerik gauerdiko mezan. Beraz esperantza dut aurten arrazoinki gobernutako zirela eta zure osagarriaz arta hartuko duzula, datorren urtean gauerdiko mezarat joaiterat utz zaitzaten.

Adiskide maitea, ikus arte. Uzten zaitut hurran letra baten esperantzaz nagoela. Ainitz maite zaituen zure adiskidea.

Aingeru Sainduen Teresa haurra.

1885eko urriaren 15a. Eskola lana

Martin jaunari idatzitako alegiazko gutuna, CG-n, 200. or. eta hurrengoan, LTS zenbakian 18a argitaratua, hor oharrak garaturik aurkituko direlarik. Martin jaunak Konstantinoplara egindako bidaia da. Zail da alegiazkoa eta errealtatea bereiztea konposizio honetan; Teresak adierazten duen gertakari biblikoari buruz, ik. Tb. 5, 20-21 eta 11,9.- Bertze idazketa-jarduera bat aurkituko da (LTS 18b) 1886ko otsailaren 11n CG-n, 202. or. eta hurrengoan.

Neure aitatto maitea

Hona jada hiru aste utziak gaituzula. Hiru, zure nexka ttipiarentzat, zutarik berexia delarik, biziki luze da. Bazeneki zonbat nahi nuken berriz jin zaitezen. Ardura zure jitea neure buruan ikusten dut: denak uros dira. Laster lasterra trein gararat goazi, beldur gara ez garela tenoreko helduko eta azkenean oren laurden bat goizegi heltzen gara. Azkenean treina heldu da eta besarkatzen zaitugu. Ontsa zara eta lorietan gira; Baina usuago gauzak beltzak dira. Pentsatzen dut gibelatua zirela eta hamabortz egunen orde, hilabete bat edo gehiago behar dugula beha egon. Edo ez baitzara aski artatzen, eri zara. Nuere aittato maitea, erranen didazu zentzuz kanpo ari naizela eta ametsetan bizi. Beharbada doi bat egia da, baina zer nahi duzu hola egina nizanaz gain. Eta uste dut ez naizela arras makurren ere, alabaina ez zarea gibelatua izaiten ahal eta gero aitor ezazu, nere aittato, eri ez izaiteko, ez duzula sekulan aski kasu egiten. Beti erraiten duzu ez dela lanjerik baina bada zuhur hitz bat dioena: lagun zaitez eta zeruak lagunduko zaitu. Hona orain ohartzen naizela, zuri morala egiteko bidea hartzen ari naizela; Baina aita maite maitea, barka iezadazu, eri izan zaitezen duen beldurrak du zure nexka ttipia hola mintzarazten.

Etxean denek nahi dute sar zaitezen! otoitzez estalia zara. Ez dakit zonbat sainduri ari garen eta heien artean Raphael Sainduari zure itzulian gida zaitzan Tobias bezala eta etxerat ekar osagarri onean.

Denek nahi genuke berriz sar zaitezen ahal bezain laster eta segur naiz Tom-ek ere gauza bera pentsatzen duela. Zu hor izanez eneatzen baita eta segur naiz zu berriz itzultzean buztana higituko duela Tobiasen xakurraren gisan eta bere jauzi airosez besta eginen dizula.

Ikus arte, ene aita guztiz maitatua. Nire bihotz guziaz besarkatzen zaitut. Zure nexka maite zaituena, zu bezalako aita bat maita daitekeen bezala.

Teresa Aingeruen haurra

1886ko abenduaren hondarra — 1887eko urtarrilaren haste

1886.eko Eguberriko graziaren ondoren idatzitako idazketa-jarduera. (ik. Esk. A, 44ⁱ/45ⁱ).

Jose

Jesus

Maria !!!

Eguberri!!!

4004eko abenduaren 25eko gauean mundurat jin zen Jesus gure Salbatzailearen sortzearen urteburua da Eguberriko besta ederra. Nahiz askiko zuen bere odoletik xorta bat baka-rik isurtzea gizonen salbatzeko, Jesusek nahi ukan du hortako sortu pobreak baino pobrea-ga. Nahi ukan du haur ttipi-ttipi bilakatu eta behitegi batean sortu estaltzeko ez zituelarik prestuzkako oihal batzu baizik eta bere oin-esku ttipi delikatuen berotzeko idi bat eta asto bat.

Nork du sekulan amodiozko misterio hori konprenituko? Kreatura eskergabe eta hobedun baten salbatzeko adoratua eta laudatua den zerutik Jainko bat jausten da. Nolaz dugu sekulan aski laudatuko eta eskertuko gure ganat heldu den haur ttipi hori eta guretzat

egin guziaren ordain horri gure buruak emaita baizik galdatzen ez diguna. O Jesus, hoin ontsa irabazi eta bera iduri bilakatu arte maitatu duzun bihotz hori nor da ausartuko zuri errefusatzerat, zure burua burrego bihotz gabe batzuez kurutzefikatzerat utzi duzunari.

Eta gero ez zaizu iduritu oraino aski zela; Zure kreaturaren ondoan behar izan duzu beti egon eta mila zortzi ehun urte hontan amodioaren presoner zaude Eukaristia saindu eta adoragarrian.

Martxoa (?). Eskola lana

Carmel aldizkarian 1957/III, 99. or. argitaratua.

San Jose!

Nor menturatuko da haren laudorioen kridatzerat? Nork kondatzen ahalko ditu haren bizia eta haren mereximenduak? Jose aipatzean ebanjelioak ez du gauza bat baizik erraiten! Gizon justu bat zen eta Jainkoaren beldur zen. Bere aita deitzen zuenaren bizia Jesusek nahi izan du mixteriozki gorde, Joserren egintzak harentzat izan ziten bakarrik. Baina gordeagatik Jesusek uzten gaitu Joserren arimaren haunditasuenetik zerbait ikusterat.

San Josek beti erantzun dio Jainkoaren graziari, nehoiz ez du dorpeegi atxeman Jaikoaren borondatea betetzea. Zer fedezko etsenplua emaiten digun San Josek! Jesus eta Maria-ekin ihesari lotzea aingeruak galdatu orduko, xutitzen da eta partitzen. Haren bizia holako egintzez betea da, Jainkoaren nahikunde guziari obedituz beti. Lurreko bizian hazi duenaren ondoan zer indarra ahal daukan San Josek!... Oh! bai goazen konfiantxarekin Joserren ganat. Jesusek berak hori galdatzen digu, ez baitu eta deus errefusatzen ahal, bere bizian beti hari plazer egitea bilatu duenari.

Oh! saindu haundia, denak ahal dituzu Jesusen ondoan, itzul ezazu haren bihotza Frantzia malurosaren faboretan eta otoitz Jainkoa, bere grazia ez dezan bazter. Oroitaraz ezazu Elizaren alaba zaharrena dela Frantzia.

1887.—Eskola lana

Teresaren testu aski adierazgarria, lapitzez idatzia. Carmel aldizkarian 1957/III, 106. or. agertua. Ale berean aurkituko dira 1887ko berze bi eskola-lan ere, aski jakingarriak, baina konbentzionalak, Itsasoa eta Bazkoa gai dituztelarik.

Nere ametsak egun batez betetzen baldin badira baserrirat joanen naiz egoiterat. Neure proiektuaz pentsatzen dudalarik etxe ttipitto xarmant baterat edo etxeño ongi iguzkitarat eman baterat eramana naiz izpirituz. Neure etxea itsasbatterreko herri batean izanez neure ganbera guzietarik itsasoa ikusiko da; Hauta nezake bertzetarik berex, bakarrik zombait marinela zahar litezke han bizi eta jende pobre batzuk. Hola neure gostua egin nezake eta denbora berean ainitz ongi berri ttipian. Nahi nuke neure etxea ahal bezain ttipia izan dadin. Lezake bakarrik beherean sukalde bat eta jateko sala bat, lehen estaian lo egiteko ganbera bat garbi-

tzeko leku bat eta areto bat, dena jende batentzat, azkenik hirugarren estaian ganer bat eta telatupe bat. Ahantzi dut erraitea neure etxearen azpian nahi nukeela soto bat ontsa betea. Hola malurosak lagun nitzake arno jeneros batekin azkartuz; Etxe gibelean egurtegi ttipi bat. Neure baratzea aski handia liteke: solan berotegi ttipi bat eta mando bat. Neure baratzearen gibelean baliteke pentze bat estable batekin eta han beti betroin ttipi bat eta asto bat. Bildots ttipi batzu ere banituzke eta oilasko eta xoritegi haundi bat. Neure berotegia beti lore ederrez betea liteke. Itsas ontzi ttipi bat banuke itsasoan itzuli bat egiten ahal izaiteko gisan. Neure etxea ez liteke elizatik sobera urrun, goiz guztiez mezaren entzuterat joaiten ahal izaiteko eta gero neure astoaren gainean herririk pobrenetara joan ninteko bisitaz eta ekar niezaieke jateko eta erremedio.

1887ko ekaina. Eskola lana

“Joana Ark-ekoaren amets” hau eskola-lan bat da, ziur aski 1887ko ekainekoa, Traité de narrations baten eskema zehatz baten arabera; ik. testu honek lehen aldiz argia ikusi duen Récréations 320. or.

Ark-eko Joana Rouen hirian da. Hor da bere presondegian, bere burregontzat barkamendu galdatzen du; bai eta hoin injustuki kondenatu duten angelesentzat, eta ere galdatzen du barkamendu erregearentzat, bere laguntzaile jenerosari zor dion esker onaren ordain ahantzi eta bazterrerat utzi duen errege horrentzat. Oh! haren bihotza nola ote zegoen odole-tan bakarrik eta abandonatua bere presondegian zegoelarik, eta oroitzen zelarik bere bitoria eta balentriez. Oh! orduan denek txalotzen zuten, ikusten zituen jende osteak, hunkituak hura pasatzean hari hurbiltzen, baina egun denek abandonatzen dute eta ikusten du ahantzia dela eta baztertua. Bizkitartean Joanak ez du kuraia galtzen, haren izpiritua kalme dago, haren Jainkoa baitako konfiantza neurrigabekoa da. Badauka bihotzaren eta kontzientzia garbi baten lekukotasuna. Bere etsaiek bizia kentzen ahal diote, baina denak elkarrekin jar balitez ere haren kontra ez litezke hel hari kentzerat lur hontan daukan baliosena. Bere inozentzian Joana lokartzen da, bere herioaren bezperan da, baina zer inporta zaio, bere Jainkoa badu eta bihar Harekin izanen da. Joanak bere ametsetan ez ditu bere bitoriak ikusten, ez du balentria berririk egiten, eramana da bere lehen urteek maitatu lekuetararat, Domremyn da; hor bere artaldea ikusten du. Bere lagun maiteak, bere haur jostetak berriz hasten ditu, bere aitamekin memento urosak iragaiten ditu, bere begiak hainbertze aldiz pausatu kanpoa agurtzen du; hemen munoa, hortxet zilarrezko erreka, pentze berdeak, hemen hainberze aldiz bere saindu maiteen bozak entzun dituen kapera ttipia. Herrian bozkariozko jauzitan errezebitua da, bere aitama xaharrek urgulurekin altxatzen dituzte beren buru xurrituak. Joana uroostasunik haundienean da, baina bat batean urrats pizu bat entzuten da solairupe ozenean. Bere presoneraren bila heldu den zainarena da. Joana kuraiekin jaikitzen da, bere amets benedikatuak azkartua eta lurrean hasi amets hori zeruetan bukatuko du. Hor ez da sekulan moztarik izan; haren ametsa betekoa da. Eternitate guztian Jainkoaren ikustea gozatu-ko du eta lurrean maitatu bere aitamak berriz atzemanen; orduan ez da horietarik sekulan gehiago berexia izanen.

1887ko martxo edo apirila. Eskola lana

Naturaren oroipen hau Carmel-en argitaratua izan da 1957/III, 103. or. eta hurrengoan, baita Mss II-an ere, 9. or., Grogny (Sarthe) gaztelura egindako ibilaldiaz ari dela, Esk. A, 8ⁱ.

Apirila heldu denean, beren begi arrosetarik loreak ateratzen diren hilabete ezta; hor beren usain onezko hegalak brioletek zoin gehiagoka zabaltzen dituztenean; haurrak ere, loreak bezala, aire eta mugimendu beharretan dira. Itsas bazterrean ezagutzen dut gaztelu bat parke haundi batez inguratua. Parke hortan zazpi edo zortzi ume xuhail erne erneak josteta ari dira erregepitita kafira bat iduri. Zoin gauza alegera den ikustea primaderan gaztelu zahar hori iratzartzen! Ikusten da noiztenka haur buru xarmant bat, ukurtua arrain gorri ttipiak behatzen dituela arrantegian. Hemen hostoen artetik ikusten dira airean haurtzain neskatoen kolore guztietako xingola luzeak. Mundurat jinez geroz lehen aldikotz ikusten duen primaderari eta iguzkiari irriz dagoen pupetta ttipi bat besoan daukate.

Baina hona gazteena zaharren azpian bertze haur batzu, xoriak iduri bilakatzen, iduri dute airean dabiltzala, ahizpa zaharrago batek, leria forma duen aukli bat bultzatzen du eta horra non bere irri zafla ozenez nexka ttipiak bazterrak joiten dituela, hain gora doala sendituz, bere ahizpak bera baino aisa apalago gelditzen direla.

Parke handian ez dira bakarrik haurrak, badira ere orein eta orkatz, basahuntz heziak. Kabale xarmant horiek ikusten dira begien aintzinean laster iragaiten, iduri zaizu lehenik oihan batean zirela eta kasik ez duzu hartzen izutzeko beldurrez. Baina ez lotsa, ikus bere umea ondotik duen basahuntza hori: ogi xuri puxka bat eskaintzen dion muttikoaren eskuan janen du. Hori ikustean batek uste luke zinez lurreko parabisanu dela.

Parke handi hortan, bada ere bertze jostagailu bat. Ikus lorez estalia den soroxka horren erdian, zurezko zaldi baten gainerat iganik itzulika dabiltzala haurrak, erronda ttipitto baten inguruan; baina ez dira hortako gutiago uros eta zerbitzari on xaharraren besoak ez balira ixtant batentzat akituak, nahi lukete beti joan bururatzetik ez duen erronda hortan. Parke handi hortan bada ere kondatzea luzeegi litekeen bertze asko miragarri. Nire parkea hobeki ezagutu nahi luketen presunek aski dute harremanetan jartzea L.....itsas portu ttipiarekin. X..... familia xarmantak, urte guzkiez, ainitz bisitari errezebitzen ditu.

4. ARMINJON-ETIK ATERA OHARRAK

1887an mireteirik gelditu zen Teresa Charles Arminjon apezaren liburu bat irakurtzean: "Pasarte batzuk kopiatu nituen maitasun osoari buruz, etab." (A Esk., 47^{ali}). "Fin du monde présent et mystères de la vie future" da, Chambéry-ko katedralean emandako hitzaldiak (Lehen argitaraldia, Paris/Bruxelles 1881; Teresak, Karmelen, bigarren argitalpena ere ezagutu zuen, San Paulo inprimategian 1882an egina, ik. VT, 79 zk., 219. or.).

1887ko maiatzaren 30eko Kopia

Kopiatutako lehen testua (Mss II-an, 9.322 berragertua) 1881eko argitalpenako 165. orrialdean dator, 1882koan 149. or., 1970koan 205. or. (Hitzaldia: "garbitokiaz"); Teresak "Manuel du chrétien" liburuan gordetzen zuen).

Sofrikarioz ez du axola gehiago, bereaz bertze gorputz batek jasaiten balitu baino. Dena gozamen munduarentzat denak ez du hura tirriatzen. Ez du arriskatzen kreatuari lotzea, zazpi aldiz frogatua izana den urreak erdoilari baino gehiago.

Horiek dira, lur huntan ere, amodio dibinoaren ondorioak, arima bat azkarki beretzen duelarik

1887ko maiatzaren 30a

"Oraingo munduaren akabatzea eta geroko biziaren mixterioak " deitu Arminjon jaun apezaren hitzalditik hartua

1887ko ekainaren 4-5eko Kopia

Kopia hauek, azal beltzeko eskola-kaierean, 1882ko argitalpenaren 290. or. eta hurrengotik eta 315. or. eta hurrengotik datoz (7. hitzaldia: "Betiko zorionaz eta naturaz gaindiko Jainkoa ikusteaz"). Mss II-an, 32. or. eta hurrengoan berragertuak.

1887eko ekainaren 4a. "Gaurko munduaren akabatzea eta geroko biziaren misterioak" deitu Arminjon jaun apezaren hitzalditik hartua.

... Eta Jainko eskerdunak oihukatzen du! Orain ene aldi. Sainduak beren buruaz egin didaten eskaintzari nola erantzun bertzela, nihaur emanez baizik osoki eta neurririk gabe. Leialki zerbitzatu nautenen eskuetan emaiten badut kreazionearen errege makila; ene argiaren uhainez betetzen baditut; ainitz da. Haien sendimendu eta esperantzak nehoiz altxatu diren baino urrunago joatea da. Baina ez da ene bihotzaren azken indarra. Parabisua baino gehiago zor diet; ene jakitatearen altxorra baino gehiago, ene bizia zor diet; ene izaite betiereko eta mugarik gabea. Nire etxean sar erazten baditut ene adiskide eta zerbitzariak; kontsolatzen baditut; ene beraztasunaren xarmez pausarazten baditut, ene amodioaren besarkadetan tinkatuz, hori haien egarri eta gutiziei gaindika erantzutea da; haien bihotzaren bake osoak galdatzen duen baino gehiago; baina ene Jainko Bihotzaren kontentatzeko ez da aski; ene amodioaren jabaltzeko eta osoki asetzeko. Haien arimaren arima behar dut izan, nire Jainkotasuna haietan sartu eta hontaz bete, suak burdina bezala; haien izpirituari agertuz, lanorik gabe, deus gordegailurik gabe, sentsuen bitarterik gabe, behar naiz haiei juntatu betiereko bekoz beko batean; ene ospeak argi ditzala; beren izaite guztitik atera dadila eta dirdira dezala. "Ni ezagutuz, heiek ezagutzen ditudan bezala, berak Jainko bilaka daitezela!"

Oh! nire aita, zion Jesusek, galdatu dizut nun ere bainaiz, nik maitatuak neurekin izan daitezzen". Ene argien itsasoaren barnetasunetan fundi daitezela eta gal; gutizia dezatela,

goza dezatela, ukan dezatela eta gutizia oraino; zure urostrasunaren sabelean suntsi daitezela eta haien nortasunetik ez dadila, erraiteko maneran, geldi beren zorionaren ezagutza eta sendimendua baizik.

1887ko ekainaren 5.

Zeruan urostrasuna beti berdin dago; ospean sartu hautetsiak ez ditu beldurrak hunkitzen ahal. Haien urostrasuna ttipitu gabe mendeak mendeen ondotik iraganen dira, haien kopeta gainerat tristeziatzko laino bakar bat ixuri gabe. Maite dituzten ontasunak betierekotz ukaitearen segurtamenak, ehunetan emendatzen du haien gozotasuna. Zer bozkariatzeke arrazoina, milaka mendeak iragan ondoan, gogoratuz denbora pasatuaren urrunean, beren igaite loriosa egin zuten eguna, erranen dute: deus ez da oraino pasaturik, egun naiz errege, egun nire zorionaren jabe, eta atxikiko dut Jainkoa Jainko deno, erran nahi baita: beti, beti!...

II. Karmelen (1888-1897)

1.- ZENBAIT IRUDI BIBLIKO

Teresak otoitz-liburuko bederatzi iduri egin ditu, gehienak bere ahizpa Jenofak (Zelina) atera argazki batzuetarik. Ixkirionearen arabera erran daiteke bat ere ez dela 1896ko uda baino lehen hartua. Teresak partikulazki bibliako testuez inguratzen ditu iduri horiek, hartu gaiaren arabera. VT-n 77. zk., 1980ko urtarrilean, 68-80 orr. egiten den aurkezpen sakonera garamatza honek. Aipamenak dagokien tokian daude, La Bible avec Thérèse de Lisieux-en (BT).

1. Iduria.— Kristo kurutzean (1886ko uztail-agorrila)

“Citate” delako batek erakusten du Madalena kurutzean den Jesusen oinetan ahozpezen emana. Hori zen Teresak 1887ko udan bere otoitzeko liburuan zuen gaiaren itxura eta “arimen egarria” idatarazi ziona (ik. A Esk., 45/46). Hola den emaztea aldi berean Samaritar emaztea da, Madalena bekatorosa, eta Teresa bera, “bere bizia iragan” nahiz ari mentzat odol preziosaren biltzen (ik. KH I.VIII.I.) V.eko 3 bertsoak Teresaren olerkitik hartuak dira: “Jesus, nire maite maitea, oroit zaitez!” (TO 24, 10. 25. eta 26. berts.).

Egarri naiz eman iezadazu edatera!... (Joan. XIX. 28 -IV 7)

Jaingoaren dohaina ezagutzen bazenu eta nor den erraiten duzuna “emadazu edatera”, beharbada galdutako zenion ur hortarik, eta emanen zitzaizun, ur bizi bat!... Nik eman uretik edaten duena ez da sekulan egarri izanen, eta emanen diodan ur hori betiereko bizitzeraino jauziko den iturri ur bat bilakatuko da haren baitan.

Jauna emadazu ur hortarik sekulan ez nadien gehiago egarri izan. (Joan. IV).

Jauna badakizu arras ontsa maite zaitudala... Baina nitaz urrikal zaitez bekatoros bat baizik ez bainaiz ! (Joan. XXI.15 - Luk XVIII.13)

Oroit zaitez, iturri ondoan,
 harako bidean nekaturiko bidazti hark
 gainez egin zituela Samaritarrarengan
 barruan zituen maitasun-olatuak.
 Ah! ezaguna nuen nik edateko eskatzen zuena;
 Jainkoaren Dohaia, aintzaren iturria hura da.
 Hura da bor-bor irteten den ura,
 hura da guri esan diguna:
 "Zatozte nigana."

Oroit zaitez negar-intziri maitetsuaz,
 gurutzean zure bihotzetik irten zenaz.
 Ah! hura josirik da, Jesus, nirean,
 eta parte hartzen dut zure egarriaren errean.
 Zenbat eta zure jainko-garrez kiskaliago izan,
 hainbat irrika handiagoz nahi dizkizut arimak eman.
 Maitasun-egarri batez
 gau eta egun erretzen naizela
 oroit zaitez.

Oroit zaitez, Bizitzaren Hitza, Jesus,
 zuk maite izan ninduzula nigatik hiltzeraino;
 nik ere maite nahi zaitut zu zoratzerraino
 nik ere Zugatik bizi eta hil nahi dut.
 Zuk badakizun, oi ene Jainko! nik nahi dudan guztia
 zu maitaraztea da eta egun batean martiri izatea.
 Maitasunez hiltzea nahi dut,
 Jauna, nire irrikaz
 oroit zaitez...

2. Iduria.— Joana Ark-ekoa presondegian (1896ko uztaila ?)

Iduri bikoitz hau kartoizko euskarri batez osatzen da, beraren gainean, aurrealdean eta itzulian, Teresaren argazki berrukituak dituelarik, "Joana bere presondegian" agertuz (VTL, 13 eta 14. zk.; DLTH, 220-221. orr. eta 285.a). VTL-ren 13. argazkiak hitz hauek ditu idatzirik: "Joana Ark-eko Gurgarria bere presondegian", eta VTL-ren 14.ak: "Santa Katalinak b.m. (Birjina eta Martiria) kontsolatzen du Joana Gurgarria bere presondegian". Bibliako aipamenek gogoratzen dute Joanaren Pacionea eta Teresaren "fedearen larrialdia".

Iduri hau bost aletan agertu izan da bederen (hiru zirriberrorakin). Aurrealdeko azken aipamena: Sal 41, 6, 5; itzuliko bigarrena: Mt 5, 10; 5, 8; ondoren Mt 5, 5, eta 2 Tm 4, 7-8.

Norbaitek ene urratsei jarraiki nahi badu, bere buruari uko egin dezala. Ene kurutzea karrea dezala eta segi nezala; alabaina bere bizia salbatu nahiko duenak galduko du eta enetzat galduko duenak berriz atzemanen du. (Mat. XVI, 24-25).

Nitaz urrikal Jauna, ene etsaiek laidostatzen naute eta ene adiskidentzat ere beldurgarri bat naiz.... Hila banintz bezala ahantzia naiz, baina enetzat zutan esperantza dut jauna!... Erraiten dut: ene Jainkoa zara! (Sal.XXX 12.12.15).

Egiaz, egiaz dizueta, lurrerat erori ogi bihia ez bada hiltzen, bakarrik gelditzen da: baina hiltzen bada ainitz fruitu ekartzen du. (Joan. XII 24-25).

O nire arima! zergatik zara triste? Zergatik durduzutzen nauzu?... Bai, joanen naiz saildu ostearekin, Jainkoaren etxean sartuko naiz heiekin, laudoriozko kantu eta bozkarioz bota oihuen erdian, alegrantziaz gaindika bete Birjinen tropan.

Benedikatzen zaitut, ene aita, zeruaren eta lurraren Jauna, gauza horiek jende zuhur eta jakintsunei gorde baitituzu eta ttipieri agertu. (Luk X. 21).

Uros jutziziatatik pertsegituak izanez sofritzen dutenak haiena baita zeruetako erresuma. Uros bihotz garbiak Jainkoa ikusiko baitute! Uros negarrez daudenak kontsolatuak izanen baitira!...(Mat.V).

Gudu ona gudukatu dut, nere kurtsa bururatu, jutziziazko koronaren errezibitzea zait orai bakarrik gelditzen!...(J. Paulo).

Dohatsu zuek laidostatuko eta gaizki erabiliko zaituztenean, bai eta gezurrez belztuak izanen zaretenean enegatik. Bozkaria eta loria zaitezte, nasaia baituzue saria zeruetan. (Mat. V 11-12).

3. Irudia.— Artzainen adoratzea (1896eko bigarren partea)

Kartoizko euskarri baten gainean Müller-en "Natibitate" ren iduri biribila agertzen da. Aipamenak hauexek dira; Lk II 14; Mt XII 46-50; Jn XVII 24-26; 3 eta 10, eta 23.

Ospe Jainkoari zeru gorenetan, eta bakea lurrean borondate oneko gizoneri!...

Jainkoaren nahia egiten duena nere anaia da, nere arreba eta neure ama.

O neure aita! munduak ez zaitu ezagutu, baina nik eman dizkidazunei zure izena ezagutarazi dut; haiek ezagutu dute zuk igorri nauzula... Betiereko bizitzea hau da zu ezagutzea eta igorri duzun Jesukristo... eta horietan goretzia naiz... horietan naiz eta nitan zare, nihaur maitatu nauzun bezala maitatu baitituzu!...(Joan. XVII 25.3.23).

4. iduria.— Familia Saindua (1896eko uda)

Aurreko Iduriaren aurkezpen berdina. Erdian Müller-en "Familia Saindua". Teresak maite zuen motibo hau (ik. KH, 10. IX.2). Multzo honek misio-esanahi berezia du. Ik. TG 264 eta CG, 1281. or.

Aurrealdeko bigarren aipamena: TO 24, 15 eta 17. ahapaldiak aldaketa txikiekin; ondoren Mt 9, 37-38; Jn 4, 35-37; Lk 12, 49.

Altxa begiak eta ikus alorrak xuhailduak jadanik eta uztarentzat jinak. (Joan. IV 35)

Zure uzta ixtante bildua izan dadin.

Egun oroz o nere Jainkoa, nere burua eskaintzen dut eta otoitzean ari naiz.

Neure atsegin eta doloreak zure langileentzat dira... Nahi nuke o nere Jainkoa, zure sua urrun ereman!...

Uzta nasaia da, baina langileak guti, otoitz ezazue uztaren nagusia langileak igor ditzan. Batek ereiten eta berteak biltzen eta ereiten duena biltzen duena bezala bozkariatuko da... Sua lurrerat ekartzerat jina naiz eta nere gutizia ez dea pitz dezaten?... (Mat.IX, Joan. IV, Luk XII 4).

(Orduen liturgiako otoitzen amaierako formulak latinez).

5. eta 6. iduriak.— “Desterru laburraren oroitzapena” (1896ko agorrila-buruila)

Kartoizko euskarria hiru iduri obalatuekin aurrealdean, haurtzaroan oso gazterik hil ziren Teresaren haurrideak agertzen dituztelarik. Behealdean, argazkirik ez duen lehenbiziko “Teresatxo” agertu nahi duelarik, miniatura fin bat; uso bat lurretik gehaldatzen eta urrezko izpietarantz hegan doala, (ik. DLTH, 227. or.). 6 iduria 5.aren antzekoa da, aldaketa txiki batzuekin; Teresak beretzat gorde zuen, eta Ama Ainesek hartu zuen bere ahizpa hil ondoren.

Aipamenak: Mk 10,14; Mt 18, 10; Mt 18, 4; Mk 10, 16, Errom 4, 6,4 eta 3, 24; Is 40, 11; Ap 14, 2-5.

Gure aingeru ttipi maiteen desterru laburraren eta heien zeruan sortzearen oroitzapena.

Maria Elena 1864ko urriaren 13a-1870eko otsailaren 22a

Maria Jose Luis 1866ko irailaren 20a-1867ko otsailaren 14a

Maria Jose Joan Batista 1867ko abenduaren 19a-1868ko agorrilaren 25a

Maria Melania Teresa 1870eko agorrilaren 16a-1870eko urriaren 8a

Utzi neure ganat jiterat haur ttipiak, zeruetako erresuma haiena da... horien aingeruek neure zeruko aitaren aurpegia gelditu gabe ikusten dute... Nor ere haur bat bezala ttipi eginen baita, hura zeruetako erresuman haundiena izanen da.

Jesusek, benedikatu ondoan, haurrak besarkatzen zituen. (Ebanjelioa).

Uros obrarik gabe Jainkoak justu dauzkanak; alabaina obrak egiten dituztenen alderat saria zor bat bezala ikusia da eta ez grazia bat bezala... beraz obrarik egiten ez dutenak graziaz dira garbituak, dohainik, Jesukristok ardietsi erospinari esker. (Paulok Errom. epistola-tik).

Jaunak bere artaldea alabideetarat eramanen du. Bildots ttipiak elkarretaratuko ditu eta bere bularraren gainean hartuko.(Is.).

Zerutik heldu zen boz bat entzun nuen eta boz harek iduri zuen soinuari batzuek hun-
kitu harpen soinua. Jainkoaren tronuaren aintzinean kantika berri bat bezalako bat kantatzen zen, eta kantika hori nehork, birjinetarik kanpo, ez zuen erraiten ahal. Bildotsa doan leku guzietarat segitzen dute... gizonen artetik erosiak izan dira lehen fruituak bezala Jainkoa eta Bildotsarentzat. Haien ahotik ez da gezurrik atera, ondorioz notarik gabe aurkitzen dira Jainkoaren tronuaren aintzinean. (Apok. XIV).

7. iduria.— Eguberri (1896ko agorrila - 1897ko martxo)

Kartoizko euskarriaren gainean, "Natibitatea" edo "Magoen adoratzea", Zelinak margotua 1892an. Honek lapitez ezarri du: Maria Eukaristiarena zen eta Teresak jarri ditu hitzak. Aipamenak hauek dira: Lk 2, 14; San Bernat, ik. TG 162; Es 9, 4; Mt 18, 4; Is 40, 11; Is 66, 13.12; Sal 102, 13.12.8; Mt 12, 50; Jn 17, 24.23. Testu batzuk B Esk 1^{ai}-an aurkitzen dira. Itzulia faksimilez berragertua da CSG-n 38. or. eta DLTH-n 226. or.

Ospe Jainkoari zeru gorenetan eta bakea lurrean borondate oneko gizoneri!...
Jesus nork egin zaitu hoin ttipi? Amodioak!...

Norbeit ttipia balin bada jin bedi niganat!...
Nor ere haur bat bezala ttipi egiten baita, hura zeruko erresuman haundiena izanen da...
(Ebanj.).

Jaunak bildots ttipiak bilduko ditu eta bere altzoan hartuko.
Ama batek bere haurra perekatzen duen bezala, berdin kontsolatuko zaituztet, nere altzoan ekarriko zaituztet eta nere belauen gainean perekatuko. (Is.).

Nola aita bat beratz baita bere haurren alderat, berdin Jauna gutaz urrikaltzen da, zonzabatez ere ekialdea urrun baita mendebaldetik, hanbatez gutarik urruntzen ditu hobendun garen bekatuak.

Jauna urrikalkorra da eta eztitasunez betea : gaztigua ez du laster emaiten baina haren miseriakordia nasaia da (Sal CII).

Nere Aitaren nahia egiten duena nere arreba, nere anaia eta nere Ama da (Ebanj.).

O! nere Aita ! eman dauzkitazunak maitatu nauzun bezala (Ebanj.).

8. iduria.— Ecce Homo - Doloretako Birjina (1897ren hasiera).

Aurrealdean, Guido Reni-ren "Ecce Homo" ren litografia obalatua. Teresak maite zuen kopia hau; hark, tamaina oso txikian, Teofan Vénard-en iduriaren azpian itsatsiko du bere ohearen, kortinatik zintzilik, eritegian (DE, 523. orr. eta hurrengoan). Itzulian, Carlo Dolci-ren "Mater Dolorosa" ren kopia obalatua (ik. DLTH, 226. or.). Teresak, tamaina txikian, Teofanen iduriaren gainean itsatsiko du hau ere. Idurira ahizpa Jenofarentzat egina zen. Azken aipamena Nk I, 12tik hartuta dago.

Ecce Homo !...

Ixtante, Jainko guztiz ahaldunaren eskuinean jarria ikusko duzue gizonaren semea eta zeruko lanoen gainean heldu!... (Mark XIV 5.61.).

Ecce Mater tua

Joan. XIX 27

Kontsidera ezazue eta ikus baden dolorerik nerearen idurikorik!...

9. iduria.— *Jesus Haurra “Messine” koa (1897)*

Kartoi baten gainean, Ittenbach-en Jesus Haurra agertzen duen iduria dago itsatsirik, ahizpa Maria Hirutasunarenak Messine-etorbideko Karmetik ekarria zena (ik. DE, 486. or.). Itzulian, “Toto eta Lili” ren iduria (Teresa eta Zelina: aingeru batek babestutako bi haur), ahizpa Jenofak hartaz hitz egiten duelarik (DE, 602. eta 627. orr.). Teresari Jesus Haur honekin egingo diote argazkia 1897ko ekainaren 7an (VTL, 411, 42, 43. zk.; DLTH, 289. eta 291. orr.). Hark berarekin gordeko du eritegian (DE, 278. eta 465. orr.).

Lehen aipamena, Teresak bere otoitz-liburuan zuen Santa Teresa Avilakoaren loretegitik (fioretti) harturik dago. Haur bat Amarengana hurbiltzen da eta badiotso: “Nola duzu izana? - Teresa Jesusena naiz. - Eta ni, dio haurrak, Jesus Teresarena naiz”. (Ik. Otoi. 13-16).

Bigarren aipamenak Es 9, 4 du iturritzat; ik. 7. Iduria eta C Esk., 3^a.

Teresaren Jesus naiz...

Norbait ttipi ttipia baldin bada niganat jin bedi (Es.).

2. AMA JENOFA SANTA TERESAREN AZ OROITZAPENAK

Orri hauk, *agertu gabeak*, Teresaren eskutikakoak, idatziak izan dira “Ama Jenofa Santa Teresarena”k karmelita gazteari egin haur denborako oroitzapenetarik. Jakina da zoin adiskideak ziren (A Esk., 78^a). Lisieux-ko karmelaren eraikitzailea “saindu” bezala kontsideratua zen (A Esk., 69^a).

Izan daiteke oroitzapen horiek Teresak idatzi dituela ahizpa Aines Jesusenak galdaturik, aitzineko priorearen hil-berrikari. Baina ez du iduri idazlana baliatu dutela (ik. *La Fondation du Carmel de Lisieux et sa Fondatrice, la R. Mère Geneviève de Sainte-Thérèse*, LIBZ, 1912).

Poitiers-eko karmelean sartu aintzin, Ama Jenofa, Claire Bertrand deitzen zen. 1891eko abenduaren 5ean hil zen eta Teresak bere bihotza uzten ziola amets egin zuen bere bihotza uzten ziola (A Esk., 79a).

Bai textu horien ortografa eta tiletak xuxenduak izanak dira.

*Ama Jenofak segetuan erranak
(1890eko irailaren 8az geroztik)*

J.M.J.T.

“Neure haurra, segetu ttipi bat kondatuko dizut. Egun batez neure ganbera ttipiñoan nintzalerik, bederatzizurren bat egina nion “Joan Gurutzeko dohatsuari”; kontsolamendu

haundienen erdian hitz hauk erran zizkidan boz bat entzun nuen: "Jainko baten andre esposa izaita", eta solas horien eztitasun guziaz hobeki goxatzerat uzteko bezala, boza ixiltzen zen... Eta gero berriz boza hasi zen: "Zer titulua!..." eta boza oraino gelditzen zen, eta berriz hasien: "zer abantaila!..." Ez dakit, neure haurñoa, non nintzen, baina segur ere gogo erauntzita-ko atseginetan nintzen, eta pasatu zenean, negarrez bustia nengoen, baina negar zinez eztiak ziren...

Aspaldi du horrek ; zure adina nuen orduan: hamazazpi edo hemezortzi urte, baina halako indarrean gelditua da ni baitan oroitzapen hori, non arropa hartzen kantatzen entzutean "Amo Christum", iduri baitzizaidan, neure haurñoa, neure bihotza sabeletik jaliko zitzaidala... A! konprenitzen bainuen gure bokazionearen grazia!...

"Ttipia nintzelarik, hiru urte inguru nituen orduan, Beauregard Jauna usu heldu zen neure adineko hiru edo lau nexka ttipiekin nengoen komenturat, baina beti ni minduen deitzen: "Bertrand ttipi bekatorosa, igan neure ganbararat". Geroago, bere partitzeko tenorean, erran zidan iduri zitzaioala ordukotz neure buruaren gainean bere eskua Jainkoak pausatua zuela!... Eta ez da tronpatu... Justiziak jujatzen dituenaren aintzinean izanen naizelarik neuretazat otoitz eginen duzu...

"Nere haurñoa, zu eskutik eremanez erran dezakezu Jainko onak zuretzat mirakuiluak egin dituela... Eta zure Aita ona hor zena zure arropa hartzean!... Baina orain pairamenaz frogan emana balin badu, zeruan leku zinez eder bat harendako daukalakotz da".

*Ama Jenofaz oroitzapenak
(1892ko primaderan idatziak)*

[1^a]

J.M.J.T.

Arras ttipia zelarik oraino, bertze haurrak adin hortan xutik ez daitezkeelarik egon beren amaren besoen artean, Ama Jenofa xut-xuta zegoen: bere aitak maite zuen bere eskuan jartzea. Erotzeko beldur izaiteko orde, higatu gabe egoiten zen eta fiertasuenkin behatzen zien inguruko jenderi; Bertran Jaunak lurtean emaiten zuelarik, ixildu gabe ari zen: "Oraino, oraino!".

"Zegoen etxean, egoiliar multzo bat bazen, haien artean De Messemay anderea, eta beste andere noble batzu; bazen ere mutiko gazte bat Aimable izenekoa; nexka ttipiaren molde xarmentak eta izpiritu goiz ernatuak zirela medio etxeko presuna guziak ondotik zituen. Borta baten gibelean Aimable-k emana zuen Alfabet haundi bat Claire ttipiaren irakur erazteko. Eta honek hori biziki maite zuen; baina Aimable haundiak, bere erakaspena eman ondoan, lurtean pausatzen zuelarik, laster-lastera eskapatzen zen. Zertako galdatu zioten; erantzuna eman zuen: "Aimable ez dut maite aiheruak egiten baitizkit." Hala zen, irri egin erazteko nexka ttipiaren gostuko ez ziren aiheruak egiten jostatzen zen. Bizkitartean, Alphabeta haundi horri esker, hemezortzi hilabetean hizki guztiak bazekizkien, eta haindik laster, jaun batek galdaturik irakurtzen, bazekienez erantzun zuen: "Bai, Jauna, irakurtzen badakit ontsa; latina da bakarrik irakurtzen ez dakidana oraino errexki." (ez naiz segur latina ala hizkien zen).

[1ⁱ] Bazen etxean gizon bat mintzaira bat baino gehiago mintzo zuena; konprenituko duzu hori eder eta interesgarri zitzaidanez: ondorioz ardua banindoan haren ikusterat eta erraiten

nion: "Jauna, fagorez, erradazu nola amari behar diodan galdatu anglesez kolazionea. Jaun harek erranik, launazka eskalera jausten nuen eta amaren ondorat banindoan ikasi nuenaren kiskun kaskun errepikatzerat. "Baina zer erraiten didazu bada hor, zidan erantzuten harriturrik, utz nazazu otoi! - Baina, Ama, kolazionea dizut galdatzen angelesez." Gero laster lasterra, eskalera berriz igaiten nuen. "Jauna, nahi zendukeia erran gauza bera espanolez? Oraino lasterrago berriz jausten nintzan neure leizionea errepikatuz eta, Amaren ondorat heldu eta kopeta gora erraiten nion; ez baninduen konprenitzen lehiatuki erraiten nion: "baina, Ama, espanolez mintzo natzaizu". Beste mintzairekin berdin egiten nuen, Jaunari galdatuz holako edo halako gauza emaita jakin nahi nuen mintzairan.

"Ama eri zen egun batez, De Beauregard jauna jin zitzaion bisitaz. Errezibitzeko behe-rean bakarrik nintzen. "ttipiko, zaidan galdatu, zure Ama ikusten ahal duta ? Errezibitzeaz fier, erantzun nion baietz eta igan nahi bazuen lagunduko nuela. Baina, ttipittoa ez nekien neure Ama hain eri zela. Alabaina itxainak hari ezartzea manatua zuen medikuak, eta justuki M.de B-ekin eleka nindoalarik eskalaretan goiti. Bortarat heldu eta brauki ideki nuen; orduan neure aita gibelerat itzuli zen nor zen han ikusteko. M.de B. ikustean nola ez zen harritu ! Eta ni ere Ama ikustean etzana lepoaren inguruan itxain korda bat ezartzen ziotela. [2^a] M. de B.-k amari erran zion: "A! Andere Bertrand gauza segurra ez zaitezkeela ikus egun, baina berriz jinen naiz".

Orduan neure Aita otoi barkatzeko eta barkatzeko hasi zen hori bere nexkarentzat galdatuz (Hiru urte zituen orduan gorenaz). Gero jaun Erretora berriz bortarat lagundu nuen baina aldi hontan ahalgez urtua nintzen eta ez nekien zer erran; orduan pena sendi nuen ni baitan, baina orain gertakari hortaz oroitzean, irria ez dirot atxik, zinez irriegingarri baitzen.

"Egun batez bere errientsaren etxean izanez, lehio gora batetarik ikusi nahi ukan zuen : heltzeko ttipiegi izanez, zerbaiten gainerat iganez ahal bezala heldu zen. Baina ez zakien bere errientsaren gatua, lehioaren kanpoko aldean, iguzkitarat kutxina baten gainean lo zego-ela. Ondorioz igaitean uzkailli zuen eta gatua bere oherarekin urrun erori zen. Ez zuen minartu, bainan lagun gaxto batzuek beren errientsari zerbait salatzeke ukateaz bozkariotan, laster lasterra jaon ziren gatuaren bila eta beren errientsari erran Claire ttipiak zango bat hautsi ziola leihotik espres botatuz - Ikastetxean emaiten zen gaztigurik bortitzena eman zion orduan errientsak nexka gaixoari; hori baitzen penitentziako xapelaren buruan emaita. Ama Jenofaren lagunuen egitatea itsusiago zen oraino jakinez gero hura baino handiago zirela denak eta errazki gaztigarazi zutela. Baina Ama Jenofak denak jasan zituen [2¹] aingeru batek bezala.

Ez zuen estakururik eman baina erran zuen bakarrik: "Ene bihotz tipia lodi lodi zen baina ez nuen deus erran."

"Bere anaia tipiaren sortzeko bezperan, Ama Jenofak bederatzi urte zituelarik, bere anaia Jules-kin lo egiten zuen gurasoen gela zen etxetik bazter zen etxe bateko gelan. Ama Jenofa amabitxi beharra zen eta bere anaiarekin beti mintzo zen alabitiarentzat egiten zituen ametsez, uste baitzuen ahizpa ttipi bat izanen zuela: "Jules, errak, Joana deituko diat!". Beste izen batzu ere aipatzen zituen, berak maiteenik zituenak.

"Baina gauaren erdian eta jakin nahiz ea ahizpa ttipi bat bazuenentz, jeiki zen zaiazpi-ko labur bat jantzi eta amaren gelara buruz abiatu. Emeki zoan zangoen puntan, baina hel-tzearekin nahigabe handi bat izan zuen: Aitak harrabots arin bat entzuearekin ez zena gelatik atera eta oren hartan bere alabattoa ikustearekin etxe handi hartan barna ibilki erdi biluzirik, eritzeko arriskuan, erasiatzen hasi zitzaion hain kuriosa izanik eta penitentziatzat erran zion ez zuela biharamun arte jakinen Jainko onak ahizpaño bat eman zion ala ez.

“Biharamun goizean, dio Ama Jenofak, neure anaiarekin askaiten ari nintzelarik, ikusi nuen neure Aita sartzen eta Jules-n aintzinean emanik ospetsuki, xapela kendu zuen eta salutatuz erran zion: “Jules, anaia ttipi bat baduala jakinarazten diat. Pentsa zer zitekeen neure nahigabea!... Jules, lorietan zen eta trufa batean erran zidan : “Joe deituko dut, hau emanen diot izena, hura emanen diot izena...” Azkenean goxama ttipiak bere alabtxiari eman gogo zizkion izen pollit guziak ateratzen zituen.

Bizkitartean, bataio egunean [3^a] ukan zuen kontsolamendu; Armand izeneko lagun xarmant bat ukanez, honek eskularru pare eder bat eta ahotik ezin utziko oiñoñak eman baitzizkion present.

“Elizarat heldu eta, usaia zeremonien ondotik, bataioa emaiten zuen apezak galdatu zuen: “Zer izen nahi diozue eman haurrari - Nik berehala: Armand. Armand saindurik ez da erantzun zuen apezak, hauta bertze izen bat. Auguste deituko da, erran zuen neure Aitak. Zergatik ez duzu erran Boniface, zidan murmurikatu neure lagun ttipiak: ni ere hola deitzen naiz. Ah! nik ez nezakeen pentsa Boniface deitzen hintzela; lehenago behar hidan erran”.

“Uste gabeko tristezia asko baneukan baina ez zen oraino fini: Sakristiarat heldu eta sinatzea galdatzen digute. Armand-ek sinatu zuen, baina neure aldia jin zelarik, ez bainekien egiten, batere durduzatu gabe erran nuen: “Armand, sina- ezak neuretzat. “Baina zer dolorea ! apeza ohartu zen eta neri buruz hau atera: “Nolaz, goxama bat sinatzen ez dakiena!” Pentsa zer zitekeen neure ahalgea...

“Neure lagun ttipia ez nuen gehiago ikusten, baina, bi urteren buruan komisione baten egiterat haren aitamen etxerat igorri ninduten; elkar agurtu genuen ospetsuki, baina neure bisita bukatu eta, baratzeko bortaraino heldua nintzen jada, politezia haundiegikoa zen bere amak ainitz erasiatu zuen, erranez: “Nola haur txar gaizki altxatua, bortaraino lagundu gabe uzten duk bakarrik nexkatxa ttipi hori ?” Berehala Armand, negarra begian, neure ondotik nuen: - “Barkatu, andereño, barkatu -.... Baina, Jauna ez da makurrik batere, ez nauzu ofentsatu. “Ainitz zeremonia, agurtze eta politezien ondotik, hamaika urteko andere haundiak, hoin jaun jendetasunez bete eta ontsa ikasia bilakatua zen bere lehengo laguna utzi zuen, bere indar guztiez irriz zegoela.

[3¹] Etxearen gibelean bazen teilatuaren leku bat non kurritzen ahal baitzen. Teilatu horrek auzo baten etxerat emaiten zuen eta honek akazia batzu bazituen biziki ederrak zirenak loretan zirenean. Ama Jenofa, bere kusina ttipi eta anaiekin, bazihoan lorietan, teilazpiko gela batetarik pasatu eta, lorezko adar eder batzuen biltzerat eta gero prosesione eder baten egiterat teilatuan. Baina hori ez zen Bertrand jaunaren gustukoa; zion bere teila lapitzak haurrek hausten zizkiotela. Ondorioz, azantz zerbait entzun orduko berehala berriz leihotik sartzen ziren.

“Bertrand jaunak bazuen ageri bat xingola bat erabiltzeko baimena emaiten ziona. Ama Jenofak pentsatu zuen hark ere behar zuela bat erabili; orduan plomuzko bat erosi zuen eta Messemay andreari ekarri. Hunek, biziki maite baitzuen, xingola xuri polli bat ezarri zion bere arropa ttipiari lotzeko.

“Jaun batek, holá ikusiz, erran zion: “Baina neure nexkatxa, xingola horren ekartzeko baduzuia ageri bat? Baimenik gabe ez da ekarri behar”. Holá mintzo zen arrailleriaz, baina Ama Jenofak, irriegingarri zen serio batean, erantzun zion: “Jauna, Aitak badauka bat”.

“Etxearen ondoan bazen mutiko ttipi bat lirio loreak oihal puska batzuen gainean tindaturik saltzen zituena. Ama Jenofak bat erosi zuen, pikatu eta bandera xuri ttipi batean kolatu. Bere anaia ttipiari eman zion. Bertze haurrek hain ederra zeukaten non erosi nahi baitzioten; baina hark ez zuen nahi.

Egun batez Auguste ttipia karrika [4^a] arraseko ganbera batean zen muble baten gainean jarririk zagon, ganberako borta idekirik zagola; Ikusirik haur hura bere bandera xuri ttipiarekin, han iragaiten ziren eroska batzuek sabrearen zabala bere zango ttipien gainean eman zioten, hauen hausteko irriskuan, eta hori lirio lorearen herraz. Bertrand jauna, bere semea harturik, ubeldura batzuk baizik ez zituen beharrik, herriko etxerat joan zen hauraren zangoen erakusterat eta jutzizia galdez.

“Andere Messemay bertze herri baterat joana izanez, Ama Jenofa eta honen kusinak pentsatu zuten haien arropa ederrak lehenago egoiten ziren armairu haundian beren pupetentzat hondar zerbait atzemanen zutela. Ama Jenofa, ttipiena izanez, kargatua izan zen ikusterat joateko; taulaz taula igan zen beraz, baina ez zuen ez perlarik, ez xingolarik atzeman, ez zeta edo broderia puxka ttipienik; nahigabez betea armairu haunditik jautsi zen. Hain segur, ohartu gabe mublea inarrosi zuen; dena den, nexka ttipiak zangoa lurrean pausatuta zuenean eta urrats batez baztertu, armairu alimalea erori zen eta gaitzeko harrabotsean puskatu. Harritua andere Bertrand jin zen, uste zuen haur bat lehertua atzemaitea, baina haren alabak ez zuen deusik ez karramixka bat ere. Ama Jenofa ez zegokeen erran gabe, ez balitz izan ezohiko laguntza bat, armairuak haren gainerat erori behar zuela eta bera hil.

“Ama Jenofak bazuen Jakot izeneko bele bat; libro uzten zuen eta ekarrarazi nahi zuelarik, leihoan emaiten zen deituz: “Jakot, Jakot”; berehala xoria heldu zen.

“Beleak biziki [4ⁱ] maite ditut, zidan erran Ama Jenofak: Sainduen bizian, ardura aipatuak dira: haietarik bat zen kargatua San Paulo lehen ermitaren hazteaz eta miragarriak egiteko Jainkoak usu xori horiek erabili ditu. Beraz neure Jakot biziki maite nuen. Neure amak ez zuen hainbertze maite eta haren ganbararat jiten zenean, laster haizatzen zuen; baina neure adixkideak ukaldia heldu ikusten zuen: fineziarekin, neure amak bere trikota pausatuta ohe edo mahainaren gainean hegalka zebilan, orratz guziak tiratzen zituen eta gero ukaldi bat ukan gabe airatzen karranka trufakor bat botatuz.

“Hiritik urrun zegoen etxe batean egoiten ginen orduan; beraz berina bat baino gehiago hautsiak izan arte ez genuen mitreroa ekarrarazten; hautsien lekuan papera kolatzen ginuen. Goiz batez, jateko salako mahainak ez ziren oraino hustuak, baso guziak uzkaillak atxeman genituen. Gure harridura haundia izan zen, baina ez zuen ainitz iraun, gure Jakoten lana zela hori laster ikusi baigenuen. Alabaina gauaz, azantzak entzunak genituen: noren xoria zen eta salan sartzeko paperezko berinak brauki hautsiak zituen, gero arinki hegalka ari izana zen mahainaren gainean; bere pata ttipiarekin, baso bat eztiki uzkaillia zuen, gelditzen zen arnoa mokoaren gainerat erortzeko gisan eta baso hori mahainaren azpian ezarria zuen; bertze guztiekin zeremonia bera ibilia zuen [5^a] eta bat ez zen hautsirik.

Baina arnoa maite bazuen Jakot-ek ez zuen haragia gutiago maite: Behereko barne batean, egun batez, bi serora mahainean jartzerat zihoazen. Erraki on baten aintzinean zeuden, baina Jakot-ek errakia ikusirik, jauzi egin zion gainerat eta ereman zuen, bi serora gaitxoak harriturik uzten zituela. Aldi hartan, nik deituagatik, ez zidan erantzun bere errakia osoki garbitu arte; bere janaldia, auzoko teiltatu baten gainean bere gosturat jarririk egin zuen.”

“Biziki debota zen ere belea eta serorekin elizarat bazihoan. Haien otoitz kaderarat hupaturik, haien mugimendu berak eginez, dantzan ari zen, kantatuz: “Kua, kua, kua!” serorek beren otoitzak erraiten zituzten doinu berean. Beretzat gisa zen eriotzea ukan zuen Jakot-ek, elizako ur benedikatu untzian hil baitzen.

Bere kizkurdurentzat erasiatu ondoan, lepo xerrak ekartzeaz zizkion gaizkiak erran M. de B(eauregard)-k:

“Moda baitzen lepo xerrak ekartzen nituen orduan ; alta aski xingleak ziren, baina ez dakit zergatik M. De B. -ri ez zitzaizkion gustatu, eta erran zidan gehiago ez ekartzeko. Aldi hontan neure sakrifizioa egin nuen, amari erranik alabaina erantzun zidan: “Neure alaba, zure kofosorari behar da obeditu”. Orduetik neure lepo-xerrak, alta goxoak, utzi nituen.

Banuen ere lepoko gorri bat batere gustatzen ez zitzaiona; ez nuen bada urguluz ekartzzen, [5ⁱ] etxetiar baten alabari finitzerat emaiten nion indiano lepoko bat baizik ez zen.

“Elizan, ama eta ni apezen aukiarri hurbil, prediku alkiaren parean plazatuak ginin: ahal den itxurako bi pertsona baziren ere gure parean; ez nien batere kasurik egiten. Haiek ez ziren berdin jokatzten: alabaina, nik jakin gabe, meza denbora guztia neuri begira pasatzen zuten, entsatzen zirela beren eskarnioez ni irriz hasarre erazterat.

“Apezen alkian bazen gazte bat Duchesne izenekoa. Ikustez nuen bakarrik ezagutzen eta ez nintzaion egundaino mintzatua. Egun batez aipatu delako bi pertsona haiek egoiten ziren karrikan kurutzatu nuen; ni bidearen bazter batean nintzan, hura bertzean. Salutatzen nuen apez guztientzat usaia nuen bezala eta neure bidea segitzen... baina zombait urrats egin orduko ezagutzen nituen jende batzu beren etxetik atera ziren eta otoiztu ninduten beren egoitzan sartzerat. “Andere Bertrand, erran zidaten, ez dakizuia jendeak zer dioen zure kontra? Parean beha ezazu.” Behatu nuen eta erakutsia zitzaidan etxean, neure elizako bi auzoak irriz ari ikusi. Gora mintzo ziren, gaitzeko bozkariozko jestuak zeuzkatela. Ez nuen deusik konprenitu hortan baina beren etxerat sarrerazia ninduten jendeek esplikatatu zidaten. “Andrea, gure eginbidea da zure kontra hedatua [6^a] den kalomnia zuri jakinaraztea: irriz ikusten dituzun jende horiek andere Duchesne deitzen zaituzte denetan, diote mezan zure aintzinean den apez gazteari irriño batzu egiten dituzula, eta zure barrandatzeko dira joaiten elizarat.”

Neure bihotz zarrasta gairitu nuen eta abisaturik eskertu, baina, etxerat sartu eta negarretan Amaren besoetarar bota nuen neure burua. Jakin zuenean zergatik ari nintzen negarrez, arrazoinik gabeko kalomnia beltz hortaz ni bezain harritua izan zen, berri horren hedatzaileekin harremanik sekulan guk ez izanik.

“Berehala neure Amarekin joan nintzan eta xuxen xuxena haien etxerat; gu hor sartzen ikustean biziki harritu ziren: “Andereak, zioten erran neure amak, neure alabaren fama hola belzteko nahi nuke jakin zer gaizki egin dizuen?”

“Gure jendeak isil isila gelditu ziren eta nik hauxe erran nien: “Elizan neure parean den apez gazte bati irriño batzu egiten dizkiodala, diozue andereak. Hortarat heltzeko ez dakizue zer eskarnio pentsa. Irri egin dudala ez naiz oroitzen. Baina jakin ezazue zombait aldiz hori gertatu bazait, neure irriak urrikarizkoak izan direla bakarrik.” Bisita horren ondoritik, presuna horien berririk ez dut ukan; ez ditut gehiago ikusi ere”.

[7^a]

J.M.J.T.

Neure anaia ttipiak itsas kardo gordinak biziki maite zituen, baina ez nizkion beti emaiten beldurrez eta horiek kalte egin diezaioten. Egun batez, batto sakelan gorde zuen eta haren goxatzerat joan zen etxetik urrun bakarrik. Sartu zelarik, haren hortz ttipi beltzetarik ikusi nuen fruitu debekatutik jana zuela: “Auguste, oraino ere itsas-kardotik jan duk!. Biziki harritu zen. “Baina, neure Clarisse maitea, nork erran ote dizu hori? Ezin sinetsia da!... Hain ontsa gordea nintzen... Beraz denak badakizkizu?...”

Bertzaldi batez, bere pentsionetik itzultzean, erran zidan: “Bazeneki, Clarisse maitea, Sakramendu Sainduaren bestak zoin maite ditugun! Behar duzu jakin baratzekeo bidexken bazter guztian xarmanteko marrubi ondoak badirela. Xilintxa ttipiak jotzen duelarik, berehala, gure superior ona lorietan emaiten duen lehia batekin, belaunikatzen gara. Baina pentsa ezazu, neure Clarisse maitea, gure denbora ez dugula galtzen: gure hortzen meneko diren marrubi guztiak jaten ditugu.”

Karmeliten kantuaren entzutea biziki maite nuen; usu igandetan, neure anaia ttipiarekin, haien bezperatarat joaiten nintzen. Prestuki zegoen eta bildutasunean, nahiz ardura ofizioa doi bat luze atxeman. Orduan koroak pausan jartzen zeneko, eman dezagun Pater Noster erraiteko, berehala Auguste-k arropatik hartzen ninduen apal apala erranez: “Fini da, zatoz laster, neure Clarisse ona”. Baina laster kantua berriz hasten zen eta gaixo neure anaia ttipia berriz behar zen otoitzean eman, berriz bere ateratzeko nahikundea zapaltzerat utziko zuen pausa berri bat jin arte; bizkitartean kapera ez nuen uzten bezperak arras finitu arte.

“Neure ama hil eta [7^a] banindoan ardura neure kusina Teresari bisita bat egiterat; sendi nuen haren debozione eta esperientziatik ainitz atera nezakeela. Baina neure anaia ttipiari, gure solasak seriosegiak zitzaizkion: higitzen zen, neure inguruan zebilen, arropetatik tiratzen ninduen, eta gero, hurbildurik, apal apala erraiten zidan: ‘Zatoz laster, neure Clarisse ona, bakarrik zurekin naiz laketa’¹. Neure kusinak orduan erraiten zidan: ‘Baina zer du ba zure anaia ttipiak? Ez dagoke nehon! zerbait nahi duia?... -Ez, ez neure kusina ona, ez da deusik, prestu prestua egonen da’, gero Auguste-ri keinu bat egiten nion. Hala ikusiz ez zuela deusen esperatarik, pazientziarekin neure beha zegoen. Baina zer bozkarioa ateratzen ginenean! ‘Fite, neure Clarisse ona, ixtorio bat konda iezadazu, zure entzutea hain dut maite’...”

De Beauregard jauna apezpiku izendatua izanik, kofesor bat behar ukan zuen hautatu. Berehala haren begiak De Rochemontoux karmeleko kaperaren alderat joan ziren. Baina gaztea zen eta Jenofa Amak, jada bokazionea sendi zuen eta bere baitan zion: “Kofesor bezala ez dut hautatu behar, Teresa neure kusinak alabaina erran dezake: “Ikus, apez gazte horiek denak nexka gazteei buruak berotzeko eta komenturat igortzeko baizik ez dira”.

Neure kusinak katedraleko kalonje zahar bat zuen kofesora; bizkitartean ikusterat joan nintzaion eta erran nion: “Kusina ona, kofesor bat hauta iezadazu. - Baina har ezazu nahi duzuna, aski haundi zara eta libro- Neure kusina ona, zuk hautatua hartuko dut...”

Segur nintzen neure kusinak katedraleko kalonje xahar on batenganat igorriko ninduela. Bizkitartean kontseilurik gabe ez baitzuen deusik egiten, [8^a] entzun nuen karmeliten kapelauaz saindu gazte batez bezala mintzatzen eta nola ez nintzen harritu De Rochemontoux jauna hautatu zuela jakinarazi zidalartik... Neure zoriona ez nuen agertu eta xinpleki eskerrak eman nizkion: “Orain, pentsatzen nuen, neure bokazionearen berri ukanen duelarik ez nau geiago erasiatzen ahalko.”

(Dulys jaunari, neure ustez, zion kontseilu galdatu neure kusina zaharrak).

Hamazazpi urtetan, Ama Jenofa karmelerat joan zen lehen aldikotz; ez dakit zen bere bokazioneaz solas egiteko, baina ez zen hain segur sartzea galdatzeko; uste dut zela bere gerizaz eskertzeko. Ainitz, Ama ikusi zituen, neure ustez tornuan eta ez mintzategian. Haie-tarik batek erran zion: “Anderea, zer adin duzu? -O! anderea, ontsa zaharra naiz, hamazazpi urte ditut”. Ama Jenofak hogoi urte inguru hori zukeen haren sartzea erabakia izan zelarik.

Haren paperetan emana den bezala pasatu ziren gauzak. Mintzategian inarrosia zela ez zuen batere erakutsi, baina, bere ganbaran sartu eta burrustaka negarrez hasi zen.

¹ Ik. KH 20.VIII.9 eta oharra, DE., 533. or.

[9^a] “Neure aitarekin gaztaindegian izanez, herriko haurrei katixima ikasaratzea maite nuen. Lehenik bakar batzuk hartu nituen, baina laster elkarri zioten :”Badakizue, gaztaindegiko andereak katixima ikasaratzen duela? Goazen gu ere.” Eta holaxet populu ttipi bat banuen laster neure inguruan. Partikulazki oroitu naiz nola egun batez bi nexka ttipi jin zitzaikidan ikusterat ziotela: “Anderea, nahi diguzuia gure katixima ikas erazi? - Segurki, neure haurrak, nola deitzen zarete? “. Ttipienak, hau zen ere goxoena, erantzun zuen berehala: “Margarita dut izena, Anderea, baina Gothon deitzen naute; baina nahi duzuna errazu, arras igual zait. - Neure nexka ttipia, Margarita deituko zaitut.”

- “Eta zure izena nola da?”, nion galdatu haundienari. Hau biziki itsusia zen baina goxoa eta biziki onaren itxura emaiten zuen. “Ni, Anderea, Madeluche deitzen naute”.

Margarita, handik laster, eleka hasi zen: “Ez dakizu, Anderea, eskolako errientaren etxetik heldu naiz, baina neurekin deusik ez dezake egin, eta joiten nau; baina ez nau horrek hobetzen, eta ez dut deusik egiten. Egia da, Anderea, barea bezain alferra naizela; baina zurekin uste dut ontsa ikasiko dudala, ez bainaiz zozoa eta neure lehen komunioea egin nahi bainuke.”

Neure bi ikasle berriak kuraiestatu nituen, eta laster, biziki gogo xorrotxeoak zirela, ikusi nuen; Madeluche goxo eta errexa bezain, Margarita bizia eta suharra zen. Katixima denboran, elizako pilar baten gibelean gordetzen nintzen, eta gibelerat jitean, neure haurrak galdezkatzen nituen: “Ea, Margarita, erradazu Jaun Erretorak zer erran duen goizean?”

Margarita xutitzen zen, [9ⁱ] bere taulier izkina hartzen zuen eta bere erien artean itzulikatzen: “O! badakit ontsa, Anderea, Jaun Erretorak hola erran du... erran du. Ah!... baina ontsa badakit... mihiaren puntan dut hori kasik... erran du, erran du...”

Eta gaixo haurra hortan gelditzen zen; orduan Madeluche-ri erraiten nion : “Ea zu, zerbait erraiten ahalko diguzuia? - Anderea, uste dut baietz”, eta herabeki, bere lagunak harriturik utzirik, Jaun Erretorak aipatu guztia errepikatzen zuen...

“Prediku baten ondotik, egun batez Margarita asaldataua ikusi nuen: “Ez dakizu, Anderea, Jaun Erretorak erran du izan den biltzarerat joanen diren guztiek ez dutela aurtan beren lehen komunioea eginen; ez naiz kontent, besta bat baitzen neuretzat aitzinetik - Eta zuk, Madeluche, biltzarrean izanik dolu duzu ? - Oh! ez, Anderea, igual zait- Bai, zion Margaritak, ezagutzen haut ontsa, baina nahi dudan guzia ez egin saildua; nik dionat biltzarerat ez joaiteaz ez naizela kontent”.

Bertzaldi batez Margaritak erran zidan: - “Bazeneki, Anderea, neure lehen komunioea egunean zoin ederra izanzen naizen. Amak etxeko arropa bat eta xapel eder bat erosi dizkit, hori guztia arras ederra da”.

Madeluche-ri galdatu nion nola beztitua izanzen zen: “Ez dakit batere, Anderea; ez naiz hortaz batere axolaten; amak nahi duen bezala beztituko nau”.

Bizkitartean desberdintasun arras nabarmen horren gatik, Margarita zinez aintzina ari zen; eguna hurbiltzen ari, baina maluroski gaixo neska ttipia eritu zen ; laster lasterra joan nintzaion ikusterat; urrun urrun ikusi orduko, haren ama jin zitzaidan lasterka biderat: “Ah!, anderea, nola behar zaitut eskertu? Neure alaba ezin ezagutua da: Lehen ez zuen deus egin nahi, orain xerbitxu egiteko okasionearen bila dabila ; ez da gehiago bera; ez dakit [10^a] nola egin duzun.”

Beharrik, neure eri ttipia laster sendatu zen, eta bere lehen komunioeko egunean, haren pietate eta goxotasunari esker jende guztiaren begietan nabarmendu zen. Neure Madeluche gaixoarentzat ez zen berdin izan : “Ikusi duzueia?, - zioten. - Itsusia da eta bere aho idekiarekin aire zozo bat badu...”. Ele horiek entzutean neure baitan nion, haren aurpegia ez bada pollita, haren arima Jainkoarentzat arras ederra eta laketa da.

Geroago, karmelen nintzelarik, jin zitzaizkidan erraiterat Margaritak mintzatokirat galdatzen ninduela. Ona eta maitagarria, "Madeluche-z oroit zara segur?, - zidan erran -. Eza-gutu duzun hura, hura bera gelditu da; ezkondua da, haurrak baditu eta herritarrentzat etsen-plu bat da".

Nahi ukan banu, Margarita ardura jinen zen neure ikusterat, baina nahiago bainuen mintzatokirat ahal bezain bakan joan, ez nuen hortarat sustatu.

Bertze behin bi muttiko ttipi jin zitzaizkidan ikusterat: "Anderea, nahi diguzuia irakurtzen erakatsi? - Bai, neure haurrak; zer adin duzue? - Nik, zuen erran zaharrenak, sei urte ditut, eta Pierre dut izena; neure anaia bartz ditu eta Jean du izena". Erlisionearen esplikatzeko hasi nartzaie, eta bertze gauzen artean, gomendatu nien sekulan ez sakrerik erraitea; hori itsusi zela eta Jainko onarentzat higuigarri.

Biharamunean, Pierre, neure etxean sartu zen bere anaia ttipiaren kontra arras hasarre: [10^a] "Ez dakizu, Anderea? Erran diguzu sakrerik ez erraiteko; eta, Joanek sakre bat bota du. - Nola, nere Joan ttipia, holako gauza itsusi bat egin duzu? - Anderea, ez ote zen arrazoinik, Pierre-k errautsa hartu du bidean eta begietarat bota dit. - Pierre zu zaharrena zara eta zure anaiaeren ahorat errautsa botatzea gaizki egin duzu, baina zuk Joan, ez zenuen sakrerik bota behar."

Neure karmelean sartzeko finkatu egunean, libro behar nintzen kausitu arratseko seietan; neure aferak bukatuak izanez, neure kofesorak erran zidan, biharamuna arte egoiten ahal nintzela nahi banuen. Baina erantzun nion: "Neure Aita, sei orenetan libro nintzen ber, sei orenetan sartuko naiz". Pentsa, gaixo neure haurra, arrazoin nuenentz : sartu eta biharamunean, neure anaia pentsionean zen etxeko superioraren letra bat ukan nuen. Erraiten zidan neure anaia eri zela, baina pentsatzen zuela nere artamendu on eta kanpainako aireak berriz laster xutik emanen zutela.

Beraz libro nintzen egunaren arratsean ez banintz sartu, behar bada neure bokazionea hutseginen nuen: eragozpenak bat bertzearen ondotik jinez gibelaraziko ninduten eta behar bada azkenean sartzerat ez utziko.

Karmelean bazen munduan ezagutu neure lagunetarik bat (bela xuridun seroragai zen orduan). Ni sartu aintzin, [11^a] jostalekuan mintzo ziren nitaz eta bere bokazionearen kontra trabak aurkitzen zituen eta laster sartu beharra zen seroragai batez. Neure adiskideak ximple ximpleki erran zuen: Oh! andere Bertrand sartuko ahal da bederen! Ez dut loturarik bertzearekin, den lekuan egoiten ahal da". Berehala serora batek baino gehiagok elkarrizioten: "Horra, adiskidantza partikular bat hor hasiko dena".

Horietaz guzietaz ez nekien deusik. Ondorioz, sartu eta, ikusiz neure adiskidea arras aldatua neure alderat, eremaiten ninduela orotarat, baina idekidurarik gabe eta halako hotz batean. Ez nion galdatu zergatik hola kanbiatu zen, baina geroago bere botu sainduen egiterat onartua izan ondoan, erran zidan arrazoina eta haren zuhurtzia eta bertutea miretsi nituen.

Neure botuak egiteko goizean, hain nintzen durduzatu non kofesoraren ikustea galdatu bainuen eta bakarrik harek manaturik nituen egin neure botu sainduak.

Serora multxo bat bazen komentuan, bixikadoreak zituztenak. Ni sartu eta laster gertatu zen berri batek ez zuela bere izenik eman nahi. Egun batez, garbi lekuan, serora batek pentsatu gabe, erran zuen: "Jenofa serora daiteke bixikadore batekin ; ez du erran nahi, bel-durrez eta ez dadin hartua izan".

Neure superiora han baitzen, hori entzutean, pentsatu zuen egia zela eta nik gordea niola; ondorioz neure alderat biziki bortitz agertu zen. Ni, sospetxarik gabe bainintzen, usaian bezala nintzen harekin, baina ez nuen ikusten ezin konprenituzko garratzasun horren arrazoina.

Egun batez banoakio ikusterat zangoen garbitzeko permisionea galdatzeko: - “Hori baizik ez duzu [11ⁱ] galdatzeko?, zaidan erran gogorki. - Bai neure Serora ona, ez dut uste badudan bertzerik. - Nola, faltsu txarra, maltzur txarra, hori baizik ez duzu? Eta besoan duzun bixikadorea, eta gordetzen duzuna?... “

Harritzeko ustegabeen nintzen, bixikadorerik ez nuela segurtatzen nuen, baina kalma-terat heldu gabe; azkenean, neure besoak erakutsi nizkion, ez nuela enganatzen probatzeko.

Neure arropa (abitu) hartu baino zombait denbora lehenago, arropazain serora onak aldatu ninduen eta erran zidan: “Neure serora Jenofa, abantailatu gisa tratatuko zaitut :emanen dizudan mantoari beha ezaiozu”. Gero armairutik delako mantoa atera zuen. Biziki xaharturik hil serora batena zen. Serora hori, bere biziko azken urteetan, beti besaulki batean jarririk zegoen. Ez zen nehor ohartzen haren mantoa laburregi zela (pentsu dut ttipitua zela garbitzearen bortxaz) eta hori-horia zen!

2

Hura ikustean, bihotz ximiko bat senditu nuen... Bestan nintzen alabaina ukanen nuen manto xuri ederraz!... Negar egiteko egiazko gutizia bat banuen; bizkitartean arropazaina eskertu nuen, neure pena batere erakutsi gabe. Zombait egunen buruan, arropa hartu berria zuen seroragai bat, jakinik ez nuela manto [12^a] berri bat ukanen, negarrez hasi zen, ziola: “Nik manto zahar bat ukaitea hainbeste gutiziatua! Jenofa serorak zer xantza daukan!”

- “A! nion neure baitan, zoin bertute ttipikoa ahal naizen: neure laguna manto zahar bat ez duelakotz ari da negarrez eta nik bat dudadakotz dut negar eginen,”

(Ama prioreak ez zuen nahi izan, nahiz irazki ttipikoa izan, belaunetaraino ere heltzen ez zitzaion, mantoa, ama Jenofak erabil zezan).

Serora gazte batekin arropazaindegian nintzen eta lehen langile bezala xaharño on bat genuen. Egun batez bagenuen saski bat betea petaxatzeko zaiaz betea. Neure laguna eta ni hain ontsa ari izanak ginen lanean non arratsean saskia hustua baitzen; besta bat geunkan pentsatzea zer ustegabezko harritzea egiten genion gure lehenari. Baina xaharño ona jin zelarik, hitz bat erran gabe, lanean hasi zen, usaian bezala. Elkarrri behatzen genuen arras harrituak. Baina laster neure lagun gaztea mintzatu zen: “Neure serora ona, ez zirea kontent? Ikus zoin ontsa ari izan garen lanean... Oh! neure serora ttipittoak, barkatu, ez nekien lan [12ⁱ] hori gutzia neuretzat egina zenutela.

“Uste nuen Jainkoarentzat ari izanak zinetela. Hortakotz zintuztedan ez eskertzen; baina orain badakit eta ezagutzaz beterik nago zuen alderat... Milesker... milesker, neure seroraño onak...”. Pentsa dezakezu, neure ttipitto, zer efetu utzi ziguten hitz horiek: ondorioz, ez genuen berriz hasteko tentazionerik ukan.

Poitiers-eko usaia zen azken profesa hirugarren erizain izan zedin: beraz, neure botoak egin orduko enplegu hortan ezarria izan nintzen. Baina hain nintzen malestruka non ez bainezakeen deus honki lurrerat erortzerat utzi gabe. Egun batez eskuetan eman zidaten plat bat aran, erranez eremaiteko kasu eginez; baina hiru urrats egin orduko, patatras, horra plata

lurrean eta aranak eroriak. Neure ama prioreak punitzeko, komunioea huts eginarazten zidan, zerbait hausten nuen egunetan. Goiz batez, meza aintzin, gertatu zitzaidan zerbait haustea. Nahiko nukeen meza ondoan bakarrik erran, baina pentsatzen nuen ez zela hori egin behar, banakielakotz gure amak komunioea jauzaraziko zidala balin bazekien. (13^a) Joan nintzaion beraz erraiterat "Neure Ama ona, holako gauza hautsi dut. Zure mantua utzazu, Jenofa serora".

Eritegian oihal xuriko serora bat bazen, Radeconde serora, egiazko saildu bat. Ingu-ruan hedatzen zuen usaina hain zen ezin jasana, non haren hiltzeko bezperan, artatzen zuen medikua ez baitzen arras denbora guti baizik egon. Eta komentutk atera zenean, atezaineta-rat joan zen zerbaiten edaterat, bihotza huts egitekotan baitzuen. Erran zuen: "Andere horiek sailduak behar dute izan, holako usain baten jasaiteko, ezin jasana baita". Eta horra, jakin ezazu neure haur maitea, serora hil zen egunean, usain tzar guztia joana zen; egiazko mira-kulu bat zen, uste baiguenen ez genuela atxikitzen ahalko, medikua hala erranik. Horren orde haren ohearen inguruan egiazko usain on bat sendi zen. Uda zen eta biziki bero. Zer zorion eta debozionerekin ez nizkion arrosazko koronak emaiten eta hauk eihartu orduko, kanbiatzen!...

Bere zaien besoak hesteko ainitz soka mutur (uste dut hogeita lau) bazituen eri bat bazen infirmierian. (13^b) Egun batez higatuak ziren bere sokak kanbiatzea galdatu zidan. Berehala sokak galdatzeko lehen infirmierarenganat joan nintzen; erakutsi zidan non ziren eta doi bat luzea zen lan hori egiñ nuen. Burutu eta, eritari neure lana ereman nion. Biziki kontent agertu zen hortaz. Baina laster infirmiera jin zitzaidan ikusterat: "Jenofa, neure ahiz-pa zer egin duzu? Zaijan soka berriak eman dituzu: hor zirenen punttak zenituen kanbiatu behar. - Neure serora, milesker hori erranik: josiak deseginen ditut eta zaharrak emanen". Laster lasterra itzuli nintzen eriaeren ondorat, berehala itzul ziezadan galdatuz: "Gaixo hau-rra, erran zidan, zer lanak emaiten dizkizudan - Oh! nere serora, horrek ez du inportarik batere; laster berriz ekarriko dizut". Nere lana berriz hasi nuen, sobera beldur nintzen eta pobretasun sailduaren kontra huts egiteaz."

3. IDAZKI EZBERDINAK

Sail honetan biltzen dira Teresak bere gelako mahaian edota berak erabiltzen zituen liburuetan gorde zituen testurik gehienak, kronologiaren arabera sailkaturik. Gainerako tes-tuek ez dute garrantzi handirik edota ulertezinak dira.

1888ko azaroaren 24a

Joan Gurutzekoaren ordenua (kopia)

Teresak, nobiziagai zela, bizi izan zuen Joan Gurutzekoarren lehen besta. Hark garai honetan behar zuen bere arropa, Martin jauna eri gertatu ez balitz. Teresak egun honetarako egin zuen billeta izan daiteke, agian. VT-n, 94. zk., 1984ko apirilean, 157. or. argitaratua.

Gure aita Joan Gurutzekoaren ordenua:

Neure alaba, neure xede ona uzten dizut!... Nik bezala eginen duzu, Jainkoarentzat kontsolamendu guztietarik baztertuz eta zure bihotza eramanez hautatzerat beti zure gustuari, dela Jainkoaren partetik, dela kreaturen partetik, gutienik dihoakiona!... Horra zeri erraten zaion, Jainkoa zinez maitatzea!...

1889ko udabarria (?). Erreteta oharrak (Aita Pichon). Kopia.

VT-n, 30. zk., 1968ko apirilean, 139-140. orr. argitaratuak. Teresak A. Pichon-en bi erretrataren oharrak berriidatzi zituen bere eskuz: 1887ko urria (ik. VT, 29. zk., 1968ko urtarrila, 68. or.) eta 1888ko maiatza. Hark testu hauen aipamen batzuk egiten ditu TG.etan (TG 89, 26/4/1889) eta TG-etan 197 (17/9/1896). Haren kopia beste ahizpa batzuek egindakotik hartua zen. Ik. CG, 478. or., oharrak.

“Karitatea, dio Alfonsa Ligori-ko sailduak, bakarrik ezin jasanak direnen jasaitea da.

Sainduak, Jesu Kristoren oinetan zirelarik, zuten kausitzen beren kurutzea!...

Saindutasuna harrigarriago da, goikoago, baina gure heinekoago ere: Gure miserietan auhenska artzean, pairatzean eta jasaitean aurkitzen da.

Denek, dio Aita Ravignan-ekoak, denek otoitzean ari garelarik gure otoitzetik bazterten gira. Minuta batez doi-doi dezakegu Ave Maria bat erran, eta Jainkoa gogoan atxik. Hor da kuraia behar, indar saildu bat izan...

Saindutsauna! ezpataren puntaz behar da irabazi, behar da pairatu, agonia ezagutu.

Tristeki sofritu du Jesusek!... tristeziarik gabe, arimak sofri ote lezake!...

Martirik bozkariorekin dute sofritu... eta martiren Erregeak tristeziarekin du sofritu, eta bere agoniako lehen hitza hauxe da: “Nire arima hiltzeraino triste da!”

Gure Jauna bere kalitza kiratsaren beldur da, bere bokazione sailduak izitzen du! Asaldatzen nauten izialdura horiek, beraz eskaintzen ahal dizkiot!...

Gure Jauna durduzutzen da; beldur da; ez dago odol hotzean; ez dago soraio; eta nik neure asaldurez dolu dut; eta Jesusek merezidun direla erakasten dit; Jesus-ek bere burua higuintzen du; bere bokazione saildua higuin du; eta bere higuintasun horren odola bere menbro guztietarik ixuriko du!... Eta harritzen naiz naturalezaren hersturak senditzea higuin dudalakotz!... Gure Jauna unatzeraino heldu da, arima jeneros batentzat sentimendu zinez apala!... Ken ditzagun unadurak, bakartasunak... Non izanen dira pairamenak? Eta nik uste nuen ez zela tipiki eta miserableki sofritu behar...

- "Ah!, zion saindu batek, Jainkoak begira gaitzala haundizki, indarrez eta jenerostasunekin sofritzetik!»... Deskuraimenduaren barneko kurutze hori gabe, jakin dezagun, bertze guziak deus ez litezke!..."

BURU-UZTEA

"Ah! Ideki zuen bihotzak!... Zabaldtu zuen arimak!... Maita Jesus beti, zernahi gerta ere, zioen aita Ponlevoiy-k, eta haren besoari eskapatzeko, bota zuen buruak haren bihotzerat!... Kontzientziaren bidea ez da bihotzaren bidea!..."

Frantses Sales-eko maitagarriak dio: "Jainkoa, hemendik aintzina, zuen bihotzaren Jainkoa izan dadila, eta ez zuen kontzientziaren, zuen adimenduaren, zuen nahikundearen Jainkoa! Zuen kontzientziak, zuen errespetuak eman ohoreez Jainko onak badu aski!..."

"Amodioaren sua bihotz batean sartu delarik, muble guziak leihotarik badoaz".

Ez izan beraz esklabo batzu, haur bilaka zaitezte... Zuen espos lagunaren bihotzean har zuen lekua!... Jainkoaren etxean, zuen etxan zarete!...

Sales-eko San Frantsesek dio: "Aurpegi on bat eman zuen arimari, eman irriño bat, hitz goxo bat."

"Nire bihotza, nire adiskidea, elkarrekin goazen! Jainkoaren izenean, har kuraia!... Har pazientzia Jainkoarekin, baina har pazientzia ere zeure buruarekin! Gure burua behar dugu eraman eta gure burua eramaten duguno, ez dugu deus balio duenik eramaten!... Haundi behar da izan bere buruarekin!..."

Izpirituaren pobretasun haundi bat ongi hartua, altxor haundia da.

*1891ko azaroaren 24a. Joan Gurutzekoaren ordenua.
(kopia).*

1891. urtea San Joan Gurutzekoaren heriotzako hirugarren mendeurrenekoa da. Tere-sak besta horietan saltzeko iduri asko egin ditu erlikiarekin nahiz erlikiarik gabe. CG-n, 618. or. aipatua den testua.

J.M.J.T

Gure aita Joan Gurutzekoaren ordenua....1891.

Neure alaba, neure barne biluzia uzten dizut. Jainkoa osoki ukan nahi duen arimak, denei uko egin behar du, Jainko haundi horri bere burua oso-oso emaiteko!

*1892ko martxoaren 19a. San Joseren ordenua.
(Kopia).*

Sainduaren bestako Teresak atera "ordenuaren" kopia daiteke.

G.A. San Joseren "Ordenua"

Neure alaba, Haur Sainduak, bere edertasunaz neure bihotzean pizten zituen gar dibi-noak uzten dizkizut. Hauek, horrela, su haundienaren eta amodiorik garbienaren eta amul-tsuenaren labea bilakatu ziren. Gauza kreatuak gutiago maitatuko dituzu eta hanbat gehiago parte hartuko duzu horretan.

Zure bihotza osoki biluzia eta garbitua baldin bada, Jesus Haurrentzat hobe izanen da, pausaleku saindu baten izateko !...

1892ko martxoaren 19a

1892-1893. Kontseilu Izpirituala. Oharra

Hain segur kofesionalean ukan erantzuna ezohiko Karmelgo kofesorarenganik, 1892urtearen hastetik, Baillon apeza zen hori, Teresa eskrupuluek jana zaukatelarik (ik. CG, p.678+e).

J.M.J.T.

Zure kontzientziaren kontra ez bazara ari, bekatua balitz ere, ez zenezake bekaturik egin (Baillon jaun apeza).

1892-1895. Iduri sainduentzat gogoetak. Kopia

Lehen komunionekeo itxura sainduetan ibili beharrak ziren pentsamendu hauek gehie-nak. Komentuko ogibidetarik bat zen hori. Hirugarren aipamena Jr 31,3; zazpigarrenerako: ik. TG 197; zortzigarrena: ik. A Esk., 83ⁱ.

Eukaristian gorderik zeuden Jesusen aurpegi ezitia, urrikal zaitetz gutaz!

Jesus, zure eukaristiak ene arima zorionez gaintitzen du.

Betiereco amodio batez maitatu zaitut.

Nire faboreak emaiteko, bildutasunean dagoen arima baten bila nabil.

Bere graziez gaintika bete zaitzala, Maria Birjina guziz Sainduak!

Bihotz garbi bat bilatzen dut eta ene pausaleku eginen dut.

Konfientziarat darama fedeak, konfientziak amodiorat (Alfontsa Ligori-ko saindua).

Gelditu gabe harremanetan gara, beti goiargiz, deiez eta mugimenduz gure bihotzei mintzo den Jainkoarekin (Sales-eko San Frantses).

O Maria, oi neure Zeruko Ama, begira ezazu eta zaint neure lurreko ama!

O Maria, egun haundi honetan, maite ditudan guztiak zure graziezin gaindika beteak izan bedite!

O Maria, Jesusen lehen negarrak xukatu dituzuna, gure ahulezian azkar gaitzazu biziak dakartzan makurretan lagunt! (De la Martinière apezpikua).

1893ko otsailaren 20a. Delatroëtte kalonjearen aholkua. Oharrak.

Oso presaka egindako idazkia da. Ama Aines nagusi izendatu eta hari obediencia agintzeko koruko zeremoniatik irten ondoren, Teresak buruz jasotako oharrak direla dirudi. Delatroëtte jaunak komunitate osoaren aurrean egin zuen bere aholku-hitzaldia. Lapitzez idatzirik dagoen izenburua geroago erantsia da. Zenbait lerro CG-n, 690. or. aipatuak dira.

J.M.J.T.

Gure Aitak, Aines Jesusena serora priore izendatua izan zen egunean errana.

... Zure izena entzun duzunean, negarrez duzu bakarrik erantzun. Konprenitzen dut lotsa izan zaitezene; gaizte zara, esperientzia guttirik, baina har kuraia, neure alaba maitea, Jainko Onak batzuetan, tresnarik iduriz ahulenekin, darama bere obra; eta bere ospearentzat lanean ari da. Bertzalde arima xuxen eta ximple baten jabe zara. Jenofa zure ama sailduak lagunduko zaitu, entseatuko zara harek utzi etsenplu baliosei jarraituz. Deus salatu gabe, erranen dizut, serora gehienek pentsatu badute zuri boza emaita, arrazoina da ohartu direla entseatzen zinela obratzerat harek praktikazten ikusi zenituen bertuteak. Sustengatuko zaitu beraz eta nekeetan zarelarik hain maite duzun Amari dei eginen diozu. Honek kontseilatuko zaitu eta gidatuko, honen baitan beti atxemanen duzu sokorri.

Orain alaba maitea, ama izena emanen dizuten seroren buru izanen zara, eztitasunean baina ere fermutasunekin eramanez dituzu. Haietan baldin badira gutiago maitagarri zaizkizunak, oraino amodio gehiago ukanez duzu haientzat. Zurea duzun xinpletasunak erakutsiko dizu zer egin behar duzun, eta berriz diot, beti zure ondoan duzu bere priore kargua aintzina gaitzen ikusteaz hain uros izanen zenuen Ama haundia.

1896ko ekainaren 12a. Bihotz Sakratuaren gutzia.

Teresak idatziako papertxo eta 1911n Ama Aines Jesusenak Saint-Pair-ko Karmelgo (Jersey-ra erbesteratutako) nobiziatu emana da; itzulian Ama Ainesen lekukotasuna eta sinadura ditu, eta Karmelen zigilu-marka. Jatorrizkoa Saint-Pair-eko (Manche) Karmelen dago.

J.M.J.T.

Bihotz Sakratuaren nahia da haren karitatea gizonen eta partikulazki bekatorosen alde rat imita dezagun. Haren borondatea da zure serorak maita ditzazun amultsuki eta beti.

Bihotzen batasuna, elkar-laguntza, adiskidantza Jainkoaren hautetsia zarelako seinaleak dira. Bai eta ere bekatorosen gonbertitzeko garra.
1896eko ekainaren 12a.

1896ko uztailaren hastean. "Emanen dut..."

Santa Teresa Avilakoaren Onbidea liburuaren I. kapitulutik jasotako esaldia da. Letra biribilez dago idatzirik, VTL argazkian Teresak duen orri batean, zk. 29 (DLTH, 267. or.). Ik. TG 198.

"Mila bizi eman nitzake arima bakar baten salbatzeko!..."

Santa Teresa.

1896ko uztaila. Aita Roulland-en argazkiarentzat

Teresak eskuz idatzitako oharra. A. Roulland-ek bere argazia igorri zion Ama Maria Gonzagarenari (ik. TG 193). Ohar hau CG-n (878. or. + a) aipatua da.

Argazki hau ez da nirea. Gure Amak erran dit harentzat atxikitzeko gure izkributegian. Behar izanen duenean hartuko du.

1896ko uztailaren 20aren irian. Egun bereziak

Teresak beti eman izan die garrantzi handia grazia bereziak jasotako egunei. Armarrian, A Eskuizkribuaren amaieran agertzen duenez, 1896ko uztailean berri egin du zerrenda, ziur aski uztailaren 27an A. Roulland-i gogorazteko (ik. MS/NEC, 86^a, 3 +) bere argazkiaren itzulian (VTL, 37. zk.): Zerrenda hau eta hura berdina dira. Ageri denez, Teresa ez da zehazki oroitzen bere sendakuntzako egunaz (4. lerroa); azken lerroan, "Apostoluzta-elkartasuna" bere haurride izpiritual A. Roulland-ekin (ik. TG 189, 1896/6/23). Era beran, Teresak, Bellière apezgaiari ere igorriko dizkio datu hauek 1897/4/25 (ik. TG 24, CG, 977. or. + h.).

Jaunak bere espos ttipi
Teresa Jesus Haurrarena eta Aurpegi Sainduarenari
eman graziazko egunak

Sortzea	1873ko urtarrilaren 2an
Bataioa	1873ko urtarrilaren 4an
Nire amaren heriotza saildua	1877ko abuztuaren 28an
"Garaipenen Andre Mariaren bitartez"	
ardietsi mirakuluzko sendatzea	1883ko maiatzean
Lehen komunioa	1884ko maiatzaren 8an

Konfirmazionea	1884ko ekainaren 14an
Graziako eguna (bertze) guzien artean	1886ko abenduaren 25a
Leon XIII. Aita Sainduari bisita	1887ko azaroaren 20a
Karmelean sartzea	1888ko apirilaren 9a
Arropa hartzea	1889ko urtarrilaren 10a
Botoak	1890eko irailaren 8a
Buruko oihal hartzea	1890eko irailaren 24a
Nire aitaren heriotza saildua	1890eko irailaren 29a
Batasun apostolikoa	1896ko ekainaren 28a

1896ko azaroaren 21a. Teofan Vénard-en eskutitzak

VT-n, 81. zk., 1981eko urtarrilean, 60-62. orr. argitaratutako kopiak (Teresaren "Idazketako kaiera", III. saila). 1896ko azaroaren 21eko egunak (Teofan Vénard-en jaiotzako 67. urteurrena) Teresak misiolari gazte martiria, bere azken egunetara arte adiskide mina izango zuena, ezagutu zuen unea zehazten du.

Gutun hautatu hauetatik aterako ditu hark 1897ko otsaileko bere olerkiarako gai batzuk: Teofan Vénard-i (TO 47) eta bere ahizpa karmeldarrei agur egiteko aipamen guztiak (TG 245).

1896ko azaroaren 21

Teofan Vénard martir aingeruak Tong-King-en
idatzi eskutitzetarik harturik.

Neure odolaren sakrifizioa Jainkoari eskaintzea emana izanen zaidan eguna bakean igurikatzen dut. Mundu hontako bizia ez dut dolu, betiereko biziaren urez da ene bihotza egarri. Neure desterrua bururatuko da; egiazko aberriaren lurra hunkitzen dut, mundu hau ihes doa; zerua erdi idekitzen da. Adio!... egun batez elkar atzemanen dugu paradisuari, eta Jainkoaren, Ama Birjinaren, aingeruen eta Sainduen konpainian egiazko zoriona gozatuko dugu... Neure pentsamenduak Eternitaterat hegaldatzen dira, denbora bururatuko da!... Neure buruaren gainean dilindan hor dut ezpata. Aintzira bare bat edo zero lano bat bezala neure bihotza bakean da; Jainko onak nere ahultasuna kondutan hartzen du, ez naiz beldur, alegera naiz...

Lurraren gainean uros ezartzen nuenik ez dut deus atzemaiten; neure bihotza haundiegi da; deusek, ez, mundu huntan zoriona deitzen duten horrek, ez du asetzen ahal. Fedearen kofosoren gudu plazan hona non naizen sartua; zinez egia da Jainkoak ttipiak dituela hautatzen mundu haundien isilarazteko... Ez naiz nihaturen indarren gainean finkatzen, baina ifernuko eta munduko botereak, kurutzeaz, garaitu dituenaren indarrean.

Burregoaren aizkora azpira neure burua eroriko delarik, o Ama Nota gabea, errezibi ezazu zure zerbitzari tipia, mozturik erori den mahats molko ondua bezala, zure ohoretan bildu arrosa idekia bezala.

Huna non naizen heldua gutarik bakotzak hainbertze gutiziatu oren honarat! Martirioa!... Neure gazte denborako urteen ametsa izan da... Ttipi ttipia hauxe nion: eta nik ere Tong-King-erat joan nahi dut, eta nik ere martir izan nahi dut.

O Probidentiaren hari loriagarria, eraman nauena, biziaren bidexka nahasi guztien artetik, Tong-Kingeraino, martirioraino! Oraino lanean hartzeaz zoriontsu izanen nintzen; misione hau hainbeste dut maitatu! Neure izerdien orde, neure odola emanen diot.

Bere plazerarentzat baratzearen nagusiak primaderako lore bat biltzen duen bezala, ezpata ukaldi arin batek neure burua berexiko du. Lur honen gainean landatu lore batzuk gara denak, Jainkoak, lehentxoago, geroxeago, bere denboran, biltzen gaituenak. Arrosa gorri beltzatua bertze zerbait da, bertze zerbait lirio birjina, bertze zerbait brioleta umila. Emanak zizkigun usain eta dirdiraren arabera, entsea gaitezen agrados bilakatzerat jaun soberano eta nagusiarentzat. Ni, iragankor tipia, lehenik banoa!...

Ikus beraz zure anaia, burua martiren urrezko koroaz koronatu, garaitu dutenen palma eskuan xut-xuta! Doi bat oraino, eta neure arimak lurra utziko du, bere desterrua bururatuko, bere gudua bukatuko. Zerurat igaiten naiz, aberria hunkitzen dut, bitoria irabazten dut; hautetsien egoitzan sartuko naiz, gizonaren begiak nehoiz ikusi ez dituen edertasunak ikusiko ditut; beharriak nehoiz entzun ez dituen harmoniak entzunen; gozatuko sekulan bihotzak jas-tatu ez dituen bozkarioak. Baina hori aintzin ogi bihiak behar du izan ehoa; mahats molkoak lehertua...

Familiako Aitaren gostuko ogia, arnoa izanen ote naiz ? Salbatzailearen graziari, haren Ama Notagabearen laguntzari esker esperantza badaukat: eta hortakotz, nahiz oraino gudulekuan izan, garaitzaile banintz bezala menturatzen naiz garaipenaren kantua emaiterat.

Martir dohatsua 1829ko azaroaren 21an sortu zen eta egun berean bataiatua izan. 1861eko otsailaren 2an bildu zuen palma.

1896ko abendua. Bihotz Sakratuaren Aldizkaria

Bellière apezari, 1897ko apirilaren 25ean Teresak idatzi eskutitzarentzat baliatua du kopian duen idazki hau (TG 224, en CG, p.977+a)..

J.M.J.T.

Bihotz sakratuaren aldizkaritik hartua. 1896ko abendua.

Behin Aita de la Colombière-n meza entzuten ari nintzelarik Jesus Jaunak grazia haundiak eman zizkion eta niri ere bai. Alabaina, beraren errezebitzeko Komunione Sainduan hurbildu nintzenean, su azkar batekilako labe bat iduri erakutsi zidan bere Bihotz Sakratua eta bertze bi bihotz Bihotz hortan bateratuko eta suntsituko zirenak. Erraiten zidan: "Hola ditu neure amodio garbiak hiru bihotz horiek betikotz batetaraten". Jakinarazi zidan oraino haren Bihots Sakratuaren ospearentzat zela oso osoan batetarate hori; eta hortakotz anai eta arreba bezala izan gintezen nahi zuela, eta ontasun izpiritualak berdin parteka:genitzan ere bai. Hor Jesus Jaunari adierazi nion zoin pobrea nintzan, eta zer desberdintasun zegoen hoin bertute eta mereximendu haundiko apez baten eta ni bezalako bekatoros triste baten artean. Erran zidan:" Neure bihotzaren mugagabeko aberastasunek ordainduko dute hori eta dena berdinduko."

(Margarita Maria dohatsuaren bizia berak kondaturik. 347 or.)

1897ko maiatzaren lehena. Aita Mazel

Lapitez idatzitako testua. Teresa misiolari gazte honen heriotzaz biziki hunkiturik mintzatu zitzaion A. Roulland-i (TG 226, 1897/5/19) Ik. DE, 417. or. + c.

Aita Mazel, Rodelle-n (Aveyron) sortua 1871ko irailaren 22an; seminarioan sartua 1891ko urriaren 21ean; apeztua 1896eko ekainaren 28an; joana urte bereko uztailearen 29an; orain martiri hila bere "Lo-Li"ko kaperan.

"Martiri dohatsua, otoitz egizu neuretzat!" (1897ko maiatzaren lehena).

1897ko ekaina. "Bozkarioz gaindika betetzen nauzu"

Teresak 91. salmo hau aipatzen du C Esk.-an, 7^a, bere fede-probari ezarririk. Tintaz idazten du bere Ebanjelioren azken orrialdean, Jondone Joani-ren testuaren amaieran. Ik. KH 13.VII.16, eta BT, 82-83. orr.

Jauna egiten duzun guziaz bozkarioz gaindika betetzen nauzu!

(Sal. XCI) 1897eko ekaina.

4 - BIBLIA-tik HARTUAK

Bazkoko bat etortzeak (1896 edo 1897)

"Teresak Ebanjelioko pasarteak kopiatzen ditu, ebanjelari bakoitzak kontatzen duen arabera gertakariak bateratzeko" (PAKOIG). Hark zuen nahiera honen adibide bat 1896 edo 1897an bere eskuz idatzitako folioan agertzen da: "Bazkoko bat etortze" bat, BT-n berragertua (183-185. orr.) eta hemen osorik (puntuazio eta erreferentzia zehatzak). Hark Berpiztua emakume sainduei agertu zitzaienekoa azpimarratzen du bereziki. Ez dakigu hau nahita egiten dua bigarren folioan bere "sinopsia" osatzeko asmoa zuen.

JMJ

Larunbata iragana izanez, Maria Magdalena, Maria Jakes-en ama eta Salome izan ziren usain gozoen erosten Jesusen gorputza gantzutzeko; goizean goizik asteko lehen egunean, joan ziren hobirat, iguzkia agertu orduko. Bizkitartean elkarri zioten: "Nork aldaratuko digu harria hobiaren ahotik?". Alabaina harri hura biziki haundia zen.

Behatu zuten (Mark 16, 1-4) eta bet-betan lur ikara haundi bat izan zen; alabaina jaunaren aingeru batek, zerutik jautsirik, harria baztertu zuen eta gainean jarri zen. Haren itxurak ximixta iduri zuen, eta soinekoak elur xuria. Beldurrarekin harrituak zeuden zaintzaleak, hilak iduri (Mat. 28-24). Maria Madalenak, ikusiz hobitik kendua zela harria, lasterka joan zen Simun Petriren eta Jesusek maite zuen bertze dizipuluarengan, eta erran zioten: "Jauna kendu dute hobitik, eta ez dakigu non eman duten!" (Joan. 20, 1-2). Bizkitartean, aingerua emazteei mintzatu zitzaizen erranez: "Ez beldurrik izan, badakit Jesus kurutzefikaturua duzuela bilatzen (Mat. 28-5). Zer zabilzate hilen artean bizi denaren bila? (Luk 24-5). Ez da hemen; piztu da, berak erran bezala. Zatozte, ikus ezazue, Jauna ehortzia zen lekua (Mat 28,6). Oroit zaitezte Galilean zegoelarik erran dizuenaz: Gizonaren semea bekatoreen eskuetarar eraman beharra zela, kurutzeratua, eta hirugarren egunean piztua." Orduan orroitu ziren haren hitzez (Luk) Aingeruak erran zioten bertzalde: "Zoazte bada, errozue haren dizipulueri eta bereziki Petri: Hona zuen aintzinean doala Galilearat. Han ikusiko duzue, errana dizuen bezala." Atera ziren berehala hobitik (Mark 16, 7-8) izutuak eta bozkarioz beteak (Mat 28-8) eta ez zioten nehoi deusik aipatu beldurrak hartuak baitzituen (Mark 16,8). Petrik Maria-Madalenaren entzunik, atera zen Jesusek maite zuen bertze dizipuluarekin eta joan ziren hobirat. Biak elkarrekin lasterka zihoazen, baina bertze dizipulua Petri baino lasterrago joan zen, eta lehen heldu hobirat. Ukurtuz, ikusi zituen oihalak lurlean ezarriak, ez zen ahatik sartu. Etorri zen ere Simun Petri haren ondotik: sartu zen hobian eta ikusi zituen oihalak lurlean ezarriak, bai eta ere buruko hil-mihisea. Hau ez zen oihalekin, baina plegatua eta bereiz ezarria. Orduan sartu zen ere bertze dizipulua, hobirat lehenik etorria zen hura. Ikusi zuen eta sinetsi. Alabaina ez zuten oraino konprenitua Liburu Sainduak errana, hiletarik behar zela piztu (Joan 20 -3,9). Alta bada Petri gertatuz harriturik, etxerat joan zen (Luk 24-12). Asteko lehen egunean, goizean goizik piztu eta, Jesus Maria Madalenari agertu zitzaion lehenik, zazpi debru atera zizkionari (Mark 16,9). Orduan dizipuluak joan ziren beren etxerat.

Maria aldiz hobiaren aintzinean zegoen negarrez kanpoan; eta negarra zeriola, ukurturik behatu zuen hobiaren barnerat : bi aingeru ikusten ditu xuriz emanak, han zeudela jarririk, Jesusen gorputza ezarri tokian, bat buruan eta bertzea oinetan. Aingeruek erraiten diote: "Emaztekoa, zertako egiten duzu negar?" Harek ihardetsi : "Ene Jauna kendu dute, eta non eman duten ez dakit". Hori erran eta, gibelerat itzulirik, Jesus ikusi zuen han xutik, baina ez zekien Jesus zela. Jesusek erraiten dio: "Emaztekoa, zertako ari zara negarrez. Nor duzu bilatzen?" Eta harek, ustez eta baratzeazina zen, erraiten dio : "Jauna, zuk eramana baldin baduzu, erradazu non ezarri duzun, eta nik hartuko dut. "Jesusek erraiten dio: "Maria!". Eta honek, berriz itzulirik, erraiten dio hebrearrez : "Rabonni!", erran nahi baita: "Jauna!". Jesusek erraiten dio: "Ez nazazula hunki, ez bainaiz oraino Aitarenganat igana. Baina zoaz zure anaiei erraiterat. Banoa ene Aitaren eta zuen Aitarenganat, ene Jainkoaren eta zuen Jainkoaren ganat". Maria Madalena joan zen beraz dizipulueri erraiterat (Joan. 20,1,-18).

Heiek tristerik eta negarrez zeuden (Mark 16,10) "Jauna ikusi dut, eta horra zer didan erran. "(Joan 20,18). Baina haiek bizi zela eta ikusi zuela entzun ziotenean, ez zioten sinetsi. (Mark 16,21). Emazte Sainduak hobitik itzultzen zirelarik, Jesus atera zitzaizen bidera, ziolarik : "Agur, zuei!". Haiek hurbildurik, besarkatu zizkieten oinak, eta ahuspez eman ziren. Orduan Jesusek erran zien: "Ez beldurrik izan!. Zoazte ene anaiei erraiterat Galilearat joaiteko, eta han ikusiko naute." (Mat 28-9,10). Eta hiltobitik itzulirik, hamaiketa eta bertze guztiei eman zioten horien guzien berri. Emazte hauk, Mari Madalena, Joana, eta Jakoben Maria ziren (Luk 24,9-10).

1894 - Martin jaunaren oroitzapena

BT-n, 291. or. eta hurrengoan argitaratua. 1894aren amaieran egin zen Martin jaunaren heriotzako oroigarriko testuak Teresak eta honen ahizpek hautatu zituzten. Iduriak apaingarri bat du inguruan. Aitaren argazki onak eduki arren, Tours-eko Aurpegi Sainduaren kopia bat hobetsi dute haren alabek, kidesun adierazgarri batez. Testu biblikoak idurian agertzen diren hurrenkera berean transkribatzen ditugu. Erreferentziak argitaratzailerik gehitu dituzte.

- Has 15,1* Ego sum merces tua magna nimis (Gen XV, 1.).
- Lk 24,26:* Kristok ez zituena bada horiek oro jasan behar, bere ospean sartzeko?
- Sal 30, 21:* Jauna begira ezazu zure begitartearen segetuan!
- Sal 29,12:* Neure auhenak alegantziatzako kantu egin ditu Jaunak, urratu du nekarren dolorezko arropa eta oso-osoan bozkarioz beztitu nau (Ps XXX, 12).
- Is 53,11:* Sofritu dudanaren fruitua ikusten dut eta neure arima hortaz ase da (Isaia).
- Tb 12,13 :* Jainkoarentzat atsegingarri baitzinen, behar zen hersturak froga zenitzan. (Aingeruak Tobia-ri).
- Jkd 3, 5-6:* Eta Jainkoak holokausta ostia bat bezala errezebitu du, urrea labe gorrian bezala frogatu eta beretzat on aurkitu. (Jakinduria).
- Tb 13,17 Zu:* Zure haurretan bozkariatuko zara, denak benedikatuak izanen baitira eta Jainari lotuak (Tobia, XIII, 17).
- Es 20,7:* Xinpletasunean doan justuak haur urosak utziko ditu ondotik (Erran Zah.).
- Sal 17,26:* Misericordiaz betea zara, Jauna, misericordiaz beteak direnekin eta justua justuekin! (Salm. XVII, 26).
- Sal 17:* Jaunak eskua zeru gaintetik dit eskaini; libratu nau, salbatu nau, bere maitasuna nitan eman baitu... jarraiki naiz beti Jaunaren nahiani eta leial egon naiz neure Jainkoaren alderat (Salm. XVII).

Ama Maria Gonzagarenaren albumetik 1897ko ekainaren 21ean

Argazki-album hau Teresak Maria Gonzagarenari bere bestarako eskainia da. Testuak Ama Ainesek kaligrafiatuak dira, letra gotikoan haietako zenbait, baina, ziur aski, bi ahizpen artean hautatuak dira. Aukera honek (BT-n, 292-296. orr. argitaratua) Karmeldar bizitzaren ikuspegia agertzen du Bibliaren haritik. C Eskuizkribuan bezalako giroa aurkitzen da. Argazkietan dauden 57 esaldietatik 34 Eskritura Sainduaren aipamen argiak dira; bat asmatua da.

(Ama Jenofa komentu sortzailearen argazkiaren inguruan)

- Mt 5,4:* Dohatsu eztiak!
- Lk 1-48:* Bere neskato apalari behatu dio.
- Lk 1-49:* Miragarriak egin ditu Jaunak ni baitan, bai eta nire bitartez.
- Has 28,17:* *(Karmeleko kaperako aldare inguruan)* Leku hau Jainkoaren etxea da eta zeruko atea...
- Ap 14,13* *(Ama Jenofa, hil eta)* Dohatsu Jaunaren baitan hiltzen direnak beren obrak ondotik baitituzte (Ap. XII).
- 1 Sm 18, 1-3:* *(Ama Maria Gonzagarena eta Ama Aines Priore)* Gertatu zen Jonathas-en arima hertsiki lotu zitzaiola David ttipiaren arimari eta biek batasuna egin zuten (1 Erg. XVIII.).`
- Sal 51-10:* *(Ahizpa San Stanislas)* Olibondo bat beti berde jaunaren etxean bezala izanena naiz ni. (Sal. LII,10.).
- Sal 49,5:* *(Komentuko serora multzo bat, VTL 18)* Bil ditzatela neure aintzinean kontsekratuak zizkidan guztiak, sakrifizioan finkaturik neurekin batasun bat egin dutenak. (Sal.XLIX,5).
- Kt 6-1:* (VTL 7 multzoa) Baratzetan asetzeko eta lirioak biltzeko gure maitea usain onen taulenerat jautsi da. (Kt. VI 1).
- Sal 83,11:* *(Komentua, baratzatik ikusia)* Jaunaren etxean pasatu egun bakar batek bekatorosen etxoletan milak baino gehiago balio du. (Sal. LXXX III 11).
- Sal 64,5:* *(Komentuaren bertze ikuspegi bat)* Dohatsu, oi ene Jainkoa, zure aterbeetan egoiteko hautatu duzuna! (Sal. LXIV, 5).
- Sal 64,5:* *(Barneko klaustroa eta gurutzea)* Jaunaren etxeko ontasunez ontuko gira. (Sal.LXIV,5).
- Kt 7,13:* *(Arkupea, Kapituluia, Teresasen gela)* Gure ateen aintzinean bada mota guztietako lore eta fruitu, berriak eta aitzinekoak maitearentzat begiratzen ditugu. (Kt VII,13).
- Kt 7,12:* *(Koruaren klaustroa)* Gure minardietarat joiteko xuti gaitezen goizetik, ikus dezagun loreek fruituak dakartzatenentz. (Kt VII,12).
- Ez 37,13:* *(Klaustro barneko hilerria)* Zuen hilerrietarik ateraraziko zaituztedanean, eta zuen herrirat berriz itzularaziko, ikusiko duzue ni naizela Jauna. (Ez.).
- Sal 30,3:* *(VTL multzoa 33)* Gure arimak segurtasunean dauden ezin iraganezko arroka eta ezin hartua den gaztelua zara guretzat Jauna. (Sal. XXX,3).

- Sal 132,1:* (VTL 19) O! zoin den ezti elkarrekin bizitzea anaia maite batzuk bezala. (Sal.).
- Sal 14,15:* (VTL 16) Gure xedeak elkarri erraiten genizkion bozkarioan. Jaunaren etxerat elkarrekin goaz.(Sal. LIV, 15).
- Lk 10,21:* (Teresa nobizia, VTL 5) Benedikatzen zaitut, neure Aita, zeruko sekeretuak zentzudunei gorderik, ttipienei salatu baitizkiezu... (Ebanj.).
- Es 18,19:* (Teresa eta Zelina) Bere anaiak laguntzen duen anaia harresiz inguratu herria bezala da. (Es.).
- Dn 12,13:* (Teresa eta Maria Hirutasunarena) Bere anaiari justizia erakutsiko dionak eguzkiak bezala argituko du betierean (Dn.).
- Lk 12,32:* (VTL 22 *multxoa*) Ez ukan deusen beldurrik, multxo ttipittoa, neure Aitaren nahia baita bere erresuma zuei emaita. (Ebanj.).
- Sal 44,11:* (VTL 20 *multxoa*) Nexkatxa gazteak, entzun!.. Ikus eta kasu egin! Ahantz zuen populua eta zuen Aitaren etxea, eta erregeak zuen edertasunarengatik maitatuko zaituzte. (Sal. XLIV, 11).
- Sal 83,7:* (VTL 25 *multxoa*) Dohatsu negarren arana iragaitean, hura iturri eta zeruko euriak betetzen duen ur-ontzi egiten dutenak (Sal. LXXXIII, 7).
- Kt 2,11:* (Jenofa serora *ezkont jantzitan*) Negua iragan da, euria atertu, xuti zaitetz, neure maite maitea, neure usoñoa, eta zatoz! (Kt.).
- Sal 49,14:* (Argazkia *kendurik*) Laudoriozko sakrifizio bat eskaint Jainkoari, eta zuen eskerrak bihur Goi-goikoari. (Sal. XLIX, 14).
- Ap 19,7:* (Jenofa serora, *botoak egin eta*) Bildotsaren ezteiak jin dira, eta andere esposa apaindu da (Apok.).
- Sal 62,6:* (Jenofa eta Maria Eukaristiarena, *bi serorak*) Jatekorik goxoena dastatzen bagenu baino eztitasun handiagoz beteak dira gure arimak eta bozkariozko kantuetan ari gara gelditu gabe. (Sal. LXII, 6).
- Jn 4,65:* (Maria Eukaristiarena, *seroragaia*)
Iturritik ura ateratzen dut
oroituz egun batez
Samariar emazte umilak
han Amodioa aurkitu zuela
- Sal 26,4:* (Ahizpa Jenofa *seroragaia*) Jaunari gauza bakar bat diot galdatu : neure bizi-ko egun guztiez haren etxean egoitea. (Sal.).
- Sal 15:* (Ahizpa Jenofa *seroragaia jantzitan*) Neuretzat den partea paregabea da eta nere erorkia balio handikoa. (Sal.)

- Sal 44,15:* (VTL 32 multxoa, *Maria Hirutasunarena botoen egunean*) Birjinak, zure lagunak, ekarriko zaizkizue. (Sal.).
- Ap 14:* Elkarrekin kantika berria emanen duzue.
- Sal 88,2:* (*Ahizpa Jenofa lirio lorearekin, Teresa arrosarioarekin*) Jaunaren urrikal-menduak eternitate osoan kantatuko ditugu!... (Sal.).
- Sal 30,22:* (*Maria Hirutasunarena botoak egin ondoan*) Benedikatua izan bedi Jauna, neure gainean bere miseriakordia jauzerazi baitu, leku segurean ni eman ez harresiz inguratu hirian bezala. (Sal. XXX, 22).



GEHIGARRIAK



TERESAREN GENEALOGIA

Aitaren aldetiko adarra

Aitona: Pierre-François MARTIN kapitaina, 1777/4/16an jaioa, 1865/6/26an hila. 1818/4/4an ezkondua.

Amona: Maria Ana Fania BOUREAU, 1800/1/12an jaioa, 1883/4/8an hila.

osaba-izebak: Pierre MARTIN, 1819/7/29an jaioa, urperatze baten galdu zen, data ezagutzen ez delarik. - Maria, BURIN ezkontzaz, 1820/9/18an jaioa, 1846/2/19an hila. - Ana Frantziska (Fanny), LERICHE ezkontzaz, gero BURIN ezkontzaz (bere koinatu alargunarekin ezkondua), 1826/3/10ean jaioa, 1853/10/9an hila. - Sofia MARTIN, 1833/11/7an jaioa, 1842/9/23an hila.

Aita: LUIS MARTIN, 1823/8/22an jaioa, 1894/7/29an hila (Pierre-François eta Maria Ana Fania Martinen hirugarren semea da).

Amaren aldetiko adarra

Aitona: Isidor GUÉRIN, 1789/7/6an jaioa, 1868/9/3an hila. 1828/9/5ean ezkondua.

Amona: Luisa Joana MACÉ, 1804/7/11n jaioa, 1859/9/9an hila.

osaba-izebak: Maria Luisa GUÉRIN, Bisitazioko lekaiamea Mans-en, 1829/5/31n jaioa, 1877/2/24an hila. - Isidor GUÉRIN, 1841/1/2an jaioa, 1909/9/28an hila; Zelina FOURNET.

Ama: AZELIA MARIA (ZELIA), 1831/12/23an jaioa, 1877/8/28an hila (Isidor eta Luisa Joana Guérinen bigarren alaba da).

Teresaren familia

Luis MARTIN eta Zelia GUÉRIN 1858ko uztailaren 13an ezkondu ziren. Hauek dira beraien seme-alabak:

- *Maria*, 1860/2/22an jaioa, 1940/1/19an hila, karmeldarra 1886/10/15ean (*ahizpa Maria Bihotz Sakratuarena*).

- *Paulina*, 1861/9/7an jaioa, 1951/7/28an hila, karmeldarra 1882/10/2an (*ama Aines Jesusena*).

- *Leonia*, 1863/6/3an jaioa, 1941/6/16an hila, Bisitazioko lekaimea 1899/1/28an (*ahizpa Frantziska-Teresa*).

- *Elena*, 1864/10/13an jaioa, 1870/2/22an hila.

- *Jose Luis*, 1866/9/20an, 1867/2/14an hila.

- *Jose Joan Batista*, 1867/12/19an jaioa, 1868/8/24an hila.

- *Zelina*, 1869/4/28an jaioa, 1959/2/25ean hila, karmeldarra 1894/9/14an (*ahizpa Jenofa Aurpegi Santuarena*).

- *Melania Teresa*, 1870/8/16an jaioa, 1870/10/8an hila.

- TERESA, 1873/1/2an jaioa, 1897/9/30ean hila, karmeldarra 1888/4/9an (*ahizpa Teresa Jesus Haurrarena eta Aurpegi Santuarena*).

Ohar.- Martindar seme-alaba guztiek *Maria* izan dute lehenengo izena.

Teresaren lehengusu-lehengusinak

Fanny MARTIN, TERESAREN izeba, 1842/4/11n, Frantzisko Adolfo LERICHEREKIN ezkondu zen (1818an jaioa, 1843/5/25ean hila). Seme bakarra izan zuten:

- Adolfo LERICHE, 1844/1/7an jaioa, 1894/12/7an hila.

Isidor GUÉRIN, Teresaren osaba, 1866/9/11n Zelina FOURNETEKIN ezkondua (1847/3/15ean jaioa, 1900/2/13an hila). Hauek dira beraien seme-alabak:

- Joana, 1868/2/24an jaioa, 1938/4/25ean hila, 1890/10/1ean Frantzisko LA NÉELE medikuarekin ezkondua.

- Maria, 1870/8/22an jaioa, 1905/4/14an hila, karmeldarra Lisieux-en 1895/8/15ean (*ahizpa Maria Eukaristiarena*).

- 1871/10/16an hilik jaio zen seme bat.

JAUNAGANA BIHURTU ETA MAITASUNEZ HILDAKO BEKATARIAREN HISTORIA

Hemen, Teresak 1897ko ikainaren 11n adierazi nahi duen testua irakurriko da (ik. KH 11.VII.6) eta, ezbairik gabe, C Eskuizkribuaren azken pasartearen adierazi nahi duena (ik. 180.oharra).

Bekatuari emanda bizi izateko zorigaitza izan zuen neskatxaren Jaunagana bihurtzea, beraren maitasunaren fruituetariko bat izan zen. Historia hau ederra da eta bekatar handiei Jaunaren errukian itxaropena jartzera eragiteko oso egokia, bihotzez harengana bihurtzen direnean. Neskatxa honen izena Paésie zen. Oso gazterik galdu zituen aita eta ama; bere ondasunak on egiteko erabili nahirik, bere etxea babesetxe bihurtu zuen Scete-ko bakarzaeleentzat; hauek, dirudienez, anaien obrak saltzeko jarri ziren han bizitzen. Baina neskatxak karitate hau garestiegi zela uste zuenez gero, zeruan prestatzen ari zen altxorrari jaramonik egin gabe, gogait egin zuen, eta aldaketa honetan sendotzeko lagunik ere izan zuen. Hauek aholku txarretan oraindik urrutiago jo zuten; eta bertuteaz zeharo nazkarazi zioten eta azkenez gaztakeriari (krimenari) eman zion erabat.

Atsekabe handiz izan zuten Scete-ko bakarzaleek haren erortzearen berri; eta euren maitasunak gogora ekartzen zizkien bitarteko guztiak erabili zituzten haren arima amildu zen galbidetik urruntzeko. Azkenik, Joan Nain-engana jo zuten, eta hura ikustera joan zedila erregutu zioten, Jainkoak harengana ezarri zuen jakinduri dohainagatik, Kristorengana eramaten saia zedin. Itzuli zen: baina atea jotzean, ez zioten sartzen utzi, bakarzaleek ugazabandarearen ondasunak zeharo jan zituztela aurpegira egotziz. Hark ez zuen, ordea, etsi; hitz egiten uzteko erreguka ekin eta ekin egin zuen, ez zela damutuko eta. Hau esanez, haren gelara eraman zuten. Hura neskatxa eseri ondoren eseri zen, eta galdetu zion Jesukristoren aurka kexu egoteko zer arrazoi zuen, zer arrazoi zuen Jauna horrela bertan behera uzteko, eta halako egoera negargarrian sartzeko. Lehenengo hitz hauek kolpe latza izan ziren harentzat eta zirrara bizia eragin zuten haren bihotzean. Santuak, Jainkoaren graziari bere lana egiten utziz, une batez isildu eta gero negarrari eman zion. Emakumeak zergatik egiten zuen negar galdetu zion. Hark erantzun: Ai, nola ez dut negar egingo, bada, deabruak norrela atzipetu zaituela eta zure lepotik barreka diharduela ikusiz? Hau entzutean neskatxak, bere bekatuagatik beldurrak eta izuikarak harturik, esan zion:

- Aita, ba al da oraindik penitentziarik niretzat?

- Bai, esan zion Santuak, ziur diotsut.

- Eraman nazazu ongi deritzozun lekura, penitentzia egin dezadan, esan zion neskatzak. Berehala jaiki zen hura eta neskatzak, etxean ezer aipatu gabe, inori hitzik esan gabe, jarraitu egin zion. Santuak pozik azpimarratu zuen hura Jaunagana bihurtzeko sentimenduetan murgildurik zegoela, penitentzia egiteari oso-osoan emateko.

Ez dakigu hura nora eramateko asmotan zen. Dirudienez, neskatzak monasterio batera. Baina biak basamortuan sarturik, laster zen gaua eta, Joanek hondar multzo bat egin zuen burkotzat, gainean gurutzearen irudia marrazturik, eta etzateko esan zion Paésie-ri. Bera ere, pixka bat urrutiago, lotarako prestatu zen otoitz egin ondoren. Baina gauerdian itzartzerakoan, zerutik Paésie-ren gainera jaisten zen argi-izpi bat ikusi zuen, hura haren arima zerura eramaten zuten aingeru talde handiaren bidea zelarik. Ikuskari horregatik harriturik, bat-batean jaiki zen eta neskatzarengana joan zen, hilik zegoen jakiteko zutik jarri zuelarik, eta bai, benetan arima Jainkoari eman ziola ikusi zuen. Une berean ahots miresgarri bat entzun zuen hauxe zioela: haren ordubeteko penitentzia Jainkoari atseginago izan zaio denbora luzez egin duten beste batzuen bano, hauek hark bezain gartsu ez baitute egin.

Michel-Ange Marin, *Vies des Pères d'Orient* (Paris, Lyon, 1824), III.t. IV lib., XVII. kap.: "Le Vénérable Jean le Nain".

IZEN BEREZIEN HIZTEGITXOA

N. B. Pertsona-izenen albiste zehatzagoak eta aipamen bibliografikoak honako honetan aurkituko dira: DE, 855-867. orr.; eta CG II, 1197-1218. orr.

Abadia (Lisieux)

Notre-Dame-du-Pré-ko abadia beneditarra, 1011. urtean fundatua. XIX. mendean lekaimeak neska gazteen hezkuntzaz arduratzen dira. Joana eta Maria Guérin, Leonia Martin, Zelina eta Teresa barnetegira joaten dira. Bonbardaketek suntsitu zuten 1944. urtean.

ACARD, August (1864-1931)

Karmelgo baratzaina eta sakritaua, 1889tik 1912ra.

AIMÉE JESUSENA, ahizpa (1851-1930)

Lisieux-ko karmeldarra; profesa 1873an egin zuen. Jatorriz baserritarra izanik, Martin ahizpak «oso artista»tzat ditu. Bera da irailaren 30eko arratsaldean Teresaren oheburuan izan ez zen bakarra, gaixotegiko kanpai-hotsik ez baitzuen entzun. Lekukoa izan zen Prozesu bietan.

AINES JESUSENA, ama (ikus MARTIN, Paulina)

ALEXIS PROU, aita (1844-1914)

Frantziskotar errekoletoa, Saint-Nazaireko komentuko guardianoa. Lisieux-ko Karmelen gogo-jardunak eman zituen 1891ko urrian, eta hori oso garrantzitsua izan zen Teresarentzat (A Esk., 80^a eta KH 4. VII. 4).

ANA BIHOTZ SAKRATUARENA, ahizpa (1850-1920)

Saigon-go karmeldarra, gero Lisieux-koa. Saigon-en 1874an sartu zen, eta profesa 1876an egin zuen. 1883tik 1895era bitartean bizi izan zen Lisieux-en. Jarraian Saigon-era itzuliko da.

ANA JESUSENA, gurgarria (1545-1621)

Ana Lobera, karmeldar espainiarra, Avilako Teresa Deunaren laguna, arimazuzendari Joan Gurutzeko Santua izan zuena. Teresak amets lasaigarri baten ikusten du bera (ik. B Esk., 2^a/^l eta KH 11. IX. 5).

BAILLON, Eujen-August, apaiza (1836-1909)

Lisieux-ko Providence-ko kapilaua (1878-1906). Karmelgo aitor-entzule berezia (1892-1908).

BELLIÈRE, Moris Maria Luis, apaizgaia (1874-1907)

Apaizgaia, Teresaren lehenengo neba izpirituala (1895); hamaika gutun itdatzi zizkion honek 1896/10/21etik 1897/8/25era bitartean. Aita Zurietan egin zuen nobiziatua (1897/9/29); 1901ean apaiztu zen; apostolutza Nyassan (1902-1905); ondoren Frantziara itzuli zen (1906).

BLINO, Laurentz, aita (1839-1908)

Josulaguna, 1870ean apaiztua, gogo-jardunak ematen ditu Lisieux-ko Karmelen 1883ko urrian, ziur aski 1888an ere bai, eta berriro 1890ean. Azkenengo horretan baretu egin zituen Teresa nobiziaren xede izpiritualak.

COLOMBE, Alexander (1835-1889)

Guérindarren laguna; Deauville-n zuen etxaldea utzi zien, eta berton egon zen Teresa 1885eko maiatzean. Bost alaba zituen eta Teresaren ahizpa nagusiek in harreman handia zuten.

CORNIÈRE, Alexander (1841-1922)

Medikuntzako doktorea, zirujaua, Guérindarren laguna, Karmelgo medikua (1886-1920); berak zaindu zuen Teresa honen azken gaixoaldian.

CORNIÈRE, Jose, apaiza (1874-1939)

Medikuaren seme nagusia, 1899an apaiz egin zen. Guérindarren laguna zelarik, oporrak La Musse-n eman zituen 1894an.

COSSERON, Maria (1867-1945)

Martindar eta Guérindarren neskamea (1888-1894?)

COSTARD, Maria Adelaida, ahizpa (1846-1897)

Caen-go Bon Sauveur-eko lekaiamea, Martin jauna zaindu zuena (1889-1892).

DELATROËTTE, Jan Batista, kalonjea (1818-1895)

Lisieux-ko Karmelgo nagusia (1870-1895). 1844an apaiztu zen, Lisieux-ko Saint-Jacques-ko bikarioa (1867); Teresa Karmelen sartzearen aurkakoa izan zen.

DENIS DE MAROY, Jose, apaiza (1871-1962)

Irailaren 18an apaiztu zen Bayeux-en; 1897ko irailaren 19an eman zuen meza berria Karmelen.

DÉODAT DE BASLY, aita (1862-1937)

Frantziskotar errekoletoa, Joan Gurutzeko Santuaren mendeurreneko *hirurrena* (1891) eta gogo-jardunak eman zituen Karmelen 1892ko azaroan.

DOMIN, Amelia (1873-1944)

Domin apaizaren loba, Teresaren lehenengo eta bigarren jaunartzeetako laguna.

DOMIN, Luis Biktor, apaiza (1843-1918)

Lisieux-ko beneditarren kapilaua 1874tik hil arte. Teresaren aitor-entzulea (1881-1886), dotrina eman zion eta jaunartzerako bi bakarraldiak zuzendu ere bai (1884 eta 1885ean). Adierazpenak egin zituen Prozesuan.

DUCELLIER, Alzid, apaiza (1849-1916)

Lisieux-ko Saint-Pierreko bikarioa (1877-1884) da, eta bertan entzun zion lehenengo aitortza Teresari. Paulinaren arima-zuzendaria izanik, berak izan zuen hitzaldia hark abitua hartu zuenean (1883); geroago, gauza bera egin zuen Zelina-ren belo-hartzea izan zenean ere (1895 eta 1896). Katedraleko erretorea (1899-1916). Adierazpenak egin zituen Prozesuan.

DUMAINE, Luzien Biktor, apaiza (1842-1926)

Alençon-go Andre Mariko bikarioa da, eta bertan bataiatu zuen Teresa (1873/1/4). Adierazpenak egin zituen Prozesu Apostolikoan.

ELISABET (Maria-), ahizpa (1860-1935)

Tornuzaina, komunitateko meza bitartean hainbat aldiz gelditu zen Teresarekin gaixotegian, 1897an.

FAUCON, Pierre, apaiza (1842-1918)

Karmelgo aitor-entzule berezia 1886tik 1891ra. Teresaren azken aitortza entzun zuen 1897/9/29an. Adierazpenak egin zituen Prozesu Apostolikoan.

FEBRONIA HAURTZARO SANTUARENA, ahizpa (1819-1892)

Hiru bider izan zen Karmelgo prioreordea; gripe-epidemiak ekarri zion heriotza.

FILOMENA SORTZETZ GARBIARENA, ama (1820-1895)

Lisieux-ko karmeldarra, Saigon-go Karmelen fundatzailea (1861).

FOURNET, Elisa (1816-1901)

Elisa Petit jaiotzez, Pierre Fournetekin ezkondu zen (1839), eta Maudelonde andrearen eta Guérin andrearen ama izan zen. Zelina eta Teresak "amonatxo" esaten zioten.

FOURNET, Pier-Zelestin (1811-1888)

Aurrekoaren senarra. Lisieux-ko botikaria delarik, bere ondarea 1866an bere suhia izango zen Isidor Guérini utzi zion.

FRANTZISKA TERESA, ahizpa (ikus MARTIN, Leonia).

GILBERT, Leonia (1843-1930)

Leoniaren amabitxi, Jakes Tifenne botikariaren emaztea.

GILBERT, Teresa (1872-1932)

Umezurtza; hau eta honen neba Pierre (1874-1955) euren izeko Tifenne andreak jaso zituen. Geroago Vétillard andre bihurtuko zen (1892).

GODEFROID, aita (ikus MADELAINE, Godefroid).

GUÉRIN, Isidor (1841-1909)

Zelia Martinen neba. 1866an lehenengo mailako botikari egin zen; Lisieux-en jarri zen, Saint-Pierre plazan, eta Pierre Fournet-en botika erosi zuen, eta honen alaba Zelinarekin ezkondu zen. Legez Martindar loben tutorea izan zen, eta Paulinaren aitabitxi. Jaraunspen ederra jasotakoan, La Musse-ko gaztelua ere barru dela, Victor Lahaye-ri saldu zion botika 1888an. 1885ean Lisieux-ko Gau-Adorazioa sortu zuen, eta *Le Normand* egunkari erregazale katolikoaren kideetarikoa izan zen 1891tik 1896ra. Karmelen ongilea delarik, *Histoire d'une Ameren* lehenengo inprimaketaz arduratu zen (1898).

GUÉRIN, Joana (1868-1938)

Aurrekoen alaba, Martindarren lehengusina. Frantzisko La Néele doktorearekin ezkondu zen 1890ean. Teresarekin dituen gutun-harremanetan, seme-alabarik ez izatearen nahigabea antzematen da. Lekukoa izan zen Prozesuan.

GUÉRIN, Maria, ahizpa Maria Eukaristiaarena (1870-1905)

Aurrekoaren ahizpa. Ikasketak beneditarretan egin zituen Teresarekin batera. Karmelen 1895/8/15ean sartu zen, abitua 1896/3/17an hartu zuen, 1897/3/25ean profesia eginik. Teresaren nobizia izanik, honekin batera dihardu elizain ofizioan. Familiari 1897ko apirilaz gero bidalitako gutunak informazio-iturri onenak dira Teresaren azken gaixotasunaren berri jasotzeko. Bera ere birikeriak jota hil zen.

GUÉRIN, Maria Luisa, ahizpa Maria Dositea (1829-1877)

Teresaren izeba da, eta bere ahizpa Zeliarekin batera mihise-lantegia jarri zuen Alençon-en. Mans-ko Bisitazioan sartu zen 1858an, eta 1860an profesia egin. Bere loba Maria eta Paulinaren hezkuntzaz arduratzen da 1868tik aurrera. Birikeriak jota hil zen.

GUÉRIN, Zelia (ikus MARTIN, Zelia).

GUÉRIN, Zelina (1847-1900)

Fournet zuen jaiotzako deitura. Isidor Guérinekin ezkondu zen 1866an. Hiru ume izan zituzten, beraietarik neska bi: Joana eta Maria. Ama bailitzan jokatzen du Martindar lobekin, Zelinarekin bereziki, bere besoetakoa baitu, eta Leoniarekin, 1895 eta 1899. urteen artean etxean jaso zuelarik.

HERMANCE JESUSEN BIHOTZARENA, ama (1834-1898)

Lisieux-ko karmeldarra, Coutancesko fundazioan esku hartu zuen (1866), eta gero Lisieux-era itzuli zen, 1882an alegia. Buruko anemia kronikoa du, eta horrek probaraziko du erizainen eroapena.

HUBERT, Felisitas (1860-1930)

Martindarren neskamea Buissonnets-en (1884-1886). Ezkontzeko utzi zituen.

HUGONIN, Flavien, apezpikua (1823-1898)

Bayeux-Lisieux-ko apezpikua izan zen; 1850ean apaiztu zen, eta 1867an apezpiku sagaratu. Vatikanoko I. Kontzilioan hartu zuen parte, Parisko Unibertsitate katolikoaren fundazioan lagundu zuen 1875ean, eta filosofia, teologia eta zuzenbideari buruzko hainbat idazlan argitaratu zituen. Teresari sendotza eman zion

1884/6/14an, Teresa hartu zuen aitarekin batera 1887/10/31n, baimena eman zuen Karmelera sar zedin, eta mahaiburua izan zen Teresak abitua hartu zuenean 1889/1/10ean. *Histoire d'une Amerentzat* ahoz eman zuen *Imprimatur* 1898/3/7an.

HUSÉ, Marzelina (1866-1935)

Guérindarren neskamea. Ahizpa ez-koruko bihurtu zen 1889an Bayeux-ko beneditarren etxean, Maria Jose Gurutzekoa izena harturik. Lekuko izan zen Prozesuan.

JENOFA SANTA TERESARENA, ahizpa (ikus MARTIN, Zelina).

JENOFA SANTA TERESARENA, ama (1805-1891)

Claire Bertrand, Poitiers-ko Karmelgoa, Lisieux-ko Karmelen fundatzailea, prioreorde legez, 1838ko martxoaren 16an. Bost aldiz aukeratu zuten priore, Karmel horretako "santa" esaten zioten. Teresak hiltzen ikusi zuen gaixotegian (A Esk., 78ⁱ), berak 1897an erabiliko zuen ohe berean.

JOGAND-PAGES, Gabriel, Leo Taxil deritzona (1854-1907)

Marseillan jaio zen, eta gaztaroko harrokeriengatik nabarmendu zen. Zortzi urte eman zituen kartzelan hainbat delitu egiteagatik. Literatura antiklerikal narra-sean berezitua da. Katoliko bihurtu zelako itxurak egin zituen hamabi urtez eta Diana Vaughan-en pertsonaia sortu zuen, ustez konbertitua zen masoi-ohia. 1897ko apirilaren 19an, bere gezurra Parisen agertu zuen, prentsa mahainguru baten (ik. DSA 7).

La Musse

Evreux-etik hurbil dagoen gaztelua; 43 hektareako landa, Dabid jaunarena; 1888an Guérin eta Maudelonde andreek jaraunspen legez jasotzen dutena. Guérindarren udako egotetxea da, eta Zelina sarri joan ohi zen bertara. Martin jauna hor-txe hil zen 1894an.

LA NÉELE, Frantzisko, Francis deitzen ziotena (1858-1916)

Teresaren ezkon-lehengusua da; Joana Guérinen senarra (1890); botikari eta medikua da. Caen-en egiten du mediku-lana, eta lau aldiz bisitatzen du Teresa gaixotegian, honen azken gaixoaldian zehar.

LA NÉELE, Joana (ikus GUÉRIN, Joana)

LAHAYE, Biktor (1855-1936)

Botikaria, Isidor Guérinen ondorengoa, Teresaren beloa hartzean izan zen, eta 1923an kontatuko zuen. Karmelgo botikari izendatua.

LECHESNE, Biktor, apaiza (1863-1931)

Lisieux-ko Saint-Pierreko apaiz laguntzailea da; karmelen hitzaldia egingo du 1896/7/16an. Teresak «Lechêne» idatzi zuen.

LEMONNIER, Armand, aita (1841-1917)

La Délivrande-ko elizbarrutiko misiolaria delarik, Lisieux-ko Karmelen gogojardunak eman zituen 1893, 1894 eta 1895ean; azken urte horretan ama Ainesek

aholkua eskatu zion Eskaintza-Ekitaldeari buruz. Adierazpenak egin zituen Prozesuan.

LEO TAXIL (ikus JOGAND-PAGES)

LEPELLETIER, Luis, apaiza (1853-1918)

Lisieux-ko Saint-Pierreko apaiz laguntzailea (1878-1888); Martin jaunaren ohiko aitor-entzulea, eta geroago Teresarena (1886-1888).

LUISA (ikus MARAIS, Luisa)

MADALENA SAKRAMENTU SANTUARENA, ahizpa (1817-1892)

Lisieux-ko karmeldarra, ahizpa ez-korukoa; profesa 1844an egin zuen. Teresak hilda aurkitu zuen beronen gelan, gripeak jota.

MADELAINE, Godefroid, aita (1842-1932)

Monday-ko premontretarra. Aita Delatroëtte-ren adiskidea da; eta Maria Bihotz Sakratuarenaren eta Teresaren abitu-hartzeetan izan zen; gogo-jardunak eman zituen Karmelen 1882, 1890 eta 1896an; Teresak fedearen aurkako tentaldiei buruz hitz egin zion. *Histoire d'une âme* berrikusi zuen eta haren hitzaurrea egin. Lekukoa izan zen Prozesuan.

MARAIS, Luisa (1849-1923)

Martindarren neskamena izan zen Alençon-en hamaika edo hamabi urtez, 1877ko urrira arte.

MARGARITA MARIA BIHOTZ SAKRATUARENA, ahizpa (1850-1926)

Lisieux-ko karmeldarra; profesa 1875ean egin zuen. Ospitalean sartu zuten buruko gaixotaunagatik 1896an; Karmel utzi beharra izan zuen.

MARIA AINGERUENA ETA BIHOTZ SAKRATUARENA, ahizpa (1845-1924)

Teresaren nobiziatuko maistra. Jaiotzez Joana de Chaumontel izan zen; 1866an sartu zen Lisieux-ko Karmelen, eta bertan egin zuen profesa 1868an. Hiru bider izan zen prioreordea; nobizien maistra, berriz, 1886tik 1893ra eta 1897tik 1909ra. Lekukoa izan zen Prozesu bietan.

MARIA BIHOTZ SAKRATUARENA, ahizpa (ikus MARTIN, Maria)

MARIA EUKARISTIARENA, ahizpa (ikus GUÉRIN, Maria)

MARIA GIZAKUNDEARENA, ahizpa (1828-1911)

Lisieux-ko karmeldarra, ahizpa ez-korukoa; profesa 1854an egin zuen. C Esk., 17^a.ko "belar siku biltzaile" horietariko bat.

MARIA GONZAGARENA, ama (1834-1904)

Lisieux-ko Karmelgo priorea. Maria Adela Rosalia Davy de Virville 1860an sartu zen Karmelen, eta 1862an egin zuen profesa. Prioreordea (1866-1871); hiru bider izan zen priore (1874-1883, 1886-1893, 1896-1902), baita nobizien maistra ere (1883-1886, 1893-1897). Lau ahizpa Martindarrak eta beraien lehengusina Guérindarra Karmelen sartzea, neurri handi batean, haren eraginagatik izan zen.

Bere nortasun sendoaren lortatza utzi zuen komunitatean, Prozesuetan zehar haren alderdi ezkorrak agertu baziren ere.

MARIA JESUSENA, ahizpa (1862-1938)

Lisieux-ko karmeldarra; profesa 1884an egin zuen. Teresaren eroapena aproban jarri zuen otoitzaldietan (C Esk., 30^a). Gaixotegian laguntzen du 1897an.

MARIA HIRUTASUNARENA ETA AURPEGI SANTUARENA, ahizpa (1874-1944)

Lisieux-ko karmeldarra; Teresaren nobizia. Maria Castel, hasieran karmeldarra Parisen (1891-1893), Lisieuxen sartu zen (1894/6/16an), eta 1896/4/30ean egin zuen profesa. Teresaren lagun mina izan zen, lekukotasun garrantzitsuak eman zituen Prozesuan eta «Conseils et souvenirs» idatzi zituen, berak jasotakoak alegia (ik. Bibliografia).

MARIA ANTONIETA, ahizpa (1863-1896)

Lisieux-ko Karmelgo tornuzaina; 1891n egin zuen profesa. Birikeria jota hil zen.

MARIA DOSITEA, ahizpa (ikus GUÉRIN, Maria Luisa)

MARIA ELISABET, ahizpa (ikus ELISABET)

MARIA EMANUELA, ahizpa (1828-1904)

Lisieux-ko karmeldarra; hogeita hamabost urterekin alargundu zen, hiru haur galdu eta gero; 1880an egin zuen profesa.

MARIA FILOMENA JESUSENA, ahizpa (1839-1924)

Lisieux-ko karmeldarra. 1876an egotaldi laburra egin eta gero, 1884an sartu zen behin eta betiko, eta 1886an egin zuen profesa. Nobiziatua Teresarekin amaitu zuen (1888-1889).

MARIA MADALENA SAKRAMENTU SANTUARENA, ahizpa (1869-1916)

Lisieux-ko karmeldarra; ahizpa ez-korukoa. 1892/7/22an sartu zen, abitua 1893/9/7an hartu zuen, eta 1894/11/20an profesa egin. Nobizia zen garaietan, Teresaren ardurapean jarri zuten gogoz kontra; Teresak «Erregina bihurtu zen neska artzain baten istorioa» eskaini zion (TO 10). Adierazpenak egin zituen Gotzain aurreko Prozesuan.

MARIA SAN JOSERENA, ahizpa (1858-1936)

Lisieux-ko karmeldarra; profesa 1882an. Izaera gaitza du eta komunitatearen eroapena aproban jartzen du. Teresa, bere borondatez, haren laguntzaile bihurtu zen lixibategian 1896-1897an. Oreka psikikorik ezagatik klausurako biritatik aldendua izan zen 1909an.

MARIA SAN PEDRORENA, ahizpa (1816-1848)

Tours-ko karmeldarra; profesa 1841ean egin zuen. Buru-belarri jardun zuen biraoen ordaingarritzko ekintzan, baita Aurpegi Santuaren eta Jesusen haurtzaroren gurtza sendotzen ere. Haren idazkiek, 1881ean argitaratutakoek, eragin itzela izan zuten Lisieux-ko Karmelen.

MARTA JESUSENA, ahizpa (1865-1916)

Lisieux-ko karmeldarra, ahizpa ez-korukoa. 1887ko abenduan sartu zen, abitua 1889/5/2an hartu zuen, eta 1890/9/23an profesa egin. Nobiziatuan 1895 edo 1896ra arte gelditu zen Teresaganako maitasunagatik; beronek lagundu zion bere burua ama Maria Gonzagarenaren gehiegizko eraginetik askatzen (C Esk., 20^a). Lekukoa izan zen Prozesuan.

MARTIN, Leonia, ahizpa Frantziska Teresa (1863/6/3-1941/6/16)

Bizitazioko lekaimea, Teresaren ahizpa; honen amabitxi izan zen sendotzan (1884/6/14). Gaixoa zen eta izaeraz ez hain atsegina, Caen-go Bisitazioan (1889an) profesa egin eta bizi izan zen; baina hara orduko lekaime-bizitzan hiru alegin egina zen: klaratarra Alençon-en (1886); Bizitazioko lekaime Caen-en (1887-1888), ondoren beste behin egon zen monasterio berean (1893-1895), Teresa-Dositea izena hartu zuelarik. Lau urtez bizi izan zen Guérindarren etxean (1895-1899). Profesa 1900/7/2an egin zuen. Lekukoa izan zen bi Prozesuetan.

MARTIN, Luis (1823/8/22-1894/7/29)

Teresaren aita. Bordelen jaio zen. Haurtzaro «militarra» izan zuen Avignon, Strasbourg eta Alençon-en (1830). Erligio-bizimodua darabil gogoan eta Grand-Saint-Bernard bisitatzen du 1843an, baina ez zuten hemen onartu. Erloju-denda erosi zuen Alençon-en 1850ean eta Zelia Guérinerekin ezkondu zen 1858/7/13an; honekin bederatzi seme-alaba izan zituen: lau hil ziren, txiki-txikitik (ik. Genealogia, *supra*). 1877an alargundurik, Martin jauna Lisieux-en jarri zen, Buissonnets-en (1877ko azaroan). 1887an elbarritasunak jo zuen lehenengoz; buruko zaingorrien gogordura latza izan zuen; hortaz, osasun etxean sartu behar izan zuen, Caen-go Bon Sauveur-en (1889/2/13). Hiru urtez gelditu zen hor eta, geroago, Lisieux-era dator (1892/5/10), Zelinak zaintzen duelarik. La Musse-n hil zen.

MARTIN, Maria, ahizpa Maria Bihotz Sakratuarena (1860/2/22-1940/1/19)

Lisieux-ko karmeldarra, Teresaren ahizpa nagusia eta amabitxi. Mans-ko Bisitazioan ikasi zuen (1868-1875). Bere ama hil eta gero, Buissonnets-eko etxea zuzendu zuen Karmelera sartu zen arte (1886/10/15); abitua 1887/3/19an hartu zuen, eta profesa 1888/5/22an egin. Hiru urtean egon zen nobiziatuan Teresarekin (1888-1891). Beronek zaindu zuen Teresa nerbioetako gaixoaldian (1883) eta bera izan zen haren eskrupuluen krisialdian konfiantzako laguna (1885-1886); bera izan zen ahizpa haurtzaroko oroitzapenak idaztera bultzatu zuena (A Esk., 1895), baita bere "doktrina"ri buruzko isilpekoak idatzarazi zizkiona ere (B Esk., 1896). Adierazpenak egin zituen Prozesuan.

MARTIN, Paulina, ama Aines Jesusena (1861/9/7-1951/7/28)

Lisieux-ko karmeldarra, ahizpa, Teresaren «amatxo» eta priorea. Mans-ko Bisitazioan ikasi zuen (1868-1877). Teresaren heziketa eta irakaskuntza ziurtatu zituen. 1882/10/2an sartu zen Karmelen; 1883/4/6an egin zuen abitu-hartzea; profesa, berriz, 1884/5/8an, Teresaren lehenengo jaunartze egunean. Priore izan zen 1893/2/20tik 1896/3/21era; haurtzaroko oroitzapenak idazteko agindu zion Teresa-ri. 1902tik 1908ra bitartean priore izan zen, geroago 1909an, eta kargu horretan jar-

dungo du hil arte, Pio XI.ak 1923an "bizi den arterako" kargu horretan baieztatu baitzuen. Lekukoa izan zen Prozesuan.

MARTIN, Zelia (1831/12/23-1877/8/28)

Jaiotzez Azelia Maria Guérin; Teresaren ama. Alençon-en Jaurespeneko Andrazkoen ikastetxean ikasi zuen; farfail eta bordatu lanbidea ikasi zuen, eta bere kasa ekiten dio lanari 1863. urtearen inguruan. Luis Martinekin ezkondu zen 1858/7/13an, bederatzia ume izanik. Bularreko minbiziak jota hil zen, Saint-Blaise kalean, Alençon-en. Haren gutun ugariak *Correspondance familiale*-n (1863-1877) artean bildu ziren, eta jakinbide garrantzitsuak eman zituen Teresaren haurtzaroari buruz.

MARTIN, Zelina, ahizpa Jenofa Santa Teresarena (1869/4/28-1959/2/25)

Lisieux-ko karmeldarra, Teresaren ahizpa eta nobizia. Alençon-en jaio zen eta Martindarren bederatzia seme-alabeetatik zazpigarrena izan zen. Lehenengo jaunartzea 1880/5/13an egin zuen Lisieux-ko Abadian, eta ikasketak ere bertan egin zituen 1877tik 1885era. Gutun garrantzitsuak trukatzan ditu Teresa karmeldarrekin. Aita zaintzen du gaixorik dagoen bitartean (1889-1894). Karmelen 1894/9/14an sartu zen (lehenengoz Maria Aurpegi Santuarena izenarekin); abitua 1895/2/5ean hartu zuen (ahizpa Jenofa Santa Teresarena); profesia 1896/2/24an egin zuen. Nobiziatua Teresaren ardurapean egin zuen, eta gaixozaina izango da azken hilabeteetan. 1916an, ahizpa Jenofa Aurpegi Santuarena izena hartu zuen. Margolari eta argazkilaria izan zen, batez ere Teresarena, eta *Conseils et souvenirs* idatzi zuen, besteak beste. Prozesuan, lehenengo mailako lekukoa izan zen.

MAUDELONDE, Elena (1876-1944)

Jules Houdayer Lisieux-ko abokatuaren emaztea (1896).

MAUDELONDE, Enrike (1864-1937)

Prokuradorea. Zelinarekin ezkondu nahi izan zuen 1890-1891n. 1892an ezkondu zen eta, alargundu eta gero, berriro ezkondu zen 1899an.

MAUDELONDE, Ernest (1862-1941)

Eskribaua. 1888ko ekainean, Guérin jaunarekin eta Zelinarekin joan zen Havre-ra, Martin jaunaren bila.

MAUDELONDE, Margarita Maria (1867-1966)

René Tostain Errepublikaren Lisieux-ko Prokuradoreordearen emaztea (1899), prokuradoreordea sinesgabea da; eta haren alde otoitz egiten du Teresak.

MAUDELONDE, Maria (1843-1926)

Jaiotzez Fournet, Guérin andrearen ahizpa. Césard (*sic*) Maudelonde-rekin ezkondu zen (1861), eta Ernest, Enrike, Margarita Maria, Zelina eta Elenaren ama izan zen. Martindar eta Maudelondetar umeak sarritan joaten dira Guérindarren etxera, bai Lisieux-era, bai Trouville-ra.

MAUDELONDE, Zelina (1873-1949)

Teresaren haurtzaroko laguna, Gaston Pottier eskribauaren emaztea (1894). Maria Eukaristiarenaren lagun mina.

MAUPAS, Alexandre, kalonjea (1850-1920)

Karmelgo nagusia (1896ko urtarrilaz gero). Lisieux-ko Saint-Jacquesko bikarioa izan zen 1895etik hil arte. Oliadura eman zion Teresari 1897/7/30ean. Adierazpenak egin zituen Prozesuan.

MAZEL, Frederik, aita (1871-1897)

Misiolaria, aita Roulland-en laguna; Txinan hil zuten 1897ko apirilaren 1ean (ik. KH 1. V. 2).

Notre-Dame-des-Victoires (Garaipenen Andre Maria)

Martindarrek maite zuten santutegi paristarra. Mezen bederatzurrrena egin zen hemen Teresa umea senda zedin (1883), baita geroago ere karmeldar zela (1897ko ekainean). Erromara joaterakoan, Teresak eliza honetan egin zuen otoitz, 1887/11/4an. - Trouville-ko (Calvados) parrokia, Teresak 1885-1887an sarritan bisitatzen duena.

NOTTA, Alfontso (1824-1914)

Medikuntzan doktore eta zirujaua. Garai hartan herrialde hartako izarra. Martin andreak kontsulta egin ondoren (1876/12/24an), Teresa zaindu zuen 1883ko martxotik maiatzera bitartean, geroago Martin jauna 1887-1889an, eta hau Bon Sauveur ospitalera sartzeko ziurtagiria sinatu zuen 1889ko otsailean.

PAPINAU, Balentina (1835-1898)

Teresaren etxe-irakaslea delarik, eskola partikularrak eman zizkion 1886ko martxotik 1888ko otsailera. Ezkondua eta seme-alabarik gabea.

PASQUER, BIKTORIA (1857-1935)

Martindarren neskamea, 1877tik 1884ra.

PETIT, Elisa (ikus FOURNET, Elisa)

PICHON, Almir, aita (1843-1919)

Josulaguna, 1873/9/8an apaiztua. Maria Martinen arima-zuzendaria (1882) zela, Alençon-en aurkitu zuen Teresa 1883/8/22an. Zelinak zuzendari hartu zuen 1887an. Karmelen predikatu zuen 1887an eta 1888ko maiatzean. Teresa nobizia-gaiaren aitortza entzun zuen (1888/5/28an) eta haren kontzientziako kezak baretu. Teresak gutun-harremanak izan zituen harekin, baina gutun horietarik bat ere ez zuen gorde. Predikari izan zen Kanadan (1884-1886; 1888-1907). Lekukoa izan zen Prozesuan.

PRANZINI, Enrike (1856-1887)

Alexandrian jaio zen, eta 1877an kartzela-zigorra ezarri zioten. Frantzian, bi emakume eta neskaxo bati lepoa moztu zien 1887/3/17an. Prozesua uztailaren 9tik 13ra bitartean egiten da. Abuztuaren 31n urkatu zuten.

PRIMOIS, Joana Maria (1864-1897)

Martindarren laguna, batez ere, Maria eta Paulinarena.

PROU, Alexis (ikus ALEXIS PROU)

RAOUL, Joana-Luisa (1873-1946)

Teresaren lehenengo eta bigarren jaunartzeetako laguna da, eta Zelinaren alababixi sendotzan. Teresak ahaleginak egin zituen harekin adiskide-harremanak izateko, baina alferrik (A Esk., 38^a).

RÉVÉRONY, Moris, apaiza (1836-1891)

Bayeux-ko bikario nagusia izan zen 1878tik aurrera, eta Teresak gotzainari egindako bisitan bertan izan zen (1887/10/31); gero, Erromarako elizbarrutiko erromesaldiaren burua izan zen 1887ko azaroan; erromesak Leon XIII.ari aurkeztu zizkion 1887/11/20an. Bitarteko lanak egin zituen Karmel eta aita Delatroëtte-ren artean Teresa onartzeari buruz.

ROMET, Hortensia (1825-1898)

Auguste Benoît-ekin ezkondu zen (1857), eta hiru alaba izan zituen berarekin; haur horiek Maria eta Paulina Martinen lagunak izan ziren.

ROMET, Paulina (1829-1889)

Aurrekoaren ahizpa, Paulina Martinen amabixi. Alençon-en bizi izan zen bere neba Vidal-ekin.

ROMET, Vidal (1830-1916)

Alençon-go botikaria, Luis Martinen gaztetako laguna «Cercle catholique»n. Ezkongabea, gizarte ekintzetan dihardu buru-belarri. Zelina Martinen aitabixi.

ROULLAND, Adolfo, aita (1870-1934)

Teresaren bigarren "neba izpirituala" (1896/5/30). 1896/6/28an apaiztu zen eta uztailearen 3an Karmelera bisita bat egiten du, Teresarekin elkarrizketa izanik. 1896/8/2an Su-Tchuen-era (Txina) joateko untziratu zen, eta Teresarekin gutun-harremanak ditu; sei gutun idatzi zizkion honek. 1909an Frantziara itzuli zen. Lekukoa izan zen Prozesuan.

Saint-Ouen-le-Pin

Calvados-ko udalerrria, Lisieux-tik hamar kilometrora. Fournetarrek etxe bat zuten han eta horraxa joan zen Teresa oporretan, 1884ko abuztuan eta 1885eko uztailean.

SALUTAIRE, anaia (1821-1907)

Kristau-eskoletako anaia; profesa 1846an. Anaia Simeonen laguntzailea da eta gutun bat idatzi zion Teresari (LC 176).

SAN FRANTZISKO SALESKOARENA, ama (1848-1933)

Lixieux-ko beneditarra, Teresaren eskolako maistra 1881-1883an; 1883-1886 bitartean erlijioa irakatsi zion. Titulu hori zela-eta deitu zioten Prozesuan adierazpenak egiteko.

SAN JOAN BAUTISTA JESUSEN BIHOTZARENA, ahizpa (1847-1917)

Lisieux-ko karmeldarra; profesa 1873an egin zuen. «Jainko onaren zorrotza-sunaren irudia» Teresarentzat (TG 230).

SAN JOAN GURUTZEKOARENA, ahizpa (1851-1906)

Lisieux-ko karmeldarra; profesa 1878an egin zuen.

SAN-BENITO, ama (1858-1929)

Lisieux-ko beneditarra. Barrukoen ikastetxeko maistra izan zen, Teresa Abadiara joaten zen garaian.

SAN-BINZENTE PAULEKOARENA, ahizpa (1841-1905)

Lisieux-ko karmeldarra, ez-korukoa; 1865ean egin zuen profesa. Honen esae-ra garratz batzuek nahiko sufriarazi zioten Teresa nobiziari. Ahizpa hau izan zen bere buruari galtzen ziona ama prioreak zer idatzi ahal izango zuen hil-agirian Teresari buruz; baina haren lehen mirarietariko bat beronen alde egina izan zen, buruko anemiatik sendatua izan baitzen.

SAN-JOSE JESUSENA, ahizpa (1809-1892)

Lisieux-ko karmeldarra; 1839an egin zuen profesa. Gripeak jota hil zen, Teresa sak hemeretzi urte egin zituen egunean.

SAN-LEON, ama (1861-1938)

Lisieux-ko beneditarra; profesa 1884an. Teresaren maistra izan zen hurrengo ikasturtean. *La petite Teresa à l'Abbaye* liburuaren idazlea izan zen (1930).

SAN-PEDRO SANTA TERESARENA, ahizpa (1830-1895)

Lixieux-ko karmeldarra; ez-korukoa; profesa 1868an. Gaztetan elbarritua, Teresa nobiziaren laguntza jaso zuen.

SAN-PLAZIDO, ama (1845-1909)

Lisieux-ko beneditarra, barrukoen ikastetxeko zuzendaria (1882-1896)

SAN-RAFAEL MARIAREN BIHOTZARENA, ahizpa (1840-1918)

Lisieux-ko karmeldarra; profesa 1869an. Teresa haren laguntzailea izan zen tomuzain ofizioan (1893-1896).

SAN-STANISLAS BIHOTZ SAKRATUENA, ahizpa (1824-1914)

Lisieux-ko karmeldarra; profesa 1847an. Teresa haren laguntzaile izan zen sakristian 1891ko otsailetik 1893ko otsailera bitartean. Gaixozain nagusia zen 1897ko udaberrian, eta bere eskubideak ahizpa Jenofari utzi zizkion Teresa zaintzeko.

SAN-STANISLAS, ahizpa (1874-1955)

Saint-Augustin ospitaleko kalonjesa; profesa 1897an. Teresaren laguna; bera-
ren lekukotasuna *La petite Teresa à l'Abbayen* azaltzen da.

SIMEON, anaia (1814-1899)

Kristau-eskoletako anaia; profesa 1839an. Erromako ikastetxe frantziarrean, aberkideei abegi ona egiten die: Martin jauna 1885eko irailean eta 1887ko azaroan hartu zuen.

TAILLÉ, Rose (1836-1908)

«La petite Rose»k lau ume ditu eta Teresa txikiaren inude izatea onartu zuen Semallé-n (Orné).

TERESA JESUSENA MARIAREN BIHOTZARENA, ahizpa (1839-1918)

Lisieux-ko karmeldarra; profesa 1875ean.

TERESA SAN AUGUSTINENA, ahizpa (1856-1929)

Lisieux-ko karmeldarra; profesa 1877an. Asko maite zuen Teresa; honi, ordea, ez zitzaion batere begiko hura, baina sentimendu hori gainditzea lortu zuen (C Esk., 13^o). Lekukoa izan zen Prozesuan. «Souvenirs d'une sainte amitié»ren egilea.

TOSTAIN, René (1858-1936)

Margarita Maria Maudelonde-ren senarra (ikus *supra*).

TROUDE, Paulo, apaiza (1873-1900)

Bellière apaizgaiaren ikaskidea eta Lisieux-ko Karmelgo ahizpa Maria Filomenaren loba; Karmelgo Andre Mariaren meza eman zuen Lisieux-en 1897/7/16an.

Trouville

Calvados-ko bainuetxe-tokia. Teresak hortxe ikusi zuen lehen aldiz itsasoa (1878/8/8) eta lau egotaldi egin zituen bertan 1885etik 1887ra bitartean.

VALLÉE, ahizpa Maria Aloisia (1841-1903)

Mans-ko Bizitaziokoa; 1868an egin zuen profesa. Ikastetxeko Maistra izan zen barnetegian Maria eta Paulina Martinek ikasketak egin zituzten bitartean. 1894an, Teresak «Jesus Haurraren ametsa» margotu zuen berarentzat.


VÉNARD, Teofan, martiria (1829-1861)

Parisko Misio atzerritarren aita, Hanoi-ko hiri gotorrean moztu zioten lepoa. Teresak haren gutunak eta biografia irakurri zituen: Teresak olerki bat egingo du bat-batean haren omenez (TO 47) eta haren erretratuia begi aurrean izango du bere azken gaixoaldian zehar. Pio X.ak dohatsu egin zuen 1909an, Joan Paulo II.ak, berriz, santu aitortu zuen 1988an.

YOUF, Luis, apaiza (1842-1897)

1869an apaiztu zen; Lisieux-ko Karmelgo kapilau izan zen 1873tik hil arte; Teresaren heriotzatik egun batzuetara hil zen; haren ohiko aitor-entzulea izan zen.

ZELINA (ikus MARTIN, Zelina)



ERLIJIO-BIZIMODUAREN HIZTEGITXOA

(bereziki Lisieux-ko Karmelgoa)

* **ABARKETAK:** Santa Teresa Avilakoaren berrikuntza ondoren karmeldarrek eramaten zituzten espartzuzko oinetakoak.

* **ABITU-HARTZEA:** nobiziagaiak lekaiame-jantzia hartzen duen zeremonia; aurretik sei hilabeteko proba izaten du, nobiziagai gisa, koruko ahizpak eta urtebetekoa ahizpa ez-korukoak. Zeremonia horretarako, neska gaztea emaztegai jantzirik irteten da klausuratik eta bere senideekin batera parte hartzen du bezperetan. Ondoren, klausuran sartzen da berriro abitua hartzeko.

* **ADMINISTRAZIO-GELA:** diruzainaren bulegoa

* **«AINGERUA»:** nobiziagaiari komentu-bizitzako usadio eta ohituren hasimasiak irakasteko eginkizuna zuen lekaiamea.

* **AITOR-ENTZULE BEREZIA:** lekaiameen aitortzak urtean lau aldiz, garta-denboretan, entzutera etortzen den apaiza.

* **ARETO BEROA:** jolas-aretoa; monasterioan berotua den areto bakarra da eritegiarekin batera.

* **ARRATSEKO OTOITZA (KONPLETAK):** eguneroko otoitzak "osatu" eta haiei amaiera ematen dien Eliz Otoitzaren ordu txikia. Lisieux-ko Karmelen, Arratseko Otoitza iluntzeko zortziak hogeit gutxiagotan errezatzen zen, eta hogeit bat minutu inguru irauten zuen.

* **ASTEKO OTOITZ-GIDARIA:** astebete zehar Eliz Otoitzaren buru izateko ardua duen lekaiamea. Ofizio hau txandaka bete ohi dute lekaiame korukoek.

* **BAIMENDUTAKO SOLASALDIA:** aparteko atsedeen eguna da; egun horretan lekaiameek elkarrekin askatasunez hitz egiteko baimena dute. Bata bestearen gelan ere sar daitezke, egun arruntetan hori debekaturik dagoelarik.

* **BERROGEI ORDUAK:** hausterre egunaren aurreko hiru egunak -Garizumaren sarrera-; egun horietan zehar Sakramentu Txit Santua agerian jartzen zen lekaiameek guruzatzen, ihauterietako gehiegikerien ordainez.

* **BIDARIA (BIDERAKOA)**: oliaduraren ondoren hilzorian dagoenari azkenengo aldiz ematen zaion Eukaristiako sakramentua.

* **BURU-ESTALKIA**: oihal zurizko estalkia, buru osoa estali eta sorbalda gainera erortzen dena, eskapularioaren azpitik agertzen delarik.

* **DIRUZAINA**: komentuko ekonomiaren ardura duen lekaiamea.

*«Diruzainaren Hirugarrena»: ahizpa diruzainari laguntzen diona, hark langileak klausura barruan sartu behar dituenean edota haiei hitz egin behar dienean.

* **ELIZ OTOITZA**: ik. Orduen Liturgia.

* **ELKARRIZKETA IZPIRITUALA**: nobiziagai nahiz nobizia batek priorearekin nahiz nobizien maistrarekin barne-bizitzaren kontu emateko izaten duen bilera, honek lagun eta gida dezan.

* **ERRUAK**: ik. Kapituluak.

* **EZ-KORUKOA**: klausura barruan bere egitekorik behinena monasterioko etxezbitzuak (sukaldea, etxeko lanak etab.) egitea zuen lekaiamea. Koruko ofiziora joaten da, baina orduen liburuko otoitzen ordeztu hainbat «Gure Aita» erreztatzen ditu. Profesa egin ondoren ere belo zuria eraman ohi du.

* **GELA**: karmeldarra bizi den eta bakarreko lana egiten hainbat denbora ematen duen tokia.

* «**GURE AMA**»: horrela deitzen zitzaion prioreari. Pobretasunagatik eta ondasunetatik burua aske izatearren, karmeldarrek pluraleko lehen pertsona erabiltzen dute beraiek erabiltzen dituzten gauzak aipatzean: *gure gela, gure pintzelak...*

* **HILEN ELIZ OTOITZA**: Maitinez, Gorespenez eta Bezperez osatzen den ofizio kanonikoa da; lekaiamek bakarrean erreztatzen dute, karmeldar bat hil ondoren, zirkularrean haren heriotzaren berria jaso eta haren aldeko otoitzak Ordena osoari eskatzen zaizkionean.

* **HIRURRENA**: predikari batek, hiru egunez, santu bati buruz nahiz liturgi jai bati buruz hitz egiten duen jardunaldia.

* **HORNITZAILEA**: janari-edariekin eta hauekin zerikusia duen guztiarekin arduratzen den lekaiamea (hornigaien erosketa, kontserbak prestatzea, baratza etab.). 1897an, hornitzailea ahizpa Maria Bihotz Sakratuarena zen, 1894ko ekainaren amaieraz gero eginkizun hori zuena.

* **ISILTASUNA**: denbora hori Arratseko Otoitzetik (iluntzeko zortziak inguruan amaitzen zenetik) biharamuneko Primararte izaten zen (6etan edo 7etan, urtaroaren arabera). «Isiltasun handia» zen, eta beharrezko adierazpenak keinuz edo idatziz egin behar ziren denbora horretan. Zehazki esanda, «isiltasuna»k arratseko otoitzaren eta maitinen arteko astialdi librea esan nahi du. Biago librea, eguerditik arratsaldeko ordu batera bitartekoa, ere «isiltasun handi»ko tartea da.

* **KANTARIA:** Orduen Liturgiaren zati batzuk bakarrik kantatzen edo errezitatzten dituen lekaimea. Koruko ahizpek eginkizun hori txandaka bete ohi dute.

* **KAPITULUA:** komunitatearen batzarra, ama priorea buru dela; doktrina-gaiei buruzko hitzaldi batez eta komunitate-bizitzari dagozkion gaiei buruzko elkarrizketaz osatzen da. Kapitulu-aretoan egiten da. * "Erruen kapitulua": lekaimeek komunitatearen aurrean Erregela eta Konstituzioen aurka egindako hutsak aitortzen dituzten batzarra.

* **KLAUSTROA:** komentuko galeria edo barne-bidea, geletako ateez bertara ematen dutelarik. Lisieux-ko Karmelen bi klaustro daude: bata «gure amarena» izena ematen zaiona, priorearen gelak bertara ematen duelarik (17 gela), eta bestea "San Eliasen" klaustroa izenakoa, sarreran profeta honen irudia duelako horrela deitua (4 gela). Bigarren klaustro honetan dago san Eliseoren gela, 1894ko abuztutik 1897ko uztaile arte Teresa bizi izan zena (ik. Karmelgo planoak).

* **KOMUNIOKO BURDINSAREA:** koruan, burdinsare batzuek mugatzen dute karmeldarren klausura. Komunioko burdinsarea, hau zabalik dagoela, lekaimeak jaunartzera hurbiltzen diren tokia da.

* **MAITINAK:** otoitzordu kanonikoen lehenengoa; gau-ofizio hau, berez, eguneko lehen orduan ospatzekoa da (gauerdian). Avilako santa Teresak bere lekaimeentzat idatzitako Konstituzioek iluntzeko bederatzietarako jartzen dute Maitinak errezzatzeko ordua. Ofizio honek, gehienetan, bederatzi salmo eta bederatzi irakurgai zituen. Honen ondoren Gorespenak zetozen eta segidan kontzientzi azterketa. Guztira, ordu eta erdi irauten du gutxi gorabehera. Arratsean, jantokian, maitinetako irakurgaien frantsesezko itzulpena irakurtzen zen.

* **MINTZALEKUA:** karmeldarrak bere senide eta adiskideak hartzen dituen tokia, burdinsare bikoitza tartean dela haiekin hitz egiten duelarik. Hurbileko senideak ez zirenean, kortina opaku bat ezartzen da burdinsarearen aurrean. «Hirugarrena» zeritzon beste lagun bat ere egoten zen bisita bitartean, baina ez zuen esku hartzen elkarrizketan eta kanpoko mintzalekutik ez zuten ikusten. Mintzalekuko bisitaldiak ordu erdi irauten zuen. Orduen Liturgian zeudenean eta Abenduan eta Garizuman bisitarik ez da hartzen.

* **Hirugarrena:** Mintzalekuan beste bati laguntzen dion lekaimea.

* **NOBIZIATUA:** nobiziagai gisa igarotako garaiaren ondoren (ik. Abitu-hartzea), nobiziatua dator (lau urtez). Garai horretan karmeldarra aurrera doa bere hezieran, eta ez du komentuko kapituluan parte hartzen. Hitz horrek nobiziak euren ardura-dun den maistrarekin bizi diren lekua ere esan nahi du.

* **NONA:** Eliz Otoitzaren ordu txikietariko bat, juduen kontaktaren arabera bederatzigarren orduan esaten dena, hau da, arratsaldeko hirurak inguruan. Baina, garai hartako Konstituzioek, lau ordu txikiak (Prima, Tertia, Sexta eta Nona) meza-ren aurretik errezzatzeko agintzen zuten, 6etan udan eta 7etan neguan.

* **OFIZIOA:** hitz honek komunitatearen onerako egin ohi den lan bat (edo zeregin) edo zerbitzu finko bat adierazten du. Ofizio bakoitza bi lekaimeri (edo ofizia-

li) ezartzen zaie: bata “ofizioko lehenengoa” edo arduraduna izan ohi da eta bestea “ofizioko bigarrena”, hau nobizia bat edo profesia egin berri bat izaten delarik. (Teresa «ofizioko bigarrena» izan zen bere bizi guztian).

* **ORDUEN LITURGIA:** zortzi ordu kanoniko hauek dituen Elizaren Otoitza: Maitinak, Gorespenak, Prima, Tertia, Sexta, Nona (gaur egun tarteko otoitza deritze azken lau ordu txiki hauei), Bezperak eta Arratseko Otoitza edo Konpletak. Orduen Liturgia oso-osorik latinez errezatzen da orduen liburu erromatarrari jarraituz eta Karmelgo Ordenaren zati berezi batzuekin.

* **PRIMA:** eguneko lehen Ordu kanonikoa, goizean errezatzen zena.

* **PROFESIA:** sei hilabete nobiziagai gisa (urtebete ahizpa ez-korukoak) eta urtebete nobizia gisa igaro ondoren, nobiziak betiko botoak egiten ditu, horretarako hamazazpi urte beteta izanez gero. Zeremonia hori klausuran egiten da, kapitulu-aretoan. Hori belo beltza hartzearekin osatzen zen, al bait lasterren, koruko ahizpak zirenean: ageriko zeremonia da hau, eskuarki elizbarrutiko apezpikua buru dela egiten dena. «Profesaduna» profesia egindako ahizpa da.

* **TE DEUM:** Jainkoa goresteko latinezko kantu liturgikoa, igande eta jaietan, baita festaburu batzuetan ere, Maitinen ondoren kantatzen dena.

* **TERTIA:** Eliz Otoitzaren Ordu txikietariko bat, juduen kontaketa arabera, hirugarren orduan, hau da, goizeko bederatzia aldera errezatzen dena. Ik. **NONA**.

* **TORNUA:** armairu biribila, ardatz baten gainean bira eta horma baten barruan loturik dagoena; gauzak kanpotik barrura sar daitezkeelarik, barrukoa ikusi gabe. Karmelen, tornuak atarian sakristian eta mintzalekuan daude. Hedaturaz, armairu hori dagoen gela ere adierazten du hitz honek, baita ahizpa tornuzaina -klausuratik kanpora- dagoen tokia ere. Azkenik, tornua edo «tornu-etxea» deitzen zaio kanpoko ahizpa tornuzainak bizi diren lokalen multzoari.

* **TORNUZAINA (ahizpa):** klausuratik kanpoko lekaimea da, kanpoko harremenen ardura duena, baita tornutik zehar bertora ematen dena pasarazteko aduraduna ere.

* **TXATAL-IRAKURTZAILEA:** koruko ofizioan «txatalak» kantatu edo esaten dituen lekaimea; gehienetan, nobizia edo ahizpa gazteak aukeratzen ziren horretarako.

* **ZIRKULARRA:** lekaimerren bat hitzen denean komentu guztietara bidaltzen den gutun luze samarra, haren bizitza, bertuteak eta beraren heriotzako gorabeherak aipatzen direlarik.

* **ZUZENDARIA (izpirituarena):** karmeldar bakoitza «gidatu» eta hari bizitza izpiritualean laguntzeko ardura duen apaiza.

LISIEUX-KO KARMELGO ORDUTEGIA

Hona hemen udako ordutegia zehatz-mehatz (Bazkotik Gurutze Santuaren Gorapenera arte, irailaren 14an), ahizpa Jenofak bere oharretan jarri duen bezala:

4'45	Jaikitzea
5	Otoitza
6	Ofizioaren ordu txikiak (prima, tertia, sexta eta nona)
7	Meza eta eskerrak ematea (igandez: 8 h)
8	Gosaria: zopa (barau egunetan ezer ere ez) Lana
9'50	Kontzientzi azterketa
10	Bazkaria
11	Jolasaldia (harrikoa egitea, hartarako izendaturik dauden ahizpentzat: ordu erdi inguru)
12	«Isiltasuna» (biagoa, astialdia)
13	Lana
14	Bezperak
14'30	Irakurketa izpirituala (edo nobizien bilera nobiziatuan)
15	Lana
17	Otoitza
18	Afaria
18'45	Jolasaldia (harrikoa egitea)
19'40	Arratseko Otoitza
20	«Isiltasuna» (astialdia, eguerdian bezala)
21	Maitinak eta gorespenak (iraupena: ordu eta laurden, ordubete eta berrogei minutu, jaien arabera) Kontzientzi azterketa (hamar minutu) Biharamunerako otoitzaren atal baten irakurketa
22'30/23	Oheratzea

Irailaren 14an, neguko ordutegia hasten zen: jaikitzea ordubetez atzeratzen zen, baita goizeko gainerako ekintza guztiak ere jolasaldira arte, hau barne zela. Biagorik ez zen izaten, eta arratsaldeko ordu batetik aurrera udako ordutegi bera jarraitzen zen. Denbora honela banatzen zen: *sei ordu eta erdi otoitzerako* (ordu horietarik, bi gogarte-otoitzerako izaten ziren, eta lau ordu eta erdi meza eta koruko ofiziorako), *ordu eta erdi irakurketa izpiritualerako*, *bost ordu inguru lanerako*, *bi ordu komunitateko jolaserako*, berrogeita bost minutu eta hogeita hamar komunita-

teko jatorduetarako, hauetan isilik egoten dira lekaiameak (ahizpa batek ahots oze-
nez irakurtzen duen bitartean); *ordubete astialdirako* («isiltasun handia») Maitinen
aurretik; *sei ordu lo egiteko* udan (nahi izanez gero, ordubeteko biagoa), eta *zazpi*
ordu jarraian neguan.

KARMELGO JANARI-EDARI ARAUBIDEA

Karmelgo Erregelak okela betiko uztea agintzen du, baina gaixotasuna edo
ahuldura gertatuz gero, onartzen du hura jatea. Ogia da komentuko janariaren oina-
rria, esnea eta fekulak ere barne direla. Jatorduak honela banatzen dira:

a) *Udako jatorduak, baraurik gabe:*

-meza ondoren (goizeko zortziak inguruan): platerkada on bat zopa; zutik
jaten da, bakoitza bere tokian dela, baina mahaitik kanpo;

-eguerdian (izatez goizeko 10etan): arraina edo arrautzak, barazkiak (ugari),
postrea (gaztaia edo frutak); zatiak aurretik prestatzen dira, lurrezko plateretan;

-irratsaldean (6etan): zopa, barazkiak, postrea.

Jatorduen bitartean ez da ezer jaten; arratsaldeko 3etan eta Maitinen ondoren
ura edan liteke.

Hainbat ahizpari, goizean batetik bestera bi ordutako tarteaz soilik egin ohi
den bi jatordutako araubide hau, baraua bera baino ere gogorra gertatzen zaie.

b) *Ordenako baraua:*

-goizean ezer ere ez;

-goizeko 11etan bazkaria: zopa, eta gainerakoa beti bezala;

-arratsaldeko 6etan afari arina: ogia neurturik (batez beste, 7 ontza, hau da,
215 gramo inguru) gurina edo gazta, frutak, batzuetan marmelada. Ez saldarik eta
ez zoparik: berorik ezer ere ez.

c) *Elizako baraua (Garizuman, Garta-denboretan eta jai handien bezperetan):*

-goizean ezer ere ez;

-bazkaria goizeko hamaika eta erdietan: Ordenako barauan bezala, baina
arrautzak eta era guztitako esnekiak guztiz bazterturik daude dietatik; janaria uraz
edo olioaz egiten da;

-arratsaldeko 6etan afari arina: sei ontza ogi, ez dago marmeladarik, fruta gor-
dinak edota lehorrak (sagarrak, pikuak, aranak, intxaurrak etab.).


Teresak ez zuen baraurik egin hogeita bat urte bete arte (1894ko urtarrila),
baina bijilia egin beharrean izan zen, gaixotasunagatik hortik aske utzi zutenean
izan ezik.

PLANOAK

Lisieux-ko Karmel 1897an

Eritegia

Lehenengo solairua




Eskala

0.16 = 10 m

KLAUSURAN

A	Atarteak
B	Lekaimen aitorlekua
C	Sakristiako patioa
D	Pasabideak
E	Sakristia
F	Otoizlekua
G	Korua
H	Koruaurrea
I	Lourdesko patioa
J	Barruko tornua
K	Tornuko gela
L	Barruko mintzalekuak
M	Biltegia
N	Alexis Santua
O	Jantokia

P	Administrazio-gela
Q	Sukaldea
R	Areto beroa
S ^a	Jose Santuaren ermita
S ^b	Bihotz Sakratuaren ermita
T	Eukaristiako formak egiteko gela
U	AURPEGI SANTUAREN ERITEGIA
V	Aldameneko gela (ahizpa Jenofa)
W	Lourdesko Andre Maria Eritegia
X	Lanparen gela (??)
Y	Sotoa
Z	Klaustroak
Z ^a	Patioko gurutzea
Z ^b	Ama Sortzez Garbiaren irudia
Z ^c	Ahizpa Teresaren Jesus Haurra
Z ^d	Karmel Mendiko Andre Mariaren irudia
Z ^e	Avilako Teresa Santuaren irudia



LISIEUX-KO KARMELGO PLANOA 1897an

KLAUSURATIK KANPO

- a Sarrerako atea
- b Kaperako patioa
- c Kanpoko tornuzainen etxea
- d Kanpoaldeko mintzalekuak
- e Kapilauaren baratza
- f Kapilauaren etxea
- g Kapera
- h Presbiterioa
- i Sakristia
- j Apaizaren aitorlekua
- k Klausurako atea

- 4 Aurpegi Santuaren ermita
- 5 Gaztainondoan ibilbidea
- 6 Eskorta
- 7 Hilerrri zaharra
- 8 Madalena Santuaren harpetxoa
- 9 Garbitegia
- 10 Arropak garbitzeko aska
- 11 Estalpea
- 12 Mariaren Bihotzaren irudia
- 13 Ibilgailuen atea
- 14 Jose Santuaren irudia
- 15 Zuhaixka (mizpira)

BARATZA

- 1 Eritegiko eskailera
- 2 Zelaia
- 3 Urmael txikia

LISIEUX-KO KARMELEGO ERITEGIA

Uztailaren 8tik eta hil arte, Teresa gaixotegian¹ bizi izan zen; eritegia behe solairuan zegoen, klaustroko ipar-ekialdean.

Haren burdinazko ohea² kortina marroiez inguratutik zen, haietan Teresak gogokoen zituen estanpak³ eseki zituelarik; ohea, hasieran, bazter baten zegoen, gero, abuztuaren 28tik aurrera, gelaren erdian, leihotik baratza ikus zezan⁴. Irriaren Andre Mariaren irudia⁵, horrela, Teresaren aurrez aurre zegoen.

«Oihal beltzeko errezel bat zegoen, kordioien⁶ bidez lau barrari loturik».

Klaustrotik etorrira, A atetik sartzan da. B atea, «trinkatua»⁷, eritegi zabalago batera begira dago, eta eritegi horri «Lourdesko Andre Maria» deritzo (gaur egun txikitua). C atek, hau ere «trinkatua», ahizpa Jenofa (gaixozainak) lo egiten duen gelara ematen du.

Besaulkia, teresak pixka baterako jaikitzen zenean edota ohea egiten zioten bitartean atsedean hartzeko erabiltzen zuena da. Tximinian «erregailu txiki bat»⁸ zegoen.

Tximinia, zoladura, sabaia, leihotapak garai hartakoak dira. 1953an, itsutuak ziren bi atek beste bi eritegietan ezarri ziren, eta patiorantz begira daude.

Leihoaren ezker aldean, Kristo hilzorian agertzen duen koadro bat dago, Zelinak ama Jenofaren diamantezko ezteietarako 1891n pintatua. Orduan marko eta guzti zegoen eta batetik bestera alda zitekeen. «Azkenez horman itsatsi zuten, eta horrek ez dio batera onik egin pinturari»⁹.

Argia metxadun argiontzi batetik dator, non jarrita zegoen ez dakigularik. Teresak bazuen beregandik hurbil Pigeon lanparatxoa ere.

Klaustroan, eritegiko aterantz begira gaudela, ezker aldean irailaren 30eko arratsean ahizpei dei egin zuten kanpaitxo zegoen.

¹ Luzera: 5 m 08; leihoaren aldeko zabalera: 3 m 44; tximiniaren aldeko zabalera: 4 m 19; altuera: 3 m 345.

² Luzera: 1 m 97; zabalera: 0 m 97.

³ Cf. KH 10. 7. 10 + b.

⁴ Altuera: 2 m 35; zabalera: 1 m 085


⁵ Altuera: 0 m 84. Ik. aita PIAT, *La Vierge du sourire et sainte Teresa de l'Enfant-Jésus*, Lisieux-ko Bulego Nagusia, 1951, 108. or.

⁶ Ahizpa JENOFA, *Description de certaines parties du Monastère au temps de Ste Thérèse de l'Enfant-Jésus*, 47. or.

⁷ Ahizpa JENOFA, *op. cit.*, 48. or.

⁸ Ahizpa JENOFA, *op. cit.*, 48. or. Batetik bestera eraman litekeen arasa antzekoa da, zurezkoa, gaixoentzako janari-edariak berotan edukitzeko erabilia (altuera: 37 cm; zabalera: 32 cm; sakonera: 35 cm).

⁹ Ahizpa JENOFA, *Recueil I*, 9. or.



PLANOAREN EZAUGARRIAK

I. Aurpegi Santuari eskainitako eritegia. 1. Teresaren ohearen kokapena VII/8tik VIII/28ra. - 2. Ohearen kokapena VIII/28tik aurrera. - 3. Baratzara begira dagoen leihoa. - 4. Zelinaren koadroa: Kristo hilzorian. - 5. Irriaren Andre Mariaren irudia. - 6. Besaulkia. - 7. Zurezko mahai eta kutxa. - 8. Tximinia.

II. Ahizpa Jenofak lo egiten zuen gela.

III. Klaustroa (ipar-ekialdeko angelua).


a) Avilako Teresa Santuaren saihets-zulaketaren irudia.

IV. Lourdesko Andre Mariaren eritegia (ama Ainesek hementxe egin zuen lo irailaren 29tik 30era bitarteko gauean).

V. Baratzta.

VI. Baratzara joateko karraju eta eskailera. A, B, C, D: ateak. Fleuriot jaunaren jabetza

0.28 = 10 m



LEHENENGO SOLAIRUAREN PLANOA

- | | | | |
|---|---------------------------------------|---|--------------------------------|
| 1 | Elias Santuaren klaustroko eskailera. | 5 | TERESAREN GELA (Eliseo santua) |
| 2 | Elias Santuaren klaustroa | 6 | Gelaren aurrealdea |
| 3 | Arropategia | 7 | Ahizpa Jenofaren gela |
| 4 | Kapitulu-aretoa | 8 | Liburutegia |

BIBLIOGRAFIA

I. TERESA SANTUAREN IDAZKI ETA HITZAK

NEC = Nouvelle Edition critique du Centenaire [Mendeurrenaren argitaraldi berri eta kritikoa], Paris, 1971/1992; bertan iturrien adierazpen guztiak aurkitzen direlarik.

1. ESKUIZKRIBU AUTOBIOGRAFIKOAK

* Fakzimil argitaraldia, aita Frantzisko Santa Mariarena, Lisieux-ko Bulego Nagusia (LIZ), 1956, hiru liburuki ditu, sarrera, ohar eta koadroekin (Mss I, II, III.).

* Aita Frantzisko Santa Mariarenak inprimaturiko argitaraldia, LIZ, 1957 eta ondorengoak, 350 orr.

* *Histoire d'une Ame, Manuscrits autobiographiques*, Cerf/Desclée de Brouwer, 1972 eta ondorengoak, 370 orr. (aurreko argitaraldiaren berrinprimaketa, baina aurkezpena eta oharrak ezberdinak dira).

* *Histoire d'une Ame, écrite par elle-même, Lettres, Poésies*, argitaraldi ugari, 1898-1953 (*Histoire d'une Ameren* argitaraldien gainean, ik. Mss I, 25-27. orr.).

* *Manuscrits autobiographiques*, argitaraldi kritikoa, NEC, lehenengo argitaraldia, Cerf/DDB, 1992, 460 orr.

* *La première «Histoire d'une Ame» de 1988*, lehenengo hamaika kapituluaren jatorrizko testu osoaren berrargitaraldia, eta eraskin guztiak ematen dira aditzera, bai eta kendutakoak ere, aipagune gisa Eskuizkribu autobiografikoak hartzen direlarik, NEC, Cerf/DDB, 1992, 212 orr.

2. GUTUNAK ETA OHARRAK

* *Lettres*, lehenengo argitaraldia, André Combes-en zuzendaritzapean, LIBZ, 1948, 472 orr.

* *Correspondance générale de sainte Thérèse de l'Enfant-Jésus et de la Sainte-Face*, Teresaren eta berareki gutun-harremanak izan zituztenen gutunen lehenen-

go argitaraldi osoa, I. liburukia: 1877-1890; II. liburukia: 1890-1897, Cerf/DDB, 1972/1974, 1. 446 orr. Berrargitaraldia, berrikusi eta zuzendua, NECen, 1992.

* *Une course de géant. Lettres*, argitaraldi arrunta, Teresaren gutun guztiak ditu, oharrak laburturik daude, Cerf/DDB, 1977, 488 orr.

3. OLERKIAK

* *Poésies. Un cantique d'amour*, lehenengo argitaraldi osoa, I. liburukia: sarrera eta testuak, 304 orr.; II. liburukia: ohar eta iruzkinak, Cerf/DDB, 1979, 344 orr. Berrargitaraldia liburuki baten NECen, 1992, 594 orr.

* *Mes Armes. Sainte Cécile*, Teresa Santuaren olerki biren azterketa sakona, Cerf/DDB, 1975, 128 orr.

4. DEBOZIOZKO SOLAS-ANTZERKIAK

* *Théâtre au Carmel. Récréations pieuses*, lehenengo argitaraldi osoa, Cerf/DDB, 1985, 440 orr.

* *Le Triomphe de l'humilité, Teresa mystifiée (1896-1897), l'affaire Leo Taxil et le Manuscrit B*, Cerf/DDB, 1975, 144 orr.

* *Récréations pieuses* eta *Prières*, berrargitaraldia liburuki bakarrean, *Triomphe de l'Humilité*ren bigarren zatia du (goian aipatua), NEC, 1992, 640 orr.

5. OTOITZAK

* *Prières. L'Offrande à l'Amour miséricordieux*, lehenengo argitaraldi osoa, Cerf/DDB, 1988, 158 orr. Berrargitaraldia egin zen *Récréations pieuses* duelarik (ikus gorago) NECen, 1992.

6. AZKEN ELKARRIZKETAK

* *Derniers Entretiens avec sœurs et témoignages divers*, lehenengo argitaraldi osoa; sarrera, testuak, oharrak, eraskinak, Cerf/DDB, 1971, 924 orr. Berrargitaraldi berrikusi eta zuzendua NECen, 1992.

* *Derniers Entretiens, Annexes*, ama Aines Jesusenaren lau bertsio nagusien laburpena eta aldaeren eraskina, Cerf/DDB, 1971, 504 orr. Berrargitaraldia izenburu honekin egin zen: *Dernières Paroles*, 504 orr., NECen, 1992.

* *J'entre dans la Vie*, argitaraldi arrunta da *Derniers Entretiens*ena, oharrak laburturik daude, Cerf/DDB, 1973, 288 orr.

* *Novissima Verba, Derniers Entretiens de sainte Thérèse de l'Enfant-Jésus, mai - septembre 1897*, LIBZ, 1927, 224 orr.

7. AHOLKU ETA OROITZAPENAK

* *Conseils et souvenirs*, ahizpa Jenofak (haren ahizpa Zelinak) bildutakoak, LIBZ, 1952, 229 orr., Cerf/DDB, «Foi Vivante», 1973.

* *Une novice de sainte Thérèse. Souvenirs et témoignages de sœur Marie de la Trinité*, aita Descouvemont-ek aurkeztuak, 192 orr., Cerf, 1985.

8. ANTOLOGIAK

* *Pensées 1* (96 orr.), *2* (96 orr.), *3* (104 orr.), Conrad De Meester-ek aukeratu eta aurkeztuak, Cerf, «Foi Vivante», 1976.

* *La Bible avec Thérèse de Lisieux*, Bibliako aipamenak Teresaren idazkietan, Bibliako liburuen hurrenkeraren arabera antolatuak, Cerf/DDB, 1979, 318 orr.

* *Qui a Jésus a Tout*, Lisieux-ko Teresaren olerki eta otoitz ederrenen aukera, Cerf, 1991, 144 orr.

II. AGIRI TERESIARRAK

1. ARGAZKI-AGIRIAK

* *Visage de Thérèse de Lisieux*, I. liburukia: jatorrizko argazkiak (berrogeita zazpi agiri); II. liburukia: aita Frantzisko Santa Mariarenaren sarrera eta oharak, 84 orr., LIBZ, 1961.

* *Thérèse et Lisieux*, Helmuth Nils Looseren 600 irudi, Pierre Descouvemont-ten testua. Cerf/Orphelins Apretis d'Auteuil/LIBZ/Novalis). 1992, 336 orr.

* [*Sainte Thérèse de Lisieux. La vie en images*. Pierre Descouvemont eta Helmut Hils Loose-k argitaratua. (Cerf/Orphelins Apretis d'Auteuil/LIZ/Novalis). 1995, 520 orr.]

2. PROZESUAK

* *Procès de béatification et canonisation*, I. liburukia: *Procès informatif ordinaire*, Teresianum, Erroma, 1973, 730 orr.; II. liburukia: *Procès Apostolique*, Teresianum, 1976, 612 orr.

3. GUTUNAK ETA LEKUKOTASUNAK

* Teresari buruz, bai pertsona legez, bai taldekide legez, jaio zenetik eta hil zen arte, mintzatzen diren gutunen testu *guztiak* NECen daude aipaturik, bai *Derniers Entretien*en, bai *Correspondance généralen* (ik. bereziki CG, 1101. orr.). Zehatzago ikusteko, jo I. Eskk.etara, 34-37. orr.etara, CGn eguneratuta dagoelarik, 1239-1245. orr.etan.

* Lisieux-ko Teresari buruzko lekukotasunak, bereziki haren ahizpa eta senideenak, DEn daude zehazturik, 832-843. orr.etan.

* Zélie Martin, *Correspondance familiale, 1863-1877*, LIZ, 1961, 462 orr.

4. TERESAK ERABILITAKO LIBURUAK

Idazlan horiek DEn daude aipaturik: 843-846. orr. Bereziki:

* *Le Cantique spirituel eta La Vive Flamme d'Amour* daude *Vie et œuvres spirituelles de saint Jean de la Croix*en; itzulpena Parisko karmeldarrek egin zuten 5 liburukitan, 1875-1880.

* Charles Arminjon, *Fin du monde présent et Mystères de la vie future*, 1881: Teresak argitaraldi hori irakurria du (Palmé-Albanel), eta 1882ko 2. argitaraldia ezagutu (Saint-Paul). 1970eko argitaraldi berria 1882koa orrialdeen zenbakietan bateratsu datoz.

5. AGIRI TERESIARRAK

* *Les Annales de sainte Thérèse de Lisieux*, hilabetekaria, 33, rue du Carmel, 14100 Lisieux (1925etik 1992ra), 1992ko martxotik aurrera *Thérèse de Lisieux* izenekoa.

* *Études et documents, Annales*en eraskina, hiruhilabetekaria 1932tik 1939ra, 1939tik 1949ra ezabatua, bi hilabeterik behin 1949tik 1952ra, hiruhilabetekaria 1952tik 1961era.

* *Vie thérésienne*, azterlan eta agiriak, *Annales*en hiruhilabeteko eraskina, 1961etik aurrera agertu zena. - Bereziki, «Archives de famille»ren ohiko argitalpena azpimarratu behar da, eta berean Martin eta Guérindarren familien gutunak azaltzen dira (36. zk.aren ostean, 1969ko urrian).

III. IDAZLAN OROKORRAK

Azpirarra ditzagun aita Stéphane-Joseph PIAT o.f.m.ren liburu batzuk; izan ere, idazlanok zahar samarrak dira, baina Teresaren ahizpek emandako jakinbideak dituzte:

- *Histoire d'une famille*, LIBZ, 1946, 400 orr.

- *Marie Guérin, cousine et novice de sainte Thérèse de l'Enfant-Jésus*, LIZ, 1953, 132 orr.

- *Céline, sœur Geneviève de la Sainte-Face, sœur et témoin de sainte Thérèse*, LIZ, 1953, 216 orr.

- *Léonie Martin, une sœur de sainte Thérèse à la Visitation*, LIZ, 1966, 224 orr.

- *Marie, sœur aînée et marraine de sainte Thérèse*, 256 orr., LIZ, 1967, 256 orr.

Martin familiari buruz ikusi beharrekoak dira oraintsu argitaratu diren hiru idazlanok ere:

* Robert CADÉOT doktorea, *Louis Martin*, VAL arg. (94, rue des Moines, 75017 Paris), 1985, 168 orr.

* Robert CADÉOT doktorea, *Zélie Martin*, VAL arg., 1990, 214 orr.

* Marie BAUDOUIN-CROIX, *Léonie Martin, une vie difficile*, Cerf, 1989, 220 orr.

Hainbat idazlan garrantzitsu, gehienak oraintsukoak, bibliografia ugaritsuan:

* Bernard BRO, *La Gloire et le mendiant*, Cerf, 1974, 258 orr.

* André COMBES, *Introduction à la spiritualité de sainte Thérèse de l'Enfant-Jésus*, Vrin, 1948, 516 orr.

* Conrad DE MEESTER, *Dynamique de la confiance. Genèse et structure de la «voie d'enfance» spirituelle chez sainte Thérèse de Lisieux*, Cerf, 1969, 436 orr.

* Conrad DE MEESTER, *Les mains vides. Un message de Thérèse*, Cerf, 1972, 172 orr.; argitaraldi berria, 1988, 232 orr.

* Pierre DESCOUVEMONT, *Sur la terre comme au ciel*, Cerf, 1979.

* Pierre DESCOUVEMONT, *Sur les pas de Thérèse. Pèlerinage à Lisieux*, Edition O. E. I. L., 1983, 288 orr.

* Guy GAUCHER, *Histoire d'une vie: Thérèse Martin*, Cerf, 1986, 256 orr.

* Guy GAUCHER, *La Passion de sainte Thérèse*, Cerf/DDB, 1972, 256 orr.

* Jean GUITTON, *Le génie de sainte Thérèse de Lisieux*, LIBZ, 1955, 30 orr.

* René LAURENTIN, *Thérèse de Lisieux. Mythes et réalité*, Beauchesne, 1972, 238 orr.

* Aïta MARIE-EUGÈNE DE L'ENFANT-JÉSUS, *Ton amour a grandi avec moi. Un génie spirituel: Thérèse de Lisieux*. Ed. du Carmel (84210 Venasque), 1987, 196 orr.

* Jean-Marie MARTIN, *Thérèse de Lisieux. Trajectoire de sanctification*, Lethielleux arg., 1990, 180 orr.

* M.-D. MOLINIÉ, *Je choisis tout*, CLD, 1992, 246 orr.

* S.-J. PIAT, *Sainte Thérèse de Lisieux. A la découverte de la voie d'enfance*, Ed. Franciscaines, 1968, 406 orr.

* Emmanuel RENAULT, *L'Épreuve de la foi*, Cerf/DDB, 1974, 130 orr.

* Emile RIDEAU, *Thérèse de Lisieux, la nature et la grâce*, Fayard, 1973, 376 orr.

* Victor SION, *Réalisme spirituel de Thérèse de Lisieux*, Lethielleux, 1956, «Foi Vivante».

* Victor SION, *Chemin de prière avec Thérèse de Lisieux*, Cerf, «Foi Vivante», 1982, 128 orr.

* Jean-François SIX, *La véritable enfance de Thérèse de Lisieux. Névrose et sainteté*, Seuil, 1972, 286 orr.

* Jean-François SIX, *Thérèse de Lisieux au Carmel*, Seuil, 1973, 400 orr.

* Hans URS VON BALTHASAR, *Thérèse de Lisieux. Histoire d'une mission* (liburu hau alemanieraz argitaratu zen 1950ean), Argitalpenen Apostolutza, 1973, 398 orr.

Taldekako idazlanak:

* «*La petite sainte Thérèse*» de Van der Meersch devant la critique et devant les textes, 562 orr., Saint-Paul arg., 1950.

* Centre Notre-Dame de Vie, *Thérèse de l'Enfant-Jésus, Docteur de l'Amour*, 376 orr., Ed. du Carmel, 1990.

*

* *

Bibliografia orokorrari dagokionez, ondokoak ikus litezke:

* Rena ERCOLI, *Bibliografia sur Teresa del Bambino Gesu*, Analecta OCD 19 (1947), 271-348. Aparteko argitalpenean, Erroma, 1948.

* SIMEON DE LA SAGRADA FAMILIA, *Archivum bibliographicum carmelitanum, Teresianum*, Erroma (zenbaki bat urtean-urtean).

* Carmelus aldizkaria, *Bibliographia Carmelitanum Annualis*, 1953. urtetik aurrera.

* Georgio PAPASOGLI, *Santa Teresa di Lisieux*, Erroma, 1967, 659-693. orr. (2. argitaraldia, 1975, eguneratua).

* Conrad DE MEESTER, *Dynamique de la confiance*, Cerf, 1969, 413-424. orr.

* *Vie thérésienne* aldizkaria: VT, 50. zk., 1973, 124-140. orr., eta 100. zk., 1985, 233-239. orr. 1961-1984ko taula orokorrak.

AURKIBIDE BIBLIKOA

Oharra:

Aurkibide hau Teresaren testuei eta *Azken Elkarrizketak* atalean datozen hitzei dagokie soilik (baita *Irudiei* ere, baina ez "Bestelako Idazki"ei). Beraz, ez dira hemen aurkituko PO, PA, CR (CSG) eta abarretan biltzen diren hitzen aipamen biblikoak. Aipamenak gehienetan bat datoz *Bible avec Thérèse* (Cerf/DDB, 1979) datozenekin, Otoitzetan ezberdintasun batzuk badira ere, Mendeurreneko Argitalpenari begira geroago egindako lanak bere alde izan ditualako.

HASIERA			
1, 26-27	A 48 ⁱ	15, 1	A 47 ⁱ
1, 26-27	TG 182	15, 1	C 5 ⁱ
1, 26-27	DSA 6, 9 ^a (2 f.)	15, 1	TG 145
1, 26-27	DSA 6, 11 ^a	15, 1	TG 182, 183
2, 7	TO 32, 4	15, 1	TO 17, 15
2, 17	KH 3.VIII.9	15,1	DSA 4, 4 ⁱ
3, 1	DSA 7, 3 ^a	22,2,10	TG 261
3, 14	DSA 7, 4 ⁱ .5 ^a	22, 12	TG 167
3, 15	DSA 7, 5 ^a .5 ⁱ	28, 17	C 30 ^a
3, 18	TG 127	49, 26	DSA 6, 1 ⁱ
3, 19	DSA 6, 1 ⁱ		
7, 13-16	A 68 ^a .69 ^a	IRTEERA	
7, 13-16	C 1 ⁱ	3. 2	A 38 ⁱ
7, 13-16	TG 158	4, 25-26	TG 82, 112, 165
7, 13-16	TO 29, 5	9, 16	ik. Erm 9, 17
8, 8-9	TG 148	17, 9-13	TG 106, 135
8, 8-9	TO 11, 1	17. 9-13	TG 189, 201
8, 8-9	TO 29, 6	17, 9-13	DSA 1, 14 ^a
8, 8-9	DSA 3, 20 ⁱ	17. 9-13	Otoi. 8
8, 11-12	C 9 ^a	19, 16	TO 23, 7
8, 11-12	TO 29, 7	23, 20	TG 229
11, 1-9	A 66 ⁱ	33, 22	ik. Kt 2, 14
		34, 14	TG 149, 164
		34, 14	TO 27, 3.4

	LEBITARRENA	12, 7	C 2 ⁱ
19, 18	C. 12 ^{a/i}	13, 17	TG 172
22, 18-25	B 3 ⁱ	13, 17	DSA 3, 11 ⁱ
	ZENBAKIAK		JUDIT
11, 5	TG 63, 261	13, 7	Otoi. 17
	DEUTERONOMIOA	15, 10-11	C 22 ^a
32, 11	B 44 ⁱ .54 ⁱ	15, 10-11	DSA 3, 11 ^a
	EPAILEAK	15, 10-11	KH 8.VIII.3
16, 17	TG 50 (2 f.)		JOB
	1 SAMUEL (=I erregeak)	4, 16	TG 120
17, 40-54	DSA 3, 9 ^a	4, 18	TO 23, 7
	2 SAMUEL (= II Erregeak)	7, 4	KH 5.VIII.8.
16, 10	C 27 ^a	13, 15	KH 7.VII.3
	1 ERREGEAK (= III Erregeak)	19, 25-26	DSA 3, 19 ^a
8. 27	TG 169	42. 10-12	TG 146
14	KH 11.VIII.6		SALMOAK
18, 18-40	TG 192		(Vulgata)
19, 10.14	TO 4, 1	9, 11	DSA 8, 5 ^a
19, 10.14	TO 48, 4	15, 6	TO 18, 30
19, 10.14	TO 50, 1	17, 5	TG 262
19, 10.14	DSA 3, 9 ^a (2 f.)	18, 6	A 44 ⁱ
19, 10.14	DSA 3. 23 ^a	18, 6	TG 141
19, 10.14	Otoi. 17 eta 18	22, 1-4	A 3 ^{a/i}
19, 11-13	A 36 ⁱ .76 ⁱ	22, 2	TG 142
	2 ERREGEAK (= IV Erregeak)	22, 4	TG 262
2, 9	B 4 ^a	22, 6	A 84 ⁱ
2, 9	TO 12, 4	23, 7, 9	DSA 2, 7 ⁱ
5, 1.10-14	DSA 6, 74 ⁱ	23, 7, 9	DSA 5. 3 ^a
	1 KRONIKAK	23, 7, 9	DSA 6, 11 ⁱ
28, 9	TG 190	23, 7, 9	Otoi. 20
28, 9	DSA 6, 9 ^a	23, 8	A 45 ^a
	NEHEMIAS	23, 8	B 3 ⁱ
4, 17	KH 14.VII.1	26. 4	C 30 ^a
	TOBIT	26. 4	TG 175. 202
12, 7	TG 196 = B 1 ⁱ	26. 4	DSA 8, 4 ⁱ
		26. 8	TO 11, 3
		26. 8	DSA 2, 5 ⁱ .7 ^a
		26. 10	DSA 8, 4 ^a
		30, 2	KH 23.VII.7
		30, 10.12-13.15	2. IB
		30, 21	TO 5, 6
		30, 21	TO 11, 3

30, 21	TO 12, 8	89, 4	TG 71, 87
30, 21	TO 16, 1	89, 4	DSA 3, 23 ⁱ
30, 21	TO 20, 5	89, 4	Otoi. 6
30, 21	TO 24A, 33	89, 5	Otoi. 7
30, 21	DSA 2, 7 ^a	90, 3	TO 3, 54
30, 21	Otoi. 12	90, 4	TO 5, 3
33, 6	C 21 ^a	90, 4	DSA 2, 1 ⁱ
35, 6	A 84 ^a	90, 4	DSA 2, 3 ⁱ .6 ⁱ
37, 10	TO 23, 6	90, 4	Otoi. 5, 7 ⁱ
41, 2	TG 142	90, 5	TO 5, 7
41, 2	TO 18, 34	90, 5	DSA 2. 2 ^a
41, 6	DSA 3, 19 ^a	90, 11	DSA 6, 10 ⁱ
41, 6.5	2. IB	90, 11, 12	TG 161
44, 15-16	TO 53, 1	90, 11, 12	KH 6.VI.8
49, 9-14	TG 196 = B 1 ⁱ	91, 5	C 7 ^a
50, 10	KH 20.VIII.4	91, 5	KH 13.VII.16
50, 19	DSA 4, 27	93, 18	TG 243
50, 19	DSA 8, 4 ^a	94, 4	TO 18, 50
54, 7	A 38 ^a	94, 4	TO 18b, 9
62, 2	A 66 ^a	94, 4	TO 24, 6
67, 29	DSA 3, 9 ^a	101, 8	C 17 ^a
70, 17-18	C 3 ^a	101, 8	TG 217
75, 10	TG 145	102, 8	A 3i
75, 10	DSA 2, 6 ^a	102, 8	C 7 ⁱ
75, 10	KH 25.IX.1	102, 13.12.8	7. IB
79, 2	TG 169	102, 8.14.13	TG 226
83, 6	TG 190	102, 14	A 76 ^a
83, 7	A 32 ⁱ	103, 4	DSA 5. 23
83, 7	B 5 ⁱ	103, 32	A 64 ⁱ
83, 7	TG 190, 244	108, 23	KH 5.VIII.2
83, 7	TG 253, 258	109, 3	TO 24, 1
83, 7	TO 32, 1	111, 4	C 21 ^a
83, 7	TO 50, 5	112, 9	TG 255
83, 7	DSA 2, 1 ^a	115, 16	A 50 ⁱ .67 ⁱ
83, 7	Otoi. 9	115, 16	A 68 ^a .82 ^a
83, 11	TG 20 ^a	115, 16	TO 17. 15
83, 11	DSA 8, 4P	115, 16	TO 21, 1
88, 2	A 2 ^a .3 ⁱ .4 ^a	115, 16	DSA 3, 17 ⁱ
88, 2	A 40 ^a .86 ^a	115, 16	DSA 3. 23 bis ^a
88, 2	C 1 ^a .3 ^a	117, 1	A 83 ⁱ
88, 2	C 27 ^a . ⁱ	117, 23	TG 91
88, 2	C 29 ⁱ .34 ^a	118, 32	C 16 ^a
88, 2	TG 247	118, 80	TO 3, 28
88, 2	TO 48, 5	118, 80	TO 5, 3
89, 4	C 3 ^a	118, 141.100.105.60	C 4 ^a

2, 14	DSA 2, 5 ⁱ
2, 16	TG 122
2, 16	Otoi. 5 (2 f.)
2, 16	TG 105
3, 1-4	A 31 ^a
3, 1-4	TG 145
3, 3-4 eta 5, 7	KH 25.VII.13
4, 6 = 2, 17	TG 89, 120, 130
4, 6 = 2, 17	TG 140, 141
4, 6 = 2, 17	TG 142, 147. 156
4, 6 = 2, 17	Otoi. 6
4, 6	TG 142
4, 6	DSA 2, 4 ^a
4, 9	TG 164, 191
5, 1	TG 142
5, 2	A 67 ⁱ .68 ^a
5, 2	TG 160
5, 2	TO 13, 14
5, 2	DSA 6, 2 ^a
5, 2	TG 108, 158
5, 2	Otoi. 12
5, 10	TG 137
5, 10 eta 7, 5	TG 108
6, 3	TO 48 (epigr.)
6, 10-11	TG 165
6, 12	TG 165
7, 1	A 61 ⁱ
7, 1	TG 149, 165
7, 1	TG 182, 183
7, 1	TO 48 (epigr.)
7, 1b	TO 4, 11
8, 1	A 48 ^a
8, 1	TG 158, 182, 18;
8, 1	TO 18, 51
8, 1	TO 26, 6
8, 7	TG 196 = B 1 ^a

JAKINDURIA

3-5	KH 5.VI.2
3, 1-8	DSA 3, 19 ⁱ
3, 5-6	TG 91, 165, 168
3, 5-6	Otoi. 6
4, 1	TG 130, 149
4, 7-17	DSA 3, 20 ^a
4, 8	DSA 8, 1 ⁱ

4, 11	A 40 ^a
4, 12	A 32 ⁱ
4. 12.14	DSA 6, 9 ^a
5 (han-hemen)	DSA 3, 20 ^a /i
5, 10	A 41 ^a
5, 11	DSA 3, 19 ⁱ
6, 7	TG 196-B 1 ^a
6, 8	KH 25.IX.1
11, 23	TG 161
	SIRAK
34, 9	TG 198
	ISAIAS
3, 10	C 2 ⁱ
6, 2	KH 24.IX.7
9, S	TG 213, 220
9, 5	TO 24, 23
9, 5	DSA 6, 2 ⁱ .8 ⁱ
11, 3-4	DSA 6, 9 ^a /i
11, 6	DSA 6, 11 ^a
14, 12-15	DSA 1, 6 ⁱ
14, 14-15	DSA 7, 4f
35, 4	DSA 6, 9 ⁱ
38, 14	B 5 ^a
40, 4	DSA 2, 1 ⁱ
40, 11	TG 196 = B 1 ^a
40, 11	5. 6. eta 7. IB
45, 3	A 47 ^a .71 ^a
45, 15	TO 19. 1
45. 15	TO 40, 9
45, 15	DSA 2, 4 ⁱ (3 f.)
45, 15	DSA 2, 5 ^a . 7 ⁱ
45, 15	DSA 6, 11 ^a
45, IS	Otoi. 7
49, 15	TG 191
52, 11	A 79 ⁱ
53	KH 5.VIII.9
53, 1-5	TG 108
53, 2-4	DSA 2, 3 ^a
53, 3	A 71 ^a
53, 3	TG 116, 117
53, 3	TG 137, 140, 144
53, 3	TG 145. 156, 165
53, 3	TG 183, 216

53, 3 TO 5, 13
 53, 3 TO 24, 24
 53, 3 DSA 6, 1^a
 53, 3 Otoi. 12 (2 f.)
 53, 4.3 DSA 6, 7^a
 54. 2-3 TG 193
 55, 8-9 A 66ⁱ
 55, 8-9 TG 87, 107
 55, 8-9 TG 142, 226
 55, 8-9 DSA 6, 8ⁱ
 60. 4-5 TG 193
 60, 21 TG 193
 60, 22 TG 64
 60, 1-2 TG 193
 61, 10-11 TG 193
 63, 1 DSA 6, 8ⁱ
 63, 1-3.5 TG 108, 165
 63, 1-3.5 DSA 2, 3 bis^a
 63, 4 DSA 2, 5ⁱ
 63, 4 KH 5.VIII.9
 64, 6 TO 23. 7
 64, 6 Otoi. 6
 65, 15 A 56^a
 66, 12 A 764
 66, 12-13 TG 196 = B 1^a
 66, 12-13 C 3^a
 66, 12-13 7. IB
 66, 19 B 3^a
 66, 19-20 TG 193

JEREMIAS

2, 13 TG 169
 2, 20 TO 48, 4
 2, 20 DSA 7, 3^a
 10, 23 TG 243
 Gut. 1, 12 TO 54, 23
 Gut. 1, 12 DSA 6, 3^a
 Gut. 1, 12 Ima 8

EZEKIEL

16, 8-13 A 47^a
 33, 11 DSA 6, 10^a
 34, 13 DSA 2, 8^a

DANIEL
 3, 51 (?s) TO 17. 6
 3, 51 (?s) KH 8.VII.15

OSEAS

2. 14.19 TO 10, 3-4

JONAS

1, 2-3 C 23^a

MIKEAS

6, 3 TG 190
 6, 3 KH 25.VII.6

ZAKARIAS

9, 17 TG 156, 183
 9, 17 DSA 2, 7ⁱ
 13. 6 TG 190, 261

MALAKIAS

4, 25 TG 141

MATEO

1, 18-19 TO 54, 8
 1, 23 TO 54, 23
 1. 23 DSA 6, 1ⁱ
 1, 23 DSA 8. 6^a
 2, 1-4 DSA 6, 5^a (2 t)
 2, 1-4 TOE 2
 2, 1.9 DSA 5, 1ⁱ
 2, 11-12 TO 24, 3
 2, 11-12 DSA 6, 1^a
 2, 13 DSA 2, 3ⁱ
 2, 13 DSA 6, 2^a.2ⁱ.3^a
 2, 13-15 DSA 2, 2^a
 2, 13-15 TO 24, 5
 2, 13-15 TO 54, 12.13
 2, 16-18 TO 24, 3
 2, 16-18 DSA 2, 2^a
 2, 16-18 DSA 6, 5^a.8ⁱ (2 f.).9^a
 2, 19-21 DSA 2, 2^a
 5, 3 A 32ⁱ.49^a
 5, 3 C 16ⁱ
 5, 3 TG 197
 5, 5 2. IB

5, 8	TG 105	9, 37-38	TG 135
5, 8	2. IB	9, 37-38	4. IB
5, 10	2. IB	9, 38	DSA 5, 8
5, 11-12	TG 107	10, 34	TG 57
5, 11-12	2. IB	10, 34	TO 47, 5
5, 13	A 56 ^a	10, 34	Otoi. 17
5, 15	C 12 ^a (2 f.)	10, 34.37	DSA 8, 4 ^a
s, 40-42	C 16 ⁱ (2 f.).18 ^a	11, 12	TG 201
5, 43-44	C 15 ⁱ	11, 12	TO 48, 2
5, 43-44	KH 30.VII.7	11, 28.30	TO 24. 10-11
5, 48	TG 107	11, 29	TO 24. 19
6, 3-4	A 32 ^a	11, 29	TO 54, 3
6, 3-4	C 284 (2 f.)	11, 29	Otoi. 5; 20
6, 9	A 754	11, 29	KH 15.V.3
6, 9	TG 101, 127	11, 30	C 16 ^a
6, 9-13	C 25 ⁱ	12, 20	DSA 6, 2 ⁱ
6, 10	A 76 ⁱ .83 ^a .84 ⁱ	12, 46-50	TO 54, 20-21
6, 10	C 10 ⁱ	12, 50	TG 130. 142, 172
6, 10	TG 201	12, 50	Ima 3 eta 7
6, 10	DSA 2, 54	13, 44	TG 145
6, 10	Otoi. 2 eta 6	16, 16	DSA 1, 12 ^a
6, 10	Otoi. 10	16, 18	DSA 7, 4 ^a
6, 11	TO 24, 28	16, 24	DSA 3, 21 ^a
6, 11	DSA 5, 2 ⁱ	16, 24	DSA 7, 3 ^a
6, 11	DSA 6, 2 ⁱ	16, 24-25	2. IB
6, 21	TG 127, 134, 261	17, 20	A 67 ⁱ
6, 21	KH 12.VIII.6	18, 4	5. 6 eta 7. IB
6, 24-33	KH 12.IX	18, 6	A 52 ⁱ
6, 26	DSA 6, 2 ⁱ	18, 10	TG 254
6, 26	TO 43, 10	18, 10	5 eta 6. IB
6, 28-29	DSA 3, 5i	18, 19-20	C 25 ⁱ
6, 28-29	DSA 4, 2 ^a	18, 19-20	TG 220
6, 30	TG 141	18, 19-20	Otoi. 9
6, 33	C 22 ⁱ	19, 14	TO 24, 9
7, 14	TO 54, 6	19, 29	A 81 ⁱ
7, 21	C 11 ⁱ	19, 29	TG 72
8, 11	DSA 6, 7 ^a (2 f.).8 ^a	19, 29	TG 180
8, 20	TG 137. 144	19, 29	TG 193, 213
8, 20	TO 24, 8	20, 16	A 66 ⁱ
8, 20	DSA 6, 7 ^a	20, 21-23	A 62 ⁱ
9, 10-11	C 6 ^a	20, 22-23	C 10 ⁱ
9, 12	Otoi. 7	20, 22-23	TG 100, 107, 167
9, 13	A 39 ^a	20, 22-23	TG 213, 261
9, 13	B 5 ^a	20, 22-23	TO 16, 2
9, 13	DSA 2, 3 ^a bis	20, 22-23	TO 50, 2

21, 1-10	A 73 ^a	27, 46	TG 178
21, 38-39	DSA 6, 2 ⁱ	27. 46	DSA 3, 18 ^a
22, 39	C 11 ⁱ	28	DSA 2, 4 ^{a/j}
23. 37	KH 7.VI.1		MARKOS
24. 30	DSA 2. 6 ^a		
24. 30	Otoi. 6	3, 13	A 2 ^a
24. 41-44	AE/J 5.VIII.1	4, 37-39	A 51 ^{a/j} .75 ⁱ
24. 42-44	A 77 ⁱ	4, 37-39	C 9 ⁱ
24, 42-44	TG 118	4, 37-39	TG 144, 165
24, 43	KH 9.VI.1	4, 37-39	TG 167, 171
24, 43	KH 7.VII.1	4, 37-39	TO 13, 11.14
24, 43	KH 10.VII.5	4, 37-39	TO 17, 9
24, 43	KH 31.VII.16	4. 37-39	TO 24, 32
25, 4	DSA 6, 11 ⁱ	4, 39	TO 42, 2
25, 6	C 5 ^a	6, 32-34.	KH 30.VII.18
25, 6	DSA 3. 21 ⁱ	7, 28	C 27 ^a
25, 6	Otoi. 5 ^a	9, 2-8	TG 142
25, 21	A 17 ⁱ .20 ⁱ	9. 2-8	TO 17, 4
25, 21	A 64 ^a .71 ⁱ	9, 34	TO 10, 6
25, 29	A 48 ^{a/j}	10, 13-16	TO 24, 9
25, 31	A 77 ⁱ	10, 13-16	TO 44, 1.9.11
25, 31	TG 118	10, 14	TG 226
25, 31	DSA 2. 5 ⁱ	10, 14.16	5. eta 6. IB
25, 31	DSA 4, 40	10, 21-22	TG 247
25, 31	DSA 6, 9 ⁱ .10 ⁱ	14, 3	DSA 4, 3 ⁱ
25. 31	DSA 8, 6 ^a	14, 3-9	TG 169
25, 31-40	A 74 ⁱ	14, 3-9	TO 17, 12
25, 31-40	TG 145	14, 33.37	KH 31.VII.7
25, 31-40	DSA 2, 6 ^a .8 ^a	14, 62	TG 117, 161
25, 36	KH 20.VIII.3	14, 62	TO 24, 23
25, 40	C 29 ^a	14, 62	8. IB
25, 40	TG 229	14. 62.30	KH 6.VI.9
25, 40	KH 21/26.V.4	15. 29	KH 25.VIII.1
25. 40	KH 30.VII.10	16, 6	KH 29.V
26, 29	A 12 ^a	16, 19	B 5 ⁱ
26, 29	KH 13.VII.8	16, 19	C 36 ⁱ
26, 35	KH 9.VII.6	16, 19	DSA 2, 4 ⁱ .5 ^a
26, 38	DSA 3, 17 ⁱ	16, 19	DSA 2, 5 ⁱ .7 ⁱ
26, 47-50.56	DSA 3, 18 ^a		LUKAS
26, 53	DSA 2, 3 ⁱ		
26, 57-68	DSA 3, 18 ^a	1, 26-38	DSA 6, 1 ^a
26, 69-75	KH 7.VIII.4	1, 28	C 25 ⁱ
27, 29	TG 87, 156	1, 28	TO 54, 17
27, 29	DSA 2, 3 ⁱ (2 f). 4 ^a	1, 31-34.38.35	TO 54, 3, 4
27, 29	DSA 5, 3 ^a	1, 33	DSA 2, 4 ^a

1, 39-40.46-55	TO 54, 6.7	7, 47	A, 38 ⁱ
1, 48	DSA 1, 12 ^a	7, 47	TG 247
1, 49	C 4 ^a	7, 47	TO 41, 3
1, 49	TG 224	7, 47	DSA 2; 3 <i>bis</i> ^a
2, 7	TG 211	10, 20	A 18 ^a
2, 7	TO 54,4.9.10	10, 20	DSA 1, 18 ⁱ
2, 7	DSA 1, 12 ^a (2 f.).12 ⁱ	10, 20	DSA 6, 11 ^a
2, 7	DSA 2, 1 ^a . 7 ⁱ	10, 21	A 49 ^a .71 ^a
2, 7	DSA 5, 1 ^a .3 ^a	10, 21	B 5 ⁱ
2, 7	DSA 6, 1 ^a .2 ⁱ	10, 21	C 4 ^a
2, 7	Otoi. 8	10, 21	TG 127, 190, 247
2, 13-14	TG 149 (2 f.)	10, 21	DSA 6, 8 ⁱ .11 ^a
2, 13-14	TO 24, 2	10, 21	2. IB
2, 13-14	DSA 2, 6 ⁱ	10, 30-37	KH 29.VIII.1
2, 14	3. eta 7. IB	10, 39-41	C 36 ^a
2, 15-20	TO 24, 3	10, 39-41	DSA 4, 1 ^a (3 f.).2 ⁱ
2, 15-20	DSA 6, 1 ^a	10, 39-41	(2 f.)
2, 19	TO 54, 10	10, 39-41	KH 6.IV.1
2, 19	KH 8.VII.10	10, 41-42	B5 ^a
2, 22-35	TO 54, 11	10, 41-42	C 22 ⁱ
2, 22-35	DSA 6, 2 ⁱ	10, 41-42	TG 141
2, 33	KH 21.VIII.3	10, 41-42	TG 257
2, 35	A 26 ^a .73 ^a	10, 41-42	TO 43, 11
2, 35	KH 21.VIII.3	11, 5-8	TG 99
2, 41-50	A 51 ^a	11, 5-8	KH 21/26.V.7
2, 41-50	TO 54, 13-14	11, 9.13	C 35 ⁱ
2, 51	TO 14, 2	12, 32	A 62 ⁱ
2, 51	DSA 5, 24	12, 37	TG 204, 208
2, 51	Otoi. 20, 15-16	12, 37	KH 8.VIII.4
2, 51-52	TO 54, 15	12, 48	TG 83
2, 51-52	DSA 6, 1 ⁱ	12, 49	TG 189
2, 52	TG 202	12, 49	TO 17, 10
5, 4-10	A 45 ⁱ	12, 49	TO 24. 17
5, 4-10	TG 161	12, 49	TO 35, 5
6, 12	TO 24, 14	12, 49	TO 47, 5
6, 32.30	C 15 ⁱ .17 ^a	12, 49	DSA 2, 4 ⁱ
6, 34-35	C 18 ^a	12, 49	DSA 4. 35
6, 37	C 13 ⁱ	12, 49	DSA 5. 23
7, 36-38	C 36 ⁱ	12, 49	4. IB
7, 36-38	TG 247	14, 10	C 36 ⁱ
7, 36-38	TO 17, 12	14, 10	TG 243
7, 40-43	TG 130	14, 10	TO 29, 8
7, 42-43	TG 224	14, 10	DSA 8, 2 ⁱ
7, 42-43	Otoi. 7	14, 10	Otoi. 20
7, 44-47	DSA 4, 3 ⁱ	14, 11	Otoi. 20

14, 12-14	C 28 ⁱ	22, 43-44	TO 24, 21
15, 4.7	TG 129, 142	22, 43-44	DSA 3, 17 ⁱ
15, 4.7	DSA 2, 3 <i>bis</i> ^a	22, 64	A 20 ⁱ
15, 4.7	DSA 6, 8 ⁱ	22, 67.70	TO 24, 23
15, 7	A 46 ^a	23, 9	TG 145
15, 7	DSA 2, 3 <i>bis</i> ^a	23, 9-11	Otoi. 3
15, 7	DSA 5, 6	23, 11	TG 169
15, 10...	TO 24, 16	23, 11	DSA 3, 21f
15, 13	DSA 2, 3 <i>bis</i> ^a	23, 27	A 66 ⁱ
15, 20	C 36 ⁱ	23, 42-43	DSA 6, 9 ⁱ .10 ^a
15, 20.22	TG 261	24, 26	A 62 ⁱ
15, 20-31	A 83 ⁱ /84 ^a	24, 26	TG 186, 244
15, 24-31	TG 142	24, 26	TO 31, 3
15, 24, 31	TO 24, 18	24, 29	TO 23, 6
15, 31	A 66 ⁱ	24, 29	TO 31, 2
15, 31	C 34 ⁱ	24, 29	DSA 4, 36
15, 31	DSA 4, 39	24, 32	TO 31, 2
16, 8-9	B 4 ^a		JOAN
16, 8-9	TG 197	1, 1	A 20 ⁱ .77 ⁱ
16, 8-9	TO 24, 12	1, 1	B 5 ⁱ
16, 8-9	AE/J -8.2	1, 1	TG 118, 165, 183
16, 9	DSA 6, 6 ⁱ	1, 1	TO 3, 65
17, 10	KH 23, VI	1, 1	TO 17, 2
17, 21	A 83 ⁱ	1, 1	TO 24,5,26
18, 13	C 6 ^a .36 ⁱ	1, 1	TO 36, 2
18, 13	1. IB	1, 1	TO 41, 2
18, 13	KH 12, VIII.3	1, 1	TO 54, 10,24
19, 13	TG 137 (2.f.)	1, 1	DSA 2, 1 ^a .2 ^a
19, 4.6	DSA 6, 2 ⁱ	1, 1	DSA 2, 4 ⁱ .7 ⁱ
19, 44	TG 145	1, 1	DSA 3, 18 ^a
19, 48	TG 143	1, 1	DSA 5, 1 ^a .2 ⁱ .3 ⁱ
21, 29-31	TG 213	1, 1	DSA 6, 2 ⁱ
22, 15	A 55 ⁱ	1, 1	C 5 ⁱ /6 ^a
22, 28	TG 165 (2.f.)	1, 5.9, 10	TG 201
22, 28-29	A 62 ⁱ	1, 10	DSA 5, 1 ^a
22, 29	C 12 ^a	1, 11	DSA 6, 10 ⁱ
22, 30	TG 254	1, 11	DSA 2, 1 ^a
22, 30	KH 7, VIII.4	1, 14	DSA 6, 1 ^a .7 ⁱ
22, 32	A 51 ^a	1, 14	TO 54, 4
22, 39-46	TG 165	1, 14	TO 1, 5
22, 39-46	KH 6, VIII.4	1, 29	TG 137
22, 42	C 8 ⁱ	1, 38	DSA 6, 5 ^a .8 ⁱ
22, 42	TG 197	1, 41	A 67 ⁱ
22, 42	DSA 2, 3 ^a	2, 1-11	TG 166
22, 42-43	TG 178, 213	2, 1-11	

2, 1-11	TO 24, 13	13, 7	DSA 6, 7 ^a
2, 1-11	TO 54, 19	13, 8	Otoi. 20
3, 8	KH 11.VII.9	13, 15-17	Otoi. 20
3, 8	KH 12.VIII.3	13, 23	TO 13, 14
3, 16	Otoi. 6 eta 13	13, 23	TO 24, 20
3, 34	KH 21/26.V.11	13, 34	TO 54, 22
4, 6	TG 144	13, 34-35	C 11 ⁱ .12 ⁱ
4, 7	A 46 ⁱ	13, 34-35	C 15 ⁱ .16 ^a
4, 7	TG 141	14, 2	TG 226, 247
4, 7	TG 196 = B 1 ⁱ	14, 2	Otoi. 6
4, 6-7.10	TO 24, 10.11	14, 2	KH 1.VIII.6
4. 7.10.13-15	1. IB	14, 2-3	TG 127, 173, 204
4. 10	DSA 6, 6 ^a	14, 2-3	TO 24, 33
4, 10	DSA 8, 4 ^a	14, 2-3	Otoi. 2
4, 34	DSA 1, 16 ⁱ	14, 2-3	KH 15.VI.4
4. 35	TG 135	14, 6	TG 165
4, 35	TO 24, 15	14, 12	TO 24, 19
4. 35	DSA 5, 2 ^a	14, 18	TO 24, 28
4, 35, 37.36	4. IB	14, 18	DSA 2. 7 ⁱ
5, 21	DSA 6, 9 ^a	14, 23	TG 142, 165
5. 22	DSA 2, 8 ^a	14, 23.27	TO 17, 1.2
5, 44	TO 24, 19	14, 30	DSA 7, 4 ^a (3 f.)
6, 33	TG 263	15, 5	A 85 ⁱ (arm.)
6, 33	TO 3, 68	15, 5	TO 5, 9.10
6, 44	C 35 ⁱ	15, 5	TO 25, 7
6, 51	TO 5, 8	IS, 6	DSA 3, 21 ⁱ
6, 51	TO 24, 28	IS, 13	TG 226
6, 51	DSA 2, 7 ⁱ	15, 13	TO 29, 9.10
7, 37	TG 142	IS, 13	TO 31, ^a . 1, ^a . 2
7, 37-38	TO 24, 10.11	15. 13.15	C 12 ^a
7, 38	Otoi. 6	15, IS	DSA 6, 9 ^a
8, 10-11	TG 230	16. 5-7.22	TG 258
9. 4	TG 71	16, 12	TOE 7
10, 11-15	C 23 ^{a/i}	16, 20	C 28 ⁱ
10, 18	DSA 6, 2 ⁱ	16, 23	C 35 ⁱ
11. 1-4s	A 28 ^a .67 ⁱ	16, 23	Otoi. 6 eta 13
11, 16	TG 98	17, 4s	C 34 ^{a/i}
12, 1-3	TG 169, 172	17, 8	C 35 ^a
12, 24	A 81 ^a	17, 14.6	A 73 ⁱ
12, 24	KH 11.VIII.2	17, 15	Otoi. 8
12, 24-25	TO 25, 8	17, 15-20	C 35 ⁱ
12, 24-25	2. IB	17, 17	TG 165
12, 26	Otoi. 17	17, 21	TG 165
12, 32	DSA 2, 8 ^a	17, 23	C 35 ^a
13, 5	Otoi. 20	17, 23-24	3. IB

2 KORINTOARREI	
4, 7	TO 17, 7
4, 17	A 47 ⁱ
4, 17	TG 82, 173
5, 14	TO 17, 8
5, 14	DSA 5, 20
6, 2	TG 129
8, 9	TG 109
9, 7	C 28 ⁱ
12, 5	C 15 ^a
12, 5	TG 109
12, 5	KH 5.VII.1
GALAZIARREI	
2, 20	A 36 ^a
2, 20	C 36 ^a
2, 20	TO 17, 3
2, 20	TO 24, 29
2, 20b	TG 184
6, 17	Otoi. 6
EFESOARREI	
6, 11	A 44 ⁱ
6, 11	TO 48, 1
6, 14.16	TO 48, 4
6, 17	TG 193
6, 17	TO 48, 2
6, 17	KH 6.IV.2
6, 17	KH 9.VIII.1
FILIPOARREI	
1, 21	TO 26, 1
2, 7	TG 201
2, 7	DSA 1, 7 ^a
2, 7	Otoi. 20
3, 20	A 73 ⁱ
3, 20	TG 201, 261
4, 7	A 76 ⁱ
KOLOSARREI	
2, 3	C 12 ^a
2, 14-15	TG 245
2, 17	TG 86, 186
3, 4	TG 141

1 TESALONIKARREI	
4, 13	KH 17.IX.1
4, 16-17	TO 24, 33
4, 17	DSA 2, 5 ⁱ
1 TIMOTEORI	
1, 15	DSA 6, 11 ^a
2 TIMOTEORI	
4, 7-8	2. IB
TITORI	
1, 15	A 57 ^a
HEBERTARREI	
5, 7	Otoi. 6
11, 13-16	C 5 ⁱ
12, 6	TG 68
13, 14	C 6 ⁱ
13, 14	TG 173
SANTIAGO	
1, 12	TG 105, 198
1 PEDRO	
4, 8	C 15 ^{a/i}
2 PEDRO	
3, 7	DSA 2, 5 ⁱ
1 JOAN	
3, 2	A 60 ^a
3, 2	TG 141
4, 18	TG 247
4, 18	TO 3, 31
4, 18	TO 17, 6
APOKALIPSIA	
2, 17	A 35 ^a .56 ^a
2, 17	TG 183, 261
3, 20	TG 253
3, 21	TG 117, 183
4, 6	DSA 1, 12 ⁱ
7, 9	DSA 1. 18 ⁱ
7, 9	DSA 2, 2 ^a
7, 9	DSA 3, 23 ^a

7, 9	DSA 6, 11 ⁱ	14, 4	DSA 3, 23 <i>bis</i> ⁱ
7, 9	Otoi. 18 ^a	14, 4	DSA 4, 11
7, 13-15	TG 108	14, 4	DSA 8. 5 ⁱ
7, 17	DSA 1, 12 ⁱ	14, 4	Otoi. 13
8. 3	B 4 ^a	19, 16	DSA 5, 24
10, 6	TO 24, 33	20, 10	DSA 7, 4 ⁱ
10, 6	DSA 2, 5 ⁱ	20, 12	B 3 ^a
10, 6	KH 17.VII	20, 12	TG 182
12, 7-9	DSA 1, 6 ⁱ	20, 12	TG 195
14, 1	DSA 1, 8 ⁱ	20, 12	DSA 5, 4 ^a
14, 2-5	5. eta 6. IB	21, 4	A 17 ⁱ
14, 3	A 84 ⁱ	21, 4	TG 68. 83
14, 3	B 4 ^a	21, 4	TG 117, 190
14, 3	TO 3, 100	21, 4	DSA 3. 23 <i>bis</i> ^a
14, 3-4	C 16 ^a	21, 4	KH 8.VII.13
14, 3-4	TG 186	21, 9	TG 183, 220
14, 3-4	TO 44, 4	21, 23	DSA 2, 8 ^a
14, 3-4	DSA 1, 12 ⁱ	21, 25	TG 90, 95
14, 3-4	DSA 3, 20 ⁱ	22, 12	KH 15.V.1
14, 3-4	DSA 4, 41	22, 16	TO 1, 1
14, 4	TG 238, 241	22, 16	DSA 1, 11 ^a
14, 4	TO 22, 5	22, 16	DSA 5. 4
14, 4	DSA 1, 18 ^a		

AIPAMENEN AURKIBIDEA

Oharra: Hemen, oharretan adierazi dugunez, Teresak egiten dituen autore garrantzi-
tsuenen aipamenak agertzen ditugu, aipamen argiak nahiz ezkutuak.

KRISTOREN ANTZ-BIDEA

I,1, (réfl - gog.)	LT 71	III,5,4	A 75 ⁱ
I,1,3	TG 58	III,5,4	TG 65
I,1,4	A 33 ^a	III,5,4	TG 251
I,2,3	A 71 ^a	III,13,3	TG 241
I,2,3	TG 95	III,24,2	A 56 ^a
I,2,3	TG 145	III,26,3	A 36 ⁱ
I,2,3	TG 176	III,26,3	A 38 ^a
I,2,3	TO 20	III,34,1	TG 135
I,8 (réfl. - gog.)	LT 201	III,38,1	A 43 ^a
I,11,4	TG 57	III,43	A 46 ⁱ
I,11,4	TG 65	III,43.3	A 83 ⁱ
I,17, (réfl. - gog.)	TG 107	III,43,4	48 ^a
II,7	A 50 ⁱ	III,44,1	C 14 ^a
II,8,1	TG 135	II1,47, (réfl. - gog.)	C 5 ^a
II,9, (refl - gog.)	KH 6.VII.4	III,47, (réfl. - gog.)	TG 173
II,11,4	TG 145	III,47, (réfl. - gog.)	TG 87
II,11,4	TG 197	III,47, (réfl. - gog.)	TG 90
II,11,4	TG 211	III,49	TG 145
II,11,5	TG 197	III,49,2	TG 81
II,12,11	LT 221	III,49,7	A 71 ^a
III,2 (titulua)	A 83 ⁱ	III,49,7	TG 145
III,,5	TO 17,5	III,49,7	TG 176
III,5,3	C 14 ^a	III,51,2	TG 165
III,5,4	A 53 ⁱ	III.58,9	TG 64

Teresak ondorengo orrialde hauetan ere hitz egiten du *Kristoren Antz-Bideaz*:
117, 169. orr.

«Kristoren Antz-Bidea ohar honeetan agertzen da: *A Esk., 110, 123, 141, 148, 172, 197, 200, 208, 225, 244, 250, 323, 341, 348, 413; *B Esk., 9; *C Esk., 36, 58, 62, 66, 81, 84, 98; *TG 57, 58, 64, 65, 71, 81, 87, 90, 95, 107, 135, 145, 165, 173, 176, 197, 201, 211, 221, 241, 251; *TO 17, 20; *DSA 7, 17; *Otoi. 2, 3; 20, 2; KH. VII. 13.

* * *

SANTA TERESA AVILAKOA

Bere Autobiografia (*Libro de la vida*)

XI	KH 22.VI	XM	Otoi. 6
XIII	B 4 ⁱ	XXV	DSA 7
XIX	B 4 ⁱ	XXX	TG 143
XX	B 4 ⁱ		

On-bidea (*Camino de perfección*)

I	BI	XXXII	KH 11.VII.2
I	TG 198	XXXII [XXXIII]	TG 81
I	TO 35	XXXII [XXXIV]	TG 178
III	TG 198	XL	KH 6.VIII.8
III	TG 221	XL [XLII]	TG 49
III	KH 4.VI.1	XL [XLII]	TG 56
VII [VIII]	TG 201		

Egoitzak (*Moradas del CastiLlo Interior*)

<i>Lehenengo egoitzak</i>		<i>Seigarrenengo egoitzak</i>	
I	DSA 5	V	KH 11.VII.2
		X	DSA 8
<i>Hirugarrenengo egoitzak</i>		<i>zaspigarrenengo egoitzak</i>	
I	B 4 ^a	IV	C 28 ⁱ
		IV	TG 65

Arimaren oihuak (*Exclamaciones*)

13. zk.	TG 82		13. zk.	TG 130
---------	-------	--	---------	--------

Kantarik Ederrenari buruz (*Meditaciones sobre los Cantares*)

II	C 33 ⁱ		
----	-------------------	--	--

Olerkiak (*Poesías*)

Glosa : "Hil ezinez hiltzen naiz"

TO 25		KH 2.VIII.4
DSA 1		KH 4.IX.7

Gutunak (*Cartas*)

Maria San Joserenari TG 150

*Avilako Teresa santuaren izena, idazkiak etab. ik. Izenen Aurkibidean.**Avilako Teresa santuaren izena, idazkiak eta hitzak ondorengo ohar hauetan agertzen dira aipaturik:*

* A Esk., 1: *B Esk., 39, 55, 63, 64;

* C Esk., 113, 142, 153, 163, 164, 173;

* TG 9, 27, 46, 49, 56, 65, 81, 82. 130, 143, 162, 168, 178, 198, 201, 221, 247;

* TO 14, sarr.; 25, sarr.; 35; 48; TOE 4;

*DSA 3,24; 5,17; 6,20; 7,6; 7,11: 8,4; 8,7; * Otoi. 5,3; 6,15; 14,1;

*KH, ekaina, 4, 28; uztaila, 39, 41; abuztua, 6, 22; iraila, 8.

* * *

SAN JOAN GURUTZEKO**Karmel Mendira Igoera** (*Subida del Monte Carmelo*)

Bertsoa				
Marraskia	C 28 ^a		VIII	TG 108
I,4	A 38 ^a		VIII	TG 109
II,21	DSA 7,2i			

Gau iluna (*Noche oscura*)

Liburu				
1,12	A 44i		III eta IV	A 49 ^a

Kantu Izipirituala (*Cántico Espiritual*)

Bertsoa				
I	TG 145		III	TG 149

VII	B 1 ^a	XXVII	B 1 ^a
IX	A 85 ⁱ	XXVII	B 1 ⁱ
IX	A 86 ^a	XXVIII	B 5 ^a
IX	B 1 ^a	XXVIII	TG 157.
IX	B 4 ^a	XXVIII	TO 10
IX eta XI	TG 85	XXVIII	DSA 5,26
XI	B 2i	XXIX	B 4 ⁱ
XI	TG 109	XXIX	TG 221
XIV	TG 135.	XXIX	TG 245
XIV	TO 18.22	XXIX	Otoi. 12
XIV eta XV	A 28 ^a	XXX	TG 143
XIVeta XV	A 76 ⁱ	XXXI	TG 141
XIV eta XV	C 17 ^a	XXXII	TO 17,2
XV	TO 18,42	XXXII	Otoi. 6
XX eta XXI	A 28 ⁱ /29 ^a	XXXII	Otoi. 14
XX eta XXI	A 76 ⁱ	XXXIII	B 1 ⁱ
XXII	A 35 ^a	XXXV	TO 3,53
XXIII	A 47 ^a	XXXVI	TO 17,3
XXIII	TO 26	XXXVI	Otoi. 14
XXV	A 47 ⁱ /48 ^a	XXXVI	Otoi. 16
XXV	TG 137.	XXXVIII	C 35 ^a .
XXVI eta XXVIII	A 83 ^a	XXXIX	DSA 2,8 ^a .
XXVII	A 85 ⁱ .		

Maitasun-gar bizia (*Llama de amor viva*)

Bertsoa			
Titulua	TO 17,14	I,6	KH 31.VIII.9
I,6 eta III,2	A 84 ^a	I,6	KH 2.IX.8
I,6	C 8 ⁱ	II,2	A 85 ⁱ
I,6	C 36 ^a	II,5	TO 23,8
I,6	TG 245	II,6	KH 6.VIII.4
I,6	Otoi. 12	III,3	C 36 ⁱ
I,6	KH 27.VII.5	III,5-6	C 35 ^a
I,6	KH 15.VIII.1	III,6	C34 ⁱ

Olerkiak

“Aberik ez ta aberik bai”	A 80 ^a	“Aberik ez ta aberik bai”	TO 30
“Aberik ez ta aberik bai”	A 83 ^a	“Maitearen eizan” extase	B 3 ⁱ
“Aberik ez ta aberik bai”	TG 142		

Esakunak (Avisos)*(Maximes et Avis spirituels,*Teresak erabili eta aipatutako Parisko Karmeldar lekaiheen argitalpena
Paris-Poitiers 1895)

Bihotz maiteminduaren		34. zk.	DSA 7, ¹
otoitza	TG 137	45. zk.	Otoi. 6
Idem	TG 182	70. zk.	TG 188
Idem	TO 18,36	70.zk.	Otoi. 6
Idem	TO 44,5	99. zk.	DSA 7, ³
Idem	DSA 3,23 ⁱ	103. zk.	TG 188
Idem	Otoi. 13	129.zk.	TG 188

Joan Gurutzekoaren esaldiak

A Esk.	TG 185
TG 81	TG 188
TG 183	DSA 3

Ama Eleonorari gutuna (1589/VII/8)

C Esk. 31 ^a	KH 13.VII.15
TG 197i	KH 18.VII.1
Otoi. 6	

*San Joan Gurutzekoaren izena etab. ik. Izenen Aurkibidean.**San Joan Gurutzekoaren izena eta idazkiak ondorengo ohar hauetan agertzen dira aipaturik:*

* A Esk., 92, 97, 110, 135, 151, 178, 198, 204, 213, 340, 356, 357, 382, 387, 408, 409, 410, 412, 415; Armarría, 7, 10, 11.

*B Esk., 7, 11, 15, 16, 20, 22, 30, 36, 45, 50, 53, 59, 61, 63, 66, 72.

*A Esk., 55, 95, 139, 150, 169, 170, 172, 176.

*TG 81: 85; 108; 109; 110; 135; 137; 141; 142; 143 (2 f.); 145; 149; 157; 182,19; 188 (2 f.); 221; 245 (2 f.).

*TO 3,3; 10,1; 17,3; 17,4; 17,7; 17,20; 18,sarr.; 18,9; 18,13; 18,15; 18,19; 23,4; 26, sarr.; 29, sarr.; 30, sarr.; 31, sarr.; 44,3; 45,5 ; 52,4.

*DSA 2,27; 3,9; 3,41; 4,8; 4,10; 5,19; 7,10; 7,12; 7,21.

* Otoi. 2,3; 2,4; 3,2; 6,7; 6,11; 6,14; 6,20; 6,22; 12,2; 12,3; 13,2; 14,3; 16,2; 16,4.

*KH, maiatza,7 ; uztaila, 89,90,112; abuztua, 18, 31, 42, 72; iraila 4.

*Bibliografia, 1148. or.

TERESAREN GUTUNEN HARTZAILEAK ETA BIDLITAKO GUTUNEN ERREFERENTZIAK:

Ana Bihotz Sakratuarena, ahizpa (1850-1920)

TG 225 (1897-V-2).

Bellière, Moris (apaizgaia) (1874-1907)

TG 198 (1896-X-21); 213 (1896-XII-26), 220 (1897-II-24), 224 (1897-IV-25), 244 (1897-VI-9), 247 (1897-V-21), 253 (1897-VII-13), 258 (1897-VII-18), 261 (1897-VII-26), 263 (1897-VIII-10), 266 (1897-VIII-25).

Delatroëtte, Jan Batista, kalonjea (1818-1895)

TG 41 (1888-I-13/30).

Guérin andrea (Zelina Fournet) (1847-1900)

TG 32 (1887-XI-14), 60 (1888-VIII-23), 67 (1888-XI-18), 71 (1888-XII-28), 73 (1889-I-2), 84 (1889-III-12), 97 (1889-X-15), 99 (1889-XI-18), 123 (1890-X-15), 125 (1890-X-17), 133 (1891-XI-16), 138 (1892-XI-17), 146 (1893-VIII-10), 152 (1893-XI-17), 167bis (1894-VII-19), 172 (1894-XI-17), 178 (1895-VII-20/21), 181 (1895-XI-16), 192 (1896-VII-16), 202 (1896-XI-16), 222bis (1897-IV-3).

Guérin, Isidor (1841-1909)

TG 153 (1893-XII-?), 59 (1888-VIII-22)

Guérin jaun-andreak

TG 100 (1889-XII-30), 139 (1892-XII-30), 155 (1893-XII-29), 255 (1897-VII-16), 260 (1897-VII-24/25,?).

Guérin, Joana (1868-1938) (ik. La Néele andrea)

TG 24 (1887-VI-27)

Guérin, Maria (ahizpa Maria Eukaristia-rena) (1870-1905)

TG 4 (1877-IX-16), 14 (1883-1885), 19 (1886-VI-26), 20 (1886-VII-15), 23 (1887-VI-27), 25 (1887-VII-14), 26 (1887-VIII-18), 31 A (1887-XI-10), 31 B (1887-XI-14), 35 (1887-XI-19), 37 (1887-XI-25), 50 (1888-V-13), 62 (1888-IX), 69 (1888-XI-?), 88 (1889-IV-24), 92 (1889-V-30), 93 (1889-VII-14), 109 (1890-VII-27/29), 136 (1892-X-16), 177 (1895-VII-7,?), 234 (1897-VI-2), 235 (1897-VI-2), 265 (1897-VIII-22).

Guérin, Joana eta Maria

TG 2 (1877-IV-12).

Hugonin, Flavien, apezpikua (1823-1898)

TG 38 B (1887-XII-3/8,?), 40 (1888ko Urtarrilaren hasiera), 44 (1888-III-27).

La Néele andrea (Joana Guérin)

TG 131 (1891-X-17), 150 (1893-X-22),
180 (1895-X-14/15, 17).

Luisa Madalena

TG 1 (1877-IV-4).

Maria Gonzagarena, ama (1834-1904)

TG 9 (1882-XI/XII,?), 190 (1896-VI-29).

Maria Hirutasunarena, ahizpa

TG 187 (1896-IV-30), 188 (1896-V-7),
212 (1896-XII-24), 236 (1897-VI-2), 240
(1897-VI-3,?), 242 (1897-VI-6), 246
(1897-VI-13), 249 (1897ko uztailaren
erdi ingurua,?), 264 (1897-VIII-12).

Marta Jesusena, ahizpa (1874-1944)

TG 251 (1897-VI-VII,?), 256 (1897-VII-
16,?).

Maria Jose Gurutzekoa

TG 121 (1890-IX-28).

Maria San Joserena, ahizpa (1858-1936)

TG 194 (1896-IX-8/17,?), 195 (1896-IX-
8/17,?), 199 (1896-X-20/30,?), 200
(1896-ko urriaren azkena,?), 205 (1896-
XII,?), 206 (1896-XII,?), 217 (1897-I,?),
250 (1897ko uztaila,?).

Marta Jesusena, ahizpa (1865-1916)

TG 80 (1889-I-10), 119 (1890-IX-23),
241 (1897-VI,?).

Martin, Luis (1823-1894)

TG 18 (1885-VIII-25), 46 (1888-IV-29),
48 (1888-V-8), 51 (1888-V (?)-17), 52
(1888-V/VI,?), 58 (1888-VII-31), 61
(1888-VIII-25), 63 (1888-IX-30), 64
(1888-X-8/15,?), 66 (1888-XI-15), 68
(1888-XI-25), 72 (1888-XII-30), 77
(1889-I-8).

Martin, Leonia (Teresa Dositea, ahizpa) (1863-1941)

TG 29 (1887-X-23/30,?), 148 (1893-
VIII-13), 151 (1893-XI-5), 154 (1893-

XII-27), 158 (1894-III,?), 163 (1894-V-
20), 164 (1894-V-22), 170 (1894-VIII-
20), 171 (1894-X-11), 173 (1895-I), 175
(1895-II-24), 176 (1895-IV-28), 186
(1896-IV-11), 191 (1896-VII-12), 238
(1897-VI-3), 248 (1897ko ekainaren
azkena,?), 257 (1897-VII-17).

**Martin, Maria (Maria Bihotz Sakratua-
rena, ahizpa) (1860-1940)**

TG 3 (1877-VI-10/17), 12 (1884-V-8),
17 (1885-V-21), 21 (1886-X-2), 33
(1887-XI-14), 42 (1888-II-21), 49 (1888-
V-12/20), 75 (1889-I-6 edo 7), 79 (1889-
I-8), 91 (1889ko maiatzaren azkena), 111
(1890-VIII-30/31), 113 (1890-IX-2/3),
116 (1890-IX-7), 117 (1890-IX-8), 128
(1891-VII-5), 196 (1896-IX-13,?), 197
(1896-IX-17), 215 (1897ko hasiera,?).
TG

Martin, Paulina (Aines Jesusena, ama) (1861-1951)

TG 5 (1878-VI-26), 6 (1880-XII-1), 7
(1881-VII-4,?), 11 (1884-III-1/6), 27
(1887-X-8), 34 (1887-XI-14), 36 (1887-
XI-20), 43 B (1888-III-18 ?), 45 (1888-
III-27), 54 (1888-VII-4,?), 55 (1888-VII-
5/9), 56 (1888-VII-11), 74 (1889-I-6), 76
(1889-I-7), 78 (1889-I-8), 95 (1889-
VIII/VIII,?), 103 (1890-V-4,?), 104
(1890-V-5/6,?), 106 (1890-V-10), 110
(1890-VIII-30/31), 112 (1890-IX-1), 114
(1890-IX-3), 115 (1890-IX-4), 140
(1893-II-20), 156 (1894-I-21), 203
(1896-XII-4), 204 (1896-XII-18), 216
(1897-I-9), 219 (1897-II-22), 222 (1897-
III-19), 223 (1897-IV-4/5), 229 (1897-V-
23), 230 (1897-V-28), 231 (1897-V-30),
232 (1897-V-30), 233 (1897-VI-1), 237
(1897-VI-2), 239 (1897-VI-3,?), 252
(1897-VII-13).

Martin, Paulina, Maria eta Zelina

TG 245 (1897-VI,?).

Martin, Paulina eta Maria

TG 30 (1887-XI-6).

Martin, Zelina (ahizpa Jenofa Santa Teresarena) (1869-1959)

TG 8 (1882-IV-23), 10 (1883-IV-29), 13 (1884-V-8), 15 (1883-1885), 22 (1887-IV-31), 47 (1888-V-8), 53 (1888-VI-17), 57 (1888-VII-23), 65 (1888-X-20), 81 (1889-I-23/25,?), 82 (1889-II-28), 83 (1889-III-5), 85 (1889-III-12), 86 (1889-III-15), 87 (1889-IV-4), 89 (1889-IV-26), 90 (1889-IV-27,?), 94 (1889-VII-14), 96 (1889-X-15), 98 (1889-X-22), 101 (1889-XII-31), 102 (1890-IV-27), 105 (1890-V-10), 107 (1890-V-19/20), 108 (1890-VII-18), 120 (1890-IX-23), 122 (1890-X-14), 124 (1890-X-20), 126 (1891-IV-3), 127 (1891-IV-26), 129 (1891-VII-8), 130 (1891-VII-23), 132 (1891-X-20), 134 (1892-IV-26), 135 (1892-VIII-15), 137 (1892-X-19), 141 (1893-IV-25), 142 (1893-VII-6), 143 (1893-VII-18), 144 (1893-VII-23), 145 (1893-VIII-2), 147 (1893-VIII-13), 149 (1893-X-20 ?), 157 (1894ko martxo edo maiatza), 161 (1894-IV-26), 162 (1894-IV-26), 165 (1894-VII-7), 167 (1894-VII-18), 168 (1894-VIII-5/10), 169 (1894-VIII-19), 174 (1895ko urtarrilaren azkena), 179 (1895ko irailak 8aren ingurrun), 182 (1896-II-23), 183 (1896-II-24), 184 (1896-II-24), 185 (1896-II-24 / III-17), 207 (1896-XII,?), 208 (1896-1897 Negua), 209 (1896-1897 Negua,?), 210 (1896-1897 Negua,?), 211 (1896-XII-24), 214 (1897-I-3, ?), 227 (1897-V-13),

228 (1897-IV/V,?), 243 (1897-VI-7), 259 (1897-VII-22), 262 (1897-VIII-3).

Maudelonde, Zelina (Pottier andrea) (1873-1949)

TG 159 (1894-III-26), 166 (1894-VII-16)

Pichon, Almir, aita (1843-1919)

TG 28 1887-X-23).

Révérony, Moris, apaiza (1836-1891)

TG 39 (1887-XII-16)

Roulland, Adolfo, Aita (1870-1934)

TG 189 (1896-VI-23), 193 (1896-VII-30), 201 (1896-XI-1), 221 (1897-III-19), 226 (1897-V-9), 254 (1897-VII-14).

San Plazido, ama (1845-1909)

TG 70 (1888-abenduaren hasieran).

Simeon, anaia (1814-1899)

TG 218 (1897-I-27)

Vallé, Maria Aloisia ahizpa (1841-1903)

TG 160 (1894-IV-3).

TG 118 Ahizpa Teresa Jesus Haurarena eta Aurpegi Santuarenaren eztei-egunerako gonbidapena (1890-IX-18/20,?)

HITZ GILTZARRIEN AURKIBIDEA

Zerranda hau, zehazki hitz eginda, ez da aurkibide analitikoa, era horretako informazio batzuk baditu ere. Ohar garrantzitsuenak biltzen dira hemen, eta batez ere liburu honetako "ohar giltzarriak"; Teresaren hiztegioko gai edo elementu esanguratsuak adierazten dira hemen, haren obren aipamenik funtsezkoenekin. Xehetasun gehiago jakin nahi izanez gero, irakurleak "Nouvelle Edition du Centenaire"ko liburukietara jo dezake.

Lehenengo, dagokion testuaren erreferentzia ematen da, eta ondoren oharraren zenbakia edo zenbakiak. Adibidez: A 6, 261 = A Eskuizkribuko 6. eta 261. oharra; Gutuna (TG) 128, 4, 7 = 128. gutuneko 4. eta 7. oharra; etab.

"Sarr." laburdurak, dagokion sailaren *Sarrera* esan nahi du (TO, DSA, etab.); "aurk.", pieza bakoitzaren aurretik datorren aurkezpen edo sarreratxoa (adibidez, Ihintza: TO 1, aurk.).

KHri dagokionez, oharraren zenbaki aurretik hilabetea adierazten da; adibidez: KH apirila, 8. "Bestelako Idazkietarako" (BI) orrialdea adierazten da.

- Adiskidetasuna (Jesusekin): TO 53,3.
Adorea galdu): C, 47; TG 143,6; KH, abuztua, 23.
Afektua, barne-atxikimendua (sorkarieki-ko): C, 116.
Agerpena (Mariarena): DSA 3,44.
Ahaztua: Otoi, 2,6.
Ahotsa (Teresaren -): TG 202,3; DSA, sarr. (679. or.)
Ahula, makala: B, 49; DSA 1,11.
Aingeru: TO 3,7; DSA 7,26; KH, uztaila, 67; (- zaintzailea, jagolea, begiralea): A, 163; TO 46,1; (lau aingerutxoak): TG 182,9 eta 10; TG 185,3; TO 18,3; TO 22,2; TO 44,aurk.
Aintza (Loria): A, 322; B, 54; (Jesusen -; Aitaren -): DSA 2,3.
Aita (Betierekoa): Otoi, 13,1.
Alea (hondar-alea): C, 15; TG 45,4; Otoi, 2,7.
Altxorra: A, 164; TO 17,5; TO 54,4.
Amatasun izpirituala: B,37; TO 24; TO 3,8; TO 24,14; TO 45, aurk.
Amatxo (ahizpa Aines): TG 76,5; KH, uztaila, 104.
Ametza (Rêve): A, 375, 376; DSA 3,21; KH, iraila, 25; (Zelinen -): TG 86,1.
Ametza (Sommeil): B, 71; (Jesusekin): A, 351; DSA 5,20.
Ametza (Illusion): A, 369.
Anaia (neba) (Jésus): TO 23, 2; (- izpirituala): KH, uztaila, 28 (ik.Misiolaria, apaiza).
Andrakila (ahizpa Maria Hirutasunarena): KH, iraila, 22.
Antiklerikalismoa: DSA 3,42; DSA 6, aurk.(791. or.); Otoi, 4, aurk. (856. or.).

- Antzeko izatea (Jesusen -): TO 20,9; Otoi., sarr.(849. or.); Otoi. 11, aurk.; Otoi. 16,2.
- Apaiza: A, 308; TG 94,4; TG 101,3; TO 40, aurk.; DSA 2,26; Otoi., sarr. (849-850. orr.); Otoi. 4,3; (apaiz-bokazioa): B, 41.
- Apaizgintza: TO 40, aurk.; DSA 8, aurk. (830. or.), 15.
- Apalkuntza: A, 95, 105; C. 9, 132, 134; DSA 6, aurk. (792. or.); DSA 7, aurk.
- Apaltasuna: B, 62; TO 46,3; DSA 1,11; DSA 4,14; DSA 6, aurk. (792. or.); DSA 7, aurk. (791 h.); DSA 8,7; Otoi. 20, aurk.
- Argiak: A, 112; (argiaren umeak): TO 24,6.
- Argitalpena (bere testuen argitalpenaz Tere-sak zuen iritzia): Eskk., sarr. (51-52. orr.).
- Arima (- txikia): B, 25, 77; (arimak behar ditugu): Otoi. 12,6.
- Arnak: A, 181; TO 48,1; DSA 1,26.
- Arnasa: TO 32,2.
- Arranoa: B, 63.
- Arrosa: TO 34, aurk.; TO 51, aurk.; TO 54,6; DSA 4,5; DSA 5,7; (arrosa-auria): KH, ekaina, 20.
- Askatasuna: A, 134; TO 21,1; (Jainkoaren askatasuna): C, 13.
- Atsedena: TO 21, aurk.; TO 24,20; DSA 4,7; DSA 6,21; Otoi. 7,4.
- Atsegin eman (Jesusi): C, 24; TO 45,5; Otoi. 2,9 : KH, maiatza, 7.
- Aurpegi Santua: A, 321; TG 80,3; TG 87,5; TO 3,4; TO 11,3 et 5; TO 20, aurk., 1, 7; Otoi., sarr. (849. or.); Otoi. 5,5; Otoi. 11, aurk.; Otoi. 12, aurk., han-hemen; Otoi. 15,1.
- Aurpegia (Jainko-Aurpegia): TO 20, aurk.
- Aurpegiz aurpegi, aurrez aurre: Otoi. 12,3; KH, uztailla, 90; (ik. Aurpegi Santua).
- Ausardia: C, 167-169.
- Azken tokia: C, 177; TO 29,2.
- Baimendutako solasaldia: KH, maiatza, 5.
- Baina (bai -): C, 118; TG 204,2; KH, apirila, 7.
- Bakakuntza: A, 84; TO 21,1.
- Bakarra: A, 164; DSA 8,18.
- Bakarraldiak: A, 350, 355; B, 2; (bakarraldiko edo erretretako oharrak): BI, 1069, 1071-1074. orr.
- Bakea: A, 302.
- Baraua: TOE 4,4.
- Barkamena: DSA 4, aurk.
- Basamortua: DSA 6,20.
- Bataioa: Otoi. 2,2; (haurren -) : TO 35,4; TO 44, aurk.; DSA 2,23.
- Batasuna (Teresa eta Zelinarena): Otoi. 9,2.
- Begiak (bilduak): Otoi. 3,1.
- Begiak jaso: TO 24,8.
- Begirada (ezkutua): TO 8,9; DSA 2,8; (Jainkoaren -) TO 18,22; TO 32, aurk.; Otoi. 6,11; (Maitasun -): Otoi. 3, aurk., 2.
- Begiralekua: A, 205.
- Behartsuak (eta aberatsak): DSA 6, aurk., 16.
- Beheratu, apaldu: A, 6, 261; B, 45; DSA 2, aurk. (708. or.), 15; DSA 4, 12; DSA 5, aurk.
- Bekaitza (Aingeruen -): DSA 2,17,21; (gai-xoaren -): KH, abuztua, 41.
- Bekatariak: C, 44-45; TO 17,16; TO 46,4; TO 54,12; DSA 2,24; AE, sarr.
- Bekatariaren historia: C, 180.
- Bekatu astuna, larria: C, 181; KH, uztailla, 44, 68.
- Belaunak (Jesusenak): TG 211,4; TO 18,25; TO 44,4.
- Beldurra (beldurretik maitasunera bihurtu): DSA, sarr.(680. or.); DSA 2, aurk. (707. or.).
- Beldurra (heriotzaren aurrean): KH, juin, 8.
- Beloa (Mariaren-): TO 13,3; (Beronikaren -): TO 17,15.
- Berandutzea (Teresaren bizitza erlijiosoan): KH, uztailla, 11.
- Berbizkundera (Jesusen -): DSA 2,18.
- Bere buruaz beste egiteko tentaldia: KH, iraila, 23.
- Berriak (Albiste berriak): DSA 1,9.
- Berriro etorri, itzuli (lurrera): DSA 8,22.
- Bertutea: Otoi. 20,4; (- txikiak): A, 344; (- apalak, xumeak): Otoi. 14,4.
- Besarkatu, kiskali: C, 163; Otoi. 6,22; Otoi. 8,2.
- Besoa (Jesusena): C, 22, 110-111.
- Biblia: DSA, sarr. (680. or.).
- Bidetxoak: B, 2, 14, 70; C, 17; TO 3, TO 13, TO 30, TO 31, TO 46, aurk.; DSA 2, aurk. (708. or.); Otoi. 3,4; Otoi. 6,3.
- Bihotz gorria: Otoi. 6,5; (Mariaren -): TO 54,5.

- Bilatu: C, 21; TO 54,8.
 Bildotsa, bildostxo: TG 54,1; TG 190,1 eta 2; TO 10,1; DSA 1,5.
 Bihotz Sakratua: TO 15 eta 23, aurk.
 Biraoa: TO 17,17; Otoi. 4, aurk.; Otoi. 19, aurk.
 Birjintasuna: TO 3,8; 53,4; TO 54,4; DSA 1,7; DSA 7,27; (Zelinarene -): A, 399-401; (Birjintasuna, ezkontza eta martiritza): TO 3, aurk.
 Birlak: TG 212,2 eta 3.
 Bizitza (Betiko -): DSA 3,38; Otoi. 19, aurk.
 Borroka (izpirituala): DSA 7, aurk. (816. or.); Otoi., sarr. (850. or.).
 Borroka-zelaia: Otoi. 17,2.
 Borrokatu: TO 34,5; TO 45, aurk.
 Burdina: C, 171.
 Buru-estimua: A, 116, 149, 160; DSA 4,14; DSA 7,19.
 Buru-ukamena: Otoi. 7,3.
 Buru-uztea: A, 297; B, 13; C, 68; TO 3, aurk.; TO 32,3; TO 43, aurk.; TO 52, aurk.
 Dardaratu: TO 54,1.
 Deabrua: DSA 7, aurk. (791-792. orr.) eta han-hemen; KH, abuztua, 48.
 Desjabetzea: C, 98.
 Diamanteak: A, 52.
 Dohaintasuna: Otoi. 6,13.
 Dohatsua, zoriontsua: A, 381.
 Doinuak (maitasun -): Armarría, 5; C, 1; (Teresak erabilitako doinuak edo aireak): TO, sarr. (536-537. orr.), 3.
 Doktorea (doktoze jakintsua): A, 154; TO 46,2; (Elizako doktoze): B, 39.
 Ebanjelioa: TO 24 et 54, aurk.; KH, maiatza, 8.
 Edertasuna: TO 51,1; (Jesusen -): DSA 2,5,11.
 Egarria (Jesusen -): A, 189; B, 18; TO 24,5 eta 15; (maitasun-egarria): TO 31, aurk.; Otoi. 12,5.
 Egia: B, 62; C, 119; KH, uztaila, 70; KH, abuztua, 12.
 Egitekoa (Hil ondorengo -): DSA 1,15; DSA 3,14; DSA 7,15; DSA 8, aurk., 20, 21; DE, sarr. (886. or.); KH, uztaila, aurk.; AE/J, 1, 16
 Egitekoak (Teresaren -): DSA, sarr. (678. or.).
 Eguzkia (Jainko-eguzkia): B, 65; TO 22,4.
 Ekintzak: C, 101; KH, abuztua, 22.
 Eliza: B, 47; TO 32,1; (Elizaren alaba): C, 164; DSA 3,24.
 Elizainak: TO 40, aurk.
 Elkartasuna (Santuen -). TO 35, 6; DSA 1,16; KH, uztaila, 42.
 Emaztea (Jainko berarena): TO 48,3; DSA 7,5.
 Erakarri: B, 74.
 Eraldatzea (maitasunez -): Otoi. 2,4; Otoi. 11, aurk.
 Erbestea: A, 136; C, 66; TO 13,6; DSA 6, aurk. (792-793. orr.), 19.
 Eremutar bizitza: C, 66.
 Erre oparia: DSA 3, aurk., 34; Otoi. 6,1.
 Erregina: TO 10 eta 48, aurk.
 Erreinua: DSA 6,6.
 Erribera (Betiko -): TO 21,4.
 Errosarioat: C, 130; (praktiketako errosarioa): TG 144,2; Otoi. 3,3.
 Errukia: A, 3; C, 1, 144; TG 247,5; TO 53, aurk.; DSA 2, aurk. (708. or.), 24; DSA 6, aurk. (792. or.); ik. Maitasun Errukitsu.
 Esaezina: B, 78; C, 4.
 Esentzia: DSA 5,4.
 Eskaintza (egunaren eskaintza): A, 54; Otoi. 10, aurk.; (ik. Maitasun Errukitsu).
 Eskale: TO 36, aurk.; (Jesus): TO 5, aurk., 3.
 Eskatu: TO 44,9.
 Esker gaiztoa: B, 19; DSA 2, aurk.
 Eskerrak ematea: Otoi. 6,12.
 Eskerrona: B, 6.
 Eskoloko lanak: C, 117; KH, apirila, 2; (idazketa, diktaketa): BI, 1069, 1075-1080. orr.
 Eskrupuluak: A, 158; (Maria Guérin-en -): TG 92,1; TG 93,1.
 Esnea: TO 1,2.
 Estali: B, 29.
 Estasia: DSA 3,9.
 Eukaristia: TO 25, aurk.
 Ez ezagutu: TO 13,5; DSA 2,14.

- Ez-korukoak: DSA 4, aurk. (767. hk.); Otoi. 5,4; Otoi. 7, aurk.
- Ezereza: B, 44; TO 53,2; KH, abuztua, 27.
- Ezinezkorik ezer ere ez: C, 77; Otoi. 7,1.
- Ezkontitza: TO 26, aurk.
- Ezkutatu, gorde: TO 5,3; TO 20,8; TO 54,8; (Jesus): TO 25,2; DSA 2,19,20.
- Ezkutaturik bizi: TO 20,4.
- Ezpatata: TO 48,4; Otoi. 17,1.
- Ezteietako gonbidapena: TG 118,1.
- Famili bizitza Karmelen: A, 347; C, 59-60.
- Fedea: DSA 6.18; (fedea-borroka): DSA 3,19; Otoi. 19, aurk.; KH, abuztua, 35; (ik. *Fede-proba*).
- Feminismoa: A, 291.
- Gainez egina, betea: A, 356.
- Gaixotasuna (Teresa haurraren -): A, 94, 102, 103; (Martin jaunaren -): A, 325-337, 402; TO 8,10; TO 18,7; DSA 3,17.
- Garaiera (Teresaren -): A, 203.
- Garapena (Teresaren -): A, 197.
- Garbitokia: A, 359, 373; TO 17,8; Otoi. 2,8; Otoi. 6,13,21; KH, ekaina, 3.
- Gatibua: A, 294; TG 106,2; Otoi. 17, aurk.
- Gaua: A, 228, 368; Otoi., sarr. (849. or.); KH, abuztua, 37; AE/J, 12 (ik. *fedearen proba*).
- Gaur: TO 5, aurk.
- Gazterik hil: C, 56; KH, uztaila, 52, 93; (santu gazteak): DSA 1,13; DSA 8, aurk. (830. or.).
- Gerraria: TO 36, aurk.
- Gezia: Armarria, 7.
- Gizakundea: DSA 5, aurk.
- Goia (sabaia) (Etxea): TO 18,26.
- Goitizenak: TG 46,2.
- Gorputz mistikoa: B, 46, 48.
- Gosea: DSA 5,16.
- Gozotasuna: DSA 1,6.
- Grazia: Otoi. 14,3.
- Gripea Karmelen: A, 377.
- Gurari, irrika: A, 405-406; C, 16, 111, 150; DSA 2,22; Otoi. 6,8; KH, uztaila, 54.
- Gutziak: DSA 5,14.
- Gutxietsia (sufritu eta mesprezatua izan): TG 81,6; KH, uztaila, 112.
- Guztiak, guztia: C, 76; Otoi. 2,3; Otoi. 8,1; (guztiz txikia): KH, abuztua, 48.
- Harana: TO 18,9; TO 54,3; DSA 5,8.
- Harrotasuna: DSA 1,11; KH, abuztua, 10.
- Hartu (utzi hartzen): C, 92.
- Harturik egotea (Jainkoak -): DSA 7,20; Otoi. 6,9.
- Haur Errugabeak: DSA 6,17; Otoi. 18,1; KH, maiatza, 19.
- Haurrak: TO 44.5 et 6; DSA 2:23; DSA 6,17; KH, maiatza, 19.
- Haurren bertuteak: TO 13,4.
- Haurtxoa: KH, ekaina, 29.
- Hautzaina: KH, abuztua, 50.
- Hautaketa (Jainkoaren -) TO 53,1.
- Hautatu: A, 31.
- Hegan egin: TO 43, aurk.; (Jainkoagana): TO 52,4.
- Hegatxabela: TO 52,4.
- Hegoak (hegalak): TO 22, aurk.; TO 33, aurk.
- Hemoptisia (odol-goitika): C, 31, 33.
- Heretikoak: DSA 1,25.
- Heriotza: KH, maiatza, 1; (maitasun-heriotza): TO 17, aurk., 19; TO 21,2; Otoi. 6,20; AE, sarr. (885-886. or.); KH, ekaina, 6; (bere heriotzaren data): KH, uztaila, 32.
- Hezur hutsa (argaltasuna): KH, uztaila, 23.
- Hika hitz egitea (Jesusen -): B, 24.
- Hil (hiltzen jakin): KH, ekaina, 12.
- Hilerria: AE/M, 10.
- Hilezkorra: TG 57,2.
- Hirutasuna: Otoi. 4, aurk.; Otoi. 6, aurk. (860. or.), 4.
- Hitza: TO 17,1.
- Hunkiberatasuna: C. 88.
- Hurbiltasuna (heriotz ondoko -): KH, jui-let,10.
- Huskeria (guztia da -): A, 395; DSA 3, aurk. (726. or.).
- Hutsa: A, 161.
- Hutsak (esku -): Otoi. 6,15.
- Idazkera: TG 155,2.
- Igandea: Otoi. 4,2.
- Igogailua: C, 18; TG 229,2; KH, maiatza, 21.
- Igurtziak: KH, uztaila, 96.
- Ihesa: C, 51.
- Ihintza: A, 188; TO 1, aurk., 1; KH, apirila, 6.

- Ikusi (Jainkoa -): TG 56,2; TO 24,17; KH, mai, 11; KH, ekaina, 1; KH, abuztua, 37.
- Ikuskaria (Martin jaunaren -): A, 67.
- Ilargia: TO 18,10.
- Ildoa (Urrezko -): A, 72; (- argitsua): TO 3,1.
- Ilunpeak: C, 43.
- Iluntzea (iluntzerik gabeko eguna): A, 62; TO 54,11.
- Infernua: A, 192.
- Intziria (kexa): KH, abuztua, 53. 65.
- Irabaziak: A, 193; C, 162; Otoi. 6,13.
- Irakurgaia: A, 110; KH, maiatza, 8.
- Iraungi: B, 58; TO 30, aurk.; DSA 5,6; Otoi. 6,19; Otoi. 16,4.
- Iraungikorra, galkorra: TO 18,12.
- Iraupen eza: TO 5,2.
- Irribarrea: DSA 5,12.
- Irribarrearen Ama Birjina: A, 4; TO 54,15; Otoi., sarr. (848. or.); Otoi. 1, aurk.; Otoi. 6, aurk. (860. or.); KH, uztaila, 14; KH, abuztua, 70.
- Irrikatu: TO 33,2.
- Irudi Biblikoak (Teresarenak): IB, 1083-1088. orr.
- Isiltasuna: TG 163,3; TO 54, aurk.; KH, apirila, 1; (Jesusen -): A, 281.
- Ito, arnasestuaka egon: KH, uztaila, 94.
- Itsasargia: B, 48.
- Itxaron (Zerua): TO 17,12.
- Itxaropena: C, 111; KH, uztaila, 17.
- Itxurakeria: KH, uztaila, 18.
- Izadia, natura: TO 18, aurk.; AE, sarr. (886. or.).
- Izarrak: A, 63; (Maria) : TO 5,5.
- Izena xuxurkatu: TO 23,1.
- J.M.J.T. (Jesus, Maria, Jose eta Teresa): TG 46,1.
- Jaiak, festak (Zerukoak): TG 182,1.
- Jaiki: TO 17,9.
- Jainko bihurtzea (Gizakiaren -): DSA 2,27.
- Jaitsi: TO 22,5 (hil ondorengo Egitekoa ikusi).
- Jaunartzea (lehenengo -): A, 118; (sarri jaunartzea): A, 211; (azken jaunartzea): KH, abuztua, 49.
- Jesus Teresarena: Otoi. 14,1; Otoi. 16,1.
- Joan (bizkor): TO 17,7.
- Joana Ark-ekoa: DSA 1 et 3, aurk. (681-682. orr. eta 725-726. orr.), eta oharretan han-hemen.
- Jostailutxo: A, 282; DSA 5,13.
- Josulagun santuak: DSA 8,9.
- Justizia (Jainkoarena): Otoi. 6, aurk. (861. or.).
- Kaliza garratza: A, 324.
- Kanabera: Armarría, 9; TG 54,3.
- Karmeldarraren eguna (ordutegia): TOE 4, aurk.
- Karraka: TOE 4,1.
- Kidetasuna Zelinarekin: A, 82; AE/J, 11.
- Kiskali, erre: C, 2; DSA 3, aurk. (726. or.).
- Konfiantza: A, 387; DSA 1, aurk. (682. or.); KH, abuztua, 17, 40.
- Kontatu: Otoi. 3,3.
- Kontenplazioa: DSA 2, aurk. (707. or.), 4; DSA 4, aurk. (856. or.).
- Kontsolamendua: A, 338; DSA 7,10.
- Koroa: TG 143,5; DSA 1,3; Otoi. 18, aurk.
- Kristala: DSA 5,17.
- Labea: B, 12.
- Lagun hurkoa: C, 71.
- Lan egin (Jainkoaren aintzarako): C, 57.
- Langilea: DSA 6,7.
- Lapurra (Jesus): AE/M, 2.
- Laster: A, 177; B, 32; TO 33, aurk.
- Lasterketa (erraldoi baten lasterketa): A, 183.
- Lira: TG 149,4.
- Lokarriak, kateak (eten): TO 21,1.
- Lorea: A, 2; TG 134,2; TG 141,1 ; TO 22,4; TG 240, 1 ; DSA 2,6,7; KH, abuztua, 21; KH, abuztua, 25; (loreak bota) : B, 56; TO 34. aurk., 3; TO 51; (- Zelina) : TG 98,3; TG 124,2; (- mistikoa): Otoi. 5,1.
- Lotsa: KH, ekaina, 32.
- Lurrina, usain ona: B, 57; C, 49, 176; TO 17,18; TO 20,6; TO 34,3.
- Lurrineztatua, usain onez betea: A, 222.
- Madarikatua (mundu -): Otoi. 17,3.
- Mahats-mordoa: Armarría, 2; TO 5,4; TO 25,3; DSA 5,11; KH, uztaila, 84.
- Maitasun errukitsua: A, 414; TO 29,3; Otoi., sarr. (850. or.); Otoi. 6, aurk. (860-

861. orr.) eta han-hemen; AE, sarr. (886. or.); KH, uztaila, 15.
- Maitasun hutsa: DSA 4, aurk. (767. or.), 10; Otoi. 12,2.
- Maitasuna (amodioa), maite izan, maitatu (Amour, aimer): B, 11; C, 89; TO, sarr.; TO 10 eta 36, aurk.; TO 41, aurk.; DSA 4, aurk.; DSA 6,22; Otoi. 16,3; AE/J, 17; (Maitasuna maitasunaren truke): B, 50; DSA 1,19; (nik maite izan zaituztedan bezala): C, 72; (benetako maitasuna): C, 106; TOE 8, aurk.; (saririk gabe, neurri gabe): TO 17,6; (maitasun-erasoa): KH, uztaila, 16; (maitasuna maitarazi): AE/J, 4.
- Maitasuna (Charité): C, 70-72; DSA, sarr. (679-680. orr.).
- Maitasunez bizi: TO 17, aurk.
- Maitemindua, maitalea: TO 17,4; DSA 4,4.
- Malkoa (Ama Jenofaren azken malkoa) : TG 184,1.
- Mantua: DSA 4,6; (Ama Birjinaren -): TO 11,1.
- Mariologia: DSA 6, aurk. (792. hk.).
- Marraskia: A, 237.
- Martiritza: A, 262; B, 43, 44; Otoi. 2,5; KH, abuztua, 11; (maitasunaren -): TO 31,33 eta 35, aurk.
- Mendia (Maitasun-): B, 16.
- Mesias: DSA 6,12.
- Meteorologia (Eguraldia): A, 229.
- Mirariak: TO 24,7.
- Misiolari-bokazioa: A, 215; B, 42; C, 61; TO 47, aurk.; (misiolari-garra): TO 35, aurk.
- Mortifikazioa (hildura): A, 345.
- Mugeta: TO 18,17.
- Musua (Jesusena): A. 132.
- Nahia, Borondatea: A, 218; KH, uztaila, 95; (Jainkoaren - maitatu) : KH, maiatza, 25; KH uztaila, 59, 74, 93.
- Negar egin: DSA 2,16.
- Neskato artzaina (eta erregina): DSA 1,17.
- Nobiziaz: DSA, sarr. (678-680. orr.); (Nobizien maistra): C, 26, 105, 109, 111; DSA 7, aurk. (792. or.); Otoi., sarr. (848. or.); Otoi. 3, aurk.; KH, apirila, aurk.; KH, uztaila, 86.
- Norbere burua harro-harro erakutsi: KH, maiatza, 27.
- Obedientzia (menpetasuna): C, 69; TG 189,2; DSA 7,28.
- Odola: Otoi. 18,6; (Jesusen -) : A, 187-188; Otoi. 5,5; KH, abuztua, 1.
- Ohar kronologikoak (Teresaren -): BI, 1074. or..
- Oihalak: TO 24,2.
- Onartzea: KH, abuztua, 65 (ik. Sufrimendua).
- Opari ematea: TO 51, aurk.
- Oparia: Otoi. 4, aurk.; Otoi. 6, aurk. (860. hk.); (Martin jauna): TG 261,4 eta 5.
- Orain: C, 11; (orain nire txanda): TG 57,5.
- Oroi zaitetz: TO 8 eta 24, aurk.
- Oroitzapena: TO 18, aurk.
- Ortografia: A, 49.
- Ostiak (profesadunak): TO 29,4.
- Otoitz (Prière): C, 126; TO, sarr.(537. or.); Otoi., sarr.; DSA 2,26.
- Otoitza (Oraison): C,175; (-jakulatoria): Otoi., sarr. (848. or.); (otoitzarako metodoa): Otoi. 7,1.
- Pedagogikoak (otoitza -): Otoi., sarr. (848. or.).
- Penitenti tresnak: TOE 4,3 et 5; KH, uztaila, 95.
- Pentsamendu ederrak: C, 127; AE/J, 7.
- Pilotatxoa: A, 282; TG 34,2.
- Pintatu: A, 394; C, 91.
- Pintzela: C, 102.
- Pobretasuna, txirotasuna: A, 53, 242, 343; C, 66.
- Poza (Joie): C. 53; TO 45, aurk.
- Pozik (content): A, 130, 390; B, 32.
- Poztasuna (gaixo den Teresaren poztasuna): KH, uztaila, 8.
- Poztu, kontsolatu (Jesus): TO 20,3.
- Predikariak: A, 384-385.
- Presentzia (benetakoa): Otoi. 6,9.
- Presondegia (= Karmel): TO 18,11; (= Sagarioa): TO 25,1.
- Proba: TG 43B,1; TO 54,9; (fedearen -): B, 44, 67; C, 30; TO 30, 31, 32 eta 36,aurk.; TO 45, aurk., 2 eta 3; TO 48,6; TO 50, aurk.; Otoi. 12,7; AE, sarr.

- Profesa-agiria: Otoi. 2, aurk.
- Sakrifizioa: Otoi., sarr. (850. or.); Otoi. 8,1.
- Samin ogia: AE, sarr. (886. or.).
- Samintasuna, samindura: A, 104; C, 58 ; KH, uztaila, 111.
- Santa bat izatea: C, 14.
- Saria: C, 108; TG 182,15; DSA 4,16.
- Seme galdua: C, 179; TO 24,12.
- Sendotza: A, 142.
- Sentitu, somatu: B, 33; C, 42; DSA 6,15.
- Solasaldia, jolasaldia: C, 79; DSA, sarr. (677-678. orr.).
- Soldadua (Kristoren -): Otoi. 18,3; 47,5.
- Sua: A, 152, 415; C, 171; TO 17,2 eta 8; TO 24,11; DSA 5,18.
- Sufrimendua: A, 140, 338; C, 29; TO 47,3; KH, uztaila, 79, 99; KH, abuztua, 64, 68; (poza sufrimenduan): TO 54,10; AE, sarr. (885. or.).
- Sugarra: A, 214; B, 48; TO 17,20; TO 23,4.
- Sutea: TO 24,10.
- Tentaldiak: A, 355; (fedearen kontra-ko -): Otoi. 17, aurk.
- Testu bibliko hautatuak (Teresaren -): BI, 1106-1111. orr.
- Txikia (txiki gelditzea): C, 23; TG 141,2; DSA 1,23; KH, maiatza,26; KH, abuztua,20; (ik. Bidetxoa, arimatxoa, pilota-txoa).
- Txoria: TO 43, aurk.; (txoritxoa): B, 63; DSA 5,5; Otoi., sarr. (848. or.); Otoi. 4,1; KH, maiatza, 9; AE/J, 8.
- Ukitu: A, 290; KH, uztaila, 77.
- Umorea: AE, sarr.
- Unea: TO 5,1.
- Ura (ur bizia) : A, 415; (ur bedeinkatua): DSA 7,22.
- Usoa (Kutxakoa): TO 29,1.
- Utzi: DSA 1, aurk. (682. or.).
- Xukatu (Jesusen malkoak): TO 34,2.
- Zauria (maitasuna-sauria): A, 415; TO 23,4; TO 24,9; DSA 4,3; KH, uztaila, 15.
- Zelaiak (Zerukoak): TO 18,13.
- Zerbitzua egin: C, 90.
- Zerua: A, 51, 137, 386; B, 34; TG 216,2; Otoi. 12,7; Otoi. 19, aurk.; KH, maiatza, 20; (etxea): TO 18,26; TO 22,1.
- Ziba: TG 212,4.
- Zitoria, lilia: A, 8; TG 102,1; TO 44,1 ; Otoi. 9, aurk.; (- horia): TG 57,1.
- Zorabioa (eldarnioa): TO 33,1.
- Zorotasuna: A, 155; B, 75; TO 24,16.
- Zorrotza, serioa: A, 315; C, 115.
- Zu (Jesus) eta ni: TO 24,3.
- Zuaboa (Aita Santuaren -): B, 40.
- Zuhaitza: TO 52,1.
- Zuzendaritza (izpirituala): A, 311.
- Zuzia: C, 46.

IZENEN AURKIBIDEA

Teresa Lisieuxkoa, edo Teresa Jesus Haurrarena... Jainkoa..., Jauna... Kristo... ez dira agertzen aurkibide honetan (baina bai Jesus).

- Abadia, L. 922.
Abraham 421, 433, 525.
Abramin 792, 798-802, 806-810.
Acard, August 1009, 1119.
Adan 188.
Adonai 822-825.
Afrika 14, 515, 523.
Afrikako Misioetako seminarioa 478.
Ahias 978.
Aimable (izena) 1089.
Aimée Jesusena, ahizpa 162, 167, 222, 1014, 1027, 1066, 1119.
Aines Jesusena, Ama ik. Martin, Paulina.
Aines santua 26, 138, 183, 188, 201, 271, 276, 288, 313, 344, 370, 410, 439, 445, 510, 605, 606, 830.
Aingeru Begiralea, Aingeru Zaintzailea.
Aingeru Guardakoa, ik. Aingeru Zaintzailea.
Aingeru Jagole Santua, ik. Aingeru Zaintzailea.
Aingeru Mendekatzaile 697.
Aingeru Santuen Alaba 22.
Aingeru Santuen Elkarte 23.
Aingeru Zaintzailea 108, 639, 712, 840, 841, 859.
Aingerua (Aurpegi Sainduaren -) 709, 712, 714, 715, 718, 721.
Aingerua (Berpiztearen -) 722.
Aingerua (Eukaristiaren -) 709, 717, 722.
Aingerua (Jainkoaren -) 716.
Aingerua (Jesus Haurraren -) 709, 713-715, 718, 720.
Aingerua (Jujamenduko -) 680, 709, 718, 719, 723, 724.
Aita Santua 182.
Aita Zuriak 226, 510, 1120.
Akab 457.
Akesolo, Lino 57.
Alaterre, Aita 1016.
Alemania 832, 839.
Alençon 19, 23, 24, 26, 34, 64, 66, 82, 83, 67, 69, 97, 111, 112, 151, 166, 263, 298, 526, 925, 936, 1122, 1124, 1126, 1127, 1128, 1129; Andre Mariaren eliza 19, 526, 1121; dukea 727, 729, 730, 732, 733, 738, 739, 742, 743; Klaratarrak 112, 1126; Pavillon Sainte-Thérèse kalea 72; Prefektura 70; Saint-Blaise kalea 19, 1127.
Alexander santua 187.
Alexandria 1128.
Alexis, aita ik. Prou.
Alfontso M. Liguori, santua 1099, 1101.
Alger 226, 510.
Aminadab 417.
Amorebieta 57.
Amram (Moisesen aita) 86.
Ana Bihotz Sakratuarena, ahizpa 1170.
Ana Jesusena (Lobera), Ama 36, 180, 181, 618, 1010, 1027, 1119.
Anne d'Auvray santua 378, 402.
Antonio Padukoa, santua 135, 529, 919.

- Antonio, Aita 832.
 Argentan, P. d' 324, 333, 335.
 Ariel 823.
 Ark 755.
 Arkimedes 232.
 Armand 1091.
 Arminjon, Charles (kalonjea) 25, 96, 118, 231, 292, 295, 322, 362, 366, 409, 528, 1069, 1080, 1081, 1148.
 Arostegi, Luis 4, 17.
 Asia 475.
 Asis 26, 142, 274; Santa Ainesen monastegia 142.
 Asmodeo 815, 823, 824.
 Astaroth 822, 823 (Aztarot).
 Atutxa, Aita Sebastian 57, 887.
 Auguste 1092, 1094.
 Augusti, Estebe (anaia) 831-840.
 Augustin santua 62, 106, 188, 232, 280, 400, 464, 510, 511, 521, 558, 877.
 Auray 404.
 Auteuil 27.
 Auvergne 474.
 Aveyron 1106.
 Avignon 1126.
 Avrigny, d' 480, 757.
 Aztarte 823.
- Baal 457.
 Baal Zebub 822-824.
 Babelgo dorrea 144.
 Babilonia 322, 324, 401, 409, 430, 536, 870.
 BAC 896, 1007.
 Baillon, Eujen-August, apaiza 31, 501, 1120, 1070.
 Baiona: Elizbarrutia 9.
 Baleriano 543-545.
 Baleriano txikia (Zelina) 1030.
 Balkan 254.
 Bar-le-Duc: Saint-Paul imprimategia 42, 54, 1080, 1148, 1150.
 Baraiazarra, Luis 4, 17.
 Barbara santua 830, 839-841.
 Barthélemy andrea 512.
 Bartolome santua 183.
 Baudouin-Croix, Maria 1139.
 Baudricourt 698, 728.
 Bayeux 26, 125, 127, 130, 526, 555, 1120; Bayeux eta Lisieux-ko apezpiku 14; Beditarrak 29, 361, 1123; elizbarrutia 26, 43, 130, 1122, 1129; gotzaina 42; katedrala 128.
 Beauchesne 1149.
 Beauregard jauna 1089, 1090.
 Beaurevoir 745.
 Beauvais-ko apezpikua 727, 745-748, 752, 755, 757.
 Belen (Palestina) 393, 657.
 Bellière, Moris 36, 39, 40, 183, 226, 227, 233, 242, 465, 466, 471, 478, 479, 483-485, 490-494, 507, 508, 510-512, 514, 515, 519-529, 582, 692, 759, 815, 828, 849, 865, 927, 957, 978, 983, 1006, 1015, 1103, 1105, 1120, 1131, 1170.
 Belloc 85.
 Ben-Oni 334.
 Benedikta Gurutzekoa (Edith Stein), dohatsua 13.
 Benidikto XV 43.
 Benoît, Auguste 1129.
 Benoît, Felix 287.
 Berchmans, Joan, santua, 829.
 Beresinako Umezurtza 174, 283, 299, 355, 555.
 Bernardo santua 414, 540, 1087.
 Beronika santua 334, 337, 620, 715, 1002, 1174.
 Bertrand andrea 1092, 1093, 1096.
 Bertrand jauna 1092.
 Bertrand, Claire ik. Jenofa Santa Teresarena, ama.
 Bertrand, Jules 1090, 1091.
 Bertrand, Klara 986.
 Besse de Larzes, Alfred 119.
 Betania 34, 35, 106, 428, 671, 678, 680, 767.
 Bibli Eskola Jerusalemen 30.
 Bilinski, Joan, 839.
 Biton, L.-J. 1022.
 Blanche, A. de 829, 832, 839.
 Blino, Laurentz, aita 28, 29, 164, 1120.
 Boileau 472.
 Bologna 26, 135, 925; Santa Katalinaren gorputza 135.
 Bollandistak 406.
 Bon Sauveur ospitala, ik. Caen.
 Boniface 1091.
 Bordel 1126.
 Bosra 347, 714.
 Bouix, Marcel 185, 786, 833.

- Boul, Paul-Albert 19, 22.
 Bourbonne apaiza 941.
 Boureau, Maria Ana Fania 1115.
 Bro, Bernard 12, 1149.
 Broquette-Gonin fundatzioa 11.
 Brottier, Daniel, dohatsua 13.
 Bruxelles 1080.
 Buissonnets ik. Lisieux
 Bulletin du Sacré-Coeur 491.
 Burin, Maria 1105.
- Cadéot, Robert 151, 1148, 1149.
 Caen 25, 28, 31, 36, 154, 164, 318, 321,
 325, 363, 369, 378, 379, 388, 396, 424,
 426, 1123; Bisitazioa 25, 27, 32, 33, 35,
 42, 44, 63, 121, 147, 151, 242, 263,
 278, 346, 389, 405, 406, 416, 430, 431,
 433, 526, 554, 1126; Bon Sauver-eko
 lekamea 1120; Bon Sauveur (Salbatore
 sendaetxe) 28, 30, 36, 153, 154, 226,
 318, 325, 1030, 1126; botika 31; karmel-
 darrak 406; koartela 465; La Néele medi-
 kuaren farmazia 371; magistratua 287.
- Calais 257.
 Calais, Maria 24.
 Calvados (hiria) 249, 1128, 1129, 1131.
 Camus 326.
 Canisius ik. Pedro Canisio.
 Carmel (aldizkaria) 92, 193, 1069, 1076,
 1078, 1080.
 Carmel, Ed. du 13.
 Castel, Ana 219.
 Castel, Maria Luisa 645.
 Cavée, rue de la (Trouville-n) 25.
 Cerf (Éd.) 11, 218, 560, 610, 862, 896.
 Cerf /DDB (Éd.) 4, 9, 16, 56, 884, 1145,
 1146, 1147, 1149, 1150.
 Chalet des Lilas 25.
 Chagall, 651.
 Challet, Jean 4, 17.
 Chambéry: katedrala 118, 1080.
 Chantal santua 406.
 Charriton, Pierre 4, 17.
 Chateaubriand, F.-R. 137.
 Chaussée, rue de la 28.
 Chérancé, P. de 131.
 Chéron, Henri 23, 31.
 Chinon 698, 725, 727, 729.
 Claudel, Paul 113.
 Clodion jauna 498.
- Cochain andrea 108.
 Colombe etxea 24.
 Colombe, Alexander 1120.
 Colombière, aita 491, 1105.
 Combes, André 11, 44, 56, 237, 240, 850,
 884, 1069, 1145, 1149.
 Compiègne 743; Karmel 37; karmeldar
 martiriak 34.
 Corneille, Pierre 208.
 Cornière, Alexander (sendagilea) 37, 40,
 162, 457, 498, 518, 885, 909, 918, 919,
 923, 924, 929, 957, 958, 961, 970, 1004,
 1009, 1014, 1019, 1022, 1056, 1120.
 Cornière, Jose, apaiza 423, 1120.
 Cosseron, Maria 1120.
 Costard, Maria Adelaida, ahizpa 1120.
 Coutances 369; apezpikua 132; elizbarrutia
 26, 130, 273; Karmel 1122.
 Crisogono, aita 896.
- Dabid (erreg.) 197, 221, 324, 736, 802, 873.
 Dabid jauna 28, 294, 295, 297, 1123.
 Dagorau andrea, 66.
 Dagorau, Armandine 66.
 Daniel-Rops, 13.
 Daurignac, J.-M. 902.
 David, F. 981.
 Davy de Virville, Maria Adela Rosalia
 1124.
 De Meester, Conrad 213, 862, 1147, 1149,
 1150.
 Deauville 24, 253, 1120.
 Delatroëtte, Jan Batista 26, 34, 36, 125, 147,
 166, 276, 277, 385, 430, 470, 1070,
 1102, 1124, 1129, 1120, 1170.
 Délivrande (La) (Calvados), 403; elizbarru-
 tia 1123; Délivrande-ko gure Ama 468,
 510.
 Denis de Maroy, Jose apaiza 41, 1014,
 1120.
 Déodat de Basly, aita 31, 32, 1120.
 Desbuquois, aita 14.
 Descouvemont, Pierre 11, 96, 218, 560,
 610, 1147, 1149.
 Désiré, Maria 397.
 Dillingen, 832.
 Dimas 792, 798, 799, 801, 803, 805-811.
 Dolci, Carlo 1087.
 Domin, Amelia 1120.

- Domin, Luis Biktor, apaiza 23, 100, 104, 331, 353, 1071, 1072, 1073, 1120, 1121.
 Domingo santua 232.
 Domitia santua 249.
 Domremy 699, 731, 745, 1079.
 Domremyko artzaintsa, ik. Germana.
 Donibane (San Joan) 540, 661.
 Douniol 902.
 Douvres 24, 257.
 Ducellier, Alzid apaiza 21, 35, 78, 958, 1121.
 Duchesne, apaiza 1093.
 Dulys jauna 1094.
 Dumaine, Luzien Biktor 19, 1121.
 Dunois kondea 736.
 Dupanloup jauna 381.
 Dupont jauna 856.
 Durmerin, Teresa 339, 722, 865.

 Ediciones El Carmen 4.
 Edom 347, 714.
 Egipto 564, 678, 791, 793, 796, 804, 809;
 Egiptoko tipulak 525.
 Eguberri 677-679, 707, 777, 778, 780, 782, 783, 785, 786, 897, 964, 974, 1063, 1076, 1077.
 Eifel dorrea 29.
 Elias profeta 103, 158, 185, 457, 812, 1135.
 Elisabet (Maria-), ahizpa 30, 1121, 1125.
 Elisabet santua (Hungariakoa) 270.
 Eliseo santua 185, 806, 1135.
 Emaus 614.
 Engaddi 350.
 Enguchard, Modeste 1071.
 Ercoli, Rena 1150.
 Erroma 26, 40, 43, 133, 136, 138, 141-143, 182, 195, 208, 267, 272, 274, 276, 283, 296, 298, 299, 307, 337, 361, 367, 526, 542, 555, 655, 705, 749, 757, 824, 831, 832, 834, 835, 841, 874, 1014, 1128, 1129, 1130, 1147, 1150; Aines santuaren eliza 138; Apia bidea 137; frantziskotarrak 926; Jerusalemgo Gurutze Santuaren eliza 143; Katakunbak 137, 577; Koliseoa 26, 136, 567.; San Kalisto katakunba 137.
 Erromarako bidaia 125, 130, 147, 151, 299, 576.
 Errosario Santuaren Kofradia 23.
 Errusia 43.
 Errusiako Tsar 1005.
 Espainia (-ko Karmel) 678.
 Espainia 831.
 Espiritu Santua 12, 14, 103, 195, 231, 286, 462, 510, 517, 523, 544, 808, 850, 967, 979.
 Etchegaray, Roger kardinala 10, 16.
 Europa 14.
 Euskal Herria 9.
 Evreux 1123.

 Faber, Aita 342, 472, 792, 793, 796, 798.
 Fabiola 874.
 Famili santua (Martin familia, gurasoak) 793.
 Familia Santua 135, 529, 529, 792, 803, 812, 948, 988, 1010, 1085.
 Faraon 213.
 Faucon, Pierre, apaiza 41, 1121.
 Fauquet, Reine 42.
 Faure, Félix, errepublicako presidentea 35.
 Favre, Pierre 836.
 Fayard 1149.
 Febronia Haurtzaro Santuarena, ahizpa 24, 150, 162, 1121.
 Filistinoak 736.
 Filomena Sortzez Garbiarena, Ama 411, 494, 1121.
 Fleuriot jauna 1143.
 Florentzia 26, 143, 274.
 Florentzia: Pazzi-ko Santa Madalena 143.
 Foucauld, Charles 113.
 Fournet, Elisa 294, 338, 404, 405, 407, 428, 1121.
 Fournet, Maria (Maudelonde andrea) 1127.
 Fournet, Pier-Zelestin 1121.
 Fournet, Zelina 1115, 1116.
 Fournetarrak 1129.
 Fourvières 26, 144.
 Frantzia 14, 42, 44, 97, 144, 145, 162, 180, 226, 265, 268, 452, 467, 490, 492, 546-548, 556, 687, 689, 690, 695, 699, 701, 702, 704-706, 725-728, 730, 734, 737, 745, 756, 762-765, 898, 968, 1005, 1078, 1120, 1128, 1129; Akademia 45; apezpikuek 14; Karmeldegiak 488, 831; Frantzia eta Nafarroako Erregea (Luis Martin) 82, 83, 130, 299; Frantzia eta Nafarroako Erregina (Teresa Martin) 287,

- 293, 296, 298, 311, 312; Frantziako Misionaren fundazioa 44.
- Frantziska Teresa, ahizpa, *ik.* Martin, Leonia.
- Frantzisko Asiskoa, santua 131, 142, 187, 232, 488, 777, 919.
- Frantzisko Borgia, santua 830-838.
- Frantzisko Saleskoa, santua 156, 326, 470, 818, 1100, 1101.
- Frantzisko Santa Mariarena, 11, 44, 49, 52-54, 56, 57, 239, 884, 1069, 1145, 1147.
- Frantzisko Xabierkoa, santua 9, 12, 38, 43, 510, 836, 842.
- Frantziskotarren Hirugarren Ordena 529.
- Gabriel Arkanjelua 725, 727, 750, 751, 757.
- Galilea 393, 1107.
- Gandiako dukea *ik.* Frantzisko Borgia santua.
- Garaipenen Andre Maria 23, 37, 39, 94, 95, 123, 201, 330, 507, 621, 877, 905, 973, 1103, 1128.
- Garate, aita Nartziso 57.
- Gasteiz: Karmeldarren probintziako artxi-boa 887.
- Gaucher, Guy 14, 1149.
- Gaucherin andrea 72.
- Gayral doktorea 92.
- Gema Santua 867.
- Gennin 927.
- Genoa 26, 144, 287.
- Gerenabarrena, Aita Honorio 57.
- Germain, Coutances-eko apezpikua 132, 273.
- Germana (Domremyko artzaintsa) 681-683, 686, 687, 700, 701.
- Gertrudis santua 595.
- Getsemani 433, 592, 726.
- Gicquel, J. 871.
- Gilbert, Leonia 1121.
- Gilbert, Pierre 297.
- Gilbert, Teresa 297, 1121.
- Glaire 185.
- Glos (Lisieux-tik 5 km-ra) 1074.
- Godefroid, aita *ik.* Madelaine, Godefroid.
- Golgota 317, 503.
- Goliat 736.
- Gorpuzti eguna 103, 256.
- Grand-Saint-Bernard 1126.
- Grente, Kardinala 11, 45.
- Grogny (Sarthe) 69, 1080.
- Guubioko Otsoa 777.
- Guéranger, Dom 80, 187, 542.
- Guérin andrea (Zelina Fournet) 21, 28, 93, 110, 240, 242, 248, 249, 253, 258, 263, 265, 269, 270, 294, 295, 302, 304-308, 320, 321, 335, 337, 338, 363-366, 373, 374, 380, 381, 395, 396, 404, 405, 409, 423, 428, 433, 434, 437, 457, 458, 472, 489, 490, 681, 1006, 1031, 1121, 1122, 1123, 1170.
- Guérin familia (Guérindarrak) 23-25, 28, 29, 31, 32, 34, 37, 40, 84, 85, 91, 92, 154, 241, 242, 252, 265, 269, 297, 361, 376, 423-425, 507, 679, 681, 817, 882, 918, 1004, 1120, 1123, 1126, 1127.
- Guérin jaun-andreak 75, 338, 339, 381, 382, 406, 407, 411, 435, 517, 518, 523, 671, 1170.
- Guérin jauna (Isidor) 21, 26, 27, 32, 40, 75, 88, 123, 124, 147, 152, 157, 258, 266, 267, 279, 294, 304, 396, 405, 816, 817, 1006, 1127.
- Guérin lengusinak 85.
- Guérin, Isidor (Aitona) 1115.
- Guérin, Isidor 1116, 1121, 1122, 1123, 1170.
- Guérin, Joana (La Néele andrea) 25, 30, 36, 37, 75, 87, 90, 92, 110, 147, 159, 253, 256, 258, 262-265, 268, 272, 286, 295, 298, 304, 306, 321, 335, 336, 340, 342, 363, 371, 372, 377, 378, 396, 402, 403, 435-437, 456, 473, 517, 523, 635, 1006, 1116, 1119, 1122, 1123, 1170, 1171.
- Guérin, Joana eta Maria 1170.
- Guérin, Luisa Joana 1115.
- Guérin, Maria (Ahizpa Maria Eukaristiairena) 22, 29, 30, 35-37, 39, 40, 41, 75, 87, 89, 90, 108, 110, 147, 206, 216, 241, 242, 248, 252, 253, 255-257, 258, 261-265, 268-272, 274, 275, 286, 287, 294, 295, 297, 298, 303, 304, 306, 321, 324, 325, 329, 330-332, 335, 336, 339, 340, 344, 345, 347, 348, 349, 363, 368, 371, 377, 378, 396, 398, 408, 418, 422, 432, 434-437, 458, 472, 502, 503, 518, 529, 573, 587, 588, 643, 667, 668, 671, 778, 824, 882, 933, 939, 984, 997, 1006, 1027, 1060, 1061, 1116, 1119, 1122, 1124, 1148, 1149, 1170, 1175.

- Guérin, Maria Luisa (ahizpa Maria Dositea) 250, 253, 399, 1115, 1122, 1125.
 Guérin, Zelia ik. Martin andrea.
 Guitton, Jean 51, 1149.
- Haguenau 645.
 Hanoi 475, 487, 641, 897; Karmel 488.
 Haurtxo Errugabeak (santuak) 201, 634-636, 830, 874.
 Havre 23, 25, 27, 152, 301, 1127; Erakusketak 263.
 Henriette andereñoa 681.
 Henriette, Ama (Parisko Karmelgoa) 648, 649.
 Hermance Jesusen Bihotzarena, ama 985, 986, 1005, 1049, 1122.
 Hermes 823.
 Herodes 425, 711, 715, 791, 795, 797, 807, 808, 855.
 Hirutasun Santua 33, 40, 113, 120, 170, 174, 187, 438, 443, 509, 627, 793, 838, 856, 861, 863.
 Holmes 779.
 Honfleur 25, 28, 152.
 Horace 208.
 Horeb mendia 103.
 Houdayer, Jules 1127.
 Houlgate (Calvados) 249.
 Hubert, Maria (Félicité) 258, 1122.
 Hugo, Biktor 645, 1032.
 Hugonin, Flavien (Bayeux eta Lisieux-ko apezpikua) 23, 26, 31, 42, 103, 125, 127-130, 145, 146, 152, 153, 156, 271, 275, 276, 279, 1122, 1170.
 Hungaria 270.
 Husé, Marzelina (ahizpa Maria Jose Gurutzekoa) 29, 269, 304, 361, 1123, 1171.
- Ibai Urdina 485.
 IHS 435.
 Inazio Antiokiakoa, santua 976.
 Indotxina 38; Karmeldarrak 171.
 Iribarrearen Ama Birjina 922, 1000.
 Isabeau 683.
 Isabel Hirutasunarena, dohatsua 13.
 Italia 129, 130, 134, 141, 144, 274, 293, 296, 528; erregea 824.
 Itxaropena, S.A. 4.
 Itzaina, Michel 4, 17.
 Izarn 798, 799, 801, 807, 810.
- J.L. 16.
 J.M.J.T. 61, 283, 287-289, 291, 292, 294-298, 300-313, 317-320, 322-325, 327-329, 331-345, 347, 348, 350-352, 354-357, 361-368, 370, 371-374, 376-381, 385, 386, 389, 391, 392, 394, 395, 397, 398, 400, 402, 404-410, 412, 413, 415, 416, 419, 420, 423, 424, 426-431, 433, 435, 437, 438, 444, 449, 451, 452, 455, 457, 458, 460, 461, 463, 465-467, 472, 473, 475, 478, 480-483, 489, 490, 493, 498, 500-502, 504-507, 510, 513, 514, 516-519, 522, 523, 527, 539, 561, 563, 587, 589, 608, 613, 625-627, 629, 681, 672, 707, 725, 791, 815, 829, 860, 865, 1088, 1089, 1093, 1100, 1101, 1102, 1105.
 Jakob 536, 627.
 Jakot 1092.
 Jansenismoa 680.
 Jazinto santua 987.
 Jean D'Aulon 727, 735-737, 740, 747.
 Jenofa Santa Teresarena, ama (Lisieux-ko Karmelgo fundatzailea) 22, 31, 35, 74, 148, 160-162, 164, 370, 376, 385, 444, 818, 899, 945, 986, 1070, 1088-1098, 1102, 10109, 1123, 1178.
 Jenofa santua 300, 439.
 Jeroboan 978.
 Jersey (hiria) 1102.
 Jerusalem 30, 143, 153, 421, 425, 470, 658, 799, 937.
 Jesus 12, 25, 31, 33-38, 61-63, 74, 79, 83, 85, 90, 95, 96, 98-103, 105, 106, 114-120, 123-126, 129, 131, 135, 139, 141, 144-146, 148, 150, 151, 153, 154, 157-161, 163, 165-168, 170, 171, 173, 174, 176, 178-189, 194-196, 199-206, 209, 211-216, 219, 220, 226, 227, 229-232, 242, 251, 267, 272, 273, 275, 278, 279, 284, 286, 288-292, 296, 297, 300, 301, 303-305, 307-314, 317-347, 349, 350-358, 361-381, 385-395, 397-433, 435-442, 444, 445, 449, 451-457, 459-472, 474, 476-485, 488-494, 496, 497, 499, 500, 502-507, 509-512, 514-527, 539-545, 549, 550, 552, 554, 556-558, 562-568, 570-573, 576, 578-588, 590-604, 606-609, 611, 612, 614-616, 618-633, 637, 638, 640, 644, 647-649, 652, 653.

- 656-661, 664, 665, 671, 673, 677-680, 682, 685, 686, 694-697, 703, 707-722, 726, 738, 750-752, 755, 764, 765, 767-776, 778, 780-788, 790, 793-796, 805-812, 821, 828, 830, 831, 839, 841, 842, 849, 850, 854-856, 858, 859, 861, 863, 864, 865, 867-872, 876, 877, 896, 913, 915, 950, 960, 970, 974, 988, 1014, 1022, 1030, 1031, 1037, 1041, 1059, 1072, 1073, 1074, 1077, 1078, 1083, 1084, 1085, 1086, 1088, 1099, 1100, 1101, 1105, 1107, 1147, 1173, 1174, 1175, 1179.
- Jesus Haurra 707, 709, 712-715, 719, 723, 777, 784, 787, 788, 790, 807, 810, 831, 850, 866, 871, 872, 929, 930, 934, 949, 950, 951, 953, 955, 973, 975, 977-982, 984, 987, 988, 1003, 1010, 1031, 1061, 1062, 1088, 1101, 1131.
- Jesusen Bihotz Sakratua 1073, 1074.
- Jesusen Lagundia 829-832, 834, 836, 837, 840, 842.
- JMJ 1106.
- Joakin santua 990.
- Joan XXIII. 237.
- Joan Berchmans, santua 829.
- Joan Gurutzakoarena, ahizpa 995.
- Joan Gurutzekoa, santua 12, 29-31, 92, 93, 96, 101, 105, 113, 117, 118, 120, 153, 154, 158, 163, 164, 168-170, 174, 177-180, 183, 185-188, 201, 211, 222, 226, 230, 232, 318, 322, 348-350, 379, 387, 389, 391, 395, 409, 442, 450, 451, 486, 508, 544, 557, 570, 571, 573, 574, 577, 579, 581, 582, 583, 594, 605, 610, 612, 614, 629, 635, 638, 653, 761, 772, 789, 819, 821, 723, 849, 854, 855, 861-863, 869, 871, 872, 886, 896, 953, 964, 971, 980, 1002, 1005, 1070, 1088, 1098, 1099, 10100, 1119, 1120, 1148, 1167, 1169.
- Joan Paulo II 13, 14, 45, 1121.
- Joan santua (apostolua) 183, 673, 771, 960.
- Joana (Kusaren emaztea) 1107.
- Joana Ark-ekoa, santua 33, 35, 39, 44, 51, 97, 183, 201, 439, 450, 480, 490-492, 510, 546, 547, 548, 643, 647, 648, 678-706, 725-765, 788, 791, 792, 815, 819, 823, 827, 830, 850, 873, 874, 882, 907, 946, 953, 976, 1079, 1084, 1177.
- Joana Chantal, santua 33.
- Joana Frantziska, ama 415.
- Job 354, 396, 923, 969.
- Jonathas 1109.
- Jogand-Pages, Gabriel *ik.* Leo Taxil.
- Jordan 806.
- Jose Kuperniko santua 1029.
- Jose santua 39, 123, 132, 135, 442, 485, 493, 510, 566, 575, 659, 596, 657, 665, 672, 711, 792-796, 803-810, 876, 912, 948, 965, 1033, 1034, 1065, 1070, 1077, 1078, 1101.
- Josepa Saleskoa, ahizpa (Luisa Gasse) 413.
- Judit 739, 974.
- Kaifas 741.
- Kalbarioa 571, 592, 605, 620, 614, 660, 751.
- Kalinowski, Rafael santua 13.
- Kamilo 208.
- Kana 145, 420, 660.
- Kanada 23, 24, 28, 32, 150, 159, 240, 257, 301, 344, 420, 555, 1128.
- Kardinal-Grente saira 45.
- Karlos V 831.
- Karlos Borroneo, santua 134.
- Karmel (beste komento bat) 218, 227.
- Karmel (Mendia, Ordena...) 174, 356.
- Karmel aldizkaria 57.
- Karmel Mendia (Lisieux-ko Karmel) 374, 477.
- Karmel Mendia 63, 147, 150, 160, 356, 443, 525, 557.
- Karmel Mendiko Andre Maria 40, 419, 551, 552, 1131.
- Karmel Ordena 56, 167, 824, 865.
- Karmelgo bokazioa 131.
- Karmelgo erreforma 131.
- Karmelgo Erregela 560, 643, 1138.
- Karmengo Ama 928, 939, 1025.
- Karmengo Ordena 1138.
- Katalina santua (Bolognako) 915.
- Katalina santua 682, 683, 688, 689, 691-695, 697, 701, 703, 704, 727, 732, 734, 745, 753-755, 757, 760, 816, 976, 1084.
- Katalina Sienekoa, santua 851.
- Kattalin Ark-ekoa 683-687, 700-703.
- Klara, Santua 142.
- Kolbe, Maximiliano, santua 13.
- Kolon, Kristobal 199.
- Kolonia 349.

- Konstantinopla 24, 110, 1074, 1076.
 Kontxintxina 487, 494.
 Kostka, Joan 832.
 Kostka, Paulo 839.
 Kouy-Fou 486.
 Krispin, santua 925.
 Kristobal santua 393.
 Krug pintorea 33.
- L'Univers (egunkaria) 42, 142, 816.
 La Croix (egunkaria) 25, 116, 815.
 La Fontaine 110, 213, 959.
 La Musse (gaztelua) 28, 29-32, 34, 37, 264, 297, 332, 376, 423, 424, 432, 458, 577, 918, 927, 1120, 1122, 1123, 1126.
 La Néele andrea ik. Guérin, Joana.
 La Néele jaun-andreak (Frantzisko eta Joana) 378, 423, 424, 428, 434, 625.
 La Néele lengusinak 424.
 La Néele, Frantzisko, sendagilea 30, 31, 34, 37, 41, 159, 363, 371, 396, 402, 435, 456, 458, 473, 517, 523, 625, 627, 962, 1001, 1006, 1008, 1012, 1116, 1122, 1123, 1171.
 La Salette 754.
 Labaye, Victor 1122, 1123.
 Lagrange, M.-J 13, 30.
 Lamartine, A. 109, 441, 548, 549, 581, 645, 653.
 Lamennais, F.-R. 169, 322, 324, 822, 922.
 Landriot, Mgr 187.
 Larrea (Amorebieta) 57.
 Latrango hitzarmena 824.
 Laurentin, René 1149.
 Lazaro (Martaren nebea) 145, 425, 1075.
 Lazzareschi 817.
 Le Normand (egunkaria) 816, 1122.
 Lecouturier, Joséphine ik. Maria Gizakundearena.
 Lechêne (Lechesne), Biktork apaiza 457, 1123.
 Legoux, Coutances-eko bikario nagusia 142.
 Lemaistre de Saci 743.
 Lemmonier, Armand (Bayeux eta Lisieux-ko apezpikua) 42, 56, 861.
 Lemonnier, Armand Aita 33, 34, 36, 187, 403, 1123.
 Leo Taxil (Gabriel Jogand-Pagès) 39, 198, 647, 815, 817, 819, 822, 824, 1123, 1146.
 Leon XIII 26, 30, 129, 137-141, 143, 145, 157, 173, 270-274, 352, 361, 482, 555, 528, 705, 816, 1014, 1104, 1113, 1129.
 Lepelletier, Luis 350, 1124.
 Leriche andrea, Ana Frantziska (Burin) 73, 1115.
 Leriche, Adolfo 1116.
 Lethielleux 1149.
 Lilas etxea (Trouville-n) 24.
 Lion 425.
 Lisieux 14, 21, 24-26, 32-34, 43-45, 75, 87, 110, 116, 129, 130, 133, 145, 248, 253, 256, 265, 267, 269, 274, 275, 363, 380, 397, 425, 435, 524, 829, 925, 1064, 1073, 1111, 1117.
 Lisieux: Abadia, beneditarrak (Abadia Notre-Dame-du-Pré) 22, 23-25, 44, 85, 88, 99, 100, 107-109, 353, 1071, 1119, 1121, 1122, 1127, 1129, 1130; auzitegiak 29; basilika 43, 44; Beneditinarren kapilaua (Domin) 353; Buissonnets 21, 23, 25, 27-29, 53, 64, 75, 76, 85, 86, 91, 107, 111, 112, 114, 115, 124, 147, 156, 256, 261, 263, 264, 269, 283, 299, 311, 321, 324, 325, 328, 474, 475, 555, 874, 903, 924, 1069, 1071, 1122, 1126; Bulego Nagusia 1145; elizbarrutia 1122; Gau-Adorazioa 1122; hilerria 41; Irribarrearen Andre mariaren irudia) 850; Jardin de l'Etoile 75; Jondone Petriren katedrala 21, 28, 78, 671, 962, 1121; Karmel 11, 15, 22-32, 35-38, 41-44, 49, 56, 63, 64, 74, 75, 81, 89, 90, 92, 94-96, 102, 110-113, 115, 116, 120-125, 127, 129, 130, 132, 133, 138-140, 142-144, 146-148, 150-152, 154, 156, 158, 166, 173, 177, 183, 187, 197, 202, 203, 209, 210, 211, 214, 217, 238, 241, 242, 257, 262, 265-267, 270, 272-274, 276-280, 283, 284, 286, 288, 289, 291, 293-301, 303-306, 318, 320, 323, 325, 327, 328, 332, 337, 348, 352, 361, 365, 367, 370-373, 377, 378, 380, 381, 386, 387, 389, 391, 392, 394, 395, 397, 398, 402, 405, 406, 410, 411, 416, 419, 424, 425, 432, 435, 439, 444, 451, 453, 458, 465, 467, 468-470, 478, 482, 483, 485-487, 489, 490, 492-495, 510, 511, 516, 524, 526-528, 542, 551, 552, 554-558, 560, 562, 563, 566, 569, 584, 588, 591, 610-612, 623,

- 627, 631, 633, 646, 653, 654, 666, 667, 673, 677, 679, 680, 708, 739, 767, 779, 781, 782, 787, 790-812, 816, 817, 819, 824, 825, 827, 829, 831, 850, 855, 860, 861, 869, 875, 877, 885, 894, 899, 901, 907, 908, 921, 927, 929, 931, 934, 936, 939, 952, 955, 1014, 1055, 1061, 1066, 1069, 1070, 1080, 1083, 1088, 1096, 1101, 1103, 1109, 1116, 1119-1131, 1133-1144, 1148, 1176; Karmel: Alexis santua 1140; Karmel: Ama Sortzez Garbiaren irudia 1140; Karmel: Avilako Teresa santuaren irudia 1140, 1143; Karmel: Elias santuaren klaustroa 1144; Karmel: Elias santuaren klaustroko eskailera, 1144; Karmel: Eliseo santua 1144; Karmel: Irriaren Andre Mariaren irudia 1143; Karmel: Jose santuaren irudia 1141; Karmel: Karmel Mendiko Andre Mariaren irudia 1140; Karmel: Lourdesko Andre Maria Eritegia 1140, 1142, 1143; Karmel: Maria Madalena ermita 29; Karmel: Madalena santuaren harpetxo 1141; Karmel: Mariaren Bihotzaren irudia 1141; Karmelgo kape-ra 21, 256, 457; Karmelgo klaustroko Jesus Hauraren irudia 327; Karmelgo sakristaua 29; Karmel: San Alejoren gela 937; Karmel: San Jose eliza (ermita) 901; Labbey kalea 397, 409; Pont-l'Évê-que 86; Providence 1120; Saint-Jacques 125, 129, 1120, 1128; Saint-Pierre 1121, 1123, 1124; Saint-Pierre plaza 75, 1122.
- Lo-li 1106.
 Lobera, Anjel 4, 17.
 Loigny 182.
 Loose, Helmuth Nils 11, 96, 1147.
 Loreto 26, 135, 138, 272, 793.
 Lorraine 719.
 Lorrrenako (neskatoa) 682.
 Louise S.W. 85.
 Lourdes 14, 21, 29, 34, 342, 343, 344, 419, 764, 1021.
 Loyson, Hyacinthe Aita 31, 41, 367, 369, 781, 987.
 Luc 425.
 Luçon: Karmel 861.
 Luis Erregea, santua 821.
 Luis Gonzaga santua 211, 510, 815, 828, 898, 902, 903, 911, 915.
 Luis Santua 254, 287, 699, 745, 996.
 Luis XVII 1022.
 Luisa Jesusena, ahizpa (Lisieuxko Karme-le-koa) 875.
 Luisa Madalena 21, 247, 1171.
 Luther 830.
 Luzifer 690, 815, 821, 822, 823, 824, 825, 826, 871.
 Lyon 26, 299, 1118.
 Macé, Luisa Joana 1115.
 Madalena ahizpa 162.
 Madalena Espiritu Santuarena 896.
 Madalena Jesusena ahizpa 55.
 Madalena Sakramentu Santuarena, ahizpa 31, 162, 951, 1124.
 Madalena santua, *ik.* Maria Madalena.
 Madelaine, Godefroid aita 30, 37, 875, 1124.
 Madeluche 1095.
 Madrid 896, 1007.
 Magoen (adoratzea) 1087.
 Maison-Carrée 510.
 Malawi 226.
 Malharin, Jeanne Marie 4, 17.
 Mans 20, 248, 250, 399, 412, 415, 431.
 Mans: Bisitazioa 867.
 Mans: Bisitazioa 65, 66, 67, 156, 412, 1115, 1122, 1126, 1131.
 Marais, Luisa 69, 71, 72, 74, 1124.
 Margarita 1095, 1096.
 Margarita Maria Alacoque, santa 178, 267, 362, 369, 399, 427, 491.
 Margarita Maria Bihotz Sakratuarena 36, 37, 1124.
 Margarita santua 688, 689, 693, 695-697, 701, 703, 704, 727, 732, 745, 746, 757, 760, 1105.
 Margarita santua, Eskoziako erregina 693.
 Margarita, Ama (Parisen) 914.
 Maria (Andre Maria) 12, 23, 29, 38, 39, 41, 61, 77, 79, 91, 94, 95, 102, 108, 109, 111, 123, 124, 132, 135, 145, 153, 156, 159, 160, 163, 167, 173, 174, 180, 193, 201, 203, 220, 257, 292, 304, 305, 329, 330, 340, 343, 344, 353, 356, 369, 379, 393, 399, 419, 438, 440-442, 445, 466, 468, 473, 476, 477, 479, 484, 493, 496, 499, 502, 510, 515, 516, 539, 540, 541, 550-552, 557, 558, 560-566, 573, 575,

- 577, 582, 584, 588, 590, 592, 595, 596, 598, 604, 606, 618, 621, 622, 635, 642, 645, 646, 653, 655-661, 677, 679, 682, 683, 685-688, 695, 696, 711, 719, 722, 732, 738, 741, 756, 761, 764, 765, 768, 769, 771, 778, 790, 792-797, 803-811, 813, 816, 824, 828, 830, 831, 840, 841-843, 850, 853, 857-861, 865, 866, 876-878, 885, 893, 894, 905, 906, 911, 912, 914, 920, 922, 926, 929, 930, 931, 933, 941, 949, 950, 960, 970, 973, 988-994, 1000, 1002, 1006, 1008-1011, 1022, 1024-1026, 1036, 1041, 1042, 1048, 1050, 1064, 1065, 1073, 1075, 1076, 1077, 1099, 1101, 1102, 1104, 1174, 1178.
- Maria (Andre Maria): Doloretako Andre Maria 347, 1087.
- Maria (Buissonnets-eko neskamea) 269.
- Maria (Martaren ahizpa) 145, 426, 558, 767, 768.
- Maria (Jakes / Santiagoren ama) 1106.
- Maria Aines Aurpegi Santuarena ik. Maria Hirutasunarena.
- Maria Aingeruena eta Bihotz Sakratuarena, ahizpa (Joana de Chaumontel) 24, 32, 55, 150, 155, 157, 222, 328, 758, 936, 947, 1004, 1065, 1124.
- Maria Antonieta, ahizpa 30, 38, 1125.
- Maria Aurpegi Santuarena ahizpa 34, 337, 400, 869.
- Maria Elisabet, ahizpa ik. Elisabet.
- Maria Emanuela, ahizpa 1125.
- Maria Enriketa, ama (Parisko Karmel-ekoa) 1062.
- Maria Espiritu Santuarena, ahizpa 818, 820, 821, 827.
- Maria Eujen Jesus Haurarena, aita 13, 56, 1149.
- Maria Eukaristiarena (Guérin) 1087, 1110, 1127.
- Maria Filomena Jesusena, ahizpa 38, 150, 222, 627, 639, 939, 1125, 1131.
- Maria Gizakundearena, ahizpa (Joséphine Lecouturier) 211, 566, 671, 949, 1124.
- Maria Gonzagarena, ama 22, 24, 26, 28, 31-33, 36, 37, 39, 40, 42, 49-53, 55, 89, 90, 95, 96, 148-150, 158, 164, 177, 191, 193-199, 201-205, 207-217, 219-225, 227, 228, 231, 232, 242, 250, 251, 266, 278, 279, 288, 292, 308, 310, 312, 331, 337, 344, 351-353, 362, 369, 374, 385, 396, 398, 399, 405, 411, 420-424, 428, 441, 447, 451-455, 458, 459, 461, 465, 466, 469, 471, 475, 479, 484, 486-490, 493, 497, 498, 507, 515, 519, 527, 528, 541, 556, 569, 610-612, 668, 672, 679, 768, 815, 816, 829, 831, 853, 855, 881, 882, 894, 895, 905, 908, 914, 933, 937, 938, 952, 972, 979, 984, 997, 999, 1013, 1015, 1019, 1022-1027, 1031, 1042, 1043, 1048, 1049, 1059, 1064, 1070, 1103, 1108, 1109, 1124, 1126, 1171.
- Maria Hirutasunarena eta Aurpegi Santuarena, ahizpa (Maria Castel) 34-39, 44, 158, 165, 195, 198, 203, 205, 206, 215, 216, 218, 219, 221, 232, 422, 450, 451, 477, 478, 503-506, 509, 513, 529, 559, 560, 561, 563, 586, 587, 610-613, 645, 646, 649, 653, 667, 680, 726, 768, 868, 869, 870, 876, 882, 910, 950, 955, 1017, 1022, 1061-1065, 1088, 1110, 1111, 1125, 1147, 1171.
- Maria Jesusen Bihotzarena ahizpa 372, 548.
- Maria Jesusena 222, 225, 494, 1125.
- Maria Jesusena, ahizpa (Luçon-go karmel-darra) 861.
- Maria Jose Gurutzekoa ik. Husé, Marzelina.
- Maria Madalena, santua, (Madalena, Maria) 106, 113, 136, 183, 232, 425, 426, 721, 767, 769-772, 774, 775, 858, 931, 991, 1083, 1106, 1107.
- Maria Madalena Sakramentu Santuarena, ahizpa (Melania Lebon) 33, 34, 428, 541, 542, 556-559, 671, 679, 714, 818, 819, 820, 821, 827828-831, 837, 857, 858, 891, 1125.
- Maria Madalena Pazzi-koa, santua 284.
- Maria Madalena Sakramentu Santuarena, ahizpa 32, 209, 349, 556.
- Maria Madalena santua 370, 510, 511, 522, 592.
- Maria Madalena Teresarena ahizpa 216, 217, 222.
- Maria Saleskoa, ama 399, 410, 415.
- Maria San Joserena (Salazar) 402.
- Maria San Joserena, ahizpa 36, 205, 222, 225, 460, 461, 466, 467, 474, 481, 513, 514, 608, 630, 672, 892, 937, 973, 1012, 1125, 1167, 1171.

- Maria San Pedroarena, ahizpa (Tours-ko Karmelen) 151, 473, 539, 572, 856, 859, 872, 1125.
- Maria Zezilia 935.
- Maria Luis Martin 935.
- Maria Teofan 935.
- Maria Teresa 935.
- Mariaren Alaba 24, 25, 108, 262, 304.
- Marin, Michel-Ange 1118.
- Mario, aita 24.
- Markina-Xemein 4, 18; Aita Karmeldarren artxiboa 57; Aita Karmeldarren komentua 57.
- Marseilla 26, 144, 202, 468, 1123; Guardako Andre Mari 144.
- Marta Jesusena, ahizpa 29, 30, 31, 32, 35, 40, 150, 200, 208, 214, 215, 220, 222, 314, 356, 394, 505, 514, 518, 541, 542, 551, 818, 855, 856, 863, 876, 952, 1013, 1126, 1171.
- Marta santua 35, 145, 232, 387, 425, 426, 558, 670, 676, 767, 768, 772, 773, 774, 775, 776, 891, 1047.
- Marthon 671.
- Martin ahizpak 143, 739, 1119.
- Martin amona (Maria Ana Fania Boreau) 23.
- Martin andrea, Teresaren ama (Zelia Guérin) 20, 21, 34, 64, 66, 67-69, 72, 73, 74, 88, 91, 94, 97, 109, 160, 295, 356, 386, 441, 442, 553, 1115, 1116, 1122, 1126, 1127, 1128, 1147.
- Martin familia (Martindarrak) 13, 21, 23, 27, 33, 69, 70, 77, 118, 130, 151, 202, 241, 252, 269, 410, 507, 524, 575, 836, 1120, 1122, 1124, 1128, 1148.
- Martin frailea 727, 757, 758.
- Martin, aita 43, 44.
- Martin senar-emaizeak 13, 553.
- Martin, Fanny 1116.
- Martin, Leonia (ahizpa Teresa Dositea, ahizpa Frantziska Teresa) 20, 21, 24, 25, 27-33, 35, 37, 40, 42, 44, 63, 66, 67, 69, 71, 75, 85, 91-95, 99, 100, 104, 112, 121, 147, 151, 154, 159, 188, 242, 251, 258, 263, 264, 267, 268, 278, 284, 297, 299, 320-322, 325, 327, 332, 336, 340, 342, 344, 346, 362, 363, 371, 389, 398, 399, 403-406, 409, 410, 412, 415, 416, 426, 427, 429-434, 449, 455-457, 473, 504, 512, 519, 523, 525, 526, 528, 554, 670, 881, 1006, 1009, 1036, 1065, 1116, 1119, 1121, 1122, 1126, 1148, 1171.
- Martin, Luis (Teresaren aita) 21-30, 32-34, 61, 70-73, 75-77, 79-84, 91, 97, 99, 109, 110, 114-116, 118, 122, 123, 125, 127-129, 132, 134, 135, 137, 139-141, 147, 151-153, 160, 167, 174, 241, 253-255, 257, 263, 264, 267, 277, 283-285, 287-289, 292, 293, 296, 298, 299, 301-303, 306, 307, 311-313, 317, 325, 339, 351, 356, 374, 397, 399, 423, 441, 442, 526, 527, 549, 553, 554, 695, 739, 902, 915, 924, 1030, 1070, 1074, 1076, 1077, 1098, 1108, 1115, 1116, 1120, 1124, 1126, 1127, 1128, 1129, 1148, 1171, 1177, 1178.
- Martin, Maria (ahizpa Maria Bihotz Sakratuarena) 19, 20, 23, 25, 27, 31, 33, 35, 44, 49-51, 54, 55, 64, 67, 69, 70, 72, 74, 77, 78, 80, 82-84, 87-89, 91-95, 98-100, 102, 103, 107, 109, 110-113, 121, 149, 150, 151, 175, 177-180, 187, 189, 242, 248-250, 252, 253, 256-258, 262, 266, 268, 271, 274, 277, 278, 279, 283, 285-288, 292, 293, 299, 302, 309, 310, 313, 322, 327, 329, 331, 333, 351, 352, 355, 356, 368, 386, 399, 403, 412, 420, 423, 424, 426, 434, 440, 461-465, 472, 480, 493, 494, 500, 507, 508, 525, 548, 550, 551, 553, 555, 591, 592, 593, 617, 655, 671, 678, 683, 763, 782, 816, 823, 850, 853, 861, 862, 867, 882, 887, 911, 915, 941, 944-947, 968, 974, 989, 996, 999, 1006, 1011, 1018, 1023, 1027, 1036, 1044-1049, 1054, 1059, 1066, 1076, 1116, 1122, 1124, 1126, 1128, 1129, 1131, 1171.
- Martin, Maria Elena 94, 440, 1086, 1116.
- Martin, Maria Jose Joan Batista 440, 1086, 1116.
- Martin, Maria Jose Luis 440, 1086, 1116.
- Martin, Maria Melania Teresa 1086, 1116.
- Martin, Paulina (ama Aines Jesusena) 21-23, 25-29, 32-36, 38, 39, 42, 44, 49, 50-56, 61-70, 72, 74, 75, 79-86, 88-96, 98, 100-103, 108, 109, 111, 120, 121, 124, 125, 127, 131, 133, 136, 138, 145-147, 149, 151, 152, 154, 156, 157, 159, 161-166, 169-171, 177, 193, 197, 202, 205, 210, 215, 218, 222, 226, 227, 228, 233,

- 240, 241, 248-252, 254, 256, 257, 262, 265-268, 270-273, 276-280, 283, 285, 288-291, 293, 296, 304, 308-313, 333, 334, 340-344, 350-354, 356, 376, 377, 383, 385, 386, 388, 395, 397, 403, 405-408, 411, 412, 414, 417, 423, 431, 433, 436, 440, 453, 472, 473, 480, 481, 483, 489, 490, 498-504, 507, 508, 514, 521, 525, 526, 551, 553, 554, 556, 557, 589-591, 605, 619, 636, 677, 678, 725, 763, 768, 770, 791, 792, 817, 818, 849, 850, 853, 857, 860, 862, 865, 874, 875, 877, 881-1027, 1031, 1036, 1041, 1048, 1050, 1053-1056, 1063, 1064, 1075, 1086, 1088, 1102, 1108, 1109, 1116, 1119, 1121, 1122, 1123, 1126, 1129, 1131, 1171, 1173.
- Martin, Pierre 1115.
- Martin, Pierre-François (aitona) 1115.
- Martin, Sofia 1115.
- Martin, Zelina (ahizpa Jenofa Santa Teresa-rena; Maria Aupegi Santuarena) 15, 21, 22, 24-37, 39, 43, 49, 50, 56, 64, 65-74, 80, 85-88, 90, 91, 93, 94, 98, 100, 103-105, 107, 109, 110, 112-115, 117-119, 121, 125, 130, 132-139, 141, 146, 147, 152, 154, 155, 157, 159, 161, 166-168, 178, 203, 210, 216, 221, 237-241, 248, 250-252, 256, 257, 261, 263, 264, 268, 269, 271, 272, 277, 279, 284, 288, 289, 291, 292, 300, 301, 317-327, 331-337, 339-348, 353, 354, 356-358, 362-380, 386-395, 397, 398, 400, 401, 408, 409, 411, 413-426, 430, 435, 438-445, 457, 464, 472, 474-477, 480, 489, 497, 498, 501, 506, 508, 510, 513, 522, 526, 527, 542, 546, 554, 555, 563, 568, 569, 574-582, 592, 594, 607, 610, 655, 667, 681, 687, 708, 720, 728, 753, 767, 768, 784, 792, 818, 843, 850, 853, 859, 860, 866, 868-870, 874, 876, 877, 882, 883, 887, 905, 928-930, 935, 940, 941, 950, 953, 965, 976, 977, 980, 984, 985, 993, 996, 998, 1005, 1006, 1013, 1014, 1016, 1017, 1023, 1026, 1028-1043, 1057, 1058, 1060, 1075, 1085, 1087, 1088, 1110, 1111, 1116, 1119, 1121, 1122, 1123, 1127, 1128, 1129, 1131, 1137, 1138, 1142, 1143, 1144, 1148, 1171, 1173, 1174, 1177.
- Martinière, De la 1102.
- Massieu, Jean 727, 746-749, 752, 755, 756.
- Matias santua 443.
- Maudelonde (Guerindarren lengusina) 86.
- Maudelonde andrea, Zelina 256, 1121, 1123, 1127.
- Maudelonde familia 410.
- Maudelonde, Césard 1127.
- Maudelonde, Elena 256, 298, 411, 1127.
- Maudelonde, Enrike 31, 32, 166, 370, 1127.
- Maudelonde, Ernest 1127.
- Maudelonde, Margarita Maria (Tostain andrea) 198, 366, 1127, 1131.
- Maudelonde, Maria 1127.
- Maudelonde, Zelina 298, 410, 411, 419, 420, 1127, 1172.
- Maupas, Alexandre (kapilau) 36, 490, 928, 952, 1128.
- Maurizio santua 484.
- Mazel, Frederik, aita 495, 894, 1106, 1138.
- Meaux-ko zaindaria (Santa Zelina) 300.
- Mendekoste (Pentekoste) 286, 882, 909, 910.
- Mendeurreneko Argitalpena 11, 15.
- Merkurio (jainko) 802.
- Mesias 802.
- Mesmay, Edith de 867.
- Messemay, De 1089, 1091.
- Michaud, Felix 56.
- Michelin, Estebe 13.
- Mignon 587.
- Mikael santua, Arkanjelua 682, 683, 687, 689-692, 697-701, 703-705, 727, 731, 732, 757, 761, 764, 821, 825-828, 1021, 1022.
- Milan 26, 134; hotela 270; katedrala 134; San Karlos hilobia 134.
- Minaberry, Marie Jeanne 4, 17.
- Moises 38, 86, 377, 471, 692.
- Molok 822, 823.
- Monday 1124.
- Monika, santua 119.
- Monnier andrea 69.
- Mont Cassin 103.
- Monteuuis, G. 467.
- Montrouge: Draeger imprimategia 56.
- Moré, Marcel 778.
- Mosku-ko umezurtza 174.
- Mounier, Emmanuel 12.
- Müller 115, 1010, 1085.

- Mun, Albert de 69.
- Nafarroa 82, 83.
 Nahman 806.
 Nain, Joan 1117, 1118.
 Napoli 26, 142; San Martin monastegia 142.
 Nazaret 12, 563, 659, 732, 793, 804.
 Nempon, P. 467, 468, 487.
 Nikolas santua 998.
 Ninibe 217
 Niza 26, 144.
 Noe 892.
 Normandia 31, 130, 920, 981.
 Notta, Alfontso, doktorea 20, 91, 152, 1128.
 Nyassaland (Malawi) 226.
 Nyassan 1120.
- Olea, Andoni 4, 17.
 Olibeta (ko baratza) 1072.
 Olibondo 1109.
 Olinpo 790.
 Onaindia, Santiago 57.
 Orleans 687, 699, 701, 725-727, 729, 734,
 736, 738, 739, 763, 819.
 Orne 23, 1130.
 Ostia (portua) 119.
 Ouilly-le-Vicomte-ko eliza 25, 125.
- Padua 135; San Antonioren mihia 135.
 Paésie 1117, 1118.
 Palmé-Albanel 1148.
 Pallu de Bellay, Margarita 249.
 Pallu de Bellay, Maria Teresa 249.
 Panamako mailegua 152.
 Papasogli, Georgio 1150.
 Papinau, Balentina 24, 107, 256, 1128.
 Papinot (Papinau) 352.
 Paray-le-Monial 30, 362.
 Paris 4, 16, 21, 24-26, 28, 39, 42, 91, 115,
 131, 132, 136, 248, 268, 329, 467, 653,
 668, 743, 817, 902, 914, 1080, 1118,
 1169; Champs-Élysées, Tuileries, Étoile,
 Bastille, Palais-Royal, Louvre, Bihotz
 Sakratuaren kriptua 26; erakusketa 29,
 329; Garaipenen Andre Maria (Eliza) 26,
 132, 268, 853; Institutu Katolikoa 237;
 Karmel (Lekaimeak) 560, 648, 1062,
 1125; karmeldar lekaimeen itzulpena
 612, 1148; Messine etorbidea (Karmel)
 560, 950, 1062, 1088; moda 135; Mont-
- martreko Bihotz Sakratuaren basilika
 132, 268, 765; Mulhouse hotela 268; rue
 des Moines 1148; rue du Bac 764; Uni-
 bertsiteate katolikoa 1122.
 Parisko Atzerriko Misiokoak 228, 621, 1131.
 Pascal, Blaise 803.
 Pasquer, Biktoria 77, 78, 83, 1128.
 Pasquerel, Jean 735.
 Paul 820.
 Pau-Banaston, rue 28.
 Paul-Banaston kalea 34.
 Paulo santua 232, 510, 643, 915, 968.
 Pedro Canisio, santua 832, 834-836.
 Pedro santua 196, 413, 438, 765, 824, 928,
 960, 968, 973, 974, 1107.
 Péguy, Charles 715.
 Petit, Elisa (Fournet, Elisa) 1128.
 Piamonte 182.
 Piat, aita Estebe-Jose 71, 1148, 1149.
 Piat, Stéphane-Joseph 1148, 1149.
 Pichon, aita Almir 22, 23, 25-28, 30, 32, 34,
 35, 92, 100, 149, 150, 159, 167, 217,
 233, 240, 266, 301, 309, 311, 318, 321,
 322, 326, 358, 424, 428, 464, 479, 555,
 695, 836, 920, 1099, 1128, 1172.
 Pichon, Alphonse 257.
 Pierre 297, 1096.
 Pigeon, Clémence 262.
 Pigeon, Josephina 262.
 Pilato 417, 946.
 Pio IX 824
 Pio X, santua 43, 242, 705, 1131.
 Pio XI 42, 43, 44, 182, 240, 726, 824, 881,
 1127.
 Pio XII 44, 726.
 Pisa 26, 144.
 Plaine-ko misioak 43.
 Poitiers 1169; Karmel 1088, 1097, 1123.
 Polonia 837; erreinua 832.
 Ponlevoy, Aita 1100.
 Ponpeia 26, 142.
 Pontmain 764.
 Poppe, J.M. 13.
 Pott gaixotasuna 286.
 Pottier andrea ik. Zelina Maudelonde.
 Pottier, Gaston 410, 1127.
 Pougheol, Teresa 490.
 Poussièlgu 491.
 Pradère, O. 970.
 Prantzini, Henri 25, 115, 116, 117, 199, 1128.

- Premua 723, 724.
 Primois, Joana 325, 918.
 Primois, Joana Maria 1128.
 Primois, Maria 325, 918.
 Protestantismoa 702.
 Prou, aita Alexis 31, 164, 920, 950, 1119, 1121.
 Radegonde serora 1098.
 Raoul Gaucourt-koa (Orléans-eko bailea) 727, 728.
 Raoul, Joana Luisa 1129.
 Ravignan, aita 1099.
 Regnault Chartres-koa (Reims-eko artza-pezpiku eta Frantziako kantzalaria) 727, 728, 735.
 Reims 699, 701, 725, 726, 727, 730, 734, 738, 763; Katedrala 739.
 Renault, Emmanuel 1149.
 Reni, Guido 1087.
 Retaux, Biktor 467.
 Révérony, Moris 26, 31, 128-130, 133, 139-143, 273, 274, 275, 276, 350, 1129, 1172.
 Ribadeneira Aita 877.
 Rideau, Emil 1149.
 Robert Baudricourt-ekoa, Hargina (Trèves eta Anjou eskualdetako Jauna) 727, 728.
 Robin, Marta 13.
 Robinson 970.
 Rochemontoux, De 1094.
 Rodelle (Aveyron) 1106.
 Rodrigo, aita 42.
 Roger, Aimée 91.
 Romet, Hortensia 1129.
 Romet, Paulina 249, 293, 320, 1129.
 Romet, Vidal 71, 1129.
 Rostkow 830, 832.
 Rouen (hiria) 725, 726, 750, 1079.
 Roulland, aita Adolfo 30, 37-40, 182, 202, 228, 242, 451, 452, 458, 459, 460, 467-471, 484-489, 495-497, 516, 517, 621, 623, 641, 849, 894, 895, 927, 957, 1006, 1103, 1106, 1128, 1129, 1172.
 Sagnier-Bray argitaletxea 106.
 Saigon 37, 203, 411, 493, 1005, 1058; Karmel 35, 411, 420, 475, 487, 493, 897, 899, 958, 1119, 1121.
 Saint-Aubin 425.
 Saint-Augustin ospitala 1130.
 Saint-Dizier 856.
 Saint-Nazaireko komentua 1119.
 Saint-Ouen 748, 757.
 Saint-Ouen-le-Pin 23, 24, 248, 1129; Saint-Pair: Karmel 1102.
 Saint-Pierre-le-Moutier 747.
 Sáinz de Baranda, Felipe 16.
 Sales Lefrançois-ko Ama Maria 399.
 Salette (-ko Andre Maria) 856, 857.
 Salome 1096.
 Salomon (bibl.) 165, 178, 506, 731, 770.
 Salutaire, ainaia 1129.
 Samariar Ona 106, 462.
 Samson 286, 287.
 San Benito, ama 1130.
 San Bizente Paulekoarena, ahizpa 37, 222, 309, 310, 567, 584, 603, 616, 617, 671, 951, 1016, 1130.
 San Exuperio, Ama 1071.
 San Frantzisko Saleskoarena, ama 1129.
 San Joan Bautista ahizpa 39, 222, 499.
 San Joan Bautista Jesusen Bihotzarena, ahizpa 1129.
 San Joan Bautistarena ahizpa 39, 222, 499.
 San Joan Gurutzekoarena, ahizpa 629, 1129.
 San Jose Jesusena, ahizpa 31, 162, 1130.
 San Leon, ama 1130.
 San Pedro Santa Teresarena, ahizpa 36, 223-225, 1130.
 San Pedro eta San Paulo eguna 249.
 San Plazido, ama 304, 305, 1130, 1172.
 San Rafael Mariaren Mariaren Bihotzarena, ahizpa 933, 937, 1130.
 San Stanislas Bihotz Sakratuena, ahizpa 30, 38, 210, 222, 482, 666, 677, 829, 882, 937, 972, 1006, 1038, 1109, 1130.
 Santiago (apostolua) 960.
 Sarthe 1080.
 Satan 467, 815, 816, 818, 826, 828.
 Sauvage 28.
 Sauvage: Condorcer, rue 28.
 Scete 1107.
 Sebastian santua 440, 874.
 Seguin jauna 653.
 Ségur-ko kondesa 22.
 Semallé (Orne) 19, 21, 67, 1130.
 Seme Galdua 106.
 Semei 221.
 Seuil 1150.

- Sévigné andrea 297.
 Shang-Hai 494.
 Simeon (Zaharra) 106, 658, 796, 990.
 Simeon Anaia 141, 352-354, 482, 1129, 1130, 1172.
 Simeon de la Sagrada Familia 1150.
 Simeon Estilita santua 917.
 Simeon (lepraduna) 767, 774.
 Sion 324.
 Sion, Victor 1149.
 Six, Jean-François 553, 1150.
 Sologne 736.
 Sonis jenerala 182, 280.
 Soumet, Alexander 417, 480, 731, 757.
 Stanislas Kostka, santua 38, 201, 666, 678, 680, 692, 829-843.
 Stein, Edith ik. Benedikta Gurutzekoa.
 Strasbourg 1126.
 Su-Tchuen 459, 460, 486, 487, 622, 1129.
 Suitza 26, 133, 134, 269.
 Sully 727.
 Surin, aita 29, 154.
 Suso, Henri (dohatsua) 966.
 Suzana 792, 798-807, 810, 811.
 Swetchine andrea 300, 948.

 Tabor 390, 571, 586.
 Taillé, Eugène 22.
 Taillé, Rose 19, 67, 1130.
 Tarzasio santua 201, 874.
 Tchoug-Kin 494.
 Teil, Mgr de 37, 42, 883.
 Teillerie, Angèle 4, 17.
 Teresa Andeskoa, santua 13.
 Teresa Avilakoa, santua 12, 61, 104, 149, 167, 182, 185, 187, 195, 217, 223, 226, 228, 229, 232, 250, 266, 285, 290, 300, 317, 319, 345, 371, 392, 402, 406, 414, 415, 434, 443, 451, 466, 470, 488, 566, 622, 627, 645, 667, 668, 695, 746, 786, 812, 818, 820, 831, 833, 858, 862, 871, 906, 915, 931, 964, 972, 1007, 1088, 1103, 1119, 1133, 1166, 1167.
 Teresa Dositea ik. Leonia 415.
 Teresa Jesusena Mariaren Bihotzarena, ahizpa 96, 353, 1130.
 Teresa Maria Aingeruena 148.
 Teresa San Augustinena, ahizpa 32, 35, 55, 90, 207, 251, 539, 650, 892, 957, 1065, 1131.

 Teresiar Erreforma 180.
 Tifenne andrea 297, 325, 925, 1121.
 Tifenne, Jakes 1121.
 Tisserant-eko botila 426.
 Tobias 1077.
 Tom (Teresaren txakurra) 32, 1074.
 Tomas Aquinokoa, santua 232, 539, 861.
 Tonkin 38, 39, 467, 487, 488, 640, 641, 1104.
 Torkol 798, 799, 801, 807, 808, 810.
 Tostain, René 198, 366, 1005, 1127, 1131.
 Toulon 144.
 Touques 25.
 Tournelles 747.
 Tours 29, 342, 343, 587, 870; Aurpegi Santua 849, 856, 867, 868, 1108; Aurpegi Santuaren Kofradia 24; Aurpegi Santuaren Ortoiztegia 342; Karmel 151, 473; Oratorioa 324.
 Tremouille (Sully-ko baroina) 727-731, 734, 737, 740, 743.
 Trèves 727, 728.
 Trillat, Raymond 56.
 Troude, Paulo, apaiza 40, 939, 1131.
 Trouville (Calvados) 24, 25, 84, 110, 261, 262, 264, 936, 1076, 1127, 1131; parroikia 1128.
 Trouvilleko Rose 24.
 Txina 37, 202, 228, 469, 489, 496, 621, 1128, 1129.

 Ubald, aita 239.
 Uribarren, Patxi 4, 17.
 Urkiza, Ana 4, 17.
 Urkiza, Julien 4, 17.
 Urs von Balthasar, Hans 847, 1150.
 Uztaritz 9.

 Valframbert (Orne) 23.
 Vallé, ahizpa Maria Aloisia 412, 413, 1131, 1172.
 Van der Meersch 239, 1150.
 Vatikano 139, 296, 555.
 Vatikano: II kontzilioa 13.
 Vatikano: San Pedro Basilika 43.
 Vatikano: San Pedro plaza 43.
 Vaucouleurs 688, 718.
 Vaughan, Diana 35, 39, 187, 678, 680, 815-819, 822-824, 1123.

- Vénard, Teofan (dohatsua) 38, 41, 201, 487, 490, 495, 509, 641, 830, 898, 903, 939, 976, 981, 982, 984, 988, 992, 1008, 1010, 1016, 1019, 1036, 1039, 1070, 1087, 1104, 1105, 1131.
- Venezia 26, 134, 135, 269, 271; Canova eta Tiziano-ren mausoleoak 269; Chambord jauregia 269; Domingotarren eliza 269; Dukearen jauregia 135; Frantziskotarren Andre Mari eliza 269; Gondolariak 796; San Markos plaza 269.
- Vesuvio 142.
- Vétiillard andrea (= Tifenne andrea) 1121.
- Veillot, Louis 42.
- Vienna 830, 835, 841.
- Vigny, Alfredo 645.
- Virville (Maria Gonzagarenaren nebea) 278, 428.
- Virville andrea 396.
- Vrin 850, 1149.
- Wallon, Henri 725, 728, 731, 907.
- Wiseman kardinala 119.
- Woilliez andrea 174.
- Xarles VII 450, 699, 727, 729-735, 738-740, 747.
- Xarles Handia (erregea) 699.
- Yabe 12.
- Youf, Luis, apaiza 351, 907, 908, 944, 947, 997, 1001, 1020, 1131.
- Zakeo 379, 651
- Zarauz 4; Araba kalea 4.
- Zebedeo semeak 661, 1030.
- Zelina santua 300, 439, 510.
- Zezipia santua 33, 137, 138, 166, 183, 201, 289, 290, 300, 401, 413, 439, 510, 542-545, 641, 652, 830, 917, 1146.

EUSKARARI DAGOKION HIZTEGITXOA

Teresaren *Idazlan Guztiak* euskarara itzultzerakoan, eta bereziki askoren artean egindako itzulpenari hizkuntza aldetik batasuna ematerakoan, urrezko arau hau izan dugu gogoan: Teresaren frantsesezko lana euskaraz birpentsatu eta birkreatzea, baina era berean testu originalari zehatz erantzunez. Itzulpen on bati ez zaio itzulpena denik antzeman behar, bestera baizik: hizkuntza hartan pentsatua eta burutua delako ustea sortarazi beharko luke irakurlearengan. Horretan saiatu gara eta irakurleak eskertuko duela uste dugu. Dena dela, lan hau euskara-gaietan oso adituak diren multzo txikiaren eskutan soilik ez dela izango sinetsi nahi dugu. Irakurle-multzo zabalagoa izan dugu gogoan: erlijioso gizonezko nahiz emakumezkoak, apaizak, kristau soilak, gazteak, adinekoak, edozein ogibidetako euskaldunak. Horientzat guztientzat, bereziki euskaraz irakurtzeko ohitura handirik ez duten irakurleentzat, zenbait hitzen esanahia argitzen dugu hemen, askorentzat lagungarri izango delakoan.

Kako artean datorren zenbakia *Idazlan Guztiak* liburu honetako orrialdeari dagokiona da.

abertimendu: zintzo jokatzeko oharra, bereziki badaezpadako jokaera izan ondoren egiten dena; "*abertimendu batek ere ez ninduen bigunduko zure laz-tan bakar batek adina*" (164)

adeitasun: gizalegea, errespetua, itzala; "*ez nuen ulertzen (...) nire izebarekiko adeitasunagatik zenik*" (90)

adeitsu: itzal, begirune edo errespetu handikoa; "*harekin maitagarri eta adeitsu izan behar genuela*" (89)

agodu: etzanda den tokian pixka bat jaiki, eserita gelditzeraino gutxi gorabehera; "*baina agondurik, ahots sarkorrez hiru bider esan zidan: (...)*" (162)

ahalgegarri: lotsagarria; "*horien bizia iduri zitzaigun arras zoroa eta horien heriotza ahalgegarria*" (754)

aholkualdi: aholkuak emateko egiten den hitzalditxoa edo antzeko zerbait; "*niri zuzenduriko lehen aholkualdian*" (79)

aienatu: bistatik galdu, desagertu, joan; "*hodeiak zeharo aienatuak zirelarik*" (124)

aihenbelar: hazten den tokian aurkitzen duen edozein gauzatan kiribiltzen den landare gorakaria; "*aihenbelar, uztao, elorri zuria*" (580)

aiko-maikoetan ibili: ezmezean, aitzakiak ateratzen ibili; "*ez dira aiko-maikoetan ibiltzen bi mila pausu egiteko*" (210)

- aintzat izan:** nahi izan, onartu zerbait egitea; “*R. jaunak aintzat izan zuen guri baratzako ateraino laguntzea*” (129)
- aisialdi:** solasean, hitz egiten, jostatzen emandako denbora; “*Karmelgo aisialdiak*” (677)
- aitzitik:** alderantziz; “*aitzitik poztu egin beharko nuke (...)*” (210)
- aldarrikari:** berriak, albisteak etab. aldarrikatzen edo zabaltzen dituen; “*zure aldarrikari apala izango naiz*” (884)
- alderoka:** oreka gorde ezinik, ziurtasunik gabeko ibileran; “*alderoka saiotoxoak eginez gure lur itunean*” (649)
- alta:** hala ere, haatik; “*alta iratzarria naiz*” (688)
- amarru:** iruzurra, tranpa, azpikeria; “*deabruak mila amarru ipiniko dizkizu argitalpen hau (...) eragozteko*” (51)
- amoltsu:** onbera, maitasunari emana, maitakorra; “*nire bihotz sentibera eta amoltsua*” (105)
- andrakiletara jolastu:** panpinetara jolastu; “*andrakiletara jolasteko handiegia zela-koan*” (70)
- apailatu:** prestatu; “*Jesus onari etxe eder bat apailatzeko eta pausaleku eder bat gure bihotzean egiteko*” (1072)
- apaldura:** umiliazioa; “*ezin dit beti ageriko apaldurazko ogi bizigarria eman*” (221)
- aratz:** garbia; “*zuga uso aratza daukat nik*” (581)
- ardurenean:** maiz, askotan (678)
- arrago:** su-ontzia, zenbait substantzia urtze-ko ontzi edo labea; “*nire arima heldu egin da (...) proben arragoan*” (63)
- arrangura:** kezka, ardura; “*idazki horiek, diren bezala adierazten digute zer ziren Teresaren arrangura handiak bere bizi guztian barna*” (1070)
- arte:** animaliak harrapatzeko tranpa; “*nik artean harrapatutako urtxintxa bat ematen nuen*” (143)
- artzaintsa:** ogibidez ardiak zaintzen dituen emakumea; “*artzaintsa xume behartsu bat besterik ez da*” (687)
- asaskaldi:** barneko kontuak konfiantzazko norbaiti esanez lortzen den pozaldia, lasaialdia; “*gure arimen asaskaldia Santa Monikak bere semearekin zuenaren antzekoa zen*” (119)
- asaskatu:** barneko nahigabeak norbaiti agertuz kontsolatu, barnea hustu eta pozik geratu; “*eta gertatutakoaz asaskatzen hasten nintzenean*” (113)
- atxaparrak:** Jainkoaren atzamarrak, lore oso usaintsuak dituen landare mota (*Lonicera periclymenum*); “*igelbelar hezeak, atxaparrak, basarana*” (580)
- atxikimendu:** lotura, zaletasuna; “*gizakiari izaten zaion atxikimendua soil-soilik izpirituala denean*” (450)
- atxikitu:** heldu, oratu, hatzekin, atzaparrek... hartu; “*haiek atxikitze eskua luzatzeko nekerik hartu nahi ez*” (98)
- bakarraldi:** erretreta, gauza izpiritualetan pentsatzeko isilik eta bildutasunean egiten den jardunaldi berezia; “*orain bakarraldian nago*” (312)
- balentria:** egintza harrigarria, egunerokoa ez dena eta jendea aho-zabalik uzten duena; “*emakume heroien balentriak irakurritz*” (97)
- barkabera:** barkatzeko joera duena, errukitsua; “*eta zein barkabera bihurtu ninduen inoren ahultasunekiko*” (207)
- barne-bildu:** kanpoko gauzetan arreta galdurik ez duena, han eta hemen barreiatu-rik ez dena, bere baitan eta bere pentsamenduetan edo izpirituko gauzetan gogoia duena; “*arima barne-bildu eta sakona zen*” (239)
- bederazka:** bana-banaka; “*bederazka ez naute izutzen*” (824)
- begietsi:** begiz ikusi, aztertu, gozatu; “*arterearen eta erlijioaren gauza miresgarri guztiak begietsi*” (130)
- begirale:** zaintzaile; “*ni naiz Mikael, Franziaren begiralea*” (689)

- begiraleku/begiratoki:** inguruak ikusteko toki aproposa; "*eskola amaitu orduko, begiralekura igotzen nintzen*" (75)
- begiramen:** adeitasuna, errespetua, begirunea, aintzat hartzea; "*oso hunkitua gelditu zen nire begiramenagatik*" (224)
- begitazio:** irudimenean gauzatzen den gauza bat, errealitatean funtsik ez izaterik ez duena; "*beharbada, begitazioa izango da, baina (...)*" (230)
- behako:** begirada, soa; "*nire Jainko-Salbatzailearen behakoa dut beharrezko*" (616)
- behar-behar izan:** benetan behar izan, ezinbesteko edo premiazko izan; "*behar-behar nuen nik poztasun hau*" (121)
- beheiti:** behera; "*ezin zuten Serafinek sine-tsi / jautsi zela Jainkoa hain beheiti*" (697)
- beila:** erromesaldia; "*elz barrutiak antolatuturiko beila edo erromesaldia*" (130)
- bekatoros:** bekataria; "*Madalenak bezala bekatoros izan ondoan, ainitz maitatuko zaituzte*" (721)
- belar:** bekokia, kopeta; "*gero koronatuko du erramuz eta errege lorez / haren belar argi eta garbia*" (688)
- beltxata:** lore mota bat (*Agrostemma githago*); "*bazen beltxata izeneko lore txiki-txo bat ere*" (166)
- berbatu:** elkarri hitz eman, elkarrekin hartan edo horretan gelditu; "*elkarrekin egoteko berbatu ginen ordua iritsi zenean*" (215)
- beren-beregi:** berariaz, apropos; "*lur hautatuan, berarentzat beren-beregi egindakoa*" (85)
- bertzelakatu:** eraldatu; "*orain ene bihotza bertzelakatu zait*" (698)
- bet-betan:** bat-batean, ustekabean; "*bet-betan ditut aditzen*" (684)
- bigunki hartu:** gozo hartu, tratu ona eman, mimatu; "*nolako egia ederra diozun Jainkoak bigunki hartzen gaituela esatean*" (TG 21)
- bilduki:** zerbait gainetik biltzen duena; "*eta bilduki hilkoraren zamatik aske den haren arima gogoz hegaldatuko dela (...)*" (257)
- bildutasun:** zentzumenak inguruko gauzetan barreiatu gabeko egoera; "*belauniko emaiten da bildutasunean*" (840)
- birikeri:** biriketako gaitza, tuberkulosia; "*negu horretan, birikeriak aurrera egin eta Teresaren indarrak janez doa*" (873)
- birloratu:** zerbaitegatik bere senetik irtenik, liluraturik, hunkiturik, zoratua bezala gelditu; "*maitasunez hiltzea ez da birloraturik hiltzea*" (886)
- bizikizun:** esperientziaz bizi izandakoa; "*bizitzako aldi guztietan du haren bizikizuna*" 243)
- bizkitartean:** bien bitartean; "*bizkitartean besta ez nuke huts egin nahi*" (687)
- bokata:** arropak garbitzea; "*komunitatea bokata egiten ari zen*" (952)
- bozkario:** poza, alaitasuna; "*gainez egin zioten laster bozkariozko malkoek*" (101)
- bridatu:** galga ezarri, frenatu; "*ez dute mihia bridatzen*" (221)
- burdinsare:** klausura gogorra duten komentuetan izaten den burdinazko sarez itxita-ko leiho berezia; "*burdinsarea ireki zenean*" (146)
- buru-estim:** norbere buruari izaten zaion atxikimendua, norbere buruarenganako maitasuna; "*nik buru-estimua nuen ez gero*" 69)
- buru-ukatzea:** norbere burua eta norbere gogoko dena utzi edo ukatu, helburu handiago bategatik edo ideal bategatik; "*orritxo bat eman zidan: 'Buru-ukatzea', nik atseginez meditatzen nuena*" (98)
- buru-uzte:** maite denarengan konfiantza osoz norbere burua uztea; "*harengan guztia zitzaidan liluragarri, batez ere haren buru-uztea eta konfiantza azken-gabea*" (137)
- bururatu:** burutu, bukatu, amaitu; "*kasik bururatua da besta*" (700)

- burusi:** manta, oheko berogarria; "*burusi guztiak aidean botatzen nituen*" (68)
- durditu:** zarata, kolpe eta antzekoen ondorioz nahasita gelditu; "*hauen txorrotxio melodiatsuak durditurik uzten zien burua*" (111)
- eder izan:** gogoko izan, atsegin izan, maite izan, gustatu "*eder zitzaidan neure loretxoak zaintzea*" (76)
- egoiliar:** bizilaguna; "*baina zeruko egoiliarrek ez dute heretikoen baimen beharrik*" (839)
- egonarri:** pazientzia, eroapena; "*bizitzako erbestea egonarriz jasaten lagundu zidan*" (164)
- egotzi:** bota, kanporatu; "*hor ikusten zaituztet alde gutzietatik egotzirik*" (657)
- ekaiztsu:** ekaitz handiak dituen; "*munduko itsaso ekaiztsuan*" (138)
- ekisaindu:** Gure Jauna agerian jartzeko eguzki forma duen gauza; "*ni ekisaindu bizia naiz egiaz*" (604)
- eldarniagarri:** bere sentik irtenda dagoenari dagokiona; "*zergatik hitz egin poztasun eldarniagarriaz?*" (184)
- eldarniatu:** bere senetik irtenda edo ametsetan ari denaren antzera jokatu; zorakeriak esan...; "*barka iezadazu, Jesus, eldarniatzen banaiz*" (182)
- eldarnio, eldarnioan egon:** amets berezia, norbait sukarrez edo gaixorik denean izaten direnetarikoak; norbait bere senetik irtenda bezala egotea; "*eldarnioan nengoela zirudien*" (92)
- elizain:** lekaiheen komentuetan elizako arropak, ontzi sakratuak, liburuak eta abar prestatzeko ardura duena; "*(...) elizaina nintzen eta*" (208)
- enoatu:** nekatu, nekeak hartu; "*enoatuko zara berririk gabe*" (686)
- eraman on:** pazientzia, egonarria, nekeak, nahigabeak ongi eramateko bertutea; "*nire Maiteak bai izan duela eraman ona, neke-aztarnarik gabe niri entzuteko!*" (107)
- erlaitz:** kornisa; "*erlaitz txikiak eta haien gainean jarriak zeuden kupidoak*" (137)
- erpajorran:** arineketa gogorrean, apatxurtika, hanka-jokoan, arrapaladan; "*eta erpajorran ihes egin zuten*" (87)
- Erpurutxo:** ipuinetako pertsonaia baten izena, txiki-txikia, erpurua edo hatz lodia bezain txikia zelako hala deitua; "*Erpurutxoren harrikoskorak bezala*" (68)
- errefau:** baratzako landarea; "*arbiak, lursagarrik, azak, / azenarioak, errefauak*" (669)
- erremusina:** behartsuei ematen zaien dirulaguntza, limosna; "*(...), bestela ez baituzue erremusinarik jasoko*" (934)
- erreopari:** oparizat eskaini eta erre egiten dena, holokaustoa; "*eta Maitasunak erreoparizat neu hautatu nau*" (184)
- erretreta:** bakarraldia, gauza izpiritualak aztertzeko eta gogoetak egiteko bildutasunean eta isiltasun giroan egiten diren jardunaldiak; "*Aita Pichon-en erretretako oharrak*" (1070)
- eskelari:** eskalea; "*Eguberriko Jainko-Haur tipi eskelaria*" (777)
- eskorga:** zamak eramateko aurrealdean gurrupil bakarra eta atzealdean bi eskuleku dituen orgatxo; "*eskorgan erabiltzen ninduen baratzan zehar*" (81)
- eskubeteka:** eskuak bete-betean, oparo, ugari; "*han eskubeteka bildu nituen bitxilore nagusiak*" (103)
- eskueran izan:** eskumenean, hartzeko eran, eskuratzeko eran izan; "*irakurleek zati hautatuak kopuru mugatua izan zuten bakarrik eskueran*" (237)
- eskumikatu:** eliz elkartetik bota eta liturgian eta sakramentuetan parte hartzea eragotzi; "*oraindik ezin dut buruan sartu Italian zer dela eta eskumikatzen dituzten hain erraz emakumeak*" (144)
- etsi-etsi:** sendoa, tinkoa; "*inor imitatzen ez aritzeko asmo etsi-etsia harturik*" (110)
- etsi-etsian:** erabaki sendo eta finkoz hartara jarria; "*etsi-etsian hitz egitera nengoen ni*" (139)

- etsita egon:** egoera atsegina izan ez arren, onartu besterik ezean edo helburu handiagoengatik (hemen bezala); *"munduko itsaso ekaiztsuan irauteko etsita zegoen"* (138)
- ezkontsari:** dotea, ezkontzara eramaten den ondarea; *"ezkontsaria hau da"* (356)
- farfailezko mantelina:** ertzetan apaingarri politikak dituen mantelina, hau da, emakumeek elizkizunetan buruan erabiltzen zuten oihal finezko estalkia, gehienetan beltza; *"eta buruan farfailezko mantelina"* (139)
- floka:** sorta; *"lore-flokak moldatuz"* (683)
- gabonsari:** Gabonetan eman ohi den oparia, erregalua; *"gero gabonsariak ematea egiten zen"* (88)
- gaintxo:** makila berezia, animaliak zaintzeko erabiltzen dena; *"maite dut ene artaldea / gaintxoarekin dut zaintzen"* (683)
- gantzuz:** ukendua, gai urintsua, zauriak sendatzeko eta beste gauza batzuetarako erabiltzen den gantz edo koipea; *"nire zaurietan gantzuz pixka bat ezarri arren"* (143)
- gantzutu:** gantzuz, ukenduz, olio santuz igurtzi; *"gaur Jainkoak gantzutu zaitu"* (385)
- gerizatu:** babestu; *"sekulako da ni gerizatzen nauen / Jaungoikoaren jauregi handia"* (693)
- goait egon:** itxaroten egon, zain egon; *"goait egonen naiz"* (686)
- goaitatu:** itxaron; *"goaitatzen nuen ordua hain zen loriagarria!"* (731)
- gogoa berotu:** barrua berotu, erakarri; *"gainerako ikasketek ez zidaten gogoa berotzen"* (117)
- goiztiri:** egunsentia; *"zu ikusteko goiztiria- ren zain nago bakean"* (601)
- gora handi:** garrantzi handia; *"gora handirik gabeko gutunak idazten dituen"* (242)
- Gorentasun:** pertsona batzuekin hitz egiterakoan, beren kargu edo ohoreagatik..., erabiltzen den titulu berezia; *"berorren Gorentasun Horri"* (275)
- haizatu:** uxatu; *"beldur guztiak haizatu ditu"* (692)
- harrabots:** zarata handia; *"entzuten da arma harrabots bat"* (737)
- hastiagarri:** gorrotagarria; *"bekatuak Jainkoaren begietan hastiagarriak emaiten gaitu baina barkatu nahi digu"* (1073)
- hatsa hartu:** arnasa hartu; *"hatsa hartzeko bakean"* (683)
- hazkurri:** janaria; *"amodiozko Jainkoa banu hazkurri"* (717)
- haztatu:** pisatu, neurtu; *"begiek haztatu ezin-eko sakonera zuten amildegiak"* (133)
- hegatxabal:** txori kantarietariko bat (*Alauda arvensis*); *"hegatxabal arinaren antzera"* (632)
- herra:** gorrotoa, amorrua; *"munduaren herra gaitzoak / ez du zikinduko Jaunaren Birjinen / elurrezko jantzia"* (813)
- higatu:** ahitu, gastatu; *"utz nazazu ene indarren higatzerat Jesusen zerbitzuan"* (794)
- hil-gutun:** norbaiten heriotz ondoren komentueta idazten den gutuna; *"eskatu ote du baimena, gero 'hil-gutuna' idazteko haietaz baliatzeko?"* (881)
- hilaginean:** hilzorian, hiltamuan; *"ni hilaginean zen santaren ohearen oinetan nengoan"* (161)
- hiltamu:** agonia; *"baina, hau hiltamu hutsa, inolako kontsolamendurik gabea da"* (1024)
- hisi:** haserre, amorrua; *"Herodesek bere hisian, / zure altxorra hartu nahi du"* (795)
- histu:** tristatu, goibeldu, ilundu; *"negar batek zerua ere histu du"* (715)
- hodeiertz:** hortzemuga, horizontea; *"amairik gabeko hodeiertza"* (296)
- hornitzaile:** behar diren janari-edariez komunitatea hornitzeko ardura duena; *"hornitzailearen ordezkotzat zegoen"*

- ahizpak barrezka begiratzen zigun** (206)
- horratik:** dena dela, hala ere; "*baina uste dut, horratik, hobe dela borrokan ez arriskatzea (...)*" (208)
- hostokatu:** hostoak kendu, hosto gabe utzi (kasu honetan lore-hostoak, petaloak kendu); "*ez dut bidean lore bat ere aurkituko zuretzat hostokatu gabe*" (186)
- hutsal:** barru hutsa, baliorik gabea, balio iraunkorrik ez duena edo erraz galtzen dena; "*handikeriaren handikeria dena da hutsal*" (293)
- iduneko:** lepokoa, apaingarriztat lepoan jartzen dena; "*hark balio handiko idunekoz edertu du nire lepo-bira*" (606)
- igelbelar:** ur-landare baten izena (*Nymphaea sp.*); "*igelbelar hezeak, atxaparrak, basarana*" (580)
- igurikatu:** itxaron; "*doi bat igurika ezazu*" (686)
- ikuskari:** begira dagoenaren aditasuna edo arreta sortzen duen gertakaria (kasu honetan, gertakari aparta, berezia); "*nik sei urtetik zazpira bitartean izan nuen ikuskaria gogorarazi nionean*" (83)
- ilaun:** oso arina; "*txinpart ilaun bat, oi bizitzako misterio, laski da sutzar neurri-gabe bat sortarazteko*" (599)
- ilemotots:** ileak elkarrekin korapilatuz egiten den multzo apaina; "*zure ilemotots luzea miresteko*" (67)
- ilunbetsu:** goibela, iluna, tristea; "*hauek lurreko jaien distira ilunbetsua*" (224)
- ingurumari:** giroa; halako ohitura, hitz egiteko era, joera zehatzak dituen leku eta gizartea; "*beti ingurumari hartan bizi izan nintzela neritzon*" (132)
- inude:** seina, haurra hazten duen eta haren ama ez den emakumea; "*inudeak ostegunean ekarri du Teresatxo*" (67)
- iraungi:** emeki-emeki amaitu, gastatu; "*oi, ene Maitea, hona hemen nola iraungiko den nire bizitza!*" (186)
- irrika:** gurari edo nahi bizia; "*neu ere prestatzeko irrikaz*" (88)
- irriño:** irribarra; "*gure irriñoak diolzerua erakutsiko*" (693)
- irus:** zoriotsua; "*ez naiz irusa!*" (802)
- isil-mezu:** sekretua, isilmandatua; "*Jesusen isil-mezua Teresari*" (626)
- isileko, isilpeko:** sekretua, lagun minei soilik kontatzen zaiena; "*geure isilpekoak esan behar genizkiola berari*" (89)
- isilmandatari:** isilmandatuak edo isileko gauzak, edonori esaten ez zaizkionak jasotzen dituen konfiantzazko pertsona; "*Zelina nire pentsamenduen isilmandatari kutun bihurtu zen*" (118)
- isilmandatu:** lagun minei edo konfiantza handiko pertsoneri esan ohi zaien mezua; "*nire isilmandatu garrantzitsuak entzunik*" (90)
- itzuri:** ihes egin, irazi; "*ez da itzurtzen zaidan eta ihes doan egun bat baizik*" (TO 5)
- izarigabeko:** neurrigabekoa; "*ahazten ote duzu, zu amodio izarigabekoa*" (723)
- janari-hornidura:** beharrezko janari multzoa; "*sarri oharatu naiz Jesusek ez duela janari-hornidurarik niri ematerik nahi*" (157)
- jautsi:** jaitsi; "*zerutik jautsia*" (691)
- jeloskor:** zeloak dituen; "*Jainko jeloskorrekin bat eginik / naukan katea oso da ezitia*" (608)
- jin:** etorri; "*jinen naiz zuhaitz ondora*" (684)
- joritasun:** oparo, ugaritasunez; "*zenbat on egin zuten nire ariman joritasunez isuritako izadiaren edertasun haiek!*" (133)
- jukutria:** azpijokoa, trikimailua, iruzurra; "*uste ote duzu ez dudala horrelako jukutriarik behin ere ikusi?*" (834)
- juzku txar:** norbaitegatik gaizki pentsatzea; "*benetako juzku txarra egin duzu*" (271)
- kafira:** habia; "*kafira ttipi xarmant bat*" (1075)
- kaier:** koaderno; "*bere haur-kaieretan aurkitu dira hiru erretretako oharrak*" (1069)

- kandela-kondo:** kandela-mutxikina; gehiena erre ondoren gelditzen den hondakin edo zati txikia; *"eta ekarri zizkidan kandela-kondoak erakutsi"* (77)
- kausitu:** aurkitu; *"nahiko nituzke hegalak / haiek kausitzeko zeruan"* (684)
- keria:** mania, nabarmen ematen duen ohitura bitxia; *"keria txiki bat zuena"* (225)
- kliskatu:** begiak itxi-ireki egin, begiak mugitu; *"eguzkiak begiak kliskatu bezain laster"* (325)
- lanjer:** arriskua; *"ez nau izutzen lanjerrak"* (705)
- lausengagarri:** gozoa, norbait gorestekoa; *"eta hitz hauek, nire aurrean esaten ez zirelako oraindik lausengagarriagoak"* (108)
- lazarri:** beldurgarria, beldurra sortzen duena; *"haren gaixotasun lazgarriaren hasieran"* (82)
- lehiatu:** ahalegindu, saiatu, zerbaitetarako presa hartu; *"haren bertuteen, haren asmo onen bila lehiatzen naiz"* (206)
- limurtu:** irristatu, leunki beherantz joan likido bat; *"eta isil-isilean limurtu ziren nire masailetan behera"* (95)
- lokuluska:** lo arina; *"haren bihotzean lokuluskan, hur-hur haren aurpegiatik"* (617)
- lore-hosto:** petaloa; *"argi-izpi epelak lore-hostoetara bidaltzen hasi orduko"* (375)
- lore-kusku:** lorea zabaldu orduko, oraindik bere baitan bildua dagoena, kapulua; *"(...) lurrak lore-kuskuak zabalitzen ikusi ez dituen (...) lau zitotriak"* (63)
- lore-nini:** lorea, erakerga; *"haren alde koloretu eta erakargarria; "hiru zitotriak kulunkatzen dituzte beren lore-nini usaintsuak"* (63)
- lotsa izan:** desohorearen beldurrez barnean nahasmendua sortu; (ipar. zenbait testuingurutan) beldur izan; *"konprenitzen dut lotsa izan zaitezen"* (1102)
- lotsarizko:** lotsarazten duena, lotsa sortarazten duena, apalarazten duena; *"kalizarik garratzena, guztietarik lotsarizkoena edan"* (153)
- lumatxa:** luma leuna, hegazti kumeen gorputzean hasiera-hasieran izaten dena; *"nik lumatxa leun batez soilik jantzitako txoritxo ahul baten antzera ikusten dut neure burua"* (187)
- lurrindatu:** lurrinez, usain gozoz inguratu; *"Argiaz egiten duzu amets, usainik gozoz enaz lurrindaturiko aberriaz"* (200)
- maite-erakutsi:** norbait maitatua dela erakusteko egiten zaizkion keinu, adierazpen etab.; *"nola adieraz nitzake (...) egiten zizkion maite-erakutsiak?"* (76)
- majadera:** ganbela, abereek jateko lekua; *"Jesus lo dagoelarik majaderan / maiz ikusten dut iratzartzen"* (784)
- maluro:** zoritzarrekoa, zorigaitzekoa; *"hola malurosak lagun nitzake arno jeneros batekin azkartuz"* (1079)
- maniatu:** zerbait egitera prestatu; *"lorea ezinbestean galduko zen unean bertan maniatzen zela ekaitza baretzera"* (91)
- manu:** agindu; *"Jainkoaren manuz"* (691)
- markestu:** ontzi baten ertzak pixka bat pikatu eta koskatu; *"suil handi bat, guztiz markestua(...)"* (155)
- marruskatu:** gogor igurtzi; *"bi maskor bata bestearen aurka marruskatzean egin ohi denaren antzeko zarata txiki bat (...)"* (225)
- mazal:** gozoa, biguna, leuna; *"zeure Jesus txit maitea, Emmanuel mazala"* (661)
- mendeku hartu:** norbait, egindako kaltearen ordaina eman beste horrenbesteko kaltea edo handiagoa eginez; *"nitaz mendeku hartu nahi izan zuen"* (91)
- mintzaleku:** komentuetan bisitak hartzeko eta hitz egiteko izan ohi den lekua; *"bakoitzak mintzalekutik txandaka irten beharko zuen"* (90)
- misionest:** misiolaria; *"kondatu digu nola gazte zelarik aita misionest batek erretreta predikatzen zuela eta erraiten ziela beharbada biharamunean bat faltako zela"* (1071)

- nabar-lore:** lore mota bat (*Centaurea cyanus*); "nabar-lorez eta landa-lorez zipris-tinduriko garitzak ikustean (...)" (72)
- nahasmendu:** barneko sen ona, baretasuna galtzean izaten den egoera; "sekula nahasmendurik ez beldurrik ezagutu ez zuten z gero" (112)
- nahikunde:** guraria, nahia, desira; "orduan nahikunde bat baizik ez dut izanen" (699)
- nare:** barea, gozoa, zakartasunik eta nahasmendurik gabea; "sentitzen nuen poza narea" (148)
- negar-intziri:** negar-zotina; "melodia baten orde z, noizbehinka negar-intziriak entzuten nituen" (224)
- negarmuxin:** negar egite arina, hurrek zerbait lortzeko egiten dutena bereziki; "negarmuxin artean" (110)
- nehon:** inon; "nehon ez dut entzuten" (684)
- neskato:** mirabea, zerbitzaria, neskamea; "Jainkoaren neskato bihotz handikoa" (699)
- ninika:** lorearen alde koloretsua eta polita, korola; "loretxoaren ninika gainean" (102)
- nobiziagai:** komentuan bizi dena, baina oraindik nobizia ez dena, hartarako prestatzen egonik; "nobiziagai nintzela" (155)
- noiztenka:** noizbehinka; "ikusten da noiztenka haur buru xarmant bat" (1080)
- ñabardura:** xehetasun txikia, bereziki koloreetan desberdintasun txikia; "ñabardura guztiak aintzat hartu" (238)
- ñir-ñirka:** diz-diz eginez, dirdiraka; "malakoak ikusiko dituzu sarritan / ñir-ñirka haren begi gozo txikietan" (564)
- oguzi:** ahoskatu, ahoz forma eman hitzei; "bere gogoz kontra etortzen zitzaizkion hitz zatarrak ez oguzteko" (875)
- ohako:** sehaska; "nahi dut izar distirant batekin / ohako bat zuretzat egin"
- oharkabean:** ohartu gabe, konturatu gabe; "Jainko onak nahi izan zuen, oharkabean hura oso gogorra izatea" (149)
- ohikune:** zeremonia; "azken oliaduraren ohikune hunkigarria" (73)
- ohoin:** lapurra; "nork erranen zuen Abraham ohoin nagusia, Haur baten aitzinean belaunikatuko zela?" (810)
- oinaztargi:** tximistak sortzen duen argitasun bizi-bizia; "nire Jesusekin elkartzea ez zen gauzatu tximista eta oinaztargi artean" (158)
- oixtian:** orain dela gutxi, lehenxeago; "oixtian entzun zaitut kantatzen" (684)
- oñoñ:** gozoki txiki-txikia; "(...) oñoñez beteriko otarretxoaz oroitzen naiz" (68)
- orail:** kolore argi, ilehoria; "eta haren adats orailaz" (554)
- oraino:** oraindik; "oraino gazteegi zara" (686)
- oren:** ordu; "oren baten buruan jinen naiz zuhaitz ondora" (684)
- ori:** tori, har ezazu; "ori Jainkoak emaiten dizun ezpata hau!!" (690)
- oroilore:** lore mota bat (*Myosotis*); "nire jarduera nagusia Ama Birjinarentzat bitxilore eta oroilorezko koroeak egitea zen" (94)
- ortzemuga:** horizontea, hodeiertza, ikusmuga; "ortzemuga zabalaren ertzean mendiak ageri ziren" (133)
- otalako:** ganbela, aska; "otalakoa zuen tronu" (696)
- otu:** burura etorri; "eta hona hemen zer otu zitzaidan" (89)
- pairakor:** eramankorra, jasankorra; "gure gaixotxoak itxaroten zuen bitartean izan zuen aurpegiara bigun eta pairakorra miretsi nuen" (1015)
- papogorri:** txantxangorria, papargorria, txindorra (*Erithacus rubecula*); "baratzean bada papogorri kafira ttipi xarmant bat" (1075)

- patar:** malda, aldapa, pendiza; "*haranek eta patarrek / begiak dizkidate bozten*" (683)
- pendiz:** aldapa, lurra gorantz egiten duen gunea; "*nire aurrean, pendizetik hurbil, kare-barrika bat zegoen*" (71)
- pentze:** larrea, belardia, zelaia; "*Joana bakarrik bere pentzean, artzain*" (683)
- pindar:** txinparta; "*zeruko izar pindarrak iduri*" (715)
- porroska:** puska, zatia, hondakina; "*horrelako porroskentzat erran daiteke, Ebanjelioak zioena: "gelditzen diren hondar-kinak bil itzazue, deus ez dadin gal"* (1069)
- poxelu:** enbarazu, traba; "*fitexko poxelutik kenduko dugu neskatxar hori*" (729)
- poxi bat:** pixka bat; "*ogi beltz poxi bat*" (744)
- poz-eztitan:** oso pozik, poz-pozik; "*poz-eztitan nengoan*" (76)
- premu:** oinordekoa; "*gorte-gizonen erdian Errege premu*" (698)
- puxant:** ahaltsua, boteretsua; "*hura Betierekoa den Puxanta*" (709)
- ri buruz:** -rantz; "*Jesusek begitartea niri buruz [nireganantz] makur dezan*" (695)
- selauru:** ganbara, aleak, bihiak edo garauak gordetzen diren lekua; "*jantzientzat Karmelgo selauruan bazegoen kutxa handi bat*" (679)
- seme xahutzaile:** ondasunak xahutzen, parrastatzen edo hondatzen dituen seme galdua; "*seme xahutzailea hartzen duzu amodioz beterik*" (599)
- serora:** lekaimea, moja (678)
- seroragai:** nobizia (678)
- so:** begirada; "*nik zure soan ikusten dut etorkizun osoa*" (540)
- sofrikario:** sufrimendua; "*zeruan haren sofrikario miresgarria / zure kopetan izanen da ageria*" (721)
- soleitu:** kontsolatu; "*ni naiz Katalina / zure soleitzeko, / zerutik jausia*" (691)
- sorgortu:** liluratu, bere senetik irten, izpiritu bere ohiko egoeratik irten; "*maitasunez benetan sorgorturik egoten nintzen*" (125)
- sorkari:** Jainkoa ez den eta haren eskutik sortua den edozein izaki; "*inongo sorkarik beregana ez dezan*" (77)
- taigabe:** eten gabe, gelditu gabe; "*atseden eta taigabe dut borrokatu beharra*" (644)
- teilatondo:** etxearen goiko ganbara, teilatu azpiko gela nahiz aretoa; "*teilatondo hau niretzat mundu bat zen*" (111)
- torratu:** igurtzi, ferekatu; "*begiak torratuz*" (737)
- trikimailu:** norbait ziria sartzeko, edota nahi dena lortzeko egiten den tranpa; "*baina trikimailua alferrik zen*" (118)
- trosta:** zaldiaren ferra-hotsa; "*aditzen da zaldi baten trosta*" (737)
- troxa:** seinua biltzeko oihala; "*O Jainkoa, zu troxetan*" (709)
- troxatu:** troxetan, oihaletan bildu haurra; "*aingeru bat agertzen da Jesus Haurra troxatua besoetan dakarrela*" (778)
- turrustatu:** likido bat aldatu ontzi batetik bestera (kasu honetan, ura goitik behera indar handiz isuri); "*ura mila eratara turrustatzen duten bere urjauzi irrisuekin*" (133)
- txairo:** polita, itxura dotore eta jaikia duen esaten da "*bela zuridun untzitxo txairoak*" (85)
- txakurramets:** begitazioa, amets hutsa, funtsik gabeko zerbait, benetako izaterik ez duen zerbait; "*nire bokazioa ametsa, txakurrametsa iruditu zitzaidan*" (158)
- txanbelin:** pinpirina, oso polita; "*sorgino-rratz ñabar txanbelinak*" (580)
- txirikorda:** elkarren segidan, hari edo firu batean sartzen diren gauzen saila; "*jendea tipula-txirikorda bezala nire ohearen inguruan eserita ikustea*" (93)
- txoka:** txoritxo kantari bat (*Acanthis sp.*); "*txoka batentzat lan zaila*" (127)

- txuontzi:** txua, txistua botatzeko ontzia; *"bere txuontzia husten aritu nintzen"* (1015)
- ukurtu:** makurtu; *"ukurtzen da Jesus Haurraren gainerat"* (714)
- umekoi:** umeen antzekoa; *"joera umekoia hartzen du"* (92)
- umemoko:** umegorria, oraindik txiki eta nahiko ezereza den umea (esanahi mesprezagarria du); *"Biktoria umemoko bat zara"* (78)
- unean-unean:** une guztietan, une bakoitzean; *"hark gidatzen nau eta irakasten dit unean-unean esan eta egin behar dudana"* (169)
- ur-xirripa:** ur-korronte txikia; *"laster doan ur-xirripa"* (683)
- urrobotoi:** lore mota bat (*Ranunculus sp.*); *"oroilore, urrobotoi, arrosa apainak"* (580)
- urrikaltsu:** errukitsua; *"Jainko Urrikaltsuak haur-haurretik deitu nau beregan"* (837)
- urrumakatu:** haurrari besoetan lo eragin; *"zuk errepika gozoz urrumakatzen zenuela"* (555)
- xalotasun:** maltzurkeriarik gabea, sinesbera eta apala denaren izaera; tolesgabetasuna, sinpletasuna; *"haur baten xalotasunez hitz egin nien"* 113)
- xaramel:** doinua, kantua; *"orain entzunen dituzue ene xaramelak"* (719)
- xarma:** lilura, erakarpena; *"Jainko-Xarma horrek nire arima liluratu eta era zoragarri baten kontsolatzen du"* (346)
- xatar:** haur-oihala, haur-zapia; *"baina Jesus Haurrak xatarretan"* (697)
- xerak egin:** maite-erakutsiak egin, ferekak, maitasuna agertzen batez ere aurpegian egiten diren ukitu leunak; *"haurtxo bati bezala xerak egin diezaizkieten"* (92)
- xerka:** bila; *"banoa zure zaldiaren xerka"* (737)
- xorta:** pixka bat (likidoa); *"Salbatzailearen negar xortak biltzeko"* (750)
- xukatu:** lehortu, sikatu; *"malkoak xukatu arte"* (80)
- xumeki:** tolesgabeki, xaloki, lau-lau, simpleki; *"xumeki eskerrak eman ondoren"* (160)
- xurikeria:** kunplimendua, norbaiti polita dela eta antzekoak esanez botatzen zaizkion hitz goxoak; *"eta sekula ez zenidaten xurikeriarik esan"* (84)
- xuxurlatu:** ahots leun-leunez zerbait esan; *"santa hark xuxurlatu zuen"* (181)
- zaharkitu:** zahar egin, zokoratzeko modukoa bihurtu; *"zaharkitutako gutuna bidaltzen dizut"* (271)
- zanbulu:** jolasteko tresna bat, toki finko batetik soka bi zintzilik, behaldean elkarri loturik eta aulki antzeko batekin dituen; *"zanbuluan ibiltzetik nator"* (256)
- zehazgabe:** zehaztu gabea, zehatz-mehatza ez dena, gutxi gorabeherakoa; *"haien inguru zehazgabeak bistatik galdu egingo zitzaizkigun"* (133)
- zendu:** hil (zenduak: hil zirenak); *"zure guraso zenduak ditut gogoan"* (495)
- zentzarazi:** zuzendu, korrejitu; norbait, gaizki egin duena agerian aurpegira esanez edo haserre eginez, bide zuzenera ekarri; *"ez da nobizia bat, ez nago hura zentzaraztera beharturik"* (222)
- zerrapo:** sarraila; *"zerrapoen jauzarazten"* (800)
- ziega:** lurpeko kartzela beldurgarria; *"ziega haiek baino heriotza bera nahiago biltzuten"* (135)
- zigilu:** seilua, marka berezia; *"zigilu misteriotsuz markatzen zuela zirudielarik"* (140)
- zin-hit:** Jainkoa (edo bizitzako gauzarik garrantzitsuena) testigu harturik emandako hitza; *"honek bere ahizpak honela esan ziola aitortu zuen zin-hitzez"* (52)
- zinez:** benetan; *"hona hemen, zinez, nire goi-deiaren misterioa"* (61)
- zintzelari:** eskultorea, zintzelez materialak landuz irudi artistikoak egiten dituen;

"zintzelarien eskuak bizia eman diela dirudien marmol zurizko irudi guztiak" (134)

zirimolatu: ekaitza sortu; *"Lisieux gainera zirimolatuko den 'aintzazko haizerauntsia'"* (881)

zirtzil: ezereza, baliorik gabea; *"arima hauengana iristeko tresnarik zirtzilenak erabiltzen ditu"* (398)

zitori: azuzena, lilia; *"berak nahi izan du zortzi zitori (...) aurretik izatea"* (63)

zizakadura: garbi hitz egiten ikasi aurretik hitz-erdika mintzatzeko era; *"haur-ziza-*

kadurak baizik ez ditut zuri entzunarazteko" (212)

zizakatu: hitzak nekez eta gaizki ahoskatu; *"(...) ahaleginak egiten ditu birjinitate,, ezkontza eta martiritzaren artean berak somatzen dituen erlazioak zizakatzen"* (542)

zurrutzan: jario handiz; *"ikusi ere haren odola isurtzen zurrutzan"* (750)

zurtz egin: harritu, txunditu, harriduraren harriduraz aho-zabalik geratu; *"zurtz eginik begiratzen zigun"* (137)

ARGITALPEN HONETAN ERABILITAKO LABURDURAK

- A Esk. Eskuizkribu Autobiografikoa, Ama Aines Jesusenari eskainia (1895).
- AE Azken Elkarrizketak
- AE/ M *Azken Elkarrizketak*, ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenak batuak.
- AE/J *Azken Elkarrizketak*, ahizpa Jenofak batuak.
- AL *Annales de sainte Thérèse de Lisieux* (ik. Bibliografia 1138. or.).
- B Esk. Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenari gutuna, Eskuizkribu Autobiografikoa (1896).
- BI Bestelako Idazkiak
- BT *La Bible avec Thérèse de Lisieux* (Cerf/DDB, 1979).
- C Esk. Eskuizkribu Autobiografikoa, Ama Maria Gonzagarenari eskainia (1897).
- CG *Correspondance générale de Thérèse de Lisieux* (Cerf/DDB, 1972/1974); «Nouvelle Edition du Centenaire»n berrikusia eta berrargitaratua (1992).
- CS Joan Gurutzekoaren *Cantique spirituel*, Parisko Karmeldar lekai-meak itzulitako argitalpena, Ed. Douniol, Paris, 2 t. 1875 (*La Vive Flamme d'Amour* eta sermoi bitan Landriot-ek Joan Gurutzekoaren idazlanei buruz eginiko azalpenekin) .
- CSG *Conseils et souvenirs*, Ahizpa Jenofak (Geneviève-k) argitaratuta, «Foi Vivante», Cerf, 1973.
- CSM 'Conseils et souvenirs' ahizpa Maria Hirutasunarenak batuak, VT-en argitaratuak, 73.zk. urtarrila 1979) eta 77.zk. (urtarrila 1980).
- DE *Derniers Entretiens* (Cerf/DDB, 1971); NEC-en berrikusia eta berrargitaratua (1992).
- DE II (DP) *Derniers Entretiens*-en Eranskinen lib. (1971), berrikusia eta «Nouvelle Edition du Centenaire»n izenburu honekin agertua: *Dernières Paroles* (1992).

- DLTH Pierre Descouvemont eta Helmuth Nils Loose-ren argazki-albuma, *Thérèse et Lisieux* (Cerf, 1991)
- DP *Dernières Paroles*; ik. DE II.
- DSA 1,2, etab. Teresaren zortzi Deboziazko Solas-Antzekiak.
- G/NPHF "Soeur Geneviève, Notes préparatoires a l'*Histoire d'une famille*."
- GAP0 Gotzain-aurreko Prozesuaren oharra, prestaera gisa.
- HA 98, etc. *Histoire d'une Ame*, Argit. 1898 (07 = 1907; 72 = 1972, etab.).
- 1, 2... IB Bederatzi «Irudi Biblikoak» Teresak eginak, liburu honetako «Bestelako Idazlanak»etan argitaratuak.
- Im *Imitation de Jésus-Christ* [Kristoren Antz Bidea (Goi-zale, Gazteiz 1956)], éd. Lamennais, 1879.
- JEV *J'entre dans la vie*, "Derniers Entretiens" en argitalpen arrunta (Cerf/DDB, 1973).
- KH Ama Ainesen «Koaderno horia» (ik. liburu honen «Azken Elkarriketak»).
- LC 'Lettres des correspondants de Thérèse', zenbakituak eta CG-n argitaratuak.
- LD Lettres diverses des correspondants ou contemporains de Thérèse entre eux' (CG eta VT-en).
- Lettres 1948
(edo) LT 1948 '*Première édition des lettres de Thérèse*' (1948).
- LKA Lisieux-ko Karmeldarren Artxiboa.
- LKD Lisieux-ko Karmelgo Dokumentazioa.
- LIZ Lisieux-ko Informazio Zentrua.
- Mes Armes *Mes Armes - Sainte Cécile*. TO 3 eta 48 zehatz-mehatz aztertzen dituen faszikulua (Cerf/DDB, 1975).
- MS/NEC *Manuscripts autobiographiques* «Nouvelle Edition du Centenaire»n (1992)
- Mss I, etc. A. Frantzisko Santa Mariaren hiru liburuki, "*Manuscripts autobiographiques*" faksimilarekin batera (OCL, 1956).
- NEC Teresa Lisieux-koaren *Oeuvres complètes*en "Nouvelle Edition du Centenaire" (Cerf/DDB, 1992), zortzi liburukitan.
- NV *Novissima Verba, Derniers Entretiens*-en argitalpena 1927an.
- Otoi. 1,2,etc. Teresaren 21 otoitzak Mendeurreneko argitalpenaren zenbakiekin (1988).
- PA *Procès Apostolique*, 1915-1917 (argitalpena: Teresianum, Erroma 1976).
- PAKO Prozesu Apostolikoak prestaera gisa; Karmeldarren oharra.

- PO *Procès de l'Ordinaire*, 1910-1911 (argitalpena: Teresianum, Rome, 1973).
- Poésies Teresaren *Poésies*-en Argitalpena; I = Sarrera etra testuak; II = Oharrak (Cerf/DDB, 1979); NEC-en liburu bakarrean egindako berrargitalpena.
- Prières *Prières*-en argitalpena (Cerf/DDB, 1988); NEC-en berrargitalpena *Récréations*-ekin batera.
- Récréations* *Récréations pieuses*-en argitalpena (*Théâtre au Carmel*, Cerf/DDB, 1985); NEC-en berrargitalpena *Prières*-ekin batera (1992).
- TDZ Teresaren Domuntazio zentroa (Lisieux-ko Karmel).
- TG Teresaren *Gutunak*, zenbakituak.



AURKIBIDEA OROKORRA

<i>Aitzinsolasa</i> , Roger Etchegaray Kardinala	9
<i>Aurkezpena</i> , Guy Gaucher apezpikua	11
<i>Hitzaurrea</i>	15
<i>Teresaren kronologia</i>	19

TESTUAK

Eskuizkribu autobiografikoak

<i>Sarrera</i>	49
--------------------------	----

A Eskuizkribua

Jaunaren errukiak kantatzen	61
Guraso paregabeak	64
Nire ahizpa nagusiak	65
Nire zelina maitea	67
Nire akatsak eta izaera	68
Nik dena hautatzen dut	71
Amaren gaixotasuna eta heriotza	73
Paulina hartzen du amatzat	74
Buissonnets-en	75
Biktorekin gorabeheratxoak	77
Nire lehenengo aitortza	78
Jaiak	79
Nire izena zeruan idatzirik	80
Paulinarenganako begirune eta maitasuna	81
Aurpegi estalia - geroko ikuskizuna	82

Abadian ikasle	85
Opor-egunak	86
Teresa eta Zelina	87
Zelinaren lehen jaunartzea	88
Paulina Karmelera	89
Gaixotasun bitxia	91
Ama Birjinak irribarre egin dit	95
Estanpak eta irakurgaiak	96
Santa izateko helburu eta eredua	97
Lehenengo jaunartzea	98
Bakarraldia	99
Jesusen lehengo musua	101
Bihotzean sufritzeko irrika bizia	103
Sendotzako sakramentua	104
Bihotz sentibera	105
Zoramenez maite izan	106
Papinau andrea	107
Andre Mariaren alaba	108
Maria nire arimaren euskarri	109
Trouville-n oporrak	110
Benetako bazar bat	111
Maria Karmelera	112
Hautzarotik irteteko grazia - gabonetako grazia	113
Arimak salbatzeko egarria	115
Kristoren Antz-Bidea eta Arminjon	117
Teresa eta Zelina Jesusen jarraitzaile	118
Jesus nire gidari bakarra	120
Karmelen sartzeko irrika	121
Aitari neure barrua zabaltzea	122
Karmelen sartzeko aitaren eta osabaren baimena	123
Karmelego bikarioa aurka	125
Haurren arimak	126
Bayeux-erako bidaia	127
Erromarako bidaia	130
“Italian ulertu nuen neure bokazioa”	131
Erromarako bidaia: Paris	132
Erromarako bidaia: Suitza	133
Erromarako bidaia: Milan	134
Erromarako bidaia: Venezia - Bologna - Loreto	135
Erromarako bidaia: Koloseoa - Katakunbak	137
Erromarako bidaia: Aita Santu Leon XIII.arekin	138
Erromarako bidaia: Jesusen jostailutxo	141
Erromarako bidaia: Napoli - Ponpeia - Asis	142
Erromarako bidaia: Florentzia	143
Erromarako bidaia: Emakumeen alde	144

Karmelen sartzeko baimenaren zai	145
Apezpikuaren baimena	146
Karmelen sartzen da	147
Aita Pichon-ekin aitortza	149
Ama maistra Maria aingeruenaren azalpena	150
Aurpegi Santua - aitaren gaixotasuna	151
Abitu-hartzea - Elurra	152
Sufrimendu-egarria	154
“Neure Zuzendariak” emandako argiak	155
Nire eztei-jantzia	156
Profesarako bakarraldia	157
Profesa eta belo-hartzea	158
Ama Jenofa	160
Gripe-izurritea	162
Aita Alexis-ek zuzenduriko bakarraldia	164
Ama Ainesen prioretza	165
Aitaren heriotza - Zelina Karmelera	166
San Joan Gurutzekoa eta ebanjelioa	168
Maitasun-kanta	170
Armarriaren azalpena	174

B Eskuizkribua

Jesusen isilpekoak	177
Maiatzaren 10eko ametsa	180
Nire bokazioa maitasuna da	182
Elizaren bihotzean ni maitasuna izango naiz	185
Txoritxoa eta arranoa	187
Jainko-begiradaz liluratuta	189

C Eskuizkribua

Jaunaren Errukiak kantatzen	193
Loretxoa	194
Igogailua	195
Ahaguztidunak gauza handiak egin ditu	197
Ostiral Santuz - Lehenengo odol-goitikak	198
Ganduak itsuago bihurtzen dira	199
Ez naiz bizitza luze baten beldur	201
Misiolari izateko deia	203
Maitasuna	205
Jesusek bezala maitatu	206
Ez epaitu	207
Ihes egitea	208
Eman eta kentzen utzi - Lagun-hurkoa maitatu	209
Maitasuna ekintza bizian	211

Gauzak aurreratu hartzekorik gabe	212
Jainkoaren bideak eta bitartekoak	213
Pintzeltxoia	214
Nobizien janaria	217
Nire arma menperaezinak	218
Otoitza	219
Azukrea eta ozpina	221
Arima inefektuak	222
Ahizpa San-Pedro	223
Zaratatxo bixi bat - arropak garbitzen	225
Nire lehen nebatxoa - misiolariak	226
Erakar nazazu, goazen korrika	229
Emaidazu palanka bat eta mundua jasoko dut: otoitza-maitasuna	232

Gutunak

<i>Sarrera</i>	237
TG 1 Luisa Madalenari (1877-IV-4)	247
TG 2 Joana eta Maria Guérin-i (1877-IV-12)	247
TG 3 Mariari (1877-VI-10/17)	248
TG 4 Maria Guérin-i (1877-IX-16)	248
TG 5 Paulinari (1878-VI-26)	248
TG 6 Paulinari (1880-XII-1)	249
TG 7 Paulinari (1881-VII-4 ?)	249
TG 8 Zelinari (zatiak) (1882-IV-23)	250
TG 9 Ama Maria Gonzagarenari (1882-XI/XII ?)	250
TG 10 Zelinari (1883-IV-29)	251
TG 11 Ahizpa Aines Jesusenari (1884-III-1/6)	251
TG 12 Mariari (1884-V-8)	252
TG 13 Zelinari (1884-V-8)	252
TG 14 Maria Guérin-i (1883-1885)	252
TG 15 Zelinari (1883-1885)	252
TG 16 Guérin andreari (zatiak) (1887-V-10/17)	253
TG 17 Mariari ([1885-V-21])	253
TG 18 Martin jaunari (1885-VIII-25)	253
TG 19 Maria Guérin-i (1886-VI-26)	255
TG 20 Maria Guérin-i (1886-VII-15)	256
TG 21 Mariari (1886-X-2)	257
TG 22 Zelinari (1887-IV-31)	261
TG 23 Maria Guérin-i (1887-VI-27)	261
TG 24 Joana Guérin-i (1887-VI-27)	262
TG 25 Maria Guérin-i (1887-VII-14)	263
TG 26 Maria Guérin-i (1887-VIII-18)	264

TG 27	Ahizpa Aines Jesusenari (1887-X-8)	265
TG 28	A. Pichon-i (1887-X-23)	266
TG 29	Leoniari (1887-X-23/30 ?)	267
TG 30	Aines Jesusena eta Maria Bihotz Sakratuarena ahizpei (1887-XI-6)	268
TG 31 A	Maria Guérin-i (1887-XI-10)	268
TG 32	Guérin Andreari (1887-XI-14)	270
TG 31 B	Maria Guérin-i (1887-XI-14)	271
TG 33	Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenari (1887-XI-14)	271
TG 34	Ahizpa Aines Jesusenari (1887-XI-14)	271
TG 35	Maria Guérin-i (1887-XI-19)	272
TG 36	Ahizpa Aines Jesusenari (1887-XI-20)	273
TG 37	Maria Guérin-i (1887-XI-25)	274
TG 38 B	Hugonin Apezpikuari (1887-XII-3/8 ?)	275
TG 39	Révérony apaizari (1887-XII-16)	275
TG 40	Hugonin Apezpikuari (1888ko Urtarrilaren hasiera)	276
TG 41	Delatroëtte kalonjeari (1888-I-13/30)	276
TG 42	Ahizpa Maria Bihotz-Sakratuarenari (1888-II-21)	277
TG 43 B	Ahizpa Aines Jesusenari (1888-III-18 ?)	278
TG 44	Hugonin Apezpikuari (1888-III-27)	279
TG 45	Ahizpa Aines Jesusenari (1888-III-27)	279
TG 46	Martin jaunari (1888-IV-29)	283
TG 47	Zelinari (1888-V-8)	284
TG 48	Martin jaunari (1888-V-8)	284
TG 49	Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenari (1888-V-12/20)	285
TG 50	Maria Guérin-i (1888-V-13)	286
TG 51	Martin jaunari (1888-V (?)-17)	287
TG 52	Martin jaunari (1888-V/VI,?)	288
TG 53	Zelinari (1888-VI-17)	288
TG 54	Ahizpa Aines Jesusenari (1888-VII-4 ?)	289
TG 55	Ahizpa Aines Jesusenari (1888-VII-5/9)	290
TG 56	Ahizpa Aines Jesusenari (1888-VII-11)	290
TG 57	Zelinari (1888-VII-23)	291
TG 58	Martin jaunari (1888-VII-31)	292
TG 59	Guérin jaunari (1888-VIII-22)	294
TG 60	Guérin andreari (1888-VIII-23)	295
TG 61	Martin jaunari (1888-VIII-25)	296
TG 62	Maria Guérin-i (1888-IX)	297
TG 63	Martin Jaunari (1888-IX-30)	298
TG 64	Martin Jaunari (1888-X-8/15 ?)	299
TG 65	Zelinari (1888-X-20)	300
TG 66	Martin Jaunari (1888-XI-15)	301
TG 67	Guérin andreari (1888-XI-18)	302
TG 68	Martin Jaunari (1888-XI-25)	303
TG 69	Maria Guérin-i (1888-XI ?)	303

TG 70	Ama San Plazidori (1888-abenduaren hasieran)	304
TG 71	Guérin andreari (1888-XII-28)	305
TG 72	Martin jaunari (1888-XII-30)	306
TG 73	Guérin andreari (1889-I-2)	307
TG 74	Ahizpa Aines Jesusenari (1889-I-6)	308
TG 75	Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenari (1889-I-6 edo 7)	309
TG 76	Ahizpa Aines Jesusenari (1889-I-7)	310
TG 77	Martin jaunari (1889-I-8)	311
TG 78	Ahizpa Aines Jesusenari (1889-I-8)	312
TG 79	Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarena (1889-I-8)	313
TG 80	Ahizpa Marta Jesusenari (1889-I-10)	314
TG 81	Zelinari (1889-I-23/25 ?)	317
TG 82	Zelinari (1889-II-28)	318
TG 83	Zelinari (1889-III-5)	319
TG 84	Guérin andreari (1889-III-12)	320
TG 85	Zelinari (1889-III-12)	321
TG 86	Zelinari (1889-III-15)	322
TG 87	Zelinari (1889-IV-4)	323
TG 88	Maria Guérin-i (1889-IV-24)	324
TG 89	Zelinari (1889-IV-26)	325
TG 90	Zelinari (1889-IV-27?)	327
TG 91	Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenari (1889ko maiatzaren azkena)	328
TG 92	Maria Guérin-i (1889-V-30)	329
TG 93	Maria Guérin-i (1889-VII-14)	331
TG 94	Zelinari (1889-VII-14)	332
TG 95	Ahizpa Aines Jesusenari (1889-VIII/VIII ?)	333
TG 96	Zelinari (1889-X-15)	334
TG 97	Guérin andreari (1889-X-15)	335
TG 98	Zelinari (1889-X-22)	336
TG 99	Guérin andreari (1889-XI-18)	337
TG 100	Guérin jaun-andreei (1889-XII-30)	338
TG 101	Zelinari (1889-XII-31)	339
TG 102	Zelinari (1890-IV-27)	340
TG 103	Ahizpa Aines Jesusenari (1890-V-4 ?)	341
TG 104	Ahizpa Aines Jesusenari (zatiak) (1890-V-5/6?)	342
TG 105	Zelinari (1890-V-10)	343
TG 106	Ahizpa Aines Jesusenari (1890-V-10)	344
TG 107	Zelinari (1890-V-19/20)	344
TG 108	Zelinari (1890-VII-18)	345
TG 109	Maria Guérin-i (1890-VII-27/29)	348
TG 110	Ahizpa Aines Jesusenari (1890-VIII-30/31)	350
TG 111	Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenari (1890-VIII-30/31)	351
TG 112	Ahizpa Aines Jesusenari (1890-IX-1)	351
TG 113	Ahizpa Maria Bihotz Sakratuenari (1890-IX-2/3)	352
TG 114	Ahizpa Aines Jesusenari (1890-IX-3)	352

TG 115	Ahizpa Aines Jesusenari (1890-IX-4)	354
TG 116	Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenari (1890-IX-7)	355
TG 117	Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenari (1890-IX-8)	355
TG 118	Ahizpa Teresa Jesus Haurrena eta Aurpegi Santuarenaren eztei-egunerako gonbidapena (1890-IX-18/20 ?)	356
TG 119	Ahizpa Marta Jesusenari (1890-IX-23)	356
TG 120	Zelinari (1890-IX-23)	357
TG 121	Ahizpa Maria Jose Gurutzekoari (1890-IX-28)	361
TG 122	Zelinari (1890-X-14)	362
TG 123	Guérin andreari (1890-X-15)	363
TG 124	Zelinari (1890-X-20)	364
TG 125	Guérin andreari (1890-X-17)	365
TG 126	Zelinari (1891-IV-3)	366
TG 127	Zelinari (1891-IV-26)	367
TG 128	Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenari (1891-VII-5)	368
TG 129	Zelinari (1891-VII-8)	368
TG 130	Zelinari (1891-VII-23)	370
TG 131	La Néele andreari (Joana Guérin) (1891-X-17)	371
TG 132	Zelinari (1891-X-20)	372
TG 133	Guérin andreari (1891-XI-16)	373
TG 134	Zelinari (1892-IV-26)	374
TG 135	Zelinari (1892-VIII-15)	376
TG 136	Maria Guérin-i (1892-X-16)	377
TG 137	Zelinari (1892-X-19)	378
TG 138	Guérin Andreari (1892-XI-17)	380
TG 139	Guérin jaun-andreei (1892-XII-30)	381
TG 140	Ama Aines Jesusenari (1893-II-20)	385
TG 141	Zelinari (1893-IV-25)	386
TG 142	Zelinari (1893-VII-6)	389
TG 143	Zelinari (1893-VII-18)	391
TG 144	Zelinari (1893-VII-23)	392
TG 145	Zelinari (1893-VIII-2)	394
TG 146	Guérin andreari (1893-VIII-10)	395
TG 147	Zelinari (1893-VIII-13)	397
TG 148	Leoniari (1893-VIII-13)	398
TG 149	Zelinari (1893-X-20 ?)	400
TG 150	La Néele andreari (1893-X-22)	402
TG 151	Leoniari (1893-XI-5)	403
TG 152	Guérin andreari (1893-XI-17)	404
TG 153	Guérin jaunari (1893-XII ?)	405
TG 154	Leoniari (1893-XII-27)	405
TG 155	Guérin jaun-andreei (1893-XII-29)	406
TG 156	Ama Aines Jesusenari (1894-I-21)	407
TG 157	Zelinari (1894ko martxo edo maiatza)	408
TG 158	Leoniari (1894-III,?)	409

TG 159	Zelina Maudelonde-ri (1894-III-26)	410
TG 160	Ahizpa Maria Aloisia Vallée-ri (1894-IV-3)	412
TG 161	Zelinari (1894-IV-26)	413
TG 162	Zelinari (1894-IV-26)	414
TG 163	Ahizpa Teresa-Dositea (Leonia)-ri (1894-V-20)	415
TG 164	Ahizpa Teresa-Dositea (Leonia)-ri (1894-V-22)	416
TG 165	Zelinari (1894-VII-7)	416
TG 166	Pottier andreari (Zelina Maudelonde) (1894-VII-16)	419
TG 167	Zelinari (1894-VII-18)	420
TG 167bis	Guérin andreari (1894-VII-19)	423
TG 168	Zelinari (1894-VIII-5/10)	423
TG 169	Zelinari (1894-VIII-19)	424
TG 170	Ahizpa Teresa Dositea (Leonia)-ri (1894-VIII-20)	426
TG 171	Ahizpa Teresa Dositea (Leonia)-ri (1894-X-11)	427
TG 172	Guérin andreari (1894-XI-17)	428
TG 173	Ahizpa Teresa Dositea (Leonia)-ri (1895-I)	429
TG 174	Ahizpa Jenofa (Zelina)-ri (1895ko urtarrilaren azkena)	430
TG 175	Teresa Dositea (Leonia) ahizpari (1895-II-24)	430
TG 176	Teresa Dositea (Leonia) ahizpari (1895-IV-28)	431
TG 177	Maria Guérin-i (1895-VII-7 ?)	432
TG 178	Guérin andreari (1895-VII-20/21)	433
TG 179	Ahizpa Jenofari (1895ko irailak 8aren inguruan)	435
TG 180	La Néele andreari (1895-X-14/15, 17)	435
TG 181	Guérin andreari (1895-XI-16)	437
TG 182	Ahizpa Jenofari (1896-II-23)	438
TG 183	Ahizpa Jenofari (1896-II-24)	442
TG 184	Ahizpa Jenofari (1896-II-24)	444
TG 185	Ahizpa Jenofari (1896-II-24 / III-17)	445
TG 186	Leoniari (1896-IV-11)	449
TG 187	Ahizpa Maria Hirutasunarenari (1896-IV-30)	450
TG 188	Ahizpa Maria Hirutasunarenari (1896-V-7)	450
TG 189	Aita Adolfo Roulland-i (1896-VI-23)	451
TG 190	Ama Maria Gonzagarenari (1896-VI-29)	452
TG 191	Leoniari (1896-VII-12)	455
TG 192	Guérin andreari (1896-VII-16)	457
TG 193	Aita Roulland-i (1896-VII-30)	458
TG 194	Ahizpa Maria San Joserrenari (zattia) (1896-IX-8/17 ?)	460
TG 195	Ahizpa Maria San Joserrenari (zattia) (1896-IX-8/17 ?)	460
TG 196	Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenari (1896-IX-13 ?)	461
TG 197	Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenari (1896-IX-17)	463
TG 198	Moris Bellière apaizgaiari (1896-X-21)	465
TG 199	Ahizpa Maria San Joserrenari (1896-X-20/30 ?)	466
TG 200	Ahizpa Maria San Joserrenari (1896-ko urriaren azkena ?)	467
TG 201	Aita Roulland-i (1896-XI-1)	467
TG 202	Guérin andreari (1896-XI-16)	472

TG 203	Ama Aines Jesusenari (1896-XII-4)	473
TG 204	Ama Aines Jesusenari (1896-XII-18)	473
TG 205	Ahizpa Maria San Joserenari (1896-XII ?)	474
TG 206	Ahizpa Maria San Joserenari (1896-XII ?)	474
TG 207	Ahizpa Jenofari (1896-XII ?)	475
TG 208	Ahizpa Jenofari (1896-1897 Negua)	475
TG 209	Ahizpa Jenofari (1896-1897 Negua ?)	476
TG 210	Ahizpa Jenofari (1896-1897 Negua ?)	476
TG 211	Ahizpa Jenofari (1896-XII-24)	476
TG 212	Ahizpa Maria Hirutasunarenari (1896-XII-24)	477
TG 213	Bellière apaizgaiari (1896-XII-26)	478
TG 214	Ahizpa Jenofari (1897-I-3 ?)	480
TG 215	Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenari (1897ko hasiera ?)	480
TG 216	Ama Aines Jesusenari (1897-I-9)	480
TG 217	Ahizpa Maria San Josepenari (1897-I ?)	481
TG 218	Simeon Anaiari (1897-I-27)	482
TG 219	Ama Aines Jesusenari (1897-II-22)	483
TG 220	Bellière apaizgaiari (1897-II-24)	483
TG 221	Aita Roulland-i (1897-III-19)	485
TG 222	Ama Aines Jesusenari (1897-III-19)	489
TG 222bis	Guérin andreari (1897-IV-3)	489
TG 223	Ama Aines Jesusenari (1897-IV-4/5)	490
TG 224	Bellière apaizgaiari (1897-IV-25)	490
TG 225	Ahizpa Ana Bihotz Sakratuarena (1897-V-2)	493
TG 226	Aita Roulland-i (1897-V-9)	494
TG 227	Ahizpa Jenofari (1897-V-13)	497
TG 228	Ahizpa Jenofari (1897-IV/V,?)	498
TG 229	Ama Aines Jesusenari (1897-V-23)	498
TG 230	Ama Aines Jesusenari (1897-V-28)	499
TG 231	Ama Aines Jesusenari (1897-V-30)	500
TG 232	Ama Aines Jesusenari (1897-V-30)	501
TG 233	Ama Aines Jesusenari (1897-VI-1)	502
TG 234	Ahizpa Maria Eukaristiarenari (1897-VI-2)	502
TG 235	Ahizpa Maria Eukaristiarenari (1897-VI-2)	503
TG 236	Ahizpa Maria Hirutasunarenari (1897-VI-2)	503
TG 237	Ama Aines Jesusenari (1897-VI-2)	503
TG 238	Leoniari (1897-VI-3)	504
TG 239	Ama Aines Jesusenari (1897-VI-3 ?)	504
TG 240	Ahizpa Maria Hirutasunarenari (1897-VI-3 ?)	504
TG 241	Ahizpa Marta Jesusenari (1897-VI ?)	505
TG 242	Ahizpa Maria Hirutasunarenari (1897-VI-6)	505
TG 243	Ahizpa Jenofari (1897-VI-7)	506
TG 244	Bellière apaizgaiari (1897-VI-9)	507
TG 245	Ama Aines Jesusenari, Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenari eta Ahizpa Jenofari (1897-VI ?)	508

TG 246	Ahizpa Maria Hirutasunarenari (1897-VI-13)	509
TG 247	Bellière apaizgaiari (1897-V-21)	510
TG 248	Leoniari (1897ko ekainaren azkena ?)	512
TG 249	Ahizpa Maria Hirutasunarenari (zatiak) (1897ko uztailearen erdi ingurua ?)	513
TG 250	Ahizpa Maria San Josearenari (1897ko uztaila ?)	513
TG 251	Ahizpa Marta Jesusenari (1897-VI-VII ?)	514
TG 252	Ama Aines Jesusenari (1897-VII-13)	514
TG 253	Bellière apaizgaiari (1897-VII-13)	514
TG 254	A. Roulland-i (1897-VII-14)	516
TG 255	Guérin Jaun-Andreei (1897-VII-16)	517
TG 256	Ahizpa Marta Jesusenari (1897-VII-16 ?)	518
TG 257	Leoniari (1897-VII-17)	519
TG 258	Bellière apaizgaiari (1897-VII-18)	519
TG 259	Ahizpa Jenofari (1897-VII-22)	522
TG 260	Guérin Jaun-Andreei (1897-VII-24/25 ?)	523
TG 261	Bellière apaizari (1897-VII-26)	523
TG 262	Ahizpa Jenofari (1897-VIII-3)	527
TG 263	Bellière apaizgaiari (1897-VIII-10)	527
TG 264	Ahizpa Maria Hirutasunarenari (1897-VIII-12)	529
TG 265	Ahizpa Maria Eukaristiarenari (1897-VIII-22)	529
TG 266	Bellière apaizgaiari (1897-VIII-25)	529

Olerkiak

<i>Sarrera</i>	533
TO 1	Jainko Ihintza edo Mariaren Esne Garbia	539
TO 2	Gure Maistra eta Ama maiteari bere 60. urtean omentzeko . . .	541
TO 3	Zezilia santua	542
TO 4	Joana de Arco agurgarria aldaretara goratzea lortzeko kantika .	546
TO 5	Nire Gaurko Kanta	548
TO 6	Maite dudan Arima baten Argazkia (Jesusen Bihotzaren jai) .	550
TO 7	Eskerroneko kanta Karmel Mendiko Andre Mariari	551
TO 8	Santu baten Alabaren otoitza	552
TO 9	Ume erbestetu baten otoitza	555
TO 10	Erregina bihurtu zen neska artzain baten istorioa	556
TO 11	[Maria Aines Aurpegi Santuarenak abitua jantzi zuen egunean]	559
TO 12	[Zure ondora, Maria Birjina]	561
TO 13	Zeruko Erreginak bere alaba maite Aurpegi Santuaren Mariari	563
TO 14	Gure Aita San Jose	566
TO 15	[Bihotz Sakratuaren atomoa]	567
TO 16	Jesusen Maitearen Eskerroneko Kantua	568
TO 17	Maitasunez bizi!	569

TO 18	Zelinaren Kanta	574
TO 18bis	Jesus duenak Guztia du	582
TO 19	Jesus-Ostiaren atomoa	584
TO 20	Nire Zerua hemen behean!...	586
TO 21	Bere atsedentokia aurkitu duen arimaren kanta	587
TO 22	Nire Ama maiteari haurtzaroko Aingeru Eder izan nuenari	589
TO 23	Jesusen Bihotz Sakratuari	591
TO 24	Jesus ene Maitea, oroi zaitetz!...	594
TO 25	Nire Nahiak bere Maitasun-Kartzelan gordea den Jesusen ondoan	603
TO 26	Ines Santuaren Errepika	605
TO 27	1896ko otsailaren 24ko oroitzapena.	607
TO 28	Betiko kantika, atzerrian kantatua	608
TO 29	1896ko apirilaren 30eko oroigarria	610
TO 30	Jainkoari buruzko glosa	612
TO 31	Hirutasunaren eta Aurpegi Santuaren Mariaren Ahizparen Kanta	613
TO 32	Nire Zerua Niretzat	616
TO 33	Nik laster lehenengo aldiz ikusiko dudana!...	617
TO 34	Loreak bota.	619
TO 35	Garaipenen Andre Mariari, Birjinen, Apostoluen eta Martirien Erreginari	621
TO 36	Jesus Bakarrik	623
TO 37	[Jaietako sorta...]	625
TO 38	Jesusen isil-mezua Teresari	626
TO 39	Doktore Santu eta Ospetsua	627
TO 40	Karmelgo elizainak	627
TO 41	Nola nahi dudan nik maitatu	629
TO 42	[Zuk badakizu nire izena...]	630
TO 43	Jesus Haurraren Txoritegia	631
TO 44	Nire Zeruko Neba-Ahizpei.	633
TO 45	Nire Poztasuna!	636
TO 46	Neure Aingeru Zaintzaileari.	639
TO 47	Teofan Vénard-i	640
TO 48	Nire Armak.	643
TO 49	Betiko Laguntzaren Amari.	645
TO 50	Joana Ark-ekoari	647
TO 51	Arrosa hostokatua.	648
TO 52	Buru-uztea maitasunaren fruitu gozoa da	650
TO 53	Ahizpa Maria Hirutasunarenari [Lili bat arantza artean]	653
TO 54	Zergatik maite zaitudan, oi Maria!	655
TOE 1	[Oi Jainkoa...]	665
TOE 2	[Izar bat agertu zen...]	666
TOE 3	[Lurrean eginik...]	666
TOE 4	Zerua da ordaina.	667
TOE 5	[Santa Marta egunerako]	670

TOE 6	[Ama Maria Gonzagarenari]	672
TOE 7.	[Aingeruen eta hautatu ooren...]	672
TOE 8	[Nire txikitasun aparta ezagutzen duzuna...]	673

Deboziozko solas-antzerkiak

<i>Sarrera</i>	677
DSA 1	Joana Ark-ekoaren misioea	681
DSA 2	Aingeruak Jesusen sehaskan	707
DSA 3	Joana Ark-ekoa bere misioea betetzen	725
DSA 4	Jesus Betanian	767
DSA 5	Eguberriko Jainko-Haur tipi eskelaria Karmelitetan eske	777
DSA 6	Egiptorat ihes	791
DSA 7	Apaltasuna garaile	815
DSA 8	Stanislas Kostka saindua	829

Otoitzak

<i>Sarrera</i>	847
1. Otoitza:	[Neure Ama Birjina ona]	853
2. Otoitza:	[Profesako txartela]	854
3. Otoitza:	Maitasunezko beriradak Jesusi	855
4. Otoitza:	Hirutasun Guztiz Santuari omena	856
5. Otoitza:	“Lore mistikoak”	857
6. Otoitza:	Neure buruaren eskaintza osozko oparizat Jainko Onaren Maitasun Errukitsuari	860
7. Otoitza:	[Sagrarioko Jesusi otoitza]	863
8. Otoitza:	[Otoitza Bellière eliz-gizonaren alde]	865
9. Otoitza:	[Zelina eta Teresaren otoitza]	866
10. Otoitza:	[Egunaren eskaintza]	867
11. Otoitza:	[Zure Antzeko izan nadila]	867
12. Otoitza:	Aurpegi Santuari Konsagratzea	868
13. Otoitza:	“Betiko Aita, zure Seme bakarra”	870
14. Otoitza:	[Jesus Haurari]	871
15. Otoitza:	“Betiko Aita, eman didazunetz gero”	872
16. Otoitza:	[Aurpegi Santuari]	872
17. Otoitza:	“Jauna, gudari-taldean Jainkoa”	873
18. Otoitza:	[Oi Errugabe Santuak!...]	874
19. Otoitza:	[Sinismen egintza]	875
20. Otoitza:	Apaltasuna lortzeko otoitza	876
21. Otoitza:	“Zeruko Erregina banintz”	877

Azken Elkarrizketak

<i>Sarrera</i>	881
Ama Ainesen kuaderno horia	889
Teresak Zelinari esandako azken hitzak.	1028
Ahizpa Maria Bihotz Sakratuarenak bilduak	1044
Teresaren Beste hitzak:	1052

Bestelako idazkiak

<i>Sarrera</i>	1069
I. "Buissonets" etan (1880-1884)	1071
1. Erretretako oharrak	1071
2. Gertakari ohargarriak (1884-1886)	1074
3. Diktatua eta eskola lanak	1075
4. Arminjon-etik atera oharrak	1080
II. Karmelean (1888-1897)	1083
1. Zenbait Irudi Bibliko.	1083
2. Ama Jenofa Santa Teresarenaz oroitzapenak	1088
3. Idazki ezberdinak	1098
4. Bibliatik hartuak	1106

Gehigarriak

Teresaren genealogia	1115
Jaunagana bihurtu eta maitasunez hildako bekatariaren historia	1117
Izen berezien hiztegitxoak	1119
Erlijio-bizimoduaren hiztegitxoak	1133
Lisieux-ko Karmelgo ordutegia	1137
Karmelgo janari-edari araubidea	1138
Planoak: Lisieux-ko Karmel 1897n	1139
Bibliografia	1145
Aurkibide biblikoa	1151
Aipamenen aurkibidea	1165
Teresaren gutunen hartzaileak	1170
Hitz giltzarrien aurkibidea	1173
Izenen aurkibidea	1180
Euskarari dagokion hiztegitxoak	1196
Argitalpen honetan erabilitako laburdurak	1207
Aurkibide orokorra	1211

